# Egungo Euskararen Hiztegia

## —K—

[bertsioa: 2024-01-09]

---

**kabal** *izond* ganorazkoa.

Ez, ez zen, inondik inora, oso jarrera **kabala**. Aritz Gorrotxategi

Egunkariak hilketaren berri ematen zuela ikusirik, ordea, irtenbiderik **kabalena** gorderik egotea zela iruditu zitzaidan, oihartzunak irauten zuen bitartean. Aritz Gorrotxategi

· Rosariorekin egon nahi izatea ez zitzaion oso **kabalekoa** idurituko. Aingeru Epaltza

---

**kabala**[1] *(orobat **kabale** g.er.)* **1** *iz ipar* aberea, azienda.

**Kabalak** larruzko zakuto bana darama bi aldeetatik dilindan. Aingeru Epaltza

1000 **kabala** (behi, zaldi, ardi, zerri, asto, ahuntz). Herria

Jendalde handia eta **kabala** ederrak. Herria

Ardia **kabala** estimatua da. Itxaro Borda

Ardiak, *rattlesnake*ak edo bestelako **kabalak** hilik ardura ikusiak zituen. Itxaro Borda

Berexi zuen lurra uretarik, hauiek beztitu **kabala,** arrain eta landaretaz. Herria

Jendeak eta **kabalak** euskaraz agurtzeko. Itxaro Borda

Behi zenbait eta **kabale** xeheak. Herria

Goizean goizik bazihoazen inguruetako laborariak beren **kabalekin**, behi edo ardi, erremolka bat zaldi karrosari loturik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Abere edo **kabala** baten gerizapean jartzen da urtea Txinan: ohoratzen dute garratoinaren urtea, zakurraren urtea, leoinaren urtea... Herria

Abere edo **kabala** baten gerizapean jartzen da urtea Txinan: ohoratzen dute garratoinaren urtea, zakurraren urtea, leoinaren urtea... Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Asteazken goizean **kabala** feria. Herria

**Kabala** lan gehienak eginak nituen eta, bat-batean, korrika ibiltzeko behar gorria senditu nuen. Daniel Landart

Kabalentzat bereziki orain egiten diren **kabala** haztegi eta hazteko maneratik haste. Herria

**Kabala** bagoi batean, igortzen gituzte erran gabe norat. Michel Oronoz

Jendeen hats tepoa, perfume eta salboin merkeen usain gohaingarria, besapeetarik jauki **kabala** izerdi nazkagarria. Itxaro Borda

Ostatu, **kabale** -bazka, epizeria eta okindegiarekin, salerospenetarako egina zen Beñat eta zinez maitatua eskualde guzian. Herria

Gorputzaren ahulezia, eritasun, izpirituaren etsimendu, herio izurrite xahar eta haur ttipietan, **kabala** galtze, herriak ez zekien gehiago noiz arte iraunen zuen. Michel Oronoz

· Ez da aurten **kabala** gorri lehiaketarik eginen. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kabala bagoi** (3); **kabala ederrak** (4); **kabala feria** (3)

---

**kabala**[2] *(orobat **kabalah**)* **1** *iz* juduen artean, Idazki Sakratua azaltzen zuen ahozko tradizioa.

Ez al du ba **kabalak** esaten hitz santuak esanez sortu zuela Jainkoak mundua? Koro Navarro

**Kabalaren** arabera, paradisuko arima guztiek maitasuna egiten dute. Koro Navarro

**Kabalaren** arabera, arrazoia ez da aski Jainkoaren eta kreazioaren misterioak ulertzeko, eta, hala, **Kabalak** bitarteko esoterikoak, errebelazioa eta Idatzi Santuen interpretazioa ere erabiltzen ditu. Koro Navarro

**Kabalarentzat,** letra horrek *En Soph* delakoa adierazten du, dibinitate mugagabe, puru-purua. Juan Garzia

Zazpi urtez munduko lau hegaletan ibilia zen, mistizismoa, **Kabalah** eta jakintza ezkutuak ikasten: Egipton, Thailandian, Indian... Gotzon Garate

Eskaintzaren eta eskaeraren legea **Kabala** juduaren arabera interpretatzen saiatzen zen. Iban Zaldua

**2** ***kabalak egin*** aieruka aritu.

Olatzek ez zuen sator itxurarik, horretaz **kabalak** egitea ez zen zaila. Harkaitz Cano

Hasierako berri-mina eta murmurioa kalaka bilakatu zen, jendeak erreparorik gabe eta ozen egiten baitzituen ekarpenak, galderak eta **kabalak**. Anjel Lertxundi

---

**kabaladun** *iz* abereduna.

**Kabaladun** ala ez, orori komita hedatua zauzue. Herria

Orduan Diputatuen proposamena hau izan zen, **kabaladunek** ordaintzea ihiztari . Herria

---

**kabalatasun** *iz* aberetasuna.

Jendetasunaren geruzaren azpian ttattit aiduru zegoen **kabalatasunaren** antzeko zerbait. Itxaro Borda

Barnean neukan **kabalatasuna** iratzartzen zihoakidan eta gutxitarik ez nuen "satisfakzione" marraka salbai bat askatu. Itxaro Borda

---

**kabalategi** *iz* aberetegia.

Horra zertako jada Bakersfield inguruetara abiatuak diren **kabalategi** deiztegien egiten. Herria

---

**kabalazain** *(corpusean **kabalzain** soilik)* *iz* kabalak zaintzen dituen pertsona, abeltzaina.

Aitzineko sindikatak maiatzaren hogeila gibeltü züan abere larrientako, eta **kabalzain** horiek nahi lükeie berriz hamarreala ekar dadin. Herria

---

**kabaldu,** kabal, kabaltzen da *ad*

Edo, garbi esanda, presoak bakarrik ulertzen du bere egoera, presoak bakarrik daki zenbateraino **kabaldu** litekeen jaulierra. Koldo Izagirre

---

kabale ik **kabala**[1].

---

**kabaleria** *iz* kabala multzoa.

Garrik formatu gabe **kabaleriari**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**kabalgata** *iz* kabalkada, zaldiketa.

Beti izaten zen kantu parte-hartzaileren bat, argigailuaren, berbenaren, lore jokoen, **kabalgataren,** karrozaren, mozorroaren, danborraden [...] erraldoiaren eta buruhandiaren artean une jakin batean behar zenerako egokitzen zena. Askoren artean

Faxista lotsagabe horiek, agenteak **kabalgatan** egoteaz baliatu ziren [...] Poliziari erasotzeko. Berria - Euskal Herria

Erregeen **kabalgata**. Herria

---

**kabalistiko** *izond* kabalari dagokiona.

Gnostikoek erabiltzen duten hitz **kabalistikoa** da *abraxas* delakoa, eta Izaki Gorena adierazten omen du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aztikerietarako ikur **kabalistikoa**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Esanahi ezkutu, **kabalistiko,** magiko, tantrikoa agian. Jon Alonso

Rabbien literatura **kabalistiko** eta talmudiko osoan. Xabier Kintana

Halako esanahi erdi-**kabalistikoa** ematen diola edo. Iban Zaldua

---

**kabalkada** **1** *iz* zaldiketa.

Bertze bestarik ere baduk plaza huntan, dantza, kantu, bertsularitza, **kabalkada,** etxe sartze eta abar, eta ikuskizun horiek guziek airosten die herriaren bizia. Michel Oronoz

Toberak desagertzen dira eta **kabalkadak** agertzen, bigarren gerlatik landa bereziki. Berria - Kultura

**Kabalkada** xinpleak, tobera-mustrarik gabekoak. Herria

**Kabalkadaren** ibilaldia Donibane Garaziko karriketan. Herria

**Kabalkadak** fama handiko soinulariak herrira jinarazten zituen bezala, tobera da bertsolaria herrira gomitatzeko aitzakia. Berria - Kultura

Edozein **kabalkadetan** bezala beztituak izanen dira, burasoek eta Garaziko Lagun elkarteak moldatu jauntzi ederrekin. Herria

Herri bateko gazteriak **kabalkada** bat muntatzen bazuen, faltarik gabe Fauxtin hor zen aholku edo kontseilu emaiteko eta bere etxean biltzen zituen anitz gazte, ahal bezain ongi ikas zezaten dantzatzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bilboko Gaztedi taldeak bere 25. urtemugarako antolatu zuen **kabalkada** egingo du. Berria - Kultura

**2** zamalkaldia.

Oso nekaturik zegoen, **kabalkada** geldoa izan bazen ere, atsedenaldi gutxi egin baitzuten. Agustin Otsoa

**3** ***kabalkada-tobera***

Heletako kabalkada-**toberak** igande huntan iraganen dira beraz, aratsaldeko 4.30etan. Herria

Aurten, Bithindarrak taldeak buruilaren 29an kabalkada-**tobera** bat antolatuko du Mithirinako plazan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **heletako kabalkada** (3); **kabalkada toberak** (12); **kabalkada toberekin** (3); **kabalkada toberen** (3); **kabalkada ttipi** (11)

---

**kabalkin** *izond* aberezalea.

Hor goxoki zagon zonbait behiren erdian, zinez **kabalkina** baitzen gure gizona. Herria

---

**kaballeru** *(orobat **kaballero**)* *iz* gizon prestua.

Eta denak gorbata eta trajearekin egongo dituk jantzita, **kaballeruak** bezala. Bernardo Atxaga

Uzkudunen ospakizun horretara etorriko diren **kaballeru** batzuk kriminalak izango dituk. Bernardo Atxaga

· Euri **kaballeroa** behar da sasoi honetan. Pello Zabala

---

kabalzain ik **kabalazain**.

---

**kabaret** **1** *iz* ikuskizunak ematen diren eta bezeroak edan, afaldu edo dantzatzen ahal duten etxea.

Ez zituen tabernazuloak eta **kabaretak** maite, are gutxiago Bilbokoak. Lutxo Egia

**Kabaretean** afaldu nuen; ikuskizuna ikustera joan nintzen, eta etxerako bidea hartu nuen gero. Josu Zabaleta

Buenos Airesko **kabaret** zaharretan girotutako ikuskizuna. Berria - Kultura

Goazen **kabareten** batera eta egin dezagun dantzan. Edorta Jimenez

Habanako Marianao itsasertzeko ingurune dotorean zegoen *Pennsylvania* **kabaretean** jo zuen soinu handia 1950-54 bitartean musikari profesional moduan. Parisa iritsi garenean **kabaret** literario batek hartu gaitu. Koldo Izagirre

Grosrouvre eta bera **kabareteko** errusiar neska kantari batez maitemindu ziren; Tania zuen izena. Jon Muñoz

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Le Parisien izeneko areto batean turistentzako nazioarteko **kabaret** ikuskizun bat ikusi nuen. Jon Muñoz

Larunbat gauetako bere **kabaret** -ekitaldietan. Oskar Arana

Baziren jazza egiten zutenak eta baziren **kabaret** -musika egiten zutenak. Felipe Juaristi

Bluesera edota **kabaret** doinuetara gerturatzen diren kantuak. Berria - Kultura

Garaziko Ikastola eta Garazikus elkartea berriz ere elgarretaratzen dira **kabaret** gaualdi (edariak eta bixkotxak) goxo baten antolatzeko. Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bertso- **kabaret** ikuskizuna aurkeztuko dute Enbeitak, Ibarrak eta Pereak. Berria - Kultura

*Theatre du Nord* delakoan, bertako talde iraunkorrak literatur **kabareta** antzeztu zigun talentu handiz. Edorta Jimenez

---

## kabaretera *iz* kabaret batean aritzen den emakumea.

Baina justu orduan podiumera igo zuten, eta **kabaretera** biren ondoan jarri zuten eta musuka jan zuten. Berria - Kultura

---

## kabaretero *izond* kabaretekoa, kabaretari dagokiona.

Xenpelar eta Cohen ezkontzeko aukerak ematen zizkigun, eta estudiora sartu baino pixka bat lehenago atera zitzaigun bertsio nahiko **kabaretero** hori. Berria - Kultura

---

## kabatina *iz (musikan)* aria laburra eta bakuna.

Kantari batek, berrogeita hamarren bat urteko urretxindor tripandia, sopranoendako **kabatinak** abestuko ditu. Koldo Izagirre

---

## kabendies *interj*

Panderojole gaztea falta eban eta Kepa Arrizabalagak dinotso: **"Kabendies** ! semeari esango deutsat" , eta bihamonean han jatorko Keparen semea, berau be Kepa izenekoa, panderoagaz etxera, entrenetan hasteko. Xabier Amuriza

---

## kabendios *interj* ik **kabuendios**.

**-Kabendios** ! -entzun zen Marroren ahotsa, urrun-. Juan Kruz Igerabide

Halako sua eukan ze, atzamar txikerra apurtuta eukana ahaztu egiten jakon eta "ai, **kabendios!"** hots egiten eban, min hartueran. Xabier Amuriza

-Jo eta hil egingo zaituztet, **kabendios** ! Juan Kruz Igerabide

---

## kabendioska *adlag* ik **kabuendioska**. *kabendios* esanaz.

Honek bere hauspoari **kabendioska** ziharduan. Xabier Amuriza

Beste telefono bat ikusten dugu joka, eta segundo batzuk geroago Misterra dutxatik ateratzen, **kabendioska,** toalla txiki batez bilduta etxeko zoru guztia zipriztinez blaitu eta kristorenak esaka. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## kabernikola *izond* atzerakoia.

Mehatxu zuzena, besterik ez zuten merezi **kabernikola** haiek. Koldo Izagirre

---

## kabestru *iz* zamaria estekatzeko edo eramateko, lepoaren inguruan ezartzen zaion lokarri edo uhala.

Atea gurutzatu, eta bere zaldiaren **kabestrua** askatu zuen zutagatik. Juan Garzia

**Kabestrutik** dakar zamaria eta begiak gizonengandik kendu gabe egiten du aurrera. Pello Lizarralde

Egitura sendoko estalpe baten azpian, Balthazar zegoen zain, abiatzeko prest, **kabestruan** loturiko zaku batetik oloa jaten. Karlos Zabala

Hurrena, **kabestruz** loturik zeukan otsokume bat ikustera eraman zituen. Jose Morales

**Kabestru** bat ezarri eta herrestan eraman ninduten gorilek Jauregiko goialdera. Joxan Elosegi

---

## kabi ik **habia**.

---

## kabiar *(orobat **kaviar** g.er.)* **1** *iz* gaizkataren arraba gazituak, sukaldaritzan oso aintzat hartuak.

Sushia eta **kabiarra** besterik ez dago mahai gainetan. Harkaitz Cano

Ez zuen jan **kabiarrik,** ez xerra mehetan ebakitako sardinzarrik. Karlos Zabala

**Kabiar** gazitua, sardinzar ketuak, gazta, mihi ketuak eta gaizkata-bizkar onduak. Jose Morales

Kaspio Itsasoko **kabiarra** ustiatzen duten estatuei. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Izokinak, tamaina guztietako gaizkatak, **kabiar** -orea. Jose Morales

Zortzi plater zuri distiratsuetan **kabiar** -kanape bana. Lopez de Arana

**Kabiar** sandwich batek. Xabier Olarra

Oreinki errea, jirafa xerrak, **kabiar** pote osoak. Joxan Elosegi

Barrara hurbildu, krepe arruntak **kabiar** prezioan ordaindu, eta kalera irten zen. Migel Angel Mintegi

· Beluga **kabiarra,** Perigordeko boilurrak edo antzeko zerbait. Xabier Mendiguren Elizegi

Kamtchatkako izokin **kaviarra** du 6 eurotan lata, izokina 7,5 eurotan kiloa, eta beste hainbat arrain Berria - Mundua

---

**kabiarazi**, kabiaraz, kabiarazten du *ad* kabitzera behartu.

Fede horrekin eta helburu horrekin bilatzen da Espainia zer den definizioa (eta nazioa bera zer den halaber: gero definizio horretan eroso kabi dadin, aldez aurretik bertan **kabiarazi** gura zen guztia). Joxe Azurmendi

---

**kabida** **1** *iz* edukiera.

Hala ere, bihotz-bihotzetiko gorespenez, **kabida** handiko arimatzat daukat nik hura, eta haren izpiritua, berriz, halako bakan eta berezitzat non [...]. Juan Garzia

**2** ***kabida izan*** du *ad* lekua izan.

Estatutu berri horrek **kabida** izan behar du Espainiako Konstituzioan. Berria - Euskal Herria

---

kabidu ik **kabitu**.

---

**kabila** *iz* burdinazko edo zurezko atala, iltzearen antzekoa, zulo batean sartzen dena edo bi osagai zulodun elkartzeko erabiltzen dena. ik **larako; ziri**.

Babiekaren zela dago **kabilaren** ondoan. Patxi Ezkiaga

Baina dakienak daki jartzen **kabila** pertikari eta zaila ez bada ere, dakienak sartzen dio haria orratzari. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**kabiladun** *izond*

Biharamunean, **Kabiladunen** hegaldiaren hurrengo egunean, ongi janzteko eta apaintzeko esan zion dukeak Santxori. Patxi Ezkiaga

---

**kabilatxo** *iz* kabila txikia.

Amarrurik ere ia-ia ez dut egin nire metrailadorearen agindua bi bider kontatuz: segurtasuneko **kabilatxo** bat du. Josu Zabaleta

---

**kabildo** **1** *iz* katedraleko kalonjeen multzoa.

**Kabildoa** edo kalonjeen biltzarra desegina da. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** udalbatza.

Baina gaur egun lana gehien bultzatzen ari dena Fuerteventurako **Kabildoa** da, hango diputazioa. Berria - Kultura

· Cauca Iparraldeko **Kabildo** Indigenen Elkartea. Berria - Mundua

---

**kabiliar** **1** *izlag* Kabiliakoa, Kabiliari dagokiona.

Argeliako **kabiliar** herrietako sinbologian ere, eperrak neskatxaren edertasuna eta grazia adierazten du. Patziku Perurena

Gobernuak jakin arazia zuen **kabiliar** mintzaira izanen zela hemendik goiti herriko mintzaira. Herria

Dermouch Frantziako lehen prefet musulmana **kabiliar** (berbere) jatorrikoa da. Berria - Mundua

**2** (izenondo gisa)

Historiako laugarren prefeta **kabiliarra**. Irri **kabiliarra** erraten diote horri. Xabier Montoia

**3** *iz* Kabiliako herritarra.

Manifestaldi haundi bat nahi izan dute muntatu **Kabiliarrek** Alger hirian. Herria

Rif-eko **kabiliarren** artean. Aingeru Epaltza

Badute ere Said Sadi **kabiliarra** besteak beste eta herri hortan bederen arrakastatsua dena. Herria

---

**kabina** **1** *iz* gela edo egoitza txikia eta bakartua.

Henao kaleko ONCEren **kabinara** abiatu ziren denak emanda. Patxi Iturritegi

Interpretarietako bat autolesionatzen saiatu da saioa hasi aurretik, mikrofonoko kablea lepo ingurutik bi buelta eman eta **kabinako** goiko habetik eskegita. Jon Alonso

Hiruzpalau mutil disc-jockeyaren **kabina** inguruan. Pako Aristi

Ez baitzidan dutxa bakoitzaren ondoren **kabina** automatikoki desinfektatzen zela adierazi. Joxan Elosegi

**Kabina** baten ondotik igarotzean, telefonoa joka hasi da. Patxi Zubizarreta

**Kabinako** atea itxi ondoren hoteleko zenbakia markatzen ari nintzela. Ramon Saizarbitoria

**Kabina** itxiak lasai hitz egitera bultzatzen du. Pello Lizarralde

Barruko jendea "erakusleiho"an zeramatzala, aire-burbuila jendeztatu bat zirudien **kabinak,** urez betetako beira-zutabe batean gora. Jon Muñoz

Libre da estasiatzea jainkotasunak komunetako **kabinetaraino** ezinbestean eginiko bide horretan. Joxan Elosegi

Liburutegi munizipalean badago **kabina** berezi bat elbarrituek dokumentuak kontsultatzeko. Herria

**2** (ibiilgailu eta itsasontzietakoa)

Hegazkineko pilotuak **kabinako** argiak piztu zituen eta gerrikoa lotzeko agindua eman. Javi Cillero

Pilotuen **kabinara** sartzeko zapata bonbak baliatuta. Berria - Mundua

**Kabina** barruan zegoen Zulaika, abante agintzen laurehun zaldiei lau nudotan. Koldo Izagirre

Argia otzan-otzan piztu da Mary Stuart goletaren **kabina** argiztatuz. Lopez de Arana

Bagoietako eta **kabinako** klimatizazio sistema. Berria - Ekonomia

Tanke haren gainean, **kabinan** gerriraino sarturik. Fernando Rey

Kamioiaren **kabina** hainbat amabirjinen estanpaz eta argazkiz apainduta dago. Iban Zaldua

Mundua kamioiaren **kabinara** eta errepidera mugatzen zen. Patxi Zubizarreta

Lasterka joan zen kapitainaren **kabinara**. Juan Garzia

Gero lemazainaren **kabinara** joanen zarete. Komunikazio bulegoko **kabinan** .· Bera zen, kokotsandi hura, zazpigarren garabiko **kabinan** ez baina gure aldagelan sartua. Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuetan)

**Kabina**-klaseko kamarote bat. Joxe Austin Arrieta

· Telefono **kabina** bat baino txikiagoa. Patxi Iturritegi

Kontrol **kabina** presurizatuan bi kreatura adimentsu zihoazen, bi afrodita nerabe eta sustantzibako. Patxi Iturritegi

Lakona ta? -galdatu zion kontrol **kabinatik** itseskatzen zen hodiaren isurian ahots metalikoak. Itxaro Borda

Aurrera jarraitu genuen helize- **kabina** handirantz. Joxe Austin Arrieta

Masta nagusiaren oinean zegoen gida-**kabina** txikiaren aurrera lagundu zion. Anjel Lertxundi

Irungo diru-truke **kabina** itxi zutenetik. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kabina barrua** (3); **kabina barruan** (8); **telefono kabina** (31)
> **kabinako atea** (3)
> **kabinan sartu** (9); **telefono kabinan** (3)
> **kabinara igo** (5)
> **telefono kabinaren** (8)
> **kabinatik irten** (3); **kabinatik jaitsi** (3)
> **telefono kabinetan** (3)

---

## kabinatxo *iz* kabina txikia.

Telefonoa erabil dezakedan galdetu eta baietz erantzuten dit **kabinatxo** bat seinalatuz. Mikel Hernandez Abaitua

Ezkaratz erdian kristalezko **kabinatxoa** bazegoen; argiaren eraginez, atezainak akuarioko paretaren aurka oldartzen den marrazoa irudi zuen. Jon Alonso

---

## kabinet *iz* logela ondoko gela.

Badut gelari bat neure zerbitzuko; badut gela bat eta **kabinet** bat nik erabiltzeko, eta idazmahai arras polit baten gainean izkiriatzen dizut, non laket zaidan guztia gorde baitezaket, giltza eman baitidate. Jon Muñoz

Zure ikaslearen gela bere amarenetik bereizten duen **kabinet** sinple bat. Jon Muñoz

---

## kabinete 1 *iz* jarduera batean aritzeko prestaturiko gela.

Artean tsarra bere **kabinetearen** leihoan zegoen geldirik. Karlos Zabala

Handik pixka batera, Mikel Strogoff mandataria sartu zen enperadorearen **kabinetean**. Karlos Zabala

Jauregi Berriko **kabinete** inperialean entzundako guztia. Karlos Zabala

Saltegietan, farmazietan, tabako bulegoetan eta medikuen **kabineteetan** ere gertatzen dira lapurretak. Berria - Harian

Caligari doktorearen **kabinetea**. Josu Zabaleta

Petroliozko argiontzi batzuk zeuden, egongela eta **kabinetea** argitzeko. Josu Zabaleta

### 2 zerbaitez aritzeko bulegoa.

**Kabinete,** arkitekto, bulego eta egitura frankok parte hartu ondoan. Herria

Putzuen %40 aztertu ditu Ryder Scott **kabinete** pribatuak. Berria - Ekonomia

**Kabinete** psikologiko pribatu baterako ere aritu zen lanean. Iban Zaldua

### 3 gobernu taldea, ministro taldea.

**Kabineteko** zenbait ministrok adierazi dutenez. Berria - Mundua

Bere **kabineteko** kideekin Ramalan bilduta zegoela. Berria - Mundua

Datorren astean aurkeztuko ditu **kabinetea** eta gobernu programa. Berria - Mundua

Behin-behineko **kabinetea** osatuko duten presidente bat, bi presidenteorde, lehen ministro bat eta 26 ministro izendatuko ditu. Berria - Mundua

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amodio Ganbarako berrantolaketa proiektua, King Kong Five arkitekto **kabineteak** eskutan hartu du. Herria

Beste 60 000 euroekin kontsulta **kabinete** pribatu bat pagatuko dute, erraiteko nola antola kaserna bastiza zaharra. Herria

Eusko jaurlaritzako nekazaritza **kabineteko** zuzendaria. Berria - Ekonomia

ELAko ikerketa **kabineteko** arduradunak. Berria - Ekonomia

Edo lanbidez aldatu, mukizapi fabrika bat ipintzeko, esaterako, edo sofrologia-**kabinete** bat. Jon Alonso

Krisi- **kabinete** bat eratzea erabaki baitzuten hiriko agintariek. Josetxo Azkona

Ariel Sharon lehen ministroaren inguruan egindako segurtasun **kabinetearen** bileratik landa. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kabinete abstraktua** (3); **kabinete pribatu** (3); **kabinete zuzendari** (3); **krisi kabinete** (3)
> **krisi kabinetea** (3)
> **lehen ministroaren kabineteak** (3)
> **kabineteko zuzendaria** (5)

---

## kabineteburu *(orobat **kabinete buru**)* *iz* gobernu taldearen burua.

Elkarrizketa De Villepinen **kabineteburuarekin** ukan zuten Batera-koek, iragan ostiralean. Berria - Euskal Herria

«De Villepinen proposamenen ezereza onarraraztea zen **kabineteburuaren** helburua», argitu du Panpi Dirassarrek. Berria - Euskal Herria

1992. urtean Etxe Zuriko **kabinete buru** izandatu zuen Bushek. Berria - Mundua

Kontseilariaren **kabinete buru** Jose Manuel Santanarekin biltzeko aukera izanen zutela erran zien. Berria - Euskal Herria

Israelgo lehen ministroaren **kabinete buruekin** hitz egingo duela. Berria - Mundua

---

## kabinetetxo *iz* kabinete txikia.

Gehiago ematen du dela krisirako **kabinetetxo** bat. Berria - Kirola

---

**kabitazio** *iz* higitzen ari den isurkari bate barnean lurrunez edo gasez beteriko barrunbeak eratzea.

Fenomeno horri **Kabitazioa** esaten zaio. Fernando Morillo

· Soinu-**kabitazioa,** beraz, presio-aldaketak soinu-uhinen bitartez sortzen direnean gertatzen da. Fernando Morillo

---

**kabitu**, kabi, kabitzen *(orobat* **kabidu***)* **1** da *ad* sartu.

Hire hilobi berean lurperatu ninditean eta ederki **kabitu** ninduan hire besoen hutsartean. Juan Garzia

Beheko solairuan aise **kabituko** ziren Anoeta, San Mames, Sadar eta Mendizorrotzako futbol zelaiak. Joxerra Garzia

Hirurehun **kabitzen** diren lekuan hirurehun eta lau ere **kabituko** dira. Joan Mari Irigoien

Ahal zuen guztia sartu zuen maletan, **kabitzen** zen guztia. Koro Navarro

Esan zuen denentzako lekua topatuko zuela egongelan, **kabitzen** baziren. Julen Gabiria

Nire eskuan ia **kabitzen** ez den zakil eskerga hau. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

[Soineko] zaharra ez zitzaiolako **kabitzen**. Julen Gabiria

Begiek gehiegi ikusi baitzuten, barruan **kabitzen** zitzaiena baino gehiago. Felipe Juaristi

Urrutitik begiratzen duenari, begia **kabituko** litzaiokeen zirrikitutik ere ez zaio begirada **kabitzen**. Joxerra Garzia

Denak dira zilegi eta denak **kabitzen** dira interpretazioen zakuan. Anjel Lertxundi

Zalantza, zuzenketa, zehaz-keta eta erabaki ezina ez ziren sekula **kabitzen** aitaren mundu itxi hartan. Anjel Lertxundi

Dastatu zuen, halaber, behazuna, ezinegona, inolako pertsonaiatan **kabitzen** ez den pertsona hori. Juan Kruz Igerabide

Bere buru berde erraldoian, garai, toki eta erregistro guztietako euskara guztiak **kabitzen** ziren. Jon Alonso

Phips Hispaniolarantz zihoala jakin zutenean, pozez ezin **kabiturik** zeuden. Juan Garzia

Sar itzazu **kabituko** zaizkizun zulotik! Anjel Lertxundi

**2** du *ad* hartu.

Euskal Herriaren lau izkinatarik jin jende guztiaren **kabitzeko** txikiegia zen Otsabideko elizan. Itxaro Borda

**3** *kabitu-ezin* ik **kabituezin.**

**4** ***kabitu ezinda***

Berrogei urte inguruko fosil bat Lacoste markako polo batean **kabitu** ezinda. Patxi Iturritegi

Udaberrian ibai handiek gainezka egiten dute; daramaten ura harrotu egiten da, bere arroan **kabitu ezinda**. Berria - Kirola

Ullrich, bere aldetik, podiumean **kabitu** ezinda, jauzika, pozarren. Berria - Kirola

· Beti agertzen da euskaldunen bat indioak salbatzen, etxean **kabitu** ezin eta, misiolari joanda. Joxe Azurmendi

**5** ***kabitu ezinik***

Jendetza Sagasti tabernan **kabitu** ezinik zegoenean, zurrumurruak hasi ziren lehenik, eta gero oihuak. Iñigo Aranbarri

Ohartzen naiz gelako armairuko apalategietan liburu mordoa dagoela, **kabitu** ezinik. Edorta Jimenez

Sabelean tximeletak eta golkoan **kabitu** ezinik bihotza. Edorta Jimenez

Praketan **kabitu** ezinik da, normala den bezala. Berria - Kirola

· Njoroge pozarren, bere larruan **kabitu** ezin dela dago. Pablo Sastre

**6** ***kabitu ezinez***

Hasieran gaizki pasatzen nuen: desosegu urdurian, **kabitu** ezinez, jainkoak ala deabruak antzezten nauen jakin nahirik... Anjel Lertxundi

Neskak bere eskuak bularretan pausatu eta bere titimuturren inguruan biribilak egiten hasi zenean [...] brageta askatu behar izan nuen, kabitu ezinaren **kabitu** ezinez. Juan Martin Elexpuru

*ik* kabituezin.

**7** ***non-kabitu*** *iz*

Eskolako tonto-harro guztiak ez ziren injineru aeronautiko egin, baina irtenbiderik eta non **kabiturik** ez zaie falta izan. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kabitu ezina** (3); **kabitu ezinda** (5); **kabitu ezineko** (4); **kabitu ezinez** (3); **kabitu ezinik** (16)
> **pozez ezin kabiturik** (5)

---

**kabituezin** *(orobat* **kabitu(-)ezin***)* *iz* egonezina.

Ez dagoela umea hil zaion amaren eramankizuna, pairamena eta **kabitu-ezina** bezalakorik. Iñaki Segurola

Arian-arian loak errenditzen nau, baina garai bateko **kabitu ezina** sentitu gabe. Pello Zabala

Hitzek, hitz bizi sarkor batzuek, bere lana ongi egiten asmatzen dutenean, teologoak eta teleologoak **kabitu-ezin** batek menderatzen ditu, eta ikara batean galdegiten dizute: [...].Gertuko pertsona baten gaitzek eta **kabitu-ezinek** arima hautsien mediku edo psikiatra baten aurrean jarri naute bizian aurreneko aldiz. Iñaki Segurola

Ideia eta laineza soil horrexek ponitzen gaituela, horixe dela kasik gure **kabitu-ezinen** ustezko sendagarrien printzipio aktibo bakarra. Zer moduz bularreko **kabituezin** hori, Hester Prynne? Iñaki Segurola

Tabernaren xehetasunetan entretenitu nahi izan nuen gero eta **kabitu ezin** izutuagoa. Anjel Lertxundi

Gaur dirua ("benetako" dirua, diru handi edo gizena) sare informatikoan, **kabitu ezin** abiadan, jo batera eta jo bestera dabiltzan numero elektronikoen kendu-emana da. Iñaki Segurola

---

**kable 1** *iz* burdin hariz eginiko soka.

800 metro luze ziren **kableak,** eta 62, 5 milimetro lodi. Edurne Elizondo

Porlana garraiatzeko baliatzen zituzten **kableak** moztu zituztenean. Edurne Elizondo

Solidarioek egin dituzten ekintzen artean deigarriena urtegiko **kableak** etetea izan zen. Txema Ramirez de la Piscina

Haraxeago, **kablea** botata zegoela ikusi diat. Pablo Sastre

Eraman itzak **kable** hauek ere! Pablo Sastre

**Kablea** pasatzeko zuloa egina dago. Patxi Zubizarreta

**Kableak** lurpetik joango dituk hor. Pablo Sastre

**Kablerik** sendoena ere eten edo askatu egingo litzateke lan horretan. Irene Aldasoro

Garabiko **kablearen** muturrari mukulu bat lotu nahian. Aingeru Epaltza

Brooklyngo zubiaren **kableen** artetik. Lopez de Arana

**Kableen** mozketak izandako ondorioak "neurrigabeak" izan direla. Edurne Elizondo

· Putzua **kable** elektrifikatuz inguratu zuen oso-osoa. Koro Navarro

**2** zenbait eroale elektriko isolatuk osaturiko kable modukoa.

Tximistorratzaren burdinazko **kabletik** gora. Koldo Biguri

Hartara, asko gutxitzen da **kableen** tentsioa. Irene Aldasoro

Helikopteroak tentsio handiko **kableekin** talka egin eta lurra jo zuen. Berria - Mundua

Tentsio altuko **kablean** pankarta nola zintzilikatu. Koldo Izagirre

Telefono lineak eta sare informatikoko **kableak**. Berria - Euskal Herria

Indar-aho zurietara **kable** grisez konektatutako mikoordenagailu beltzez inguratuta. Jon Muñoz

Mikrofonoko **kablea** lepo ingurutik bi buelta eman eta kabinako goiko habetik eskegita. Jon Alonso

Elektrodoen **kableak** mugiaraziz. Pako Aristi

Telegrafiarako **kableak** gero eta laburragoak ziren. Jon Maia

Telefonoaren **kablearekin**. Pablo Sastre

**Kablerik** gabeko bost mikro. Berria - Kultura

Gaur egun, hiru lurralde horietako biztanleen erdia bizi den hiri eta herrietara heldu dira Euskaltelen **kableak**. Berria - Ekonomia

· HBO **kable** bidezko telebistako arduradunak. Berria - Kultura

Frantses gate bat **kablearen** bitartez har daitekeena. Herria

*Paris Première* gatean, **kableari** esker baitaukat gate hori. Herria

Honen berrien jakiteko, **kablea** baitut, hartu dut Tele Monte Carlo delakoa asteazken aratsean. Herria

**Kableko** kateak ere sortzekotan ari da hiria. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eraikin askotan **kable** sare elektrikoa gasaren tutuerien ondoan dago. Berria - Euskal Herria

Txona eta Guridi pasatu ziren, erreminta kaja eta **kable**-luzagarri bat eramaki. Pablo Sastre

Gaizki sartu omen nuelako kafeteraren **kable**-mutturra. Pako Aristi

Emakumearen gorpua garabiko **kable**-muturrari lotzeko lanetan. Aingeru Epaltza

Hodi eta **kable** erraiteria hau guztia zirkulazio sare bilakatu da. Josu Zabaleta

Comcast (-%7,7) AEBetako **kable** operadorak Walt Disney erosteko 66.000 milioi euro eskaini ditu. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiriko argindar **kableetan** eta semaforo altuetan. Harkaitz Cano

Geltokiak argindar **kablez** jositako amaraunak dira. Pako Aristi

Elektrizitate **kableak** txinpartaka dabiltza. Javi Cillero

Aspaldidanik ezarri zuten Chicagora arteko telefono-**kableen** linea. Mirentxu Larrañaga

Pultsu-sorgailu horrek seinale elektriko txiki bat bidaltzen du bi konexio-**kabletara**. Irene Aldasoro

Irteera-**kableak** bihotzaren kanpoaldeari itsasten zaizkio. Irene Aldasoro

**5** kablegrama.

Bere azken **kablean,** hango portuan dagoen belaontzi amerikar bat erostea proposatu digu. Edorta Jimenez

**Kable** luzeak bidali zizkion, baina Walden doktoreak isilik jarraitzen zuen. Koro Navarro

Aurreko egunetan prentsakoak **kablez** igorria baitie hedabideei horri buruzko oharra. Edorta Jimenez

**6** luzera neurria itsasoan erabiltzen dena, 120 besabeteren baliokidea.

Berrogeita hamar solairuko dorrea, uhartexka ezin txikiago batean zut, kostatik **kable** gutxi batzuetara! Jon Muñoz

Eta kulunkan zebilen ontzi baten txanberga ikusi zuen **kable**-bete batera. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argindar kable** (3); **kable bidezko** (3); **kable sarea** (3)

**garraiatzeko kableak** (6); **garraiatzeko kableak moztu** (4); **garraiatzeko sistemako kableak** (4); **kableak moztea** (3); **kableak mozteagatik** (7); **kableak mozteko** (6); **kableak moztu** (44); **porlana garraiatzeko kableak** (6); **urtegiko kableak** (6); **urtegiko kableak moztu** (4)

**elektrizitate kableen gainera** (3); **kableen gainera erori** (5); **kableen mozketa** (7)

**kablerik gabeko** (4)

---

## kableatu *izond* kableria.

Batetik, gehiago birziklatuz gero zenbat gehiago irabazten dugun jakin behar dugu; eta bestetik, adibidez, **kableatua** banatzeak zein onura ekologiko dakarren ere jakin behar dugu. Berria - Gaiak

---

## kabledun *izond* kablea duena, kableak dituena.

Garapen horiek guztiak sare **kabledunaren** eta kablerik gabekoaren (UMTS, WiFi) banda zabaleraren handitzearen menpe daude. Berria - Gaiak

---

## kablegrama *iz* itsaspeko kablez bidaltzen den mezua. ik **kable 5**.

Bidali **kablegrama** bat helbide honetara. Josu Landa

Bidali diot **kablegrama** Fonsecari, nire urtemuga uztailaren 2an dela esanez. Josu Landa

---

## kableria *iz* kable multzoa.

Txaplik ahots ekipoaren **kableria** bildu zuen zorro batean. Unai Iturriaga

Ontziko **kableria** osoa matazatan bildua zeukan metatxoaren aitzinean. Koldo Izagirre

---

## kabo[1] *(52 agerraldi, 17 liburu eta 3 artikulutan; orobat **kabu** g.er.)* *iz* kaporala.

Portas lotinanta, Botas **kaboa**. Koldo Izagirre

**Kaboak** pare bat minutu eman du paperak aztertzen. Pello Lizarralde

**Kaboak** mapa pasatu baino lehen, eskuetatik erauzi zion sarjentuak. Jon Alonso

**Kaboa** bere ekipoko aire-bonbonaren uhalak doitzen ari zen ordurako. Jon Alonso
Gaurdaino, eskola graduatua besterik ez zaie eskatu suhiltzaile arruntei eta **kabo** lehenei. Berria - Ekonomia
Legearen izenean, oihu egin zuen, **kabo** -burua zen hura, jendea pixkanaka ateratzen hasi zen. Bego Montorio
· Udaltzainen **kaboa** irudikatu nuen gorpuaren alboan ikerketan. Lander Garro
Gau hartan Pettan-ek bekoz beko karabineruen aitzinean kausitu zen: bat, **kabua** edo kaporala; bestea, xoila. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
SSetako **kabuak**. Alberto Ladron Arana
Polizia **kabu** batek -bertako gelak zaintzeko ardura daukanak, beharbada- berriro miatu zaituzte. Rafa Egiguren

---

## **kabo**[2] *iz* lurmuturra.

Esperantza Oneko **kaboaz** edo Terranovaz mintzatu barik. Pablo Sastre

---

## **kabotaje** *iz* itsasbazterreko trafikoa.

Arrantzako, **kabotajeko,** zamako, trasatlantiko guztien tutuak. Koldo Izagirre
Sarritan ibiltzen dira han *steam-boat*ak eta aintzirako **kabotaje** ontzi txiki guztiak. Karlos Zabala

---

## **kabreatu**, kabrea, kabreatzen da *ad* ernegatzen jarri.

Ez **kabreatu,** Ebe. Sonia Gonzalez
**Kabreatuta** nagok, bai. Jon Alonso
-Eta Mister horren telefonoa emango al didazu orduan, edo hori ere debekatuta dago? **-kabreatzen** hasita. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **kabreo** *iz* ernegazioa.

Gainera, ahaztu zaidak **kabreoa** eta dena! Pako Aristi

---

## **kabriolet** *iz/izond* zalgurdi edo auto kapotaduna. ik **deskapotable**.

Wilson aita-semeak **kabriolet** gorrian abiatu ostean [...]. Oskar Arana
Bi kutxa jaisten laguntzeko **kabriolet** batetik. Anton Garikano
Mustang gorri **kabriolet** bat. Oskar Arana
Cadillac **kabrioleta,** kalea bezain luzea! Xabier Paya

---

## **kabroi** *izond (irain hitza)*

Hobe ibaiak eraman bahindu, **kabroi** hori. Juan Kruz Igerabide
Gogorra haiz, **kabroi** hori! Juan Martin Elexpuru
**-Kabroi** honek badaki non jo. Sonia Gonzalez
**Kabroi** hauek lanik gabe utziko gaituzte. Berria - Euskal Herria
Eñaut... **kabroi** halakoa! Sonia Gonzalez
**Kabroi** alaena! Aingeru Epaltza
Hi haiz hi **kabroia**. Harkaitz Cano
Altxa esku zuri horiek, **kabroia**! Juan Luis Zabala
Ni naiz beti **kabroia,** betiko alua. Xabier Mendiguren Elizegi
Beti egiten zidan putakeria bera **kabroi** horrek. Sonia Gonzalez
**-Kabroi** bat bezala aritu nauk lanean bizitza osoan; aski diat. Juan Kruz Igerabide
Baina..., nola izan haiteke horren **kabroia,** e? Antton Olano
Julio **kabroi** hutsa zen, eta zutaz aprobetxatu zen. Juan Kruz Igerabide
**Kabroi** galanta. Xabier Mendiguren Elizegi
**-Kabroi** zikina -egin dizu inspektoreordeak oihu. Rafa Egiguren
Betiko izorra hadi, putaseme **kabroi** hori. Hasier Etxeberria
-Sator putaseme bat dagoela gure artean, **kabroi** madarikatu bat. Azkenean sinetsi egingo duk gainera, **kabroi** errudun bat haizela, eta errudun uste horrek ustelduko hau. Unai Iturriaga
Hori duk **kabroi** aurpegia... Jon Maia

---

## **kabroikeria** *iz* kabroiari dagokion egintza.

Sekulako **kabroikeria** egin zioten, sekulakoa! Anjel Lertxundi
Txirrindulariok kontrolen alde gaude, baina atsedena ere behar dugu eta goizeko 7etan esnatzea **kabroikeria** handia da. Berria - Kirola

---

## **kabu**[1] *iz* amaia; muturra.

Korridorearen **kabuan** egongo naiz. Koldo Izagirre
Handik beherantz hartu dute, auzoaren **kabura,** petrila eta karrika nagusia amaitzen diren itsasertzera. Koldo Izagirre
Garaiz oroitu zen fuel depositoak txapelokerrek zaintzen zituztela, ez zen herriaren **kaburaino** ausartu. Koldo Izagirre
Hiru bat metro izanen ziren pasarelaren **kabutik** kanoaren kareleraino. Koldo Izagirre
Tristurak **kaburik** ez duela dirudien zoko ilun horretan. Patziku Perurena
Biziaren ugalkortasun **kaburik** gabea gorpuztu nahian. Patziku Perurena
*ik* kabugabe.
**Kaburik** gabeko itsaso, hondorik gabeko zeru. Felipe Juaristi

**kabu**[2] (nere, bere eta kidekoen eskuinean)

**1** ***kaburako*** baitarako.

Zerizan batek mundu-osokiaren batasun sistematiko handienarekin duen erlazioa pentsatzen dut nire **kaburako**. Ibon Uribarri

**2** ***kabutan*** baitan; harian

Nor bere **kabutan** bilduta, ez genuen ahorik zabaltzen. Anjel Lertxundi

Beste urtebete hemen!, kexatzen nintzen neure **kabutan,** pilotu izatea baitzen nire ametsa. Anjel Lertxundi

"Marrok ekarri du lehendik ere zoritxarrik, Ana", egin nuen neure **kabutan**. Juan Kruz Igerabide

Pentsamendu hauen eta antzekoen **kabutan** ari zela, ustekabean, zaldizko lapur-saldo batek inguratu zituen behizaina eta behi-taldea. Anjel Lertxundi

· Han abiatu nintzen aldapan behera, [...] Angelori buruzko kontuak **kabutan** nerabiltzala. Anjel Lertxundi

**3** ***kabutako*** *izlag* baitako.

Nire **kabutako** irudikapen erotiko haiek. Anjel Lertxundi

Hain nengoen kontzentraturik nire **kabutako** joan-etorrietan. Anjel Lertxundi

Ezagutuko ez banu, bere **kabutako** kalapita ardailatsuan buru-belarri datorrela usteko nuke. Pako Aristi

**4** ***kabutatik*** baitatik.

Suaren noizik behingo zapartak baino hots handiago batek atera ninduen neure **kabutatik**. Anjel Lertxundi

Umbertoren eskua sentitu nuen leuntasun handiz nire belaunburua sakatzen, eta neure **kabutatik** itzuli nintzen. Anjel Lertxundi

**5** ***kabuz*** kasa.

Neure **kabuz** aritzen naiz, nolabait esateko. Migel Angel Mintegi

-Ez nau inork bidali, neure **kabuz** etorri naiz. Migel Angel Mintegi

Neure **kabuz** egin nahi nuen justizia, edo, areago, mendekua behar nuen. Juan Kruz Igerabide

Geroagokoak, berriz, neure **kabuz** dakizkit. Aingeru Epaltza

Hik heuk heure **kabuz** zerbait ikasi izan bahu. Agustin Otsoa

Azkenaldi honetan, Cecily, gaizki ohitu zara zure **kabuz** pentsatzen. Antton Olano

-Zeure **kabuz** galdetzen didazu hori ala besteek esan dizute hori nitaz? Elizen arteko biblia

Amets basa batez, geure buruak mundu honetako kezka eta nahigabeetatik atera eta geure **kabuz** beste mundu bat sortzeko ametsaz, alegia. Oskar Arana

Bizirik atera ginen Ellesmoreko mendietatik, baina ez geure **kabuz** […] baizik eta Otawako txisteetan aipatzen zen polizia bikoteari esker. Bernardo Atxaga

-Biotako bat ez duk bere **kabuz** irtengo hemendik. Juan Kruz Igerabide

Ez dezaket erran bere **kabuz** edo Katalinak erregututa jokatu zuen Erreginaren idazkariak. Aingeru Epaltza

Eta ez atzean duen boterearengatik, berorren **kabuz** baizik. Juan Garzia

Gizakiaren duintasuna arrazoibidez jokatzean eta bere **kabuz** erabakitzean baitatza. Joxe Austin Arrieta

Behin erorita, bere **kabuz** jaikitzeko gauza ez zenez, […]. Xabier Etxabe

Nork bere **kabuz** tiro egin beharko dio. Mirentxu Larrañaga

Baliagarria izango zaie ohar hau jakintsuei, nik ulertzen ez dudana beren **kabuz** aurkitzeko. Jon Muñoz

Agian, erregeek haiengandik hartu zuten usadio hori, agian beren **kabuz** asmatu zuten. Iñaki Iñurrieta

Antxina egurrak euren **kabuz** etorri oi ziran baso ta oianetatik etxeetara. Pello Zabala

**6** ***kabuzko***

Askotan neure **kabuzko** burutazioek itsutu egiten naute. Pako Aristi

Gorroto dut arte sinbolikoa, irudikapenak bere **kabuzko** mugida oro galdu eta makina, alegoria bilakatzen dena. Josu Zabaleta

Liburuok -jakina- talentu berezko baten eta ikuskera bere **kabuzko** eta berezi-bakan baten fruitu ziren. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**bere kabuz agertu** (3); **bere kabuz argitaratu** (3); **bere kabuz ari** (5); **bere kabuz atera** (5); **bere kabuz ateratzea** (3); **bere kabuz aurkeztu** (3); **bere kabuz baloratu** (3); **bere kabuz egin** (11); **bere kabuz egingo** (3); **bere kabuz egiteko** (3); **bere kabuz egiten** (9); **bere kabuz eman** (3); **bere kabuz erabaki** (16); **bere kabuz hartu** (3); **bere kabuz hartutako** (3); **bere kabuz hartzen** (3); **bere kabuz ikasi** (4); **bere kabuz joan** (9); **bere kabuz jokatzeko** (3); **bere kabuz lanean** (3); **bere kabuz lortu** (5); **bere kabuz mugitzen** (3); **bere kabuz pentsatzen** (3); **bere kabuz sortu** (3); **bere kabuz sortzen** (3); **bere kabuz utzi** (3)

**beren kabuz atera** (3); **beren kabuz bizi** (3); **beren kabuz bizitzera** (4); **beren kabuz joan** (5)

**euren kabuz bizi** (3); **euren kabuz egiten** (5); **euren kabuz lortu** (3)

**nor bere kabuz** (4); **norberak bere kabuz** (4); **nork bere kabuz** (7)

---

**kabuen** *interj*

O, **kabuen** jainkoaren izen santua!, zenbat atsegin! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

kabuendio ik **kabendios.**

---

**kabuendios** *(orobat **kabuendio**) interj* ik **kabendios.**

Batzutan, hautsa, txingar eta guzti, soinuaren eta paparraren bitartera sartzen jakon eta han ibiliko zan astrapalan, soinua aparta guran **"kabuendios!"** marmarka. Xabier Amuriza

**Kabuendio,** neronek ikasi beharra zeukat harena joateko. Pako Aristi

Ai, **kabuendio**! izan al daiteke sentibera gogortuta duzunean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**kabuendioska** *adlag* ik **kabendioska.**

Rufinorena zigarroa eta eztul txikia zan, eta hautsa arkondarara, txingarra jausi eta **kabuendioska** hasten ez zanean. Xabier Amuriza

---

**kabuensos** *interj*

Ai, **kabuensos**! neskatiko hau buztantzie bada ein ber den lana, Erromatiken oinez etorko nintzake, jangoikoak aparta, pozikan asko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**kabugabe** 1 *izond* kaburik ez duena, amaigabea.

Stalingrado zulo beltza zen, zulo eskerga, zulo **kabugabea,** zulo haragijalea, baina erretagoardian, hala ere, musika entzuten zen. Felipe Juaristi

Gau itxian, gau etsian, gau **kabugabean**. Felipe Juaristi

**2** ***kabugabeko*** *(corpusean* ***kabo gabeko*** *soilik)* kabugabea.

Hitzak entzun nituen, hitz beltzak, zulo luze eta **kabu** gabeko batetik sortuak bezala uholdeka iritsi zitzaizkidanak. Felipe Juaristi

---

**kabuki** *iz* japoniar teatro mota melodramatikoa, gizonezkoek soilik antzezten dutena.

Nihonbashi edo Japoniako zubiaren inguruan sortu zen kulturgunean agertu ziren lehenengoz **kabuki** antzerkia, bunraku txotxongilo-antzerkia, eta sumo borroka. **Kabuki**-antzerki tradizionalaren elementuak. Javi Cillero

Batetik **Kabuki** antzerkian gizonek askotan emakumeen rolak egiten dituzte, baina bestalde, eta batez ere, tradizioa islatu nahi nuen horrekin. Berria - Kultura

---

**kabuxa** *iz Blennidae* familiako arraina, itsasertzeko harkaitzetan bizi dena eta azal lindirgatsua duena*(Blennius gattorugine* etab.)

Deblauki, arrain txiki bat bezala sentitu nintzen, **kabuxa** bat besterik ez, balearen aurrean. Joan Mari Irigoien

Hura ez zen inola ere **kabuxa** batek balea menperatzeko modua. Joan Mari Irigoien

---

**kadastra** *(orobat* ***kalastra****)* *iz ipar* katastroa.

Auto lekua aurrean, toki gehiagoren mentura eta herriko **kadastra** aldean toki hauta. Herria

Lehengo **kalastra** zaharretan, Napoleonen denborako horietan, pentze, oihan, erreka, mendixka, borda eta gainerateko eremu guzien euskal izenak agertzen ziren. Herria

Iparraldeko Herriko Etxe guzietako **kalastra** zaharrak ikertu ditu, gure herrietako toponimo guziak altxatuz. Herria

Artzamendiko aparka lekuan geometra batek ateratu du **kadastrako** mugak faltsuak zirela Borda Haitzekoekin. Herria

---

**kadena** *iz ipar* katea.

12 polizia armak eskutan atera ziren beren autoetarik eta berehala Xarlori **kadenak** ezarri zazkoten. Herria

Hartu zituzten jandarmek eta burdin-**kadena** batez zango besoetarik finki estekatu. Xipri Arbelbide

**Kadenen** ezabatzeko. Herria

Telebixtan Xorakeria bat erakutsi da ezkontzaz lehen **kadenan**. Herria

Al-Jazira satelita **kadenaren** bidez. Herria

---

**kadentzia** 1 *iz* hots edo mugimenduen errepikatze erregularra. ik **erritmo**.

Atea jotzeko badago **kadentzia** eta intentsitate jakin bat. Harkaitz Cano

Eskuz idazteak beste **kadentzia** bat dakar, beste erritmo bat. Ana Urkiza

Zure ibilera airos hura, zure eskuen **kadentzia** emea. Xabier Mendiguren Elizegi

Olatuak laburrak dira, **kadentzia** gozoa dute. Harkaitz Cano

Zineman berez geldirik dauden irudiak erabiltzen dira, irudi horiek **kadentzia** erregular batean pantaila baten gainera proiektatuz. Josu Zabaleta

Euriak lurra jotzen duen **kadentzia** betiberdin berberaz.Claudek, besoak dilindan, urrats handi erregularrak eginez, bi itzalei begiratzen zien pozik, ibileraren **kadentzian** galdua. Karlos Linazasoro

Mintzoa lau segundotik behin ahoratzen nituen mahats aleen mastekatzearen **kadentziara** ekarriz. Aingeru Epaltza

Ganibetaren **kadentziari** mingain klaska batez lagunduz. Karlos Zabala

Musika arloko hitza da **kadentzia,** eta soinu edo mugimenduen erritmo edo errepikapen erregularra izendatzeko balio du. Barne egitura hori behin eta berriro hitz guztietan errepikatzen denean, **kadentziaz** hitz egiten dugu. Iñaki Arranz

Bokalak eta kontsonanteak tartekatzeaz gain, beste modu asko ere badaude testu bati **kadentzia** bat ezartzeko. Iñaki Arranz

Are harrigarriagoa haren mintza-doinua [...] elkarrekiko lehen urteetan berandu etxeratzen nintzenean bere ahakarrak xamurtzeko ohi zuen **kadentzia** goxo berekoa. Aingeru Epaltza

Beti **kadentzia** bera. Koldo Izagirre

Segundo bateko **kadentzia**. Ramon Saizarbitoria

**2** musika perpaus baten amaiera, akorde disonante batetik kontsonante baterako iragaitza duena.

Esan beharra dago lan gehienetan (izaera liturgikoa zeukaten lanetan izan ezik) al-andalus-en usaina eta ukitua nabaria zela bai erritmoan bai **kadentzietan**. Berria - Kultura

Pianoa bitartekotzat azaltzen da, **kadentzia** borobila gauzatu eta bi taldeak ulermenera bultzatzen ditu bukaeran. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Aurretik ezarritako eredu bati jarraiki konposaturiko sekuentziek osatzen dute musika **kadentzia** bat. Iñaki Arranz

Sarriegiren obren musika senak eta herri **kadentziak**. Askoren artean

---

**kadentziadun** *izond* kadentzia duena.

Emakumearen aldaken mugimendu **kadentziadunak** Mogueime aztoratzen zuen. Jon Alonso

---

**kadentziatsu** *izond* kadentzia duena.

Halako batean, "polonesa" dantzatzeko deia jo zuten, eta maila guztietako gonbidatuak abiatu ziren horrelako ospakizunetan dantza nazionalaren garrantzia hartzen ohi duen ibilaldi **kadentziatsuan** parte hartzera. Karlos Zabala

---

**kadera**[1] *iz* aldaka.

Obra batean ari zela hirugarren pisutik erori eta **kadera** txikitu zian. Pablo Sastre

Egin ziotean nolabait konpondu eta **kaderaren** alde bakoitzean mariposa bana jarri. Pablo Sastre

Mutiko gizarajo bat zegoen **kaderako** tuberkulosiarekin, argizainaren semea. Anton Garikano

---

kadera[2] ik **kadira**.

---

## kadete (*orobat* **kadet**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian* **kadete** *agertzen da*) **1** *iz* jaiotze hurrenkeran lehen sortuaren ondotik datorren pertsona.

Ondoko bakarra nintzen, anaia-ahizparik gabe, ez premurik, ez **kadetik**. Joxan Elosegi

**2** Espainian eta espainiar Amerikan, akademia militar bateko ikaslea.

Rufin akademiara joan zen, eta 1830. urtean, 25 besterik ez zituela, Errusiaren aurka borrokatu zen, akademiako **kadeteek** bultzatutako altxamendu batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Euren buruak Peruko **kadete** legez aurkeztu ei zituzten. Edorta Jimenez

**3** (kiroletan) 15 eta 17 urte arteko jolakaria.

**Kadeteak:** Ibai Ropon (Zizurkil, 15 urte) eta Unai Legarreta (Urnieta, 16 urte). Berria - Kirola

**Kadete,** gazte eta nagusien mailako bina bikote aurkeztuko ditu talde bakoitzak. Berria - Kirola

Hiru mailatan lehiatuko dira: alebin, haur eta **kadeteetan**. Berria - Kirola

Xixtera haundian Kostakoak (xitoetan), BAC (tarroetan), Kostakoak **(kadetetan)** xapeldun. Herria

70 batel ariko dira infantil, **kadete,** gazte eta senior mailetan. Berria - Kirola

**Kadete,** gazte eta nagusi mailetan. Berria - Kirola

**Kadete** mailan abantaila dugula uste dut, gero jubeniletan kili-kolo gabiltza, eta nagusietan edozeinek irabaz dezakeela uste dut. Berria - Kirola

Infantil-**kadete** nesketan, Zumaia da faborito nagusia; haurrak mutiletan, Orio eta Pasai Donibane Koxtape; **kadeteetan,** Pasai Donibane Koxtape eta Zarautz; gazteetan, Trintxerpe; seniorretan, Pasai Donibane eta Orio. Berria - Kirola

Aratsaldean jokogarbian **Kadet**-gazteak eta junior-gazteak. Herria

**Kadet** gazteetan: Itsasuko Setoain-Ducassek irabazi Eskularikoeri 22-14. Herria

Gazte **kadetetan** baigorriarrak hor izanen ditugu beti. Herria

**Kadeteen** mailan Ojuel eta Grajalek 22 eta 6 irabazi zieten Aldai eta Osari. Berria - Kirola

**Kadeteek** 600 metroko proban arituko dira Zarautzen bertan. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kadet gazteak** (6); **kadet gazteen** (4); **kadet gazteetan** (10); **kadet mailan** (6)
> **kadete eta jubeniletan** (3); **kadete mailako** (6); **kadete mailakoak** (3); **kadete mailan** (13)
> **kadeteen arteko** (3); **kadeteen mailako** (3); **kadeteen mailan** (4)
> **gazte kadeten** (3); **kadeten finala** (4)
> **gazte kadetetan** (3)

---

## kadi *iz* magistratu musulmana, arazo zibil, judizial eta erlijiozkoetan aritzen dena.

Gobernadorearekin, **kadiarekin** eta bisirrarekin geratutako egun berean. Patxi Zubizarreta

**Kadiak** Koranaren bertsolerro batzuk errezitatu zizkien, eta gero esan zien: [...]. Patxi Zubizarreta

---

## kadira (*orobat* **kadera**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian* **kadira** *agertzen da*) *iz* aulkia, jarleku bizkardun besorik gabekoa.

Sukaldeko **kadiran** jarria. Aingeru Epaltza

Guardiak erakutsi **kadira** batean jarri zen. Ramuntxo Etxeberri

Plazako ostatuen kanpoko mahai eta **kadirak** hartuak daude. Piarres Aintziart

Bere mahaia eta bere **kadira** utzi zizkidan, eta bere luma eta bere tintontzia ekarri. Aingeru Epaltza

Plastikozko **kadira** batean gorputzari jareginda. Oskar Arana

Larru aizunez tapizaturiko sofak lehengo **kadira** deserosoen lekuan. Aingeru Epaltza

**Kadira** batetik zintzilikatutako plastikozko poltsatik. Aingeru Epaltza

Ixtripu handi baten ondotik, 13 urte eman ditu ohetik **kaderarat** ibiliz. Herria

**Kadira** errotadunean jarria den saltzaile herbala. Aurelia Arkotxa

Andazko **kadira** baten bila joan daitezen aginduko diat. Edorta Jimenez

---

## kadmio **1** *iz* gai bakuna, metal zuria eta malgua, 320 °C-tan urtzen dena(*Cd;* z. at. 48).

Zilar nitratozko soluzio baten tantatxo batekin ukitu nuen jalkina, eta agertuz joan zen kolore beltz-urdinak baieztatu zidan metala **kadmioa** zela, harako herensugearen hortzen ereile Kadmo haren seme urruna. Juan Garzia

Bazen elementu erraz-zintzorik, ezkutatzeko gauza ez zenik, hala nola burdina eta kobrea; beste batzuk, berriz, makur eta iheskor ziren, hala nola bismutoa eta **kadmioa**. Juan Garzia

Errausketatik sortutako metal astunek (merkurioak, **kadmioak...)** nerbio sistema zentralean kalte konponezinak ere eragiten dituztela gaineratu zuen.

Arauak **kadmioa** edo merkurioa dituzten pilak debekatuko ditu. Berria - Gaiak

Pilen kutsadura gutxitzeko plana murriztuta onartu da Bruselan; **kadmiozkoak** ez dituzte debekatuko oraingoz, minbizia sortu arren. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Horretaz gain, zink, **kadmio** eta berun arrastoak ere aurki daitezke. Berria - Gaiak

· Nikel-**kadmiozko** pilak erabat debekatzea proposatu zuen. Berria - Gaiak

---

## kadmioztapen *iz* kadmioz geruztatzea.

Fabrikako **kadmioztapen**-sailetik. Juan Garzia

**kadre** *iz* [fr] goi mailako enpresa-enplegatua.

**Kadrek** 2 800 euro eskuratu dute, arteko ofiziotakoek 1651 euro, langile kalifikatuek 1 224 euro, enplegatuek 1 090 euro eta azkenik, langile xoilek 947 Euro hilabetean.

**Kadren** sindikatuak izenpetua dute baina CFDT eta CGT sindikatuek ez, hauk direlarik boz gehiena biltzen dutenak langileen partetik. Herria

97-ko bozetan langilek jada hautu zabala zuten, hor zituzten: CFDT, CGT, CFTC eta FO; lantegietako **kadren** kategorian lau horiek berak presentatzen ziren eta bestalde CGC sindikata. Herria

---

kadrilla ik **kuadrilla**.

---

**kadukatu,** kaduka, kadukatzen **1** da *ad* balioa galdu, iraungi.

Karneta **kadukatu** zaidala esan zidatek. Pablo Sastre

**2** iraungi.

Dena dela, arretaz begiratu beharko dugu data, ze baliteke denak **kadukatuta** egotea [kondoiak]. Jon Arretxe

**3** (era burutua izenondo gisa)

Arrastiri eta ilbeherak zituen gogoko; emakume **kadukatuak,** postizoak eta gezurrezkoak zitzaizkion atsegin, gutxienik begira egoteko, eta leku hits eta itogarrietan sentitzen zen eroso. Joxean Agirre

---

**kaduzeo** *iz* Merkurio jainkoaren ezaugarria, elkarrekin lotzen diren bi suge hegodunek inguratzen duten makila batek eratua.

Hermesek, gizakien begiak sorgintzeko eta lo daudenean esnarazteko erabiltzen duen urrezko **kaduzeo** ederra eskuan zeramala, ezkongaien arimei deitu zien, eta atzetik zetozkion hotsa ateraz. Juan Kruz Igerabide

---

**kaduzitate** *iz* iraungitzea.

Garbi zegoen inork ez ziola etorkizunik ikusten bikoteari, **kaduzitate** data igaroa zutela. Joxean Agirre

---

**kafazka** *adlag* aztarrika.

Gorantz hasi naiz ostera, axarka, kafazka, uztarrika, **sator** baten moduan, lurra jan ere egiten dudala, gorantz, gorantz, askatasunerantz. Koldo Izagirre

---

**kafe** **1** *iz* kafe-landarearen fruituaren hazia, txigortzen denean kolore beltza hartzen duena. ik**akeita**. (multzokari gisa)

Meatokietako ustiakuntzaren ondoren, segituan, tropikoko laboreak etorri ziren, europarren kontsumorako denak: azukre-kainabera, **kafea,** kakaoa, geroago kotoia eta kautxua. Koro Navarro

**Kafea** ekoizten duen nekazari batek bitartekariak jarritako prezioan salduko du **kafea**. Berria - Gaiak

**Kafea** edo arroza saltzen. Ez al zegoen Amerikan, Asian edo Afrikan **kafea** egiteko lur egokirik? J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kafe** gogorra zen, eta senideren bat herrira itzultzen zenean, kiloka ekarri ohi zuen altxorra balitz bezala. Urtzi Urrutikoeetxea

**Kafea** ehotzen dut. Itziar Otegi

Portugaldik kontrabandoan sartzen zuten **kafe** xigortua. Urtzi Urrutikoeetxea

**Kafe** xigortuaren usaina. Lopez de Arana

Orain modan dago dendan erosten den **kafe** birrindua. Javi Cillero

Aski duzu koilarakadatxo bat **kafe,** lau bat kikara goxo egiteko. Javi Cillero

Bitartean, zoaz **kafe** baten bila niretzat. Joxan Elosegi

Libra erdi **kafe,** 80 florin. Josu Zabaleta

Katilukada baterako adina **kafe**. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kafe**-soro gero eta zabalago eta emankorragoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Debekatua zegoen **kafe**-haziak Arabiatik kanpora eramatea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ur beroz betetako kikaretan ipini zuen **kafe** hautsa. Koro Navarro

Ontzi bat **kafe**-hauts, eta azukre-zorrotxoz betetako katilu bat. Oskar Arana

Egiptotik ekarritako hainbat **kafe**-zaku saltzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hirian ahaztutako **kafe**-paketea. Joseba Urteaga

Filtro berria ezarri, **kafe** koilarakada batzuez bete, ura gehitu. Iban Zaldua

**3** kafe ale txigortu eta ehoz egiten den edari beltz pizgarria.

**-Kaferik**? Patxi Iturritegi

Egin **kafe** pixka bat, mesedez! Antton Olano

**Kafe** egin berriaren usaina. Eider Rodriguez

**Kafea** eskaini zidan. Joxan Elosegi

**Kafe** asko edateak bihotzekoa izateko arriskua handitzen duela iradoki dute.

Opil bat **kafean** bustitzen zuen bitartean. Matías Múgica

**Kafea** basoetan zerbitzatzea. Koro Navarro

Margaretek prest zeukan gosaria, opilak gori-gori, **kafe** usaintsua katiluetan. Iñaki Zabaleta

Zerbitzari bat sartu zen **kafe** lurruntsua zekarrela. Felipe Juaristi

**Kafe** sendo eta trinkoa prestatzen dute, alea xehe-xehe ehota. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gero, luzamendutan ibili gabe, eta, **kafe** txepel bat hartu bitartean, dena laburbildu diot. Patxi Zubizarreta

**Kafe** gehien edaten duen lurraldeen artean dago Suedia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Adrianen amak termo batean ekarritako **kafea** edanez. Bernardo Atxaga

Amak kikara bat bete zion **kafe** egin berriaz. Anjel Lertxundi

Mozkoteak zurrutada bat **kafe** edan zuen. Migel Angel Mintegi

Ondoan, gopor bat bete **kafe**. Aingeru Epaltza
Pare bat kikara **kafe** hartu zuen purutxo bat erre bitartean. Migel Angel Mintegi
Katilukada **kafe** bero ekarri dik mahaira. Pedro Alberdi
Horren ondotik, katilu bete **kafe** edan eta pipa erretzen zuen, Katilu bat **kafe** bero eta bi aspirina hartu zituen. Jose Morales
Grapparekin bustitako **kafearen** lakartasuna eztarrian. Anjel Lertxundi
**Kafe** ustekoari eragiten ari zelarik. Felipe Juaristi
Salda, piperrada, errakia, ardi gasna, pastiza, **kafe** ta ondoko. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kafe** hurrupa bat edan zuen. Fernando Rey
**Kafe**-hondarrak mihian eta eztarrian. J.M. Olaizola "Txiliku"
Adelak **kafe** kondarrak ematen dizkiolako. Bernardo Atxaga
**-Kafe** xorta bat hartuko duzu. Eneko Bidegain
Angiek **kafe** kikara utzi zuen. Iñaki Zabaleta
Txapa elektriko batean **kafe**-eltzea berotzen jarri zuen. Iñaki Zabaleta
*ik* kafeontzi.
Zilarrezko **kafe**-ontziteriaren aurrean eserita, azukreontzia eskuztatzen ari zen. Lopez de Arana
Idazkaria sartu zen, erretilu batean **kafe**-tresneria zuelarik. Anjel Lertxundi
Bigarren **kafe** hartualdia prestatzea erabaki zuten. Aitor Arana
**Kafe** kolorea zuen edaria hartu zuten. Felipe Juaristi
Galtzetako **kafe**-orban hau ez neukaan nik saihesterik. Jon Muñoz
**Kafe**-iragazki bat. Lopez de Arana
**Kafe**-termoak, kanpin-sua. Joxan Elosegi
**Kafe** makina goiz osoan jo eta ke ibiltzeko gertu. Urtzi Urrutikoeetxea
**Kafe**-makina bat eta portzelanazko ontziteria agerian gelditu ziren. Migel Angel Mintegi
Piano musika entzuten zen **kafe**-tresnaren soinuarekin nahastua. Iñaki Zabaleta
**Kafe** garaian jendetxoa bildu zen gaztetxean. Unai Iturriaga

**5** kikara bete kafe.

**-Kafe** bat? Iñaki Zabaleta
**Kafe** bat hartu bitartean lasai hitz egin genezake han. Migel Angel Mintegi
**Kafe** bana geneukan aurrean, artean ketan, atera berri. Bernardo Atxaga
**Kafe** bana eskatu genuen, berriro ere. Iban Zaldua
**Kafe** on azkar bat naski abiatu aitzin. Piarres Aintziart
**Kafe** doble bat jarridazu, mesedez! Pako Aristi
**Kafe** bikoitza zeraman, berarentzat; tea esnearekin, Josebarentzat. Fernando Morillo
Nik **kafe** expreso bat nahi dut. Iñaki Zabaleta
Hiru **kafe** huts. Pako Aristi
**Kafe** huts luze-luzea beharko duzu, azukre bakoa. Sonia Gonzalez
**Kafe** ebaki bat eskatu zuen. Migel Angel Mintegi
Indioilar haragizko sandwich bikoitzak eta **kafe** izoztuak zerbitzatu zizkigun. Oskar Arana
Tragoa eman dio **kafe** irlandarri. Anjel Lertxundi
Makinako **kafe** bat. Lopez de Arana
Kasinora joan ziren **kafe** bat edatera. Josu Zabaleta
Helduko gara etxera eta **kafe** bero bat prestatuko dizut. Iñaki Zabaleta
**Kafe** batek burua arintzen lagunduko zidalakoan irten naiz etxetik. Migel Angel Mintegi
-Kopa bat ala **kafea**? -galdetu nion. Koro Navarro
Arlote hari nork ematen zizkion **kafeak** eta whiskiak. Edorta Jimenez
Klararenean hartutako **kafea** mikazten hasia zitzaidan urdail barnean. Aingeru Epaltza
Kobraizkiguzu **kafeak** eta porrak. Urtzi Urrutikoeetxea

**6** kafe etxea.

**Kafe** bat, eskuin, *El Labrador* izenekoa. Piarres Aintziart
Brasil kaleko **kafe** batean. Juan Garzia
Habanan barnako frontoi, **kafe,** kasino eta kabaretetako gau epel-gozoetan. Edorta Jimenez
**Kafe** bateko terrazan eseri ziren. Eskarne Mujika
Pariseko **kafe** gehienetan izaten diren upel-altxagailuetatik hartu zuen ideia. Jon Muñoz
**Kafe** batera joan nintzen. Matías Múgica
**-Kafera** joango naiz. Patxi Zubizarreta
Ikasturte amaierako bidaiaz akordatzen zinen, Amsterdamgo **kafe** gorrian biok bakarrik. Eider Rodriguez
Aldizkaria **kafe**-mahaiaren gainean utzita. Patxi Iturritegi
**Kafe**-terraza batean jarririk. Jose Angel Irigaray

**7** (hitz elkartuetan)

Nire interesak defendatzen ditut bai **kafe**-teatroan eta baita kalean ere. Anjel Lertxundi
Zenbait gauetan, Andres **kafe**-kontzerturen batean sartzen zen, kantari eta dantzarientzako oholtza duten horietako batean. Josu Zabaleta
· Piano-**kafe** batean hasi nuen karrera profesionala. Anjel Lertxundi
*Village Voice* aldizkarian aurkitu dut ziber-**kafe** baten helbidea. Harkaitz Cano

**8** ***kafe ale***

Hobe duzu **kafe aleak** xehe-xehe egitea, morteiruz zanpatzea baino. Javi Cillero
**Kafe aleak** kontuz txigortu behar dira, su motelean, erre barik. Javi Cillero
Titi puntak, **kafe aleak** bezalakoxe beltzak larruaren zurian. Felipe Juaristi
Pertsiako arrozaren samurra; Arabiako **kafe-ale** lehorren kilikaria. Felipe Juaristi

**9** ***kafe denda***

Izan ere, Vienan kafe-etxeak bezala Marseillan **kafe denda** bat jarri baitzuten urte batzuk lehenago [...], Egiptotik ekarritako hainbat kafe-zaku saltzeko, eta harrera ezin hobea izan zuen ale haiekin egiten zen edabe beltzak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**10** ***kafe etxe*** *(87 agerraldi, 13 liburu eta 2 artikulutan; orobat* ***kafetxe*** *25 agerraldi 7 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kafe(-***

*)etxe agertzen da)* kafea eta beste edari batzuk zerbitzatzen eta hartzen diren etxea. ik**kafetegi.**

Horra hor Kirxa, **kafe etxeko** nagusia. Patxi Zubizarreta

**Kafe etxeko** nagusi luze, flakoxta eta goibela. Patxi Zubizarreta

**Kafe etxeko** bezeroak pozarren zeuden. Patxi Zubizarreta

Edozein bulego edo **kafe etxetan,** edo agian nightclub batean topo egin nahi genuke harekin, elkarri aurpegira begiratu eta besarkatzeko. Joseba Zulaika

Senatik hurbil, rue des Lavandières-eko **kafe-etxe** txiki batean. Anjel Lertxundi

Ordutik aurrera **kafe-etxeak** literaturaren eta politikaren mundu txikiak izan ziren Vienan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Joko baketsuak edota **kafe etxean** nargile erretzea nahiz karta jokoan aritzea, beste xederik ez zuen. Patxi Zubizarreta

Iluntasunak hartu zuen kalezuloa eta soil-soilik **kafe etxearen** argiak osatzen zuen zoruan lauki bat. Patxi Zubizarreta

· Wilkes kapitainak kontatu digunez, bada han estaminet bat; pub antzeko **kafe-etxetxo** bat dela dio. Mirentxu Larrañaga

## 11 *kafe errota*

Guk, orduan, azido sulfurikoa eta sosa urturik eltze esmaltatu batean, bisulfatoa lortzen genuen; gero, zoru gainean hozten utzi ondoren, **kafe-errota** batean ehotzen genuen. Juan Garzia

· Bitartean, agurea berbetan hasi zait, hitzak alerik ale xehakatuz, **kafe errotatxo** baten erara. Javi Cillero

## 12 *kafe konpleto* zigarro purua eta kopa ere badituen kafea.

Portuetakoa inoiz ez duk izaten kafe **konpletoa**. Koldo Izagirre

## 13 *kafe landare* lurralde beroetako zuhaixka, jatorriz Etiopiakoa, bere fruituaren haziengatik lantzen dena *(Coffea arabica, C. robusta* etab.)

Debekatua zegoen kafe-haziak Arabiatik kanpora eramatea eta **kafe-landareak** atzerritarrei saltzea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kaldi izeneko ahuntzain bat ohartu zen animalien portaera bitxiaz **kafe-landarearen** aleak jan ondoren: ahuntzak neke-aztarna guztiak galdu eta pozik gainezka balira bezala hasten ziren salto eta brinko. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kafe-landare** bat edo beste aldatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 14 *kafe ontzi* ik **kafeontzi.**

## 15 *kafe ordu* *(orobat **kafeordu**)* kafea hartzen den ordua.

**Kafe ordua** zen eta denak zeuden festan. Jon Maia

Argazkiak egiteko eta lekuaren jabearekin mintzatzeko probestu genuen **kafeordua**. Edorta Jimenez

Hormako extintoreari begira ematen zituen Marcosek **kafe-orduak,** aulkitik altxatu gabe. **Kafe-ordua** sinbolo erotikoa zela pentsatzen zuen Marcosek. Unai Elorriaga

## 16 *kafe-teatro* teatro lanak antzezten diren kafe etxea.

Caveamus, igitur, iuvenes dum sumus, kantatzen zuen nik pianoa jotzen nuen **kafe-teatroko** kantariak. Anjel Lertxundi

Nire interesak defendatzen ditut bai **kafe-teatroan** eta baita kalean ere. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bi kafe hartu** (4); **bilboko kafe antzokia** (25); **bilboko kafe antzokian** (71); **durangoko kafe antzokian** (4)

**kafe aleak** (6); **kafe antzoki** (14); **kafe antzoki gisa** (9); **kafe antzokia** (41); **kafe antzokiak** (5); **kafe antzokian** (131); **kafe antzokian ariko** (8); **kafe antzokian aurkeztuko** (4); **kafe antzokian egingo** (6); **kafe antzokian izango** (6); **kafe antzokian joko** (6); **kafe antzokiaren** (5); **kafe antzokiko** (7); **kafe antzokira** (6); **kafe bana** (13); **kafe bat eskatu** (8); **kafe bat hartu** (13); **kafe bat hartuko** (5); **kafe bat hartzeko** (11); **kafe bat hartzen** (6); **kafe bat hartzera** (14); **kafe batean** (6); **kafe baten inguruan** (5); **kafe baten itzulian** (4); **kafe beltza** (4); **kafe bero** (9); **kafe beroa** (5); **kafe egin berriaren** (5); **kafe eltzea** (4); **kafe eta ondoko** (5); **kafe eta ondokoa** (4); **kafe etxe** (11); **kafe etxea** (7); **kafe etxeak** (4); **kafe etxean** (11); **kafe etxearen** (5); **kafe etxeko** (20); **kafe etxera** (8); **kafe etxetik** (11); **kafe gehiago** (7); **kafe hartu** (5); **kafe hartzen** (4); **kafe hurrupa** (4); **kafe huts** (8); **kafe huts bat** (4); **kafe hutsa** (9); **kafe katilu** (5); **kafe katilua** (4); **kafe kikara** (30); **kafe kikarak** (5); **kafe kikarari** (5); **kafe landare** (4); **kafe makina** (4); **kafe makinaren** (4); **kafe on** (10); **kafe on bat** (6); **kafe ordua** (5); **kafe pixka** (10); **kafe pixka bat** (10); **kafe soroak** (4); **kafe xorta** (4)

**katilu bat kafe** (4); **kikara bat kafe** (6); **ondarroako kafe antzokian** (4)

**kafea edan** (19); **kafea edateko** (4); **kafea edaten** (13); **kafea egin** (6); **kafea egiteko** (6); **kafea egiten** (5); **kafea ekarri** (5); **kafea eskatu** (11); **kafea eta patxarana** (5); **kafea hartu** (48); **kafea hartuko** (7); **kafea hartzea** (6); **kafea hartzeko** (17); **kafea hartzen** (36); **kafea hartzen ari** (10); **kafea hartzera** (32); **kafea prestatu** (9); **kafea prestatzen** (12); **kafea zerbitzatu** (9)

**kafearen bila** (4); **kafearen zaporea** (5)

---

# kafealdi *iz* kafe ordua.

Argazkiok lehenago non ikusi ditudan gogoratu nahian eman dut **kafealdia**. Iñigo Aranbarri

---

# kafeetxe ik **kafe 10.**

---

# kafegailu *iz* kafea egiteko gailua. ik **kafeontzi.**

Ohetik jaiki eta, **kafegailua** sutan zegoen bitartean, gutuna hartu zuen zakarrontzitik. Eider Rodriguez

Hori dena nik **kafegailua** maneiatzen nuen artean pentsatu nuen. Edorta Jimenez

---

# kafeina *iz* kafe-hazitik eta te hostoetatik ateratzen den gai pizgarria.

**Kafeina** nerbioentzat kaltegarria dela. Lander Garro

Pertsona batzuen gorputzak polikiago kanporatzen du **kafeina,** arrazoi genetikoak direla eta. **Kafeina** intrabenosoa hartuko nuke. Berria - Gaiak

16 kilo anfetamina eta lau kilo **kafeina** atzeman dituzte. Berria - Euskal Herria

Atzemandako substantzia ez zela heroina, parazetamol eta **kafeinaren** arteko nahasketa bat baizik. Berria - Euskal Herria

**Kafeinarik** gabeko kafe klasikoaz gainera, [...]. *ik* kafeinagabe. Edorta Agirre

Era berean, PSE-EEren Estatutu proposamena **«kafeinarik** gabeko Ibarretxe Plana» dela gaineratu zuen. Berria - Harian

---

# kafeinadun *izond* kafeina duena.

Ez da komeni edari alkoholdun, **kafeinadun** eta azukredunik hartzea. Berria - Harian

---

# kafeinagabe *izond/iz* kafeinarik ez duena.

**-Kafeinagabe** bat, mesedez -eskatu zuen Adelak. Juan Kruz Igerabide

**kafeño** *iz ipar adkor* kafea (5. adieran). ik **kafetxo**.

**Kafeño** bat edan genuen beraz. Janbattitt Dirassar

-Nahi duzu beste **kafeño** bat? Janbattitt Dirassar

Solasean egon ginen aspaldiko adixkide xahar batzuk bezala, **kafeño** bat goxoan hurrupatuz. Janbattitt Dirassar

---

## kafeondoko *iz* edari biziko kopa.

Afari on bat eginik, aterpearen ondoan dagoen ostatuan, tokiko jendearekin, jende xehearekin, solasean ari naiz, luzaz eta Galiziako ohidurak errespetatu beharrez, beraz eginbidea plazer bilakatuz, **kafeondokoa** hartzen dut. Piarres Aintziart

---

## kafeontzi *(orobat **kafe ontzi**)* *iz* kafea egiteko edo zerbitzatzeko ontzia. ik **kafegailu**.

**Kafeontzia** bor-borka hasi zen. Aingeru Epaltza

Sukaldera abiatu, **kafeontzia** su gainean paratu eta kajoiak miratu nituen. Aingeru Epaltza

Hannak urez bete zuen **kafeontzia**. Joxe Austin Arrieta

Mostradore azpitik **kafeontzi** elektriko bat atera, filtro berria ezarri, kafe koilarakada batzuez bete, ura gehitu, eta martxan jarri zuen. Iban Zaldua

Eta kafea beti prest, bero edukitzen duen **kafeontzi** elektriko batetik bi kikara bete zituen. Iñaki Zabaleta

-Parisko estiloan prestatuko nizuke kafea, baina ez daukat **kafeontzi** metalikorik. Javi Cillero

Mahaitxo baten gainean **kafeontzia** eta kikarak utzi zituen. Migel Angel Mintegi

**Kafeontzian** hondarrak besterik ez eta hautsontzian dozena erdi purutxo-mutxikin zeuden. Migel Angel Mintegi

Eztiz igurtzitako opil txiki batzuk zeuden platertxo baten jiran, eta lurrinetan zegoen portzelanazko **kafeontzi** bat eta kikara bat, biak lore urdinez dekoratuak. Anjel Lertxundi

---

kafeordu ik **kafe 15**.

---

## kafesne *(orobat **kafe esne**)* **1** *iz* kafea eta esnea nahasiz eginiko edaria.

Batzuetan **kafesnea** hartzen dute, zerbezak besteetan. Pako Aristi

**Kafesnea** edaten zuten eta beren bizia eta arrangurak kondatzen. Eneko Bidegain

Hozkailutik gurina atera, ogi xerra meheak egin, katilu bete **kafesne** prestatu, egunkaria bildu eta egongelara eraman zituen. Unai Iturriaga

**Kafesne** katilua eskuak berotzeko aurrena, barrenak berotzeko gero. Arantxa Iturbe

Lukainka muturtxoren bat ez, bijilia zelako, baina katilu-**kafesne** bai, bisitan zetorkiona goxatzeko. Pello Zabala

**Kafesneari** eragiten zion bitartean jarraitu zuen hitz egiten. Joxean Agirre

Kruasan zatiak **kafesnetan** bustiz. Joxean Agirre

Briotxa gurinaz igurtzi eta **kafesnean** busti dun. Iban Zaldua

Larru ederra, **kafesne** kolorekoa. Ramuntxo Etxeberri

**Kafesne** zopak jaten. Pello Lizarralde

**Kafesne** katilua eskuak berotzeko aurrena, barrenak berotzeko gero. Arantxa Iturbe

Lukainka muturtxoren bat ez, bijilia zelako, baina katilu-**kafesne** bai, bisitan zetorkiona goxatzeko. Pello Zabala

Arropa, konpresak, ogitartekoak, fruta, termo bat **kafesne..**. Agurtzane Juanena

**2** kikara bete kafesne.

Beste **kafesne** bat eskatu dut eta Xabik, aldiz, beltza. Xabier Etxabe

**Kafesne** bero bana hartu zuten haiek. Inazio Mujika Iraola

Mutil gaztea **kafesnea** hurrupatzen hasi orduko eztulka hasi da. Pello Lizarralde

Esne tantatxo batekin Dionisosentzat, **kafesne** handia Mikelentzat. Unai Iturriaga

Goizeroko **kafesnea** ari dira banatzen. Rafa Egiguren

Mariari begira-begira jarri naiz gure amak atera berri dion **kafesneari** zurrutada bat egiten dion bitartean. Xabier Etxabe

Baina ez nuen oroitzapen horrekin **kafesnea** ozpindu nahi. Aingeru Epaltza

**Kafesnea** mikrouhinean berotzen jarri. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
> **kafesne bana** (5); **kafesne bero** (4); **kafesne beroa** (9)
> **kafesnea edaten** (4); **kafesnea eskatu** (5); **kafesnea eta gailetak** (4); **kafesnea hartu** (3); **kafesnea hartzen** (5); **kafesnea hartzera** (3)

---

## kafetan ik **kaftan**.

---

## kafetegi *(745 agerraldi, 114 liburu eta 88 artikulutan)* **1** *iz* kafea eta beste edari batzuk, eta orobat janari arinak, zerbitzatzen diren toki publikoa, bereziki modernoa. ik **kafe 10**.

Mably **kafetegian** nago, sandwich bat jaten. Monika Etxebarria

Bakarrik nagoenean **kafetegietan** jateko ohitura gorde dut. Koro Navarro

Bostetarako, **kafetegiko** pintxoak prest daude. Urtzi Urrutikoetxea

Aizu, axola ez badizu, aldatu katea, mesedez -esan zion **kafetegiko** nagusiari. Migel Angel Mintegi

**Kafetegiak** izan dira orain arte nire babesleku bakarrak, jendez beteak eta ongi argiztatuak egoten direlako. Monika Etxebarria

Sarrera nagusia beheko solairuan dago, eta, horrekin batera, dendak, bi **kafetegi** eta janari lasterreko hamabost saltoki. Berria - Kirola

Taberna, jatetxe eta **kafetegietako** arduradunek erretzaile ez direnentzako egokitu behar dute lokalaren erdia. Berria - Gaiak

Autopistako zerbitzu guneko **kafetegian** beste litro erdiko garagardo bana zintzurreratu zuten. Patxi Zubizarreta

Hoteleko **kafetegiaren** terrazan zeuden bilduta. Bernardo Atxaga

Hoteleko **kafetegian** gosari apartak zerbitzatzen dituztek. Iban Zaldua

Bermuta hartzera noa treneko **kafetegira**. Pako Aristi

Ospitaleko **kafetegian**. Hasier Etxeberria

Filologiako **kafetegi** handiaren beste muturreko atetik. Jon Arretxe

Aireportuko **kafetegian** hitz emandako orduan elkartu, eta zaindegira abiatu ziren. Aritz Gorrotxategi

Han ikusi nituen atzera, **kafetegiko** erakusleihoan. Iban Zaldua

Jatetxe etniko degradatu/amerikanizatuak edo **kafetegi** korrienteak, salami, arrautza, kafe eta milatan erabilitako olio usainekoak. Iñaki Zabaleta

Susmorik ez pizteko, Mosul-eko **kafetegi** arabiar batean elkartzekotan geratu ginen. Juan Kruz Igerabide

Vienar estiloko hiru **kafetegitan**. Anjel Lertxundi

Billar bat duen **kafetegi** ttiki bat da Phebe's. Harkaitz Cano

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kafetegi** kateak, jangela pribatuak eta horrelakoak. Koro Navarro

Jatetxe eta **kafetegi** bagoiak. Berria - Ekonomia

**Kafetegi**-gozotegi honen antzeko lekuetan. Jon Arretxe

Geltokiaren aurreko aldapan dauden **kafetegi**-jatetxe haietako batean. Txillardegi

Lagunak eserita zeuden **kafetegi**-mahai baten inguruan. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Okindegi-**kafetegiak** dira guztiak. Berria - Euskal Herria

Sorbonako tabako-**kafetegian** izan zen, taberna hartan elkartu ohi ginen eta. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kafetegi batean sartu** (3); **kafetegi batera joan** (4); **kafetegi batera sartu** (5); **kafetegi dotore** (3); **kafetegi txiki batean** (3)
> **hoteleko kafetegian** (11); **kafetegian idazten** (3); **kafetegian sartu** (4); **mably kafetegian** (7); **sorbonako tabako kafetegian** (3)
> **kafetegiko bezero** (3); **kafetegiko mahai** (5); **kafetegiko terrazan** (7); **sorbonako tabako kafetegiko** (3)
> **kafetegira abiatu** (3); **kafetegira jaitsi** (3); **kafetegira joan** (13); **kafetegira joaten** (6); **kafetegira sartu** (3)
> **kafetegitik atera** (5); **kafetegitik irten** (3)

---

## kafetegitxo *iz* kafetegi txikia.

Kalean behera zegoen **kafetegitxo** batean bazkaltzen zutenez, nik ere hantxe bazkaltzen nuen. Xabier Olarra

---

kafetxe ik **kafeetxe 10**.

---

## kafetxo *iz adkor* kafea (bosgarren adieran).

**Kafetxo** bat? Migel Angel Mintegi

Maitetxo, **kafetxoa** prest daukazu. Bernardo Atxaga

Pasatuko nintzela luze baino lehen Udaletxetik, **kafetxo** batera gonbidatzeko. Ramon Saizarbitoria

**Kafetxo** bat hartzera aterako naiz. Jasone Osoro

---

## kafezale **1** *izond* kafearen zalea dena.

**Kafezalea** nauzu. Migel Angel Mintegi

**2** kafe bateko nagusia.

Kirxa **kafezalea** kutxaren atzealdean eseria zegoen, bere ohiko lozorroan, eta zerbait marraskatzen ari zen, gero mamurtzeko eta kikara kafez bultzatzeko. Patxi Zubizarreta

---

kafia ik **habia**.

---

## kafiaspirina *iz*

-Honanzkotan, erosizkidak **kafiaspirina** batzuk. Juan Garzia

---

kafira ik **habia**.

---

## kafkar *izond* F. Kafkari dagokiona.

Noiz arte iraungo du egoera **kafkar** honek [...]? Berria - Euskal Herria

EAJren izenean, Jose Antonio Urbiola NBBko prensidenteak esan zuen «proiektu bat ezabatu eta Legebiltzarrean ez eztabaidatzeko asmoa» **kafkarra** zela. Berria - Euskal Herria

Zurrunbilo diaboliko, **kafkarrean** murgiltzen gaituzte. Berria - Euskal Herria

---

## kafkazale *izond* F. Kafkaren zalea dena.

Hik badakik **Kafkazale** amorratua izan naizela beti. Mikel Hernandez Abaitua

Orain dela gutxi beste idazle famatu batek aurreko **Kafkazale** horrek esandakoaren kontrakoa esan zuela, alegia Kafkarena literaturatik ateratako literatura dela, eta benetako literatura bakarra bizitzatik ateratzen dena dela. Mikel Hernandez Abaitua

---

## kafkiano *izond* F. Kafkari dagokiona.

Interneten irakurleak irakur dezakeen testuan diktaduraren erretratu **kafkianoa** egiten du. Edorta Jimenez

Auzipetuek bizi duten egoera **kafkiano** honetan. Berria - Harian

Eta zer adierazi nahi digu "egoera **kafkiano"** bat bizi izan duela dioskunak?: haren errenta-aitorpenaren paperak bizpahiru egunez galdutzat eman dituztela, ziur aski. Juan Garzia

---

**kafkiar** *izlag* F. Kafkari dagokiona.

Basaberena bezalako egoera **kafkiarrak**. Berria - Harian

Potentzia nuklear handi baten zerbitzu sekretuan sartu nahian dabilen gizon baten joan-etorri **kafkiarrak** kontatzen dizkigu. Iban Zaldua

Ana Isabel Moralesek istorio **kafkiar** baten matazan endredatzen gaitu. Berria - Kultura

Gaur egun eztabaida hori **kafkiarra** izango litzateke. Txema Ramirez de la Piscina

---

**kafre** *iz* Kafre herri zeritzan Afrikako Hegoekialdeko eskualdeko herritarra.

Bantua da ekuatore azpiko Afrikako herriek -batez ere **kafreek-** hitz egiten duten hizkuntza multzoa. Isabel Arrigain

Hemen hartuko ote du zorigaiztoko hirukote horrek bizia, ez Lurmutur Hirian baizik eta **Kafre** -herri zahar honetan? Oskar Arana

---

**kaftan** *(orobat **kafetan** g.er.) iz iz* ekialdeko behialako jantzia, zabala eta luzea.

Errabinoak nekazariak ikusi zituen, lau ertzeko kapelak, **kaftan** kolore-arreak, lihozko galtzak zeramatzatenak, hanka-hutsik batzuk, oinetan azpantarrak zituztela gehienak. Koro Navarro

**Kaftana** eta juba jantzirik. Patxi Zubizarreta

Bere soineko eta **kaftanarekin** dotore jantzirik, pauso luzeka abiatzen zen kalezuloko sarbidera. Patxi Zubizarreta

Bazebiltzan han tatariarrak, mahuka laburreko **kafetanez** jantzirik eta buruan Pierrotenak bezalako ertz zabal-zabaleko txano punta-zorrotzak zeramatzatela. Karlos Zabala

Haien buru zihoan gizona, bere gorpuzkera biribil antzekoarekin, bere aljuba eta **kaftanean** bildua zihoan, buruzut, bere begitarte beltzaxka eta tximino airekoa, ezker-eskuin mugituz. Bere **kaftan** zarpaila, bere litsekiko jantzia eta galtzak erantzi zituen, eta amak munduratu zuen bezala geratu zen. Patxi Zubizarreta

**-Kaftana** urratua duzula ikusi dut -esan zuen Taibelek-. Koro Navarro

Hurrengo goizeko lehen argiarekin, oinarri zarpail eta arre hartan piperrautsaren edo alheñaren gorritasuna itsatsiko ziren, katilu eta plateren horitasuna, babutxa eta **kaftanen** urdintasuna. Bernardo Atxaga

---

**kaftortar** *izlag*

Patrostarrak, kasluharrak eta **kaftortarrak;** azken hauengandik datoz filistearrak. Elizen arteko biblia

---

kagoen ik **kaguen**.

---

kagoendios ik **kaguendios**.

---

**kaguen** *(orobat **kagoen**) interj*

**-Kaguen**! Xabier Etxabe

**Kaguen..**. Xabier Etxabe

**Kaguen** zotz abadeak! Edorta Jimenez

**-Kagoen** zotz, Uriarte! Edorta Jimenez

**kagoen** zotz! Edorta Jimenez

---

**kaguendiola** *interj*

**Kaguendiola,** Bronto...! hik zer uste duk? zer habil nire motxila irekitzen? Fernando Morillo

---

**kaguendios** *(orobat **kagoendios** g.er.) interj*

- **Kaguendios,** txakurrak! Unai Iturriaga

**"Kaguendios!"** ulertu uste izan dio Idoiak, baina ez entzunarena egin du. Jokin Muñoz

Azken errekuentoa egitean topatu dutela urkatuta, **kagoendios**! Paddy Rekalde

-Ixo, **kaguendios**! Unai Iturriaga

-Hik ere bai, Ane, **kaguendios**! Unai Iturriaga

---

**kaguenlaletxe** *interj*

**Kaguenlaletxe..**. Unai Iturriaga

- **Kaguenlaletxe**! Unai Iturriaga

---

**kaguenlaostia** *interj*

- **Kaguenlaostia,** Mikel! Unai Iturriaga

-Zer esaten habil, **kaguenlaostia**! Unai Iturriaga

---

## kaguenlaputa *interj*

**Kaguenlaputa,** zelako melatu nazkagarria! Jon Arretxe

- **Kaguenlaputa** ! Unai Iturriaga

---

## kaguensos *(orobat **kaguen sos**) interj*

Ez diaguk iraunen, **kaguensos** ! Usteak erdia ustel eta beste erdia, **kaguen** sos!, oker. Joxean Sagaztizabal

Jendarmeak zetozela, Ttotte eta ***kaguensos*** *me salbatu nauk* intzirikatzen zion neska bidean zeuden jada. Itxaro Borda

---

## kagula *iz* [fr] kaputxa, txanoa.

Berenaz hunek ez du makurrik ekartzen bainan gazte horiek **kagula** batzuez jauntziak agertu dira eta bazterrak izitu ere zuzen den bezala. Herria

Ez zuten gauza handirik atzeman, salbu **kagula** beltz bi, ordulari zaharkitua, lau detonatzaile eta metroak metroari hari elektriko. Itxaro Borda

---

## kaguladun *izond* [fr] kaputxaduna, txanoduna.

Kagulak ez gaitu euskararen alde elkartzen, bakarrik ditu **kaguladunak** behexten. Herria

---

## kahaka *iz* hontza emea.

Are neketsuagoak naski Euskal Herriko xendak, bihurgunez bihurgune, basurdeak, azkonarrak, orkatzak, hontzak eta **kahakak,** zaldiak eta ardi saldoak ustekabean gurutzatzeko arriskua zegoelako. Itxaro Borda

**Kahaka** uhuluak. Itxaro Borda

---

## kai **1** *iz* portuetan, pertsonen eta zamen ontziratzea eta lehorreratzea errazteko prestatzen den eraikuntza.

**Kaiko** moiletan. Felipe Juaristi

Iparreko dartsenetako **kaira** . Monika Etxebarria

Beherago Harlandeko **kai** eta ontziralekuak zeuden. Agustin Otsoa

Anberesko **kaiko** zuzendaritzak. Berria - Gaiak

'Star ferry' ur-ontzien **kaiaruntz** joan ziren. Ramuntxo Etxeberri

Biharamunean, paseo luzea egin zuen ibaiko **kaietan** barrena. Karlos Zabala

Badago **kai** ikaragarri handi bat, eta suerte guztietako ontziak ailegatzen dira, kolore guztietako marinelekin eta zazpi itsasoetako eta bost kontinenteetako bidaiariekin. Fernando Rey

Aduanako **kaian** . Bego Montorio

La Naval ontziolako **kaietan** . Edorta Jimenez

Bazegoen oholezko **kai** bat ere, zeinen alboan txalupa bakan batzuk lotuta zeuden. Joanes Urkixo

**Kaiko** itsasontziei begira. Aritz Gorrotxategi

Harri eta zurezko **kai** zaharkitua eta inguruko tegi arrailatu zenbait, urertzean zenbait txalupa zahar. Jose Angel Irigaray

Urpean igerika, Mikel Strogoff **kaian** lehorreratu zen Nadiarekin batera. Karlos Zabala

-Tomek **kai** azpian pasatzen ditik igandeak. Koro Navarro

Une hartan ontziak **kaiko** horma jo zuen, poliki. Iñaki Mendiguren

**Kaiko** muturreraino goaz. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

**Kai** -zamaketariak nituen inguruan, beltzak gehienak. Joxe Austin Arrieta

Neskatila bat hurreratzen da **kai** -geltokira. Jose Angel Irigaray

Aurrera jo, eta **kai** -mingainetik hurbil olatuak nola apurtzen ziren ikusi zuten. Aritz Gorrotxategi

Maldiva uharteetan, esaterako, koral-harrien ordez **kai** -mutur artifizial bat eraiki behar izan dutela azaldu dute txostenean. Berria - Gaiak

Garabiak **kai** bazterrean zeuden. Jokin Muñoz

Igande goizetako **kai** hegietako predikari apokaliptikoen iragarpenak. Itxaro Borda

· Suitzak Basileako ibai- **kaian** duan itsasorako irtenbideaz. Anjel Lertxundi

Arrantzaleen portua kirol **kai** bihurtuko litzateke. Berria - Harian

Abandonaturiko geltoki- **kaian** dena higaturik dago. Jose Angel Irigaray

Ontziratze **kaira** hurbilduko zen eguerdia baino lehen, eta, han, polizia errukigaberen batek ontzira igotzea galaraziko zion indarrez. Karlos Zabala

**3** *ipar* nasa.

Baionako geltokiko **kaian** . Itxaro Borda

Han zegoen Amandine, geltokiko **kai** bazterrean, lepoa luzatuz, orotara so. Daniel Landart

**Kai** hegirat ez nintzelarik arras heldua, betiko tuta karranka hura jo zuten eta metroa partitu zen, ateak tanpez zerraturik. Janbattitt Dirassar

**4** ***kai ertz*** *(orobat **kaiertz**)* kaiaren ertza.

Ontziratzeko zubixka kendu dute, steam-boata **kai** ertzetik aldentzen hasia da. Karlos Zabala

Trena bat-batean ez-toki hitsean gelditu zen: **kai** ertzean. Itxaro Borda

**Kaiertzearen** puntan jaitsi eta lurpeko hodietan itsumandoka zihoan. Itxaro Borda

**Kaiertzeraino** goazen, merkantzia-trenak pasatzen direla mintza gaitezen deblauki. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kai berria** (4); **kai ertzean** (3); **kai geltokia** (6); **kai muturrean** (3); **kai zaharretik** (3); **zierbenako kai** (3)
>
> **kaia babesteko** (4); **kaia bazterrean** (3); **kaia eta plaza** (3); **kaia ikusgarria** (4); **ontziak hartzeko kaia** (3)
>
> **donostiako kaian** (6); **galuperie kaian** (3); **getariako kaian** (3); **jauregiberri kaian** (3); **kaian barrena** (3); **kaian zehar** (4)
>
> **kaietan barrena** (3)
>
> **kaira eraman** (3); **kaira heldu** (3)

---

**kaiak** *iz* larru iledunez estaliriko kanoa, eskimalek erabiltzen dutena; kirol kanoa oso arina.

Kirol ekitaldiak: saski baloi, errugbi, pilota, ur-polo, mahai-tenisa, karrika-hokeia, kanoe-**kaiaka,** tenisa... Herria

---

**kaialde** *(orobat **kai alde**)* *iz*

Han behean, **kaialdean,** ez nuen aditzen ingelesezko hizketa-hotsa besterik. Ni isilik geratu nintzen **kaialdera** begira. Liburu batzuk erosi nituen Lagunen, bada, eta, poltsa eskuan nuela, **kai** aldera abiatu nintzen, arkupetan barna. Mirentxu Larrañaga

**Kai** aldera joan ginen, han ez baitzen hainbesterainoko kiratsik Joxe Austin Arrieta

---

**kaiburu** *iz* kaiaren burua.

Beheko aldeko nasa hartu eta Harriandi barreneraino heldu zen, **kaiburuan** itzuli eta portuari inguru eginez sortaldeko nasara joan zen, Ontziolatik ia Kaioarriko puntaraino. Joseba Sarrionandia

---

kaidera ik **kadira**.

---

**kaier** *(orobat **kaiera**)* **1** *iz* koadernoa.

Ene ondar 2 urtetako noten **kaiera** erakutsi nion. Herria

**Kaier** koadrikulaz bete bat eta errotuladore fin beltz bat ekarri dizkidate. Hasier Etxeberria

XX. mendeko poesia **kaierak**. Markos Zapiain

Eskatu zidan nire **kaiera** ttikia erakusteko hari. Fernando Rey

Marra batzuk egin ditu **kaierean,** kartzela eta Olasoneko etxea itxuratuz. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere **kaier**-agenda. Jose Angel Irigaray

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argazkien ondoan paper tolestu bat topatu dugu, eskola-**kaier** batetik erauzia dirudiena. Iban Zaldua

Mila txikikeria marraztu nahiz, arrasto urduriekin, margolari-**kaierean**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Düala 22 urte agertü züan libürütto-**kaier** bat, aita Oxibar zenaren "Lehenago Gameren", grafia berrian ezari dü. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> bitakora kaiera (4)
> poesia kaierak (7)

---

kaiera ik **kaier**.

---

kaieratxo ik **kaiertxo**.

---

**kaiertxo** *(orobat **kaieratxo**)* *iz* kaier txikia.

Azal beltzeko **kaiertxo** bat eta arkatz punta zorrotz-zorrotz bat atera zituen. Mirentxu Larrañaga

Horrexegatik, agian, maite ditut hainbeste kexen **kaieratxo** hauek, soilik balio psikologikoa eta inolaz ere ez literarioa duten **kaieratxoak**. Berria - Kultura

---

kaiertz ik **kai 4**.

---

**kaiet** *iz* oinordekoa ez den seme edo alaba.

Ohituraren arabera, ez ziren bi premu edo bi **kaiet** elgarrekin ezkontzen ahal, etxe berriak ez ziren nolanahi egiten ahal. Herria

Nor ziren etxeko nagusi edo etxekandereak? ondoko eginak ziren etxeko seme edo alaba, eta, beste etxe bateko **kaiet** batekin ezkontzen zirenak, beren etxondoan. Herria

---

**kaiku** **1** *iz* ardi esnea biltzeko erabiltzen den zurezko ontzia, euskarri bakarrekoa goporra baino handiagoa.

Zenbat **kaiku,** esne-ontzi, lera eta trineo, [...] zenbat uztarri eta beste ez ote dira egin urkiaz! Pello Zabala

Irlanda aldean, gure aurrekoek hemen **kaikuak** egiten zituzten antzera, esne-pitxarrak egin ohi zituzten han altzarekin. Pello Zabala

-Andre Maria Martxoko, behia larrean aseko, **kaikua** esnez beteko. Pello Zabala

Eta esnea artzain-**kaikuan** bezain bare gelditu zen itsasoa. Anjel Lertxundi

*Botijo*-a baino espainolagoak garela esan zuen Azkarragak; hala gara, baina **kaikua** baino euskaldunagoak ere bai! Berria - Euskal Herria

**2** euskal jaka modukoa.

Herenegun ardi-larruz janzten zen; **kaiku** edo brusa bat soinean zuela ikusiko zenuen atzo; gaur txandal batekin dabil. Anjel Lertxundi

Behin baserritar jantzita, behin uniforme bilbotarragoaz, **kaiku** gorria eta abar. Xabier Amuriza

Txapela eta **kaiku** urdin-berde bat jantzita ibiltzen omen da beti kalean. Hasier Etxeberria

-Badakizu, umea nola jantzi genuen festetako karrozarako, **kaikuarekin** eta txapelarekin, olentzeroren ondoan joateko. Jon Maia

**3** ergela, adimen laburrekoa. ik **kirten**.

-Tira, ez hadi **kaikua** izan. Koro Navarro

**Kaiku** hutsa duk. Juan Garzia

Mendi-txangoan zebilen amona aberats eszentriko bat eta bere iloba **kaikua**. Anjel Lertxundi

Alberto **kaiku** honek dirutza ederra galdu du San Remoko kasinoan. Fernando Rey

Orain badakizu, **kaiku** horrek. Patxi Iturritegi

Bi **kaiku** haiek baretu arte egon ninduan ahal nuen otzanen.**-Kaiku** ergel hori -esan zuen lasai-. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaiku handi** (4); **kaiku hori** (3)

---

## kaikukeria *iz* kaikuari dagokioen egite gaitzesgarria. ik **ergelkeria**.

Behin AEBetako presidenteak **kaikukeria** hau bota zuen: Suteak ekiditeko basoak moztea da onena. Txema Ramirez de la Piscina

---

## kaikulapiko *izond adkor* kaikua, ergela.

-Artaburu **kaikulapiko** hori! -egin zuen oihu txoriak-. Julen Gabiria

---

## kaikutzar *izond*

-Pozik entzungo nuke **kaikutzar** iletsu hori bere burua defenditzen. Iñaki Mendiguren

**Kaikuak,** horixe gara batzuetan, **kaikuak**. Hasier Etxeberria

Orro bizian, eroak bezala, **kaikutzar** kirten horiek. Iñaki Mendiguren

Koronela **"kaikutzar** azken putza" zelako ustean hazitakoak ginen batik bat. Mirentxu Larrañaga

Pello kirten ergel **kaikua**. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaikutzar azken putza** (3)

---

## kaila *iz* gelaperra.

Urzo, **kaila** edo eper bat, hurrunetik idekitzen den kaiola batean ezarri eta hezleak libratzen ditu zakurrak. Herria

Mutilak etxerakoan **kaila** kantua aditzen duenean, nolabait esan, laster heldu zaion zorigaitzaz oroitzen da. bostetan aditu nuen **kaila** kantua, baina, nik ez kasurik egin, eta orain maiteak engainaturik oinaze minetan naiz. Patziku Perurena

---

## kailatu, kaila, kailatzen da *ad* gatzatu, mamitu.

Gatzagia botatzen zitzaion, koilaratara bat eskas, eta uzten zen, haurrek eskolako lanak egin bitartean, **kailatzera,** burburaka eta ketan. Itxaro Borda

---

## kailu *iz* azal gogorra, azaleko gogorgunea.

Areago: ez zen ageri han ez ospelik, ez erredura edo garatxorik, ez negal, baba, kalentura, pustula, zimur, **kailu,** orbain edo granorik. Bernardo Atxaga

Eskuin eskuko **kailuko** arazoak direla-eta, Iñaki Otxandorenak 25 egun daramatza partidarik jokatu gabe.

Eskuin eskuko **kailu** bat ireki zitzaion. Berria - Kirola

Nahiz eta Lasaren eskuin eskuko **kailua** ez den erabat itxi. Berria - Kirola

Hezur koskor (edo **kailu**) hori, sobera duen materiala joan ahala, berdinduz doa denborarekin, eta, azkenean, hezurrak hasieran zuen formara egokitzen da gutxi gorabehera. Irene Aldasoro

Ilea nahasi zigun Uil eta bioi bere esku handi **kailuz** beteekin. Juan Kruz Igerabide

---

## kailukara *izond* kailuaren itxurakoa.

Adin guztietako esku boluntarioak ugari ziren, neska-mutilen esku txiki baina arinetatik hasi eta aitona-amonen esku zimurtu eta **kailukaretaraino**. Agustin Otsoa

---

## kailutsu *izond* kailu edo azal lodikoa.

Ezin hobeki ikusten nuen ez zela modurik iragateko sustrai, zurrupatze-ponpa izateko haren eginkizunetik, hura izatera, foka-larru gogor eta trinkoa, itxura koipetsu, **kailutsu,** temati hura. Monika Etxebarria

---

## kailutu, kailu(tu), kailutzen 1 da *ad*

Ote mordoen gainera jauzi egin, eta halare lasai; hartaxeraino **kailutuak** hankazpiak. Patziku Perurena

**2** (era burutua izenondo gisa)

Orpo ilun **kailutu,** orkatil bihurri, hankagaineko zain larritu gorriurdin, edo hazkazal zikin muturbeltz oker haiei begira. Patziku Perurena

Errepide zaharretan su hartzen du hautsak gudarien oinazpi **kailutuetan**. Patziku Perurena

---

## kaiman *iz* krokodiloaren familiako amerikar narrastia, muturra zabala eta motza duena *(Caiman latirostris* etab.).

**Kaiman** handi bat ikusi genuen, ibaiaren bertze ertzetik guganat zetorrela... Joan Mari Irigoien

**Kaimanak** bere aho handia zabaldu zuen, goiko eta beheko letaginak bi zerra ezin zorrotzagoak iduri... uretan behera jotzen zuen, **kaimanen** bizkarrezur grisen zelatan. Joan Mari Irigoien

Ur-tankeari begiratu nion, Michigan zingirako **kaiman** puska hura ikustearren. Javi Cillero

---

## kainabera ik **kanabera**.

## **kaindar** *izlag/iz* Kainen leinukoa.

Alde egin zuten, beraz, **kaindarrek** amalektarrengandik. Elizen arteko biblia

Rakalen, jerahmeeldar hirietan, **kaindar** herrietan. Elizen arteko biblia

Eta iraganean, bizirik iraundako Abelen seme-alaba konparatiboki errugabe hauek Kainen seme-alabak lotsagorritan utzi zituzten gaitzaren ordez ongia itzulita, beren hiltzaileen erreskatera etorriz **kaindarrak** beren bekatuek salatu zituztenean. Iñaki Mendiguren

---

## **kaineria** *iz* hodia.

Itsaso zakar handi batek apurka irensten nau, bainuontziko tapoia kenduta xaboiaren aparra **kainerian** bueltaka zurrupatua izaten dena baino bortitzago. Sonia Gonzalez

---

## **kainita** *izond* norbaitek beretarren kontra duen jokaerari dagokiona.

Historiak anitz izenez ezagutzen ditu (espekularrak, abismalak, **kainitak),** baina guztietatik harrerarik onena izan duena histrioiena da, Aurelianok eman eta haiek ausardiaz berentzat hartu zutena. Juan Garzia

---

## kainoi ik **kanoi**.

---

## **kainu** **1** *iz* txorrota.

Ezkerraldean bainua, dutxategiko lauzak horiturik eta lababoko **kainua** ur tanta jarioz, hoteltzainari konpon zezan deia sei aldiz eman bazion ere. Iñaki Zabaleta

Berrogei bat metrora, **kainu** txiki bat zegoen harritik ateratzen zena. **Kainupean** busti zuen burua. Aritz Gorrotxategi

Hitzak bide egiten du leiho batetik bestera, uraren **kainutik** barrena, zaborretan gordea, eskura emana. Koldo Izagirre

### **2** ***kainu zulo*** ur zuloa, isurbidea.

1884. urtean hondakinak jasotzeko ontziak beharrezko zirela esan zien paristarrei, eta bi urte beranduago, kainu eta **kainu** -zuloen beharraz jabetuta, etxe eta kale guztietan jar zitzatela agindu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **kaio** **1** *iz* itsasbazterreko hegazti igeri-oinduna, taldeetan bizi dena, handia, luma-zuria, bizkarra eta hegoak hauskarak dituena *(Larus argentatus* etab.). ik **antxeta.**

**Kaio** mutur-luze, **kaio** handi, **kaio** oihulariak atzetik zituela. Felipe Juaristi

Baina ez zen **kaio** bakan batzuen karranka eta haizearen firfira beste deus entzuten. Anjel Lertxundi

**Kaioak** itsasontziari segika. Joxe Austin Arrieta

Ibarraren gainean hiru **kaio** hauskara paratu dira orekan. Patxi Iturritegi

Izotzen gainean txoriak ugari ikusiko dituzue, **kaioak** eta petrelak, zeuen gainean jirabiraka sarritan. Joseba Sarrionandia

Aidean hiruzpalau **kaio** biraka. Juan Luis Zabala

Itsas azpitik irten eta hegan joan zen Ulisesen ondora, **kaio** baten antzera. Juan Kruz Igerabide

**Kaioen** berezko harrapari senari gaueko argitasunak asko laguntzen dio. Berria - Gaiak

Labar gaineko **kaio** eta kuliskei. Hasier Etxeberria

**Kaio** urduriak saltoka ari ziren hondakinetan eta harea gainean. Aritz Gorrotxategi

**Kaioen** kurrixka etengabeak entzuten ziren. Anjel Lertxundi

Sekula ikusi gabea genuen **kaio** erraldoiren batek errun arrautza. Koldo Izagirre

### **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hegoaldeko bi uhartetxoak **kaio** -habiaz beterik daude. Juan Garzia

**Kaio** -arrautzak jaten beren heriotza naturalaren ordura arte. Juan Garzia

Kaleko lorontzi harrizko bat, **kaio** -zirinez zuritua. Anjel Lertxundi

**Kaio** -kurrixkak entzunik, begiak jaso ditut. Anjel Lertxundi

**Kaio** -saldo goseti baten kurrixkak. Anjel Lertxundi

**Kaio** saldo handia zebilen belen artean txirrioka. Anjel Lertxundi

Nola **kaio** aldrak itsasontzien atzetik, halaxe haur eta neskek biolinaren doinura jarraitzen ziotela da Rua eroari. Felipe Juaristi

**Kaio** -andana bat pasatu zen nire gainetik, gortzeko moduko zalaparta sortuz. Anjel Lertxundi

Kirolzalea eta **kaio** -ehiztaria izan zen Juan. Edorta Jimenez

· **Kaio** zuri-urdinxka mordo bat itsasertzean, Iparralderantz militarki noratua.` Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kaio handi (3); kaio saldo (3)

---

## **kaiola** **1** *iz* animalia ez handiak eta bereziki txoriak bertan itxirik edukitzeko, burdin hariz edo zotzez egiten den kutxa modukoa.

Txoria urrezko **kaiola** batean sartu. Patxi Zubizarreta

**Kaiola** zintzilikatuan, txoriaren negarrak adur txarrekoa zirudien. Juan Kruz Igerabide

Felpa gorrizko oihal logaletu batek loroaren **kaiola** estaltzen zuen. Matías Múgica

Alanbrezko **kaiola** txiki batean zeraman sagua. Karlos Zabala

**Kaiola** hutsa armairu barruan sartu zuen. Iñaki Mendiguren

Zumezko **kaioletan** sartzen genituen txori zorigaiztokoak. Koldo Izagirre

Banbuz egindako **kaiola** zuriak. Javi Cillero

Oiloak ere izaten genituen **kaiola** luze handi batean sartuta. Jon Maia

Katua **kaiolako** txoko batean kuzkurtu da, koiotearen beldur bailitzan. Javi Cillero

Katua plastikozko **kaiolan** sartu eta dena prest dagoela esan dit. Javi Cillero

Saltzaileak **kaiola** batean sartu zuen txakurra. Juan Kruz Igerabide

Bulldog eme beltz bat, **kaiola** bat osoa beretzat daukana. Oskar Arana

Hirugarren **kaiola** irekitzen du eta barrura sarrarazten ditu bi dobermanak. Oskar Arana

Zaldidunen zerbitzuko, herriko etxeak ezartzen ditu **kaiola** zenbait. Herria

Hantxe kokarazi zituen, kaiola eta **kaiolako** biztanlea. Josu Zabaleta

· Delako zaindaria kristalezko **kaiola** batean gerizaturik zegoen, aparkalekuko sarreraren alde batera. Aingeru Epaltza

**Kaiola** blindatu baten barruan eduki behar baldin baninduten epaiketan. Koldo Izagirre

Kristalezko **kaiola** hutsik dago gaur, hiru akusatu presoak gainerako epaituen artean eseri baitituzte. Berria - Harian

**2** animalia basatiak giltzapean gordetzeko, burdin barra eta xaflaz egiten den barrutia.

**Kaiolan** bizi den tigrea ez da egiazko tigrea. Gotzon Garate

Hezlearen emaztea, xafla txikizko soineko batez jantzia, lehoiaren **kaiolan** sartu zen. Koro Navarro

**Kaiolan** sartutako pixtia zurbila. Itziar Otegi

Nagusiak **kaiola** handi batean zuen azeri bati. Jon Maia

Hegaztien **kaiolan** txori bakar bat dago, itsas arrano gazte bat, hegal hautsia ohol batekin lotua daukana. Oskar Arana

**Kaiola** erraldoietan mota desberdinetako xoriak atxikiak ziren ehunka. Ramuntxo Etxeberri

Agindu zion militarrari **kaiola** batean sar nintzala. Juan Kruz Igerabide

Furgoneta batean sartu eta zooko **kaiola** batean itxi ninduten ondoren. Joxan Elosegi

· **Kaiola** barruan zihoan Don Kijote, eserita, hankak luze-luze, eskuak lotuak. Patxi Ezkiaga

Zortzi hilabetez bakardade **kaiola** batean atxiki dutela eta beharrezkoak dituen sendagailuak ez dizkiotela eman [Guantanamon]. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kaiola** makilen artean hatzak barneratu zituen. Karlos Zabala

Hong Kong, Pekin, Shanghai eta Macaoko **«kaiola** eraikinak» erakutsi ditu batetik, bulego dorre hermetikoak. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez txori-**kaiola** bat baino handiagoa. Julen Gabiria

Txabolan, oilo eta untxi **kaiola** artean etzan ginen, uzkurtuta eta isilik. Jon Maia

Euli-**kaiola** bat, kortxo batetik ebakitako bi xaflatxo orratzezko hesi gisako batez elkarri josirik egina. Juan Garzia

**5** *irud*

Karratu baten barruan geratzen da orduan ikuslea, begiraden **kaiola** batean harrapaturik. Berria - Kultura

**6** ***bular kaiola***

Soina jaso dut **bular-kaiola** erakusteko. Urtzi Urrutikoetxea

**Bular-kaiolak** zabalera izugarria dik, eta oinak gihartsuak eta bizkorrak dituk, lurra ukitu ere ez ditek egiten. Jose Morales

Hori gertatzen da **bular-kaiolan** diafragmak behera egiten duenean. Irene Aldasoro

Bat-batean, **bular-kaiolaren** erdialdean ziztada bat sentitu du. Pako Aristi

Diafragmak **bular-kaiola** zabaldu eta abdomeneko barrunbea estutu egiten baitu, eta, horrenbestez, presioa gehitu. Irene Aldasoro

**7** ***kaiolako joko***

Nagore **kaiolako jokoan** espezialista da, Xala, berriz, sasoi puntu betean iritsi da finalerdietara. Berria - Kirola

Antxia da faborito, Gomez ez baita trebea **kaiolako jokoan**. Berria - Kirola

· Ez dela berriro kantxaratuko **kaiolako** txapelketan. Berria - Kirola

Titin lesio batetik atera berritan eta Olaizola II.a burua **kaiolako** finalean duela. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bular kaiola** (3); **kaiola barruan** (12); **kaiola barruko** (4); **kaiola batean sartu** (4); **kaiola handi** (13); **kaiola handi batean** (4); **kaiola txiki** (3); **katuaren kaiola** (3); **kristalezko kaiola** (6); **zementuzko kaiola** (3)
>
> **kaiolako atea** (6); **kaiolako jokoan** (3)
>
> **kaiolan bizi** (7); **kaiolan dagoen** (3); **kaiolan sartu** (13); **kaiolan sartutako** (3); **lehoiaren kaiolan** (3)
>
> **kaiolara itzuli** (3); **kaiolara joan** (4)
>
> **kaiolatik atera** (8)

---

## kaiolar *iz* txabola.

**Kaiolarretan,** bortüko oletan eta borda erdi erorietan. Itxaro Borda

Ikusleen arima emozio handi batek gatibatu zuen, bederazka, **kaiolar** mutzituetako giro poetikoa itxuratzen zutela. Itxaro Borda

460 000 euroko kutxa berezia ideki du, **kaiolarrak** eta bortuko muntadura publikoak ongi atxikitzeko. Herria

---

## kaiolaratu, kailara(tu), kaiolaratzen **1** da/du *ad*

Ez genuela piztia hura sekula **kaiolaratu** behar. Joan Mari Irigoien

**Kaiolaratutako** basapizti ernegatu eta etsi harentzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (era burutua izenondo gisa)

Halaxe erretirarazi zuten Abdul **kaiolaratua**. Karlos Linazasoro

---

## kaiolatu, kaiola(tu), kaiolatzen **1** du *ad* kaiolan sartu.

Orain denon ardura da txoria **kaiolatzea**. Joxemari Iturralde

Nolabait gizarteak barrokoaren eskematan **kaiolatu** duen Don Kijote ekarri nahi izan dugu gogora. Patxi Ezkiaga

Bere bizidun izatean **kaiolaturik,** uko egin dio izadiaren legeetara makurtzeari. Juan Garzia

Azkenean **kaiolatuko** zuten gizon mehea, ez zituzten han izango beti haren begitarte triskatua, haren preso begiak. Karlos Zabala

Baroi presoak **kaiolaturik** zeuden ziegara. Aingeru Epaltza

**Kaiolatutako** abere amorratu baten moduan. Anjel Lertxundi

Ezein legek, ezein erlijiok, ezein gizonek ezin baitu **kaiolatu** ama baten maitasuna. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Txori **kaiolatuak** eta katu fereka zaleak. Imanol Zurutuza

Txori **kaiolatuaren** kantua geure barne-sentimenduen isla baizik ez da. Karlos Linazasoro

Piztia **kaiolatuek** bezala. Xabier Amuriza

Tigre **kaiolatuaren** antzera. Joxemari Iturralde

---

# **kaiolatxo** *iz* kaiola txikia.

Txikitan harrapatuz gero, **kaiolatxo** batean sartu eta jaten ematen diote. Bernardo Atxaga

Egurrez, oilategiz eta mota guztietako **kaiolatxoz** beteriko patio batera. Jose Morales

---

# **kaiolatzar** *iz* kaiola handia.

Irudiaren alboan loro-hegaztien **kaiolatzarra** dago. Edorta Jimenez

---

# **kaiperatu**, kaipera(tu), kaiperatzen da *ad* kai azpira joan.

**Kaiperatu** zelarik eta motorra isildu, neskatoa zen lehenik eskailerei goiti abiatu. Aurelia Arkotxa

---

# **kairatu**, kaira(tu), kairatzen da/du *ad* kaira joan; kaira eraman.

Tomas aspaldi desagertua zen bere errumaniar larru-zuriarekin, eta nik hiru ordu laurden behar izan nituen, oinez, Josurenean **kairatzeko**. Aingeru Epaltza

Zabortegira bidean atoian eraman zuten Ondarroan takota zela esango zioketen bezalaxe, edo auskalo, bramune, edo nork daki, beharbada baita arraingaiztu ere, ondo ikusi gabe ezin seguru esan baina, zer zen desitxuratuta **kairatu** zutena. Iñigo Aranbarri

---

# **kairotar** *izond* Kairokoa, Kariori dagokiona.

Hainbat kazeta **kairotarren** izenak. Patxi Zubizarreta

---

# **kaiser** *iz* Alemaniako enperadorea.

Gilermo II.a **kaiserrak**. Iñaki Mendiguren

Erromatar Inperioaren sortzailearen goitizena **kaiser** eta tsar tituluetan piztu zen. Iñaki Mendiguren

---

# **kaiuko** *iz* txanela handia. ik **patera**.

Lexikoaz zalantza bat: zergatik dira Marokokoak paterak eta **kaiukoak** Mauritaniakoak? Iñigo Aranbarri

---

# **kaixo** 1 *interj* adiskide bati, ikustean, egiten zaion diosal hitza.

**Kaixo,** Dani naiz. Antton Olano

**-Kaixo,** laztana! -Ixaskunek. Txillardegi

**-Kaixo,** Anne, zer moduz zaude? Josu Zabaleta

**Kaixo,** motel! Txillardegi

**Kaixo** herri, hire bila nenbilean! Koldo Izagirre

**-Kaixo** aspaldiko. Hasier Etxeberria

**-Kaixo,** Ralph -esan zuen goxo-goxo-. Fernando Rey

**-Kaixo,** mutilak -esan zuen zarataka. Julen Gabiria

Hemen naiz berriro, **kaixo** denoi. Hasier Etxeberria

**-Kaixo,** Iñaki, hau Miren Karmele da; Miren Karmele, Iñaki. Xabier Mendiguren Elizegi

**-Kaixo,** Balter jauna -agurtu nuen, eskua zabalik berarengana joanez, oso urduri. Fernando Rey

**-Kaixo,** aurrera -eskua luzatu zion-. Jasone Osoro

**Kaixo,** nor zara, ba ez, ez zait interesatzen, agur. Alberto Barandiaren

Hurrengo ikusten dudanean, gauza izango naiz **kaixo** esateko, berarekin hitz egiteko. Oskar Arana

-Ezin al diezu **kaixo** eta urte askotarako esan honako dama hauei? -galdetu zion Matson andreak. Mirentxu Larrañaga

**kaixo,** jaun agurgarria! Jose Morales

**2** (gutun baten hasieran)

**Kaixo,** aita, ama ta Aran: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kaixo,** Olatz: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kaixo,** aspaldiko: [...]. Hasier Etxeberria

**3** (telefonoz)

**Kaixo**; hor al da Joxe? Pablo Sastre

**-Kaixo,** Enrike naiz. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaixo esan** (9); **kaixo eta agur** (17)

---

# **kaixoka** *adlag kaixo* esanez.

Denak maitasunez, goxoki, **kaixoka** agurtzen zituen. Gotzon Garate

---

# **kaizu** *iz* tamaina, neurria.

Berriz ere bakarrik ginen beilarien erdian, ordu arte Michelcoren **kaizu** zabalaren geriza pean nintzalarik. Michel Oronoz

kaja ik **kaxa**[1].

---

# kajoi *(56 agerraldi, 20 liburu eta 2 artikulutan; cf **tiradera** 215 agerraldi, 70 liburu eta 12 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **tiradera** agertzen da)* **1** *iz* tiradera. **ik kaxoi.**

**Kajoia** ireki eta argazkiak gordetzen dituen sobrea hartu dut. Xabier Etxabe

Mahai azpiko **kajoi** batetik karpeta arrosa bat atera zuen. Aingeru Epaltza

Armairutik zira bat eta **kajoietatik** galtzontzilo bat atera eta maletan sartu zituen. Aingeru Epaltza

Mahaia inguratu eta **kajoi** zabaldura joan nintzen. Matías Múgica

Jeneralak **kajoi** batean gordetzen zituen argazki zaharrak. Xabier Olarra

Jexuxen **kajoian** usman ibili eta gero. Xabier Etxabe

Mesanotxeko **kajoi** barruan arakatzen hasi zen. Jon Arretxe

**2** (elkarrizketetan)

-Sukaldeko **kajoiren** batean izan behar du. Xabier Mendiguren Elizegi

-Horiek denak nire agendan zeudek eta agenda, berriz, nire mahaiko lehen **kajoian** . Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kajoia ireki (7)

---

# kaka **1** *iz* uzkitik iraizten den hondakin gotorra. ik **mokordo**.

Gonbitoak eta hazia, **kaka** eta pixa, odola eta malkoak. Oskar Arana

Baina airoso ospa egin zuen **kaka** zeriola. Xabier Olarra

Zakur batzuk, egin duten **kaka** ezkutatzen ahalegintzen dira. Gotzon Garate

Herri batean, errusiarrek bortxa ez zitzaten, aurpegia eta bularrak eta izterrak **kakaz** zikindu zituzten emakumeek. Pablo Sastre

· Baina denborarekin, denboraren **kaka** -lanarekin, zer egin hoberik ez eta, probatze aldera, **kaka** probatzen hasten da bat: mokordo lodiak eta meheak, tamainako usaindunak eta kirasdunak, tirrinak, xirinak, gorotzak eta denak. Iñaki Segurola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kaka** usain mina karriketan, eulitxen eraso etengabea gauetan. Aingeru Epaltza

Afrikako ume gosekil baten moduan, ezin eutsi eta hantxe bota nuen nire **kaka** -ura. Xabier Mendiguren Elizegi

Beleek jan eta gero, espaloietan gelditzen den **kaka** -hondarra garbitzeko, kare bizia botatzen dute. Gotzon Garate

Eta **kaka** -mendia pixkana-pixkana desegin egin zen. Fernando Rey

Hau **kaka** -mokordo bat da, aizu! Antton Olano

Lehengo **kaka** putzura bueltatzen ari garela uste diat. Patxi Iturritegi

Berak egingo zuen gurdi gainetik **kaka** banaketa. Joxean Sagaztizabal

· -Jakin daiteke non sartzen haizen, **kaka** -zaku hori? Aingeru Epaltza

Eta zuk, Hamida, zer egingo duzu **kakafardel** horrekikoak egindakoan? Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baita igerileku puzgarri bat ere, beti erdi hutsik eta **txori** -kakaz zipriztinduta zeukatena. *ik beherago* 27. Errezeta nazkagarriak aurkitu zituen, Egipto zaharreko bat, esaterako, krokodilo- **kaka** erabiltzen zuena, eta beste bat, ez-dakit-nongoa, osagai nagusia elefante- **kaka** zuena. Karlos Zabala

Kalean linterna magikoak zeuden, euli- **kakaz** beteak. Lopez de Arana

· Ta ze parranda- **kaka** egin behar dugu ba, bixigarri pixka bat ekartzen ez badugu? Xabier Mendiguren Elizegi

**4** inongo baliorik ez duen gauza; gaitzesgarria edo gogaikarria den gauza.

Ez da sinestekoa zenbat **kaka** esan eta idatzi egiten den Frantzian, ondo-ondo apaindua, hori bai. Karlos Zabala

Telebista, kirol, kultura eta **kaka** gehiegi jan gabe. Iñaki Segurola

Erromako jende horietaz mendekatzen nindian Arkimedesek, snob horietaz, gure uhartera herri konkistatu batera bezala etorri eta **kakatzat** tratatzen gintuen iparraldeko italiar horietaz, zera. Jon Muñoz

Ergelkeria handiagorik, **kaka** baten partez beste **kaka** bat. Karlos Zabala

Hor behean **kaka** eta miseria besterik ez zegok. Jokin Muñoz

**Kaka** pollitaren erdian nauk, to…! Daniel Landart

Ni, doluminez urtua eta hura bere **kakaz** mintzo! Daniel Landart

Gisa guziz, haiek bizi zuten trantzea ikusiz, biziraupenaren bilatzea baizik ez zen lagunari ogiaren ebastea, nahiz eta lagun hura **kakaren** erdian utzi. Eneko Bidegain

**5** (izenondo gisa)

Eta disko **kaka** horiek guztiak. Koro Navarro

Edu, ez ezaala sekula diesel **kaka** bat eros, ez ezaala! Aingeru Epaltza

Bakarrenetarik naiz noski, lanbide **kaka** honetan. Aingeru Epaltza

Orain ez zian onartzen, burla iruditzen zitzaioan, aukera **kaka** hartan berari lekurik ez ematea. Josu Zabaleta

-Zomorroi **kaka** halakoa! Aingeru Epaltza

**6** *(hitz elkartuetan; ik beherago* **15, 16** *eta* **24**).

Eta non eta ez den zure aita izan ohi zen **kaka** -senarra bezalakoa bihurtzen, badago itxaropenik. Oskar Arana

Guk alemanez egiten dugu ezta? zuen **kaka** -hizkera hori, zuen **kaka** -herrira joango zaretenerako gorde. Pablo Sastre

Nazka ematen dit **kaka** -lan horrek -esan zuen Jimmyk, astiro hitz eginez. Lopez de Arana

Denboraren **kaka** -lanarekin. Iñaki Segurola

• **7** *interj* nahi edo espero ez den zerbait gertatzen dela ikustean erabiltzen den hitza. ik beherago**25.**

**Kaka,** ez dakit nola moldatu naizen, baina itzuli naiz hasierara berriro. Xabier Olarra

**Kaka,** pentsatu duzu; hiru urte elkar ikusi gabe egon ondoren izerdi usainarekin elkartu behar. Eider Rodriguez

**"Kaka"** esan zuen, bat-batean ohartuta ez geneukala surik. Xabier Mendiguren Elizegi

**-Kaka** ! -esan zuen marmarka amorruz-. Iñaki Mendiguren

**Kaka!,** madarikatu nuen neure burua, erremediorik ez zuen zerbait konpontzen saiatzeagatik. Anjel Lertxundi

· -Bai, **kaka** ! Xabier Etxabe

**8** (biraoetan)

**Kaka** amabirjinari! Inazio Mujika Iraola

Kabinak bazuen kristal bat gure atzean, eta atzerako ispilutik ikusi nuen Karmenek indar handiagoz eragiten ziola banderari, eta Fructuosori antzeman nion nola **"kaka** amabirjinari!" garrasi egiten zuen. Inazio Mujika Iraola

*Me cago en Dios* **(Kaka** Jainkoarentzat) antzezlana eraman behar zuen aste honetan Txilera, Santiago hiriburura. Berria - Kultura

## 8a *adkor* haxixa.

1980ko buelta horretan, berriz, haxixa sartu zen indarrez geure inguruan: txokolatea, kostoa, **kaka** . Xabier Mendiguren Elizegi

## 9 *kaka beherako* (*corpusean* ***kakabeherako*** *soilik*)

Honek ere garbitzeko balioko dizu, baina gehiegi agian: **kakabeherako** ederra etorriko zaizu botila osoa porroian husten baldin badut. Xabier Mendiguren Elizegi

## 10 *kaka egin*

Jaten hasi baino lehenago, bi zakurrak, barrutitik urruntxe pixa edo **kaka egitera** aterako dira. Gotzon Garate

Inguruko nekazari herrietatik joaten ziren saltzaileek edonon egiten zutela **kaka** . Berria - Gaiak

Norberarenak ez diren galtzetan **kaka egitea** bezala da hau; zergatik gaixotzen naiz besteren kontuekin? Juan Kruz Igerabide

· Amets egiten dut Victor Chavarriren jauregia suak hartuta ikusten dudala, **kaka** alu bat egiten diot abade eta lagizartzale guztien Bizkaiari. Koldo Izagirre

· -Doala **kaka egitera** ! Antton Olano

-Hi, aizak, joan hadi **kaka egitera,** eta bidean psikiatra bat topatzen baduk..., deitu iezaiok. Antton Olano

-Hoa **kaka** egitera -Iñaki klaseko potoloak, minduta. Xabier Mendiguren Elizegi

**-Kaka egitera** ! -jaurti du lurrera. Aingeru Epaltza

· -Ni bezain **kaka** -egina? Aingeru Epaltza

Beste tipo hark **kaka eginda** utzi zuen. Antton Olano

· Nahi duena egiten uzten badiogu, azkenean **kaka** egingo digu burutik behera. Patxi Iturritegi

Bestela jan egingo gaituzte, **kaka** egingo digute burutik behera. Iñaki Segurola

Nola segitu dugun bizirik geure buruari burutik behera **kaka egiteko** horrelako ohitura izanda. Xabier Mendiguren Elizegi

## 11 *kaka eginarazi*

Barre eragiten dizu, baina aldi berean, praketan **kaka** eginarazteraino beldurtzen zaitu. Oskar Arana

## 12 *kaka eman* *adkor* kalaka eman.

Ez zakiat nik merezi duen honaino igotzea, Eñaut **kaka** ematen egon delako, bestela... Sonia Gonzalez

## 13 *kaka-eragile*

Berde-zurrustada bat, behazun gora-joa eta izu **kakaeragilea** marrazteko. Xabier Olarra

## 14 *kaka esplikatu* hutsalkeriak azaldu.

Beti **kaka esplikatzen** aritzen garela. Joxerra Garzia

Entretenimendua, informazioa eta pertsuasioaren arteko bereizketa aldarrikatzen ematuta, **kaka esplikatzen** ari gara. Joxerra Garzia

Orain artekoan esateko askorik izan ez eta sarritan itzulinguruka ibili behar izan dut **kaka esplikatzen** . · Filologoa erotu egiten da jardun merkearekin, solas barren-huts **kaka** -esplikatzailearekin. Patxi Zubizarreta

## 15 *kaka-gixon* (*orobat* ***kakagixon***) *iz*

Eta hurrena hiri emango dizkiat **kakagixon** honen muinak kaxuelatxo batean pil-pil jartzeko. Inazio Mujika Iraola

Osasuna, **kakagixon** ! -esan zidan; eta listua bota zuen lurrera destainaz-. Inazio Mujika Iraola

-Hik nahi duana egin ezak, **kakagixon,** baina ekarri giltzak -egin zidan zaunka. Inazio Mujika Iraola

-Beraz, gasolina-tankera Koka-kola isuri zuen **kaka-gixonak** bizia salbatu zigun. Oskar Arana

Izango duk beste **kakagixon** santujaleren bat orduan! Inazio Mujika Iraola

## 15b *kaka mokordo*

Muskulu mordo bat besterik ez dira... kaka **mokordo** bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Heure kaka **mokordoen** gainean eseriko haut, badakin, Mari Ipurdi-Eder? Karlos Zabala

Ozta-ozta ematen zidan abagunea txizarrada bizkor bat eta kaka **mokordoa** bota nitzan, eta berehala itzularazten ninduen etxera. Jon Arretxe

Azken orduko egiturazko bitxikeria goitik behera betetzen duen hainbat eleberri posmodernok, ostera, kaka- **mokordo** batek bezainbesteko zirrara du eragiten. Markos Zapiain

Eta buruan esanahi argirik gabeko hitz batzuk besterik ez neuzkan, harribitxiz zein kaka- **mokordoz** bete zitezkeen kaxa hutsen gisa.· Gure lehengusina Juliak hiru egin zituen segidan, plaust, plaust eta plaust, ez epiduralik ez ezer, hiru kaka **mokordo** lodi eta bigun bezain erraz, eta hala ere, sekula ez duzu itota ikusten, ez dizu inongo kontu txarrik aipatzen; aitzitik, guztiz errealizatuta ageri da ama-paperean. Xabier Mendiguren Elizegi

## 16 *kaka-mutil* (*corpusean* ***kakamutil*** *soilik*) *iz*

Nor zen azken etorri hori, hilean 7.000 lirako soldatadun **kakamutil** hori, arrotzostatuko gauen bakea makinaz auskalo zer idatziz hausten zuen izkribatzaile moko hori [...]? Juan Garzia

## 17 *kaka nahasi*

Ez zaitezen, gertuko sentituta, **kaka** nahasten has. Iñigo Aranbarri

Zutaz ere ihardun zuen **kaka nahasten,** ez pentsa. Xabier Montoia

Eta, jakina, zilegi zen Athleticek oso ondo egin zuen fitxatzen, baina berriro **kaka nahasten** hastea… *ik* kakanahasi. Berria - Kirola

## 18 *kaka-nahasle*

Garbiki erraiteko, gizon hori **kaka** -nahaslea zen eta gustuko parada bazuen hor herrian alderdikeriaren sorrarazteko. Michel Oronoz

## 19 *kaka-nahaste* (*orobat* ***kakanahaste***)

Testua osorik eta **kaka-nahasterik** gabe ageri zen lerroaldez lerroalde. Aingeru Epaltza

Hau **kaka-nahastea,** saltsa handian sartzen ari naiz. Karlos Zabala

-Merezi al du -jarraitu zuen Maizak- **kaka-nahastea** areagotzea hiru mila euro xumeengatik? Migel Angel Mintegi

Hik ur garbirik batere atera duk **kaka- nahaste** horretatik? Aingeru Epaltza

**Kaka- nahastean** bakar-bakarrik sartu duk, inoren laguntzarik gabe. Aingeru Epaltza

## 20 *kaka ontzi* ik **kakontzi.**

## 21 *kaka puta* (*orobat* ***kakaputa***) inongo baliorik ez duen gauza.

Bizitza **kaka** puta bat da, gero hil egiten zara. Txirotasun eta miseriaren aurrean distantzia fokala kalkulatzen hasten diren argazkilari horiek egiten duten tankerako erreportaia egiten ari zen: **kakaputa** bat. Paddy Rekalde

## 22 *kaka putz* (*orobat* ***kakaputz***) inongo baliorik ez duen gauza.

**Kaka putza** da txakur txikirik ere ez izatea. Lopez de Arana

- **Kaka putza** gaurko pelikula! -esan zuen purrustaka. Lopez de Arana

Ikusiko dik nor naizen, **kaka putza** ! Lopez de Arana

Lehenago..., mutil horrena gertatu baino lehenago, esaten zuen ez zuela maitemindu nahi, maitasuna **kakaputza** eta rollo bat zela. Antton Olano

## 23 ***kaka-saltsa*** *(corpusean* ***kakasaltsa*** *soilik)*

Amorraziorik handiena ematen du, euskarak oparoen eta ederkien bereiztu dituen gauzak hiztegietan **kakasaltsan** ikusteak. Patziku Perurena

## 24 ***kaka-ume*** *(orobat* ***kakaume****)* *iz adkor* ume txikia.

Urtebete zaharragoa, beraz, eta gu harendako **"kakaume** mukizu batzuk" baizik ez. Aingeru Epaltza

**Kaka-umea** zenean iruditzen zitzaion hartaraxe bihurtu dela atzera. Iñaki Segurola

Gazte biologikoki helduak **kaka-umetzat** jotzen ditu gizarteak. Luis Elberdin

## 24a (izenondo gisa)

Ordu erdi baino gehiago eman genuen han, ikasle **kakaumez,** irakasle koipetsuz eta era guztietako keinu lizunak egiten zizkiguten pailazoz inguraturik. Jon Arretxe

## 25 ***kaka zahar***

Muxu goxoak ematen zizkion *tren txikia txu-txu-txu* edo gisa horretako **kaka zaharren** bat kantatu ondoren. Karlos Zabala

-Zer **kaka**-zahar argitaratu huen lehengoan autobideko lapurretez? Aingeru Epaltza

**Kaka zahar** horretan sinetsi nahi badu, ongi, ez zait axola. Oskar Arana

Intelektualak **kaka zaharra** dira, Nathan. Oskar Arana

Garai hartan kontzientziaren benetako erredentzioa iruditzen zitzaidan, eta arrazoiaren eta praktikaren arteko uztartze perfektua, gaur egun, ordea, **kaka zahar** zitala iruditzen zait. Karlos Zabala

Horrelakoxea da bizitza, **kaka zahar** handi bat. Hasier Etxeberria

-Hau duk hau **kaka** zaharra! Aingeru Epaltza

Lehenbizi jakin nahi diat zer **kaka-zahar** klase den hau. Aingeru Epaltza

Inork ez du gogoko **kaka zaharretan** igeri ibiltzea. Hasier Etxeberria

Arestian baino **kaka**-zaharragoa sentitu nintzen. Aingeru Epaltza

## 26 ***kaka zaharra*** *interj*

**Kaka zaharra**! O, **kaka zaharra**! Jesus Mari Mendizabal

**Kaka zaharra**! hau ere niri gertatu behar! Patxi Iturritegi

**-Kaka zaharra**! bapo izorratu gaitik. -**Kaka zaharra**, blai eginda nago! -esan zuen Jimmy Herfek goraki. Lopez de Arana

**"Kaka zaharra,** orduan!", zapuztu zen Pantxo tximeleta airera botaz. Bernardo Atxaga

Tira, egizu nahi duzuna, **kaka zaharra**! Lopez de Arana

**Kaka zaharra,** ezta, Damian? Hasier Etxeberria

## 27 ***txori kaka*** gauza hutsala.

Porrota oraindik erabatekoa ez zela frogatua nion neure buruari, eta hori ez zen txori-**kaka**. Aingeru Epaltza

Ez duk txori **kaka** gero! Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azkenean kaka** (3); **burutik behera kaka** (4); **euli kaka** (4); **galtzetan kaka egin** (3); **hau kaka zaharra** (3); **hori kaka** (4); **hura kaka** (3); **kaka amabirjinari** (5); **kaka artean** (4); **kaka baino** (3); **kaka egin** (26); **kaka egina** (7); **kaka eginda** (8); **kaka egingo** (10); **kaka egiteko** (12); **kaka egiten** (15); **kaka egitera** (15); **kaka esplikatzen** (3); **kaka eta pixa** (5); **kaka hutsa** (6); **kaka jan** (4); **kaka meta** (3); **kaka mokordo** (5); **kaka nahaste** (6); **kaka nahastea** (4); **kaka nahasten** (3); **kaka puta** (3); **kaka putza** (6); **kaka usaina** (3); **kaka zaharra** (118); **kaka zaku** (3); **leher kaka egina** (5); **txiza eta kaka** (3); **txori kaka** (5)

**kakaren erdian** (3)

---

# kakabeherako ik **kaka 9**.

---

# kakafardel ik **kaka 2**.

---

# **kakagixon** ik **kaka 15**.

---

# **kakagura** *iz* kaka egiteko gogoa.

Ahotik jaurtiko zuen azken txorrotarekin batera, **kakagura** handia etorri zitzaion bat-batean. Josetxo Azkona

Meategi-sarreran zaindari dagoen gizona, **kakagurak** amorratzen zegoela-eta, bazter batera joan da egin beharrekoak egitera Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **kakahuete** *(orobat* ***kakauet*** *g.er. eta* ***kakauex*** *g.er.)* **1** *iz* sustraietan leka itxurako fruitu oliotsuak dituen landarea *(Arachis hypogea);* landare horren fruitua, jateko ona.

**Kakahuete** bat mekanikoki zuritu eta ahoan sartu zuen. Lopez de Arana

**Kakahuete** errearen zapore pixka bat zuen. Xabier Olarra

**Kakahuete** lizunduak. Iñaki Mendiguren

**Kakahuete** txigortuak. berriz, animalien ehunetatik eratorria izaten da gehiena; bada parte txiki bat landareetatik eratorria **(kakahuete** eta olibetatik, besteak beste). Irene Aldasoro

Whisky botila erdiraino jaitsia, edalontziak erdizka beteta, oliba eta **kakauexak** platertxo banatan. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Krax-krax-krax ahoarekin **kakahuete** azalak txikitzen. Jokin Muñoz

Eskuarekin aulki gaineko **kakahuete** azal batzuk baztertu eta gero. Jokin Muñoz

Agian aldizkariren bat inguratu ahalko dizut, edota **kakahuete**-zorroren bat. Mirentxu Larrañaga

Rantxeriako biltegian erositako **kakahuete** poltsak. Josu Landa

Badoa **kakahuete**-saltzailea. Edorta Jimenez

Basarto-irina, **kakahuete**-koipea eta patata gozoak erostera. Juan Garzia

Almaitz batean ondo birrindutako **kakahuete**-irinetik 30 gramo. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kakahuete**-gurinezko hiru izozki handi erosi zituen. Iñaki Mendiguren

---

**kakaila** *iz* kaka.

Neure memoria ez da ordea, usain eta harreman onez betetzen, ardi **kakailaz** hanpatu gasnatzeko esnez eta hezur-klaska ozenez osatu artalde mehakoilez baino. Itxaro Borda

Aitak, ardiak laxatu zituen eta lohian txapatxapa ihalozka pasatu ziren, muturrak lurrera, ilatxetan iratze zein ote abarrak perlatzen zirela, **kakaila** pikorren artetik. Itxaro Borda

---

**kakajario** **1** *izond* kaka asko egiten duena.

Morfeo **kakajario** hori, joko hori! Antton Olano

**2** *iz* beherakoa.

**Kakajarioa** nahiago. Pablo Sastre

---

**kakalardo** **1** *iz Scarabaeidae* eta beste familia batzuetako hainbat intsektu barailadun gorozjaleri ematen zaien izena. ik **kakarraldo, kakamarlo.**

**Kakalardoen** begi beltz distiratsu eta ñimiñoak. Iñaki Mendiguren

Samuak intsektu txiki-txiki batzuk dira, **kakalardoaren** talde berekoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jaungoikoaren sinbolo zirela **kakalardoak** Egipton. Xabier Aranburu

Ez zen konturatu Fredek eta Georgek **kakalardoak** jarri zizkiotela zopatan. Iñaki Mendiguren

**2** (izenondoekin)

**Kakalardo** adardun handi batzuk. Joseba Sarrionandia

Irineko **kakalardo** gorrian, esate baterako, bi gene aurkitzen dira **kakalardoaren** hanken garapena kontrolatzen dutenak. Pello Salaburu

**Kakalardo** hegalari batzuen distira gorriska. Joxe Austin Arrieta

**3** (hitz elkartuetan)

Bere **kakalardo**-begi beltzak. Iñaki Mendiguren

**Kakalardo** espezie baten larbak dira hauek. Pablo Sastre

**4** ***kakalardo pilotagile*** kolore beltzeko kakalardoa, atzeko hankekin gorotzezko bolak birarazten dituena.

Bazekien kakalardo **pilotagile** bihurtuko ote zituen beldurragatik bakarrik ez zutela eskailerapeko armairuan itxi bere makila magikoarekin eta erratzarekin. Iñaki Mendiguren

**5** ***kakalardo saproxiliko*** basoetako zur hilaz elikatzen den kakalardo mota.

Hildako egurra ondo egituratutako basoen adierazle ezin hobea denez, kakalardo **saproxilikoak** oso adierazle biologiko onak dira. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kakalardo mota** (3)

---

**kakalarri** **1** *iz* kaka egiteko premia.

**Kakalarri** larriak sarri bezala harrapatu zaitu, ordea: aldean paperik ez duzula. Joxerra Garzia

Komuneko atea giltzapean edukitzen du, eta, kafetik lehen zurrutada egin orduko, nire **kakalarriaren** berri eman behar izaten diot. Joxerra Garzia

Neurririk gabe hartuta **kakalarria** eta sabeleko mina ere eragin ditzakeela. Berria - Kirola

**2** *adkor* urduritasun handia.

-Seguru aski horrek, askapenaren egunetan mendietatik jaitsi eta bazirudienean iraultza proletarioa une batetik bestera hasiko zela, aberats txepelen **kakalarriaz** aprobetxatu eta patrikak arinduko zizkien. Koldo Biguri

---

**kakamarlo** *iz* kakalardoa.

Udaberrian **kakamarloak** bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-pikatzaileak eta zurginak, arotzak eta kisuginak, beren maisu, peoi, ofiziale eta ikastunekin. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hartza eta kakamarloa** (4)

---

kakamutil ik **kaka 16**.

---

**kakanahasi**, nakanahas, kakanahasten **1** da *ad adkor* nahasi.

Guk aldiz mintzajea lardaskatu, puskatu, nahaspillatu, botigatu, **kakanahasi** nahi dugu; bai eta lortu ere! Herria

"Ez da hau, ez da hau!", esan zuen, egindako lan guztia zapi batez **kakanahasten** zuen artean. Hasier Etxeberria

**2** (era burutua izenondo gisa)

-Eta neuregan bilatu nahi duzu erantzuna, nire barren **kakanahasi** oligofrenikoan? Karlos Linazasoro

Eta orduan kimika **kakanahasi** baten bila abiatzen gara herio batean ahal dugun lekura. Iñaki Segurola

---

**kakanahaste** *iz adkor* nahastea.

Nola berrantolatu **kakanahaste** hau, nola eraman beste sistema batera erredaktatzen inongo ilusiorik sortzen ez duen datu anabasa morokildu hau? Iñigo Aranbarri

Lagunekin hurrengo egunean tragoak hartzera joan zaitezke berdin-berdin, bestelako **kakanahasteetan** sartu barik. Sonia Gonzalez

---

kakanarro ik **kakanarru**.

---

**kakanarru** *(orobat* ***kakanarro****)* *iz* pertsonez mintzatuz, itxura ezdeusekoa.

Ematen du, ikusita, egundoko gizontzarra; baina, larruzko kapa eranzten duenean, gixon **kakanarru** bat ageri da. Jesus Mari Mendizabal

Orduan bai, orduan emaztearen begi potolo biziak ikusten zituen **kakanarru** haren aurpegiaren erdi-erdian. Jokin Muñoz

Txanpi ezizeneko **kakanarru** alu bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Elosegi txolina, **kakanarro** ostia. Hasier Etxeberria

---

**kakao** **1** *iz* kakao landarearen hazia, txokolatea egiteko erabiltzen dena. (multzokari gisa)

Kafea, **kakaoa,** azukrea, patata, tomatea, artoa, arroza, fruitu tropikalak. Koro Navarro

**Kakaoaren** industria hedatu zenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kakaoa,** XIX. mendeko belaontzi haiek amerikar lurretatik ekartzen zutena. Bernardo Atxaga

**Kakaoaren** eta kafearen merkatuko ustelkeria. Berria - Kultura

**Kakaozko** produktuak ekoizten dituen Natrak. Berria - Ekonomia

**2** hazi horren hautsa, edari bero bat egiteko uretan urtzen dena; edari hori bera.

**Kakaoa** mikatza da berez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Uretan nahastutako **kakaoa** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Ba, aukeran daukazu: esnea **kakaoarekin** edo **kakaoa** esnearekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Egongelara joaten zen tea, kafea, **kakaoa** eta esne jetzi berria edatera. Jose Morales

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kakao** -ale hutsez egindako hautsa oso mikatza da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Italiarrek ospetsua egin dute kafearekin eta **kakao** hauts pittin batekin prestatutako edabea... J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kakao** zuntza hartzeak odoleko kolesterol maila jaisten laguntzen du. Berria - Gaiak

Kafea sutan erre eta **kakao** -sailak masiboki (arbolak, milioika) suntsitzea. Edorta Agirre

Hauen familiek **kakao** eta kafe landak bazauzkaten, garai hartan bizipide nasaia. Herria

**Kakao** -soroak landatu ziren [Afrikan]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere makillaje-kutxatik, brillantinak eta **kakao** -gurinak isuritako usaina hedatu zen gelan zehar. Lopez de Arana

**Kakao** esportazioak atzo etenda zeuden. Berria - Mundua

Galletak **kakao** -esnetan beratzen utzita. Xabier Mendiguren Elizegi

Haietarik bat **kakao** -saltzaile bat zen, aski aberatsa. Joan Mari Irigoien

**4** kikara bete kakao.

Hamaikak joak ziren ia, Café Royalen **kakao** bat edo te errusiar bat hartzeko ordua. Koro Navarro

**5** kakao landarea.

Ameriketatik mundura zabaldutako landareetako bat da **kakaoa** . J.M. Olaizola "Txiliku"

**6** ***kakao landare*** kakaoa ematen duen landarea *(Theobroma cacao)*

Kakaoaren industria hedatu zenean, **kakao-landarea** Afrikako hainbat lekutara eraman eta kakao-soroak landatu ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

kakaontzi ik **kakontzi**.

---

**kakaoztatu**, kakaozta, kakaoztatzen du *ad* kakaoz estali.

Aho-sabai trebatuak bazuen arinki **kakaoztaturiko** galoi txirikordatu bat dastatzeko aukera, bakan izaten dena. Xabier Olarra

---

**kakapirri** *izond adkor* geldigaitza, ipurtarina.

**Kakapirri** xamarra naizela esango duzu igual. Xabier Mendiguren Elizegi

Jaun **kakapirri** zahar bat zen, Julen Gabiria

---

kakaputa ik **kaka 21**.

---

kakaputz ik **kaka 22**.

---

**kakara** *iz* karaka.

Oiloaren **kakara** gogorarazten zuen barre batez. Alberto Ladron Arana

Tarteka, dardara bat igarotzen zen oihal mugikor haren gainetik; gero, gorputzak pilatzen ziren, **kakara** nahasi bat baizik ez zen entzuten. Karlos Zabala

Angelica, ekarri Mrs. Herfen gau-jantzia -oihu egin zuen Mrs. Soubrinek ahots karrankariz, oiloaren **kakara** bezain ahots latzez. Lopez de Arana

Natxo bezalako gizon guapo eta ahulek **kakara** asko eta arrautza gutxi. Patxi Iturritegi

**Kakara** egin zuen Peevesek. Iñaki Mendiguren

---

**kakaraka** **1** *adlag* kakara eginez.

Pauso-hotsek ikaratuta, oiloak aztoratu ta **kakaraka** hasi dira oilategiko kotan. Itziar Otegi

Ordurako, bele kuxkuxeroak zerurantz joanak ziren, **kakaraka,** behin beren gaiztakeria odolzalea burututa. Mirentxu Larrañaga

Nola oiloak, arrautza errunez gero, **kakaraka** eta zalapartaka aldarrikatu behar izaiten duen bere balentria lau haizeetarat, hala sentitu nintzela ni ere, munduari nor nintzen edo nor izan nintekeen erakusteko gogo ezin biziagoarekin. Joan Mari Irigoien

-Ez al da ona? -esan zuen **kakaraka** Frances-ek, bera eta Hildebrand autoan sartzen ari ziren bitartean, hantxe baitzen Ellen. Lopez de Arana

Bat-batean hegaldatze zarata entzun eta oilo bat agertzen duk, etsita, **kakaraka,** oilarra atzetik korrika datorkiola, harrapatzeko zorian... Xabier Paya

**2** ***kakaraka egin*** kakara egin.

-Beldar itsu bat, ziba bat, txakurkume iletsu bat, kotoizko makila! -esaten zuen emakumeak, kiribilduz eta **kakaraka** eginez, Juan Kruz Igerabide

---

## kakaratxo *iz* kakara txikia.

Oilo alu batek **kakaratxo** bat egin zuen. Jon Maia

---

## kakaraza *iz* karaka.

Egurats gardenetik isiltasuna iristen zen, oilarren urrutiko **kakarazak** baizik hausten ez zuena. Josu Zabaleta

---

## kakarazka *adlag* kakaraka.

Oiloren bat harro-harro **kakarazka** hasten denean, errun hurren dagoela abisu emanez Gotzon Garate

---

## kakarraldo *izond* kakalardoa.

Euliak, inurriak, hiru **kakarraldo,** eltxoak, libelulak, matxinsalto bat, erleak. Unai Elorriaga

**Kakarraldoek** ez dutela hegan egiten. Unai Elorriaga

**Kakarraldo** bihurtutako pertsona baten gorabehera eta pentsamenduetan oinarrituta idatzi zuen Franz Kafkak *Metamorfosia* liburua. Berria - Harian

---

kakasaltsa ik **kaka 23**.

---

## kakategi *iz* ik **kakatoki**.

Baina ez zen gutiagokoa izan **kakategi** -arena... zeren izen harekin bataiatu baitzuen osaba Joanikotek bere asmaketa hura. Joan Mari Irigoien

Ordea, kondeak eta dukeak nekez eginen ditek kaka kakontzian, ene **kakategiaren** abantailak probatu zituztenetik... Joan Mari Irigoien

---

## kakati **1** *izond* kaka asko egiten duena. ik **kakatsu**.

Hondartza, patata tortilla, txiringito eta ume **kakatien** sasoia amaitu da. Sonia Gonzalez

- **Kakati, kakati,** kaka eginda zaude! -oihu egin zuen Ellenek. Lopez de Arana

Badira panpin abeslariak, negartiak, puzkertiak, **kakatiak..** . Berria - Gaiak

· *(irain gisa)* Mael **kakati** horrek ez dit utzi hurbilago jartzen -kexatu zen Oisin. Joanes Urkixo

**2** koldarra.

Baina, protestatu eta gero **kakati** bat bezala esertzera joatea, nik neuk ez dut ulertzen hori. Xabier Olarra

Ez joateko **kakatiak** bezala, zutik baizik, partidak bukatzen direnean bezala, badakik, ikusleak agurtzen direnean bezala... Josu Zabaleta

---

## kakatoki *iz* kaka egiteko tokia.

Hura axolatzen zen jan-edanen banatzeaz eta **kakatokien** erabileraz, erien eta kolpatuen zainketaz eta teilaturik ez zutenen patua arintzeaz. Aingeru Epaltza

Horrez landa, aldamioak itsasi zizkieten murruei eta horien azpian bastizak zutitu ziren, gaztelua, gotorleku ez ezik, bizitoki ere izan zedin: soldadu eta sehiendako bizitegiak, sukaldea, bihitegia, zamaritegia, **kakatokia,** oilategia, uharka... Aingeru Epaltza

---

## kakatsu **1** *izond* kakatia (irain gisa)

Institutu Politeknikoko horma handi batean *Educatori di merda* (Hezitzaile **kakatsuak)** jartzen du. Anjel Lertxundi

-Agure **kakatsu** madarikatua! Aitor Arana

Tresna hori dela bide, edozein **kakatsu** beldurtik bizia bera ere kendu bailiezaioke zaldunik kementsuenari. Patxi Ezkiaga

**2** *adkor* txarra.

Hain leku **kakatsuan** jotzeko onegia zela iruditu zitzaion. Harkaitz Cano

Apiril euritsu, urte **kakatsu** ! Pello Zabala

---

## kakatu, kaka(tu), kakatzen da *ad* ik **kakaztu**.

Karnet tamainako argazkia, **kakatzen** zara, kreditu txartelaren arnas botatze eguna. Iñaki Arranz

Hordituta dirudite, mozkortuta bustita **kakatuta** edanda. Lutxo Egia

---

## kakatua **1** *iz* hegazti moko-oker motosduna *(Cacatua* sp.).

-"Todo en ti es hoy blanda armonía" -behin eta berriz; **kakatua** koloretsuek egiten duten bezala, nik ere, esaldi bakar hura errepikatuz, eta buruz banekiela erreparatu gabe. Txillardegi

Estatuko antzinako enplegatuak eta ama poloniar melankoliatsu eta kolore biziz, gorriz eta morez, **kakatua** baten gisara makillatuak. Xabier Olarra

**2** (emakumeei aplikatua)

Neskazahar itsusi, beltz, **kakatua** -sudurdun bat zen, loro zaharrak baino urte gehiago zituena. Josu Zabaleta

Galiziar ikasle baten maitasunak **kakatuen** erreginarekin. Josu Zabaleta

Mariloro horrek, Andrexi gozokiak eman eta eman aritzen den **kakatua** horrek. Jokin Muñoz

---

## kakatza **1** *iz* kaka asko dagoen tokia.

Behi- **kakatzatik** askatzeko ahalegin alferrekoan itotzen den eulia bezala sentitu nintzen. Jon Alonso

-Lasaitu diozu, **kakatza** horrek lasaitu? ederra kontua! Patxi Iturritegi

**2** irud/hed

-Zergatik erori ote naiz hain behera, **kakatzaraino,** Joantxo? Juan Kruz Igerabide

Bilbo ez, hamaika bilbo behar izango ditugu gure igeldo guztiak **kakatzatik** ateratzeko. Iñigo Aranbarri

---

**kakatzar** *iz adkor* kaka.

Eta alde batetik edo bestetik begiratuta, edonondik erakusten du **kakatzarrez** duela beteta burua. Hasier Etxeberria

---

kakaume ik **kaka 24**.

---

**kakazte** *iz* kakaz betetzea, zikintzea. • (irud/hed)

Kontu guztia umore beltzeko **kakazte** horietako batekin amaitu zen. Oskar Arana

---

**kakaztu,** kakaz(tu), kakazten **1** du *ad* kakaz bete; zikindu.

Gurpil azpira saltatzeko kaka gainera saltatu behar nuen, eta ez nuen **kakazturik** hil nahi, ez jauna. Joxean Sagaztizabal

Zuri-zuri egina aurkitu genuen Iñaki, galtzak **kakaztuta**. Joan Mari Irigoien

Kaio bat zetorren problemaren gain-gainean erregalotxoa uztera... eta, plasta!, zirin gizen zuriak orri guztia zuen **kakazten**. Jesus Mari Mendizabal

Bera eta gu, horrela, zuloan, denak preso eta denak **kakaztuta**. Josu Zabaleta

Non santuek, zuriz, kritikariari / lokatzez dioten **kakazten** gorputza. Xabier Olarra

Jan berri duena bota egin du, eta **kakaztu** ditu bere jantziak. Arantxa Iturbe

Arkatzez egin arren, sekulako sesioa izan zuen aitarekin, beraren Marx eta Engelsen Lan Guztien edizioaren ale hura modu horretan **kakazteagatik**. Iban Zaldua

Zoruan harri xehe batzuk, harraskan eta kubiertoen gainean hauts lodi bat eta eskaiola zatiak, dena **kakaztuta** zegoen... Pablo Sastre

**2** *hed/irud*

Baina betikoa: barruan bi egun egin, eta aire!, kalera, bazterrak drogaz **kakaztera**. Margaret Thatcher arras **kakazturik** utzi eta gero. Xabier Montoia

Besteren izen ona **kakazteko**. Xabier Olarra

Argentinako armadaren ohorea **kakaztu** dute koldar horiek. Xabier Montoia

Aralar «gezurrekin eta joko zikinarekin bazterrak nahasten eta egoera **kakazten»** ari dela erran du. Berria - Euskal Herria

**3** *adkor* nahasi.

Oraino ez haiz ohartu leporaino **kakazturik** hagoela hilketa kasu batean. Aingeru Epaltza

**4** *adkor* hondatu.

Horretan dabiltza ba kraut -aleman- horien submarinoak, bauxita garraioan dabiltzan barkuei tiro egiten, ea ba besteen gerra-ahalegina **kakazten** duten. Edorta Jimenez

Gizonek beldurra dute [...] **kakaztuak** daude goitik behera, beldurrez airean. Karlos Zabala

Nahikoa edana ematen du, erabat **kakazturik** ez badago. Patxi Iturritegi

**5** (era burutua izenondo gisa)

Barnean, mahai-aulkiek, argazki koloregalduek [...] komun kanpo nahiz barne **kakaztuek**. Aingeru Epaltza

Gu ere, besteak bezalaxe, ezpataren zibilizazio **kakaztutik** gatoz. Iñaki Segurola

Harri **kakaztuaren** antzeko da alferra, ematen duen nazkarengatik baztertu egiten dute denek. Elizen arteko biblia

· Bonbilla euliek **kakaztuak,** zurezko altzari herrenak, hautsak eta lokatzak. Joseba Sarrionandia

---

**kakazu** *izond* kakatsua.

Larramendi eta Garibai probintziano **kakazuen** garaitik hona. Patziku Perurena

Betiko hozkailu zahar **kakazuak**. Aingeru Epaltza

Edonor lotsatzeko moduko **kakazua**. Alberto Barandiaren

---

**kakeria** *iz* beherakoa.

**Kakeriarekin** larri dagoela bat, eta ahal dituen limoi guztiak ekartzeko. Jokin Urain

**-Kakeria** ematen duen garagardoaren edatea. Ramuntxo Etxeberri

Nola merkatariei **kakeria** ikaragarria sorrarazten dien aramarandra deitu edari bat ematen dien, tarrapataka iretsiak dituzten perla eta harri preziatuen ahal bezain laster eskuratzeko gisan. Aurelia Arkotxa

Lehen haurra, hilabete gutiko neskatiko bat, **kakeriak** joa galdu zuela. Aingeru Epaltza

Bi baldekada urekin zetorren, nire lehenengo **kakeriaren** ondorioak garbitzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**kakeritu,** kakeri(tu), kakeritzen da *ad* kakeriak joa gertatu.

Beroak bota behar eta, egarria ezin asez, pitarretik egiten nuen enpo, barrenak ondatu eta **kakeritu** arteino. Patziku Perurena

---

**kaki**[1] **1** *iz* kakiondoaren fruitua, tomatearen itxura eta laranjaren kolorea duena.

Begi eder argiak haziera oneko umeek izan ohi duten aurpegi **kaki**-azal leunean. Iñaki Iñurrieta

Neska hura Gabinen gogotik sortutako amets bat ez ote zen, irudimenean edertutako txikitako **kaki** ale gozo hura bezala. Iñaki Iñurrieta

**2** ***kaki arbola*** kakiondoa.

**-Kaki** arbola bat gogorarazten dit. Iñaki Iñurrieta

---

**kaki**[2] **1** *izond* okre horikararen eta berde griskaren arteko kolorekoa.

Alkandora **kaki** honekin. Lopez de Arana

Palto **kakiaren** barruko sakelan. Itxaro Borda

Praka **kakiak** jantzirik, soldadu batzuk kantuan hasi ziren. Lopez de Arana

Kapitainak **kakiz** beztitu burkideen ibilera largabistekin segitzen zuen. Itxaro Borda

**Kakiz** margotua da, militarrenen gisara. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Buruan eztainuzko kaskoak eta soinean **kaki**-jantziak zituzten pailazoen antzera. Mirentxu Larrañaga

Etsaien hilotz ehortzigabeak dira, batzuk gudu-uniforme grisa soinean, eta beste batzuk **kaki**-jantzian. Mirentxu Larrañaga

Bi edalontziek ziztu egin eta bitsa atera zuten: Goylerenak muki lehorraren **kaki**-kolorea hartu zuen, Crabberenak marroi ilun arrea. Iñaki Mendiguren

Berde-**kaki** kolorez beztitu arrotzez setiaturik zen plaza hertsia. Itxaro Borda

Artile urdineko jertse bat jantzia zekarren, **kaki** koloreko prakak, eta kapela, eta oinetako sendoak. Patxi Zubizarreta

**Kaki** koloreko galtzak. Berria - Kultura

Urte guztian baulean gordean edukitako **kaki** kolorezko uniformea jantzirik. Pako Aristi

**3** ***kaki-kolore*** *(orobat* ***kakikolore****)* *izond* kaki kolorekoa.

Haren jaka luze **kaki** koloreak letoizko botoi distiratsuak zituen. Anjel Lertxundi

Nire hobe beharrez behartzen naute uniforme **kakikolorea** janztera. Anjel Lertxundi

Sidney zihoan gidari, soldadu bat bezain tente bere galtza motz **kaki**-koloreetan lasterka. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaki koloreko** (5); **kaki koloreko galtzak** (3)

---

**kakin**, kakiten du *ad ipar* kaka egin

Ezkerrean baditun nik dakita zenbat hautagai ontsa **kakiten** diten herriaz; beren zilkoaz baizik ez diten axolarik. Eneko Bidegain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zoazte kakitera** (3)

---

**kakingarri** *izond adkor ipar* nardagarria.

Hots, **kakingarria**. Ramuntxo Etxeberri

-Zaude isilik erretxin **kakingarri** hori! Patxi Zubizarreta

**Kakingarri** zikinak! Patxi Zubizarreta

---

**kakinkarazi**, kakinaraz, kainarazten du *adkor ipar* eragotzi. ik **kaka 11**.

Erran nahi zuten, **kakinarazten** gaituk hire ibiltokiarekin, orduan guk **kakinaraziko** haigu orduarekin eta afariarekin. Filipe Bidart

Irriz ari nintzen ene baitan, eguneroko ene etsai intimo horiek gisa horretan **kakinarazirik**. Filipe Bidart

---

**kakiondo** *iz* jatorriz ekialdekoa den zuhaitza, hosto handi, ilun eta distiratsuak dituena, fruitutzat kakiak ematen dituena.

-Haurra nintzenean bazen **kakiondo** bat gure eskolan, fruitu aleak oso bakan ematen zituena. Iñaki Iñurrieta

---

**kako** *(orobat* ***gako****)* **1** *iz* metalezko atal okertua, askotan punta-zorrotza, zerbait zintzilikatzeko edo zerbaiti eusteko erabiltzen dena. ik **krako; mako**[1].

Esekitokiko **kako** guztietan. Karlos Zabala

Kapela **kako** batean eseki. Anton Garikano

Halaxe egingo du, kapela hartzera **kakora** joanda. Josu Zabaleta

Giltza ez dagoela **gakoan**. Javi Cillero

Paretako **kako** batean dago zintzilik. Anton Garikano

Arratsaldean jantzita zeraman gona ilun lodi zabala, blai, erantzita zeukan, eta **gako** batetik zintzilik. Txillardegi

Sotana **kakoan** utzita kaleratuko zela Maiteak zeraman soinekoa Paul D-k lehenbizikoz ikusi zuenean. Koldo Izagirre

Horman zegoen **kako** batean eta oholesiko beste batean eseki zuen zaku uztaiduna. Anjel Lertxundi

Telefonoa **kakoan** utzi nuen. Fernando Rey

Telefonoa **kakotik** hartu eta zenbaki bat markatu nuen. Xabier Olarra

Ekonomika gainean eltzea lurruna dariola, **kako** batean txapa irekitzeko gantxoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Garbitzekoa *El Pensamiento Navarro*-ko orri zatiak ziren **kako** batean. Koldo Izagirre

Toalletako **kakoak** apurtzen ditu beti. Unai Elorriaga

Eskuan, atzamar guztiak barrurantz bilduta zituen, salbu eta hatz erakuslea, oker-oker jarrita baitzeukan, **kako** baten itxura mehatxagarriarekin. Julen Gabiria

Katearen muturreko **kakoan** pertz bat zegoen esekia. Koro Navarro

Goi-goian, barra bateko **kakoetatik** behera, lukainkak, saltxitxoiak, […] saltxitxa motzak dilindan ezarriak zeuden. Karlos Zabala

Eta urdaiazpikorik ez bada, alferrik **kakoak**. Patxi Ezkiaga

**2** (zerbaiti heltzekoa)

Su-zuloko zirrindola txikiena zabaldu zuen sutarako **kakoaz**. Anjel Lertxundi

Gero, **kakoaren** puntaz, txingarrei eragin zien sua bizitzeko. Baten bati otu zitzaion kanpandorreko kanpaia urpetik berreskuratzea eta uretan murgildu zen, soka luze baten muturra eramanez eta soka-muturrean **kako** bat. Anjel Lertxundi

Bazkalondoko itxialdian gaudelarik, **kako** bat sumatu dut lanean nire sarrailan. Koldo Izagirre

Lemaren kirrinka tarteka, **kakotik** askatu eta jirabira noiz hasiko. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Poltsatxo batean **kako**-iltze batzuk sartu bitartean. Iban Zaldua

Antigoaleko erako pipa bat, tutua **kako** itxurakoa eta ontzixkaren gainean zilarrezko estalki txiki bat dituena. Oskar Arana

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azpiko galtzak arropa-**kako** batetik zintzilik egoten dira, eta hara joaten da lehendabizi. Josu Zabaleta

Andereñoak bazekien ederki geratzen zitzaiola blusa berria bi *Liberty* **kako** gorri gurutzatuekin. Anton Garikano

· *(izond)* Doña Pitusa andre zahartxo txiki bat zen, sudur-**kakoa,** oso begi biziak zituena. Josu Zabaleta

Gizon bat ikusi zuen; sudur **kakoa** eta ezpain-lodia bera. Felipe Juaristi

Hormatik, Bagration sudur-**kakoak** ikusmin handiz begiratzen zion eskatu-eskaini hari. Jose Morales

**5** su armez mintzatuz, katua.

Agintari frantsesek ulertu baitute ETAko militante izan daitekeela pistolaren **kakoari** eragin gabe. Berria - Euskal Herria

**6** boxeoan, behetik gora, besoa kakotua, ukabilarekin ematen den kolpea. ik**gantxo; krotxet**.

Bere pisu guztia atearen kontra bota zuen irteteko, baina ia berehala jo eta atzera bota zuen, Harryren altzora, beste adar batek emandako **kako**-kolpe maltzur batek. Iñaki Mendiguren

Mailu itxurako bere ukabiletako batez **gako** azkar bat jo zuen mozkortiaren masailezurraren kontra. Lopez de Arana

**7** zati okertua.

"J"-k latinezko alfabetoan ez zuela, garai batean, **kakorik**. Xabier Olarra

**8** ik **gako 2**.

• **9** *izond* kako formakoa.

Mikel Strogoffen atzean paratu zen, xafla zabaleko sable **kako** bat eskuan, arma zuri damaskinatu horietako bat. Karlos Zabala

Handienaren hatz **kakoak** zurean iltzatu ziren. Eskarne Mujika

Sudur **kakoa,** begiak sartuak eta distiratsuak. Josu Zabaleta

Sudur estu baina **kakoa**. Urtzi Urrutikoetxea

Sudurra okerra zuen, **kakoa,** benetako arrano-mokoa. Fernando Rey

Dumbledoreren sudur luze eta **gakoaren** punta Norris andrearen larruazaletik gertu-gertu zegoen. Iñaki Mendiguren

Esku luze ikaratiak, beren azazkal **kako** eta guzti. Mirentxu Larrañaga

Lan egiten zuten eskribauen idazlumek, eta [...] jardunean aritzen ziren haien buru nahaspilatuak, lerro **kakoak** miretsiz, artistak balira bezala. Jose Morales

**10** (adizlagun gisa)

Ukabilak zabaldu ditu eztiki Eustakiok berriro, **kako** utzi ditu, leporako. Koldo Izagirre

Eskuineko sorbaldaren kontra geratu zenean ezkerreko besoa angelu zuzenean eman zuen uztaitik behera, **kako** eginez, gorputza ahal zuen gogorren paretara zamatuz eta, berehala, besoarekin kasik moko egiten zuela uztaiaren euskarria ez galtzearren, ezkerreko zangoa ekarri zuen bestearen aurretik eskuinerantz. Koldo Izagirre

• **11** *pl* aipu markak, kakotxak.

Ondorengo misterio guztietan, jakin behar da **kako** artean dauden hitz guztiak, ez kanpokoak, Ebanjeliokoak bertakoak direla. Patxi Altuna

**Kako** arteko esaldi batzuen forma. Xabier Paya

Elementuren bat aukeran ager daitekeela adierazi nahi dugunean, **kakoak** erabiltzen ditugu, eta giltzak (edo zerrendak), elementuen arteko aukera adierazteko. Itziar Laka

**11a** ***kako iltze*** *(corpusean **gakoiltze** soilik)*

Gero paretan bi **gakoiltze** sartu eta haietatik handik gutxira Minimax markako suitzalgailu bat zintzilikatzeko. Fernando Rey

**12** ***kako-mako*** *(orobat **gako-mako**)* itzulinguru amarrutsua; inguru-mingurua.

Non dira orain haren **kako-makoak**, haren agudeziak, haren kasuak, haren tenentziak, haren trikimailuak? Juan Garzia

Gizon ospetsuen kontaketak biltzen ditu, jakinduriazko esaeren **gako-makoetan** sartzen. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**burdinazko kako** (3); **kako oker kapitaina** (3)
**burdinazko kakoa** (3); **kakoa airean** (3); **sudur kakoa** (9)
**burdinazko kakoak** (3); **sudur kakoak** (3)
**telefonoa kakoan utzi** (5)

---

## kakodun *(orobat **gakodun**)* *izond* kakoa duena.

Marmol eta ispiluetan zehar, txerriak eta betegarrietarako xingar zerrendak dilindan zeuden barra **kakodunetatik** behera. Karlos Zabala

Eskatu zuen sokaburu **gakoduna,** eseki zuen gakoa adarretik. Joan Mari Irigoien

Uztai **kakodun** zubi batzuen gainean, pertsona bakarra pasa liteke artez... Berria - Kultura

Ile luze kizkurrekoa, sudur **kakoduna,** lodia, berrogeita hamarren bat urte, ezta? Iñaki Zabaleta

Segalek bere sudur argal eta **kakoduna** igurtzi zuen. Lopez de Arana

---

## kakofonia *iz* hizkuntza-hots berdinen edo berdintsuen errepikapen ez-atsegina.

Beatrizen harako lehengusu propio hark [...] luze ondua zuela **kakofoniaren** eta kaosaren posibilitateak infinituraino zabaltzeko gauza zirudien poema bat. Juan Garzia

Kontua da jakitea zuzentzaileak hitz zehatzak esango dituen, batez ere **kakofoniarik** txarrena saihestuz, hitza eta hotsarekin uztar ez dadin. Jon Alonso

Eta garrasika hitz egin behar zenuen, mota guztietako karranka, burrunba eta txistuen artean, infernuko **kakofonia** zen hura. Karlos Zabala

*Fidel izan beharraz* honetan, Wilde jostalariak hizkuntzarekin jokatzen du, hitzen homofonia, **kakofonia** eta polisemia baliatuz. Antton Olano

---

## kakofoniko *izond* kakofoniari dagokiona.

Entzun dute silaba batzuen hurbileko errepikapena **kakofonikoa** dela, eta prosan min ematen dielako itxura egingo dute. Juan Garzia

Motorrak isuri berria zuen oihaneko nahastura **kakofoniko** hura. Oskar Arana

Abere marru kontzertu **kakofonikoa**. Txillardegi

---

## kakoil *izond*

Leonieren ahots **kakoila** sumatu zen. Itxaro Borda

---

**kakola** *iz* okertua; moldakaitza.

Zer ote zuen neskatxa **kakola** horrek? Ramuntxo Etxeberri

---

**kakolatu**, kakola(tu), kakolatzen *(corpusean **kakoldu** soilik)* da/du *ad* okertu, bihurdikatu.

Zama kolpeka uzten nuela moilan, kargaldi guztiak jarraian, konbinadorearen gainean **kakolduta**. Koldo Izagirre

---

**kakolet** *iz pl* kartolak.

Behorrak bi aldeetarik **kakoletarik** dilindan diren eta gainetik estaliak ez diren bi ontzi huts handiz kargatzen dituzte. Aurelia Arkotxa

Asto eta mandoen bizkarrean ezartzen ziren **kakoletak**. Herria

Ainitzek igan nahi, **kakoletetan** edo oinez, Larrun kaskorat. Herria

· *(sing)* Begirada tristeko zaldi argalaren gainean, orekan emana, bi kartolak osatzen zuten **kakoleta,** erosoki bikote bat esertzeko atonduak. Txillardegi

---

**kakontzi** *(orobat **kaka(-)ontzi** g.er. eta **kakaontzi** g.er.)* **1** *iz* kaka egiteko ontzia.

Portzelanazko bi **kakontzi**. Joan Mari Irigoien

Esku batean **kakontzia** zeramala. Joan Mari Irigoien

Gero, kendu eta baztertu zuen kaxa... eta **kakontzi**-aulkirat joan zen xuxen-xuxen, bat-bateko larrialdiak jorik. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Apraitzeko eremua "Elgoibar eskualdeko **kakaontzi** bihurtuko delako", usain txar, garratoin eta guziekin... Herria

**3** (irain hitz gisa)

Nola arraio maitemindu ote nauk hi bezalako **kakontzi** batez! Antton Olano

Kikildu egiten nintzen pentsaturik bazitekeela **kaka-ontzi** santu usteko harekin beste aurrez aurreko bat eduki beharra. Oskar Arana

---

**kakorratz** *(orobat **gakorratz** eta **gako-orratz** g.er.)* **1** *iz* puntu egiteko orratz kakoduna.

**Kakorratzarekin** egindako kolore bereko xalean bildurik eskuak. Fernando Rey

**Gakorratzez** jositako lepoko parpailadunak. Mirentxu Larrañaga

**Kakorratzen** antzeko tresna batekin, gasa bildu bat paratu zidan azalaren eta haragiaren artean, "jarioari eusteko", azaldu zidanez. Urtzi Urrutikoetxea

Joste-lan bikainak egiten zituen **gakorratzaz**. Juan Garzia

Karandasek artean ere bere aihotz-makila zeraman, eta Jehan Petitek zorro bat zeukan bere **gakorratzekikoa**, gerrikotik zintzilik. Juan Garzia

· Sabeth, bere ilea orrazten ari, **gakorratz** bat bere hortz gazteen artean. Joxe Austin Arrieta

Gako-**orratz** bat zeukan hortz artean. Joxe Austin Arrieta

**2** (hitz elkartuetan)

Aspaldi hasi eta bertan behera utzitako **gakorratz**-xingola etorri zaio gogora, eta ariketa ona iritzi dio, hura bukatzea erabaki du, eta gortina bat egitea, komuneko leihorako. Imanol Zurutuza

**3** ***kakorratz-lan***

Buresch andrea **kakorratz**-lanean ari zen. Anton Garikano

**Kakorratz**-lanean murgildu zen. Anton Garikano

Mahaitxo biribil bat, **kakorratz** lanez estalia. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kakorratz lanean (4)

---

kakoska ik **kakoxka**.

---

**kakota** *iz*

Anteroren edo Singerren ondorengoei Endai inguruetan agertu zen baleagatik galde izan balie, "hori ez da ballenia, **kakota** baino" erantzungo zioketen Lekeition. Iñigo Aranbarri

---

**kakotu**, kako(tu), kakotzen *(orobat **gakotu**)* **1** da/du *ad* kako itxura hartu; kako itxura eman.

**Kakotu** egin zitzaion bizkarra. Joxan Elosegi

Eguzkilorea zuen barometro fidelen eta zuzenena: lorearen printza horixka haiek kizkurtzen eta **kakotzen,** lorea ixten bezala abiatu bazen, ziurtzat joko zuen laster emango ziola euritik. Pello Zabala

Zenbat adar ote dugu hala hautsia, gehiegi **kakotuz**! Patziku Perurena

Oglethorpek bekainak **kakotu** eta baietz egin zuen buruaz. Lopez de Arana

Bekain bat **kakotu** eta burua inarrosi zuen. Lopez de Arana

Bizkarra pixka bat **kakotua,** harengan ohikoa behar zuen ezinegon urdurizko dardara batek astindua. Karlos Zabala

Ahoa irekia eta atzamarrak porlanezko barandan **gakotuak**. Pello Lizarralde

**2** (era burutua izenondo gisa)

Sudur **gakotua** zuen eta begi marroiak, gizonezko bekainen azpian. Koro Navarro

Gizon txikitxo bat zen, ilea horail-urdindua zuena, sudurra **kakotua,** bibotea zuria eta betaurrekoak urrezkoak. Koro Navarro

Aldaka zabaleko emakume mardula zen; begi handi beltzak eta oso bekain **kakotuak** zituen. Lopez de Arana

Haga horrek ardatzak tinko elkartu behar zituen, zisne lepoen gaineko berlinan barra **kakotu** batek egiten duen bezala. Karlos Zabala

Sable **kakotua,** jataganaren antzekoa, harri biziz jositako galtzarbe-uhal liluragarri batetik zintzilik. Karlos Zabala

Moko **kakotuko** arranoa irudikatuz, berehala. Urtzi Urrutikoetxea

Ondoren, paretari gainetik teila **kakotuak** finkatuko zaizkio zutik, hasi behetik eta goraino. Santiago Iruretagoiena

**3** kakotik eseki.

Kid kapitainaren ondoan naute **kakotuko**. Juan Garzia

**4** (telefonoa)

Alemanak telefonoa **kakotu** zuelarik, Del Vallek ez zion galderarik egin. Alberto Ladron Arana

Birao bat ozenki erran eta aparatua **gakotu** nuen, gaztigurik utzi gabe. Aingeru Epaltza

Beraz, aparatua **gakotu** eta “Zentrora” joan behar genuela aditzera eman nionean, bildots baten gisara jarraiki zitzaidan. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bekainak kakotu** (4).

---

**kakotx** *(orobat* ***gakotx*** *g.er. eta* ***kakotxo*** *g.er.)* **1** *iz* koma.

Egiaztatutako idazpenei **kakotx** bat egitea arkatz txiki batekin. Anton Garikano

Horretan ez dut **kakotx** bat bera aldatuko. Berria - Euskal Herria

Bozen ehuneko 32 FOrentzat, bigarren biziki hurbiletik CGT bozen ehuneko 31 **gakotx** hirurogeitamaikarekin. Herria

Elkarrizketaren titular aurrekoak Ernest Hemingway bere 'idolo' **(kakotxoak** egunkarian dira) Ordoñezi jarraituz etorria zela zioen. Edorta Jimenez

**2** kakoa.

Ingalaterra zaharrean, hurritz- **kakotxa** zerabilten eskuetan azti eta ur-bilatzaileek. Pello Zabala

**3** ***kakotxen/kakotx artean*** aipu marken artean.

Mañexen "maoismoa" ere **kakotxen** artean ezartzen düt, ez baitzen maozalea, zentzu hertsian, bistan dena."Totalitarismoak" (Ortega-k **kakotx** artean idazten du) Europa salbatuko duela. Herria

Benetan dituk "trebeak" [expeditivos dio, **kakotxo** artean, gazteleraz idatzia den postalak]. Edorta Jimenez

**Kakotxen** artean: berrogeita laugarren solairuko geografia-eremura mugatu izanak ongi frogatzen zuen, horretarako beharrik bazen, nire izendapena guztiz alferrekoa zela. Joxan Elosegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kakotx artean** (4)
> **kakotxen artean** (3)

---

kakotxo ik **kakotx**.

---

**kakotzar** *iz* kako handia.

Estalpeetan, zelata egiten zieten tripakiei beren tinetan, eta hestebete luze kulunkariei, eta harakinek okela-laurdenkiak zintzilikatzen zituzteneko **kakotzar** burdinazkoei. Juan Garzia

---

**kakoxka** *(corpusean* ***kakoska*** *soilik)* *iz* kako txikia.

Alde batetik bestera ontziaren azpitik igarotzekotan murgil eginda, estekatu egin da mutilaren bainu-galtza gilako burdina- **kakoska** batean; eta, hartatik ezin jareginik, hil egin da bertan. Txillardegi

---

**kaktus** *iz* landare enbor-mamitsua, hostoen lekuan arantzak dituena *(Cactus* sp.).

Noiz edo noiz, ordea, **kaktus** bat loratzen zen, eta [...] egun bakarra irauten zuten lore dotore haiek ekartzen zioten gogora zein iragankorra den bizitza. Imanol Zurutuza

**Kaktusez** jositako geltoki txiki hartan bertan. Joxe Austin Arrieta

Baziren amets haietan zigorrak eta sugeak adinako begiztak, mendateetan zehar ihes egiten zuten dilijentziak, trostaldi luze haizetsuak **kaktus** soroetan barrena. Koro Navarro

**Kaktusen** eta indipikondoen atzean. Monika Etxebarria

Forma ikusita **kaktusak** ziren. Unai Elorriaga

Ordenadore eta telebistaren uhin elektromagnetiko kaltegarriak desegiten dituen **kaktus** bat badela. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**kala**¹ *iz* uretako belar landarea, gezi itxurako hostoak eta lore horiak dituena *(Zantedeschia arthiopica).*

Lili sortak dakartzate eskuetan: **kalak,** arrosak, krabelinak... zilarrezko paperean bildu eta koloreetako zintekin txukun apainduak. Patxi Iturritegi

Gero, tenpluan sartu **-kalak** eta arrosak aldarean, arrosak eta **kalak-,** eta apaizak elizkizunari ekin zion. Joan Mari Irigoien

---

**kala**² **1** *iz* itsas zabaleko arrantza lekua.

**Kalan** arrainik ez dagoenean legez. Edorta Jimenez

Gaua **kalan** egin ostean, larunbateko 08:30 inguruan deitu zuen bost horietako batek, ontzia galdu zutela esanez. Berria - Euskal Herria

Itsaso zakar hark jotako irlak, **kalak,** hondartza galduak eta ur sakoneko bizimodua. Paddy Rekalde

Abuztuko arratsaldean **kalan** zebiltzan arrantzaleen txalupak ikusi zituen. Edorta Jimenez

**2** itsasarte txikia, askotan harkaitzen artekoa.

Iberdrolak eraiki nahi duen ziklo konbinatuko zentrala Basordaseko **kalan** egingo lukete, Lemoizko zentral nuklearra dagoen tokian. Berria - Ekonomia

Kanpora ateratako akroteria edo muinoak badituzte, eta horien babesean itsas golkoak eta **kalak** baldin badituzte […]. Santiago Iruretagoiena

---

**kalabaza** **1** *iz* kuia.

Ardiak aurrean, idi gurdia **kalabazez** beterik atzean. Pablo Sastre

Baziren **kalabaza** horiak, **kalabaza** beltzak, **kalabaza** txuriak. Pablo Sastre

**Kalabaza** errearen usain gozoa. Iñaki Mendiguren

**Kalabazazko** tartaren azken mokaduak urrezko erretiluetatik desagertu zirenean. Iñaki Mendiguren

**Kalabaza** ustel bat ostikoka birrintzea bezala izan zuan. Lopez de Arana

**Kalabaza** kolorekoa zuen ilea. **Kalabaza** txikiz egindako txilibitua jotzen ari da zumezko otar baten aurrean. Gotzon Garate

Mari Errautsen **kalabaza** karroza bihurtzea ez zitzaidan begitantzen harrigarriagoa umore oneko zegoenean gure aitak egiten zituen karta-jolasak baino. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

**Kalabaza** -ortuan dago lotuta. Iñaki Mendiguren

Harry ziztu bizian irten bere zuhaitzaren atzetik, **kalabaza** -saileko hesiaren gainetik salto egin eta Buckbeakengana hurbildu zen. Iñaki Mendiguren

Berriro makurtu zen aitzurrarekin, piper eta **kalabaza** -aihen artean. Anton Garikano

**Kalabaza** pure bat. azak, lautan puskatuak, eta tomateak eta **kalabaza** xerrak, izar gorriak eta urrezko ilargi erdiak irudikatzen zituztenak. Karlos Zabala

Goseak amorratzen -esan zion Harryk, **kalabaza** -enpanadari hozkada handi bat eginez. Iñaki Mendiguren

-Halabehar hutsa -esan zion Hermionek [...] **kalabaza** -zukua edalontzira ateraz. Iñaki Mendiguren

Besoak bete-bete eginda ekarri zituzten gurin-garagardo botilaz, **kalabaza** -freskagarriz eta Honeydukeseko gozoki-poltsez. Iñaki Mendiguren

**3** amodio kontuetan ezezkoa ematea.

Nik gaur **kalabaza** mordoa baino ez dut batu. Jon Arretxe

**4** ***kalabazak eman*** azak eman, ezezkoa eman.

-Zergatik eman dizkit **kalabazak** Irenek? Jon Arretxe

Zuri beintzat ixilean emango zizkizun **kalabazak** . Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalabaza pusketa** (4); **kalabaza zuku** (3)

---

# kalabazero *izond*

Zero **kalabazero** . Jesus Mari Mendizabal

---

# kalabazin *iz* kuiatxoa.

Sukaldari ona naiz, eta **kalabazinak** dira, hain zuzen, ene espezialitatea. Joan Mari Irigoien

-Noizbait probatu beharko ditut zure **kalabazin** horiek... Joan Mari Irigoien

---

# kalabera *iz* burezurra.

Eskeletoa besterik ez da ageri han, eta **kalabera** haruntzaxeago. Patziku Perurena

Hemen erraustu zen azkenean Huntingtonen **kalabera** . Xabier Olarra

---

# kalaberatxo *iz* burezur txikia.

Bederatzi urterekin poliomelitisak erkindutako belaunburu haiek, elkarri musu ematen zioten **kalaberatxoak** bailiran. Harkaitz Cano

---

# kalabozo *iz* ziega.

Atzerapen egun bakoitzeko hamar egun bete zituen **kalabozoan, kalabozo** estu eta txiki haietako batean. Xabier Etxabe

Kartzela zaharra zen, eta isolamenduko ziegak **kalabozoen** antzekoak ziren; 40 watteko bonbilla kanpotik isiotu eta itzaltzen zuten, entxufe eta gisakorik ez zegoen, ohea, aulkia eta mahia lurrari itsatsita... Jokin Urain

Bistan da nik nahi nuena **kalabozotik** irtetea zela. Jon Alonso

Arrastaka eramaten ninduten **kalabozora** . Jokin Urain

Sotoko **kalabozora** bota zuten eta han egon zen luzaro. Elizen arteko biblia

Espainiako Auzitegi Nazionaleko **kalabozoetan** . Berria - Euskal Herria

---

# kalabriar *izlag/iz* Kalabriakoa, Kalabriari dagokiona; kalabriako herritarra.

Jehan Kalvinek Servet medikua erre zuen su motelean, eta honek eragin zuzena izan zuen Gentilis **kalabriarraren** burumoztean, kontsolamendu gisa edo. Juan Martin Elexpuru

Orduan ondoan ez bainuen Jan korrikalaria, Lopetuso **kalabriar** ttikia baizik, negarrez aritzen zena gauero-gauero. Fernando Rey

---

# kalada *iz* zigarretez-eta mintzatuz, atxikia, xurgada.

Zigarroari **kalada** pare bat hartu eta ezpainetara bueltatu zion. Paddy Rekalde

Erretzen ari zen porroari **kalada** luzea ematen zionean. Sonia Gonzalez

Beste hiru **kalada** jo behar izan dizkiot txirriari. Pako Aristi

---

# kaladatxo *(orobat **kaladatxu**)* *iz* xurgadatxoa.

Izugarri gustatzen zait kostoaren usaina, eta baita **kaladatxo** pare bat hartzea ere. Iban Zaldua

---

# kalafateatu, kalafatea, kalafateatzen du *ad* bikeztatu.

Txalupa **kalafateatu** berria zegoan, ez duk posible hondoratzea itsaso honetan! Koldo Izagirre

Ikusi ninduen bezain laster Izetaren gasolino zaharra **kalafateatzeari** utzi eta neuregana etorri zen antxintxika. Koldo Izagirre

**kalagorritar** *(corpusean **calagorritar** eta **kalagurritar** soilik)* *izlag/iz* Kalagorrikoa, Kalagorriri dagokiona; Kalagorriko herritarra.

**Calagorritarrak** beste elastiko bat defendatzen du egun: Bartzelonarena, gaurko aurkariarena. Berria - Kirola

1645an, elurte ikaragarri batek **Kalagurritarrak** 40 egunez lanera irten ezinik eduki zituen, eta elurteari izoztea erantsi zitzaion. Pello Zabala

---

kalagurritar ik **kalagorritar**.

---

**kalaka** **1** *iz* errotarriaren gainean dilindan dagoen oholtxo txikia, hura dabilenean etengabeko zarata ateratzen duena; kideko gauzen zarata.

Metrailadore bat hasi da **kalakan,** tiro-totelka, eta beherantz makurtu dut burua tupustean. Mirentxu Larrañaga

Mandoen aztarrikak eta karrozaren kirrinkak eta **kalakak** munduko soinurik ederrenak iruditzen zitzaizkidan. Bernardo Atxaga

Oren erdi guziz, zaintzaleek beren itzulia egiten dute kartierreko zelda guzietan, begi xilokatik begiratuz, klixka! klixka! klixka! eta itzulia bururatua denean, dena isilik dagonean, azma! azma!, **kalaka** berritz haste... Filipe Bidart

Lan-jantzi urdin zarpaila jantzita, aho zabalik geratu nintzen harriek eragiten zuten **kalaka** metalikoari adi. Javi Cillero

Sukaldeko arasetan ibili da, katilu eta zartaginek eragindako **kalakak** salatzen duenez. Javi Cillero

**2** berriketa, batez ere gogaikarria dena. ik **talaka**.

Hasierako berri-mina eta murmurioa **kalaka** bilakatu zen, jendeak erreparorik gabe eta ozen egiten baitzituen ekarpenak, galderak eta kabalak. Anjel Lertxundi

Amore eman nion, haren **kalaka** ez aditze aldera. Aingeru Epaltza

Neure *Martini-Dry*a edaten ari nintzen, bozgorailuak, hisiatuki, berriro bere **kalakari** ekin zionean: *Your attention please!* Lagunen arteko **kalaka** baino, nahiago du maitasun isila eta artistaren bakardadea. Joxe Austin Arrieta

Ingelesaren **kalaka** aspergarria ez entzutearren. Javi Cillero

Hitzontzikeriarako joera, **kalaka** zentzugabea. Xabier Olarra

Etxekoandreak zeremonia handiz eta **kalaka** etengabez eraman ditu hiru gizonezkoak jantokiraino. Anjel Lertxundi

Bush ateratzen bazen irabazle, esan zuen, ahaztea geneukan "kontserbadore errukitsuen" gaineko **kalaka** inozo hori guztia. Oskar Arana

Komunikabideen **kalaka** beti-berdina. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahantz zaitez agure aho-handi honen **kalakaz**. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan)

Ez zitzaizkien **kalaka**-gaiak agortzen. Anjel Lertxundi

**4** (adizlagun gisa)

Ez naiz atez ate **kalaka** ari den iragarlea. Itxaro Borda

Harekin aritu zela italianoz, hura jauregirat iritsi bezain fite, **kalaka** eta **kalaka**. Joan Mari Irigoien

Kakaraka, oiloak **kalaka**. Josu Zabaleta

**5** ***kalakan*** *adlag*

Horrekin egonen gira oren batez **kalakan,** eta ikusiko dugu nor dugun gizon hau. Menane Oxandabaratz

Badakit Daniel-ek ere biziki maite duela **kalakan** aritzea. Menane Oxandabaratz

Gure hondakin-bilatzailea, hura bai ari zela beti **kalakan**. Joxe Austin Arrieta

Gaztaroan, beste neskekin **kalakan** pasatzen zuela denbora, mutilen soari so. Piarres Aintziart

Neska nekusan, bere mahaira jarria, norbaitekin telefonoz **kalakan**. Aingeru Epaltza

Arrats guziz, bost, hamar minutuz **kalakan,** elgarren berri, eguneko gertakariak komentatzen. Filipe Bidart

Lagunekin **kalakan,** garagardo batzuen inguruan. · Kanpoan jendea jarririk dago **kalaka** ezti batean. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalakan ari** (19); **kalakan ari ziren** (3); **kalakan ariko** (6); **kalakan aritu** (3); **kalakan hasten** (3); **marijane minaberrirekin kalakan** (3); **oren batez kalakan** (3)

---

**kalakaldi** *iz adkor* berriketaldia.

Irriño bat jin zait ezpain xokorat ohartu nizelarik denen buru bi herri izen zirela azkarki aipu **kalakaldi** hortan, Ibarla eta Toronto... Herria

Kadira bat karrikara ateraturik, auzoekin **kalakaldia** egiten zuen, gaueko deia entzun arte. Elena Touyarou

**Kalakaldi** luzeetan sartzen ziren. Eneko Bidegain

-Eta zertaz mintzo zineten nik **kalakaldia** haustean? -galdegin zuen Joanttok, abantzu amultsuki. Elena Touyarou

12tan, bazkaria, jostatzea, **kalakaldia**. Herria

---

**kalakalditxo** *iz adkor* kalakaldi laburra.

**Kalakalditxo** baten ondotik, bidea segitu zuen. Berria - Euskal Herria

---

**kalakari** **1** *izond* kalaka eragiten duena.

Gurekin etorri zen, hilabete eta erdian tren **kalakari** batean ibili ere bai. Felipe Juaristi

**2** berriketan jarduten duena.

Neska betilun bat eta haren guraso **kalakariak**. Alberto Ladron Arana

Gidari **kalakari** bat, mikrofonoa eskuan, denbora guztian isildu ere ez da egin. Patxi Zubizarreta

Grabiel Ilharrek **kalakari** nekaezinaren fama du Amikuzen. Aingeru Epaltza

Beharbada ere, ordu laurden batez, ene bakardade **kalakariak** herri hustu honen artzainarena enganatu du. Piarres Aintziart

**Kalakari** isilezina, bidaiari ipurtarina, gautxori nekaezina, edale zoroa eta emakumezale gogorra. Aingeru Epaltza

---

**kalakatu,** kalaka(tu), kalakatzen **1** da *ad* kalakan aritu.

Kristina kosmosarekin bat egin beharraz **kalakatzen** zitzaidan, urtebete lehenago burgesia azpiratzeaz bezain sutsu. Ene exilio-bideak ahitu artean, anitzetan **kalaka** eta

balakatu ginen. Aingeru Epaltza

**2** du *ad*

Erabateko lasaitasuna, erreka berritsuak ez balu **kalakatuko,** murmurikatuko, gogaitaraziko, berak bakarrik, atso zaharren bilkura batek hainbat. Itziar Otegi

Beste garagardo pare bat hartu zituen aitak arratsalde hartako konbatearen iruzkina bakarka **kalakatzen** zuen bitartean. Harkaitz Cano

---

# kalamantzi *iz*

Lehenik, mandarina eta zitroina arteko gustua zeukan **'kalamantzi'** jusa horia edan zuten. Ramuntxo Etxeberri

---

# kalamar *iz* txipiroia.

**Kalamar** -latek, hautsontzi beteek, tabako paketeek eta botila metal-urek osatutako paisaje kaotiko samarraz. Jon Alonso

---

# kalamastra **1** *iz* pertsonez mintzatuz, higidura eta maneretan baldarra dena.

Banekien gizon segail **kalamastra** hori nonbait ikusi nuela. Karlos Zabala

**2** zaharkitua, egokiera txarrekoa.

Solairu bakarreko eraikin **kalamastra** bakarti batera jarraitu diogu. Urtzi Urrutikoetxea

Antzerki taldekide batzuk baserri **kalamastra** batean jarri ziren bizitzen. Javi Cillero

Itxarongela **kalamastran** argi gorri bat besterik ez zegoen. Lopez de Arana

Bainuetxe **kalamastra** bat zirudien erorkin zahar hark. Harkaitz Cano

Arrantzontzi txiki zahar **kalamastraren** alboan. Joseba Sarrionandia

Malfoyk begiratu lotsagabea egin zion Lupin maisuari, begiak jantzietako adabakietara eta maleta **kalamastrara** zuzenduz. Iñaki Mendiguren

---

kalamatika ik **kalamatrika**.

---

# kalamatrika *(11 agerraldi, 9 liburutan; orobat **kalamatika** 7 agerraldi, 5 liburutan)* *iz* hizkera nahasi ulertezina edo itzulinguruz betea.

Jendea gero eta gogaituagoa baitago errealismoaren aitzakiaz irentsi behar izan duen **kalamatika** doktrinatzailearekin. Anjel Lertxundi

Marmar hiratua zerabilen hortz artean, Erika edo erantzukizuna bezalako hitz ulergarri batzuen eta ulertzen ez nizkion hitz askoren arteko **kalamatika** bat osatuz. Anjel Lertxundi

-Fermin -moztu dut haren **kalamatrika-,** bostak eta laurden dira: etxera joan nahi baduzu, segi! **kalamatrika** antidiabetikoaren kontu hari. Pako Aristi

Eta leialtasunaren **kalamatika** hori guztia... Anjel Lertxundi

Haren **kalamatrika:** ea zer nenbilen, ea zer ari nintzen egiten neure bizitzarekin, […]. Pako Aristi

---

kalamidade ik **kalamitate**.

---

# kalamitate *(11 agerraldi, 8 liburu eta 2 artikulutan; orobat **kalamidade** 19 agerraldi, 12 liburu eta 3 artikulutan)* **1** *iz* zorigaitza, zoritxarra.

Urtetik urtera jasaiten dituzten miseria guziek, idorte, gosete, larrepote eta hainbat **kalamitatek** indarrrez hustu baidituzte. gerra sortzen zela eta beste **kalamidade** mota guztiak harekin batera. Herria

**Kalamitate** asko bizi eta nozitutako gurasoengandik jaso genituen lehen lezioak, urte ttiki haietan lezio handiak, gerora zintzo aplikatzekoak. Pello Zabala

Mila **kalamidade** eta miseria artean. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kalamidadearen** erdian, suertea eduki dut. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondo gisa)

Giputz **kalamidade** hau beti dabil finantza-brokerrarena egiten eta nik dakidala garagardo-banatzailea baino ez da. Patxi Iturritegi

---

kalamo ik **kalamu**.

---

# kalamu *(orobat **kalamo** g.er.)* **1** *iz* *Cannabaceae* familiako landarea, lurralde epeletan hazten dena *(Cannabis sativa)*.

**Kalamua,** adibidez, Mediterraneoko arroan, berandu sartu zen, eta are beranduago Iparraldeko herrialdeetan. Isabel Arrigain

Garia, artoa, mahats ugari, seda-harrak, **kalamua** eta alpapa dira produktu nagusiak. Koldo Biguri

Ekialdeko Asian, berriz, opiobelar landaketak eta **kalamuarenak** ohikoak dira. Berria - Gaiak

Ez dut saltzen ez lupulurik, ez lumatxarik, ez eztirik, ez argizaririk, ez **kalamurik**. Karlos Zabala

**2** (droga gisa) ik **cannabis**.

Norberak kontsumitzeko **kalamua** landatzea eta edukitzea legezkoa izatea. Berria - Euskal Herria

*Beng* erretzen ari zirela, hau da, haxix egiteko oinarria den **kalamu** indiarra. Karlos Zabala

Gure arbasoek **kalamua** erretzen zuten, zalantzarik gabe, eta antzinako grekoek ere ezagutzen zuten. Anton Garikano

Nik ez dut erretzen, ezta tabakorik ere, baina ez dut uste **kalamuak** edo haxixak errendimendua hobetzen duenik. Berria - Kirola

Usainak, karbonoaz beste, hiriarenak, hala nola izerdia, tabakoa eta **kalamua,** CK perfume karioa. Itxaro Borda

Ohiko otorduarekin batera, sukaldari mairuari *fumée-de-vie* harekin bizkotxa egiteko eskatu zioten, **kalamuzko** bizkotxa alegia. Patxi Zubizarreta

**3** (sendagai gisa)

**Kalamuaren** osagai aktibo nagusia Tetrahidrocannabinola edo TCHa da. Berria - Harian

Sustantzia hori da gizakiongan eragina duena eta **kalamuari** droga edo sendagai izaera ematen diona. Berria - Harian

**Kalamuaren** erabilera terapeutikoa. **Kalamuak** oinazea arintzen du. Berria - Harian

**4** kalamuaren zurtoinetik ateratzen den zuntza, oihal sendoak eta sokak egiteko erabiltzen dena. ik**kalamuki**.

**Kalamuzko** zakua lanpernez betetzeko. Anjel Lertxundi

**Kalamuzko** soka lodi batez. Anjel Lertxundi

Soina epeltzen hasi zitzaionean, ohe azpitik **kalamuzko** estalkidun ron botila bat atera zuen. Lopez de Arana

Begiztadun kortseak eta **kalamuzko** ileorde kiribil luzezkoak. Juan Garzia

**5** (hitz elkartuetan)

Ganbelan zeuzkan **kalamu** -haziak kraskatzeari ekin zion. Jon Muñoz

**Kalamu** -zuntzaz egindako zaku normal-normalak ziren. Anjel Lertxundi

**Kalamu** sokaz lotutako arroz zakuak. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalamua erretzen** (5); **kalamua kontsumitzen** (4); **kalamua landatzeko** (3); **kalamua legeztatzea** (3); **kalamua legeztatzeko** (3)
> **kalamuaren erabilera** (9); **kalamuaren erabilera terapeutikoa** (4); **kalamuaren osagai** (3)

---

# kalamuki **1** *iz* kalamuaren zurtoinetik ateratzen den zuntza, oihal sendoak eta sokak egiteko erabiltzen dena.

Haren sortak Esmirnako tapizak ziren beste batzuetan, marrazki korapilatsukoak, lorez lore eginak, **kalamuki** baten gainean bezala. Karlos Zabala

Bigungarriak zaldun baten irudia zeukan artilez brodaturik, **kalamukian** brodatzen diren zaldun guztien tankera berekoa. Jose Morales

**2** (droga gisa)

Aurtengo lau t'erdiko beste berezitasuna, **kalamukiek** ez dute positibo emango. Berria - Kirola

Hortaz, asmaren aurkako harnasgailuen, glukoesterokortikoideen eta **kalamukien** erabilerak ez du zigorrik izango. Berria - Kirola

---

# kalamuondo *iz* kalamu landarea.

Arizkunen 68 droga **kalamu** ondo hatxeman ditu poliziak. Herria

---

# kalanbre **1** *iz* arranpa, zaineldua.

Hankan **kalanbrea** izan zuen. Pablo Sastre

Jaizkibelen gora **kalanbreak** sentitu ditut, atsedengunearen ondoren berriro esfortzua egiten hasita, baina behera bidean hobeto sentitu naiz. Berria - Kirola

Horregatik egotzi diozu lepoaren atzealdeko **kalanbrea** bart gaueko postura txar bati. Eider Rodriguez

Ahoa nire kobazuloetan barneratu du eta, klitorisean emandako mihi-kolpe txiki bat dela medio, **kalanbre** batek zeharkatu nau oso-osorik. Juan Martin Elexpuru

**2** (elektrizitateak eragina)

Hiri honetako argi-giltza gehienek **kalanbrea** ematen dute. Harkaitz Cano

---

# kalanka *iz* joare laua.

Behiala Orreagatik Ainarbe aldera ekartzen omen zituzten mendibehiak negutzera, eta udalehenean beren behisailak aurrean hartuta, joare **kalanka** eta marru, atzera goimendietara abiatzen zirenean, hala esaten omen zuten goizuetarrek: [...]. Patziku Perurena

---

# kalante **1** *izond* musika notez mintzatuz, behar baino apalago intonatua.

Iruñeko Orfeoiari buruz ere, antzera: lan ona egin zutela baina desajuste erritmiko ugari, zati **kalanteak** (gizonen unisonoetan) eta sarrera desajustatu batzuk. Berria - Kultura

**2** (adizlagun gisa)

Baxuen sokan indar handia somatu genuen nahiz eta une batzuetan (jaitsiera kromatikoetan) **kalante** aritu ziren. Berria - Kultura

---

# kalantika *iz* orrazkera.

Xabalkoa leher eta zapart, mukurru betea, bertan itsus, eder eta afrus -hura biloen **kalantika!-** pilda suerte guztietarik [...]. Jose Angel Irigaray

---

# kalapita **1** *iz* iskanbila, eztabaida zaratatsua.

Ea zer ote ziren garrasia eta **kalapita** haiek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haien bozak, irriak eta, noizbehinka, **kalapitak** ere, karrikatik adi zitezkeen. Elena Touyarou

Zergatik egon behar du betiere hainbeste iskanbila eta **kalapita** ? Mirentxu Larrañaga

1998-2005 artean lau miliun beltz hil badira Congo aldeko gerla eta **kalapitetan** . Herria

**Kalapita** bizia piztu zuen Ulap eta Dagaten artean. Ramuntxo Etxeberri

**Kalapita** berak piztua zuen aurkarien berotzeko Manilako frontoiak berriz irekitzeak **kalapita** izugarria sortu du Filipinetako gizartean. Piarres Aintziart

Sekulako **kalapita** sortu zen, inork ez baitzekien noren ahotik sortua zen ahots ozen hura. Anjel Lertxundi

**Kalapitak** izan ziren gure artean. Piarres Aintziart

-Bazakiat lehengoan **kalapita** izan huela Ximurrarekin. Aingeru Epaltza

Auzoko tabernan **kalapita** sutsuak izaten zituzten politikaren gainean, tabernan egiten baitziren urte nahasi haietako eztabaida politikoak. Juan Kruz Igerabide

Emakumeen eta haurren bortxaketen ugaritzeak **kalapitak** gaiztoagotu zituen kapitainen eta elizgizonen artean. Aingeru Epaltza

Bestaren ondotik bazen maiz senar emazteen artean **kalapita** frango, baina beti akomeatzen ziren. Michel Oronoz

**Kalapita** gogorrak. Herria

Gezur eta **kalapiten** artetik, egiak eta ongiak egin dezatela ere bide. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Ez zen **kalapita** gose eta gainera, gizona nora ote zihoan jakin minez zegoen. Elena Touyarou

· Tupustean gizonen halako ahots-**kalapita** bat inguratu zitzaion bazter guztietatik. Lopez de Arana

**3** ***kalapitan*** *adlag* ik **kalapitaka**.

Bidaian zehar Sophie-rekin **kalapitan** ari izan delako. Eneko Bidegain

Erreformazale suharra izanik ere, maiz aritzen zen **kalapitan** hiriko ministroekin. Aingeru Epaltza

Kattalinek ez du Gérard-ekin **kalapitan** denbora galtzeko gogorik. Eneko Bidegain

Antzarak oilategitik **kalapitan** aditzen ziren. Itxaro Borda

Ez ziren haiek fraideekin-eta **kalapitan** hasteko garaiak. Anjel Lertxundi

Nundik ukanen dute merexi luketen arrakasta, beren artean alde bat mokoka eta **kalapitan** higatuz. Herria

· Erregearen baimena berme, Urruñako lurren herena egina baitzen Ziburuko, eremu horren mugen gainetik hasi ziren **kalapita** gorrian. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalapita gorrian** (4); **kalapita handia** (3); **kalapita izan** (4); **kalapita sortu** (4); **sekulako kalapita** (4)
> **kalapitak izan ziren** (3)
> **kalapitan ari** (4); **kalapitaren erdian** (3)

---

## kalapitaka *adlag* kalapitan.

Baina ez naiz ausartuko, badakizu, ez baitut, klase borrokaz eta kapitala desagertuko den bihar edo etzidamuko goiz urratzeaz **kalapitaka** hasiz, zurekin haserretzeko gogorik. Itxaro Borda

---

## kalapitari *izond* kalapita-piztailea.

Haren akordua, ordea, garbia da, izen organikoa da, harrabotsua, **kalapitaria,** tematia. Lutxo Egia

Aldekoak eta aurkakoak ere, lakonikoki, aharratzen ziren Herriko Plazetan, erreboteak odolez ttakatzeraino, mahaietan patxaran botilen hutsak baizik ez zituelarik **kalapitariak** bereizten, eta mozkorrak hondarrak baketzen. Itxaro Borda

---

## kalapitatsu *izond* kalapitaz betea.

Ondoko zerragian, hurrengo abenduan galkatuko edo engisatuko ziren antzara **kalapitatsuak**. Zementuzko hiri-oihanera garamatza, oihan bizi-bizi, koloretsu eta **kalapitatsura**. Itxaro Borda

Denbora horretan bi eskola-sartze bizi izan ditu, biak **kalapitatsuak**. Berria - Euskal Herria

Ikusleak ugaritu ahala, elkarren arteko babesean ausarturik, kalesara hurbiltzen hasi ziren gero eta adoretsu eta **kalapitatsuago**. Anjel Lertxundi

---

## kalapitazale *izond* kalapitaren zale dena.

Aurrena uko egin zien arratsaldeetako ibilalditxoei, lotsatu egiten baitzen bere soineko xahar maiztuekin, baina azkenerako bakartze behartu harekin ere asperturik, bere buruarekin haserretu zen, izan ere, berezko izaera **kalapitazale** izaki, koldarkeria iritzi baitzion. Patxi Zubizarreta

---

## kalapu *izond*

Solas **kalapuak**. Herria

---

## kalashnikov ik **kalaxnikov**.

---

## kalaskatu *izond*

Aspaldian, gelditzen zaizkion indar **kalaskatuen** aginduz, urtean behin zaharren egoitzatik antolatzen den bidaian bakarrik jotzen badu ere. Pako Aristi

---

## kalastra ik **kadastra**.

---

## kalatu **1** *izond* orratz lana edo zulo-brodatuak dituena.

Probentzako arrosa bi zapata **kalatuetan**. Juan Garzia

**2** (arkitekturan) orratz lana gogorarazten duten zuloak eta irekidurak dituena.

Burdin-sarearen aitzinean, hau da, aldarearen aitzinean dagoen karratuaren alde laburrean, pinakulu **kalatu** batek burutzen duen apezpikuaren tronua jaso dute. Koldo Izagirre

**3** (izen gisa) orratz lana

Dirua gasta zezaketen emakumeentzako dendetan, eta horiekin batera **kalatuak** zituzten kuleroak eta beste gauza bitxi samar batzuk, eta nik eta lehengusuak erakus-leihoetan begiesten genituen. Pello Lizarralde

---

## kalatxori *iz* antxeta mota txikia.

**Kalatxoriak** dabiltza hara eta hona zeru grisean. Joseba Sarrionandia

**Kalatxoriak** sarritan pausatzen ziren Goienkale eta Barrenkaleko teilatuen ertzean. Joseba Sarrionandia

Euria ari du, **kalatxoriak** bueltaka dabiltza kaiaren inguruan. Mikel Hernandez Abaitua

Beren hegada pausatu eta ero samarraz zeru-sabaian lorratz ikusezinak intsinuatzen dituzten **kalatxorien** txilioak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kalatxoriak** jiraka eta karraka ari izanen dira islaren gainean. Joseba Sarrionandia

Itsasadarra beti egongo da hor [...] denon bizitzak zelan pasatzen diren ikusten, **kalatxoriei** kontatzen guk aditu ezin dugun urezko hizkuntzaz. Sonia Gonzalez

---

## kalaxka *izond*

Halako batean bi eztanda txiki eta opako entzun dira musikaren gainetik, xanpain merkeak egin ohi dituenen tankerakoak: motelak, **kalaxkak,** alaitasunik gabeak. Patxi

Iturritegi

---

## kalaxnikov *(orobat* ***kalashnikov****)* *iz* errusiar metrailadore baten merkataritza izena.

Hiru borrokalarirekin agertu zen; bizkarrean **kalaxnikovak** zekartzaten. Juan Kruz Igerabide

Erasotzaileek **kalashnikovak** erabili zituztela azaldu du Abas Jafar Hilako poliziak. Berria - Mundua

**Kalaxnikov** batekin armaturiko militar batek hartu zituen bidaiari guztien pasaporteak. Juan Kruz Igerabide

Atxikiko baitituzte ez bakarrik ganibetak bainan ere pistoletak eta **kalaxnikovak**. Herria

· Hemen ausarki aurkitzen den gauza bakarra armak dira; errazago da **kalaxnikov** fusil bat aurkitzea ogi opil bat baino. Berria - Mundua

Hilaren 13tik aurrera AEBetako etxeetan AK-47, UZI edo **Kalashnikov** errifleak eduki ahal izango dituzte. Berria - Mundua

---

## kalbario *(orobat* ***galbario*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kalbario*** *agertzen da)* **1** *iz* Jesukristo gurutziltzatu zuten mendia.

**Kalbario** mendiaren iduriko muino bat. Joan Mari Irigoien

Andra Maria **Kalbarioko** mendian, Semearen eriotze-bitartean negarrez zegoela. Pello Zabala

Atseginaren atseginez hiltzen ari zela gurutzefikatua, ez oinazez; eta **Kalbarioko** hura teatroa zela. Joan Mari Irigoien

Nazareteko Jesus **Kalbarioko** bidean lagundu ez zuelako. Berria - Kultura

Tintorettoren **Kalbarioa** azter daiteke aldamenean. Berria - Kultura

**2** gurutzebidea.

Han zebiltzan gure herritar maite horiek, harpetik elizara, elizatik **kalbariora,** beti otoitzean eta kantuz. Xipri Arbelbide

Bertoko **kalbarioaren** lehen gurutzean erre zituen gero. Koldo Izagirre

Jesusen tailua iltzatua zekarren egurrezko gurutzea ostean, ez jakin nork abisatutako poliziaz inguraturik, bera ere **kalbarioko** estazione zela. Itxaro Borda

Pazko-goizean **kalbarioak** esaten zituenak laurehun arima Purgatoriotik ateratzen zituela esaten zen. Pello Zabala

Beti hor omen zen hamahirugarren **kalbarioaren** harri tailuaren itzalean. Itxaro Borda

Muruzabaletik jalgi orduko, **galbario** sinplearen maila batean jarririk. Piarres Aintziart

· 15 artelan sortuko ditu, **kalbario** bideko gurutzeak bezainbeste. Berria - Kultura

**3** oinazealdi gogor eta luzea.

Soto ilun batera eraman ninduten, eta hantxe hasi zen hiru bat egun luzatu zen **kalbarioa**. Anjel Lertxundi

Carabanchelgo kartzelan hasi zen **kalbarioa**. Jokin Urain

Bizitza **kalbario** bat bihurtzen denean. Joan Mari Irigoien

Osaba Joanikot bere **kalbario** hartarat kondenatu zutenean. Joan Mari Irigoien

«Euskara babesteagatik» pairatu zuen **kalbarioa** deitoratu zuen. Berria - Euskal Herria

Unanue eta Peñaren **kalbarioak** datorren asteburuan du jarraipena, Dulantzin, Araban. Berria - Kirola

Nik ez nuen txakurraren **kalbarioan** parte hartu nahi. Joan Mari Irigoien

Jatea **Kalbarioa** zelako berarentzat, eta zenbat eta lenteja gehiago, orduan eta altuagoa **Kalbarioa;** lenteja bakoitzeko hogeita bost zentimetro handitzen zen **Kalbarioa**. Unai Elorriaga

Baina ez zen han akabatu Mattinen **kalbarioa**... Joan Mari Irigoien

Martin Ugalde ere omendu nahi izan zuen hitzaldian Astarriagak, eta «euskara babesteagatik» pairatu zuen **kalbarioa** deitoratu zuen. Berria - Euskal Herria

Maitasunaren hastapenean maite duenak (egun haietan uste nuenez bederen), **galbario** bat darama barruan. Txillardegi

Ezin dugu bertze **galbario** bat jasan. Michel Oronoz

Euskararen egoera [...] egoera ona da, nahiko ona, etor zitekeen **galbario** zaharra kontuan hartuta. Pello Salaburu

Arnasa hartu zuen helmugara iritsi eta **kalbario** mingarria bukatu zelako. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan)

Bukaera eman nion **kalbario**-sufrikario gisako irakurketa hari. Jon Arretxe

---

## kalbindar *(orobat* ***kalvindar*** *g.er.)* **1** *izlag* J. Calvin-i edo haren dotrinari dagokiona.

Debagoiendar-**kalbindar** bertsioan: eztabe beharrik eiten, ala? Iban Zaldua

Leizarraga, Joanes [...] ministro **kalbindar** euskalduna. Aingeru Epaltza

Nafarroako erregina Erromako Eliza utzi eta **kalbindar** bilakatu zen. Aingeru Epaltza

Erreforma **kalbindarra** eta kontrarreforma kristaua. Berria - Harian

Erreformismo **kalbindarraren** eraginez. Askoren artean

1564an Pauen bilduriko Sinodo **Kalbindarraren** mandatua. Askoren artean

XVI. mendeko Geneva **kalbindarrean**. Berria - Kultura

• **2** *iz* kalbinismoari jarraitzen dion pertsona. ik **kalbinista; higanot**.

**Kalbindarren** buruzagi nagusietarik erlijio gerletan. Aingeru Epaltza

Aitaren politikari segida eman zion, aldi berean habsburgotarren eta **kalbindarren** kontra eginez. Aingeru Epaltza

Nafarroako erregina Erromako Eliza utzi eta **kalbindar** bilakatu zen. Aingeru Epaltza

**3** (izenondo gisa)

Probintzia batera bere jarraitzaileei ezkutuan predikatzera datorren sermoilari **kalvindarrak** heriotza-zigorra bereganatuko du, harrapatzen badute, eta afaltzen eta lotan eman diona galeretara zigortuko dute betiko. Juan Martin Elexpuru

Kalvin bera baino bi aldiz **kalbindarragoa** zela. Joan Mari Irigoien

---

## kalbinismo *iz* J. Calvin eraberritzailearen doktrina.

Cromwell puritanoa zen, **kalbinismoaren** jarraitzailea, eta Ingalaterrako eliza erreformatuaren zabarkeria begi txarrez ikusten zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

1560an **kalbinismora** bihurtu zen. Aingeru Epaltza

Han **kalbinismoa** besarkatu zuen berriz. Aingeru Epaltza

1593: Henrike III.a Nafarroakoak uko egin zion behin betikoz **kalbinismoari** eta Frantziako Henrike IV.a bilakatu zen. Aingeru Epaltza

**Kalbinismo** gisa zokoratua, laster agertu zen jantsenismo gisa, altzo katolikoaren baitan, **kalbinismora** gehien hurbildu zitekeen planteamendua. Iñaki Mendiguren

---

**kalbinista** 1 *iz* kalbinismoari jarraitzen dion pertsona. ik **kalbindar 2**.

Bat etortzen naiz sarritan protestanteekin, **kalbinistekin** ez, hori ez. Karlos Zabala

Katolikoen iruzurra, **kalbinisten** azpikeria, anglikanoen marikoikeria atzeratua. Karlos Zabala

Frantziako **kalbinisten** "fedeko konfesionea".katoliko jaiotako Luis XIV.aren eta **kalbinista** izandako aitona Enrike IV.aren artean. Iñaki Mendiguren

• **2** *izond* kalbindarra.

Bere etxean jasotako heziketa **kalbinistaren** arabera. Anjel Lertxundi

Bi erlijio horietako bakoitzak bere burua beteginentzat eduki zezakeen; **kalbinista** Jesukristok esandakoari atxikiagoa zelakoan zegoen, eta lutertarra apostoluek egindakoari. Iñaki Iñurrieta

---

**kalbinozale** *izond* kalbinismoari jarraitzen dion pertsona. ik **kalbindar 2**.

Sineskabeak ziren, baina haien odolean iraun zirauten, zantzu ilun gisa, **kalbinozalearen** fanatismo gogorrak eta panparen sineskeriek. Juan Garzia

**Kalbinozaleek,** ordea, teologia eta musika kontuetan adituak zirenen iritziak jaso ondoren, José Tudelak ez ziola bere arima deabruari saldu, beharrik ez zuelako, atera zuten ondorio. Felipe Juaristi

---

**kalboso** *izond* kaskasoila.

Zer dauka **kalboso** koipetsu eta ñaño horrek nik ez daukadana? Jon Arretxe

---

kalda ik **galda**.

---

**kaldar** *iz* intolerantea.

Euskaldun eta katalanen joera partikularista grinatsu eta **kaldarraren** kritika. Joxe Azurmendi

Lagunarte kultural txiroagoan kausituko da, estuago, erkinago, irtenbidegabekoago, zailagoan, eta -gura baduzu- baita oro har humanoki ziztrinagoan ere beharbada, ghettotarragoan alegia, itxiago eta **kaldarragoan,** txikikeria handiz betean. Joxe Azurmendi

---

kaldategi ik **galdategi**.

---

**kaldear** 1 *izlag* Kaldeakoa, Kaldeari dagokiona.

**Kaldear** edo siriar hizkuntza (arameera) erabiltzen zutenak. Xabier Kintana

**Kaldear** jatorrikoa da herri hori. Elizen arteko biblia

Orduan, **kaldear,** aramear, moabdar eta amondar taldeak bidali zituen Jaunak Joiakim erregearen aurka, Juda desegin zezaten. Elizen arteko biblia

• **2** *iz* Kaldeako herritarra.

**Kaldearren** naziotik sortutako herrialdeek. Santiago Iruretagoiena

Babiloniako **Kaldearren** doktrinak. Xabier Amuriza

Babilonia, erresumarik ederrena, **kaldearren** bitxi eta harrobidea! Elizen arteko biblia

**Kaldearren** Ur hirian bizi zen Abran, bere aita Terah-ekin. Jose Antonio Mujika

Abraham, orduan, **kaldearren** lurraldea utzirik, Haranen jarri zen bizitzen. Elizen arteko biblia

Herrialde askotako jendea ere bildu zen **kaldearren** aurka borrokatzera. Elizen arteko biblia

Legebiltzarra osatuko duten 275 eserlekuetatik 45 gutxiengoentzako izango dira, hau da, asiriarrak, **kaldearrak,** armeniarrak, jediziak... osatzen duten komunitateentzat. Berria - Harian

---

**kaldeo** *iz* kaldearra, Kaldeako herritarra.

Onartutakoen artean komunitate guztietako ordezkariak daude, hala nola xiitak, sunitak, kurduak, turkomanoak, asirioak eta **kaldeoak** (kristauak). Berria - Mundua

---

**kaldereria** *iz* galdaragilearen lantegia.

Deitu al duk **kaldereriara**? Pablo Sastre

---

**kalderero** *iz* Donostiako festa batean galdaragile jantzian parte hartzen duen pertsona.

Donostiako Parte Zaharreko **kaldereroek** batzar berezia egingo dute. Berria - Euskal Herria

**Kaldereroen** konpartsa, adibidez, elkarte horrek atera zuen lehen aldiz, 1882an. Askoren artean

· Danborrada, **Kaldereroak** eta Inauteriak. Askoren artean

---

**kalderete** *iz*

-"**Kalderete** txapelketa Arantzetan..." -segitu du senarrak, doinu are etsiago batez. Jokin Muñoz

---

**kalderilla** *iz* kondar hutsala.

Gure izatearen **kalderilla** horrekin konformatzen ez direnek beste zerbait behar dute. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kalderilla** hutsa. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**kalderoi** *iz* musikan, geldialdia.

Eta sinfonia horrek lipar batean iraun zuen, *géromé* anisatuaren nota zoli baten gainean, zeina **kalderoi** batean luzatu baitzen. Karlos Zabala

---

kaldi ik **ukaldi**.

---

**kale** **1** *iz* hiri edo herrietan, etxez inguraturiko bidea. ik **karrika.**

Bostongo **kale,** plaza eta etxadiak. Anjel Lertxundi

Murru, **kale** eta plaza eder haien artean bizitzeak, ibiltzeak eta aditzeak. Txillardegi

Etxeak suntsitu, **kaleak** desegin, zuhaitzak bota, teilatuak hondatu. Pello Zabala

Théodore Maunoir **kalea** Luis Appia **kalearen** amaieran zegoen. Unai Elorriaga

Rambuteau **kale** aldera biratu ziren. Karlos Zabala

Egunez, Pirouette **kale** alderako leihoa zabaldu eta argitasun zikin bat sartzen zen. Karlos Zabala

**Kale** erdian tranbiaren zain gelditu zen. Lopez de Arana

**Kale** artean ikusten diren gauzak inoiz ez dira osorik ikusten. *ik* kalearte. Unai Elorriaga

**Kale** arteko ibilbideak hautatzen baitzituen. Iñaki Iñurrieta

**Kale** horrek bazituen bi zubi beiratedun, **kale** gainetik igarotzen zirenak. Josu Zabaleta

Nire tabernatik hiru **kale** gorago zegoen haien barberia. Pako Aristi

Inguruko **kaleak** asfaltatu gabe, umeak hemengo pilota jokoan. Edorta Jimenez

**Kalea** eskobatzeko lana. Juan Garzia

Zakurra **kalea** igaro ez igaro dago. Jon Alonso

Dendatik irten eta **kalea** gurutzatu zuen lasterka. Karlos Zabala

Taxi-gidariak ez zukeen **kale** hau zeharkatu beharko. Mirentxu Larrañaga

Informantearen **kalea** aurkitzeko. Unai Elorriaga

Bikoteak eskuinetara zegoen **kale** batera jo zuen. Joxemari Iturralde

**Kalea** trenbidetik ibaira doa. Xabier Paya

**Kaleak** jendez beterik zeudenean atera zen etxetik... Koro Navarro

**Kaleak** hildakoz betetzeraino ugaritu dituzue hilketak hirian. Elizen arteko biblia

Jende-joera handiko bi **kaleren** gurutzegunean. Jose Morales

Metro estazio eta aireportuetan barna **kalezko** begiralearen jarreran. Harkaitz Cano

**2** (izenondoekin)

Jende ugari zebilen estalpeko **kale** handi haietan zehar. Karlos Zabala

**Kale** txiki mehar batean. Karlos Zabala

Eraikin handiez inguratutako **kale** luze zurietan zehar. Lopez de Arana

**Kale** zabal bateko espaloian. Karlos Zabala

Hor-hemenka ageri ziren leiho bakanetako distira motelak argituriko **kale** izugarri zabaletan barrena. Jose Morales

Gero, Pont Neuf eta Halles **kale** berri zabaletara iristen ziren. Karlos Zabala

Hirietako **kale** zaharretan. Anjel Lertxundi

Abenida zabalak eta **kale** ederrak dituzten hiri sobietarretan. Edorta Jimenez

Ziztu bizian joan nintzen **kale** aldapatsuetan gora. Koro Navarro

**Kale** piko harriztatuan zurezko sandalien hotsa entzun zen. Patxi Zubizarreta

Parisko **kale** itoen artean. Karlos Zabala

Ziztu bizian atera zen zirimiri hotzak bustitako **kale** isilera. Lopez de Arana

**Kale** izoztuetan behera. Lopez de Arana

Kanpoaldean, limoi-koloreko goiztiriak **kale** hutsak blaitu zituen. Lopez de Arana

Parisko **kale** aristokratikoenetako batean. Matías Múgica

**Kale** jendetsuenak saihesteko. Anjel Lertxundi

Erdiko **kale** inorgabeak luze hedatzen ziren gas argiontzien ilaren azpian. Karlos Zabala

**3** (izenondoekin)

Estalpeko **kale** baten aterpera. Karlos Zabala

Merkatuko **kale** haietan isurtzen zen urak poztu egiten zuen. Karlos Zabala

Azokako **kale** meharretan. Karlos Zabala

Oihuka ari ziren haur narratsez beteriko adreiluzko **kale** kirastuetan zehar. Lopez de Arana

Bonbardaketariek jaurtikitako bonbek herriko **kale** eta etxe asko birrindu zuten. Lutxo Egia

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena gauza fisiko bati dagokiola)

Allikene lelengo lerroan egoan, **kale** baserri bihurturik. Txillardegi

Zurezko **kale**-seinale zahar bat **Kale**-trena. Iñaki Mendiguren

Gerra aurreko **kale**-istiluetan. Edorta Jimenez

Auto erreketak eta **kale** kalapitak nonahi piztu ziren aldi horretan. Hasier Etxeberria

Gehien kontsumitzen diren izozki moten gaineko **kale**-inkesta super-interesgarria. Aingeru Epaltza

**Kale** elkarrizketak nonahi **Kale**-lanean ari nintzelarik. Aingeru Epaltza

Zer nolako **kale**-jolasak egiten zituzten. Aitor Arana

**Kale** hizkeran ez da arraroa "hori oso talibana duk kontu horretan" entzutea. Iñigo Aranbarri

Dendetan edo **kale** saltokietan. Gotzon Garate

Ibilbidean, urrutira, **kale**-organo bat entzun zuen. Irene Aldasoro

Edo **kale**-kantariak [...] gure jaioterriko arazoei buruzko balada bat kantatzen. Irene Aldasoro

Kulpa gurea da utzi egiten dizugulako **kale**-nahasle horiek bezala janzten. Anjel Lertxundi

Mota bateko eta besteko jendearekin topo egitera ohitua dagoen **kale** ibiltariaren lasaitasunaz. Karlos Zabala

Hitz haien bidez, Macquart zaharraren mozkorkeria eta **kale** parranda famatuak gaitzetsi nahi zituen. Karlos Zabala

Aspaldi ez nuen **kale**-jantzian ikusi don Roman. Inazio Mujika Iraola

**Kale** antzekiaren munduan, eta **kale** artearen arloan oro har, aitzindari da Frantzia. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena gauza abstraktu bati dagokiola)

**Kale** sarrerako tabernan. Patxi Zubizarreta

BMWa **kale** amaieran zegoen. Migel Angel Mintegi

Tren batek goialdetik igarotzean burrunba egiten zuen **kale**-muturrean. Lopez de Arana

Guardia zibilen furgoi pare bat ikusi zuen soilik, bata bestearen atzetik **kale**-ahoa gurutzatu eta bertatik urruntzen. Pedro Alberdi

Paisaiak ere pintatzen nituen, eta **kale**-txokoak. Unai Elorriaga

Eta behatoki berezi hartatik ikusi zuen **kale**-izkinan agertzen segika zetorkiona. ik beherago 20. Migel Angel Mintegi

Bera **kale** mailan, eta emaztea bebarruko alturatxoan jarria. Jokin Muñoz

**Kale** janzkeran, emakume asko eta asko, hamaika koloretako guardasolak eskutan zeramatzatelarik. Txillardegi

Bilboko **kale** eszenekin batera, badira Ezkerraldeko meatzetan ateratako erretratuak. Joseba Sarrionandia

Ez nuen Kalkutako **kale**-legeen berri. Gotzon Garate

· *(izond)* Haur izu **kale**-beldur eta jende-beldur bat. Iñaki Segurola

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bat-batean ezkerretara egin eta saihets-**kale** bat hartu zuen Corleyk. Irene Aldasoro

Txakurtxo bat irten zen albo-**kale** batetik. Koldo Biguri

Bilboko "goi-**kaleak"** aipatzen ditu, auzoaren izena esaten ere ausartu gabe. Koldo Izagirre

Aparkaleku-**kale** bat behar zuen gureak, hortik zarata. Joxe Austin Arrieta

Inguruan, herri **kale** batean etxe-villa bi. Pablo Sastre

Filigrana gisako burdinsare bat zuen Gurdi-**kale** deitzen zen kale baterantz. Josu Zabaleta

**7** *hed/irud*

Lur azpiko **kale** luzeetan, gelaxkak ageri dira, suteen beldurrez jarritako beren sare metaliko itxiekin. Karlos Zabala

Haize boladak pabiloiko **kale** meharretan aurrera igarotzen ziren. Karlos Zabala

Zer dira ilargiaren **kale** horiek? herriko kaleen antzekoak, edo estropadetakoen **kale** ziabogadun horien parekoak...? Pello Zabala

**8** euskal gizarte antolaketan, elizaren inguruan biltzen diren etxeen multzoa. ant**baserri.**

Auzo zaharra, **kalea**, euskaraz antonomasiaz esaten den bezala, plazan elkartzen diren bi kalexka estu, bihurgunetsu eta aldapatsuk osatzen dute ia osorik. Koro Navarro

Amaren parteko familia baserritik **kalera** etorritakoa zen, Mendexatik. Ana Urkiza

Ezkondu zenetik **kalean** bizi bada ere, Zestoa gainekoa da sortzez, eta asko ibilia da inguruetan, baso lanean-eta. Iñigo Aranbarri

Auzolanerako deia zabaldu zen eta hartara agertu ziren Perikoren lagunik gehienak, **kalean** bizi eta sororik ere ez zeukaten batzuk izan ezik. Pako Aristi

Umetan ez nuen jakiten baserria non kokatu, **kalean** haziak izan baikara. Xabier Etxabe

Baserrian lagundu bai baina **kalean** lan egiten baitzuen, Nire adineko eta inguruko euskaldun gehientsuenen gurasoak bezala baserria utzi eta **kalera** jaitsitakoak, fabrikara. Xabier Mendiguren Elizegi

Baserri asko hustu, jendeak **kalera** jo eta mendiak zikindu egin direlako. Gotzon Garate

**Kale-kalekoa** naiz ni, **kalean** jaio eta **kalean** hazia. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehengo baserritarrari **kalea** urrutitxo gelditzen bazitzaion, gaurkoari etxea gelditu zaio urruti, gero eta urrutiago. Iñaki Segurola

**9** ***goi kale***

Bilbaoko **goi**-kaleetako txarritokietan erabilten dana. Koldo Izagirre

**10** ***kale agerraldi*** manifestazioa.

**Kale agerraldiak** eta manifestazioak demokraziaren oinarrietako bat dira. Berria - Harian

Aralarrek **kale agerraldiak** antolatuko ditu. Berria - Euskal Herria

Udaletxe atarian amaituko da **kale agerraldia**. Berria - Euskal Herria

Milaka polizia aurrean zituztela egin zuten **kale agerraldia**. Berria - Mundua

Orain arte egindako **kale-agerraldi** baketsuen oso bestelakoa. Berria - Mundua

Debekatutako **kale agerraldi** baten erantzule izatea. Berria - Euskal Herria

**11** *kale-bazter* ik **kalebazter.**

**12** ***kale borroka***

Ez nuen sekula parte hartu **kale borrokan** edo ETAn, ezta fronte kulturalean ere. Iban Zaldua

**Kale-borrokako** ekintzetan parte hartu izana leporatu zioten. Abertzaletasuna erakargarri egin behar dela, alegia, eta indarkeria eta **kale borrokarena** ez direla horretarako tresnak. Iban Zaldua

Borroka armatuaren eta **kale borrokaren** aurka nago ni, guztiz, etikoki suntsigarri eta politikoki kaltegarri iruditzen zaizkit eta. Joxerra Garzia

**Kale borroka** egiten ari dena Ertzaintza da, etengabe. Berria - Harian

**Kale borroka** idurikoa hedatzen ari Frantzian. Herria

**13** ***kale-borrokalari***

Herriko Tabernako giro hartan, eta **kale-borrokalarien** bi argazkiak propio erakutsi ondoren. Txillardegi

Garai hartan **kale-borrokalariek** teknika berria asmatu zuten. Iban Zaldua

**14** ***kale egin*** huts egin.

Hirugarren joaldian **kale egin** nuen, bolak ez zuen-eta nik nahi nuen beste indarrik hartu bandaren kontra jotzean, eta bide erdian gelditu zen. Anjel Lertxundi

Nire asmoak **kale egiten** badu. Agustin Otsoa

Ez gero niri **kale egin,** mutilok. Mirentxu Larrañaga

Hamar urtez hiru aldiz baino ez diat egin **kale**. Lopez de Arana

Oroimenak **kale egiten** ez badio. Imanol Zurutuza

Alta, neurri horiek **kale egin** dutenean ez da zilegi bide horri segitzea. Berria - Harian

Lehen keinua egin bezain laster joko nion tiroa, eta, **kale eginez** gero, eskopeta hustuko nion. Juan Kruz Igerabide

Baina hire aitonak **kale egin** zian hona etorririk. Juan Garzia

Kaleak **kale egin** digu, ordea. Joxerra Garzia

· *(bale-rekin)* **Kale** edo bale egitekotan nengoela, Andreas bera aurreratu zitzaidan eta nire asmoez galdetu zidan. Anjel Lertxundi

Berehala bildu ziren plaza erdira bertako eta kanpoko emakumeak, bertako eta kanpoko gizonezkoekin dantza egitera [...] benetako erakustaldia ordukoa izango zela jakitun, bale ala **kale egitekoa** alegia. Felipe Juaristi

· *(egin ezabaturik)* Jo euskal hiztegietara, eta **kale**. Iñigo Aranbarri

Kargatu du bere FN Browning-a [...] eta bigarren basurdeari ere **kale,** hirugarrenari ere bai, horrela seirekin huts egin arte. Pako Aristi

Agintariek **kale**, txiroak kale gorrian. Berria - Harian

**15** ***kale estu*** *(orobat* ***kalestu*** *g.er.)*

Hiriaren alde zaharreko **kale estu** batzuetatik barna. Anjel Lertxundi

Alde zaharreko **kalestu** haietan gora eta behera. Joxemari Iturralde

Elizaren inguruan kiribildutako **kale estu** bihurrietan gora hartu du. Anjel Lertxundi

Tangerko **kale estuetan** ibiltzea pentsatu zuen. Xabier Aranburu

**Kale estu** batean, errabinoak garrasiak entzun zituen. Koro Navarro

Katu erdi basatiak baizik ez zituen aurkitu **kale-estuetan** itzalgaizka ibiltzen. Xabier Olarra

Ronda **kale estuak** oihartzuna egin zion Txapliren barre ozenari. Unai Iturriaga

Tenderia **kalesturaino** iritsi nintzenean ezkerrerantz jo nuen kantoian zegoen kafetegirantz. Joxemari Iturralde

## 16 ***kale-garbitzaile*** *(orobat **kalegarbitzaile** g.er.)* ogibidez kaleak garbitzen dituen pertsona.

Aita Kalkutako **kale-garbitzailea** zen. Gotzon Garate

Goizaldeko seiak ziren eta **kale-garbitzaileak** azaltzen hasiak ziren. Harkaitz Cano

**Kale garbitzaileek** martxoaren 14an hasi zuten greba mugagabea. Berria - Ekonomia

Ferroser enpresako **kale garbitzaileek** eta zabor biltzaileek. Berria - Euskal Herria

Orain urte batzuk, Milango **kale-garbitzaile** batek emakume baten gorpua aurkitu zian Duomotik hurbil. Anjel Lertxundi

## 17 ***kale gorri*** *adkor* ik beherago **19.**

**Kale gorrian** lo egiten dutenek ez dute inongo babesik. Gotzon Garate

**Kale gorrian** gaude, goseak eta gerraz hiltzen. Elizen arteko biblia

**Kale gorrian** jaioa omen zen, Elduainen. Koro Navarro

**Kale gorrira** botako nau. Lopez de Arana

**Kale gorrira** bidaliko zaituzte zuk gutxiena espero duzun momentuan. Fernando Rey

Nire ahizpa izanda ere, **kale gorrira** joango da. Karlos Zabala

Une batez **kale gorrian** ikusi dut neure burua. Itziar Otegi

Agintariek kale, txiroak **kale gorrian**. Berria - Harian

## 18 ***kale gurutze*** bi kale gurutzatzen diren gunea.

Besteek zintzoki jarraitzen ziotela ikusirik, hurrengo **kale gurutzean** zein norabide hartu pentsatzeari ekin zion. Pedro Alberdi

## 19 ***kale itsu*** irteerarik ez duen kalea.

Kamioi, orga edota gurdirik ez zen sartzen **kale itsu** hartara. Mirentxu Larrañaga

Hobe dugu **kale itsu** batean elkartzea. Eider Rodriguez

North Richmond Street, itsua izaki, oso **kale** lasaia zen. Irene Aldasoro

· **Kale-itsu** honetatik irteteko bide bakarra berriz hasieratik hastea da. Berria - Harian

Iranekiko elkarrizketak **kale itsu** batean sartuta daudela. Berria - Mundua

Bitasun horrek, hala ere, irteerarik gabeko **kale itsu** batera eraman izan gaitu askotan. Santiago Iruretagoiena

## 20 ***kale-kalean*** kale gorrian.

Indian, berriz, orain ere **kale-kalean** eta inongo lotsarik gabe agertzen da jainkoentzako eraspena. Gotzon Garate

Hala bada, **kale-kalean** berriro ere hurbildu zitzaion arren, oraingoan ez samintzea erabaki zuen. Patxi Zubizarreta

Lehoia dago kanpoan, **kale-kalean;** hil egingo nau. Elizen arteko biblia

· **Kale-kalekoa** naiz ni, kalean jaio eta kalean hazia. Xabier Mendiguren Elizegi

## 21 ***kale kantoi*** *(orobat **kalekantoi** g.er.)*

Bi ertzain ikusi nituen elizatik hurbil, **kale-kantoi** batean. Anjel Lertxundi

Hurrengo **kale-kantoian** ezkerrera hartu eta bizi zen kalean sartuko zen. Migel Angel Mintegi

Eskaileran estropezu egin eta **kale kantoian** desagertu da. Xabier Paya

Suhiltzaileen kamioi bat **kale-kantoira** iritsi eta orroka desbideratu zen, gorri eta dirdaitsu, kea zeriola. Lopez de Arana

**Kale-kantoira** iritsirik, okina ikusten dut, hiru otar, ogiz lepo beterik, furgonetatik ateratzen. Anjel Lertxundi

Artean eguerdia izanagatik, puta dezente zegoen atari eta **kale-kantoietan**. Anjel Lertxundi

Berokia jantzi eta **kale kantoiko** drogeriara joan zen. Josu Zabaleta

Bostongo kaia seinalatzen zuten **kale-kantoiko** geziek. Anjel Lertxundi

## 22 ***kale nagusi*** herri bateko alde zaharreko kale zabalena edo garrantzitsuena.

Orain hogei mila biztanle zituen, eta **kale nagusia** dendaz eta autoz betetako bulebar distiratsu bat zen. Xabier Olarra

Kalesak Salemgo **kale nagusian** aurrera egin zuen. Anjel Lertxundi

Hiriko **kale nagusian** barrena. Berria - Mundua

Auzoko **kale nagusitik** datoz hiru lagunak, harri koxkor bati ostikoak ematen. Jokin Muñoz

Industrialdeko **kale nagusiaren** hustasunean ez zen bertze ibilgailurik bistara. Aingeru Epaltza

· *(K eta N larriz)* Herri zaharreko **Kale Nagusian**. Koro Navarro

**Kale Nagusia** eta San Juan Plaza. Txillardegi

**Kale Nagusiko** tabernetan edo plaza inguruetan. Santiagoko portaletik igaro ziren, **Kale Nagusian** sartu eta lekurik bazen galdetu zuten ostatuan. · Urbiako bi **kale nagusiak** estuak dira, bihurriak eta aldapatsuak. Bernardo Atxaga

Udaletxeak berak bozgorailuak ipintzen ditu **kale nagusietan**. Gotzon Garate

Ez ibili herriko **kale nagusietatik**. Koro Navarro

## 23 ***kale-saltzaile*** *iz* salgaiak kalean satzen dituen pertsona.

Gaztaina sorta bat ere erosi zion **kale saltzaile** bati. Harkaitz Cano

Bi aldeetan, **kale saltzaileek** beren postuak prestatu berriak zituzten, ohol batzuk saski handien gainean paratuz; eta hantxe hasten zen berriz aza, azenario eta arbien uholdea. Karlos Zabala

**Kale saltzaile** andanak igaro ziren bertatik, beren eskorgei bultza eginez. Pablo Sastre

**Kale saltzaile** atzerritarrei. Berria - Euskal Herria

· Saxo, **kale** painuelo **saltzailea**. Pablo Sastre

## 24 ***kale txakur*** *(orobat **kale zakur** g.er. eta **kaletxakur** g.er.)* kalean bizi den txakurra.

**Kale txakurrak** ibiltzen ziren Harakinaren kalean, eta Hennek hezurren bat botatzen zien noizean behin. Koro Navarro

Merkatu nagusiko gauak atseginak dira **kale txakurrentzat**. Karlos Zabala

Nire oinak bi **kaletxakur** dira, hirian norabai edo noraezean dabiltzanak. Joseba Sarrionandia

Ez ziren **kale zakurrak** pertsonen antzera portatzen ziren bakarrak. Felipe Juaristi

## 25 *kale zulo* ik **kalezulo.**

## 26 ***kalerik kale*** *(28 agerraldi, 12 liburu eta 8 artikulutan)* kalez kale.

Kaleetan paseatzea, **kalerik kale** ibiltzea, nekatzen zenean esertzea. Eskarne Mujika

Nik **kalerik kale** egiten dudan bilaketa berberean ari zara. Iñaki Iñurrieta

Kantari **kalerik kale** zalapartan. Patziku Perurena

Ilea arraso moztuta, buruko painulotako bandera española ezarririk, **kalerik kale** arrastan erabili zituzten emakume abertzaleak, lotsagarriro umilatuak. Patziku Perurena

### 27 *kalez kale* (*53 agerraldi, 28 liburu eta 10 artikulutan*)

Nahiago **kalez kale** ibili, norabiderik gabe. Anjel Lertxundi

Atsegin handia ematen zion **kalez kale** ibiltze horrek. Karlos Zabala

Mutilak kantari ateratzen ziren **kalez kale,** eta zezenak festetan, eta iluntzerako etxera. Arantxa Iturbe

Botika itxi berria, bazkari bitartekoa **kalez kale** egiteko asmoa zeukan. Josu Landa

Gurditzarra, **kalez kale** hainbat itzulinguru egin ondoren, kalezulo ilun batean sartu zen azkenean. Jose Morales

Delitu handiskoa bazuen, bi oinak mando zaharren baten isatsari lotu eta buruz atzera arrastan **kalez kale** erabili ondoren, eramanen zuten urkamendira. Patziku Perurena

Erreboltariak **kalez kale** aritu ziren soldaduei aurre egiten eta zalantzan jarri zuten okupazio indarrek hiriaren %70a kontrolpean zutenik. Berria - Mundua

### 28 *kalez kaleko* *izlag*

Begia erne ibili behar, **kalez kaleko** salmenta horiek debekatuak baitzeuden. Karlos Zabala

Taibele bere lagunekin aulkian eserita zegoen, **kalez kaleko** saltzaile bati erosi zion liburu bateko istorio bat kontatzen. Koro Navarro

*ik gorago* 22.

### 29 *kalez kaleko* *iz* kalez kale egiten den ibilaldia. ik **kalejira 3**.

19:00etan, **kalez kalekoa** egingo dute musikariek.

Plazako kioskoan erromeria izango da **kalez kalekoaren** amaieran. Berria - Kultura

Eta hala joan zirela denak **kalez kalekora.** **Iñigo Aranbarri**

19:00etan, **kalez kalekoa** egingo dute musikariek.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**alde zaharreko kale** (6); **arteko kale** (8); **auzoko kale** (5); **bilboko kale** (19); **bilboko kale nagusian** (6); **bilboko kale nagusiko** (6); **egin du kale** (5); **egin zuen kale** (15); **estalpeko kale** (8); **herriko kale** (24); **hiriko kale** (27); **hiriko kale nagusian** (6); **hondarribiko kale** (6); **hurrengo kale** (5); **inguruko kale** (9)

**kale aldera** (18); **kale animazioa** (7); **kale antzerki** (20); **kale antzerkia** (11); **kale antzerkiaren** (6); **kale antzerkiko** (5); **kale artean** (5); **kale bazter** (6); **kale bazterrean** (16); **kale bazterretan** (14); **kale berean** (11); **kale borroka** (54); **kale borrokan** (12); **kale borrokarekin** (11); **kale borrokaren** (16); **kale borrokari** (5); **kale egin** (262); **kale egin zuen** (47); **kale eginez** (10); **kale eginez gero** (9); **kale egingo** (8); **kale egitea** (14); **kale egiteak** (5); **kale egiteko** (8); **kale egiten** (58); **kale egiten badu** (8); **kale eraso** (21); **kale erasoa** (14); **kale erasoak** (36); **kale erasoen** (11); **kale erasoetan** (11); **kale erdian** (36); **kale ertzean** (6); **kale estu** (24); **kale estuak** (6); **kale estuen** (5); **kale estuetan** (10); **kale eta plazetan** (5); **kale garbitzaile** (11); **kale garbitzaileek** (6); **kale gorria** (7); **kale gorrian** (89); **kale gorrian bizi** (13); **kale gorrian geratuko** (5); **kale gorrian utzi** (6); **kale gorrira** (15); **kale huts** (6); **kale hutsetan** (7); **kale ikuskizunak** (5); **kale ilun** (9); **kale indarkeria** (7); **kale istiluak** (5); **kale istiluetan** (5); **kale itsu** (20); **kale itsu batean** (7); **kale itsu batera** (6); **kale izen** (9); **kale jantzian** (8); **kale kalean** (5); **kale kantoi** (30); **kale kantoi batean** (11); **kale kantoian** (46); **kale kantoian desagertu** (5); **kale kantoietan** (10); **kale kantoiko** (26); **kale kantoira** (9); **kale kantoitik** (21); **kale luze** (7); **kale nagusi** (9); **kale nagusia** (34); **kale nagusiak** (24); **kale nagusiak zeharkatu** (7); **kale nagusian** (84); **kale nagusian barrena** (6); **kale nagusian behera** (7); **kale nagusian gora** (5); **kale nagusiaren** (5); **kale nagusietan** (6); **kale nagusiko** (37); **kale nagusira** (9); **kale nagusitik** (22); **kale osoa** (8); **kale osoan** (8); **kale protestak** (6); **kale txiki** (7); **kale zabal** (17)

**kalerik kale** (29); **kalez kale** (52); **kalez kale ibili** (6); **kalez kale ibiltzen** (6); **lau kale** (6); **nazioarteko kale** (8); **nazioarteko kale antzerki** (7)

**kalea gurutzatu** (17); **kalea gurutzatzen** (7); **kalea hartu** (8); **kalea zeharkatu** (15); **kalea zeharkatzen** (7); **rambuteau kalea** (6)

**bilboko kaleak** (18); **donostiako kaleak** (5); **herriko kaleak** (12); **hiriko kaleak** (12); **inguruko kaleak** (7); **kaleak bete** (7); **kaleak garbitzen** (7); **kaleak hartu** (7); **kaleak hutsik zeuden** (5); **kaleak itxi** (6); **kaleak zeharkatu** (16)

**goiko kalean** (5); **hamalaugarren kalean** (7); **kale kalean** (5); **kalean aurkitu** (7); **kalean aurkitutako** (6); **kalean aurrera** (27); **kalean barna** (8); **kalean barrena** (46); **kalean behera** (82); **kalean behera abiatu** (5); **kalean behera egin** (7); **kalean bizi** (48); **kalean gelditu** (11); **kalean geratu** (22); **kalean geratuko** (16); **kalean geratzen** (9); **kalean gertatu** (5); **kalean gora** (69); **kalean ibili** (8); **kalean ibiltzeko** (6); **kalean ibiltzen** (7); **kalean ikusi** (16); **kalean ikusten** (11); **kalean izan zen** (9); **kalean jarraitzen** (5); **kalean jarri** (10); **kalean jartzen** (6); **kalean jotzen** (5); **kalean lo** (5); **kalean sartu** (13); **kalean topatu** (8); **kalean topatzen** (8); **kalean utzi** (22); **kalean utziko** (6); **kalean utzita** (6); **kalean zehar** (50); **lehen kalean** (5)

**estalpeko kalearen** (6); **kalearen amaieran** (9); **kalearen beste aldean** (8); **kalearen bukaeran** (5); **kalearen erdian** (15); **kalearen izena** (6); **kalearen kantoian** (7); **kalearen parean** (7); **pirouette kalearen** (7); **rambuteau kalearen** (10)

**kaleaz bestaldean** (5); **kaleaz bestaldeko** (8)

**kaleen izenak** (10)

**alde zaharreko kaleetan** (6); **auzoko kaleetan** (6); **bilboko kaleetan** (52); **bilboko kaleetan barrena** (5); **bilboko zazpi kaleetan** (5); **donostiako kaleetan** (14); **eko kaleetan** (8); **erromako kaleetan** (5); **euskal herriko kaleetan** (8); **gasteizko kaleetan** (12) herriko kaleetan (33); **herriko kaleetan barrena** (5); **hiriburuko kaleetan** (11); **hiriko kaleetan** (30); **hiriko kaleetan barrena** (5); **inguruko kaleetan** (15); **iruñ jerusalemgo kaleetan** (10); **kaleetan barna** (25); **kaleetan barrena** (94); **kaleetan barrena ibiltzen** (5); **kaleetan gora** (14); **kaleetan ibili** (6); **kaleetan ikusten** (5); **kaleetan zehar** (53); **parisko kaleetan** (6); **sestaoko kaleetan** (6); **sestaoko kaleetan barrena** (5)

**gatazka kaleetatik atera** (5); **hiriko kaleetatik** (6)

**kaleko argi** (5); **kaleko arropa** (7); **kaleko ate** (5); **kaleko atea** (18); **kaleko atera** (8); **kaleko denda** (6); **kaleko egoitzan** (10); **kaleko erakustaretoan** (5); **kaleko etxe** (11); **kaleko etxean** (11); **kaleko etxebizitza** (5); **kaleko farolak** (5); **kaleko gela** (5); **kaleko giroa** (6); **kaleko izkinan** (7); **kaleko jantzian** (5); **kaleko jantziekin** (5); **kaleko jantzita** (7); **kaleko jantzitako** (27); **kaleko jendea** (8); **kaleko jendeak** (11); **kaleko jendearen** (5); **kaleko kafetegi** (5); **kaleko karpan** (9); **kaleko lokatza** (5); **kaleko saltzaile** (5); **kaleko taberna** (8); **kalez kaleko** (6)

**kalekoz jantzitako** (12)

**; atera kalera** (5) atera ziren kalera (32); **atzo kalera** (13); **baserritik kalera** (5); **jantzi eta kalera** (7); **jendea kalera atera** (5); **kalera abiatu** (7); **kalera atera** (198); **kalera atera ziren** (30); **kalera aterako** (22); **kalera ateratzea** (22); **kalera ateratzeko** (51); **kalera ateratzen** (33); **kalera begira** (16); **kalera bidali** (6); **kalera bota** (36); **kalera botako** (11); **kalera botatzeko** (7); **kalera botatzen** (6); **kalera egin** (10); **kalera egin zuen** (5); **kalera ematen** (15); **kalera ematen zuen** (9); **kalera eraman** (7); **kalera heldu** (6); **kalera iritsi** (6); **kalera irten** (203); **kalera irtengo** (8); **kalera irtetea** (8); **kalera irteteko** (35); **kalera irteten** (29); **kalera itzuli** (7); **kalera jaitsi** (19); **kalera jo** (16); **kalera joan** (21); **kalera joango** (7); **kalera joateko** (5); **leihotik kalera** (6); **presoak kalera** (27)

**kalerako bidea** (9)

**kalerik kale** (29) kaletik atera (8); **kaletik ibili** (5); **kaletik joan** (5); **kaletik pasatzen** (7)

**kalez jantzita** (5); **kalez jantzitako** (15); **kalez kale** (52); **kalez kale ibili** (6); **kalez kale ibiltzen** (6); **kalez kaleko** (6)

---

## kaleargi (*12 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan; orobat* ***kale(-)argi*** *17 agerraldi, 11 liburu eta 2 artikulutan*) *iz batez ere pl* kalea argitzen duen argiontzia.

**Kaleargi** dardaratiek argituriko hirian zehar. Koro Navarro

**Kaleargi** elektrikoen argi motel mamuzkoa. Jose Morales

**Kale-argiak** pizten ziren unean. Jon Muñoz

Barazkijale-dieta zorrotz-zorrotza egiten zuen eta **kaleargi** itzali baten amultsutasun eta nortasun berberak zeuzkan. Oskar Arana

**Kaleargi** bakarraren argi ahulak zirkulu herdoilduaren erdian jotzen zuen. Koro Navarro

Askotan, **kale-argiek** kalea argitu beharrean inguruko eraikinak argitzen dituzte. Berria - Gaiak

Kantoiko **kale-argiaren** azpian gelditu ziren. Koro Navarro

**Kale-argien** distira mamu-sortzailea. Aingeru Epaltza

Dendaren fatxadan jarritako **kale argien** errenkadaren azpian. Karlos Zabala

19 urteko gazte bat hil zen atzo goizaldean Bilbon, autoa bidetik irten eta **kaleargi** bat jota.

---

## kalearte (*orobat* ***kale arte***) *iz* kale arteko gunea. ik **karrika 5**.

Hala ere, Ryokok ez zituen Chinatowngo **kalearteak** maite. Javi Cillero

Gatozen kalera, asko ikasten baita **kale-arte** eta kalezuloetan. Iñaki Segurola

Galdu nintzen bertako **kalearte,** etxe bihurri eta kolore nabarretan. Espaloiak oso estuak dira **kale arte** horretan. Javi Cillero

Bide hark ez zeroan inora, **kalearte** estu batean amaitzen zen. Josu Landa

Neskatoak zirelarik, beldur zioten Chinatowngo **kalearte** estuei. Javi Cillero

Orain arte emakumeak barreiatuta zeuden txaboletan eta **kalearte** ezkutuetan. Jon Alonso

· Bezperan bezala, zain dago harresien inguruko **kalearteaan**. Javi Cillero

*ik* kale 1.

Bitartean, neska ilehoria trostan aldentzen da **kaleartera**. Javi Cillero

---

# kalebazter *iz* kalearen bazterra.

**Kale-bazterretan,** ur putzuak izozten hasita zeuden. Anjel Lertxundi

Bilboko **kalebazter** bero haietako porlanak eta galipotak botatzen duen lamada. Pello Zabala

Eskazale tipikoa, **kalebazter** batean eseria, eskean bildutako puskak ondoan dituela, ardoari zurrut eta pipari zupaka. Patziku Perurena

Tebas ere erbestera gatibu eraman zuten, haren haurrak **kale-bazter** guztietan sarraskitu, handikiak menperatzaileen artean banatu eta buruzagiak katez lotu. Elizen arteko biblia

Zuhaitzak loretan zeuden, eta lorez beteta zeuden **kale bazterrak**. Koro Navarro

Jendeak jan hondakinak **kale bazterrera** botatzen ditu. Gotzon Garate

---

# kaleburu *(orobat **kale(-)buru**)* kalearen burua. ik **karrika 6**.

**Kaleburu** bakoitzean dozena erdi metrailadore jarri. Josu Zabaleta

Hor daude zure seme-alabak, **kaleburu** guztietan etzanik, ezinaren ezinez, sarean harrapaturiko antilopeak bailiran. Elizen arteko biblia

**Kale-buru** batean gora egin zuten, bi oruberen artean. Lopez de Arana

**Kale-buru** bat hartu eta parkera heldu zen. Lopez de Arana

**Kale-buruan** agerturiko automobilak. Migel Angel Mintegi

Beste **kaleburuan,** eskuinetik, azoka-gunea eta trenbidea sumatzen ziren. Txillardegi

**Kaleburuan** elizaren ondoko zumar famatua topatu nuen. Txillardegi

**Kaleburuko** semaforoaren ondoan gelditu nintzen arnasa hartzeko. Javi Cillero

Hiribideko **kaleburuetako** batean bizi zen, solairu bakarreko etxe batean. Fernando Rey

---

# kalefakzio 1 *iz* berokuntza.

**Kalefakzio** zentraleko etxeetan. Pablo Sastre

**Kalefakzioko** hodien bitartez saiatuko ziren lagunekin komunikatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Anaiak esaten zion amari haiek elizara joaten zirela han **kalefakzioa** jartzen zutelako. Alberto Barandiaren

**2** berogailua.

Itzali **kalefakzioa;** automatikoak salto egingo du bestela... Pablo Sastre

Goizean etxe batean burdinazko **kalefakzio** bat ikusi zuen Kakok; halakoak orain Rocak bakarrik egiten zituen. Pablo Sastre

**Kalefakzio** gainean artilezko galtzerdiak, mesanotxean baso bat eta botika kajatxo batzuk. Pablo Sastre

---

kalegarbitzaile ik **kale 15**.

---

# kaleidoskopiko *izond* kaleidoskopioari dagokiona.

Margolan horietako askotan, forma abstraktuak ageri ziren, zatikaturiko azalalde **kaleidoskopiko** bat eta aurpegiak iradokitzen zituztenak. Xabier Olarra

Saiatu ere ez naiz egingo Maryren emozio **kaleidoskopikoak** deskribatzen. Koro Navarro

Gogo-egoera **kaleidoskopiko** eta maila askotakoak. Xabier Olarra

---

# kaleidoskopikoki *adlag* era kaleidoskopikoan.

Amets ilun haietan **kaleidoskopikoki** ikusi zituen imajinak, mila koloretan eztanda eginaz, basoak eta txerriak, gutunak eta tiroak, matrikulak eta pozoiak, denak nahastuta. Joxemari Urteaga

---

# kaleidoskopio *iz* hodi baten forma duen tresna optikoa, irudi simetriko aldakorrak agerrarazten dituena.

Linternaren argiarekin, **kaleidoskopioaren** antzeko zerbait osatu zen beste aldean. Juan Kruz Igerabide

**Kaleidoskopio** batean bezala zati koloredunak ikusten nituelako. Juan Kruz Igerabide

**Kaleidoskopio** batean bezala multiplikatzen nituela berez adiera bakarrekoak ziren eszenak, interpretazioak, hitzak. Anjel Lertxundi

**Kaleidoskopio** erakargarria osatzen dute ehunka artelanek. Berria - Kultura

Liluratuta geratuko zara bere aurpegiaren **kaleidoskopioaren** aurrean. Joseba Sarrionandia

Erriberatik Pirinioetara, 150 kilometrotan, irudi, pertsona, jarrera, hizkuntza **kaleidoskopioa** dagoela. Berria - Euskal Herria

---

# kalejale *izond adkor* laean bizi den pertsona.

Hilda eta lurperatua zegoen jendearen oroitzapenean: inori ez zitzaion bururatu ere egingo, hara, hara komediantearen antza du ba clochard-homeless-**kalejale**-txanponerruki horrek! Harkaitz Cano

---

# kalejira 1 *iz* jaietan kalerik kale musika jotzen egiten den ibilaldia.

**Kalejira,** dantzaldi eta kontzertuetarako erabiltzen da soinu txikia. Koldo Izagirre

Hurrengo urtean [...] **kalejira** bat antolatu zen, kaleetan eta plazetan zehar, txistulariei eta atabalariei upelez lagunduz. Askoren artean

18:00: **kalejira** Iruñeko Parte Zaharreko kaleetan zehar. Berria - Euskal Herria

200dik gora herritarrek **kalejira** egin dute Donostiako Bulebarreraino. Berria - Euskal Herria

Martxa militar musikarekin **kalejiran** ibili eta gero. Joxe Azurmendi

**Kalejiran** joan gara, eta jendeak oso modu onean hartu ditu gure orriak. Berria - Euskal Herria

Jolasak, gazteentzako jaialdia, bazkaria, antzerkia eta bertso eta trikiti **kalejira** antolatu dituzte bertso eskoletako arduradunek. Berria - Kultura

**2** ibilaldi horretan jotzen den musika.

**Kalejira** asko, gaur egun oso ezagunak direnak eta mundu guztiak jotzen dituenak, Gelatxorenak dira. Pako Aristi

Etxerakoan Manuel bidekoa edo **kalejira** joaz itzuli zen. Pako Aristi

Eta soinulari zoro batek **kalejirarik** alaiena jotzen du Waterloo-Bridge-ren erdian, edo Albert edo Victoria enbarkment-en. Koldo Izagirre

14 kantu ditu, rantxerak, pasodobleak, **kalejirak,** arin-arinak eta fandangoak tartean. Berria - Kultura

**3** kalez kaleko ibilaldia. ik **kale 28**.

Haietako batzuk zigortu egin zituzten, beste batzuk espetxeratu, eta beste batzuei arropa kendu eta **kalejiran** eraman zituzten biluzik, herriarentzat ikuskizun barregarri bihurtuz. Askoren artean

Begien aurrean agertu zitzaizkion orobat, **kalejira** luzean, zaldi hitsen paradak, eskale ikaragarrien prozesioak, eta jipoitutako hainbatenak, behaztopa-harri aldrak... Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalejira demonio nekrofagoekin** (4); **kalejira egin** (6); **kalejira egin zuten** (4); **kalejira egingo** (8); **kalejira erraldoia** (3); **kalejira hasi** (3)
> **kalejirarekin hasiko** (3)

---

## kalekantoi ik **kale 20**.

---

## **kalekari** *izond* kalez kale dabilena.

Korrikalari eta **kalekari** . Iñaki Iñurrieta

Zoria, halabeharra formula batera ekartzea balego! abiatuko da **kalekari,** esperantzaz beterik, eta merkealdiak tokatu, eta espaloi guztiak jendez gainezka. Iñaki Iñurrieta

---

## **kalekaritza** *iz* kalez kale ibiltzea.

-Nire **kalekaritzan,** behin bide bat hartu ondoren, erabaki bat hartu ondoren, ez neukan atzera egiterik, ibilitakoa ibilita zegoen. Iñaki Iñurrieta

Gabin zur eta lur geratu zen, laguna, doi barandilla ondora iritsi orduko, neskari grabatugintzaren eta berak behin eta berriz saiatutako **kalekaritzaren** arteko antzak azaltzen hasi zitzaionean. Iñaki Iñurrieta

---

## **kalekotasun** *iz* kalekoa denaren nolakotasuna.

**Kalekotasun,** zuzenekotasun eta taldekotasun hau berezkoa du bertsolaritzak, hor sortzen da sortzaileen eta entzuleriaren arteko konplizitatea, bat-bateko bertso-sorkuntzarako ezinbesteko orea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## **kalekume** *(orobat* **kaleume** *g.er.)* **1** *iz adkor* kaletarra; kale eta hiri giroa atsegin zaion pertsona.

Neure etxetik 500 metrora baldin badut ere, bertako osaba-izebekin harreman jator eta atsegina izan arren, nik ez dut inoiz baserrirako joerarik izan, beti izan naiz **kale-ume** eta kalezale, neure akorduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Berriz ere barre egingo digute **kalekume** eskutxurioi. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kalekume** hutsa nintzen, horratik: zakur handi bat zen zalditzat hartu nuena. Harkaitz Cano

**Kalekumeek** ez baitzekarten ezer onik baserrietako mutilentzat. Xabier Mendiguren Elizegi

-Basatiegia duk **kalekume** batentzat -esan nuen. Koro Navarro

Bost axola ezer eramateko balio ez badu ere: eder irizten diogu, nola **kalekumeak** idi-pareari. Joxerra Garzia

**Kalekume** tituludunen batek, funtzionario espainol euskaltzaleren batek. Patziku Perurena

Kalera estresatzera datozen urbano desfasatuak bihurtu dira gure baserritar gazteak, eta **kaleumeak,** aldiz, hilean behin desestresatzera mendira, naturara edo eskalatzera doazen pastillero bukolikoak. Pako Aristi

**2** (izenondo gisa)

Gaur egungo gazte **kalekumeari** gertuagokoak zaizkio elefante, krokodilo eta hipopotamoak, oiloak baino. Joxerra Garzia

Beste maitagarri **kalekume** batzuen laguntzarekin, Wendy lotan zegoela kontinentera eramaten ur gaineko hosto handi batean. Julen Gabiria

---

## **kalenda** *iz* hilabeteko lehen eguna.

Izan ere, gure egutegi eta **kalenda** -egun hauek honelako xelebrekeriak ekarri ohi dituzte. Pello Zabala

[Egutegian] sortzen ziren zuloak hango apaizek konpontzen zituzten, **kalendak** (hau da, hilabetearen hasiera eguna, eta hortik “kalendario” hitza) aldarrikatuz. Pello Salaburu

---

## **kalendario** *iz* egutegia.

Akorduan dut uztailaren hemeretzia markatu nuela zirkulu barruan 1936ko **kalendarioan** . Joseba Sarrionandia

Judutarren historia luzean, 70. urtea -kristauen **kalendarioan-** madarikazioaren urtea izan zen. **Kalendarioen** historia **kalendarioen** noizbehinkako egokitzeen historia besterik ez da. Pello Salaburu

Egutegi astronomikoarekin erkatuz gero, **kalendario** zaharrak bazuen 80 eguneko hutsarte bat. Pello Salaburu

Egutegi horri **"kalendario** juliano" deritza eta egutegi hau da, hain zuzen ere, eliza ortodoxoak segitzen duena. Pello Salaburu

· **Kalendarioan** ditut apuntatuak joan den urtean egin nituen saio guztiak. Berria - Kultura

---

**kalentura** 1 *iz* sukarra.

Laugarren egunean, **kalentura** ia 40 gradukoa izango du eta beldurtu egingo zara. Joseba Sarrionandia

41eko **kalentura** markatzen duen termometroari. Iñaki Heras

**Kalentura** zuela ematen zuen. Joseba Sarrionandia

Muin ematen zion bekokian **kalentura** ote zuen jakiteko. Ramon Saizarbitoria

Ume gaixoak **kalentura** ote daukan jakin nahi dugunean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurrengo egunean **kalenturarekin** esnatu zen. Alberto Barandiaren

· Ba, hori da disko honek hasi eta bukatu arte igortzen duen sentsazioa; gospel, funk eta soul doinuez osatutako zartako amaigabea, azeleratua, **kalenturan** blai egina. Berria - Kultura

**2** sukar pikorra.

Ez zen ageri han ez ospelik, ez erredura edo garatxorik, ez negal, baba, **kalentura,** pustula, zimur, kailu, orbain edo granorik. Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kalentura pixka bat** (3)

---

**kaleratu**, kalera(tu), kaleratzen **1** da *ad* kalera irten. (pertsonak)

Postetxekoa amaitu zuenean berriro **kaleratu** zen. -A ze emakume puska! -ilehoria **kaleratu** bezain laster hurbildu zitzaidan tabernako nagusia-. Joxemari Iturralde

Ordaindu eta **kaleratu** egin nintzen, zainetako sua itzaliko zidanaren bila. Migel Angel Mintegi

Berriz doluminak eman eta **kaleratu** nintzenean arnasa sakon hartu nuen, zereginik txarrena bete nuelako. Gotzon Garate

Hurrengo egunean goizean goiz **kaleratu** zen egunkaria erostera. Migel Angel Mintegi

Berriz **kaleratu** ziren, eta Santespirita auzorantz bideratu zituzten urratsak. Elena Touyarou

Asper-asper eginik zegoen Maiza **kaleratzen** ikusi zuenean. Migel Angel Mintegi

Ordu bi eta erdietan, puntu-puntuan, hasi ziren langileak **kaleratzen**. Migel Angel Mintegi

· Kondena beteta **kaleratzen** den presoaren sentipena. Jokin Urain

Unairi ezarri nahi dioten kondena luzapena, **kaleratzeko** puntuan direnei egiten dizkieten espediente berrikusketak... Jokin Urain

Horregatik **kaleratu** gara puntu honetan adostasun osoa dugun hainbat herritar: ETAk [...] egin dezakeen ekarpenik onena su-etena aldarrikatzea dela ikusten dugu. Herria

**2** (gauzak)

1999ko urtarrilean europar diru bakarra, euroa, **kaleratu** zenean. Koro Navarro

1999ko udazkenean **kaleratu** zen liburu hura. Harrezkero, beste edizio berri batzuk ere **kaleratu** dira, bakoitza bere sarrera interesgarri eta guzti. Xabier Mendiguren Elizegi

Urte hartan **kaleratu** baitzen Danborradaren Martxaren musika. Askoren artean

Urte berean **kaleratu** zen bere azken lana. Berria - Kultura

Igandean **kaleraturiko** liburuaren pasarterik esanguratsuenak. Berria - Mundua

• **3** du *ad* kalera atera. (pertsonak)

1977ko abenduan **kaleratu** zuten euskal preso politikoetan azkena. Jokin Urain

1992an gaixotasun larri eta sendaezin bat izateagatik **kaleratu** zuten Azkarate.

Lau urte eman nituen nik aittitterekin presondegi desberdinetan, **kaleratu** zuten arte. Koldo Izagirre

Ostolaza espetxetik **kaleratzen** izandako arrakastagatik. Migel Angel Mintegi

Egitura horietan aterbetzen dituzten jendeak goizeko zazpietan **kaleratzen** dituzte usaian. Berria - Harian

· **Kaleratu** berri diren lau presori ongietorriak egingo dizkiete asteburuan. Berria - Euskal Herria

**4** (gauzak)

Tarteka panfletoren bat **kaleratzen** zuten espetxetik. Pako Aristi

Periodiko bat egunero-egunero **kaleratu** beharra ez da txantxetako kontua. Anjel Lertxundi

1835ean *Voyage en Navarre pendant L´insurrection des basques* **kaleratu** zuen. Askoren artean

'Detrás de los espejos rotos' diskoa **kaleratu** du Bilboko musika taldeak. Berria - Kultura

Dantok, bestalde, 1981ean argitaratutako *The Transfiguration of the Commonplace* liburuan 1960ko hamarkadan berak eginiko ekarpenik interesgarrienak **kaleratu** zituen berriro. Askoren artean

Horrela erantzun zion atzo Gobernuak *The Times* egunkariak **kaleraturiko** informazio bati. Berria - Mundua

Nazio Batuen Erakundeak **kaleratu** berri duen txostenaren arabera. Berria - Gaiak

Aurten, berriz, hirugarren atala **kaleratu** du. Berria - Kultura

**5** kalera bota, bereziki lantokitik.

Enpresak hamar langile **kaleratu** zituen eta horietako hiruzpalau gure partidukoak. Jon Maia

Lanetik **kaleratzen** badituzte, beharginek auzitegietara joko dute. Berria - Ekonomia

Enpresa ongi badoa, aurrezteko asmo hutsarekin ezin da inor **kaleratu**. Berria - Ekonomia

FCCk atzera langile bat hartu du, 24 ordu lehenago hura **kaleratu** ondoren. Berria - Ekonomia

Hainbat kazetari **kaleratu** egingo zituztela jakinarazteko. Berria - Mundua

Familia bat joana zen Henneren txabolan bizitzera, baina berak denak **kaleratu** zituen gau hotz baten erdian. Koro Navarro

**Kaleratu** egin nau. Agustin Otsoa

Eskoziarrak eta erregezaleak zanpatu zituen, Parlamentuan txepelkerietan ibilitakoak **kaleratu** eta puritano gartsuez osatu zuen Parlamentu berria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Greba komiteko zenbaitek, tartean enpresak **kaleratutako** batzuek, elkartasun kutxan bildutako diru haietatik hartu zutela. Jon Maia

**6** (era burutua izenondo gisa)

Meatzari **kaleratu** haien egoera, esan bezala, oso txarra zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Greba batzordeak hamar **kaleratuak** elizan egongo zirela erabaki zuen. Jon Maia

55 eguneko soldata jasoko dute Expaleko **kaleratuek**. Berria - Ekonomia

Bost **kaleratuen** egoera ere gaitzetsi zuten. Berria - Ekonomia

**Kaleratuei** elkartasuna adierazteko. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**adierazpena kaleratu** (5); **agiri bat kaleratu** (14); **agiria kaleratu** (25); **alea kaleratu** (5); **argitaletxeak kaleratu** (14); **argitaletxearekin kaleratu** (4); **argitaletxearen eskutik kaleratu** (9); **autoa kaleratu** (8); **berri bat kaleratu** (4); **berria kaleratu** (14); **bi disko kaleratu** (4); **bigarren diskoa kaleratu** (10); **bilduma kaleratu** (8); **biografia kaleratu** (7); **dekretua kaleratu** (4); **disketxeak kaleratu** (9); **disketxearekin kaleratu** (8); **disko bat kaleratu** (4); **disko berria kaleratu** (6); **disko kaleratu** (25); **diskoa kaleratu** (82); **diskorik kaleratu** (6); **dvda kaleratu** (5); **ebazpena kaleratu** (10); **egunkariak atzo kaleratu** (5); **egunkariak kaleratu** (8); **enpresak kaleratu** (8); **entrenatzailea kaleratu** (5); **epaia kaleratu** (6); **erakundeak kaleratu** (8); **gida kaleratu** (5); **hainbat liburu kaleratu** (4); **hiru disko kaleratu** (4); **itzulpena kaleratu** (4); **kaleratu du**

**liburua** (4); **kaleratu dute erredakzioa** (4); **kaleratu zuen ebazpena** (4); **komunikatu bat kaleratu** (4); **komunikatua kaleratu** (5); **lana kaleratu** (17); **lanak kaleratu** (8); **langile bat kaleratu** (4); **langile kaleratu** (20); **lehen diskoa kaleratu** (10); **lehenengo diskoa kaleratu** (7); **liburu bat kaleratu** (5); **liburu kaleratu** (12); **liburua kaleratu** (47); **liburuak kaleratu** (4); **liburuxka kaleratu** (5); **manifestua kaleratu** (9); **ohar bat kaleratu** (11); **oharra kaleratu** (20); **prentsa oharra kaleratu** (9); **presoak kaleratu** (5); **proposamena kaleratu** (5); **susa argitaletxeak kaleratu** (4); **txostena kaleratu** (22); **zenbakia kaleratu** (5)

**berria kaleratuko** (8); **disko bat kaleratuko** (5); **disko berria kaleratuko** (6); **diskoa kaleratuko** (21); **langile kaleratuko** (16); **langileak kaleratuko** (6); **liburua kaleratuko** (7)

**auzitegi nagusiak kaleratutako** (5); **batzordeak kaleratutako** (4); **egunkariak kaleratutako** (9); **epaileak kaleratutako** (7); **etak kaleratutako** (6); **eustatek kaleratutako** (4); **kaleratutako agiri** (9); **kaleratutako agiria** (4); **kaleratutako agiriak** (6); **kaleratutako agirian** (12); **kaleratutako artikulu** (5); **kaleratutako auto** (4); **kaleratutako autoa** (6); **kaleratutako autoak** (11); **kaleratutako autoan** (14); **kaleratutako datuen** (8); **kaleratutako datuen arabera** (7); **kaleratutako elkarrizketan** (4); **kaleratutako epaia** (4); **kaleratutako epaiak** (5); **kaleratutako inkesta** (5); **kaleratutako komunikatuak** (4); **kaleratutako langile** (5); **kaleratutako langileak** (4); **kaleratutako oharrean** (6); **kaleratutako prentsa ohar** (5); **kaleratutako prentsa oharrak** (4); **kaleratutako txosten** (8); **kaleratutako txostenak** (8); **kaleratutako txostenaren** (8); **kaleratutako txostenaren arabera** (6); **kaleratutako txostenean** (4); **nagusiak kaleratutako** (8)

---

## **kaleratze** *iz* kalera botatzea.

**Kaleratze** iraingarri baten laidotik libratu baitzen. Jon Alonso

31 langilek **kaleratze** sarituak onartu zituzten.

Milaka **kaleratze** iragarriko ditu gaur General Motorsek. Berria - Ekonomia

Epaile batek **kaleratze** plan bat atzera botatzen badu. Berria - Ekonomia

**Kaleratze** bati helegiteko epea Egun berean, galdeketa labur baten ostean, Biolonek **kaleratze**-agindua jaso du. Itziar Otegi

Oporretatik itzuli zenean, **kaleratze** eskutitza jaso zuen. Berria - Ekonomia

Langile murrizketak, **kaleratze** espedienteak eta, azkenean behin betiko itxiera. Berria - Ekonomia

**Kaleratze** aginduak ustekabean harrapatzen zituen batzuk. Jokin Urain

Handik bost minutura, estudioetako ate ondoan dago, **kaleratze** agiria patrikan. Javi Cillero

33 eguneko **kaleratze**-ordaina izango zuten enplegua sustatzeko kontratu mugagabeetan. Berria - Ekonomia

---

## **kaleria** *iz* cf **galeria**.

Parterik haundiena uztaileko bakantzatiarrak, [pilotatokiko] bi **kaleriak** beterik, jokoan sar-arazi dituelarik partida hunek. Herria

Hor egonik bi etxeak ere urte multxo bat sekulan baino hutsago, horra gazte batzu agertu direla behaka : batek lurrak hartuko bere alor eta pentze eskasegien osagarri, besteak berriz egoitza hori bere baxenabartar **kaleriarekin..** . eta beste batek argamasadun trapala apalago hura. Herria

---

## kalerna ik **galerna**.

---

## **kalesa** *(orobat **kalexa** g.er.)* *iz* bi edo lau gurpileko zalgurdia, aurretik irekia eta sabai tolesgarria duena.

Zalgurdiak ugari hara-hona, eta tarantas eta telegak ez ezik, baita kupeak eta **kalesak** ere. Karlos Zabala

**Kalesa** txiki bat zetorren nekez eta astiro, hutsik, lau zaldi ile-luzek tiraturik. Jose Morales

Betiko orduan etorri hintzen, zazpi eta erdietan, **kalexan**. Xabier Olarra

Jauzi batez igo zen Txitxikov **kalesara**. Aita lurretik jaso, eta **kalesara** igotzen laguntzen zion Norak. Jose Morales

Zaldiek trosta bizkortu zuten eta **kalesak** bideari ekin zion berriro. Anjel Lertxundi

Lau aulkiko **kalesa** zen; hiru aulki hartuak zeuden ordurako. Koldo Izagirre

**Kalesa** prestatzeko agindu dut berehala. Jose Morales

Zurzuri-sailak atzean utzirik, ezkerraldera jo zuen **kalesak**. Anjel Lertxundi

**Kalesaren** gurpilak hondoratu egiten baitziren bideko putzu eta lokatzetan. Anjel Lertxundi

**Kalesaren** atzealdeko uhalari helduta, gidariari oihukatu zion: "Aurrera!". Jose Morales

Jendearen bultzadak gero eta bortitzago, iraultzeko zorian zegoen **kalesa**. Anjel Lertxundi

**Kalesa** beltz haustu bat zihoan Bostongo kaialderantz. Anjel Lertxundi

**Kalesa** batean ibili dabiltzan aita-alabei buruzko kontakizuna. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kalesa barruan** (5); **kalesa batean** (5); **velascoren kalesa** (5)

---

## **kalesatxo** *(corpusean **kalexatxo** soilik)* *iz* kalesa txikia.

Hi ihesi joana hintzen, Krisztina **kalexatxora** igo, eta joan zuan etxera. Xabier Olarra

---

## kaleska ik **kalexka**.

---

## kalestu ik **kale 14**.

---

## **kaletar** 1 *iz* kalean, ez baserrian, bizi den pertsona. ik **kalekume**. ant **baserritar**.

Ostatu eta taberna zen aldi berean, klub baten duintasunarekin, han elkartzen baitziren gauero **kaletar** batzuk eta zenbait baserritar hitz egitera eta eztabaidan jardutera, eta mozkortzera igandetan. Koro Navarro

Nik, **kaletar** harroxko honek. Txillardegi

Gaurko baserritarra, lautik hirutan, baserrira erretiratzen den **kaletarra** besterik ez da, eta gogoz kontra bezala. Iñaki Segurola

Batek bertako artzain bat dirudi, besteak **kaletarra**. Anjel Lertxundi

Gu bezalako **kaletar** ero batzuek. Txillardegi

Artzain zahar bat ikusi omen zuen behin **kaletar** mendizale horietako batek. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kaletar** sorgin hauek ederra egin zidatek! Andoni Egaña

Ramon eta Pepe Artola aita-semeak **«kaletar** legera» aritzen ziren bertsolarien sailekotzat jo behar dira. Berria - Kultura

**2** (izenondo gisa)

Ardiak ikusten dituztenean, ume **kaletar** harritu askok, behizaharrak adinako begiak zabaltzen dituzte, harriduraz blai. Pello Zabala

Hitz zainduak erabiltzen zituzten, beren burua oso **kaletar** ikusten zutelako Ramon Saizarbitoria

**3** (hitz elkartuetan)

Baina baserri giroan-eta egokia den hitz hori, arrotza eta desegokia gerta daiteke **kaletar** giroko beste alderdi batzuetan. Koldo Zuazo

Artoa eta india-baba ereitekoak bedeinkatzen dira, baserritar eta **kaletar** erromerian, Santaren ermitaraino doazela. Pello Zabala

---

**kaletaratu,** kaletara(tu), kaletaratzen du *ad* kaleratu.

Duela hiru urte Arantzazu argitaletxeak frantziskotarren konpainien sorreran eragina izan zuten iturriak biltzen zituen obra bat **kaletaratu** zuen. Berria - Kultura

---

**kaletartu,** kaletar(tu), kaletartzen **1** da/du *ad* kaleko ohitura edo eretara egokitu. ik **hiritartu**.

Bizpahiru kotxe aurrealdean geldirik, ezin ezagutzeko heineraino **kaletarturik,** osaturik, hitz batez zeharo aldaturik, topatu dut [...] Errekalde baserri zaharra. Txillardegi

Azpeitiko armarritik jasotako pertsonaia hau **kaletartuz,** Azpeitiko herriaren eta batik bat azpeitiartasunaren inguruko gogoeta jarri da abian. Berria - Kultura

**2** (era burutua izeonodo gisa)

Pellomiel artzain zahar **kaletartua**. Arauzkotasun berdinarekin, nomada **kaletartu** burgestuaren ahulketak eta endekapenak jarraitzen du. Joxe Azurmendi

---

kaletxakur ik **kale 23**.

---

**kaletxo** *iz* kale txikia.

**Kaletxo** estu malkorra igarorik, Jainkoak lurrean inoiz eraiki duen egoitza gotikorik miresgarrienean sartu nintzen. Josu Zabaleta

Leiden hirian, Rin ondoan dagoen **kaletxo** baten (Weddesteeg 2) etxeko fatxada batean. Berria - Kultura

Sausalitoko **kaletxoetan** Helenen aitaz aritu ondoren. Bernardo Atxaga

Kanposantuko **kaletxoetan** barrena ibiltzen hasi nintzen, hilobiak ikusten. Iñaki Zabaleta

---

kaleume ik **kalekume**.

---

kalexa ik **kalesa**.

---

**kalexka** *(orobat **kaleska** g.er.)* *iz* kale txikia edo estua.

**Kalexkak** estuak ziren, bi asto saskidun ozta-ozta gurutzatzeko modukoak. Bernardo Atxaga

Berehala ezkerretara egin eta **kalexka** estu batetik sartu zen. Iñaki Iñurrieta

Auzo zaharra [...] plazan elkartzen diren bi **kalexka** estu, bihurgunetsu eta aldapatsuk osatzen dute ia osorik. Koro Navarro

**Kalexka** mehar piko batean neskaz beteriko taberna bat aurkitu zuen. Matías Mujika

**Kalexka** ilun eta estuenak aukeratzen zituen, eta, haietan barrena ausarki zihoala, beraren oin-hotsen inguruan biltzen zen isiltasunak ikaratu egiten zuen. Irene Aldasoro

Etxarteko **kalexka** beltz batetik. Koro Navarro

Alboko **kalexka** batean gelditu nintzen. Fernando Rey

Zeharkako **kalexka** batetik jo zuten gora. Josu Zabaleta

Hiriko kale eta **kaleska** urrun haietan barrena zalapartaka zihoan zalgurdi bat. Jose Morales

Parte Zaharrean, Urgulleko bidea hasten den **kalexka** batean. Iñaki Iñurrieta

Rue des Drômes hori **kalexka** labur eta estu bat da, baina jende asko bizi dena. Koro Navarro

Ordurako, minotauroak erabat nahasia zuen labirintoko haria **kalexka** sare inestrikableetan barrena. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalexka estu** (4)
> **knockturn kalexkan** (4)

---

**kalezain** *iz* kaleak zaintzen dituen pertsona.

**Kalezain** bati deitu zion -mutil gazte eta bizia bera, txarolezko bota luzez jantzia-. Jose Morales

Poliziaburuari, berriz, oso gauza lausengarriak esan zizkion hiriko **kalezainen** gainean. Jose Morales

---

**kalezaku** *iz* kale itxia. • (irud/hed)

Arazoa da, erreforma horietarako asmoz hasi bai eta, asmoak asmo, gaitzaren analisiari ekiteko hartu den tresneria intelektualak berak [...] nahitaez gure ibilaldia **kalezaku** determinista batera ez al duen kondenatzen. Joxe Azurmendi

---

**kalezale** *izond* kalearen zale dena.

Neure etxetik 500 metrora baldin badut ere, bertako osaba-izebekin harreman jator eta atsegina izan arren, nik ez dut inoiz baserrirako joerarik izan, beti izan naiz kale-ume eta **kalezale**, neure akorduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni bezala, hura ere **kalezalea** zen. Jon Maia

Alabak zaintzea zuen egitekoa, eta oso **kalezalea** zen, oso ezaguna herrian. Berria - Euskal Herria

---

**kalezulo** *(orobat **kale zulo** g.er.)* *iz* kale meharra; bereziki, kale itsua. ik **karrikazulo**.

San Carlos eta Ospitale Nagusia bereizten zituen **kalezulo** batean bizi zen. Josu Zabaleta
Gurditzarra, kalez kale hainbat itzulinguru egin ondoren, **kalezulo** ilun batean sartu zen azkenean. Jose Morales
Lankideak gizon batzuk erosi omen zituen, gauez Txitxikov jipoi zezaten **kalezulo** ilunen batean. Jose Morales
Hiriko **kalezulo** estuetan ikusitako beste batzuen antzekoa zen taberna. Xabier Aranburu
Neguko arratsaldeak ilunsentia ematen zuen, Sawyer jatetxearen atzeko **kalezuloan**. Anton Garikano
Mirarien **kalezuloa**. Patxi Zubizarreta
Harrigarria da, bestalde, mendi-giroko zenbait basakristauk eta **kale-zuloko** zenbait makarrak elkarrekin duten antza. Iñaki Segurola
Sania Afifi zen, **kalezuloko** bigarren eraikineko jabea. Patxi Zubizarreta
**Kale-zuloko** alproja hura kapaz zen igotzeko, aurrera egiteko, aberasteko, beraren arreba esposatzeko. Koro Navarro
Bourdonnais **kalezuloaren** amaieran. Karlos Zabala
**Kalezuloaren** sarbidean elkartu ziren. Patxi Zubizarreta
**Kalezulora** iritsirik, kafe aldera begiratu zuen. Patxi Zubizarreta
Gatozen kalera, asko ikasten baita kale-arte eta **kalezuloetan**. Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**midak kalezuloa** (9)
**midak kalezuloan** (10)
**midak kalezuloko** (3)

---

# **kalezulotar** *iz* kalezuloari dagokiona.

Gure moduko **kalezulotarren** irudipena izaten da nekazaria lurrarekin halako batasun mistiko goxo batean bizitzen dela. Iñaki Segurola

---

# kali

## 1 *kali joko* (*orobat* ***kalijoko***) golfaren antzeko euskal jokoa. ik **kalika**.

**Kalijokoa** maite baitu ere. Ramuntxo Etxeberri
Baiona eta Basusarriko herriek, SEM (Société d'Economie Mixte) sozietate publiko/pribatu bat asmatu dute, **kali** joko eremu hiper ferdearen erosteko. Herria

## 2 joko hori jokatzen den eremua.

**Kalijokoaren** bazterrean. Ramuntxo Etxeberri

---

# **kaliarazi**, kaliaraz, kaliarazten dio *ad* kalitzera behartu.

Felagek **kaliarazi** zizkieten. Xabier Montoia

---

# **kalibratu**, kalibra, kalibratzen **1** du *ad* zerbaiten kalibrea neurtu.

Banan-banan egin ditut, milimetroan **kalibratuak** gainera. Joxan Elosegi

## 2 irud/hed

Gaiok ezagunak dira, eta emaitza **kalibraturik** dago. Berria - Gaiak
Bere gorozkien zenbatekoa eta nolakoa **kalibratzeko,** bere oinarrizko metabolismoa analizatzeko... Jon Alonso
Ez dago aise zehazterik eta **kalibratzerik** zenbateko laguntza zen eta zeinen egoki zetorren ia 40 herri eta gunetako hozberoen berri hain goiz jakitea. Pello Zabala

---

# **kalibre** **1** *iz* tamainak neurtzeko eta seinalatzeko tresna.

Nik **kalibreak** saltzen nizkion tailer mekanikari batean egiten zuen lan. Anjel Lertxundi

## 2 su arma baten kanoiaren barne diametroa.

**Kalibre** politeko morteroak. Koldo Izagirre
Bederatzi milimetroko **kalibrea,** erabat altzairuzkoa, ehun eta hogei milimetroko luzera kanoian, hamasei kartutxo ilara biko kargadorean. Sonia Gonzalez
Bi pistola atzeman zizkieten, bederatzi milimetro Parabellum **kalibrekoak** biak. Berria - Euskal Herria
75eko **kalibreko** fusilarekin egiten nuen arma-erakustea. Koldo Biguri
Eskultorea Smith & Wesson Stainless Steel M67 bat da, 38 **kalibrekoa**. Patxi Zubizarreta
Jada ez zuen inork halako **kalibrerik** erabiltzen, eta, ondorioz, pistola zahar batekin egina behar zuen krimenak. Aritz Gorrotxategi
Balaren **kalibrea** Pizzik eskuan zuen errebolberraren berbera zela. Koldo Biguri
· Zulo biribil bat zuen xafla zati bat ekarri zuen: arauzko **kalibre** doi hartara errenditu behar genituen zilindroak. Juan Garzia

## 3 irud/hed tamaina.

PPk **«kalibre** handiko tresnak» erabiliz emandako pultsuari «Zapaterok eutsi nahi diola» erakutsi du. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kalibre handiko** (3)

---

# **kalifa** *iz* Mahometen ondorengoa, mahometarren artean erregearen kidea zena, baina erlijioarekiko agintea ere bereganatzen zuena.

Mahoma profetaren ondorengo zuzena baitzen **kalifa**. Jon Muñoz
Bagdadeko **kalifak** bezala. Jon Muñoz
Jazid **kalifa** sunitaren jarraitzaileek hil zuten. Berria - Mundua
Bisir, **kalifa** eta sultanek sekta horretako kideei esesten zieten, beren sinesteengatik. Jon Muñoz
Zirkuluaren erdi-erdian, mezkita eta **kalifaren** jauregia zeuden. Jon Muñoz
**Kalifa** titulua, jatorriz Mahomaren ondorengo esan nahi zuena, Kairon agertu ondoren, Istanbulera igaro zen. Iñaki Mendiguren

---

**kalifago** *iz* kalifatoa.

"Turkiarren aitak" sultanari agintea kendu, **kalifagoa** abolitu eta Turkiako Errepublika laiko eta modernoa sortu zuen. Jon Arretxe

---

**kalifaldi** *iz* kalifa baten agintaldia.

Fededunen Komendadorearen hiriburua mendean hartu izanak abasitarren **kalifaldiaren** amaiera ekarri zuen, bostehun urtez iraun ondoren. Jon Muñoz

---

**kalifato** *iz* kalifaren karguan oinarrituriko aginte sistema.

**Kalifatoa** bertan behera utzi eta laikotasuna ezarri zuen. Berria - Mundua

Nazio berriaren fundatzaileak -beste Kemal bat, Mustafá Kemal Ataturk-, **kalifatoaren** ordez erregimen presidentzialista ezarri zuen, alfabeto latinoa jarri eta emakumeei legearen aurreko berdintasuna onartu. Fernando Rey

---

**kalifatza** *iz* kalifatoa.

**Kalifatza** erori ondoren. Iñaki Mendiguren

---

**kaliferri** *iz* kalifa baten agindupeko lurraldea.

K.o. 1258an Bagdad mongolen esku erori zenean Arabiar **Kaliferriko** mendekoek jasan zuten astinduan. Iñaki Mendiguren

Hizkuntza eta idazkera arabikoaren ordez greziera ezarri baitzuen arabiar **kaliferrian** erromatar izandako probintzietan. Iñaki Mendiguren

---

**kalifikaezin** *izond* ezin kalifikatuzkoa.

Zure obra **kalifikaezina** dela esan ohi da, beharbada, zure nobeletan gai eta ikuspuntu asko kontzentratzen delako. Ana Urkiza

"Irakurgai nazkagarriak, lizunkeria, birao eta galdukeria sorta **kalifikaezinak",** poliziaren esanetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**kalifikatibo** *izond* kalifikatzailea.

Euskaldunen ezaugarritzat zeuzkaten "festazale", "ergel" edo "jainkojale" **kalifikatiboen** ondotik, [...]. Elena Touyarou

*O'Clock* edo *Sherif* ezizenak loreak dira Luisi entzun nizkion **kalifikatiboen** aldean. Patxi Zubizarreta

San Frantziskok bere burua "ezjakin eta eskolagabe"tzat hartzearen arrazoia, literatura espiritualean **kalifikatibo** horiek zuten konnotazio espiritualean dago. Askoren artean

Ez ditut batere maite **kalifikatibo** horiek, oso sexistak iruditzen zaizkit eta fabore guti egiten diete emazte idazleei. Ana Urkiza

---

**kalifikatu,** kalifika, kalifikatzen **1** du *ad* zerbaiten nolakotasuna edo izaera adierazi.

Askoz gehiago ziren Ibarretxeren Gobernua positiboki baloratu zutenak -%43a- negatiboki **kalifikatu** zutenak baino -%16a-. Txema Ramirez de la Piscina

Sinesgarriago egiten zitzaidan nire literatura **kalifikatzen** zuenean. Ramon Saizarbitoria

Gutxi gorabeheherako berben bitartez **kalifikatu** beharra daukagu, eta ez zehaztasun osoko hitzekin. Xabier Kintana

Gizakia beronek espekulatzeko dituen edo beraren moral aldeko ahalmenen bidez **kalifikatzen** denean. Xabier Kintana

Beraz, ondorioz, ez da Jainkoari baiezko atributurik egozteko modurik, ez eta "harremanen" bidez bera **kalifikatuz** ere. Xabier Kintana

**2** (izenondoen bidez)

Oso adjektibo gogorrak erabili dituzte legea **kalifikatzeko:** «etsigarria», «atzerakoia», «adar-jotzea», «iruzurra». Berria - Euskal Herria

Neurosi obsesiboa -hori baita ni **kalifikatzeko** erabili ohi duen diagnosi etiketa-. Ramon Saizarbitoria

Vega herri jendetsua, iduriz, Imanol Goikoetxeak "pequeña capital local" **kalifikatzen** duen hau. Piarres Aintziart

Zeina, gehiegikerietan erori gabe, genozidiotzat **kalifikatuko** bailuke edozein irrati edo telebistako berri-esatarik. Karlos Linazasoro

Rimbauden poema ulergarrienak aukeratu ditut, besteak beste kritiko zital batek 'tarjeta postal' deitura iraingarriaz **kalifikatu** zituen horietakoak. Anjel Lertxundi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Kadrek 2 800 euro eskuratu dute, arteko ofiziotakoek 1651 euro, langile **kalifikatuek** 1 224 euro. Herria

Euskal elkarteen 8 ordezkari, legezko 8 ordezkari, 4 pertsonalitate **kalifikatu** eta konduetarako komisario bat. Herria

Atributua subjektu **kalifikatuaren** esentzia bera denean. Xabier Kintana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalifikatutako lurzorua** (3)
> **zuzenketa gisa kalifikatzearen** (5)

---

**kalifikatzaile** **1** *iz* adjektiboez mintzatuz, nolakotasun bat adierazten duena. ik **kalifikatibo.**

Garapen kontzeptuari *iraunkor* **kalifikatzailea** erantsi zaio. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ohar bedi, bide batez, matematikariek zenbakiei eskainitako **kalifikatzaileen** nolakotasuna: hautsiak, absurdoak, ezinezkoak, gorrak, puskatuak, irudizkoak, konplexuak, idealak eta, bukatzeko, traszendenteak. Jon Muñoz

Berak ere gaztelaniaz hitz egin zuen, niri arrotza egin zitzaidan **kalifikatzaile** bat erabiliz: *borde.* Bernardo Atxaga

Baimenduta ez dagoen guztia "pornografikoa" da; **kalifikatzaile** hau erabiltzen da disidentzia oro, normatik irteten den sexu-adierazpen oro [...] infernura kondenatzen eta zokoratzen saiatzeko. San Frantziskok bere testamentuko idazkeran **kalifikatzaile** berberak erabiltzen ditu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** kalifikatzen duena.

Aldi berean ikuspenaren aldetik zentratua eta konnotazioaren aldetik **kalifikatzailea** den ikuspuntua. Josu Zabaleta

---

**kalifikazio** *(orobat **kalifikazione** g.er.)* **1** *iz* kalifikatzea: kalifikatzearen ondorioa.

Lur-sail bakoitzaren **kalifikazioa** zehaztuta egongo da ordurako. Eta zein **kalifikazio** merezi izan zuen nire txostenak Auzitegi Gorenean? Karlos Linazasoro

Baionako inprimeria xahar batean egina zuen aprendizgoa eta "conducteur offset" **kalifikazioa** erdietsi ondoan, araberako lana zeukan. Daniel Landart

*Cum laude* **kalifikazio** gorena eskuratu zuen. Berria - Euskal Herria

Igobidea "muturreko zailtasunekoa" zen, gidaren **kalifikazioaren** ariora. Aingeru Epaltza

**Kalifikazioa:** Denontzat. Berria - Kultura

**2** (azterketetan) ik **nota 6**.

Ikasle guztien **kalifikazioak** hurrenkeran jarriz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zenbat eta **kalifikazio** hobea, lehentasuna ere handiagoa izango du aukeratutako ikasketetan matrikula egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Han ere **kalifikaziorik** onenak lortu zituen letra ederretan, historian eta filosofian. Antton Olano

Erretorikan beti **kalifikazio** gailena ateratzen zuen apaizgaitegiko garaietan. Inazio Mujika Iraola

Azterketan ehuneko hirurehun eta hogeiko **kalifikazioa** lortu zenuen. Iñaki Mendiguren

Fredek eta Georgek ere oso **kalifikazio** onak lortu zituzten Oinarrizko Azti Titulurako (OAT). Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

CGPJko **Kalifikazio** Batzordeak lehentasunezko ordenean izendatu zituen atzo hiru hautagaiak. Berria - Euskal Herria

Standard and Poor's **kalifikazio** agentziak. Berria - Ekonomia

Euskal Herrian goizeko ordu bata denean ekingo diote gidariek lehen **kalifikazio** saioari, eta ordubete geroago egingo da bigarrena. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalifikazio batzordeak** (3); **kalifikazio onak** (4)
> **kalifikazioa lortu** (3)

---

# kaliforniar 1 *izlag* Kaliforniakoa, Kaliforniari dagokiona.

Lewin jaunak **kaliforniar** nekazaritza omen zuen ikasia. Joxe Austin Arrieta

*Ozomati* talde **kaliforniarrak** emango dio hasiera jaialdiari bihar. Berria - Kultura

Doug Aitken artista **kaliforniarrak**. Berria - Kultura

**2** *iz* Kaliforniako herritarra.

Erran behar da gure **Kaliforniarrak** trenpu gaitzean agertu direla. Herria

Aurten ere **kaliforniarrek** galdu dute. Herria

---

# kalifornikatzaile *iz*

Donau ur-handia hegietan hazi Draganen besoartera erori zen **kalifornikatzaile** arraila. Itxaro Borda

---

# kaligrafia 1 *iz* idazteko antzea; idazkera baten ezaugarri diren zirrimarren multzoa.

Astiro, arretaz, **kaligrafiako** idazkera ederrean pasaporte bat egiten zuen Lea Rifkin juduaren izenean. Matías Múgica

**Kaligrafiaren** artea menperatzen zuten maisu zaharrak. Ramuntxo Etxeberri

Nire hiru arrebek ia **kaligrafia** bera egiten dute. **Kaligrafia** ezezaguna eta itxura beteegia zuen gutun bat. interesa agertu zuen **kaligrafia** japoniarrarekiko. Gotzon Garate

**Kaligrafia** txukunez kopiatuko zituen. Iñaki Iñurrieta

Bere ohiko **kaligrafia** ponpoxoaz. Aingeru Epaltza

**Kaligrafiaren** tentetasunarengatik neska zitekeela bururatu zitzaion. Iñaki Zabaleta

Mutilek **kaligrafia** oso txarra dute. Berria - Euskal Herria

Nerabe garaiko **kaligrafia** dardaratiarekin. Iban Zaldua

Haur eskoletan irakasten den **kaligrafia** borobila. Eider Rodriguez

"Paperezko mukizapiak"-en azpian idatzi ditu hitza eta zenbakia, **kaligrafia** lodi-biribilaz. Iban Zaldua

Biharamunean ere hantxe zegoen **kaligrafia** etzaneko esaldia. Iñaki Zabaleta

Ipuinaren izenburuko letra gotikozko **kaligrafia**. Anjel Lertxundi

Halaxe hasi nintzen **kaligrafia** hobetzen. Iñaki Iñurrieta

Bi hilabete **kaligrafia** ikasten aritu ondoren. Jose Morales

**Kaligrafia** zainduz idatzitako ohar batekin. Xabier Olarra

**Kaligrafiako** lantegi zabaletan, eskribau-oste handi bat ari zen buru-belarri lanean, etenaldirik gabe. Jon Muñoz

**2** (hitz elkartuetan) ik **kaligrafiko**.

Txikitako **kaligrafia** saioak gogorarazi zizkion Gabini letra biribil ondo lerrotuak. **Kaligrafia** ariketa haietako batean. Iñaki Iñurrieta

Margotek **kaligrafia** ikastaro bat egitea pentsatu du. Josu Zabaleta

Mikrofono antzeko idazlumak haurtzaroko **kaligrafia** klaseak oroitarazi zizkion. Iñaki Zabaleta

**Kaligrafia** proba egin ondotik ondorioztatu zuen poliziak testuaren egilea Otegi zela. Berria - Euskal Herria

· Gutun luzeak idazten zizkidan bere estilo dotore eta irri-emangarrian, zotz zorroztuak erabiliz asmatu zuen kaligrafo- **kaligrafia** harekin. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaligrafia ona** (4)
> **kaligrafiarik loretsuen** (3)

---

# kaligrafiatu, kaligrafia, kaligrafiatzen du *ad* eskuz idatzi; kaligrafiaz idatzi.

**Kaligrafiatu** nituen ideograma hauek eskaintzen dizkizut. Itxaro Borda

Kontu handiz **kaligrafiatutako** Galoisen esaldi batek ematen zion fitxari hasiera. Jon Muñoz

---

# kaligrafiko *izond* kaligrafiari dagokiona. ik **kaligrafia 2**.

Ariketa **kaligrafikoei** ekin aurretik. Iñaki Iñurrieta

Froga **kaligrafikoren** baterako beharko dutelakoan sinatu dut. Agurtzane Juanena

Euskal informalismo **kaligrafikoaren** magalean ondorengo beste margolari batzuek landuko zutenaren abiaburu da 1960ko Balerdiren lan hori. Berria - Kultura

---

**kaligrafo** **1** *iz* kaligrafiaz idazten duen pertsona.

Bere jatorriko probintziako gobernadorea, astronomian, astrologian eta arau-liburuen interpretazio atsedenik gabean jantzia, xakelaria, poeta eta **kaligrafo** ospetsua. Juan Garzia

[Kalkulua eta zenbaketa] asmatu zirenean sortu zen **kaligrafoen** eta kalkulatzaileen lanbidea, gramatikaren hastapena bailitzan. Baina euskaldunak sekulan ez du sumatu, goxatu, letren esentzia majikorik, eta saiheste popular horretaz landara garatu da komentuen eta burokraten grafolatria, euskal **kaligrafoak** eta pendolistak nagusi direla. Imanol Unzurrunzaga

**2** (hitz elkartuetan)

Bidezkoa zen Tsíui PÍn-en **kaligrafo** -ospea. Juan Garzia

Gutun luzeak idazten zizkidan bere estilo dotore eta irri-emangarrian, zotz zorroztuak erabiliz asmatu zuen **kaligrafo** -kaligrafia harekin. Fernando Rey

---

**kaligrama** *iz* poesia era, adierazpen baliabide gisa hitzen kokaera tipografikoa erabiltzen duena.

Egin dezagun **kaligrama** bat! Marrazketa ere sar daiteke tartean, **kaligramen** kasuan esate baterako: idazketako lerroek objektuak marrazten dituzte, forma eta edukia bat etorrita. Iñaki Arranz

**Kaligramak** eta jolas tipografikoak gure analisitik kanpo utzi ditugu. Iñaki Arranz

---

kalijoko ik **kali 1**

---

**kalika** *iz* kali jokoa.

Arrangoitzen astelehen honetan iraganen da Hoberenak golf edo **kalika** lehiaketa. Herria

---

**kaliko** *iz* kotoizko ehun mehea.

Amonaren **kalikozko** gona izaten zuen jarrita altzoan eta gerriaren jirabira osoan. Mirentxu Larrañaga

---

**kalima** *iz* gandua.

Atmosfera garbi-garbi badago, inolako **kalima** edo gandurik gabe. Iñaki Iñurrieta

---

**kalimotxo** **1** *iz* koka-kola eta ardoa nahasiz egiten den edaria.

Bi katxi **kalimotxo,** bat melokotoi likorrarekin! Pako Aristi

Azkenean, ez batera ez bestera, bidean bi litro **kalimotxo** hartu eta Artxandako Potorrolandara abiatu ziren burrunba batean. Patxi Iturritegi

Joder, alde ederra bazegok, **kalimotxo** hau edan ala tabernetan ateratzen duten garrafoietakoa! Pako Aristi

Hobeto heltzeko, etengabe ari da **kalimotxoa** edaten. Pako Aristi

**Kalimotxotik** ardo beltzera pasatu naiz eta erritmo berean jarraitzen dut. Jon Arretxe

Zakar erasan baitio **kalimotxoaren** eta kalitxikiaren azpikulturak geure gazteen sentsibilitateari. Markos Zapiain

**2** ontzi bete kalimotxo.

**-Kalimotxo** bat! -oihukatu du. Pako Aristi

Jende gehienak kokakola eta **kalimotxoak** eskatu zituen. Aitor Arana

Halakoetan **kalimotxoak,** ardoa eta garagardoa edatea gustatzen zitzaion. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalimotxo gaua** (5)
> **kalimotxoa edaten** (3)

---

**kalintxa** *iz*

Nagusia hil zitzaionean, **kalintxa** eta intziria, negar eta ulu, haren hilobiaren gainean egon zen bera ere hil arte. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**kalipu** **1** *iz* adorea.

Zirkinik egiteko **kalipurik** gabe, harriturik begiratzen zieten ohoinei. Gotzon Garate

Bazuen argi eta garbi mintzatzeko **kalipua** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baionan ez zuen higitzeko **kalipurik** ere. Itxaro Borda

Halere aski **kalipu** ukan nuen errateko: [...]. Daniel Landart

Jendeen artean izateak ematen zion indar eta **kalipu..** . Daniel Landart

Horrek **kalipu** guztia kentzen zidan. ez dudala zalantza txikienik ere egiten zuen ausardiari, **kalipuari,** adoreari, kemenari eta bizkortasunari dagokienez. Jon Alonso

"Gure errealitatean, esan nahiko duzu!", egin nion kontra nik, **kalipuz** . Karlos Linazasoro

**2** *irud*

Dutxatu zen eta fereka soil eztiaz zakila gogortu zitzaion: gizatasunak anbiguitatez oparitzen zion haragi puska esku biez torratu zuen, goitik beheiti, barrabiletan metatzen ari zitzaion **kalipua** bulkatuz. Itxaro Borda

---

**kalitate** **1** *iz* salgaiez eta kidekoez mintzatuz, nolakotasuna, kontrakorik edo adierazten ez bada, ona.

Elikagai horiek **kalitate** onekoak izatea ere ezinbestekoa baita. Edorta Agirre

**Kalitate** handiko eta kostu apaleko kableak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Oso **kalitate** handikoa zela sotoko kotoi-kargamentua. Anjel Lertxundi

Hain urrunetik ekarriak zirenaz geroz, ez zuketen balio edo **kalitate** ttipia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ameriketako Estatu Batuek, berriz, enplegu asko sortzen zutela, baina **kalitate** txarrekoa. Iñaki Heras

**Kalitate** kaxkarreko materialez egina dago. Fernando Rey

Enpleguaren **kalitatearen** auziak ere merezi luke arretarik. Iñaki Heras

Bizimoduaren **kalitate** hobea segurtatuko duen lana aurkitzea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zerbitzuen **kalitatea** hobetzen. Iñaki Heras

Ingurumenaren **kalitatea** igoarazteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Osasun estandarrak edota **kalitate** arauak. Iñaki Heras

**Kalitate** programaren bitartez. ISO 9000 arauek enpresetan **kalitate** sistema bat ezartzea dute helburu. Iñaki Heras

**Kalitate** ziurtagiri propioa. Berria - Euskal Herria

Espainiako Gobernuak prestatutako **Kalitate** Legea. Berria - Euskal Herria

**Kalitate** -sariek (Eusko Jaurlaritzak banatzen dituen zilarrezko eta urrezko Q-ak, kasu). Iñaki Heras

Ondorioz, bertsoaren **kalitate** mailak ere handiagoa behar luke. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ekoizpen-ingeniari batek eragozpenak jarriko lizkioke begiari, oso **kalitate** -kontrol zorrotzik egiten ez duelako. Irene Aldasoro

**Kalitate** bermea duen marka. Berria - Ekonomia

Kontsumitzailea prest dago produktuek eskaintzen duten **kalitate,** irudi edo marka ezaugarriak direla medio gainprezio bat ordaintzeko. Iñaki Heras

Jakintsu izatea, izan ere, ez baita kantitate kontua, **kalitate** kontua baizik. Joxerra Garzia

Ingurumen Saileko **Kalitate** zuzendaria. Berria - Euskal Herria

**Kalitate** Agentzia ere ez dute sortu oraindik. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Era berean, bizi-mailaren eta bizi-**kalitatearen** arteko aldea zein den ikusiko dugu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskal Y-ak bizi **kalitate** hobeagoa ekarriko du. Berria - Euskal Herria

Jendeak kalitate onskoa bilatuko balu bere plazerretan, arrunt lotsaturik eta gorriturik gelditurik litzateke egunero kontsumitzen duen plazer **kalitate** kaxkarraz. Patziku Perurena

## 4 *ipar* kualitatea, nolakotasuna.

Zoin dira zure **kalitate** eta defautarik haundienak? Menane Oxandabaratz

**Kalitate** guziak banituela apez egiteko. Piarres Aintziart

Doktor Nafarrak bazituela Aita Sainduak erran **kalitate** guztiak. Piarres Xarriton

Gazte guziak badituzte beren **kalitateak,** dohainak, gutiziak eta horiek baliatzekoak dira. Herria

## 5 ***kalitateko*** *izlag* ik **kalitatedun**.

Europak **kalitateko** enplegua sortzen zuela, enplegu gutxi ordea. Iñaki Heras

Jendeak **kalitateko** janaria nahi duela. Berria - Ekonomia

**Kalitateko** laborantzaren sustapena arriskuan da Ipar Euskal Herrian. Berria - Ekonomia

**Kalitateko** gutxieneko estandar batzuk bermatzen direlako. Berria - Euskal Herria

Kafearekin batera, berriz, whiskya edan genuen, hori ere **kalitatekoa** . Juan Luis Zabala

Japoniar **kalitatekoa** . Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bizi kalitate** (12); **bizi kalitate hobea** (4); **irakaskuntzaren kalitate** (5); **kalitate demokratikoa** (6); **kalitate eskasa** (10); **kalitate eskaseko** (5); **kalitate handia** (19); **kalitate handiagoa** (5); **kalitate handiko** (87); **kalitate handiko jokalariak** (16); **kalitate handikoa** (19); **kalitate handikoak** (15); **kalitate haundiko** (9); **kalitate hobea** (13); **kalitate hobekoa** (4); **kalitate itzela** (7); **kalitate legea** (27); **kalitate legeak** (5); **kalitate legearen** (7); **kalitate maila** (7); **kalitate ona** (6); **kalitate oneko** (13); **kalitate onekoa** (11); **kalitate onekoak** (6); **kalitate txarra** (4); **kalitate txarreko** (6); **kalitate txarrekoa** (4); **kalitate ziurtagiri** (4)

**airearen kalitatea** (10); **bizi kalitatea** (56); **bizitza kalitatea** (19); **elikagaien kalitatea** (8); **enpleguaren kalitatea** (9); **euskararen kalitatea** (9); **herritarren bizi kalitatea** (5); **hezkuntza kalitatea** (4); **hezkuntzaren kalitatea** (4); **hizkuntzaren kalitatea** (7); **ingurumenaren kalitatea** (4); **irakaskuntzaren kalitatea** (6); **jokalarien kalitatea** (11); **kalitatea azpimarratu** (7); **kalitatea bermatu** (7); **kalitatea bermatzeko** (6); **kalitatea bermatzen** (5); **kalitatea erakusteko** (6); **kalitatea erakutsi** (4); **kalitatea hobetu** (10); **kalitatea hobetuko** (4); **kalitatea hobetzea** (22); **kalitatea hobetzeko** (22); **kalitatea hobetzen** (8); **kalitatea kontuan** (8); **kalitatea nabarmendu** (8); **kalitatea nabarmendu du** (4); **kalitatea neurtzeko** (7); **kalitatea neurtzen** (5); **kalitatea zehazteko** (6); **kantitatea eta kalitatea** (4); **kopurua eta kalitatea** (5); **lanaren kalitatea** (10); **lanen kalitatea** (6); **sistemaren kalitatea** (4); **taldeen kalitatea** (4); **uraren kalitatea** (43); **uren kalitatea** (5); **zerbitzuaren kalitatea** (6); **zerbitzuen kalitatea** (4)

**airearen kalitateak** (4); **bizi kalitateak** (5); **kalitateak hobera egin** (4); **zerbitzuaren kalitateak** (4)

**bizi kalitatean** (9); **bizitza kalitatean** (4); **hezkuntza kalitatean** (5); **kalitatean eragin** (6); **uraren kalitatean** (7)

**airearen kalitatearen** (4); **bizi kalitatearen** (8); **kalitatearen legea** (4); **uraren kalitatearen** (5)

**bizi kalitateari** (6); **kalitateari eusteko** (5); **uraren kalitateari** (7)

**kalitateko ekoizpenak** (4); **kalitateko hezkuntza** (5); **kalitateko mozkinak** (4); **kalitateko zerbitzua** (8)

**kalitatezko gaiak** (4); **kalitatezko hezkuntza** (5); **kalitatezko zerbitzua** (9)

---

# **kalitatedun** *izond* kalitatea duena, kalitatekoa.

Askotan ez dira gai izan inolako lan seriorik erakusteko, ez **kalitatedunik** ez kalitate gabekorik, ez gaztelaniaz ez beste hizkuntza batean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Kontsumitzaile zorrotzak [...] biziki preziatuko ditu arrain, okela, barazki eta fruta lurrintsu freskoak eta horiek laguntzeko ardo **kalitatedunak** . Edorta Agirre

---

# **kalitu**, kali, kalitzen **1** du *ad* animaliak eta animaliatzat hartzen direnak hil. ik**akabatu**.

Harritzeko da goizetik arratserat zenbat har, zizai eta ulitxa **kalitzen** eta garbitzen duen! Patziku Perurena

Ikusi zuten hetaz ere akabo zaitekeela laster, baldin ez bazuten, elgar adituz, Frantzian berean **kalitzen** Erreboluzioneko suge bortitz ifernukor hori. Xipri Arbelbide

Alabaina Xarlesek behin baino gehiagotan auzoko abereak **kalitu** zituen, jendeek kabalen desagertzea negartzeaz beste erremediorik ez zutela. Itxaro Borda

Harkiek makila ukaldika **kalituriko** FLNko errebeldeak. Itxaro Borda

Eta bihotzaren segeretuan zin egiten du, Etxauzko bizkondea bezala, zaldi xuri baten gainean, zilarrezko armadura bat soinean, arbasoen azkonarekin, lehengo Mauro edo Franko bezalako etsairik agertzen bada, gudukatuko dituela eta **kalituko** . Michel Oronoz

Baina nork daki arras hilak ote ziren labean sartzen zituzten mementoan; nork daki zinez **kalitzen** zituzten eta ez ote ziren garren artean hiltzen. Eneko Bidegain

Dudak ditudala ikasten baldin badu, **kalituko** nau. Itxaro Borda

Fidelak ez diren emazteak **kalitzeko** xedea baizik ez zuen Oresten gisako serial killer bat ote zara? Itxaro Borda

Nik uste emazte batentzat amets ederrena hori zen, noizbait haur baten ukaitea, horra non enekin hain goxoki egona zen Elena horrek **kalitua** bezala uzten ninduen bere ateraldi ezin sinetsizkoekin! Janbattitt Dirassar

## 2 irud/hed

Eta hantxet gelditu nintzen, minaren minez **kalitua**. Daniel Landart

Lehenari ez nion ihardetsia ere, sobera **kalitua** gelditurik. Janbattitt Dirassar

Enpresa gotorrek, prezioak hautsiz, **kalitu** nahi baitzituzten ttiki guztiak! Daniel Landart

---

**kalitxa** *iz* garatxoa.

Lepondoan pikardak, anitz eskumutur eta matrail bete **kalitxa** eta txitxabegi... Jose Angel Irigaray

---

**kalitxiki** *iz* edontzi txiki kalimotxo.

Zakar erasan baitio kalimotxoaren eta **kalitxikiaren** azpikulturak geure gazteen sentsibilitateari. Markos Zapiain

---

kalitz ik **kaliza**.

---

**kalitzaile** *iz* kalitzen duena.

Gainera armak, norberaren biziaren segurtatzailea eta etsaiaren **kalitzaileak,** nola erabiltzen eta artatzen ziren irakasten zieten. Itxaro Borda

---

**kaliza** *(orobat **kaliz** eta **kalitza** g.er.)* **1** *iz* kopa itxurako ontzia, mezan, sagaratzen den ardoa ezartzen dena.

Ostia eta **kaliza** sagaratuak altxatu zituenean. Askoren artean

Urrezko **kalizatik** edaten. Agustin Otsoa

**Kalizaren** ezpainak zapi bedeinkatuz igurtzen. Koldo Izagirre

**Kaliza,** korporal, aldare-oihal eta meza-oparitarako erabiltzen den oro ederra izan dadila. Askoren artean

Erakustokian ikusten ahal diren kurutze, **kalitza,** eguzki saindu eta gauza sakratuen andana gaitz eta aberatsak burtxoratu naute. Piarres Aintziart

Kutxa ustez bortxatuaren barruan hiru eki-saindu, lau **kaliz** eta kopoi bi gordetzen omen zituen. Edorta Jimenez

Katalunian eta Proventzan aritu zen **Kaliza** Santuaren bila, Himmlerren aginduz. Alberto Ladron Arana

· Mahmut Khanen begiak odol-**kaliza** bihurtuta zeuden. Fernando Rey

**2** (atsekabearen edo nahigabearen irudi gisa)

Hastan **kaliz** hau eneganik... Joan Mari Irigoien

Azken tantaraino edan behar dugu gure patuaren **kaliza** mingotsa. Jose Morales

**3** lorearen korolaren behealdea inguratzen duen estalkia, gehienetan hostoen kolore berekoa dena.

Ezpainak lili-**kaliza** bezalakoak ziren. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> biziaren kaliza (3)

---

**kalkaneo** *iz* orpo-hezurra.

**Kalkaneo** leherketa-haustura bilaterala. Agurtzane Juanena

---

**kalkatu,** kalka, kalkatzen **1** du *ad* eredu bat kopiatu, haren gainean edo azpian jartzen den paper edo ehun batean.

Gero irudi hura bera orri txuri handi batean **kalkatu** genuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Pianoa jotzen zuen, oso gaizki, *Blanco y Negro*tik laminatxoak **kalkatzen** zituen eta gero pintatu egiten zituen. Josu Zabaleta

Sinadura **kalkatua** omen zegoen, gardenkien laguntzarekin. Gotzon Garate

Haren lana, hauxe: harrizko erliebeen gainean **kalkatzeko** papera zabaldu eta, haretxen gainean, orduak eta orduak pasa, klarion beltz batekin hura guztia harramazkatzen Joxe Austin Arrieta

**2** irud/hed

Adierazgarritasuna emoziozko eraginkortasun bezala begiratzen duten teoriak musikako eredu batetik **kalkatuak** izaten dira askotan. Josu Zabaleta

Bigarren aldi honi "extatiko" deitzen zaio, eztanda bat iduri baitu, artelana "bere baitatik ateratze" bat [...]; egitura hori ikuslearengan indukzioz eragiten denaren antzeko prozesu psikiko batera **kalkatzean** datza, jakina, interes teorikoa. Josu Zabaleta

---

**kalkatzaile** *iz* kalkatzen duen pertsona.

Harritu egiten ninduen gure arte-jakitun paper-**kalkatzaileak,** eguzki-galdatan lan egin eta lan horretan bere opor eta aurrezki guztiak xahutzeko gauza baitzen, inork deszifra ezin dezakeen hieroglifiko-mordoa etxera eramatearren. Joxe Austin Arrieta

---

**kalko** **1** *iz* kalkatuz lorturiko kopia.

**Kalko** gainean eginiko marrazkiekin. Berria - Kultura

Zazpigarren **kalkoraino** bakarrik irakur zitekeen. Koldo Izagirre

**Kalkoa** oso ongi egina omen zegoen; **kalkoa** zela, baina. Gotzon Garate

Hego Amerikako toki askotan ez dago sare telematikorik, eta txartelarekin ordaintzean **kalkoekin** egiten da. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

Hara non aurkitu dugun, kasualitatez, gurpil-**kalkoak** herrian dauden kamioiekin konparatzean, arrasto horiek alkate jaunaren Dodgeak utzitakoak zirela. Koldo Biguri

**3** irud/hed

Jakobek bere semeei emandako bedeinkapenaren **kalkoa** da; batez ere, Joseren bi semeen gainean eskuak gurutzatzearen keinua. Askoren artean

Gogora dezagun gerra bien arteko Hungaria: Alemaniaren **kalko** txikia zen. Urtzi Urrutikoetxea

**4** hitz edo esapide baten osagai osagai eginiko itzulpena.

Ez da "citoyen" horren ordain gisa, jakina, "hiritar" **kalko** espainola inondik ageri. Iñigo Aranbarri

Eta oraindik gutiago ase nau, berriz, erdaren **kalko** hutsa dirudien euskarazko *millorri* horrek. Patziku Perurena

Erromatarrek, grezieratik **kalkoa** eginez, horri *materia* deitu zioten, jatorriz 'zura, egurra' esan gura zuen latinezko berba hautaturik. Xabier Kintana

Hegoaldeko "euskara urbano" famatua dela eta, badirudi **kalkorik** gabe ezin daitekeela espresiboa izan. Janbattitt Dirassar

Dirassarrek [...] ederki frogatzen digu **kalkorik** gabeko hizkuntzak ez duela zertan zurruna eta soraioa izan behar. Janbattitt Dirassar

**5** ***kalko paper***

Aldiko hiru kopia eginez **kalko**-paperari esker. Bernardo Atxaga

Juamanuel Garaikoa **kalko** paper beltzekin ibiltzen da beti. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalko hutsa** (3)

---

# kalkografiko *izond* metalezko xafla grabatuekin inprimatzeko teknikaz egina.

Aurten, honako ikastaro hauek eskaini dira: zeramikaren hastapenak, serigrafia zeramikoaren hastapenak, grabatu **kalkografikoaren** hastapenak, marmolezko eskulturagintza, zurezko eskulturagintza [...]. Berria - Kultura

---

# kalkulaezin **1** *izond* ezin kalkulatuzkoa.

Espazioaren zabaltasun **kalkulaezinari** so egin, munduen kopuru eta izari harrigarriari. Juan Garzia

Baina ondorioak, hain zuzen gizarte moderno irekian, zeharo **kalkulaezinak** dira askotan. Joxe Azurmendi

**2** ***kalkulaezinezko*** *(orobat* ***kalkula ezinezko****)* *izlag* kalkulaezina.

Garoñako zentral nuklearrari hamar urte gehiagoko bizia emateak **«kalkulaezinezko** hondamendia» sortuko luke. Berria - Euskal Herria

"**Kalkula ezinezko** kalte" horiek ez ziren horrenbesterako, zorionez. Josu Zabaleta

---

# kalkulagailu *iz* zenbakizko kalkuluak egiteko gai den tresna.

Txinatar bolazko **kalkulagailuen** baliokidea zen abakoa. Jon Muñoz

"Paskalina" deitu zitzaion XVII. mendearen erdi aldera Blaise Pascal frantses gazteak bere aitari laguntzeko asmatu zuen **kalkulagailuari.** **Pello Salaburu**

Von Neumannek edozein **kalkulagailu** elektroniko baino azkarrago kalkula zezakeen. Fernando Morillo

Lastertasun handiko **kalkulagailua**. Joxe Austin Arrieta

Gau luzeak pasatu nituen **kalkulagailua** esku batean, gora eta behera, kontuak egiten. **Kalkulagailuko** teklak hasi zen sakatzen. Jon Alonso

Eskuorri batzuei begira zeuden gurasoak, eta **kalkulagailuari** joka. Jesus Mari Mendizabal

Sakelako edozein **kalkulagailuk**. Pello Salaburu

**Kalkulagailuaz** baliatu da berriro, pisuaren arabera zenbat pilula dagozkion jakiteko. Imanol Zurutuza

---

# kalkulagarri *izond* kalkula daitekeena.

Aseguru-etxeak giza arazoen erregulartasun **kalkulagarrian** oinarritzen dira. Iñaki Mendiguren

Ilargia dakusat, esate baterako, Tamaulipas basamortuaren gainean: argixeago besteetan baino, baliteke, baina dena den betiko masa **kalkulagarri** hori besterik ez da, gure planetaren inguruan jirabiran dabilena. Joxe Austin Arrieta

---

# kalkulatu, kalkula, kalkulatzen *(orobat* ***karkulatu*** *g.er.)* **1** da/du *ad* kopuru ezezagun bat lortzeko eragiketa matematikoak egin.

**Kalkulatzeko** makina miragarri bat. Jon Muñoz

Kopuru markatu haiek batuketa-makinan **kalkulatu** nahi nituen. Xabier Olarra

Orbitaren parametroak zehatz-mehatz **kalkulatu** ondoren. Patxi Iturritegi

Lehenengo *n* zenbaki osoen batura **kalkulatzea**. Jon Muñoz

-Norabideak **kalkulatuta** ditut, kapitain jauna... Josu Zabaleta

Zer pena enetzat! ez duzu **karkulatzen** ahal zenbatekoa! Janbattitt Dirassar

Taula baten begiratuz, hiruko erregela medio, eguneko intsolazioa zenbatekoa den **kalkulatu**. Pello Zabala

Ekonomialariak gai dira merkataritza-zikloen uhin-luzerak **kalkulatzeko** Ekonomialariak gai dira merkataritza-zikloen uhin-luzerak **kalkulatzeko.**. Iñaki Mendiguren

Itzalaren luzera **kalkulatu** zutenean, jakin zuten piramidearen garaiera! Jon Muñoz

Axelek sestanteaz **kalkulatuko** du, eguzkiaren deklinazioa **kalkulatzen** den bezala, hogei metroko altura dutela urgainean. Joseba Sarrionandia

Nostromoak **kalkulatuko** du 11 kilometro izanen direla mapan lerro zuzena eginez gero, baina izotz zolako arrakalak direla eta 29 kilometroko itzulingurua egin beharko dela. Joseba Sarrionandia

Neurria nola **kalkulatuko** den zehatz jakiteko. Santiago Iruretagoiena

Tresna bera elkarren oso bestelako ekintzak egiteko gauza zen: kurba baten luzera **kalkulatu,** irudi baten azalera zehaztu, solido baten bolumena **kalkulatu,** irudi baten grabitate-zentroa kokatu, [...]. Jon Muñoz

**2** irud/hed

Don Pedrok hogeita hamabost urte inguru **kalkulatu** zizkion kapitainari. Bernardo Atxaga

**Kalkulatu** du hala ere berandu iritsiko dela, hamar edo hamabost minutu berandu bederen. Eider Rodriguez

-Beraz, zazpi bat ordu **kalkulatu** behar dugu lehenengo lerroetarako. Agustin Otsoa

Eskuan hartu eta pisua **kalkulatu** zion. Joseba Sarrionandia

Ongi **kalkulaturiko** arrisku baten gainean hitz egiten denean bezala. Jon Alonso

Arropak garbitzearena ondo **kalkulatu** behar izaten dugu. Edorta Jimenez

Ondo **kalkulatutako** anbiguotasunak sorpresarako atea zabaltzen du. Iñaki Arranz

Badirudi Silverio Lanzak berak mistifikazioen lanbroan bildu nahi izan zituela bere bizitza eta obra, ezkutaturik bizitzeko trikimailuak **kalkulatu** zituela eta misterioaren amaraunean preso geratu zela betiko. Joxean Agirre

Pentsakor geratu zen, **kalkulatzen** bezala. Bernardo Atxaga

**3** (era burutua izenondo gisa)

Erlijio bitxi bateko apezemearen keinu lehor eta **kalkulatuak** erabili zituen. Aingeru Epaltza

Jubilatuen paradisua, ordenua eta antolamendu **kalkulatua** gogoko dutenen zerua. Hasier Etxeberria

Begirada azeria eta **kalkulatua** zuen, eta Harryk ez zuen atsegin. Iñaki Mendiguren

Ikusi gabe iragan bi asteetan, ilea moztu eta harrotasun **kalkulatu** baten ariora atondua zuen. Aingeru Epaltza

Tenisean egiten zuten, kolpe zehatz eta **kalkulatuez**. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adina kalkulatu** (4); **bankuak kalkulatu** (3); **kopurua kalkulatu** (4); **luzera kalkulatu** (3); **zehatz mehatz kalkulatu** (3)

**kalkulatutako politika dela** (3)

**azalerak kalkulatzea** (3)

**kupoa kalkulatzeko** (3); **maileguak kalkulatzeko** (3); **pentsioak kalkulatzeko** (5)

---

# kalkulatzaile *(orobat **karkulatzaile** g.er.)* **1** *iz* kalkulu matematikoak egiten dituen pertsona. ik **kalkulugile**.

V. mendeko indiar **kalkulatzaileek**. Jon Muñoz

Ez dira, ez esklaboak, eta ez estatuaren funtzionarioak, babiloniar edo egiptoar matematikari-**kalkulatzaileak** bezala. Jon Muñoz

Lehenengoak **kalkulatzaile** profesionalen bazkunekoak ziren, eta beren pribilegioak defendatzen zituzten. Jon Muñoz

• **2** *izond/iz* kalkulatzen duena. (pertsonez)

Filmeko emakume hotz **kalkulatzaile** haiekin. Anjel Lertxundi

Oso bestelako jokamoldea izan zuen Mentxovek, hotza eta isila baita, **kalkulatzailea** bere zuzendarien antzera. Berria - Kirola

Neure buruarekin nengoen haserre, **kalkulatzaile** baten jokabide gupidagabea izan nuelako ikasketen gaiarekin. Anjel Lertxundi

**3** (gauzez)

Negozioak bezain hotza, merkatua bezain **kalkulatzailea** iruditu zitzaion. Anton Garikano

Pentsamolde **kalkulatzailea** erabat nagusitu da gure aroaz; meditazioak alde egin digu Markos Zapiain

---

kalkulo ik **kalkulu**.

---

# kalkulu *(orobat **kalkulo** g.er. eta **karkula** g.er.)* **1** *iz* kalkulatzea; kopuru ezezagun bat lortzeko egiten diren eragiketa matematikoen multzoa.

Zenbakiei buruzko **kalkulua kalkulu** aljebraikora hedatzea. Jon Muñoz

**Kalkulu** matematikoak eta metodo geometrikoak erabiliz. Santiago Iruretagoiena

Garuna baino hobea da konputagailu elektronikoa **kalkulu** aritmetiko bizkorrak egiteko. Irene Aldasoro

**Kalkulu** astronomiko ororen doitasuna sinu-taularen zehaztasunean datza. Jon Muñoz

**Kalkulu** astrologikoek adierazitako data baino egun batzuk geroago. Jon Muñoz

Harrezkero, **kalkulu** hutsezko zientziatzat tratatuko zuten geometria. Jon Muñoz

Probabilitateen **kalkulua**. Jon Muñoz

Jiuzhang Suanshuren txinatar tratatu handia [...], gure aroa baino mende bete lehenago idatzia eta erro kuboen **kalkulua** azaltzen zuena. Jon Muñoz

Nehora abiatu aitzin, **karkulak** egin behar ditugu. Daniel Landart

Haren **kalkuluak** guztiz zuzenak ziren. Jose Morales

%0,5eko errorea gure aroa baino 2.000 urte lehenago egindako **kalkulu** batean! Jon Muñoz

Astrolaboarekin eginak ditut **kalkuloak**. Aurelia Arkotxa

Gaur egun ze adin zukeen egin nuen **kalkulua**. Joxe Austin Arrieta

**Kalkulu** eta esperimentu asko eta asko egin ondoren. Irene Aldasoro

Irteerako gailu bat, **kalkuluen** emaitzak agertzen dituena. Irene Aldasoro

Eta buruz egin duzu **kalkulua**. Jon Muñoz

**Karkula** frango ontsa eginik apailatu behar… Janbattitt Dirassar

**2** irud/hed

Arreta guztia joko horretan jartzera ohitu zen, buru ernez eta **kalkulu** hotzez. Jose Morales

Norberaren interes zuhurraren **kalkulu** hotzak. Iñaki Mendiguren

**Kalkulu** erratua egin zuten nirekin. Harkaitz Cano

Armategia ez egoteak **kalkulu** politikoa aldatzen du; daukazun erantzuna aldatzen du. Berria - Mundua

Ez noski zuhurtziagatik, edo **kalkulu** baten arabera, baizik eta haien nahitaezko hustasunagatik; hitz hutsek, buruko mina emateaz gain, enbarazu besterik egiten ez dutelako, eta jendea uxatu. Bernardo Atxaga

**Kalkuloak** huts egin dio. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kalkulu**-makina guztiz txikiak. Joxan Elosegi

Pitagorasek ezarri zituen bikoititasunari dagozkion **kalkulu**-arauak. Jon Muñoz

Azken datua **kalkulu**-erregelan suzko zifraz idatzirik begitandu zitzaidan. Juan Garzia

INEMek gaur egun darabilen **kalkulu** sistemaren arabera. Berria - Ekonomia

**Kalkulu** zentroetan ikasitakoa. Berria - Euskal Herria

**Kalkulu**-okerrez beteriko paper pila handiz estalia zegoen nire mahaia. Joxan Elosegi

**Kalkulu**-akatsak argudiatu zituen. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Matrize **kalkulua**. Jon Muñoz

Konbinazio-**kalkuluan** bezala. Juan Garzia

Zalantza dago, ostera, lekuko horien denbora-**kalkuluek** ez ote duten huts egiten. Edorta Jimenez

Irabazi-kostu **kalkulua** eginik. Iñaki Heras

Zehaztasun matematikoaren ordez probabilitate-**kalkulua** sartu behar da aritmetika politikoan. Juan Martin Elexpuru

Barne-**kalkulu** politiko hotzak. Iñaki Mendiguren

**5** matematikaren adarra, tarterik gabe aldatzen diren kopuruekin eragiketak egitea ahalbidetzen duena.

**Kalkulu** infinitesimala **(kalkulu** diferentziala, **kalkulu** integrala). Jon Muñoz

Eudoxo Knidekoa, exauzioaren metodoa **-kalkulu** integralaren aurrekoa- sortu zuena. Jon Muñoz

**Kalkulu** diferentzialaren eta **kalkulu** integralaren aitzindaria izan zen, Leibniz eta Newton baino urte batzuk lehenago. Jon Muñoz

**Kalkulu** diferentzialean, Euler-en metodoa, ekuazio diferentzialei dagokiona. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> kalkulu azkar (3); kalkulu bat egin (3); kalkulu batzuk egin (3); kalkulu diferentziala (6); kalkulu integralaren (6); kalkulu kontua (3); kalkulu politiko (4)
>
> kalkulua egin (6); kalkulua egiteko (3); probabilitateen kalkulua (3)
>
> kalkuluak ateratzea (3); kalkuluak egin (14); kalkuluak egitea (3); kalkuluak egiteko (11); kalkuluak egiten (17)
>
> adituen kalkuluen arabera (4); egin dituen kalkuluen (4); egin dituzten kalkuluen (5); egindako kalkuluen (10); egindako kalkuluen arabera (9); eginiko kalkuluen (5); eginiko kalkuluen arabera (5); gure kalkuluen arabera (4); haren kalkuluen arabera (4); kalkuluen arabera (88); kalkuluen orria (4); nire kalkuluen arabera (7)
>
> karkulak egin (5); karkulak eginik (6)
>
> karkulan ari (9); karkulan ari dira (4)

---

**kalkulugai** *izond* kalkulatzeko modukoa.

**Kalkulugai** bihurtu dugu aukera. Koro Navarro

---

**kalkulugile** *iz* kalkulu matematikoak egiten dituen pertsona. ik **kalkulatzaile**.

Haien kalkulu-metodoek [...] berezkoak eta pertsonalak ematen zuten, **kalkulugile** bakoitzak bere bidetik bereganatuak. Xabier Olarra

**Kalkulugile** miragarri batzuek jakin-mina piztu zuten hemezortzigarren mendean. Xabier Olarra

---

**kalkulutxo** *iz adkor* kalkulua.

Saihetsetako bi gaztetxoen aitona izateko modukoa (berrogei bat urte zaharragoa, nire **kalkulutxoen** arabera). Txillardegi

---

**kalma** *iz* barealdia.

Purrustarri ingurura joana zen **kalma** zuria baliatuz itsasoan zabal lema estiborrera zarratuta. Koldo Izagirre

Burdinak harrotu egingo nau une batez, gero haize bako **kalma** zurian geldituko da nire burua, dilindan, lepoa hautsitako bandera. Koldo Izagirre

---

**kalmarazi**, kalmaraz, kalmarazten du *ad* barearazi, lasaiarazi.

Baina, amerikarrek jokoa **kalmarazi** zuten. Ramuntxo Etxeberri

---

**kalmatu**, kalma, kalmatzen **1** da *ad* baretu, lasaitu. *(pertsonak)*

"Kontrola hadi...!" errepika hori etengabe zetorkidan gogora baina inondik ere ez nintekeen **kalma,** rugby partidu bortitzenen hastapenean bezala, zainak arrunt altxatuak bainituen... Ez bazara **kalmatzen,** auto honen gidatzen ari den faxistak bide bazterrean utziko zaitu. Daniel Landart

**Kalma** hadi, hitzordua finkatuko diagu Etxarri jaunarekin. Itxaro Borda

Alta, bezperan bezala, zigarro batek **kalmatuko** ninduen. Daniel Landart

Aitamei eta niri begiratuz, Colette entseiatu zen amaren **kalmatzera**. Daniel Landart

**2** (gauzak)

Gertakari dorpeak, duela zonbeit urte jasan bazituzten, Rwandan, iduri du bazterrak **kalmatzen** edo goxatzen ari direla. Herria

Aski urrundu ondoan eta bazterrak **kalmatuak** zirela segurtatu ondoan. Eneko Bidegain

---

**kalonje** *iz* elizgizon karguduna, katedral bateko biltzarreko kide dena.

Pierre Narbaitz **kalonjea**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Piarres Andiazabal euskaltzain **kalonje** adiskideak. Piarres Xarriton

Eliza hartako **kalonje** izana zen. Askoren artean

Legegizona eta San Rufino katedraleko **kalonjea**. Askoren artean

Katedraleko **kalonje** alki bat libre izanen zen pundutik, alki hori ematen zioten. Xipri Arbelbide

Jean Pierre Ouret Katedraleko **Kalonje** izendatua da, diosesako artxibetako arduradun gelditruz. Herria

**Kalonje** bat lehendakariaren aholkulari. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> gedeon izeneko kalonje (3); katedraleko kalonje (5); orreagako kalonje (3); salaberry kalonje zenaren (3); salaberry kalonje zenari (3)
>
> katedraleko kalonjea (4)

---

**kalonjeburu** *iz* kalonjeen burua.

Bikarioak, patriarkak, bonezak, santonak, kapeilauak, kalonjesak, egoitzadunak, **kalonjeburuak,** kalonjeburuordeak, herrixkako kalonjeak. Xabier Olarra

---

**kalonjeburuorde** *iz* kalonjeen buruaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordezkoa.

Bikarioak, patriarkak, bonezak, santonak, kapeilauak, kalonjesak, egoitzadunak, kalonjeburuak, **kalonjeburuordeak,** herrixkako kalonjeak. Xabier Olarra

---

**kalonjego** *iz* kalonjetza.

Eskaini baitzidaten Nafarroako Erret Kontseiluko kargu bat Iruñeako hirian aurkitzen dena eta Katedraleko **kalonjego** batek apaintzen duena. Piarres Xarriton

---

## kalonjekide *(corpusean **kalonje-kide** soilik)*

Bestelakoa izan du zinez Lafittek baina zinez laguntza haundikoa, Etienne Salaberry, bere Uztaritzeko **kalonje** -kidea. Herria

---

## kalonjesa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea)* *iz* emuakumezko kalonjea.

Bikarioak, patriarkak, bonezak, santonak, kapeilauak, **kalonjesak,** egoitzadunak, kalonjeburuak, kalonjeburuordeak, herrixkako kalonjeak. Xabier Olarra

---

## kalonjetza *iz* kalonje kargua.

Zera, diru-eskean hortxe izaten omen dute beren **kalonjetza** elbarri eta besamotz gelditzen direnak, baina hala ere; horrela ba, bide batetik edo bestetik, aberats izango zara eta zorioneko. Patxi Ezkiaga

---

## kaloria 1 *iz* beroa neurtzeko erabiltzen den banakoa, gramo bat uren tenperatura ºC bat igotzeko behar den bero kopuruaren kide dena.

Gramoko 0,24 **kaloria** da airearen bero espezifikoa: balio apal samarra. Irene Aldasoro

Minutu bakoitzeko bi **kaloria** jasoko eta bereganatuko lituzke zentimetro koadroko txapatxoak. Pello Zabala

Minutuko **kaloria** eta erdi inguru: 1.5 edo 1.7. Pello Zabala

**2** (elikaduran)

**Kaloria** edo, hobeto esanda, kilokaloria (mila **kaloria)** erabiltzen da elikagaiak edo erregaiak duen energia kantitatea adierazteko unitatetzat. Irene Aldasoro

**kaloria** askoko elikadura. Berria - Euskal Herria

Gorputzari ematen dizkiogunak baino askoz **kaloria** gutxiago erretzen ditugu. Berria - Euskal Herria

Gizentasuna gure gizarteko arazo larria da eta **kaloria** gutxiago kontsumitu behar dugu. Berria - Euskal Herria

**Guztiei** kaloria gutxiko dieta jarri zieten; batzuei gantz askokoa, eta besteei hidrato karbonoetan oinarritua. Berria - Gaiak

Ximurrak esku artean zeukan freskagarri **kaloriaz** hustua tentazio eskasa zen niretzat. Aingeru Epaltza

Munduko Elikagaien Programak finantzazio eskasa duela-eta hartu du neurria eta mila **kaloriako** anoak baino ez ditu banatuko. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

Fitxa batzuk bete ditut eguneroko **kaloria** kopurua neurrian hartzeko. Javi Cillero

Egunean premiazkoa genuen **kaloria** kopurua sabeleratuko genuen ahamen bakarraz. Itxaro Borda

Gosetearen aurkako borroka ez da soilik kantitate eta **kaloria** arazo bat. Berria - Harian

· Gutxi gorabehera 250 ml ur eta 350 kcal bero (350 janari-**kaloria)** galtzen ditu pertsona nagusi batek egunero arnasan botatako airean. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaloria gutxiago** (3)

---

## kaloriko *izond* kaloriei dagokiena.

Oso balio **kaloriko** handia du alkoholak. Irene Aldasoro

---

## kalorimetro *iz* kaloriak neurtzeko gailua.

**Kalorimetroak** garbi uzten zuen auzia: 3.015 K. Fernando Morillo

---

## kalostra *iz* baranda, bereziki harrizkoa.

Klaustro handi batean (Museo Nazionale-n), uko egin nion bere Baedeker gidaliburua entzuteari, **kalostraren** karelean eseri eta egunkari italiar bat irakurtzen saiatu nintzen. Joxe Austin Arrieta

Harri landuzko **kalostra** batek mugaturiko mailadi zabal batetik iristen da apaiza aldare honetara. Koldo Izagirre

Ukondoak **kalostran** jarrita barre egiten duen neska batek. **Kalostrarik** gabeko eskailera da, harlandu handiek osatua, karrikatik sukaldera doana. Koldo Izagirre

Biseanbiseko ziegatik neure modulora noalarik, galeriako **kalostran** dauzkat lagun guztiak, behera begira, trinketeko ikusleak balira moduan, nire zain. Koldo Izagirre

Besoak inarrosten zituzten ontziko pasaiariek **kalostran** pilatuta. Koldo Izagirre

---

## kalostrape *(orobat **kalustrape** g.er.)* **1** *iz* eliz ataria, elizpea. ik **apiriku**

Mundu bat gaitza aurkitu da Andre zenaren ehorzketetan, Arrangoitzeko eliza eta **kalostrapea** beteak zirelarik. Herria

Goizaldera Baionako katedraleko **kalostrapera** joatea deliberatu zuten. Itxaro Borda

Elizako **kalostrape** hormatuan biltzen ziren. Itxaro Borda

Gerlako hilen marmolezko zerrendan duzu Pierra, elizako **kalostrapean** . Itxaro Borda

Hobe zenuke aterperatzea, mezetara ez baldin baduzu nahi, **kalostrapera** bederen. Itxaro Borda

Eliza ondoko **kalostrapearen** itzulia egin genuen. Daniel Landart

1706eko apirilaren 18an Herriko premuek, usaia zuten bezala, beren biltzar nagusia Anhauze elizako **kalostrapean** egin zutela. Michel Oronoz

Irriño bat, bi solas erretore etxeko **kalostrapean,** esku fereka bat... gazteak ziren, eta elkar maite zuten. Elena Touyarou

Apezpikutegitik katedralaren **kalustraperarako** bidean gindoazela. Piarres Aintziart

• **2** *hed* arkupea.

[Baionan] ibai ondoko **kalostrapean** dauka saltegia. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elizako kalostrapean** (5); **elizaren kalostrapean** (3); **katedraleko kalostrapean** (7)

---

## kalostraperatu, kalostrapera(tu), kalostraperatzen da *ad* kalostrapera joan.

Jendetza gaitzak airoski kantatzen zuen anjelusa oihar, bikotea **kalostraperatu** zen familiaz setiaturik. Itxaro Borda

---

# kalpar *(orobat **galpar** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kalpar** agertzen da)* **1** *iz* adatsa; ile multzoa.

Kapela kendu eta **kalparra** igurtzi zuen. Anton Garikano

Joan komunera, kendu makarrak, hustu maskuria, garbitu muturra, orraztu **kalparra**. Xabier Mendiguren Elizegi

Inork buru atzean begiratuko balio, orbaina aurkituko luke **kalparraren** azpian. Bernardo Atxaga

Burua makurtu eta bi hatz errukiorrez haztatu zuen **kalparreko** ile urria. Irene Aldasoro

**Kalpar** lehoi-kolorea zeraman, luze-luzea, kizkurtua garondo aldean. Fernando Rey

Haren muturrezur lakatza, haren **kalpar** luze zarpaila. Patziku Perurena

Asto zahar bat ematen duk hire hortz handiekin eta **kalpar** zuri horrekin! Bernardo Atxaga

Ikusgarria izan zen mendian gora **kalparra** zuri-zuri zuten txirrindularien argazkiak ikustea. Berria - Kirola

Hatzak pasatu zituen loki batetik bestera, **kalpar** harrotua berdindu eta soilgunea estaltzeko. Anjel Lertxundi

Bere horretan, berriz, Frank Zapparen **kalpar** frisatua. Aingeru Epaltza

Buru luzea, zepilluaren moduko **kalpar** sarri tente gorriarekikoa. Fernando Rey

Tropak [...] asaldatzen zituzten, euren **galpar** beldurgarriak noranahi astinduz, eta zaldunek ezin zuten orroek iztuturiko zaldirik lasaitu. Xabier Amuriza

Eskola-ume hankaluze bat zen Viky, **kalpar** hori motzaren erdian erretena zuena. Anton Garikano

Ur oxigenatua eman zuen **kalparrean**. Fernando Rey

Higuinik ez zidala ematen erakusteko, musu ematen nion, eta horrelakoetan ere **kalparretik** heldu eta aldendu egiten ninduen. Ramon Saizarbitoria

**2** *pl*

Bizar hazia zeukan, **kalpar** nahasi eta zikinak, arropa narrasak, usaina halamoduzkoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Esku hotz batek **kalpar** luzeak baztertu zizkidan aurpegi paretik. Aingeru Epaltza

Beti ere ispilua lagun, eskuz apaldu nituen neure **kalpar** urri harrotuak, zapal-zapal utzi arte. Aingeru Epaltza

Isats leunak, txirikorda askatuak, **kalpar** kizkurrak, hiru mailako mototsak. Karlos Zabala

Buru gaineko **kalpar** latzak gogotik ferekatu nizkion, amultsutasuna mozorrozteko xedea zuen zakartasun gehiegizkoaz Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alabaina, behin diziplina batera sartuz gero, eta jerarkian behetik gora hasi, utzi litezke **kalpar**-bizarrak luze. Patziku Perurena

**4** ((hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Neskak -pistola bat gerrikotik dilindan daraman **kalpar**-motzak- begi-bistako gogo txarrez hartu du manatua. Aingeru Epaltza

Eta ez-dakit-zer esan nion uluka gazte **kalpar**-horail izerditu hari. Fernando Rey

**5** *irud*

Itsas uhinen **kalpar** apartsua Baleamendi deitzen duten harkaitz tzarraren kontra. Anjel Lertxundi

Artilezko **galpar** eskegiek bezala. Xabier Amuriza

**6** ***ile kalpar***

Esku batean koati baten izterrezurra ezarri zion; bestean, ile **kalpar** luze bat, andrazko batena zirudiena. Josetxo Azkona

Ezkerreko es. kua zabaldu orduan, eta ile **kalparra** erortzen utzi zuen. Josetxo Azkona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalpar latz** (8); **kalpar luze** (3)

---

# kalpardun *izond* kalparra duena. ik **kalpartsu.**

Sorbonako irakasle **kalpardunen** kapela klasiko horietako bat. Josu Zabaleta

Gizaje **kalpardun** hura, bere arrano-begiradarekin eta bere arte-, zientzia- eta literatura-diletantismoarekin [...] ausardia handiko engainatzaile bat baizik ez zen. Josu Zabaleta

---

# kalpartsu *izond* kalpar sarria duena.

Lagunaren eskuin eskua jostetan ibili zen pixka batean martxa-aldagailu laxoan, eta bidea hartu zuen gero bere buru gain **kalpartsura**. Aingeru Epaltza

Agure **kalpartsua** burugabekeriak esaten ari zen oraindik, Josu Zabaleta

---

# kalparzu *izond* kalpartsua.

Asto **kalparzu** bat. Patziku Perurena

---

# kalte **1** *iz* norbaiti edo zerbaiti beste norbaitek edo zerbaitek eragiten dion edozein eratako galera edo hondamena.

Uztak desegin, bazterrak pozoitu, [...], gaitz kutsakorrak hedatu eta beste **kalte** asko. Gotzon Garate

Zer desohore, zer **kalte,** zer bihozmin damugarri ekar lezakeen haren kondenatzeak. Piarres Xarriton

Egia erran, gauzak halako gisaz eratuak dira non, **kalte** baino biziki gehiago abantaila sortzen baitzaie gizakien gizarte komunetik. Piarres Xarriton

**Kalte** baizik ez die desiratzen bere arrebaren heriotza eta familiaren desohorea ekarri duten guztiei. Aingeru Epaltza

Eskuren baten babesak **kalte** orotatik libratu izan balu bezala. Juan Kruz Igerabide

Era guztietako **kalte** eta gaitzak sorrarazteko. Xabier Kintana

Euri azidoaren **kalteak**, oraindik ere noraino iristen diren ez dakigunak. Pello Zabala

Bere erlijioan **kalte** eta galera jasan duelako ustean. Xabier Kintana

Bada, izan ere, errakuntza onik, egilearentzat **kalte** ez baina ongarri gerta daitekeenik. Imanol Unzurrunzaga

Arriskua ikusi eta gorde egiten da zentzuduna, heldugabeak aurrera segitu eta **kaltea** jasan behar. Elizen arteko biblia

Eragindako **kaltearen** araberako kopuru bat ordainduz, **kaltea** konpontzearren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Seme baten odola mendekatu behar duen ahaideak ez dezala **kaltea** handiagotu beste semea hilez. Elizen arteko biblia

Ohiko dezentziaren legeak pixkaren bat zikindu beharra sortzen bada, hainbat **kalte**. Matías Múgica

**2** (izenondoekin edo izenlagunekin)

Osora geroz eta **kalte** handiagoak ekarriz. Elizen arteko biblia

Beste 27 uholde makur, **kalte** handiak sorturikoak. Pello Zabala
Bizi bitez euren gogara, gutxi batzuk galtzea asko galtzea baino **kalte** txikiagoa baita. Askoren artean
**Kalte** gutxiko bospasei atentatu obratuz. Itxaro Borda
Oroitzen baitziren Demetriok Israeli egindako **kalte** izugarriez. Elizen arteko biblia
Harriaren minbizia deitu zaion **kalte** berezi hori. Pello Zabala
A ze oilo koadrilla! **Kalte** baino ez diote egiten. Jokin Muñoz
750 milioitako **kalte** materialak. Pello Zabala
**Kalte** eragiletzat hartzen badugu gaitza. Imanol Unzurrunzaga
**-Kalte** sendaezinik behintzat ez du. Iñaki Mendiguren
**Kalte** iatrogenoa esaten zaio horri, "medikuak edo botikak eragindako kaltea". Ramon Saizarbitoria
Sekulako **kaltea** egiten digu horrek guri. Jon Muñoz
**Izugarrizko kaltea** gertatuko zen bi aldeetan. Juan Kruz Igerabide
Gizakia ageriko **kalteak** atsekabetzen duela. Joan Mari Lekuona
Itzulbiderik gabeko **kalteak** gertatuko ziren. Iñaki Iñurrieta
Konpondu ezinezko **kaltea**. Joan Mari Lekuona
Jatorrizko **kalteak** jo ditu hastapeneko giza naturaren lehen gizakia eta, haren ondotik, giza naturaren belaunaldietan sortu edo sortuko direnak. Piarres Xarriton
Bekoki-lobuluko **kalteak** gehiago aztertzeko aukera eman dute gerrako zaurituek. Irene Aldasoro

## **3** (hitz elkartuetan)

Hezur bat hausten denean, hiru **kalte** mota gertatzen dira. Irene Aldasoro
Biktimentzako **kalte**-sariei dagokienez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Operazio hori beirazko ontzitan saiatu genuen aurrena, baina zati-zati egindakoen kopurua **kalte**-zulo handiegia gertatu zitzaigun. Juan Garzia
· Pentsamolde horrek, ordea, albo-**kalte** ezinago larriak eragiten ditu. Joxerra Garzia
Eta honako maisu-**kalte** hau ere, zure oroimenari beste zaztada bat egiteagatik edo, kargu hartzera datorkizu orain. Iñaki Segurola

## **4** *-en* ***kalte*** *-en* kaltean.

Hara bada, bizkonde, zeure buruaren **kalte** ari zara. Jon Muñoz
· Gero beheranzkoan jo bahau gerrikoak, hire **kalte,** etxekalte! Urtzi Urrutikoetxea
Sestaokoen **kalte,** hara joan baitira ijitoak. Urtzi Urrutikoetxea
Geopolitika arazoak ekonomiaren **kalte**. Berria - Ekonomia

## **5** *-en* ***kaltean*** *(**86** agerraldi, **22** liburu eta **48** artikulutan; orobat **kaltetan** **154** agerraldi, **36** liburu eta **87** artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **-en kaltean** agertzen da)*

Nolatan pentsa dezakezu, jauna, nagusiaren **kaltean** jokatzen dugula? Jose Morales
Erasoa jo orduko jabetu behar zuen [...] taldearen **kaltean** ari zela. Berria - Kirola
Lesa maiestateko krimenetan, erregea egiten zen ondasun guztien jabe, errudunaren seme-alaben **kaltetan**. Juan Martin Elexpuru
Erritmo eta musikaltasuna gailentzen da nabarmenki, esanahiaren **kaltean**. Iñaki Arranz
Batzuetan opakotasuna nagusitu da gardentasunaren **kaltean**. Berria - Harian
Bainan zer negozio xuxen? noren onetan eta noren **kaltetan**? Herria
Estatu zentralizatuagoa bilakatuko da Alemania, lander edo estatuen **kaltean**. Berria - Mundua
Lau txatalen arteko josturak nabarmenegi geratzen dira zenbaitetan, liburuaren batasunaren **kaltean**. Berria - Kultura
60º C-ren jiran elementu ugari desegiten edo aldatzen dira, osasunaren **kaltean**. Edorta Agirre
Lehenengoak gaiztoak, bigarrenak friboloak, denak geure **kaltean**. Hasier Etxeberria
Ni ere erotu samarrik nengoen, baina nire **kaltean,** eta alemanak, berriz, beti besteen **kaltean**. Fernando Rey
Bestea nola edo hala, inoren **kaltetan** bazen ere, bere sakelan dirua sartzeko irrikaz. Gotzon Garate
Zeuen buruaren **kaltean** ari zarete... Koldo Izagirre
Bere buruaren eta bere etxekoen **kaltetan**. Piarres Xarriton
Euskara bantua (POTT) ere izugarri hedatzen ari omen da, benetako euskararen **kaltean**. Iñaki Arranz

## **6** *-en* ***kaltez*** *-en* kaltean.

Puntuz puntu baieztatu zizkidan ilegorri bular-handiaren informazioak nirearen **kaltez** zituen gehigarri nabarmenenak: disketeen lapurreta, ordenagailuaren manipulazioa, bala-zorroaøø. Aingeru Epaltza

## **7** ***kalte egin*** ik **kaltetu 2.**

Bidaiak **kalte egin** dit. Koro Navarro
**Kalte egin** al dizu edariak? Pako Aristi
Ez jan hainbeste ogi, **kalte eginen** dizu. Fernando Rey
Bakardadeak **kalte egiten** dit. Zein naziori **egiten** dion **kalte** merkataritzan aritzeak. Iñaki Iñurrieta
Gorrotatzen dugunari **kalte egiteko** ahalegina, Hira deitzen da. Piarres Xarriton
Baina mihiak galdu zaitu, zere argudioak zure kontra baitaude eta **kalte egiten** baitizute. Patxi Zubizarreta
Hasieran beldur zen bisitari gautarrak ez ote zion **kalte egingo**. Koro Navarro
Zerk **egiten** digun **kalte,** zerk mesede. Edorta Agirre
Bere buruari **egiten** ziola **kalte**. Koldo Zuazo
Asko begiratu behar da zerk **egiten** duen on, hartzeko, eta zerk **kalte,** jaurtitzeko. Patxi Altuna
Horrelako zerbaitek ez dio **kalte egingo**. Xabier Olarra
Inork ere ez dizue **kalterik egingo**. Elizen arteko biblia
Orfidal erdi bat behin hartzeak ez dizu **kalterik egingo** · Bere familiari hainbeste **kalte egin** zion gizona. Anjel Lertxundi
Bat egin zuen jentilekin eta **kalte** handiak **egin** herrian. Elizen arteko biblia
Ezin ditut ontzat eman zuen batzarrak, on baino **kalte** handiagoa egiten baitizuete. Elizen arteko biblia
A ze oilo koadrilla! **kalte** baino ez diote egiten. Jokin Muñoz
**Egiten** diguten **kalte** guztia itzultzerik ez dago. Hasier Etxeberria
Gobernadorearen dekretuak mesede gehiago **egiten** ziek **kalte** baino. Karlos Zabala
Morganak basoan harrapatu zuen Lancelot, gaztelura gonbidatu, eta bertan eduki zuen atxilo, **kalte** gehiago **egin** ez zezan. Juan Kruz Igerabide
Zidakos ibaiak Kalagurrin **egindako kalte** ikusgarriak. Pello Zabala

## **8** ***kalte ekarri***

**Kalte ekartzen** dio bestalde, Errege Jaunaren ospeari. Piarres Xarriton
Horrek erabilgarritasunari **kalte ekarriko** ziola. Herria
Baina **kalte ekarri** didan zerik ez dut ukan. Berria - Kultura

Azkenean SAGAk proposamen horren betetzea deliberatu du, pentsatuz katzaka segitzeak luzara **kalte ekarriko** ziola. Herria

Europako Batasunera sartu berri diren hamar herrialdeek ez diote **«kalterik ekarriko»** Nafarroako ekonomiari. Berria - Ekonomia

· Zer onura eta zer **kalte dakarten** gizakientzat. Piarres Xarriton

Eta patua, egunero mehatxu eta **kalte** ustekabeak **ekarriz**, eta haiekin gure norabidea nahastuz. Juan Kruz Igerabide

Zibilizazioak **kalte** handia **ekarri** die hirietako zakurrei. Gotzon Garate

Nire karrerari **kalte** baino on gehiago **ekarri** zion tentsiorik gabeko trenpe espirituala. Anjel Lertxundi

Zer **kalte ekarriko** dizue *eguraldiak hotzera egin du,* eta horrelakoak esateak? Anjel Lertxundi

## 9 *kalte eragin*

Entzumenean **kalte eragiteko** bezain zarata ozenak. Irene Aldasoro

Erabakiak Euskadiko PPk hartu beharrean Madrilgoak hartzeak **kalte eragin** dio alderdiari. Berria - Euskal Herria

Bere taldeko ofizial batek hein hartaraino niri **kalte eragin** izanaz desenkusatzera etorria zela erran dit. Jon Muñoz

Bristolgo Unibertsitateko ikertzaileen arabera, partikula toxikoak umetokiraino irits daitezke eta umekiari **kalte eragin** diezaiokete. Berria - Gaiak

· Leherrarazitako bonba-autoak zenbait **kalte eragin** zituen aipatu eraikinean. Berria - Mundua

Orduko 170 kilometroko haizeteak **kalte** handiak **eragin** zituen. Pello Zabala

Horrek ez die kalterik egingo behekoei baina guri bai, **kalte** larria **eragingo** digu. Imanol Unzurrunzaga

Errepideak txikitu eta **kalte** latzak eragin zituen. Pello Zabala

Ingurumenean **kalte** larria **eraginen** lukeelako. Edurne Elizondo

Delituen larritasuna gizartean **eragindako kaltearen** arabera neurtzea. Juan Martin Elexpuru

Uhinen maiztasunaz gain, intentsitateak ere eginkizun handia du sonarrek **eragindako kaltean**. Berria - Gaiak

## 10 *kalte-galera* kalteak eta galerak, damu-domaiak. ik **damu 8**.

Atzera eginarazi zietela alemaniarrei, eta berriro armaz hartu zituztela gure gudu-oineko lubakiak; baina, nire ingurumarian ikusi ahal izan nuenez, sekulako **kalte-galeren** ordainetan izan zen. Mirentxu Larrañaga

## 11 *kalte izan*[1] da *ad*

Aurrekoen esanera egokitzea **kalte da**. Patziku Perurena

Bazter ikuska ibiltzea ez **dela kalte,** munduaren berri hola jakiten ahal dela. Janbattitt Dirassar

Baina ametsak ere ez **dira kalte**. Ez **duk kalte** izanen. Eneko Bidegain

Ustela **kalte da**, izan ere, eta ona murriztu ez baleza ez luke usteltzeak kalterik. maitasun berriak adiskidetasun zaharren **kalte direlako** topikoa gezurtatzeko egokiera genuen eskura. Imanol Unzurrunzaga

Arimarendako **kalte izan** arren. Aingeru Epaltza

-Lanbide guztientzat **duk** hau **kalte,** horratik! Juan Garzia

· *(adizkia ezabaturik)* Galdu egin dut; niretzat **kalte**. Itziar Otegi

Beretako **kalte,** Soriak ez ohi zuen aholkurik onartzen. Aingeru Epaltza

-Haientzat **kalte**! -esan zuen Cadinek, bukatu ondoren-. Karlos Zabala

Zuretzat **kalte**! -oihu egin zion Quenuk-. Karlos Zabala

## 12 *kalte izan*sup_2 du *ad*

Nago Videgainen Erdi Aroko kronika beltza beren bibliografian sartzea ez luketela batere **kalte** izanen euskal filologoek. Patziku Perurena

Hezetasuna **kalte** zuela eta miletan hobe zela artoa ereinik, honek laket baitzuen zangoak lur bustian ukaitea eta burua iguzkira. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nolabait elkar kontsolatzeko modua aurkitu badute oraingoz, zer **kalte** du ba horrek? Oskar Arana

## 13 *kalte-ordain* (*orobat* **kalteordain** *g.er.)* kaltearen ordaina.

Epaileak familia bakoitzari 4.112 euroko **kalte-ordaina** ematea erabaki zuen. Berria - Gaiak

Autobideak bere landetxe gainetik edo bere baratzetik igaro behar bazuen, **kalte-ordaina** eman beharko zioten. Eskarne Mujika

Arrantzale-kofradiei eman beharreko **kalte-ordain** gehienak ordaindu dituztela. Berria - Gaiak

Lanpostu berria lortu eta **kalte-ordaina** jaso zuten. Edurne Elizondo

Marshall Uharteetako atoloi batek **kalte-ordainak** eskatu dizkie AEBei. Berria - Gaiak

**Kalteordainak** itundu dituzte. Berria - Ekonomia

Azoka hartan ibili ziren nire arbaso asteasuar eta albizturtarrek **kalte-ordaina** merezi zutela pentsatu nuen. Bernardo Atxaga

Seguruenik **kalte ordain** ederra eman beharko digute. Patxi Zubizarreta

Altzairutegia itxi ostean jaso zuen **kalte-ordainarekin** taberna erosi, eta izena aldatu zion. Iban Zaldua

Ohorearen zentzuak ere horrelako bekatuak **kalte-ordaina** behar duela esaten zion. Irene Aldasoro

Nehork ez du, **kalte ordainaren** itxaropenean, bere buruari kalterik egitea desiratuko. Piarres Xarriton

Irizpide horiek ez dute ezertarako balio ordea **kalte-ordaineko** sistemarik eta enplegu-bulegorik batere ez duten herrialdeetan. Koro Navarro

Onar ezazue opari xume hau **kalte-ordaintzat**. Joxerra Garzia

Xabier Izko de la Iglesiari, bi heriotza zigor, 27 urte, sei hilabete eta egun bat, eta **kalte ordainak** ordaintzea. Jokin Urain

Epea berriz negoziatzen ez bada, **kalteordain** handiei aurre egin beharko die Navalek. Berria - Ekonomia

· Legea leundu egiten zen, zertarako eta, epaiketaren aurretik bi alderdiak, bata froga izugarri baten beldurrez, bestea **kalte-ordaintxo** bat hartzeko moduz, beren gorabeherei eta gorrotoei amaia emateko. Iñaki Iñurrieta

## 14 *kalterako izan*sup_1 da *ad*

-Onerako da, **kalterako** baino gehiago. Ardo hutsa nahiz ur hutsa edatea **kalterako** da; ur-ardoa edatea, berriz, atsegingarri. Elizen arteko biblia

Baina pentsatu nuen ez zela **kalterako** izango hari bake-opari gehigarri bat igortzea. Oskar Arana

Eztabaidan ziharduten ea **kalterako** ala mesederako izango ziren Uralez beste aldera jazotzen ari ziren gertaera latzak. Karlos Zabala

Alfer-alferrik izango da, **kalterako** ez bada. Joxerra Garzia

## 15 *kalterako izan*sup_2 da *ad* (-en atzizkiaren eskuinean) **-**en kaltean izan.

Beldur naiz aldaketa hori ez ote den nire **kalterako** izanen. Jon Muñoz

Bigarren aukerari heldu zioten hamabi-hamahiru urteko ikasle haiek guztiek, eta ez dut uste inoren **kalterako** izango zenik hautu hori. Joxerra Garzia

Eskualde hortako bizilagunen eta ingurumenaren **kalterako**. Herria

Balio erantsiaren banaketa mozkinen **kalterako** aldatzea ez zen izan soldaten indexazioaren ondorio bakarra. Koro Navarro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**agindutako kalte** (5); **egin dio kalte** (5); **egindako kalte** (9); **egiten die kalte** (10); **egiten dio kalte** (10); **eguneko kalte ordaina** (8); **eragindako kalte** (9); **euroko kalte** (55); **euroko kalte ordaina** (44); **euroko kalte ordainak** (7); **ingurumenari kalte egin** (5)

**kalte anitz** (5); **kalte arinak** (10); **kalte asko** (9); **kalte egin** (303); **kalte egin zion** (11); **kalte egindako** (26); **kalte eginen** (14); **kalte eginez** (10); **kalte egingo** (97); **kalte egitea** (25); **kalte egiteko** (61); **kalte egiteko arriskua** (6); **kalte egiten** (266); **kalte egiten dio** (27); **kalte egitera** (6)

**kalte ekarriko** (6); **kalte ekologiko** (6); **kalte ekologikoak** (6); **kalte ekonomiko** (6); **kalte ekonomikoa** (5); **kalte ekonomikoak** (6); **kalte eragin** (12); **kalte eragiten** (5); **kalte ez egiteko** (5); **kalte fisikorik** (7); **kalte gehiago** (28); **kalte gehiago egiten** (8); **kalte gehien** (44); **kalte gehien jasan** (8); **kalte gutxiago** (11); **kalte gutxien** (9); **kalte handia** (158); **kalte handia egin** (60); **kalte handia eragin** (13); **kalte handia eragiten** (11); **kalte handiagoa** (25); **kalte handiagoa egin** (10); **kalte handiagoak** (9); **kalte**

**handiak** (109); **kalte handiak egin** (10); **kalte handiak eragin** (21); **kalte handiak izan** (15); **kalte handien** (5); **kalte handiena** (9); **kalte handienak** (10); **kalte handirik** (33); **kalte handirik ez** (8); **kalte haundiak** (7); **kalte ikusgarriak** (6); **kalte itzela** (5); **kalte izugarria** (8); **kalte izugarriak** (6); **kalte konponezinak** (9); **kalte larria** (19); **kalte larriak** (24); **kalte larriak eragin** (8); **kalte larririk** (6); **kalte material** (38); **kalte material handiak** (20); **kalte material ugari** (7); **kalte materialak** (69); **kalte materialak eragin** (20); **kalte materialak eraginez** (14); **kalte materialik** (5); **kalte morala** (5); **kalte moralengatik** (5); **kalte nabarmena** (6); **kalte nabarmenak** (5); **kalte nabarmenik** (5); **kalte ordain** (63); **kalte ordain gisa** (10); **kalte ordaina** (187); **kalte ordaina eman** (14); **kalte ordaina eskatu** (10); **kalte ordaina jaso** (11); **kalte ordaina jasotzeko** (11); **kalte ordaina ordaindu** (8); **kalte ordainak** (281); **kalte ordainak emateko** (24); **kalte ordainak eskatu** (12); **kalte ordainak eskatuko** (7); **kalte ordainak jaso** (22); **kalte ordainak ordaintzeko** (10); **kalte ordainaren** (7); **kalte ordainei** (7); **kalte ordainen** (34); **kalte ordainen truke** (6); **kalte ordainetan** (9); **kalte ordainez** (6); **kalte ordainik** (31); **kalte txikiagoa** (9); **kalte txikiak** (10); **kalte txikiak eragin** (7); **kalte ugari** (13); **kalte ugari eragin** (5); **kalte zuzena** (5)

**milioi euroko kalte** (5); **on baino kalte** (7); **urtegiak kalte egindako** (5); **zer kalte egin** (8)

**egin diezaiokeen kaltea** (5); **egindako kaltea** (28); **eragindako kaltea** (12); **izugarrizko kaltea** (10); **kaltea egin** (12); **kaltea egina** (15); **kaltea egina dago** (5); **kaltea eginda** (5); **kaltea egiten** (10); **kaltea eragin** (13); **kaltea eragiten** (15); **kaltea jasan** (6); **kaltea konpondu** (5); **kaltea konpontzeko** (8); **nolako kaltea** (11); **sekulako kaltea** (8); **zer nolako kaltea** (5)

**egin kalteak** (6); **egindako kalteak** (14); **eragin ditzakeen kalteak** (11); **eragindako kalteak** (57); **eragindako kalteak konpontzeko** (8); **eragiten dituen kalteak** (9); **jasandako kalteak** (5); **kalteak arintzeko** (11); **kalteak aztertu** (5); **kalteak egin** (9); **kalteak egiten** (5); **kalteak ekar** (5); **kalteak ekarriko** (5); **kalteak eragin** (52); **kalteak eragin zituen** (12); **kalteak eragingo** (11); **kalteak eragitea** (7); **kalteak eragiten** (12); **kalteak gutxitu** (5); **kalteak gutxitzeko** (10); **kalteak izan** (42); **kalteak izan zituen** (10); **kalteak jasan** (20); **kalteak jasango** (6); **kalteak konpondu** (5); **kalteak konpontzeko** (19); **kalteak murrizteko** (5); **kalteak ordaindu** (6); **kalteak ordaintzeko** (9); **nolako kalteak** (9); **sortutako kalteak** (8); **uholdeek eragindako kalteak** (5)

**eraginen lukeen kalteari** (5); **kalteari buruzko txostena** (5)

**kalteaz ohartarazi** (8)

**eragindako kalteei** (7); **kalteei aurre egiteko** (10)

**eragindako kalteen** (18); **sortutako kalteen** (5)

**eragindako kalteengatik** (9)

**kalterako izan** (24); **kalterako izango** (26)

**kalterik egin** (138); **kalterik egin gabe** (28); **kalterik eginen** (15); **kalterik egingo** (83); **kalterik egiten** (95); **kalterik ekar** (5); **kalterik ekarriko** (7); **kalterik eragin** (29); **kalterik eragingo** (13); **kalterik eragiten** (9); **kalterik handiena** (20); **kalterik handienak** (5); **kalterik izan** (16); **kalterik jasan** (12); **kalterik sortu** (6); **kalterik txikiena** (5)

---

## kaltedun *iz* kalte jakin baten hartzaile gertatzen den pertsona.

Adiskidantza apalesten duzu; eta ero-ero hordikeriari emana, kontutan hartu gabe malurak eta ahalkea, ez duzu plazerrik eta **kaltedunik** baizik bilatzen. Jon Muñoz

Mendekuaren **kaltedunak**. **Kaltedun** nagusi gertatu zirenak, gizarteko sektorerik ahulenak. Iñaki Heras

Ikuskatuak zituen jadanik begikotasun handiz gerla-**kaltedun** haiek. Txillardegi

---

## kaltegabe 1 *izond* kalterik egiten ez duena.

Urea **kaltegabea** da, kantitate txikitan behintzat. Irene Aldasoro

Lehenengoz lehorreratu zirenean, ordu arte ezagutzen ez zuten arraza bateko itsas animaliatxo **kaltegabeen** itxura zuten. Iñaki Mendiguren

Halako munstroa irudikatu nuen joandako hilabeteetan, non harriturik geratu bainintzen zein **kaltegabea,** zein normala ematen zuen ikusita. Oskar Arana

Hasierako bere zorakeriak **kaltegabeak** izan ziren guztiz. Juan Martin Elexpuru

Uste izatekoa zen Ahnenerberen jarduna ez zela lan **kaltegabe** horietara mugatuko. Alberto Ladron Arana

Kultur elementu itxuraz hutsal eta **kaltegabeenari**. Iñaki Mendiguren

Zure adin bertsuko gazte **kaltegabea** nintzen. Xabier Montoia

Lasai-lasai irensten dugu, **kaltegabea** delakoan, propaganda. Joxerra Garzia

Gizena, harroa, eta **kaltegabea** iduri zuen. Matías Múgica

**2 *kaltegabeko*** *(orobat **kalte gabeko**)* *izond* kaltegabea.

**Kaltegabeko** jolasa zirudien, eta umeek ere dibertigarri irizten zioten amamak etengabe erabiltzen zuen Lou Pan iparrorratzari. Patxi Iturritegi

Beldurgarrizko sarraski bat egin zuen bere adiskide **kalte** gabekoen artean. Josu Zabaleta

---

## kaltegabetasun *iz* kaltegabea denaren nolakotasuna.

Aristokrazia gaitasunik gabea bada, horretaz baliatzen den diktadorea ohartuko da bere tresnaren **kaltegabetasuna** tresna horren berorren kamustasunak baliogabetzen duela. Iñaki Mendiguren

---

## kaltegarri 1 *izond* kalte egiten duena, kalte ekartzen duena. ik **kaltegile**.

Mutil hura alferreko izakia bazen, ni hori baino okerragoko zerbait nintzela: tipo **kaltegarri** eta gaiztoa. Matías Múgica

Oso ideia galgarriak hedatzen ari nintzela eta **kaltegarria** nintzela nire ikaskideentzako. Ana Urkiza

Piztia **kaltegarriak** desagertaraziko ditut, eta ez da gerrarik izango.Leku hauetan kirats eta lurrun **kaltegarriak** sortzen dira. Santiago Iruretagoiena

Inguruko basoetako sute **kaltegarriak** direla eta. Javi Cillero

Elikagai **kaltegarri** eta mesedegarriez. Edorta Agirre

Alderdi onuragarri eta **kaltegarriak** izango ditu, nolanahi ere, fenomeno horrek. Edorta Agirre

Belar-ur **kaltegarriz** sorgindutako gizakiak. Juan Kruz Igerabide

Gaizkiulertu **kaltegarriak** ez daitezen sor. Jon Alonso

Bestalde, kanpoko oreketan ere eragin **kaltegarria** zuen aurrekontu-politikak. Koro Navarro

Sustraitik atera hain fruitu **kaltegarriak** ematen dituen landarea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aurkitzen dira, berebat, hilgarriak diren urak ere, lurreko zuku **kaltegarriak** zeharkatzeagatik beren baitan indar pozoitsu hori jasotzen dutenak. Santiago Iruretagoiena

Ardura handiz uxatzen zuen melankoliaren gaitz guztiz **kaltegarria**. Askoren artean

Juduen kanporatzeak (1492) izan zituen ondorio ezin **kaltegarriagoak**. Koro Navarro

**2** (izan aditzarekin)

Beharrezkoa ez den oro **kaltegarria** da. Ramon Saizarbitoria

Ez bezate besterentzat eskandalu-bide eta norbere arimarentzat **kaltegarri** izango den lanbiderik har. Askoren artean

Gehiegikeria hura **kaltegarri** zaiela. Joan Mari Lekuona

Hau ere guztiz **kaltegarri** zitzaion begietako gaitzarentzat. Askoren artean

Neurri haiek **kaltegarriak** ziren eta are galgarriak ere interes pribatuentzat, baina behar-beharrezkoak egoera larri hartan. Karlos Zabala

Urtebetez lanik egin gabe egotea **kaltegarria** izan zen niretzat. Arantxa Iturbe

Posible al da emakumeen arteko maitasuna munduko leku batean ona eta osasungarria izatea, eta beste leku batean, berriz, txarra eta **kaltegarria**? Luis Elberdin

Bere gaitzentzat olioa oso **kaltegarria** baitzen. Berria - Euskal Herria

Alferrikoak direla, eta ondorioz **kaltegarriak,** gizonaren berezko sentimenduen kontrako lege guztiak. Juan Martin Elexpuru

Izan ere, nazio batentzat **kaltegarriagoak** dira doilorkeriazko delituak kemenezkoak baino. Juan Martin Elexpuru

Ezjakintasun itsua sasijakinduria bezain **kaltegarria** ez bada ere [...]. Juan Martin Elexpuru

Bi ikuspegi arrunt kontrajarri badirela gure kasuan eta, biak berdin **kaltegarriak** baitzaizkit, nahi nituzke bi hitzez argitu. Piarres Xarriton

Eskarmentuak erakutsi digu ondorioak arras **kaltegarriak** zaizkigula. Markos Zapiain

**3** (bestelako aditzekin)

Latino Amerikako zordun handien barne-merkatuen murriztea **kaltegarria** gertatzen zitzaien estatubatuar esportazioei. Koro Navarro

Azidoak **kaltegarri** gertatzen ziren beste kontu batzuengatik: [...]. Juan Garzia

Borroka armatuaren eta kale borrokaren aurka nago ni, guztiz, etikoki suntsigarri eta politikoki **kaltegarri** iruditzen zaizkit eta. Joxerra Garzia

Kaskamotzei hori, gehienak bizarginak eta xaboigileak baitziren, negoziorako **kaltegarria** iruditu zitzaien. Xabier Olarra

Ugaritasun horri **kaltegarri** iritzirik, Frantziako Batzar Nazionalak neurriak batzea erabaki zuen, garai guztiek, lurralde guztiek eta gizaki guztiek mundua neurtzeko modu bera izan zezaten. Anjel Lertxundi

Egoera hura ezin **kaltegarriagoa** suertatu zen. Agustin Otsoa

**4** (hitz soila -en atzizkiaren eskuinean)

Diotenez, pipa erretzea osasunaren **kaltegarri** da. Jose Morales

Osasunaren **kaltegarri** diren gauzak. Jose Morales

Lurmendu zuenean bakoitza bere erara eta nahierara zabaldu ziren, lurraldearen **kaltegarri**. Felipe Juaristi

Bits itsusia leundu eta garbiturik ere, jarraituko du ozpin eta gorputzaren **kaltegarri**. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arras kaltegarri** (3); **gauza kaltegarri** (3); **guztiz kaltegarri** (3); **kaltegarri gerta** (3); **kaltegarri gertatzen** (3); **kaltegarri izan** (23); **kaltegarri izanen** (4); **kaltegarri izango** (5); **ondorio kaltegarri** (10); **osasunarentzat kaltegarri** (3); **osasunerako kaltegarri** (3); **oso kaltegarri** (5)

**eragin kaltegarria** (17); **gizakion osasunarentzat kaltegarria** (3); **gizartearentzat kaltegarria** (3); **gorputzarentzat kaltegarria** (4); **guztiz kaltegarria** (5); **kaltegarria iritzi** (3); **kaltegarria izan** (56); **kaltegarria izanen** (7); **kaltegarria izango** (17); **kaltegarria izanik** (3); **onuragarria edo kaltegarria** (3); **osasunarentzat kaltegarria** (7); **osasunerako kaltegarria** (5); **oso kaltegarria** (43)

**gauza kaltegarriagorik** (3)

**eragin kaltegarriak** (11); **guztiz kaltegarriak** (3); **ingurumenarentzat kaltegarriak** (3); **kaltegarriak izan** (25); **kaltegarriak izango** (8); **ondorio kaltegarriak** (44); **osasunarentzat kaltegarriak** (8); **osasunerako kaltegarriak** (10); **oso kaltegarriak** (9)

**eragin kaltegarriaren** (3)

**ondorio kaltegarrien** (4)

**ondorio kaltegarriez** (3)

**ondorio kaltegarririk** (5)

**kaltegarritzat hartzen** (3); **kaltegarritzat jo** (6); **kaltegarritzat jotzen** (3)

---

## kaltegarritasun *iz* kaltegarria denaren nolakotasuna.

Bekatuaren **kaltegarritasuna**. Elizen arteko biblia

Horiek, izan ere, ur beroaren **kaltegarritasuna** izaten dute, sufrea, alunbrea eta betuna, eta edaten direnean gorputzean sartzen dira, eta zainetatik barneratuz nerbioak eta artikulazioak erasaten dituzte, eta puztuz gogortu egiten dituzte. Santiago Iruretagoiena

Berehalaxe isurtzen dute kanpoko ingurune urtsura, eta, han, diluitu, eta **kaltegarritasun** maila galtzen du. Irene Aldasoro

---

## kaltegile 1 *iz* kalte egiten duen pertsona. ik **kaltegarri**.

Demagogoa, gaiztoa, **kaltegilea,** aberatsei gorroto eta pobreei maitasunik ez ziena. Josu Zabaleta

Gure kulturan, sufritzeak arima arazten duenez, penaz eta sufrimenduz ari den **kaltegilea** ez dela gaiztoa pentsatzeko joera dago. Ramon Saizarbitoria

**Kaltegilea** jatorriz zorduna da: aurreneko giza jarduera trukea eta salerosketa izan baitzen, gizakiak bere burua balio-emaile, tasatzaile eta tratularitzat zuen harro, ordaingarri bilakatzen zuen guztia. Markos Zapiain

**2** kaltegarria.

Bi praktika **horiek** «kaltegileak» dira bezeroentzat, eta horregatik aurkeztuko dituzte salaketak auzitegietan. Berria - Ekonomia

Biziaren ehunak erretzen ditiztek, eguzki-errainu **kaltegileak** bailiran. Xabier Olarra

---

## kaltekor *izond ipar* kaltegarria.

Laspelki **kaltekor** batzuekin airea ari dugu pozoinatzen! Herria

Ondarkin horiek, izan urtxo arroltzearen heineko pikorrak ala eskuaren beteko taloak, denak **kaltekorrak** dira. Herria

Noiz nahi aditzen da haxix hori droga "eztia" dela, beste batzuen aldean ez hain **kaltekorra**. Herria

Egia gordez edo gorde nahiz plantatu baita, haste hartan harturik erabaki bat ezin konprenitua, ezin onetsia eta guziz **kaltekorra** : untziaren urruntzea español ekarri uretarik […] hortakoak direnek garbi ikusten zutelarik untzia bi parte egiteko heinean zela ordukotz. Herria

Europak hamabi "zikintsuen" kontrako guduka sinatu du, zikintsu horiek direlarik industrian edo laborantzan ere erabiltzen diren pozoinki zernahi, ingurumenaren eta osasunaren **kaltekor** haundiak denak ere, jada Stokolmeko akordioan joanden maiatzean kondenatu zirenak. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**laspelki kaltekor** (3)

---

## kalteordain ik **kalte 12**.

---

## kaltetsu *izond* kaltegarria.

-Eta ezin duk beste nonbait pentsatu? **kaltetsua** duk denbora asko egitea eskusaduan. Juan Garzia

---

## kaltetu, kalte(tu), kaltetzen 1 da *ad* kaltea jasan.

Herrialde horretan 13.000 pertsona **kaltetu** ziren uholdeetan. Berria - Mundua

Leherketak berez egoitzaren mendebaldea suntsitu zuen, baina barneko elektrizitatea eta informatika sare guztia erabat **kaltetu** dira. Berria - Euskal Herria

Partenon zaharra, Grezia aldean, bere bizitzako 24 mendeotan baino gehiago **kaltetu** da, azken 24-30 urteotan. Pello Zabala

Herenegun **kaltetu** zen erreaktorea [...] 1975. urtean hasi zen lanean. Berria - Gaiak

Ez da zelula hilen geruza horregatik **kaltetzen** dena, epidermisaren azpiko geruza baizik. Irene Aldasoro

**Kalteturiko** zati txikiak, bada, berehalaxe konpontzen dira. Irene Aldasoro

Bizkar-muina **kalteturik** duten gaixoek. Irene Aldasoro

Birmoldatzen motelenak diren ekonomiak izango dira enpleguan **kaltetuenak**. Koro Navarro

Kasurik gehienetan umeak eta emakumeak izan ziren **kaltetuenak**. Berria - Gaiak

· **2** *(erabilera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kalte egin*** *agertzen da)* du *ad* kalte egin.

Sevillan, tornado zurrupari bat pasatu zen, aireportutik gertu: 75 auto **kaltetu** zituen. Pello Zabala

Zeren, Jainkoaren errukiaz eta graziaz, nire arima **kaltetu** ezin duenean, gorputzaren premiak eragozten saiatzen baita. Askoren artean

Biak adiskide bainituen orduan eta ez bat ez bestea **kaltetu** gabe jokatu bainuen. Piarres Xarriton

Zer eta homosexualak bakarrik **kaltetuko** lituzkeen minbizia! Bernardo Atxaga

Orain artekoak ongi azaltzen digu gai honetan eskubideen desmasiak zerga-kopurua urritu egiten duela eta ogasunak berak ezin duela herritarra **kaltetu,** bere burua ere **kaltetu** gabe. Andres Urrutia

Ez du, halaber, liburuaren azken partea **kaltetu** nahi. Anjel Lertxundi

1998aren erdian Erreserba Federalaren eta Japoniaren Bankuaren esku-hartze hitzartuak behar izan ziren, yena areago jaits ez zedin [...] eta eskualdeko beste diruak **kaltetu** ez zitzan. Koro Navarro

Herri etimologiak **kalteturiko** hitzen desitxuraketa mailak ez ditu funtsezko desberdintasunak sortzen. Isabel Arrigain

Mitch urakanak **kaltetuen** aldeko elkartasun-afaria. Patxi Iturritegi

**3** (era burutua izenondo gisa)

OMEk herrialde **kaltetuak** laguntzeko eskatu du. Berria - Gaiak

Estatuak departamendu hau lurralde **kaltetuen** zerrendan ezar dezan. Herria

Odol-globulu **kaltetuen** hemoglobinak gernua belzten duelako. Irene Aldasoro

· Baina gaizkilea txiro zelarik, kaltea ezin bazuen diruz edo lurrez ordaindu, orduan **kaltetu**/hartzekodunari zordunaren gorputza torturatzeko eskubidea ematen zitzaion. Markos Zapiain

Goruen suntsipenak eragindako zuzeneko eta zeharkako **kaltetuei** ematen zitzaizkien diru-sariak bertan behera utzi ziren. Iban Zaldua

Asteburuak Poliedroan pasatzen ditu, **kaltetuei** laguntzen. Pako Aristi

Zaurituak, atxilotuak, deportatuak eta orotariko egurtuak eta **kaltetuak**. Edorta Jimenez

· Lehenik eta behin, ez da dirudien bezain **kaltetu**-erraza. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **herri kaltetu** (3); **kaltetu guztiak** (3); **kaltetu guztiei** (3); **kaltetu kopurua** (3); **kaltetu nagusia** (4); **larri kaltetu** (5); **pertsona kaltetu** (4)
> **herrialde kaltetuei** (4); **kaltetuei elkartasuna adierazi** (4); **kaltetuei laguntzeko** (3)
> **gerrako kaltetuek** (3)
> **gerrako kaltetuen** (6); **gerrako kaltetuen elkarteak** (3); **kaltetuen aldeko** (3); **kaltetuen egoera** (5)
> **ekonomia kaltetuko** (3)
> **kaltetuta geratu** (3); **oso kaltetuta** (5)
> **gehien kaltetutako** (3); **itsasikarak kaltetutako** (5); **kaltetutako herrialdeetako** (3); **uholdeek kaltetutako** (3); **urakanak kaltetutako** (3)

---

## kaltetuezin *(corpusean* ***kaltetu ezin*** *soilik)* *izond* ezin kaltetuzkoa.

Kanpoko aldea, berriz, esan zitekeen Orthanc Dorrearen parekoa zela, gogorra, iluna eta leuna, suak eta altzairuak **kaltetu** ezina, suntsiezina. Agustin Otsoa

---

## kaltiar *izond* kaltetua.

Gorrotoaren **kaltiarrak**. Gotzon Garate

Badaki kalkulatzen gizon batek egin ahal dituen izugarrikeriak oro bere burua arriskuan jarri gabe; eta arriskurik gabe izateko krudel eta gaizto, emakumeak ditu **kaltiartzat** hautatu. Jon Muñoz

---

kaltzada ik **galtzada**.

---

## kaltzedonia *iz* silizearen aldaera.

Hiriko harresiaren oinarriak era guztietako harribitxiz zeuden apainduak: lehenengo oinarria jaspez, bigarrena zafiroz, hirugarrena **kaltzedoniaz,** laugarrena esmeraldaz, [...]. Elizen arteko biblia

---

## kaltzidiar *iz* Greziako Kaltzidiako herritarra.

Aldi batez eraginkorra izan zen korintiar eta **kaltzidiarren** kolonizazioaren erantzuna. Iñaki Mendiguren

---

## kaltzifikazio *iz* ehun organiko batean kaltzio gatzak kokatzea.

Fabryren arabera, CO2 kopurua handitu ahala, izaki horiek ahuldu egiten dira, karbono dioxidoak **kaltzifikazioan** duen eragina dela eta. Berria - Gaiak

---

## kaltziko *iz* kaltzioari dagokiona, kaltzioarena. ik **kaltzio 2**.

Ur sulfatatuak (sulfatatu **kaltzikoak** eta sulfatobikarbonatatu **kaltzikoak)**. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sulfatatu kaltzikoak** (3); **sulfatobikarbonatatu kaltzikoak** (3)

---

## kaltzio 1 *iz* gai bakuna, metal zuria eta biguna, 845° C inguruan urtzen dena (Ca; at. z. 20).

Lehen aipatu dizut leizeko estalaktitaren eta ahoko hortzaren arteko antza: biak **kaltzioaren** erreakzio kimikoari esker sortzen dira. Patziku Perurena

Neuronek **kaltzio** nahikorik ez dutenean agertzen bide da epilepsia. Berria - Gaiak

Odolean beti dago **kaltzioa**. Irene Aldasoro

Konposatu inorganiko bat da hezur-minerala, **kaltzioz,** fosforoz, oxigenoz eta hidrogenoz osatua. Irene Aldasoro

Aste batzuetan ohean dagoen gaixoak hezurretako **kaltzio** asko galduko du. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kaltziko**.

Gelatinak baditu kaltzita- edo aragonita-kristalak **(kaltzio** karbonato edo klarionaren kristal-formak): otolitoak. Irene Aldasoro

Azido urikoa, **kaltzio** fosfatoa eta **kaltzio** oxalatoa. Irene Aldasoro

Hipotalamoko sodio- edo **kaltzio**-kontzentrazioa handituz. Irene Aldasoro

Uzkurdura abiarazteko behar den **kaltzio** ioien kontzentrazioa ezin da handitu difusioaren bidez ez bada. Irene Aldasoro

**Kaltzio** anpuluak eta estradiol injekzioak hartzeko agindu zidan. Joseba Urteaga

Horregatik, normala baino apalagoa izan zen eguneko **kaltzio**-hartzea. Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiru atomo oxigenori eta bat **kaltziori** loturik. Juan Garzia

---

# kaltzita *iz* kaltzio karbonato naturala eta kristaldua ($CaCO_3$), izadian hainbat formatan agertzen dena.

Lezen (Araba), parkearen erdian, **kaltzita** ateratzeko proiektu bat aurkeztu zen 2004an, baina herritarrek atzera bota zuten. Berria - Euskal Herria

Ezingo dute Lezeko **kaltzita** ustiatu, kobazuloa parkearen barruan baitago. Berria - Euskal Herria

Urtean 100.000 tona **kaltzita** erauzteko. Berria - Euskal Herria

Lezeko **kaltzita** meategia. Berria - Euskal Herria

Gelatinak baditu **kaltzita-** edo aragonita-kristalak (kaltzio karbonato edo klarionaren kristal-formak): otolitoak. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaltzita erauzteko** (4)

---

# kaltzoi *iz* boxeolariaren galtza motza.

Normalean, horrelako **kaltzoiak** maileguan eskuratzen zituzten jendaurreko borroketarako, norberak erositakoak ez ziren klub osoan bizpahiru baino gehiago izango. Josu Landa

---

# kaltzoin ik **galtzoin**.

---

# kaltzontzilo ik **galtzontzilo**.

---

# kalu *iz*

-Lolita, atera ezan beste **kalu** bat hiretzako ere: ideia bat eman didan, ideia on bat eman didan... Koldo Izagirre

---

# kalumnia 1 *iz* gezur beltza, fede gaiztoz eginiko salaketa gezurrezkoa.

Lau dira nagusiki gure anai-arreben kontra egin ditzakegun delituak: **kalumnia,** lapurreta, lizunkeriak eragindako delituak, eta hilketa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez haiz libratuko **kalumniatik**. Juan Garzia

Oraintxe bertan **kalumnia** bat zabaldu du bere aurka. Bernardo Atxaga

**Kalumniak** botatzea. Berria - Harian

Baimena eskatu zidaten Papiri mezu bat bidaltzeko nire defentsan, traizioarena **kalumnia** bat zela esanez. Bernardo Atxaga

Horiek **kalumniak** dituk, klase-gorroto baten barne-adierazpen zikinak. Jon Alonso

Bertutea bera ere ez zaie itzurtzen **kalumniaren** erasoei. Juan Garzia

**Kalumniaz** eta salaketaz baliatzen ziren etsai bihozgabe, ahaltsu eta nekaezin haiek. Jose Morales

**«Kalumniazko** salaketak» egiteagatik hasi dira bi epaileak kasua ikertzen. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Jaurlaritzak «terrorismoa diruz laguntzen» zuela esan zuen Buesak eta **kalumnia** delitua egin zuela iritzi zion Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Bere kontra zein Habiben aurka **«kalumnia** kanpaina» abiatu izana leporatu zion CIAko zuzendari George Teneti. Berria - Mundua

---

# kalumniatu, kalumnia(tu), kalumniatzen du *ad* fede gaiztoz salaketa gezurrezkoa egin.

UA **«kalumniatu,** iraindu eta difamatu» zuelako jarri du salaketa Benitok. Berria - Euskal Herria

Maitatu etsaiak eta egin otoitz pertsegitzen eta **kalumniatzen** zaituztenen alde. Askoren artean

**Kalumniatzen** duen ahoak hil egiten du. Elizen arteko biblia

Sarritan gertatzen da hau, baina utzi dezagun alde batera, esan bezala, inork pentsa ez dezan nire hitzetan entzulearen axolagabekeria **kalumniatzen** dudanik edota gizakien gorreria. Imanol Unzurrunzaga

---

# kalumniatzaile *iz* kalumniatzen duen pertsona.

Marshal Villeroi **kalumniatzaile** zahar lotsagalduak. Xabier Olarra

Baina gobernu orok, errepublikar zein monarkiko, **kalumniatzaileari** ezarri behar dio akusatuari egokituko zitzaiokeen zigorra. Juan Martin Elexpuru

**Kalumniatzaile** doilor baten gisa zigortua izatea, besterik ez zuen lortuko. Juan Martin Elexpuru

· *izond* Lekuko faltsu eta **kalumniatzailea**. Iñaki Iñurrieta

---

kalustrape ik **kalostrape**.

---

# **kalutxo** *iz*

-Emaion hik egiten dakinan **kalutxo** horietako bat euskaldun urkakume honi, bihotza. Koldo Izagirre

---

kalvindar ik **kalbindar**.

---

# **kamafeo** *iz* irudi bat irarria duen harri bitxi obalatua, bereziki onizea.

Erromatarra da, hemezortzi urte ditu, aurpegia eta ilea Botticelliren Venusena; baina espresio basatiago bat, basatia eta gozoa aldi berean, begi sentsualak eta ile horia, aurpegi leun garbia eta itzalik gabea, **kamafeo** baten eztitasunez zabaltzen den bizkarra, harmonia sutsuko bularraldea bere garaipenezko lineak airean […]. Berria - Kultura

---

# **kamaina** **1** *iz* ohe modukoa, arrunta.

Dussel datorrenean, nire gelan lo egin beharko du, Margoten ohean, eta hark **kamainarekin** konformatu beharko du. Josu Zabaleta

Ohea eskale baten etzanleku edo **kamainarekin** nahas ez dadin. Jon Alonso

Lastozko **kamaina** batean etzaten da, zerua aterpe. Jon Alonso

Mikel txabolara iritsi eta **kamainan** etzan zen. Martin Anso

Han, **kamainetan** etzanda, zenbait soldadu zeuden lo, eta beste batzuk sutondoko epelean berotzen ziren. Koro Navarro

Margoten **kamaina** tolesgarria da. Josu Zabaleta

Atzealdean, berriz, gelaxka bat zegoen, komunaren aurrean, eta hozkailu txiki bat txoko batean, telebistarekin batera, lo egiteko **kamainaren** ondoan. **Kamainan** etzanda, isiltasuna zentinelen oihuek bakarrik urratzen dutela, zutaz pentsatzen dut. Javi Cillero

Zeldara sartuta, Lakatos ikusi nuen bi **kamainetako** batean. Matías Múgica

-Zein... **kamainatan** egin duk lo hik? -galdetu diot. Txillardegi

Beheko **kamaina** berari utzi nion. Joxe Austin Arrieta

**2** (itsasontzietan)

Belaontzi handietan egin gura nituen fortuna-egunetako lehenak, **kamainan** etzanda eman nituen. Edorta Jimenez

Gernua bai, halaxe egiten nuen, **kamainatik** jaitsi barik, kaiku taxuko ontzi batean, eta gero hura, egunean behin edo bitan, Maisuak husten zuen itsasora. Edorta Jimenez

-Marinel guztiek gordetzen dute katuren bat **kamaina** azpian. Javi Cillero

Nire **kamainaren** oholean ipini zuen zangoa, bota lotzearren. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan)

Ahots batek urruma egin zuen **kamaina**-ilaran. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kamainan etzan** (5); **kamainan etzanda** (4)
> **kamainaren ertzean** (4)

---

kamaleoi ik **kameleoi**.

---

# **kamamila** **1** *iz* konposatuen familiako basalandare usainduna, zurtoinak gehienetan etzanak, eta loreak erdigune biribil hori batez eta hosto zuriz osatuak dituena *(Matricaria chamomilla* edo *Chamomilla recutita)*.

Belar berdeko alfonbra zoragarri batek, larruzko beroki bat bezain ugaria, milioi bat margarita edo **kamamila** lorek apaindua, betetzen ditu puskailak azken zokoetaraino. Koldo Izagirre

Apangotik indioak jaitsi dira euren **kamamila**-errosario, euren erromero, euren ezkai sortekin. Juan Garzia

Aldazek mapa zabaldu zuen goroldio ihartuaren gainean, eta lagunak makurtu zirenean **kamamila** besterik bereizi ahal izan ez zuten basabelarren lurrun sarkorrak jo zituen hirurak. Koldo Izagirre

**2** kamamila-loreekin egiten den egoskin sendagarria.

**Kamamila** edaten ari dela, lekuaren biluztasunari erreparatzen dio. Javi Cillero

Kamarerak **kamamila** ekartzen dit, kikara ukitzen dut, oso bero dago. Mikel Hernandez Abaitua

Laranjazko freskagarria Leirerentzat eta **kamamila** beroa Amaiarentzat. Aitor Arana

**Kamamila** berdea jarri diote kikara gorri batean gizonari. Berria - Kultura

-Beharbada kafea barik **kamamila** hartu behar zenuen. Pedro Alberdi

Mutiko urduria nintzelako aitzakiarekin **kamamila** ematen zidaten. Pello Lizarralde

Niri gauez **kamamila** ematen zidan lo harrarazteko. Pello Lizarralde

**Kamamila** prestatzea nahi al duzu? -Maritxuren ahotsa baltsamoa duk hire barren zaurituan. Pedro Alberdi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kamamila hartu** (3); **kamamila kutsu** (3)

---

kamara ik **kamera**.

---

# **kamarada** **1** *iz* lagunkidea.

**-Kamaradak** frontean dira, jauna -erantzun zidan. Edorta Jimenez

Entzuna zutela han beste **kamarada** batzuek faxista oilobusti bat harrapatu zutela. Edorta Jimenez

Erail dituzten **kamaradak** zauzkatek hor, depositoan. Koldo Izagirre

-Stalin **kamaradak** Atlantikoraino hedatuko dik laster armada gorria. Koldo Izagirre

Beharrik Mao **kamaradak** putzura botako ditu laster, bestela euskal misionistek katolikotu eginen lukete Asia osoa. Koldo Izagirre

Soinujoleak *Nik banuen* ***kamarada*** *bat* piezari ekin zion. Anjel Lertxundi

**2** (deiki gisa)

-Gu ez gaituk anarkistak, **kamarada**! -haserretu egin zitzaidan. Edorta Jimenez

-Osasuna, **kamarada**! -esan zidan haiekin zegoen agure itxurako batek. Edorta Jimenez

**-Kamarada**! -ukabilaz egin zuen agurra. Edorta Jimenez

---

## kamaraderia *iz* lagunkidetasuna.

Ezin zuela, Idazlearenganako, pasio humanorik nabarmenduko zuen bestelako sentimendurik agertu, afektuzko **kamaraderia** batetik harantzago. Jon Alonso

Hain inozentea suertatu ez zen **kamaraderiazko** begirada hartan erantzuna bilatzen saiatu zen. Eider Rodriguez

---

kamaradun ik **kameradun**.

---

## kamarera *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **zerbitzari** agertzen da)* *iz* kafetegi edo hotel zerbitzaria, emakumezkoa. ik **kamerari**[1].

Joan hadi kafetegian ari den **kamarera** horrengana. Bernardo Atxaga

Imintzio bat egiten diot **kamarerari** eta berehala dator. Mikel Hernandez Abaitua

**Kamarerak** kamamila ekartzen dit, kikara ukitzen dut, oso bero dago. Mikel Hernandez Abaitua

---

## kamarero *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **zerbitzari** agertzen da)* **1** *iz* kafetegi edo hotel zerbitzaria, gizonezkoa. ik **kamerari**[1].

Klubetan lan egiten dugun **kamareroak** oso berandu oheratzen gaituk. Bernardo Atxaga

Keinu egin zion **kamareroari** hurbiltzeko. Bernardo Atxaga

**Kamareroak** garagardoak gure aurrean utzi eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemengo **kamarero** batek, propinekin bakarrik, egundoko dirutza irabaz lezake gau bakarrean. Harkaitz Cano

**Kamareroa** mahaiak prestatzen ari dela larunbata delako, afariak izango dituztelako. Alberto Barandiaren

Barra txikian zegoen **kamareroa** ere atera da. Pako Aristi

Hurbildu eta postre-zerrenda irakurri die **kamareroak**. Joxerra Garzia

**Kamarero** putakume hauek gero eta gogaikarriagoak dira, pentsatu zuen. Harkaitz Cano

Eta bazkaltzeko garaian, berriz, gu **kamarero**. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kamareroa** hurbildu zitzaidan eta lagundu egin ninduen berinaki poxiak biltzen. Daniel Landart

Norbaitek esan zuen bezala, putek eta **kamareroek** kalean egunargiz diosal egiten dizutenean, garaia da hiriz aldatzeko. Harkaitz Cano

**2** (hitz elkartuetan)

Hoteleko kafetegian aritzen zen **kamarero** lanetan. Bernardo Atxaga

Los Angelesko greziar egunkariak haren argazki bat publikatu zuen **kamarero** jantzian. Pablo Sastre

---

## kamarote *iz* itsasontziko gela.

Adolfek presaka zeharkatu du korridorea, bere **kamarotea** eta laguntzaileen gelak lotzen dituena. Harkaitz Cano

**Kamarote** batean datza lo eta, karelean, tipo eder belztua zigarretak erretzen ari da. Monika Etxebarria

Beheko **kamarotera** eraman nuen kamera, eta hantxe topatu, lehenengoz, neure gelakidea. Joxe Austin Arrieta

Ni **kamarotera** sartu nintzenean, goikoan zegoen eserita, txartelaren arabera; baina biontzat erosoagoa zen, nik uste, bera beheko ohean kokatzea. Joxe Austin Arrieta

Kabina-klaseko **kamarote** bat. Joxe Austin Arrieta

---

## kamastra *iz* kamaina.

Segituan oheratu zituen umeak piraten **kamastretan**. Julen Gabiria

Lasto hotsak **kamastraren** aldean... Pablo Sastre

Ongi afaldu, sexu harremanez goxatu eta **kamastran** lo gelditu zen. Gotzon Garate

Etxetxo batean nengoen, zeinak etxola edo borda baten karantza baitzuen, lastozko **kamastra** baten gainean Joan Mari Irigoien

---

## kameleoi *(orobat **kamaleoi** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kameleoi** agertzen da))* **1** *iz* muskerraren antzeko narrastia, mihi-luzea, azalaren kolorea ingurukoarenera egoki dezakeena *(Chamaeleo chamaeleon)*

Iguana bat; **kameleoi** bat, eta hiru urteko boa bat kristalezko bere kaiolan. Jon Muñoz

Hurbilduko da leihora, begiratuko dio **kameleoi** batek euli bati begiratuko liokeen bezala, eta disparatuko du eskua, zast. Alberto Barandiaren

**2** irud/hed

Bere anatomiak David Bowie **kameleoi** zaharrak baino zimur gehiago erakusten ditu-eta. Patxi Iturritegi

Inork bere jarrera-aldaketaz galdetzen zionean, **"kameleoia** naiz, baina ez gizartea baino gehiago", esaten zuen. Anjel Lertxundi

Askotan gure barrutik ari gara, baina beste batzuetan **kamaleoi** samarrak ere bagara. Berria - Kultura

Berlusconik ere **kameleoi** itxura hartu du, sektore guztiak pozik uzteko. Berria - Harian

---

## kameleondito *iz*

Kameleoi, **kameleontidoen** familiako narrasti saurioen izen arrunta. Unai Elorriaga

**kameleonismo** *iz* kalemeloia bezalakoa denaren jarrera.

Halaber, «gogor» salatu dute EB-IUk AHTren aferan darabilen **«kameleonismo** politikoa». Berria - Euskal Herria

---

**kamelia** **1** *iz* loretegietako zuhaixka, hosto berde dirdaitsuak eta arrosaren antzeko lore ederrak, baina biribilagoak eta usaingabeak, ematen dituena.

**Kamelia** handiaren hosto lodiek eta lore sorta oparoek sortzen zuten geruza trinkoak ez zuen uzten udaberriko eguzkia igarotzen. Ibon Uribarri

Bazirudien arratseko argia igeri zebilela **kameliaren** adaburuan. Ibon Uribarri

Tenplu hartako **kameliak** laurehun urte omen ditu eta bost koloreko loreak loratzen dira zuhaitz handian han-hemenka. Ibon Uribarri

**Kamelia** handian zegoen lore multzoa ez omen zen hain ederra eguzki betean. Ibon Uribarri

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kamelia** mota bat *(Camelia sasanqua)*. Kyôtoko Tsubaki tenplua lorez beteten zuen **kamelia**-arbola petalo-galtzailea. Ibon Uribarri

**Kamelia** lorea delikatua da oso, ez hotza eta ez eguzkiaren galda jasan ezin dituena. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kamelia** loreek sortutako lilurapena. Ibon Uribarri

**3** landare horren lorea.

Arrosaren ondoan, munduko loreetan ederrenetakoa duzu **kamelia**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hark beti esaten zidan orkideak eta **kameliak** ez zirela nire duineko loreak. Mirentxu Larrañaga

**Kameliaren** kastakoa zara, ederra baina usainik gabekoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kamelia** eder zuri bat, herdoil orbanik gabea. Karlos Zabala

Cadinek bi loreri bakarrik zien begirune handia: amiñi lore zuriari eta **kameliari**. Karlos Zabala

Eta **kamelia** gorriak, multzo handitan, hosto artetik geroaren iragarle ausart. Txillardegi

Eta bular aldean josita daukan izar horiak ere **kamelia** horiaren antza du. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kamelia arbola** (5); **kamelia petalo galtzailea** (3)

---

kamelu ik **gamelu**.

---

**kamera** *(orobat **kamara** g.er.)* **1** *iz* argazkiak, edo zinema edo telebista iduriak hartzeko tresna.

Aparatu zinematografiko guztietan **kamera** da ikus daitekeenarekin lotura estuena duena. Josu Zabaleta

**Kameraren** mugikortasun hori zinemaren hasiera- hasieratik egin zen ia, lehendabizi oinarri mugigarriren baten gainean jarriz (ontzia, beribila), eta geroago, **kamera** arindu zenean, bizkarrean erabiliz. Josu Zabaleta

**Kamera** sorbaldan hartuta. Berria - Kultura

**Kamera** filmatzen ari den leihoko pertsianak. Koldo Izagirre

Zientzialari gazte batek eskuan zeukan hezur txiki bat ari zen **kamera** enfokatzen. Unai Elorriaga

Mahaira jesarri zen, bere Contax **kamera** dotorea hantxe utzita. Edorta Jimenez

"Super 8" **kamera** zahar bat. Juan Kruz Igerabide

TBko **kamerak** bertan zirela ohartuta. Txema Ramirez de la Piscina

Internetez zelatatzeko **kamerak**. Antton Olano

**Kamera** baten objektiboa garbitzen hasi zen Justo. Joxemari Urteaga

**Kamera** sofistikatu baten ezaugarri asko ditu begiak, baina askoz leku txikiagoa hartzen du eta guztiz automatikoak dira kontrolak. Irene Aldasoro

**Kamera** sinple batean, iritzira aukeratzen da askotan obturadorearen lastertasuna. Irene Aldasoro

**Kamera** finkoa da eta ez du plano aldaketarik. Berria - Harian

**Kamera** modernoek fokatze automatikoa izaten dute askotan. Irene Aldasoro

**Kamera** digitalaz edo sakelako telefonoaz argazkiak ateratzeko prest. Berria - Kultura

Sonyk erosiko dizkio soberan dituen leiar digitaldun reflex **kamera** guztiak. Berria - Ekonomia

Irudi bidezko zaintzarako 12 **kamera** jarriko ditu CAFek trenean. Berria - Ekonomia

**Kamera** eta teleobjetiboa zorroan gorde eta basoan barrena urrundu zen Tripodea eta **kamera** eskuetan hartuta irten zen eskaileretara. Migel Angel Mintegi

**Kamera** estroboskopiko batekin dago filmatuta. Oskar Arana

Filmatu baitute **kamera** gorde batekin. Herria

*ik beherago* 7. Askoren artean

Esku banatan ipini zizkion **kamera** eta flasharen tramankulua. Josu Landa

Begira daukan **kamera** bat. Antton Olano

**Kameraren** diafragmak begiko irisa imitatzen du. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aspaldi aztertuak dituzte, beraz, operatzaileek eta zinemagileek egin daitezkeen **kamera**-mugimendu guztiak. Josu Zabaleta

**Kamera**-diseinatzailearen hurrengo arazoa aberrazio kromatikoarena da. Irene Aldasoro

Carsten **kamera**-gizonak goizeon esan didanez, [...]. Edorta Jimenez

*ik beherago* 4. Askoren artean

Takoi zorrotza oholean inkatu eta desafio egin die zain dituen **kamera**-objektiboei. Patxi Iturritegi

**Kamera**-robot batzuek argiztatu eta filmatzen dituzte agertoki horiek. Berria - Kultura

Austriako 'hacker' talde bat Vienako Poliziaren **kamera** sisteman sartu da. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argazki-**kamera** merke baten objektiboa f/16koa izan daiteke; horrek esan nahi du foku-luzeraren 1/16 dela objektiboaren irekiera. Irene Aldasoro

Hilabete besterik ez zuen zine-**kamera** benetako tanke txiki baten gainean zegoen. Iñaki Mendiguren

Kontraplanoan, telebista-**kamera** bat ari da festa grabatzen. Anjel Lertxundi

Kamera batek bezala funtzionatzen du begiak, edo, hobeto esan, bideo-**kamera** batek bezala. Irene Aldasoro

Bideo **kamera** bidezko grabaketak egiten ari direla. Berria - Euskal Herria

Energia handiko bi azeleragailu lineal eta kardiologia nuklearreko Gamma-**kamera**. Berria - Euskal Herria

**4** kameralaria.

Adinak gazte haien taldeko egiten bazuen ere, haien arteko jantziena baino askoz ere jantziagoa zen, eta halako jarrera heldu batez (bere irizpideak aurrera ateraz, alegia) hitz egiten zuen **kamera** edo argiztatzaile gazteekin. Anjel Lertxundi

Itzulera, berriz, **kamera** eta gainerako teknikoekin batera egingo omen nuen. Anjel Lertxundi

AEBetako soldaduek Al Arabia telebistako **kamera** bat atxilotu zuten. Berria - Mundua

Une horretantxe bertan, telebistako estudioan, goizean grabatutako irudiekin lanean ari da **kamera**. Anjel Lertxundi

-Efe-ren **kamera**! Iñigo Aranbarri

Edizioa eta **kamera**: Xabier Zapirain Berria - Kultura

### 5 ***gas kamera*** ik **ganbera 6.**

Ingeles irratiak esaten duenez, **gas kameretan** hiltzen dituzte. Josu Zabaleta

Polonian eta Errusian milioika pertsona baketsu ari direla hiltzen, besterik gabe **gas kameretara** bidaliz. Josu Zabaleta

Auschwitzen **gas kamerarik** ez zegoela esan nuenean oker nengoen. Berria - Mundua

Handik aste batzuetara hil zen, 1944ko urrian edo azaroan, **gas kamerak** funtzionatzeari utzi baino lehentxeago. Josu Zabaleta

### 6 ***kamera frigorifiko***

**Kamara** frigorifiko zilarreztatu eta aseptikoak han eta hemen, haragi fresko eta hilberria ezkutatuz. Harkaitz Cano

### 7 ***kamera ezkutu***

**Kamera ezkutu** batekin ibili zen denbora guztian zehar, den-dena grabatzen. Iban Zaldua

Ez nintzateke harrituko hemen ere baten bat dena **kamera ezkutu** batekin grabatzen ibiliko balitz. Patxi Iturritegi

**Kamera ezkutuko** irudi horiek ez dakit noizkoak izango diren, baina agian sasoi hartakoak dira. Berria - Euskal Herria

### 8 ***kamera geldian*** *(3 esaldi; 3 liburutan)* ohikoa baino erritmo geldiagoan.

Soineko zuri hegalariz niregana zatoz beso zabalik, **kamera geldian**. Iñaki Zabaleta

Arnasa hartu ere **kamera geldian** bezala egiten zuen. Joxe Austin Arrieta

· **Kamera geldiko** irudietan. Joseba Sarrionandia

### 9 ***kamera geldoan*** *(7 esaldi; 7 liburutan)* kamera geldian.

Kamera **geldoan** dantzatutako salsa baten antzekoa zen goizaldeko hura. Unai Iturriaga

Guztia kamera **geldoan** ikusten nuela iruditu zitzaidan. Iban Zaldua

Telebistan ikusiak ditut surflariak olatu ganga baten azpian segundo amaiezinak pasatzen, kamera **geldoan**. Pako Aristi

Zeru horiek hainbat joan-etorri egindako disidente baten beste itzulera bat da, kamera **geldoan**. Markos Zapiain

### 10 ***kamera ilun*** pareta opakoak dituen kaxa modukoa, non zulo txiki batekik sartzen diren argi izpiak kanpoko objektuen irudi gainazpikatua isatzen baitute zuloaren aurrez aurreko paretan.

Islatutako izpi horietako batzuk **kamera iluneko** zulotik barrura sartzen dira eta objektu horren irudi (itzulikatu) bat eratzen dute atzeko aldeko horman. Josu Zabaleta

Zer gertatzen den **kamera ilun** bateko hondoko horman gauza baten irudia eratu nahi denean. Josu Zabaleta

**Kamera ilunaren** printzipioa. Josu Zabaleta

### 11 ***kamera korazatu*** bankuetan dirua gordetzeko gela edo kutxa gotorra.

Agian zuek ez duzue jakingo **kamera** korazatu batek nola funtzionatzen duen. Xabier Olarra

**Kamera** korazatua ixterakoan ohiko neurriak hartzen dituzue, ez? Xabier Olarra

Konbentziturik nago **kamera** korazatuan gizon bat ezkutatuta dagoela. Xabier Olarra

· Bankura itzuli ginen, eta Snellingek eta biok **kamera** itxi genuen, eta bera joan zen. Xabier Olarra

Lagunduko dizut **kamera** irekitzen. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argazki kamera** (41); **bideo kamera** (18); **kamera digital** (4); **kamera ezkutu** (4); **kamera geldian** (3); **kamera geldoan** (7); **kamera hartu** (8); **kamera jarri** (5); **kamera kendu** (3); **kamera korazatua** (6); **kamera korazatuan** (7); **kamera korazatutik** (3); **kamera mugimendu** (3); **kamera txiki** (6); **telebista kamera** (5); **telebistako kamera** (3); **zine kamera** (3)

**argazki kamara** (4)

**argazki kamerak** (10); **bideo kamerak** (7); **kamerak ezarri** (4); **kamerak hartutako** (3); **kamerak jartzea** (4); **kamerak jartzeko** (3); **segurtasun kamerak** (5); **telebista kamerak** (8)

**argazki kamerarekin** (3); **bideo kamerarekin** (3)

**kameraren begia** (3); **kameraren mugimendu** (5); **kameraren objektiboak** (3); **kameraren objektibotik** (4)

**bideo kameraz** (4)

**telebista kamerek** (3)

**argazki kameren** (5); **telebista kameren** (4); **zaintza kameren** (3)

---

## kameradun *(orobat **kamaradun**)* *iz* kameralaria.

«Kontuz gero! hemen argazkirik ez!», ohartarazi dute batzuek **kameradunak** ailegatu orduko. Berria - Harian

Alegia deus ez, kanpotik heldu den **kamaraduna** nor den jakin nahi dute. Berria - Harian

---

## kameralari *(orobat **kamerari**)* *iz* zinema edo telebista kamera erabiltzen duen pertsona. ik **kamera 4.**

Zineman era askotako argi-estiloak izan dira, eta badira **kameralariak** edo zinema-zuzendariak beren estilo berezia dutenak. Josu Zabaleta

Kurt delako **kameralari** baten adiskide egin zen Ivan, filmaketak iraun zuen denboran. Iban Zaldua

Reuters agentziarako lan egiten zuen **kameralari** irakiar bat izan zen atzo laugarren hildakoa. Berria - Mundua

James Miller telebista **kameralari** britainiarra hil zuten soldaduek, Rafan bertan. Berria - Mundua

50 kazetari, argazkilari eta **kameralari** inguru bildu ziren. Berria - Kirola

Komunikabideetako kideak, kazetariak eta **kamerariak** izan ziren performance-an parte hartzen lehenak. Berria - Kultura

"Lau haizetara" programaren grabatzen ari ziren **kamerariak,** saileko zuzendariak eta pilotoak bizia han utzi dute. Herria

---

## kamerari[1] *iz* kafetegi edo hotel zerbitzaria. ik **kamarero; kamarera.**

Ospitalera ikustera joan zitzaioan itsasontziko **kamerariari** esan zionez. Edorta Jimenez

---

kamerari[2] ik **kameralari.**

## kamerino *iz* artisten gela, jantzigela.

Modeloek modako jostunaren soinekoak teatroan aurkezten zituzten gauean [...] gure eginkizuna zen damatxo horien **kamerinoetan** egotea. Matías Múgica

Miratu nuen pasilloa, **kamerino** guztiak arakatu, banan-banan. Matías Múgica

Eszena-zuzendaria lasterka azalduko da **kamerinoetako** atetik. Josu Zabaleta

Bostondik etorri dira opera hau espreski ikustera eta bukaeran **kamerinoan** Ainhoarekin egon nahi omen dute. Harkaitz Cano

Operaren ondoren, **kamerino** bakoitzaren sarreran diboak errezibitu nahi dituenen zerrenda azaltzen omen da. Harkaitz Cano

Artistentzat egokituriko kamioi bat da **kamerinoa**. Harkaitz Cano

**Kamerino** bezala erabiltzen nuen kafetegi atzeko gelan geunden. Bernardo Atxaga

---

## kamerlengo *iz* Eliza Katolikoko kardenala, Kamera Apostolikoaren buru dena eta altxorraz arduratzen dena, besteak beste.

Protokoloari jarraituz, berehala zigilatu zuen kardinal **kamerlengoak** hil berriaren gela, eta hamar-hamabost egunera, berriz, Sixtoren Kaperan itxiko dira Konklabeko kardinalak, haren ordezkoa aukeratzeko. Berria - Harian

---

## kamerografo *iz* kameralaria.

Anja soinu teknikaria treneko belarria dela; begia, ostera, Karlsen **kamerografoa** da. Edorta Jimenez

---

## kamerundar 1 *izlag* Kamerungoa, Kameruni dagokiona.

Beñat Amorena-ren *Burrunka* taldea, Tui Mamaki, Nubians **kamerundar** ahizpak, Kamel Zekri nigeriarra, Mixel Etxekopar eta bertze... Herria

Sally Nyolo **kamerundar** kantariak bazterrak xarmatuko ditu. Herria

Harmaila horien artean hil zen Foe jokalari **kamerundarra**. Berria - Kirola

• **2** *iz* Kamerungo herritarra.

Pierre Webo **kamerundarrak**. Berria - Kirola

Jatorriz **kamerundarra**. Iñigo Aranbarri

Igandean Deportivoren aurka jokatzeko prest dago **kamerundarra**. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **pierre webo kamerundarrak** (4); **webo kamerundarrak** (5)

---

## kamescope *iz*

Ez zakiten zer egin, zer erran ; hain uros ziren familiaren ikustea ; eta hemen nere ama eta hunen anai arrebak beren iloben ezagutzea eta entzutea **kamescope** delako horri esker. Herria

---

## kamikaze 1 *iz* japoniar armadako hegazkin suizida, bigarren mundu gerran leherkariz beterik helburuaren kontra oldartzen dena.

Halako batean **kamikaze** batek bezala egin nuen murgil Españarantz, motorrari gero eta gehiago eskatuz. Koldo Izagirre

· *(beste izen baten eskuinean)* Hegazkin **kamikaze** baten kontrol blokatuen aurrean ikusten zuen MTGDk bere burua. Jon Muñoz

**2** *hed* ekintzaile suizida, leherkariz beterik helburuaren kontra oldartzen dena.

Hesiaren helburua **kamikaze** palestinarrek israeldarren aurka egiten dituzten erasoak saihestea da. Berria - Mundua

Hartan du preseski zartarazi **kamikaze** multxo batek zartagailuz betea zen otomobil bat. Herria

**Kamikaze** batek hilketa eragin du Bagdadeko hegoaldean. Pako Aristi

· *(beste izen baten eskuinean) izond* Palestindar **kamikaze** horietarik batek bere burua jauzarazi du judu otobus baten barnean. Herria

Aurtengo maiatzean, Denis Coslett «zakur **kamikazeen** trebatzailea» hobiratu dute. Berria - Mundua

**3** irud/hed

'Entzun'-en azken zenbakian Imanol Ubedak **kamikaze** gisa ikusten ditu aldizkaria abian jarri zutenak. Berria - Kultura

Txileko *Revista Casagrande*-ko kide **kamikazeen** ekimena da. Berria - Kultura

Super Aguri-Hondak bi gidari **kamikaze** ditu, mekanikarien zoritxarrerako **Kamikaze** xume, sineskor eta umil baten moduan funtzionatzen nuen, ene kideen antzera. Itxaro Borda

Esan ez daitekeena esateko ahalegin **kamikazea** da poesia. Joxerra Garzia

---

## kamillero *iz* andalaria, anda-eramailea.

Batailoiko **kamilleroa**. Ramon Saizarbitoria

· Ordizian jaio zen 1913an, eta Fruizen hil, 1937an, Bilboren setioa hautsi nahian ziharduen armada frankistan **kamillero** zebilela. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## kaminero 1 *iz* bidezaina.

Haren aita **kamineroa** zen eta zubi bat egiten ari zelarik hil zen. Pello Lizarralde

Bidezain edo **kaminero** talde batzuk. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zubigaineko **kaminero**-etxean lehertu zen frankisten aldekoek jarritako bonba. Xabier Etxabe

Ez dakigu **kaminero**-etxe hura inoren gordeleku izan ote zen. Xabier Etxabe

**2** *irud*

Kontua da, urteek aurrera egin, eta komen kontu honetan, ohartzen zarela, beste hainbat gauzatan bezala, hagitz errazagoa dela irakurtzea bera, bere bidezidor, errepide, autobide eta stop eta "bide eman" seinaleekin, testuetan barrena **kaminero** ibiltzea baino. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaminero etxean** (3)

## **kamino** *iz* errepidea.

Aginetan bada zati bat, trenbidea **kaminoaren** ondo-ondoan, paraleloki joaten dena. Pako Aristi

**Kaminoan** motor hotsa entzun orduko, harantz abiatzen da ziztu bizian. Joxerra Garzia

Asfaltorik gabeko **kaminoa**. Pako Aristi

Euri asko bota du, eta **kaminoak** ere lupeztuta daude. Pako Aristi

Itsasertzeko **kaminoa** utzi eta mendialdera hartzerakoan. Pako Aristi

Argiak piztera noa, mendiko **kaminoetan** galduko balitz ere, Luisak nire tabernaren abaroa aurki dezan. Pako Aristi

**Kamino** ondoan taberna bat dago. Pako Aristi

**Kamino**-bazter eta zangetan tiroz hildakoen historia. Jokin Urain

Hogei lagun Ondarretako kartzelatik atera eta **kamino** bazter batean garbitzeko. Inazio Mujika Iraola

## **kamio** *iz* errepidea.

Postilioi bihurtuta, lehenengo mandoan edo zaldian igota joaten nintzen, gainerako guztiei bidea erakutsiz; behar-beharrezko gauza, orduko **kamioak** ez baitziren oraingoak. Bernardo Atxaga

Autobidetik atera eta **kamio** arrunta hartu ahal izango zuela orduan. Imanol Zurutuza

Gure etxetik **kamioa** Arruako estazio aldean ikusten da, ta ematen zuan su artu zuala, gau batean. Iñigo Aranbarri

Banoa Baranda izeneko herriskatik Renedo aldera, eta **kamio** bazterrean zikloturisten errosarioa. Patziku Perurena

**Kamio** bazterrean itxarongo zioagu eta kargadorea buruan hustuko zioagu. Jokin Muñoz

## **kamioi** *(orobat* ***kamion*** *g.er. eta* ***kamiun*** *g.er.)* **1** *iz*

Gazte luzea Ford **kamioi** batera igo zen. Alberto Ladron Arana

Obabako errepide nagusian, **kamioi** batek bozina jo zuen. Bernardo Atxaga

**Kamioi** batek blokatzen zuen enpresako sarbidea. Pablo Sastre

Armak eta munizioak **kamioian** kargatu. Inazio Mujika Iraola

Ikuskatzaileek arrainez betetako edozein **kamioi** geldiarazi dezakete. Suhiltzaileen **kamioi** gehiago iristen ari ziren. Lopez de Arana

Gizon bat hil da Urnietan, **kamioi** batek harrapatuta.

Langile bat hil da Iruñean, **kamioi** batek azpian harrapatuta. Berria - Ekonomia

Motor gidari bat hil da Orkoienen, **kamioi** bat jota.

Aginagan […] auto batek eta **kamioi** batek elkar jo zuten.

Repsol konpainiako **kamioi** bat irauli zen atzo BI-630 errepidean.

Ezbeharra Gallastegiren senideak **kamioi** bat aurreratzen hasi zirenean gertatu zen. Berria - Euskal Herria

**Kamioiaren** kabinan. Inazio Mujika Iraola

Ondorioz betroin zahar guziak kontrolatu eta hil bezain laster Agen-eko erretegira eramaiten dituzte **kamiunetan**. Herria

**2** (izenondoekin)

**Kamioi** altu bat zen, sei gurpilekoa. Koro Navarro

Familia guztia **kamioi** txikian sartu zen, eta gu, haurrok, atzean, gauzen gainean. Juan Kruz Igerabide

Guardia zibilen jeep eta **kamioi** berdeak patruilan ibili ziren egun osoan. Joseba Sarrionandia

Tankeak atera zituzten kalera, **kamioi** metrailetadunak, bazookak, eta desfile izuzkoa antolatu zuten, pauso irmoz, sorbaldak zut, begiradak aurrera. Karlos Linazasoro

Coca-Cola banaketako **kamioi** herdoilduaren atzeko plataformara igota. Juan Luis Zabala

**Kamioi** militarraren iraulkian buruz behera etzanda gaude Gorria eta biok. Joseba Sarrionandia

**3** kamioi betea edukiera neurri gisa. ik **kamioikada.**

Olentzerok Azkuna alkateari eta udaltzainei **«kamioi bete** ikatz» ekarriko diela esan zuten. Berria - Euskal Herria

Atzetik segika, Irujok agindu zigun bezala, **kamioi** bete gudari. Inazio Mujika Iraola

Australian **kamioi bete** suhiltzaile behar izan zutela amildegi batetik jausitako koala igotzeko. Unai Elorriaga

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kale izkinan katu hil bat zegoelako, **kamioi** gurpilen batek jo eta bertan zapaldua. **Kamioi**-ardatz bati lotuta zeharkatu zuen Mohamedek Gibraltar itsasartea. Joseba Sarrionandia

Behiala isotermo izandako **kamioi**-kaxa orain txabola bihurtuan. Juan Luis Zabala

**Kamioi** istripuek auto ilarak sortu dituzte A-8 autobidean. Berria - Euskal Herria

**Kamioi** ilara luzeek iragarri didate mugaren hurbiltasuna. Jon Arretxe

Biriatuko pasabidean sortzen diren **kamioi** pilaketak saihesteko. Berria - Euskal Herria

**Kamioi** zirkulazio handiak auto ilarak eragingo dituelakoan. Berria - Euskal Herria

**Kamioi**-partiketak, garraioak eta halakoak gurditxo batez egitera behartu gintuzten. Karlos Linazasoro

Zer da hau, baina! **kamioi** festa dugu, ala! Pablo Sastre

Kaboa **kamioi**-zisternaren bolante atzean jarri zen. Jon Alonso

Extremadurako herri txikietan barrena ibiltzen diren **kamioi**-eszenatokiak. Berria - Kultura

Montblanc peko **kamiun**-bide famatu harek. Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txinpartak eta koloretako bolak jaurtikitzen zituen suhiltzaile-**kamioi** gorri baten barruan. Lopez de Arana

Eskolatik etxera bueltan, aldaira-**kamioia** etxe aurrean ikusi nuenean. Eduardo Matauko

Etxetik irten eta kalerako bidean haurrak zetozen, amen eskuei helduak, eta garraio **kamioiak** seinalatzen zituzten. Lander Garro

Beste auto zuri bat, butano **kamioia,** taxi bi... Sonia Gonzalez

Garagardo-**kamioi** batek burrunba egin zuen beherago, kale berean. Lopez de Arana

Hiltzat jo ninduten azkenean eta hozkailu-**kamioi** batean ikusi nuen neure burua, hiltegiko bidean pentsatzen dut. Joxan Elosegi

Eta ez dut aipatuko azkenean Cutlass-a bideaz bestaldeko garaje hartara bertara eraman zuen **garabi-kamioiarena**. Oskar Arana

Bonba-**kamioi** batez eginiko atentatu suizidak Poliziaren egoitza nagusia suntsitu du. Berria - Mundua

**6** ***kamioi-gidari*** ogibidez kamioiak gidatzen dituen pertsona. ik **kamioilari.**

Senarra, Larry, Consolidated Freight-eko **kamioi** gidaria zen. Koro Navarro

**Kamioi** gidaria zela eta batzuetan aste bat edo bi kanpoan egiten zituela. Koro Navarro

Arabiarren petrolioak gora egiten baldin badu, **kamioi** gidariak protestan hasiko dira. Pello Salaburu

Merkantzia-trenetan ezkutatzen nintzen; **kamioi** -gidariekin bidaiatzen nuen. Eskarne Mujika

**Kamioi** gidaria barruan harrapatuta geratu zen.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auto eta kamioi** (3); **bonba kamioi** (5); **bonba kamioi bat** (4); **hozkailu kamioi** (3); **kamioi bat aurreratzen** (3); **kamioi bat gurutzatuta** (5); **kamioi bat irauli** (13); **kamioi bat jo** (21); **kamioi bat jota** (4); **kamioi bat leherrarazi** (3); **kamioi bat lehertu** (3); **kamioi batek harrapatu** (3); **kamioi batek harrapatuta** (17); **kamioi gidari** (29); **kamioi gidari bat** (10); **kamioi gidaria** (12); **kamioi gidariak** (10); **kamioi gidariaren** (3); **kamioi gidariari** (3); **kamioi handi** (9); **kamioi handi bat** (5); **kamioi ilara** (3); **kamioi militar** (8); **kamioi pasatzen** (3); **kamioi txiki** (10); **kamioi txiki bat** (3); **kamioi txikia** (4); **kamioi txikiak** (3); **kamioi ugari** (3); **kamioi zahar** (3); **suhiltzaile kamioi** (10); **suhiltzaile kamioi bat** (6); **suhiltzaileen kamioi** (7); **suhiltzaileen kamioi bat** (4)

**kamioia etorri** (3); **kamioia gelditu** (4); **kamioia gidatzen** (4); **kamioia jo** (3)

**kamioiak gelditu** (3); **kamioiak gelditzen** (3); **suhiltzaile kamioiak** (3)

**auto eta kamiunak** (3)

**kamioian sartu** (4)

**kamioiaren gidaria** (5); **kamioiaren kontrola galdu** (3)

**kamioien arazoa** (3); **kamioien lerroa** (3); **kamioien trafikoa** (3)

**kamioietan sartu** (3)

**kamioietara igan** (3)

**kamioietatik jaitsi** (3)

**kamioik elkar jo** (10)

**kamioiko gidaria** (4)

**kamioitik jaitsi** (6)

---

## kamioika *(corpusean **kamiunka** soilik) adlag* kamioi beteka.

Alabainan biltzeko sasoina baita, tomatea **kamiunka,** jateko kuia berdin. Herria

Hortik **kamiunka** garraiatzen zuten hirira. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## kamioikada *iz* kamioi betea edukiera neurri gisa. ik **kamioi 2; kamiuntara**.

Orain dela gutxi ekarri omen zuten 15.000 tonako **kamioikada** bat egur. Berria - Kirola

Adreilu- **kamioikada** bat deskargatzen ari zela. Jon Alonso

· Menendez Pelayo ibiltokiko ateetatik **kamioikadak** gazte abiatu dira frontera. Edorta Jimenez

---

## kamioilari *iz* kamioi-gidaria.

**Kamioilari** bat zen, ibilgailua bide bazterrean aparkatuta zeukana. Jon Arretxe

**kamioilariak** eta beste garraiolariak. Joan Mari Irigoien

Sintrabik grebara deitu ditu bertako **kamioilariak,** kanpoko beharginek «erdi prezioan» garraiatzen dituztelako merkantziak. Berria - Ekonomia

**Kamioilari** bat hilda topatu dute atseden gune batean. Berria - Ekonomia

11 etorkin zeramatzaten bi **kamioilari** atxilotu dituzte Castellon. Berria - Mundua

Murat Yuce **kamioilari** turkiarra, tiroz hila. Berria - Mundua

Gogoa sendo eta azkar behar zuen **kamioilari** lan berezi haren eramaiteko. Eneko Bidegain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kamioilari bat hil** (3); **kamioilari turkiar** (4); **kamioilari turkiarra** (3)

---

## kamioitxo *iz* kamioi txikia.

Herri txikietan etxez etxe doazen **kamioitxo** horien antzera. Edorta Agirre

Tenientea eta artilleroak kopetilun eta isilik ziren **kamioitxoaren** oinean. Edorta Jimenez

---

## kamioitzar *iz* kamioi handia.

Gau eta egun ibiltzen ziren **kamioitzarrak** atzera-aurrera, eta lantegiko tximiniari kea zerion etenik gabe. Eskarne Mujika

Autobide honetan ikusten diren **kamioitzarretan** ekartzen zizkioten; nik ere bidaia bat egin nuen behin Mexiko Berritik isilpeko karga batekin. Javi Cillero

---

## kamioizain *(orobat **kamioi zain** eta **kamiunzain**) iz* kamioi-gidaria, kamioilaria.

**Kamioizainak** ez daki nora joan behar dugun, nik ere ez. Marzel Etxehandi

Guardiano deitzen den etxean, Ibañetatik jaustean, **kamioi zainek** deklaratzen zituzten Iruñetik karreatu gauzak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Kamiunzainak** ere kexu, irabazi apalegiak dituztela eta nagusiak ez direla hitzekoak. Herria

Kamiuna ixkuli da urruntxago eta **kamiunzaina,** 46 urteko gizon bat, Antonio Da Silba, kolpez hil da han berean. Herria

---

## kamioizale *(orobat **kamioi zale** eta **kamiunzale**) iz* kamioi-gidaria, kamioilaria.

**Kamioizaleak** ikusi nituen han-hemenka, taldeka, nazioarteko garraiolariek hain berea duten keinu-hizkera nonahitarrean solasean. Anjel Lertxundi

**kamioizale** -itxurako bospasei gizon. Francisek beste **kamioi** zale bat hil egin zuen eta haren 23 urteko andregaia bahitu. Gotzon Garate

· **Kamioizale** ibilia zen Frantzian. Javi Cillero

Bera **kamioi zale** ibiltzen zen bideetan 26 lagun, gehienak neskatxak, hilak edo galduak izan dira. Gotzon Garate

---

kamion ik **kamioi**.

# kamioneta *(orobat **kamiuneta** g.er.) iz* kamioi txikia.

**Kamioneta** zahar, berde eta luzexka. Aingeru Epaltza

Gero, **kamionetako** atzeko atea zabaldu, zurezko arranpala ipini, eta [bretoia] barrura sartzen saiatu da isatsetik gogor tiratuz. Patxi Iturritegi

**Kamionetaren** kabinara itzuli zen. Pello Lizarralde

Ganadua **kamionetatik** jaitsarazi, eta pabiloi handi batera eraman du. Patxi Iturritegi

*Kommandantur*-etik Hendaiako geltokira **kamioneta** batean eraman zuten, bertze bederatzi presorekin batean. Eneko Bidegain

Bere **kamionetarekin** iristen da, Lucy alboko eserlekuan duela, eta motorra itzali gabe itxaroten du. Oskar Arana

**Kamioneta** kargatu eta aitzina. Berria - Euskal Herria

**Kamiunetaren** tuta urrunetik entzuten da. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kamioneta berde** (5); **kamioneta blua** (4); **kamioneta zahar** (6); **kamioneta zuri** (4)

# kamionetazale *iz* kamioneta-gidaria.

**Kamionetazaleak** Eleanorri bera aurretik sartzeko esan zion. Gotzon Garate

# kamiseta *(orobat **kamixeta** g.er.) iz* elastikoa.

Ohean etzanda, kuleroak eta **kamiseta** baino ez soinean. Unai Iturriaga

Besoak gero, **kamixeta** janzteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Laguna txandal barneko **kamisetaren** poltsikoa arakatzen ari zen. Aingeru Epaltza

Idun zabaleko **kamiseta** beltza. Urtzi Urrutikoetxea

Anak **kamiseta** tirantedun zuri llaburra janzten zuen. Aingeru Epaltza

**Kamiseta** zuri estu haren azpian bularretakorik ez zerabilela konturatu ostean. Sonia Gonzalez

Mahoizko praka zikinduak eta **kamiseta** izerdituak. Paddy Rekalde

Bakero ilupatu batzuk eta [...] **kamiseta** mahukaduna jantziak zituen. Aingeru Epaltza

**Kamiseta** loreduna zeraman. Aingeru Epaltza

Athleticek 'Euskadi' izena eramango du **kamisetan** UEFAko lehen fasean. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gestoretako kamiseta** (3); **kamiseta beltza** (6); **kamiseta gorri** (3); **kamiseta gorria** (4); **kamiseta hutsean** (6); **kamiseta jantzita** (3); **kamiseta tirantedun** (7); **kamiseta zeraman** (3); **kamiseta zuri** (8); **kamiseta zuria** (3)

# kamisetatzar *iz adkor* elastiko handia.

Txora-txora eginda ibili ziren arratsalde guztian **kamisetatzar** harekin. Jokin Muñoz

# kamisoi *iz* ohe atorra.

Neskatoa etzanda zegoen, belaunak kokotseraino tolestaturik, eta **kamisoia,** gorputzari atxekia, oin azpitik sartuta zeukan. Lopez de Arana

Kulero garbiak jantzi zizkidan, **kamisoia** gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Arianeren titiak **kamisoi** mehean zehar bete beterik nabaritzen ziren. Joseba Sarrionandia

Bakarrik nengoen gelan, ospitaleko **kamisoi** bat soinean. **Kamisoian** dudan odola, senarraren odola baino ez da. Eskarne Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kamisoi zuri** (4)
> **kamisoia jantzi** (3); **kamisoia jantzita** (6)

# kamiun ik **kamioi**.

# kamiuneta ik **kamioneta**.

# kamiunka ik **kamioika**.

# kamiuntara *iz ipar* kamioikada.

Hiru lagunek zenbait egun eman dituzte pezaz peza eta erresortaz erresorta desmuntatzeko tresna haundi hori, bai eta bizpahiru **kamiuntaratan** kargatu ere bideko. Herria

# kamiuntaraka *adlag ipar* kamioika.

**Kamiuntaraka** bildu zituzten Estatuko soldadoak, xinaurri beltz kiskaliak. Michel Oronoz

Milaka behi gizentegi bat beti kanpoan direnak egunero **kamiuntaraka** eremaiten dituzte hiltzerat eta ordainak sartzen gizenzeko. Herria

# kamiuntto *iz ipar* kamioitxoa.

Gaitzeko karranka itsusia egiten zuen **kamiuntto** zahar batekin. erzaintzak miatu du bide bazter batean utzi **kamiuntto** bat eta barnean atxeman berrogoi kilo lehergailu.

Janbattitt Dirassar

kamiunzain ik **kamioizain**.

kamixeta ik **kamiseta**.

**kamtxatkar** *izlag* Kamtxatkakoa, Kamtxatkari dagokiona; Kamtxatkako herritarra.

Mongoliarrak, kalmukak, samoiedoak, **kamtxatkarrak** eta aleutiarrak. Karlos Zabala

**kamuflaje** *iz* kamuflatzea; kamuflatzearen ondorioa.

Zelataritza eta **kamuflaje** ikastaro batean matrikulatu nintzen. Iban Zaldua

Brown sarjentua zain zegoen **kamuflajezko** jantzi batzuekin. Berria - Kultura

**Kamuflaje** koloreak militar aire nabarmena ematen die hiru estalpeei. Aingeru Epaltza

**kamuflatu**, kamufla, kamuflatzen **1** da *ad* norbait edo zerbait, inguruarekin nahasia-edo gertatzeko moduan estali edo ezkutatu.

Bidearen goi aldean ia defendatzaile guztiak beren tokietan jarrita zeuden, sasien artean **kamuflatuta**. Txikitxoa naiz, eta ez zait batere kostatu haurren artean **kamuflatzea**. Joanes Urkixo

Teknikariak agudoak gehitu zizkion ahotsa **kamuflatzeko**. Berria - Kultura

Operazioa egin baino egun batzuk lehenago, ileordeak eta **kamuflatzeko** betaurrekoak erostera joan ginen elkarrekin, eta eguneroko zanpaketa eta gizarteari zerion kaka-usaina izan genituen hizpide. Rafa Egiguren

**2** (era burutua izenondo gisa)

Auto **kamuflatu** baten itxura zuen Ford Mondeo beltz batean. Harkaitz Cano

Iruditu zait ertzain **kamuflatua** naizela pentsatzen ari dela. Alberto Barandiaren

Ez dutela inolaz ere onartuko «Batasunaren zerrenda **kamuflatua»** hauteskundeetan aurkeztea.Teologia **kamuflatu** baten antzera.

Zuretzat dela poema hori, maitasun poema **kamuflatu** bat dela. Harkaitz Cano

**kamuflatze** *iz* norbait edo zerbait, inguruarekin nahasia-edo gertatzeko moduan estali edo ezkutatzea.

Ikuspegi bi horiek esparru terminologiko beraren mendean jartzeak, besteak beste nahasketa izugarria eragiteaz gain **kamuflatze** politikorako balio du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**kamusada** *iz* desilusioa, desengainua, etsipena.

Jakin zenuen, esate baterako, liburuak beste irakurle asko ere sorgindu zituela, garaian best-seller bat izatera iritsi eta Preminger zuzendariak film bat egin zuela uda tragiko hura baliatuz; zuk ez zenuen ikusi, aipatutako **kamusadaren** beldur. Berria - Kultura

Herr Piper, ordea, **kamusada** galanta gertatu ere bai, ez baitzen komunista, oportunista baizik. Joxe Austin Arrieta

Aizan, bizirik irtengo al naiz? **-kamusada** ezkutatzen saiatu zen. Migel Angel Mintegi

**kamustasun** *iz* kamutsa denaren nolakotasuna.

Alderantziz, aristokrazia gaitasunik gabea bada, horretaz baliatzen den diktadorea ohartuko da bere tresnaren kaltegabetasuna tresna horren berorren **kamustasunak** baliogabetzen duela. Iñaki Mendiguren

Estraineko partida Cadizen kontra egokitu zaio Mendilibarrek zuzentzen duen taldeari; azterketa gogorra zalantzarik gabe, ate aurrean erakutsi duten **kamustasuna** kontuan hartuta. Berria - Kirola

Aski ezaguna baita horietako ehun eta gehiago [liburu] idatzi ditudala, (nire akusatzaileen) **kamustasunak** ez atzeman ez ulertu ezin dituztenak. Joan Mari Lekuona

**kamusteke** *adlag* kamustu gabe.

Traizioaren tresna makurra, eskuan duk, **kamusteke** eta edendua. Juan Garzia

**kamustu**, kamuts/kamustu, kamusten **1** da/du *ad* kamuts bihurtu, zorroztasuna galdu edo galarazi.

Armadura denen aurrean kendu eta lantza **kamustu** du harri baten kontra jota. Martin Anso

Geure eskuetan dago justiziaren ezpata, baina **kamustu** egin behar diogu ahoa, zorroztu beharrean. Juan Martin Elexpuru

Baina zezenak adarrak **kamustuak** zituen ordurako. Fernando Morillo

Urrunean hiri bateko dorre karratuak hautematen ditugunean, maiz gertatzen da biribil ikusten ditugula, urrunetik angelua **kamustu** egiten baita. Xabier Amuriza

**Kamustu** egiten dira lehen oinazeen ertz biziak. Joxan Elosegi

**2** irud/hed

Hots hauxe ere, ostera, etxe baten hormak zeharkatzean, **kamustu** egiten da eta nahasian belarirratzen. Xabier Amuriza

Ez gosea **kamusteko** adina. Aingeru Epaltza

Sena **kamustua** eta sumatzeko ahalmena ere erkindua zuen. Patxi Zubizarreta

Inportanteena maitatzeko dugun ahalmena **kamusten** ez uztea da. Patxi Zubizarreta

Asmamen-txinpart oro oztopatzeko, moteltzeko eta **kamusteko** duten gaitasuna. Juan Garzia

Barre egin zuen, hatzak miazkatuz, baina poza **kamustu** zitzaion apur bat, gozoagoa izango zela uste baitzuen. Karlos Zabala

Euskal Herrian hainbat kontzeptu **kamustuta** geratu zaizkigu. Berria - Euskal Herria

**Kamusten** ari ote zen nire oldarkortasun sano hura? Joxan Elosegi

Bakarka, aldiz, zorrozkeriak **kamusten** laguntzen zion alkoholak. Mirentxu Larrañaga

Hitzek dezaketena, hitzen zorrotza, **kamusten** baita ideien zapalak, erraztasun eta segurantzia arinak azpian harrapatzen dituelarik. Iñaki Segurola

**3** (era burutua izenondo gisa)

Burdinaren aho **kamustua** zorrozten ez bada, ahalegin handiagoa egin beharko da. Xabier Kintana

Agure zahar **kamustuak** edo berdin gazte txoro argituegiak. Iñaki Segurola

Nobela horren atzean adimen **kamustu** bat ezkutatzen dela. Joxean Agirre

Agerraldi hau ez duk hire asmo ia **kamustu** hori zorrozteko baino. Juan Garzia

---

# kamuts 1 *izond* zorroztasunik ez duena.

Running Wild kanta ere aditzen zen, lausoki, gramofonoaren orratz **kamutsaren** azpian karrankari. Lopez de Arana

Aizkora **kamutsarekin,** zorrozten ez baduzu, lan handiagoa egin beharko. Elizen arteko biblia

Labana sartu zian bularrean, baina **kamutsegia** zuan. Koro Navarro

Behin belarrian sartu zuen orratz luzearen punta **kamutsa**. Koro Navarro

Punta **kamutseko** txapin takoi altuetan. Mirentxu Larrañaga

Badakizu, Beñat, ofiziale onak ez duela lanabes **kamutsik**. Koldo Izagirre

Holakoxe arrazoi biribilak botatzen dituzte dena dakiten gizajoek, eta biribila **kamutsa** da beti, sarkortasun gutxikoa eta zorroztasunik batere gabea. Iñaki Segurola

**2** irud/hed

Cabañas kaporal mengelaren begitarte **kamutsa,** kopeta zimurrez betea. Lutxo Egia

Xehearen usteak **kamutsak** eta ezjakinak direla, alegia, herri xehea bera bezala. Jon Alonso

Adimen **kamutsekook** baino argiago ikusten duzula dena. Jose Morales

Hau bururik **kamutsenak** ere uler dezake honakotik. Xabier Amuriza

Zein motzak eta **kamutsak** ziren ondoan suertatu zitzaizkidan lagunak. Xabier Mendiguren Elizegi

Positibista motza eta **kamutsa**. Xabier Mendiguren Elizegi

Bilbo, Paris edo Londres bezalako hirien detraktore **kamutsek**. Bernardo Atxaga

1979ko Estatutua diktadura luze baten ondorengo garaiaren fruitu **kamuts** bat izan zen. Berria - Euskal Herria

"Sabel huts, zakil **kamuts"** esan omen zuen norbaitek. Unai Iturriaga

**3** (erkaketan)

Eskolapio tolosarra bera, erdalduna, borondate onekoa baina zokormazoa baino **kamutsagoa**. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** angeluez mintzatuz, 90º eta 180º artekoa.

Harresiak alde hauetatik segitzen zuen, angelu **kamutsa** eginez. Jon Alonso

Konturatu nintzen zorrotzak zirela orain burdinazko angeluetako bi, eta, hortaz, **kamutsak** beste biak. Koro Navarro

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina ziega hain zen txikia, ezen bazirudien zokoak ez zirela angelu-zorrotzak, angelu-**kamutsak** baizik, eta erdira bultzatzen zutela. Jose Morales

Begirunerik gabeko buru-**kamuts** haiek. Iñaki Mendiguren

Ondoren, adinaren zartako bortitzek gorputza zigortu eta lohadarrak indar-**kamuts** jausitakoan Xabier Amuriza

**6** (adizlagun gisa)

Olaizola I.a **kamuts** aritu zen, asko joz baina tantoa ezin bukatuz. Berria - Kirola

Erasoan, ordea, **kamuts** jarraitzen du Realak. Berria - Kirola

Titin, ordea, beste batzuetan baino **kamutsago** agertu zen. Berria - Kirola

**7** (izen gisa)

Noski, lege bidezkoa den horrek, lege gehienak bezala, izango dituela bere **kamutsak** ere. Pello Zabala

'Bizarxafla erabili didazu, Andoni!' esaten zidan aitak, bere bizar labanaren **kamutsaz** ohartuta. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erasoan kamuts** (5); **kamuts aritu** (7); **kamuts aritu zen** (4)

---

# kamutsaldi *iz* kamustea.

Badaki eguraldiak halamoduzko koska eta **kamutsaldiak** agertzen ere. Pello Zabala

---

# kana 1 *iz* luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa, gaur egun batez ere enborrak neurtzeko erabiltzen dena.

Kalamua hazi zedila hiru **kana** luze. Pello Zabala

Liho! liho! hazi hadi zazpi **kana** garaio! Pello Zabala

**Kanabera** bezain euskarri ahula. Elizen arteko biblia

**2** makila.

Iguzki-paisol bat eskuan, **kana** bat bezala zerabilena. Michel Oronoz

**3** ***kana bete*** *(corpusean* ***kanabete*** *soilik)*

Ia **kanabeteko** lodiera zuten horma koskoilek, eta ateak meharrak ziren. Juan Garzia

**4** ***kana erdi*** *(orobat* ***kanaerdi*** *)*

Kultura bakoitzak munduaren neurkera zuen Frantziako Iraultza arte: arrobak eta **kana erdiak,** oinak eta zeleminak, pintak eta kuartiloak, librak eta ontzak, goldeak eta arrak... Anjel Lertxundi

**Kana-erdikoa** bazen haren lepoa eta beltzaran askoa bera. Patxi Ezkiaga

**Kana erdiko** hamasei enbor ebaki behar zituen bakoitzak. Pako Aristi

Barberenak eta Lopezek **kanaerdiko** egurrak plazaratuko dituzte. Berria - Kirola

Zutikako **kanaerdikoa** bana. Berria - Kirola

Etzandako **kanaerdiko** bana erlojuaren aurka. Berria - Kirola

Aurrenekoan, bina **kanaerdiko** ebakiko dituzte. Berria - Kirola

Buruz buruko saioa **kanaerdiko** bat ebakitzera.

Erreleboka bina **kanaerdikora**. Berria - Kirola

**5** ***azukre kana*** azukre kanabera.

**Azukre kana** salerosle aberatsa zen. Herria

"Forró"-a, **azukre kanaren** memorioa da. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi kanaerdiko ebakitzera** (5); **kanaerdiko bana ebakitzera** (4); **kanaerdiko bat ebakitzera** (11); **kanaerdiko ebakitzera** (7)

---

**kaña**[1] *iz* presioko garagardoa.

Goazen **kaña** bat hartzera. Eider Rodriguez

Beste **kaña** bat hartu nahi? Patxi Iturritegi

Bi **kaña** gehiago eskatu zenituen. Eider Rodriguez

**Kaña** bakarra eskatu genuen hiruontzat. Iban Zaldua

Trago luze batez **kaña** erdia hustu eta kito. Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **a bat hartzera** (3); kañ

---

**kaña**[2] *iz*

Inguruan *Kapitalismoari* ***kaña*** zioten afixak topatu dira. Berria - Euskal Herria

*Matxismoak hiltzen gaitu, Erasorik ez erantzunik gabe, Patriarkatuari* ***kaña*** *beti, [...], Lanpostu duinak emakumearentzat...* izan ziren lelo nagusienak. Berria - Euskal Herria

---

# kanaandar **1** *izlag* Kanaangoa, Kanaani dagokiona.

Zuen Jainkoak garbitu egingo ditu **kanaandar** herriak. Elizen arteko biblia

Odol errugabea isuri zuten, beren seme-alaben odola **kanaandar** idoloei opari eskainiz. Elizen arteko biblia

Gerora, barreiatu egin ziren **kanaandar** jatorrikoak. Elizen arteko biblia

Judaren semeak: Er, Onan eta Xela, hirurak bere emazte **kanaandar** Xuaren alabarengandik jaioak. Elizen arteko biblia

Jesusek emakume **kanaandarraren** alaba sendatu. Elizen arteko biblia

**2** *iz* Kanaango herritarra.

Pikoa izan omen zen **kanaandarrek** Moisesi eskaini zien lehen fruitua. Patziku Perurena

**Kanaandarren** lurraldera eta Libanora, Eufrates ibai handiraino. Elizen arteko biblia

Hegin zuen Gezer hiria, su eman eta hirian bizi ziren **kanaandarrak** hil egin zituen. Elizen arteko biblia

Hebron hirian bizi ziren **kanaandarren** kontra ere jo zuten judatarrek. Elizen arteko biblia

-Israeldarra ez, **kanaandarra** zara zu! Jose Antonio Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **emakume kanaandar** (7); **emakume kanaandar bat** (4); **kanaandar guztiak** (3)
> **amalektarrak eta kanaandarrak** (4); **bizi ziren kanaandarrak** (3); **kanaandarrak eta periztarrak** (4)
> **emakume kanaandarraren** (3)

---

# kanabera **1** *iz* landare lastodun aski luzea, eremu hezeetakoa, zurtoin zuzena eta leuna duena*(Arundo donax).*

Ihi meheak, sahats basatiak, haltzak, zalitzukiak, **kanaberak,** huntzak eta horien antzeko beste batzuk, berez sortu ezin daitezkeenak urik ez dagoen lekuan. Santiago Iruretagoiena

Nahiz eta zuhaitz gazte haiek **kanabera** baino garaiagoak ez izan, [...]. Jose Morales

Niloren adarrak agortzeraino jaitsiko dira, **kanabera** eta ihiak zimelduko. Elizen arteko biblia

Nilo ibaiertzeko **kanaberen** artean utzi zuen saskia. Jose Antonio Mujika

**Kanabera** artean ezkutaturik. Koldo Biguri

**Kanabera** printzatua ez du hautsiko. Elizen arteko biblia

**Kanabera** greziarrik ez baldin badago, zingiretako lezkak bilduko dira. Santiago Iruretagoiena

Haizeak kulunka darabilen **kanabera**. Elizen arteko biblia

Uretan dardaratzen den **kanabera** bezala izango da. Elizen arteko biblia

**Kanaberaz** eta lastairaz egindako txabolak. Askoren artean

**Kanaberazko** txabola berri bat Joan Mari Irigoien

**2** landare horren zurtoina edo lastoa.

Neurtzeko **kanabera** eman zidaten. Elizen arteko biblia

**Kanaberaz** egiten zituzten antigualeko geziak. Pello Zabala

Arrantzuko **kanaberetako** eta lekei tente eusteko. Pello Zabala

Paretetan zeharkako **kanaberekin** egin den geruza bikoitz horrek luzaro iraungo du. Santiago Iruretagoiena

**Kanaberazko** lau aulki. Irene Aldasoro

**Kanaberazko** txirula luzea. Karlos Zabala

Sethek lapiko bat esne berotu eta **kanaberazko** siropa eta banilla nahastu zizkion. Anton Garikano

Bere **kanaberazko** makilaren eskutokiarekin. Matías Múgica

**3** arrantzako kanabera.

**Kanabera** eskuan arrainek amua noiz irentsiko zain. Jon Arretxe

Berehala luzatu zidan neskak **kanabera** eta eskaini zidan beita, amua ezin hobeki gordetzen zuena. Joan Mari Irigoien

Nire **kanaberaren** kortxozko heldulekutik abata askatzeko ere justujustu nintzen gauza. Koro Navarro

Aitak seinalea egin, eta **kanabera** botatzera zutitu ginen. Koro Navarro

**Kanabera** okertu eta atzera eta aurrera mugitu zen. Koro Navarro

Baina goian eutsi nion **kanaberari,** haria tenkatuta. Koro Navarro
Zernahitarako balio du euliak: **kanaberaz** arrantza egiteko, esate baterako. Juan Garzia
Arrantzarako pita, amu, **kanabera** luzagarri eta bestelakoak. Harkaitz Cano
**Kanaberadun** arrantzale bat bezala · Arrantzarako **kanabera** batez. Josu Zabaleta
Arrantzako **kanaberekin**. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Espaloia **kanabera**-makilaz kinki-kanka joz zetorren. **Kanabera**-makilen antzeko besoak. Mirentxu Larrañaga
Bentariak **kanabera**-xotx bat zulatu ez balu. Patxi Ezkiaga
Santa Klarak **kanabera**-hesizko gelatxo bat prestatu zion. Askoren artean
**Kanabera** alorretan nahiz hiriko hegoaldean zeuden arro idorretan. Xabier Montoia
**Kanabera** puska baten barrenean bilduak eta biribilduak. Joan Mari Irigoien

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Banbu **kanabera** baten antzera. Juan Kruz Igerabide
Arrantzale-**kanabera** ondo hornitu bat erostea senarrari. Jon Muñoz

**6** ***azukre kanabera*** lastoko mamitik azukrea ateratzen zion kanabera mota

Basoko txerrikiari; eltzeko janariari; garrangako arrainari; **azukre-kanaberari,** euriari eta aulki kulunkariei. Anton Garikano
Neska hark oso-osorik zirudien **azukre-kanabera** bezalakoa, zalua eta arina. Jon Muñoz
**Azukre kanaberaren** uzta biltzen ari ziren lursail batean. Josu Zabaleta
**Azukre kanabera** mozteko aihotzak eta aiztoak behar izaten dira. Berria - Mundua
Bide ertzean atzemaniko patata erdi ustelen bat, koko puxka, **azukre kanabera** zati bat, [...]. Pablo Sastre
**Azukre-kanabera** eta kafe soroek mozkinak ematen zizkioten. Juan Garzia

**7** ***kanabera usaintsu***

Uzal eskualdetik burdina landua, kanela eta **kanabera usaintsua** ekartzen zituzten zure azokara. Elizen arteko biblia
Sei kilo mirra isurkor, hiru kilo kanela eta beste hiru kilo **kanabera usaintsu**. Elizen arteko biblia
Zertarako dut nik Sabako intsentsua, zertarako urrutiko lurraldeetako **kanabera usaintsua**? Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azukre kanabera** (11); **kanabera printzatua** (4); **kulunka darabilen kanabera** (3)
> **kanaberazko makila** (3)

---

# kanaberadi *iz* kanaberak hazten diren tokia.

Mikel Strogoff lauoinka zihoan **kanaberadi** horien artean Karlos Zabala

---

# kanaberatxo *iz* kanabera txikia.

Orriaren alde bat erabiltzen zuten eskribek, eta **kanaberatxo** puntadun bat erabiltzen zuten idazteko: hegatsa. Jon Muñoz

---

kanabete ik **kana 3**.

---

kanabis ik **cannabis**.

---

# kanadar *(orobat **kanadiar**)* 1 *izlag* Kanadakoa, Kanadari dagokiona.

Amerikar eta **kanadar** beteranoak. Edorta Jimenez
Pierre Henry Fontaine **kanadiar** biologista. Herria
Horretarako, 683 milioi dolar **kanadar** emango ditu. Berria - Gaiak
**Kanadarra** da Kathleenen pasaportea. Edorta Jimenez
Kazetari **kanadar** bat hil zuen polizia errugabetu dute. Berria - Mundua
Talde horretako Steve Nash joko antolatzaile **kanadarra** izendatu dute azaroko jokalari onena.

**2** Kanadako herritarra.

**Kanadar** baten kontra jokatzen omen du pisu astunetako finala. Harkaitz Cano
Errugbian aise irabazi dute Frantsesek **Kanadiarren** kontra (50 eta 6) zazpi entsegu markatuz. Herria
**Kanadar** askok, ordea, ez dute etxea ixten. Berria - Mundua
Chad Hedrick estatubatuarrak eta Jennifer Heil **kanadarrak** ere urrea irabazi dute. Berria - Kirola
André Rivière, elektrikari gazte bat, **kanadarra** jaiotzez. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dolar kanadar** (3)
> **deschamps kanadarra** (4)
> **musikari kanadarrak** (3)

---

# kanadiano *izlag* kanadarra.

Beren aldetik, amerikanoek, frantses, txileno eta **kanadianoen** laguntzarekin, errespetua ekararazten dute karriketan. Herria

---

kanadiar ik **kanadar**.

---

kanaerdi ik **kana 4**.

kanaila ik **kanalla**.

## **kanakiar** *izlag/iz* Kanakiakoa, Kanakiari dagokiona; Kanakiako herritarra.

Hastean katolikoen elkartea, gero **kanakiarrena** eta besterik, 1998 an egin zuten tratu bat Frantziarekin. Herria

## **kanal** *(orobat* **kanale** *g.er.)* **1** *iz* ubidea. ik **erreten**.

Ura eramatea hiru eratan egiten da: igeltsero-lanez egindako **kanal** bidezko ubideekin, edo berunezko hodiekin, edo lurrezko tutuekin. Santiago Iruretagoiena

Edateko ura hirira eramateko **kanal** bat eraikitzen ari zelako. Karlos Zabala

Amsterdameko hiru **kanal** nagusiek. Joan Mari Irigoien

Edateko ura hirira eramateko **kanal** bat eraikitzen ari zelako. Karlos Zabala

Harantzago, ezkerrerago, ura, hiri grisa zeharkatzen duen distirarik gabeko **kanal** zabala, **kanala** zeharkatzen duten harrizko zubi urbanoak. Lourdes Oñederra

Jendez gainezka doaz ontziak **kanalean** gora eta **kanalean** behera. Anjel Lertxundi

Gizon horrek badu zenbait eta zenbait urbide edo **kanale** muntaturik mendi zoko horietan gaindi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Errotaren **kanala** jauregiko gibel-hormari itsatsia eta eratxikia iragaiten zela. Joan Mari Irigoien

Errotako aterabideko **kanalean**. Joan Mari Irigoien

Emilio Lezama, Hiru mutikoak arratsalde pasa, Deustuko **kanalera** joan ziren. Gotzon Garate

Hiru mutikoak arratsalde pasa, Deustuko **kanalera** joan ziren.. Gotzon Garate

Petroliontzi bat hondoratu eta itxita eduki dute Suezko **kanala** hiru egunez. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jendez gainezka daude vaporettoa hartzeko geltokia eta **kanal**-alboetako igarobideak. Anjel Lertxundi

Bogarde egon liteke **kanal**-ertzeko bidean aurrera doan mutil gazte horri begira. Anjel Lertxundi

**Kanal** bidez egiten bada, egitura egin bedi ahalik eta sendoena. Santiago Iruretagoiena

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Airea hotza zen, ibai-**kanaleko** itsasmuturretik baitzetorren. Anjel Lertxundi

Ur-**kanalak** egurrezkoak zirenean, Ureztapen-**kanalaren** porlanezko hodi handiaren barruan. Koldo Biguri

Ureztatze **kanalak** itxi ditu. Berria - Gaiak

**4** itsasartea.

Frantzia eta Ingalaterra arteko **kanal** estuan. Edorta Jimenez

Mantxako **kanal** azpiko tunela. Berria - Ekonomia

Siziliako **kanaleko** uharteak. Berria - Mundua

Beagle **kanalaren** ahoko harri beltzen artetik sartzen diren ur urdingrisen bazterrean. Joseba Sarrionandia

Ikusi zuten, Pearyk esan bezala, udan bazela uhartearen iparraldetik pasatzeko moduko **kanal** erabilgarri bat, baina itsasertzeko labarretatik egin zuten ekialderako bidaia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bahama Zaharreko itsas **kanalean** zehar. Edorta Jimenez

**5** *hed/irud*

Zelula horiek […] kanpoaldearekin komunikatzeko dituzten **kanal** txikiek ez dute segurtatzen behar adina oxigeno eta elikagai helduko zaienik difusio bidezko prozesu normalaren bidez. Irene Aldasoro

Zirkuluerdi formako **kanalez** gainera, beste bi hodi txiki ere baditu oreka-sistemak: sakulua eta utrikulua. Irene Aldasoro

Sudur **kanalak,** hura zeharkatzen duten aho-dardaren erresonatzaile gisa balio du soilik; berak ere ez du, beraz, hotsik sortzen. Isabel Arrigain

Izpi ahulak jaitsi zaizkit kolkotik, eta bularren arteko **kanalaren** ihintzetan bainatu direla sentitu dut. Eider Rodriguez

Bagina, bada, uteroko irteera da, erditze **kanala**. Luis Elberdin

Burezurreko giltzaduren helburu nagusia zera da: mundura jaio aurretik erditze-**kanala** igarotzean buruak jasan behar duen distortsio handiari amore ematea. Irene Aldasoro

Gaur egun komunikazioaren paradigmatzat hartzen den Lasswell-en ohiko eredu hori -igorlea-**kanala**-hartzailea-(feedback)-igorlea- ez da benetakoa. Txema Ramirez de la Piscina

Igorle-hartzaile **kanala** ongi joan zen oraingoan. Karlos Linazasoro

**6** irrati edo telebistako igorgailu baten frekuentzia banda; orobat igorgailua bera.

Irratiko AM 93 **kanaletik** kanpora heldu den musika eztiak. Gotzon Garate

Telebistako **kanal** handiek ez lukete arazorik izan behar, Mooreren ustez, gisa horretako irudiak eskuratzeko. Berria - Kultura

Kanalez **kanal** ibiltzen da Dani lineara itzuli zain dagoen bitartean. Antton Olano

Ez nuen telebista jarri, nahiz eta hoteleko antena parabolikoaren bidez **kanal** mordo bat ikus nitzakeen. Jon Muñoz

Partida bat ematen ari ziren **kanal** bat aurkitu genuen. Xabier Olarra

Europako hainbat **kanal** ikus ditzake, baita Frantziako **kanal** porno bat ere. Jon Arretxe

Ez dituzu bigarren **kanaleko** dokumentalak ikusten ala? Antton Olano

Hainbat herritan sortu dira satelite bidezko **kanalak**. Txema Ramirez de la Piscina

Euskara hutsezko bi **kanal**l edo gehiago sortzeko. Berria - Euskal Herria

Lucy egongelan telebistaren aurrean jarrarazi eta marrazki bizietako hogeita lau orduko **kanal** bat aukeratu nuen harentzat. Oskar Arana

**Kanal** kodifikatuan Ramadan aldian, behintzat, ikus daitezkeen **kanal** biak ezin aspergarriagoak iruditu zaizkit. Jon Arretxe

Lurreko Telebista Digitaleko **kanalak**. Berria - Ekonomia

· Dagoeneko 45.000 bezero baino gehiago dituzte Kutxatel eta Kutxanet **kanalek**. Berria - Ekonomia

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Isilunea zabaltzen da, Llumek urduri aldatzen dituen telebista **kanal** desberdinetako ahotsek baino hausten ez dutena. Antton Olano

Barruti bakoitzean, gutxienez, euskara hutsezko telebista **kanal** batek jardun behar duela diote guztiek. Berria - Harian

Gaur egun «klubaren eta bazkidearen artean dagoen komunikazio falta» kritikatu zuen eta bien arteko komunikazio **kanal** berri bat sortzearen aldeko agertu zen. Berria - Kirola

· Aldude aldean, UHF **kanal** 63-tan ikusten da Kanaldude, bertze tokietan aldiz VHF **kanal** 7-tan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kanal handia** (3)
**erditze kanala** (3); **suezko kanala** (5); **telebista kanala** (3)
**deustuko kanalean** (4); **kanalean sartzen** (10); **triniti kanalean** (10)
**mantxako kanaleko** (3)
**baginako kanaletik** (3)

---

kanale ik **kanal**.

---

**kanalikulu** *iz*

Material trinkoa da hezurraren pareta, eta barrunbe batzuk ditu zelula bizientzako (osteozitoentzako), ***kanalikulu*** izeneko tutu mehe batzuen bidez konektatuak. Irene Aldasoro

---

**kanalizatu**, kanaliza, kanalizatzen du *ad* kanal batekik eraman.

Ibai hura **kanalizatuz** saneatu dituzte bazterrak, zingira kiratsuak larre naro bilakaturik. Karlos Zabala

Ura aprobetxatu eta **kanalizatu** dute. Berria - Euskal Herria

---

**kanalizatzaile** *izond* kanalizatzen duena.

Makinak erreaktore **kanalizatzaile** bat du barruan, eta hara botatzen dute zaborra langileek. Berria - Gaiak

---

**kanalizatze** *iz* kanal batetik eramatea.

Errekaren **kanalizatzea**. Berria - Euskal Herria

---

**kanalizazio** *(orobat* ***kanalizazione*** *g.er.) iz* kanalizatzea.

Nafarroako Ubidearen **kanalizazioak** eragindako gastuengatik. Berria - Ekonomia

Belgikan,Ghislenghien industri gunean, lurpeko gaz naturalaren **kanalizazione** gotor batean, izigarriko zartadura izan da. Herria

Urtegiek eta **kanalizazioek** naturari eta gizakiari eragiten dizkieten kalteak aztertu ditu WWF erakundeak txosten batean. Ibaiaren **kanalizazio** lanek. Berria - Gaiak

Podolks herrian 12.000 lagun berogailurik gabe geratu ziren atzo, ur bero **kanalizazioa** hautsi ondoren. Berria - Mundua

---

kanalizazione ik **kanalizazio**.

---

**kanalla** *(orobat* ***kanaila****) iz* gizatxarra, zitala.

Bera adinako **kanallarik** ez auzoan, eta gainera paper mordoa patrikan. Patxi Iturritegi

Edo nafar batek Errege Katolikoak zergatik ez lituzkeen **kanaila** hutsak iritzi behar. Joxe Azurmendi

---

**kanaloi** *iz* teilatu hodia, teilatu erretena.

Hiru plantako etxe batean **kanaloia** jartzen. Pablo Sastre

Harrikada batzuk etxearen fatxadaraino iritsi ziren, atearen eta leihoen kontra, edo teilatu bateko latorrizko **kanaloietara**. Josu Zabaleta

---

**kanaltzar** *iz adkor* kanal handia.

Azkenean, 200 metroko zabaleroa eta 15 metro hondora dituen izugarrizko **kanaltzarra** osatu eta luzatu dute. Pello Zabala

---

**kanape**[1] *iz* sofa.

Belus gorrizko **kanapeetan**. Joseba Urteaga

Lehentasuna ematen zitzaion **kanapean** esertzeko. Juan Garzia

Aldizkari pornografikoa harrapatu eta **kanapean** jarri nintzen. Itxaro Borda

Egongelako **kanapean** etzan nintzenean. Itxaro Borda

---

**kanape**[2] *iz* gainean jakiren bat duen ogi xerra, gose-pizgarri gisa jaten dena.

Patroiaren eguna zela-eta bazkari berezia zeukaten prestatua [...] **kanape** eta mokaduz osatua. Xabier Mendiguren Elizegi

Juliana zopa haragi albondigatxoekin, gazta, haragi xehatuzko **kanapeak,** bizkotxo bustiak, ardoa eta zigarriloak, nahi adina. Josu Zabaleta

**Kanape** minak egingo ditut, ozpina eta tabaskoa erabiliko ditut eta zapore garratzeko ogitartekoak egingo ditut. Berria - Kultura

Gozokiekin, **kanape** garraztuekin eta limonada gezarekin. Josu Zabaleta

Zortzi plater zuri distiratsuetan kabiar-**kanape** bana. Lopez de Arana

---

**kanariar** *(orobat* ***canariar*** *g.er.)* **1** *izlag* Kanariar uharteetakoa, Kanariar uharteei dagokiena.

Fran De Miguel **kanariar** artistaren margolanak. Berria - Kultura

**Kanariar** lesbianaren ahotsa. Pako Aristi

**Kanariar** janariko jatetxe batean. Bernardo Atxaga

Maximiano Trapero aditu **kanariarrak**. Andoni Egaña

Hegaleko **kanariarrak** sei urte egin zituen Portlanden. Berria - Kirola

Espainiako Alderdi Sozialistaren, Alderdi Popularraren eta Koalizio **Kanariarraren** botoei esker. Berria - Mundua

**2** Kanariar uharteetako herritarra.

Fran De Miguel **kanariarraren** erakusketa Ordizian. Berria - Kultura

Bilbo Basketek abenduaren 29an jokatuko du **kanariarren** aurka. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kanariar irlak** (3); **kanariar uharteak** (24); **kanariar uharteek** (3); **kanariar uharteen** (9); **kanariar uharteetako** (22); **kanariar uharteetakoa** (3); **kanariar uharteetakoak** (3); **kanariar uharteetan** (31); **kanariar uharteetara** (23); **kanariar uharteetarako** (3)

---

## kanario **1** *iz* Kanariar uharteetako txori moko-motza eta bihi-jalea, gehienetan horia*(Serinus canaria).*

Txori bat neukan, **kanarioa,** eta lantzean behin letxuga bat sartzen nion kaiolara. Joseba Sarrionandia

Senar-emazteak dira, eta elkarrekin **kanarioak** hazten dituzte, saltzeko. Berria - Harian

**Kanario** bat hasi zen kantari, sabaitik eskegitako bere kaiolan, sekulako hotsak atereaz. Josu Zabaleta

**Kanarioak** txio egiten zuen bere kaiolan. Matías Múgica

Bakartasunak, freskotasunak, **kanarioaren** kantuak, begiak itxi eta pixka batez lo eginarazi zioten Andresi. Josu Zabaleta

Askotariko **kanarioak,** kantariak eta txistukariak. Jon Muñoz

Aktoresa bat **kanarioek** bezala kantatzen zuena. Jose Morales

• **2** (izenondo gisa, kolorea izendatzeko)

Hufflepuffekoak, hori **kanarioz** jantzita, multzo estu batean zeuden elkartuta. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan)

**Kanario**-koloreko zirko-karpa ematen zuen zerbait hasi zen trikotatzen. Iñaki Mendiguren

Dyna Panhard batean ibiltzen ginen: zapo mutur-biribil luze bat, hori **kanario**-kolorea. Josu Zabaleta

---

## kanbera ik **ganbera**.

---

## kanbiaketa *iz* kanbiatzea.

**Kanbiaketa** batean Estatuak irabazi ala galdu egiten duen jakiteko, zordun, hartzekodun, saltzaile eta erosle gisa hartu behar da. Iñaki Iñurrieta

---

## kanbiakor *izond* aldakorra.

Jendea hain dela **kanbiakor,** egun hau nahiago eta bihar hura… Uhainen mugimendua hain da **kanbiakor,** oraino gehiago sasoin huntan, eta haizeak ere biziki aldakor... Herria

Aroa arrunt **kanbiakor**. Herria

---

## kanbiakortasun *iz* aldakortasuna.

Aroaren **kanbiakortasunaz,** Joseba Beloki-ren Frantziako Itzuliaz, zergen arintzeaz edo segurik arintzearen beharraz, Makeako bestez eta Donoztirikoez, denetaz bazuten zernahi gauza erraiteko...! Herria

---

## kanbiamen *iz ipar* kanbiamendua, aldaketa.

Auzapezak jakinarazi du diruz arduratzen den batzordea bildu dela eta **kanbiamen** ttipi batzuk ekarri, buxeta zuzenduz. Herria

Filma hunek erakusterat emaiten ditu Azkaingo garapena eta **kanbiamenak** 1920etik 1960erat. Herria

Hor ere auzapezak jakin arazten du **kanbiamenak** badirela. Herria

Urte hastapenetan beti **kanbiamenen** beha gaude, hoberenerat bistan da. Herria

**Kanbiamen** aire azkarra sendi da Xiberoko sindikatean. Herria

---

## kanbiamendu *iz ipar* aldaketa.

Bertze aldean ere, **kanbiamenduak** orobat. Aingeru Epaltza

Hartan nabari nuen urte bakar baten joanak nire gorputzari ekarritako **kanbiamendua**. Aingeru Epaltza

Gaiztoen kontra, **kanbiamenduari** aiher zaion nor nahiren kontra, atzerritar erresumak laguntzen dituztenen kontra. Elena Touyarou

Gisa hortako mugimenduetan ere izan dira haatik **kanbiamendu** handiak. Herria

Artetan bederen, nor ez da egoiten gogoetatua ikusiz zonbat **kanbiamendu** izan den, eta nolako **kanbiamenduak,** gure egun guzietako bizi-moldea hunkitzen duten sail guzietan! Herria

Musika aldetik ere bada **kanbiamendu**. Herria

Azken berrogoita-hamar urtetan gure baserrietan izan diren **kanbiamenduez**. Herria

Beste pondu bat **kanbiamendu** asko ekar dezakeena: [...]. Herria

Ezin erran oraino zer **kanbiamendu** mota eta norainokoa. Michel Oronoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kanbiamendu frango** (4); **kanbiamendu handi** (5); **kanbiamendu handi handirik** (5); **kanbiamendu handiak** (3)

---

## kanbiarazi, kanbiaraz, kanbiarazten du *ad ipar* aldarazi.

De Villepin garbiki mintzatua da: ehun egun barne, irail erditsutako beraz, nahi du gauza asko **kanbiarazi,** eta onerat **kanbiarazi** bixtan da! Herria

Baina beribila maingu sendituri, neumatikoak **kanbiarazi** behar eta, hamaikak bildu ditut. Piarres Aintziart

Oroitarazi behar zaio beraz duela bi urte kargutan jarri gobernuak duela bozka-lege hori **kanbiarazia**. Herria

---

## **kanbiatu**, kanbia, kanbiatzen **1** da *ad* aldatu.

Pepe Carvalho ez da batere **kanbiatu**. Herria

Bitxikeria da hori ere, jendea nola **kanbiatzen** ahal den, erran nahi dut jendearen sentimenduak nola aldatzen ahal diren. Janbattitt Dirassar

Hori bederen **kanbiatu** da eta onerat **kanbiatu**. Herria

Baina segur hura zela, nahiz aurpegia hein bat **kanbiatua** kausitzen nion. Janbattitt Dirassar

Denborarekin haatik, ainitz gauza **kanbiatu** da. Herria

Maddiren egoera ez zen **kanbiatu**. Itxaro Borda

Dantzaldiak ere nola ez dira **kanbiatu**! Herria

Ezin ukatua gisa guziz, laborantza azkarki **kanbiatu** dela azken berrogoita-hamar urte horietan eta itxura guzien arabera oraino ainitz **kanbiatuko** ondoko urtetan...! Herria

Kinka batean, gauzak arrunt **kanbiatu** baitziren enetzat, holakorik ez nuelarik batere igurikatzen. Janbattitt Dirassar

Bidaxunera igorri ninduten egunean **kanbiatu** ziren gauzak niretako. Aingeru Epaltza

Gisa guziz, deus ez da laster **kanbiatuko**. Herria

Harroka gorrail alimalea hor dago: ez da aldatu, ez eta **kanbiatu**. Piarres Aintziart

Ja minixtro ziren frango aintzina minixtro dira, edo kargu bera atxikiz edo karguz **kanbiaturik**. Herria

• **2** du *ad*

Hain xuxen, gobernuak nahi du bozka-legea **kanbiatu**. Herria

Berriz ere doiño bat **kanbiatu** dute 1958-ko lege-nagusia. Herria

Badira alta gure inguruan gertakari baikorrak, ez badira ere mundua **kanbiatuko** duten horietarik. Herria

Aprendizgoak duen itxura **kanbiatu** nahi dute arduradunek. Herria

Xuri bozkatu duten 376 presunek ez dute deus **kanbiatu**. Herria

Hil behar zuen bala, bertze esku batek bidez **kanbiatu** zuela. Herria

Izena ere **kanbiatua** diote, hemengotua noalzpait. Herria

Ez da beti ber aldetik horra, ürzoek bezala **kanbia** dezake bere bidea. Herria

**3** trukatu.

Libera madarikatu bat ez daukak patrikan, ezin **kanbiatuzko** pezetatxo batzuk. Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ainitz gauza kanbiatu** (6); **arrunt kanbiatu** (7); **azkarki kanbiatu** (12); **denborak kanbiatu** (5); **deus kanbiatu** (3); **doi bat kanbiatu** (4); **gauza frango kanbiatu** (6); **gauzak kanbiatu** (5); **legea kanbiatu** (6); **onerat kanbiatu** (3)
>
> **gauza handirik kanbiatuko** (4); **gauzak kanbiatuko dira** (3)
>
> **karguz kanbiaturik** (3)
>
> **bozka legea kanbiatzekotan** (3)
>
> **ainitz gauza kanbiatzen** (3); **ainitz kanbiatzen** (3); **deus kanbiatzen** (3)

---

## **kanbiatze** 1 *iz* aldaketa. ik **kanbiamendu**.

Horiek hola, jakin behar da ere **kanbiatze** bera jadanik egina izan zela duela hiruetan-hogoi bat urte. **Kanbiatze** ezdeusa beraz, askoren gostuko, baina gastu batzu ekarriko dituen aldaketa halere. Herria

Frangotan iduritzen zauku urtez **kanbiatze** horrekin zernahi gauza behar litakeela kolpez bezala kanbiatu, azkarki kanbiatu eta bixtan dena onerat kanbiatu. Herria

Diruz **kanbiatze** horrek ez duela kariotzerik ez merkatzerik ekarriko. Herria

Urte berriari lotzean gure eskoletan izan ditugu **kanbiatze** zonbeit. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erran gabe doa haatik konduak ez direla bat-batean xuxenduko zuzendari **kanbiatze** horrekin. Gobernu **kanbiatze** bat bixtan da, bainan hortan paso gero? gobernuburu **kanbiatze** bat izanen dela maiatz ondarreko bozkatze hortarik lekora. Herria

Bai, hala da, aspaldian beti kantu bera aditzen da urtean bi aldiz, martxoan eta urrian, tenore **kanbiatze** horiekin... Herria

Ikerketak egiterakoan, zer buru-hausteak, belaunaldi batetik bertzera deitura **kanbiatze** horiekin! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **gobernu kanbiatze** (4)

---

## **kanbio** 1 *iz* aldaketa.

**Kanbio** horrek ekarri du gauza onik eta maleruski gauza txarrik ere... Herria

Oraino jauzi berri bat, urte batetik bertzerat, mendetik menderat egin ondoan, funtsean behar bada **kanbio** ikaragarririk gabe. Herria

**2** (ekonomian) trukea.

**Kanbioa** diruaren unean uneko balioaren finkapena da. Iñaki Iñurrieta

**Kanbio** Etxeetan dolar edo fula batengatik 26 peso ematen dituzte. Berria - Mundua

Ikusten denez, **kanbio**-eragiketek beti berdindu behar diren sarrera eta irteeren kontua osatzen dute. Iñaki Iñurrieta

Diru berriaren eta diru zaharraren arteko **kanbio**-neurriak behera egin duenez, [...]. Iñaki Iñurrieta

Euroak sendo eutsi zion dolarrarekiko **kanbio** tasari. Berria - Ekonomia

**Kanbio**-tasa berrogei sos-erdi zela ezkutuko. Iñaki Iñurrieta

Kanpotiarrak aldiz, diru **kanbio** paregabea dela eta, diru iturri. Herria

**3** (abiadurua aldagailuan)

Autoen abiadura erregulatzeko kaxa automatikoa asmatu zuen, **kanbio**-kaxa deitzen dena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eguraldiaren aldaketa mugitzeko edo datorkeena ekiditeko, **kanbio**-palanka aparteko eta berezirik ezagutzen ez dugun arren. Pello Zabala

**4** ***kanbio izan*** *ipar* aldatu.

Uztail eta agorrilean erakustokien bisitatzeko orenak **kanbio** izanen dira. Herria

Lantegiak iduriz ez du dirurik irabazten, zuzendaria **kanbio** da urtero, sentitzen dute horrela ezin dela luzaz segitu. Herria

Nagusien aldetik gauzak arras **kanbio** dira duela bost urtetik hona. Herria

· Izena **kanbio** urte zaharreko bestentzat Herria

**5** ***kanbio letra*** merkataritza dokumentua, salgai baten erosleak saltzaileari ematen diona, eta eroslea diru kopuru jakin bat data jakin batean saltzaileari ordaintzera behartzen duena. ik **letra 8**.

Baina mugikariak, hala nola dirua, ordaintzekoak, **kanbio** -letrak, konpainien akzioak, itsasontziak eta salerosgai-mota oro, mundu osoarenak dira. Iñaki Iñurrieta

Berez berdin dio dirua edota **kanbio** -letrak jiratzea. Iñaki Iñurrieta

Gure aita hil eta gero, itxuraz hark sinatutako zenbait **kanbio** -letra agertu ziren Lajosen alde. Ander Irizar

Amaitzear baitzuen **kanbio** -letra batzuk ordaintzeko epea... Ander Irizar

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kanbio letra** (5); **kanbio letrak** (8)
> **kanbioa arautzen** (3)

---

# kanboar *(orobat **kanbotar** g.er.)* **1** *izlag* Kanbokoa, Kanboki dagokiona.

17etan pilota partida **kanboar** plekari gazteekin. Herria

Aurten kirol erakasleek eta ikasleek nahi ukan dituzte ohoratu **kanboar** errugbilari txapeldunak. Herria

Christophe Goarant, **Kanboar** olerkari gazteak. Herria

Angele Dionnau, **Kanboar** organo joile gazteak ereman du lehen saria. Herria

Gure harginak, **kanboar** andere xarmant bat hartu du biziko lagun. Herria

**2** Kanboko herritarra.

Mathieu Aramboure **kanboarra** eta Christian Amorena saratarra. Herria

Miarritzeko Rugby taldeko bi jokolari Jean Michel Gonzalez **Kanboarra** sortzez eta Sotele Pueloto. Herria

Lehen hiruak **kanboarrak** dira eta laugarrena Kanbon bizi da. Herria

Azantza eta Kurutxet-Ezkerra, **kanboarrak,** garai hartako Frantziako txapeldunak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pala lodian Biarriztarrak xapeldun, **Kanboarrak** garaiturik. Herria

Baina aldudarrak ez zituzten beren buruak gai senditzen **kanboar** horieri irabazteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Joanden urtea finitzean, bi **kanboar** xahar galdu ditugu : Jamattitt Bidart eta Jean Lapeyrade. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi kanboar** (4); **kanboar batzu** (4); **kanboar elkarte** (3)
> **garat kanboarra** (3)

---

kanbotar ik **kanboar**.

---

# kanbriar *izlag* aldi geologikoez mintzatuz Lehen Aroko lehenari dagokiona.

Baina oker handirik gabe esan daiteke giza odolak gaur egun duen mineral-edukia eta itsasoko urak **kanbriar** aroan zuena -orain dela 400 milioi urte bizia lehorrean kokatu zenean- oso antzekoak direla. Irene Aldasoro

**Kanbriarretik** hona, hots, bostehun milioi urtetik gorako bilakabidean. Juan Garzia

---

# kandadu *(orobat **kandatu** g.er.)* **1** *iz* giltzarrapoa.

Giltza handi hura **kandaduan** sartu eta ireki zuen. Fernando Rey

Ateko **kandadua** neronek ireki dudalako. Koldo Biguri

Ezker-eskuin, atetilak zeuden, **kandaduekin** gakotuak. Bernardo Atxaga

Ateak katez eta **kandaduz** baitzeuden loturik. Iñaki Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Lanak eduki zituzten lema askatzeko, kate-**kandatu** batekin zegoen trabatua. Koldo Izagirre

---

kandatu ik **kandadu**.

---

# kandela **1** *iz* argizari geruza batek, gehienetan zilindro bat osatuz, inguratzen edo biltzen duen metxa, argi egiteko erabiltzen dena.

Argizarizko **kandela** handia. Koldo Biguri

Elizakoak bezalako **kandela** lodi urdinekin. Xabier Olarra

**Kandela** baten argiari begiratuz. Xabier Olarra

Atean bertan gelditu zen orduan ere, garra dardarka zuen **kandela** bat eskuan. Ander Irizar

Aitak **kandela** bat piztu zuen, eta su-mihia dardarka hasi zen, argi egin beharraren izuz. Anjel Lertxundi

Bulegoan **kandela** bat piztu eta beren aurretik joan zen gizona eskaileretan gora. Irene Aldasoro

Bi **kandela** zeuden piztuta gau-mahaian. Josu Zabaleta

Mutilak **kandelari** putz egin zion eta atea itxi zuen. Karlos Zabala

Argimutil bateko **kandela** isiotuek aurpegia berotzen zioten. Karlos Zabala

**Kandela** ia bukatuaren argi dardaratiari begira geunden. Ander Irizar

**Kandela** iraungita zegoen. Koro Navarro

Bi **kandela** jarri behar izaten zirela hilotzaren burualdean. Irene Aldasoro

Nire tximiniako eta lanparako **kandela** guztiak piztuta neuzkan. Josu Zabaleta

**Kandela** baten argitan. Koro Navarro

Mesanotxean utzitako **kandela** botiladun hura. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kandela** bedeinkatu batekin. Pello Zabala

Sukalde beltz, **kandela** baten garrak ozta-ozta argituan. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kandela** -mutur gutxi batzuen argi ahula. Iñaki Mendiguren

**Kandela** -metxa bezala itzali ziren eta galdu. Elizen arteko biblia

**Kandela** -kondoa mesanotxean utzi zuen. Ander Irizar

Sortzailea buztinarekin nola, halaxe ari zen Kurt **kandela** -malkoaz jolasean. Anjel Lertxundi

Hala ere, itzaltzeko une horretan bertan argi hori piztu egiten da azken aldiz, **kandela** -suaren antzera. Oskar Arana

Ni ikusteko **kandela** besoa jasota zeukanez [...]. Josu Zabaleta

On Camillok brontzezko **kandela** -makila lodi bat hartu zuen eta, borra baten modura heldurik. Koldo Biguri

Berak ekarri dizkigu lore horiek guztiak eta bi **kandela** -ontzi horiek kaperatik hartuta. Irene Aldasoro

**Kandela** -pila zegoen airean zintzilika lau mahai luze eta jendetsuren gainean. Iñaki Mendiguren

**Kandela** -fabrika bat sortu du eta kandelak egiten dakiten maisuak ekarri ditu Londresetik. Jose Morales

Kandelario, **Kandela** -eguna, **Kandela** -bedeinkatu-eguna. Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haurra jaiotzean, izei- **kandela** piztu, eta erditu duen amaren ohe-jiran hiru itzuli eman, ama eta haurra, biak hala biak sendatzeko eta sendotzeko. Pello Zabala

**4** ***kandela-argi*** *(orobat* ***kandelargi*** *g.er.)*

Haize-kolpe batek **kandela-argia** dardararazi eta itzali egin baitu. Itziar Otegi

Pausoak gero eta hurrago, **kandela argiaren** garrak dantzan. **Kandela-argi** elektrikoz argituriko gela goxo batean afaldu zuten mutil gazteek. polita litzatekeela **kandela-argitan** afaltzea. Irene Aldasoro

Carmichael jauna liburua irakurtzen ari zen **kandelargitan**. Anton Garikano

Eta **kandela-argi** leunean entzuten dut, dendako bazter batean, ostiral gaua dela eta horko hori apaiza, rabbia dela. Urtzi Urrutikoetxea

**5** ***Kandela egun*** Kanderailua.

Kandelario, **Kandela-eguna**, **Kandela** -bedeinkatu- **eguna**. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kandela argi** (4); **kandela argitan** (6); **kandela bat eskuan** (4); **kandela bat itzali** (3); **kandela bat pizten** (3); **kandela bat piztu** (11); **kandela baten argia** (3); **kandela baten argitan** (6); **kandela bedeinkatu** (3); **kandela eskuan** (4); **kandela gorri** (5); **kandela hartu** (4); **kandela itzali** (8); **kandela itzaltzen** (3); **kandela jarri** (3); **kandela lodi** (3); **kandela luze** (3); **kandela makila** (8); **kandela metxa** (3); **kandela mutur** (4); **kandela piztu** (17); **kandela piztua** (4); **kandela piztuak** (6); **kandela pizturik** (3); **kandela piztuta** (3); **kandela txiki** (4); **kandela urdin** (3)

**izotz kandelak** (3); **kandelak piztu** (8); **kandelak piztuta** (6)

**kandelaren argi** (5); **kandelaren argia** (4); **kandelaren argiak** (5); **kandelaren argitan** (14); **kandelaren garra** (3); **kandelaren garrak** (3)

**kandelek argitzen zuten** (3)

**kandelen argi** (3); **kandelen argia** (4); **kandelen argipean** (4); **kandelen argitan** (7)

---

# kandelabro *iz* argimutila.

Mahai tresnak, bandexak, kafe-jokoa, **kandelabroak..**. Jokin Urain

Gehien gutiziatzen genuena garraiatuz: pitxerrak, zeramikak, erloju eta **kandelabroak,** eta liburu eta, batez ere, paper-errollo pila handiak. Jokin Urain

---

# kandelagile *iz* kandelak eginez bizibidea irabazten duen eskulangilea.

Gremioetan banatutako gizarteak taxutzen zuen eguneroko bizitza, errementariek, marinelek, okinek, **kandelagileek,** gozogileek, upelgileek, aiztogileek, arotzek eta inprimatzaileek hain zuzen. Askoren artean

---

# kandelajale *iz* jainkojalea.

-Jesus -esan zuen On Camillok-, aposturik egin nahi nire **kandelajalerik** zintzoenek osaturiko batzorde batek baietz gutun bat idatzi, suminduta, gotzain jaunari, esanez sakrilegioa egin dudala kanposantura bere burua hil duen bat eramateagatik? Koldo Biguri

---

kandelargi ik **kandela 4**.

---

# Kandelario 1 *iz* Kanderailua, Garbikunde eguna.

Ikusten denez, eta guztiz normala denez, **Kandelario** inguruko sasoian ere, eguraldi jenero guztiak egokitu ohi dira. Pello Zabala

**Kandelario** bero, negua dugu gero. Pello Zabala

**Kandelarioz** euria, laster udaberria. Pello Zabala

Hori da **Kandelario** eta beste zenbait egunek ere seinalatzen duen kontua. Pello Zabala

**2** *pl*

Andrak andra handi, **Kandelarioetan** dira ageri. Pello Zabala

**3** ***Kandelario egun***

Baita **Kandelario egunarekin** lotzen den esaldia ere: San Bizente hotz, neguaren bihotz; san Bizente bero, negua gero. Pello Zabala

**Kandelario eguneko** zenbait kanta. Pello Zabala

Argizari edo kandelatxo **Kandelario egunez** bedeinkatua pizten zen. Pello Zabala

---

# kandelatxo *iz* kandela txikia.

Eta etxean genuen Ama Birjina txit garbiaren irudiari **kandelatxo** bat piztu zion. Joan Mari Irigoien

Sarrerako ate gainean gurutze bat zegoen, sahatsezko **kandelatxo** bedeinkatuak aldamenean. Xabier Olarra

Bat-batean argi garbiko eguzki batek erabat argituko balu, irudimenaren **kandelatxoak** sumagaitzak izango lirateke horrelako argi-itsasoan. Joan Mari Lekuona

---

## kandelatzar *iz adkor* kandela handia.

Ia bera bezain altuak diren zutargia eta **kandelatzarraren** ondoan agertu da Joxe. Pello Lizarralde

Segundo batzuen buruan **kandelatzarreraino** inguratu da eta itzali egin du. Pello Lizarralde

---

## kanderailu[1] ik **ganderailu[1]**.

---

## Kanderailu[2] *(orobat **Ganderailu**)* **1** *iz* otsailaren biko festa, Garbikunde eguna. ik **Kandelario**.

Gisa hortako arrangurak ere gogoan ukanen ditugu bixtan da **Ganderailu** bezperan Baionan bilduko girenek. Herria

**Kanderailuz** aurten ez zen bero haundirik, erran ditake frango hotz zela. Herria

**Kanderailu,** sasoinaren berrigailu. Pello Zabala

Orroit gaiten erran zahar batez : **Kanderailu** bero, segur negua gero! Herria

**Ganderailuz** eder, sotoan arnoa leher. Pello Zabala

**2** ***Kanderailu egun***

Biziki ohidura xaharra, denboran **Ganderailu** egunean ospatzen zutena, aspaldian haatik igande ihautez. Herria

---

## kandidatu *iz* hautagaia.

Daniel Lavie **kandidatuak**. Itxaro Borda

SDKU Alderdi Kristaudemokrataren **kandidatua** zen. Berria - Mundua

Alabaina, **kandidatu** bakarra dute hautagai. Herria

Hautagai bakoitzaren emaitzen arabera banatzen dira ordezkariak, eta hauek aukeratzen dute, azkenean, **kandidatua**. Berria - Mundua

John Kerry **kandidatu** demokrata, beretik, prestu eta ixil dago, hala hobe baitu oraino. Herria

Epe horretan **kandidatuek** behar zituzten beren proiektuak sakondu, bereziki xifreen aldetik eta prototipo zenbait muntatu. Herria

---

## kandidatura *iz* hautagaitza.

Hautagai erreformazaleen **kandidaturak** baliogabetzea. Berria - Mundua

Abertzaleak lau **kandidaturatan** joateak indarrak banatu egiten ditu. Berria - Euskal Herria

Herritarren Zerrendak ez du, oraindik, **kandidatura** osatuko duten 64 kideen izenik plazaratu. Berria - Euskal Herria

Alderdiko koordinatzaile eta hauteskundeetarako zerrendaburu Patxi Zabaletak aurkeztu zuen **kandidatura**. Berria - Euskal Herria

**Kandidaturak** ezagutarazi behar dira 2005eko urtarrilaren 7a baino lehen Eusko Ikaskuntzara. Herria

Haatik demokratek galdatzen diote bere **kandidatura** erretira dezan, bozen ez barreatzeko. Herria

Erakunde publiko ugarik, dantza elkarteek, UNESCOko Dantzako Nazioarteko Komisioak eta Peraladako jaialdiak, Granadakoak eta Donostiako Musika Hamabostaldiak babestu dutela **kandidatura**. Berria - Kultura

Mayor Orejaren **kandidaturak** ordezkatzen duen Europako eskumaren kontserbadorismo zaharkitutik urrun. Berria - Euskal Herria

Lau herrialdeetan **kandidatura** bateratua aurkeztea proposatzen dugu guk. Berria - Euskal Herria

19 **kandidaturen** artean 10 enpresa sarituak izan ziren. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kandidatura bateratua** (4); **kandidatura gutun bat** (6)
> **kandidaturak ezagutarazi** (3)

---

## kanebas *iz* ehun lodia, tapizeria lanen hondo gisa erabiltzen dena.

Hastapenean, 1917 inguruan, bere lehen kuadroak **kanebasean** «puntu kurutzez» brodarazi zituen, lehen ofizialea ama izan zuelarik. Berria - Kultura

---

## kanela **1** *iz* jatorriz Sri Lankrakoa den zuhaitz baten azala osatzen duen gai urrintsua, hodi txikien eitea duena, janari gozoak ontzeko erabiltzen dena.

Limoi-ura **kanelarekin** hartzeko. Felipe Juaristi

Azukre hautsa **kanelarekin** nahasia. Karlos Zabala

Hiru kilo **kanela** eta beste hiru kilo kanabera usaintsu. Elizen arteko biblia

**Kanela** eta baltsamo usaintsuak bezala. Elizen arteko biblia

**Kanela** zure sudurra probokatzeko. Jasone Osoro

Ardoa **kanelarekin** berotu eta ardo epela azukrez gozatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bozkario hark **kanelaren** gozoa zuen eta ez zuen absintio belarraren minik. Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kanela** usaina zegoen kalean. Harkaitz Cano

**Kanela**-hautsak bertan goxo geratzeko gonbidapena dakar, haizeak hauts horiek barreiatzeko aukera, eta hauts horiek sudur-mintzetan barrena sartzeko arriskua. Harkaitz Cano

**Kanela** adar bat oparitu zidan. Harkaitz Cano

Hauetako lehenari Usoa jarri zion izena, bigarrenari **Kanela** Lorea eta hirugarrenari Lurrinontzi. Elizen arteko biblia

Ezkerretara, azukre fabrikaren tximinia mardulak barreiatzen zuen **kanela** zaporea. Aritz Gorrotxategi

· Soineko **kanela** koloreko bat jantzita. Felipe Juaristi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Larru marraduna zuen, **zuri**-kanela, aitak hil artean erabili zuen pijama nazkagarri hura bezalakoa. Berria - Kultura

**4** *izond* kanelaren kolorekoa, kanela-kolorea.

Izotz puskak azal **kanelaren** gainetik pasatzen... Iñaki Iñurrieta

**5** ***iltze-kanela*** iltze-belarraren lorearen pipil ihartua, janarien bizigarri erabiltzen dena.

Arabiarrek kardamomoa, **iltze- kanela** eta beste zenbait espezia erabiltzen omen dituzte kafeari zapore berezia emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kanela, **iltze-kanela**, usainki, mirra eta intsentsu. Elizen arteko biblia

**6** ***kanela begi*** *(corpusean* ***kanelabegi*** *soilik)*

Baita **kanelabegi** balitz be. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kanela adar** (3); **kanela adarraren** (4); **kanela usaina** (4)

---

kanelabegi ik **kanela 6**.

---

## kaneladun *izond* kanela duena.

Te **kaneladunari** beste hurrupa bat egin, eta bere barrena asaldatzen zuena aipatzen ari balitz bezala, jarraitu egin zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

---

**kañero** *izond adkor kaña* handikoa.

Eskaparatean, Cheren biografia sendoa, euskerazko nobela batzuk, disko **kañero** zenbait eta kamisetak. Unai Iturriaga

Txapli **kañero** hutsa zen musika kontuetan, baina Laboa Laboa zen. Unai Iturriaga

Izan ere, lehengo soinu ka[ñ]eroaren **ordez** doinu gozoago bat hautatzen baitzuen Hankapalok. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## kanfor 1 *iz* gai zuri gardena, usain bizikoa, arroparen sitsaren aurka erabiltzen dena.

Arnasa sakonago hartzen hasi den heinean usain horren atzetik beste batzuk bereizi ahal izan ditu: liburu zaharrena, **kanforrarena,** xaguak akabatzeko pozoinarena... Pello Lizarralde

Sitsa hil egiten du, **kanforrak** lez. Pello Lizarralde

Zauriak lotu eta **kanforra** arnasarazi zien. Anton Garikano

Kamamilaz eta **kanforrez** eginiko txaplata bat. Jose Morales

**2** (hitz elkartuetan)

Esfera erdiaren formako sakonune bat **kanfor**-usainari lotzen zaio, eta ziri for-mako sargune bat, berriz, menda-usainari. Irene Aldasoro

Kirats mingotsa, **kanfor** ukitu bat zuena. Ramon Saizarbitoria

---

## kanguru 1 *iz* Australiako ugaztun handia, belarjalea, aurreko hankak oso motzak eta atzekoak oso garatuak dituena, hauen bidez jauzika ibiltzen dena *(Macropus* sp).

Australiako bi animalia ezagunenak **kangurua** eta koala dira. Berria - Kirola

"Handia naiz," gain-gainetik zioen **kanguruak**. Xabier Olarra

**Kangurua** jauziengatik, jirafa garaieragatik eta zebra marrengatik. Xabier Olarra

Emakume gazte bat, bere alaba jaioberria **kanguru** batek bezala paparrean daramala. Harkaitz Cano

Desagertuta edo desagertzear dauden ugaztunak ere aurkitu dituzte, esaterako Indonesiako urre koloreko **kanguru** bat, arboletan ibili ohi dena. Berria - Gaiak

**Kanguru** ehiztari ohi honek Kosovoko Askapenerako Armadan borrokatu zuen 1999an. Berria - Mundua

**2** umezaina.

Leire ez da aldian aldiko **kanguruez** fidatzen, beldur itzela ematen omen diote. Patxi Iturritegi

**3** euritako sakeladuna.

Bagenekien denok apaiza elizako sakristian gazte taldeekin biltzen zela, mutil bizardun eta neska jeansdun eta **kangurudunekin** Juan Kruz Igerabide

---

kangurudun ik **kanguru 3**.

---

**kañi** *izond*

Baionako barraraino laño dauden itsasoek eta gainerako ñapurtarrek ez zuten España **kañi** hau merezi. Iñigo Aranbarri

---

## kanibal 1 *iz* gizajalea.

Gizon bat hil eta jan egin zuen 44 urteko Armin Meiwes «Rotenburgoko **kanibalaren»** aurkako epaiketa hasi zen atzo Frankfurt hirian. Berria - Gaiak

Zortzi urteko zigorra ezarri diote Meiwes **kanibalari,** homizidioa egotzita. Berria - Mundua

Aurrena krokodiloak, orain **kanibalak..**. Besterik ez al duk, Adrian? Bernardo Atxaga

Amaren sabeletik artzainaren olako aixolberako bidean, euskaldunak zinezko **kanibalak** ginela errepikatzen nuen: zer genuen guhauren ninien horrela ahoa beteka klikatzeko? Itxaro Borda

**Kanibalez** betetako uharte huts batera. Pello Lizarralde

· Horra zer ondorio zituen askatasun pixka bat emateak jende horri, izan ere arreta eta gidaritza osoa behar zuten ez erortzeko **kanibal** bizitzan, horren zale ziren eta. Anton Garikano

**2** (izenondo gisa)

Gure mamu zaharren aurrean jartzen gaituen lana da hau, gurasoen aberastasunen gutizia betean ari diren haur **kanibal** goseti aseezin bilakatzen gaituena. Joxan Elosegi

Drucoc jaun **kanibalak** mugurdi purez betetako oiloak ditu afaltzeko. Iñigo Aranbarri

Aho-aroan finkatua nago, aho-aro **kanibal** batean noski, ahoratze-modu guzti-guztiak atsegin baititut. Karlos Zabala

*Fronte* ***Kanibala*** milizia armatuko buruzagi zenaren anaia. Berria - Mundua

---

**kanibalismo** *iz* gizajaletasuna.

Gizartea oinarrizko giza bulkada zenbaiten debekuaren gainean baita eraikia, haur orok [...], bere baitan sentitu, zapaldu eta bideratu behar izan dituenak: intzestua, **kanibalismoa** eta giza hilketa. Markos Zapiain

Gogora ekarri Genna kantariaren atxiloketa zoofilia eta **kanibalismo** akusaziopean. Patxi Iturritegi

Barrutian **kanibalismo** kasurik gertatu ez bazen. Jokin Urain

---

kanibet ik **ganibet**.

---

kanibit ik **ganibet**.

---

**kanido** *iz* txakurraren familiakoa.

Gevaudaneko piztia otso bat bezalakoa omen da, baina mustur luzeagokoa, matrailezur beldurgarriak dituen **kanido** baten antzekoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hirugarren saialdirako urduri jartzen hasi zen **kanidoen** etengabeko jira-birekin Iban Zaldua

---

**kanidromo** *iz* txakur pista.

Baita ere "hipodromo" bat eta zakurren lasterketak aterbetzen dituen **"kanidromoa"**. Ramuntxo Etxeberri

---

**kanika** **1** *iz* puxtarria.

urrunago joanago eta haren izaria ttipiago, azkenean **kanika** ttipi baten pare, ezin asmatuzko heineraino. Herria

Begi zuriek, zilo baten erdian dilindan zeuden **kanikak** ziruditen. Eneko Bidegain

Ia erori zitzaizkion begiak **kanika** galduen moduan. Joseba Sarrionandia

· Maindire gainean lo egin beharko du Londresen, bertara iristen bada, trukean begiko **kanika** ordainduta... Jon Alonso

**2** (hitz elkartuetan)

Besteak ez duen **kanika**-poltsaren jabe izan nahia. Jon Muñoz

· Ogi **kanika** bat egin zuen. Joseba Sarrionandia

---

**kanikular** *izond* udaminari dagokiona.

Txakurttiki bat baino gehiago balio du beroak txakur-egun **kanikular** eta udamineko hauetan, nonbait...! Pello Zabala

---

**kanila** *(orobat **kanilla** g.er.)* **1** *iz* txorrota, iturrien edo ontzien ahoan jartzen den tresna, ireki edo itxi daitekeen giltza bat duena.

Jamesek **kanila** irekitzen entzun zuen. Koro Navarro

Zabaldu **kanila** hori. Koro Navarro

Bainugelako **kanila** baten zirrindola konpontzen ari nintzela. Koro Navarro

Zabaldu eta ixten zen **kanila**. Urtzi Urrutikoetxea

Demagun ez dudala ondo itxi ur beroaren **kanila**. Patxi Iturritegi

Komunak jarioa du, eta **kanilak** haria hondatuta dauka. Josu Zabaleta

-Horrako **kanila** horretan bada ura -esan zuen gizonak-. Koro Navarro

Komuneko **kanila** aldatu beharko genuela. Ramon Saizarbitoria

Atariko **kanila** Uilen alkandora horiaz bildu zuen, izoztu ez zedin. Juan Kruz Igerabide

Bazkalondo sargorian, sukaldeko **kanilaren** ur tanten jarioa bakarrik entzuten omen zen, segundoak markatuz. Joxean Agirre

**Kanilari** ez zerion dagoeneko tantarik. Jon Muñoz

-Ez dut inoiz ikusi sukalde bat **kanilarik** gabea. Juan Kruz Igerabide

Ura presio handiz atera zen **kanilatik**. Bernardo Atxaga

**2** *irud*

**Kanila** zabaldu zaion iturri oparo bat bezala hasi zen berriro hizketan. Anjel Lertxundi

Gero, hitzen **kanila** zabaldu du ostera. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan)

Zertarako?, banekien-eta, nik bat esan edo bestea egin, **kanila**-giltza matxuratu zaion iturria bezala hasiko zitzaidala hitz borborka. Anjel Lertxundi

**Kanila** arazo guztiak konpontzeko. Josu Zabaleta

· Iturri gehienak pozoiturik daudenez, ekar dezagun iturria etxera: demagun kazetaria dela etxeko ur-**kanilla**. Joxerra Garzia

Pentsaturik biraoka ere ez nuela Leandroren hitz-**kanila** itxiko, ez diot jarduna eten. Anjel Lertxundi

**4** ***kanilako ura*** iturriko uda.

**Kanilako ura:** bainugelan (bainuontzirik gabe, tamalez) eta barruko eta kanpoko zenbait hormatan. Josu Zabaleta

Nafarroako Gobernuak **kanilako** ura ez edateko eskatu die Martzillako herritarrei. Berria - Euskal Herria

Hoa atzera bizimolde gorakora, **kanilako urarekin**, elektrizitatearekin, hoa...! Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kanila ireki** (5)

**kanilako ura** (3)

---

kanilla ik **kanila**.

---

kanit ik **ganibet**.

---

## kanitxe *iz* etxe txakur mota txikia, begi handiak eta ile kizkurra, zuria edo beltza, dituena.

**Kanitxe** zuri zantar hori izango ez balu sikiera... Lopez de Arana

**Kanitxea** altzoan zuen emakumerik ere ez zen falta. Ramon Saizarbitoria

---

## kanje *iz* trukea.

Badakizu noski zer den **kanje** bat, eta ez baldin badakizu ikasiko duzu sozialak matxinatzen zaizkizun egunean. Koldo Izagirre

Epaiketa eginda ez zen salbatu, **kanjeetan** ere ez zen sartu, ez dakit zergatik, beharbada familiak ez zuen nahikoa presio egin, edo herentzia arazoak edukiko zituzten eta senideek mahiagoko zuten bat gutxiago egotea partila egiterakoan, bera zen premua . Koldo Izagirre

**Kanje** batean sartu ninduten heriotzarako nengoena, konprenitzen duzu? Koldo Izagirre

---

## kanka 1 *adlag* kolpearen onomatopeia.

Bat-batean ispiluko hori nireganantz etorri eta, **kanka,** kopetako ederra eman zidak alu horrek. Iñaki Iñurrieta

Haragikeriaren tormentu eta har lotsagabea zen, buruan joka mailu batekin bezala: **kanka** ! Fernando Rey

**kanka** ! Fernando Rey

**kanka** ! Fernando Rey

Mailuarekin paretan **kanka-kanka** hasi zen berak egin eta niri oparitu zidan koadrotxo bat esekitzeko. Fernando Rey

Burdinazko atea **kanka** zarratu zen ostera porfirozko pasabidean. Juan Garzia

Marmar ozen baten modukoa aditzen zen, gangatik jareginik lurraren kontra **kanka** jotzen zuten mila tantena. Juan Garzia

Zergatik sufritzen du horrela **kanka** jotzea buruan arlote trauskil honek pala zikin batekin [...]? Juan Garzia

Eta **kanka** eman zidan buruan ponparekin. Fernando Rey

**2** (izen gisa)

Leku zehatzean emaniko **kanka** txikiena aski izaten da kristalik lodiena pitzatzeko. Hasier Etxeberria

**Kanka** hotsa entzun zen, gero. Fernando Morillo

**3 *kinki eta kanka***

Antxon urdinari zartakoa eman eta lurrera bota zuen, eta zerbitzuburuak halako ostikoa eman zion ezen armairu azpiraino bidali baitzuen hegan **kinki** eta **kanka** . Fernando Rey

Makila konkor bat hartu eta, honexengandik hasi-eta **kinki** eta **kanka** ez dudala mediku bat bakarrik uharte honetan guztian utziko. Patxi Ezkiaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kinki eta kanka (3)

---

## kankail *(orobat **kankaila** g.er.)* *izond ipar* kankailua.

Biga beltzak, neska **kankail** batzuk, eta haien ondoan aise ttipiagoko xuri bat. Janbattitt Dirassar

Ontsa irri egin genuen, eta esku zartak ere ukan zituen gure Caron apezak, hainbeste non mitralletadun S.S. **kankaila** bat jiten baitzaigu orroaz "Ruhe Silenz". Marzel Etxehandi

Zazpi urte iragan nizkian Coloradoko basamortuetan ardi **kankaila** batzuen zaintzen eta gero John Biscay herritarrak Los Angelesera deitu nindian, polizia lanetara.Zahar **kankail** konkortu libindintsu eta gerlari ohiez aparte. Itxaro Borda

Zazpi urte iragan nizkian Coloradoko basamortuetan ardi **kankaila** batzuen zaintzen eta gero John Biscay herritarrak Los Angelesera deitu nindian, polizia lanetara. Itxaro Borda

Ahari **kankailak** aharrausika baztertzen. Itxaro Borda

Hiri **kankail** horrek berriz iretsi eta beretu gaitu. Herria

Haien artean bazen bat, alimaleko **kankaila** . Eneko Bidegain

Euskaraz ez da gauza bera bainan gizon bat hartza dela diogu handia delarik, azkarra, **kankail** aire batekin, aurpegiz itsusia eta dena biloa! Herria

---

## kankailu 1 *izond/iz* pertsonez mintzatuz, handikotea eta itxura baldarrekoa, eta askotan adimen laburrekoa dena.

Ia bi metroko **kankailua** . Patxi Iturritegi

196 librako **kankailu** bat, esaterako, nahikoa da 2,44 m-ko altura batetik amiltzea behar bezala urkatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tedesko alu-zorne bat!, bota zian karabinero **kankailuenak** nire pasaporteari begira. Anjel Lertxundi

Tedesko alu-zorne bat!, bota zian karabinero **kankailuenak** nire pasaporteari begira. Anjel Lertxundi

Gerririk gabeko atzelariak, ideiarik gabeko erdilariak eta azkartasunik gabeko aurrelari **kankailuak** . Berria - Kirola

Bezperan aleman ehiztari **kankailu** batek tiro bat bota ziola. Daniel Landart

Nire ezker-eskuin nituen bi morroi **kankailuek** . Anjel Lertxundi

Gidariak, handiuste **kankailua** bera, mugimendu arriskutsuak egiten zituen propio. Anjel Lertxundi

Ilegorri hankaluze **kankailu** irribarretsua. Edorta Jimenez

'Baina azukrerik gabe,' erantzun dio pazientea den gizon **kankailuak** . Joseba Sarrionandia

SSetako **kankailua** . Alberto Ladron Arana

Batek **kankailutik** zuena, besteak kirtenetik zian. Anjel Lertxundi

Ez zuen inondik ere **kankailu** haiek dena hondatzerik nahi. Alberto Ladron Arana

Bilbo **"kankailu** bandoleroen" setiaketatik jaregiteko. Txillardegi

**Kankailu** alemana marmarka hasi zen, aginduak eta Berlingo nagusiak ahotan. Alberto Ladron Arana

**2** irud/hed

Gorputza duk hik **kankailua,** aukeran. Jon Muñoz

Ez da oso **kankailua** zure batugailua, baina batuketa biribilak egingo ditu, ezta? Jon Muñoz

Beste mutil gihartsu baten laguntzaz, gurdi **kankailu** batean paratu ninduen, eskailera eta guzti. Txillardegi

**kankarra** *iz* burua.

Bai horixe, eta hona orain Andre Harretako, masailagabe, eta zulogilearen aitzurrak **kankarra** joa. Juan Garzia

**kankarreko** **1** *iz* buruan hartu edo ematen den kolpea.

Berak eman beharko lituzke muturrekoak eta **kankarrekoak**. Leihoaren kontra **kankarreko** bat hartuta. Jose Morales

Mostradorean utzi behar izan du **kankarroa**. Pako Aristi

Bat-batean, erabat esnatu zen, **kankarreko** bat eman baliote bezala. Xabier Olarra

Ni oharkabean harrapatuta, ponparekin **kankarreko** bat eman zidan buruan. Fernando Rey

Tximista bezala bota baitzuen bere burua kasernako paretaren kontra **kankarrekoa** jotzeko. Fernando Rey

**Kankarreko** bat sentitu nuen garondoan. Alberto Ladron Arana

Gero, bere ukabil harrigarria altxatu eta **kankarreko** bat eman zion onddoari. Koldo Biguri

**2** kankarroa.

**Kankarreko** bat ginebra, nik. Aingeru Epaltza

Kontuak kontu, tripa hutsik eta azkar demonio ekin nien neure **kankarrekoei,** halako suertez non, ordu bete geroago, laugarrena edan orduko, tristezia mugagabe batek baizik ez baininduen lotzen errealitateari. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kankarreko bat eman** (3)

**kankarro** **1** *iz* edontzi handia.

Gero, lehen **kankarro** ginebra eskatu nion Antonio ezkibelari. Aingeru Epaltza

**Kankarro** bat bete ginebra. Aingeru Epaltza

Whiskya eskatu nion, baita bertze **kankarro** bat ere, niretako. Aingeru Epaltza

Betiko zalantza, garagardoan egon edo **kankarrora** errenditu. Arratsaldeko laurak ziren, goizegi **kankarroak** eskatzen hasteko. Aingeru Epaltza

Agudoxko edanak noski, **kankarroak**. Aingeru Epaltza

Giroa ez duk apartekoa, eta edariari ere adi egon behar, pozoi makur zerbitzatua emanen ez badiate -neure **kankarroa** dantzatu nuen, hitzen lagun-. Aingeru Epaltza

**2** *izond adkor* katxarroa.

Hermann eta Zezenko deitzen genion mutil **kankarro** bat izaten ziren beti irabazle. Anjel Lertxundi

Ez dago zalantzarik: zelako diferentzia, antzinako gris ipurdi-handi motel haien eta zipaio **kankarro** hauen artean! Iban Zaldua

**kankarroka** *adlag* kankarroak edatzen.

Niri, Ximurrarekin bezala, gorputzak ginebra eskatzen zidan beti, baina tonika bat edaten ari nintzen, beldurrez-eta, nire gogo gero eta ozpinduagoak hartaratuta, gelditzeko manerarik izanen ote nuen **kankarroka** hasiz gero. Aingeru Epaltza

**kankateko** *iz* kankarrekoa.

Beste **kankateko** bat emango niolako mehatxua egin nuen. Jon Alonso

**Kankatekoa** hor zegoen, odola hor zegoen, baina zuhur jokatu beharra omen zegoen. Fernando Rey

Orduan, Legardek gizonari **kankatekoa** eman lepoan, eta bikoteak armak ateratzen ditu. oker Eta hutsegite barregarriak eta **kankateko** mingarriak Javi Cillero

**kankatu**, kanka, kankatzen du *ad*

Izan ere, hutsune gabe ez da ikusten nola daitekeen ezer **kanka,** ez hauts, ez bitan ebaki, ez hezetasunik har, ez dena suntsitzen duen hotzik ez surik barnera. Xabier Amuriza

**kanoa** **1** *iz* itsasoan edo ibaetan erabiltzen den ontzi estu eta arina, arraun zabal eta arin batzuez eragiten zaiona.

Ontzi bat, txalupa bat, enbor azalez egindako **kanoa** bat. Karlos Zabala

Itsasgorak eragotzi egiten zien **kanoaren** gainera jausten, ez zeukaten aski amildurarik. Koldo Izagirre

Hiru bat metro izanen ziren pasarelaren kabutik **kanoaren** kareleraino. Koldo Izagirre

**Kanoak** laprast egin zuen amuraka harkaitzetara, ez luze, pilotuak brankaz portura zuzentzea lortu zuen barrak itsasoari ematen zion sosegua berriro baliatuz. Koldo Izagirre

**Kanoa** batean ibaia ikertzen ari zela. Juan Garzia

**Kanoan** bai, ibilia nintzela esan nion. Xabier Olarra

Kristal zikinen ostean Zulaikaren laguntzaileak bitxeroarekin eusten zion **kanoari** enbarkaderoaren kontra. Koldo Izagirre

Itsasoko Gurutze Gorriaren **kanoa** gorri-beltz zaratatsua. Txillardegi

**2** (hitz elkartuetan)

-Arratsalde honetako **kanoa** lasterraldia, nola? Aurelia Arkotxa

kanoe ik **kanoi**.

**kanoi** *(orobat **kanoe** g.er. eta **kañoi** g.er.)* **1** *iz* artilleriako pieza sendoa, jaurtigai astunak jaurtikitzeko erabiltzen dena.

Ehun **kanoi** eta bi mila fusil. Edorta Jimenez

Guadalupeko gotorlekuan zeuden 155 mm-ko **kanoi** zaharrak. Rafa Egiguren

16.000 infante, 1.000tik gora zaldi, eta 24 **kanoi** astun (Krupp markakoak gehienak). Txillardegi

Ontziaren brankan altzairuzko **kanoi** ikaragarria ikusiko duzue. Joseba Sarrionandia

Withworth **kanoi** burrunbatsuz osatutako bateria. Txillardegi

**Kanoiak** tiro egiteko prestatu. Aingeru Epaltza

**Kanoiak** desarra egin zuenean. Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kanoi** -ipurdi lodi-biribil baten azpian. Edorta Jimenez

**Kanoi** hodiak orgetatik kentzeko zereginean. Edorta Jimenez

Armak isilik daude orain, eta **kanoi** -muturren tirabidean dago etsaia. Mirentxu Larrañaga

**Kanoi** -bola baten ibilbidea ez zela zuzena, parabolikoa baizik. Jon Muñoz

Hamar **kanoi** pezako txalupa zahar bat. Juan Garzia

Bertan, harresiaren babesean, **kanoi** -zulo bat eta harrizko ezarlekua zeuden. Agustin Otsoa

Tiroak eta **kanoi** -hotsak maiz entzuten ditiagu hemen. Txillardegi

Gero, **kanoi** -sutunpa bat entzuten da. Juan Garzia

**Kanoi** tiro bat bezala. Josu Zabaleta

**Kanoi** dunbada burrunbatsuak. Txillardegi

Turuta-joaldi bat eta bi **kanoi** -danbada. Juan Garzia

Hasi dira Don Carlosen ohoretan **kanoi** -salba azkengabeak botatzen. zer Dela-eta eguneroko brontzezko **kanoi** urtze eta atzerritik gerrarako gailu ekartze taigabe hau. Txillardegi

**Kanoi** erakusleek destatzen duten alderantz begiratu dut, baina ez da etsairik ageri inondik. Mirentxu Larrañaga

Berebiziko **kanoi** -sua piztu zuten ontzietako gudariek. Patxi Ezkiaga

Torpedoa alferrik gastatzea **kanoi** ukaldiño bat aski zuenean. Koldo Izagirre

Iguzkitza aldera heldu zela bere sei batailoiekin eta **kanoi** mordoarekin. Txillardegi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Poliziak bi manifestazioren aurka egin zuen ur- **kanoiekin** eta makilekin. Berria - Mundua

Txikikeria bat izan zen txinpartak piztu zituena, fusil- **kanoi** bat alegia. Mirentxu Larrañaga

Fusil- **kanoian** behera begira-begira, "zikina!", ahoskatu zuen Hanleyk. Mirentxu Larrañaga

**4** beste su armetan, bala ateratzen den hodia.

Fusilaren **kanoi** hotza sentitu nuen. Fernando Rey

Sei tiroko pistola bat eman zidan, **kanoi** luzekoa, beterik. Juan Kruz Igerabide

Pistola txikiaren **kanoia** bularren artean sartua zeukan orain. Bernardo Atxaga

**Kanoi** bakarreko eskopetak. Joxemari Urteaga

**Kanoi** biko eskopeta kargatu batekin. Koldo Izagirre

*ik* kanoibiko.

Uniforme berdeak eta armen **kanoi** puntak ikusi ditut. Joseba Sarrionandia

Lehenago bi tirotako armak ziren eta, oraino lehenago, tiro edo **kanoi** bakarrekoak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nylonezko poltsaren kremailera ireki eta **kanoi** motzeko eskopeta bat atera orduko. Patxi Iturritegi

Haien fusilen **kanoi** puntak ikusten ziren. Joseba Sarrionandia

Joanesek lan errexagoa ukan zuen zenbait hilabete lehenago, metraileten **kanoien** egiten. Eneko Bidegain

**5** ***kanoi bazka***

«Zorra barkamena **kanoi** bazkaren truke» deitu diote negoziazio honi. Berria - Mundua

**6** ***kanoi-ganga*** zirkulu erdiko ganga.

Artozkik erromaniko berantiarreko eliza zuen, **kanoi** -gangarekin. Edurne Elizondo

**7** ***kanoi haragia*** kanoi bazka.

**-Kanoi** -haragia izan dituk -dio Ortegak, gazteleraz-. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kanoi bala** (4); **kanoi balak** (3); **kanoi balen** (3); **kanoi danbada** (3); **kanoi eta fusilen** (3); **kanoi ganga** (3); **kanoi hotsa** (4); **kanoi tipi** (3); **kanoi zulo** (4)
>
> **eskopetaren kanoia** (4); **pistolaren kanoia** (5)
>
> **bi kanoiko eskopeta** (4)

---

# kanoi

*(orobat* ***kanoe*** *g.er. eta* ***kañoi*** *g.er.)* **1** *iz* artilleriako pieza sendoa, jaurtigai astunak jaurtikitzeko erabiltzen dena.

Ehun **kanoi** eta bi mila fusil. Edorta Jimenez

Guadalupeko gotorlekuan zeuden 155 mm-ko **kanoi** zaharrak. Rafa Egiguren

16.000 infante, 1.000tik gora zaldi, eta 24 **kanoi** astun (Krupp markakoak gehienak). Txillardegi

Ontziaren brankan altzairuzko **kanoi** ikaragarria ikusiko duzue. Joseba Sarrionandia

Withworth **kanoi** burrunbatsuz osatutako bateria. Txillardegi

**Kanoiak** tiro egiteko prestatu. Aingeru Epaltza

**Kanoiak** desarra egin zuenean. Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kanoi** -ipurdi lodi-biribil baten azpian. Edorta Jimenez

**Kanoi** hodiak orgetatik kentzeko zereginean. Edorta Jimenez

Armak isilik daude orain, eta **kanoi** -muturren tirabidean dago etsaia. Mirentxu Larrañaga

**Kanoi** -bola baten ibilbidea ez zela zuzena, parabolikoa baizik. Jon Muñoz

Hamar **kanoi** pezako txalupa zahar bat. Juan Garzia

Bertan, harresiaren babesean, **kanoi** -zulo bat eta harrizko ezarlekua zeuden. Agustin Otsoa

Tiroak eta **kanoi** -hotsak maiz entzuten ditiagu hemen. Txillardegi

Gero, **kanoi** -sutunpa bat entzuten da. Juan Garzia

**Kanoi** tiro bat bezala. Josu Zabaleta

**Kanoi** dunbada burrunbatsuak. Txillardegi

Turuta-joaldi bat eta bi **kanoi** -danbada. Juan Garzia

Hasi dira Don Carlosen ohoretan **kanoi** -salba azkengabeak botatzen. zer Dela-eta eguneroko brontzezko **kanoi** urtze eta atzerritik gerrarako gailu ekartze taigabe hau. Txillardegi

**Kanoi** erakusleek destatzen duten alderantz begiratu dut, baina ez da etsairik ageri inondik. Mirentxu Larrañaga

Berebiziko **kanoi**-sua piztu zuten ontzietako gudariek. Patxi Ezkiaga
Torpedoa alferrik gastatzea **kanoi** ukaldiño bat aski zuenean. Koldo Izagirre
Iguzkitza aldera heldu zela bere sei batailoiekin eta **kanoi** mordoarekin. Txillardegi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)
Poliziak bi manifestazioren aurka egin zuen ur-**kanoiekin** eta makilekin. Berria - Mundua
Txikikeria bat izan zen txinpartak piztu zituena, fusil-**kanoi** bat alegia. Mirentxu Larrañaga
Fusil-**kanoian** behera begira-begira, "zikina!", ahoskatu zuen Hanleyk. Mirentxu Larrañaga

**4** beste su armetan, bala ateratzen den hodia.
Fusilaren **kanoi** hotza sentitu nuen. Fernando Rey
Sei tiroko pistola bat eman zidan, **kanoi** luzekoa, beterik. Juan Kruz Igerabide
Pistola txikiaren **kanoia** bularren artean sartua zeukan orain. Bernardo Atxaga
**Kanoi** bakarreko eskopetak. Joxemari Urteaga
**Kanoi** biko eskopeta kargatu batekin. Koldo Izagirre
*ik* kanoibiko.
Uniforme berdeak eta armen **kanoi** puntak ikusi ditut. Joseba Sarrionandia
Lehenago bi tirotako armak ziren eta, oraino lehenago, tiro edo **kanoi** bakarrekoak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Nylonezko poltsaren kremailera ireki eta **kanoi** motzeko eskopeta bat atera orduko. Patxi Iturritegi
Haien fusilen **kanoi** puntak ikusten ziren. Joseba Sarrionandia
Joanesek lan errexagoa ukan zuen zenbait hilabete lehenago, metraileten **kanoien** egiten. Eneko Bidegain

**5** ***kanoi bazka***
«Zorra barkamena **kanoi** bazkaren truke» deitu diote negoziazio honi. Berria - Mundua

**6** ***kanoi-ganga*** zirkulu erdiko ganga.
Artozkik erromaniko berantiarreko eliza zuen, **kanoi**-gangarekin. Edurne Elizondo

**7** ***kanoi haragia*** kanoi bazka.
**-Kanoi**-haragia izan dituk -dio Ortegak, gazteleraz-. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kanoi bala** (4); **kanoi balak** (3); **kanoi balen** (3); **kanoi danbada** (3); **kanoi eta fusilen** (3); **kanoi ganga** (3); **kanoi hotsa** (4); **kanoi tipi** (3); **kanoi zulo** (4)
> **eskopetaren kanoia** (4); **pistolaren kanoia** (5)
> **bi kanoiko eskopeta** (4)

---

# kanoialdi *iz* kanoi tiroaldia.
**Kanoialdia,** ez genuen besterik behar jaia biribiltzeko. Edorta Jimenez

---

# kanoibiko (*orobat* ***kanoi biko***) *iz* eskopetez mintzatuz, bi kanoi dituena.
Bekoz beko behatzen dit, **kanoibiko** batek bezala. Koldo Izagirre
Nik uste nuen Carmen Lopezek zintzo beteko zuela nire agindua ostera ere, **kanoi bikoa** ipiniko zuela nire bizkarrean, neu salbatzeko. Koldo Izagirre
Umeak elkarri petardoak jaurtika, ehiztariak leihoetarik zerurantz **kanoi bikoarekin**... Koldo Izagirre
**Kanoibikoaren** ahoak bezain ilunak, begiak. Koldo Izagirre

---

# kanoieria *iz* kanoi multzoa.
1940ko ekainaren 9an, aleman **kanoieria** hasi zelarik. Michel Oronoz

---

# kanoigile *iz* kanoiak egiten dituen eskulangilea.
Jostagarri baita **kanoigilea** bere bonbak zartarazia gertatzea. Juan Garzia
Baskulagile, kaxagile, guardamontista, **kanoigile,** guarnidore, pulitzaile, grabatzaile, giltzagile... Koldo Izagirre

---

# kanoikada 1 *iz* kanoi tiroa.
Galera veneziar baten **kanoikadak** aurpegia desitxuratu ziolako. Felipe Juaristi
AMX-13 baten **kanoikada** bezain indartsua. Gure azken **kanoikada** jaurti genuenean. Koldo Izagirre
-Armada abiatzeko seinalea **kanoikada** bat izango duk. Edorta Jimenez
21 **kanoikadak** agurtu zuten Hu. Berria - Mundua
Kroaziarrek jaurti zituzten **kanoikadek** ere ezin izan zuten lurrera bota. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)
Haien agurra **kanoikada** sail bat izan zen, hondarrekoa. Aingeru Epaltza
· Ukabilkada izugarria jo zion, tanke **kanoikada** lez. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kanoikada bat tirata** (3)

---

# kanoikatu, kanoika, kanoikatzen du *ad adkor* kanoi tiroak egin.
Inon ez! **-kanoikatu** zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

---

# kanoiketa *iz* kanoikatzea.

Donostian ederki nozitu zutela haren **kanoiketa**. Inazio Mujika Iraola

Lau kanoi ziren, zazpi eta erdikoak, eta **kanoiketa** ederra ari ziren egiten une hartantxe bertan. Inazio Mujika Iraola

---

# kanoilari *iz* kanoia erabiltzen duen gudaria.

Ondorengo egunotan hiru urtez luzatuko du kontratua *gunners* **(kanoilariak)** deiturikoekin, eta ziur asko bi azterketa gogor jarriko dizkio bere buruari. Berria - Kirola

---

# kanoiontzi *(orobat **kanoi-ontzi**)* *iz* itsasontzi kanoiduna.

Gero herrinahaslea hil egin da, eta orduan **kanoiontzi** bat etorri da ostera denak etxera eramateko. Juan Garzia

**Kanoi**-ontziko kapitainak. Anton Garikano

"Nora zoaz?" galdetzen dio **kanoiontzi** paxistak Sanander aldetik datorrela ikusita. Koldo Izagirre

---

# kanoitu, kanoi(tu), kanoitzen du *ad* kanoikatu.

Labana hortzen artean ipini nuen, largabistarekin **kanoitzen** baninduen ere pirata bat ikusia zela konta zezan. Koldo Izagirre

---

# kanoitxo *iz* kanoi txikia.

105 milimetroko kanoi bana, 37 milimetroko beste **kanoitxo** bana eta 20 milimetroko metrailadore bina dute ontzi gainean. Edorta Jimenez

---

# kanoitzar *iz adkor* kanoi handia.

Horren izenean, gaur egiteko dugun poz-pozezko topa bedera hortxe die **kanoitzarrak** hodeiei iragarriko. Juan Garzia

---

# kanoizain *iz* kanoilaria. ik **kanoizale**.

**Kanoizainak,** Moor delakoak, ahotsa goratu zuen. Juan Garzia

Kapitaina, jiratu, eta, perrail bati eskua erantsirik, buru gainean kanka jo zuen harekin **kanoizaina**. Juan Garzia

Ekar hona kopak; eta bekio atabala turutari mintza, turuta kanpoko **kanoizainei,** kanoiak zeruei, zeruek lurrari. Juan Garzia

---

# kanoizale *izond* kanoilaria.

Inguruko mendi baten tontorrean gudari-taldetxo bat zegoen, ispilu bidez eta morse-hizkuntzan nora sutu behar zuten **kanoizaleei** erakusten. Inazio Mujika Iraola

Zaleentzat ikusgarria baita *gunners*-ak, **kanoizaleak,** zelaian ikustea, batez ere Henryren korrikaldi eta golekin gozatzea. Berria - Kirola

Orduantxe iratzarri ziren **kanoizaleak,** eta berpiztu Henry. Berria - Kirola

---

# kanoiztatze *iz* kanoiz tirokatzea.

Goizaldeko hotzak izozturik genuen motorra abiarazi nahian genbiltzalarik, goiza argitzean, gorreria eragiteko moduko **kanoiztatzeak** harrabots-oihartzun egin zuen zerumugan. Edorta Jimenez

---

# kanon 1 *iz* arau ideala.

[Haren] gorpuzkerak Polikletoren **kanonaren** proportzioak baitzituen. Iñaki Mendiguren

**Kanon** sainduen arauen arabera eta ez bakoitza bere aburu bereziari jarraikiz. Piarres Xarriton

Lehen mailako azterketa-eredua osatzen dute erretorika klasikoaren bost **kanon** hauek. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Kanon** horiek egitura bat osatzen dute, zeinari esker hizlariek eta erretorikaren teorikoek sistema erretoriko osoaren osagarriak [...] azter ditzaketen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Galdekizun hauetan arrazoimenaren erabileraren **kanon** batek ahalgarria izan behar du. Ibon Uribarri

Mundu begetalaren **kanon** estetikoetarik gero eta hurbilago. Joan Mari Irigoien

Sorketa *imitatio* hutsa baitzen, hots, greziarrek aurrez ezarritako eredu, **kanon** eta argudioak aintzat hartuta egin behar zen literatura izeneko lana. Bernardo Atxaga

Maitemindu-arketipoaren portaera-**kanonari** estu lotzen nintzaiola. Joan Mari Irigoien

Errealismo sozialista bera ere, errealismo guztietan teorizazio esplizituena izan duena, hain zuzen, **kanon** jakin batzuen mende zegoen. Josu Zabaleta

Batek ere ez zion Kati inoiz dantza egiteko eskatu, itxura harekin ez omen zituen **kanonak** betetzen. Sonia Gonzalez

**2** kristau elizek sakratutzat hartzen dituen testuen zerrenda; literaturan-eta arau ideal bat gauzatzen duen liburu-multzoa.

Liburu apokrifoetan, Eliz Amak ofizialtasun **kanonekoa** eman ez zien haietako batean -Santiagoren Protoebanjelioan, hain zuzen ere-. Pello Zabala

Puntu honetan esanguratsua da Filemoni Gutuna **kanon** sakratuan sartzea. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko Kristau Eliza Ortodoxo eta Mendebaldeko Kristau Eliza Katolikoaren **kanonak**. Iñaki Mendiguren

Liburuaren azalean den emazte-firmak berak salatzen du ez dela **kanon** unibertsalaren eremukoa... Ana Urkiza

**Kanona** testugileek eta kritikoek zehazten dute. Ana Urkiza

Behar duzuen lehenbiziko gauza, hasteko, **kanon** literario bat da. Jon Alonso

Funtsezko itauna hau da: nola eraikitzen dira **kanon** epistemologikoak finkatzen dituzten testuinguruak, eskema kontzeptualak? Askoren artean

Konfuziar **kanoneko** literatura klasikoaren estiloa. Iñaki Mendiguren

· Bost euskal idazle [...] aurkezten zitzaizkigun, gaur egungo euskal literaturaren lehen mailako idazletzat eta **kanon** gisa jo direnak. Ana Urkiza

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kanoniko**[1].

**Kanon** irakasleen iritzi arruntari jarraikiz. Piarres Xarriton

**Kanon**-eskubideak dio, *De poenitentia* atalean, Judasek bekatu handiagoa egin zuela bere burua hiltzen, Jesukristo Gure Jauna saltzen baino. ik kanoniko[1] 3. Juan Martin Elexpuru

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez da liburu itxia, ez eta literatura **kanon** baterako proposamena ere. Horretarako behar genuen lehen gauza literatur **kanon** bat edukitzea zela. kulturaren globalizazioa eta

literatur **kanonaren** sorkuntza. Ana Urkiza

Bertso bakoitzean ikusi eta aztertu behar dugu beraz nolako bereizgarriak dituen bost erretorika-**kanon** horietako bakoitzak bat-bateko bertsolaritzan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**5** Elizak dogmari edo diziplinari buruz ezarririko xedapena.

Gure Eliza ama santaren kontzilioez, **kanonez** eta konztituzioez ere baliatzen dira. Patxi Altuna

Trentoko kontzilioaren 6. sesioko 1. kapituluan eta 1. 2. **kanonetan** . Piarres Xarriton

Trentoko kontzilioak 13. sesioko 3. kapituluan erabaki duela 3. **kanonean** heretikotzat edukitzea nork ere ukatzen baitu Jesu Kristoren gorputz osoa badagoela itxura bakoitzaren baitan. Piarres Xarriton

Ez dituzte ere begiratu **kanonen** arau sainduak agintzen dutenak. Piarres Xarriton

**6** mezako erdi aldea, aldatzen ez dena, *Te igitur*-etik *Pater noster*-eraino hedatzen dena.

Jaiera ikusgarria izan zuen [santa Luziak], asko zabaldu zen bere izena, Elizaren mezako **kanonean** ere sartu zen. Pello Zabala

**7** doinu bat arau jakin batzuen arabera zenbait aldiz errepikatuz ontzen den musika lana.

Ulertzen zuen nola zeuden elkartuak musikaren zatiak, bariazio bat beste baten alderantzia zela, hainbat ahots, doinu bati jarraitu ondoren, **kanon** edo fuga batean elkar zitezkeela. Xabier Olarra

**8** hitzarmen batek ezartzen duen aldian behingo ordainteka.

Internauten Elkarteak CD eta DVD garbien gaineko **kanona** igo izana leporatu dio SGAEri. Berria - Gaiak

ACBn jokatu ahal izateko **kanona** eurek ordaindu ziguten. Berria - Kirola

**Kanonaren** ordezko zerga sortu beharko genuke. Berria - Gaiak

**Kanon** bat ezartzeak doako maileguarekin amaituko du. Berria - Kultura

Usurbil eta Lasarte **kanon** horretatik at geratuko lirateke, errauste plantatik gertu egoteagatik. Berria - Euskal Herria

**Kanon** bat eta bakarra izango da [Uraren Legean]. Edorta Jimenez

Iruditzen zait musikariei laguntzeko **kanona** dagoenetik ez dagoela kopiak egitea galarazteko aitzakiarik. Berria - Gaiak

Autobidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko **kanonaren** helburua. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kanon literario** (5); **kanon literario bat** (4)
>
> **arrazoimen hutsaren kanonaren** (3); **euskal literaturaren kanonaren** (3)
>
> **kanonetik askatzeko** (4)

---

# kanonigo *(orobat* ***kanoniko*** *g.er.) iz* kalonjea.

Ez du egundaino auzia argitu, nahiz eta katedraleko **kanonigoen** susmoak izan dituen beti. Aingeru Epaltza

Guzmango Domingo santua, Osmako **kanonigo** zela, [...].Estrasburgoko katedraleko **kanonikoa** zela erran dit, latinez erran ere. Aingeru Epaltza

Gerra piztu aurreko udan, Valladolidera destinatu zuten **kanonigo** . Inazio Mujika Iraola

---

# kanoniko[1] **1** *izond* kanonei dagokiena; kanonen araberakoa. ik **kanon 3**.

Maitasun istorio **kanoniko** bat egin nahi izan nuen. Ana Urkiza

Edertasun **kanonikoa** . Sonia Gonzalez

Ahozkotasunaren teoriak, Notopoulos eta Ongen formulazio **kanonikoen** arabera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Axioma **kanonikoa,** Grazianoren Dekretuan (P II, C. q.) azaltzen dena. Askoren artean

Lege zibilak botere laikotik eta naturaletik heldu direla, hark sorturik; lege **kanonikoak,** aldiz, elizaren botere naturaz gainekotik. Piarres Xarriton

Absoluzio **kanonikoa** emango dion apaizen. Askoren artean

Otoitz egiten zuenean edo ordu **kanonikoak** esaten zituenean. Askoren artean

Eskema **kanonikoari** men egin gabe. Iñaki Iñurrieta

Literatura **kanonikoa** eta literatura mediatikoa bereizi zituen atzoko hitzaldian. Berria - Kultura

Idazle **kanonikoen** azpildurak bistan jartzeaz gain, literatur zaleontzat galdera mamitsuak ere egiten ditu. Berria - Kultura

Testua bera bertsio **kanonikoa** deitzen dena baino lau aldiz laburragoa da. Berria - Kultura

Irudikapenezko arte **kanonikoa,** berriz, ezin da existitu konbentzio intelektual batzuei esker ez bada. Josu Zabaleta

Banaketa hau etikan **kanonikotzat** har daiteke. Askoren artean

**2** ***ordu kanoniko*** liturgia ordua. ik **liturgia 4**.

Otoitz egiten zuenean edo **ordu kanonikoak** esaten zituenean. Askoren artean

Goratu, berebat, Jainkoarentzat eliz otoitzak, beste otoitzak eta **ordu kanoniko** guztiak errezatzeko aldizka berezi diren garaiak. Patxi Altuna

Ez baitzuten artean liturgi libururik **ordu kanonikoak** abestu ahal izateko. Askoren artean

**3** ***zuzenbide kanoniko*** Eliza katolikoaren antolamendua arautzen duen zuzenbidea.

**Zuzenbide kanonikoaren** arau batean. Iñaki Iñurrieta

Berez, zuzenbide erromatarrak eta **zuzenbide kanonikoak,** biek onartzen zuten aitatasunaren ikertzea. Ramon Saizarbitoria

Erromatarren zuzenbide zibilaren arabera, leku sakratu batetik gauza pribatu bat hartzen duena lapurreta-delituagatik baizik ez da zigortua izango; **zuzenbide kanonikoaren** arabera, sakrilegio-delituagatik zigortuko dute. Iñaki Iñurrieta

Kontuan hartu behar da garai haietan **zuzenbide kanonikoa** ez zela geroago bezain zehatza eta osoa. Askoren artean

· Zuzenbide zibilaren printzipioen arabera araututako gauzak ez direla arautu behar **kanoniko** deritzan zuzenbidearen arabera. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zuzenbide kanonikoa** (4)
>
> **ordu kanonikoak** (3); **zuzenbide kanonikoak** (3)
>
> **zuzenbide kanonikoaren** (4)

---

kanoniko[2] ik **kanonigo**.

---

# kanonikoki *adlag* era kanonikoan.

Honorio Aita santu jaunari eta **kanonikoki** hautaturiko haren ondorengoei eta Erromako Elizari. Askoren artean

Eta gainerako ahizpak behartuak beude San Frantziskoren ondorengoei obeditzera, baita ahizpa Klarari eta **kanonikoki** hautaturiko ondorengo abadesa guztiei ere. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kanonikoki hautaturiko** (3)

---

kanonisasio ik **kanonizazio**.

---

## kanonista *iz* zuzenbide kanokikoan espezialista den pertsona.

Maila apalagoko aita santu gehienak ere, ez ziren teologoak (Jainko-aztertzaileak), **kanonistak** baizik (lege-aztertzaileak). Iñaki Mendiguren

Dena dela, badirudi, tarte horretan, Zizeronen politika printzipio zenbait ahantzi zituztela Mendebaldeko teologo, legelari eta **kanonista** jakintsu anitzek. Piarres Xarriton

Hona zer dioen Barbosa portuges **kanonista** aipatuak: [...]. Piarres Xarriton

---

## kanonizatu, kanoniza, kanonizatzen 1 du *ad* kanoniko bihurtu.

Irakurlea harrapatzeko modutzat dauka sistemak idazleak **kanonizatzea..** . Ana Urkiza

Baina liburu hau berau ere, **kanonizatu** dute dagoeneko. Berria - Kultura

**2** eliza katolikoan, norbait ofizialki santu aldarrikatu.

Horregatik, 1622an Eliza katolikoak **kanonizatu** egin zuen, santu egiteko, eta Nafarroako patroia da gaur egun. Berria - Euskal Herria

San Frantzisko 1228. urtean **kanonizatu** zuen Gregorio IX. Aita santuak. Askoren artean

Irlandako artzapezpiku Armagh Sean Bradyk Joan Paulo II.a **kanonizatzeko** eskatu zuen. Berria - Harian

-Ez, ez da saindu baten erlikia, zeren ez baitut nehon aditu Erromak **kanonizatu** nauenik. Joan Mari Irigoien

**4** irud/hed

Abraham Lincoln **kanonizatu** egin zuten banaketa saihesteko hegoaldea inbaditzeagatik; Milosevic kondenatu egin zuten Jugoslaviaren osotasuna babesten saiatzeagatik. Berria - Mundua

Eta horrela sartu zen edalea literaturan, Joseph Rothek **kanonizaturik** . Matías Mujika

**4** (era burutua izenondo gisa)

Liburu santuak, eta orobat pentsamenduaren lan **kanonizatuak,** sugearen pozoiaren antzekoak dira: moralaren eta kaosaren sorburu dira, karitate eta krimen iturri. Aingeru Epaltza

Euskarazko literatur sistema **kanonizatuaren** periferian. Ana Urkiza

Agertu izan diren kritika-portaera batzuek, ongi erakusten dute autore **kanonizatuak** gizonak direla... Ana Urkiza

---

## kanonizatzaile *iz* kanonizatzen duena.

Egiten den kritika **kanonizatzailea** dela esango zenuke? Ana Urkiza

---

## kanonizazio *(orobat **kanonisasio** g.er.)* 1 *iz* kanoniko bihurtzea.

Kritikaren rola oinarrizkoa da **kanonizazioan:** prentsarena, kritika unibertsitarioarena, tesiena... Ana Urkiza

Autore baten **kanonizazio** prozeduran unibertsitateak ematen duen goi mailako erramu boneta oso garrantzitsua da, zinezko kontsakrazioa ikonoen beharretan den liburuaren merkatuan. Ana Urkiza

Ez zegoen **kanonizaziorako** asmorik, idazletzari aitortza egitekoa baizik. Berria - Kultura

Erdialegiazko iraganaldi baten **kanonizazio** horrek zirrara txikia eragin zuen Tsin-go gobernari eta herriarengan. Iñaki Mendiguren

**2** Eliza katolikoan norbait ofizialki santu deklaratzea.

Frantzisko dohatsuaren heriotza, mirariak eta **kanonizazioa** . Askoren artean

Frantziskoren **kanonizazioko** ospakizunetan. Askoren artean

Anai Eliasek Frantziskoren heriotzaren berri emanez eginiko gutuna eta **kanonizazioko** aktak. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan)

Santuaren **kanonizazio**-prozesua. Askoren artean

Frantziskoren **kanonizazio**-auzia. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kanonizazio prozesuan** (3)
**san frantziskoren kanonizazioa** (4)

---

## kanore *iz ipar* itxura, funtsa. ik **ganora**.

Ez, Raffarin-en gobernuak Medef-aren baimen zoriontsuarekin hartu duen erabakiak ez du **kanorerik** . Herria

Ohartu ginen ekonomikoki ez zuela **kanorerik** . Herria

Batasunaren aldekoek etsi bat hartuko dutela gisa hortako debekuak arrunt durduzaturik? ez du horrek **kanorerik** ! Janbattitt Dirassar

Jalgi naiz segidan "pallozas" famatuei behako bat egiteko lastoz estali etxeek badute **kanore** ederrik, egiazki. Piarres Aintziart

Eta, elkarren artean mintzatzearekin, ametsak **kanore** hartzen du, horrela dira ideiak hezur mamitzen eta proiektu bilakatzen. Herria

-Galde hori egiten da ainitz... eta galde horrek baluke bere **kanorea** . Menane Oxandabaratz

Uste du halere Sharon jaunak ardietsiko duela sozialisten laguntza, eta haren asmoak baduke **kanore** . Herria

Iduri du beraz orai president ohiarentzat galdegina den auziak baduela **kanore,** eginen ditakela ondoko egunetan. Herria

---

## kanoretsu *izond*

Paralesia horrek 2007ko erditsuraino iraunen du, Alain Lamassouren ustez, Alemaniako gobernu berriak ez baitu iniziatiba **kanoretsurik** hartuko Europari buruz, eta Frantzia president bozen ondotik baizik ez baita pikoan izanen Europa berriz aitzinera abiarazteko. Herria

**kanpadenda** *(54 agerraldi, 13 liburu eta 8 artikulutan; orobat* ***kanpa-denda*** *g.er.)* *iz* kanpatzeko erabiltzen den ehunezko etxola modukoa, hedatzen eta biltzen dena. ik **kanpin 4; denda 6**.

Duela hiru egun iritsi gara San Franciscora eta **kanpadenda** bat zabaldu dugu Golden Gate parkean. Javi Cillero

Campuseko zelaian **kanpadenda** jarrita. Berria - Euskal Herria

Adabakiz jositako **kanpadenda** bildu, eta lekuak hustu ditugu. Javi Cillero

Hark bazela [eskailera] bat Arkaleren tabernan adierazi zion, hartu zuten tabernatik eta harekin eutsi zieten olanei, harik eta forma konikoko **kanpadenda** bat osatu zuten arte. Koro Navarro

Hiri berean **kanpadendetan** bizi diren dozenaka emakume sahararrek Rabateko administrazioaren bulegoen aurrean protesta egin zuten. Berria - Harian

Behin baino gehiagotan, gauez **kanpadendan** etzanda nengoela, desertatu eta ihes joateko burutazioa ere izan nuen. Mirentxu Larrañaga

**Kanpadendetan,** lerrokatuta lo egiten genuen; komunean, ilaran esertzen ginen. Mirentxu Larrañaga

Berehalako batean nire kanpalekuak birrinduak dira, bat-batean nire **kanpadendak** suntsituak. Elizen arteko biblia

**Kanpadenda** modukoa eman ziguten, han lo egiteko. Berria - Euskal Herria

kanpae ik **kanpai**.

**kanpai** *(orobat* ***kanpae*** *g.er.)* **1** *iz* metalezko tresna barne-huts eta aho-zabala, barruan duen mihi batez edo kanpoko mailuka baten bidez hots durunditsu eta iraunkorra ateratzen zaiona. ik **ezkila; joare**.

Katedraleko **kanpaiak** entzun dira. Anjel Lertxundi

Urbiaingo elizako **kanpaiek** iratzarri ninduten. Joan Mari Irigoien

Jainkoaren eskua behar zen tamaina hartako **kanpai** berri baterako behar zen dirua aurkitu ahal izateko. Koldo Biguri

Palmako katedraleko **kanpai** handia zartatu eta hondatuta utzi zuen oinaztu batek. Pello Zabala

Emakumeen gelan sartu eta **kanpai** handia jotzen hasi zen. Irene Aldasoro

Honek kanpandorrera jo eta **kanpai** nagusiarekin, beste nobedadeak emateko zerabilten kanpaitzarrarekin behar hainbat joaldi emango zituen. Pello Zabala

Bozkariozko kantuak, **kanpaien** joaldi arranditsua. Askoren artean

**Kanpaiak** luzaz **joaraziz**. Txillardegi

Baporea kostatik urrun zegoela, **kanpai** baten dilin-hotsa entzun zen. Jon Muñoz

*ik beherago* 9. Askoren artean

Baionako katedraleko **kanpaien** hotsa belarriratu zitzaidan. Alberto Ladron Arana

Jo eta jo segitzen zuen **kanpaiak**. Fernando Rey

*ik beherago* 15. Askoren artean

Mailu bat **kanpai** arraildu bati joka. Fernando Rey

Komentu bateko **kanpaia** joka hasi zen. Koro Navarro

Su **kanpaiak** joka hasi ziren elizan. Koro Navarro

Herriko **kanpaiak** etengabe ari ziren joka, suaz ohartarazteko jo ohi zuten erara. Jon Maia

Nik nahi baino luzeago iraun du **kanpaien** deiak nire gelako leihotik sartzen. Anjel Lertxundi

Zoaz maitinetara, **kanpaia** deika ari zaizu eta. Askoren artean

Corneton, zenbait gizon deboto fraideen bizilekuan lanera bildua zen **kanpai** bat urtzeko. Askoren artean

**2** kanpai itxurako zernahi gauza edo tresna.

Tximiniaren **kanpai** zabalaren inguruan oihal zuri lisatu bat zegoen zintzilik, iltzeekin eutsita. Koro Navarro

Bi bonbilla baino ez zituzten, biak barraren gainean esekirik, non artean opil bakan batzuk geratzen baitziren, kristalezko **kanpai** batez estalirik. Lopez de Arana

Zilarrezko titareak zituen estimu handitan, portzelanazko maila batzuetan jarriak zeudenak, kristalezko **kanpai** batez estaliak, konkor txikiak iduri. Karlos Zabala

Roquefort gaztek printze itxura hartzen zuten kristalezko **kanpaien** azpian. Karlos Zabala

Eskandinaviako Thor jainkoak bazuen mailu miresgarri bat eta horrekin zeruetako burdina -izarrei eusteko lurraren gainean zegoen **kanpai** erraldoikoa- jotzen zuen bakoitzean sortzen ziren tximistak -txinpartak- eta burrunba -trumoia, ostotsa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gauss-en **kanpai** baten eskemari jarraituz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Estatistikako **kanpai** horietako baten traza hartzen diozu. Lutxo Egia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ordu erdiko **kanpai** dantzaren ondoren, jendea iritsi zen plazara. Koldo Biguri

Batera eta bestera baztertu nituen **kanpai** -sokak. Mirentxu Larrañaga

Kanpaigileek eta kanpaijoleek zaindaritzat aukeratu baitzizuten Agata deuna: horregatik jotzen zuten **kanpai** -saioa gauerdira arte. Pello Zabala

**Kanpai** -dangak arreta osoz kontatzen egon eta gero. Anjel Lertxundi

Azken **kanpai** danbadaren zain. Karlos Zabala

**Kanpai** eta ezkila errepikak dirauten bitartean. Pello Zabala

Eta arrazoi beragatik onartzen zuen, dirudienez, fraile bati **kanpai** -joaldi bat edo beste egitea, hala bereganatuko zuelakoan. Pello Lizarralde

Soinekoak **kanpai** itxura hartzen zuen gero aldaketan, eta hegan hasten oinetan. Felipe Juaristi

*ik beherago* 8. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta Lizarrako eliza eta komentu guztietako erloju-**kanpaiak** entzun nituen ilara azkengabean. Eta eguzkia eguerdian piko-piko dabilenez, hor joaten da hegoa lotsagabetzen, harroxkotzen, lainezaz jantzita, laino aletu bat edo beste ekartzen aurrena, eta zeru-**kanpai** hori betetzen eta kargatzen arratsaldea aurrera doala... Txillardegi

Hileta-**kanpaien** errepika. Agustin Otsoa

Zuk zeuk jo zenuen arrisku-**kanpaia**. Aritz Gorrotxategi

**5** ***aire kanpai***

Laboratorioaren erdian bazen zur eta beirazko aire **kanpai** handi bat, harrobide eta gasek hiltzearen aurkako geriza bakar baikenuen. Juan Garzia

Izkinetako batean aire **kanpai** bat bazen, eta kanpaiaren aurrean eseria Rita. Juan Garzia

Hurrengo egunerako utzi genuen egitekorik lazgarriena, **aire kanpaiaren** desmuntaketa. Juan Garzia

**6** ***gas kanpai***

Gas-**kanpaia,** zabalik utzia, jaitsirik zegoen. Juan Garzia

**7** ***hil kanpai***

Eliza bakanetako **hil-kanpaiak** jotzen ari ziren, beren hots tristeekin uso saldoak izutuz. Urbiaingo elizatik zetorren **hil-kanpai** urrunaren hotsak aditu nituen. Joxean Agirre

Akademiatik irten nintzenean, **hil-kanpaiak** entzun nituen garbi bezain ilaun. Anjel Lertxundi

*Noren* **hil** - **kanpaiak** *ote* eleberrian. Edorta Jimenez

San Frantzisko komentuko **hil-kanpaiak** ari ziren. Anjel Lertxundi

## 8 *kanpai erako/formako/itxurako/tankerako* *izond* ik **kanpaitu.**

Manchester-gona oliba-kolore **kanpai** -erako bat, lehenagoko mutil-galtza haiek baino egokiago zihoakiona, nik uste. Joxe Austin Arrieta

Mandar brodatuak eta **kanpai** -formako gonak. Fernando Rey

Txano gorri konikoak edo **kanpai** formakoak. Karlos Zabala

Belo horiko kapela **kanpai** -itxurako bat jantzirik. Lopez de Arana

Gona, tolesduna eta **kanpai** tankerakoa, aldenik alde kulunkatzen zitzaion. Lopez de Arana

## 9 *kanpai hots*

Ez zen **kanpai-hotsik** izango, eta ez zuten ereserkirik kantatuko. Mirentxu Larrañaga

Elizkizunaren hasiera aldarrikatzen zuten **kanpai hotsak** entzun ziren. Une hartan, udaletxeko erlojuaren **kanpai-hotsa** entzun zuen. Josu Zabaleta

Elgetako dorreak lau **kanpai hots** jo zituenean. Ramon Saizarbitoria

Erabaki zen, orobat, elizako **kanpai-hotsak** joko zirela Big Joe aurkitu izanaren adierazgarri. Mirentxu Larrañaga

Orduen **kanpai-hotsa**. Jose Morales

Igande goizean aldizkako **kanpai-hots** andanek iratzarri ninduten. Txillardegi

Maiz-maiz **kanpai-hots** geldi, tristeak entzuten ziren. Josu Zabaleta

**Kanpai-hots** sekulakoa, jai giroko zalaparta alaian. Anjel Lertxundi

**Kanpai-hotsak** egunsentian. Anjel Lertxundi

Han dena zen **kanpai-hotsa,** brontzezko dirdira, kristalezko isla. Lopez de Arana

· Tranbien **kanpai** eta trolebusen ziztu hotsez beterik zeukan burua. Irene Aldasoro

## 10 *kanpai joka* *(orobat* ***kanpaijoka****)* *adlag*

Charlie artean **kanpai joka** eta iufika aditu nezakeen behean, danga eta danga artean, eta aise irudika nezakeen kanpai-sokatik zintzilikaturik, airean zinbulu-zanbuluka. Mirentxu Larrañaga

Antoniok orduan buztanari heldu eta **kanpai joka** hasi zen aurpegia zerura zuzenduz. Aitor Arana

Gutxien espero nuenean, eskua luzatu eta **kanpaijoka** hasten zitzaidan, niri halako zirrara berezia sortuz. Aitor Arana

Zakila gogor-gogorra neukan eta tentazio handia zen hari heldu eta **kanpai joka** hastea. Aitor Arana

## 11 *kanpai-jole* ik **kanpaijole.**

## 12 *kanpai jotze* *(orobat* ***kanpaijotze*** *g.er)* masturbatzea.

Emakume eta **kanpai** -jotze kontuez hitz egiten. Pello Lizarralde

Bere **kanpai** -jotzea azkartzen zuela ikusi nuen, batzuetan bere zakilburuak nire ipurmasailak astintzen zituela sentitzen nuen. Juan Martin Elexpuru

**Kanpai-jotze** demasak izan ote zezakeen konplexu haren egituraketan parterik? **Kanpaijotze** saioei emozio pixka bat eranstearren, lehiaketan aritzea bururatu zitzaigun. Karlos Linazasoro

## 13 *kanpai mihi*

Arima madarikaturen batek petardoak lotu zituen **kanpai-mihira:** ez zen kalterik izan, baina bai edonor ikaratzeko moduko zalaparta. Koldo Biguri

Neure haragizko tresna hura gogortzen hasia zitzaidala, eta batetik bertzerat zebilkidala, urrats batean honat, hurrengoan harat, neure galtzoin zabalen kontra, **kanpai-mihi** bat iduri... Joan Mari Irigoien

· **Kanpaia -mihia** zein ontzia- beti eskura izanik, zertarako bizi beste zerbait jotzeko ametsetan, esate baterako, larrua? Joxerra Garzia

## 14 *kanpai soinu* kanpai hotsa.

Katedralaren kanpai handiak mutu zirauen, elizetako ezkila multzoak isilik zeuden; eta oso bitxia zen, alajaina, Errusiako hiri bat **kanpai soinuaz** beterik ez izatea! Karlos Zabala

Abuztuaren lehen egunetik hasiko ziren **kanpai-soinuak** martxan. Pello Zabala

## 15 *kanpaia josup_1*

Elizan ezkonduko gara, kristau guztiak bezala, edo baseliza zaharrean, eta **kanpaia jotzen** entzungo duzue orduan. Koldo Biguri

Gar-distiraldiren bat sumatzen zuenean, **kanpaia jotzen** zuen behealdeko jendeari abisatzeko. Koro Navarro

Elizako erlojuak erdietako **kanpaia jo** zuen. Bernardo Atxaga

· *pl* Poztu egiten ziren elizgizonak, **kanpaiak jotzen** zituzten. Askoren artean

Eguerdiko **kanpaiak jotzen** ari ziren ja. Josu Zabaleta

Elizkizun **kanpaiak jotzen** ari dira eta. Josu Zabaleta

## 16 *kanpaia josup_2* masturbatu.

Nagusiek **kanpaia jo** eta zutik zeudela hazi txuria arnasestuka isurtzen zuten txikien harrigarri. Aitor Arana

Hamar bat aldiz **kanpaia jo** eta haren haziaz Txinako andre guztiak haurdun uzteko gauza zela. Karlos Zabala

Bagenekien batzuen batzuk zelatan izan genituela eta bagenekien baten batek **kanpaia jo** zuela guri begira. Karlos Zabala

Orduan **kanpaia jotzeari** ekin nion eta minutu erdi bat aski izan zen esne bero eta txuria belar gainean ikusteko. Aitor Arana

Larrua nahiz **kanpaia jo** bitartean, potroazaleko laztanak gustura eta irrikatsu jasotzera. Aitor Arana

**Jo** ezak lasai **kanpaia**. Aitor Arana

Ipurdia miaztu behar diot **kanpaia jotzen** diodan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Hau duk motxinberoa! -esan du emakumearen begi aurrean **kanpaia** geldi-geldi **jotzen** ari den besteak-. Juan Martin Elexpuru

· Ikastetxean lasai egotearren fraileei **kanpai jotzeko** lana hartu behar izan zuen, eta mutiko sutsuei ere egin behar izan zien inbidiak baretzeko eta kolpeak saihesteko. Pello Lizarralde

## 17 *kanpaiak josup_1 sing*

**Kanpaiak jo** zuenean, arrapaladan **joan** ziren denak irteerara. Iñaki Mendiguren

Eguerdiko **kanpaiak jo** orduko. Agustin Otsoa

Danba **jo** zuen lehenengo **kanpaiak,** 19,45ekoak. Jon Muñoz

· Elizako **kanpaiak** arratsaldeko laurak **jo** zituenean. Joan Mari Irigoien

Urrutiko herritxoren bateko **kanpaiak** ozta **jo** zituen bere dunbada sor eta alaiak. Josu Zabaleta

## 18 *kanpaiak josup_2 pl*

Elizako **kanpaiek** bederatziak jo zituztenean. Jon Maia

Eliza guzietako **kanpaiek** gauerdia jo arte. Patziku Perurena

Katedraleko **kanpaiek** hamabiak jo eta mundua ordurik gabe gelditzen den hurrengo une doi horretan. Anjel Lertxundi

Michel de Reyau zergatik zegoen **kanpaiek** noiz joko, gauza jakina denean jangela guztietan egon ohi dela hormako erloju ikusgarriren bat? Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aire kanpai** (3); **elizako kanpai** (8); **kanpai baten hotsa** (3); **kanpai dorrea** (3); **kanpai handi** (4); **kanpai handi bat** (3); **kanpai hots** (22); **kanpai hotsa** (22); **kanpai hotsak** (32); **kanpai hotsak entzun** (6); **kanpai hotsek** (10); **kanpai hotsen** (4); **kanpai joaldi** (6); **kanpai joaldi bat** (4); **kanpai joka** (4); **kanpai jotze** (3); **kanpai mihira** (3); **katedraleko kanpai** (3); **kristalezko kanpai** (3); **orduen kanpai** (4)

**elizako kanpaia** (6); **kanpaia entzun** (11); **kanpaia entzun orduko** (4); **kanpaia jo** (17); **kanpaia joka** (4); **kanpaia jotzea** (4); **kanpaia jotzeari** (3); **kanpaia jotzeko** (7); **kanpaia jotzen** (27); **kanpaia jotzen hasi** (3); **kanpaia jotzera** (5)

**elizako kanpaiak** (5); **hil kanpaiak** (15); **hil kanpaiak jo** (3); **kanpaiak entzun** (10); **kanpaiak hasi** (3); **kanpaiak jo** (20); **kanpaiak joka** (6); **kanpaiak jotzen** (12); **noren hil kanpaiak** (7)

**elizako kanpaiek** (5)

**kanpaien hotsak** (3)

---

## kanpai buelta ik **kanpanbuelta**.

---

## **kanpaialdi** *iz* kanpai saioa.

**Kanpaialdi** azkengabe hartaz oso ongi oroitzen naiz. Txillardegi

Katedral zaharreko kariloiaren bost **kanpaialdi** entzun nituen Anjel Lertxundi

---

## kanpaidorre ik **kanpandorre**.

---

## **kanpaidun** *izlag* kanpaiko.

Neurriko **kanpaidun** prakekin eta zango luzeak lerdenago egiten dizkioten takoi fineko botekin. Urtzi Urrutikoetxea

---

## **kanpaigile** *iz* bizibidez kanpaiak egiten dituen langilea.

**Kanpaigileek** eta kanpaijoleek zaindaritzat aukeratu baitzizuten Agata deuna: horregatik jotzen zuten kanpai-saioa gauerdira arte, eta noski, santaeskeko puskak heientzat beharko. Pello Zabala

---

## kanpaijoka ik **kanpai 10**.

---

## **kanpaijole** *(orobat **janpai(-)jole** eta **kanpanjole**)* *iz* kanpaia jotzen duen pertsona.

Kanpaigileek eta **kanpaijoleek** zaindaritzat aukeratu baitzizuten Agata deuna. Pello Zabala

Azken solairuko tranpa-zuloa itxi eta gero, **kanpaijolea** mundutik aparte dago. Koldo Biguri

Labonde apaizak, katedraleko **kanpai joleak,** meloia baizik ezin zuen izan bere lehenengo transmigrazioaz gero. Josu Zabaleta

**Kanpai-joleak** diru-eskea egiten dute herrian barrena. Pello Zabala

Eta aingeruek ere tronpetak utzi zituzten, eta **kanpanjoleak** kanpai soka, eta ijitoen kanpamentuan biolina eta danborra beren zorroetara bihurtu ziren.· Ederto funtzionatzen nuen, zer demonio, herriko **kanpaijole** handiena izanda ere prest izaten nuen fusila behar zenerako. Bernardo Atxaga

---

## **kanpaijoletza** *iz* kanpaijolearen lanbidea.

Oinaztuak, Seoko kanpandorretik sartu, **kanpaijoletzan** ari zena hil, eta dorreko kapitelari su eman zion. Pello Zabala

---

## kanpaijotze ik **kanpai 12**.

---

## **kanpaikada** *iz* kanpai danbada.

Eta orduantxe entzun zuten ibai hondotik **kanpaikada** moteldu bat. Koldo Biguri

Hiru **kanpaikada** entzun ziren makina-gelan. Lopez de Arana

Eta ondoren hiru **kanpaikada** ozenak. Txillardegi

**-Kanpaikadak,** Floren, ordua da, arratsaldeko seiak! Jon Arretxe

---

## **kanpaileku** *iz* kanpaien lekua. ik **kanpaitoki; kanpaitegi**.

Kanpandorreko harrizko eskaileretan gora, berriz, dorrearen buruko **kanpailekura** heltzen zen. Aitor Arana

Kanpandorreko **kanpailekuan** ezkutatu zen Leire, hau da, dorrearen goi-goiko muturrean eta, bere izeba Agustina azkenik hara heldu zenean, ezinegon handiz besarkatu zuten elkar. Aitor Arana

---

## **kanpaina** *(orobat **kanpainia** g.er., **kanpaiña** g.er. eta **kanpaña** g.er.)* **1** *iz* gerra ekinaldia.

Bonapartiusekin Errusiako **kanpaina** egin zuen. Felipe Juaristi

**Kanpaina** hartan, Rifeko gerran bezala, barbaro borrokalarien indarra honetan egon zen. Iñaki Mendiguren

Mailegaturiko arma bat utzi eta beste bat hartuz, zaldi lapurtuen gainean jarraitu zuten **kanpaina**. Iñaki Mendiguren

Abisiniako **kanpaina** finantzatzeko. Josu Zabaleta

Neguko **kanpaina** odoltsu eta (sobietarrentzat) kaxkar baten ondoren. Iban Zaldua

Bere ekintza militarren **kanpaina** bertan behera utz dezan. Itxaro Borda

Italiar gobernuak Abisinia bere mende hartzeko zeraman **kanpaina** militarraren aldeko panfleto bat. Josu Zabaleta

**2** ekinaldia.

Gurasoak ikastetxe publikoetan izena ematera animatzeko **kanpaina** abiatuko du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Makinaz egindako kotoi-gaiak erabiltzeari uzteko **kanpaina** abiaraziz. Iñaki Mendiguren

**Kanpaina** egin nahi duenak, badaki. Pello Zabala

Prentsan **kanpaina** ugari egin zituzten, Zolaren literatura eskandaluzkotzat joz. Karlos Zabala

**Kanpaina** bultzatzen duen erakundeak onarpen egokia izan behar du noski. Iñaki Heras

**Kanpaina** ongi ari da betetzen WKFMren asmoak. Iñaki Zabaleta

Autonomia proposamena bultzatzeko **kanpaina** hasi du Marokok. Berria - Mundua

Hegaluzearen [...] **kanpaiña** hasi dute Bizkai eta Gipuzkoako ehun bat untzik. Herria

Irulegiko Irratiaren **kanpaina**. Herria

Heriotza zigorraren aurkako **kanpaina,** abian da. Iñigo Aranbarri

Baserri giroko emakumeen duintasunaren aldeko **kanpaina**. Joxerra Garzia

Hedabide gehientsuenek Mayor Oreja hautagaiaren alde egindako **kanpaina**. Txema Ramirez de la Piscina

Gatz iodatuaren aldeko **kanpaina** oso eraginkorra izan da. Berria - Gaiak

## **3** (izenondoekin)

**Kanpaina** nazional handi bat prestatzen ari da. Lopez de Arana

**Kanpaina** luzea da zinez gisa hortan akulatzen dena. Herria

Baiezkoaren aldeko **kanpaina** bateratua egingo zutela. Berria - Euskal Herria

Hainbat euskal musikarik azken asteotan Espainian jasan dituzten zentsura eta boikot kasuak salatu zituen eta **«kanpaina** antolatu baten barruan» zeudela aitortu zuen. Berria - Kultura

Hoydalek subiranotasunaren aldeko **kanpaina** indarrtsua jarri du martxan. Berria - Mundua

Gurasoentzako **kanpaina** bereziak ere antolatzen dituzte. Berria - Gaiak

PSNko Senaturako ordezkariak **kanpaina** «garbia» nahi dutela esan zuen. Berria - Euskal Herria

**Kanpaina** motela izan zen. Berria - Mundua

Faboritoaren aurkako **kanpaina** gogorra abiatu dute errepublikanoek. Berria - Mundua

Pobreziaren aurka egiteko nazioarteko **kanpaina** «eraginkor» bat sortu nahi dute. Berria - Gaiak

**-Kanpaina** interesgarria, jarraitzeko modukoa, Blount jauna. Karlos Zabala

Uda honetako atunaren **kanpaina** kaskarrak eta itsaso komunitarioaren gora beherek. Hasier Etxeberria

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Napoleon-en armadak Fribourg-en-Brisgau hartu zuen 1805eko **kanpaina** denboran. Michel Oronoz

Udaberriko **kanpaina**-sasoirako. Iñaki Mendiguren

Zelan ez nintzen akordatuko Alipasoloko **kanpaina**-mezan ezagutu nuen David haren izenaz? Edorta Jimenez

Gegenbauerren atea jo aurretik, Dembak **kanpaina**-plan bat zeukan egina. Anton Garikano

· Boz **kanpaina** denborako sukarra zela zirudien. Herria

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Seaskaren irudi **kanpaina** berria. Hasier Etxeberria

"Gezur **kanpaina"** zuen izena eta bertan Turkia salatzen zuen, kurduen eskubide demokratikoak zapaltzeagatik. Fernando Rey

Sudanek «irudi **kanpaina** bat» abiatu du, salaketak estaltzeko. Berria - Mundua

Garbiketa **kanpaina** bat. Berria - Mundua

Itsas txakurren ehiza **kanpaina** abiatzeko. Berria - Gaiak

Kontzientziatze **kanpaina** bat egingo dutela iragarri zuten egin zuten aurkezpenean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hor dago boikot **kanpaina** ezartzen duen erakundearen onarpen, legitimazio eta sinesgarritasunaren auzia. Iñaki Heras

Segik abiatutako intsumisio **kanpaina** zabaltzeko kartelak jarri eta eskuorriak banatuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Bazkidetza **kanpaina** eginen du asteburu honetan 100 herritan. Berria - Euskal Herria

Gerra **kanpaina** aspergarri bateko planak egiten. Felipe Juaristi

Gure Irratiak bere diru biltze **kanpaina** aitzina darama. Herria

Diru laguntza **kanpaina**. Herria

## **6** ***kanpaina denda*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kanpadenda*** *agertzen da)* kanpadenda.

**Kanpaina**-denda hedatzean. Aingeru Epaltza

Haranean zehar hedaturik, **kanpaina**-dendak eta aterpeak agertzen ziren ilaratan. Agustin Otsoa

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**abiatutako kanpaina** (5); **aldeko kanpaina** (118); **antolatutako kanpaina** (4); **antxoa kanpaina** (4); **atxikimendu kanpaina** (6); **aurkako kanpaina** (55); **aurrematrikulazio kanpaina** (4); **baiezkoaren aldeko kanpaina** (10); **bazkide kanpaina** (7); **bilketa kanpaina** (6); **biltze kanpaina** (9); **boikot kanpaina** (4); **boz kanpaina** (4); **bozen kanpaina** (8); **bultzatutako kanpaina** (5); **diru biltze kanpaina** (5); **egindako kanpaina** (7); **errenta kanpaina** (9); **europako hauteskundeetarako kanpaina** (4); **europako kanpaina** (4); **ezetzaren aldeko kanpaina** (4); **ezezkoaren aldeko kanpaina** (10); **gezur kanpaina** (5); **hauteskunde kanpaina** (130); **hauteskundeen kanpaina** (7); **hauteskundeetarako kanpaina** (9); **herri kanpaina** (4); **informazio kanpaina** (18); **intsumisio kanpaina** (5); **irudi kanpaina** (7); **irulegiko irratiaren kanpaina** (6); **izenpetze kanpaina** (5); **jazarpen kanpaina** (4)

; **kanpaina abian jarri** (8); **kanpaina abiarazi** (7); **kanpaina abiatu** (90); **kanpaina abiatuko** (23); **kanpaina abiatzea** (6); **kanpaina abiatzeko** (4); **kanpaina abiatzen** (4); **kanpaina amaitu** (13); **kanpaina antolatu** (12); **kanpaina armatua** (5); **kanpaina aurkezteko** (5); **kanpaina aurkeztu** (13); **kanpaina bat abiatu** (22); **kanpaina bat abiatuko** (6); **kanpaina bat egin** (8); **kanpaina bat hasi** (7); **kanpaina bateratua** (7); **kanpaina bati ekin** (5); **kanpaina berezi bat** (9); **kanpaina berezia** (11); **kanpaina berri bat** (8); **kanpaina berria** (10); **kanpaina bukatu** (5); **kanpaina bultzatu** (8); **kanpaina bultzatuko** (4); **kanpaina bultzatzeko** (4); **kanpaina bultzatzen** (8); **kanpaina denboran** (12); **kanpaina egin** (53); **kanpaina egin zuen** (7); **kanpaina eginen** (8); **kanpaina egingo** (23); **kanpaina egitea** (13); **kanpaina egiteko** (34); **kanpaina egiten** (42); **kanpaina eten** (4); **kanpaina finantzatzeko** (6); **kanpaina garaian** (5); **kanpaina gogorra** (10); **kanpaina handi** (9); **kanpaina handia** (9); **kanpaina hasi** (63); **kanpaina hasi du** (16); **kanpaina hasierako** (6); **kanpaina hasieran** (5); **kanpaina hasiko** (10); **kanpaina hasteko** (5); **kanpaina izan** (4); **kanpaina jarri** (29); **kanpaina kari** (4); **kanpaina luze** (5); **kanpaina militarra** (4); **kanpaina ona** (6); **kanpaina osoa** (5); **kanpaina politikoa** (4); **kanpaina prestatu** (4); **kanpaina prestatzen** (5); **kanpaina salatu** (7); **kanpaina ugari** (4); **kanpaina zabala** (6); **kanpaina zikina** (4)

**komunikazio kanpaina** (4); **konstituzioaren aldeko kanpaina** (6); **kontrako kanpaina** (54); **matrikulazio kanpaina** (6); **nazioarteko kanpaina** (9); **polioaren aurkako kanpaina** (6); **prebentzio kanpaina** (5); **promozio kanpaina** (4); **propaganda kanpaina** (4); **publizitate kanpaina** (22); **salaketa kanpaina** (9); **sentsibilizazio kanpaina** (12); **sinadurak biltzeko kanpaina** (4); **txertaketa kanpaina** (16); **udako kanpaina** (4); **zuzendutako kanpaina** (4)

**aldeko kanpainak** (14); **hauteskunde kanpainak** (11); **kanpainak antolatu** (4); **kanpainak egin** (8); **kanpainak egitea** (6); **kanpainak egiten** (8); **kanpainak iraun** (5); **kontrako kanpainak** (10); **publizitate kanpainak** (13); **sentsibilizazio kanpainak** (5); **sustapen kanpainak** (5)

**hauteskunde kanpainako** (37); **kanpainako aholkulari** (4)

; **aldeko kanpainan** (7); **aurkako kanpainan** (4); **aurrematrikulazio kanpainan** (4); **aurtengo kanpainan** (4); **hauteskunde aurreko kanpainan** (4); **hauteskunde kanpainan** (128); **kanpainan egindako** (5); **kanpainan esan** (7); **kanpainan iragarri** (6); **kanpainan parte hartu** (7); **kanpainan parte hartuko** (4)

**hauteskunde kanpainara** (4)

**hauteskunde kanpainarako** (7)

**aldeko kanpainarekin** (6); **kanpainarekin bat egin** (9); **kanpainarekin bat egiteko** (4)

**aldeko kanpainaren** (8); **aurrematrikulazio kanpainaren** (6); **hauteskunde kanpainaren** (42); **kanpainaren amaieran** (4); **kanpainaren ardatz** (5); **kanpainaren aurkezpenean** (7); **kanpainaren bultzatzaileek** (4); **kanpainaren harira** (6); **kanpainaren hasiera** (7); **kanpainaren hasieran** (6); **kanpainaren helburua** (8); **kanpainaren inguruan** (5); **kanpainaren karietara** (7); **kanpainaren kondu** (8); **kanpainaren leloa** (6); **kanpainaren nondik norakoak** (7); **kanpainaren ondorioz** (6); **kanpainaren sustatzaileek** (9)

**hauteskunde kanpainari** (12); **kanpainari ekin** (9); **kanpainari hasiera emateko** (6)

**kanpainarik handiena** (4)

**hauteskunde kanpainetan** (8); **kanpainetan parte hartu** (4)

---

**kanpaina** *(orobat* ***kanpainia*** *g.er.,* ***kanpaiña*** *g.er. eta* ***kanpaña*** *g.er.)* **1** *iz* gerra ekinaldia.

Bonapartiusekin Errusiako **kanpaina** egin zuen. Felipe Juaristi

**Kanpaina** hartan, Rifeko gerran bezala, barbaro borrokalarien indarra honetan egon zen. Iñaki Mendiguren

Mailegaturiko arma bat utzi eta beste bat hartuz, zaldi lapurtuen gainean jarraitu zuten **kanpaina**. Iñaki Mendiguren

Abisiniako **kanpaina** finantzatzeko. Josu Zabaleta

Neguko **kanpaina** odoltsu eta (sobietarrentzat) kaxkar baten ondoren. Iban Zaldua

Bere ekintza militarren **kanpaina** bertan behera utz dezan. Itxaro Borda

Italiar gobernuak Abisinia bere mende hartzeko zeraman **kanpaina** militarraren aldeko panfleto bat. Josu Zabaleta

**2** ekinaldia.

Gurasoak ikastetxe publikoetan izena ematera animatzeko **kanpaina** abiatuko du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Makinaz egindako kotoi-gaiak erabiltzeari uzteko **kanpaina** abiaraziz. Iñaki Mendiguren

**Kanpaina** egin nahi duenak, badaki. Pello Zabala

Prentsan **kanpaina** ugari egin zituzten, Zolaren literatura eskandaluzkotzat joz. Karlos Zabala

**Kanpaina** bultzatzen duen erakundeak onarpen egokia izan behar du noski. Iñaki Heras

**Kanpaina** ongi ari da betetzen WKFMren asmoak. Iñaki Zabaleta

Autonomia proposamena bultzatzeko **kanpaina** hasi du Marokok. Berria - Mundua

Hegaluzearen [...] **kanpaiña** hasi dute Bizkai eta Gipuzkoako ehun bat untzik. Herria

Irulegiko Irratiaren **kanpaina**. Herria

Heriotza zigorraren aurkako **kanpaina,** abian da. Iñigo Aranbarri

Baserri giroko emakumeen duintasunaren aldeko **kanpaina**. Joxerra Garzia

Hedabide gehientsuenek Mayor Oreja hautagaiaren alde egindako **kanpaina**. Txema Ramirez de la Piscina

Gatz iodatuaren aldeko **kanpaina** oso eraginkorra izan da. Berria - Gaiak

**3** (izenondoekin)

**Kanpaina** nazional handi bat prestatzen ari da. Lopez de Arana

**Kanpaina** luzea da zinez gisa hortan akulatzen dena. Herria

Baiezkoaren aldeko **kanpaina** bateratua egingo zutela. Berria - Euskal Herria

Hainbat euskal musikarik azken asteotan Espainian jasan dituzten zentsura eta boikot kasuak salatu zituen eta **«kanpaina** antolatu baten barruan» zeudela aitortu zuen. Berria - Kultura

Hoydalek subiranotasunaren aldeko **kanpaina** indarrtsua jarri du martxan. Berria - Mundua

Gurasoentzako **kanpaina** bereziak ere antolatzen dituzte. Berria - Gaiak

PSNko Senaturako ordezkariak **kanpaina** «garbia» nahi dutela esan zuen. Berria - Euskal Herria

**Kanpaina** motela izan zen. Berria - Mundua

Faboritoaren aurkako **kanpaina** gogorra abiatu dute errepublikanoek. Berria - Mundua

Pobreziaren aurka egiteko nazioarteko **kanpaina** «eraginkor» bat sortu nahi dute. Berria - Gaiak

**-Kanpaina** interesgarria, jarraitzeko modukoa, Blount jauna. Karlos Zabala

Uda honetako atunaren **kanpaina** kaskarrak eta itsaso komunitarioaren gora beherek. Hasier Etxeberria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Napoleon-en armadak Fribourg-en-Brisgau hartu zuen 1805eko **kanpaina** denboran. Michel Oronoz

Udaberriko **kanpaina**-sasoirako. Iñaki Mendiguren

Zelan ez nintzen akordatuko Alipasoloko **kanpaina**-mezan ezagutu nuen David haren izenaz? Edorta Jimenez

Gegenbauerren atea jo aurretik, Dembak **kanpaina**-plan bat zeukan egina. Anton Garikano

· Boz **kanpaina** denborako sukarra zela zirudien. Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Seaskaren irudi **kanpaina** berria. Hasier Etxeberria

"Gezur **kanpaina"** zuen izena eta bertan Turkia salatzen zuen, kurduen eskubide demokratikoak zapaltzeagatik. Fernando Rey

Sudanek «irudi **kanpaina** bat» abiatu du, salaketak estaltzeko. Berria - Mundua

Garbiketa **kanpaina** bat. Berria - Mundua

Itsas txakurren ehiza **kanpaina** abiatzeko. Berria - Gaiak

Kontzientziatze **kanpaina** bat egingo dutela iragarri zuten egin zuten aurkezpenean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hor dago boikot **kanpaina** ezartzen duen erakundearen onarpen, legitimazio eta sinesgarritasunaren auzia. Iñaki Heras

Segik abiatutako intsumisio **kanpaina** zabaltzeko kartelak jarri eta eskuorriak banatuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Bazkidetza **kanpaina** eginen du asteburu honetan 100 herritan. Berria - Euskal Herria

Gerra **kanpaina** aspergarri bateko planak egiten. Felipe Juaristi

Gure Irratiak bere diru biltze **kanpaina** aitzina darama. Herria

Diru laguntza **kanpaina**. Herria

**6** ***kanpaina denda*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kanpadenda*** *agertzen da)* kanpadenda.

**Kanpaina**-denda hedatzean. Aingeru Epaltza

Haranean zehar hedaturik, **kanpaina**-dendak eta aterpeak agertzen ziren ilaratan. Agustin Otsoa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**abiatutako kanpaina** (5); **aldeko kanpaina** (118); **antolatutako kanpaina** (4); **antxoa kanpaina** (4); **atxikimendu kanpaina** (6); **aurkako kanpaina** (55); **aurrematrikulazio kanpaina** (4); **baiezkoaren aldeko kanpaina** (10); **bazkide kanpaina** (7); **bilketa kanpaina** (6); **biltze kanpaina** (9); **boikot kanpaina** (4); **boz kanpaina** (4); **bozen kanpaina** (8); **bultzatutako kanpaina** (5); **diru biltze kanpaina** (5); **egindako kanpaina** (7); **errenta kanpaina** (9); **europako hauteskundeetarako kanpaina** (4); **europako kanpaina** (4); **ezetzaren aldeko kanpaina** (4); **ezezkoaren aldeko kanpaina** (10); **gezur kanpaina** (5); **hauteskunde kanpaina** (130); **hauteskundeen kanpaina** (7); **hauteskundeetarako kanpaina** (9); **herri kanpaina** (4); **informazio kanpaina** (18); **intsumisio kanpaina** (5); **irudi kanpaina** (7); **irulegiko irratiaren kanpaina** (6); **izenpetze kanpaina** (5); **jazarpen kanpaina** (4)

; **kanpaina abian jarri** (8); **kanpaina abiarazi** (7); **kanpaina abiatu** (90); **kanpaina abiatuko** (23); **kanpaina abiatzea** (6); **kanpaina abiatzeko** (4); **kanpaina abiatzen** (4); **kanpaina amaitu** (13); **kanpaina antolatu** (12); **kanpaina armatua** (5); **kanpaina aurkezteko** (5); **kanpaina aurkeztu** (13); **kanpaina bat abiatu** (22); **kanpaina bat abiatuko** (6); **kanpaina bat egin** (8); **kanpaina bat hasi** (7); **kanpaina bateratua** (7); **kanpaina bati ekin** (5); **kanpaina berezi bat** (9); **kanpaina berezia** (11); **kanpaina berri bat** (8); **kanpaina berria** (10); **kanpaina bukatu** (5); **kanpaina bultzatu** (8); **kanpaina bultzatuko** (4); **kanpaina bultzatzeko** (4); **kanpaina bultzatzen** (8); **kanpaina denboran** (12); **kanpaina egin** (53); **kanpaina egin zuen** (7); **kanpaina eginen** (8); **kanpaina egingo** (23); **kanpaina egitea** (13); **kanpaina egiteko** (34); **kanpaina egiten** (42); **kanpaina eten** (4); **kanpaina finantzatzeko** (6); **kanpaina garaian** (5); **kanpaina gogorra** (10); **kanpaina handi** (9); **kanpaina handia** (9); **kanpaina hasi** (63); **kanpaina hasi du** (16); **kanpaina hasierako** (6); **kanpaina hasieran** (5); **kanpaina hasiko** (10); **kanpaina hasteko** (5); **kanpaina izan** (4); **kanpaina jarri** (29); **kanpaina kari** (4); **kanpaina luze** (5); **kanpaina militarra** (4); **kanpaina ona** (6); **kanpaina osoa** (5); **kanpaina politikoa** (4); **kanpaina prestatu** (4); **kanpaina prestatzen** (5); **kanpaina salatu** (7); **kanpaina ugari** (4); **kanpaina zabala** (6); **kanpaina zikina** (4)

**komunikazio kanpaina** (4); **konstituzioaren aldeko kanpaina** (6); **kontrako kanpaina** (54); **matrikulazio kanpaina** (6); **nazioarteko kanpaina** (9); **polioaren aurkako kanpaina** (6); **prebentzio kanpaina** (5); **promozio kanpaina** (4); **propaganda kanpaina** (4); **publizitate kanpaina** (22); **salaketa kanpaina** (9); **sentsibilizazio kanpaina** (12); **sinadurak biltzeko kanpaina** (4); **txertaketa kanpaina** (16); **udako kanpaina** (4); **zuzendutako kanpaina** (4)

**aldeko kanpainak** (14); **hauteskunde kanpainak** (11); **kanpainak antolatu** (4); **kanpainak egin** (8); **kanpainak egitea** (6); **kanpainak egiten** (8); **kanpainak iraun** (5); **kontrako kanpainak** (10); **publizitate kanpainak** (13); **sentsibilizazio kanpainak** (5); **sustapen kanpainak** (5)

**hauteskunde kanpainako** (37); **kanpainako aholkulari** (4)

**; aldeko kanpainan** (7); **aurkako kanpainan** (4); **aurrematrikulazio kanpainan** (4); **aurtengo kanpainan** (4); **hauteskunde aurreko kanpainan** (4); **hauteskunde kanpainan** (128); **kanpainan egindako** (5); **kanpainan esan** (7); **kanpainan iragarri** (6); **kanpainan parte hartu** (7); **kanpainan parte hartuko** (4)

**hauteskunde kanpainara** (4)

**hauteskunde kanpainarako** (7)

**aldeko kanpainarekin** (6); **kanpainarekin bat egin** (9); **kanpainarekin bat egiteko** (4)

**aldeko kanpainaren** (8); **aurrematrikulazio kanpainaren** (6); **hauteskunde kanpainaren** (42); **kanpainaren amaieran** (4); **kanpainaren ardatz** (5); **kanpainaren aurkezpenean** (7); **kanpainaren bultzatzaileek** (4); **kanpainaren harira** (6); **kanpainaren hasiera** (7); **kanpainaren hasieran** (6); **kanpainaren helburua** (8); **kanpainaren inguruan** (5); **kanpainaren karietara** (7); **kanpainaren kondu** (8); **kanpainaren leloa** (6); **kanpainaren nondik norakoak** (7); **kanpainaren ondorioz** (6); **kanpainaren sustatzaileek** (9)

**hauteskunde kanpainari** (12); **kanpainari ekin** (9); **kanpainari hasiera emateko** (6)

**kanpainarik handiena** (4)

**hauteskunde kanpainetan** (8); **kanpainetan parte hartu** (4)

---

kanpainaaurre ik **kanpainaurre**.

---

**kanpainagile** *(orobat **kanpaina egile**)* *iz* kanpaian bat egiten duen pertsona.

Sostengu sinadurak bildu nahi dituzte **kanpainagileek**. Berria - Mundua

Herrialde Katalanen eskubide nazionalen berri ematen saiatuko dira **kanpainagileak**. Berria - Mundua

Horra hor **kanpainagileek** plazaratu duten mezua. Berria - Gaiak

---

**kanpainakari** *iz ipar*

Alde batetik, ikusiz zer sustengu ikaragarria ukan duen herriko kontseiluak egin duen izenpetze **kanpainakari,** ez da harritzekorik erabaki hori hartu badute gure hautetsiek. Herria

---

**kanpainakide** *iz* kanpaina bereko kidea.

George Bush AEBetako presidenteak Crawfordeko arrantxoan asteburua pasa aurretik, bere **kanpainakideek** telebista iragarki berria aireratu zuten iragan ostiralean. Berria - Mundua

---

**kanpainatxo** *iz adkor* kanpaina txikia.

Prezio "neurtuak" -eskaintzak, **kanpainatxoak,** etc-, baina ez oso merkeak. Edorta Agirre

---

**kanpainaurre** *(orobat **kanpainaaurre** eta **kanpaina-aurre**)* *iz* kanpaina ofiziala hasi aurreko kanpaina.

Gutxienez hiru ekitaldi nagusi egingo ditu bai **kanpainaurrean** eta bai kanpainan bertan. Berria - Euskal Herria

Lasagabasterrek dio kanpaina bera baino gogorragoa izaten dela **kanpaina-aurrean** egiten duten hilabetea. Berria - Euskal Herria

EAk, ezin bestela izan, diskurtso abertzaleenarekin ekin dio **kanpainaurreari,** Pernando Barrenak aspaldi jo zion erronka Uxue Barkosi, baina **kanpainaaurrean** ETB2n egindako lau baten kontrakoarekin (koalizioko lau alderdietako ordezkariekin) konformatu behar izan du Batasunekoak. Berria - Euskal Herria

---

kanpainhotsa ik **kanpai 9**.

---

kanpainia ik **kanpaina**.

---

**kanpaitegi** *iz* kanpaitokia, kanpailekua.

**Kanpaitegira** heltzean, azken zatian zegoen esku-eskailera bota eta kanpaiak dantzatzeari ekin zion. Koldo Biguri

Maguggiaren semea sei egunez eduki zuen ezkutaturik kanpandorreko **kanpaitegian**. Koldo Biguri

---

**kanpaitoki** *iz* kanpaien tokia. ik **kanpaileku; kanpaitegi**.

**Kanpaitokiko** ezkerreko leiho handi hartatik. Koldo Biguri

Hiru minutu geroago, On Camillo, kanpandorreko **kanpaitokian** alai saltoka eta brinkoka, herrian inoiz entzundako ezkila-dantzarik infernutarrena ari zen eragiten. Koldo Biguri

---

**kanpaitsu** *izond adkor* hots handikoa, hanpatua.

Adela, besterik gabe; hala deitzea nahi izaten zuen, eta ez don Juliok bezala, *don* **kanpaitsuarekin**. Juan Kruz Igerabide

---

**kanpaitu** *izond* kanpai formakoa.

Bota altuak zeramatzaten eta boten gainetik galtza **kanpaituak**. Felipe Juaristi

---

## **kanpaitxo** *iz* kanpai txikia.

Frau Gerdaren etxe-sarrerako **kanpaitxoari** eragin zion Hermannek. Anjel Lertxundi

**Kanpaitxo** baten dilin-hots etena aditu zen kanpoan. Jose Morales

Durundi egiten du **kanpaitxoaren** hots zoragarriak. Jose Morales

Barrura sartu zirenean, **kanpaitxo** baten hotsa entzun zen denda barruan. Iñaki Mendiguren

**Kanpaitxo** baten bat-bateko errepikak erakarrita bezala. Agustin Otsoa

Gogoan zuen tximinia gaineko apaingarrien artean bazegoela metalezko **kanpaitxo** polit bat. Aitor Arana

Laguntza behar izanez gero, jo **kanpaitxoa** eta zuregana joango gara. Aitor Arana

**Kanpaitxo** -hotsak adierazi zuen elkarrizketa bukatu zela. Jon Alonso

---

## **kanpaitzar** *iz adkor* kanpai handia.

Honek kanpandorrera jo eta kanpai nagusiarekin, beste nobedadeak emateko zerabilten **kanpaitzarrarekin** behar hainbat joaldi emango zituen. Pello Zabala

St. Mary-le-Bow **elizako** kanpaitzarrak. Mirentxu Larrañaga

---

## **kanpaketa** *iz* kanpaldia.

Langile talde batek **kanpaketa** hasi zuen asteartean, enpresako egoitzaren ondoan, kaleratuei elkartasuna adierazteko. Berria - Ekonomia

---

## **kanpaldi** 1 *iz* kanpatzea.

Gaueko **kanpaldian,** erregeak eta Éomerrek bilera egin zuten. Agustin Otsoa

Urte hartan, urtegiaren aurkako **kanpaldia** egin zen uztailean eta abuztuan, Itoizko Koordinakundeak antolatuta. Edurne Elizondo

EHGAMek antolatuta, gay eta lesbianen **kanpaldia** ari dira egiten egunotan Oiartzunen. Berria - Euskal Herria

2000. urteko maiatzaren erdialdean nazioarteko **kanpaldia** antolatu zuten, Erdozainen. Edurne Elizondo

Batasuna **kanpaldia** egiten ari da Azkainen, espekulazioa salatzeko. Berria - Euskal Herria

Behin baino gehiagotan agertu ziren [Guardia Zibilak] **kanpaldia** genuen tokira. Edurne Elizondo

Eraikin publikoetako garbitzaileen **kanpaldia** eragotzi dute Basaurin. Berria - Ekonomia

Urtero etorri izan gara **kanpaldira** . Berria - Euskal Herria

Bere seme-alabak sasoi hartan gehientsuenetan Erromatik kanpora egoten zirelako, boy-scouten **kanpaldietan** . Fernando Rey

**Kanpaldi** mugagabea utzi eta enpresa «berehala» abian jartzeko eskatu dute beharginek. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

Opor denbora hartan ez zen izan Ordinon egin genuen bezalako uda **kanpaldirik** . Piarres Aintziart

Binyamin Netanyahu ministroaren aurkako protesta **kanpaldi** bat egiten ari da herritar talde bat. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kanpaldi mugagabea** (4)
>
> **aurkako kanpaldia** (5); **kanpaldia antolatu** (3); **kanpaldia egin** (3); **kanpaldia egingo** (4); **kanpaldia egiteko** (14); **kanpaldia egiteko baimena** (10); **kanpaldia egiten** (8); **kanpaldia hasi** (5); **kanpaldia hasiko** (3); **kanpaldia prestatzen** (3); **nazioarteko kanpaldia** (3)

---

## **kanpaleku** *(576 agerraldi, 20 liburu eta 82 artikulutan; orobat **kanpa leku** 6 agerraldi 5 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kanpaleku** agertzen da)* **1** *iz* kanpatzeko lekua. ik **kanpamendu**.

Astebete egon nintzen **kanpaleku** nagusian, hogei oheko oihal-dendan. Harkaitz Cano

Talibanek, bestalde, ordezkariak bidali dituzte iheslarien **kanpalekuetara** . Berria - Mundua

13 milioi desplazatuetatik %36 **kanpalekuetan** bizi dira, % 15 hiriguneetan eta %49 landa eremuetan sakabanatuta edo leku finkorik gabe. Berria - Harian

Tindufeko errefuxiatu guneetan ere urteurrena ospatzen ari dira orotara berrehun mila saharar inguru bizi dira **kanpalekuetan** . Berria - Mundua

Larrugorrien **kanpalekuko** kea ikusten dut! Julen Gabiria

Ijitoen **kanpalekuen** kudeaketa. Berria - Euskal Herria

Beraren arbasoek ere Jaunaren **kanpalekuko** sarrera zaintzeko eginkizuna izana zuten. Elizen arteko biblia

Israeldarren **kanpalekutik** natorkizu ihesi. Elizen arteko biblia

Jaunaren itun-kutxa **kanpalekuraino** heldu zenean. Elizen arteko biblia

**2** (espedizioetan)

Edurne Pasaban eta Juanito Oiarzabal atzo iluntzean heldu ziren **kanpaleku** nagusira.

Hirugarren **kanpalekuan** Giuliano De Marchi italiarren medikuak lehen azterketa egin zien bi mendizaleei. Berria - Kirola

Gorpua Cho Oyu mendiko (8.201 metro) Txina aldeko beheko **kanpalekuan** dago. Berria - Kirola

Morgulgo Haranetik ekindako bidaiaren bosgarren eguneko iluntzean, azken **kanpalekua** prestatu zuten. Agustin Otsoa

**3** (kontzentrazio) esparrua.

Biek kontzentrazioko **kanpalekuak** ezagutuko zituzten Dachau eta Büchenwalden, gerla bururatu arte. Marzel Etxehandi

Buchenwalden **kanpalekuetan** bizi ginen, Zeltlager-ean, kanpamendu-esparruan […], eta lastoz estalitako literetan egiten genuen lo […]; atzeko aldeko txarrantxazko hesia oraindik elektrifikatu gabe zegoen, baina gauez dendatik irteten ausartzen zirenak polizi txakurrek txikituko zituzten. Urtzi Urrutikoetxea

**Kanpalekuaren** buruzagia presoa da, block-arena berdin, buruzagi-orde eta enpleatuak halaber presoak ere **kanpalekuko** poliza egiten dutenak... Marzel Etxehandi

**Kanpalekuko** goardia zenbait ikustera heldu zaizkigu. Marzel Etxehandi

**Kanpalekuan** merkatu zenbait baziren, denak isilkakoak. Marzel Etxehandi

**4** *irud/heg*

Negua zen eta atsegina iduritu noski, tokia, hirugarren solairuko zoko-zokoan paratu baitzuen **kanpalekua** . Aingeru Epaltza

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kanpaleku** ertzera heltzean, inor ere ez zegoela ikusi zuten. Elizen arteko biblia

**Kanpaleku** -ingurua erabat erre zuen. Elizen arteko biblia

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Büchenwald eta Dachau-ko kontzentrazioko **kanpaleku** beltzetan. Herria

Gutxienez 27 palestinar hil ditu Israelek Jabaliako errefuxiatu **kanpalekuan** . Berria - Mundua

Khan Juniseko iheslari **kanpalekutik** atera ziren herenegun soldadu israeldarrak. Berria - Mundua

Trebatze **kanpalekuetara** bidali zuten, eta itzuli zenean esan zidan engainatu egin zutela, eta Armadan lau urte igaro beharko zituela. Berria - Harian

Itsasoaren eta mendi santu ederraren artean jarriko du errege-**kanpalekua**. Elizen arteko biblia

Zuen sudurretaraino igoarazi dut hildakoen kiratsa, gudu-**kanpalekuetan**. Elizen arteko biblia

Matxinoen eremuetatik irteteko eskatu diegu **bake** kanpalekuetan eta komunitateetako proiektuetan lanean ari diren nazioko eta nazioarteko elkarte zibilei. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kanpaleku ertzera heltzean** (3); **kanpaleku handian** (3); **kanpaleku handiko** (4); **kanpaleku nagusian** (4); **kanpaleku nagusira** (5); **kanpaleku ttipian** (3); **kanpaleku ttipiko** (4)

**azken kanpalekua** (3); **ezarri zuen kanpalekua** (9); **ezarri zuten kanpalekua** (17; **mila lagunentzako kanpalekua** (3)

**asiriarren kanpalekuan** (3); **errefuxiatu kanpalekuan** (7); **kanpalekuan gelditu** (4); **kanpalekuan sartu** (4)

**errefuxiatu kanpalekuetan** (3); **kanpalekuetan bizi** (4)

**beheko kanpalekura** (4); **etsaien kanpalekura** (3); **gilgaleko kanpalekura** (4); **kanpalekura hurbildu** (4); **kanpalekura itzuli** (8); **kanpalekura jaitsi** (3); **kanpalekura joan** (4); **laugarren kanpalekura** (3)

**kanpalekutik aparte** (5); **kanpalekutik atera** (14); **kanpalekutik irten** (4); **kanpalekutik kanpo** (3); **kanpalekutik kanpora** (7); **kanpalekutik urruti** (5)

---

## kanpamendu ik **kanpamentu**.

---

## kanpamentu *(289 agerraldi, 31 liburu eta 5 artikulutan; orobat* ***kanpamendu*** *237 agerraldi, 36 liburu eta 44 artikulutan)* **1** *iz* kanpalekua.

Ikazkinen surik ez basoetan, meatzarien **kanpamenturik** ez harrobi zokoetan. Karlos Zabala

Angarako **kanpamentuan** argiak atzera eta aurrera mugitzen ziren sarritan, hango asaldura biziaren seinale. Karlos Zabala

Iritsi zen Don Karlosen **kanpamentura;** han, gutuna erakutsi, eta pasatzen utzi zioten. Koro Navarro

Plaza nagusia **kanpamentu** bilakatua zen. Karlos Zabala

Urdangek, orduko, lana ausarki izanen zuten setiatzaileen **kanpamenduetan**. Aingeru Epaltza

Lehenbizi judatarren banderapeko **kanpamendua** abiatu zen bere gudari-taldeekin. Elizen arteko biblia

Hiritik kanpoan jarri zuen **kanpamentua,** hiriaren aurrez aurre. Jose Antonio Mujika

**Kanpamentua,** kalesak eta su izekia errekazulo isilean egon arren, James Stewart eta bere lagunak errekazuloaren gorenean ezkutatuta daude. Harkaitz Cano

Aurkitu zutena izan zen **kanpamendu** bat cherokee gaixoena, arrosa mota baten izen berekoak. Anton Garikano

Ijitoen **kanpamentuan** biolina eta danborra beren zorroetara bihurtzen dira. Bernardo Atxaga

Delawaren, beltzentzat ezagutu zuen lekurik gaiztoenean, alde batera utzita Kentuckyko Pulaski County, eta jakina, presoentzako **kanpamendua** Georgian. Anton Garikano

Beste ehun bat gazte zeudela preso **kanpamendu** hartan. Berria - Mundua

Gazte guztiek bezala, eskura nuen udako **kanpamenduren** batean izena emateko aukera. Anjel Lertxundi

Tribu batek **kanpamendua** altxatu berri du. Patxi Zubizarreta

Begira haien hiriak oihal-etxolazko **kanpamenduak** ala hiri-gotorrak diren. Elizen arteko biblia

Inguru hartan zegoen **kanpamentu** militar batera eraman zituzten biak. Xabier Aranburu

Zaldiari brida laxatu zion **kanpamentuko** sarrera gurutzatzeko. Karlos Zabala

**2** (espedizioetan)

-Hemen espedizio-burua **kanpamentu** nagusikoei. Unai Elorriaga

Japoniar espedizio batek ez ziela jaramonik egin hirugarren **kanpamentuan** hilzorian zeuden kolonbiar batzuei. Unai Elorriaga

Beheko **kanpamenduan** izanen zen. Xabier Montoia

Handik, gure sei gazteak bakarrik abiatuko dira kaskoari buruz, beren bidean bi edo hiru **kanpamendu** muntatuz. Herria

**3** (kontzentrazio) esparrua.

Frantses uniformea soinean, buru makur eraman zituzten kontzentrazio **kanpamenduetara**. Eneko Bidegain

Kontzentrationslager edo K.L. bateko lehen gaua iragan zuen, hala nola kontzentrazio **kanpamendu** edo herio zelai batekoa. Eneko Bidegain

Argelès-sur-Mer-eko kontzentrazio **kanpamenduan** ziren atxikiak izan, baldintza gogorretan, miseria gorrienean. Herria

Alta denek gogoan dute konzentrazio **kanpamenduetan** ikusi zen izigarrikeria. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Buchenwalden kanpalekuetan bizi ginen, Zeltlager-ean, **kanpamendu**-esparruan. Urtzi Urrutikoetxea

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Meatzari **kanpamentua** al da? Bernardo Atxaga

Urte bi geroago, New Hampshiren, baso-mutil **kanpamentu** batean hil zen. Pablo Sastre

Ingushetiako **iheslari** kanpamentuetan. Berria - Mundua

Uholdeek, baina, aterperik eta janaririk gabe utzi dituzte 12.000 familia lau errefuxiatu **kanpamendutan**. Berria - Mundua

Harresien bestaldean ijito **kanpamentu** bat zegoen. Pello Lizarralde

Egun batez sukalde-**kanpamentutik** lasai asko irteten ikusi nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Konprenitzekoa zen mendi **kanpamendu** hartatik aldegiteko nahia. Bernardo Atxaga

Goiz batez, bere dendan sastakatua aurkitu zuten Nizam u'l Mulk bisirra, errege-**kanpamenduaren** erdi-erdian. Jon Muñoz

Joan zen martxoan, trebatze **kanpamendu** batetik ihes egitea lortu zuten. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kanpamendu nagusia** (16); **kanpamendu nagusitik** (3)

**banderapeko kanpamendua** (8); **kanpamendua abiatu zen** (4); **kanpamendua ezarriko da** (4)

**kontzentrazio kanpamenduetan** (5)

**kontzentrazio kanpamenduko** (4)

**kanpamendura eraman** (3); **kanpamendura itzuli** (3)

---

## kanpamentutxo *iz* kanpamentu txikia.

Gure poltsak eta trasteak hartu genituen segidan eta mugitu ginen alemanek **kanpamentutxoa** eraikia zeukaten lekuraino. Joxemari Iturralde

---

kanpaña ik **kanpaina**.

---

# kanpanbuelta *(orobat **kanpai buelta**) iz*

Goitik behera errekara erori zen, airean **kanpanbuelta** bat egin eta suerte ona izan zuen ez zuelako errekapea buruarekin jo. Pablo Sastre

Trenbideak gurutzatzen zuen kaminoaren erdi-erdian zegoen R-8a jo eta eskuin aldera eroriz bi **kanpanbuelta** eman zituen. Pako Aristi

Autoa pendizetik behera amildu, bi **kanpai buelta** eman eta elurretan hankaz gora geratu zen. Harkaitz Cano

---

# kanpandoja *iz* sagar mota baten izena.

Sagarrak eta udareak metatzen ziren, [...] azal desberdinekoak ziren, sehaskatik atera gabeko apiren sagarrak, rambour itxuragabeak, soineko zuriz jantzitako txalakak, **kanpandoja** odol koloreak, gaztain sagar aurpegi-gorriak, errege sagar horiak, oreztez beteak. Karlos Zabala

---

# kanpandorre *(orobat **kanpaidorre** g.er.)* elizetan, kanpaia edo kanpaiak dauden dorrea.

Haietatik gailen, dorreak, **kanpandorreak,** minareteak, hirurehun elizaren kupulak nabari ziren. Karlos Zabala

Elizako **kanpandorreari** kanpai bat falta ziolako. Koldo Biguri

Baionako katedraleko **kanpandorre** bikoitza. Txillardegi

Katedralaren **kanpandorre** garaia, gurutze urreztatua ñir-ñir eguzkipean. Karlos Zabala

Ezkerretara, han, Rouen, teilatu urdinezko hiri zabala, **kanpandorre** gotikoen aldra puntazorrotzaren azpian. Josu Zabaleta

**Kanpaidorre** edo teilatu baten gainean habia bakarra badago. Berria - Euskal Herria

Hiru aldiz jo du Montlhéryngo elizako **kanpandorreko** ezkilak. Aingeru Epaltza

Orduantxe jo du ordua **kanpandorreko** erloju zaratatsuak: ordu biak. Txillardegi

**Kanpandorreko** harrizko eskaileretan gora. **Kanpandorreko** tximistorratzaren gainean. Aitor Arana

**Kanpandorreko** gurutzean paratzen ziren belatzak. Imanol Zurutuza

**Kanpandorreko** leihora tiro eginez. Koldo Biguri

Maguggiaren semea sei egunez eduki zuen ezkutaturik **kanpandorreko** kanpaitegian. Koldo Biguri

**Kanpandorrea** dantzan hastea nahikoa, ni zurekin pentsatzen jartzeko. Arantxa Iturbe

· Nerbioi eta Abra inguruko **kanpandorreak** eta karilioiak joka hasi ziren. Josu Landa

---

# kanpanero *iz*

-Hauster ero komunero, jotakeia **kanpanero..** . Iñaki Iñurrieta

---

kanpanjole ik **kanpaijole**.

---

# kanpatu, kanpa, kanpatzen **1** da *ad* kanpadenda batean aldi batez bizitzeko kokatu.

Hango harresiaren kanpoaldean **kanpatu** ziren. Patxi Zubizarreta

Sukotetik abiatu eta, basamortu-ertzean, Etamen **kanpatu** ziren. Elizen arteko biblia

Aurrez aurre **kanpatu** ziren israeldarrak eta siriarrak. Elizen arteko biblia

40.000 lagun **kanpatu** dira Glastonburyko jaialdian. Berria - Kultura

Hantxe zegoen **kanpatua** Feofar Khan, Bukharako emir ankerra. Karlos Zabala

Etxetik ehun metro eskasera **kanpatuta** zegoen bere konpainiarekin, eta horregatik eman zion kapitainak etxean lo egiteko baimena. Xabier Etxabe

Hiru hilabete eman zituzten **kanpatuta** Kairo hiriburuan, UNHCRren egoitzaren aurrean. Berria - Mundua

**Kanpatzeko** 40.000 metro koadroko eremu bat ere eskainiko dute antolatzaileek. Berria - Kultura

· **2** (du aditz gisa, nor objekturik gabe)

Gero eta iluntasun trinkoagoan egin zuten aurrera, eta gau hartan sahastien artean **kanpatu** zuten. Agustin Otsoa

Itsasertzean **kanpatuko** dugu. Eskarne Mujika

---

# kanpatze *iz* kanpadenda batean aldi batez bizitzeko kokatzea. ik**kanpaldi**.

Asteburuan ere, etxebizitzen egoera salatzeko, gazteen ikuspegitik bereziki, **kanpatze** bat antolatzen du Segik Uztaritzen. Berria - Euskal Herria

---

# kanpeoi *(orobat **kanpeon**)* **1** *izond/iz* txapelduna.

Atleta **kanpeoiak** harrokeriaz goratu ditu besoak. Joseba Sarrionandia

Pozik zegoen bera ere, gustatu egiten zitzaion eskolako **kanpeoia** izatea. Bernardo Atxaga

**2** (deiki gisa)

Eraman nahi baduk, eramak, **kanpeon**. Hasier Etxeberria

-Gora heu **kanpeon**! Hasier Etxeberria

---

kanpeon ik **kanpeoi**.

---

# kanpeonato *iz* txapelketa.

Pelek munduko futbol **kanpeonatoa** Brasilek irabaziko zuela zioen. Joseba Sarrionandia

---

**kanpera** *iz* larru gogorreko bota.

Lokaleko atean beste tipo mehe bat zegoen, **kanpera** diskretu beltzak, praka beltzak, lepodun jertse fin beltza eta larruzko amerikana tipoko beltza. Unai Iturriaga

Takoi luzeko **kanperak** oinetan. Jon Arretxe

---

**kanpero** *iz* landako pertsona.

Seinaleak emanik **kanperoari**. Herria

---

**kanpesino** *iz* nekazaria.

Gelditzen diren lurretan, **kanpesinoek** egiten dute artoa, ilharra, kalitateko kafea eta ahal dutena. Herria

---

**kanpetxano** *iz* jatorra, mazala.

Aldi batzutan, [ilargia] hor pasatzen da gauerdia baino lehen, beste batzuetan goizaldera ikusten dugu paseoan, eta askotan, egunez dabil natural eta **kanpetxano**. Pello Zabala

---

**kanpezuar** *izlag* Kanpezukoa, Kanpezuri dagokiona; Kanpezuko herritarra.

Ia laurogeita hamar urte zituela, Makaria Iriarte **kanpezuarrak** bere amona Apoloniagandik txikitan ikasitako ipuinak kontatu zizkion Carlos Gonzalez Sanzi. Martin Anso

---

**kanpin** *(185 agerraldi, 39 liburu eta 43 artikulutan; cf.* ***camping*** *9 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan)* **1** *iz* kanpadenda edo kideko bat bizileku gisa erabiliz egiten den turismo mota. ik **camping**.

-Ume txikiekin horixe onena: **kanpina**. Pedro Alberdi

Argazki-kamera, bideoa, telebista, irratia, mahaia, aulkiak, **kanpineko** trasteria guztia. Aingeru Epaltza

Oliozko lanpara bat, **kanpineko** sukalde bat, maindireak eta mantak. Koro Navarro

**Kanpinerako** gailuen denda batean berogailu elektriko bat, gas-sukalde txiki bat eta aluminiozko eltze bat erosten ditu. Oskar Arana

**2** turismo mota horretarako prestaturiko lekua.

Haritz udalekuetara joan zen Nafarroara, gero gurasoekin Kataluniako **kanpin** batera. Urtzi Urrutikoetxea

Udan **kanpin** batean mutil bat ezagutu zuela. Luis Elberdin

Etxarriko **kanpinean** bazkaldu zuten gehienek. Berria - Harian

Artean hainbeste jendek bidaiatzen ez zuen garai hartan, oraino kanpinez **kanpin** ibiltzen ginen urteetan. Mikel Hernandez Abaitua

Sarsing utzi, eta Anixke-ra iritsi nintzen; **kanpin** bat zegoen, karabana eta guzti. Juan Kruz Igerabide

Hotel handiak, **kanpinak** eta txaletak sortzen ziren alde guztietan. Juan Kruz Igerabide

Egun batzuetan **kanpinean** lo egin ondoren halako hotel dotorean ostatu hartzea. Patxi Zubizarreta

Erosketak egindakoan, **kanpineko** igeritokian bustialdi bat hartu, eta afaria prestatzeari ekin diogu. Patxi Zubizarreta

**Kanpinetan** ibili ginen orduko hartan. Juan Kruz Igerabide

Sarritan, familiaren laguntza izan ezean, **kanpinetan** edo karabanetan bizi da umeen zaintza ez duena. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kafe-termoak, **kanpin**-sua, sakelako linternak. Joxan Elosegi

**Kanpin**-gasezko argi bat paratu dute zirkuluaren erdian. Xabier Mendiguren Elizegi

Hark **kanpin**-gasa piztu zuen, botila bat hartu, eta trago bat egin zion. Juan Kruz Igerabide

**Kanpin** mahaitxo baten aurrean jesarrita. Berria - Kultura

Euskal Herriko **Kanpin** Elkarteak txangoa antolatu du etzi Lasarteko hipodromoan jokatuko den Donostiako Nazioarteko Krosa ikusteko. Berria - Kirola

**4** ***kanpin denda*** *(43 agerraldi, 12 liburu eta 16 artikulutan; orobat* ***kanpindenda*** *9 agerraldi, 5 liburutan)* kanpadenda.

Zelaitxo batean zeukaten jarrita **kanpin**-denda. Joxemari Iturralde

Argazki nagusian, gazteak euritan **kanpin** denda artean Etxarri Aranatzen. Iñigo Aranbarri

Kaltetuek agerian igaro dute gaua, **kanpin** dendarik ez zutelako. Behin baino gehiagotan, Josefinak eraman behar izan dik **kanpin**-dendaraino, ezin xutik egon-eta. Aingeru Epaltza

**Kanpindendaren** kanpoaldean zigarro bat erdibana erretzen ari ziren bi soldaduetako batek. Harkaitz Cano

· Praketako poltsikoetan bilatu nuen... eta zerrikume hark egundoko **kanpin**-denda zeukan jadanik! Sonia Gonzalez

Halako batean esnatu, goxo-goxo gorputza eta... egundoko **kanpin-dendarekin** esnatu, *canadiense familiar* horietakoa bai, gutxienez. Joxean Sagaztizabal

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kanpin denda** (18); **kanpin dendak** (13); **kanpin dendan** (3); **kanpin gas** (5)

---

kanpindenda ik **kanpin 4**.

---

**kanpinlari** *iz* aldi batez kanpadendan bizi den pertsona.

Mugimendu ekologistek eta antimilitaristek hedabideekin izan dituzten gorabeherak aztertu dituzte **kanpinlariek**. Berria - Euskal Herria

Guztira 150 **kanpinlari** batu dira Alonsotegin AHTren aurkako Asanbladak antolatutako ekimen horretan. Berria - Euskal Herria

---

**kanpo** 1 *iz ipar* landa.

Antzerki-festibaltxo bat muntatua da helduden astean Kanbon, Arnagako **kanpo** ederrean, Accords elkartearen eskutik. Herria

Ondartza handiaren ondoko **kanpo** eder horietan. Herria

Larunbatean, **kanpo** zabal batean, estado guzietako dantzariek beren lanaren fruitua aurkezten daukute, badirelarik pentze hartan, nun-nahi, erakusketak eta ere jan-edatekoak nasaiki. Herria

Eta Hitler-en manuz han zen eraiki 1941-ean Dachau eta gisa bereko herio-**kanpo** deitoragarri heien iduriko zerbait. Herria

Biharamun goizean, emaiten gitu **kanpo** handi batetarat zointan badiren ainhitz kof oin eta hor dena trefla xuri eta gorri da osoki loreturik. Herria

Gure langile zen sasoitik ezagutzen dut, **kanpoan** genuen egur-biltegiko kontulari eta administratzailea baitzen. Urtzi Urrutikoetxea

## 2 *kanpoan* gauden tokitik at.

**Kanpoan** auto-hotsa entzun zen. Juan Kruz Igerabide

**Kanpoan** Tomasen astoa zegoen. Pablo Sastre

Arrak, ahariak eta akerrak alegia, **kanpoan** utzi zituen. Juan Kruz Igerabide

Euria ari zuen **kanpoan**. Harkaitz Cano

Nehor guti **kanpoan**. Piarres Aintziart

-Luzaroan egongo al zara **kanpoan**? Patxi Zubizarreta

Hermann **kanpoan** gelditu zen, eskuak gabardinaren patriketan zituela. Anjel Lertxundi

Gizonak ez du **kanpoan** hustu behar, ezin du Onanen bekatua egin. Karlos Zabala

Haien arteko solasaldiak oro amaitu ziren, bai etxean bai **kanpoan**. Pako Aristi

**Kanpoan** giro ez bada, hobe etxera bildu. Aingeru Epaltza

**Kanpoan** egonaldi luzea egin ondoren. Juan Luis Zabala

Barruan **kanpoan** baino epelago egiten zuela, Familia **kanpoan** diat, oporretan. Mirentxu Larrañaga

Asteburu osorako **kanpoan** omen duzu laguna. Aingeru Epaltza

Lehenagoko denboretan bezala, meza bitartean **kanpoan** erretzen? Aingeru Epaltza

Tenpluaren behea ere, nahiz barnean nahiz **kanpoan,** urrez estali zuen. Elizen arteko biblia

Erredakzioan denek genekien zuzendaria **kanpoan** zegoela. Aingeru Epaltza

Ni **kanpoan** zutik eta haren zinkurinak aditzen, besterik ez. Joxe Austin Arrieta

Sentitzen nuen mundu berriaren hotsa **kanpoan**. Bernardo Atxaga

Xelebrea zen kamisoiaz eta bataz jantzita han **kanpoan** ibiltzea. Koro Navarro

Ilargi pusketa bat ageri da hor **kanpoan;** ilberri. Mirentxu Larrañaga

**Kanpoan** uso eta etxean otso da, antza, hitza. Joxerra Garzia

## 3 *kanpoko* ik **kanpoalde 3.**

**Kanpoko** argi zirrinta bat doi-doia sartzen da... Filipe Bidart

Hesi hori zeldako hormaren barneko aldean dago, **kanpoko** atetik metro erdi batean. Filipe Bidart

Ni ohartu orduko **kanpoko** tapa hesten da eta haren gibeletik so zegoena urruntzen entzuten dut. Filipe Bidart

**Kanpoko** begiez ikusten ez dudana barnekoez ikusten dudalako. Felipe Juaristi

Udan **kanpoko** jendez betetzen den jauregiko harresia. Pako Aristi

Murruetatik harata, berriz, bertako nahiz **kanpoko** zakurrak liskarrean ari ziren tripa-bestako hondakinen inguruan. Aingeru Epaltza

**Kanpoko** guztiari begira. Juan Kruz Igerabide

Nolakoa **kanpoko** presioa, halakoa pertsona. Bernardo Atxaga

Merkataritza-hiriak Europa barneko eta **kanpoko** trukeen mende zeuden. Barne-gatazkek akiturik, **kanpoko** inbasioek suntsiturik, azkar galdu zuen Italiak europar ekonomian zuen lehentasuna. Koro Navarro

Hala estatuaren beraren barruan nola **kanpoko** harremanetan. Koro Navarro

**Kanpoko** merkatuen zabalkundean huts-hutsik oinarritzen zen hazkunde baten mugak. Koro Navarro

**Kanpoko** merkataritza ere osagarritasunaren printzipioan oinarritzen zen, ez konkurrentzian. Koro Navarro

**Kanpoko** interferentzietatik nahikoa libre egotea. Irene Aldasoro

· Nahiko leuna da epidermisaren **kanpoko** aldea. Irene Aldasoro

Zuntz eta kartilagozko geruza elastiko bat da diskoaren **kanpoko** aldea. Irene Aldasoro

Barrura sartzen baitira horrenbestez karga positibozko **kanpoko** sodio ioiak. Irene Aldasoro

· Barrukoarekin gutxi ez zuela, **kanpokoa** besoak astinduz laguntza eske zetorkion, bere buruari gaizki esaka. Pako Aristi

Lehentasuna ematen zaiola barrukoari **kanpokoaren** aldean. Bernardo Atxaga

Testu luzeak eta laburrak bereizi dituzte, umeenak eta nagusienak, iraganekoak eta oraingoak, bertakoak eta **kanpokoak,** ideologikoki zuzenak direnak eta ez direnak. Bernardo Atxaga

Horraino **kanpokoari** dagokiona. Monika Etxebarria

**-Kanpokoak** 35.063 kilometro ditik; barrukoak, berriz, 35.014 kilometro... Jon Muñoz

Beste kartazal bat, **kanpokoa** baino txikixeagoa. Txillardegi

## 4 *kanpora*

Heldu gara! **kanpora** denok! zu aurrena! Bernardo Atxaga

Ximurra, beretik dastatu gabe, **kanpora** begira zegoen. **Kanpora** irten, eta basoan barrena joan zen poliki-poliki haren bila ilargiaren argitan. Askoren artean

Inor ez zen ausartzen **kanpora** ateratzen. Josu Zabaleta

Sakristaua **kanpora** dator. Pako Aristi

Soinekoa bertan utzita korrika joan da **kanpora**. Jokin Urain

Amak **kanpora** eraman behar izan zuen Big Joe. Mirentxu Larrañaga

-Are, Eduardo, goazen **kanpora** -Patxi argazkilariak, eztiki-. Aingeru Epaltza

Bestela **kanpora** bota beharko zaitut-eta etxe honetatik. Josu Zabaleta

**Kanpora** eraman ninduen, ukuilutik zehar, eta soroetan ibili bat egitera joan ginen. Josu Zabaleta

Planetek **kanpora** egozten dituztela espazioko mundu herratuak. Josu Zabaleta

**-Kanpora, kanpora** lagunak! -egiten zuen oihu Susannak-. Josu Zabaleta

-Goazemak **kanpora,** Marro. Juan Kruz Igerabide

## 5 *kanpotik*

**Kanpotik** sartzen zen argi mingarritik babesturik. Felipe Juaristi

**-Kanpotik** poliziak ekarri? Itziar Laka

**Kanpotik** etorri eta New Yorken bizi izaten garenok. Gotzon Garate

Atea **kanpotik** ixten entzun dugu. Urtzi Urrutikoetxea

Ekaiak erraz pasatzen dira gehienetan **kanpotik** gorputz barrura. Irene Aldasoro

**Kanpotik** baino gehiago biluzten ninduen barrutik. Juan Kruz Igerabide

Barrutik eta **kanpotik** makurturik, bere ezpain sagaratuz muin ematen zion eskuan. Askoren artean

**Kanpotik** barrura zihoan mugimendu batean. Koro Navarro

**Kanpotik** begiratuta, bada, ez zaio muskuluari motor baten helburuak betetzeko itxurarik hartzen. Irene Aldasoro

Une batez, **kanpotik** zetorren hots lehor bat sumatu zuen inguruan. Josetxo Azkona

Lagun bat -erantzun zuten **kanpotik**. Koro Navarro

Eta **kanpotik** etorri izan direnean ere, askotan, etxekoa hobeki prestatua zegoen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Kanpotik** ikusi banu bezala: non nengoen, norekin, zer egin nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kanpotik** barrura zihoan mugimendu batean. Koro Navarro

## 6 *kanpo-aktibitate*

Gazte horiek bertsolaritzan (bertso eskoletan, **kanpo aktibitateetan**, harremanetan) eman denboran, beti ari dira euskaraz mintzatzen. Berria - Kultura

## 7 *kanpo-arazo*

**Kanpo arazoetako** ministro izan zen, eta Moskuko gobernadore. Karlos Zabala

Erresuma Batuko **Kanpo Arazoetako** Ministerioan. Berria - Euskal Herria

Herrien Europa federalak baizik ez ditzake konpondu Europa osoaren barne eta **kanpo arazoak**. Berria - Euskal Herria

**Kanpo Arazoetarako** Batzordeak eginiko txostenak. Berria - Euskal Herria

Mikel Anton Eusko Jaurlaritzako **Kanpo Arazoetarako** zuzendaria. Berria - Euskal Herria

Denbora aurrera joan ahala, aldaketa hauek barne eta **kanpo arazo** larriak eragingo dituzte Ordenan. Askoren artean

## 8 *kanpo-arrisku*

**Kanpo-arriskuen** kezkarik gabe. Aingeru Epaltza

## 9 *kanpo-auzotegi*

Berlingo **kanpo-auzotegietan** edo alboherrietan zehar astiro egiten du trenak. Edorta Jimenez

## 10 *kanpo-azal*

Martinek berak lagundurik ekin nion liburu bakarrean bi ziren haren kanpoko azala bere lehengora ekartzeari, hots, labanaz agerira ekarri zuen bigarren **kanpo-azala** eta beste barru-azala bat egiteari Edorta Jimenez

## 11 *kanpo-azalpen*

Erlijioaren **kanpo-azalpenak** (hizkuntza, erritoak...) ikusiko ditu lehendabizi, gero irizpide orokorretatik aztertzeko. Askoren artean

## 12 *kanpo-baldintza*

Ezin pareka daiteke egonkortasun hori gero latinak jasan zituen aldaketekin, zeren aldaketa horiek berez, zenbait **kanpo baldintza** ezagatik, gertatu baitziren. Isabel Arrigain

**Kanpo-baldintzak**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 13 *kanpo-barne/barren* *pl* kanpoa eta barnea.

Zer ixtorioak ez ditu asmatzen haur baten irudimenak gutiagorekin? hemen aldiz, eginik prestak, baditu irudimenaren alhapideak, filma fantastiko baten sekulako **kanpo-barneak**. Michel Oronoz

**Kanpo-barrenak** bateratsu joan ohi dira. Iñaki Segurola

## 14 *kanpo-begi*

Itsu omen diren barne-begiek **kanpo-begiek** baino gehiago ikusten baitute, apika... Eta haiek ere zabaldu beharko baikenituzke, aldian behin. Joan Mari Irigoien

## 15 *kanpo-belarri*

Eginkizun horiek burutzen dituen egiturak hiru atal nagusi ditu: **kanpo-belarria,** erdiko belarria eta barne-belarria. Irene Aldasoro

**Kanpo-belarria** (guk ikusten duguna) belarri-hegala da, larruazal eta kartilagozko hegal izurtsu bat. Irene Aldasoro

Kartilago hori hezur bihurtuz doa pixkanaka, nahiz eta badiren gune batzuk bizi osoan kartilago izango direnak, hala nola **kanpo-belarria,** sudurraren punta eta saihets-hezurrak bularrezurrari elkartzen zaizkion guneak. Irene Aldasoro

## 16 *kanpo-bide*

Nolako estiloz lasterkatu ziren **kanpo-bideetan** barrena! Irene Aldasoro

## 17 *kanpo-bihurgarritasun* (ekonomian)

Une hori 1950eko hamarraldiaren bukaeran iritsi zen, Europar diruek **kanpo-bihurgarritasuna** berreskuratu zutenean; dolarrak urre bihurtzeko eskariak ugaltzen hasi ziren, eta berehala hasi ziren murrizten Estatu Batuetako erreserbak. Koro Navarro

## 18 *kanpo-dike*

Hobetu Leikek Batasunari gogorarazi dio **kanpo dikea** dela proiektuaren %80, «kalte handiena eta hondartzako txikizio guztia eragingo duena». Berria - Euskal Herria

## 19 *kanpo-ebaluazio*

EABk dio ikas-mailen aitortza jarri behar dela martxan, irakasleekin elkarlanean eta **kanpo-ebaluazioaz** baliatuz. Berria - Euskal Herria

## 20 *kanpo-eder* ik **kanpoeder**.

## 21 *kanpo-egitate*

Paralelismoak edo kointzidentziak, deitu nahi duzun bezala, baina **kanpo-egitate** horiek ez dira bi gizon horietako bakoitzaren bizitzaren barne-egia bezain garrantzitsuak Oskar Arana

## 22 *kanpo-egitura*

Horretaz gain, pisu gehiago dute barne eta **kanpo egituran**. Berria - Euskal Herria

## 23 *kanpo-ekintza*

Izan ere, bertso eskolarena ez besterik da bertso udalekua bezalako **kanpo ekintzen** xede nagusia: Euskal Herri osoko bertsozale gazteen arteko talde giroa eta elkar ezagutzea. Berria - Kultura

Agirrek **kanpo ekintzari** «garrantzi handiegia» eman ziola dio Ugaldek. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko harremanetarako ez, baina **kanpo ekintzetarako** eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoarekin jarraituz [...]. Berria - Euskal Herria

Lehendik garrantzitsua izan da Jaurlaritzaren **kanpo ekintza**, eta jauzia egiteko aukera dago. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzako **Kanpo Ekintzetarako** Idazkaritzak antolatuta. Berria - Euskal Herria

## 24 *kanpo-elkartasun*

Ongizate sozioekonomikoa eta barne zein **kanpo elkartasuna** Europa mailako parametro modernoetara garatzeko. Berria - Euskal Herria

## 25 *kanpo eman* *ipar* bidali, egotzi, kanporatu.

Kasik 50.000 euro pagatu beharko ditu bere kirol animatzailea **kanpo eman** duelako. 1880an, kongregazioen legea dela eta, Belokeko fraileak **kanpo ematen** dituzte eta zigiluak pausatzen komentuko ateetan. Herria

Elizatik **kanpo emanak** izan ziren apezek egin ezkontza eta bataioak baliogabeak zirela. Elena Touyarou

Astelehen huntan bigarren kanporaketak jokatu dira, Larrecheak **kanpo emanez** Martiarena. Herria

Espainian martxoko bozak galduz geroz **kanpo emana** izan zen Aznar presidenta. Herria

Hortik aitzina euskara **kanpo emana** izan da. Herria

## 26 *kanpo-eragile*

Ez dago Batasunaren eta ezker abertzalearen ildoa aldaraziko duen **kanpo eragilerik**. Berria - Harian

Diabetesaren sorreran **kanpo eragileak** oso garrantzitsuak dira. Berria - Gaiak

## 27 *kanpo-eragin*

Eta ez gara soilik **kanpo eragin** ekologikoei buruz ari, baizik eta baita eragin sozialei buruz ere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ongia eta gaizkia geure baitan dira, baina gugandik **kanpo eragina** dutenean soilik hitz egin daiteke ongiaz eta gaizkiaz, behar den bezala. Felipe Juaristi

Baliabide naturalen kontsumoak sistema ekonomikotik kanpo geratzen diren **"kanpo-eraginak"** dira. Iñaki Heras

Bi kasuetan hots horiek bere kasa jokatu dute, inongo **kanpo eraginik** gabe. Isabel Arrigain

## 28 *kanpo-erakusgarri*

Stamperen ustez, horrek alde batera uzten duena baino askoz gehiago jasotzen du, besteak beste, **kanpo erakusgarria** *(external evidence)* deitu eta linguistika aplikaturako utzi izan den hori: hizkuntz jabekuntza, tipologia, irakaskuntza, diakronia, eleaniztasuna, eta abar, eta abar. *External evidence* edo **kanpo-erakusgarria** (hizkuntz jabekuntza, H2ren ikasketa, hizkuntz patologiak, etab.) bigarren mailakotzat jotzen dutenen aztergaitik landa utzitako eremuetan nabarmentzen dira bilakabide ezkutuak. Lourdes Oñederra

## 29 *kanpo-espazio*

Izarraren zentroa kolapsatu ahala, kanpoaldeko geruzetako materia zati bat **kanpo espaziora** jaurtikia zen, gainerako guztia izarraren bihotzerantz erakarria zen bitartean. Harkaitz Cano

Hala ere, paisaiak eta **kanpo** -barne **espazioen** harremanak izan ziren Bonnarden koadrorik ezagunenak. Berria - Kultura

## 30 *kanpo-espioitza*

Estatu Batuen **kanpo-espioitza** etxe bakar batean zentralizatu beharko dela eta horren gauzatzea denboraren gorabehera baino ez dela, denek dakitena da. Edorta Jimenez

## 31 *kanpo-estalki*

Hiztegiaren arabera, ezkatak zenbait animaliaren gorputzeko **kanpo-estalkiaren** parte diren plaka txikiak dira. Berria - Kultura

Arrainen gorputzeko **kanpo-estalki** zurrunak. Berria - Kultura

## 32 *kanpo-ezaugarri*

Wittgensteinek ez zuen ezaugarri hori aipatu, eta segur aski ez zuen aipatu jokoan soilik erakusten zen horretan jarri zuelako arreta, **kanpo-ezaugarrietan** alegia. Askoren artean

## 33 *kanpo-faktore*

Pertsona bakoitzaren inguruko **kanpo faktoreek** gaitza garatzea ekar dezakete. Berria - Gaiak

Gaitzaren kausen gainean zer ekarpen berri ditugu? zenbateraino da genetikoa? zenbateraino dute **kanpo faktoreek** eragina? ba al da jakiterik **kanpo faktore** horiek zeintzuk diren? Berria - Gaiak

Hura (bere diseinua, ezaugarri teknikoak eta abar) azaltzeko inolako **kanpo-faktoreen** beharrik ez dagoela kontsideratzen da. Askoren artean

Hori azaltzeko, barne eta **kanpo** faktoreak daudela esan izan da egunotan. Berria - Harian

## 34 *kanpo-forma*

Horrek **kanpo-forma** bat sortzen zuen haren pertzepzioetarako, eta, harekin, estilo bat nabarmenarazten, berezkoa eta ezagungarria. Xabier Olarra

## 35 *kanpo-gauza*

Sorrera hori du oroimenak **kanpo-gauzen** izatasuna inplikatzen duten ideien kateakuntza legez eta ez "gauzen izaera barne hartzen duten" ideiena. Piarres Xarriton

## 36 *kanpo-gai*

Etxeko gaiak errepublikanoek baino hobeto eztabaidatu dituztelako, baina, **kanpo gaietan,** abantaila daukate errepublikanoek. Berria - Mundua

Celso Amorim Brasilgo **Kanpo Gaietarako** ministroak aurreratu duenez.

Gobernuak bakea lortzeko «etengabeko ahalegina» egin duela nabarmendu du **Kanpo Gaietarako** Ministerioko eledun Qin Guangek. Berria - Harian

Gorka Agirre EBBko kide eta **kanpo gaietarako** arduradunak. Berria - Euskal Herria

## 37 *kanpo-gorputz*

Izan ere, sarritan **kanpo gorputza,** ikusten dena, gaixotu egiten zaigu eta azpiko beste zati batean, ostera, pozik gagoz. Xabier Amuriza

Afekzioen ideiek, aldi berean, giza gorputzaren eta **kanpo-gorputzen** izatasuna inplikatzen dute. Piarres Xarriton

Ez **kanpo gorputzarena** eta ez norbere giza gorputzarena ere. Piarres Xarriton

## 38 *kanpo-harreman*

**Kanpo harremanez** eta Irakez arizan dira joan den gauean. **Kanpo-harremanetarako** politika. Herria

Frantses gobernuak eta bereziki **kanpo-harremanetako** ministroak. Herria

Mexikoko **Kanpo Harremanetarako** idazkaritzak.

Paul Nicholson EHNEko **Kanpo Harremanetarako** arduradunak. Berria - Ekonomia

Legebiltzarreko **Kanpo Harremanetarako** Batzordeko presidente Kote Gabashvilik. Berria - Mundua

**Kanpo Harremanetarako** komisario Benita Ferrero-Waldner. Berria - Gaiak

Raphael Saborit Suitzako Gobernuko **Kanpo Harremanetarako** Ministerioko bozeramaileak adierazi du [...]. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzaren **kanpo harremanetarako** ordezkari Jose Maria Muñoa baikor agertu zen bi agintarien bileraren ostean.

Jose Mari Muñoa, Euskadiko **kanpo harremanen** arduraduna. Herria

## 39 *kanpo-herri*

Zangoetarik ezindu zen eta geroztik utzi behar izan zituen **kanpo herrietako** misioneak. Xipri Arbelbide

Hala da bai, soja bihia saltzen duela **kanpo herrietarat** baina zer da hori Brasilak munduko merkatuarekin dituen zor haundien ordaintzeko? Herria

## 40 *kanpo-herrialde*

**Kanpo** -herrialdekilako harremanetan. Herria

Frantzian berean gutiago edaten dela, **kanpo herrialdetarat** ere gutiago saltzen. Herria

## 41 *kanpo-historia*

Lakatosek zientziaren historian bereizketa bat ezartzen duen bitartean -barne-historiaren eta **kanpo-historiaren** artean. Askoren artean

Aldaketa askotako garai horiek, **kanpo historian** izandako gizarte asaldurako garaiekin lotzeko saioak egin dira. Isabel Arrigain

## 42 *kanpo-horma*

Argia, iluntasuna, itzalak eta barne eta **kanpo hormak** azalduko dira. Berria - Kultura

Zaingeletako **kanpo-** eta tarte-hormek saredun leihoak zituzten inguru guztian. Elizen arteko biblia

## 43 *kanpo-ikastaro*

**Kanpo ikastaroa** (goizeko 4 oren klase 6 astez). Herria

## 44 *kanpo-ikerketa*

Erabateko gardentasuna bermatzeko, **kanpo ikerketa** bat agindu dugu. Berria - Mundua

## 45 *kanpo-ikur*

Janzkerako aldaketa horiek pentsaera-mailan zegozkien aldaketen **kanpo-ikurrak** ziren, noski. Iñaki Mendiguren

## 46 *kanpo-ilunpe*

Garaileek [...] bertzeak ohildu baitzituzten **kanpo-ilunpe** likidazionistara. Aingeru Epaltza

## 47 *kanpo-ingurune*

Zeregin askotarako ondo diseinaturiko organoa da, eta **kanpo-ingurunearen** arrisku termiko, mekaniko eta kimikoetatik babesten gaitu. Irene Aldasoro

Bere **kanpo-** zein barne- **ingurunea**. Irene Aldasoro

## 48 *kanpo-inteligentzia*

Habanako gertaeren garai honetan Estatu Batuen **kanpo-inteligentzia** zerbitzuak hainbat erakunderen artean bideratzen dira. Edorta Jimenez

Estatu Batuen **kanpo-inteligentzia** eta kontraespioitza zerbitzuetako bat da hori. Edorta Jimenez

## 49 *kanpo-jantzi*

Hots, Ofelia, ez sinetsi haren zin-agintzak; artekari baitira, **kanpo-jantziz** erakusten dutenarena gabe, nabarmenkeriaren erregutzaile huts, hortxe, estalgile jainko-kartsu batzuen gisa xuxurlaka, hobekienik limurtzeko. Juan Garzia

## 50 *kanpo-kausa*

Afektuen **kanpo-kausa** ezabatzean, eta beste pentsamendu batzuetara igortzean, desagertu egiten dira afektu horiek eta ondorengo aldarte-gorabeherak. Piarres Xarriton

Badela gorputzik eragina duenik gizakiaren baitan **kanpo-kausa** baten ondorio bihurtuz eta bestelako instantzia batetik adigarri bilakatuz. Piarres Xarriton

Baldintza horren azpian soilik geundeke, ez **kanpo-kausen** eraginezko jardute baten aurrean [...] baizik eta esplizitatu beharreko ahalmen beraren eraginezkoan. Piarres Xarriton

## 51 *kanpo-komertzio*

AEBak prest daudela alde guztiak ados dauden eremuetan zerbitzuak eskaintzeko, **kanpo komertzioa** segurtatzeko bada ere. Berria - Euskal Herria

## 52 *kanpo-komisio*

Euskadi Buru Batzarreko lehendakari Josu Jon Imazek, zuzendaritza nazionaleko idazkari Josune Ariztondok eta **Kanpo Komisioko** arduradun Gorka Agirrek.

## 53 *kanpo-kontsulta*

Etorri bihar erietxera: zazpi eta erdietan bilera dugu; gero **kanpo-kontsultak** eta barnekoen erronda. Xabier Olarra

Kirurgiako **kanpo-kontsulten** txanda zen. Xabier Olarra

**Kanpo-kontsultetako** gaixo sail luze batekin. Xabier Olarra

## 54 *kanpo-kontu*

Astebete behar izan zen, eta **kanpo-kontu** bat ireki behar izan nuen, bankuko inork jakin ez zezan zer nenbilen. Xabier Olarra

## 55 *kanpo-kritika*

Zalantzak barne- eta **kanpo-kritikatik** sortzen dira. Askoren artean

## 56 *kanpo-laguntza*

Gatazkaren konponbidea konplexua izango dela argi du Elkarri-k eta, beraz, **kanpo laguntza** beharrezko izango dela. Berria - Euskal Herria

Hobekuntza hauek ez dira gertatu mendebaldeko asmo oneko jendeak zerbait egin duelako: **kanpo laguntza,** inoiz oso handia izan ez bada ere, azken urteetan izugarri murriztu da, ia baliogabe izateraino. Iñaki Heras

## 57 *kanpo-lan* (*orobat* ***lanpolan*** *g.er.)*

Egiten zituzten balentria ederrak, xintxuketa, kurritze, **kanpo** -lan eta nekatze... Herria

Bazien urte batzu osagarria mendratia zuela bana etzien oraino anitz denbora **kanpo lanetan** arizana zela. Herria

Kurutzatzen ditugula, eskolako bidean, elizaratekoan edo **kanpo lanetan** ari, hango jendeak, xaharrak eta gazteak, laborariak eta besteak, batzu aspaldian joanak mundu huntarik... Herria

· Benetako **kanpo lana,** kazetaritza erredakzioan usteltzen dela esan ez dezagun. Iñigo Aranbarri

## 58 *kanpo-leiho*

Etxe bateko **kanpo-leihoak** denbora gehienean itxirik badaude, arrisku handiagoa dauka. Berria - Harian

Orduan herritar anitzek **kanpo-leihoak** ixten zituzten. Berria - Euskal Herria

Itxi itzazu **kanpo-leihoak,** mesedez. Ander Irizar

## 59 *kanpo-mariskal*

**Kanpo-mariskalaren** makila. Xabier Olarra

## 60 *kanpo-mehatxu*

Eta aukera berriak zabaltzen dizkio bere etorkizunari, askatasunean eta **kanpo mehatxurik** gabe eraiki nahi dugun geroari. Berria - Euskal Herria

## 61 *kanpo-mendekotasun*

Interesen ordainketa bermatzeko, artilearen, mearen eta bestelako lehengaien esportazio masiboari ekin behar izan zioten, herrialdearen **kanpo-mendekotasuna** areagotzeraino. Iban Zaldua

## 62 *kanpo-menisko*

Miguel Escalona atezainari artroskopia egingo diotela, hilaren 10ean, eskuin belauneko **kanpo-meniskoan**. Berria - Kirola

## 63 *kanpo-merkataritza*

Sobiet Batasuna egun batetik bestera desegin zenean **kanpo merkataritzaren** %85 galdu zuen Kubak. Berria - Mundua

Txinako hazkunde ekonomiko itzela **kanpo merkataritzan** oinarritu da. Berria - Ekonomia

Egiptok, erlijioak eta ohiturek atzerritarrekiko harreman orotarik urrunduta, ia ez zuen **kanpo-merkataritzarik**. Iñaki Iñurrieta

Baliteke, baldin eta gure **kanpo-merkataritzak** barnekoa handiagotuko ez balu. Iñaki Iñurrieta

Balantze horren zatirik handiena ondasun eta zerbitzuen **kanpo merkataritzari** dagokio. Berria - Ekonomia

**Kanpo Merkataritza** Indizea %2 hazi da EAEn. Berria - Ekonomia

AEBetako **Kanpo Merkataritzako** Bulegoko bozeramaile Christopher Padilla adierazi duenez [...]. Berria - Ekonomia

## 64 *kanpo-merkatu*

Euskal ekonomia **kanpo merkatuei** zabaldu beharra dago. Berria - Ekonomia

Euskal ekonomian **kanpo merkatuak** «eragin negatiboa» izan duela esan zuen Madariagak. Berria - Ekonomia

## 65 *kanpo-mintz*

Nire nukleoa, zitoplasma eta **kanpo-mintza** hazi egin baitira nire jabea hazi egin den bezalatsu. Josetxo Azkona

## 66 *kanpo-muga*

Euskal Herriaren barne zein **kanpo mugak** zehaztu udalerrietatik hasita. Berria - Harian

Barne mugarik ez omen duen Europan, **kanpo muga** tinkoak ezarri. Berria - Euskal Herria

Etorkinentzat **kanpo mugarik** gabeko Europa nahi du Aralarrek. Berria - Euskal Herria

## 67 *kanpo-murru*

Bigarren dorrea eta **kanpo-murrua** egiteko asmoez bertze egin behar izan zuen Migel Mailuk. Aingeru Epaltza

## 68 *kanpo-objektu*

Objektu eraldagarria (hots, natura), ez da hortaz **kanpo objektu** bat, gizarteari (artifizialtasunari) kontrajartzerik legokeen zera. Berria - Gaiak

Lockeren posizioa, beraz, bikoitza da: (i) inferentziak kontuan izanik, **kanpo objektuak** badaudela onartzen du, baina (ii) [...]. Askoren artean

## 69 *kanpo-onarpen*

Barne onarpen hori baldin badago, **kanpo onarpenerako** trabarik ez legokeela nabarmentzen du. Berria - Euskal Herria

## 70 *kanpo-oposizio*

Inbasioaren hirugarren urtemuga eta gerraren kontrako barne zein **kanpo oposizio** gero eta handiagoa direla-eta. Berria - Mundua

Estatu Batuetako presidentearen kontrako **kanpo oposizioa** gogortu beste biderik ez dugula. Berria - Mundua

## 71 *kanpo-ordainketa*

Estatutu horri esker, Estatu Batuek abantaila izugarri bat zuten, alegia, **kanpo-ordainketak** beren diruaz finantzatu ahal izatea. Koro Navarro

## 72 *kanpo-ordezkaritza*

Elkartearen **kanpo ordezkaritza** ereman, proiektu berriak landu irratien garapenerako. Herria

Bulegoak biltzarrak prestatuko ditu, **kanpo ordezkaritza** lana bere gain hartuko du, baita instituzioekiko harremanak ere. Berria - Harian

## 73 *kanpo-oste*

Hala, bada, sei gizoneko **kanpo-oste** bat igortzen dute, sarjentu bat buru dutela, Estatu Batuen aurka gudukatzera. Juan Garzia

## 74 *kanpo-polemika*

Zenbait hautetsik **kanpo polemikarako** gai gisa hartzen dutelako. Berria - Euskal Herria

## 75 *kanpo-politika*

Europako Batasunak «defentsan eta **kanpo politikan** ahots bakarra izateko» lan egin behar duela esan zuen.

Europako **kanpo politikak** nazioarteko legediaren eta NBEren lidergoaren errespetuan oinarritu behar duela. Berria - Euskal Herria

Europako Banku Zentrala kontroletatik at geratzen da; **kanpo politika** NATOren esku dago, eta beraz, AEBren esku. Berria - Euskal Herria

Espainiaren **kanpo**-politikaren ondorio zuzena. Berria - Euskal Herria

## 76 *kanpo portu*

Ziklo konbinatuko zentrala egin nahi dute Pasaiako **kanpo portuan**. Berria - Harian

Ondoren lantoki berri bat eraikiko zuen Santurtziko **kanpo portuan**. Berria - Ekonomia

Mutrikuko […] **kanpo portuaren** proiektuak legeak ezarritako eskaera guztiak betetzen dituela Zazpi urte daramatzagu **kanpo portuaren** inguruko azterketak egiten. Berria - Euskal Herria

Pasaian **kanpo portua** egiteak itsas hondoari eta Jaizkibel mendiko labarrei eraginen lieke. Berria - Euskal Herria

Pasaialdearen biziberritzea ez da lotu behar **kanpo portuaren** eraikuntzarekin.

## 77 *kanpo-proiekzio*

**Kanpo proiekzioa** bultzatzerakoan Espainia eta Frantziako merkatuak lehenetsi ditu egitasmoak, «eremu hurbilenak» direlako eta «lotura historiko berezia» dagoelako. Berria - Kultura

## 78 *kanpo-proletalgo*

Desintegrazioaren ezaugarri nabariena gizarte-gorputzaren zisma da hiru zatitan: gutxiengo menderatzailea, barne-proletalgoa eta **kanpo-proletalgoa**. **Kanpo-proletalgo** inbaditzailearen gerra-taldeek. Iñaki Mendiguren

Zibilizazio baten eta bere **kanpo-proletalgoaren** arteko berezko harreman-bideetan horma eraikitzen ari direnak. Iñaki Mendiguren

**Kanpo-proletalgo** garaileen emaitza bereizgarria poesia epikoa da. Iñaki Mendiguren

## 79 *kanpo-sekuritate*

Estatu Batuen **Kanpo-Sekuritate** Zerbitzuek osaturik duten beste sare-arte horrexetako baten harietan. Edorta Jimenez

## 80 *kanpo-trafiko*

Bilboko portuko **kanpo** trafikoa %27 igo da. Berria - Ekonomia

## 81 *kanpo utzi* kanpoan utzi.

Mugarik gabeko hazkunde ekonomikoak erabat **kanpo uzten** duela lurrak mugak badituelako ideia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Elkarrizketa inor **kanpo utzi** gabe sustatzeko konpromisoa hartu dute. Berria - Harian

DAT autobus enpresak dionaz, 50 lekutako autobusa manatua izan zaio, 58 har markatuak dituelarik eramateko, behar ditu beraz zortzi **kanpo utzi**. Herria

Saioak Nafarroaren egoera politikoari buruz hitz egiteko herrialdeko ordezkari politikoak gonbidatu zituen eta Batasuna **kanpo utzi** zuen.

Moldatu ziren Mendebaldeko Zibilizazioa balantzan pisatzeko, eskas aurkitu zuten, **kanpo uztea** erabaki zuten eta behar hainbat indar bildu zuten alegiazko autarki politika hausnartu ahal izateko. Iñaki Mendiguren

Genevako lege bat, zorretan bizi edo hil direnen seme-alabak magistraturan eta are Kontseilu Nagusitik ere **kanpo uzten** dituena, oso ona da. Iñaki Iñurrieta

## 82 *kanpo-zirkunferentzia*

Beraz, **kanpo-zirkunferentzia** bereko egitura trinko bat baino % 25 arinagoa da hezurra, baina sendotasun mekaniko bertsukoa. Irene Aldasoro

## 83 *kanpo-zabalpen*

Sorkuntza eta ekoizpenaren nagusitasuna, kultur integraziorako ahalegina, nortasunaren sendotzea, modernizazioa eta **kanpo zabalpena**. Berria - Kultura

Euskal musikaren, musikarien eta kultur industriaren **kanpo zabalpenaren** alde.

## 84 *kanpo-zartada*

Musika jotzen ari delarik, berdin dio konpaktoan, irratian edo dena delakoan, bere erasoaren iraina nabarmentzen du buruak, eta **kanpo-zartada** horien aurkako defentsa moduan itxi egiten ditu ateak. Pako Aristi

## 85 *kanpo-zor*

Panamak 8.700 milioi dolarreko **kanpo zorra** du eta langabezia tasa %14koa da.

1980 eta 1993 urte bitartean, Ameriketako Estatu Batuen **kanpo-zorra** ehuneko 456 handitu zen. Joseba Zulaika

Horren bitartez lortutako diru-sarrerek ez zuten, inola ere ez, erresumaren **kanpo-zorra** murriztu. Iban Zaldua

Herrialde txiroen **kanpo zorra** ezabatzeko eskatu dute bilkuran. Berria - Mundua

**Kanpo zorraren** zati bat barkatzearen truke. Berria - Mundua

Industrializatu gabeko herrialdeen **kanpo zorraren** arazoarekin batera. Iñaki Heras

Eusko Jaurlaritzak **kanpo zorra** ezabatzeko herri ekimena abian da. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**alderditik kanpo** (10); **arauetatik kanpo** (9); **arriskutik kanpo** (17); **barne eta kanpo** (15); **bat legez kanpo** (11); **batasunetik kanpo** (8); **bidetik kanpo** (10); **bistatik kanpo** (10); **deialdietatik kanpo** (8); **deialditik kanpo** (63); **deialditik kanpo geratu** (15); **deialditik kanpo utzi** (23); **denboratik kanpo** (11); **denboraz kanpo** (13); **eguzki sistematik kanpo** (8); **elizatik kanpo** (9); **epez kanpo** (22); **erakundetik kanpo** (9); **eremutik kanpo** (17); **errealitatetik kanpo** (19); **errekontru handiz kanpo** (14); **errekontruz kanpo** (11); **eskola orduetatik kanpo** (8); **eskolatik kanpo** (27); **espainiako kopatik kanpo** (13); **espainiatik kanpo** (14); **esparrutik kanpo** (11); **etxetik kanpo** (544); **etxetik kanpo jokatu** (26); **europatik kanpo** (22); **euskal herritik kanpo** (115); **eusko legebiltzarretik kanpo** (12); **final laurdenetatik kanpo** (8); **finaletik kanpo** (37); **frantziatik kanpo** (13); **garaiz kanpo** (11); **gobernutik kanpo** (16); **gugandik kanpo** (9); **guztietatik kanpo** (16); **hamaikakotik kanpo** (8); **handik kanpo** (37); **harresietatik kanpo** (9); **herrialdetik kanpo** (8); **herritik kanpo** (163); **herriz kanpo** (23); **hiritik kanpo** (25); **irismenetik kanpo** (11); **jainkoaz kanpo** (9); **jaitsiera postuetatik kanpo** (13); **jokoetatik kanpo** (9); **jokotik kanpo** (13); **jokoz kanpo** (88); **jokoz kanpo utzi** (8)

**kanpo aldean** (24); **kanpo aldera** (34); **kanpo aldetik** (9); **kanpo eta barne** (9); **kanpo harremanetarako** (47); **kanpo lan** (22); **kanpo politika** (9); **kanpo portua** (28); **kanpo**

portuaren (20); kanpo zorra (31); kanpo zorraren (19)

kantxatik kanpo (12); kantxetatik kanpo (12); kartzelatik kanpo (12); kontroletik kanpo (14); kopatik kanpo (39); kopatik kanpo geratu (16); lanetik kanpo (15); lasterketatik kanpo (8); legebiltzarretik kanpo (24); legez kanpo (568); legez kanpo utzi (68); lehiaketatik kanpo (29); lehiaketaz kanpo (10); lehiatik kanpo (26); lehiaz kanpo (9); lekuz kanpo (117); ligatik kanpo (32); lurraldetik kanpo (9); mugetatik kanpo (27); mundutik kanpo (15); nafarroatik kanpo (10); neurriz kanpo (76); nigandik kanpo (11); ohetik kanpo (12); olinpiar jokoetatik kanpo (8); ordenaz kanpo (8); orduetatik kanpo (13); pasaiako kanpo portua (12); pasaiako kanpo portuaren (8); pistetatik kanpo (11); postuetatik kanpo (22); prozesutik kanpo (13); sasoiz kanpo (20); senetik kanpo (8); sistematik kanpo (21); taldetik kanpo (24); testuingurutik kanpo (10); tokiz kanpo (31); tourretik kanpo (10); txapeldunen ligatik kanpo (10); txapelketatik kanpo (41); txapelketatik kanpo geratu (9); uretatik kanpo (20); zelaietatik kanpo (16); zelaitik kanpo (19); zerrendatik kanpo (16)

barnean eta kanpoan (8); barruan eta kanpoan (21); barruan zein kanpoan (10); etxean eta kanpoan (8); etxean zein kanpoan (10); kanpoan euria ari (13); kanpoan gelditu (48); kanpoan gelditudo (12); kanpoan gelditzen (16); kanpoan geratu (72); kanpoan geratuko (15); kanpoan geratzea (12); kanpoan geratzen (27); kanpoan gertatzen (9); kanpoan ibili (10); kanpoan izan (20); kanpoan izango (11); kanpoan jokatu (13); kanpoan jokatzen (12); kanpoan lan egiten (9); kanpoan uso (9); kanpoan utzi (61); kanpoan utzita (12); kanpoan utziz (9); kanpoan uztea (8); kanpoan uzteko (13); kanpoan uzten (23)

arauz kanpoko (9); barne eta kanpoko (11); barneko eta kanpoko (13); barruko eta kanpoko (28); batasunetik kanpoko (11); denboraz kanpoko (8); eskolaz kanpoko (14); etxetik kanpoko (94); etxetik kanpoko partida (8); etxetik kanpoko partidetan (17); europako batasunetik kanpoko (10); euskal herritik kanpoko (32); ezkontzaz kanpoko (10); gobernuz kanpoko (282); gobernuz kanpoko erakunde (46); gobernuz kanpoko erakundeak (56); gobernuz kanpoko erakundearen (10); gobernuz kanpoko erakundeek (47); gobernuz kanpoko erakundeen (22); gobernuz kanpoko erakundeko (28); gogotik kanpoko (9); gugandik kanpoko (8); gure kanpoko (14); herritik kanpoko (36); herriz kanpoko (14); izariz kanpoko (8); jokoz kanpoko (8)

kanpoko agerpen (10); kanpoko agerpenen (16); kanpoko aire (9); kanpoko aldea (9); kanpoko aldean (30); kanpoko aldetik (16); kanpoko atea (27); kanpoko begiespenaren (10); kanpoko diru (17); kanpoko egoera (9); kanpoko ekintza (11); kanpoko ekintzak (12); kanpoko elkartea (12); kanpoko erakunde (53); kanpoko erakundeak (57); kanpoko erakundearen (12); kanpoko erakundeek (47); kanpoko erakundeen (25); kanpoko erakundeko (28); kanpoko esku (13); kanpoko eta barruko (12); kanpoko etorkinak (13); kanpoko finantzaketa (9); kanpoko gauza (12); kanpoko gauzak (14); kanpoko gauzen (18); kanpoko gizakia (9); kanpoko gorputz (25); kanpoko gorputzak (14); kanpoko gorputzaren (16); kanpoko gorputzen (9); kanpoko itxura (14); kanpoko jende (10); kanpoko jendea (13); kanpoko kausa (26); kanpoko kausaren (10); kanpoko lanak (8); kanpoko lerroa (26); kanpoko lerroan (42); kanpoko lerroaren (10); kanpoko lerroko (16); kanpoko lerrotik (19); kanpoko mundu (8); kanpoko mundua (14); kanpoko munduaren (17); kanpoko munduari (9); kanpoko objektu (11); kanpoko objektuak (13); kanpoko objektuen (8); kanpoko partida (10); kanpoko partidetan (23); kanpoko portua (13); kanpoko sentsuaren (8); kanpoko sentsuen (20); kanpoko zeren (9)

lanetik kanpoko (10); legez kanpoko (460); legez kanpoko diru (16); legez kanpoko ekintzak (9); legez kanpoko elkartea (12); legez kanpoko etorkinak (10); lekuz kanpoko (21); neurriz kanpoko (78); nigandik kanpoko (9); ohiz kanpoko (97); tokiz kanpoko (10); usaiaz kanpoko (18)

legez kanpokoa (180); legez kanpokoa dela (46); lekuz kanpokoa (20); neurriz kanpokoa (36); ohiz kanpokoa (28)

legez kanpokoak (63); legez kanpokoak direla (15); lekuz kanpokoak (8)

legez kanpokotzat jo (67); legez kanpokotzat jotzen (8)

atera zen kanpora (8); atetik kanpora (20); barrutik kanpora (12); etxetik kanpora (74); euskal herritik kanpora (32); gelatik kanpora (12); gipuzkoatik kanpora (8); herritik kanpora (53); hiritik kanpora (38); irten zen kanpora (8); kanpora abiatu (8); kanpora atera (196); kanpora atera zen (28); kanpora atera zuen (12); kanpora aterako (10); kanpora aterata (10); kanpora ateratzea (15); kanpora ateratzeko (18); kanpora ateratzen (50); kanpora begira (114); kanpora begiratu (44); kanpora begiratzeko (8); kanpora begiratzen (11); kanpora bidali (36); kanpora bidaltzeko (8); kanpora bota (73); kanpora botako (26); kanpora botatzen (35); kanpora egin (38); kanpora egin nuen (8); kanpora egiten (12); kanpora eraman (37); kanpora eramateko (9); kanpora gelditu (16); kanpora irten (169); kanpora irten zen (34); kanpora irtengo (8); kanpora irteteko (21); kanpora irteten (23); kanpora jo (12); kanpora joan (83); kanpora joango (8); kanpora joatea (9); kanpora joateko (19); kanpora joaten (19); leihotik kanpora (63); leihotik kanpora begira (13); leihotik kanpora begiratu (13); ohetik kanpora (10); txapelketatik kanpora (8)

kanporako bidea (16); kanporako bidea hartu (9)

area kanpotik (10); barrutik eta kanpotik (26); kanpotik begiratuta (22); kanpotik ekarri (10); kanpotik ekarritako (10); kanpotik eta barrutik (8); kanpotik etorri (22); kanpotik etorriak (13); kanpotik etorriko (8); kanpotik etorritako (43); kanpotik etorritakoak (9); kanpotik etortzen (9); kanpotik heldu (16); kanpotik ikusita (21); kanpotik ikusten (24); kanpotik jin (10); kanpotik jinak (9); kanpotik sartzen (10)

---

# kanpoalde *(orobat **kanpo alde** g.er.)* **1** *iz*

Begiaren **kanpoaldea** (kornea, alegia) ukitzean. Irene Aldasoro

Ate itxien **kanpoaldean** arropa zegoen alanbreetan zintzilikatua. Koro Navarro

Zirkulu zirkunskribatua poligonoaren **kanpoaldean** dago eta haren erpin guztietatik pasatzen da. Jon Muñoz

Ikerlaria da Princeton-go **kanpoaldean** dagoen farmazia-arloko konpainia handi batean. Oskar Arana

**Kanpoaldetik** inguratuta dagoen edozein **kanpoalde** barrualde bihurtzen dela. Eskarne Mujika

Bi zelula-geruza besterik ez da funtsean izaki primitibo asko: barrualde bat eta **kanpoalde** bat. Irene Aldasoro

Eskeleto bat definitzerakoan "barrualdea kanpoan eta **kanpoaldea** auzoan zuen gizon bat" zela esan zuen ikasle gaztea. Irene Aldasoro

Indarren batek beti bultzatzen du taldekideren bat **kanpoalde** gorri horretarantz. Markos Zapiain

**Kanpoalde** sendoa, eta barrualde enblematikoa. Berria - Kultura

Munduaren aurrean agertzeko moduko **kanpoalde** sozialak sortzen. Hozten ari du **kanpoaldean**. Xabier Olarra

Parkearen **kanpoalderaino** segitu zien. Lopez de Arana

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Auzitegi alboko kafetegi **kanpoaldean** zain zeuden arren. Berria - Harian

Eguzki gozoa dago taberna **kanpoaldean**. Berria - Kirola

Espetxe **kanpoaldean** ehundik gora autobus ilaran. Jokin Urain

Atertu dik, baina kamioi **kanpoalde** honetan hezurretaraino sartzen duk hotza, erredio! Urtzi Urrutikoeetxea

## 3 ***kanpoaldeko*** ik **kanpo 3.**

**Kanpoaldeko** auzo berri burges horietariko batera? Aingeru Epaltza

**Kanpoaldeko** pasarteak filmatzeko. Berria - Kultura

Plazako tabernako **kanpoaldeko** mahai batean aulki banatan eserita, biak aurez aurre. Joan Mari Irigoien

Sukaldearen **kanpoaldeko** hormaren kontra. Oskar Arana

Atean dago; **kanpoaldeko** bulegoan, zehatzago esanda. Oskar Arana

Herri **kanpoaldeko** auzoetako emakumeak. Jon Maia

Erabat aldatu zuen bere itxura [...] eta izen berri kristaua hartuta, kontulari-lan bat erdietsi zuen oihal-denda batean, Hamburg **kanpoaldeko** herrixka batean. Oskar Arana

Sindromearen **kanpoaldeko** agerkari batzuk besterik ez nituela ikusi. Xabier Olarra

Hezurraren barrualdeko eta **kanpoaldeko** paretetan. Irene Aldasoro

Hezur normal baten **kanpoaldeko** gainazal leunean. Irene Aldasoro

Epidermisak [...] etengabe galtzen ditu **kanpoaldeko** zelulak. Irene Aldasoro

Arrautzaren **kanpoaldeko** pareta osatzen duen ehuna da trofoblastoa. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

atearen kanpoaldean (3); auzitegiaren kanpoaldean (5); bec kanpoaldean (4); dendaren kanpoaldean (6); egoitzaren kanpoaldean (6); eraikinaren kanpoaldean (4); etxearen kanpoaldean (6); herriaren kanpoaldean (4); hiriaren kanpoaldean (11); hiriburuaren kanpoaldean (5); jauregiaren kanpoaldean (4); kanpoaldean izan (3); kanpoaldean zain (4); leihoaren kanpoaldean (3); museoaren kanpoaldean (3)

kanpoaldearekin lotzen duen (3)

kanpoaldeko auzo (3)

leihotik kanpoaldera begira (3)

---

# kanpoeder *(orobat **kanpo-eder**)* **1** *izond* kanpoko gauzen zale dena. ik**kanpolarrosa.**

Ez naiz bereziki **kanpoederra** jatekoei dagokienez -txinatarrak, kasurako, hastio ditut-. Aingeru Epaltza

Gizon **kanpo-eder** barne-huts baten bizitoki eta maitaleku. Felipe Juaristi

Peru Abarkak Maisu Juan gainditu eta duindu beharra dauka, eredu kutsatu **kanpoederregiak** baztertzen diren bezala. Anjel Lertxundi

Nekez aurki baitaiteke, izan ere, mixiolariak eta inernazionalistak kendu ezkero, hura bezain jende-modu **kanpoeder** eta bere lurraren ukatzaile garbiagorik, ez hitzez, jakina, baina bai egitez. Iñaki Segurola

Tradizioari buruzko ikuspegi etxezuloegiek bezainbat goganbehartzen naute **kanpoederregiek,** tradizioa ez baita oinordekotzan ematen zaigun zerbait, lan eta neke askoren ondoren irabazten hasten garen eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat baino. Anjel Lertxundi

**2** kanpoalde ederrekoa.

Ingeles bandera daramaten gerra-ontzi **kanpo-ederrak**. Felipe Juaristi

Estamentu sozialean aitzina egiteko edo gailurrari eusteko, funtsezkoa baitzen iduri **kanpo-eder** baten izaitea. Joan Mari Irigoien

---

# kanpofubol *iz* futbol-zelaia.

Bakizu: dana oso politte, dana oso ondo, loreak eta arbolak eta **kanpofubola..**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# kanpokotasun 1 *iz*

Azken ideia horri esker, ondasun kolektiboaren kontzeptua (edo **kanpokotasunaren** kontzeptua) sar daiteke nazioarteko ekonomiaren alorrean. Koro Navarro

Gudariak bere berna desehortzi ezinak, patuaren gaindiezina eta **kanpokotasuna** adierazten du. Markos Zapiain

Oro har, barrukotasunaren eta **kanpokotasunaren** kontrakotasunak esandako gauzen deskribapen historikoa zeharkatzen du oso-osorik. Xabier Arregi

Deuseztatzen dudala barrukotasun oro nire bizitzaz hain ezberdina den **kanpokotasun** horretan. Xabier Arregi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kanpokotasun**-espazio bat da, non hedatzen den kokapen ezberdinen sare bat. Xabier Arregi

Bakantasunaren azterketa totalitateen ikerketez ordezkatzean, **kanpokotasun**-harremanen deskribapena oinarri transzendentalaren gaiaz ordezkatzean, [...]. **Kanpokotasun**-arlo batean ipintzeko moduan egotea Xabier Arregi

---

# kanpolarrosa *izond* kanpoko gauzen zale dena. ik**kanpoeder**.

Euskaldun natural samar bat ez litzatekeela sekula euskararen goraipamenetan nekatuko; **kanpolarrosak** izan direla beti gure barruko loriak eta mirariak kantatu dituztenak. Xabier Mendiguren Elizegi

· Filotti etxekoak sasisantu **kanpolarrosa** mordo bat baino ez dira denak, Judas baino zuriagoak -oihu egin zuen mutilak. Koldo Biguri

---

# kanpolore *iz* kanpolarrosa.

Hizkuntz politikan **kanpolore** aritzen da, eta gero, adibidez, Europari euskararen ofizialtasuna eskatuz, etxekalte. Berria - Euskal Herria

---

# kanporabide *iz* kanporatzeko bidea.

Morokilez bete nuen ahoa, amorruari **kanporabidea** emango nion beldurrez. Irene Aldasoro

---

# kanporaketa 1 *iz* kanporatzea.

**Kanporaketak** eta fusilaketak nahasian ageri dira kroniketan, atertu gabeko jarioan: [...] "Altzolan Bilboko gudari bat fusilatu dute, 19 urte besterik ez zuena"; "Debatik bost pertsona kanporatu dituzte". Jokin Urain

1963az geroztik berrogeitik gora **kanporaketa** eta konfinamendu agindu eman zituen Parisko gobernuak. Jokin Urain

Buruzagitzak dio berregituratze bat dela eta ez langileen **kanporaketa** bat. Herria

Gainera, maila jaitsi, soldata eten eta desohorezko **kanporaketa** egin zion AEBetako Armadak. Berria - Mundua

*Izvestia* egunkariko zuzendari Raf Shakirovek, bestetik, Kremlini leporatu zion bere **kanporaketa**. Berria - Mundua

Kontseiluak hauxe erantzun du: **«Kanporaketa** ez justifikatu behar izateak ez du erran nahi arrazoirik gabe dela kanporatzen». Berria - Ekonomia

Etorkinen **kanporaketa** ez zaiela abokatuei jakinarazi behar esan dute hiru poliziak. Berria - Euskal Herria

Maiz gertatzen da **kanporaketa** estradizioarekin nahastea. Berria - Euskal Herria

**2** (lehiaketa eta txapelketetan)

Donostia Hiria nazioarteko piano lehiaketaren lehen **kanporaketa** egin dute 168 pianistak. Xenpelar sariaren **kanporaketa** larunbatean egingo dute Errenterian.

Otsailaren 13an iragan da, Larraintzarren, aurtengo lehen **kanporaketa,** sei bertsolariren artean. Herria

**Kanporaketako** saioan, euren desadostasuna agertu eben, trikitilari txapelketan halako piezea sartzea kritikauaz. Xabier Amuriza

Urrezko aizkora lehiaketaren **kanporaketa** bat da jokatuko pilotalekuan. Herria

Kroaziarren kontrako **kanporaketa** gaindituko dutela. Berria - Kirola

Joanekoan galdu genuen **kanporaketa**. Berria - Kirola

Gaurko **kanporaketara** heltzeko Mugertzak eta Txapartegik hiruna aizkolari kanporatu dituzte. Berria - Kirola

Iriartek, beraz, hiru **kanporaketa** jokatu ondoren esan zion adio txapelketari, aurrez Zubiaga eta Olano kanporatu zituelako. Berria - Kirola

Igande 31n **kanporaketa** bat: Ibarrola-Ezcurra II eta Larrechea-Oçafrain. Herria

Lau **kanporaketa** jokatuko dira asteburuan. Berria - Kirola

Monakoren eta Lyonen artekoa da final-zortzirenetako **kanporaketa** aipagarriena. Berria - Kirola

Joan-**etorriko** kanporaketa jokatuko dute. Berria - Kirola

Goizaldean hasi dira 2004ko titulurako **kanporaketak** NBAn. Berria - Kirola

Miami eta New Orleansen arteko **kanporaketa** da parekatuena. Berria - Kirola

Biharko **kanporaketa** Zeanuriko pilotaleku berrian jokatuko dute, 20:00etan. Berria - Kirola

Aurreko **kanporaketetan** bezala, zortzi enborrera lehiatuko dira. Berria - Kirola

Bi **kanporaketa,** bi finalerdi eta finala izanen ditu aurtengo txapelketak, gaur berean hasita. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iparraldeko Bertsulari **Kanporaketa**. Herria

Lau t'erdiko txapelketan sartzerik ez nuen espero, iaz aurre-**kanporaketa** jokatu nuelako. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehen hiru **kanporaketa** faseak hiru astetan jokatuko dira. Berria - Kirola

Txapelketako hirugarren jardunaldiko bi jaialdi, lehen **kanporaketa** faseko azken aurrekoak biak. Berria - Kirola

Partida bakarreko **kanporaketa** sistema. Berria - Kirola

Lehen **kanporaketa** partidek ligaxkak markaturiko arrastoa jarraitu dute. Berria - Kirola

Orain arte bi saio jokatu dira; baina, **kanporaketa** saioak izan ez direnez, galtzaileek aukera izango dute berriro aritzeko. Berria - Kirola

Abendua **«kanporaketa** hilabetea» dela esan du. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aurre kanporaketa** (6); **aurreneko kanporaketa** (6); **azken kanporaketa** (9); **bi kanporaketa jokatu** (8); **bi kanporaketa jokatuko** (13); **erabakiko da kanporaketa** (4); **final hamaseirenetako kanporaketa** (4); **final laurdenetako kanporaketa** (38); **final zortzirenetako kanporaketa** (4); **finalerdietako kanporaketa** (15); **finalerdietako kanporaketa jokatu** (4); **heineken kopako kanporaketa** (4); **hiru kanporaketa jokatu** (6); **hiru kanporaketa jokatuko** (6); **hurrengo kanporaketa** (15); **jokatu zuten kanporaketa** (4); **jokatuko du kanporaketa** (4)
>
> **kanporaketa aurreko** (8); **kanporaketa aurrekoa** (8); **kanporaketa bakarra** (4); **kanporaketa bat jokatu** (5); **kanporaketa berdintzeko** (4); **kanporaketa eginen** (4); **kanporaketa erabaki** (6); **kanporaketa erabakita** (15); **kanporaketa erabakita zegoen** (4); **kanporaketa gainditu** (25); **kanporaketa gaindituko** (4); **kanporaketa gainadituz** (4); **kanporaketa gaindituz gero** (4); **kanporaketa gainditzea** (14); **kanporaketa gainditzeko** (25); **kanporaketa gainditzen** (4); **kanporaketa gogorra** (7); **kanporaketa irabazi** (4); **kanporaketa irabazteko** (5); **kanporaketa izan** (5); **kanporaketa izango** (14); **kanporaketa jokatu** (54); **kanporaketa jokatu zuten** (8); **kanporaketa jokatuko** (75); **kanporaketa jokatuko dute** (19); **kanporaketa jokatzeko** (10); **kanporaketa jokatzeko txartela** (4); **kanporaketa partida** (9); **kanporaketa partidan** (4); **kanporaketa sistema** (6); **kanporaketa zaila** (6)
>
> **kopa kanporaketa** (5); **kopako finalerdietako kanporaketa** (4); **kopako kanporaketa** (15); **kopako lehen kanporaketa** (5); **lau kanporaketa jokatuko** (8); **lehen kanporaketa** (78); **lehen kanporaketa gainditu** (5); **lehen kanporaketa jokatu** (4); **ligako kanporaketa** (4); **maila nagusiko kanporaketa** (8); **nagusien multzoko kanporaketa** (5); **sartzeko kanporaketa** (7); **txapeldunen ligako kanporaketa** (4); **txapelketa kanporaketa** (4); **txapelketako bigarren kanporaketa** (8); **txapelketako kanporaketa** (4); **txapelketako lehen kanporaketa** (7); **uefako lehen kanporaketa** (4)
>
> **aurreneko bi kanporaketak** (5); **final laurdenetako kanporaketak** (7); **finalerdietako kanporaketak** (5); **hurrengo kanporaketak** (4); **irabazteko kanporaketak** (4); **jokatuko dira kanporaketak** (6); **kanporaketak hasi** (4); **kanporaketak hasteko** (5); **kanporaketak jokatu** (22); **kanporaketak jokatuko** (15); **kanporaketak jokatzeko** (16); **kanporaketak jokatzeko txartela** (6); **kopako kanporaketak** (5); **lehen kanporaketak** (19); **titulurako kanporaketak** (25); **titulurako kanporaketak jokatzeko** (10); **txapelketako kanporaketak** (4)
>
> **final laurdenetako kanporaketako** (5); **kanporaketako bigarren partida** (8); **kanporaketako irabazleak** (6); **kanporaketako itzuliko partida** (4); **kanporaketako lehen partida** (9); **kanporaketako partida** (5); **kopako bigarren kanporaketako** (5)
>
> **aurreko kanporaketan** (20); **azken kanporaketan** (5); **donostiarren kanporaketan** (4); **errekopako laugarren kanporaketan** (4); **final laurdenetako kanporaketan** (9); **kopako kanporaketan** (5); **kopako lehen kanporaketan** (7); **laurdenetako kanporaketan** (9); **lehen kanporaketan** (44); **maila nagusiko kanporaketan** (5); **txapelketako kanporaketan** (5)
>
> **hurrengo kanporaketarako txartela** (4)
>
> **kanporaketari aurre egiteko** (4); **kanporaketari buelta eman** (8); **kanporaketari buelta ematea** (4); **kanporaketari buelta emateko** (8); **kanporaketari dagokionez** (5)
>
> **kanporaketarik jokatu** (6)
>
> **titulurako kanporaketetan** (16)
>
> **kanporaketetarako sailkatu** (4)

---

## kanporakoi *izond* kanporatzen dena, kanporatzeko joera duena.

Luzaroko kontentu batek baizik ematen ez duen xalotasun **kanporakoia** zuten denek. Matías Múgica

Luzaroko kontentu batek baizik ematen ez duen xalotasun **kanporakoia** zuten denek. Matías Múgica

---

## kanporakuntza *iz* kanporaketa.

Arrazoi beragatik, arimaren atzerakuntza gogorragoa eta bere **kanporakuntza** ere handiagoa da, eta elkarren artean banatuago eta aldenduago dagoz. Xabier Amuriza

---

## kanporaldi *iz* kanpoan igarotzen den aldia.

Josuk lan aferak zirela-eta egiten zituen **kanporaldiek** aisatu zizkigun gauzak. Aingeru Epaltza

---

## kanporarazi, kanporaraz, kanporarazten du *ad*

Umekondoa, estutuz, **kanporarazi** nahi izan zuen, baina ez zuen lortu. Josu Zabaleta

Neure burua bezainbeste maite zaitudalako, nire haremeko emakume guztiak **kanporaraziko** ditut. Patxi Zubizarreta

Duela bi urte etxetik **kanporarazi** zituzten bizilagunen protesta. Berria - Euskal Herria

Baina ez du arrautza **kanporaraziko**. Luis Elberdin

---

## kanporatu, kanpora, kanporatzen 1 da *ad* kanpora irten.

Garagardo latari aparra **kanporatu** zitzaion irekitzean. Iñaki Zabaleta

Baiezko bat **kanporatu** zitzaidan. Aingeru Epaltza

Gelatik **kanporatu** baino lehen, ikuskapen zorrotza egin nion neure buruari. Aingeru Epaltza

Zeren irudi bakoitzak, gero deslai ibiltzeko, bera **kanporatu** den gorputzaren itxura eta forma berdina baitaroa. Xabier Amuriza

Aire hori, arnasaldi bakoitzaren laurden bat inguru, aldaketarik gabe **kanporatzen** da. Irene Aldasoro

Nerbioetan baturiko irritsa **kanporatu** denean. Xabier Amuriza

Zeozer, mutaturik, bere mugetatik **kanporatzen** bada, horrek lehenago izan zenaren heriotza dakar berbertan. Xabier Amuriza

Ardoak barreneko mintzoa **kanporatzen** zionean askotan gogoratzen zuen nola lurperatu zituzten zorigaitzeko lau gizon haiek. Xabier Etxabe

• **2** du *ad* kanpora atera; kanpora bidali.

Kea hortzen artean ibili zenuen jolasean, liho fin bihurturik, patxadaz **kanporatu** aurretik. Eider Rodriguez

Azken izerdi tantak **kanporatu** genituen horma batetik besterako bidaia amaigabean. Lander Garro

Ur hori ere lurrundu egiten da, eta beroa gorputzetik **kanporatzen** laguntzen du. Irene Aldasoro

Oxigenoa hartu eta karbono dioxidoa **kanporatu**. Irene Aldasoro

Galderak barnean dituzue, **kanporatu** ezinik. Xabier Montoia

Nire baitako lekurik ezkutuenak ukitzen dizkit, inork aurretik laztandu gabeko tokiak laztantzen, oso barruan gorderik ditudan sentipenak **kanporatzen** dizkit. Joxean Agirre

Ona da sentimenduak hitzez adieraztea, **kanporatu** ondoren norberak ere argiago ikusten baititu. Ramon Saizarbitoria

Goizaldeko ordu bi eta erdiak jo gabe **kanporatu** ninduen, azken bezeroekin batean, zerbitzari begi-ilunak. Aingeru Epaltza

Indultatuak irten orduko Belgikara, Austriara, Danimarka eta Norvegiara **kanporatu** zituen gobernu espainiarrak. Jokin Urain

Ez zituzten, baina, hiritik **kanporatu,** besterik gabe, ez. Karlos Linazasoro

Harrituta nago Harry ez dutelako eskolatik **kanporatu**. Iñaki Mendiguren

Ez dakigu nahita alde egin zuen edo indarrez **kanporatu** zuten. Jose Morales

Azken boladan jende asko **kanporatzen** ari dira. Patxi Zubizarreta

**3** (era burutua izenondo gisa)

Nagusiak begiratu zion kontatzaileari bere begi **kanporatu** argitsu horiekin. Matías Múgica

**4** ***legez kanporatu*** legez kanpo utzi. ik **ilegalizatu**.

Bainan hunat jinez geroz haur bat ukana badu, haur hori frantses ekarria da, Frantzian sortua izanki-eta, kasu hortan ama ez ditake **legez kanporatu**. Herria

2003. urtean **legez kanporatu** zuten Batasuna. Berria - Harian

Espainiako Auzitegi Gorenak Konstituzioaren arabera jokatu zuen Batasuna **legez kanporatzea** erabaki zuenean. Berria - Euskal Herria

Batasuna **legez kanporatzeak** ez du eragiten SA talde parlamentarioa **legez kanporatzea**.

Batasuna **legez kanporatzeko** 2002an hasitako estrategiaren balantzea egin du ETAk martxoaren 14ko hauteskundeei buruzko azterketan. Berria - Euskal Herria

Herri plataformak **legez kanporatzeko** neurria. Berria - Euskal Herria

ETAren ingurua **legez kanporatzeko** mezua. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak HZ **legez kanporatzeko** PSOEren erabakia kritikatu zuen. Berria - Euskal Herria

HZ **legez kanporatzearen** kontrako elkarretaratzea. Berria - Euskal Herria

· Ezker abertzale **legez kanporatuaren** inguruko zerrenda izan ote litekeen. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agarikano kanporatu** (6); **agintetik kanporatu** (3); **arazorik gabe kanporatu** (4); **argentinara kanporatu** (6); **argentinara kanporatu zuten** (4); **batasuna legez kanporatu** (9); **etorkinak kanporatu** (5); **etxeetatik kanporatu** (3); **euren lurretatik kanporatu** (3); **final laurdenetan kanporatu** (3); **final zortzirenetan kanporatu** (3); **finalerdietan kanporatu** (3); **frantziatik kanporatu** (4); **gelatik kanporatu** (3); **indarrez kanporatu** (5); **kanporatu du finalerdietan** (3); **kanporatu zuen finalerdietan** (4); **kopatik kanporatu** (7); **langile kanporatu** (8); **legez kanporatu** (52); **legez kanporatu ondoren** (4); **legez kanporatu zuen** (4); **lurretatik kanporatu** (3); **lyongo olympique kanporatu** (3); **ministro kanporatu** (4); **peñ taldea kanporatu** (14); **taldea kanporatu zuen** (6); **taldeak kanporatu** (3); **taldetik kanporatu** (4); **udalbiltza legez kanporatu** (5); **uruguaitik argentinara kanporatu** (3); **venus williams kanporatu** (3)

**espainiara kanporatua** (3); **kanporatua izan** (30); **kanporatua izan zen** (6); **kanporatua izango** (5); **kanporatua izatea** (3); **kanporatua izateko** (8); **kanporatua izateko arriskua** (4); **legez kanporatua** (10)

**abertzale legez kanporatuak** (3); **bi minutuz kanporatuak** (33); **faltengatik kanporatuak** (10); **frantziatik kanporatuak izan** (3); **kanporatuak izaiteko** (3); **kanporatuak izanen** (4); **kanporatuak izanez** (3); **kanporatuak izateko** (4); **legez kanporatuak** (11); **legez kanporatuak izan** (3)

**abertzale legez kanporatuaren** (4)

**legez kanporatuen** (5)

**legez kanporatutako alderdi** (7); **legez kanporatutako alderdietako** (5)

**batasuna legez kanporatzeko** (7); **brasildarra kanporatzeko agindua** (3); **ehak legez kanporatzeko** (5); **etorkinak kanporatzeko** (6); **gobernutik kanporatzeko** (3); **hondakin solidoak kanporatzeko** (3); **hz legez kanporatzeko** (4); **irakasleak kanporatzeko** (3); **kanporatzeko agindua** (10); **kanporatzeko arriskuan** (3); **kanporatzeko asmoa** (4); **kanporatzeko aukera** (4); **kanporatzeko bidea** (4); **kanporatzeko erabakia** (5); **kanporatzeko eskatu** (6); **kanporatzeko eskatzen** (3); **kanporatzeko modua** (3); **legez kanporatzeko** (35); **pixa kanporatzeko** (3); **umeak kanporatzeko** (3)

**etorkinak kanporatzen** (3); **kanporatzen utzi** (3); **legez kanporatzen** (7)

---

# kanporatxo *iz*

Ceciliaren txanda zen iluntzean, bidean jarri zen, herritik **kanporatxo,** ordoki ondoko ilunabarraren azken argi printzak gorabehera, ia ilunik eta izozturik zeuden soroen artean, hura etxera itzuli zain. Josu Zabaleta

---

# kanporatze **1** *iz* kanpora ateratzea; kanpora botatzea.

Eskolatik bota ninduten eta etxean ez zekiten ezer **kanporatze** hartaz. Pello Lizarralde

**Kanporatze** hori hotsen bidez gertatzen da. Lourdes Oñederra

**Kanporatze** bakoitzaren aurrean, beste okupazio bat. Berria - Euskal Herria

Prefetak dozena erdi **kanporatze** bertan behera uztea lortu du CIMADE elkarteak. Berria - Euskal Herria

Gogorki salatuz tortura eta tratamendu txarrak, preso direnak herritik urrun atxikitzea edo berdin iheslarien **kanporatze** eta estradizioak. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Gaur **kanporatze** eguna da. Patxi Iturritegi

Bere **kanporatze**-gutuna eskuan. Itxaro Borda

Etorkinak bere egoera arautzea lortuz gero, **kanporatze** prozesua bertan behera utziko da. Berria - Harian

Euskaldun askorentzat Bilbo izan da gure **kanporatze** bidaia, gure unibertsitatea, baita gure erbestea ere. Joseba Zulaika

**Kanporatze** arrazoiak zehaztu behar izatea. Berria - Ekonomia

Baimenik gabeko etorkinen eskubideak babestea: erroldatuta dauden pertsonen aurka **kanporatze** agindurik ez izatea. Berria - Euskal Herria

Hizkuntzaren fonologia edo osagai fonologikoa hizkuntzaren hots alderdia da, hizkuntzaren **kanporatze**-bide fonikoa. Lourdes Oñederra

Atzerritar kapitalen barneratze- eta **kanporatze**-aldiak. Koro Navarro

**Kanporatze** proba: erasoek baino gehiago, erresistentziak finkatuko du sailkapen nagusia Berria - Kirola

**3** ***legez kanporatze****sup_1* ilegalizazioa.

EHAK **legez kanporatzeen** aurka dagoela berretsi du. Berria - Euskal Herria

Inork ezin dio **legez kanporatzeari** abstenituz erantzun. Berria - Euskal Herria

Acebesen hitzek **legez kanporatzearen** porrota erakusten dute. Berria - Euskal Herria

Azken urteotan, erakunde eta alderdi edo koalizio politikoen **legez kanporatzeak** asko erraztu du preso politikoen ugaltzea. Jokin Urain

Batasunaren **legez kanporatzea** bertan behera uzteko eskaera egin zuen atzo Elkarri-k.

HZk kritikatu egin zuen Espainiako Gobernuak **legez kanporatzea** Europara zabaltzea. Berria - Euskal Herria

EHAKren **legez kanporatzea** abiatzeko. Berria - Euskal Herria

EHAKren **legez kanporatzea** ez eskatzea «egokia» izan zela dio Conde Pumpidok. Berria - Euskal Herria

Balizko **legez kanporatzea** ez dago gure agendan. Berria - Euskal Herria

Bi urteko **legez kanporatzea** hauteskundez hauteskunde gainditu du ezker abertzaleak. Berria - Euskal Herria

**4** ***legez kanporatze****sup_2 (hitz elkartuetan)*

**Legez kanporatze** epaia «berme guztiekin» eman zela eta eskubiderik ez dela urratu argudiatu du. Berria - Euskal Herria

Batasunaren **legez kanporatze** prozesua abian jarri zutenetik milaka herritarren eskubide zibil eta politikoak urratzen ari dira. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kanporatze agindua** (3); **kanporatze aginduak** (4); **legez kanporatze** (13)

**; alderdien legez kanporatzea** (6); **batasuna legez kanporatzea** (4); **batasunaren legez kanporatzea** (30); **ehakren legez kanporatzea** (4); **hbren legez kanporatzea** (3); **hzren legez kanporatzea** (10); **kanporatzea bertan behera** (4); **kanporatzea ebatzi** (4); **kanporatzea ebatzi zuen** (3); **kanporatzea erabaki** (9); **kanporatzea erabaki zuen** (4); **kanporatzea eragin** (4); **kanporatzea salatu** (3); **kanporatzea salatzeko** (8); **legez kanporatzea** (141); **legez kanporatzea salatu** (3); **legez kanporatzea salatzeko** (7)

**alderdien legez kanporatzeak** (3); **batasunaren legez kanporatzeak** (9); **legez kanporatzeak** (43)

**legez kanporatzean** (3)

**batasunaren legez kanporatzearekin** (3); **legez kanporatzearekin** (12)

**batasunaren legez kanporatzearen** (19); **kanporatzearen alde** (3); **kanporatzearen aurka** (12); **kanporatzearen aurka agertu** (3); **kanporatzearen aurkako** (5); **kanporatzearen auzian** (4); **kanporatzearen kontra** (5); **kanporatzearen kontrako** (7); **kanporatzearen ondorioak** (5); **kanporatzearen ondorioz** (6); **legez kanporatzearen** (99); **legez kanporatzearen aurka** (12); **legez kanporatzearen aurkako** (5); **legez kanporatzearen auzian** (4); **legez kanporatzearen horma** (3); **legez kanporatzearen kontra** (5); **legez kanporatzearen kontrako** (6); **legez kanporatzearen ondorioak** (5); **legez kanporatzearen ondorioz** (6)

; **batasunaren legez kanporatzeari** (6); **kanporatzeari aurre egiteko** (6); **legez kanporatzeari** (29)

**batasunaren legez kanporatzeaz** (9); **legez kanporatzeaz** (10)

**legez kanporatzeek** (4)

**legez kanporatzeekin** (3)

**legez kanporatzeen** (14); **legez kanporatzeen aurka** (3)

---

## kanposaindu *iz* kanposantua.

Gure inguruan jendea mugitzen hasia zen **kanposainduko** sarrera aldera. Aingeru Epaltza

**Kanposainduko** karrika nagusiaren biki meharragoa. Aingeru Epaltza

---

## kanposantu *(orobat **kanpo santu** g.er.)* **1** *iz* hilerria.

Ostegunean eman genion lurra gure auzoaren gainean dagoen **kanposantu** berrian. Txillardegi

Angiozarko **kanposantu** atariko hilarrian. Juan Luis Zabala

Highgate-ko **kanposantuko** hilarriak. Ramon Saizarbitoria

Zaharren egoitzatik irten eta **kanposantu** katolikorako bidea hartu genuen. Anjel Lertxundi

Hilkutxan armak sartu eta **kanposantuan** ehortzi eta gero, falangista-talde batek gauez joan, eta zulotik jasotzen omen zituen armak. Inazio Mujika Iraola

Lehenengo ilaran, zazpi-zortzi lagun agertzen ziren nabarmen **kanposantu** zibileko ehorzketan. Hasier Etxeberria

Hobietan dauden beste hainbat apaiz eta errepublikano **kanposantu** atarian hil zituzten. Jokin Urain

**Kanposantua** 1839an bedeinkatu zuten, baina, bere itxura ikusita, bostehun urte zituela zirudien. Ramon Saizarbitoria

Pistola jokoa egin zuten, masoien **kanpo santuaren** ondoan. Javi Cillero

Judutarren **kanposantu** izandako parkean. Berria - Kultura

**2** *irud*

Bost urtean behin-edo, txatarra biltzaileari deitu eta hark hustuketa egiten zuen **kanposantu** industrial txiki hartan. Paddy Rekalde

Miraria iruditzen zait maletek nirekin batera jauzia egitea, Ariadnaren haririk gabe iristea aireportuetako terminal, arropa zaharren **kanposantu** eta uhal garraiatzaileetan zehar, heldu behar duten lekuraino. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan)

Hiriko mapan, berdeunez bereizita, hamar **kanposantu**-eremu baino gehiago agertzen dira. Iñaki Zabaleta

---

## kanposatutxo *iz* kanposatu txikia.

Lurrikara batek astinduko du nire **kanposantutxo** pribatu eta arnas zabaleko hau. Harkaitz Cano

---

## kanpotar *(orobat **kanpotiar**)* **1** *iz* kanpokoa dena, kanpotik etorri dena. ik **arrotz**.

-Aitona: nondik heldu da **kanpotar** hau? Juan Kruz Igerabide

-Hori duzu, **kanpotarra,** erakusteko eskatu didazun jauregia. Juan Kruz Igerabide

- **Kanpotar** hori: nor haugu? -galdetu zion-. Juan Kruz Igerabide

**Kanpotarra** nauzu eta urruneko lurretatik nator. Juan Kruz Igerabide

Mirabeek oro, **kanpotar** nahiz etxeko, berdin dagite zerbitzu hori. Jon Muñoz

Esango nuke ni naizela **kanpotar** bakarra leku horren berri inoiz entzun duena. Karlos Zabala

**Kanpotiar** dirudunei saltzen gure ehiza-lekuak edo baserri xuri pollitak. Piarres Xarriton

Gure etxaldeak **kanpotarren** eskuetara joan dira; gure etxeak arrotzen eskuetara. Elizen arteko biblia

**Kanpotar** edo ezagunen bat etortzen zaie alabentzako lana eskainiz. Gotzon Garate

Aurreko urtean 24.600 **kanpotar** zeuden EAEn. Berria - Ekonomia

Crescencio Callejo, Segoviako semea, [...] **kanpotar** frankoren antzera euskaldun batekin ezkondua. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kanpotar** batentzat Europan sartzea EEBBtan sartzea baino errazagoa denik ez dut uste, hala ere. Harkaitz Cano

Ainitz **kanpotiar** kokatzen da Euskal-Herrian, batzu lanketa jinik eta beste batzu, kostaldean bereziki, erretreta hartzen dutenean, tokiaz aski gustaturik... Herria

Ez nuen berehalakoan ezagutu **kanpotar** hura: neu nintzen. Pako Aristi

**2** (turista gisa)

**Kanpotiarrek** gero eta egonaldi laburragoak egiten dituztela. Herria

Orai edozoin sasoinez badira **kanpotiarrak**. Herria

Aurten, badea jaz bezenbat **kanpotiar**? Herria

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Igaro ziren bada, alai ote beldur ote, patiotik, **kanpotar** gazteak begira zituztela. Josu Zabaleta

NBEko **kanpotar** jarduleek. Berria - Mundua

**Kanpotiar** jujarietan, horra ONU nazioartekoa, bere erratekoa izanen duena. Herria

East Side-ko ingelesez hitz egiten, **kanpotar** kutsuarekin. Lopez de Arana

**Kanpotar** gorputz sotil batzuek arrasto horiek utzi ditzakete gure gorputzetan. Imanol Unzurrunzaga

**Kanpotiar** enpresa dirudun askok hor zituzten beren bulegoak. Ramuntxo Etxeberri

Erdaretatik hartutako maileguak eta **kanpotar** izenak transkribatzeko. Iñaki Arranz

Norbaitek **kanpotar** azentua duela esaten denean. Lourdes Oñederra

Artean **kanpotar** buruzagiekin eztabaidan ari zen Leoni jarraituz. Josu Zabaleta

Hura ustekabea **kanpotar** handiki guztiena! Txillardegi

**4** (izenondo gisa)

Haietako batean jarri ziren bizitzen andre gazte **kanpotar** biak. Xabier Montoia

Eskola nazionala lumpen **kanpotarren** eskola zen, baita baserritar lumpen batzuena ere. Xabier Mendiguren Elizegi
Biktima aukeratu zuten, artzain **kanpotar** bat, azokara etorria segur aski. Karlos Linazasoro
Orokortasun gradu handia, horra hor testu **kanpotar** guztien ezaugarri nagusia. Bernardo Atxaga
"Itsasotiko gizon lotsagabe" heleniko **kanpotarren** matxinada ausartak. Iñaki Mendiguren
· Protagonista **kanpotar** gertatzen da inguruarekiko. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan)

**Kanpotar** itxurako gizon bat zegoen aitaren alboan. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **herritar eta kanpotiar** (3); **kanpotiar eta hemengo** (4)

---

# kanpotarkeria *iz* kanpotarrari dagokion egitze gaitzesgarria.

Mezuaren **kanpotarkeria** guzia etxekotu eta, neure interpretazio partikularra egin nuen, bihotzondorainoko manifestazio ixilean. Patziku Perurena

---

# kanpotasun *iz* kanpo izatea.

Ez, ezin zen ametitu munduari buruzko **kanpotasun** hura, ezin zen ametitu [...] sortze prozesuari buruz esaten zuten hainbat faltsukeria. Bernardo Atxaga
Gorpuztasun markatu eta **kanpotasun** markatzailearen arteko aldea. Piarres Xarriton
Grina horiek gutxitu edo gehitu egin dezakete jarduteko potentzia, baina beti izendatzaile komun batekin: nagusitzen den **kanpotasun** baten presentziarekin. Piarres Xarriton

---

kanpus ik **campus**.

---

# kanputxear *izlag*

Lastima vietnamdar eta **kanputxearrek** ez jakitea haserre hori itxurazkoa zela, bestela ez zen galduko hainbat milioi lagunen bizitza. Xabier Mendiguren Elizegi
Konduen ordua etorria dutela gaixtaginek **kanputxear** eta beste nazioarteko jujarien aitzinean. Herria

---

# kanta **1** *iz* abestia.

Bakoitzak bere alaitasunezko **kanta** abesten zuen. Askoren artean
Moisesek eta israeldarrek **kanta** hau abestu zuten Jaunaren omenez: [...]. Elizen arteko biblia
Ararateko antzinako **kanta** bat jotzen ari zen: mendiaren sumin ikaragarria. Fernando Rey
Norbait Ry Cooder-en **kanta** bat entzuten ari zen etxe barruan. Bernardo Atxaga
Garai bateko **kanta** haren hitzak etorriko zaizkio bati baino gehiagori gogora: [...]. Iñaki Heras
Jainko salbatzaileari esker onezko **kanta**. Elizen arteko biblia
Taberna zuloko musika lodi eta **kanta** lizunetara eginiko jendea. Felipe Juaristi
**Kanta** gogaikarriak antzeko paisaiekin kateatzen. Sonia Gonzalez
Lotsagarria da, maitemintzen naizenean nire kasua top zerrendetako **kanta** guztietan azaltzen da. Bernardo Atxaga
Gu heldu ginelarik, musikaria **kanta** xarmangarri bat amaitzen ari zen. Patxi Zubizarreta
**Kanta** gogor baten doinua barreiatu da tabernan. Paddy Rekalde
Eskailera zuloan **kanta** txoropito bat zabaldu da, ezin ozenago zabaldu ere. Patxi Iturritegi
*Show Boat* diskoko aspaldiko **kanta** bat kantatzen. Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zure **kanta**-hotsa isilaraziko dut, zure zitara-soinua ez da berriro entzungo. Elizen arteko biblia
*Carmina burana* hain ezaguna egin den **kanta**-sorta. Pello Zabala
Cabo Verdeko **kanta** mota bat. Bego Montorio
Idatzi gabe duen lanaren esaldi, doinu eta **kanta**-zatiak igarotzen zaizkio lasterka buruan. Oskar Arana
Afalondoko **kanta**-saioak etorri zitzaizkidan gogora. Agurtzane Juanena
Beste Connie hura musika taldeen zuzendaria omen zen, **kanta**-orriak banatzen zituen. Xabier Olarra
Lopez Maldonadoren **"Kanta** Bilduma". Patxi Ezkiaga
**Kanta**-afari eta **kanta**-bazkari bana antolatu ditu aurten Euskal Kantuzaleen Elkarteak, Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren karietara.

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orain herri **kanta** italiar bat. Felipe Juaristi
Haur-**kanta** xarmagarri honek. Patziku Perurena
Mahastiaren maite-**kanta**. Elizen arteko biblia
Amodio **kanta** sotil baten konpasera. Patziku Perurena
Bada beste amodio **kanta** lizun bat. Patziku Perurena
Maiz entzuna zuen maitasun-**kanta** hura alargunak. Imanol Zurutuza
Requiema, garai bateko Europaren hil-**kanta**. Herio-**kanta** eta lertxuna. Felipe Juaristi
Lo **kanta** hau hizpide hartuta: [...]. Iñaki Arranz
Noiztik ez ote dabiltza Euskal Herri osoan, tankera honetako eske-**kantak**? Patziku Perurena
Poema hauxe bera [...] salmo eta otoitz-**kanta** bihurtu zuen. Pello Zabala
Agur **kantari** ekin zioten Dukearen soldaduek. Felipe Juaristi
Entzun, Israel herri, zuregatik abesten dudan negar-**kanta** hau: [...].[...] dioen haurretako ostatu-**kanta**. Elizen arteko biblia
Elizak *Aingeruen Andre Maria* zuen izena, aingeru-**kantak** sarritan entzuten omen zirelako bertan. Askoren artean
*It's a long way to Tipperary, it's along way to go* izeneko soldadu-**kanta** ezaguna. Mirentxu Larrañaga
Udaberri **kanta** bat entzungo da izotzezko itsaso basamortu horren gainean. Joseba Sarrionandia
Egunsenti **kanta** alai bat. Felipe Juaristi
Euskal Herri osoko gabon-**kanta** tradizionalak biltzen zituen disko batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Britainiako gabon-**kanta** Erdi Arokoetan. Pello Zabala

Zerbait gozo eta ezti, sehaska-**kanta** baten antzekoa. Anton Garikano

Salaketa **kanta** bat, euren izaera politiko eta musikala ederto islatzen zuena. Paddy Rekalde

Garaipen-**kanta** eta Bildotsaren ezteiak. Elizen arteko biblia

Ezekiasen gorespen-**kanta**. Elizen arteko biblia

Jainko errukiorrari bedeinkapen-**kanta**. Elizen arteko biblia

· Esker on-**kanta** heriotza-arriskuaren ondoren. Elizen arteko biblia

Lituaniako herri eztei-**kanta** iruditu zitzaiona. Felipe Juaristi

**4** (txoriena eta)

Ezkila edo kanpai baten hotsa adituko duzu halako batean, edo txori baten **kanta**. Joan Mari Irigoien

Xori **kanta** anitzek loratzen dute zerua. Berria - Kultura

Han entzuten da txantxangorriaren **kanta** ñegartti ezaguna. Pello Zabala

Arrosen itzaltze arina eta urretxindorren **kanta** sakon eta tristea. Fernando Morillo

Bai txorien hegada eta kantua, bai hontz eta mozoloen gau-**kanta**. Pello Zabala

Eskertuko zenuke txori, kilker edo txirritaren baten **kanta,** animaliez gabetu alde honetan. Xabier Montoia

Martxo bukaerako kukuaren **kanta**. Itxaro Borda

Gaur goizeko kuku **kanta** sorta ez zen nolanahikoa! Pello Zabala

Kilker baten **kanta**-hotsa bezala sentitzen dut buruan Bernardo Atxaga

**5 *kanta-kantari*** *adlag* ik **kantu 8.**

Ez zuen luze jo -pinta pare bat edateko lain bakarrik-, Cox laboraria **kanta-kantari** hasterako. Mirentxu Larrañaga

Hegazti multzo handi bat aurkitu zuen, zuhaitz-adarretan **kanta-kantari**. Askoren artean

Txitxar bat egoten zen Jainkoaren gizonaren gelatik hurbil zegoen pikondo batean, **kanta-kantari**. Askoren artean

Big Joe ere zoriontsu zen ostera, eta *Laranjak eta limoiak* **kanta-kantari** zebilen, sukalde inguruan burbutzika, basaki. Mirentxu Larrañaga

Ez da gehiago **kanta-kantari** ardorik edaten, edaleei garratz bihurtu zaie pattarra. Elizen arteko biblia

**6 *kanta-marmariatu/murmuriatu***

Doinu bat ahots apal sakonez **kanta-marmariatzen** zetorren kilometrotan. Irene Aldasoro

Nota batzuk **kanta-murmariatzen** zituen, kopeta-hezurreko sinuan zer efektu egiten zuen ikusteko. Irene Aldasoro

**7 *kanta min*** *(orobat* ***kantamin****)*

Hor ariko naiz, iratzargailuaren begirada fluoreszentearen mehatxupean, zorioneko ideia, imajina edo gogorapenarekin bueltaka, harik eta delako trasteak bere **kanta minari** ekin eta, nardatuta, jaikitzen naizen arte. Aingeru Epaltza

Mito honetan, itsas kantuak xoratzen du ehulea, eta hain zuzen, **kantaminaren** sinbolotzat gelditu zaigu ehulea (garbaria, irulea, joskina) gure usarioan. Patziku Perurena

**8 *kanta-modu*** *(corpusean* ***kantamodu*** *soilik)*

Eta ibaian behera alde egin dut, motorrontzian, Tatanka Yotankaren **kantamodua** gogoratuz. Joseba Sarrionandia

Askotan egondua nauzu bere jarrera xitalari, bere **kantamodu** erretxinari eta bere desapio lotsagabeei begira, eta egia esan, ez zait iruditu sekulan, batere txori klase noblea denik. Patziku Perurena

**9 *kanta-moduko***

Hori esandakoan, zigorra airean dantzatu, eta **kanta-moduko** bati ekin zion; eta kanta edo dena delako hura hain zen luzea, ezen ez baitzuen amaierarik. Jose Morales

· Egia esan, ez du txaplataz bakarrik sendatu: berarekin gelan giltzapetu, eta sehaska-**kanta modukoak** kantatzen zizkion, luzeegi iruditu zaizkidan geldiunez. Juan Garzia

**10 *sehaska-kanta*** ik **kantu 10.**

Zerbait gozo eta ezti, **sehaska-kanta** baten antzekoa. Anton Garikano

Brahmsen **sehaska kantaren** konpasean. Joan Mari Irigoien

Florent umea kulunkatzen hasi zen belaunaren gainean, eta kontaketari ekin zion lehen baino are motelago, **sehaska kanta** bat bezala xuxurlatuz. Karlos Zabala

Bikotearen hizketaldiak **sehaska kanta** baten efektu berbera eragiten dio. Eider Rodriguez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**a** (3); **amodio kanta** (7); **amodiozko kanta** (4); **barne kanta** (5); **dantza eta kanta** (6); **doinu eta kanta** (3); **erromes kanta** (16); **esker onezko kanta** (6); **euskal kanta** (4); **eztei kanta** (7); **gabon kanta** (5); **garaipen kanta** (4); **gorespen kanta** (13); **haur kanta** (7); **herri kanta** (18); **irri kanta** (3); **itsas kanta** (4); **izeneko kanta** (5); **kanta abesten** (6); **kanta abestu** (3); **kanta alai** (3); **kanta amaitu** (4); **kanta ariñ kanta aurkeztu** (3); **kanta bat abesten** (4); **kanta baten doinua** (3); **kanta berri** (13); **kanta berria** (3); **kanta berriak** (4); **kanta eder** (6); **kanta egitasmoa** (3); **kanta egitasmoaren** (4); **kanta egiten** (5); **kanta entzuten** (4); **kanta eskaini** (4); **kanta eta dantza** (11); **kanta ezagun** (9); **kanta ezaguna** (4); **kanta haren hitzak** (3); **kanta herrikoia** (3); **kanta ingeles** (5); **kanta ipini** (3); **kanta jotzen** (5); **kanta kantari** (11); **kanta lasai** (3); **kanta pare bat** (3); **kanta polita** (5); **kanta soil bat** (4); **kanta sorta** (3); **kanta tradizionalak** (3); **kanta triste** (3); **kanta zahar** (14); **kanta zaharrak** (6); **kaputen kanta** (9); **lo kanta** (3); **maitasun kanta** (4); **munduaren kanta** (6); **negar kanta** (17); **seaska kanta** (3); **sehaska kanta** (22); **xori kanta** (3)

**alor kantak** (3); **betiko kantak** (3); **eguberri kantak** (4); **euskal kantak** (4); **gabon kantak** (6); **gorespen kantak** (5); **herri kantak** (12); **kantak abesten** (3); **kantak abestuko** (3); **kantak abestuz** (4); **kantak dioen** (4); **kantak dirauen artean** (4); **kantak entzun** (4); **kantak eta dantzak** (3); **kantak kantatzen** (3); **maitasun kantak** (3); **sehaska kantak** (5); **zuberoako kantak** (3)

**dantzan eta kantan** (3); **kantan ari** (5)

**izeneko kantaren** (3); **kantaren hitzak** (7); **kantaren leloa** (3); **sehaska kantaren** (4)

**kantari ekin** (4)

**kantarik ederrena** (6)

---

# kantabres *izlag* kantabriarra.

**Kantabresek** erromatarrekin egindako gerra heroikoen legendak. Joxe Azurmendi

Ikusiak nituen nik karrakak, osaba Juanekin Lapurdira zein auzoko beste **kantabresen** aldera egin izaten genituen itsasote haietako askotan. Edorta Jimenez

---

# kantabriar 1 *izlag/iz* Kantabriakoa, Kantabriara dagokiona.

Hiruna ontzi gipuzkoar, **kantabriar** eta bizkaitar lehiatuko dira horretan. Berria - Kirola

Fernando Teixeira Vitienes epaile **kantabriarrak** zuzenduko du Athleticen eta Real Madrilen arteko partida.

Zuzendari **kantabriarrak** Bilbon egin zuen filma. Berria - Kultura

Luzaiden Antonio Lizarraga jeneralaz gain, hamabi batailoi zeudean, azkeneko erabakiak jaso zain: 6 kastillano, 2 **kantabriar,** 3 valentziar, eta asturiar bakar bat. Txillardegi

**2** Kantabriako herritarra

Trasmierako **kantabriarrek** pantoja deitzen omen zioten euren argotari. Koldo Zuazo

Miguel Angel Revilla **kantabriarrak** kontakatiluarena egin zuen. Berria - Euskal Herria

**Kantabriarrak** lehen txandan aritu ziren. Berria - Kirola

**kantabriarrak** izan ziren garaile. Berria - Kirola

---

# kantaera *(orobat **kantakera**)* *iz* kantzateko era.

Garrantzia handiagoa du une bakoitzean, leku bakoitzean eta eduki jakin bakoitza adierazteko **kantaera** egokia erabiltzen asmatzeak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Testu bakoitzari dagokio bere doinua, bertsolari bakoitzari doinu-mota bat, doinu bakoitzari **kantaera** jakina... Andoni Egaña

Kantua ere bada bertsoa, eta, emozioa sortzerakoan, testua bezain garrantzitsu izan litezke doinua, ahotsa eta **kantakera**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# kantagai *iz* kantaren gaia.

Ez dago gairik, baina bai **kantagai** ugari. Ezkon-eguneko alargunaren **kantagai** zabalduaren aldaera bat. Iñaki Segurola

Txirritaren modu samarrean Joxe Zapirainek ere, emaztearen heriotza **kantagai** duela. Iñaki Segurola

---

# kantagarri *izond* kantatzeko modukoa.

Kantuak, ABBAren kantu ahaztezinak, kutsagarriak, dantzagarriak, **kantagarriak** eta beste hainbat *–garri.* Berria - Kultura

---

# kantagile *iz* kantak egiten dituen musikaria.

Harrezkero bazkide berriak bildu ditu Euskal PEN Klubak idazle, **kantagile,** gidoigile, kazetari eta abarren artean. Berria - Kultura

Julen Lekuona **kantagilearen** ehorzketetan mundu bat bildu da joan den astean, Oiartzunen. Herria

---

# kantagintza *(64 agerraldi, 3 liburu eta 40 artikulutan)* *iz* kantak egitea. ik **kantugintza**.

Azken hogei urte hauetako euskal **kantagintza** aztertzen aritu naiz. Pako Aristi

Euskal **kantagintza** berri, moderno eta herrikoiaren lehen hogeita bost urteko bizitza. Pako Aristi

Geldialdi bat egin behar nuela sentitu nuen, neure **kantagintzan** eten bat egin behar nuela. Berria - Kultura

Gero eta gehiago emaztek aberasten dute **kantagintza,** Xiberoan berean. Herria

Lehendik ere ibilia **kantagintzan**. Berria - Kultura

Poetikoa baino politikoagoa izan zen Imanolen lehen **kantagintza**. Berria - Kultura

Ahozko adierazpenen, hala nola bertsolaritzaren, **kantagintzaren,** antzerkiaren eta irratiaren ikerketa, garapena, eta zabalkundea. Berria - Kultura

**Kantagintzan** aritutako urteak eta goi mailako politikagintzan emanikoak. Berria - Euskal Herria

Oztopoak ukanen ditu **kantagintzatik** nahi bezala bizitzeko. Berria - Euskal Herria

Txapelketaren helburua da **kantagintza** sustatzea, talendu berrien aurkitzea, eta kreazioari laguntza eskaintzea Euskal Kantuaren sail desberdin guzietan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euskal kantagintza** (13); **euskal kantagintza berria** (4); **euskal kantagintza berrira** (3); **kantagintza berria** (7)

---

# kantaldi 1 *iz* kanta jaialdia

Ortzegun aratsean, Bidarteko elizan, **kantaldia** Boga-Boga koroarekin. Herria

Bertso **sorten** kantaldi bat ere antolatu dute martxoaren 24rako, Gaztelekun. Berria - Kultura

2005eko otsailean **kantaldi** bat egingo dute Getxon Imanolen omenez. Berria - Kultura

Uztaritzeko ikastolak antolatu **kantaldi** batean. Itxaro Borda

**Kantaldi** berezia eskaini zuten atzo Isturitzeko harpeetan. Berria - Kultura

**Kantaldiek** arrakasta handia izan dute. Herria

Joan den ostiralean hasi eta heldu den asteazken arte hitzaldi, erakusketa, **kantaldi** eta bideo emanaldiak iragaten ari dira. Berria - Kultura

Musika taldeen zuzendaria omen zen, kanta-orriak banatzen zituen, eskolako **kantaldietan** akordeoia jotzen. Xabier Olarra

Ortziraletik iganderat, Baionan, Baiona iparraldeko festibala, antzerki, **kantaldi,** musikaldi eta beste. Herria

**Kantaldia** bukatu, eta trasteak batzen hasi direnean, bi preso musikako trepeten artean ezkutatu, eta jendea konturatu orduko, bi presoak kalean. Pedro Alberdi

Lluis Llachen **kantaldi** batekin omenduko dituzte martxoaren 3ko biktimak, sarraskiaren 30. urtemugan. Berria - Harian

**2** kantatzen den aldia.

Franco Vassallok baritono lanetan **kantaldi** erregularra bete zuen Zurgaren rolean. Berria - Kultura

Casanova Carloren rolean nahiz eta eskas aritu dramatizazioan, afinazioan, berriz, zehatz, tinbre atseginean,entonazio eta indarra adierazi zituen **kantaldi** guztian barna. Berria - Kultura

Goeldmer sopranoak bolumen erdiko ahotsarekin vibrato eta **kantaldi** egokia azaldu zuen. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kantaldi bat antolatzen** (7); **kantaldi bat arraroa** (3); **kantaldi bat eskaini** (3); **kantaldi bat eskainiko** (3); **kantaldi bat izanen** (15); **kantaldi bat muntatzen** (4); **kantaldi berezia** (3); **kantaldi eder** (31); **kantaldi ederra** (3); **kantaldi handi bat** (3); **kantaldi musikaldia** (3); **kantaldi pollit** (7)
>
> **antolatu kantaldia** (4); **bigarren kantaldia** (3); **igandeko kantaldia** (3); **ikastolak muntatu kantaldia** (3); **kantaldia adixkideak taldearekin** (3); **kantaldia arrantzaleak taldearekin** (4); **kantaldia bururatzean** (3); **kantaldia eskaini** (7); **kantaldia izan** (4); **kantaldia kriolinak taldearekin** (3); **lehen kantaldia** (3); **muntatu kantaldia** (4); **taldearen kantaldia** (8)

---

# kantalditxo *iz* kantaldi laburra.

Aratsaldean 5 etan **kantalditxo** bat "Hatsa 2" Baionako musika eskolako kantariekin. Herria

**Kantalditxo** zinez pollita eskaini dauku, duela zenbait egun, Anne Etchegoyen kantarisak, Kanboko Arnagako barne miresgarrietan. Herria

---

# kantaleku *iz* kantatzeko lekua.

**Kantalekuak,** jakina denez, eliz atariak, kontsejupeak, bidegurutzeak, plazak, feriak, merkatuak, bentak, ostatuak izan ohi zituen koplari itsuak. Patziku Perurena

kantamin ik **kanta 7**.

kantamodu ik **kanta 8**.

**kantante** *iz* abeslaria, kantaria.

Serge Reggiani **kantante** eta aktorea hil da. Berria - Kultura

Aktorea edo **kantantea** izatea. Ana Urkiza

**kantarazi**, kantaraz, kantarazten **1** dio *ad* kantatzera behartu.

Ikaslagun batzuekin nengoen; banan-banan **kantarazi** zigun, ahotsik onenak bereizteko. Juan Kruz Igerabide

Heriotza laster zetorkiola jakitean, *Anaia Eguzkiaren kantika* **kantarazten** die anaiei. Askoren artean

•**2** du *ad ipar*

**Kantaraz** gure haurrak, gogoa kantu xaharrez bete artio. ontsa bururatzeko, antolatzaileek jendea ere **kantarazi** dute Baigorriko kantua bizirik egon dadin. Herria

Eri potoloak altxatuz, kontuz, apezek *Dohatsu Bihotz Garbiak* kantatzen eta **kantarazten** zuten, telebistako kamera anitzen aitzinean. Itxaro Borda

**Kantaraz** etxean, **kantaraz** herrietan, **kantaraz** haurrak, **kantaraz** gazteak... Herria

Laugarren diska hunentzat, Maddi Oihenart-en bozaz lilluraturik, xiberotarrari **kantarazi** dizkio 8 kantu eder, gehienak berak musikatuak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere lagunei kantarazten** (3).

**kantari** **1** *iz* abeslaria.

Oldarra koruko **kantari** bat, Suzanne Abeberry. Menane Oxandabaratz

Jim Morrison **kantaria** bainuontzian hilik! Harkaitz Cano

Jadanik 5 diska bazituen plazaratuak Joseph Lafitte hazpandar **kantariak**. Herria

**Kantariak** aurrean, musikariak atzean, neskatxak tartean, panderoa joz. Elizen arteko biblia

Hainbat **kantari** eta musikari gonbidatu dituzte Lekuonaren kantuak abes ditzaten. Berria - Kultura

**Kantariak** ez direla bakarlariak, baina «abesbatzen esparruan lehenengo mailan» daudela. Berria - Kultura

Modako **kantariaren** ahots zakarra eta flipper-hotsa itzali egin dira bat-batean. Anjel Lertxundi

Kafe-teatroko **kantariak** bazuen erabakitzeko aukerarik. Anjel Lertxundi

Kanbora etorriko dira biarnes **kantariak**. Herria

Italiarrak oso **kantari** onak zirela. Jon Muñoz

Emakumezko **kantari** nagusia [...] eta ondoan gizonezko **kantari** laguntzailea. Berria - Kultura

Enetako ez da **kantari** ederragorik. Menane Oxandabaratz

**Kantari** itsua, adinekoa eta bizar sarriduna zen. Felipe Juaristi

**Kantari** faltsu baten gisa. Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agorrilaren bederatzian ospatu da Gardnervillen **kantari** eguna. Herria

Euskal **Kantari** Egunean. Herria

Aurten ere **kantari** multxo pollita elgarretaratu da, adin guzietakoetarik. Herria

Chinoko **kantari** talde berri batek-ere egin du bere agerraldia. Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zakarrago erantzuten nion nik, lepoa opera-**kantari** batek baino gehiago luzaturik. Anjel Lertxundi

Auhen-**kantari** afrikarren adibidea ekarri zuen gogora Zumthorrek. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bankeroa iruditzen zitzaiguna bigarren mailako futbol taldeko masajista da, eta ijitoen elkarteko ordezkari itxurako hura rock **kantari** bat. Pako Aristi

Gregory betiko mahaian zegoen Anthony blues **kantariarekin** kartetan jokatzen. Iñaki Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Egoitza berrian ezagutuko ditugu Anatole karrika-**kantaria,** Marius berritsua, [...]. Pablo Sastre

Felliniren *E la nave va* filmeko emakume opera-**kantariari**. Anjel Lertxundi

• **5** *izond*

Bi neska eta bi mutiko **kantari,** eta musikari bat. Herria

"Gu gira Euzkadiko gazteri berria" abestu ohi zuen Kanboko miriku **kantariak**. -Venez ici -esan zidan, haur-jolasetan ohikoa den hizketa modu **kantari** batez. Iñigo Aranbarri

Hondarribiko hizkera **kantarian**. Joxerra Garzia

Bai -erantzun zuen ahots **kantari** hark-. Lopez de Arana

Otearen lorea eta txori **kantaria**. Patziku Perurena

Askotariko kanarioak, **kantariak** eta txistukariak. Jon Muñoz

Musika, ur **kantaria** bezala, beti itzultzen baita bere ibaira. Felipe Juaristi

Lertxundian aurrera eginez jarraitu zuten, ur **kantarien** parean. Agustin Otsoa

· Burgaintziko haur **kantari** taldea. Herria

Betlehemeko barrükü hartan, artzainekin, aingürü **kantari** saldo bat builtarazle. Herria

• **6** *adlag*

**Kantari** hasi ziren. Felipe Juaristi

**Kantari** ari ziren emakume batzuk. Koldo Izagirre

Frantzia utzi eta Belgikara bidean goaz, ibilian **kantari** gabiltzala. Mirentxu Larrañaga

Txontak **kantari** dabiltza. Agustin Otsoa

Haizea ozen zebilkion belarrietan **kantari**. Agustin Otsoa

8-ak eta erdietan, elizan, herriko taldeak **kantari**. Herria

Himno **kantari** joan zen, baxu ahots artifizial batez. Koro Navarro

Han entzun zen oskigilearen ahots barea laudorio-**kantari**. Juan Garzia

Dorre alderantz adi-adi begira, eta *Laranjak eta limoiak* **kantari**. Mirentxu Larrañaga

Orduan, senargaia ikusi zuten bere adiskide eta ahaideekin beste taldearengana zetorrela, danbolinak joz eta **kantari**. Elizen arteko biblia

Alai daukat bihotza, pozez **kantari** mihia. Elizen arteko biblia

Bozkarioz **kantari** eta dantzari, danbolinak eta txilinak joz. Elizen arteko biblia

Ene ondoan ttirritta bat **kantari** belarretan. Koldo Izagirre

Txorien modura txio-txioka **kantari**. Felipe Juaristi

Kilkerra **kantari** ari da nire barruan. Bernardo Atxaga

### 7 *kanta-kantari* *adlag* ik **kantu 8.**

Ez zuen luze jo -pinta pare bat edateko lain bakarrik-, Cox laboraria **kanta-kantari** hasterako. Mirentxu Larrañaga

Hegazti multzo handi bat aurkitu zuen, zuhaitz-adarretan **kanta-kantari**. Askoren artean

Txitxar bat egoten zen Jainkoaren gizonaren gelatik hurbil zegoen pikondo batean, **kanta-kantari**. Askoren artean

Big Joe ere zoriontsu zen ostera, eta *Laranjak eta limoiak* **kanta-kantari** zebilen, sukalde inguruan burbutzika, basaki. Mirentxu Larrañaga

Ez da gehiago **kanta-kantari** ardorik edaten, edaleei garratz bihurtu zaie pattarra. Elizen arteko biblia

### 8 *kantu-kantari* ik **kanta 5.**

Mahaian geratuko dira, patxaran gehiagoren eta gitarraren konpainian **kantu kantari**. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurrena Anjel, gero Torpedorekin, jende axolagabea, **kantu kantari** muga pasan, ero gisa, tiroari tiro jo eta segi. Pablo Sastre

Kontu kontari **kantu kantari**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ahopean kantari** (5); **dantzari eta kantari** (4); **emazte kantari** (8); **euskal herriko kantari** (4); **euskal kantari** (19); **ezpeletar kantari** (4); **gizon kantari** (6); **hasi zen kantari** (5); **haur kantari** (15); **herriko kantari** (9); **irudiak kantari** (4); **kanta kantari** (11); **kantari andana** (7); **kantari ari** (34); **kantari ariko** (7); **kantari aritu** (5); **kantari aritzen** (9); **kantari ederra** (5); **kantari eta dantzari** (8); **kantari eta musikari** (17); **kantari eta musikariak** (6); **kantari eta musikariek** (4); **kantari eta soinulari** (5); **kantari ezaguna** (6); **kantari ezagutuak** (4); **kantari famatua** (4); **kantari gazte** (16); **kantari gaztea** (10); **kantari gazteak** (14); **kantari gazteek** (4); **kantari gaztek** (4); **kantari gisa** (9); **kantari hasi** (25); **kantari hasi zen** (14); **kantari hasten** (11); **kantari multxo** (7); **kantari musikari** (8); **kantari nagusia** (5); **kantari ona** (4); **kantari onak** (8); **kantari talde** (35); **kantari taldea** (26); **kantari taldeak** (21); **kantu kantari** (7); **koroa kantari** (6); **kostaldeko kantari** (5); **musikari eta kantari** (20); **musikari kantari** (4); **niko etxart kantari** (4); **opera kantari** (6); **plazetan kantari** (4); **soinulari eta kantari** (4); **taldea kantari** (16); **taldeak kantari** (7); **taldeko kantari** (8); **tokiko kantari** (4); **txoriak kantari** (4); **xuberotar kantari** (4)

**achiary kantaria** (4); **emakumezko kantaria** (4); **musikari eta kantaria** (5); **opera kantaria** (4); **soul kantaria** (5)

**arin elkarteko kantariak** (5); **arin taldeko kantariak** (7); **euskal kantariak** (8); **haur kantariak** (4); **herriko kantariak** (4); **kantariak bildu** (4); **muguruza kantariak** (4); **taldeko kantariak** (21)

**kantariaren ahotsa** (4); **opera kantariaren** (6)

**euskal kantariek** (4); **kantariek alaiturik** (6); **musikari eta kantariek** (4); **soinulari eta kantariek** (6); **taldeko kantariek** (5)

**arin elkarteko kantariekin** (4); **elkarteko kantariekin** (5); **musikari eta kantariekin** (4); **parropiako kantariekin** (4)

**euskal kantarien** (5); **gorteetako kantarien maisu** (4); **haur kantarien** (5); **kantarien biltzarra** (5); **kantarien diskoak** (4); **kantarien elgarretaratzea** (4)

---

## kantarisa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea)* *iz ipar* andre kantaria.

Hiru **kantarisa** gaztez eta hiru musikariz osatu talde honek berak sortu kantu batzu emanen ditu. Herria

Balio zuen **kantarisa** talendutsu horren eta bere musikarien entzutea! Herria

Dezagun erran Xuberotar **kantarisek** (Audrey Carrique, Maritxu Behety eta Celine Oyhenartek) ikusleak xoratu dituztela, hain dira hauien bozak ederrak eta goxoak, eta hain ongi dira akomeatzen hiruak. Herria

Souad Massi aljeriar **kantarisaren** kontzertua. Herria

---

## kantata *iz* orkestra batek laguntzen dien abeslari bakarlarientzat edo abesbatzarentzat onduriko musika lana.

Antso Handiaren omenezko **kantata** hilaren 30ean emango dute Miarritzen. Berria - Kultura

Carlos Etxeberriaren doinuekin eta Pello Esnalen hitzekin osatutako **kantata**. Berria - Kultura

Orkestra, koru eta bakarlarientzako **kantata** bat. Berria - Kultura

Pieza sorta aurkeztu behar dute, bi multzotan banatuta: alde batetik, operetako ariak, eta, bestetik, **kantatak** edo oratorioak. Berria - Kultura

Johann Sebastian Bachen Eztei-**Kantata** BWW 216 obraren partiturako zortzi orrialde. Berria - Kultura

**Kantata** honetan bakarlariak zeukaten lanik gehien. -Zein forma du Bachen **kantata** batek? Karlos Linazasoro

Koruak Giovanni Gabrieliren **kantata** bat txirikordatu zuen. Felipe Juaristi

---

## kantatu, kantatzen *(orobat* ***kantadu*** *g.er. eta* ***kantau*** *g.er.)* **1** du *ad* ahoaz musika-hots sail bat gauzatu. ik**abestu**.

Mollyk lorez goraino josi zuen hilobia eta *Jauna dut lagun* **kantatu** zuen. Mirentxu Larrañaga

Aitak *Parlez-moi d'amour* **kantatzen** zuen ahapeka maiz. Joseba Urteaga

Ondoren, Donostiako Orfeoiak *Illunabarra* **kantatu** zuen. Askoren artean

Hileta-kantu hau **kantatu** zuen Davidek. Elizen arteko biblia

Mundua mundu denetik **kantatu** izan zaizkio maitasunari odak. Anton Garikano

Ariannak ahots-hariz italiar doinuak **kantatu** zizkion Nikolasi. **Kanta** Jaunari kantu berria, egintza harrigarriak egin baititu. Felipe Juaristi

Ukabila jasorik, Internazionala **kantatu** zuten denek. Juan Kruz Igerabide

*Zorionekoak hildakoak,* **kantatu** zuen koruak. Felipe Juaristi

Bezperak **kantatu** ditugu arras gogotik, aire xahar eta berriagoak aldizkatuz. Herria

Gizaseme, **kanta** eresia Egiptoko jende guztiarengatik. Elizen arteko biblia

Herriminezko kantuak ahapeka **kantatzen** zituzten morroiz inguratuta. Jon Muñoz

Ezagutzen ditudan kopla lizunenak **kantatu** dituzte. Anjel Lertxundi

Goma-saltoan aritzeko **kantatzen** den leloa xuxurlatu zuen Uilek. Juan Kruz Igerabide

Gazteek ozenki **kantatu** zuten: [...]. Txillardegi

-Plano bateko angelua bata bestearekiko makurduran dauden bi lerrok eratzen dute, elkar ukitzen dutenean eta zuzen berean kokaturik ez daudenean **-kantatu** zuen ahopeka, nekez, Maxek, hain baitzen aldrebesa esaldia. Jon Muñoz

Ez alleluiarik **kantatu** Pazko aurretik. Pello Zabala

Baserria **kantatu** gabe, baserritik bota duten baserritarra kantatzen du. Berria - Kultura

Bluesman zahar haiek, ordea, erritmo eta erritmo artean, egunerokotasuna **kantatzen** ere bazekiten. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (zer osagairik gabe)

Umetatik jotzen zuela biolina eta **kantatu** ere ez zuela txarto **kantatzen**. Unai Elorriaga

Biziki polliki **kantatu** dute eta giro gaitza ezarri bazkaite denboran eta aratsean. Herria

Marcel Martinek, berriz, alkandora hutsean **kantatu** ohi zuen. Ramon Saizarbitoria

Eta kidetasun harrigarriak anaiturik, marrantatu arte **kantatu** dut berekin. Txillardegi

Santuak **kantatzeko** baimena eman zien arte. Askoren artean

Orduan izan zen, Maiteak ahopean **kantatzeari** utzi zionean. Anton Garikano

Gaztelaniaz **kantatu** arren zaila zen bere hitzak ulertzea. Berria - Kultura

· Pianoak ez du **kantatzen** geroztik eta gitarra isildu da. Berria - Kultura

**3** (bertsolariek)

Bertso hori **kantatu** zuen bertsolaria 20 bat urteko gazte korbatadun bat zela: Inaki Eizmendi, "Basarri". zortziko txikian **kantatu** zuen bertso zirraragarria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

1967ko txapelketan, eta aurrekoetan, lau puntuko bertsoak **kantatu** zituzten beti bertsolariek, eta antolatzaileek eskatuta baizik ez zituzten bertso luzeagoak **kantatu,** gogoz kontra gainera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ondotik, ofiziotan orduan ere, binaka hiruna bertso **kantatu** beharko dituzte sei puntuko motzean.

Sarasuak **kantatu** zuen lehenik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jakin behar du gutxienik zenbat bertso **kantatu** behar dituen bertsoaldian. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**4** (txoriek eta)

Oilarrak **kantatu** du jada eta eguzkiaren irribarrea du uraren gainak. Anjel Lertxundi

Lo egin gabe geratu naiz harik eta oilarrek **kantatu** duten arte. Joseba Sarrionandia

Erran berri zidatek erresinolak **kantatu** duela jadanik Ingalaterran. Juan Garzia

Ederki **kantatzen** zuen urretxindor bat zeukala. Jose Morales

Kukua **kantatzen,** euri ta eguzki. Pello Zabala

*Kukuak* ***kantatu*** *dio horri* esaerak zortea izan duela esan nahi du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Trixte **kantatzen** baitu txantxangorriak, eguraldia okertzen hasten denerako. Pello Zabala

Eperrak **kantatzen** du goizean ihintzetan. Patziku Perurena

**Kilkerrek** pertsonak gidatzeko **kantatzen** zutela. Bego Montorio

**5** (bestelakoak)

Aita abadeak **kantatu** zuen meza, Bazkoz, predikuarekin, latin klasikoenean. Marzel Etxehandi

Hamekak eterdietan meza **kantatu** dugu Estibalitzeko eliza nagusian. Herria

Jaun erretoreak ebanjelioa **kantatu** zuen, gero erramuak benedikatu zituen eta errepika gisa eman zuen. Michel Oronoz

*Desolatio, desolationis* **kantatu** duzu. Eider Rodriguez

**6** (era burutua izenondo gisa)

Igande goizean euskal meza **kantatu** eder batekin hasi da eguna. Herria

Usaian bezala larunbatean pik-nika goizetik hasi da meza **kantatu** eder batekin. Herria

Euskal Herriko dantza **kantatuak**.

Bertsopaperak gehiago bertso **kantatuak** baino. Berria - Kultura

Haren musika **kantatuak** erdiets dezake, beharbada, nik ezin erdiets dezakedana: zu konbentzitzea. Joan Mari Irigoien

Hitz **kantatuaren** artisautza duk gurea. Patziku Perurena

Rag-time zahar bat da, errepika **kantatuarekin**. Monika Etxebarria

Bost kontinenteetako ahozko inprobisazio **kantatuaren** protagonista eta ikerlariak bilduko dituen topaguneak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bat-batekotasun **kantatuaren** muinari eutsiz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abestia kantatu** (6); **abestiak kantatu** (4); **askotan kantatu** (3); **bertso hauek kantatu** (6); **bertso kantatu** (15); **bertsoa kantatu** (6); **bertsoak kantatu** (7); **bezperak kantatu** (5); **elizan kantatu** (3); **euskaraz kantatu** (3); **eusko gudariak kantatu** (3); **ezin kantatu letaniarik** (3); **gorazarreak kantatu** (3); **gorespenak kantatu** (3); **hiru bertso kantatu** (3); **hiruna bertso kantatu** (7); **kanta jainkoari** (5); **kanta jaunari** (23); **kantatu bertsuak** (4); **kantatu letaniarik** (3); **meza kantatu** (9); **meza kantatu eder** (3); **oilarrak kantatu** (3)

**meza kantatua** (8)

**bertso kantatuko** (4); **haurrek kantatuko** (3)

**taldeak kantaturik** (3)

**kantatutako bertso** (3)

**bertsoak kantatzeko** (4)

**abestiak kantatzen** (4); **ahapeka kantatzen** (3); **batera kantatzen** (4); **bertsoa kantatzen** (3); **bertsoak kantatzen** (9); **entzuten eta kantatzen** (5); **euskaraz kantatzen** (4); **frantsesez kantatzen** (4); **gaztelaniaz kantatzen** (5); **gizona kantatzen** (3); **gorazarreak kantatzen** (4); **gorespenak kantatzen** (16); **hitzak kantatzen** (3); **hizkuntzan kantatzen** (3); **ingelesez kantatzen** (5); **jainkoari gorespenak kantatzen** (3); **jaunaren gorespenak kantatzen** (3); **kantak kantatzen** (3); **kantatzen du bertsolariak** (3); **ozenki kantatzen** (3); **polliki kantatzen** (3); **salmoak kantatzen** (4); **triste kantatzen** (4)

---

# kantatxo *iz adkor* kanta.

Eta ibilian zebilelarik, **kantatxo** ulergaitzak abesten zituen ahopetik. **Kantatxo** bat esan eta, dantza pauso batzuk eginik. Mirentxu Larrañaga

---

# kantatzaile *(orobat* ***kantazale*** *g.er.) iz* aipatzen dena kantatzen duena.

Aukera hau bazterreraino egoten baldin bada, pastoralaren amaierako bertseten **kantatzaile** izango dira Maider Sarasola, Maia Etxart, Maite Davant, Graxi Bedaxagar eta Maider eta Miren Elkegarai ahizpak. Berria - Kultura

Pastoralaren Lehen Peredikũaren emaileak Jean Bordaxar eta Beñat Jaureji izanen dira eta Azken Peredikũaren **kantazaleak,** aldiz, biazka kantan ariko diren lau neskatila. Herria

---

# kantatze *iz* ahoaz musika-hots sail bat gauzatzea.

Maite ditugu lagunarteko edo mahaininguruko bertsu **kantatze** sano horiek. Herria

Ohiduraz bat batean taldekako finalarekin hasten bada ere egitaraua, aurten ikastoletan egin bertsu idatzien **kantatze** eta sari banaketarekin hasi da. Herria

---

**kantauriar** *(orobat* ***kantauritar****)* **1** *izlag* euskalduna.

Hirugarren argudioari ihardesten diot, bai egiaz eta bozkarioz nafar **kantauritarra** naizela. Piarres Xarriton

**Kantauritarrak** eta asturiarrak izan ziren Espainia osoko azkenak erromatarrek menperatu zituztenak. Piarres Xarriton

**2** Kantauriko itsasokoa, Kantauri itsasoari dagokiona.

Badirudi **kantauriar** eta mediterranear kostaldeak lotzeko Zaragoza eta Teruel hirien aldeko apustua egin nahi duela Espainiako Gobernuak. Berria - Euskal Herria

Laphurdin hitz egiten da Frantzia **kantauriarreko** euskararik onena. Koldo Zuazo

Ainar iletsua eta ainar **kantauriarra** erratzak egiteko erabili ohi dira. Pello Zabala

---

**kantautore** **1** *iz* egile abeslaria.

Barrutik sortutako kantuak bildu ditu Igor Arzuaga laudioar **kantautoreak** *Smog* lanean. Berria - Kultura

Harizko kora izeneko musika tresna jotzen du Nino Galissa ginear **kantautoreak**. Berria - Kultura

Claude Nougaro **kantautore** okzitaniarra atzo hil zen, Parisen, 74 urte zituela. Berria - Kultura

**Kantautoreen** musika ezagutaraztea helburu duen jaialdia. Berria - Kultura

Martxo ondar hortan, Algortan aurkeztu du Gotzon-ek **kantautore** gisa plazatzen duen diska berri hau. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Maiatzaren 2tik 13ra egingo da Gasteizko II **Kantautore** Jaialdia. Berria - Kultura

· Pete Seeger folk **kantautore** handia. Berria - Kultura

Kalifornian garai hartan sortu ziren folk-rock **kantautore** atseginen mugimendura. Berria - Kultura

---

**kantautoregintza** *iz* egile abeslarien abesti mota.

Ordezkari bana dute hip hopak (Selektah Kolektiboa), **kantautoregintzak** (Anari) eta folkak (Tapia eta Leturia). Berria - Kultura

---

**kantazale**[1] *(orobat* ***kanta zale****)* *izond* kantaren zale dena. ik **kantuzale**.

Eta nork esan, Paul D **kanta zalea** ere bazenik. Anton Garikano

Mementoko, Euskal **Kantazaleen** Elkarteak izenak hartzen ditu, 15 urtetik goitikoenak, bakarka, binaka edo taldeka (10 kide gutienez) kantatzeko. Herria

---

kantazale[2] ik **kantatzaile**.

---

**kante** *iz* nabarmenkeria.

Nik tira, azken baten orain dela gutxi lizentziatu nintzen eta ez dut **kante** handiegirik ematen, baina nire alboko dinosaurio mozkortiok... Jon Arretxe

---

**kantera** *iz* harrobia, haztegia.

Gure **kantera** Gelatxo izan zen. Pako Aristi

---

**kantiano** *iz* kantiarra.

Humboldtentzat mendiok "sublimitate **kantianoa"** dute, horrek esan nahi duen barrentasun metafisiko guztiarekin; Hugorentzat, aldiz, jolastiak eta marrazkilariak dira. Koldo Izagirre

Gizaki natural ilustratu hori, naturarekin edo arrazoimenarekin hain berdindurik, barne-eduki propiorik gabe geratu da [...] azaleko kolorerik gabe, historiarik gabe, moral **kantiano** formal hutsaren jabe, franko abstraktua eta teorikoa. Joxe Azurmendi

Oraindik **kantianoak** gara zuzenbide eta moral kontuetan. Berria - Kultura

---

**kantiar** *izlag*

Egon badago hirugarren alternatiba bat, **kantiar** jiteko eszeptizismo antzeko zerbait. Bi eredu aintzat hartuz: kartesiarra eta **kantiarra**. Askoren artean

Autonomia funtsezko kontzeptua da sistema **kantiarrean,** arrazoimenak bere buruari legeak emateko duen gaitasuna autonomia horretan oinarritzen baita. Askoren artean

Edertasunaren teoria **kantiarraren** tesia. Askoren artean

Paradigma **kantiarraren** guztizko hondamendia. Askoren artean

Muga **kantiarrak** errespetatu baino gehiago egiten dira. Askoren artean

Analitikotasuna definitzerakoan definizio **kantiarra** hartu izan da oinarritzat. Askoren artean

---

**kantika** **1** *iz* erlijiozko kanta, eliz kanta.

Anaia Eguzkiaren **Kantika**. Askoren artean

"Salba ezazu Eliza bai eta Frantzia!" **kantika** ozen hura. Piarres Xarriton

Iturri erlijiosoetan, **Kantiken Kantikaren** hizkera erabilita, jainkozko musuaren bidezko heriotzaz hitz egiten da. Xabier Kintana

Gramatika Nafarroan ikasi zuen, idazle klasikoak aldizkatuz giristinoen **kantika** eta otoitzekin. Piarres Xarriton

Larunbat aratsean gauerdiko mezan eguberriko **kantika** ederrak. Herria

Parropiako koralak xaramelatu ditu Pazkoko **kantika** airos ederrak. Herria

Ederki erabili du ponduz pondu mezako **kantika** guzien soinua. Herria

Prediku guziak bildu zituen "Hazparneko Kalbarioa" liburuan aintzin solas bat eginez berak eta garai haietako 82 **kantika** ezagunenak emanez beren aireekin. Xipri Arbelbide

Nola behar zen ulertu **Kantika** Ederrenaren amodiozko historia? Piarres Aintziart

**2** (hitz elkartuetan)

Gure istorioan aireekin agertu lehen **kantika** bilduma da. Xipri Arbelbide

· Moisesek oharpen-**kantika** israeldarrei irakatsi. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anaia eguzkiaren kantika** (19); **eguzkiaren kantika** (21); **kantika ederrak** (5); **kantika korala** (3); **sorkarien kantika** (4)

---

# kantin *iz* esne tupina.

Baserrietako alabak besoetan **kantin** bana zutela; bizikletak nonahi; autoak ere asko. Pako Aristi

Entzun zuen behiaren apatxa lurrean eta esne epela par par erortzen metalezko **kantinera** . Joseba Sarrionandia

---

# kantina 1 *iz* jaten eta edaten ematen den tokia, geltoki, kaserna edo kidekoetan dagoena.

errara joan eta garagardo bat hartzeko **kantinan** ordaindu beharra patetiko samarra zen. Harkaitz Cano

Uste diat dantzatokia beheko solairuan egin beharko genukeela, eta **kantina** goikoan. Koldo Biguri

Portuko **kantinaren** barra gainean hustu zituzten diru pixarrak garabietako beharrera itzuli aurretik. Harkaitz Cano

Ekonomatoko **kantinan** hartzen zituzten demi-bier haiekin. Harkaitz Cano

Norteko geltokiko **kantinan** . Ramon Saizarbitoria

Estatu Batuetako armadatik **kantinak** kendu zituzten atso estimagarriak zuzentasun osoz harro senti daitezke nazioaren ahalmen militarra benetan handitu izanaz. Xabier Olarra

Garagardoa eta vodka edatera gonbidatzen zuten elkar, fabrika inguruko **kantinetan** . Iban Zaldua

Joanden igandean, urte guziez bezala, hirugarren adineko bazkaria izan zen herriko **kantinan** . Herria

Apairuak, ostalari batek segurtatuko ditu eta herriko **kantinan** zerbitzatuko dituzte Herria

## 2 iparraldeko eskoletako jangela.

Justin Larrebat eskolan **kantina** edo jantegi berria ezarri dugu. Herria

Ikastolako langileen aldetik ekipa bera: Christine Duguine **kantinako** xerbitxu eta jarraikiaren arduraduna, Maddi Larre goizetan haurren errezebitze eta **kantinako** xerbitxua, Françoise Trécu eguerdiko zaindegi eta garbiketa [...]. Herria

Herriko eskoletako haurren **kantina** 0,60 E bazkari bakotx. Herria

Presuna horrek lau egunez, eguerditik aratsaldeko lauetarat, ama ikastolako haurretaz arduratu behar luke, **kantinaz** ere bai. Herria

Erakusketak eskolako **kantina** berrian: Danielle Loisel margolaria, Claude Thibeau eta Patricyan ekai artistak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kantinako xerbitxu** (4); **kantinako xerbitxua** (3)

---

# kantinazain *iz* kantina baten ardura duen pertsona.

Baziren halaber zubitik gertu, Ugarona errekaren gainean, **kantinazain** batzuk beren saski, flasko eta trasteekin. Koro Navarro

---

# kantinera *iz* danborradetan eta ateratzen den emakumea suila daramana.

Bada elementu militar bat (gudaria danborra jotzen), bada elementu zibil bat ere (iturrietara ur bila doan okina edo sukaldaria), eta emakumezkoa irudikatzeko elementu bat ere sartu zen (suilarekin iturrira ur bila doan **kantinera)** . Baina ba al dakizu hamasei urterekin **kantinera** atera nintzela Altzako jaietako danborradan? Askoren artean

Emakumeek **kantinera** gisa soilik parte hartu ahal izatea diskriminatzailea dela. Berria - Euskal Herria

Emakumea **kantinera** rolean bakarrik nahi dute ekitaldian. Berria - Euskal Herria

---

# kantinier *iz* kantinazaina.

Ez zuten lanak lehertuen itxura Aita Fily **kantinier** zen block-a batean. Marzel Etxehandi

---

# kantiniera *iz* kantinera.

Orain arte, emazteak **"kantiniera"** baizik ez ziren izaiten ahal, kalapita larriak gertatu dira duela bizpahiru urte soldado beztiturik ibiltzea galdatu dutelarik. Herria

---

# kantiniersa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea)* *iz* kantinera.

Frantziako Armadako **kantiniersa** bat zen. Jon Alonso

Emakumeek parte hartzen dute alarde tradizionalean, bainan **kantiniersa** edo kantinerak bezala, eta ez eskupeta edo xixpa eremaile bezala. Herria

---

# kantinplora *iz* urontzi.

Nemesiok gerra garaiko **kantinplora** bat zeukan, "potiñe" esaten ziona. Pako Aristi

**Kantinplora** urez eta zahatoa ardoz bete. Juan Luis Zabala

Askok ura **kantinploran** daramate. Gotzon Garate

Uniforme gastatuekin, lepotik zintzilik fusila eta bizkarrean **kantinplora** . **Kantinplorapeko** aluminiozko katiluan. Xabier Etxabe

---

# kantismo *iz* E. Kant-en doktrina filosofikoa.

**Kantismoak** aro berria estreinatu zuen ideien mailan. Berria - Kultura

**Kantismoaren** ildo batean Hegelek Feuerbach eta Marx ekarri ditu (edo Kierkegaard: existentzialismoaren aitzindari), bestean Schopenhauerrek Nietzsche eta Freud. Askoren artean

---

**kantitate** *(orobat* ***kantidade*** *g.er.)* **1** *iz* zenbatekoa, kopurua. ik **kopuru 4**.

Filmaren emultsioak ez baitu xurgatzen hara iristen den argiaren **kantitate** txiki bat baino. Irene Aldasoro

Substantzia horietariko asko toxikoak baitira **kantitate** txikietan ere. Irene Aldasoro

Oso **kantitate** txikian bada ere, giza organismoak eta gainerako ornodunenak iodoa behar-beharrezko dutela. Berria - Gaiak

*Prestige* untziaren hondoratzeak eragindako marea beltza **kantitate** handian heldu da Donibane Lohizune, Ziburu, Zokoa edo Getariako ondartzetara. Herria

Whisky botila bat hautatu, eta jelarik gabeko baso zabal batean **kantitate** oparo bat isuri du. Iban Zaldua

Azkenean, egin nuen tratua, prezio onean, **kantitate** itxuroso bat erostekotan; hala, Adelak bazukeen denboraldi baterako droga. Juan Kruz Igerabide

**2** (matematiketan)

Zenbakiaren estatutua irauliz, **kantitate** bihurtu zen 0, besteak bezalako kantitatea. Jon Muñoz

**Kantitate** negatiboetan zegoen, hara, auziaren muina. Jon Muñoz

Al Karaji, **kantitate** irrazionalak zenbakitzat hartu zituen lehena. Jon Muñoz

Viètek, berriz, nonahi sartu zituen letrak, bai **kantitate** ezezagunak eta bai **kantitate** ezagunak irudikatzeko. Jon Muñoz

Eragiketa bihurtu zen deribazioa, mota berri bateko eragiketa, zenbakiekin ez, baizik kurbei lotutatuko **kantitate** aldakorrekin aritzen zena. Jon Muñoz

Eragiketa bitxia, gero, **kantitate** finitu batzuen kopuru finitu bat ez, baizik eta elementu ezin txikiagoen "kopuru infinitu" bat gehitzen duen gehikuntza hori! Jon Muñoz

**3** (hizkuntzalaritzan) bolakez minzatuz, luze-laburra.

Hizkuntza bateko bokalen artean modu bakarreko indar aurkakotasuna erabil daiteke: **kantitate** aldeak esanahia bereizteko funtzioa badu, ez du funtzio hori izango bokal azentudun eta azentu gabeen arteko desberdintasunak. Lourdes Oñederra

Bi kontsonantez hasten den edozein silabak ere **kantitate** luzea izango du. Isabel Arrigain

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehenengo zenbakia, hori bai; baina besteren arteko **kantitate**-mota bat, finean. Jon Muñoz

Jakintsu izatea, izan ere, ez baita **kantitate** kontua, kalitate kontua baizik. Joxerra Garzia

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia ez-kontagarria delarik)ik **kopuru 4**.

Gari- **kantitate** gehiago ekoiztera behartzen dute nekazaria. Iñaki Iñurrieta

Hornigai, bizigai eta garagardo- **kantitate** handiak aurkitu ziren, bidelapurrek etxola eta aletegi eta haitzulo abandonatuetan ezkutaturikoak. Agustin Otsoa

Aitzurlari batek eta zuk janari **kantitate** berbera behar baduzue ere, aitzurlariaren gosea ez da zure gosea bezalakoa. Koldo Biguri

Diru- **kantitate** handia eskuratu. Iñaki Iñurrieta

Ur eta lur **kantitate** handiak behar ditu laborantza mota horrek. Berria - Euskal Herria

Arrainek, ordea, ur **kantitate** handiak prozesatu behar dituzte biziari eusteko adina oxigeno hartzeko. Irene Aldasoro

Gas **kantitate** baten bolumena murrizten denean. Irene Aldasoro

Ikusi zen mineral **kantitate** nabarmen handiagoa dutela kirolariek adin bereko pertsona arruntek baino. Irene Aldasoro

Energia **kantitate** bera. Irene Aldasoro

Argazki txukun bat egiteko, hainbesteko argi **kantitate** bat behar da, filmaren sentikortasuna (edo lastertasuna) zenbatekoa den. Irene Aldasoro

Hodi horietako odol-emariak bero **kantitate** handia garraiatzen du. Irene Aldasoro

Izan daitekeen erradiazio **kantitate** txikiena da kuantua. Irene Aldasoro

Poliki-poliki, aukera izan zen organismo konplexuek dauzkaten ADN **kantitate** eskergak maneatzea, zenbait gene atzematea, haiek bakartzea. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **gas kantitate** (3); **kantitate bat** (4); **kantitate baten** (3); **kantitate bera** (3); **kantitate ezagunak** (3); **kantitate gisa** (3); **kantitate handia** (5); **kantitate handiak** (7); **kantitate handiena** (3); **kantitate kontua** (3); **kantitate txiki bat** (4); **kantitate txikian** (4); **kantitate txikitan** (4); **ur kantitate** (5); **zilar kantitate** (3)
>
> **argi kantitatea** (3); **baliabideen kantitatea** (3); **kalitatea eta kantitatea** (3); **kantitatea eta kalitatea** (4); **oxigeno kantitatea** (3)

---

**kantitu**, kanti, kantitzen da *ad ipar* higitu.

Joantto ez zen **kantitu**. Elena Touyarou

Urteak ba omen ziren Louise ez zela Baionatik **kantitu**. Itxaro Borda

Bainan Arbelbide ez zen bere hartarik **kantitu** eta azkenean, Londaitzbehere erretoraren sustenguari esker baia etorri zen Baionatik. Xipri Arbelbide

Sintomatikoa irudi zaigu nola ipar euskal herriko diskurtso politikoa ez den hiru hamarkada hauetan den-mendrenik ere **kantitu**. Berria - Kultura

---

**kantoi**[1] *(orobat* ***kantoin*** *g.er. eta* ***kanton*** *g.er.)* **1** *iz* izkina.

Rutland Square **kantoira** heldu zenean. Irene Aldasoro

Canal Street-eko **kantoian** gelditu zen, horiz margotuta zegoen drogeria baten aurrean. Lopez de Arana

Ely Placeko **kantoira** helduak ziren. Irene Aldasoro

Kaleko atera heldu eta, handik, **kantoi** aldera egin zuen, ezkutuka, espaloiaren barruko aldetik. Irene Aldasoro

Zazpigarren Etorbideko **kantoian** taxi bat aurkitu zuen. Lopez de Arana

Laurogeita Hamaseigarren Kalearen **kantoian**. Lopez de Arana

Bosgarren Etorbidearen eta Carroll Street kalearen arteko **kantoian** dagoen erretegian. Oskar Arana

Bankua **kantoi** batean dago, eta alde banatan kristal bat dauka. Xabier Olarra

Harresietan berrehun metroko zuloa eginarazi zuen, Efraimen atetik **kantoiko** ateraino. Elizen arteko biblia

Tramankuluak eginarazi zituen Jerusalemen, dorre eta **kantoietan** ezarriz, gezi eta harri handiak jaurtikitzeko. Elizen arteko biblia

Indiar bat **kantoiko** supermerkatua irekitzen ikusi nuen. Ramon Saizarbitoria

**Kantoiko** kale-argiaren azpian gelditu ziren. Koro Navarro

Gure kaleko etxe-ilaren **kantoira** iritsi nintzen. Anjel Lertxundi

Zubiaren puntako **kantoian,** gizon lodikot bat ikusi nuen. Itxaro Borda

· Han baitzeukaten, Misericordia kalearekin **kantoi** eginez, izebagandik jasotako okindegia. Josu Zabaleta

Abenidarekin egiten duen **kantoian** ia, letoizko plaka ikusi zuen. Ramon Saizarbitoria

**Kantoiari** buelta eman zion. Koro Navarro

Edozein **kantoitan** biratu eta berarekin aurrez aurre topo egiteko beldurra. Ramon Saizarbitoria

Lau **kantoiko** txanpon bat bilatu izan bagenu baino pozago. Anjel Lertxundi

**2** ertza, bazterra.

Historian zehar, euskaldunek bere izena barreiatu dute munduko **kantoi** guztietan. Pello Salaburu

Europako **kantoin** guzietarik eta berdin Amerikatik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zeremoniara Eskual Herriko sei **kantoietarik** jende saldo handia bildu zen. Itxaro Borda
Oihartzunak basoaren lau **kantoietara** zabaldu du eztanda ikaragarria. Itziar Otegi
Gelako **kantoi** batean zegoela bere artzain-zakutoa. Xabier Aranburu
Armiarma-sareak zokoetan, leiho-**kantoietan**. Pako Aristi
Orgaren lau **kantoietatik** lau euskarri ateratzen ziren, orgari itsatsirik. Elizen arteko biblia
Zurez eginak zirelakotz etxeak gehienik, teilatuak segurik oholez, lau **kantonetako** zur ttipi batzuz, teila gisa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Plataformetako lau **kantoiak** eta inguruko zintarri guztia. Elizen arteko biblia
Oholtzako lau **kantoietan,** arkabuzero bana, zuri-urdinez jantzirik. Txillardegi
Harriak behealdeko **kantoi** batean dituen bi heldulekuetan hatzak sartu, izterretara goratu, [...].
Kanpotik sartzen zen haize arinak hilkutxaren gaineko ikurrinaren **kantoiak** altxatzen zituela, samurkiro. Itxaro Borda
Akordatu ahala memoriaren **kantoiak** gogor erasaten dituzte kuneteroen kontuek. Jokin Urain

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)
Anitz kardinale beren karrozekin beha zeuden etxe-**kantoietan,** gizon handi eta sainduaren itxura ikusteko. Piarres Xarriton
Eta plaza-**kantoi** batetik desagertu zen. Xabier Aranburu
Platera mahai **kantoian** pausatua zeukan. Itxaro Borda
Lo-gelako ohe **kantoiko** mahaitxoan Man-en marrazkiak metatzen zihoazkion. Itxaro Borda
Kaperako sukaldeko sabai-**kantoiko** habe zabalaren gainean. Joan Mari Irigoien
Zeru **kantoian,** ni bezala gauaren aztaparretarik salbatua, ilargia zegoen zohargi, Itxaro Borda

**4** kalezuloa.
**Kantoi** estuak eta zazpi kale. Sonia Gonzalez
**Kantoi** estu eta lokaztu bateko bebarru batean. Iban Zaldua
Haren poltsa zaharrak sakabanatuta zeuden **kantoiko** espaloian. Paddy Rekalde
Neskatila talde batek **kantoia** zeharkatu du. Sonia Gonzalez
Eta horien gisako kale, plaza, **kantoi** eta estratak. Iñaki Segurola

**5** ***kale kantoi*** *(orobat* ***kalekantoi*** *g.er.)*
Bi ertzain ikusi nituen elizatik hurbil, **kale-kantoi** batean. Anjel Lertxundi
Hurrengo **kale-kantoian** ezkerrera hartu eta bizi zen kalean sartuko zen. Migel Angel Mintegi
Eskaileran estropezu egin eta **kale kantoian** desagertu da. Xabier Paya
Suhiltzaileen kamioi bat **kale-kantoira** iritsi eta orroka desbideratu zen, gorri eta dirdaitsu, kea zeriola. Lopez de Arana
**Kale-kantoira** iritsirik, okina ikusten dut, hiru otar, ogiz lepo beterik, furgonetatik ateratzen. Anjel Lertxundi
Artean eguerdia izanagatik, puta dezente zegoen atari eta **kale-kantoietan**. Anjel Lertxundi
Berokia jantzi eta **kale kantoiko** drogeriara joan zen. Josu Zabaleta
Bostongo kaia seinalatzen zuten **kale-kantoiko** geziek. Anjel Lertxundi

**6** ***kantoi harri***
Etxegileek bazterturiko harria **kantoi**-harri bihurtu da. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kale kantoi** (30); **kale kantoi batean** (11)
> **kale kantoia** (3); **kantoia pasatu** (3)
> **kale kantoian** (46); **kale kantoian desagertu** (5); **kalearen kantoian** (7); **kaleko kantoian** (3); **kantoian gelditu** (5); **kantoian taxi bat** (3); **karrikaren kantoian** (4); **mahai kantoian** (4); **ohe kantoian** (3)
> **kantoiaren bestaldean** (3)
> **kale kantoietako** (3)
> **kale kantoietan** (10)
> **kale kantoiko** (26); **kantoiko ateraino** (4)
> **kale kantoira** (9); **kantoira heldu** (3); **kantoira iritsi** (4)
> **kale kantoitik** (21); **kale kantoitik agertu** (3)

---

## kantoi² *(orobat* ***kantoin****)* **1** *iz* era federalean antolaturiko herrialde baten zatietako bakoitza. ik **kantonamendu 2.**
Suitzako 26 **kantoietako** emaitzak zenbatuta. Berria - Harian
Suitzako **kantoietako** Auzitegi Gorenak zigorra ezeztatu du. Berria - Kirola
Aurkikuntza Bruttisellen herrialdean egin da, Zuricheko Suitzako **kantoian**. Berria - Kultura
Zisjordania lau **kantoitan** banatzeko proposamena. Berria - Mundua
Kostunicak Kosovo **kantoi** bihurtzeko asmoa iragarri du berriki. Baina lurralde zabalago bati -adibidez, **kantoi** bati- dagokionez, kontua bestelakoa da. Berria - Mundua

**2**
Baionako kutxak frango eremu zabala dauka bere gain, Ipar-Euskal-Herri guzia eta Landesetako **kantoin** bat. Herria

---

## kantoidorre *iz*
Zurezko zubian, etxe zorrotz, ojibaz ildoxkaturiko teilaz gain-estalien, eta piperrontzi tankerako **kantoidorre** urdin-horien artean, zorabialdi bat izan zuen bat-batean Rhin ibaiaren argiaren aurrean. Juan Garzia

---

## kantoidun *izond* kantoiak, ertzak dituena.
Izaki **kantoidunei** begira. Anton Garikano

---

kantoin ik **kantoi¹**.

---

## kantoitxo *iz* kantoi txikia.
Ez da ulertzen, masokismoa ez bada, zer arrazoi dagoen kultura espainol horretan integratu gura izateko, nahiz eta **kantoitxo** ezlatino bat erreserbatuz izan berarentzat eta

Euskal Herriarentzat. Joxe Azurmendi

---

# kantonal 1 *izond* kantonamenduari dagokiona.

Frantziako azken hauteskunde **kantonaletan** . Berria - Euskal Herria

Jean-Rene Etxegarai Baiona ekialdeko kontseilari nagusiak (UDF) berriz aurkeztuko du bere burua hauteskunde **kantonaletan** . Berria - Euskal Herria

Hauteskunde **kantonalei** begira Batasunak daukan jarrera ezagutzera eman zuten. Berria - Euskal Herria

**Kantonaletako** eta eskualde kontseilurako hauteskundeak hor bertan dauzkagu. Berria - Kultura

• **2** *iz* hauteskunde kantonala.

Aldiz, **kantonalak,** hamar kantonamendutakoek bakarrik. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriaren onarpenaren alde eta bazterketa sozialen aurka aurkeztuko dira **kantonaletan** . Berria - Euskal Herria

Frantziako azken hauteskunde **kantonaletan** . Berria - Euskal Herria

Abertzaleek emaitza onak lortu izan dituzte azken bi **kantonaletan** . Berria - Euskal Herria

**Kantonaletarako** hautagai batzuk jardunaldietan izan dira galderei erantzuten. Berria - Euskal Herria

**3** kantonamendu mailako txapelketa.

Pentsatzekoa da, usaian bezala, herritar xapeldunak edo hoberenak zoin diren, **kantonaletan** parte hartzeko gai direnak, jakinen dela hor. Herria

**Kantonaletako** finalen bigarren itzulia igande honetan izanen da Kanboko trinketean. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **hauteskunde kantonalak** (4)
>
> **hauteskunde kantonaletan** (7)

---

# kantonalismo *iz* estatuak kantoi federatuetan antolatzea helburu duen higikunde politikoa.

Foralismoa, **"kantonalismoa",** etab., ez ziren, hortakoz, separatismoak. Joxe Azurmendi

---

# kantonamendu 1 *iz* Frantziako administrazio sisteman, Kontseilu Nagusia hautatzeko-eta, arrondisamendua banatzen den barruti bakoitza.

Iparralde guzian, badira 21 **kantonamendu** . Baionak berak hiru **kantonamendu** dauzka eta ez dakienak ez du erraz asmatzen zein auzo zein kantonamenduri dagokion. Berria - Euskal Herria

Zuberoa eta Nafarroa Behereko lau **kantonamendu** (Donapaleu, Iholdi, Donibane-Garazi eta Baigorri) arrondizamendu berean ziren. Koldo Zuazo

*Bil ta Garbi*ren eremuan Biarnoko hiru **kantonamendu** sartzen dira. Berria - Euskal Herria

Zazpi Duela sei urte, **kantonamendua** eskuinetik ezkerrera iragan zen. Berria - Euskal Herria

Hautagai lehian dabiltza Baigorriko **kantonamenduan** . Herria

Baiona ekialdeko **kantonamendua** da abertzale gehien daukatenetan bigarrena. Berria - Euskal Herria

Ipar Angeluko **kantonamenduan,** Jean Ezpilondo ezaren aldeko kontseilari sutsuaren lurretan, baiak % 56a pasatu du. Herria

Aurten bozak zituzten **kantonamenduak** etzirela duela hiru urteko heiek berak, kontseilu jenerala erdizka berritzen baita hiru urtetarik. Herria

**Kantonamendu** zein departumenduko hiri nagusietara. Itxaro Borda

Salieseko **kantonamenduko** kontseilari guziak Darritxon Bastidako auzapeza da eta **kantonamendu** horretako kontseilari nagusi izan zen 1992tik 1998ra. Berria - Euskal Herria

**Kantonamenduko** hiriburuko zahar egoitzara. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kantonamendu** bozetako hautagaiak. Herria

**Kantonamendu** hauteskundeak eta eskualde hauteskundeak iraganen dira gaur Ipar Euskal Herrian. Berria - Euskal Herria

Lurralde bozak alde batetik eta **kantonamendu** -bozak bestetik. Herria

Aurtengo **kantonamendu** hauteskundeetan, aulki hori berreskuratu nahi du Darritxonek. Berria - Euskal Herria

Pariseko Batzarrak pribilegioak eta jauretxe-abantailak oro ezeztatu zituen, probintzia, printzerri, **kantonamendu,** hiri bai eta komunitate eskubideak barne. Elena Touyarou

Gilenen ezagutza egin dut Elizak enpleatzen nauen Baxenabarreko **kantonamendu** hiribururuan. Piarres Aintziart

Monduteguy izendatu zuten **kantonamendu** hiriburutzat Baiona zuen Uztaritzeko eskualde guziaren prokuradore. Elena Touyarou

**3** era federalean antolaturiko herrialde baten zatietako bakoitza. ik **kantoi**[2].

Egitasmoari erantzuteko, Zisjordania lau **kantonamendutan** banatzeko plana aurkeztu zuen atzo eskuin muturreko ministro batek. Berria - Mundua

Milaka iheslari ditugu: Tuzlako **kantonamenduan** bakarrik, 11 esparru daude. Berria - Harian

Omeiatar Kalifaldiko **kantonamendu** militar eta muga-goarnizioak Islamaren zerbitzurako izan ziren argi eta garbi. Iñaki Mendiguren

Arabiar muhajirah militarrei utzi egiten zitzaien emazteak eta seme-alabak eramaten beraiek egon behar zuten **kantonamenduetara** . Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aurtengo kantonamendu hauteskundeetan** (3); **kantonamendu bozak** (24); **kantonamendu bozen** (3); **kantonamendu bozetan** (6); **kantonamendu hauteskunde** (3); **kantonamendu hauteskundeak** (16); **kantonamendu hauteskundeetako** (6); **kantonamendu hauteskundeetan** (15)
>
> **garaziko kantonamendua** (4); **hazparneko kantonamendua** (4); **iholdiko kantonamendua** (3)
>
> **atharratzeko kantonamenduan** (4); **baigorriko kantonamenduan** (9); **bastidako kantonamenduan** (7); **ekialdeko kantonamenduan** (4); **ezpeletako kantonamenduan** (6); **garaziko kantonamenduan** (7); **hazparneko kantonamenduan** (7); **hendaiako kantonamenduan** (3); **hiriburuko kantonamenduan** (4); **iholdiko kantonamenduan** (8); **mauleko kantonamenduan** (3); **mendebaldeko kantonamenduan** (4)
>
> **kantonamenduetako bozak** (3); **kantonamenduetako hauteskundeetan** (4)
>
> **baionako hiru kantonamenduetan** (4); **baionako kantonamenduetan** (3)
>
> **baigorriko kantonamenduko** (7); **bastidako kantonamenduko** (6); **ezpeletako kantonamenduko** (3); **hazparneko kantonamenduko** (4); **hiriburuko kantonamenduko** (6); **iholdiko kantonamenduko** (5); **kantonamenduko abereen** (5); **kantonamenduko abereen primak** (4); **kantonamenduko boz** (3); **kantonamenduko bozak** (10); **kantonamenduko bozetan** (3); **kantonamenduko finala** (3); **kantonamenduko finalean** (3); **kantonamenduko herri** (8); **kantonamenduko hiriburuan** (3); **kantonamenduko kontseilari** (4); **uztaritzeko kantonamenduko** (3)
>
> **zein kantonamendutan aurkeztuko** (3)
>
> **kantonamenduz kantonamendu** (3)

---

# kantonamenduka *adlag* kantonamenduz kantonamendu.

Baietza ozta-ozta gailendu bada ere, **kantonamenduka** begiratuz gero, 21 kantonamendutatik 10ean baietzak eta 11n ezezkoak irabazi duela nabarmendu zuen. Berria -

Harian

Helduden martxoan, bozak ukanen ditugu **kantonamenduka**. Herria

Larunbatean eta igandean, herri askotan, museko xapelgo nagusiaren kondu, **kantonamenduka** muntatu kanporaketak (lehen partida saila). Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kantonamenduka egitekoak** (3)

---

# **kantonatu,** kantona, kantonatzen da/du *ad* gudariak toki batean egokitu edo ezarri.

Negu gorrian, tatariar inbaditzaileak hirietan **kantonatuko** ziren. Karlos Zabala

Bai armada mugikorrak, bai goarnizioetan **kantonaturiko** armadak. Iñaki Mendiguren

Hiri barruan **kantonaturik** zeuden gudarien egarria asetzeko. Askoren artean

Inperioko armada -bere soldatatik eta ez harrapakinetatik bizi zena, eta [...] barbaroen aurka zibilizazioa babesteko mugetan **kantonatua** zegoena- [...]. Iñaki Mendiguren

Izan ere, Mendebaldeko Kapitainak aurrera zetozen eta Jaun Ilunak armada guztiak iparraldean **kantonatu** nahi zituen. Agustin Otsoa

---

# **kantoniar** *iz* kantoniera.

"Mandarin" eta **"kantoniar"** hizkuntzen melodia likidoak bere baitan isuri ziren. Ramuntxo Etxeberri

---

# **kantonier** *iz ipar* bidezaina.

Eta jakin dezatela denek **kantonier** hori ez dugula nehori saltzekoa. Herria

Nork erranen zuen jada erretretako adinera helduak zirela André Gogny eta Jean Marie Biscay, bi herriko langile edo **kantonierrak**. Herria

---

# **kantoniera** *iz* txineraren dialektoa, Kanton-en mintzatzen dena.

"Usain-onen portua" **kantonieraz**. Ramuntxo Etxeberri

---

# **kantore** **1** *iz* kanta, kantua.

Xibero güzitik jin hamalau kantari eta bost müsikariek ohizko **kantoreak** arrahartü dütüe, baita ere hamar bat **kantore** berri lantü. Herria

Exahunen **kantore** xarmagarriekin, eijerra zen prefosta. Herria

Bi jelkalditarik badü **kantore** bat, horra beita hamabi **kantore** berri badütüala. Herria

Jean Etchart **kantoreen** erakaslea, Jean Etchegoyhen dantzen erakasle. Herria

Emanik izan da **kantore** xahar eta berri andana ederra. Herria

Gütartean dagoen Bedecarax **kantore** hontzalea ahatze gabe. Herria

· Frantziar izeneko Taillefer normandiar juglareak Hastings-eko gudura zihoazenean bere zaldun-kideei adore emateko ahotsa altxa zuenean ez zien *Völsungasaga* kantatu eskandinaviera zaharrean, baizik eta Errolanen **Kantorea** frantsesez. Iñaki Mendiguren

Roland-en **kantorean**. Juan Garzia

*Bereterretxeren* ***kantorea***-ren tankerako kopla zaharren moldea. Berria - Kultura

Makiak sortzerakoan, bai Maulekoa eta bai Ospitalepean eta Sohütan, entzutzen da "Makien **kantorea"** *Le chant des partisans* idurikoa, kuraia emaile sasi-gudarientzat. Herria

**2** korua, abesbatza.

Ama batek irakurtu olerkia eta parropiako **kantoreak** eman *Alleluia* hura, Ttoma Ospitalek orginan lagundurik. Herria

Eguberri hurbiltzen ari baita, parropiako **kantoreak** errepikak egiten ditu ortzirale arratsetan, 8:30tan, Aiherrako elizan. Herria

Baionako apezpikutegiko **kantorean** sartu nintzen ikasketak egiteko eta kantu gregorianoz elizkizunak apaintzeko, katedralean. Piarres Aintziart

Bakardadearekin bat nago, haurtzarotik, funtsean, *Maîtrise épiscopale* edo Apezpikutegiko **kantorea** delako presondegian sartuz geroztik: kartzela-zaina apez bat zen, saindu bat, zioten kanpoan libro zirenek. Piarres Aintziart

**3** kantaria.

Felipe Gorriti Eskolaniako **kantore** ohiak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kantore berri** (5)
> **lili baten kantorea** (3)
> **etxahunen kantoreak** (3); **parropiako kantoreak** (5)
> **parropiako kantoreko** (3)

---

# **kantoregei** *iz ipar* kantugaia.

Irabazlea izan beitzen Jean Bordaxar, haren **kantoregeia** irakurri dügü heben, igaran asteko berrietan. Herria

---

# **kantsatu**, kantsa, kantzatzen *(orobat **kantsau**)* da *ad* nekatu.

Asko ibilitakoa naiz, eta **kantsatutakoan** gauza bat uzten den bezala, horrelaxe utzi diogu guk. Pako Aristi

**"Kantsau** ez zara egiten, Rufino?" -itaundu neutsan pasadako batean eta bai arin erantzun be: **"kantsateko** bildur danak ez dau etxetik urten behar". Xabier Amuriza

Dana ondo juen dok; hemen gazak bixok; **kantsaute,** baiña, bestela, primeran... Koldo Zuazo

-"Ezer bere ez eta horren arin etxera?" **-"kantsata** nengoan". Xabier Amuriza

---

# **kantsazio** *(orobat **kantsazino**)* *iz* nekea, akidura.

-Eguerdian, tragotxo batzuk egin eta biztu egiten zara, baina logurea eta **kantsazinoa** hantxe etorten dira. Xabier Amuriza

Txorakeriarik eta alferrikako buru-**kantsaziorik** gabe. Iñaki Segurola

**kantu 1** *iz* abestia. ik **kanta.**

Jauregiko **kantuak** intziri bihurtuko dira. Elizen arteko biblia

Baina jolea ez ezik, sortzailea ere badugu Elgeta, bere **kantu** propioak egiten zituen. Koldo Izagirre

Hamaduk-en "Kasino"an **kantu** kurduak entzuten genituen kasetetan. Juan Kruz Igerabide

Baita dantzan ere, **kantu** betiberdinak giroa aski berotu duenean. Xabier Montoia

Goiz-goizeko otoitzen **kantu** baketsua ezagun zen. Michel Oronoz

Senar-emaztegaien **kantu** alai eta atseginak. Elizen arteko biblia

Milizianoen **kantu** pozjario errutsuak entzuten genituen. Juan Garzia

Erregeek aginduta bazterrik bazter **kantu** herrikoien bila ibiltzen ziren funtzionariek gortera ekarri zituztenak. Pako Aristi

Igande aratsaldean, kaskoin **kantu** eta dantzak. Herria

-Peio eta Pantxoaren **kantu** hori. Menane Oxandabaratz

Esker onezko **kantu** kartsua. Elizen arteko biblia

Beste **kantu** bati ekin zioten gero: [...]. Anjel Lertxundi

Harmoniumean **kantu** batzuk jotzen. Gotzon Garate

**Kantua** soinuarekin jo eta kantariak duoa egiten dio. Iñigo Aranbarri

Besterik ezer ez dakit, baina ehun bat **kantu** ikasi zuten ikasleek. *The Beatles* taldeak badu **kantu** bat, esaten ari naizenaren harira ederki datorrena: [...]. Joxerra Garzia

Dantza, **kantu,** bertsu, antzerki, denak kurioski emanak izan dira. Herria

**2** (genero gisa)

Biolina eta **kantua** ikasten zuen Scottek. Berria - Mundua

**3** (abestiaren izenarekin)

"Prima ejerra" **kantua**. Beraz Suzanne Abeberry-k kantatuko dauku "Basoilarrak", **kantu** ezaguna... Menane Oxandabaratz

"Tobacco Road, Tobacco Road!" (bere **kantu** kutunenetako baten izenburua). Xabier Olarra

Antonio Molina kantari espainiarraren abesti bat izan zen, "Soy minero" izenekoa, Segura Irratiko **kantu** eskainien tartean ia egunero entzunarazten zutena. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** txoriak kantatzean egiten dituzten hotsen saila.

Une hartan, oilar baten **kantu** marrantatua altxatu zen ilunpeetatik luze. Karlos Zabala

Basoilarraren **kantuak** ez du deus ikustekorik oilarrarenarekin. Michel Oronoz

Txorien **kantuek** bakarrik etendako gela barneko isiltasuna. Joxemari Urteaga

Uztaileko galeperraren **kantua**. Pello Zabala

Loreen elurra ageri zuten gainetan baratzetako sagarrondoek eta udareondoek, eta birigarroen eta urretxindorren **kantuak** aditzen ziren adarren artean. Koro Navarro

Bazter batean aditzen da kurrilo-saldoen **kantua,** zilarrezko tronpeta baten soinuaren berdin-berdina. Jose Morales

Txitxarren **kantua** entzuteak harritu ninduen, hiri batean bainengoen. Xabier Montoia

-Kilkerren **kantua** gustatzen zaizu, orduan. Karlos Linazasoro

Urrunxeagotik apoen **kantua** iritsi zaio. Pello Lizarralde

**5** irud/hed

Beren kanoien **kantu** lakarrarekin ihardetsi ziguten. Aingeru Epaltza

Sirenen **kantuek** erakarria bezala gidatu nuen nire gurpil-aulkia Maximilian plazan zehar garagardotegi haren pareraino. Alberto Ladron Arana

Nire sirenen **kantua,** ordea, zurezko piezek taula gainean jartzean ateratzen zuten hots goxoa zen. Alberto Ladron Arana

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Munduaren bazter guztietatik **kantu**-hotsak datozkigu. Horrela, eztei-jaia hileta bihurtu zen, eta **kantu**-soinuak negar-zotin. Elizen arteko biblia

Gauez **kantu**-leloa datorkit gogora. Elizen arteko biblia

Ikastolen **kantu**-liburuan. Herria

Gregoriar **kantu** bildumak. Pello Zabala

**Kantu**-biltzaile handienetarikoa izan dugun Azkue jaunak. Koldo Izagirre

Taldeak **kantu**-emanaldi gozopoto horietako bat eskaini behar omen du. Anjel Lertxundi

Lokarri elkarteak antolatzen du **kantu** bazkari bat Ortzaizeko “Etxeko Borda” ostatuan. Herria

Kalitate handikoa izan da Donibane Garaziko **kantu** xapelgoa, igandean. Herria

**Kantu** eta bertso zatiak jaulkitzen zitzaizkion behin eta berriz. Xabier Olarra

Berehala inguratu zuen gizona **kantu**-taberna hartako giro heze eta eztiak. Jon Muñoz

**Kantu**-eskoletan egiten den lana aipatu duzu. Herria

**Kantu** ikastaro batean. Juan Kruz Igerabide

Dantza eta **kantu** ikastaldiak egin ditugu. Herria

**Kantu** heziketa. Joxerra Garzia

Gehienok mozkortu egin gara, eta egundoko **kantu** zaparradak izan dira ordu txikietan. Pako Aristi

Feria esan ohi zaion oihu, irri, irain eta **kantu** zirimola hau guztia. Koldo Izagirre

Ivy, azazkalak margotzen eta **kantu**-zurrumurruan... Joxe Austin Arrieta

Ivy **kantu**-marmarrean. Joxe Austin Arrieta

Huntzak bere **kantu** hurrupak hasten ditu berriz. Michel Oronoz

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Letra irrigarrizko herri-**kantu** zital haiexek ziren gehien gustatzen zitzaizkionak. Josu Zabaleta

Udatzenetik negurakoa izaten zela amodio **kantu** lizunotan aritzeko garairik oparoena. Patziku Perurena

Gonbidatuak gaua ondo sartu arte aritu ziren **kantuan** eta edanean, sugarren argitan. Koro Navarro

Turuta-hots eta gudu-**kantu** artean aurrera egiten zuten bitartean. Elizen arteko biblia

Aspaldiko urteetan lantzen ari zen poema baten "Augure-**Kantu",** "Atari-**Kantu"** edo besterik gabe "Hitzaurre-**Kantu"** delakoan bildurik. Juan Garzia

Orduan sartu zen bera hirian, gorazarre eta gorespen-**kantu** artean. Elizen arteko biblia

Zuen jaiak dolu bihurtuko ditut, zuen abestiak negar-**kantu**. Elizen arteko biblia

Amabirjinari eskainitako bezpera-**kantuen** emakume ahots urrunak iristen ziren. Anjel Lertxundi

Txorien udaberri **kantuek**. Imanol Zurutuza

Zein txori-**kantu** ederrak lorategietan! Jose Morales

Oilar **kantu** banakek. Josu Zabaleta

Oilar-**kantu** patetikoak. Karlos Zabala

· Haur **Kantu** Txapelketako finalaren berri ematen zuen artikulu batek. Juan Luis Zabala

## 8 ***kantuan*** *adlag* kantatzen.

Bertsolariak badaki **kantuan** hasi aurretik aukeraturiko doinua ze neurritakoa den. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Txaloka eta **kantuan** hasi dira. Xabier Montoia

Denok batera ari ginen **kantuan,** ozenki ari ere. Mirentxu Larrañaga

**Kantuan** jo eta ke aritu zinen, hantxe, ordubete inguruan. Mirentxu Larrañaga

Baldwin ahapeka ari zen **kantuan**. Lopez de Arana

Sabeth moila-puntan oraindik, oraingoan zutik, gure alaba hila, eta **kantuan** ari, eskuak berriro galtzen patriketan sarturik. Joxe Austin Arrieta

**Kantuan** dihardute euskaldunek oro; **kantuan** dihardu herri osoak... J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Kantuan** oso onak ez bagara ere, **kantuan** egiten dugu maiz bidea. Juan Luis Zabala

Sergeik soldadutzan ikasi zuen **kantuan**. Urtzi Urrutikoetxea

Aedoak ohore eta begirune merezi dik, Musak erakutsi baitio **kantuan**. Juan Kruz Igerabide

Artean **kantuan** jarraitzen zuen alde egin genuenean. Mirentxu Larrañaga

Eta **kantuan** joan zen bidean aurrera. Josu Zabaleta

Ederto pasatu nuen, tutean jokatuz eta **kantuan**. Edorta Jimenez

Ardoa edaten eta **kantuan**. Edorta Jimenez

Eta Eligio eroaren gisan **kantuan**. Josu Zabaleta

Orduan olatuak ere ikusiko zenituzkete, eta sirenak **kantuan** entzungo. Julen Gabiria

Zozoa sasi tartean **kantuan**. Pello Zabala

Eguzki izpi zeihar batek kaiola jo eta txonta **kantuan** hasi baitzen txio-txio zorrotzez. kilker bat hasten bazen **kantuan** [...]. Karlos Zabala

Gurpilak **kantuan** ari ziren errailen gainean Rodano-ko bailaran gaindi. Lopez de Arana

Hegaztiei kea zerien, koipea **kantuan** aritzen zen gantz ontzian. Karlos Zabala

Tipula **kantuan** ari zen surtan. Karlos Zabala

Erdi **kantuan** hasi zen gero ahopeka. Anjel Lertxundi

## 9 ***kantuz*** *adlag* kantatzen.

**kantuz** hasi zen neskatoa. Itxaro Borda

Orai zurekin **kantuz** has bedi. Herria

Deliberatu nintzen egunero **kantuz** aritzera. Filipe Bidart

**Kantuz** ari ziren zenbait, bertze batzu mar-mar-mar otoitzean. Michel Oronoz

**Kantuz** zioten: [...]. Jose Antonio Mujika

Inguruan, jendea **kantuz** eta oihuz doa. Antton Olano

**Kantuz** jarraitzen dut gero eta ozenkiago. Filipe Bidart

Mikel **kantuz** sartu zen gela handian. Ramuntxo Etxeberri

**Kantuz** eta soinuz ospatuko dugu zure ahalmena. Elizen arteko biblia

Iñurritza auzoko baserriak bisitatzen dituzte gazteek, dantzaz eta **kantuz** eskea eginez. Xabier Etxabe

Han zebiltzan gure herritar maite horiek [...] beti otoitzean eta **kantuz**. Xipri Arbelbide

Toronton ere, ikusi dugu mundu guziko gazteria bildua, **kantuz** eta irriz, otoitzean lotuak. Herria

Eta **kantuz** bizi ziren, eta kantuak bizi zituen... Joan Mari Irigoien

Heriotza **kantuz** hartu zuen. Askoren artean

Denak musikari iaioak, Jauna **kantuz** goresteko ikasiak. Elizen arteko biblia

Bozkario deitzen diote, **kantuz,** irriz, eta nigarrez ere bai, gainezka egiten duen horri. Joan Mari Lekuona

Baratzean **kantuz** dagoen xori erripittittak ere baduke naski nik baino funts gehiago! Janbattitt Dirassar

**Kantuz** sortu zela, **kantuz** nahi zuela bizi, **kantuz** igortzen zituela bere penak ihesi, **kantuz** hiltzea ere zuela beraz merexi. Herria

· Orduan bozkario **kantuz** bete da gure ahoa. Marzel Etxehandi

Jerusalemera etorrarazi zituzten, sagarapen-jaia alai ospatzeko, gorespen-**kantuz,** txilin, lira eta harpa-soinuz Elizen arteko biblia

## 10 ***kantu-kantari*** ik **kanta 5.**

Mahaian geratuko dira, patxaran gehiagoren eta gitarraren konpainian **kantu kantari**. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurrena Anjel, gero Torpedorekin, jende axolagabea, **kantu kantari** muga pasan, ero gisa, tiroari tiro jo eta segi. Pablo Sastre

Kontu kontari **kantu kantari**. Herria

## 11 ***kantu lan*** *(corpusean **kantulan** soilik)*

Errenteriarra zen Xenpelar, eta Oiartzun aldeko errenteriarra: *det, zan* eta *zebillen* usatuko zizkizun haatik **kantulanean,** lagunarteko *dut, zen* eta *zabillen*-en ordez. Koldo Zuazo

## 12 ***sehaska kantu*** ik **kanta 10.**

Fatima, orduan, bularra atera, eta haur gaixoari bere mama goxoa eskaini bitartean, **sehaska kantu** bat abesten hasi zen. Patxi Zubizarreta

Diska baten prestatzen ari zen, "Bolona-Molona", **sehaska kantuz** osatua. Herria

Olatuak laburrak dira, kadentzia gozoa dute, **sehaska kantu** bat, kulunkatze berezi bat. Harkaitz Cano

Lehengo doinu bera **-sehaska kantu** batena-, esate baterako Gure amonen **sehaska-kantu** xumeetako leloa baino zerbait gehiago da gaur guretzat Obaba. Anjel Lertxundi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**antzerki eta kantu** (6); **aspaldiko kantu** (6); **aurtengo haur kantu** (10); **bertsu eta kantu** (6); **beti kantu bera** (7); **dantza eta kantu** (27); **eguberriko kantu** (6); **esker onezko kantu** (6); **euskal herriko kantu** (8); **euskal kantu** (100); **euskal kantu xahar** (6); **euskal kantu xapelketa** (16); **euskal kantu xapelketaren** (8); **euskarazko kantu** (6); **gorespen kantu** (8); **haur kantu** (82); **haur kantu xapelketa** (34); **helduen kantu** (7); **herri kantu** (7); **herriko kantu** (10); **idatzitako kantu** (7); **kantu afari** (7); **kantu afaria** (7); **kantu andana** (6); **kantu bat egin** (7); **kantu bat entzunen** (13); **kantu bazkaria** (6); **kantu bera** (22); **kantu berri** (47); **kantu berria** (23); **kantu berriak** (31); **kantu berrien** (13); **kantu bihurtu** (6); **kantu bilduma** (12); **kantu biltzen** (9); **kantu eder** (43); **kantu eder bat** (8); **kantu ederra** (7); **kantu ederrak** (26); **kantu ederrekin** (7); **kantu ederren** (6); **kantu ederrez** (10); **kantu egile** (9); **kantu entzun** (6); **kantu entzuten** (6); **kantu eta antzerki** (8); **kantu eta bertsu** (13); **kantu eta dantza** (39); **kantu eta kantu** (14); **kantu eta musika** (31); **kantu eta otoitzetan** (6); **kantu eta soinu** (19); **kantu ezagun** (12); **kantu ezaguna** (7); **kantu ezagunak** (9); **kantu ezagunenak** (6); **kantu festibala** (10); **kantu herrikoi** (11); **kantu herrikoiak** (13); **kantu herrikoiekin** (7); **kantu hotsak** (6); **kantu kantari** (7); **kantu kontari** (18); **kantu koralaren** (6); **kantu lehiaketa** (6); **kantu liburu** (6); **kantu mota** (9); **kantu pare** (9); **kantu pollit** (6); **kantu tradizionalak** (18); **kantu txapelketa** (16); **kantu txapelketako** (8); **kantu txapelketan** (12); **kantu txapelketaren** (10); **kantu xahar** (24); **kantu xaharrak** (19); **kantu xapelketa** (62); **kantu xapelketako** (6); **kantu xapelketan** (21); **kantu xapelketaren** (26); **kantu xapelketaren finala** (8); **kantu zahar** (19); **kantu zaharrak** (33); **kantu zaharraren** (11); **kantu zaharraren eguna** (10); **kantu zaharren** (14); **kostaldeko kantu festibala** (6); **musika eta kantu** (12); **nafarroako kantu zaharrak** (11); **nazioarteko kantu** (7); **otoitz eta kantu** (8); **soinu eta kantu** (8)

**eskainitako kantua** (6); **euskal kantua** (22); **kantua amaitu** (9); **kantua entzun** (6); **kantua maite** (11); **zuen kantua** (7)

**disko berriko kantuak** (10); **diskoko kantuak** (13); **eguberriko kantuak** (7); **euskal kantuak** (33); **herri kantuak** (7); **kantuak bildu** (10); **kantuak dioen** (6); **kantuak egiteko** (11); **kantuak egiten** (7); **kantuak eman** (6); **kantuak emango** (7); **kantuak eskaini** (6); **kantuak grabatu** (9); **kantuak sortzen** (6)

**aurkaria kantuan** (12); **aurkaria kantuan ari** (12); **dantzan eta kantuan** (7); **kantuan ari** (58); **kantuan ari ziren** (12); **kantuan aritu** (7); **kantuan aritzen** (8); **kantuan bezala** (6); **kantuan hasi** (51); **kantuan hasi zen** (19); **kantuan hasten** (10)

**euskal kantuaren** (25); **kantuaren bidez** (10); **kantuaren eguna** (27); **kantuaren hitzak** (7)

**kantuari ekin** (11)

**euskal kantuen** (7); **kantuen bilduma** (9); **kantuen hitzak** (16); **kantuen zerrenda** (6); **sehaska kantuen** (6)

otoitz eta kantuetan (7)

bizi kantuz (11); emazteak kantuz (7); gogotik kantuz (7); haurrak kantuz (7); jendea kantuz (11); kantuz ari (31); kantuz ariko (6); kantuz arizan (12); kantuz artzea (8); kantuz artzeko (8); kantuz eta dantzan (11); kantuz hasi (8); kantuz kantu (6); kantuz lakarre plazatik (7); kantuz osatua (11); kantuz osaturiko (10); kantuz sortu (7); kantuz sortu naiz (6); taldea kantuz (6)

---

## kantugai *iz*

Koldo Izagirrek hogeita hamar urtetik hona argitaratutako kantu eta **kantugaiak**. Berria - Kultura

---

## kantugile *iz* kantuak egiten dituen pertsona.

Euskal Kultur Erakundeak eta Kanboko Herriak erabaki dute manera berezi batez Michel Labeguerie **kantugile** zenaren ohoratzea, aurten mende laurdena egiten baitu zendu zela. Igor Calzada **kantugilea** eta Harkaitz Cano idazlea dira taldekideak. Herria

Joserra Senperena [...] donostiar **kantugile** eta piano joileak plazaratu du, Elkar estudioan grabaturik, bere bakarkako bigarren diska: "Blues pasadizoak". Herria

Bizi zen artean **kantugileak** sortu zuen azken abestia, Agustin Otsoa

---

## kantugintza *(14 agerraldi, liburu 1 eta 13 artikulutan)* *iz* kantuak egitea, abestigintza. ik **kantagintza**.

Errobi taldeak (Anje Duhalde eta Mixel Ducau) garrantzia handia ukana du euskal **kantugintzan**. Herria

Kantu hauek guztiak Euskal Herriko **kantugintzaren** oroimenean geldituko dira. Berria - Kultura

Munduan barna euskal **kantugintza** hedatzen du gure kulturaren errespetua eraginez. Herria

**Kantugintzari** helduko zion apika, hartarako dohainak erakutsi baitzituen txiki-txikitandik. Xabier Olarra

Haria eten gabeko **kantugintza** defenditzen dugu. Berria - Kultura

---

## kantuka *adlag* kantatzen.

-Atzamarretan eraztunak ditu -esan zuen **kantuka,** bozina jotzen zuela- eta behatzetan ezkilak. Lopez de Arana

Behin sartuz gero, saltoka eta **kantuka** aritu ziren madrildar taldearen menpe. Berria - Kultura

**Kantuka** eta oihuka hasi ziren arte. Joan Mari Irigoien

---

## kantukera *iz* kantatzeko era.

Bereziak **kantukeragatik,** berezia publikoaren aniztasunagatik, berezia eszenografiagatik... Berria - Kultura

---

## kantuketa *iz* kantatzea.

Txalo, oin-zarta eta **kantuketa** erritmikoan murgildu zen- Xabier Olarra

---

kantulan ik **kantu 9**.

---

## kantularrean *adlag*

**Kantularrean** hasi nintzen; nire ahotsaren hotsa nekagarri gertatzen zitzaidan; txalupa barrenean etzan nintzen beraz eta zerura begira geratu nintzen. Josu Zabaleta

---

**kantuño** *iz adkor* kantua. ik **kantutxo**.

Eta **kantuño** bat entzunen dugu, gure gaurko bigarren kantu hori... Menane Oxandabaratz

-Beste galdera bat... eta gero berriz **kantuño** bat entzunen dugu... Menane Oxandabaratz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

kantuñ o bat entzunen (8)

---

## kantutegi *iz* kantu bilduma.

Petrarca-ren *Canzionere* **(Kantutegia)** erosi dut gizonak aholkatu didan edizio komentatu eta merke batean. Berria - Kultura

Agosti Xahoren **kantutegia** eta XVIII. mendeko zubererazko antzerki moldaketa batzuen bilduma. Berria - Kultura

Ikus Azkueren **kantutegian,** eztei kanten sarrera xoragarria. Patziku Perurena

Euskal **kantutegi** zaharretik ateratakoa. Joan Mari Irigoien

Euskal **kantutegiaren** biltzailea Eliza izan da hein handi batean.

Juan Mari Lekuonak, osaba Manuelek irekitako bidea jorratuz, Oiartzungo euskara, herri **kantutegia** eta herri kulturaren altxorra azaleratu, zaindu eta gorde ditu. Berria - Harian

Herri **kantutegia**. Berria - Kultura

**Kantutegi** antifaxista osatzeko urratsetan. Berria - Kultura

Elgetak sekulako **kantutegia** zeukan, dozenaka eta dozenaka abesti, eta ez zuen abestirik errepikatzen. Koldo Izagirre

---

## kantutxo *iz adkor* kantua. ik **kantuño**.

Marrazkiei esker, konturatu nintzen, bada, poesia hark halako edertasuna sorrarazten bazuen, **kantutxoen** hitzak baino zerbait gehiago eduki behar zuela, inondik ere. Juan Kruz Igerabide

---

## **kantuzale** *(orobat* ***kantu(-)zale)*** *izond* kantuaren zale dena. ik **kantazale**[1].

Argitu beharko dut inoiz ez dela familia **kantuzalea** izan gurea. Xabier Mendiguren Elizegi

Bertsuzale eta **kantuzale** guzieri, bazkari on baten inguruan elgarren artean goxatzeko parada eskaini nahi dute antolatzaileek. Herria

Dudarik ez **kantuzale** direnak eta bertzek hor izanen dutela aratsalde goxo baten pasatzeko parada. Herria

Halakoetan gizatasuna, umorea erakusten ditu, eta **kantuzale** eta herritarrekin bat eginda agertzen da. Berria - Kultura

Euskal **Kantuzaleen** Elkarteak antolatu du txapelketa. Berria - Kultura

Lillian Garner **kantu-zalearen** ondoan aritzen zen. Anton Garikano

Irlandarren **kantuzale** fama. Berria - Kultura

Ez zen beti erraza: patruila alemaniarrak ez ziren bereziki **kantu zaleak**. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euskal kantuzaleen elkarteak** (4); **kantuzaleen elkarteak** (6)

---

## **kantxa** **1** *iz* jokalekua, bereziki pilotan eta saskibaoian.

Peio pilotan aritu izan baitzen kasik munduko **kantxa** guzietan. Ramuntxo Etxeberri

Laurent Pochelu apezak **kantxa** benedikatu ondoan, bi pilota partida egin dira. Herria

Atano III.a pilotalekuaren **kantxa** gainean. Berria - Kirola

Besteak beste **kantxa,** frontisa, teilatua eta harmailak berritu dituzte. Berria - Kirola

Batzuek diote **kantxako** paretaren altxatzeko erabiliak izan diren harriak zuzenki Txinatik ekarrarazi zituztela, Shanghai hirian desegin zuten pilotalekutik. Ramuntxo Etxeberri

Aspaldiko urtetan utzia baitzen hor pilota, eskolak beretua du **kantxa** guzia ama eskolako 160 haur ttipientzat jokoak denetan emanez. Herria

Marmolezko **kantxa** animalia: kasik 55 metrokoa luzetasunean eta 10 metro eterdikoa zabaleran. Ramuntxo Etxeberri

Euroligan urtero jokatzeko **kantxa** bat. Berria - Kirola

Baskoniaren **kantxa** berri iraunkorra izanen litzateke, gainera. Berria - Kirola

NBAko **kantxa** mitikoenetakoa. Berria - Kirola

12 puntu, 15 errebote eta bi txapel egin zituen **kantxan** eman zituen 38 minututuetan. Berria - Kirola

**Kantxako** jarlekuak aurten ere 100 euroan. Berria - Kirola

**Kantxako** pasealekua: 50 euro. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kantxa** alboan eserita, aurretik txapeldun izandako pilotari ohi ugari batu ziren. Berria - Kirola

Sakatzaile ona da, eta maisua **kantxa** erdian. Berria - Kirola

Eugik, sasoi puntu izugarria erakusteaz gain, arazorik gabe dominatu zuen **kantxa** erdiko jokoa. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Drazen Petrovic kirol **kantxa** beroan belaunikatu egin dira dagoeneko Panathinaikos eta Benetton. Berria - Kirola

BEC erakustazoka bat da, ez saskibaloi **kantxa** bat, musika auditorio bat. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kantxa barruan** (10); **kantxa barruko** (3); **kantxa erdian** (8); **kantxa erdiko** (12); **kantxa gainean** (69); **kantxa gaineko** (8); **kantxa osoan** (8); **kantxa utzi** (4); **kantxa zapaldu** (4); **saskibaloi kantxa** (3)
>
> **kantxako jarlekua** (4); **kantxako sarrerak** (3)
>
> **kantxan ikusi** (3); **kantxan irabazi** (5); **kantxan jarri** (3); **kantxan jokatutako** (3); **kantxan sartu** (4); **lekua aurkitu kantxan** (3); **moskuko kantxan** (4); **mugitu zen kantxan** (4); **sartu zuen kantxan** (4); **zurbaoko kantxan** (10)
>
> **kantxara atera** (3); **kantxara irten** (7); **kantxara irteten** (4); **kantxara itzuli** (3)
>
> **kantxatik desagerrarazi** (3); **kantxatik kanpo** (12); **kantxatik kanpora** (4)

---

## **kantxaratu,** kantxara(tu), kantxaratzen **1** da *ad* kantxara joan.

Patxi Eugi ezker eskua minduta zuela **kantxaratu** zen. Berria - Kirola

Chafee urduri **kantxaratu** zen. Berria - Kirola

Xala, aldiz, lezioa ondo ikasita zuela **kantxaratu** zen.

Bi pilotariak gorputzaldi oso ezberdinekin **kantxaratuko** dira datorren astelehenean. Berria - Kirola

Hogei pilotari **kantxaratu** dira; atzelariak, ordea, lau baino ez dira izan. Berria - Kirola

Denboraldiko Tau indartsuena **kantxaratu** zen atzo. Berria - Kirola

Bihar emakumezkoen finalean **kantxaratuko** diren tenislariak. Berria - Kirola

**2** du *ad* kantxara atera.

Aspek, aldiz, lehen partida honetan elkarrekin askotan aritutako Xala eta Pascual **kantxaratuko** ditu. Berria - Kirola

Hasiera orekatuaren ondoren (7-5), urdinek gustuko pilota **kantxaratu** zuten. Berria - Kirola

Bi bikoteek eraso joko lotsagabe **kantxaratu** zuten. Berria - Kirola

Etxarriko atzelariak ostiralean erakutsiriko grinaren irriñorik ere ez zuen **kantxaratu**. Berria - Kirola

Nocinioni hasieratik **kantxaratu** baitzuen Ivanovicek. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gogotsu kantxaratu** (3); **lasai kantxaratu** (3); **lokartuta kantxaratu zen** (3); **serio kantxaratu** (3); **urduri kantxaratu** (8)
>
> **kantxaratzea erabaki zuen** (4)
>
> **kantxaratzeko aukera** (3)

---

## **kantxero** *iz* kantxa zaintzen duen pertsona.

Astelena frontoiko Jose **kantxeroaren** laguntzaz. Berria - Kirola

Uztailaren bukaeran Labriteko **kantxeroak** beste pintura esku bat eman beharko dio Iruñeko pilotalekuaren frontisari. Berria - Kirola

---

## **kantzelari** **1** *iz* Europako estatu batzuetako gobernuburua.

Urtarrilaren 30ean Hitler izendatu zuten Reich-eko **kantzelari**. 1933ko apirilaren 12an, Hitler **kantzelaria,** doi-doia aitzineko martxoaren 23an botere osoaz jabetua zelarik, [...]. Pello Salaburu

**2** Ameriketako herrialde batzuetako atzerri ministroa.

Fernando Ochoa Antich **kantzelari** ohiak Chavezen ikuspegi geopolitikoa salatu zuen. Pako Aristi

**3** unibertsitate batzuetan, errektore edo lehendakaria.

Sir, baronet, St. Andrew's unibertsitateko lord errektore eta Edinburgh unibertsitateko **kantzelari** zen ordurako. Julen Gabiria

**4** erregeren idazkaritzako burua.

Irakasle hura zuen geroztik Karlos Handiak Espainia guztietako **kantzelaritzat** hautatu. Piarres Xarriton

---

**kantzelaria** **1** *iz* kantzelaritza, atzerri ministerioa.

Cristina Gonzalez Quintanak **kantzelarian** egiten du lan, hau da, Kanpo Harremanetarako Ministeritzan. Pako Aristi

**2** enbaxada bateko idazkaritza.

Nurembergeko arrazen gaineko neurriek protesta handiak eragin zituztela Europako **kantzelarietan,** Estatu Batuetako komunitate judua hariak mugitzen ari zela, Hitlerrek ez zuela askorik iraungo... Anjel Lertxundi

---

**kantzelaritza** *iz* atzerri ministerioa.

-Hona gure frogagiriak, **kantzelaritza** ingelesak eta frantsesak emanak. Karlos Zabala

**Kantzelaritzan** salatuko dut eta urkatu egingo dute! Karlos Zabala

---

**kantzelatu,** kantzela, kantzelatzen du *ad* ezeztatu, baliogabetu.

Jadanik ezingo duzula bidaia **kantzelatu**. Joseba Sarrionandia

Alitaliaren greba dela eta, 364 hegaldi **kantzelatu** dira. Berria - Ekonomia

Horrelako hutsegite, iruzur, diru-ebasketa edo lapurretaren berri ez ematea aski izango da bermea **kantzelatzeko**. Xabier Olarra

---

**kantzelazio** *iz* ezeztatzea, baliogabetzea.

Ukatu egin du asko izan direla **kantzelazioak**. Berria - Kultura

Maileguak eskainiko ditu %0ko interesean eta irekitze, amortizazio eta **kantzelazio** komisiorik gabe. Berria - Ekonomia

---

**kantzer**[1] **1** *iz* minbizia.

Birietako eta bularretako **kantzerretan**. Herria

Harriaren minbizia edo **kantzerra** deritzan gaitza. Pello Zabala

Izua, erraietan sortutako **kantzerra** balitz bezala. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Gobernu inperialaren eta bere laguntzaileen ikuspegitik, normala da Eliza Estatuaren beheraldiaren erantzukizuna duen gizarte-**kantzertzat** hartzea. Iñaki Mendiguren

---

**kantzerbero** *iz* atezaina.

Ikastola hutsik geratzen zela aipatu dut, baina hori ez da guztiz egia, hantxe uzten baitzuten, **kantzerbero** gisa, Pruden. Iban Zaldua

---

**kantzerigeno** *izond*

Substantzia **kantzerigeno** hutsa. Patxi Iturritegi

Zein ontzi diren **kantzerigenoak,** nolakoak ezin diren berrerabili, zerk sortzen duen alergia, [...]. Edorta Agirre

---

**kantzeroso** *izond*

Gaixotasun bitxi eta inoiz **kantzeroso** horrek handitu marroixka eskergak eta azal zati puztuak eragin ditzake. Xabier Olarra

---

kantzieler ik **kantziler**.

---

**kantziler** *(orobat **kantziller** g.er. eta **kantzieler** g.er.)* **1** *iz* Europako estatu batzuetako gobernuburua. ik **kantzelari**.

Berlinen bildu ziren atzo Erresuma Batuko lehen ministro Tony Blair eta Alemaniako **kantziler** Angela Merkel.

Austriako **kantziler** Wolfgang Schusselek. Berria - Euskal Herria

Gerhard Schroeder jarduneko **kantzilerrak** boterea galdu zuen bozetan. **Alemaniako** kantziler ohi Helmut Kohlek bere oroitzapen liburuaren lehen atala kaleratu du. Berria - Mundua

Gerhard Schroeder aleman **kantzielerrak,** bere deputatuen konfiantxa eskaturik, eta galdurik, helduden iraileko bozketan ezartzen du bere mentura. Herria

Otto von Bismarck burdinazko **kantzilerrak**. Iñaki Heras

Laster **kantziler** kargua ere utziko du buruzagi sozialdemokratak. Berria - Mundua

Alemaniarren %80k uste dute Merkel oso lan ona egiten ari dela **kantziler** karguan.

**2** Ameriketako herrialde batzuetako atzerri ministroa.

Kubako **kantziler** Felipe Perez Roquek bozketa «erabateko garaipena» izan zela adierazi zuen Berria - Mundua

**3** erregeren idazkaritzako burua.

Jorge Jeffreys (1640-1689), Ingalaterrako **kantzilerra,** famatua bere epai odoltsuengatik, horien artean William Russellen eta Sidneyren legezko erailketak. Juan Martin

Elexpuru

**4** errektore edo lehendakaria.

Jean Desmarets, Saint-Sorlingo jauna (1596-1666), literaturgile frantziarra, Frantses Akademiako lehen **kantzilerra,** Richelieuren santuhartua eta jansendarren etsai porrokatua. Juan Martin Elexpuru

**5** ***goi kantziler***

Maisu Goren, **Goi** Kantziller, Incohone Handi eta Ahaldun Inperial Nabarmenenek. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alemaniako kantziler** (38); **alemaniako kantziler angela** (7); **alemaniako kantziler gerhard** (28); **austriako kantziler** (10); **austriako kantziler wolfgang** (7); **kantziler angela** (7); **kantziler angela merkelek** (4); **kantziler gerhard** (29); **kantziler gerhard schroeder** (9); **kantziler gerhard schroederrek** (16); **kantziler ohiak** (3); **kantziler wolfgang** (8); **kantziler wolfgang schuesselek** (3)

**alemaniako kantzilerra** (8); **gerhard schroeder kantzilerra** (3); **schroeder alemaniako kantzilerra** (8); **schroeder kantzilerra** (3)

**alemaniako kantzilerrak** (16); **angela merkel kantzilerrak** (3); **gerhard schroeder kantzilerrak** (8); **schroeder alemaniako kantzilerrak** (10); **schroeder kantzilerrak** (9)

**gerhard schroeder kantzilerraren** (4); **schroeder kantzilerraren** (4)

**alemaniako kantziller** (4); **alemaniako kantziller gerhard** (3)

---

## kantzileria **1** *iz* erregeren idazkaritza. ik **kantzelaritza.**

Erresuma zatitzean, Nafarroako **Kantzileria** ere harat eraman zuten, bere funtzionario oldearekin. Aingeru Epaltza

Noizbait ere etorri zen **Kantzileriaren** ihardespena. Aingeru Epaltza

Nafarroako **Kantzileriako** errekerimendu-maisu eta kontseilari izendatu bainaute. Aingeru Epaltza

Joana III.aren idazkaria eta Nafarroako **Kantzileriakoa**. Aingeru Epaltza

**2** atzerri ministerioa.

«Ezerk ez gaitu lotzen ETArekin, eta horretaz ohartu beharko luke **Kantzileriak»,** gehitu zuenez. Berria - Euskal Herria

**3** enbaxada bateko idazkaritza.

Jende jakintsu, ezalderdikari eta aditu anitz badagoela begira Espainian eta handik kanpo ere **Kantzilerietan,** Errotetan eta Legebiltzarretan. Piarres Xarriton

Intrigatu egiten dute gortean eta **kantzilerietan**. Anjel Lertxundi

---

## kantzilerorde *iz* kantzilerraren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Franz Muentefering **kantzilerorde** eta Lan ministroa SPDk gobernuan duen pisu astuntzat jo dute. Berria - Mundua

---

kantzinogeno ik **kartzinogeno.**

---

kantzontzilo ik **galtzontzilo.**

---

## kanula *iz* barrunbe edo hodi batean txerta daitekeen hodi txikia.

Medikuek **kanula** ipini zioten ahoan, arnasa har zezan, eta horri esker egin zuen aurrera. Berria - Kirola

Gomazko **kanula** txiki bat -lapitz bat baino meheagoa- sartzen da umetokian eta osatzen hasi diren lehenengo zelulak xurgatzen dira. Luis Elberdin

Trokarra atera eta **kanula** han uztean, ura, berdekara, serositatez betea, azpil batetik barrinoi batera bezala zerion. Josu Zabaleta

---

## kanun[1] *iz*

Musika berezi hau sortzeko instrumentu tradizionalak (dukuka, zurna, **kanuna**...) eta modernoak (tronboia, saxoa, tronpeta, baxua, bateria...) uztartzen ditu; bere gorputza ere erabiltzen du musika tresna adierazgarri bezala. Berria - Kultura

---

## kanun[2] *iz*

Bazter batean, **kanun** txiki baten gainean, te-ontzi bat ari zen berotzen. Jon Muñoz

**Kanunaren** txingarrek distira goriz egiten zuten dir-dir. Jon Muñoz

Egur-ikatza erantsi **kanunari,** eta ura sartu zuen te-ontzian. Jon Muñoz

---

## kanutero *izond* txirri-erretzailea.

Pistan dantza egitera joaten ziren neska mamaletatik hasi eta txurrodun gazte **kanuteroetara** arte, tartean egon daitekeen fauna eta flora oro kontuan hartuta: paisanozko poliziak, EGIko burukideak, trapitxeroak, borrokak, nobodyak, makarrak, pijoak, iurretarrak eta despistaturen bat edo beste. Unai Iturriaga

---

## kanutilo *iz*

**Kanutiloaren** ore bigunak zuzendariaren muinak oroitarazten dizkio. Gotzon Garate

---

## kanuto *iz* txirria.

**Kanuto** bat biltzen ari zen Jon. Unai Iturriaga

**Kanuto** eder bat erre ondoren, gorputzak beti ere zigarreta bat eskatzen zion. Unai Iturriaga

**Kanutoa** piztu eta sakon hartu du hasperena, kanabisaren eragina burmuinetan sumatu arte. **Kanutoak** egin, birrak edan eta manifa guztietara joatea zituen hiru betebehar nagusiak. Aingeru Epaltza

Birra eta **kanutoen** joan-etorria etengabea bihurtu zen. Unai Iturriaga

**Kanutoen** eraginez, begiak gorritzen eta hanpatzen zitzaizkion. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kanuto bat biltzen** (3)

---

# kanutotxo *iz adkor* txirria.

Ohean jesarrita, **kanutotxo** bat biltzen hasi zen. Unai Iturriaga

---

# kaoba 1 *iz* Ameriketako zuhaitza, zur gorrixka eta oso gogorra duena *(Swietenia mahoganis);* zuhaitza horren zura, zurgintzan oso aintzat hartua.

Zura atsegin zuen Iturbidek, begi-bistan zegoen, **kaoba** batik bat. Migel Angel Mintegi

**Kaoba** koloreko ilea. Fernando Morillo

Ileorde **kaoba**-kolorekoak benetako ilea ematen zuen. Oskar Arana

Armairu ispiluduneko eta komodako **kaoba** distiratsuan. Karlos Zabala

**Kaobaz** tindaturiko ile lisoa. Unai Iturriaga

**Kaobazko** adatsari baino ez nion erreparatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Logela oso erosoa zen, **kaobazko** altzariz hornitua. Karlos Zabala

**Kaobazko** kutxa bat Kareliako urki-zurezko apaingarriz edertua. Jose Morales

**Kaoba** landuzko eta zilarrezko heldulekuak zituen hilkutxa ederra. Bego Montorio

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hara hor **kaoba** enbor sendoak esperoan, zerraren alboan zerrakina pilatzen den artean, eta bestaldean kolore odoltsuko oholak zurezko dorreak eraikiz antolatuak. Joseba Sarrionandia

**Kaoba** egurra erraza da leuntzen eta, gainera, ondo hartzen ditu kolorea nahiz berniza. Berria - Gaiak

**Kaoba** salerosketa. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kaoba egurra** (4)

---

# kaolin *iz* buztin zuri eta bikaina, aluminio silikato hutsez osatua, buztingintzan eta portzelana egiteko erabiltzen dena.

Nor ez da orroit Luhusoko **kaolin** edo feldspath lantegiaz! Herria

Aurpegia **kaolin** hautsez apainduriko manifestari bat jarri da objektiboaren aurrean. Iñigo Aranbarri

Goizean, 10.30etan izanen da meza, **kaolin** lantegiko langileen orroitmenez, bertsulariekin. Herria

---

# kaos 1 *iz* mundua sortu aurreko ezereza edo nahasmena; erabateko nahasmena edo antolaketarik eza.

Hainbat Tradizio poetiko eta erlijiosoren arabera, mundu ordenatua sortu baino lehen, unibertsoa edo kosmosa eratu aurretik, nahaste izugarri bat zegoen, eta nahaste horri, betiereko elementuez osatuari, **kaos** deitzen zitzaion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiri batean gasolinaz hornitutako ibilgailuak ezinean eta lehian, bidea egin ezinik, dabiltzanean sortzen den **kaosaren** berririk ez zuten greziarrek, baina garbi dago **kaos** hark ekarri duela beste hau... argi zirrikitu bat zabaltzen dute **kaos,** zalantza eta iluntasunaren infernuan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Artistak **kaosa** duela, gutxienez, begien bistan, artistak **kaos** horren anabasan sartu behar dituela atzaparrak bertan lan egiteko. Anjel Lertxundi

Egoeren eta gertakizunen hari logikoari segitu beharrean, buru-hankarik gabeko **kaos** batek gidatzen omen du nire diskurtsoa. Anjel Lertxundi

Erlatibismoaren anabasan gaude: nola etorri gara **kaos** honetara? Joxe Azurmendi

**2** (izenondoekin)

**Kaos** hutsa. Alberto Ladron Arana

Zinezko **kaos** sozial batean ginen. Berria - Kultura

**Kaos** izugarria zegoen. Berria - Euskal Herria

**Kaos** kontrolatu baten sentipena izan zen aurreneko hura. Jon Muñoz

Izugarri desantolaturik bizi zen, eta amorraturik ere bai batzuetan; **kaos** bridagabea zen nagusi haren munduan. Xabier Olarra

Maitasuna lanbide zuen emakumearekin igaroko zuen gaua ere, eta zentzugabea iruditzen zitzaion, guztiz nahasia, **kaos** txiki, eragabe eta lohi samar baten antzekoa. Jose Morales

**Kaos** moralaren eta biolentziaren erruduntzat jotzen da erlatibismoa. Joxe Azurmendi

Mustro bat ari da pixkana jaiotzen, **kaos** lizunaren bihotzetik. Anjel Lertxundi

C.G. Jung gai zen adierazteko leize subkontzientea [...] ez zela **kaos** bereizgabe bat, unibertso egituratu bat baizik, non jarduera psikikoaren geruza baten azpian beste bat bereiz zitekeen. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kaotiko**.

Justizia ministro Nahed Arreies eta Plangintza ministro Nabil Kasisek dimisioa eman zuten atzo, **«kaos** egoera» dela eta. Berria - Mundua

Gazan azken garaiotan bizi den **kaos** egoeraren aurka. Berria - Mundua

Dantzaren erdialdean **kaos** une bat nagusitzen da gorri kolorearen pean. Berria - Kultura

2000ko **kaos** eta iruzur salaketen ondoren indarrean jarritako erreformari jarraiki. Berria - Mundua

Zientziaren historiako izen handiak, azaleko **kaos**-itxuran zehar, azpian zegoen ordena ikusi zutenenak izan ziren. Iñaki Mendiguren

Poesiari eskainia zegoen **kaos**-bazterrik ugariena. Anjel Lertxundi

Begi aurrean daukan **kaos**-hondamendia. Sonia Gonzalez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kaos egoera** (3); **ustezko kaos** (3)
**kaosa eragin** (3); **kaosa izan** (3)
**kaosaren erdian** (3)
**kaoseko agentearen** (3)

---

# kaotiko 1 *izond* kaosarena, kaosaren ondoriozkoa. ik **kaos 3**.

Irakeko egoera **kaotikoa**. Berria - Harian

Kale zikinak, trafiko **kaotikoa,** jende etsia eta deserrotua bazterrik bazter... Patxi Iturritegi

Pilaketa **kaotiko** hartan bazegoen antolamendu bat: gaien arabera osatuta zeuden liburu-metak. Anjel Lertxundi

Lurraz, espekulazioaz eta urbanismo **kaotikoaz** aritu ginen. Joan Mari Irigoien

Labirinto urbano **kaotikoa**. Joseba Sarrionandia

Begien aurrean zuen multzo **kaotikoari,** ordea, musikaren harmonia zerion eta perfekzio estrainio bat. Patxi Iturritegi

Zalapartan eta ordenarik gabe, aipamen bortitzez, era **kaotiko** batean. Josu Zabaleta

Kontzeptu, espekulazio eta errealitate birtual hutsen nahaste **kaotiko** horri. Edorta Agirre

Kartzelaren kudeaketa **kaotikoaren** erantzukizuna. Berria - Euskal Herria

Baina kaos horixe, organikoa eta naturala, irudikatu behar nuen nik; eta kaos bat irudikatzeak ez du esan nahi era **kaotikoan,** erromantikoki alegia, irudikatzea. Josu Zabaleta

Errealitate nahasi eta **kaotikoaren** adierazgarri. Fernando Rey

Maitasun goizegiko, **kaotiko** eta mingarriak. Xabier Olarra

**2** (izan aditzarekin)

**Operazioa** kaotikoa izan zen, eta harresien aurrean geratu ziren, abandonatuta, mertzenario asko. Berria - Harian

Funtzionamendua **kaotikoa** izan da, eta kalte ekonomikoak handiak izan dira. Berria - Euskal Herria

Pentsamendua **kaotikoa** da eta mintzaira da hura zehazten, antolatzen edo kategorizatzen duena. Isabel Arrigain

Ia liburu guztiak itxuragabeak eta **kaotikoak** baitira, izan ere. Juan Garzia

Ahozkotasunak ez zuela literaturarekin zerikusirik; ahozkoak ez zuela estilorik, **kaotikoa** zela. Bernardo Atxaga

Bi orrialdeko azalpena egin behar zen, eta uste dut nahiko **kaotikoa** izan zela nik egindakoa. Berria - Kultura

Beren ibilbideak **kaotikoak** dira. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> egoera kaotikoa (7)

# **kaotikoki** *adlag* era kaotikoan.

Etxe eta kale, irudi luke garapen ikaragarri azkarreko minbizi suntsitzaile bezainbat eraikizale batek **kaotikoki** ugaldutako herri murritz bat baizik ez dela hiria, etxe bakarrekoa eta kale bakarrekoa. Iñaki Segurola

# **kaotikotasun** *iz* kaotikoa denaren nolakotasuna.

Saussurek uste zuen hitzek pentsamenduaren **kaotikotasuna** desagertarazten dutela. Isabel Arrigain

# **kapa** **1** *iz* soingainekoa.

Esmeralda-koloreko **kapa** berdea zeraman. Iñaki Mendiguren

Bufanda gorri handi bat zeraman samaren jiran, mutur bat konkorretik zintzilik zuena, **kapa** veneziar baten hegalaren gisan. Karlos Zabala

Burutik oinetarainoko **kapa** luzea soinean zeraman gizon bat hurbildu zen. Elena Touyarou

Bere **kapa** beltzean bildua zihoan, Zaldi zuri ikusgarria zeraman izter artean eta larruzko **kapa** beltza bizkar gainean. Patxi Zubizarreta

Zilar-koloreko **kapa** bere soinekopean kontuz tolestuta zuela. Iñaki Mendiguren

Ehizako **kapa,** azpiko galtza luzeak, errepikaziozko eskopeta. Koro Navarro

Feltrozko **kapa** bana zeramaten, kolore bizikoa, sorbaldetan bildurik. Karlos Zabala

Hiriko sarrerako zubi gotortutik beheiti jaurti nuen Akademiako **kapa** iluna Ihuriko ur uherretara. Aingeru Epaltza

-Nire **kapa** jantz dezakezu, Frodo jauna -esan zuen Samek. **Kapa** kentzea pentsatzen ari zenean. Iñaki Mendiguren

**Kapan** bildu eta hiritik kanpora abiatu zen. Agustin Otsoa

Harryk **kapa** erantzi zuen. Iñaki Mendiguren

Zaldizkoa **kapa** beltz batek estaltzen zuen zeharo. Agustin Otsoa

Esku hil eta itsaskor bat atera zuen **kapa** azpitik. Iñaki Mendiguren

**Kapen** tolesdura lizunduen artetik, ikusi zituzten gelara sartzen ari ziren irakasleak. Iñaki Mendiguren

Eskuak oinetarainoko **kaparen** poltsikoetan sarturik. Monika Etxebarria

Fudgeren hatzek irrist egin zuten bere **kaparen** zilarrezko lokailuetan. Iñaki Mendiguren

Halaxe bizi zen Txori, buru gogoetatsua **kaparen** hegaletan bildurik. Juan Garzia

Besoak zabaldu eta bere **kapaz** estali zuen. Askoren artean

Bainan Sarkozy torero hoberenetarik da baitaki nola joka bere trapu gorriarekin, izan dadien **kapa** edo muleta. Herria

Pentsatu nuen gizakia edonora eta edozer egitera irits daitekeela: bere neurriko **kapa** josten du beti eta zulo beltzenean ere gauza da bizitza ez doakiola hain gaizki sinesteko. Anjel Lertxundi

**2** irud/hed

Ortzi **kapa** ilunean, izar-lokak jauzika. Piarres Aintziart

Don Felix izeneko apaiz gaztetxo bat zuen aitorlea, itxuraz gizon lasaia eta gozoa, baina otzantasun ebanjelikozko **kapa** baten azpian aginte-desira lausoak ezkutatzen zituena. Koro Navarro

Laugarren edo bosgarren ezetzaren ukaldia itxurarik galtzeke muturrean harturik, arratsalde batean etxera itzultzen ari nintzen bizikletaz, arrangura eta mingostasunezko **kapa** ia ukitzeko moduko bat soinean. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan)

Galtzerdiak eta **kapa**-barrenak blai eginik eta izoztuta zituztela. Iñaki Mendiguren

· Artean han zuen aitarengandik heredaturiko ikusezintasun-**kapa..**. Iñaki Mendiguren

**4** geruza.

Ehun-geruza bat da urdail-mukosa, fluidozko **kapa** labain batek estalia. Irene Aldasoro

Harria sortzen ari zenean gainean pilatutako **kapen** eraginez. Berria - Gaiak

Lur azaleko **kapa** ongarritua formatzen urte asko, mendeak behar dira. itsasoak, doi bat asaldatua, olio **kapa** zabal baten dirdira opako eta astuna zeukan. Pello Zabala

Ikurriñak ere ez gutxi, eta errepidea pintura **kapa** baten azpian. Berria - Kirola

Egizu kontu, gorpu bat ahoz gora gatz **kaparen** erdian azaltzen ari ontziaren bodegan. Koldo Izagirre

Baina mapetan izotz **kapa** bat erakusten da, ez kontinentea. Joseba Sarrionandia

Pentsatu zuen gainean zuen elur-**kapa** manta epel bat zela, eta mantarekin burua estaltzen saiatu zen. Julen Gabiria

**5** ***kapa-motz***

Esaten zuen oihal zurizko **kapa** -motzez jantzi beharra zegoela. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitaren kapa** (4); **ikusezintasun kapa** (38); **izotz kapa** (4); **kapa beltz** (8); **kapa beltza** (5); **kapa elfotarra** (6); **kapa erantzi** (5); **kapa gorri** (5); **kapa grisa** (5); **kapa hartu** (9); **kapa iluna** (5); **kapa kendu** (8); **kapa luze** (3); **kapa luzea** (3); **kapa marroi** (5); **koloreko kapa** (3); **larruzko kapa** (3); **marradun kapa** (3)
> **kapan bildu** (3)
> **ikusezintasun kaparen** (5); **ikusezintasun kaparen azpian** (4); **kaparen azpian** (9); **kaparen azpitik** (8); **kaparen bila** (3)
> **ikusezintasun kapaz** (4); **kapaz estali** (5)

---

## kapable **1** *izond ipar* gai dena, gauza dena.

Horiek denak untsa ezagutu ditut ikusiz nolako gazte lerden eta **kapableak** ziren bai eta izpiritu ernekoak, bazuten bertze edozoin ofizioren egiteko gaia. Herria

Gainera, bazekien Graxi arras neska **kapablea** zela, halako bidean abiatzeko. Eneko Bidegain

**2** ***kapable izan*** da *ad* gai izan, gauza izan.

-Nahi nuke idatzi bainan ez niz **kapable** . Menane Oxandabaratz

Ez baitzen **kapable** bertzeekin ibiltzeko. Menane Oxandabaratz

Eta sistemak, aldi berean, bere buruari ere erakutsi behar dio **kapable** dela gaizkilea bide xuxenetik abiarazteko. Filipe Bidart

Harekin frogatu ahal izan baitut **kapable** nintzela maitasunaren behar bezala egiteko... Daniel Landart

---

## kapadun *izond/iz* kapa duena; kapa duen pertsona.

-Nondik zatoz, probintziatik? -galdetu zuen gizon **kapadunak** . Koro Navarro

Saguzar **kapadunen** joan-jinak. Joan Mari Irigoien

Erabat ahaztuta zuen **kapadun** jendea, okindegiaren ondoan haietako talde baten albotik igaro zen arte. Iñaki Mendiguren

Polizia frantsesek, kepis eta **kapadun** jendarma bibote-zabalek, ekarri zituzten biak egun berean, tren ezberdinetan ordea: Alma, Dijonetik; Agnès, Bordeletik. Felipe Juaristi

**Kapadunak** ikusi egin ninduen: horrek geldiarazi zuen. Monika Etxebarria

**Kapadunak,** ahaldunak, garai hartan asko ez zirenak, gure herri ttikietan hiruzpalau bakarrik, normalean. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gizon kapadunak** (4)

---

## kapar[1] **1** *iz* akain mota txikia, oso itsaskorra.

Akainak, kapastak, **kaparrak,** lakastak... izen guztiok entzuten ditut baserrietan. Gotzon Garate

Eusko Jaurlaritzako **kapar** parasito bat gehiago. Unai Iturriaga

Badut susmoa hain juxtu ere hala jokatu nuela gure anaiaren neska lagunekin: **kapar,** lekedazu eta gogaikarri. Aingeru Epaltza

Aitortu behar da pena dela ilargiari zaunka edo **kaparrek** hilduraturiko belarriari hazka egiten dion zakurraren grazia falta izatea. Jon Alonso

Lahar bat ere tatarrazka zeraman arropetan **kaparra** bezala itsatsita, handik kentzeko ahaleginik egiteke. Hasier Etxeberria

Jesarleku hura, emakume eta paraje hura, arratsalde hura azken finean, **kaparra** bezala itsatsi zitzaidan memorian. Hasier Etxeberria

Ez ote da izango irakurritako oro geratzen dela, **kaparra** bailitzan, memorian itsatsirik? Hasier Etxeberria

• **2** (izenondo gisa, irain hitza)

Gorroto ditu horrelako tipo **kaparrak,** zakilarekin baino pentsatzen ez dakitenak. Patxi Iturritegi

Kopeta zeukan gogor samarra, eta gure etikako irakaslea bezain **kaparra** ematen zuen. Koldo Izagirre

· Hodei **kaparrak** pasatzen ziren isilik zerutik, lurra ia ukituz bezala oinez. Juan Garzia

---

## kapar[2] *iz Capparis spinosa* zuhaixkaren lorearen begia.

Cadinek jaki gazituak arras gogoko zituen, miraz gelditzen zen sardinzar ketuei, antxoei, **kaparrei** begira, edo pepino eta oliba upelen aurrean. Karlos Zabala

Vesubioren tamainako steak tartarea jan nuen, alboko zizka-mizka ugariz: **kaparrak,** tipulak, belarrak, piperrak... ummm, ze goxoa. Jesus Mari Mendizabal

---

## kapare **1** *iz* nahiz aitoren semea ez zen, bere ondasunetatik, eta ez bere lanetik, bizi zena, bilau ez zena.

Orduko bilduta zeuden errege-erreginak, hainbat aitorenseme eta alaba, **kapare,** zaldun eta elizgizon. Anjel Lertxundi

Orduko bilduta zeuden errege-erreginak, hainbat aitorenseme eta alaba, **kapare,** zaldun eta elizgizon. Anjel Lertxundi

Jatorriak identifikatzen zuen **kaparea;** ondasunak, ordea, zalduna. Patxi Ezkiaga

Inguruko herri eta bordetako jendeek **-kapare** nahiz laborari- [...]. Aingeru Epaltza

-Zurezko eskalapoiak egiten dizkiot laborariari eta larruzko botak **kaparеari** . Aingeru Epaltza

Herria lurrari lotutako esklaboek eta, esklaboon jaunak direlako, eliztar edo **kapare** deritzen beste esklabo batzuek osatzen dute. Iñaki Iñurrieta

Arlote batek, lapur batek, sartu behar ziria, zeini eta **kapare** bati, oinetxe baten oinordeko aberatsari! Koro Navarro

**Kapare** batek bilau bati erronka egiten zionean, oinez aurkeztu behar zuen, ezkutua eta makila hartuta. Iñaki Iñurrieta

Ez zen inon gazteluzainik ikusi gutienez **kapare** ez zenik, non ez zen odol garbiko norbaiten ordezkari edo bigarren. Aingeru Epaltza

**Kapare** argiari, bere ustez gaztelua zen benta hartan gertatu zitzaiona. Patxi Ezkiaga

Zergatik nintzen Joanes Mailu **kapare** ezdeusa, eta ez Amadis, Lehoiaren Zalduna? Aingeru Epaltza

Espainia, funtsean, Indietarik eta Ameriketarik kolperik jo gabe elikatu den **kapareen** herria da. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

**-Kapare** familiako naiz -erantzun zidan haserre samar-. Patxi Ezkiaga

Hurrengo asteetan, bide berari segitu zioten Biarnoko eta Nafarroako hainbat jaunek eta infantzoi eta **kapare** andanak. Aingeru Epaltza

**3** (izenondo gisa) *irud/hed*

Aldamenean dorre gisako etxe **kapare** bat dago, harri ilun beltzairez eraikia. Txillardegi

## **kaparedun** *iz* kaparea duena.

Amikuzeko etxe **kaparedun** anitzen jabeek hainbat urtetako uzta emanen zuketen alaba errege-gazteluko kapitainordearekin esposaturik. Aingeru Epaltza

Arberoa aldeko biztanle gehienak bezala, **kaparedun** etxe batekoa zen, infantzoi, beraz. Aingeru Epaltza

## **kaparetasun** *iz* kapare denaren maila edo egoera.

**Kaparetasunak** bere ditu etxea eta lurra. Aingeru Epaltza

**Kaparetasuna** franko, meza franko, jota franko, baina jatena beti eskas. Koro Navarro

Baskoen **kaparetasun** unibertsalaz jardun ote zuten nago ni. Edorta Jimenez

Zenbaitetan gogotik oparituko lituzke bere **kaparetasuna** eta bere zaintzapeko gazteluko harri guzti-guztiak, San Nikolasen burgoko karriketako usainak berriz ere aditzeaaren alde. Aingeru Epaltza

## **kaparetu**, kapare(tu), kaparetzen da/du *ad* kapare bihurtu.

Garai bateko zapatagin-ikastuna **kaparetu** zuen lehenik. Aingeru Epaltza

Aferak moldatze erraza zuen, nola eta aitatxi **kaparetuz**, berak amestu bezala. Aingeru Epaltza

## **kaparrada** *iz* cf **kapar**[1] **2.**

Orain bakea ematea da, inork gehiago ez izorratzea eta inori **kaparrada** emateari uztea. Urtzi Urrutikoeetxea

## **kapasta** *iz* akaina.

Akainak, **kapastak,** kaparrak, lakastak... izen guztiok entzuten ditut baserrietan; askazi berekoak dira, batzuk Gotzon Garate

## **kapataz** *iz* langileburua, kontramaisua.

Giza-gurpilera heldurik, aldean eraman ohi zuen arma kendu eta **kapatazari** eman zion. Juan Garzia

Giza-gurpilera heldurik, aldean eraman ohi zuen arma kendu eta **kapatazari** eman zion. Juan Garzia

**Kapataza** edo kontratista izango da, ziurrenik. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etxaldeko kapataz** (3)

## **kapatazgo** *iz* kapatazaren kargua.

Hemen, Arantzazuko Seminarioa martxan ipini berria zenean, bertako obraren **kapatazgo** modukoa enkargatu zioten. Pello Zabala

## **kapatxa** *iz*

Flojo samarra aukeran, pattala, **kapatxa** hutsa Patxi Iturritegi

## **kapatxo** *iz* kapa txikia.

Dolcinok ez zuen eskatu grazia bat baino: alegia uzteko, suplizioan, garren artean, apostoluak lanpara-estalkian bezala jantzirik, beren **kapatxo** zuri banarekin Juan Garzia

## **kapaz**

### **1** ***kapaz izan*** da *ad* gauza izan, gai izan.

Kale-zuloko alproja hura **kapaz** zen igotzeko, aurrera egiteko, aberasteko, beraren arreba esposatzeko. Koro Navarro

Gazteak berez dakar jakinmin ergela, baina ez da **kapaz** tolerante izateko. nire zoriontasun koldar hark frogatzen zuela **kapaz** nintzela abentura hura onik burutzeko. Patziku Perurena

Keinu txikiena egiteko ere ez dira **kapaz** izan, ezta familia bati goiz errukitsuagoa iraganarazteko ere. Berria - Euskal Herria

Momentu honetan ni tentatzen ari den euli ttar hau hiltzeko ere ez naiz **kapaz**. Patziku Perurena

Nire zoriontasun koldar hark frogatzen zuela **kapaz** nintzela abentura hura onik burutzeko. Juan Garzia

Eta beldur hori neukan, ez bainuen sinesten **kapaz** nintzela ikasten hasteko! Daniel Landart

Heriosuharrean jaiki nahi du ohetik, baina ez da **kapaz**. Pako Aristi

Ez dakizu **kapaz** izango zaren. Lourdes Oñederra

### **2** ***kapaza izan*** da *ad* kapaz izan.

Lanean huts egiteagatik kontuak eskatzeko **kapaza** da Zaratiegi hori... Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin nion etxera etortzeko eskatu, ni neu ere ez nintzen **kapaza** kiratsa zerion egongela hartan sartzeko eta. Jasone Osoro

Buruan ibiltzen ditudan gauza guztiak hitzetara ekartzeko **kapaza** izango banintz. Berria - Kultura

## **kapazitate** **1** *iz* gaitasuna.

Liberal espainolen **kapazitate** kapazitate intelektualei buruz. Joxe Azurmendi

Memorizatzeko **kapazitatea** txikitu da. Menane Oxandabaratz

Egoeraren moralki ikertzeko eta jujatzeko **kapazitatea**. Itxaro Borda

**2** edukiera.

Hurrengo urtean erregai **kapazitatea** bi litrora murrizteak abiadura neurtzera behartuko ditu gidariak. Berria - Kirola

---

kapazo ik **kapazu**.

---

**kapazu** *(orobat **kapazo**)* *iz* espartzuzko otarrea.

Bere arreba astuna eta honen senar koitadua, haurra **kapazuan** zutela. Zumezko **kapazuan** lo zegoen haurra erakutsi zioten. Harkaitz Cano

**Kapazuan** txoria harrapatzen den bezala harrapatu zuen Peruk nire bihotza. Pako Aristi

Espartzuzko **kapazu** handi bat ibiltzen zuen, eta argazki sorta bat atera zuen handik. Bernardo Atxaga

**Kapazoko** erreminten artean zerbait ari zen bilatzen. Pablo Sastre

**Kapazuan** miraka hasiz. Bernardo Atxaga

---

**kapazutzar** *iz* kapazu handia.

Eguzkitako luneta handiak, ezker besotik dilindan egiten zion **kapazutzarra,** sandalia takoidun urrekarak. Aingeru Epaltza

---

kapeilau ik **kaperau**.

---

**kapela** *(**1036** agerraldi, **96** liburu eta **39** artikulutan)* **1** *iz* burua estaltzeko jantzi aski zurruna, gehienetan hegalduna. ik **kapelu; ginbail.**

**Kapela** eskuetan, eskaileretan behera abiatu zen. Lopez de Arana

**Kapela** puntadun xume bat. Iñaki Mendiguren

**Kapela** altuak jantzi zituzten. Monika Etxebarria

Buruak ozta-ozta agertzen ziren gailurren gainetik; txano zuriak eta **kapela** beltzak igarotzen ziren batetik bestera. Karlos Zabala

Udaberriko beroki gris argia eta feldrozko **kapela** argia zituen jantzita. Lopez de Arana

Arroparentzako kakoan zegoen Stanislaus Dembaren feltrozko **kapela** hegalduna. Anton Garikano

Errabinoak nekazariak ikusi zituen, lau ertzeko **kapelak,** kaftan kolore-arreak, lihozko galtzak zeramatzatenak. Koro Navarro

Hiru puntako **kapela** dotore eta urrezko apainduriaduna. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lorez apaindutako lastozko **kapela** txiki bat. Lopez de Arana

Apezpikuen **kapela** gorri erraldoi bat. Monika Etxebarria

Damentzako lastozko **kapela** hegal-zabal bat darabil orain. Mirentxu Larrañaga

Bizarra ondo egindako aurpegi mehea zuen [...] eta onddo-itxurako **kapela** hegal-zabal bat soinean. Irene Aldasoro

**Kapelako** luma beltza atzera eta aurrera zabuka. Irene Aldasoro

**Kapelako** xingolarengatik. Xabier Olarra

Orduan, **kapelako** beloa altxatu, bere izena esan, eta den-dena kontatu zion. Karlos Zabala

Jantz ezazu **kapela,** doktore jauna. Monika Etxebarria

**Kapela** erantzi izan ez banu, hobeto. Lopez de Arana

Ellenek **kapela** kendu zuen. Lopez de Arana

Jantzitegira sarturik, **kapela** zintzilikatu zuen. Mirentxu Larrañaga

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urbietaren **kapela** lantegia. Koldo Izagirre

Euren **kapela**-hegalen atzean gordeta zituzten aurpegiak. Lopez de Arana

Bi maleta eta **kapela**-kaxa bat. Mirentxu Larrañaga

Esekilekuan zebilen buru-belarri **kapela**-eskuilaren bila. Irene Aldasoro

Igandeetako **kapela**-keinuak ikusten hasi nintzenetik hona ongi ikasi dut bulebarrekoak eta Coteau Vertekoak bereizten. Monika Etxebarria

**Kapela**-ukitu batzuk egiten zituzten artean ere. Monika Etxebarria

Ikaragarri gustu txarra duela **kapela**-kontuetan. Mirentxu Larrañaga

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laranja-kolore biziko festa-**kapela** zeraman. Iñaki Mendiguren

Bi neskak egunkari-paperezko txanoak eginak zituzten euren uda-**kapelak** estaltzearren. Lopez de Arana

Onddo-**kapela** marroiko gizon bat ate birakaritik sartu zen. Lopez de Arana

Kopa-**kapela** zanpatua buruan jarri zioten gizonari. Irene Aldasoro

Bud harakin-amantala eta beisbol-**kapela** atzerantz zeuzkan mutil batengana hurreratu zen. Lopez de Arana

Gizasemea larrubizi baitzegoen, miliziano-**kapela** bakarrik buruan. Inazio Mujika Iraola

Manolo Txoriburu azaldu zen [...] zezenketari **kapela** zabal batekin. Josu Zabaleta

Alkandora, jeans estuak eta cowboy **kapela**. Xabier Olarra

Buruan uniforme **kapela** duela. Josu Zabaleta

Azti-**kapela** puntaduna angelu alai bat eratuz zeukan ile izurtuaren gainean. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**apaindutako lastozko kapela** (4); **artilezko kapela** (3); **azti kapela** (4); **berokia eta kapela** (3); **feldrozko kapela** (3); **feltrozko kapela** (15); **feltrozko kapela buruan** (3); **hegal zabaleko kapela** (3); **kapela altua** (3); **kapela barregarri** (3); **kapela belarrietaraino sartu** (3); **kapela beltz** (10); **kapela beltza** (7); **kapela beltzeko** (3); **kapela berri** (5); **kapela berri bat** (3); **kapela berria** (4); **kapela biribil** (3); **kapela biribil bat** (3); **kapela buruan sartu** (3); **kapela erantzi** (27); **kapela eskuan** (8); **kapela eskuetan** (6); **kapela eta beroki** (3); **kapela eta berokia** (5); **kapela eta makila** (4); **kapela gorri** (7); **kapela gorri beltza** (4); **kapela handi** (3); **kapela hartu** (14); **kapela hegal** (7); **kapela hegal zabal** (4); **kapela jantzi** (12); **kapela jantzita** (13); **kapela kaxa** (4); **kapela keinuak** (4); **kapela kendu** (8); **kapela luze** (5); **kapela luzea** (6); **kapela marroiko** (3); **kapela sailkatzailea** (14); **kapela sailkatzaileak** (9); **kapela txirikordaduneko** (4); **kapela urdin** (3); **kapela zabala** (3); **kapela zahar** (6); **kapela zahar bat** (3); **kapela zeraman** (4); **kapela zeramana** (4); **kapela zuria** (4); **kopa kapela** (6); **larruzko kapela** (7); **lastozko kapela** (26); **lepoko eta kapela** (4); **oihalezko kapela** (3); **onddo kapela** (16)

**lastozko kapelak** (7)

**onddo kapelako** (5); **onddo kapelako gizon** (3)

**kapelaren azpian** (6); **kapelaren azpitik** (4); **kapelaren bueltan** (3); **kapelaren inguruan** (6); **lastozko kapelaren** (3); **onddo kapelaren** (4)

# kapeladun *izond/iz* kapela jantzia duena.

Gizon **kapeladunak** zerbait seinalatzen zion hatz erakusleaz. Anjel Lertxundi

Artizar kalean bizi da **kapeladun** emakumea. Eider Rodriguez

Neguriko etxeetan, garai batean, ez zen neskamerik falta, ezta inuderik, etxeko morroirik, lorezainik edo txofer **kapeladunik** ere. Berria - Euskal Herria

Bi multzo ikusten nituen; bata beroki eta **kapeladun** juduek osatua, eta espaloietan, jendetza, arropa alaiz jantzita. Felipe Juaristi

Halako batean, hilen mendien gainean, itzal izugarria agertu zen: zaldizkoa, garaia, **kapeladuna,** eta kapa beltzean bildua. Agustin Otsoa

**Kapeladunarekin** zegoena bizkarra emanda zegoen. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kapeladun emakumea** (3)
> **gizon kapeladuna** (3)

---

# kapelagile *iz* kapelak egiten dituen langilea.

Tournebride karrikako 16an, Urbain **kapelagileak,** kepisetan espezializatuak, apezpikuen kapela gorri erraldoi bat esekiarazi du ikur gisa, eta haren urrezko borlak lurretik bi metrora daude dilindan. Zeren, ez dielarik opilgile, arropagile, jostun zein **kapelagileen** arimei muzin egiten, ez baitit noski niri egingo. Monika Etxebarria

---

**kapelaño** *iz* kapelatxoa.

Bertan haraxeago, berari zorrotz begira **kapelaño** batez jantzitako tipo bizartxuri bat zegoen. Pablo Sastre

---

# kapelatxo *iz* kapela txikia.

Belotxo beltz bat, meheegia, laburregia, nolanahi lotua **kapelatxo** barregarri baten ertzean, erdizka estaltzen zion zauri sakon itxuragabe baten orbana ezker begiaren gainean. Matías Múgica

Ondo tristea da, gero, inoren haurrentzat **kapelatxoak** egiten jardutea denbora guztian. Josu Zabaleta

Burua estaltzeko egunkariko orri zabal bat hartu eta **kapelatxo** bat egin besterik ez daukazu. Pako Aristi

Utziko didazu **kapelatxo** hori kentzen? Josu Zabaleta

---

# kapelatzar *iz adkor* kapela handia.

Zoaz eta eros ezazu zeuretzako **kapelatzar** gorri bat, mitxoletak dituena apaingarri... Mirentxu Larrañaga

---

## kapelau ik **kaperau**.

---

# kapelaxka *iz* kalepatxoa.

Ivy bere kolibri-**kapelaxka** buruanøø. Joxe Austin Arrieta

---

# kapelet *iz* arrosarioa.

Haurrean beldurra eragiten zioten amamaren mantalet eta **kapeletak,** zein armairutan zeuden bazekien hil mihise amironatuak. Itxaro Borda

Mantelina eta **kapelet** beltzen gerizan. Itxaro Borda

---

# kapelu *(314 agerraldi, 67 liburu eta 8 artikulutan; orobat **kapilu** g.er.)* **1** *iz* kapela.

Lurbira osoko eguzkiek erretako **kapelu** higatu bat zeraman aurre-aurrera botea aurpegi zimurraren gainean. Karlos Zabala

Barre artean, **kapelu** lumadunak eta esku larru lodi loredunak kendu zituzten eta mahai gainean utzi. Felipe Juaristi

Ukalondo bat piano gainean bermatuta, masailak puzten zizkion irribarre maltzurra ahoan eta, beste askotan bezala, **kapelu** kopaduna buruan. Ramon Saizarbitoria

Azpantar zuriak, larruzko mantala eta **kapelu** luze iledunak. Askoren artean

Virgiliok alkandora zuria, gorbata gorria eta **kapelu** beltz hegal motzekoa zeramatzan. Felipe Juaristi

Jantziak zarpail, bizkarra makur, lumarik ez haren **kapelu** hega-zabal ilupatuan. Aingeru Epaltza

**Kapelu** zuriagatik ezagutu genuen komandantea zela. Koldo Izagirre

Ia egun osoa ematen zuen aitzur lanean lastozko **kapelu** handi bat jantzita. Ramon Saizarbitoria

Las Vegasen nengoen, hegal zabaleko **kapelu** eta habano ke artean. Iñigo Aranbarri

Medikuak ordea **kapelua** jantzi eta erantzun zien: [...]. Josu Zabaleta

Pope batek **kapelua** erantzi zuen haren aldamenetik igarotzean. Jose Morales

Jaunak, **kapelua** erantzi, eta lepo inguruan bildurik zeraman artilezko zapi ñabarra askatu zuen. Jose Morales

**Kapelua** kendu zuen, bitartean ingurura begiratuz, eta sofan jarri zen. Fernando Rey

**Kapeluari** airean eraginez agurtu zuen. Jose Morales

**Kapeluak** eta txanoak saltzen zituen denda bat. Jose Morales

Burua biluzik eta **kapelua** eskuan. Jose Morales

Eskua **kapelura** marinelen diosala, **kapeluan** izarrik ez. Koldo Izagirre

## **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kapelu**-zulotik bandera hiru koloreko bat ateraz gero. Ander Irizar

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kopa **kapelu** eroria eta hegal estukoa. Koldo Izagirre

Bere onddo-**kapeluari** eskuineko eskuaz helduz. Txillardegi

Plater-**kapelua** zeraman beltz ikusgarri batek.Bere Panama **kapelu** fina. Juan Martin Elexpuru

Baseball **kapelu** horrekin. Edorta Jimenez

Emakumeen orrazkera moreak, lasto-**kapelua** erantzita daramaten gizonezko burusoilen artean. Joxe Austin Arrieta

Andere-**kapelu** apain harrosko deigarri horietakoak. Txillardegi

Pintatzaile-**kapeluaren** azpitik begira. Felipe Juaristi

**4** irud/hed

musika estilo desberdinak entzunen dira, Jazzaren **kapelua** biziki zabala baita. Herria

**5** ***kapelu-zuri*** *(corpusean **kapeluzuri** soilik) iz*

Gezurra ematen du, baina agidanez **kapeluzuriak** sinetsi egin zuen gure kapitainaren esana. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **hegal zabaleko kapelu** (3); **kapelu beltz** (3); **kapelu lumaduna** (4); **lastozko kapelu** (5); **lastozko kapelu bat** (3)
>
> **kapelua buruan** (11); **kapelua erantzi** (6); **kapelua eranzten** (3); **kapelua eskuan** (11); **kapelua hartu** (4); **kapelua jantzi** (3); **kapelua kendu** (4); **kapelua zeraman** (3); **lastozko kapelua** (3)
>
> **kapeluak eta txanoak** (3)

---

# kapeludun *izond* kapeladuna.

Paveseren isla irudituko zaio arkupe batetik bestera pasatu den **kapeludun** gizon garai argal hori. Berria - Kultura

---

# kapelutegi *iz* kapelak uzteko altzaria.

Mezako ardo goxo hark goragoko sentsazioetara eraman zuen, sotana izerdituak errebisatzen zituen han **kapelutegian** zintzilik eta bazituen haientzat zeresanak. Joseba Sarrionandia

---

# kapelutxo *iz* kapelatxoa.

Orduarko galajantzia soinean zuen antezko eskularru eta **kapelutxo** tiroles eta guzti. Fernando Rey

Urre-harizko **kapelutxo** bat. Juan Garzia

---

# kapelutzar *iz* kapelatzarra.

Arrats osoa pasatzen dute lur gainean kokoriko, beren lastozko **kapelutzarren** azpian, perretxikoak bezain geldirik, argirik gabe ere pozik, isilik. Joxe Austin Arrieta

Nire ama Anna Kuliscioffekin, biak euri azpian, biak beloarekin eta **kapelutzar** lumadun banarekin. Fernando Rey

---

# kapeluzuri ik **kapelu 5**.

---

# kapena *iz* ehiza gunea.

Aurten bereziki gaitzeko balentriak dituzte gure ihizlariek **kapena** horietan, batean berrogoi eta zonbait egunean. Herria

Duela zonbait urte gertatua, **kapena** batetik besterat solas egiten zutelarik, oihan pareta batetik besterat: batek tiro batez urtxo bat botatzen du: "Errak entzun duka ttunpa hori", geroxago bestek bi tiroz bi urtxo eta dio, oihu batez " Errak entzun tuka bi ttunpa horiek !..." Herria

---

# kapera 1 *iz* egoitza edo etxe batean kokaturiko eliza txiki eta aldare-bakarra.

Oñatiko Unibertsitateko **kaperako** erretaula zaharberritua aurkeztu zuten atzo. Berria - Kultura

Kontatua dut lehenago Sarasolatarrek **kapera** partikular bat zutela. Xabier Mendiguren Elizegi

Elgarren arteko solasek hartzen ziguten denbora, bai eta kanpalekuko **kaperak**. Marzel Etxehandi

**Kapera** protestante batean egin genuen saioa. Berria - Kultura

**2** eliza bateko zati berezia, bigarren mailako aldarea duena.

Estigma Sakratuen fraideek abside aldameneko **kapera** batean hobiratu zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

La Trinidad de Cuevas ermitako **kapera** hor dut jadanik. Piarres Aintziart

**Kapera** Sixtinoa, Michelangelo Buonarrotirena. Xabier Mendiguren Elizegi

Sixtotar **Kaperako** kantariei. Josu Zabaleta

Erakuts iezazkidazue aurrenik **kapera,** kapitulu-aretoa, klaustroa, jantokia, sukaldea, logela eta ukuilua, eserleku ederrak, mahai bikainak eta bizileku zabalak. Askoren artean

**3** aldare bakarreko elizatxoa. ik **ermita**.

Oilandoiko **Kapera,** ez dakit ezagutzen duzun... Menane Oxandabaratz

Bide horren bazterrean zagon Salbatoreko **kapera,** oraino ere beilatoki dena. Herria

Donazaharreko Ospitalia **kapera**. Herria

Garesko zubi ospetsuaren erdi-erdian, garai batean, **kapera** bat zegoen, eta barruan Ama Birjinaren irudi bat gurtzen zen. Martin Anso

Eraiki zazu hemen **kapera** bat. Herria

Bide bazterreko **kapera** batean erre genuen harrapakina. Aingeru Epaltza

Ustezko **kapera** beraz, Ortegako Santutegia dut! Piarres Aintziart

**Kaperako** ezkilek mezatarako deitu arte. Matías Mujika

**4** (hitz elkartuetan)

Meza **kapera** betea zela. Herria

**5** erlijiozko musikako abestaldea.

Peñaflorida **kaperako** abeslariek bi lan izango dituzte gaurko emanaldian, bakarlarien lana egiteaz gain koruarena egingo baitute. Berria - Kultura

Horrez gain, Easo **Kapera** Gregorianistak Andres Sostoaren lanak abestuko ditu. Berria - Kultura

Josep Cabrek zuzendu du **Kapera**. Berria - Kultura

**6** ***hil kapera*** *(orobat **hilkapera** g.er.)* hildakoa, hiletak egin aurretik, jartzen den lekua.

Oiartzungo kultur etxean **hil-kapera** jarri zuten atzo, eta hileta elizkizunak gaur egingo dituzte. San Giacomo elizako gela batean atondu zuten **hil kapera**. Berria -

Harian

Aurretik Solagurenen **hil kapera** ikustera joana zen Otegi. Berria - Euskal Herria

Hamaika herritarrek bisitatu zuten Altunaren **hilkapera**. Berria - Kultura

14:30ean itxiko dute **hil kapera**. Berria - Kirola

Milaka lagun igaro dira San Petri basilikan jarritako **hil kaperatik**. Berria - Harian

**Hilkaperatik** basilikarako bidean. Berria - Kultura

Lehen egunean milioi bat lagun izan dira Vatikanoko **hil-kaperan**. Berria - Harian

Gurdien atzealde irekiek **hil kaperak** ziruditen, non taxuz ebakitako okela puska biluzien distira kartsuak begien bistara baitzetozen tabernakuluaren sakonuneetatik. Karlos Zabala

**7** ***kapera maisu*** eliza bateko abeslari eta musika-jotzaileen burua.

Nire aita **kapera** maisua zen hango katedralean. Felipe Juaristi

Egilea jesuiten elizako **kapera** maisu izan zen, Eglise de l'opera esaten zitzaion hartakoa. Berria - Kultura

Eta San Marco basilika [...] bi edo hiru koru desberdinek jo zezaten aproposa, **kapera** maisu ororen amets bihurtua zen, ez baitzen garaiko musika aurrerapen formalak saiatzeko hoberik. Felipe Juaristi

**8** ***musika kapera*** eliza bateko abeslari eta musika-jotzaileen taldea.

Euskal Herriko musika erakunderik zaharrenak, Iruñeko katedralaren musika **kaperak,** 800 urte beteko ditu aurten. Berria - Kultura

Aurelio Sagaseta Musika **Kaperako** egungo zuzendariak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ama birjinaren kapera** (3); **hil kapera** (18); **hil kapera ikustera** (3); **kapera bete** (4); **kapera bete betea** (3); **kapera betea** (3); **kapera ikustera** (4); **kapera ilun** (4); **kapera txiki** (4)
>
> **aflorida kaperak** (6); peñ
>
> **kaperako freskoa** (5); **kaperako freskoa pintatzen** (3)
>
> **; abbadia jauregiko kaperan** (9); **akotzeko kaperan** (3); **elizaberriko kaperan** (3); **frantxixkanoen kaperan** (6); **gazteluko kaperan** (3); **hil kaperan** (4); **jauregiko kaperan** (11); **kaperan izan** (3); **kaperan sartu** (3); **kaperan sartzea** (3); **kaperan sartzen** (4); **meza kaperan** (4); **misionesten kaperan** (5); **otsartiko kaperan** (3); **santa katalina kaperan** (3); **sixtoren kaperan** (7); **urdazuriko kaperan** (3); **uztaritzeko kaperan** (3)
>
> **kaperara eraman** (3); **kaperara joan** (3)
>
> **kaperarat joan** (3)
>
> **aflorida kaperaren** (3); **musika kaperaren** (4); **peñ sokorriko kaperaren** (3)

---

## kaperaño *iz* kaperatxoa.

Han berean bada ere **kaperaño** bat arras pollita, lehengo ermita batena, biziki ezagutua. Herria

Hor, sahetseko **kaperaño** batean. Herria

---

## kaperatto *iz* kaperatxoa.

Urdiñarben omen San Gregorioren **kaperatto** bat. Pello Zabala

Astelehen huntan, bere bururik aipatu ez duen andere baten ehortzetak ziren hor: **kaperattoaren** bete hor zirelarik tokiko enbalier multxo bat beren segitzaileekin, Lurderat ere urte guziz heltzen dituztenak. Herria

---

## kaperatu, kapera(tu), kaperatzen du *ad* kapera bihurtu.

Etxe-buruan ganbara bat **kaperatu** genuen, eta han meza egun guziez eman genezakeen. Marzel Etxehandi

---

## kaperatxo *iz* kapera txikia.

San Damiango **kaperatxoan**. Askoren artean

Kandela piztuak Amabirjinaren irudiaren aurrean jartzera joan zen, ezkerreko **kaperatxoan**. Koldo Biguri

Osaba eta "Tante Rose" 1841ean esposatu ziren oso gertu dagoen Notre Dame de Buglose-ren **kaperatxo** arkudunean. Txillardegi

Alboko **kaperatxo** batera sartu nintzen. Alberto Ladron Arana

---

## kaperau *(31 agerraldi, 6 liburu eta 3 artikulutan; orobat **kapelau** g.er. eta **kapeilau** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kapilau** agertzen da)* **1** *iz* kapilaua.

**Kaperau** militar bat. Jon Alonso

Cromwellen armadako **kaperau** batek. Xabier Olarra

-Batailoiko **kaperauaren** paperak. Edorta Jimenez

Gudarien **kaperauen** zerrendetan Andres Untzainen izena ageri da. Edorta Jimenez

Santutegiko **kaperau** Migel Larrenbeberek. Berria - Kultura

Biografiarik gabeko santa huraxe baitzuten zaindari, eta larunbatero, "pelaire" batek edo **kapelauak,** biztuko zion kandela. Patziku Perurena

Uraitzeko klaratarren komentuko **kaperau** izendatu zutena. Joan Mari Irigoien

Saseta metrailadore-batailoiko **kaperau** ibili zen. Edorta Jimenez

**Kaperau** jardun du eta, hori ez da bekatu. Edorta Jimenez

Apaiz anglikanoa zen eta itsasontzi batean **kaperau** ibili zen hasiera batean. Juan Martin Elexpuru

**2** (hitz elkartuetan)

**Kaperau**-zereginetara mugatua den. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kaperau ibili zen** (3)

---

## kapeta *iz* landareen punta.

Uda etxen pasatu nuen, lehen bezala belarretan aitama, anai arreba eta mutilarekin, gero arto jorran, eta berantago **kapetak** mozten, alimaleko espalak ezker sorbaldan

karreatzen nituela, lorian. Piarres Aintziart

---

**kapetatu,** kapeta(tu), kapetatzen du *ad* inausi.

Otsailan Placidako patarrean platanen **kapetatzea** eginen da. Herria

---

**kapila** **1** *iz* kapera.

Koinataren besotik komentuko **kapila** nagusira sartu zenean. Xabier Etxabe

Ezker aldean, santuaren **kapila** . Berria - Kultura

Otsailaren 18an esposatu ziren Loiolako konbertsio **kapilan** . Iñigo Aranbarri

**2** pertsona talde itxia, interes edo asmo bertsuak dituena.

Bakar batzuek erabakitzen dute une bakoitzean zer den baliagarria euskal literaturan, lau editorek, bi kritikarik, **kapila** baten inguruan bildutako idazle jakin batzuek... beraz, nola egongo naiz ni sistemak zer esango zain? Ana Urkiza

Baina talde lanak, gurean, **kapila** lana dakar atzetik, eta hori ez zait hain positiboa iruditzen. Ana Urkiza

Euskal kritikan aldez aurretik asma daiteke zer esango duen segun eta zer **kapilatakoa** den kritika egiten duena. Ana Urkiza

---

**kapilar** **1** *iz* arteria txikien amaieran eta zain txikien hasieran izaten den odol hodi txikietako bakoitza.

**Kapilarrak** hain dira meharrak, ezen globulu gorri bat baino ez baitaiteke igaro aldiko. Irene Aldasoro

Eskakizun teknikoei aurre egiteko moduan diseinaturik daude **kapilarrak** . Irene Aldasoro

Hotz handiarekin, berriz, arropaz estalitako gorputz-ataletako **kapilarrak** uzkurtu egiten dira. Irene Aldasoro

Bihotzetik biriketako **kapilarretara** datorren odola. Irene Aldasoro

Albeoloen eta **kapilarren** artean dauden paretetatik zehar barreiatzen da oxigenoa odolera. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Barne-hutsak dira [osteonak], eta odol-**kapilarrek** betetzen dute barru hori. Irene Aldasoro

Odol-**kapilarretan** katigaturik daude tubuluak. Irene Aldasoro

---

**kapilau** *(49 agerraldi, 22 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* moja komentu, espetxe, gudaletxe... bateko elizkizunen ardura duen apaiza; kapera baten ardura duen apaiza.

San Joan de Val de Varri monasterioko klaratarren **kapilau** . Askoren artean

Legendunen **kapilauaren** etxean jarri ziren bizitzen. Askoren artean

Euzko Gudarosteko **kapilau** boluntario izanak. Jokin Urain

Eukaristia zeraman **kapilau** baten eskolta gisa zihoan bera. Ikastetxeko **kapilaua** hurbildu zitzaion Dopazori urduri, ahapetik mintzatu zitzaion. Ramon Saizarbitoria

**Kapilauak** oparitzen zizkigun otoitzerako estanpekin eginiko baraja. Koldo Izagirre

Ontziko **kapilaua** espainiarra zela. Berria - Kultura

Bi koronel-orde erori ziren gure eskuetan, baita Valentziako **kapilau** bat, kapitain bat, teniente pare bat [...]. Txillardegi

**Kapilauari** ez zaio zilegi monasterioan sartzea beste lagun batekin ez bada. Askoren artean

**Kapilauak** oparitzen zizkigun otoitzerako estanpekin eginiko baraja. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

Gerra-**kapilau** bat, Ciano kondea eta D'Annunzio. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaldun eta kapilauei** (3)

---

kapilu ik **kapelu**.

---

kapirio ik **gapirio**.

---

**kapirote** *iz* txano puntaduna.

Gero tunika eta **kapirotea** jantzi eta kalabozo hartatik atera nintzen. Burua punta zorrotzean bukatzen zen **kapirote** batez estaltzen zuten, aste santuko marmo edo mozorroen moduan. Jon Alonso

Amorraziozko keinu batez **kapirotea** kendu zuen. Jon Alonso

---

**kapirotedun** *izond* kapirotea jantzia duen pertsona.

Beste aldean **kapirotedun** elemenia zegoen bildurik, elkarren artean hizketan, binaka, taldetxoetan, biribiletan. Jon Alonso

Nahikoa izan zen **kapirotedun** guztien tripak lurrarekin berdin zitezen. Jon Alonso

---

**kapitain** **1** *iz* konpainia baten edo artilleria bateria baten buruzagi den ofiziala.

Cartier **kapitainak** harkiak deitu ditu bere ondora. Xabier Montoia

Konpainiako **kapitaina** troparen buruan zegoen. Itxaro Borda

Arrastirian, ziudadelako **kapitainek** beren konpainiak bildu zituzten San German atearen inguruko bastioietan. Aingeru Epaltza

Bi koronel-orde erori ziren gure eskuetan, baita Valentziako kapilau bat, **kapitain** bat, teniente pare bat, hiruzpalau sarjentu, lau kabo, eta berrehun eta piku soldadu. Txillardegi

Errusiar armadako **kapitain** bat. Pablo Sastre

Gizon bat hil zuela, gudarosteko **kapitain** bat. Jon Muñoz

**Kapitain** alemanaren ondoan frantses armadako bi lotinant ere ba omen zituan. Itxaro Borda
Karabineroen **kapitaina** zela. Edorta Jimenez
Hesiaren lehenengo arduraduna, Pablo Murga Ingeniarien **kapitaina** . Lutxo Egia
Arauzko armarekin Guardia Zibileko **kapitain** bat hil izana leporatzen zioten Franco Martini. Berria - Kultura
**Kapitain** soila nauzu. Xabier Montoia
Austriako basozainen txanoa zeraman **kapitain** bat. Fernando Rey
Werner, okupazio armada alemaneko **kapitain** zainarta. Itxaro Borda
**Kapitain** karlista ohi bat neraman lagun. Koldo Izagirre
-Zure esanetara, nire **kapitaina** ! Txillardegi
Mesedez, ene **kapitaina,** mana iezaiozu botak garbitzeko, ikusiko duzu egia esaten dizudala. Koldo Izagirre
-Norabideak kalkulatuta ditut, **kapitain** jauna... Josu Zabaleta
-Entzuna, **kapitain** jauna! Josu Zabaleta
**-Kapitaina..** . konpasa! Josu Zabaleta

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kapitain** maila iritsi zuen gure armada xumean. Alberto Ladron Arana
Ameriketako Estatu Batuetako Armadako **kapitain** gradua duela. Edorta Jimenez
**Kapitain** graduarekin Aireko armadako eskola teknikoko irakasle izendatu zuten. Josu Zabaleta
Argazkian, aitak enperadorearen guardiako **kapitain** -uniformea zeukan soinean. Xabier Olarra
Bigarren bulegoko **kapitain** -zuzendari arduradun handiak bazekien gertatzen zena. Itxaro Borda
Laster hasten zen oihuka, **kapitain** -ahotsa jarriz: [...]. Julen Gabiria
Horretan **kapitain** galoiak janzten zituen De Gaulle artean gaztea izan zen. Edorta Jimenez
Horiek egitea kasik-kasik bere **kapitain** zereginen barruan dagoela esan liteke. Edorta Jimenez
**Kapitain** kasketa buruan. Itxaro Borda
**Kapitain** jantzi higatua. Aurelia Arkotxa
**Kapitain** galtzak kitatzen zituenean Janinaren begiak ez ziren haren ipurdi mazela zainart eta ilezuetarik kantitzen. Itxaro Borda

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Vetvitski infanteria- **kapitainak** koronelak baino zaldi hobea zuela. Jose Morales
Polizia **kapitain** bat hil eta bi agente zauritu zituzten erasotzaileek. Berria - Mundua

## 4 gudari-buruzagia.

Errege edo **kapitain** nagusien premiazko agindu batengatik abiatzeko prest beti. Agustin Otsoa
Larrea, Donibaneko gazteluzain eta, beraz, Nafarroa Behereko **kapitain** izendatu berria. Aingeru Epaltza
Nire gizonen **kapitain** eginen haut egun batean. Aingeru Epaltza
Gedeon juduen **kapitain** entzutetsuaren garaipena. Jon Alonso
Mosketarien **kapitain** gaskoin batek. Felipe Juaristi
-Jaun noblea da eta gizakien **kapitain** handia -esan zuen Legolasek-.Eta ekin nion neure ibilaldiari, neure buruaren buruzagi, **kapitain** eta gidari. Agustin Otsoa

## 5 merkataritza itsasontzi baten burua; itsasontzi baten burua.

*Walrus* deitzen zen Flint **kapitainaren** itsasontzia. Julen Gabiria
Italiako itsasontzi bateko **kapitain** eta ontzijabeari 70.000 euro ordaintzera zigortu zituen Marseillako auzitegi batek, ontziak joan zen martxoan 22 tona ekilore olio eta hidrokarburo Mediterraneoan bota zituelako. Berria - Gaiak
Mangouras zen *Prestige* petroliontziko **kapitaina** 2002ko azaroaren 13an. Berria - Gaiak
Itsasontziko **kapitain** ingeles bati. Xabier Olarra
Geroago jakingo nuen merkantziontziko **kapitain** ohia zela. Joseba Sarrionandia
Juan Duñabeitia **kapitain** duen ontzi horretan. Edorta Jimenez
Hik uste duk **kapitain** batek ontzia bokalean sartuko lukeela galerna honekin? Koldo Izagirre
Joanes Iraurgi izeneko euskalduna **kapitain** zuen kargaontzian. Felipe Juaristi
Denok egiten diogu zuka Manterolari, **kapitain** merkantea da eta gu analfabeto hutsak. Koldo Izagirre
Espainiako bandera zeraman itsasontzi batean, Joanes de Iraurgi, fragata **kapitaina** . Felipe Juaristi
Berehala nagusitu zitzaizkigun, gure galeoiko **kapitainak** bandera zuria mastaratzen zuela. Joan Mari Irigoien
**Kapitain** piratak ababorreko karelaren ondoan etzanda aurkitu zuen Alida, lo balego bezala. Martin Anso

## 6 (hitz elkartuetan)

Michel de Salaberry hori Kanadarat joan zen denbora batez Frantziako erregearen itsas-untzietan **kapitain** gradorat heldu ondoan. Herria
Halako batean Okendoren **kapitain** -ontziko nagusi Juan Tolosakoaren hitzak etorri zitzaizkidan. Edorta Jimenez
· Robert Peary ontzi **kapitain** ospetsuak. Pablo Sastre
Ondotik jakin zen torturatzaile atrebituenetarik zutela Alfredo Astiz mariñel **kapitaina** . Herria

## 7 kirol talde baten burua.

Miarritzen **kapitain** izatea erraza dela dio, giro ona dagoelako eta jokalari guztiak direlako profesionalak. Berria - Kirola
Gorritxoen **kapitain** Cesar Krutxagak. Berria - Kirola
Frantziako taldearen **kapitain** izana, entrenatzailea gero, ez zen nor nahi. Herria
Dallaglio da Ingalaterrako **kapitain** berria. Berria - Kirola
Irlanda selekzioko **kapitain** berria. Berria - Kirola
Argi eta garbi mintzatu da **Bidasoako** kapitain Julen Aginagalde: [...]. Berria - Kirola
O'Driscollek ez zuen partidarik onena jokatu, baina **kapitain** lanak zuzen bete zituen. Berria - Kirola

## • 8 (predikatu gisa)

Egin beharko luke, **kapitain** dabilenez gero. Edorta Jimenez
Trujillok zin egin zuen Blanco hiltzen zuena **kapitain** egingo zuela eta kapitaina bazen, komandante izendatuko zuela. Gotzon Garate
**Kapitain** izendatu zuten eta Flandeseko borrokaldia amaitu ondoren Siziliako Palermon utzi zuten. Felipe Juaristi
Bere burua soldaduen **kapitain** izendatu zuen. Felipe Juaristi

## 9 *itsas kapitain*

Ikasketez **itsas kapitaina,** bere itsasontzi konpainia sortu zuen. Edorta Jimenez
Urrezko belarritako baten jabe omen zen, garai batean **itsas kapitain** izanaren bereizgarri. Joxerra Garzia
**Itsas kapitain** baten alaba zen. Juan Garzia
**Itsas kapitain** errukiorren batek J.M. Olaizola "Txiliku"

## 10 *kapitain jeneral* espainiar armadako jeneral gorena.

**10 *kapitain jeneral*** espainiar armadako jeneral gorena.

**Kapitain Jeneralaren** jazkera anpurusaz jantzirik, Don Carlos bera zen heldu. Txillardegi

Don Carlosek, berriz, txapel gorria zeraman, eta **Kapitain Jeneralaren** uniformea. Txillardegi

Gero, botila bat Madeirako ardo ekartzeko agindu zuen, **kapitain jeneral** batek inoiz edango lukeena baino hobea. Jose Morales

Massachusetts-eko gobernadore izendatu zuen erregek, Maineko eta Eskozia Berriko **kapitain jeneral** . Juan Garzia

**11 *kapitain pilotu*** *(orobat* ***kapitan pilotu****)*

Agure honek, **kapitain pilotu** , Metxa, Nikolai edo aittitte esaten dioten honek. Koldo Izagirre

Itsasontzietako **kapitan-pilotu** guztiek, marinelek eta itsasoa lanbide duten guztiek, urruti gelditu Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**armadako kapitain** (8); **guardia zibileko kapitain** (4); **gudarosteko kapitain** (3); **itsas kapitain** (3); **johnson kapitain** (3); **kapitain bat hil** (3); **kapitain beltza** (3); **kapitain berria** (4); **kapitain egin** (3); **kapitain egingo** (3); **kapitain espainiar** (3); **kapitain gazte** (3); **kapitain handia** (4); **kapitain handiaren** (3); **kapitain izan** (4); **kapitain izan zen** (3); **kapitain izendatu** (4); **kapitain jauna** (60); **kapitain jeneral** (3); **kapitain lanak** (3); **kapitain ohia** (6); **kapitain ohiak** (5); **kapitain ohiaren** (3); **kapitain onenaren saria** (3); **portlandeko kapitain** (3)

**abeitia kapitaina** (3); **akab kapitaina** (6); **armadako kapitaina** (5); **bolton kapitaina** (4); **duñ gorritxoen kapitaina** (3); **ingalaterrako kapitaina** (3); **itsasontziko kapitaina** (6); **jaun kapitaina** (6); **kako oker kapitaina** (3); **kapitaina eta marinelak** (3); **kapitaina etorri** (4); **kapitaina ikusi** (4); **kapitaina izan** (12); **kapitaina izan zen** (5); **kapitaina izango** (5); **konpainiako kapitaina** (3); **kopeikin kapitaina** (11); **leviatan itsasontziko kapitaina** (3); **lievremont kapitaina** (10); **mateo garralda kapitaina** (3); **mendizabal kapitaina** (4); **nemo kapitaina** (10); **oihartzabal kapitaina** (7); **ontziko kapitaina** (4); **osasunako kapitaina** (5); **piarres oihartzabal kapitaina** (7); **pitito kapitaina** (3); **schumacher kapitaina** (5); **selekzioko kapitaina** (3); **smith kapitaina** (4); **taldeko kapitaina** (14); **taldeko kapitaina da** (3); **tauko kapitaina** (4); **thomas kapitaina** (4); **varela kapitaina** (3)

**athleticeko kapitainak** (4); **degrela kapitainak** (5); **filippin kapitainak** (3); **gorritxoen kapitainak** (3); **itsasontziko kapitainak** (3); **kapitainak adierazi** (3); **kapitainak agindu** (3); **kapitainak aitortu** (4); **kapitainak atzo** (3); **kapitainak eman** (3); **kapitainak erran** (8); **kapitainak esan** (4); **kid kapitainak** (5); **krutxaga kapitainak** (9); **lievremont kapitainak** (10); **mcavoy kapitainak** (4); **mendebaldeko kapitainak** (6); **nemo kapitainak** (6); **ontziko kapitainak** (7); **piarres oihartzabal kapitainak** (10); **polizi kapitainak** (9); **selekzioko kapitainak** (3); **taldeko kapitainak** (6); **tauko kapitainak** (3); **wilkes kapitainak** (3)

**piarres oihartzabal kapitainarekin** (5)

**anakabe kapitainaren** (3); **bolton kapitainaren** (5); **bolton kapitainaren alaba** (3); **kapitainaren agindupean** (5); **kapitainaren balada** (5); **kapitainaren besokoa** (3); **kapitainaren egoera** (3); **kapitainaren hiltzailea** (4); **kapitainaren hitzak** (3); **kapitainaren inguruan** (3); **kopeikin kapitainaren** (4); **nemo kapitainaren** (6); **piarres oihartzabal kapitainaren** (10); **varela kapitainaren** (8); **varela kapitainaren hiltzailea** (4)

**joan ziren kapitainarengana** (3)

**piarres oihartzabal kapitainarenganat** (3)

**mangouras kapitainari** (3); **ontziko kapitainari** (7); **piarres oihartzabal kapitainari** (3); **prestige ontziko kapitainari** (3)

**mendebaldeko kapitainek** (5)

**mendebaldeko kapitainen** (3)

---

## kapitaingo **1** *iz* kapitainaren maila.

**-...kapitaingoaz** jabe daitekeen zaldun edo aitonen semerik izendatzen ez dudan artean. Aingeru Epaltza

Bertze agiri batek Garrüzeko **kapitaingoan** sendotu zuen "Mailuko kapare edo zalduna", anarterainoko tituluari -"kapitainorde"- buztan lotsagarria kenduz. Aingeru Epaltza

**2 *Kapitaingo Nagusi*[1]** Kapitain Nagusiaren maila.

Zeu nintzen, Lilio, erbesteratu tristea anaiarik mazalena tronuaren eta aldarearen aurka jagia esperantzaren aingeru Burgosko **Kapitaingo Nagusia** ikaratzeko. Koldo Izagirre

**3 *Kapitaingo Nagusi*[2]** Kapitain Nagusiaren egoitza.

Burgosko **Kapitaingo Nagusiaren** azpiko parkinean. Koldo Izagirre

---

## kapitainorde *iz* kapitainaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Armadako **kapitainorde** batek. Jose Morales

Aleksandra Stepanovnak etxetik ihes egin zuen zaldieri-errejimentu bateko **kapitainorde** batekin. Jose Morales

Garrüzeko errege-gazteluan, **kapitainorde..** . Aingeru Epaltza

Gotorlekuko **kapitainordeari** . Aingeru Epaltza

Notarioak xehe-xehe papereratu zuen Garrüzeko **kapitainordearen** arrangura. Aingeru Epaltza

Bertze agiri batek Garrüzeko kapitaingoan sendotu zuen "Mailuko kapare edo zalduna", anarterainoko tituluari **-"kapitainorde"-** buztan lotsagarria kenduz. Aingeru Epaltza

---

## kapitainordetza *iz* kapitainor dearen maila.

Aitatxik lau hilabete egin zituen etxetik kanpo, bere **kapitainordetzara** itzultzeko baimena eskuratu artean. Aingeru Epaltza

---

## kapitaintza

**1 *Itsas Kapitaintza*** Itsas Kapitainaren egoitza.

Bizkaiko **Itsas Kapitaintzatik** ontzia hondoratuta dagoen leku inguruan ez urperatzeko eta ez nabigatzeko agindu du. Berria - Euskal Herria

**2 *Kapitaintza Nagusi/Jeneral*** Kapitain Nagusiaren egoitza.

Egun batean nazkatu egin nintzen eta **Kapitaintza Nagusira** joan nintzen, eta han epailearen aurrean aurkeztu nintzen. Berria - Harian

1970. urtean epaiketa militarra izan zuten Burgosko **Kapitaintza Jeneralean** . Rafa Egiguren

---

## kapital[1] **1** *iz* norbaitek duen dirua, edo diru bihur daitezkeen ondasunen multzoa; enpresa batean ezarritako dirua, edo nolanahiko korritua ematen duen dirua; etekinak edo ondasun berriak ekoiztera xedaturiko edozein ondasun; zorra osatzen duen diru kopurua.

Hamar urteko epean, enpresaren **kapital** osoa berea izango da. Berria - Ekonomia

**Kapital** handiak immobilizatu behar izaten direla. Koro Navarro

Estatua errepublika bada [...] amortizazio-funtseko **kapitalak** ez dauka oso handia izan beharrik; monarkia batean, **kapital** horrek handiagoa izan behar du. Iñaki Iñurrieta

1990-1993 urteetan tokiko finantza- merkatuan inbertituriko **kapital** ugariak. Koro Navarro

**Kapital** pribatuen nazioarteko merkatu bat osatzea. Koro Navarro

1.149 milioiko **kapital** soziala. Berria - Ekonomia

Ez direla gai munduko **kapital** pribatuaren fluxuak kontrolatzeko. Iñaki Heras

Estatuek [...] munduko merkatuetan zirkulatzen zuten **kapital** espekulatiboen masa izugarriaren kontra ezin zutelarik borrokarik egin, amore eman eta errealitate berri horretara egokitu behar izan dute. Koro Navarro

Gizarte ongizate globalaren eta **kapital** naturalaren mugak batere kontuan hartzeke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Kapitalaren** jabetza ez da atzerritarren esku geratzen. Koro Navarro

Atzerritar **kapitalaren** falta, edozein delarik ere, nabarmena da Afrika beltzean ere. Koro Navarro

Judu batek **kapital** bat mailegatzen du; urte bukaeran, korritu gisa, kapitalaren erro kuboa ordainduko dioten baldintzarekin. Jon Muñoz

Estatuak harpidetutako tituluak, 300 eta 500 milioi euro arteko balioa dutenak, **kapital** bihurtu ahal izango ditu. Berria - Ekonomia

Telecinco-ren **kapitalaren** %35 aurten burtsaratuko da. Berria - Ekonomia

**Kapitalaren** %31 besterenganatuko du jabe den Fernandez familiak. Berria - Ekonomia

Nazio-diruen depreziazio-iragarpenik ez zegoenez, atzerritar **kapitalek** etekin handia ateratzen zieten tokiko aktiboek eskainitako errenta handiei. Koro Navarro

Nazioarteko **kapitalaren** interesak. Iñaki Heras

Zeren ekoizpen-kostu osoaren parte handi bat **kapitalaren** amortizazioari eta finantza-gastuei dagokiena izaten baita. Koro Navarro

**Kapitalaren** errentagarritasuna goratzea. Koro Navarro

## **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kapital** enpresen eredua. Iñaki Heras

**Kapital** merkatuen bilakaerari esker. Iñaki Heras

**Kapital** eta lan merkatuan. Iñaki Heras

Lan edo **kapital**-faktoreen ugaritasun erlatiboaren bitartez. Koro Navarro

**Kapital**-errenten gaineko zergak. Iñaki Heras

Urte bete edo gehiagorako joan-etorria egingo luketen **kapital** fluxuetan. Iñaki Heras

Ondo asko zekiten **kapital**-sarrera horrek beren ekonomiak biziagotzen zituela. Koro Navarro

**Kapital**-irteera horiei aurre egiteko. Koro Navarro

Enpresa nagusiaren **kapital**-ekarpenen bidez. Koro Navarro

E Estatuaren diru sarrerak %20,3 handitu ziren, **kapital** inbertsioak %35 eta industria produktuen balioa %16. Berria - Ekonomia

Nazioarteko **kapital** mugimenduek. Iñaki Heras

**Kapital** inbertsio produktiboak. Iñaki Heras

**Kapital** trukeekin, gaur egun askok eta askok izaera espekulatiboa duten trukeekin. Iñaki Heras

Zentro-ezkerrak Gobernua hartuz gero Berlusconik ahalbidetu duen **kapital**-ihesetik lortuko ditu funtsak. Berria - Mundua

Azaldu zuenez, **kapital**-ihesa 200.000 milioi eurora igo da. Berria - Mundua

**Kapital** eragiketek eragindako gastuak %6,8 jaitsi ziren. Berria - Ekonomia

**Kapital** ondasun eskasia eta zaharkitzapena nagusi dira. Iñaki Heras

· **Kapital**-Arrisku Sozietateak, abian jartzear diren enpresak laguntzeko erakundeak dira. Berria - Ekonomia

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kooperatiben Federazioak **arrisku kapitaleko** sozietate bat sortu nahi du . Eta giza **kapital** hori, neurri handi batean bederen, unibertsitateak formatzen du. Berria - Ekonomia

Gaur egungo enpresen balio nagusien artean «giza **kapitala»** dago. Berria - Ekonomia

Baina industria-iraultza zabaldu zenean, eta ekoizpen-**kapitala** indartu, irizpide nagusia ez zen jada espazioa. Koro Navarro

Gizarte kohesioa eta gizarte **kapitala** indartzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## **4** *hed/irud*

Enpresen **kapital** inportanteena bezeroak dira. Berria - Ekonomia

Elite horrek AEBen nazioarteko **kapital** politikoa desagerraraztea egozten dio Bushi. Berria - Mundua

Noizbait hitzegin beharko dugu baserritar atzo kaleratu moddernoez, hitano femeninoa menderatzea **kapital** intelektual bakartzat dutenez. Patziku Perurena

Baina kultura bakoitzean **kapital** espezifiko hori hautematen dugu: sinesmenak, ideiak, balioak, mitoak eta, batez ere, hildako, tradizio eta aurrekoekin komunitatea lotzen duen **kapitala**. Askoren artean

## **5** ***kapital emendio*** *(**5** agerraldi **4** artikulutan)* *ipar* kapital handitzea.

Ordukotzat erran zinuen **kapital emendio** bat egin beharko zela, zergatik **kapital emendio** hori orain? **Kapital emendio** hori zenbatekoa da eta zer egiteko? Herria

**Kapital emendio** hori zenbatekoa da eta zer egiteko? Herria

Oroit HERRIKOAk 6 milioi liberako **kapital emendio** kanpaina daramala larrazken honetan. Herria

## **6** ***kapital handitze*** *(**84** agerraldi **31** artikulutan)*

Frantziako Gobernuak eskatuta, bankuek onartu dute 1.000 milioi euroren **kapital handitzea** eta beste 8.000 milioi bermatzea. Berria - Ekonomia

KLB Europako liderra da sektorean eta akzioen %80 erosi ditu **kapital handitze** baten ondorioz. Berria - Ekonomia

Administrazio Kontseiluari baimena ematea, egoki ikusiz gero, hurrengo bost urteetan beharrezko ikusten dituen **kapital handitzeak** egiteko. Berria - Euskal Herria

1992an 12.500 bazkide zeuden, eta %80k jo zuten **kapital handitzera**. Berria - Kirola

Batzorde instituzional batek zuzenduko du, eta **kapital handitzearen** helburu soziala ziurtatuko du.

**Kapital handitzea** osatzea oso zaila izango dela dio. Berria - Kirola

Oso **kapital handitze** zabala izan zen. Berria - Kirola

## **7** ***kapital hedatze*** *(**8** agerraldi **7** artikulutan)* kapital handitzea.

BBVA-k %6 inguruko **kapital hedatzea** egin zuen atzo, Mexikoko Bancomerren EEP finantzatzeko. Berria - Ekonomia

Gardoki kalekoa **kapital hedatze** itzela egitera doa, presidentea aldatzeaz batera. Berria - Ekonomia

Doako **kapital hedatzea** ere egiten ari da Faes Farma, akziodunei zortzi akzioko berri bat emanez. Berria - Ekonomia

## **8** ***kapital gehitze*** *(**8** agerraldi **4** artikulutan)* kapital handitzea.

Haren ustetan, zuzendaritzak ez dauka «zilegitasun moralik» **kapital gehitzea** abian jartzeko. Berria - Kirola

Aurrekontua onartu eta **kapital gehitzea** iragarri du Realak. Berria - Kirola

Ignacio Gallok eta Peio Gibelaldek gogor kritikatu dute prozesuaren hirugarren fasea, eta **kapital gehitzea** geldiarazten ahaleginduko dira abenduaren 30eko batzarrean. Berria - Kirola

## **9** ***kapital jaulkitze***

Beraz, **kapital jaulkitzea** gertatzen den une horretan enpresak behar zuen dirutza jasoko du, eta akzioak erosi dituztenak enpresako akziodun bihurtzen dira. Iñaki Heras

## **10** ***kapital zabaltze*** *(**3** agerraldi **3** artikulutan)* kapital handitzea.

Atzo Administrazio Kontseilua bildu zen, eta operazioa finantzatzeko enpresak inoiz egindako **kapital zabaltze** handiena proposatuko die akziodunei martxoaren 30ean batzar nagusian. Berria - Ekonomia

Accionak (%4,59) esan du iruzurra argitu bitartean ez duela Avanziten **kapital zabaltzea** finantzatuko. Berria - Ekonomia

## **11** ***kapital zabalkuntza*** *(**6** agerraldi **4** artikulutan)* kapital handitzea.

**Kapital zabalkuntzak** eta salmentak medio, nabarmen aldatu da akziodunen partaidetza proportzioa konpainia sortu zenetik. Berria - Ekonomia

**Kapital zabalkuntza** egitea kaltegarria izan daitekeela ohartarazi zuen. Berria - Ekonomia

Erosketa horren %50 eta %60 artean aurten egingo duen **kapital zabalkuntzaren** bitartez pagatuko du. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

enpresaren kapital (3); euroko kapital (4); kapital arrisku (5); kapital emendio (8); kapital emendio hori (5); kapital eraketa gordina (3); kapital errenten (4); kapital gehiago (5); kapital gehitzea (5); kapital guztia (4); kapital handitze (5); kapital handitzea (47); kapital handitzea egin (6); kapital handitzea onartu (3); kapital handitzeak (9); kapital handitzearen (17); kapital hedatzea (6); kapital ihesa (5); kapital merkatu (3); kapital naturala (8); kapital naturalaren (9); kapital naturalaren stocka (3); kapital politiko (4); kapital politikoa (5); kapital pribatua (15); kapital pribatuak (6); kapital pribatuaren (12); kapital pribatuaren esku (4); kapital pribatuen (5); kapital publikoa (5); kapital soziala (8); kapital sozialaren (3); kapital zabalkuntza (3); realaren kapital (8); realaren kapital soziala (3)

enpresaren kapitala (3); errubloko kapitala (3); euroko kapitala (7); kapitala handitzeko (3); kapitala jarri (3); milioi euroko kapitala (3)

kapitalaren emendatzeko (3); kapitalaren erdia (3); kapitalaren eta lanaren (3); kapitalaren irekitzea (4); kapitalaren metaketaren (3); kapitalaren parte bat (3); kapitalaren zati bat (3); produzitutako kapitalaren (3)

atzerritar kapitalek (4)

arrisku kapitaleko (9)

atzerritar kapitalen (6); estatu batuetako kapitalen (5); kapitalen ihesa (3); kapitalen merkatuen (3); kapitalen mugikortasun (6); kapitalen mugikortasuna (5); kapitalen mugikortasunak (3); kapitalen mugimenduek (3); kapitalen mugimenduen (7); kapitalen nazioarteko (8); kapitalen nazioarteko merkatuen (3); kapitalen zirkulazio (4)

---

## kapital[2] 1 *iz* hiriburua.

Aita **kapitalean** langileen sindikatuekin kontaktuak hartzen ari zen. Pablo Sastre

**Kapitalera** joateko egun-pasa egin beharra zegoen derrigor. Xabier Etxabe

Hamabi urterekin, zerbitzari joan zen **kapitalera**. Pablo Sastre

Ondarrik, Mauritaniako **kapitala** den Nouakchotten ziren eta Dakarren bururatuko dute beren 26 garrena duten balentria hori. Herria

Herri horren **kapitala,** Nikosia. Herria

Holakorik gertatzen balitz handik urrun ez den Teheran **kapitalaren** aldean. Herria

Irakiaren **kapitaleko** erdi erdian jo dute hor terroristek. Herria

Bidenabar esan, mapak kapitalistak dira, eta **kapital** edo hiriburutik begira eginak daude oro har. Iñaki Segurola

· **Kapital** baten mozorroa jantzia zuen gau hartan hiriak. Irene Aldasoro

**2** (izenondo gisa)

Bainan han ere bonben burrunbak entzuten dira, bereziki hango gobernamenduak aitortu nahi duen baino beldurgarriagoak, Nouarskchott hiri **kapitalaren** inguruetan. Herria

**3** ***bekatu kapital*** bekatu nagusia.

Aspalditik genuen zazpi **bekatu kapitalei** buruzko antzezlan bat egiteko gogoa. Berria - Kultura

Zazpi, zenbaki ederra, zazpi direlarik euskal probintziak, zazpi direlarik ere **bekatu kapitalak**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

europako kapitala (3)

kapitalaren inguruetan (3)

irakiako bagdad kapitalean (3)

bagdad kapitaletik (5)

---

## kapitalismo 1 *iz* ekoizpen, banatze eta truke bideen jabego pribatuan onarritzen den ekonomia eta gizarte sistema.

**Kapitalismo** industrialaren garaian. Koro Navarro

**Kapitalismo** liberalaren sorkuntzaren eta beherakadaren azalpen zehatza. Iñaki Heras

**Kapitalismo** neoliberalak injustizia dakar kode genetikoan. Berria - Harian

**Kapitalismo** industrialak sortutako bidegabekeriak. Iban Zaldua

**Kapitalismo** basatiaren gehiegikeriak leuntzeko. Iñaki Heras

Ekonomia sozialaren erronkak **kapitalismo** globalean. Berria - Euskal Herria

Ultra liberalismo eta **kapitalismo** basati baten ondorio diren marea beltz eta hondamendi ekologiko jasanezinen arduradunak eta hobendunak. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kapitalista**.

Oso kontuan izan behar da **kapitalismo** sistema ezarri izan den lekuan, bertako kulturaren ezaugarriak jaso dituela. Iñaki Heras

Mendebaldeko **kapitalismo**-kulturako hoteletan film pornografikoak aukeran diren era berean. Edorta Jimenez

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Merkataritza-**kapitalismo** hark [...] ez zuen artean interes handirik ekoizpen-sisteman, gremioen arduarapean jarraitzen baitzuen. Koro Navarro

Industria-**kapitalismo** basatiaren aurka. Askoren artean

Nazio-**kapitalismo** desberdinen arteko konkurrentzia. Koro Navarro

Neoliberalismo deritzen basa-**kapitalismo** hau bizi dugunok. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

kapitalismo basatiaren (3); kapitalismo erreala (3)

kapitalismoaren aurkako (3); kapitalismoaren kontrako (8)

---

## kapitalista *(orobat **kapitalixta** g.er.)* 1 *izond* kapitalismoarena, kapitalismoari dagokiona, kapitalismoaren araberakoa. ik kapitalismo 2.

Sistema **kapitalista** edo merkatu-ekonomia hiru premisa handitan oinarritzen da: ekoizpen baliabideen jabego pribatua, merkatu askatasuna eta enpresa askatasuna. Iñaki Heras

Ekonomia **kapitalista** modernoen baitan, botere- harremanak aspalditik daude gizarte-konpromiso instituzionalizatuen gisara kodetuak. Koro Navarro

Ekoizpen modu **kapitalista**. Koro Navarro

Nazio **kapitalista** aurreratuek. Koro Navarro

Europar mundu-ekonomiaren ezaugarri espezifikoa **kapitalista** izatea da. Koro Navarro

Zibilizazio **kapitalista** nagusi den herrialdeetako langileria. Iñaki Heras

Zientzia **kapitalista** zegoen, eta zientzia proletarioa. Fernando Morillo

Gizarte **kapitalista** neoliberal honetan. Edorta Jimenez

Guk krisia ireki nahi dugu Europa **kapitalista** honetan, ez hobekuntza soil batzuk lortzen saiatu. Berria - Euskal Herria

Oinarri **kapitalista** eta suntsitzailea duen neoliberalismo patriarkal honi aurre egin nahi diogu. Berria - Harian

• **2** *iz* kapitalak, bereziki enpresa batean ezarritakoak, dituen pertsona.

**Kapitalista** guztiak urkatuta hilko dituk. Pello Lizarralde

Aita **kapitalista** zen, eta berak antikapitalistatzat zeukan bere burua. Joan Mari Irigoien

Bere klaseko printzipioak mozorrorik gabe ordezkatzen zituen antigoaleko **kapitalista** zen. Anjel Lertxundi

Hik **kapitalista** jaio beharko huen, ni bezala. Lopez de Arana

Ez zen **kapitalista** tipiko edo zapaltzaile gogor haietarik. Pablo Sastre

Komunista juduak edo **kapitalista** ingelesak. Josu Zabaleta

Ingalaterrako **kapitalistak** eta bi herrialdeetako kontsumitzaileak irabazian aterako lirateke dudarik gabe, oihala nahiz ardoa Portugalen ekoitziko balira. Koro Navarro

**3** pertsona aberatsa.

**Kapitalista** hark zuhaitzez inguratutako txalet bat zuen. Pello Lizarralde

Haientzat, frantsesak **kapitalista** zikin batzu baizik ez ziren, poloniarrak baino anitzez hobeki bizi zirenak. Eneko Bidegain

Hortaz, **kapitalista** bat zara; burges gaizto bat zara zu. Josu Zabaleta

**4** (izenondo gisa)

Olaf Merz Alemaniako familia **kapitalista** gogorrenaren senide zen. Hasier Etxeberria

Sozio **kapitalista** on bat. Patxi Iturritegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ekoizpen modu kapitalista** (5); **ekonomia kapitalista** (5); **gizarte kapitalista** (3); **modu kapitalista** (5); **sistema kapitalista** (14)

**sistema kapitalistak** (4)

**gizarte kapitalistan** (4); **sistema kapitalistan** (4)

**ekonomia kapitalistaren** (7); **modu kapitalistaren** (3); **mundu ekonomia kapitalistaren** (7); **sistema kapitalistaren** (15)

---

**kapitalizatu,** kapitaliza(tu), kapitalizatzen **1** du *ad* kapital bihurtu; kapitalari interesak batu.

Nazioarteko Erregulazioen Bankuak kredituaren arriskua [...] **kapitalizatzeko** arauak merkatuaren arriskura [...] zabaltzea proposatu du. Koro Navarro

Portugal eta Espainia ez ziren iritsi beren jabetza berrietatik ateratako baliabide izugarriak **kapitalizatzera**. Koro Navarro

Hilero kalkulatu eta **kapitalizatzen** zituen interesak. Bego Montorio

**2** kapital ekarpena egin.

Gobernuak agindu du administrazio kontseilu berria izendatuko duela eta konpainia **kapitalizatu** egingo duela. Berria - Ekonomia

**3** norbaitek gertakari bat bere onurako baliatu.

Akordioaren ostean, estatutu horrek Kataluniako gizarteko zati handi batean eragindako arbuioa **kapitalizatu** zezakeen Esquerrak. Berria - Mundua

EIZIEk prestakuntzaren alorrean saio ugari egin ditu, eta Senez-ek horiek denak **kapitalizatu** ditu: jardunaldi teknikoak, mintegiak... Berria - Kultura

Sortzaileak bertakoak izateak ikaragarrizko garrantzia dauka, azken baten irakaskuntza eta hezkuntza prozesua **kapitalizatzeko** tresna indartsua delako bertako egileak edukitzea. Berria - Euskal Herria

**4** (era burutua izenondo gisa)

Eternitate guztia zatiezinezko ondasun **kapitalizatua** balu bezala. Josu Zabaleta

---

**kapitalizatze** **1** *iz* kapital bihurtzea; kapitalari interesak batzea.

Prestakuntzaren **kapitalizatze** bide horretan. Berria - Kultura

Beren zahar arranda **kapitalizatze** pribatuen bitartez osa dezaketen erretretadunak. Herria

**2** norbaitek gertakari bat bere onurako baliatzea.

Terrorismoagatik zigortutako pertsonen **kapitalizatze** politikoa. Berria - Euskal Herria

---

**kapitalizazio** **1** *iz* kapitalizatzea.

Munduko 10. bankua bihurtuko da Santander **kapitalizazioz,** hau da, balioz. Berria - Ekonomia

Euskadiko Kutxaren ezaugarririk nagusietarikoa **kapitalizazio** handia da, mozkin errepikakorrak ugari baitira erakundean. Berria - Ekonomia

Gaur egun 1.300 banku inguru daude Errusian, baina euren **kapitalizazioa** ahula da. Berria - Ekonomia

Galiziako enpresaren kontratazio bolumena eta **kapitalizazioa,** aldiz, nabarmen jaitsi dira azkenaldian. Berria - Ekonomia

Asteartean **kapitalizazio** handieneko enpresek kotizatzen duten Dow Jones indizeak %1,08 egin zuen behera. Berria - Ekonomia

Hala erabakitzen badute, burtsan 30.000 milioi dolarreko **kapitalizazioa** izango duen enpresa sortuko dute. Berria - Ekonomia

Bezero kopuruari eta burtsako **kapitalizazioari** erreparatuta munduko elektrizitate talde handiena da EDF. Berria - Ekonomia

· Gure asmoa ez da hauteskundeetan Batera-ren **kapitalizazioa** egitea. Berria - Euskal Herria

**2** ***burtsa kapitalizazio***

1996an, hamahiru merkatu indartzen hasien burtsa-**kapitalizazioa** 2.400 mila milioi dolar ingurukoa zen, hau da, munduko burtsa-**kapitalizazioaren** %11 (1983an, 100 mila milioi). Koro Navarro

Erresuma Batuko HSBC da Europako burtsa **kapitalizazio** handieneko enpresa, 142.000 milioi eurorekin. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kapitalizazio handieneko** (3)

**kapitalizaziora iritsiko** (3)

---

**kapitazio** *iz* pertsona zerga.

Indikzioak, **kapitazioak** eta enperadoreen garaian gizon jareginen edo beren ondasunen gainean jasotako beste zergak. Iñaki Iñurrieta

[Seigarren klasekoekin] alegia, proletarioekin eta **kapitazioaren** arabera tasatuta zeudenekin. Iñaki Iñurrieta

---

**kapitel** **1** *iz* zutabe eta antzekoen goialdeko elementua. ik **txapelarri**.

Zutabe-buruetan ezartzeko, brontzezko bi **kapitel** egin zituen, bina metro eta erdikoak. Elizen arteko biblia

Zutabe-buruetan zeuden **kapiteletako** bi bolak apaintzeko. Elizen arteko biblia

Gainean bi metro eta erdiko brontzezko **kapitel** bana zuten, **kapitel** bakoitza brontzezko sare eta granadaz inguratua zelarik. Elizen arteko biblia

**Kapitelaren** altuera, abakoa ere hartuta, kolomaren beheko aldearen diametroaren neurri berekoa izango da. Santiago Iruretagoiena

Kolomen **kapitelen** gainean joango diren elementu guztiak, hau da, arkitrabe, friso, erlaitz, tinpano, frontoi, akroteriak, altueraren hamabiren bateko inklinazioarekin egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

Sua zutabeen **kapiteletan** kiribildu zen, gangaz ganga sabaietan barrena irristatu. Juan Garzia

Klaustro erromanikoko **kapitelak**. Anjel Lertxundi

**Kapitel** joniarraren balteo edo zirrinda-moldurek. Santiago Iruretagoiena

Proportzio horiek jarraituz, **kapitel** korintoarra ondo bukatuta egongo da. Santiago Iruretagoiena

XI. eta XII. mendeko zazpi **kapitel** erromaniko lapurtu dituzte Katalunian. Berria - Kultura

Friso, moldura, burdinazko zutabe, **kapitel** neoklasikoak... Patxi Iturritegi

**2** (hitz elkartuetan)

Abakoaren zabalera **kapitel**-altueraren zazpiren bat izango da. Santiago Iruretagoiena

Badaude beste **kapitel**-mota asko, era askotara deitzen direnak. Santiago Iruretagoiena

· Triglifo-**kapitelen** gainean erlaitza jarriko da Santiago Iruretagoiena

---

## kapitolio 1 *iz* antzinako Erroman Jupiterri opaturiko tenplua.

Eta baita **Kapitolioan** ere, Romuloren etxean antzinakoen eraikitzeko ohiturak ikusten dira, eta gauza bera hirigotorreko santutegietan ikusten diren lastozko estalkietan ere. Santiago Iruretagoiena

Tenplu horiek kanpoko itxura hankazabala izaten dute, astunegia, zapala eta zabala, eta frontoia lurrezko edo brontze urreztatuzko irudiekin apainduta izaten dute toskaniarren estilora, adibidez, Zirku Maximoan dagoen Zeresen tenplua, Ponpeioko Herkulesen tenplua eta **Kapitoliokoa**. Santiago Iruretagoiena

**2** *hed*

Washingtongo **Kapitolioan,** ohorezko lekuan. Berria - Mundua

Bi gradu inguruko tenperatura zegoen **Kapitolioan,** Bushek bigarren agintaldiko lehen hitzaldia eskaini zuenean. Berria - Harian

**Kapitolioak** irudikatzen du kristautasunaren izenean mendeetan gure herria sistematikoki sarraskitu duen gobernua. Berria - Gaiak

Amerikako Indiarraren Museo Nazionala (NMAI), hau da, Ameriketako Estatu Batuen Kongresuaren egoitza den **Kapitolioaren** aldamenean. Berria - Gaiak

---

## kapitular 1 *izond* kapituluari dagokiona. ik **kapitulu 6**.

Batzuetan meza kantatzen zuen, beste batzuetan hitz egiten zien anaia **kapitularrei**. Askoren artean

**2** letraz mintzatuz, kapitulu bat hasten duena, kapitulu letra.

'V' letra **kapitularrez** hasi du troskista zahar eta aberats berriaren izena. Urtzi Urrutikoetxea

• **3** *iz* karolingiar errege batek emaniko lege edo ordenantza.

Karlomagnoren 802. urteko **kapitularrak,** justizi ofizialek izan behar dituzten tasunak zehazten dizkie apezpiku eta abadeei. Iñaki Iñurrieta

Luis Errukitsuaren **kapitularrak** aukera ematen du makilaz edo armez borrokatzeko. Iñaki Iñurrieta

Karlos Burusoilak, espainiar haien alde emandako **kapitular** batean, haiek ere beste frankoak bezala trata zitzaten agintzen zuen, eta haiei zentsua eskatzea debekatzen. Iñaki Iñurrieta

864. urteko **kapitular** batek dio espreski ohitura zaharra zela gizon libreek soldadutza egitea. Iñaki Iñurrieta

*De Villis* **kapitularraren** bidez. Iñaki Iñurrieta

Usadio hori ezarrita ageri da Markulforen formuletan, barbaroen legeen kodeetan [...] lehen dinastiako erregeen dekretuetan, nondik atera baitziren bigarren dinastian egin ziren **kapitularrak**. Lege partikular bat lege orokor bihurtu zuen, erromatar zuzenbidea mundu osoan zehar desegin nahi izan balu bezala. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **urteko kapitularrak** (3)

---

## kapitulatu, kapitula, kapitulatzen du *ad* baldintza jakin batzuen azpian errenditu; errenditu.

Italiak baldintzarik gabe **kapitulatu** du! Josu Zabaleta

Italiak 1943ko irailean **kapitulatu** eta gero, familiarekin Triestera (Italia) joan zen. Berria - Kultura

---

## kapitulazio *iz* errenditzea zehazten duen hitzarmena.

1940ko ekainean **kapitulazioa** sinatu eta Alemaniarekin hitzarmena adostu zuen Frantziako gobernu kolaborazionistak. Jokin Urain

Italiaren **kapitulazioaren** albiste atsegina iritsi da erredakzio honetara. Josu Zabaleta

Euskaldunen **kapitulazioa** baino lehenago ere itun eta tratatu askotan hitza jan zuen Italia faxistak. Jokin Urain

**Kapitulazioaren** baldintzak jakinarazi zizkioten Dupuyri. Jokin Urain

Bi ildoren artean hautatzea da kontua: kontzesio eta **kapitulazioan** oinarritua edo gure eskubide nazional ukaezinen defentsa jarraian oinarritua. Berria - Mundua

---

## kapitulu 1 *iz* idazlan bat banatzen den zati zenbakidun bakoitza.

Idazlanean agertzen diren **kapitulu,** atal eta azpiatalen izenburu guztiek [...] agertu behar dute, egitura hierarkikoari eutsiz eta orrialdeen zenbakia identifikatuz. Askoren artean

**Kapitulu** horren aurreneko atalean. Berria - Kultura

Bigarren atalak [...] 161 **kapitulu** ditu eta modu tematikoan antolatua dago. Askoren artean

Hamaikagarren **kapitulua**. Jose Morales

Sei zati badauzka, bakoitxak bospasei **kapitulu**. Herria

Dokumentu horrek 40 **kapitulu** ditu, eta bertan ukitu gabeko oso gai gutxi dago. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Estatutuak zazpi **kapitulu** ditu Zazpi **kapitulu** nagusitan egituratua dago Lege-proiektua. Berria - Kultura

HITLER, A., *Mein Kampf,* München 1930 (II. Partea, 4. **Kap**. Joxe Azurmendi

Elite eta arraza printzipioen konbi naziorako Hitler-en pentsamenduan, ik **kapitulu** hau osoa, "Pertsonalitatea eta Estatu ideia völkischa"). Joxe Azurmendi

Amodioaz eta elgar laguntzeaz badu **kapitulu** bat osoa. Xipri Arbelbide

Justinianoren eta Teofiloren *Instituzioak*-en, Lege Vokoniarraren **kapitulu** batez hitz egiten da, zeinetan oinordetzan uzteko gaitasuna murrizten baitzen. Iñaki Iñurrieta

Kracauerrek, esate baterako, argazkiaz egindako gogoetari **kapitulu** oso bat eskaini zion bere *Theory of Film* liburuan. Josu Zabaleta

Tratatu honen aurreko **kapitulu** batean. Xabier Kintana

Natorren, beraz **kapitulu** honen gaira. Xabier Kintana

Ez da hau, baina, **kapitulu** honen helburua. Xabier Kintana

Ikus geroago, XIV. **kapituluan,** hitz horretaz esaten dena. Xabier Kintana

Neurofibromatosiaren **kapituluan**. Xabier Olarra

**Kapitulu** honetan arteak irudian duen eginkizuna azaldu nahi zen. Josu Zabaleta

Gozakaizturik sentitu da Yolo hirugarren **kapitulu** hau irakurtzean. Pako Aristi

Jatorrizko nobelako **kapitulu** batzuk ezabatu egin ditu, eta bi berri erantsi. Berria - Kultura

Telebistarako **kapitulu** batzuk egiteko aukera. Berria - Kultura

Liburu honetan, **kapituluz kapitulu,** gizadiaren historia intelektual guztia nahi du erakutsi Hegelek. Askoren artean

**2** *hed*

Gobernu berriaren eraketa beste **kapitulu** bat da gure historian. Berria - Mundua

Astillero eta Urdaibairen arteko lehiak beste **kapitulu** bat izango du gaur, baina oraingoan abantaila bermeotarrena da. Berria - Kirola

Alain Solek sufritzen duen eraso polizialaren eta judizialaren beste **kapitulu** bat gertatu zen duela aste batzuk. Berria - Mundua

Emilie Laplacettek «gazteen aurkako erasoen beste **kapitulu** bat» izan zela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

**3** (aurrekontuetan eta kidekoetan)

Oroitu behar da **kapitulu** horren barnean direla turismo bulego munizipalari ekarri 444 500 euroak, hots kutxa horretan denaren % hogeia. Herria

Bestetik, VIII. **Kapitulua** 9.304 milioi pezetakoa zen 1990ean, baina 1999an 233.494 milioi pezetakoa da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

1990ean 54. Funtzioa, VIII. **Kapitulua** kenduta, 198.949 milioi pezetakoa zen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orain arteko **kapitulu**-sortak lehenengo atala osatzen dik. Xabier Etxabe

Honela dio 12. **kapitulu** hasieran: [...]. Pello Zabala

Liburuen **kapitulu** amaieran agertzen diren irudi korapilotsu horietako bat. Itziar Otegi

**5** erlijio ordena bateko kideen biltzarra. ik beherago **7.**

Kontzilio horretan, besteak beste, aldian aldian **kapituluak** egiteko eskatzen zitzaien ordena erlijiosoei. Askoren artean

Portziunkulako Santa Marian eginiko **kapitulu** batean, uko egin zion Ordenako buru izateari. Askoren artean

**Kapitulu** honetan Reinerio kardinal diakonoa izan zen, beste hainbat gotzain eta erlijiosorekin batera. Askoren artean

Behinola, **kapitulua** egin behar zen Portziunkulako Andre Marian. Askoren artean

**Kapitulu** probintzialetan, berriz, Frantzisko bera ezin zitekeen gorputzez presente egon. Askoren artean

Gianoko Jordanek, Halberstadteko **Kapitulu** probintzialean, Ordenaren Alemaniako historia idazteko enkargua hartzen du. Askoren artean

**Kapituluan** bildutako anaietatik inor ere ez zen ausartzen munduko arazoez hitz egiten. Askoren artean

**Kapitulua** osorik bildu zenean, apal-apal barkamena eskatu zien anaiei Ordenaren ardurarekin jarraitzeko zuen ezintasunagatik, 1246ko **Kapituluak** eginiko eskabideari erantzunez. Askoren artean

Berak kantatu zuen meza nagusia **kapituluan**. Askoren artean

Erabaki zuten, gainera, ministro bakoitzak **kapitulu** bakar bat eduki zezala bere probintzian, eta mendekoek bi. Askoren artean

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kapitular**.

Gainean zen **kapitulu**-garaia. Askoren artean

Erakuts iezazkidazue aurrenik kapera, **kapitulu**-aretoa, klaustroa, jantokia, sukaldea, logela eta ukuilua, eserleku ederrak, mahai bikainak eta bizileku zabalak. Askoren artean

**kapitulu** aretoko sarreran hilobiratu zuten. Askoren artean

Hartan, Jainkoaren gizon Frantzisko, une hartan urruti aurkitzen zena, **kapitulu**-gelako atean azaldu zen, airean jasota. Askoren artean

**7** ***kapitulu jeneral*** erlijio ordena bateko kide guztiak edo guztien ordezkariak biltzen dituen kapitulua.

1222an Asisen egin zen batzar nagusian **(kapitulu jeneralean**), 3.000 edo 5.000 [...] anaia bildu zen. Askoren artean

Pisako anai Albertok, Alemaniako ministroak, Ordenako lehen Ministro jenerala hautatzeko **Kapitulu jeneralera** joan aurretik, Alemaniako kustodio, predikari eta goardianoak bildu eta kapitulua egin zuen Maguntzian. Askoren artean

1257an Erroman izandako **Kapitulu jeneralean** Ordenako buru izendatu zuten. Askoren artean

1221eko **Kapitulu jeneralean** erabaki eta antolatu zen Alemaniako misioa. Askoren artean

Azken **Kapitulu jeneraleko** batzar santuari eta zuri, aita guztiz agurgarri horri, [...]. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eginiko kapitulu** (5); **kapitulu berean** (6); **kapitulu jeneral** (5); **kapitulu jenerala** (5); **kapitulu jeneralak** (5); **kapitulu jeneralaren** (8); **kapitulu jeneralean** (12); **kapitulu jeneralera** (5); **kapitulu probintziala** (9); **kapitulu probintziala egin** (4); **tratatu honetako kapitulu** (8)

**kapitulua bukatu** (4); **kapitulua egin** (5)

**kapituluan aipatu** (5); **kapituluan esan** (4); **kapituluan ikusiko** (5); **kapituluan ikusiko dugunez** (4)

**kapituluz kapitulu** (4)

---

# kapitulutxo *iz adkor* kapitulua.

Gero arte, ni ere zerbait irakurtzen ari nauk, ea beste **kapitulutxoren** bat irakurtzen dudan jende gehiegi bildu aurretik... Pako Aristi

---

# kapitxele *iz* burdinazko astoa, beheko suan egurrari eusteko erabiltzen dena.

Suak eta euriak herdoildu burdina landuzko bi **kapitxele** luze ageri ziren tximinian, beren lau hanka sendoetan zutik eta lepo luzeen kabuan aho zabaldu bana zutela. Koldo Izagirre

Gainerakoan, tximinian eskegitako zartagina beste sukalde tresnarik ez zegoen bordan, eta honek, burdinazko ganderailuarekin, **kapitxeleekin** eta ohearekin osatzen zuen altzariteria guztia. Koldo Izagirre

Munstro ahoa zeukaten bi **kapitxele** beltzak gar bizien aitzinean nabarmendu ziren, eta infernuko bi zakur ematen zuten, sutan arnaska. Koldo Izagirre

---

# kapo 1 *iz* kontzentrazio esparru nazietan, beste atxilotuak zaintzen dituen atxilotua.

Bloke bakoitza berriz, Blockältester batek zuzentzen zuen, zenbait zaindari eta **Kapo**-k *(Kamerad Polizei)* lagunduta. Urtzi Urrutikoetxea

Nazien suntsipen barrutietan ere **kapoak** deitutakoak zeuden, preso sozial alemaniarrak gehienak, haien makilkadapean lan egin behar izaten zuten prisioneroek. Jokin Urain

Erroman nazien herio-zelaiez egiten den filman izan zitezke **"kapo"** egokia. Herria

Handik laster **"kapo"** eta "stubédient" zonbait oldarrean sartzen dira eta hilketa hori geldiarazten dute. Michel Oronoz

Uste dut gure **"kapo**-ak, paper hori ikusi-eta, behin-betiko pasaportea emanen dauzula. Marzel Etxehandi

**2** *(orobat **capo**)* mafia taldeetan, burua.

Bi lagunek arazoak izango dituzte beraien herriko mafiako **kapo** batekin; euren lagunek diru dezente zor diote kapoari. Berria - Kultura

Gangster filmetako **kapo** gisara. Jon Maia

Hogei pilula flipagarri omen zeuzkan gameluño baten atxiloketari **capo** arriskutsu batenaren tratamendua eman behar izan nion, hondarrean, lana burututzat jotzeko. Aingeru Epaltza

---

# kapoi *iz* oilasko zikiratua, jateko gizentzen dena.

Noiz edo noiz izebak gordean gonbidatzen zuen langilea saltxitxoi pixka bat edo **kapoi** egosia jatera edo ardoa edatera. Pello Lizarralde

Arretaz zazpi urteko **kapoia** prestatu zion jateko Jainkoaren gizonari. Askoren artean

Janaria ospakizunari zoakion heinekoa izan zen: oilo salda arroltze gorringo eta ogi xigortuekin, amuarrainak artekiz troxaturik, **kapoiak** errerik, sagar erreximeta gasnarekin, hori guzia sagarnoz eta arnoz lagundurik. Elena Touyarou

**Kapoi** i-saldan egosten dituena. Berria - Kultura

**Kapoi** puska arrain bihurtua Alessandrian. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kapoi puska** (3)

---

# kaporal *(30 agerraldi, 15 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* infanterian, gradurik apalena duen gudaria. ik **kabo**[1].

Armadako **kaporalak** eta moja andanak ageri ziren aza mendien inguruan. Karlos Zabala

Prosper Mériméeren *Carmen* ipuineko karabineroen **kaporala**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Israelgo armadako **kaporal** baten atxiloketa. Iñigo Aranbarri

Daniel Kenyon angles **kaporal** xefak ere lanak ditu bere buruzagiekin. Herria

Cabañas **kaporal** mengelaren begitarte kamutsa. Lutxo Egia

-Bizkorrago! -oihu egiten zuen **kaporalak-**. Mirentxu Larrañaga

-Ez, **kaporala**. Mirentxu Larrañaga

• **2** (predikatu gisa)

**Kaporal** izendatzen zaitut. Xabier Montoia

---

# kapot **1** *iz* automobiletan, karrozeriaren zatia, motorra (edo motorra atzean dagoenean, maletategia) estaltzen duena.

Lurruna irteten zen **kapot** mailatuaren azpitik. Iñaki Mendiguren

Peppone tuerka bat amorruz estutzen ari zen kamioi baten **kapotean** burua murgilduta. Koldo Biguri

Discopubaren sarrera aurrean auto bat espaloian txarto aparkaturik, **kapot** gainean jesarritako neskaren harribitxi begiek inguruko guztia arakatzen dute. Sonia Gonzalez

Minutu batzuez motorra ezer aurkitu gabe aztertu ondoren, Al Gazteak kolpe batez itxi zuen **kapota**. Oskar Arana

Hara iristean, autoaren **kapota** ireki nuen. Karlos Zabala

**2** (hegazkinetan)

**Kapotaren** haize-sarrerak ixten ditut, beraz. Josu Zabaleta

Ehiztaria lekuko objektibo bat baizik ez da, behatzailearen karotida ebakitik lehenengo odol turrustak ihes egiten duenerako, eskuineko motorraren **kapotetik,** oraindik zalantzakor, sutegiko lehenengo su lama filtratzen denerako. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **autoaren kapota** (3)

---

# kapota **1** *iz* auto irekien sabai toleskorra.

Hantxe zegoen Jean Claude, deskapotablearen **kapota** estalian apoiatuta, lerden, garai, dotore. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kapota** leunak eta lohi-babes leunak. Koro Navarro

**2** (haur kotxeetan)

Itoko ote zaizun beldurrez bainatu ondoren, jarri duzu apain-apain zure panpina; zu janzten hasterako, ordea, jan berri duena bota egin du, eta kakaztu ditu bere jantziak, **kapotan** jarri berria zenuen maindirea eta burkoa. Arantxa Iturbe

---

# kapote **1** *iz* militarren berokia.

Lau guardia zibil agertu ziren ia berehala bunker sarreratik **kapote** berdea, txarolezko buruko beltza eta besapean fusil bana zekartela. Joseba Sarrionandia

Euri tantak ikusi ditu Joxek goardiaren **kapotean** eta mosketoiari soinaren kontra eusten dion eskuan. Pello Lizarralde

Eisenhover-i igorri behar zen letra han egon zen, eta makina ere bai... geroago, aita Riquet-engandik jakin behar nuen frantses kapitainak bere **kapotea** janzi ziola, eta hola pasatu zutela kanpalekuko atea. Marzel Etxehandi

**2** beroki gisa erabiltzen den kapa handi mahukaduna.

Sorbalda batetik zintzilik [...] osabaren **kapotea** dauka: manta zikin gorri bat. Jokin Muñoz

Negu bizian batez ere, euriagatik edo kazkabarragatik **kapote** baten azpian joan beharra geneukanean. Bernardo Atxaga

**3** zezenketariak zezenak jokatzen erabiltzen duen kapa, zezenketari kapa.

Kazadora beltza sorbalda batean jarria darama, toreroek **kapotea** bezala. Jokin Muñoz

---

# kapritxatu, kapritxa, kapritxatzen du *ad* apetan hartu, apetak eman.

Bat-batean, begirale nitaz **kapritxatuak** eskua erretiratu du nire zakiletik. Anjel Lertxundi

Ez zaizkit txakurrak atsegin, baina bat **kapritxatu** izan balitzaio, ikus nezakeen nire burua txakur bat paseatzen. Anjel Lertxundi

---

## kapritxo 1 *iz* apeta.

Eguraldiaren **kapritxoak** ezagutu dituena. Pello Zabala

Oroimenaren **kapritxoak**. Bernardo Atxaga

Zoriaren **kapritxo** batek emandako indar zakarra. Iñaki Mendiguren

Haren **kapritxoa** ez nezakeen inondik ere onart! Daniel Landart

Beste **kapritxorik** ez zuen gizonak, garaiko ohitura halakoxea zelako, haur hari bere izena jartzea baino. Xabier Etxabe

Ez dago lortuko ez duen **kapritxorik**. Koldo Izagirre

Umearen **kapritxoa** bete zuten lo putzu bat egin ahal izateko. Koldo Izagirre

Dena da hemen **kapritxokoa,** elkarren aurkakoa eta berezia. Koldo Izagirre

Ez da **kapritxo** bat, David. Bernardo Atxaga

Hogei urterekin hasi behar izan bainuen neure ofizioan, baina ez **kapritxoz,** halabeharrez baizik! Joan Mari Irigoien

Erabilia sentitzen naiz, haren **kapritxoen** jostailu. Patxi Iturritegi

Liburu berezi bat dela, enperadorearen **kapritxo** garesti bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** fantasia nagusi den musika lana.

Sarasateren Euskal **kapritxoa**. Berria - Kultura

Pianorako *Tres estudios* (Hiru estudio) eta *Caprichos* **(Kapritxoak)**. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kapritxoa izan** (4)

---

## kapritxoso *izond* apetatsua.

Beste **kapritxorik** ez zuen gizonak, garaiko ohitura halakoxea zelako, haur hari bere izena jartzea baino. Xabier Etxabe

Ehiza bezala, poesia ere **kapritxosoa** da. Pako Aristi

Irribarreak lagunen artean, zerbezaren gari artean **kapritxozkoagoak** diren edarien tantak. Pako Aristi

---

## kapritxotsu *iz* apetatsua.

Perrexila autotrofoa da, baratzean daukan hartaz elikatzen da, dagoen-dagoenean; gizakiok, ostera, heterotrofo, ipurtarinago eta **kapritxotsuago,** omen. Edorta Agirre

---

## kapsula 1 *iz* ontzi hermetikoa.

Portzelana esmaltatuzko **kapsula** bat aurkitu nuen. Juan Garzia

Gelatinazko **kapsula** bat B2 bitaminaz (rivoflabina) bete zuten. Berria - Gaiak

Botila kortxodunak zigilatzeko **kapsulak** egiten dituen enpresa horrek. Berria - Ekonomia

**2** espaziontzi batetik askatzen den zatia.

Stardust **kapsulak** argazkia egin dio Wild 2 kometaren guneari. Berria - Gaiak

Bai baitzirudien **kapsula** baten barruan geundela espazioaren erdian. Jon Muñoz

Urrun ikusi nuen neure burua, nire gela **kapsula** bat balitz bezala, eta nire etxea espaziontzia. Bernardo Atxaga

Gaur goizaldean **kapsula** bat askatuko du zundak Lurrerantz. Berria - Gaiak

**Kapsula** Utahko desertura erori zen asteazkenean, paraxutek huts egin ostean. Berria - Gaiak

Zortzi minutu egin zituen espazio **kapsulak** Wild 2 kometaren estelan. Berria - Gaiak

**3** ahotik hartzen den sendagai baten dosia daukan bilgailu disolbagarria.

**Kapsulak** eta pilulak gordetzeko ontzietan. Berria - Gaiak

Hamar **kapsulako** dosia nahikoa suertatu zen. Patxi Iturritegi

Minarentzat morfina **kapsulak** eta tantoak hartzen ari zela. Hasier Etxeberria

Minarentzat morfina **kapsulak** eta tantoak hartzen ari zela. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **espazio kapsula** (4); **stardust espazio kapsula** (3)
> **espazio kapsulak** (8)

---

## kapsuladun *izlag* kapsula duena.

Erdian hazi bat zuen, zilar koloreko **kapsuladun** almendra txiki baten modukoa. Agustin Otsoa

---

## kapsulatu *izond* kapsula baten barnean gordea.

Klitoria erruz inerbaturik dago, nerbio bukaera askez nahiz korpuskulu **kapsulatuz** josia. Luis Elberdin

---

## kaptatu, kapta, kaptatzen 1 *du ad* uhinez mintzatuz, hartu.

Sarekada hurbilaren iragarpena poliziaren frekuentzian **kaptatu** zuela azalduz, Txokok Boz abisatu zuen. Itxaro Borda

**2** erakunde edo talde batera bildu, erakarri.

Iñaki Arinek **kaptatu** omen ninduen maiatzean. Rafa Egiguren

Beharbada EAJtik norbaitek eskatu zion **kaptatzeko** diru asko zeukalako. Mikel Hernandez Abaitua

---

## kaptazio 1 *iz* kaptatzea.

Beste azkoin bira bat gehiago irakurlearen **kaptazioan** . Xabier Amuriza

Garzonek hogei lagun auzipetu ditu, ETAren **«kaptazio** eta informazioko» kideak direlakoan. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

ETAren **kaptazio** aparatuko kide zela leporatuz. Berria - Euskal Herria

Aimar Aierza atxilotuak ETArentzat **kaptazio** lana egiten zuela. Berria - Euskal Herria

---

## kaptura *iz* atzematea, atzitzea.

Biharamunean **kapturaren** berria zetorren prentsan, "arrain handiak" erori zirela, eta "egoskorrak beratzeko moduko zigorra" espero zutela. Koldo Izagirre

---

## kapuleto *iz*

Belarrien arteko desberdintasunak soilik bihur zezakean artzaina Monteskoa eta neska **Kapuletoa,** bata agota eta bestea arraza, esan dezadan, garbikoa. Anjel Lertxundi

---

## kapulu 1 *iz* tximeletez mintzatuz, kuskua.

Tximeleta bera da **kapulua** egitea on delakoaren neurri bakarra. Jenaro Garate

**2** loreez mintzatuz, pipila.

Zinez da ederra; soil-soilik ditu hamabortz urte, huraxe bai arrosaren **kapulua** . Jon Muñoz

---

## kapusai *(orobat **kapusail** g.er.)* 1 *iz* euritik babesteko soingaineko txanoduna.

Cumhail, Fionn eta Mael zaldien urratsean zihoazen, **kapusaiak** buru gainean jarrita zirimiri atergabetik babesteko. Joanes Urkixo

Ellenek **kapusai** bustia eseki zuen ate atzean. Lopez de Arana

Suhiltzaileen kamioi bat orroka igaro zen handik; haren atzetik, mahuka-bagoi bat, **kapusaiak** janzten ari ziren aurpegi izerditsuko gizonez betea. Lopez de Arana

Ez dute janzten kaparik, ez jantzi-gainekorik, ez **kapusairik,** ez beste inolako jantzirik. Askoren artean

Haurren batzuk besterik ez ziren ageri itsasertzean, eta bikote bat edo bi, presaka, baloiak bezala puztuak **kapusaiak** . Koro Navarro

Jimmyk traskoak kendu eta **kapusaiko** poltsikoetan sartu zituen. Bi udaltzain, gaueko uniformea jantzita artean, **kapusaia** soinean eta kepia buruan, espaloian atzera eta aurrera zebiltzan besoz beso. Lopez de Arana

Gero, egurra garraiatzeko erabiltzen zuen zaku zahar baten joskerak baliatuz egindako **kapusai** gisakoa burutik behera jantzi, eta kalera irten zen. Anjel Lertxundi

· Martak txandalaren **kapusaiaz** estali zuen burua. Harkaitz Cano

**2** txanoa. ik **kaputxa.**

Dotzena bat gazte **kapusailak** buruan. Herria

Borreroak buruko **kapusaia** jarri zion, zuria. J.M. Olaizola "Txiliku"

· Sartuko zuen Perpignan-Txikik bere burua makinak zeukan oihalezko **kapusai** beltz handi batean, eta "va" esanda tiro antzeko hotsarekin aterako zuen erretratua. Pako Aristi

---

## kapusaidun *izlag* kapusaia jantzia duena.

Badago eremutar **kapusaidun** bat, badiaren sarreran jesarria. Koldo Izagirre

Gustuko zuen hango paisajea, **kapusaidun** txandala jantzi eta erdi eroritako pabilioi eta txatarra meta ikaragarrien artean ibiltzea. beti ikusiko duzu traje sastar dotore-nahi batez jantzirik, edota, euri egunetan, **kapusaidun** gabardina austriar batekin. Harkaitz Cano

---

kapusail ik **kapusai**.

---

## kapusaitxo *iz* kapusai txikia.

Bitartean, herritarrek **kapusaitxoekin** estali zituzten oilar guztien buruak, behar baino lehenago esna ez zitezen. Pako Aristi

---

## kaput (esapidea) hila, akabatua

S.S.-en buruzagiak egiten digu bere gisako mintzaldia, motza, hitzez baino gehiago keinuz; lehen pundua *Achtung* (Kasu) eta gero keinuz eskapatzera egiten baduzue, mitralleta erakusten du, pan, pan, pan... eta bururatzean **Kaput** ! **'Kaput!'** esan zuen neskak, Goioren gainetik zaldiaren gainetik bezala jaitsiz. Marzel Etxehandi

**Kaput** esan dit amaitu dugunean. Joseba Sarrionandia

A, ez, ez dakit ezer hari buruz aspaldi honetan, finito, **kaput,** gurea bukatu zen.... Harkaitz Cano

**Kaput** eginda nago. Koro Navarro

---

## kaputxa 1 *iz* ehunezko zakua, aurpegia eta burua erabat estaltzen dituena, begien parean bi zulo dituena.

**Kaputxaren** bi zulo biribiletan begi argiak nabari ziren,. Iñaki Iñurrieta

Aurpegiko erreduren arrastoak ezkutatzeko jantzitako **kaputxa** . Iñaki Iñurrieta

**Kaputxak,** besteen begiradak erakartzen dizkion bezala, begirada horietatik babestu ere egiten du. Iñaki Iñurrieta

**Kaputxa** eta guzti zegoen ertzain batek ezin zela aurrera pasatu adierazi zion zakarki. Unai Iturriaga

Anaiari **kaputxa** kendu eta sutara botatzeko agindu zuen. Askoren artean

**Kaputxaz** eta eskuak eskularru zuriz estalita zituzten zazpi laguneko talde bat bertaratu eta batek lehergailua jaurti zuen Udaltzaingoaren etxearen atarira, 'Los otros? Berria - Euskal Herria

No... yo estoy solo,' esan zieat eta, **kaputxa** jarri zidatek eta, abiatu gaituk... Pablo Sastre

**Kaputxaren** azpian beste norbait ote zegoen ere pasatu zitzaidan burutik. Iñaki Iñurrieta

Baina etxetik zenbait urrats urrunago berriz biltzen ziren binazka, hirunazka eta beren **kaputxa** beltzen zolatik ari ziren elizkizun bitzi horren azaltzen. Michel Oronoz

**2** (torturetan eta bahiketetan erabiltzen dena, begien parean zulorik ez duena)

Ziega batean, biluzik, makurtuta eta buruan **kaputxa** duela agertzen den gizon baten irudiarekin hasten da TATek egindako bideoa. Berria - Euskal Herria

Polizia etxera iritsi bezain laster **kaputxa** jarri zioten buruan, eta horrela izan zuten inkomunikazio egoeran izan zuten bost egunetan. Berria - Euskal Herria

Gomez Nietok berari eta «Pintado kapitainari» atxilotu bat «ia gelditu» zitzaiela ere aitortu zion elkarrizketa berean Peroteri, atxilotuari **«kaputxa»** jarri ziotelako. Berria - Euskal Herria

**Kaputxak** gardena izan behar du, berak bizia ikus dezan, eta badatorkion heriotzaren sentsazio hori izan dezan. Berria - Euskal Herria

**3** txanoa.

Kolore biziak, emakume indigenak **kaputxarekin** eta paliakateekin, Emiliano Zapata eta Marcos elkarrekin... Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaputxa jarri** (3)
> **kaputxaren azpian** (3)

---

# kaputxadun **1** *izond/iz* kaputxa jantzia duena.

Eliza atarrira heltzean ikusi zituzten hamar gizon **kaputxadun** pistolak gora, airera tiroka. Itxaro Borda

Lau ertzain **kaputxadunek** sartu zuten tanatoriora. Berria - Euskal Herria

Eta semearekin bat eginaz Ernest Lluchen begi apal izutuak ikusi genituen bere euskal hiltzaile **kaputxadunaren** begiei begira. Joseba Zulaika

Han, denak **kaputxadunak** izanik, ez zegoen inor ezagutzerik. Jon Alonso

Halako batean auskalo nondik ateratako lau edo bost **kaputxadun** ETTaren eraskusleihoaren parean jarri, eta pinturaz beteriko globo bana jaurti zuten. Iban Zaldua

**Kaputxadunen** eta ertzainen artean liskarrak izan ziren atzo iluntzean Bulebarrean. Berria - Euskal Herria

Martxa bukatzean istiluak izan ziren ertzainen eta **kaputxadun** talde baten artean. Berria - Euskal Herria

**Kaputxadun** gazte talde bat mehatxuka eta irainka sartu zen tabernan, eta jendeak aurka egin zien. Berria - Euskal Herria

Nehor ez zegoen, ez kaxketadunik, ez **kaputxadunik,** ez kasko laserdunik, ez adiskiderik eta ez etsairik. Itxaro Borda

Ibilgailu ilunez zarratutako kaleak goizaldean, farolen argi gorrikara, **kaputxadun** guardia zibilak harat-honat. Iñigo Aranbarri

**2** txanoa duena.

Ez dute erabiltzen larruzko jantzirik, ez lihozko ehunik, ilezko tunika **kaputxadunak** bakarrik baizik. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaputxadun talde** (3)

---

# kaputxina *iz* landare igokaria, kaputxa itxurako lore laranja-koloreak dituena*(Tropaeolum majus)*.

Etxaldea, aurretik, alanbrezko hesi batek eta **kaputxina-** eta geranio-sailek ixten dute; aurrealdea, gainerakoan, hautsezko eta legarrezko zabalune bat da. Oskar Arana

---

# kaputxino[1] *izond/iz* Asisko san Frantziskoren ordena eraberrituko elizgizon edo fraidea.

Baina aita **kaputxino** hura ez zegoen han bakarrik, eta bertze lagun bat zuen, Zacarías López de Rojas zeritzana. Joan Mari Irigoien

Urte askoan Ameriketan misioetan ibili ostean **kaputxinoek** Salbatoren daukaten komentura bueltan zetorrena. Xabier Mendiguren Elizegi

Aita Morlansek, ordea, **kaputxinoen** abitu luze marroia zeraman. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kaputxinoetan** ikasten ari zen lehengusu batek. Pako Aristi

**Kaputxino** sartzeko dei hura barrez hastekoa izango zen, baldin eta hotzikara bat eragin ez balit. Xabier Mendiguren Elizegi

Gehienik erosten zuena **kaputxino** polones bat zen, Dachau-n jende anitz ezagutzen zuena. Marzel Etxehandi

**Kaputxino** ohia da Jato. Piarres Aintziart

Hirugarren argazkian, ohean etzanda eta **kaputxinoz** beztituta ageri da. Ramon Saizarbitoria

· Noski, apetak zituen, bere burua agertu gabe egon zitekeen zenbait egunez; baina maiz, eguraldi on misteriotsua zelarik, **kaputxino** higrometrikoak bezala erakusten zuen sudurra, eta haren aurpegi kolorgea eta masail urdinxkak ikusten nituen. Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aita kaputxino** (4)
> **aita kaputxinoak** (3)
> **kaputxinoen elizan** (6)

---

# kaputxino[2] *iz* esne gain apartsua duen kafea.

Platti kafetegira segitzen zioten, han **kaputxino** bat hartu ohi baitzuen, etxera elkarrekin itzuli, eta goizaldeko ordu txikiak arte gelditzen ziren hizketan harekin. Fernando Rey

---

# kar[1] **1** *interj (errepikatua)* barrea antzeratzen duen hitza. ik **ja**[2].

**Kar-kar-kar,** barkaidazu, eutsi ezineko barrealdi horietakoa da. Karlos Zabala

**Kar-kar-kar-kar** ! Karlos Zabala

**kar-kar-kar-kar** ! ai, Jainko maitea... Karlos Zabala

Hala jakin zuten, **kar-kar-kar,** afari-prestatzaileen txantxa izan zela arrantza-egun isilpeko hartan gertatutako guztia. Anjel Lertxundi

Ez dakit sikiera zergatik... nola du izena honek, egiten ari garen gauza honek? tira, esan dezagun, testigantza sozio-historiko-literario-porno hau, **kar, kar, kar** . Karlos Zabala

Antzara baten gisara karkaraka hasi zen: **kar-kar-kar** ! Jose Morales

· Ja, ja!; barkatu: **kar, kar** ! Iñaki Segurola

**2** (aditz batekin)

**Kar-kar-kar** jardundako ikaskideen erretratuak ageri dira bertan. Anjel Lertxundi

-Ooooooooi! -esan zuen, maltzurki **kar-kar** eginez-. Iñaki Mendiguren

Ron **kar-kar** hasi zen barrez. Iñaki Mendiguren

Dumbledorek azti-kapela puntadunaren ordez loredun txanoa zeukan jarria eta **kar-kar** ari zen pozik barrezka. Iñaki Mendiguren

Eta **kar-kar-kar** ateratzen zaio barre zoroa, **kar-kar-kar** egiten du jendeak ere, baina paum! paum! entzuten dut nik. Anjel Lertxundi

Eta, beraz, **kar-kar-kar** barre egiteko entrenatu nintzen, lan handia egin nuen, eta, atera kontuak, gaur egun burua atzera bota eta **kar-kar-kar** baizik ez dut barre egiten, horrelako deus ere ez da benetan espontaneoa nigan. Karlos Zabala

**3** (aditza ezabaturik)

Kristinarekin-eta, "begiraion harunzko aza hosto aurpegi hari" eta **kar-kar-kar** algaraka denak, baina zerarik, intentzio txarrik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kar kar** (122); **kar kar barre** (3); **kar kar egiten** (4); **kar kar kar** (41)

---

# kar² 1 *iz* lehia bizia. ik **sugar 4**.

Euskarari buruzko **kar** eta sukarraren zati garrantzitsu bat hemen bildua dut. Piarres Aintziart

Baina zer **karra** eta sua duen Alfarok! Herria

Elkar zoin maite genuen ordu arte baino **kar** gehiagorekin erakusteko gutizia sutsu batek janak geunden. Janbattitt Dirassar

Ez dakizu ordea bakardadeak nola gehitzen duen desiraren **karra**. Jon Muñoz

Poemaren forma hotzaren barnean sutan zeudela bihotzaren **karra** eta gorputzaren ezinegonak. Piarres Aintziart

Diote ere galde batzu hel araziak dituztela ixilik Lagos presidentari, bere **karra** ezti dezan Guzman-ek. Herria

**Karrez** ta borondatez ez baitzira flako. Herria

**2** (izenondoekin)

-Zer, ostatura joanen gara -galdegiten dio Kattalinek Txomini, **kar** handirik gabe, etsipen ttipi batekin. Eneko Bidegain

Besta handia hau ere, ainitz tokitan [...] **kar** berezi batekin ospatzen dutena. Herria

Erromes iheslari bai, baina **kar** kementsu eta oldar temakor batek harturik. Piarres Aintziart

So nago, eta parropiako erretoreak esplikatzen dizkit, azaltzen, halako **kar** goxo batekin, ontzi sakratu borobil horren marrazki zizelkatuak, batez ere kurutze mota guzien formen adierazpenak. Piarres Aintziart

Azken hatseraino **kar** berarekin segitu zela behin hartu bideari. Herria

**3** garra.

Zein goxo den suaren **karra,** gure gorputza hotzak gogortzen duelarik! Herria

**Karrak** izigarri gora altxatzen baiziren, auzo guzitan argia begiztatzen zen. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beti kar berarekin** (6); **kar ainitzekin** (13); **kar berarekin** (17); **kar gehiagorekin** (9); **kar handi** (3); **kar handiarekin** (3); **kar handirik** (3); **kar handiz** (13); **kar haundiz** (3)

---

# kara¹ 1 *iz* aurpegiaren itxura; itxura. ik **karantza**.

Ostatuko nagusiak **kara** gaixtoa zuen. Xipri Arbelbide

Ez baita harritzeko beraz Jean-Pierre Raffarin gobernuburua ere frango **kara** ilunarekin agertzea joanden igande aratsean... Herria

Ikustekoa zen autozainaren **kara** harritua. Herria

Gainerat, nahiz kasik hiru aste oporretan egona zen, **kara** akitu batekin agertu da. Herria

Delako emazteak arras **kara** mokorra zuen. Janbattitt Dirassar

Etxe aipatu hortan jakitate hoberenak ikasi zituen, bainan guziz haren bihotzeko **kara** emendatu zen Jainkoarentzat eta arimentzat. Xipri Arbelbide

**2** ***kararik kara*** aurrez aurre.

Goikoak behiti, eta behekoak goiti, kararik **kara,** beti elkarri begira, elkarri bizi ematen. eta traidore beltzak begiak altxa dituenarako, han ikusten dik kararik **kara** 'Aitona' zaharra. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kararik kara** (5)

---

# kara²

1 ***kara-kruz*** *adlag* kurutx ala pil.

Ehuneko berrogeita hamarreko aukera zuela otu zitzaion, umetan **kara**-kruz egiten zuenean bezalaxe. Unai Iturriaga

---

# karabana 1 *iz* basamortuan zehar ibiltzeko biltzen den bidezko gameludunen multzoa.

Ismaeldarren **karabana** bat ikusi zuten, Egiptora zihoana, gameluetan usaingarriak, ukendua eta erretxina eramanez. Jose Antonio Mujika

Mahmudek ere **karabana** prest zeukan eta Ala Al-Dinen atzetik abiatu zen; "basamortuan inork ezin izango hau ez zelatatu ez salatu", egin zuen bere baitan. Patxi Zubizarreta

Prestaketa luzeen ondotik, noizbait ere **karabana** abiatu zen eta, bazkaloste batez, senar-emazte zoriontsuak dendara erretiratu ziren lo kuluska bat egitera. Patxi Zubizarreta

Al Mansur kalifarentzat opariz gainezka zetorren **karabana**. Jon Muñoz

Indietatik zetorren **karabana** mukuru zamatu bat. Jon Muñoz

Inongo susmorik eragin gabe, **karabana** Banus erresumako hiriburura heldu zen. Patxi Zubizarreta

**Karabana** galduei bidea erakusten zien. Fernando Rey

Oasiraino helduko da **karabana**. Xabier Aranburu

**Karabana** kanpatua zegoen bitartean bere jauregira gonbidatu zuen. Patxi Zubizarreta

Ni naiz **karabanako** burua. Xabier Aranburu

**2** (hitz elkartuetan)

Kirgizak [...] gehiago direla gaueko lapurrak edo **karabana** erasotzaileak araupeko soldaduak baino. Karlos Zabala

· Hara iritsitakoan, merkatari-**karabana** batean, Bakurainoko bidea egin zuten. Felipe Juaristi

**3** *hed*

Gerrako pinturekin margotuta, xingola eta zintzilikarioekin apainduta, indioarena egiten hasi dira haur taldeak han-hemen: zaldi gainean trostan, zurien **karabanari** erasoan.

Xabier Mendiguren Elizegi

Eta indioek **karabanari** erasoko diote ezinbestean, eta andre dotoreak eta presoak alde egin ahal izango dute. Joseba Sarrionandia

Esklabo berrien legioek osaturiko **karabana** luzeetan. Agustin Otsoa

**4** elkarrekin doazen autoen ilara.

**Karabanak**, auto bi zirenez gero **karabana** berba zuzentzat jo daiteke-eta, **karabanak**, diot, aldats goran egin beharko zuen haraino. Edorta Jimenez

Bi auto **karabana** egingo dituzte bihar, 25eko manifestaziora deitzeko. Berria - Euskal Herria

Bizkaitarrek, **auto**-karabana egingo dute Basauriko espetxeraino. Berria - Euskal Herria

Larunbatean auto **karabana** eginen dugu eta urrian manifestazio handi bat egin nahi dugu. Berria - Euskal Herria

Garabi enpresek **karabana** egingo dute gaur Bilbon, tarifa altuagoak exijitzeko. Berria - Ekonomia

**Karabana** han behean doa gurpilen kirrinkarekin eta zapartarekin basamortuko hauts eta hareharri artean Oeste alderantz. Joseba Sarrionandia

Ertzainak joan ziren Korrikaren **karabanaren** aurrean eta atzean. Berria - Harian

Eta hara Frantziako itzuliaren **karabana,** dena burrunba eta espantu. Herria

Parte-hartzaileei laguntzeko 230 ibilgailuk osatuko dute basamortuko **karabana**. Berria - Kirola

· Augusto Pinochet diktadorea auzipetuko eta epaituko luketen kasuetatik bat da Heriotzaren **Karabana** deitu ziotenarena. Berria - Mundua

**5** bi gurpileko atoia, automobil bati lotzen zaiona, ohez eta sukaldez hornitua, txangozaleek eta erabiltzen dutena. ik **roulotte**.

Uretatik gertu aparkatuta, bi **karabana** ageri ziren, bagoiak bezain handiak. Jon Muñoz

Beste batzuek **karabana** batean bizi direla esan zuten, telebistarik edo libururik gabe, eta ez omen dute hauteskundeen berri. Berria - Mundua

Lapurdin gora eta behera, noraezean dabiltza ibiltarien 150 **karabana,** guztiak aterpetuko dituen eremurik lortu ezinean. Berria - Euskal Herria

Linoren emaztea -egindako ikerketetatik ondorioztatu zutenez **karabana** separatuetan lo egiten zuten-, bera ere zirkuko langilea, Gorky zelako harekin, hildako morroiarekin oheratzen zen aspaldiko asteetan. Harkaitz Cano

Akusatuaren etxebizitzaren lur eremuan jarri zuten **karabana,** baina **karabana** familia guztia bertan sartzeko txikiegia zenez, etxebizitzaren jabearekin hitz egin eta mutikoak etxeko logela batean lo egingo zuela hitzartu zuten. Berria - Euskal Herria

Kanpin bat zegoen, **karabana** eta guzti. Juan Kruz Igerabide

18:30ean **karabana** batek su hartu zuen N-1ean, Lasarte-Oria inguruan.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **auto karabana** (21); **auto karabana egin** (6); **auto karabana egingo** (4); **heriotzaren karabana** (6); **karabana egin** (8); **karabana egin zuten** (6); **karabana egingo** (5); **karabana egingo dute** (4)
>
> **auto karabanak** (5)
>
> **karabanako buruak** (4)
>
> **auto karabanan** (4)

---

## karabanaburu *(corpusean **karabana-buru** soilik)* *iz* karabana baten burua.

Ikaragarrizko jende-burrunba zegoen aretoan, eta hainbat bider errepikatu behar izan zituen bere hitzak **karabana**-buruak, denek uler zitzaten. Xabier Aranburu

Berehala hasi zen **karabana**-buruarekin hizketan. Koro Navarro

---

## karabanakide *iz* karabana berekoa.

Sakabanatu egin ziren **karabanakideak**. Xabier Aranburu

---

## karabanatzar *iz* karabana luzea.

Konpromiso guztiak bertan behera utzi, liburu garrantzitsuenak hartu... eta hantxe zegoen orain, ukuilu tankerako biltegi hartan, han kanpoan **karabanatzar** bat Sahara zeharkatzeko prestatzen ari zen bitartean. Xabier Aranburu

---

## karabela *iz* hiru mastako itsasontzi arina, bizkar bakarra zuena.

Portugaleko **karabela** batean Esperantza Oneko lurmuturra inguratu zuen. Iñaki Mendiguren

1607an, Britainiar inperioko hiru **karabela** kolonizatu gabeko Amerikara iritsiko dira. Berria - Kultura

Zurezko **karabela** eta galeoiek -haizearen kontra ibiltzeko prestatuek, Mendebaldeko Europa modernoko marinel aitzindariak ozeano guztien nagusi izateko gaitu zituztenek- mekanikoki bultzaturiko burdinazko ontzi erraldoi samarrei utzi zieten lekua. Iñaki Mendiguren

Latindar aparailuko Indiar ozeanoko **"karabela",** haren aitzindaria. Iñaki Mendiguren

---

## karabilkatu, karabilka, karabilkatzen da *ad* kiribildu.

Goizean abiatu berrian, hor duzu itzala luze-luzea zure aintzinean eta gero orenak joanez bezala, laburtzen da eta azkenean eguerditik goiti, **karabilkatzen** zure azpian... Herria

---

## karabina 1 *iz* kanoi motzeko fusil arina.

Sorbaldaren gainetik **karabina** automatiko batez tiro eginez: danba... Lopez de Arana

Bere adiskide batek **karabina** hartu eta hil egin zuen. Bernardo Atxaga

Lepic jaunak **karabina** zorro berdetik atera eta galdetu du: [...]. Itziar Otegi

Gauez ikusten ditugu ostera morroi horiek muinoen gailurretan, **karabina** lepoan. Koldo Izagirre

Gustura probatuko nuke **karabina**. Itziar Otegi

Zuk daramazu **karabina**. Itziar Otegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurrena katua isatsetik hartu eta **karabina**-kolpe bortitzak eman dizkio. Itziar Otegi

Ilunpe hartan atzeman nituen, aldamenean, zapi batzuekin erdi estaliriko bi edo hiru **karabina** kanoi. Koldo Izagirre

**Karabina** tiroan erabaki zen garaipena. Berria - Kirola

---

**karabinero** *(orobat* **karabineru** *g.er.)* **1** *iz* kontrabandoaren kontrako gorputz baten kidea. ik **mugazain**.

Luzaide eta Garaziko gazteek, mendiz mendi joanez, **karabineruak** zituzten partida, Espainiako lurretan, eta guardak Frantziakoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bentetako zubi muturrean, **karabinero** batek gibeletik oihu egin zion: "alto! non utzi ditun arroltzeak?" Errenditzea erabaki ditek Endarlatsako **karabineroek**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zorigaitzez tiroak ere entzun izan dira noiztenka, **karabineruen** gandik eta kontrabandak gerlaño bat iduri baitu, hil batzuk ukan ditu... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beharrik **karabineruak** ez ziola tirorik bota. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Moilan zeuzkan zain **karabineroak** eta txapelokerrak. Koldo Izagirre

**Karabineroen** batailoi bateko komandante aritu zen Bizkaian. Berria - Euskal Herria

**2** herrialde batzuetako polizia kidea.

Beharrezkoak dira jandarmak edo ertzainak, berdin Italian **Karabineroak**. Herria

**Karabineroen** burua On Camillorengana zuzendu zen. Koldo Biguri

**Karabinero** nagusia buru argiko gizona zen. Koldo Biguri

Ofizialak fusila eskatu zion **karabineroari**. Koldo Biguri

**Karabineroen** kuartelari su emanez. Koldo Biguri

Boluntario bat eskatu zuten **karabineroen** kasernaraino joateko. Koldo Izagirre

Tedesko alu-zorne bat!, bota zian **karabinero** kankailuenak nire pasaporteari begira. Anjel Lertxundi

**Karabineroen** aurrean salaketa formala egin arren, ez zuen noski inork sekula argituko misterioa, baldin eta Pistamiglio jaunari berari soberako hitz batek ihes egin ez balio, apur bat edanda zegoen arrats batean. Juan Garzia

San Petri plazan 3.000 polizia eta **karabinero** jarri dituzte eta basilikako sarreran berriz, kalez jantzitako beste 120 polizia. Berria - Harian

Hilketa gertatu eta hogeita lau ordura bi **karabinero** bidali zitiztean Garibaldi zubitik hurbil geneukan apartamendua miatzera. Anjel Lertxundi

**Karabineroen** egungo buru Alberto Cienfuegosek dio «Poliziaren ohiko zereginak» egin zituztela diktadura garaian. Berria - Mundua

Lagun bat diat **karabineroetan;** hire osaba hori non dagoen jakin bezain laster, abisatuko zidak. Anjel Lertxundi

Zaldizko **karabineroei**. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karabinero nagusia** (3); **karabinero nagusiak** (10)
> **karabineroak iritsi** (3)
> **karabineroen ofizina** (3)

---

**karaguatar** *iz*

Mindanaon krimen bat egin duena ausarten mailara jasotzen dute: buruzapi bat jartzen zaio berehala; **karaguatarren** artean zazpi gizon hil behar dira apaindura honen ohorea merezi ahal izateko Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

karaitz ik **kare 9**.

---

**karajillo** *iz* kafe patarduna.

Beharbada **karajilloa** hartu beharko luke, **karajillo** handi eta ondo kargatua. Sonia Gonzalez

**Karajillo** bat edan dut. Berria - Kultura

Inork ez du pentsatuko mozkortia zarenik goizean **karajilloa** hartzeagatik. Sonia Gonzalez

-Itxaron pixka bat, horiei natazko bi **karajilo** atera arte. Pako Aristi

---

**karajo** *interj*

**Karajo** hori ere! Pablo Sastre

Traizioa **karajo**! ez-izaterat kondenatu naute! Jose Angel Irigaray

---

**karaka** **1** *iz* oiloaren kantua.

Oiloak **karakaz** entzuten ditugu, komandantearen bulegoa landetxe batean baitago jarria. Josu Zabaleta

Eta **karaka** egiten hasi zen aldi berean, baina ez zen arrautzarik azaldu. Josu Zabaleta

Oiloen **karaka** ozenena / errun arrautzak antzu badira. Xabier Olarra

Bere hiru alabek [...] aski zuten noizean behin amari oihartzun egitea, nola txitoak oiloaren **karakari**. Aingeru Epaltza

**2** irud/hed

Poporroka ari da galeperra, **karakaz** dabil uroiloa belar artean, txioka burugorriak batera eta bestera hegaz. Jose Morales

Hegalak astinduz, aurrea hartu zion loroak Léari, eta **karaka** hasi: [...]. Jon Muñoz

Ez naiz urrun izan behar, igelen **karaka** aditzen baitut. Piarres Aintziart

Lodiak bere ahots mehe zoliarekin **karaka** egiten zuen eta indarrik gabe erortzen zen aulkitik lurrera. Jose Morales

-Azalera, azkenik, zabalera eta luzera baino ez duena da **-karaka** egin zuen Nofuturek. Jon Muñoz

---

**karakaka** *adlag* karaka eginez.

Karriken artetik haur irriak eta ama aspertuen deiak biderkatzen ziren, oilo koloka **karakaka** zenbait eta txakur txanpak ere bai. Itxaro Borda

---

**karakatu**, karaka(tu), karakatzen da *ad* karaka egin.

-Murtutsenekoak enetako zituan ez bazinituzte, zuek euskaldunek, bazterrak harrotu! -saihetseko multzoan abere eta emazte solas ari zen Frantxis mehakoilak **karakatu** zuen talderantz inguratuz. Itxaro Borda

karakoil ik **karakol**.

## **karakol** 1 *iz* barraskiloa.

Plastikozko edalontziak atsegin ditu, **karakolak,** txinaurriak eta eltxoak gordetzeko. Alberto Barandiaren

Bildu izandu ditut **karakolak** askotan. Patziku Perurena

Irailean harrapatutako **karakolak** jaterako Gabonak gainean izaten zenituen. Pako Aristi

Han, ordu erdi batean, garbitzen ziren bizirik zeuden **karakolak,** ura eta gatza aldatuz. Pako Aristi

Ederki dator **karakola,** etxea bizkarrean ibilia den jendaje horren gaitzizen moduan. Patziku Perurena

Oskolean kabitzen ez diren itsas **karakolak**. Eider Rodriguez

**Karakoil** dastarekin batera. Herria

Euskal Herriak Euskaraz hortaz jabetu behar da, **karakolaren** oskoletik atera nahi baldin badu, behintzat. Berria - Euskal Herria

A zer parea, **karakola** eta barea. Iñaki Mendiguren

**2** ***karakol jende*** *(corpusean* ***karakoljende*** *soilik)*

Alderantziz esan baligute ere: harpeak maskor ditugula, belarra janez bizitako azken **karakoljende** basati arrotzak garela, gaitzerdi! Patziku Perurena

## **karakoljale** *(orobat* ***jarakol jale****)* *izond* karakolak jaten dituena.

Ba ote den nago, herriska horretan hainbeste kokojende euskaldundu **karakoljale,** gure beste edozein herriskatan. Patziku Perurena

Kanpoko arrotz jendea, koko jendea, jito jendea, jo izan duela **"karakol** jaletzat" euskaldunak. Patziku Perurena

## **karakoltxo** *iz* karakol txikia.

Gauerdi edo goizalbaren batean euri pittin moxkor-moxkor horietako erauntsitxo bat botata ere, ez legoke gaizki: kirats batzuen kutsadura garbitzeko aproposa, eta **karakoltxoak** ateratzeko ere... Pello Zabala

## **karakotx** *iz* Luzaideen egiten den maskarada.

Aste Saindua pasaturik etorri da Bazko, ainitz mugimendurekin, oporrak harturik ainitzak, erregebideak autoz beterik, aberri egunak pasaturik ezker eta eskuin edo bestak, nola baitira bolantak edo **karakotxak** Luzaiden. Herria

Luzaiden egin dira **karakotxak** Bazko egunean urte guziez bezala, bildu da sekulako jendea, ba goizean ala aratsaldean, goizean karrika dantza egin dute Santiago plazarat 100 bat dantzari bazen ttipi haundi. Herria

karakter ik **karaktere**.

## **karaktere** *(orobat* ***karakter****)* **1** *iz* izaera.

Arima edo esentzia **(karaktere,** etc.) espainolaz. Joxe Azurmendi

Espainolaren **karakterea** -hots, arima- beti heroiko handizua da. Joxe Azurmendi

Herri-arima eta **karaktere** espainolaren agerketa autentikoena. Joxe Azurmendi

Nortasun edo **karaktere** unitario baten manifestaziotzat. Joxe Azurmendi

**Karakterea,** hizkuntza, kultura, historia, herrien gauzak dira; arrazak ez dauka zerikusirik historiarekin. Joxe Azurmendi

Nola Kant zaharrak bereizten zituen jitea eta **karakterea:** lehena organismoaren egoera orokorrari lotua dagoen eraketa iraunkorra, hots naturak gutaz egin duena, bigarrena jendeak bere buruaz egiten duena, borondatez eta libertatean. Piarres Aintziart

Aurreiritziek **karakter** edo izaera nazionalei buruzkoan izaten dute indarra. Edorta Jimenez

**2** (genetikan)

Historia naturala eta Gramatika orokorra elkarren artean kontrajartzen direla **karaktere** naturalen teoria bat eta konbentziozko zeinuen teoria bat kontrajartzen diren legez. Xabier Arregi

Izaki batean beha daitezkeen eta bere genotipoak eta inguruneak **baldintzatutako** karaktere-multzoa da fenotipoa. Berria - Gaiak

Ordezko teoria bat, esperimentu-oinarririk gabea eta **karaktere** bereganatuen ondoretasunean oinarritua. Juan Garzia

**Karaktere** horiek gobernatzen zituzten geneak, beraz, X kromosoman kokaturik zeuden. Juan Garzia

**Karaktere** "azpirakorra" zen hura, beraz, sexuarekin lotua. Juan Garzia

**Karaktere** geniko berri bat gehitzea. Juan Garzia

Ikerturiko **karaktere** guztiak ondoretasunezkoak zirela, hala adimenari zegozkion gaitasunak nola alderdi fisikoari zegozkionak, hala talentua nola buru-eskastasuna, zoramena eta are txirotasuna. Juan Garzia

Baina "begi zuri" **karakterea** oso modu berezian pasatzen zen ondorengoetara. Juan Garzia

**Karaktereen** belaunaldiz belaunaldiko jokaera arakatzeak bidea ematen zuen geneak atzeman eta kromosoma-mapa batean kokatzeko. Juan Garzia

**Karaktere** batzuen aldea duten organismoen arteko gurutzaketaz. Juan Garzia

Nola hautetsi, ordea, hain **karaktere** konplexuak, guztiz ezezagun zaizkigun sistema poligenikoek gobernatuak? Juan Garzia

Alde batera utzirik **karaktere** sinple, bereizte mendeliarrezkoak gobernatzen dituzten eragileak, zer gene jo absolutuan hoberentzat? Juan Garzia

**3** edozein idazkera edo inprimnatze sistemaren ikurra.

"Inperio Ertain" egipziakoan, adibidez, hizkuntza eta idazkerak egiptoera klasikoa eta **karaktere** hieroglifikoak izan behar zuten nahitaez. Iñaki Mendiguren

Orduko Japonian onartuta zeuden txinatar **karaktereen** aukeraketa. Iñaki Mendiguren

**Karaktere** kuneiformeen kopurua. Iñaki Mendiguren

Gaztelaniaz baina **karaktere** grekoz idatzia. Agurtzane Juanena

**Karaktere** gotikoz idatzitako poesiak, niretzat ulergaitzak. Fernando Rey

Tom Waitsek 5.700 **karaktere** dituzten idazmakina txinatarrak aipatzen zituen elkarrizketan. Harkaitz Cano

Gutenbergek [...] **karaktere** higikorretako inprenta asmatu zuenetik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Liburuak inprimatzeko berunezko **karaktereak**. Xabier Arregi

-Ohi denez, pasa-hitzak zortzi **karaktere** izan beharko zituen gehienez, eta lau gutienez. Aingeru Epaltza

1.518 **karaktereko** albiste laburra idatzita neukan. Aingeru Epaltza

Orobat, ohiko sumarioak idatzirik nituen, baita lehen orrialdeko laburpena –1.240 **karaktere-** . Aingeru Epaltza

Abuztuan kasik egunero pizten diren oihan-suteez ere bertze 1.485 **karaktere** gehiago idatziak nituen, xehetasunak telefonoz jasota suhiltzaileei. Aingeru Epaltza

Pantaila-zolako tresna-barratik, leihoxka batek ohartarazi ninduen horraino idatzitako **karaktere** kopuruaz: 2.734. Aingeru Epaltza

**4** (hitz elkartuetan lehen osgai gisa)

Berehalako esperientziari modu ez sistematikoan eskainitako **karaktere** -multzoa. Xabier Arregi

Haren ondoan, denboraren emanak higaturiko irudi bat suma zitekeen beltz zuriaren gainean azaltzen zen **karaktere** -baso baten artetik: ama eta biok ginen, lehen planoan. Joxan Elosegi

Ordenagailuko **karaktere** -multzo bat besterik ez. Antton Olano

**5** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Proposizio-egitura bera, baina enuntziatu- **karaktere** arras ezberdinak. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karaktere moralaren** (3); **karaktere moralaren balioa** (3); **karaktere sinikoen** (3)
> **arrazaren karakterea** (3)

---

# **karakteristika** *iz* ezaugarria, berezitasuna.

Hugoren mundu positiboa adierazten duten **karakteristikak** jendearen axolagabetasun alaia, barrea eta kantua dira; izadian, koloreak. Koldo Izagirre

Arima espainolak bere lurralde elkorraren **karakteristikak** dauzka. Joxe Azurmendi

---

# **karakteristiko** *izond* zerbaiten ezaugarria edo bereizgarria dena.

Konigen marrazkiak, bere sudur-handi **karakteristikoekin,** laguntza ederra ematen dio testuaren umore-isuriari. Berria - Kultura

Hildakoaren keinu **karakteristikoren** bat, hala nola, sorbaldaren postura edo behatz lodiaren okerdura, 41-42 gradukoa. Unai Elorriaga

Ahotsaren tinbrea, garbia edo marrantatua, keinuera **karakteristikoa,** ibiltzeko modua [...]. Jon Alonso

---

# **karakterizatu,** karakteriza, karakteritzatzen du *ad* ezaugarritu, bereizi; ezaugarriak zehaztu.

Eta hala, bereizketa hauen gainean **karakterizatzen** ditu Ortega-k arraza edo herri tipoak. Joxe Azurmendi

Nola **karakterizatu** jarduera esperimentala? Askoren artean

Zuk emandako edo aukeratutako zentzuaren arabera definitu, **karakterizatu** edo azaldutako terminoak. Askoren artean

---

# **karakterizazio** 1 *iz* ezaugarritzea, ezaugarriak zehaztea.

Zientziaren ohiko **karakterizazioaren** arabera, zientzia ezagutza-ekoizpen jarduera da. Askoren artean

Kontzeptuen edo terminoen definizioa (edo **karakterizazioa** edo azalpena). Askoren artean

Kontzeptu-mota bakoitzaren **karakterizazio** estrukturala zein funtzionala. Askoren artean

Azkenik, zein da esperimentazioaren **karakterizazio** funtzionala? Askoren artean

Hilm, Aidôs eta Nemesis-en **karakterizazio** bikain horiek erakusten dute zein ongi egokitzen ziren jokabide horiek Aro Heroikoaren zirkunstantzia berezietara. Iñaki Mendiguren

**2** rol bat jokatzeko hezurmamitzea.

Ondoan suertatu zaidan lehenengoari zaplateko bat eman eta bisera kendu diot, nire **karakterizazioa** osatzeko asmoz. Iban Zaldua

Vladimirrek berak **karakterizazio** ahalegin itzela burutu behar izan zuen: hogeita hamar kilo gizendu ondoren, trajea eta korbata eskuratu zituen, eta baita txistera ere, eta horrela pasatzen zuen eguna, disfrazaturik, lantegian gora eta behera, Montecristo puruak erretzen etengabe. Iban Zaldua

Marrazki bat, egunkari honetan inoiz atera den laidogarrienetakoa: diskoteka batean, hazpegiz zein jantziz egoki **karakterizatuta,** "gazte latinoak"; batzuk dantzan, besteak labanak aterata... Iñigo Aranbarri

---

# **karakterologia** *iz* psikologiaren adarra, pertsona edo talde baten izaera edo aiurria.

Donostiarren artean haziko ziren agian, elkarri loturik, bere **karakterologiaren** bi alderdi: alde batetik, euskal alderdia, hau da, zentzu ona, langiletasuna, ausardiaren eta abenturaren izpi bat ematen diona, eta, bestetik, gaskoi estiloa, txinpartatsua, jostagarria, bizizalea, ekintzailea eta umoretsua. Askoren artean

Antropologian aditu eta irakasle izateaz gain, Biologia eta **Karakterologia** irakasle emeritua zen. Berria - Kultura

---

# **karakterologiko** *izond* karakterologiari dagokiona.

Bere baitatik erbesteraturik ihes iraunkorrean bizi zen pertsona baten defentsa-ezkutua, ausaz; eta hau ez da kritika bat, apunte **karakterologiko** xumea baizik, besteok ez ginelako hobeak edo osatuagoak, edo ausartagoak edo errotuagoak. Jon Alonso

---

# **karamelatu** *izond* karameloz gozatua.

Alderdi sozialistari buruz, berriz, «Euskadiri dagokionez behintzat Aznar **karamelatua»** besterik ez dela esan zuen Imazek, «PPren tesien morroi» dela. Berria - Euskal Herria

---

# **karamelatze** *iz* karamelu bihurtzea.

Labearen gainaldeak edo sutondoak betetzen zituen funtzio zenbait sopleteak beteko ditu **(karamelatzea,** xigortzea, gratinatzea, etc.). Edorta Agirre

---

# **karamelu** *(orobat **karamelo** g.er.)* **1** gozokia.

Gure etxean ez genuen **karamelurik** jaten, aitak esaten baitzuen hortzak hondatzen zituztela. Fernando Rey

Amak niri aritmetika erakusteko baizik ez zituen erosten **karameluak**. Fernando Rey

Oso ondo, Julinho, oso ondo, esaten dute andereñoek, **karameluak** oparituz bezala baina esku hutsik, umeen begirada laku gisakoarekin maiteminduta. Harkaitz Cano

**Karamelu** bat ahora sartu, eta hura zupatzeari ekin zion. Pedro Alberdi

**Karameloak** ematen genizkion isiltzeko. Arantxa Iturbe

Ezti-koloreko **karamelu** lodiak. Iñaki Mendiguren

**Karamelu** arrosa batzuk, obalatuak, zuriz hautseztatuak, zelofanezko zorrotxoetan. Joseba Urteaga

**Karameluari** papera kentzeko. Edorta Agirre

Blok deitzen dioten **karamelu** horietako bat eskaini diot. Anjel Lertxundi

Eta **karameluak** zorro batetik ateratzen hasi, eta honela esan zidaan Maritxuk: [...]. Joan Mari Irigoien

**Karamelua** ematekoa egin, eta tati. Pablo Sastre

Lelo bati **karameluak** baino gehiago gustatzen zait garagardoa. Sonia Gonzalez

**2** azukrea asko berotuz egiten den ore modukoa.

-Kafesnea eta tortita amerikar batzuk, esnegainarekin eta **karameluzko** siroparekin. Iban Zaldua

**3** (hitz elkartuetan)

Ondarroako goiko zinemako kanpoko **karamelu** dendan. Berria - Kultura

Eta semea han atzean zegoen, **karamelu** poltsa bat zeukala eskuetan. Joseba Sarrionandia

Anitak, **karamelu** kolorezko beso leun bat luzatuz, berriz: [...]. Aurelia Arkotxa

· Eukaliptu **karameluak** ere erosi beharko dizkiguzu. Koldo Izagirre

Makilgoxoak, sagar eta azukre **karameluak,** erroskilak, almendra lehorrak, gerezi-konpota. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azukre karameluak** (3)

---

# karamilo *iz* xaramela, xirula txikia.

Laukotea ahots, zanfona, **karamilo** eta lautez osatua zegoen. Berria - Kultura

Alboka, whistlea, **karamiloa** eta txirula. Berria - Kultura

---

# karan 1 *izond* ederra, polita.

Funtsean, hogei urte irian, auzo-herriko Martzel laborari-seme **karana** ezagutu zuelarik eta harekin bestaz besta ibili... denek hori sinetsi genuen. Daniel Landart

Gizon **karan** hark ez zuen zertan beste xederik izan. Patxi Zubizarreta

Mutil apaina iruditu zitzaion, **karana** eta txanbelina. Patxi Zubizarreta

Neskatxa **karana,** txit polita, argia da. Gotzon Garate

Adiskide **karana** eta legetsua dut. Gotzon Garate

**2** (gauzei buruz)

Hein bat **karana** iduritu zitzaidan hotel batean sartu nintzen. Janbattitt Dirassar

Ortzirale aratsean 7etan haste trinketean izanen dire esku huska bi pilota partida **karanak** Amozko Trofeoaren finalerdiak. Herria

Aurtengo berezitasun nagusia, pilota sail bat untsa **karana** Ravel ezkerparetan. Herria

---

# karanbola[1] 1 *(orobat **karanbol** g.er.)* *iz* billar jokoan, bola batekin beste biak jotzea, edo jo den bakarrak hirugarrena jotzea lortzean gertatzen den jokaldia.

Aise egin nituen lehen bi **karanbolak**. Anjel Lertxundi

**2** *hed/irud*

Eibartarrek ez dute hain erraza izango, **karanbolen** zain baitaude. Berria - Kirola

Bizitzan behar baino gutxiagotan izaten diren **karanbola** horietako bat eskura etorri zitzaion, gaueko txandarako zaintzaile bat behar zutela jakin, aurkeztu eta aukeratu zutenean. Pako Aristi

**3** (pilotan)

Mugicaren ondotik hori du meneratu urruñar gazteak, ainitz talendu erakutsiz joko hortako 9 sake, eta parrasta bat airetik pausatu aintzinean, eta bi-murru **karanbola** deubru batzu ere zaharreri ikasiak Zerbait baitziren haatik bankarraren bost izkin-motz, lau **karanbol,** hiru lehertu, hiru gainezko eta 13 boteak, beste hiru sake falta eginik ere, ez hutsez baina laburregi berexiz. Herria

---

# karanbola[2] *iz Averrhoa carambola* zuhaitz tropikalaren fruitua, horia eta dasta garratzekoa.

Beraz, klima eta gainerako gorabeherak aldeko izanez gero, berton produzituko (produzitzen segituko) dira anakardoa, arabarba, babakoa, banbua, bergamota, feijoa, getozka, gonboa, guaiaba, **karanbola,** kardamomoa, [...] zidra eta beste hamaikatxo ere Euskal Herriko klima desberdinetan, errentagarri gertatzen diren heinean. Edorta Agirre

---

# karantza *iz adkor* aurpegiaren itxura, itxura. ik **kara**[1]**; musaje**.

Kristinak zioen hiltzaile ero baten **karantza** nekarrela salan sartzean. Aingeru Epaltza

Hor atzemanen nituen noski, beren hobietatik jaikitako hil bizidunak, oro koipe eta lizun, biharamunean itzultzeko prest mostradorearen **karantza** patetikoa areagotzera. Aingeru Epaltza

Erretato ateratzaile baten aurrean ipinten denak, senez edo, bat-batean itxura arrotz batera eramaten du bere **karantza,** perfekzioz apaindu eta osatu nahiz bezala. Patziku Perurena

Eta hain da hori horrela, non gose-egarririk eza heriotzaren **karantza** berbera edukitzeraino etorri baitzaigu. Iñaki Segurola

Han, kapera hura bertzerik ez baitzegoen, san Inazioren izenean eraikia, bere bakarrean ermita baten **karantza** zuena. Joan Mari Irigoien

---

# karaoke 1 *iz* japoniar jatorriko denborapasa, kanta ezagunak musika grabatuaren gainean abestean datzana.

15:45: marrazki lehiaketa eta **karaokea,** haurren txokoan. Berria - Kultura

Edo **'karaoke'** handi bat euskal kantuen ezagutarazteko. **Karaoke** bat antolatua da. Ramuntxo Etxeberri

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Texas & Colorado!- **karaoke** areto batera joan ginenean. Bernardo Atxaga

**Karaoke** -taberna baten aurrean utzi zuen taxiak gizona. Jon Muñoz

Hondartza hartan milaren bat lagun zeuden mugitzeko batere tokirik gabe, eta, **karaoke** kantariak bezala, erreta zeukaten askok azala. Bernardo Atxaga

**3** karaoke aretoa.

Goiko **karaokean** lan egiten dik, egik kontu. Harkaitz Cano

---

## karaokedun *izlag* karaokea duena.

2004ko urtarrilaren 10a: Sulauesi uharteko Palopo hiriko **karaokedun** kafetegi batean bonba batek lau pertsona hil zituen.

---

kararri ik **kareharri**.

---

## karastu, karats/karastu, karasten da *ad ipar* mingostu, samindu.

Aho-sabaia **karastu** zitzaion: edozein esteketarik libre zen. Itxaro Borda

---

## karate 1 *iz* armarik gabeko gudu artea, jatorriz Japoniakoa, aurkaria esku irekiekin, oinekin, ukalondoekin emandako kolpeez lurreratzea helburu duena.

**Karate,** jiu jitsu, wing chun, boxeoa... -gazteak ostikada bat bota zuen airera, azkarra, altua-. Fernando Morillo

Espainiako **Karateko** Federazioa banatu egin zen, gero Taekwondokoa, baina Wu-shuari ez diote uzten. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Orain, txakurrak **karate** -kolpe bat emanen ziok eta eskuburdinak gibelera lotuko. Aingeru Epaltza

Thailandiako borrokalariak eta Japoniako **karate** borrokalariak lehiatzen ziren, bakoitza bere teknika eta estilo propioak erabiliz. Berria - Kirola

Ortzirale aratsean: **karate** erakuspena, kontzertua Ahurtiko fanfarrarekin. Herria

---

## karateka *iz* karatean aritzen den pertsona.

**Karateken** antzean oihu egin eta, goiti, zutik nengoen berriro. Joxan Elosegi

Emakumearen portzelanazko bisaia belztu bezalaxe atera zen, sukaldetik, **karateka** itxurako morroi bat. Aingeru Epaltza

**Karateka** mugimendu zainart batean. Itxaro Borda

---

## karatezale *izond* karatearen zale dena.

Kelvin musikazalea, aktorea eta **karatezalea** ere ba omen zen. Gotzon Garate

---

## karats *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **kirats** agertzen da)* 1 *izond ipar* kiratsa, kirastuna.

Hatsa **karatsa** dugula, ur usaindu bat gure gorputzak ixurtzen duela. Michel Oronoz

**2** mingotsa, samina.

Tisana edan nuen azken xortaraino, grimas batekin azkenean, **karatsa** baitzen, sukrerik gabea. Marzel Etxehandi

Ameriketako airearen usainaren nostalgiak izpiritua larrantzi zion: hezea, **karatsa,** bultzakorra. Itxaro Borda

Odola usnatzen zuen, ezkaratzaren garbitzeko plantatzen zenean, jariakor, mingar eta **karats** . Itxaro Borda

Elise eta Martinak sentimendu **karats** berdina zeukaten: funtsean ongi martxan zen lantegi baten zerratzeko lehen ezpata kolpearen biktimak izan ziren. Itxaro Borda

-Jakes, zure haurtasunaz oroitzapen **karats** zonbait badaukazu, 39-45 eko gerla dela medio. Herria

Bainan hara, batzutan gozatze horrek halako **karats** gostu bat hartzen du urteak joan arau. Herria

Txirrindularitza maite dugunek ezin uka halako **karats** edo mingor gostu batekin behatzen diogula Itzuli handiari. Herria

**3** *irud*

Konfiantza egiten dizut eta hara nola saritzen nauzun: burla **karatsaz** ! Itxaro Borda

---

## karatula 1 *iz* mozorroa.

Gabetasun horrek gaizkia alegorikoki irudikatzen duten hiru **karatula** ditu: Satan, zeruko fiskal akusatzailea, heriotzaren aingerua; gaitz fisikoa, sufrimendua eta heriotza irudikatzen dituena, eta, azkenez, txarrerako sena, geure barruan xaxaka ari zaigun tentazioa. Xabier Kintana

Krispazioak dira, soslaiak, distentsioak, **karatula** zemaikorrak dira. Jon Alonso

**2** disko baten azal inprimatu eta irudiduna.

Era berean, CDari dagozkion **karatulak** ere helbide horretan bertan lor daitezke. Berria - Kultura

---

karatxo ik **garatxo**.

---

## karbogaseoso *izond* gas karbonikoa duena.

Erreumatismoa: ur erradioaktiboak, bikarbonatuak (bikarbonatu kloruratuak), sulfuratuak, **karbogaseosoak** eta metal urak. Berria - Euskal Herria

Gorputz adarretako gaixotasun baskularrak: ur **karbogaseosoak** . Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ur karbogaseosoak** (3)

## **karbohidrato** *iz* karbono hidratoa.

Jaten ditugun **karbohidrato** guztiak landareetatik datoz. Gorputza ezin da bizi **karbohidratoetatik** bakarrik: proteinak behar ditu. Irene Aldasoro

Gehienetan hiru erregai nagusi erabiltzen ditugu: **karbohidratoa** (azukrea eta almidoia duten janariak), gantza eta proteina. Irene Aldasoro

Gantzak eta **karbohidratoak** ez dira hain zailak prozesatzen. Irene Aldasoro

**Karbohidrato** bat da glukogenoa, muskuluan nahikoa ugari den maila apaleko erregai bat. Irene Aldasoro

Zuntz eta **karbohidrato** konplexu gutxiegi eta animalia proteina, lipido saturatu eta azukre soil gehiegi kontsumitzen delako. Edorta Agirre

Atkins dietak proteina askoko elikagaiak hartzeko eta **karbohidratoak** murrizteko aholkatzen du. Berria - Gaiak

Beti ere Doktor Kerrn-i jarraiki [...] azido fosforikoak berebiziko garrantzia zuen **karbohidrato** zahartuak berritzeko orduan. Juan Garzia

---

## **karbonato** *iz* azido karbonikoaren gatza.

Marteko lurrazalean **karbonatoak** eta mineral hidratatuen zantzuak daudela. Berria - Gaiak

Fosfato eta kare **karbonato** pixka bat. Monika Etxebarria

Koralek kareharrizko eskeletoa dute, eta eskeleto hori sortzeko, itsasoko uraren kaltzio **karbonatoa** erabiltzen dute. Gelatinak baditu kaltzita- edo aragonita-kristalak (kaltzio **karbonato** edo klarionaren kristal-formak): otolitoak. Irene Aldasoro

---

## **karbonatu** *izond* karbono atomoak dituena.

Koralak, maskordunek eta zenbait plankton motak itsasoko ioi **karbonatuen** beharra dute, euren maskorrak garatu ahal izateko. Berria - Gaiak

Baina uretako karbono dioxidoa ugaritu ahala, ioi **karbonatuak** murriztu egiten dira. Berria - Gaiak

Kondrita **karbonatuzko** arroka puska bat. Patxi Iturritegi

---

## **karbonera** *iz* ikaztegia; ikazgela; ikazkutxa.

Zapata bustiak sukaldeko **karboneran** utzi eta, bekozko ilunarekin, errazegi jarri diegu, esan zuen. Harkaitz Cano

---

## **karboniko** 1 *izond* karbonoarena, karbonoari dagokiona.

Salbamendurako berebillak antxintxiketan hurbildu dozak bertara, eta elur **karboniko** edo dalakua inguruetan bota. Txillardegi

Eskaileretan behera jaistean, denetariko usainak sumatzen ziren: lehenik, bizarra egiteko bitsarena [...]; eta azkenik, zaborrak eta gas **karbonikoak** sortarazia. Lopez de Arana

Kontrazeptibo lez cocacola erabiltzen genuen, azido **karbonikoa** espermizida zelakoan. Joseba Sarrionandia

Ozeanoek atmosferatik hartzen dute karbono dioxidoa, eta uretan azido **karboniko** bihurtzen da. Berria - Gaiak

### 2 ***anhidrido karboniko*** karbono dioxidoa.

Kometen nukleoak izotz konglomeratu batez (ura, amoniakoa, anhidrido **karbonikoa)** eta karbonozko eta silikatozko hondar solido batzuez osatuta zeudela. Berria - Gaiak

Hala molekula bat anhidrido **karboniko** eguratsera itzuli zen. Juan Garzia

Alegia, [gizona] ez da ahalegindu elikatzeko, janzteko, berotzeko eta bizitza modernoaren beste hamaika beharrizanetarako ezinbesteko zaion karbonoa aireko anhidriko **karbonikotik** erdiesten. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> anhidrido karbonikoa (4)

---

## **karbono** 1 *iz* gai bakuna, izadian kristal egituran nahiz era eitegabean agertzen dena ez-metala(C; at.-z 6).

**Karbonoa,** izan ere, elementu berezi-berezia da: berak bakarrik daki bere buruarekin katea luze finkotan lotzen energia-xahubide handirik gabe. Juan Garzia

Horregatik **karbonoa** sustantzia biziaren elementu giltzarria da. Juan Garzia

Aatazioak egiteko **karbono** 14aren azterketak hasiak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ozeanoek atmosferan dagoen **karbonoa** biltzen dute. Berria - Gaiak

**Karbonoaren** zikloa. Berria - Gaiak

Helburu txikiak jarri ez ezik, Kyotoko hitzarmenak **«karbonoaren** merkatua» ere sortu duela gogorarazi zuen Yañezek. Berria - Gaiak

Europa **karbono** gutxi isurtzen duten teknologietan munduko buru bihurtzea. Berria - Mundua

Fosfatoa deskonposatu eta **karbonozko** geruza trinko eta iragaztezina sortzen da. Berria - Gaiak

Kablea **karbonozko** nanohodiz egitea proposatu zuen Edwarsek. Berria - Gaiak

**Karbonozko** piezak eta pieza konposatuak egiten puntakoa. Berria - Ekonomia

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Banuen amets-asmoa **karbono**-atomo baten saga idazteko. Juan Garzia

**Karbono** molekulen egitura. Bernardo Atxaga

Hotz egiten zuen egunetan, sutontzi baten aurrean ematen zuen bizitza osoa, **karbono** oxidoz kargatutako airea arnastuz denbora guztian. Josu Zabaleta

**Karbono** monoxidoa pozoitsua da, odolean oxigenoa garraiatzea galarazten baitio hemoglobinari. Irene Aldasoro

Besoak, esate baterako, **karbono**-zuntzezkoak ditu. Berria - Gaiak

Adituen esanetan, **karbono** maila egungoa baino ia mila aldiz altuagoa zen orduan. Berria - Gaiak

Paleozeno-Eozeno garaiko tenperatura altuaren ondorioz, lurreko eta itsasoko **karbono** kopuruak gora egin zuen. Berria - Gaiak

**Karbono** bonoak erosi eta, neurri batean, isuriak gutxitzen ere lagun dezaketela esan zuen. Berria - Gaiak

· Abiadura kaxa titaniozkoa da guztiz, iazko **karbono**-titanio nahasketa albo batera utzi ondoren.

### 3 ***karbono dioxido***

Tenperatura igotzea, **karbono-dioxidoaren** (CO2) atmosferako kontzentrazioak gora egitearen ondorioz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Atmosferara zenbat **karbono dioxido** isur dezaketen esango die Europako Batasunak enpresei. Berria - Euskal Herria

Arnasten dugun aire berriak % 21 oxigeno eta % 0,03 **karbono dioxido** du; arnasan kanporatzen dugun aireak, berriz, % 16 edo % 17 oxigeno du, eta % 3,5 **karbono dioxido**. Irene Aldasoro

Garrantzitsua da prozesu hori biriken eta odolaren artean oxigenoa eta karbono **dioxidoa** trukatzeko. Irene Aldasoro

Animaliaren barruan dagoen **karbono dioxidoaren** kontzentrazioa inguruko uretan dagoena baino handiagoa denez, kanpora egiten du **karbono dioxidoak**. Irene

Aldasoro

**Karbono dioxidoaren** isurketak jaisten ari dira. Berria - Gaiak

**Karbono dioxido** isuriak murrizteko beharra dagoelako. Berria - Harian

**Karbono dioxido** gasen ondorioz, ozeanoetako PH mailak behera egin du. Berria - Gaiak

**4** ***karbono hidrato*** osagaitzat karbonoa, oxigenoa eta hidrogenoa dituen gai konposatua.

Garatzeko bidean diren herrialdeetan ekonomia hobetzen denean, jendeak karbono **hidrato** gehiago hartzen ditu eta horrek loditasun arazoak, diabetesa eta hipertentsioa ekartzen ditu. Berria - Gaiak

Azukrea edo karbono **hidratoak**. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arnastutako karbono** (3); **atmosferako karbono** (8); **atmosferako karbono dioxido** (6); **karbono atomo** (4); **karbono dioxido** (62); **karbono dioxido gehiago** (6); **karbono dioxido isuriak** (4); **karbono dioxido kopurua** (5); **karbono dioxido maila** (7); **karbono dioxidoa** (55); **karbono dioxidoa isurtzeko** (3); **karbono dioxidoak** (5); **karbono dioxidoaren** (14); **karbono dioxidoen** (4); **karbono dioxidorik** (4); **karbono monoxidoa** (21); **karbono monoxidoa arnastuta** (9); **karbono monoxidoak** (6); **karbono monoxidoaren** (4); **karbono zuntzezko** (3); **milioi tona karbono** (3); **sortzen duen karbono** (4); **tona karbono dioxido** (4)

---

## karbunklo *iz* errubiaren aldaera, kolore gorri ilunekoa.

Amorru eta suak txigorturik, odol-zolda gatzatuz gainestali eta hanturik, **karbunklo** halako begiz, Pirro infernutiarrak Priamo aitaso zaharra bilatzen du. Juan Garzia

---

## karbunkoso *izond* karbunko izeneko gaitzari dagokiona.

Jende gaizkilearen ezinikusi horiek, ez al daude ezin hobeto irudikatuta zorne urdinaren baziloak eta bakteridia **karbunkosoak** elkarrekin duten aurkakotasun menderaezinean. Josu Zabaleta

---

## karburadore *iz* karburagailua.

Lehen, **karburadorean** nahasten ziren erregaia eta airea, zilindroetara pasa aurretik. Berria - Gaiak

Diesel **karburadore** baten beirazko behatxuloaren aurrean geunden. Joxe Austin Arrieta

---

## karburagailu *iz* gasolinazko motorretan errekina haizearekin nahasteko erabiltzen den gailua.

Automobil baten tankeko erregaia **karburagailuan** prozesatu behar da; gasolina-lurrun eta aire nahasketa gisa irteten da **karburagailutik,** energia baliagarria atera dakion baino lehen. Irene Aldasoro

**karburagailu** baten bila zebilela Chevy 56 bat konpontzeko.Bi hodiek, gasolina-tankekoak nahiz **karburagailukoak,** balbulak dauzkate, erregaia okerreko aldera joan ez dadin. Javi Cillero

Atzerako kolpeak, gordetegia zabaldu, eta gasolinaz betetzen du; hurrengo kolpeak, aurrerakoak, **karburagailura** bidaltzen du gasolina. Irene Aldasoro

---

## karburante *iz* erregaia.

Ez du ahantzi, Bruselako aireportuan, orain dela zenbait urte, mekanikariak hegazkin bateko **karburante** ontziak ikusmiratzen ari zirela, bi gazte haien gorpuak topatu zituztela, autopsiak argitu zuenez hipotermiak eta hipoxiak jota. Patxi Zubizarreta

---

## karburo **1** *iz* karbonoaren eta gai bakun baten konbinazioa; bereziki, kaltzio karburoa.

Mahaiaren erdian jarritako **karburozko** lanpara zaharraren atzetik. Paddy Rekalde

**2** (hitz elkartuetan)

**Karburo**-argia. Joxe Austin Arrieta

Eskuargi elektrikoak, kandelak, kriseiluak, olio-lanparak bai eta bizikleten **karburo**-faroltxoak ere hartu zituzten, argi pixka bat izateko, eta isilik abiatu ziren. Koldo Biguri

Usaina aditu nion gutunazal horri eta **karburo**-kirats pixka bat ote zuen iruditu zitzaidan. Fernando Rey

· Jakina da Asiaren erdialdeko lurra belaki bat bezalakoa dela, hidrogeno **karburo** isurkariz blaitua. Karlos Zabala

---

## karburodun *izlag* karburoa duena.

Burdina edo kobrea, kartoiak, baztertutako arropa, teilak, ferrak, **karburodun** lanpara zaharrak, denetarik jasotzen genuen. Anjel Lertxundi

---

## kardaba *iz* kezka, egonezina.

Burua **kardabaz** eta kezkaz beterik zeukan eta pentsamendu bat zebilkion errotarria bezala "ez nuen beste erremediorik etortzea baizik". Iñaki Zabaleta

Aste honetan bertan, Maribi Ugarteburu kazetariak Info7 irratian egin kolaborazioan, Izagirrek aipatutakotik **kardaba** berak ere, ea ez ote den prentsan [...] gaitz bera, ea ez ote diren asko soberakoak eta betelanak. Iñigo Aranbarri

---

## kardabera *(orobat **kartabera** g.er.)* **1** *iz* elkartuen familiako landarea, zurtoin eta hostoetan esne moduko bat duena *(Sonchus oloraceus* etab.).

**Kardaberak** eta baxa-udareak eta belar-kondotxoak jatera ohitua ez dago ba nire urdaila. Patxi Ezkiaga

**Kardabera** batzuk jaten dituen mandarin letratuaren Nagitasun gozoan. Koldo Izagirre

Loreak jaten zituzten, bide bazterreko **kartaberak** zehazkiago, gosearen ahal bezala eztitzeko. Eneko Bidegain

Eguzkiak distira egiten zuen **kardabera** bailitzan. Lopez de Arana

**Kardaberetan** hanka-hutsik lan egiten nuen. Pablo Sastre

Eta begietan **kardaberak** hazi...! Pablo Sastre

**2** *irud*

Ilehoria eta **kardabera** berehala oheratu ziren, baina eskotedunak ez zeukan presa handirik, antza, eta, hozkailutik garagardo botila eta marmelada potoa hartu ondoren, egongelako besaulkian jesarri zen, ni aurrean ninduela. Jon Arretxe

## **kardailu** *iz* irabiurra; (irud) zigorra.

HIESA balin bada gaurko **kardailu** haundiena nola ahantz Paludismoak, urtero, 2 miliun-ta erdi jende hiltzen dituela eta horietan miliun bat haur 5 urtez azpikoak. Herria

---

## **kardala** *iz* olatua jaso eta apurtzeko hasten den itsas bultzada.

**Kardala** baretzeko neu nago moilarri. Berria - Kultura

Olatuak gora eta olatuak behera, gogor astintzen du mendbaleko **Kardala** olatuak Mutrikuko portuaren sarrera, eta mutrikuarrek aspalditik eskatu dute kaia babesteko neurriren bat. Berria - Harian

---

## **kardamomo** *iz* belar landare bizikorra, medikuntzan eta edari bizietan erabiltzen diren haziak ematen dituena*(Elettaria cardamomum).*

Arabiarrek **kardamomoa,** iltze-kanela eta beste zenbait espezia erabiltzen omen dituzte kafeari zapore berezia emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beraz, klima eta gainerako gorabeherak aldeko izanez gero, berton produzituko (produzitzen segituko) dira anakardoa, arabarba, babakoa, banbua, bergamota, feijoa, getozka, gonboa, guaiaba, karanbola, **kardamomoa,** [...] zidra eta beste hamaikatxo ere Euskal Herriko klima desberdinetan, errentagarri gertatzen diren heinean. Edorta Agirre

---

## **kardantxilo** *(orobat **kardantxulo** g.er.) iz* karnaba.

Pedrok zeru altuan pasatzen ziren usoak eta patioko hormetako alanbre-hesietan pausatu eta berriz hegan egiten zuten **kardantxiloak** ikusten zituen. Jon Maia

Baserriko ukuilu erdia bederen kaiola bihurtuta zeukan, beti txoriz betea: txokak, **kardantxiloak,** tarinak... Jon Maia

-Fama txarra daukala usoak, fama txarra -erantzun zion osabak **kardantxilo** batena zirudien ahotsez. Felipe Juaristi

**Kardantxulo** bikotea, makalaren lore kotoizkoa biltzen kutxi-kutxi, alai... Pello Zabala

**Kardantxilo** saldo harrigarri bat. Anjel Lertxundi

---

## kardantxulo ik **kardantxilo**.

---

## **kardatu,** karda(tu), kardatzen **1** du *ad* ileaz mintzatuz, harrotu.

Hainbaten esanetan, zapata plataformadunak erabiltzen ditu eta ilea **kardatu** egiten du altuagoa emateko. Berria - Mundua

**2** (era burutua izenondo gisa)

Horien ondotik, azaltzen dira beste txima txuri luxatuak, goitik behera ile ongi **kardatuaren** antzekoak. Pello Zabala

---

## kardenal ik **kardinal**[1].

---

## **kardiako** **1** *izond* bihotzeko, bihotz-. ik **bihotz**.

Bolatxoa bihotzera iritsitakoan krisi **kardiako** bat ukan zian, ospitalera eraman zitean. Koldo Izagirre

Whyttek baraua eta bradikardia (erritmo **kardiako** motela) lotu zituen beste lan batean. Berria - Euskal Herria

Zer ote da gure Parlamentua, gutxitasun **kardiakoa** izan, eta bihotzekoak jotzeko arriskuan dagoen gaixoa besterik? Patxi Zubizarreta

Atxilotuei gorputz zatiak moztu zizkieten, kalte neurologiko, **kardiako** eta lo egiteko ezintasuna sortu, depresio eta erruduntasun sentimenduak eragin eta familiako zein lagunarteko harremanak galarazi zizkieten. Berria - Mundua

-Bihotza ez al da ba errai **kardiakoa**? Koldo Izagirre

-Fakultatean genuen antigoaleko irakasle batek bezalaxe egiten duzu berba: "errai **kardiakoa",** "kutxa torazikoa"... Koldo Izagirre

• **2** *iz* bihotzekoak joa, bihotzekoduna.

Baina aurretiazko gaixotzat joko da jada, **kardiako,** eskizofreniko edo minbizidun izatekotzat, artean gaitzaren inolako seinalerik ageri ez duen hainbat jende. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> errai kardiakoa (4)

---

## **kardilaun** *(orobat **kardu-ilaun** g.er.)iz* kardaberaren eta beste landare batzuen lore modukoa.

Haizeak mendiz mendi daraman lastoa bezala, ekaitzak daraman **kardilauna** bezala. Elizen arteko biblia

Batzuetan ez baitu sentitzen gorputzari itsatsitako hautsik, [...], ez hegazti lumarik, ez, hain arintasun ezerezekoa izanik, nekez jausten den **kardilaun** hegalaririk. Xabier Amuriza

Goian, behean, buru-urdinak; **kardilaunak** dira. eserlekuen zur antzinakoa, beirez eta teilatuez haraindiko eguzkiaren esfera, ekaineko airean dabiltzan **kardu**-ilaunen hegaldi hutsala. Juan Garzia

---

## **kardinal**[1] *(orobat **kardinale** eta **kardenal** g.er.)* **1** *iz* Aita Santua hautatzen duten Elizako goi kargudun edo prelatuetako bakoitza.

Kolegio sakratuan, badakizue, **kardinal,** artzapezpiku eta apezpikuenean, bi gizon irten ziren kontra. Irene Aldasoro

Kuriako kideen artean Hugolino **kardinala** zegoen. Askoren artean

Gaztelako erregeorde Cisneros **kardinalak**. Martin Anso

Erromako Eliza santuko **kardinal** guztiek. Askoren artean

Aita santuari eta **kardinal** guztiei. Askoren artean

Aita santuak **kardinal** agurgarrien batzar nagusia bildu zuen Perugian. Askoren artean

Aita Sainduak Tarragonako artzapezpikua **kardinale** egin duelakotz. Piarres Xarriton

Aita saindu Pio V.ak **kardinal** izendatu nahi izan baitzuen bi aldiz. Joan Mari Irigoien

Amona Erika asko mindu zen naziek Faulhaber **kardinala** harrikatu zutenean. Anjel Lertxundi

**Kardinala** izatera iritsi baitzen frankismoan. Koldo Izagirre

Leon Brancaleone, Jerusalemeko Gurutze Santuko titulua zuen **kardinala,** · Jaun **kardinalak** lagun zituela, munduarentzat hilak eta hobiratuak zeuden Kristoren mirabeak bisitatzera joan nahi izan zuen. Askoren artean

**2** (izenondoekin)

Hamar-hamabost egun barru bilduko dira 117 **kardinal** hautesleak, Sixtoren Kaperan, Karol Wojtylaren ordezkoa aukeratzeko. Berria - Harian

Milango (Italia) **kardinal** emerito Carlo Maria Martinik. Berria - Gaiak

Kapitulu honetan Reinerio **kardinal** diakonoa izan zen, beste hainbat gotzain eta erlijiosorekin batera. Askoren artean

Hugolino jaunak, Ordenaren **Kardinal** zaindariak. Askoren artean

Asisko Frantzisko hil eta bi urte baino lehen [...] Gregorio IX.a Aita santuak -beraren adiskide eta Ordenaren **kardinal** babesle izanak- santu izendatu zuen. Askoren artean

Gure **kardinal** zaindari jaunaren baimena izanik. inork ez baitaki Joan Paulo II.ak zein aukeratu zuen **kardinal** *in pectore* (ezkutuko). Askoren artean

**Kardinal** ezkutua nor den ikusteko jakin-mina. **Kardinal** aurrerakoi batzuek argitasuna eskatu arren, neurri zorrotzak ezarri dituzte katolikoen aita santua aukeratzeko negoziazioan erabateko sekretua izan dadin. Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zerbitzu handiak egin dizkizun gizona izan delakotz eta gorago igaiteko heina eta **kardinale** kargua jasateko doia errekaitu baduelakotz jadaneko. **Kardinal**-jantziak ekoizle famatu bat ezkutatzen duela ikusirik, eta errotaria, berriz, lan bila dabilen aktore bat dela deskubritu eta gero [...]. Piarres Xarriton

**Kardinal**-jantzian zegoen taldeko batek azalpen min-garratzen bat jaurti zuen. Anjel Lertxundi

**Kardinale** xapela gabe utz dezan bera. Michel Oronoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hugolino kardinala** (11); **jaun kardinala** (5); **kardinala hil** (3)

**hugolino kardinalak** (8); **jaun kardinalak** (8); **lau puntu kardinalak** (4); **ostiako kardinalak** (3); **puntu kardinalak** (9)

**hugolino kardinalaren** (3); **kardinalaren etxean** (3)

**bordeleko kardinale** (3); **jaun kardinale** (4)

**etchegaray kardinalea** (4)

**etchegaray kardinaleak** (6); **ezpeletar kardinaleak** (4); **kardinaleak erran** (3); **ratzinger kardinaleak** (4)

**etchegaray kardinalearen** (3)

**kardinalen kongregazioak** (3)

---

## kardinal[2] *iz* Ameriketako txori kantaria, lumak eta mokoa gorri biziak dituena *(Cardinalis kardinalis).*

Eskua luzatu zuen, txalupari erantsitako **kardinal** baten luma zelakoan. Anton Garikano

Ikustera joan zen Maitea, eta adarrez adar saltoka zebilen **kardinal** bati begira geratu zen. Anton Garikano

---

## kardinal[3] **1** *izond* nagusia, oinarrizkoa.

Hementxe hasten da parte filosofikoa bera, 3 tesi teologiko **kardinal** frogatzeko darabilena: Jainkoaren existentzia, bakartasuna eta gorpuzgabetasuna. Xabier Kintana

Hogeita sei premisotan oinarriturik, Jainkoaren existentzia eta haren ezaugarri **kardinalak,** bakartasuna eta gorpuzgabetasuna, frogatuko ditugu. Xabier Kintana

Horrela, lau Ebanjelioen eta lau bertute **kardinalen** "lau zaldiko orgak" eramanik, bertutez bertute gorantz joan zen. Askoren artean

**2** ***puntu/norabide kardinal****sup_1*

Puntu **kardinalak** hiru balira. Edorta Jimenez

Besteak beste, hiriko puntu **kardinal** bakoitzean eskultura bana jartzea aipatu da. Berria - Kultura

Maite dut anitz eremu hori, lau norabide **kardinaletara** irekia baita lurrez, airez eta itsasoz. Ana Urkiza

Guri, aldiz, iruditzen zaigu koordenadak zaintzen igaro dituela kartzela urte guztiok, puntu **kardinalen** eta bere etxearen kokalekuaren zuzentasuna frogatzearren joan zela oinez kartzelatik etxera. Jokin Urain

**3** ***puntu/norabide kardinal****sup_2 irud/hed*

Finkielkrautentzat berarentzat, ostera, Rafael berri honentzat, bi puntu **kardinal** eta bi estremo besterik ez dago beti ere Athenaiko eskolan edo espazio hermeneutikoan. Joxe Azurmendi

Iritsiko zela errealitatearen lau puntu **kardinalak** ikusi eta orientatzeko gai izango nintzen eguna. Bernardo Atxaga

---

## kardinale ik **kardinal**[1].

---

## kardiobaskular *izond* bihotzari eta zain-arteriei dagokiena.

Gizentasuna eta eritasun **kardiobaskularrak**. Joxan Elosegi

Emakumeen artean heriotza kausa nagusia gaitz **kardiobaskularrak** izan ziren. Berria - Harian

Arazo **kardiobaskular** guztiak ez zizkioten behar bezala aztertu. Berria - Euskal Herria

Autopsiak bihotzekoak jota hil zela esan arren, arazo **kardiobaskularrik** ez zuela jakinarazi zuten bere senideek. Berria - Euskal Herria

Alain Solek hilaren 19an hasi zuen zaintza medikoen greba, tratamentu **kardiobaskularrari** eta intsulina injekzioei uko eginez. Berria - Mundua

Lehiaketetan xakeak nerbio, hormona-sistema eta sistema **kardiobaskularrak** probatzen ditu. Berria - Kirola

Dieta egitea zigorra onartzearen pareko denez (horretarako izutu gaituzte-eta: bihotzekoak, gaitz koronario eta garunekoak, **kardiobaskularrak,** diabetesa, minbizia...), [...]. Edorta Agirre

Medikuak behar ditugu, lehenbailehen, batez ere zirujauak, arlo baskular, **kardiobaskular** eta kirurgia orokorrekoak. Berria - Mundua

9,6 milioi euro jaso zituen egindako kirurgia **kardiobaskularreko** operazioengatik. Berria - Euskal Herria

Gaixotasun **Kardiobaskularren** Ikerketarako Zentroa. Berria - Gaiak

· Gaixo bati **kardiobaskularra** egin zioten aipatu ospitalean eta ebakuntzak «bilakaera ona» izan zuen. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arazo kardiobaskularrak** (4)

---

**kardiograma** *iz* bihotzaren higiduren erritmoa eta intentsitatea erakusten dituen grafikoa.

**Kardiogramak** igortzeko ez ezik, erradiografiak bidaltzeko ere erabili nahi dituzte teknologia berriak. Berria - Harian

Maniobraburua kezkatua zegoen, eta lapitz batez mezuak seinalatzen zituen bitartean, lapitzaren puntak dardar egiten zion eta paperean **kardiograma** baten antzeko zirrimarrak egiten zituen. Fernando Rey

---

**kardiologia** **1** *iz* medikuntzaren adarra, bihotz eritasunak aztertzen dituena.

Ebakuntzak egiteko lau gela adimendun, kimioterapiarako 12 anbulatorio postu, energia handiko bi azeleragailu lineal eta **kardiologia** nuklearreko Gamma-kamera. Berria - Euskal Herria

"Bihotzaren ibilaldia" proposatzen digu **kardiologiako** federazioak. Herria

Gaur egun lau azpiegitura ezberdin arduratzen dira **kardiologiaz** Lapurdi itsasaldean. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Osasun azterketa arrunta edo **kardiologia** artak hartzerakoan aise gainditzen da 90 euroko kopurua. Berria - Harian

Indiako Narayana Hrudayalaya **kardiologia** ospitaleko burua. Berria - Harian

Baionako Ospitalean puntako **kardiologia** zerbitzu bat jartzekoa dute, zerbitzu pribatu eta publikoko eskaintzak batuz. Berria - Euskal Herria

---

**kardiologo** **1** *iz* bihotz eritasunetan espezialista den sendagilea.

**Kardiologoarengana** eraman genuen. Joan Mari Irigoien

Gauez haur batzuk zaindu nituen eta **kardiologo** batentzat telefonista-lana egin nuen abortuaren dirua pixkanaka itzultzen joateko. Joseba Urteaga

Mel McGinnis **kardiologoa** da, eta horrek batzuetan hitz egiteko eskubidea ematen dio. Koro Navarro

**Kardiologoaren** aholkuak gorabehera, bere betiko purutxoak erretzen segitzen zuen isil-gordean. Patxi Iturritegi

**Kardiologoen** Nazioarteko Bilkuran. Berria - Gaiak

Europako **Kardiologoen** Elkartearen urteroko bileran. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Estatu Batuetako **kardiologo** talde batek *New England Journal of Medicine* zientzia aldizkarian esandakoaren arabera, «emaitzak bikainak» izan dira.

---

**kardiopatia** *iz* bihotzeko eritasuna.

Adituen ustez, urtero 20 milioi pertsona hilko dira **kardiopatia** eta garun apoplexien ondorioz 2020a bitartean. Berria - Gaiak

Tabakoa erretzeak biriketako minbizia ez ezik **kardiopatiak** ere eragin ditzakeela. Berria - Gaiak

**Kardiopatien** eta Garun apoplexien Atlasa argitaratu du Osasunerako Mundu Erakundeak. Berria - Gaiak

Zelula hauen bitartez, medikuek **kardiopatiei** aurre egin diete. Berria - Euskal Herria

Gaixotasun zabalduenen zerrendan hirugarren lekuan ageri dira errepide istripuen ondoriozko traumatismoak, **kardiopatia** iskemikoa eta depresioaren atzetik. Berria - Gaiak

· Mio-**kardiopatia** handitua dauka Maradonak, baita biriketako bi aldeetako infekzioa ere. Berria - Kirola

---

kardo ik **kardu**.

---

**kardu** *(orobat **kardo** g.er.)* **1** *iz* elkartuen familiako landarea, erdiko zaina zabala eta zuria duten hosto gogor arantzatsuak dituena *(Cynara cardunculus).*

Janaritegiko teilen artetik aurkitu zuen txokoa **kardo** batek. Anton Garikano

Adibidez, kanario deritzan txoritxoak **kardu** jatera egingo du, bere izaeraren arabera, eta ez basabitxiloretara. Jenaro Garate

Aita ikusten du soroa ildoz ildo oinkatzen, mokorrez mokor zapaltzen, eskuarez bezala berdintzen, sasiak, zuhaixkak, **karduak** eskopetaz jotzen. Itziar Otegi

Kanpoan zutik, eguzki-galda kiskalgarri hartan, hondar horiskaren, **kardu** grisen eta mendi gorrisken gaineko zeru ubelari begira. Joxe Austin Arrieta

Gure alorrak oraino zenbait ahago tzar, zalke edo **kardu** badu ere, [...]. Herria

Amatxok Hearn´s-en erositako jantzi eskoziarraren sorbaldakoan brotxe moduko zilarrezko **kardu** bat erakusten zuen. Lopez de Arana

**2** irud/hed

Hi betik **"kardo"** galanta izanda, eta oin... ohiko purrustadak eta zakarrerixak aiztu, eta... musu eske? Txillardegi

**3** ***kardu arantzatsu***

**Kardu arantzatsua**, ardien ilea harrotzeko karduaren antzeko tresna, **kardu arantzatsuak** edo tresnak bezala ardien ileak harrotzen eta biltzen dituen hesia. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** ***txori-kardu***

Elurtearen erdian **txori-kardu** izoztu bat aurkitu duen txolarrea, horixe ematen zuen. Anjel Lertxundi

**5** *kardu-ilaun* ik **kardilaun**.

---

**kardulatz** *(orobat **gardulatz** g.er.)* *iz* astakardua.

Eskoziarrek, esaterako, astakardua edo **kardulatza** dute ikur. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina inguru hartan isatsa eta **kardulatza** besterik ez, eta olibondo bakan batzuk sail elkor batean, jenderik ez, pare bat ahuntz gerizpean, besterik ez, alferrik jardungo nuen nahi beste oihuka eta garrasika... Joxe Austin Arrieta

Harri-kozkorrak eta **kardulatzak,** eta mitxoleta gorri batzuk tarteka. Joxe Austin Arrieta

· Orduan, gizarte primitibo eta rustiko guztietan bezala, Euskal Herrian politak neskak daude, oraindik gizartearen zakartasunak zakartu gabeak, loreak; eta, bestetik, **kardulatzak,** andreak... Koldo Izagirre

---

**kare** **1** *iz* kaltzio oxidoa (CaO), gai zuria, 2.580 °C-tan urtzen dena, kare harria errez edo kiskaliz ateratzen dena. ik **gisu**.

Hondar larri, **kare** eta erraustsa nahastuz. Santiago Iruretagoiena

**Kare** eta hareazko morteroarekin. Santiago Iruretagoiena

**Karea** hila dagoenean, orduan morteroari nahastuko zaio; harrobiko harea erabiltzen bada, hiru parte harea eta parte bat **kare** nahastuko dira; errekakoa edo itsasokoa

bada, bi parte harea eta parte bat **kare** . Santiago Iruretagoiena

Eta tona bat **kare** . Joxerra Garzia

Ez lohi, ez buztin, ez **kare,** ez porlan... Patziku Perurena

Junta horiek olioarekin oratutako **karearekin** beteko dira. Santiago Iruretagoiena

**Kare** zaharraren koloreko aurpegiarekin eta negarrez. Joseba Sarrionandia

**Kare** zaharrarena bezalako usaina zerion haren ahoari. Anjel Lertxundi

Edomgo erregearen hezurrak profanatu baitzituzten, erraustu eta **kare** bihurtu. Elizen arteko biblia

Ez zuen oso gogoko lan egitea, eta batere ez eskuak hargin lanetako **kareaz** zikintzea. Pello Lizarralde

Elurra bezain **kare** zuriz zarpiaturiko eliza berri baten gainean altxatua. Jose Morales

Gelako hormak hutsik zeuden, **karez** pintatuak. Josu Zabaleta

**Kare** edo pintura zuriz koloreztatuko badituzte ere. Joan Mari Irigoien

**Karea** egiteko labean **Karea** egosteko ere, karobia sutzerakoan, otea nahi izaten omen zuten garai bateko aitona zaharrek. Patziku Perurena

Etxe handi bat jaso zuen bertan, harriz eta **karez** eraikia. Askoren artean

**Karezko** argitasun bat iritsi zen bagoira zeruertzetik. Josu Zabaleta

Gauaren hondarreraino, **ka ( retan** ahitzen zèn gorpuaren beilan egoten zen, labe gorri ilunaren ondoan. Juan Garzia

**2** paretez eta kidekoez mintzatuz, kare gezura.

Baserriko **kare** zurizko hormaren kontra paratu nintzen. Harkaitz Cano

Grafito horiek paretako **karea** harraskatuz eginak dira. Berria - Kultura

**Kearen** zuritasun hura, leihoetako pertsiana berdez margotu berri haiek. Koldo Biguri

Hormetako **kareak** kresal usaina zuen. Anjel Lertxundi

Pospolo bat piztu zuen hormako **karearen** kontra igurtziz. Anjel Lertxundi

Haren zimurretan **kare** horitua nola pilatu den denborarekin ikusi du. Hasier Etxeberria

Barnealdeak **karez** zurituak daude, lakura ematen duen fatxada bezala. Koldo Izagirre

Plazatxo **karez** zuritu eta hautsez betean. Josu Zabaleta

Kanposantuko horma **karezkoen** kontra itzularazi ondoren fusilatzen zituzten. Harkaitz Cano

**3** (erkaketetan)

**Karea** baino zurbilago zegoen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antigua alderago, errepide zaharraren aldapan gorakoan, "La Fe" **kare** -fabrikatzar zatarra. Txillardegi

Istripua izan zuenean, garabian zebilen, **kare** biltegi batean. Berria - Ekonomia

Tarteka ikusten ziren **kare** -tontor handiek zein enbor zerratu gabeek eta ohol ondo pilatuek hiri-inguruko mehatze eta basoen aberastasunak iradokitzen zituzten. Anjel Lertxundi

**Kare** arrastoz markatutako atearen alde banatan lorezko koroak jarri zituzten. Josu Zabaleta

Sabaiko habe beltzak zipriztindurik zituen **kare** kostra batekin. Josu Zabaleta

**5** kare ura.

Baldekada bat **kare** eta brotxa bat hartuta. Koldo Biguri

-Ba, ez dakit, paretei **karea eman** -edo, erretaulari kraka kendu-edo... egongo da nik egiteko moduko lanen bat. Xabier Mendiguren Elizegi

**6** kaltzioa.

Fosfato eta **kare** karbonato pixka bat. Monika Etxebarria

**7** ***kare bizi*** urik ez duen karea.

**Kare biziak** den-dena suntsitzen du. Joxerra Garzia

Baina **kare biziak** ere uzten ditu, ikusi nahi duenarentzat, bere aztarnak. Joxerra Garzia

Espaloietan gelditzen den kaka-hondarra garbitzeko, **kare bizia** botatzen dute. Gotzon Garate

Prozesuan, begiak **kare biziz** erreko ditu itsu gelditzeko helburuz, erredentzioako bidea horrela hobeto «ikusteko». Berria - Kultura

**Kare biziko** aletxo batzuk. Gotzon Garate

Bai, eta gero torturatu egingo gaituzte, eta **kare bizitara** bota. Unai Iturriaga

**8** *kare-harri* ik **kareharri**.

**9** ***kare-haitz*** *(orobat **karaitz**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kare haitz** agertzen da)* kareharria.

Baina, **kare-haitza** beti **kare-haitza** izaki, eta badira, dirudienez, harri bigunagoak ere -nola esan?-, harri lurrezkoagoak edo... azken batean, ez al dira lur, ur, su, eta airez osatuak, suzko labean karetzen direnak? Pello Zabala

Han eta hemen ikusten da oraindik zuhaitzen bat, eta baita sastraka edota hainbat belar zerrenda ere; baina, guztiarekin, elementu nagusia **karaitza** da, ebaki eta pitzatuz markatutako harri txuria. Bernardo Atxaga

**Karaitza** beti da astun, baina baita arina ere, bertzetik. Joan Mari Irigoien

**10** ***kare hauts*** kare hila, urez itozen den kare bizia.

Izebak hautsa astintzekoa hartu eta zerran jotzen zuen osaba eta **kare hauts** pila bat harrotzen zuen jantzietatik. Pello Lizarralde

Goizeko bederatzietarako milaka gradutako beroa ari da sortzen barruko ganberan, hezurrak **kare-hauts** bihurtzeko adina. Oskar Arana

**Kare hautsez** osatutako errektangelu baten erdian Bernardo Atxaga

**11** *kare ore* ik **kareore**.

**12** ***kare ur*** ur kareduna. ik gorago **5;** ik **karesne**.

Gero teila horiek **kare-urez** zurituko dira, adreilu-hautsezko zarpeatua ez dezaten bota. Santiago Iruretagoiena

Gero teila horiek **kare** -urez zurituko dira, adreilu-hautsezko zarpeatua ez dezaten bota. Santiago Iruretagoiena

Eta zer estalaktita, ez bada kisu edo **kare ur** zuri harri bihurtua? Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kare bizia** (4); **kare harri** (3)

**karea eta harea** (4)

**karez zuritu** (3)

---

# kareberritu, kareberri(tu), kareberritzen du *ad* berriro kareztatu.

Latineko *crispus*-ek, "kizkurra" frantsesez *crép-* erroa eman du, eta erro harretatik *crépir* " **kareberritu** " (horma bat) eta *décrépir* "karea kendu" sortu dira. Isabel Arrigain

---

**karedun** *izond* karea duena.

Lur absorbatzaileak espezie ezberdinen araberakoak **(karedunak** eta muriatikoak) direla aurkitzeko arrazoimenaren erregela bat behar dugu. Ibon Uribarri

---

**kareharri** *(25 agerraldi, 9 liburu eta 8 artikulutan; orobat **kare-harri** 10 agerraldi, 5 liburu eta artikulu 1ean, eta **kararri** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kareharri** agertzen da)* *iz* kaltzita duen harria, bertatik karea atera daitekeena.

**Kareharri** gorrikaraz egindako eraikin arloteen etxabeetan. Mirentxu Larrañaga

Audenentzat, **kare-harriak** eta berun-meatzeek osatzen zuten lurralde hori. Xabier Olarra

Behin eta berriro ukitu zuen hatzekin sarrerako **kareharria,** arabiar, greziar edo feniziar inskripzioen arrastoen bila. Iban Zaldua

Argiak elur itxurako distirak ateratzen dizkio **kareharriari**. Beren bekatua baztertzen badute, idolo-aldare guztiak, **kararria** bezala, hauts egiten badituzte. Elizen arteko biblia

Cementos Rezolak ustiatzen du harrobia bertako **kareharriarekin** zementua egiteko. Berria - Kultura

Koralek **kareharrizko** eskeletoa dute, eta eskeleto hori sortzeko, itsasoko uraren kaltzio karbonatoa erabiltzen dute. Berria - Gaiak

**Kareharrizko** leize batean aurkitu dute eskeletoa, 5,9 metroko sakoneran. Berria - Gaiak

**Kareharrizko** arku ikaragarri bat. Joanes Urkixo

Kras Esloveniako lurraldea da, **kareharrizko** goi-ordokiz osatua. Fernando Rey

**Kareharrizko** eskualde bat da Il Carso, ipuru-landarez betea. Anjel Lertxundi

Hango paisaian ere landaretza tropikala, **kareharrizko** labar piko-pikoak eta harrobi erraldoiak nagusi ziren. Jon Muñoz

Bagoi bat **kareharri** ez zen nahikoa izango emazteak senarrari botatzen zizkion kexuen zerrenda egiteko. Koro Navarro

---

**karei** *iz* oskola (materiala).

Betaurrekoak daramatza, beltzak, **kareizkoak**. **Kareizko** orrazi bat, bi arkatz eta peluxezko hartz txiki bat. Anton Garikano

Eta **karei** -oskolezko orrazi bat luzatu zidan. Josu Zabaleta

---

**karel** **1** *iz* (itsas)ontzietan, albo bakoitzaren goialdea edo goiko ertza.

Ontziaren **karela** lehorretik metro eskasean hurbiltzeko. Josu Landa

Luzaroan egon nintzen haren etzaulkian, hankak **karel** zuriaren kontra bermaturik. Joxe Austin Arrieta

Animalia haiek **karel** altuko itsasontzi batetik ari ziren lehorreratzen. Monika Etxebarria

Oin bat **karelaren** gainean eta bestea ontziko bizkar sendoan. Edorta Jimenez

**Karel** ertzera agertu zen, eguzkiak bere bidearen erdirako pausotxo bi falta zituelarik. Edorta Jimenez

Ahalegin betean saiatu zen istriborreko **karelaren** gaina gainditzen. Edorta Jimenez

**Karel** ondoan zutik eta bakarrik nintzela. Joxe Austin Arrieta

Bidaiarien erdia **karel** gainetik botatzeko agindu du pilotuak. Jon Muñoz

Gero **karelean** ikusi dut, aingura hori jasotzeko ahaleginetan. Joseba Sarrionandia

Peterrek seinalea egin zuen, eta hilotza **kareletik** bota zuten. Julen Gabiria

Orduan bere ontzia nirearen **karelez karel** jarri zuen, eta kateatik tiraka ekin genion biok. Josu Zabaleta

**Karelez** kanpoko motordun txalupa batekin. Joseba Sarrionandia

Mercury **karelez** kanpokoa. Edorta Jimenez

Garbi-garbia zegoen ontzigaina, distiratsu zeuden berunezko **karel** -barandak eta soka-gakoak. Anjel Lertxundi

**2** *hed/irud*

Marka oneko whiski bat eskumenean, bainuontziaren **karelean**. Eskarne Mujika

**3** zubi, bide edo kidekoen ertzeko murru modukoa, garaiera txikikoa; murruaren gaineko ertza. ik**petril**.

Bizikleta uzten dut, zubiaren **karelaren** kontra. Eskarne Mujika

Neuillyko zubia zeharkatzean, **karelean** bermatzen zituen eskuak eta Sena aldera makurtzen. Karlos Zabala

Zubiaren **karelean** eseri nintzen. Irene Aldasoro

Gero, iturriaren **karelean** eserita, gauaren lanbrora arte aritzen ziren kalakan. Juan Garzia

Almuedanoak eskua mugitu zuen **karel** zirkularrean zehar, Meka hiri santuaren norabidea seinalatzen zuen marka, harrian zizelatua, aurkitu arte. Jon Alonso

Kalostraren **karelean** eseri eta egunkari italiar bat irakurtzen saiatu nintzen. Joxe Austin Arrieta

Dorre aurreko **karel** epelean eserita, hondartzaren gain-gainean. Txillardegi

Bide haren kanpoko **karela** amildegiaren ertzetik zihoan. Agustin Otsoa

Amildegi goria ingurubiltzen duen **karel** porotsuaren gainean, suak bihurrituriko sandalia burdinorizko bat aurkitu zuten. Juan Garzia

Bikote bat Tenis inguruan, harrizko **karel** zabalaren gainean, neska etzanda, burua mutilaren magalean pausatuta. Iñaki Iñurrieta

Mendebaldeko fatxadaren aurrean du zabalune lau bakarra etxeak, beste hiru aldeetatik pasillo estu porlanezko batek inguratzen du, **karel** batean bildua, metroko zabalerako eraztuna iduri. Iñaki Iñurrieta

Besoak leihoaren **karelean** jarrita, patiora begira geratu da. Iñaki Iñurrieta

**4** *hed/irud*

Inperio austrohungariarreko poetak bizitzaren **karelean** bizi izan dira, Rothen pertsonaiak monarkiaren ekialdeko aldirietan bezala; zain bizi izan dira edo akabera baten oroitzapena berritzen. Anjel Lertxundi

**5** ***karel artean***

**Karel** artean gizon bi zeuden. Edorta Jimenez

Aitzakiazko oihala brankan jarrita, **karel** artean joango direnak ez dira edonor. Edorta Jimenez

**Karel** artean sartu nintzen, ontziaren bizkarrean oin biekin zapalduz. Edorta Jimenez

· **Karel** arteko solasaldi gogaikarrietan esaten zenez, [...]. Edorta Jimenez

**6** ***karelez kanpoko***

**Karelez kanpoko** motordun txalupa batekin. Joseba Sarrionandia

**Karelez kanpoko** makinadun bateltxo batean datorrela. Edorta Jimenez

Mercury **karelez kanpokoa** aipatu duenean igarri diot; Mundakako portuan izaten direnek makinen izenak esaten dituzten moduan esan du: Mercury. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**karelaren gainean** (5); **karelaren kontra** (4)

karelen artean (7)
kareletik bota (4); kareletik botatzen (3); kareletik itsasora (3)

---

## kareldun *iz* karela duena.

Paisaiari begiratzen zion, haren bakardade eta goibeltasunak inoiz ez bezala hunkitzen baitzuten: bere emaztearen begiez so egiten zien putzu **kareldunei,** mortuei, urkidiei, ordeka gainean ageri ziren ilunabarreko laino arrosei Xabier Olarra

---

## karen *iz* abereek edo emakumeek umea izan ondoan botatzen duten mintza.

Behi umaberriari barrenak garbitzeko eta **karenak** errezago egiteko. Patziku Perurena

Mihura kendu ezean, ihartu eginen da hurritza; halaxe berean hil, **karenak** egin ezean, ama erditu berria, haur jaio berriaren bizi iturria. Patziku Perurena

Ama itsasoa da, eta isurki amniotikoa eta **karena,** itsaso zati bat amaren baitan. Markos Zapiain

**Karena** itsaso zati bat da, amaren sabelean. Markos Zapiain

---

## karenaje *iz*

Argia asko moteldu da kanpoan, motoaren **karenajean** antzematen dut, bizirik gabeko distira hotz horretan. Pako Aristi

---

## karenatu, karena, karenatzen du *ad* ontzi baten kroskoa konpondu.

Izotz estutuak berak altxatuko du ontziaren krosko borobila, **karenatu** behar balitz bezala. Joseba Sarrionandia

**Karenatzen** zegoen buruz behera nasan, sasiak eta ekarri genituen alboan sua egin eta ohola lehortzeko, gero karraskatu egin genuen kroskoa. Joseba Sarrionandia

---

## kareore *(orobat **kare-ore**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kareore** agertzen da)* **1** *iz* karez, hondarrez eta urez osatutako orea, horma bat eratzen duten harri zatiak elkarri itsasteko erabiltzen dena. ik **mortero**.

Paretak gero harri eta **kareorez** egin behar baldin badira, egin bitez harri ahalik eta txikienekin. Santiago Iruretagoiena

Zarpeoa pixka bat lehortu denean, **kareorearen** lerrokadurak markatuko dira, luzetarakoak erregela eta kordelarekin, altuerak berunarekin, eta angeluak eskuairarekin ondo markatuz. Santiago Iruretagoiena

Lehenengo zarpeatuaz gain **kareorearekin** gutxienez hiru geruza eman ondoren, marmol-pikorrarekin egin behar da berdindua, mortero hori bere puntuan nahastuz. Santiago Iruretagoiena

Bota egingo dut zuek **kareorez** estalitako harresia. Elizen arteko biblia

**Kare-orea** egiteko makina. Urtzi Urrutikoetxea

Batzuk harri-garraio, besteek **kare-orea** dakarte, bakoitzak bere zereginaren arabera. Joan Mari Lekuona

Harriaren ordez adreilua erabili zuten eta **kare-orearen** ordez bikea. Elizen arteko biblia

**2** *irud /hed*

Hizkuntza erkide bat behar zen; hizkuntza izango zen milioika gizaki zeharo desberdin haiek elkartuko zituen **kareorea**. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
kareorez estaltzen (4)

---

## karesa *iz* fereka.

Denek egiten ohi dutena egin zuen: usnatu, inguruan itzulika lotu, haren **karesak** onetsi eta haren lagun joan, isilik. Alta, arrazoin beren gatik, ez dirote **karesa** haundiegirik egin ere europearreri. Elena Touyarou

Hori bera galdatzen nian nik, kasu egiteko nola egiten huen hitz, merezi zian bertzelako **karesa** urketariak, ginebra zirrizta ematen ziguan uretan hark. Koldo Izagirre

---

## karesatu, karesa(tu), karesatzen du *ad* ferekatu. ik **kareziatu**. • *irud/hed*

Saski baloian, garaipena **karesatu** dute baina ez dute ardietsi Baiona/Urketarrek 88/94 galdu baitute St Chamond-eko parketean. Herria

---

## karesne *iz* kare ura.

Ibilgailuak errepideari hobeto eusteko **karesnea** botako dute. Berria - Euskal Herria

---

## kareta[1] **1** *iz* aurpegi babesa.

Goizero gerritik gora biluztu, bendatu, **kareta** jantzi eta ordubete ematen zuten eskriman Akademiako gimnasioan. Xabier Olarra

**2** mozorroa.

Aurpegian **kareta** bat zuela jotzen zuten larrua. Aritz Gorrotxategi

**3** (hitz elkartuetan)

Nahiago izan zuen orain izkribu sakratuetan bildurik dagoen argumentu labur bat zirrimarratzea **kareta** fabrika bateko hondakinen artean. Juan Garzia

---

## kareta[2] *iz* Karibeko dortoka.

Egiazko **kareta** *(Caretta careta)* eta larruzko dortoka *(Dermochelys coriacea)* espezieak dira amuon biktima nagusiak. Berria - Gaiak

Egiazko **karetaren** populazioa gero eta txikiagoa da mundu osoan eta urte asko daramatza etengabe jaisten. Berria - Gaiak

---

**karetsu** *izond* kare asko duena.

Eta ez gutxiago, baina beste modu batera, mazeletan eta selaixetan beren harrarte **karetsu** txuriak erakusten zituzten baserri zabal aberatsek. Txillardegi

· Xarmaz beterik azaltzen ziren haiek guztiak nire ustez, ikuskizun hunkigarria eratzen zuten Ilargiaren azpian, xuri-xuri, eta **karetsu**. Joxan Elosegi

---

**karetu**, kare(tu), karetzen da *ad* kare bihurtu; kiskali.

Baina, kare-haitza beti kare-haitza izaki, eta badira, dirudienez, harri bigunagoak ere -nola esan?-, harri lurrezkoagoak edo... azken batean, ez al dira lur, ur, su, eta airez osatuak, suzko labean **karetzen** direnak? Pello Zabala

---

**karetx** **1** *iz* garatxoa.

Joanetearen gisako zurezko **karetx** koskorra beheko muturrean behar izaten zuen makil batekin jokatzen zenekoaz, egun beisboleko makilak bezalatsu. Patziku Perurena

• **2** (adi zlagun gisa)

Gorrotoaren beste itxura engainagarria, beldurrak edo koldarkeriak **karetx** bihurtu duena duzu. Patziku Perurena

---

**kareziatu**, karezia(tu), kareziatzen du *ad* ferekatu.

Bizarra **kareziatu** eta, kea barneratuz eta kanporatuz, Haydn-en musika ahosabaian izango banu bezala dastatzen diat. Mikel Hernandez Abaitua

---

**kareztatu**, karezta, kareztatzen **1** du *ad* karea eman, karez zuritu.

Oso fatxada luzea eta bi solairu zituen; behekoa ez zegoen **kareztaturik**. Jose Morales

Txit zuria zen [etxea], **kareztatu** berria zegoen eta ajez betetako atso zahar desitxuratu baten eitea zuen, zuriz erabat hautseztatua eta kolore bizi-biziez margotua gaztetxo baten gisan. Karlos Zabala

**2** *hed*

Eta, hala, so egin nion aitari, eta aurpegia **kareztatu** berri ziotela iduritu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

**3** (era burutua izenondo gisa)

Berriz ikusi zituen Ruche jaunak etxetxo **kareztatuak,** burua galtzeko moduko urdinez margotuak ateak eta leihoak. Jon Muñoz

Etxe apal, **kareztatu** baten aurrean geratu zen orgatxoa. Josu Zabaleta

Pintaketa handi bat dago horma **kareztatu** baten alderik alde. Anjel Lertxundi

Tarte txikitik hormetara, sabairainoko hesolekin lotutako hormak zeuden, ohol **kareztatuez** eginak eta sabairaino iristen ziren hesolei josiak. Anjel Lertxundi

Zementu eta hauts, hauts eta zementu, hilerri erraldoi **kareztatu** baten itxura hartuko du Azpilek. Joan Mari Irigoien

---

**karga** **1** *iz* pertsona, abere, ibilgailu edo kideko batek daraman edo eramaten ahal duen gauza kopurua. ik**zama**.

Egurretara joanda, **karga** bizkar gainean hartuta, bide luzea egin beharra egokitu zitzaion egurkari zahar bati. Imanol Zurutuza

**Karga** gehiturik ere, gizona lehengo erritmo berean zihoan, patarra goiti. Elena Touyarou

Astorik be etzegoan eta **kargak** norberaren bizkarrean edo buruan erabilli bear. Iñaki Segurola

Hirurogei eta hirurogeita hamabost kiloko **kargak** eroanez. Edorta Jimenez

Aitak bi abere baitzituen eta bi **karga**. Joan Mari Irigoien

Lehorrera abiatu zen babes bila, eta [...] espainolek harrapatu egin zuten, marinel, **karga** eta gainerakoekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Demagun ontzi baten edukiera zortziehun tona ur dela: ontzi horren **karga** laurehun tonakoa litzateke. Iñaki Iñurrieta

Gainean zekarren **karga** lurrean uzteko ia denborarik eman gabe. Hasier Etxeberria

Iraulki orgak **karga** husten ari ziren. Karlos Zabala

Mallorcan txalupa eta ontzi mordoa hondatu zuen, eta Eivissan 8.000 gatz **karga** eraman zituen itsasoak. Pello Zabala

Bonbaketariek beren **karga** libratzean Durango aldetik etorriko zitzaien ekaitz hotsa noiz entzungo zain. Ramon Saizarbitoria

Hodeiak paso eman, eta bere **karga** osoarekin aurrera jo dezakelako. Pello Zabala

Aireportutik bidalitako eta iragandako **karga** gehiena paketeak ziren, **karga** guztiaren, %50 baino gehiago. Berria - Ekonomia

**2** (izenondoekin)

Hitzak errota-harriak bezain pisu eta **karga** handiko balira bezala. Felipe Juaristi

Garesti ordaindua izango zuten **karga** handi haien garraioa. Karlos Zabala

Bazetorren gora, baina poliki, poliki, **karga** astunen batez kargaturik. Josu Zabaleta

Abere nekatuen gainean **karga** astun. Elizen arteko biblia

Abererik flakoenari eman baitzion **kargarik** itsusiena. Joan Mari Irigoien

**3** habe, egitura edo kideko batek jasaten duena edo jasaten ahal duena.

Paretak ezin izaten dio **kargari** eutsi. Santiago Iruretagoiena

[Palankaren) besorik luzeena muturretik zanpatzen denean, orduan errazago altxatzen da **karga**. Santiago Iruretagoiena

Airearen **karga** eta presioa. Pello Zabala

Zenbait hezurrek -zangoetakoek, esate baterako- **karga** handia eraman behar izaten dute eguneroko bizimoduan. Irene Aldasoro

Behar denean bakarrik isurtzen da lubrikagarria, giltzadurak daraman **kargaren** araberako dosietan isuri ere. Irene Aldasoro

**Karga** handiarekin leun mugitzeko, gontza baino hobea da bola-ahokadura motako giltzadura. Irene Aldasoro

Batzuk euli baten **karga** aski izaten ditet lur jotzeko! Patziku Perurena

**4** irud/hed

Horrela, emearen barruan sartu eta beren **karga** genetikoa utzi ahal dute. Luis Elberdin

Adierazpenok bizkar gainean eraman ohi zuen erantzukizunen **karga** erraldoiarekin. Jon Alonso

Bi ohar labur-labur, geroago berriro sinboloaren noziora itzuli aurretik, berebiziko **karga** historikoa baitu. Josu Zabaleta

Ez da makala termino edo kontzeptu horrek duen **karga** ideologikoa. Iñaki Heras

Kontzientzia **karga** zamatsuenetako bat. Patziku Perurena

Trinitik irakurtzen dituen hitzak **karga** pisutsuak dira. Antton Olano

Zentralak ez dituela bere gain **hartzen** karga sozialak. Berria - Euskal Herria

· *(mozkorraldia)* Dexenteko **karga** garraiatuagatik ere, neure buruaren jabe eta xutik egoteko gauza nintzen. Aingeru Epaltza

**5** (unitate gisa)

Hamar **karga** ardan gorri, hamaika **karga** ardan zuri, hamabi kaja pipapuru... Patziku Perurena

Urtero **karga** bat ale emango diet zure anaiei eta lan egingo dut haientzat. Askoren artean

-Martxoko Ama Birjiña egunez, attonak zozokumeak kolkoan eta **karga** ostroa bizkarrean. Pello Zabala

Urtean zenbat **karga** ardo ematen dizu mahasti honek, gehien ematen dizunean? Askoren artean

**6** norbaiten gain astuna gertatzen den gauza.

Lanaren **karga** astunetik libratzeko. Iñaki Segurola

**Karga** nuen zangoetan, **karga** besoetan, **karga** betazaletan. Aingeru Epaltza

Neure gain ezin har dezakedan **karga** bat jarriko balidate bezala... Pako Aristi

**Karga** astuna zeraman barru-barruan. Josu Zabaleta

Migel, gainera, ez zen luzaz etxean **karga** izanen. Aingeru Epaltza

Auzapez izaitea gero eta **karga** pisuagoa dela. Herria

Ama da, baina, bere akats guztiekin, **kargarik** astunena. Josu Zabaleta

Karguagatik jasaten duen **karga** guztia errazago eraman dezan. Askoren artean

Tabakoaren eta edariaren **karga** ohi baino handiagoa dudalarik, aspirina pare bat hartzen dut ohatzeratu aitzin. Aingeru Epaltza

Minak ez baitu bere soka laxatzen, mina **karga** handia baita eta zaila eramaten. Felipe Juaristi

Biziago ematen du, **karga** hilgarriaz arinduta. Aingeru Epaltza

Ur hotza azalean sentitu ahala, bekatuaren **karga** garbitzen zuela pentsatu zuen. Aritz Gorrotxategi

**7** kargatzea; kargatzen dena.

Dena programatuta zegoen: **karga** noiz egin, noiz abiatu behar zuen... Pablo Sastre

31 egunez **karga** eta mantentze lanetan aritu ostean. Berria - Harian

Garabietan -garabien pean, zehatz esanda- lan egiten hasi zen, **karga** eta deskargan. Harkaitz Cano

Erdisotoan **karga** eta deskarga lanak egingo dira. Berria - Kultura

Oraindik ez da **karga**-deskargarik hasi. Harkaitz Cano

Merkatuaren parean **karga**-deskargan geldirik zegoen hozkailu-kamioi batean. Harkaitz Cano

**8** zorra edo betebehar ekonomikoa.

Hiritar lehenek hartzen zituzten beren gain Estatuaren **karga** guztiak, eta herri xeheak ez zuen ezer ordaintzen. Iñaki Iñurrieta

Erroman hiru seme-alaba zituena **karga** pertsonal guztietatik libre zegoen. Iñaki Iñurrieta

Zerga haiei census zeritzen; eskubide ekonomikoak ziren, ez fiskalak; zor pribatuak, ez **karga** publikoak. elkartasun kutxa horien buruzagiek garbiki erraiten dute **karga** handiagoa jasaitekotan beren kide guzieri hilabete-sariak beharko daizkiotela emendatu. Herria

Gobernuak bere konduko zergak ttipitu nahi dituela [...], denen buru aise ariko hola, berak **karga** gutiago balinbadu bizkarrean, **karga** handiagoa utziz departamendu eta lurraldeen kondu...! Herria

**9** elektrizitate edukia.

Mintzaren barruko **karga** elektriko pixka bat galtze hutsak irazkor bihurtzen baitu mintza. Irene Aldasoro

Giroa elektrikoa izango da, **karga** positibo eta negatiboz gainezka. Joseba Sarrionandia

Sodio ioiek **karga** positiboa dute. Irene Aldasoro

Partikula ttipiek **karga** positiboa hartzen dute eta partikula handiek negatiboa. Gotzon Garate

**10** kargadorea.

Metrailadore baten **karga** osoa hustu zioten gorputzean. Karlos Linazasoro

**11** (lehergaia)

Etorri nirekin, **karga** hori indargabetzera goazak. Koldo Biguri

-Alde egin hortik! -oihu egin zuen berriz Pepponek, eskua **karga** lehertzeko aparatuaren eragingailuan zuela-. Koldo Biguri

Pauso bakoitzak, mugimendu bakoitzak, [...], pentsamendu bakoitzak **karga** lehergarri bat jasotzen ari banintz bezalaxe unatzen nau. Josu Zabaleta

Lehergailu-**karga** bat prestatzen ari zen. Xabier Olarra

**12** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bitartean, **karga**-mutilek, garrasi, birao eta aupada artean, bederatzi pudeko zamak jasotzen ditiztek bizkar gainera kakoen laguntzaz. Jose Morales

Gero Ziantzar **karga**-jasotzailearen tabernan bazkaltzen zuen. Koldo Izagirre

C-5 Galaxy **karga** hegazkin batek larrialdiko lurreratzea egin behar izan zuen atzo.

Forondako **karga** aireportuaren hurbil dagoela. Berria - Ekonomia

Kargalari guztiek har dezaten bakoitzak bere lepoaren gainean **karga**-zati berdina. Santiago Iruretagoiena

Giza jarduerak ez gainditzea inguruneak duen **karga** ahalmena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gure laboratorioak bazuen antzik trapuzahar denda batekin eta baleontzi baten **karga**-sotoarekin. Juan Garzia

Gurdiko **karga**-sokak edo erromaletako uhalak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bazen, ordea, **karga**-jasogailu bat. Jon Muñoz

· Aizkoran edo korrika, estropadetan nahiz **karga**-jasotzen, berdin zitzaion. Xabier Etxabe

**13** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa izen konkretuekin)

Iraulki orgek beren barazki **karga** botatzen zuten lurrera, adokin **karga** bat izan balitz legez. Karlos Zabala

Oin bat, nekeagatik harri **karga** astuna bezain pisua zirudiena. Felipe Juaristi

Apenas dugu neguko ikatz-**karga** erosteko dirurik. Anjel Lertxundi

Itzuleran zetorren egur **karga** batekin. Askoren artean

Autoen lehergailu **karga** ere arinagoa izan zen. Berria - Euskal Herria

Urtean hiruzpalau aldiz gizon-**karga** mardul hura iristen zenean, zabal-zabal irekitzen genion atea gure kemen guztiari, ase gabeko behor gazteak ematen genuela. Karlos Zabala

Zaldunbide kapitaina zutela, beltz-**kargarekin** egin zuten Brasilerako bidaia. Pablo Sastre

Dinamita **karga** bat kotxean neramala. Berria - Euskal Herria

Ziren lekuan jauzarazi dituzte beren bonba-**kargak,** 16 hil eginez han berean. Herria

**14** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa izen abstraktuekin)

Lan **karga** gehitzea da Babcockeko enpresa batzordeko presidente berriaren helburua. Berria - Ekonomia

Erabakitzen zuena erabakitzen zuela, etxera diru-**karga** berriak ez ekartzeko modukoa izatea. Aingeru Epaltza

Goian bego gaixoa, ukan zuen bizi zeno bere dolore **karga,** bakean delako esperantza dut. Itxaro Borda

Animalien zelula guztietan, elektrizitate-**karga** negatibo txiki bat dauka mintzaren barrualdeak. Irene Aldasoro

Ur-lurrina kondentsatu eta izozten denean hor doa energia **karga** neurribakoz gora. Pello Zabala

Bere diru-ekonomia zerga- **karga** gero eta handiagoaren mende jartzen baitu. Iñaki Mendiguren

Gero eta finantza- **karga** handiagoak jasan beharra. Iñaki Mendiguren

Mugimendu horiek oso klerikalizatua zegoen Eliza ofizialarekiko oposizio- **karga** handia zuten. Askoren artean

Argazki sail bat edo pintura sail bat eginez gero, narrazio- **karga** handirik gabe, [...]. Josu Zabaleta

Herrixka sail hori, eliza zahar horiek, etxe zahar horiek, eta beren oroitzapen **karga** osoa. Josu Zabaleta

**15** erasoa.

Poliziaren **karga** bat edo beste, atxilotu batzuk, ez beste garai batean bezainbeste. itxialdia, gose-greba, ke-poteak eta grisen **karga..** . Jon Alonso

Zalduneria- **karga** baten itxura ere har zezakeen inoiz estilo horrek, eta arlo batetik bestera jauzi egitera eraman. Juan Garzia

*Ala da Jainko bakarra,* egiten du oihu almuedanoak, eta gizon bakarra bailiran portugaldarrek aurrera egiten dute **karga** -urratsez eta garrasiak eginez elkarri adorea emateko. Jon Alonso

**16** ***karga-karga egin***

Garaitsu honetarako, auskalo zenbat milaka erle maratz pasatu zaizkion kolkotik, **karga-karga** eginda joateko. Pello Zabala

Luze gabe, betazalak **karga-karga** egin zitzaizkidan berriz. Aingeru Epaltza

**Karga-karga** eginda neukan burua, ezer hausnartzeko jabaldura bildu ezinik bainengoen. Anjel Lertxundi

Izugarria izango zen, eguratsa **karga-karga** egina zegoen eta. Karlos Zabala

Bostak aldera, etxera itzultzen da, **karga-karga** eginda, pozarren. Eskarne Mujika

Desiraren albardak **karga-karga** eginik. Joan Mari Irigoien

**17** ***karga leku***

Orgen **karga** lekua irauli eta barazkiak lurrera zetozen mantso. Karlos Zabala

**18** *karga ontzi* ik **kargaontzi**.

**19** ***gibel karga*** *(orobat* ***gibelkarga****)*

Frantses parlamentuak **gibelkargarekin** ezarri du beraz Europaren afera. Herria

Europaren xutik ezartze horrek **gibel-** karga hartzen ari du asko lekutan. Beti gibelkari izana den Ingalaterraren **gibel-karga** hura bai oraino pisutzerat arizan dira. Herria

**10** *kontra-karga* ik **kontrakarga**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gehiegizko karga** (3); **karga astun** (3); **karga astuna** (6); **karga eginda** (10); **karga eginik** (3); **karga fiskalak** (3); **karga gehiago** (3); **karga genetikoa** (3); **karga guztia** (4); **karga handia** (12); **karga handiagoa** (5); **karga handiak** (3); **karga husten** (3); **karga izan** (3); **karga karga** (15); **karga karga eginda** (10); **karga karga eginik** (3); **karga kendu** (3); **karga negatiboa** (5); **karga ontzi** (3); **karga osoa** (3); **karga pisuagoa** (3); **karga positibo** (3); **karga positiboa** (4); **lan karga** (27); **sobera karga** (4)

**lan kargak** (3)

**kargaren zati** (3); **lan kargaren** (6)

**lan kargarik** (4)

---

## kargadore

*(31 agerraldi, 14 liburu eta 3 artikulutan)* **1** *iz* su armetan, kartutxoak kokatzen diren gailua. ik **kargagailu; karga 9**.

Automatikoa zen, eta **kargadorean** 36 bala sartzen ziren. Juan Kruz Igerabide

Eta subfusilek, jotailu eta **kargadore** barik, ez zuten ezertarako balio. Edorta Jimenez

Bi metraileta hartu nituen; C.Z.25, txekoak biak ere, eta lau **kargadore** munizioz beteta. Rafa Egiguren

Bi **kargadore** dauzkazu balaz beteta ezkerrean. Rafa Egiguren

Armak arropen azpitik aterata, **kargadorea** jarri nion bati. Rafa Egiguren

Balak banan-banan **kargadoretik** atera eta mesanotxearen gainean lerrokatu nituen. Alberto Ladron Arana

Balak atzera **kargadorean** sartu, eta pistola armatu nuen. Alberto Ladron Arana

9 luzeko Astraren hiru **kargadoreak** erabili beste erremediorik ez nuen izango. Rafa Egiguren

Nik **kargadorea** aurpegian hustu nion. Jon Muñoz

**2** kargalaria, zamaketaria.

Garraiolariei parte hartze zuzena eskatu diegu, bakoitzak bere **kargadoreari** prezio igoera eskatu diezaion. Berria - Ekonomia

Gasolioa %16 **igota,** kargadoreei eskatu die «erantzukizuna onartzeko». Berria - Ekonomia

---

## kargagailu

*(4 agerraldi, 3 liburutan)* *iz* kargadorea.

Ondo ziurtatu, denok, **kargagailua** beteta duzuela eta ordezko balaren bat larrialdirako. Mirentxu Larrañaga

Alde hartaraxe hustu du **kargagailuaren** gainerakoa. Aingeru Epaltza

Ziria biratu eta bala **kargagailuan** ipini zuen. Koldo Biguri

---

## kargalari

*iz* zamaketaria, kargatzen duen pertsona.

Gero, bi **kargalari,** kaiola ikaragarri haren azpian makur-makur eginda, aurretik zituela, bere etxerantz abiatu zen doktorea, garaile. Josu Zabaleta

Seiko edo lauko **kargalari** -taldeetan ere, oso karga handiak eramaten direnean, horretarako erabiltzen dituzten hagen erdian orekatzen da karga. Santiago Iruretagoiena

**Kargalarien** uhalak lotzen diren lekuan, iltzeak sartzen dira, uhala ez dadin alde batera edo bestera labaindu. Santiago Iruretagoiena

---

## kargaldi

*iz* kargatzea, karga.

Ez nuen funtsezko lanik egin hartan, amanteroari errieta ematen aritu nintzen goiz osoan, kargak zakar jasotzen, erriadak premiarik gabe bizitzen, zama kolpeka uzten nuela moilan, **kargaldi** guztiak jarraian, konbinadorearen gainean kakolduta. Koldo Izagirre

---

## kargamen

*iz* karga.

Belar izpi batekin sudur zuloak apropos zirikatzen, doministiku egin eta burutik behitiko **kargamenak** uxatu nahian. Patziku Perurena

Ongi pentsatzen jarriz gero, izugarria baita toponimo baten **kargamen** poetikoa. Patziku Perurena

Hitz hutsaz baino lehen, hitzaren **kargamen** poetikoaz eta analogia sinbolikoaz jabetu beharko bailuke ikasleak, eta ez gutxiago irakasleak. Patziku Perurena

---

kargamendu ik **kargamentu**.

---

# kargamentu *(21 agerraldi, 11 liburu eta 5 artikulutan; orobat* **kargamendu** *10 agerraldi, 8 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* ibilgailu batek, eta bereziki itsasontzi batek garraiatzen duen karga.

1.500 pintzeleko **kargamentua**. Ramon Etxezarreta

Egunaz portuan lan egiten dute, bizkarketan, **kargamentuak** ontzietara sartuz, ontziak deskargatuz. Matías Múgica

Halako **kargamentua** franko zaila duk kamionaren kajeran berdin samar uzten. Koldo Izagirre

**Kargamentuaren** kalitateak. Anjel Lertxundi

Baina iritsitako belarra agortua dagoela-eta, EAEko administrazioek hitzartu berri dute bigarren **kargamendu** bat ekartzea atzerritik. Berria - Ekonomia

Balio handiko **kargamentua,** e? Lopez de Arana

Legamia zela hura, okerreko **kargamendua** bidali zigutela. Harkaitz Cano

Kapitainak, ontzian zenbat pertsona zeuden eta zenbateko **kargamentua** igo zuten ikusi zuenean, ez zuen itsasoratu nahi izan. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oso kalitate handikoa zela sotoko kotoi-**kargamentua**. Anjel Lertxundi

Bazaukanat pizarra **kargamentu** bat eta... Josu Landa

Maleta astuna balitzaio bezala, katalogo komertzialen ordez harri edo berun **kargamendu** bat balerama bezala. Bernardo Atxaga

Legez kanpoko etxaldeetatik ateratako soja **kargamentuak** biltegietaraino jarraitu ditugu. Berria - Gaiak

Hamaika aurpegi zeuden zahar-usaineko bizkar haietan, guztiak ere gora begira, meloi-**kargamentuen** antzera. Lopez de Arana

Baztertutako izaki **kargamentu** bat ginen: mozkorrak, inkonpetenteak, ahulak, eroskak, [...]. Harkaitz Cano

**3** *adkor*

**Kargamentu** itzela harrapatu eta etxean giltzapetu naiz. Sonia Gonzalez

---

# kargante *izond* gogaikarria.

Baina begiratu orain zer **kargante** dagoen berriz! Fernando Rey

Bai Grezia zaharrean eta baita Britainia zabalean ere, elikagai gorriak ia beti debeku **karganteren** bat zuten berekiko: otarraina, urdaiazpikoa, karramarroa, arrain gorriak eta fruitu gorriak oro, ezin zitezkeen jan. Pello Zabala

---

# kargaontzi *(orobat* **karga-ontzi***)* *iz* karga daraman itsasontzia.

Moila, soto handiak, garabiak, **kargaontzien** tximini eta bizkarrak, kamioi tzarrak portura sartzen eta portutik irteten... Anjel Lertxundi

Bere **kargaontziaren** zubian. Edorta Jimenez

Inguruetara begiratu nuen, pakeboterik edo **kargaontzirik** ba ote zebilen inguru haietan. Bernardo Atxaga

Ardoa garraio zeraman **karga-ontzi** holandar batean egin zuen bidaia, amarekin batera. Felipe Juaristi

Joanes Iraurgi izeneko euskalduna kapitain zuen **kargaontzian**. Felipe Juaristi

Bilboko **kargaontzi** batean sartuta, Baionara iritsi ziren itsasoz. Rafa Egiguren

Hego Barearen itsasbidea egiten zuten ikatzez betetako **kargaontzi** haietan. Javi Cillero

---

# kargarazi, kargaraz, kargarazten du *ad* kargatzera behartu.

Parisa igortzea deliberatu genuen orduan; eta ez baitzuen bere zaldi orga gorde, neurean **kargarazi** nuen, eta haren ordez gelditu nintzen. Jon Muñoz

---

# kargatu, karga(tu), kargatzen **1** du *ad* ibilgailu batean eta abere baten gainean, garraiatu behar diren gauzak jarri.

Bere Ford gorri zaharrean **kargatu** genituen maletak. Joxean Agirre

Armak eta munizioak kamioian **kargatu,** bandera gorri-beltzak gurtesian ezker-eskuin sokaz nolabait kateatu, tankea gasolinaz bete, [...]. Inazio Mujika Iraola

Handik bi edo hiru ordutara, kamioi handi bat ailegatu zen, atzekoa jendez **kargatua**. Joseba Sarrionandia

Zerraldoa hirugarren klaseko gurdi apaindugabeko batean **kargatu** zuten. Koldo Biguri

Goiko larrean ari ziren denak, belarrari buelta ematen, belar lehortua pilatzen eta [...] belarra gurdietara **kargatzen**. Joseba Sarrionandia

Gurdia **kargatu** behar; pala pasatu zidan Morganek. Joxean Sagaztizabal

Belarra gurdira **kargatu** behar zen gainera. Josu Zabaleta

Enborra asto gainera **kargatu,** eta Santutxoraino eramaten utzi ziotela behintzat. Inazio Mujika Iraola

Zakuak asto gainean **kargatu** eta alde egin zuten. Elizen arteko biblia

Aitari hamar asto bidali zizkion Egiptoko emaitzarik onenez **kargatuak** eta hamar asteme gariz eta bideko janariz **kargatuak**. Jose Antonio Mujika

Indietako urrez **kargaturiko** zamariek bortua zeharkatzen zutela Bidaxuneri buruz... Aingeru Epaltza

Zama hura neure gainera **kargatu** bezain laster. Joan Mari Irigoien

Hogeita hamar kiloz **kargatu** zaku bat bizkar gainean harturik. Eneko Bidegain

**2** norbaitek zerbait, bizkar gainean edo, eraman.

Zakuak **kargatu** zituzten eta barnean sartu ziren. Ramuntxo Etxeberri

Belarra **kargatu,** prentsa-prentsa eginda, eta etxera. Joxean Sagaztizabal

Harry Blounten aldera jo du, eta, bihotz bipila erakutsiz, lurretik altxatu eta lepoan **kargatu** du, bizkarrean eramanda ihesi joateko... Karlos Zabala

**3** *irud /hed*

Buhamea ematen zuen urrez eta zilarrez **kargatu** emazte batek. Itxaro Borda

Kapitain bat, hatzak kobrezko bitxiz **kargatua,** eta bi galai. Juan Garzia

Kantuak larregi **kargatzen** dituzten artifizioak baztertzeko. Berria - Kultura

**4** pisu edo karga bat ezarri.

Pilastren gainean habeak **kargatzen** dira. Santiago Iruretagoiena

Habe solido batean, bada eskualde bat geruza neutral horren gainean eta azpian, konpresio- edo tentsio-indar nahiko txikiak jasaten dituena habea **kargatzen** denean. Irene Aldasoro

Pisu guztia ezkerreko eskuan **kargatu** eta libratu ahal izan nuen eskuinekoa. Joxan Elosegi

Baldin eta zurezko habe bat (a), metalezko barra bat (b) edo hezur bat (c) erdigunean **kargatzen** bada, haren azpiko gainazala tenkatu egingo da eta, beraz, tentsioan

egongo; goikoa, berriz, konprimitu egingo da. Irene Aldasoro

Badirudi bi bikoteek estrategia berdina erabiliko duzuela, atzelaria **kargatzearena**. Berria - Kirola

**5** irud/hed

Floreni bihotza **kargatu** zaio bilobarekin izandako solasaldiaren ostean, eta ez da gose. Eider Rodriguez

Dadoen beste jaurtiketa baterako aukera, jokoan galtzaile atera dadin, dadoak **kargatu** dizkioten jokalariari ematen zaiona. Xabier Olarra

Stephenek axolakabe begiratu zion erretxina puxka hari [...] harik eta igurtzi eta elektrizitatez nola **kargatzen** zen erakutsi nion arte. Xabier Olarra

Eta segidan, bihotzaren geletan luzaroan egotea komenigarria ez delako edo, gelak kutsatu, **kargatu** egiten baitira, gure bidaiaren gorabeherez mintzatzen jarraitu dugu. Patxi Zubizarreta

Giroak **kargatzera** jo zuen. Unai Iturriaga

**6** (irud/hed, zerez adieraziz)

Lehenik, biriketara bidali behar da odola, han oxigenoz **kargatu** dadin eta karbono dioxidoa deskargatu dezan. Irene Aldasoro

Gero eta okerrago ahoskatzen zituen hitzak, urteekin, arindu beharrean, pisu astun batez **kargatu** balitzaizkio bezala. Imanol Zurutuza

Erretinaren estimulazioak, izaeraz konplexu eta informazioz **kargatuak**. Josu Zabaleta

Gorputza gero eta gehiagora doan energia batez **kargatu** eta orgasmoa lortzerakoan energia hori askatuko balitz bezala da. Luis Elberdin

Nolanahiko dohain, izpiritu, arbasoengandiko leinargitasun, odol eta historiaz **kargatu** beharra daukala atzera bere arrazatxo hori. Joxe Azurmendi

Haren ezpain eszitatuak, lodiak, silikonaz puztuak bezala, desioz **kargatuak**. ez dagokiola zahartzaroari ohore iragankorrez **kargatzea**. Piarres Xarriton

Gauez, batez ere, Florenten garuna lurrun gaiztoz **kargatzen** zen. berez baliogabeko edo neutralak diren polaritateak ere, balioz **kargatzen** ditugu: arra/emea, handia/txikia, zuria/beltza, eta bietako bat polo negatiboa bihurtzen dugu. Karlos Zabala

**7** zordundu.

Gure kontuan **kargatzeko**. Juan Garzia

**8** *adkor* haurdun utzi.

Beste neska bat **kargatu** zuen eta, harekin maiteminduta baitzegoen, amore eman eta ezkondu egin zen. Aitor Arana

**9** tresna edo gailu bat, ibiltzeko edo funtzionatzeko behar duenaz hornitu.

Plastikozko bolaluma merkeak, tintaz berriro **kargatzen** ez zirenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Estilografika ireki eta botilatxotik **kargatzeari** ekin zion. Joxemari Urteaga

Ibilian-ibilian, argazki-makina **kargatzen** du. Anjel Lertxundi

Ordenagailua ezin piztu, labea ezin martxan jarri, [...] telefonoa ezin **kargatu**. Antton Olano

Amaitutako txartela berriro **kargatzeko** hamahiru leku atondu dituzte. Berria - Euskal Herria

Instalazioaren funtzionamendu zuzenaz behin eta berriro arduratzen nintzen, eta baita ordezko bateriaren **kargatzeaz** ere. Iban Zaldua

10 *(irud/hed)* Aspaldi egin gabeak gaudek behar bezalako "espedizio" bat, pilak ongi **kargatzeko**. Aingeru Epaltza

-Jon, ez al duk kanutoa gehitxo **kargatu**? Unai Iturriaga

**11** (su armak)

Kanoia **kargatu,** eta harresietarantza zuzendu zuen. Patxi Zubizarreta

Hormatik eskopeta hartu, **kargatu,** besapean jarri eta ezer esan gabe etorri zen gure atzetik. Koldo Biguri

Aitaren bi kanoiko eskopeta [...] ezkutuan garbitu eta otsotarako perdigoiekin **kargatu** zuen. Koro Navarro

Gero, alemanak, erantzun gisa, morteroak **kargatu** eta erasoka hasi zitzaizkigun. Felipe Juaristi

Inor destatu gabe, tiroka baino ez, jo eta su tiroka, **kargatu** eta tiroka, behin eta berriro. Mirentxu Larrañaga

Urrezko balaz **kargaturikan,** darabilt neure pistola... Iban Zaldua

**12** (informatikan)

Ustekabean birus baten ezaugarri guztiak omen dituen AMAGINARREBA 3.1 azpiprograma **kargatzen** zitzaiola. Iban Zaldua

Bost urte eta disko gogorraren memorian **kargatzen** eta birkargatzen den irudia. Sonia Gonzalez

**13** (poliziak) eraso.

Gazteek nik baino askoz ere arinago ihes egin baitzuten ertzainek **kargatu** zutenean. Iban Zaldua

Poliziek **kargatzen** zuten jende-lerroa Baiona Txikira heltzean, manifestariak ulu nardagarrien pare barreiaraziz. Itxaro Borda

Ertzaintza **kargatzen** hasi zeneko irudirik, beraz, ez ei dago. Berria - Euskal Herria

**14** (era burutua izenondo gisa)

Hodei **kargatu** bat. Pello Zabala

Ohartu nintzen, hala ere, hiru errebolber **kargatu** zeudela altzarietan jarrita. Josu Zabaleta

Paperak berriz ukitzen ausartu gabe, arma **kargatu** bat bezala eskuetan lehertuko zitzaizkion beldurrez. Karlos Zabala

· Hegazkin handi, lodi eta bonbez **kargatuak**. Felipe Juaristi

Gogoan dut Jaccottet-ek *Cahier de verdure*n aipatzen zuen gereziondo fruituz **kargatua..**. Ana Urkiza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kargatu eta deskargatu** (4)
> **berriro kargatzeko** (3); **berriz kargatzeko** (3)

---

# kargatzaile **1** *iz* kargalaria, zamaketaria.

Mendian, ez dute ez **kargatzailerik** ez eta oxigenorik erabiltzeko asmorik. Berria - Kirola

**2** kargagailua.

Atxilotuak 6,35 kalibreko Browning pistola bat zeraman, **kargatzaile** eta muniziorik gabe. Berria - Euskal Herria

---

# kargatze *iz* karga ezartzea.

**Kargatze** hori egiten ahalko da bankoetan nola berdin saltegi ainitzetan. Herria

Armen **kargatze** hori guti gorabehera egiten zuten, ez zutelakotz izari xuxenik, zenbaitek bederen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# kargo *iz* kargaontzia.

Somaliako portuetara mendebalde aberatsak **kargoak** mukuru betez igorri zituen irrisa mutzituak. Itxaro Borda

Lampauleko ostatu keztatuan adiskideak 1976ko *Olympic Bravery* petrolio **kargo** erraldoiaren suntsipena kontatu zidan. Itxaro Borda

**kargu** **1** *iz* norbaiten erantzukizun edo ardura den betekizuna.

Herri elkargoko lehendakaritza **kargu** bat da, gero eta garrantzia gehiago izanen duena. Berria - Harian

Dena zekien, maila eta **kargu** guztietatik igaro balitz bezala. Jose Morales

Hartara, **kargu** handiak bizi osorako eman ziren aurrerantzean ere. Iñaki Iñurrieta

Ez zagok New Yorken hi baino egokiagorik **kargu** publikoren bat hartzeko. Lopez de Arana

Lizarberen aldeko legebiltzarkideek aste bateko epea dute **kargu** politikoak zuzendaritzaren esku uzteko. Berria - Euskal Herria

**Kargu** kolegiatua da aukeratutakoa, eta bertan lanak banatu behar dira. Berria - Kultura

Ez nuke irabazi errazeko **kargu** badaezpadakorik onartuko. Jose Morales

Backock enpresako **kargu** ertainak. Berria - Euskal Herria

Goi mailako beste **kargu** batzuek. Jon Muñoz

Gelditzen zaion **kargu** bakarra, eskualde hartako hirixka baten auzapezgoa... Herria

Exijitu zion Klotariori bizi artean ez zezala ken **kargu** hartatik. Iñaki Iñurrieta

**Kargu** honi umiltasunez uko egin behar diodala esan didan barne ahotsari kasu egingo diot. Berria - Mundua

1867 aldera Burton kapitainak britaniar kontsularen **karguan** jardun zuen Brasilen. Juan Garzia

**Karguan** egon zen bitartean erregearen ondasunen kontura egin zituen zorrengatik. Elizen arteko biblia

Ez zuen **karguaz** jabetu ostean ordu arteko apaltasuna bazterrera utzi. Askoren artean

**2** (aditzaren objektu zuzen gisa)

Klotariok bermatu egin zituen **karguak** eta feudoak zituztenak. elizako irabaziak eta **karguak** banatzeko boterea. Iñaki Iñurrieta

Lausengatuz eta goi-mailako **karguak** eta emaitzak eskainiz. Elizen arteko biblia

Bilkura berean, **kargu** batzu berrituak izan dira. Herria

Koroak inoiz ez zituela **kargu** handiak betiko besterendu. Iñaki Iñurrieta

Nire hirian, aitaren **kargua** hartu nuen katedralean. Felipe Juaristi

Oraindik ez dut hartu hirian dudan **kargua**. Agustin Otsoa

UPN ordezkatuz Nafarroako Parlamentuan zein Gobernuan hainbat **kargu** izan ditu. Berria - Euskal Herria

Tutore-**kargua** ematen diatenean, moraltasun handiko jarrera hartu behar izaten duk gauza guztietan. Antton Olano

Ez neukan **kargu** hori betetzeko adina gaitasunik. Berria - Kirola

Juan Leon Kruzalegi Buenos Airesko *Laurak-Bat* elkarteko kidea izan zen, eta haren zuzendaritza batzordean hainbat **kargu** bete zituen. Edorta Jimenez

Irabazi handiko **kargu** bat lortu zuen oso denbora laburrean. Jose Morales

**Kargu** hortan segituko du beste hiru urtez. Herria

Ja minixtro ziren frango aintzina minixtro dira, edo **kargu** bera atxikiz edo karguz kanbiaturik. Herria

Izendatu zuen Luimileko Dona Maria elizaren gomendatore eta maisu; **kargu** hau atxiki baitzuen berrogeita zenbait urtez. Piarres Xarriton

Txitxikovek, ordea, ez zuen lortu **kargua** berreskuratzea. Jose Morales

Radio-France etxearen buru baitzen, **kargu** hori utzi du. Herria

Berrogei urte egon zen hemen eta **kargua** utzi 85 urtetan. Xipri Arbelbide

Ez ziola maiordomo **kargua** kenduko. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fraideon artean hiru urtetik behin egiten dugun **kargu** aldatze horietako batean. Pello Zabala

Ikuskapenak, errietak eta **kargu**-aldaketak batetik, eta nagusiek mendekoen artean banatu ohi dituzten sariak bestetik. Jose Morales

**Kargu**-izendatzeetan, Bulegoko kideak heldu den urtarrilaren 27an hautatuko dira. Herria

Administrazio Kontseiluak lehiaketa publiko bat irekiko zuela ere zabaldu zen, nahiz eta hasieratik **kargu** emateak zuzenak izango zirela argi utzi zuen Txabarrik. Berria - Kultura

Bere **kargu**-urtearen hasieran. Iñaki Mendiguren

Agintarien arteko **kargu**-dantza azaltzeko. Joxerra Garzia

Horregatik, esku bigunaren leuna erantsi behar diote beren **kargu**-itzalari. Patxi Ezkiaga

Lanak ez dio hortzak garbitzeko betarik ematen, horra bere **kargu**-zergaren beste arantza bat. Anjel Lertxundi

**Karguak** maite dituztenen aurkako hitzak. Askoren artean

**4** (hitz elkartuean bigarren osagai gisa)

Zesarren Etxeko bost administrazio-**kargu** ministerio inperial bihurtu baitziren. Iñaki Mendiguren

Eliz **kargu** batean edo ezkontzan jarrita daudenentzat. Patxi Altuna

Galietako prefektu-**kargu** pretoriarra bereganatzean bere lanbidearen gailurrera iritsitako funtzionario baten semea zen. Iñaki Mendiguren

Ministro-**karguan** aritzeko aukerarik gabe hil zenez gero. Askoren artean

Nagusi-**karguaren** irrikaz ez baina beldurrez zeudenek. Askoren artean

Gauza jakina zen gerraostean organista **kargua** utzarazi ziotela. Josu Landa

Nafarroan Aralar alderdi abertzaleak bi auzapez **kargu** ardietsi dituela, Leitzan eta Altsasuan. Txitxikov bera hautatu zuten hutsik geratu zen bulegoburu-**kargu** baterako. Herria

Hori zela aginte-**kargu** handietan jarrita daudenei komeni zaiena. Patxi Ezkiaga

**5** norbaiti egozten zaion hutsegite edo delitua.

Bastidako alkate Ignacio Gil aske utzi zuen, baina zenbait **kargu** leporatuta. Berria - Euskal Herria

Serbiarren buruari hainbat **kargu** egozten dizkio Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalak.

Medikuntza-frogei jarraiki eman zuen epaimahaiak epaia eta **kargu** guztietatik libre utzi zuen Lennon. Irene Aldasoro

Komisarian, hitzez jakinarazi zieten abokatuei **kargu** barik aske utzi zituztela atzemandako 24 pertsona. Berria - Euskal Herria

Leporatu zaizkidan **karguen** errudun naiz. Oskar Arana

**Karguak** leporatu zenizkidaten, eta nik **kargu** horien errudun nintzela adierazi nuen. Oskar Arana

Hala, beraz, beste hamaika **kargu** gehiagoz akusa zintzakegu berdin. Juan Garzia

Horiek dira salaketa-**karguak**? Oskar Arana

**6** ***goi kargu***

SSak nazi alderdiko **goi karguak** zaintzeko sortu ziren, 25ean. Alberto Ladron Arana

Biok izan ditugu, gainera, **goi karguak** unibertsitateko administrazioan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egilea CIAko **goi kargu** bat da. Berria - Mundua

Ez diet utziko beste **goi-kargurik** lortzen. Askoren artean

Nafar mutil gazteekin bete nahi izaiten dituztelako **goi**-kargu militarrek beren jende faltak eta eskasiak. Joan Mari Irigoien

Partiduko **goi- karguetatik** kendu hindutenean bahekien nonbait kokatuko hindutela. Jokin Muñoz

## 7 *-en* ***kargu egin*** da *ad*

Nire **kargu egin** zirenetik, gurasoek ez zutela nire ona beste deus bilatu. ikaztegiko sarrera-irteeren **kargu egingo** nintzela. Anjel Lertxundi

Lucyren etxaldearen **kargu egin** behar dut. Oskar Arana

Gobernuaren **kargu egin** ginenean gerra zibilaren arriskuan geunden. Felipe Juaristi

Hango pasabideak ondo ezagutzen zituen mugalari bat egiten zen taldearen **kargu** . Anjel Lertxundi

-Nor egingo da katuaren **kargu** kanpora joaten garenean? Patxi Zubizarreta

Baina beste norbait egin dadila diruaren **kargu** . Anton Garikano

Guraso izan gabe, nire **kargu-egite** hutsagatik beren bizia arriskatzen zuten batzuen etxean bizi behar nuen? Anjel Lertxundi

## 8 *-en* ***kargu egon***

Nire **kargu dago** . Jon Muñoz

Udalean esan didate gobernuaren **kargu daudela** orain. Jon Maia

Makina bat argazki errebelatu zituen dendaren **kargu geunden** bitartean. Joxemari Urteaga

Urratsez urrats eraikitzen da arkitektura hori, eta gene multzo berezi baten **kargu dago** urrats bakoitza. Juan Garzia

Berriro ere, gene azpiratzaile bat dugu hor, baina, kasu honetan, begiaren garapenaren **kargu dagoena,** hierarkia genetikoaren mailaren batean. Juan Garzia

Nire **kargu zeuden** bospasei lagunak [...] Pirinioetako maldetan utzitakoan, hango pasabideak ondo ezagutzen zituen mugalari bat egiten zen taldearen kargu. Anjel Lertxundi

Orduan jakin zuen galeoi espainiarreko emakumeak bizia salbatu ziela [...] bere **kargu zeuden** gizon guztiei. Felipe Juaristi

## 9 ***kargu hartu*** (norbaiti) bere egiteen erantzukizuna eskatu. ik **kontu**[1] **14.**

Arrazoirik gabe **kargu hartzen** didazu beti. Jose Morales

Aitak, aldiz, **kargu hartzen** zion amari, gehiegi jaten zuelakoan. Fernando Rey

Eta orain Adrianori ere hartzen zion **kargu** . Fernando Rey

-Esan nizun, bai ala ez? **-kargu hartu** zion, behatz batekin seinalatuz-. Fernando Rey

" **Kargu hartu** behar nizuke", esan zidan Cesarrek itzuli nintzenean. Bernardo Atxaga

-Ederki defendatu gaituzue, gazteluko murruen gibel eztian gerizpeturik! **-kargu hartu** zigun emakume batek. Aingeru Epaltza

Ezin zaie **kargu hartu** haren lanak ez ulertzeagatik. Jon Muñoz

Hala **hartzen** bide zion **kargu** Antoniak. Josu Landa

Juliorekin zer ostia zebilen **hartu** nahi nion **kargu,** puta ziringa batek bezala jokatzen zuela aurpegiratu. Juan Kruz Igerabide

Ez zen amorrazioz kontra egiten hasten, ez zion Patuari **kargu hartzen** . Xabier Olarra

**Kargu hartzen** aritzen zitzaidan beti, "ni zaharragoa omen nintzela" edo "zaharragoaren plantak egiten omen nituela". Jon Muñoz

Ez du arriskuaren zantzurik sumatu emazteari **kargu hartu** eta esan beharrekoak esaten hasi zaionean. Joxean Agirre

## 10 *-en* ***kargu hartu***

Senar-emazteak hiltzean, Barriek bere **kargu hartu** zituen haien seme-alabak. Julen Gabiria

Anaia beti kontentu Argentinara bueltan, polizia politikoa orpoetan eta xentimorik gabe, eta emaztea pisu ziztrin horretan, bi umeren **kargu harturik** . Jokin Muñoz

Bien bitartean, D'Annunzio, bi mila soldadu bere **kargu harturik,** Fiumen sartu da. Anjel Lertxundi

Behin erreferentzia horiek ezarririk, beren **kargu hartuko** dute enbrioiaren geneek haren patua, haren bilakabidea. Juan Garzia

## 11 ***kargu-hartze****sup_1* erantzukizuna eskatzea

Galderak, mehatxuak, errietak, **kargu-hartzeak,** gaitzespenak eta irainak. Jose Morales

Haien begirada gogorretan ez zegoen ez gaitzespenik, ez **kargu-hartzerik,** bekaitza baizik. Jon Muñoz

Berandutzeak ekarriko dizkion **kargu-hartzeak** oro. Jose Morales

**Kargu-hartze** horrek ba al zuen funtsik? Xabier Olarra

**Kargu-hartze** larria mereziko luke gertakarion berri ematen ari den historialariak, esan gabe utziko balu nolako poza jabetu zen gonbidatuaz Maniloven hitz haiek entzutean. Jose Morales

**Kargu-hartze** moduko bat zegoen leiho hartako argi-seinalean. Xabier Olarra

## 12 ***kargu-hartze****sup_2* karguaz jabetzea.

Ortzeguneko hortan izanen da Andres Urrutia euskaltzainburu berriaren **kargu hartze** ofiziala, kargudun asko bildurik karia hortarat. Herria

Miren Azkarateren eta Ana Agirreren **kargu** -hartze ekitaldian. Berria - Euskal Herria

## 13 *-en* ***kargu izan*** du *ad*

Esaten zuen Jainkoaren aurrean gauza ona eta atsegingarria dela besteen **kargu izatea** . Askoren artean

Ezagutzaren teoria zen Casanovas haren alorra, hori zen behintzat bere **kargu zuen** ikasgaia. Joxerra Garzia

Emakume presoen erdiek denbora gutxiko haurrak **dituzte** euren **kargu** . Berria - Euskal Herria

Legamiatik hasi eta gizakiraino, badira zenbait molekula talde beren horretan dirautenak, beren **kargu baitituzte** estu loturiko molekulok funtzio orokor batzuk. Juan Garzia

· Senarrik gabe eta hiru urteko ume bat zure **kargu** . Oskar Arana

Ene **kargu,** bada: zintzo erantzungo diot berarekiko heriotza-zorrari. Juan Garzia

## 14 *-en* ***kargu utzi***

Euren gauzak eta euren familiak gure **kargu uzten** zitiztean. Juan Garzia

Zentzuzko erabakia, bai horixe, gure semea gaizkile baten **kargu uztea** . Karmen utzi nuen obispoaren eta Beñardoren **kargu** . Anjel Lertxundi

Eta dena **uzten** zuten Manyaren **kargu** . Koro Navarro

Partiduetako gaztedien jarduera zen gehien interesatzen zitzaiona; gureak gaztedirik ez zuenez, nire **kargu utzi** zuten,Hurrengo ilargi betetik aurrerakoak, beti bezala, ostiraleko egurats eta gauerdiko haizeen **kargu utzi** beharko ditugu. Iban Zaldua

## 15 ***kargu uzte***

Alderdiak **kargu uzte** eta dimisiorik ez zuela eskatuko esan zuten ERCko ordezkariek. Berria - Harian

**Kargu uzte** horiek harridura sortu dute herrian. Herria

Beste pondu bat argitu beharko dena gisa guziz: nola eginen den **kargu uzte** hori. Herria

Prodik, aldiz, Berlusconiren **kargu uztea** «prozesuaren zati» dela esan du. Berria - Mundua

**Kargu uzte** horiek erran nahi ote dute Alain Juppé-k alde bat uzten duela politika? Herria

Askoren arrangura, ez luketela batzuk **kargu uztea** izenpetu behar eta beste batzuk azken puntan gibelerat egin. Herria

Herriko kontseiluan gelditzen direnak «harritu» egin ditu **kargu uzte** kolektibo horrek. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dendaren kargu** (5); **gobernuaren kargu** (7); **goi kargu** (29); **kargu aldaketak** (5); **kargu berri** (10); **kargu berria** (17); **kargu berriak** (7); **kargu berrian** (5); **kargu egin** (26); **kargu egingo** (9); **kargu egiteko** (9); **kargu egitera** (5); **kargu eta zerga** (8); **kargu handi** (5); **kargu handiak** (8); **kargu hartu** (78); **kargu hartu zion** (18); **kargu hartuko** (17); **kargu hartuz** (8); **kargu hartze** (26); **kargu hartze ekitaldian** (7); **kargu hartzea** (20); **kargu hartzeak** (7); **kargu hartzeko** (10); **kargu hartzen** (35); **kargu hartzen zion** (5); **kargu hartzera** (5); **kargu honetan** (5); **kargu hori utzi** (8); **kargu politikoak** (6); **kargu publiko** (9); **kargu publikoak** (8); **kargu publikoei** (7); **kargu publikoetan**

(5); **kargu utzi** (5); **kargu uzte** (16); **kargu uzte hori** (5); **kargu uztea** (14); **kargu uzteak** (6); **kargu uztearen** (5); **ministro kargu** (6)

**auzapez kargua** (19); **bere kargua hartu** (6); **bere kargua utzi** (35); **bere kargua utziko** (5); **bere kargua uzten** (11); **bozeramaile kargua** (8); **diputatu kargua** (14); **entrenatzaile kargua** (5); **errektore kargua** (6); **hartu du kargua** (6); **hartu zuen kargua** (23); **hartuko du kargua** (19); **hirugarren zinegotzi kargua** (5); **idazkari kargua** (8); **kargua bete** (6); **kargua betetzeko** (10); **kargua betetzen** (5); **kargua eman** (12); **kargua galdu** (7); **kargua hartu** (183); **kargua hartu zuen** (42); **kargua hartu zuenean** (20); **kargua hartu zuenetik** (22); **kargua hartuko** (10); **kargua hartzea** (5); **kargua hartzean** (14); **kargua hartzeko** (25); **kargua izan** (6); **kargua kendu** (6); **kargua lortu** (5); **kargua onartu** (8); **kargua utz** (5); **kargua utzi** (206); **kargua utzi behar** (15); **kargua utzi beharko** (8); **kargua utzi zuen** (43); **kargua utziko** (37); **kargua utziko du** (10); **kargua uztea** (20); **kargua uztea erabaki** (10); **kargua uzteko** (51); **kargua uzteko asmoa** (5); **kargua uzteko asmorik** (5); **kargua uzteko eskatu** (12); **kargua uzten** (24); **kargua uztera** (14); **kargua uztera behartu** (7); **lehen ministro kargua** (32); **lehendakari kargua** (19); **lehendakari kargua hartu** (6); **lehendakari kargua utzi** (5); **lehendakariorde kargua** (8); **ministro kargua** (52); **ministro kargua hartu** (12); **ministro kargua utzi** (8); **ministroak kargua utzi** (7); **minixtro kargua** (5); **nagusi kargua** (10); **ordezkari kargua** (5); **president kargua** (9); **presidente kargua** (70); **presidente kargua hartu** (27); **presidente kargua utzi** (6); **utzi zuen kargua** (9); **utziko du kargua** (8); **utzitako kargua** (9); **zinegotzi kargua** (9); **zuzendari kargua** (11)

**aurkako karguak** (7); **goi karguak** (18); **karguak hartu** (7); **karguak izan** (5); **karguak utzi** (11); **karguak uzteko** (6); **kontrako karguak** (16)

**atzerri ministro karguan** (6); **entrenatzaile karguan** (8); **gobernuburu karguan** (10); **karguan egon** (12); **karguan jarraituko** (12); **karguan jarraitzea** (5); **karguan jarraitzeko** (8); **karguan jarri** (7); **karguan segituko** (5); **lehen ministro karguan** (12); **ministro karguan** (25); **president karguan** (12); **presidente karguan** (16)

**karguaren zina** (24); **karguaren zina egin** (12); **presidente karguaren zina** (7)

**karguari uko egin** (16); **karguari zin egin** (8); **presidente karguari** (6)

**goi karguen** (10)

**kargura aurkeztuko** (5); **presidente kargura** (7)

**lehen ministro kargurako** (8); **ministro kargurako** (8); **presidente kargurako** (13)

**kargurik gabe** (88); **kargurik gabe aske** (28)

**kargutan egon** (6); **kargutan sartu** (7)

**bere kargutik kendu** (13); **entrenatzaile kargutik** (11); **hura kargutik kentzeko** (7); **kargutik aske** (6); **kargutik bota** (13); **kargutik kendu** (139); **kargutik kendu du** (14); **kargutik kendu dute** (15); **kargutik kendu zituen** (6); **kargutik kendu zuen** (23); **kargutik kendu zuten** (18); **kargutik kenduko** (9); **kargutik kenduta** (5); **kargutik kentzea** (58); **kargutik kentzea erabaki** (14); **kargutik kentzeko** (66); **kargutik kentzeko erreferenduma** (5); **kargutik kentzeko eskatu** (17); **kargutik kentzen** (10); **krenn kargutik kentzeko** (6); **ministro kargutik** (5); **ministroa kargutik** (6); **presidentea kargutik kentzeko** (10)

---

## **kargualdi** *iz* norbait kargu batean egoten den aldia.

Zazpi aldiz minixtro izana, azkenik Giscard presidentaren **kargualdian**. Herria

Romano Prodi italianoa bere **kargualdiaren** bururatzera doan huntan, Durao Barroso liberala da aipu kargu hortako. Herria

---

## **karguarazi**, karguaraz, karguarazten du *ad* konturarazi.

Demokritok, azkenik, zahartzaro helduak **karguarazi** zionean oroimenaren mugidak gogoan ahultzen ari zitzaizkiola, berak bere kabuz eskaini zioan heriotzari bere burua. Xabier Amuriza

---

## **kargudun** **1** *izond* kargu bat duen pertsona.

Baiona hiriguneko **kargudun** politiko guziak. Herria

**Kargudun** politikoak eta eragile ekonomikoak. Berria - Harian

Erakunde publikoetako **kargudun** nagusiak baitaude kritika horien atzean. Berria - Euskal Herria

2005eko urte hastetsuan hautatzen ahalko dituztela bozez beren **kargudun** berriak, deputatu ta beste kontseilari. Herria

Ehun ta zazpi **kargudun** haundi igorri dituzte erretretarat. Herria

**Kargudun** edo arduradun guziek beren eginbideak bete ditzaten denen zerbitzari gisa eta arta handienarekin. Herria

Ez dut deusetarako ez den ministerio baten **kargudun** izan nahi. Herria

157 kardinale, 3.000 apez eta elizako **kargudun,** 169 herri **kargudun,** heietan 59 nazio-buru, 700 apezpiku, [...]. Herria

Ingalaterran Poeta Erramuduna Erregeren gorteko **kargudun** izaten da. Xabier Olarra

Gure **kargudun** gehiago idazteko gauza izatea gustatuko litzaidake. Xabier Olarra

Bestalde, amerikano **kargudun** haundi batzuek badaukate erruso enpresa batzuek lagundua zutela Saddam Hussein. Herria

· Labirinto horren barruan sartu zuten Minotauroa; Dedalok, hura elikatzeko **kargudun,** hilero zazpi mutil eta zazpi neska igortzen zizkion, Atenasko hiriak eskainiak. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

**Kargudun** kontseilu bat dugu ezarria. Herria

Hautetsi eta **kargudun** parrasta bat. Herria

· Politika **kargudun,** ekonomia jardule, instituzioetako arduradun, diru mailegutzaile, [...]. Berria - Ekonomia

Hizkuntza **kargudun** lanpostua. Herria

**3** (izenondo gisa)

Euskal Herriko politiko **kargudun** batek euskarari egin zezokeen kalterik handiena. Herria

Hor erakutsiak dira dotzena erdi bat Espainiako eta Frantziako politiko **kargudun,** tartean Jean Espilondo. Herria

Mugaz haindiko sozialixt **kargudun** batzu. Herria

**4** ***goi kargudun***

Tsarraren jauregiko **goi kargudun** aurpegi-ilun baten itxura ematen zion. Matías Múgica

Gure zaindariei eta kontzentrazio-esparruko bestelako **goi kargudunei**. Urtzi Urrutikoetxea

Zaintza-taldeko makiladun **goi- kargudunei** lanari ekiteko dei egiten die. Urtzi Urrutikoetxea

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elkarteburu eta kargudun** (3); **goi kargudun** (5); **hautetsi eta kargudun** (22); **herrietako kargudun** (3); **hizkuntza kargudun** (4); **irakiar kargudun** (3); **kargudun asko bildurik** (5); **kargudun berriek** (3); **kargudun eta elkarteburuak** (3); **kargudun eta hautetsi** (3); **kargudun haundi** (4); **kargudun politiko** (6); **kargudun politikoek** (3)

**goi kargudunei** (3)

**hautetsi eta kargudunek** (3); **hemen gaindiko kargudunek** (3); **kargudunek uste dute** (3)

**goi kargudunen** (4)

---

## **kargugabe** *izond* kargurik ez duena.

Erregimen inperialaren laguntzaile leialen koloniak -soldaduak zerbitzu aktiboan, milizianoak, beterano **kargugabeak** edo zibilak izan daitezkeenak- edozein komunikabide-sistema inperialen osagai dira. Iñaki Mendiguren

---

## **kargugabetu**, kargugabe(tu), kargugabetzen du *ad* kargua kendu.

Bi buruzagi **kargugabetu** dituzte, genozidioan parte hartzea egotzita. Berria - Mundua

Cheaney entrenatzailea **kargugabetu** eta Lenny Wilkens zaildua fitxatu zuen. Berria - Kirola

EAko presidentearentzat Bono **kargugabetzea** da albisterik onena. Berria - Euskal Herria

Lula presidentea **kargugabetzeko** eskatu die herritarrei PPSk. Berria - Mundua

Gobernua **kargugabetu** du Putinek. Berria - Mundua

Frantziako erregek Mauleko gazteluzain egina zuen aspaldi, eta ez zuen **kargugabetu** Fede berriarekiko atxikimendua agertu zuelarik. Aingeru Epaltza

Berak ez jasateko bere aurreko Julio Zesarrek jasandako patua, bat-batean **kargugabeturiko** gobernari-klasekoak izandako batzuen eskutik jasan zuena, hain zuzen ere. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lehen ministroa kargugabetu** (3); **ministroa kargugabetu** (4)
> **presidentea kargugabetzeko** (4)

---

# kargugabetze *(orobat **kargu gabetze**)* *iz* kargua kentzea.

Ezin irudika liteke **kargugabetze** publiko hura baino patu umiliagarriagorik ezein gizakirentzat. Joxan Elosegi

**Kargugabetzea** egiteko, aldiz, nahikoa zen bozketa bakarrean 85 diputatuk baiezkoa bozkatzea. Berria - Mundua

PPk, berriz, ez du begi onez ikusi **kargugabetzea**. Berria - Euskal Herria

**Kargugabetzearen** inguruan mobilizatzeko deia egiten diogu gizarteari; **kargugabetzea** tresna demokratiko eta konstituzionala da krisiak konpontzeko eta instituzioak babesteko. Berria - Mundua

EAren buruzagitza hartzen ari den neurrien artean kokatu zuen bere **kargu-gabetzea**. Berria - Euskal Herria

Khanen **kargugabetzearen** berriak sutan jarri zuen hiria berehala. Berria - Mundua

Garzonen badaezpadako **kargugabetzea** eskatu du Azkarragak. Berria - Euskal Herria

Sei hilabetetik gorako **kargugabetze** zigorra jasotzen duten epaileak Auzitegi Nazionaletik kanporatu behar dira.

«Presioak» eta **«kargugabetze** saiakerak» jasan dituztela errepikatu zuen Aranak. Berria - Euskal Herria

Hego Korearen historian gertatu den lehendabiziko presidente **kargugabetzea** da. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aranaren kargugabetzea** (3); **badaezpadako kargugabetzea** (3); **kargugabetzea erabaki** (5); **kargugabetzea eskatu** (5)

---

# kargukide *iz* kargu bera duena.

Sergei Lavrov Atzerri ministroak Irango **kargukide** Manouchehr Mottakiri telefonoz deitu dio. Berria - Mundua

Poloniako gobernuburu Leszek Miller eta Espainiako **kargukide** Jose Maria Aznarren eskutik. Berria - Mundua

Paul Bremer eta bere **kargukide** britainiarra Jeremy Greenstock azken egunotan bileretan egon zirela eta euren irizpidea sustatu zutela salatu dute iturri berek. Berria - Mundua

---

**karguño** *iz adkor* kargua.

Gobernuburuak nahi ukan dio segidan ministro **karguño** bat eman. Herria

---

# karguondo *iz*

-Zein kargu eta zein **karguondo**! erabakia aldez aurretik hartua zen -haserretu egin nintzaion, baina baretzea lortu nuen-. Edorta Jimenez

---

# kargutsu *iz* kideko edo antzeko kargua.

Bai, bai, entzuna naiz zure **kargutsua** izan edo bederen segitu zutela beste garaztar gazte batzuek. Herria

---

# kargutu, kargu(tu), kargutzen **1** da *ad* konturatu.

Umeak izan arren, orduan be **kargutzen** ei ziran Rufino zer estimaua zan. Xabier Amuriza

Eta **kargutzen** naiz zer gauza berria eta gogoarentzat harrigarria den zeru-lurren akabatu behar hori eta zer zaila den niretzat hitzez frogatzea. Xabier Amuriza

**2** (zerbaiten) kargu hartu.

Eberen gorpua balitz, heriotzaz **kargutu** beharko lirateke. **Kargutu** zara? Sonia Gonzalez

---

# kari[1] **1** *adlag* dela-eta.

Duela dozena bat urte, Iparraldeko "Chevaliers du Mérite" izendatuak izan direnen talde bat joan zen Gernikara, urteko bidaia **kari**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bide hau ezin egin, Larraona Ikastetxeari ohartu gabe, aspaldi Udako Euskal Unibertsitate-**kari** ezagutu dudanari. Piarres Aintziart

Mendekoste-**kari,** horra beste asteburu luze bat, astelehena ere besta-buru ekarria izanez. Herria

Horra zergatik sail guzia hasiko den urtarrilean Ziburun Bixintzo **kari** egiten diren bestekin. Herria

Haren heriotzearen 10. urteburu **kari,** Egunkariak plazaratzen du "Ipurtargiaren itzal luzea" liburua. Herria

**2** (-en atzizkiaren eskuinean)

Iparraldeko dotzena bat idazle bildu dira urteko biltzar nagusiaren **kari**. Herria

Medikuntza nuklearraz egiten dituen ikerketen **kari,** mundu guzian mintzaldiak eskaintzen ditu. Herria

Xerrikiaren apailu bereziak erakutsiko dituzte aurtengo ihauterien **kari** Baionako merkatuan xarkutierek. Herria

Helduden larunbaten izanen da mugimendu Baionan, Biarritze errezibituz bi hirien arteko rugbi derbiaren **kari**. Herria

LAB sindikatuak urteko bilana egin du bere biltzar nagusiaren **kari**. Herria

Emazteen parekotasunaren **kari** ere pare bat bitxikeria gertatu da Grenet-en zerrendan. Herria

Zer erakutsiko diguzue Baionan "Ondare egunen" **kari**? Herria

**3** ***karia horretara*** *(orobat* ***hortara(t)****)* hori dela-eta.

**Karia** horretara ikasten dugu gero aipatuko dugun Hazparneko kongregazioan fraileak bazituela. Xipri Arbelbide

**Karia** horretara berrikuntzak izanen dira aurten. Berria - Euskal Herria

Berantxago, denek elkarrekin jan zuten: eltzekaria eta **karia** horretara sakrifikatu oilasko erreak. Elena Touyarou

1969-an, HERRIA-k 25 urte! **karia** hortarat, azaroaren 27-ko zenbakiari lotuta, zabaldua izan zen gehigarri bat aski nasaia, kondatuz HERRIA-ren historia. Herria

Ortzeguneko hortan izanen da Andres Urrutia euskaltzainburu berriaren kargu hartze ofiziala, kargudun asko bildurik **karia** hortarat. Herria

Haren sortzearen 100 urteak ospatzen dira aurten eta **karia** hortara beharrak dira mintzaldi eta omenaldi. Herria

Lekuka, **karia** hortarat, jendeari ideki zaizkio ere usaian zerratuak egoiten diren egoitza batzu... Herria

**4** *-en* ***kariara*** *(orobat* ***kariala****)* dela-eta.

Korrikaren **kariara,** "Onizepeatik"entzün düt arrapikan. Herria

Euskaltzaindiak ürrietako bilküra Tuteran [...] egin dü, «Nafarroa Oinez» bestaren **kariala** . Herria

Jose-Luis Alvarez Enparantza idazle handia [...] bere 75 urteen **kariala,** hegoaldean ohoratzen düe üdezken hontan. Herria

**5** *–en* ***kariaz*** dela-eta.

Amen Bestaren **kariaz** Herriko Etxeak gonbidatu ditu herriko ama guziak elgarrekin doi bat goxatzeko hurrupaño bat eginez. Herria

Horren **kariaz,** ulertzen dut alderdiek nola edo hala egin behar dituztela jende aurreko ekintzak, nahiz eta niri gustatu ez. Juan Kruz Igerabide

Barre egiten du nik une hartan argazkilariari esandako tontakeria baten **kariaz** . Bernardo Atxaga

Gertakizün horren **kariaz,** omenaldi hanitx egiten zaio, bereziki Frantzian. Herria

· Eta hura, zer **kariaz** zegoen han? egoera irrigarria zen. Elena Touyarou

**6** *-en* ***karietan*** dela-eta.

Ehun bat lagun baziren finala hortan, sasoiko azken partidaren **karietan** . Herria

Muskildiko dantza taldea sortü zen 1985an Allande D'Oihenart pastoralaren **karietan** . Herria

Okasione horren **karietan** ainitz manexek lehen aldikotz ikusi ahal izan dute eliza berezi hori. Herria

**7** *-en* ***karietara*** *(orobat* ***karietala*** *eta* ***karietarat****)* dela-eta.

Beraz goresmenak deneri eta laster arte Izturitze eta Aiherran Bestaberri Otaben **karietara** ! Herria

Lau ehun jendez goiti bildu da, CGT, FO eta SUD sindikatek deitu mugimenduaren **karietara** . Herria

Hitzordu hori "Euskararen hatsa" erakusketaren **karietara** antolatua da. Herria

Lau edo bost asteren buruan bazen pilota partida bat desafiozkoa Alduden, herriko besten **karietara** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lan horren **karietara** gure buru zen Txekiarrarekin ezagutzak egin nituen. Marzel Etxehandi

Hori beharko da erakutsi asteburu huntan oraino, Telethon-en **karietara** antolatutako ekitaldi desberdinetan. Herria

1789ko Iraultzaren II. mendeurrenaren **karietara,** François Mitterrand Frantziako presidenteak, Grégoire apezpikuaren gorputza Pariseko Panthéonera eraman zuelarik, "apez abertzale" haien guztien lana zuen ospatu nahi. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agiantzen kari** (4); **andredena maria kari** (5); **baionako besten kari** (3); **berri kari** (3); **besta kari** (6); **besten kari** (9); **biltzar nagusiaren kari** (3); **bixintxo kari** (4); **eguberri kari** (19); **eguna kari** (13); **egunen kari** (3); **erramu kari** (4); **garizuma kari** (3); **horien kari** (3); **horren kari** (5); **ihauteria kari** (6); **jondonane kari** (5); **jondoni martine kari** (3); **kanpaina kari** (4); **kari egin** (5); **kari herriko** (3); **kari horretara** (5); **kari hortarat** (3); **korrika kari** (3); **maria kari** (5); **martine kari** (5); **mendeburu kari** (6); **mendekoste kari** (5); **nagusiaren kari** (3); **omiasaindu kari** (5); **pazko kari** (3); **proiektuaren kari** (3); **salbatore kari** (5); **trinitate kari** (3); **urteburu kari** (7); **urtemuga kari** (8)

**bildurik karia hortarat** (20); **karia horretara** (68); **karia hortako** (18); **karia hortan** (8); **karia hortara** (112); **karia hortarat** (316); **karia hortarat beraz** (3); **karia hortarat ere** (5); **karia huntarat** (9)

**egunaren kariaz** (5); **gerraren kariaz** (3); **haren kariaz** (10); **horien kariaz** (3); **horren kariaz** (39); **izanaren kariaz** (3); **kariaz egin** (4); **mendeurrenaren kariaz** (3); **nire kariaz** (3); **urteurrenaren kariaz** (8)

**aberri egunaren karietara** (9); **agiantzen karietara** (5); **astearen karietara** (3); **auziaren karietara** (3); **baionako besten karietara** (4); **bestaren karietara** (7); **besten karietara** (22); **bileraren karietara** (4); **biltzar nagusiaren karietara** (8); **biltzarraren karietara** (4); **bisita horren karietara** (3); **bisitaren karietara** (4); **egunaren karietara** (41); **egunen karietara** (8); **erakusketaren karietara** (8); **euskararen egunaren karietara** (5); **feriaren karietara** (5); **festibalaren karietara** (3); **goi bileraren karietara** (3); **haren karietara** (4); **hauteskunde kanpainaren karietara** (3); **hauteskundeen karietara** (3); **herriko besten karietara** (10); **honen karietara** (5); **horren karietara** (59); **horren karietara egin** (4); **ikasketen karietara** (3); **jaialdiaren karietara** (8); **kanpainaren karietara** (7); **karietara egin** (14); **karietara ezagutu** (3); **karietara joan** (3); **kulturaldiaren karietara** (3); **mendeurrenaren karietara** (3); **nafarroaren egunaren karietara** (5); **nagusiaren karietara** (8); **nazioarteko egunaren karietara** (5); **ondarearen egunen karietara** (5); **sarako besten karietara** (3); **sujet horren karietara** (8); **telethon en karietara** (3); **txapelketaren karietara** (3); **urtemugaren karietara** (4)

**astearen karietarat** (3); **auzi horren karietarat** (3); **besta horien karietarat** (3); **bestaren karietarat** (6); **besten karietarat** (19); **betetze horren karietarat** (3); **bilkuraren karietarat** (4); **biltzar nagusiaren karietarat** (6); **bozen karietarat** (6); **egun horren karietarat** (3); **egunaren karietarat** (5); **egunen karietarat** (3); **erakusketa horren karietarat** (3); **herriko besten karietarat** (4); **horien karietarat** (10); **horren karietarat** (48); **hunen karietarat** (6); **kulturaldiaren karietarat** (3); **lehiaketaren karietarat** (4); **mendeburu horren karietarat** (3); **mendeburuaren karietarat** (3); **munduko xapelgoen karietarat** (3); **nagusiaren karietarat** (8); **pesten karietarat** (5); **urteburu horren karietarat** (3); **urtemuga hunen karietarat** (3); **xapelgoen karietarat** (3)

---

# kari[2] *iz* zioa, zergatikoa.

Dibortzioa ere elkarrekiko adostasunak ekar dezake, ezkontza bera elkartea delako **kari** hori oinarri hartuta. Andres Urrutia

Gure gurasoen ekitateak gomendatu zigun xedapen hori aldatzeko premiarik ez dugu ikusi; hala ere, berori arriskutsu bihur dezaketen **kari** horien aurkako neurriak geureganatu ditugu. Andres Urrutia

Zigorraren **karia** ez zizuten argitu. Xabier Montoia

Bide berria zela **karia** . Aingeru Epaltza

---

# kariar **1** *iz* Peloponesoko Karia hiriko herritarra.

Zazpigarren urtean, **kariarren** eta gudarien ehuntariak etorrarazi zituen Joiada apaizak bere aurrera, Jaunaren etxera. Elizen arteko biblia

Egiptoar gobernua "itsasotiko gizon lotsagabe" joniar eta **kariarrez** hornitzean. Iñaki Mendiguren

Hiri horiek kanpora bota zituzten **kariarrak** . Santiago Iruretagoiena

• **2** *izlag* Kariakoa, Kariari dagokiona.

Gertatu zen, ordea, Melasek eta Arevaniasek kolonia bat eraman zutela leku horretara Argos eta Troezenetik, eta kolonia horrek bertatik bidali egin zituztela barbaro **kariar** eta lelegiarrak. Santiago Iruretagoiena

---

# karibear ik **karibetar**.

---

# karibetar *(8 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean; orobat* ***karibear*** *7 agerraldi, 3 liburu eta 4 artikulutan)* **1** *izlag* Karibekoa,

Kariberi dagokiona.

New Yorkeko erritmoak, jazza, musika klasikoa eta sorterriko doinu **karibetarrak** nahasten dituzu. Berria - Kultura

Guraso kubatarrek itxura eta odol **karibetarra** eskaini zioten oinordetzaz. Fernando Morillo

Hemengo beste arkitekturak ere, hain **karibetar** dirudien kolonial hori tarteko. Edorta Jimenez

Musikari **karibear** asko Frantziara biran eraman izan ditu. Berria - Kultura

Top kanta **karibear** batek zioena: [...]. Bernardo Atxaga

**2** *iz* Karibeko herritarra.

Herrenak **karibetarren** aurpegiera eta azal beltzarana zeuzkan. Fernando Morillo

Banan-banan, eta Karibeko hitzaldien moldean, **karibearrek** izango dituzten onurak aipatu ditu, berak irabaziz gero betiere. Berria - Mundua

Milaka eta milaka dira kalean eta lanean ikusten diren afrikarrak, magrebtarrak, argentinarrak **karibearrak**, eslaviarrak, inkak, filipinarrak... Xabier Mendiguren Elizegi

---

## karibetartu, karibetar(tu), karibetartzen da *ad* karibertar bihurtu.

**Karibetartu** gaitezen. Pako Aristi

---

## karie *iz* txantxarra.

Azterketa luze baten ondoren [...] **karie** bat zirikatzen hasi zaio Dussel. Josu Zabaleta

---

## karikatura 1 *iz* norbaiten ezaugarriak areagotzen dituen marrazki umoretsua. ik **irrimarra**[1].

**Karikaturak** aurpegiko osagai aldagaitzak hartzen ditu, lehenagotik sumatu gabe genituenak agian. Josu Zabaleta

Mahomaren **karikaturak** direla eta. Berria - Kultura

Bonapartetarren eskandaluzko istorioak, enperadorearen atzerriko **karikatura** barregarriak. Karlos Zabala

Baina **karikatura** baten modeloa ere ezagutzeko gauza bagara, bestelako irizpide batzuk ere baliatzen ditugula pentsatu beharra dago (inork ez du bere **karikaturaren** antz beterik). Josu Zabaleta

Jendearen **karikaturak** egiten hasi da berriro. Xabier Olarra

Bere ahalbideak ahitzen dituen [...] eta bere **karikaturaren** mugan dagoen estiloa da, nire ustez, barrokoa. Juan Garzia

**2** irud/hed

Biografiek, pertsonen **karikatura** egingo ez badute, literatura behar dute. Anjel Lertxundi

Puxika bat baino ez nintzen ja, giza izaeraren **karikatura** iraingarri bat. Karlos Linazasoro

**Karikatura** hutsa dela. Edorta Jimenez

Exajerazioa eta **karikatura** erabiliz gauzatu zuen mendekua. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Familia guztietan hazten den ardi errebelatuaren **karikatura**. Aingeru Epaltza

Teknika hori, berez, ez da txarra, baldin eta **karikaturan** erortzen ez bada, jakina. Txema Ramirez de la Piscina

Sekula **karikaturaren** gehiegikerian erori gabe. Juan Garzia

«Hiritarren parte-hartzearen **karikatura»** dela esan dute. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Idatzizko testuaren ertzeetan kokatutako **karikatura**-ikur grafiko hauen bitartez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**4** ***karikaturazko***

**Karikaturazko** irudi horren aurka azaldu zen jada Weber bere *Ekonomia Historia Orokorra* lanean. Koro Navarro

Donostiarrek ikusi behar izan zituzten gudarosteen parada, erretreta, martxa eta desfileen erreplika umorezkoa da, **karikaturazkoa** baino areago. Askoren artean

Beste apaiz gehienak baino gazteagoa izanda ere, haiek baino askoz ere atzerakoiagoa zen [...] itxura ere pelikuletako apaiz fatxa baten **karikaturazkoa** baitzuen. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

hitlerren karikatura (3); karikatura argitaratu (3); mahomaren karikatura (4)

karikaturak argitaratu (11); karikaturak argitaratzeagatik (3); mahoma profetaren karikaturak (4); mahomaren karikaturak (26)

mahomaren karikaturek (6)

karikaturen auzia (3); karikaturen kontrako (9); karikaturen kontrako manifestazioak (3); mahomaren karikaturen (10); mahomaren karikaturen aurka (3)

---

## karikaturagile *iz* karikaturak egiten dituen pertsona.

Bera zen pertsonarik ikusgarri eta gogoangarriena bilera bakoitzean, eta **karikaturagileek** bere ile zuria eta bibote beltz handia erabiltzen zuten, herriko antagonismo politikoa marrazteko. Anton Garikano

Idazle eta **karikaturagilea** zuen aita, Jose Lourenzo Alvarez. Berria - Kultura

---

## karikaturesko *izond* karikaturazkoa.

Komunismoaren irudi **karikatureskoa** eta topikoz betea. Koldo Biguri

Zentroko eta eskuineko alderdietako buruzagi nagusien irudi **karikatureskoak**. Koldo Biguri

Bere istorioetan Ralf Konigek ez dio sekula ihes egin gay eta lesbianen arazoei, eta era dibertigarrian edo are **karikatureskoan** aurkezteak ez dio inoiz kendu bere analisiari sakontasunik edo errealitatearekiko loturarik. Berria - Kultura

---

## karikaturista *iz* karikaturagilea.

Hala, prentsan, batez ere joera liberalekoan, **karikaturistek** zerria zeukaten pertsonai amerikartzat: Patziku Perurena

---

## karikaturizatu, karikaturiza, karikaturizatzen 1 du *ad* karikatura egin.

Mikel **karikaturizatzen** ari zen gizonak mikrofonoa ahoan jarri eta kanta bakero bati ekin zion broken heart hitzak konta-ezin-ahala aldiz errepikatuz. Bernardo Atxaga

-Nire ideia **karikaturizatu** egiten duzu, baina ez dio axola. Josu Zabaleta

Adibideak puztuta daudela esango didazue, lagunak ez ezik oso **karikaturizatu** ditudala etsenpluak berak ere. Iñigo Aranbarri

Hedabideen eragina kritikatzea eta **karikaturizatzea** da helburu. Txema Ramirez de la Piscina

Ez zen **karikaturizatzen** ari. Berria - Euskal Herria

Sistema komunikatibo hegemonikoa **karikaturizatuz**. Txema Ramirez de la Piscina

**2** (era burutua izenondo gisa)

Verneren eleberrien irazkia bidaia harrigarria da ia beti, pertsonaia **karikaturizatu** batzuek egiten dutena. Karlos Zabala

---

karilioi ik **karilloi**.

---

**karilloi** *(orobat **karilioi** eta **kariloi**)* **1** *iz* neurri besberdineko kanpaiek osatutako musika tresna; bereziki erloju bati, orduak jotzeko, atxikia dena.

**Karilloiak** orduak jotzen ditu, luze, nekez. Katedral zaharreko **kariloiaren** bost kanpaialdi entzun nituen. Anjel Lertxundi

Katedraleko **kariloiak** hamaikak jotzeaz batera, kanpai-hotsen oihartzunek urratu balute bezala, zeru hodeitsua bere barrena husten hasi zen. Migel Angel Mintegi

Eta urrutitik **kariloi** bat "Gora bihotzak!" ari zen jotzen. Josu Zabaleta

Nerbioi eta Abra inguruko kanpandorreak eta **karilioiak** joka hasi ziren. Josu Landa

Orienteko apoteosia, aizu: **karilioi** eolikoak, ispiluak, bionboak, portzelanak, buda zoriontsuak, koloretako arrainak... hitz batean, Txinako astea Corte Inglesen. Patxi Iturritegi

**2** (hitz elkartuetan)

Zaldietako txilin-koilareek airea **kariloi**-hotsez betetzen zutelarik. Txillardegi

---

kariloi ik **karilloi**.

---

karino ik **kariño**.

---

karino ik **kariño**.

---

**kariñoso** *(orobat **karinoso** g.er.)* *iz* txeratsua, amultsua.

Etxeko alaba berria naiz; oso ondo tratatzen naute, oso **kariñosoak** dira. Joxean Sagaztizabal

Nahiko pertsona **kariñosoak** ziren biak ere. Unai Elorriaga

Guztiz **kariñosoak** ziren erleak. Unai Elorriaga

Baten batek "txetxe non dago?" itauntzean, "txetxe lo" erantzuten ei zan eta, hortik, "Txetxelo" ezizen **karinosoa** geratu jakon betiko. Xabier Amuriza

---

**kario** **1** *izond* garestia.

Aulki **karioz** inguratu marmolezko mahai batean. Itxaro Borda

CK perfume **karioa**. Itxaro Borda

Nor ziren haren aldamenean irriz, elez, zigarro erretzen eta alkohol **kario** edaten zebiltzan itzal horiek? Itxaro Borda

Ebakuntza bat, ikaragarri **karioa,** gure semetxoa salba lezakeena. Herria

Toki hoberenak **karioenak** dira ardura. Herria

• **2** (predikatu gisa)

Ez da batere harritzekorik burdina **kario** baldin bazen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez ene engainatzera mentura, bestela **kario** kostako zaizu. Elena Touyarou

Hiltzea **kario** suertatzen zen, segurantzarekin hiltze-konbenio zehatzik ez zutenen familientzat behintzat. Itxaro Borda

Zer egin du egun axuriak? **kario** joan direa aratxeak? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Prezio normala baino hiruetan **karioago** erosiak zituen xardinak. Elena Touyarou

Espantua merke, norentzat **kario**? Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **biziki kario** (12); **kario pagatu** (3); **kario saltzen** (3); **sobera kario** (10)

---

**karioka** *izlag/iz* Rio de Janeirokoa; Rio de Janeiroko herritarra.

Handik pixka batera bertakoak sentitzen ginen, **kariokak** burutik oinetaraino. Karlos Zabala

Fernando kanpora joan zen aberats-plantako emakume **karioka** baten gogoak asetzera. Karlos Zabala

---

**kariotu,** kario(tu), kariotzen da/du *ad* garestitu.

Lana xuhur batzuetan, lurra itsuski **kariotzen** ari, gure gaztek ezin erosizko heinerat helduak prezio apalenak ere, [...]. Herria

Bihia arras **kariotu** zen. Xipri Arbelbide

Urte bat barne, bizia **kariotu** omen da ehunarendako biez, hala diote hor gaindi. Herria

Hiriko gasa **kariotu** dute azkenean % 12-ez. Herria

Aski errepikatua izana zauku hori, euro diru berria sartzearekin, gauzak ez direla **kariotuko** ez eta ere merkatuko, hein berean egonen direla. Herria

Hiriko gasa, gero eta gehiago denetarat sartzen ari dena, polliki **kariotuko** da helduden udan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azkarki kariotu** (5); **polliki kariotu** (3)

**aintzina kariotuko** (3)

---

# **kariotze** *iz* garestitzea.

Joanden astean hedatua zen berria **kariotze** asko izanen zela epe laburrean. Herria

Uda dela eta jendea kurri dabilala, goratze batzu orai egiten dituzte, erdi-gordeka bezala, karkulatuz **kariotze** horiek hola aiseago iretsiko direla. Herria

**Kariotze** horiek ez direla hortan gelditluko. Herria

---

# **karioxko** *izond/pred adkor* kario, garesti.

Oroitarazi du ere pizina hortan badirela beste ainitzetan ez bezalako muntadura batzu, hortakotz dela sartzea ere **karioxago**. Herria

Haurrentzat dela bereziki **karioxko** diote ainitzek. Herria

Arrangura dira ere sartzea **karioxko** ezarria dela. Herria

---

# **karisma** *iz* norbaiten doe berezia, ingurukoengan begirunea eragiten duena.

Elizaren baitan [...] Frantziskoren **karismak** eta bizi-proiektuak etengabeko jarraipena izan du hari loturiko hainbat eta hainbat familia erlijioso eta laiko-talderen bitartez. Askoren artean

**Karismarik** gabeko hautagai izatetik itzal handikoa izatera. Berria - Mundua

Sabino Arana, EAJ alderdi abertzalearen sortzailea eta **karisma** handiko liderra. Koldo Zuazo

**Karisma** gutxiko presidentea izan dela aurpegiratu diote. Berria - Kirola

Jakituria entziklopedikoa zuela, eta **karisma** ikaragarria. Unai Elorriaga

Hik pentsatzen huen kanpoan egon izanak nola-halako aura bat emango ziala Mariasunen begien aurrean, nola-halako **karisma** bat. Jokin Muñoz

Bigarren agintaldiak inoiz izan ez duen **karisma** ekar diezaioke Prodiri. Zer egin, orduan, bere **karisma** ez hondatzeko? Berria - Harian

Hil ez denaren **karismaz** zipriztinduko dira hemendik aurrera Arestiren munstro guztiak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karisma handiko** (6); **karisma handiko liderra** (3)

---

# **karismadun** *izond* karisma duena.

Aurrean, gitarra elektrikoa zein akustikoa eskuetan, lider **karismaduna**. Berria - Kultura

Gruff Rhys **karismadunak** zuzentzen duen taldeak gorabeheraz eta gainditutako oztopoz beteriko ibilbidea egin du 1996an Fuzzy logic lehenengo diskoa kaleratu zuenetik. Berria - Kultura

Autoritate **karismadun** oro desmitifikatu egin zuela eta nahi zuela legearen subiranotasuna. Esteban Antxustegi

---

# **karismatiko** *iz* karismaduna.

Palestinarren artean muturreko beste hautagai batzuk baino sostengu zabalagoa jasotzeko aukera zuen buruzagi **karismatiko** honek. Berria - Mundua

Hilketak ondorio latzak eragin ditzakeela epe laburrera, baina luzera arazoak sortuko dizkiola Hamasi, «Jassin bezalako lider **karismatikorik** ez duelako». Berria - Mundua

Diskurtso honetako berba **karismatiko** errepikatuak, arima espainolaren gaixotasuna, diagnostikoa, erregenerazioa dira. Joxe Azurmendi

---

# **karistiar** *iz* antzinatean Euskal Herriko lurraldean bizi ziren leinuetako bat.

Pirinioen hegoaldean, oraingo Nafarroan, baskoiak aipatzen dituzte, baita barduliarrak (Gipuzkoan) eta **karistiarrak** (Bizkaian). Herria

---

# **karitate** **1** *iz* bertute teologala, Jainkoaren, eta haren kariaz lagun hurkoaren, maitasunean datzana, goi maitasuna (ik**goi 113**); kristau bertutea, bekaizkeriaren eta ezinikusiaren aurrez aurrekoa.

Kristoren **karitate** neurrigabea hausnartzen ari zela. Askoren artean

**Karitate** kartsuz gainezka, erabateko perfekzioaren bideari ekin zion. Askoren artean

**Karitate** santuak garaitzen ditu deabruaren eta giza grinen tentaldi guztiak eta giza beldur guztiak. Askoren artean

Zein **karitate** kartsuz iziotuak zeuden Kristoren ikasle berriak! Askoren artean

**Karitatearen** aurkako bekatua. Joan Mari Irigoien

Madarikatua [...] **karitate** kristauaren arauak ahaztu nituen eguna! Koldo Biguri

Frantziskoren behartsuenganako **karitate** eta maitasun gupidatsua, eta ardiarekin eta arkumeekin egin zuena. Askoren artean

Handiusteak **karitateak** baino gehiago eragiten digu zoritxarrez. Askoren artean

**Karitatez** eta errukiz beteriko gizona baitzen. Askoren artean

Barkamena eskatzen diot irakurleari eta erregutzen, zuzen nazala eta **karitatez** okerra desegin, aurki dezan tokian. Askoren artean

· Hire amak esaten zinan gutxienez Jainkoaren **karitatea** geratzen zaigula. Juan Garzia

**2** behartsuenganako eskuzabaltasuna.

Pobreekiko **karitatea** da mundu honetako gauzarik ederrena. Joseba Urteaga

Eta hango jendeak hemengoak baino **karitate** gehiago du. Bernardo Atxaga

**Karitate** eta ongintza horiek gorabehera, anaia Juan hori higuingarria gertatzen zitzaion Andresi. Josu Zabaleta

Elkartasuna **karitate** bilakatu daiteke, era egokian bideratu ezean. Berria - Gaiak

Okindegien **karitatearen** menpe bizi diren familia ugari ezagutzen ditut Gazan. Berria - Mundua

-Ez, Nathan, eskerrik asko, baina ez dut zure **karitatearen** beharrik. Oskar Arana

**Karitatez** jokatzen du Administrazioak gehienetan, ez justizia sozialak gidatuta Berria - Euskal Herria

**3** limosna.

Hala, limosna eske zebilela, **karitatea** egingo zion inor aurkitzen ez eta, ilunabarrez alor batean sartu zen ustekabean. Askoren artean

-Emaidazue **karitate** bat neure andrea lurperatzeko -esan zuen. Juan Garzia

**Karitatea** eta obra onak egiteko amorratzen zegoen moja gaztea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lurrazalean ibiliko ote zen, edota lurpean ote zetzan, **karitatea** egiten zutenei esker? Patxi Zubizarreta

Arazo soziala **karitatearen** bidez eta bihotz oneko jendea izanez konpontzen zen. Josu Zabaleta

**Karitatea** jasotzen ari baitira, ez etxeak, heziketa eta osasun artatze iraunkorra. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Karitate**-espiritua eta bihozberatasuna. Askoren artean

**Karitate**-sugarretan isiotua, martiri santuen aintza eta garaipena berdindu nahi zituen. Askoren artean

Ulertzen dut predikatu izan dizkidaten **karitate** eginbeharren esanahia. Josu Zabaleta

Herrian **karitate** ekintzak zuzentzen zituena. Edorta Jimenez

Guztiak Jainkoari buruz hitz egiten, otoitzari emanak, negar-malkoz, **karitate** egintzetan. Askoren artean

Bere bizitza osoan ez du inoiz **karitate**-obrarik egin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Neguero baten bat hiltzen zen hotzez kalean, eta orduan udaletxeak edo apaizek edo **karitate** elkarteek edo *Salvation Army*-k oheak prestatzen zizkieten pabiloi batzuetan. Iñaki Zabaleta

**Karitate** instituzio gisa, mirespena sortzen duzue. Xabier Olarra

Eduki zuen **karitate**-keinuaz gogoratu zen. Jon Alonso

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irainak eguna joan eta eguna etorri, zapalkuntza etengabea, justizia oro urratua, giza **karitatea** erdeinatua, presoak senetik atereak eta gorroto gaixo baten sukarretan erretzen pixkanaka. Karlos Zabala

Kristau **karitatearen** eta debozioaren kontra. Piarres Xarriton

Ari ziren beraz gizon emazteak, giristino **karitatea** jadanik ahantzia, hor berean, kalostrapean, afera agertzen. Michel Oronoz

**6** ***karitatezko***

Jatorrizko elizan artzainak pobreak eta **karitatezko** gizonak ziren, gutiziarik gabeak. Askoren artean

Bihotz zintzoa eta **karitatezko** erraiak zituen gizona benetan! Askoren artean

Beren ohoinkeriaren fruitua **karitatezko** edo miserikordiazko obretan enplegatzen zutela. Joan Mari Irigoien

Behartsuenganako **karitatezko** egintzak ere egiten zituzten. Berria - Gaiak

Soldataren erabilera **karitatezkoa**. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karitate kartsua** (3); **karitate kartsuz** (3)
> **errukia eta karitatea** (3)
> **karitatea egitea** (8); **karitatea egiten** (3)

---

## karitategile *iz* limosnagilea.

Haiek guztiak oso jende ona zirela esaten zuen, oso **karitategileak** zirela, limosna handiak ematen zituztela eta miseria asko konpontzen zituztela. Josu Zabaleta

---

## karitatetsu 1 *iz* karitatez betea.

gaitza sendatuko didan emakume **karitatetsu** baten bila nabil... Joan Mari Irigoien

Ez dakit nola gertatu zen, baina hark laidoak eta irainak barkatzen zituen mutiko **karitatetsuaren** heziketa jaso baitzuen. Pello Lizarralde

Nola hortik iritsi zen behartsuekin eskuzabal eta **karitatetsu** izatera. Askoren artean

**2** (adizlagun gisa)

Zeri heldu bakar, iltze bat, Sandroren anaiak **karitatetsu** utzia. Juan Garzia

---

## karizia *iz* fereka. ik **karesa**.

**Kariziak** eta ondo-esanak egiten eutsazan eta, azkenean, batzordekoek etorri behar izan eben, mogitzeko esanaz, arrastian bere jo behar genduan eta. Xabier Amuriza

---

## kariziatu, karizia(tu), kariziatzen du *ad*

Baina ez nion Ifarkoian gertatutakoari buruzko deus aipatu, Adaren anpolai-moduko bular txiki tenteak eta gorputz biluzia **kariziatzeko** irrikaz nengoen eta. Anjel Lertxundi

---

## karizuma ik **garizuma**.

---

## karka *izond/iz* ideia atzerakoiak dituena.

-Zer da **karka** izatea gaur egun, Henrik? Karlos Linazasoro

-Ea "izilzen" haizen, **karka** zikina -esan zion sarjentuak. Koro Navarro

**-Karka** xamarra, aukeran. Karlos Linazasoro

Oso **karka** benetan. Berria - Kultura

**Karkaz** beteriko PNV hura ez bezala Xabier Mendiguren Elizegi

---

## karkaba 1 *iz* pixa eta gorotza jasotzeko zuloa.

Txakurtegirantz jo nuen berriro, atzealdeko **karkabako** leihotxopean gelditu nintzen adi. Koldo Izagirre

**2** kale modukoa, estua.

Pendizaren orpoan daude kokatuak mendiari eusten bezala karrikaren estiborreko etxeak, nolabait esatearren, eta hauen atzealdearen eta mendiaren artean gelditzen da zenbait lekutan ***karkaba,*** beste batzuetan *belena* eta guk hemen *zurruna* esaten diogun pasabide meharra, etxez etxe trabarik gabe doana, mendirako xendra ugarien sorburu eta auzoko katu guztien babesleku. Koldo Izagirre

Zeure espaloitik segitu zenuen, ezkerrera hartu zenuen aurreneko **karkaban**. Koldo Izagirre

Jaiki eta **karkaba** ordeka batean zehar joan ziren. Josu Landa

**karkail**[1] *izond* hondatua.

**Karkaila** zuen ahotsa, kautxuzko mozorroak lakartua. Anjel Lertxundi

---

karkail[2] ik **karkaila**.

---

**karkaila** *(154 agerraldi, 35 liburu eta 17 artikulutan orobat **karkail** g.er.)* **1** *iz* algara. ik **karkara**.

Mariri beste irri **karkaila** bat atera zitzaion, eta beste biek ere irriño bat egin zuten. Elena Touyarou

Ximurraren **karkailak** oilo-ipurdia jarri zidan. Aingeru Epaltza

Tomek hots txiki bat egin zuen, arnasbehera bat, irri txiki baten eta **karkaila** baten artekoa. Oskar Arana

Plazako guztiak **karkaila** handitan hasi ziren, bertsolaritan geundela ematen zuen. Koldo Izagirre

Anaiak irri-**karkaila** luze bat bota zuen, amultsuki erraten zidala: "Izutu haiz, he, Paxkal…". Daniel Landart

-Bai, noski! -esaten dute bi neskek **karkaila** artean. Antton Olano

Buhame-saldoaren **karkaila** uherrak. Itxaro Borda

**Karkaila** batean erantsi zuen: [...]. Itxaro Borda

**2** ***karkailaz***

**Karkailaz** lehertu zen Mai. Itxaro Borda

**3** ***irri-karkaila***

Hasanek **irri karkaila** bat egin zuen. Patxi Zubizarreta

**Irri-karkailak** bakarka. Antton Olano

Um Hamidak **irri karkaila** desatsegina egin zuen eta argi ikusi zuen salerosketa hura onuragarria gertatuko zitzaiola. Patxi Zubizarreta

**Irri-karkaila** aterarazi zion nire eranskinak. Aingeru Epaltza

Bere hitzei **irri-karkail** ozen batzuekin eman zien azken puntua. Aingeru Epaltza

**Irri-karkaila** ikaragarriak botatzen zituen ahotik, baina begiak... Antton Olano

Lotsagabeenak esan zuen, ozenki, eta beste guztiek **irri-karkailari** eutsi ezinik erantzun zioten. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontent ginen hola trinketa bete betean ikusirik, eta gainerat guziak **irri karkailetan** ari hastetik bururaino. Herria

-Bai tradizionala eta kursia haizela, Joan! -esaten dio Llumek **irri karkailaz,** hatzaz ezpainak laztantzen dizkiola-. Antton Olano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> irri karkaila (25)
> irri karkailak (10)
> irri karkailaz (3)
> irri karkailetan (4); irri karkailetan ari (3)

---

**karkailaka** **1** *adlag* algaraka. ik **karkaraka**.

**Karkailaka** irri egitea. Aingeru Epaltza

Graxik hain lañoki egin zuen galderak beste emazteak **karkailaka** hasarazi zituen. Elena Touyarou

Zaflako latza eman zidan bizkarrean eta gero **karkailaka** lotu zen. Aingeru Epaltza

Hain urduri eta atsekabeturik egon ez banintz, **karkailaka** hartuko nukeen galdera: ni gortean! Aingeru Epaltza

Nire lagun berriak irri-**karkailaka** abiatu ziren. Aingeru Epaltza

Barre **karkailaka** aupatzen genituen txisteok, ez onak edo gatzdunak zirelako, juduen bizkar ari ginelako baizik. Anjel Lertxundi

**2** ***irriz karkailaka***

Lehengusuak **irriz karkailaka** ari dira. Ramuntxo Etxeberri

Gizona, bihotzetik jaulkitako zorionaren oihartzunarekin, **irriz karkailaka** hasi zen. Patxi Zubizarreta

Halako axolagabekeria gisako batek harturik, **irriz karkailaka** hasi zen. Patxi Zubizarreta

Ostatuko neskak **irriz karkailaka** lehertzen aditu gintinan, Pannecau ilunean ibiltzen hasi ginenean. Itxaro Borda

Ederra bota duzu! -osteratu zion amak irriz **karkailaka-**. Patxi Zubizarreta

Neska xarmantak, **irriz karkailaka,** esan zion: […]. Patxi Zubizarreta

· Magali **karkailaka irriz** ari zen. Janbattitt Dirassar

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> irri karkailaka (10); irriz karkailaka (48); irriz karkailaka hasi (24); irriz karkailaka lehertzen (3); karkailaka ari (3); karkailaka hasi zen (14); karkailaka hasi ziren (5); karkailaka lehertu (3); karkailaka lehertu ginen (3); karkailaka lehertzen (3)

---

**karkailatu** *izond* hondatua.

Hemen aldiz zorigaitzez irudiz, haizeak eta euriak nagusi, suaren eskumena Hervéren antzeko zahar **karkailatu** iheslarien meneko zen. Itxaro Borda

---

karkaisa ik **karkaxa**.

---

karkaixa ik **karkaxa**.

---

**karkar** *adlag* karkaraka.

Gero, Dursleytarrak agertu ziren eta Dudley kaiolako barretan hotsa ateratzen hasi zen, barrez **karkar** . Iñaki Mendiguren

---

**karkara** *(128 agerraldi, 34 liburu eta 8 artikulutan)* **1** *iz* algara. ik **karkaila**.

Barre algaraka eraso dio Dylanek, eutsi ezin izaten den **karkara** ero horrekin. Pako Aristi

Potzoloren **karkarak** belarriak mindu zizkidan. Aingeru Epaltza

**Karkara** erlatsa? Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beinatek solasa mozkor-**karkara** gordinez troxatu zuen. Itxaro Borda

Museozainaren irri-**karkara** entzun nuen nire gibelean. Anjel Lertxundi

Danelen irri-**karkarak** entzun ditut. Anjel Lertxundi

**3** karaka.

Argi nagusiaren etorrera iragarriz, ontzian bertan oilarraren **karkara** aditu zen, zorrotz eta gorri, goiza odoletan zetorrela edo halako ezbeharren bat iragarri guran legez. Edorta Jimenez

Indioiloak **karkara** egiten zuen. Juan Garzia

Oilaloken **karkarak** eta algarak atzean utzi nituen, atea itxita. Xabier Mendiguren Elizegi

Haren antzara-**karkaran** bazen zerbait espetxearen santutasuna eta sendotasuna ezeztatzen zituena. Jose Morales

**4** ***karkaraz***

Eztula eragin zion barreak, baina hala ere **karkaraz** jarraitu zuen. Fernando Morillo

**5** ***barre-karkara***

Barre-**karkara** luze azantzatsu bat izan zen. Karlos Linazasoro

Barre-**karkara** garratza atera zitzaion, eztul-saioa egin zuen berriro, karkaxa bota zuen. Anjel Lertxundi

Beste zerbaitera? -Alexek barre-**karkara** egin zuen-. Fernando Morillo

Barre **karkara** bat egin zuen, eta basoa gora altxatu, topa egiteko. Edorta Jimenez

Ez dut sekula ahaztuko -hasi zen Einstein, barre **karkara** ozena eginez- behin bota zidana. Fernando Morillo

Eñautek kutxari begiratu eta barre egiten zuen, barre-**karkara** ozen eta mardulez. Sonia Gonzalez

Trelawney andereñoa kolpean jiratu zen, Harryri barre-**karkara** batek ihes egin baitzion. Iñaki Mendiguren

Hizketan jarraitu nuen nik, hortzen krakatekoak Herioren barre-**karkarak** eragina zelakoan-: […]. Anjel Lertxundi

Barre-**karkaraz** hasi zen Mirari. Fernando Morillo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **barre karkara** (43); **barre karkara bat** (21); **barre karkara egin** (9); **irri karkara** (6); **karkara egin zuen** (9)
> **barre karkarak** (3); **irri karkarak** (7)
> **irri karkaraz** (3)

---

**karkaraka** **1** *adlag* algaraka. ik **karkailaka**.

Gure prestakizunek eta nire izeba xaharraren ibilerek **karkaraka** irri eragin zioten debot jostari horri. Jon Muñoz

Gurasoek, berriz, beren zalditxotik irri eta **karkaraka,** esaten zidaten, zu zara gure sekretua, zu! Anjel Lertxundi

**2** karaka eginez.

Antzara baten gisara **karkaraka** hasi zen. Jose Morales

**3** ***barre-karkaraka***

Barre **karkaraka** hasi nintzen. Anjel Lertxundi

Noiz edo noiz, amak abisuren bat emateko-edo atea zabaldurik, jarrera xelebre haietan harrapatzen ninduen, galtzontzilo hutsean, eta barre-**karkaraka** aldentzen zen korridorean barna. Juan Kruz Igerabide

**4** ***irri-karkaraka***

Leher gaizto egiteraino hasi zen irri **karkaraka**. Anjel Lertxundi

Unetik unera irri **karkaraka** itotzen zen. Jon Muñoz

Eta bizkaitarrak trufaka eta irri-**karkaraka** ekin zion berriro. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irri karkaraka** (34); **irri karkaraka hasi** (18); **karkaraka hasi** (20); **karkaraka hasi zen** (14)

---

**karkasa**[1] *iz* armazoia.

Beste ikasle bati teklatuaren botoiak banatzen dituen zurezko **karkasa** bat egin zion bere aitak. Berria - Euskal Herria

Jaurtigailu zaharraren **karkasa**-zatiak atmosferan sartu orduko birrinduko ziren, eta haien errautsa besterik ez zen iritsiko lurrazalera. Patxi Iturritegi

---

karkasa[2] ik **karkaxa**.

---

karkax ik **karkaxa**.

---

**karkaxa** *(orobat **karkaisa** g.er., **karkaixa** g.er., **karkax** g.er. eta **karkasa** g.er.)* **1** *iz* arnasbideetan sortzen den muki modukoa, bereziki ahotik botatzen denean. ik **kerru**.

**Karkaxa** bota zuen. Fernando Rey

Eztul egin zuen gero eta makurtu behar izan zuen, eztulaldiak erasana, **karkaxa** botatzeko, **karkaxa** beltz lodia lurraren gainera botatzeko. Felipe Juaristi

Aitak musuzapia atera zuen patrikatik eta **karkaxa** bota zuen bertan. Anjel Lertxundi

Barre-karkara garratza atera zitzaion, eztul-saioa egin zuen berriro, **karkaxa** bota zuen. Anjel Lertxundi

Elizan **karkaisarik** ez botatzea. Joxe Azurmendi

Gizonak eztarritik gora igo berri zitzaion **karkasa** ahoan oratu, eta tu egin zuen lurrera piparen beste aldeko ezpain artetik. Anjel Lertxundi

**Karkaxa** bildu eta jaurti egin nuen, marranta kentze aldera. Anjel Lertxundi

Gero tu egin du, berak bakarrik dakien moduan: **karkaxa** lodi bat boteaz, ozen eta urruti. Jokin Muñoz

Goizean, **karkaxak** libratu ondoren, egunkaria ikustea izaten zuen lehendabiziko lana. Ramon Saizarbitoria

Zaharrenak eztarriko **karkaxa** garbitu eta pintura zuriaren potea laga du lurrean. Harkaitz Cano

Zera bat etortzen zait etengabe eztarrira, **karkaixa** edo... Irene Aldasoro

**Karkaxaz** jositako zoruari zeharka begiratu, eta kopetilun esan zuen:[...]. Jose Morales

Bazter guztiak zaborrez, **karkaxez,** zikinkeriaz eta krakaz ondo osatuta aurkitzea izaten da normalena ziega batera iristen zarenean. Jokin Urain

**2** (hitz elkartuetan)

Agurearen emaztearenak ziren, bada, ia gauero entzuten nituen zoro kateatu batenak bezalako oihuak eta **karkaixa**-hotsak. Anjel Lertxundi

Gainera, zerri halakoak lantzean behin **karkax**-hotsa atera eta segituan txua botatzen du lurrera. Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karkaxa bat bota** (3); **karkaxa bota** (6); **karkaxa bota zuen** (4); **karkaxa botatzen** (5); **karkaxa botatzen bazuen** (3); **karkaxa lodi** (3)

---

## **karkaza** *iz* karkara, algara.

Püblikoak ere franko desbardin: Sohütan errespetü handia sendi bazen, teatroan bezala, Irurin **karkaza** eta kalaka sobera builtaka ene gustüko. Herria

Manexunek **karkaza** gordinez hartzen zuen urtean behin bi asterako etxe ondora oporretara zetorrenean. Itxaro Borda

---

## **karkazail** *(orobat* ***karkazaila****)* *iz* karkaila.

Ez zen mailu kolperik ez eta langile **karkazailik** aditzen. Itxaro Borda

Maiana oroitzen zen partekatu zuten txokolatesne haguntsuaz; **karkazaila** ozenak askatuz, ez zela bere edaria aitortu zion eskaleak, ardo gorri lodi eta zikina maiteago zuela alabaina Itxaro Borda

---

## **karkazailka** *adlag* karkailaka.

Hitzaren doinu berezia susmatzean, Ferhat eta Lee irriz **karkazailka** hasi ziren eta haien irriak ez zuen ematen nehoiz geldituko zenik. kedarrez likisturiko gizonaren tximiniarena aditzean, **karkazailka** lehertzen gintukan. Itxaro Borda

"Ez da hoberik!" errepikatzen aditu nuen oraino QG ostatutik ateratzen nintzela, **karkazail** eta laidoka. Itxaro Borda

---

## karkula ik **kalkulu**.

---

## karkulatu ik **kalkulatu**.

---

## karkulatzaile ik **kalkulatzaile**.

---

## **karlinga** *iz* hegazkin batean, pertsonentzako gunea.

Behatzailea, ehiza hegazkinen tiroak seko hilda, **karlinga** barrenean zetzan. Josu Zabaleta

**Karlingatik** irten baino lehen, hegazkin muturra gorantz erregulatua nuen. Jaiki nintzen, **karlinga** gainetik igaro nintzen eta hegal gainean geratu nintzen lehendabizi. Josu Zabaleta

---

## **karlismo** *iz* XIX. mendean Espainian sortu zen politika eta gizarte higikundea.

**Karlismoa** zabaltzen ari zen eta aurrera zihoan garaipenez garaipen. Koro Navarro

Euskal **karlismo** gogorraren itoketa, dena dela, lehenagotik prestatu zen Madrilen. Txillardegi

**Karlismoaren** altxorra salbatuko bazen, ene ustez, erregetza utzi behar zen alboan. Txillardegi

Foruzaletasunaren, **karlismoaren** eta klerikalismoaren babesle azaltzen den Gernikako Arbola apurtzen. Berria - Kultura

Falangistek ez zutela hemen militanterik egundo izango, **karlismoaren** mistika ulertzen ez zutelako. Joseba Sarrionandia

**Karlismoan** baziren XX. mendeko abertzaletasunaren aitzindariak, burujabetasunaz gainerakoa deus gutxi axola zitzaienak. Markos Zapiain

Baina Nafarroak eta Euskal Herri ia osoak sinetsi zuten **karlismoan**. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karlismoaren mistika** (4)

---

## **karlista** **1** *iz* Karlos Espainiako erregegaiaren aldekoa; haren ondorengoen aldekoa dena.

Karlos Ohandokoa eta haren ikaskide batzuk, beren burua aristokratatzat zuten **karlistak,** Katxo hura babesten hasi ziren. Koro Navarro

**Karlistak** maniobretan zebiltzan. Koro Navarro

**Karlistak** noiz etorriko beldurrez, inguruak gotortzea erabaki ditek. Txillardegi

Txapelgorriak ziren **karlistak,** beltzak liberalak... Iñigo Aranbarri

Liberalak **karlistak** bezain errabiatuak ziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Abertzale nahiz **karlistak** sarritan elkarren lehengusu izateak ekarriko zuen giro bare samar hori. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskal Herriko **karlista** gazte haiek. Txillardegi

Hemengo **karlista** erdaldunei. Txillardegi

**Karlista** zintzo batek inoiz ez zukeen horrelakorik egingo. Bernardo Atxaga

**Karlista** amorratua bazen ere, bihotz onekoa zela esan zidan. Inazio Mujika Iraola

Foruzale eta **karlista** amorratua izan zen Azkarate. Berria - Kultura

**Karlista** naiz, baina erregezalea ez. Txillardegi

**Karlista** ala kristinoa izan beharra zegoen. Koldo Izagirre

**2** (hitz soila izen baten ezkerrean)

Bi urte honetan ez dut **karlista** buruzagirik batere ikusi. Txillardegi

Gernikako **karlista** familia batek. Txillardegi

Goiz hura iritsi aurretik Aitak ez zekien inguruko **karlista**-semeek ze jende bildua zuten. Xabier Etxabe

Ez ziotela luze eutsiko Oiartzundik barrena zetorren **karlista**-koadrilari. Inazio Mujika Iraola

Goiatzen zeuden **karlista** tropak formarazi zituen. Txillardegi

**Karlista** gerrateari buruz. Txillardegi

**Karlista** armadari buruzko gorabeherez, informazio on samarra izaten genuen. trenen zirkulazioa oztopatzea, **karlista** aginte osoaren helburua izan zen hasieratik. Txillardegi

Borbondarren **karlista** adarreko hainbat handiki hilobiratuta dago bertan. Anjel Lertxundi

"La Esperanza" **karlista** aldizkariko zuzendari izana. Txillardegi

Euskal Herriko **Karlista** Alderdiaren Nafarroako batzorde politikoak. Berria - Euskal Herria

• **3** *izond*

Donostiara dator Karlos Maria Isidro erregenahi **karlista**. Askoren artean

Atauna ailegatu ziren, non Dorronsoro, buruzagi **karlista** zibila, eskribaua izan baitzen. Koro Navarro

Donostiako jauntxo bat, familia **karlistakoa,** *ojalatero* deitzen zituztenetakoa. Koro Navarro

Hautagai **karlista** izan zen Errepublika garaian. Iñigo Aranbarri

Muga itxi eta armada **karlistako** soldaduei Frantziara erretiratzea galaraztea. Koro Navarro

Izeta izeneko komandante **karlista** bat. Koro Navarro

Martin Kale Nagusiko gozogile **karlista** ikustera joan zen. Koro Navarro

Herritik ateratzerakoan, patruila **karlista** bat hurbildu zen kotxera. Koro Navarro

Zenbait konpainia **karlista** portura atera ziren erasoari ekiteko prest. Koro Navarro

Bigarren gerra **karlista** amaitzearekin batera. Koldo Zuazo

Euskal Herriko Alderdi **Karlistak** hautagaitza aurkeztu du. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gerra karlista** (3); **herriko karlista** (4); **jeneral karlista** (3); **karlista amorratua** (4)
> **alderdi karlistak** (8)

---

## karlistada *(28 agerraldi, 14 liburu eta 3 artikulutan; orobat* ***karlixtada*** *g.er.)* *iz* karlistaldia.

Zazpi urteetako **karlistada** amaitzear zegoenean. Txillardegi

Aitona bat azken **karlistadan** preso hartua, gero Kubara soldadu eramana Espainia defendatzera. Joxe Azurmendi

Mugaz haindian **karlixtadak** izan baitziren, bi aldiz gerla, eta iheslari frango etorri baitzen eta parrasta bat Ziburun kokatu... Herria

Neska koskorretan, Karmenen etxekoek sarritan aipatzen omen zituzten **karlistadetako** kontu zaharrak. Anjel Lertxundi

Bigarren **Karlistadaren** ondoren. Iban Zaldua

**Karlistaden** garaian Herria

---

## karlistakume *iz adkor* karlisten seme edo alaba.

Baina pentsamendu demokratiko modernoa, Iraultzakumea, "burgesa" nahi bada, edo errepublikanoa, liberala, hori bai, berek deskubritu zuten, **karlistakumeen** belaunaldi abertzaleak, eta bere odolarekin defendatu zuten gerra-zelaietan. Joxe Azurmendi

Arana Goiri **karlistakumeak**. Koldo Izagirre

---

## karlistaldi *(37 agerraldi, 9 liburu eta 9 artikulutan)* *iz* karlista gerratea.

Aurreneko **karlistaldiaren** ondorentxoan etorri da Victor Hugo Euskal Herrira. Koldo Izagirre

Bigarren **Karlistaldian,** boluntario moduan joan zen gerrara. Askoren artean

Agure hark aurreko **karlistaldiko** zenbait pasadizo kontatu zituen. Koro Navarro

1834an, **Karlistaldia** zela-eta, soldadu liberalak Garesen sartu ziren, Viamanuelgo kondea buru zutela. Martin Anso

Euskal Herriko historiaren eboluzioa ere aztertu genuen, atalez atal, **karlistaldietatik** hasi eta frankismora ailegatu arte. Rafa Egiguren

Euskaldun gazteriak nasaiki isuri baitzuen odola Frantziako Iraultzaren edo Napoleonen aldeko ala aurkako batailetan, Espainiako Txapeltxuri eta Txapelgorrien **Karlistaldietan,** bai eta Montevideoko setioaren "Gerla Handian". Piarres Xarriton

**Karlistaldietako** bertsoen Apalategiren bilduma. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bigarren karlistaldia** (3); **lehen karlistaldia** (4)

---

## karlistate *iz* karlistaldia.

Heriotzeak oraindik 55 urteko gizon gordina zela harrapatu zuen, azkenengo **karlistateko** zauriak oraindik agerian zeudela. Berria - Kultura

---

karlixtada ik **karlistada**.

---

## karlo *iz* kardua.

**Karlo** baten gibelean gordea zagon, berea gogoan! Patziku Perurena

---

## karlos *iz ipar* donadoa, mutilzaharra.

Ohartua naiz, gure bi herrietan, langile gehienak ezkontzen direla edo bederen uztartzen, eta laborariak karlos eta **mutxurdin** izaiteko biderat heltzen ari direla! Herria

Bihotz oneko **mutxurdin** eta karlos paregabeek merexi dituzte ere agiantza ber-berak. Herria

Dena den, ikus zenbat **mutxurdin** eta karlos baden gure inguruan; aurten guziak ezkondu beharrak dira! Herria

---

# karma *iz*

**Karma** -ren eta "jatorrizko bekatuaren" (bekatuaren eta determinismoaren ideiak elkartzen dituzten) doktrinak aztertzen dira. Iñaki Mendiguren

Aurreko bizitza batean eginiko bekatuak ordaintzen ariko da, inondik ere, eta beraren **karma** da hori. Juan Kruz Igerabide

Eta bakoitzaren **karma** konplitu zen, gu Andyrekin jo eta jo, eta Tracy kontent-kontent buztana lehiaz eta hortzez norbaitek jaten ziolako, Rita Maek normalean. Karlos Zabala

---

**karmañola** *iz ipar* zalaparta alaia.

Bidaiaz bertzalde batzu ta bertzen artean solasean, kantuz eta **karmañolan** artzeak ere badauka bere aberastasuna. Herria

Hor ere zer **karmañolak** eta irriak eginik! Herria

---

# karmeldar *(33 agerraldi, 12 liburu eta 10 artikulutan)* 1 *iz* Karmengo Amaren ordenako lekaide edo lekaimea. ik **karmelita.**

Gasteizko **karmeldarren** lekaidetxeko bere zeldan. Jokin Urain

**Karmeldarren** komentuan hiltzen ari zirenen garrasiak. Alberto Ladron Arana

Koloniako **Karmeldarretan** sartzera zihoan. Piarres Xarriton

Aita Luis Arostegi, mundu osoko **karmeldarren** buruzagi berria. Herria

Emakume batek **karmeldar** bati egindako aitortzan frantziskotar batek seduzitu duela esan du; **karmeldarrak** frantziskotarra salatu behar du. Juan Martin Elexpuru

**Karmeldarren** ordenan, lehenengo hogeita hamar urteak dira zailak. Joxan Elosegi

• **2** (izenlagun gisa)

Mendi horretan dute beren tradizio-iturri **Karmeldar** lekaide-lekaimeek ere. Pello Zabala

Apaiza zen Etxaniz, eta fraide **karmeldarra** Onaindia. Koldo Zuazo

Damu nintzen ia-ia moja **karmeldar** zaharraren hitza egiaztatzerik izan ez nuelako. Joxan Elosegi

---

# karmelita *(5 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan)* *iz* karmeldarra.

Aitona Miguel **karmeliten** komentuan kartzelatu zuten lehenengo. Mikel Hernandez Abaitua

Beste liburu bat beraz, Joseph Zabalok proposaturik, Tolosako **Karmeliten** argitaletxearen eskutik. Herria

---

# karmin[1] *izond* garratza.

Kiratsa zetorren arrotik, paperolaren gernu **karmina** fonderiaren berotasun itogarriari gain hartuz. Koldo Izagirre

Ezpainetako margoaren zapore **karmina** utzi zidan ahoan musu ematerakoan. Anjel Lertxundi

Are **karminago** egin zuten negar Luziana Rouraren adiskideek. Koldo Izagirre

**Karmin** zapore gozoa eta malkoen mingotsa biak batean izango zituela pentsatu nuen. Joxean Agirre

· Ez diot hau saminki, baizik kezkati, ahoan min duenari eztia **karmin** egiten bazaio ere. Pello Salaburu

---

# karmin[2] 1 *iz* gorri bizia.

San Joan udareak, dukesak, batzuk potoloak, beste batzuk luzeak, beltxarga lepoekin edo sorbalda apoplektikoekin, sabelak horiak eta berdeak, **karmin** pittin batez edertuak. Karlos Zabala

Gorria esan nahi din, baina belusari buruz ari haizenean **"karmina"** esan behar dun. Anton Garikano

Urde hiltze goizetan baizik ez zuen horrenbeste **karmin** koloreko jario burrustatzen mirestsi. Itxaro Borda

**2** ezpain margoa.

Ezpainak **karminez** nahiko zikinduak. Pello Lizarralde

Ezpain gorrail apetagarriak **karmin** leunaren ukitu basatiaz hornituta. Aritz Gorrotxategi

Oscar lehen aldiz ikusi zuenean **karmina** erostera joan zen. Jasone Osoro

**Karmin** gorriz margotuta ondokoa zegoen idatzita: "Abiadura gustatzen, Julia?". Jasone Osoro

Bertan ikusi zuen, akaso odola irudikatu nahirik baina **karminez** idatzita, azken mezu ezkutua bide zen hura: "Puta bat bezala tratatzen ninduzun eta ezin nuen eraman". Xabier Mendiguren Elizegi

Aurpegia **karmin** orbanez beteta. Pello Lizarralde

Bi musu heze eman dizkit masailetan, eta **karminez** gorrituta utzi dizkit ziurrenik. Iban Zaldua

---

# karmindu *izond* mindua.

Botika gustuko belarrak olio **karmindutan** apailatuak, ingeles erako ilar berdeak balira bezala. Koldo Izagirre

---

# karnaba *iz* txolarrearen familiako txori kantaria, moko-motza, buruan gorriune bat duena, eta luma ikusgarriak, beltzak eta horiak dituena *(Carduelis carduelis* edo *Acanthis carduelis).* ik **kardantxilo.**

Haltz adaxkan, **karnaba** bat kantan. Iñaki Arranz

Komentuaren aldean aditu zuen **karnaba** edo beste txoriren baten kanta txit gozoa. Anjel Lertxundi

Begiak itxi eta, oraindik ere, ikusi egiten ditut habia haiek: **karnabaren** goroldiozkoa, kaskabeltzaren borobil-borobila, mikaren handi eta baldarra. Bernardo Atxaga

Txominek ehizatuak zituen ordurako hiru txori: txolarre bat, kaskabeltxa eta **karnaba**. Joan Mari Irigoien

Ekartzen zizkiguten **karnaba** eta txirriskila guztiak erosten genizkien bertako umeei. Koldo Izagirre

---

**karnabal** 1 *iz pl* inauteriak.

Horrek halako klase bat, halako berezkotasun bat ematen die Tolosako **karnabalei,** beste inork nekez iritsiko duena. Xabier Mendiguren Elizegi

**Karnabalen** jatorriari buruzko artikulu bat. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Pazkoa udaberriko ilbetean izan ohi denez, 50 egun aurretik, ilberri inguruan egokituko dira Inauteri eta **Karnabal** festak. Pello Zabala

---

karnada ik **karnata**.

---

karnalidade ik **karnalitate**.

---

**karnalita** *iz* potasio-magnesioen klorurozko mea.

Emakumeen nezeser zahar, eder bat, **karnalitazkoa** . Anton Garikano

---

**karnalitate** *(corpusean* ***karnalidade*** *soilik) iz* haragizkotasuna.

Sonoridade trinko eta lehor baten barruan **«karnalidade»** handia ere erakusten dutenak. Berria - Kultura

---

**karnata** *(orobat* ***garnata*** *eta* ***karnada*** *g.er.) iz* beita.

Kostapean **karnatarako** zizare bila. Koldo Izagirre

**Karnata** bizirik gabe «jai» daukate arrantzaleek. Berria - Harian

Luma eta haritxoekin haien itxura ahalik eta handieneko **garnatak** egiten saiatzen dira arrantza egiteko asmoz. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Karnata** moduan antxoakumeak ez, berdelkumeak erabiltzera behartuta daude arrantzaleak. Berria - Harian

**Karnadabako** etxada batzuk egin nituen, lau apario. Koldo Izagirre

---

**karnet** *(orobat* ***karneta*** *g.er.)* **1** *iz* txartel itxurako agiria, jabearen nortasuna edo beste gorabeheraren bat adierazten duena.

**Karneta** txiki bat zen.. Ramuntxo Etxeberri

**Karneta** kadukatu zaidala esan zidatek eta, foto batzuk ateratzeko zain. Pablo Sastre

Utzi hemen **karneta** eta bete orri hau. Xabier Etxabe

Atzean jarri zait, eta **karnet** bat erakutsi dit "Zatoz nirekin" esanez. Agurtzane Juanena

Ba al daukazu sindikatuko **karnetik** ? Lopez de Arana

Ziurtatu ezin dugun arren, UGTko **karneta** izango zen berea. Koldo Izagirre

Espainiako nortasun agiriarekin, EHUko **karnetarekin** edo gida-baimeranekin identifikatu ostean, mahaiko presidenteak hautestontzian sartuko du boto txartela. Berria - Euskal Herria

Amak esana zion Angeli erosteko moto txiki hura, gidatzeko **karnetik** behar ez zuena. Bernardo Atxaga

*ik beherago* 5.

Semeek animatu zuten kamioiak gidatzeko **karneta** ateratzera. Iban Zaldua

Bazuten "Credential" deitu **karnet** bat eta behar zuten hori tanponarazi han hemenka tokiko buruzagien etxetan. Herria

Goiko aldean, erdian, neska gazte baten **karneteko** argazkia ageri da. Agurtzane Juanena

Komenentziazko militante asko omen zebilen, haizea nora **karneta** hara egiten zuena. Inazio Mujika Iraola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Karnet** tamainako hiru argazki eta 15 euro. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egunkariak eman didan korrespontsal **karneta** . Harkaitz Cano

Errepide erdiko udaltzainak ez omen zuen prentsa- **karnetaren** berririk. Aingeru Epaltza

Entrenatzaile **karneta** ere atera dut. Berria - Kirola

Espioi- **karneta** ere kenaraziko zidala... Jon Alonso

Gelaria hor dugu berriz, tapoina eskuan: crecendiala aurkezten diot eta ari da, ene bide **karnet** behar bezala zigiluaz markatu nahiz Piarres Aintziart

**4** nortasun agiria.

Nere **karnetean,** nortasun agiri edo dena delakoan. Iñaki Segurola

**Karnetaren** ondotsuan gure zenbatasuna edo kreditua gordea duen txartela erabili ohi dugu. Iñaki Segurola

70 urtetik aurrera **karneta** berritu beharrik ez dagoela. Iñaki Segurola

Tabernetako komunak dira komunio horren tenpluak, eta zulo haietan, Ostia Biribila gurtu beharrean, **karnetarekin** egindako Lerro Zuzena gurtzen dugu. Iñaki Segurola

Euskal **karnetaren** aldeko kanpaina. Berria - Euskal Herria

**5** gidatzeko baimena.

"Ez dauka **karnetik,** baina karnetadun askok baino hobeto manejatzen du", gaineratu zuen. Bernardo Atxaga

Lege berriarekin urtean hamar kale isun biltzen dituenari **karneta** kendu behar diotela. Pablo Sastre

Berak **karnetik** ez, eta txofertza egiten zion batekin ibiltzen omen zen hara eta hona. Xabier Mendiguren Elizegi

**6** ohar liburuxka.

**Karneta** txiki batean egunero zer egiten, pentsatzen, ahoskatzen zuena idatz zezakeen. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**karnet tamainako** (3)

**euskal karneta** (3); **gidatzeko karneta** (3); **karneta txiki** (3)

---

**karnetadun** *iz* gidatzeko baimena duen pertsona.

"Ez dauka karnetik, baina **karnetadun** askok baino hobeto manejatzen du", gaineratu zuen. Bernardo Atxaga

---

**karniboro** *izond/iz* haragijalea.

Behin dokumental batean ikusi zituen landare **karniboroekin**. Patxi Iturritegi

Panda hartza, esate baterako, **karniboroa** da. Pello Salaburu

Etxeko **karniboroei** (katuari, txakurrari) landarez osaturiko pentsua eta animalia herbiboroei animaliazko produktuak janarazi ohi zaizkie. Edorta Agirre

---

**karobi** *iz* kare bizia egiteko labea. ik **gisu 4**.

Eta karea egosteko ere, **karobia** sutzerakoan, otea nahi izaten omen zuten garai bateko aitona zaharrek. Patziku Perurena

**Karobian** txigortu zuten [kare mea], bada, kaltziotik banandu zedin. Juan Garzia

Harroak dira larrosak afusilatuaren **karobian**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**karolingiar** *(corpusean* ***karolinjiar*** *soilik)* *izlag* karolingioa.

**Karolinjiar** enperadoreek. Iñaki Mendiguren

**Karolinjiar** legeriak. Iñaki Mendiguren

Normandiarrek ez zuten erlijioa soilik hartu, baita haiek **Karolinjiar** Inperioaren bihotz galiarrean beretzat sorturiko ondorengo estatuan zegoen eta erromanikoz mintzo zen jatorrizko jendearen hizkuntza eta poesia ere. Iñaki Mendiguren

---

**karolingio** *(orobat* ***karolinjio****)* *izond/iz* Karlomagno enperadoreari edo haren dinastiari dagokiona; haren aldeko pertsona.

Monarkia merovingioa ahultzean, eta **karolingioa** indartzean. Patziku Perurena

Bisigodoen oinordekoak mendebaldetik, Iberiako Penintsulan sartu berriak diren arabiar-afrikarrak hegoaldetik eta Inperio **Karolingioa** ipar ekialdetik bertakoen erresistentzia higatzen saiatzen ari dira. Berria - Kultura

**Karolingioen** leinua ez zen "Jainkoaren graziaz" errege izateko egokia. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Karolinjioen** Inperioaren eta Wessex-eko erresumaren itsas mugetan. Iñaki Mendiguren

---

karolinjiar ik **karolingiar**.

---

karolinjio ik **karolingio**.

---

**karoteno** *iz* landare batzuetan dagoen pigmento laranja-kolorea, animalien organismoak A bitamina bihur dezakeena.

Azenarioak eta beste barazki batzuek duten substantzia bat da **karotenoa**. Irene Aldasoro

A bitamina ere gorputzean fabrikatu daiteke, **karotenotik** abiatuta. Irene Aldasoro

Badira, esaterako, beta **karoteno** A bitaminaren aitzindaria kopuru nabarmena duten arroz eta arbi-hazi motak. Berria - Gaiak

---

**karotida** *iz* lepoaren alde banatan dauden eta odola burura eramaten duten bi arterietako bakoitza.

giharren usaina aditu zuen nire azalaren azpian, eta nire **karotiden** taupadak sentitu nire lepoko azalaren azpian. Joxan Elosegi

Behatzailearen **karotida** ebakitik lehenengo odol turrustak ihes egiten duenerako. Josu Zabaleta

Ez nituen lepo-mozte irudi haiek, **karotidari** zerion odol hura, ikaraz jauzika hasitako gorputz hura, burutik kendu ahal izan. Joxan Elosegi

---

**karpa**[1] **1** *iz* olana handia, egitura batek eusten diona eta esparru bat estaltzen duena.

Ivan Revinsky zirku enpresariak bi erabaki garrantzitsu hartu zituen: lehena, zirkua **karpa** erraldoi batekin estaltzea. Harkaitz Cano

Hilaren 17an eta 18an izango dira kontzertuak Hernanin jarriko duten **karpan** erraldoian. Berria - Kultura

Areetako plazan jarriko duten **karpa** handian. Berria - Kultura

5.000 lagun bildu ziren iaz 2.500 metro koadroko **karpara**. Berria - Kultura

Azoka egiteko, **karpa** baino askoz egokiagoa da eraikin berria. Berria - Kultura

**Karpa** txuri baten azpian aulkiak daude, bakoitzean zeinek eseri behar duen ipinita. Pako Aristi

Modelo-jendea ito beharrean dabil ibaiaren ertzean inprobisatu dieten polibinilozko **karpa** koloretsuaren azpian. Patxi Iturritegi

Heineken **karpan,** berriz, Kora Jazz Trio entzun ahal izango da. Berria - Kultura

Zuzeneko emanaldietarako bi eszenatoki atonduko dituzte eta, horietaz gain, bi **karpa** techno eta **karpa** pop bat ere izango dira. Berria - Kultura

Eta gero **karpapean** zerbitzatu bazkarian mila lagun edo gehixago! Herria

**Karpapean** zein Baionako karriketan, orotara hamaika ikuskizun aldizkatuko dira. Berria - Kultura

Jaialdia ikastolako **karpan** egingo da. Berria - Kultura

Festaguneko **karpan**. Berria - Kirola

Ikusle txikiak eta handiak agertokian prestatutako **karpa** puzgarri batean sartuko dira. Berria - Kultura

Bera Bera taldeak antolatu duen **karpa** erabiltzeko akordioa lortu du klubak. Berria - Kirola

**2** (etxola modukoa)

Hirurehun putzu eta berrogeita hamar mila datilondo zeuzkan [oasiak], baita koloretako **karpa** ugari ere haien artean jarririk. Xabier Aranburu

Tribuetako buruak **karparen** barrenaldean zeuden eserita. Xabier Aranburu

Al-Fayoumgo erdialdean zegoen **karpa** handiaren ingurura heldu zirenean zimitarrak eta espingardak atera zituzten. Xabier Aranburu

Bisitariak zirenez, oasiko biztanleekin partekatu beharra zeuzkaten **karpak**. Xabier Aranburu

**3** (hitz elkartuetan)

Ke-lurrin gozo batek estaltzen zuen **karpa** -barrua. Xabier Aranburu

· Kanario-koloreko zirko- **karpa** ematen zuen zerbait hasi zen trikotatzen. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karpa erraldoi** (5); **karpa erraldoia** (11); **karpa erraldoian** (5); **karpa handian** (3)
> **heineken karpan** (6); **kaleko karpan** (9)

---

## karpa[2] *iz* zamoa, ur gezetako arraina.

Ibaian arrain ugari egoten da: zarboak, tenkak, lutxo jatunak, **karpa** zilarkarak, perka hegalgorriak, aingira irristakorrak Koldo Biguri

---

## karpakide *iz* karpa berean bizi dena.

Ordainetan, ardi bat erosteko dirua eman zion mutilak **karpakideari** . Xabier Aranburu

---

## karpatxo *iz* karpa txikia.

Itsasaldeko auzapezak, parlamentariak eta kontseilari nagusiak osaturik, lohi eta harrien erdian, **karpatxo** baten pean. Berria - Euskal Herria

La Mongie herrigunetik 500 metrora jarriko dugun **karpatxoan** euskal jaia izango dugu. Berria - Kirola

---

## karpatzar *iz adkor* karpa handia.

Oasiaren erdigunean zegoen **karpatzar** izugarriaren atarian zegoen zaindariari. Xabier Aranburu

---

## karpeta 1 *iz* paper zorroa.

Gaueko freskuraren kontrako babes bakarra bularren kontra estutzen zuen bere **karpeta** zuen berriro ere. Joxean Agirre

Lerrotan ordenatu nituen gurasoek denboraren joanean gorde zituzten kutxak, dosierrak eta **karpetak** . Joxan Elosegi

Ganbarara igo, eta kaxak eta **karpetak** arakatzen hasi naiz. **Karpetak,** fitxategiak eta dokumentuak. Iban Zaldua

*Euzko Deya* aldizkariaren Parisko korrespondentzia biltzen zuen **karpetan** . Berria - Kultura

Besapean ekarritako **karpeta** zabaldu eta kaxa zapal bat atera zuen Justok. Joxemari Urteaga

Orduan zigilua hautsi eta **karpeta** irekitzea erabakita, paperak zabaldu zituen. Bego Montorio

Interesgarri iritzitako datuak **karpetetan** gordetzen zituen. Berria - Kultura

Orriak **karpeta** beltz batean gorde zituen. Joxemari Urteaga

Folioz beteriko **karpeta** lodia. Iban Zaldua

Zednicek kontseilaria sartu zen, agirien **karpeta** eskuan. Fernando Rey

Autoko alboko poltsikotik dokumentazioa altxatzeko larruzko **karpeta** granatea atera zuen. Aingeru Epaltza

Gogotsu irentsi zuen larruzko **karpetaren** edukia. Bego Montorio

Bi **karpeta,** eskuz idatzitako orri soltez beterik. Hasier Etxeberria

**Karpeta** hutsik topatu nuen. Alberto Ladron Arana

Bi **karpeta,** eskuz idatzitako orri soltez beterik. Hasier Etxeberria

**2** (hitz elkartuetan)

Genealogia **karpeta** osoa, nire koadernoak, liburuak, dena blai. Josu Zabaleta

Apunte- **karpeta** buru gainean gerizatzat erabiliz korrika atera zen berrehun metroz harantzago zegoen metro-irteera baterantz. Joxemari Iturralde

Ilunagoa eta makurragoa, "osasun **karpetak",** nire amak luzaroan xehe-xehe gobernatu zituenak. Joxan Elosegi

**3** (informatikan)

Urduri, estu eta larri, hartutako mezuen **karpeta** zabaltzen du, baina..., **karpeta** hutsik dago. Antton Olano

Ahalik eta isilen, neskak PRANA artxiboa ordenagailu eramangarriko **karpeta** guztietatik borratu zuen. Fernando Morillo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karpeta hartu** (3); **karpeta ireki** (4); **karpeta sarrerako arasa** (3); **karpeta urdina** (8); **karpeta zabaldu** (3); **karpeta zahar** (4); **larruzko karpeta** (5)

---

## karpetatxo 1 *iz* karpeta txikia.

Ordenagailuan idazten zituen gero, eta paperera eraman ostean, **karpetatxo** batean gordetzen zituen. Berria - Kultura

Diskoa erosten duenak grabazioa nola egin zen jasotzen duen DVDa izango du, baita argitarapenak dakarren barruko **karpetatxoan** nahi adina argazki eta xehetasun ere. Berria - Kultura

**2** (informatikan)

Iragarkia jartzera doanak konturatu behar du euskarazko komunikabideak hor daudela; bere disko **gogorrean** karpetatxoa sortu behar zaio, publizitatearen bitartez. Berria - Euskal Herria

---

## karpetobetoniko *izond adkor* espainoltzarra.

Berak aitortu bezala, turko-bururik ez dute **karpetobetonikoek** euren kostetan. Berria - Kultura

---

karraiatu ik **garraiatu.**

---

karraio ik **garraio.**

karraiolari ik **garraiolari**.

# **karrajo** *iz* korridorea.

**Karrajoaren** bukaeran bazen ate txikitxo bat. Unai Iturriaga

**Karrajoan,** galtzontzilotan, *homo sapiens*a baino bi eskail-maila beherago dagoen primatea zirudien. Unai Iturriaga

**Karrajoko** horma bien artean balantza eginez hurbildu zen patata tortilla egiten ari bide zen Dionisosengana. Unai Iturriaga

Baina gaur ez nindoan bisita-gelara; eta **karrajo**-tarteaz haranzko bulegora abiatu nintzen. Txillardegi

# **karrak**[1] **1** *iz* karrakaren edo kurrinkaren onomatopeia.

Adimena karrakaren **karrak** hotsetara eman nahi izan nuen. Edorta Jimenez

· Hiru gabirai zeramatzan kalesak, **karrak** eta **karrak,** bere inguruan. Anjel Lertxundi

## **2** ***karrak egin***

Kankarroei ekin ez ekin barne borrokan nengoela, **karrak** egin zuen ostatuko ate betiere olioztatu gabeak. Aingeru Epaltza

Zuzentzean, **karrak** egin zuten haren giltzurrun inguruko hezurrek, egur iharrak eskuz puskatzean ateratzen duen antzeko hotsaz. Askoren artean

Orduan karrakak **karrak** egin zuen, manda baterantz okertuz. Edorta Jimenez

Semaforoak **karrak** egin zuen eta argi berdea gorri bihurtu zen. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karrak egin** (9); **karrak egin zuen** (3); **karrak egin zuten** (6)

karrak[2] ik **karraka**[1].

# **karraka**[1] *iz* altzairuzko lanabesa, ildoxkak edo pikortak dituena, metalak edo zura murrizteko, berdintzeko edo leuntzeko erabiltzen dena. ik **lima**[1].

Gauza jakina da munduan badirela tankera horretako aurpegi ugari: naturak berehalako batean itxuratu ditu, azken ukituak emateko nekerik hartu gabe, **karrakarik,** ginbaletik edo bestelako lanabes finik erabili gabe. Jose Morales

# **karraka**[2] **1** *iz* batez ere erdi aro berantean erabili den garraio itsasontzi handia.

Garai berean Mediterraneoan ibiltzen zen aparailu karratuko "ontzi biribila", alias **karraka**. Iñaki Mendiguren

Itsasoz etorriak ginen, **karraka** ontzitzar horietako batean. Edorta Jimenez

**Karrakan** ontziratzeko nintzen egun bereko goizean. Edorta Jimenez

**Karrakako** ontziburuak ni lehenengoz ikustean egin zidan harrera, hain segur. Edorta Jimenez

**Karrakako** eskifaiakoak. Edorta Jimenez

Zapia puztea, ez zen besterik falta Ánimas **karraka** nabigatzen has zedin. Edorta Jimenez

Gure **karraka** muilaturik zegoeneko ibaiaren zabala erakutsi zigun goizak. Edorta Jimenez

**Karraka** atontzeko lanetan erabiliak ziren egurren hondakinekin. Edorta Jimenez

Hiru mastakoa izaniko Ánimas **karraka,** harrezkero masta biko ontzi herren bihurtua. Edorta Jimenez

Hantxe ziren eskifaiako gizonetako batzuk, Ánimas **karrakako** kanoi hodiak beren orgatxoetatik kentzen, Joanesen agindupean. Edorta Jimenez

Orduantxe galdu zen gure **karraka** itsasoaren altzo infinituan. Edorta Jimenez

Iluntzean **karrakako** bigarren txaneltxoa uretaratu genuen. Edorta Jimenez

## **2** ibilgailu kalamastra.

Dyane 6 zahartu eta herdoildu bat, bultzaka erabili beharrekoa dirudien **karraka** zaharra, bazter guztietan eranskailu, zintzilikario eta antzeko hornizioz apaindua Xabier Mendiguren Elizegi

# **karraka**[3] **1** *iz* krakatekoa, kirrinka.

Hontzek ulu egiten zioten elkarri, oso gustura ez baleude bezala hango berbeta-hots eta kutxa astunen **karraka**-hotsaz. Iñaki Mendiguren

Irisarriri ez zitzaion iritsi zalgurdiaren **karraka**-soinua. Felipe Juaristi

Oinen azpian ontzitzarraren ohol denen **karraka**-hotsak nituelarik. Edorta Jimenez

Belaontziko zuraje osoak egundoko **karraka** egiten zuen, hondatutako esku-soinu erraldoi bat bihurturik. Anjel Lertxundi

## **2** karranka.

Larunbateko egunsentian, antxeten eta kaioen **karraka** errepikakorrek esnatu ninduten. Txillardegi

Azelako ernegu, **karraka** eta deiadarrak pinguino amenak, pinguino jaunak hurrean serio eta arlote geratzen diren artean. Joseba Sarrionandia

Behera eta behera egin zuen hegaztiak eta, gero, hegoak bilduz, **karraka** erlatsa bota zuen. Agustin Otsoa

Gabirai baten hegaldi astiroak dar dararazi zuen balkoiko argi urdinxka, eta haren **karrakak** eztanda egin zuen Noraren muinetan. Anjel Lertxundi

## **3** *hed*

Ardien marraka eztia eta astoaren zintzur-**karraka** elkorra aditu nizkian. Itxaro Borda

Amak bakarrik ulertzen baitzuen, benetan, Big Joek hizketarako baliatzen zituen kurrinka eta **karraka** hots guztien esanahia. Mirentxu Larrañaga

Eta hori amaitzen denean, berriro hitzen **karraka,** algaren astrapalada gorputzen arteko erakarri nahi isilak desitxuratuz. Pako Aristi

## • **4** *adlag* karranka eginez.

-Zer ari zara **karraka**? -erantzun zuen Peterrek-. Julen Gabiria

Txabolako teilatuan zapelatza ari da **karraka,** ingurune elurtuak arakatzen. Jokin Muñoz

Minutu pare bat ematen zuten itsaso apartsu gainean eta **karraka** pausatzen ziren berriro portu ondoko hondartza txikian. Paddy Rekalde

## **5** ***karraka egin***

Nor dabil hor? **-karraka** egin zuen Andre Gizenak. Iñaki Mendiguren

Abokatuaren ahotsak **karraka** egin zuen, garraztasunez, klaxon baten modura. Lopez de Arana

Hori *Harabic*-a da **-karraka** egin zuen marinel-ahots batek haien ondoan. Lopez de Arana

· ik karrak 2.

Hortzek **karraka** egiten diotela. Itziar Otegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **karraka egin** (6); **karraka egin zuen** (5); **zintzur karraka** (3)

---

**karraka**4 *adlag* presaka.

**Karraka** doa, landu gabeko testua da. Iñigo Aranbarri

---

**karraka**5 *iz* zurezko trepeta, gider batez gurpil hotzdun bat biraraziz hots lakarra ateratzen zaiona.

Zapatu santuz ere, elizan goizeko kanpaiak (edo **karrakak** beste auzo askotan) jo arte, ezin zitekeen ogia egiten hasi. Pello Zabala

Obra garaikideak joko dituzte, ezagunegiak ez diren instrumentuak erabilita, gongoa eta **karraka,** esaterako. Berria - Kultura

Abemaritako hiru orduotan [aste santuan], **karraka** handi batez jotzen genuen elizatarian, danbarra-danbarra-danbarra, egun horietako tenorearen berri adierazteko. Pello Zabala

---

**karrakagile** *izond* karraka egiten duena.

Kaioak eta antxetak, normalean baino **karrakagileago,** Azoka gaineraino, are Hegoalderago ere, azaldu ziren aldra handitan. Txillardegi

---

**karrakateko** *iz* krakatekoa.

Kazetariaren dohainen artean gertatutakoa ondo neurtzea dago, ezen bestela, nola eman albistea honek **karrakatekorik** atera gabe? Iñigo Aranbarri

Segituan iritsi da [trena], gozo sartu da azken bihurgunean, oharkabean kasik, eta **karrakatekorik** gabe eten du ibilia geltoki berrituaren aurrean. Iñigo Aranbarri

---

**karrakatu**, karraka, karrakatzen **1** du *ad* lakar igurtzi, gogor igurtzi.

Albertok esan zuen ganibet batez **karrakatuz** gastatu behar zirela zilindroak. Juan Garzia

Andre zahar bat argizari isuriaren malko zurbil gatzatuak **karrakatzen** ari zen ganibet handi batez. Karlos Zabala

Gero harri bat hartu zuen bidetik, harritxo zorrotz bat, eta kontu handiz hasi zen gauza haiek **karrakatzen**. Josu Zabaleta

Gozopilak, seguraski, apur bat andeaturik izango dik gainaldea; bada, esaiok Mavrari aiztoarekin **karrakatzeko,** eta hondarrak ez botatzeko, oilategira eraman ditzala. Jose Morales

Eta Léonen aihotza ukaldi biziagoz zebilen, tarteka mahaia **karrakatzen** zuela, ore bihurtzen hasitako saltxitxa-haragia biltzeko. Karlos Zabala

Azazkalaz, Axenariok zorua **karrakatu** du. Itziar Otegi

Zintzurra **karrakatuz** ari zen. Itxaro Borda

Koskoilak **karrakatu** zituen eta eskumuturra sudurrera altxatu zuen. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Bainan pixka bat **karrakatzen** balu axala, ohar litaike gazte horien bihotz-barnea zoin den aberatsa. Herria

Lazdurak **karrakatzen** ditu nostalgiak. Piarres Aintziart

---

**karrakatze** *iz* lakar, gogor igurztea.

Gero, **karrakatze** amorratu bat baizik ez zen entzuten, burdin hots bat igeltsuan atzaparka. Karlos Zabala

Eztul, zintzur **karrakatze** zenbait, berantetsiak bezala, entzun ziren. Michel Oronoz

Zintzur **karrakatze** bat eta izpiritua zulatzen didan ahotsa. Itxaro Borda

---

**karrakela** *iz* itsas barakuiloa, harkaitzetan bizi dena, jateko ona *(Littorina littorea* etab.). ik **magurio**.

Zer izango ote zen gutaz, baldin eta sardinak, berdelak eta **karrakelak** saldu izan banitu, liburuak saldu ordez? Jon Muñoz

---

**karramarro** *(orobat **karramarru** g.er.)* **1** *iz* gorputza biribil-antza duten oskoldun hamar-oin batzuei ematen zaien izena *(Astacus sp., Carcinus sp., Pachygrapsus sp.)*.

Bezperan **karramarro** bat harrapatu eta etxera eraman nuen. Joseba Sarrionandia

**-Karramarro** biziak ez zenituzkete jango, noski. Joanes Urkixo

Bi hortzetako sardexka bederaren laguntzarekin **karramarro** eta otarrainak beren zuloetarik aterarazi beharrez ari. Elena Touyarou

Otarre bat **karramarro** eta arrainez bete eta aldapan gora abiatu zen. Joanes Urkixo

Bi tona **karramarro,** Rotterdamgo portuan aspaldi egon behar zutenak. Harkaitz Cano

Ohe-mahaira joan eta, **karramarro** bat salabardotik bezala, telefonoa jaso du argazki, Ama Birjinen irudi, kolonia-ontzi eta zurezko panpinen artetik. Koldo Izagirre

Azpikoz gora erori den **karramarro** baten hankak balira bezala. Monika Etxebarria

Ur irakinetan jarritako **karramarro** bat bezala sentitzen zara. Unai Elorriaga

**Karramarroak** bezala, atzeraka. Berria - Kirola

**Karramarroa** bezain gorri nengoen. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Karramarro**-itxurako gizon xahar bat, bere bekain sarrien artetik begira zegokion. Irene Aldasoro

Zeharka ibiltzen ziren, **karramarro** hankekin. Monika Etxebarria

Orpoetan **karramarro** haginak nahasten zaizkien loretegi ttipi eskegiek. Koldo Izagirre

Paraje aparta zen arrantzan eta bainuan aritzeko, **karramarro** bilketa egiten genuen hango harriagan. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Katu-haragiak ez du parekorik ibai-**karramarroak** harrapatzeko. Itziar Otegi

Ferra-**karramarroaren** ikusmen-zelula bakoitza bere nerbio-zuntzari konektaturik baitago beti. Irene Aldasoro

**4** (jaki gisa)

Roberto Goaza komisario-buruak ez zuen bere **karramarro** platera ukitu ere egin. Harkaitz Cano

-Horregatik hartu dut etxe hau, egunero **karramarroak** jateko. Jon Maia

**5** (irain gisa)

Ni, behintzat, beldurrak airean nago, Berlusconi bezalako **karramarro** bat ere, eredugarria balitz bezala saltzen diguten garaiotan. Hasier Etxeberria

**6** (K larriz) Zodiakioko konstelazioa. ik **Kantzer**2.

Cancer konstelazioan dago **(Karramarroa** ere deitzen da zenbaitetan), eta arratsean zehar ekialdetik mendebaldera higituko da. Berria - Gaiak

**7** *adkor* minbizia.

Rufino ez eben urteek menperatu, **"karramarro"** madarikatuak baino. Xabier Amuriza

**8** ***karramarrotan*** karramarro harrapatzen.

**-Karramarrotan** nenbilen -esan zion mutilari amorruz, eskuan zeraman karramarroz betetako sarea astinduz-. Joanes Urkixo

Eta gogoratu zuen **karramarrotan** zebilen egun hura, Fionn eta Mael lehorreratzen ikusi zituenekoa. Joanes Urkixo

**9** ***karramarro ermitau***

Kratesen aburuz, gizona ez zen inondik inora barakuilu bat ez **karramarro** ermitau bat. Juan Garzia

Harenak egin du: aste batzuk baino ez zaizkio geratzen bizirik, oskolik gabeko **karramarro** ermitau horietakoa irudi. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> karramarro uhartea (3)
> karramarroa jaten (3)

---

karramarru ik **karramarro**.

---

**karramiska** *iz* harramazka, urratua. ik **karramixta**.

Joanes **karramiskaz** beterik etzaten zen arratsetan, bizkarra larruturik, batzuetan hainbertzetaraino ukaldi biltzen zuen. Eneko Bidegain

---

**karramiskatu**, karramiska, karramiskatzen du *ad* harramazkatu.

Nik ez nuen nahi, beldurrez eta, autoa **karramiskatuko** nuela edo berdin fundituko. Daniel Landart

---

**karramixta** *iz* karramiska.

Ikustekoak eta aditzekoak izaten dira, habian dagoen ama gaixoak, kukuak erasotzean hasten dituen garraixiak eta **karramixtak;** hura bai izaten dela lastimagarria! Patziku Perurena

---

karrank ik **karranka**.

---

**karranka** *(orobat **karrank** g.er. eta **garranga** g.er.)* **1** *iz* orgak, gurpilak, ateak..., higitzean egiten duten hots zoli, bizi edo ez atsegina. ik **kirrinka, kurrinka**.

Zaldien lauoinka-hotsa, gudu-gurdien burrunba eta gurpilen **karranka** entzutean. Idi orgaren **karranka**. Elizen arteko biblia

Gaizki koipeztatutako bi gurpil horien **karranka** haserreak. Koldo Izagirre

Burdinazko ateen **karranka** hasi zenean, besarkadak. Lander Garro

Adats motz zuria, galtzerdi koloredunak, betaurrekoak ere armazoi koloredunekoak eta koipe faltan legokeen ate baten **karranka** zirudien ahotsa. Ramon Saizarbitoria

Aulki gurpildunaren **karrankak** isiltasuna zartatu zuen. Jon Muñoz

Gerriraino iristen zitzaigun kotoi sail bat gurutzatuz, lokots lehorrek, guk bultzaka apartatu ahala, **karranka** haserrea ateratzen zutela zurtoinen muturretan. Koro Navarro

Zubi jasogarriaren kateen **karranka** entzun dut. Koldo Izagirre

Boten larruaren **karranka** ere entzuten zuen. Jose Morales

**2** beleak eta, egiten duten oihua. ik **krazka**.

Loralegira heltzean, bele baten **karranka** entzun dute. Patxi Zubizarreta

Mendizoko ilunera aienatzen dira beleak beren **karranka** garratzetan. Patziku Perurena

Beleen krazkak, belatxingen marrakak eta ipar-beleen **karrankak**. Jose Morales

Ipar-beleek **karranka** lakarra egiten zuten. Koro Navarro

*ik beherago* 8. Askoren artean

Loroak **karranka** latzak bota zituen, etxekideei abisu emateko bezala. Matías Múgica

Baina ez zen kaio bakan batzuen **karranka** eta haizearen firfira beste deus entzuten. Anjel Lertxundi

Finitu dira Iparlako isiltasun harrabotsak: haizearen ziztua, arranoaren **karranka,** hostoen firfira eta pausatze geldia, motorren harrabots urruna. Filipe Bidart

Goian zirela eskinoso baten **karranka** ez oso urruna iritsi zaie. Pello Lizarralde

Ez dakit zenbat denbora egingo genuen batak bestearen aurrean, txitxarren **karrankek** astunago egiten zuten isiltasunean. Ramon Saizarbitoria

Iparralde huntarik bi oreneko bidea edo gehixago, batzuk autoetan, bertzeak autobusez, **karrankaz** beteriko oilategi iduri, jendearen kontentaren seinale. Herria

*ik beherago* 6. Askoren artean

Ez al duzue ikusten beleak baino **karranka** handiagoa egiten dudala? -esan zuen D'Arcy jaunak, zakar. Irene Aldasoro

Kurriloak, bere lumajeagatik, bere **garrangagatik,** eta bere amodio dantzagatik, hitzaren hiru berezkotasun funtsezkoenak bereganatzen omen ditu. Patziku Perurena

**3** (hitz elkartuetan)

Bera lurperatu zuteneko kutxa hautsi egin duk nonbait, ohol **karranka** moduko bat entzuten baita. Juan Garzia

• **4** *adlag* karranka eginez. ik beherago **5** eta **6.**

Gibelean, bortz orga **karranka** ari ziren, bakoitza be-re itzainarekin. Aingeru Epaltza

Kalera irten nintzenean, antzarak zebiltzan zeruan **karranka,** hotza albiste. Anjel Lertxundi

Familiartekoak eta adiskideak **karranka** ari zaizkio atsekabe eta sumindura bizian, gure gaindiko zumar tantaietatik. Mirentxu Larrañaga

**5** ***karrankan*** *adlag* karranka eginez.

Antzarak hasi dira **karrankan,** hotza albiste. Anjel Lertxundi

Antzarak **karrankan,** kartzela gaineko zeruan... Anjel Lertxundi

**6** ***karrankaz*** *adlag* karranka eginez.

Ahateak **karrankaz** . Itxaro Borda

Batek kexu zirela **karrankaz** zerasan. Herria

**7** ***karranka atera*** karranka egin, karrankatu.

Ilara batean jarriak zeuden, enkantearen barrutia ixten zuten barren kontra, hango burdinei **karranka aterarazten** . Bere burua madarikatu zuen, ateak izugarrizko **karranka atera** baitzuen orduan. Karlos Zabala

· Eta gogoan dut belarriak zuzendu nituela leihorantz, istant bat lehenago txitxarrek **ateratzen** zuten **karranka** hots ikaragarria egiaz ahitu ote zen baieztatzearren. Ramon Saizarbitoria

**8** ***karranka egin*** ik **karrankatu**.

Lo daude soroen gainean herrixka txikiak, **karranka eginez** doaz orgak bideetan barna. Koro Navarro

Bihurguneetara iristean, okertu egiten zen lando zaharra, eta **karranka egiten** zuen mila puskatan txikitu beharko balu bezala. Koro Navarro

Gurpil gorri distiratsuek **karranka egin** zuten harri-kozkorren gainean. Lopez de Arana

Ateak **karranka egin** zuen. Koro Navarro

Oreka galtzear, dorreak goitik behera **karranka egiten** zuen, zureria guztia aurreikusi ez ziren tentsioen menpe, luze gabe mihiztadura batzuk hautsi egin ziren. Jon Alonso

Aulkiek **karranka egiten** dute jendea esertzen denean. Koro Navarro

Gero entzun nuen Federicok bultza egiten ziola eta malgukiek **karranka egiten** zutela. Pello Lizarralde

Sekulako **karranka egiten** zuen tresnak. Jon Muñoz

Lurreko oholek **karranka egin** zuten arratoiek bezala ohera igo nintzenean, eta pareta barneko arratoiek egurrak bezala **egin** zuten **karranka** . Koro Navarro

Auto bat **karranka eginez** gelditu zen. Lopez de Arana

Bidean aurrera, beste bele batek **karranka egin** zuen. Patxi Zubizarreta

Ahate batek **karranka egin** zuen zerritegi hutseko askatik aterata. Koro Navarro

**9** *hed*

-Zoragarria, zoragarria **-karranka egin** zuen Mr. Fallik-ek-. Lopez de Arana

**10** ***karranka hots***

**Karranka** -hotsak entzun ziren hartxintxarren gainean. Jon Muñoz

Tranbiek **karranka** hotsak ateratzen dituzte Magdalenako bihurgunean. Jon Alonso

Ondoko gelatik **karranka** hotsa entzuten da: Margoten kamaina tolesgarria da. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aulkiaren karranka** (3); **bele baten karranka** (3); **idi orgaren karranka** (4); **karranka ari** (5); **karranka egin** (10); **karranka egin zuen** (5); **karranka eginez** (5); **karranka egiten** (10); **karranka egiten zuen** (3); **karranka entzun** (6); **karranka hots** (4); **karranka hotsa** (5); **karranka hotsak** (3); **orgaren karranka** (4)

---

## karrankarazi, karrankaraz, karrankarazten du *ad* karranka eginarazi.

Apezetxeko borta **karrankarazi** zuen eta hor zen egiazki, Angeluko hondartza batean bururatu zen Ttotteren gurutze bidea hasi. Itxaro Borda

---

## karrankari 1 *izond* karranka egiten duena. ik **kirrinkari**.

Barrez lehertu zen, barre **karrankari,** zentzugabe baina, aldi berean, izugarri alai eta jostari batez. Jose Morales

Justu orduan, kraak **karrankari** bat entzun zuten. Julen Gabiria

Emakume ahots **karrankari** batek ortots egin zuen jende artean. Aingeru Epaltza

Antzara **karrankari** hori! Itziar Otegi

**2** (adizlagun gisa)

Orkoen ahotsak entzun zituzten, latz eta **karrankari** . Agustin Otsoa

---

## karrankaritasun *iz* karrankaria denaren nolakotsuna.

Euskarazko [S] edo [s] hots txistukarietan, esaterako, mihiaren aurrealdea goiko hortz-hobietara hurbiltzen da, eta hurbiltze-gune horretatik igarotzen den aireak txistu moduko hotsa ateratzen du (mihi-puntta zorrotzak apikarian edo punta biribilduagoak lepokarian eratzen dituzten angelu ezberdinei dagozkien **karrankaritasun** ezberdinekin). Lourdes Oñederra

---

## karrankatsu *izond* karranka handia ateratzen duena. ik **karraskatsu**.

Ohe zanpatu eta **karrankatsuaren** ertzean dago eserita, izatez koltxoi egokirik ere ez baitu. Josu Zabaleta

Bai aita -ihardesten zion nardaturik semeak eta gizona loeria itsusi eta **karrankatsu** batera lerratzen zen. Itxaro Borda

---

## karrankatu, karranka, karrankatzen 1 da *ad* karranka egin, karranka atera.

-Ez da jauregi bat -erran zion gizonak hetsi gabe zegoen eta gontzak saminki **karrankatu** zitzaizkion atea bultzatuz-. Elena Touyarou

Zenbait soldaduk estuarioko uretara egin behar izan baitzuten jauzi, gero uretatik hortzak **karrankatuz** eta ukenduak eskatuz irten zirelarik Jon Alonso

**2** du *ad* (nor *osagaitik gabe)*

Baina definizio horrek Euskal Herrian **«karrankatu»** egiten duela ohartarazi zuen, ordenamendu legaleko oinarria, Espainiako Konstituzioa, zati handi batek ez duelako onartzen. Berria - Euskal Herria

---

## karranpa *iz* gihar uzkurtze mingarria eta laburra. ik **arranpa**.

**Karranpak** sentitzen nituela, eta laguntzeko. Iñaki Iñurrieta

Bero ikaragarria denean edo esfortzu gogor bat egitean, gatza galtzeak arazoak ekar ditzake, eta, konpondu ezean, muskuluen **karranpa** eragin. Irene Aldasoro

**Karranpa** batek urdaila uzkurtu zion. Lopez de Arana

**Karranpa** moduko zirrarak burutik oinetara astindu zuen Maiza. Migel Angel Mintegi

Nire eskuekin gerria ukitu nionean **karranpa** antzekoa sumatu nuen, deskarga txiki bat bezala. Jasone Osoro

-Joantxo! -estutu zidan gogor besoa, eta gero askatu egin zidan, **karranpa** eman balio bezala, minezko hasperen bat eginez. Juan Kruz Igerabide

Oinak **karranpek** hartuta nituen, besoak dardaraka. Eduardo Matauko

**Karranpa** handi batek jota bezala, geldirik, itsu, gor eta mutu. Hasier Etxeberria

Eskua erretiratzen dut manteletik, **karranpa** batek jota baino agudoago. Anjel Lertxundi

Alexen eskua gerrian sumatzeak **karranpa** eragin zion Mirariri. Fernando Morillo

Ez nion amaitzen utzi, haren eskua sentitu orduko **karranpa** bortitz bat nabaritu bainuen, odolean lotan nuen amorrua iratzarri zidana. Joan Mari Irigoien

Gaua iritsita ni saltxitxoi bat bezala lotuta nengoen ganbaran, marraka egiten nuen eta **karranpa** ugari nuen han ilunpean lotuta egoteagatik. Pello Lizarralde

Barizeen sintoma nagusiak hanketako astuntasuna, nekea, **karranpak,** hanturak eta edema arinak izan daitezke. Berria - Gaiak

---

## karranpatu, karranpa(tu), karranpatzen da *ad* karranpak jo.

Ez zuen besterik eskatu, lagundu egin zion arropak kentzen, **karranpatua** bezala zeukan gorputz osoa. Koldo Izagirre

---

## karrantzar *izlag* ardi arraza baten izena.

Baldintza nagusietako batek ardiei egiten die erreferentzia, latxa arrazak edo **karrantzarrak** soilik ematen baitute Idiazabal gazta egiteko beharrezkoa den esnea. Berria - Ekonomia

---

## karrape *iz* atari estalia; karrerapea.

Beterik zegoen **karrapea**. Aingeru Epaltza

**Karrapeko** haurlauzen gainean. Aingeru Epaltza

---

## karrasi ik **garrasi**.

---

## karrasika ik **garrasika**.

---

## karrask **1** *adlag* karrask egitearen onomatopeia.

Zorionez, ez zen etorri, baina bere zigorra zartatu zuen, **karrask**! Mirentxu Larrañaga

### 2 *karrask egin*

Ostatuko eskailerek **karrask** egin dute. Aingeru Epaltza

Larraitz ate aldera joan zen, **karrask** egin zuen zoruak bere oinetakoen azpian. Pablo Sastre

Pepponeren hortzek **karrask** egin zuten. Koldo Biguri

Gurpilek kirrinka egiten zuten eta apoek **karrask,** galtzadarrien gainean. Lopez de Arana

---

## karraska[1] **1** *iz* hausten edo lehertzen den zerbaiten hotsa. ik **kraska; karranka**.

Kristalezko teilatuan **karraska** batzuk entzun zituzten. Berria - Mundua

Harri-txintxarraren **karraska** aditzen zen, landauaren gurpilek zanpatzean egiten zutena. Xabier Olarra

Argi eta garbi entzun dute hezurren **karraska** modelo gajoa hortz makurren artean harrapatu duenean. Patxi Iturritegi

Min hori, unibertso baten suntsimendu eta arbolaren **karraska** hori. Joxe Azurmendi

Hostoen **karraska** oinazpian. Anton Garikano

Uraren zurrumurrua, zuhaitzen xuxurla, harrien **karraska**. Agustin Otsoa

**Karraska** ozen bat entzun zen, eta Harryren ukabila airean itxi zen bat-batean. Iñaki Mendiguren

Beste **karraska** bat entzun zen. Iñaki Mendiguren

Aulkiaren **karraska** motela entzun baitzen. Jose Morales

Giltza hotsa, atearen kirrinka, zoruko **karraska**. Pablo Sastre

Pospolo baten **karraska** entzun nuen; zigarro bat piztu zuen bietako batek. Ander Irizar

Une berean hots lehor bat aditu zen, eta gero **karraska** elektriko bat. Urtzi Urrutikoetxea

Zetaren **karraska** eta askatzean krisketek egindako zarata entzun ziren. Jose Morales

Ateko zuraren kirrinka eta **karraska** besterik ez. Anton Garikano

Ortzi **karraska** bat bezala jin zauku Donapaleutik Hubert Lacroix-ren heriotzearen berri lazgarria. Herria

• **2** *adlag* karraska egiten. ik **karraskaka**.

Haserre bizian jarri zen, hortzak **karraska** zituela. Askoren artean

Entzun zeure hortzak klaskaka eta **karrraska**! Iñaki Mendiguren

Sahats jotzailea **karraska** eta kolpeka zebilen. Iñaki Mendiguren

Lubaki sakonaren ertzetik genbiltzan, arratsaldean botatako elurra boten azpian **karraska**. Alberto Ladron Arana

Antzara aldra bat tapa-tapa atara da, **karraska** ta marraska. Iñaki Arranz

**3** ***karraskan*** *adlag* karraska egiten; eginahalean, kementsu.

Hortzak amorruz **karraskan** dituela. Patziku Perurena

1937. urtean, Gerla zibila **karraskan** ari zenean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ainitz eskualdetan, **karraskan** ari dira Lurraren larrutzen eta biluzten nolazpait gaitzeko oihanak desagertaraziz. Herria

Bi erakasle **karraskan** ari dira Mitxelena zenaren lan guziak bildu beharrez. Herria

Huarte berriz lotu zitzaion **karraskan** hain maite zuen ikertzeari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Irabazleak **karraskan** abiatu dira 9-0 eramanez. Herria

Brasilen gaindi ibilia da Brasildar entrenadorea eta odola berriturik **karraskan** hasiak dira. Herria

### 4 *hortz karraskasup_1 iz*

Gerraz geroztikako damu, negar, eta **hortz karraska** guztiak gorabehera, beste gizaki bati ostua nion bizia. Alberto Ladron Arana

Orduan, negarra eta **hortz-karraska** izango da. Elizen arteko biblia

Amorruak **hortz-karraska** eragiten zidan. Alberto Ladron Arana

Izpiritua non-nahi jabetzen zaio, lurrerat aurtikitzen du, eta haurra, haguna dariola eta hortz-**karrasketan,** gogor-gogorra jartzen da. Michel Oronoz

Ahots bat entzun da Ramán, aienez, negar lantuz eta **hortz karraskaz** . Felipe Juaristi

### 5 *hortz karraskasup_2 adlag* hortz karrasketan, hortz karraskaz.

Oihuka, garrasika, ostikoka eta **hortz karraska** ekin zion. Josu Zabaleta

Espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta **hortz-karraska,** gogor-gogor gelditzen da. Elizen arteko biblia

### 6 *karraska egin*

Eskailera ilunek **karraska egiten** zuten. Lopez de Arana

**Karraska egiten** diote belaunek. Anjel Lertxundi

Hortzek **karraska egiten** zioten. Lopez de Arana

Orubeko hondakinen batek **karraska egiten** du, auskalo zerk eraginda. Anjel Lertxundi

Hatzez **karraska egin** eta [...] ahots-doinu lotsagabeaz esan zion neskari: [...]. Jose Morales

Ez, ordea: inor ez zen agertu; eskailerek berez **egiten** zuten **karraska** . Monika Etxebarria

· Biltegitik bulegora zihoan zurezko eskailerari **karraska eginarazten** zioten urrats astun batzuek. Anton Garikano

### 7 *karraska hots* *(40 agerraldi, 16 liburutan)* ik **karraskots.**

Zoruko zurajearen **karraska hots** asaldagarriak. Alberto Ladron Arana

Kristal hautsien **karraska-hotsak** entzuten ditu, baita sirena oihuak. Felipe Juaristi

Zartailuarena bezalako **karraska-hotsa** entzun zen. Iñaki Mendiguren

Oso zaila zen ez entzunarena egitea trumoiaren burrunbari, haizeak gazteluko hormen kontra ematen zituen zartadei, eta urrutian, oihan debekatuan, zuhaitzen **karraska-hotsari** . Iñaki Mendiguren

Tipoaren hortzen **karraska-hotsa** sentitu nuen argi eta garbi nire armaren azpian. Alberto Ladron Arana

Izugarrizko **karraska-hotsa** entzun zuten, pistola-tiro bat bezalakoa. Iñaki Mendiguren

Harryk **karraska** eta klaska-**hots** bitxiak entzuten zituen. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **hortz karraska** (14); **hortz karraska izango** (7); **hortzek karraska egiten** (4); **hortzen karraska** (3); **karraska egin** (4); **karraska egiten** (19); **karraska egiten zuten** (8); **karraska entzun** (3); **karraska hots** (14); **karraska hots bat** (3); **karraska hotsa** (19); **karraska hotsa ateraz** (3); **karraska hotsa entzun** (8); **karraska hotsak** (5); **karraska izango** (7); **karraska ozen** (4); **karraska ozen bat** (4)
>
> **karraskak entzuten** (3)
>
> **ari dira karraskan** (7); **ari direla karraskan** (3); **hortzak karraskan** (5); **karraskan abiatu** (3); **karraskan abiatu dira** (3); **karraskan ari** (23); **karraskan ari dira** (8); **karraskan hasi** (3); **karraskan hasiak** (5); **karraskan hasiak dira** (3); **karraskan lanean** (6); **lanean karraskan** (4)

---

## **karraska**[2] *iz* artea (zuhaitza); arte laparra.

Eskasagoa deneko lurralde zeltiarretan, badirudi abaritza edo **karraska,** artearen hain antzekoa den hori zerabiltela haritz-artearekin borroka egiteko orduan. Pello Zabala

Bibliako itzulpenetan, haritza esateko, batzuetan, ahuntzadar edo terebinto itzultzen du, Mambreko Artadikoan bezala; eta beste batzuetan, abaritza, txaparro edo **karraska,** izen horiek denak baitituzte zuhaitz hain garaiak ez diren hauek. Pello Zabala

---

## **karraskada** *iz* karraska, zarata.

Eta iruditu zitzaion den-dena ulertzeko gai zela: haizearen soinua, sutean lurruntzen zen euri xehearen **karraskada..** . Joanes Urkixo

---

## **karraskadura** *iz* karraskatzearen ondorioz gertatzen diren hondarrak.

Gorputz denetan sartzen den materia magnetikoaren izatea erakarritako altzairuen **karraskaduren** hautemapenaren bitartez ezagutzen dugu. Ibon Uribarri

---

## **karraskaka** *adlag* karraska egiten. ik **karraska**[1] **2.**

Uretatik ateratzen zen guztietan, hain gogor eragiten zion buruari non abata **karraskaka** entzuten baitzen. Koro Navarro

Hotzaren eraginagatik hortzak **karraskaka** hasteko zorian bazeuden ere, odola berotu zitzaidan bat-batean. Anjel Lertxundi

Ezin dut hau askoz gehiago jasan -esan zuen Ronek ahopean, hortzak **karraskaka** zituela. Iñaki Mendiguren

Azkenean, Dick Annarengana itzuli zen, **hortz-karraskaka** . Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **hortzak karraskaka** (3)

---

## **karraskarazi,** karraskaraz, karraskarazten du *ad* karraskatzera behartu.

Indarrez estutu du, kasik hezurrak **karraskarazteraino** . Patxi Zubizarreta

-Tren batek beste bat ezkuta dezakeen bezala, hasiera batek ere beste hasiera bat ezkuta dezake, Ruche jauna -esan zuen Jonathanek, hortz artean oilasko-hezur bat **karraskaraziz-** . Jon Muñoz

Emakume haren ahots indarge, kirrinkari eta gorabeherarik gabe hark hortzak **karraskarazi** zizkion. Lopez de Arana

---

## **karraskari**[1] *iz* beti haziz doazen ebakortzez horniturik dauden ugaztunen ordenako kidea.

Arratoien eta beste **karraskarien** kontra soroetan erabiltzen den pestizida. Berria - Gaiak

Orain, garai batean baino harrapari gutxiago daude, eta **karraskariak** ugaritu egin dira. Berria - Gaiak

**Karraskari** txiki bat zirudien, tranpan jausi berri. Urtzi Urrutikoetxea

Hegal gogorreko intsektuen zirta, narrastien marruskatzea, **karraskarien** jauzi labur eta urduriak... Pello Lizarralde

Oraindik ezin ditut ikusi haien **karraskari** -aurpegi zapuztuak, baina aise irudikatu ahal ditut. Patxi Iturritegi

---

**karraskari**[2] *izond* karraska egiten duena. ik **karrankari**.

Malguki **karraskari** horien gaineko koltxoiaren gainean. Aingeru Epaltza

Zetazko paper **karraskarian** bildua. Joxan Elosegi

Gainbegiratu iheskor bat egin zien egunkariko orrialde **karraskariei** . Eduardo Matauko

Bestearen garrasi **karraskariak** belarriak urratu zizkion. Josu Zabaleta

---

**karraskatsu** *izond* karraska handikoa, zaratatsua. ik **karrankatsu**.

Hogsmeadek Eguberrietako txartela ematen zuen; lastozko teilatua zuten etxetxoak eta dendak elur-geruza **karraskatsu** batez estalita zeuden; ateetan gorosti-koroak zeuden eta kandela sorginduak ilaran zuhaitzetatik zintzilika. Iñaki Mendiguren

---

**karraskatu**, karraska(tu), karraskatzen **1** du *ad* hozkada txikiz, zati txikiak kenduz, poliki-poliki jan edo higatu. ik **hortzikatu**, **marraskatu**.

Bekaizgarri zitzaizkien sagutxoak, zeinak, lauzen arteko beren habia-zuloetatik alderrai, ogi sagaratuaren apurrak **karraskatuz** gizentzen baitziren. Juan Garzia

Nire kontra altxatu zirenen gorpuak ikusiko dituzte: **karraskatzen** dituen harra ez da hilko, ez eta erretzen dituen sua itzaliko ere; mesprezagarri izango dira gizaki guztientzat. Elizen arteko biblia

Badirudi murmurio horrek, ikusezin eta zalapartari, saguen antzera, isiltasuna **karraskatzen** dihardueIa. Itziar Otegi

Oinak eta eskuak janda, aurpegia **karraskatua,** sabela karramarroz borborrean. Karlos Zabala

**2** *irud*

Baina kalera irten orduko, whiskiaren eraginpetik at geratu zen, erabat babesgabe, eta dohakabetasun motel ikaragarri batek **karraskatu** zion barrena. Bazen barrena **karraskatzen** zidan galdera bat. Mirentxu Larrañaga

**3** hortz-haginez mintzatuz, elkarren kontra jo. ik **klaskatu**.

Baina bat-batean geratu eta hortzak **karraskatu** zituen intzirika. Anton Garikano

Hortzak **karraskatuz,** ministroa ohean agondu eta eseri egin zen, aurpegia esku-ahurretan bermaturik. Jose Morales

**4** karrakatu, lakar igurtzi.

Gero, belaunak tolestu zituen eta soldaduen besoetatik eskegi zen, oinak herrestan, mozkor-mozkor eginik balego bezala eta oin-puntekin zura **karraskatuz** , baina isilik beti. Jose Morales

Oholak **karraskatzeko,** leuntzeko, zulatzeko, husteko eta perforatzeko. Xabier Amuriza

**5** kraskatu. • (era burutua izenondo gisa)

Mina Kristo minduarekin, karraska Kristo **karraskatuarekin** . Patxi Altuna

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hortzak karraskatu** (6); **hortzak karraskatu zituen** (3)
> **hortzak karraskatuz** (4)

---

**karraskatzaile** *izond* karraska egiten duena.

Tabernariak arrautza **karraskatzaile** eta xigortuak plater batera bota zituen. Lopez de Arana

---

**karrasketa** *iz* karraska egitea, karranka ateratzea.

Aro mutu, euri zirtzil, belarrak ezin idor, ondartzaz ezin goza, ortzi **karrasketaz** beldur... Herria

---

**karraskilaka** *adlag*

Manibela jarri, jiratu, eta astiro, astiro burdinazko pertsiana **karraskilaka** igo zen. Matías Múgica

---

**karraskots** *(5 agerraldi, 4 liburutan orobat **karrask-hots** g.er.)* **1** *iz* karraska hotsa.

Dardara bat sentitu genuen denok, hortz batzuen **karraskotsa** entzun nuen, nondik ez dakit. zeren eta irri hura ez baitzen arraitasunarena, baina nigarrarena eta tristurarena, penarik penagarrienarena eta hortz-haginen **karraskotsena** . Josu Zabaleta

Zaldien azazkalen azpian harribil koxkorren **karrask** -hotsa aditzen zen, errekasto bateko ura iduri. Fernando Rey

Su malkoak, egur erreak, **karraskotsak,** kearen urrina. Pablo Sastre

**2** hortz-karraskotsa.

Begi urdin negartsuak zituen, eta kliskatu eta kliskatu zerabiltzan suaren aurrean, eta ahoa, adurtsua, zabalik geratzen zitzaion batzuetan, eta, atzera ixten zuenean, **karraskots** bat ateratzen zion behin edo bitan, mekanikoki. Irene Aldasoro

---

**karratu**[1] **1** *izond* lauki formakoa.

Lorez betetako saski **karratu** batzuen atzean. Karlos Zabala

Zurezko ontzi **karratu** -sakonetan sailkatzen genuen alea. Txillardegi

Gapirioen gainean habe **karratu** bat jarriko da, horren bidez gapirioak ondo lotuta gera daitezen. Santiago Iruretagoiena

Patio **karratu** zabal bat zen, zuhaitzez landatua. Josu Zabaleta

Dorre **karratu** bat, hirurogeita hamar metro garai, bloke itzelez egina. Jon Muñoz

Demagun eremu **karratu** bat daukagula, luzean eta zabalean hamar oin dituena. Santiago Iruretagoiena

Eraikin kasik **karratu** eta horma irregularrekiko baten ezker hegala hartzen zuen. Patxi Zubizarreta

Hautsez betetako lur zati **karratu** batean eraikia eta txarrantxaz hesitua. Oskar Arana

Biribilagoak dira batzuk, **karratuagoak** besteak. Berria - Kultura

Eraikin **karratu** eder baten ondoan iragan naiz. Piarres Aintziart

Argi eta itzal gunez beterikako irudi **karratuen** [...] bidez, espazioaren hustuketari buruzko ikerketa dauku eskaintzen artistak. Herria

- **2** *iz* laukia.

Harresiak **karratu** hau inguratzen eta biltzen zuen beste **karratu** bat osatzen zuela. Aitor Arana

Orri batean, **karratu** bat eta haren diagonala marraztu zituen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Aldea eta diagonala, horra **karratu** baten bi zuzenki nabarmenak! Jon Muñoz

**Karratu** batean inskribatutako oktogonoa. Jon Muñoz

**Karratu** baten barruan geratzen da orduan ikuslea, begiraden kaiola batean harrapaturik. Berria - Kultura

Aldea 1 duen **karratuaren** diagonala. Jon Muñoz

- **3** *izond* berreketaz mintzatuz, kuadroa.

2ren erro **karratua**. Askoren artean

Erro **karratu** negatibo bat hartu ezinak sortzen du kontraesan hori. Jon Muñoz

-Hipotenusaren **karratua** eta beste bi aldeen karratuen batura berdinak dira. Jon Muñoz

Inoiz "distantzien **karratuaren** legea" deitu izan dena. Josu Zabaleta

Indize horren kalkulua egiteko formula hau erabili behar da: pisua (kilotan) zati altueraren **karratua**. Berria - Euskal Herria

-3ren **karratua** 9 da; 9 gehi 4ren **karratua,** 16, berdin 5en **karratua:** 25. Jon Muñoz

Frogatu zuten **karratua** 2 duen zenbaki arrazionalik ezin dela existitu. Jon Muñoz

Lehenengo *n* zenbaki osoen **karratuen** batu ra. Jon Muñoz

Teodorok poliki zabaldu zuen irrazionalen saila: 17 arteko zenbaki oso guztien erro **karratuen** irrazionaltasuna frogatu zuen. Jon Muñoz

**4** (azalera neurriekin) ik beherago **6**; ik **koadro 13**.

Kilometro **karratu** bakoitzean, 6 870 bizilagun metatzen baldin badira. Ramuntxo Etxeberri

Bainugela bustian utzitako oinatzek ongi erakusten dute zentimetro **karratu** gutxi batzuk baino ez dituela zoruarekin kontaktuan dagoen eremuak. Irene Aldasoro

**5** ***buru karratu*** pertsonez mintzatuz, pentsakera zurruna duena eta aurrez finkaturiko arauen arabera aritzen dena.

Buru **karratuei** irabazi genien, ezta? Lopez de Arana

**6** ***metro karratu*** *(110 agerraldi, 18 liburu eta 69 artikulutan)* metro koadroa.

Ez zen zernahi: 200 **metro karratu**, Zabalgunearen erdi-erdian. Aingeru Epaltza

Café de Franceko azoteara jo genuen lehenbailehen, "munduko ehun **metro karratu** onenetara", beste turistaren batek esan zuenez. Bernardo Atxaga

**Metro karratua** bederatzi ehun eurotan saldu zen Angeluko lur andana bat. Herria

Donostiako kanposantuan **metro karratuak** balio duenarekin Torreviejan apartamentu bat eros dezakezu. Ramon Saizarbitoria

Lurra, 6.300 **metro karratuko** eremua, Ziburuko herriak saldua. Herria

Ameriketan, New Yorken berean 350 **metro karratuko** salgune bat idekia du Quiksilver enpresak. Herria

Lantokian bertan lo egiten zuten, bi **metro karratuko** xoko batean. Ramuntxo Etxeberri

Hogeita hamar **metro karratu** inguruko txoko bat zen, argi gutxikoa baina atsegina. Bernardo Atxaga

Zenbat **metro karratu** ditu begirada baten tristurak? Joxean Agirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**buru karratu** (3); **karratu bat** (30); **karratu batean** (8); **karratu baten** (11); **kilometro karratu** (4); **km karratu** (3); **leiho karratu** (3); **mahai karratu** (4); **metra karratu** (5); **metro karratu** (39); **metro karratu ditu** (3); **metro karratu inguruko** (3); **mila km karratu** (3); **mila metra karratu** (3); **mila metro karratu** (3); **ontzi karratu** (3); **paper karratu** (3)

**erro karratua** (15); **gela karratua** (3); **karratua atera** (3); **karratua izan** (3); **karratua izango** (3); **karratua zen** (14); **metro karratua** (4)

**erro karratuak** (5); **karratuak ziren** (4); **paper karratuak** (3)

**erro karratuaren** (3); **karratuaren diagonala** (3)

**erro karratuen** (4); **karratuen batura** (6)

**metro karratuetan** (3)

**kilometro karratuko** (5); **metro karratuko** (54); **metro karratuko bastiza** (6); **metro karratuko eremua** (11); **metro karratuko lur** (3); **mila metro karratuko** (7); **oin karratuko** (3)

---

# karratu², karratu, karratzen du *ad* karratu bihurtu.

Hipokratesek irudi kurbatu bat **"karratzea"** lortu izanak itxaropen ezin handiagoa sortu zuen bazterretan. Jon Muñoz

---

# karratutxo *iz* laukitxoa.

Albiste handi eta garrantzitsuagoz inguratua etorri arren, **karratutxoak** ez dit begirada aireratu eta orriak pasatzen utzi. Pako Aristi

Bulego bakoitzak hainbat egutegi zituela eta haietako gehienak egunean ez zeudela ohartu nintzen: batzuetan, **karratutxo** gorri mugigarria ez zen beharreko datan; besteetan, itzuli gabe zegoen oraino hilari zegokion orrialdea. Joxan Elosegi

---

# karratutxodun *izond* laukitxoak dituena.

Pintzadun galtzak eta alkandora **karratutxodunen** botoiak lehertu beharrean daramatzaten gizon tripadunak. Pako Aristi

---

karraxi ik **garrasi**.

---

karreatu ik **garraiatu**.

---

karreatzaile ik **garraiatzaile**.

---

karreatze ik **garraiatze**.

---

karreiatu ik **garraiatu**.

---

# **karrelaje** *iz* lauzatzea.

Kaiertzearen puntan jaitsi eta lurpeko hodietan itsumandoka zihoan: **karrelaje** zuri-urdinez perdukatu hegiak zorrotzak ziren, hain hurbil zeukaten lohiaren izerdia arteketan perlatzen baldin bazitzaien ere. Itxaro Borda

---

# **karrera** 1 *iz* ikasketak.

Historiarekiko zaletasuna ere sortu zitzaidan, unibertsitatera joan behar nuen sasoian [...] Historiako **karrera** hautatzera eraman ninduena. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskal filologia ikastekotan zebilen, orduan nahiko **karrera** berria zena. Xabier Mendiguren Elizegi

**Karrera** ikasten hasi ginenean. Mikel Hernandez Abaitua

Urtebete egin zuen Londresen **karrera** egiten ari zen bitartean. Iban Zaldua

**Karrera** hura utzi eta beste bat hastea zen aukeretako bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Donostian kolpe zorririk jo gabe lau urte egin zituena eta **karrera** bigarren ikasturtean utzi zuena. Joan Mari Irigoien

Ondoren, **karrera** bazter utzirik, soldadutzara joan zen. Joan Mari Irigoien

Letretako **karrera** horietako bat atera zuen. Jon Alonso

**Karrera** bukatu gabe ezinezkoa omen zen ezer lortzea. Xabier Mendiguren Elizegi

**Karrera** bukatu ez bazuen ere, arkitektotzat jotzen zuen bere burua jendearen aurrean. Anjel Lertxundi

Hainbat seminaristari ordaindu zien **karrera** izeba Ceciliak. Mikel Hernandez Abaitua

Ikasturteko eta **karrerako** lehenengo eguna baitzen. Josu Zabaleta

**Karrerako** azken kurtsoko ikaslea. Aingeru Epaltza

**Karrerako** lehen urtean nengoela eta txakur txikirik ez neukala. Xabier Mendiguren Elizegi

Sei urteko **karrera** eta bost urteko espezializazioa egiten dugu. Berria - Euskal Herria

Beste **karreraren** baten matrikulatzea. Jon Arretxe

Azken urteetan koronel lotinant mailara, hots, Espainia Errepublikanoan **karrera** barik militarrak iritsi zitezkeen eta gradurik gorenera iritsi zen. Edorta Jimenez

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Karrera** urteetatik gehien oroitzen duena hautazko ikasgai baterako egin zuen hirurogeita lau folioko lana da. Iban Zaldua

**Karrera** bukaeran, festa bat antolatu zuten berak eta bizpahiru lagunek. Mikel Hernandez Abaitua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi edo hiru aldiz hasi eta utzi dik unibertsitate-**karrera** bat. Iban Zaldua

Kazetaritza **karrerako** ikasketa plangintzari buruz. Txema Ramirez de la Piscina

Hamazortzi urterekin zuzenbide **karrera** egiten hasi zen arte. Unai Elorriaga

Abokatu **karrera** ikasteko ohitura zatarra hartu duten ziegakideak. Koldo Izagirre

Medikuntza **karrera** hasi eta amaitu nuen. Iban Zaldua

Ordura arte bizitzan egin zuen guztia piano **karrera** ikastea izan zen. Mikel Hernandez Abaitua

Badakizu kontserbatorioan bakarrik egin daitekeela piano-**karrera**. Anjel Lertxundi

· Ainhize izan zen Artearen Historia **karrera** egin zuena, ez ni. Iban Zaldua

**4** lanbide ibilbidea.

**Karrera** bikaineko militar zintzoa eta prestua. Jon Muñoz

Piano-kafe batean hasi nuen **karrera** profesionala. Anjel Lertxundi

Hire **karrera** politikoak harrotuko duen publizitateak hire abokatu-lanari on egingo ziok. Lopez de Arana

**Karrera** laburra baitzen futbolariarena. Joan Mari Irigoien

Justiziako funtzionarioek eta **karrera** judizialeko kideek. Berria - Harian

· Napoleonek bere **karrera** Waterloon bukatu zuen uneantxe hasi zuen Bernadotte kondeak berea. Jon Muñoz

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire futbolari **karrera** meteorikoa izan zen, handik aurrera. Joan Mari Irigoien

Erabakia nuen denbora-tarte batean nire zine-**karrera** geroratzen ahal nuela. Fernando Rey

Minière et Houillière Dûpaquier et Cie.-tik bota zuten gure birraitona, eta hantxe amaitu zen bere entrepresari **karrera**. Iban Zaldua

Bere diplomatiko **karrera** luzearen buruan. Edorta Jimenez

Politikari **karrera** egiten ziharduen Jesus Galindezek. Edorta Jimenez

Musikari-**karrera** berreskuratzeko beste urrats bat egin zuen gero. Edorta Jimenez

Astronomo ugarik gai hau hausnartzen eman du ikerketa **karrera** osoa. Berria - Gaiak

Aurrez funtzionario-**karreran** lorturiko gaitasun eta tradizioak ekarri zituen Elizaren zerbitzura. Iñaki Mendiguren

Hemezortzi hilabeteko **karrera** luze samarra egina zuen sexuaren negozioan. Oskar Arana

**6** lasterketa.

Urte berean egin zen lehenbiziko autobidea Alemanian, Berlin inguruan, **karrerak** egiteko erabiltzen zena. Pello Salaburu

Euskal Herriko Zirkuituko laugarren **karrera** gaur jokatuko da Gasteizen. Berria - Kirola

Gaur goizaldean hasi da Argentinako Rallya, Munduko Txapelketako seigarren **karrera**. Berria - Kirola

Bera da, zalantza izpirik gabe, **karrera** hartan palmaresik onena duen ziklista: birritan irabazi du (iaz eta 2000. urtean), [...]. Berria - Kirola

Martinek iazko Galesko Rallyan korritu zuen azken **karrera**. Berria - Kirola

Pro-Tour Ligako **karrerak** korritzeko. Berria - Kirola

Denboraldi hasieran bost **karrera** irabazi zituen. Berria - Kirola

Urtebete lehenago Yaroslav Popovich ukrainiarra hirugarren sailkatu zen **karrera** berean. Berria - Kirola

Entrenamenduak gauza bat; **karrera,** beste bat. Berria - Kirola

Apaiz bat **karrerako** bizikleta baten gainean. Koldo Biguri

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zaldi **karrerak** zineman? Harkaitz Cano

Nire lagunak futbol-saio, bizikleta-**karrera,** mendibuelta edota sagar-lapurreta bizkorretan zebiltzan bitartean [...]. Pako Aristi

Txistulariak, zaku **karrerak,** abeslari eta dantzari saioak, bertsolariak... Jokin Urain

Kirol dendako Martina eta beste bi emakume zinta-**karreraren** esparrua klarionarekin markatzen ari ziren. Bernardo Atxaga

**8** *hed/irud*

**Karrera** armamentistikoa dugu eguneroko saihestezina irrati-telebistako albistegi eta egunkarietako azaletan. Edorta Agirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **karrera amaitu** (22); **karrera amaitzear** (3); **karrera bukatu** (19); **karrera egin** (12); **karrera egiten** (11); **karrera egiten ari** (4); **karrera egitera** (3); **karrera garrantzitsuenetako** (3); **karrera hasi** (4); **karrera hautatu** (3); **karrera irabazi** (4); **karrera judizialeko** (3); **karrera luze** (3); **karrera militarra** (3); **karrera ona egin** (3); **karrera politikoa** (7); **medikuntza karrera** (3)

---

## karreraleku *iz* lasterketa gertatzen den lekua.

Bizitza, bizi-arte edo hil-artea, hartara arteko arte edo bitarte gisa sentitzen dena, denbora jakinez oratutako leku edo igarobide jakin bat, eszenatoki bat, antzezgune bat, **karreraleku** bat. Iñaki Segurola

---

## karrerista 1 *iz* txirrindularia.

Bookmaker-Palmas taldeko **karreristak**. Berria - Kirola

Lau **karrerista** doaz aurretik: Danguillaume, Guimard, Labourdette eta Polidori. Joseba Sarrionandia

Gino Bartali **karreristak** (1914-2000) bi Tour irabazi zituen, lehena 1938an, eta 1945ean, bigarrena. Berria - Kultura

**Karrerista** osoa da Valverde. Berria - Kirola

Gasteizera bidean 20 **karrerista** baino gehiago erretiratu ziren. Berria - Kirola

Hiru **karreristek** baimendutako hematokrito tasa gainditu zuten goizean egin zizkioten analisietan.

Pedalei eragiten ari diren dozenaka **karreristen** artean, berak du curriculum distiratsuena. Berria - Kirola

Txirrindularitzaren historiako **karrerista** onenetakoa. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Dora Maarrek, estudioko burdina eta trepeten artean zer aurki zebilela, **karrerista** bizikleta baten eserlekua topatu zuen. Harkaitz Cano

**Karrerista** dokumentu faltsuak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **karrerista onena** (3)

---

## karrete 1 *iz* txirrika.

Idazmakinaren **karretea** jiratu ahala. Harkaitz Cano

**2** (argizkigintzan) erroilua, bobina.

Argazkiekin batera **karrete** bat sartu zion poltsan. Joxemari Urteaga

**karretea** daraman argazki kamerarekin. Pako Aristi

Txuribeltzeko **-Karrete** hau errebelatu nahiko nuke. Joxemari Urteaga

Sasoi hartan sarri igotzen zen etxera, eta beti izaten zuen argazki-**karreteren** bat errebelatzeko. Joxemari Urteaga

Gura barik zabaldu den argazki-makina bateko pelikula **karretea** bezala... Paddy Rekalde

---

## karretera *iz* errepidea. ik **kamio.**

Ibaia, **karretera** jenerala eta trenbidea. Joseba Sarrionandia

**Karretera** bazterrak. Berria - Kirola

Ibañarrietara (Arroa) astoan eramaten zituzten tresnak, gurdibidean gora, auzo askotara ez zegoen eta **karreterarik**. Pako Aristi

---

## karretila *iz* eskorga.

Ez gurea bezalako autoz betea, idi-gurdi, gurdixka eta **karretilaz** baizik. Jokin Urain

---

## karreuntza *iz ipar* garraioa.

Urari behera haien igortzea lan gogorra bazen ere, garraioa edo **karreuntza** merkatzen zuen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Petrola **karreuntzan** ari den frantses itsas untzi batek. Herria

---

## karriatu ik **garraiatu.**

---

## karrika 1 *iz* kalea.

Behean, Mutilés **karrika** eta geltoki berriaren obrak. Monika Etxebarria

Uso Zaharren **karrika** osatzen zuten berrogeita hamar etxekondoetan. Josu Zabaleta

Zapataginen **karrikako** mutikoek probatuko zuten, beren bizkarretan, aitatxiren zurezko ezpataren furfuria. Aingeru Epaltza

Eskualdunen **karrikako** 12. zenbakira iritsi zen. Itxaro Borda

Singer **karrikako** 50.ean zegoen Lehendakariaren bulegora jo nuen neronek, Pariseko euskaldun gazteriarentzat biltoki baten bila. Piarres Xarriton

Baiona Ttipia deitzen zuten Bourg Neuf auzoko Tonneliers **karrikako** ostatu batean. Elena Touyarou

Irteerarik gabeko **karrika**. Agustin Otsoa

Hoteleko **karrikan** aurkitu zuten bidai agentzia batera joan ziren Gero, han, laugarren **karrikan,** ezkerrera hartu. Ramuntxo Etxeberri

Inaziok **karrika** zeharkatzen ikusi du. Felipe Juaristi

CPEren kontrako haserreak Baionako **karrikak** bete ditu Inés andrea, bere semearen denda aurrean **karrika** eskobatzen ari zela. Juan Garzia

Hirietako **karrika** eta plazak eraikitzen dituztenean. Felipe Juaristi

Lehorreratutakoan, agertu zitzaidan aurreneko **karrika** hartu nuen. Koldo Izagirre

Arestian **karrikan** gurutzatu pertsonari zerbait berezia hauteman diot begiradan. Jose Angel Irigaray

Alde Zaharreko eta Zabalguneko hainbat **karrika** itxita egongo dira. ez zegoen hesirik **karrika** mozteko, ezta sarerik ere eror zitezkeen harriak geldiarazteko. Berria - Euskal Herria

Gaua zen, **karrika** erabat hutsik zegoen. Monika Etxebarria

Sartu nintzen **karrika** okerra zen, eta bi solairutan moztua, nolabait esatearren. Koldo Izagirre

**Karrikan** barrena zihoazela ikusi zituen Sarajevoko printzea eta haren laguntzailea. Felipe Juaristi

Tonneliers **karrikatik** iragan zen, zakuaren hartzeko. Elena Touyarou

Rua do Milagre de Santo Antónion, **karrikaren** kantoiari buelta eman eta hantxe. Jon Alonso

*ik beherago* 9. Askoren artean

**Karrikako** jostetak bukatuak ziren. Aingeru Epaltza

**Karrikako** harzoladuraren gaineko zipriztinak. Joxe Austin Arrieta

Kadira bat **karrikara** ateraturik, […]. Elena Touyarou

· Egia da **karrikak** ez duela manatzen, hortakotz baita gobernua. Herria

Halere **karrikak** badu zer erran, bereziki maiatz honetan. Herria

## **2** (izenondoekin)

Arkuen azpian hiriko **karrika** handiaren bazterbidean behera noa, Portomarinetik jalgitzeko. Piarres Aintziart

**Karrika** Handian hau ere, ederlan erakusketa bat, hamabost bat ofiziale eta artixta partzuer. *ik beherago* 10. Herria

Amsterdam hiriko **karrika** zuzen bezain estuak. Felipe Juaristi

Hirian, **karrika** zuzen zabaletan, kaleko argien argitasun hotzaren azpian. Monika Etxebarria

Municheko **karrika** eguzkitsuetako harat-honat bizian nindoala Beauvoisis auzoko **karrika** hutsetan. Alberto Ladron Arana

Pentsatu nuen nahiko tristea izanen zela **karrika** hits eta huts hartan bizitzea. Alberto Ladron Arana

Vienako **karrika** ilunetan barrena. Alberto Ladron Arana

Hantxe, **karrika** lasai horren izkinan hasiko da nire bizitza. Monika Etxebarria

**Karrika** jendetsuak, gau osoan irekirik diren jatetxe argitsuak. Ramuntxo Etxeberri

Comalako **karrika** bakartiak ibili zituen. Juan Garzia

Langa askatu dut, etxe eta **karrika** burgesen aldera jiratu eta ahopeka esan dut: "igandea da". Monika Etxebarria

Napoliko **karrika** bihurri batean egonen balitz bezala. Alberto Ladron Arana

Joanesek **karrika** estu harlanduz apainduetatik gora jo zuen kontzeju aldera. Felipe Juaristi

Escalda ibairaino daramaten **karrika** harlanduzkoak. Felipe Juaristi

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euriak **karrika** zolak distirarazten zituen. Itxaro Borda

**Karrika** zola inoiz baino emokatuago ageri da zaldi gorotzez. Aingeru Epaltza

**Karrika** -zoruetako harri biribilen gainera erortzen entzuten nituen neure oinkadak. Juan Garzia

Elkarrekin joan dira espaloian barrena hurrengo **karrika** gurutzeraino. Askatasun ezak eman ziola hiriari bere **karrika** -eraikinak edertzeko eta artea lantzeko dirutza. Pello Lizarralde

Kanpoan zegoen, jatetxeko atetik bi urratsetan, **karrika** izkina batean, noiz jalgiko nintzen beha egoki. Janbattitt Dirassar

**Karrika** bazterrean, mugarri zuri baten moduko zerbait dago. Monika Etxebarria

Bertatik ikus zitekeen **karrika** zatian ez zuen inor ikusi. Alberto Ladron Arana

Gauzak okertuz gero, ez nuen ihes egin nahi **karrika** labirinto guztiz ezezagun batean barrena. Alberto Ladron Arana

Amsterdameko **karrika** -matazan galduz galdu ibili zen. Felipe Juaristi

Batzuk zerga-biltzaile, besteak **karrika** -garbitzaile, eta bat edo beste ertzain edo printzesaren zaindari jauregian. Felipe Juaristi

Jarrera bortitzek gelditu behar dute, hala nola armak erabiltzeak, **karrika** borrokak, iraultza zergatik lortu diruak, hitz bortitzek eta abar. Berria - Euskal Herria

Arrastiriko seietan, jokülarien **karrika** üngürüa. Herria

Aratsaldeko 5etan, **karrika** kurrida Ipar eta Hegoaldeko gaiteroekin. Herria

## **4** (hitz elkaruetan bigaren osagai gisa)

Aurre aldean eliza- **karrika** zuen estudioak. Felipe Juaristi

Zaldi bat pasatu zen lauhazka errege- **karrika** Contlako bidearekin gurutzatzen den lekuan. Juan Garzia

Errege- **karrikatik** oinez ekin nion ordu horretan. Juan Garzia

## **5** ***karrika arte*** *(orobat **karikarte**)* kaleartea.

Ibai ondoko bidetik Lainez **karrika artera** iritsi da. Pello Lizarralde

Bortz minuturen buruan, berriz ere **karrikartean** izanen ginen. Aingeru Epaltza

## **6** ***karrika buru*** kalearen muturra.

-Hortxe -Joanttok **karrika burua** seinalatu zion-. Elena Touyarou

## **7** ***karrika dantza*** biribilketa.

Gero, karrika **dantzan** edo martxan sartzen dira Pilota plaza berrian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Goizean **karrika dantza** egin dute Santiago plazarat. Herria

Gero, eguerdiko Luzaidera berriz heltzen dira eta **karrika dantzan** sartzen Herriko Etxe ondoan dagoen Santiagoko plazan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Karrika dantzan** edo martxan sartzen dira Pilota plaza berrian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

· *irud/hed* Garunak deusetan finkatzeko betarik gabeko **karrika-dantza** horretan. Aingeru Epaltza

Eskalatzailearen bulegotik gerentearenera eta gerentearenetik langile batzordeko buruarengana karrika- **dantzan** , Anaren andere-xakur, nagusiaren irriñoa sari. Aingeru Epaltza

## **8** ***karrika egin*** kale egin, huts egin.

Kofi Annan, ONU-ko lehen segeretarioak, egin ahalak oro ari ditu ez dezan **karrika egin** Durban-eko bilkurak. Herria

Ez, ez lukete **karrika egin** behar biek ere berezkoetan, trebatuago batzuekin parekatuko direlarik ondoko egunetan. Herria

Behin berriz, **karrika egin** nuen. Aingeru Epaltza

## **9** ***karrika kantoi*** kale kantoia.

**Karrika kantoi** eta ostatu ilunetan jotzetik eliza-kaperetan jotzera igaro zen Damián itsua. Felipe Juaristi

Waterloo plazaren atze aldeko **karrika kantoian** zegoen etxe batean bildu ziren. Felipe Juaristi

Elur pila grisaxkak ikusten ziren **karrika kantoietan** . Alberto Ladron Arana

## **10** ***karrika kurri*** *iz*

17.30 etan, **karrika kurri** Ezpela txarangarekin. Herria

**11** ***karrika kurrida*** *iz*

16.00 meza, eta ondotik **karrika kurrida** . Herria

Aratsaldeko 5etan, **karrika kurrida** Ipar eta Hegoaldeko gaiteroekin; 5.30etan, gaiteroen alardea, Uztaritzeko Txarangarekin Herriko Etxeko plazan. Herria

Hor **karrika kurrida** bat egin dute, gaitaren doinua entzunaraziz. Herria

**12** ***karrika nagusi*** kale nagusia.

Ezkerretara hartu zuen, **karrika nagusia** utzirik. Koldo Izagirre

Gure auzoko **karrika nagusiak** sugea zirudiela esan omen zuen aspaldi. Koldo Izagirre

**Karrika nagusia** esaten zaio eta karrika bakarra da egia esan, luzea ordea, euskal kostako karrika bat luzea izan litekeen neurrian. Koldo Izagirre

Gure herriko **karrika nagusiko** espaloi biak jendez gainezka. Koldo Izagirre

Kanposainduko **karrika nagusiaren** biki meharragoa. Aingeru Epaltza

· **Karrika Nagusia,** zubia eta segidan seinalea, ezker aldera norabidea erakusten didana. Piarres Aintziart

Salmahaiak bata bestearen segidan zabaltzen ziren **Karrika Nagusitik** hasi eta, lege berriaren arabera, Errepublika Enparantzaraino, kolorez josiak denak. Felipe Juaristi

**12** ***karrikaz karrika*** kalez kale.

Orotarat, ehun mila ikasle **karrikaz-karrika** ibili direnak. Herria

Ibilaldia egin da **karrikaz karrika** auzitegi aintzineraino. Herria

Larunbat aratsaldean, Hendaian, Olentzero **karrikaz-karrika** Akelarre elkartearekin. Herria

Afal ondoan, ez bainuen oherat presarik, abiatu nintzen **karrikaz karrika** behar nuela itzuli bat egin. Janbattitt Dirassar

Gerla deklaratu diote hemengo jende gutiz gehienek non den ere ez dakiten erresuma bati eta, buru bero andana bat badabil, **karrikaz karrika** . Elena Touyarou

**Karrikaz karrika** ibiltzen zen biolina eskuan jo eta jo; **karrikaz karrika** eskale gisa, **karrikaz karrika** auzuneko umeak atzetik zituela. Felipe Juaristi

Berarekin zeramatzan **karrikaz karrika** arrastaka bere haurtzaroa eta bere gaztaroa. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auzoko karrika** (5); **baionako karrika** (5); **donibane lohizuneko karrika** (3); **espainiako karrika** (5); **francis jammes karrika** (4); **herriko karrika** (10); **hiriko karrika** (6); **ibilaldia karrikaz karrika** (3); **jacques laffitte karrika** (3); **karrika antzerkia** (3); **karrika bazterretan** (5); **karrika bereko** (3); **karrika dantza** (5); **karrika dantzan** (3); **karrika egin** (3); **karrika erdian** (6); **karrika estu** (10); **karrika estuetan** (3); **karrika eta plazak** (6); **karrika eta plazetan** (3); **karrika handian** (8); **karrika handiaren** (5); **karrika hertsi** (4); **karrika hertsiak** (3); **karrika hertsietan** (3); **karrika ibilaldia** (3); **karrika ibili** (6); **karrika ibiltzen** (4); **karrika ilun** (5); **karrika ilun batean** (3); **karrika iluneta**n (3); **karrika itxi** (3); **karrika izkina** (4); **karrika kurrida** (4); **karrika luze** (3); **karrika mehar** (5); **karrika mortu** (3); **karrika mortuak** (3); **karrika nagusi** (3); **karrika nagusia** (11); **karrika nagusiak** (3); **karrika nagusian** (22); **karrika nagusian gaindi** (3); **karrika nagusiaren** (5); **karrika nagusiko** (3); **karrika nagusitik** (5); **karrika nagusitik barrena** (3); **karrika zabal** (3); **karrika zaharretan** (4); **karrika zaharretan barrena** (4); **karrika zeharkatu** (6); **karrika zeharkatzen** (3); **karrika zulo** (5); **karrika zuzen** (3); **karrikaz karrika** (59); **karrikaz karrika ibili** (6); **pariseko karrika** (4)

**baionako karrikak** (8); **hazparneko karrikak** (4); **herriko karrikak** (3); **karrikak bete dira** (3); **karrikak kurritu** (3); **karrikak zeharkatu** (4); **leon karrikak** (9); **plazak eta karrikak** (3)

**eskualdunen karrikako** (4); **karrikako antzerki** (3); **karrikako argiak** (4); **karrikako besta** (15); **karrikako besta komiteak** (7); **karrikako besta komiteko** (5); **karrikako egoitza batean** (7); **karrikako etxe** (8); **karrikako hotel batean** (3); **karrikako itzulia** (3); **san agustin karrikako** (4); **temple karrikako hotel** (3); **tonneliers karrikako** (4); **zapataginen karrikako** (4)

**elkartetxean pannecau karrikan** (5); **espainiako karrikan** (7); **euskaldunen karrikan** (3); **francis jammes karrikan** (4); **jean lissar karrikan** (6); **jondoni jakobe karrikan** (3); **karrikan barna** (7); **karrikan barrena** (7); **karrikan behera** (9); **karrikan bizi** (16); **karrikan bizi ziren** (3); **karrikan gaindi** (4); **karrikan galdu** (3); **karrikan gora** (9); **karrikan ibiltzen** (4); **karrikan izanen** (3); **karrikan sortua** (3); **karrikan zehar** (4); **nafarroako karrikan** (6); **saint antoine karrikan** (4); **uso zaharren karrikan** (4); **zitadelako karrikan** (3)

**karrikara atera** (28); **karrikara atera behar** (4); **karrikara atera zen** (6); **karrikara atera ziren** (6); **karrikara ateratzea** (5); **karrikara ematen** (4); **karrikara eraman** (3); **karrikara irten** (4); **karrikara joan** (3)

**karrikaren kantoian** (4); **karrikaren muturrean** (3); **leon karrikaren etxean** (3)

**jondoni jakobe karrikatik** (3); **karrikatik pasatzen** (3)

**ibilaldia karrikaz** (3); **karrikaz karrika** (59); **karrikaz karrika ibili** (6); **karrikaz karrika ibiltzen** (4)

**baigorriko karriketan** (4); **baiona ttipiko karriketan** (4); **baionako karriketan** (54); **baionako karriketan gaindi** (3); **behi lasterrak karriketan** (35); **bordeleko karriketan** (3); **donibane garaziko karriketan** (9); **donibane lohizuneko karriketan** (6); **donibaneko karriketan** (8); **eko karriketan** (11); **eko karriketan egindako** (3); **elizondoko karriketan** (3); **ezpeletako karriketan** (5); **garaziko karriketan** (11); **gau guzian karriketan** (3); **hazparneko karriketan** (20); **herriko karriketan** (16); **hiriko karriketan** (15); **hiriko karriketan barrena** (3); **ibili dira karriketan** (4); **inguruko karriketan** (5); **iruñ iruñ kanboko karriketan** (15); **karriketan egin** (3); **karriketan egindako** (3); **karriketan eta ostatuetan** (6); **karriketan gaindi** (25); **karriketan ibili** (16); **karriketan ibiliko** (8); **karriketan ibiltzeko** (3); **karriketan ibiltzen** (5); **karriketan izanen** (4); **karriketan zehar** (11); **karro ibilaldia karriketan** (4); **mauleko karriketan** (3); **olentzero karriketan** (10); **olentzero ortzaizeko karriketan** (3); **otsabideko karriketan** (4); **pariseko karriketan** (5); **parisko karriketan** (3)

---

**karrikaño** *iz* karrikatxoa.

Irteerarik gabeko **karrikaño** batean dago gimnasioa, soto ilun batean. Berria - Kultura

Eta orai horra nun beraz, Xanpun bera bizi zen etxetik bi urratsetan, ondartzarat buruz doan **karrikaño** bati eman dioten Xanpun-en izena. Herria

---

# **karrikaratu**, karrikara(tu), karrikaratzen da/du *ad* kaleratu.

Ezer eskatu gabe **karrikaratu** nintzen. Alberto Ladron Arana

Eskerrak eman nizkion, gelara bueltatu, pistola-zorroa jantzi eta **karrikaratu** egin nintzen. Alberto Ladron Arana

Eusko Jaurlaritzak hilero **karrikaratzen** duen Euskal Soziometroan. Berria - Kultura

Bertso eskoletako **lana** karrikaratzea eta bertsolari gazteen arteko harremanak sendotzea. Berria - Kultura

---

karrikarte ik **karrika 5**.

---

## **karrikatar** *iz* kaletarra.

Egun ederrik deramana, artzaina duzu bere bortuan uda guzian: egun osoa kantuz eta xixtuz zeru-lurren artean, bere hazinda xuria bezain baketsu, bereak eta auzokoak zaintzen dituela xarameletan: hori nuen berriz **karrikatarraren** iritzia. Herria

Halako "loulou de banlieue" erran giniron aire bat edireiten neien franko aisa ene herabean **karrikatarrer,** süstut Maulekoer. Herria

---

## **karrikatxo** *iz* karrika estua edo laburra.

**Karrikatxo** ilun zikin horretan elkartuak ziren Balançoneko liburu zaharren saltzaile guztiak. Josu Zabaleta

Portu inguruko **karrikatxoak** . Elena Touyarou

---

## **karrikazorro** *iz (irain hitza)*

**-Karrikazorro** alaena! Aingeru Epaltza

---

## **karrikazulo** *(orobat* ***karrila zulo****)* *iz* kalezuloa.

Laboratorio bat antolatua zuen etxarte zoko batean, **karrika-zulo** mehar bihurri batean. Juan Garzia

Lehen beiletan alderrai ibili zen bidegurutzeetan eta **karrikazulo** meharretan. Juan Garzia

Eroslea aldameneko **karrika-zulo** bateko ate ttiki batetik ateratzen ohi zen, fardel bat besapean edo beroki azpian. Alberto Ladron Arana

Bide sigi-sagatsuak dira pentsamenduak hor ibili beharrekoak, **karrika-zulo** bihurriak, irteerarik gabeak gehienetan. Juan Garzia

---

## **karrikotxe** *iz* auto zaharra.

Batzuetan Tatamarirekin joaten da amaren enkontrura, Mariaren **karrikotxeari** helduta. Jokin Muñoz

---

## **karril** 1 *iz* erraila.

Trenbideko **karrilak**. Xabier Olarra

Suposa dezagun tranbia bere **karriletik** doala eta bertara bi pertsona erori direla. Askoren artean

Bagonen baskula barnean eserita geunden, eta kanpoan **karrilak** harrotzen ari ziren obretakoak mailu pneumatikoarekin. Koldo Izagirre

Batera eta bestera zebiltzan nasetan eta **karriletan** lasterka. Josu Zabaleta

Eta ohi ez bezala, hurbilenekoei "Tira, lanean hasteko ordua diagu!" agindu gabe jo zuen ate ondoan habe loditik dilindan zegoen **karril** puskan mailuarekin, kin-kin-kan-kin, goizeroko morsea. Koldo Izagirre

Ez dira negozio onak, ez dago lehiakortasun handirik, ez dute tren-**karrilez** kanpoko aukerarik... Edorta Agirre

· *irud/hed* Hiltegi barneko arrapalaren gainaldera iritsita, beraz, ia oharkabean zeramaten ganadua, garraio-uhal bat sabelpetik pasatzen zaion lekuraino ("**karril** biko euskailua" ere Templek sortutako berrikuntza zen). Xabier Olarra

**2** errepideetan, lerroa.

Bigarren autoa hori baino pitin bat aurrerago tartekatu zuten; hirugarrena hiritik kanpo zain zegoen, **karril** biko errepidean trabeska jarrita. Edorta Jimenez

Motorzalearen gorpua bide bazterrean geratu zen, eta errepideko **karril** bat itxi behar izan zuten. Berria - Euskal Herria

Gero, gidariak erdiko **karrilera** eraman du autoa abiadura motelduz. Patxi Iturritegi

Bolanteari zakarki eragin eta **karril** azkarrera altxatuz alde egin baitzuen autoak. Harkaitz Cano

Auto ilara luzeak eragin zituen, iraulitako kamioiak bi **karrilak** hartu baitzituen.

**3** ***esku karril*** eskudela, eskubanda.

Kapeladuna esku-**karrilari** heldu eta eskaileretan behera joan delako. Harkaitz Cano

Arras-arras, azken igurtzia eman eta amaitutzat eman du arotzak esku-**karrila**. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esku karrila** (4)

---

## **karriot** *iz* supermerkatuko orga.

Supermerkatuan zebilen airean beraz, janari zerrendaren arabera, apalak husten eta mentalki bere **karriotaren** gastu orokorrak kalkulatzen. Itxaro Borda

**Karriota** betetzen da, mukurutzen astean behin. Itxaro Borda

---

## **karro** 1 *iz* orga.

Zaldiz tiratu **karro** batean. Itxaro Borda

Ama bat bere semearekin dator bizikletaz tiratutako **karro** ttiki batean. Harkaitz Cano

Buenos Airesek denetarik dauka, on ala txar: etxe itxurarik ez daukaten txabolak, zaldizko **karroetan** dabiltzan ondarkin biltzaileak, [...]. Herria

Beste batzuk, asto bat lagun, bere **karro** ttipia ezin tiratuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baita **karro** zahar ugari ere han eta hemen, mando, asto, zaldi eta guztiekin etorriak. Jokin Urain

Goiz guziz, sei gizonek tiratu **karro** batek eramaiten ditu gorputzak hiltegira. Marzel Etxehandi

Abere guziak, mandoak, astoak, eta bereziki idiak, alde bat haren meneko zirela, orga eta **karroak** bezalaxe. Elena Touyarou

Oraingo supermerkatuko **karroak** gaindika beterik ikusten ditugularik, […]. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baina beste aterabiderik ere badago, adibidez, garraio publikoan edo bizikletaz joan supermerkatura, **karroa** bete eta etxera ekarraraztea. Berria - Euskal Herria

**2** *hed/irud*

Astebeterako geneukan laburrenez, ontziolako **karroan** sartu behar genuen baforea. Koldo Izagirre

Bi mila amerikano sartu dira Faludjako gerla hortan beren **karro** eta tresna blindatuekin. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nagusia gamelu-txofer, sermolari edo tximeleta-ehiztari artatsua zen sorterrian, eta negozioaren euskarria **karro**-poltsa bakarrean darama. Edorta Agirre

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zaldi **karroak,** asto **karroak,** behientzat apur bat arinagoak, idientzat astunagoak. Xabier Amuriza

Karro modernoak belarrez kargaturiko asto **karroekin** gurutzatzen baitira kaleetan. Joseba Sarrionandia

Andre zarpailak erosketa **karroan** darama gizon are trapilagoa. Pako Aristi

**5** karroaren edukia.

Gauero buruko minez oheratzen bazara, gauero hartu beharko duzu aspirina bat, eta orain atera kontuak: astebetean zazpi, hilabetean hogeita hamar, eta urtean hirurehun eta hirurogeita bost: **karro** bat aspirina, beraz. Joan Mari Irigoien

**6** *ipar* bagoia.

Handik urruntxago garbitzen ari zuten trein batetan sartu dira eta han [...] hasi denak behar zituztela xehatu! berina parrasta bat hautsi dute zortzi **karrotan**! Herria

**7** autoa.

Miren Edurnek, nire ahizpak, **karro** bat erosi zuen ajentzia bidez [Venezuelan], Toyota bat, eta gero bere senarrari saldu zion. **Karro** zahar bat, elegantea, baina karrozeria kolore ezberdinez osaturiko atalekin egina. Pako Aristi

**-Karroa** gaizki itxita uzten duzu, kalean buelta bat eman eta bost minututan lapurtu dizute. Pako Aristi

8 *ipar* karro apaindua. ik **karroza 3**.

Denen erdian **karro** haundi bat, oihal xuri eta lorez beztitua ; haren gainean Gorputz Saindua iduzki saindu eder batean, haren aintzinean zagola belauniko, umilki otoitzean ari, Roncalli Jauna. Herria

Aratsaldean, 4ak eta erdietan, **karro** ibilaldia. Herria

"Gure helburua ez da lurra bainan dirua", zion Ezpeletako gaztek apaindutako **karro** trufakorrak, Uztaritzen. Herria

Egia erran, **karro** gehiago igurikatuak ziren, mende laurdena handizki ospatzeko. Herria

9 ***karro apaindu*** *ipar*

Hendaian, giro alegera batean iragan da joanden larunbatean **karro** apainduen uztaileko ibilaldia. Herria

Eguerdi irian, zortzi **karro** apainduk egin dute beren ibilaldia karrika nagusian gaindi. Herria

Lapurtarren Biltzarrean, igandean, **karro** apainduek molde umoretsu batean bainan fermuki salatzen zuten gaietarik bat zen gure lurraren bilakaera. Herria

Eskulan erakusketa eder bat eta hamabost **karro** apaindu, Baztango herri bakoitxak berea. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gauazko karro ibilaldia** (3); **karro apaindu** (8); **karro apainduak** (5); **karro apainduen** (4); **karro apainduen ibilaldia** (3); **karro ibilaldia** (11); **karro ibilaldia karriketan** (4)
> **karroen desfilea** (3)

---

## karroin *iz* horma, izotza.

Gauaz izanik **karroina**. Herria

Etxegarateko maldan kamiun bat trebes jarria **karroinarekin**. Herria

Herriko plaza **karroinez** zuri. Itxaro Borda

Sudur ahotsez kantatzen zuen Dolly Partonen zintaren bizkarrarekin garbitu nuen **karroinez** gogortu bitrailaren eremua. Itxaro Borda

Ipuinak izoztutako ibaia izan behar du; **karroinezko** geruza da guk irakurtzen dugun testua, baina bere azpian urak bizi jarraitzen du bere bidea. Pako Aristi

---

## karroindatu *izond* hormatua, izoztua.

Maiatz bukaerako haize **karroindatuak**. Itxaro Borda

Donapaleuko goizalde **karroindatu** haietan. Itxaro Borda

Eta nire ilunpe **karroindatua** lurmentzen hasten zela iruditu zait. Txillardegi

---

## karroindu *izond* hormatua, izoztua.

Ura badela hormatua edo **karroindua** Marteren gainean. Herria

Haurtzaroko sutondo zokoetan entzunik neukalako, herritar bakarrek, ur **karroinduaren** ezpondetan, goizalde arrosa batez, andere zuria, bere urrezko orrazeaz ile apaintzen kukuzkatu zutela. Itxaro Borda

Ke zirimola baten puntan, negu **karroinduan**. Michel Oronoz

Isiltasun **karroinduaren** sarkorra baizik ez zen ozen, bistan dena. Itxaro Borda

Yves odol zipo **karroinduan** igeri zegoen, gogortzen. Itxaro Borda

---

## karromato *iz* trastetzarra.

Orduko 200.000 pezeta ordaindu nuen Philips **"karromato"** lehenbiziko haietakoa [CD pletina batez mintzatuz]. Pello Zabala

---

## karrosa *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **karroza** agertzen da)* 1 *iz* zalgurdia; orga.

Berrehun bat zaldi gaitzeko **karrosa** ederrak tiratzeko eta beste hainbeste zaldiz heldu zen jauneriarentzat. Herria

50 jendez beteko da gure **karrosa** ; erna beraz Herriko Etxerat izenen emaiterat eta jakiteko xehetasun gehiago. Herria

Omordiko karrosategi hetsian, 5 **karrosen** tokia izanez, jabetu nahi dutenek, huna hemen zenbakia: 05 59 26 27 60. Herria

Patar goiti honetan, gizon xahar bat bere **karrosa** ezin pusatuz ari da lagundu nahi dut. Piarres Aintziart

2 (hitz elkartuetan)

Haurrentzat **karrosa**-ibilaldiak izanen dira. Herria

· 10 orenetan izanen da beribil eta **karrosa** garbiketa 5 eurotan; barne eta kanpoaren ikuzketa, ez da kario. Herria

3 ***haur karrosa*** haur kotxea.

Ez da sekulan ikusi gizon hori baxera xukatzen, haurren garbitzen are gutiago haur **karrosa** pusatzen. Herria

4 ***zaldi karrosa***

Zaldi **karrosan** ibiltzen omen zen Luzaiden gaindi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ordu arte aste bat osoa behar Parisetik ondo hotarat heltzeko zaldi-**karrosa** batzuekin. Herria

Aita bizar xuria ere ibili da zaldi **karrosean** haurrekin itzuli batzuen egiten hauen jostagailu. Herria

Jokoak izanen dira haurrentzat, ibilaldiak zaldi **karrosaz**. Herria

Denbora hetan, ez baitzen autorik, ez eta treinik, ez eta bixtan da airekorik, zaldi **karrosan** eginen zuen bidea! zernahi xapel, modakoetarik, eremaiten zuen berekin, xapel horiek Madrilen saltzeko hango emazte aberatseri. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaldi karrosa** (3)
> **zaldi karrosan** (4)
> **ibilaldiak zaldi karrosaz** (3); **zaldi karrosaz** (5)

---

**karrosaño** *iz* orgatxoa.

Ateratzera gindoazela, hiru erromes, hiru gizon, ostatuan sartzen dira batek tiratzen du **karrosaño** bat, puska eta janari-edariz betea. Piarres Aintziart

---

**karrosategi** *iz* karrosak dauden tokia.

Omordiko **karrosategi** hetsian, 5 karrosen tokia izanez, jabetu nahi dutenek, huna hemen zenbakia : 05 59 26 27 60. Herria

---

**karrota** *iz* azenarioa.

Gizaki izateak urduri jartzen baititu, nahiago lukete postontzi edo **karrota** izan gizaki baino: pairaezina zaie erabakiak hartzeko ahalmena. Markos Zapiain

---

**karrote** *iz* garrotea.

Sei zortzi zatuka egitean, aitak lotu, astoa kargatu, sokak lizar **karrote** batekin ongi estutu, eta arre! ni astazain. Patziku Perurena

---

**karrotxo** *iz* orgatxoa.

**Karrotxo** zuri batekin ibiltzen zen saltzailea, bata zuriarekin, eta izozkiak merkealdian zituen, udatiarrak desagertu zirenetik ia sobran zituelako. Joseba Sarrionandia

Ekipajea hartzera lagundu nion, maleta-**karrotxoa** hartuta. Patxi Iturritegi

Gizona kale erdian haurraren **karrotxoa** kentzen saiatu bazen ere, emakumeak ez zion utzi eta hiru urteko beste haurraren bila joaten saiatu zen. Berria - Euskal Herria

---

**karroza** **1** *iz* zalgurdia.

Atzetik, **karroza** bat zetorren, inguruan lauzpabost zaldizko zituela laguntzeko, eta bi manda-mutil oinez. Patxi Ezkiaga

Zaldi zuriek gidatutako **karroza** distiratsuetan ari ziren printzeak iristen. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire guraso burges eta kezkatsuei ere ongi iruditu zitzaien guk **karroza** eta guztiko eztei arranditsurik egin nahi ez izana. Joxe Austin Arrieta

Zein dira **karroza** horretako andereok? Patxi Ezkiaga

Lau zaldi pertxeroik tiratzen zituzten "oso **karroza** dotore eta erosotan" (propagandak azaltzen zuenez). Txillardegi

**2** (hitz elkartuetan)

Ene laztana, errege-**karroza** daraman behorra dirudizu. Elizen arteko biblia

**3** herri festetan erabiltzen den orga apaindua. ik **karro 8**.

Dena dela, irten baino lehen, Jai Batzordeko kideek **karrozak** ikuskatuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Udalak **karrozaren** egitura eta berau garraiatzeko ibilgailua utzi egiten die, besterik gabe. Berria - Euskal Herria

«Konpartsek euren **karrozak** nahi duten moduan apaintzeko eskubidea» dutela aldarrikatu zuen. Berria - Euskal Herria

Beraz, gaur iluntzeko 18:00etan abiatuko da jaitsiera Jesusen Bihotza plazatik Areatzaraino, eta aldez aurretik prestaturik zeuden **karroza** guztiek esku hartuko dute bertan. Berria - Euskal Herria

Hala, askotan ikusten omen zuten Unión Artesanako Inauterietako **karrozak** gogo biziz prestatzen. Askoren artean

-Badakizu, umea nola jantzi genuen festetako **karrozarako,** kaikuarekin eta txapelarekin, olentzeroren ondoan joateko. Jon Maia

Gozokiak airean, eta **karroza** gainean aurtengo denboraldiko Valladoliden ikurra: Ariza Makukula. Berria - Kirola

**4** pertsonez mintzatuz, edatetua eta ohitura zaharkituak dituena.

Urte batzuk badituenak, adinean aurrera sartuak, zaharrak, **karrozak,** nahi baduzue. Pako Aristi

---

**karrozari** *iz* karrozazaina.

Karrozako andereak, bere begiz ikusten zuen hartaz harriturik eta izu-izu egina, handik pixka bat urrutirarazi zion **karrozariari,** eta urruti antzetik, ekinaldi gogorrari begira jarri zen. Patxi Ezkiaga

---

**karrozazain** *iz* karroza-gidaria.

Nik ordea, Émilieren etxean gelditzea deliberatu nuenez geroztik, karroza etxera bidalia nuen, gaur goizean bila etortzeko manua bertzerik gabe emanik neure **karrozazainari**. Ondikotz, **karrozazainak** operaren aurretik iraganarazi ninduen, eta irteeraren zurrunbiloan gertatu nintzen; Valmonten karrozari ohartu nion nigandik lau urrats aitzinago, eta nirearen ondoko lerroan. Jon Muñoz

---

**karrozeria** **1** *iz* automobilaren txapazko zatia, txasiaren gainean ezartzen dena.

Inportazioko Golf bat erosi nuen, istripua izandakoa, oso prezio onean; **karrozeria** berritu nion, eta motorra puntuan ipini; berria baino hobeto utzi nuen. Juan Kruz Igerabide

Zilarrezko papera bezala zulatzen dute balek auto baten **karrozeria**. Bigarren tiroak autoaren **karrozeria** urratzen zuen une berean. Harkaitz Cano

Eguzkia dirdaika ibilgailuetako kristaletan eta **karrozeria** metalizatuetan. Anjel Lertxundi

Txasia eta **karrozeria**. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

**Karrozeria** eta kristal puskak han-hemen, eta arropa zati odolduak nonahi. Jokin Muñoz

· Hiru dira Irizarrek egiten dituen autobus **karrozeria** ereduak. Berria - Ekonomia

**3** irud/hed

Biek ala biek top model **karrozeria** luzitzen zuten, Andromeda galaxiako biotiporik ederrena. Patxi Iturritegi

---

**karrusel** **1** *iz* zaldiko-maldikoa.

Tupustean, bonbillak piztu eta biraka hasi zen **karrusela,** organotxo musika eta guzti. Harkaitz Cano

Eta harantzago, pabiloiak, eta **karrusel** bat ere bai, zurezko zaldiekin, umeen jolastoki. Felipe Juaristi

**Karrusel** abandonaturiko zaldiko baten gainean zegoen. Jon Alonso

Hilzorian dagoen feria-konpainia hori agian, hilzorian dagoen **karruselaren** jabe zaharra, azken bueltak ematen ari den **karrusel** higatua beharbada. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Hitz egiten hasten zenean zorabiatu egiten ninduen, haur nintzeneko **karrusel** txangoen moduan. Lander Garro

· Soka bati tiraka altxatu zuen zaldi-**karrusela** estaltzen zuen loneta, antzoki biribil bateko erridaua bailitzan. Harkaitz Cano

**3** irud/hed

Europa barneko operazioak (II): aldaera konplexuago bat 'BEZaren **karruselak'** izenekoak dira. Berria - Ekonomia

---

**karruska** **1** *iz* karraskotsa.

Entzuten nitian zakurren kurrinka, **karruska** eta plazerrezko intziri eta uhuriak... Daniel Landart

**2** hozkada.

Sagarrari azken **karruska** egin eta xutitzen da. Eneko Bidegain

---

**karruskaka** *adlag* karraskaka.

Ez du gogoetatzeko indarrik ere, sabela **karruskaka** ari zaio. Eneko Bidegain

Oraino bazkaltzen hastekoak ziren eta, beraz, Eusebio xarmanteko tenorean heldu zen, sabela **karruskaka** hasia baitzitzaion. Eneko Bidegain

---

**karruskatu**, karruska, karruskatzen *(orobat* ***karruxkatu*** *eta* ***karruzkatu*** *g.er.)* **1** du *ad* karraskatu.

Erdi lotarik iduritu zitzaidan sagu bat ari zela zerbeiten **karruxkatzen** eta pentsatu nuen etxeko gatuak sobera bazkatzen genituela. Herria

Elur dezenterik egiten bazuen, inguruko behorrek nola urratzen zituzten pilak, goseak amorratzen zotzik meheen guziak **karruzkatuz**. Ez du gostu txarra, halako hur eta mahats pikor idor eta porroska idor gaxi batzuekin **karruskatzeko,** aperitifetan bezala. Patziku Perurena

Euskal Herri huntan ere larrepoteak ari zaizkigu lan tzarra obratzen: euskara ari dute egunoroz **karruxkatzen**. Herria

**2**

Nathani tximistak zulo bat egin zion buruan zeukan baseball txapelean, bular aldeko ilea **karruskatu** eta oinetakoak oinetatik kendu zizkion. Gotzon Garate

---

karruxka ik **karruska**.

---

karruxkatu ik **karruskatu**.

---

karruzkatu ik **karruskatu**.

---

**karsoildu** *(corpusean* ***kartsoildu*** *soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***karsoildu*** *agertzen da)* *izond* burusoildua.

Bilozuriak edo arras **kartsoilduak** zenbait hor ziren ehunka, Xuberoko hiri nagusiko elgarretaratze hartan. Herria

---

**karta** **1** *iz* txartel moduko kartoi zatia, alde batean irudi bat duena, hogeita hamar, berrogei edo berrogeita hamabi banakotako multzoetan hainbat jokotan erabiltzen dena.

**Kartak,** fitxak eta whiskya, hori baino ezin duk egon poker mahai baten gainean. Xabier Paya

Hizketan ari da **kartak** banatu bitartean. Xabier Paya

**Kartak** eskatzen zituen, eta bakar-jokoan aritzen zen. Joan Mari Irigoien

Erne zelatatzen zuten, zein **karta** botako. Jose Morales

Afaria bukatuta, **kartak** eskatu zituzten. Alberto Barandiaren

**Karta** batera jokatuko dizkiat hil guztiak, eta organotxoa ere bai. Jose Morales

Luze gabe, whistean jokatzeko **kartak** eman zizkioten Txitxikovi. Jose Morales

Ahuldadea iruditzen zait, kontrarioari **kartak** erakustea bezala. Anjel Lertxundi

Ez bainituen **karta** guztiak neure esku, ezta gutxiago ere. Joan Mari Irigoien

**Karta** horiek gizon figurak zituzten, beren koroekin eta zaldiz. Pablo Sastre

Ez dira **karta** txarrak jokoan sartzeko. Karlos Zabala

Nago Rakel **karta** onenak noiz etorriko zain dagoela... Patxi Zubizarreta

Dena **karta** bakar batera jokatzearen arriskuak erakarri ninduen, hain zuzen ere. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Azken aukera izan daiteke burura etorri zaidana, jokatzeko azken **karta**. Migel Angel Mintegi

Ustelkeriaren salaketaren **karta** jokatzen ari da jada oposizioa. Berria - Mundua

Gobernuak [Espainiakoak] esan zidan talde batzuk torturaren **karta** erabiltzen dutela haren kontrako kanpaina egiteko. Berria - Euskal Herria

Prozesua baldintzatzea, ezker abertzalea ahultzea eta jokoa **karta** markatuekin hastea. Berria - Harian

Badut uste amerikar ordezkari batek eskatu digula bakoitzari gure jokoko **kartak** ager ditzagun azkenean. Piarres Xarriton

Samuel Sanchez eta Contadorri buruz, ez dira gezurretan jardun, baina handira jotzeko **karta** nahikorik ez zuten, eta galdu egin dute. Berria - Kirola

Barbaroek bizitzeko zertzen dituzten borroka beldurgarrietan **karta** irabazleak ez direla indar hutsa, baizik eta iraunkortasuna, mendekua, gupidarik eza, azerikeria eta zitalkeria. Iñaki Mendiguren

Gaurko teologo muslariari jakineko **kartak,** ongi nahasi gabeak badaezpada ere, jartzen dizkio beti munduak eskura, eta handian paso eman eta ttikitik jotzen du hordago, eta ttikian ez dio inork irabazten, eta horrela du jakin-usteko ustela bereganatzen. Iñaki Segurola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Karta**-banatzaileak joko horien artean bat hautatzeko aukera izaten duela, eskua berari dagokionean. Jon Muñoz

"Jokoa zabalik dago" esan zuen **karta**-emaileak. Iñaki Zabaleta

Dutertreri begiratzen diot, nire **karta**-botatzaile eta behatzaileari. Josu Zabaleta

-Zu bezalako **karta**-jokalari batek ezin du ezer egin bere halabeharraren kontra. Anjel Lertxundi

**Karta**-jokalari oso bitxia zara zu... kartak beharrean, grinak eta gizakiak erabiltzen dituzu jolaserako. Ander Irizar

**Karta** partida amaigabeak, garagardo epela. Alberto Ladron Arana

Beste lagun batekin nabilek hemen, oso argia ere mutila, eta **karta-saio** batera joatekotan geratu gaituk. Irene Aldasoro

Ikusi nituen gudu batetik bizirik irten zirenak, posta-txartelak bidaltzen; ikusi nuen Mirzapur-eko erakustoki batean espainiar **karta** -pilo bat. Juan Garzia

Tarot madarikatua irakurtzen jarriko zaituztet museko **karta** sail batekin. Harkaitz Cano

Mari Errautsen kalabaza karroza bihurtzea ez zitzaidan begitantzen harrigarriagoa umore oneko zegoenean gure aitak egiten zituen **karta** -jolasak baino. Juan Garzia

*ik beherago* 15. Askoren artean

Liburua irakurtzen amaitutakoan ezerk ez zukeen arima aztoratuko, eta irakurlea berriro itzul zatekeen **karta** -mahaira, jokoak Errusia osoa jostarazten baitu egun. Jose Morales

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harryk beren kasa nahasten ziren joko- **kartak** hankapean zapaldu zituen nahi gabe, lurrean baitzeuden.. Iñaki Mendiguren

**5** (etorkizuna asmatzeko erabiltzen direnak)

Ama beti izan diat alde, eskuko marketan eta taroteko **kartetan** izar bat pizten ikusi zuenetik Italiako zeruan. Joan Mari Irigoien

Taroteko **kartak** eta umekeria horiek guztiak utziko balitu... Joan Mari Irigoien

Estazioetan gauza piloa erosten dut: abanikoak, labana txikiak, teniseko pilotak, tarot- **kartak,** [...]. Unai Elorriaga

"Atera diren **kartak** Dorrea, Epailaren karta, Heriotzarena...". (Itxasok hasperen larri bat egin du). Pako Aristi

Heriotzaren **kartak** aldaketaren bat adierazten du, edo depre zaudela, besterik ez. Pako Aristi

Etorkizuna **kartetan** nola irakurri. Joxan Elosegi

*ik beherago* 12. Askoren artean

Otoitz egin ostean **kartetan** etorkizuna igartzea bururatu zitzaidan lotara joan aurretik. Jose Morales

**6** gutuna, eskutitza.

Atera zuen Santxok bere kolkotik **karta** ireki bat eta honela ziola ikusi zuen dukesak: [...]. Patxi Ezkiaga

Aurreko **karta** lau zati egiten nuela, beste **karta** bat idazteari ekin nion. Joan Mari Irigoien

Ispilu bakoitzaren atzean gutun bat, edo **karta** -sorta zahar bat, edo galtzerdi bat. Jose Morales

Desesperazioak eman zion, ausaz, **karta** hura idazteko ausardia. Joan Mari Irigoien

Adiskideei bidalitako **kartak** zeuden: ofizialei, goi-goiko pertsonaiei, anarkista ezagunei, idazle susmagarriei [...]. Matías Múgica

**Karta** argitaratu zioten, eta alferrikako hitz zintzoz beteriko erantzuna heldu zitzaion Arartekoaren bulegotik. Iban Zaldua

Minbiziak jota omen zegoen eta **karta** haiek guztiak erre nahi zituen hil aurretik. atzerriko gobernuentzat salerosleei emandako gomendiozko **kartak** . Harkaitz Cano

"Maitasun **kartak** dira" izan omen zen bere azalpen bakarra. Harkaitz Cano

**7** mapa.

Gelditzen zirenean, edateko, jateko edo **karta** geografikoak aztertzeko [...]. Itxaro Borda

Sevillako Isidororen *Etymologiæ*tan den **karta** zirkularra. Aurelia Arkotxa

Belhaimen globoaren **kartan** . Aurelia Arkotxa

Ternuako **karta** zaharrenetan ere, kartegile eta pilotuek Groyako eta Belilako bi uharte handiak beti ongi agerrarazten zituzten. Aurelia Arkotxa

Nabigazioko tresnak, kaiera, lapitza, ezagumenean dugun mundu osoko **karta** . Edorta Jimenez

Nabigazioko **kartak** ziren; ontziburuak zituenak. Edorta Jimenez

Pan kapitainak kalkulatu zuen, nabigazio- **karta** kontsultatu ostean, ekainaren 21ean-edo helduko zirela Azoreetara. Julen Gabiria

Nabigazio-tresnen kutxatxoa, [...] munduko **karta** ederra gordetzen zuena. Edorta Jimenez

Zehatz izkiriatu nuen kaierean, eta horren ostean **karta** zabal-zabalik zetzan mahaira jo nuen, astrolabioak esandakoa haraxe aldatzeko, orratzaren bitartez. Edorta Jimenez

**8** jatetxeetan, menua idatzita dagoen papera.

Sagardotegiko menua ere badute, baina guk **karta** eskatu dugu. Xabier Etxabe

**Karta** ekarri zien menuarekin eta beste bat ardoekin. Joxemari Iturralde

Jakiak aukeratzen hasi baino lehen ardoen **karta** eskatu zenuten. Joxean Agirre

**Karta** luzatu dit: hasierakoetako bat aukeratzeko eskubidea dut: bost xerra txistor edo errefauak edo izkirak edo apioa saltsan, erretilu bat. Monika Etxebarria

Maîtrea zain dago doktorea eta komisarioa erreserbatura noiz joango, segidan bera **karta** eskaintzera joateko. Joxemari Iturralde

**Karta** utzi, bere ogia puska txikitan zatitu, eta mahai tresnak musu zapiarekin igurtzi ditu. Monika Etxebarria

**9** agiria.

Hezkuntza publikoko eskola **karta** finkatu behar zuen bilkura aitzin tentsioa izan da nagusi hainbat herritan. Berria - Euskal Herria

**Karta** horretan oinarrizko hamar eskubide biltzen dira.

Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Stockholmeko Adierazpena, Naturaren Mundu **Karta,** Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpena, [...]. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Lurraren Eskubideei buruzko **Karta** . Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskal Ikasleen Eskubideen **Karta** da bere programaren oinarria.

Europako hizkuntza gutituen eskubideak zaintzeko **karta** famatua. Piarres Xarriton

*Bakerako eta Adiskidetze Nazionalerako* ***Karta*** izeneko legea iragan irailaren 29an onartu zuten herritarrek, Abdelaziz Bouteflika presidenteak bultzatutako erreferendumean. Berria - Mundua

Euskal-Herriaren alderako eskubideen **karta** -proiektu bat. Herria

**10** txartel erako agiria.

Polizak ikuska ditzake nor beraren nortasun **kartak,** pasaportak, egoipen paperak, edozein inkesta administratiboren karietara. Herria

Pasaporte zaharrak, frantses errepublikaren enbaxadako matrikulazio **karta,** hegazkin txartel erabiliak, argazki bat... Ramuntxo Etxeberri

Eta horrela, etapaz-etapa, nire erromes- **karta** zigiluz betetzen joan zen, amaieraraino, Konpostelako Santiagoraino. Iban Zaldua

Hura zen guretzat lanerako baimena eta *Sejour* **karta** lortzeko modu bakarra. Rafa Egiguren

Alabaina, hemen ez zaio galdegiten laborariari sindikatuko **karta** hartzea. Berria - Ekonomia

Errazionamendu **kartak** bi pertsonentzako jakiak baino ez dizkio baimentzen eta merkatu beltzean erosi behar izan ditu hegaluze lata horiek. Harkaitz Cano

**11** *ipar* txartela.

Nik, burua erabat hustua, ez jakin nor behar nuen deitu; bestalde, ez neukan **kartarik** ez eta diru xeherik. Daniel Landart

Erosketa xehe frangoren pagatzeko baliatzen ahalko den **karta** . Herria

Sartu zure kreditu- **karta** horretarako asmatua den irekiduran. prokuradoreak banku- **karta** bat ebatsi dio aleman kide bati, eta **karta** hori erabili emagaldu baten fagoreak ordaintzeko. Itxaro Borda

Karriota betetzen da, mukurutzen astean behin, eta pagatzeko orduan herrokan jartzen, **karta** bankarioa eskuan nixtan, ahalaz agerian. Itxaro Borda

Emazte xaharrari bizpahiru posta **karta** erosi dizkiot zigilu sari, eta pezeta zenbait eman. Piarres Aintziart

**Karta** postal batek gure etxekoak abisatu behar zituen bagindoazela. Marzel Etxehandi

Oheratu eta, Mathiasek urte berri ona gutiziatzeko bidali zidan **karta** postalean idatzitakoa hiruzpalau aldiz irakurri nuen. Daniel Landart

**12** ***kartetan*** *adlag*

Aita Kasinoan, **kartetan** . Margotzen, garbiaren gainean garbitzen, erratza pasatzen, **kartetan,** patatak zuritzen, parkeko belar txarrak ateratzen... Anjel Lertxundi

Edangela pribatu kez bete baten puska bat ikusten nuen, eta lau gizon **kartetan**. Koro Navarro

Diru asko galdu ditek **kartetan**. Jose Morales

Lagunak **kartetan** hasi ziren. Pablo Sastre

Lebigre **kartetan** ari zen bezero batekin, *piquet*-ean, burdina pintatuzko mahaietako batean. Karlos Zabala

Nire aldameneko mahaian estudiante batzuk, kafetegiko bezero bakarrak, **kartetan** ari ziren. Joseba Urteaga

Berdin-berdin ibili zitekeen **kartetan** kandela baten argitan egurtegi batean. Koro Navarro

Eta baduk bikote kide finkorik **kartetan** jarduteko? Josetxo Azkona

**Kartetan** zihardutenei adiago paratu nintzen. Nolako itxura zeukan zurekin **kartetan** egin zuen arrotzak? Edorta Jimenez

Shakespearek argiro esaten du: "Halabeharra duk kartak ematen dituena, gu gaituk **kartetan** egiten dugunak". Anjel Lertxundi

**Kartetan** jokatu, irakurri eta horrelako gauzak Irabazten duten guztia **kartetan** jokatzen ditek, baina oso onak dituk. Xabier Olarra

-Martxa honetan **kartetan** ahaztu egin behar zaigu. Pedro Alberdi

## 13 *karta astral*

Horoskopoa eta **karta astrala** ditut alde. Joan Mari Irigoien

**Karta astrala** nahi izanez gero, gutienez ere bi saio beharko ditugu. Aingeru Epaltza

## 14 *karta egin*

Mieltxok pozik eginen dio berriz ere **karta,** emakumea. Iñaki Zabaleta

## 15 *karta joko*sup_1 (orobat **kartajoko**)

Soldaduak, afaldu eta gero, denbora pasa, **karta jokoan** hasi ziren. *Whist* **karta-jokoan** ari zirelarik. Mirentxu Larrañaga

Bere laguna itzuli zela ikusirik, **karta jokoan** aritzeko proposatu zion. Josu Zabaleta

Kafean geratzen ziren bezeroak dominoan edo **karta jokoan** ari ziren. artillerialariak mahai baten inguruan eserita ikusi ditugu, **karta-jokoan**. Patxi Zubizarreta

**Karta-** eta dado-jokoak debekaturik zeuden. Juan Garzia

Suizidioari ere, bizitzaren kontra joka genezakeen azken **karta-jokoari,** ez al diogu gure buruaz beste egitea deitzen? Anjel Lertxundi

## 16 *karta joko*sup_2 karta sorta

Heraclio Fournier enpresaburua, **karta jokoen** ekoizle ezaguna. Berria - Ekonomia

Poltsikotik **karta-jokoa** atera zuen. Koldo Biguri

Berehalaxe itzuli zen, botila bat ardo gorrirekin, eta eskuan **karta joko** bat zekarren, auzoko bati eskatua. Josu Zabaleta

**Karta-joko** bat erakutsi zidan txaketaren barruko poltsikotik aterata. Bernardo Atxaga

Patxadaz, irribarre eginez, **karta-jokoa** bi zatitan urratu zuen. hartu zituen **karta-joko** bateko lau batekoak; esleitu zion bateko bakoitzari hiriburu bat: [...]. Koldo Biguri

Ni erreginetako bat nintzen zure **karta-jokoan**. Ander Irizar

## 17 *karta-parte* *pl*

Handik oso denbora gutxira egin genituen geure **karta**-parteak. Anjel Lertxundi

## 17a *karta (postal)*

Egun horietan aurkitzen ahalko dira errugbi munduko zernahi gauza: ator, tinbre, **karta postal**, pin's eta holako... Herria

Nahi duenak **karta** gutun-azalean sar dezake, baina orduan tinbrea gehitu beharko dio. Berria - Euskal Herria

## 18 *karta sorta*

Horrela esaten zieten lagunartean **karta-sortako** koloreei. Jose Morales

**Karta sorta** hartu eta lurrera jaurti zuen bere arrebak, amorrazioz. Harkaitz Cano

Beste haitzulo bat zen, erabat bestelakoa, **karta sorta** bat ostera nahastean bezala, estua lehen zabala zen lekuan, altua baxua zenean. Juan Garzia

Pareta zirkular haien inguruko apalak bete-bete eginda zeuden hautsak hartutako lumez, kandela-muturrez, jokorako hainbat **karta-sorta** higatuz, zilar eta kristalezko bola ugariz, eta era askotako te-kikarez. Iñaki Mendiguren

-Ea! -esan zuen Nozdriovek, hatz-puntekin **karta-sorta** ertzetatik estutu eta apur bat kakotzen zuela, halako eran, ezen paperezko azal mehea urratu eta kartak askatu egin baitziren-. Jose Morales

## 19 *karta zuri* erabateko eskua.

«Erabakiak **karta zuria** ematen die suizidei, Jerusalemen hautatu eta hautatuak izateko, eta utzikeria diplomatikoa da», esan zuen Alderdi Erlijioso Nazionaleko buru Zvulun Orlevek. Berria - Mundua

Iragan urteko maiatzeko erretreten hilketa obratu zen garaian sindikatuek [...] **karta zuria** luzatu zioten gobernuari eta aurten, seguritate sozialaren aldaketa mailan gauza bera egiten dute. Berria - Kultura

## 20 *menu karta* jatetxeetan, menua idatzita dagoen papera. *ik gorago* **8.**

Menu **karta** luzatu zidan eta berehalaxe aukeratu nuen afaria. Joxemari Iturralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldeko karta** (3); **emakumeen eskubideen karta** (4); **erromes karta** (8); **eskola karta** (13); **eskubide karta** (3); **eskubideen karta** (39); **euro karta** (4); **gazteriaren eskubideen karta** (4); **gomendiozko karta** (7); **herriaren eskubideen karta** (6); **karta atera** (3); **karta aurkeztu** (3); **karta bat har** (3); **karta bat hartzen** (4); **karta baten hartzerat** (4); **karta berria** (3); **karta egin** (5); **karta egingo** (3); **karta emaileak** (3); **karta erabiltzen** (3); **karta erakutsi** (3); **karta finkatu** (4); **karta joko** (21); **karta joko bat** (10); **karta jokoa** (9); **karta jokoak** (7); **karta jokoan** (35); **karta jokoan ari** (7); **karta jokoaren** (3); **karta jokoari** (3); **karta jokoetan** (3); **karta luzatu** (3); **karta mahaira** (3); **karta onak** (4); **karta partida** (5); **karta postal** (3); **karta sorta** (10); **mapa edo karta** (3); **nire erromes karta** (6)

**kartak atera** (3); **kartak banatu** (3); **kartak banatzen** (3); **kartak botatzen** (4); **kartak ematen** (3); **kartak ezkutatzeko** (3); **kartak mahai gainean** (6); **kartak markatuta** (3); **kartak nahasten** (4); **kartak utzi** (3)

**eskubideen kartan** (3)

**eskubideen kartaren** (6)

---

# kartabera ik **kardabera**.

---

# **kartable** *iz ipar* eskolarako zaku uhalduna.

Baionako eskola publikoetako ikasleen barne araudietan jada gomendatua zaie burrasoei jatekorik ez ezartzea haurraren **kartablean**. Herria

---

# **kartaboi** *iz* 45ºko eskuaira.

Ukondoak mahai beltzaren gainean jarrita, kontu handiz darabiltzat konpasa, erregela, **kartaboia**. Erregela, **kartaboia,** konpasa, mundua jasotzeko baliatuko dira, edo etsaiak menderatzeko. Josu Zabaleta

"Aurrerago eta goxoago", entzuten dugu behin eta berriro, eta ez dira falta gure artean erregela eta **kartaboia** hartu eta mapak marrazten dizkigutenak. Bernardo Atxaga

---

# **kartadun** *iz* karta jakin bat duen pertsona.

Sozialista Biarnesak 655 **kartadun** izanki, eta 350 Iparraldean, Pierre Cheret (Emmanuellista) hautetsia izan da bozen ehuneko 57 bilduz departamenduan. Herria

180 **kartadun** dituzte eta sekzioak sortuak dituzte hiru enpresetan : Seaska, Sokoa, eta ADA, azken honetan ez baldin badira ofizialki ezagutuak ere. Herria

Otsailaren 15-ean agertua den elkarte horretan hiru aste berantago jada 89 lagun kidetuak ziren, hilabete bat honetan 190etara heldua da **kartadunen** kopurua. Herria

Baina politika **kartadunez** aparte beste frango barne dira. Herria

---

# **kartagile** *(orobat* ***kartegile****) iz* karta jakin bat egiten duena; kartak egiten dituena.

Bereizkeriari dagokionez, zera dio kartak: «Erregio edo gutxiengoen hizkuntzak mantendu eta garatzea bultzatu ez eta arriskutan jarri asmoz, berauek erabiltzean sortutako arrazoirik gabeko bereizkeria, baztertze, muga edo lehentasunei amaiera emateko konpromisoa hartu dute **kartagileek,** dagoeneko egin ez badute». Berria - Euskal Herria

Ternuako karta zaharrenetan ere, **kartegile** eta pilotuek Groyako eta Belilako bi uharte handiak beti ongi agerrarazten zituzten. Aurelia Arkotxa

---

kartagoar ik **kartagotar**.

---

# **kartagotar** *(**30** esaldi **8** liburutan; orobat **kartagoar** **17** esaldi **4** liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kartagotar** agertzen da)*

**1** *izlag* Kartagokoa, Kartagori dagokiona.

**Kartagotar** buruzagiak burdinazko eraztun batean gorderik zeukan edena. Juan Garzia

**Kartagotar** familiak uzten zituen merkataritza-guneetan. Ordu arte mugikor izandako ekialdeko eta mendebaldeko mugak akemenestar eta **kartagoar** inperiogileek marrazturiko lerroen arabera ezarrita geratuko zirela. Iñaki Iñurrieta

Soldadu **kartagoarrak**. Iban Zaldua

**2** Kartagoko herritarra.

Zeras **Kartagotarrak,** ordea, aurrena egurrezko plataforma bat egin zuen eta gurpilak jarri zizkion. Santiago Iruretagoiena

**Kartagoarren** guda-elefanteak. Iban Zaldua

Hannonek, Kartagoko senatuaren aginduz, hogeita hamar mila **kartagotar** barreiatu zituen Herkulesen zutabeetatik Zerneraino. Iñaki Iñurrieta

Denboraldi berean **kartagoarrek** helenoei Sizilian egindako erasoa are hondamendi handiagoan bukatu zen erasotzailearentzat. Iñaki Mendiguren

**Kartagotarrek,** urre-zilarren merkataritzan nagusi, berunaren eta eztainuaren merkataritzan ere nagusi izan nahi zuten. Iñaki Iñurrieta

---

kartajoko **ik karta 15**.

---

kartajoku **ik karta 15**.

---

# **kartaka** *adlag* kartetan. ik **karta 12**.

Etzanak zaudete gehienak, begiak hetsirik lo egin gabe batzuk eta **kartaka** bertze batzuk, denbora pasatu aldera. Xabier Montoia

---

# **kartaldi** *iz* karta saioa.

Maiatzaren 25ean ukanen dute lehen **kartaldia** eta ekainaren lehenean finalak. Berria - Kirola

Ageriko igandean trenkatuko denetz auzia Arrangoitzen ala beste **kartaldi** bat beharko den ondotik. Herria

---

**kartaño 1** *iz ipar* mapatxoa.

**Kartaño** honetan ikus daiteke nundik iragaiten den. Herria

Irakurlea, guri segitu nahi baduzu, Amerika-mendebaleko **kartaño** bati behako bat emozu, hain dira elgarretarik urrun bizi Euskaldunak. Herria

**2** *adkor* karta.

-Ikusiko dugu hori nolakoa den, hortxeteko **kartaño** hori... Menane Oxandabaratz

---

# **kartazal** *iz* gutunazala.

Ordu erdi geroago **kartazal** bat ikusten du bere gelako ate azpitik sartzen. Oskar Arana

Eta **kartazalaren** barruan ohar bat, Monikak bere eskuz idatzia: [...]. Joxean Agirre

Pelikula **kartazal** barruan sartu eta zelo zati batez itxi zuen. Joxemari Urteaga

Harryk **kartazala** ireki eta barruan zegoen pergamino-sorta atera zuen. Iñaki Mendiguren

**Kartazala** urratu zuen. Anton Garikano

Gutuna **kartazal** batean sartu eta kalera atera haiz. Pedro Alberdi

Idazmahai gainetik **kartazal** bat hartu, billeteak barruan sartu, [...]. Anton Garikano

**Kartazala** itxi aurretik diskette batean New Yorken idatzitako eleberriaren kopia bat sartu nuen. Harkaitz Cano

Han dago bere letra urduria **kartazal** zimurtuetan. Pako Aristi

**Kartazal** ikurrak sakelakoan irakurri gabeko mezu bat duela adierazi dio. Eider Rodriguez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kartazal handia** (4); **kartazal zuri bat** (3)
> **kartazala hartu** (6); **kartazala ireki** (3)
> **kartazalaren barruan** (3)
> **kartazalean sartu** (3)

---

## kartazale *(orobat **karta zale**)* *izond* karta jokoaren zale dena.

Militar guztiak **kartazale** amorratuak eta etxekalteak zirela uste baitzuen. Jose Morales

Hantxe azaltzen zen begien itxi-ireki batean, eta, bere moduko guztiak bezalaxe **kartazale** porrokatua izaki, eztabaidan eta zalapartaka aritzen zen mahai berdeen inguruan. Jose Morales

---

## kartel[1] **1** *iz* afixa, horma iragarkia.

Sarreran **kartel** handi bat baitzuen, honela zioena: "Bost minutuan, egina". Fernando Rey

Egun pare bat zintzilik egon zen "alokatzeko" zioen **kartela** etxeko atarian. Eduardo Matauko

Nire gainean zegoen *Debekatuta erretzea* **kartelari** erreparatu nion. Karlos Linazasoro

Alde banatan hiru **kartel** zirrimarratu ipini zituzten. Koro Navarro

Sabaian Annak Broadwayko **kartel** argitsuen dirdir aldakorra ikusten zuen. Lopez de Arana

*Abre los ojos* filmaren **kartel** originala. Harkaitz Cano

Odol zipriztinak igarri zituen hormako **kartel** batean. Paddy Rekalde

NATOren kontrako **kartelak** . Berria - Mundua

Museoaren metalezko **kartel** bat. Unai Elorriaga

Boxeo borrokak iragartzen zituzten **kartel** batzuetan bere izena agertzen zen, Jose Antonio Uriarte, o boi vasco. Paddy Rekalde

Tranbiaren bidetik zihoan gizon itxura-txukun batek **kartel** bat zeraman goi-goian, oso argi adieraziz Jaunari zion beldurra. Koro Navarro

Filmen sailkapenerako azpibatzordeak **kartela** debekatzeko gomendioa egin zuen. Berria - Kultura

«Klase guztietako eranskin eta **kartelak»** bildu dituela. Berria - Harian

Halere, **kartel** eta panel ugari jarri ditugu inor galdu ez dadin. Berria - Kirola

**Kartelak** pegatzera ateratzea zen gehien gustatzen zitzaidana. Iban Zaldua

Kanpoan oraindik boxeo konbaterako **kartelak** itsasten ari ziren. Harkaitz Cano

Ea ba al zekien Eiffel dorrean amnistiaren aldeko **kartela** zintzilikatu zutela. Ramon Saizarbitoria

Hein Völker militante gaztearen ia gorputz osoko fotograma batek hartzen zituen **kartelaren** luze-zabalak. Anjel Lertxundi

**Karteleko** ikurra ikusi nuenean nik uste izan nuen homosexualen taberna bat zela. Harkaitz Cano

Mezuak idazten genituen **kartela** nik diseinatutako kanpaina batekoa zen. Iñaki Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mikel Urmenetak irabazi du San Fermin jaietako **kartel** lehiaketa. Angiek hiru **kartel** bozeto utzi zituen mahai gainean. Iñaki Zabaleta

Donostian ere egin zuen **kartel** itsasketa EAJk Alderdi Ederren. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erdiko etorbide nagusiaren ertzetan hiru edo lau informazio-**kartel** zeuden. Iñaki Zabaleta

*Gilda* filmaren iragarpen **kartela** zen. Josu Landa

Bilbon jokatuko zen borroka-saioaren iragarki-**kartela** zen. Josu Landa

Fatxadan propaganda **kartel** handi bat. Joan Mari Irigoien

Dena bihurtzen da han *Highway*, hots, alde banatako hesi-**kartel** publizitarioz jositako mundua. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **idatzitako kartel** (3); **kartel handi** (14); **kartel handi bat** (6); **kartel lehiaketa** (4)
>
> **kartela ikusi** (3)
>
> **aurkako kartelak** (4); **kartelak erakutsi zituzten** (3); **kartelak eta pankartak** (3); **kartelak ipintzen** (4); **kartelak itsasteko** (3); **kartelak itsatsi** (3); **kartelak jarri** (7); **kartelak jartzeagatik** (3); **kartelak jartzen** (6); **kartelak jartzen ari** (5); **kartelak kendu** (3)

---

## kartel[2] *iz* alor bereko enpresen nazioarteko batasuna, monopolioa lortzea helburu duena.

Arrakasta horrek, ekoizle-**kartel** baten eraginkortasuna baino areago. Koro Navarro

Aise eratzen dira petrolio-**kartelak,** eragile kopuru txiki baten esku egon baita beti petrolioaren ustiakuntza. Koro Navarro

1960ko hamarraldia arte nagusi izan zen "zazpi ahizpa" haien **kartelaren** ondoren (harexek menderatzen baitzuen katea osorik, ekoizpenetik banaketaraino), 1970eko hamarraldian HPEEko herrialdeak nagusitu dira petrolioaren ekoizpenean. Koro Navarro

LPEEk egunero 26 milioi upel ekoizteko ahalmena du ofizialki, baina eguneko 30 milioi upel ekoizteko gai da **kartela** Iraken eskaintza kontuan izanda. Berria - Ekonomia

Airelinea **handiek** kartela osatu duten ikertzen ari dira Europa eta AEBak Igeltso **kartela** sortzeagatik, 248,60 milioi euroko isuna. Berria - Ekonomia

---

## kartelada *iz* kartel itsastea.

Gaur, ostiralero bezala, **kartelada** egingo da 20:00etan, Bulebarrean. Berria - Euskal Herria

Daniako (Florida, AEB) pilotariak **karteladak** egiten hasi dira euren lan baldintzak hobetzeko eta Jai-Alairen iraupena bermatzeko. Berria - Kirola

**Kartelada** eginen duen konpainiari datu zehatzak emanen dizkiot noiz [...] eta zein geltokitan jarri behar dituzten kartelak. Iñaki Zabaleta

Atzo iluntzean, Sarasate pasealekutik **kartelada** mugikorra egitea zen asmoa, joaldunek eta Irurtzungo Kalejirak lagunduta, Arranon amaitzeko. Berria - Kultura

---

## kartelatze *iz*

Gasteizen preso zegoela, egun berean jaso zuen **kartelatze** aginduaren berri Lauaxetak, maiatzaren 6an bertan. Berria - Harian

---

## kartelburu *iz* musika jaialdi bateko talde nagusia.

**Kartelburua** erorita ere [...] une magikoak (Lou Reed, Brian Wilson...) eta ezusteko atseginak (Einsturzende, Wire...) bat baino gehiago eskaini ditu Benicassimgo jaialdiak aurten. Berria - Kultura

*Die Happy* Alemaniako taldea izango da **kartelburu** eta harekin batera, Zea Mays, Applebite, Spittledog, Spezial Guest, Nowayout, Roboto, Idioterne eta Misery taldeek joko dute. Berria - Kultura

---

## karteldegi **1** *iz* afixategia.

Ohartu nintzen Constitución Plazako **karteldegi** burdinazkoek berritua zutela tabako gorrizko ez dakit zein zigarro markaren iragarkia. Juan Garzia

**Karteldegi** -ilaren eta Bull Durham-en iragarkien artetik aurrera egin zuen. Lopez de Arana

**2** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***ikuskizunak*** *agertzen da)* ikuskizunen iragargia; ikuskizunen afixa.

Federazioen Arteko GRAVN Txapelketaren final gehienak bihar jokatuko dira Gasteizko frontoietan (ikusi **karteldegia)** . Berria - Kirola

Igandean zineman zein filme emango zuten jakin nahi genuen eta **karteldegia** ikustera abiatu ginen. Aitor Arana

Zinemako **karteldegia** aztertua nuen erredakzioan. Aingeru Epaltza

Olaizola II.a-Otxandorena eta Irujo-Lasa finalerdia agertzen da **karteldegian** .

---

## karteldun *izond* afixa duena.

Mariachi musika talde bat jotzen ari zizun *Feliz Milenio Nuevo!* argiztatu **karteldun** xafla baten azpian. Jose Angel Irigaray

---

## kartelera *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***ikuskizunak*** *agertzen da) erabili behar dela adierazten) iz* ikuskizunen iragargia; ikuskizunen afixa.

**Karteleran** *La reina del Chantecler.* **Kartelerari** begira geratu ginen luzaroan, tristeok. Joan Mari Irigoien

Abuztuko azken ostiralean Brigitte Bardot agertu zen Metropolitan zineko **karteleran,** kartelen tamainako gorputzarekin. Joseba Sarrionandia

---

## karteleratu, kartelera(tu), karteletatzen du *ad* afixara eraman.

Kostatu egin zitzaion oroitzea baina hitzez hitz **karteleratu** zuen: "Aurkitzen ditudan paisaiak, iragarkidun etxeak, posterrak, errege bat bezala iragaiten ditudan erakusleihoak, liburu honetako izaerak diren egingai berekoak dira denak". Iñaki Zabaleta

---

## karteltxo *iz* tamaina txikiko kartela.

Arratsaldeko seietarako, "no hay localidades" zioen **karteltxoa** jarri behar izan zen Trinitate plazako sarreran. Iñigo Aranbarri

Ipurua zelaira bideko tabernariek, berriz, partidarako ogitartekoak izango zituztela zioten **karteltxoak** eskegi zituzten leiho eta ateetan. Berria - Kirola

Biek **karteltxo** bana zeukaten goialdean idatzirik, eta batean "andrak" irakur zitekeen euskalde hartako euskalkian idatzita, eta bestean "gizonak". Aitor Arana

Zerk piztuko zuen bezeroarengan interes handiagoa ongi idatzitako **karteltxoak** ala gaizki idatzitakoak? Txema Ramirez de la Piscina

---

## karteltzar *iz* tamaina handiko kartela.

Eta "Grupo Inmo-Viz" **karteltzar** haien ondotik berriro sekula ez pasatzeko zina egin dut. Txillardegi

---

## karter *iz* mekanismo bat babesteko metalezko estalkia.

Ur, lurrun, huts, gas, gasolina eta abarren hoditeria guztiak, edo lurpeko erreten-zuloz zihoazen, edo zimenduan hormarteraturik, eta maskor-giltzak baino ez zeuden eskumenean; **karter** konplikatuz estalirik eta giltzaz itxirik zeuden. Juan Garzia

---

## kartera 1 *iz* diru zorroa.

Ehun liberakoa ere **kartera** beretik atera eta biak luzatu zizkion Andreasi. Matías Mujika

Arretarik gabe, **kartera** sakelaratu zuen, baina dirua barnean sartu gabe, ondoan utzita. Matías Mujika

Sen hutsez, giltzatakoa eta **kartera** sarrerako mahaitxoaren gainean utzi nituen. Aingeru Epaltza

Ordainduak nituen lau zerbezak, **karterako** billete bakartiaz baliatuz. Aingeru Epaltza

Zigarro paketea, mukizapia eta diru- **kartera** . Joxemari Iturralde

Jaka barruko patrikatik **kartera** atera, zabaldu kontu handiz, eta argazki batzuk eta karnetaz aparte, hutsik zegoela erakutsi zion **Karteran** dudan egutegitxoari begira. Josu Zabaleta

Sanchezek poltsikoak arakatu zizkion; bertan **kartera** txiki bat topatu zuen, eta, barruan, nortasun agiria Aritz Gorrotxategi

**2** paper zorroa.

Trajez jantzita zetorren eta eskuan larruzko **kartera** bat zekarren. Joxemari Iturralde

**Kartera** zabaldu eta paperak ateratzeko ahaleginean nengoela zerbitzaria etorri zitzaigun. Edorta Jimenez

**Kartera** baltz handi hartan sartu zituen eskuak paper miaka. Koldo Izagirre

Lucyren maleta esku batean eta lanerako **kartera** bestean. Joxemari Iturralde

Gabardina beltza, traje gris iluna, larruzko **kartera** besapean. Pablo Sastre

· Aurten **karteran** ez zaizkio gaiak falta Idoia Zenarrutzabeitiari [...] eta Eusko Jaurlaritzak atal horietan lortu nahi dituen helburu orokorrei buruz mintzo da. Berria - Ekonomia

Carod-Rovirak **karterarik** gabeko ministro kargua utzi du ofizialki. Berria - Mundua

**3** (ekonomian)

Saharaz hegoaldeko Afrikak nazioarteko zuzeneko inbertsioen fluxuen eta garapen-bideko herrialdeetako **karterako** inbertsioen parte guztiz txiki bat baino ez du hartzen. Koro Navarro

Lehen unean, herrialde zordunen egoera ekonomikoaren gaineko uste ona sortu zen berriz ere, **karterako** inbertsioak hasi ziren egiten eta itzuli egin ziren erbestera joandako kapitalak Koro Navarro

**4** ***eskari kartera*** eskaera zerrenda.

Orain, atzoko adjudikazioekin eskari **kartera** 2.500 milioi euro ingurura handitu zaio. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kartera atera** (5); **kartera hartu** (3); **larruzko kartera** (6)
> **karteran sartu** (4)
> **karteratik atera** (3)

---

## **karteratxo** *iz adkor* paper-zorroa.

Beste batean, kale batean exekutibo pila bat ikusten zen, gizonezkoak nahiz emakumezkoak, guztiak dotore jantzita eta **karteratxo** bana aldean. Juan Luis Zabala

---

## **karterista** *iz* dirulapurra.

**Karterista** eta ustelkeria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## **kartero** *iz* postaria.

**Karteroak** ekarritakoak atezainak gordeak izango zituen. Joxemari Urteaga

Tomasi telegrama bat bidaliko diot esanez gutunik ez datorrenean errua ez dela **karteroarena**. Joseba Sarrionandia

---

## **kartesianismo** *iz* R. Descartes filosofoaren eta haren jarraitzaileen doktrina filosofikoa.

**kartesianismoaren** gakoa ezagutza ziur oro oinarritzen duen intuizioan datza eta haren objektuan, ideia argi eta berezietan. Askoren artean

**Kartesianismoa** internista eta fundazionista da, eta horiek dakartzaten arazoei egin behar die aurre. Askoren artean

---

## **kartesiano** *izond* kartesiarra.

Beste puntu eztabaidagarri bat Descartesen proposamenean ideien izatearena edo balioarena da, **kartesianismoaren** oinarria bera alegia -platoniko-agustindarra-. Askoren artean

Aski zen kimika ez-organiko jatorrera itzultzea begiak, uharte **kartesiano** urrun, zikin-nahasle organikozulo eta makromolekuladunon paradisu galdu horretara Juan Garzia

---

## **kartesiar** *(44 agerraldi, 7 liburu eta artikulu 1ean; orobat* ***cartesiar*** *7 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean) izlag* R. Descartes matematiko eta filosofoarena, R. Descartesi dagokiona.

**Kartesiar** metodoak babestutako ezagutza, hortaz, badirudi subjektiboa dela, gogo barnekoa. Askoren artean

**Kartesiar** kutsuko epistemologiak. Askoren artean

Epistemologia ez zen bere horretan amaitu, nahiz eta soilik Filosofia Modernoaren baitan berreskuratu zen serio ezagutzaren auzia, **kartesiar** programaren barrena. Askoren artean

Filosofia Modernoa deituriko garaiaren periodoak aztertuz hasten da sarrera, bi eredu aintzat hartuz: **kartesiarra** eta kantiarra. Askoren artean

Epistemologia **kartesiarra** internista da; hau da, ezagutzaren justifikazioa subjektuaren errepresentazioen barneko gauzen mende dagoela esaten du. Askoren artean

Arrazionaltasun **cartesiarraren** mugak hankazgoratzea bilatzen du egileak. Berria - Kultura

Posizio horri dualismo **cartesiarra** ere esan ohi zaio, horren formulaziorik ezagunena Descartes-ek [...] egin zuelako. Askoren artean

Zer harreman duen gramatika orokorrak Mathesisarekin (algebra **cartesiarrarekin** eta ondorengo **cartesiarrekin**, ordenaren zientzia orokor baten egitasmoarekin), azterketa filosofikoarekin, [...]. Xabier Arregi

Ezagutzaren ikusmolde **kartesiarra** ezagutzaren ikusmolde tradizionalaren kasu bat da, garrantzizkoena segurik. Askoren artean

Kanten irakurketa **"kartesiar"** bat ekiditeko. Askoren artean

---

## **kartier** 1 *iz ipar* auzoa.

Bentetako auzoa edo **kartierra**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azken bi ilabete horietan izan ditugun sortzeak: Iban Albandos, Laura Medianole, Andrea Elissalde, hiruak Lakuko **kartierean**. Herria

Heldu zaigun igande huntan uztailaren 3an izanen da Arruntza kartiereko **kermeza**. Herria

Eta asmatzen zaitut, Heletan, zure **kartiereko** bideetan. Piarres Aintziart

Belexi eta Etzaunalde **kartierren** artean da haien etxaldea, beraz Ahartzatik ez hain urrun, kasik auzoak. Michel Oronoz

Hara **kartierak** biziarazteko molde pollit bat. Herria

Errepide zabala utzi dut Puente Castron sartzeko, **kartier** baten lehen etxeen ikusteak hiri barnera heldua zarela erdi sinetsarazten dizuela. Piarres Aintziart

Paris inguruetako hiri, herri eta **kartierretan**. Iñigo Aranbarri

Hor ari ginen hiritarrak eta **kartierekoak**. Menane Oxandabaratz

**Kartier** latinoan barrena abiatu eta, ibilian-ibilian, St. Louis zubian agertu ginen. Patxi Zubizarreta

Cordoba-n ikusi ahal izan dituzte lehenago arabek egin "mosquée" miresgarria eta ere juduen **kartierra**. Herria

Herriak herrien kontra, **kartierrak kartierren** kontra... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aste buru huntan ditugu Amozko **kartiereko** bestak. **Kartier** besta. Herria

**2** presondegian, goi segurtasuneko gunea.

**Kartierretik** atera eta presondegi normalean sartzen nintzen, beti ene eskoltarekin... Filipe Bidart

Zeldatik **kartierrera** ateratzen nintzelarik bezala, presondegian ere, **kartierretik** ateratzen nintzelarik, preso guziak hesten zituzten beren zeldetan, eta ez zen sekula preso bat izan behar ene pasaian; *bloquez!* erraiten zuten. Eta hola-hola eramaiten gaituzte, blokeko hirugarren estaitik, airean, eskaileretarik beheiti, bloketik pasabidera, pasabidetik kurutzebidera, beste pasabidetik eskaileretara, gaineko blokeetarik behereko dibisionera, dibisionetarik **kartierrera..** eta **kartierrean,** ni zuzenki bakartasun tokiko zelda batera eta laguna *mitard*-era. Filipe Bidart

Kontuan izanik egoera horretan presoaren mundu hurbilena presondegirat -bere **kartierrerat,** hain xuxen- mugatzen dela. Filipe Bidart

Ene mundua **kartierra** zen, eta oraino ez **kartier** osoa, **kartier** zokoa, zola-zolan, ibiltokiak, lehena edo bigarrena, dutxa ere **kartier** zolan. Filipe Bidart

Dutxa bera **kartierran** zen, **kartierreko** zelda batean antolatua... Filipe Bidart

Ez dakit **kartierreko** zaintzaleek agindu berezirik ba ote zuten bakartasuneko presoekilako harremanentzat, baina sekula ez ziren enekin mintzatzen. Filipe Bidart

**Kartierreko** zaintzale bat zen, handia, beltza, Antilletakoa... Filipe Bidart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auzo edo kartier** (3); **herriko kartier** (3); **kartier edo auzo** (6)

**baigura kartierean** (3); **cherchebruit kartierean** (3); **elizako kartierean** (4); **garako kartierean** (3); **gibelarteko kartierean** (4); **herrixka kartierean** (3); **kartierean bizi** (7); **kartierean bizi zen** (3); **lakuko kartierean** (16); **latseko kartierean** (3); **panekau kartierean** (5)

**kartiereko bestak** (5)

**kartierrean sartzeko** (4)

**kartierreko ate** (3); **kartierreko zaintzale** (3)

---

**kartierka** *adlag* auzoka.

**Kartierka** muntatuko du bilkura sail bat, herria bederatzi gune edo zatitan ezarririk, zati bakoitxarentzat herriko kontseiluan diren hautetsi batzu izendaturik, bat edo bi nola gerta... Herria

Laborari-etxeak **kartierka** idatziak dira, lehenik agertzen delarik auzoko jauregia, ondotik etxe zaharrak eta berriak. Herria

---

kartila ik **kartilla**.

---

**kartilago** **1** *iz* hezurdurako ehun malgua.

Oso poro txikiko belaki baten antzeko egitura erakusten du **kartilagoak,** mikroskopio elektronikoz begiratzen bazaio. Irene Aldasoro

Haur jaioberrietan, **kartilago** asko dauka eskeletoak; **kartilago** hori hezur bihurtuz doa pixkanaka, nahiz eta badiren gune batzuk bizi osoan **kartilago** izango direnak, hala nola kanpo-belarria, sudurraren punta eta saihets-hezurrak bularrezurrari elkartzen zaizkion guneak. Irene Aldasoro

Ezker belaunburuaren alboko **kartilagoa** dauka minduta. Berria - Kirola

Marrazo eta lanproietan, **kartilagozkoa** da eskeletoa. Irene Aldasoro

Kanpo-belarria [...] belarri-hegala da, larruazal eta **kartilagozko** hegal izurtsu bat. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Lehenengo urteetan, hezurraren muturra [...] **kartilago** -geruza mehe batek bereizten du hezurretik. Irene Aldasoro

**Kartilago** -geruza batez estalita daude giltzadura eratzen duten hezurren muturrak. Irene Aldasoro

· Aurpegiko azala ez ezik, sudurra, ahoa, ezpainak, bekainak, [...], sudur- **kartilagoa** eta nerbiopeko estruktura ere errekuperatu beharko dituzte zirujauek. Berria - Gaiak

Sinobialaren hantura kronikoak giltzadura- **kartilagoa** granulazio ehunez ordezten du, eta luzarora artikulazioak deformatu egiten dira, eta beren funtzioa galtzen dute. Berria - Gaiak

---

kartilatxo ik **kartillatxo**.

---

**kartilla** *(orobat* ***kartila****)* **1** *iz* abezea, hasi-masien liburuxka.

Entziklopediak aterata, irakurtzeari eman zion bakoitzak, txikienak **kartilekin** . Juan Kruz Igerabide

**2** liburuxka; karta.

Osakidetzako **kartilla** bigarren kajoian dago. Arantxa Iturbe

Sasoi eskasia handikoak pasatu genituen, [...], dena razionamentuan, **kartilla** eskuan ematen zigutenekoa. Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan)

Arrats honetan, zigilu- **kartila** batean zigiluak itsasten ari da, mekanikoki. Pablo Sastre

Errazionamendu- **kartillak** nolakoak ziren ez naiz akordatzen. Arantxa Iturbe

---

**kartillatxo** *(corpusean* ***kartilatxo*** *soilik)* *iz*

Euzko Gudarostearen Gudari Ikasketa **kartilatxoa** zegoen han. Edorta Jimenez

Gudarien militar trebakuntzan erabiltzen zen **kartilatxoa** zen. Edorta Jimenez

---

**karting** *iz* auto txiki eta oso guztiz bakunekin egiten den kirola.

Larunbat aratseko 9etan, Miarritzen, reggae kontzertua *Israel Vibration* taldearekin, Geltokiko **karting** gunean. Herria

Olaberriko **karting** erresistentzia proba. Berria - Kirola

Errepideko rallyek, **karting** probek eta autokrosek osatzen dute denboraldiko hitzorduen zerrenda. Berria - Kirola

Altunak Euskadiko **Karting** Txapelketa hiru aldiz irabazi du. Berria - Kirola

Korritzen hasi zenetik, gizonezkoen artean aritu da, **kartingean** eta mendi igoeretan. Berria - Kirola

---

**kartografia** **1** *iz* mapa egiteko antzea; mapa bidezko irudikapena.

Horrez gain, radarra erabiliko zuen, lehen aldiz, Saturnoren satelitearen azalaren **kartografia** egiteko. Berria - Gaiak

Plutoneko eta **Karonteko** kartografia, geologia, tenperatura eta atmosfera aztertzeko propio prestatutako teknologia du.

Astronomiako aparatuak, matematika, nabigazio eta **kartografiarako** tresnak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kartografiarik** gabeko mundu batean ari gara sartzen, maparik gabe, zahartzaro berri bat asmatu beharko dugularik. Ana Urkiza

Guda-oinean ongi zihoan aurrerabidea, orratzek zulatutako AEBetako **kartografian** barrena, gero eta mendebalderago kokatzen zen mapa gaineko konkisten hari gorria. Harkaitz Cano

**Kartografia** sinaptikoaren eremuan jazotako azkeneko joerak. Berria - Kultura

Estatuen izenek **-kartografia** politikoaren izenek oro har- ez dute, bistan denez, intentsiorik, ez diote ezer eta ez dute beren baitan funtsik, izaterik edo zertasunik; estensio, eremu edo hedadura huts dira, ez dute nondik-norainokotasuna beste tasunik. Iñaki Segurola

**2** *irud*

Zimurrak zituen aurpegian, kendu ezin diren arrastoak, ezaba ezin den geografia, urteen **kartografia,** inork bere buruaz ez ahazteko erretratua. Felipe Juaristi

Gorputz humanoaren **kartografia** . Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kartografiko.**

Tatiana Parcerok, bere aldetik, barneko **kartografia** bilduma egin du, bere egun guztiko errituraletatik abiatuz. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dialekto ezaugarrien estudioa hizkuntza **kartografiako** lanen abiapuntua izan da. Isabel Arrigain

## kartografiko *izond* kartografiari dagokiona. ik **kartografia 3**.

Ibaien izen **kartografikoak** leku-izenak dira berez, ibaia pasatzen deneko leku baten izenak. Iñaki Segurola

Badakit gero kartografiak jarritako izen horien itzala (batzuena behintzat) luzatu dela hein batean jende-arteraino [...], baina horrek ez dio deus kentzen haien jatorri **kartografikoari**. Iñaki Segurola

## kartoi *(orobat* **kartoin** *g.er.)* **1** *iz* orri aski lodia, paper orez edo paper orriak elkarri itsatsiz egina.

Larrua gehienetan paper latza eta **kartoi** hutsa zen. Anton Garikano

Botoi eta pastillaz beteriko **kartoi** urreztatuzko kaxak. Karlos Zabala

Ministerio-tipoko karpeta zen gainera: urdina, **kartoi** birziklatuzkoa. Unai Elorriaga

Nik dozena bat liburu merke baino ez neukan, **kartoi** maiztuan koadernatuak. Eduardo Matauko

**Kartoi** bustia bezain bigunak. Joseba Sarrionandia

Zabor organikoena batetik, eta gaikako hondakinena bestetik (papera, **kartoia** eta paketeak). Berria - Euskal Herria

575.000 kilo zabor eta 35.020 kilo paper eta **kartoi**. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kartoi** pastazkoak zirela. Ramon Saizarbitoria

Puzzleak murtxikatu, eta **kartoi**-ahia lurrean ttuka barreiatzen nuen. Xabier Olarra

Lata, **kartoi** eta plastiko hondarrak ageri dira nonahi. Jokin Muñoz

Jack zaharrak txingarrak **kartoi** puska batekin elkarrengana bildu eta ikatz-tontor gorituaren gainean zabaldu zituen. Irene Aldasoro

Berriz ere **kartoi** puska hartu eta suari poliki-poliki haizea ematen hasi zen. Irene Aldasoro

**Kartoi** pusketa arrunt bat aurkitu nuen barruan, enbalajekoa. Bernardo Atxaga

Oihala **kartoi** zati baten gainean hedatzea da euren asmakizuna. ohe ertzean jesarri da, **kartoi** orria eta lapitza eskutan. Urtzi Urrutikoetxea

Han **kartoin** mutur bat ikusten dut, fizela baten puntan. Marzel Etxehandi

**3** kartoi zatia, kartoi puska.

**-Kartoi** horren azpian -tematu zen azken hatsetan zena. Elena Touyarou

[Auto] askok matrikula **kartoi** batean idatzia. Pako Aristi

Kartoia hartu eta forma ematen dio, **kartoi** laua zena kartoizko kaxa bihurtzen du. Harkaitz Cano

Senencito lurrean etzan zen **kartoi** batzuen gainean. Jon Maia

Lauzpabost **kartoi** luze hartu, lurrean jarri eta Mirariri haien gainean etzateko adierazi zion. Fernando Morillo

Hotz handirik ez nuen pasatzen, arkupeetako **kartoi** eta burusien artean ez baitzen txarto lo egiten, baina gosearena bestelako kontua zen. Jon Arretxe

-Hor, ezkerrean, **kartoi** urdinetan dauden horiek. Koldo Izagirre

Azkenik neuk ere tira egin diot txirriari, ezpainekin **kartoia** estu-estu eginda. Pako Aristi

Zapatetan **kartoia** jarria nuen zuloa tapatzeko. Fernando Rey

Botila hutsak, **kartoiak,** latak, plastiko erraustuak, [...]. Joseba Sarrionandia

**4** (hitz elkartuetan)

Edithek senarrari itzuli zion **kartoi** sorta. Koro Navarro

**Kartoi** pare batez osatua balitz bezala. Txillardegi

· Jamesek mahai gainean jarrita zeuden bingo **kartoien** sorta hartu zuen. Koro Navarro

Kalean bizi den gizasemea bere lo-**kartoiak** dotore biltzen. Harkaitz Cano

**5** kartoizko txartela.

Tiketa hartzen dut, **kartoi** luze bat, Euskal Herrian eta Frantzian ematen dituztenak baino luzeagoa da. Mikel Hernandez Abaitua

James bingotik oso gertu ibili zen behin bere **kartoi** batekin. Koro Navarro

Zulatutako **kartoiak** erabiltzen zituen [ordenagailuan] datuak sartzeko. Pello Salaburu

Zenbakiak esan ahala neskak bere **kartoiak** aztertzen zituen. Koro Navarro

**Kartoi** irabazlea hartu eta eskuan eutsi zion, oholtzako emakumeak zenbaki irabazleak irakurtzen zituen artean. Koro Navarro

-Jokatu zure **kartoiak** -esan zuen Edithek. Koro Navarro

Lehen zenbakia esan zutenean, bakeroen tipoa ordaindu ez zuen **kartoi** batean babarrun ale bat jartzen ikusi zuen Jamesek. Koro Navarro

**6** (pinturan erabiltzen dena)

Frantzisko Goyakoak, 1778ko apirilaren 27an, Madrilgo Palazioan **kartoi** bat laga zuen, 2,60 metro luzekoa eta 3,11 zabalekoa, printzeen logelarako; egun Pradoko Museoan ikus daiteke "Itsu Kitarraduna" izenpean. Patziku Perurena

**7** *(orobat* **karton** *g.er.)* hamar zigarreta pakete biltzen dituen kutxa modukoa.

Hilean behin etortzen naiz, eta sei **kartoi** erosten ditut, bidaia aprobetxatzeko. Berria - Harian

Bazekien Dionisosek logelan beti izaten zuela Ducados **kartoi** bat. Unai Iturriaga

· Besteak zorroen barrenean tabako-**kartoiak** ostendu eta portu ondoko estankoan sartu dira. Urtzi Urrutikoetxea

Legearen arabera, lagun bakoitzak lau tabako **kartoi** pasa ditzake Gipuzkoatik Lapurdira. Berria - Harian

Txoferra hurbiltzen duk baforean erosi berri duen whisky kaxa edo tabako **kartonak** kamionaren kabinan altxatzera. Koldo Izagirre

**8** ***kartoizko***

Aldizkariak **kartoizko** kutxa beltzetan zeuden pilaturik. Monika Etxebarria

Inguruan, **kartoizko** kaxak zeuden, paperez beteak. Bernardo Atxaga

Egongelan zeuden **kartoizko** hiru kaxak. Koro Navarro

**Kartoizko** fitxa txiki horiek. Askoren artean

**Kartoizko** maskara bat dirudi. Monika Etxebarria

New Yorkeko alde hori **kartoizko** piramide luzanga arrosa eta zuria zen. Lopez de Arana

**Kartoizkoak** ez ziruditen gailetak. Jon Arretxe

Belarri idortuak zituen, **kartoizkoak** iduri. Matías Múgica

Ordu arte **kartoizko** heroi miserablea izan banintzen, handik aurrera egiazko, lege oneko heroia izango nintzen. Matías Múgica

**Kartoizko** bere mundu bat, bere burutazioetako geografiaren neurrira osatutakoa, alegia. Anjel Lertxundi

**9** ***harri/pasta kartoi*** kartoi pasta.

Harri-**kartoizko** trikua. erdiz erdi zeharkatzen zuen aretoa mahai ilara batek; sendo-astunak ziren eta pasta-**kartoizko** grifozko apaindurak zituzten hanketan Jon Muñoz

**10** ***kartoi harri*** *(orobat* **kartoiharri** *g.er.)* kartoi pasta.

Plastikoz eta **kartoi**-harriz eta pinturaz egindako gaua zen Atlantic City-koa. Iñaki Zabaleta

Ez al zen hura dena **kartoi** -harri huts-hutsa izango? Karlos Linazasoro

Negu edo uda, udazken edo udaberri, eliza gotiko ala **kartoi** -harri faltsu, zer axola dio, eguzkia bere orbita betiberdin azkengabean jira eta bira badabil? Karlos Linazasoro

Zure aurpegiak **kartoiharrizko** mozorro zuria dirudiela. Joseba Sarrionandia

Gargola mitologiko hura ez zelako harrizkoa, [...] **kartoi** -harrizkoa baizik. Karlos Linazasoro

## 11 *kartoi kaxa*

Jolasean dabilen ume txikiaren antzera, **kartoi kaxa** huts baten barruan sartu du Koiotek burua. Patxi Iturritegi

Lurrean zeukan **kartoi kaxaraino** makurtu nintzen eta dolar bat utzi nion. Iñaki Zabaleta

## 12 *kartoi mehe* ik **kartulina**.

Oharra diot, orri erdi inguruko **kartoi mehe** zuri bat erabili nuelako. Ramon Saizarbitoria

60.000 lagunek urdin eta zilar koloreko **kartoi meheak** haizatu zituzten, itsaso itxura errealagoa egiteko. Berria - Kirola

Lehortuta eta **kartoi meheak** estalita, halaxe dituzte denak. **kartoi mehezko** karpetatan behar bezala gordetako paper lodi marradunetan. Bego Montorio

## 13 *kartoi pasta*

Bestalde, ikusten nuen haien lanak gaizki zahartu zirela; nolabait beren erakarmena hor zegoen arren, **kartoi pastazkoak** zirela, eta, gainera, ez zitzaizkidan horrenbesteraino ere gustatzen. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kartoi harri (3); kartoi puska (9)
> kartoizko kaxa (25); kartoizko kaxak (3); kartoizko kaxatan (3); kartoizko kaxatik (3); kartoizko kaxetan (3); kartoizko kutxa (24); kartoizko kutxak (3)

---

# kartoiharri ik **kartoi 9**.

---

# **kartoikada** *iz* kartoi kaxaren edukiera.

Hiru **kartoikada** kamiseta dituzte salgai. Berria - Euskal Herria

---

# **kartoiki** *(corpusean **kartoinki** soilik)* *iz* kartoia, materialtzat hartua.

Haren tokian paratu dute Olentzero! ez egiazko hura bainan haren **kartoinkiz** egin itxura bat, trapu larriz jauntzia. Herria

Ainitz herritan badira orai ondarkintegi batzu, hemen berinakiak ezarri behar, han paper eta **kartoinkiak** eman dezagun. Herria

---

# kartoin ik **kartoi**.

---

# kartoinki ik **kartoiki**.

---

# kartointara ik **kartoikara**.

---

# **kartoitara** *(corpusean **kartointara** soilik)* *iz* kartoikada.

Pena handia emaiten du alabaina ikusteak euskal liburu **kartointara** pisuak liburutegietan, inork idekitzen ere ez dituenak. Herria

---

# **kartoitxo** *iz* kartoi zati txikia.

**Kartoitxo** bat, Ruche jaunaren eskutiko bi lerrorekin: [...]. Jon Muñoz

Tiketa hartzen dut, kartoi luze bat, [...] irratiaren azpian dagoen zuloan uzten dut **kartoitxoa** . Mikel Hernandez Abaitua

Poltsikoan sartu dut Morse alfabetoaren zerrenda-**kartoitxoa** . Txillardegi

Hori esanda, azken zupada jo dio txirriari, urrun bota du **kartoitxo** kiskaldua, eta lasai gelditu da. Pako Aristi

---

# **kartola** 1 *iz* zamariaren alboetan gauzak garraiatzeko ezartzen diren bi ontzi moduetako bakoitza

Begirada tristeko zaldi argalaren gainean, orekan emana, bi **kartolak** osatzen zuten kakoleta, erosoki bikote bat esertzeko atonduak. Txillardegi

Bi gurpileko gurdi txiki luze batzuen aurrean gelditu zen; olana biribil batez estaliak zeuden, eta txerri erdiak zeramatzaten, bi aldeetako **kartoletan** zintzilik. Karlos Zabala

· Bashkimek eta biok **kartoletaraino** beterik dugu pairamenaren ganbara. Edorta Jimenez

## 2 orgaren edo kamioiaren kaxa osatzen duten ohol edo xafla bakoitza.

Hesi eta erromaratarako bezala, gurdiaren **kartolak** egiteko balio zuten hesitto horiek. Pello Zabala

Sebastopol bulebarra gurdi motzez, **kartolarik** gabeko orgaz, bankudun karroz bete-betea aurkitu zuen. Karlos Zabala

Bohou?s, kabroi honek autoaren **kartolak** lehertuko zizkiguk, to!, hemen duk labana! Fernando Rey

---

# **kartomante** *iz* kartomantzian aritzen den pertsona.

**Kartomanteak,** igarleak eta aholkulari sentimentalak besterik ez dira. Karlos Zabala

---

# **kartomantzia** *iz* karten bidez etorkizuna asmatzea.

Denetik egin omen zuen, askotan aldi berean: **kartomantzia,** kiromantzia, te-hondarren irakurketa, ouija... Iban Zaldua

---

karton ik **kartoi 7**.

---

kartsoildu ik **karsoildu**.

---

# kartsu 1 *izond* karrez, lehiaz betea.

Mikel Strogoff gizon bipila eta **kartsua** zen. Karlos Zabala

Diputatu eta errepublikar **kartsu** honek mintzaldi iraultzaile sutsuak idazten zituen. Elena Touyarou

Hori bera ezin argiago adierazten du gure irakasle **kartsu** eta jakintsuak bere 3. liburuko 12. kapituluan. Piarres Xarriton

Mela-mela egiteraino edaten zuten zurrutero **kartsuak** biltzen zituen mahaiaren inguruan. Mirentxu Larrañaga

Afizionatua, laborari-bizimoduaren zale **kartsua** benetako laboraria baino areago. Oskar Arana

Euskalzale **kartsua** bainan Frantziari itsuski atxikia. Herria

Gotzaina Frantziskoren bihotz **kartsuaz** harriturik zegoen. Askoren artean

Bat-batean, poztasun basati batez eta fede **kartsu** batez bete nintzen. Ander Irizar

Magali musuka hasi zitzaidan eta musu horiek ekarri zuten gaitzeko goxaldi **kartsua**. Janbattitt Dirassar

Badakit zuen beroaldi **kartsuan** dena oso erraza iruditzen zaizuela, baina [...]. Askoren artean

Hegoaldean, euskalzale eta abertzale **kartsu** agertua zen ordukotz. Herria

Erlijiozale **kartsu** haiek. Iñaki Mendiguren

Ongi-etorri **kartsu** bat egin zaiola. Herria

Meza bat **kartsua** hango menditarrekin bat eginez. Herria

Meza **kartsu** batean parte hartuz otoitz egiteko Kaiet zenarentzat. Herria

Omenaldi **kartsu** bat eskaini da gure mintzairaren alde diren euskaltzale suharreri. Herria

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, eta elkarketak izenondo balioa duela)

Virginako txalupa bat idoro zuten, otzan askoa, zeinaren kapitaina kuakero fede-**kartsu** bat baitzen, Knot izenekoa. Juan Garzia

Hots, Ofelia, ez sinetsi haren zin-agintzak; artekari baitira, kanpo-jantziz erakusten dutenarena gabe, nabarmenkeriaren erregutzaile huts, hortxe, estalgile jainko-**kartsu** batzuen gisa xuxurlaka, hobekienik limurtzeko. Juan Garzia

## 3 (adizlagun gisa) ik **kartsuki**.

Eskerrik asko, bihotzez -esan zion emazteak, **kartsu**. Mirentxu Larrañaga

Trieste inguruko lurraldeen italiartasunari buruz aritu baitzitzaidan luzaz eta **kartsu**. Anjel Lertxundi

Debozio handiz eta **kartsu** anaiei predikatzen ari zela. Askoren artean

Eta Jainkoaren Espirituak eraginda, hain **kartsu,** zorrotz eta gozo hitz egin zuen Jainkoaren inspirazioz, non denek txunditu honela esan baitzuten: "Benetan sinpleekin egiten du Jainkoak solas". Askoren artean

Santiagora zihoan, disziplinatu bezain **kartsu**. Piarres Aintziart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agur kartsu** (4); **apez kartsu** (6); **bero eta kartsu** (4); **beti berdin kartsu** (4); **eder eta kartsu** (6); **elizkizun kartsu** (9); **elizkizun kartsu batean** (3); **etorri kartsu bat** (4); **kartsu eta hunkigarria** (4); **kartsu eta hunkigarriak** (4); **meza kartsu** (13); **meza kartsu batean** (7); **meza nagusi kartsu** (3); **omenaldi kartsu bat** (9); **ongi etorri kartsu** (4); **otoitz kartsu** (3)

**apez kartsua** (5); **beila kartsua** (3); **bihotz kartsua** (4); **biziki kartsua** (10); **ederra eta kartsua** (7); **elizkizun kartsua** (3); **guziz kartsua** (9); **karitate kartsua** (3); **kartsua eta ederra** (6); **kartsua eta hunkigarria** (6); **meza bat kartsua** (3); **meza biziki kartsua** (4); **omenaldi kartsua** (3)

**elizkizun kartsuak** (4); **eta kartsuak** (4); **otoitz kartsuak** (4)

**bihotz kartsuz** (8); **espiritu kartsuz** (7); **gogo kartsuz** (3); **karitate kartsuz** (3)

---

# kartsuki *adlag* karrez, lehiaz. ik **kartsu 3**.

Andreak negarrari eman zion bat-batean eta **kartsuki**. Mirentxu Larrañaga

Ez zion harridura-izpirik sorrarazi, inondik inora ere, Rose-k hain **kartsuki** erantzun izanak bera bezalako berrogeita bederatzi urteko gizon ezkondu eta asaldagaitzari. Mirentxu Larrañaga

Hurbiletik eta **kartsuki** segitu nituen urtean behin egiten ziren elizkizunak. Michel Oronoz

Herri eta auzoetan barrena **kartsuki** predikatzen. Askoren artean

Ezkutuarekin babestu zuen bere burua, ez baitzion gorrotorik Arturri; aitzitik, maite zuen **kartsuki**. Juan Kruz Igerabide

Inork ez zaitu hain gatibatuta, hain leial, hain **kartsuki** maitatu. Eduardo Matauko

Kurten ere **kartsuki** ospatuko da Besta-Berri. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahal bezen kartsuki** (6); **kartsuki ari** (3); **kartsuki iragan** (4); **kartsuki omendu** (4); **kartsuki oroitarazi** (3); **kartsuki ospatu** (8); **kartsuki ospatua** (3); **kartsuki otoitz** (3); **kartsuki otoitzean** (6)

---

# kartsutasun *iz* kartsua denaren nolakotasuna.

Gazteen **kartsutasunak** ez ninduen berotu. Piarres Aintziart

Ikasten nuen borondate osoz, **kartsutasunez**. Piarres Aintziart

Gure albiste emaileen argudioek, sakonak baino areago, **kartsutasunez** beteak diruditenez gero, ez deritzogu egoki argudio horiek publiko egiteari. Koro Navarro

Xiitek, **kartsutasun** handiz hartu zuten parte Hussein imamaren heriotza gogorarazten duen *Ashura* egunean. Berria - Mundua

Bere **kartsutasuna** lagun, erakutsi du egon den 17 urteren barnean zer bihotzeko apeza zen. Herria

Erlijiozko **kartsutasun** oker baten ondorioz. Piarres Xarriton

Orduan San Frantzisko, honetaz konturaturik, gupidatu egin zitzaion, eta espiritu-**kartsutasunez** haren gainera eskua luzatu eta ukitu egin zuen. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kartsutasun handia** (4); **kartsutasun handiz** (3); **kartsutasun osoan** (3)

---

# kartujo *iz* kartusiarra.

-Hobe, bai, **kartujoa** bazina, eta ni zure jainkosa, ez Tatiana... Joan Mari Irigoien

---

# kartulario *iz*

Christianus, 1OOO. urtean idatzia da latinez, pertsona baten aipatzeko, Biarnoko Lucq-eko Abadiako **Kartularioan** . Herria

---

# kartulina *iz* kartoi mehea.

Hamar bider hamabost zentimetroko **kartulinaz** bete-betea. Iñaki Iñurrieta

Bizkaia Arenako ikusle bakoitzak **kartulina** handi topatuko du bere eserlekuan, taldearen asmoa partidaren hasieran mural erraldoi bat eratzea da. bisita-txartel batena dirudien **kartulinan** . Iban Zaldua

**Kartulinazko** txartel-bilgo bat atera zuen. Irene Aldasoro

---

# kartusia *iz* kartusiarren ordenako monasterio edo komentua.

Stendhal-ek berrogeita bederatzi egunean idatzi zuen Parmako **Kartusia** . Oskar Arana

Irakurgelan sartu nintzen eta mahai batetik Parmako **kartusia** hartu dut. Monika Etxebarria

Stendhalen Parmako **Kartusia** -ri buruzko saiakera bat zen, sei mila orrikoa. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> parmako kartusia (4).

---

# kartusiar *iz* san Bruno Chartreux-ek sortu zuen ordenako lekaide edo lekaimea.

Edo, isilik egoiten ikas dezan, zeren eta aho hertsian eulirik ez, Bruno jarriko zioagu, **kartusiarren** fundatzailearen ohorez... Joan Mari Irigoien

---

kartutxa ik **kartutxo**.

---

# kartutxera 1 *iz* kartutxo uhala. ik **kartutxotegi**.

**Kartutxera** sabelean. Koldo Izagirre

Bere bakeroekin eta bere uhalezko gerri **kartutxeran** daraman errebolberrarekin. Joseba Sarrionandia

**2** mehaketako gantza metaketa.

Berrogei urte beteta eta ama hiru aldiz izan eta gero, Maruk, ispiluak itzultzen zizkion **kartutxerak,** girringolak, sabeleko ildoak eta izter zelulitikoak ikusiz, erabaki garrantzizko bat hartu zuen: gimnasio batean emango zuen izena. Berria - Kultura

---

# kartutxo *(orobat **kartutxa** g.er. eta **kartuxa** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kartutxo** agertzen da)* 1 *iz* su arma baten lehergaia edo jaurtigaia daukan estalkia, kartoizkoa edo metalezkoa.

Gerri bueltakoari, berriz, **kartutxoak** falta zitzaizkion. Joxemari Urteaga

**Kartuxa** zenbait gerrian. Herria

Bota zituen musikariak fusila eta **kartutxoen** gerrikoa eta abailetan abiatu zen. Koro Navarro

Eskopeta irekian bi **kartutxo** sartu zituen Freddy Greenek ere. Joxemari Urteaga

Arituaren erraztasunez sartzen du **kartutxo** bat errekameran, eta erriflearen ahoa txakurren kaiolan sartzen du. Oskar Arana

Kargatu du bere FN Browning-a, bi **kartutxo** daramatzan paralela, eta bigarren basurdeari ere kale. Pako Aristi

Aitak eskopeta hartu, **kartutxoak** kargatu, sorbaldatik zintzilik jarri eta, pakete handi bat hartuta, niri eman zidan. Koldo Biguri

**Kartutxorik** tiratzeko ohiturarik ez zutela. Pako Aristi

28.000 **kartutxo** bota zituzten liberalek gure aurka Lizarraldean. Txillardegi

**Ehizako** kartutxoak erabiltzen. Berria - Kultura

Erabilgarriak ziren bakarrak metrailadoretarako **kartutxoak** izan ziren. Edorta Jimenez

Dudatan ibili zen balekiko **kartutxoak** jarri ala ez. Koro Navarro

Antzinako pistola bat zen, sei **kartutxokoa** . Xabier Olarra

Romano Prodi Europako Batzordeko presidenteari petardoak eta **kartutxoak** zituen gutuna iritsi zitzaion atzo Bolonian duen etxera. Berria - Mundua

**2** (kopuru unitatea adierazten duen izen baten eskuinean)

Goian, arakatu egin zuten, pistola eta kaxa bat **kartutxo** aurkitu zizkioten. Karlos Zabala

Uzi motako pistola metrailadorea, lau kutxa **kartutxo,** bai eta lehergailuak egiteko bederatzi detonagailu eta tenporizadoreak ere. Berria - Euskal Herria

20 paketa **kartutxa** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**3** irud/hed

Inprimagailuetako edo ordenagailuetako **kartutxa** hustu eta baliatuen bilketa bat antolatzen duela. Herria

Bost litroko bonbona bat zen bi gas **kartuxari** lotua. Herria

Horiek biltzen dituzte tinta **kartuxak,** inprimagailu eta fax tresnetan baliaturik hustuak direnak. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bati lortu zuten **kartutxo** -gerrikoa kentzea, baina besteari ezin izan zioten inola ere kendu. Koro Navarro

Karabinak aldean eta **kartutxo** -uhalak soinean zetozen. Juan Garzia

Ezkerreko besoan eskopeta irekita zuela, eta eskuinean **kartutxo** kaxa. Koldo Biguri

Hamasei **kartutxo** ilara biko kargadorean. Sonia Gonzalez

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Besteak patrikan daraman posta **kartutxo** parea laztantzen du. Pako Aristi

**Kartutxo** sail bat be poltsan daukok. Txillardegi

30 milioi metrailadore **kartutxo** zintetan. Edorta Jimenez

Dinamita **kartutxoak** ebasten ditut. Koldo Izagirre

**6** ***kartutxo azal/zorro***

Begira, begira, **kartutxo** azala! Joxemari Urteaga

Armak, **kartutxo**-zorroak. Xabier Olarra

Freddy Greenek eskuekin **kartutxo-azal** gorria jaso eta erakusteko buelta hartu zuenean, zutik ikusi zuen, hiruzpalau metrora, bere eskopeta eskuan zuela. Joxemari Urteaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kartutxo kaxa** (3); **metrailadore kartutxo zintetan** (4)

---

**kartutxotegi** *iz* kartutxo kaxa.

Pistola eta ordezko hiru **kartutxotegiak** atera eta amorruz putz egin zuen kanoian eta giltzan. Jose Morales

**Kartutxotegiak** ere atera zituen. Jose Morales

---

kartuxa ik **kartutxo**.

---

**kartveliar** *(corpusean* ***karveliar*** *soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kartveliar*** *agertzen da) izond*

Hemengo eta Kaukasoko hainbat ohituren antzekotasunak azaldu ditu maiz, eta berriki euskal esaera zaharren gainean egin duen ikerketa plazaratu du: *Baskur-Kartuli parmioliur parelelebi* (Euskal-**karveliar** paremiologi kidetasunak). Berria - Kultura

---

**kartzela** *(**3984** agerraldi, **172** liburu eta **1325** artikulutan; orobat* ***gartzela*** ***63*** *agerraldi,* ***11*** *liburu eta* ***11*** *artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kartzela*** *agertzen da)* **1** *iz* presondegia, espetxea. (zigorra)

Azken mendean ihesa, deportazioa eta **kartzela** besterik ez dugula izan euskaldunok. Jokin Urain

Kemalek tortura eta **kartzela** jasan zituen 17 urte zituela. Fernando Rey

Denbora nola igaro, horixe da **kartzela** eta kontzentrazio eremuetako arazo handienetako bat. Jokin Urain

**Kartzela** presoa zoratzeko makina dela. Xabier Montoia

**Kartzela** eta isunez gain, atxilotu asko desterratu egiten zituzten. Jokin Urain

**Kartzela** askatasun fisikoa kentzearekin bat presoaren gogoa lotzen saiatzen da. Jokin Urain

Bizi osorako **kartzela,** txakurra hiltzeagatik.Teo Uriarteri, bi heriotza zigor eta 30 urteko **kartzela**. Berria - Gaiak

634 urteko **kartzela** eskatu dute, alabaz 210 aldiz abusatu zuen aitarentzat. Berria - Euskal Herria

Bosna urteko **kartzela** eskatu dute Zuzeneko 13 kiderentzat, Lisboan. Berria - Euskal Herria

**Kartzelari** ihes eginda baina berriro kartzelan. Koldo Izagirre

**2** (eraikina)

Tafallako **kartzela** ere laster bete zuten egun bero haietan beste hainbat bezala. Jokin Urain

**Kartzela** polizia-etxean zegoen eta nire ziega hamabigarren solairuan. Fernando Rey

Irailean 82 preso hil zituzten **kartzela** ia hutsik utziz. Jokin Urain

**Kartzela** inguruko etxe batean. Jokin Urain

**Kartzela** zahar hartako ilepaindegian ba omen zen burdinazko besaulki bat, eskuak lotzeko besaleku eta guzti. Jokin Urain

Katez lotu eta **kartzela** ilun batean sarrarazi zuen. Askoren artean

Bruselak CIAren hegaldi eta **kartzela** sekretuen berri izan zuela salatu dute. Berria - Mundua

**Kartzela** bat zaintzeko. Fernando Rey

Bere izena ez zuten nonbait, **kartzela** bisitatu zutenen zerrendan apuntatu. Harkaitz Cano

Urtebete eta zerbait gehiago egon gintuan **kartzelan**. Bernardo Atxaga

**Kartzelan** preso sartu zuten. Edorta Jimenez

Bostak **kartzelan** daude preso. Bernardo Atxaga

**Kartzelatik** atera eta zeramatzatenean ikusi nuen nik, fusilekin apuntatuz, inori ez ziguten hurbiltzen uzten. Jokin Urain

**Kartzelako** arduradunak ez zion Joseri bere gain utzitako ezeren konturik eskatzen. Elizen arteko biblia

Segurtasun handiko **kartzelako** komunean. Iñaki Segurola

**Kartzelako** areto batean egitekoa zen epaiketa. Jon Maia

**Kartzelako** ziega ilun batean bakartuta. Harkaitz Cano

**3** *irud*

Frantzisko santua, gorputzeko **kartzela** utzirik, espiritu zerutarren egoitzetara igo zen zoriontsu. Askoren artean

Euskal Herriarentzat Europa **kartzela** bilakatzen da. Berria - Euskal Herria

Amets Arzallus-ek denak loriatu ditu, bereziki **kartzelako** gaian harrigarriko bertsuak kantatuz. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gobernu Zentralari eskatzeko utz diezaietela presoei **kartzela** arautegiaren barnean bizitza normala egiten. Jokin Urain

Epailearen **kartzela** sententzia. Hasier Etxeberria

Hiru urteko **kartzela**-zigorra ezarri zioten 1933an. Fernando Rey

Haren obrak ez dira kartzelan sartu aurretikoak, **kartzela**-urte luzeen ondorioa baizik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hiru urtetik bostera igo du **kartzela** eskaera fiskalak. Berria - Euskal Herria

Ez nuen **kartzela** sistema aipu. Koldo Izagirre

Araudiekin egokituriko **kartzela**-errejimen bat antolatzeko. Juan Garzia

PPko gobernuaren **kartzela**-politikaren azken arduraduna. Iban Zaldua

**Kartzela** giroko hizkera. Koldo Zuazo

**Kartzela**-ontzietako lehenengo asaltoa irailaren 25ean izan zen. Edorta Jimenez

Militantea, soldadua, polizia edo **kartzela**-funtzionarioa dela. Iban Zaldua

**Kartzela**-lagunak tristurak jota zeuden, euren zoritxarreko gatibutzaz aieneka. Askoren artean

**Kartzela** jendea birgizarteratzeko. Berria - Euskal Herria

Goiko solairuan bizi da **kartzela**-umea. Oskar Arana

Urtea hasi zenetik 121 **kartzela** aldaketa jasan ditu Euskal Preso Politikoen Kolektiboak. Berria - Euskal Herria

Judako erregearen jauregiko **kartzela** -atarian. Elizen arteko biblia

**Kartzela** bazterreko eremu batera iritsi ziren. Pablo Sastre

Orain **kartzela** zoko honetan maiz damutzen naiz harekin behar beste ez profitatu izanaz. Hasier Etxeberria

**Kartzela** usaina kenduko die arropei. Lander Garro

Aurreko eguneko Ondarretako **kartzela** -erasoan ere parte hartu zutela. Inazio Mujika Iraola

**Kartzela** kontuetan ere atzeratuegi ibili gara beti hiriburuaren aldean. Felipe Juaristi

**4** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Zigor **kartzela** zen Fresnes. Jokin Urain

**5** (neurri unitate baten eskuinean)

Filipe Bidart-ek 18garren urte **kartzela** darama. Herria

**6** ***kartzela-zaintzaile*** kartzelazaina.

Ez daki ezer konkreturik, baina badirudi sartu berri den **kartzela zaintzaile** promozio gazteak zuhurtasun handiz aplikatzen duela legea, jubilatu berrien gizatasun goxo haren aldean behintzat. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aaiungo kartzela** (4); **bederatzi hilabeteko kartzela** (6); **bederatzi urteko kartzela** (10); **bi urteko kartzela** (31); **bizi arteko kartzela** (9); **bizi guztiko kartzela** (5); **bizi guztirako kartzela** (4); **bizi osorako kartzela** (49); **biziarteko kartzela** (11); **biziarteko kartzela zigorra** (8); **bost kartzela zigor** (9); **bost urteko kartzela** (20); **eguneko kartzela zigorra** (4); **espainiako kartzela** (4); **ezarritako kartzela** (4); **hamabost urteko kartzela** (9); **hamar urteko kartzela** (18); **herrien kartzela** (5); **hilabeteko kartzela zigorra** (56); **hiru hilabeteko kartzela** (6); **hiru urteko kartzela** (32); **hogei urteko kartzela** (6); **israelgo kartzela** (5); **kartzela atarian** (7); **kartzela barruan** (25); **kartzela barruko** (7); **kartzela berean** (4); **kartzela berri** (4); **kartzela berria** (12); **kartzela eskaera** (5); **kartzela eskatu** (9); **kartzela ezarri** (7); **kartzela ilun** (5); **kartzela politika** (51); **kartzela politika aldatzeko** (7); **kartzela politikak** (7); **kartzela politikaren** (11); **kartzela sekretuak** (5); **kartzela sekretuen** (4); **kartzela utzi** (5); **kartzela zigor** (29); **kartzela zigor ezarri** (6); **kartzela zigorra** (558); **kartzela zigorra bete** (20); **kartzela zigorra betetzeko** (4); **kartzela zigorra betetzen** (8); **kartzela zigorra betetzera** (5); **kartzela zigorra eskatu** (74); **kartzela zigorra eskatzen** (11); **kartzela zigorra ezar** (5); **kartzela zigorra ezarri** (210); **kartzela zigorra ezarriko** (6); **kartzela zigorra ezartzea** (7); **kartzela zigorra ezartzen** (11); **kartzela zigorra jarri** (13); **kartzela zigorra jaso** (19); **kartzela zigorra jasoko** (7); **kartzela zigorra zuen** (5); **kartzela zigorrak** (35); **kartzela zigorrak ezarri** (10); **kartzela zigorrarekin** (7); **kartzela zigorraren** (5); **kartzela zigorraz** (4); **kartzela zigorrera** (5); **lau urteko kartzela** (26); **martuteneko kartzela** (6); **sei hilabeteko kartzela** (18); **sei urteko kartzela** (9); **urte arteko kartzela** (17); **urtebeteko kartzela zigorra** (15); **urteko kartzela** (331); **urteko kartzela eskatu** (6); **urteko kartzela ezarri** (4); **urteko kartzela zigorra** (284); **urteko kartzela zigorrak** (8); **zazpi urteko kartzela** (12); **zortzi hilabeteko kartzela** (8); **zortzi urteko kartzela** (13)

**kartzelako arduradunek** (5); **kartzelako atarian** (6); **kartzelako ateak** (4); **kartzelako egoera** (4); **kartzelako funtzionario** (4); **kartzelako funtzionarioek** (5); **kartzelako gai** (4); **kartzelako gaia** (7); **kartzelako gaian** (5); **kartzelako lana** (15); **kartzelako lanean** (6); **kartzelako patioan** (7); **kartzelako zuzendaritzak** (4); **kartzelako zuzendaritzaren** (4)

**egin zituen kartzelan** (6); **eman zituen kartzelan** (7); **kartzelan amaituko** (4); **kartzelan bizi** (4); **kartzelan eduki** (8); **kartzelan egindako** (4); **kartzelan egon** (49); **kartzelan egona** (5); **kartzelan egondako** (4); **kartzelan eman** (11); **kartzelan emandako** (4); **kartzelan ezagutu** (6); **kartzelan hasi** (4); **kartzelan hil** (14); **kartzelan hil zen** (4); **kartzelan hildako** (5); **kartzelan igaro** (4); **kartzelan izan** (10); **kartzelan jarraitu** (4); **kartzelan jarraitzen** (10); **kartzelan preso** (23); **kartzelan sartu** (77); **kartzelan sartu zuten** (21); **kartzelan sartuko** (8); **kartzelan sartzea** (8); **kartzelan sartzeko** (12); **kartzelan sartzeko agindu** (5); **kartzelan sartzen** (7); **kartzelan zegoela** (5); **kartzelan zegoen** (15); **kartzelan zela** (4); **kartzelan zen** (4); **lau urte kartzelan** (4); **urte daramatza kartzelan** (4); **urte kartzelan** (16); **urtez kartzelan** (11); **urtez kartzelan egon** (8)

**kartzelara bidali** (11); **kartzelara bidean** (5); **kartzelara ekarri** (5); **kartzelara ekarri zuten** (4); **kartzelara eraman** (38); **kartzelara eraman zuten** (11); **kartzelara eramateko** (5); **kartzelara eramaten** (5); **kartzelara itzuli** (4); **kartzelara joan** (33); **kartzelara joango** (11); **kartzelara joatea** (4); **kartzelara joateko** (14); **kartzelara joateko arriskua** (5); **kartzelara sartu** (19)

**kartzelarako bidean** (6)

**atera zen kartzelatik** (5); **irten zen kartzelatik** (5); **kartzelatik atera** (56); **kartzelatik aterako** (4); **kartzelatik ateratzea** (4); **kartzelatik ateratzeko** (13); **kartzelatik ateratzen** (5); **kartzelatik ihes** (19); **kartzelatik ihes egin** (8); **kartzelatik irten** (14); **kartzelatik irteteko** (6); **kartzelatik kanpo** (12)

**kartzelaz aldatu** (8); **kartzelaz kartzela** (6)

**kartzeletako egoera** (7); **kartzeletako egoeraren** (4)

**frantziako kartzeletan** (8); **israelgo kartzeletan** (9); **kartzeletan preso** (12)

**euskal herriko kartzeletara** (6); **kartzeletara eraman** (4)

---

## kartzelaburu *(orobat **kartzela buru**)* *iz* kartzela baten burua.

Ez dakit kontu horiek inork jakin nahiko dituen, baina nire bizitzaren berri emateko eskatu didate gobernadore jaunak eta Iruñeko **kartzelaburuak,** eta horretaraxe noa gogo handirik gabe. Bernardo Atxaga

Bere esku iharrean zilar lingotea aurkeztu **kartzela-buruari,** eta bere azken hats-korrokean murmurikatu zuen: [...]. Juan Garzia

---

## kartzelakeria *iz*

Baita **kartzelakeriengatik,** kartzelak berezkoak dituen ilunaldi eta beherakadengatik izandako erorikoetatik jaikitzean ere. Jokin Urain

---

## kartzelakide *(orobat **kartzela kide**)* *iz* kartzela berean dagoen presoa.

Begiratzen dut **kartzelakide** ditudan euskaldunen artean eta gehienak gazte erakunde politiko batekoak, Askatasuna, Udalbiltza edota Batasunekoak dira. Berria - Euskal Herria

Espetxe barruan teatro emankizunak gertatu eta antzeztea, berak eta beste **kartzela-kide** batzuk aktore lanetan jardunez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## kartzelaldi *(orobat **lartzela aldi** g.er.)* *iz* kartzelaratzea.

Agirre zaharraren **kartzelaldi** berriak. Koldo Izagirre

Pieri **kartzelaldi** prebentiboan dago. Berria - Mundua

Hantxe amaitu zuen 22 urteko **kartzelaldia** . Jokin Urain

Gizakion espiritu inkisidoreak eragin dituen suntsiketak, erreketak, txikizioak, hilketa eta salaketak, **kartzela-aldiak,** desterruak, pertsekuzioak, torturak... Anjel Lertxundi

**Kartzelaldia** ezarri diote kazetari bati, AEBetan. Berria - Gaiak

**Kartzelaldiak** ikaragarri luzeak eta garratzak. Joseba Sarrionandia

---

## kartzelaratu, kartzelara(tu), kartzelaratzen *(**86** agerraldi, **23** liburu eta **46** artikulutan; orobat **kartzeleratu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kartzelatu** agertzen da)* **1** du *ad* espetxeratu. ik **kartzelatu.**

**Kartzelaratu** izan ez balute, munta gutxiko libertino bat besterik ez zen izango Sade. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Joan erregeak judutarrak **kartzelaratu** zituen haien aberastasunez jabetzeko. Iñaki Iñurrieta

Saudi Arabian, 44 lagun **kartzelaratu** zituzten orain bi urte, sexu bereko bikoteekin harremanak izateagatik. Berria - Gaiak

Auziak akabera makurra izan zuen eta biak **kartzelaratuak** izan ziren. Patxi Zubizarreta

Hala uste zuen, harik eta elizgizonak ere **kartzelaratzen** hasi ziren arte. Aingeru Epaltza

1992an bizi osorako **kartzelaratu** zuten Guzman. Berria - Mundua

Poeta, hor, tribuaren ahotsa eta adierazlea duk, betikoa, badakik, agian iradoki nahi dik Euskal Herria **kartzelaratuta** dagoela. Mikel Hernandez Abaitua

**2** (era burutua izenondo gisa)

**Kartzelaratu** guztiak ditut biloba, epaile jauna! Koldo Izagirre

---

## kartzelaratze *iz* espetxeratzea. ik **kartzelatze.**

Hango kriminalitatea, **kartzelaratzeak,** arraza eta etnia gatazkak eta familia eta komunitateen kolapsoak ez lituzke Asiako eta Europako kulturak inola ere onartuko. Iñaki Heras

Mende hura gerra kolonialez, diktaduraz, Amerikako exilioez, **kartzelaratzeez** eta askatasun faltaz beterik zegoen. Berria - Kultura

Gogoratu zuen **kartzelaratze**-epaia, jasan zuten laidoa. Juan Garzia

4 urteko **kartzelaratzea**. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **otegiren kartzelaratzea** (3)

---

## kartzelarazi, kartzelaraz, kartzelarazten du *ad* kartzelara sarrarazi.

-Ez, detektibea naiz eta Hervé Malgorn gaixoa zuzen kontra **kartzela arazi** duten suen egilea nor den aztertzeko ardura eman dit Fanch aspaldiko adiskideak. Itxaro Borda

---

## kartzelari *iz* kartzelazaina, espetxezaina.

Ongi egurtu ondoren, kartzelara bota zituzten, **kartzelariari** arduraz zaintzeko aginduz. Elizen arteko biblia

**Kartzelariak** barrueneko gelan sartu zituen eta oinak zepoan lotu zizkien. Elizen arteko biblia

Ihes egiten duen presoak menderatu berri duen **kartzelariaren** arropak janzten ditu oharkabean pasatzeko. Anjel Lertxundi

Gehienak beti daude **kartzelariarekin** zurikeriatan. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **politiko kartzelariek** (3)

---

## kartzelatu *(226 agerraldi, 17 liburu eta 139 artikulutan)*, kartzela(tu), kartzelatzen **1** du *ad* espetxeratu. ik **kartzelaratu.**

Milanen atxilotu eta Villa Tristen **kartzelatu** zuten, eta bertan Luisa Ferida aktoreak egin zion galdeketa. Fernando Rey

Aitona Miguel karmeliten komentuan **kartzelatu** zuten lehenengo, gerra garaian komentu asko erabili ziren kartzela gisa. Valdemoroko presondegian **kartzelatu** dute. Mikel Hernandez Abaitua

Solaskide bat **kartzelatuz** ez dela ezer konponduko dio Ibarretxek. Berria - Euskal Herria

Otegi solaskidetzat jo dute alderdi gehienek, eta hura **kartzelatzea** kritikatu dute. Berria - Euskal Herria

Elizegi, Campos eta Soria **kartzelatzeko** agindua eman du Le Vertek. Berria - Euskal Herria

Atxilotu batzuk polizia espainiarraren esku jarri zituen, beste zenbait deportatu edo **kartzelatu**. Jokin Urain

Ni sinagogaz sinagoga zuregan sinesten zutenak **kartzelatzen** eta zigortzen ibili nintzela. Elizen arteko biblia

Sare elektronikoaren bidez agintariak kritikatzeagatik **kartzelatutako** herritarrak aske uzteko eskatu dio Siriako Gobernuari. Berria - Gaiak

Paulo Filipon **kartzelatua**. Elizen arteko biblia

Xedera jada kontrola ezin batean **kartzelatua** sentitzen zen. Itxaro Borda

**2** (era burutua izenondo gisa)

Berriro geratu ginen isilik, batez ere bere lagun **kartzelatuaren** albisteak ustekabean harrapatu ninduelako. Hasier Etxeberria

Parte izan zenuten **kartzelatuen** oinazeetan eta pozik sufritu zenuten zeuen ondasunak kendu zizkizuetenean. Elizen arteko biblia

**Kartzelatuak** burua apaldu zuen. Itxaro Borda

Bihotz-hautsiak sendatzera, gatibuei askatasuna eta **kartzelatuei** libertatea iragartzera. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kartzelatzeko agindu** (8); **kartzelatzeko agindu du** (3); **kartzelatzeko agindu zuen** (5); **kartzelatzeko agindua eman** (6).

---

## kartzelatxo *iz adkor* kartzela.

101 ariketa egunerokotasunari nortasuna emateko, denok baitugu, gehiago edo gutxiago, gure **kartzelatxoa** herri honetan, nahiz eta denok ez egon ate morroiloduneko geletan. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## kartzelatze *iz* espetxeratzea. ik **kartzelaratze.**

Epaiketarik gabeko **kartzelatze** masiboak. Berria - Harian

1962an Etxebarriko Bandak laminazio fabrikan-eta egindako greba gogorren ondorioz, laurogeitaka detentzio eta **kartzelatze** gertatu ziren. Jokin Urain

Ea atxiloketak, **kartzelatzeak** eta tortura salaketak bateragarriak ote diren egoera berriarekin. Berria - Euskal Herria

Otegiren **kartzelatze** agindauren berri izan eta batera. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **otegi kartzelatzea** (5); **otegiren kartzelatzea** (5)

---

## kartzelazain *(orobat **kartzela-zain**)* *iz* kartzela bat zaintzen duen pertsona.

Noizbehinka, **kartzelazainak** dorreko atea irekita utzi eta joan egiten zen. Fernando Rey

**Kartzelazainaren** eskuetan utzi zuten Martin gauzainek, eta hark banku bat eta pegar txiki bat zeuden gela ilun batera eraman zuen. Koro Navarro

**Kartzelazaina** erosteak diru asko eskatuko likek. **Kartzelazain** nagusiak Memo zuen izena. Koro Navarro

Bakardadearekin bat nago, haurtzarotik, [...] Apezpikutegiko kantorea delako presondegian sartuz geroztik: **kartzela-zaina** apez bat zen, saindu bat, zioten kanpoan libro

zirenek. Piarres Aintziart

Ate joka ekin nion harik eta **kartzelazain** ziharduen milizianoa etorri zen arte. Juan Garzia

---

**kartzelazaintza** *(corpusean **kartzela-zaintza** soilik)* *iz* kartzela zaintzen dituen erakundea.

Hamaika aldiz luzatu dio eskaria **kartzela-zaintzako** epaileari, Alberto bakarkako ziega batera eraman dezaten, erabat ezinezkoa baitzaio bere ziega beste inorekin konpartitzea. Iban Zaldua

---

**kartzelazulo** *(orobat **kartzela(-)zulo**)* *iz adkor* kartzela.

**Kartzelazulora** idazleak! Fernando Rey

EAJk diseinatu zuen sakabanaketa politika eta hemen ikusten da presoekiko duen jarrera: **kartzela zulotik** hilerriko zulora eramaten ditu presoak. Berria - Euskal Herria

Berak ez zuen, Hansek bezala, bizitza **kartzela zulo** batean edo bala baten aurrean galtzeko hauturik sekula egin. Hasier Etxeberria

---

kartzeleratu ik **kartzelaratu**.

---

**kartzelero** *iz* kartzelazaina.

**Kartzelero** bereziak ziren, garai hartako egoerari eta guri aurre egiteko propio hautatuak. Jokin Urain

**Kartzelero** bakoitza jainkotxo bihurtzen da desmundu hauetan, bere nortasuna sendotu nahian besteekiko agintean. Jokin Urain

**Kartzeleroen** makilaz larrututako gure herria eta gure sabel hutsak etsaiaren ankerkeriaren isla izan daitezen. Berria - Euskal Herria

Mendekua laster hartu zuten **kartzeleroek,** Jokini egundoko jipoia eman zioten ziegan. Jokin Urain

Motina hasterako, giltzak kendu genizkien **kartzeleroei**. Jokin Urain

Bere **kartzelero** sena erakusten du presoei zer komeni zaigun esaten duenean. Jokin Urain

---

**kartzinogeno** *(corpusean **kantzinogeno** idatzia)* *izond* kartzinoma eragiten duena.

Ondoren, VEFG proteina maila gutxitzea lortu zuten, glioblastoma multiformea zuten gaixoei kendutako ehun **kantzinogenoetan** minbizia sor dezaketen ehunak, laborategian egindako esperimentu batean. Berria - Gaiak

---

**kartzinoma** *iz* ehun epitelialeko minbizia.

Medikura joan eta oin-zeluletako **kartzinoma** bat zuela esan zioten. Berria - Gaiak

"Oso-osorik atera dugu **kartzinoma** alea", esan dit, "ez du bestelako arrastorik laga bere inguruan". Hasier Etxeberria

**Kartzinoma** ezkataduna kentzeko egiten diren ebakuntzetan. Hasier Etxeberria

---

**karu** *izond* garestia. ik **kario.**

**Karua** izango da konpontzea. Josu Landa

Esperantza eskasekoa behar zuen morroiak, Gran Hoteleko tarifei **karuegi** eritzita ailegatua baitzen Mentxurenera. Josu Landa

---

karveliar ik **kartveliar**.

---

**kasa** *(orobat **kaxa** g.er.; **bere** eta kidekoen eskuinean)* nork bere oldez, inoren eraginik edo laguntzarik gabe.

1 ***bere kasa*** *(orobat **beraren kasa** g.er.)* *adlag*

**Bere kasa** igotzen zituen eskailerak, laurogei urteak ondo beteta ere. Mirentxu Larrañaga

Izan ere, ama ez baita **bere kasa** moldatzeko gauza aspaldian. Mirentxu Larrañaga

Herritar aurrerazale batek **bere kasa** moldatutako lehenengo eski-parea. Xabier Mendiguren Elizegi

Aita joan egin zitzaigun, eta gu guztiok haren heriotzagatik negarrez ari ginen, isil-misilik, nor **bere kasa**. Mirentxu Larrañaga

Londresa joatekotan zela, kazetari lanetan aritzeko **bere kasa** Chelsean. Koro Navarro

Miren eta biok nor bere **kaxa** bizi ginen. Migel Angel Mintegi

Eta gero, **bere kasa** ari balitz bezala: [...].Zelulatik kanpora **bere kasa** ibiltzen hasteak ekarri zion beheraldia bertze lagunarte batekin gainditu zuen. Pako Aristi

**Bere kasa** aritzen zen bezero bila, bai kalean barrena, bai taxi-geltokietan. Jon Muñoz

Alaba hasi da pijama **bere kasa** janzten. Pako Aristi

Zure ilea **bere kasa** kizkurtzen eta harrotzen da. Itziar Otegi

Salbuespena bihotza da: muskulu konplikatu bat, uzkurtze erritmikoak **bere kasa** egiteko gaitasuna duena. Irene Aldasoro

Liburuko orri bat **bere kasa** itzuli zela iruditu zitzaidan. Josu Zabaleta

Aurten, alorrean utzitako hazitik sortua jango duzu; datorren urtean **bere kasa** erneko dena. Elizen arteko biblia

**Bere kasa** utzitako hizkuntzak dialektoak izango lituzke soil-soilik. Isabel Arrigain

Pontitora itzultzeko premia sentitzen zuen, beraz; hala aukera izango baitzuen sakonagokoaz jabetzeko eta denbora **beraren kasa** emateko jaioterrian. Xabier Olarra

2 ***bere kasako*** *izlag*

Amak esaten zuen amona oso bere **kasakoa** zela, oso berea, eta, bakarrik bizi diren pertsona guztiak bezala, maniak zituela, eta ez gutxi gainera. Jon Muñoz

Lortu ere lortu du bere enpresa sortzea, eta bere-**kasako** aholkulari eta aziendategien diseinatzaile-lanetan aritzea mundu osorako. kanpoko faktoreek lagundu barik, bere **kasakoa** izan zen gorakada. Xabier Olarra

3 ***beren kasa*** *(orobat **beraien kasa** g.er.)* *adlag*

Pasieran ibili naiz bakarrik etxaldeko sailetan, Lucy eta Tom **beren kasa** utzita. Oskar Arana

Behiak **beren kasa** dabiltza, harat-honat, beren gogara. Gotzon Garate

Begiak, ezin kontrolatuz bezala, **beren kasa** joan ziren emakume haren bularretakoaren tiranteen bila. Josetxo Azkona

Gurdiak aurrera zihoazen; zaldiak **beren kasa** zebiltzan, burumakur. Karlos Zabala

Inoiz lurrera erortzen badira, ezin jaiki dira **beren kasa**. Elizen arteko biblia

Hobe zuela gauzak **beren kasa** uztea, baretu artean, eta Molly itzuliko zela. Mirentxu Larrañaga

**Beren kasa** mugitzeko ahalmena dute ziliook. Irene Aldasoro

Telegrafoak **beren kasa** Morse seinaleak ematen hasi ziren, komunikazio bulegoetan ekaitzetan gertatu ohi zen moduan. Fernando Rey

### 4 ***beren kasako*** *izlag*

Beren eliz krisalidetatik irten eta beren **kasako** bizitza sekular berri bat bizitzeari ekitea Iñaki Mendiguren

### 5 ***euren kasa*** *adlag*

Usategi txiki bat zuen eta usoak sarean egindako zulo batetik sartu-irten ibiltzen ziren, **euren kasa,** auzoko teilatu gainetan jirak egin eta berriz itzuliz. Jon Maia

Gidariak **euren kasa** moldatzea nahi dute antolatzaileek, eta horretarako GPS guneak murriztu dituzte. Berria - Kirola

Bi akusatuek manifestazioan ez sustatzaile gisa, baizik eta **euren kasa** parte hartu zutela adierazi zuten.

### 6 ***geure kasa*** *(orobat **gure kasa**) adlag*

Armadan bi urte, lana, ezkondu, familia baten ardura, geroz eta diru gehiago irabazi beharra, eta **geure kasa** aurrera egiteko potrorik ez daukagunean itotzen gaituen simaur hori guztia. Oskar Arana

**Gure kasa** ibiltzeko eskubidea daukagu. Berria - Ekonomia

Ez zaitez gutaz kezkatu, sarjentua, moldatuko gara **geure kasa** itzultzen, iluntzen duenean. Mirentxu Larrañaga

Halakoetan, **gure kasa** utzi beharrean, irakasleek lasterketak, harrapaketak edo bertzelako lehia jokoak antolaten zizkiguten. Aingeru Epaltza

**Geure kasa** ezer egiten saiatzen bagara, seguru nago bota egingo gaituztela kanpora. Iñaki Mendiguren

Gu [...] **geure kasa** hil egiten gara, baina animaliak ez; animalia bere kasa akabatu egiten da. Iñaki Segurola

### 7 ***heure kasa*** *adlag*

-Joan hadi **heure kasa** itzuli bat egitera. Txillardegi

### 8 ***neure kasa*** *(orobat **nire kasa**)*

**Neure kasa** bizitzen hasi nintzen. Joseba Urteaga

**Neure kasa** ikasi nuen, beti gustatu izan zait-eta trikitia. Berria - Kultura

Biharamun goizean **nire kasa** moldatu beharko nuela bakarrik lotarako toki bat aurkitzeko. Fernando Rey

Basetxean, egokitzen zitzaidan aukera oro baliatzen nuen **neure kasa** lan egiteko. Mirentxu Larrañaga

Rufusek hitz egiten amaitu ostean, lehenbizi sentitu nuen bulkada izan zen **neure kasa** mendeku hartzea nolabait. Oskar Arana

Bizibidea bilatu behar nuela kosta ahala kosta, **neure kasa** eta gurasoen etxetik kanpo bizi ahal izateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Poliki-poliki, irteten hasi nintzen hala ere, bakarrik, **neure kasa,** etxe ingurutik asko urrundu gabe. Juan Luis Zabala

Hala nioen **nire kasa:** [...]. Jesus Mari Mendizabal

### 9 ***neure kasako*** *adlag*

Blokeen geoestrategiaren eta bi sistema politikoen analisi neure **kasako** bat eginez. Xabier Mendiguren Elizegi

Neure **kasako** erabakiak hartuko nituela agindu nuen. Xabier Aranburu

### 10 ***zeuen kasa*** *adlag*

Itxaron atari nagusian, ez dozue **zeuen kasa** urteteko baimenik-eta. Iñaki Mendiguren

### 11 ***zeure kasa*** *adlag*

**Zeure kasa** pentsatzeari uzten diozu, eta denbora gutxiren buruan ez zara zeure bizitzaren jabe. Oskar Arana

Saia zaitez erabakiak **zeure kasa** hartzen. Xabier Aranburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bakoitza bere kasa** (7); **bakoitzak bere kasa** (5); **bere kasa** (285); **bere kasa ari** (3); **bere kasa aritu** (4); **bere kasa hartu** (3); **bere kasa hasi** (3); **bere kasa ibili** (5); **bere kasa ibiltzeko** (3); **bere kasa ibiltzen** (6); **bere kasa ikasi** (5); **bere kasa joan** (5); **bere kasa moldatzeko** (3); **bere kasa moldatzen** (3); **bere kasa mugitzen** (3); **bere kasa uzten** (5); **beren kasa** (50); **euren kasa** (19); **geure kasa** (9); **gure kasa** (5); **neure kasa** (38); **nire kasa** (16); **nor bere kasa** (3); **norbere kasa** (4); **nork bere kasa** (6)

---

## kasa-sokorro *iz* sorospen etxea.

Goizaldean, ez dakit ze ordu izango zen, berriz juntatu gara; Antero ezik, kasa-**sokorroren** batean egongo da eta hura, denak juntatu gara. Pablo Sastre

---

## kasaila *iz ipar* kalapita, iskanbila.

Berrogain haraindiko ordezkariek hautsi-mautsi bat proposatu zuten: elgarren arteko **kasailak** eginahala baztertu nahiz zorren pagatzeko Aldudeko oihan komunean egurrak egiteko beren baimena eman zuten. Michel Oronoz

Zer zen ohartu zirelarik, elgarren artean **kasailan** ari izan ziren zakua zeinek beretzat eraman. Marzel Etxehandi

---

## kasaka 1 *iz* jantzi dotore edo berezi batzuen gaineko luzea.

Turko haien atzetik aritu zela Sobieski, husarren **kasaka** gorriek eta haien zilarrezko apaingarri, urrezko brodatu eta ezpaten distirek liluraturik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lehen inperioko uniforme distiratsuz jantziak: **kasaka** berdea, galtza gorriak, azpantar zuriak, larruzko mantala eta kapelu luze iledunak. Askoren artean

Longaina atzera bota zuen, gaueko ilunean **kasakako** botoiak hobeki ikus zitezen. Pablo Sastre

Etxeko nagusiak zizpa armatua atera zuen **kasakapetik**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zaldi gainean **kasakak** airean eta ezpatak eskuetan turkoen aurka trostan amildu zirenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kasaka** brodaturik ez duena. Jon Alonso

Zeta arrezko **kasaka** polit higatu bat zeraman, forruzkoa zirudiena. Fernando Rey

### 2 (hitz elkartuen lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Bada, filme horren erdi aldean, ingeles **kasaka**-gorriak muino baten gainean dituk, frantses **kasaka**-urdinen erasoaren esperoan, kaka-kaka eginak eta kupel handi batetik etengabe edaten. Aingeru Epaltza

Jakina, lurrean etzanik zeudenak **kasaka** gorriak ziren. Jon Alonso

### 3 irud/hed

Han-hemenka gorrituak diren belus berdeko **kasakak** dauzkate mendiek. Koldo Izagirre

---

## kasamata *iz* artilleria piezak kokatzeko gortorlekua.

Bicêtreko gotorlekuaren **kasamata** bateko harlauza hotzen gainean zegoen goseak amorratzen. Karlos Zabala

Lord Jim gazteluko **kasamata** erdi eroriaren sabaia dardarazten du marrumak. Koldo Izagirre

---

## **kasatu**, kasa, kasatzen du *ad* haizatu, egotzi.

Baioneta eskuetan etsaia **kasatzen** dute. Michel Oronoz

Lehena, Sadam Hussein **kasatu,** bigarrena armamendu famatu hek nun ziren aurkitu eta suntsitu, hirugarrena demokrazia bat ezarri tirania haren lekuan. Herria

Beltzuntze gazteluko kapitaina izan ez balitz, fededunak Mauletik **kasatuko** zituzketen aspaldiInbasoreak etxetik **kasatu** duenarekiko elkartasun horrek. Aingeru Epaltza

Espainiatik **kasatutako** jesuitak. Txillardegi

Gernikatik bizia **kasatua** baitzen, etxe berri egiten ari ziren batzuek eman zieten Gernika izena beren etxeeri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Laster **kasatzen** du holako ideia. Michel Oronoz

Burutazioa **kasatu** nuen, kasik haserre neure buruarekin. Aingeru Epaltza

Kamioien hats bortitzak airea hozten dit, ateratzen hasia zitzaidan izerdiaren goxoa **kasatuz**. Piarres Aintziart

Loriak laster baitu **kasatzen** nigarra. Herria

---

## **kasatzaile** *izond/iz* haizatzailea.

Delako pertsonaia non sortu, non ikasi, Hego Ameriketako zein herritan ibili, noiz itzuli gutartera, noiz hasi deabru **kasatzaile,** etab. Aingeru Epaltza

---

## **kasatze** *iz* haizatzea, egoztea.

Ipar-Amerika, Xina, Errusia, Europa batua, denak agerturik ere Arafat-en **kasatze** horren kontra. Herria

---

## **kasazio** *(orobat **kazazio** g.er. eta **kazazione** g.er.)* **1** *iz* epaiez mintzatuz, ezeztatzea.

Ekainaren 24an mobilizazio eguna antolatuko dute, **kasazioko** auziari begira. Berria - Euskal Herria

Euroaginduaren aurkako ebazpena kaleratu du Bruselako **Kasazioko** Auzitegiak. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Auzitegi Gorenak instantzia prozesal guztiak agortzen dituen **kasazio** organoa izaten jarraitzen duela salatu zuen Olabarriak, eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak funtzio hori izan beharko lukeela aldarrikatu zuen.

**3 *Kasazio Auzitegi***

Zurutuzaren defentsak errekurtsoa ezarri zuen Parisko **Kasazio** Auzitegian. Berria - Euskal Herria

Orobat **Kasazio** Auzitegiko kideak. Andres Urrutia

Justizia emateari uko egiten dion hori behin eta berriro gaitzetsi du **Kasazio** Auzitegiak. Andres Urrutia

Rakel Garcia eta Luis Moreno euskal herritarren aurkako euroagindua bideragarria dela erabaki du Belgikako **Kasazio** auzitegiak.

**4 *Kasazio Epaitegi***

Frantziako **Kasazio** epaitegiko fiskalak ere euroaginduaren aurka egin zuen. Berria - Euskal Herria

**Kasazio** Epaitegiak Matxikote, Rekarte eta Galarragaren aurkako erabakia ematen badu «aurrekari garrantzitsua» izango dela uste dute Batasuneko kideek. Berria - Euskal Herria

**5 *Kasazio Ganbera***

Belgikako Justizia Epaitegiko **Kasazio** Ganberak Rakel Garcia eta Luis Moreno Espainiara ez estraditatzeko joan den hilean Akusazio Ganberak hartutako erabakia atzera bota eta eskaera berriz aztertzeko agindu du.

Hain zuzen, **Kasazio** Ganberaren azpitik dauden epaitegiek Espainiak estradizio eskaera egiteko argudiatutako delituak zaharkituak geratu zirela ondorioztatu eta biak aske utzi zituzten joan den hilean. Berria - Euskal Herria

**6 *Kasazio Gorte***

Zurutuzaren kontrako auzia berriro hasteko agindu du **Kasazio** Gorteak. Berria - Euskal Herria

**Kasazio** gorteak uztailaren 8an aztertuko du prokuradoreak aurkeztu helegitea. Berria - Euskal Herria

Baina **Kasazio** gorteak forma akatsengatik baizik ezin dezake erabaki hori baliogabetu.

Zurutuzak helegitea jarriko du **Kasazio** Gortean. Berria - Euskal Herria

Hona zer irakur daitekeen Parisko **kazazio** kortearen erabakian, 1906an. Xipri Arbelbide

**7 *kasazio helegite*** epai bat ezeztatzeko eskatzen duen helegitea.

Arabako Aldundiak, Ramondinek eta Demesak **kasazio** helegitea aurkeztu zuten. Berria - Ekonomia

Arabako Foru Aldundiak eta bi enpresek jarritako **kasazio** helegitea aintzat ez hartzeko gomendatu zuen atzo Julianne Kokott Europako Auzitegiko abokatu nagusiak. Berria - Ekonomia

Espainiako Auzitegi Gorenak Batasuneko Arnaldo Otegik aurkeztutako **kasazio** helegitea aztertuko du gaur. Berria - Euskal Herria

Espainiako Auzitegi Gorenean ebazpenaren kontrako **kasazio** helegitea ezarriko dutela iragarri zuen. Berria - Euskal Herria

Generalitateak **kasazio**-helegitea aurkeztuko duela iragarri zuen. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kasazio auzitegiak** (8); **kasazio epaitegiak** (5); **kasazio ganberak** (3); **kasazio ganberan** (3); **kasazio gorteak** (12); **kasazio gortera** (4); **kasazio helegitea** (17); **kasazio helegitea aurkeztu** (3); **kasazio helegitea aurkeztuko** (3)

---

## **kaseina** *iz* ugaztunen esneko proteina, fosfato asko daukana.

Honetarako behiaren berezko gene bat erabili zuten, **kaseina,** eta gene honen kopia gehigarriak genoman sartu zizkioten. Berria - Gaiak

Modu honetan esnearen **kaseina** proteinaren kantitatea handitzea lortu zuten, %8 eta %20 bitartean. Berria - Gaiak

---

## **kaserna** *(orobat **kaxerna** g.er. eta **kazerna** g.er.)* **1** *iz* kuartela.

Gaztelupeko **kaserna** eta gotorlekuetan. Txillardegi

Marracq-eko gaztelua, Napoleon ostatuz egon zen hura, hurrenez hurren **kaserna** eta apezgaitegi bilakatua, sute batek suntsitu zuen. Koldo Izagirre

Zapartak entzuten dira, eta kea SS-en **kaserna** aldean. Marzel Etxehandi

Poliziaren **kaserna** batean bakartuta eduki zuten 19 egunez. Jokin Urain

Auto bat zapartarazi dute Guardia Zibilaren **kaserna** aitzinean. Herria

Errobiko bigarren **kaserna** militar zaharra erosi berria du euskal artxiben aterbetzeko. Herria

Nire txilibitua ez zela neguetako **kaxernetatik** ateratzera deliberatzen. Jon Alonso

Touloneko hirian zutela **kazerna**. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bospasei **kaserna**-etxe, baserriren bat agian, eta kitto. Txillardegi

**Kaserna**-barruti militarreko mugan bertan iparraldera paraturik. Txillardegi

Peña Plata **kaserna**-gotorlekuan pasa nituen egunetan. Txillardegi

**Kaserna**-hizkerako alerik gogorrenak bota nizkion muturrera. Jon Alonso

**Kaserna** kutsuko bista izan arren. Txillardegi

Nire oihuak halako **kaserna**-airea zuen nonbait. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bonba erasoa jerdarmenria **kaserna** batean. Berria - Harian

**4** ***kaserna nagusi***

Armada-zati bat nire aginte zuzenaren pean hartuko dut, Monte da Graçan gelditukо denarena, hain zuzen, hantxe paratuko baita **kaserna** nagusia. Jon Alonso

Pentagono errusiarra, hots, hiru armaden **kaserna** nagusia. Edorta Jimenez

NATOren **Kaserna** Nagusia. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kaserna nagusia** (3)
>
> **kasernatik irten** (4); **kasernatik landa** (4)
>
> **zintzur bustitzea kazernan** (3)

---

**kasernaratu,** kasernara, kasernaratzen **1** da *ad* kasernara joan, kuarteleratu.

Zuek ere bidean, **kasernaratzeko** manuak alaitu eta susperturik. Xabier Montoia

Omar Lakda atzeman arte ez zaretela **kasernaratuko** erran du Cartierrek. Xabier Montoia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Haien ahots koleratuak entzuten dituzu, **kasernaratu** eta gatibuak kamioietatik jaitsarazten dituztelarik. Xabier Montoia

---

kaset ik **kasete**.

---

**kaseta**[1] ik **kazeta**.

---

**kaseta**[2] *(orobat **kaxeta**)* *iz* etxola.

**Kaseta** bat, eta barruan guardia zibila dokumentazioa eskatzen. Jokin Urain

Fotomatona uste zuena, han ari ziren obra bateko **kaseta** bat izan, eta kanpoan ziren fotoak, ile soiltzearen aurkako anuntzio batekoak! Pablo Sastre

Hor atzean, Iberdrolak bazian, ba, **kaxeta** lehenago. Pablo Sastre

Argindarraren **kaxetara** noa, amona, argiarekin zer pasatu den ikustera noa. Pablo Sastre

---

kasetalari ik **kazetari**.

---

kasetari ik **kazetari**.

---

kasetaritza ik **kazetaritza**.

---

kasetatxo ik **kazetatxo**.

---

**kasete** *(orobat **kaset** eta **kazet** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kasete** agertzen da)* **1** *iz* zinta magnetiko bat daukan kutxatxoa.

Gelatxok bere etxean grabatu ditu hainbat **kasete,** eskari hauei erantzuteko. Pako Aristi

Idoiak musikari euskaldun baten **kaseta** jarri du. Patxi Zubizarreta

Takolo, Pirritx eta Porrotxen **kasetak**. Pako Aristi

**2** kaseteak entzuteko eta grabatzeko gailua.

**Kasetarekin** eta tomavistasarekin etorri ziren. Pako Aristi

Nahikoa litzateke diktatzea, **kasete** batean erregistratzea. Jon Alonso

**Kasete** txiki bat jarri zuen Kasparrek martxan. Joxemari Iturralde

**Kaseta** ere bazekarren haietako garestienak, gaurkoen halako bi ziren **kaset** itzel eta potoloak. Unai Iturriaga

**3** *hed*

**Kasete** bat sartzen du bideoan. Oskar Arana

Ikus-entzunezko **kasete** batzuetan jasoak zirela, unibertsitate fundazio baten lanari esker, esparru nazietako preso ohiekin hainbat orduz eginiko elkarrizketetan azalduriko oroitzapenak. Joxan Elosegi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kasete** aparatuaren ondoan Arantzazuko Ama Birjinaren irudia. Joxemari Iturralde

Azantzarekin batera **kasete**-irakurgailuan zebilen Stingen *Sacred Love* zinta berriko melodiak korrok bitxietan amildu ziren. Itxaro Borda

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irrati-**kasetak** eta tokadiskoak sortu ziren arte. Pako Aristi

Ondoko asteetan kantaldiaren **bideo kazeta** eskuratzen ahalko duzue zuen usaiako saltokietan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bideo kazeta** (3)

---

## kasetoi 1 *iz* sabaieko apaingarria, lauki edo poligono konkabo batek osatua.

Behatokia **kasetoiez** hornituriko egurrezko sabaiak babesten duen antzinako balkoi labur bat da. Jon Alonso

Sabai gangatuen egitura prestatuko da geletan, **kasetoiekin** apainduta ez baldin badaude behintzat. Santiago Iruretagoiena

Tenpluaren altuera hartu zolatik sabaiko **kasetoietaraino**. Santiago Iruretagoiena

Erlaitzaren gainean **kasetoi** kurbatuak, biribilean sabelduak. Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan)

Sabaian, **kasetoi** lan luze urreztatu eta guztiz apaindu batek ertza ematen zion ispilu karratu eskerga bati. Karlos Zabala

---

## kasetoidun *izond* kasetoiak dituena.

Nahizta etxeak zilarrez eta urrez dirdir egin ez, edo urrezko **kasetoidun** tenpluetan zitara hotsik entzun ez. Xabier Amuriza

---

## kasetoidura *iz* kasetoi lana.

Eskopinas Sirakusakoak asmatu zuen *plinthium* edo **kasetoidura**. Hauen arkitrabe eta apaingarrien gainetik **kasetoidurak** jarriko dira. *Tablinum*aren **kasetoidura** altuera horri zabaleraren heren bat gehituz altxatuko da. Santiago Iruretagoiena

---

## kasi ik **kasik**.

---

## kasia *iz Cassia* generoko landare lekaduna, eskualde beroetakoa.

Sei kilo **kasia** santutegiko pisu-neurriaren arabera, eta lau litro oliba-olio. Elizen arteko biblia

---

## kasik *(orobat **kasi**)* 1 ia. (izen baten ezkerrean)

Artean oso gaxtea edo **kasik** umezarra zela. Iñaki Segurola

**Kasik** pertzepzio bat, barnean sentitzen zenak kanpoa araberan erakustera ematen baitzuen. Piarres Aintziart

Horra non **kasik** ene etxeko ondorat helduak ginelarik euria hasten zaigun. Janbattitt Dirassar

**Kasik** eguerdi zen. Daniel Landart

**Kasik** metro bateko odolkia gordea zuen alkandoraren azpian. Karlos Zabala

**2** (izenondo baten ezkerrean)

Bakardadearen libertate **kasik** osoan bizi naiz oraindanik. Piarres Aintziart

Begietako urdina, normalean **kasik** ohartezina, aise ere nabarmenagoa zuen, eta berdin ezpainak. Aingeru Epaltza

Metalezko lau armiarma lanpara **kasik** ikusezin. Karlos Zabala

Egun grisa, **kasik** iluna. Marzel Etxehandi

Pastel **kasik** hasi gabeak eta gozoki ia osoak. Karlos Zabala

Halako dirdai maleziazko bat islatu zen bere begi **kasik** lokartuetan. Patxi Zubizarreta

**3** (adizlagun baten ezkerrean)

Musu laburra, **kasik** ebaska emana. Janbattitt Dirassar

**Kasik** begiz ikusi beharreko esanahi kuxkurbildu bat Iduritzen zitzaidan aski zela teknika batzuk eskuratzea, testuaren egitura aztertuz, **kasik** matematikoki. Iñaki Segurola

**Kasik** segidan hartu genuen Hegoalderako bidea. Piarres Aintziart

Neskaren begitartea klartasunez bete zen eta, **kasik** oharkabean. Patxi Zubizarreta

Gertakari horiek guziak **kasik** atzo gertatuak dituk. Michel Oronoz

**Kasik** beti bazegoen bat, izan behar ez zukeen lekuan. Daniel Landart

Geroztik, **kasik** inoiz ez zen dorretxetik ateratzen. Elena Touyarou

Intziri eginez **kasik** negar-zotinka. Karlos Zabala

Abuztuan **kasik** egunero pizten diren oihan-suteez. Aingeru Epaltza

Goma soil bat da orain, **kasik** gogoz kontra darabilzu ahoan itzulika. Iñaki Segurola

Aitatxi **kasik** odolik gabe ailegatu zen otoitz-leku hartan apailatu ospitalera. Aingeru Epaltza

**4** (aditz baten ezkerrean)

**Kasik** poztu nintzen. **Kasik** esan daiteke haurra zenbat-eta tontoago, eta orduan-eta *zergatik?* galdegin-zaleago dela. Iñaki Segurola

Uste nuen **kasik** ahantzia zenuela. Janbattitt Dirassar

Hori erran orduko, **kasik** urriki nuen hola mintzaturik. Janbattitt Dirassar

Nahiz eta koloretez, hautsez eta apain-kremaz **kasik** estaltzen zituen. Iñaki Zabaleta

Etxe zokotik ez bainaiz **kasik** ateratzen. Gorrotoak **kasik** erotzeraino eraman zuen eta bihotzeko zauri zaharra berriro ere gaiztotu zitzaion. Hasier Etxeberria

Atxiki ninduten, estekatu, hertsatu hezurrak **kasik** kraskatzeraino. Aingeru Epaltza

Printzeak jipoitu egin zuen, gupidarik gabe, **kasik** hiltzeraino jipoitu ere. Patxi Zubizarreta

Zanpez eraso nauen haizeak eta ere eremu honek sortarazi goibeltasunak uzkurtu naute, **kasik** izitu. Piarres Aintziart

**5** (bestelakoen ezkerrean)

**5** (bestelakoen ezkerrean)

Ez hainbesteraino ere erabat, baina **kasik** bai. Jesus Mari Mendizabal

**Kasik** hiru hilabete honat batere agertu gabe! Janbattitt Dirassar

**Kasik** bi ordu eman zituen geldi, lasai. Karlos Zabala

Hauetan jakitea eta egitea nahasiak daude, **kasik** bat dira, hizkuntzan bezalaxe. Iñaki Segurola

Baina orain, **kasik** egun batetik bestera, indarberritua eta bizkortua ikusten zaitut. Patxi Zubizarreta

Zazpi silaba atera ziren, **kasik** beste mundutik zetozenak. Daniel Landart

Nehork ez du hitzik ateratzen, **kasik** nehor ez da higitzen. adimenduaren eta **kasik** horren bete den beste ahalmenaren edo nahimenaren lana Besarkatzen dituena konfesio sainduetako bekatu, absoluzio, ordainketa, zentsura & irregulartasunetan gertatzen ohi diren **kasik** zalantza guztien soluzioak. Marzel Etxehandi

**6** (dagokion hitzaren eskuinean)

Bakarrik gelditu ginen **kasik**. Karlos Zabala

Erdia gelditzen zitzaion **kasik**. Aingeru Epaltza

Konturatzen gara egia kontatzea eskandalagarria dela, subertsiboa **kasik**. Karlos Zabala

Biraorik ez, eskerrak ematen ditut **kasik**. Karlos Zabala

Florentek zakar baino zakarrago bihurtu eta isilarazi egiten zuen hitz gordinez **kasik**. Karlos Zabala

Itxaropenik ez nian **kasik,** alajainetan! Karlos Zabala

Esekitokia erauzi egin zuen **kasik,** kapela eta bufanda zintzilik jarri zituenean. Karlos Zabala

-Bizilagunak gara, **kasik**. Patxi Zubizarreta

Kotxea betea zetorren **kasik**. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**kasik ahantzia** (7); **kasik ahantziak** (5); **kasik alde bat** (14); **kasik aldi berean** (6); **kasik berehala** (5); **kasik berrehun** (6); **kasik beti** (30); **kasik bi** (42); **kasik bost** (5); **kasik bururatua** (7); **kasik burutik buru** (5); **kasik dena** (19); **kasik denak** (47); **kasik denek** (14); **kasik denetan** (15); **kasik deus** (6); **kasik egun guziz** (7); **kasik egunero** (17); **kasik ehun** (7); **kasik erabat** (5); **kasik erdia** (5); **kasik erdiak** (5); **kasik erran** (9); **kasik esan** (7); **kasik ezin sinetsia** (24); **kasik ezinezkoa** (9); **kasik galdua** (5); **kasik hamar** (8); **kasik hiru** (24); **kasik hiru urte** (5); **kasik hogoi** (7); **kasik iluna** (5); **kasik lau** (8); **kasik mirakuilua** (6); **kasik mundu guzian** (8); **kasik nahiago** (7); **kasik nehor** (8); **kasik oharkabean** (16); **kasik ohartu gabe** (7); **kasik oren** (6); **kasik osoki** (9); **kasik partida** (5); **kasik segidan** (9); **kasik segur** (13); **kasik sei** (5); **kasik sobera** (7); **kasik zazpi** (5)

---

## kasino

*(orobat **kazino** g.er. eta **casino** g.er.)* **1** *iz* jendea biltzeko, edo atsegin hartzeko tokia edo etxea; bereziki, diru jokoak baimendurik daudena.

Habanan barnako frontoi, kafe, **kasino** eta kabaretetako gau epel-gozoetan. Edorta Jimenez

**Kasinoan** jokatu baino hobe zenuke loteriako zenbaki bat hartuko bazenu. Iñaki Zabaleta

-Honetarako dirudik ez du; baina **Kasinoan** gastatzeko bai -erantzun zion Andresek. Josu Zabaleta

Liburu bat eros dezaket New Yorken, nik aukeratutako **kasino** batean jokoan sar naiteke etxetik mugitu gabe. **Kasino** barruko berotasunean. Pello Salaburu

**Kasinoan** jazbana zegoen, eta musika leun batek airea edertzen zuen. Edorta Jimenez

Soldadu erreboltariak **Casinoan** ordu luzeetan egoten ziren eta edozein gautan entzun zitezkeen tiro hotsak eta algarak inguruko kaleetan. Jon Maia

Garai batean **kasino** izana zen orain orotarikoen salerosketa merkatu bihurtutako zoko ospel hura. Harkaitz Cano

Astegunetan, liburuzain laguntzailea da, eta, asteburuetan, karta banatzailea **kasino** batean. Berria - Mundua

Hiri xehe bateko **kasino** batean silloien peluxeetan beren tigre-atzaparrak zorrozten. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Renon jasotako **kasino** dosi txikiaren ondotik, diru xahutzearen hiriburuan egin genuen osteratxoa; alegia, Las Vegasen. Berria - Kultura

Polizi auto baten argi zaflada urdin eta gorriek iluntasuna ebakitzen zuten eta **kasino**-jokalari merke haien buruetan sega modura igarotzen ziren. Zenbait ekonomilarik, ironiaz, **kasino**-ekonomia esaten diote ekonomia ez-erreal horri. Iñaki Zabaleta

**Kasino**-ekonomiaren sortzetiko eritasuna ez ezik, *homo economicus*aren jaiotzetiko eritasuna da espekulazioarena **Kasino**-espekulazioaren historian sakondu nahi duenak, berriz, baditu Galbraith-en *A Short History of Financial Euphoria*. *Iñaki Heras*

**Kasino** multzo baten erosketan iruzur egin izanagatik. Berria - Mundua

**Kasino** hoteletako batera joan eta hamar egunez lerroan arituko da jokoan, *black jack*ean. Oskar Arana

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta "Grand Hôtel" eta Udal-**Kasinoaren** artetik pasa ginen gero hondartza hegiraino. Txillardegi

Bihar Miarritzeko udal **kasinoan** egingo duen urgentziazko nazio batzarraren karietara egin zuen prentsaurrekoa Etxerat-ek. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kasino aintzinean** (11); **kasino aintzineko** (11); **kasino aintzineko plazan** (10); **kasino ekonomia** (8): kasino ekonomiaren (3)

**herriko kasinoan** (11); **hiriko kasinoan** (6); **kasinoan jokatu** (3); **kasinoan sartu** (4); **miarritzeko kasinoan** (18); **plentziako kasinoan** (3); **san remoko kasinoan** (3)

**kasinoaren aintzineko plazan** (5)

---

## kask

kolpearen onomatopeia.

-Dudley, **kask** emaiozu Smeltingseko makilaz. Iñaki Mendiguren

Kosk eta **kask**! Herria

Euskal Herrian lortu zituzten helbideetara jo behar izan dute, ate batean kosk eta beste batean **kask**, hainbat itzal-eragin kultural eta diplomatiko bildu eta baliatzeko. Anjel Lertxundi

---

## kaska[1]

*iz* kolpea. ik **kaxka**.

Soldado batek, harma ipurdiaz, bi **kaska** emaiten dizkio buruan. Marzel Etxehandi

Erdi-hila, hits eta ilun, lehoin gaizoak bildu du **kaska,** ausiki, zauri eta min, orroño bat doi-doia dezakelarik egin. Herria

Igandeetan bildu petako, **kaska** edo ukaldiak gero eta saminkiago senditzen nituen aste guztian zehar. Daniel Landart

Domenga harritu zen atean **kaska** gogorrak entzun zituenean. Elena Touyarou

Haren etsaiaren salbatzeko arotz batek ingudeari ematen dizkion mailukaden pareko **kaska** haietarik. Elena Touyarou

Xilo edo arraildura zerbait bazukeen, hain segur errekontruz **kaska** zerbait hartua ukanik. Herria

Hamargarren tantoan, **kaska** bat harturik, gelditu behar izan du Patrik Ezcurrak. Herria

Nire idazkariak **kaska** batez bota du. Elena Touyarou

Ustekabean galgatu zuen Albertek; leihoaren kontra **kaska** jo zuen Léak; ez zen horratik estutu. Jon Muñoz

Hemendik bultza, handik ukondoz **kaska,** ikusliarren lehen lerroan jartzea lortu zuen. Elena Touyarou

Joanesi ipurdi mazelak ontsa minberatu zitzaizkion, zurezko jarleku gogor haien kontra segundu oro **kaska** eta **kaska**. Eneko Bidegain

---

kaska[2] ik **kasko**.

---

**kaskabeltz** *iz* amilotxaren motako txori buru-beltz batzuen izena *(Parus major* etab.). ik **kaxkabeltx**.

Begiak itxi eta, oraindik ere, ikusi egiten ditut habia haiek: karnabaren goroldiozkoa, **kaskabeltzaren** borobil-borobila, mikaren handi eta baldarra. Bernardo Atxaga

---

**kaskabil** *iz* cf **kaskabilo**.

**Kaskabilak** ere izaten genituen zintzilik, salgai; baita aizkorak, mailuak, uhalak eta arranak ere. Txillardegi

---

**kaskabilatu**, kaskabila, kaskabilatzen du *ad*

Sethek belarritakoak **kaskabilatu** zituen gustu emateko nexka katakumeari, haiei atzaparra bota nahian behin eta berriro ari zenari. Anton Garikano

---

**kaskabilo** **1** *iz* metalezko bolatxo barne-hutsa eta zuloduna, higitzen denean hotsa ateratzen duen metal zatitxo bat barnean daukana.

Zalditxo argalei lepoan jartzen zizkieten **kaskabiloek** txilin-hotsez betetzen zuten airea. Jose Morales

Txanoko **kaskabiloek** zarata ateratzen zuten mugitzen zenean. Koro Navarro

Ezpata dantzariek eramaten dituzten **kaskabiloak**. *Berria - Kultura*

**Kaskabiloen** hotsa izan zen erantzun bakarra. Koro Navarro

Nork jarri **kaskabiloa** zezenari? Iñaki Iñurrieta

Bai, betiko kontua da: nola artikulatu nazioz gaindiko enpresen indarra mugatuko duen nazioz gaindiko indar eragile bat; bestela esanda, katuari **kaskabiloa** jarriko dionik aurkitzea. Iñaki Heras

Eta kontuak kontu, hor dabil katua bitartean **kaskabilorik** gabe bazterrak ederki asko harrotzen, libro-libro. Iñaki Heras

Horregatik da hain zaila errealitateari **kaskabiloa** ezartzea. Bernardo Atxaga

Apoek ubideetan **kaskabiloek** bezala hots egiten zuten. Lopez de Arana

Karabanen **kaskabiloen** hotsa. Fernando Rey

Sartzen du eskua patrikan, eta **kaskabilozko** txano bat ateratzen du. Josu Zabaleta

**2** *pl adkor* barrabilak.

Zuk ere, anaiatxo, lurrerainoko **kaskabiloak** dauzkazu, e! -Consuelok ondotik. Jon Maia

"**Kaskabiloak** lardaskatzeko gogoa, horixe duzue zuek!", eta zaunka egiten hasten da guardia zibilek entzuteko moduan. Anjel Lertxundi

---

**kaskabilodun** *izond* kaskabiloak dituena.

Bufoiez mozorrotuta zetorren; jantzi marradun estu bat zeraman soinean, eta kono formako txano **kaskabiloduna** buruan. Koro Navarro

---

**kaskada**[1] *iz* kaska, kaskatekoa.

Mailuen kolpeak, paleten **kaskadak** eta gurpilen kirrikak. Agustin Otsoa

-Nik ez dut lana egin aurretik saria jaso nahi; eta eskuineko eskuaz **kaskada** bi eman zituen bere ezkerreko lepagainean. Patxi Ezkiaga

---

**kaskada**[2] *iz* ur-jauzia.

Mailuen kolpeak, paleten **kaskadak** eta gurpilen kirrikak. Agustin Otsoa

Txalupa saihetsera zihoan okertuta, ura zorrotz xerratu eta **kaskada** berdetan eroriz, burbuiletan, kataratetan. Anton Garikano

---

**kaskagogor** *(orobat* ***kaska-gogor*** *g.er.* ***kazkagogor*** *g.er. eta* ***kasko-gogor*** *g.er.)* **1** *izond/iz* burugogorra.

Agure **kaskagogor** haietako bat zen. Harkaitz Cano

Nahiz eta bat bakarra egon **kaska-gogorra**, harrigarria litzateke kaltegabe geratzea. Elizen arteko biblia

**Kaska-gogorra** haiz gero! mando Mula idurikoak baitira gure Hegoaldeko anaiak, **kasko gogorrak**. Herria

**Kaskagogorra** halakoa! egoskor alaena! **Kaskagogorra** gizona. Jokin Muñoz

**Kaskagogor** txoro hark bere kontra armada bat igorri eta gerra bat hasi behar zuen, beharbada urteak iraunen zuena. Fernando Rey

Arazoak **kasko gogorrak** dira eta estatuen teoria handiek mugak badituzte Berria - Euskal Herria

**2** (adizlagun gisa)

**Kaskagogor** eta kopetilun samar jokatzen zuen beti basetxean, baina egoki, beti egoki eta zuzen. Mirentxu Larrañaga

Horregatik, mespretxuz eta **kaskagogor,** ume izatea erabaki zuen betiko. jarraitzeko jokalari batzuk **kaskagogor** jarri direlako eurak zelairatu ez dituelako. Julen Gabiria

Baina erromatarrek **kazkagogor** jarraitzen zuten aurrera, eta saria ere izan zuten. Berria - Kirola

**3** (erkaketan)

Mandoa bezain **kaskagogorra** zenez ez zuen erantzi gabardina. Koldo Biguri

---

**kaskagogortu**, kaskagogor, kaskagogortzen *(orobat* ***kaska-gogortu****)* da *ad* kaskagogor bihurtu.

Ortega bera, urteekin eta arrazismo nazistaren porrotarekin **kaskagogortu** egin dela esan liteke. Joxe Azurmendi

Eta gero, aita batek biologia egin behar duela **kaskagogortu** zaion seme bati esango liokeen bezala, konplizitatez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Berotu saihetsak ume den bitartean; bestela, **kaska** -gogortu eta ez dizu esana egingo. Elizen arteko biblia

---

# kaskagor *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kaskagogor*** *agertzen da)* *izond* kaskagogorra.

-Norbaitekin hitz egin nahiko lukeen emakume **kaskagor** bat dago hemen. Harkaitz Cano

-Ez al duk entzun zer esan dian, agure **kaskagorra** -sartu nintzen ni-. Inazio Mujika Iraola

Gure aita oso **kaskagorra** zelako. Fernando Rey

Orexan hiruxki jaio zen Nikolas Ormaetxea **kaskagor** sonatu hura. Patziku Perurena

---

# kaskagorkeria *iz* kaskagogorkeria.

Zenbait gauza ez ditugula inteligentziaren edo zentzuen bidez sumatzen, bestelako dohain batez baizik, eta hala sumatutakoak ez ditugula onartu nahi izaten, nagikeriaz, **kaskagogorkeriaz** edo ohituraz. Matías Múgica

---

# kaskagorri *izond/iz* ilegorria. ik **kaxkagorri**.

Belarriak estali ditu, buru **kaskagorria** ezkutatu. Itziar Otegi

Bi gazte zetozen, neska-mutilak, bikainak, **kaskagorriak**. Gotzon Garate

Ijito beltzak (hegoaldetik sartuak) baino ugariago direla gure artean ijito **kaskagorriak** (iparraldetik sartuak) eta bertakotuak. Patziku Perurena

Meatzari gazte **kaskagorri** mirrin batez maitemindu zen. Juan Garzia

Gainera Vladimir zegoen tartean, lau urteko mutil azal-zuri eta **kaskagorria**. Hasier Etxeberria

Iñaki McCartney **kaskagorria**. Xabier Mendiguren Elizegi

Alemaniako muturrean preso zegoen **kaskagorri** ezezagun batez. Hasier Etxeberria

Patioko garaian beti kromoak trukatzen ibiltzen zen txaparro **kaskagorri** maritxu ospeko bat. Koldo Izagirre

Ala [...] Venusi galdu zitzaion biloa ez zen zuzen-zuzen buru **kaskagorrikoa**? J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# kaskail *(orobat* ***kaskal****)* *izond* kaskarra. ik **kaxkail**.

Bere zoria gizon **kaskail** batek duenaren antzekoa da. d'Annunzio bezalako poeta **kaskalek**. Joan Mari Lekuona

Bihurgune dramatikorik gabeko balada **kaskail** bat! Anjel Lertxundi

Banekien haur batek ezin zituela esan, eta debekuak hausteak ematen duen plazer ezkutuaz, amorru handiagoz esaten nuen, isilean baina garrasika: txepela!, **kaskaila!,** zakatza! Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erabat kaskala** (10); **espazio kaskala** (4)

---

# kaskaildu, kaskail(du), kaskailtzen **1** da *ad* kaskail bihurtu.

Gehiago dena, lauretan hasirik lehena, seiak gabe kanpoan zen jende guzia Garatenean, batzu **kaskailduak** eta besteak ostaturat edo etxerat prest. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Berrogeita hamar urteko senton **kaskaildu** honek. Txillardegi

---

# kaskailu *izond* ergela; erretxina; burugogorra.

Agure **kaskailu** haren maniak aguantatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Haurrei goxokiak ematen dizkieten mutilzahar **kaskailu** batzuen antzeko maitasuna zigun Barojak euskaldunoi. Xabier Mendiguren Elizegi

Gertaera horien zentzua ulertzeak bereizten dituelako pertsona azkarra eta trauskil **kaskailua,** bi lantegi horiek burutzen ez dituen adimena bera ari baitzaigu "motza" dei diezaiogun erreguka. Pako Aristi

Bada Azkoitian, **kaskailuak** izan, debekatua zegoela dantza helduta egitea, baina Zumarragan libre. Pako Aristi

---

# kaskailukeria *iz* kaskailuari dagokioan egintza gaitzesgarria.

Aitonaren **kaskailukeriez** aparte, zerbait entzun dezan. Arantxa Iturbe

Baliteke haietakoren batek pentsatzea xahar inozo horietako bat zela hura, nahieran manejatuko zuena; ez nintzateke harrituko bakarren bat **kaskailukeria** hutsez bota bazuen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# kaskaka *adlg* kolpeka. ik **kaxkaka**.

Baina guardek baioneta giderraz **kaskaka** haizatzen zituzten. jejenaren suplizioa plantarazi zioten, larruzko zintaz **kaskaka** jo, ukabil eta ostikoka zitzikatu. Elena Touyarou

Behin baino gehiagotan ukabil **kaskaka** lotu zitzaion nardatu zuen norbaiti. Elena Touyarou

---

# kaskako *iz* kaskatekoa.

Fosoko belar gainean botata gelditu nintzen, luze, buruan hartutako **kaskakoaren** ondoren atseden hartzen. Fernando Rey

---

kaskal ik **kaskail**.

---

# kaskamotx *izond adkor* kaskamotza.

Semea **kaskamotx** etxeratu delarik, merezi bezalako zigorra ezarri dio, errebeldiaren izenean. Joxerra Garzia

Arnasa laburtu zitzaidan, berriz, begiak gure **kaskamotxetan** tinkatu zituelarik. Aingeru Epaltza

---

# kaskamotz 1 *izond/iz* buruko ileak motzak dituena.

Azal beilegiko gizon **kaskamotz** baten begi urdinei so geratu zen. Lopez de Arana

Emakume **kaskamotz** bat, traktak banatzen eta elkartasuna eskatzen munduko oinezkoei. Koldo Izagirre

Ume **kaskamotzen** buruak. Urtzi Urrutikoetxea

**Kaskamotzei** hori, gehienak bizarginak eta xaboigileak baitziren, negoziorako kaltegarria iruditu zitzaien. Xabier Olarra

Etorri Pedro! -esan zion **kaskamotz** batek. Jon Maia

Hizketan ari da **kaskamotz** koadrila batekin. Patxi Iturritegi

· Bere idazkariaren buru **kaskamotzaren** atzean, Eisenhowerrek hormako ikur eta intsignia militarrak ikusi zituen. Alberto Ladron Arana

**2** irud/hed

Ezker eta eskuin, landa **kaskamotzen** zerumugarainoko hedaduran, ogi meta borobilak, xotx taula batean bezala jarriak daude. Piarres Aintziart

**3** (adizlagun gisa)

Jantziak urraturik, **kaskamotz,** bizargabe eta buru hutsik. Elizen arteko biblia

Eta laster makina lokian ezarri eta ilea moztu dit -azken ilea ere, guztiz **kaskamotz** utziz. Urtzi Urrutikoetxea

Emakumeari ilea erabat mozturik edo **kaskamotz** egotea lotsagarri bazaio, estal dezala burua. Elizen arteko biblia

**4** ile motzekiko burua.

Charlyren **kaskamotz** garaia begiztatu nuen elizaren bertze muturrean. Aingeru Epaltza

**Kaskamotzean** zakar luze bat. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **emakume kaskamotz** (3)

---

# kaskar[1] *(orobat **kazkar** g.er.)* 1 *izond* behar bezainbateko balioa ez duena, behar bezain ona ez dena. ik**kaxkar**[1]. (bizidunak eta bizidunei dagozkienak)

Karrozan, ondoan eserita, gizon bizar-urdin bat zihoan, txikia eta **kaskarra,** urdinez jantzia. Felipe Juaristi

Uste nuena baino **kaskarragoa** haiz, horratik! Alberto Ladron Arana

Kopiatzaile fina izan arren, *connoisseur* **kaskar** izan naiz beti artelanetan. Javi Cillero

Kaskarin **kaskarra** halakoa! Mirentxu Larrañaga

Idazleak bera bezain **kaskartzat** eta **kaskarragotzat** dituenenak. Anjel Lertxundi

Gonzalezek eta Lasak, aldiz, txapelketako bikote **kaskarrena** izan direla berretsi zuten. Berria - Kirola

Kaskarin **kaskarra** halakoa! Mirentxu Larrañaga

Hiritar **kaskarrak** sortzeko. Askoren artean

Bat-batean zalantza sartu zait zure buru **kaskar** horrekin egutegiari begiratzea ez ote zaizun ahaztuko. Arantxa Iturbe

Garaitsu hartan nire entzumen **kaskarrak** oso arduratuta baitzeukan ama. Anjel Lertxundi

Hain eztia nirekiko tratuan, hain gertu nire ateraldi **kaskarrei** barre egiteko. Oskar Arana

Arima **kaskar** oilo-bustiak oker bezain injustuki epaitu ohi ditu handiaren ekintzak. Joxe Azurmendi

Maisu Juan barbero ezjakin eta euskaldun **kaskarra** lezionatzen. Anjel Lertxundi

Gelatxok apetito **kaskarra** dauka. Pako Aristi

Txakurrak, esate baterako, bista **kaskarra** du eta nahiko belarri ona. Irene Aldasoro

Henrikek belarri **kazkarra** zuen; aski zituen ijitoen musika eta Vienako baltsak. Xabier Olarra

**2** (bestelakoak)

Hiri **kaskar** bat baino ez da. Karlos Zabala

Greccio bezalako herrixka **kaskar** batean. Askoren artean

Nortasunik gabeko etxez osatutako auzo **kaskarra**. Txillardegi

Han inguruko kafetegi **kaskar** batean sartu ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

Zikin samar dagoen satinezko festa-soineko zuri zimurtu bat eta zilarrezko oinetako **kaskar** batzuk jantzi ditu. Xabier Paya

Mahai gainetik **kaskarrena** iduritu zitzaidan hautsontzia hurbildu nuen. Aingeru Epaltza

Egurrezko banku **kaskar** bat zegoen gelaren erdian. Karlos Zabala

Bide **kaskar** hartan erdi zangalatraba ibiltzen hasi zirenetik hiru bat kilometro egin zituztenean. Aitor Arana

Borroka handia zelai erdian, eta pase **kaskar** ugari. Berria - Kirola

Gerrateko ibilera **kaskarrekin** batera gogoratu ditut apustu garaiak ere. Xabier Etxabe

John Waineren film **kaskar** hura ikusten. Karlos Linazasoro

Maila poetiko **kaskarrekoak** dira bat-bateko bertso gehienak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Azken boladako emaitza **kaskarren** zergatia. Berria - Kirola

Xantaia erabiltzen ere saiatu ziren enplegu **kaskar** esklabizatzaile hura onar nezan. Karlos Zabala

Halako eguraldi **kaskarrarekin**. Alberto Ladron Arana

Itxura **kaskar** samarreko harrizko zubi bat igaro behar da. Aitor Arana

Frantses **kaskarrean** mintzatzen. Elena Touyarou

Eder eta sendo iruditutako mundua zatar eta **kaskar** omen. Bernardo Atxaga

**3** (adizlagun gisa)

Jokoan den Magnus Ligari dagokionez, berriz, aski **kaskar** ekin zioten angeluarrek. Berria - Kirola

Inor gutxik espero zuen Reala horren **kaskar** hastea Ligan. Berria - Kirola

**Kaskar** aritu zen hasieratik Pasai Donibane. Berria - Kirola

**Kaskar** aritu zen hasieratik Pasai Donibane. Berria - Kirola

Zeberio aritu zen bikain, Auzmendi oso seguru, eta Ezkurra **kaskar**. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **emaitza kaskar** (5); **partida kaskar** (3)
> **denboraldi hasiera kaskarra** (3); **denboraldi kaskarra** (5); **egoera kaskarra** (17); **eguraldi kaskarra** (8); **emaitza kaskarra** (3); **hasiera kaskarra** (12); **hasiera kaskarra egin**

(4); **hasiera kaskarra izan** (3); **irudi kaskarra** (4); **irudi kaskarra eman** (3); **itxura kaskarra** (18); **itxura kaskarra eman** (6); **joko kaskarra** (3) lan kaskarra (5); **oso itxura kaskarra** (3); **oso kaskarra** (5); **paper kaskarra** (3); **partida kaskarra** (22); **partida kaskarra jokatu** (12); **txikia eta kaskarra** (3)

**baldintza kaskarragoak dituzte** (3); **emaitza kaskarragoak** (7); **lan baldintza kaskarragoak** (5)

**baldintza kaskarrak** (15); **baldintzak kaskarrak** (4); **eguraldi kaskarrak** (5); **emaitza kaskarrak** (14); **emaitza kaskarrak lortu** (4); **hasiera kaskarrak** (7); **lan baldintza kaskarrak** (11); **lan baldintzak kaskarrak** (3); **oso emaitza kaskarrak** (4); **oso kaskarrak** (5)

**egoera kaskarraren** (8)

**egoera kaskarrean** (11); **frantses kaskarrean** (4)

**emaitza kaskarrek** (10); **emaitza kaskarrek eragin** (3)

**emaitza kaskarren** (7)

**baldintza kaskarretan** (15); **lan baldintza kaskarretan** (4); **oso baldintza kaskarretan** (6)

---

# kaskar[2] *iz adkor* kaskoa, burua. ik **kaxkar**[2].

Lokatz puskak botatzen ahalegindu gintuan, baina ez zian ezertarako balio: geure **kaskar** gainera erortzen zitzaizkiguan berriro. Josu Zabaleta

Sekulako pisua sentitu nuen **kaskarrean**. Inazio Mujika Iraola

Haren begirada bortitz gogorra sentitu nuen nire **kaskarraren** gainean, ganibetaren punta bailitzan. Matías Múgica

Neure **kaskarraren** gainean, neure boneteko tapakian barrena, eguzkiak galda betean jotzen zuen, beldurgarri, eta zerebroan oraindik borborka zebilzkidan azken pentsamendu apurrak hiltzen. Matías Múgica

Barne-ikastetxearen ideia nirea izan duk, neuk sartu nioan **kaskarrean** hire amari... ez horrela begiratu. Jesus Mari Mendizabal

Bat-batean jo zidan **kaskarrean** lehendakariordearen sexu bizitzako gertakari baten aurrean ote geunden ideiak. Joxan Elosegi

Sartu ezak behingoz hori **kaskarrean**! Unai Iturriaga

---

# kaskarin 1 *izond* buruarina. ik **kaxkarin**.

Eraman errazeko emakume **kaskarina** zen. Mirentxu Larrañaga

Mamuak andretxo **kaskarinen** buruan baino ez dira esistitzen!. Koldo Biguri

Mutil gazte harengan bizkorregi uste osoa jartzen zuten emazte **kaskarinek** bidalitakoak ziren den-denak, eta haien senar ezjakinen diruarekin ordaindutakoak. Mirentxu Larrañaga

Evie eta bere lagun **kaskarin** txoriburuak. Mirentxu Larrañaga

**Kaskarin** bertan-goxo bat ez da ihes dabilen baten kargu egiten, baina bai kaskotik egindako bat. Anjel Lertxundi

Alberto hain da pertsona **kaskarina**! Fernando Rey

-Urteen poderioz jendea zentzatu egiten da, zu ordea, zaharrago eta **kaskarinago**. Patxi Zubizarreta

-Munduko emakumerik alaien eta **kaskarinena** zara -murmurikatu ohi zion Artek lepondoan-.Barre txoroko neska victoriar batengan pentsarazten dit, **kaskarin** batengan, ile-kiribil horiko eta masail-barren potzolo gorriko neska horietako batengan. Mirentxu Larrañaga

Asmoz harroa eta buruz **kaskarina** zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez dago gerlari ausartik **kaskarin** hori emaztetzat hartuko ez lukeenik. Julen Gabiria

Funtsean, frantses hori, bere **kaskarin** itxura gorabehera, oso zorrotza zen eta oso fina. Karlos Zabala

## 2 irud/hed

Hainbat gizaseme ezagunen konpainia **kaskarin** eta jostalaria. Mirentxu Larrañaga

Izan ere, irudimen errari eta **kaskarina,** objektuaren bidean hainbeste traba eta erreparo aurkitzen duenean [...] askoz ere estuago lotuko zaio gure berezko senaren jomuga den alde atseginenari. Juan Martin Elexpuru

Hor ez dira arimen sorketa, deuseztapena eta palingenesia eta abarren hipotesi **kaskarinak** onartzen. Ibon Uribarri

## 3 (adizlagun gisa)

Nahiago nuen **kaskarin** agertu, nire ezkutukoa zuri aitortu baino. Eduardo Matauko

Koskortuta zegoen, jakina, eta **kaskarin** jantzita, baina maistra Jonesek berehala ezagutu zuen. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kaskarin samarra** (3)

---

# kaskarinkeria *iz* kaskarinari dagokion egintza gaitzesgarria.

**Kaskarinkeria** da zeren lasaitasun hori, egoera honetan, geroratze hutsaren uneko aringarri baten parekoa da. Jon Alonso

Emakume horrek ez bailioke sekula onartuko inolako **kaskarinkeriarik**. Mirentxu Larrañaga

---

# kaskarintxo *izond adkor* kaskarina.

Ez pentsatu, **kaskarintxo** horrek, ezer txarrik egiten duzunik horretan saiatzen bazara. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# kaskarkeria *iz* kaskartasun gaitzesgarria.

Batzuek "panpina" deitzen diote Susanari, baina oker, berak ez baitu panpinaren **kaskarkeriarik**. Bernardo Atxaga

Pertsonaren **kaskarkeria,** eta mediokridade horren onarpena salatzeko. Berria - Kultura

Partida kaskarra jokatu zuten bi taldeek, baina etxekoak hobeto moldatu ziren **kaskarkerian**. Berria - Kirola

Zein ere ziren bataren balioa eta bestearen **kaskarkeria,** inork ezin zuen beste inor esklabotzara menderatzeko. Josu Zabaleta

Norbanakoaren **kaskarkeriaren** aurrean, ergelkeriaren edo ezjakintasunaren aurrean ahuspeztu behar lotsagarria. Josu Zabaleta

Ez nire gogaldirik ilunenetan, ezta nire **kaskarkeriaren** kontzientzialdi larrienetan ere. Eduardo Matauko

---

# kaskarota *(orobat **kaskarrota** g.er., **kaxkarot**, **kazkarot** g.er. eta **kaskarrot** g.er.)* 1 *iz pl* inauterietan, ibilaldiaren buruan dantzari aritzen diren gazteak.

Bigarren zatian, Lapurdin **kaskarotek** gidatzen dituzten inauteriak dira protagonista. Berria - Kultura

Eliza aintzinean **Kaskarota** guzien biltzea. Herria

-8tarik 11.30ak arte, Hiribehere auzoan, ohiturazko ihauteriako **kaxkarotak**. Herria

Eihartzeko **kaxkarotak** ibili dira auzoz auzo. Herria

Aintzinetik milesker handi bat **kaxkarroten** errezebitzeagatik... Herria

Igandean, **kaskaroten** eguna. Herria

Igandean, **kaxkaroten** lasterketa eta mutxikoak. Herria

Airostasuna **kazkarot** banda eta EMAK-HOR musikariek ekarri daukute. Herria

**2** ijitoa.

Eta otordu horren usaiera datorrena behar du izan, inondik inola, alderrai jende horrek guziak: alemanak, hungaroak, zingaroak, ijitoak, agotak, ikazkileak, **kaskarotak** edo dena delako eskazaleak, alegia. Patziku Perurena

---

# **kaskarreko** *iz* buruan hartu edo emandako kolpea.

Behetik gora egin zuela, gelako sabaiaren kontra sekulako **kaskarrekoa** hartu arte. Joan Mari Irigoien

Beste abereek **kaskarrekoa** hartu zuten aurreko gurdien ipurtaldearen kontra. Karlos Zabala

Beti izuturik egoten baikinen ea nork jasoko hurrengo **kaskarrekoa** edo masailekoa. Juan Kruz Igerabide

Arma biologikoa aurpegira hustu nion, eta hustutakoan kristoren **kaskarrekoa** eman baldearekin. Joxean Sagaztizabal

**Kaskarreko** bat eman zidan garondoan, **kaskarreko** ederra gainera. Jon Muñoz

Ni ez nintzateke haserretuko ezta buruan hamaika **kaskarreko** emango balizkit ere. Koldo Biguri

Kristinak erosten zuen, Unairen **kaskarreko** ugarien sendabide. Aingeru Epaltza

-Kontuz **kaskarrekoekin** ! Itziar Otegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaskarreko bat eman** (3)
> **kaskarrekoa eman** (5)

---

# **kaskarrekoka** *adlag* kaskarrekoak ematen.

**Kaskarrekoka,** hozkaka eta borrokan hasi ziren berriz ere. Koro Navarro

Buruko mina **kaskarrekoka** hasia zitzaion eta doinu goibel eta nekatua nabari zuen ahotsean. Mirentxu Larrañaga

---

kaskarrota ik **kaskarota**.

---

# **kaskartasun** *iz* kaskarra denaren nolakotasuna.

Euskarazko kultur produktuen **kaskartasuna** . Euskararen **kaskartasuna** aipatzen zuten, besteak beste, erasotzaileek, eta euskalkiak ziren, euren ustez, **kaskartasunaren** erakusle. Koldo Zuazo

Karitatea norbanakoaren **kaskartasunaren** bitartez Gizonari egiten zaion emaitza da. Josu Zabaleta

---

# **kaskartu**, kaskar(tu), kaskartzen *(orobat **kazkartu** g.er.)* **1** da/du *ad* kaskar edo kaskarrago bihurtu. ik **kaxkartu**.

Ellen bere buruari kornukopian beha geratu zitzaion; "egunen batean itxura **kaskartuko** zaidan". Lopez de Arana

Pertsona bezala **kaskartu** naiz, eta ez naiz mutil gaztea. Berria - Kultura

Egoera are gehiago **kaskartuko** da. Berria - Ekonomia

Zortziko txikiaren txandan, saioa **kaskartu** egin zen. Berria - Kultura

Hala ere uste dut ez naizela asko **kaskartu** . Lander Garro

Labur-labur, guretzat: oraingo gizon hau (elizak, demokraziak, etab., arras **kaskartu,** memeldu, zirtzildua) gainditu egin behar da. Joxe Azurmendi

Taldeak argudiatu duenez, 759 milioi euroko amortizazioek **kaskartu** dute emaitza, baina 1,75 euroko dibidendua ordaintzeko prest dira. Berria - Ekonomia

Langileen **osasuna** kaskartzea langileen errua dela dio zuzendaritzak. Berria - Ekonomia

**2** mozkortu.

**-Kazkartu** egin ninduan eta ez nauk oroitzen. Pello Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lan baldintzak kaskartuko** (3)

---

# **kaskartxo** *izond adkor* kaskar samarra.

Beharbada, garraiatzailea hintzen, eta, hiru zaldi eta kibitka **kaskartxo** bat erosirik, behin eta betiko alde egin huen etxetik, heure habi atik, eta hor hasi hintzen merkatariak azokaz azoka eramaten. Jose Morales

---

# **kaskasoil** *iz adkor* burusoila.

Irakasle **kaskasoilak** bultza egiten zidan kanpora mahaitik. Fernando Rey

Maisu **kaskasoilak** emazte erraldoia zuen. Pello Lizarralde

Matxin Labaien gizon xahartu, begi-urdin, **kaskasoil** bat zen, xelebre fama zeukana Tolosan. Xabier Mendiguren Elizegi

Erabat **kaskasoila** zen eta bere buru karratuak Mussolinirenaren antz kezkagarria zuen-. Alberto Ladron Arana

**Kaskasoilari** ikaragarri gustatzen zitzaizkion Giosuè Carducciren poesiak. Pello Lizarralde

**Kaskasoil** baina bizarluzea. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irakasle kaskasoilak** (4); **maisu kaskasoilak** (3)

---

# **kaskateko** *iz* kolpea. ik **kaxkateko**.

Gero hasi zitzaizkidaan zapatillarekin **kaskatekoak** ematen. Pablo Sastre

Pertsona bat esertzen bada hanka bat bestearen gainean duela, eta doi-doi errotularen beheko aldean **kaskateko** bizkor bat ematen bazaio, luzatu egiten dira tendoia eta hari loturiko muskulua. Irene Aldasoro

**Kaskateko** edo zauri arinen bat izan ezik. Karlos Linazasoro

---

# kaskatu, kaska(tu), kaskatzen *(orobat **kazkatu** g.er.)* **1** du *ad* jo; arraildu, hondatu.

"Gloria, laus..." dialogo hori bururatu eta apezak proosione kurutzea hartzen dako beretterrari eta zangoarekin hiruetan borta **kaskatzen** du. Michel Oronoz

Aztalak itzuli, eta emeki abiatu zen zubirantz, makila puntaz harriak **kaskatuz**. Elena Touyarou

Aezkoan oraindik orain erdi **kaskatuta** zeuden bi behiburu atzeman zituztela. Pablo Sastre

**2** (era burutua izenondo gisa)

Esmalte **kaskatuzko** irazki bat. Josu Zabaleta

**Kaskatu** xamarrak, baina erakargarri, bikote erakargarria. Lourdes Oñederra

---

# kaskazuri *(orobat **kazkazuri** g.er.)* *iz* buruzuria.

Urduri zihoala gizon **kaskazuriaren** alboan. Patxi Zubizarreta

Gela barrenean eserita zegoen agure **kaskazuri** bat, Gizon jada zahar batek, guztiz **kaskazuria,** jubilatuaren itxurakoak, egunkaria irakurtzen zuen ondoko mahai batean. Mirentxu Larrañaga

**Kazkazuri** bezala kojoka ibili arren, laster harrapatzen zuen gezurtia. Berria - Kultura

---

# kasket *(orobat **kasketa**)* **1** *iz* buruko biribila. ik **kasko**.

Alargun baten apaingarri guzti-guztiez jantzirik, soineko beltz estu batekin, [...], **kasket** beltz batekin eta hartatik zintzilik mantelina fin beltz batekin, emetasun erabatekoaren haragiztapen bat bihurtu zuen bere burua. Oskar Arana

Zaldiak lurra jo zuen hankaz eta zaldunak, **kasket** eta guzti, burua jiratu zuen Roni begiratzeko. Iñaki Mendiguren

Manex **kasketa** jantzirik duela jaitsi da gosaltzera. Eider Rodriguez

Egun batean gizon arraro bat iritsi zen gure etxera; urdinez jantzita zegoen eta **kasketa** koadrodun bat zeraman, eta esan zuen nazioarteko lapurra zela. Pello Lizarralde

Galtzerdi pare bat […] eta buruan jockey iduri **kasketa** bat. Marzel Etxehandi

Badakizue, **kasketa** moduko kapela hori, aurpegi gainera datorren biserarekin, eskularru handiak eta soingaineko lodia. Koro Navarro

Aitasantutzaren **kasketaz** eta hierarkiaren bular-babeskiaz astun blindatua. Iñaki Mendiguren

**2** (soldadu eta kidekoena)

Lasterka egiten zen, eta borrokalariak ezkutu eta **kasket** batekin babesten ziren. Berria - Kirola

Soldadu zulatzaileen **kasket,** mantal eta aizkoren erakustaldi beldurgarriarekin. Askoren artean

Hango uniforme eta **kasket** oro gureak bezalakoak ziren. Mirentxu Larrañaga

Mehatxuz eta kopetilun begiratzen zigun bere **kasket** azpitik. Mirentxu Larrañaga

Gilermo Konkistatzailearen soldaduak sarmatiar **kasket** koniko eta ezkatazko armadura-jakaz ekipatuak. Iñaki Mendiguren

Saredun kota eta **kasketa** beltza zekartzan. Agustin Otsoa

Orain ez zeraman kalparra mutilen modura moztua, trinko, burdinazko **kasket** modura. Fernando Rey

Sabelpean billetez hanpatu bere soldadu **kasketa** pausatuz. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kasketa buruan** (3)

---

# kasketa[1] *iz* apetaldia. ik **kasketaldi**.

Hi..., a zer **kasketa** hartu dunan izen horrekin, neska! Antton Olano

Bazirudien ez zituela ulertzen emozioak, eta barre egiten zuen umeetako batek **kasketa** bat harrapatzen bazuen edo garrasika hasten bazen. Xabier Olarra

**Kasketa** ederra hartu du seilu batzuk gorabehera. Joxemari Urteaga

ABBko lehendakariak politikotzat jo du Gasteizko epaitegiaren erabakia: «PPren **kasketa** politikoaren ondorioa da». Berria - Euskal Herria

Hermanni halako moduz eman zion **kasketak** frau Gerda ezagutu behar nuela, ezen besotik heldu baitzidan eta ezkaratzeraino eraman. Anjel Lertxundi

---

# kasketa[2] ik **kasket**.

---

# kasketadun *(6 agerraldi, liburu 1 eta arrtikulu 1ean; orobat **kaxketadun** 26 agerraldi, liburu 1 eta 25 arrtikulutan eta **kazketadun** g.er.)* *izlag* *ipar* jendarmea.

Nehor ez zegoen, ez **kaxketadunik,** ez kaputxadunik, ez kasko laserdunik, ez adiskiderik eta ez etsairik. Itxaro Borda

Gero **kasketadunak** eta kasketagabeak herrian etxez etxe ibili ziren, alegia eta beren ofizioa serioski egiten zutela egia jakin nahiz, nola Xanti desagertu zen. Michel Oronoz

Egun batez, **kasketadun** eta kasketagabeko inspektoreek prentsaurreko bat antolatu zuten. Michel Oronoz

**Kasketadunak** eta kasketagabeak beren inkesten egiten ari zirelarik […]. Michel Oronoz

Efetu handiagoa oraino ikustearekin jin bezala joan dela errepublikaren zinbolo hori, **kasketadunak** anitz izanik ere inguruan. Herria

**Kaxketadunak** laster etorri baitira, berekin ereman dute. Herria

**Kaxketadunak** joan dira tirokaria behar zutela menperatu eta bildu ere dute jestu gutiz. Herria

Errekontrurik ez baita halere gertatu, **kaxketadunek** laster geldi-arazirik arrunt makur zabilan autoa. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kasketadunak eta kasketagabeak** (3)
> **kaxketadunen arabera** (3)

---

## kasketagabe 1 *izond/iz* kasketarik ez daramana.

Gero kasketadunak eta **kasketagabeak** herrian etxez etxe ibili ziren, alegia eta beren ofizioa serioski egiten zutela egia jakin nahiz, nola Xanti desagertu zen. Michel Oronoz

**2** ***kasketagabeko*** *izlag* kasketagabea.

Egun batez, kasketadun eta **kasketagabeko** inspektoreek prentsaurreko bat antolatu zuten. Michel Oronoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kasketadunak eta kasketagabeak** (3)

---

## kasketaldi *iz* apetaldia.

Berriz ere **kasketaldia** harrapatu duzu. Itziar Otegi

Norbaitek aurpegiratzen digun kexa edo purrustada da, gurasoen arreta sortarazteko umeak egiten duen **kasketaldia**. Txema Ramirez de la Piscina

Dudley txikia, **kasketaldi** betean, gosaritako zerealak paretetara botatzen ari baitzen. Iñaki Mendiguren

**Kasketaldi** baten bitartez bere jostailua behingoan eskuratu nahi duen ume mainatia. Xabier Montoia

**Kasketaldiak** jo. Mirentxu Larrañaga

---

## kaskezur *(orobat **kaskohezur** eta **kazkezur** g.er.)* **1** *iz* buruko hezurra.

Mariolinok bere azalpenak eman eta Peppone **kaskezurrean** hazka egitera joan zen traktore ondora. Koldo Biguri

Batak aulki bat goratu zuen besteari **kaskezurrean** txikitzeko. Fernando Rey

Eta orain ezkontzea sartu zaio **kaskezurrean**. Harkaitz Cano

Bala **kaskezurraren** beste aldetik atera zen. Aitor Arana

Koma egoeran egon zen, **kaskezurreko** kolpe baten ondorioz. Berria - Euskal Herria

Etxeko jauna ate ondoan zetzan, **kaskezurra** bi erdi egina. Aingeru Epaltza

Haur batek **kaskezurra** hautsi du Lezaman erorita. Berria - Euskal Herria

Bidean **kaskezurra** ez apurtzeko. Joxemari Iturralde

**-Kaskezurra** txikitu diote. Migel Angel Mintegi

Bidea bezain luze, bide bazterretan, gorputz miserableak, **kaskohezur** kraskatuak. Michel Oronoz

Aizkora bat du **kaskezurrean** hondoratua. Eskarne Mujika

**Kazkezur** nazkagarri hura berriro. Anton Garikano

Txori txikien **kaskezurrak**. Anton Garikano

Artean bertan zegoen basurde **kaskezurra**. Anton Garikano

**2** (hitz elkartuetan)

Nire azken ideia duela hiru urte galdu zuan **kaskezur** barneko zulo beltzen batean. Aingeru Epaltza

Ez zuen sekula jende **kaskezurrik** begimendu: haragiz biluzi begi, sudur, aho zuloei begira zegoen fazinaturik. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaskezurra hautsi** (4)

---

## kaskilo *iz* bala zorroa.

Xegamaren odolak bustitzen hasiak zituen **kaskiloak** oroigarri biltzen genituela ahots ezagun batek egin zidan xuxurla belarrira, atzetik: [...]. Koldo Izagirre

---

## kasko *(orobat **kaska** g.er. eta **kasku** g. er.)* **1** *iz* buruko biribila. ik **kasket**.

Inguruan poliziaren furgonetak ageri ziren hilerriaren sarreran eta hirurogeiren bat polizia, **kasko** eta guzti jantziak. Hasier Etxeberria

Hantxe ipiniko diote **kasko** gainean borla, hari-xortaz egina. Patxi Ezkiaga

Buruan **kasko** bat ipini eta jo egiten ninduten. Jokin Urain

Lur mailan, behean, normala den **kasko** batek, tornuak bezalaxe estutzen dizkizu hezurrak hamar mila metrora zaudenean. Josu Zabaleta

Bere kapela sailetik osasun-ingeniariek eramaten dituztenen gisako **kasko** bat aukeratu zuen, hori-horia. Xabier Olarra

Rossinante deitu zaldi meharraren gainean zabilan zaldun kinkilia, **kaska** zabal berezi bat buru gainean eta lantza luze bat eskutan, behardunen defenditzale suharra, doi bat eroa. Herria

Bi lapur motorreko **kaskoak** jantzita bitxitegira sartu ziren. Berria - Euskal Herria

Haren isla baizik ez genian ikusten, zerua baino ilunago, haren begirada ere ez, **kaskuaren** biserapean. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

Altzairuzko **kasko** motosduna zeraman buru gainean, eta sare kota distiratsua soinean. Aingeru Epaltza

Haien **kasko** puntadunen gandorrek sugarrezkoak ziruditen. Karlos Zabala

**Kasko** dotorea zen, luma zuriz hornitua. Aingeru Epaltza

Motoaren alde batetik zintzilik **kasko** gorri bat ikusi du, eta jantzi egin du. Jokin Muñoz

**Kasko** moderno batek indio zaharraren aurpegia babesten du, eta harro erakusten du eskuetan dinamitazko txistor luzea, txortena zut. Pako Aristi

Gorriak bere **kasko** mailatua jantzarazi zidan. Aingeru Epaltza

Nehor ez zegoen, ez kaxketadunik, ez kaputxadunik, ez **kasko** laserdunik, ez adiskiderik eta ez etsairik. Itxaro Borda

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fusil bat ikusi nuen, zutik txoko batean, eta soldadu **kasko** bat eta prismatiko batzuk haren oinean. Bernardo Atxaga

Pistola utzi eta soldadu **kaskoa** hartu nuen. Bernardo Atxaga

Caro Diario, motor- **kasko** batekin agertzen zen salsaren erritmora kantatzen horrelako herri batean, barregarri zegoen. Mikel Hernandez Abaitua

**4** *adkor* burua. ik **kaxko 2.**

Airekotik jaitsi zen New Yorken, txapela **kaskoan**. Itxaro Borda

**Kasko** puntatik oskietaraino so egin nion: arropa ilunez beztitua zen eta zapatak zuri-zuriak zeuzkan. Itxaro Borda

-Dena ordainduko dut -hots egin zuen Rübsam doktoreak, eskuarekin bere **kasko** soila igurtziz-. Anton Garikano

Pausatu zuen **kasko** soildua burukoaren gainean. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kasko** erdiko soiluneak. Aingeru Epaltza

Xanpainak eta kostoak **kaskoa** berotu didatelako-edo. Patxi Zubizarreta

Pentsamenduak tarrapatan joaki zitzaizkidan **kasko** barnean. Aingeru Epaltza

Basoiren kopeta harria bezain gogorra duk, eta **kasko** gogor hortan herriaren historia gordetzen duk. Michel Oronoz

Bertze batzuetan, gaina **kaska** pelaturik uzten zuten, burua larru has egon behar baitzen beti. *ik* kaskopelatu. Eneko Bidegain

## **5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ginea Berriko **kasko** hurrupatzaile trebeek, gure antzera omen krudelak. Itxaro Borda

Aire mehar eta fresko batek ferekatu zion **kasko** gaina, eta hotzikara bat sentitu zuen. Elena Touyarou

Zalantza astun hura zeukan **kasko**-zokoan danbaka jagoitik. Itxaro Borda

Agatak **kasko**-zokoko zinema gelako pantaila zurbaila ireki zuen eta betiko filma berriz pasatu. Itxaro Borda

## **6** gainaldea. ik **kaxko**.

Handik ari ziren kanoikadaz ibarraren beste aldean zegoen **kasko** batera bonba-tiraka. Inazio Mujika Iraola

Erdi Aroko Urbe hiriaren hondakinak hor ditut, **kasko** batean. Piarres Aintziart

Igandean, Azkainen, Larrun **kaskorainoko** lasterketa goizean. Herria

Oilandoiko **kaskoan,** abantxu 1 000 metro goratan, kapera bat badela. Michel Oronoz

**Kaskorik kasko,** mendien bizkarrezurrari segitu diozue zuen bidean. Xabier Montoia

**Kasko** kaskoan den harrokaren inguruan, belarra idor eta motz. Michel Oronoz

Negu minean, noiz eta ere elurra metatzen baita **kasko** horietan haizea ufaka ari denean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Alderdi zoragarri batean zegoen, **kasko** baten gainean. Rafa Egiguren

Bi mendigoizale euskaldun hupatu dira Lhotse mendiaren **kasko**-kaskoraino. Herria

Lurreko Paradisuko **kasko** gorenean dela lau ibaiei sortzea ematen dien iturri miragarria. Aurelia Arkotxa

Hor daude orain lehengo mahasti lekuak, **kasko** pelatuak... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

*ik beherago* 12. Askoren artean

Urantziatik ateratzean hartu dudan patarraren **kaskora** heldu orduko, begien aitzinean daukat Sanso herria. Piarres Aintziart

Itzalak bat-batean hupatzen ziren muino **kaskoetara**. Itxaro Borda

Ezkilaren dorre **kaskoraino**. Herria

## **7** itsasontziez mintzatuz, kroskoa.

Izatekotan, petroliontziak duke errua: **kasko** bikoitzik ez zuen, eta bandera komenientziazkoa zeraman. Joxerra Garzia

Eguzkiak jotako olaxten islak urrezko ezkatak marrazten ditu ontzien **kasko** ilunean. Koldo Izagirre

## **8** *pl* entzungailuak.

Belarrietan walk-man-aren **kaskoak** jantzi ondoren. Joxemari Iturralde

Belarritako **kaskoak** jarrita, tipo bat pasatu zen. Pablo Sastre

· Entzungailu **kaskoak** erabiliz, jastatzen dituzu berritasunaren xarma duten melodiak... Ramuntxo Etxeberri

## **9** ***herri kasko***

Santiago elizaren ondoan dago gizonaren aterpea, **herri kaskoan**. Piarres Aintziart

Han zegoen **herri-kaskoa,** alde egin nuenean bezalaxe. **Herri kaskotik** bertan bizi zena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ermiten inguruan, **herri kaskoetatik** urrun, mendi magaletan egiten ziren jaiak. Berria - Kultura

Goizetik **herri kaskoa** bete da Euskal Herri guzitik etorri beribilez, auto ttiki eta larri. Herria

## **10** ***kasko esferiko*** (geometrian)

Bi sinusoidez inguraturiko **kasko** esferiko batez hornitua eta l>n luzerako parte zilindriko baten gainean kokatua. Xabier Olarra

## **11** *kasko-gogor* ik **kaskagogor**.

## **12** ***kasko pelatu*** *ipar adkor* burusoila, burusoildua.

Nahiz burusoila edo **kasko pelatua** den, ez du Gehexan Pontto-k deus bilo luzedunen kontra. Herria

Berrogei urteko europar **kasko pelatu** pottoloa eta... ile gorriak dituen neska gazte bat... Ramuntxo Etxeberri

Auzi bereziak kondenatzen zituztela hiltzera alemanekin ibili zirenak, emazte **kasko pelatuak** jende ostearen artean aurkeztuak eta bertze... Herria

Ez, gizon zahar-zahar **kasko-pelatu** bat zen. Daniel Landart

Jakin ezazu zure aita ez dela beti izan tripa lodia duen **kasko pelatu** hori! Ramuntxo Etxeberri

· Mendi **kasko pelatu** hori arras gora da, 1912 metra alabainan. Herria

Bertze batzuetan, gaina **kaska pelaturik** uzten zuten, burua larru has egon behar baitzen beti. Eneko Bidegain

## **13** ***kasko polar***

Irudiak Marteko uda amaieran egin zituen Mars Expressek, **kasko** polarra meheen denean. Berria - Gaiak

## **14** ***kasko urdin*** *(orobat **kaska urdin** g.er.)* Nazio Batuen Erakundeareen agindupeko soldadua.

NBEk Minustah Haitirako misioa hedatu zuenetik, bederatzi **kasko urdin** hil dituzte jada. Berria - Mundua

**Kasko urdinak** Guiglo eta Duekouetik gune neutralera erretiratu dira. Berria - Mundua

NBEren 6.000 **kasko urdin** daude Boli Kostan, baita Frantziako Armadako 4.000 soldadu inguru ere. Berria - Mundua

Batzuk baitiote bere soldado **"kaska urdiñak**" igor dezazkela ONU-ak Afghanistanerat bakearen zaintzeko, aitortu du ez dela holakorik aipatu behar, ez baitu erakunde horrek holako ahalik. Herria

**Kasko urdinen** kopurua bikoiztu nahi du Annanek. Berria - Mundua

**Kasko urdinek** ez zuten ezer egin Srebrenicako bizilagunak babesteko. Berria - Harian

## **15** ***mendi kasko***

**Mendi kasko** garaienetako elurrak urtu eta errekak ongi hornituak joan ohi dira. Pello Zabala

Gure eskualde ur-putzuz eta urtegiz jositakoetan aise gertatzen da hau, eta, ilunabarrerako, **mendi kasko** eta mendi lepoetan, holako laino-tximak agertuko dira. Pello Zabala

San Donato ermita Beriain **mendi kaskoan,** 1494 metretan, aurkitzen da, Nafarroan. Herria

**Mendi** gain eta **kasko** haietan. Pello Zabala

2001eko martxoan hemen berean aipatu ginuen Pantxikaren balentria Mont Blanc (4807 metro) **mendi kaskora** heldu zelarik. Herria

**Mendi-kasko** soiletan errekak sortuko ditut, ibarretan iturriak · **Mendi kasko** pelatu hori arras gora da, 1912 metra alabainan. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hiru kasko ibilaldia** (3); **ibardingo kasko** (3); **kasko barnean** (3); **kasko baten gainean** (3); **kasko eta guzti** (3); **kasko gainean** (6); **kasko gogor** (4); **kasko gogorra** (5); **kasko gogorrak** (3); **kasko ibilaldia** (4); **kasko lasterraldiak** (4); **kasko pelatu** (5); **kasko urdin** (7); **kasko urdinak** (12); **kasko urdinek** (8); **kasko urdinen** (6); **kasko zokoan** (10); **mendi kasko** (30); **mendi kasko horietan** (3)

**kaskoa buruan** (6)

**kaskoak jarri** (3); **kaskoak jarrita** (3); **mendi kaskoak** (6)

**antoni mendi kaskoan** (3); **autza kaskoan** (4); **baigura kaskoan** (3); **bordagaineko kaskoan** (4); **kaskoan eraikia** (3); **kaskoan gaindi** (3); **kaskoan sartu** (8); **kaskoan sartua** (3); **mendi kaskoan** (12); **mendi kaskoan eraikia** (3); **mendiaren kaskoan** (4); **patarraren kaskoan** (3); **sartu zitzaion kaskoan** (3); **txapela kaskoan** (3)

**kaskoaren gainean** (3)

**kaskoetan gaindi** (4); **mendi kaskoetan** (11)

**kaskorat heldu** (7); **kaskorat hupatu** (3); **larrun kaskorat** (10); **mendi kaskorat** (8); **mendi kaskorat heldu** (3); **mendiaren kaskorat** (4)

**mendi kaskotan** (3)

**altzako kaskotik** (3); **autza kaskotik** (5)

**kaskoz kasko** (17); **kaskoz kasko lasterraldiak** (4)

---

## kaskodun *izond/iz* kaskoa duena.

Taularen gainean afixa bat zegoen, soldadu **kaskodun** baten irudiarekin. Anjel Lertxundi

Harresiez barru aldean isabeldarren soldadu **kaskodunak** lord Wellingtonen soldaduek erretako harrien artean daude bibak egiten. Askoren artean

Buruzagi-ordea gizona da, **kaskoduna,** horrek derama lan guzia. Marzel Etxehandi

Hesiaz beste aldetik **kaskodun** buru bat agertu zen. Edorta Jimenez

**Kaskodunak** murkoetan eseririk, kuarteleko aireak edo kanpainako martxak jotzen dituzten ontziak danbortzat harturik. Askoren artean

---

## kaskogabe *(corpusean **kasko-gabe** soilik) izond* kaskorik ez duena.

Lanera abiatzeko orduan izerdi hotzez zegoen, zepoan harrapatu azeri **kasko**-gabea bailitzan. Itxaro Borda

---

## kaskografia *iz*

Schommerrek argazkilaritzari **kaskografia** ekarri zion, «nik egiten dudan abanguardistena da», esan izan du. Berria - Kultura

**Kaskografia** horiek Gasteizen, Espainian, Frantzian eta Italian erakutsi ditu. Berria - Kultura

---

## kaskohezur ik **kaskezur**.

---

## kaskoin ik **gaskoi**.

---

## kaskoindu ik **gaskoitu**.

---

## kaskoinera ik **gaskoiera**.

---

## kaskoinkeria ik **gaskoikeria**.

---

## kaskopelatu *(orobat **kasko-pelatu**)* **1** *izond/iz* burusoila.

Buruzagi ile xuritu edo **kasko pelatu** batzu. Herria

Berrogei urteko europar **kasko pelatu** pottoloa. Ramuntxo Etxeberri

Ni bezalako buru soil edo **kaskopelatu** baten gai[n]ean. Herria

Ez, gizon zahar-zahar **kasko-pelatu** bat zen. Daniel Landart

Nahiz burusoila edo **kasko pelatua** den, ez du Gehexan Pontto-k deus bilo luzedunen kontra.Su eten baten hotsa zabaldu da, baina oraindik ezin **kaskopelatua** bakarrik utzi. Herria

Gainera, beharrean ibili, ibili naiz, baina **kaskopelatu** motel horren ondoan potrojorran jardun dut, eta badakizu hori onena dela pentsa eta pentsa egoteko. Patxi Zubizarreta

**2** *iz* ile gabeko burua.

Peterrek **stetson** handia kasko-pelatuan pausatu eta haritzen freskuran handitzen ari zen dantzarien borobilera eroan zituen beso bietan zintzilik zeramatzan Edmea eta Maiana. Itxaro Borda

---

## kaskotegi *iz* kasko multzoa.

Arantzazuko mendarte honen antzeko mendi **kaskotegi** bat toki aproposa da horretarako. Pello Zabala

---

## kaskotzar *izond* buruhandia.

-Eta zuk ere, Xan, gauza anitz baduzu zugan seme on, leial eta zintzoa ikusten jakin ez duen [...] agure **kaskotzar** honi barkatzeko. Elena Touyarou

---

## kasku ik **kasko**.

---

## kaskuts *izond* kaskarina.

Lagun **kaskuts,** .../... lagun kapon .../... bat, ez otzan .../... baitziotson: .../... "Ala Zeus, .../... ta Agamenon! Xabier Olarra

---

**kasluhar** *iz* antzinateko Kasluh-ko herritarra.

Patrostarrak, **kasluharrak** eta kaftortarrak; azken hauengandik datoz filistearrak. Elizen arteko biblia

---

kasmirtar ik **kaxmirtar**.

---

**kasper** *iz*

Baditinat **kasper** deskatalogatu batzuk modu onean. Patxi Iturritegi

---

**kaspiar**

**1** ***kaspiar itsaso*** (*orobat* ***itsaso kaspiar***)

**Kaspiar** itsasoaren hegoaldera jo beharko zuten, Persiara, Turkiara, edo Turkestango ordokietara. Karlos Zabala

Obi, Yenisei, Lena eta Volga ibaietako urak, besteak beste, Ipar polo aldera ez baina, Georgia eta Kazakhstan aldera jaitsiko dira, **Kaspiar** Itsasoraino. Pello Zabala

Mendi horiek Ozeano Artikoaren itsasbazterrean jaio eta itsaso **kaspiarreko** ertzetaraino doaz. Karlos Zabala

**Kaspiar** itsasoaren hegoaldean zut, hantxe Elbruz. Jon Muñoz

Munduko petrolioaren %60 **Kaspiar** Itsasoaren eta Persiako Golkoaren artean dago. Berria - Mundua

---

**kasta** **1** *iz* enda, leinua, mota; taldea.

Gauza ezaguna da munduan, **kasta** desberdinetako jendea, beren larrujea edo kolorajea nabarmenduz bereizteko usario zabaldua: moroak, beltzak, horiak (ekialdekoak), larrugorriak (indioak), hazur baltzak (bizkaitarrek kastillanoei). Patziku Perurena

Eta ez dut uste euskaldunon artean gutxiengoa denik; alderantziz, euskarak eta euskal folkloreak bizienik iraun duen herrietan uste baitut dela ugarien [jito-judutar] **kasta** horietako euskal jendea. Patziku Perurena

Ez luketela agoten **kastarekin** elkartu behar. Anjel Lertxundi

Judu, jito edo agote **kastakoak** zirela hidalgia agiriak ateratzen zaletuenak. Patziku Perurena

-Txerrenen **kastakoa** haiz. Patxi Zubizarreta

Zeren ez bainuen kastoen **kastakoa** izan nahi jada... Joan Mari Irigoien

Santakrutzen **kastako** euskal basa-gudari kementsuei. Txillardegi

Carrero Blancoren **kastako** odolzaleei babesik gabe gera-tzeak egiten die minik handiena. Juan Kruz Igerabide

-Antikristoren semea, Peppone kondenatu horren **kastakoa,** plazetan herria iraultzara bultzatu nahian hitz egiten ibiltzen den gaizkile gorri horren **kastakoa** ! Koldo Biguri

**2** (animalietan)

-Zuek ez duzue ezagutzen Malacart -erantzun zion Eligiok-, zakur **kasta** duk hori. Josu Zabaleta

Asto- **kastak** ez omen dik Biriatuko mutilzaharrarena baino asto egoskorragorik eman. Anjel Lertxundi

Ibar hartan bertan belar-jaten ari zen Galizia **kastako** behor-talde bat. Patxi Ezkiaga

· Hernán Cortésen, Pizarroren edo haien iduriko bertze piztia batzuen **kastakoa** . Joan Mari Irigoien

**3** leinu edo taldearen ezaugarrien multzoa; adorea, bipiltasuna.

Familiaren madarikazioa! eta hik? ez al daukak **kastarik,** hik? hil al da, hire kasta? Pablo Sastre

Euskaldun karlisten artean bazegok **kasta** ! -pentsatu nuen harro. Txillardegi

Oriotarren **kasta** eta jenioa ditu baina emakume langilea eta atsegina izan da beti. Xabier Etxabe

Gelatxo fandangoa jotzen hasten zenean dantzarako gogoa ematen zion entzuleari. Hori da **kasta** edukitzea. Pako Aristi

Baina Hennek, **kasta** onekoa izanik, ezin eraman zuen bidegabekeria. Koro Navarro

**Kastako** gizonak du soilik ezjakintasunaren eta ergelkeriaren lokarri guztiak hausteko ohorea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**4** herrialde bateko giza talde berezia, gizarteko beste taldeekin nahasten ez dena.

Egiptoarren artean zazpi **kasta** daude: apaizak, gerrariak, itzainak, zerrizainak, merkatariak, interpretariak, eta lemazainak. Patziku Perurena

Indiako jendea, batez ere herri ttipietan, [...] marra batek banandu eta bereizten du; alde batean **kastako** jendea; bestean **kasta** gabekoak, ukiezinak edo harijanak ("Jaungoikoaren haurrak"). Gotzon Garate

**Kasta** ezberdinetakoekin ezkontzea ez da aizu. Gotzon Garate

Hurbilagotik behatuz agertzen dira **kasta** bakotxaren barnean maila frango "jati" deituak. Herria

Errege, parlamentu eta **kasta** gobernarien -burokrazia nahiz apaizterien- idolatriak dituen ondorio oztopatzaileen adibideak ere ematen dira. Iñaki Mendiguren

**Kasta** militarra astiro-astiro bere eragina galtzen ari zen. Iñaki Mendiguren

Andresi iruditzen zitzaion ikusten ari zela Madrilen jende aberatsak, geroz eta ederragotuz, indartuz, **kasta** bihurtzeko zeraman bilakaera. Josu Zabaleta

Indarrean dirauten **kasta** gorenetako kideek. Bernardo Atxaga

Esaten zidak hi ez haizela benetako soldadua, beste **kasta** batekoa haizela. Xabier Olarra

Hauek ez dira izan zaldunak, oinpeko **kasta** zikinekoak baizik. Patxi Ezkiaga

Paraxutisten **kasta** bat sortu zuan orduan, supergizonak. Itxaro Borda

Beren burua **kasta** baten moduan iraunarazteko. Jon Alonso

**5** irud/hed

Geltokiko bankuetan, berotasuna aprobetxatuz, *homeless* batzuk zeuden lotan, etxegabeak, Estatu Batuetako hirietan sortzen ari zen jende **kasta** berria. Iñaki Zabaleta

ETA izan da, beste ezer baino gehiago, euskal politika baldintzatu eta zikiratu duen **kasta** ukiezin hori. Joseba Zulaika

Pertsonaia herratu horien **kasta** mitiko berekoak ziruditela kalesako aita-alabak ere. Anjel Lertxundi

Alde hemendik, **kasta** sakrilegoa! Koldo Biguri

Barrenak nahastutako **kasta** izango gara gu: nahasian dabilzkigu atsegina eta nazka. Iñaki Segurola

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kasta** sistema dela kausa, Indiako gizartean barne-barnean sartua dago arrazakeria. Gotzon Garate

Azkenean, berriz, Visnuren oinetatik shudrak ilki dira, **kasta** mailan errukarrienak. Gotzon Garate

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Errege- **kastakoa** izatera deitua izateagatik Alproja **kasta** horrek ez die behar bezalako begirunerik. Jon Alonso

Lider **kasta** du. Berria - Kirola

Behe **kasta** bateko hamar pertsona hil eta beste hainbat zauritu zituen atzo goi kastako talde armatu batek, Poliziak esan zuenez.

**8** ***goi kasta***

Aspaldiko ohitura zen, *dalit* bat ezkontzen zenean, ezkondutako gauean senarrak baino lehenago **goi kastako** nagusiak andregaiari lorea kentzea. Gotzon Garate

Indiako zenbait eskualdetan ukiezin bat **goi kastako** emakume batekin etzanda harrapatzen badute, biak hilarazten dituzte. Gotzon Garate

**Goi-kastako** hinduek Mendebaldeko heziketa hartu zuten. Iñaki Mendiguren

Ez daukate tenpluetan sartzerik edo **goi kastakoek** edaten duten iturrietatik edaterik. Gotzon Garate

Ukiezin bati, dirua egiten badu, bilduko zaizkio **goi kastakoak**. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jende kasta** (4)
> **goi kastako** (8); **ijito kastako** (5)
> **goi kastakoak** (5); **jito kastakoak** (3)
> **goi kastakoek** (5)
> **kasten sistema** (3); **kasten xixtima** (4)

---

## kastadun *izond* kasta duena, kastakoa.

Hankapalok jende artean zeukan estimazioa eta be-re tabernaren arrakasta ikusita, edonork pentsatuko luke herrikoxeme betidanikoa zela bera, eta ostatu **kastadun** horietakoa taberna, baina ez bata eta ez bestea. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## kastagabe *izond/iz* kasta batekoa ez dena.

**Kastagabekook** [Indian] beren buruei "dalit" deitzen diete. Gotzon Garate

---

## kastagaldu *izond* bere kastako ezaguarriak galdu dituena.

Bilau lotsagabe, traidore, likits, **kastagaldua** ! Juan Garzia

---

## kastaineta *(orobat **kastañeta** g.er.)* *iz pl* kriskitinak.

Guardiako soldaduek gitarra eta **kastainetak** jotzen dituzte. Koldo Izagirre

Bazkaltzen ari nintzela, algarak eta **kastainetak** entzun ditut kalean. Koldo Izagirre

Aragoitar jota ikusgarriek eta kriskitinen **(kastañeten)** jokūek. Herria

---

## kastakide *iz* kasta berekoa.

Hizkuntza eslabiarrez mintzo diren herriak oro, edo hizkuntza germaniarrez mintzo direnak, oro ez dira odol edo **kastakideak** noski. Joxe Azurmendi

---

kastellano ik **kastillano**.

---

## kastigatu , kastiga, kastigatzen **1** du *ad* zigortu.

Baina ezin badut eginkizun hori predikuz, oharpenez eta etsenpluz bete, ez dut haiek **kastigatzeko** eta zigortzeko borrero bihurtu nahi, mundu honetako agintarien modura. Askoren artean

Ez da ipar beltz horietakoa iritsi zaiguna, udazkena sendo **kastigatzen** duen horietakoa. Pello Zabala

Nekatuegi zegoen gorputz hura, **kastigatuegi** . Imanol Zurutuza

**2** (era burutua izenondo gisa)

asko nahi eta gutxi ahaldunen kofradia **kastigatuan** . Joxe Azurmendi

---

## kastigu *iz* zigorra. ik **gaztigu**$^{2}$.

**Kastigu** hura ere beharrezkoa zela esan nien, ez zela bestela nire arima sendatuko. Bernardo Atxaga

Luze pentsatu dut zer **kastigu** merezi duzun. Matías Múgica

**Kastigu** ederra nozitu behar izan du Pedro Páramok emakume horrekin ezkonduta. Juan Garzia

Oso erraz ezartzen baitzituzten lazeria zentzagarrizko **kastiguak,** presoak zigor ziegetara bidaliz. Jokin Urain

**2** (hitz elkartuetan)

Elezaharrak dioenez, harrika hil zuten, juduen **kastigu** -ohitura zenez. Pello Zabala

**3** ***kastigu ostiko*** (errugbian)

Eta *mêlée* eta berriz *mêlée* bai eta **kastigu** -ostikoak gertatu ziren, baina haize basa zela medio, baloia bi haga luzeen kanpotik pasa zen aldiro. Daniel Landart

---

## kastigutxu *iz adkor*

Apaizaren **kastigutxoa** seinalatzen. Pello Zabala

---

## kastillanizatu *izond* gaztelar bihurtu.

Julio Caro Barojak dio asturianoak zirela soilki, beren tradizio eta ohidurak atxikitzen zituztelarik herrialde **kastillanizatu** batean. Piarres Aintziart

---

## kastillano **1** *iz* gaztelarra.

Ondoan bizi ziren **kastillano** batzuen semea, Monje abizenekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Aspaldiko goiasmoa, giputxena, **kastillano** garbi izan nahiarena. Patziku Perurena

Gerla gerlari lotua zegoen, lehenik sarrazino eta giristino, gero **kastillanoen** eta aragoiarren artean. Piarres Aintziart

Intolerantziari ederretsiak daude askotxo hemen hauetan, ohartu gabe intolerantziak, gogor-irteerak, irmotasunak, gutarrismo eriak, ideien purutasunak, koherentzia iraunkorrak eta abarrek, Plá-ren arabera, norekin eta **kastillanoekin** dituztela senidetzen eta berdintzen euskotarrak. Iñaki Segurola

**2** (izenondo gisa)

Eta gure aitona harrituta orduan, aldameneko lankide **kastillanoak** letra bakar bat ere ez zekiela eta: "nola liteke", esaten omen zuen aitonak, "erdaraz hain ondo eginda, letrarik batere ez jakitea?". Xabier Mendiguren Elizegi

Eremu zabal hutsak nolazpait mistizismo **kastillanoa** pizten lagundu duela. Piarres Aintziart

**3** gaztelera.

Zerbaitegatik deitu izan zaie **kastillanoz** "coplas (edo cantares) de ciego" gure bertsopaperei. Patziku Perurena

Joan Inazio Goikoetxea gazteluar euskaltzale eta olerkariak berriz, gauza beratzat jotzen ditu **kastillanoz** cierzo eta euskaraz iparra. Patziku Perurena

---

# **kastillanotu**, kastillano(tu), kastillanotzen da *ad* kastillano bihurtu.

Euskotarra, alegia, intolerantzian eta gogorrean jarrita, zeharo eta osotoro dela **kastillanotzen**. Iñaki Segurola

---

# **kastitate** 1 *iz* garbitasuna, xahutasuna, bereziki sexuarekikoa.

Elorria **kastitate** derrigorrezkoaren zuhaitza eta lorea izan dela. Pello Zabala

Apaltasun sakona eta obedientzia azkarra, pobretasun bikaina eta **kastitate** kutsugabea. Askoren artean

**Kastitatea,** apaltasuna eta penitentzia gordetzen. Askoren artean

Leku garai eta bikain hark San Frantziskoren **kastitate** eta birjintasunaren bikaintasuna esan nahi zuela. Askoren artean

Kristoren Amak bere birjintasunezko **kastitatea** eta apaltasuna emakume batengan, hau da, ahizpa Klararengan, berrituko zituela hitzeman zuen. Askoren artean

**Kastitatean** eta obedientzian bizi. Askoren artean

Birjintasunaren eta **kastitatearen** liliak hain usain zoragarriz inguratzen ditu guztiak, non, lurreko pentsakizunak ahazturik, zerukoak bakarrik nahi dituzten hausnartu. Askoren artean

**Kastitatea** zela bere perbertsioa. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kastitate** botoa egin nuelako. Joan Mari Irigoien

Apaiz batek, **kastitate** botoa betetzeaz gainera, beste sakrifizio batzuk ere egin behar ditu. Edorta Jimenez

Jainkoari sagaraturiko birjina: seguruenik, **kastitate**-boto pribatua zuena eta bere etxean, laiko penitente bezala, bizi zen neska. Emakumea objektu bat bezalakoa baldin bazen gizonarentzat, objektu sexuala, erosi egiten zena askotan, akatsik gabea nahi zen, eta gero ere kutsatu gabe mantentzeko, **kastitate**-gerrikoak eta behar ziren gauza guztiak erabiliko zituzten gizonek. Askoren artean

Urrezko platerak, urrezko koilarak eta gonbidatutako dama guztientzat **kastitate**-gerrikoak harribitxiz apainduak. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kastitate botoa** (3)

---

# **kastizismo** *(orobat **casticismo** g.er.)iz* jatortasuna; jatorkeria.

Sinetsita zegoen, espainiar **kastizismoaren** topikoak erabiliz filosofiaz hitz egin zitekeela eta Balmes berebiziko filosofoa zela. Josu Zabaleta

Menéndez Pelayo-ren "castizo"ari Unamuno-k bere **caticismoa** kontrajarriko dio: berak asmatu (kopiatu) duen intrahistorian kausitzen omen dena, ez artxibo eta liburu zaharretan. Joxe Azurmendi

**Kastizismoaren** teoria inplizitu batekin jardunez beti kriterio gisa. Joxe Azurmendi

---

# **kastizista** *izond*

Ortega bera, beti bezala, oso ondo gelditzen da: horrek onesten duena, *Volksgeist* progresista da, irekia, harremanzalea beste nazioekin, ez **kastizista,** bere baitan itxi, agresiboa nazio auzoekin. Joxe Azurmendi

---

# **kastizo** *izond* jatorra.

Ikusi zutenean, paretak estaltzen zituzten *National Geographic*-eko argazkien eta dekorazio **kastizoaren** arteko kontrasteari buruz hizketan ari ziren Monike eta Karl. Eider Rodriguez

---

# kasto ik **kastu**.

---

# **kastor** *(orobat **kastore**)* **1** *iz* ugaztun marraskaria, buru-luzea eta mutur-motza, isatsa zabala eta atzeko hankak uretan ibiltzeko egokituak dituena *(Castor fiber* etab.).

-Emazteak du behar prestatu afarian janen ditugun **kastorretarik** bat. Aurelia Arkotxa

Orein buru fuinak, arantzurdekia (*porc-epic*) eta **kastorra** jan ginituen. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Untxi-larruzko eskularruak eta **kastore**-larruzko bota handiak jantzita. Iñaki Mendiguren

**Kastore**-olio usaineko igogailu estu batean zeuden; mutiko beltzak Jimmyri irri egin zion. Lopez de Arana

Emakumea **kastore**-gantz astunaren pean loguraturik etzaten da. Xabier Amuriza

**3** kapela (?)

Pont Neuf gainetik, oinezko batzuk baino ez, eskularru, jaka lodi eta artilezko **kastorrak** buruan. Iñigo Aranbarri

---

# **kastorki** *iz* kastor haragia.

**Kastorki** xerra luze batzuk saltsa pixka. Aurelia Arkotxa

---

# kastorzale *izond* kastor-ehiztaria.

Daniel Boone **kastorzalea** datorkit burura. Anjel Lertxundi

---

# kastrense *izond* militarra, armadakoa.

Testuaren mamia nahasketa handi bat da: kristautasuna, taoismoa, naturismoa, kidetasun **kastrensea,** Kung-Fu telesaileko esaldiak... dena sartzen da. Pako Aristi

Bromatzat hartu behar zen tonu **kastrense** bat imitatuz. Berria - Kultura

---

# kastrismo *iz* F. Castrok Kuban ezarritako erregimen politikoa. ik**castrismo**.

Harrokeria naziaren biktimak izan ziren batzuk; frankismoarenak, gulagetakoak, **kastrismoarenak,** Pinochetenak; hango eta hemengo faxismoarenak, hango eta hemengo moral iraultzailearenak. Anjel Lertxundi

---

# kastrista *izond* F. Castrorena edo kastrismoarena. ik **castrista**.

Klaseen arteko halako ezberdintasunik izango ez duen herri bat desiratzea gizakoia da, jendearengan sinestea ez da sozialistatzat har daitekeen ezer, ez da **kastrista**. Munduari eman nahi niokeen mezua da bagaudela hemen aldaketak bultzatu nahi ditugun venezuelarrak, eta ez dugula komunista edo **kastrista** deitura merezi. Pako Aristi

---

# kastu *(orobat **kasto**) izond*

**Kastu** bozkariotsua ez da ezinezkoa. Markos Zapiain

Bada barrabilak bero eta heze dauzkanik ere, egitura sendokoa bera, esperma-hodietatik ha zi ugari dariona, eta zail da hori **kasto** izatea, bere baitan eginahalik gogorrenak eginik ere. Xabier Kintana

Baina gazteak, **kastuak** eta garbiak direnez, [...]. Monika Etxebarria

Zein atarramentu lukete gure hiriek, baldin eta **kastuago** bizi diren herri txikietako emakumeek ez balute hiriko andereen antzutasuna konponduko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zeren ez bainuen **kastoen** kastakoa izan nahi jada... Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kasto konpletoa** (3)

---

# kasu[1] 1 *iz* gertatzen dena edo gertatu uste dena; zertzelada.

Ba, **kasu** bat kontatuko dizut. Bernardo Atxaga

**Kasu** bat aurkeztuko dut, zalantza-izpirik uzten ez duena. Askoren artean

4.578 **kasu** aztertu ondoren. Pello Salaburu

Osakidetzak 2.140 **kasu** atzeman ditu garaiz EAEn zortzi urtean. Berria - Euskal Herria

Asteartean jada 1.864 **kasu** zituzten zenbatuta, eta 45 hildako. Berria - Gaiak

Ezagutzaren ikusmolde kartesiarra ezagutzaren ikusmolde tradizionalaren **kasu** bat da, garrantzizkoena segurik. Askoren artean

**Kasu** bietan prozesu psikologiko beraz ari gara. Isabel Arrigain

Bertze batzu aldiz, iduriz **kasu** berean direnak, ezarekin gelditzen dira. Herria

Zintzotasunak, **kasu** honetan, esan nahi du zientzialariak egia aitortu behar duela. Juan Garzia

Neuk ere ez bainuen soluziobiderik ikusten **kasu** hartan. Joxemari Iturralde

**Kasu** horietan, guk, zuzentasun linguistikoaren aurrean ikuspegi filosofikoa hobetsi dugu. Askoren artean

Esaterako, Europako Batasunean, Kanada, AEB eta Japonian, esnea, haragia, txokolatea azukrearentzat muga-zergak %100 ingurukoak dira **kasu** askotan. Iñaki Heras

**Kasuen** ehunetik laurogeita hamabost baino gehiagotan. Juan Garzia

Salbuespenezko **kasu** gutxi batzuk alde batera utzita. Karlos Zabala

Ustezko **kasu** bakoitza ikertu behar da hori gertatu den edo ez jakiteko. Berria - Euskal Herria

Honelako **kasuetan,** senarrak apaizaren aurrera eramango du emaztea. Elizen arteko biblia

Zein **kasutan** esan daiteke ordenagailu batek gogamena duela? Askoren artean

Baina atzizkiaren **kasua** bestelakoa da. Isabel Arrigain

Zure **kasua** ez da hain berezia. Oskar Arana

Hurbiletik ezagutzen dudan **kasua** delako dakart hona. Anjel Lertxundi

Midas erregearen **kasuan** bezala, Louisek ukitzen zuen guztia urre bihurtzen zen. Gotzon Garate

Baina termino horiek ez dute esanahi bera aglutinazioaren **kasuan** eta analogiaren **kasuan**. Isabel Arrigain

**2** (izenondoekin)

**Kasu** jakin batean ezin da erabili, eta, hori dela eta, Arkimedesen emaitzen kontrakoa adierazten du. Jon Muñoz

**Kasu** ederra naiz aztertzaileentzat. Karlos Zabala

**Kasu** larrienetan, urdaileko edukia kanpora irteteko adinako zulo bihurtzen da ultzera. Irene Aldasoro

**Kasu** ilunak argitzeko tresna berriak. Pello Salaburu

«Zenbait **kasu** eredugarri» alde batera utzita. Berria - Euskal Herria

**Kasu** partikularrek ez dute deus esaten. Askoren artean

Almerian jazotakoa **«kasu** bakana» izan dela. Berria - Harian

Izan ere, diptongoa katemaila inplosiboaren **kasu** berezi bat baizik ez da. Isabel Arrigain

Elkartzeko gelan, beste edozein erietxetakoak bezalako kontuak zituzten solasgai medikuek: **kasu** harrigarriak komentatzen zituzten beren artean. Xabier Olarra

Moglianoko komentuan, **kasu** miragarri bat gertatu zitzaion aipatutako anai Joani. Askoren artean

Horietako bakoitzak darabilen argudiatze prototipikoa **kasu** praktiko batekin testatuko da. Askoren artean

Askoz ere **kasu** konplexuagoa da hori. Juan Garzia

Gertaera baten probabilitatea aldeko **kasuen** kopurua zati **kasu** gertagarrien kopurua da. Jon Muñoz

Urtean gaitzak jotako 270.000 **kasu** berri diagnostikatzen direla. Berria - Gaiak

Hori **kasu** arraro-arraroetan baizik ez da onartzen, perbertsio txiki bat asetzeko, esaterako. Karlos Zabala

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizpahiru urtean **kasu** kopurua «oso txikia» izatea espero dutela esan zuten atzo EBko eledunek. Berria - Gaiak

-Hurrengo andreari **kasu**-galdea egin zion. Josu Landa

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ziur nago irakurri nuela hipogrifoen eraso-**kasu** bat -esan zion Hermionek pentsakor-. Iñaki Mendiguren

Gipuzkoan 10.294 delitu eta 7.395 hutsegite **kasu** zenbatu zituen Ertzaintzak. Berria - Euskal Herria

Thompsonek "Identitate **kasu** bat" lanean. Xabier Olarra

Oraino ez haiz ohartu leporaino kakazturik hagoela hilketa **kasu** batean. Aingeru Epaltza

Baina oso pozoitze-**kasu** gutxi ezagutzen dira larruazaletik xurgatutakoak eraginak. Irene Aldasoro

Baginismo **kasu** gehienen benetako arrazoiak gehiago dira kulturalak, gertaera traumatikoak baino. Luis Elberdin

Katalepsia-**kasu** bat da hau. Josu Zabaleta

Ordezkapen-**kasu** bihur daiteke proposizioaren kontzeptuen tokia haien sinonimoek […] hartzen badute. Askoren artean

Hiru senidetze-**kasu** ohargarriren berri gorde da pasadizo labur honen garaiko kontaketen gerakin zatikatuen artean. Iñaki Mendiguren

Triangeluetan, adibidez, "berdintasun-**kasu"** ospetsuetan gertatzen da hori, aspaldi izan nintzen eskolakumeak hain gogoko zituenetan, alegia. Jon Muñoz

Hamalau kolapso-**kasu** garbietatik, [...]. Iñaki Mendiguren

Garuneko akromatopsia-**kasu** aski "purua" zen I. Jaunarena. Xabier Olarra

Urtero-urtero 27.000 prostata **kasu** diagnostikatzen dira munduan. Berria - Gaiak

Txinan ustezko sei SARS **kasu** identifikatu dituzte. Berria - Gaiak

## • 5 *adlag* adibidez.

Agustinen zaleago direnek, frantziskotarrek **kasu,** borondatearen eragiketan jarriko dute formalki zoriontasuna. Askoren artean

Frantziak, **kasu,** 40.000 milioi euro jarri zituen Ancion taldea salbatzeko. Berria - Ekonomia

Boikota, **kasu,** betidanik izan da kontsumitzaileen esku gelditzen den muturreko tresna. Iñaki Heras

Haur zaharragoentzako jostailuetan, jostailu kimikoak **kasu,** arriskuak azpimarratu behar dira.Ermandadeak eta erkidegoak **kasu**. Berria - Euskal Herria

Sarritan badirudi ezen egun dugun arazorik handiena baliabide berriztaezinak -petrolioa **kasu-** agortzea dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Uztartze hori ez da aise suertatzen gainerako kulturetan (ekialdetar, asiar, afrikar, latinoamerikarretan, **kasu),** non AEB eta Europarekiko gatazka berriak sortuko baitira. Askoren artean

Bidaian urtebete emanda zeudenak ere baziren han, Asiaren erdialdeko merkatariak, **kasu,** ordoki luzeak zeharkatu zituztenak bere salgaiak merkaturatzeko. Karlos Zabala

Oinarrizko eskubideen artean, baina, beste batzuk ere badira, intimitate eskubidea **kasu**. Berria - Gaiak

## 6 *edozein kasutan* nolanahi ere, dena dela.

**Edozein kasutan,** inoiz ez dute alferrik aipatzen Arerio Publikoaren izena. Bernardo Atxaga

**Edozein kasutan,** handik gutxira desegin zen taldea. Iban Zaldua

Egitekotan gauden hau halabeharrez behar genuen egin, egunen batean edo bertzean: **edozein kasutan,** gure eginahalak ez dirateke hutsalak. Jon Muñoz

**Edozein kasutan,** uste dugu Iparraldean Hegoaldean baino ahalegin txikiagoa egiten dela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

## 7 *kasuan kasu*

Intronak eta inguruko ADN segmentuak zeinahi moldetakoak izan daitezke, **kasuan kasu**. Juan Garzia

Orduan da dibortziorako ahalmena debekatua edo utzia, **kasuan kasu,** hala herri bakoitzak dituen ohitura eta ideietara, nola andrazkoei eman behar zaien askatasun luze edo laburraren iritzira. Andres Urrutia

Bitartean, Iñaki Salvadorren pianoak eta Pello Ramirezen txeloak sortutako musika ederrak eszena bakoitzari dagokion giroa sortzen du samurtasuna, herrimina, oinazea edota herra sujerituz, **kasuan kasu**. Berria - Kultura

Eusko Legebiltzarrera ekarri dugu eztabaidatua izan dadin, eta, **kasuan kasu**, Legebiltzarrean onartutako proposamenak ere erantsiko dizkiogu planari. Berria - Euskal Herria

## 8 *kasuan kasuko* *izlag*

**Kasuan kasuko** ereduen konbinazioak ematen dizkio proteinari bere tasun bereziak. Juan Garzia

Organismo heldu bakoitza **kasuan kasuko** sorkuntza bereziaren emaitza zen. Juan Garzia

Epaitzea, **kasuan kasuko** legeak aplikatzea besterik ez baita. Esteban Antxustegi

**Kasuan kasuko** premiak neurtzen dira. Berria - Euskal Herria

## 9 *kasuz kasu*

**Kasuz kasu** azaltzen zion estrategiarik hoberena. Juan Garzia

Estatuei dagokien zorra Pariseko Klubaren baitan birnegozia daiteke, bertan biltzen baitira, **kasuz kasu,** zordunak estatu hartzekodunekin edo merkataritza-kredituen estatu bermatzaileekin. Koro Navarro

**Kasuz kasu** ibiltzen naiz, hiltzaileak, bortxatzaileak eta iruzurgileak aztertuz, eta haien historiak imajinatzen ditut, nobela bat idazten ibiliko banintz bezala. Javi Cillero

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**beste kasu** (103); **beste kasu askotan** (9); **beste kasu bat** (22); **beste kasu batzuetan** (37); **kasu agertu** (10); **kasu asko** (18); **kasu askotan** (155); **kasu atzeman** (8); **kasu aztertu** (8); **kasu aztertzen** (8); **kasu bakan** (16); **kasu bakana** (10); **kasu bakar** (12); **kasu bakarra** (31); **kasu bakoitza** (21); **kasu bakoitzean** (51); **kasu berean** (27); **kasu berezi** (23); **kasu berezia** (16); **kasu berri** (26); **kasu berriak** (11); **kasu gehien** (9); **kasu gehienak** (17); **kasu gehienetan** (62); **kasu gutxi** (15); **kasu gutxiago** (9); **kasu guztiak** (22); **kasu guztien** (9); **kasu guztietan** (118); **kasu jakin** (21); **kasu jakin batzuetan** (10); **kasu partikular** (13); **kasu zehatz** (13); **minbizi kasu** (24); **tortura kasu** (17); **ustelkeria kasu** (13); **ustezko kasu** (11)

**gazteen kasua** (8); **kasua aipatu** (22); **kasua aipatu zuen** (13); **kasua argitzeko** (8); **kasua artxibatu** (9); **kasua artxibatzea** (10); **kasua artxibatzeko** (10); **kasua aztertzen** (9); **kasua berezia** (17); **kasua berezia da** (14); **kasua berriz** (9); **kasua bestelakoa** (10); **kasua bestelakoa da** (8); **kasua daraman** (10); **kasua ikertzen** (15)

**antzeko kasuak** (9); **bulimia kasuak** (8); **indarkeria kasuak** (10); **kasuak agertu** (10); **kasuak aztertu** (16); **kasuak aztertzen** (8); **kasuak banan banan** (9); **minbizi kasuak** (14); **tortura kasuak** (30); **ustelkeria kasuak** (16)

**emakumeen kasuan** (19); **enpresen kasuan** (8); **espainiaren kasuan** (8); **euskal herriaren kasuan** (16); **euskararen kasuan** (12); **kasuan ez bezala** (15); **kasuan gertatu** (13); **kasuan gertatzen** (13); **kasuan izan** (16); **kasuan izan ezik** (16); **kasuan kasuko** (29); **nafarroaren kasuan** (9)

**kasuaz arduratu** (11)

**minbizi kasuen** (10); **tortura kasuen** (8)

**kasuan kasuko** (29)

**kasuren bat** (18); **kasuren batean** (12)

**kasurik gehienetan** (52); **kasurik onenean** (22)

**edozein kasutan** (127); **edozein kasutan ere** (14); **hainbat kasutan** (40); **zenbait kasutan** (122)

**kasuz kasu** (12)

---

# kasu[2] 1 *iz* ardura, kontua.

**Kasu** handiz, ez erretzeko, ogi ihartu berrietariko bat ertzetatik hartu eta gurina hedatu nuen gainean. Aingeru Epaltza

Hegan **kasu** handiz egin behar ditek, istripurik nahi ez badute. Xabier Montoia

Denek **kasu** haundiz eta pazientziz ibili beharra zaukaten deus makurrik ez gertatzeko. Herria

**-Kasu** putarik ez mutur-beltz honi -klixkatu zidan begia. Aingeru Epaltza

Orain kikilduta egongo haiz, denetarik entzungo dun, baina hik, **kasu** ostiarik ez inori. Anjel Lertxundi

**2** *interj* kontuz.

Hemendik goiti, **kasu** Galestar horiekin. Herria

**Kasu** tabakoari. Herria

**-Kasu** zer erraten duzun -abisatu zuen-. Aingeru Epaltza

**Kasu** zer ari haizen -mehatxatu zuen Monduteguyk-. Elena Touyarou

**-Kasu** ! ez niri ziria sar -abisu eman zion Joanttok Basileri, noizbait mahaitik altxatu zirelarik-. Elena Touyarou

**-Kasu,** Sophie, **kasu** . Eneko Bidegain

Hortik goiti, **kasu** ! alkoholkeriak ixilik eta maltzurki egiten du bere bidea. Herria

**Kasu, kasu, kasu** ! Herria

**3** ***kasu egile*** zaintzailea.

Bidarten, igande arratsadean, **kasu egilerik** ez den gune batean mainatzen ari zelarik, Errusiatik heldu zen 55 urteko kamiunzain bat […] ito da batere funtsik gabe, itsasoa frango kexu izanki -eta. Herria

**4** ***kasu egin*** jaramon egin, arreta jarri.

Andreak ez zion segituan **kasu egin,** burua bere gelarantz okertua zeukan. Bernardo Atxaga

Nehork ez nehori **kasu egiten,** denek presatuak iduri, kasik galduak, denak arrotzak, beste mundu batetik ateraiak bezala. Janbattitt Dirassar

Haiei **kasu egitera,** batak nahiz bertzeak ikusmolde makurra zuten elizaz. Aingeru Epaltza

Udaletxean... **kasu egingo** al dizute, Bela? Pablo Sastre

Zain zagok, nik **kasu egiteko** baina, zera!... Pablo Sastre

Frangotan lekuko jendeak ez du **kasu egiten** zer ikerketa mota egiten duen holako batek. Michel Oronoz

**Kasu eginez** oinak non ezar, banabil, txorkatilak gogoan. Piarres Aintziart

Egidan **kasu** . Arantxa Iturbe

Egiozu **kasu** Husainiren esanari. -Erantzi kapela hori, Gwilym, egiozu **kasu** Williams andreari -esan zuen Anniek. Koro Navarro

Egingo diote ba **kasu** txakurrek burdin zati horri... · Badirudi emazteari berari ere ez ziola **kasu** handirik egin. Pablo Sastre

Nik, neskaren aurrerapenei **kasu** handirik egin gabe eta nengoen bezala mugitzeke, begiak itxita jarraitzen nuen. Joxemari Iturralde

Neskari **kasurik** egiten ez nion bezalaxe, ez nion musikari ere **kasu** zipitzik egiten. Joxemari Iturralde

Gau guztian jo zigun larrua zulo guztietatik eta bati besteari baino **kasu** gehiago ez egiten ahalegindu zen. Karlos Zabala

Lagunei ere **kasu** pixka bat egin behar zaien, bi urtez juntatu gabe egon gaitun eta. Patxi Iturritegi

**5** ***kasu eman*** kasu egin.

Irri egin zuen eta ostatutik atera zen komentarioei **kasu eman** gabe, auzoen galderei erantzun gabe. Elena Touyarou

Nahiz eta elgarren artean mintzatzeko tenoreari eta zaintzaleen mugimenduari **kasu eman,** segur da gure solasaldi guziak entzuten zituztela. Filipe Bidart

**-Kasu emazu** nori mintzatzen ari ziren. Elena Touyarou

- **Kasu emak** norekin ibiltzen haizen, Xarles. Itxaro Borda

**-Kasu eman** kanpo horretan. Aingeru Epaltza

**-Kasu emak,** bada. Aingeru Epaltza

**Kasu emanez,** denen laguntzaz, ikastola da biziko. · Prokuradoreak haren doinu ironikoari ez zion **kasu** izpirik eman eta aitzina jarraiki zuen, aho bero. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **egidak kasu** (3); **egidan kasu** (4); **egidazu kasu** (7); **egidazue kasu** (3); **egin kasu** (13); **egiozu kasu** (3); **kasu egidak** (7); **kasu egidazu** (3); **kasu egile** (6); **kasu egin** (205); **kasu egin behar** (62); **kasu egin beharko** (7); **kasu egin dio** (3); **kasu egin ez** (5); **kasu egin gabe** (18); **kasu egin nahi** (6); **kasu egin nion** (5); **kasu egin zezan** (3); **kasu egin zion** (8); **kasu eginda** (7); **kasu eginen** (4); **kasu eginez** (90); **kasu eginez ari** (3); **kasu eginez behar** (3); **kasu eginez gero** (21); **kasu egingo** (22); **kasu egiozu** (5); **kasu egitea** (21); **kasu egiteagatik** (3); **kasu egiteko** (49); **kasu egiteko eskatu** (3); **kasu egiteko prest** (3); **kasu egiten** (101); **kasu egiten ahal** (3); **kasu egiten diet** (4); **kasu egiten dio** (3); **kasu egiten du** (4); **kasu egiten dut** (3); **kasu egiten dute** (3); **kasu egitera** (20); **kasu egizu** (4); **kasu emaiozu** (3); **kasu emaitea** (6); **kasu emaiten** (4); **kasu emak** (7); **kasu eman** (46); **kasu eman behar** (7); **kasu eman gabe** (8); **kasu emanen** (3); **kasu emanez** (15); **kasu emateko** (10); **kasu ematen** (6); **kasu emazu** (3); **kasu gehiago egiten** (11); **kasu gehiegi egin** (3); **kasu gehiegirik egin** (3); **kasu gutxi egiten** (4); **kasu gutxiago** (9); **kasu gutxiago egiten** (4); **kasu handia** (6); **kasu handiagoa** (12); **kasu handiagoa egiten** (6); **kasu handirik** (74); **kasu handirik egin** (45); **kasu handirik egiten** (22); **kasu handiz** (5); **kasu izpirik** (8); **kasu zipitzik** (17)
>
> **ez egin kasurik** (23); **ez kasurik egin** (13); **kasurik egin** (245); **kasurik ez egitea** (8); **kasurik ez egiteko** (9); **kasurik ez egiten** (4)

---

## kasu[3] **1** *iz* hitz batek bere jokaeran edo deklinabidean agertzen dituen eretako bakoitza.

Baina joskera hau sortu zen bai morfologia mailan bai fonetika mailan zoriaren halabeharrez gertatu zen aldaketa bati esker: **kasuen** kopurua murriztu zen, eta **kasu** gutxiago izateak eraketa berri hori ekarri zion hizkuntzari. Isabel Arrigain

**Kasu** instrumentala erabiliz eratutako *buruz buru* sailekoak. Iñaki Arranz

**2** (hitz elkartuetan)

Hitz bati esaldian funtzioa ematen dioten **kasu** marka ezberdinek ere bat etortzen dira batzuetan: *hizkuntzak* (absolutu plurala, ergatibo singularra, ergatibo mugagabea), *Eibarren* (inesiboa, genitiboa)... Iñaki Arranz

· Deklinabide **kasuetan** . Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kasu markak** (3)

---

## kasual *izond* kasualitateari dagokiona.

Banaketa hau ez da **kasuala** . Xabier Kintana

Lehen ez zen horrela hartzen, jatea edo arnastea bezain gertakari naturaltzat jotzen zen, batzuetan gertakari ezustekoa edo **kasuala** bazen ere. Berria - Kultura

Hori guztia ez da ez **kasuala,** ez Administrazioaren gogo onez lortutakoa, hori guztia borrokarekin eta herri presioarekin lortu genuen. Berria - Euskal Herria

Serendipia, antza, aurkikuntza zientifikoetara ailegatzeko bide **kasuala** da. Berria - Kultura

---

## kasualidade ik **kasualitate**.

---

**kasualitate** *(orobat* ***kasualidade*** *g.er.)* **1** *iz* nahiatezkotasunik gabe edo aldez aurreko asmorik gabe jazotzen den gertaera.

Eta orduan **kasualitate** bat gertatu zen; ez gara ohartzen **kasualitateek** gure bizitzan daukaten pisuaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Batetik, beraz, *le hasard* edo ustekabea, zoria, **kasualitatea;** bestetik, *la nécessité,* beharra, ezinbestea, kausalitatea. Iñaki Segurola

Nire bizitza markatu zuen **kasualitate** bat. Anjel Lertxundi

**Kasualitate** bati esker. Anjel Lertxundi

Amona harritu egin zen; **kasualidadea,** hura ere txerrizalea izatea. Pablo Sastre

**-Kasualitatea** da gero! -bota diot-. Patxi Iturritegi

Burutazio hau hona ekartzean Händel handiaren Israel Egipton oratorioa entzuten ari naizela ohartu naiz; hau **kasualitatea** ! Berria - Kultura

Bizargileak begiratu, eta hura **kasualitatea:** hantxe zegonan... Anton Garikano

Ez da **kasualitatea,** beraz, zuzendaritza berriko bi kide [...] nafarrak izatea. Berria - Kultura

Ez baitzen **kasualitatea** izan ekintza hura bi emakume solidariok egin izana. Edurne Elizondo

Karlosek ez du uste **kasualitatea** denik. Iban Zaldua

Ez nuela askorik sinisten **kasualitatean** . Joxemari Iturralde

Eta **kasualitateak** nahi izan zuen une hartan Amgad kaian zehar ibil zedila, eta Asad ezkutuan zuen itsasontziaren susmoa egin zezala. Patxi Zubizarreta

Ez dago **kasualitaterik** munduan, dena probabilitate jokoa omen da. Lourdes Oñederra

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Bai, **kasualitate** handia da. Joxemari Iturralde

**Kasualitate** hutsa izan zen aurkikundea ere. Joxe Austin Arrieta

Hura ez zela **kasualitate** hutsa izan; argi zegoen *Intelligence Service*k jakinaren gainean bidali ninduela aitarengana. Alberto Ladron Arana

*Serendipity*-a **kasualitate** esanguratsua da; adibidez, norbaiti buruz hitz egiten aritu eta hurrengo tabernan pertsona hori ikustea. Berria - Kultura

**Kasualitate** eder baten zoriak. Berria - Kultura

Orduan **kasualidade** gogoangarri batez, apopilo-etxean neure etxejaunaren eta kanpotar baten arteko solasaldi baten lekuko izatera gertatu nintzen. Matías Múgica

**Kasualitate** gertagaitza ere izan zen, gero, alabak eta biok elkarrekin hitz egin izana. Joxe Austin Arrieta

**Kasualitate** gaiztoz bi polizia horiekin aurrez aurre jotzen badut Gau hartan suertaturiko **kasualitate** bakarra taxian gertaturikoa izan zen. Anton Garikano

Ustekabeko esanguraz betetako **kasualitatea,** Pentsatzen jarrita, gehiegizko **kasualitatea** litzateke hori. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da **kasualitate** kontua, potentziak ahalbidetzen baitu autoa abiadura jakin batean ibiltzea. Berria - Kirola

Ez dut ukatzen: kasualitate bat baino gehiago izan da dena; **kasualitate** -kate oso bat, zehazki. Joxe Austin Arrieta

**Kasualitate** andana batek. Aitor Arana

**4** ***kasualitatez*** ik **deskuidu 4.**

Izan ere, ez zuen uste berriro elkar ikusiko zutenik, **kasualitatez** ez bazen. Iban Zaldua

Gurago zuen **kasualitatez** aurkitu, noizbait, nonbait, aldez aurretik pentsatu eta erabaki gabe, ez al zen formalduko euren artekoa. Sonia Gonzalez

-Aizu, ez zara, ba, **kasualitatez** -nik galde -, garai batean Zürichen estudiatzen egondako Joachim Hencke delako baten senitartekoa izango? Joxe Austin Arrieta

Eta heriotza, **kasualitatez** , garabi bat erori ostean gertatu da. Joxerra Garzia

1998ko abenduan, begien aitzinetara jin zitzaidalarik, liburutegi batean, **kasualitatez** , *Les cahiers de géopoétique* aldizkariaren ale bat kausitu nuenean ulertu nuen bilatzen ari nintzena aurkitu nuela. Ana Urkiza

**Kasualitatez** etorri ginen mundura, eta, gero, inoiz izan ez bagina bezala izango gara. Elizen arteko biblia

Eguerdi aldean heldu dira, **kasualitatez** Hasanek oraingoan ere granada prestatua duela, eta Adjibek hotzikara bat sentitu du gizonaren kopetako orbainari erreparatu dionean. Patxi Zubizarreta

**Kasualitatez** agertu nintzen, harri bat, landare bat, mikrobio bat bezala existitzen nintzen. Monika Etxebarria

Amets egiten nuen, enaren lagun bilakatzen nintzela, eta irailaren lauan, esate baterako -lehen eskola egunean hain zuzen, **kasualitatez** !-, lurralde epeletara abiatzen ginela elkarrekin. Jesus Mari Mendizabal

Ez nuke **kasualitatez** ere ikustera joan nahi, baina ziur Julio Iglesiasen azken konpaktoa ari dela martxan, inozoen burmuin eta garunak urtzen. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kasualitate handia** (5); **kasualitate handiegia** (4); **kasualitate handiegia litzateke** (3); **kasualitate huts** (6); **kasualitate hutsa** (48); **kasualitate hutsa da** (7); **kasualitate hutsa izan** (17); **kasualitate hutsa izango** (3); **kasualitate hutsez** (10)

**a zer kasualitatea** (3); **ez da kasualitatea** (94); **ez dela kasualitatea** (14); **ez dira kasualitatea** (3); **ez zen kasualitatea** (14); **hura kasualitatea** (3); **kasualitatea besterik ez** (3); **kasualitatea da** (12); **kasualitatea da gero** (4); **kasualitatea dela** (7); **kasualitatea dela uste** (3); **kasualitatea ere bada** (3); **kasualitatea ez dela** (5); **kasualitatea ez zela** (7); **kasualitatea izan** (46); **kasualitatea izan da** (5); **kasualitatea izan zela** (3); **kasualitatea izango** (7); **kasualitatea izango da** (4); **kasualitatea ote** (4); **zer kasualitatea** (4)

**kasualitateak zer diren** (4)

**kasualitatez deskubritu** (3); **kasualitatez egin** (3); **kasualitatez etorri** (3); **kasualitatez gertatu** (3); **kasualitatez heldu** (3)

---

**kasualki** *adlag* ustekabean.

Hala gauzen haziek eurek, berez eta ausaz elkar joka, hamaika eratara **kasualki,** alperrik eta hutsalki elkartu ondoren, azkenik batzuek asmatu zuten bat egitea, gorputz handiok bat-batean betiko sortarazteko, lehorra, itsasoa, ortzia eta bizidunen enda alegia. Xabier Amuriza

---

kasuila ik **kasula**.

---

**kasuista** *izond* kasuistika lantzen duen teologoa.

Azken horri zenbait **kasuistek** uko onartzailea esaten diote. Xabier Olarra

---

**kasuistika** **1** *iz* moralaren alorra, etikaren printzipioak eguneroko bizitzara edo egoera zehatzetara egokitzen dituena.

Jardute diskurtsibo hau txertatuta zegoen medikuntzan, baina baita administrazio-arauetan ere, literatur edo filosofia testuetan, **kasuistikan,** behartsuei zuzendutako derrigorrezko lan edo laguntza teorietan edo egitasmoetan. Xabier Arregi

**Kasuistika** erlijiosoan, sendagileen diagnostikoan, deskribapen patologikoetan agertzen diren objektuak. Xabier Arregi

Hau da, hau, **kasuistika** miragarria. Jon Alonso

Horra hor eztabaidarako gaia, horra **kasuistika** zabala. Xabier Mendiguren Elizegi

Emakumeen aurkako **indarkeriaren** kasuistika oso zabala da, eta bakoitzari egokitutako neurriak hartu beharko dira. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Bukaera Agirreren esku utziko bagenu, *Deus ex machina* moduko irtenbide bat bilatuko likek Asteasukoak **kasuistika** -ariketa luzeak egin eta gero: ehiztariaren damuarena, esaterako. Anjel Lertxundi

· Ez da beste irakurketarik zilegi egiten duten bestelako hizkuntza-**kasuistikarik,** ez interpretazio mailako prestidigitaziorik. Jon Alonso

---

**kasuistiko** *izond* kasuistikari dagokiona.

Egin dezagun analisi **kasuistiko** bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Ekintzen eta zirkunstantzien sailkapen **kasuistiko** bati begira. Xabier Arregi

---

**kasula** *(orobat **kasuila** eta **kasulla**)* *iz* mesa-jantzia.

**Kasula** gorri nakaratu batekin hornitzen zen apaiza. Bernardo Atxaga

**Kasula** zuri eder bat jantzita zegoen ordurako, eta aldarera eraman beharreko kaliza atontzen ari zen. Bernardo Atxaga

Apaiza, igandero **kasulla** jantzi eta meza ematen duena. Inazio Mujika Iraola

Elizako jantziak, **kasuilak,** aldareko ontziak ere bai. Josu Zabaleta

---

**kasuladun** *(corpusean **kasulladun** soilik)* *izond/iz* kasula jantzia duena.

Begiak erdi itxirik, bera baizik ez zen **kasulladunaren** otoitzarekin bat egiten ari. Aingeru Epaltza

---

kasulla ik **kasula**.

---

kasulladun ik **kasuladun**.

---

**katabasi** *iz*

Uharteko egonaldia errito iniziatikoetako **katabasiaren** pareko: arazte-errito batzuk jasaten ditu iniziatugaiak, biluzik, barau eginez bakardadean, eta lau elementuetara bidaiatzen du sinbolikoki: lurra, ura, sua eta airea. Iñaki Iñurrieta

Horri esker, Gizon Primordial bihurtzen da, Naturaren sintesi, **katabasia** egin ondoren, hots, izatearen maila beherekoenetara jaitsi ondoren; posibilitate guztiak agortu eta errealitate desberdin batera birjaioz. Iñaki Iñurrieta

---

**katabut** *(**17** esaldi **9** liburutan; orobat **katabuta**)* *iz* zerraldoa, hilkutxa.

**Katabuta** egongelako mahai luzearen gainean atontzea pentsatu zuen. Bego Montorio

Luziana Rourak zapi gorri bat lotu zion senarrari lepoan, **katabutean** ezarri zutenean. Koldo Izagirre

**Katabuta** ere -azken etxe-, geometriaren zordun da irudian, armiarma bezala. Felipe Juaristi

Zerbitzurik gabeko egun bakanetako bat eta hara! gorpu zatiak **katabutetan** sartzen eman behar. Edorta Jimenez

---

**katadera** *iz* aulkia, eserlekua.

Lehen puntua da irudikatzea etsai guztien buruzagia esertzen balitz bezala Babiloniako landa handi hartan, suzko eta kezko **katadera** handi batean, itxura izugarri eta ikaragarrian. Patxi Altuna

---

kataetxo ik **katetxo**.

---

**katafalko** *iz* tumulo handi eta apaindua, hotsandiko hiletetan elizan jartzen dena.

Moskuko Plaza Gorrian zegoen, **katafalko** batean, eta ehunka pertsona zeuden ilaran bere aurretik pasa eta ohore egiteko. Bernardo Atxaga

**Katafalkoaren** parera iristean gizon eta emakume askok ukabila altxatzen zuten. Bernardo Atxaga

---

**katagorri** *(orobat **kattagorri**)* **1** *iz* ugaztun marraskaria, basoetan bizi dena, gehienetan ile-gorria, isats luze eta lodia duena *(Sciurus vulgaris* etab.). ik **urtxintx**.

Haritzaren etxean denak daude gustura: mokotarro, xagu, satain, sator, **kattagorri,** kattamuxar, eta hainbat ezkurjale. Pello Zabala

**Katagorriok** adiskide eginez gero, zeure gelan bertan egingo dute habia eta umeak. Gotzon Garate

**Katagorrien** atzetik egiten zuten lasterka, nork eskuratuko bat apustuan, baina inoiz ez zuten lortzen, **katagorri** jauzilari haiek zuhaitzera igotzen baitziren, toki seguru horretatik bikote ausart hura zelatatzeko. Iñaki Zabaleta

Handik goiti, **katagorriak** bezala kasik, adarrez adar galdurreraino. Patziku Perurena

-la **katagorria** ekartzen duzun, ohe gainekorako narru azal gutxi falta zaizkit. Jon Maia

Gero eta **katagorri** gehiago dabil, arbola gero eta gehiago dago eta. Jon Maia

Une batean bion begiradek behaztopa egin dute, eta begininiek, adar gainean topo egin eta supituki tenk gelditu diren **katagorriak** bailiren, harriturik bezala errepasatu dute elkar haizearen distantziara. Pako Aristi

Harako baxter hartan, berriz, sehaska huts abandonatu bat edo beste, **kattagorri** ttiki buztanaundiak niniak lapurtuta, barrenutsik utziak... Patziku Perurena

**2** (erkaketetan)

**Katagorri** bat bezain arin. Karlos Zabala

---

katai ik **kate**.

---

# **katakana** *iz* japoniar bi silabategietako bat.

50 silaba horiek idazteko beste sistema bat asmatu zuten, **katakana,** lerro zuzenak erabiliz. Ibon Uribarri

Hitzen eta adjektiboen deklinabidea, aditzen jokabidea, juntagailuak eta funtzio sintaktikoak adierazteko, *hiragana* erabiltzen da; eta atzerritar hitzak (maileguak) jasotzeko **katakana**. Ibon Uribarri

Horren guztiaren bidez eta oso mailegu gutxi erabiliz (ia **katakanarik** ez da agertzen liburuan), japoniera zahar kutsatu gabea birsortzen saiatzen da. Ibon Uribarri

---

# **kataklismatiko** *izond* kataklismoari dagokiona.

Oraina den bezala ikusteak arerio bi dauzka, Bordari berari ere gogor erasan izan diotenak: iraganean, errua eta damua; etorkizunean, aldiz, xede hipotetikoen idolatria (izan dadin abertzale, kristau edo iraultzaile **kataklismatiko,** hain antzekoak honi eta beste kontu askori dagokienez). Markos Zapiain

---

# **kataklismo** 1 *iz* hondamendi ikaragarria, gertakari geologiko batek eragina.

Teoriaren arabera, izar erraldoiak **kataklismo** baten bidez kolapsa daitezke, barruko erreakzio nuklearrek grabitatearen aurka egiteko behar adinako indarra sortzen. Berria - Gaiak

Noizbait **kataklismo** bat gertatuko balitz, izaki ttipi horiek guk baino ahalbide gehiago izango zituztela bizirik irauteko. Josetxo Azkona

**2** *hed/irud*

Atenasko filosofoak mendietako artzainak imajinatzen ditu aldika beren gotorlekuetatik irteten zibilizazio berri bat eraikitzeko, aldizkako hainbat **kataklismoren** azkenekoan desagertu zen zaharrak hutsik utzitako lekuan. Iñaki Mendiguren

Ostatuen izenak karrikenak eta bizilagunen izaera bezalakoak dira hiri honetan: nekez mudatzen dira, gerla, inbasio edo gisako **kataklismoren** bat tarteko izan ezean.Txundituta geratuko zen -harritu zen Andres-, zeren hark uste zuen hori esaten zuen egunean **kataklismo** bat izango zela familian. Aingeru Epaltza

**Kataklismo** izugarri batek eztanda egin zuen supituki gure sukaldean. Josetxo Azkona

Euskal jendeak ez daki erroetatik bereizi izanak zer nolako **kataklismoa** eragiten duen, baina aldi berean, AEBetan ere ez dute ezagutzen Euskal Herriak azken 25 urteotan jasan duen bilakaera Sekulako **kataklismoa** gertatu da Alavesen, baina entrenatzaile berria, Mario Luna, horretaz ez dela konturatu dirudi. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Ondorengo gizarte-**kataklismoa** zoritxar handia da inplikaturiko guztientzat. Iñaki Mendiguren

---

# **katakonba** *(orobat **katakunba**)* 1 *iz* lurpeko barrunbeak, lehen kristauek hilak ehorzteko eta elizikizunak egiteko erabiltzen zituztenak.

Eliza **katakunbetan** gorde zen. Joxean Sagastizabal

Framazonen ikur eta sinboloak Paris eta Erromako **katakunbetan** aurkitu izan dira, Partenongo harri-abarretan, eta Txinako Harresi Handian, Karnak eta Palmirako tenpluetan eta Egiptoko piramideetan... beti framazonen batek aurkitu ere, noski. Xabier Olarra

**Katakonben** hesi sendoan ipini nuen eskua. Koro Navarro

Hezur pilatuez beteta zeuden hormen ondotik igaro ginen [...], eta **katakonben** barreneneko parteraino iritsi ginen. Koro Navarro

Sakonune hark ez zirudien berariaz egina, ez baitzen **katakonbetako** sabaiaren bi euskarri erraldoiren arteko barrunbea besterik. Koro Navarro

Eskaileraren beherenean ganga bat zegoen, egiaz **katakonba** heze, hotz, luze, bihurri baterako sarrera ematen zuena. Josu Zabaleta

Gaizkitzen hasi nintzen **katakonbetako** hezetasun hartan. Koro Navarro

Sirakusako **katakonban** honako inskripzio bitxi hau topatu dute: [...]. Pello Zabala

Seriotasun itxuratiz, baina esan egin nion, eta berak ulertzen zuela erantzun zidan, "je vois", **katakume** batek esango zukeen bezala, **katakumeek** hitz egiteko dohaina balute. Ramon Saizarbitoria

**2** *hed/irud*

Ezkuernagako **katakunbetako** ardo guztia edango nuke kristolako atxurra harrapatu arte. Berria - Kultura

Alegia, **katakunbetara** bidali nahi dituztenei helduleku begi bistakorik ez uzteko ahalegina egin dute. Berria - Euskal Herria

Gobernuak **katakonbetan** gorde nahi du [pobrezia]. Berria - Euskal Herria

---

# **katakume** 1 *iz* katuaren kumea.

Kateme baten magalari gozo-gozo bilduak zeuden bospasei **katakume** jaio berri ikusi nituen armairu horietako baten barruan. Josetxo Azkona

Bere lagunaren katuak **katakume** bat egin zuen, eta **katakumeak** katamarengandik ateratzen zirela ikusi zuen. Josu Zabaleta

**Katakumeak** katamarengandik ateratzen zirela ikusi zuen. Josu Zabaleta

**Katakumea** lepotik hartu eta igerilekuko ur usteletara bota nuen. Berria - Kultura

Marmarka hasi zen, **katakumeak** kendu dizkioten katama baten egonezinez. Anjel Lertxundi

Katemea agertu zenerako, eginak genituen ontziaren txukuntze lanak; lau egunen buruan topatu genuen hura, beste horrenbeste **katakumeren** ama eginik, gilaren gaineko zokondorik ezkutatuenean. Edorta Jimenez

Nagiak ateratzen dituen **katakumearen** antzera. Fernando Morillo

Oso beldurtuta nengoen, **katakume** bat elurretan bezainbeste. Hasier Etxeberria

Hotzak akabatzen nago, eta **katakume** bat bezain ahul. Mirentxu Larrañaga

Zakurrak etxeko **katakumeak** lagun egiten ditu. Gotzon Garate

Angorako **katakumea**. Anton Garikano

Portzelana txinatarrezko **katakume** basati bat, oldartzeko zorian beti, portzelana txinatarrezko sagu potolo eta babesgabe baten gainera. Mirentxu Larrañaga

**2** (izenondo gisa)

Azkenean etzan eta besoetan kulunkatu zuen nexka **katakumea**. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> nexka katakumea (4)

---

katakunba ik **katakonba**.

## **katalan** **1** *izlag* Kataluniakoa, Kataluniari dagokiona. ik **kataluniar**.

**Katalan** Herria bezala, zatituta dago Euskal Herria. Koldo Zuazo

Unamunok berak [...] euskal eta **katalan** identitate eta arazoarentzako sozialisten ulerpen urria salatzen zuen, ez alferrik. Joxe Azurmendi

Jordi Solé **katalan** soziolinguista. Iñaki Segurola

Josep Lluis Garod-Rovira **katalan** ezkertiarra. Herria

Don Ramón Cabrera jeneral **katalana**. Txillardegi

Askotan sartzen zen patiotik trumoi-ahots bat, **katalan** azentuz, esanez: [...]. Josu Zabaleta

**Katalan** Herrietako egoera politikoan. Berria - Euskal Herria

Herri **katalanen** zatiketak sortzen zituen kalteak nabarmendu ziren Franco hil ostean antolatutako **Katalan** Kulturaren Batzarrean. Koldo Zuazo

Hockey selekzio **katalan** bat antolatu. Joxe Azurmendi

Gerardo Markuletak hainbat **poeta** katalanen lanen euskarazko itzulpenak irakurri zituen. Berria - Kultura

• **2** *iz* Kataluniako herritarra.

Euskaldun izatea, edo **katalan** ala galego izatea. Joxe Azurmendi

Frantses Estatu barruan dauden **katalan,** euskaldun eta bretoientzat. Gotzon Garate

Topikoak bestela badio ere, **katalan** guztiak ez dira xuhurrak ez poltsa-zimurrak, ezta gutxiago ere. Joan Mari Irigoien

**Katalan** asko dago Euskal Herriarekin liluratuta. Berria - Euskal Herria

**Katalanek** ez ditek oraindik ospe ona gure artean. Mikel Hernandez Abaitua

**katalanek** ederki baliatu zuten erregimen berria hango eskolak katalantzeko, hartarako baimena Madrildik noiz etorriko zain geratu gabe. Joxerra Garzia

Urrun gaude kontu hauetan **katalanek** egiten dutenetik, ez izan dudarik. Pello Salaburu

**3** *iz* kataluniar herrietako latin hizkuntza. ik **kataluniera**.

Cristinak eta Oriolek **katalanez** hitz egiten zuten beren artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hor du irakurleak gure hizkuntzen mapa: euskara, **katalana,** gaztelera, galiziera eta portugesa. Edorta Jimenez

**Katalana** normalizatzea zen batzarkideen helburua. Koldo Zuazo

**Katalanaren** batasunaren aurkako neurriak dira eta ez dauden lekuan ere arazoak sortzen dituzte. Berria - Kultura

Niretzat lasaitasun bat izan zen nire liburuak **katalanera** eta galegora itzuli zirenean. Ana Urkiza

Vitruvioren testua **katalanez** argitaratu zen Esther Artigasek [e.a.] Antonio Castroren aholkuekin eta koordinazioarekin egindako itzulpenarekin. Santiago Iruretagoiena

Kantu batzuk **katalanez** abestu zituzten. Rafa Egiguren

**Katalanezko** Idazleen Elkarteak muzin egin dio Jaume Matasen gobernuaren diru laguntzari, «katalanaren genozidioa» salatzeko. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**katalan eta euskaldunen** (3); **katalan herrietako** (4); **katalan valentziera** (3)

**bide katalana** (3); **estatu katalana** (8); **estatu katalana aldarrikatu** (4); **euskara eta katalana** (4); **galiziera eta katalana** (8); **hizkuntza katalana** (3); **katalana bat dela** (6); **katalana erabili** (4); **katalana erabiltzeko** (4); **katalana eta galegoa** (5); **katalana eta galiziera** (12); **katalana eta valentziera** (7); **katalana euskara hiztegia** (3); **katalana jakitea** (5); **nazio katalana** (4); **nazionalismo katalana** (3); **rafael nadal katalana** (3); **valentziera eta katalana** (5); **valentziera katalana** (3)

**; alacanteko herrialde katalanak** (3); **gizarte katalanak** (3); **herri katalanak** (15); **herrialde katalanak** (296); **herritar katalanak** (3); **idazle katalanak** (5); **katalanak eta euskaldunak** (4); **katalanak eta galizierak** (3); **politikari katalanak** (5); **valentziako herrialde katalanak** (7)

**hizkuntza katalanaren** (4); **katalanaren aldeko** (8); **katalanaren batasuna** (7); **katalanaren erabilera** (4); **katalanaren eta galizieraren** (4); **kultura katalanaren** (3); **valentziera katalanaren** (3)

**alderdi katalanei** (3)

**herrialde katalanek** (6); **idazle katalanek** (3)

**herri katalanen** (3); **herrialde katalanen** (13); **katalanen artean** (3); **letra katalanen** (4)

**herri katalanetako** (5); **herrialde katalanetako** (73); **herrialde katalanetako taldea** (9); herrialde katalanetako taldeak

**herrialde katalanetakoak** (4)

**herrialde katalanetan** (41); **herrialde katalanetan ere** (4)

**herrialde katalanetara** (4)

**herrialde katalanetatik** (8)

**erdia katalanez** (3); **etiketak katalanez idazteko** (3); **euskaraz eta katalanez** (3); **katalanez egin** (3); **katalanez egindako** (3); **katalanez eta euskaraz** (8); **katalanez hitz egin** (4); **katalanez idatzita** (3); **katalanez idatzitako** (4); **katalanez idazteko** (4); **katalanez idazten** (3); **katalanez ikasiko** (3); **katalanez mintzatu zen** (3); **katalanez mintzo** (5); **produktuen etiketak katalanez** (3)

**katalanezko bertsioa** (4); **katalanezko eskaintza** (3); **katalanezko idazleen** (10); **katalanezko idazleen elkarteak** (5); **katalanezko kantu** (4); **katalanezko telebista** (4)

---

## **katalanbroxa** *iz* almendrazko tarta etxean egina.

Bixtan dena bazela bertzerik ere, eta denak arras goxoak zirela, **katalanbroxak** ere ahantzi gabe. Herria

Etxauzko parkean ikusiko dira lehengo lan, ofizio eta tresnak; horietan baporezko ogi joiteko bat,[...] ardi moxtea, gasna egitea, **katalanbroxa** eta bixkotx egitea, taloak artekiarekin eta marrakukiak. Herria

---

## **katalandar** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **katalan** agertzen da)* *izlag/iz* katalana, Kataluniakoa, katalan herritarra.

**Katalandar** ordezkari gehienek *Parlament*-etik testu adostu batekin atera ziren. Berria - Euskal Herria

Joan-Lluis Lluis **katalandar** idazleak. Herria

«La flama» taldeko musikari **katalandarrak**. Herria

Ez zen horrelakorik gertatzen [Frantziako] Tolosan dauden hainbeste nafar eta **katalandarrekin,** nahiz eta hauek ez dauzkaten denek espainoltzat. Piarres Xarriton

---

## **katalandu,** katalan(du), katalantzen **1** da/du *ad* katalan bihurtu. ik **katalanizatu**.

Errepublika etorri zenean ere, [...] katalanek ederki baliatu zuten erregimen berria hango eskolak **katalantzeko,** hartarako baimena Madrildik noiz etorriko zain geratu gabe. Joxerra Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Donoxtiar **katalandu** euskaldun ustekoak. Patziku Perurena

---

## **katalanera** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **katalan** agertzen da)* *iz* katalana (hizkuntza). ik **kataluniera**.

Erdi Arotik aurrera zenbait gudu galdu ez balira, Muretekoa adibidez, Kataluniak, Aragoik eta Okzitaniak estatu bat osatuko zuketen agian, **katalanerak,** aragoierak eta okzitanierak antzeko bilakaera izango zuketen. Mikel Hernandez Abaitua

Unibertsitate horretan **katalaneraz** irakasten du irakasleen erdiak, baina **katalaneraz** irakasten ez dutenen arteko zenbait ingelesez aritzen dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

**katalanismo** *iz* Kataluniaren nortasun politiko, historiko eta kulturala ezagutua izan dadin lortu nahi duen higikunde politikoa.

Hori al zuen benetan helburu Aznarrek, independentismoaren eta **katalanismoaren** izugarrizko gorakada Maragallen hurrengo gobernuan? Joseba Zulaika

Ondoren, **katalanismo** errepublikanoa eta langile eta sindikatu taldeak elkartu zituen bere gobernuan. **Katalanismoa** herritar xumeen artean zabaldu behar zuela, bereziki etorkinen artean. Berria - Mundua

**Katalanismoak** autogobernuan aurrera egitea erabakigarria izan daiteke euskal auzia libratzeko. Berria - Euskal Herria

---

**katalanista** **1** *izond* katalanismoaren aldekoa.

Icetak goratu egin du Esquerrak Senatuan izandako jarrera, baina salatu du alderdi **katalanista** batek inoiz ez duela oztopatu lurralde batek autogobernuan aurrera egitea. Berria - Mundua

Kataluniako Gobernu **«katalanista** eta ezkertiarra» bere horretan mantentzea da ERCren lehentasuna. Berria - Euskal Herria

Miquelen joera **katalanistaz** baliaturik. Berria - Kultura

Independentistek azken hilabeteotako boto **katalanista** ezkertiarraren gorakada berenganatuko dutela esan du ERCko buruak. Berria - Mundua

PSC historikoki beti izan da **katalanista** eta beti defendatu izan ditu Kataluniako interesak. Berria - Harian

**2** *iz* katalanismoaren aldeko pertsona.

Iturraldek Katalunia eta **katalanistekin** harreman estuak zituen, eta pentsatzekoa da Arnauren legendaren berri bazuela. Martin Anso

Katalana bat dela diotenek zein abertzale eta **katalanistek** «gauzak nahastea» eta dialektu batetik hizkuntza bat asmatzea egotzi izan diete [Valentziako] eskuindarrei.

---

**katalanizatu**, katalaniza(tu), katalanizatzen **1** da *ad* katalan bihurtu. ik **katalandu**.

Kataluniako Hezkuntza Sailak bigarren hezkuntza **katalanizatu** nahi du, baina oraindik ez da zehaztu nola egingo den. Berria - Euskal Herria

**2**

Bai, baina lehen hezkuntzan heziketa **katalanizatuagoa** da bigarren hezkuntzan baino. Berria - Euskal Herria

---

**katalanofobia** *iz* katalanen aurkako herra.

Espainian **katalanofobia** handia dago, eta PP hori indartzen ari da. Berria - Mundua

**Katalanofobia** oso zabaldua dago Espainian. Berria - Mundua

Alderdi Popularrak Estatutuaren kontrako kanpaina bultzatu zuen duela hilabete batzuk eta **«katalanofobia** eta banaketa» bultzatu zituen. Berria - Mundua

---

**kataleju** **1** *iz* betaurrekoa.

Bart arratsean beste denbora-pasa bat aurkitu nuen: **kataleju** batez beste etxeetako bizilagunen gela ongi argituak espiatzea. Josu Zabaleta

**2** *pl* betaurreko bikiak.

Gizon bat irten, **katalejuekin** begiratu beraiei eta barrura sartu zen berriro. Anton Garikano

---

**katalepsia** *iz* nerbioetako alditxarra, bat-batekoa, gorputza gogortzen eta sentiberatasuna sorgortzen duena.

Apatia orokorra, gorputzaren pixkanako hondamena eta **katalepsiaren** ezaugarri batzuk zituzten alditxar sarri baina iragankorrak ziren diagnosi bitxiaren osagaiak. Koro Navarro

Lady Madeline gaztaro betean hilobiratu zuen eritasunak, **katalepsiazko** heriotza guztietan gertatzen den bezala, arrosa kolore arin baten iseka utzi zion bularrean eta aurpegian, eta irribarre irudikor bat ezpainetan, zenduengan hain ikaragarria izaten dena. Koro Navarro

Oraingoz behintzat, begetal eginda daude, **katalepsiak** jota bezala, eta bizirik ateratzen badira alkandora hertsagarri bana izango dute zain Bermeoko psikiatrikoan, hori seguru, zeren horrelako tripi txarrek flashback itzela izaten baitute. Patxi Iturritegi

**Katalepsia** -kasu bat da hau. Josu Zabaleta

---

**katalisi** *iz* erreakzio kimiko baten abiaduraren lastertze edo moteltzea, erreakzioan parte hartzen ez duen gai batek eragina.

**Katalisia** eragiten duen substantziari deitzen zaio katalizatzailea, erreakzioa azkartzen duen substantziari. Berria - Gaiak

ADNa jaun eta jabe den mundu bizi horren aurretik, izan bide zen beste bat, non ARNa baliatzen baitzen hala erreplikaziorako nola **katalisirako**. Juan Garzia

**Katalisi** Institutuak. Berria - Gaiak

---

**katalizagailu** *iz* katalizatzailea.

Antza, horrek **katalizagailu** efektua eragin, eta hortik aurrera hautsak harrotu egin ziren, kontratuek bost euroko billete baten balioa balute bezala. Berria - Kirola

---

**katalizatu**, kataliza, katalizatzen **1** du *ad* katalisia eragin.

Kasu guztietan, erreakzio-kate linealak ditugu, hots, sekuentzia batzuk, non urrats bakoitza entzima espezifiko batek **katalizatzen** baitu. Juan Garzia

Konposatu jakin bat finkatu eta eraldakuntza kimikoa **katalizatzeko**. Juan Garzia

Entzima horiek **katalizaturiko** erreakzio kimikoen azterketa zinetiko xeheak. Juan Garzia

**2** irud/hed

Une historiko haren partaide izateak sorrarazten zien emozioa, eta bertsoak emozio hori **katalizatu,** bideratu baino ez zuen egin behar. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

**katalizatzaile** 1 *iz* erreakzio kimiko bat katalizatzen duen gaia. ik **katalizagailu**.

Kasu horretan, potasa edo sosa izaten dira **katalizatzailerik** erabilienak. Berria - Gaiak

Gaiker ikerketa zentrokoek **katalizatzaile** solidoaren aldeko apustua egin dute, horrek «abantaila handiak» dakartzalako: batetik, erreakzio kimikoaren ostean, errazagoa izaten da olioa **katalizatzailetik** bereiztea. Berria - Gaiak

Entzima, funtsean, **katalizatzaile** bat da, hau da, erreakzio kimiko bat bizkortzen duen baina prozesuan aldaketarik izaten ez duen substantzia bat.Entzima-zorro bat da zelula, eta entzimok -erreakzio kimikoen **katalizatzaileak-** igeri dabiltza "likido koloidal" tanta batean. Irene Aldasoro

**Katalizatzailea** errekuperatu egin daiteke eta prozesu gehiagotan erabili. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Jaiotzen ari baitzen, Lutero (1483-1546) **katalizatzaile** zuela, Hans Küng-ek laugarren paradigma deitua: Erreformako paradigma ebanjeliko-protestantea. Patxi Altuna

Garai batean Ruper zen mundua atzemateko **katalizatzailea**. Eider Rodriguez

Baina ziur dago **katalizatzailea** ez zela bera izan, Jose Javier baizik. Iban Zaldua

Hipotesirik onena gauzatuz gero, konponbideak bilatzeko prozesuak gainerako arazo etniko eta politikoak gainditzeko **katalizatzaile** lana egin dezake, adituon arabera. Berria - Gaiak

---

**katalogatu**, kataloga, katalogatzen 1 du *ad* hurrenkeraren baten arabera katalogo batean sailkatu edo izendatu.

Ikertzaileek lau mila zazpiehun eta laurogeita bi dokumentu **katalogatu** dituzte. Iban Zaldua

Liburudenda batean liburuak **katalogatzen**. Javi Cillero

*Euskera* buletinean argitaratutako artikulu akademikoak, argitalpen monografikoak eta bildumetakoak [...] zein bildumetatik kanpo geratutako lanak eta beste erakunde batzuekin elkarlanean egindako lanak datu basean **katalogatu** dituzte. Berria - Euskal Herria

Garai bakoitzean erabili diren baliabide poetiko-erretorikoak miatu, **katalogatu** eta azaltzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ezin konta ahala lagin, kontu handiz eta ordenarik txukunenean **katalogatuak** eta sailkatuak. Jon Muñoz

Kanpoko eragileak, hala nola mikrobioak, birusak, elikagaiak, pozoiak, toxinak, eta abar, sarritan ongi definituak eta **katalogatuak**. Juan Garzia

Gorbatak txartelekin, jakak eta trajeak **katalogaturik,** nahaste nabarmenik ez egiteko. Xabier Olarra

2 irud/hed

Begirada mota hura ere aspaldi **katalogatua** zuen Cesar Telleriak. Harkaitz Cano

3 (era burutua izenondo gisa)

Eliza **katalogatuak**. Edurne Elizondo

---

**katalogatze** *iz* hurrenkeraren baten arabera katalogo batean sailkatze edo izendatzea.

Inbentarioak eta **katalogatze**-lanak egin (04-05). Berria - Kultura

---

**katalogazio** *iz* katalogatzea.

Jose Mari Satrustegi euskaltzainaren artxibategietako **katalogazio** eta digitalizazioa. Herria

**Katalogazioa** ezin izan du oraindik amaitu. Berria - Kultura

**Katalogazio** lanak aurrera jarraitzen du. Berria - Kultura

**Katalogazio** elebiduna, euskara garatu eta normaltzearen zama erantsia duena. Berria - Kultura

---

**katalogo** 1 *iz* zerrenda edo izendegi egituratua, argibidez eta zehaztasunez hornitua.

**Katalogo** eta fitxategi guztiak gordetzen zituen gela sotoan zen. Jon Muñoz

Karteratik **katalogo** batzuk atera zituen. Pablo Sastre

Zentro edo liburutegi bakoitzak bere dokumentu-bildumaren **katalogoa** eskaintzen du. Askoren artean

Inguru hauetan sortzen diren landare guztien **katalogoa** egitea. Hasier Etxeberria

Lehentasunetako bat **katalogoen** elebitasuna ziurtatzea da. Berria - Kultura

Denda batean sartu zela idazmakinen **katalogo** eske. Jokin Urain

Dotore inprimaturiko **katalogo** batzuk ikusi nituen. Alberto Ladron Arana

Ezin daiteke urdin mota guztiak hartzen dituen **katalogo** bat egin, baina mailaka daitezke obra jakin batean agertzen diren urdinaren ñabardurak. Josu Zabaleta

Fitxategiak, liburutegiak, on line **katalogoak**. Askoren artean

Yumimoto enpresaren import-export **katalogoa**. Joxan Elosegi

2 (izenondoekin)

**Katalogo** komertzial batzuk. Bernardo Atxaga

Nekez aurkituko duzu hau baino **katalogo** osoagorik. Aritz Gorrotxategi

Alde batera eta bestera jo ohi zuten grinen eta irritsen **katalogo** orotariko bat, bereizkuntzarik gabea. Oskar Arana

Udazkenean funtsei buruzko **katalogo** arrazoitua kaleratzeko asmoa dute. Berria - Kultura

Bata da artearen teoriari buruzko liburua, eta bestea, Bacon britainiarraren lanak biltzen dituen **katalogo** eder horietako bat. Hasier Etxeberria

Unibertsitate-ikasketen **katalogo** berria. Berria - Gaiak

Filosofia fakultate bakoitzak bere liburuen **katalogo** propioa du. Zenbakien serie naturalerako hiztegi infinitu bat, oroimeneko irudi guztiak gogoan hartuko zituen **katalogo** alferrikako bat. Askoren artean

Liburutegi Sistemaren **Katalogo** Kolektiboa eratzea da Jaurlaritzaren epe motzeko bi erronketatik bat. Berria - Kultura

Keinuen eta mimikaren **katalogo** unibertsal baten arabera. Josu Zabaleta

3 irud/hed

Perbertsioen **katalogoa** ere mugatua da. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain zen aberatsa, nire bizitzan, zoritxarren **katalogoa**! Karlos Linazasoro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Katalogo**-zenbakia idatzi, eta liburuak eskatzeko fitxak bete zituen. Jon Muñoz

**Katalogo** bidezko salmenta-enpresa batean zebilen. Fernando Morillo

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Moda **katalogo** batetik atera berria. Patxi Iturritegi

Maletako beste txoko batean musika **katalogo** batzuk ikusi zituen. Alberto Ladron Arana

Haren azpian argazki **katalogo** kriminalen bildumako erretratuek irribarre zalantzatiak egiten zituen trafiko gertuaren noizbehinkako argi rafagek lagundurik. Harkaitz Cano

Zer lotura du pasarte horrek bere aurrekoarekin, eta, batez ere, txertaturik dagoeneko arraza·**katalogo** osoarekin? Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> katalogo arrazoitua (4); katalogo kolektiboa (3); katalogo osoa (3)
>
> bildumaren katalogoa (4); katalogoa argitaratu (3); katalogoa argitaratu du (3); katalogoa egin (4)
>
> erakusketaren katalogorako (3)
>
> katalogotik erauzitako (3)

---

# katalografiko *izond* katalogatze teknikari dagokiona.

Ekoizpen dokumentalerako tresnak eta beharrezko zerbitzuak prestatzea, Bibliografia Nazionala, Agentzia **Katalografikoa..**. eta nazioarteko estandarrak Euskal Herrira egokitzea Berria - Kultura

---

# kataloxa 1 *iz* betaurrekoa.

Ikasi ordez auzoko etxeetan ateratzen zen jendeari leihotik **kataloxa** batez begira egoten zen. Aurpegia ez zitzaien ongi ikusten, **kataloxa,** irismen gutxikoa izateaz gainera, ez baitzen akromatikoa ere. Josu Zabaleta

## 2 irud/hed

Hasteko, ikuspegi orokorrarekin hasi beharko genuke, urrutiko **kataloxa** baten bidez begiratuz orduko gizarteari. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# kataluniar *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **katalan** agertzen da)* *izlag/iz* katalana, Kataluniakoa, katalan herritarra.

Gotzain eta kardinal izatera iritsi zen **kataluniar** gizaseme hau. Pello Zabala

**Kataluniar** eta euskal nazionalistek. Joseba Zulaika

Espainiar Estatuari ere zer besterik gelditzen zaio, euskal eta **kataluniar** nazionalismoaren aurrean, bere kontrola neurri handienean galdu egin duela onartzea besterik? Joseba Zulaika

Ramon Llull **kataluniar** dohatsuak. Piarres Xarriton

Xabier Moret **kataluniar** idazleak. Edorta Jimenez

Ongizate ekonomian aditua den Vicenç Navarro ekonomilari **kataluniarrak** dio Europan bi Ongizate Estatu izan direla eredu. Iñaki Heras

Oraingoan bi **kataluniar** zetozen txofer. Rafa Egiguren

**Kataluniarra** zen Vigoren familia. Berria - Kultura

**Kataluniar** peto-petoa da David Coromina. Berria - Kirola

Lo egin zuen bakarra, harrigarria, **kataluniarra** izan zen. Rafa Egiguren

Euskal kantariek eta **kataluniarrek** antzeztuko dituzte Haydnen fabula musikatuaren pertsonaien ibilerak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> euskal eta kataluniar (4)
>
> gidari kataluniarra (5); kataluniarra izan (10); lievremont kataluniarra (3); nani roma kataluniarra (5)
>
> artista kataluniarrak (3); coma kataluniarrak (3); gidari kataluniarrak (7); idazle kataluniarrak (3); irakasle kataluniarrak (3); joan roma kataluniarrak (3); jokalari kataluniarrak (4); kataluniarrak bere (4); kataluniarrak ere (5); kataluniarrak eta (7); kataluniarrak ez (4); kataluniarrak irabazi (5); kataluniarrak irabazi zuen (3); kataluniarrak izan (3); marc coma kataluniarrak (3); musikari kataluniarrak (3); talde kataluniarrak (5)
>
> kataluniarrek irabazi (3)

---

# kataluniera *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **katalan** agertzen da)* *iz* katalana (hizkuntza).

Protesta ekintza egin zuten Irlandak Bartzelonan duen ordezkaritza diplomatikoan, **kataluniera** Europako Batasuneko hizkuntza ofizialen artean ez sartzeko erabakiaren haritik. Berria - Mundua

Besteak beste, **katalunieraz** mintzatzeak komunikabideekin harreman handia izatea ahalbidetu baitio. Berria - Euskal Herria

**Katalunieraz** idazten ditu bere liburuak. Markos Zapiain

Josu Sanz Eroskiko Komunikazio arduradunaren arabera, sortzen dituzten produktuen etiketetan euskarazko, gaztelaniazko, galizierazko eta **katalunierazko** azalpenak ematen dituzte. Berria - Harian

---

# katama *iz* umeak izan dituen katemea. ik **katu 6.**

Marmarka hasi zen, katakumeak kendu dizkioten **katama** baten egonezinez. Katakumeak **katamarengandik** ateratzen zirela ikusi zuen. Anjel Lertxundi

---

# katamar 1 *adlag* lau hankan, lau oinean. ik **katamarka.**

Ama umea besoetan, umea **katamar,** umea lehenengo pausoak ematen, umea lehen hitzak ahoskatzen [...]. Joseba Sarrionandia

Korrika alde egin genuen **katamar,** katu beldurtuen jauziekin, eta gero zutitu eta arrapaladan, batez ere atzetik guardiako erreketeak zetozela ohartu ginenean. Joseba Sarrionandia

Neska orduan zakila ahotik atera eta **katamar** etorri zen Goioren gainera. Joseba Sarrionandia

## 2 *katamarran/katamarrean* lau hankan, lau oinean.

Makurtu egin zen bere ipurtalde boteretsua erakutsiz, **katamarran** hurbildu zitzaidan benetako felino baten gisa... eta orduan hasi zen onena. Juan Martin Elexpuru

Hormari itsatsita irristatu nintzen lehenengo, eta gero **katamarran** joan nintzen nire andregaiak leihoko argia moteltzeko duen bionboaren atzeraino. Juan Martin Elexpuru

Neure ohe gainera igotzen naiz **katamarrean** eta Italo Svevo-ren Zahartzaro irakurtzen hasten naiz. Oskar Arana

Igo zen, beraz, Jonatan **katamarrean,** esku-oinez lagundurik, ezkutaria ondoren zuela. Elizen arteko biblia

---

# katamaran *iz* plataforma batek batzen dituen bi krosko luze eta eskuk osaturiko itsasontzia.

Balear Uharteetan izan naiz, Formenteran, eta handik abiatuta lau eguneko itsasaldia egin dut **katamaran** batean. Migel Angel Mintegi

Zortzietan jaikiko naiz, gosaldu, jantzi, zortzi t'erdietako edo bederatzietako **katamarana** hartuko dut, itsasadarra zeharkatu, 25 minututan iritsiko naiz Hendrixtowngo portura. Pako Aristi

Zazpiak puntuan baitaukat lehenengo **katamarana** itsasadarra pasatzeko... Pako Aristi

**Katamarana** iritsi da moilara. Pako Aristi

Bigarren fase batean leku hori abiapuntu bilakatzen zaie, bildu eta denak batera hirira joateko, hartu **katamarana** eta itsasadarraren bestaldera. Pako Aristi

**Katamaranetan** traineruen atzetik joaten diren epaileei lana errazteko jarriko dute beste epailea Berria - Kirola

---

## katamarka *adlag* lau hankan, lau oinean. ik **katamar**.

Lehenengo **katamarka** hasiko gara, gero oinez eta, ondoren, korrika egingo dugu nahi beste. Luis Elberdin

Besteak imitatuz ikasten dugu irribarre egiten, hitz egiten, **katamarka** ibiltzen. Luis Elberdin

Landare-hesiko zulo bat **katamarka** zeharkatu genuen neke handiz. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> katamarka ibiltzen (4)

---

## katamixar *(corpusean **katamusar** eta **kattamuxar** soilik)* *iz* katagorria.

Odol beroko hainbatek ere gauza bera egiten du eta negu partea gorputzaren egoera berezi horretan pasatzen dute: hartzek, marmotek, **katamusarrek...** **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Haritzaren etxean denak daude gustura: mokotarro, xagu, satain, sator, kattagorri, **kattamuxar**, eta hainbat ezkurjale... Pello Zabala

---

## katamotz 1 *iz* katuaren antzeko ugaztun basati haragijalea, hura baino handiagoa, belarri puntadunetan ile sorta bana dituena *(Lynx pardina* etab.).

Europako Legebiltzarrak atzo aurkeztu zuen txosten batek dioenez, **katamotz** iberiarra desagertzear dago. Berria - Gaiak

Iberiar Penintsulan 155 **katamotz** inguru geratzen dira egun. Berria - Gaiak

**Katamotzak** «oztopo ugari» gainditu behar ditu bizi ahal izateko. Berria - Gaiak

Migelek hartzaren eta **katamotzaren** ehizan hil zuen, inguruko oihanetan, hilabete horietako asperdura. Aingeru Epaltza

Ardi bat baino gehiago galdu dut arroiletan lepoa hautsita, edo **katamotzak** begiak erauzita. Javi Cillero

**2** (hitz elkartuetan)

Gutxiago edaten zuen, egoki gobernatzen zen gonbidaturik bagenuen eta Lajosen **katamotz** -begietatik gordetzen zen, izandako bizitza triste eta adabakiz betea ezkutatu nahian. Ander Irizar

Duela hamar urte ugaltzeko gai ziren 48 **katamotz** talde zeuden. Berria - Gaiak

---

## katamusar ik **katamixar**.

---

## katana *iz* japoniar ezpata.

Irudiaren azpian, horman zintzilik, **katana** bat; japoniar ezpata loriatsua. Fernando Morillo

---

## katanar *iz*

Zergatik, bestela, itzuli dira itsututa Damaren jauregian sartzeko ausardia -edo zori etsaia- izan duten ahuntz, **katanar** edo trikuak oro? Anjel Lertxundi

---

## katanarru 1 *iz* dirua gordetzeko edo aldean eramateko larruzko zorroa.

Betances jaunak erakutsi eta oparitu ez eta nire **katanarruak** ezin ordain zezakeen Germinalen azken edizio margodunak erakarri zizun begirakunea. Koldo Izagirre

Aulkian eserita hasten zen jokoan, erabat baldar hasieran, poliki-poliki galduz **katanarruan** gorderik zeramatzan diru pitzarrak. Felipe Juaristi

Ea ez neukan abokatu on bat, **katanarru** onekoa ematen nuela, urkakumeak. Koldo Izagirre

**Katanarrutik** amaseiko gorri ederra aterata. Anjel Lertxundi

**2** katuaren larrua.

Lehenengo galdera zenbat balio duen izaten da, **katanarruz** egindako abrigoekin bezala. Hasier Etxeberria

---

## katandu, katan, katantzen da *ad* kateatu.

Hemen jendea, nola oiloak kotan egoten diren, bada horrelaxe bizi zuan, **katanduta**. Pako Aristi

---

## kataplasma *iz* txaplata, enplastoa.

Kiskaltzen zuen burua Mozartek, eta **kataplasma** hotzak jartzeko agindu zuen medikuak. Imanol Zurutuza

---

## katapulta 1 *iz* harriak, geziak edo beste jaurtigaiak indarrez botatzeko antzina erabiltzen zen tresna.

Zulo horietatik teinkatzen dira bihurritutako kirioak, **katapultaren** beraren besoak eusteko erabiltzen direnak. Santiago Iruretagoiena

Balezten eta **katapulten** proportzioei buruz. Santiago Iruretagoiena

**Katapulta** eta eskorpioiak behar bezala teinkatzeko gai izateko. Santiago Iruretagoiena

Habeen erdi-aldera, koska batzuk egiten dira, eta koska horietan **katapulten** burukoak enkaxatzen dira, eta ziriekin finkatzen dira, tentsioaren indarrez ez daitezen mugitu. Santiago Iruretagoiena

**Katapulta** handiak prest egon bezain laster, aldarriak eta soken zein poleen kirrinkak nonahi entzuten zirela, jaurtigaiak botatzen hasi ziren egundoko altueratik. Agustin Otsoa

Indarra lehertzen eta oldar izugarriz hegatzen da, **katapulta** indartsuetatik irteten diren jaurtigaiak bezala. Xabier Amuriza

Bazeuden burruntzaliak ere, **katapultak** adinako koilara zurezkoak, neurriaren arabera ilaran jarritako labana zorrotz-zorrotzak... Jesus Mari Mendizabal

Kontu egin bihurrienei, beren koilarak **katapultatzat** harturik galleta-zopa beratuak jaurtitzen ibil ez daitezen. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan)

Balista eta **katapulta**-bateriak organo baten hodiak bezalaxe doituak zituen Arkimedesek. Jon Muñoz

---

# katapultatu, katapulta(tu), katapultatzen du *ad* indarrez bultzatu.

Museo honek 1997an XXI. mendera **katapultatu** gintuen. Urtzi Urrutikoetxea

Kontraste horrek **katapultatu** egiten ditu hitzak. Berria - Kultura

Orduan, malguki ikusezin batek **katapultatu** balu bezala, zutik jarri, eta halaxe erantzun zion amona Sinforosak: [...]. Joan Mari Irigoien

Eskuin eskua ezker besondoan jarriz eta besaurrea goraka behin eta berriro **katapultatuz**. Joan Mari Irigoien

---

# katapurtxintxa *iz* katagorria.

Eta bat-batean, barruan zerbait mugitu zaiola eta begira hasten denean, bihotz hondora babes bila heldu zaion **katapurtxintxa** deskubritzen du deblauki, eta **katapurtxintxaren** ikara uxatuz bere ezinegona sosegatzen du, jakin gabe. Pako Aristi

---

# katar[1] *iz* katu arra.

Baldarra da antzara, azkarra **katarra**. Iñaki Arranz

**Katarrak,** beste **katarrekin** borrokan hasi eta kontrarioa indartsuago dela sumatzen duenean, ihes egiten du. Gotzon Garate

**Katar** bat, **katar** nabar bat, barrandan. Iñaki Arranz

**Katarra** atzaparka. Iñaki Arranz

---

katar[2] ik **kataro**.

---

# katarata[1] *iz* kristalianoren lausotasuna, ikustea eragozten duena, begi-lausoa.

**-Kataratak** dauzkak, ezta? Koldo Izagirre

Bi begietan **katarata** hasiera duela. Berria - Euskal Herria

Ez miopiak, ez astigmatismoak, ez presbiziak, ez **kataratak** ez zioten inoiz ikusmena lausotu edo ahuldu. Jon Muñoz

Begietako **kataratek** ez diote uzten nahi adina irakurtzen eta idazten. Berria - Kultura

**Katarataren** ebakuntza egitea erabaki zuen. Jon Muñoz

Erretzaileen artean, halaber, % 40 ugariagoak dira **kataratak** eta begietako beste hainbat gaitz. Berria - Euskal Herria

**Kataratarengatik** kristalinoa kendu eta beira argi bat jarri zaion jendeak nahikoa ondo ikusten du argi ultramorearekin. Irene Aldasoro

---

# katarata[2] *iz* emari handiko ur jauzia.

Niagarako **kataraten** ur jauzirik azkarrena. Lourdes Oñederra

Niagarako **kataratak** ur gabe, lehor gelditu omen zirenekoa. Pello Zabala

---

# katarismo *iz* kataroen doktrina eta higikundea.

Kristautasun katolikoaren aurkako errebolta, lehen aldiz Frantziaren hegoaldean hamabigarren mendean piztu zenean **katarismoaren** forma hartu zuena, hamahirugarren mendean erauzi egin zuten handik, berriro eskualde berean agertzeko hamaseigarren mendean kalbinismo gisan. Iñaki Mendiguren

SSetako ofiziala, olerkaria, historialaria, eta **Katarismoan** eta Grialaren kondairan aditu handia. Alberto Ladron Arana

---

# katarkide *iz* talde bereko katarra.

Ugatza eta bere bi **katarkideak** [Prostatas eta Txomin] irri ederrak egiten ari ziren nire kontura. Jon Alonso

---

# kataro *(orobat **katar**)* **1** *izond* gehienbat Frantziako hegoaldean hedatu zen Erdi Aroko doktrina bati dagokiona.

Eliza instituzionala baliogabetzen zuten beste hainbat mugimendu ebanjeliko edo **kataroak** bezalako mugimendu heretikoen aurrez aurre. Askoren artean

Erlijio **katarraren** datak XII. eta XIII. mendeetan kokatzen dira. Herria

**2** *iz* doktrina horren jarraitzailea.

Frantziako hegoaldera bildu zen **kataro** izenekoen sekta heretikoa. Patziku Perurena

Frantziskoren egunetan gertatu zen Frantzia hegoaldean albitar edo **kataroen** aurkako gurutzada odoltsua ere. Askoren artean

Albitar edo **kataroak** (garbiak) 1150 inguruan arras zabalduak zeuden Frantzia hegoaldean. Askoren artean

Janari guztien garbitasuna baieztatu nahi du, **kataroek** ziotenaren aurka. Askoren artean

Béziers, zaldun gurutzatu frantsesek Erdi Aroan hainbeste **kataro** hil zuten lekua. Mikel Hernandez Abaitua

---

# kataroar *iz* kataroa, katarismoaren jarraitzailea.

Teobaldo I Nafarroakoa Champagneko kontea zelarik, 1239. urtean hain zuzen, 183 **kataroar** erreta hil zituzteneko gertakizunarekin abiatzen da *El verdugo de Dios* (Jainkoaren borreroa), Toti Martinez de Lezearen azken eleberria Berria - Kultura

---

# katarrino *izond* tximinoez mintzatuz, sudur zuloak beherantz eta isatsa oso laburra dituena.

Ordubietatik aurrera, haur gaixoa (ejem!) ikastera joan da berriro; tximino **katarrinoak** eta platirrinoak ziren gaur. Josu Zabaleta

## **katarro** 1 *iz* hotzeria.

Orain atea ireki, orain atea itxi, **katarro** handiak harrapatzen baitira itxi-ireki horietan. Pablo Sastre

Halakok **katarro** gogor bat harrapatzen zuela, sei bisita beretzat; erreuma zuela, hogei bisitata ere izan zitezkeen. Josu Zabaleta

Karmele, urte erdi bat lehenago kontsultan izan nuena, **katarro** bortitz batekin. Joan Mari Irigoien

Kursaal aretoetako aire girotuak eragin didan **katarro** zitala. Berria - Kultura

Horregatik, bada, **katarroa** baldin banuen, behar zena baino eztul gehixeago egiten nuen. Josu Zabaleta

**Katarroak** eragin ziezaiokeen infekzioagatik. Joan Mari Irigoien

**Katarroak** zeukan ohean, eta soldadutxo bat bezala portatzen zen. Xabier Olarra

**Katarroarekin** dabil. Berria - Gaiak

Zer hago, **katarroarekin** ? Pablo Sastre

Adituen esanetan, **katarroaren** birusa denbora luzez egon daiteke gorputzean ezkutatuta. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Ustez ardiaren **katarro** sukarrak erasanda zeudelako hiru abelburu hil zituzten atzo Nafarroan, bertako Gobernuaren aginduz. Berria - Euskal Herria

· Aste honetan 40.000 inguru oilasko hil dira Krimeako hainbat etxaldetan, baina agintariek esan dutenez, hegazti **katarroak** hil ditu animaliok, ez gripeak. Berria - Gaiak

---

## **katarsi** *(orobat **katarsis** g.er.)* **1** *iz* esperientzia batek eraginiko barne askapeneko sentimena.

**Katarsi** bat behar izan zenuela esan liteke idazten hasteko? Ana Urkiza

Ongi, baina zer da zuzen **katarsi** hori: garbiketa, barne purifikazioa? Askoren artean

Badirudi **katarsia** dela printzipio nagusia: aurreiritzi gordin zahar guztiak egun argitan jarriak eta barre algara artean garbituak. Oskar Arana

Gehiegizko zama zen niretzat sekretu hura, eta, gainera, berak bultzatu ninduen **katarsi** moduko hura egitera. Emakumearentzat ileapaindegia, antzinako grekoentzat teatro tragikoa zen bezala, gizon gehienentzat futbol estadioa den bezala, **katarsia** egiteko lekua da. Ramon Saizarbitoria

Ez zekien zergatik, baina dutxa **katarsia** zen Matiasentzat. Unai Elorriaga

Misterio horretara hurbiltzeko, urrundua zaudenean, alegia, nik uste dut lehendabizi bizi hunkidura eta emozioa daudela (nire kasuan **katarsi** bat izan zen), eta gero hasten direla prozedura intelektualak. Herria

Idaztea **katarsia,** terapia, liberazioa zela Saderentzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Katarsian** sartzen ari ginela uste dut. Edorta Jimenez

Atzo arratsalde osoan erabili dudan jazarraldiak utzi nau garbiturik bezala, **"katarsis"** baten maneran. Piarres Aintziart

Leku berean, aldi berean, jarduera berean, tarrapatan pilatzen zaizkigu emozio guztiak: **katarsi** beteko garaia. Joxan Elosegi

Wiktor protagonistak **katarsi** moduko bat bizi du Wilkon, denboraren joanaz ohartzeko. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Duda gutxi dago bi pertsonaia horien atzean dagoena idatzi eta asmatu zituen autorea bera dela, exorzismo eta **katarsi** ariketak egiten ari dena. Josu Zabaleta

Dutxa **katarsi** tipo bat da, etnografoek sinistu nahi ez badute ere. Unai Elorriaga

---

## katarsis ik **katarsi**.

---

## **katartiko** *izond* katarsia eragiten duena.

Nahiago izan nuen "maite zaitut" doinu eta keinu neutroez esan, ariketa **katartiko** gisa apika, nerabearen herabetasunaren iruzurra akaso. Xabier Mendiguren Elizegi

Literatura mirail **katartiko** eran erabili dut, dakidan arren, eta aski errepikatzen dute literaturaren gure espezialistek, ez dela baitezpada horretarako egokia. Itxaro Borda

Hainbeste sentimendu hustu ditut, non **katartikoa** ere izan den. Berria - Euskal Herria

Errabino asko higikunde honen kontra agertu zen, hasidismoak Jainkoarekiko komunikazio intimoa eta **katartikoa** proposatzen baitu. Koro Navarro

Segituan, hutsak xurgatu ninduen berriro, otso tzar baten ahoak irentsiko banindu bezala, garai batean -txiki-txikia nintzelarik- irudikatzen nuen antzera, otsoak sei antxumeak jaten zituen hartan, neure burua piztiaren ahutzetan barna ikusten bainuen, nahiz eta azken unean zazpigarrena izaten nintzen, halako gozamen **katartiko** batean salbaturik. Juan Kruz Igerabide

---

## **kataska** 1 *iz ipar* liskarra, borroka. cf **gatazka**.

Aspaldian bada hortaz **kataska** frango eta **kataska** minberak...! Herria

Duela zenbait aste aipatu ginuen bezala, Zaliondoko lan gunearen zabaltzeak **kataska** batzu sortu ditu. Herria

Aspaldixkoan ez baitzen **kataska** handirik Libanoko mugan, hor ere sukarra berriz jauzi da. Herria

Katixima euskaraz egiteko debekuak sortuko zituen **kataska** gorriak. Xipri Arbelbide

**2** ***kataskan*** borrokan.

Ondokoan behar zutela joan, polizarekin arizan dira **kataskan**. Herria

**Kataskan** aritu gira horren inguruan hiru urtez, azkenean onartu dute libertate zerbait uztea guri, partaidetzari buruz doa eta ez nagusi/mutil harremanenetara. Herria

---

## **katastral** *izond* katastroari dagokiona. ik **katastro 2**.

Bilboko balio **katastralak** ere 70eko hamarkadakoak dira. Berria - Euskal Herria

---

## **katastro** 1 *iz* herri bateko ondasun higiezin guztien errolda.

Iruñean ere **katastroa** ez da berritu 1986. urteaz geroztik. Berria - Euskal Herria

Gasteizek eta Iruñeak, berriz, antzeko indizeak agertu dituzte hala leku garestian nola auzo berrian, baina kontua da bi hiriburuetan ere **katastro** berriak eraginak izango dituela norberak pagatu beharreko diru kopuruan. Berria - Euskal Herria

Udalaren arabera, desoreka deigarri hori **katastroa** eguneratu gabe izatetik dator. Berria - Euskal Herria

Udal zergek eta **katastroaren** berrikuspenek zenbait arazo sortu dituzte. Berria - Euskal Herria

Espainiako Gobernuak hiru tasa berri sortuko ditu, **Katastroarena** kenduko du eta beste hamar igoko ditu. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **katastral**.

**Katastro** balioak. Berria - Ekonomia

Mujikaren esanetan, 2002. urtean egin ziren **katastro** balioespenen arabera, Ondarearen gaineko Zergak «zenbaki handiagoak» beharko lituzke. Berria - Ekonomia

---

## katastrofe 1 *iz* hondamendia.

Duela bostehun bat milioi urte, garai kanbrikoaren ostean, animalien ditximaketa edo suntsiketa orokor izugarria gertatu zen, **katastrofe** handi bat Irakeko okupazioa **katastrofe** handia da Irakeko herriarentzat eta arabiar munduarentzat. Berria - Kultura

Auzapezak berehala bete du **katastrofe** naturalaren deklarapen doziera. Herria

Ideia handiak **katastrofe** handietan bizten omen dira. Joxe Azurmendi

**Katastrofea** zen ikaratuta ninduena, **katastrofea** bera. Matías Múgica

**Katastrofe** hura bere onerako zelan erabili deliberatzen hasi zen Peter.Alaska hoteleko taldea galtzea benetako **katastrofea** izan zitekeen berarentzat. Julen Gabiria

Hau da, poto ez egitea, kosta ahala kosta saihestu beharreko **katastrofetzat** hartua baita potoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **katastrofiko**.

**Katastrofe** kutsu izan zein ez, poemak katastrofiko izaten segituko luke. Joxerra Garzia

Azpititularrak *Zergatik ari den mendebaldea terrorismoaren aurkako gerra galtzen* zein egilearen izenak *Anonimo* konspirazio eta **katastrofe** literaturaren alorrera garamatza. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Besteen erruki eta ardura gutxienekoak, giza **katastroferik** handienak sorrarazten dituztenak. Jenaro Garate

---

## katastrofiko 1 *izond* hondamenezkoa. ik **katastrofe 2**.

Berriro gerrara itzultzeak ondorio **katastrofikoak** izango zituelako. Joseba Zulaika

Inpunitate osoz berri **katastrofikoak** batera eta bestera zabaltzen dituzten hainbat ezjakinena. Joan Mari Irigoien

Nekazaritza-praktika **katastrofiko** bat. Juan Garzia

Babes Zibileko eledun Diefurt Deslorgesek adierazi zuen **egoera «katastrofikoa»** zela. Berria - Mundua

**2** ikaragarri txarra.

Zuberoan **egoera katastrofikoa** da. Berria - Euskal Herria

Hemengo filipindar enplegatuak **katastrofikoak** dira! Ramuntxo Etxeberri

Katastrofe kutsu izan zein ez, poemak **katastrofiko** izaten segituko luke, noski, baina demokrazian edonork behar luke izan poema txarrak idazteko eskubidea. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> egoera katastrofikoa (3)

---

## katastrofikoki *adlag* hondamenezko eran.

Jende arruntak biologiaren kateetatik libre sentituko ditu **katastrofikoki** munduratuok, eta buruzagitzat hartuko. Markos Zapiain

---

## katastrofismo *iz* katastrofeak iragartzeko joera.

Genetikoki eraldatutako organismoen arrisku posibleen inguruko diskurtso eta neurri oro oinarri zientifiko sendorik gabeko **katastrofismo** hustzat du. Berria - Gaiak

---

## katatonia *iz* eskizofrenia mota, higimena eta nahimena eragozten dituena.

**Katatonia** bortitzenak jota bezala zeuden, entzundakoa ezin balioztatuz edo. Fernando Morillo

Benetan axola duena Barojaren deskripzioa da, azalpenaren tonu bizkor larria, eta intimitate erotikoko gau horrek gizonari eragiten dizkion alderdi hondagarriak, izan ere **katatoniak** joa uzten baitute. Josu Zabaleta

Behera egin dute, berriz, eskizofreniak, **katatoniak** (ordu batzuz mugitu ezinda gelditzen da gaixoa) eta adimen urritasunak. Berria - Gaiak

Bi sintoma mota ditu [eskizofreniak]: positiboak -haluzinazioak, **katatonia,** ezinegona- eta negatiboak -maitasun sentimendu eza, apatia, gizartetik urruntzeko joera, plazera sentitu ezina eta pentsamendu zein adierazpen eskasia-. Berria - Gaiak

---

## katatoniko *izond* katatoniak joa dagoena.

Dario Villalbaren *Faz* koadroan mina eta sufrimendua dira nagusi (emakume **katatoniko** baten aurpegi desitxuratua da, batzuk hilzorian egondako Francorekin identifikatu zutena). Berria - Kultura

Erotutako pertsona baten tonua islatzen du liburuak, ero lotsati, obsesiodun eta **katatoniko** baina dotore hitz egin nahiko lukeen batena. Berria - Kultura

---

## katazka *adlag* kataskan, borrokan.

Lagunik potoloena jarriko zen bizkar emanda arbolaren kontra, bi eskutxokoak lotu zilborrondoan, hatzak elkarri sardean gurutzatuz, eta lagunetan arinenak edo trebeenak han ipiniko zion aurrenako hanka, astogainera igotzeko bezala, eta beste hanka bizkar gainean paratuz, han dabil **katazka** behetineko adaburuan. Patziku Perurena

---

## katazuri *iz* erbinude zuria.

Arma zuri garbiekiko hartan, garbi-garbi egiteko ustea bazuen txolarteren batean, **katazuriaren** larrua baino zuriago utzi arte. **Katazuri** larruzko eta purpurazko duintasun bikain hori. Patxi Ezkiaga

Purpuraz eta **katazuriz** imajinatu baitzuen semea auzitegian. Anton Garikano

---

## kate (*orobat* ***katea*** *g.er.* ***kataia*** *g.er. eta* ***gate*** *g.er.*) 1 *iz* maila edo eraztun formako atal elkarri lotuen saila, lotura gisa edo apaingarri gisa erabiltzen dena.

Non zen, ordea, [...] esklaboen **kateak** apurtu eta egiptoarren orgak urperatzen dituen Hura? Juan Garzia

Horma artean sartu nau, aterabiderik gabe; **kate** astunez lotu nau. Elizen arteko biblia

Ainguraren **kateen** karranka. Lopez de Arana

Hartz bat **kate** batetik lotuta zekarrela etorri zen gero gizona. Koro Navarro

**Kate** batetik zintzilik zeraman eskuko poltsarekin. Joxean Agirre

Navas de Tolosa-ko batailan miramamolinak burdinazko **kate** batez ingurarazi zuen bere eremua. Koldo Izagirre

Harri hotza eta **kate** beltz lodia baino ez. Ramon Saizarbitoria

Ardatz horretan brontzezko **kate** malgu bat joango da lotuta. Santiago Iruretagoiena

Auzoan bazuten putzadera lurpeko bat, ur ateratzeko txirrika, urontzi, **kate** eta guzi. Patziku Perurena

Esku bat komuneko **kate** hondatuxearekin borrokan. Aingeru Epaltza

Berdez margotutako atearen ertzeko **kate** bati tira egitean txintxarri hotsa entzun zuen barnealdean. Joxemari Urteaga

Xehe xeheki miatzen gituzte, orduan galtzen ditut ene estilo urrestatua, lepoko **gatea** bere medailekin, muntra eta moltsa. Michel Oronoz

**Kate** zilarkara batek uztaitzen zion eskuineko txorkatila. Aingeru Epaltza

Zeinen polita zure lepoa, urrezko **kate** horiekin! Elizen arteko biblia

Oinak **katean** lotu zizkioten, burdinazko lepokoa erantsi. Elizen arteko biblia

## **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kate**-erloju bat ere bai, kristalik eta orratzik gabea. Juan Kruz Igerabide

Zutabe-buruetan zeuden kapitel haietarako sare antzeko apaindurak egin zituen eta **kate**-xortak, kapitel bakoitzerako zazpi. Elizen arteko biblia

Aska bateko uretan Axenariok ikusi ditu **kate**-hondakinak, gurpil uztaiak, pala zahar bat. Itziar Otegi

Maitemindua nauzu zeure begirada bakar batez, bihotz-lotua zeure lepoko **kate**-bira batez. Elizen arteko biblia

Sekulako zintzarri eta **kate** azantzaz sei mandok tiratutako diligentziari behako ikaratu bat egiten ziola. Koldo Izagirre

Sineskeriaren **kate**-hotsak eta fanatismoaren garrasiak entzun ditut egiaren intziriak itotzen. Juan Martin Elexpuru

**Kate**-dantzan joaten ziren soroetan gaindi. Anton Garikano

**Kate**-orratzak, eraztunak, esku-muturrekoak banatzen ikusi zituen zaharrak. Felipe Juaristi

Urregorrizko **kate-eraztunak** agirian ditudala. Iñigo Aranbarri

-Lanak eduki zituzten lema askatzeko, **kate**-kandatu batekin zegoen trabatua. Koldo Izagirre

**Kate**-zakur hauts kolore gisako bat, alegia, bakardadearen gau minari zaunka. Patziku Perurena

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Burdin **gate** batekin estekatuaak. Michel Oronoz

Trakzio-**kateek** gurpil koskadunak hartu eta karranka egiten zuten. Lopez de Arana

Urrezko hortzetan, erloju-**kateetan** eta gorbata-orratzetan. Lopez de Arana

Ikaragarri nabarmentzen zen urrezko erloju **kate** txerlotu bat, erdian katenbegi handiak zituena. Matías Múgica

## **4** irud/hed

Denak baitzeuden iluntasunaren **kate** berberaz loturik. Elizen arteko biblia

## **5** (atxilotuaren edo mendean dagoenaren irudi gisa; pl.)

Deabruen **kateetan** preso egondako jendeari bezala hitz egiten dizuet. Askoren artean

Lehenengo aitaren bekatuagatik ilunpearen menpean **kateetan** gintuen printzearen eskutik gu atera eta Aita Jainkoarekin adiskidetzeko. Askoren artean

Hainbeste aurreiritzi, hainbeste **kate** zentzugabe hausten jakin izan duen herriari ez zaio batere kostako jainkoaren mamua sakrifikatzea, erregearena baino hutsalagoa baita. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eurek hainbat **kate** apurtu izanagatik garelako gu libreago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lagunek agiraka egiten zioten **kate** artean pozik zegoelako. Askoren artean

Berrion honen bozeramaile naiz **kate** artean. Elizen arteko biblia

Orain hautsiko dut zapaltzen zaituen uztarria, orain apurtuko zure **kateak**. Elizen arteko biblia

Injustizi **kateak** hautsi eta uztarri-hedeak etetea, zapalduak libratu eta uztarri oro apurtzea. Elizen arteko biblia

· *sing* Analfabeto izateak, diruezak, tradizioak eta senarren mende egoteak **kate** itogarria leporatzen diete emakumeei ezkontzan. Gotzon Garate

## **6** mota edo sail bereko osagaien segida.

Hots-adierazleen osagaiek bata bestearen atzetik agertu behar dute ezinbestez: **kate** bat osatzen dute. Isabel Arrigain

Gai horien horniduran gertaturiko eten orok ekoizpenaren **kate** osoa geldiaraz baitezake. Koro Navarro

Lurringaien **katearen** zuzendaria. Joxan Elosegi

ADN zati horietariko bakoitzak **kate** polipeptidiko bat ekoizten du. Juan Garzia

**Kate** metaboliko bat etetea. Juan Garzia

Ekosistema urbanoaren **kate** trofikoa, behintzat, primeran zebilen. Patxi Iturritegi

Gertakarien **katea** egoki berrosatuz zihoan. Juan Garzia

Ezpainetara etorri zaio haren izena, horrela, oroitzapenen **kate** horretatik ihesi-edo. Jokin Muñoz

Nire baitan daramadan **kate** ikusezin hori zenbait artistak, idazlek, nobeletako heroiek eta nire haurtzaroko emakume batzuek osatzen dute. Joseba Urteaga

Nahiz eta gainerakoan osorik sentsuen munduan kokatu behar den izadiaren **katearen** osakide gisa. Ibon Uribarri

Ahoz ahoko **katea** imajinatu nuen: Kristinak Josefinari, Josefinak Ximurrari, Ximurrak Ttipiri, Ttipik Charlyri eta Charlyk auskalori:"Aizak, badakik Edu eta Kristina...?". Aingeru Epaltza

## **7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bonba atomikoaren hondamena ikusi ondoren, **kate**-erreakzio EZ nuklear bat sortzeko asmo irmoa jaio zen hainbat pentsalariren artean: kontzientzia eta komunikazio **kate**-erreakzioa nahi zuten, antzeko ezer ez gertatzeko inoiz. Fernando Morillo

## **8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hainbat manifestazio, elkarretaratze, gose-greba, giza **kate** e.a. izan dira aldarri horren alde. Txema Ramirez de la Piscina

Belaunaldiek zeharkatzen zuten emakume-**kate** batean harrapatuta sentitzen nintzen lehenengo aldiz. Joseba Urteaga

Familia-**kate** luzeak osatzea da Mendebaldeko eta Japoniako ezaugarria, eta kate horietan metatuz joango da ondarea. ☞ *beherago* 12. Koro Navarro

Ubide-**kate** hori inoiz ez zen bat etorri muga politiko batekin. Iñaki Mendiguren

Malagako hotel-**kate** bateko nagusiaren semea zen Sergio. Joan Mari Irigoien

Kasu guztietan, erreakzio-**kate** linealak ditugu. Juan Garzia

Benetako muntatze-**kate** likido bat da odola. Irene Aldasoro

Gure agenteek, produkzio-**kateetan** zitalki maskaraturik. 10.000tik gora astekari [...] eta 2.000tik gora telebista **kate**. Jon Alonso

BBC telebista **kate** publikoak IRArekin izan duen portaera. Txema Ramirez de la Piscina

Estatuko hiriburuko irrati-**kate** nagusietako bateko esatari guztiz ezaguna grinatsu mintzo zen. Aingeru Epaltza

PPren agindu zorrotzpean ez zeuden beste TB eta irrati **kate** batzuk. Txema Ramirez de la Piscina

Gero oihu **kate** bat etorri zen, sutan den etxe bat itzaltzeko orduan osatzen den kuboz kuboko giza-**katearen** antzekoa. Harkaitz Cano

Bat-batean aldatu zen Fructuosoren aurpegia, eztul-**kate** batean trabatuta. Inazio Mujika Iraola

Hots **kate** bat sortarazten duten ahoaren eta laringearen mugimendu guztiak. Isabel Arrigain

Menpeko esaldi-**kateetan** . Iñigo Aranbarri

Medikuaren ezpainetatik ateratzen diren hitzak letra **kateetan** ikusten dituzu zureganantz hegan. Lourdes Oñederra

**9** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, gauza abstraktuekin)

they-Ø+be-ing+come **kateari** ezarrita. Itziar Laka

Eta handik berriro bere transmigrazio **katea** hasarazi. Josu Zabaleta

Gero ihesaldi eta itzulera **kate** bat hasi duk, amaiezina dirudien horietakoa. Iban Zaldua

Silogismo **kate** baten ondoan. Xabier Kintana

Bizitzaren sorrera ere oinaze **kate** ederra izan zen. Joseba Sarrionandia

Gogoeta-**kate** bat eragin zion horrek Ruche jaunari. Jon Muñoz

Herrialde asko dira globalizazio prozesuaren balio **kate** horretan integratu ahal izan direlako, hein batean bada ere, txirotasunetik atera direnak. Iñaki Heras

Ez dut ukatzen: kasualitate bat baino gehiago izan da dena; kasualitate-**kate** oso bat, zehazki. Joxe Austin Arrieta

Eta handik berriro bere transmigrazio **katea** hasarazi. Josu Zabaleta

**10** telebista edo irrati katea.

BBC **kate** prestigioduneko web gunera egindako bisitek %47ko igoera izan zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Futbola eta errugbia Canal + **gateak** erosi ditu eta ikusi nahi dituenak pagatu behar du. Herria

Satelite bidezko **kate** hau 1996ko azaroaz geroztik ari da bere seinalea aireratzen. Txema Ramirez de la Piscina

Melodramak **kate** guztietan. Sonia Gonzalez

Musika bideoak ematen zituen etengabe **kate** hark. Joxemari Iturralde

Estatu mailako **kate** handi baten menpeko irrati batera. Aingeru Epaltza

1993ko Gabonak ziren eta Fox-TV laugarren **katea** zen orduan audientziaren rankingean. Txema Ramirez de la Piscina

TV 5: Hau da frantses **gate** bat kablearen bitartez har daitekeena. Herria

**11** *kate begi* ik **katebegi**.

**12** ***kate luze***

Piztia bakoitzak larruzko lepoko sendoa zeukan, **kate luze** bati lotua. Iñaki Mendiguren

· Haren azpitik urrezko **kate** luze-luzea eta fin-fina atera zuen. Iñaki Mendiguren

Eta normalean ez dut lotzen; nahiz **kate luzea** prest egon, aurreko gako borobil bati atxikia. Txillardegi

· *irud/hed* Baina **kate luzean** elkartu zirenean, harritu egin zen Ivors andereñoak eskua irmo estutzen ziola sentitzean. Irene Aldasoro

Glukosa, zelulosa **katea luze** bati dagokio, errosario bateko alea bezala. Juan Garzia

Eta Ebe, **kate luze** baten azken maila, frustrazioaren alaba. Sonia Gonzalez

Neu nintzen, nire arbasoen **kate luzean,** batxilergo osoa ikasi behar zuen lehena. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kate luze** baten kate-begia baita gaurko literatur jarduna, eta, adanismoaren tentaldia gainditurik. Anjel Lertxundi

Filosofo helenikoen **kate luzea** Sokratesengandik Plotinorenganaino. Iñaki Mendiguren

Konplikazio **kate** luzea du. Koro Navarro

Biziaren **kate luze** hori; eta gu hor, bat besteen artean. Menane Oxandabaratz

Alabaina, bizidun guztiak hatsaren **kate luzearen** partaide dira, lehen bezala orain ere, zenbaitetan hauts eta besteetan hats. Itxaro Borda

**13** ***kate maila*** (*orobat* ***katemaila***)

Amaierarik gabeko katea zirudien; **kate maila** bakoitzak beste bat zekarren atzetik, egunak gaua bezala. Imanol Zurutuza

Argitu gabe dago kate hori noraino hedatu behar litzatekeen, ea barne hartu beharko lituzkeen "ezaugarri autista" bakan batzuk [...] ala **kate-maila** bitxi, eszentriko, pedante edo barnekoitzat hartu beharko litzatekeen, gehienez ere, autistena. Xabier Olarra

Trukerako txanpontzat dauzkatela uste dute, Espainiako Gobernuaren esku eurak direlako **kate-mailarik** ahulena. Berria - Harian

Orain konturatzen naiz katea baten **katemaila** bati oratu niola Ryokorekin ibili nintzenetik aurrera. Javi Cillero

Burezur hura besteak ez bezalakoa zen eta tximuen eta gizakiaren arteko **kate-maila** galdua izan zitekeela sinetsi zuten gehienek. J.M. Olaizola "Txiliku"

**14** ***kate motzean*** (*orobat* ***kate motxean***)

**Kate motzean** lotuta zeuzkaten jabeek beren maskotatxoak. Harkaitz Cano

Etxean **kate motzean** hazia, bakardadean otoitz librean hezi zuen bere burua, sentikorra eta bihozbera izaki. Pello Zabala

**Kate motxean** lotu nuen nire burua asteburuko jardun hauekin. Pello Zabala

Kapitan putakume hark denak **kate motxean** lotuta eduki nahi, nonbait, eta *pernocta* eta asteburuko paseak-eta tantaka ematen omen zituen. Iñaki Iñurrieta

Azpitartek uste du «beharginak **kate motzean** lotzeko azpijokoa» dela. Berria - Ekonomia

Baina, hala ere, jendea biak lotzera ohitu da, eta Mari Antonek barru-barrutik madarikatzen du bere izenari ezinbestean -hotsen arteko antzaren **kate motzean-** lotzen zaion lokuzioa. Anjel Lertxundi

**15** ***kate-mutur*** (*orobat* ***katemutur***)

Aurki, luzatu egingo ziren segmentuok, dela **kate-muturretatik** elkarrekin lotuz, dela bakoitza bikoiztuz, behin bakarrik edo behin baino gehiagotan. Juan Garzia

Familiak presio izugarria jasango zuen soluziobiderik ez zegoela ikusita, eta presio hori, handiturik, Moralestarrengana pasatuko zen, eta haiengandik, berriz, areagoturik, **katemuturrera,** hots, neuregana. Joxemari Iturralde

**16** *kate-orratz* ik **kateorratz**.

**17** ***kate-zulo*** (*corpusean* ***katezulo*** *soilik*) ontzietan ainguraen katea igarotzeko zuloa.

Balea hesteak izango dira urgainean, ainguran eta helizean trabatuko dira, eta Malcom, ainguraren katetik hesteak kentzen hasia, irristatu eta **katezuloaren** kontra eroriko da. Joseba Sarrionandia

**18** *mendi kate* ik **mendikate**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bukaerako kate** (7); **elikadura kate** (3); **erloju kate** (5); **espainiako irrati kate** (3); **espainiako kate** (3); **euskarazko kate** (5); **euskarazko kate kopurua** (3); **giza kate** (10); **giza kate bat** (5); **irrati kate** (24); **irrati kate batean** (3); **irrati kate batek** (3); **irrati kate bati** (3); **kate arabiarrak** (5); **kate artean** (3); **kate astunez** (4); **kate astunez lotu** (3); **kate bakarra** (3); **kate baten bidez** (4); **kate batetik zintzilik** (4); **kate begi** (5); **kate begia** (3); **kate beltz** (3); **kate erreakzio** (3); **kate erreakzioa** (6); **kate handi** (6); **kate komertzialera** (5); **kate komertzialera iritsi** (5); **kate kopurua** (4); **kate luze** (15); **kate luze baten** (3); **kate luzea** (7); **kate luzeak** (4); **kate luzean** (3); **kate maila** (12); **kate motxean** (4); **kate motxean lotu** (3); **kate motzean** (34); **kate motzean lotu** (16); **kate motzean lotuta** (3); **kate motzean lotzeko** (4); **kate osoa** (7); **kate pribatu** (4); **kate pribatuak** (5); **kate publikoa** (4); **kate publikoak** (7); **kate publikoan** (5); **kate talde** (3); **kate trofikoaren** (4); **lepoko kate** (3); **madrilgo irrati kate** (3); **mendi kate** (6); **telebista kate** (95); **telebista kate arabiarrak** (5); **telebista kate pribatu** (3); **telebista kate pribatuak** (5); **telebista kate publikoa** (3); **telebista kate publikoak** (5); **telebista kate publikoan** (3); **telebistako kate** (3); **urrezko kate** (6)

**ahozko katea** (7); **apur dezagun katea** (4); **balio katea** (5); **balio katea sustatzea** (4); **bere balio katea** (3); **bukaerako katea** (6); **erlojuaren katea** (4); **giza katea** (28); **giza katea egin** (6); **giza katea egingo** (7); **giza katea osatu** (4); **hautsi da katea** (11); **hots katea** (5); **katea egin** (7); **katea egin zuten** (5); **katea egingo** (7); **katea egingo da** (3); **katea egingo dute** (4); **katea eten** (3); **katea ikusten** (3); **katea luze** (4); **katea osatu** (5); **katea osatu zuten** (3); **katea sustatzea** (4); **lepoan urrezko katea** (3); **ordena eta katea** (8); **telebista katea** (8); **urrezko katea** (6)

**al jazeera kateak** (4); **arabia telebista kateak** (3); **arte telebista kateak** (3); **autoek kateak behar** (4); **bbc kateak** (10); **bbc telebista kateak** (3); **bukaerako kateak** (5); **cnn telebista kateak** (5); **giza kateak** (3); **hitz kateak** (3); **irrati kateak** (11); **kateak apurtu** (3); **kateak askatu** (3); **kateak behar** (30); **kateak behar ziren** (12); **kateak behar zituzten** (6); **kateak eman** (5); **kateak eman zuen** (3); **kateak esan** (3); **kateak hautsi** (7); **kateak jakinarazi** (4); **kateak zabaldutako** (6); **kateak zuzenean** (11); **kateak zuzenean emango** (7); **kateak zuzenean eskainiko** (3); **lehen kateak** (9); **lehen kateak zuzenean** (5); **ser irrati kateak** (4); **ser kateak** (3); **telebista kateak** (85); **telebista**

**kateak esan** (3); **telebista kateak zabaldutako** (4); **telebista kateak zuzenean** (4); **telebistaren lehen kateak** (3)

**ahozko katean** (7); **elikadura katean** (4); **giza katean** (4); **irrati katean** (7); **katean egin** (6); **katean egindako** (4); **katean lotu** (4); **katean sartzen** (3); **lehen katean** (6); **muntatze katean** (3); **ser irrati katean** (3); **telebista katean** (30); **telebista katean egin** (4)

**ahozko katearen** (6); **bbc katearen** (6); **bbc katearen arabera** (3); **elikagai katearen** (3); **ezartzen zaion katearen** (3); **irrati katearen** (9); **irrati katearen arabera** (3); **katearen arabera** (21); **katearen ikerketa** (3); **katearen zuzendaria** (9); **katearen zuzendariak** (17); **katearen zuzendariaren** (5); **lurrin katearen** (7); **lurrin katearen zuzendaria** (5); **ordenaren eta katearen** (4); **ser irrati katearen** (4); **telebista katearen** (13); **telebista katearen arabera** (7)

**abc telebista kateari** (3); **bbc kateari** (3); **cnn telebista kateari** (3); **irrati kateari** (6); **kateari egindako adierazpenetan** (3); **kateari eman** (3); **kateari eskaini** (3); **kateari eskainitako** (11); **kateari eskainitako elkarrizketa** (4); **kateari eskainitako elkarrizketan** (6); **kateari igorritako** (3); **kateari tira** (3); **telebista kateari** (27); **telebista kateari eskainitako** (7); **telebista kateari igorritako** (3)

**telebista kateek** (11)

**kateekin lotuta** (4)

**kateen artean** (4); **kateen bidez** (3); **nafarroako kateen** (3); **telebista kateen** (7)

**telebista kateetako** (4)

**irrati kateetan** (3); **telebista kateetan** (5)

**hainbat telebista katek** (3); **telebista katek** (6)

**bbc kateko** (5); **bbc kateko kazetari** (3); **cnn telebista kateko** (4); **elikadura kateko** (3); **elikadura kateko batzorde** (3); **elikagaien kateko** (5); **irrati kateko** (3); **kateko batzorde** (5); **kateko kazetari** (4); **kateko kazetariak** (4); **kateko langileek** (4); **telebista kateko** (24); **telebista kateko kazetariak** (3)

**katemaila esplosibo** (4); **katemaila inplosibo** (4); **katemaila inplosiboa** (3)

**katetik eratortzen** (3); **katetik tira** (3)

**brontzezko bi katez** (4); **eskuak katez lotuta** (3); **girgiluz eta katez** (3); **katez aldatzeko** (3); **katez lotu** (9); **katez lotua** (9); **katez lotuak** (5); **katez loturik** (17); **katez lotuta** (12); **katez lotzen** (3)

---

# kateaketa *iz* kateatzea.

Barruko koherentziekin, axiomekin, **kateaketa** deduktiboekin eta bateragarritasunekin. Xabier Arregi

Nola Hildebrando amildegira eraman zuen itxuraz ezinbestekoa zen kausa eta efektuen **kateaketak**. Iñaki Mendiguren

Erantzunen **kateaketako** maila-kopuruari dagokionez. Iñaki Mendiguren

Zer **kateaketa,** zer beharrezko lotura dago elkarren artean? Xabier Arregi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**topaketen kateaketa** (3)

---

# kateakuntza *iz* kateaketa.

Sorrera hori du oroimenak kanpo-gauzen izatasuna inplikatzen duten ideien **kateakuntza** legez eta ez "gauzen izaera barne hartzen duten" ideiena. Piarres Xarriton

Pertzepzio imajinatiboak "halako **kateakuntza"** baten arabera batzen dira. Piarres Xarriton

---

# kateamendu *iz* kateaketa.

Arrazoizko **kateamendu** logiko baten bidez. Iñaki Arranz

Orduan finkatu egiten zuen bere nagusitasuna, izan erakusten zioten atxikimenduarekin, izan diruarekin eragiten zien **kateamenduarekin,** izan legearen gogorraz egiten zituen mehatxuekin. Patxi Zubizarreta

Edo bestela giza Gorputzak, bera etengabe berritzen duten beste gorputz anitzen beharra duenez geroz eta ideien ordena eta **kateamendua** eta kausen ordena eta **kateamendua** berberak direnaz geroz, delako ideia hura Jainkoaren baitan izanen da gauza singular anitzen ideiek Hura hunkitzen dutela ikusten den aldetik. Piarres Xarriton

---

# kateatu, katea(tu), kateatzen *(orobat **katetu** g.er.)* **1** da/du *ad* katez lotu.

Obrako erantzule eta arduradun diren agintarien bulegoetan sartu eta **kateatu** izan dira solidarioak. Edurne Elizondo

Porlanez betetako bidoietara **kateatu** dira. Edurne Elizondo

**Kateatzen** zaituen katea. Lourdes Oñederra

Lege beraren arabera, erromatar batek franko bat **kateatzen** bazuen, hogeita hamar sos zor zituen; baina franko batek erromatarra **kateatuz** gero, hamabost besterik ez. Iñaki Iñurrieta

Ez zizkizuten eskuak lotu, ez oinak **kateatu**. Elizen arteko biblia

Ausardiaz hauts **ditzatela** kateatu nahi dituzten burdina lotsagarriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Denok atsegintsu **kateatu** ginenean, elkarri popatik emateko mugimendu erritmikoaren bila hasi ginen. Aitor Arana

Printzesa flakiak joa ikusi zuen, ohera **kateatua** eta goibel baino goibelago. Patxi Zubizarreta

Galdetu nion ea egia ote zen presoak **kateaturik** ibiltzen zirela. Juan Kruz Igerabide

Orkatilak **kateaturik** dauzkaten gizonak uretara doaz. Juan Kruz Igerabide

Marinel eta bankuetara **kateaturiko** hogei arraunlari. Juan Garzia

**2** lotu.

Aingura ez zen etorri, zerbaiti **kateatua** zen ur azpian, eta ezin nuen jaso. Josu Zabaleta

Orrondok Valentinaren esaldi famatua errepikatu zuen: alegia, berrogeita hamar urtera iritsia zelarik, nahiago zuela errotarri bat lepoan jarri eta itsasoan hondatzea, gizon batekin **kateatzea** baino Gauzen pentsamenduak eta ideiak Izpirituan ordenatzen eta **kateatzen** direnean. Pedro Alberdi

Neska, sorgorturik, bere pentsamenduetan **kateatu** zen. Patxi Zubizarreta

Alegia, gauza horien irudiak elkarren artean **kateatuak** daudelako eta halako ordenan emanik, non bata besteari jarraikitzen zaion. Piarres Xarriton

Komunikaziorako hainbat hobe litzateke, baldin menpeko esaldi-kateetan tresna preposizionalez josiriko osagarriak erabiliko bagenitu, nekez **kateatu** daitezkeen osagarri posposizionalen ordez. Pello Salaburu

Lehenagotik, haren maiteño izandako aunitz ikusiak zituzkeen bertze baten besotik **kateatuak**. Aingeru Epaltza

Filmatzerakoan erregistratu denaren zatiak elkarrekin **kateatuz**. Josu Zabaleta

Emakume lizun eta trebeak, plazer hau ez sekula ukatu zuen maitaleei: betiko **kateatuko** dituzue horrela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Istorio horiek gauero kontatu, **kateatu** eta txirikordatu zituen, eta gertakariak erakargarrien zeudenean, orduantxe egingo zuen etena. Patxi Zubizarreta

**3** (era burutua izenondo gisa)

Patioan, zakur **kateatua** zaunkan hasi zen. Juan Garzia

Arraunlari **kateatuek** hain begi basaz behatzen dizute non pentsarazten baitizute ezen, halaxe **kateaturik** ez baleude, zati-zati egingo zintuzketela bertan. Juan Garzia

Kutxa **kateatu** batean gordeta. Patxi Zubizarreta

Judu **kateatuak** garela konturatu gara berriro, leku bati **kateatuak,** eskubiderik gabe, mila betebeharrekin. Josu Zabaleta

Idazleok ihes egin diezaiokegu egunen gurpilari, ihes denboraren zatikatze **kateatuari**. Edorta Jimenez
Herrialde zordunen hondamendi **kateatuaren** eta nazioarteko finantza-sistemaren egongaiztasun-arriskuaren aurrean, [...]. Koro Navarro
Nerabezaroko larrujotze urrun eta idealizatu baten ondorengo insatisfakzio **kateatuen** minberagarritasuna. Harkaitz Cano
Louise halaber mututasun **katetua** zen, salbu Agataren premia zeukanean. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**
> **bidea kateatu** (4)
> **kateatuta egon** (3); **kateatuta gelditzen** (3)
> **kateatzeko ahalmena** (3); **ordenatzeko eta kateatzeko** (5)
> **kateatzen saiatuko** (3); **ordena berean kateatzen** (4); **ordenatzen eta kateatzen** (3)

---

kateatxo ik **katetxo**.

---

## kateatze *iz* katez lotzea.

Egitura formalak, kategoriak, **kateatze** logikoaren moduak, arrazoitze eta indukzio-motak. Xabier Arregi
Berezkoak zaizkion **kateatzeetan**. Xabier Arregi
Jarraitasun-fenomenoak eta denborazko **kateatzeak**. Xabier Arregi
Film bateko planoen muntaketa, beren artean denborazko erlazio inplizituak baizik ez dituzten denbora-blokeen **kateatze** bat dela. Josu Zabaleta
Proposizioen egitura formala eta batzen dituen **kateatze**-motak. Xabier Arregi
Badirudi, beraz, segmentu-**kateatze** hutsa baino areagoko egitekoa duela silabak hizkuntza batean Lourdes Oñederra

---

## katebegi *(orobat **katenbegi** g.er. eta **kate begi**)* *iz* kate maila biribila.

Ordutik hona amona-biloba harreman-katearen ehun **katebegi** besterik ez dira iragan. Xabier Mendiguren Elizegi
Kateak mutur bakoitzean **kate begi** bana duen gisara [...]. Pello Zabala
Ikaragarri nabarmentzen zen urrezko erloju kate txerlotu bat, erdian **katenbegi** handiak zituena. luze baten **kate-begia** baita gaurko literatur jarduna, eta,Uretako eta lehorreko piztien arteko **katebegi** galdua. Matías Múgica
Edozein **katebegitan** eten zitekeen kristal hauskorra zen konfiantza. Jon Alonso
Izan ere, nire esperientzia osoa baliatuz, **katebegi** guztiak lotuz. Urtzi Urrutikoetxea
Bertsolaritzan **katebegirik** ahulena da gaijartzaileena, esker onaren aldetik. Andoni Egaña
Iraganetik datorren lotura ilun baten **katebegi** bat baino ez zarela. Pako Aristi
Idatzien munduaren eta gauzen munduaren arteko zubiaren bila bazebilen, falta zen **katebegiaren** bila. Juan Garzia
Atzera jo eta gertakaria ezinbesteko bihurtu duten **kate-begiak** aurkitzen saiatu ohi gara. Joxean Agirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **katebegi galdua** (9)

---

## katedra 1 *iz* Espainiako unibertsitateetan, goi mailako irakasle kargua.

Bi gauza behar dira gaur egun **katedra** baten jabe egiteko: arrantza taxu antzean egiten jakitea, eta hiru boto. Joxerra Garzia
Gure aitak ere galdu zuen **katedra**. Fernando Rey
34an germaniar musikako **katedra** lortu zuen. Alberto Ladron Arana
Gerta liteke **katedrari** uko egin behar izatea irakasle kontratatu gisa baldintza hobeak izango lituzkeelako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
· Azken honek Alexandroren **katedra** heredatu zuen Parisen. Askoren artean
1835. urtean Londresko University Collegeko kirurgiako **katedra** eskaini zioten, eta baita berak onartu ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Katedra**-hitzaldiak eman zituen Buenos Aires, Texas eta Harvard-eko unibertsitateetan Iraultzaileak, pazifistak, **"katedra**-sozialistak". Juan Garzia

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehen momentu batean, berarentzat apropos sortutako Ekonomia **katedra** bat hartu zuen. Juan Martin Elexpuru
Salamancako Unibertsitatean greziera-**katedra** lortu eta errektore izendatu zuten. Askoren artean
Euskal Hizkuntza eta Kultura **Katedra** gogoratzeko eguna. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **katedra lortu** (4); **katedra lortu zuen** (3); **sanchez mazas katedra** (4)
> **jorge oteiza katedrak** (3); **katedrak ez zuen** (3); **sanchez mazas katedrak** (3)

---

## katedradun 1 *iz* katedra bat lortu duen irakaslea.

Unibertsitatearen funtsa, oraingoz, **katedradunen** eta titularren gainean oinarrituko da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Irakasle hori unibertsitateko **katedraduna** baldin bada, gerta liteke katedrari uko egin behar izatea irakasle kontratatu gisa baldintza hobeak izango lituzkeelako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Honetaz ari garela, gogoan ditut zure teoriak, **katedradun** jaun txit agurgarria. Javi Cillero
Fisiologiako **katedraduna** 1999z gero. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Arkitekturako Fakultatean **katedraduna**. Joxerra Garzia
Complutenseko **katedraduna** den Braun-ek kontra egiten die kritikoei. Iñaki Heras
Roberto Velasco, EHUko ekonomia **katedradunaren** hitzetan: [...]. Iñaki Heras
Ezer ez jakinda, **katedradun** baten pedantekeria zuen. Josu Zabaleta
Gizon hark, gauza askorik ez bazekien ere, **katedradun**-itxurak hartu nahi zituen. Josu Zabaleta

### • 2 ( izenondo gisa)

Filosofia-irakasle **katedraduna** da EHUn. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**katedradun helena matutek** (3); **katedradun jauna** (4); **unibertsitateko katedradun** (11)

**ehuko katedraduna** (4); **fakultateko katedraduna** (13); **fisiologia katedraduna** (5); **historia garaikideko katedraduna** (5); **matematika katedraduna** (3); **pedagogia katedraduna** (3); **soziologiako katedraduna** (3); **unibertsitateko katedraduna** (6)

**ehuko katedradunak** (3); **ekonomia katedradunak** (3); **fakultateko katedradunak** (3); **saileko katedradunak** (3); **unibertsitateko katedradunak** (4)

**katedradunaren hitzak** (3); **katedradunaren ustez** (3)

---

# katedral *(orobat **katedrale** g.er. eta **katedrala** g.er.)* **1** *iz* eliz barruti bateko apezpiku eliza.

San Marco **katedraleko** organo konpontzailearen alaba zaharrenaz. Felipe Juaristi

Begira arretaz **katedral** baten eraikuntzan ari diren guztiei. Joan Mari Lekuona

**Katedral** aurreko arkupetara joan, banderak bildu eta billar-aretoan sartu ginen. Anjel Lertxundi

Koloniako **katedrala** famatua ere bisitatu dugu. Herria

Talde horiek sekretupean gordetzen zituzten **katedralak** eraikitzeko erabiltzen zituzten teknikak. Berria - Gaiak

Duela gutxi antzinako **katedrala** berreraiki dute. Edorta Jimenez

**Katedrala** ipurdiz gora botatzeko lain leherkariren eskaera egin nionean. Hasier Etxeberria

1180an eraikitako Wormseko **katedralak** bi abside dituelako egin ahal zuten ospakizun modu hau. Askoren artean

**Katedralaren** orratzak zerumugan ostentzen dira. Javi Cillero

**Katedraleko** kapitel, euskarri, arkibolta eta sabaietan dauden irudiak. Berria - Kultura

Orduan **Katedraleko** dorreak zirriborro itzali bat baizik ez ziren. Jon Alonso

Hango **katedraleko** berina-leiho koloretsuetarik. Itxaro Borda

Iruñeko **katedraleko** klaustroa. Berria - Euskal Herria

**Katedraleko** domoa, airezko eta hauskor, Kontu bera dugula, alegia, molekulen kasuan eta **katedraletako** kupulen edo zubietako arku-begien kasuan. Juan Garzia

**Katedralaren** ilunpeko espazio hotz, isil eta handi hartan bakarrik aurkitzen omen zuen atseden aski, bere buruaz beste ez egiteko. Hasier Etxeberria

Aitaren kargua hartu nuen **katedralean**. Felipe Juaristi

Igande goizean **katedralean** predikatu behar baitzuen. Askoren artean

**2** (izenondoekin)

Gasteizko **katedral** berriko pinakuluetan. Patxi Zubizarreta

**Katedral** zaharreko kariloiaren bost kanpaialdi entzun nituen. Anjel Lertxundi

Berak aginduta eraiki zuten Valentziako **katedral** erromanikoa, egungo **katedral** gotikoaren barneko kripta. Berria - Kultura

Ezkerretara, euskal Etxera goaz berrikitan amaitu **katedrale** neogotikoaren aintzinean pasatuz. Herria

Gizon eta mutilak latinezko hitzak oihukatzen **katedral** katoliko erromatarren bateko ospakizunean. Anton Garikano

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Igande berezietan, Kearney andrea eta familia **katedral**-ordekora joaten zirenean. Hiriak **"katedral**-hiriak" ziren; beste herriak "borouhg" ziren. Irene Aldasoro

**Katedral** portaletako Azken Judizioetan bezala, Finkielkrautek ezarri duen munduaren tribunalean, bi printzipiok gobernatu eta partituta ageri da gizadia. plazaren hedadura zabala, kontrastearen medioz, urrunago barreiatzen dute, harri lauzek moldatu uhain eztiek **katedral**-itsasontzi mugiezinari ozeano bat eskaintzen diotela, uraren argi grisean distira dadin eraikin sakratua. Joxe Azurmendi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hirietako karrika eta plazak eraikitzen dituztenean, eliza-**katedralak** altxatzen dituztenean, etxe barruak antolatzen dituztenean. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eko katedral** (3); **iruñ katedral berrian** (3); **katedral berriaren** (4); **katedral erromanikoa** (3); **katedral inguruko** (3)

**baionako katedrala** (16); **santa maria katedrala** (10)

**baionako katedralaren** (8); **eko katedralaren** (3); **iruñ katedralaren atzean pilatzen** (6); **katedralaren aurrean** (3); **katedralaren inguruan** (4); **katedralaren ondoan** (4); **santa maria katedralaren** (5)

**santa maria katedralari** (3)

**artzain onaren katedralean** (5); **baionako katedralean** (23); **bartzelonako katedralean** (3); **eko katedralean** (4); **iruñ katedralean egin** (3); **katedralean entzun** (3); **katedralean sartu** (5); **katedralean sartu zen** (3); **la platako katedralean** (3); **pisako katedralean** (3); **santiagoko katedralean** (3)

**baionako katedraleko** (4); **eko katedraleko** (9); **iruñ katedraleko dorre** (3); **katedraleko dorreak** (4); **katedraleko dorrean** (3); **katedraleko kalonje** (5); **katedraleko kalonjea** (4); **katedraleko kalostrapean** (7); **katedraleko kanpai** (3); **katedraleko sarrera** (3); **katedraleko teilatura** (3); **santa maria katedraleko** (5)

---

# katedratiko *iz* katedraduna.

Irakasle titular eta **katedratikoak,** alegia, lanpostu finkoa eta soldata polita dutenak. Joxerra Garzia

Gure Saileko **katedratikoa** bera ere. Joxerra Garzia

Martin Duque historia **katedratikoaren** esanetan. Berria - Kultura

Isil samarrik pasatu da bere bisitaldia, **katedratikoa** izan arren maisu baita, batez ere, Carlos. Joxerra Garzia

---

# katedun *izond* katea duena; kateak dituena.

Nolanahi ere, nafartar eskuadraren eguna bide zen larunbat hartakoa; etxe aurreko arkupeetan bandera gorri **katedunak** ez baitziren eskas. Txillardegi

Leihoetan zintzilikatutako bandera gorri-horiak, eta Nafarroako erreinuaren **katedun** gorriak. Txillardegi

Frak dotorea jantzita, urrezko erloju **katedunarekin** eta zigilu-eraztun gorri batekin, Maria Sackett ondoan duela ezkontzera doa. Lopez de Arana

---

# kategoria **1** *iz* izaki eta adigai guztiak sailkatzeko klase oinarrizkoenetako bakoitza.

Hasieran oinarrizko hamar adigai aurkitu zituen [Aristotelesek], **kategoriak** (predikamentuak) izendatu zituenak. Ibon Uribarri

Orain arte zenbait **kategoria** ontologiko aztertu eta aipatu ditugu: banakoak, motak, propietateak, erlazioak, banako abstraktuak eta gertaldiak, besteak beste. Askoren artean

Hirugarren **kategoria** bere klaseko bigarrenak lehenarekin duen loturatik sortzen dela. testu homerikoen azterketan hasten denak berehala antzematen du gure **kategoria** filosofikoekin ezin dela mundu homerikoa ulertu. Ibon Uribarri

Beharrezkotasuna **kategoria** metafisikoa da. Askoren artean

Kulturaren antropologian hiru **kategoria** ditugu: unibertsalista, konparatibista eta partikularista. Askoren artean

"Gure adimenaren **kategoria"** (Kant) nagusiei jarraitzea da horretarako modurik egokiena. Josu Zabaleta

Konbentzio horiek alde batera utzi beharko lirateke beharbada, eta "objektutasuna" deitzen diogun **kategoria** primarioa bera ere bai. Xabier Olarra

Gero, beste maila batean, eta substantzia **kategoriaren** mendean, gainerako kategoriak daude. Askoren artean

Denbora eta espazioa pertzepzio moduak besterik ez badira, Kantek dioen bezala, eta kualitatea, kantitatea, kausalitatea, pentsamenduaren **kategoria** hutsak baldin badira, [...]. Koro Navarro

Ilunpetan, Kanten **kategoriak** ezin dira aplikatu. Koro Navarro

**2** maila edo mota bereko izakiak sailkazen diren klasea.

Perpaus horietan bi **kategoria** gramatikal bereiz ditzakegu. Askoren artean

Beste hizkuntza baten ahoskeraz bereganatzeko, hiztun horrek oharmena fonetikoki "berrafinatu" beharko du eta **kategoria** fonologikoak berrantolatu. Lourdes Oñederra

Ohiko **kategoria** literarioetatik ihes egiteko ahalegin bakanetako bat "μ" taldeak egin du. Josu Zabaleta

Berarentzat, dotorezia zen jakintzaren **kategoria** zirraragarrienetariko bat. Jon Muñoz

Japoniarren hizkuntzaren mirarietako bat da ezin konta ahala izen sor daitezkeela diskurtsoaren **kategoria** guztietatik abiatuta. Joxan Elosegi

Ederrak dira boxeolarien **kategoria** ezberdinak adierazteko erabiltzen diren deiturak. Harkaitz Cano

Subjektuaren eta atributuaren kontzeptuak izenaren **kategoria** orokorragoan bilduta. Xabier Arregi

Gezurrak, egiak eta estatistikak, hiru **kategoria** horiek definitu beharko lirateke ekonomian. Iñaki Heras

Onenetakoa naiz Brasilen ia hirurogeita hamar urte bete dituztenen **kategorian**, onenetakoa naiz munduan **kategoria** horretan, badakit zertan ari naizen. Karlos Zabala

Euskal Herriko **kategoria** guztietako 350 pilotarik. Berria - Kirola

WRC **kategoria** aldatu nahi duela dio FIAk. Berria - Kirola

Auto batek tropela jo eta txirrindulari bat larri zauritu zuen atzo junior **kategoriako** Errioxako Itzulian. Berria - Kirola

Txoroen **kategorian**? alprojenean? Monika Etxebarria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laburbilduz, Aristotelesen ontologiaren erdigunean substantzia **kategoria** daukagu. Askoren artean

Judaren senide ziren komunitateek [...] beren nortasuna, baita estatu-**kategoria** ere, galdua zuten bitartean, [...]. Iñaki Mendiguren

Erakunde-**kategoria** desberdinen arteko (dela gordailu-banku, dela industria-banku...) mugak ezabatuz. Koro Navarro

Mundu horretan bi preso **kategoria** bizi da. Filipe Bidart

Gaur egun ezin azter daitekeela irudi **kategoria** bat aldi berean gainerako guztiak ere kontuan hartu gabe. Josu Zabaleta

Gramatika **kategoria** guztietan. Isabel Arrigain

Borges ez da pertsona bat, ez eta pertsonaia bat ere, literatur **kategoria** bat baizik. Juan Garzia

**4** maila, garrantzia.

Hirugarren **kategoriako** bagoi zahar batera igotzen ikusi zuten. Josu Zabaleta

Gero soingainekoan nahiz kapan bereizgarri berdina duen lepo ederra lotuko dut, trenetako edozein langileri bide ematen diona zerbitzuan zer **kategoria** dudan jakiteko. Fernando Rey

Nire amaren adin beretsuko emakumea, baina beste estilo batekoa; beste **kategoria** batekoa, jendeak esan ohi zuen moduan. zuek baino askozaz **kategoria** gehiago duen jendearekin noski. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere ustez bentaria **kategoria** handiko gizona da. Patxi Ezkiaga

**-Kategoria** handiko gizona izango da, ez dizut nik ukatuko, baina ez zuen alaba salbatzerik lortu, horratx. Anjel Lertxundi

Hori baino **kategoria** handiagoa diat nik! Joan Mari Irigoien

**Kategoriako** bezeroak beti elkarren hurbil jartzen ditut. Matías Múgica

**Kategoriako** etxea zunan hura, ez pentsa gero. Xabier Mendiguren Elizegi

-Hau ez da printzesa baten **kategoriako** autoa, Tom. Iñaki Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gramatika kategoria** (4); **kategoria agerpenei** (4); **kategoria bakar** (3); **kategoria bakoitzeko** (3); **kategoria ezberdinak** (3); **kategoria ezberdinen** (3); **kategoria ezberdinetan** (3); **kategoria gramatikal** (3); **kategoria handiko** (5); **kategoria huts** (4); **kategoria hutsak** (4); **kategoria sozial** (3); **preso kategoria** (3); **substantziaren kategoria** (6)

**motogp kategorian** (3)

**kategorien erabilera** (7); **kategorien menpean** (5); **kategorien taula** (3); **kategorien taularen** (3)

**azpiko kategorietan** (3)

---

# kategoriaka *adlag* kategorien arabera, mailaka.

Larri larria **kategoriaka** so eginez: kadrek 2 800 euro eskuratu dute, arteko ofiziotakoek 1651 euro, langile kalifikatuek 1 224 euro, enplegatuek 1 090 euro eta azkenik, langile xoilek 947 euro hilabetean. Herria

---

# kategoriko 1 *izond* kategoriarena, kategoriari dagokiona.

Haien [savant-en] oroimena, ordea, ez zen fotografiko edo eidetikoa, ez; **kategoriko** edo analitiko izatetik hurbilago zegoen, ahalmena baitzuen "ezaugarri esanguratsuak" hautatu eta atzemateko. Xabier Olarra

Aurkikuntzarik handienetakoa (funtsean sintesia baino lehenagokoa bada ere) da oharmena **kategorikoa** dela eta diskretoa. Lourdes Oñederra

Propietate lehenen eta bigarrenen arteko bereizketarekin estu loturik, propietate **kategorikoen** eta disposizionalen arteko bereizketa egiten da egun. Askoren artean

Egun, biribila izatea bezalako propietateak **kategorikoak** direla esaten da. Askoren artean

Judizio **kategorikoaren** funtzioa subjektuak predikatuarekin duen hartuemana zen, adibidez, "gorputz guztiak zatigarriak dira". Ibon Uribarri

Unamuno-rena printzipioz ez da ebazpen **kategorikoa** [...]; eta gutxiago da, maite-maite omen lukeen euskara hil-hurren ikusten duenak dolorezki eginiko eutanasiaren edo paliatiboen planteamendua. Joxe Azurmendi

Kurt Goldstein bereziki interesaturik zegoen ahalmen global horretan "ahalmen abstraktu-**kategoriko"** edo "jarrera abstraktu" deitzen zion berak. Xabier Olarra

**2** zalantza edo eztabaida onartzen ez duena.

-Ba, guapoa, ez da -mutilak, baieztapen **kategoriko** ustekoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer zen hobeto gelditzea, nik; zer motibo zuen hain modu **kategorikoan** eta halako utilitarismo baldarrez hitz egiteko. Anjel Lertxundi

Aristegi jauna **kategorikoa** izan zen bere iritzian: [...]. Joan Mari Irigoien

Espainiako agintariak oker daude gatazka Diputatuen Kongresuaren ezezko **kategoriko** batekin konponduko dutela pentsatzen badute. Berria - Euskal Herria

**3** (adizlagun gisa) ik **kategorikoki.**

Ondorioen izenean tesi hori zinez arrazoitu, oso zaila da egitea, a priori inposiblea ez esateko -horregatik, ondorioetatik arrazoitzen denean, beti **kategoriko** baietsi egiten da, frogatzen deus ahalegindu gabe. Joxe Azurmendi

**4** ***inperatibo kategoriko*** gizabanakoak bere buruari, arrazoiak adierazia denez gero, ezartzen dion arau etikoa.

Oinarri objektibo hori **Inperatibo Kategorikoaren** bitartez formulatuko du Kantek. Askoren artean

Haren ustez, moraltasuna **inperatibo kategorikoen** sistema da, hots, honela, ez bestela jokatzeko esaten diguten aginduen multzoa. Askoren artean

**Inperatibo kategorikoaren** adibide egokia izan daiteke "ez duzu hurkoa torturatuko"; hipotetikoarena, berriz, "ez duzu hurkoa torturatuko, zigor zaitzaten nahi ez baduzu".

Askoren artean

Kostunbrismoak, errealitatea islatu baino, eder ustez mozorrotu du, beti ere iraganarekiko liluraren erakarmenez, ohitura onen eredupean eta **inperatibo** kategorikoaren aginduz. Anjel Lertxundi

Neketsua eta aspergarria ere bada geure buruei jartzen diogun **inperatibo kategorikoaren** etengabeko zama hori, "euskaldun naiz eta Euskadi dut maite" behin eta berriro frogatzen ibili behar hori, batez ere bat ez bazatoz euskalduntasuna ulertzeko modu batzuekin. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inperatibo kategorikoaren** (5)

---

# kategorikoki *adlag* era kategorikoan.

4-B, zehaztu zuen berak, **kategorikoki,** inoren erantzunen ia beharrik gabe egiten baitzituen galderak eta baieztapenak. Joseba Sarrionandia

**Kategorikoki** erantzun zidan: estomatologoak ez dira urdailaz arduratzen, ahoko infekzioez baizik. Joseba Urteaga

---

# kategorikotasun *iz* kategorikoa denaren nolakotasuna.

Goldsteinek berehala parekatzen ditu "gogamena" eta "abstraktu-**kategorikotasuna",** "kontzeptualtasuna", eta patologikotzat eta antzutzat hartzen gainerako guztia. Xabier Olarra

---

# kategorizatu, kategoriza, kategorizatzen du *ad* kategorieen arabera antolatu.

Hizkuntzak [...] pentsamendua tankeratzen du, forma ematen dio, osatzen du eta zehazten; pentsamendua kaotikoa da eta mintzaira da hura zehazten, antolatzen edo **kategorizatzen** duena. Isabel Arrigain

Sentsazio multzo zeharo abstraktu eta **kategorizatu** gabeko bat. Xabier Olarra

Ia mekaniko zitzaizkidan haren pertzepzioa eta oroimena -saltoki, liburutegi edo artxibo handien pareko-, indexatu edo **kategorizatu,** edo asoziazioz elkarrekin metatu gabe, eta, hala ere, edozer berehala eskura zitekeen bertatik, ordenagailu baten zorizko atzipeko memoriatik bezala. Xabier Olarra

Hizkuntzaren kalitatea **kategorizatzeko** mailaketa bat egin dugu. Berria - Euskal Herria

---

# kategorizatze *iz* kategorieen arabera antolatzea.

Azken batean, errealitate fonetiko etengabearen giza OHARMEN etendun kategorikoaren arazoari gure analisian aurre egiteko moduak dira **kategorizatze** horiek guztiak. Lourdes Oñederra

---

# kategorizazio *iz* kategorizatzea.

Kolorearen ikusmena gure esperientzia osoaren zati bat da bizitza errealean, gure **kategorizazio** eta baloreei lotuta dago. Xabier Olarra

Eta errua, inon izatekotan, **kategorizazioan** -eta beraz, hizkuntzaren deshumanizazioan- bertan dagoela esatea dagokidala uste dut. Iñigo Aranbarri

---

# katekesi 1 *iz* kristau ikasbidea irakastea.

Kristautasunean heziak izan ginen gu: erlijiozko klaseak, eskola barruko gainerako sermoiak, eskolaz kanpoko **katekesiak..** . Xabier Mendiguren Elizegi

Zergatik esan zigun don Tasiok lehengoan, **katekesian,** ziba erraldoi bat bezalakoa zela Lurra, Jainkoak espazioan dantzan jarritakoa...? Joan Mari Irigoien

**Katekesiko** arduraduna etorri zitzaion ate joka don Serapiori. Koldo Izagirre

Louisari, bere **Katekesiko** irakasle Gwyneth Forbes andereñoak. Koro Navarro

**Katekesira** doazenek, baliozkotuta. Berria - Harian

Leitzan **katekesia** ematen ari den apaiza etorri zitzaidan lehengoan. Patziku Perurena

Euskal Herriko **katekesiaren** arduradun nagusi gisa. Herria

Abortuoaren aurkako **katekesia:** Abenduaren 28an milaka entzuleren aurrean **katekesia** eman zuen Ratzingerrek Vatikanoan bertan. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

**Katekesi** molde berriak Bazko gauetik abiatuko dira. Herria

Haurren **katekesi** heziketarako 28 bideo ere izango dira Durangon. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **katekesi molde berriak** (3)

---

# katekide *iz* kate berean dagoena.

Bakarrik utzi ditut nire **katekide** izutuak, eta badakit atzetik jarraitu didaten behako guztiak ez direla harrituenak izan. Koldo Izagirre

---

# katekista *(orobat **katexixta** g.er.) iz* katekesia ematen duen pertsona.

**Katekista** sartu al zara? Xabier Mendiguren Elizegi

Kango herriko Makovo **katekistaren** etxean. Piarres Aintziart

Espainiako Gobernuak Ekuadorren duen enbaxadak bisa ukatu die hango lau **katekistari** Bilbora joateko. Berria - Euskal Herria

Haatik, **katexixta** baten beharra dago katixima euskaraz egiteko, hilabetean behin. Herria

---

# katekizatu, katekiza, katekizatzen du *ad* katekesia erakutsi.

**Katekizatu** egiten zuen, ez zela gizona, esaten zion, bere herriaren zorionarekiko hain axolagabe agertzen bazen. Karlos Zabala

Gauza bera erran behar da bataiatzekoak direnen **katekizatzeko** eta exortzizatzeko botereaz. Piarres Xarriton

---

katekorratz ik **kateorratz**.

---

**katekumeno** *iz* bataioa hartzera prestazen ari den pertsona.

Ni ez nintzen taldekoa sentitzen ordea, eta, bere burua kristau definitzen zuten **katekumeno** proselitista haien aurrean, beraiek nahi gabe seguru asko, kristau ez nintzela pentsarazi zidaten, lehenengo aldiz agian. Xabier Mendiguren Elizegi

---

katemaila ik **kate 13**.

---

**kateme** **1** *iz* katu emea.

**Kateme** bat ere ekarri zuten, kumeak laster batean egitekoa zena bera. Edorta Jimenez

**Katemea** bere katakume jaio berriekin. Jose Morales

**Kateme** baten magalari gozo-gozo bilduak zeuden bospasei katakume jaio berri ikusi nituen armairu horietako baten barruan. Josetxo Azkona

Etxeko **katemeak** izandako katutxoak hil zitzala agindu zioten. Juan Kruz Igerabide

**Kateme** zuri eder bat sartu zen ate-zirrikitutik gelara. Anjel Lertxundi

Leun mugitzen hasi zen, **kateme** txiki bat bezala. Fernando Morillo

Ondo dakizu **kateme** bat duzula, erpeak eta letaginak dituen **kateme** bat, **kateme** doilor, azpikari, maitale etsai bat, musuez aspertzen denean hozka egingo duena. Josu Zabaleta

**Katemeak,** bada, eraso, jazarri, harrapatu eta sudurra harramazkatu zion: trauma gogorra utzia zion hark txakurrari betiko. Juan Garzia

Itotzera doan **katemearenak** ziruditen txilio haiek. Harkaitz Cano

**Kateme** batek bezala ekiditen dituzu begiradak. Sonia Gonzalez

**2** (emakumeez mintzatuz)

Ausartegi topatzen ninduen orduan, itxura gaiztoa nuen, **kateme** beroak ez ziren etxe hartarako. Joxan Elosegi

Emakume gogorra da; kalean ondo zaildutako gauetako **katemea**. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Orduantxe erreparatu du tipoak zure aurpegian, zure **kateme** begiak ikusi ditu. Sonia Gonzalez

**Kateme** begiak dituzu, Kat deituko zaitut. Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kateme begixek dekozuz** (3)

---

**katemetxo** *iz adkor* katemea.

Orain -dio- hogei luze igeri egitera, xanpain pittin bat edatera eta nire **katemetxoa** zein maite dudan gogoratzera noa. Edorta Jimenez

---

katemutur ik **kate 15**.

---

**katenaria** *(orobat **katener**)* *iz* burdinbidedeetan eta, luzera osoan lurretik distantzia berean zintzilik dagoen kable elektrikoa.

Korronte alternoko 25 kilovolteko tentsioa duten **katenarietan**. Burdinbide mota bietan desberdina dela **katenaria** elikatzen duen tentsio elektrikoa; desberdinak dira, halaber, trafikoa kontrolatzeko sistemak; eta desberdinak dira trenen eta aginte postuen arteko komunikaziorako teknologiak. Berria - Ekonomia

Gurutzatzen ziren burdin-bidez, **katenerrak** airean atxikitzeko zutoin gorakoiez eta kontrol-postu arruntez osatutako paisaia desolatua. Itxaro Borda

**Katenaria** ukituta deskarga elektrikoa jaso zuen. Berria - Euskal Herria

---

katenbegi ik **katebegi**.

---

katener ik **katenaria**.

---

**kateorratz** *(orobat **katekorratz** eta **kate-orratz** g.er.)* *iz* orratz modukoa, tolestua, mutur puntaduna beste muturreko itxituran tinko sartzen dena.

Elastikoak eta galtza motzak zeramatzaten mutil guztiek, eta cricketeko txanbra irekiak eta gizonezkoen galtza luze grisak neskek, behealdea lotzeko **kateorratzak** jarrita. Koro Navarro

Urrezko erloju bat eskuturrean eta ilargi erdi baten itxurako **kateorratz** bat durbantean. Patxi Zubizarreta

Emazteari musu emateko makurtu zen eta, ustekabean, alkandoran **kateorratz** bati antzeman zion. Patxi Zubizarreta

**Kate-orratzak,** eraztunak, esku-muturrekoak banatzen ikusi zituen zaharrak. Felipe Juaristi

Abasek belarritakoei eta perlekiko **katekorratzari** lotu zien begirakunea. Patxi Zubizarreta

Baina harridurak goia jo zuen urre artean zer eta bere **kateorratzeko** harribitxi gorria topatu zuenean. Patxi Zubizarreta

---

**katering** *iz* aurrez prestaturiko janarien zerbitzua, taldeentzako antolatua.

Hondakin-sortzaile handienak direlako elikagaien industria (kontserberak, prekozinatuak), **kateringa** (enpresa eta antzeko kolektibitate handientzakoak) eta zentro banatzaileak, besteak beste. Edorta Agirre

---

katestatu ik **kateztatu**.

---

**kateter** *iz* hodi luze eta oso mehea, organismoko hodi eta barrunbeetan sartzen dena, sendaketak eta edo diagnostikoak egiteko erabiltzen dena.

Gerrialdean ezarritako **kateter** batetik botika anestesikoak eta opiazeoak ematen zaizkio erditu behar denari, minik sentitu ez dezan. Berria - Gaiak

**Kateter** bat sartu behar izan genion, morfina tratamendua emateko. Berria - Mundua

Buruko bi hemisferioetan izan ditzakeen odoljarioak kontrolatzeko **kateter** bat jarri diote. Berria - Kirola

Hemorragiak drainatzeko **kateterrak** kendu zizkioten. Berria - Mundua

Plastifikatzaile gehiagorekin PVC malgua lortu nahi denean (odol-transfusioetarako poltsetan, **kateterretan,** ...). Berria - Gaiak

---

**kateterismo** *iz* hodi edo barrunbe batean kateter bat sartzea.

Ebakuntza egin diote: **kateterismoa** egin diote bi arteriatan. Berria - Euskal Herria

**«Kateterismorik** egin barik koronarioak ikusteko aukera eskaintzen dute; gaixoari hodirik sartu gabe kolonoskopiak egiteko aukera ere eskaintzen dute, eta baita biriketako minbizia garaiz detektatzeko aukera ere», adierazi dute Kataluniako erradiologoek. Berria - Gaiak

---

**kateterizazio** *iz* kateterismoa.

Bihotzak zenbat energia behar duen jakiteko, zenbat oxigeno kontsumitzen duen neurtzen da; hartarako, bihotz-**kateterizazioz** -hodi fin bat bihotzean sartzeko teknikaz- lorturiko odol-laginak analizatzen dira gehienetan. Irene Aldasoro

---

**kateto** *iz* hiruki zuzen batean, angelu zuzena eratzen duten bi aldeetako bakoitza.

Zentrotik pasatuz egin bitez diametroak **kateto**-lerro horiei jarraituz. Santiago Iruretagoiena

---

katetu ik **kateatu**.

---

**katetxo** *(orobat **kateatxo** g.er.)* *iz* kate txikia.

Bularrekoari urre garbizko **katetxoak** egin zizkioten soka bihurrituen antzera. Elizen arteko biblia

Katigatu ondoren urrezko bi **katetxoak** bularreko ertzen eraztunetan. Elizen arteko biblia

Platinozko bi **katetxo** zituen, biak ere perladunak, belarrietan dilindan. Patxi Zubizarreta

**Kateatxo** bat kendu du lepotik, brontzezko gurutze bat zeukana. Juan Garzia

Soldadu haren lepoan zilarrezko **katetxo** zuri baten distira ikusi zen. Fernando Rey

Ezkerreko eskumuturrean urrezko **katetxo** mehe bat zuen. Ander Irizar

Oinetako **katetxoei** txilin eraginez. Elizen arteko biblia

Azken duda ateari bultza egin aurretik: segurtasunezko **katetxoa** jarrita ote zegoen? Migel Angel Mintegi

Dagoeneko ez zeukaat ez **katetxorik** ez erlojurik ez ezer... Jose Morales

---

**katetzar** *iz adkor* kate handia.

Burdinazko **katetzar** batek, eskumuturraren inguruan soin atal trakets hura estutuz, hari itsatsirik, elefante bat lakioan edukitzeko adinako zirgilo batez loturik zeukan eskua hormara. Josu Zabaleta

---

katexima ik **katixima**.

---

katexixta ik **katekista**.

---

**katezismo** *iz* kristau ikasbidea. ik **katixima**.

Mendibururen **Katezismo** luzea. Berria - Kultura

---

**kateztatu**, katezta, kateztatzen *(orobat **katestatu** g.er.)* du *ad ipar* kateatu, katez lotu.

Garai haietan, ilunak eguna **kateztatzen** zuenean. Itxaro Borda

Xedera hilgarrian **kateztatu** lehoiaren maneran nenbilen. Itxaro Borda

Heriotzak bizitza nola **kateztatzen,** mugatzen eta baldintzatzen zion arrapasatzen zuen. Itxaro Borda

Angustiak **kateztatzen** nau eta horixe zitzaidan gau hartan gertatu, antsiak hondarrean abandonatu ninduen arte. Itxaro Borda

Mendeko ardien bilakaera bera bizi izan dugu: bakardadearen edo desohorearen beldurrak **kateztaturik,** saldoan goaz lanera, supermerkatuetara, bilkuretara, alde bateko zein besteko pentsamendu bakunetik kanpoko gogoeta propiorik ez daukagu, eta beti, dena birindika aurtikitzeko jaidurak menperatzen ditugu. Itxaro Borda

---

katezulo ik **kate 17**.

---

katibatu ik **gatibatu**.

katibu ik **gatibu**.

---

# katigailu *iz* lotzeko gailua.

Egin urrezko berrogeita hamar **katigailu** ere, zapi-sail bat besteari lotzeko. Elizen arteko biblia

Zintzilikatu kortina zapien **katigailuen** pean. Elizen arteko biblia

---

# katigamendu 1 *iz* katigatzea.

Ez dago eraspenik, jaiera edo **katigamendurik** izen jakinik gabe, nonbait. Iñaki Segurola

**2** irud/hed

Trenbideen itxiturak blokeatzen dituen **katigamenduen** kabinak Ariston ikaragarri handi baten edo Forbes makina baten antza zuen. Fernando Rey

Eta gero **katigamenduen** kabinako telefonoaren hotsa aditu zen. Fernando Rey

---

# katigatu, katiga, katigatzen 1 da *ad* zerbait nonbait, ezin askatu dela gertatu.

Ninfa iheslaria sastrakan **katigatuta** zegoela hurbildu zitzaion Dionisos. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arantza artean **katigatuta** geratu zen. Iñaki Mendiguren

Traktoreak lotuta zeraman enborra **katigatu,** eta traktorea irauli zenean gidaria azpian hartu zuen. Berria - Ekonomia

Hodei zikinak lasterka zihoazen, teilatuen arrasean kasik, zarpailduak, tximistorratzen puntetan **katigatu** eta urratu izan balira bezala. Karlos Zabala

Burua barandan **katigatuta** geratu zitzaion mutilari. Anton Garikano

Sustrai batean **katigatuta** geratu zitzaion [hanka]. Iñaki Mendiguren

Bere kaparen barrenak hanka azpian **katigatu,** eta estropezu egin zuen. Anton Garikano

Amuan **katigatuta** dagoen uretakoa, berdin arrain zein txibia, preso dago. Iñigo Aranbarri

Nagusia plisti-plasta zebilen, eta, askatu nahirik, ahoz gora jarri zen, sabela gorantz, baina are gehiago **katigatu** zen sarean. Jose Morales

Inork ez dio begiratzen, tentsioak ehundutako begi amaraunean **katigaturik** daude denak. Javi Cillero

Hala beharko! -esan zuen Txitxikovek bere kolkorako-, haria **katigatuz** gero, alferrik dik arrantzaleak askatzen saiatzea. Jose Morales

**2** *hed/irud*

Etzanda, musua muturraren kontra, bi begiak begi bakarrean **katigatuta**. Itziar Otegi

Bi edo hiru hilabetez hitz bati **katigaturik** egon naiteke. Xabier Olarra

Umbertok lagundu egiten zidan, hitzen baten bila **katigatzen** nintzenean hitz egokia eskainiz. Anjel Lertxundi

• **3** du *ad* katez-edo lotu; lotu.

Orkatiletan girgiluak estekatu eta eskumuturrak ere **katigatu** zizkiotenean. Anton Garikano

Urrezko bi katetxoak bularreko ertzen eraztunetan **katigatu** zituzten. Elizen arteko biblia

Esplikatu hidan zein ezdeus iruditzen zitzaizkinan itxurakeria haiek, inguratu eta **katigatzen** gaituztenak, bai giza arauak, bai norberaren azalkeriak. Hizkuntza bera besoz eta zangoz **katigatuta** gelditu zaigula. Javi Cillero

Kontakizun bakoitza berezi eta original egiten ahalegindu da, eta irakurleak ez du jakiterik izango hurrena zein istoriok **katigatuko** duen. Berria - Kultura

**4** (maitasunezko edo haragizko harremanean)

Mariren lurrazpiko aixkirea omen zen, eta harekin **katigatzen** zen bakoitzean txingor-eraso bat botatzen omen zuen ikaragarria. Iñaki Segurola

Ez zen gai izan saiatzeko ere, beldur baitzion neskekin **katigatzeari**. Unai Iturriaga

Roman eta Karmen nire atzetik zetozen, modu barregarrian elkarri **katigatuta** seguruena. Inazio Mujika Iraola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **katigatuta gelditu** (5); **katigatuta geratu** (5)

---

# katigatze *iz* katez lotzea.

Bidegurutzeen **katigatze** askatu ezinezkoak gorabehera. Josu Zabaleta

---

# katigu *adlag* katez-edo loturik.

Ez al zuen ikusi oihanetako gizona bere alanbrezko etxean **katigu,** haserrerik desegokienezko eztandatan lehertu zen Honorine. Josu Zabaleta

Ama ondo **katigu** geratuko zan, hain gazterik. Xabier Amuriza

---

# katikula *iz*

-Hara nola hazi zaizun **katikula**! Lopez de Arana

---

# katilu 1 *iz* lurrezko edo toskazko ontzia, biribila eta kirtenik ez duena, esnea eta antzeko edariak hartzeko erabiltzen dena. ik gopor.

Azpilean sei zazpi **katilu** kea dariela atea joko dizunean. Joseba Sarrionandia

Erretiluan, lau **katilu** handi. Inazio Mujika Iraola

**Katilu** zapal bat. Askoren artean

Portzelanazko **katilu** bat. Jose Morales

Lau edo bost **katilu** portzelanazko, likido beltz batez erdi beteak. Irene Aldasoro

Zenbait **katilu** koskadun eta botila bat anbar koloreko isurkaiarekin. Iñaki Mendiguren

Dionisosek hainbeste maite zuen **katiluarekin** hurbildu zen egongelara kafea hartzera. Unai Iturriaga

Gosariko **katilu** handi zuri batean maionesa egiten. Berria - Gaiak

Badirudi nahita ari dela odola **katilu** barrura isurtzen. Itziar Otegi

Kafea edandako **katilu** beretik edaten zuen trago luzetan. Unai Iturriaga

Zurezko zali batez arrautza jotzen ari da **katilu** batean. Josu Zabaleta
Elefante bat marraztuta zeukan **katilu** gorria. Eider Rodriguez
Inesek lozazko bi **katilu** zaharkitu utzi dizkie mahai gainean. Pello Lizarralde
Esnea berotutakoan **katiluetan** isuri, gailetak eta kolakaoa mahai gainera atera eta elkarri so geratu ziren gazte biak. Jon Arretxe
**Katiluan** gelditzen zitzaiona edan zuen. Fernando Rey
Harraskan **katiluak** eta edalontziak garbitze. Joxemari Iturralde

**2** *hed*

Berogailu gainean ur apur bat berotzen jarri zuen latorrizko **katilu** batean. Lopez de Arana
Handik hurbil, burdinezko **katilu** bat eta koilara garbiago bat ikusi zituen. Eneko Bidegain

**3** katilu baten edukia. ik **katilukada.**

**Katilu** bat arroz egosi, **katilu** bat babarrun beltz egosi, tomate gordin zatitxoak erantsi eta tipulin txikituarekin, piperbeltzarekin, olioarekin eta gatzarekin maneatu. hara biltzen dira merkatariak, zazpinaka edo zortzinaka, ohiturari jarraiki bina **katilu** te edatera. Joseba Sarrionandia
Bazkaldu eta gero, **katilu** bete kafe edan, eta dibanean eseri zen jauna. bi arrautza jan zituen, **katilu** bete terekin. Jose Morales
**Katilu** bete salda bero hustuta, [...]. Aingeru Epaltza
Nozdriovek bi **katilu** te edan zituen. Jose Morales
Erizain batek **katilu** handi bat infusio utzi zuen mesanotxean eta esan zuen. Joseba Urteaga
Ez zidan deus ere eskatzen, **katilu** kafeak eramatea izan ezik. Joxan Elosegi
**Katilu** tea eskuan hartu, frutazko gozagarria isuri, eta honela mintzatu zen: [...]. Jose Morales
**Katilu** handi bat pontxe beroren aurrean. Juan Garzia
Lukainka muturtxoren bat ez, bijilia zelako, baina **katilu**-kafesne bai. Pello Zabala
· Hurrupada batez **katilu** erdia edan nuen. Aingeru Epaltza

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Katilu**-itxuran tolestuak zituen eskuak zabaldu zizkidan, doi-doi, barrukoa ikus nezan. Mirentxu Larrañaga
Sukaldera berriz ere, katilueta koilarak harraskan uztera, **katilu**-mendi erraldoi batean pilaturik. Xabier Mendiguren Elizegi
Kontuz-kontuz, ezpainak hurbildu nituen **katilu**-ertzera. Anjel Lertxundi

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Koilarek te-**katiluetan** klin-klin egiten zuten. Juan Kruz Igerabide
Te-**katilu** erdi huts bat eta hozka egindako ogia marmeladarekin-. Anton Garikano
Bainu-txabusinan bildurik eta kafe-**katilu** bat eskuan. Fernando Rey
Hautsontziko zigarrokinei eta kafe **katilu** hustuei erreparatuz gero denbora puska bat eman dutela jakin liteke. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esne katilu** (4); **kafe katilu** (5); **katilu bat eskuan** (5); **katilu bat esne** (7); **katilu bat kafe** (4); **katilu bete** (9); **katilu erdia** (3); **katilu handi** (4); **katilu hutsa** (3); **katilu te** (4) **kafe katilua** (4); **katilua bete** (3); **katilua eskuan** (4); **katilua eskuetan** (3); **katilua hustu** (5); **katilua koilara** (3); **katilua koilara galletak** (3) **katiluaren ondoan** (4)

---

# katilukada

**1** *iz* katilu baten edukia. ik **katilu 3.**

**-Katilukada** bat te, besterik ez, eskerrik asko. Koro Navarro
-Emadazu beste **katilukada** bat te, bete-betea. Ibon Uribarri
Agureak beste **katilukada** bat te hartu zuen. Ibon Uribarri
Izeba Petuniaren eskua agertu zen, **katilukada** bat zopa (potekoa) gelara sartzen. Iñaki Mendiguren
Erdibana edan dugu **katilukada** te gozo-gozoa. Mirentxu Larrañaga
Beheko guztiei **katilukada** zopa ematen zaie, Ama zaharra ohean artean, gaupasa eginak kafea berotu eta, **katilukada** bat erdia baino gehiago pattarra zuela zurrutatu zuen. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta biek elkarrekin jan zuten ahi-**katilukada,** karitate tematsu hura zela medio. Askoren artean
Hau jan omen zuen: labean erretako oilaskoaren erdia baino gehiago, saiheski parrilan egindakoa lepo, eta zazpi talo, esne **katilukada** banarekin. Pako Aristi
Jakob Al Saura irakurtzen ari zen, Baas-en egunkaria, aurrean te **katilukada** bat zuela, euliz inguraturik. Juan Kruz Igerabide
Cola-Cao **katilukada** bete-betea gosaldu zuela. Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **katilukada bat te** (4); **katilukada handi** (5); **katilukada handi bat** (4); **katilukada kafe** (3); **katilukada te** (3); **katilukada te gozo** (3

---

# katilutxo

*iz adkor* katilua.

Ze, zu zeu igoal zinen astelehenean **katilutxo** garia behar zenuena. Pello Zabala
Urte barri-barri, / txarri-belarri, / daukanak ez daukanari, / **katilutxo** bete gari. Pello Zabala
**Katilutxo** batera bota zuen aho-gozo beteko koktel bat Jon Muñoz

---

# katioi

*iz* karga positiboko ioia. ik **anioi.**

Esan nion **katioia** eta anioia bezalakoak ginela, baina Sandrok ez zion grazia berezirik aurkitu konparaketari. Juan Garzia

---

# katiuska

*iz* bota luzea, gomazkoa, oinak euritik eta lokatzetik babesteko balio duena.

Hortaz, **katiuskak,** xira eta aterkia hartu, eta hor joan nintzen Julianen etxera. Xabier Mendiguren Elizegi
Erreka bazterrak zuri-zuri, kaleak ere elurrak hartuta, emakumeak **katiuskak** jantzita eta haurrak plastikoekin maldan... Pablo Sastre
Etxe aurreko ate inguruan **katiuskak** zeuden denak nahasian. Iñaki Mendiguren

---

# katixima

**1** *iz* kristau ikasbidea.

Eliza katolikoak manatu lanak egiten nituen: **katixima,** sakramenduak, elizkizunak. Piarres Aintziart

Osaba mailu bat bezala ibili zitzaidala, bere **katixima** partikularra irakasten eta egunoroz lezionea hartzen, edo Luthero edo Kalvinen izenak eta haien erranak noiznahi-den izaiten zituela ezpainetan. Joan Mari Irigoien

Larunbatean, hamarretarik eguerdi artio **katixima** euskaraz. Herria

Larunbatean **katixima** euskaraz ikasten dutenak bilduko dira parropiako geletan. Herria

Euskara dakiten **katiximako** haurren eguna, maiatzaren lehenean finkatua da. Herria

**Katiximako** haurrak Loiolan. Herria

Lehenik, prezatuak ziren Lafitten **katiximak,** halakoetan aurkitzeko parada zutenetan. Herria

**Katiximak** hasiko dira iraila hunen 15ean, asteazkenarekin. Herria

**2** irud/hed

Ikasia nuen armagizonen **katixima:** soldaduek ez dute inoiz negarrik egiten. Aingeru Epaltza

Erran du alabainan departamendu baten bi partetan ezartzea gauza frangoren zailtzea dela, aldiz bi departamenduren batetaratzea gauza ainitzen errextea! nundik jalgi ote dauku holako **katixima**? Herria

Belaunaldi berriek ezkerreko muturretik ekarri diguten sorgin berrien **katiximak** eraman gaituela iragan mendeetako sabeltxuri-sabelgorrien borroka itsuetara. Piarres Xarriton

Merkatuko arrunkerietan hezia, bazekien buruz kai aurreko jende ahozikinaren **katixima**. Karlos Zabala

"Ez zagok esku txarrean iraultzaren soroa", burutu zuen nekazariaren **katixima**. Inazio Mujika Iraola

Lehen ETAren nazionalismoak, berriz, bere **katixima** zuen Liburu Zurian, pertsonaren lehentasun absolutua aldarrikatzen du nazioaren gainetik eta, nola ez, Estatu "artifizial"aren guztiz gainetik ere. Joseba Zulaika

Haiek irakurtzen genizkien analfabetoei, huraxe genuen **katixima**. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren **katixima** liburua ez zen ez irakurtzen ez inprimitzen ahal. "Guztiz heretiko susmagarri" gisa kondenatua izan zen Carranza eta haren **Katixima** liburu debekatuen "Index"-ean sartu zuten. Piarres Xarriton

Curriculum normal bat egina izan du, gaztaroan bikario, gero erakasle, gazte mugimenduetan omonier, **katixima** arduradun. Piarres Aintziart

Beraz, bost minutaz **katixima** ikastaro bat. Michel Oronoz

Emazte hura **katixima** erakaslea zen, eta bazuen semea medikugaia. Marzel Etxehandi

Eta **katixima**-irakasle herrian, eta akolito, eta Begoñako Amatxoren gurtzaile... Inazio Mujika Iraola

Egun hortako meza, **katixima** urteko lehena izanen da ere lau herrietako haurrentzat. Herria

**4 *katixima egin*** katixima irakatsi.

Han kausitu nuen Piarres Charritton, eta erakasle ukan dut, eta **katixima** euskaraz egiten zaikun 4.ean eta ikastegiaren buruzagiak ez zuen, naski, hori hain gostuko zera... Menane Oxandabaratz

Ithorrotzeko Dassance erretorea Arnegira izendatua izan baitzen, Piarres-i galdegin zion otoi haurreri **katixima** egin ziezaien; horrela euskaraz aritzera bortxatua zen apezgai gaztea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haatik, katexixta baten beharra dago **katixima** euskaraz egiteko, hilabetean behin. Herria

· Baina irakurketak, iruzkinak edo predikuak, gogoetak, **katiximak** eta abisu guztiak erdara hutsean egiten dira. Piarres Xarriton

**5 *katixima egile*** katixima irakaslea.

**Katixima** egile, eskola emaile, erizain, elizkizun arduradun, badute nun zer egin... Herria

"Giristinoen elkarte osoaren eginbidea da katixima", eta ez bakarrik apez-serora eta **katixima**-egileena. Herria

Zenbat ama familiako hor dira bai beren haurrekin, bai hauek etxetik joan direnean, **katixima** egile bihurtzen direnak. Herria

Apezak, **katixima** egileak, eskola girixtinoetako arduradunak. Herria

**Katixima** egilek biziki untsa prestatuak zituzten haur horiek. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **katixima egile** (15); **katixima egileak** (4); **katixima egileek** (3); **katixima euskaraz** (10)
> **katiximako haurrak** (4); **katiximako haurrek** (3); **katiximako haurren** (4

---

# katodiko 1 *izond* katodoari dagokiona.

Izpi **katodikoen** izaerari buruzko urteetako eztabaida luze baten erantzun bila ari zelarik aurkitu zuen elektroia. Pello Salaburu

**2** irud/hed hodi katodikoaren, eta bereziki telebistaren bidezkoa.

Elkarrizketa guztiz aberasgarriak ahalbidetuz irudi **katodikoen** eta dantzariaren mugimendu perfektuen artean. Berria - Kultura

Inork ez zion segundo **katodiko** bat bera ere eskaini albiste hari. Txema Ramirez de la Piscina

Pantallak zuzen-zuzenean bi begietatik garuneko zulo beltzetaraino helarazten duen argitasun **katodiko** itsugarria besterik ez da gaur. Iñaki Segurola

Horixe da gaur egunean hiritar argitu, informatu eta aurrerakoia (baina aurrera, nora?: indar **katodiko** handienarekin -eta beti popatik- jotzen duen haizearen aldera; ez du besterik esan nahi). Iñaki Segurola

Eliza **katodikotik** " Jesus " pastoralera. Herria

**3 *hodi katodiko****sup_1* izpiak katodotik anodora doazen hodia.

Bigarren Mundu Gerraren garaian radarren hodi **katodikoak** hobetzen egin zuen lan. Berria - Gaiak

Eliza Katolikoak toki ainitz hartzen du telebixtako hodi **katodikoetan**. Herria

**4 *hodi katodiko****sup_2* telebista.

Telebistan arratsaldeetako talk-show bat ematen ari ziren, eta tabernaria eta agurea hodi **katodikoetan** galduta zebiltzan. Unai Iturriaga

Babestu egin nahi baitzuen alabatzakoa amerikar pop kulturaren inauteri erotik, lurralde hartako hodi **katodiko** gutzi-guztietatik etengabe isurtzen zen nabarmenkeriazko eta zaborrezko anabasa jainkogabe horretatik. Oskar Arana

---

# katodo *iz* elektrodo negatiboa. ik **anodo**.

Aise ikus zitekeen nola anodotik jaregiten zena halako bi jaregiten zen gasetan **katodotik,** gutxi gora-behera. Juan Garzia

Teoriaren balaku gozoan, **katodoaren** potoa ia beterik zegoen gasez; anodoarena, berriz, erdiraino. Juan Garzia

---

# katoi *(orobat **katon** g.er.)* 1 *iz* Espainian, irakurtzen ikasteko liburua.

Gainerako mutilek dotrina eta **katoia** ikasten zuten artean, izadiaren ikuskariei begira egoten zen Martin. Koro Navarro

Liburu baten neurri fisikoak finituak diren arren, hiru dimentsioetara lotuak alegia, *Xabiertxo,* euskaldun askoren **katona** eta biblia, dotrina eta *rerum lectio* izan den liburu apal

hori, Babelgo liburutegiko apaletan dago. Anjel Lertxundi

**2** irud/hed

Izan ere errioxarrak bere eskuz idatzitako aurrelari jokoaren **katoia** eraman zuen bere milagarren partidako ospakizunera. Berria - Kirola

---

# katoliko **1** *izond* katolizismoari dagokiona. (pertsonez)

Haren emaztea Westfaliako andre **katoliko** bat zen. Karlos Zabala

Turista aleman talde oso bat hantxe zegoen multzoturik, apaiz **katoliko** bat gidari. Joxe Austin Arrieta

Aita Santuak kontrazepzioaren aurka emandako ikasbideak errespetatzen zituen burges **katoliko** bat. Joseba Urteaga

Munster-eko irakasle Edith Stein judu gazte **katoliko** jakintsuak. Piarres Xarriton

Kristau **katoliko** naizenez. Patxi Ezkiaga

Taxilari **katoliko** baten hilketa. Berria - Harian

Zer arraiotarako nahi zuten agente **katoliko** bat? Alberto Ladron Arana

Apostolu Sainduek eta Kristoren ordezkari **katolikoek**. Piarres Xarriton

Errege-erregina **katolikoak** direla eta [...]. Pello Salaburu

Fernando **Katolikoak** bereganatu zuen Nafarroa. Joan Mari Irigoien

Isabel **Katolikoaren** Gurutzea. Iban Zaldua

Nafarren %82k **katolikotzat** dute beren burua, inkesta baten arabera. Berria - Euskal Herria

**2** (bestelakoez)

Erromako Eliza saindu eta **katoliko** bakarraren kide garela. Piarres Xarriton

Fededun guztiek sinestea bederen inplizitoki fede **katolikoaren** gai guztiak, hau da sinestea orokorki egiak direla Erromako Eliza **Katoliko** Ama Sainduak sinesten dituen guztiak. Piarres Xarriton

Erlijio **katolikoan** hezi ninduten, dotrinara joaten nintzen, lehenengo jaunartzea egin nuen organdi zuriz jantzita. Karlos Zabala

Herrialde **katoliko** eta protestanteetan. Iñaki Mendiguren

Erakasle ezarri ninduten, Biarnoko ikastetxe **katoliko** batean. Piarres Aintziart

Darwinismoaren kontrako panfleto **katoliko** batera. Monika Etxebarria

Mendebaldeko kristautasun **katolikoa.** **Iñaki Mendiguren**

36ko gurutzada **katoliko**-militarraren ikurrak. Iñigo Aranbarri

Kristau-elkarte **katolikoari** ere. Iñaki Mendiguren

Pariseko elkarte **katoliko** batek. Herria

Felipe II.a bere maiestate **katolikoaren** ordezkari nagusi Nafarroako Erresuman. Aingeru Epaltza

Ez al ninduen, bada, ezinbestekotasunaren izugarrikeria **katoliko** hura sinetsi -eta jasan- ezinak fedetik urrundu [...]? Anjel Lertxundi

Literatura **katolikoak** indar handia zuen garai haietan. Anjel Lertxundi

**3** (izenlagun gisa; ipar)

Telebixta eta irratilariek baitiote **katoliko** elizak usaian hutsak direla. Herria

**Katoliko** erakundeen buruzagiek beren laguntza eskaini diote erretor berriari. Herria

Aipatu ditugun **katoliko** multxo horientzat eraikiak izan dira parropiak. Herria

**4** (predikatu gisa)

Han jendea **katolikoa** baita. Askoren artean

Mundu guzia **katoliko** izatea nuen espero. Piarres Aintziart

Dowland irlandarra **katolikoa** zela. Felipe Juaristi

Harrigarria ere egiten zaigu **katoliko** izateak Frantziskorengan duen erradikaltasuna, **katoliko** ez direnekiko intolerante bihurtzeraino. Askoren artean

**Katoliko** direnen eta ez direnen arteko ezkontzen aurka. Berria - Gaiak

**Katoliko** izateari utzi eta budista bihurtu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ateistenak ere beti **katoliko**-katolikoak dira hemen. Joxe Azurmendi

Hamar urte barne bere populu guzia **katoliko** bilakatua zen. Herria

Euskal Herri osoak **katoliko** zirudien. Piarres Aintziart

Leo Steinitzek, urte batzuk lehenago **katoliko** egin zen botikari juduak. Anjel Lertxundi

**Katoliko** egin zen, eta jesuita. Juan Martin Elexpuru

**5** *iz* Eliza katolikoko kidea.

Noiznahi-den pizten ziren **katoliko** eta protestanten arteko aharrak eta liskarrak. Joan Mari Irigoien

Haren aitak ez zuela inoiz onartuko bere alabak **katoliko** batekin harremanak ukan zitzan. Daniel Landart

Esker txarreko austriar **katoliko** zitalak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Frantses **katoliko** zintzoek ongi ikasiko genuen amen erraten itsutuki Filipe Pétain gidari "zuhurrari". Piarres Xarriton

Bi apezpiku frantses, gizon zuzenak eta **katoliko** zintzoak. Piarres Xarriton

**Katoliko** on guzien eginbidea da igandeetan mezara joatea. Elena Touyarou

Agian ez dugu, **katoliko** frantsesek, huts hori sobera kario pagatuko, egun batez. Marzel Etxehandi

Fededun itsutua, **katoliko** ortodoxoa. Berria - Kirola

**Katoliko** fundamentalisten presioak. Berria - Euskal Herria

• **6** *izond adkor* ona, behar bezalakoa.

Esanak esan, astakeria irudituko zaizu agian Joan sorgin horren metatesitzat jotzea gure Jaun hitza; niri ordea sineste **katoliko** samarra iruditzen. Patziku Perurena

Mihigaiztoek esaten dute Andrew Millerren erreklutatzeko manerak ez zirela oso **katolikoak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**apaiz katoliko** (7); **eliza katoliko** (13); **erromako eliza katoliko** (5); **erromatar katoliko** (3); **herrialde katoliko** (3); **katoliko edo protestant** (6); **katoliko egin** (4); **katoliko egin zen** (3); **katoliko eta protestantak** (3); **katoliko eta protestante** (3); **katoliko eta protestanten** (4); **katoliko on** (3); **kristau katoliko** (6)

**apaiz katolikoa** (4); **ekintza katolikoa** (6); **eliza katolikoa** (40); **erlijio katolikoa** (6); **eskola katolikoa** (4); **fede katolikoa** (6); **katolikoa izan** (8); **laguntza katolikoa** (4); **oso katolikoa** (5); **sokorri katolikoa** (6)

**apaiz katolikoak** (3); **austriako eliza katolikoak** (4); **eliza katolikoak** (102); **erakaskuntza katolikoak** (6); **erlijio katolikoak** (3); **errege katolikoak** (7); **fede katolikoak** (3); **katolikoak eta protestantak** (3); **katolikoak izan** (3); **laguntza katolikoak** (6); **sokorri katolikoak** (5)

**eliza katolikoan** (10); **erakaskuntza katolikoan** (3); **eskola katolikoan** (3); **fede katolikoan** (4); **fede katolikoan irmo** (3); **unibertsitate katolikoan** (6)

**eliza katolikoarekin** (4)

**eliza katolikoaren** (78); **eliza katolikoaren aita** (3); **eliza katolikoaren arabera** (3); **eliza katolikoaren barruan** (7); **eliza katolikoaren finantzaketa** (3); **eliza katolikoaren hierarkiak** (5); **erakaskuntza katolikoaren** (5); **erlijio katolikoaren** (3); **errege katolikoaren** (5); **erromako eliza katolikoaren** (3); **fede katolikoaren** (21); **fede katolikoaren oinarriak** (10); **fernando katolikoaren** (4); **laguntza katolikoaren** (4)

**eliza katolikoarena** (3)

**eliza katolikoari** (21); **fede katolikoari** (4)

**fede katolikoaz** (4)

**errege katolikoek** (9); **eskola katolikoek** (4); **katolikoek eta protestantek** (3)

**apaiz katolikoen** (3); **errege katolikoen** (8); **ikasle katolikoen** (4); **katolikoen artean** (7); **katolikoen arteko** (4); **katolikoen eskubide** (3); **katolikoen eta protestanten** (4)

**eskola katolikoetako** (4)

**eskola katolikoetan** (6)

**auzo katolikoetatik** (3)

**ekintza katolikoko** (4); **eliza katolikoko** (50); **eliza katolikoko buru** (9); **eliza katolikoko burua** (7); **eliza katolikoko buruaren** (3); **erakaskuntza katolikoko** (3); **lovainako unibertsitate katolikoko** (3); **sokorri katolikoko** (3); **unibertsitate katolikoko** (4)

**eliza katolikotik** (4)

---

**katolikoki** *adlag* era katolikoan.

Anaia guztiak izan bitez katolikoak, bizi eta mintza bitez **katolikoki** . Askoren artean

---

**katolikotasun** **1** *iz* katolikoa izatea; katolikoa denaren nolakotasuna.

Katolikoak dira menturaz beren **katolikotasunaren** barnean hertsiegiak, beren Elizaren unibertsaltasunean osoki arrotz egonak. Piarres Xarriton

Joycek uko egin zien **katolikotasunari,** irlanderari eta Dublini, baina ez zen ez ingeles ez protestante bilakatu. Markos Zapiain

Fabrika-langile kontzientzia eta **katolikotasuna** uztartu ziren Azkoitian, batez ere Sindicato Catolico Librekoen eskutik. Berria - Kultura

**2** katolizismoa.

**Katolikotasunaren** eta Hitlerren artean aukeratzeko premia izan zuenean, amonak **katolikotasuna** hautatu zuen. Anjel Lertxundi

Gomendatu dio haatik erruso patriarkak ez dezan kardinaleak sobera erakuts **katolikotasunaren** han gaindi zabaltzeko gosea. Herria

**Katolikotasunaren** aurkako liburu bat idatzi zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Euskaldun bat izan zen, agian mende oso batez Gipuzkoan izan zen **katolikotasunaren** aurkaririk gogorrena. Askoren artean

Fabrika-langile kontzientzia eta **katolikotasuna** uztartu ziren Azkoitian, batez ere Sindicato Catolico Librekoen eskutik. Berria - Kultura

---

**katolikotu,** katoliko(tu), katolikotzen da/du *ad* katoliko bihurtu.

Beharrik Mao kamaradak putzura botako ditu laster, bestela euskal misionistek **katolikotu** eginen lukete Asia osoa. Koldo Izagirre

---

**katolikotzar** *izond adkor* katolikoa.

Parisko gortean, Joanak **katolikotzar** guztien eskandalua pizten zuelarik afarian parte hartuz eta denen aitzinean otoitz eginez, Borboikoa mezatara itzuli zen, apezeriaren gozagarri. Aingeru Epaltza

---

**katolikozale** *izond* katolikoen zale edo aldeko dena.

Eta ezkertiarrak bazeuden alderdi batean, elizgizon, **katolikozale** eta konserbadoreak zeudela bestean. Berria - Kultura

Mary erregina **katolikozalea** [...] igo zen errege-jarlekura, eta, bere aukera erlijiosoa defenditu nahian-edo, eliza erreformatuaren aurka ekin zion amorru biziz, etengabeko sarraski eta jazarpenetan, bost urte luzez. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**katolizismo** *iz* Aita Santuaren aginte eta gidaritza onartzen duen kristau erlijioa, erlijio katolikoa.

Klovis Frankoak [...] **katolizismora** konbertitu ondoren, Konstantinoplan urruti zegoen Anastasio enperadoreagandik prokontsul-titulua eta kontsul-intsigniak eskuratu zituen. Iñaki Mendiguren

Monarka arrianoak **katolizismora** bihurtu zirenean. Patziku Perurena

**Katolizismo** dogmatiko frankista itogarriaren aurka. Joxe Azurmendi

Oroit atzoko ala gaurko nazional- **katolizismoek** egin desmasiez. Piarres Xarriton

**Katolizismoaren** eta protestantismoaren arteko lehiak Euskal Herrian izan zituen ondorioak. Berria - Kultura

· Pekinek **katolizismoa** onartzen du, Vatikanoren agintepekoa ez bada. Berria - Harian

---

katon ik **katoi**.

---

**katramila** **1** *iz* kontu nahasi eta korapilatsua.

Ene mutil maitea zoritxarreko **katramila** batean nahasi bada, [...]. Antton Olano

-Hori gabe ere, izanen dut nik bihar, eta ondoko egunotan, **katramila** frango. Txillardegi

Baina nola aterako gara **katramila** honetatik? Fernando Rey

Konpondu beharreko **katramila** neukala. Hasier Etxeberria

Izenordainekin sekulako **katramilak** zituen, ez baitzuen harrapatzen "zu" eta "ni" desberdinak zirela testuinguruaren arabera. Xabier Olarra

Berak moldatu zuen **katramila** hura guztia; berak bertsoak; eta berak prestatu zuen mirabe bat, Dulzinearen itxura egin zezan. Patxi Ezkiaga

Bataren eta bestearen arrazoi eta desarrazoiak ezin askatuzko **katramilan** nahastekatzen ziren. Fernando Rey

Partida batek mila **katramila** izan ditzakeela, eta huskeria txikienak emaitza erabaki dezakeela. Berria - Kirola

Astebetez Leirerengana hurbildu ere ezin izateak izan du bere **katramila** . Aingeru Epaltza

**2** (izenondoekin)

"Orain **katramila** ederrean sartua nagok", pentsatu nuen. Fernando Rey

Eskuartean **katramila** polita neukan, eta hobe nuen zerbait egin. Xabier Olarra

Biek ematen dute Agatha Christieren trebetasun paregabea dastatzeko aukera: «hariaren **katramila** paregabea eta soluzio txundigarria», Olarraren hitzetan. Berria - Kultura

XX. mendeko lehen hamarraldi hori Pío Barojaren nahaste eta **katramila** politikoen urteak izan ziren Alejandro Lerroux-en Alderdi Erradikalaren lerroetan. Josu Zabaleta

Halako **katramila** erromantiko sentimental bat. Josu Zabaleta

Harrapatuta zegoen **katramila** sentimentaletik salba zenezala erregutzen zizun. Ander Irizar

Erokeriazko **katramila** ikaragarri batean oldartu ginen azkenerako, baina ez naiz batere damutzen. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan)

Kontuari interes erromantikoa eman zioten, eta niri ezarri zizkidaten maitasun **katramilak** kriminalak izan ziren. Xabier Olarra

---

**katramilarazi**, katramilaraz, katramilarazten du *ad* katramilatzera behartu.

Herrira iritsi bitartean ez zuen agertu halako tik-emanaldiaren zantzu handirik, harik eta hirira iritsi eta semaforoek **katramilarazi** zuten arte. Xabier Olarra

---

**katramilatsu** *izond* katramilaz betea, nahasia.

Askoz ere **katramilatsuagoa** da ordea arazoa. Andoni Egaña

Egoera **katramilatsu** hau gainditzeko. Berria - Euskal Herria

Gertakari guztiz ere **katramilatsuz** josiak. Juan Garzia

Ahoz erdietsi informazioa askiesten ez zuelarik, bertzalde, beldurrik batere ez zien bide **katramilatsuagoei**. Aingeru Epaltza

Etapa nahasietatik eta amaiera **katramilatsuetatik** errentak ateratzen. Berria - Kirola

Pintzelik finenetako batez, kaligrafiarik loretsuen eta **katramilatsuenez** idatzi zuen dekretua. Felipe Juaristi

Metaforarik **katramilatsuenak**. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **loretsuen eta katramilatsuenez** (3)

---

**katramilatu**, katramila, katramilatzen **1** da/du *ad* katigatu; nahasi.

Ohiko sastraketan **katramilatuta** geratu gara. Berria - Euskal Herria

Geroz eta **katramilatuago** ikusten zuen hari mataza. Joxemari Urteaga

Nire pentsamenduen mataza gero eta gehiago **katramilatzen** zen. Bernardo Atxaga

Aukerarik ez zitzaidan sekula faltatu emezkoen harietan **katramilaturik** ibiltzeko. Hasier Etxeberria

Zer arazotan ote zebilen **katramilatuta**? Joxemari Iturralde

Bat--batean haren bizitza **katramilatzera** agertu zen lagun gogaikarri bat, horixe nintzen ni. Anjel Lertxundi

*Fidel izan beharraz* gertaerak eta pertsonen arteko harremanak **katramilatzen** eta korapilatzen doazen komedia -edo melodrama baten parodia- bat da. Antton Olano

**Katramilatu** egin nintzen, lotsagarri, beharrik ez zegoen lekuan. Hasier Etxeberria

**Katramilaturik** egoten dira batzuetan kolageno-zuntzak, baina eredu erregular bat osatzen dute gehienetan. Irene Aldasoro

Kate horiek elkarren artean lotu gabe daude, espageti egosi batzuen modura, **katramilatuta** baina loturarik gabe. Berria - Gaiak

**2** (maitasunezko edo haragizko harremanean)

Emakumeren batekin **katramilatuta** baldin bahabil, [...]. Hasier Etxeberria

**3** (era burutua izen gisa)

Esaldi iraingarri bat bota eta alde egin zuen, urratsak arrastaka eta ile mordoilotu eta **katramilatuan** hatz egiten. Sonia Gonzalez

Aukerarik sortu ezin, joko **katramilatua..**. Berria - Kirola

Gazirudien pertsonaiekiko enpatiarik ezak sortzen ziola arazoa, eta zio eta asmoen joko **katramilatua** ez ulertzeak. Xabier Olarra

Iruditzen zitzaidan bere hitz haiek euliak bezala zebilzkidala buruaren inguruan jiraka, gero eta **katramilatuago,** gero eta abaila handiagoan. Bernardo Atxaga

---

kattagorri ik **katagorri**.

---

kattamuxar ik **katamixar**.

---

**katu** *(orobat **gatu** g.er.)* **1** *iz* gizakien lagunartean bizi den ugaztun txiki haragijalea, atzaparduna, ilea leuna eta begiak luzaran eta distiratsuak dituena *(Felis catus)*.

Han hemenka zenbait **katu,** eguteran lotan. Jose Angel Irigaray

Txakurra eta **katua** bezala. Anjel Lertxundi

Tigre-itxurako **katu** bat zegoen Privet Driveko kantoian. Iñaki Mendiguren

**Katua** etxekotzeko, gauza bertsua egiten da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sukaldeko burdina eskuan hartu, eta kolpe batez akabatu zuen **katua**. Joan Mari Irigoien

Eduki ezazu **katu** hori urruti! Iñaki Mendiguren

-Harrapatu **katu** hori eta akabatu -esan zion patilla zuriko ergel hark praktikanteari. Josu Zabaleta

**Katua** txoriaren gainera oldartu zen. Patxi Zubizarreta

**Katuaren** dotorezia eta duintasunarekin mugitzen dira espazioan. Berria - Kultura

**Katua** miauka eta miauka eme eske, edo goseak besterik ez agian. Koro Navarro

**Katu** guztiek harrapatzen dituzte arratoiak, Ron! **Katu** guztiak ito zituen etxeko arratoi zakurrak. Iñaki Mendiguren

Ba omen dira **katuen** tamainako arratoiak. Harkaitz Cano

**2** (izenondoekin)

Hauts-koloreko **katu** argaltxo bat. Iñaki Mendiguren

O Jainkoa, **katu** malapartatu bat bezalakoxea zara. Koro Navarro

**Katu** zaurituaren moduan egin zuen aiots baten batek. Joseba Sarrionandia

Txori kaiolatuak eta **katu** fereka zaleak dituzte gogoko zaharrek. Imanol Zurutuza

Samuelek **katu** amorratu batek bezala egin zuen salto bizikletatik gizonaren gainera. Anjel Lertxundi

Isiltasuna besterik ez zen entzuten, eta **katu** gautarrek ere isiltasuna gordetzeko agindua jaso zutela otu zitzaion. Joxemari Urteaga

**Katu** siamesek beren saskietan eroso etzanda zurrunga eztia egiten zuten. Matías Múgica

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru urte zituela, hiru gaixotasun larrik jo zuten batera: meninigitis edo meningoentzefalitisa [...], polioa eta **katu** -harramazka batek eragindako sukarra. Xabier Olarra

**Katu** -haragiak ez du parekorik ibai-karramarroak harrapatzeko. Itziar Otegi

Arratoi eta **katu** larru lehortuak. Joseba Sarrionandia

Bere **katu** -ahots tristearekin. Fernando Rey

**Katu** -barretxo bat egiten du. Edorta Jimenez

**Katu** begirada ahaltsua. Fernando Morillo

Bev Shaw-k **katu** -usaina darion sofa batean etzanarazten du. Oskar Arana

Inskripzio puntazorrotz eta arraro haien gainean, **katu** -ile gorrixka luze batzuk zeuden. Iñaki Mendiguren

Hermionek otsailaren hasieran utzi zuen eritegia **katu** -biboterik, isatsik eta ilerik gabe. Iñaki Mendiguren

**Katu** -sendagilea duk, eta goizero-goizero Skettyra joaten duk atso bati janzten laguntzera. Koro Navarro

Gure karrakako gizon **katu** -jaleari. Edorta Jimenez

**Katu** -janaren bolatxoak din-din erori dira sukaldeko lauzetan. Javi Cillero

Trebetasun txundigarria **katu** -irudiak marrazteko. Xabier Olarra

**4** su armetako kako modukoa, tiro egiteko sakatzen dena.

Pistola deskargatu bitartean, **katuari** eragin dio nahi gabe. Rafa Egiguren

Errebolberra destatu eta **katua** sakatu zuen, azkenik. Harkaitz Cano

Gorriak pistolaren **katua** sakatu eta **katuak** klik egin zuen. Koldo Biguri

Pistolaren **katuan** behatza, mehatxuka ari zaizkizue oraindik. Rafa Egiguren

**Katu** bakarreko modeloa da, **katu** bakarra, tiro bakarra. Sonia Gonzalez

**Katu** batek ez du bada, bakarrik disparatzen, alajaina! Harkaitz Cano

-Erabil ezak palanka txikia -esan nion pistolaren **katua** jaso bitartean-, baina saihets batetik; bala baten bidean jarri gabe badaezpada ere. Rafa Egiguren

Ez zeukak segururik, eta **katua** oso sentibera zegok. Rafa Egiguren

**5** altxagailu mota kremaileraduna, pisu handiak altuera txikietara altxatzeko erabiltzen dena.

**Katuaren** kasuan, kilo batzuen indarra (eskuaren presioak palankaren muturrean egiten duena) tona bat edo gehiagoren indarra bihurtzen da automobila jasotzeko. Irene Aldasoro

**6** ***kale katu***

Eta **kale katua** izan nintzeneko garai hura ere ez dut ahaztekoa, ez horixe. Jose Angel Irigaray

**7** ***katu-ama*** ik **katama**.

Gehiegi hurbildu baitzen [txakurtxoa] katutxo jaio berrien ume-aldrara, **katu-amak,** muzindu, puzka hasi, eta behatzetatik burugaineraino latz-harrotu zituen ileak. Juan Garzia

**8** ***katu hidrauliko*** altxagailu mota, isurkari baten presioak eragindako enbolo baten bidez pisuak jasotzeko erabiltzen dena.

Lurrikaren ondorioz hormako erdiko blokean zegoen pitzadura handitu egin da; **katu** hidraulikoa jarri dute, eta altzairuzko xaflak, urtegia hustu bitartean pitzadura handitu ez dadin. Berria - Euskal Herria

**9** *katu-katuka* ik **katuka**.

**10** ***katu zulo*** ateetan, katua pasa ahal izateko, egiten den zulo biribila.

Eta berak **katu** -zuloa ipini zuen logelako atean, handik janari-kopuru txikiak barrura pasatu ahal izateko egunean hiru aldiz. Iñaki Mendiguren

**Katu** -zuloan hotsa entzun zuen eta izeba Petuniaren eskua agertu zen, katilukada bat zopa (potekoa) gelara sartzen. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**katu amorratu** (3); **katu bat hil** (3); **katu baten antzera** (4); **katu beltz** (18); **katu beltz bat** (9); **katu beltza** (3); **katu handi** (7); **katu handi bat** (3); **katu hil** (4); **katu hil bat** (3); **katu hila** (3); **katu zuri** (4); **lau katu** (7); **zakur eta katu** (3)

**katua baino** (4); **katua besoetan** (3); **katua bezala** (9); **katua ere** (4); **katua esan** (20); **katua esan nahi** (20); **katua eta** (14); **katua eta zakurra** (3); **katua ez** (8); **katua ez zen** (5); **katua ikusi** (3); **katua izan** (4); **katua oso** (3); **katua sakatu** (9); **katua sakatu eta** (4); **katua sakatu zuen** (3); **lis katua** (3); **nire katua** (4); **pistolaren katua** (3); **txakurra eta katua** (8); **zakurra eta katua** (7)

**katuak baino** (3); **katuak eta arratoiak** (3); **katuak eta zakurrak** (5); **txakurrak eta katuak** (3); **zakurrak eta katuak** (4)

**katuaren begiak** (3); **katuaren kaiola** (3); **katuaren paradoxa** (26)

**katuari eraso** (3); **pistolaren katuari** (3)

---

# katuarrain *(orobat **katu-arrain**)* *iz* *Lamnidae* familiako itsas arrain hezurdun mutur-luzea, eten gabe higitzen dena *(Scyliorhinus canicula* edo *Scyllum catulus)*

Arrain askok gauez egiten du harrapaketa, eta ez du usaimenarena beste gidaritzarik harrapakinetara jotzeko; beste batzuek -horien artean, **katuarrainak-,** usaimenez egiten dute harrapaketa guztia egunez ere. Irene Aldasoro

Kitok aitortu zuen txalupa barrura egiten zutela salto perkek eta **katu-arrainek** . Anton Garikano

Gero pastel mordoa jaten dute, okelaz edo **katuarrainez** beteak, ikuste hutsarekin tripa-zorria esnatzen duten horietakoak. Jose Morales

**Katuarraina** paderako koipetan zirtaka, Anton Garikano

---

# katuil *iz*

Otsailla, **katuilla** dio errefrau zahar batek. Pello Zabala

---

# katuka **1** *adlag* katamarrean, lau hankan.

Emakume busti likatsuak **katuka** joan ziren lehorrera. Anton Garikano

Zaborrez beteriko espaloien gainean umeak **katuka** zebiltzan. Lopez de Arana

Zeinen indartsua zen neska txikia, zer bizkorra, dagoeneko **katuka** hasia. Anton Garikano

**Katuka** herrestatzen nintzen espaloiraino. Patxi Zubizarreta

Eskaileretan gora **katuka** zihoala egiten zuen hotsa. Anton Garikano

Astiro eta nekez, **katuka** jaitsi ziren itzaletan, itsuka, estropezuka, haitz, sasi eta adar idorren artetik arrastaka, behera eta behera segitzerik izan ez zuten arte. Agustin Otsoa

**2** ***katu-katuka***

Mahaia irauli, **katu** -katuka salto egin, eta atetik irteten baita eskutitzak eskuan. Javi Cillero

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**katuka hasia** (6); **katuka hasia zegoan** (3)

---

# katuki *iz* katu okela.

**Katukia** jan izanarena bete-betean sinetsi nuen. Edorta Jimenez

**Katukiaren** zalea, Joanes, itzuli egin duk, baina katua ez zagok ontzian. Edorta Jimenez

Garai hartan, ohikoa zen **katutxo** jaioberriak hiltzea. Juan Kruz Igerabide

---

# katutxo *(orobat* **katutxu** *g.er.)* **1** *iz* katakumea.

Etxeko katemeak izandako **katutxoak** hil zitzala agindu zioten. **Katutxoek** miauka egiten zuten zaku barrutik, irteten saiatuz. Juan Kruz Igerabide

Bezperan gertatu izan balitz bezala oroitzen nuen nola zebiltzan putzuan **katutxo** jaioberri batzuk igerian, larri, harrizko horman gora igotzen saiatuz. Juan Kruz Igerabide

**2** *adkor* katua.

Laster **katutxo** talde polita izango diagu, saguen etsigarri. Edorta Jimenez

• **3** (deiki gisa)

Lana gaur egin beharko geniken, **katutxo**. Urtzi Urrutikoetxea

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**katutxo jaioberriak** (3)

---

katutxu ik **katutxo**.

---

# katutzar *iz adkor* katu handia.

**-Katutzar** beltz batekin? Javi Cillero

Ezin konta ahala sagu ikusten nuen etxean barrena ihesi eta haien atzetik **katutzar** batzuk. Pello Lizarralde

---

# katuzale *izond* katuen zale dena.

Ronen arabera, oso **katuzalea** zen hura. Iñaki Mendiguren

Aita oso **katuzale** genuen. Gotzon Garate

---

katxalote ik **kaxalote**.

---

# katxarro **1** *iz* trastea.

Sekula etxuat eskuetan euki holako **katxarro** bat -Xankapok-, lagaidak pixkatian. Iñaki Iñurrieta

-Uau! hori dun **katxarroa,** hori! zenbat kendu dinate txatar pilo horrengatik? Patxi Iturritegi

Eta **katxarroa** praketan sartu zuen atzera. Alberto Barandiaren

**2** *pl* ontziak.

Harraskan pilatutako **katxarroak** ere hor daude, ea baten bat noiz animatzen den... Iñaki Iñurrieta

• **3** (beste izen baten eskuinean)

Ba sekulako mutil **katxarroa** da... eta bere laguna? Sonia Gonzalez

Neska **katxarroa,** aizue. Joxean Sagaztizabal

Ezin esan emakume **katxarro** horietakoa zenik, baina bai polita oso: ikaskide guztiak maiteminduta gintuen. Joxerra Garzia

Egun batean egundoko andra **katxarroa** harrapatu nian, ni flipatuta, zelako suertea, badakik zer esan nahi diadan, ezta? Sonia Gonzalez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**mutil katxarroa** (4); **neska katxarroa** (3)

---

# katxeatu, katxea, katxeatzen du *ad* miatu, haztatu.

Chicagoko aireportukoa aukeratuko nuke: amona buruzuri bat, ibiltzen ere ozta-ozta moldatzen zena, geratu eta **katxeatu** dute, mundu guztiaren begi-bistan, zakar eta nabarmen, nabarmen zakar. Etorri zuan txakurra, banan banan hartu, eta lehenengo bat, jarri paretaren kontra, besoak jaso, **katxeatzerakoan** bezala, beisboleko bate bat hartu eta kristoren ostiakoak eman zizkioan ipurdi masailean, preso guztien aurrean, eta gero besteari berdin. Joxerra Garzia

---

katxemira ik **kaxmir**.

---

# katxi *iz adkor* plastikozko edontzia litro bateko edukierakoa.

Bi **katxi** kalimotxo, bat melokotoi likorrarekin! Pako Aristi

Garagardotegian sartu ginen, eta, patata minek mingaina suminduta eta bion artean hartu genuen garagardo **katxiarekin**, musu-gorriturik jarri zen Adela. Juan Kruz Igerabide

---

# katxoi *iz* ibai batean, koska batean behera erortzen den ur-lasterra.

Almadia **katxoien** artean desegiten bazen, tripulazioa zati-zati eginda utziko zuten koral zorrotzek. Iñaki Mendiguren

Almadia uharrietara iristeko unea bat etorriz gero itsasgora batekin, uharriak urpean murgilduta uzten zituena **katxoiak** baretzera behartuz, Kon-Tiki-k, azken batean, zeharkatu ahal izango zuen heriotzaren marra ur lasaietan, eta kalterik gabe iritsi honela. Iñaki Mendiguren

---

## katxonda *iz* mari-beroa.

Ez zara gogoratzen ze **katxondak** ziren Kubako emakumeak? Jon Arretxe

Errubia **katxonda** neuretzat. Jon Arretxe

---

## katxondeo *iz* txantxa, irria.

Nabarmena zen elkarren arteko gangar usaina eta **katxondeo** airea nirekin ari zirenean, Txominek eta Prostatasek zirikadez zipriztintzen zituztenean bestearen hitzak, zirtolari. Jon Alonso

Bart gaueko afaria ez bazen, zerezko pintxoak prestatu behar zituen galdetuko genion, apur bat disimulatzearren, baina gure **katxondeoa** urrundik ere antzematekoa zen, eta koadrilako neskak ohartu ziren zertaz ari ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## katxondo 1 *iz* martin-beroa.

Mikel hau **katxondo** bat da, esan beharrik ez dago. Jon Alonso

**2 *katxondo ipini*** larrua jotzeko gogoz jarri.

Artaldeko edozein ardik **katxondoago** ipintzen ninduen foka horrek baino, eta hala ere... Jon Arretxe

Errubia **katxonda** neuretzat. Jon Arretxe

---

## katzaka 1 *iz* katazka.

Atso eta Tupinak beren gisako dantza edo **katzaka** egiten dute, baina azkenik, dantzari guziak agertu direnean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azkenean SAGAk proposamen horren betetzea deliberatu du, pentsatuz **katzaka** segitzeak luzara kalte ekarriko ziola. Herria

**2 *katzakan*** borrokan, lehian.

Eta gu, ber denboran, helburu berekin gogoan hemen ari baigira **katzakan,** eztabadan, nola elgarrekin indar egin ezin jakin. Herria

Haren anaia, apez eskolan ibiltzen zena, denbora guzian **katzakan** ari zen administrazio alemanarekin, Joanes librarazi beharrez. Eneko Bidegain

Soldaduak epe batez aritu ziren **katzakan,** ate haiek konpondu beharrez. Eneko Bidegain

---

## kaudillo *(orobat **caudillo**)* 1 *iz* armadaburua.

**Kaudillo** horrek bultzatutako konstituzioak venezuelarren %70eko babesa jaso zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Egun horretan bertan, *El Pais*ek Chaves **caudillotzat** hartzen zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Joanden igandean, azaroaren 20ean, hogeita hamar urte zendua dela Francisco Franco Bahamonte, **Caudillo** izana Espainian gerla zibila hasiz gero eta 1975 arte. Herria

Etsaien burua, Francisco Franco **caudilloa** , ohean hil zela 1975ean, Euskal Herria eta euskara ahal izan zuen bezain zapalduta utzirik eta ondorengotzaren inguruko kontuak ahal izan zuen bezain estu loturik. Juan Luis Zabala

**2** *(Franco diktadoreari buruz)*

Espainia handiaren sortzailea, euskaldunen amets zoroak betirako zapuztu nahi izan zituen **Kaudilloa,** Generalisimoa. Koldo Izagirre

Gasteizko apezpikuarena zen, eta bertan esaten zion, bere zorionekin, bere erreguei esker indultoa sinatu zuela **Kaudilloak** . Jokin Urain

**Caudilloaren** enparantza zioen txapazko errotulu batek. Jon Maia

---

## kaudimen 1 *iz* zor baten bermea; bermea.

Estatu Batuetako ekonomiaren pisua kontuan izanik, kapitalen merkatuen halako odoluste batek, nahitaez ekarri behar zuen epe luzera interes-tasak izugarri handitzea eta **kaudimen** txikieneko zordunak baztertzea. Koro Navarro

Asegarcek zorra ordaintzeko **kaudimenik** ez duela aitortu du. Berria - Kirola

Mailegua dibisetan itzultzeko ahalmena, mailegu-hartzaileak berez duen **kaudimenaz** gainera, banku zentralak eskura dituen truke-erreserben mende egoten delako. Koro Navarro

Harryk bere lehenbiziko artista aurkitu zuen, lehenbizikoa eta bakarra, eta hurrengo zortzi urteetan galeriak aski **kaudimen** izan zuen Smith-en lanei esker. Oskar Arana

Fitch Ratings agentziak Gipuzkoaren **kaudimena** eta kreditu gaitasuna aztertu eta AAA mailara igo du herrialdeko kalifikazioa. Berria - Ekonomia

Hala eta guztiz ere, etxeak eutsi egiten zion bere izen onari eta **kaudimenari** . Patxi Zubizarreta

Ni neu sinistuta nago hildakoak **kaudimen** direla besteentzat. Josu Zabaleta

Osabak **kaudimena** ordaindu nahi izan zion, giltzapetik jaregiteko. Gotzon Garate

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kapital pribatuak, garapen-bideko eskualdeen hazkunde-indarrak aldizka erakarriak, masiboki inbertitzen dira garapen-bideko herrialdeen **kaudimen** -baldintzak suspertzen diren edo ziurtatuak diruditenean. Koro Navarro

1988an, akordio batera iritsi ziren nazioarteko bankuei **kaudimen-** arau komunak eta nahitaezkoak ipintzeko. Koro Navarro

Kutxaren **kaudimen** gabezietarako fondoek 156,9 milioi euro izan zituzten guztira. Berria - Ekonomia

Bestalde, kutxak eraginkortasun eta **kaudimen** tasak hobetzen jarraitu zuen. Berria - Ekonomia

Athleticek Futboleko Liga Profesionalaren (LFP) aurrean salatu zuen Osasunaren **kaudimen** eza. Berria - Kirola

---

## kaudimendu *izond* kaudimena.

Eta, hain zuzen ere, sustatzaileak merkatu **kaudimenduei** jarraiki aritzen direnez gero, orduan babes ofizialeko etxebizitza beti geratzen da bigarren mailako Berria - Euskal Herria

---

## kaudimendun *izond* kaudemena duena.

Egunkarian hala jarri nuen letra handi eta garbietan: "gizon **kaudimendunak** bakarrik". Jasone Osoro

## kaudimengabe *izond* kaudimenik ez duena.

Babesleku haiek ugaldu egin ziren Grezian: tenpluak, dio Tazitok, zordun **kaudimengabez** eta esklabo gaiztoz beteta zeuden. Iñaki Iñurrieta

Norbaitek 1.200 dolar ostu zituela jakin zen eta Italiako Gobernuak **kaudimengabetzat** jo zuen Berria - Mundua

## kauen *interj*

**Kauen:** hola kontestu banio! Patziku Perurena

**Kauen!"** Mikel kukumiku ezarri zen eta hasi zen dena altxatzen. Ramuntxo Etxeberri

· **Kauen** Pekin! Andoni Egaña

## kauenlaletxe *interj*

Besterik ez nuen behar, **kauenlaletxe** ! Xabier Mendiguren Elizegi

## kauenzotz *(orobat **kauen zotz**) interj*

'Esaten duzun horrek mina ematen dit, ume, **kauenzotz!'** eta Imanolen boza lodia eta ernegatua da orain. Joseba Sarrionandia

Eta besteak: Eta bai behean duela baranda, **kauen** zotz! Joan Mari Irigoien

## kaukasiar *(orobat **kaukaziar** g.er.)* **1** *izlag* Kaukasoko, Kaukasori dagokiona.

Errusoek hor egina dute **kaukasiar** errepublika, Txetxeniari berebergoa kenduz eta beste batzuekin josiz ez baitzen hori batere heien gogoa ez gutizia. Tatariar guztiak ez dira arraza berekoak, batzuk arraza **kaukasiarrekoak** dira eta besteak arraza mongoliarrekoak. Herria

Gorputz **kaukasiarra** eta arima mongoliarra duen pertsona. Xabier Olarra

Mendebaldeko hizkuntza **kaukasiarretan** . Lourdes Oñederra

Bertolt Brechten ***Kaukasiar*** *klerazko borobila.* Berria - Kultura

• **2** *iz* Kaukasoko herritarra.

Georgiak, era berean, salatzen du Hego Osetiako indarren artean Abkhaziako lurralde independentistatik joandako boluntario ugari daudela, kosako eta ipar **kaukasiarrez** gain. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaukasiar klerazko borobila** (3); **kaukasiar kreazko borobila** (22)

## kaukasoar *izlag* kaukasiarra.

**Kaukasoar** *klerazko biribila* euskaraz taularatuko dute ikastaroan dauden 20 antzerkilari eta musikarik. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaukasoar klerazko biribila** (4)

kaukaziar ik **kaukasiar**.

## kausa **1** *iz* zergatikoa, zioa.

Ez zekien zein zen nire atsekabearen **kausa** . Jon Muñoz

Egiten ari naizen eginahalen benetako **kausa** nahi duzu jakin? Jon Muñoz

Kolapsoaren hurbileko **kausak** . *ik beherago* 10. Iñaki Mendiguren

Merteuil andrea ezin izan daitekeela ez liskar horren **kausa,** ezta eragilea ere. Jon Muñoz

Beldur naiz eritasun krudel horrek **kausa** are krudelago bat ez ote duen. Jon Muñoz

Ahanzten zaizu ezen baldin amodio hori hobena baledi, zu zinatekeela aldi berean hoben horren **kausa** eta estakurua. Jon Muñoz

Barbaroz betetako Kristandade Ortodoxoan **kausa** berak ondorio bera eragin zuen eskala txikiagoan. Iñaki Mendiguren

Depresioen **kausa** eskari eskasia da, besteak beste. Iñaki Heras

Onkogeneen gehiegia edo antionkogeneen gutxiegia da minbizien **kausa** . Juan Garzia

Garbi ageri zen zerbitzutik libratu izanaren **kausa** ere: gerran herrendua. Anjel Lertxundi

Heriotzen **kausa** hipotermia izan zen kasu gehienetan. Berria - Gaiak

Emakumeen kontrako indarkeriaren **kausa** nagusia. Berria - Gaiak

Gaixotasunaren **kausa** zuzena. Berria - Gaiak

Efektuak ez, **kausak** borrokatu behar ei dira. Joxe Azurmendi

**2** (filosofian) zerbaitek bere izatea zor dion hastapena; ondorio bat eragiten duen gertaera edo ekintza; gertaera edo ekintza bati buruz, hura eragiten duen gertaera edo ekintza.

Gertatzen den guztiak bere **kausa** du. Berria - Euskal Herria

Filosofoak [...] badaki gauzak **Kausa** batek sortu dituela. Askoren artean

Aldaketa guztiak **kausa** eta efektuaren elkarketaren legearen arabera gertatzen dira. Ibon Uribarri

Azken hau, nolabait esateko, efektu jakin baten **kausaren** bilaketa denez, eta horrenbestez, hipotesi baten antzeko zerbait duenez bere baitan [...]. Ibon Uribarri

Gauza guztiek izan behar dute izateko edo ez izateko **kausa** edo arrazoia. Piarres Xarriton

Jadanik Fisikan azaldu denez, beharrezkoa da lau **kausa** mota horientzat beste **kausa** bat bilatzea, halako moldez non, sortzen den **kausa** bakoitzari, hasteko, bere berehalako lau kausak bilatu behar zaizkio, eta, ondoren, horietarako beste **kausa** batzuk bilatuko dira, eta bigarren mailako **kausa** horietarako oraindik beste **kausa** batzuk bilatuko dira, harik eta "lehen kausetaraino" heldu arte. *ik beherago*11. Xabier Kintana

Erran nahi baita, **kausa** berek dudarik gabe ondorio berak beharko lituzketela nahitaez sortu. Jon Muñoz

Jainkoa da, beraz, gauza guztien esentziaren **kausa** ere. Piarres Xarriton

Maitasuna, kanpoko **kausa** baten ideiak lagun daraman Poztasuna da. Piarres Xarriton

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Diren gauzen kausak lau direla: **kausa** materiala (kobrea), formala (zizelkariaren espirituan den irudia), efizientea (zizelkaria bera) eta finala (zertarako den egin tailua). Askoren artean

Zoria kausa bat da, bere aburuz, zioak kontuan hartzen ez dituen **kausa** berezia. Askoren artean

Zoria kausaren gabetasuna ez dela ikus dezakegu, horren transzendentzia baizik: zoria **kausa** transzendentala da. Askoren artean

Hegalak hegaldiaren **kausa** eragileak direla. Xabier Kintana

Sortzen dituen ondorio guztien eta bakoitzaren **kausa** egokia. Piarres Xarriton

Jainkoa gauza guztien **kausa** inmanente gisa agertzen dela. Piarres Xarriton

Jainkoa da, beraz, gauza guztien berebaitako **kausa,** baina ez **kausa** iragankorra. Herria

Eboluzioaren **kausa** nagusia hautespen naturala da; baina ez da bakarra. Askoren artean

Ez da hemen ahantzi behar doktrina horren aldekoek, beren talentua erakutsi nahi izan dutenek gauzen xedezko **kausak** bilatuz. ideia haiek adimen gorenean bakarrak, aldaezinak, osoki determinatuak eta gauzen jatorrizko **kausak** direla. Piarres Xarriton

Liburu edo izkribu batean aurki daitezkeen kontraesaneko edo aurkaritzako **kausak** zazpi dira: [...]. Xabier Kintana

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agerpenen segidan **kausa**-hartuemanaren oinarri-esakuneak esperientziaren objektu guztien aurretik balio du. Ibon Uribarri

Adimenak berezko premiak ditu **kausa-,** espazio- eta denbora-kontzeptuak, gorputz batek hiru dimentsioak dituen bezalaxe. Josu Zabaleta

· **Kausa**-efektu erlazioaren oinarria ez dela razionala argibidearekin. Askoren artean

**Kausa**-ondorio harreman zuzena dagoelako besteren ekintzaren eta norberaren pentsamenduaren artean. Jon Alonso

Bazegoen lotura bat, **kausa**-efektuzkoa, paseoetan behatutakoaren eta grabatze saioen emaitzen artean. Iñaki Iñurrieta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Poztasun **kausa** izanen da ustekabez. Piarres Xarriton

Lehen atal batean heriotza **kausa** nagusiak aztertu dituzte. Berria - Gaiak

Pobrezia da esklabotza **kausa** nagusia. Berria - Gaiak

Gaitz arraroa zela pentsatu zuten hasieran, baina oso dementzia **kausa** ohikoa da. Berria - Harian

Edozein gauza izan daiteke, zeharbidez, itxaropen edo beldur **kausa**. Piarres Xarriton

Badela gorputzik eragina duenik gizakiaren baitan kanpo-**kausa** baten ondorio bihurtuz eta bestelako instantzia batetik adigarri bilakatuz. Piarres Xarriton

**6** defendatzen den ideal multzoa.

Nire **kausa** justua da. Koldo Izagirre

Homosexualen **kausaren** alde. Harkaitz Cano

Kirol klaseren batean dena ematen duena, edo amodioan (harreman edo kendu-eman batean) dena ematen duena, ideia edo **kausa** baten alde dena ematen duena... helburu sakonak, hau da, bizitzeko eta bizitzako helburuak saltzen dituztenek sakontzat dituztenak: proiektu bat, **kausa** bat, ideal bat, pertsona bat, haur bat [...]. Iñaki Segurola

Zerbaitegatik hil nahi izate hori, bizian ez ezik heriotzan ere **kausa** baten hegalpea bilatu nahia, [...]. Iñaki Segurola

Irungo setioaren porrotarekin eta erretiraturik Don Karlos, apaiz nafarrak eta euskaldunak dudatan hasi ziren, beren **kausa** garaile aterako ote zen. Koro Navarro

Herrialde edo **kausa** baten alde hiltzea. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko Asian, Mendebaldeko **kausa** ezbehar larria pairatzen ari zen une batean. Iñaki Mendiguren

**Palestinarren** kausa munduaren agendan jartzea lortu du. Berria - Mundua

Ez dugu uste halako ekintzek gure **kausa** nazionalari on egiten diotenik. Berria - Mundua

Bizitza **kausa** bati emateko duten adorea. Markos Zapiain

**Kausa** galduek galtzen nautela. Anjel Lertxundi

**7** *-en* ***kausaz***

Bigarren Mundu Gerraren ondoren egin ziren lur-partiketen **kausaz**.

Dena joan zen pikutara, ordea, Espainiako Barne Ministroak egindako adierazpen batzuen **kausaz**. Hasier Etxeberria

Han kamioi-ilara izugarri bat zegoen bidearen ezker-eskuin, grebaren baten **kausaz**. Biziki samurtua naiz, polit hori, bai zu ikusteko plazerraz gabetu nauzulako, bai eta gabetze horren **kausaz** ere. Anjel Lertxundi

Negozio horren **kausaz** edo ondorioz gizadiak osasuna galtzea, bizimodua endekatzea, bizitza moztea. Edorta Agirre

**8** ***dela kausa***

Kasta sistema **dela kausa,** Indiako gizartean barne-barnean sartua dago arrazakeria. Gotzon Garate

Dotea **dela kausa,** orduoro emakume bat hiltzen da Gujaraten. Gotzon Garate

Ezin da maitemindua egon bi pertsonarekin batera, Jainko maitea, zenbat jende hiltzen da egunero dogma ergel hori **dela kausa**? Karlos Zabala

Bake hura **dela kausa,** Alemaniaren parte on bat galdu da eta, Frantziaren beste parte handi bat ahultzen ari da. Piarres Xarriton

Adituak adi daude, birusen ustekabeko mutazioen ondorioz gripearen pandemia gertatzeko arriskua **dela kausa**. Berria - Euskal Herria

-Eta hori... -Joanttori neke zitzaion mintzatzea-, hori guzia zer **dela kausa**? Elena Touyarou

**9** ***direla kausa***

Gurasoen aurreiritziak, eta batez ere beldurrak **direla kausa,** heziketa bide horretan modu okerrean eragiteko arriskua badago. Berria - Harian

Eta erresuma hau santifikatua geldituko da, nik maitatua, bere Fedearen araztasuna eta bere errukiaren bikaintasuna **direla kausa**. Jon Alonso

Uruguai-en bazterrak nahasiak dira eta kexu diruaren gora beherak **direla kausa**. Herria

**10** ***kausa hurbil***

Beraz, Izpirituaren izaeratik datorren oro, Izpiritua izanik hura aditzeko **kausa hurbila,** ideia egoki edo ezegoki batetik etorri behar da. Piarres Xarriton

Nahi nuke, bai segur, batasun hori argitzen baliezagu bere **kausa hurbilaren** arabera. Piarres Xarriton

**Kausa hurbilak** eta azkenak: Mayrrek bi biologia-mota daudela esaten du: funtzionala eta ebolutiboa. · Kausa bati lotuko dio efektua, **kausa** ontogenetiko **hurbilari**. Askoren artean

· Hortik dator lehenbizikorik, Jainkoa dela absolutuki Berak zuzenean ekoizten dituen gauzen **kausa hurbilekoa**. Piarres Xarriton

**11** ***kausa lehen***

Ildo beretik, Metafisikaren barruan Teologia (jainkoaz arduratzen den teoria), filosofia lehena **(kausa lehenez** arduratzen den teoria) edo Ontologia (izateaz edota den guztiaz arduratzen den teoria) aurki ditzakegu. Jainkoa dela absolutuki **kausa lehena**. Askoren artean

Eta xedezko kausa deitzen dena ez da giza guraria baizik, gauza baten printzipioa edo **kausa lehena** bezala hartzen den aldetik. Piarres Xarriton

*Primum vivere, deinde filosofari,* "Jana lehen, filosofia gero" izan zen, beraz, gure ustez, sorterria utzirik Ameriketara buruz gazte ausartenak osteka eraman zituen mugimendu itsuaren **kausa lehena**. Piarres Xarriton

**12** ***lehen kausa***

**Lehen kausa** hauxe da Estagiritaren arabera, Zientziaren beharrezko baldintza, berau ezinezkoa litzatekeelako kausak infinituraino luzatuko balira, gauza mugagabeek Zientziari ihes egiten diotelako. Xabier Kintana

Horregatik han bizitzea, xedezko kausa bezala hartzen denez, ez da gurari jakin hori baizik, eta hau, egia erran, kausa erazlea baita, **lehen kausatzat** hartzen da, gizakiek komunzki ez dakizkitelako beren gurarien kausak. Piarres Xarriton

Unibertsoak, geroztik, ez du hasierarik denboran, ez mugarik espazioan; kausa eta efektuen katearen mende dago dena; orain ez dago **lehen kausarik; lehen kausaren** ideia, Schopenhauerrek esan bezala, burdinaz egindako zur puska bat da. Josu Zabaleta

## 13 *zela kausa*

Ez nuen amarekin zalapartarik nahi, eta are gutiago haren ahizpa bihotzekoa **zela kausa**. Grina hori, berez hain zorigaiztokoa dena, are zorigaiztokoago zela oraino haren xedea zela **kausa**. Aingeru Epaltza

Uda hartan, ezkontza hura **zela kausa,** gure aitak eta Ginok maiz idatzi zioten elkarri. Fernando Rey

Jaunak, ordea, gaitz handiak bidali zizkion Faraoiari eta haren etxekoei, Abranen emazte Sarai **zela kausa**. Jose Antonio Mujika

## 14 *zirela kausa*

Ararat [mendia] sumindua zegoen gizonen krudelkeria eta gaiztakeria **zirela kausa** eta arroka-uholde bat jaurtiki zuen herrixketara. Fernando Rey

Aurreko herrietako arrazoi berberak **zirela kausa,** ez zalgurdirik, ezta zaldirik ere. Karlos Zabala

Hala izanik ere, haien artean kalapitarik ez zen erlijio aferak **zirela kausa**. Aingeru Epaltza

## 15 *kausazko* ik kausal 3.

Adimenaren zeregina zientzian ez da ideien ordena eternoa jainkoaren gogamenean islatzea, munduko gauzen artean **kausazko** ordena islatzea baizik. Askoren artean

Gorputzen **kausazko** elkarrekintza eraentzen duen legeria orokorra. Piarres Xarriton

Bigarrena, modalitatearen oinarri-esakuneei dagokie, eta **kausazko** determinazioari gainera adimenaren erregela baten menpean dagoen beharrezkotasunaren adigaia gehitzen dio. Ibon Uribarri

**kausazko** elkarloturaren legearen arabera. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**afektu horren kausa** (4); **agerpenen kausa** (4); **benetako kausa** (5); **bere baitako kausa** (5); **berebaitako kausa** (4); **dela kausa** (59); **direla kausa** (25); **egiazko kausa** (4); **errepresentazioen kausa** (5); **esentziaren kausa** (4); **existentziaren kausa** (11); **existitzeko kausa** (6); **gauza guztien kausa** (12); **gure kausa** (5); **guztiaren kausa** (4); **heriotza kausa** (15); **heriotza kausa nagusia** (9); **heriotzaren kausa** (4); **hori dela kausa** (12); **hori zela kausa** (4); **hura zela kausa** (7); **izadiaren kausa** (6); **izanaren kausa** (5); **izatearen kausa** (6); **kanpoko kausa** (26) kausa arazle (4); **kausa arazlea** (4); **kausa bakarra** (14); **kausa bat du** (5); **kausa bat duela** (4); **kausa bat izan** (8); **kausa bera** (4); **kausa berak** (6); **kausa beraren** (4); **kausa efektu** (6); **kausa egokia** (11); **kausa eraztea** (7); **kausa eta efektua** (8); **kausa eta efektuaren** (6); **kausa finala** (6); **kausa galduen** (4); **kausa gisa** (17); **kausa goren** (8); **kausa izan** (17); **kausa izanen** (4); **kausa izanen da** (4); **kausa lehena** (4); **kausa librea** (6); **kausa nagusia** (22); **kausa nagusiak** (5); **kausa ondorio** (5); **kausa palestinarra** (4); **kausa partziala baizik** (4); **laugarren kausa** (4); **lehen kausa** (12); **munduaren kausa** (8); **ororen kausa** (5); **tristura kausa** (5); **tristuraren kausa** (8); **zela kausa** (53); **zerbaiten kausa** (6); **zirela kausa** (15)

**kausak aztertzen** (4); **xedezko kausak** (4)

**kanpoko kausaren** (10); **kanpoko kausaren ahalmena** (4); **kausaren adigaia** (11); **kausaren ahalmena** (4); **kausaren alde** (12); **kausaren aldeko** (5); **kausaren eta efektuaren** (7)

**kausatzat hartzen** (5)

**kausei buruzko kontsideroak** (4)

**kanpoko kausek** (4)

**izadiaren kausen** (6); **kanpoko kausen** (7); **kanpoko kausen ahalmenak** (4); **kausen artean** (3); **kausen bila** (3); **kausen eta efektuen** (3); **kausen eta ondorioen** (4); **kausen ordena** (3); **lehen kausen** (3)

**kanpoko kausengatik** (3)

**kanpoko kausetarik** (4); **kanpoko kausetarik datozen** (3)

---

# kausabakar *izond* kasua bakarrekoa.

Ikusmolde **kausabakarren** mugak. Koro Navarro

---

# kausagabezia *iz* kausarik eza.

Probabilismoak, indeterminazio edo ziurgabetasunak, noiznolakotasunak, irrazionaltasunak edo **kausagabeziak** ez dirudite, begiratu batera, ortodoxiaren aldarean etzateko moduko zerak, baina gauzak halaxe dira, edo ziren, fisiko txorrotxenen artean. Iñaki Segurola

---

# kausal *izond* 1 kausarena, kausari dagokiona.

Horren antzeko azterketa **kausal** bat. Xabier Arregi

[Eboluzioaren teoriak] ordena bat ezartzen du organismoen aniztasun eta desberdintasun harrigarrian; hots, mundu biziaren eta haren heterogeneotasunaren azalpen **kausala** eskaintzen digu. Juan Garzia

Etnia izatetik nazio izatera dagoen kate **kausalean,** adibidez, umiliazioarena da katebegirik sendoenetako bat. Berria - Euskal Herria

Teoria horren arabera, bada, Mikel jaiotzeak Mikel hiltzea kasuatzen du, eta ez dut uste horrelako azalpen **kausalak** inor pozik utziko lukeenik. Askoren artean

## 2 (gramatikan)

Axular eta bere garaiko idazleak konturatu ziren, kasu, esaldi **kausalak** arazo izan zitezkeela, euskarak *-lako* menderagailua esaldiaren bukaeran jartzea eskatzen zuelako. Sintaxia aztertuz, nabaria da, esate baterako menpeko perpaus **kausal** -esplikatiboen murrizketa. Bernardo Atxaga

**Kausal** salatari hark zuen, baina, oro hondatzen: "Mahomagatik". Iñigo Aranbarri

Hiru gizon bakarka (ez zen bera izango, noski!) atxilo hartuta, hirurak nonbaiten (Portugaleten, Andoainen, Donostian), eta zergati banarekin, egitura **kausal** berberarekin (-gatik, -gatik, -gatik). Iñigo Aranbarri

## 3 (filosofian) kausazkoa.

Hautematearen teoria **kausalaren** inguruan. Askoren artean

Baina egitura eta forma, esaterako, kualitate lehenek eta **kausalek** osatzen dituzte, azken horiek benetan existitzen baitira, Lockeren ustez. Askoren artean

Fisikariak gertaldi fisikoen arteko lotura **kausalak** aztertzen ditu, eta psikologoak gertaldi psikologikoen artekoak. Askoren artean

Zein da enuntziatu **kausal** singularren zentzua, bai eta azalpen **kausalen** egokitasunaren justifikazioarena? Askoren artean

Alegia, gure usteen justifikazio oro **kausal** bihurtzen da, justifikazio razionalen kaltean. Askoren artean

Jakina, hemen berriro inferentzia **kausalen** aurkako Humeren objekzioa agertzen zaigu. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**enuntziatu kausal** (3)

**erlazio kausala** (8)

**erlazio kausalak** (3)

---

# kausalitate 1 *iz* kausaren eta kausak sortzen duen ondorioaren arteko erlazioa.

Magikoa dela adieraziko zaigu, hots, **kausalitate** arrunta hausteko gauza. Bernardo Atxaga

Bere definizioaren arabera, magia **kausalitate** desberdin bat besterik ez da, eraztun edota lanpara baten ahalmenak agerian jartzen duena. Bernardo Atxaga

Nobelagintzaren arazo nagusia **kausalitatea** dela, eta naturalistek aldarrikatutako ahalegina -errealitate bakar eta zinezkoaren kopia edo notario-akta baten bila- banitate eta

zentzugabekeria hutsa zela. Bernardo Atxaga

Halabeharrik ez da, halabehar deritzoguna **kausalitatearen** makineria konplexuaz dugun ezjakintasuna da. Batetik, beraz, *le hasard* edo ustekabea, zoria, kasualitatea; bestetik, *la nécessité,* beharra, ezinbestea, **kausalitatea**. Bernardo Atxaga

Esperientziak aspaldi erakutsi zion kasualitatearen eta **kausalitatearen** artean hizkien arteko antza baino zerbait gehixeago egoten dela maiz. Fernando Morillo

Maiz, jolasa **kausalitatearen** magikotasunak dakar. Berria - Kultura

Kasualitatez edo **kausalitatez,** urte hartan, 1984an, hil zuten Santi Brouard. Joxerra Garzia

**2** (filosofian)

Helburua ez da, beraz, **kausalitatearen** teoria sortzea, kausa, efektu, erregulartasun, gertakari eta gisako kontzeptuak argitzea baizik. Askoren artean

Zeren Jainkoa [...] gauza guztiak baino lehen baita **kausalitatearengatik**. Piarres Xarriton

Teoria horrek arazo latza du kasualitatea **kausalitate** bihur dezakeelako. Askoren artean

"Beste" nagusia ordena sinbolikoa besterik ez da; ordena hau ez da **kausalitate** materialean oinarritzen, fikzio sinbolikoetan baizik. Joseba Zulaika

Denbora eta espazioa pertzepzio moduak besterik ez badira, Kantek dioen bezala, eta kualitatea, kantitatea, **kausalitatea,** pentsamenduaren kategoria hutsak baldin badira, zergatik ez zuen Hitlerrek bere naziekin solasean aritu behar Broadwayko kafetegi batean? Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan)

**Kausalitate**-erlazio horiek duten zentzua aldaketari dagokio. Askoren artean

Kantez geroztik, mundua itsua da; ezin du izan ez askatasunik ez justiziarik, espazioaren eta denboraren eremuan **kausalitate**-printzipio batez jokatzen duten indarrak baizik. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kausalitate enpiriko** (3); **kausalitate legearen** (4)
> **arrazoimenaren kausalitatea** (3)
> **kausalitatearen lege** (3); **kausalitatearen legearen** (3); **kausalitatearen oinarri** (8); **kausalitatearen oinarri esakunearen** (3)

---

## kausalki *adlag* alderdi kausalean.

Bere historia ulergarri egiteko, bere aurrekari historikoen sokan jarri behar zuela ohartu zen, eta, ikuspuntu horretatik begiratuta, konturatu zen greko-pertsiar gatazka azken pasadizo bat izan zela izaera bereko eta **kausalki** loturiko talka-segida batean. Iñaki Mendiguren

Baina elkarrekintza hori naturaren ordena komunak **kausalki** determinaturiko altzoan burutzen da. Piarres Xarriton

Eman dezagun gertaldiak direla **kausalki** erlazionatzen ditugun izakiak. Askoren artean

Urak eta lurrak potentzialki eta **kausalki** sortutako izakiak. Imanol Unzurrunzaga

---

## kausaltasun *iz* kausala denaren nolakotasuna.

**Kausaltasun** biribil baten haustura unea. Xabier Arregi

XVIII. mendeko gizon-emakumeak modu orokorrean interesatuagoak zeudela ordenan historian baino, sailkapenean bilakaeran baino, zeinuetan **kausaltasun** mekanismoetan baino. Xabier Arregi

Oso normala zen zuk defendatzea historia jarraitu baten eskubideak, irekia izango litzatekeena aldi berean teleologia baten lanari eta **kausaltasunaren** prozesu zehaztugabeari. Xabier Arregi

---

## kausante *izond* eragingarria.

*César o nada* nobelan Espainiako dekadentziaren **kausantea** da katolizismoa. Joxe Azurmendi

---

## kausatu, kausa(tu), kausatzen **1** du *ad* eragin, ekarri.

Sarri askotan pentsatzen dugu gertaldi fisiko batek gertaldi psikologikoak **kausatzen** dituela; esaterako, A-k izandako istripuak A-ren depresioa **kausatu** zuen. Askoren artean

Zer esan nahi dugu *k* gertaldiak *e* gertaldia **kausatu** duela diogunean? Askoren artean

Jainkoa infinitua da, independentea, ahalguztiduna, eta hura zer den azaltzeko haren ezaugarriak dituen izaki batek **kausatzen** duela suposatu beharko nuke. Askoren artean

Teoria horren arabera, bada, Mikel jaiotzeak Mikel hiltzea **kausatzen** du, eta ez dut uste horrelako azalpen kausalak inor pozik utziko lukeenik. Askoren artean

**2** (era burutua izenondo gisa)

Honetan da, hain zuzen, **kausatua** kausarenganik bereiz ezartzen, hari lotua baitago. Piarres Xarriton

---

## kausatxo *iz adkor* kausa.

Kausa erabatekorik ezean, nork bere **kausatxoa** aukeratzen zuen, eta haren banderapean egiten zuen borroka, gainerako bandera guztiei itsu, gainerako kausa guztiei entzungor. Joxerra Garzia

---

## kausazio *iz*

Ondorioz, eredu nomologiko deduktiboan oinarrituriko azalpenari buruzko teoriari alternatibak ugaldu zaizkio: alde batetik, alternatibak eremu epistemikoari dagozkion elementuetan soilik oinarrituz (legeak, usteak eta gisakoak); eta bestetik, alternatibetan eremu ontologikoari dagozkion osagaiak txertatuz, hala nola ezinbestekotasuna, **kausazioa** edo bateratzea. Askoren artean

---

## kausera *iz ipar* irinez, urez eta beste beste osagai batzuez egiten den bola modukoa, koipetan frijitzen dena. ik **kruspeta**.

Eta erosi irina eta olio pixka bat, **kausera** batzuk egingo ditugu. Jon Maia

Txitxikovek, atzera begiratu, eta han ikusi zituen, orduko mahai gainean prest, onddoak, opiltxoak, bizkotxoak, **kauserak,** gozopilak, bliniak eta denetariko gaiz beteriko pastelak. Jose Morales

Eguerdietan txurro saltzaileek **kauserak** egiteari ekiten zioten, urteetan herriko kaleetan paseatu zen usain hari aire emanez. Jon Maia

-Garbantzuak eta **kauserak,** hauek bai Gabonak! -padrek, gustura. Jon Maia

## **kausiarazi**, kausiaraz, kausiarazten du *ad* kausitzera behartu.

Nik funtsezko deitzen diedan izari horiei, bertze mila gehiago juntatzen zaizkie, edo leku batekoak edo aldi batekoak, gogoetak eta ohiturak behar izanez gero **kausiaraziak**. Jon Muñoz

Ez, egia erran, amodio arras garbi eta arras amoltsuz, bai ordea zuk izan dezakezun amodioaz; konparazione, atsegintasunik edo dohainik gabeko emakumea atsegingarri edo dohatu **kausiarazten** duenaz. Jon Muñoz

---

## **kausigai** *iz*

Baztertuak, Lust eta Maitaleak frantseseratuak dira eta Seuil-eko Point sailean **kausigai**. Berria - Kultura

---

## **kausipen** *iz ipar* kausitzea, arrakasta.

Erran behar da denbora ederrak ere lagundu duela egun horren **kausipenean**. Herria

---

## **kausitasun** *iz* arrakasta.

Oren bat eterdi iraunik ere pasa partidak, **kausitasun** osoa zuen Sorhuetek, lauetako hoberena baitzen eta euskaldunena ere pilotan. Herria

---

## **kausitu**, kausi, kausitzen **1** du *ad* aurkitu. ik **ediren.**

Legoa laurdena haratago, zakutoa **kausitu** du bide erdian. Aingeru Epaltza

Ez nuen Gilen haien artean **kausitu**. Aingeru Epaltza

Ondoko egunetan Otsabideko sasiak mirazkatu zituzten etxekoek, baina ez zuten Sisiren aztarnarik **kausitu**. Itxaro Borda

Josyk garbitzaile enpresa batean **kausitu** zuen hondarrean behin-behineko lana. Itxaro Borda

Dena dela, batasunaren bidean girixtinoek **kausitzen** dituzte oraino neke eta traba frango. Herria

Uste-gabeko traba handiak ere **kausituz** haatik. Herria

-Bai, right, geroztik ez diat ene lurra bezain ezti eta samurrik nehoiz eta nehon **kausitu**. Itxaro Borda

Nik badakit, egun batez, berriz elgar **kausituko** dugula. Michel Oronoz

Cratès de Mallosen, elkar ezin **kausitu** duten lau zatitan partitua den lurreko globoa. Aurelia Arkotxa

Bizkitartean, Paulok eta haren lagunek bidean **kausitu** zituzten beste hizkuntza guztien artetik badira zenbait fede berriaren janzteko ontzat hartu zituztenak, hala nola Siria, Persia, Armenia eta Egiptoko hizkuntza zaharrak. Piarres Xarriton

Medikuek prostatako minbizia **kausitu** ziotenez geroztik. Itxaro Borda

Komunione denbora biziki luzea **kausitu** nuen. Daniel Landart

Hori ene ikustekoa zela erran zidan, arrunt bitxia **kausitu** nuen aireño batekin. Janbattitt Dirassar

Halako gazi bat **kausitu** nion. Janbattitt Dirassar

• **2** da *ad* aurkitu, gertatu.

Patioan, Beñatekin **kausitu** nintzen. Itxaro Borda

Ospitalean **kausitu** zen bat-batean. Itxaro Borda

Horra non **kausitu** ginen ustekabean hondakin artean. Joxe Austin Arrieta

Zinezko hustasun latzean **kausitu** zen, kide, lagun eta adiskide faltaz jardutea suertatu zitzaionean. Itxaro Borda

Josurekin **kausitu** nintzen gau hartatik oroitzapen ilunak baizik ez gelditu arren, [...]. Aingeru Epaltza

Bien ehorzketetan **kausitu** da biziki jende, eliza bete-betea baitzen. Herria

Jendealde pollita bildu da, zeren orotarat 120 bat lagun **kausitzen** ginen. Herria

• **3** du *ad ipar* lortu.

Gure elkarteak lehen urratsa egina du kalitate erreferentzia ofizial bat **kausitzeko**: AOC, IGP edo "label rouge" bezalako erreferentzia bat lortzea, hori behar beharrezkoa da. Herria

Goresmenak deneri eta kuraia on segitu behar duten guzieri **kausitu** ez dutenak barne! **Kausitu** behar zen eta **kausitua** izan da, Haizpean trinketeko lehenbiziko berezkoen lehiaketa. Herria

Herriko Kultur elkartea zen muntatzailea eta ontsa **kausitua** izan da dena. Herria

Askok nahiagoko ginuen ez balu **kausitu,** hain zaiku amerikano txirrindulari hori furfuriatsua. Herria

Gazte hauek ez nituen aipatu **kausitu** zutenen zerrendan, ez jakinean. Herria

Zikiro jateak 660 afaltiar bildu ditu eta guzien arabera zinez **kausitua** izan da. Herria

**4** (era burutua izenondo gisa)

Elkartasunezko gaualdi **kausitua**. Herria

Ez dakit nola, manera **kausitua** zuen aho-zulora zuzen isurtzeko. Aingeru Epaltza

Igandeko kermeza, ederra eta **kausitua** izan da. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bidean kausitu** (3); **bitxia kausitu** (5); **goizean kausitu** (3); **inguruan kausitu** (3); **ohean kausitu** (3)
>
> **ezin kausitua** (4)
>
> **aise kausitzen** (3); **bidean kausitzen** (3); **bitxi kausitzen** (7); **bitxia kausitzen** (3); **eder kausitzen** (4); **egokia kausitzen** (3); **etxean kausitzen** (5); **frango kausitzen** (3); **gehiago kausitzen** (5); **herriko etxean kausitzen** (3); **onak kausitzen** (5)

---

## **kausitzaile** *iz* lortzailea.

Armada okupatzaile berez handiak are segizio handiagoa ekarri zuen berekin: eskaleak, gaiztaginak, iruzurtiak, pailardak, putazainak, bilaketariak, **kausitzaileak** eta mota guztietako harrapariak. Aingeru Epaltza

---

## **kausitze** *iz ipar* lortzea, arrakasta; azterketa gainditzea.

SITA/France-Déchets-koek diote zikinen tratamenduen **kausitze** ona dutela. Herria

Horiek hola **kausitze** ederra ezagutzen du ikastetxe giristinoetako erakaskuntzak azterketetan: kolejioetan %85eko **kausitzea** nunbeitan eta baxoan kasik. Herria

Bertzalde, eskola giristinoetako eskoletan, **kausitze** ederrak izan dira orokorki azterketa edo etsaminetan: adibidez, %100 Baigorri Biletxean, Maulen eta Uztaritzen... Herria

Merexitürik izan den **kausitze** hau, halere, hilabete eta hilabete iraün düan adelatze lan baten emaitza da. Herria

Abertzaleek, beren erakasle eta andereño ximen eragileri esker, lan gaitzari buru egiten dute, etsaminetan **kausitze** harrigarriekin... Herria

Etsaminetan **kausitze**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etsaminetan kausitze** (3); **kausitze atseginekin** (4); **kausitze atseginekin jakin** (4)

---

# kaustiko 1 *izond* erregarria.

Oraingo honetan ere, inork ez zuen hitz askorik xahutu guri azidoetatik, **kaustikoetatik,** suteetatik eta leherketetatik babesten irakasteko. Juan Garzia

## 2 irud/hed

Izan ziren beraien usain eta kolorearengatik nabarmendu ziren ale bakan batzuk ere, eta, haien artean, Euskal Herriko gatazka ardatz zuen ipuin bat, nola zen, bai, Eibar edo Elgoibarko kazetari **kaustiko** samar batena.Menéndez Pelayo-ren ahalegin eruditu erraldoiari Unamuno-ren iruzkin **kaustikoa**: [...]. Patxi Zubizarreta

## 3 *soda* (orobat *zoda) kaustiko* ik **soda 5**.

---

# kaustikoki *aldag* era kaustikoan.

Duran ikaragarri jator portatzen ari da Montillarekin, ironikoki Nadalekin, indiferentziaz jokatzen du Herrerarekin eta **kaustikoki** Carodekin; azken horrekin egin beharko du borroka kanpainak aurrera egin ahala boto nazionalista ehizatzeko. Berria - Euskal Herria

---

# kauta (neure, nire, bere-ren eskuinean)

## 1 ***kautako*** *izlag* arteko.

Ez nengoen eroso, baina ez nire bisitak Madame Beyle neka zezakeelako, emakumeak ordu arte nire **kautako** deus handirik esaten utzi ez zidalako baino. Anjel Lertxundi

Leandrok ez dit, ordea, nire **kautako** usteekin segitzeko astirik eman, Shakespeareren testu bat errezitatzen hasi baitzait. Anjel Lertxundi

Bere **kautakoetan** ari zen Cienfuegos, berbetari jaramon egin barik. Koldo Izagirre

## 2 ***kautan*** artean.

"Bai, aita, hitz egingo dut, baina institutura joango naiz, berdin-berdin zait-eta zer diozuen", esan nuen neure **kautan.** **Anjel Lertxundi**

"Entzun dezagun, bada", pentsatu dut neure **kautan,** "ea zer datorren orain". Anjel Lertxundi

"Hogeita bost ogerleko, alajainkoa!", larritu zen Lauaxeta bere **kautan,** ezer esan gabe. Juan Luis Zabala

"Elkarrekin ibiltzeak elkarrengana bildu gaitik, haurridetu", egin nuen neure **kautan**. Juan Luis Zabala

"Izpiliku-urez lurrindua", erabaki nuen neure **kautan**. Anjel Lertxundi

Mathias pentsatzen hasi zen bere **kautan:** […]. Anjel Lertxundi

To! honek badik koxkorra! esan nuen neure **kautan**. Berria - Harian

Azken komentario hau, baita hori baino lehen egindako galdera ere, bere **kautan** egiten ditu, hitz gutxiko gizona delako. Jon Alonso

Barre egiten dut neure **kautan,** soinekoa probatu dudala esango banio, aitak izango lukeen erreakzioa imajinatuz. Anjel Lertxundi

"Hauek nik dakidan batendako ari dira lanean", neure **kautan**. Koldo Izagirre

· Nire **kauta** zurrunbulotsuan askoz ere zailagoa ikusten nuen Ada arriskuaz jabetzea eta nire esanetara jartzea, Herio engainatzea baino, hartarainoxe jotzen nuen Ada galdutzat. Anjel Lertxundi

## 3 ***kautarako*** *adlag* arterako.

Astebete, maiatzaren hasierakoa, Mexico Cityko Plaza hotelean emana du, ustez bere **kautarako** ikertzen eta idazten. Edorta Jimenez

## 4 ***kautatik*** artetik

Ezkertiar eta abertzale joerena nire **kautatik** atera nuen. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere kautan** (9); **neure kautan** (10)

---

# kautela 1 *iz* arreta, erresalbua.

Europako Batasunaren 1992ko Itunean jasotako zuhurtzia eta **kautela** printzipioak ere ez zaizkio testu konstituzionalari erantsi. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ia isilpean, behin-behineko eran eta **kautela** handiz. Harkaitz Cano

Aplikazio kontuak, **kautela** osatzaile eta erantsiak, objektu iragankorrak edo aldakorrak, berba batez, aginpidearen jarduneko ikuskatze lana eskatzen duten horiek, botere arauemaile edo sortzailearenak baino, araudien eskukoak dira. Andres Urrutia

## 2 ***kautelazko***

**Kautelazko** neurri penal hauek. Berria - Harian

Espainiako Auzitegi Nazionalak 36ko gerrako dokumentuak bertan gelditzeko agindua eman zuen herenegun gauean, **kautelazko** eta larrialdiko neurri gisa. Berria - Mundua

Aintzane Ezenarrok «Egunkaria-ren **kautelazko** itxiera bertan behera» utzi behar dela esan zuen. Berria - Euskal Herria

---

# kauter *iz ipar* perzkina.

Donostiako karriketan agertuko dira **kauter** edo pertzegileak, urtarrilaren 29 eta 30ean, beren eltze eta zartainekin zernahi arrabots eginez. Herria

Guk geuk euskaldunok ikusi ditugu horrela Iruñeko erreinuan sartzen eta berdin nagusi jartzen Frantzia gaineko ala Espainia barneko errege, erregina, erregeorde, apezpiku, gobernadore, **kauter** eta... eskale arrotzak. Piarres Xarriton

---

# kauterio *iz* kauterizatzea, erretzea.

**Kauterio** ukitu batez desagerraraziko dizut nik hori dena. Josu Zabaleta

Eta horrela, Jainkoaren probidentzia bihozberak espirituaren ezkutuko gaitza haragiaren ageriko **kauterioaz** sendatu zuen, espirituaren sendatzearekin batera gorputza ere sendatuz. Askoren artean

**kauterizatu**, kauteriza, kauterizatzen du *ad* zauriak eta kidekoak erreduraz sendatu.

Banekien: ahalik eta lasterren zauria ebaki egin behar da, edo hobeto, **kauterizatu**. Joxe Austin Arrieta

Hau lortzeko, eguneroko bizitzaren iritziak eragindako zauriak bakardadean **kauterizatu** behar ditugu edota arte liberaletako medikuntzaz sendatu. Imanol Unzurrunzaga

---

**kauterizazio** *iz* kauterizatzea.

Etorri eta burdinazko tresna sutan sartu zuen **kauterizazioa** egiteko. Askoren artean

Frantzisko begietatik gaixo zegoela, sendagileek **kauterizazioa** aholkatu zuten eta anaiek behin eta berriz erregutu zioten sendabidea onar zezan. Askoren artean

**Kauterizazioa** egin zioten buruko hainbat lekutan eta ebakiak zainetan. Askoren artean

Oinazerik gabeko **kauterizazioa**. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kauterizazioa belarritik** (3); **kauterizazioa egin** (4); **kauterizazioa egiteko** (4)

---

**kautibo** *iz* gatibua.

Gaur egun, oraindik, hezkuntza sistemari oso lotuta daude irakurle asko, adibidez helduen alfabetatzearen arloan, eta irakurle **kautiboak** dira nolabait, baina uste dut orain D ereduan ari diren ikasle horiek ikasketak amaitzen dituzten heinean panorama aldatuz joango dela. Berria - Kultura

---

**kautoki** *adlag* kautelaz, erresalbuz.

Nola beraz eta zendako galda sekulan ukanen ez dugun gauza bat, **kautoki** dakigun bezala! nor engainatu beharrez ari gira? gobernuburuak ala gure buruak. Herria

---

**kautotasun** *(corpusean ez dago; ETCn **101** agerraldi)* **1** *iz* autentiko izatearen nolakotasuna. ik **autentikotasun**.

Konputagailu-sareko datuen segurtasun arloan, baimentzearekin eta ikuskaritzarekin batera, **kautotasuna** oinarrizko hiru pausoen barruan dago. ETC-entziklopedia

WEP edo WPA segurtasun protokoloak ezarri. Hauek **kautotasunaz**, osotasunaz eta konfidentzialtasunaz arduratzen dira. ETC-entziklopedia

Eskariak idatziz egingo dira, eta, horretarako, eskariaren **kautotasuna** egiaztatzeko balio duen edozein bide erabil daiteke, baita izaera elektronikoa dutenak ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eginbideok gauzatzen diren bitartean,jaso eta, egintza horretan bertan, testamentuaren **kautotasunari** buruz ohar egokiak egin ditzakete ahoz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gehieneko horretara heltzen ez diren kontratuak, berriz, **kautotasun**-bermeren bat duen agiri batean jaso behar dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

**Kautotasun** zientifikoari zor zaion begirunea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jarduna agirietan jasotzeko erabil daitezke, aktak, oharrak eta eginbideak ez ezik, osotasuna eta **kautotasuna** bermatzen dituzten bide teknikoak ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

2.) Agiri baten itxura oso-osoan edo zati batean sortuz, baldin eta itxura sortze horrek agiriaren **kautotasunari** buruzko okerra eragiten badu. ETC-zientzia, zuzenbidea

2.) Agiri baten itxura oso-osoan edo zati batean sortuz, baldin eta itxura sortze horrek agiriaren **kautotasunari** buruzko okerra eragiten badu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dokumentuen eta beste ebidentzia batzuen **kautotasunerako** probak datatzeko, ordena kronologikorako, nork egin zuen edo pairatu zuen zer eta noiz eta non, gizabanakoak edo klaseak edo gizarteak tratatzen ari garen, gertaera biluziak finkatzeko, baliteke berriki ezarritako ikerketa-metodo zientifikoak, ezinbestekoak izatea. ETC-literatura, saiakera

---

**kautotu**, kauto(tu), kautotzen *(corpusean ez dago; ETCn **94** agerraldi)* **1** *iz* autentikotasuna bermatu. ik **autentifikatu**.

Horregatik, begirune izan diezaiokegun ezagutza bakarra ikastegi hainbestean inpartzialek **kautoturikoa** da. ETC-literatura, saiakera

Nortasuna **kautotzeko** eskaintzen den zerbitzua da beste adibide bat, OpenID bezalako plataformek eskaintzen dutena. ETC-prentsa

Sinadurak notarioak egiaztaturik edo Nafarroako Kooperatiben Erregistroko arduradunak edo entitatearen helbidea zein udaletan dagoen bertako idazkariak **kautoturik** egon beharko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Herritarrek, Nortasun Agiri Nazionalari erantsitako sinadura elektronikoko sistemez gain, sinadura elektroniko aurreratuko sistemak erabili ahal izango dituzte identifikatzeko eta beren agiriak **kautotzeko**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Normalean, kontu batean saioa hasteko, erabiltzaile bat pasahitz batekin edo beste egiaztagiri batekin **kautotu** behar da kontabilitate, segurtasun, erregistro eta baliabideen kudeaketa helburuetarako. ETC-entziklopedia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Aurreko gradu edo faseetan izapideturiko espedienteen kopia **kautotu** bat egingo da beti, haiek jatorrizko bulegora itzuli aurretik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tasa honen zergapeko egitatea da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ikasketa-egiaztagiriak eta beren kopiak, homologazioak, baliozkotzeak eta aitorpenak, eta orobat kopia kautoak edo **kautotuak** eta aipatutako dokumentuen konpultsa egiteko beharrezkoak diren zerbitzuak ematea. ETC-zientzia, zuzenbidea

2004 urtean, soilik enpresen %8-ak bere datuen ezabaketa seguru eta **kautotua** burutu zuten bota baino lehen (Europar Batasunaren zifrak). ETC-entziklopedia

---

**kautotze** *(corpusean ez dago; ETCn **131** agerraldi)* *iz* autentikotasuna bermatzea. ik **kautotze**.

**Kautotzea**: Erabiltzaileen identitatea eta mezuen edo datuen baliozkotasuna behar bezala egiaztatzeaz arduratzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

**Kautotze**-neurri bezala, root erabiltzailearen pasahitza eskatuko digu web bitarteko inprimagailu kudeatzailea erabili ahal izateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erabiltzailearen **kautotze**-mekanismoan datza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kriptologia informazio seguruaren arlotik aparte beste esparrutara hedatu da. Hauen artean informazio digitala **kautotzea** da, sinadura digitala alegia. ETC-entziklopedia

Gainera, araudi horretan adierazten da faktura elektronikoak paperean transkribatu daitezkeela, PDF 417 zehaztapenaren arabera egindako **kautotze**-marka grafikoak barne, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako Zuzendaritza Nagusiaren 2003ko otsailaren 14ko 2/2003 Ebazpenean fakturazio telematikoarekin lotutako alderdi batzuei buruz xedatzen den bezala. ETC-entziklopedia

---

kautxo ik **kautxu**.

---

**kautxu** *(orobat **kautxo** eta **kautso** g.er.)* **1** *iz*

Segituan, tropikoko laboreak etorri ziren, europarren kontsumorako denak: azukre-kainabera, kafea, kakaoa, geroago kotoia eta **kautxua**. Plastikoak, zuntz optikoak, **kautxu**

sintetikoa. Koro Navarro
Begira zer prezio daukan **kautxuak**. Lopez de Arana
EMAC enpresan **kautxua** da lantzen. **Kautxu** gorrizko eskularruak sukalderako. Herria
**Kautxozko** piezak egiten ditu. Berria - Ekonomia
**Kautxuzko** hodiari estutu bat eman diot. Josu Zabaleta
**Kautxuzko** estalkiek ongi eutsi diote. Josu Zabaleta
Karkaila zuen ahotsa, **kautxuzko** mozorroak lakartua. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

Mutilak ez zuela hezurrik ez artikulaziorik, edota **kautxu** puska elektrizatu bat zela. Patxi Zubizarreta
Bi langilerekin hasi zen, eta orai badira 90, **Kautxu** sailean ari. Herria
Atzera begira geratu zen, **kautxu**-lantegi alderantz. Mirentxu Larrañaga
Amazoniako **kautxu**-zuhaitzik onena. Jon Muñoz
**Kautxo**-ateratzailea zen, seringueiroa. Jon Muñoz
Chico Mendes **kautxu** "zain-ateratzailea" nola hil zuten kontatzen zuen. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kautxu lantegiko** (3)

---

# kautxugintza *iz*

**Kautxugintzaren** (GEMA) eta espartingintzaren (Etxandi) ostetik, Zuberoako industria tradizionaletatik hirugarren alor bat da kolokan jarria, ehungintzan. Berria - Harian
1950eko hamarkadatik aurrera ziren industria mailara igaroko **kautxugintza,** espartingintza eta oihalgintza jarduerak. Berria - Harian

---

# kauzio *iz* bermea; kaudimena.

Errege-epaileek debekatua zeukaten auzilariak beren aurrera agertzeko **kauzioak** ematera behartzea. Iñaki Iñurrieta
Pasarte horrek aditzera ematen du hautemate horren garrantzia eta handitasuna, eta hor aurkitzen den perfekzio bikaina gorabehera, bere neurrira mugatzen ez bada eta **kauzioz** segitzen ez bada, akats bilaka litekeela. Xabier Kintana

---

# kaviar ik **kabiar.**

---

# kax-kax *iz*

Beste kolpe bat atean, **kax-kax**. Egunero bisitatzen nau Hannak: ate bikoitz zurian **kax-kax** deitzen duenero izutzen naiz; Hanna beltzez jantzia, nire gela zurian sartzen ari. Joxe Austin Arrieta
Nola jotzen zuen atean beti **kax-kax** bere erratz-kirtenarekin. Joxe Austin Arrieta
Alderdi nagusiko nahiz oposizio leialeko zein leihatilatan egin behar zuen **kax-kax**. Aingeru Epaltza
Harria jo dut, **kax-kax,** etxean ez dagoen lagun baten atea jotzen dugun legez. Harkaitz Cano
· Keinuka hasi zait eskuaz eta uste nuen perbertitu bat zela, baina gero Rolex bat erakutsi dit, joka hasi zait kristalean, **kax-kax-kax,** hemezortzi minutu, jaun-andreok, hemezortzi minutu... Javi Cillero

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atean kax kax** (6); **kax kax** (32); **kax kax jo** (6)

---

# kaxa[1] *(orobat **kaja** g.er.)* **1** *iz* kutxa; ontzia.

Dozenaka kartoizko **kaxa** eta plastikozko ontzi. Harkaitz Cano
Eltze edo **kaxa** taparik gabea. Joxan Elosegi
Morrosko sendoek arrautza **kaxak,** gazta otarreak, gurin saskiak jaso eta enkantearen pabiloira zeramatzaten. Karlos Zabala
Hantxe beste 12 **kaxa,** hantxe 18na subfusilekin. Edorta Jimenez
**Kaxa** horretan daude basoak. Koro Navarro
**Kaxak** betetzen ari direla. Iban Zaldua
Non da nire pinturen **kaxa**? Hasier Etxeberria
Ez zuen gogoratzen **kaxa** noiz ireki zuen. Joxemari Urteaga
Hau izan da nire **kaxa** ireki duen giltza. Berria - Kultura
**Kaxa** zabaldu zuen eta lau gardenia aurkitu zituen barruan. Mirentxu Larrañaga
Ekarri zuten beste **kaxa** txiki bat, beste euli bat gordetzen zuena. Joan Mari Irigoien
**Kaxak** zamatzen, Tilburyko kai berrian. Koldo Izagirre
Orga ttipi batekin **kaxak** karreatzen kaitik geltokira eta alderantziz. Jose Angel Irigaray
**Kaxak** muntatzen eman du goiza. Harkaitz Cano
Soinua **kaxan** sartu eta alde egin nuen. Bernardo Atxaga
Aparatua **kaxa** baten barruan eman zigutela gogoratu nuen orduan. Iban Zaldua
Gero diskoen **kaxa** aurkitu zuen. Koro Navarro
Horien gainean beste hirugarren danbor bat jarriko da horizontalean, aurrekoak bezala hau ere horztuna eta beste **kaxa** batean sartuta. Santiago Iruretagoiena
Xafletan iristen zaion kartoia hartu eta forma ematen dio, kartoi laua zena kartoizko **kaxa** bihurtzen du. Harkaitz Cano
Ez zen goizeko bakarra izan, lehena baizik, haren ostean **kaxa** hustu arte bata bestearen atzetik erre baitzituen. Migel Angel Mintegi
Bi **kaxa..**. atzo bi **kaxa** edan zituzten! Xabier Paya
**Kaxako** laranja zukua zuen hozkailuan. Joxemari Iturralde
Enbalatzeko **kaxaren** estalkiari heldu eta altxatu egin zuen. Iñaki Mendiguren
Supermerkatuko **kaxako** langileak. Itxaro Borda
Dirurik gelditzen al zaigu **kaxan**? Fernando Morillo
Gero atera egin zen eta bi emakume ere jaitsi ziren eta kamionetaren **kaxara** igo ziren. Pello Lizarralde

Eta zura eta gatza ez dira **kaxetan** garraiatzen. Koldo Izagirre

Leihoaren aldean **kaxetan** sartuta zeuden kontserba batzuk identifikatu nahian. Bernardo Atxaga

Argazkiak **kaxetan** metatuta zeuden idazmahaiaren gainean. Iñaki Mendiguren

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Besapean ekarritako karpeta zabaldu eta **kaxa** zapal bat atera zuen Justok. Joxemari Urteaga

Botilaz beteriko **kaxa** handi batzuk. Juan Garzia

Tximiniaren gainean, **kaxa** urreztatuen eta ukendu poteen artean. Karlos Zabala

Egunero-egunero, **kaxa** zuri distiratsuak jasoko zituen, lore bitxiz mukuru beteak. Mirentxu Larrañaga

Sardina gazituen **kaxa** biribila. Pello Lizarralde

Ur zikinetarako ontziaren **kaxa** berdaxka bana estai bakoitzean. Karlos Zabala

Kamioi barruko **kaxa** hutsen eta burusien artean etzan dira afrikarrak. Iban Zaldua

Pistolarekin mehatxatu eta **kaxa** blindatuan zeukan guztia emateko agindu zion traje ederreko gazteak. Mikel Hernandez Abaitua

Autoen abiadura erregulatzeko **kaxa** automatikoa asmatu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ikerketa horiek guztiek azken buruan helburu nagusi bat zuten: teknologiaren **kaxa** beltza irekitzea barruan zegoenaren berri emateko asmoz. Askoren artean

Kartoizko **kaxa** batzuetan. han zeuden mailakatuta zurezko **kaxak** eta ontziak lurrez beteak, landareekin. Josu Zabaleta

Zinkezko **kaxa** moduko baten gainean. Karlos Zabala

Kristalezko **kaxa** batean esku zimeldu bat zegoen, moztuta, kuxin gainean. Iñaki Mendiguren

Esku bakar batekin irekitzen dut diskoaren plastikozko **kaxa** eta aparatuaren zirrikitutik sartzen dut konpaktua. Mikel Hernandez Abaitua

Perkusio tresnak jo ditu diskoan: txinatar **kaxa,** trikitiaren maleta eta botila, besteak beste. Berria - Kultura

**3** (edukiera neurri gisa) ik **kaxakada.**

Goian, arakatu egin zuten, pistola eta **kaxa** bat kartutxo aurkitu zizkioten. Karlos Zabala

**Kaxa** bat puru eta dirua eman zion. Koldo Izagirre

Hiru ontzien artean 400 **kaxa** sardina baino ez zituzten porturatu atzo. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Farias **kaxa** mordo bat. Jokin Urain

Patatak gordetzeko **kaxa** barruan txiza egitea. Unai Elorriaga

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pospolo **kaxetan** sartuta. Bernardo Atxaga

Nire zigarreta-**kaxaren** gainean. Joxe Austin Arrieta

Quenu gozoki **kaxa** baten bila bidali zuen antzokiko tabernara. Karlos Zabala

Pasta-**kaxa** ireki eta oso-osorik sartu zituen pare bat ahoan. Joxemari Urteaga

Bi eskopetarekin irten zen, eta kartutxo-**kaxa** batekin. Juan Kruz Igerabide

Azazkaletako eskuila bat, eta veronal pastilla-**kaxa** bat. Mirentxu Larrañaga

Txerri gantz potea edo barraskilo **kaxa** ekartzeko. Karlos Zabala

Amonak zapata **kaxa** batetik argazki zaharrak atera dituenean. Patxi Zubizarreta

Garagardo **kaxa** huts baten gainean eseri zen. Unai Iturriaga

Hizki **kaxa** pare bat eta 1870eko inprimatzeko makina txiki bat zeuzkan, eta denda gainean "Moldiztegia" ipini zuen. Koldo Biguri

Erreminta **kaxa** eskuan zuela. Joxemari Urteaga

Bi maleta eta kapela-**kaxa** bat. Mirentxu Larrañaga

Musika-**kaxa** batetik ateratzen den dantzariarena egiten du pailazoak. Harkaitz Cano

Segurtasun **kaxetan** eduki ditu gordeta. Berria - Gaiak

Mutur batean, kontrol-**kaxa** konplexu bat zegoen. Xabier Olarra

Askoz ere erresonantzia-**kaxa** txikiagokoa noski. Iñaki Heras

Ikastetxea ikasleek kanpoan arnastu dutenaren durundi-**kaxa** da. Berria - Euskal Herria

Norbaitek azukre-koxkor **kaxa** bat hustu balu bezala. Joxe Austin Arrieta

Arrain-**kaxa** pila batzuen artean erdi ezkutaturik. Anjel Lertxundi

Behiala isotermo izandako kamioi-**kaxa** orain txabola bihurtuan. Juan Luis Zabala

Ezta hil-**kaxan** bere begiz ikusita ere. Iñaki Segurola

**6** hilkutxa.

Imajina hura burutik uxatzen saiatu zenean, gurutzea ikusi zuen Markoxek Erramun zenaren **kaxa** gainean. Joxemari Urteaga

**6a** amak abandonaturiko haur jaio berria uzten zen lekua. ik beherago **10;** ik **tornu**[3].

Eta **kaxatik** jasota seme bat ekarri zuenetik bost urtera alaba bat jaio Mariari, eta handik zazpira seme bat... Koldo Izagirre

Zumarragako Sabina Urzelai ugazamak hartzen du 5.061 **kaxakoa** (Baldomero-Jazinto). Koldo Izagirre

**7** ***abiadura kaxa*** abiadura aldagailua.

Abiadura **kaxa** titaniozkoa da guztiz aurten.

**8** ***bular kaxa***

Balak zeharkatu egingo zioan bular-**kaxa,** ala? Harkaitz Cano

**9** ***eskularru kaxa*** eskularruen kutxa.

Eguzki bero eta argitsuz beteriko auto batean, gozoki-pakete handi bat eskularru-**kaxan**. Iñaki Mendiguren

Harrigarria izanagatik, eskularru-**kaxan** zegoen eta, are harrigarriagoa, bazebilen. Aingeru Epaltza

**10** ***kaxako ume*** amak abandonaturiko haur jaio berria. ik **tornu**[3] **3.**

**Kaxako umeen** batzordeak, erabaki salomoniko batean, Jazinto bere ama biologikoari, Maria Sanz Larrenteri ematea deliberatzen du, eta aldi berean epaitegiaren aurrean salatzea, umea abandonatu zuelako jaio berritan. Koldo Izagirre

Kopetilun dabil, **kaxako umea** dela esan berri baitio aitak. Markos Zapiain

**Kaxako umeen** batzordeak ohar bat igortzen dio Maria Gabilondori Intxuzabalera, presenta dadila bularra eman dion haurrarekin Donostian irailaren 3an. Koldo Izagirre

**11** ***pandoraren kaxa***

Beldur dira pandoraren **kaxa** ere ez ote duen irekiko. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abiadura kaxa** (4); **barruko kaxa** (3); **baxuaren kaxa** (3); **bonboi kaxa** (5); **coca cola kaxa** (3); **egurrezko kaxa** (6); **erreminta kaxa** (7); **gaileta kaxa** (3); **galleta kaxa** (3); **ireki zuten kaxa** (3); **kapela kaxa** (4); **kartoizko kaxa** (25); **kartutxo kaxa** (3); **kaxa atera** (5); **kaxa barruan** (6); **kaxa barruko** (3); **kaxa bat atera** (3); **kaxa bat hartu** (3); **kaxa batean sartuta** (3); **kaxa baten barruan** (3); **kaxa baten gainean** (3); **kaxa handi** (17); **kaxa handi bat** (7); **kaxa handi baten** (3); **kaxa hartu** (5); **kaxa huts** (5); **kaxa hutsen** (3); **kaxa ireki** (7); **kaxa txiki** (7); **kaxa txiki bat** (4); **kaxa zabaldu** (5); **kaxa zuri** (3); **kristalezko kaxa** (3); **loradendako kaxa** (3); **munizio kaxa** (4); **pasta kaxa** (3);

pospolo kaxa (14); pospolo kaxa bat (7); puru kaxa (3); soinuaren kaxa (3); zapata kaxa (13); zurezko kaxa (5)
arrain kaxak (3); kartoizko kaxak (3); pospolo kaxak (3)
kaxako umeen (5)
eskularru kaxan (3); kaxan sartu (4); kaxan utzi zuen (3)
kaxaren barruan (3); kaxaren gainean (4); kaxaren tapa (3)
kartoizko kaxatan (3); kaxatan sartu (3)
kartoizko kaxatik (3)
kartoizko kaxetan (3); kaxetan sartuta (3); zapata kaxetan (6)

---

# kaxa² *iz ipar* kazola.

Mihise, oihalki, lore-untzi, margo, bertz, **kaxa,** kurutzefika, lehengo liburu, denetarik bazen! Herria

---

# kaxagile *iz* kaxak egiten dituen langilea.

Baskulagile, **kaxagile,** guardamontista, kanoigile, guarnidore, pulitzaile, grabatzaile, giltzagile... Koldo Izagirre

---

# kaxakada *iz* kaxa baten edukia. ik **kaxa¹ 3**.

Eta, maitea, ekarri beste **kaxakada** bat jelatinazko bare, ia guztiak eraman dizkigute eta -esan zuen emakumezko ahots batek. Iñaki Mendiguren

Milizianoek hotela hartu zutenean, **kaxakadak** bahitu omen zituzten, udatiarrentzat prestatuta zeuzkatenetatik, eta egoitzaraino ekarri. Inazio Mujika Iraola

---

# kaxalote *(orobat **katxalote**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kaxalote** agertzen da) iz*

Mazopak itsas ugaztunak dira, baleak, **katxaloteak,** zereak edo orkak bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Badira **kaxaloteak** eta mikrobioak, arkakusoak eta jirafak, tenperatura altuetan bizi diren organismoak eta eskualde izoztuetakoak. Juan Garzia

Japoniak zere txikiak, ipar zereak eta **kaxalote** arruntak arrantzatzen ditu zientzia helburuekin. Berria - Gaiak

Japoniak, berriz, 210 zere txiki eta **kaxalote** harrapatuko ditu. Berria - Gaiak

---

# kaxatxo *iz* kutxatxoa.

Flaskotxoak, **kaxatxoak,** tuboak, emakume-erreminta haiek guztiak ikusten nituen neure aurrean. Joxe Austin Arrieta

**Kaxatxo** bat lorez apaindua. Fernando Rey

Leiharrezko **kaxatxo** batean urrezko domina bat. Josu Zabaleta

Camembert gazta **kaxatxo** batekin. Joxemari Iturralde

Gelara joan eta gau-mahaitik hartu zuen argazki zatiak gordetzeko zerabilen **kaxatxoa**. Joxemari Urteaga

**Kaxatxoan** utzi zuen beste sobre batzuekin batera. Joxemari Urteaga

Londresek behar zituen zifratuen **kaxatxoa** handik atera eta alboko hoteleko *washroom*-era eroan. Edorta Jimenez

Plastikozko poltsa baten barruan zihoan **kaxatxoa**. Unai Iturriaga

Jostailuen **kaxatxoan** aurkitu zuen. Iban Zaldua

**Kaxatxotik** atereak zeuzkan kuleroei tira eta tira aritu zen gerriko gomaren aldetik. Josu Landa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
zifratuen kaxatxoa (3)

---

# kaxatzar *izond adkor* kaxa handia.

Arratsaldez kaleetan barrena nenbilelarik entregatu behar nituen modeloen **kaxatzarrak** hartuta, itzuli asko egiten nituen bezeroen etxeetara inoiz ez iristeko. Pello Lizarralde

Beti kalean barrena zapata **kaxatzar** haiek entregatzen. Pello Lizarralde

---

# kaxera *(corpusean **kajera** soilik) iz*

Kargamentua franko zaila duk kamionaren **kajeran** berdin samar uzten. Koldo Izagirre

---

kaxerna ik **kaserna**.

---

# kaxero *iz*

-"Ba, ni gero eta **kaxeroagoa** naiz eta batere lotsarik ez"- baina sekulan kontra egin gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# kaxeta¹ *iz ipar* kaxa txikia.

Aspirina **kaxetak** balinbaditugu, guti, ebatsiak izanak dira etxekoek igorri paketetatik. Marzel Etxehandi

Ez nuen jasaiten ahal hola sofri zezan goizean ene ogi puska saldu dut merkatu beltzean bi 'aspirine' **kaxeten** erosteko. Marzel Etxehandi

---

kaxeta² ik **kaseta¹**.

---

kaxetarigai ik **kazetarigai**.

---

## kaxka 1 *interj* kolpearen onomatopeia.

Hitz egokia ez ateratzen tematzen zaizuela, erdaratik hartu eta **kaxka!,** esaldian sartzeko beldurrik ez duzuen hizkuntza. Pello Salaburu

Zera, adar bat bezala... **kaxka** . Anton Garikano

**2 *kaxka-kaxka***

Gwendolenek ezpaina hozkatzen du, eta, urduri, **kaxka-kaxka** jotzen du oina guardasolaz. Antton Olano

---

## kaxkabeltx *izond/iz adkor* kaskabeltza.

**Kaxkabeltxa** eta txantxangorria ere saiatzen dira goizeko kontzertuan. Pello Zabala

Gerritxori ilunak tiit-tiit-tiiteroitt; tximutx **kaxkabeltxak** pititxui-pititxui. Iñaki Segurola

**Kaxkabeltxa** eta txantxangorria ere saiatzen dira goizeko kontzertuan. Pello Zabala

---

## kaxkabiko *iz* txingor mota.

Prezipitazio deitzekotan, badirudi goi altutik jausi behar duela, dela euri, elur, kazkabar edo **kaxkabiko..** . Pello Zabala

Babazuza, kazkabar, **kaxkabiko** eta beste txingor jenero guztiekin datorrena da. Pello Zabala

---

## kaxkagorri *izond adkor* kaskagorria.

Teink egin nion motots **kaxkagorritik** esertzera behartzeko. Joxe Austin Arrieta

Begi grisak zituen, uraren kolore, **kaxkagorriengan** maiz ohi bezala. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ile motots kaxkagorria** (3); **motots kaxkagorria** (6)

---

## kaxkagorridun *izlag*

Itsasoratu eta laster jo nuen begiz lehenengoz ile-motots **kaxkagorridun** neskatxa. Joxe Austin Arrieta

Neure Pernod-a zerbitzatu berria zidatelarik, horra non ikusten dudan motots **kaxkagorridun** neskatxa arrotza aldamenetik igarotzen. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ile motots kaxkagorridun** (4); **motots kaxkagorridun neskatxa** (3)

---

## kaxkail *izond adkor* kaskaila, kaskarra.

[Schumann, Adenauer, Gasperik] batasun tratu eder bat bezala nahitua zutena, burua apalik eta tratu **kaxkailekin** trenkatu dute kontrabandixta batzuek beren droga jokoetan eginen zuten bezala kasik. Herria

Hertsi, **kaxkail** izanak, deus ez nahi jakin. Herria

Ez dela holakoetan etxe barneko kalapita **kaxkailen** denbora. Herria

---

## kaxkaka *izond adkor* kaskaka, kolpeka.

Bere panderoarekin filigranak eginez, gorputz guzia bueltan **kaxkaka** hartzen duen kreatura horrek. Patziku Perurena

---

## kaxkal *izond adkor* kaskaila, kaxkarra.

Gaur egun bakoitzak albiste ale berriak ekartzen dizkigun bezala, batzuk hobexegoak eta pozgarriak, besteak txarrago eta **kaxkalagoak,** […]. Pello Zabala

Madriletik zetozen iragarpen **kaxkal** orduko haietan fidatu izan banintz [...]. Pello Zabala

---

## kaxkaldu, kaxkal, kaxkaltzen da *ad* kaskal bihurtu, kaxkartu.

*Maiatz hotz, ez agotz ez bihotz,* esango zizuten Nafarro aldean, gari-garagarrek, ez hazi ez bihoztu, lastotarako ere balio ez zutela bertan nano **kaxkaltzen** zirelako. Pello Zabala

Bere ondoan ernetako beste zuhaitzen artean, hantxe **kaxkalduko** da eta galduko aldamenekoak indartzen doazen bitartean. Pello Zabala

---

## kaxkamotx (orobat *kaxka motz*) *izond adkor* kaskamotza.

Barrako mutur urrunenean ziren: luzea, txima-luzea, belarritakoduna eta meharra bata; ñarroa, **kaxka** -motza, belarri-has eta are meharragoa bertzea. Aingeru Epaltza

---

## kaxkar[1] 1 *izond adkor* kaskarra.

Zentzuz hitz egiten dik eta ez duk idazle **kaxkar** horietakoa. Jose Morales

Jainkoaren gizonak, aitaren madarikazioak ikusita, gizon pobretxo eta **kaxkar** bat hartu zuen aitatzat. Askoren artean

-Bizargin **kaxkar** horrekin, eskale horrekin? -galdegin zuen merkatariak hizketa molde arbuiagarriz. Patxi Zubizarreta

Baina zu oso ezkontzagin **kaxkarra** zara. Patxi Zubizarreta

Jende **kaxkar** dotorez, donostiar nardagarriz inguratuta. Iñaki Iñurrieta

Ardi-txakur **kaxkar** baina erne bat. Gotzon Garate

Mahai margotu gabe bat, bi aulki **kaxkar,** burdin sarez itxitako leiho bat. Jose Morales

Beheko gela nagusian hamabi koltxoi **kaxkar** jarri ditiztek- Mahats-mordo **kaxkar** haiek bildu, dolarera bota eta zapaldu zituen. Txillardegi
Gonbidatuak lehengo bide **kaxkar** beretik itzuli ziren etxera. Jose Morales
Nire beribil **kaxkarrean** abiatu gara beherantz. Txillardegi
Ermita **kaxkar** bat ikusi baitu, harri eta arbelez egina, goibela bera ere. Bernardo Atxaga
Adimen orokorraren testetan, ordea, emaitza **kaxkarrak** izan zituen. Xabier Olarra
Ordainetan nazka eta nekea besterik ez dakarten plazer **kaxkarrak**. Patziku Perurena
Haren lanak gero eta **kaxkarragoak** izaki, azkenik nagusiak neurri gogorrak hartu behar izan zituen. Patxi Zubizarreta
Bizitza **kaxkar** honetako bidaia. Askoren artean
Kalitate **kaxkarreko** materialez egina. Fernando Rey
Bere ingeles **kaxkarrari** nik alemanez erantzun orduko igarri zidan suitzarra naizela. Joxe Austin Arrieta
Baserritarren dialekto **kaxkar** bat. Pello Salaburu
Itzulpen **kaxkar** hori baino ez zuen irakurri. Juan Garzia
Igaro berri zuen urte **kaxkarra** etorri zitzaion gogora. Karlos Zabala
A zer eguraldi **kaxkarra,** ezta? Fernando Rey

**2** (adizlagun gisa)

Beraz, nik ere mesprezagarri eta **kaxkar** egingo zaituztet herri guztiarentzat. etxe hartako labore-lanak jai zuela urte hartan, **kaxkar** eta ahul gelditukо zela soroko uzta. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egoera kaxkarra** (3); **eguraldi kaxkarra** (4); **politika kaxkarra** (6); **txikia eta kaxkarra** (3)
> **ezin kaxkarragoa** (3)
> **baldintza kaxkarrak** (4); **egoera kaxkarrak** (3); **emaitza kaxkarrak izan** (3)
> **egoera kaxkarrean** (8)

---

# **kaxkar**[2] *iz adkor* burua.

Buru gainera jausten zaie beren okerra, **kaxkarrean** jotzen ditu bidegabekeriak. Elizen arteko biblia
**Kaxkarreraino** odolduta zegoen, hala esatea libre bada. Matías Múgica
Gero, anbulantziakoen artean buru egiten zuenak **kaxkarreko** ebakia egin dion teila-puska erakutsi dio. Berria - Kultura

---

# **kaxkarin** *izond adkor* kaskarina.

Era askotako grina txarren menpe dauden emakume **kaxkarinak** liluratzen dituztenak. harat-honat dabilen gamelukume **kaxkarinaren** antzeko zara. Elizen arteko biblia
**Kaxkarina** zen, tragotxoa sarri behar izaten dutenetakoa. Pako Aristi
Bizkorregi fidatzen dena **kaxkarina** da. Elizen arteko biblia

---

# **kaxkarkeria** *izond adkor* kaskarkeria.

Jalta gorroto zuen berak ere. 'Jalta osagarri europarren nahasketa bat da, Nizako bistak gogorarazten dituztenak, **kaxkarkeria** eta feria-giroa bezalako elementu burgestxikiekin batera. Iban Zaldua

---

# kaxkarot ik **kaskarota**.

---

# kaxkarrot ik **kaskarota**.

---

# **kaxkartu,** kaxkar(tu), kaxkartzen da/du *ad adkor* kaskartu.

Errealitatea **kaxkartuz** joan zen, funtzionariotzaren grisak tindatu zituen ezari-ezarian bazterrak. Iñaki Iñurrieta
Hobetu ala **kaxkartu** egin ote zen nitaz egina zenuen irudia? Xabier Mendiguren Elizegi
Bere gorputza, ordea, **kaxkartu** eta tippitu egin omen da eta ohean haurra amaren sabelean bezala okertua omen dago, belaunak buru ondoan dituela... Gotzon Garate

---

# **kaxkartze** *iz* kaxkarrago bihurtzea.

Jakina, batek baino gehiagok pentsa dezake hizkuntzaren **kaxkartze** hori ez dela euskararen kontua bakarrik, beste hizkuntzetan ere gertatzen dela. Pello Salaburu

---

# **kaxkateko** *iz adkor* kaskatekoa.

Gauean berandu iritsi, logelako atean **kaxkateko** txiki bat jo, [...]. Anton Garikano

---

# **kaxketa** *iz adkor* kasketa.

Nike **kaxketa** gibelera zeraman alimaleko beltz baten ondoan ttattit ttotto zegoela. Itxaro Borda

---

# kaxketadun ik **kasketadun**.

---

# **kaxko** **1** *iz adkor* gainaldea.

Jentilsoloko **kaxkora** igotzen ginen abentura bila. Txillardegi

Kasernaren aurrez aurre, eta mendebal aldeko **kaxko** baten gainean. Txillardegi

Baztan-Ibar gaineko **kaxko** hartatikako bista ederrean. irailak 22 zituenean hil zen Igeldoko bere **kaxko** maitean. Txillardegi

Urruñan, poliziak azkarki miatu du **kaxko** batean den etxe bat, mugatik hurbil-hurbila. Herria

Malkarra igo eta herriari begira egoten naiz eliz-aldeko **kaxkotik**. Arantxa Iturbe

Beldurrak airean aritu zela **kaxko-kaxkoan** zeuden lau baserri ale haiei tiroka. Inazio Mujika Iraola

· Urriaren **kaxkotik,** udazkenari udaren ukittua malgutzen eta ahultzen zihoakioneko egun baketsuak. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Eskuz, ahoz eta mihiz neurtu nizkion bere bi muino gaztainkara **kaxko**-gorriak, bertze eskua nire galtzetako gibelaldeko patrikara neramala. Aingeru Epaltza

· Mendi **kaxko** edo muinoetan, aldiz, 7, 8, 9 edo 10 gradu. Pello Zabala

Muino-**kaxkoetan** barrena. Txillardegi

Herri-**kaxkora** iristean eskuin-eskailera bat atera zuen nonbaitik. Txillardegi

**3** burua.

Orduan piztu zitzaidan argia **kaxkoan**. Aingeru Epaltza

-Ez berotu **kaxkoa**. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaxko barnean** (4); **kaxko eta** (4); **mendi kaxko** (5)
> **mendi kaxkoetan** (3)

---

**kaxkoratu,** kaxkora, kaxkoratzen da *ad adkor* bururatu.

Bortz urte baizik ez bainituen, ez dut gogoan zer **kaxkoratu** zitzaidan, ama, anaia berria altzoan zuela, etxeko atetik agertzen ikusi nuen egunean. ez zuen oraino **kaxkoratu** kazetaritzak bulego eta saltokietan ohi ez diren ordutegiak dituela. Aingeru Epaltza

---

**kaxmir** *(orobat **katxemir**) iz* Kaxmirko ahuntz ilearekin eginiko ehuna, biguina eta leuna.

Bai eta zetazko beloan landuriko soinekoa, hasperena bezain arina, **kaxmir** gorriko soinekoa, shantung zetazko soineko izurduna. Joxan Elosegi

Haren **kaxmir** beltzezko soinekoaren izkinak baino ez ziren ikusten ahal. Karlos Zabala

Sofa estaltzen zuen **kaxmir** hautseztatua. Lopez de Arana

Gona tolesdun urdin bat, **kaxmirrezko** jertse zuri bat, eta kolore marroi arrunteko oinetako orpo luzekoak. Oskar Arana

Mantalaren mutur bat altxatua zuen, **kaxmirrezko** gona erakutsi nahirik. Karlos Zabala

**Katxemirazko** txal berdea koadro baten marko gainean. Anton Garikano

---

**kaxmirtar** *(orobat **kasmirtar** g.er.) izlag* India eta Pakistan artean dagoen Kaxmirkoa, Kaxmirri dagokiona; Kaxmirko herritarra.

Palestinarrekin gertatzen den bezala, **kaxmirtarrak** ere lerroen eta hesien bi aldeetara geratzen ari dira. Berria - Mundua

Indarkeriaren aurka dauden **kaxmirtarrekin**. Berria - Mundua

1989an, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko matxinatu ziren **kasmirtarrak**. Berria - Mundua

---

**kaxoi** *(**132** agerraldi, **43** liburu eta **8** artikulutan; orobat **kajoi** **56** agerraldi, **20** liburu eta **2** artikulutan; cf **tiradera** **215** agerraldi, **70** liburu eta **12** artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **tiradera** agertzen da)* **1** *iz* tiradera.

Ohe ondoko mahaitxoko **kaxoia**. Iñaki Mendiguren

Mahaiko lehen **kaxoia** ireki zuen Justok. Joxemari Urteaga

**Kajoia** ireki eta argazkiak gordetzen dituen sobrea hartu dut. Xabier Etxabe

Argia piztu eta mesanotxeko lehen **kaxoia** ireki du. Pako Aristi

Zilarrezko pistola txikia atera zuen mesanotxearen **kaxoitik**. Bernardo Atxaga

Mahai azpiko **kajoi** batetik karpeta arrosa bat atera zuen. Aingeru Epaltza

Labana atera zuen mahaiko **kaxoitik**. Joxemari Urteaga

Armairutik zira bat eta **kajoietatik** galtzontzilo bat atera eta maletan sartu zituen. Aingeru Epaltza

Kartazala hartu eta **kaxoian** sartu zuen. Iñaki Mendiguren

Bere **kaxoiak** husten jarraitu zuen. Iñaki Mendiguren

Jeneralak **kajoi** batean gordetzen zituen argazki zaharrak. Xabier Olarra

**Kaxoi** batean nuen gordea. Joan Mari Irigoien

Mahaia inguratu eta **kajoi** zabaldura joan nintzen. Matías Múgica

Denok ibili gara noizbait etxeko armairuetan edo arrebaren **kaxoietan** begira. Xabier Mendiguren Elizegi

Jexuxen **kajoian** usman ibili eta gero. Xabier Etxabe

Mesanotxeko **kajoi** barruan arakatzen hasi zen. Jon Arretxe

Goiko pisuetan, leihoak eta balkoiak, **kaxoietan** itotako geranioak, [...]. Berria - Kultura

**2** (elkarrizketetan)

-Sukaldeko **kajoiren** batean izan behar du. Xabier Mendiguren Elizegi

-Horiek denak nire agendan zeudek eta agenda, berriz, nire mahaiko lehen **kajoian**. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaxoia ireki** (6)
> **gau mahaiko kaxoian** (3); **kaxoian gordetzen** (3); **kaxoian sartu** (3); **mahaiaren kaxoian** (3)
> **mahaiko kaxoitik** (4)
> **kajoia ireki** (7)

---

**kaxoitxo** *iz* kaxoi txikia.

Literaturaz beste pertzepzio bat dugunok, badakigu literatura ezin dela gehiegi etiketatu, **kaxoitxoetan** sartu eta armairuan giltzapetu. Ana Urkiza

kaxola ik **kaxuela**.

**kaxuela** *(orobat* ***kaxola****)* *iz* kazola.

Haatik, oilasko gisatuaren lurrina zekarren **kaxuela** batekin azaldu zen emaztea etxeko atarian. Koldo Izagirre

Kafe bero bat har nezake gogotik, baina ez dut ez kaferik, ez azukrerik, ez fitsik, ur berorik ere ez, uraren berotzekorik deus, ez eta **kaxola** edo ontzirik ere... Filipe Bidart

**kazadora** *iz* gerrirainoko zamarra.

Luluk ere larruzko **kazadora** fin bat darama jantzita, berria. Jokin Muñoz

**Kazadora** beltza sorbalda batean jarria darama, toreroek kapotea bezala. Jokin Muñoz

**Kazadoraren** barnealdeko sakelan neukan txekea, ondo gordea. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kazadora beltza** (4); **larruzko kazadora** (3)

**kazakhera** *iz*

Soinu haiek entzunda, **kazakheraz** hasi zen kantatzen emakume gazte bat, eta hain ongi egin zuen, non uzbekeraz mintzo zirenek ere, kanta hura amaitzean, kotoi-uztaren sasoiko kanta ezin zirraragarriagoa abestu zuten *a capela*. Josetxo Azkona

**kazakhstandar** *izond/iz* Kazakhstangoa, Kazakhstani dagokiona; Kazakhstango herritarra.

Txirrindulari **kazakhstandarrak** izugarrizko indarrez salto egin zuen tropeletik. Berria - Kirola

1 zenbakia darama T-Mobile taldeko **kazakhstandarrak** maillotean, Armstrong irabazlea, Estatu Batuetarra, Ullrich bigarrena, alemana eta Vinokourov **kazakhstandarra,** hirugarrena. Berria - Kirola

kazazio ik **kasazio**.

kazazione ik **kasazio**.

kazerna ik **kaserna**.

**kazerolada** *iz* eltze joaldia, eltzealdia.

"Asanblada, entzerrona, manifa, sentada edo **kazerolada** horietako batean enteratuko zuan", pentsatu duk, "beti ikasleekin ibiltzen duk-eta, auskalo zein ipurdiren atzetik". Jokin Muñoz

**kazeta** *(orobat* ***kaseta****)* **1** *iz* aldizkaria.

**Kazetak** eta egunkariak eta, plazaratu zituen, gehienak debekatuak izan zirenak. Menane Oxandabaratz

*Herria* **kazeta** hori noiz sortu zen eta ze publiko hunkitzen du holako **kazeta** batek? Menane Oxandabaratz

Ni sortu nintzalarik, ESKUALDUNA **kaseta** erosten zuten ene etxekoek. Herria

Kaliforniako Euskal Herria - Euskarazko lehen **kaseta**. Herria

Eta inprimeria hartan, **kazeta** bat egiten zela, eta kazetalarien inguruan ibiltzen edo lanean ari nintzela. Menane Oxandabaratz

**-Kazeta** munduan, eskualdun **kazeta** egunkariaren falta, bistan da! Menane Oxandabaratz

*Euzko Deya* zen, Jaurlaritzak Parisen argitaratzen zuen **kazeta**. Alberto Ladron Arana

Yiddishezko egunkariak eta **kazetak** ekartzen zituen. Koro Navarro

**2** egunkaria.

AEBetan 2.000 **kazeta** inguru daude, 10.000tik gora astekari, beste horrenbeste irrati-emandegi eta 2.000tik gora telebista kate. Txema Ramirez de la Piscina

Madrilgo ABC **kazetari** eskainitako elkarrizketan. Berria - Euskal Herria

2003ko ekainaren 21ean *Berria* jaio zen, *Egunkaria*ri lekukoa hartu zion **kazeta**. Txema Ramirez de la Piscina

Asteazkenean bertan, **kazeta** hau hartu, eta azalean: "Erriberako letren eguna". Iñigo Aranbarri

*Le journal de Bouville* **kazeta** zegoen mahai gainean utzirik. Monika Etxebarria

Jende xeheak, ordea, beste bi **kazeta** eskuratzen ditu: *Daily News* eta *The New York Post*. *Gotzon Garate*

Senarrak **kazetari** ekin zion ostera, eta emaztea alderrai ibili zen gelan zehar, nora gaberik. Mirentxu Larrañaga

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta lekuko izatera bidali nau neure **kazeta**-zuzendaritzak. Txillardegi

Horra nola arizana den **kaseta** lanean Lafitte bere bakarkako denbora guzian. Herria

Eta, ahaztekotan, **kazeta**-mozkinak irakurtzeari ekin nion. Txillardegi

**Kazeta**-gaindosi bat behar dinat! Lutxo Egia

**Kazeta**-guruztari batzuek lagundua. Joxe Azurmendi

Aski bedi gazteen artean harrera zabalena duten **kazeta**-testuak zer motatakoak diren ikustea (kirol kazetak, eta abar). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Trenean nirekin zihoazenen itxura oso ondo egokitzen zen kirol-**kazeta** batekin edo Sidney Sheldonen liburu batekin. Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**euskal herriko kazeta** (10); **euskarazko kazeta** (6); **gure kazeta** (4); **herria kazeta** (4); **herriko kazeta** (10); **kazeta egilea naiz** (4); **kazeta ofizialean** (3); **kirol kazeta** (3)

**kirol kazetak** (3)
**kazetako langileek** (3)
**deia kazetan** (4); **herria kazetan** (4)
**egunkaria kazetaren** (5); **euskaldunon egunkaria kazetaren** (4); **kazetaren arabera** (9); **kazetaren aurka** (3); **l equipe kazetaren** (3)
**eskualduna kaseta** (3); **euskal kaseta** (5); **herria kaseta** (44); **kaseta hau agertzean** (5); **kaseta hau egitean** (5); **kaseta hunen bidez** (8); **kaseta hunen harpidedun** (3)
**egunkaria kasetak** (5); **euskaldun kasetak** (3); **herria kasetak** (10)
**herria kasetan** (8); **joanden asteko kasetan** (3); **kasetan ikusi** (3)
**herria kasetaren** (17); **kasetaren zuzendari** (3)

---

## **kazetagintza** *iz* kazetak egitea.

**Kazetagintza** alorrari dagokionez, *La Voz de Vizcaya* (1880) agerkaria sortu zuen batetik, eta kolaboratu ere bai *Lauburu* (1882), *Laurac-bat* eta *Beti-bat* aldizkarietan edota aldiko egunkarietan. Berria - Kultura

Guretzat, elkarte bezala eguneroko **kazetagintzan** buru-belarri sartuta egon ez arren, garrantzitsua da batetik zein bestetik dauzkagun ekarpenak egitea euskarazko **kazetagintza** hori aberasteko. Berria - Euskal Herria

---

## kazetalari ik **kazetari**.

---

## **kazetari** *(orobat **kazetalari** g.er. eta **kasetalari** g.er.)* **1** *iz* informazioaren munduko profesionala.

Tartean **kazetari** eta kamerak, telebistetakoak zein prentsa eta irratietakoak. Unai Iturriaga
50 **kazetari,** argazkilari eta kameralari inguru bildu ziren. Berria - Kirola
*Ttipi-Ttapa*-ko Jon Abril **kazetari** eta idazleari. Iñigo Aranbarri
Jose Berruezo **kazetari** eta historialaria izan zen. Askoren artean
Telebistan, britainiar **kazetari** bat ari da. Iñigo Aranbarri
Euskaldun **kazetari** baten kontaktoa behar luke! Ramuntxo Etxeberri
Orduan hire asmoak bete eta **kazetari** egin hintzen. Aingeru Epaltza
Beti bezala frantses **kasetariek** denak nahasten dituzte. Piarres Xarriton
Al Jazeera telebistako **kazetari** Taisir Alouni espetxeratu dute berriro. Berria - Mundua
Hasier Etxeberria ETBko **kazetaria** moderatzaile zutela. Berria - Euskal Herria
Mikel Lejarza ikus-entzunezko proiektuetan aritutako **kazetaria**. Berria - Kultura
Urtarrilaren 7an bahitutako **kazetariak**. Berria - Mundua
Talibanei buruzko iritzia eskatu zion sasi-**kazetariak** nobel saridunari, eta hark gogoan ez dudan zerbait erantzun. Joxerra Garzia
RSF *Mugarik Gabeko* ***Kazetariak*** erakundeak. Berria - Gaiak

**2** (izenondoekin)

**Kazetari** ona izateko idazle ona izan behar delako. Iñigo Aranbarri
Thomas Friedman *The New York Times* egunkari ospetsuko **kazetari** famatua da. Iñaki Heras
**Kazetari** ezaguna eta idazlea. Edorta Jimenez
**Kasetari** girixtino baten gogoetak. Herria
**Kazetari** doilor horrek agiriak faltsutu zituen. Karlos Zabala
**Kazetari** jakinminoxo batek harrapatu eta, beste batzuen artean, honako galdera hau egin zion: [...]. Iñaki Segurola
**Kazetari** martin-saltsero bat, koilara zopatan harrapatua. Aingeru Epaltza
Eibar edo Elgoibarko **kazetari** kaustiko samar batena. Patxi Zubizarreta
-Kaka zaharra zuretzat, Mikelentzat eta **kazetari** puta horrentzat. Xabier Mendiguren Elizegi
Hiru baldintza Frantziako **kazetari** bahituak askatzeko. Berria - Mundua
Manuel Vazquez Portal **kazetari** disidentea askatu zuen atzo Kubak. Berria - Mundua
Erregimenari babesa eman zioten epaile, abokatu eta **kazetari** konplizeen izenak. Berria - Mundua

**3** (mota erakutsiz)

1985 eta 1995aren artean 600 prentsa **kazetari** hil zituzten. Pello Salaburu
Niri zegokidan Gertakarietako **kazetari** saldoarendako izendapen gordin horren aitatasuna. Aingeru Epaltza
Gerrako **kazetari** ospetsuena bilakatu zen, Francori berari egindako elkarrizketa bategatik. Edorta Jimenez
Gerra-**kazetari** askoren esanetan, gerretan erakutsi ohi du gizakiak bere aurpegirik txarrena. Joan Mari Irigoien
Moda-**kazetaria** zen, eta ingelesez hitz egiten zidan. Fernando Rey
Metropoliko zinema **kazetariak** intelektualegiak dira, nonbait. Berria - Kultura
Erreportaiak egin beste zereginik ez zuten Frantziako kirol **kazetariek**. Berria - Kirola
Kiroletako **kazetari** bat genuen langile-batzordeko burua. Aingeru Epaltza
Tokiko gasna kofradiak omenaldi bero bat eskaini dio Mikel Zeberio gastronomiako **kazetariari**. Herria
Lehenengo ilaretan hautagaiak, alderdietako kideak eta **kazetari** grafikoak zeuden. Berria - Euskal Herria
Egia al da **kazetari** "hori" horiek idatzi dutena, ala kalumnia hutsa? Bernardo Atxaga

**4** (predikatu gisa)

*Nottingham Journal* egunkarian **kazetari** aritu ostean, 1885ean Londresera abiatu zen. Julen Gabiria
Egun, *Oarsoaldeko Hitza* egunkarian **kazetari** eta argazkilari dihardu. Lander Garro
Inozentziaren seme bigarrena, bai, **kazetari** zebilena. Aingeru Epaltza
1943ko udazkena igarota eta U-ontzien ehizaldi haren ostean Ernestek Europara egin gura izan zuen, gerra-**kazetari** jarduteko. Edorta Jimenez
Horretarako zer hoberik Espainiako gerrara faxisten aldera **kazetari** etortzea baino? Edorta Jimenez
**Kazetari** jarraituko zuen, ziurrenik, han-hemenka gelditu ezinik. Fernando Morillo

**5** (izenondo gisa)

Hiriart-Urruti apaiz **kazetaria**. Berria - Euskal Herria
Giuliana Sgrena emazte **kasetalari** italiarra libratu dutela, ilabete bat bahiturik atxiki ondoan. Herria
Orain hurrengoan, hitz eta pitz, adiskide **kazetari** batekin kafe banaren berotan, arrangura tupustean: [...]. Iñigo Aranbarri
Nesheren ondoan eserita nengoela Berlingo neska **kazetari** biak agertu dira. Edorta Jimenez
Lagun **kazetari** bati eskatutako fax baten kopia igortzen zidan. Hasier Etxeberria

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neure buruaz eta neure **kazetari** -ahalmenaz harro, mespretxu keinu agerikoa egin nuen. Aingeru Epaltza

**Kazetari** senari entzun behar zion. Fernando Morillo

Ez teknikarien aurrean nire **kazetari** -duintasuna orbandurik senti nezakeelako. Anjel Lertxundi

**Kazetari** estatusa galtzeak eragingo lukeen eskandalua. Edorta Jimenez

Paparrean dilindan zeraman **kazetari** -agiriari begiratu zion. Alberto Ladron Arana

Zer egingo zukeen bere ohiko **kazetari** -ikerketa bat balitz? Fernando Morillo

Haren aurrean identifikatu, **kazetari** agiria erakutsi eta hitzez hitz jazotakoaren berri eman zion. Berria - Euskal Herria

Buruk erakutsitako **kazetari** -argazki haietako batean ikusia nuen. Edorta Jimenez

1931. urtean eskola utzi eta **kazetari** lanetan hasi zen, South Wales Evening Post egunkarian. Koro Navarro

**Kazetari** -lanetara itzultzeko asmoa. Lopez de Arana

Urte horietan, Barojaren **kazetari** -lanak bereziki oldarkor eta zalapartatsuak izan ziren. Josu Zabaleta

Ez dut uste **kazetari** erregistroak eta literarioak batera joan behar dutenik ezinbestean. Iñigo Aranbarri

Pedro Arguelles Moran **kazetari** elkargo bateko zuzendaria. Berria - Mundua

Irteeran, hori bai, **kazetari** andana aiduru. Markos Zapiain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**egunkariko kazetari** (8); **eta kazetari** (66); **euskal kazetari** (5); **gerra kazetari** (7); **gerrako kazetari** (4); **idazle eta kazetari** (11); **izeneko kazetari** (4); **kateko kazetari** (4); **kazetari andana** (7); **kazetari atxilotu** (5); **kazetari estatubatuarra** (7); **kazetari eta idazle** (5); **kazetari eta idazlea** (4); **kazetari eta idazleak** (10); **kazetari euskaldun** (5); **kazetari ezagunak** (4); **kazetari frantsesa** (4); **kazetari frantsesak** (11); **kazetari frantsesen** (4); **kazetari frantziar** (4); **kazetari frantziarrak** (9); **kazetari frantziarren** (9); **kazetari gaztea** (5); **kazetari gisa** (10); **kazetari hil** (20); **kazetari hil dituzte** (5); **kazetari hil zituzten** (5); **kazetari ingelesak** (7); **kazetari italiarraren** (5); **kazetari izan** (8); **kazetari izan nahi** (4); **kazetari izatea** (4); **kazetari lan** (7); **kazetari lana** (5); **kazetari lanak** (10); **kazetari lanetan** (16); **kazetari moduan** (5); **kazetari mordoa** (5); **kazetari ohia** (4); **kazetari ona** (5); **kazetaria eta idazlea** (5); **kazetaria izan** (17); **kazetaria izan zen** (6); **kazetaria naiz** (12); **mariano ferrer kazetaria** (6); **telebistako kazetari** (7) idazle eta kazetaria (4); **xabier oleaga kazetaria** (5)

**aldizkariko kazetariak** (4); **berria ko kazetariak** (4); **berriako kazetariak** (10); **egunkariko kazetariak** (8); **idazle eta kazetariak** (8); **irratiko kazetariak** (5); **kateko kazetariak** (4); **kazetariak aske** (4); **kazetariak berak** (4); **kazetariak egin** (4); **kazetariak egindako** (4); **mugarik gabeko kazetariak** (21); **nazioarteko kazetariak** (4)

**kazetariaren lana** (5)

**berriako kazetariari** (4)

**adierazi zien kazetariei** (4); **bildutako kazetariei** (4); **esan zien kazetariei** (7); **kazetariei azaldu** (4); **kazetariei esan** (5)

**kazetariek egindako** (5); **kazetariek galdetu** (5); **kazetariek galdetu zioten** (4); **kirol kazetariek** (5); **mugarik gabeko kazetariek** (4)

**kataluniako kazetarien** (4); **kazetarien arabera** (4); **kazetarien artean** (22); **kazetarien arteko** (5); **kazetarien aurkako** (14); **kazetarien aurkako erasoak** (5); **kazetarien aurrean** (58); **kazetarien aurrean egindako** (10); **kazetarien aurreko** (4); **kazetarien elkarteak** (6); **kazetarien galderak** (8); **kazetarien galderei** (41); **kazetarien galderei erantzunez** (20); **kazetarien kontrako** (4); **kazetarien lana** (9)

**italiar kasetari** (4); **kasetari frantses** (4)

**frantses kasetariak** (5)

---

## kazetariburu *(corpusean **kazetari buru** soilik)* *iz* kazetari talde baten buru den pertsona.

**Kazetari** burua zen Farr jauna, takigrafo trebea. Koro Navarro

Gómez gure **kazetari** buruak. Txillardegi

---

## kazetarigai *(corpusean **kazetari –gai** eta **kaxetarigai** soilik)* *iz* kazetari izateko prestatzen ari den pertsona.

Arrimatzen diren **kazetari** -gaiak harri eta zur geratzen dira ikustean bertaratzen diren ofizioko berriemaile gehienak mutuak direla. Inoren burutan ez zen sartuko hogeita hiru urte baizik ez zituen **kaxetarigai** bat gisako saltsa batera igortzea. Txema Ramirez de la Piscina

---

## kazetarisa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea)* *iz* emakume kazetaria.

Parean izan arte ez nintzen praktiketako **kazetarisaren** etorreraz ohartu. Aingeru Epaltza

**Kazetarisaren** bularralde oparoa. Aingeru Epaltza

---

## kazetaritxo *iz adkor* kazetaria.

Eta, **kazetaritxo** gazteak, berriz, adi-adi, haien inguruan. Berria - Kultura

---

## kazetaritza *(orobat **kasetaritza** g.er.)* **1** *iz* kazetariaren jarduera edo lanbidea.

Historia eta **kazetaritza** elkarturik. Berria - Kultura

**Kasetaritza** da, dudarik gabe, ofizio ederrenetarik. Herria

**Kazetaritza** ikasi ostean, Bigarren Mundu Gerrari buruzko inkesta eta lekukotasunez osaturiko bi liburuekin estreinatu zen idazle gisa. Berria - Kultura

Hor dago **kazetaritzaren** ederra. Iñigo Aranbarri

Egunkarietako **kazetaritzan** du zentzua egunerokotasun hitzak. Aingeru Epaltza

Idatzizko **kasetaritzak** ere zerbait laguntza merexi duela gaurko egunean. Herria

-Egungo **kazetaritza** prentsaurrekoek irentsi ditek. Iñigo Aranbarri

Balio bikoitza ematen diet euskarazko **kazetaritzako** sariei. Berria - Euskal Herria

**Kazetaritzako** praktikak egiten ari dela han **Kazetaritzako** lizentzia ateratzeko. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

Zentsura politikoa, manipulazio onartezina eta **kazetaritza** horia. **Kazetaritza** arduratsuaren bindikapena izan da borrokaldi bakoitza. Iñigo Aranbarri

Jendea ohartaraztea **kazetaritza** independenteak gizarte demokratiko batean duen eginkizunaz. Berria - Gaiak

**Kazetaritza** espekulatiboa, sekretupean dagoen gertaera bati buruzko hipotesiak eta errudunak seinalatzen ausartzen dena. Pako Aristi

Erabakigarria izan zen **kazetaritza** elektronikoa gertaeron inguruko berriak zabaltzeko prozesuan. Berria - Gaiak

**Kazetaritza** digitalean egindako lanagatik. Berria - Gaiak

Inork gutxik ukatu du eta ukatzen du Basarrik bertsogintzan eta **kazetaritza** herrikoian egindako lana. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **periodistiko**.

**Kazetaritza** hizkuntza propio bat. Berria - Euskal Herria

**Kazetaritza** jardunari dagokionez, adierazpen askatasunak ez luke mugarik izan behar. Berria - Gaiak

**Kazetaritza** jarduera erantzukizun handikoa zela esan ziguten. Berria - Gaiak

Beste **kazetaritza** tradizio bat. Iñigo Aranbarri

Haren jarrera **kazetaritza** etikaren kontrakoa izan zela nabarmendu zuen. Berria - Mundua

Eta ez, ez zeukan inolako txosten sekretu edo arazo txikiena sor zezakeen **kazetaritza**-ikerketarik. Fernando Morillo

Euskarazko **kazetaritza** sektorea egon badagoela erakutsi du Kongresuak. Berria - Euskal Herria

**Kazetaritza**-eredu duin, etiko eta beregaina lortzea. Berria - Euskal Herria

Aitona **kazetaritza** ikasketak egiten ari zen gazterik hil zenean. Jon Muñoz

**Kazetaritza** karrerako ikasketa plangintzari buruz. Txema Ramirez de la Piscina

*Egin* egunkarian eta *Egin* eta *Xorroxin* irratietan burutu zituen lehenengo **kazetaritza** lanak. Edurne Elizondo

**Kazetaritza** Eskolan ikasten zuela. Anjel Lertxundi

Irakasle da Brunel-go Unibertsitatean, **kazetaritza** fakultatean. Iñigo Aranbarri

Annapoliseko St John's College-ko **kazetaritza**-irakasle bihurtu baitzen. Xabier Olarra

**Kazetaritza** munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat. Berria - Euskal Herria

San Fermin **Kazetaritza** Lehiaketan. Berria - Kultura

Rikardo Arregi **kazetaritza** sariak. Berria - Euskal Herria

Kataluniako **Kazetaritza** Sari Nazionala jaso zuen. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauzak egiteko manera baten ate izan da kirol **kazetaritza**. Iñigo Aranbarri

Horren ondorioz, agerkariek ikerketa **kazetaritza** erasokorragoa egiten hasi dira, irakurleen interesa bereganatzeko. Berria - Gaiak

Laborarien eguneroko bizimodua eta polemika **kazetaritza** interesatzen zitzaizkion batik bati. Berria - Kultura

Irrati **Kazetaritzako** teknikak. Herria

Autore **kazetaritza** gero eta gehiago egiten da, eta genero berriak sortu dira. Berria - Euskal Herria

Ezerk ez omen dio antropologiari kalte gehiago egiten sasi-**kazetaritzak** edo sasi-literaturak baino... Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kazetaritza egiteko** (3); **euskarazko kazetaritza** (13); **kazetaritza enpresa** (3); **kazetaritza eredu** (3); **kazetaritza eta literatura** (5); **kazetaritza fakultatean** (3); **kazetaritza ikasi** (4); **kazetaritza ikasketak** (10); **kazetaritza ikasketak egiten** (3); **kazetaritza ikaslea** (3); **kazetaritza ikasleak** (3); **kazetaritza ikerketa** (3); **kazetaritza jarduera** (4); **kazetaritza lana** (4); **kazetaritza lanak** (4); **kazetaritza saria** (6); **kazetaritza sarien** (3); **kirol kazetaritza** (4); **midas kazetaritza saria** (3)

**euskarazko kazetaritzak** (10)

**euskal kazetaritzan** (3); **euskarazko kazetaritzan** (3); **kazetaritzan ari** (3)

**argazki kazetaritzaren** (3); **euskal kazetaritzaren** (4); **euskarazko kazetaritzaren** (28); **kazetaritzaren lehen kongresua** (5); **kazetaritzaren liburu** (3)

---

## kazetatxo *(orobat **kasetatxo**) iz* kazeta xumea.

Prisionero abertzaleek izkiriatzen zuten **kazetatxoa** inprimatzen zuen, ideologia guztietako kideek lagunduta. Lutxo Egia

Batean bere ikasleetan, geroxago **kasetatxo** edo antzerki baten moldatzea gatik, zenbat ez ditu bere ingururat bildu Uztaritzetik haste! Herria

---

## kazetatzale *iz ipar* kazetaria.

Gobernuaren kontrako **kazetatzale** bat hilik kausitua baitzuten. Herria

Paradaz baliatu dira **kazetatzale** batzu gaitzesteko Marokan den libertate eskasa bereziki agerkarientzat. Herria

---

## kazetero *izond adkor* kazetaria.

Alegia, gaur oraindik ere gure Gorte edo korta **kazetero** eta intelektuala zoramentzen darraien demokraziaren mitologia hori guztia, orduantxe larrosatu da Europan. Koldo Izagirre

---

## kazike *iz* Ameriketako indiar multzo baten gainetik egon edo eskualde batean agintzen zuen jauntxoa; jauntxoa.

Saguen alderdiko **kazike** liberala don Juan zen, tipo basati, despotiko, gorputz eta indar handikoa, erraldoi baten eskuak zituena; agintari zenean konkistatzaile bat balitz bezala tratatzen zuena herria. Josu Zabaleta

Kontua da Abashidze ez dela agintari demokratikoa eta azken hamabost urteotan bertako **kazikea** izan dela. Berria - Mundua

-Hori da! **Kazikeak** kanpora! Jon Maia

Herriko jauntxo eta **kazikeek** Jon Maia

---

## kazino ik **kasino**.

---

## kazkabar *(151 agerraldi, 27 liburu eta 17 artikulutan; cf **txingor** 62 agerraldi, 19 liburu eta 7 artikulutan)* **1** *iz* hotzaren ondorioz ale izoztuetan erortzen den euria. ik **txingor; babazuza**.

Euria eta **kazkabarra** ari duela. Berria - Harian

Egundoko **kazkabarra** egin zuen, tximista eta guzti. Elizen arteko biblia

Inguruko herrietako soroetan **kazkabarrak** jotzen bazuen [...]. Askoren artean

Euria ez ezik, **kazkabarra** ere bota zuen. Berria - Euskal Herria

Izugarrizko **kazkabarra** bota zuen Jaunak amortarren gainera, eta asko hil ziren harriak jota. Jose Antonio Mujika

Itxuraz **kazkabarrak** eraginda, zazpi autok eta kamioi batek elkar jo zuten eta [...] auto ilara luzeak sortu ziren Donostiarako norabidean.

Aurrera joko dut, izan dadin **kazkabarra,** bisutsa edo uholdea. Oskar Arana

Prezipitazio deitzekotan, badirudi goi altutik jausi behar duela, dela euri, elur, **kazkabar** edo kaxkabiko... Pello Zabala

Jo zuen turuta lehenengo aingeruak, eta **kazkabarra** eta sua erori ziren lurrera, odolez nahasiak. Elizen arteko biblia

**2** irud/hed

Hala ere, ez zen hura arriskurik handiena; okerrago zen harri eta enbor hautsien **kazkabar** hura, menditik behera haien buru gainera jausten zitzaiena. Karlos Zabala

Atsoek, harri eta zur eginik, hezur **kazkabar** hura nondik zetorren inoiz igartzen ez zutela. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egundoko **kazkabar**-aleak erori ziren zerutik gizon-emakumeen gainera. Elizen arteko biblia

**Kazkabar**-ekaitz bortitza. Askoren artean

Hor hasiko da bota eta bota, mendi kaskoak zurituz eta kostaldean **kazkabar**-jasa axkarrak oparituz... Pello Zabala

**Kazkabar** eta harri-erauntsiak ere noiznahi ageri dira azken mende honetan. Pello Zabala

Hauek madarikatu egin zuten Jainkoa **kazkabar**-izurriagatik. Elizen arteko biblia

Ur-tanta tamaina eta keru guztietakoak, **kazkabar** txintxarrak banaka, harri-txingor kozkorturik aleka, eta tartean elur-maluta ondo gorpuztu gabeak... Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egundoko kazkabar** (3); **kazkabar erauntsi** (4); **kazkabar erauntsia** (4); **kazkabar erauntsiek** (4); **kazkabar eta harri** (3)
> **elurra eta kazkabarra** (3); **izugarrizko kazkabarra** (3); **kazkabarra bota** (3); **kazkabarra egin** (3); **kazkabarra egin zuen** (3)

---

## kazkagogor ik **kaskagogor**.

---

## kazkar ik **kaskar**[1].

---

## **kazkaraka** *adlagn*

Estatu txikia benetan. 270.000 biztanle, denak hotzak **kazkaraka**. Pello Salaburu

---

## kazkarot ik **kaskarota**.

---

## kazkartu ik **kaskartu**.

---

## kazkatu ik **kaskatu**.

---

## kazkazuri ik **kaskazuri**.

---

## kazketadun ik **kasketadun**.

---

## kazkezur ik **kaskezur**.

---

## **kazo** *iz* janariak berotzeko edo egosteko ontzia, gider luze bat duena.

Eta, esnearekin **kazoa** paratu dik sutan eta. Pablo Sastre

Sartu eta eskuinetara sukalde antzeko txoko bat zegoen, kafe-eltzea txapa gainean eta zenbait **kazo**-zartagin-plater sukaltarriko kainupean. **Kazo** hotsa entzun zuen Mikaelak. Iñaki Zabaleta

---

## **kazola** *(orobat **kazuela**)* **1** *iz* eltze moduko ontzia, bi eskulekuen ordez giderra duena.

Hantxe, arrainerako eta kuskuserako **kazolen** artean, konfitura egiteko kobrezko pazien, zartaginen, pilaturiko eltzeen, hamaika kontserba poteren, marmelada ontzi hutsen ondoan, [...]. Hura esanda, atera da Pernando jangelatik, eta bueltatzerakoan horra non daukan **kazola** erbiarekin pronto. Joxan Elosegi

Frigorifikotik potoa eskuratu, ireki eta **kazuela** batean bota zuen. Jon Alonso

Legatza koxkera eran buztinezko **kazolan**. Saltsa egiteko **kazolan** jartzen zituen olioa eta tipula txiki-txiki eginda, [...]. Ramon Saizarbitoria

Lubisek **kazola** handi bat atera zuen Mororen saskitik. Bernardo Atxaga

Herdoitua zegoen **kazola,** eta alfonbra berriz onenak emanda. **Kazola** hustuak eraman behar dizkiogu Adelari. Anton Garikano

Jatorduetan haren platerkadaren erdia eta **kazolako** hondakinak uzten zizkidan. Jon Arretxe

Konkorduna topatu du, burua **kazolan** sarturik eta hankak airean dilindan. Patxi Zubizarreta

Hartu zurezko koilara eta zanga-zanga, **kazuelatik** jaten. Pako Aristi

Lehen galarrotsetan **kazolak** joiten ziren, orain kazolen azantza edo musikak lagundurik sartzen dira batzu udaletxetan. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kazola**-tapen burrundara, turuta-hotsak, makilen kolpeak zoruan. Anjel Lertxundi

Haiek txistuka eta ostikoka eta **kazola**-kolpe ezinago ozenez Karlos Linazasoro

---

## **kazolatxo** *(orobat **kazuelatxo**)* *iz* kazola txikia.

Lau pintxo eta **kazolatxo** bat txanpinoi. Migel Angel Mintegi

Barra gaineko pintxo eta **kazuelatxo** hondarrak. Aingeru Epaltza

---

## kazuela ik **kazola**.

---

**ke** **1** *iz* erretzen ari den edo oso beroa dagoen zerbaiti darion gas multzoa.

Gorroto diot **keari**. Aingeru Epaltza

**Ke** bilakatu beharrak ginen eta azken hautsak haizeak eremanen zituen, Buchenwald-eko erroitzetan. Michel Oronoz

Gero, **kea** desegin egiten zen. Anjel Lertxundi

Makina lanean hasi zen, **kea** botatzen eta intziri arraroak egiten. Jon Maia

Pausak egiten zituen, ahotik **kea** jaurtitzeko. Joseba Sarrionandia

**Kea** zerion sudurretik, su kiskalgarria, ikatz goriak ahotik. Elizen arteko biblia

Ogia, gurina, eta kafea, **kea** dariola. Xabier Montoia

Tabakoa erre eta ahotik **kea** egotzi. Joan Mari Irigoien

**Kea** irentsi gabe. Ramuntxo Etxeberri

**Kea** sakonago irensteko begiak itxi eta bularrak hanpatuz. Joxean Agirre

**Kea** sabaira jaurti nuen. Aingeru Epaltza

**Keak** atzera-aurrera zirimolatsuak egiten zituen Adaren bular inguruetan. Anjel Lertxundi

Falangistak **kea** baino faltsuagoak zirela. Joseba Sarrionandia

Nondik ere **kea** heldu baita, han sua bada, dio aspaldiko zuhur hitzak. Michel Oronoz

Auto barruan lau sutontzi zeuden, **ketan** artean. Berria - Gaiak

Argiontzia **ketan** dago -esan zuen Sergeik. Jose Morales

Argazkiaren angelu batean, haragia erretzeko parrilla ikusten da, dena **ketan**. Bernardo Atxaga

Berogailuak egunak daramatza piztuta, eta gela **kez** beteta dago. **Kez** eta jendez gainezka zegoen kobazulo baten sartu ginen. Josu Zabaleta

Atoiontziak, arnasestuka, kotoi itxurako **kezko** bafadak botatzen zituen. Lopez de Arana

**2** (izenondoekin)

"**Ke** handia sortzen da", esan zuen. Bernardo Atxaga

Dena **ke** beltz batek estaltzen zuen, isiltasunaren gorputz. Koldo Izagirre

Dena estaltzen zuen **ke** lodia. Ramon Saizarbitoria

Bertatik **ke** trinkoa isurtzen zen. Agustin Otsoa

Tximiniatik gora **ke** arin bat baizik ez zen ateratzen. Karlos Zabala

Tabakoaren **ke** gozoa isilik arnasten. Harkaitz Cano

**Ke** industriala, kondentsazioaren emaitza eztiarekin nahasten da. Itxaro Borda

**Ke** kiratsezko bafada artean. Juan Garzia

Kea geratu zen gela handian, **ke** gordin eta zirina, **ke** erremina. Felipe Juaristi

Kea baitzuten salatari, **ke** lodia, **ke** beltza, **ke** biribilkaria. Felipe Juaristi

Kea, **ke** gris lodia, **ke** luze zalapartaria barneratu zitzaien sudurretan barrena. Felipe Juaristi

**Ke** zurizko bafadak botatzen. Lopez de Arana

**3** (neurri banakoekin)

Koronelak ahokada bat **ke,** urdina, sabairantz bota zuen. Lopez de Arana

Isilik eta tarteka ahokada bat **ke** boteaz egon ginen. Anjel Lertxundi

Upakada bat **ke** arnastu eta lehentxeago ezpain ertzera hurbildutako edalontzitik trago egin zuen. Unai Iturriaga

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ke**-poteen eztanda. Ramon Saizarbitoria

Ez alarmarik, ez suteen aurkako sistemarik, ez **ke**-detektagailurik. Jon Muñoz

Badaukazue **ke**-atzemangailurik? Harkaitz Cano

**Ke** neurgailuen heina igo behar izan dute. Berria - Harian

Leku horietan, gainera, **ke** estraktoreak jarri beharko dira. Berria - Gaiak

Sinesgaitz begiratzen zion pistolari zerion **ke** hariari. Migel Angel Mintegi

Izan ere, **ke**-bolada ezinago pozoitsu bat zetorren atmosferaren goialdetik, mehatxuka. Josetxo Azkona

Hemen dago, ez da desagertuko **ke**-maluta bat bezala. Oskar Arana

Intsentsu, mirra eta beste hainbat usaingarrizko **ke**-zutabea dirudi. Elizen arteko biblia

**Ke**-hodei eskerga bat zeriola. Lopez de Arana

Kebide garaiek **ke**-zirimolak jailkitzen dituzte airera. Jon Alonso

**Ke** mataza batzuek. Karlos Zabala

Hanka bakarreko izaki txiki bat, **ke**-kiribilez egina zirudiena. Iñaki Mendiguren

Zelatariek **ke**-seinalea igoaraziko zutela hiritik. Elizen arteko biblia

Eztandak urrutiegi dira, eta **ke** orbanak lurrarekin nahasten dira. Josu Zabaleta

Burua jaso eta aurreneko **ke**-ahokada bota zuen. Migel Angel Mintegi

- **Ke**-usaina dago, zerbait ari da gertatzen! Lopez de Arana

**Ke**-inhalazio luzea. Lopez de Arana

Neuronetara bidalitako **ke** dosi egoki batek barne eztabaida oro laino dezake. Unai Iturriaga

**Ke** eta sugar koloreko fraka jantzirik. Jose Morales

· Hodeiak **ke** kolore, helio ukituekin. Iñaki Iñurrieta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure aire kanpaia hain borondatetsuaren despit, azidoen lurrun-**ke** gaitzek gela guztiak hartzen zituzten. Juan Garzia

Eta Norteko burdinazko barrukia azkarki betetzen zuen ikatz-**ke** usain sarkorrak, eztul eragin. Txillardegi

Galbano, onize eta estaktearen erretxinak bezala, intsentsu-**keak** egoitza santuan bezala. Elizen arteko biblia

Zigarro-**kearen** usaina dario. Oskar Arana

Bulego itxurako gela estu hura betetzen zuen zigarro-**ke** grisaxkak gandututa. Alberto Ladron Arana

Zigarreta **kez** beterik zegoen gela handi batean sartu ziren. Ramuntxo Etxeberri

**6** ***jo eta ke*** *(132 agerraldi, 48 liburu eta 50 artikulutan)* *adlag* ik beherago **13.**

-Ari naiz, **jo eta ke** ari naiz, baina oraingoz ez dut zorterik izan. Migel Angel Mintegi

Bi hilabetez, **jo eta ke** aritu zen bere gelan, atsedenik hartu gabe, zurezko kaiola txiki batean sarturik zeukan sagu bat hezten. Jose Morales

Ohoinak ari zaizkigu **jo eta ke** herrian, gauaz edo berdin egunaz; hetsiak diren etxetan edo berdin idekirik, jendea lo delarik. Herria

Hegalei **jo eta ke** eraginez. Jon Muñoz

Nola ibiltzen zen **jo eta ke** lanean, horixe gogoratu nian. Mikel Hernandez Abaitua

Begiak zorrotz jarririk, burua **jo eta ke** lanean. Migel Angel Mintegi

Han ari zen emakumea, **jo eta ke** edariak zerbitzatzen, basoak garbitu eta basoak betetzen. Pedro Alberdi

Asteburuak **jo eta ke** ikasteko aprobetxatzen bainituen. Juan Kruz Igerabide

Fredek eta biok ikusi genuen herenegun gauean Comet klubean, dantzan **jo eta ke**. Mirentxu Larrañaga

Han ari zen emakumea, **jo eta ke** edariak zerbitzatzen, basoak garbitu eta basoak betetzen. Pedro Alberdi

**Jo eta ke** saria lortu arte. Berria - Kirola

· **Jo ta ke** irabazi arte. Michel Oronoz

Oraindik ere polizia beraren atzetik dabil, **jo-ta-ke**. Gotzon Garate

Oraintxe bertan hor egongo dira lur azalaren gerrian, ia 2.000 ekaitz **jo** -ta-ke! Pello Zabala

### 7 *ke adar* (*orobat* ***keadar*** *g.er.*)

Zerua itotzen duen **ke** adarra. Felipe Juaristi

Itsaso barreneko bapore-untzi batek **ke adar** luzea marraztu zuen airean. Anton Garikano

**Ke adar** zenbaitek, zeru ertzetik gora kiribilka, herrixkak eta baserriak oraindik erretzen ari zirela adierazten zuten. Karlos Zabala

**Keadar** beltzak ageri ziren Najafeko hainbat auzuneren gainetik airatzen. Berria - Mundua

Ni hemen azken tximinoa nauk... - **ke adar** luzea jaurti nuen "Ez erre hemen, mesedez" zioen txartelaren aldera. Aingeru Epaltza

### 8 *ke bihurtu*

Ninive, hona ni zure aurka: errauts eta **ke** bihurtuko ditut zure lehoikumeak. Elizen arteko biblia

Baina, erre arren, hainbeste bilete **ke** bihurtzeko eta gero haragi gorriek eragingo diguten sua amatatu ezinik geratzeko, hobe alde egitea. Edorta Jimenez

### 9 *ke laino* (*orobat* ***kelaino*** *g.er.*)

Itsasoko alde hura kez bete zen, eta **ke laino** horrek estali zuen Ainhoa. Felipe Juaristi

Hiria gris mudatu zen, eta alde guztietatik **ke laino** lodiak igotzen ziren zerura, eta su urdinezko olatu batek estali gintuen. Pablo Sastre

Odola eta sua eta **ke-lainoa**. Elizen arteko biblia

Tximiniak ondo tiratzen ez, nonbait, eta **ke laino** bat zegoen gela osoan barreiaturik. Zigarreten **ke-laino** batean bildua eta ezpainetan bere betiko irribarre funsgabea zeukala. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta tren aster hura tximista bezala pasatu zen, ni **kelaino** batek inguratu ninduen. Fernando Rey

Zerumugan, **ke laino** zuri batek flotatu eta Paris hiri lokartua biltzen zuen. Karlos Zabala

· Bost gazteak Stephen's Green-etik zehar paseoan joan ziren **ke-lainoxka** aromatiko batean bildurik. Irene Aldasoro

Zigarro bat piztu zuen, kealdi luze bat bota eta, **ke-lainotxoaren** artetik Ander Irizar

### 10 *ke-lainotsu* (*corpusean* ***kelainotsu*** *soilik*) *izond*

Commendatoreak bazuen-eta bere teoria bat, *Kerr*naren oinarri **kelainotsuen** gainean berak landua. Juan Garzia

### 11 *ke-tegi*

Ni hartu eta **ke** -tegi atzera eraman nindinan. Anton Garikano

### 12 *ke-zulo* (*orobat* ***kezulo, kexilo*** *eta* ***kezilo***) kebidea.

Atzerrira jo zuen don Estebek, berak aspaldi hartan amestutako sumendiaren **ke-zuloaren** aurrean egon nahi baitzuen. Joan Mari Irigoien

Hantxe egon ohi ziren askotan, **ke-zulo** azpian, lurruntsu, laratzetik behera zilintzilika, zezinaren itxuran, baserri hartakoen "azkiñiko" busti ta basaz lohituak. Xabier Mendiguren Elizegi

Sute dohakabe harek bazter guziak zituen suntsitu, eta dorrea **kexilo** alimale baten pare zen gelditu. Herria

Alde batera edo bestera, lanera edo erretegira joaitekoak gara, gauaz garra darion ifernuko **kezilo** hari sugaia emaitekoak su hura kanpalekuaren bizkar gorenean da, dei plazaren gaineko aldean, zorigaitzeko argia, inguruko hamabost bat herrik ikus dezaketena. Marzel Etxehandi

Luze gabe, denak denen aurkako borrokaleku bihurtu zen taberna **kezulo** hura. Felipe Juaristi

### 13 *su eta ke* (*7 agerraldi, 7 liburutan*) *adlag* jo eta ke.

Entzunda nengoen Bizkai osoak **su eta ke** ziharduela armadakoak prestatzen. Edorta Jimenez

Zeharka eserita, adia gona motzaren gainean zeukan ispilutxoan jarririk, **su eta ke** ziharduen bekainetako ile bihurriren batekin. Migel Angel Mintegi

Egoitza jendez gainezka aurkitu zuen, eta haren ezagun bat, Jean-Martin Monduteguy, mahai gainera hupaturik ari zen laster gauzatuko ziren aldakuntzen aipatzen, **su eta ke**. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **jo eta ke** (148); **jo ta ke** (43); **ke adar** (8); **ke adarrak** (4); **ke artean** (16); **ke artetik** (6); **ke bafada** (4); **ke bafadak** (4); **ke beltz** (16); **ke beltza** (16); **ke beltzezko** (4); **ke bihurtu** (4); **ke eta sugar** (9); **ke gutxiago** (4); **ke handia** (5); **ke hari** (4); **ke hodei** (11); **ke laino** (27); **ke laino bat** (5); **ke lainoa** (9); **ke lainoak** (6); **ke lanean** (15); **ke lodia** (6); **ke luze** (5); **ke mordo** (6); **ke pixka** (5); **ke pixka bat** (4); **ke poteak** (7); **ke usaina** (6); **ke zirimola** (4); **ke zuria** (9); **ke zurrunbilo** (4); **su eta ke** (6)
>
> **ahotik kea** (5); **kea airean** (8); **kea airean bezala** (5); **kea arnasteagatik** (7); **kea arnastu** (7); **kea atera** (4); **kea ateratzen** (8); **kea balitz bezala** (4); **kea bezain** (4); **kea bezala** (12); **kea bota** (6); **kea botatzen** (7); **kea dariela** (4); **kea dario** (4); **kea dariola** (15); **kea eta** (47); **kea eta hautsa** (6); **kea ikusi** (10); **kea ikusten** (5); **kea irensten** (5); **kea irentsi** (6); **kea irteten** (6); **kea saltzen** (8); **kea saltzen ari** (6); **kea zeriela** (6); **kea zerien** (6); **kea zeriola** (26); **kea zerion** (14); **oinetan kea** (4); **sua eta kea** (9); **suaren kea** (4); **tabakoaren kea** (10); **tximinietako kea** (4); **zigarroaren kea** (12); **zigarroen kea** (9)
>
> **keak bezala** (5); **keak itota** (4); **tabakoaren keak** (6); **zigarroaren keak** (4)
>
> **zigarroaren keari** (4)
>
> **ketan zegoen** (5); **labe bat ketan** (4)
>
> **kez bete** (7); **kez bete zen** (3); **kez beteriko** (6); **kez beteta** (5); **kez betetzen** (4)

---

## keadar ik **ke 7**.

---

## kealdi 1 *iz* ke botaldia.

Zigarro bat piztu zuen, **kealdi** luze bat bota eta, ke-lainotxoaren artetik, lasai-lasai begiratu zidan. Ander Irizar

Gizon motz eta petral samar bat zebilen batetik bestera argazkiak ateratzen kamera beltz handi batekin: purpura-koloreko **kealdiak** botatzen zituen bristada itsugarri bakoitzean. Iñaki Mendiguren

Inguruetako hainbat tokitatik sortutako sute eta **kealdi** ugari ikusteak harritu zituen. Agustin Otsoa

### 2 (hitza elkartuetan)

Pipa- **kealdi** batek eraman zituen auzo haiek berek sasoiko gizon bat deabruaren morroitzat jo, eta, besterik gabe, Samuel Wardwel sasoiko gizona urka-bilurretik zintzilikatzera. Ikatz- **kealdi** bat sudurrera etorri zitzaion. Anjel Lertxundi

---

## keba (*orobat* ***ke-ba***) *interj*

Zer egin? eutsi diezaioke denari? **keba**! Pello Zabala

Baina, zenbat? 4 mila? **keba**, askoz gehiago! Pello Zabala

- **Keba**, neska, oso ondo hago oraindik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ke-ba**! esan zuen Txemiñek, hori Amabiko ostatuan urteko pitarra probatzen gelditu duk Tomasekin-eta! Pablo Sastre

Baina **keba**. Patziku Perurena

**Ke-ba**! hor ez dira sartuko. Pablo Sastre

---

**kebab** **1** *iz* arkume haragi eta barazki zatiak txandakatzen diren turkiar txitxi-burruntzia.

**Kebab** bat jateko gelditu ginen, eta jatetxe txiki hartako ugazabak ez zigun dirurik hartu nahi izan; iheslariak ginela konturatu zen, gainbehera jasandako kurduak. Juan Kruz Igerabide

Bere burua urkatuen artean ikusten zuen, Askatasunaren Plazan, **kebab** jaten ari zen jendetzaren erdian. Juan Kruz Igerabide

**kebab** bana jatera gonbidatzen dit. Edorta Jimenez

Haragi gazi-gozoak, **kebaba,** fruta eta barazki exotikoen erabilera. Edorta Agirre

**2** (hitz elkartuetan)

Zuriz janzten da sukaldari profesionalen antzera eta berak ebakitzen ditu **kebab**-xerra meheak suaren inguruan bueltaka ari den haragi-puska handitik. Jon Arretxe

Gizon bi hasi dira **kebab**-döner-a. Jon Arretxe

Dena den, alboko **kebab**-toki txikian gelditu behar izan dut. Jon Arretxe

Berlingo harresiaren ostean hona aldatu zen lehenengo **kebab** saltokia. Edorta Jimenez

---

**kebekiar** **1** *izlag* Kebek-koa, Kebek-ki dagokiona.

Laurier Turgeon **kebekiar** etnologoak eskainiko du Baionako Mattin Megadendan mintzaldi bat. Herria

Diane Tell kantari **kebekiarrak** gure elizan eskaini zuen kantaldi pollitaz. Herria

Margolari hau **kebekiarra** da, haatik Euskal Herrian bizi da hogoi urte huntan. Herria

• **2** *iz* Kebek-ko herritarra.

Ikusi ditugu Euskal errorik ez duten **Kebekiarrak** gure hizkuntza biziki ontsa menperatzen dutenak, beren adixkide Euskalduneri esker. Herria

---

**kebide** *iz* tximinia.

Ibaiaren beste ertzean, **kebide** garaiek ke-zirimolak jailkitzen dituzte airera. Jon Alonso

Ke-lainoak hasten dira amiantozko hodiz egindako **kebidetik** gora. Oskar Arana

Aldiz enpresak berak lantegiko **kebidetan** egin du kontrola. Herria

---

**kebrado** *iz* zatikia.

Matematika heltzen zen eta zatikien batuketa ikasten genuen, **kebradoak,** eta irakasleak kartaboiaz arbela jotzen zuen daunba, eta horrela esnatzen ginen denak. Joseba Sarrionandia

---

**kedar** *(orobat* ***gedar*** **1** *iz* osorik erretzen ez den zerbaitek ekoizten duen gai beltza, zatiki txikiz osatua.

Ke, **kedar,** harri zahar, dinamita urrin eta hauts artean atentatuaren biktimak bilatu zituzten. Itxaro Borda

Ke beltzak eragindako **kedar** lodia. Lutxo Egia

Behin, neguan, tximiniako **kedarrak** su hartu zuen, eta. Jose Morales

Ikatz-hautsa edo **kedarra** nahasten zaio gomari. Irene Aldasoro

Bidexka batetik, **kedarrak** eta hezetasunak beztutako harrizko bi etxeren artetik. Josu Zabaleta

Jaiki egin beharko nuke, leihoa zabaltzera sikiera: hemen, **kedarraren** usaina aditzen da, ustelarena, itxiarena. Eskarne Mujika

Morroilo gainean zegoen **gedarraren** azterketa zehatzak garbi erakutsi zuen atea ez zegoela morroilotua erreketa gertatu zenean. Gotzon Garate

Gizonak **kedarrez** estalia zuen aurpegia. Koro Navarro

**Kedarrez** belztutako aurpegia. Lopez de Arana

Zapatak **kedarrez** beltzu. Patxi Ezkiaga

Sutegi handi bat zegoen, hiru zuloz hornitua, non hiru eltze mozkotek ikatz **kedarrez** belzturiko ipurdiak sartzen baitzituzten. Karlos Zabala

**2** (erkaketetan)

**Kedarra** baino beltzago dira. Elizen arteko biblia

**3** (neurri banakoekin)

-Har ezazue labetik eskua bete **kedar** eta jaurti dezala Moisesek zerurantz Faraoiaren aurrean. Jose Antonio Mujika

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kedar** usaina antzeman du. Pello Lizarralde

Eguzki betean ikusten den **kedar**-arrastoak, ordea, argi gehiago islatzen du egun goibel batean ikusten den klarion puskak baino. Irene Aldasoro

Haizeak bultzatutako **kedar** hondarrak ikusi ditu zeru herdoildu baten pean. Pello Lizarralde

Lumak bezain arinak, **kedar**-izpiek gurinaren gaineko platera estaltzen zuten. Lopez de Arana

Bekokitik etengabe **kedar** eta izerdi tantoak labaintzen zitzaizkion betaurrekoetara. Urtzi Urrutikoetxea

Diesel motorrek sortutako **kedar** partikulek dendrita zelulei kalte egiten diela frogatu baitute. Berria - Gaiak

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere artilezko jaka **kedar**-kolorea erabiltzen zuen. Fernando Rey

**6** kedar izpia.

Zerumugan **kedarrak** ageri dira, nonahiko suteak direla eta. Javi Cillero

**Kedar** distiratsuak ageri ziren lurrun haien erdian. Karlos Zabala

**7** ***kedar-beltz***

Hori bezain ona izango da ardo-kondarrekin egiten dena: lehortu eta labean erre ondoren kolarekin nahastu eta obran ematen bada, **kedar**-beltzaren leuntasuna emango dio kolorearikoloreari; eta zenbat eta hobea den erabiltzen den ardoa, orduan eta hobea izango da ateratzen den beltza, **kedar**-beltzaren pareko ez baizik eta indigoa imitatzeko gai ere izateraino. Santiago Iruretagoiena

**8** ***kedar-garbitzaile*** *iz* kebideetatik kedarra kentzen duen langilea.

**Kedar** -garbitzaile zikina! Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ugerra eta kedarra (8)
> hautsez eta kedarrez (3)

---

## kedarreztatu *izond* kedartua, kedar geruza bat duena.

Zeruertz **kedarreztatuaren** kontra, gabarrak, baporeak, zentral elektrikoak, ontziraleku estaliak, zubiak. Lopez de Arana

---

## kedartar *iz* Kedarren familiako kidea.

**Kedartarren** arkulari ausartetarik, bakar batzuk besterik ez dira gelditukо. Elizen arteko biblia

---

## kedartsu *izond* kedarrez betea.

Garai hartako garraiotren **kedartsu** eta izozgiro haietako batek Turinera ninderaman bitartean. Juan Garzia

Mataza korapilatsuko istorioak harilkatzen jarduten zuten, luze-zabal, hiriko aldiri **kedartsuetako** zenbait eraikin txukun eta karraturen barruan jazotzen zirenei buruz. Mirentxu Larrañaga

---

## kedartu *izond* kedarrez estalia. ik **kedarreztatu**.

Esku **kedartuak** trabesetan garbituz. Josu Zabaleta

Zerbitzariak alde egin zuenean, ikatz-saltzailea mahai gainean hasi zen bere hatz **kedartuekin** kolpe joka. Koro Navarro

Hona Casarsako lehenengo hormak, **kedartuak,** harrizkoak, errepide alkaternaztatuaren ondoan. Josu Zabaleta

Bapore zuri lodi bat, tximinia hori **kedartua** zeukana. Lopez de Arana

---

## kefi *iz* beduinoen burukoa.

Polizien J7ak huxtuka eta huxtuan zebiltzala larderiatsu, **kefiez** apaindu langile isil apurren ertzetik pasatuz. Itxaro Borda

---

## kefir *iz* jogurtaren antzeko janaria, alkohola eta azido karbonikoa dauzkana, Kaukaso aldekoa.

Esnea hartzituz lortzen den edari garratza eta gasduna da **kefirra**, jogurtaren antzekoa. Berria - Gaiak

Araketa batean **kefirra** egiteko onddoa kendu egin zioten preso bati. Jokin Urain

Probiotikoak, berriz, esnekietan egoten dira: jogurtean, **kefirrean**... Berria - Gaiak

---

## kehatar *iz* Kehaten familiako kidea.

**Kehatarren** taldea. Elizen arteko biblia

Lebiren leinuaren izen-bilketa senitarteka: Gerxonengandik gerxondarrak, Kehatengandik **kehatarrak** eta Merarirengandik meraritarrak. Elizen arteko biblia

**Kehatarren** senitarteburua Uzielen seme Elitzafan zen. **Kehatarren** ardurapean zeuden kutxa, ogien mahaia, argimutila, aldareak, santutegiko zerbitzuan erabiltzen ziren tresnak eta etxola bitan banatzen zuen kortina. Elizen arteko biblia

---

## keinada *(orobat **kinada**)* **1** *iz* keinua.

Ohartzeke, gelditzeko **keinada** bat egin nuen. Josu Zabaleta

Forentsearen bertze aldean, Tomasek **keinada** egin zidan; "hau duk hau, pagotxa!". Aingeru Epaltza

Eskuin besoaz tarteka luzaketa eta **keinadak** egiten zituen; haizetakoa konpultsioz ukitzen zuen bat-batean bi hatz erakusleez. Xabier Olarra

Etengabeko zartada eta **keinada** bat-batekoak egiten zituen eskuez, bere sorbalda xahutu eta esterilizatu gaberantz. Xabier Olarra

Horretarako daude belarriak zerebroaren **kinaden** menpe. Unai Iturriaga

Gure ekintzak informazio ohi deritzen bulkada edo **kinadekiko** erantzunak izaten direla. Joxe Austin Arrieta

**2** (hitz elkartuetan)

Dena dela, zalantzaren bat izango bazenu, nik begi **keinada** batez seinalatuko nizuke... Patxi Zubizarreta

Mehatxu **keinadak**. Txillardegi

---

## keinadaka *adlag* keinadak eginez.

Itxura txukun-txukunekoa zen [...] baina, bat-batean, **keinadaka** hasi zen, lurrera eskua luzatzen, edo jauzika edo astinduka. Xabier Olarra

Edozein gauzari **keinadaka** eta usnaka ibiltzea edo gauzak bat-batean jaurtitzea. Xabier Olarra

---

## keinadizo *iz adkor* keinua.

Pablok gurutzea aurrez aurre duen banpiroaren babes-ihes- **keinadizoak** egiten zituen. Joxean Sagaztizabal

Egiten zituen imintzio eta **keinadizoekin,** [...]. Joxean Sagaztizabal

---

## keinatu, keina, keinatzen *(orobat **kinatu** g.er. eta **kiñatu** g.er.)* **1** du *ad* zerbait egingo delako keinua egin.

Erantzutera **keinatzen** da, baina jenerala aurreraten zaio. Xabier Olarra

-Larrutik ordainduko duala erran diat, eta larrutik ordainduko duk! **-keinatu** ez ezik jaurtiki ere egiten zuen gizon baten aitzinean zegoen anaia. Joan Mari Irigoien

Badira azpi-eztenak, sugar hozien sorburu den zernahiri min egitera **kinatzen** dutenak. Xabier Amuriza

**2** arma bat helburuari begira jarri.

Dindilizka **keinatu** zuen: tiroa naturan galdu zen; bigarrenak ere airea baizik ez zuen zulatu; hirugarrenekoaz azkenean sugeari lepoa urratu zion. Itxaro Borda

Balezta hark nire bihotza **keinatzen** zuen, eta nire pistolak haren bihotza. Aingeru Epaltza

Ehiztari printzipalak zakurrez inguraturiko orein bati **keinatzen** zion bere baleztarekin. Aingeru Epaltza

Neska zarpatsu talde baten atzetik oldartu zen, bere harri-jaurtigailua, kargatu gabe, **keinatzen** ziela. Irene Aldasoro

Halako batean ikusi nuen, oihaneko soilune batean, gure oinezkoetariko bat, bere pikaz etsai baten bizkarra **keinatzen**. Aingeru Epaltza

**3** ***begia keinatu***

Ronek irribarre egin eta begia **keinatu** zion. Iñaki Mendiguren

-Honeydukesen ikusi arte! -esan zion Georgek, begia **keinatuz**. Iñaki Mendiguren

“Ez zaldi gainean ibiltzen", esan zion, guri begia **keinatuz**. Bernardo Atxaga

-Bai, eta aise ulertuko dun zergatia -begia **keinatu** nion-. Anjel Lertxundi

· Kardinalak begi bat **keinatu** zigun guztioi, usapala sarean zuela adierazteko. Anjel Lertxundi

Aloiz printzeari eta haren laguntzaileari begiratu zien, eta begi bat **keinatu**. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begi bat keinatu** (3); **begia keinatu** (16); **begia keinatu zidan** (8); **begia keinatu zion** (5)
> **atu** (3); begia kiñ

---

**keinatze** *iz* keinua egitea.

Bitarte horretan, asko jota, agurren bat urrunetik edo begiratu gurutzatu batzuk, **keinatze** eta guzti akaso. Xabier Mendiguren Elizegi

---

keinka ik **kinka**.

---

**keinu** *(orobat **keiñu** g.er. eta **kiñu** g.er.)* **1** *iz* gorputzaren eta bereziki aurpegiaren edo eskuen higidura, barne egoera edo nahiren bat adierazten duena. ik **imintzio; seinale.**

Haren hitz bakar bat, **keinu** bakar bat, eta nire aitaren Brno fusil zaharra tiro egiteko prest egongo zen. Juan Kruz Igerabide

Zenbait **keinu egin,** zenbait hitz esan beharra zegoen. *ik beherago* 6. Monika Etxebarria

Haria ez ohi da hagitz sendoa izaten: lanaren inguruko broma, **keinu** eta zirikadak baizik ez, arruntean, edo beharra amaitu ondoko tragoxka arinen bat, bakanagoetan. Aingeru Epaltza

-Gorputzaren mintzoa, **keinuak,** lehen mailako baliabideak ditugu era berean, deiktikoekin batera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Erretorika klasikoan, diskurtsoaren mintzotik kanpoko osagaiak **-keinuak,** mugimendua, ahotsaren tonua eta intentsitatea, etenen kudeatzea, eta abar- aztertzen ziren gunea zen *actioa*. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Horixe da, batez ere, aldatu dena, nire **keinuak** alegia. Monika Etxebarria

Anaiaren **keinu** baten zain nengoen, poltsari heltzeko. Juan Kruz Igerabide

**Keinu** hark salbatu zion bizia. Alberto Ladron Arana

Baina Ivan Ogareffek geldiarazi zituen **keinu** batez. Karlos Zabala

Ahotsa beti gora, **keinua** beti prest, ukabilak saihetsetan, kai aurreko jende ahozikinaren katixima ahoan. Karlos Zabala

**Keinua** urduriegia izan da. Monika Etxebarria

Eta aurpegiaren **keinua** aldatzen zuelarik: [...]. Txillardegi

Maisuaren **keinuak** imitatuz. Juan Kruz Igerabide

Ez ditu amaren **keinuak** ikusi. Anjel Lertxundi

Hauxe zen **keinuaren** teknika: bekainak goratu eta bekokia zimurtu ezer esan gabe. jarrera aldatu gabe, **keinuen** bidez adierazi dio Abeli isilik hurreratzeko. Joseba Sarrionandia

Halako oldarrez abiarazi zituzten [zaldiak], beren ahotsaz, **keinuaz** eta ezproiaz akuilatuz, non [...]. Josu Zabaleta

Nitaz arduratzen zelako **keinuarekin**. Oskar Arana

**2** (izenondoekin)

**Keinu** zatarra zen, desatsegina. Unai Elorriaga

**Keinu** urduri batez, aitak sorbalda estutu zidan. Alberto Ladron Arana

**Keinu** gogogabe batez adierazi nuen neure eznahia. Aingeru Epaltza

-Pepe Mitxelena **-keinu** luze eta bizkor batez estutu zidan eskua. Alberto Ladron Arana

Mitxelenak bidea erakutsi zidan **keinu** adiskidetsu batez. Alberto Ladron Arana

**Keinu** soilaz azalpenak ematea alferrikakoa izango zela ohartu zen. Sonia Gonzalez

Haren aurpegi karratuan betiko **keinu** erabakiak distiratzen zuen: [...]. Alberto Ladron Arana

Nire adiskideak **keinu** bakemaile batez zabaldu zuen eskua. Alberto Ladron Arana

Andre arrotz haren **keinu** nabasi eta barrabasegiak gizon gaztea doi bat harritu zuen. Elena Touyarou

**Keinu** axolagabe bat marraztu zuen gero eskuineko hatzez, euliak uxatzen ari balitz bezala. Anjel Lertxundi

Emakumeak azkenean bostekoa luzatu zidan, lekuz kanpo zirudien **keinu** behartu batez. Alberto Ladron Arana

Tom ere haren iritzi bereko agertu zen buruaz baiezko **keinu** isil bat eginez. Oskar Arana

**3** (izenlagunekin)

Mutilak burlazko **keinu** batez begiratu eta soinak altxatzen ditu. Antton Olano

Ustekabeko **keinu** batez, Del Vallek mutilaren eskuari tinko heldu zion. Alberto Ladron Arana

Haren aurpegia amorruzko **keinu** beldurgarri batez bihurritu zen. Alberto Ladron Arana

Martinek harridurazko **keinu** indarge batez begiratu dio Joseri. Anjel Lertxundi

Oharkabeko **keinu** batez, buru gainean kolokan zeraman kapelatxo barregarrira joan zitzaion eskua. Alberto Ladron Arana

Gogo txarrezko **keinu** batez, atea zabaldu zidan. Alberto Ladron Arana

Aitak barka eskeko **keinu** batez altxatu zituen eskuak. Alberto Ladron Arana

Buruarekin baiezko eta ezezko **keinu** bakan batzuk, baina hitzik ez, hotsik ez, mihirik erabiltzeko ahaleginik batere ez. Oskar Arana

Ageriko **keinuak** otoitzean erabat ohikoak ziren eta ez zuten itxurakeri kutsurik. Askoren artean

Irribarretxo adierazgarriak eta konplizitatezko **keinuak** baino ez dira azaldu haien aurpegietan, gehiegi hitz egiteko beldur balira bezala. Jon Arretxe

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gorreria goiztiarrak eta **keinu** -hizkera erabiltzeak, berriz, berrantolaketa erabatekoak ekar ditzakeela garunean. Xabier Olarra

Ongi argitutako gauza da, jaiotzetiko gorren kasuan **(keinu** -hiztun baldin badira, bereziki), ikusmenerako birmoldatzen direla garuneko entzumen-aldeetako batzuk. Xabier Olarra

Irriño batez berarekin jateko **keinu** -gonbita egin dio bisitariari. Jose Angel Irigaray

Eta gero **keinu** txapelketak egiten genituen. Pello Lizarralde

Gaia entzun eta kantatzen hasi bitarteko tartea izaten da **keinu** -dentsitate biziena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Baietz adierazi nahi izan zien Romanek, **keinu** bidez hark ere, eta atzekoek ikusteko moduan: [...]. Inazio Mujika Iraola

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Osaba Joanikotek ele gozo batzuk eskaini baitzizkion eta begi-**keinu** bat neskameetarik bati, Maddalen zeritzanari. Joan Mari Irigoien

Aurpegi- **keinuak** eta beso-imintzio esajeratuak. Patxi Iturritegi

Hatz **keinu** batez garagardo gehiago eskatzen zioten blusa loreduna eta gizonezko txanoa zeramatzan emakume mutur-luze bati. Koro Navarro

Justinari sartzeko agindu zion sarjentuak, buru-makur eta esku- **keinu** gehiegizko eta desegokiz. Felipe Juaristi

Hark, ordea, esaldia bukatzera akuilatu zuen buru- **keinu** batez. Jon Muñoz

Sorbaldak kizkurtu eta lepo- **keinu** berezia egiteko joera zuen. Harkaitz Cano

Maisu **keinu** batez jarduna ez hausteko eskaturik. Koldo Izagirre

Olatzek agur **keinu** azkarra egin zion eskuaz. Harkaitz Cano

Argi- **keinu** bizi etengabeak eragiten zituen eguzkiaren begi jolastietan. Anjel Lertxundi

Agindu- **keinu** batez billetea galdegin zidan. Aingeru Epaltza

Goraipamena merezi duen apaltasun **keinua**. Askoren artean

Erromatar zenturioiak gaitzespen **keinu** batez begiratzen zidala ohartu nintzen. Alberto Ladron Arana

Lekuz kanpokoa zirudien bake **keinu** batek hartu zuen andrearen aurpegia. Alberto Ladron Arana

Orain konturatzen da badirela halako gizarte- **keinuak**. Xabier Olarra

## 6 ***keinu egin*** ik **keinukatu**.

Egiak **keinu egiten** ote dio gizonari, edertasun eta artearen bidez? Hortaz taxi bati **keinu egin** zion. Piarres Aintziart

**Keinu egin** zidan ni ere abia nendin. Bernardo Atxaga

Kaperara noa eta aita abadeari **keinu egiten** diot, atera dadin. Marzel Etxehandi

Oso zurbil zegoen, eta **keinu egiten** zuen begiekin. Bernardo Atxaga

Ateneak abisua ematen didanean, nik **keinu egingo** diat buruaz. Juan Kruz Igerabide

Hark isiltzeko **keinu egin** zien eskuaz. Elizen arteko biblia

Ijito neska haietako bati eskuarekin **keinu egin** zion etortzeko, eta gero bigarren bati, eta hirugarren bati. Matías Múgica

Ez naiz gauza begi bakarraz **keinu egiteko,** ez oraindik. Mirentxu Larrañaga

Paulok eskuaz **keinu egin** eta honela hasi zuen bere defentsa: [...]. Elizen arteko biblia

-Aizu, begira gizon hari! -esan zuen besteak bat-batean, buruaz aurreko erakusleihora **keinu eginez**. Iñaki Mendiguren

Amak, buru- **keinu eginez** aitari, berak har dezala. Anjel Lertxundi

Berriro sugeari begiratu eta berak ere begi-**keinu egin** zion. Iñaki Mendiguren

## 7 (determinatzaileekin)

Edwinek oinaze **keinua** eginen du. Joseba Sarrionandia

Topa **keinua** egiten zidala basoa goraturik. Inazio Mujika Iraola

Txaplik komunerako **keinua** egin zion Mikeli, eta biek batera alde egin zuten. Unai Iturriaga

Mutilak baiezko **keinua** egin zuen buruaz. Felipe Juaristi

Mutiko beltz batek maleten bila jaisteko **keinua** eginen dizu kaitik. Joseba Sarrionandia

Popatik! **keinua** egin zion mutilak Umbertori. Anjel Lertxundi

Komisarioak **keinu** bat egin zien Sanchez eta Menendezi eta barrura abiatu ziren hiruak. Aritz Gorrotxategi

Nerabeak **keinu** lizunak egiten zizkidan, *hator, hator!,* esaka. Anjel Lertxundi

**Keinu** zehaztugabea egin dut. Monika Etxebarria

**Keinu** bat egin zion Ruche jaunak Jonathani. Jon Muñoz

Hura erran bezain sarri, **keinu** itsusi bat egin nion. Joan Mari Irigoien

**Keinu** abegikor bat egin baitzidan. Joan Mari Irigoien

Nazka **keinu** bat egin du. Xabier Paya

Mespretxu **keinu** agerikoa egin nuen. Aingeru Epaltza

Tom ere haren iritzi bereko agertu zen buruaz baiezko **keinu** isil bat eginez. Oskar Arana

Eskuz damuzko **keinu** bat egiten niola. Joan Mari Irigoien

Noiz eta begi **keinu** limurtzaile bat egin baitzidan. Joan Mari Irigoien

Heydrichek **keinu** gozakaitz bat egin zuen, Müllerren oroipen desatsegina uxatu nahiko balu bezala. Alberto Ladron Arana

Nik **keinuak** egin arren, haiek ez ninduten ikusi. Juan Luis Zabala

Begi, oin eta eskuz **keinuak** egiten ditu engainatzeko. Elizen arteko biblia

Fionak egin ohi dizkizun **keinuak** egin dizkizute. Lutxo Egia

## 8 ***keinuz*** *adlag*

Ezin zuenez arnasa hartu eta hitz egin, **keinuz** adierazi zien etxekoei Venosara joan nahi zuela. Askoren artean

Hitz egin nion, baina **keinuz** erantzun zidan. Josu Zabaleta

Eta bururatzean *Kaput!* **keinuz** erakusten daukula arbola moztu bat nola erortzen den. Marzel Etxehandi

**Keinuz,** mutuek ohi dutenez, ostatua eskatu zion. Askoren artean

Urte asko eman zituen gauzak nola eskatzen ziren ikasi gabe, ezta **keinuz** edo seinalatuz ere. Xabier Olarra

Entzun -eta, hitza **keinuz** laguntzen zuela, segitu zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

· Buru guztiak jiratu ziren, gaitzespeneko **keinuz**. Jon Muñoz

Eta esku **keinuz** ez hitz egiteko eskatu zion Joanesi. Felipe Juaristi

Buru **keinuz** ukatu zuen Gregoryk. Iñaki Zabaleta

Autobusa argi **keinuz** beteriko kaleetan zehar zihoan. Iñaki Zabaleta

Isilean itxaron zuten besteek, harik eta Fionnek, garaipen- **keinuz,** letagina airean altxatu arte. Joanes Urkixo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**agur keinu bat** (6); **baiezko keinu** (7); **baiezko keinu bat** (5); **begi keinu** (76); **begi keinu bat** (36); **begi keinu batez** (5); **begi keinu egin** (6); **buru keinu** (26); **buru keinu batez** (12); **buruarekin keinu** (10); **buruarekin keinu bat** (7); **buruaz keinu** (5); **egindako keinu** (7); **elkartasun keinu** (7); **esku keinu** (33); **esku keinu batez** (15); **eskuarekin keinu** (5); **eskuaren keinu** (10); **eskuaren keinu batez** (5); **eskuaz keinu** (11); **etsipen keinu** (9); **etsipen keinu bat** (5); **harridura keinu** (6); **isiltzeko keinu** (5); **keinu adierazgarri** (7); **keinu arin** (6); **keinu azkar** (10); **keinu azkar bat** (5); **keinu bakar** (9); **keinu bakarra** (5); **keinu bat egin** (243); **keinu bat eginda** (5); **keinu bat**

eginez (21); keinu bat egiten (25); keinu batez adierazi (5); keinu bera (5); keinu bidez (7); keinu bitxi (5); keinu egin (139); keinu egin zion (38); keinu egin zuen (21); keinu eginez (34); keinu egiten (33); keinu etsi (5); keinu gozakaitz (6); keinu hura egin (5); keinu indartsu (5); keinu itsusi (7); keinu itsusi bat (5); keinu labur (6); keinu lizun (6); keinu lizunak (7); keinu nabarmenak (5); keinu txiki (14); keinu txiki bat (11); keinu ugari (5); keinu urduri (6); keinu urduriak (5); keinu zehaztugabe (5); konplizitate keinu (10); konplizitate keinu bat (5); nazka keinu (5); onespen keinu (7); onespen keinu bat (5)

abiatzeko keinua (5); abiatzeko keinua egin (5); agur keinua (8); agur keinua egin (6); alde egiteko keinua (6); altxatzeko keinua (9); altxatzeko keinua egin (7); ateratzeko keinua (9); ateratzeko keinua egin (6); aurkezpen keinua (15); aurkezpen keinua eginez (15); baiezko keinua (31); baiezko keinua egin (27); begi keinua (28); begi keinua egin (15); begi keinua eginez (5); bere keinua (5); botatzeko keinua (6); egin zuen keinua (5); eginiko keinua (5); eramateko keinua (8); erritozko aurkezpen keinua (13); esertzeko keinua (9); esertzeko keinua egin (7); eskatzeko keinua (5); etsipen keinua (6); etsipen keinua egin (5); ezezko keinua (18); ezezko keinua egin (12); gelditzeko keinua (9); gelditzeko keinua egin (7); hartzeko keinua (8); hartzeko keinua egin (7); hurbiltzeko keinua (12); hurbiltzeko keinua egin (11); isiltzeko keinua (6); jarraitzeko keinua (7); jarraitzeko keinua egin (6); joateko keinua (10); joateko keinua egin (8); jotzeko keinua (6); keinua egin (401); keinua egin nion (15); keinua egin zidan (35); keinua egin zion (62); keinua egin zuen (108); keinua eginez (72); keinua eginik (7); keinua egiten (52); keinua errepikatu (5); pasatzeko keinua (6); sartzeko keinua (14); sartzeko keinua egin (12); zutitzeko keinua (5)

begi keinuak (9); elkartasun keinuak (5); hitzak eta keinuak (7); keinuak egin (34); keinuak eginez (32); keinuak egiteko (5); keinuak egiten (50); keinuak egiten zituen (12)

keinuen bidez (11); keinuen bitartez (6); keinuen hizkuntza (11); keinuen hizkuntzan (7)

---

**keinu** *(orobat* ***keiñu*** *g.er. eta* ***kiñu*** *g.er.)* **1** *iz* gorputzaren eta bereziki aurpegiaren edo eskuen higidura, barne egoera edo nahiren bat adierazten duena. ik **imintzio; seinale**.

Haren hitz bakar bat, **keinu** bakar bat, eta nire aitaren Brno fusil zaharra tiro egiteko prest egongo zen. Juan Kruz Igerabide

Zenbait **keinu egin,** zenbait hitz esan beharra zegoen. *ik beherago* 6. Monika Etxebarria

Haria ez ohi da hagitz sendoa izaten: lanaren inguruko broma, **keinu** eta zirikadak baizik ez, arruntean, edo beharra amaitu ondoko tragoxka arinen bat, bakanagoetan. Aingeru Epaltza

-Gorputzaren mintzoa, **keinuak,** lehen mailako baliabideak ditugu era berean, deiktikoekin batera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Erretorika klasikoan, diskurtsoaren mintzotik kanpoko osagaiak **-keinuak,** mugimendua, ahotsaren tonua eta intentsitatea, etenen kudeatzea, eta abar- aztertzen ziren gunea zen *actioa*. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Horixe da, batez ere, aldatu dena, nire **keinuak** alegia. Monika Etxebarria

Anaiaren **keinu** baten zain nengoen, poltsari heltzeko. Juan Kruz Igerabide

**Keinu** hark salbatu zion bizia. Alberto Ladron Arana

Baina Ivan Ogareffek geldiarazi zituen **keinu** batez. Karlos Zabala

Ahotsa beti gora, **keinua** beti prest, ukabilak saihetsetan, kai aurreko jende ahozikinaren katixima ahoan. Karlos Zabala

**Keinua** urduriegia izan da. Monika Etxebarria

Eta aurpegiaren **keinua** aldatzen zuelarik: [...]. Txillardegi

Maisuaren **keinuak** imitatuz. Juan Kruz Igerabide

Ez ditu amaren **keinuak** ikusi. Anjel Lertxundi

Hauxe zen **keinuaren** teknika: bekainak goratu eta bekokia zimurtu ezer esan gabe. jarrera aldatu gabe, **keinuen** bidez adierazi dio Abeli isilik hurreratzeko. Joseba Sarrionandia

Halako oldarrez abiarazi zituzten [zaldiak], beren ahotsaz, **keinuaz** eta ezproiaz akuilatuz, non [...]. Josu Zabaleta

Nitaz arduratzen zelako **keinuarekin**. Oskar Arana

**2** (izenondoekin)

**Keinu** zatarra zen, desatsegina. Unai Elorriaga

**Keinu** urduri batez, aitak sorbalda estutu zidan. Alberto Ladron Arana

**Keinu** gogogabe batez adierazi nuen neure eznahia. Aingeru Epaltza

-Pepe Mitxelena **-keinu** luze eta bizkor batez estutu zidan eskua. Alberto Ladron Arana

Mitxelenak bidea erakutsi zidan **keinu** adiskidetsu batez. Alberto Ladron Arana

**Keinu** soilaz azalpenak ematea alferrikakoa izango zela ohartu zen. Sonia Gonzalez

Haren aurpegi karratuan betiko **keinu** erabakiak distiratzen zuen: [...]. Alberto Ladron Arana

Nire adiskideak **keinu** bakemaile batez zabaldu zuen eskua. Alberto Ladron Arana

Andre arrotz haren **keinu** nabasi eta barrabasegiak gizon gaztea doi bat harritu zuen. Elena Touyarou

**Keinu** axolagabe bat marraztu zuen gero eskuineko hatzez, euliak uxatzen ari balitz bezala. Anjel Lertxundi

Emakumeak azkenean bostekoa luzatu zidan, lekuz kanpo zirudien **keinu** behartu batez. Alberto Ladron Arana

Tom ere haren iritzi bereko agertu zen buruaz baiezko **keinu** isil bat eginez. Oskar Arana

**3** (izenlagunekin)

Mutilak burlazko **keinu** batez begiratu eta soinak altxatzen ditu. Antton Olano

Ustekabeko **keinu** batez, Del Vallek mutilaren eskuari tinko heldu zion. Alberto Ladron Arana

Haren aurpegia amorruzko **keinu** beldurgarri batez bihurritu zen. Alberto Ladron Arana

Martinek harridurazko **keinu** indarge batez begiratu dio Joseri. Anjel Lertxundi

Oharkabeko **keinu** batez, buru gainean kolokan zeraman kapelatxo barregarria joan zitzaion eskua. Alberto Ladron Arana

Gogo txarrezko **keinu** batez, atea zabaldu zidan. Alberto Ladron Arana

Aitak barka eskeko **keinu** batez altxatu zituen eskuak. Alberto Ladron Arana

Buruarekin baiezko eta ezezko **keinu** bakan batzuk, baina hitzik ez, hotsik ez, mihirik erabiltzeko ahaleginik batere ez. Oskar Arana

Ageriko **keinuak** otoitzean erabat ohikoak ziren eta ez zuten itxurakeri kutsurik. Askoren artean

Irribarretxo adierazgarriak eta konplizitatezko **keinuak** baino ez dira azaldu haien aurpegietan, gehiegi hitz egiteko beldur balira bezala. Jon Arretxe

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gorreria goiztiarrak eta **keinu**-hizkera erabiltzeak, berriz, berrantolaketa erabatekoak ekar ditzakeela garunean. Xabier Olarra

Ongi argitutako gauza da, jaiotzetiko gorren kasuan **(keinu**-hiztun baldin badira, bereziki), ikusmenerako birmoldatzen direla garuneko entzumen-aldeetako batzuk. Xabier Olarra

Irriño batez berarekin jateko **keinu**-gonbita egin dio bisitariari. Jose Angel Irigaray

Eta gero **keinu** txapelketak egiten genituen. Pello Lizarralde

Gaia entzun eta kantatzen hasi bitarteko tartea izaten da **keinu**-dentsitate biziena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Baietz adierazi nahi izan zien Romanek, **keinu** bidez hark ere, eta atzekoek ikusteko moduan: [...]. Inazio Mujika Iraola

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Osaba Joanikotek ele gozo batzuk eskaini baitzizkion eta begi-**keinu** bat neskameetarik bati, Maddalen zeritzanari. Joan Mari Irigoien

Aurpegi-**keinuak** eta beso-imintzio esajeratuak. Patxi Iturritegi

Hatz **keinu** batez garagardo gehiago eskatzen zioten blusa loreduna eta gizonezko txanoa zeramatzan emakume mutur-luze bati. Koro Navarro

Justinari sartzeko agindu zion sarjentuak, buru-makur eta esku-**keinu** gehiegizko eta desegokiz. Felipe Juaristi

Hark, ordea, esaldia bukatzera akuilatu zuen buru-**keinu** batez. Jon Muñoz

Sorbaldak kizkurtu eta lepo-**keinu** berezia egiteko joera zuen. Harkaitz Cano

Maisu **keinu** batez jarduna ez hausteko eskaturik. Koldo Izagirre

Olatzek agur **keinu** azkarra egin zion eskuaz. Harkaitz Cano

Argi-**keinu** bizi etengabeak eragiten zituen eguzkiaren begi jolastietan. Anjel Lertxundi

Agindu-**keinu** batez billetea galdegin zidan. Aingeru Epaltza

Goraipamena merezi duen apaltasun **keinua**. Askoren artean

Erromatar zenturioiak gaitzespen **keinu** batez begiratzen zidala ohartu nintzen. Alberto Ladron Arana

Lekuz kanpokoa zirudien bake **keinu** batek hartu zuen andrearen aurpegia. Alberto Ladron Arana

Orain konturatzen da badirela halako gizarte-**keinuak**. Xabier Olarra

### 6 ***keinu egin*** ik **keinukatu**.

Egiak **keinu egiten** ote dio gizonari, edertasun eta artearen bidez? Hortaz taxi bati **keinu egin** zion. Piarres Aintziart

**Keinu egin** zidan ni ere abia nendin. Bernardo Atxaga

Kaperara noa eta aita abadeari **keinu egiten** diot, atera dadin. Marzel Etxehandi

Oso zurbil zegoen, eta **keinu egiten** zuen begiekin. Bernardo Atxaga

Ateneak abisua ematen didanean, nik **keinu egingo** diat buruaz. Juan Kruz Igerabide

Hark isiltzeko **keinu egin** zien eskuaz. Elizen arteko biblia

Ijito neska haietako bati eskuarekin **keinu egin** zion etortzeko, eta gero bigarren bati, eta hirugarren bati. Matías Múgica

Ez naiz gauza begi bakarraz **keinu egiteko,** ez oraindik. Mirentxu Larrañaga

Paulok eskuaz **keinu egin** eta honela hasi zuen bere defentsa: [...]. Elizen arteko biblia

-Aizu, begira gizon hari! -esan zuen besteak bat-batean, buruaz aurreko erakusleihora **keinu eginez**. Iñaki Mendiguren

Amak, buru-**keinu eginez** aitari, berak har dezala. Anjel Lertxundi

Berriro sugeari begiratu eta berak ere begi-**keinu egin** zion. Iñaki Mendiguren

### 7 (determinatzaileekin)

Edwinek oinaze **keinua** eginen du. Joseba Sarrionandia

Topa **keinua** egiten zidala basoa goraturik. Inazio Mujika Iraola

Txaplik komunerako **keinua** egin zion Mikeli, eta biek batera alde egin zuten. Unai Iturriaga

Mutilak baiezko **keinua** egin zuen buruaz. Felipe Juaristi

Mutiko beltz batek maleten bila jaisteko **keinua** eginen dizu kaitik. Joseba Sarrionandia

Popatik! **keinua** egin zion mutilak Umbertori. Anjel Lertxundi

Komisarioak **keinu** bat egin zien Sanchez eta Menendezi eta barrura abiatu ziren hiruak. Aritz Gorrotxategi

Nerabeak **keinu** lizunak egiten zizkidan, *hator, hator!,* esaka. Anjel Lertxundi

**Keinu** zehaztugabea egin dut. Monika Etxebarria

**Keinu** bat egin zion Ruche jaunak Jonathani. Jon Muñoz

Hura erran bezain sarri, **keinu** itsusi bat egin nion. Joan Mari Irigoien

**Keinu** abegikor bat egin baitzidan. Joan Mari Irigoien

Nazka **keinu** bat egin du. Xabier Paya

Mespretxu **keinu** agerikoa egin nuen. Aingeru Epaltza

Tom ere haren iritzi bereko agertu zen buruaz baiezko **keinu** isil bat eginez. Oskar Arana

Eskuz damuzko **keinu** bat egiten niola. Joan Mari Irigoien

Noiz eta begi **keinu** limurtzaile bat egin baitzidan. Joan Mari Irigoien

Heydrichek **keinu** gozakaitz bat egin zuen, Müllerren oroipen desatsegina uxatu nahiko balu bezala. Alberto Ladron Arana

Nik **keinuak** egin arren, haiek ez ninduten ikusi. Juan Luis Zabala

Begi, oin eta eskuz **keinuak** egiten ditu engainatzeko. Elizen arteko biblia

Fionak egin ohi dizkizun **keinuak** egin dizkizute. Lutxo Egia

### 8 ***keinuz*** *adlag*

Ezin zuenez arnasa hartu eta hitz egin, **keinuz** adierazi zien etxekoei Venosara joan nahi zuela. Askoren artean

Hitz egin nion, baina **keinuz** erantzun zidan. Josu Zabaleta

Eta bururatzean *Kaput!* **keinuz** erakusten daukula arbola moztu bat nola erortzen den. Marzel Etxehandi

**Keinuz,** mutuek ohi dutenez, ostatua eskatu zion. Askoren artean

Urte asko eman zituen gauzak nola eskatzen ziren ikasi gabe, ezta **keinuz** edo seinalatuz ere. Xabier Olarra

Entzun -eta, hitza **keinuz** laguntzen zuela, segitu zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

· Buru guztiak jiratu ziren, gaitzespeneko **keinuz**. Jon Muñoz

Eta esku **keinuz** ez hitz egiteko eskatu zion Joanesi. Felipe Juaristi

Buru **keinuz** ukatu zuen Gregoryk. Iñaki Zabaleta

Autobusa argi **keinuz** beteriko kaleetan zehar zihoan. Iñaki Zabaleta

Isilean itxaron zuten besteek, harik eta Fionnek, garaipen-**keinuz,** letagina airean altxatu arte. Joanes Urkixo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**agur keinu bat** (6); **baiezko keinu** (7); **baiezko keinu bat** (5); **begi keinu** (76); **begi keinu bat** (36); **begi keinu batez** (5); **begi keinu egin** (6); **buru keinu** (26); **buru keinu batez** (12); **buruarekin keinu** (10); **buruarekin keinu bat** (7); **buruaz keinu** (5); **egindako keinu** (7); **elkartasun keinu** (7); **esku keinu** (33); **esku keinu batez** (15); **eskuarekin keinu** (5); **eskuaren keinu** (10); **eskuaren keinu batez** (5); **eskuaz keinu** (11); **etsipen keinu** (9); **etsipen keinu bat** (5); **harridura keinu** (6); **isiltzeko keinu** (5); **keinu adierazgarri** (7); **keinu arin** (6); **keinu azkar** (10); **keinu azkar bat** (5); **keinu bakar** (9); **keinu bakarra** (5); **keinu bat egin** (243); **keinu bat eginda** (5); **keinu bat eginez** (21); **keinu bat egiten** (25); **keinu batez adierazi** (5); **keinu bera** (5); **keinu bidez** (7); **keinu bitxi** (5); **keinu egin** (139); **keinu egin zion** (38); **keinu egin zuen** (21); **keinu eginez** (34); **keinu egiten** (33); **keinu etsi** (5); **keinu gozakaitz** (6); **keinu hura egin** (5); **keinu indartsu** (5); **keinu itsusi** (7); **keinu itsusi bat** (5); **keinu labur** (6); **keinu lizun** (6); **keinu lizunak** (7); **keinu nabarmenak** (5); **keinu txiki** (14); **keinu txiki bat** (11); **keinu ugari** (5); **keinu urduri** (6); **keinu urduriak** (5); **keinu zehaztugabe** (5); **konplizitate keinu** (10); **konplizitate keinu bat** (5); **nazka keinu** (5); **onespen keinu** (7); **onespen keinu bat** (5)

**abiatzeko keinua** (5); **abiatzeko keinua egin** (5); **agur keinua** (8); **agur keinua egin** (6); **alde egiteko keinua** (6); **altxatzeko keinua** (9); **altxatzeko keinua egin** (7); **ateratzeko keinua** (9); **ateratzeko keinua egin** (6); **aurkezpen keinua** (15); **aurkezpen keinua eginez** (15); **baiezko keinua** (31); **baiezko keinua egin** (27); **begi keinua** (28); **begi keinua egin** (15); **begi keinua eginez** (5); **bere keinua** (5); **botatzeko keinua** (6); **egin zuen keinua** (5); **eginiko keinua** (5); **eramateko keinua** (8); **erritozko aurkezpen keinua** (13); **esertzeko keinua** (9); **esertzeko keinua egin** (7); **eskatzeko keinua** (5); **etsipen keinua** (6); **etsipen keinua egin** (5); **ezezko keinua** (18); **ezezko keinua egin** (12); **gelditzeko keinua** (9); **gelditzeko keinua egin** (7); **hartzeko keinua** (8); **hartzeko keinua egin** (7); **hurbiltzeko keinua** (12); **hurbiltzeko keinua egin** (11); **isiltzeko keinua** (6); **jarraitzeko keinua** (7); **jarraitzeko keinua egin** (6); **joateko keinua** (10); **joateko keinua egin** (8); **jotzeko keinua** (6); **keinua egin** (401); **keinua egin nion** (15); **keinua egin zidan** (35); **keinua egin zion** (62); **keinua egin zuen** (108); **keinua eginez** (72); **keinua eginik** (7); **keinua egiten** (52); **keinua errepikatu** (5); **pasatzeko keinua** (6); **sartzeko keinua** (14); **sartzeko keinua egin** (12); **zutitzeko keinua** (5)

**begi keinuak** (9); **elkartasun keinuak** (5); **hitzak eta keinuak** (7); **keinuak egin** (34); **keinuak eginez** (32); **keinuak egiteko** (5); **keinuak egiten** (50); **keinuak egiten zituen** (12)

**keinuen bidez** (11); **keinuen bitartez** (6); **keinuen hizkuntza** (11); **keinuen hizkuntzan** (7)

---

## keinuera *(orobat **keinukera**)* *iz* keinua; keinu egiteko era.

Gorputz baten elementuen arteko dinamikak, gihar-tonuak, ahotsak, **keinuerak,** usainak sortzen zuten bakantasun hori, eta horren arabera baziren zuhaitzak bezalakoak ziren gizonak, edo ihi bezalako emakumeak, ahuntz-gizonak, oilo-emakumeak, basurdeak, oreinak. Jon Alonso

**Keinuera** geldoa ohi duen pertsona batengan ezustekoa den mugimendu azkar batez. Jon Alonso

Nire koinatak gorrituak ditu begiak, eta **keinuera** etsitua. Jon Alonso

Ezin sinistuaren **keinukera** ipinita sorbaldak jaso zituen aulkiaren bizkarraldetik. Josu Landa

Bisitaren nondik norakoa behar bezala ulertu bitarteko **keinukera** nahasiaz aritu zen entrenatzailea tarte batez. Josu Landa

---

# keinuka *(orobat **kinuka** g.er.)* **1** *adlag* keinu eginez.

Leiho batean etxekanderea bere girgileria guziekin, jestuka eta **keinuka**. Michel Oronoz

Berak ere **keinuka** erantzuten dit. Agurtzane Juanena

Itxaso **keinuka** ari zaio. Pako Aristi

Eladio **keinuka** ari zait, ea haiena gaurko ote den. Pako Aristi

**Keinuka**-edo ari zela iruditu zitzaion. Fernando Morillo

Gelditzeko eskatu nion **keinuka**. Aingeru Epaltza

Gin tonicak prestatzen ari naiz, baina Kandido azkar joateko **keinuka** ari zait. Pako Aristi

Buruaz **keinuka** ari zaizu atzetik Jerusalem hiri ederra. Elizen arteko biblia

Afaltzera jaisteko asmoa agertu nion **keinuka**. Anjel Lertxundi

Ohean sartu nintzen, erizainari, **keinuka** beti, ez nengoela ondo adierazi eta gero. Anjel Lertxundi

Ingelesez, edo eskuekin **keinuka,** baina ez espainolez edo frantsesez, horiek baztertu behar ditugu gure eguneroko hizkeran. Pello Salaburu

**2** irud/hed

Kurtsorea **keinuka** ari da ordenagailuko pantailan. Antton Olano

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ivy ere agur-**keinuka...** Aloiz Sarajevoko printzea ikusi zuen esku-**keinuka,** haiekin esertzera gonbidatuz. Felipe Juaristi

Ez dezatela begi-**keinuka** jardun arrazoirik gabe gorroto didatenek! Elizen arteko biblia

Musikariek baietz erantzun zuten buru-**keinuka**. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begi keinuka** (8); **buruaz keinuka** (3); **buruaz keinuka ari** (3); **keinuka adierazi** (3); **keinuka ari** (36); **keinuka ari da** (3); **keinuka ari zait** (4); **keinuka hasi** (5)

---

# keinukari **1** *izond* keinu egiten duena. ik **keinulari**. (pertsonak)

Iharra zen, oso iharra, hezurtsua, **keinukaria** eta irribarretsua. Josu Zabaleta

· Inaziori eman dio begia, Kantauri itsasoaren kolorekoa bera, argiz bustiriko begia hain zuzen, begi lasaia, begi **keinukaria**. Felipe Juaristi

Orduan, botila-koloreko bi begi berde ñarrotu topatu nituen bekain **keinukari** baten azpitik niri begira. Irene Aldasoro

**2** (gauzak)

Eta luzeagoak ziren kale pobreen lerro argituak, banan-banan desagertzen ziren denda **keinukariak**. Koro Navarro

Tramankulu **keinukariak** asegaitz irensten zizkien txanponak, tarteka bat edo beste itzuliz. dantzalekuko burrunban eta argi koloretsu **keinukariek** mundu irreal zoriontsura eramanda. Migel Angel Mintegi

Neon-argi **keinukari** berdea zeukan goiko aldean. Fernando Morillo

Volvoak, argi **keinukaria** piztu gabe, bira egin zuen, bat-batean, bigarren mailako errepide batera. Aingeru Epaltza

Argi **keinukariak** ez jartzeagatik. Josetxo Azkona

Argi berde **keinukaria** hegalean. Joxe Austin Arrieta

• **3** *iz* autoetan, argi keinukaria.

Ez nintzen guti harritu, tupustez, Ximurraren auto urdineko **keinukariek** ñir-ñir egitean bide ondoko aparkaleku baterat. Aingeru Epaltza

Etorbide luze baten erdian ginen, autoko lau **keinukariak** piztuta. Aingeru Epaltza

Abiatu zenean BMWa kale amaieran zegoen, eta ezkerreko **keinukaria** pizturik zeraman, errepide nagusiranzko hiribidea hartzera zihoan seinale. Migel Angel Mintegi

Pantxok, erne, **keinukaria** abiarazi eta bolante ukaldi batez atera du furgoneta errepide bakartik. Aingeru Epaltza

---

# keinukatu, keinuka, keinukatzen du *ad* keinu egin.

Beinat kasik guardian bermatu zen, armada-nagusiak esku gibelaz *jada ez dik balio* **keinukatzen** ziola. Itxaro Borda

---

# keinukera ik **keinuera**.

---

# keinulari *izond* keinularia.

Baina emozioz beteriko gorputz **keinulari** orok ez du gainean duen emozioa adierazten. Askoren artean

Ardoak koloretu egin baitzion portzelanazko azal zuria, eta **keinulari** jarri begi urdinak. Josu Zabaleta

Errezeletan oraindik arku voltaikozko lanpara baten erlantza ageri zen, tarteka-marteka **keinulari,** eta ni hantxe, deseroso, hagorandua, ezin nintzelako mugitu. Joxe Austin Arrieta

---

**keinuño** *iz ipar* keinutxoa.

Ez dira gauza bera, bistan da, bainan beharbada halako **keinuño** bat egin dezagun Eliza notableen kontra... Menane Oxandabaratz

---

# keinutxo *iz* keinu txikia.

Hura aretoan agertu zenean, **keinutxo** batzuk egin zizkion Nikolasek Joanari, harridura itxurarik erakuts ez zezan, eta aurpegi zorrotzez jarraitu zuen itaunketa. Juan Garzia

Ez zen konturatu, halaber, izar txiki batek edo bik **keinutxoak** egiten zizkiotela. Julen Gabiria

**keinuzale** *iz* keinuen zalea dena.

Aurkariak, lehiaren gorabeherak lagun, osagai hobeak aurkitu zituen edabe gozoa prestatu eta pozez mozkortzeko, baina Ranieri **keinuzalearen** gehiegikeriak eta handinahiak Didier Deschamps piztu zuten. Berria - Kirola

---

keja ik **kexa**.

---

kelaino ik **ke 9**.

---

kelainotsu ik **ke 10**.

---

**keldar** *iz ipar* kedarra.

Botatzen nuen gosariarekin batera gainera jendeen soak jasan behar nituen, urera **keldarra** ttanttaka igortzen nuelako, ilun, biketsu, urrintsu eta azkenean disgustagarri. Itxaro Borda

---

kelta ik **zelta**.

---

keltiar ik **zeltiar**.

---

**kemen** *(orobat* ***gemen*** *g.er.)* **1** *iz* aritzeko, jarduteko, ekiteko gorputz edo gogo indarra. ik**adore; kalipu**.

Izan **kemen** eta adore! ez beldurtu, ez izutu! Elizen arteko biblia

Azken indarrak ia ahiturik, **kemena** du oraindik hitzak elkarren hurren zuzen paratzeko. Imanol Zurutuza

Zure indarra eta zure **kemena** banitu, zuk bezala zure nahia gailenarazten baneki... Josu Zabaleta

Jaun Prefetak ukan du indar eta **kemen**. Herria

**Kemena** eta grina soberan dute, eta partida onak jokatzen dituzte.

Zeren **kemena** beharko baitugu beldurrak, urritasunak eta sufrimenduak gainditzeko. Josu Zabaleta

Aski **kemen** ukan nuen zutitzeko eta, zigarrorik hartu gabe, bainugelara joateko. Daniel Landart

Ez baitu lehengoen nigarrak gerorako **gemenik**. Herria

Zure ahuldadea **kemen** bihurtuko da. Joan Mari Lekuona

Beti ediren diat aztarna berriren bat, bidean aitzina egiteko **kemena** eman didana. Joan Mari Irigoien

Akiturik sentitzen nintzen, zergatik ez eta indarrik gabe, lanean hasteko ezgauza, irakurtzeko ere **kemenik** gabe. Josu Zabaleta

**Kemen** hartuta mantak baztertu eta lur izoztua zapaldu aurretik. Anton Garikano

Indiarrek opioa erretzen dute jendea hiltzeko **kemena** hartzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orduan, **kemena** bildurik, Afifi andereak esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Une labur batean ez hitz ez hitzondo egon zen, baina laster bildu zuen **kemena**. Patxi Zubizarreta

Ulises xaxatu zuen, garai batean bezainbat **kemen** erakusten ez zuela esanez. Juan Kruz Igerabide

Guk txalo batzuk eginez erantzuten genuen, **kemen** askorik gabe. Anjel Lertxundi

Bere adimen bikainaren **kemen** guztia. Anton Garikano

Kopuruaren txikia gure eztarrien **kemenak** berdindu zuen. Aingeru Epaltza

Nire gizonen **kemena** urrituz zihoan, arraun eta arraun, itzultzeko aukera galdurik. Juan Kruz Igerabide

**Kemena** galdu ez bazuen ere, argaldu eta zurbildu egin zen atsekabe haien garaian. Jose Morales

Beste edozein harremanetarako horma gaindiezina eraikitzen denean, naturaren **kemen** guztia alferrik galdu egiten da gizadiarentzat, eta zahartzaroa aurreratzen. Juan Martin Elexpuru

Abasek harropozturik eta **kemen** betean jarraitu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

"Hori oso ideia ona da, Marcelino", baieztatu zuen Degrela koronelak **kemenez**. Bernardo Atxaga

Berotzen ari nintzela sentitu nuen, eta tramankulua, haragi bilduma zaintsu hura, eskuan hartu eta **kemenez** eragiten hasi nintzaion. Juan Martin Elexpuru

Ondorio onak ekartzen ditu **-kemenezko** eta konfiantzazko irribarre bat zirriborratu zuen, eta nik eskertu egin nion. Jon Muñoz

**2** *pl*

Baina **kemen** guztiek huts egiten zioten. Patxi Zubizarreta

Asmo sendo hura bere baitaren baitan hartua zuen, bere **kemen** guztiak bildurik egin zuen aukera eta bere patuari buruz zihoan hartxintxar bakan batzuk beste galgarik gabe. Patxi Zubizarreta

Bazekienez heriotzak ez zuela inola ere ahaztea esan nahi, koloreak aztertzen erabiltzen zituen bere **kemen** hondarrak. Anton Garikano

Hotzaz gutti axolatzen dire gure ihiztari **kemenak** Herria

**3** (izenondoekin)

Kanpoan egoten zen bere **kemen** eskasa etengabe madarikatuz. Elena Touyarou

Lan zailetan eta **kemen** handia erakutsi behar zen lekuetan soilik jarduteko irrikaz zeuden. Jose Morales

**Kemen** handiko gizona zen. Berria - Kultura

Jende bulartsua, **kemen** handikoa eta abertzalea denik ezin ukatu. Edorta Jimenez

Ezer asmatzea jenio hutsezko ekintza da, eta bizi garen merkataritza-aro honetan **kemen** fisiko handia behar da horretarako. Antton Olano

Nire **kemen** morala probatu nahi izan zuela esan zidan. Joseba Urteaga

Indar eta **kemen** intelektuala. Berria - Harian

**Kemen** politiko falta. Berria - Euskal Herria

Apeza, isipuari eraginez, hilkutxa ihiztatzen ari zen **kemen** handiz. Aingeru Epaltza

Batera eta bestera ez zen gelditzen, eta berrikuntza pedagogikoan parte hartzen zuen, **kemen** osoz. Juan Kruz Igerabide

Zirimola geldiezin batek inguratu ninduen, **kemen** basatiaz, eta ohetik jaiki behar izan nuen. Juan Kruz Igerabide

Adore eta **kemen** biderkatuaz berrekiten zidan. Aingeru Epaltza

Are indar eta **kemen** handiagoz ekin zioten allegroari. Felipe Juaristi

Mundua -eta munduan gu! - salbatzeko lanari ekiten dio, **kemen** nekagaitz batez. Anjel Lertxundi

Filosofo apalak, **kemen** fanatikorik gabe, azaltzen dituen egiak. Juan Martin Elexpuru

Harrapaketa hauek saihesteko, gizon bakoitzaren **kemen** despotikoari eutsiko zioten eragile sentigarriak behar ziren. Juan Martin Elexpuru

Naturak **kemen** itzalezin batez hornitu bazaitu, zeure burua defendatzeko eskubide utziezin bat eman badizu, [...]. Juan Martin Elexpuru

**4** (izenlagunekin)

Odol hotz izukaitza eta zinezko **kemena** erakusten zituzten beti lanean. Karlos Zabala

Soslaian eginiko irudia da, harrigarrizko **kemena** dauka hain geldirik egoteko. Koldo Izagirre

Eskerrak laneko **kemena** bederen ez nuela galdu. Daniel Landart

Gizakiaren inoizko **kemenak** utzitako arrasto haiek neure begien aurrean horren antzu eta ahantzi ikusteak. Juan Luis Zabala

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kemen** hitzak bidaltzen dizkie Klara eta honen ahizpei. Askoren artean

Ez dut uste koldarkeriaz hitz egin dudanik; **kemen** faltaz bai, ordea. Jon Alonso

Argi-ilun, **kemen**-makaltasun horrek eragozten digu argi ikustea [...] gure gogoaren sen bizi bakarra maitatzea dela. Jenaro Garate

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Behar duten bizi-**kemen** guztia bereganatzeko. Xabier Olarra

Ez zen harropuzten bere kirol-gaitasun eta gizon-**kemenez,** ez zuen inoiz gezurrik esaten. Juan Garzia

Guretzat emakumeontzat guztiz ezezaguna den halako gorputz-**kemen** bat izaten diten gizonek une jakin batzuetan. Antton Olano

Espazio horrek lotura estua du geografian "Aurkikuntza Handiak" eta beste alor batzuetan matematikaren aurreramendua eragingo zituen esplorazio-**kemenarekin**. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **indar eta kemen** (9); **izan kemen** (6); **kemen askorik gabe** (3); **kemen eta adore** (4); **kemen eta argitasun** (3); **kemen gehiena** (3); **kemen guztia** (11); **kemen guztiak** (3); **kemen handia** (8); **kemen handiagoa** (3); **kemen handiagoz** (8); **kemen handiko** (3); **kemen handikoa** (4); **kemen handiz** (13); **kemen haundiz** (4); **kemen osoz** (5); **misteriozko kemen hori** (7)
>
> **adorea eta kemena** (5); **defendatzeko kemena** (3); **egiteko kemena** (8); **gogoa eta kemena** (5); **indar eta kemena** (3); **indarra eta kemena** (10); **irauteko kemena** (4); **kemena behar** (7); **kemena berreskuratu** (3); **kemena bildu** (11); **kemena bildurik** (3); **kemena eman** (7); **kemena ematen** (3); **kemena erakusten** (4); **kemena eta adorea** (4); **kemena eta ausardia** (4); **kemena eta grina** (4); **kemena eta indarra** (8); **kemena falta** (3); **kemena galdu** (6); **kemena galdurik** (3); **kemena galtzen** (3); **kemena hartu** (3); **kemena izan** (8); **lanerako kemena** (3)
>
> **indarrak eta kemenak** (3)
>
> **kemenari esker** (6)
>
> **berebiziko kemenez** (3); **halako kemenez** (3); **kemenez bete** (3); **kemenez beterik** (3); **kemenez gainezka** (3)
>
> **aski kemenik** (3); **egiteko kemenik** (11); **esateko kemenik** (6); **hitz egiteko kemenik** (3); **indarrik ez kemenik** (3); **kemenik aski** (4); **kemenik gabe** (25); **kemenik gabe uzten** (3)

---

## **kemenaldi** *iz* kemen handiko aldia.

Eta nondik ateratzen dituzte ondorengo **kemenaldi** horiek, betiere *limes*-ak zeharkatzeko gai egiten dituztenak? Iñaki Mendiguren

Asperraldi luze eta deabruzko **kemenaldi** asaldatuen txandaketa. Iñaki Mendiguren

---

## **kemendu,** kemen(du), kementzen da/du *ad* kemena hartu; kemena eman.

Denboraren harra, denborarekin indartzen eta bortizten dena, **kementzen** eta adoretzen. Joan Mari Irigoien

Orain arte hegazkinak ikaratu egiten zuen, eta bat-batean agure txoro hori **kemendu** egin zaigu. Koro Navarro

Arropa berria erostera **kementzen** zaitu. Lourdes Oñederra

Nola **kementzen** zituen anaiak, limosna eske joateko. Askoren artean

Eta horrela lehortu, gihartu eta, aldi berean, indartu, zumiztu, larru lehorra bezala, giharrez **kemendu**. Pello Zabala

Gudu zelaietan zehar zeure legioak, errefortzu handiz eta zaldien indarrez babestuak eta denak armaz hornituak eta berdin **kemenduak,** gerra irudiak zabaltzen ikusten dituzunean. Xabier Amuriza

---

## **kemengabe** *(orobat **kemen gabe**) izond* kemenik ez duena.

Zu bezalako gizon **kemen gabeen** isiltasunak harrotzen du gure artista-edo bezalako jendea. Berria - Kultura

Nire piamontera, ordea, forma eta hotsen aldetik zuzena izanagatik, hain da lau eta **kemengabea,** hain ongi hezia eta margula, ezen sinesgarritasun eskasekoa gertatzen baita. Juan Garzia

Inoizka eta iraizean egina nintzen berarekin topo gerra ondoren, eta **kemengabe** hutsa zen. Juan Garzia

---

## **kemengabetu,** kemengabe, kemengabetzen da/du *ad*

Erasoaldiari ekin diote azkenean, egunsentiko lehen argi perla-kolorea lagun, baina **kemengabetuta** daude gure burdin hesi parera hurbiltzerako. Mirentxu Larrañaga

---

## **kementasun** *iz* kemena duenaren nolakotasuna edo egoera.

Bizirik irauteko **kementasuna**. Berria - Kultura

Jainkoak edertasunez eta **kementasunez** dohatu duena. Patxi Zubizarreta

Horrek atsekabetu egin zuen kafezalea eta, pazientziak errea, bere sentimenduak ezkutatu ezinik, **kementasunez** esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

---

## **kementsu** 1 *izond* kemenez beta. (pertsonez)

Beti izana nuen neure burua emakume gogor, **kementsu** eta praktikotzat. Ander Irizar

Badakit emakumea naizena, emakume **kementsua** eta adoretsua. Josu Zabaleta

Gizon **kementsuak** inoiz ez du beldurrik estuturik daukan arriskuaren aurrean. Josu Zabaleta

Gizon **kementsua** zen, hizlari trebea, jakintsua, eta bere lurra maite zuena. Elena Touyarou

Neska txiki, beltzaran eta **kementsu** haren ausardia miresten zuen. Fernando Morillo

Javier Ortiz, *El Mundo*ko zutabe-idazle donostiar **kementsuak,** sarritan kritikatzen duen tranpa da hori. -Jende **kementsua** zarete -Fionnek erantzun irribarretsu-. Iñaki Heras

Bada, jauna, mandatari argi bat, **kementsua..** . Figura Trixte zaldun **kementsua** . Neska gazte **kementsu** hura. Karlos Zabala

**Kementsua** errukiorra izan ohi da. Juan Martin Elexpuru

Oso **kementsua,** muturrekoa, fanatikoa. Jon Muñoz

**Kementsuarena** egin beharra nuen. Anjel Lertxundi

**2** (animaliez)

Duda-mudatan ibili gabe, artzanor **kementsua** uretara jauzi eta igeri hasi zen. Joanes Urkixo

Zaldi txiki **kementsu** horien gainean datoz gizonak. Jon Muñoz

Aberetxo **kementsua** eta ausarta zelako. Jesus Mari Mendizabal

Abere **kementsuak** ezin, bestela, bidaian aurrera jarraitu. Karlos Zabala

Nikolasha eta Aleksasha garaño **kementsu** banaren gainean igaro ziren itzuli berrien aldamenetik. Jose Morales

**3** (gauzez)

Berehala, haren gorputzak liluratu ninduen, haren sexu **kementsuak,** haren abioak. Aitak keinu **kementsua** egin zuen eskuaz. Anjel Lertxundi

Zinezko nagusitasuna erakusten zuen ahots **kementsu** batez. Patxi Zubizarreta

Mahai gainean kolpe **kementsu** bat eman zuen galdera indartzeko. Anjel Lertxundi

Zure besoko indar **kementsuaz** baliatzeko. Patxi Ezkiaga

Behialako itxura sasoiko eta **kementsua** galdua du. Oskar Arana

On egin zidan ikusteak nola Tom nagi eta motela piztuz zihoan emazte aurkitu berriaren eragin **kementsuaren** pean. Oskar Arana

Beste apaiza morroi garratz, garai, indartsu, aurpegiera **kementsuko** bat zen. Josu Zabaleta

Erabaki **kementsua** hartu duela, urrats haundia izan dela bakearen alde. Herria

Legearen indar **kementsuak** tinko jarraitzen du aurrera. Juan Martin Elexpuru

Ur-laster **kementsu** batean. Xabier Aranburu

**4** (hitz elkartuetan)

Dumbledore maisuak, oso zaharra izan arren, **kementsu**-itxura ematen zuen beti. Iñaki Mendiguren

Barre egin nuen neure baitan, nire **kementsu** planta bere fruituak ematen ari zelako. Anjel Lertxundi

**5** (izan aditzarekin)

Zure emaztea **kementsua** da, eta gizon askok baino gizonago jokatu ohi du. **Kementsua** zarelako maite zaitut, polita, arrazionala, askea... Aitortzen diat ez dudala jakin **kementsu** izaten. Patxi Zubizarreta

Berez ausarta eta **kementsua** izanik ere, urdaila dena kukuso sendi zuen. Elena Touyarou

Gogoa **kementsua** zuen, izan ere, baina gorputza nekepean. Karlos Zabala

Bata alferra zen eta ohean etzanik egoten zen noiznahi, eta bestea **kementsua** eta zirt edo zartekoa. Fernando Rey

**6** (adizlagun gisa)

Egokitu zen bere aulkian, eta **kementsu** eta lerden jarri zen bidean. Patxi Ezkiaga

Gero **kementsu** hasi da mugitzen, niri gerritik helduta. Juan Martin Elexpuru

Eutsi **kementsu** orain duzuenari, ni itzuli arte. Elizen arteko biblia

Mundua utzi eta deabruagandik **kementsu** ihes eginez. Askoren artean

Gorteko jendeak **kementsu** hauspotzen ditu kontuok, eta elizgizon ahaltsuenen eta Inkisizioko arduradun nagusien belarrietara helarazten dira. Anjel Lertxundi

**Kementsu** baina sotiltasunez ekin zion Mathildek ondorengo scherzzoari. Anjel Lertxundi

-Ez, ez -esan zuen Matson andreak bizkor eta **kementsu-** . Mirentxu Larrañaga

Adak buruari eragin zion, ezker-eskuin, **kementsu**. Anjel Lertxundi

Izebak esan zion, **kementsu:** […]. Irene Aldasoro

Mareei buruzko liburu bat idatzi zuen orduan, eta beste hainbat lani ekin zion, **kementsu** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Eraman onez jasaten zuen dena, eta gero eta **kementsuago** eta gartsuago agertzen zen bere asmo santua betetzeko. Askoren artean

-Arrisku latzean zaude -esan zion Andreasek ahalik **kementsuen** . Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argi eta kementsu** (4); **gazte kementsu** (3); **gizon kementsu** (4); **kementsu eta adoretsu** (3)
> **emakume kementsua** (3); **gizon kementsua** (6); **gizon kementsua zen** (4); **jende kementsua** (3); **keinu kementsua** (3); **oso kementsua** (3); **zaldun kementsua** (5)
> **gero eta kementsuago** (5)
> **gizon kementsuak** (4)

---

**ken 1** *part*

-Zenbat da bi **ken** bat? -Ederki! Xabier Olarra

Orain, hogei **ken** hamar? Xabier Olarra

Ehun **ken** bat urte lehenagoko iraultza ingelesa -1688- ez da aintzat hartu ohi gure artean- gure kultura, frantsesaren kopia da. Joxe Azurmendi

· Ametsetan hasi zen Max; zein materialen gainean idatzita egon, eta, haren arabera aldatuko liratekeen formulak asmatzen: "gehi" **"ken"** bihurtuko litzateke oihaletik eztainura eramanez gero, biderkaketaren ikurra zatikiaren barra bihurtuko zen pergaminotik larrutx finagora aldatuz gero... Jon Muñoz

**2** irud/hed

Mintzaira **ken** hizketa da guretzat hizkuntza. Isabel Arrigain

Jabetu al da inor Reala aurreko denboraldiko taldea, **ken** Xabi Alonso, **ken** Javier de Pedro, **ken** Agustin Aranzabal, **ken** Bjorn Tore Kvarme, **ken** Gaby Schurrer, **ken** Sander Westerveld eta **ken** Lionel Potillon dela? Berria - Kirola

---

**kenarazi,** kenaraz, kenarazten du *ad* kentzera behartu.

Kapela gorri-beltza kendu nuen buru gainetik, eta Romani **kenarazi** gero. Inazio Mujika Iraola

Urte berean, Iraultza denboran beraz, **kenarazi** zituzten bizkondeen kaperan ziren noblezia markak, armarriak eta burdin zerradurak. Michel Oronoz

Ez zizkidaten oinetakoak **kenarazi,** sakelak hutsarazi besterik ez. Koldo Izagirre

Neskak ez dio eskua **kenarazten,** baina erantzun ere ez dio egiten ferekari. Oskar Arana

Atari ondora ailegatuta, ordea, eskua brast **kenarazi** zidan. Aingeru Epaltza

Burdinezko muturrarekilako matoarekin joz eta ileetatik tiraka **kenarazten** zizkieten nortasun agiri eta argazkiak. Eneko Bidegain

-Horretara etorri zara? bandera bat **kenaraztera** edo eskegiaraztera? Edorta Jimenez

**kendu**, **ken, kentzen 1** du *ad* zerbait edo norbait, dagoen tokitik higitu; (toki batetik) desagerrarazi.

Yi jaunak hormatik adreilu batzuk **kendu** zituen. Juan Kruz Igerabide

-Karga **kentzen** lagunduko didazu, ezta? Karlos Zabala

Pertza sutatik **kendu,** gehiegi berotu baino lehen, eta nire gorputza garbitzeari ekin zion. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero, betaurrekoak **kendu** eta etzan egin zen, begiak zabalik. Iñaki Mendiguren

Biluz-biluzik baina moja-burukoa **kendu** gabe. Karlos Zabala

**Kendu** eskuak teklatutik eta zutitu egin nintzen. Bernardo Atxaga

Gainetik sekulako karga **kendu** izan balidate bezala. Aingeru Epaltza

Egin zioten bilaukeria izugarriaren oroitzapena barrutik **kendu** ezinik. Oskar Arana

*ik beherago* 8. Askoren artean

Ba aita segituan **kendu** nuen zerrenda haietatik. Bernardo Atxaga

Ispiluko lurruna **kendu** eta, eskuilaren ordez, orrazi estua pasatu nuen iletik. Anjel Lertxundi

Ebakuntza egin diote; hestesobrea **kendu** diote. Juan Kruz Igerabide

Ebakuntzaren ondorioz **bularra kenduko** ziotela esan zion medikuak. Jasone Osoro

*ik beherago* 10. Askoren artean

Koadrila izan zen anginak **kentzea** galarazi ziona, apustuko eguna gainean zelako. Pako Aristi

Biboteko iletxo beltzei kolorea **kentzeko** dira. Josu Zabaleta

Badira urte batzuk kostalde hau barrualdearekin lotzen zuen trena **kendu** zutela, eta begien aurrean falta dugun paisajearen zati horrek nahastu egiten du gure ustea…

Zizareak **kendu** behar ziren, arroza jan baino lehen. Pako Aristi

Nire ustez betelana egiteko historiak dira, gosea **kentzeko**. Patxi Ezkiaga

• **2** da/du *ad* dagoen tokitik edo egoeratik beste batera higitu edo higiarazi.(norbait)

**Ken** hadi zuloaren paretik eta atzera ezak ezpata hori. Juan Kruz Igerabide

Lavender Brown, garrasi eginez, paretik **kendu** zen bizkor. Iñaki Mendiguren

**-Kendu** hemendik! Iñaki Mendiguren

**-Kendu** paretik -esan zion saltzaileak petralduta, Harry alboratuz. Iñaki Mendiguren

**3** (zerbait)

Pipa ahotik **kendu,** eta ezetz, enkargutxo bat ematera etorri dela soilik. Anjel Lertxundi

Eskutik **kendu** zion, kasik, zerbitzariari, eta aho-beteka edan. Aingeru Epaltza

Auto bati **kendu** eta besteari ipini, hainbat matrikula-plaka edukitzen dituzte horretarako. Oskar Arana

Erregina Joanak, Arroxelara partitzean, Agaramont **kendu** eta Arros utzi zuen bere ordezko, armadaburu eta lotinant jeneral. Aingeru Epaltza

Kargutik **kentzea** hartze duen krimen batengatik. Piarres Xarriton

Abertzaleak gobernutik **kendu** eta abertzaletasuna ahultzeko eta lohitzeko. Migel Angel Mintegi

• **4** du *ad* (zerbaiti) dagokion, itsatsita duen edo zatitzat duen zerbait bereizi. ik **erauzi, edeki**.

Estalki metalikoa hortzekin **kendu** eta trago luzea eman zion. Anjel Lertxundi

Geroztik ez zuen inoren aurrean zurezko hanka **kendu** Astiro eta kontu handiz estalkia **kendu** zion tintontziari. Ramon Saizarbitoria

Gaineko paper marroia **kendu** eta opari bat aurkitu zuen. Iñaki Mendiguren

Batzuei larruazala **kendu** zieten, eta zakurrei bota zieten haragia. Koro Navarro

Sonbreirua hartu zidan eskutik, eta astindu eta hauts apur bat **kendu** zion. Bernardo Atxaga

Zuhaitz barren-hutsak ikusi nituen, azala **kendu** zieten eta hura bera katabuta bihurtu. Felipe Juaristi

Eskolako nota hari garrantzia **kendu** nahirik bezala. Oskar Arana

**5** norbait, bereziki bere borondatearen kontra, duen edo jabe den gauzaren bat gabe utzi. ant **eman**.

Hitlerren irudia **kendu** zidan paparretik atzaparkada zakar batez. Anjel Lertxundi

Pistola **kendu** nion eskutik eta mesanotxean utzi nuen. Bernardo Atxaga

Ez zizkieten eman nahi, baina, aranaztarrek indarrez **kendu,** eta urriaren seirako Iruñean zuten denuntzia. Patziku Perurena

Alabaina, erregetza niri **kendu** eta nire anaiari eman diote, harentzat baitzuen Jaunak erabakia. Elizen arteko biblia

Gaitzen bategatik edo, animaliari bizia **kendu** beharra dagoenean, gizakiak akabatu egiten du animalia hura, ez hil. Iñaki Segurola

Ondorioz Snapek berrogeita hamar puntu **kendu** zizkion Gryffindorri. Iñaki Mendiguren

Azkenean, gauzak behar bezala txukun eta zehatz azaltzeko gogoa ere **kendu** zion. Ramon Saizarbitoria

Marmarka hasi zen, katakumeak **kendu** dizkioten katama baten egonezinez. Anjel Lertxundi

-Berak ematen digu, Berak **kendu**. Patxi Zubizarreta

Jainkoari **ken,** debruari eman. Xipri Arbelbide

**6** zerbait gauzaren bat gabe utzi.

Hurrupada luzea **kendu** nion kopari. Aingeru Epaltza

Gonari zimurrak **kendu,** ilea txukundu eta lehen ilaran esertzen nintzen. Karlos Zabala

· Hirurogeita hamabost versta gehiago **kendu** zizkioten bi tarantasek bideari, eta Jalutorovskera iritsi ziren. Karlos Zabala

**7** kobratu.

Bi errublo eta erdi **kendu** dizkidak arima bakoitzeko, zeken ustel horrek! Jose Morales

Hamabost mila pezeta **kendu** zizkiotela aitorpena entzuteagatik, oso luze joan ez zena bestalde, batez ere Elias Elortzari, xehetasunak eman nahi zituenean, "harira, harira" esaten baitzion notarioak. Ramon Saizarbitoria

Diruketa **kendu** ziotean hilotza honaino ekartzearren. Aingeru Epaltza

Eta azkenean Felipe III.ak ezarri zien 1330ean muga, mailegu bidez nahi adina diru berenganatzen ari zirenei, ez zezatela % 20 baino korritu handiagorik **kendu**. Patziku Perurena

**8** alde batera utzi.

Emakumezkoekin ez nuen ia tratubiderik, bulegoko pare bat neska gazte eta beste hiru neskazahar **kenduz** gero, Juduen kasua **kentzen** badugu, gainerakoan Errusian zer ari den gertatzen, ez dut uste inork dakienik. Xabier Mendiguren Elizegi

**9** ***begiak kendu***

Baina nik ez nituen **begiak kendu** bizikletaren farolak errepidean egiten zuen horiunetik. Bernardo Atxaga

Riddlek baiezkoa egin zion buruaz, Harryren aurpegitik **begiak kendu** gabe. Iñaki Mendiguren

Zakurrari ere ez zizkion **begiak kenduko,** halako eguraldi-aldaketaren baten susmorik baldin bazuen behinik behin. Pello Zabala

Ezin izaten nituen **begiak** atetik **kendu,** edozein unetan sartzen ikusiko nuelakoan. Migel Angel Mintegi

Bistatik galdu arte ez nizkion **begiak** gainetik **kendu**. **Begiak** gure izterbegiaren armatik **kendu** gabe, eskua eskaini nion neure andreari. Migel Angel Mintegi

Aurpegi gorri haiek **begirik kendu** gabe so egiten zioten. Karlos Zabala

Kafetegiari **begirik kendu** gabe zelatan gelditu zen berriro. Migel Angel Mintegi

Nor dugu ba hau? -galdetu zuen gero, Romani **begirik kendu** gabe. Inazio Mujika Iraola

Urduri, ez baitzidan **begirik kentzen**. Bernardo Atxaga

## 10 *(begi) bistatik kendu.*

Ez da izango, ikerketa egiteko, margolana museoko bisitarien **bistatik kendu** beharrik. Berria - Kultura

Lapurretan aritutako gizon adineko bizargorri bat aurkitu zuen, Nafarra ezizenez ezagunagoa, eta saltzailearekin, judu bizar txuri bat, berehala ados jarri ondoren, judua nafarra **bistatik kentzeko** egunaren zain bizi baitzen. Felipe Juaristi

**Ken** iezadazu botila **bistatik**, tentaziorik izan ez dezadan. -Ezagun da ez zaitudala sekula **begi bistatik kenduko** -esan zuen sarjentuak Joanes aurrera ekarri ziotenean-. Felipe Juaristi

Iragana ahaztu behar nuke, eta etorkizunik badenik ere **begi-bistatik kendu**. Anjel Lertxundi

Eta agertuan agertu, ez nezakeen gehiago ene **begi-bistatik ken**! Daniel Landart

Baina, senide maiteok, dorrea beteko apaiza zenuten, eta zeuek erregutu zenidaten **begien bistatik kentzeko**! Koldo Biguri

## 11 *bizarra kendu*

**Bizarra kendu** gabe neukan, ez bainuen bizarra egiteko labanarik bat ere. **Bizarra kentzeko** labana. Fernando Rey

**Bizarra kentzeko** atxurra eta bitsa hartuta bueltatu zen. Jasone Osoro

Bizar-makina elektrikoa hartu nuen karteratik, **bizarra kentzearren** ez ezik baita ordu-laurden batez bakarrik egotearren ere. Joxe Austin Arrieta

**Bizarra kendu** berria zirudien, dotorea zen. Lopez de Arana

Horri guztiari beha, ordea, aurpegi-multzo bat, hain zuzen ere, gizon-aurpegi **bizarra kenduak** eta ezpain gorriko eta sudur hautseztatuko emakume-aurpegiak. Lopez de Arana

## 12 *bularra kendu* (titia hartzen duenari)

Ana ez zen igo eta esan zion senarrari: -Ez naiz joango haurrari **bularra kendu** arte. Elizen arteko biblia

Isaak handitu egin zen eta **bularra kendu** zioten. Jose Antonio Mujika

Horrela bada, gelditu egin zen emakumea eta bere haurra hazi zuen, **bularra kendu** arte. Elizen arteko biblia

## 13 *burutik kendu*

Sophie gogotik saiatu zen koinatuari heriotzaren susmoa **burutik kentzen,** kemena behar zuela esaten. Imanol Zurutuza

**Ken** ezan **burutik,** neska, ez dun-eta amesgaizto bat besterik. Anjel Lertxundi

Eta, zu, Eloise **burutik kendu** ezinda. Mirentxu Larrañaga

-Ezin diat Asunena **burutik kendu**. Alberto Barandiaren

Ezin zuen **burutik kendu** handik gau batzuetara Stanek bere bidaiariei kontatuko ziena. Iñaki Mendiguren

Erromaraino autostopez joateko asmoa, berriz, ezin hari **burutik kendu** inola ere. Joxe Austin Arrieta

Orduan **kendu** nuen **burutik** oroitzapenak idazteko asmoa. Anjel Lertxundi

## 14 *gogotik kendu*

Anaiaren azken hitzak… egunaz eta gauaz ez ditut **gogotik kentzen** ahal. Baina Xazamanek ezin baitzuen bere emaztearen azpikeria eta traizioa **gogotik kendu,** egunetik egunera zurbilago eta argalago zegoen. Daniel Landart

Halere, emeki emeki maitatuko du hainbesteraino non ez dezakeen **gogotik ken**. Herria

Hobe duzu hau guztia **gogotik kentzen** baduzu. Joxan Elosegi

Horiek hola, galde bat ezin **kendua** daukagu **gogotik,** [...]: denen buru, atsulutuki beharrezkoa dea autobidearen hola zabaltze hori? Herria

Seguru zegoen alabatxia, burua galtzean are nabarmenago ziren haurtzaroko beldur eta **gogotik** ezin **kenduzko** pentsuak. Itxaro Borda

## 15 *hitza kendu*

Notarioak behin eta berriz **kentzen** baitzion **hitza,** harira joateko eskatuz. Ramon Saizarbitoria

Ron Lupini **hitza kentzera** zihoan, baina "ixo!" esan zion Hermionek, Lupini begira zegoelarik adi-adi. Iñaki Mendiguren

-Ez dut elkarrizketarik onartzen **-hitza kendu** zidan [...]. Aingeru Epaltza

-Hasiera hasieratik zaude oker **-hitza kendu** zion Teresak, haserre samar-. Migel Angel Mintegi

-Ez gaizki har, baina ene iritziz zure senarrak ergel samarra izan behar du -hitza **kendu** nion azkenean-, bestela ez zen modu horretan ariko, zu galtzeko arriskuan jarriz. Migel Angel Mintegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**agintetik kendu** (17); **ahotik kendu** (16); **aldea kendu** (30); **aldea kendu zion** (16); **arantza kendu** (8); **armak kendu** (12); **arropa kendu** (8); **artetik kendu** (8); **askatasuna kendu** (7); **asko kendu** (16); **aukera kendu** (8); **aurpegitik kendu** (8); **aurretik kendu** (9); **baimena kendu** (11); **begia kendu** (7); **begiak kendu** (8); **begirik kendu** (133); **begirik kendu gabe** (90); **bendak kendu** (7); **bere kargutik kendu** (13); **betaurrekoak kendu** (25); **bidetik kendu** (9); **bistatik kendu** (7); **bizarra kendu** (16); **bizia kendu** (32); **boterea kendu** (8); **boteretik kendu** (19); **bularra kendu** (8); **burutik kendu** (211); **burutik kendu ezin** (11); **burutik kendu ezinda** (9); **burutik kendu ezinik** (34); **debekua kendu** (9); **errepidetik kendu** (7); **errotik kendu** (8); **eskua kendu** (14); **eskuak kendu** (7); **eskubidea kendu** (8); **eskuetatik kendu** (24); **eskutik kendu** (21); **estalkia kendu** (32); **estalkia kendu eta** (7); **ezin burutik kendu** (7); **ezpainetatik kendu** (8); **fitxa kendu** (9); **gainetik kendu** (137); **gainetik kendu ezin** (7); **gainetik kendu ezinik** (11); **gainetik kendu gabe** (8); **garrantzia kendu** (89); **garrantzia kendu zion** (15); **gogoa kendu** (12); **gogotik kendu** (18); **hautsa kendu** (20); **hitza kendu** (13); **immunitatea kendu** (7); **indarra kendu** (9); **indarrez kendu** (7); **jantziak kendu** (8); **kapa kendu** (8); **kapela kendu** (8); **kargutik kendu** (139); **kargutik kendu zuen** (23); **kargutik kendu zuten** (18); **kendu beharra** (13); **kendu berri** (10); **kendu burutik** (9); **kendu ezean** (7); **kendu ezin** (29); **kendu ezinda** (16); **kendu ezinik** (65); **kendu gabe** (233); **kendu gabe egon** (10); **kendu nahian** (27); **kendu nahirik** (8); **kendu paretik** (15); **konfiantza kendu** (8); **laguntzak kendu** (11); **lehen postua kendu** (7); **lekua kendu** (13); **lepotik kendu** (7); **lurrak kendu** (8); **meriturik kendu** (13); **meriturik kendu gabe** (7); **mozorroa kendu** (11); **oihala kendu** (7); **oinetakoak kendu** (10); **ondasunak kendu** (8); **papera kendu** (13); **paretik kendu** (23); **postua kendu** (17); **puntu kendu** (8); **salaketa kendu** (7); **segundo kendu** (7); **segundoko aldea kendu** (10); **sinesgarritasuna kendu** (8); **txanoa kendu** (12); **txapela kendu** (10); **txartel horia kendu** (8); **txartela kendu** (7); **zama kendu** (8); **zapatak kendu** (13); **zapia kendu** (10); **zigiluak kendu** (7); **zigorra kendu** (15)

**bizia kenduko** (11); **kargutik kenduko** (9); **puntu kenduko** (9)

**boteretik kentzea** (11); **burutik kentzea** (8); **gainetik kentzea** (10); **immunitatea kentzea** (8); **kargutik kentzea** (58); **kargutik kentzea erabaki** (14); **kentzea erabaki** (57); **kentzea eskatu** (7); **kentzea lortu** (19); **kentzea nahi** (9); **kentzea proposatu** (12); **laguntzak kentzea** (7); **paretik kentzea** (8)

**kentzearen alde** (10); **kentzearen aldeko** (8); **kentzearen aurka** (9)

**agintetik kentzeko** (15); **bizarra kentzeko** (13); **bizia kentzeko** (13); **boteretik kentzeko** (13); **burutik kentzeko** (19); **elurra kentzeko** (30); **elurra kentzeko makinak** (8); **gainetik kentzeko** (41); **garrantzia kentzeko** (11); **gobernutik kentzeko** (8); **gogoa kentzeko** (7); **gosea kentzeko** (9); **hautsa kentzeko** (7); **helegiteak kentzeko** (7); **hura kargutik kentzeko** (7); **ikurrina kentzeko** (10); **immunitatea kentzeko** (8); **kargutik kentzeko** (66); **kargutik kentzeko eskatu** (17); **kentzeko agindu** (19); **kentzeko agindua** (7); **kentzeko asmoa** (21); **kentzeko asmoz** (10); **kentzeko aukera** (7); **kentzeko erabakia** (17); **kentzeko ere** (12); **kentzeko erreferenduma** (7); **kentzeko eskaera** (8); **kentzeko eskatu** (79); **kentzeko eskatu zion** (15); **kentzeko eskatuko** (10); **kentzeko eskatzen** (10); **kentzeko makinak** (8); **kentzeko prest** (8); **laguntzak kentzeko** (8); **mina kentzeko** (12); **paretik kentzeko** (9); **presidentea kargutik kentzeko** (10); **txapela kentzeko** (24); **txapela kentzeko moduko** (7); **txapela kentzeko modukoa** (10); **xedapen iragankorra kentzeko** (10); **xedapena kentzeko** (9); **zigorra kentzeko** (9)

**ahotik kentzen** (7); **aldea kentzen** (26); **aldea kentzen dio** (10); **begirik kentzen** (43); **begirik kentzen ez** (7); **bizia kentzen** (15); **burutik kentzen** (20); **elurra kentzen** (12); **eskuetatik kentzen** (7); **gainetik kentzen** (34); **garrantzia kentzen** (9); **gogoa kentzen** (11); **hautsa kentzen** (10); **indarra kentzen** (10); **kargutik kentzen** (10); **kentzen hasi** (29); **kentzen lagundu** (8); **kentzen saiatu** (29); **kentzen saiatu zen** (9); **loa kentzen** (11); **papera kentzen** (8); **puntuko aldea kentzen** (15); **sinesgarritasuna kentzen** (7)

---

# **kendura** *iz* kenketaren emaitza.

-Baldin eta gauza berdinei gauza berdinak kentzen bazaizkie, ezberdinak dira **kendurak-** abestu zuen marmarian Jonathanek, Max imitatuz. Jon Muñoz

---

**kenezin** *izond* ezin kenduzkoa.

Gizon guztiak berdinak direla sortzez; kreatzaileak zenbait eskubide **kenezinez** hornitu dituela. Xabier Olarra

Berdintasunzaleak desberdintasun gehienak sozialak direla uste du, eta, hortaz, ezabagarriak; berdintasunzale ez direnek, ostera, naturalak direla diote eta, beraz, **kenezinak** . Berria - Kultura

. Hitz haiek esaten ari zela, **kenezineko** mina sumatu zuen erraietan eta izugarrizko oinazeak barruan. Elizen arteko biblia

---

**kengarri** **1** *izond* aipatzen dena kentzen duena.

Sekula ikusi dudan neskarik desira- **kengarriena** zen. Xabier Olarra

**2** ken daitekeena.

Ipuinak soberakinik gabe, eta liburua bera ere **ipuin** kengarririk gabe, horrelaxe jokatu dut. Berria - Kultura

---

keniar ik **kenyar**.

---

kenka ik **kinka**.

---

**kenkari** **1** *iz* ordainkizunetan, kentzen den kopurua. ik **kenketa 3**.

Opor Fiskal Txikiak deitutakoen bidez, Enpresak finkatu eta lehen lau urteetan, hurrenez hurren, %99ko, %75eko, %50eko eta %25eko **kenkariak** eskaini zizkieten aldundiek. Berria - Ekonomia

Nafarroak ere ez ditu pentsio planen gaineko **kenkariak** gutxitzeko asmorik. Berria - Ekonomia

UPNren proiektua **kenkari** fiskaletan oinarritzen zelako. Berria - Ekonomia

Ingurumenari, enpleguari edo berrikuntzari dagozkion **kenkariei** eutsi nahi diegu gerora begira ere. Berria - Ekonomia

%45eko mailegu fiskala eta Elkarteen Zergaren oinarri ezargarriari eginiko **kenkariak** (opor fiskalak) legez kanpoko estatu laguntzak dira. Berria - Ekonomia

Enpresek 1.600 euroko **kenkaria** izango dute kontratatzen duten ikasle-langile bakoitzeko. Gipuzkoak bere hartan utziko ditu etxebizitza ordaintzeko **kenkariak** . Berria - Ekonomia

**2** ***zerga kenkari***

Orain arte, 10.000 euro arteko gastuek %50eko zerga **kenkariak** izaten zituzten. Berria - Ekonomia

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du asmorik etxebizitza ordaintzeagatik ematen dituen zerga **kenkariak** gutxitzeko. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kenkari fiskalak** (3)

**beharrezko kenkaria** (3)

**kenkariak ere** (3); **kenkariak izango** (3); **kenkariak izango dituzte** (3); **zerga kenkariak** (7)

---

**kenketa** **1** *iz* kentzea.

Hitzen arteko aldea ez du letra baten (edo batzuen) gehikuntzak ematen, ezta **kenketak** ere. Iñaki Arranz

Une berean bi akats egiten direlarik, puntu **kenketa** gehituko da, hots, uhalik gabe semaforoa gorri pasatzen duenak gidabaimena bertan galduko du. Berria - Euskal Herria

**Kenketak,** batez ere bokal **kenketak,** askotan izaten dira baldintza prosodikoen araberakoak, azenturik gabeko silaben ahuleziaren emaitza hain zuzen. Lourdes Oñederra

Hor biltzen dira zanpaldiak, erailketak, klitori **kenketak,** sexua dela eta egindako abortu aukeratuak, sexu bortxaketak, abusu psikologikoak, eta abar. Pello Salaburu

**2** aritmetikan, kopuru bati beste bat kentzeko eragiketa.

Lehenik eta behin, batuketa, **kenketa,** biderketa eta zatiketa baino askoz ere funtzio matematiko gehiago dago. Josu Zabaleta

Minutu batean 2 milioi batuketa edo **kenketa** ! Joxe Austin Arrieta

Bi tasa horien arteko **kenketa** egiten da eta egiazko tasa begiz jotakoa baino handiagoa baldin bada, unibertsitateari puntuazio hobea ematen zaio. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**3** ordainkinzunetan, kopuru bat kentzea. ik **kenkari**.

Erakundeen aldetik 18 milioi euro eraman dituela Caballitok, **kenketei,** sariei eta horrelako pizgarri fiskalei esker. Berria - Ekonomia

Laguntzak ez dira zuzenak izanen, baizik eta **kenketa** fiskalak. Berria - Ekonomia

Bana beste soldatadunek hilabetean 1 420 Euro hunki dugu bizitzeko, xifre hori gordina, legezko **kenketak** egin aitzinekoa. Herria

Auzapezak aitortu du etxe bizitza zerga gora dela Baionan, baina herritarren % 30ak ez duela pagatzen irabazi eskasez, beste % 30ek funtsezko **kenketak** ardiesten dituztelarik. Herria

**4** ***zerga kenketa***

Baiona Berri zerrendakoek leporatu diote auzapezari jabe aberats okituen bietan laguntzea, **zerga kenketa** seriosak jada izanki eta Baionak laguntzen baititu oraino etxe zaharkituen berritzen. Herria

Lougarot-ek erran du **zerga kenketak** ukaiteko behar dutela jabek gutienetik 150 000 libera urtean deklaratu. Herria

---

**kentzaile** *iz* aipatzen dena kentzen duena.

Mina- **kentzaileek** erabaki baitzuten bazter haiek hesolaz eta burdinariz inguratu eta ixtea. besteek eramaten gaitzuteneko sentipena beti da erruduntasun konplexuen askatzaile eta zama **kentzaile** iheslariarentzat. Koldo Biguri

Lapurrek, diruzaleek, mozkorrek, izen onaren **kentzaileek** eta iruzurgileek ez dute Jainkoaren erreinua iritsiko. Elizen arteko biblia

---

**kentze** **1** *iz* zerbait, gauzaren edo zatiren bat gabe uztea.

Nabarmen aldatzen da airearen tenperatura bero pixka bat gehitze edo **kentze** hutsarekin. Irene Aldasoro

Karroetan puska ezartze eta karroetarik puska **kentze,** mugan egiten da, Hendaian eta Irunen (jaz 505 miliunen puska). Herria

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goizean, plazan egin deiaren ondotik, langile-buru bakoitzak bere langile andana hartzen zuen lur higitze, egur biltze, elur **kentze**. Berretsi egiten dizkizut nire aurreko erregeek egin zizkizuten zerga- **kentze** guztiak. Marzel Etxehandi

Odol- **kentze** bat gaixo egon zenean egin ziotena. Patxi Ezkiaga

Jaitsi zaitez eta ea hor nonbait koilara handiren bat baden; eta, apar- **kentze** eran, oilo bat edo bi har itzazu, eta on dagizula. Patxi Ezkiaga

---

**kentzearren** *adlag* kentzeko.

Bizar-makina elektrikoa hartu nuen karteratik, bizarra **kentzearren** ez ezik baita ordu-laurden batez bakarrik egotearren ere. Joxe Austin Arrieta

Izan ere, George Bush agintetik **kentzearren,** John Kerryren alde bozkatzea erabaki dute ezkerreko hautesle askok. Berria - Mundua

Loaldi laburraren ostean geratu ohi den ahogozo mikatz hori **kentzearren**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**kentzeke** *adlag* kendu gabe.

Barra ostekoak edalontzi luze bat hartu eta, begirada telebistatik **kentzeke,** tutuaren aurrean jarri zuen. Migel Angel Mintegi

Kondairari egia-izpirik txikiena ere **kentzeke** eta eransteke. Patxi Ezkiaga

Zenbaki absolutuei ezer **kentzeke,** ehunekoek sortzen dutena bai lilura. Iñigo Aranbarri

Kapelua, plater antzeko kapelu handia, soldaduaren nortasuna gordetzen duen kapelua, burutik **kentzeke**. Felipe Juaristi

---

**kenyar** *(orobat **keniar** eta **kenyatar** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kenyar** agertzen da)* **1** *izlag* Kenyakoa, Kenyari degokiona.

Wangari Maathai **kenyar** emazteari Nobel bake saria eskainiz. Herria

Wangari Maathai ekologista **kenyarrak** jaso du Bakearen Nobela. Berria - Mundua

**2** Kenyako herritarra.

Hiru **kenyar,** hiru indiar eta egiptoar bat gatibu hartu dituen taldeak. Berria - Mundua

Ogada **kenyarra** *African Heritage Band* taldeko kide izana da. Berria - Kultura

Donostiako maratoiak John Chepochok **keniarra** izango du izar nagusia. Berria - Kirola

Analia Rosa portugaldarra izango da **kenyarraren** kontrario gogorrena. Berria - Kirola

---

**kepi** *(orobat **kepis**)* *iz* uniforme batzuen osagarri den buruko zilindriko biseraduna.

Militarrak **kepia** erantzi eta mahai gainean utzi zuen. Anjel Lertxundi

Bi udaltzain, gaueko uniformea jantzita artean, kapusaia soinean eta **kepia** buruan, espaloian atzera eta aurrera zebiltzan. Karlos Zabala

Buruan zeraman **kepia** burua baino txikiagoa zuen. Anjel Lertxundi

**Kepia** jantzi zuen ostera. Anjel Lertxundi

Sabre txiki bat, galtza luzeak eta **kepis** bat eman zizkioten. Xabier Olarra

---

kepis ik **kepi**.

---

**kera**[1] *iz* itxura; era.

Akinosukek **kera** horretako ipuinak kontatu zituen hiri eta herrietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Barau luzeek eta bizitza erretiratuak aldarazi egin zuten andre gaztearen **kera**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gorpuzkera, keinuak, aurpegiaren **kera..** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Aurpegiko azala eta **kera** ere halakoxeak ditu, mendikoarenak. Hasier Etxeberria

Antz haren argitan aztertzean, haren aurpegi leunean zerbait ihartu, hondatua, ez dakit zer zehazki, sortzen zen bat-batean, familiaren **kera**. Monika Etxebarria

---

**kera**[2] *iz* geldialdia.

Ni Süskind-en Zommer izeneko pertsonaiarekin gogoratzen nintzen, egun osoa Oberneseeko lakuaren bueltan **kerarik** egin gabe ibilian. Joxean Agirre

---

keramika ik **zeramika**.

---

**keratina** *iz* azufrez aberatsa den proteina, ornodunen epidermisaren, eta azazkal, ile, luma, adar eta kidekoen osagai funtsezkoa dena.

Gatz hori, berez, usaingabea da, baina erreakzionatu egiten du nola edo hala larruarekin, beharbada **keratinaren** disulfuro-zubiak erreduzituz, eta egun batzuetan kimikaritzat salatzen zaituen metal keru iraunkor bat jaregiten du. Juan Garzia

---

**keratxo** *iz* geldialditxoa.

Lizarriturrik arnasketarako hartzen dituen **keratxoetako** bat aprobetxatzen ez badu, okulista galduta dago. Pako Aristi

---

**kereila** **1** *iz* dagokion epailearen edo tribunalaren aurrean irainduak edo kaltetuak aurkezten duen salaketa.

Garaikoetxea eta Arzalluzi **kereila** jarri die AVTk. Berria - Euskal Herria

Urkulluri **kereila** jarriko diote ETA Armadarekin parekatzeagatik. Berria - Euskal Herria

Zenbait ustezko desobedientzia deliturengatik jarri du **kereila** Iruñeko Instrukzio epaitegian. Berria - Euskal Herria

Ermuko Foroak Batasunaren kontra jarritako **kereila** ez du onartu epaitegiak. Berria - Euskal Herria

**Kereila** hori auzoko 140 lagunen izenean aurkeztu zuten. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Gorenak atzera bota du prebarikazioa egotzita Batasunaren abokatu Jone Goirizelaiak Fernando Grande-Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aurka herenegun aurkeztutako **kereila**.

Azkenean denda handiko jabeak **kereila** pausatu zuen. Itxaro Borda

Javier Madrazo izan da «Erregea iraintzeagatik» EAEko Fiskaltzaren **kereila** jaso duen azkena, Madrazoren aurka jarritako **kereilaren** helegitea aztertzen ari dira. Berria - Euskal Herria

EAEko Auzitegiak Balzaren kontrako **kereila** ireki du berriro. Berria - Euskal Herria

**Kereila** artxibatzeko eskaera atzera bota du Bolado epaileak. Berria - Euskal Herria

Cofidisek 'L'Equipe' kazetaren aurka jarritako **kereila** ezetsi dute. Berria - Kirola

Desobedientzia delitua leporatu zieten hirurei **kereila** horretan. Berria - Euskal Herria

Gobernuaren **kereilak** geldirik. Berria - Euskal Herria

Salak **kereilen** sumarioa geldiaraztera behartu zuen Guillermo Ruiz Polanco epailea. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondoekin)

Beste hiru sententzia falta dira Itoizko aferan; haietako bat urtegiko arduradunen kontrako **kereila** kriminalari dagokio. Edurne Elizondo

Itoizko urtegiaren auzian ere, **kereila** kriminala aurkeztu eta onartu dute proiektuaren arduradunen kontra. Edurne Elizondo

Baldin eta soberanoak hiritarrak ohitzen baditu [...] aginduen zorroztasunera, eta zapaldua sentitzen denaren **kereila** zuzen zein okerrak baztertzera, hiritarrek legeei baino beldur handiagoa izango diete magistratuei, Juan Martin Elexpuru

**3** (hitz elkartuetan)

Hagitz ñarroa izanik ere, berehala baitator irain-**kereila** bat, bestela. Jon Alonso

EAEko Auzitegi Nagusiak ez du onartu hiru epaileren kontrako prebarikazio **kereila**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aurka jarritako kereila** (11); **aurkako kereila** (19); **aurkako kereila jarri** (3); **aurkako kereila kriminala** (4); **aurkeztutako kereila** (7); **aurkeztutako kereila onartu** (3); **fiskaltzaren kereila** (3); **jarri zioten kereila** (4); **jarritako kereila** (34); **jarritako kereila artxibatu** (6); **kereila artxibatu** (7); **kereila aurkezteko** (3); **kereila aurkeztu** (11); **kereila aurkeztuko** (3); **kereila aztertzen** (4); **kereila bat jarri** (3); **kereila jarri** (26); **kereila jarri zuen** (5); **kereila jarriko** (9); **kereila jartzea** (4); **kereila kriminala** (17); **kereila kriminala aurkeztu** (7); **kereila kriminala jarri** (3); **kereila onartu** (8); **kontra jarritako kereila** (6); **kontrako kereila** (13)
>
> **aurkako kereilak** (5); **jarritako kereilak** (4)
>
> **jarritako kereilaren** (5)

---

## **kereta** *(orobat **gereta**)* *iz* kanaberak-edo bilbatuz egiten den hesi moduko, ate edo zernahi gauza.

Eskolako haurrak ordezkarien beha zeuden, xingolari egokitu soinekoak emanik, lore sorta bana eskuan eta guarda nazionalak lerro-lerro zeuden gorde ttipi batera zeraman burdinazko **kereta** aitzinean. Elena Touyarou

Oholtza horien inguruan **geretak** jarriko dira, oso adar meharrekin eta ahalik eta hezeenekin egindakoak. Santiago Iruretagoiena

Zenbat **gereta** eta ataka ttiki egunero bost bider eskuz ireki eta ixteko, zenbat hesi txukun, zenbat sehaska ttiki eta aulki, zenbat zumitz eta gaztantzera. Patziku Perurena

Horregatik iruditzen zait zuhurragoa dela adreilu errea erabiliz gastatzea, **geretazko** hormekin arriskuan egotea baino. Santiago Iruretagoiena

---

## **keretar** *iz* Biblian agertzen den leinu bateko kidea.

Zerbitzari guztiak erregearen ondoan zihoazen; **keretar** eta peletar guztiak eta Gatetik jarraitu zioten seiehun gizon gatarrak, berriz, erregearen aurretik. Tzadok apaizak, Natan profetak, Joiadaren seme Benaiasek, **keretarrek** eta peletarrek Salomon David erregearen mando gainean ezarri eta Gihonera eraman zuten. Elizen arteko biblia

Benaias, Joiadaren semea, **keretarren** eta peletarren buruzagi. Elizen arteko biblia

Horregatik, hau diot nik, Jainko Jaunak: Filistearren kontra ekingo diot, **keretarrak** erauziko ditut eta itsasertzeko gainerako herriak suntsituko. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **keretarren eta peletarren** (3)

---

## **keria** *iz* alde txarra, nolakotasun gaitzesgarria.

Bertzetik, Ximurraren eta Kristinaren jokabideari, anarteraino, bikote arruntaren ezaugarriak baizik ez nizkion hauteman, bere tasun -guti- eta **keria** -ausarki- guztiekin. Aingeru Epaltza

Tokia, bertzalde, ez nuen gogoko, eta ingurunea are gutiago: etxe zahar bat auzo zahar batean, etxe eta auzo zahar guztiek dituzten **keria** eta akats guztiez ajetua. Aingeru Epaltza

Astrologiaren **keriak**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **kerida** *iz* amorantea.

Larru grinak maizegi jotzen bazaitu, biziosoa zarelako; eta behar den grinarik erakusten ez badiozu, seguru baduzula **keridaren** bat auzoan-. Patziku Perurena

---

## kermesa ik **kermeza**.

---

## **kermeza** *(orobat **kermesa** g.er.)* *iz* aire zabalean egiten den ongintzako festa.

Otsabideko **kermezan** Agatak anitz hitz egin eta asko edan zuen. Itxaro Borda

Berriki bildu da, apezetxean, **kermeza** prestatzen duen taldea. Herria

Irisarri eta Suhuskune elgarrataratzen dituen "Baigur Itzal" batasunaren **kermeza** dugu heldu den igandean. Herria

Baigorriko **kermeza** eginen da uztailaren 3 eta 4an. Herria

Aurtengo **kermeza** ekainaren 17-an iraganen da. Herria

Afaritik landa, **kermezako** zozketaren emaitzak jakinen dira. Herria

Larunbat aratsean, 21etan, **Kermezako** Lotoa, Etxehandian, sari eder batzuekin. Herria

Igandeko **kermeza,** ederra eta kausitua izan da. Herria

**Kermeza** ederki iragan da. Herria

Arras ontsa joan da gure **kermeza** aro ezin hobearekin. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baigorriko kermeza** (7); **baigorriko kermeza eginen** (3); **herriko kermeza** (7); **kermeza iragan** (4); **kermeza iragan da** (3); **ortzaizeko kermeza** (7); **parropiako kermeza** (18); **suhuskuneko kermeza** (4); **urteko kermeza** (10); **ziburuko kermeza** (9)

---

## kermezalari *iz* kermeza antolatzen duen pertsona.

Hortan ez utzi nahiz gauzak xuhurki, izan du jende harek guziak bere apezen eta parropiako **kermezalarien** komita katedraleko klaustroperat hantxet alaitasunean basoño baten hartzeko elgarrekin. Herria

---

## keroseno 1 *iz* petrolio garbitik eratorritako gaia, bereziki erreakzio motorren eta suzirien propultsio motorren erregai gisa erabiltzen dena. ik **nafta.**

**Kerosenoa,** berriz, ez zen inoiz ere beheko suan erabiltzen. Gotzon Garate

Eztandak petrolio hornikuntzarik gabe utzi zuen barne merkatuarentzat gasolina, **kerosenoa** eta gas likidoa ekoizten dituen Dora findegia. Berria - Mundua

Hegazkinek erretzen duten **kerosenoak** ez du zergarik ordaintzen. Berria - Mundua

Zuloa berriz itxi ez zedin, hegazkinentzako erregaiz bete zuten: 60 tona **keroseno** . Berria - Gaiak

**Kerosenoz** igurtzi eta bizirik erre zuten. Gotzon Garate

**Kerosenozko** argiontzia zehar-hagetako batetik esekirik zegoen. Juan Garzia

**Kerosenozko** lanpara batez argitua. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orrazten ari zen eta bere ileari **keroseno** usain sarkorra zerion. Patxi Zubizarreta

Alokairua ez kobratzeaz gainera, **keroseno** eta oihal kupoiak eskaini zizkion. Patxi Zubizarreta

Forense jakintsu batek, neskatxaren jantziak ongi aztertu eta **keroseno** aztarnak aurkitu zituen. Gotzon Garate

---

## kerratu *izond* zaharmindua.

Oheen musketa-usainarekin eta esnatu-hurren zen kale harriztatuaren aldarri **kerratuarekin** nahasita. Lopez de Arana

Hain **kerratua** ikusten dute gai hau? Pello Salaburu

---

## kerru *iz* karkaxa.

**Kerrua** etorri zaio, albora behatu dut zapi zikina atera duenean. Koldo Izagirre

Ahotik, eztul batez, lurreko errauts gorriarekin nahasi zen **kerru** malgua bota zuen. Itxaro Borda

Auskultatzea edo kolpekatzea, gernua edo **kerrua** aztertzea. Josu Zabaleta

---

## keru 1 *iz* dasta, zaporea.

Ginebraren eta tabakoaren **keru** lehorraren gibelean, berritasunaren gozotasun hezea gordetzen zuen haren ahoak, gaztetasunaren bizitasun zalua haren mihiak. Aingeru Epaltza

Egun batzuetan [gatz horrek] kimikaritzat salatzen zaituen metal **keru** iraunkor bat jaregiten du. Juan Garzia

Esaldi honek, batzuetan **keru** biblikoa duena Unamuno-rengan. Joxe Azurmendi

Alkohol **kerua** zeukan. Koldo Izagirre

**2** usain gaiztoa.

Arnoa okaztagarria da, ahuntz larru **kerua** dauka. Koldo Izagirre

Animalia ustelduen **keruak** hartuak ditu bazterrak. Xabier Montoia

Hemen zikinaren **kerua** sarkorra da oso. Pako Aristi

Ibilaldi bukagaitz baten ondoko izerdiaren **kerua** . Xabier Montoia

Ouroanak, malkorik gabe, jada **kerua** darion hilotza zaintzen du. Jon Alonso

Kafesne **keru** epel okaztagarria zekarten hitzek. Koldo Izagirre

Nik bai, porroarenaz aparte beste **keru** berezi bat sumatzen nuela -egin zuen Hausterren oin hutsari begira. Iñaki Iñurrieta

Hildako mofeta bati egotzi zion Nathanielek oka hasterainoko **keru** gaiztoa. Anjel Lertxundi

---

## kerubin *iz* aingerukien hurrenkerako bederatzi taldeetako bigarreneko kidea.

Eta ama ospetsu eta beti Birjina Maria txit dohatsuari; Mikel, Gabriel eta Rafael dohatsuei eta espiritu dohatsuen talde guztiei: serafin, **kerubin,** ahalmen, nagusi, aginte, botere, indar, aingeru eta goiaingeruei. Askoren artean

Baina paradisuko ate aurrean **kerubina** baitzegoen zutik gar distiratsua zerion ezpatarekin. **"Kerubinen** gainera igo eta hegaz egin zuen", hegaz **kerubinak** egiten baitzuen, eta horrekin, metaforaz, gertatu zenaren lastertasuna adierazi nahi izan da. Askoren artean

Estasian geratu zen, begiak zabalik **kerubinak** eta serafinak ikusten ari balitz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## kerzetina *iz*

Bi prebiotiko aztertuko ditugu: esfingomielina eta **kerzetina** . Berria - Gaiak

**Kerzetina** landare gehienetan dagoen flabonoide bat da. Berria - Gaiak

---

## kesa 1 *iz ipar* kaxa, kutxa.

Laborari horiek biperra biltzen dute eta **kesa** batzuetan ezarririk kontserba etxeetara eramaiten. Herria

Hortako axeri bat ziloan largatu eta sartuko da **kesa** batean, zakurra haren ondotik denbora negurtuz. Herria

**2** aurrezki kutxa.

Mailegua 380.000 euro, gaineratekoa herriko **kesatik** . Herria

Nik aldiz, bertze mutualitateko **kesa** molde batean lan egin dut 46 urtez. Herria

Bilkura horren helburua zen gorago izendatu lau herriek Baionako **kesarekin** izenpetu duten kontratu berria. Herria

Ez dira beren gain, bainan **kesa**-nausi bati lotuak, zorigaitzer aiseago ihardokitzeko, nola hemen Paueko eta Tolosako **kesarekin**. Herria

---

kestatu ik **keztatu**.

---

# kestione

**1** ***kestione izan*** da *ad* kontua izan.

Bainan noiz ? noiz hori da **kestione**. Herria

Badakit hautatu behar dela berrietan, nolakoa den hautatzea da **kestione**. · Joan den ostiraleko kontseilu bilkurak hiru erabaki hartu ditu diru kontuez **kestione**. Herria

---

**ketamina** *iz* ikusmena eta entzumena desitxuratzen dituen droga, berez medikuntzan erabiltzen zena analgesiko eta anestesiko gisa.

Anfetamina dagoela, kokaina dagoela, **ketamina** dagoela. Iñaki Segurola

Azken boladan, gainera, ugaritu egin da kokaina eta psikosuspergarrien kontsumoa, **ketamina** eta sintesi drogekin nahastuta. Berria - Euskal Herria

---

**ketchup** *(orobat **ketxup**) iz* azukrea, ozpina eta bizigarriak dauzkan tomate saltsa.

Andrea **ketchup** bila doa Machin-enera, solairu bat gorago. Egin ezazu bizkor saltsatxo bat esnegainaz eta **ketchupaz**. Eskarne Mujika

Omerice izenekoa k ere egiten zizkigun, arroza, tipula eta azenario txikitua nahasi, eta arrautzopil batean bildurik, gainean **ketchupezko** lore bat marrazten ziola. Juan Kruz Igerabide

Seamusek bere saltxitxetan **ketchup**-pila jartzen zuen bitartean. Iñaki Mendiguren

**Ketchuparen** ordez marmelada. Xabier Olarra

Soja %80an zuen haragiak eta ongi sartzen zen, baita entsalada eta **ketxupa** ere, eta pisua irabazten hasi nintzen harmoniatsuki. Joxan Elosegi

Kupoi-saltzailearen talo-aurpegiak **ketchup** kolorea hartu bitartean. Patxi Iturritegi

---

**ketsu** *izond* kez betea; lurruntsua.

Buztinezko pipa **ketsua** ezpainetatik kendu ere egin gabe. Anjel Lertxundi

Teilatu gorri eta **tximinia** ketsuen gainak. Koldo Izagirre

Kandela-mutur **ketsuaren** argitan. Juan Garzia

Ostatu-zuloetako zuzi **ketsuak** imajinatu zituen. Juan Garzia

Te-ontzi **ketsuaren** inguruan. Xabier Montoia

Mahai gainean azpil bat zegoen ur oraindik **ketsuz** beteta, eta uretan, hodi fin eta gorri bat. Joseba Urteaga

Nire begirada bilatzaileak laster hauteman zuen pertz **ketsua** garraiatzen zuen taldea, sorbaldetan jarritako makilen gainean. Urtzi Urrutikoetxea

Kare-fabrikatzar **ketsua** ere desagertua. Txillardegi

Zarama-pilo **ketsuz** beteriko zabortegien artetik. Lopez de Arana

Lurralde **ketsu,** antzu eta errautsez estalia hedatzen zen, zabal. Agustin Otsoa

Mendiaren kono **ketsua**. Agustin Otsoa

Ibaiaren bi ertzen gainean egindako adreiluzko eraikuntza handia, jario **ketsu** eta kiratsuak bertako urak kutsatuz. Agustin Otsoa

---

**ketu,** ke(tu), ketzen **1** du *ad* ketan ipini, ketan lehortu.

Buglar lotuta utzi nian, txerrikia **ketu** beharra izan genuenean. Anton Garikano

**2** ke bihurtu.

Hamabi bidaztiri egin zien lapurretan, hogei fraide **ketu** zituen komentu batean eta moja monasterio bat harem bihurtu zuen. Josu Zabaleta

**3** (era burutua izenondo gisa) ketan ipini, ketan lehortu. ik **keztatu 2**.

Holandako haria, irina, tabakoa, pistolak, sardinzar **ketuak,** margolanak. Jose Morales

Bizigarriz hornitu gintuzten, zerri haragi **ketua,** gure sabel hutsen gozagarri. Aingeru Epaltza

Ardo beltz ona, tortilla zoragarriak eta ardi gazta **ketua**. Pako Aristi

Etxola **ketura** heldu nahian. Imanol Zurutuza

Kristal **ketuzko** ate baxu batetik sartu ziren soto batean. Jose Morales

Etxola **ketura** heldu nahian. Imanol Zurutuza

Txerriki **ketuaren** orkatila-hezurrak pila batean zeuden platereten. Anton Garikano

· Udalak festetarako ekartzen ohi zuen zezen plaza aldakorretik mekano **ketu** bat baino ez zen gelditu, burdinazko hondakin erromatarra. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gaueko purgatorio ketu** (4)
> **sardinzar ketuak** (3)

---

**ketxo** *iz* ke txikia.

Azkar baino lehen sumatu zituen norbaitek gaztetxo haien arteko pasioak sortzen zituen **ketxoak,** eta mizto gaiztoen pozoiarekin joan zen etxekoandrearengana. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

ketxuar ik **kitxua**.

---

ketxup ik **ketchup**.

**ketza** *iz* ke mordoa.

**Ketza**. Sonia Gonzalez

---

**ketzal** **1** *iz* Ameriketako erdialdeko hegazti igokaria, goialdean luma berde dirtiratsuak eta behealdean gorriak dituena *(Trogons resplendens).*

Dokumentuaren arabera, leku horietan bizi dira Afrikako gorila, hartza eta Guatemalako ikur nazionala bilakatu dena, **ketzala**. Berria - Gaiak

**2** Guatemalako diru banakoa.

Askok gutxieneko soldata jasotzen dute: 1.300 **ketzalen** truke, 120 euro inguru, lan egiten dute. Berria - Harian

---

**kexa** *(orobat* **keja** *g.er.)* **1** *iz* egoera mingarri baten ahozko adierazpena. ik **kexu; espa; intziri.**

Suminduta gelditu nintzen negar eta **kexa** hauek entzutean. Elizen arteko biblia

Arrankurarik ez, ordea, **kexa** bakar bat ere ez! Karlos Zabala

Kanpora bidalitako atzerritarren **kexak** eta aieneak. Karlos Zabala

Hala ere, ez zen marmarrik, ez **kexarik** entzuten. Askoren artean

Buruko mina zen askoren **kexa**. Joxe Austin Arrieta

Ez zen ateraldi burutsu bat izan, **kexa** bat baizik. Bernardo Atxaga

Prozesu horri buruzko **kexak** izan dira hainbat sektoretan. Berria - Harian

**Kexak** izan ziren, jakina, eta baita eztabaidaren bat edo beste ere. Koro Navarro

Baxurako arrantzaleen **kexak** ezagunak dira, baina kontserba enpresetako langileek ere presio handia egin dute beren lanpostuak mantentzeko. Berria - Harian

Nire **kexari** zer erantzuten ote dion zain. Elizen arteko biblia

**Kexa** horien harira, Donostia ospitaleko kudeatzaileek ikerketa hasi zuten. Berria - Euskal Herria

Eskolatik ostutako kraion berde urdin gorriz berrosatzen genituen inoiz marinelek ate hartan zauritutako bergantinak eta **kexemarinak,** umeak bere labana atera eta Arrietaren mahaian egin zuen bezala. Koldo Izagirre

Beti **kexa** eta **kexa** habil, panpoxa hori! Jokin Muñoz

Kexatu natzaio, **kexa** baita ahulen arma. Anjel Lertxundi

**Kexarik** ez zen irteten haren ahotik. Karlos Zabala

Denek egin omen zuten engainatu, gaizki tratatu eta, azkenean, abandonatu; hori da gutxi gorabehera haren **kexetatik** atera nuen ondorioa. Ander Irizar

**2** (aditzaren objektu gisa)

**Kexa** bat jarri nahi dugu zuen irakasleetako baten aurka. Oskar Arana

Defentsaren abokatuak, aldiz, barrutiko Giza Eskubideen batzordean **kexa jarriko** duela esan zuen. Berria - Euskal Herria

Melanie Isaacs-ek aurkeztutako **kexa** batez ari gara. Oskar Arana

Arazoak hasi zitzaizkion, ordea, Luriek ematen duen ikastaroko ikasleek **kexak** aurkeztu zituztenean beraren aurka. Oskar Arana

*Diario de Navarra*-k berak **kexa** agertu zuen Guardia Zibilaren jarreraren ondorioz. Edurne Elizondo

Federazioak horren gainean ere **kexa** azaldu du, zigorrik jartzekotan gernu analisiak hartzen baitira kontuan. Berria - Kirola

SEOk kontrapasa ehizari buruzko **kexa** Europako Batasunera ere helarazi du. Berria - Euskal Herria

25 **kexa** aztertu dira. Berria - Euskal Herria

40 **kexa** jaso dira, baina 31 ez dira onartu. Berria - Euskal Herria

Horretaz gain, **kexak** entzun eta arautegiak betetzen ote ziren begiratu behar. Karlos Zabala

Epaileari **kexak** bidaltzen hasi ginen, kontaketa bakoitzeko **kexa** bat, eta halako batean erantzun zigun epaile horrek, arrazoia geuri emanez. Jokin Urain

Egor Timofeievitxen **kexa** aintzat hartu zutela. Jose Morales

Espainiak egindako presioa handiegia izan zen, eta **kexak** ez zuen aurrera egin. Edurne Elizondo

Herritarren **kexak** bideratzeko bulegoak sortzea. Berria - Mundua

Ez ditut gordeko neure **kexak,** bihotzeko samina isuriko dut. Elizen arteko biblia

**3** (izenondoekin)

**Kexa** samin haien aurrean, laguna errukitu egin zen aitaz. Askoren artean

**Kexa** luze eta zehatza idatzi zien sinodo santuari eta San Jurgiren zaldunen ordenako kapituluari. Jose Morales

**Kexa** gogorra egin nion zuzendariari, idatziz aurrena, bekoz beko geroago. Koldo Izagirre

Lucius Malfoy jaunaren **kexa** ofiziala kontuan hartzea erabaki dugu. Iñaki Mendiguren

**Kexa** nagusiak soldata baxuen ingurukoak izan ziren. Berria - Mundua

Behin batean, **kexa** bizian ari zen herria; entzutean, biziki haserretu zen Jauna. Elizen arteko biblia

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Ongi merezia duzue! [...] -betiere "et-et-et!" edo mihi-kliska eta **kexa**-hasperen bat lagun jakinarazitakoa. Mirentxu Larrañaga

Nabarmen agertzen da eremu sozio-ekonomikoak, hots, enpresa pribatuen jarduerek, sorturiko **kexa** kopuruak hartu duen garrantzia. Komisioak dira bankuetako eta kutxetako bezeroen **kexa** iturri nagusietakoa. Berria - Harian

Zer **kexa**-mota baina? Oskar Arana

Hildakotzat ematen zutena, **kexa** gisako murmurioa bularretik atereaz, arnasestuka zerbait esaten saiatu zen. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lillen bertan antolamenduari buruzko ezadostasun-**kexen** murmurioa abarrots bilakatzekotan zen. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kexa agertu** (14); **kexa agertu zuten** (4); **kexa aurkeztu** (8); **kexa azaldu** (4); **kexa aztertu dira** (3); **kexa bat aurkeztu** (3); **kexa handirik** (3); **kexa jaso** (10); **kexa jaso dira** (7)
>
> **herritarren kexak** (5); **kexak entzun** (4); **kexak izan** (4)
>
> **ez zuen kexarik** (4); **inolako kexarik** (6); **kexarik agertu** (3); **kexarik egon** (3); **kexarik gabe** (6); **kexarik izan** (7); **kontrako kexarik** (3)

---

**kexabide** *iz* kexatzeko zergatikoa.

Kexabiderik ez da izango **Kexabidezko** gutun gisatsu bat idatzi nuen, auziaren nondik norakoak azalduz. Juan Garzia

Vienako diagnostiko-zentro baten postalaster batekin hasi zen; oso modu gizalegetsuan idatzirik zegoen, ohartarazpen bat areago **kexabide** bat baino, eta erantsirik zekarren erradiografia egiaztagarri bat. Juan Garzia

**kexadura** *iz ipar* ezinegona, artegatasuna. ik **kexamendu**.

Marie Curie eskola (30 haur) okupatu dute burasoek beren **kexadura** adierazteko. Herria

Batzutan juramentu bat botatzen duzu eta uste dut une horiek ere hola direla, gaitzidura baino gehiago, **kexadurak**. Menane Oxandabaratz

---

**kexagai** *iz* kexaren gaia.

Atsegin zuen edozertaz kexatzea; lantokiko jendea, Harry, Udala, Harry, bankua eta Harry ziren haren **kexagai** gogokoenetako batzuk. Iñaki Mendiguren

---

**kexagarri** *izond* kezkagarria, asaldagarria.

Horregatik egokiago dirudi nork bere burua mintzea kanpoko mina ematen duten soka argalekin, eta ez barruan gaitz **kexagarria** sor dezakeen beste modu batekin. Patxi Altuna

---

**kexaka** *adlag* kexatzen.

Bazkaltzera eramaten du jatetxe batera [...] eta entzun egiten dio, mahaian izkira-entsalada dutela, semearen eskola dela-eta **kexaka**. Oskar Arana

Ron ikusi zuen **kexaka** zebilen jendetzatik aldentzen. Iñaki Mendiguren

**Kexaka** etorri zait bart don Rodrigo. Unai Elorriaga

Eta Abasi **kexaka** hasten zitzaionean, hil ondoko oihalerako ez zuela nahikorik esaka, ez zen gezurretan ari. Patxi Zubizarreta

Harri bat jo zuen eta minaren minaz **kexaka** eta uluka hasi zen. Joanes Urkixo

---

**kexakizun** *iz* kexa, kexabidea.

Horretan, ez zuen **kexakizunik**. Jon Muñoz

Iduri du, jauna, nirekin duzun jokabideagatik, zure kontra nituen **kexakizunak,** egunez egun, emendatu baizik ez dituzula nahi. Jon Muñoz

Nigana izan duzun jokabideak sinetsarazi ahal izan zidan heinean ezen ez ninduzula nahasi nahi izan zutaz **kexakizunik** izan duten emakume gutzi-gutzi horiekin. Jon Muñoz

---

**kexaldi** *iz ipar* ezinegonezko aldia.

Horren beharra senditzen du, gainera, berriki jasan **kexaldiaren** jabaltzeko eta ahanzteko. Eneko Bidegain

Bainan azkenean zer ondorio ote Bayrou-ren **kexaldiak**? Herria

---

**kexamendu** *iz ipar* ezinegona, artegatasuna. ik **kexadura**.

Biltzar oihukari horren arrazoina hauxe zen: beren gobernamenduaren legeberritze batzuen kontrako **kexamendua** eta sozial-ekonomia mailean eginak diren proposamenduak ezin onartua. Herria

---

**kexarazi**, kexaraz, kexarazten *(orobat **kexa arazi** g.er.)* **1** du *ad* kexatzera behartu,

Edo ez, behintzat, Gryffindorreko egongelan paretan josita ohartxo bat ikusi zuten arte, guztiak **kexarazi** zituena. Iñaki Mendiguren

**2** *ipar* kezkarazi, larriarazi.

Bainan denbora berean, langileria ez ere sobera **kexarazi** nahi. Herria

Gertatu beharra zena gertatu, bahiturik gabe itzuli dira etxerat denak **kexarazi** ondoan, bai maioritateko lagunak eta bai beste aldeko sozializtak, kalterik baizik ez zietela egiten bi presoeri eta Frantziaren omenari ere. Herria

Konparazione, ez daki nola tapa "Securité sociale" delakoaren ziloa bazterrak sobera **kexarazi** gabe. Herria

---

**kexati** **1** *izond* kexatzeko joera duena.

Aitaren babesik gabe, gaixotasunak eta etsipenak zaharkitutako ama **kexatiaren** arduratik urrun, [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zoro endekatu **kexati** bat, besterik ez. Fernando Rey

Aurpegi bihurrituak, goibelak, **kexatiak,** amorruzkoak. Xabier Olarra

-Anna, zu zara? -esan zuen logaleak jotako ahots **kexati** batek bere amaren ohetik. Lopez de Arana

Izan ere, hegazti haien ahots **kexatiek** Itsasoaz hitz egiten zidaten. Agustin Otsoa

Arratsa iritsi zen, gero gaua; eta elizako kanpaia jotzen hasi zen, bere ahots **kexatia** espazio hitsean zehar, elurtza zuri izoztuan zehar barreiatuz. Josu Zabaleta

Garrasi **kexati** bat egiten zuen, haurra hurbiltzen zitzaionean. Juan Kruz Igerabide

Zauritutakoen ilara **kexati** etengabeak ez ziren amaitzen. Txillardegi

Husainek orduan hizketa molde **kexatiz:** [...]. Patxi Zubizarreta

Eta besteek ere azkenean amore eman dute, **kexatiarena** eginez noski. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (adizlagun gisa)

**Kexati** eta intzirika. -Tira, eta zer egingo dugu? -esan zuen **kexati** Merivalek. Frantzisko dohatsuagana jo zuen bere lantuekin eta haren aurrean ahuspeztu zen **kexati**. Askoren artean

Ez du umezurtzaren erregua mesprezatzen, ez eta **kexati** doakion alarguna ere. Elizen arteko biblia

Eta ea zertan ari zen marmarka, galdetu zion, erdi farrez erdi **kexati,** igartzen baitzion zertan ari zen pentsatzen. Anton Garikano

---

**kexatu,** kexa(tu), kexatzen **1** da *ad* pairatzen den egoera mingarria ahoz adierazi. ik **arranguratu**.

Neska gajoa, ez da batere erraza izan bere bizimodua, baina inoiz ez da **kexatu**. Ramon Etxezarreta

Tripetako zorriak orduranko **kexatzen** hasiak, non zer jango hasi naiz. Anjel Lertxundi

Badakizu askotan **kexatu** izan naizela amarengatik, baina gero beti ahalegindu izan naizela harekin adeitsu izaten. Josu Zabaleta

Baina eskuak lokietara eraman besterik ez zuen egin, eta igurzten zituelarik, lanaz eta nekeaz **kexatu** zen. Ramon Saizarbitoria

Ez dela jarri duten lekuaz **kexatzen**. Askoren artean

Hau dela eta, Parisko hiritar aberats bat mihi gabe geratu zen, eta hau Inozentzio IV.a aitasantuaren aurrean **kexatu** zen. Juan Martin Elexpuru

Zoritxarrez, berriro **kexatu** beharko dut janaria dela eta. Lopez de Arana

-Ez zara **kexatuko**! -amari-. Arantxa Iturbe

-Jainkoari eskerrak, ezin naiz **kexatu** -esan zuen Sobakevitxek. Jose Morales

-Joba, ama! **-kexatu** zen Leire-. Aitor Arana

-Hau aspergarria da **-kexatu** zen Dudley, eta tirriki-tarraka hankak arrastaka alde egin zuen handik. Iñaki Mendiguren

-Ez adarrik jo, faborez **-kexatu** zitzaion Arantxa-. Fernando Morillo

Eta, egia esatera, emaztea bera konbentzitua zegoen ez zuela zertan **kexatu**. Patxi Zubizarreta

Ez dut **kexatzeko** motiborik, ez alde batetik eta ez bestetik. Karlos Zabala

**2** *ipar* kezkatu, larritu.

Eta hain xuxen odola abiatu zitzaion, odola burrustan zarion, eta odola ezin geldiaraz [...], gure errientsa arrunt **kexatua,** aztoratua, haur guziak izituak... Menane Oxandabaratz

Hola mutikoak bazekien -eta segur zen- nehor ez zela arranguratuko, ez eta ondotik ibiliko, **kexaturik,** non galdua ote zen. Michel Oronoz

Ez **kexa**! -erran zion Ninari hoteleko tipoak. Ramuntxo Etxeberri

Andreek irria ezpainetan, ez **kexatzeko,** jatekoa bazela denentzat eta aski zutela kantoi hartako mahaian jartzea. Aurelia Arkotxa

**3** *ipar* haserretu.

Amarekin **kexatu** zen. Itxaro Borda

Bere buruarekin eleketa ari zen, norbaitekin **kexatua** balitz bezala, galde-erantzunak berak eginez. Daniel Landart

Baditut kolera bulta itsusiak eta zinez orduan arrunt **kexatzen** naiz. Menane Oxandabaratz

Ez nau **kexatu** ustegabeak, laket baitzait holakoetan abentura kutsu zerbait senditzea. Piarres Aintziart

Oroit zira zure aita edo amek zartako bat emanik edo bortizki **kexaturik** zure kontra? Menane Oxandabaratz

Zer erran duzu? -galdetu zuen Amatxik, pixka bat **kexaturik,** hitz larriak ez baitzituen sobera maite, Mikelen amak! Ramuntxo Etxeberri

Itsaso **kexatua** itxuratzen nuen, Joana ondoan hatsanga igerika, harrian bistan, angustia, itotzeko antsia, salbatua izateko premia. Itxaro Borda

Aski giro nahasia piztu da Pariseko alde hortan, bazterrak **kexatu** baitira eta sutan bezala jarri, lehenik Clichy hirian, ondotik inguru hartako beste hiri batzuetan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bazterrak kexatu** (5); **ezin kexatu** (7); **ezin naiz kexatu** (17); **kexatu nahi** (9); **kexatu nahi dut** (6); **kexatu nintzaion** (3); **kexatu nintzen** (5); **kexatu zen ron** (3)
> **kexatzeko arrazoi** (3); **kexatzeko arrazoirik** (14); **kexatzeko motiborik** (6)

---

# **kexatze** *iz* haserretzea.

Hiri handien bazterrean ainitz eta ainitz familia arras molde txarrean bizi direla, eta frango badirela sobera beren gisa utziak, ez dela gero harritzeko norbait kexaturik ere, nahiz **kexatze** horrek, gaitza sendatzeko partez, ez duen aintzina gaixtarazten baizik. Herria

---

# **kexelebretu** *izond* apur bat edana.

Eta banaka harturik, bere bakarrean, orduan bai; orduan guai bat izan liteke lerdoa, txorixoa eta pailazo merkea; edo inuzentea, nazkagarria edo errea, militante bat bezain ernegante eta neurotikoa, guraso bat bezain xitala, tristea eta alua; eta izan daiteke astrologiak edo zernahiterapia batek **kexelebretua;** edo flipa-errexa eta edozer guaikeria, hutxalkeria edo umekeria gatzbakorekin izugarri emozionatzen dena. Iñaki Segurola

---

# **kexemarina** *iz*

Eskolatik ostutako kraion berde urdin gorriz berrosatzen genituen inoiz marinelek ate hartan zauritutako bergantinak eta **kexemarinak,** umeak bere labana atera eta Arrietaren mahaian egin zuen bezala. Koldo Izagirre

---

# kexilo ik **ke 12**.

---

# **kexu** **1** *iz* kexa.

Nafarroako 0-3 zikloko plataformak 559 **kexu** aurkeztu dizkio Arartekoari. Berria - Euskal Herria

Era berean, diru laguntza gehiago eskatuz ikasleek egindako 1.500 **kexu** inguru helarazi zizkioten Nafarroako Gobernuari. Berria - Euskal Herria

Gizarteko injustiziaz eta lagunen saldukeriaz **kexua**. Elizen arteko biblia

Azkenean, neskame errukarriak printzesaren amarengana jo zuen bere **kexua** azaltzera. Patxi Zubizarreta

Gutunak bidaltzen dituzte egunkarietara beren kritikak, protestak, **kexuak,** arrangurak agertuz. Anjel Lertxundi

Irakurlearen defendatzailea, eta irakurlearen **kexuak** eta iradokizunak jasota, soluzioak emateaz arduratzen da. Iñigo Aranbarri

Ez dut horren **kexu** bakar bat ere. Patxi Zubizarreta

Inoiz ere ez diegu **kexu** baten antzeko hitz erdirik entzun. Josu Zabaleta

Ekitaldien agenda amaitu behar dugu -esan zuen Mirenek, **kexu** apal batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Egunaren zarata, oihu eta **kexu** guztiak isildu direnean. Pako Aristi

Herriaren **kexuak** etengabeak ziren, eta izutu egiten zituzten hartzekodunak. Iñaki Iñurrieta

Garraiozaleen **kexuak** isilekoak izan ziren oso. Karlos Linazasoro

Baina hari entzuteko irrikaz baitzegoen, **kexu** gisako batez esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

**2** irud/hed

Gurpiletatik zetorren **kexu** zakar batek eman zigun izotzaren berri. Rafa Egiguren

Harri-txintxarrek **kexu** ozena ateratzen dute gure ibilian. Koldo Izagirre

Iratzargailuaren **kexu** kirrinkaria garuna zulatzen ari zaizu. Sonia Gonzalez

**3** larritasuna, urduritasuna; haserrea.

**Kexuaren** arintzeko psikoanalista on baten beharra neukala kolpatzen nuen nirekiko, etsia. Itxaro Borda

Haurra ene **kexuaz** ohartu zen. Itxaro Borda

Harrien oinetan berde-gris eta urrunean urdin sakon nahasten zen itsasoaren **kexuan** bermatu nuen soa. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oso noizbehinkako **kexu** -intziri bat edo beste baizik ez. Fernando Rey

Quenuk **kexu** aurpegia ipini zuen, baina emazteak ahoa itxi zion, hitz hauek bortitz gehituta: [...]. Karlos Zabala

Bizi astun baten nekepean **kexu** -izerditan. Juan Garzia

-Hara, hemendik ez dut ezer ikusterik izan -esan zuen Golek **kexu** -itxurak eginez-. Joanes Urkixo

Sukaldera heldu orduko **kexu** bulta batek inarrosi ninduen. Itxaro Borda

**5** (hiz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Hobira nazazu -egiten dit erregu txoriak eta, haren hegal hautsien zokondoetan, harren antzera higitzen dira gaitzespen- **kexuak** . Eskarne Mujika

• **6** *izond* erraz kexatzen edo haserretzen dena.

Atso **kexu** eta mainati harengandik sekula esperoko ez genuen zakarkeriaz erantzun zigun. Fernando Rey

Ibiltzea egintza autonomo eta iraunkor bat da eta, bitxikeria, ibiltaria mugitzen da ohiko eta eguneroko mugimendu **kexuari** ihes egiteko. Piarres Aintziart

**7** (adizlagun gisa) kexaka; urduri; haserre.

**Kexu** ikusi dut *The Guardian* egunkaria Oxfordeko goren mailako ikasleen ingelesa dela-eta. Pello Salaburu

Nire antzean, **kexu** zebilen ontziburuaren seme Martin. Edorta Jimenez

Osaba **kexu** eta arranguratsu sumatu nuenean. Joan Mari Irigoien

Zintzoak gobernari, herria pozik; gaiztoak agintari, herria **kexu** . Elizen arteko biblia

Jendetza gaitz baten erdian pasatzen gira, **kexu** eta dena mehatxu, haurrak guri ziztuka eta harrika. Michel Oronoz

Egia erran, ez nuen egundaino hain **kexu** ikusia. Daniel Landart

-Ez du ahalkerik, zerri horrek **-kexu** mintzatu zen Kattalin. Eneko Bidegain

Baionako Ospitaleko langileak, **kexu** . Berria - Euskal Herria

**8** ***kexu batean*** *adlag* oso kexu.

Bi segunduz, **kexu batean** egon naiz, egin beharrak nituen azken sei kilometroak izpiritu eta gorputzean sartuak eta asimilatuak nituelakotz, eneganatuak. Piarres Aintziart

Goiko solairukoak **kexu batean** bizi dira; guri, berriz, ez zaigu horren tragikoa iruditzen. Josu Zabaleta

Kasu egidazu eta erantzun; urduri nago, **kexu batean** eta dardaraz, Elizen arteko biblia

**9** ***kexu izan****sup_1* da *ad* kexatu.

Herria **kexu zen** iruzur hura zela eta. Iñaki Iñurrieta

Bere zoritxarraz **kexu zen** . Urtzi Urrutikoetxea

Buruko minaz **kexu zen,** eta gero odol-presioak belarrietan eragiten dion txistu eta burrunbaz. Urtzi Urrutikoetxea

Horra zergatik nahi nukeen jakin, zuek euskaldunak zertaz **zareten kexu,** zer duzuen arrangura. Piarres Xarriton

Buruko minaz **kexu zen** , eta gero odol-presioak belarrietan eragiten dion txistu eta burrunbaz. Urtzi Urrutikoetxea

Gurasoak **kexu ziren** lo gutxi egiten nuela eta argaltzen ari omen nintzelako. Anjel Lertxundi

**Kexu zara** gauzak ez direlako antolatzen zure inguruan lore sorta baten gisa, zuk horretarako deus egiten ahalegindu gabe. Monika Etxebarria

Zeren **kexu izango** dira, gero, ekaitzak beren itsasontzia mila puska egiten baldin badie? Josu Zabaleta

**10** ***kexu izan****sup_2* da *ad ipar* urduri izan; haserre izan.

Zer duzue zuek? -herritarraren abisuaz **kexu zen-** . Itxaro Borda

Ene lagunak ez ziren horretaz biziki **kexu** . Janbattitt Dirassar

Bidarten, igande arratsadean, kasu egilerik ez den gune batean mainatzen ari zelarik, Errusiatik heldu zen 55 urteko kamiunzain bat, [...] ito da batere funtsik gabe, itsasoa frango **kexu izanki** -eta. Herria

**11** ***kexu-kexu*** *adlag* oso haserre; oso urduri.

Solasaldia mozten dute, **kexu kexu,** batak besteari ifernuko on dela erranez. Michel Oronoz

Irabazle hauk **kexu kexu** abiatu dute partida hau, 12-3 eta 23-6, aintzinekoak gogotik larderiatuz pilota, batean sarerat eta bestean gibelerat, eta gibelekoak atxikiz bere jo segur eta bipilarekin, hora garaztarrak finalerditan ditugula oraingotz. Herria

**12** ***kexu-kexua*** *adlag* oso haserre.

Oharpen hori Basoik egiten du, **kexu kexua** . Michel Oronoz

**Kexu-kexua** erran nion. Marzel Etxehandi

Michel Hiriart auzapezak **kexu kexua** salatu du gertatu dena. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bazterrak kexu dira** (7); **jendea kexu da** (5); **kexu ageri** (5); **kexu agertu** (45); **kexu agertu zen** (14); **kexu agertu zitzaion** (3); **kexu azaldu** (18); **kexu azaldu zen** (6); **kexu azaltzen** (5); **kexu egin** (6); **kexu egin zuen** (3); **kexu eta arranguratsu** (3); **kexu gorrian** (5); **kexu izan** (19); **kexu izateko** (5); **kexu izateko arrazoirik** (3); **kexu izaten** (4); **kexu izaterik** (3)

**beren kexua agertu** (3); **kexu kexua** (9); **kexua adierazteko** (3); **kexua agertu** (8); **kexua agertu dute** (4); **kexua eragin** (5)

**kexuak entzun** (4)

**ez dugu kexurik** (3); **inolako kexurik** (14); **kexurik gabe** (4)

---

# kexuaire *adlag* kexuka edo.

Gogoa **kexuaire** zerabilkion. Itxaro Borda

**Kexu** aire ibili nintzen ilunpe hartan. Itxaro Borda

---

# kexualdi *iz* kexua agertzeko aldia.

Han ere badakite, hemengo gisa, manifestaldi, oihukari eta mota guzietako **kexualdien** berri. Herria

---

# kexuka *adlag* kexatzen.

Egun guztian **kexuka** ari da, uneoro-uneoro bendak aldatzeko eskatzen ari da. Josu Zabaleta

Izarrei **kexuka** ari den emakume bat. Oskar Arana

Gaur lepoan bufanda handi bat duela dabil, lepagogorra duelako, eta Van Daan jauna ere **kexuka** dabil, gerriko mina duela-eta. Josu Zabaleta

"Ez da nire errua", esango du **kexuka** Melaniek. Oskar Arana

Eta bisirra ere **kexuka** joan zitzaion erregeari. Patxi Zubizarreta

Emakumea **kexuka** hasi zen, armairua zabalegia zela. Patxi Zubizarreta

Gero bestea berriro hasi da bere zoritxarraz **kexuka** . Urtzi Urrutikoetxea

Laster hasi zen Avigdor **kexuka,** Peshek gaizki tratatzen zuela-eta. Koro Navarro

Auzokoak sartu dira etxera, eta armairutik hainbat ahots **kexuka** entzun dituzte. Patxi Zubizarreta

Zangetara salto egiten zuten edo ihesean joaten ziren, **kexuka,** zulo ilunetan ezkutatzera, esperantza orotarik urrun. Agustin Otsoa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**
> **beti kexuka** (4); **kexuka ari** (11); **kexuka ari zen** (4); **kexuka hasi** (15); **kexuka hasi zen** (4); **kexuka hasten** (4); **kexuka joan** (3)

---

## keynesianismo *iz* J. M. Keynes ekonomilariaren doktrina ekonomikoa.

Aldi hori, normalean **keynesianismo** deitzen zaiona, Estatu Batuetan hasi zen, 1933an abian jarri zen *New Deal* delakoarekin. Koro Navarro

Aipatu hiru joera handien artean, dudarik gabe **keynesianismoa** da ezezagunena. Iñaki Heras

Keynesen obrari **keynesianismo** arruntaren obra gailendu zitzaion. Iñaki Heras

Europan bereziki, lanpostuak sortzeko arazoaren iturritzat jo izan da **keynesianismoaren** garaiko zurruntasuna: lan-merkatuen gehiegizko arauketa eta sektore publikoaren nagusitasuna. Iñaki Heras

Neoliberalismoak **keynesianismoaren** lekua hartu zuen eta zalantzan jarri zuen estatuaren esku-hartzea [...]: estatuaren esku-hartzea bilakatu zen arazo ororen errudun. Iñaki Heras

---

## keynesiano *izond* keinestarra.

Aro **keynesianoak** sortu zituen itxaropen haiek berek ezeztatu zuten Keynesen iraultzaren ahalmena. Iñaki Heras

Politika **keynesianoa** ez zen gai izan hazkundeari eta enplegu sorkuntzari eusteko aurrena, inflazioari eusteko, hurrena. Iñaki Heras

Adolf Hitler berak, tamalez, aplikatuak zituen dagoneko 1933rako hainbat neurri **keynesiano**. Iñaki Heras

1944an Beveridge-k argitaratu zuen *Full Employment in a Free Society* panfletu **keynesianoa**. Iñaki Heras

Joan Robinson **keynesiano** ezkertiarrak. Iñaki Heras

---

keynesiar ik **keynestar**.

---

## keynestar *(orobat **keynesiar**)* *izlag* J. M. Keynes ekonomilariari edo haren doktrinari dagokiona; Keynesen doktrina ekonomikoaren jarraitzailea.

Hegoaldearen konkurrentziak auzitan jarri baititu Iparraldean **keynestar** garaitik heredaturiko gizarte-usadioak. Gerraren ondoren antolaturiko nazioarteko diru- eta finantza-sistemak, nolabait ere, nazioarteko mailara eraman zituen estatu **keynestarrek** nazio barnean bideraturiko antolamendu-hastapenak. Koro Navarro

Politika **keynestarren** kritika monetarista ez zen diru-politika abian jartzera mugatu. Koro Navarro

Mendebaldeko aldi **keynestarraren** ezaugarri ziren gizarte-konpromisoek. Koro Navarro

Erreakzio **keynestarrak** beste bide batetik eraman nahi izan zuen metaketaren dinamika […] eta aukera berriak zabaldu zizkien kapital pribatuei nazioen baitan. Koro Navarro

Erregulazio **keynestarra,** ordea, bereziki ahula gertatu zen hainbat kasutan. Koro Navarro

Laburbilduz, hiru joera handitan jaso daitezke hainbat eta hainbat autore eta pentsamendu eskola desberdinen ekarpenak: joera liberala, joera marxista eta joera **keynesiarra**. Iñaki Heras

---

## keyneszale *izond* keynesen zale dena.

**Keyneszaleak** dituk, gehienera jota: sozialdemokrata epelak. Iban Zaldua

---

kezilo ik **ke 12**.

---

## kezka 1 *iz* gogoa asaldatzen duen burutapena edo arazoa. ik **kezkabide; ardura[1]; grina**.

Egia esatera, amaren **kezka** ez zen alaba senarrik gabe geratzea. Patxi Zubizarreta

**Kezka** eta beldurrak oro bazter utzita. Imanol Zurutuza

Baina amonak bazuen zerbait, **kezkaren** bat edo auskalo zer, gogoa iluntzen ziona. Anjel Lertxundi

Nire **kezka** txerriak ziren. Juan Garzia

Zure **kezkak** ez dira, beharbada, euskararen ingurukoak. Pello Salaburu

Nire **kezkak,** ordezka-ezinezko piezaren bat norbaitek ostu ote lezakeen edo, ez du Herbert den mendrenik ere ikaratzen. Joxe Austin Arrieta

Baina gizonaren tonu iluna entzun orduko poza **kezka** bihurtu zen. Migel Angel Mintegi

**Kezka** eta unadura zerizkion haren bisaiari. Aingeru Epaltza

Horren ondotik, zutik egoteaz nekatua, **kezka** begitartean, bulegoko mahaira eseri zen... Patxi Zubizarreta

Aberastasunaren **kezkak** logura uxatzen du, eta azkenean osasuna hondatzen. Elizen arteko biblia

Janinaren **kezka** argia zen. Itxaro Borda

**Kezka** larregi loa ez galtzeko. Karlos Zabala

Aalantza une labur bat izan ondoren, **kezkaren** harrak hartu nau. Txillardegi

**2** (aditzaren objektu gisa)

**Kezka** bat nuen hala ere: [...]. Anjel Lertxundi

**Kezka** zuen, bertzalde, halako lekualdatze batek kalte eginen ote zion bere arima bekataria behin betikoz erredimitzeko proiektu behin eta berriz geroratuari. Aingeru Epaltza

Ez dut uste herritarren arbuioak **kezka** handirik pizten zionik. Aingeru Epaltza

Horrek **kezka** eragin zion neskatxari. Patxi Zubizarreta

Honek **kezka** handia **sortzen** dit, eta pena eman ere. Pello Salaburu

Aldamenean du gizona, liburu bat esku artean, **kezkak** burutik haizatu nahian. Imanol Zurutuza

Baina une haietan denek sendi zuten **kezka** ez zuten ezabatu. Elena Touyarou

**Kezka** batek kitzikatzen ninduen ere: giltza galduaren istorioa ez ote zenetz aitzakia bat? Daniel Landart

Haren aurpegiak **kezka** islatzen zuen. Anjel Lertxundi

Zalantzak eta **kezkak** uxatzen ere ez dira saiatu. Edurne Elizondo

Etorkizunari buruzko **kezkak** baztertu, eta lasai-lasai murgildu ginen orainean. Koro Navarro

**Kezka** handitu egin zen Bilboko ontzitegi nagusiaren greba zela eta. Bernardo Atxaga

Handik astebetera, hain zuzen, **kezkak** biziagotu egin zitzaizkion. Karlos Zabala

Ordurako ez zuen lehengo irribarre desafiozko hura: begietan **kezka** antzematen zitzaion. Patxi Zubizarreta

**Kezka** hura ere berehala desegiten zitzaigun. Bernardo Atxaga

## 3 (izenondoekin)

Garai hartan, egun ez bezala beharbada, **kezka** handia genuela guk euskararekin. Pello Salaburu

Indian ez duzu janarekin **kezka** handirik izango. Gotzon Garate

**Kezka** eta zalantza larri horiek. Txillardegi

Badut, ordea, hori baino **kezka** larriagorik euskararen inguruan. Joxerra Garzia

**Kezka** zaharra da hori eta orotarikoak dituzu erantzunak. Hasier Etxeberria

Eta hortik dator nire **kezka** nagusia. Joxerra Garzia

Bat-batean **kezka** bitxi batek hartu ninduen. Daniel Landart

Hasieran **kezka** hutsala baino ez zena, ordea, larriagotu egin zen denboraren joanarekin. Imanol Zurutuza

**Kezka** artistiko horiez gain, zaletasun bitxi eta obsesiboak izaten zituen, betidanik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kezka** etimologikoa ere badago; garai batzuetan, nagusi izan da, Berpizkundean, adibidez.. Isabel Arrigain

**Kezka** filosofiko orokorretatik abiatuz (heriotza, askatasuna, ezagutzaren mugak...) gogoeta egiten du. Askoren artean

Biek ere bazituzten **kezka** politiko eta sozialak. Rafa Egiguren

Gizasemearen **kezka** sexualak beti bere zintzilikarioaren inguruan izaten dira. Luis Elberdin

-Ximurra, **kezka** bizian, berataz zer datu klase ote neukan artxibaturik. Aingeru Epaltza

**Kezka** barregarrien menpe. Elizen arteko biblia

## 4 (izenlagunekin)

Eta Amaren aspaldiko **kezka** omen zen gure lagunaren galtza zikinen sakelak ongi miatzea. Aingeru Epaltza

Berebiziko **kezka** erakutsiz. Anjel Lertxundi

Nire atsekabea eta barruko **kezka** hain handiak zirenez, [...]. Elizen arteko biblia

Ez diagu ez kontzientziako **kezkarik,** ez Jainkoaren beldurrik. Askoren artean

Hola hitz egiteak ez dizula inolako **kezkarik** sortzen. Pello Salaburu

Erretratu hauetan [...] artearekiko **kezka** ez zegoen bazterturik. Monika Etxebarria

Ordukoa du gizakiak bere izatearekiko **kezka** ere. Joxerra Garzia

Euskararekiko duen gehiegizko **kezka**. Markos Zapiain

Euskararekiko duen gehiegizko **kezka**. Markos Zapiain

Baina, ez zen alta usaiazko **kezka**. Ramuntxo Etxeberri

Hala ere, zeure burua baino ez zen zeure egiazko **kezka** nagusi. Hasier Etxeberria

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beren **kezka**-iturri nagusia ekologismoa da. Txema Ramirez de la Piscina

Gehien-gehienentzat sexua **kezka**-iturria da, ia denek dute obsesio sexual handiren bat, edo pila bat. Karlos Zabala

**Kezka** aurpegia daukate biek eta gertutik gertura egiten diote berba elkarri, belarrira. Sonia Gonzalez

Zintzoaren etxean ugaritasuna, gaiztoaren irabazia **kezka**-sortzaile. Elizen arteko biblia

Errezeloz begiratzen dio apriorismoaren, dogmaren edo ideologiaren **kezka**-usain desatsegin hori duela iruditzen zaion guztiari. Anjel Lertxundi

**Kezka**-izur bat ageri zuen begitartean. Mirentxu Larrañaga

**Kezka** ukitu batekin. Jon Muñoz

Ahots urrun bat ailegatzen zitzaidan, Antjeren **kezka**-tonua. Fernando Rey

Zer **kezka** klase daukazu zuk? Koro Navarro

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrek barne **kezkak** baretuko zizkiolakoan zegoen. Karlos Zabala

Badira jendeak beren erruak beren kabuz aitortzen dituztenak; hauengan horrelako maitasun baten beldurra sortzen da, estura, oinaze-mina, barren-**kezka** eta gaitzespena ekartzen dietelako. Joan Mari Lekuona

Emakume baten xerkan jartzen zaituen halako maitasun-**kezka** hori piztu zidan neure baitan. Josu Zabaleta

Diru-**kezkak** edo politika-sestrak edo moda-gorabeherak bezalako arreta mundutiarrekin. Anjel Lertxundi

Bekatu-**kezka** jartzen dio bekatua ez den tokian. Patxi Altuna

Negozio-**kezka** gaitzat duela. Iñaki Mendiguren

Bizi-**kezkarik** gabeko geroaren segurtasunak. Aingeru Epaltza

## 7 ***kezka gabe*** *(orobat* ***kezkagabe****)* *adlag* kezkarik gabe. ik **kezkagabe**.

Ikusirik iritsi orduko zein alai eta **kezkagabe** jaitsi ziren, iruditu zitzaidan hura gizon itxurako hegaztien bilera zela edo gizon lumadunena, bestela. Matías Múgica

Arin eta **kezka gabe** sentitzen nintzen. Ander Irizar

Hotz handiak etorri arte **kezka gabe** zain egon zitekeela. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ardura eta kezka** (5); **benetako kezka** (6); **bere kezka agertu** (8); **bere kezka nagusia** (8); **gazteen kezka** (5); **gure kezka nagusia** (5); **herritarren kezka** (15); **kezka adierazi** (25); **kezka agertu** (116); **kezka agertu zuen** (40); **kezka agertzen** (13); **kezka areagotu** (9); **kezka asko** (5); **kezka azaldu** (37); **kezka azaldu zuen** (12); **kezka bakarra** (48); **kezka bitxi** (5); **kezka bizia** (5); **kezka biziak** (6); **kezka eragin** (32); **kezka eragiten** (17); **kezka eta beldur** (7); **kezka eta beldurra** (11); **kezka eta zalantza** (5); **kezka handia** (64); **kezka handia dago** (6); **kezka handia eragin** (5); **kezka handia sortu** (9); **kezka handia sortzen** (5); **kezka handiagoa** (9); **kezka handiak** (11); **kezka handiena** (11); **kezka handirik** (14); **kezka handiz** (13); **kezka iturri** (39); **kezka iturri nagusia** (7); **kezka iturria** (5); **kezka izan** (15); **kezka izaten** (5); **kezka larria** (11); **kezka larriak** (5); **kezka nagusi** (15); **kezka nagusia** (87); **kezka nagusiak** (17); **kezka nagusietako bat** (7); **kezka piztu** (9); **kezka sortu** (42); **kezka sortu du** (16); **kezka sortzen** (23); **kezka soziala** (6); **kezka txiki** (5); **kezka ugari** (9); **kezka zabaldu** (11); **kezka zabaldu da** (6); **nazioartearen kezka** (5); **nire kezka bakarra** (8)
>
> **bestelako kezkak** (5); **inguruko kezkak** (15); **kezkak agertu** (7); **kezkak azaldu** (8); **kezkak eta zalantzak** (5); **kezkak sortzen** (6); **kezkak uxatu** (5)
>
> **beste kezkarik ez** (6); **ez izan kezkarik** (5); **ezeren kezkarik** (6); **inolako kezkarik** (19); **inolako kezkarik gabe** (9); **inongo kezkarik** (7); **inongo kezkarik gabe** (6); **kezkarik gabe bizi** (5); **kezkarik handiena** (16); **kezkarik izan** (15); **kezkarik sortzen** (8)
>
> **kezkaren kezkaz** (6); **kezkaz begiratzen** (8); **kezkaz bete** (5); **kezkaz betea** (5); **kezkaz beterik** (6)

---

# kezkabide *iz* kezkatzeko zergatikoa; kezka sortzen duen gauza. ik **kezkagai**.

Bi italiarrek **kezkabide** gutxiago ematen zidaten. Juan Garzia

Alabarekin ez zuen **kezkabiderik** izan. Jon Muñoz

Aski **kezkabide** ederra banuen haatik. Jon Muñoz

Jatetxea eta hotela hurrean egoteak beste **kezkabide** bat zekarkidan, biok batera batetik bestera joateko planik bururatu ote zitzaizun. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala ere, ez zen **kezkabide** noiz, non eta nola lor zitekeen errepublika ezin hobe hori. Askoren artean

---

## kezkadun *izlag* kezka duena.

**Kezkadun** herritarrak behar dira, pentsamolde bakarraren aurrean makurtzen ez diren pertsonak. Txema Ramirez de la Piscina

---

## kezkagabe *(orobat **kezka gabe**)* **1** *izond* kezkarik ez duena.

Kazetari tropa ugaria [...] pasealari **kezkagabeen** tankeran. Aingeru Epaltza

Behartuezina, ongilea, gizakiaren adiskidea, tinkoa, ziurra, **kezkagabea,** dena ahal duena eta dena ikusten duena. Elizen arteko biblia

Hala da bai, hemen gu nigarrez ez bagaude ere, ez direla oro **kezka gabeak**. Herria

• **2** ik **kezka 7**.

---

## kezkagabetasun *iz* kezkagabea denaren nolakotasuna.

Ziplo ezabatu zaio aurpegitik **kezkagabetasun** guztia. Jose Morales

---

## kezkagabetu, kezkagabe(tu), kezkagabetzen *(corpusean **kezka-gabetu** soilik)* da/du *ad* kezkarik gabe gelditu edo utzi.

Seinale hauen argitan jabetuko da nola dena Jainkoagandik aldentzetik datorkion, nola bere burua sorkarietatik ez duen askatu ez eta **kezka-gabetu,** nola den Jainkoaren desberdin, eta zeinen epela den Jainkoari dion maitasuna. Joan Mari Lekuona

---

## kezkagai *iz* kezkabidea.

Uztapidez geroztik ere beti izan dugu transmisioa **kezkagai**. Andoni Egaña

Niri minutu erdi bat jaten ez didan kontua da, baina askoren **kezkagai** da nonbait. Andoni Egaña

Hirurak, ordea, etorkizun horri uko egiteko prest daude; herriaren geroa dute **kezkagai**. Pako Aristi

---

## kezkagarri **1** *izond* kezka pizten duena. (pertsonei buruz)

Etsai ezkutu eta **kezkagarria** balitz bezala. Jon Alonso

Eta bat-batean bizi-bizi ikusi nuen, mutil handi, bitxi hura, aspalditik erotua beharbada, maniako **kezkagarria,** are beldurgarria ere. Josu Zabaleta

Baina Dionisio aizuna behar bada **kezkagarrien,** paradoxazkoen eta probokatzaileen hurrengo paragrafoan gertatzen da eta beharturik nago hemen aipatzera: [...]. Joan Mari Lekuona

**2** (gauzei buruz)

Albiste **kezkagarriak** puztu egiten zituen egunero. Karlos Zabala

Datu hauek nahiko **kezkagarriak** dira. Pello Salaburu

Arriskuak asko dira, eta **kezkagarriak**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Neuri ere **kezkagarri** iruditzen zaizkit euskararen kontrako kanpoko eraso horiek. Joxerra Garzia

Gau-ikuskari **kezkagarri** bat izan nuen lozorroak gizakia hartzen duen garaian. Elizen arteko biblia

Erabat kaskasoila zen eta bere buru karratuak Mussolinirenaren antz **kezkagarria** zuen. Alberto Ladron Arana

Europa Mendebaldeko iraupen luzeko langabeziaren gorakada **kezkagarriak**. Koro Navarro

Nola joan den apurka-apurka agertuz terapia genikoaren nozio apur bat **kezkagarri** hori. Juan Garzia

Ama Méhudin piztu zen, nonbait, eta barre egin zuen modu **kezkagarrian**. Karlos Zabala

Hori oso zaila duk ulertzeko, eta ulertzea are **kezkagarriagoa** duk. Xabier Olarra

Telegrafoetan, puntu eta marra, puntu eta marra jasotzen ziren berriak gero eta **kezkagarriagoak** ziren errepublikar gudarosteentzat. Jon Maia

**3** (adizlagun gisa)

Taupadak azkarregi, **kezkagarri** neure bular asaldatuan. Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**datu kezkagarri** (6); **datu kezkagarri bat** (3); **gau ikuskari kezkagarri** (4); **gauza kezkagarri** (4); **ikuskari kezkagarri** (4); **ikuskari kezkagarri bat** (4); **kezkagarri baita** (7); **untsa kezkagarri** (8); **untsa kezkagarri baita** (7)

**arriskutsu eta kezkagarria** (3); **benetan kezkagarria** (6); **biziki kezkagarria** (3); **datu kezkagarria** (4); **egoera kezkagarria** (41); **egoera kezkagarria dela** (16); **falta kezkagarria** (4); **guztiz kezkagarria** (3); **jarrera kezkagarria** (3); **kezkagarria da oso** (5); **kezkagarria dela adierazi** (5); **kezkagarria dela azpimarratu** (3); **kezkagarria dela esan** (10); **kezkagarria iritzi** (3); **kezkagarria iruditzen** (7); **kezkagarria izan** (6); **kezkagarria zen** (6); **larria eta kezkagarria** (5); **maila kezkagarria** (3); **nahiko kezkagarria** (3); **oso kezkagarria** (25)

**berri kezkagarriak** (4); **datu kezkagarriak** (10); **datuak kezkagarriak** (11); **datuak kezkagarriak dira** (7); **kezkagarriak dira oso** (3); **oso kezkagarriak** (7)

**kezkagarritzat jo** (32); **kezkagarritzat jo zuen** (13); **oso kezkagarritzat jo** (6)

---

## kezkagarriki *adlag* era kezkagarrian. ik **kezkagarriro**.

Sendagileak jadanik ez du gasaz betetzen, artatze-gelara ia deitu ere ez nau egiten, eta egiten duenean, tarte **kezkagarriki** laburrean amaitzen dugu. Urtzi Urrutikoetxea

---

## kezkagarriro *adlag* era kezkagarrian. ik **kezkagarriki**.

Nawab musulman eta *bons viveurs* ingelesen arteko leizea [...] berriro handitzen hasi zen **kezkagarriro..**. Iñaki Mendiguren

Ez ote zen guztia bere irudimen **kezkagarriro** gaixoaren fruitu sukartsua izan? Harkaitz Cano

---

## kezkati **1** *izond* kezkatzeko joera duena.

Haren senar **kezkatiarengana** jo beharko duk. Aingeru Epaltza

Izpiritu hertsi eta **kezkatien** kontsolamendua. Piarres Aintziart

**Kezkati** ergel bat baino ez zara, Damian. Hasier Etxeberria

Gure gorputz galkorra arimarentzat zama da, lurrezko etxola honek berez **kezkati** den espiritua nekarazten du. Elizen arteko biblia

**2** kezka agertzen duena. ik **kezkatsu**.

Begitarte nekatu eta **kezkatia** ageri zuen. Mirentxu Larrañaga

Barre urduria eta **kezkatia**. Fernando Morillo

Deiari erantzunez atera zen emazteak so **kezkati** batez behatu zien, lehenik Joanttori eta, ondotik, elizgizonari. Elena Touyarou

-Zer dira oihu horiek?- galdetu zuen ahots **kezkati** batek. Aitor Arana

Dudarik izanez gero, Togasen joan-etorri **kezkatiei** so egitea aski nuen. Aingeru Epaltza

• **3** *adlag* kezkaz beterik.

Amona **kezkati** eta saminez zegoen bere ilobatxoagatik. **Kezkati** ikusten zaitut. Askoren artean

Goizean etortzean, **kezkati** aurkitu zituen Josek. Elizen arteko biblia

Mai, begietara so zegokidan, **kezkati**. Itxaro Borda

-Aita Michel! -oihukatu zuen bi gizonak ikustean, haietarik bat ezagutu orduko, **kezkati** galdeginez-. Elena Touyarou

Eta semea, naski, aitatar! -erran zuen amak, **kezkati**. Daniel Landart

Ez dut berandutu nahi... -xuxurlatu zuen, **kezkati**. Patxi Zubizarreta

Sindikatuak **kezkati**, KPIren «laneko ondorioengatik». Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**
> **kezkati agertu** (7); **kezkati agertu zen** (4); **kezkati azaldu** (5); **kezkati azaldu zen** (4); **kezkati dago** (4)

---

**kezkatsu** **1** *izond* kezkaz betea.

Andres bezalako gizon urduri eta **kezkatsu** batentzat deprimigarria izan behar zuen ikuskari hark. Josu Zabaleta

Nire guraso burges eta **kezkatsuei** ere ongi iruditu zitzaien. Joxe Austin Arrieta

Etxeko ohean nagusitasuna galtzeko arriskurik ez zuela frogatzen bazion (eta, ondorioz, kontu korrontean), emazte **kezkatsuari** ez zitzaion gogorregia suertatuko senarraren joera. Migel Angel Mintegi

Nesken **ahots** kezkatsuak entzuten. Koro Navarro

Angelo?, hark, estualdian dagoen baten tonu **kezkatsuan**. Anjel Lertxundi

Neskameak gauza handirik ezin izan zien erantzun Lisaren galdera **kezkatsuei**. Karlos Zabala

Jendearen elkarrizketak **kezkatsuak** ziren. Jose Morales

• **2** *adlag* kezkaz beterik. ik **kezkati 3**.

Tarteka **kezkatsu** ikusi dut, bai, baina oraintsu esandakoari eta lanari leporatu izan diot beti, aparteko garrantzirik eman gabe. Migel Angel Mintegi

Mezu hortan **kezkatsu** agertu da Joanes Paulo bigarrena. Herria

Steffik **kezkatsu** so egin zuen gora. Anton Garikano

Nork esan behar zidan niri... -buruari eragin zion **kezkatsu** -. Migel Angel Mintegi

---

**kezkatto** *iz adkor* kezka txikia.

Industriak sofritzen badu ere [...] badute han ere kurrinka, doi doia ehuneko bostetara jautsia dutelarik xomagea beste gune batzuetan, gu ez gaude hemen hortan, **kezkatto** batzu halere, Londresek ahanzten dituela ospitaleak eta hortan gibela direla. Herria

---

**kezkatu,** kezka(tu), kezkatzen **1** da *ad* burutapen edo arazoren batek gogoa asaldatu. ik**artegatu**.

-Ez **kezka,** nirekin ez duzu arriskurik. Elena Touyarou

-Ez horretaz **kezka** -esan zion Ulisesek-, ez baitut hilezkorren trazarik, hilkorrena baizik. Juan Kruz Igerabide

Ez zaitez **kezkatu** -esan nion-. Bernardo Atxaga

Ez **kezkatu,** bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Elizen arteko biblia

Ez **kezkatu** diruagatik. Alberto Ladron Arana

Dena dela, konformaerraza nauzu, ez **kezkatu**. Migel Angel Mintegi

Ez **kezkatzeko** esan dit behin baino gehiagotan, eskua sakelara eramaten ikusi nauenean. Hasier Etxeberria

-Ez, ez naiz **kezkatuko** -esan zuen mutilak-. Mirentxu Larrañaga

Ron ezin zen **kezkatu,** horretarako bero handiegia egiten zuen eta. Iñaki Mendiguren

Batzuetan **kezkatu** egiten naiz alaba hemen bakar-bakarrik dagoela pentsatuta. Oskar Arana

Gure ama izugarri **kezkatu** zen. Pello Lizarralde

Zertarako **kezkatu,** biok genekien-eta ez ginela hondoratuko? Anjel Lertxundi

-Oraindik ez daukagu zertan **kezkatu** gauza hauetaz. Iñaki Mendiguren

Guk ez dugu zertan haiengatik **kezkatu**. Mirentxu Larrañaga

-Ez duk zertan **kezkatu,** George, hi aurrera egiten dutenetako horietakoa haiz... Lopez de Arana

Ertzainak dira, baina ez duzu zertan **kezkatu** -esaten dit ikasketa-buruak-. Anjel Lertxundi

"Tout de même", esan zion amari, ondoan baitzeukan, **kezkatu** samarturik, bere semea edozer ondorioztatzeko moduko azterketa bat pasatzen ari bailitzan. Xabier Olarra

Egun hartan, **kezkatua** zen Amatxi. Ramuntxo Etxeberri

Denak, guti edo aski **kezkatuak** ginen. Marzel Etxehandi

Eta zure ama ez al dago **kezkatua**? Joxe Austin Arrieta

**Kezkatua** zirudien, baina ez nion arrazoia galdetu. Bernardo Atxaga

Ronek are **kezkatuago** zirudien orain. Iñaki Mendiguren

-Ez da **kezkatzekoa**. Oskar Arana

Aurrena pentsatu nuen ez zegoela **kezkatzeko** motiborik. Joxemari Iturralde

• **2** du *ad*

Zure gutunak zinez **kezkatu** nau. Jon Muñoz

Leonen osasunak **kezkatzen** zaitu. Hasier Etxeberria

Segurtasun-arazoek **kezkatzen** zuten. Juan Kruz Igerabide

Maizak ez zekien zerk **kezkatzen** zuen gehiago, uneko larriak edo etorkizunerakoak. Migel Angel Mintegi

Nire anaia zeruari begira dago, zerbaitek **kezkatuko** bailuen. Jon Alonso

Eskuak sakelan gordeak, biharko eguraldiak **kezkatuko** ez bazintu bezala. Koldo Izagirre

Harritu egiten ninduen, ez **kezkatu**. Joxe Austin Arrieta

Horrek ez zuen Harry **kezkatu**. Iñaki Mendiguren

Seme, ez zaitzala inolako beldur edo tentaldik **kezkatu,** oso bihotzeko baitzaitut. Askoren artean

Izan ere, ez zuen uste emakumea larregi **kezkatuko** zuenik senarraren alderdi ezkutua ezagutzeak. Migel Angel Mintegi

Itxuraz, umerik zoriontsuena, kontentena ematen zuen, baina **kezkatu** egiten ninduen pentsatzeak zer oinaze ez ote zituen jasan bere sekretu hari eusteko. "Oraindik" hura izan zen Del Valle gehien **kezkatu** zuena. Oskar Arana

Eta huraxe zen lehen gaua horrek batere **kezkatu** ez zuena. Iñaki Mendiguren

**3** (era burutua izenondo gisa)

Anaia **kezkatu** batek nahitaez egin beharreko telefono deiak ere ez nituen egin. Aingeru Epaltza

Brasilen, Porto Alegren, egin da munduko kargurik gabeko arduradun **kezkatuen** biltzar handia, aurtengoa bosgarrena. Herria

Arima **kezkatuen** ametsetan entzuten den dei bitxi horietako bat ote zen? Josu Zabaleta

Ondoren egonezin traketsetik beste ametsik gabeko lo **kezkatu** batera pasatzen zen. Jon Alonso

Ronen begirada **kezkatuari** erreparatuz gero. Iñaki Mendiguren

Marmar pentsatiek eta esku igurtzi **kezkatuek**. Alberto Ladron Arana

San Josek atzera begiratzen du keinu **kezkatu** batez. Anjel Lertxundi

**4** (era burutua hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hi hago **kezkatu** aurpegiaz. Izeba Petunia itzuli zen telefonotik, haserre eta **kezkatu**-itxuraz. Iñaki Mendiguren

-A, bai? -esan zion Malfoyk, iseka egin nahian, baina **kezkatu**-itxuraz. Iñaki Mendiguren

**Kezkatu**-itxurako azti bat zegoen atean, esan eta esan: [...]. Iñaki Mendiguren

Ongi aterako zaio, nik uste -esan zuen, **kezkatu** antzean. Xabier Olarra

---

# **kezkatxo** *iz* kezka txikia.

Hoteleko beirateaz bestalde ikusten ditudan kaleko fruta-saltzaileei bost axola nire **kezkatxo** guztiok. Jon Arretxe

Badut halako **kezkatxo** bat. Berria - Kultura

---

# **kezkatze** *iz* burutapen edo arazoren batek gogoa asaldatzea.

Gure buru egoeraz **kezkatze** hau ez da alferrikakoa izan. Berria - Mundua

---

# **kezkatzeke** *adlag* kezkatu gabe.

Ostatura zertara sartua zen ahazturik, ura eskatzeaz **kezkatzeke,** oinen zuhurtziaz soilik fidaturik, musika jotzen zuten bazterrera hurbildu zen. Felipe Juaristi

Emakumeek, gizonaz **kezkatzeke,** jotzen segitu dute, gero eta alaiago jo ere. Felipe Juaristi

---

# **keztatu**, kezta, keztatzen *(orobat **kestatu** g.er.)* **1** du *ad* kez tratatu.

Kolonbiako Gobernua legez babestutako eremuak **keztatzen** hasi da bertako koka sailak suntsitzeko asmoz. Berria - Gaiak

Gobernuak dioenez, narkotrafikatzaileen negozioarekin bukatzeko era bakarra uztak **keztatzea** da. Berria - Gaiak

Gobernuak akordio bat sinatu zuen herri indigenetako buruzagiekin eta haiek bizi ziren lekuak ez **keztatzeko** konpromisoa hartu zuen. Berria - Gaiak

**2** (era burutua izenondo gisa) ketan ipinia, ketan lehortua. ik **ketu 3.**

Laurok atzeko lorategian eserita geundelarik eraztun-opilak eta izokin **keztatua** jaten, [...]. Oskar Arana

Antzerako zerbait gertatuko da produktu **keztatuen** (izokin, amuarrain, antxoa, bakailao, aingira, sardinzar, arraba, urdaiazpiko, hirugihar, gazta...) kontsumoarekin. Edorta Agirre

Lampauleko ostatu **keztatuan** adiskideak 1976ko Olympic Bravery petrolio kargo erraldoiaren suntsipena kontatu zidan. Itxaro Borda

Kokotsa gora begira, sabai **keztatura** zuzen jarria zuela berriro. Felipe Juaristi

Paretak lizunduak barrenetik; kanpoko hondar harri horia zikina, **keztatua**. Felipe Juaristi

---

# kezulo ik **ke 12**.

---

# **kg** *(orobat **kg.**)* kilogramoaren sinbolo nazioartekoa.

Kankailu bat, 1,90 m eta 100 **kg** bai aise. Aingeru Epaltza

Pertsona normal batek aortan [...] duen arteria-presio maximoa 120-150 mm Hg da (1 **kg** inguru 6 cm2-ko). Irene Aldasoro

260 **kg** pizu duen orga bat behar da itzuli lardaiaren gainean denbora laburrenean. Herria

Luzetara paseatzen zebilen 30 metroko tarte batean atzera-aurrera, 28 urteko adiskide batekin -1,70 m luze eta 71 **kg-,** eta hark aholku ematen zion, 15 hitzetan, 5 zentimetro mugitzeko zeniterantz 3 cm-ko diametroko botoi bat. Xabier Olarra

1200 botoil Irulegiko arnotik, 50 **kg** ardi gasna Ossau-Irati sormarkakoak. Herria

Jakinarazi nahi dizugu 1200 **Kg**. ahuntz-larru eta 500 **Kg**. tindatzeko liken jaso ditugula gure biltegietan. Bego Montorio

2004. urtean mankomunitatea osatzen duten udalerrietako biztanle bakoitzak 483 kilogramo hondakin sortu zituen urte osoan (1,32 **kg** egunean) eta iaz 466 **kg** zabor (1,28 **kg** egunean). Berria - Euskal Herria

---

# **khazartar** *izlag*

IX. mendean, Ukrainako zati handi bat hartzen zuen **Khazartarren** Inperioan esku hartu zuen Eskandinaviatik iritsitako varangiarren dinastiak. Berria - Mundua

---

**khlistitar** *izlag*

**Khlistitarren** dotrinak oinarri errazak zituen: bekatu asko egin behar da, gero egindako bekatu horiez benetan damutu, eta, azkenik, sufrimenduaren bidez hobenak ezabatzeko, damu eta sufrimendu horren bidez salbazioa lortu ahal izateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**kiasma** *iz* bi egitura anatomikoren x formako gurutzaketa.

Garunaren irudian erdiko tumor izugarri bat ageri zen, guruin pituitarioa eta alboko **kiasma** optikoa eta traktuak desegin eta lobulu frontaletara zabaltzen zena. Xabier Olarra

---

**kiasmo** *iz* hitzen errepikatze eta alderantzikatzean datzan figura erretokikoa.

Beste batzuetan, berriz, sinonimoak dira hitz zatikiak: Etxegaraigoienetxe abizenak bi aldiz esaten du gauza bera simetria perfektuko **kiasmo** txundigarri batean. Iñaki Arranz

---

**kibbutz** *iz* israeldar nekazaritza landetxe kolektiboa.

Ez zuten hegazkinik jo, bai, ordea, **kibbutz** bat eta hondartza bat. Berria - Mundua

Horietako bik Israelek Gaza inguruan eraikitako hesia zeharkatu eta **kibbutz** batean sartzea lortu zuten, baina soldaduek aurre egin eta hil zituzten. Berria - Mundua

---

**kibitka** *iz* errusiar zalgurdi mota, eskuarki itxia.

Ibilgailu zahar hondatu bat zen, gehienez hiru lagun eraman zitzakeena, eta bertakoek **kibitka** izendatzen dutena. Karlos Zabala

Hiru zaldikoa izaten da **kibitka** eskuarki, baina honek bat bakarra zeukan. Karlos Zabala

Bideko hauts-zolda lokatz bihurtu zen berehala, eta zaldiei gero eta nekezagoa zitzaien **kibitkatik** tiratzea. Jose Morales

Hegan doaz verstak, hegan hurbiltzen zaizkizu merkatariak **kibitketako** gida-aulkietan eseririk. Jose Morales

Tira, zergatik ez zarete igoko hi eta hire arreba **kibitkara**? Karlos Zabala

---

**kibo** *iz* nota zoli eta oharkabekoa, abestean edo hitz egitean sortzen dena.

-Mesalina? **-kiboa** atera zitzaion Imanoli izena errepikatzean. Fernando Morillo

---

**kide** **1** *iz* norbait edo zerbaitentzat, sail, multzo edo elkarte bereko pertsona edo gauza. ik**lagun**.

Familietan **kide** asko izaten ziren garaietakoa da. Oskar Arana

*Civitas Dei* horretan **kide** izatea eskaintzen diete giza arimei erlijio nagusiek. Iñaki Mendiguren

Gure kongregazioak hirurogei **kide** baino ez ditu. Oskar Arana

Baina bera **kide** zen gizartetik erbesteratua eta aldendua izan denari, kendu egin behar al zaizkio bere ondasunak? Juan Martin Elexpuru

Beste **kide** bat ekarri dut etxera zure ordez. Josetxo Azkona

Horrez gainera, beste **kide** bat bildu zitzaigun taldera: Robert Fauve, René Dubos-en ikasle izana New York-en. Juan Garzia

Leku guztietatik datoz **kideak**. Lopez de Arana

Bestela ere **kide** baikinen gure izaera despistatu eta *outsider* samarrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Bigarren milurtearen bezperan zazpiehun **kideko** tribua osatzen genuen. Itxaro Borda

*ik* kideko.

Bederatzi **kideko** eskifaia zuen eta 234 bidaiari eramateko ahalmena. Berria - Mundua

48 **kideko** gerrillari taldea. Berria - Mundua

**2** (-ko atzizkiaren eskuinean)

Nire familiako **kide** batzuk aberatsak dira. Oskar Arana

Zeruko aristokraziako **kidea**. Xabier Olarra

Ez zarete, beraz, ez arrotz, ez atzerritar, Jainkoaren herriko **kide** baizik eta Jainkoaren familiako. Administrazioko **kide** batekin. Elizen arteko biblia

1924an, Alderdi Faxistako **kide** egin zen. Josu Zabaleta

Armadako **kide** ohi batzuekin batera. Alberto Ladron Arana

Sektako **kide** batek. Jon Muñoz

Koordinakundeko **kide** askok. Edurne Elizondo

Museoko **kide** gehientsuenek bezalaxe. Jon Muñoz

-Eskolako **kide** guztiek landu beharra zeukaten oroimena. Jon Muñoz

Frantseseko klaseko hiru **kide** azaldu ziren handik gutxira. Bernardo Atxaga

Tolosako legebiltzarreko **kide** batek. Jon Muñoz

Erresistentziako **kide** iheslari anitz gordetzen zuen han. *Itoitzekin Elkartasuna* taldeko zortzi **kide**. Eneko Bidegain

*Ekologistak Martxan* taldeko **kide** Iñaki Barcenak. Berria - Harian

Bi kasinotako **kidea** zen. Josu Zabaleta

*ik* bazkide.

Edozein zigor ziegetan dagoenak beste kartzeletako **kideengana** helarazten duenean bakardade horren sentipena. Jokin Urain

Liu Pang ez zen ondasunez gabeturiko noblezia feudaleko **kide,** nekazari baizik. Iñaki Mendiguren

**3** (-en atzizkiaren eskuinean)

Erromako Eliza saindu eta katoliko bakarraren **kide** garela. Piarres Xarriton

Eliza katolikoaren **kidea** izanen zen, agian fraide edo moja bat. Alberto Ladron Arana

Desintegratzen ari den gizarteko kanpo-proletalgoaren **kide** edo atzerriko beste zibilizazioren baten ordezkariak izan daitezkeenak. Iñaki Mendiguren

Nola baliatu erkidego ekumenikoaren **kide** izatearen abantailez. Iñaki Mendiguren

Erlisione faltsu baten **kide** zela. Michel Oronoz

Nire **kide** europar finantzetako goi mailako funtzionarioek. Josu Zabaleta

Mundu honetan elkarren lagun izan garenok pairamenetan, elkarren **kide** izan gaitezen ere beste munduko gozamenetan. Piarres Xarriton

Ezin halakoak familia baten **kidetzat** hartu Andres Urrutia

**4** (izenondoekin)

**-Kide** berririk onesten duzue? -galdegin zion. Elena Touyarou

**Kide** leial horrek buruz ikasi behar izan zuen, bada, Grosrouvrek ahoz transmititu ziona, Pitagorasen jarraitzaileek bezalaxe. Jon Muñoz

**Kide** bikain bat bazuen, Monduteguy izendatu zuten […] Uztaritzeko eskualde guziaren prokuradore. Elena Touyarou

Alemaniako familia judu batean sorturik, Heidegger, Jaspers eta Walter Benjaminen ikasle eta **kide** argienetarik zelarik, nazismoari ihesi Frantziara etorri zen. Piarres Xarriton

Eta baduk bikote **kide** finkorik kartetan jarduteko? Josetxo Azkona

Pozik turista multzo hartako beste **kide** anonimo bat izateagatik. Josetxo Azkona

Elsak, afera hartan bera baino **kide** neutralagorik ez zela. Josetxo Azkona

Humboldt herriz herri ibili zen, [...] J.G. Herder bere **kide** erromantikoaren arrastoan. Bernardo Atxaga

Elsak, bere **kide** birtualaren pentsaera nolakoa zen jakin nahirik [...]. Josetxo Azkona

Agidanean, drosofilaren **kide** hurbilen bat zen. Juan Garzia

Giza talde txiki bateko **kide** nagusia. Xabier Olarra

Ikuslearen ikusmolde honek, ororen gainetik, irudiaren **kide** aktibo gisa hartzen du ikuslea. Josu Zabaleta

Errebelde hitza ez dator euskal hiztegietan (bai "errebel", Iparraldeko bere **kide** zuzena). Xabier Mendiguren Elizegi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kide** mordoxka igaro ginen Bonxetik. Jokin Urain

Alderdiko **kide** txartelaren zenbakia: 696.556. horri esker gordetzen dute **kide**-kopuru handia. Iñaki Iñurrieta

Beren **kide**-jolasak urtarrilean hasita, beste bikote batez erditzen da otsailean bikotea, eta bigarren bikote horrek, berriz, bikote bat sortzen du hilabetean behin. Jon Muñoz

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nolaz ote zen prokuradore eta zuzendaritza **kide** haren konfiantzaren hartzeduna, misterio argiezina zitzaion. Elena Touyarou

Apreziazioa ez zen hain handia izan yenari buruz […] baina %50era iritsi zen hala ere, termino errealetan, Estatu Batuetako merkataritza-**kide** nagusien diruei buruz. Koro Navarro

Gizakia legegile-**kide** dela beste gizakiekin batera. Jenaro Garate

Ospakizun abertzaleetako ostatu luzeetan bildu gazteak trumilka etortzen ziren, armada **kide** izateko. Itxaro Borda

Sofan eseriko da, eta lubaki-**kidearen** hitzak entzuten jarraituko. Imanol Zurutuza

Nire bidaia-**kidea** hizketan hasi zen... Josu Zabaleta

Nire aulki-**kideak,** bat-batean, hitz eman zidan, frantses txukunean: […]. Josu Zabaleta

Lur argitaletxean erredakzio **kide** ditudan guztiei. Josu Zabaleta

Nola banatuko liratekeen ere, truke-**kideen** artean, mundu osoko mailan sortutako soberakinak. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**administrazio kontseiluko kide** (15); **akademiako kide** (14); **al kaedako kide** (15); **alderdi komunistako kide** (14); **alderdietako kide** (7); **alderdiko kide** (51); **armadako kide** (19); **baath alderdiko kide** (9); **batzarreko kide** (9); **batzordeko kide** (76); **eajko kide** (11); **eako kide** (9); **ebbko kide** (17); **ebko kide** (62); **eeko kide** (8); **egiturako kide** (8); **eheko kide** (11); **ekimeneko kide** (7); **ekineko kide** (12); **elako kide** (14); **elkarte bateko kide** (8); **elkarte kide** (7); **elkarteko kide** (133); **elkarteko kide izatea** (15); **elkarteko kide izateagatik** (8); **enpresako kide** (8); **erakunde armatuko kide** (23); **erakundeko kide** (43); **erresistentziako kide** (16); **eskolako kide** (7); **estatu kide** (76); **etako kide** (121); **etako kide izatea** (67); **etxerat eko kide** (10); **europako batasuneko kide** (34); **ezker abertzaleko kide** (8); **familiako kide** (27); **federazioko kide** (11); **fundazioko kide** (13); **gaizkile elkarteko kide** (11); **gaiztagin elkarteko kide** (15); **gaztetxeko kide** (8); **gobernu kontseiluko kide** (28); **gobernuko kide** (30); **hamaseko kide** (11); **irako kide** (13); **kaseko kide** (7)

**kide atxilotu** (71); **kide atxilotu zituzten** (16); **kide bakarra** (13); **kide bat atxilotu** (9); **kide bat hil** (23); **kide berri** (39); **kide berriak** (46); **kide berriei** (9); **kide berriek** (10); **kide berrien** (17); **kide bihurtu** (24); **kide bihurtzeko** (7); **kide bilakatu** (7); **kide diren herrialdeetako** (7); **kide edo laguntzaile** (9); **kide egin** (28); **kide egin zen** (9); **kide hil** (110); **kide hil ziren** (27); **kide hil zituzten** (27); **kide iraunkor** (13); **kide iraunkorrak** (13); **kide iraunkorrek** (8); **kide izan** (159); **kide izan zen** (36); **kide izandako** (18); **kide izandakoak** (7); **kide izango** (39); **kide izango da** (10); **kide izango ditu** (9); **kide izanik** (8); **kide izatea** (217); **kide izatea egotzi** (15); **kide izatea egotzita** (25); **kide izatea egozten** (14); **kide izatea leporatu** (20); **kide izatea leporatuta** (16); **kide izatea leporatzen** (27); **kide izateagatik** (32); **kide izatearen** (19); **kide izateari** (8); **kide izateaz** (15); **kide izateko** (51); **kide izaten** (9); **kide izendatu** (13); **kide kopurua** (11); **kide moduan** (8); **kide ohi** (21); **kide ohia** (27); **kide ohiak** (37); **kide ohiek** (11); **kide oso** (11)

**koalizioko kide** (12); **kolektiboko kide** (10); **kontseiluko kide** (116); **koordinakundeko kide** (7); **labeko kide** (14); **lan taldeko kide** (8); **lau kide hil** (9); **legebiltzarreko kide** (10); **ligako kide** (9); **mahai nazionaleko kide** (11); **mahaiko kide** (10); **martxan taldeko kide** (8); **mugimenduko kide** (18); **natoko kide** (14); **nbeko kide** (7); **ohorezko kide** (9); **oposizioko kide** (12); **plataformako kide** (42); **ppko kide** (11); **pse eeko kide** (8); **segiko kide** (10); **segurtasun indarretako kide** (9); **segurtasun kontseiluko kide** (41); **sindikatuko kide** (12); **sinn feineko kide** (8); **talde armatuko kide** (23); **talde bateko kide** (13); **talde horretako kide** (8); **talde terroristako kide** (7); **taldeko bi kide** (7); **taldeko kide** (183); **taldeko kide batek** (9); **taldeko kide da** (9); **taldeko kide izan** (13); **taldeko kide izatea** (8); **udalbiltzako kide** (7); **ustezko bi kide** (8); **ustezko kide** (34); **ustezko kide bat** (12); **zerrendako kide** (8); **zuzendaritza batzordeko kide** (9); **zuzendaritza taldeko kide** (7); **zuzendaritzako kide** (47)

**alderdiko kidea** (13); **batzordeko kidea** (31); **batzordeko kidea da** (11); **elkarteko kidea** (42); **elkarteko kidea da** (12); **erakundeko kidea** (21); **etako kidea** (22); **fundazioko kidea** (8); **institutuko kidea** (9); **kidea izan** (37); **kidea izan zen** (17); **kidea izatea** (12); **kontseiluko kidea** (14); **mugimenduko kidea** (7); **plataformako kidea** (11); **taldeko kidea** (67); **taldeko kidea da** (14); **ustezko kidea** (7); **zentroko kidea** (8); **zuzendaritzako kidea** (19)

**al fatako kideak** (7); **al kaedako kideak** (11); **alderdiko kideak** (15); **aralarreko kideak** (12); **armadako kideak** (15); **askatasuneko kideak** (17); **auzo elkarteko kideak** (7); **batera ko kideak** (11); **batzordeko kideak** (51); **behatokiko kideak** (7); **eajko kideak** (9); **eeko kideak** (8); **eheko kideak** (21); **ehneko kideak** (9); **ekimeneko kideak** (9); **elako kideak** (11); **elbko kideak** (12); **elkarri ko kideak** (7); **elkarteko kideak** (90); **epaimahaiko kideak** (7); **erakundeko kideak** (22); **erresistentziako kideak** (17); **eskolako kideak** (15); **etako kideak** (21); **etxerat eko kideak** (24); **ezker abertzaleko kideak** (18); **familiako kideak** (8); **federazioko kideak** (7); **fundazioko kideak** (7); **gaztetxeko kideak** (12); **gobernu kontseiluko kideak** (8); **gobernuko kideak** (16); **irako kideak** (9); **irratiko kideak** (7); **itoizko koordinakundeko kideak** (7); **kideak adierazi** (9); **kideak adierazi zuenez** (7); **kideak atxilotu** (8); **kideak azaldu** (36); **kideak azaldu zuenez** (21); **kideak bildu** (10); **kideak esan** (13); **kolektiboko kideak** (7); **kontseiluko kideak** (36); **koordinakundeko kideak** (13); **labeko kideak** (17); **mintegiko kideak** (7); **mugimenduko kideak** (13); **oposizioko kideak** (19); **plataformako kideak** (34); **pse eeko kideak** (8); **segiko kideak** (15); **segurtasun indarretako kideak** (9); **sindikatuetako kideak** (7); **sindikatuko kideak** (14); **sos arrazakeriako kideak** (7); **talde sustatzaileko kideak** (8); **taldeetako kideak** (11); **taldeko kideak** (153); **taldeko kideak eta** (9); **udalbiltzako kideak** (13); **ustezko kideak** (13); **zuzendaritzako kideak** (41)

**elkarteko kidearen** (16); **erakundeko kidearen** (11); **erakundeko kidearen esanetan** (8); **kidearen arabera** (24); **kidearen esanetan** (38); **kidearen hitzetan** (13); **kidearen iritziz** (8); **kidearen ustez** (22)

**etako kideari** (8); **kideari lekukoa eman** (8)

**batzordeko kideei** (11); **ebko kideei** (8); **estatu kideei** (9); **etako kideei** (10); **gaztetxeko kideei** (9); **herrialde kideei** (7)

**abertzaleko kideek** (9); **alderdietako kideek** (8); **alderdiko kideek** (13); **aralarreko kideek** (11); **batera ko kideek** (11); **batzordeko kideek** (45); **bilgune feministako kideek** (8); **bilguneko kideek** (9); **eajko kideek** (7); **ebko kideek** (19); **eheko kideek** (17); **ekimeneko kideek** (8); **elkartasuna taldeko kideek** (24); **elkarteko kideek** (83); **erakundeko kideek** (15); **erresistentziako kideek** (25); **estatu kideek** (36); **etako kideek** (8); **etxerat eko kideek** (13); **ezker abertzaleko kideek** (9); **foroko kideek** (7); **gaztetxeko kideek** (41); **gobernuko kideek** (19); **irratiko kideek** (10); **itoizko koordinakundeko kideek** (7); **kideek azaldu** (11); **kideek azaldu zutenez** (9); **kideek egin** (14); **kideek egindako** (8); **kideek hartu** (8); **kideek nabarmendu** (7); **kideek osatzen** (10); **kideek osatzen dute** (8); **kideek parte hartuko** (7); **kontseiluko kideek** (25); **koordinakundeko kideek** (16); **labeko kideek** (8); **mahaiko kideek** (8); **oposizioko kideek** (10); **plataformako kideek** (45); **ppko kideek** (7); **segurtasun kontseiluko kideek** (7); **sindikatuetako kideek** (7); **sindikatuko kideek** (10); **taldeetako kideek** (8); **taldeko kideek** (116); **ueuko kideek** (7); **zuzendaritzako kideek** (15)

**kideekin batera** (31); **kideekin bildu** (14); **kideekin bildu zen** (7); **kideekin harremanetan** (7)

**abertzaleko kideen** (13); **armadako kideen** (7); **batzordeko kideen** (15); **batzordeko kideen aurrean** (7); **elkartasuna taldeko kideen** (7); **elkarteko kideen** (11); **erresistentziako kideen** (16); **estatu kideen** (26); **estatu kideen artean** (8); **etako kideen** (8); **ezker abertzaleko kideen** (13); **familiako kideen** (9); **gobernuko kideen** (9); **kideen arabera** (12); **kideen artean** (113); **kideen arteko** (48); **kideen aurka** (15); **kideen aurkako** (23); **kideen aurrean** (20); **kideen esanetan** (10); **kideen kontrako** (14); **kideen kopurua** (9); **kideen ustez** (29); **kontseiluko kideen** (11); **mahaiko kideen** (9); **plataformako kideen** (8); **taldeko kideen** (28); **taldeko kideen artean** (8)

**estatu kideetako** (21); **taldeko kideetako** (7)

**estatu kidek** (7)

**kideren artean** (7); **kideren aurka** (7); **kideren aurkako** (7); **kideren kontrako** (11)

**erakundeko kidetzat** (3); **kidetzat hartu** (5); **kidetzat jotzen** (4)

---

# kidego

**1** *iz* kidetasun, kidetza.

Horrek dei sorta zekarren, ospitaleetara, Gurutze Gorrira eta polizi **kidego** ezberdinetara. Aingeru Epaltza

Haren inspirazio pean Ingalaterrak sortu zuen funtzionario-**kidegoak** trebezia eta independentzia izan zituen lanean. Iñaki Mendiguren

Irakasleen **Kidegoei** buruzko 2/1993 Legeak. Berria - Harian

Xedea dute behar dela diplomatiko gora beheretan ahal bezenbat zabaldu herrien arteko **kidegoa**. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Bidea egiteko, forma bizien aniztasun itzeletik harago, tasun- eta are ezaugarri-**kidego** bat aurkitzeraino. Juan Garzia

---

# kideko 1 *iz* kidea dena, kidea.

Biak neba-arrebak, biak **kideko** eta elkarren ondoko. Pello Zabala

Haien enbrioi-garapena gobernatzen duten geneak **kideko** dira guztiak. Juan Garzia

Hain **kideko** sentitu ziren eta hain pozik aldi berean, non ezinbestekoa baitzen gerora biak ezkontzea. Xabier Olarra

Elkar laztanka hasi dira, arrosa batek **kideko** arrosa laztantzen duen bezala. Felipe Juaristi

Noiz dira bi irudi **kideko**? -galdetu zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Bainan **kideko** leialak baditu beti Estradak herrian. Herria

Prerrafaelismoak erromantizismo garaian hasitako joera burutu zuen: artistek modeloak beren parekotzat, **kidekotzat,** hartzekoa. Ramon Saizarbitoria

**2** *izlag*

Bi hitz hauek al dira elkarri buruz buru dauden bakarrak, ala **kideko** hitzen serie osoa da partzen hartzen duena? Isabel Arrigain

Erregearen sendagileak klima hotzari leporatu zion neskatoak ez hitz egitea eta **kideko** neskatoen moduan ez portatzea. Felipe Juaristi

Oso **kideko** konzeptuak. Jokin Urain

**Kideko** berba hauetan. Xabier Kintana

**3** (-en atzizkiaren eskuinean)

Erregearen **kideko** ziren gazteek erantzun zioten: [...]. Elizen arteko biblia

Txakalen **kideko** bihurtu naiz, ostruken lagunarteko. Elizen arteko biblia

Gure Andreasek, lehendik dakigun bezala, ez zuen paperik, bere **kideko** askok bezala. Matías Mujika

Kalte ekartzen dio bestalde, Errege Jaunaren ospeari, haren **kideko** batzuek salatuko baitute ez dela bera. Piarres Xarriton

Autista askok gogoko dute orain Einstein beren **kidekotzat** hartzea. Xabier Olarra

· Kurarearen **kideko** substantzia sintetikoak erabiltzen dira kirurgian [...] muskuluak erlaxatzeko. Irene Aldasoro

Bere **kideko** gizaki hanka bikoa ez banintz bezala. Matías Múgica

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere kideko** (4); **haren kideko** (4); **kideko administrazio** (4); **kideko ziren** (3)
> **bere kidekoekin** (4)
> **bere kidekoen** (4); **kidekoen artean** (4)

---

# kidekotza *iz* egokitasuna.

Hiru egun oso-osoak nekez, baina berdintasun eta **kidekotza** formala, izan, badute. Pello Zabala

---

kider ik **gider**.

---

# kidetasun 1 *iz* kideen arteko harremana edo lotura.

Zinez hunkigarria bien arteko **kidetasuna,** hobeki erran egiazko adiskidetasuna. Herria

**Kidetasun** hau bereziki estua zen kristautasunaren eta mahayanaren artean. Iñaki Mendiguren

Ez da harritzekoa **kidetasun** hori egotea argi eta garbi elkarri lotuta dauden bi prozesuen erritmoen artean. Iñaki Mendiguren

Zein **kidetasun** izan dezake Jainkoaren tenpluak sasijainkoekin? Elizen arteko biblia

Alde bateko eta besteko determinazio nazionalen analogia, **kidetasun** eta osagarritasunaren agergarri. Iñaki Segurola

Kondena batek eragina zela Andreasen portaera ere, eta kondenaren **kidetasun** hark ozpin gehiago eransten zion Noraren oinazeari. Anjel Lertxundi

Eta *nabarrisco* honekin *morisco* hitzak duen **kidetasuna** datorkit burura. Patziku Perurena

Baina hor ibilbide parabolikoa susmatzen dugu, elipsearekin **kidetasuna** duena. Ibon Uribarri

Ezkondu ezagunen batekin, ezkondu **kidetasunen** bat edo partekatzeko zerbait duzun norbaitekin. Berria - Kultura

Testuen ulerkera alegoriko hori eta esangura ezberdineko hitzen **kidetasuna** aintzat hartu nahi ez balu. Xabier Kintana

Gorpuztasuna edo sorkariekiko **kidetasuna** adieraz dezakeen guztia. Xabier Kintana

Bazirudien txokolateak gure lehengo gertutasuna eta **kidetasuna** pizten zituela. Juan Kruz Igerabide

Hurbiltasunak batzuetan ematen duen **kidetasunari** esker. Joxean Agirre

Bai barealdian eta bai zakarraldian, bai **kidetasunean** eta bai etsaigoan. Felipe Juaristi

Andreasek, hortz zuri-zuriak erakutsirik, **kidetasunezko** irribarrea egin zuen. Anjel Lertxundi

Txakurtxoa zeure alboan jarriko da, ez etxetiarrak baina **kidetasunezkoak** diren miazkadak eman ondoren. Joseba Sarrionandia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Frantses eta ingeles irabazleen arteko **kidetasun** ederra laster desegin zelakotz. Piarres Xarriton

**Kidetasun** berezi bat da, okerrean dabiltzan bi lagunen artean sortzen denaren gisakoa. Ander Irizar

Beren obren **artean** kidetasun handia dagoela-eta. Berria - Kultura

Zirrara atsegingarri bat, halako **kidetasun** edo haurridetasun kontsolagarri bat-edo. Juan Luis Zabala

Liburuaren hasieran esaten zaigunez aspaldiko **kidetasun** batek lotzen ditu pertsonaiok, baina bukaera aldera jakingo dugu paper arriskutsu batzuk direla harreman horren lotura. Jon Muñoz

Lantegiko emanaldietan zehar, benetako **kidetasuna** sortu zen bien artean. Jon Muñoz

Bai, Gabinek halako **kidetasun** bat nabari du Hausterrekin. Iñaki Iñurrieta

Anaitasuna berriz, [...] ez zitzaion axola, jendeen arteko **kidetasunean** ez baitzuen sinesten. Elena Touyarou

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zenbait animaliak **kidetasun**-lotura sendoak sortzen dituzte, elkarren arteko dependentzia loturak esango genuke. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kultur oinarri heleniko komunak ez zuen haren bihotzean kultura beraren oinordeko ziren greziar garaikideekiko **kidetasun** -sentimendurik sortu. Iñaki Mendiguren

Eta mundu bereizi bat da, bere **kidetasun** -zentzu, bere hizkuntza, kode, mito eta ohiturekin. Xabier Olarra

Gizakiak aparte, ez dugu Naturaren baitan deus berezirik ezagutzen haren Izpirituak bozkaria gaitzakeenik, eta harekin adiskidetasunak edo beste **kidetasun** mota batek lotzen ahal gaituenik. Piarres Xarriton

Beraz, ez dut uste ekonomia kontua denik baizik eta **kidetasun** kontua. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Troiarren eta pertsiarren artean, biak "asiar" ziren aldetik, sentimendu-**kidetasuna** zegoela. Iñaki Mendiguren

Urkatzeekiko arreta galtzen hasita zegoen, bada, Nora, Alice eta Mary ahizpak oholtza gainera igo eta haien antz-**kidetasunarekin** entretenitu zenetik. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kidetasunezko irribarrea** (3)

---

## kidetsu *izond* gutxi gorabehera kidekoa.

Ez arrunta eta edonoren begi-bistakoa, ez eta handixeago izan arren beronen **kidetsukoa,** askoz ere argiagoa eta distiratsuagoa izanik, bere handitasunean oro betez. Imanol Unzurrunzaga

---

## kidetu, kide(tu), kidetzen da/du *ad* kide bihurtu; kidetasuna iritsi.

Halatan, bertze guztiengandik bereizia du; eta bere gorputza zuri ematen dizularik ere, harekin baizik ez da **kidetzen**. Niri kosta egiten zitzaidan lanbidez **kideturik** geundela pentsatze hutsa. Jon Muñoz

Gaur egun, Likud eskuineko alderdia utzi duten 13 diputatu Kadiman **kidetu** dira. Berria - Mundua

Europako Batasunean **kidetuta** dauden herrialdeetako egoiliarrak. Berria - Mundua

NATO Aliantza Atlantikoan berriki **kidetutako** zenbait herrialdetan. Berria - Mundua

Gizarte Segurantzan **kideturik** eta alta hartuta edo horren antzeko egoeran egotea. Berria - Euskal Herria

Euler-ek ez zuen balentriarik egin nahi, bere oroimenean gordetako zenbaki horiek guztiek bere lanetarako balio izan zioten: zenbakiekin **kidetu** zen horrela. Jon Muñoz

Profetek, "sorkaria bere Sortzailearekin" **kidetu** zutela, Jakintsuen hitzetan. Xabier Kintana

Gazteak, guziz, hor zituen Marianok: hauetan, dantzariak, oraino ez aspaldi mutil-dantza batean berak segitzen eta **kidetzen** zituen lagunak. Herria

Erregeren gorteetan haur bastartak legezkoekin nahasten dira; halakoetan baizik ez da ezagutu, teilatupe berean, odolen nahastekamenduek **kideturiko** gisa bereko neska-mutil saldo nabarrik. Aingeru Epaltza

---

## kidetza 1 *iz* kidetasuna.

Benetako **kidetza:** Turkiak nahi du negoziaketen helburu argia EBko kide bihurtzea izatea, eta ez du beste eredurik onetsiko. Berria - Mundua

Elosuak [...] desobedientzia zibilean aritzeagatik ETAko **kidetza** leporatzeko epaileak zer irizpide erabili dituen azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

Beraz, **kidetza,** kolaborazioa eta indukzioa leporatzen dizkigu. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Turkiarekiko **kidetza** negoziaketen hasteko data bat dela finkatu behar adierazi zuen. Berria - Mundua

---

## kidetze *iz* kide bihurtzea; kidetasuna iristea.

Frantziak gai guztiak aipagai ezarriko ditu Turkiaren **kidetze** negoziaketen barruan. Baina Jainkoaren (gorets bedi betegintza eta **kidetze** ororen gainetik!) figura eta neurriari dagokienez, [...]. Xabier Kintana

Erdoganek, dena den, berretsi zuen Ankarak ez duela «arau berririk» konplitu beharra onartuko EBko **kidetzerako** elkarrizketak abian jartzeko. Berria - Mundua

---

## kiebra 1 *iz* porrota, hutsegitea.

Artean telebistako **kiebra** ekonomikoa ez zen egunkarietako hipotesi bat baino. Anjel Lertxundi

**Kiebren** auzitegiko epaileak. Berria - Ekonomia

Eskualde honetako ekonomiak astindu dituen krisia, ordainketa-balantzen krisia izan baino lehen, eskaintza mugatuko aktiboen (higiezinen, orubeen, akzioen) merkatuen **kiebran** gauzatu zen. Koro Navarro

Hasteko, **kiebrara** eramango gaitu. Koro Navarro

Taldearen **kiebra** eragozteko. Berria - Ekonomia

Enkantea ez egiteko, Jukosek **kiebra** aitortzeko eskatu die AEBetako epaileei. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

**Kiebra** egoera eskatzera jo du US Airways aire konpainiak. Berria - Ekonomia

· Sekuentzia hori [...] era berean gertatu zen Mexikoko 1994ko abenduko finantza-**kiebraren** hasieran. Koro Navarro

**3** ***kiebra jo*** porrot egin.

Izar taldeak **kiebra joko** du bi hilabeteren buruan. Berria - Ekonomia

Bi hilabetean lau bankuk **kiebra jo** dute. Berria - Ekonomia

Urtetan inbertsio txikiena egin gabe, zaharkituta eta deskapitalizatuta zegoen erabat enpresa, eta ordainketa-etena agindu zuen halako batean, **kiebrak jota** . Xabier Mendiguren Elizegi

Kateak **kiebra jo** eta langabezian gertatuko ote ginen beldur. Joxan Elosegi

1974an zalaparta handiz **kiebra jo** zuen alemaniar bankuaren izena. Koro Navarro

Merkataritza-burgesiak prezio onean erosi zituen jaun feudal **kiebra jotakoen** lurrak. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kiebra jo** (16); **kiebra jo zuen** (6); **kiebra joko** (14); **kiebra joko du** (3); **kiebra jota** (4); **uztailean kiebra jo** (3)

---

## kietismo *iz* gisa arimaren betegintzarre osoa Jainkoaren kontenplazioan datzala dioen erlijio doktrina.

Erlijio berri bat, berea, halako **kietismo** pagano bat. Piarres Aintziart

**kietista** *iz* kietismoari dagokiona; kietismoaren aldekoa dena.

Lao-Tsek Wu Wei-ren indar subkontzienteen berezko jardunerako eremu libre bat uzteko zuen sinesmen **kietista**. Iñaki Mendiguren

---

**kieto** *adlag*

88 gradutan **kieto**, hilotz gelditu zen. Pello Zabala

Hortxe egonen duk, **kieto**, epailea etorri eta altxatzeko agindua eman arte. Aingeru Epaltza

Nago, horrelakoetan, mikro-ziriaren aurrean **kieto** egotearen ohiturak ez diola onik egiten bertsolariari. Andoni Egaña

**Kieto** geratu ziren bertan, nolabait esan, gure inguruko hondakin guztiak eta emanari utzi zion halaber urak. Joxan Elosegi

Etxean **kieto** gelditzea erabaki zuen Ivanek, baina gauzak izugarri zaildu ziren ordutik aurrera. Joxan Elosegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kieto gelditu** (4); **kieto geratu** (4); **kieto kieto** (3)

---

**kievtar** *izlag/iz* Kievkoa, Kievi dagokiona; Kievko herritarra.

**Kievtarrek** sortua. Berria - Mundua

---

**kifi** *iz* haxixa.

**Kifi** pipatu izan bazenu bezala, mundua bat-batean gelditu eta mututu egin da. Xabier Montoia

Lehengo egunean **kifia** eskaini zizun agure bizar-urdin bera. Xabier Montoia

---

kijotizatu ik **kixotizatu**.

---

kijotizatze ik **kixotizatze**.

---

**kikara** *(orobat **kikera** g.er; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kikara** agertzen da)* **1** *iz* kafea eta beste zenbait edari hartzeko erabiltzen den ontzia, katilua baino txikiagoa eta eskutoki bat bakarra duena.

Amak **kikara** bat bete zion kafe egin berriaz. Anjel Lertxundi

Etenaldi bat egin zuen **kikara** ahora eramateko. Migel Angel Mintegi

**Kikara** ezpaineratu, barrukoa hustu, eta erretiluan utzi ondoren zutitu egin zen. Migel Angel Mintegi

Pentsatu gabe, nire **kikara** hartu, te hondar bat baitu, eta ezpainetara eraman dut. Monika Etxebarria

Osaba Vernonek tearen **kikara** hustu zuen. Iñaki Mendiguren

Kafea zerbitzatu zion gero kafeontzitik **kikarara**. Anjel Lertxundi

Ur beroz betetako **kikaretan** ipini zuen kafe hautsa. Koro Navarro

Azkenean **kikara** irauli egin zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Nevillek bigarren **kikara** apurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Harraskara eramaten ditu **kikara** eta platera. Oskar Arana

Zutitu eta **kikarak** jaso nituen. Koro Navarro

Aita itzuli egin zen mahairantz, **kikara** eskuan. Koldo Izagirre

Fereka egin nion neure **kikararen** gider tikiari, ezpainetara gabe. Aingeru Epaltza

Portzelanazko **kikara** politetan. Fernando Rey

Kafea **kikaretan** hozten ari zen, hirugarrenez. Iñigo Aranbarri

**Kikarako** kafeari begira gelditu zen, edateko gogoa zapuztu egin izan balitzaio bezala. Bernardo Atxaga

**Kikarakoa** edan eta mahai gainean utzi zuen. Migel Angel Mintegi

**2** (edukia) ik **kikarakada; kikaratara.**

-Tira, hartuko al dugu **kikara** bat te? -esan zuen. Mirentxu Larrañaga

Etxera igo eta **kikara** bat kafe prestatu nian. Lopez de Arana

Emakume gizen bat **kikara** bat kafe eskatzen ari zen barran. Lopez de Arana

**Kikara** bat salda. Lopez de Arana

**Kikara** bana ur zekarrela eskuetan itzuli zen. Koro Navarro

Pare bat **kikara** kafe hartu zuen purutxo bat erre bitartean. Migel Angel Mintegi

Zerbait marraskatzen ari zen, gero mamurtzeko eta **kikara** kafez bultzatzeko. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adelak irribarre egin zuen, **kikara** barrura begira, koilaretxoarekin jolasten zen bitartean. Juan Kruz Igerabide

Kaferako **kikara**-multzo bat erosi nion, Bidasoako portzelanazkoa. Pako Aristi

Bi senar bidaliak zituen beste mundura beste horrenbeste **kikara**-kolpez. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hartu te-**kikara** bat apaletik, etorri niregana eta bete egingo dugu. Iñaki Mendiguren

Bi kafe **kikara** hutsen artean. Koldo Izagirre

Kafe-**kikara** baten aurrean eserita. Lopez de Arana

Esku ahurretan bildu zuen kafesne-**kikara**. Josu Landa

Mezzorado **kikara** bat oso bildua paperean eta soka batekin lotua. Fernando Rey

Plastikozko ume-**kikarak,** haur gutunak klarionaz idatziak. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kafe kikara** (30); **kafe kikara bat** (7); **kikara bat bete** (3); **kikara bat kafe** (6); **kikara bat te** (6); **kikara bete** (4); **kikara eskuan** (4); **kikara eskuetan** (3); **kikara ezpainetara** (3); **kikara hartu** (5); **kikara hustu** (6); **kikara hustu zuen** (3); **kikara mahai gainean** (4); **kikara utzi** (5); **portzelanazko kikara** (3); **te kikara** (13); **te kikara bat** (6)

kafe kikarak (5); te kikarak (6)
kafe kikararen (3)
kafe kikarari (5)

---

## kikarakada *iz* kikararen edukia. ik **kikara 2**.

Beste **kikarakada** bat te eskatuko dut. Jon Arretxe

Biharamun goizean, Tomek ohiko irribarre horzgabearekin eta **kikarakada** tearekin esnatu zuen Harry. Iñaki Mendiguren

**Kikarakada** te beroa aurrean zuela. Iñaki Mendiguren

Bideko azken te-**kikarakada** dastatzen genuen bitartean. Jon Arretxe

Te-**kikarakada** bana eta fruta-opil batzuk baino ez. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
te kikarakada (3)

---

## kikarakadatxo *iz adkor* kikarakada.

**-Kikarakadatxo** bat iltze-belar? Iñaki Mendiguren

Urdaileko lanari eragiteko aski da **kikarakadatxo** bat kafe hartzea. Javi Cillero

---

## kikaratara *iz* kikararen edukia. ik **kikara 2**.

Aitak eta nik bigarren **kikaratara** bat edan genuen. Daniel Landart

---

## kikaratxo *iz* kikara txikia.

Maritxu kontu-kontari hasten bazaizu, **kikaratxoan** hoztuko zaizu-eta kafea. Joxerra Garzia

Raimundo Silvak bi kafe-**kikaratxo** edan zituen baten ordez. Jon Alonso

---

kikera ik **kikara**.

---

## kikil *(orobat **kokil** g.er.)* **1** *izond* adore gutxikoa, ezeri aurre egiteko gauza ez dena.

Nola igarri ahal izanen zenukeen zure logelako erdi-ilunpean egondako neska **kikil** hura ni nintzela! Eduardo Matauko

Ez zen mutil **kikila;** goiz batez, haserre bainoago ezaxola, bizpahiru ukabilkada trukatu zituen unibertsitateko greba batean parte hartzera bortxatu nahi zuten kide batzuekin. Juan Garzia

Bata zen betikoa, eguzkia bezain distiratsua, harroa eta ausarta, eta bertzea zen guztiz bertzelakoa, uzkurra eta **kikila,** ilunaldi haiek zetozkionean batik bat. Joan Mari Irigoien

Ez zen **kikila** ez gorra ez zinikoa; ez zen egokitu. Juan Garzia

Baina hain nintzen herabe, hain **kikil,** hain mirabe eta ahul zure aurrean. Eduardo Matauko

· Senarra **kikil** antzean logelako sabaiari begira. Karlos Zabala

Gizonak txoratuta gelditzen dira **kikil** antzeko emakume horiekin. Jon Muñoz

**2** (gauzei buruz)

Ez dago itzulinguruetarako eta ñabardura **kikiletarako** leku-astirik. Juan Garzia

Eskrupulu **kikilen** bategatik. Juan Garzia

**3** (adizlagun gisa)

**Kokil** jokaturik, betiko esamoldeak erabiliko ditugu, bidean deus arriskatu gabe. Andoni Egaña

**4** ***kikil-kikil egin***

Roman sukaldearen izkina baten kontra zegoen **kikil-kikil** eginda, kolpe bat hartzeko beldur balitz bezala, besoa babestzat jasoa. Inazio Mujika Iraola

---

## kikilarazi, kikilaraz, kikilarazten *(orobat **kokilarazi**)* du *ad* kikiltzera behartu.

Edonor asaldarazi eta **kikilarazten** dute halako isiluneek, eta tomate-zopaz hitz eginarazten diote etsi-etsian, eta "lilipa-belartxoro-polit" edota antzeko ergelkeriaren bat esanarazten. Mirentxu Larrañaga

Mehatxatu, **kokilarazi** eta nahi dituzten lege guztiak urratu. Fernando Rey

---

## kikildu, kikil(du), kikiltzen *(orobat **kokildu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kikildu** agertzen da)* **1** da *ad* adorea galdu, ezeri aurre egiteko ezgauza gertatu.

Azaro sagar helduaren gisan arratsaldeari gaua jaulkitzen zaionean, izakia **kokildu** egiten da; eta aldaketa hau bere bizitza guztian egunero gertatzen den arren, ez da hartara ohitzen. Pako Aristi

Polita zuen eta beharbada **kikildu** egingo zen halako emakume apartaren aurrean. Karlos Zabala

Elefante izugarrien azpian **kokiltzen** den inurri baten antzera sentitzen nintzen. Jasone Osoro

**Kikildu** egin ziren lege-ukatzaileak hark ematen zien beldurraz. Elizen arteko biblia

-Ez dakit zertaz ari zaren -ez zen **kikildu**. Migel Angel Mintegi

Ez **kikildu,** ez izan beldur! Elizen arteko biblia

Fang basurdetarako txakurrak **kikildu** eta intziri egin zuen saskian-. Iñaki Mendiguren

Legolas elfoarena izan ezik -hura ez baitzen Gizakien Espektroen beldur- beste guztien bihotzak erabat **kikildu** ziren. Agustin Otsoa

-Ez hadi zerri hauen aurrean **kikildu**. Rafa Egiguren

Jaurlaritza komunikazio talde handien aurrean **kikildu** egin da. Berria - Harian

Ezinegonak gero eta **kikilduago** zegoen, abailduta, goibel eta ahulduta. Harkaitz Cano

Kartzelan gertatu litekeen okerrena duk hi **kikiltzea,** nahiz eta jakin galduko duala, hire froga egin behar duk, hori bizilegea duk kartzelan. Pako Aristi

Hurrengoan argiago izango du bertsolari bakoitzak ze egoeratan **kokildu** eta noiz arriskatu. Andoni Egaña

Alabaina, Soria ez zen aise **kokiltzen** . Aingeru Epaltza

• **2** du *ad* adorea kendu

Etorkizunaren kezkak, berriz, **kikildu** ordez, adoretu egiten ditu ontziko guzti-guztiak. Anjel Lertxundi

**Kikiltzen** ninduen isilunea ez da luzatu. Txillardegi

Arriskuak ez zuen **kikildu,** eta bere bizimodu lizun eta libertinoarekin jarraitu zuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Inork pentsa dezake besteen biluztasunak **kikildu** egiten nauela. Anjel Lertxundi

Odolak **kikildu** egiten dik gure Werner. Anjel Lertxundi

Jainkoak **kikildu** nau, Ahaltsuak ikaraz bete. Elizen arteko biblia

Um Husain emakume deliberatua zen, giza errespetuek **kikiltzen** ez duten horietarikoa. Patxi Zubizarreta

Zuhaitzaren hurbiltasunak **kikildu** egin gaitu, eta isilik egon gara. Bernardo Atxaga

Bere suhartasunak **kikildu** egin ninduen, eta irudipena nuen hain zuzen ere nire geldotasunak jartzen zuela galdan. Ramon Saizarbitoria

-Ez didak, bada, esango... heriotzaren gertuak **kikildu** hauenik. Anjel Lertxundi

Nazioarteko presioek nazionalsozialistak **kikildu** arte, amona Erikaren hitzekin esateko. Anjel Lertxundi

Bihotza **kokiltzen** dit. Pako Aristi

Gerrikoa, prakak, alkandora… kendu ahala, ahultzen sumatzen nuen neure adorea, **kokiltzen** ausardia. Hasier Etxeberria

Izan ere, unibertsitateak **kokildu** egin hau, ezta, Sartre jauna? Jokin Muñoz

Gauaren hotzak **kikiltzen** zituela kanpoko sugeak eta behartzen beren gordelekuetan egoiterat. Joan Mari Irigoien

"It's okay", esan nuen, ez neure burua **kikiltzen** utzi nuelako, berehalaxe sumatu bainion ardoari kortxoaren kerua, baina bai eztabaidarik nahi ez nuelako: "it's okay". Joxe Austin Arrieta

**3** (era burutua izenondo gisa)

Familia aberatseko semea zen, baina ukuilu hartan, judu **kikildu** bat, horixe. Anjel Lertxundi

Diosal **kikildu** bat murmurikatu nien nire paretik pasatu zirenean. Alberto Ladron Arana

Gaixotasunak, ordea, gizartean jantzi ohi dugun gaineko geruza hori kendu egiten digu, eta gizon **kokildua** ematen zuenak ausart joka lezake zoritxarren aurrean, edo handi-mandia errukarri agertu. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (era burutua hitz elkartuetan)

Gabardina barruan **kikildu** itxura eman arren, erne zihoan espaloiaren erdi-erditik. Iñaki Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apur bat kikilduta** (3)

---

## **kikilgarri** *izond* kikiltzen duena.

Ostiralean Rubens Barrichellok *Variante Bassa* txikane azkarrean istripu **kikilgarria** izan zuen, baina osorik atera zen. Berria - Kirola

Damu bakarra dut, ondoan izan zintudan guztietan nire bularraz jabetzen ziren sentimendu biziei bide ematen uzten ez zidan tenore **kikilgarrian** zu ezagutu izana. Bego Montorio

---

## **kikiltasun** *iz* kikila denaren nolakotasuna.

Mutilak, berriz, **kikiltasun** eta mesfidantza zantzuak ikusi uste ditu neskak esandako horretan, baina ez du estu hartu nahi izan, beste garaietan ez bezala. Jokin Muñoz

---

## **kikiltzeke** *(corpusean **kokiltzeke** soilik) adlag* kikildu gabe

Zeunerrek, komisarioaren aurrean **kokiltzeke,** bere hitzen dantza armoniatsuari eutsirik, ordu arteko ahaleginek hutsa izan zutela ondorio erantzun zion. Felipe Juaristi

---

## **kikimako** *iz*

Oroitzapen zaharrok ere han edo hemen sortutako albiste, iruzkin edo **kikimakoren** baten bultzadatxoa aski dute, arrapaladan hasierakoaren kateko gero eta oroitzapen gehiago erakartzeko. Pako Aristi

Eta ondo geroago, geure onera etortzen Exkaluk adina denbora hartu behar izan bagenu bezala, hasten zuen norbaitek **kikimakoa** zenbat urteko kontua ote zen galdezka. Pako Aristi

---

## **kikiriki** *iz* oiloaren oihua. ik **kukurruku.**

Haren **kikirikirik** gabe atera zait, ordea, agurra. Anjel Lertxundi

Zinez Euskal Herrian ginauden, holako **kikiriki** ezti batekin. Herria

Baina haiek ere han geratu ziren oilar lumatuen antzo, hitzik gabe eta mutu, ez **kikiriki,** ez kukurruku. Joan Mari Irigoien

---

## **kikirriki** *izond* kolore askotakoa, kolore-nabarra.

Alboan Justina zetorren, tabernariaren alaba maitabera, tabernariaren alaba bezala jantzia: zapi gorria buruan, soineko zuri, gorri eta **kikirrikia,** zabalagatik gorputza erakutsi baino, ezkutatu eta desagerrarazi egiten ziona. Felipe Juaristi

Joanesek Justinaren gona zuri, gorri eta **kikirrikia** ikusi zuen hegaka, zikoina bezala. Felipe Juaristi

Ate ondoan zutik geratu nintzen dena miretsi ahal izateko, zure gauza guztiak hain baitziren bereziak, nik egundo ikusi gabeak; baziren idolo indiarrak, eskultura italiarrak, margolan handi, **kikirrikiak;** eta gero, hori gutxi balitz, liburuak heldu ziren, handi eta ederrak, nik egundo irudikatu ezinak. Eduardo Matauko

---

## **kiko** *iz*

Horien artean zegoen, esaterako, **Kikoen** mugimenduko sustatzaile Kiko Argüello, eta Opus Deiko gotzain Javier Etxeberria. Berria - Gaiak

---

**kiku egin** du *ad* zelatatu, kirik egin.

Beltzarana, apal orraztua, argala, haren begietatik alaitasunak **kiku** egiten du. Edorta Jimenez

· Egingo dizut **kiku** bat, han goikoek baimena ematen badidate. Arantxa Iturbe

**Kiku** ttikiak eginez ibili ohi da, batzuetan, eguzkia inguru hauetan, neguko arrats laburrenotan. Pello Zabala

---

**kikuka** *adlag* zelatan.

Horrelakoetan, eguzki apurrak, oso papur eta pittin utzi ohi dizkigu, laino artetik **kikuka** ibili behar izaten baitu eguzki lotsatuak berak ere. Pello Zabala

Arlt-en Buenos Aires liluragarri hartan bezala, ezarian-ezarian hizkuntza gaitu eta ereduak ezartzen ari den egunkari honen publizitatea ari zait **kikuka:** "berritzailea" izango ei da ostegunetik aurrera, "ezberdina", "kalitatezkoa", "modernoa"... eta "interpretatiboa". Iñigo Aranbarri

---

**kikunbera** *iz* murgialdia.

Batak bestearen ostean egiten zuten istriborretik **kikunbera**. Joseba Sarrionandia

---

**kilate** **1** *iz* harri bitxien masa banakoa, 200 mg-ren baliokidea.

Ukabila bezain handia zen eta 3.106 **kilate** zituen (seiehun gramotik gora). J.M. Olaizola "Txiliku"

Diamantea 10 bilioi trilioi trilioi **kilatekoa,** eta Zentaurus konstelazioan dago, Lurretik 50 argi urtetara, gutxi gorabehera. Berria - Gaiak

**2** nahastura batek daukan urre hutsezko kopurua adierazten duen banakoa, nahasturaren guztizko masaren 24 partetan parte bat urre hutsi dagokiona.

Bada beste urre-mota bat, **kilate** gutxiagokoa egiazki, baina guztiok eska eta lor dezakeguna: norberaren bihotz-berritzea. Joan Mari Lekuona

**3** *irud*

Bertso osoa, bestetik, **kilate** gorenetakoa da. Juan Garzia

---

**kili-kili** **1** *iz* kilika; kilima.

**Kili-kili** batzuk egin nizkion eta borrokari plantan hasi zitzaidan, telebistako marrazki bizidun japoniar pairaezinetako pertsonaien gisara. Aingeru Epaltza

Koitoarekin **kili-kili** moduko zerbait sentitzen dut, ia-ia plazera modukoa, baina indarra falta zaiona. Luis Elberdin

Alde guztietara zabaltzen den plazera, **kili-kiliak** eta beroaldia sentitzen dituzu. Luis Elberdin

Horixe zen nik barrenean nuena: gosearen **kili-kilia**. Edorta Jimenez

Bitsa emeki-emeki zabaltzen ari zitzaion masailetan, sudurrean **kili-kiliak** eraginez; belarrietatik ere sartzen ari zitzaion. Lopez de Arana

Horrela, gurariak eta **kili-kiliak** sentitzen dira, garbitzeaz bat itzali egiten direnak; ezin da sinetsi zenbateraino luza daitezkeen sentimenak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horrek ateratzen zuen Kako-oker bere senetik; **kili-kiliak** sortzen zizkion burdinazko atzapar hartan, eta gauez intsektu bat balitz bezala amorrarazten zuen. Julen Gabiria

Sabelean nahiz bizkarrean, **kili-kili** eta **kili-kili,** irri eta atsegin, zuk ez baitakizu zer den ona. Joan Mari Irigoien

**2** ***kili-kili egin*** kilika egin; kilima egin.

**-Kili-kili egiten** dit lepoan zure ileak. Haren aurpegiko hautsen lurrinak **kili-kili egiten** zidan sudurrean eta une batez haren arnasaren hots sakona, erogarria, entzun ahal izan nuen. Iñaki Iñurrieta

Sabaitik zintzilikatutako fokoen argiak **kili-kili egiten** zidan bizkarrean. Javi Cillero

Weasley bikiak eta Lee Jordan **kili-kili egiten** ari zitzaizkion ur-ertzean eguzkitan zegoen olagarro handi bati erroetan. Iñaki Mendiguren

Adrianari deitzekotan egon nintzen, **kili-kili egiten** utziko ote zidan. Alberto Barandiaren

Hortxe dago emakumeon sentikortasun osoa; nire guztiak hortxe du etxea; ezin dut hor **kili-kili egin** plazerez kordea galdu gabe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Kili-kili egiten** digun gaia da hori, zinez. Edorta Jimenez

**Kili-kili egin** zidan ikuskizunak eta, mutila biluztu zain egon gabe, lagunarengana hurbildu nintzen, eta haren titi ederrak ferekatu nituen. Juan Martin Elexpuru

· Hats epelak **kili-kili** belarri puntan. Alberto Barandiaren

---

**kili-kolo** *(74 agerraldi, 20 liburu eta 49 artikulutan; orobat **kilikolo** 2 agerraldi, 2 liburutan)* **1** *adlag* ongi finkatu gabe.

Oso **kili-kolo** sentitzen naiz ibiltzean. Xabier Olarra

Mezetara joateari utzita nengoen, eta sinesmena ere **kili-kolo,** horretaz gehiegi pentsatzen ez banuen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizasemeak lasterka ikusi ditut, **kili-kolo** balantzaka, eta lurrera jausten trumilka. Zutitu eta aterantz joan zen, urratsa **kili-kolo**. Anton Garikano

Eta kalera atera nintzenean, **kili-kolo** xamar, neguko goiz ezti bat ari zen urratzen. Matías Múgica

Ordu arteko gerrek, eta bat baino gehiago ezagutu zituen, ez zioten kendu barneko bakerik; ez zioten **kili-kolo** jarri bere uste oso bat bakarra ere. Felipe Juaristi

Hau ez badugu itun baten bidez konpontzen enpresak martxan jarri nahi duen proiektu berriaren etorkizuna **kili-kolo** geratuko da. Berria - Ekonomia

Hegazti gripeak oilaskoa **kili-kolo** laga duela. Berria - Ekonomia

**2** ***kili-kilo egin***

Coca-cola poteak **kili-kolo** egin eta mahaitik erortzen da. Antton Olano

Aurrerantz **kili-kolo egin,** alde batetik bestera, gizon zuriaren zama gainean daramanaren antzera. Xabier Olarra

**3** ***kili-kilo egon***

Eskarmentu handiko boxealariak bezala, **kili-kolo egon** arren, artean eutsi egiten zion borrokari. Migel Angel Mintegi

Danbatekoarekin **kili-kolo zegoen** gargola bat lurrera jausi zen abaila beldurgarrian. Karlos Linazasoro

Ezker hankan zituen arazoak tarteko, Orbaiz ere **kili-kolo egon** da astean zehar, baina jokatzeko prest dago. Berria - Kirola

NOBko ordezkariek ez zuten nahi 2004ko Atenasko Olinpiar Jokoetan gertatutakoa errepikatzea, hots, kirolgune eta eraikin asko lehiaketa hasi bezpera arte **kili-kolo egotea**. Berria - Harian

**4** ***kili-kilo ibili***

**Kili-kolo dabilen** mahaiaren azpian. Patxi Iturritegi

Asier Riesgo atezaina, berriz, **kili-kolo ibili** da aste osoan zehar.

Canobbio, aldiz, aulkian gelditukо da ziurrenik, **kili-kolo dabilelako**. Berria - Kirola

Merkatua **«kili-kolo» dabil**, ziurgabetasun egoerak «bere horretan» dirau. Berria - Ekonomia

# kili-koloka *(corpusean **kilikoloka** soilik)* *adlag* kili-kolo.

Kate eta Julia berehalaxe heldu ziren eskaileretan behera pauso txikian eta **kilikoloka**. Irene Aldasoro

# kili-kolotasun *(corpusean **kilikolotasun** soilik)* *iz* kili-kolo dagoenaren nolakotasuna.

Koloreen pobrezia, egituraren **kilikolotasuna,** sekula amaierarik asmatzen ez duten parrafo arnaslarrituak, azkenik gabeko itzulikan aihenkatuz. Juan Garzia

# kiliastiko *izond* milenarista.

Aski da ikustea, espartakistak, sindikalista iraultzaileak, profeta **kiliastikoak** eta beste zer jendaje dabilen Max Weber-en lerroetan aipatua gai honen inguruan. Joxe Azurmendi

# kilika 1 *iz* gorputzaren edo gogoaren zernahi ahalmenen susperraldia. ik **kilima**.

Sabelean **kilika** sumatu zuen, estutasun bezalako zerbait haren goialdean. Migel Angel Mintegi

Goiz-goizetik nabari da halako **kilika** berezi bat, beste jolas guztiak alde batera utzita "Altxorraren bila" jardun beharko baitute, taldeka bilduta, goiz osoan zehar. **Kilika** sakon bat sentitu nuen izterretatik sabelera igotzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Burutasmo haren **kilika** sumatzen nuen, alabaina, larruazal guztian. Juan Garzia

**Kilika,** Poztasun bat da, Gorputzari dagokionez, honen parte bat edo batzuk, besteak baino gehiago hunkituak baitira. Piarres Xarriton

• **2** *adlag*

Hala hasten ginen elkarri **kilika,** zirika eta zipriztinka. Joan Mari Irigoien

Ez da kristal artetik **kilika** geratzen naizen lehenengo aldia, ikusten nago nola mugitzen duen gorputza erritmoari jarraituz, nola nabarmentzen zaizkion giharreak ahaleginarekin, nola dizdiz egiten dion larruak izardiarekin... Juan Martin Elexpuru

Herriko gazteei Ertzaintzan sartzeko **kilika** ibilia. Edorta Jimenez

**3 *kilika egin***

Lasai igo zituen eskailerak, nahiz eta halako urduritasun bihurri batek **kilika egin** urdailean. Joxemari Urteaga

Jolas, kantu, bertso, hizketa eta abarrek **kilika egiten** diote; erritmoa eta jarioa, izatearen jariatze bat dutelako, **kilika eginez** berekin eramaten eta suspertzen dute. Xabier Olarra

Emakumeak segitzen zuen paparra bere gerruntzearen barrenean existitzen zela sentitzen, pentsatzen: "nire titiak, nire fruitu ederrak" irribarre misteriotsu batekin, bere bularren zabaltzeari erne, **kilika egiten** baitzioten. Monika Etxebarria

· Baina sentimendu traidore batek **kilika** eta **kilika egin,** eta jakin nahi izan ninan hire berri. Javi Cillero

Bere arnasa lepoaren kontra senti dezakezu, lasai eta bero, eta arnasgora bakoitzean bular leunen igurtziak **kilika** fin eta biguna egiten dizu bizkarrean. Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kilika egin** (3)

# kilikabera *izond* kilikorra.

Ahopeko irribarre **kilikabera** bat entzun nuen, zetazko jantziren baten fereka eta zure ahotsa isilka. Eduardo Matauko

Horregatik, Petrushka jantziak eranztera eta botak kentzera inguratzen zitzaion bakoitzean, iltze-belarra ipintzen zuen sudurrean, eta neskagazte batenak bezain **kilikabera** izaten zituen sarritan kirioak. Jose Morales

# kilikadura *iz* kilika.

Gutxi dira material erotikoarekin artearen mailara igotzen direnak, larruaren **kilikaduratik** haratago zure barneraino sartu eta han aztarrika ibiltzera iristen direnak. Xabier Mendiguren Elizegi

Bihotz taupaden erritmoa bizkortu zitzaion, garondoko **kilikadura** areagotu, nerbioak dantzan jarri. Migel Angel Mintegi

Bat-batean Tabiraz gogoraturik, urdailean **kilikadura** bat sentitu zuen. Joanes Urkixo

Ikuskizun horren ondorioz halako **kilikadura** bat sumatu nuen barrabil aldean. Jon Arretxe

Haren eskuaren ukitu eztiak halako **kilikadura** bat sortu zion gorputz osoan. Joanes Urkixo

Haren gorputz txiki liraina; haren arropa sexiak; haren begiak, **kilikaduraz** distira zerienak. Oskar Arana

Begietan **kilikadurazko** dirdira erakutsiz. Joanes Urkixo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kilikagarria iruditu** (4); **kilikagarria izan** (3)

# kilikagarri 1 *izond* kilikatzen duena.

Abentura **kilikagarri** baten aurrean. Juan Luis Zabala

Amu gisa mezu **kilikagarri** eta ausarta sartu zuten sarean: [...]. Jon Arretxe

Lehenbiziko elkartzeak baino askoz **kilikagarri** eta misteriotsuagoak izaten dira tarte luze baten ondokoak. Ander Irizar

Ekintza **kilikagarri** hark ustekabean harrapatu ninduen zeharo eta, zirrarathan zirraraz, esnea bortitz atera zitzaidan. Aitor Arana

Gogoan dut zirrara hura lilura **kilikagarri**-asebetea bilakatu zela gau zohardi batean liburuko marrazki haiek zeruko konstelazioan identifikatu nituen gauean. Pako Aristi

Urrin **kilikagarriak** eta doinu alaiak. hiriaren laztan **kilikagarria** nabaritzen du hatz artean. Javi Cillero

Neskaren ukitu leunak azaleratu dizkidan sentipen **kilikagarriak**. Pako Aristi

Beren gorputz **kilikagarriak** xukaderaz lehortu, eta etzan egin dira. Txillardegi

Deskubrimendu **kilikagarria** egin uste zuen argazki hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Emakume gazteak biluzik eta jarrera erotiko **kilikagarrietan** erakusten zituzten irudiak. Oskar Arana

Zalantza **kilikagarriz** betetako segundo batzuen ostean. Jon Arretxe

Kolonia sarkor-**kilikagarria**. Gotzon Garate

**2** (-en atzikiaren eskuinean)

Berri usain zoragarria sudurraren **kilikagarri**. Xabier Montoia

Paretari itsatsirik ohea, non Mignon baitzetzan, ene begien gozagarri eta ene gorputz osoaren **kilikagarri**. Joan Mari Irigoien

**3** (izan eta kideko aditzekin)

**Kilikagarri** eta berria zen, ordea, beste sentsazio bat. Juan Garzia

Niri, **kilikagarri** zait oraindik ere txapelketa. Andoni Egaña

Eta, horrez gainera, horretan ziharduela, **kilikagarri** zitzaionan aita jakinaren gainean egongo ote zen beldur hura! Jon Muñoz

Bertsoena jolas bat da; jolas **kilikagarria**. Andoni Egaña

Zeure burua ezagutzeko edozein baliabide zaizu **kilikagarri**. Xabier Mendiguren Elizegi

Besarkada labur bat **kilikagarri** gerta dakioke gizasemeari baina luzeegi bat nekoso. Joxean Agirre

Bixenta hurbildu zitzaidan, bere edertasun gaztean **kilikagarri**. Txillardegi

Bertigoa ematen bazion ere, **kilikagarria** zitzaion jauzia. Patxi Iturritegi

Hain dira **kilikagarriak,** hain dira benetakoak! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bide alternatibo eta **kilikagarriagoa** delako bizibidea irabazteko. Iñaki Mendiguren

Zeharo biluzi zirenez geroztik haien mugimenduak are **kilikagarriagoak** bilakatu ziren. Jon Arretxe

Hango unibertsitate giroa, jendetsua eta bizia, oso **kilikagarria** egin zait. Patxi Zubizarreta

**4** (adizlagun gisa)

Llum **kilikagarri** hasten da dantzan, eta Joanek jokoa segitzen dio. Antton Olano

Maiteren alua unetxo batez irrikatsu eta **kilikagarri** zabaldu zen nire begien aurrean. Aitor Arana

---

# kilikagarritxo *iz adkor* kilikagarria.

Abentura **kilikagarritxo** bat egin nahi baduzu, har ezazu *rikshaw* bat trafikoa bete-betean dagoenean. Gotzon Garate

---

**kilikaño** *iz adkor* kilika.

Kattalinek halako **kilikaño** bat senditzen du, sabeletik goiti zainetan barna hedatzen zaiona. Eneko Bidegain

---

# kilikapen *iz* kilikatzea, kilika.

Begietan nire **kilikapenari** antzeman ziola uste dut. Aitor Arana

---

# kilikarazi, kilikaraz, kilikararzten du *ad* kilikatzera behartu.

Kaiolak bezalako geletan daude, gorputzari eraginez, ilea orraztuz, nola edo hala bezeroak **kilikarazteko**. Gotzon Garate

Iduri lizun haietarik bakoitzak iratzartzen zizkidan apur bat nerbioak, sutzen zidan apur bat odola, ernarazten eta **kilikarazten** zizkidan apur bat burmuinak, berretzen eta emendatzen zizkidan neure gizonezkotasun ustezkoari zegozkion humoreak Joan Mari Irigoien

---

# kilikari 1 *izond* kilikatzen duena.

Arropa aproposez nabarmendutako alderdi **kilikariak** atseginez eskertzen badizkiozu, obseso zikina zu; eta ezikusiarena egiten badiezu, marikoi erreprimitua edo auskalo? Patziku Perurena

Hala diote L. Dassance eta J. Elissalde jaunek txori **kilikari** honetaz: [...]. Patziku Perurena

Ezerk ez baitzizun jada **kilikarik** egiten. Hasier Etxeberria

**2** (-en atzikiaren eskuinean)

Menda belarraren fin betegarria; olioaren arina; Pertsiako arrozaren samurra; Arabiako kafe-ale lehorren **kilikaria;** Siziliako ardoaren gozoa; Corintoko mahaspasa lehorraren lurrintsua. Felipe Juaristi

• **3** (adizlagun gisa)

Ahur bat titietan **kilikari** utzi eta bestea zangartera ekartzen zuen. Itxaro Borda

Neskaren ezpainak nabaritu zituen **kilikari,** mihia mihi bila. Itxaro Borda

Korbata zerion lepo gotorretik beheiti, sabel berriki arte hanpatuaren gainean **kilikari**. Aingeru Epaltza

Bilkuretara joateko bidaiak egun argiz egiten nituen, ekia begietan eta ertzeko belar usain gatibatzaileak sudur mazeletan **kilikari**. Itxaro Borda

Isiltasuna genuen usain gozo eta sarkorreko landareen basoa, beti berri eta beti garbi, sudur mintzen **kilikari**. Felipe Juaristi

---

# kilikaska *iz*

Haratxago, kriskitinak, kalaka eta **kilikaskak,** bai eta beste soinu-tresna asko, arrunt lehengoak, baserrian kasik nornahik muntatzen zituenetarik, zur mutur batekin edo hezur zerbaitekin lantuak berdin... Herria

---

# kilikatu, kiluka(tu), kilikatzen 1 da/du *ad* gorputzaren edo gogoaren zernahi ahalmenen susperraldi bat eragin; eragin horren ondoriozko egoeran gertatu. (norbait)

Marcia **kilikatuta** zegoan planak egiten, eta etxe bat lortuko zuela esan ziguan. Berria - Kultura

Batere maleziarik gabe [...] bakarrik ikusteko hain segur zer ihardespen emanen ginion, irakurle batek pullikiño kitzikatu gaitu, edo bederen **kilikatu,** joanden asteko HERRIA-ren gainetik. Herria

Haren harridurarako, albisteek ez zuten Hermione ez **kilikatuta,** ez jakin-minez utzi. Iñaki Mendiguren

Gizaki zuhurra arretaz ibiltzen da beti, bekatuak **kilikatzen** duenean ihes egiten du hutsegitetik. Elizen arteko biblia

Eta beste amets asko ere etortzen zitzaizkion burura, sarritan gizakia **kilikatu,** zirikatu, inarrosi eta unean uneko errealitate aspergarritik ateratzen duten horietakoak. Jose Morales

Klarinetearen hots eztia altxatu zen errauts zutoin baten pare, hamabi soketako gitarrarenak izpiritu nahasiak **kilikatu** zituen, [...]. Itxaro Borda

Ezin izango zuen esan une hartan zerk **kilikatzen** zuen gehien: gizonak berak edota menturak. Patxi Zubizarreta

Bitxia da eskandaluaren lurrinak nola **kilikatzen** dituen emakumeak. Oskar Arana

**2** (zerbait)

*Garçon,* ardoa edateko asmatu zen, eztarritik pasa ondoren lurrunak garuna **kilika** dezan, eta ez poesia egiteko. Joxemari Urteaga

Ogi egin berriaren urrinak sudur mazelak **kilikatu** zizkion eta gosea nabaritu zuen. Itxaro Borda

Goseak urdaila **kilikatu** zidan. Daniel Landart

Gainera, hotz handietan bereziki, zerbait bero zintzurretik behera jautsarazteak on egiten zion, barnea berotzen eta **kilikatzen** zion. Eneko Bidegain

Aspaldi gure sudurra **kilikatu** zuen usain edo lurrin batek. Alberto Ladron Arana

Iragan igandeko partida zoragarriaren zati bizkorrenek izpiritua **kilikatu** zidaten. Daniel Landart

Mendeku txiki baten antzekoak dira, irudimena **kilikatu** eta une bateko olgeta eskaintzen dutenak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egia da ezinegonak eta jakin-minak **kilikatzen** zidala arima, eta amorratzen nengoela beste behin ere etxe hartatik ihes egiteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Adarrak **kilikatzen** badizkiozu, barakurkuilua bere kuskuan sartzen da. Janbattitt Dirassar

**3** (sexuari buruzkoa; norbait)

-Charles, geldi, **kilikatu** egiten nauzu, maitea. Monika Etxebarria

Postura hura biziki lizuna iruditzen zitzaidan eta, horregatik, gero eta gehiago **kilikatzen** ninduen. Juan Martin Elexpuru

Bete nazazu zeure esneaz! -agindu nion **kilikaturik,** larrujotze haren uhinik gorenean nengoela. Aitor Arana

Eta are gehiago **kilikatu** ninduen, gelan sartu bezain sarri Mignonek ezpainetan eman zidàn musu luze hark. Joan Mari Irigoien

**4** (sexuari buruzkoa; zerbait)

Zakila arrosaren puntta minbera **kilikatu** zuen, begiak apal eta auhenka. Itxaro Borda

Beltzaranaren titiak **kilikatzen** zituen, kukurusta gorria zimikatzen zion eta belarria ausikitzen. Itxaro Borda

**5** kilimatu, kili-kili egin.

Baina, handik gutxira, nire gainean hankalatraba jarri, eta ume bat balitz bezala **kilikatzen** hasi zitzaidan barre eginarazi nahian. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **biziki kilikatzen** (3); **gehiago kilikatzen** (6); **gehiago kilikatzen ninduen** (4)

---

## kilikatzaile *izond* kilikatzen duena.

Halako batean, jaun **kilikatzaileak** bere sudurrera eraman zuen luma, eta baita sakonki usaindu ere haritxoei zerien lurrin gozo mingotsa. Josetxo Azkona

Emakumea, horra, nolakoa da emakumea? hor dagokigu begira, **kilikatzaile,** erakargarri. Josu Zabaleta

---

## kiliki 1 *iz* buruhandia.

Igande 5ean, goizeko 11etan zigante eta **kilikiak,** 13.30etan Larrañe eta Atharratzeko dantza taldeak, 15etan bazkari herrikoia pilota plazan. Herria

Orain arte hauteskunde garaiko kutxak eta garai batean Iruñeko **kilikiak** eta erraldoiak gordetzeko erabili izan dutela. Berria - Euskal Herria

Kale animazioa: **kilikiak,** erraldoiak, zezentxoak, fanfarreak, joaldunak [...]. Berria - Harian

**2** kilima.

Luze gabe, **kiliki** eta zirrika abiatu ginen, zangoak tresna bakar genituela. Aingeru Epaltza

Kaka zahar horrekin **kilikiak** ere ez dizkiok eginen, baina bai aldiz hemen garela gaztigatuko. Aingeru Epaltza

**3** ***kiliki egin***

Haren hatsak **kiliki** egin zidan belarri ondoan. Aingeru Epaltza

---

## kilikor *izond* kilikei sentibera dena.

Rosek zirkinik ere ez zuen egiten, konfiantza hura ez salatzeko; atximurka eginez haragia odoletan uzten bazion, bera ez zela **kilikorra** esaten zuen. Karlos Zabala

Hirugarren kapituluak gaztaroko garai **kilikorra,** batzutan hain minberakorra, dauku aipatzen, ingurukoen behakoak hain inportantzia handia duelarik. Herria

---

## kilima 1 *iz* larruazalean egindako ukialdi arin eta errepikatuez gorputzean eragiten den zirrara, irri dardaratia ekartzen duena.

Eguzkiaren **kilimak** bizkarrean senti ditzaket ia. Eider Rodriguez

Haize beroaren **kilimak** bere muxuen **kilimekin** nahastu ziren, adatsekin. Eider Rodriguez

Epela zegoen ura, eta ardora zilartsuaren **kilimak** sentitu zituen oinetan. Anjel Lertxundi

Barneraino sartzen zaidan eta dena hartzen nauen **kilima** bizi arina sentitzen dut nire hamar hatzen puntan. Josu Zabaleta

Sexuan **kilimak** igarri ditu herrira iritsi direnean, gaztetan ere gertatzen zitzaion halakoetan, nerbioengatik. Eider Rodriguez

**Kilimak** izango balitu bezala, neskatoak burua astindu zuen arinki. Ibon Uribarri

**2** (hitz elkartuetan)

Gure atsegin-**kilima** motelenak ere ukitu egingo gaitu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** ***kilima egin*** kilinak egin.

Haren aurpegia masailetik gertu sumatzen nuen, haren ezpainen berotasuna belarrian, haren ile kizkur solte bat nire kopetan **kilima** eginez. Juan Kruz Igerabide

Ezin nion barre egiteari utzi, zerbaitek **kilima** egingo balit bezala. · kilika egin. Juan Kruz Igerabide

-Ez egidak esan **kilima** egiten ez dianik tonu bibliko latino honek, euskara arkaikoaren sintaxian halako sentsualtasun batez bilduta... Iñaki Iñurrieta

Irakurlearen subjektibitateari ez **kilima,** ez zimiko, ez zirrara egiten ez dioten berri horiek guztiak. Iñigo Aranbarri

**4** ***kilima eduki***

Beote baserriko behi batek **kilima** zeukaan; beste hitzetan esanda, errapeak minbera zitian eta ez zian erraz iraina eraisten. Xabier Etxabe

Kontuak kontu, Ama **kilima** zeukan behiarekin hasi zuan lanean eta, honek, zeharo zakartuta, ostiko eman eta Ama lurrera bota zian. Xabier Etxabe

**5** ***kilimak egin*** ik **kilimatu.**

Belarrak sudurrean **kilimak** egiten dizkiola. Itziar Otegi

Neure buruari **kilimak** egitea bezalako zerbait sentitzen diat, margotzen ari naizela: gorputz guztiak barre eragiten zidak... **Kilimak** egingo balizkio bezala barrez. Karlos Zabala

Baziren indioilo luma luze beltzak eta antzara luma zuri lauak, gazteei belarrietan **kilimak** egiten zizkietenak, ohatzean biratzen zirenean. Karlos Zabala

Cadinek barre egiten zuen, "astakiloa" deitzen zion eta buka zezala oihuka esaten, **kilimak** egiten baitzizkion sudur puntarekin. Karlos Zabala

Emakumeak, ordea, txantxetan jardun nahi zuen, elkarri **kilimak** egin, maitatu, azken finean, berak zekien bezala. Karlos Zabala

Eskuaz bularra laztandu zuen eta eskuan titiburuak **kilimak** egin zizkion. Jasone Osoro

· Gantz sortu berriak mila **kilima** egiten zizkion larruazalean, haren izate osoaren inbasio geldia zen. Karlos Zabala

Hankatxoek egiten dizkioten **kilima** ttipiekin dibertitzen da. Eider Rodriguez

· Emaiozu masaje on bat oinetan, **kilimarik** egin gabe. Luis Elberdin

### 6 *kilimak eragin*

Mahuka listuek **kilimak** eragiten zizkioten eskumuturretan. Lopez de Arana

### 7 *kilimak ezagutu*

Eta deabruaren ikasle baldin bada, ortodoxia finkatzeko hautsi duela ortodoxia; deabruari erronka irabazteko, **kilimak** ezagutu behar zaizkiola... Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kilima egiten** (4)
> **kilimak egin** (6); **kilimak egiten** (24); **kilimak egiten zizkidan** (3); **kilimak eragiten** (4)

---

## kilimaka *adlag* kilimak egiten.

Horretan ari zela, Aitor beregana ekarri eta **kilimaka** hasi zaio. Jokin Muñoz

**Kilimaka** eta barrezka gindoazen biok. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## kilimakor *izond* kilikorra.

Haren oin txikiek ozta-ozta ukitzen zuten lurra; bozkarioak airean zeraman, fereka **kilimakorrez** beteriko haize bolada batek bezala. Karlos Zabala

---

## kilimakur *iz* kilimakurra.

Lagunekin Europan barrena egindako tren bidaian hasi ziren **kilimakurrak** sabelaldean, bagoian berarekin bakarrik egoteko grina ulertezina, adieraztezina. Eider Rodriguez

Han, kristalaren kontra galdurik begirada, **kilimakurrei** oles egin nien, sabelean jarriz arreta osoa, zure etorreraren zain. Eider Rodriguez

Baina ez fida Santxo, mantxatar jendea zintzoa bezain haserre-beroa baita, eta **kilimakur** eramanik ez duena. Patxi Ezkiaga

---

## kilimala *iz ipar* kilima.

Eta hala **kilimala** katramilarekin auzapezaren bizkar. Herria

---

## kilimati *izond* kilikorra.

Proposamen leun ahalik eta gozatuena zen: paseoko mutilen txilio gordin txorrotxen ostean, badakizu, neska ahotsak badu ba, belarri-ixkinan halako doinuxka **kilimatiagoa..** . Pello Zabala

---

## kilimatu, kilima(tu), kilimatzen du *ad* kilima egin, kilimak egin.

Mutikoaren txima gorriek aurpegia **kilimatzen** zioten Giuliettari. Jon Muñoz

Hemen ikasle baten oina **kilimatu,** han beste baten txanoaren borlari tira. Itziar Otegi

Hatzen artetik irristatzen zitzaidan, azala fereka berezi batez, hildako baten ferekaz, **kilimatuz** . Jamesek agerian zeukan belauna zerbaiten adaskarekin **kilimatzeko** makurtu zenean, apetatsu eta isekati, emazteak purrust egin zion "gazte gizarajo hura", Charles Tansley, ondotik bialdu zuelako. Anton Garikano

Baztertu egin zuen **kilimatzeko** txotx hura, harekintxe zirikatzen baitzuen seme gazteenak agerian zeukan hanka, hain modu berezian, seriostasun eta umore artean. Anton Garikano

---

## kilimixka *iz ipar* txantxa.

Ihizlaria honi **kilimixkan** hasi, hau joküan sartü (ai kokillota!, ihizlaria berotüze, bena ordüz ohartü bere lagün bat züala, ihizlaria hau ere! Herria

---

## kilimusi 1 *iz* diosala edo keinua, batez ere gehiegizkoa.

Nik txirrina jo behar nuen etxeetan sartu aurretik, eta gero eskupekoen zain geratu, nahiko eskuzabalak izaten baitziren, esaterako, **kilimusiak** eginez gero. Batek **kilimusi,** beste batek oihu, denak batera ari zaizkit. Pello Lizarralde

Neskak **kilimusi** lotsakor batez itzuli zion irribarrea. Anjel Lertxundi

### 2 *kilimusi egin*

Mihia ateratzen dit mulata batek, miresmenez begira nagokiolako: mihi arrosa, aurpegi ilunean; nik barre eta **kilimusi** egiten diot: bera ere barrez hasten da, hortz zuriak ageri ezpainen lore gorritan (hala esan badaiteke). Joxe Austin Arrieta

Knot jaunak **kilimusi** egin zuen, zeremonia-imintzio isilez. Juan Garzia

---

## kilinkan *adlag ipar* keinkan.

Egia da gure mintzaira desagertzeko **kilinkan** dela, hemen ere, Baxenafarroan. Herria

---

## kilker 1 *iz* intsektu beltza, gaineko hego gogortuak igurtziz, udako iluntzeetan, hots zoli eta errepikakorra ateratzen duena *(Gryllus campestris* etab.).

Nire **kilkerra** beltza da, isla gorrizta ttikiekikoa. Patxi Zubizarreta

**Kilkerrak** ere nekez mugitzen ditu hegoak. Javi Cillero

**Kilkerrak** eta matxinsaltoak, berriz, poto batzuetan sartu, eta banan-banan ateratzen nituen, haien hegalak edo barailak aztertzeko. Joan Mari Irigoien

Gero, **kilkerren** hots erregularra gauaren isiltasuna neurtzen hasi da, kir-kir-kir. Patxi Iturritegi

**Kilkerren** kantu monotonoaren antzera beti bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Josebarekin edo Mary Annekin nagoela **kilker** baten kanta-hotsa bezala sentitzen dut buruan. Bernardo Atxaga

**Kilker** batek kantatu zuen eta gero beste bat gehitu zitzaion, **kilkerrak kilkerrei** abisuak ematen. Joseba Sarrionandia

Uztaileko iluntze epela, **kilkerrak** lanean. Joxean Sagaztizabal

Jauregi gibeleko zelai batean **kilker** bat harrapatzen ari nintzela, Elbira etorri zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Alpapa atera du, eta hortzaka eginda **kilkerra** bereizi. Pako Aristi

Behin batean harritu egiten nindutela esan nien, zenbat *r* eta zenbat *k* erabiltzen zituzten, eta berak baietz erantzun zidan, ez al nintzen lehenago konturatu, bera eta osaba bi **kilker** bakarti zirela Amerikako lur zabalean, eta soinu hura hegoak astintzean egiten zutela. Bernardo Atxaga

· Burua **kilkerrez** beteta zuten andre haiei. Pello Lizarralde

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gauaren argia baino ez zen geratzen, euriaren zizika **kilker** -zurrumurru baten gisa...udak bakarrik dakarren usain berezi horrekin eta **kilker** hots artean afaltzea... Juan Garzia

Bera zen **kilker** -zaku honetan ordena jartzeko gai zen gizon bakarra. Irene Aldasoro

**3** *adkor* sakelako telefonoa. ik **segapoto**.

**Kilkerra** atera du gero poltsikotik eta pantailak telefono sarerik ez daukala erakutsi dionean, deskonektatu egin du, bateriarik ez dezan alferrik gal. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kilkerren hotsak** (9)

---

# killer **1** *iz* hiltzailea.

Gizabanako basati, anker eta grinatsu batena, odolgose fanatiko batek bere egindako **killer** bero eta bertatik bertarakoa, edozertarakoa. Jon Alonso

**2** ***serial killer***

Fidelak ez diren emazteak kalitzeko xedea baizik ez zuen Oresten gisako serial **killer** bat ote zara? Itxaro Borda

Atxilotu guztiak beren argazki polizialean halako serial **killer** aurpegiarekin agertzearen arrazoia huraxe zela: [...]. Harkaitz Cano

Herriko plazan kateme bustiak goseti bilatzen zituen serial **killer** baten balizko presentzia imajinatu nuen. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **serial killer** (6)

---

# kilo **1** *iz* kilogramoa.

Mahatsa, **kiloa** 5 florin, andere mahatsa, 70 zentimo **kilo** erdia. Josu Zabaleta

Eskuz hobeto motel; **kilo** asko ez dituk eta... Pablo Sastre

**Kilo** erdiko pieza, hi, esan zuen Pellok. Pablo Sastre

Eskeletoaren berrehunetik gora hezurrek 9 **kilo** inguru pisatzen dute. Irene Aldasoro

100 eta 220 **kilo** arteko harriak.

Ingude-altxatzen, lau kirolari ariko dira lehian 18 **kiloko** ingudearekin. Berria - Kirola

45 **kilo** edo gehiagoko tentsioari aurre egin diezaioke. Irene Aldasoro

Mahatsa, **kiloa** 5 florin, andere mahatsa, 70 zentimo kilo erdia. Josu Zabaleta

Pezeta egiten dik **kiloak** txatarrerian. Koldo Izagirre

Hogeita bosten bat **kiloko** zakua zen. Josu Zabaleta

Hemezortzi bat duro aluminio **kiloko** . Harkaitz Cano

Urrezko babeski bat ekarri ziguten, seiehun **kilokoa** . Elizen arteko biblia

Zenbait minutu berantago, agertu zen Heinkel 111 bat, 6 bonba 50 **kilokoak** botatuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** (gizakien pisuan)

1,90eko luzerarekin eta ehun **kilo** inguruko pisuarekin. Bernardo Atxaga

Aurpegia erabat puztua zeukaan, eta ematen zian hogei **kilo** irabazi zituela. Bernardo Atxaga

Baina biziki flakatua hogoi bat **kilo** galdu nituen hilabete bat eskas barne. Marzel Etxehandi

Hogeita hamar **kilo** gizendu ondoren. Iban Zaldua

Zuk, aldiz... **kilo** batzuk hartu dituzu... baina itxura ederra duzu! Xabier Paya

Urteak pasatu ahala gero eta zailago da neguan harturiko **kiloak** kentzea. Migel Angel Mintegi

Bi **kilo** galdu zituen. Gotzon Garate

Hogei **kilo** argalduta eta gorputza ubelduraz josia ekarri zian, masajeengatik. Xabier Etxabe

Gizon handia zen (ahaztu zait esatea), metro bat eta laurogei pasa eta ehun eta hogei **kilo** . Koro Navarro

· Alaskatik itzuli eta Obaban hotela eraiki zuen garaian don Pedro ehun eta hogei **kilo** inguru zen. Bernardo Atxaga

**3** (harri jasotzaileen probetan)

Lau harri erabili beharko ditu: 125 edo 150 **kiloko** koadroa, 125 edo 150 **kiloko** zilindroa, 112,5 **kiloko** kuboa eta 100 **kiloko** bola. 52 **kiloko** kuboarekin 15 jasoaldi hiru minutuan. Berria - Kirola

Gipuzkoar gaztearen asmoa 200 **kiloko** koadroa leporatzea da, baina esku bakarrez. Berria - Kirola

Gaur, 560, 640 eta 720 **kiloko** finalak jokatuko dira. Berria - Kirola

Emakumezkoei dagokienez, Laukizko Gaztedi gailendu zen 260 eta 280 **kiloko** lehen jardunaldian. Berria - Kirola

Altamira sartu da 600 **kiloko** finalera. Berria - Kirola

Gaur, gizonezkoen 560 eta 640 **kiloko** eta emakumezkoen 520 **kiloko** txapelketak jokatuko dira. Berria - Kirola

Leitzarrak bost jasoaldi eta 850 **kiloko** aldea kendu zion Ostolazari.

**4** (zenbaketetan, neurtzen denaren ezkerrean)

Italiano airekoak Saboya 79 motakoak ziren, 1 000 **kilo** bonba garraiatzeko eginak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Huskeria batean eros zitezkeen zazpi **kilo** irin garbi nahiz hamalau **kilo** garagar. Elizen arteko biblia

Horien ordainetan bi mila eta zazpiehun **kilo** zilar emango dizkizugu. Elizen arteko biblia

Biriatun arrastatua izana 35 **kilo** haxixekin. Herria

**Kilo** erdi okela katuarentzat hozkailuan. Josu Zabaleta

**Kilo** erdi bat gurinek **kilo** erdi bat TNTk baino hiru aldiz energia gehiago askatzen du. Irene Aldasoro

Milaka **kilo** patata zuritzen ari zen. Jesus Mari Mendizabal

Neure liburu guztiak: ehunka **kilo** matematika-liburu. Jon Muñoz

· Behi horrek maiatzaren 22-an eginen bost urte, 1058 **kilo** pisu. Herria

**5** (hitz elkartuetan)

Solomo **kilo** dezente izozkailuan metatuta. antxoaren ordez, berdel **kilo** merke batzuk baizik ez ziren agertu gau guztian. Hasier Etxeberria

· Gero, igualeko kopurua egiteko bildu beharreko diamante **kilo** kopurua kalkulatzen saiatu zen. Harkaitz Cano

**6** milioi bat pezeta.

La Navaleko nominei buruzko informazioa jaso genuen: 30 **kilo;** hilaren azkenean hurbiltzen omen ziren langileak kobratzera. Rafa Egiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**berrogei kilo irineko** (4); **ehun kilo inguru** (4); **hamabost kilo urre** (4); **hamar kilo zilar** (4); **hamarren bat kilo** (4); **hiru kilo galdu** (6); **ia kilo** (4); **kilo antxoa** (4); **kilo asko** (4); **kilo baino gehiago** (7); **kilo baino gehiagoko** (6); **kilo bakoitzeko** (5); **kilo batzuk galdu** (6); **kilo dauzka** (9); **kilo dinamita** (7); **kilo ditu** (29); **kilo droga** (5); **kilo erdi** (20); **kilo erdi bat** (4); **kilo erdia** (4); **kilo erdiko** (5); **kilo esperantza** (9); **kilo eta erdi** (15); **kilo galdu** (63); **kilo galdu ditu** (30); **kilo garagar** (8); **kilo gehiago** (20); **kilo gehien** (8); **kilo gizendu** (4); **kilo haxix** (18); **kilo heroina** (4); **kilo hondakin** (7); **kilo inguru** (22); **kilo inguru pisatzen** (4); **kilo inguruko** (7); **kilo irin** (12); **kilo irin garbi** (5); **kilo irineko** (4); **kilo izan** (7); **kilo izango** (8); **kilo kloratita** (5); **kilo kokaina** (26); **kilo kokaina atzeman** (9); **kilo lehergai** (18); **kilo lehergai zituen** (4); **kilo lehergailu** (7); **kilo lehergaiz** (5); **kilo mahats** (7); **kilo ogi** (6); **kilo ogi irin** (4); **kilo pisatu** (4); **kilo pisatzen** (35); **kilo pisatzen ditu** (12); **kilo pisatzen du** (11); **kilo pisatzen zuen** (5); **kilo pisu** (6); **kilo plutonio** (8); **kilo speed** (5); **kilo urre** (21); **kilo zabor** (10); **kilo zilar** (24); **mila kilo zilar** (9); **milaka kilo** (4); **zazpi kilo galdu** (4); **zortzi kilo galdu** (4)

**kiloko aldea atera** (5); **kiloko bigarren jardunaldia** (8); **kiloko bonba** (4); **kiloko finala** (9); **kiloko finala jokatuko** (6); **kiloko finalean** (7); **kiloko finalera** (7); **kiloko finaletan** (5); **kiloko harri** (13); **kiloko harria** (24); **kiloko harria erabiliko** (8); **kiloko harriarekin** (4); **kiloko hirugarren jardunaldia** (4); **kiloko koadroa** (9); **kiloko kuboa** (6); **kiloko kuboarekin** (19); **kiloko lehen jardunaldian** (5); **kiloko lehian** (4); **kiloko paskualsoro harri** (4); **kiloko pisua** (14); **kiloko txapela** (8); **kiloko txapelketetan** (4); **kiloko zilindro** (10); **kiloko zilindro kopa** (4); **kiloko zilindroa** (11)

**kilokoa jaso** (5)

**kilokoen lehen jardunaldia** (7)

**ehun kilotik gorako** (4); **kilotik gora** (12); **kilotik gora galdu** (6)

---

# kilogramo **1** *iz* pisu (edo masa) banakoa, mila gramoren baliokidea dena (kg).

Hemoglobinak afinitate handia du oxigenoarekiko, eta odolean dagoen hemoglobina kantitate apalak **(kilogramo** bat inguru) bizi-prozesu guztiei eusteko adina oxigeno garraiatzen du. Irene Aldasoro

Gramoak eta **kilogramoak** eta miligramoak, metroak eta kilometroak eta milimetroak. Iñaki Mendiguren

Pud: Errusiako pisu-neurri antzinakoa ( **16,3** kilogramoren baliokidea). Jose Morales

1,93 metro da luze eta 85 **kilogramo** pisatzen ditu. Berria - Harian

1,93ko garaiera du eta 82 **kilogramoko** pisua. Berria - Mundua

**2** (zenbaketetan, neurtzen denaren ezkerrean)

**Kilogramo** bat urek hirurehun eta hirurogeita hamar gramo baizik ez du pisatzen han! Josu Zabaleta

15 edo 20 **kilogramo** lehergai zituen bonba batek eraginda. Berria - Mundua

---

# kiloka **1** *adlag* kiloa neurri hartuz; kopuru handian.

Neurtu, nola? **kiloka,** litroka, puntoka agian?... Berria - Kirola

Porlana eta harea **kiloka** sartu behar genuelako herrian. Edurne Elizondo

Litroka xaboi eta **kiloka** pazientzia beharko dituen harrikoaren zain. Xabier Mendiguren Elizegi

Lurperaturiko aberastasunaren lilura, milaka **kiloka** botatzen den harritza alferrari atxikiriko metal zilarkara noblezko bi kiloen xarma, ez da oraindik iraungi. Juan Garzia

**2** ***kilokako*** *izlag*

Eta emakume horrek **kilokako** karga zeraman. Juan Garzia

---

# kilokaloria *iz* beroa neurtzeko banakoa, mila kaloriaren baliokidea.

Horregatik, kaloria edo, hobeto esanda, **kilokaloria** (mila kaloria) erabiltzen da elikagaiak edo erregaiak duen energia kantitatea adierazteko unitatetzat. Irene Aldasoro

---

kilometra ik **kilometro**.

---

# kilometraje *iz* kilometroak, kilometro kopurua.

Enpresaburuek dieta erdia ez dute ordaintzen «behar bezala», ezta **kilometrajea** ere pagatzen langile guztiei. Berria - Ekonomia

Patronalak, baina, ez du lanaldirik murriztu nahi, eta sindikatuei exijitu die dieta, **kilometraje** , gaixo-agiri, azpikontrata eta kontratazioaren inguruko proposamenak bertan behera uzteko. Berria - Ekonomia

Azkenekin iritsi naiz Marand deritzon herri honetara, pot eginda iritsi ere, **kilometraje** luzeagatik eta txakur gaizto ugariengandik ihesi egindako ahaleginengatik. Jon Arretxe

---

# kilometriko *izond* oso luzea.

Ordukoz, bertzalde, neskek izeba Milagrosen ziztor **kilometrikoek** baino tira handiagoa egiten ziguten. praketako kremailera **kilometrikoa** zabal-zabalik zuela agertu zitzaigun gelara, eta ezin esan ikastaro hartan ezer erakutsi ez zigunik. Aingeru Epaltza

---

# kilometro **1** *iz* bide edo distantzia neurri ohikoa, mila metroren baliokidea.

Amazonas ibaian, 1.000 **kilometro** ibai gora. Jon Muñoz

Milaka **kilometro** urrun. Jon Muñoz

Hamar **kilometro** urrunago. Itxaro Borda

Torinotik oso **kilometro** gutxira baitaude Alpeak eta Italiako eski-gune nagusiak. Anjel Lertxundi

Etxe saihetseko orga-bidetik pasatuz, **kilometro** baten buruko oihanean sartu nintzen. Daniel Landart

Saltoki itzelak, askotariko salgaiz gainezka, amaierarik gabe hedatzen dira kaietan barrena, **kilometro** askotan zehar. Jon Muñoz

**Kilometro** eskaseko bide hartan. Hasier Etxeberria

Lehen bost **kilometroak,** goizeko freskuran, lorian eraman ditut. Piarres Aintziart

· 770 **kilometro** xuxen ditu bideak. Piarres Aintziart

Handik ehun eta hogeita hamar **kilometro** inguru urrundurik. Elizen arteko biblia

**2** (aditzekin)

**Kilometro** eta erdi ibili zirelarik, arabiar gudu-talde batek eraso zien. Elizen arteko biblia

Urratsa zalu zalua, ibiliaren bortxaz, harek ere bazituen 1200 **kilometro** kurriturik. Zenbait **kilometro** egin ondoan, gibelera itzuli dela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eguneko 100 **kilometro** eginez. Pello Zabala

Elkarrekin egiten ditugu hiru **kilometro**. Piarres Aintziart

Bolanteari sendo eutsi nion, eta **kilometroak** egin genituen horrela, isilik. Inazio Mujika Iraola

Bospasei **kilometro** arraunean egin ondoren. Elizen arteko biblia

Ia berrehun **kilometro** trenez egin eta gero. Anjel Lertxundi

120.000 **kilometro** eragin dizkiogu gure autoari. Joxerra Garzia

**3** (dimentsioekin)

181 **kilometro** luze izanen da ubidea. Edurne Elizondo

Hamabi **kilometro** eta erdi izango da luze eta hamar **kilometro** zabal. Elizen arteko biblia

Eremu sakratuaren ondoan, bost **kilometro** luzeko bi zati geldituko dira. Elizen arteko biblia

300 **kilometro** zabaleko bokalea! Jon Muñoz

Milaka **kilometro** koadro. Arantxa Iturbe

Txinak 1.220 milioi biztanle ditu, Nauru izeneko isla batek 12.000 inguru bere 21 **kilometro** koadrotan. Pello Salaburu

Lau **kilometro** koadroko eremu batean. Harkaitz Cano

**4** (abidura adierazten)

Bidaian, hegaz, 900 **kilometro** orduko. Txillardegi

140 **kilometro** orduko harrapatu omen zituzten haize-bolada beldurgarri eta zirimolatsu haiek. Pello Zabala

Lurrak ere, horrelaxe, segundoko berrogeita bi **kilometro** eginagatik, geldiro egiten du eguzkiaren bira. Josu Zabaleta

Oraingo gure abiada orduko 960 **kilometrora** igo da, 10.100 metrotan gaude eta tenperatura zeropetik 44 gradukoa da. Patxi Zubizarreta

Orduko 70 **kilometroko** haize boladekin. Bernardo Atxaga

Martxa betean mur egiten badut, ezin eragotziko dut orduko ia zortziehun **kilometroko** lastertasuna harrapatzea. Josu Zabaleta

Orduko 5 **kilometroko** abiaduran oinez doan gizakia. Irene Aldasoro

· Orratzak ehun eta hogei **kilometro** orduko abiadura markatzen du [= orduko ehun eta hogei kilometroko abiadura], eta erloju digitalak hirurak eta zazpi minutu. Patxi Iturritegi

**5** (hitz elkartuekin)

**Kilometro**-kontagailuari begiratu gabe. Jon Alonso

Uraren gainalde leun, beltz eta beiraren antzekoa ikusi zuen **kilometro**-pare bat beherago. Iñaki Mendiguren

· Bost trenbide-**kilometro** horien eraikuntzakoak eta orduko gizarte-giroaren nondik norakoa kondatzearren. Edorta Jimenez

Beste hamaika merkantzia tren, beste milaka auto-stop **kilometro** zain zituen New Yorkera itzuli aurretik. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bost kilometro egin** (4); **bost kilometro inguruko** (4); **bost kilometro zabal** (4); **handik kilometro batera** (4); **helmugarako bi kilometro** (4); **kilometro asko egin** (5); **kilometro batzuk egin** (6); **kilometro batzuk hegoalderago** (4); **kilometro bete** (9); **kilometro bizikletan** (6); **kilometro da luze** (4); **kilometro daude** (14); **kilometro dezente** (4); **kilometro dira** (4); **kilometro ditu** (52); **kilometro doi egiteko** (4); **kilometro egin** (108); **kilometro egin zituen** (13); **kilometro eginda** (7); **kilometro egingo** (14); **kilometro egiteko** (12); **kilometro egiten** (14); **kilometro erdi** (7); **kilometro erdi bat** (4); **kilometro erdiko** (4); **kilometro eskas** (11); **kilometro eskasera** (10); **kilometro eta erdi** (18); **kilometro eta erdira** (9); **kilometro falta** (25); **kilometro falta zirela** (11); **kilometro gelditzen** (5); **kilometro geratzen** (17); **kilometro geratzen zirela** (16); **kilometro gutxi** (14); **kilometro gutxi batzuk** (4); **kilometro gutxiago** (5); **kilometro gutxira** (23); **kilometro gutxira dagoen** (4); **kilometro gutxitara** (5); **kilometro hurbil** (4); **kilometro inguru** (50); **kilometro inguru daude** (5); **kilometro inguru egin** (7); **kilometro inguru egingo** (4); **kilometro inguruko** (29); **kilometro inguruko auto** (7); **kilometro ingurura** (17); **kilometro ipar mendebaldera** (4); **kilometro iparraldera** (23); **kilometro karratu** (4); **kilometro karratuko** (5); **kilometro koadro** (32); **kilometro koadro ditu** (4); **kilometro koadroko** (22); **kilometro korrika** (13); **kilometro kuadro** (4); **kilometro kubiko** (5); **kilometro kubo** (9); **kilometro luze** (27); **kilometro luze da** (4); **kilometro luzeko** (11); **kilometro mendebaldera** (9); **kilometro mordoa** (4); **kilometro oinez** (4); **kilometro orduko** (100); **kilometro orduko abiada** (5); **kilometro orduko abiadan** (6); **kilometro orduko abiadura** (22); **kilometro orduko abiaduran** (21); **kilometro ordukoa** (5); **kilometro orotara** (4); **kilometro pasatxo** (9); **kilometro txandakakoa** (4); **kilometro urrunago** (15); **kilometro urrundu** (10); **kilometro urrundu zen** (4); **kilometro zabal** (8); **kilometro zituen** (10); **kilometroz kilometro** (6); **mila kilometro inguru** (5); **milaka kilometro** (17); **milaka kilometro egin** (4); **milioi kilometro** (22); **milioi kilometro egin** (6); **milioi kilometro koadro** (5)

**azken kilometroa** (11); **azken kilometroa arte** (4); **lehen kilometroa** (6)

**azken kilometroak** (17); **erlojupeko kilometroak** (11); **kilometroak egin** (9); **kilometroak egiteko** (7); **kilometroak egiten** (9); **kilometroak eta kilometroak** (6); **lehen bost kilometroak** (4)

**azken kilometroan** (23)

**azken bi kilometroetan** (4); **azken kilometroetan** (31)

**hiru kilometroko erradioan** (4); **kilometroko abiadan** (6); **kilometroko abiadura** (7); **kilometroko abiaduran** (10); **kilometroko aldapa** (5); **kilometroko auto ilarak** (26); **kilometroko bidaia** (7); **kilometroko bidea** (28); **kilometroko bidea egin** (7); **kilometroko diametroa** (12); **kilometroko diametroa du** (6); **kilometroko distantzia** (5); **kilometroko distantziara** (8); **kilometroko erlojupeko** (9); **kilometroko erlojupeko laua** (5); **kilometroko erlojupekoa** (41); **kilometroko erlojupekoa jokatuko** (5); **kilometroko erlojupekoa korrituko** (4); **kilometroko erlojupekoak** (5); **kilometroko erlojupekoan** (9); **kilometroko erlojupekoarekin** (6); **kilometroko erradioan** (5); **kilometroko etapa** (15); **kilometroko hesia** (4); **kilometroko ibilaldia** (5); **kilometroko ibilbide** (6); **kilometroko ibilbidea** (29); **kilometroko ibilbidea egin** (5); **kilometroko ibilbidea osatu** (6); **kilometroko ibilbidean** (5); **kilometroko igoera** (4); **kilometroko ilarak** (10); **kilometroko jazarpen** (6); **kilometroko lastertasunean** (8); **kilometroko luzera** (19); **kilometroko luzera izango** (5); **kilometroko taldekako erlojupekoa** (7); **kilometroko tartean** (5); **kilometroko trenbidea** (5); **kilometroko zatia** (4); **zazpi kilometroko ibilbidea** (5)

**ehunka kilometrora** (10); **hamar bat kilometrora** (7); **hamar kilometrora dagoen** (4); **herritik milaka kilometrora** (4); **kilometrora bizi** (11); **kilometrora dago** (37); **kilometrora dagoen** (51); **kilometrora daude** (5); **kilometrora dauden** (6); **kilometrora den** (4); **kilometrora egon** (10); **kilometrora kokatua** (4); **kilometrora kokatua den** (4); **kilometrora zegoen** (20); **milaka kilometrora** (21)

**kilometroren buruan** (5); **kilometroren faltan** (11)

**milaka kilometrotara** (13)

**kilometrotik gora** (13); **kilometrotik gora egin** (4); **kilometrotik gorako** (8)

**kilometroz kilometro** (6)

---

# kilonbo *iz*

Bera **kilonbo** hartako burua zela sinbolizatzen zuen arrautza zen Guebokinderren ikur bereizgarria. Jon Alonso

---

# kiloparsec *iz* izarretarako distantzia neurtzeko banakoa, mila parsec-en-hots 3.260 argi urteren- baliokidea

Hemengo esperientzia aberasgarria eta positiboa izan zen haientzat, baina ez 231 **kiloparsec**-eko bidaia hartan izango zuten zirraragarriena, ezta alderatzekorik ere. Patxi Iturritegi

---

# kilotoi *iz* potentzia banakoa, mila tona trinitrotoluenok askatzen duen energiari dagokiona.

Halako lehergailu batek 20 **kilotoiko** indarra askatuko luke. Berria - Mundua

Horrelako bonba batek 50 **kilotoirainoko** indarra izan dezake. Berria - Mundua

---

## **kilotxo** *iz adkor* kiloa.

Gerri bueltan, urteek pilatu eta arineketa urriko bizimoduak itsatsitako **kilotxoen** sobera nabari zaio. Pako Aristi

---

## **kilovolt** *iz* potentzial diferentziako edo tentsioko banakoa, mila volten baliokidea.

Hala, abiadura handiko burdinbideetan korronte alternoko 25 **kilovolteko** tentsioa duten katenarietan ibili ahal izango dira, baita korronte zuzeneko hiru **kilovolteko** ohiko lineetan ere. Berria - Ekonomia

---

## kilowatio ik **kilowatt**.

---

## **kilowatt** *(orobat **kilowatio**)* **1** *iz* potentzia elektrikoko banakoa, mila watten baliokidea. ik**kW**.

Autobus horiek daramaten hidrogenozko pilak 205 **kilowatteko** potentzia ematen die. Berria - Gaiak

Mihamako zentraleko bigarren erreaktorea 500.000 **kilowatt** ekoizteko gai da. Berria - Ekonomia

Bi urtegien artean 7,3 milioi **kilowatt** sortzeko gai izango dira 2014an. Berria - Gaiak

2003an **kilowattaren** kostua 2,151 zentimo izan zen. Berria - Harian

· Gainera, ia bikoiztu egin du energia berriztagarrien ekoizpena 3.806 milioi **kilowatt** orduko. Berria - Ekonomia

221.000 euroko sarrerak izan ditu, orduko 3.817.000 **kilowatt** saldu baititu. Berria - Euskal Herria

3.817.000 **kilowatt** ordu saldu zituen. Berria - Euskal Herria

**2** (neurri gisa)

50.000 turbina eoliko jarrita, 720.000 milioi **kilowatt** argindar sortzea legokeela dio Greenpeace erakundeak. Berria - Gaiak

Haietan, 25,7 milioi **kilowatt** argindar ekoizten da.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kilowatt argindar** (4); **kilowatt ekoizten zituen** (3); **kilowatt orduko** (5); **milioi kilowatt** (12); **milioi kilowatt argindar** (4); **milioi kilowatt orduko** (4)

---

## **kima**[1] *(orobat **kuma**)* **1** *iz* zaldiek eta beste abere batzuek lepagainean dituzten zurden multzoa; tximak.

Haien zaldiak sendoak eta itxura harrokoak ziren, **kima** kizkurdunak. Agustin Otsoa

**Kima** zuri eta uzkorno galantarekiko [zaldi] bat badut neure. Itxaro Borda

Morroi bat, nahiz kalerako nahiz lur lanerako balio zuena, zalditzarra zelatzeko nahiz **kima**-guraizeak hartzeko prest zegoena. Patxi Ezkiaga

Bi zangoen gainean xutitzen da, erortzen eta bat-batean sekulako ostikoan altxatzen da, airatzen, besoak eta zangoak luzatzen ditu, haren **kuma** eta buztan xuriak hedatzen dira, bela zabal eta eder bat bezala. Michel Oronoz

**2** (hitz elkartuetan)

Gutun edo letra bat eman ondoan Pekoetxetako neska bati, honek buruan gordetzen zuen, bilo edo ile **kuman,** orduko modan iresia, aitzineko partea aski gora. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## **kima**[2] *iz* kimatzea.

Baserriko lanetan, inausketa eta **kima**-lanak egiteko orduan. Pello Zabala

Eta oraindik, han hemen lizar **kiman** ikustean inor, poztu bezala egiten naiz. Patziku Perurena

---

## **kimatu,** kima(tu), kimatzen **1** du *ad* abarrak edo abartxoak kendu. ik **inausi**.

Fruiturik ematen ez duen aihena ebaki egiten du Aitak, eta fruitua ematen duena garbitu eta **kimatu,** fruitu gehiago eman dezan. Elizen arteko biblia

Lorategia txukundu, arrosak **kimatu** eta ureztatu. Iñaki Mendiguren

Hortentsia sail oparoa mimoz ureztatu, ongarritu eta **kimatzen** baitzuen. Iban Zaldua

Sprout andereñoak Abisiniako pikondoak **kimatzen** jarri zituen guztiak. Iñaki Mendiguren

Udaberri aldera, lizar adaxka lodiskonak eta xuxenenak berextu eta **kimatuz** lizar arbak egiten genituen. Patziku Perurena

Ayub-ek ondo **kimatu** ditin bide ertzeko zuhaixkak. Iban Zaldua

**Kimatu** gabeko *Sophora japonica*-ren azpitik. Patxi Iturritegi

Lepoa moztu zion **kimatzeko** guraize batzuekin. Berria - Gaiak

**2** *irud*

Beste lan batzuk egiteko oztopo gisa ikusten zuen margolaritza, eta, horregatik, alderdi hori **kimatu** egin zion bere sormen lanari. Berria - Kultura

Artistak egitura bat nahi du, logika bat, eta sasiak garbitzen hasten da, **kimatzen,** soiltzen, errealitatean ez bezalako simetriak eta eraikuntza zehatzak sortzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrela, irakurketak egin bitartean, jatorrizko gaira bueltatzea komeni da, handik eta hemendik hura **kimatzeko**. Askoren artean

Basa oihana bihurturiko lorategi batean bezala, bizian moztu, inausi, **kimatzeko** zoriona jabetu zen nitaz. Joxan Elosegi

**3** kimuak erne, kimuak eman.

Eta asko eta asko **kimatzen** hasiak. Txillardegi

---

## **kimatzaile** *iz* kimatzen duen langilea.

Borda inguruko lizar zimaluzeek berantetsi egin dute bi urtetik behingo **kimatzailea**. Patziku Perurena

---

## **kimera** **1** *iz* irudimenak gertagarri edo egiazkotzat hartzen duen gauza, nahiz eta halakoa ez den.

Ustekizun eta **kimera** deitzen diote, ezinezkoa izanik ere, irudimenak sorrarazten duenari, esaterako, Jainkoa gorputz gisa eratua izateari. Xabier Kintana

**Kimera** eta ameskeria liberalaren garaia. Iñaki Heras

Utopia edo **kimera** liberala. Iñaki Heras

Jabetu gara lehendabiziko legegileek zuhurki asmatutako **kimera** hura ez zela gu katez lotuta edukitzeko beste baliabide bat baizik. Jainkoaren **kimera** zapalduta geratu zenetik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste guztia, bere burua arautzen duen merkatua, **kimera** hutsa da. Iñaki Heras

Beharrezkoa da lehiakortasunaren **kimera** erretoriko hori kritikatzea. Iñaki Heras

Eta Virgiliok Eneida erre nahi du, giza irudimenaren emaitzen **kimeraren** eredu behinena. Juan Kruz Igerabide

Beren buru **kimeraz,** deabruz, ametsetako piztiez, lore munstroz beteak. Josu Zabaleta

Ez diezagutela gehiago hitz egin beren **kimeretako** izakiaz eta beren erlijio sinestezinaz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kimeriko**.

Hain zuzen, gutako bakoitzaren baitan, **kimera**-indar amaigabe bat dago, hots, oroimena, munstro beldurgarria. Juan Kruz Igerabide

Nagusi eta libre jardun ohi duen **kimera**-munduak imajinatzen ditu. Joxan Elosegi

**3** mitologian, burua lehoiarena, gorputza ahuntzarena eta isatsa dragoiarena zuen animalia, garrak kaurtikitzen zituena.

Nola zitekeen gorputz hirukoitzean bakarra zenak, burua lehoi, isatsa dragoi eta enborra **Kimera** edo Ahuntz zuenak berak, gorputzeko gar biziak ahotik jaurtitzea? Xabier Amuriza

Baita aho izugarritik garra darien **Kimerak** ere izadia bazkatzen. Xabier Amuriza

Frutaz kargaturiko txalupan, poste baten puntan pausatu den kaioan, nonahiko hormetan ikusten diren **kimera,** grifo, maskaroi, gurutzeetan... Anjel Lertxundi

**4** ***kimerazko*** ik **kimeriko**.

Hortaz, ez da **kimerazkoa** esatea hizkuntza dela, hain zuzen, mintzairaren banakoa dena. Isabel Arrigain

---

**kimeriko** *izond* fantasiazkoa edo irudimenak sortua. ik **kimera 2; kimera 4**.

Merezi al dizu osasuna suntsitzeak ustezko harrapakin **kimeriko** baten atzetik jarraitzeko? Saio **kimeriko** horri buruzko maisulana da Karl Polanyi pentsalariak 1944an argitara eman zuen *The Great Transformation* liburua. Fernando Morillo

Deliturik ankerrenak, edota ilun eta **kimerikoenak**. Juan Martin Elexpuru

Bere baitan daramatza alegiazko nortasunak, makina bat pertsonaia **kimeriko,** egiazko eta irudizkoaren arteko poliexistentzia, amets eta esna-aldiaren artekoa, mendetasun eta hausturaren artekoa. Askoren artean

---

kimia ik **kimika**.

---

**kimika** *(orobat **kimia** g.er.)* **1** *iz* gaien osatze, tasun eta eraldatzeak aztertzen dituen zientzia.

**Kimika** ikasi zuen, eta filosofia, eta zuzenbidea. Jose Morales

**Kimika** Orokor eta Ez-organikoa ikasgaiaz. Juan Garzia

**Kimika** ez-organikotik organikora pasatzeko urratsa. Juan Garzia

Gainazal fotosentiberen **kimika**. Josu Zabaleta

Egituren eta **kimika** zelularraren materiala determinatzen duten geneak. Juan Garzia

**Kimika** misteriotsua iruditzen zaizue, baina ez du ardoa inoren odol bihurtzerainoko abildaderik. Anjel Lertxundi

Hauts ginela esaten ziguten lehen, orain **kimika** hutsa garela. Arantxa Iturbe

**Kimikaren** mundua. Juan Garzia

Baina ez naiz izutzen: ertzaina estrabikoa da, Perti **kimikako** irakaslea bezala. Anjel Lertxundi

R. jauna **-Kimikako** Nobel saridun ezaguna- Bartzelonara iritsi zenean. Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kimiko**.

Arma ikaragarriak, **kimika**-armak eta bertze... Herria

Egituraren aldetik izan litezkeen konposatuez kezkatzen den **kimika** teoriaren atalaren analogia erabil genezake. Itziar Laka

**Kimika**-liburu bat emango baliote ere. Jose Morales

Irakurlea, honetara ezkero, ongixko konturatuko zen hau ez dela **kimika**-tratatu bat. Turingo Unibertsitateko **Kimika** Ikastegiko biblioteka. Juan Garzia

UEUko **Kimika** saileko ikastaroan. Berria - Euskal Herria

Hamazazpi urte zituela, Edinburgon **kimika**-irakasle zen Lyon Playfair-en irakaspenak jasotzera bidali zuten. Irene Aldasoro

**Kimika** ikasketak egitera behartu zuen aitak. Berria - Kultura

Ni, gaiztakeriarik gabeko **kimika**-lizenziatu koxkor bat. Juan Garzia

Gibela da gorputzaren **kimika**-instalazioa. Irene Aldasoro

Kimikari nintzen **kimika**-lantegi batean. Juan Garzia

**Kimika** enpresa batean egiten du lan. Berria - Mundua

Beste era batera esanda, beraz, **kimika**-laborategi erraldoi bat da erretina. Josu Zabaleta

**Kimika** sektoretako enpresek. Berria - Euskal Herria

**Kimika** zapore berezi, garratz eta higuingarria. Urtzi Urrutikoetxea

**Kimika** usaineko egurrezko bainuontzia. Urtzi Urrutikoetxea

Apaldegi makulagabe, kanfor, argizari eta mendeetako **kimika**-nekez usaintsu haietan beste ikerraldi bat eginez, zera ikasi nuen: [...]. Juan Garzia

Eromena **kimika** arazoa duk soil-soilik. Bernardo Atxaga

UGTko **Kimika** Federazioko idazkari nagusi Eduardo Markinak. Berria - Ekonomia

Hiru ikertzailek jasoko dute aurten **Kimika** Nobel saria. Berria - Gaiak

Alemaniako Max Plack **Kimika** Institutuko zientzia zuzendariak. Berria - Gaiak

**3** kimika ikasketak.

**Kimikako** laugarren ikasturteko programaren barnean. Juan Garzia

**Kimikako** klasera joateko gogoa piztu zitzaidan. Anjel Lertxundi

**4** irud/hed

Ordu hartan esaten zen bezala, bien artean **"kimika** txarra" zegoen. Bernardo Atxaga

Jolas sexuala albo batera uzten badugu, desioa ez da piztuko, kideen arteko **kimika** ez da sortuko, maitasun lurrinik ez da agertuko. Luis Elberdin

Orain ongi ulertzen du **"kimika** ona egon da" esaldia. Hasier Etxeberria

Alalabaina, ez dakit zer **kimika** mota berezi sortu zen bi izaki barne nahiz kanpo hain ezberdin horien artean. Aingeru Epaltza

**5** ***kimika-gai*** *(orobat **kimikagai**)*

Badira **kimika** gaiak gorpua usteltzetik betiko gordeko dutenak. Koro Navarro

Belgikako talde bat, bestalde, DDT **kimikagaiak** eta beste pestizidek hormonetan duten eragina ikertzen ari da. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kimika federazioko** (4); **kimika hutsa** (3); **kimika irakaslea** (9); **kimika nobel** (3); **kimika ona** (5); **ugtko kimika federazioko** (4)
> **kimikako irakaslea** (3); **kimikako nobel** (6); **kimikako nobel saria** (3)

---

kimikagai ik **kimika 5**.

---

## kimikagintza *iz* kimika industria.

2006rako altzairugintzan, zementugintzan eta **kimikagintzan** ari diren enpresak neurri horiekin lanean hastea espero du. Berria - Euskal Herria

Jakina, lehen adieran, **kimikagintzan** jardun diharduena da "kimikari militante". Juan Garzia

---

kimikalari ik **kimikari**.

---

## kimikari *(orobat **kimikalari**)* **1** *iz* kimikari buruzko ikerketak, esperimentuak edo saioak egiten dituen pertsona.

**Kimikari** izango ginen, bada, Enrico eta biok. Juan Garzia

Elias Corey **kimikariak** [...] aditzera eman duenez, botika hori bizkorrago eta merkeago egiteko sistema asmatu du. Berria - Gaiak

**Kimikaria** lanbidez eta artista zaletasunez. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kimikariaren** lanbidea. Juan Garzia

**Kimikari** analitikoak laborategira eraman ohi ditu bere laginak, aztertzera. Irene Aldasoro

Frantziako Institutuko hitzaldiak, **kimikari** ospetsuek emanak. Josu Zabaleta

Lurrinean interesaturiko **kimikari** batek. Irene Aldasoro

Gauzak egoki biltzearen arazo larriarekin egiten baitugu hor topo, eskarmentua duen **kimikari** orok ongi dakienez. Juan Garzia

Ai **kimikari** batek sudurrik ez balu. Juan Garzia

Giza **kimikari** saiatuaren grina. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kimikari** lanean jardun nahi huen eta hortxe habil kimikari. Juan Garzia

**Kimikari** lanbideak (nire kasuan Auschwitzeko esperientziak sendotua) inolaz ere ezinbesteko eta jaiotzezko ez diren zenbait higuin gainditzen irakasten digu. Juan Garzia

Neure **kimikari**-zuntzak kizkurtzen sentitu nituen lotsagarrikeria haren aurrean. Juan Garzia

Bizi guztia grafitoari zein diamanteari eskaini dion **kimikari**-estilitaren bat. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kimikari militante** (5)
> **ali kimikaria** (3)

---

## kimikaritasun *iz* kimikaria izateko nolakotasuna.

Jakina, urrea bilatuko nuela: ez aberastearren, baizik giza trebetasun berri bat lantzearren; lurra, airea eta ura bizi ziren bazterrak berrikustearren, amildegi egunean-egunean zabalago batek bereizten baininduen haietatik; eta neure **kimikaritasuna** berreskuratzearren, lanbide horren forma funts-funtsezko eta jatorrizkoan, "Sheidekunst" delakoan, hots, metala zaborretik bereizteko artean. Juan Garzia

---

## kimikatu, kimika(tu), kimikatzen du *ad* kimika analisia egin.

Piamontera ezin hobean, bada, Asti aldeko ukitu sotilez, esan zidan azukrea zekarrela **kimikatzeko:** jakin nahi zuen ea azukrea zen ala ez, edo eta ez ote zuen nahasturik satsukeriaren bat ("saloparía"). Juan Garzia

---

## kimikatzar *iz adkor* kimika.

Baina liburu horretan berariaz utziko nuela albora kimika handia, industriategi kolosalen eta fakturazio-ustelkeria zorabiagarrien **kimikatzar** loriosa, hori lan kolektiboa baita eta, beraz, anonimoa. Juan Garzia

---

## kimiko **1** *izond* kimikari dagokiona. ik **kimika 2**.

Erreakzio **kimiko** arruntak. Juan Garzia

Analisi **kimiko** bat egiten denean. Irene Aldasoro

Eredu **kimiko** hori zabaldu egin da fisika eta genetikako ideiak bereganaturik. Irene Aldasoro

Horrela askatzen den energia **kimikoaren** parte bat lan bihurtzen da, eta, beste parte bat, berriz, bero. Irene Aldasoro

Energia **kimiko** handia beharko litzateke proteinaren nitrogenozko hondakina nitrogeno-gas bihurtzeko. Irene Aldasoro

Konposizio **kimiko** egonkorra. Askoren artean

Kometaren nukleoaren osaera **kimikoa**. Berria - Gaiak

Datatze hori egin ahal izateko, elementu **kimiko** batean oinarritu dira astronomoak, berilioan. Berria - Gaiak

Organismo infekziosoetatik eta ehun arrotzetatik babestua ez ezik, gai **kimiko** kaltegarrietatik ere libre. Irene Aldasoro

Oxigenoa eta ezinbesteko beste substantzia **kimiko** batzuk. Irene Aldasoro

Produktu **kimiko** arriskutsuak desagerrarazteko neurriak. Berria - Gaiak

Hidroxiapatitoa da mineral hori: ez da, zehazki, konposatu **kimiko** bat. Irene Aldasoro

Lubrikagarriaren ezaugarri **kimikoak**. Irene Aldasoro

Anplifikagailu **kimiko** bat dago muskuluaren eta nerbio-zuntzaren arteko lotunean. Irene Aldasoro

Soinu-bibrazioak seinale elektriko (edo agian **kimiko)** bihurtzen direla belarrian. Irene Aldasoro

Kuantu bat xurgatzeak eragin **kimiko** bat sortzen duela eta, ziur asko, bulkada elektriko bat ikusmen-nerbioaren zuntz batean. Irene Aldasoro

Bazterretan hondakin **kimiko** gehiago pilatu ez dadin. Berria - Gaiak

Lehenengo gizakien ingurunea, zentzu **kimikoan** , gaur egungoa baino askoz garbiagoa zen, baina larruazalak, hala ere, aurre egiten die oraingo eraso **kimiko** gehienei. Irene Aldasoro

ADN da, hain zuzen ere, geneak biltzen dituen molekula luze bat eta barruan ditu milaka milioi [...] letra **kimiko** . Pello Salaburu

**2** (hitz elkartuetan)

Eraldakuntza fisiko- **kimikoak** . Askoren artean

Ohitu egiten gara, eta hasierako mozkorraldi **kimiko** -hormonala pasatu egiten da. Luis Elberdin

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arma kimiko** (12); **atentatu kimiko bat** (3); **ekai kimiko** (3); **elementu kimiko** (3); **erreakzio kimiko** (11); **fisiko kimiko** (3); **gai kimiko** (12); **hondakin kimiko** (3); **industria kimiko** (6); **istripu kimiko** (3); **konposatu kimiko** (5); **larrialdi kimiko** (4); **larrialdi kimiko baten** (3); **produktu kimiko** (9); **prozesu kimiko** (4); **substantzia kimiko** (19); **substantzia kimiko bat** (5)
>
> **anestesia kimikoa** (4); **energia kimikoa** (3); **industria kimikoa** (3); **konposizio kimikoa** (7)
>
> **arma kimikoak** (14); **enpresa kimikoak** (4); **erreakzio kimikoak** (3); **ezaugarri kimikoak** (3); **gai kimikoak** (14); **industria kimikoak** (3); **mezulari kimikoak** (3); **osagai kimikoak** (3); **produktu kimikoak** (7); **substantzia kimikoak** (6)
>
> **energia kimikoaren** (5); **energia kimikoaren parte** (3)
>
> **gai kimikoek** (5)
>
> **gai kimikoekin** (5)
>
> **arma kimikoen** (6); **gai kimikoen** (9); **produktu kimikoen** (6); **substantzia kimikoen** (4)
>
> **substantzia kimikoren** (3)
>
> **gai kimikorik** (3)

---

## kimikoki *adlag* kimikaren bidez; kimikaren aldetik.

Larrua, izan ere, animalien dermisa **kimikoki** tratatuta lortzen da. Irene Aldasoro

Oxigenoa ezinbestekoa da elikagaiak **kimikoki** deskonposatzeko. Irene Aldasoro

Horregatik, okela eta beste proteina arrotz batzuk **kimikoki** desegin behar dira gorputzean sartu aurretik. Irene Aldasoro

Ez da produktu kimikorik erabiltzen, ez belar pozoinik, ez onkailurik [...] **kimikoki** fabrikatua denik. Herria

Fotosintesia ez dela soilik karbonoa bizidun egiten den bide bakarra, baizik eta, orobat, eguzkiaren energia **kimikoki** baliagarri bilakatzeko gai den bakarra. Juan Garzia

---

## kimio *(orobat **ximio** g.er.)* *iz* kimioterapia.

Lehengo ostegunean jaso nuen 8. saioa eta orduan **kimioa** hartu eta hiruzpalau ordutara erre nuen. Berria - Harian

**Kimioa** jasotzen duen egunean ondoeza izaten du. Berria - Harian

**Kimioa** jasotzen duen egunean ondoeza izaten du. Berria - Harian

Erredurak eta **kimio** -saiotan ahuldu eta erretako azala goxatzeko probatu duenak, badaki zer den intsus-ukendua. Pello Zabala

-Ez dik **kimio** eta zimio beharrik gaizoak! Itxaro Borda

Hemezortzi hilabetez minbiziarekin borrokan ari izan da; sei hilabeteren buruan uste zuen garraitua zuela... zeren **ximioak** eta horiek hartuak zituen. Menane Oxandabaratz

---

## kimioprofilaxi *iz* gai kimikoen bidezko profilaxia.

Gaixoaren ondoan egon direnei, denbora tarte labur batean, antibiotiko jakin bat ematea da **kimioprofilaxia** . Txertorik ezean, birusaren bidea geratzeko bigarren aukera **kimioprofilaxia** da. Berria - Euskal Herria

---

## kimioterapia *(orobat **ximioterapia** g.er.)* **1** *iz* gai kimikoen bidezko sendabidea.

Erradioterapia saioez gain **kimioterapia** ere baliatzea komeni zela, tratamendua albait eraginkorren gerta zedin. Imanol Zurutuza

Bi hilabete doi omen daramatza **kimioterapia** egiten. Berria - Kultura

**Kimioterapia** hartzea gogorra da, eta gogorragoak hurrengo ordu eta egunak. Berria - Harian

Kutsatzeko arriskua handiagoa da, gaixoa **kimioterapia** jasotzen ari baldin bada edo pertsona horri sabeleko ebakuntza egin badiote. Berria - Gaiak

Iñaki Saizarrek **kimioterapiak** eragiten dion goragalea kentzeko kalamua erretzen du. Berria - Harian

**Kimioterapia** bukatutzat emateko zein irizpide dituen galdetu dio doktoreari. Imanol Zurutuza

Baxu ditu defentsak gaixoak, eta bertan behera utzi behar izan dute **kimioterapia** oraingoz. Imanol Zurutuza

Geroztik jasan ditu gorriak eta beltzak, eritasunarekin borrokan, **ximioterapia** eta gaineratiko. Herria

Bi hilabete doi omen daramatza **kimioterapian** . Anjel Lertxundi

Ez zela lortu **kimioterapian** baliatzen ziren botikek bereizketarik egitea. Imanol Zurutuza

**2** (hitz elkartuetan)

**Kimioterapia** -saioen ardura zuen doktorea. Imanol Zurutuza

Erradiazio- eta **kimioterapia** -tratamenduen oinazealdi ahulgarriak igaro ondoren. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kimioterapia eta erradioterapia** (4)

---

## kimono *iz* japoniar tunika modukoa.

Stellak soinekoa erantzi du eta satinezko **kimono** urdin argi bat jantzi du. Xabier Paya

Emakumeak **kimono** bat alkandora arrosa baten gainean beste jantzirik ez zeukan. Lopez de Arana

Udako kotoizko **kimono** arina. Ibon Uribarri

Herensuge eta krisantemo irudiez apaindutako sedazko **kimono** hori batez jantzita. Javi Cillero

Logelan sartu zen **kimonoa** kentzeko. Lopez de Arana

**Kimonoa** edo yukata lotzeko erabiltzen den ehunezko gerrikoa. Ibon Uribarri

Ohiko bata akoltxatuaren ordez **kimono** mahuka-zabala zuen jantzita. Patxi Iturritegi

**kimonodun** *izond* kimonoa daramana.

Karrikaratzean, emakume **kimonodunaren** itxuraz egin nuen txiste errazak ez zion ihardespenik merezi izan Anari. Aingeru Epaltza

---

**kimu** **1** *iz* landare bati aterazen zaion abartxo berria. ik**muskil**.

Lur bigunera aldatuta arbola mardul bilakatzen den haziaren antzeko dugu **kimu** ttipi hori. Imanol Unzurrunzaga

Elorriaren **kimu** txiki ñimiñoak, zuri-zuriak. Anton Garikano

**Kimu** berri bat hartuko dut haren adar-puntatik. Elizen arteko biblia

**Kimu** berriak moztu egin ohi dira inauskaiaz, moztu eta bazterrera bota. Elizen arteko biblia

**Kimu** berriak loratzen ikusteko baratzea. Berria - Kultura

**Kimu** ederrak eman ditut mahatsondoak bezala, lore eta fruitu bikain eta joriak. Elizen arteko biblia

Espaloi bazterretako hostoak gaztainondoetara itzuli dira **kimu** dardarati bilakaturik. Eider Rodriguez

Ikasi pikuondoaren irudi honetatik: **kimua** berritzen eta hostoa zabaltzen zaioneko, badakizue uda hurbil dela. Elizen arteko biblia

*ik* kimuberritu.

**Kimuak** botako ditu; haren ederra olibondoarena bezalakoa izango da. Elizen arteko biblia

Haziak ernatu eta landare berriak sortzeko garaia, puja eta **kimuak** ateratzeko sasoia. Imanol Zurutuza

**Kimu** bat aterako da Jeseren zuhaitz-ondotik, adaxka bat erneko haren sustraietatik. Elizen arteko biblia

Ikusten nituen **kimuak** udaberrian hazten. Juan Garzia

Han zegoen pagoaren **kimua,** arbola berri baten itxaropena. Pako Aristi

**2** *irud*

Seme-alaba asko izango duzu, zeure **kimuak** landako belarra bezain ugari. Ama putaren **kimu** ustelak! Elizen arteko biblia

Oroit nola jo zuen aitatxik Agaramontarren **kimu** gaztearengana. Aingeru Epaltza

Bihotzaren lehen garatze horiek ere jagon behar dira, grinaren hasierako **kimuak** zuzendu eta zigortu. Andres Urrutia

Unibertsitateko **kimu,** Marcosek bikain idazten du, ondo ezagutzen ditu literaturaren liluramenduaren nondik norakoak. Iñigo Aranbarri

Zibilizazio Sumerikoaren lehen **kimu** siriako, hitita eta babilonikoaren jaiotza eta heriotza. Iñaki Mendiguren

Gizarte Sumerikoaren **kimu** bezala (Gizarte Indikoaz gain), beste bi gizarte aurkitzen ditugu: […]. Iñaki Mendiguren

Ukazio eta zatiketaren zuhaitzak **kimu** berririk ez du. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zer dela eta, bada, bere testuen, bere sorkarien esanahiak edozein literatur kritikari **kimu** -berriren esku uztea? Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hasia da muskiltzen pikuondoa, usaina zabaltzen mahats-**kimuak** . Elizen arteko biblia

Libanoko zedro-**kimuak** edo palmondoak bezala. Elizen arteko biblia

Etxe aurrean geneukan haritz **kimua** ureztatzen ari nintzen batean. Anjel Lertxundi

Txekorren larre eta etzaleku bihurtu da; bertara datoz adar-**kimuak** jatera. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kimu berri** (3); **kimu berriak** (11)

---

**kimuberritu**, kimuberri(tu), kimuberritzen *(orobat **kimu(-)berritu**)* **1** da *ad* kimu berriak bota. ik **muskilberritu.**

Israel herria loratuko da eta **kimuberrituko,** eta mundu osoa fruituz beteko dute. Elizen arteko biblia

Mahastiak **kimuberritzen,** granadondoak loratzen ikustera. Elizen arteko biblia

**kimuberritu** egin zen bere garaian gereziondoa, lorez eta orriz jantzi zen eta ohi zuen eran fruitua eman zuen. Askoren artean

**Kimu-berritzen** hasi direla ikusi eta, besterik gabe, badakizue uda hurbil dela. Elizen arteko biblia

Egurra egiten zuten anaiei, debekatu egiten zien zuhaitza orpotik ebakitzea, **kimu berritzeko** aukera izan zezan. Askoren artean

-Bai, hildakoak ere ez dira **kimuberritzen** -eta gehitu zuen-: zoritxarrez. Juan Garzia

• **2** du *ad* kimu berriak botarazi.

Espainian, Sahagun hirian, San Frantziskok, itxaropen ororen kontra, miragarriro **kimuberritu** zuen erabat ihartuta zegoen gereziondo bat, orri, lore eta fruituz jantziz. Askoren artean

**3** (era burutua izenondo gisa)

Harrapa azeriak, azeri txikitxoak, gure mahasti **kimuberrituak** hondaturik uzten dizkigutenak. Elizen arteko biblia

---

**kimutxo** *iz* kimu txikia.

Artean, **kimutxo** ahula izango zen. Berria - Kultura

---

**kina**[1] *iz* kinika duen edaria.

**Kina** -zurrutada handi bat bota bere baso hustuan, eta marrubizko jarabe pixka batez gozatu zuen. Jon Muñoz

Marrubizko **kina** bat hurrupaka edanez. Jon Muñoz

---

**kina**[2] *iz* loteria zaharrean, bost zenbaki asmatzea.

Isila, ez zen gu bezalakoa, baina Gabon gau hartan **kinan** -halaxe esaten zitzaion gure etxean bingoari- irabazi zigun denoi eta Juan Simonen kantua kantatzen bukatu zuen, Antonio Molinarena. Jon Maia

---

kinada ik **keinada**.

---

**kinario** *iz* erromatar dirua, zilarrezkoa, bost asen edo denario erdiaren baliokidea.

**Kinario** izeneko erdiak ere egin zituzten, dio autore horrek, bai eta sestertzio izeneko laurdenak ere. Iñaki Iñurrieta

---

**kinasa** *iz* hainbat ehunetako gaia, ehun horien berezko entzima abiarazten duena.

Fosfato bat gehituz beste proteina batzuk aktibatzen dituzten entzimen «etengailu» antzekoak dira **kinasak**. Ikerketak MAP **kinasa** izeneko proteinak kormatinaren aldaketan duen funtzioa argitzen du. Berria - Gaiak

---

kinatu ik **keinatu**.

---

kinatu ik **keinatu**.

---

**kindergarten** *iz* haurtzaindegia.

**Kindergarten** baten eta ardandegi baten artean, hantxe zegoen ikastetxea. Joxerra Garzia

---

kinema ik **zinema**.

---

**kinesia** *iz* gorputz higiduren azterketa.

Eta bertsolarien **kinesiaz** zer esan? baliabide paratestualak epai irizpideetan ostatu hartu duten honetan, badira horri etekina ateratzen asmatu dutenak. Berria - Harian

---

**kinesiko** *izond* gorputz higidurei dagokiena.

Espazioaren kontzeptuaren jatorria ikusmenezkoa adina da, beraz, ukimenezkoa eta **kinesikoa**. Josu Zabaleta

Antzerki-lan amerikar honetako alderdi **kinesikoa** ere arrotza egingo zaio zure moduko irakurle euskaldunari: hatz-koskorrak ezpainetan, esku irekia bekokian, atzamarrak lepoan... Xabier Paya

---

**kinesiterapeuta** *iz* gorputz higiduren bidezko sendabidea erabiltzen duen sendalaria.

Jokalarien prestaketa eta osasun zainketarako prestatzaile fisiko bat, bi **kinesiterapeuta,** osteopata bat eta hiru sendagile ditu. Berria - Kirola

Aterpetzen dituen pertsonen jarraipena egiteko lau sendagile, hiru ergoterapeuta, ortofonista bat, 12 **kinesiterapeuta,** gizarte laguntzaile bat eta psikologo bat ditu. Berria - Euskal Herria

«Galdera zehazteko, hautua egiteko, agindua errepikatzeko, urrats guziak aurkeztuko dizkio erabiltzaileari», dio Laurent Larrieu **kinesiterapeutak**. Berria - Euskal Herria

Duela bi urte **kinesiterapeuta** sarea osatu zuten bronkiolitis izurriteei buru egiteko. Berria - Euskal Herria

---

**kinetoskopio** *iz* argazki sailak proiektatzeko tresna, egungo zinemaren aitzindaria.

Gauza jakina da proiektatzen zen irudiaren tamainari esker izan zuela Lumière anaien Zinematografoak izan zuen arrakasta (besteren artean, Edisonen **kinetoskopioari** kendu zion lekua, irudi txikiak baizik ez baitzituen erakusten hark). Josu Zabaleta

---

**kiniela** **1** *iz* futbol trabesa; kirol trabesa.

Hamalauko **kiniela** noiz asmatuko jarri zen bizitzen. Jon Alonso

**Kinieletan** irabazteko metodo bat. Fernando Morillo

**-Kiniela** asmatzea bezala, noski; baina ezinezkoa ez, antza denez. Migel Angel Mintegi

Lurra **kiniela** boleto porrokatu eta txikituz beteta dago. Harkaitz Cano

Dirudienez, berdin dio hamabost barianteko **kiniela** izan zein sei zenbakiko bonolotoa: aukera zantzurik baldin badago, dena geratzen da denboraren esku. Patxi Iturritegi

**Kiniela** guztien aurka, *Los Angeles Lakers*i irabazi zioten etxean. Berria - Ekonomia

**Kiniela** erako lehen Munduko Txapelketa, aldiz, Paueko pilotalekuan jokatuko da apirilean. Berria - Kirola

Durangoko enpresak **kiniela** erako 60 jaialdi eskainiko ditu bertan urtero. Berria - Kirola

**2** *hed/irud* apustua.

Ostera, **kinielak** edo apustuak egin daitezke honenbeste euskaldunduko diren eta harenbeste erdaldunduko. Berria - Euskal Herria

Joan den urteko ekitaldian bezala, kritikarien **kinieletan** agertzen ez zen film batek eraman zuen atzo Berlinaleko sari nagusia. Berria - Kultura

Orain **arte,** kiniela guztietan Michael Winterbottomen *The road to Guantanamo* eta Robert Altmanen *A prairie home companion* azaltzen dira.

Nobel sarirako **kinieletan** zegoen hil zenean. Unai Elorriaga

Faborito ageri da **kiniela** guztietan. Berria - Kirola

---

**kinina** *iz* kinkina-azaletik ateratzen den alkaloidea, helgaitzak sendatzen dituena.

Ironia erremedio zuhurragoa da minaren kontra, **kinina** sukarraren kontra baino Sukar hori bi botikarekin sendatzen zuten; lehenari, garai hartan, kefir deitzen zioten eta galdutako esne garratza zen, bigarrena **kinina** zen. Patziku Perurena

"Andereño gaixoa", esango dute, **"kininak** ez dio onik egin". Xabier Paya

Orduan, **kinina** ematen ziotenean begitazio izugarriak izaten zituen eta iruditzen zitzaion itsas zabalean zebilela zabuka. Pello Lizarralde

---

**kinka** *(orobat **keinka** eta **kenka**)* **1** *iz* egoera estua, herstura.

Hogei urte besterik ez duelarik, sekulako heldutasuna erakutsi dik hire arrebak **kinka** honetan. Txillardegi

-Gu biok **kinka** honetatik ateratzeko bidearen bila ari naiz bakarrik, Tom. Oskar Arana

Ez zen, ordea, Baiona **kinka** horretan zegoen hiri bakarra: han-hemendik tarteka heltzen zitzaizkien albiste-soinu nahasien esanetan, gainezkaturik zeuden Ebrotik Lorenara bitarteko ia ibai guztiak. Anjel Lertxundi

Ezdeuskeria huts kausi daitekeena, baina **kinka** hartan jadanik enetzat aski latza eta nahasia zen eguna oraino gehiago laztu eta nahasi zuena. Janbattitt Dirassar

Onik atera zen **kinka** hartatik. Alberto Ladron Arana

-Urkatu horien **kinka** baino askoz ere itzalagoa dinagu geurea, alaba.Zirt edo zarteko **kinketan** errusiarrak ohi duenez, ez zen luzamendutan ibili, eta, tupustean, eskuinetara jo zuen aurreneko bidegurutzean, zaldiei garrasika: "Axa, lagun agurgarriok! Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

**Kinka** larri hark hartzen zien arreta oso-osoa. Karlos Zabala

Aurreko atalean ikusitakoaren arabera, teoria metaetiko zenbaitek **kinka** larrian jartzen du filosofia moralaren jarduna. Askoren artean

**Kinka** larrian zaude, bada, diodana egiten ez baduzu. Migel Angel Mintegi

Kafetegiko nagusiak atera behar zuen **kinka** estutik. Migel Angel Mintegi

Eta hori gutxi bailitzan, zu txosten konprometigarri baten kontuarekin zatoz, ustez Andoni **kinka** estuan jartzen duen txosten baten kontuarekin. Migel Angel Mintegi

Lajos, ordea, diru behar larrian zen une haietan, amaitzear baitzuen kanbio-letra batzuk ordaintzeko epea... **kinka** gaiztoan zen labur esanda. Ander Irizar

Bost urte hartan zegoen, egia esan, Espainiako egoera politikoa **kinka** gaiztoan. Txillardegi

15-16 urte iri hortan ukan nuen **keinka** bat frango txarra ene bizian; aita galdu nuen lehenik, supituki joan zen eta ama eritu eta... Menane Oxandabaratz

Duela 15 bat urte deitua izan zen zuzendari, elkarte hori **kinka** txarrean zelarik. Herria

Hala eta guztiz ere, **kinka** ez zen lasai egoteko modukoa. Migel Angel Mintegi

1569ko udaberri hartan, ez zegoen **kinka** goxoan. Aingeru Epaltza

**3** ***kinkan*** zorian.

Erantzuteko **kinkan** jarrita, hala esan omen zuen Schlegelek, alegia [...]. Bernardo Atxaga

Mari maite zuen, alaba balu bezala, eta dolu zuen, bere aita izan zitekeen gizona senartzat hartzeko **kinkan** gertatu baitzen. Elena Touyarou

Ipar-Amerikanoek urtarrilaren 16-an igorria zuten espazio-untzia, zazpi kosmolari edo astronauta barnean, bat-batean zartatu da eta dena xehatu lurrerat berriz heltzeko **keinkan**, joanden larunbatean... Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erakundea kinka larrian** (3); **etorkizuna kinka larrian** (5); **geroa kinka larrian** (3); **kinka gaiztoan** (6); **kinka hartan** (9); **kinka hartatik** (5); **kinka horretan** (6); **kinka larri** (19); **kinka larri hartan** (5); **kinka larri honetatik** (3); **kinka larria** (8); **kinka larriak** (3); **kinka larrian** (127); **kinka larrian bizi** (3); **kinka larrian da** (4); **kinka larrian dago** (16); **kinka larrian egon** (5); **kinka larrian jarri** (4); **kinka larrian utzi** (3) kinka larritik (5); **kinka txarrean** (5); **oso kinka larrian** (3); **taldea kinka larrian** (3)

**hartzeko kinkan** (3)

**biziki kenka gaiztoan** (4); **kenka gaiztoan** (9); **kenka txar** (5); **kenka txarrean** (6)

---

# kinkaldi *iz* kinka.

Allikenen bi pertsona bakarrik konturatu ziren nire **kinkaldi** gaiztoaz: ama bata, eta Ixaskun arreba bestea. Txillardegi

---

kinkallero ik **kinkailari**.

---

# kinke *iz* petroliozko argiontzia, andel batez, hodi batez eta garra babesteko estalki batez osatua.

Gure aurrekoak batere argirik gabe biziak ziren, **kinkea** deitzen zitzaion petroliozko ontzi txiki hura besterik ez zutela. Pako Aristi

Atea zabaldu eta ile zuri-zuriko atso txiki bat agertu zen, eskuan **kinke** bat zuela. Koldo Biguri

Begien aurrean dilindan nuen **kinkearen** argia da oroitzen dudan azken gauza. Harkaitz Cano

**Kinke** baten argitan. Bernardo Atxaga

Sabaiko **kinke** kulunkaria. Harkaitz Cano

---

# kinkenal *izond* bost urte irauten duena.

Gorvachoven lehen asmo **kinkenalean** ipini zen abian: labore eta zereal uzta gehitu nahi ba, bestela amerikanoei erosi beharrean baitzeuden Pello Zabala

---

# kinketako *iz*

**Kinketako** batekin asaltoen hasiera edo bukaera adierazten zuen; **kinketako** larriekin, boxeolarien azpi-kolpeak. Bernardo Atxaga

---

# kinketxo *iz adkor* kinkea.

Baina mundua samurragoa zen, neguko gauak luzeagoak zirelako, eta sukaldean egon ohi zen **kinketxo** haren argitara gurasoek, eta aiton-amonek igual, kontatzen zituzten ipuinak, esaten zituzten kontuak, edo bertsoak ere, denak modu berezi batean heltzen zirelako entzuleen belarrietara: erabat sinetsi eta inoiz ez ahazteko moduan. Pako Aristi

---

# kinki[1] (kolpearen onomatopeia)

**1** ***kinki eta kanka***

Antxoin urdinari zartakoa eman eta lurrera bota zuen, eta zerbitzuburuak halako ostikoa eman zion ezen armairu azpiraino bidali baitzuen hegan **kinki** eta kanka. Fernando Rey

Makila konkor bat hartu eta, honexengandik hasi-eta **kinki** eta kanka ez dudala mediku bat bakarrik uharte honetan guztian utziko. Patxi Ezkiaga

**2** ***kinki-kanka***

Arkatzez beteriko erretilu bat lepoaldetik zintzilika eta espaloia kanabera-makilaz **kinki**-kanka joz zetorren. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kinki eta kanka** (3)

---

**kinki**[2] *iz* litxarreroa, lapurra.

Badu, **kinki** edo ijito itxura pixka bat ere. Gotzon Garate

**Kinki** itxurako lagunak irri maltzurra baina jatorra egin dit. Gotzon Garate

Oso behe mailako **kinkia**. Joxemari Iturralde

---

**kinkila** 1 *iz* metalezko gauzaki merkeen multzoa.

**2 *kinkila denda*** (*orobat* ***kinkiladenda***)

Giltzarrapo bat erosi nuen **kinkila** denda batean. Katalogoa ez da ia aldatzen, eta aditua da **kinkila** dendariekiko tratuan. Juan Kruz Igerabide

Igandean bizikleta hartu, eta auzoko ostatuak eta inguruetako janari eta **kinkila**-dendak ikustera joan ziren. Harantzago, telegrafo-bulego bat, **kinkiladenda** bat, tindategi bat eta erre-usain misteriotsua zerion ikuztegi txinatar bat. Joseba Urteaga

---

**kinkilari** (*orobat* ***kinkillero*** *eta* ***kinkallero***) *iz* kinkila satzen duen pertsona.

Itzulitakoan, **kinkilariaren** ezdeuskeria osoa aurkitu dut ene mahai gainean: Zaragozako urrezko kutunak, gorriz eta filigranaz, Segoviako oroitiztak dituzten galtza-kordak, Bilboko ur bedeinkatu ontzi beirazkoak. Koldo Izagirre

Larunbat goizetan azoka izaten zen herrian, herriko jendeak **kinkilleroak** esaten zien, gaztelau asko tratuak egitera elkartzen zirelako edo. Jon Maia

---

**kinkileria** *iz* kinkila.

Altxorrak gordetzen dituen **kinkileria** (altxorrak ez dira, jakina, horren agerian eta inozo aurkezten), metalezko objektu zaharrak, [...]. Joxan Elosegi

---

**kinkili-kankala** *adlag* balantzaka.

Pilar, erantzunik jaso gabe, **kinkili**-kankala atera zen egongelatik, eta halaxe igo zituen eskailerak bere logelara joateko. Aitor Arana

---

**kinkilioi** (*corpusean* ***kinkilloi*** *soilik*) *iz* milioi bat kuatrilioiko kopurua.

Drakeren aspaldiko ekuazioa: N = N*·fp·ne·fl·fi·fc·fL, non N letrak gure galaxia kiribilean izan daitekeen zibilizazio kopurua adierazten duen, hau da, estimaziorik ezkorrenak kontuan hartuta, **"kinkilloia",** Portuk esango zukeen moduan. Patxi Iturritegi

---

kinkillero ik **kinkilari**.

---

**kinkirrin** *iz* herrena, herrenka egitea.

Jende hiztun jakituna ur-axalean **kinkirrin** ergelean nekatzen den harri xapalaren pare da. Iñaki Segurola

Hor ez da euskararik ahoraino iristen edo esan ezinkako **kinkirrin** baldar batean iristen da, erdara mordo baten sasipean kuxkurturik gainera. Iñaki Segurola

---

**kinkiti**

**1 *kinkiti kanka*** kanpaien hotsaren onomatopeia.

**Kinkiti**-kanka eta puzkarka, Sak kurrixka egin zuen espaloi isilaren parean. Xabier Olarra

---

**kinkuagesima** *iz* garizunako lehen igandearen aurreko igandea.

Baina, behar zen bat, denak batera ospatzeko ere, eta hau zen hurrengoa, inauterietakoa, **kinkuagesima** ondorengoa, denentzakoa, orokunde deituko zitzaiona. Pello Zabala

---

kinper ik **binper**.

---

**kinta** *iz* soldadualdia.

Hala ere, Antonio Juanito baino gazteagoa zen eta litekeena da, artean, haren **kinta** deitua ez izatea frentera joateko. Xabier Etxabe

Gero **kintak** jasotzen asi ziran, da orduan ziran komeriak. Iñigo Aranbarri

Horrela orotara sei edo zazpi **kinta** edo klase altxatuak izan ziren Franco-ren alde joaiteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zazpi urte zaharragoa zen Uztapide, eta **kintetan,** bazegoen aurretik nori deitu. Iñigo Aranbarri

**Kintetara** deitu zioten soldadutza egiteko eta Soldadu Langileen Diziplina Batailoietan aritu zen Sondikako aireportua-eta egiten. Jokin Urain

Gu, artean, gure **kintako** denok, larrurik jotzeke geundean. Pako Aristi

Soldadutzara orduko ekarri zuen aitak, **kintako** beste batekin. Urtzi Urrutikoetxea

Hura nire **kintakoa** baitzen: eskolan elkarrekin ibiliak. Pablo Sastre

Errukarriak, berrogeiko **kintakoak..**. Xabier Etxabe

---

kintaesentzia ik **kintesentzia**.

---

**kintal** 1 *iz* pisu neurria, ehun libraren baliokidea.

Gurpilez mugitzen ziren bi edo hiru **kintaleko** galdara xumetan. Juan Garzia

Seina pezeta **kintaleko**. Pello Zabala

**2** (neurri gisa)

**Kintal** bat gari saldu zuen, ardoa erosteko. Pablo Sastre

**Kintal** bat dinamita lotu behar nuen. Koldo Biguri

-Banekielako etxe zaharraren azpiko hartzuloan sei bidoi gasolina, [,,,], zazpi ametrailadora eta hiru **kintal** dinamita zeudela ezkutaturik. hainbat **kintal** azido pirubiko jariatu genuen, troglodíten duin zen tresneria batez ekoiztua, Gazta sartu ziguten, **kintaletan,** bizkotxoa bezala. Koldo Biguri

**3** ***kintal erdi*** *(orobat* ***kintalerdi****)*

On Camillok **kintal** erdiko kandela-makila bati heldu eta mehatxuka astindu zuen. Koldo Biguri

Apaiz jaunak, latina jakinda eta **kintalerdiko** liburuekin ikasi badu ere, […]. Koldo Biguri

Zer akidurak biltzen ziren beti kurri eta zenbait aldiz zaku pisu bat bizkarrean, berdin **kintal** erdikoa! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**4** ***kintal metriko*** sistema metrikoko kintala.

Denen artean, begira botata, 1.205.000 kintal **metriko** belar jo zuten, eta seina pezeta kintaleko: 7.230.000 pezeta... orduko pezetak, noski. Pello Zabala

---

kintalerdi ik **kintal 3**.

---

# kintalka *adlag* kintala neurri harturik, kopuru handietan.

Soroa, lastoa, artoa eta egurra **kintalka** edeki zizkien inguruan finkatu soldaduek premiazko gauzen eskasiarik ez zezaten ukan. Elena Touyarou

**Kintalka** botatzen baitu itsasoak petrolaki zikina. **Kintalka** argazki-xafla errefusatuak. Herria

---

# kintario *iz*

Hamaika, seiari bosta gehituz ateratzen da, hau da, **kintario** bat, eta grezieraz horri *epipemptos* deitzen zaio; hamabia da zenbaki oinarrizkoa, seia bi aldiz batuz ateratzen delako, eta grezieraz *diplasios* deitzen da. Santiago Iruretagoiena

---

# kinteroi *iz* zuriaren eta kuarteroiaren semea edo alaba.

Erdian: mestizoak, mulatoak, kuarteroiak eta **kinteroiak**. Pako Aristi

---

# kintesentzia *(orobat* ***kintaesentzia****)* *iz* funtsaren funtsa.

Hemen guztiaren erro eta arima -nazioaren **kintesentzia,** arrazaren zentzu, mundu-ikuskeraren egitamu, patu historikoaren argi, eta zer ez-, hizkuntza da, hitza. Joxe Azurmendi

Baina erne ibili: adierazpen hori nik egiten dudanean landu-landua da, **kintaesentziazkoa,** eta ez du batere zerikurisik beste batzuei erraietatik ateratzen zaizkien enuntziatu baldarrekin. Karlos Zabala

---

# kinto **1** *iz* soldadugaia.

Eta **kinto** ez joatearren erruz lotu zitzaizkien ihesari euskal gazteak. Jokin Urain

Azken batean, 1936 eta 1941 urte arteko **kintoetan,** erregimenak "desafekto" izendatuentzat prestatutako soldadutza bereziak ziren. Jokin Urain

**Kintoen** jai horietako bat gogorarazten diola aipatu du norbaitek, ahapeka. Iban Zaldua

Gerrateko urte parean ere han ziharduten fraide ikasle gazteenek, **kintoetatik** libre. Pello Zabala

Lehenik estropadak, gero **kinto** bazkaria eta arratsaldean partida Realakin. Pello Salaburu

Leioan bertan eta ordu berean jokatuko dute **kintopekoen** txapelketa bost harri-jasotzaile gaztek. Berria - Kirola

**2** soldadualdi berekoa.

**Kintoak** ginen, urte berekoak. Hasier Etxeberria

---

# kintze *iz* pilota jokoetan eta tenisean, tantoa.

Geroago, Iparraldean, "tanto" edo **"kintze"** hitzaren orde, erraiten zakoten *xaxa.* *Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren*

**"Kintze"** oraino ere ibiltzen da zenbait tokitan ; tanto eder bat gertatzen delarik, nork ez du entzun : "Zer **kintze** ederra !"? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Kintzez** berdin! trebesa libro! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Titinek 3 **kintze** botetik, Olaizolak bat. Herria

Bizpahiru **kintze** baizik ez zituen eskas berdinketaren lortzeko. Ramuntxo Etxeberri

Baina bost aldiz ados azken hogei **kintzeetan**. Herria

**Kintzea** laster trenkatu nahian. Herria

Azken **kintzea** trenkatu zutelarik, oihu eta esku-zartak ixildu baino lehen ere xutitua nintzen. Janbattitt Dirassar

Amorratuak ari dira lauak, indar guziak bildurik, izerdi uretan, hiru minutaz **kintze** bat ezin trenkatuz, eta trinketean hiru minutako **kintzeak** luze emaiten du, jendea jarririk, xutik, orroaz, txaloka, elgarri mehatxuka, zangoekin zanpaka. Michel Oronoz

Claude ondar **kintzeraino** borrokatu eta nagusitu. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kintze botetik** (5); **kintze eder** (7); **kintze ederrak** (5); **kintze ederrak ikusi** (3); **kintze egin** (8); **kintze egin ditu** (5); **kintze luze** (4); **kintze pollitak** (3); **kintze segidan** (4); **kintze xoil** (6); **kintze xoil batez** (3); **nahiz kintze** (4)

**azken kintzea** (10)

**azken kintzean** (4)

**kintzeko lerroa** (5)

---

# kintzeka *adlag* banako gisa kintzea hartuz.

Artzainak, artaldea ongi artatu ondoan, aritzen ziren pilota luzean eta beren kondatzeko moldea zuten orain tenisean bezala, **kintzeka** eta jokoka. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

kiñu ik **keinu**.

kinuka ik **keinuka**.

**kiosko** **1** *iz* aldizkariak, loreak eta kidekoak saltzen diren kale-etxola modukoa.

Gero **kiosko** batean aldizkari bat erosi eta inguruko kafetegi batera sartu zen. Joxemari Iturralde

**Kiosko** txiki batean posta-txartel banaka batzuk erosi ditu. Javi Cillero

Mirande tren geltokian zegoen, egunkarien **kioskoari** begira. Javi Cillero

Egunkaria erosi zuen tren geltokiko **kioskoan**. Joxemari Urteaga

Lore bat erosi zion Josebak **kiosko** batean hozturik zegoen adineko gizon bati. Iñaki Zabaleta

Sabeth **kiosko** batera doa, zigarreta bila. Joxe Austin Arrieta

Gure ondoan **kiosko** txiki bat zeukan emakume batek esnea eta ogia eman zigun. Juan Kruz Igerabide

INEMen bulego ondoko telefono kabinaren ordez ONCEren **kiosko** bat zegoen. Iban Zaldua

Goiz batez, bertaratu, eta **kioskoa** itxita aurkitu nuen. Karlos Linazasoro

Gero emaztea hil zitzaion tronbosi batek jota, eta **kioskoa** itxi zuen. Karlos Linazasoro

**2** musika kioskoa.

Donibane Lohizuneko plaza jendez mukuru, orkestra **kioskoan,** ostatuak eta kafetegiko terrazak beteak. Xabier Montoia

Hamabietan udal bandaren kontzertua **kioskoan**. Josu Landa

Zapatu arratsian, Barakaldoko **kiosko** batean jorik, domekan be bardin ekingo eutsien, barriro Andrakan lo eginda. Xabier Amuriza

XX.mende hastapenean, **kioskoak** gazteriaren bilguneak ziren, musikaren entzuteko, dantzatzeko edo elgarren ezagutza egiteko. Herria

**Kioskoko** eskaileretan geunden eserita. Iban Zaldua

Donostiako Bulebarreko **kioskoaren** aurrean. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Zuhaitzek eta eserlekuek ez ezik errepidearekin parez pare luzatzen ziren hiru **kiosko**-dendak inguratzen zuten Plaza Nagusia. Pedro Alberdi

· Hurbil zegoen prentsa-**kiosko** baterantz. Josetxo Azkona

Bertan lursail landu gabe bat zegoen, izozki-**kiosko** bat zegoena, eta aldiriko azken etxeak ikusten ziren. Fernando Rey

**4** ***musika kiosko***

Parke itxietan **musika kiosko** hutsak eta estaliak, barandak igotzen errazak zituztenak. Koro Navarro

Arratsaldean, parkean, bakarrik egon nintzen **musika kioskoaren** ondoan eserita. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bulebarreko kioskoan** (5); **plazako kioskoan** (5)
> **bulebarreko kioskoaren aurrean** (3); **kioskoaren ondoan** (4)

**kioskotxo** *iz* kiosko txikia.

**Kioskotxo** batera goaz. Edorta Jimenez

**kiotar** *izlag* Kio greziar uhartekoa, Kiori dagokiona; Kioko herritarra.

Kion ere, ikusiz etsaiek erasoko zubiak jarri zituztela itsasontzien gainean, **kiotarrek** gauez lurra, harea eta harriak bota zituzten harresiaren aurrean itsasora. Santiago Iruretagoiena

**kipe** *iz* Perun, bizkarrean eramaten den fardela.

Bizkarrean **kipe** handia daraman eta gelditu gabe segitu duen andre horrek. Joseba Sarrionandia

Indioz, **kipez** eta oiloz betetako hirugarreneko bagoietara pasatuko zara. Joseba Sarrionandia

**kirasdun** *(31 agerraldi, 21 liburu eta artikulu 1ean; orobat* ***kirastun*** *12 agerraldi, 8 liburutan)* **1** *izond* kiratsa dariona. ik **kiratsu**.

Ur likatsu eta **kirasdunean** uzkurtu naiz, aterpe bila. Mirentxu Larrañaga

Ur beltz geldi **kirasdunak**. Karlos Zabala

Gela **kirasdun** eta kez beterikoan. Mirentxu Larrañaga

Dominististiku egiteko hautsak, bonba **kirastunak**. Koro Navarro

Tren hark ganadua garraiatzeko hirurogei bagoi beltz, hirurogei bagoi **kirasdun,** hirurogei bagoi hondatu [...] ekartzen zituen jendez beteta astelehenero. Felipe Juaristi

Larru-lantegietako zabor **kirasduna**. Oskar Arana

Gaztaren zakartasun **kirasduna**. Karlos Zabala

Guri, zital eta doilor, ustel eta **kirasdun,** eskergabe eta gaiztooi, on guztiak egin eta egiten dizkiguna. Askoren artean

**2** irud/hed

Ez hori bakarrik, urteetan Hollywooden ikusitako negozio **kirasdunari** zaplazteko dotorea emateko aprobetxatu zuen. Berria - Kultura

**kirastu,** kirats/kirastu, kirasten **1** da *ad* oso usain txarrekoa bihurtu.

Baltsamoa eta musketa nahasten ditut, anbar zuria eta zibeta, airea **kirasten** denean. Joan Mari Irigoien

Airea **kirastuz** gero, akabo! Edorta Jimenez

Hil egingo dira arrainak eta **kirastua** geldituko ibaia. Elizen arteko biblia

Bi edo hiru egun ematen zituen kanpoan, eta gero zerri eginda itzultzen zen eta zarpailduta eta **kirastuta**. Jose Morales

Munduak lehen bezain hits eta **kirastua** izaten segitzen du Bukaresteko kale azpiko txiroentzat. Berria - Mundua

**2** du *ad* oso usain txarra bota.

Euli hilek lurringilearen olioa kutsatzen eta **kirasten** duten bezala. Elizen arteko biblia

Zapuztua izateak buru-barrenak **kirastu** zizkion. Gotzon Garate

Marjolin isildu zen usainen bilkurak **kirasturiko** bazter hartan. Karlos Zabala

Gorputza lizuntzen, izpiritua zukutzen eta gogoa **kirasten** dioten kaiola-zuloraino bota dute legearen atzapar beti bidegabezkoek. Iñaki Segurola

**3** (era burutua izenondo gisa)

Haur narratsez beteriko adreiluzko kale **kirastuetan** zehar. Birikak airez bete ditu Parisko aire **kirastutik** kanpora. Lopez de Arana

Kandelek sorgindu egiten dute salako giro **kirastua** eta dena da haragi eta itzal, ke eta alkohol. Patxi Zubizarreta

Ene zorigaiztoaren putzu **kirastuan** sudur-mintzetaraino lokazturik. Aingeru Epaltza

Mendi zabortuak, hiriaren estolda ustel-**kirastuak**. Pako Aristi

---

kirastun ik **kirasdun**.

---

# kirats *(orobat **kirets** g.er.)* **1** *iz* oso usain txarra.

Gero, ekaineko arratsalde sargorietan, **kiratsa** lurretik gora altxatu eta lurrun atsitu batek astundu zuen eguratsa. Karlos Zabala

Sekulako **kiratsa** ekarri zuen aireak. Anjel Lertxundi

**Kiratsa** zerion Piet Kramerren izerdiari. Joxan Elosegi

Zomorroz beterik eta **kiratsa** zeriela. Gotzon Garate

Hildakoak bazterretan botako dituzte: haien gorpuek **kiratsa** botako dute. Elizen arteko biblia

Zingirek **kirats** ustela zabaltzen ditek, euriak beroa ematen dik. Xabier Olarra

Haren ustel-usaina zabalduko da, **kiratsak** airea beteko du. **Kirats** eta zarata handia zegoen. Elizen arteko biblia

Erretako ilearen **kiratsa** aditzen da. Oskar Arana

Irentsi ezak **kirats** hori eta izorra hadi. Unai Iturriaga

Nondik zetorren atzera eragiten zuen **kirats** hura ordea? Patxi Iturritegi

Karburoarena bezalako **kiratsak**. Fernando Rey

Malastasun-usain hura, umotasun ustelduzko **kirats** hura. Joxe Austin Arrieta

Trinko-trinkoa zen **kiratsa;** eta epela. Anjel Lertxundi

Baina **kiratsaren** sarkorrak berak geldotzen ninduen, soraiotzen, sortzen. Txillardegi

**2** (izenondoekin)

Bidean bereziki nazkagarria zen putzu bat ikusi zuen, **kirats** handiko lohi berde higuingarria zuena. Iñaki Mendiguren

**Kirats** arina artean, hezetasun sunda gozoa bezain higuingarria. Karlos Zabala

Halako **kirats** mindu arin bat iristen zaio, garbitu gabearena. Oskar Arana

Petrolioari zerion **kirats** itogarriaz. Txillardegi

Gero, **kirats** nazkagarriak, arrain ustelen usainak, igaro ziren haren ondotik, goragalea eraginez. Karlos Zabala

Mofetaren **kirats** nardagarriak. Anjel Lertxundi

Gazta eta gurinen **kirats** atsitua. Karlos Zabala

Normandiar ederraren postuaren aurrera iristerakoan, **kirats** jasangaitza sumatu zuen. Karlos Zabala

Luzaroan eraman genuen bidailagun **kirats** gozo hura, gehiago ezin izan genuen arte. Joxe Austin Arrieta

Bazen leku hartan **kirats** gozo melenga bat, lokatzak eta ur geldiak baino areagoko zerbaitek eragindakoa behar zuena. Mirentxu Larrañaga

**3** irud/hed

Erreformaren **kirats** infernuzkoa zerion. Aingeru Epaltza

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Senarrak esku-zartatxoak eman zizkion emazteari, **kirats**-usaina zerion sorbalda zeta beltzez estalitakoan. Mirentxu Larrañaga

Merkatuak uztailaren gaualdi sargorietan izaten duen **kirats** tanta. Karlos Zabala

Ate irekien artetik datorren haize umelak **kirats** bafadak ekarri dizkio. Pello Lizarralde

Jantzietan ere nabaria zen zuloetan jasotako **kirats** nahastea. Migel Angel Mintegi

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arrain **kiratsa** zerion. Karlos Zabala

Pattar-**kirats** nazkagarria. Jose Morales

Barruko gelan, gernu-**kirats** larria darion giroan, Bev Shaw ari da lanean altzairuzko gaina duen mahai apal baten aurrean. Oskar Arana

Baina nor limur dezaket nik zuldar zorne-**kirats** hauekin? Anjel Lertxundi

Bertan ukuilu-**kiratsa** nagusi zen eta zaborrez beteriko espaloien gainean umeak katuka zebiltzan. Lopez de Arana

Eta ustel **kirats** itogarria itzuri zen luzaz. Txillardegi

Musika melodikoak badu halako zahar **kirats** bat gaurko gazteentzat. Pako Aristi

Bere baleontziak baino arrain **kirats** handiagoa zuten. Juan Garzia

Karburo-**kirats** pixka bat. Fernando Rey

Han ez zegoan, benetan, gerra-hotsa eta bolbora-**kiratsa** besterik. edo Verari indultua emanez **GAL** kiratsa duen auzian eskuak zikindu, edo Gonzalezi aurre egin. Txillardegi

· Ohiko arrain-ustel **kirats** azkarra falta zen, ordea Txillardegi

• **6** *izond* oso usain txarra dariona, kirasduna.

Sua egina zegoan patioaren erdian, eta ke **kirats** bat igotzen zuan, gamelu-gorotza baitzen hango erregaia. Xabier Olarra

Haren jaiotza-datarik ez dakigu; baina egun beltz batez sortu zen, urte **kirats** batean. Juan Garzia

Satsukeria **kirats** hartaz ez zitzaigun artean iritsi inolako berri zehatzik. Juan Garzia

Migeli hezetasunak hezur-mamiak ustelduko zizkion edo larruei darien laino **kiratsak** birikak erreko. Aingeru Epaltza

Kutrea bai, baina han arnas zitezkeen kontzertu potente baten osteko izerdi **kiratsa**. Unai Iturriaga

Gogoa, itsasorik gabeko arraina, **kirats** izatera zigortua. Lander Garro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kirats izugarria** (3); **kirats nardagarri** (4); **kirats nazkagarri** (3); **kirats nazkagarria** (4); **ustel kirats** (3)

**ahoko kiratsa** (3); **arrain kiratsa** (3); **hatsa eta kiratsa** (4); **hori kiratsa** (3); **ikaragarrizko kiratsa** (3); **kiratsa aditzen** (3); **kiratsa botako** (4); **kiratsa botatzen** (8); **kiratsa darie** (6); **kiratsa dario** (10); **kiratsa jasanezina** (3); **kiratsa zabaltzen** (3); **kiratsa zegoen** (3); **kiratsa zerien** (9); **kiratsa zeriola** (3); **kiratsa zerion** (18); **nolako kiratsa** (3);

**sekulako kiratsa** (3); **ustelaren kiratsa** (5); **zerion kiratsa** (3)
**kiratsez bete** (5); **kiratsez bete zen** (3)

---

# kiratsu *(orobat* ***kirastsu*** *g.er.)* *izond* kiratsa dariona. ik **kirasdun**.

Aire **kiratsu** eta pozoitsu honekin ez dira biziko! Agustin Otsoa

Ezustean bere bota garbi-garbiak istil **kiratsu,** lohitsu batean sartu balitu bezala. Jose Morales

Hilotz **kiratsuak** erretzean. Xabier Amuriza

Haien aurrean, Mordorrerantz, padura zornatua eta zingira **kiratsuak** hedatzen ziren lubaki gisa. Agustin Otsoa

Dakusgun orain zergatik izaki bakoitzak janari ezberdina behar duen eta zergatik batzuentzat **kiratsu** eta mingots dena beste batzuei ezin gozoago irudi dakiekeen. Xabier Amuriza

Lurrin **kiratsu** eta mistiko bat, opakoa, astuna, nekez antzematen zena, berun-kolorea. Koro Navarro

Etil merkaptanoa (mofetak duen substantzia **kirastsu** bat) oso kontzentrazio txikian detektatzen da. Irene Aldasoro

---

# kirets ik **kirats**.

---

# kirgiz **1** *izlag* kirgizistandarra, Kirgizistangoa.

**Kirgiz** talde bati. Karlos Zabala

Zurrumurrua zebilen ahoz aho herri **kirgizak** altxatu ote ziren eta tatariarrek inbasioari ekin ote zioten. Karlos Zabala

• **2** *iz* kirgizistandarra, Kirgizistango herritarra

Bi herri: **kirgizak** eta txuktxiak, biak Errusiaren menpe gaur egun. Karlos Zabala

Beldur izatekoa baitzen **kirgizen** artetik askok eta askok bat egingo ez ote zuten tatariarrekin. Karlos Zabala

**Kirgiz** ibiltarien leinu handiko tribu zenbaitek. Karlos Zabala

Siberiarantz oldartu da, **kirgizen** estepetarantz. Karlos Zabala

Aspalditik saiatzen ari ziren Turkestango tatariarrak [...] bai indarrez bai limurtasunez **kirgizen** herriak Errusiaren mendetik ateratzen. Karlos Zabala

---

# kirgizistandar *izlag* Kirgizistangoa, Kirgizistani dagokiona, Kirgizistango herritarra.

Bertzeetan bezala polizia eta soldadoak aldatu dira **Kirgizistandar** asaldatuen alde ezarriz. Herria

---

# kiribil **1** *iz* espiralaren itxurako gauza; helizearen itxurako gauza.

Ile gorrixkaren mataza izurtu batek **kiribil** lisoez zedarritzen zion kopeta luze eta estua. Lopez de Arana

Ilea, **kiribil** xelebreetan bizkarrean beheiti egiten ziona. Aingeru Epaltza

Eta hain **kiribil** luzeak zituen ilean, urrunetik kandela beltzak ziruditen. Julen Gabiria

**Kiribil** txikiak egingo dira, gainera, abakoaren erdian. Santiago Iruretagoiena

Are nabarmenagoak dira kizkur eta **kiribil** horiek hatz-mamietan. Irene Aldasoro

Sugarrezko **kiribil** urdinskak. Karlos Zabala

Lambda bakteriofagoaren eta laktosa sistemaren **kiribil** erregulatzaileetan bakarturiko mutante negatibo azpiratzaileak. Juan Garzia

**2** irud/hed

Jon Juaristiren **kiribil** malenkoniatsuaren gatibu garenoi. Berria - Kultura

Elkarrekin etzan dira **kiribil** bat eginda. Javi Cillero

Gogoaren **kiribil** bihurri haietan sartzen saiatuz. Iñaki Iñurrieta

Absurduaren **kiribilean** sartzen zara hor. Iñaki Iñurrieta

*ik beherago* 7. Askoren artean

**Kiribilak** eginez jo du lurrerantz. Mirentxu Larrañaga

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egun luze hartako maitasunak zurrunduak zizkion ile- **kiribilak** ... ile-**kiribil** beltzak... Lopez de Arana

Kopetarainoko ile-**kiribil** luze ongi apainak. Fernando Rey

Gabarrak, beren ke-**kiribil** leunengatik urrutira ezagun. Irene Aldasoro

Mahatsondo-**kiribil** likatsuen antzera. Lopez de Arana

Intsentsu-**kiribilak** erabat desagertuak zirenez, errazago hartzen zuen arnasa Ruche jaunak. Jon Muñoz

Mahaiaren gaineko pergamu-**kiribilak** aztertu nituen lehenik. Edorta Jimenez

**4** *izond* espiralaren itxurakoa; helizearen itxurakoa.

Galaxia **kiribil** baten inoizko irudirik zehatzena lortu dute. Berria - Gaiak

Lerro hori **kiribil** gero eta txikiagoetan biltzen. Karlos Zabala

Oinutsik zegoen, eta motots batera bildua zeraman adats **kiribil** gaztainkara. Aingeru Epaltza

Adats uhin luze eta **kiribilak** bizkarretik behera erortzen zitzaizkion. Felipe Juaristi

Pontxearen lurrun **kiribilaren** usaina. Irene Aldasoro

Estua eta **kiribila** zunan eskailera, eta kontuz jaitsi behar zitunan mailak. Anton Garikano

*ik beherago* 8.

Aihen zuri **kiribil** batek tira egiten dio iletik. Itziar Otegi

**5** irud/hed

Baltse baten doinu **kiribila** igotzen zen. Lopez de Arana

**6** (adizlagun gisa)

Soilgune baten ertzean boa bat erdizka ikusi zuelako, isatsa **kiribil,** burua tente. Karlos Zabala

**7** ***kiribilean*** *adlag* kiribila osatuz.

Kea **kiribilean** gorantz doala. Elizen arteko biblia

Bat gorantz hegaldatu zen **kiribilean,** hegal zuriak eguzkiaz gainezkatu ziren. nire gibelaldean **kiribilean** bildurik ageri zen buztan txikia. Lopez de Arana

Jira eta bira ibili zen, **kiribilean,** sigi-saga, itzulipurdika. Iñaki Mendiguren

Beste saski batzuetatik zetozen garrasi etengabeek indarge gora egiten zuten **kiribilean**. Lopez de Arana

**8** ***eskailera kiribil*** ik beherago **10.**

Garrotaren dendak **eskailera kiribil** bat zuen lehenengo solairura igotzeko. Josu Zabaleta

**Eskailera kiribil** baten maila koipetsuekin trabatzen zelako. Oihal gorriz apainduriko **eskailera kiribil** baten azpian. Karlos Zabala

Harry, Ron eta Hermione **eskailera kiribil** estu hartan gora igo ziren. Iñaki Mendiguren

Presaka **eskailera kiribilean** behera joan zen Lavenderrengana. Iñaki Mendiguren

**9** ***kiribil-kiribil***

Erratz gainean **kiribil-kiribil** eginda zegoen, zangalatraba. Josu Zabaleta

Bere erdiloan maindire gainean **kiribil-kiribil** eginda. Josu Zabaleta

**10** ***zurubi kiribil*** eskailera kiribila.

Zurubi **kiribil** luze batetik behera abiatu nintzen. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eskailera kiribil** (11); **eskailera kiribil estu** (3); **ile kiribil** (8); **kiribil estu** (3); **kiribil kiribil** (4); **kiribil kiribil eginda** (3)
**ile kiribila** (4)
**ile kiribilak** (3)
**eskailera kiribilean** (11); **eskailera kiribilean behera** (9)

---

## kiribilarazi, kiribilaraz, kiribilarazten du *ad* kiribiltzera behartu.

Beldurrak gure baitara **kiribilarazten** gaitu. Harkaitz Cano

Galtzak gerri inguruan gakorratzez jostarazi zizkion Big Lannieri eta berna-hezurretan gora **kiribilarazi**. Mirentxu Larrañaga

---

## kiribilatu ik **kiribildu**.

---

## kiribildu, kiribil(du), kiribiltzen *(orobat **kiribilatu**)* **1** da *ad* zerbait edo norbait, zerbaiten edo bere buruaren inguruan kiribilean jarri. ik **kiribilkatu**.

Dardarka **kiribildu** zen bere baitan, eta eskuak igurtzi zituen. Anjel Lertxundi

Nathanielen kontra **kiribildu** zen. Anjel Lertxundi

Monikak abagunea aprobetxatzen zuen nire ondoan **kiribilduz** txerak eta balakuak egiteko. Joxean Agirre

Bainuontzia zabala zen, baina anderearen hankak nireekin **kiribildu** ziren. Juan Martin Elexpuru

Nire hanka eta besoak bere gerrian **kiribildu** dira. Juan Martin Elexpuru

Katuaren isatsa **kiribildu** egin zen eta begiak txikitu. Iñaki Mendiguren

Eta haren aihenak orkatiletan sugea bezala **kiribilatzen** ari baitzitzaizkion. Iñaki Mendiguren

Basiliskoaren burua beheratzen ari zen, gorputza **kiribilatzen**. Iñaki Mendiguren

Pilota baten antzera **kiribildu** naiz, triku baten moduan. Mirentxu Larrañaga

Ni Norma Lúciaren boa nintzen eta hura sagutxoa, haren inguruan **kiribildu,** eta irentsi egingo nuen presarik gabe. Karlos Zabala

Lepoa altxatu behar izan dut korrontea nire inguruan **kiribildu** denean. Alberto Barandiaren

Bapore-untzi batek ke adar luzea marraztu zuen airean, eta han geratu zen apainkiro bihurritu eta **kiribiltzen**. Anton Garikano

Iluntasun arrosakaran tabakoaren kea poliki **kiribildu** eta barreiatzen zen. Jose Morales

Sua zutabeen kapiteletan **kiribildu** zen, gangaz ganga sabaietan barrena irristatu. Juan Garzia

Sendakutzaren sinboloan ere Jainkoaren makilan **kiribildurik** sugea ikusten dugu. Gotzon Garate

Abere zaurituak bezala **kiribildua**. Felipe Juaristi

Lurrean etzanda dago berokipean **kiribilduta**. Mirentxu Larrañaga

Ilea garbi eta emeki **kiribildua** lepoalde mehean. Mirentxu Larrañaga

**2** irud/hed

Zelda hartako hotza hezurretaraino **kiribiltzen** zen. Harkaitz Cano

Ahots biak, sopranoa eta tenorra, aurrez aurre, elkarren inguruan **kiribiltzen,** sugeak bezala, hitzik gabe. Oskar Arana

Mingarriro laztantzen nau haren oihartzunak, arima barruraino sartzen zait, bihotzaren inguruan **kiribiltzen** da. Jose Morales

Sermoi luzerako bidea hartzen zuenean, jende gehiena nor bere barneko pentsakizunetara **kiribiltzen** zen. Pako Aristi

Gero, istorioa oso **kiribiltzen** da, bizpahiru hilketa daude, ezpata borrokak barne. Javi Cillero

Egun batez, ordea, denen irri-bazka izateaz nazkaturik, mututasun erabatekoan **kiribildu** zen. Anjel Lertxundi

Eztabaida neska haren inguruan **kiribildu** zen segituan. Bernardo Atxaga

• **3** du *ad* zerbait zerbaiten edo bere ardatzaren inguruan kiribilean jarri.

Esan gabe doa gutuna **kiribildu** eta kutxan gorde zuela. Jose Morales

Izararen ertz bat hartu, eta huraxe **kiribildu** zuen hatz artean. Anjel Lertxundi

Hestebetegileak koilarakada handiz onila bete ahala, odolkia **kiribiltzen** zuen metalezko azpil biribil batean. Karlos Zabala

Adaren burkopetik ateratzen zen ile-adats bat **kiribiltzen** hasi zen gero bi hatz jolastiren artean. Anjel Lertxundi

Printzesa ikusi eta txanoa kendu zuen, hurbildu zitzaion, begiratu zion, tartariar erako bibote puntak **kiribildu** zituen irribarrez. Felipe Juaristi

Bi hatzekin bibotea **kiribiltzen**. Joan Mari Irigoien

Bere behatz erakuslean nire ilea **kiribildu** eta barre egiten zian tarteka. Joxean Agirre

Irribarre xume bat eginik, nire bularreko biloa **kiribildu** zuen hatz puntekin. Anjel Lertxundi

**4** (era burutua izenondo gisa)

Erantzun modura, eskribauak pergamu **kiribildu** bat eskaini zion. Edorta Jimenez

Orri **kiribildu** bat heldu zen bulego batetik bestera mezuak banatzeko erabiltzen zituzten tutu pneumatikotik erretilu batera. Anjel Lertxundi

Harryk txerri-buztan **kiribildua** ikusi zion, praketako zulotik kanpora irteten. Iñaki Mendiguren

Zure bihotza, suge **kiribildua** bailitzan -beldurra askotan espiral bat da, zabaldu egiten da espiralaren jatorri zehazgabetik- azalberritzen sentitzen duzu. Harkaitz Cano

Nire izen-deiturak letra handi **kiribilduaz** idatziak. Aingeru Epaltza

Idazkera **kiribildu** batez. Alberto Ladron Arana

Ehunezko xafla fin sendo batek bitan banatzen du hodi **kiribilduaren** barrua. Irene Aldasoro

Alanbre **kiribildu** batekin iltze bati lotuta dago [...] atea. Harkaitz Cano

Txolarrea ikusi du [...] alanbre **kiribilatuan** hankatik kateatuta, lau-bost metroko altueran. Jokin Urain

Labirinto **kiribilatu** hau zentzugabekeria sinestezinez betea aurkituko du. Juan Martin Elexpuru

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gorputzean kiribildu** (3); **inguruan kiribildu** (4)
> **inguruan kiribiltzen** (7)

---

## kiribildura *iz* kiribil formako gauza.

Heldu-lekuaren **kiribildura** aker-adarren antzeko hari esker. Harkaitz Cano

Hatzak berotzeke, biolin hariak afinatzeke, bi eskuak doblaturik, hatz erdikoa biolinaren **kiribilduran** ipinirik, itsua jotzen hasi zen bat-batean. Felipe Juaristi

Berehala, ordea, burua altxatu zuen eta bi esku irekiez harturik, batak **kiribilduratik,** botoitik besteak, biolina argitara ekarri zuen. Felipe Juaristi

---

## kiribilka *adlag* kiribilak egiten.

Kopeta zabala zuen [...] eta adatsa ugaria eta kizkurra, **kiribilka** ihesi zihoakiona, kapela moskutarra jantzita zeukalarik. Karlos Zabala

Sugarrek hondakinen artean dantzan eta **kiribilka** jarraitu zuten. Agustin Otsoa

Berpiztea islatzen duten landareak dira, **kiribilka** espiralean aihenatzen direlako. Pello Zabala

Ke adar zenbaitek, zeru ertzetik gora **kiribilka,** herrixkak eta baserriak oraindik erretzen ari zirela adierazten zuten. Karlos Zabala

Elur-maluta handiak jira eta bira zebiltzan, haien inguruan **kiribilka**. Lopez de Arana

Katua magalean **kiribilka** zebilkidan, bizkarrez behera. Alkoholaren lurrinak **kiribilka** egiten zuen gora. Lopez de Arana

Txokolate egosiaren usaina leihoen azpiko burdinsareetatik gora igotzen zen, **kiribilka**. Lopez de Arana

Eguzkiaren argia **kiribilka** zebilen bela handi zuri-zurien inguruan. Lopez de Arana

---

## kiribilkari *izond* kiribilean biltzen dena.

Amak 1970 ean, lagun bat Berlinen ezkondu zeneko hartan, jantzi zuen soineko beltz txiki gerri baxua, gona **kiribilkaria** eta parpaila beltzez hornituriko mahukak. Joxan Elosegi

Sordinaz jotako musika **kiribilkariak** Hindustan zekarkigun gogora. Lopez de Arana

---

## kiribilkatu, kiribilka(tu), kiribilkatzen **1** da *ad* kiribildu. ik **karabilkatu; kurubilkatu.**

Sugea gorputzaren inguruan **kiribilkatu** zitzaion eta leizera eraman zuen herrestan. Joanes Urkixo

Banderak milikatzen, **kiribilkatzen,** bihurrikatzen ari ziren, mihi gosetien gisan. Lopez de Arana

• **2** du *ad*

Nebak, ordea, burdin haria lepoan **kiribilkatu** zion eta indar handiz estutu. Gotzon Garate

Goseak erraiak **kiribilkatu** zizkidan. Itxaro Borda

Bufanda **kiribilkatzea** izan zuen ispilu aurreko azken egitekoa. Antsiak **kiribilkatzen** zuen. Josu Landa

---

## kiribilo *iz* kiribila.

Eskua gora eta behera zerabilkion aluan, eta neskak oihu egin zuen, **kiribilo** bat eginda: "akabatu egingo nauzu! akabatu egingo nauzu!" Juan Martin Elexpuru

---

## kiribiltsu *izond* kiribilez betea; bihurgunetsua.

Bikote antzuen arazoa konpontzeko, kimikaren bide **kiribiltsuagoak** erabiltzen urteak zeramatzaten Pariseko Pasteur Institutuan eta New Yorkeko Sloan Kettering ospitalean, besteak beste. Hasier Etxeberria

---

## kiribiltxo *iz* kiribil txikia.

Transkripziorako, herskari ahostunen ikur arrunta **kiribiltxo** moduko batez luzatzen da gora eta eskuinetara. Lourdes Oñederra

---

## kirie *iz* mezan, introitoaren ondoan, apaizak Jainkoari egiten duen deia; dei hori abesten den musika.

Santesteban maisuaren mezaren **"Kirie"aren** lehen konpasekin lotuta daudela azpimarratzen du. Askoren artean

---

## kirieleison *iz*

Politikak **kirieleisona** ere galarazten dio! Koldo Biguri

---

## kirik egin zelatatu, begiratu. ik **kirika 3.**

Erdi-gordetako leihotxo batetik **kirik** egitera joan zen; hartara, gau argia zenez, harritxo jaurtitzailea nor zen ikusi eta atea irekitzera joan zen. Koldo Biguri

Espaloi ertzeraino joan, **kirik** egin eskuinera eta ezkerrera, kalean gora eta behera, eta keinu egin zion auto bati. Anton Garikano

Espaloi ertzeraino joan, **kirik** egin eskuinera eta ezkerrera, kalean gora eta behera, eta keinu egin zion auto bati. Anton Garikano

Begi-ertzaz elkarri **kirik** eginez. Koldo Biguri

Orduan kareletik **kirik** egin nuen. Edorta Jimenez

Benetako munduari **kirik** egin ondoren, zer komeni zaion jakin du. Felipe Juaristi

Dembak ate aldera **kirik** egin eta kalkulatu zuen, larrituz gero, bi saltotan egon zitekeela kanpoan. Anton Garikano

Leize zulora **kirik** egin eta begi argitsu bat ikusten du. Bernardo Atxaga

---

## kirika 1 *adlag* zelatan.

Gure hormaren atzean gelditu da, leihoetatik zelatan, leiho-sareetatik **kirika**. Elizen arteko biblia

Haren leihotik **kirika** egoten da, ate ondoan entzuten. Elizen arteko biblia

Gero, ohetik altxatzean, haien begiak sentitzen ditu **kirika,** berari jakin-minez begira, ezkutuan. Oskar Arana

Ateko zirrikitutik **kirika**. Urtzi Urrutikoetxea

Hasieran iruditzen zaio pixa egiten ari dela: gero ohartzen da bainugelako leihotik barrura ari dela **kirika,** Lucyri **kirika**. Oskar Arana

Hiru mutil txikiren aurpegiak ikusten ditu, zementuzko hormaren gainetik **kirika**. Oskar Arana

Eta, patiora ematen zuen leihotik **kirika,** erantsi zuen-: [...]. Alberto Ladron Arana

• **2** *iz* zelata

Begiradaren partez **kirikak** izaten zituen. Matías Múgica

Zuhaitzen artean **kirika** lotsatiak egiten zenizkion, katez lotuta. Anton Garikano

**3 *kirika egin*** kirik egin.

Izkina batetik **kirika** egin genuen. Juan Kruz Igerabide

"Orain ulertzen dut", esan zuen Lubisek leihotik **kirika** eginez. Bernardo Atxaga

Eguraldia grisa zen, eguzkiak **kirika** egiten zuen laino artetik, paisaiak ez zidan ezer esaten. Anjel Lertxundi

Estalkia apur bat altxatu zion eta **kirika** egin zion lore-sorta ezkoztatuari. Mirentxu Larrañaga

**Kirika** egiten zion bizitzari, argi antzematen baitzuen hantxe zegoela, benetako zerbait, berea bakarra, seme-alabekin edo senarrarekin elkarbanatu ez zuena. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **leihotik kirika** (4)

---

## kirikaka *(orobat **kirikeka**)* *adlag* kirika, zelatan.

**Kirikaka** so eginez, Brugesko satinaz, tafetanaz eta Florentziako raxaz apaindua zen baldakin-ohea ikusi zuen. Aurelia Arkotxa

Ilargia hodei artean **kirikeka** agertu zitzaionean. Pello Salaburu

---

## kirikatu, kirika(tu), kirikatzen du *ad* kirik egin, zelatatu.

Sukaldeko leihora hurbildu eta kontu handiz **kirikatu** nuen. Alberto Ladron Arana

Teleskopioz **kirikatzen** zuten elkar gure bizitzek. Joxan Elosegi

---

kirikeka ik **kirikaka**.

---

## kiriketan *adlag* kirik egiten.

Neska begiargi askoak, mototsak ederki bilduta, eta gu **kiriketan** haiekin; mutxangerak ere bazituan tartean; baita karitxiarto begizorrotzak ere, baina guri dena berdin. Pako Aristi

Etxean sartzean, sukaldean **kiriketan** egin, eta neskamea bi amuarrain garbitzen ari zela ikusi zuen. Koro Navarro

Bizilagunak leihotik **kiriketan** aritu ziren, baina gortinak botata zeuden. Koro Navarro

Horretan ari nintzela, zure aldamenekoa atera zen, **kiriketan** zegoen nonbait. Koldo Izagirre

---

## kirikino 1 *iz* trikua.

Mira eginik lotu zen, han behean **kirikinoa** begiztatu eta hari noiz ekingo airean geldi geratua den mirua legez. Edorta Jimenez

Bestalde, kaiola metalikoetan atxikitzen genituen **kirikino** erraldoiak, arantzez beteta eta guztiz otzanak, horratik. Javi Cillero

**2 *itsas kirikino***

Denetarik jaten, lanpernak, lapak, itsas **kirikinoak** eta karramarroak, eta algak eta horrelakoak. Paddy Rekalde

---

## kirikolatu *izond* kizkurra, kiribildua.

Atzamarrak adatseko ile **kirikolatuen** artean sartzean egiten duen keinu lizunak. Jon Arretxe

Sumatzen duzu orain nire bular zabaleko kizkur **kirikolatuen** azkuratxoa bizkarreko azalean? Jon Arretxe

---

## kirikolazturik *adlag* lazturik.

Ate piramidala burdinorizko iltzez **kirikolazturik** baitzegoen. Juan Garzia

---

## kirikun-karikun-pek

Ateri dela, euria dela, / **kirikun**-karikun-pek, / egunak labur, bidea luze, / **kirikun**-karikun-pek! Anjel Lertxundi

-Zu kantatzen ari zinen doinu horixe bera entzuten dut ametsetan, **kirikun**-karikun-pek, musika-kutxa horietako batean. Anjel Lertxundi

Orratz-kutxa bat zabaldu orduko, etxe guztia kriskitinka betetzen zuen doinu alai batek hartua zuen airea, **kirikun**-karikun-pek. Anjel Lertxundi

Orratz-kutxako **kirikun**-karikun-pek hura! Anjel Lertxundi

---

## kirimolatu, kirimola, kirimolatzen du *ad*

Aspaldi handian aditu gabea neukan hitz baten inguruko oroipenak berritu zaizkit, behialako sorgin xaharren baten arimak bihotza **kirimolatu** balit bezala edo... Patziku Perurena

---

# **kirio** 1 *iz* nerbioa.

Beraz, arima osoak hazi txiki-txikiz egina behar du, zain, errai eta **kirioetan** zehar bilbatua. Xabier Amuriza

Ezin zituen burua eta besoa inora bihurtu, **kirioen** uzkurduragatik. Askoren artean

Ikusmenaren **kirioen** hutsegite bat izan zen, eta kito, odol kolpetxoren bat agian. **Kirio** hauskorreko emakumeek ohi duten ahots kementsuaz. Josu Zabaleta

Haserre gorri, arima gori, **kirioak** txingar, logelara jo zuen eta hango armairuan gorderik zuen sastakaia hartu. Felipe Juaristi

Gabik, bitartean, segitzen du hodien artean bilaka, **kirioak** dardaran. Jokin Muñoz

Ez zekien **kirio** guztietako dardara hura pozarena zuen ala izuarena, jakin-minarena ala utzikeriarena. Anjel Lertxundi

**2**

Baina hitz egin zuen, **kirioak** dardararazten zituen ahots gozo samin batez hitz egin zuen.Zeberio, Auzmendi eta Ezkurra lasai ariko dira, Ionek, berriz, **kirioei** eutsi beharko die. Josu Zabaleta

Ikusi egin beharko da Irujok **kirioei** eusten asmatzen duen oraingoan. Berria - Kirola

Lehenengo koadroan ertzain bat agertzen zen, **kirioak** jota, izu-laborriaren menpe begiak irten beharrean. Iñigo Aranbarri

Ezindua sentitzen da, **kirio** guztiak eten balizkio bezala tirazoa ezker-besagainera eta lepora zabaltzen zaionean. Pako Aristi

Sarritan, larritasunak **kirioak** estutu eta ibiltzeko beharra izaten zuen. Karlos Zabala

**Kirio** eta gihar guztiak zurrun zeuzkan, baina ez zuen minik. Anjel Lertxundi

Nire hobe beharrez hartzen ditut, egunean hiru aldiz, **kirio** guztiak motel-motel uzten dizkidaten pilulak. Anjel Lertxundi

**Kirioak** lehertu aginean egon zen, harik eta, zorabiaturik, lurrera zerraldo jausi zen arte. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan)

Emigratzen du, **kirio** -zelula baten atean jotzen du, sartu, eta zelularen parte zen beste karbono bat ordezkatzen du. kontua da gure **kirio** -multzoa ahalik eta zirikada bortitzenaren bidez astintzea. Juan Garzia

· Baina halaxe nuen gogoa, gela ilun bateko amaraun-sare sarriena esku-kolpeka kentzen baino **kirio** -joago. Anjel Lertxundi

**4 *kirioak airean*** *adlag*

Eskuak dardaran zituen, **kirioak airean,** bihotza punpaka. Patxi Zubizarreta

Iluntzean **kirioak airean** itzuli zen etxera. Patxi Zubizarreta

**Kirioak airean** atera da gelatik. Iñigo Aranbarri

Orduan, **kirioak airean,** krisiaren ertzean, etsipenak hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Ama **kirioak airean** ibiltzen zen hark zer esango, eskuak burutik gora dantzan. · Zain geratu naiz, **kirio** guztiak airean. Arantxa Iturbe

**5 *kirioak atezuan*** *adlag* kirioak airean, kirioak datnzan.

Elkarrizketa bitartean **kirioak** atezuan egon da. Jon Alonso

· On Camillok atezuan zeuzkan **kirio** guztiak. Koldo Biguri

**6 *kirioak dantzan*** *adlag*

Atea jotzeko lauzpabost metro besterik falta ez zenean, hiru emakumezkoek oihu egin zuten **kirioak dantzan**. -A, Ruth, leku honek **kirioak dantzan** jartzen dizkit. Aitor Arana

Osaba Jackek **kirioak dantzan** dituela ematen du. Antton Olano

**Kirioak dantzan,** George Baldwingek atzerantz egin zuen, aulkiaren bizkarrari helduz. Lopez de Arana

· Harryk **dantzan** zituen **kirioak**. Iñaki Mendiguren

**7 *kirioak izotz jarri***

Liburugabeko etorkizun baten mehatxuak **kirioak** izotz jarri nau, hori da egia. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kirioak airean** (25); **kirioak airean jartzen** (3); **kirioak dantzan** (17); **kirioak lehertu** (3)
> **kirioei eusten** (5); **kirioei eutsi** (6)

---

# **kiriobera** *izond* kirioak jota gertatzeko joera duena.

Ez, ez, ez, joan zaitez -isilune labur batean elkarri begira geratzen dira makurtu eta aztoratuta dagoen señora **kiriobera,** eta esfinge baten aurpegiera inperterritoa beti-bat mantentzen duen maiordomoa-. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **kiristi** 1 *iz* kristaua, giristinoa.

Müsülman eta **kiristi,** algar ezagüt dezagün. Herria

Üdüriala horren bidetik abiatü zen Mahomet, **kiristiekin** harremanetan beitzen. Herria

Fededüna izanez, lehenetarik düt prefosta **kiristi** sinestea. Herria

Bena **kiristi** fedeak biltzen dütü. Herria

**2** (pastoraletan)

**Kiristi,** türk eta satanen ateraldiak. Piarres Xarriton

Pastorala bego bere bidetik, "türk" gorriekin eta **"kiristi"** urdinekin. Herria

---

# **kiristiki** *adlag* kristauki, giristinoki.

Bere botz ozen eta gozoaz, bere indar baketsü eta alageraz, hebenko eliza harrotü dü, **kiristiki** prefosta, bena türk ürratsean, bai ofizio ederretan, baita üngürüko obra honetan. Herria

---

# kirkileria ik **girgileria**.

---

# **kirkir** *iz* kilkerra.

Beraz, mota guztietako larrapoteak, **kirkirak** eta matxinsaltoak jan ditzakezue. Elizen arteko biblia

---

# kirofano *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **operazio gela** eta **ebakuntza gela** agertzen dira)* *iz* operazio gela, ebakuntza gela.

Bizkor igaro dira azken egunak, eta **kirofanora** daramate gaixoa. Imanol Zurutuza

Ez duela berriz **kirofanoan** sartu nahi, dio berak. Hasier Etxeberria

**Kirofanoko** argi bateria baten pean. Harkaitz Cano

Izaraz estalirik zekarten **kirofanotik**. Iñaki Zabaleta

Ni orduan erizaina nintzen, eta **kirofano** batean egiten nuen lan. Ana Urkiza

---

# kirol 1 *iz* gorputz ariketa berezkoa duen jarduna eta bereziki jokoa, bakarka edo taldean egiten dena; jardun horren era berezi eta arautuetako bakoitza.

Ez omen dago zuretzat igeri egitea baino **kirol** hoberik. Bernardo Atxaga

Mezkirizko "Bost **kirol"** lehiaketa famatuan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Denok praktikatu nahi dugun **kirol** ez-deus bat besterik ez. Unai Iturriaga

Populuaren opioa da **kirola**. Joxerra Garzia

Izugarri gustatzen zitzaion **kirola,** beisbola bereziki. Xabier Olarra

Esan beharra dago eskola adina gorrotatzen dudala **kirola**. Jesus Mari Mendizabal

Betidanik **kirola** praktikatzen nuen. Piarres Aintziart

. Egoera horrek **kirolari** kalte egiten diola iritzi zion fiskal nagusiak. Berria - Kirola

Presa **kirolari** dagokion ezaugarri bat da, bizitzari bezalaxe. Pako Aristi

UNESCOk eta NOBk ere xakea **kiroltzat** dute. Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kirol** instalazioetatik kanporatzen ari nintzela. Aingeru Epaltza

Moilan txalupa bat hartu eta amerikarraren **kirol**-ontzira abiatu ziren. Irene Aldasoro

Batzuk praka motzetan, besteak **kirol** arropetan. Pello Salaburu

Galtza bakeroak, marinel-jertsea eta **kirol**-zapatilak janzten zituen emakume gazteak. Migel Angel Mintegi

Txinatar **kirol**-oinetakoak. Oskar Arana

Eskuan neramàn **kirol**-poltsa hatzaz seinalaturik. Joan Mari Irigoien

Bi **kirol** automobil nituen, ez dakit zenbat zalditako moto bat. Joan Mari Irigoien

**Kirol** astekari bat erosi nion. Joxemari Iturralde

Atzerantz jo zuen, **kirol** orrialdeen bila. Joxemari Iturralde

Eta orain, **kirol** albisteak. Joxemari Iturralde

Une horretan telebistan **kirol**-berriak ari dira ematen. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kirol** irudiak hartzen hasi zen. Iñigo Aranbarri

**Kirol** kazetariek esaten zutenez. Joan Mari Irigoien

**Kirol** medikuak debekatua zidan lasterka ibiltzea. Daniel Landart

2001. urtean Mapeiko **kirol** zuzendaria izateko eskaintza egin zioten. Berria - Kirola

Bere **kirol** karreran egindako unerik gozoenak. Joan Mari Irigoien

Kirolariei soldaduen tankera ematen dietenak, baina, ez dira **kirol** federazioak soilik. Iñigo Aranbarri

Bere **kirol** karreran egindako unerik gozoenak. Joan Mari Irigoien

Hala nola pilotan, lasterka, eta edozein **kirol** motetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez zen harropuzten bere **kirol**-gaitasun eta gizon-kemenez. Juan Garzia

**-Kirol** mundua, politika mundua... holako gai horiek maite dituzu? Menane Oxandabaratz

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irailaren 3tik 6ra ur-**kirolak** eta bertsolaritza uztartuko dituzte, eta 50 lagun batuko dira bertan. Berria - Kultura

Makina bat arrisku-**kiroletan** aritzeko material espezializazio handikoa. Jon Alonso

## 4 *herri kirol*

Ez da ahantzi behar pilota ere euskal **herri-kirolaren** arboleko adar bat dela. Berria - Kirola

Musikea ulertzeko era ruralagoa zan, **herri kirolari** lotuagoa, ia **herri kirol** bat gehiago balitz lez. Xabier Amuriza

Eguerdian **herri kirolak** egin zituzten plazan eta ondoren bazkari herrikoia izan zen. Berria - Euskal Herria

## 5 *kirol denda*

-Egunen batean **kirol-denda** bat jartzeko asmoa dut. Joan Mari Irigoien

**Kirol dendako** Martina zen, gure zerrendako politen artean laugarrena. Bernardo Atxaga

**Kirol denda** moduko bat da, beste gauza batzuk ere saltzen dituzten arren. Urtzi Urrutikoetxea

**Kirol denden** kate bateko jabea da, eta mendi materiala eraman behar zuen Sabiñanigora.

## 6 *kirol etxe* *(orobat **kiroletxe** g.er.)*

Biltzarrak atzo izan zuen lehen eguna, Donostiako Anoeta estadioan dagoen **Kirol Etxean**. Berria - Euskal Herria

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskoletako 11 urte inguruko ehun bat haur bildu ziren atzo, **Kirol Etxean**. Horrela baieztatu zuen Edurne Pasaban mendizaleak bere aulki gurpildunetik, atzo, Donostiako **Kirol Etxean** egindako agerraldian. Berria - Euskal Herria

· Mark Parker izango da gaurtik aurrera *Nike* **kirol etxeko** presidentea, atzo William Perezek kargua utzi eta gero. Berria - Ekonomia

Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiko goi mailako parte-hartzaileen izenak ezagutarazi ditu Fila **kiroletxeak:** gizonezkoetan, Kasimili eta Ngetich kenyarrak, Chatt marokoarra, Fernandez espainiarra, Ziani oriotarra eta Adan galiziarra. Berria - Kirola

## 7 *kirol gela* *(orobat **kirolgela** g.er.)* *ipar*

Hau Mendeala **kirol gelan** iraganen da helduden igandean irailaren 18an eta egun guzian izanen dira lehiaketak. Herria

Hain zuzen, pilota plaza nagusia, Mauleko gaineko arrabota, *Maule Baitha* zinema aretoa, San Frantses ikastetxeko **kirolgela,** Adinekoen Etxea eta Udalbatzarraren aretoa dira [antzerki] ikusgarrien jokaleku izango. Berria - Kultura

Bi urte barne eskola hori handitu eta berritu du [Angelu] hiriak: iaz **kirol gela** handi bat ezarri zuten, aurten sukaldea eta jantegiak eta urte guzian gela bat aldian berriz tindatuko dute. Herria

Kanboko kolegioko **kirol gelen** eta Ziburuko trinketaren berritze lanak lagunduko ditu departamenduak. Herria

## 8 *kirol ontzi* ik **kirolontzi.**

## 9 *kirol portu* *(orobat **kirolportu** g.er.)*

Gaur egun daukagun portua modu orekatuan eta arduratsuan aprobetxa daiteke arrantza portu, **kirol portu** edota aisialdirako portu gisa; baina, ingurua txikitu gabe. Berria - Euskal Herria

Badu urteak eta urteak (hogoita-hamar urte gutienetik) aipu dela **kirol-portu** edo deskantsu-portu baten muntatzea Zokoan. Herria

Hendaian, hiru egunez segidan, egin da aurten ere, itsas-**kirolportuan** eta ondo hetan, itsas-joko eta ibilaldieri buruz muntatzen duten [...] erakusketa. Herria

Obran hasiak dira Hendaian **kirol-portua** handitu beharrez, 115 untzi gehiago kokatzeko gisan. Herria

Ezkerraldean ikus zitezkeen zerurantz altxatzen ziren itsasontzien mastak, Bidasoa ibaiaren babesean eraikitako **kirol-portuan**. Migel Angel Mintegi

## 10 *kirol zelai* (*orobat* ***kirolzelai***)

Partida hau jokatu da Donostiako **kirol zelai** ederrean, Anoetan. Herria

Jack Oakiek eta biok **kirol zelai** osoa egin genuen lasterka. Koro Navarro

Lasterketa iraganen da abendoaren 2an, aratsaldeko 2etan, Mixel Labeguerie **kirol zelaian**. Herria

Bestela ere nahiko ordu pasatzen baikenuen apaizen eskuetan, libre geneukan aukera bakarrean ere ikastetxe barruan gelditzeko, **kirol-zelaietan** izanda ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Debekatua dute [juduek] igerilekuetan, tenis, hockey edo bestelako **kirol zelaietan** sartzea. Josu Zabaleta

Fokuak bere indar guztian zeuden piztuta, eta **kirol zelaira** zuzenki iristen zen argiak aparteko zehaztasuna ematen zien txirristei, saski-zutabeei, lurreko marrei. Bernardo Atxaga

Bilkura hortan jakin da ere jartoki berriak eginen direla Agilerako **kirolzelaian**. Herria

Ortzegun aratsean, Bidarten, behi-lasterrak Uhabiako **kirolzelaian**. Herria

## 11 *kirol-lege* kirolean jendetasunez aritzen denaren jarrera.

Berdinketa **kirol legez** onartzen jakin ez, eta protestaka bukatu zuten zuriek. Berria - Kirola

Hori gutxi balitz bezala, Manzanoren jarrera zikina da, ez da **kirol legez** egindakoa. Berria - Kirola

## 12 *kirola egin*

**Kirola egitea** komeni zait. **kirola egitean,** adrenalina bota ondoren, konpensatzeko, endorfinak isurtzen ditugu, halako lasaitasun-sentsazio bat ematen dutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Denborarekin ikasiko dut halaber ibiltokian **kirola egiten,** batzuetan lasterka arizanez ibilbide luzeena hartuz, eta ibiltoki gaineko sareari lotuz tiraketa batzuk edo luzamenduak egiten ere bai... Filipe Bidart

**Kirola egiteko** orduetan flexioak egitera behartzen dituzte. Jokin Urain

**Kirola egiten** duten edadetu guztiek bezala, abailduraren marka darama aurpegian. Joxean Agirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**euskal kirol federazioen** (10); **gorospe kirol zuzendariak** (7); **herri kirol** (39); **herri kirol federazioak** (8); **jaurlaritzako kirol sailak** (5); **kataluniako kirol federazioen** (6); **kirol aldetik** (7); **kirol arbitratze** (12); **kirol arduradun** (8); **kirol arduradunak** (11); **kirol arduradunek** (19); **kirol arloa** (8); **kirol arloan** (72); **kirol arloari** (17); **kirol arloari dagokionez** (9); **kirol arloaz** (5); **kirol arloko** (16); **kirol arlotik** (7); **kirol azpiegitura** (7); **kirol batzordeak** (5); **kirol bizikleta** (7); **kirol bizitzako** (8); **kirol denda** (13); **kirol diziplina** (30); **kirol diziplina batzordeak** (16); **kirol egunkari** (12); **kirol egunkariak** (8); **kirol ekitaldi** (5); **kirol ekitaldiak** (6); **kirol elkarte** (15); **kirol elkarteak** (23); **kirol elkartearen** (8); **kirol emaitzak** (8); **kirol eskola** (5); **kirol eta kultur** (9); **kirol eta kultura** (7); **kirol federazioak** (20); **kirol federazioen** (25); **kirol federazioen batasunak** (7); **kirol federazioen batasuneko** (7); **kirol gune** (7); **kirol hiria** (6); **kirol ibilbide** (18); **kirol ibilbidea** (67); **kirol ibilbidean** (38); **kirol ibilbideari** (6); **kirol ibilbideko** (63); **kirol ibilbideko garaipen** (9); **kirol ibilbideko une** (6); **kirol ibilbideko unerik** (5); **kirol idazkariak** (8); **kirol instalazio** (5); **kirol instalazioak** (7); **kirol instalazioetan** (7); **kirol irizpideak** (7); **kirol jarduera** (11); **kirol jarduerak** (5); **kirol jarduna** (12); **kirol jauregian** (5); **kirol kazetariek** (5); **kirol kontseilu** (29); **kirol kontseilu gorenak** (13); **kirol kontseilu gorenaren** (8); **kirol lege** (7); **kirol legea** (6); **kirol legez** (5); **kirol lehiaketa** (5); **kirol maila** (9); **kirol mailan** (14); **kirol merituak** (5); **kirol merituen** (5); **kirol ministroak** (5); **kirol mota** (12); **kirol munduan** (8); **kirol oinetako** (5); **kirol oinetakoak** (8); **kirol poltsa** (6); **kirol portu** (7); **kirol portua** (12); **kirol portuan** (8); **kirol profesionala** (5); **kirol profesionalean** (5); **kirol proiektu** (7); **kirol saila** (6); **kirol sailak** (8); **kirol selekzioek** (7); **kirol talde** (12); **kirol taldeak** (9); **kirol zapatilak** (5); **kirol zelai** (18); **kirol zelaia** (9); **kirol zelaian** (44); **kirol zelaiaren** (9); **kirol zelaiko** (10); **kirol zuzendari** (68); **kirol zuzendaria** (97); **kirol zuzendariak** (138); **kirol zuzendariarekin** (15); **kirol zuzendariaren** (25); **kirol zuzendariari** (5); **kirol zuzendariek** (8); **kirol zuzendarien** (5); **kirol zuzendaritza** (5); **kirol zuzendaritzak** (8); **kirol zuzendaritzarako** (5); **kultur eta kirol** (8); **lerra kirol** (6); **matxin kirol zuzendariak** (5); **nafarroako herri kirol** (6); **nire kirol ibilbidea** (8); **nire kirol ibilbidean** (5); **nire kirol ibilbideko** (7); **olabe kirol zuzendariak** (7); **realeko kirol zuzendaria** (6); **realeko kirol zuzendariak** (13); **saiz kirol zuzendaria** (6); **saiz kirol zuzendariak** (5); **taldeko kirol** (76); **taldeko kirol arduradunek** (8); **taldeko kirol zuzendari** (8); **taldeko kirol zuzendaria** (22); **taldeko kirol zuzendariak** (16); **taldeko kirol zuzendariaren** (6)

**eskola kirola** (8); **herri kirola** (5); **kirola egin** (7); **kirola egitea** (19); **kirola egiteko** (20); **kirola egiten** (25); **xakea kirola dela** (7)

**herri kirolak** (75); **itsas kirolak** (5)

**euskal kirolaren** (7); **kirolaren legea** (6); **kirolaren legeak** (5)

**herri kirolek** (5)

**herri kirolen** (9); **lerra kirolen** (5)

**herri kiroletako** (7)

**herri kiroletan** (7)

**kirolik egiten** (5)

---

# kiroldi *iz* kirola egiten den aldia.

Hauek egun hortan izan diren lasterkaldi eta **kiroldietan** laguntzaile izan dira. Herria

Bihotza lehertzeraino jauzika, lepoko zainetatik odola sutan bezala pasatzen, hatsa ezin bilduz, izerdi uretan bururatu zuen Joanesek, bertze guziek bezala, igande goiz hartako **kiroldia**. Eneko Bidegain

---

# kirolari 1 *iz* kirola egiten duena.

Guztira hamar **kirolari** lehiatuko dira. Berria - Kirola

Gizarteak ezartzen dio **kirolariari** presio hori. Joxerra Garzia

Haiek goren mailako **kirolariak** baitira. Berria - Kirola

Zergatik dira, ordea, eliteko **kirolariak** hain irakasle on? Joxerra Garzia

Etapa batzuetan erromesa **kirolari** bihurtzen da eta ibiltaria korrikalari. Piarres Aintziart

Erdi itzalean etzanda, **kirolari** bat aldagelan borrokaren aurretiko minutuetan bezala sentitzen nintzen. Ramon Saizarbitoria

27 **kirolari** daude THG esteroidearen ustezko kontsumitzaileen artean. Berria - Kirola

**Kirolari** amorratua da Peña. Berria - Kirola

**Kirolari** bikaina zen, galera izugarria da. Berria - Kirola

Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo **kirolari** ez profesionalen arteko hainbat lehia. Berria - Euskal Herria

**Kirolariak** bandera baten menpean lehiatzera behartzen diren garaiotan. Iñigo Aranbarri

## 2 (izenondo gisa)

Handia, gihartsua, **kirolaria..**. Eneko Bidegain

Bertus mutil serioa, atsegina eta **kirolaria** da. Josu Zabaleta

Zure familia oso **kirolaria** izan da beti. Berria - Kirola

## 3 (hitz elkartuetan)

Ikusten ahalegintzea neketsua izan arren, **kirolari** jarreraz hartu zuen ahalegin hori Virgilek, eta etengabe egin zituen aurrerapenak. **"Kirolari**-ikasle" talde bat zen, beren

matematika-irakaslearekin ikas-txangoan irtena. Xabier Olarra

· Ikasle-**kirolarien** taldeko batek, Ruche jauna gainean eraman zutenetariko batek. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kirolari ezagun** (4); **kirolari gazte** (3); **kirolari gisa** (3); **kirolari lehiatuko dira** (4); **kirolari ona** (6); **kirolari onenaren** (3); **kirolari onenaren saria** (3); **kirolari profesional** (4)

**goi mailako kirolaria** (3)

**eliteko kirolariak** (3); **euskal kirolariak** (10)

**emakumezko kirolariek** (3); **euskal kirolariek** (8)

**euskal kirolarien** (7); **euskal kirolarien artean** (3)

---

kirolategi ik **kiroldegi**.

---

kirolatoki ik **kiroltoki**.

---

# kiroldegi

*(478 agerraldi, 12 liburu eta 376 artikulutan; orobat **kirolategi** g.er. eta **kiroltegi** g.er.)* **1** *iz* hainbat kiroletan aritu ahal izateko prestatua dagoen eraikuntza edo instalazioa. ik **kirol 8; kirolgune**.

Bilera eta irakurketa gelak, liburutegia, **kiroldegia,** anbulatorioa eta antzokia ipini nahi ditu. Koldo Biguri

Bilera eta irakurketa gelak, liburutegia, **kiroldegia,** anbulatorioa eta antzokia ipini nahi ditu. Koldo Biguri

Ezker paretaren gibelean ageri da bastimendu berri eder bat eta hori da herriko etxeak eraiki duen **kiroldegi** berria. Herria

Tolosako Usabal **kiroldegian** zuen igeriketa irakasle lanpostua galdu berri du, eta langabezian dago. Berria - Kirola

Zorrotza **kiroldegiko** pistan. Berria - Kirola

Larunbatean eta igandean jokatuko dira Artxandako **kiroldegian** [...] Euskadiko Esgrima Txapelketak La Casilla **kiroldegian** zein bestelako aretoetan jarritako ringetara hurbildu arte.

Sopelako **kiroldegian** ariko da Miarritzeko Baleta hilaren 30ean. Berria - Kultura

Bazkari hauta Tafallan Migel Indurain **kiroldegian** Alkartasun Eguna-ko bazkaltiarrekin batean. Herria

**Kiroldegitzat** jo zuen eraikuntza bat hauteman zuen ezkerrean. Xabier Montoia

Unibertsitateko **kiroldegian** bazen beste zakur bat, nahiko handia. Gotzon Garate

Lekua eta ordua: Udal **Kiroldegia,** 18:30. Berria - Kirola

Aguraingo pilotaleku-**kiroldegian**. Berria - Kirola

**2** kirol zelaia.

Denok dakizue **kiroldegian** partaide guztiek egiten dutela lasterka, baina saria batek bakarrik jasotzen duela. Elizen arteko biblia

Egin zuen, bada, **kiroldegia** atsegin handiz gotorlekuaren azpian, eta gazterik hoberenak greziarren erara hezitzera bultzatu zituen. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kiroldegi berri** (4); **kiroldegi berri bat** (3); **kiroldegi berria** (5); **kiroldegi berrian** (5)

**kiroldegia bete** (7); **kiroldegia lepo bete** (3)

**arrigorriagako kiroldegian** (3); **azpeitiko kiroldegian** (8); **baionako lauga kiroldegian** (3); **bilboko casilla kiroldegian** (4); **eko anaitasuna kiroldegian** (9); **iruñ kiroldegian ariko** (5); **kiroldegian ariko da** (3); **kiroldegian egingo** (9); **kiroldegian egingo da** (4); **kiroldegian izango** (13); **kiroldegian izango da** (10); **kiroldegian jokatu** (3); **kiroldegian jokatuko** (11); **kiroldegian jokatuko da** (7); **mendizorrotza kiroldegian** (10); **mendizorrotzako kiroldegian** (5); **oiartzungo elorsoro kiroldegian** (4); **tolosako usabal kiroldegian** (3); **udal kiroldegian** (8); **zarauzko kiroldegian** (4)

**eskola eta kiroldegietan** (3)

---

kiroletxe ik **kirol 4**.

---

kirolgela ik **kirol 5**.

---

# kirolgune

*iz* kirola egiteko prestaturiko gunea; kiroldegia.

Ehun egun eskas falta dira Atenasko Olinpiar Jokoetarako, eta bertako hainbat **kirolgune** amaitu gabe daude oraindik, urduritasuna da nagusi. Berria - Kirola

Olinpiar estadioa, **kirolguneak,** garraiobideak... dena dago erdizka. Berria - Kirola

Las Rozasen (Madrilen), Espainiako Futbol Federazioak duen **kirolgunean**. Berria - Kirola

Larunbatean, Donostian, Anoetako **kirolgunean,** euskal egunkari berriaren aurkezpena. Herria

Borrokaldiak larunbatean abiatuko dira Hazparneko Mendeala **kirolgunean**. Berria - Kirola

Gimnastika kurtsoak berriz hasiko dira Louis de Foix karrikan dagon **kirolgunean**. Herria

---

# kirolketa

*iz* kirol saioa.

Egun guzia irauten duen **kirolketa** hunek arrakasta gaitza bildua du eta urte guziez parte hartu nahi duten talden zerrenda luzatzen da. Herria

---

# kirolkoi

*izond* kirola egiteko joera duena.

Basabazter haietan sugeak, eltxoak, inurriak eta mendigoizale **kirolkoiak** jasan behar direla. Iñaki Segurola

---

# kirolontzi

*(corpusean **kirol ontzi** soilik)* *iz* kirola egiteko ontzia.

Badago nahiko leku arrantza-ontzientzat eta **kirol ontzientzat**. Norbaitek *Newporteko Erregina* **kirol-ontziaren** alde topa egin zuen eta gero norbaitek azken partida handi bat egitea proposatu zuen. Irene Aldasoro

Ziburuko portuko **kirol-ontziei** begiratu nien. Edorta Jimenez

Handik hamar bat minutura **kirol ontzira** igotzen eta tranpolina alferrik miatzen ikusi dugu denok. Txillardegi

Moilan txalupa bat hartu eta amerikarraren **kirol-ontzira** abiatu ziren. Irene Aldasoro

---

# kirolportu ik kirol 7.

---

# kiroltasun *iz* kirol-legea.

Nafarrek ez omen zuten **kiroltasunez** jokatu. Berria - Kirola

Baina **kiroltasunez** aritzea printzipiotzat daukan horietakoa naiz ni. Iban Zaldua

**Kiroltasuna** eta joko garbia. Berria - Kirola

Sarrera itsusiak, eztabaidak, eta **kiroltasunik** batere gabeko jarrerak. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kiroltasunaren aurkako falta** (3); **kiroltasunaren kontrako falta** (3)
> **kiroltasunez jokatu** (3)

---

# kiroltegi ik **kiroldegi**.

---

# kiroltoki *(corpusean **kirol toki** eta **kirolatoki** -g.er.- soilik)* *iz* kirolgunea; kiroltegia.

Badu aste bat osoa hasia dela teniza Pariseko "Roland Garros" deritzan **Kirol tokian**. Herria

Mixel Labèguerie **kirol tokiaren** sartzeak berrantolatuak izanen dira, sartze berexiak eginez bai errugbia eta bai zangobaloiarentzat. Herria

Jauregiko zelaian **kirol tokiko** obra handiak aintzina doatzi. Herria

Santiago zeiharkatzean, Victor Jara **kirolatoki** parrean aurkitzean. Herria

---

# kiroltsu *izond* kirolez betea.

Goiz **kiroltsua**. Herria

---

# kirolzale *(orobat **kirol zale**)* *iz/izond* kirolaren zale dena.

Olabarriak 28 urte ditu, eta **kirolzale** osoa da. Berria - Kirola

Ikasle saiatua eta **kirolzale** aparta; lider petoa. Anjel Lertxundi

Euskaltzale zintzoa eta **kirolzale** sutsua genuen. Gotzon Garate

**Kirolzalea** zen, baina kirolak ez zuen itsutzen. Joan Mari Irigoien

Ni ez bainaiz sekula aparteko **kirolzalea** izan. Karlos Linazasoro

Friburgon gaztedi **kirolzale** jatorra topatu nuen. Josu Zabaleta

---

# kirolzaletasun *(orobat **kirol zaletasun**)* *iz* kirolzale denaren nolakotasuna.

Bi gauza izan zaizkit debekatuak: erlijioa eta **kirolzaletasuna**. Hasier Etxeberria

Orduantxe jaioa zen Patxi Ibarluzea bien antzekoa zen, gorpuzkeraren aldetik bezala **kirolzaletasunaren** aldetik. Edorta Jimenez

---

# kirolzelai ik **kirol 8**.

---

# kiromano *iz*

Bahiako **kiromanoak,** eskuaren bizioa zutenak, alegia, gizon guzti-guztiak ia, oso aztoratuta zebiltzan, baina bost inporta guri. Karlos Zabala

Bahiako **kiromanoak** -Mendonça irakasle zaharrak erakutsi zigun hitz hori […]- Karlos Zabala

---

# kiromantiko *iz* ahur-irakurlea.

Elizabethek nebaren eskuak hartu, eta **kiromantiko** baten moduan pasatu zituen hatz-puntak nebaren esku-ahurreko erreten txikietatik. Anjel Lertxundi

Oinak motzak eta behatzaldean zabalak; estua bularra; besoak argalxkak; eskuineko eskuko hatzak bata bestearengandik bereiziak, hainbesteraino non **kiromantikoek** ergeltzat eta kaikutzat hartu baitzuten. Jon Muñoz

---

# kiromantzia 1 *iz* ahur-irakurketa.

Etorkizuna argitzen oso eskuliburu ona da etorkizuna igartzeko oinarrizko metodo guztiak ikasteko: **kiromantzia,** kristalezko bolak, hegazti-erraiak... Iñaki Mendiguren

**kiromantzia,** etorkizunaren iragarpena, magia beltza... J.M. Olaizola "Txiliku"

Denetik egin omen zuen, askotan aldi berean: kartomantzia, **kiromantzia,** te-hondarren irakurketa, ouija... Iban Zaldua

Trelawney andereñoa **kiromantzia** irakasten hasi zitzaien, eta berehalaxe jakinarazi zion Harryri berak inoiz ikusitako bizi-marrarik laburrenak zituela. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

**Kiromantzia** ikastaroari zegokionez, zer damuturik ez nuen izan beharko handik aurrera. Joxan Elosegi

---

# kirra-kirra *adlag* karraskatzean, hortzikatzean edo marraskatzean egiten den hotsaren onomatopeia.

Begiratzen du lertxunaren sustraietara, eta ikusten ditu bi sagu -txuria bata, beltxa bestea- **kirra-kirra,** sustraia gutxika janez ari direla. Anjel Lertxundi

## **kirri**[1] **1** *iz* karranka.

Zalgurdia **kirri** eta marra hasi zen ibiltzen. Felipe Juaristi

### 2 ***kirri-karra***

Pipia edo... Zulo handi samarrak dira, igual beste eskarabajoren bat ari da **kirri**-karra hor. Pablo Sastre

### 3 ***kirri-kirri***

Milaka usain zebiltzan airean enara **kirri**-kirrien modura. Felipe Juaristi

---

## **kirri**[2] **1** *iz* hozkirria.

Istorio eta desioak darizkio Po ibaiaren **kirriari**. Anjel Lertxundi

Haize-giro sargoritsuak ez zuen **kirri** apartsua besterik eragiten itsas gainean. Anjel Lertxundi

### 2 ***haize kirri*** (*orobat* ***haizekirri*** *g.er.*) ik **brisa**.

**Haize kirriak** granada-arbolaren adarrak astintzen zituen, euri lodi bat zurrustaka jariaraziz. Juan Garzia

Euria **haize kirri** bihurtzen zen. Juan Garzia

**Haize-kirri** atsegin bat dator hurbiletik, bere betiereko bidea egiten ari den Po ibaiaren aldetik. Anjel Lertxundi

**Haizekirri** iheskorrei egin nien galde, eta hegaztiekin batera aire zabal osoak erantzun: [...]. Imanol Unzurrunzaga

Sortaldeko **haize kirriak** bere perfumea hauspotzen du nekropolisean gaindi. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> haize kirri (4)
> haize kirriak (6)

---

## **kirrika** **1** *iz* kirrinka.

Misagren **kirrika** eta morroiloen intziria. Anton Garikano

Harryk **kirrika**-hotsa entzun zuen kanpoan. Iñaki Mendiguren

### • 2 *adlag*

Altzariak eta zurezko zoruak **kirrika** ari ziren amultsuki. Monika Etxebarria

Zaldi-kotxea **kirrika** zihoan Bluestone Roaden behera. Anton Garikano

Orga bat **kirrika,** zakurra nonbait zaunka. Anton Garikano

### 3 ***kirrika egin***

Bere eskuak bi erraldoi bihurtu ziren, matxinatu ziren, kateak **kirrika** egin zuen... Anton Garikano

---

## **kirrikatu,** kirrika(tu), kirrikatzen du *ad* kirrinka egin.

Gurdiek harri potorretan **kirrikatzen** zuten. Anton Garikano

---

## **kirrimarra** *iz* kirrinka.

Etxe barruan beste ordu laurden batez oheen **kirrimarrak** eta malguki etenen karraskak entzuten dira oraindik, eta gero isiltasuna Josu Zabaleta

---

## **kirrimarro** *iz* erremerrea denaren akatsa.

Ume batzuen **kirrimarroa** zuzentzeko ere, r gogorraren soinua ahalik eta gehien errepikatzea dute helburu esaldi hauek. Iñaki Arranz

---

## **kirrinka** **1** *iz* karranka.

Geroxeago, mekanismoaren **kirrinka** ere entzun uste izan zuen, koipeztatu gabeko gurpilen karranka. Jose Morales

Raxien abarrotsa eta tranbien **kirrinka**. Lopez de Arana

Montmartre kalean sartzen ziren zalgurdien **kirrinka** entzuten zuen garbi-garbiro. Karlos Zabala

Gurdien **kirrinka** jarraituaren erdian. Karlos Zabala

Gurpil-aulkiaren **kirrinka,** ohikoa bihurtua zitzaidan. Alberto Ladron Arana

Kamioi baten palanken **kirrinka**. Lopez de Arana

Balazten **kirrinka** luze batez gelditu zen autoa. Alberto Ladron Arana

**Kirrinka** garratza egin zuen gontzetan [ateak]. Josu Zabaleta

Kanpoko atearen **kirrinka** entzun duenean. Pello Lizarralde

Zoruaren **kirrinkak** lehenik eta jesarlekuarenak gero salatu dute zein izan den Abelen ibilbidea ilunpean. Pello Lizarralde

Oheari **kirrinka** gupidagabeak eraginez. Jose Morales

Hitz egokien bila balebil bezala geratu da pixka batez, hortzei **kirrinka** eraginez. Anjel Lertxundi

Metrailadorearen tiro-hotsaren soinu motelduak iratzarri nau, obusen **kirrinka** urrunekoak. Mirentxu Larrañaga

Milaka trumoiren **kirrinka** latza! Koro Navarro

### 2 (hitz elkartuetan)

Gurdi **kirrinka** urrunek antzeko ilarak iragartzen zituzten. Karlos Zabala

### 3 (adizlagun gisa)

Sarrailak **kirrinka** entzun nituen. Koro Navarro

Malgukiak **kirrinka** hasi baitira. Javi Cillero

Jarlekua behera egin eta **kirrinka** hasten baita berehala haien azpian. Jose Morales

Zigortu zuen zaldia eta kotxea **kirrinka** abiatu zen ibaiertzean aurrera. Irene Aldasoro

Intziri txiki bat ateratzen zitzaion, hortzak **kirrinka** elkarren kontra estutzearen ondorioz. Mirentxu Larrañaga

### 4 ***kirrinka egin***

Atsegin zuen ibilgailua hain abiadura handian eramatea, non gurpilek **kirrinka egiten** baitzuten orratzetan, eta tranbia, jendez gainezka, zabuka zihoan. Anjel Lertxundi

Gurpilek **kirrinka egiten** zuten, bideko hartxintxarrak birrinduz. Karlos Zabala

**Kirrinka egin** du sarrailak ireki bitartean. Rafa Egiguren

Gontzek **kirrinka egin** zuten, atea zabaldu nuen. Anjel Lertxundi

Haztamuka eta besoak luzaturik eman ditu lehenengo urratsak, eta zurak **kirrinka egin** du. Pello Lizarralde

**Kirrinka egin** zuen oholak, intxaur kraskatuaren zarataz. Jon Muñoz

Mailak, ohol mehez eginak, **kirrinka egiten** zuten intzirika. Kateek **kirrinka egin** zuten. Juan Kruz Igerabide

Biolinek **kirrinka egiten** zuten, danbor bat danbaka ari zen. Koro Navarro

Gramofonoko kanta amaitu eta diskoak bira eta bira jarraitu zuen, **kirrinka eginez**. · Gurpilek asfaltoaren gainean egindako **kirrinka**. Lopez de Arana

Ate Beltzaren erdiko orriak **kirrinka** zaratatsua egin zuen. Agustin Otsoa

**5 *kirrinka hots*** *(orobat* ***kirrinkots*** *g.er.)*

Hanka-hots astunak entzun ziren, eta gero **kirrinka-hotsa** atea zabaltzerakoan. Iñaki Mendiguren

Gurpilen **kirrinka hotsekin**. Koro Navarro

Eskutoki beltza altxatu zuen, eta ponpa zentrifugoaren **kirrinkots** larri garratza erregailuaren trumoihots sakonari gainkatu zitzaion. Juan Garzia

Entzuten nuena nire hortzen **kirrinka hotsa** zela. Alberto Ladron Arana

**Kirrinka-hotsen** bat edota parpailaren firfira. Mirentxu Larrañaga

· Gurpil **kirrinka** hotsa zetorren etengabe isiltasun hura urratzera. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atearen kirrinka** (5); **atearen kirrinka entzun** (3); **gurpilek kirrinka egiten** (3); **gurpilen kirrinka** (3); **kirrinka egin** (25); **kirrinka egin zuen** (9); **kirrinka egiten** (18); **kirrinka egiten zuen** (7); **kirrinka egiten zuten** (6); **kirrinka entzun** (8); **kirrinka hots** (4); **kirrinka hotsa** (5); **oheak kirrinka** (4); **sarrailak kirrinka** (3)

---

# kirrinkada *iz*

**Kirrinkada,** mekauen satanas! (pentsamenduaz). Joxean Sagaztizabal

---

# kirrinkaka *adlag* kirrinka eginez.

Ate zaharra **kirrinkaka** ireki zen eta danbatekoak egurrezko pertsianak mugiarazi zituen. Sonia Gonzalez

---

# kirrinkarazi, kirrinkaraz, kirrinkarazten du *ad*

Masailean bete-betean hartu nuen kolpea, hortzak **kirrinkaraziz**. Alberto Ladron Arana

---

# kirrinkari *izond* kirrinka eginten duena. ik **karrankari**.

Nor zen traste **kirrinkari** haren gidaria? Alberto Ladron Arana

Okindegiaren kamioi **kirrinkariak** ziztu bizian eraman gintuen Baionako errepidetik. Alberto Ladron Arana

Huraxe bai gurdi **kirrinkari** gurpil-oker herrena. Joxe Austin Arrieta

Erretratu marmartien eta armadura **kirrinkarien** ondotik igaro eta harrizko eskailera-zati estuetan gora igo ziren. Iñaki Mendiguren

Poliki zetorren eskailera zahar eta hondatuaren maila **kirrinkarietan** gora. Ander Irizar

Ahots **kirrinkari** eta zorrotz batek. Lopez de Arana

Barreka hasi zen; barrea itoa eta **kirrinkaria** zen. Lopez de Arana

Iratzargailuaren kexu **kirrinkaria** garuna zulatzen ari zaizu. Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahots kirrinkari** (3)
> **ahots kirrinkariz** (3)

---

# kirrinkatsu *iz* kirrinkaz betea.

Gurdi zahar **kirrinkatsuak**. Joan Mari Irigoien

Burdinazko aulki txatxar deseroso eta **kirrinkatsuak**. Juan Garzia

---

# kirrinkatu, kirrinka(tu), kirrinkatzen da-du *ad* kirrinka egin.

Ate orpoetan **kirrinkatzen** den brontzea. Xabier Amuriza

Lurrin-errematxagailuak etengabe **kirrinkatzen** zuen. Lopez de Arana

---

# kirrinki-karranka *adlag*

Han gindoazela, **kirrinki-karranka** Towy zubi alderako harlauzen gainetik, aitonaren gaueko bidaia zaratatsuak etorri zitzaizkidan gogora, ohea kulunkarazten eta paretak dardarka jartzen zituztenak. Koro Navarro

---

kirrinkots ik **kirrinka 5**.

---

# kirris-karras *adlag* kirrinka.

**Kirris-karras,** pasabideko harri txintxarren gainetik, panteoi bateraino joan dira. Patxi Zubizarreta

Tapa-tapa entzun zituen haren oinotsak zementuzko espaloian eta **kirris-karras** gero etxe berri gorrien aurreko errauts-bidean. Irene Aldasoro

## kirrizka *iz* kirrinka.

Kutxaren atzean, itzalean, **kirrizka** egin zuen zerbaitek. Monika Etxebarria

Zaindarien urratsak korridorean, orduen kanpai-hotsa, haizearen xuxurla burdinazko teilatuan, kaleargien **kirrizka**. Jose Morales

---

## kirrizkatu, kirrizka(tu), kirrizkatzen du *ad* kirrinkatu.

Munduko zelai zabala ere burrunbatzen dute, inoiz antzoki handietan zabalduriko errezela masta eta zutabe artean **kirrizkatzen** den bezala. Xabier Amuriza

---

## kirru 1 *iz* izurra, uretan edo ilean eratzen diren uhin modukoetako bakoitza.

Itsas azalaren **kirru** gozoak, farolen izpiek, mendi ilunduek... Koldo Izagirre

-Larri ibili nintzen, **kirru** handi bat egin nuen zerurantz, eta bertikala hartzen ari nintzela gaitzeko eztanda batek astindu zuen Polikarpov gaixoa. Koldo Izagirre

Bibiren eskuek [...] astiro egin zuten laban bularretik gerrira, eta astiroago oraindik gerritik sabelpeko **kirruetara,** presa barik. Paddy Rekalde

• **2** *izond* ileaz mintzatuz, izurrak dituena. ik **izur 6**.

Ume alai eta ederra, ile **kirru** beltzekoa. Agurtzane Juanena

Ile sarri, hori eta **kirrua**. Urtzi Urrutikoetxea

Ile **kirru** eta beltza bular eta lepoan. Urtzi Urrutikoetxea

Ilea **kirrua** eta luzea. Felipe Juaristi

Ule **kirru** zurian pasa zituen eskuak. Koldo Izagirre

Idun jasoko polo beixaren gainetik galtzen zaio adats **kirru** gominatua. Urtzi Urrutikoeetxea

Ilea **kirru,** bizarraren urdinduak kokotsean. Koldo Izagirre

**3** *(hitz elkartuen bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela).*

Brasilen jaiotako emakume begi-eder eta ile-**kirruak**. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ile kirrua** (3)

---

## kirrutsu *izond* kirruz betea.

Bibiren adats **kirrutsuak** igarri zituen lepoan, bere jainkosaren laztan kilimak. Paddy Rekalde

---

## kirrutu, kirru(tu), kirrutzen du *ad* kirru bihurtu.

Eztul eginen du, bekaineko ileak areago **kirrutzen** hasiko da atzamarrekin godaletekoari jaramonik egin gabe, gogoetan, hitzen esperoan isiltzen denean bezala. Koldo Izagirre

Ostertzeko mendiak, ilunabarrak lausotuta, forma zoragarriak hartuak ziren; ordokia ilun zen; Arga, mila islatze argitsuk **kirrutua,** zilarrezko suge bat bailitzan zihoan zuhaitzen artean narraska. Koldo Izagirre

---

## kirruxkada *iz* kirrizka, kirrinka.

Bihar, zezen beltzak Auskalandian ikusle artera eginiko jauzia, jendearen oihu, txilio, **kirruxkada** eta guzti. Iñigo Aranbarri

---

## kirtar *izlag*

Elamdar gudariak zaldi eta gurdietan datoz, prest dituzte geziak; babeskiak atera dituzte **kirtarrek**. Elizen arteko biblia

---

## kirten *(orobat **girten** g.er.)* 1 *iz* lanabes, tresna eta ontzien eskutokia.

Ez zen gelditzen oinetako bakar bat osorik, betunik gabeko paretarik, erreminta bat bere **kirtenarekin**. Anjel Lertxundi

Lanabesen **kirtenak** estutuz. Koldo Biguri

Aiztoak leun-leun egin zuen bidea, **kirtenak** garondoan tope egin arte. Anjel Lertxundi

Labana atereaz, Bankes jaunak oihala ukitu zuen hezurrezko **girtenarekin**. Anton Garikano

Mailuaren **kirtenari** noiz eutsiko. Anton Garikano

Ponparen **kirtena** ala txorrota joko ote du lehenbizi? Anton Garikano

Hantxe jarraitzen du aterkiaren **kirtenari** helduta. Juan Kruz Igerabide

Berriro jo zuen zigorraren **kirtenaz**. Juan Garzia

Pistolaren **kirtenaz** jo nuen buruan. Inazio Mujika Iraola

**Kirten** luzeko eta onil itxurako burruntzali xelebre batekin. Urtzi Urrutikoetxea

Koilarak eta **kirten** luzeko sardexkak. Karlos Zabala

Ezpata dotore apain baten **kirten** landua. Txillardegi

Beste eskuan mutur zabaleko eta **kirten** motz eta hautsiko lantza zeraman. Agustin Otsoa

Azken orduko lasterketa-erratz honek lizarrezko **kirten** aerodinamiko superfina dauka. Iñaki Mendiguren

Haztegiz haztegi zebiltzan, arrantzan, **kirten** laburreko sareak eskuan. Karlos Zabala

Aitzur baten zurezko **kirten** puskatua. Jose Morales

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kirten**-azala bufaloaren adarrez egina zuena. Edorta Jimenez

**3** (elkarketak izenondo balioa duela; ik beherago **7**)

Guardasol **kirten** motz bat. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lilyren eskuari urbonba **girten** bati bezala eraginez. Anton Garikano

Larunbatero joaten omen zen sabbat-era erratz **kirten** baten gainean. Josu Zabaleta

Haren lantza-**kirtena** ehuleen ardatza adinakoa zen. Elizen arteko biblia

Mendi-gailurrean utzitako bandera-**kirtena**. Elizen arteko biblia

Nolanahi ere, arrunt ongi ez zuten hartuko aza-**kirten** batek ostikoka iratzartzea, inondik ere. Karlos Zabala

**5** (irain gisa)

Zer ari haiz esaten baina, **kirten** hori! Joseba Sarrionandia

Zer nahi duk, **kirten** halakoa, ene familiaren hondamena? Patxi Zubizarreta

Ergel hutsa besterik ez den gizon batekin zaudela ezkonduta, handi usteko **kirten** batekin. Josu Zabaleta

Nire ustetan **kirten** bat haiz dudarik gabe. Patxi Ezkiaga

**Kirten** ezjakin horiek mantendu eta janzteko? ...besterik ez dira eta! Irene Aldasoro

**Kirten** samarra izango duk, baina atsegin zitzadaan. Antton Olano

**Kirten** handitzat baitaukate herri honetan guztiek nire gizona. Patxi Ezkiaga

Nire senarra **kirtena** eta jeloskorra da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zein **kirtena** naizen! Karlos Zabala

**6** zakila.

Izan ere, ahizpa batek **kirtena** haztatzen zidan eta besteak ipurdia haztatzen zidan. Pello Lizarralde

Esaten zidan **kirtena** gogortzen zitzaiola amari atzetik begiratzen zion bakoitzean. Pello Lizarralde

Berehala **kirtena** galtzetatik ateratzeko ohitura zuten. Pello Lizarralde

Txistuz edo labaingarriz bustiko du bere **kirtena**, eta xamurki aurkeztuko dio sakondu nahi duen zulo politari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**7** ***kirten-luze*** *(orobat* ***kirtenluze****)* *izond* kirtena luzea duena.

Zerrategiko langileen aizkora **kirten-luze** haietako bat zeukan eskuan, eta airean zerabilen. Bernardo Atxaga

Xalabardo **kirtenluze** bat esku batean eta pipa bestean. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erratz kirten** (5); **erratz kirten bat** (4)
> **erratz kirtena** (3); **eskoba kirtena** (3); **lantza kirtena** (3)
> **erratzaren kirtenarekin** (3); **kirtenarekin jo** (3)
> **kirtenean bermatu** (3)

---

# kirtendegi *iz*

Zaldualde ondoko barrakoi handia, 1956, Zumarragatik Legazpira bidean, **kirtendegi** paretsuan, eskuinetara. Josu Zabaleta

---

# kirtendu, kirten(du), kirtentzen du *ad* ergeldu.

Ez da naturari aurka egiten dion biolentzia bat, ez da zuen seme-alabak hiltegira bidali, zuen garunak **kirtendu** eta zuen arimak exorzizatzen dituen Estatuarena bezalakoa. Harkaitz Cano

---

# kirtendun *izond* kirtena duena; kirteak dituena.

Betaurreko **kirtendun** batez Cecily arreta handiz aztertu ondoren. Antton Olano

Orduan ontzi lau eta **kirtendun** batekin agertzen zen eta burusien azpian jartzen zuen. Urtzi Urrutikoetxea

Hormetan altzairuzko xafla luze batzuk ageri ziren zintzilik, urrezko **kirten** dunak, zintzurrak ebakitzeko. Juan Garzia

· Metal zuriko **kirtendun** sardexka hartu zuen plateraren ertzetik. Karlos Zabala

---

# kirtenkeria *iz* ergelkeria.

Ez bainuke nahi nire **kirtenkeriagatik** errudun bat kalean ikustea. Migel Angel Mintegi

-Diruagatik?... -sinesgaitz begiratu zion, **kirtenkeriaren** bat entzun izan balu bezala. Migel Angel Mintegi

Makina bat **kirtenkeria** sinetsarazi nahi digute giza-izaera horrelakoa dela esanez, baina nirekin jai dute. Beraz, kontu handiz ibiliz, **kirtenkeriarik** egin gabe. Karlos Zabala

Baina hau eliza da, ez eskolako patioa **kirtenkerian** ibiltzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

---

kirtenluze ik **kirten 5**.

---

# kirtentxo *iz* kirten txikia.

Coca-Cola gustuko chupa chups goxoki bat zeukan ahoan, eta haren **kirtentxoa** zigarro bat bezala ernatzen zitzaion ahotik. Bernardo Atxaga

Gero, belauniko jarrita, **kirtentxoa** samur antzean oratu, eta aspiradora pasatzen hasi zaio grazia ederrean. Patxi Iturritegi

---

# kirundi *iz* Burundin mintzatzen den hizkuntza.

Erasotzaileek Kongoko hizkuntzetatik bitan, bafuleroz eta lingalaz, egiten zuten berba, baita Burundiko mintzaira nagusia den **kirundiz** ere. Berria - Mundua

---

# kirurgia 1 *iz* medikuntzaren adarra, gaixoak sendatzeko eskua edo tresna bereziak erabiliz, ebakuntzak egitea helburu duena.

Lokalizatu denean, **kirurgiaren** bidez desegin edo ken daiteke garuneko gune gaixotua, gaixotasuna sendatzeko. Traumatologia: **kirurgia** txikia, 3 hilabete [zain]; **kirurgia** handia, urtebete. Irene Aldasoro

**kirurgia** kardiobaskularreko operazioengatik. Berria - Euskal Herria

Andrew Levitt izeneko **kirurgia** plastikoko doktore baten adiskide egin ziren. Oskar Arana

**Kirurgia** estetikoa baliatuz. Itxaro Borda

Sudurreko **kirurgia** endoskopikoa egiten ari garenean. Berria - Gaiak

Aurpegiko **kirurgia** egiteko lehen zentroa. gaur egun gero eta gehiago hitz egiten da **kirurgiaren** ordezko teknikez; laserraz, esaterako. Berria - Gaiak

Gorputzeko barrunbe natural batean ezartzen denez, ez dago **kirurgiarik** egin beharrik, ez jartzerakoan, ez kentzerakoan. Luis Elberdin

**2** irud/hed

Gatazka elikatzen duten sustraietara jo eta horiei **kirurgia** politikoa egitea. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kirurgiko**.

**Kirurgia**-tekniken eta autopsia-metodoen bidez. Xabier Arregi

Ordu bete baino gehixeago iraun zuen **kirurgia**-lanak. Oskar Arana

Konplexuena eta nekagarriena den **kirurgia**-saioan bi ordu eta erdi eman ondoren. Xabier Olarra

**Kirurgia** operazioak egiteko tresneria. Berria - Mundua

Aldamenean zeukan alaba, benetako **kirurgia**-ebaketa balitz bezala. Javi Cillero

Patologia- edo **kirurgia**-liburu bat zabalik. Xabier Olarra

**Kirurgia** Fakultateko erlojuraino joan zen. Irene Aldasoro

Donostiako ospitaleko angiologia eta hodietako **kirurgia** saileko medikua da. Berria - Gaiak

**Kirurgia** bidez, garunaren bi erdiak bereizi zitzaizkion gaixo bati. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kirugia orokorra** (4)
>
> **hodietako kirurgia** (5); **kirurgia bidez** (5); **kirurgia estetikoa** (3); **kirurgia orokorreko** (3); **kirurgia plastikoa** (3); **masail aurpegietako kirurgia** (4)
>
> **kirurgiaren bidez** (3)

---

# kirurgialari *(48 agerraldi, 4 liburu eta 8 artikulutan: orobat **kirurgilari** 6 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan, eta **kirurjilari** g.er.)*

**1** *iz* ebakuntzak egiten dituen medikua.

Bihotzeko **kirurgialaria** naiz, egia, baina azken finean mekanikari bat besterik ez naiz. Koro Navarro

Garrantzizkoak dira loki-lobuluak […], zeren, **kirurgialariak** lobuluok kentzen baditu, oroimen gehiena galtzen baita. Irene Aldasoro

**Kirurgialariek** izterreko tendoiaren zati bat betazaletan jartzea erabaki zuten. Berria - Gaiak

Geldialdi luzea egin zuen **kirurgilari** trebe batek gazteturiko bularretan. Migel Angel Mintegi

Emakumeen aldizkariek **kirurgialari** estetikoen helbideak eskaintzen zituzten, […] baina nik ez nuen berriz amaierarik gabeko istoriotan abiatu nahi. Joxan Elosegi

Jostunarenera, sendagilearenera, **kirurgilariarenera** eraman dugu. Josu Zabaleta

**Kirurgialari** baten lan zail, zehatz eta delikatua. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Duela urte batzuk, **kirurgialari**-lana utzi zuen urtebetez, Victoriako Unibertsitatean bi gaiok ikasteko. Xabier Olarra

Nortasun eta jokabide osoa [...] aldatu egiten zaizkio **kirurgialari**-mantala janztean. Xabier Olarra

---

# kirurgiano *iz* kirurgialaria.

Ander Letamendia **kirurgianoa** pilotaria izana da gaztetan. Herria

---

# kirurgiko **1** *izond* kirurgiari dagokiona.

-Tratamendu bakarra **kirurgikoa** da -erantzun du doktoreak. Imanol Zurutuza

'Tresneria **kirurgikoa** zeure esku dago,' esango dizu Swen Foynek. Joseba Sarrionandia

Emakumeak abortu farmakologikoaren eta **kirurgikoaren** artean aukera dezake. Berria - Euskal Herria

Haurdunaldia oso laburra denean, [...], badago metodo farmakologikoa erabiltzea, **kirurgikoaren** ordez. Luis Elberdin

Arrisku **kirurgiko** handirik gabe egitekoa. Xabier Olarra

Walter Freeman neurologoak hurbilbide **kirurgiko** berri bat asmatu baitzuen, berak lobotomia transorbitala deitzen ziona. Xabier Olarra

Bestelako prozedura **kirurgikoak**. Berria - Euskal Herria

**2** ***ebakuntza kirurgiko.***

EAEko ospitaleetan 2001ean baino 4.887 ebakuntza **kirurgiko** gehiago egin ziren 2002an. Berria - Euskal Herria

Osakidetzako ebakuntza **kirurgikoen** batez besteko itxaronaldia 49 egunekoa izan da aurreko hilabeteetan. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ebakuntza kirurgiko** (4)
>
> **tratamendu bakarra kirurgikoa** (4)

---

kirurgilari ik **kirurgialari**.

---

kirurjilari ik **kirurgialari**.

---

kiska ik **kixka**.

---

kiskaildu ik **kiskaldu**.

---

# kiskaldu, kiskal, kiskaltzen *(**kiskaldu*** bakarrik: 13 agerraldi, 10 liburu eta artikulu 1ean; orobat **kiskaildu** g.er., **kixkaildu** g.er., **kixkaldu** g.er. eta **kixkildu**)* **1** da/du *ad* kiskali.

Frantzia iparraldean bi haur **kiskaldu** ziren. Itxaro Borda

Denak olio irakinetan **kiskalduta** gelditu ziren. Patxi Zubizarreta

Kristoren maitasunez sutua eta **kiskaldua** zegoela zirudien. Askoren artean

Uste baduzu gauza guztiok lehen ere izan zirela, baina gizaldiak sutan **kiskaldurik** hil zirela, edo hiriak munduaren astindu izugarrian erori zirela [...]. Xabier Amuriza

Labetik hurbil zeuden babiloniarrak **kiskaldu** egin zituzten. Elizen arteko biblia

Halako batez neure eskua jarri bainuen, iñoxo honek, [...] iturri horietako zorrotada batean; eta dexente **kiskaldu** baininduen. Txillardegi

Marseillako eskualdean, bi mila hektara nunbait han erre **kixkildu** dira eta su-hiltzaleek lanak ukan dituzte etxe batzu ezin begiratuz. Herria

Bazter guziak **kixkilduak,** ura xuhurtua, kabalek ere azkarki sofritu dute ainitz tokitan. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Lagunen gorpu **kiskalduetatik** itxura fantasmagorikoak sortu ziren. Joanes Urkixo

Hori esanda, azken zupada jo dio txirriari, urrun bota du kartoitxo **kiskaldua,** eta lasai gelditu da. Pako Aristi

Eraikuntza hondakin **kiskalduen** artetik] Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erre kixkildu** (7); **erre kixkildu dira** (5)

---

**kiskalgarri** **1** *izond* kiskaltzen duena.

Errebeldeak irentsiko dituen su **kiskalgarria** besterik ez dezakegu espero. Elizen arteko biblia

Udaminaren barruan, ohikoak izaten dira bero-bolada **kiskalgarri** horiek. Pello Zabala

Haize **kiskalgarria** dator basamortutik nire herrirantz. Elizen arteko biblia

Udako bero **kiskalgarrian** zein neguko hotz gogorrean. Karlos Zabala

Eguzki **kiskalgarritik** gordetzeko. Karlos Zabala

Eguzki bero **kiskalgarria**. Pello Zabala

Eguzki-galda **kiskalgarri** hartan. Joxe Austin Arrieta

Asfalto **kiskalgarriaren** gaineko autoen erreka azkengabeari begira zegoen. Lopez de Arana

Eguzkia, ordea, **kiskalgarria** zen, bizia, lurra harrotu eta biziarazten duten horietakoa. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Leiho handien artetik, abuztuko eguzkiak bere indar **kiskalgarria** iragazten zuen, mila aldiz areagotua. Aingeru Epaltza

Odola dut [...] aurpegian behera, eta berehala min **kiskalgarri** batek astindu dit burua. Mirentxu Larrañaga

Eta urduritasun **kiskalgarri** batek hartzen dizu urdaila. Koldo Izagirre

Funtsean, maitasuna besterik ez baita: freskura bat nekearen ondoren, betetasun **kiskalgarri** bat bizitzaren hutsune hotzaren erdian. Pako Aristi

**3** (erkaketan)

Badator eguna, labea bezain **kiskalgarria**. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bero kiskalgarri** (3)
> **bero kiskalgarria** (8); **bero kiskalgarria egiten** (3); **su kiskalgarria** (14)
> **eguzki kiskalgarriaren** (4); **eguzki kiskalgarriaren pean** (4)

---

**kiskali** *(**kiskali*** bakarrik: **345** agerraldi, **94** liburu eta **71** artikulutan; orobat **kiskaili** g.er., **kixkali** g.er eta **kizkali** g.er.)* , kiskal, kiskaltzen **1** du *ad* erabat erre. ik **kiskaldu**.

40 etxe baino gehiago **kiskali** zituzten. Gotzon Garate

Sute baten erdian zaudenean, normalean keak itota hiltzen zara, suak **kiskali** baino lehen. Fernando Morillo

Bat-batean zerutik sua jaitsi eta **kiskali** egin zituen beste buruzagi hura eta berrogeita hamar gizonak. Elizen arteko biblia

Espainiar tertzioek Amberes lehendabiziko aldiz **kiskali** zutenean. Felipe Juaristi

Institutuan, zuzendariari autoa **kiskali** zioten. Karlos Linazasoro

Jauretxeko zutarri sakratuak atera eta **kiskali** egin zituzten. Elizen arteko biblia

Suak **kiskalitako** pinu-enbor zaharrak. Jose Morales

Hondarrezko lau mendiren arteko zulo eguzkiak **kiskali** hartan. Josu Zabaleta

Tximista batek jota baino **kiskaliago** geratu nintzen hori entzutean. Anjel Lertxundi

Jarri eskua: **kiskaliko** ez du ba! Pello Zabala

**2** irud/hed

Imajinatzen duelako tribuko kontalari profesionala ipuin baten erdian [...] edo Limako Plaza de Armas-en eguzkiak **kiskalitako** peruar bat. Unai Elorriaga

Hala ere, jainkozko suak barrua **kiskaltzen** zion. Askoren artean

Sukar irultzaileak **kiskalita,** ordutik aurrera alderdi "patriotikoko" panfleto-egile eta suspertzaile handiena egin zen Jean-Baptiste Cloots. J.M. Olaizola "Txiliku"

Botere goseak **kiskaltzen** zuen arima bat. Alberto Ladron Arana

• **3** da *ad* erabat erre.

Ia-ia goitik behera **kiskali** naiz. Itziar Otegi

Begi izutuak ziren, hiri oso bat sutan **kiskaltzen,** erretzen, belzten ikusi dutenak. Felipe Juaristi

*Tradebe Grupo* enpresan sua piztu eta lantokia erabat **kiskali** zen. Berria - Ekonomia

Erregaitarako kamioi bat lehertu eta 30 bat auto **kiskali** dira Lizarran. Berria - Euskal Herria

Dena **kiskali** zen: bildutako garia eta artean ebaki gabe zegoena, eta are mahastiak eta olibadiak ere. Jose Antonio Mujika

Zortzi milaren bat hil ziren ezpataz nahiz sutan **kiskaliak**. Elizen arteko biblia

Joan den astean, **kiskalita** hil zitzaidan arotza. Jose Morales

Infernuko garretan **kiskaliko** da agian! Aingeru Epaltza

Ni hippy baten motorra baino **kiskaliago** nengoen! Antton Olano

Abioia **kiskalita** geratu zen. Berria - Mundua

Historiak dioenaz arratsalde hartan **kiskaltzeko** bero bat egin zuen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**4** (era burutua izenondo gisa)

Eztanda egin zuen ibilgailu barruan aurkitutako gorpu **kiskalia** Dani Anderson fiskalarena zela. Berria - Mundua

Gorputz **kiskali** batek gauza bakarra frogatzen du: gorputz hori zegokion pertsona hilik dagoela, horixe besterik ez. Jon Muñoz

Zurezko aulki **kiskali** baten hondarrak. Josetxo Azkona

Hareatza **kiskalietan** aintzirak, paraje agorretan iturburuak. Elizen arteko biblia

Arsinoe-tik abiatu eta basamortu **kiskalian** sartu ginen. Juan Garzia

Kolore beltz **kiskalia** zuen adreiluak bururatzen zituen egurrak. Koro Navarro

Oroitzapen bat bera ere ez; maitasun gupidagabea eta **kiskalia,** abarorik gabea, perspektiba hartzeko aukerarik gabea, aterperik gabea. Monika Etxebarria

Larru **kiskaliaren** usaina zeriela. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **auto kiskali** (4); **erabat kiskali** (3); **erre eta kiskali** (5); **suak kiskali** (9); **suak kiskali zuen** (3); **sutan kiskali** (4)
>
> **egur pusketa kiskalia** (3); **lur kiskalia** (3)
>
> **ateak suak kiskaliak** (3)
>
> **erabat kiskalita** (13); **erabat kiskalita gelditu** (5); **guztiz kiskalita** (3); **kiskalita gelditu** (6); **kiskalita gelditu zen** (3); **kiskalita geratu** (9); **kiskalita geratu zen** (5); **kiskalita hil** (6); **kiskalita hil ziren** (3); **sutan kiskalita** (3)
>
> **eguzkiak kiskalitako** (6)
>
> **barrua kiskaltzen** (3); **barruak kiskaltzen** (3); **erraiak kiskaltzen** (3)

---

## kiskalmen *iz* kiskaltzea.

Hortzak karraskaz eta ezpainak more harkaitz pirataren gainean **kiskalmenak** hartzen egon arren. Koldo Izagirre

---

## kiskaltze *iz* guztiz erretzea.

Zenbat heriotz eta **kiskaltze** ekidin ote ditu Benjamin Franklinen asmazio bikain honek. Pello Zabala

**Kiskaltze** saio berri bat. Berria - Mundua

---

## kisketa *(orobat **krisket**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kisketa** agertzen da)* **1** *iz* eskuaz eragiten zaion hagaxka edo xafla bat duen sarraila txikia. ik **maratila; txinget**.

Ez dago sarrailarik edo **kisketarik,** soilik alanbre txibista bat iltze batean katigatzeko. Anton Garikano

Baita hango komun-gelaska baten ate **kisketaz** itxiaren atzean ezkutatu ere. Joxe Austin Arrieta

Gozotasunik ez zuen irribarre saiakera haietako bat egin eta kanpoko ateko **kisketa** bikoitza itxi zuen. Harkaitz Cano

Zurrumurru bat entzuten da; **kisketaren** hotsa ondoren; ateari bultza egin eta ireki egiten du. Iñaki Mendiguren

Balkoiko atea zabalik dago, eta, lurraren erdi-erdian, **krisketaren** muturra lotzeko txulotxo bat dago. Anjel Lertxundi

Ate horren **krisketa** mendearen amaieran hasi zen krak egiten. Pello Salaburu

**Krisketatik** zetorren giltzaren zigizaga hotsak ikaraz jarri ninduen. Itxaro Borda

Leihoko **krisketera** iritsi baino lehenago, baina, mutila emeki-emeki higitu eta balkoiaren eskuinaldean ezkutatu zen. Gotzon Garate

**2** (aditzekin)

**Kisketa** bultzatu eta atea zabaltzen saiatu zen. Koro Navarro

Eva nekez sartuko zen baimenik gabe bulegora, baina **kisketa** itxi zuen hala ere, badaezpada. Harkaitz Cano

**Kisketa** eskuaz jiratuko du emakumeak. Joseba Sarrionandia

Besaulkian jarri eta besoa luzatzen du gibeleko ateko **krisketaren** tiratzeko. Eneko Bidegain

Gelatik irten, eta sarrail-zuloan **krisketa** astiro irristatuz, joan egin zen. Anton Garikano

*Como tires algo por el retrete te mato a hostias,* esan zuen batek atea jotzen zuelarik, baina ez zeukan **krisketa** jarrita, Anjel segituan atera zen komunetik. Mikel Hernandez Abaitua

Eskozia osoan ez badago sarraila-zalerik **krisket** bat konpon dezakeenik. Anton Garikano

**3** *hed* ik **krisket**[1].

Ellenek **kisketa** jasotzeko botoia sakatu zuen. Lopez de Arana

Argazki-kameraren estalkia irekitzeko **kisketari** eragiten zion Mentxuk behin eta birritan. Josu Landa

Laugarren solairuraino igo zen eta argiaren **kisketari** eman zion. Iñaki Zabaleta

**4** ***ate kisketa*** atean, deitzeko, izaten den metalezko mailu modukoa.

Jaiki zen, jantzi, eta deitu baino lehen zabaldu zuen atera, ate-**kisketaren** hotsa gogoratzeaz beldurturik. Josu Zabaleta

Ate-**krisketan** jarri du eskua ene maiteak: dardar dagit barruak. Anjel Lertxundi

· Ezker-eskuma jo zuen **kisketaz,** Antoniari sar zitekeela klabez ohartarazteko edo. Josu Landa

**5** ***kisketa eman***

Atea zabaldu, sartu eta **kisketa emanda** itxi zuen. Anton Garikano

Atea, **krisketa eman** gabe zegoenez gero, suabeki hasi zen zabaltzen. Joxemari Iturralde

Legeak, ordea, aspaldi **emana** zien emakumeen kantuzko kriskitinei **krisketa** : [...]. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ateko kisketa** (3); **kisketa itxi** (3)
>
> **kisketaren hotsa** (3)
>
> **kisketari eman** (3); **kisketari eragin** (4); **kisketari helduta** (4)
>
> **atea kisketaz** (3); **kisketaz itxi** (5)

---

## kisketatu, kisketa, kisketatzen du *ad* kisketaz giltzatu.

Hantxe **kisketatu** gintuen. Harkaitz Cano

---

## kiskil ik **kixkil**.

---

## kiskiti-kasketa *iz*

Zer erran, oro har, Angeluko Trofeokotz jokatu partida horietaz, aitzinean Garaziko finalarekin bururatua zenaren ondotik? halako arrapizte bat eskatzen diotela pilotari holako **kiskiti-kasketek**, bainan ez dutela auziek eta tribunalek xurituko gure pilotaren egiazko eritasuna. Herria

---

**kiskun-kaskun** **1** *adlag ipar* aho-oztopoka, nahasiki.

**Kiskun-kaskun** kondatu nion zer ikaragarrikeria gertatu zitzaigun. Daniel Landart

Lanean ari ziren, frantsesez hitz egin behar zutela **kiskun-kaskun**. Itxaro Borda

Horra nun frantses administrazioak erabaki duen, ingles horien errextasunaren gatik eta nahiz gehienek frantsesa mintzo duten **kiskun-kaskun** bederen, lekuka enplegatu batzu izanen direla inglesez ariko zaizkiotenak, argitasun guziak gisa hortan emanez. Herria

Bai, 9 hizkuntza badakizkit, eta **kiskun kaskun** mintzatzen ditut. Herria

**2** (izen gisa)

Gure arteko **kiskun**-kaskunean galdegiten dit: "tu, pastor" nik, baietz. Marzel Etxehandi

---

**kiste** *iz* zakutxo baten itxurako tumorra, isurkari lodi samar batez edo gai gotor batez betea.

Ebakuntza egin zioten abenduaren 23an **kiste** bat kentzeko. Berria - Kirola

Sergi Vidalek **kiste** txiki bat du orkatilaren alde batean, eta ez dago garbi jokatuko duen. Berria - Kirola

Ekografiari esker, **kisteak** eta miomak garaiz atzeman daitezke. Luis Elberdin

Sonogramak erradiologoarekin aztertu **-kistearen** murriztea berretsi zioten-, eta gero, itzuli, eta gaixoa lasaitu zuen. Xabier Olarra

Zaldia gainera eroria zitzaion estropezu eginda, eta pankreako sasi-**kiste** izugarri bat garatu zitzaion. Xabier Olarra

---

**kistiko** *izond* kistearena, kisteari dagokiona.

Test berezi batek -fluoreszeina-angiografiak- makulako edema **kistiko** txiki bat agerrarazi zuen. Xabier Olarra

Pankreako fibrosi **kistikoa** mukobizidosi eta Huntingtonen gaitza dira horietako bi. Berria - Gaiak

---

kisu ik **gisu**.

---

kisulabe ik **gisu 4**.

---

**kitaezin** *izond* ezin kitatuzkoa.

Berarekin dugun zor **kita** ezinagatik, ezin dugu etsi; ezta barkatu ere. Anjel Lertxundi

Ez diote barkatuko zigorra, tximeletak banaka-banaka ordaindu beharko ditu; eta, hala ere, ez du bere zorra kitatuko, ezarri zaion kondena **kitaezina** baita, betierekoa. Karlos Linazasoro

---

**kitaketa** *iz* kitatzea.

Hori dela eta, bozak alderdi «ofizialen» aurkako kontu **kitaketa** bilakatu dira, PDS ere jada alderdion artean sailkatzen delarik. Berria - Mundua

---

kitantxa ik **kitantza.**

---

**kitantza** *(corpusean **kitantxa** soilik)* *iz* kitatzea, kitapena.

Donibane Garazin zituzten egiten urte oroz behar ziren deklaratzeak beren azinden akiten edo **kitantxen** ardiesteko; gero libro ziren harat eta honat ibiltzeko beren azindekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**kitapen** **1** *iz* kitatzea.

Nork bere barruko zaurien ukendua nahi luke aurkitu, nork bere baitako mendekuen **kitapena** lortu. Anjel Lertxundi

Zorrak besterik gabe kitatzea ere ez da oso irtenbide aproposa, horren ondorioz inoiz ere beste mailegurik jasotzeko eskua ere **kitapen** horrekin galduko balitz. Iñaki Heras

Lehenbailehen saldu ezean, Justizia Administrazioak enpresaren **kitapena** agindu eta guztiak kale gorrian geratzeko beldur dira. Berria - Ekonomia

**Kitapen** garestiegia izan zen hura, krudela eta mingarria. Aritz Gorrotxategi

Liburu hau idazteko, maila arinago edo sakonagoan iturri, etorri, idazkera eredu edota ideia harrobi gisan erabili ditudan pertsonekiko zorren **kitapena** egin nahi dut, eskerrak agertuz, zeini eta hauei: [...]. Pako Aristi

**2** (hitz elkartuetan)

Gurutzeak egin zituen bere itaunketa guztien gainean, eta bere atzemate-**kitapenen** gainean bezalako marka ezarri. Juan Garzia

---

**kitara**[1] *(orobat **kittara**)* **1** *iz* pilotan, errebantxa.

Horra beraz nola Asier Olaizola eta Zearrak irabazi duten beren lehen partidaren **kittara** edo errebanja. Herria

Aldiz berezkoetan Panpi Idiartek zango bat airean, 17etarat heltzea ez da gaizki! partida horrek merexi du **kittara**. **Kittara**: Baionak irabazi zuen Miarritzen, larunbatean Miarritzek jo du Baiona eta hori Baionan. Herria

29 an jokatuko da **kittara** Hazparnen, hau eta ondokoa ere tenore beretan. Herria

Ageriko nola joanen den igandeko **kittara** Arrangoitzen, aratsaldeko 4-etan lehen partida. Herria

**2** ***kitarako partida***

Lehen emaitzak ikusita, litekeena da kanporaketa guztiak bi partidetan erabakitzea, **kitarako partidarik** gabe alegia. Berria - Kirola

**Kitarako partida** irabazten dutenek Irujo eta Eulate izango dituzte aurkari hurrengo kanporaketan.

**Kitarako** partida baino gehiago kontu garbitzea izango da, Gaur irabaziz gero, finalerdietako **kitarako partida** behartuko lukete. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kitarako partida** (14)
> **kitarakoa behartu** (4); **kitarakoa hartu** (4); **kitarakoa hartu zuen** (3); **kitarakoa jokatu** (9); **kitarakoa jokatu zuten** (3)

---

kitara[2] ik **zitara**.

---

**kitarazi**, kitaraz, kitarazten du *ad* kitatzera behartu.

Soldadu zaharrenek uzki-zorra **kitarazi** nahi izan ziotean. Aingeru Epaltza

---

kitarra ik **gitarra**.

---

kitarradun ik **gitarradun**.

---

**kitatu**[1], kita(tu), kitatzen **1** du *ad* zor zen diru kopurua ezabatu. (ordaintzen delako) ik **berdindu**. (zorrez mintzatuz)

Horretaz aparte, zorra **kitatuta,** ikusiko duzu zeinen lasai egingo duzun lo. Migel Angel Mintegi

Eragiketa haren xedea errepublikak hiritarrei zor ziena **kitatzea** zen, ez hiritarrek elkarri zor ziotena **kitatzea**. Iñaki Iñurrieta

Zorra bi epetan **kitatzeko**. Berria - Kirola

Izan ere, sultanak ere bazuen piratarekin zorrak **kitatu** beharra, eta zintzurra moztu **kitatu** nahi zituen. Martin Anso

Prezioa igo zion, eta ez zuen "beste fabore" baten truke zorrik **kitatu** nahi izan. Juan Kruz Igerabide

Urtero dirutza jakin bat erabiltzen da interesak eta zorra **kitatzeko**. Iñaki Heras

Jukosen zerga zorra **kitatzeko,** filialaren akzioen %76,9 salduko ditu. Berria - Ekonomia

Inori zorrik gabe zorrak **kitatzen,** deus galdu gabe zorrak barkatzen. Imanol Unzurrunzaga

**2** (bestelako zorrez mintzatuz)

Kapitaletik interesetan ordaindutakoa kenduko zela, eta beste guztia hiru ordainketa berdinetan **kitatuko** zela. Iñaki Iñurrieta

Urtarrileko hirugarren astean, ordainketa bakar baten bidez, 2004ko atzerapenak **kitatuko** ditu Espainiako Gizarte Segurantzak. Berria - Ekonomia

**3** (hartzekodunak barkatzen duelako)

Londresek jada **kitatu** du herrialde pobreenek berarekin zuzenean zuten zorra. Berria - Ekonomia

· Huts horiek **kitatuak** dirateke agian idazlanaren izateari berari dagokion dohain batez. Jon Muñoz

Oro har, gauza txikiak ziren, eta On Camillok hamar Aitagure eta Agur Mariarekin **kitatu** zuen. Koldo Biguri

**4** irud/hed

Aldian behin bisita eginik **kitatu** nahi izaten dute batarekiko zein bestearekiko zorra. Joxerra Garzia

Hiltzailea kalean zegoen, legearekiko zorrak **kitatuta**. Anjel Lertxundi

Odolezko zorrak **kitatzearren**. Javi Cillero

Inoiz ez ninduen oporrik utzi, ezta emetasunaren zor odoltsua **kitatu** behar zuen egunetan ere. Aingeru Epaltza

Euskal gizarteak zorra **kitatu** behar du biktimekin eta bizikidetzara iristeko bidea ibili behar dugu. Berria - Euskal Herria

Omenaldiarekin, genuen zor historiko bat **kitatu** dugu. Berria - Euskal Herria

Bihurtze hau berriro betetzen denean, zor guztia **kitaturik** dago, nahiz eta mundua sortu denetik bizi izan diren gizaki guztiena adinakoa izan. Joan Mari Lekuona

**5** diru kopuruez mintzatuz, berdindu edo ordaindu.

30 bider handitu zuen irabazi garbia [...] eta Allianz aseguru etxearekin bat egin zuenetik lehen aldiz bere diru sarrerekin **kitatu** zituen kostuak. Berria - Ekonomia

Bi nazioek ehun mila markoko dirutza **kitatuko** liokete elkarri, baina Frantziak hamar mila marko zor lituzke artean Espainian. Iñaki Iñurrieta

Gainerakoek baino zerga gehiago ordaintzen zituztelako eta erresumako diru-kontuak **kitatzeko** haiek egindako maileguak lagungarriak izan zitezkeelako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bistakoa zen Olaberi dirua ordaindu beharko ziotela 500.000 euro jaso zituen kontratua **kitatzeagatik**. Gutxieneko osagarririk ez duten 5.000 pentsiodunek beste diru sarrerarik ez dutela frogatu beharko dute eta «beharrezko kenkaria» erabiliko da errenta **kitatzerakoan**. Berria - Kirola

**6** (bestelakoez mintzatuz)

Ez dago frankismoaren biktimen sufrimendua **kitatuko** duen dirurik... Berria - Euskal Herria

Gerrara oinarri faltsuekin joatea ezin da erantzukizunak **kitatu** gabe utzi. Berria - Mundua

Bederen iduri du gudukatokietako nekeak haren besoetan **kitatu** zituela Migel Mailuk. Aingeru Epaltza

Lurrak aireari eta aireak lurrari, **kitatu** ezinean, fluktuazio etenbakoan dabiltza biak: gauez hozten eta egunez berotzen. Pello Zabala

Berorren ihardespenaren zain nauka **kitatu** nahi dudan damuaren egonezinaz. Jon Muñoz

Emadazu ontzat, arren, hoben hau **kitatzeko** aukeratu dudan penitentzia. Askoren artean

Badira, legeak zigorra ezartzen duenean, zigorra modu boluntarioan onartzen badute, lege zibilaren kontrako delituak **kitatu** dituztela uste dutenak. Esteban Antxustegi

**7** (era burutua izenondo gisa)

Alexandro-osteko helenismoaren eta bere garaikideen arteko transakzio artistiko eta intelektualak, [...], garai honetarako, kontu **kitatuak** ziren. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dolarreko zorra kitatu** (3); **euroko zorra kitatu** (3); **kitatu gabeko** (3); **zorra kitatu** (21); **zorra kitatu du** (3); **zorrak kitatu** (13)
> **zorrak kitatuko** (3)
> **zorra kitatzea** (7); **zorrak kitatzea** (4)
> **zorrak kitatzearren** (4)
> **defizita kitatzeko** (4); **ehuren defizita kitatzeko** (3); **iraina kitatzeko** (5); **kitatzeko aukera** (3); **kitatzeko epea** (4); **kitatzeko parada** (3); **kontuak kitatzeko** (6); **kontuak kitatzeko epea** (3); **ogasunarekin kontuak kitatzeko** (3); **zorra kitatzeko** (32); **zorrak kitatzeko** (23)
> **zorra kitatzen** (5); **zorrak kitatzen** (4)
> **zorrak kitatzera** (6)
> **errenta kitatzerakoan** (4)

## **kitatu**[2], kita(tu), kitatzen du *ad* utzi.

Markitxaineko Marie-Jeanne-k **kitatu** gaitu 78 urtetan. Herria

Theresek demagun, hogei bedatsetan Arrokiagako herria **kitatu** zuen Parisera lanera joateko. Itxaro Borda

Uste dut mozkor kimiko egoera hartan egin nuela lehen aldiko, **kitatuko** ez ninduen "Azken Eskualdunaren Ehorzketa" haren ametsa. Itxaro Borda

---

## **kitatze** *iz* zor dena ezabatzea.

Liskarren batean hil nautela, zain neuzkala, gure arteko kontu **kitatze** bat izan dela. Koldo Izagirre

Zorren **kitatze** prozesua moteldu izanak eragin du defizitaren goranzko joera. Berria - Ekonomia

Orain arte egin izan dugun ohiko kontu-**kitatzearen** ordez. Bego Montorio

Bere iraganarekiko kontu-garbiketa gordina dago liburu osoan, eta batik bat bere amaren oroitzapenarekiko zor-**kitatze** zirraragarri bat. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **kitiar** *izlag*

Jabanen semeak, Elixa, Tarsis, **kitiarrak** eta rodatarrak. Elizen arteko biblia

---

## **kitina** *iz* karbono hidrato nitrogenoduna, artropodoen azal gogorraren osagai onarrizkoa dena.

Intsektua ernaldurik gertatzen da, arrautzak jartzen ditu eta hiltzen da: gorputxoa oihanlurrean datza; bere umoreez hustu da, baina **kitinazko** oskolak luzaro dirau, ia suntsiezin. Juan Garzia

---

## **kitinatsu** *izond* kitina ugari duena.

Bi hego-paretik bat **kitinatsua** eta gogorra dute eta honek babesten du bigarren parea -imajinatu marigorringo txiki eta beltz bat eta samuaren gutxi gorabeheherako irudia izango duzu. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **kitirar** *iz* Kitirako herritarra.

Anartean, ihesi joandako **kitirarrek** laguntza eskatu zieten beste **kitirarrei;** barrualdean bizi ziren **kitirarrak** gehiago ziren, eta hobeak, borrokan zailduak, hala gurdiz nola oinez. Juan Kruz Igerabide

Helios eguzkiak idiei uztarria kendu zienean (hots, ilundu zuenean), **kitirarrek** atzera eginarazi ziguten, eta ontzi bakoitzeko sei akaiar adats-eder hil ziren. Juan Kruz Igerabide

---

## **kito** *(637 agerraldi, 144 liburu eta 113 artikulutan; orobat* ***kitto*** *255 agerraldi, 79 liburu eta 32 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kito*** *agertzen da)* **1** *adlag* zorrik edo hartzekorik gabe.

Zor-hartzekoetan **kito** nago. Iñaki Segurola

Ez al daude oraindik bi giza sexuak zor-hartzekoetan **kito** ? Iñaki Segurola

Horrela, bere zorra ordainduko zion eta behin betiko **kito** izanen ziren. Elena Touyarou

**2** irud/hed

Ibaian burua hirutan sartu eta Jainkoaren aurrean beren bekatu guztiez **kito** gelditu. Gotzon Garate

Demagun hark irain egin dizula, baina zuk ordaina bihurtu diozu: **kito** zaudete. Jose Morales

Gu bakean **kito** gaudek. Harkaitz Cano

**3** (zerbaiten bukaera adierazteko)

**Kito** ziren goizeko hamarretako zalapartak, bultzadak eta zapaltzeak. Karlos Zabala

Amaitu duk dena, akabo, **kito** betiko. Mirentxu Larrañaga

Ondotxo genekien bukatu zirela, behingoz, olgetak eta ameskeriazko jolasak, **kito** betiko. Mirentxu Larrañaga

**Kitto** ! debeku agindu bat eskatuko dut, horixe da egingo dudana! Koro Navarro

**-Kito** -esan zuen petrikiloak. Juan Kruz Igerabide

**-Kitto..., kitto** zer? -esaten dio Danik urduri baino urduriago. Antton Olano

Gaurko gaua eta gero, **kito** dena. Mirentxu Larrañaga

Egurra amaitzean, sua itzali; iraintzailerik gabe, **kito** liskarra! Elizen arteko biblia

Gaiztoa hiltzen denean, **kito** haren itxaropena! Elizen arteko biblia

**-Kitto** festa -esan zion xuxurlaka mutilak bere basoari. Koro Navarro

**Kito** fantasiak, **kito** sineste bitxiak, azalpenik ez duen guztiak badu orain azalpena. Josu Zabaleta

Eta Hannak, derrepente, **kitto,** hautsi egin nahi zuela gure harremana. Joxe Austin Arrieta

Baina nik ez nion uzten, **kito,** esaten nion, eta mendeku keinuz isiltzen zen, besoak gurutzatuz. Lander Garro

Artean ez genekien, baina aurki gure bizitzatik erabat aldentzeko zorian zegoen; **kito** betiko orduan haren haserre biziak, mehatxu guztiak eta gaitzespen-hitz ziztrinak. Mirentxu Larrañaga

**Kito,** bada, halako konturik, eta harira. Juan Garzia

-O, laztana, ene kuttuna halakoa... ala, **kito** . Jesus Mari Mendizabal

Pertika-jauzilaria izan nahi zuen, eta arratsaldero joan zen urte oso batez zintzo-zintzo entrenalekura [...] harik eta 3,50 metrora iritsi zen arte, jomuga zuenez, eta horrenbestean **kito** . Juan Garzia

**4** ***kitoriksup_1*** *adlag* bukaturik.

Bellerocherena finitua da: auzia **kitorik,** gastua ordaindurik. Jon Muñoz

**5** ***kitoriksup_2*** *adlag ipar* urririk, doan.

Badakit **kitorik** emanen dauzula. Marzel Etxehandi

Hori guzia **kitorik** denaz geroz, dena hartuko dugu. Marzel Etxehandi

Geroxeago, apezari egiten zioten fabore bereziari esker, ikasketak **kitorik** egin zituen katedraleko eskolan. Elena Touyarou

Eguerditan zikiro jatea **kitorik** Jai Alaian. Herria

Betiko errana: gauza emana ez dela sekulan **kitorik** emana. Herria

## 6 *eta kito*

-Botiketarako behar dudan dirua bidali **eta kito** -esan zuen Rufusek xuxurlaka-. Oskar Arana

Nitaz aspertu baldin bazara, esan **eta kito**. Juan Kruz Igerabide

Atzamarraren presio txiki bat gakoan **eta kito,** presio txiki bat eta dena amaituko da. Agustin Otsoa

Bihar entregatu, beste garraio bat egin eta **kitto**. Iñaki Zabaleta

Morse andreak luzaroan begiratu zien bere eskumutur meheetako zain urdin-urdinei... bizar-xafla batez egin ebakia, **eta kito** betiko. Mirentxu Larrañaga

**Eta kito,** beste kontu batera! Antton Olano

Horrela da **eta kito**! Itxaro Borda

Ulergaitza izan zen hura guztia; gertatu egin zen, **eta kito:** hain pozik zaude, eskuan argizari izekia duzula, eta jotzen du haizeak, eta itzali egiten dizu. Juan Kruz Igerabide

Zeharo normala izango baitzen, han bertan ere, elkarren aldamenetik pasatzea **eta kito,** besterik ez. Joxe Austin Arrieta

Eta deus egin gabe, masajeren bat noizean behin **eta kito**. Karlos Zabala

Etengabeko arrazoiketa eroak nonbait pausatu behar, nonbait etsi behar, eta horra pentsatzeari eta pentsamenduari etsi bat eman, etsipena eman: "hauxe **eta kito"**. Iñaki Segurola

Etsi-etsian hauxe **eta kito**. Iñaki Segurola

Ez zait interesatzen **eta kito**. Jesus Mari Mendizabal

-Bat eta **kito,** Manu. Urtzi Urrutikoeetxea

· Itxaron pixka bat, **eta kito** gaiztoa, bilatu arren, ez duzu gehiago aurkituko. Elizen arteko biblia

Bera baino ez zen sartuko gela hartan, eta **kito** horrela besteok sor genitzakeen eragozpenak. Edorta Jimenez

## 7 *kito egin*

Iriarterekin zorrak **kito egiteko** egunen bezperetan. Alberto Barandiaren

Agindu haiekin **kito egin** baitzuen diruen kontua behingoz. Presta zezala bakoitzak irakasgaiaren inguruko zerbait, eta horrenbestez **kito egitea** proposatu nien. Edorta Jimenez

Ez al da kontzientzia betekoa beso honekin **kito egitea** harekikoa? Juan Garzia

· Ikusten duzu ni ari naizela neure hitza betetzen, nahiz zuk ez duzun **kitorik** egin nirekin. Jon Muñoz

## 8 *kito izan* da *ad*

Horrela, bere zorra ordainduko zion eta behin betiko **kito izanen** ziren. Elena Touyarou

Itzuli egingo diot dirua, eta **kito izango** da orduan. Oskar Arana

Mikel Strogoff berehala **izango zen**, bada, poliziarekin **kito** eta nahi zuen lekura joateko aske. Karlos Zabala

Hurrengo, nahikoa bat-batean, nire hamabigarren urtebetetzeaz geroztik-edo, **kito izan** ziren betiko jolas haiek denak. Mirentxu Larrañaga

**Kito ziren** goizeko hamarretako zalapartak, bultzadak eta zapaltzeak. Karlos Zabala

## 9 *kitoa eman* bukaera eman.

Eskerrak eman, nire numeroa zintzo-zintzo egin, produktu berri jakin bat famatu, enkargu aski mardul baten oharra hartu, agur esan, eta **kitoa** eman nion aferari. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bat eta kito** (6); **bota eta kito** (3); **egin eta kito** (10); **eman eta kito** (3); **erran eta kito** (4); **esan eta kito** (3); **eta hortan kito** (4); **eta kito** (434); **gero kito** (3); **jo eta kito** (3); **kito betiko** (7); **kito da** (4); **kito dena** (3); **kito eta akabo** (3); **muturreko eta kito** (3); **ordaindu eta kito** (3); **orduan kito** (4); **sartu eta kito** (4); **utzi eta kito** (3); **zorra kito** (6)
>
> **dretxoa badutela kitorik** (4); **kitorik erakasleen aldetik** (3); **sartzea kitorik** (3)

---

# kitsch *izond* estetika handiustekoa eta dotore-ustea, gustu txarrekoa edo boladaz pasea dena.

Ez zaio **kitsch**-ari muzin egiten. Bernardo Atxaga

**Kitscha** kontsumo gehiegiak eragindako beherakoaren ondorioa den bitartean, horren beste puntako [...] manifestazioa da, justu, herri-kultura. Berria - Kultura

Handik eta hemendik hartutako gauzez antolatutako eraikin **kitsch** nabarmen bat baizik ez baitzen Madrilgo Burtsaren Etxea. Hasier Etxeberria

Ukitu **kitsch** bat zuen bere jantzeko erak: amonarenak izan zitezkeen gona eta takoizko zapata horiak. Eider Rodriguez

Eszena **kitsch** baten tranpa sentiberan erortzen ari naizela esaten ari zaidan ahotsa. Anjel Lertxundi

Postal **kitschetako** txistularia ematen zuen. Hasier Etxeberria

· Marco Antonioren eta Cleopatraren arteko maitasunaren **kitsch** bertsioa, Berria - Kultura

---

kittara ik **kitara**[1].

---

kitto ik **kito**.

---

kitu ik **ijito**.

---

# kitxua *(orobat **ketxuar** -bigarren adieran- g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kitxua** agertzen da, "hizkuntza" argibidearekin)* **1** *iz* Perun, Bolivian eta inguruko hainbat eskualdeetan mintzatzen den indiar hizkuntza.

Perun zortzi milioi lagun inguruk hitz egiten dugu **kitxua**. Berria - Gaiak

Bere irratsaioak Amerika osoan ez ezik, Filipinetan eta AEBetan ere entzungai izan ziren eta hainbat hizkuntzatara itzuliak (portugesa, **kitxua** eta aimarara, besteak beste). Txema Ramirez de la Piscina

· Gaztelaniaz eta **kitxua** hizkuntzan emanak. Berria - Kultura

• **2** *izlag/iz* Perun, Bolivian eta inguruko hainbat eskualdeetako indiar herri bati dagokiona; herri horretako kidea.

**Kitxua** etniako indigena da Luis Macas. Berria - Harian

**Ketxuar** igerilari iaio bat. Berria - Kultura

Andreak bere ibilera gelditu gabe eta **kitxua** doinuko gaztelaniaz erantzun dit: [...]. Joseba Sarrionandia

Neska **kitxua** batekin ezkonduta. Joseba Sarrionandia

Aimarak, **kitxuak,** txikitaoak eta guaraniak. Berria - Harian

Herrialde osoko milaka aimara eta **kitxua** bildu ziren hiriburuan. Berria - Mundua

Hameka amerindiar naziotako ordezkariak ziren bilduak: andoa, kofan (650 hiztun), txatxi (10.000 hiztun), epera (30.000 hiztun), **kitxua** (3.050.000 hiztun), sapara (50 hiztun), xuar (80.000 hiztun), xiwiar (1000 hiztun), tagaeri (500 hiztun), tsatxila (2000 hiztun) eta waoraniak (2000 hiztun). Herria

**Kitxuen** brontzezko aurpegiak ikusiko dituzu ahozabalik, euren hagin urri ustelduak erakutsiz barreka. Joseba Sarrionandia

---

# kitxuera *(orobat* ***quechuera****)* *iz* kitxua (hizkuntza).

Peru iparraldean dago, Cajamarca eskualdean, Hego Amerikako urre meatzerik handiena: *Yanacocha* (Urmael Beltza, **kitxueraz)**. Berria - Gaiak

---

# kitzika 1 *iz* kitzikatzea, zirikatzea; horren ondorioa. ik **kitzikadura; kitzikapen**.

Tokiko 26 gaztek eskainiko dute ikusgarri berezi bat, dantza-kantu-antzerki nahasketa bat, dena ironia, **kitzika,** eroaldia, arralleria. Herria

Baina, aldi berean, egitasmoaren **kitzika** ere sentitzen nuen. Juan Garzia

Aldakuntza funtsezko eta iraunkor batzuen gauzatzeko izendatua izana dela eta sail hori nahi duela aintzina segitu, bazterretik nornahi dena piko eta **kitzika** arizanik ere. Herria

• **2** *adlag* kitzikan, zirikatzen.

Unai inguruan nuen beti, zirika eta **kitzika,** berarekin jostetan segi nezan, eta ez zen erraza haurrari eta amari batera kasu egitea. Aingeru Epaltza

Handik zirika, hemendik **kitzika,** emazteak garbi aitortu zuen berak antolatu zuela senarraren hilketa. Gotzon Garate

**3** ***kitzikan*** *adlag*

Eta, kokina, **kitzikan** hasiko zaio, barnean dituenak aterarazi beharrez. Eneko Bidegain

Beldur maltzurra, **kitzikan**. Daniel Landart

Izarra izen-ordea zeukan norbait ari zitzaion **kitzikan,** nongoa zen, zer adin zuen, lehen aldia zuenetz minetelerat hola heldu zela, [...]. Janbattitt Dirassar

· Bat-batean zoriontsu nintzen baina denbora berean buruko mina berriz hasi zitzaidan **kitzika** gorrian. Daniel Landart

**4** ***kitzika egin***

Bere loro nazkagarriaren kaiolarantz joan eta bapo gorrian **kitzika** egin zion. Matías Múgica

Eskutila zuriko ateak **kitzika** egiten zion, eta beldurra garaiturik, eta artean hoteletako gelen ohiturarik ez bazuen ere, jeiki eta erabaki zuen ateak nora ematen zuen ikertzea. Matías Mujika

---

# kitzikadura 1 *iz* kanpoko edo barneko eragile batek, gutxieneko maila lortuz gero, sorrarazten duen prozesu fisiologikoa.

Efektu hauek argi erakusten dute zelula batzuek, aldi batez kitzikatu baldin badira, **kitzikadura** hori bukatu eta aldi batez funtzionatzen jarraitzen dutela oraindik. Josu Zabaleta

Nire garunen **kitzikadura** anormalek eroan nautela gaizkintza politikora. Koldo Izagirre

Freudentzat "gorputzaren barrenetik sortu eta psikismora iristen diren **kitzikaduren** adierazle psikikoa" da irrika: gorputzeko **kitzikadura** baten eta **kitzikadura** hori menderatzeko helburua duen aparatu psikiko batean duen adierazpenaren arteko topagunea da irrika. Josu Zabaleta

**Kitzikadura** nabarituko zaio ahotsaren gorabeheretan. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kitzikadura** pasatua zen. Fernando Rey

**2** (hitz elkartuetan)

Rousseau, adibidez, zigorkada asko jasotakoa zen eskolan, eta, berak aitortu izan zuenez, sexu-**kitzikadura** handia eragiten zion. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ugaztunen kasuan, ikustezko eta entzutezko pertzepzioak espazio- eta denbora-kode baten bitartez integratu dira, eta kode horrek gaitzen gaitu, hain zuzen, denboran eta espazioan irauten duten sorburu erkide batzuei atxikitzeko hots- eta argi-**kitzikaduren** jatorria. Juan Garzia

**3** kitzikatzea; kitzikapena.

**Kitzikadura** bat sentitzen nuen nik, txingurritze bat, makalaldi bat gorputzean, pozik zaudenean bezala. Fernando Rey

Nire **kitzikadura** zeharokoa zen, nahi nuen gizon hura ferekatu, musukatu, gozamenez urtu. Juan Martin Elexpuru

Ez zegok **kitzikadura** erotikoa besterik! Fernando Rey

---

# kitzikagarri 1 *izond* kitzikapena eragiten duena.

Sei eskuren fereka sentitzea oso-oso **kitzikagarria** zen. Juan Martin Elexpuru

Halako batean, Antoniori egoera **kitzikagarri** hark zakila gogorrarazi ziola ohartu nintzen. Aitor Arana

Horren arabera, koitoa da estimulu sexual indartsuena eta **kitzikagarriena**. Luis Elberdin

Klitoriaren estimulazioa askoz biziagoa da, askoz **kitzikagarriagoa,** koitoa baino. Luis Elberdin

Gizonarentzat, jarrera hau ere oso **kitzikagarria** da; ipurmasailak, horren biribilak, horren guriak, hain gertu ikustea... Luis Elberdin

Beren parte sentikorrena, erogenoena, **kitzikagarriena** eta benetan bero jartzen dituena laztanduz, hau da, klitoria. Luis Elberdin

Mihi samur, epel eta hezeak klitoria maitasunez laztantzen eta miazkatzen duenean, berotasun, eszitazio eta pasio uholdeak hartzen du emakumea, eta horrek haren maitalea ere, lurrin **kitzikagarriek** mozkortuta, erabat betetzen du, pozik biek sentitzen duten plazeragatik. Luis Elberdin

Plazer eta fantasia **kitzikagarrienekin**. Luis Elberdin

Haren hurbiltasun **kitzikagarriaz** gozatuz. Migel Angel Mintegi

**2** zirikagarria, gogo-pìzgarria.

Agustin deuna bezalako klasiko baten lana irakurtzea **kitzikagarri** gerta dakigukeela gure eguneroko ametsetatik iratzarri eta izatearen erroetara biltzeko. Imanol Unzurrunzaga

Atzerriko emakumeekin izandako plazerezko eta amodiozko abentura **kitzikagarriak**. Fernando Rey

Iraultza-egunak **kitzikagarriak** zitzaizkion, abentura berrien iturburu. Felipe Juaristi

Ingeniaritza biomedikoaren iraultza izan daiteke hurrengo aurrera-pausoa, eta bera da mundu modernoan zientzialariek eta teknologoek dituzten aukera guztietan interesgarriena eta **kitzikagarriena**. Irene Aldasoro

---

# kitzikamen *iz* kitzika.

Hasiera batean **kitzikamen** bat zen berarentzat mutil-lagun bat izatea, eta, gero, mutila gustatzen hasi zitzaion. Irene Aldasoro

---

**kitzikapen** 1 *iz* sexu desira piztea; pizte horren ondorioa.

Bioletarekin sentitu berria nuen zirrara, berotasuna eta **kitzikapena** harekin sentitu ezinak sortzen zidan etsipenagatik eta frustrazioagatik. Ramon Saizarbitoria

Handik urte batzuetara egin nion felazioa mutil bati, nire lehenengo senargaiari, eta ez nazka baina ezta **kitzikapenik** ere, ez nuen ezertxo ere sentitu. Jasone Osoro

Eta ez badago kontakturik edo igurtzirik, ez dago **kitzikapenik,** eta horrela emakumeak nekez lortuko du orgasmoa. Luis Elberdin

Zakilaren neurriak, erekzio mailak eta iraupenak ba al dute eraginik emakumearen **kitzikapen,** plazer eta orgasmoan? Luis Elberdin

**2 *kitzikapen sexual***

Sentipenak hobeto bereizteko eta **kitzikapen sexuala** areagotzeko. Luis Elberdin

Berez, ia ezinezkoa da norberaren burua masturbatzea **kitzikapen sexuala** testuinguru baten barruan sartuko ez duen fantasiarik gabe. Luis Elberdin

---

**kitzikari** 1 *izond* kitzikatzailea.

Ele **kitzikariak**. Itxaro Borda

**2** (adizlagun gisa)

-Tamalez -Edurnek, **kitzikari,** ezpainak nireetara hurbiltzen zituela-, ez duk behar adina saiatu. Aingeru Epaltza

---

**kitzikatu,** kitzika(tu), kitzikatzen **1** du *ad* kitzika eragin.

Hastapenean lagunek **kitzikatzen** zuten, deportazioko bizipenetaz mintzarazi beharrez. Eneko Bidegain

-Euskaldunok oso maitea dugu mister Haydn -gaineratu du Etxeberryk, ardoak **kitzikaturik,** adore berriturik. Felipe Juaristi

Hasieran folio zuriak eszitatu egiten ninduen, **kitzikatu** egiten zuen nire irudimena. Pako Aristi

Halako galdera goratsuek **kitzikatuta,** koaderno beltza [...] atera behar izan dut egoera laburbiltzeko: [...]. Anjel Lertxundi

Pozik entzun zuen marinelaren historia da Ruak, eta, pozaldi hark lagundurik eta **kitzikaturik,** txirula joka hasi zen: haize txikia itsas haize handiarekin lehian. Felipe Juaristi

Nik hilko ditut guztiak -esan zion Mikelek Pilarren ahizpa bikiari, benetan **kitzikaturik,** beronengandik azken gertakarien berri jaso zuenean. Aitor Arana

Kezka batek **kitzikatzen** ninduen ere: giltza galduaren istorioa ez ote zenetz aitzakia bat? Daniel Landart

Jakin-minak **kitzikatuta**. Felipe Juaristi

Larunbatetako alkoholak **kitzikaturik,** erraz zakartzen ziren. Juan Garzia

Ez zen gerrazalea, baina, **kitzikatzen** bazuten, bortizki ihardokitzen zuen. Elena Touyarou

Baina zeramikak ez nau **kitzikatzen**. Monika Etxebarria

**2** kitzikadura eragin.

Efektu hauek argi erakusten dute zelula batzuek, aldi batez **kitzikatu** baldin badira, kitzikadura hori bukatu eta aldi batez funtzionatzen jarraitzen dutela oraindik. Josu Zabaleta

Hartzaileak estimulua hartu duenetik kortexa **kitzikatzen** den arte 50-150 segundo milaren igarotzen dira gutxienez. Josu Zabaleta

Argi gorriak batez ere konoak **kitzikatzen** dituenez, makilak ilunetara egokituta geratuko dira. Josu Zabaleta

Hartzaile multzo bat zelula bati metaketazko konexioz lotuta baldin badago, zenbat eta hartzaileak **kitzikatuago** orduan eta **kitzikatuagoa** izango da zelula ere. Josu Zabaleta

Usaimena, hala **kitzikatua,** dastamenaren osagarri gertatzen zaigu jakiei zaporea hartzerakoan. Irene Aldasoro

Argiak nekez **kitzikatuko** du sudur barruko kolorezko gunea, baina erreakzio kimikoetatik edo auzoko molekuletatik datorren energia xurgatzeak antzeko efektua sor dezake. Irene Aldasoro

**3** kitzikapena eragin.

Erotizatzen eta **kitzikatzen** gaituzten gorputzen irudiak. Luis Elberdin

Elkar ukitzeak **kitzikatu** egiten gaitu, eta plazera, maitasuna, samurtasuna eta segurtasuna ematen digu. Luis Elberdin

Gure larruazal guztian daude sentimen errezeptoreak-plazeraren mezulariak-, eta horiek **kitzikatu,** sutu eta zoratu egiten gaituzte, baina klitorian eta zakilean askoz gehiago eta askotarikoagoak ditugu. Luis Elberdin

Hain **kitzikatua** nengoen, ezin izan nion eutsi, orgasmoa ezustean etorri zitzaidan. Juan Martin Elexpuru

Horrek guztiak **kitzikatu** egiten ditu, eta emeak gertu dagoenean bakarrik onartzen du sartzea; arrak lehenago sartu nahi izan arren, emeak ez dio utziko. Luis Elberdin

Jolas sexualak komunikaziorako bidea zabaltzen du; desioa areagotzen du, sutan jartzen gaitu, **kitzikatu** egiten gaitu, eta, ondorioz, zenbait aldaketa fisiologiko gertatzen dira. Luis Elberdin

Masturbazioak desioa asetzen du, **kitzikatu** eta lasaitu egiten gaitu, eta beste norabait eramaten. Luis Elberdin

Elkar musukatu, besarkatu, **kitzikatu,** orgasmoa lortu, eta jantzi, elkarri begiratu, eskertu bien arteko konplizitatea, barre txiki bat egin, elkarri musu eman eta despeditu egiten dira. Luis Elberdin

---

**kitzikatzaile** 1 *izond* kitzikatzen duena.

Gazteak gazte gisa mintzo, erran nahi baita aski ausart eta **kitzikatzaile,** adinari doakion moldean, bazterrak xirikatuz. Herria

Gonbidapen **kitzikatzaile** bat, bikote baten arteko perfektutasunaren eremu zabalaz hausnarketa egin nezan. Aingeru Epaltza

Sinapsiak, adibidez, ez dira errele soilak; eginkizun eraginkorra dute, **"kitzikatzaile"** baitira batzuk, eta "inhibitzaile" besteak. Josu Zabaleta

Amets-**kitzikatzailea;** horixe zuan benetan. Juan Garzia

**2** (adizlagun gisa)

Sei orrialde bikoitz haietan hamabi argazki baino gehiago ageri ziren "Rory Bikaina" izenburuaren pean, eta hainbat jarreratan ageri zen, biluzik eta **kitzikatzaile**. Oskar Arana

---

**kitzikatze** *iz* kitzika, kitzikadura edo kitzikapena eragitea.

Atzeko hanketako iletxoetan sortzen da **kitzikatze** hori, eta horrexek bihurtzen ditu, hain zuzen ere, horren suntsitzaile. **Kitzikatze** sexualaren ondorioz, paretak umeldu eta lubrifikatu egiten dira, zakila errazago sar dadin. Luis Elberdin

---

**kiwi** *iz* Asiako aihen landarea, zurtsua eta igokaria *(Actidinia deliciosa);* landare horren fruitua, jateko ona.

20 erakusmahai paratu dituzte ekoizpen franko presentatuz, bai, bistan dena, etxakin ezagutuak, gasna bezalakoak, baina ere gauza berriak, inork gutik ezagutzen dituenak, hala nola **kiwi** erreximenta. Herria

Titiburuak **kiwi** kolorez makilatuak ditu, ezpainen antzera, baina tonuera pastelagoan. Patxi Iturritegi

## **kixka** *(orobat **kiska** eta **kliska** g.er.) iz ipar* loaz mintzatuz, kuluska.

Lo **kixka** bat egin dut, laburra bezain ona. Piarres Aintziart

Amesgaixtoz bete lo **kiska** bat eginik. Daniel Landart

Lo **kixka** bat, eta banoa ni ere hiribururа. Piarres Aintziart

Unatua baitzen ohatzean etzan eta lo **kiska** baten egiteko gutizia zuen, baina hori egiteko partez, Ziriki utzi zuen pausatzera, eta hondartzan ibiltzera joan zen. Elena Touyarou

Raido herria pasatu orduko lo **kixka** bat egin dut iratze laira hori berdeen erdian. Piarres Aintziart

Erailketa hasi aitzin, lo **kliska** baten egiteko astia bazuen oraino. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kixka bat egin** (4); **lo kixka** (7); **lo kixka bat** (5)
> **lo kiska** (5)

---

## kixkaildu ik **kiskaldu**.

---

## kixkaili ik **kiskali**.

---

## kixkaldu ik **kiskaldu**.

---

## kixkali ik **kiskali**.

---

## **kixkarratu,** kixkarra, kixkarratzen du *ad* gardostu; kiskali,

Honetan, jonki mokordoa garrasika hasi da heroinaren lausotik: "Lagundu! ez utzi hemen barruan! ez diat **kixkarratuta** hil nahi!" Georges Berniard *La Petite Gironde* egunkariko kazetariari Gernika **kixkarratua** erakustera joan zen hara. Patxi Iturritegi

---

## **kixkero** *iz* txiskeroa, pizgailu metxaduna.

Hondarretan utzi ditu galtzak diru apur batekin, **kixkeroa,** eta Gioconda Belliren poesia liburu bat. Pako Aristi

Aluminioaren gainera zaldi hautsa botatzen zuten, inoizka koka nahastuz, **kixkeroarekin** azpitik berotu eta ateratzen zuen kea paperezko hodi baten bidez barneratzen zuten. Pako Aristi

---

## **kixkil** *(orobat **kiskil**)* **1** *iz* doilorra.

Hauxe gizon **kiskila** ! eskerrak Sirakusako gudari irabazleek burua moztu zizutela, ekiak erre harrobi haren maldan, beldur baitziren eskapatzea lortuko zenuela aberatsa izanez. Itxaro Borda

Gauzak ongi pisatuz, Joanttok bizian topatu zituen jendeetan amultsuak **kiskilak** baino gehiago ziren. Elena Touyarou

Monarkietan lehen tokietara heltzen direnak, maizenik deus ere ez dira, gaizkile **kiskil,** axpikari girgil eta nahastekari xirtxil batzuk baizik. Markos Zapiain

**2** kaskarra.

Bere kezka haundia du beti berak eskaini bakeari buruzko armen ixiltze hura iraunaraztea, bereziki juduen aldetik jin diren urrats **kixkil** batzuen aitzinean. Herria

Eta zein luze diren berrogeita hamar metro **kixkil,** gibeletik tiroka ari zaizkizularik. Eneko Bidegain

Nik halere, batzuetan, telefono ukaldi **kiskil** hari pentsatzen nuen baina ikusiz nagusia, bekoz beko, zein sanoki mintzatzen zitzaidan, barkatu bezala nion bere jendetasun eskasa. Daniel Landart

**Kixkila,** xirtxila eta bipila, horra nolakoa izaiten den apirila. Herria

---

## kixkildu ik **kiskaldu**.

---

## kixkur ik **kizkur**.

---

## kixkurtu ik **kizkurtu**.

---

## **kixote** *iz* pertsona idealista, interesik gabe aritzen dena bidezkoak iruditzen zaizkion kausen alde.

Alegia, anomalia baten kontra **kixote** izan daitekeela; baina arau orokor baten kontra **kixote** izateak zentzurik ez du. Josu Zabaleta

Uste dut alta gisa hortako **kixoteak** baitezpadakoak dituela gaur Euskal Herriak, aintzinamendu zerbait ardiestekotan, hasiz orain abiatzen den Batera kanpainatik. Herria

Bai, adin guzietako **kixotek** ekar dezatela hats berri bat Euskal Herriari! Herria

---

## **kixotear** *(orobat **kixotetar**) izlag* kixote denari dagokiona.

**Kixotear,** [...] burugabeki zaldundarra, Don Kixote bezala. Xabier Olarra

Izan ere, bada kixotismo filosofikoa, noski, baina filosofia **kixotetarra** ere bai. Joxe Azurmendi

---

kixotetar ik **kixotear**.

---

**kixotismo** *iz* kixote denaren izaera.

Izan ere, bada **kixotismo** filosofikoa, noski, baina filosofia kixotetarra ere bai. Joxe Azurmendi

---

**kixotizatu**, kixotiza, kixotizatzen *(corpusean **kijotizatu** soilik)* da *ad* kixote bihurtu.

Baina liburuak aurrera egin ahala bera ere **kijotizatu** egiten da, baina, tira, oro har, gizon zentzuduna da. Patxi Ezkiaga

Sastraka atzeren batean...: Santxo guztiz **"kijotizatuta"** dago. Patxi Ezkiaga

---

**kixotizatze** *(corpusean **kijotizatze** soilik)* *iz* kixote bihurtzea.

Ezkutariaren **kijotizatze** prozesuaren betean gaude. Patxi Ezkiaga

Nagusiarena ikusita...: hemendik aurrera hasten da Santxoren **"kijotizatze"** prozesua, Salvador de Madariagak aztertu duen bezala. Patxi Ezkiaga

---

kixu ik **gisu**.

---

kizkali ik **kiskali**.

---

**kizki** *iz* makila kakoduna; kako mutur-zorrotza, gauzei heltzeko erabiltzen dena.

**Kizki** bat eskuan, beltz batek lasterka egin zuen brankarantz. Lopez de Arana

Batzuek akuilu luzeak zeramatzaten muturrean labanak lotuta; beste batzuek berriz, arrantzarako arpoi txikiak, edota amu lodiak **kizki** moduan. Joanes Urkixo

Burdinazko barrak edo arkuak egingo dira eta burdinazko **kizkiekin** solibetatik zintzilik jarriko dira sarri-sarri. Santiago Iruretagoiena

---

**kizkol** **1** *iz* kozkorra.

Bagoitik jauzi egin behar da, ortutsik elur hormatuz estali railen eta harri **kizkolen** gainera. Marzel Etxehandi

**2** izpi modukoa.

Ateri da, baina lanbro-**kizkolak** dakartza haizeak. Anjel Lertxundi

---

**kizkur** **1** *izond* ileaz mintzatuz, kiribildua dagoena.

Txikitan ile **kizkur** eta beltza zuen. Fernando Rey

Ile horia zuen, motza eta **kizkurra**. Juan Kruz Igerabide

Ile gris **kizkur** ugaria zuen. Koro Navarro

Ile **kizkur** luzearen gainean. Iñaki Mendiguren

Ile **kizkur** luzeko neska bat. Iñaki Mendiguren

Ile **kizkurreko** gizonak agur egin zigun bordaren atetik. Bernardo Atxaga

Gorpuzkera txikikoak izaten dira, beltzaranak, ile **kizkur** eta begi beltzekoak. Santiago Iruretagoiena

Arretaz apaindutako pubiseko bilo **kizkurrak**. Migel Angel Mintegi

Cadineren ileko xerlo **kizkurrak**. Karlos Zabala

Txima beltz **kizkur** harrotuez hornituriko buru txiki bat. Karlos Zabala

Haren ile **kizkur** solte bat nire kopetan kilima eginez. Juan Kruz Igerabide

Aurpegia jaten zion bizar **kizkur** eta garbia. Felipe Juaristi

Begiak urdin-urdinak eta betileak oso **kizkur** eta usuak. Fernando Rey

Arrtile **kizkurreko** izpi luzeez egindako alfonbra harro horietako bat. Karlos Zabala

40-50 urte, ile **kizkurrekoa,** beltzarana. Fernando Morillo

• **2** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa) kizturtasuna.

Begien distira, ilearen **kizkurra,** lepoaren segaila. Xabier Mendiguren Elizegi

• **3** *iz* ilean gertatzen kiribila.

Ilea gorria eta kizkurra du, **kizkur** bihurriz josia. **Kizkur** gaztainkara distiratsuak eta begi ilunak zituen. Luis Elberdin

Han utzen zituen, lotan, Cadineren txima beltzak Marjolinen **kizkur** horiekin nahasirik. Karlos Zabala

Bizarraren **kizkur** luzeak ebaki zituen. Lopez de Arana

Kapitelean bolutak jarri zituzten ezkerretik eta eskuinetik zintzilika, ilearen **kizkur** kiribilduak balira bezala. Santiago Iruretagoiena

Adelaren adats beltzetik aurpegian behera zerion **kizkur** zorabiagarriari begiratzen nion. Juan Kruz Igerabide

Ilea moztu zuen, **kizkurrak** moldatu zituen lokietan, eta aitaren arropak jantzi zituen. Koro Navarro

Ilea laztantzen nion, eta **kizkurretan** hatza sartu eta jiraka aritzen nintzaion, jolasean. Juan Kruz Igerabide

Uso-begiak ageri dira zure **kizkurren** artean. Lopez de Arana

• **4** *izond* ile kizkurraren itxura agertzen duena; uhin eta toles modukoak dituena.

Iraileko haize freskoak altzairuzko distira ematen zien portuko uhin **kizkurrei**. Lopez de Arana

Paperezko xingola **kizkur** beltzak eta laranjak Halloween egunerako. Lopez de Arana

Zer, gero? -galdetu zuen Tentetnikovek, ke-hodeitxo **kizkur** bat jaregiteaz batera. Jose Morales

Orkak sudurretik jaurtitzen zuen iturri zuri **kizkurra** zen odaiertzean ikusten zen lurrun hura. Koro Navarro

Itsaso **kizkurra** atsegin zitzaion Joani maitasuna egiteko. Migel Angel Mintegi

· Haren buru beltz **kizkurra** eta haren begi argiak. Josu Zabaleta

**5** (izen gisa)

Are nabarmenagoak dira **kizkur** eta kiribil horiek hatz-mamietan. Irene Aldasoro

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ilar- **kizkur** mehe bat atera zitzaion makila magikotik eta lainoa bezala goratu zen bere aurrean. Iñaki Mendiguren

Zilar-koloreko gas- **kizkurren** modukoa zen. Iñaki Mendiguren

Europatik izotz- **kizkur** zetorren haizeak, gero Afrika burutik jira hartu ostean [...] Galizia aldea berotzen zuen. Pello Zabala

**6a** (elkarketak izenondo balioa duela)

Arimaren barruan Adelaren irudia aurkitu dut, bizitzaren Nilo horren sinbolo eskuraezin gisa, baina, aldi berean, egunsenti **kizkur** -eder gisa. Juan Kruz Igerabide

**7** ***aza kizkur***

Aza klaseak berak ez ditugu gutxi: aza beltza, aza zuria, aza berdea, aza **kizkurra** (Milango aza) urraza (letxuga), [...]. Patziku Perurena

Aza **kizkurrak,** beren hosto handiekin brontzezko ontzi mahai-apaingarriak ziruditenak. Karlos Zabala

**8** ***ile-kizkur****sup_1 iz* ilezko kizkurra.

Bibote puntaduna zuen eta **ile-kizkur** bat kopetan. Koro Navarro

**Ile-kizkurrak** begi paretik kentzen. Lopez de Arana

**Ile-kizkur** pollit-pollitak zituen! Fernando Rey

-Hori ez da musua izan -esan zuen Nevada Jonesek, **ile-kizkurrak** begi paretik kentzen ari zela. Lopez de Arana

Burua ihintzez betea daramat, **ile-kizkurrak** gaueko tantaz bustiak. Elizen arteko biblia

**9** ***ile-kizkur****sup_2 izond* ile kizkurra duena.

Bestea musugorri eta **ile-kizkur** bat, beti irribarrez zegoena. Fernando Rey

Gizaseme gazte bat eta mutil **ile-kizkur** bat. Koro Navarro

Hortzak erakutsiz barre egiten zuen neska **ile kizkur** txiki bat, urdinez jantzia. Lopez de Arana

Langilea **ile-kizkurra** zen, eta irribarre egitean ezpainak ere kizkurtu egiten zitzaizkiola zirudien. Bernardo Atxaga

Laugarrena, txikia, mehea, ipurtarina, [...], **ile-kizkurra** . Koro Navarro

Astindu egiten zen *caniche* **ile-kizkur** bat bezala. Karlos Zabala

**10** ***kizkur-kizkur*** *izond*

Ile beltza du, luzea eta **kizkur-kizkurra** . Xabier Etxabe

**Kizkur-kizkurrak** zituen lokietako xerloak. Koro Navarro

Ile **kizkur-kizkurreko** mutikoa zen. Bernardo Atxaga

**11** *adlag*

**Kizkur-kizkur** jarri nintzen, hotzari eusteko. Anjel Lertxundi

Baina **kizkur-kizkur** etsita iraun zuen luzaro. Pello Zabala

Lurrean **kizkur-kizkur** etzanda dagoela. Bekaina **kizkur-kizkur** egiteak. Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beltz kizkur** (3); **bere ile kizkur** (4); **ile kizkur** (40); **ile kizkur bat** (6); **kizkur kizkur** (4); **kizkur luzeak** (3); **kizkur txiki** (3)
> **beltz kizkurra** (5); **ile beltz kizkurra** (4); **ile kizkurra** (24); **ile kizkurra zuen** (3)
> **ile kizkurrak** (12)
> **ile kizkurraren** (3)
> **ile kizkurreko** (10); **ile kizkurreko gizonak** (3)
> **ile kizkurrekoa** (3)

---

# kizkurdun *izond* kizkurra duena; kizkurrak dituena.

Haien zaldiak sendoak eta itxura harrokoak ziren, kima **kizkurdunak** . Agustin Otsoa

Gizon ondo orraztuak eta **kizkurdunak** edo ilea larru-arras mozturik eramaten dutenak batere gogoko ez dituzten pintore horietako batentzat. Jose Morales

---

# kizkurdura *iz* kizkurtzea; kizkurtzaren ondorioa.

Bere bekokiaren **kizkurdura** bekainen artean, zerbait esaka. Joxe Austin Arrieta

Ginebraz eta mendafinez perfumatutako itsas haize goxoko gau izarratuak, kideekin egin ohi zuen eguneroko solasaldia hausten zuen iparreko ekaitzen bihotz- **kizkurdura** sortzailea. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# kizkurgailu *iz* ilea kizkurtzeko zilindro txiki barne-hutsa eta zuloduna.

Ez nituen jadanik ikusten emakumeak, **kizkurgailuak** buruan, lasai asko paseatzen. Jon Muñoz

Luzea, handia, lodia, ilea **kizkurgailuz** betea, azala ilun. Jon Muñoz

Ileak ere lanak eman bide zizkion; kizkurtu egin zuen eta aske laga, eta **kizkurgailuaren** atzaparretatik ihes egindako ile-adatsak orduko buru-orratzetatik kanpo aske zebilzkion. Mirentxu Larrañaga

---

# kizkurka *adlag* kizkurrak eginez.

Ur xirripa bat bezala azaltzen zen basoko pago-lizarren artean, eta haranean behera abiatzen zen **kizkurka,** bizkor, "itsasora lehenbailehen iristeko erabakia hartu izan balu bezala", Redinen hitzetan. Bernardo Atxaga

Mutil hark ilea **kizkurka** eta eguzkiak koloregabetua zuen. Lopez de Arana

---

# kizkurraldi *iz* zerbait zizkurtzen adietako bakoitza.

Orain zortzi kandela zeuden mahai gainean, eta lehen **kizkurraldiaren** ondoren sugarrak tentetu eta argitara bildu zuten mahai luze osoa, erdian fruta-erretilu hori purpura bat zeukana. Anton Garikano

---

# kizkurrarazi, kizkurraraz, kizkurrarazten du *ad* kizkurtzera behartu.

Goizeko eguzki-printzek, diz-diz egiten baitzuten hiriko errepide nagusi osoan zehar, ez zizkioten begiak **kizkurrarazi,** ez eta burua makurrarazi ere. Mirentxu Larrañaga

Eguzkiak bete-betean jotzen du mahaia eta begiak **kizkurrarazten** dizkio aitari. Anjel Lertxundi

---

# **kizkurtsu** *izond* kizkurrez edo kizkurdurez betea.

Royk bere buru **kizkurtsua** eta bere bisigu-begi grisak atera zituen atetik. Lopez de Arana

---

# **kizkurtu**, kizkur(tu), kizkurtzen **1** da/du kizkur bihurtu, ile kizkurraren itxura hartu edo eman.

Ilea atzeraka orraztuta eramaten zuen, **kizkurtuta** buru gainean. Koldo Biguri

Kalpar lehoi-kolorea zeraman, luze-luzea, **kizkurtua** garondo aldean. Fernando Rey

Edo euria zuan beharbada, ilea **kizkurtzen** ziona. Josu Zabaleta

Arantzurde bati ilea **kizkurtu** nahi izatea. Berria - Harian

Begiak hondoraturik eta ilea **kizkurturik** zituen erremolatxa-aurpegiko gizon sendokote bat. Lopez de Arana

**Kizkurtu** zituen bibotearen puntak. Koro Navarro

Ileak ere lanak eman bide zizkion; **kizkurtu** egin zuen eta aske laga. Mirentxu Larrañaga

· Ordurako osorik ikusten genuen putzua, ur azala arrainek **kizkurtua** . Koro Navarro

**2** uzkurtu; tolestu.

Eskuetako giharreak **kizkurtzen** eta lohadarrak dardaratzen ziren. Xabier Amuriza

Laster **kizkurtuko** dira errege nagusiaren zamapean. Elizen arteko biblia

Komisarioak sorbaldak eta lepoa **kizkurtu** zituen. Harkaitz Cano

Hotzak **kizkurtua,** zigarro bat piztu eta tipi-tapa abiatu nintzen sarrera nagusira. Aingeru Epaltza

Heure barruan sartuta eta trikua bezala **kizkurtuta** . ipar poloko aire poltsa handi hori **kizkurtu** egingo litzateke, gutxitu. Hasier Etxeberria

Sabai-zulotik eguna noiz zabaldu zain egon nintzen eserita lasai, belaunak bularraren kontra **kizkurtuta** . Inazio Mujika Iraola

Belaunak **kizkurtuta** arazorik gabe lo egin zitekeen han barruan. Harkaitz Cano

**3** kiribildu.

Lau zerri, lau buztan biluzi arrosa-kolore, oinazez eta pozez **kizkurtzen** zirenak. Koro Navarro

Congok zapatak, galtzerdiak eta prakak erantzi eta katu baten modura **kizkurtu** zen bere ohean. Lopez de Arana

Mantan bilduta, **kizkurtuta** eta dardaraz nengoen ni. Xabier Mendiguren Elizegi

Gogotik ari zuen euria eta sofan **kizkurtuta** zegoen Olatz. Harkaitz Cano

Han zain gelditu zen, tximinia baten atzean **kizkurturik** . Lopez de Arana

Azkenean mintza-tutu luze eta kiribilean **kizkurturiko** bat egokitu zioten, heste luzearen oso antzekoa. Mirentxu Larrañaga

Bortizki **kizkurtzen** eta estutzen zituen eskuak giderrea.n Eskuak fusiletan **kizkurtuak** eta otoitzak marmaratuz. Juan Garzia

**4** begiez edo bekainez mintzatuz, bekozkoa ipini; ezpainez mintzatuz, zimurtu.

Ahalik eta argi gehien biltzeko begiak **kizkurtu,** eta irakurtzen hasi zen. Anjel Lertxundi

Begiak **kizkurturik,** luzaz egon nintzen urrutira begira, hauts harrotan bilduta zetorrenaren isla osatu nahian. Anjel Lertxundi

Betazalak **kizkurtuz,** adituarena eginez, arretatsu, serio, arte kritikoek bezala. Anjel Lertxundi

Bekainak **kizkurtu** zituen Andreasek, eginahalak eginda ere deus ulertzen ez duen baten moduan. Anjel Lertxundi

Burutik ideiaren bat pasatu izan balitzaio bezala **kizkurtu** zuen gero bekaina. Anjel Lertxundi

Begi keinua **kizkurtu** zuen berriro ere, zerbait gogoratu nahiko balu bezala. Harkaitz Cano

Langilea ile-kizkurra zen, eta irribarre egitean ezpainak ere **kizkurtu** egiten zitzaizkiola zirudien. Bernardo Atxaga

**5** (era burutua izenondo gisa)

Adatsa beltza zuen oso, **kizkurtua** eta luzea. Ramon Saizarbitoria

Saskitik zetorren garrasi moduko bat entzun nuen, eta buztan arrosa baten punta **kizkurtua** ikusi nuen. Koro Navarro

Inoiz, aura lotsagabeek urraturik, sumintzen dira eta paper **kizkurtuaren** hotsa ateratzen dute. Xabier Amuriza

Bide laburra luze, izotzez estalitako goilautada **kizkurtua** etsigarri... J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begiak kizkurtu** (8); **begiak kizkurtu zituen** (5)

---

# **kizkurtxo** *iz adkor* kizkurtxo txikia.

Abokatua jabetu zen Nelliek bekokiko **kizkurtxoak** nahasirik zeuzkala. Lopez de Arana

---

# **klabe**[1] **1** *iz* giltza; ikurrezko giltza.

Nortasun agiria, helbidea, kontu korrontea, lantegiko telefonoa, posta elektronikoko **klabea..** . Edorta Agirre

Azken zuzenketak egin, ohiko **klabea** idatzi eta behar baino indar handiagoaz zanpatu nuen itzulera-tekla. Aingeru Epaltza

Elkarri boxeolari plantak egitea bezala, zeharka mintzatzeko molde hori ere gutarteko **klabea** zen. Aingeru Epaltza

Irakurketa-**klabe** berrien eraginez. Santiago Iruretagoiena

**2** kodea.

Etxeko garajean sartzeko **klabea** . Jon Alonso

**Klabeok** deskodetzea lortzen duenari. Pako Aristi

Atariaren **klabe** zenbakia 4723. Hasier Etxeberria

Ezkutuko **klabe** hori deszifratu ezean, egilearen mezua galdu egiten da. Iñaki Arranz

**klabea** markatu, eta saldoa eskatu nuen.. Karlos Linazasoro

Euskaltzale batek esaten zidan bere andrea ere, ikastolako andereño, halako **klabe** ezezagun batean hasi dela hizketan orain, "ikastolako hizkeran". Pello Salaburu

**3** giltzarria.

Gure gazte garaiak pilula bizi izan du eta hori **klabea** izan da emakumeak, lehenengoz, bere gorputza eta amatasuna kontrolatzeko aukera izan duelako. Ana Urkiza

Konkista hori **klabea** izan da emakumeen autonomian. Ana Urkiza

Don Quixote Espainiako historiaren intepretaziorako **klabe** bihurtu da. Joxe Azurmendi

Bi **klabetan** idatzi ditu 56 poemak: materialtasunetik eta nitasun indibidualetik. Berria - Kultura

**4** (izenondo gisa) giltzarrizkoa.

Korrelatibo objektiboa duk haren kontzeptu **klabea,** eta hik hire gogoetan ez duk aipatu ere egiten Iñaki Iñurrieta

**5** (-n atzikia daraman izenondo batekin) aipatzen dena oinarri harturik.

Kafka **klabe** umoretsuan irakurtzeko aukeraz ere mintzatu dira hainbat autore, Kundera azkenetakoa. Anjel Lertxundi

Hautu hori, soil soilik **klabe** politikoen arabera epaitzeko joera dugu. Txema Ramirez de la Piscina

Poema **klabe** horretan irakurri behar delakoan nago ni. Anjel Lertxundi

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Operazioari *Eguzki Beltza* **klabe** -izena jarri zioten. **Klabe** -hitzak: bermea, kolesterol, farmazian salgai, bifidus, aminoazido, bio-, omega3, antioxidatzaile, kontrol zorrotzak, nutrizioa, etc. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klabe hitzak** (6); **klabe politikoan** (4)

---

## klabe² *iz* klabezina.

Honela aurkeztu ziren **klabea,** harpa eta pianoa. Berria - Kultura

Dagoeneko hiru partitura prest daude: **klabeko** kontzertua, *Gnosis* haizezko boskotea eta *Hojas de Album* izeneko harizko talderako obra. Berria - Kultura

---

klabelin ik **krabelin**.

---

## klabezin *(orobat* ***klabezino*** *g.er.)* **1** *iz* musika tresna tekladuna, teklei lotuak dauden ziri batzuek zimikatzen dituzten sokak dituena.

Dohain aparta izan zuela musikarako Wolfgang Amadeusek txikitatik, bost urte bete aurretik ikasi zuela lehenengoz **klabezinean** pieza bat jotzen, eta beste hainbat kontu. Imanol Zurutuza

Wellington karrikako liburu higatuz kolkoraino estalia den saltoki erraustuan, **klabezinoaren** soinua entzuten da arratsaldero. Aurelia Arkotxa

Boccheriniren **klabezinerako** sei sonatak. Berria - Kultura

**2** ***klabezin-jotzaile***

Juan Manuel Ibarra **klabezin** jotzaileak.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klabezin jotzaileak** (3)

---

## klabezinista *iz* klabezin-jotzailea.

Pierre Hantai **klabezinistak** Berria - Kultura

---

## klabezinistiko *izond* klabezinarena, klabezin-.

Izaera **klabezinistikoa** daukaten lan hauek. Berria - Kultura

---

## klabiatura *iz*

Heinrich Suso, beste mistiko dominikar handiaren eta era berean Eckharten ikaslearen garaikide izan zen; horrengandik **klabiatura** izpiritual desberdinak bereizten zuen, Taulerrena, Eckhartena bezala, lehorragoa baitzen, eta Susorena irudimenera eta grafismo bapikatuetara isuriagoa, Erdi Aro berantiarreko herri-pietatetik hurbilago zegoena. Joan Mari Lekuona

---

## klabier *iz* teklatua.

Idazmakina edo ordenagailuetako **klabierrak** ematen digu bereizketa horietako baten arrazoia. Iñaki Arranz

**Klabierraren** ezkerreko aldea emankorragoa da euskaraz, bi bokal besterik ez izan arren, eta q, w, c eta v letra ezdeusak agertzen badira ere, a eta e bokalez hornituta dagoelako. Iñaki Arranz

---

## klabija *iz* kabila, larakoa.

Modelo zaharrekoa zen zentralean **klabijak** sartu eta atera ziharduen. Jon Alonso

Minutu batzuk lehenago infernuko **klabija** -mataza hartan hautsi zaion azkazal bat arta ezin handiagoaz konpontzeko. Jon Alonso

---

## klabikordio *iz* pianoaren antzeko musika tresna antzinakoa.

Izan ere, XVIII. mendea arte, **klabikordioak** betetzen zuen pianoaren lekua. Berria - Kultura

**Klabikordiotik** pianofortera egon zen jauzian protagonista izan zen Mozart. Berria - Kultura

Loreak maite zituen (hori esan didate) eta musika goxoa (nahiko txukun jotzen zuen **klabikordioa)**. Julen Gabiria

---

## klabikula *iz* lepauztaia.

**Klabikularen** gainera iritsi zen; haren erliebea jarraitu zuen, presiorik egin gabe, eta gero bularreraino eraman zuen eskua. Xabier Mendiguren Elizegi

Azkenean, atzera odolera itzultzen da linfa, **klabikula** edo lepauztaien atzean dauden zain subklabioen bitartez. Irene Aldasoro

---

## kladismo *iz* taxonomia metodoa, organismo bat taxon batean kokatzeko ezaugarri guztiei balio bera ematen diena.

**Kladismoak** muturreraino eraman du irizpide filogenetikoaren defentsa. Askoren artean

---

**klakada** *iz* zerbaitek hausten denean edo bi gauzek elkar jotzen dutenean egiten duten zarata.

Malgukiak jauzi egin zueneko **klakada** entzun zen. Jon Alonso

Hainbat eta hainbat aldiz egon izan da Raimundo Silva ate hau barrutik noiz irekiko dioten zain, itxitura elektrikoa martxan jartzen deneko **klakadarekin** . Jon Alonso

**Klakada** zorrotza eta bizia ataraten eban, inpernuko subea eskuetan aztoratu balitxako lez. Xabier Amuriza

---

**klaket** *(orobat* ***klake****)* *iz* metalezko xaflak dituzten oinetakoekin egiten den dantza.

Kalean **klakea** dantzatzen duten haurrak dabiltza turisten entretenigarri. Harkaitz Cano

Eta dantzaren ildotik, halaber, *Tap Tap Ole* taldeak **klakea** ekarriko du Kataluniatik Konstituzio plazara. Berria - Kultura

Jazz eta **klaketak** . Herria

Ereserkiak eta laudoriozko hitzaldiak, goraipamenezko **klake** -dantza. Oskar Arana

---

**klaketa** *iz* bi xafla giltzaduradunek osatzen duten tresna, filmatze saioetan erabiltzen dena.

Bergaran ohitu dira herritarrak kamerak ikustera, **klaketa** hotsa entzutera. Berria - Kultura

Ikuskizuna zuzentzen zuen eta entsegu-moduko bat egiten zuen Fernandorekin hasi aurretik, lehenbizi egidazu hau, eta gero beste hau, prest?, **klaketa,** Fernando Billi ipurditik ematen, lehen hartualdia, argia, kamera, aurrera. Karlos Zabala

---

klakzon ik **klaxon**.

---

**klamide** *iz* greziarrek eta erromatarrek erabiltzen zuten kapa labur eta arina.

Arkitektoak **klamide** itxura eman zion hiriari Alexandroren ohorez; jakin behar da jeneralari bere konkistetan laguntzen zioten mazedoniar zaldunen kapa purpura astuna zela **klamidea** . Jon Muñoz

---

**klan** **1** *iz* herri batzuk antolatuak dauden leinu edo familia sistema.

**Klan** bakoitza bere sutearen inguruan batu zen. Joanes Urkixo

Jantzien gris-gorri koloreek adierazten zuten Irlandako **klan** printzipalenetako bateko kidea zela. Joanes Urkixo

Gerrako bi jaunek zuzentzen dituzten bi **klan** borrokatu ziren, lurra zela eta. Berria - Mundua

**-Klan** guztiak erregea pertsonalki agurtu eta berarekin topa egiteko zain daude. Joanes Urkixo

Elkarren aurka gerran dabiltza **klanak** . Xabier Aranburu

Inspektorearen ustez, **klanen** arteko kontu-garbiketa argia. Patxi Iturritegi

Oinarrizko ekonomia-unitateak (familiak, **klanak,** herriak), beren baitara bildurik bizi dira. Koro Navarro

**Klan** familiarra eta senidetasun sarea amen eta haien anaia eta ahizpen eta seme-alaben inguruan eraikitzen zen. Luis Elberdin

Milenkovic Zemun **klan** mafiosoaren ustezko kidea da lehen ministroaren hilketa leporatzen diote taldeari eta eta atxilotu egin bazuten ere gerora aske jarri zuten. Berria - Mundua

Abramovek ez duela **klan** txetxeniarren artean Kadirovek zuen itzala. Berria - Mundua

Erabaki zuhur horri esker, bestalde, bi **klan** etsai horietako buruzagiak zoriontsu bizi izan ziren. Josu Zabaleta

**Klaneko** 'capo'-a. Berria - Kirola

-Ez naiz inongo **klaneko** kidea. Joanes Urkixo

Bere **klanari** zor zion leialtasunak. Joanes Urkixo

**2** (hitz elkartuetan)

**Klan** buruzagi bakoitzak hona igo eta eskua harriaren gainean jarriko du. Joanes Urkixo

· Lehenengo gizarte egitura emakume **klanaren** inguruan eraiki zen. Luis Elberdin

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **uharteko klana** (3)
> **biscayne klanaren** (4); **morna klanaren** (4)
> **klanen arteko gerra** (5)

---

**klandestinitate** **1** *iz* klandestinoa denaren nolakotasuna; isilpean dagoenaren egoera.

**Klandestinitatean** sartzeko kontua aipatu zuen aitak. Josu Zabaleta

**Klandestinitatean** lerratuz geroztik Txokoren aita hil zen, minbiziak eramana. Itxaro Borda

**Klandestinitatean** jasotako hainbat aldizkari eta liburuekin euskaltzaletua da *Katakunbetako belaunaldia* deitua. Anjel Lertxundi

"Kaioletako" gizon hauek langile pobreak ziren, denak **klandestinitatean** etorriak, ondorioz dokumentazio ofizialik gabekoak. Ramuntxo Etxeberri

**Klandestinitateko** seguritate neurriak zorrotz errespetatzen zituen. Itxaro Borda

**Klandestinitatearen** zama jasanezina zenean. Joseba Zulaika

Ez du geldituko legez kontrako immigrazioa, etorkinak **klandestinitatean** bizitzera behartuko ditu. Berria - Euskal Herria

**1981ean** klandestinitatera jo behar izan zuen Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Gai hura tabu samarra zen-eta **klandestinitate** -garai haietan. Juan Kruz Igerabide

**Klandestinitate** egoeran. Joxemari Iturralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klandestinitatean bizi** (8)

---

## klandestinizatu, klandestiniza, klandestinizatzen du *ad* klandestino bihurtu.

Ekineko kideak «komisario politi-kotzat» jotzeak Ekin «kriminalizatzeko eta **klandestinizatzeko»** nahiari besterik ez diola erantzuten. Berria - Euskal Herria

Mugimendu pila bat **klandestinizatzera** bultzatu du. Berria - Harian

---

## klandestino *izond* legearen edo agintearen isilpean edo ezkutuan egiten dena.

Isilpeko kontua zen beti, **klandestinoa**. Lucaniako konfinamendura bidali zuten (1935-1936) "Justizia eta Askatasuna" talde **klandestinoetan** parte hartzeagatik. Fernando Rey

Leone egunkari **klandestino** baten buru zen eta etxetik kanpo egoten zen beti. Fernando Rey

Joseba, Agustin eta hirurok borroka **klandestinoan** genbiltzan garaiko gertaera bat azaltzen da bertan. Bernardo Atxaga

Ez zutela etsi Angelok zeukan irrati **klandestinoa** aurkitu eta zirtzildu zuten arte. Anjel Lertxundi

Berriz libre gelditu zenean, Milanen mugimendu antifaxista **klandestinoa** antolatu zutenetako bat izan zen. Fernando Rey

Fusilamendu **klandestino** haiek. Koldo Izagirre

Apustu **klandestinoen** hedapena. Ramuntxo Etxeberri

Askotariko tresna eta trastez betetako zabortegi **klandestinoa**. Juan Luis Zabala

Asanbladak **klandestino** izatetik erdi-**klandestino** izatera pasatu ziren. Jon Maia

Literaturak Venezian kokatu dituen istorio erotikoek, inauteriek eta inauterietako mozorroek, kale estuetako enkontru **klandestinoek..**. Anjel Lertxundi

Sekretuak gordean du xarma, eta maitasun **klandestinoek** ere halaxe. Anjel Lertxundi

Bitartean, euskara nekez eta ia modu **klandestinoan** hasi zen tokia hartzen. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erakunde klandestino** (7); **erdi klandestino** (6)
> **aldizkari klandestinoa** (3); **ia klandestinoa** (4); **immigrazio klandestinoa** (4)
> **modu klandestinoan** (3)

---

## klandestinoki *adlag* ezkutuan, isilean, modu klandestinoan.

**Klandestinoki** abortatu zuten emakumeen kontakizunetan. Joseba Urteaga

Calaisetik Ingalaterrara **klandestinoki** pasatzen saiatzen. Joseba Urteaga

**Klandestinoki** itzuli behar duk? Koldo Izagirre

Ia **klandestinoki** eramaiten bazituzten preso. Eneko Bidegain

---

## klanista *iz*

Zuccarelli bezalako **klanista** arkaiko baten gehiengoaren eta indar erreformistaren artean hautatzeko aukera badugu, dudarik gabe, azken horien alde egingo dugu. Berria - Mundua

---

## klanka 1 *iz* kolpe metalikoen onomatopeia.

Eta bat-batean, **klanka!,** ene atearen gaineko zerrapoa, **klanka!,** pekoa, klaska! klaska!, giltza zerrailuan eta zaintzale bat agertzen da atean. Filipe Bidart

Gau batean zakua bete harri joan zuan fabrika kanpora eta, klinki, **klanka,** kristal guztiak txikitu zizkian. ik klinki. Pablo Sastre

### 2 *klanka-klanka iz*

Zaldi-trostak kalesari eragindako **klanka-klankarekin** bat egin zuten aitaren azken hitz errepikatuek. Anjel Lertxundi

### 3 *klinki-klanka* (onomatopeia)

Goizero joaten zen, eguna burdin-ur usainez itoa eta mailu gotorren **klinki**-klanka herotsez zapaldua bukatzeko. Itxaro Borda

· Ziegatik heldu zen kateen **klinki**-klanka besterik ez zen aditzen. Fernando Rey

Istorio honek **klinki**-klanka motel haren erritmoan dantzatzen baitu. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klinki klanka** (3)

---

## klankaka *adlag* zabuka, aldaroka.

Salemdik iparralderanzko bidean zihoan kalesa, hiru gabiraiak inguruan zituela, eguzkiak sikaturiko bideko zokor-zuloetan **klankaka**. Anjel Lertxundi

---

## klankatsu *izond* klankaka dabiilena.

Zartailu beldurgarri bat inarrosten zuen besotxo hartan, eta zarta bakoitzeko tiroari punpa eragin eta ilunpean amiltzen zuen, burua makur eta gorputza gorri, lurrikara baten zalapartaz zubi-galtzadetan jauzi eta gurpil zebilen gurdi ozen, **klankatsu** hau guztia. Koldo Izagirre

---

## klar *izond* argia.

Zerua urdin **klar** batean oraino, baina eguna han hara joaki eta "To, banihak" egiten dut. Piarres Aintziart

### 2 (adizlagun gisa)

Horra argi eta **klar** burutua zazpi mila urteko bidea, otu zitzaion Gabini. Iruñen sartzean, eskuinetik, bazen etxe apal bat, "Arbitrios" deitzen zutena eta izena aski **klar** ageri zen urrunetik... Iñaki Iñurrieta

Hortako behar dugu gogoa xuxen eta **klar** atxiki ikusteko nun herrak kausi dezaken bere iturria, biziki aise baititake alabainan terrorismo bilaka. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argi eta klar** (3); **klar eta garbi** (3)

---

**klaraboia** *iz* sabai-lehioa, argizuloa.

Gimnasio gehienak baizen argitsuagoa, **klaraboia** erraldoi batek adierazten zuen inoiz ontzitegi izandako pabilioiko sabaiaren erdigunea. Josu Landa

Beira polikromatuak **klaraboietan,** zur ilun garestia paretetan. Koldo Izagirre

---

**klaratar** *izlag/iz* lekaimeez mintzatuz, Santa Klararen ordenakoa; ordena horretako kidea. ik **klarisa**.

Albiko **Klaratar** seroren komentuan. Piarres Xarriton

Moja **klaratarrek** egindako pastak. Berria - Kultura

Pragako Santa Ines ospetsua, **klaratarra,** Santa Klararekin gutun harremanak izan zituena. Erregelak Klararen helburuetako bat betetzen zuen: **klaratarrak** Frantziskoren Ordenari estuago lotuak geratzen ziren. Askoren artean

1226tik 1228ra **klaratarren** bisitatzaile izan zen. Askoren artean

Frantziskotar bat zen, Uraitzeko **klaratarren** komentuko kaperau izendatu zutena. Joan Mari Irigoien

---

**klaretiano** *izond* elizgizonez mintzatuz, A.M. Claret-ek XIX. mendean sortu zuen kongregaziokoa.

Misiolari **klaretianoei** lursaila erosi zien Udalak, eta 2001. urtean Rafael Moneo arkitektoari proposatu zioten lur azpiko aparkalekuaren diseinua egitea. Berria - Kultura

---

**klaridade** *iz* argitasuna.

Bere izena bezain argia, eklipserik gabea, **klaridade** garbiena ukan zuen herriko erdi-txoro oihal-saltzaile Frantzisko eroxka harengan, aparteko **klaridaderen** bat bazegoela ohartzeko. Pello Zabala

---

**klarinete** *(orobat **klarinet** g.er.)* **1** *iz* haize musika tresna mihiduna, giltzen bidez ixten diren zuloak dituen zurezko hodi beltz batek osatua.

Isiltasun une laburraren ondotik, **klarinetearen** hots eztia altxatu zen errauts zutoin baten pare. Itxaro Borda

**Klarinetea** joko du, *New Orleans Jazz Band* taldeak lagunduta. Berria - Kultura

Nahi baitzituen **klarineta** jotzeko eriak [...] zalu atxiki, arotz lanetik urrundu zen guti edo aski. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Klarinetea** jotzen zuen hark, hiriko kabaret handien eta xikenean. Juan Kruz Igerabide

*ik beherago* 3. Askoren artean

Andreak erantzun zidan **klarinete** bat zegoela, munduko soinurik eztienak egiten zituen tresna. Juan Kruz Igerabide

Piano, **klarinete** eta biolarako pieza. Berria - Kultura

**Klarineterako** eta orkestrarako idatziriko obra hau Enrique Perez Piquer **klarinete** bakarlariak eskainiko du orkestrarekin, Rumon Gambaren zuzendaritzapean. Berria - Kultura

Menendezen **klarineterako** eta pianorako zortzi estudio interpretatu ditu. Berria - Kultura

**Klarinete** baxuak, biolontxeloak eta pianoak. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hauspoa berotutako hautatuen artean, **klarinete**-hodi bat zegoen. Xabier Olarra

**Klarinete**-solo batek erantzuten du, mehetuz doa, isiltasuna egiten da. Oskar Arana

Mozarten **klarinete** boskotea. Oskar Arana

**3** ***klarinete-jotzaile*** ik **klarinetista.**

Richard Rimbert **klarinete** jotzailea eta Jean-Philippe Guillo pianista ariko dira. Berria - Kultura

Garaiko konpositoreak ere interesatzen zaizkio **klarinete** jotzaileari. Berria - Kultura

**Klarinete** jotzailea zuen aita. Berria - Kultura

· Munduko **klarinete** baxu jotzailerik onenetakoa. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klarinete jotzaile** (8); **klarinete jotzailea** (6); **klarinete jotzaileak** (3)
> **klarinetea jotzen** (6)

---

**klarinetista** *iz* klarinete-jotzailea.

Tasmmin Little biolin jotzailea eta Emma Johnson **klarinetista** izango dira birako bakarlariak. Berria - Kultura

---

**klarion** *(orobat **klariona**)* **1** *iz* klera.

**Klarion** zuriaren kolorekoa. Iñaki Mendiguren

**Klarion** berriaren usaina zabaldu zen. Joseba Sarrionandia

Kirol dendako Martina eta beste bi emakume zinta-karreraren esparrua **klarionarekin** markatzen ari ziren. Bernardo Atxaga

Erdian, **klariona** gorriaz marrazten zuen ilgoran dagoenean ilargiak daukan itxurako herrialde bat: Kurdistan. Juan Kruz Igerabide

**Klarion** beltz batekin. Joxe Austin Arrieta

Koloretako **klarionez** mapa bat marrazten. Joseba Sarrionandia

Lapurrak atean marka bat egin zuen **klarionaz** . Patxi Zubizarreta

Gelatinak baditu kaltzita- edo aragonita-kristalak (kaltzio karbonato edo **klarionaren** kristal-formak): otolitoak. Irene Aldasoro

**2** (erkaketetan)

**Klariona** bezain zurbil zegoen. Lopez de Arana

**Klariona** bezain zuri zegoen. Iñaki Mendiguren

**Klarionaren** pare zurbildu zen Hanna. Joxe Austin Arrieta

Bere ahotsak kirrinka egiten zuen, **klarionak** arbelean bezala. Lopez de Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Paperontziak burura bota, hankapeko alfonbrei tira egin edo **klarion** -zatiak botako zizkizun. Iñaki Mendiguren

Arbel batean idatzi eta marraztutakoak ezabatu eta gero gelditu ohi diren **klarion** -mantxa islarik gabeak ziren Bostongo kale, plaza eta etxadiak. Anjel Lertxundi

**Klarion** puskak arbelpetik hartu eta bataila hedatu zen berehala. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klarion puskak** (3)
> **klariona bezain** (3)

---

**klarisa** *izond/iz* klaratarra.

Bere erregelaren arabera bizi nahi zuten moja **klarisen** komentuak zabaltzen zihoazen ordurako. Pello Zabala

Bi serora **klarisa**. Piarres Aintziart

Durangon eliza eta **klarisen** komentua eta Bilboko Iralabarrin frantziskotarron parrokia. Pello Zabala

---

**klarki** *adlag* argi, argiro.

"Ondarrola" izenak berak erakusten digu aski **klarki** gune horretan zela azkenik sortu ola. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hitzemana daukute, **klarki,** Iholdi-Oztibarreko Herri Elkargoan lanean hastea zela beren xedea. Herria

Ageri batzuek diote **klarki** nola, 1824an bereziki, Nafarroak bazituen harremanak Frantziarekin, Erriberatik hasirik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jakinez **klarki** berantegi zela eta ez zela gibelerat egiterik. Piarres Aintziart

**Klarki** mintzatzea. Herria

Irakurri nuen, **klarki** eta goraki. Aingeru Epaltza

Mahaitik tarte handixkora jarria, ez nuen **klarki** bereizten ahal zer zen. Aingeru Epaltza

Ebanjelioak ezin **klarkiago** dioen bezala. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klarki ageri da** (3)

---

**klaro** *(74 agerraldi, 23 liburu eta 3 artikulutan; orobat* ***klaru*** *14 agerraldi, 11 liburu eta artikulu 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***klaru*** *agertzen eta* ***argi*** *hobesten)* **1** *izond* argia.

Hortik ikus daitekeen izar **klaro** bakarrari Kanopos deritzate. Aurelia Arkotxa

Igeldo ostean ezkutatu zaharra ez den eguzkiak urdin aratz argitzen du itsasaldean ostertza, eta, hondo **klaro** horren kontra, badia inguratzen duten molkoak arre-nabartuz doaz ezari-ezarian kontrargitan. Iñaki Iñurrieta

Euskadi Irratiak asmatu eta landu zuen udako goizetako saioa xotila zen, asmo garbi eta **klarua** zuena. Pello Zabala

Beste garai batzuetako giroa seinalatzen dutela, hori kontu **klaroa** da. Pello Zabala

**2** (adizlagun gisa)

Orain argi eta garbi, garden eta **klaru** entzuten nituen zurezko ate batez haratago izaten ari ziren solasak eta elkarrizketak. Jon Alonso

Giza gogoak ugaldu duen xinplezia itogarria **klaro** azalduz. Patziku Perurena

Egun hartatik, jakina, **klaro** asko ulertu nuen ez nintzela Golubtxiken semea, Krapotkinena baizik. Matías Múgica

• **3** *adlag* noski, jakina.

Romanen ezagun guztiek erosi ziotela behintzat; baina, **klaro,** orduko Idus ez zen gaurko Idus, ezta antzik ere. Unai Elorriaga

-**Klaro:** zuek muskulua besterik ez duten robot horiek desio dituzue, noski. Xabier Mendiguren Elizegi

-Gu ere bai, **klaro**. Joxean Sagaztizabal

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klaro asko** (5)

---

**klartasun** *(orobat* ***klarutasun****)* *iz* argia denaren nolakotasuna.

Goizalbako **klartasunak** kalezuloa argitzen zuen eta eguzki izpi batek bazarreko eta bizartegiko hormen gainaldea jotzen zuen. Patxi Zubizarreta

Haren azpian, begitarte zuri-gorrixka, ilargiaren **klartasunaren** gisara, dirdaika. Patxi Zubizarreta

Hamida begira geratu zitzaion kontralehio itxien arteketatik iragazten zen kafe etxeko **klartasunari**. Patxi Zubizarreta

Zeru argitsuaren azpiko haurrak, **klarutasun** atikarreko izpirituak. Joxe Azurmendi

---

klaru ik **klaro**.

---

klarutasun ik **klartasun**.

---

klasa ik **klase**.

---

**klasamendu** *iz ipar* sailkatzea

Egina dieten **klasamendu** hortan, Poloniak du nota txarrena, oraino ez delakotz erreglan bederatzi pondutan. Herria

Helduden astelehenean, Garatenean, pilotarien **klasamenduko** partida. Herria

Hau ez da finala baina **klasamendukoa,** nor hirugarren. Herria

---

**klasatu,** klasa(tu), klasatzen du *ad ipar* sailkatu.

Eta hauk dira lerroan bigarrenetik seigarrenera **klasatu** : Fredi Paia bizkaitarra, Arkaitz Goikoetxea gipuzkoarra [...]. Herria

Dermit eta goragoko lauretan lehen **klasatuko** dena. Herria

Jauregi hau, 12garren mendekoa da, eta monumento gisa **klasatua**. Herria

"Xanti afera", hortan bukatzen zen, hemendik goiti segida gabeko afera bezala **klasatua** zen. Michel Oronoz

---

**klase** *(orobat* ***klasa*** *g.er.)* **1** *iz* gizarte maila edo etorki bera eta antzeko ezaugarriak dituzten pertsonen multzoa.

Nazionalitate, kasta eta **klase** orotako indiar guztiei. Iñaki Mendiguren

**Klase** bateko kideek bakarrik, eta ez guztietakoek, atera zuten onura egoera hartatik. Iñaki Mendiguren

Merkatarien **klasearen** eta nazioarteko merkataritzaren existentziari dagokionez, badira bien lekukotasunak Antzinaroko Mesopotamian, Lurra gizarte-klase berri batek lantzen du, jopuen **klaseak**. Koro Navarro

Ekialdeko Mediterraneotik Italiara ekarritako esklabo-saldoetatik "libertoen" **klase** bat sortu zen, ikaragarri ahaltsu bihurtu zena. Iñaki Mendiguren

Diru apur bat irabazteko ez zuten goiko **klaseetako** jauntxoen beharra. Gotzon Garate

Erdiko **klasearen** «miseria indizea» aurkeztuko du astelehenean John Kerryk. Berria - Ekonomia

**Klase** batzuk esplotatzaileak direla eta beste batzuk, berriz, esplotatuak. Iñaki Heras

Ahaztu **klaseen** arteko gerra hori. Koro Navarro

*ik* klasearteko.

**2** (izenlagunekin)

Gizarte honetan **klase** sozialak daudela. Iñaki Heras

**Klase** menperatzailearen kontraesanak. Jon Alonso

Merkataritzako eta finantzetako jarduerak ez zeuden ondo ikusiak, **klase** nagusientzat ez baitziren duinak. "Mendebalde modernoko" zibilizazioa **"klase** ertainaren" zibilizazioa da. Koro Navarro

**Klase** ertaineko administratzaile profesionalen anaidi berria. Iñaki Mendiguren

Hiriko **klase** goi-ertainetako kumeen habiaren ohiko kokalekua. Aingeru Epaltza

Herri honetako **klase** politikoa eta mediatikoa ez daudela benetan bake prozesua egiteko prest. Berria - Euskal Herria

Austriako **klase** zuzendariek harrokeriaz bizi dute dekadentzia hori. Anjel Lertxundi

Aspaldi desagerturiko "aberats astitsuen" **klase** pribilegiatuak. Iñaki Mendiguren

Ez **klase** txiroak bakarrik, baita **klase** altuak eta baita poliziak berak ere. Pako Aristi

Gaur egun, **«klase** kontsumitzailea» 1.700 milioi lagunek osatzen dute. Berria - Gaiak

Gero eta **klase** sendoagoa eta bere buruarekin sinetsiagoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nazionalitate-aldaketa horietatik erlijio- eta **klase**-aldaketak aztertzera igarotzen garenean. Iñaki Mendiguren

**Klase**-zatiketa ezabatuz **klase**-gatazkatik libratzeko. Iñaki Mendiguren

Karl Marxen filosofia apokaliptikoak **klase**-gerrari, proletalgoaren diktaduraren ondoren, gizarte-ordena berriak jarraituko diola aldarrikatzen du. Iñaki Mendiguren

**Klase** borrokaren eta lehia biologikoaren arteko analogian. Iñaki Heras

Horiek kalumniak dituk, **klase**-gorroto baten barne-adierazpen zikinak. Jon Alonso

Kooperatiba hauetan **klase** diferentziarik ez dagoela esaten dute. Iñaki Heras

**Klase**-kontzientzia duen eta K.o. 1952an [...] azkar disolbatzen ari zen Ingalaterra modernoan, [...]. Iñaki Mendiguren

**Klase**-ikuspegi batekin. Jon Alonso

Interes ekonomiko, politiko, erlijiosoetan edo **klase** interesetan. Luis Elberdin

Betidanik, **klase**-esnobismo batengatik beharbada, estimatu zuen Yvanek *junk food*a Joxan Elosegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurra gizarte- **klase** berri batek lantzen du, jopuen klaseak. Koro Navarro

Beste gizarte- **klasea,** noblezia guztiz guduzalea da. Iñaki Iñurrieta

Emakume lesbianak gizarte **klase** guztietan daude, milaka dira, eta ideologia guztietakoak. Luis Elberdin

Cornwallisek... gobernari- **klase** berria sortu zuen, indiar guztiak gobernu-postu gorenetatik baztertzean. Iñaki Mendiguren

Laborari-masa bat agintari- **klase** pribilegiatu txiki bati eusten. Iñaki Mendiguren

Altzariak, agintari **klase** berriaren gustura, klasikoak. Ramon Saizarbitoria

*Bourgeoisie* eta langile- **klasearen** arteko desberdintasun ekonomikoa ezabatzeko mehatxua. Iñaki Mendiguren

Patu hori zen hirietako langile- **klase** industrial berriaren jaiotza-marka. Iñaki Mendiguren

Enpresaburu- **klase** nazional bat sustatuz. Koro Navarro

**5** mota.

Nekrofiloak eta **klase** horretako jendaila? Aingeru Epaltza

Lajos, aldiz, **klase** guztietako arriskuen artean galdu zen. Ander Irizar

**Klase** guztietako asmo, pentsamendu eta nahiak leporatzen dizkiete atxilotuei. Berria - Euskal Herria

· Konturatzen baitzen nolako **klasea** nintzen ni, iniziatibarik hartzen ez duten horietakoa. Juan Garzia

Giulia ez zen sekretuak gorputza pozoitzeraino barruan gorderik edukitzen dituztenen **klasea**. Juan Garzia

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ze garagardo **klase** nahi duzu? Koro Navarro

Bulegariarentzat berdailu edo naturaleza besterik ez dena, nekazariarentzat aleunka belar eta landare **klase** konkretu dira. Patziku Perurena

Zaldiak gose bakarra dizu, gizakiak ordea gose **klase** asegaitz asko. Patziku Perurena

Fedea biolentzia da, edozein fede **klase:** erlijiosoa, politikoa, ekonomikoa, artistikoa, kirolekikoa... Patziku Perurena

Beste kultura batzuk eta beste bizimodu **klase** batzuk ezagutzeko aukera. Luis Elberdin

Baina zelula ama **klase** asko daude. Berria - Gaiak

Zer logika **klase** du hatsaren laburra eta heriotzaren luzea lotzeak? Anjel Lertxundi

Beste hamaika gaitz eta zauri **klase** sendatzeko ere ikusia nago askotan piza erabiltzen. Patziku Perurena

Baita piza **klase** desberdinak ere: astoarena, gizakiarena, behiarena, amona zaharrena, neskagazteena, haur jaio berriena. Patziku Perurena

Bihurrikeria **klase** guztiak egiten. Koro Navarro

Jende **klase** hori indartu egiten da borrokarekin. Koro Navarro

Esan zidan bazekiela zer neska- **klase** gustatzen zitzaizkidan. Anjel Lertxundi

Txoro **klase** horretakoak lasaiak izaten dituk arruntean. Aingeru Epaltza

Maite dugu mina, hala dirudi, baina ez nonbait edozein min **klase:** ardo min edo minduarena ez; piper minarena bai. Iñaki Segurola

Zer amets- **klase** da hori? Jose Antonio Mujika

Zer zoroetxe **klase** da hau? Jose Morales

Lehenbizi jakin nahi diat zer kaka-zahar **klase** den hau. Aingeru Epaltza

Ze gau ero **klase** da hau, pentsatu nuen. Koro Navarro

**7** zerbitzuez mintzatuz, maila.

Bidaia gauez egin behar bazuen ere, hirugarren **klasean** joatea nekagarriegi izango zela iruditu zitzaion Andresi, eta lehen klaseko txartela hartu zuen. Josu Zabaleta

Eskumakilari dagokionez, bestetik, gizarte-mailaren ezaugarri zen garai hartan, gaur egun trenean lehen **klasean** bidaiatzea bezala. Juan Garzia

Hegazkinaren modelo tipoa 555 bidaiarentzakoa da, hiru klasetan banatuta (22 lehen **klasean,** 96 business-ean eta 437 turista **klasean)**. Berria - Harian

Entierroa nahi dut egitea niri bigarren **klasean**. Anjel Lertxundi

**8** eskola.

Gau eskolan **klaseak** emaiten ditut. Eneko Bidegain

**Klase** orduan begiak zabalik, belarriak arretaz tente, ahoa josita egon behar genuen. Joseba Sarrionandia

Badakit **klase** asko huts egin ditudala, baina antzezlanak jaten dit denbora guztia. Oskar Arana

Kandido Mierrek institutuan ematen dituen **klase** berezietako batean. Pako Aristi

Geografia **klase** haietako batean. Joseba Sarrionandia

Lehenengo orduan geneukan matematikako **klasea**. Xabier Mendiguren Elizegi

Urte batzuk lehenago euskarazko **klase** batzuk eman zizkiguten. Xabier Mendiguren Elizegi

Genevièvek [...] hotelean antolatutako frantseseko **klase** partikularretara. Bernardo Atxaga

**Klase** partikularretan ingelesa ikasten hasi nintzelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Miarritzeko Sainte Marie eskolan, Orzaizen eta Hendaiako Sainte Germaine deituan ditugu **klase** berriak lehen mailan. Herria

**9** gela bateko ikasleen multzoa; ikasgela.

Milango lizeo batek **klase** aparte batean bildu nahi ditu bertako ikasle islamdarrak datorren urtean. Anjel Lertxundi

Klasea amaitu orduko, **klase** guztiak zekien albistea, frontoi bazterrean borroka genuela. Joseba Sarrionandia

Barkamena eskatu zion ikasle hari **klase** guztiaren aurrean. Anjel Lertxundi

**Klase** guztiak inbidia zidan. Juan Kruz Igerabide

Bederatzi **klase** ideki dira lehen mailan eta bost kolegio/lizeoetan. Herria

Miarritzeko Sainte Marie eskolan, Orzaizen eta Hendaiako Sainte Germaine deituan ditugu **klase** berriak lehen mailan. Herria

Egun batez fotografoa heldu zen, urtero bezala **klasearen** erretratua atera behar zuelako. Joseba Sarrionandia

Untel andereñoaren **klasean** dago. Joseba Urteaga

Hirugarreneko **klasean** zuen bere erakasle lana. Herria

**Klasearen** atzealdean utziak genituen maleta beteak jaso eta, [...]. Joseba Sarrionandia

**10** zientzietan, sail edo mota nagusia.

Joera horren bidean zenbait filosofok esan zuten espezieek eta, oro har, maila goreneko taxoiek ez dituztela **klaseak** adierazten, indibiduoak baizik. Askoren artean

Lehenengo **klaseari** kategoria matematikoena deituko nioke, bigarrenari, dinamikoena. Ibon Uribarri

Espeziea ez da ulertu behar hemen **klase** baten zedarritze abstraktutzat, baizik eta beren esentziaren indarrez propietate komun batean partaide diren banakoen multzotzat. Piarres Xarriton

Hortaz, eleberrien **klasea** eta Wittgensteinen jokoen **klasea** mota berekoak dira. Askoren artean

**11**

Luziak **klasea** zuen, berezko duintasun bat, edertasunaz gain. Joxemari Iturralde

Dotorea, gero; **klase** handikoa. Unai Elorriaga

Bhutsa da, jatorri eskasa adierazten du, eta heziketa-falta, eta **klase**-falta, eta kultura-falta, eta sofistikazio-falta. Karlos Zabala

Gelatxoren fandangoak eta arin-arinak, aparteko grazia zuten, ez ziren konplikatuak, baina **klasea** zeukaten. Pako Aristi

**12** ***goi klase***

Arrisku handian jarriko lituzke **goi-klaseak**. Antton Olano

**Goi-klaseetan** Nahigabea Eragozteko Elkartearen aldeko karitatezko sermoi gisa. Antton Olano

Hierarkia hori puskatu nahi duenarekin, ordea, ez dute **goi klasekoek** erruki handirik izaten. Gotzon Garate

**Goi-klaseetako** konbertituak irabaziz. Iñaki Mendiguren

· Auzo berri samar batean ginen, familiabakarrekoen moda etorri arte hiriko **klase goi**-ertainetako kumeen habiaren ohiko kokalekua. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agintari klase** (3); **altxor klase** (3); **arrain klase** (3); **belar klase** (7); **birus klase** (3); **botika klase** (4); **euskal herriko klase** (7); **euskara klase** (4); **gaitz klase** (3); **gizarte klase** (9); **gizon klase** (7); **gobernari klase** (3); **haize klase** (6); **jende klase** (12); **jende klase hori** (3); **klase arteko** (4); **klase asko** (10); **klase askotako** (7); **klase berri** (6); **klase berriaren** (3); **klase borroka** (13); **klase borrokak** (4); **klase borrokan** (4); **klase borrokaren** (7); **klase borrokaz** (3); **klase edo nazio** (3); **klase egin** (4); **klase elebidun** (3); **klase elebidunen** (3); **klase ertain** (19); **klase ertaina** (16); **klase ertainak** (6); **klase ertainaren** (24); **klase ertainari** (3); **klase ertaineko** (27); **klase ertainen** (3); **klase gatazka** (4); **klase gatazkaren** (3); **klase handiko** (3); **klase ikuspegitik** (3); **klase jakin batek** (4); **klase kontzientzia** (3); **klase mediako** (6); **klase natural** (3); **klase natural bat** (3); **klase partikularrak** (5); **klase politiko** (4); **klase politikoa** (13); **klase politikoak** (11); **klase politikoan** (3); **klase politikoaren** (11); **klase politikoari** (4); **klase politikoko** (3); **klase sindikatu** (4); **klase sozial** (10); **klase sozialen** (8); **klase sozialen arteko** (3); **klase sozialik** (3); **lan klase** (4); **landare klase** (5); **langile klase** (5); **mendebaldeko klase** (14); **mendebaldeko klase ertainaren** (9); **min klase** (3); **pertsona klase** (5); **plazer klase** (3); **txori klase** (3); **ze pajaro klase** (6); **zer gizon klase** (3)

**frantseseko klasea** (3); **gizarte klasea** (4); **klasea amaitu** (3); **klasea ematen** (3); **klasea hasi** (4)

**euskarazko klaseak** (11); **euskarazko klaseak ematen** (3); **frantseseko klaseak** (5); **ingeleseko klaseak** (4); **klaseak amaitu** (4); **klaseak eman** (6); **klaseak ematea** (5); **klaseak emateko** (5); **klaseak ematen** (21); **klaseak ematen ditu** (3); **klaseak hartzen** (4); **klaseak jasotzen** (3); **langile klaseak** (8)

**bigarren klasean** (3); **klasean nengoela** (3); **latineko klasean** (3); **lehen klasean** (8); **lehenengo klasean** (3); **turista klasean** (3)

**langile klasearen** (15)

**langile klaseari** (3)

**gizarte klaseen** (4); **klaseen arteko** (19); **klaseen arteko borrokaren** (4)

**klaseetara joan** (4); **klaseetara joaten** (4)

**bigarren klaseko** (4); **hirugarren klaseko** (9); **klaseko lagun** (3); **klaseko munduko** (4); **klaseko txartela** (3); **lehen klaseko** (6)

**lehen klasekoa** (4)

**klasera itzuli** (3); **klasera itzultzeko** (3); **klasera joateari** (3); **klasera joaten** (3); **klasera sartu** (3)

**klaserik gabeko** (3)

**klasetako ikasleen** (3)

**klasetik landa** (3)

---

# klasearteko *(orobat* ***klase(-)arteko****)* *iz* gizarte klaseen artekoa

Ideologia nazionalistari jarraiki, **klasearteko** lankidetzan sinisten zuen oraindik ere. Rafa Egiguren

Zeren, **klasearteko** ideologia nazionalistari jarraitu gabe, militanteek langileriaren zerbitzuan jarri nahi zuten erakundea. Rafa Egiguren

Morrisonen literatur lanetan, arraza-, sexu- eta **klase-arteko** gatazkaren deskripzio errealistaz gain, fantasia eta elementu mitikoak ageri dira. Anton Garikano

Bertan, gizartearen metafora da eskola; **klase arteko** borrokaren isla. Berria - Kultura

"Batasuna" izeneko kanpainaren aurka ere altxatu ziren, **klasearteko** fronte baten aldekoa zela-eta. Rafa Egiguren

ETA, artean, heterogeneoa eta **klaseartekoa** zen. Rafa Egiguren

---

**klaseka** *adlag ipar* klaseen arabera.

Han hemenka behi deiztegi batzu, bainan oraino gehienak haragitakoak estatu ederrean, nahiz bazka idortua den indar gaitza omen dauka bereziki urari esker, tropak ehunka eta **klaseka**, aratxe gehienak orai sortzen baitira, neguko azkartzeko gisan. Herria

---

**klasekide** *iz* klase berekoa.

**Klasekide** izanak ziren biak. Unai Iturriaga

Zer esanik ez, kontua ez zen soilik **klasekideek** baino arinago asmatzea: hitz guztiek ez zuten berdin balio. Iban Zaldua

---

**klasifikatu**, klasifika, klasifikatzen du *ad* sailkatu.

Arasa bat daukat musuz betea, lepo, denak txukun-txukun **klasifikatuak:** kolorez, zaporez, tamainaz, egituraz, estiloz, sakoneraz, iraupenez, orekaz, doinuz, eta abar. Karlos Linazasoro

1,8 miloi espezie inguru deskribatu eta **klasifikatu** badira ere, [...]. Berria - Gaiak

Dena sailkatzeko zuen behar obsesiboak begiradak berak ere **klasifikatzera** eraman zuen Cesar Telleria. Harkaitz Cano

1806an, Beaufort almiranta izan zen, berriz, haizeen indarrak eta haize-boladak **klasifikatzeari** ekin ziona. Pello Zabala

**Klasifikatuak** izateko beldur. Ana Urkiza

Baina hantxe zegoen, SSA-7.894 signaturarekin **klasifikatua,** orri horiztatuez osatutako koaderno txiki bat. Iban Zaldua

Bono prest dago **klasifikatu** gabeko informazioa Kongresuan azaltzeko. Berria - Euskal Herria

---

**klasifikazio** *iz* sailkapena.

Bitartean, ordea, Darwin dago, Mendel dago, garezurren neurketak eta arraza **klasifikazioak** Europa osoan modan jarri dira. Joxe Azurmendi

---

**klasika** *iz* klasikoa.

Musika **klasika** biziki maite dut. Menane Oxandabaratz

---

**klasiko** **1** *izond* ereduzkoa gertatzen dena, batez ere zaharra izanik.

Biblia bezalako testu zahar eta **klasiko** batean. Xabier Kintana

"Hildako" literatura **klasiko** batetik bizirik iraundako lanak bildu, editatu, anotatu eta argitaratzeko. Iñaki Mendiguren

Konfuziar kanoneko literatura **klasikoaren** estiloa berregiteko. Iñaki Mendiguren

Pedro Lombardoren Sententzien Liburua zen hura, gero XIII. mendeko unibertsitatean teologiako eskola-liburu **klasiko** bihurtuko zena. Askoren artean

Film **klasiko** gehien-gehienetan ikuspen-zentro baten edo biren inguruan eraikitzen da irudia. Josu Zabaleta

Gure idazle **klasiko** handienak, Axularrek, adimen handiko gizonaren ospea zuen. Anjel Lertxundi

Liburua, zahartzean, **klasiko** bihurtzen da, liburu izateaz gain beste zerbait bada behintzat. Joxerra Garzia

Obra **klasiko** bat itzultzeko, zer egokiago prosa-molde **klasikoa** erabiltzea baino? Patxi Altuna

Obra **klasiko** eta garaikideak. Berria - Kultura

Txillardegi filosofo **klasiko** bat da, Platonen ezpalekoa. Markos Zapiain

Velazquez, Goya, Greco, Zurbaran eta beste hainbat pintore **klasiko** izan zituen eredu. Berria - Kultura

**2** hizkuntzez mintzatuz, ereduzkotzat hartzen den epekoa.

"Inperio Ertain" egipziakoan, adibidez, hizkuntza eta idazkerak egiptoera **klasikoa** eta karaktere hieroglifikoak izan behar zuten nahitaez. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroko latinean eta latin **klasikoan**. Askoren artean

Federico Krutwig izan zen, esate baterako, 1950 aldera, lapurtera **klasikoa,** Leizarragaren eredua, aldarrikatu zuena. Koldo Zuazo

Lapurtar **klasikoan** idatzi zuen Gabriel Arestik Boccaccioren *Dekamerone tipi bat* (1979). Koldo Zuazo

**3** arauzko edo ohiko ereduaren araberako dena.

Nominalista **klasiko** bat Ockham (1287-1347) dugu, eta, halaber, egungo filosofian, Quine (1908-2000). Askoren artean

Karl Polanyik aurkeztu zuen 1944. urtean eredu **klasiko** horren eboluzionismoaren eta eurozentrismoaren kritika zorrotzenetako bat. Koro Navarro

Teoria **klasikoaren** arabera, ondasunak ekoizteko behar den lan-kopuruaren gainean osatzen dira prezioak. Koro Navarro

Euskal Telebistak astero antenaratzen duen *Hitzetik Hortzera* bertsolaritzari buruzko programa **klasiko** bilakatua da dagoeneko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Amerikar **klasikoa**. Oskar Arana

Hona hemen gure arteko etxekoandre **klasiko** ganoradun batek, oro har, familiaren elikadura dela eta, izan dituen zereginak: [...]. Edorta Agirre

Lanaren -denbora betetzearen- kontzeptu **klasiko** horren arabera, aisia txarra da. Anjel Lertxundi

Lege honen funtzionamenduaren bi adibide **klasiko** San Benediktoren eta Gregorio Handia aita santuaren lorpenak izan ziren. Iñaki Mendiguren

Bada artzai ipuin **klasiko** bat gure artean hagitz ezaguna dena. Patziku Perurena

Egungo txarkuterian, adibidez, urdearen ordez, oilaskoa, indioilarra eta tankerakoak baliatzen dira produktu **klasiko** eguneratuak moldatzeko. Edorta Agirre

Haren errima jokoak, haren bertsokera **klasiko** eta aldi berean modernoa. Berria - Kultura

Ez al zen hura Duke zaharraren konposizio **klasiko** bat? Harkaitz Cano

· Aita oso **klasikoa** zen janzkeraz, beti gorbata jantzita. Jon Muñoz

**4** antzinateko Grezia edo Erromari dagokiona; antzinateko Grezia edo Erromako arteari edo kulturari jarraitzen diona, edo haren eragina duena.

Idazlea enetzat artista da eta artisaua, Grezia **klasikoan** zen eran, mitifikatze erromantikorik gabe. Ana Urkiza

Antzinate **klasikoaren** maisutasunari arkitekturaren arau modernoen definizioan eman behar zitzaion egitekoa. Santiago Iruretagoiena

Atenas, aro **klasikoan,** finantzagune indartsua zen. Koro Navarro

*Ubi sunt,* zioen poeta **klasikoak**."Humanistak" [...] autore **klasiko** greko eta, oroz gain, latinoen irakurketan murgilduak bizi dira. Askoren artean

Urrezko Aroaren goraipamena, mundu **klasikoaren** isla zelakoan. Patxi Ezkiaga

Natura eta gizakia lotzen zituen batasun **klasiko** biribila puskatu da. Joxe Azurmendi

Filologia **klasikoan** aditua. Berria - Kultura

Greziar **klasikoak**. Askoren artean

EHUko Filologia fakultateko **Ikasketa Klasikoak** departamentuko irakasleak **Hizkuntza** Klasikoak eta Hizkuntza Modernoak eta bere Literaturak. Berria - Kultura

**5** literaturan, neurria, oreka, arauekiko begirunea erakusten duena. ik**erromantiko**.

Tradizio **klasiko** hertsiak ez bezala, Angel Errok kultura jasoaren eta herri kulturaren arteko bidegurutzean sortu ditu bere poemak, klasizismoa berrirakurtzeko estetika eta poetika berri bat proposatuz.

**Klasiko** erromantikoa edo erromantiko **klasikoa**. Berria - Kultura

**6** musikan, Haydn eta Mozart-ek egituratu zuten estilokoa, sonata formaren gain eratua; hedaduraz, sartaldeko musika tradizioko autore handien musika.

Musika **klasiko** deitzen den horrek. Berria - Kultura

Sinfonia **klasiko** bat sekuentziaz sekuentzia atzematen baita, eta, hartan, gertatu den guztia etengabe aldatzen baitu gertatzen ari denak. Josu Zabaleta

Haize bolada batek pieza **klasiko** baten notak belarriratu zizkion Del Valleri. Alberto Ladron Arana

Musika **klasiko** eta dantza ikuskizunetan aretoa %97,73 bete zen. Berria - Kultura

Giroaren bizkarrezurra musika da, musika **klasiko**-abangoardista zuzenean jokatua. Edorta Jimenez

Alexandre de la Cerda musika **klasiko** zale amorratua da. Berria - Kultura

Brahms-en 1.go sinfonian zuzendariak bertsio **klasiko**-erromantikoa eskaini zigun. Berria - Kultura

· Irango musika **klasikoa**. Jon Arretxe

• **7** *iz* autore edo obra klasikoa.

Musika hori sintaxiaren barru-barruko joskeran dago, eta, doinu horretaz jabetzeko, ezinbestekoa da **klasikoak** irakurtzea. Ana Urkiza

Inork ezin dituela **klasiko** guztiak irakurri, hori materialki ezinezkoa delako. Jon Alonso

**Klasiko** bat edo beste: Goethe, Byron, Shakespeare; amerikar batzuk ere bai: Faulkner, Dos Passos, Hemingway... Xabier Mendiguren Elizegi

Judutar filosofiaren lehenengo **klasiko** handia, Rabenu Saadia Gaon, irakurri behar den bezalaxe, Maimon bera ere irakurtzen duten tradizionalistak daude. Xabier Kintana

Erdi Aroko Mendebaldeko kristauek berandu osatu zuten beren liburutegi helenikoa, kontserbatu ziren **"klasiko"** guztiak beren jatorrizko hizkuntzan eskuratuz. Iñaki Mendiguren

Ekonomiaren pentsamenduaren **klasiko** batzuk baditugu euskaraz. Iñaki Heras

Euskal literaturaren **klasiko** batzuen itzulpenak. Berria - Kultura

Eta Fukuzawa Yukitxiren *Gakumon no susume* (1872-76) **klasiko** modernoa ere egungo japonierara itzuli dute. Ibon Uribarri

**Klasikoen** -beraren **klasikoen**- nostalgiatzat ulertu behar dela uste dut Borgesen klasikotasuna. Juan Garzia

**8** txirrindularitzan, urtero eta ibilbide bera korrituz antolatzen den lasterketa.

Ermuarrak ondo prestatzen ditu **klasikoak,** [...] lasterketa irakurtzen gutxik bezala daki. Berria - Kirola

Garaipen batzuk lortu ditut, **klasiko** batzuetan postu onak, Paris-Nizan bigarren postuan sailkatu naiz hiru egunetan. Berria - Kirola

Hanburgoko **Klasikoa** jokatuko da gaur, Munduko Kopako 6. proba. Berria - Kirola

*Amstel Gold Race* dauka buruan Freirek, eta Lieja-Bastogne-Lieja **klasiko** handia ere bai, bi aste barru.

Milan-San Remo **klasiko** handia jokatuko da gaur.

Piamonteko Giroaren 89. ekitaldia korrituko da gaur, Milan eta Turin hiriak lotzen dituen **klasiko** ezaguna. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adibide klasiko** (4); **adibide klasiko bat** (3); **autore klasiko** (4); **bastogne lieja klasiko** (5); **dagoeneko klasiko bihurtu** (3); **dantza klasiko** (4); **gaur egungo klasiko** (3); **hizkuntza klasiko** (3); **idazle klasiko** (6); **klasiko bat da** (12); **klasiko bihurtu** (9); **klasiko bihurtu diren** (5); **klasiko bihurtzen** (3); **klasiko bilakatu** (6); **klasiko ezaguna** (3); **klasiko handi** (6); **klasiko handia** (22); **klasiko handia korrituko** (5); **klasiko handiak** (7); **klasiko handian** (5); **klasiko handiko** (3); **liburu klasiko** (5); **literaturaren klasiko** (3); **musika klasiko** (10); **obra klasiko** (6); **paris roubaix klasiko** (8); **tradizio klasiko** (4)

**adibide klasikoa** (11); **autismo klasikoa** (4); **azterketa klasikoa** (3); **dantza klasikoa** (8); **donostiako klasikoa** (15); **estilo klasikoa** (4); **euskal literatura klasikoa** (3); **eztabaida klasikoa** (3); **garai klasikoa** (3); **honen adibide klasikoa** (4); **joko klasikoa** (3); **klasikoa bihurtu da** (3); **klasikoa deitzen** (5); **klasikoa eta garaikidea** (4); **klasikoa irabazi** (3); **klasikoa jokatuko** (4); **klasikoa jokatuko da** (3); **klasikoa jotzen** (3); **klasikoa korritu** (5); **klasikoa korrituko** (3); **lan klasikoa** (3); **lapurtera klasikoa** (4); **literatura klasikoa** (3); **musika klasikoa** (61); **musika klasikoa jotzen** (3); **ordiziako klasikoa** (3); **oso klasikoa** (4); **paris roubaix klasikoa** (3); **udaberriko klasikoa** (12); **zinema klasikoa** (3)

**donostiako klasikoak** (3); **erretorika klasikoak** (3); **euskal klasikoak** (3); **film klasikoak** (3); **gure idazle klasikoak** (3); **gure klasikoak** (3); **idazle klasikoak** (7); **iparraldeko klasikoak** (4); **ipuin klasikoak** (4); **kantu klasikoak** (3); **klasikoak korrituko** (4); **klasikoak maite** (3); **lan klasikoak** (4); **musika klasikoak** (6); **obra klasikoak** (3); **pentsamenduaren klasikoak** (9); **poeta klasikoak** (3); **politiko klasikoak** (3)

**aro klasikoan** (4); **dantza klasikoan** (3); **donostiako klasikoan** (4); **erretorika klasikoan** (9); **garai klasikoan** (11); **grezia klasikoan** (4); **hamburgoko klasikoan** (3); **musika klasikoan** (3); **udaberriko klasikoan** (4)

**musika klasikoarekin** (3)

**antzerki klasikoaren** (5); **antzerki klasikoaren jaialdia** (3); **dantza klasikoaren** (4); **erretorika klasikoaren** (3); **grezia klasikoaren** (3); **literatura klasikoaren** (3); **logika klasikoaren** (3); **musika klasikoaren** (11); **teoria klasikoaren** (5)

**mundu klasikoari** (3); **musika klasikoari** (4)

**idazle klasikoek** (4)

**idazle klasikoen** (7)

**antzerki klasikoko** (3); **dantza klasikoko** (4); **garai klasikoko** (3); **latin klasikoko** (3); **musika klasikoko** (19)

**klasikotzat jo** (4)

---

# klasikodun *izond* klasikokoa.

Lagin zabal eta adierazgarri honek ibilbide poetiko barnerakoia eraikitzen du, molde **klasikoduna,** baina ikuspegi ezberdinetatik errealitatea hizkera moderno batez erakusten duena. Berria - Kultura

---

# klasikoki *adlag* era klasikoan.

Amarenganako desira eta itzuleratzat interpretatu izan bada **klasikoki** fetixismoa, euskal arkeologiak eta antropologiak lagundu digu Ama Lurrarenganako itzulera horretan. Joseba Zulaika

---

# klasikomano *iz* proba klasikoen zale den txirrindularia. ik **klasikozale 2**.

Talde apal batean egon arren, [Astarloak] **klasikomano** peto-petoa dela erakutsi izan du aukera eduki duen bakoitzean. Berria - Kirola

Dena dela, duen palmares laburren garaipen handiak ditu Rabobankeko txirrindulariak, ez alperrik, **klasikomanorik** onenetakoa baita. Berria - Kirola

---

# klasikotasun *iz* klasiko denaren nolakotasuna; klasizismoa.

**Klasikotasuna** eta edertasuna bat eginak zeuden Gabriellengan. Migel Angel Mintegi

**Klasikotasunaren** dotoreziaz. Pako Aristi

Barrokismoa eta **klasikotasuna,** biak batera egozten zaizkio Borgesi. Juan Garzia

Klasikoen -beraren klasikoen- nostalgiatzat ulertu behar dela uste dut Borgesen **klasikotasuna** . Juan Garzia

Denboraz gaindi den orori lotzen zaion herdoila bera baino gaitz asekaitzagoa da tribializazioa: desitxuraketaren gailur demokratikoaz berdintzen ditu arrunkeria eta **klasikotasuna,** moda eta artea. Anjel Lertxundi

**Klasikotasunaren** ereduak eta arauak. Berria - Kultura

---

# klasikozale 1 *izond* klasikoen zale dena.

Eta jakinda Queneau zeinen **klasikozalea** zen eta zeinen maitea zuen alexandrinoaren neurria (7 + 7) , ez da batere harritzekoa iturri horietatik ateratzea bere liburua osatzeko ideia. Xabier Olarra

Klasikoen -beraren klasikoen- nostalgiatzat ulertu behar dela uste dut Borgesen klasikotasuna: **klasikozaletasuntzat,** alegia. Juan Garzia

Saio horrek ordu arteko euskal gorabeherei buruzko ikuspuntu **klasikozaleegia** -klerikalegia- aldatzea zuen helburu. Anjel Lertxundi

**2** proba klasikoen zale den txirrindularia. ik **klasikomano**.

**Klasikozaleentzako** etapa aproposa jokatuko da gaur. Berria - Kirola

Esprinterrak eta **klasikozaleak** biak, azkarrak, indartsuak. Berria - Kirola

Astarloa eta Horrillo dira euskal **klasikozale** onenak. Berria - Kirola

Munduko Kopako talde onenean korritzen duelako, eta euskal **klasikozale** petoena delako. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> klasikotzat jo (4)

---

# klasismo *iz* jarrera edo joera klasista.

Ez dago **klasismorik,** ez dago xenofobiarik albistearen trataeran? Iñigo Aranbarri

Iritzi horiek, noski, gizarteko alderdi behartsuenei buruzko **klasismoaren** manifestazio huts dira, eta ez lukete ardura handirik mereziko baldin eta hain zabalduak ez baleude. Bernardo Atxaga

**Klasismoaren** bertsio larri bat nozitu genuela guk, arrazismoaren atariraino ere iristen zena. Bernardo Atxaga

---

# klasista *izond* gizarte klaseen arteko denberdintasuna adierazten duena; desberditasun horren alde dagoena.

Gure kideek, joera **klasistak** dituzten gehienek bezalaxe, aristokraziaren ukitu distiratsuarekin hornitu nahi zuten beren burua. Bernardo Atxaga

Mendebaldean gizarte kapitalistan bizi baita; gizarte patriarkal eta **klasistan,** beraz. Berria - Kultura

Bere arima **klasistaren** sakonean, erabat sinetsirik zegoen lizentziatu bat ezin zela izan benetan "subertsibo" bat. Juan Garzia

Herri txiki batean jaioak ginen, nekazari giroan heziak, beraz gure ikaskide hiritarrek kutxan gordetako irainak harrotzen zituzten edo, zehatzago, hizkuntza **klasistak** eskura jarritako metraila guztia erabiltzen zuten gure aurka. Bernardo Atxaga

Ironia zirikatzailearekin batean handikeria **klasista** puska bat darion pasarte honetan: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikastetxea iluna zen eta mojak, **klasistak,** odol gaiztokoak eta zapaltzaile hutsak. Ana Urkiza

PSOE gaur ezkertiar moderatua da, ez da **klasista,** ez da internazionalista, urteotan hagitz aldatu da. Joxe Azurmendi

Aberatsa da, baina ez aberats tonto, harro eta **klasista** horietakoa. Pako Aristi

Nola izango naiz **klasista,** langile klasekoa izanik? Iban Zaldua

**Klasista,** arrazista eta xenofoboa izango ez den feminismoa. Berria - Euskal Herria

«Atzerakoitzat, antisozialtzat eta **klasistatzat»** jo zuen orduan Zigor Kodearen erreforma. Berria - Euskal Herria

---

# klasizismo 1 *iz* klasikoa denaren nolakotasuna (ik **klasikotasun**); estilo klasikoa.

Jean-Auguste-Dominique Ingresen **klasizismotik** Paul Cezanneren geometria argitsu eta koloretsura. Berria - Kultura

Ingeniari erromatarraren ideiak Cinquecentoko **klasizismoaren** problematika arkitektonikora [...] egokitzen saiatzen zirenak. Santiago Iruretagoiena

Liberalismoa, **klasizismoa,** erromantizismoa, tradizionalismoa, erlijio katolikoa, espainoltasuna, patriotismoa, honezkero dena nahas-mahasten da. Joxe Azurmendi

**Klasizismoa** frantsesa ote, eta erromantizismoa espainol jatorra? Joxe Azurmendi

Musika frantziarra, Vienako **klasizismoa,** Mannheimeko eskola [...]. Berria - Kultura

**2** garai klasikoa.

Barrokoko edo **Klasizismoko** errepertorioak lantzeko. Berria - Kultura

---

# klasizista *izond* klasizismoarena, klasizismoaren araberakoa.

Haien aurrean zen Toarena etxea, bere fatxada **klasizista** bereziarekin. Edurne Elizondo

Literaturaren historikotasun eta baldintzatze sozialaren doktrina ezarri behar du (prezeptiba **klasizistaren** aurka). Idazle **klasizista** frantsesen poetiketara. Joxe Azurmendi

Mishimak exijentzia estetiko handiko mundu bat eraiki zuen bere literatur lanetan eta bere hizkuntzako gailurretara heldu zen kutsu **klasizistako** hainbat lanekin. Berria - Kultura

---

# klask *(orobat **klaska** eta **kliska** g.er)* 1 *adlag* elkar jotzen duten bi gauzen onomatopeia. ik **klixka**.

**Klask!,** entzun da ostera. Anjel Lertxundi

Makilatxo bat jaurtikitzen diot airera, lasterka egin dezan; eta txakurrak, jauzi eginik, **klask** ! hartzen du ahoan. Anjel Lertxundi

**Klask** itxi zuen Baedeker-a. Joxe Austin Arrieta

Lasaitzen zara, amore ematen duzu, zepoa **klask,** itxi egiten da, zu ohartu ere egin gabe, eta garaile ateratzen da sedukzioaren amarrua. Fernando Rey

Goian ate bat zabaltzen entzun zuten, **klaska,** eta oin-urratsak gero arineketan baina astun samar, eskaileretan behera. Mirentxu Larrañaga

*Bonjour!* eta erantzunaren beha egon gabe berritz hesten du atea, **klaska** ! Filipe Bidart

Barneko hesia idekitzen du: **kliska!,** burdin harrabotsa. Filipe Bidart

**2** (izen gisa) ik **klaska**.

Semaforoen **klask** idorra baino ez zen entzuten. Iban Zaldua

## 3 *klask egin*

Tomek bere hatzez **klask**! egin eta sua sortu zuen beheko sutegian. Iñaki Mendiguren

**Klask** egin zuen mihiaz, errukituta bezala. Iñaki Mendiguren

Mihiaz **klask** egin, ezpainak miazkatu, eta ahoan bildutako listua jaurti zuen. Jose Morales

**Klask, klask, klask** egin zuten armiarmen matxardek zuloaren inguru guztian. Iñaki Mendiguren

Antzarak ihesi joan ziren, izutuak, burua aurrerantz, txistuka, mokoarekin **klaska** eginez. Karlos Zabala

## 4 *klask-klask adlag*

Hormaren kontra izu egina eta hortzak **klaska-klaska,** Kako saiatu zen hari uhaletatik heltzen. Pablo Sastre

Eta bat-batean, klanka!, ene atearen gaineko zerrapoa, klanka!, pekoa, **klaska**! Filipe Bidart

**klaska!,** giltza zerrailuan, eta zaintzale bat agertzen da atean. Filipe Bidart

## 5 *klask-klask-klask adlag*

Agerreko Juanen senideek, jenioen loa baliaturik, estalkia iltzatu dute, **klask-klask-klask,** ohera. Anjel Lertxundi

Berritz giltza harrabotsak zerrailuetan, **klaska**! Filipe Bidart

**klaska**! Edorta Jimenez

**klaska**! Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klask egin** (6); **klask egin zuen** (3)

---

# klaska 1 *iz* elkar jotzen duten bi gauzen hotsa.

Larruzko zigor baten **klaska** entzun da airean, bortitz eta firrindari. Anjel Lertxundi

Armen **klaskak,** alemaniar oihu bortitzak. Eneko Bidegain

Altzairuzko mihia erori zen, **klaska** idor batez. Elena Touyarou

Lehen pilota **klaskak** astearte huntan entzun dira. Herria

Haren atzetik, Harryk karraska eta **klaska**-hots bitxiak entzuten zituen. Iñaki Mendiguren

Matxarden **klaska**-hots ozenak. Iñaki Mendiguren

"Tiki-taka, tiki-taka", ganibetaren kadentziari mingain **klaska** batez lagunduz. Karlos Zabala

Gero eta hurbilago eta iduriz jakiontzi harrabots batzuk bi **klasken** artetik.· Argazki tresnaren hiru flash ukaldien ximisten **klaska**. Filipe Bidart

Bere autoa entzuten du abiatzen, eta pneumatikoek legarra zapaltzean egiten duten **klaska.** **Oskar Arana**

· Mingainarekin **klaska** arin bat egiten zuelarik, Balthazarrek belarriak tente jarri eta pausoa luzatu egiten zuen. Karlos Zabala

Andreak mihi **klaska** bat egin zuen eta supazter xokoko aulki apalean jarri zen. Elena Touyarou

## 2 *klaska-klaska (orobat klaxka-klaxka) iz*

Pitbullak estekan eramaten zituzten gizon oskien burdinazko aztalen **klaska-klaska** metalikoen herots beldurgarriak. Itxaro Borda

Zaldi-oinetako burdinak **klaska-klaska** ozenez antzeman ziren eta erritmo lagungarriaz baliatzeko, denbora pasatzeko, kantuz hasi zen neskatoa. Itxaro Borda

Ur beltz dirdiradunaren **klaxka-klaxka** ilargi zuritan. Aurelia Arkotxa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klaska eginez** (5); **klaska hots** (5); **klaska klaska** (6)

---

# klaskada *iz* klaska.

Mekanismoaren **klaskada** harrigarriro ozen entzun zen kriptako isiltasun pisuan. Metal **klaskada** bortitz batek adierazi zigun metrailetaren mekanismo hilgarria prest zegoela berriro. Alberto Ladron Arana

Azkenean, baina, **klaskada** labur bat ateraz, zabaldu egin zen leihoa. Alberto Ladron Arana

---

# klaskaka *iz* klask eginez.

Hortzak **klaskaka,** eskuan daldarikan hartu zuen gutuna. Eneko Bidegain

-Goazen -esan zuen Ronek, hortzak **klaskaka** zituela. Iñaki Mendiguren

Williams andrearen aurretik zihoan urduri, korridore lauzatuan zehar, batera eta bestera burua, **klaskaka** mingaina. Koro Navarro

Ez duguia ikusi bera ere irri eta **klaskaka** […]! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hortzak klaskaka** (5)

---

# klaskarazi, klaskaraz, klaskarazten du *ad* klaskatzera behartu.

Oihu basatiak barreiatuz eta ateak **klaskaraziz** Wernerren bulegotik kanporatu zen. Itxaro Borda

Aztalak zoladuran **klaskaraziz,** atea berdin, nihaur utzi ninduen, irri ahalkor zozoa ezpainetan dilindan. Itxaro Borda

Hazel Morse emakume ilehori bikaina zen, gizaseme askori mihia **klaskarazten** dioten horietakoa, eta "horail" hitza esanez bat burua maltzurki astinarazten. Mirentxu Larrañaga

---

# klaskateko *iz* klaska.

**Klaskateko** bat entzun zen eta begi ilun gaiztoko eta aho zabaleko gizontxo bat agertu zen, zangoak gurutzatuta airean flotatzen, makilei helduta. Iñaki Mendiguren

---

# klaskatu, klaska(tu), klaskatzen du *ad* (hatzekin edo kidekoekin) hots zolia egin.

Ohean ahoz gora etzanda pare bat minutu zeramala, hatzak **klaskatu** eta, irribarre zabala aurpegian, ia laurehun arimaren jabe zela gogoratu zen. Jose Morales

Erregearen mezulariak! -hatzak **klaskatu** zituen Frodoren sudurraren aurrean-. Agustin Otsoa

Emakume beltzak atzamarrak **klaskatu** ditu lizunki gizona ikustean. Xabier Paya

Eskuak **klaskatu** ditu, eta lehen notarekin dardara modukoa atera dio pianoari, "esna zaitez!" oihukatu balio bezala. Alberto Barandiaren

Zakurra altxatu zen, nor nor zen ikustera joan balitz bezala eta, harengana hurbiltzeko keinua egin zuen, baina nagusiak mihia **klaskatu** zuen eta aberea berriz jarri zen. Elena Touyarou

Eta Erregearen hitzaldiari buruz, zer? -esan zuen Lyons jaunak, zurrut bat edan eta ezpainak **klaskatu** ondoren. Irene Aldasoro

Buckbeakek mokoa **klaskatu** zuen eta bizkorxeago abiatu zen. Iñaki Mendiguren

· Bautistak, asaldatuta, garrasi bizian **klaskatzen** zuen zigorra. Koro Navarro

Armiarma erraldoi bat, bi metro altu eta ilez estalia, Ronengana zihoan, matxardak mehatxuz **klaskatzen** zituela. Iñaki Mendiguren

Atea **klaskatu** zuen "mila esker" zurruna ahoskatuz. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hatzak klaskatu** (5); **hatzak klaskatu zituen** (3); **mingaina klaskatu** (5)
> **hatzak klaskatuz** (3)

---

# **klatrato** *iz* gai kimikoa, molekula mota jakin bat atxikitzen duen beste molekula mota desberdin bateko sareak osatzen duena.

Lurrazpiko izotzean eta urazpiko sedimentuetan **metano** klatrato gas kopuru handia dago harrapaturik. Berria - Gaiak

---

# **klaustro** 1 *iz* barne lorategi edo patio bat inguratzen duen ibilbide arkupeduna.

Bi estaitako **klaustro** balkoidun ederra. Txillardegi

**Klaustro** handi hartan zebilen italiar bikotea gehiago interesatzen niri, ordea, hango estatua guztiak baino. Joxe Austin Arrieta

**Klaustro** txikian -beirateduna zen- zortea izan nuen: [...]. Joxe Austin Arrieta

Beherean, **klaustro** ttipi bat, *claustrillo* deitzen dena, erromanikoa. Piarres Aintziart

Freskoak, korua, **klaustro** erromanikoko kapitelak... Anjel Lertxundi

Katedraleko **klaustro** gotikoa egin zuten garaia. Berria - Kultura

Hantxe ikasi nuen, adibidez, Gobernu Liberalak Oñatiko Unibertsitatea hestea erabaki zuela; eta arkupe, **klaustro** eta gela eder haietan soldaduak ostatatzea erabaki zuela. Txillardegi

Emanaldiak Santa Maria elizako **klaustroan** izango dira, 20:30ean hasita. Berria - Kultura

Guztiak gotzaindegiko **klaustroan** bildurik zeudela, […]. Askoren artean

**2** irakasle kontseilua, batuzetan ikasleak ere hartzen dituena.

Berez, **Klaustroa** da unibertsitateko erakunde gorena, baina praktikan Gobernu Kontseiluak indar handiagoa dauka. Berria - Euskal Herria

**Klaustroa** 300 kidek osatzen dute. Berria - Euskal Herria

Martxoaren 12rako **Klaustro** berezia deitu du EHUk. Berria - Euskal Herria

EHUko **klaustroaren** batzarra. Berria - Euskal Herria

**Klaustroa** aukeratzeko bozketak. Berria - Euskal Herria

Ikasleek **klaustroan** izan behar dituzten ordezkariak hautatzeko. Berria - Euskal Herria

Lehen **Klaustro** horretan aukeratuko dira Gobernu Kontseiluko 24 kide. Berria - Euskal Herria

*ik* klaustrokide.

**Klaustro** hura egin zen goizean hitzordua izan zuela berak sendagilearekin. Joxerra Garzia

Hilabete pare bat lehenago Unibertsitate **Klaustroa** boikoteatu zutenen artekoa izatea leporatzen zion Amaiari orduko errektorego-taldeak, **Klaustro** hartako istiluetan aritu izana, alegia. Joxerra Garzia

Melide herriko Institutuko **klaustroak**. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klaustro berezia** (3)
> **errektorea eta klaustroa** (3)
> **klaustroak aukeratzen** (6)
> **klaustroko kideak** (3)
> **klaustrorako hauteskundeetan** (3)

---

# **klaustrofobia** *iz* barruti itxietan egoteko beldur edo izu gaixotia.

Ohitu arte **klaustrofobia** ematen dit autoak. **Klaustrofobia** ematen zion Pasaiak, N-1 errepide zaratatsu hark. Mikel Hernandez Abaitua

Talgoak **klaustrofobia** eragiten dit, batez ere bidaiaren azken orduan. Ramon Saizarbitoria

Animalien garraioa egoera beldurgarrietan egiten da, **klaustrofobia** sortzeko moduko iluntasunean. Gotzon Garate

Bat-bateko **klaustrofobiak** jota, kanpo giro goibeldura behartu nuen neure gogo higatua. Aingeru Epaltza

Grisu-leherketa bat eta hildakoak, silikosia, zulo barruko ilunpea eta **klaustrofobia…** Egia esan, inoiz ez naiz **klaustrofobia** atake batetik hain hurbil sentitu. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **klaustrofobiko** *izond* klaustrofobiarena, klaustrofobiari dagokiona.

Beraz ez zekiten, fitsik, zein **klaustrofobikoa** den orotariko gizaberez beterekiko autobusa. Unai Iturriaga

Anartean, aita zorrotz, aspergarriak eta herri tiki bateko pentsakera **klaustrofobikoetatik** askatuko duen printze baten zain dago Muriel. Herria

---

# **klaustrokide** *iz* klaustro bateko kidea.

Hautagaiek euren programak defendatuko dituzte **klaustrokideen** aurrean. Berria - Euskal Herria

Ikasle Abertzaleak taldeeko **klaustrokideek** Perez Iglesiasen alde egingo zutela agertu zuten. Berria - Euskal Herria

Zentro bakoitzari sektore bakoitzeko **klaustrokide** jakin batzuk dagozkio, sektore bakoitzean dituzten kideen arabera. Berria - Euskal Herria

Estatutuetako bi puntuen berrikuspena aurrera ateratzeko, 124 **klaustrokideren** aldeko botoa behar zen. Berria - Euskal Herria

---

**klausula** 1 *iz* hitzarmen, agiri edo antzeko idatzietan, xedapen berezia.

Gure definizioari beste **klausula** bat gehitu behar diogu, nonbait: irudi errealista informazio egoki gehien bideratzen duena da, aise eskura daitekeen informazio gehien duena, alegia. Josu Zabaleta

Zuk, Endre, erantsi iezaiozu **klausula** zorrotz bat, legezko balioa izango duena, Nunuk beharrezkoa duen apurra ez dadin Lajosen eskuetan galdu. Ander Irizar

1223ko Erregelak kendu egiten du **klausula** hori ere. Askoren artean

Feudo horien pribilegioak jasotzen zituzten **klausulak**. Iñaki Iñurrieta

Gure artean ezarritako **klausulak,** alargun irautekoak, zuzenbide zaharraren kontra doaz. Bigarren mailako **klausula** gehigarriak. Iñaki Iñurrieta

Zientzia berezietan, biologian esaterako, lege ez-zurrunak (*ceteris paribus* **klausulak** dituztenak) erabiltzen dira fenomenoak azaldu eta aurreikusteko. Askoren artean

Berrikusteko **klausula** bat jasotzen du itunak. Berria - Ekonomia

Siriako Gobernuak PAN onartzea erabaki du, baita Israel onartzea eta harekin elkarrizketatzea zein bakea sinatzea debekatzen duen **klausula** Konbentzio Nazionaletik ezabatzea ere. Berria - Mundua

**Klausula** horietako asko ez daude «argi eta garbi» idatziak. Berria - Ekonomia

Salbuespenezko baldintzen **klausulak**. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Honela zehazten du oinordetzaren notario-**klausula** batek: "Hildakoak ez ditu gaurdainokoan bere azken borondateak zehaztu". Joxan Elosegi

Esklusio **klausula,** Erresuma Batuak Ituna sinatu zuenean lortu zuenaren antzekoa, Ekonomia eta Diru Batasunean eta defentsa gaiei buruz nahi izanez gero kanpoan gelditzeko aukera, alegia. Iñaki Heras

Berrikuspen **klausulak** eta hobari sozialak aztertu. Berria - Ekonomia

Hegaleko argentinarrak Baskoniarekin duen kontratua 2006. urtean amaitzen da, eta bere irtete **klausula** urtero aldatzen da. Berria - Kirola

Joseba Beloki libre dago, Saunier Duval taldeari etete-**klausula** ordaindu ostean. Berria - Kirola

18 milioi euroko etete **klausula** du, ordea, uruguaiarrak, eta fitxaketa merkatzeko Sergio Garcia etor daiteke Iruñera.

Hegoaldeko herrialdeek biziki kritikatu dituzte gizarte- eta ekologia-**klausula** horiek, benetako izena aitortzen ausartzen ez den neoprotekzionismo bat ikusten baitute haietan. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etete klausula** (45); **etete klausula du** (4); **etete klausula ordaindu** (9); **euroko etete klausula** (12); **herriaren klausula** (3); **irtete klausula** (9); **izateko klausula** (3); **klausula negoziatu** (3); **klausula ordaindu** (12); **klausula ordaintzeko** (3); **klausula ordaintzen** (5)

**etete klausulak** (4); **zigor klausulak** (3)

**euroko etete klausularekin** (3)

**klaxon kolpe** (6); **klaxon kolpe bat** (3)

**klaxona jo** (7); **klaxona jotzen** (3)

---

**klausura** *iz* komentu edo kideko batean, beste sexuko pertsonak ezin sar daitezkeen barrutia; barruti horretatik irteteko edo bertan sarteko debekua; egoera horri dagokion bizitza erregimena.

Molde eta eredu monastikoa onartuko dute Frantziskok eta Klarak, **klausurako** bizitza, alegia. Askoren artean

Mutrikuko **klausurako** mojen komentuko elizara, Santa Katalina izenekora. Berria - Euskal Herria

Ermita, hilerri eta **klausura** komentuetarako lanak egiten aritu naiz. Berria - Kultura

**Klausuraz** kanpo zerbitzatzen duten ahizpek ez dute monasteriotik kanpora denbora luzez egon behar, premia nabariren batek hala eskatzen ez badu behintzat. Askoren artean

Barruaren esplorazioak ere baziren, **klausura** ezkutuz eta misterioz beterik zegoelako, eta hirugarren egunean bertan parte hartu nuen barrutegi itzaltsuak errekistatzen ia gauerdian egin genuen ibileran. Joseba Sarrionandia

---

klaxka ik **klaska 2.**

---

**klaxon** *(orobat* ***klakzon*** *g.er.)* *iz* ibilgailuen turuta.

Kaleko ahotsak datozkizu, **klaxonak** eta metroaren burrunba. Hiru alditan jo du **klaxona**. Patxi Iturritegi

Urrun zen eta, Tapaxek **klaxona** jo zion. Pablo Sastre

Dozena bat ibilgailuren gainean beren armekin igota, erdiguneko karrikak korritzen dituzte, **klaxonak** joz eta beren buruzagia goratuz. Berria - Mundua

Giancarlok kotxera hurbildu eta **klaxona** sakatu zuen. **Klaxonaren** hotsa entzun zuenean. Joxemari Urteaga

Atzean entzundako **klaxon** zaratak errealitatera ekarri du. Paddy Rekalde

-"Koño!" -piztu zen Amatxi **klaxon** kolpe bat emanez aitzineko beribilari-. Ramuntxo Etxeberri

---

**klaxonkada** *iz* klaxon joaldia.

Eta berriro Alfa Romeo hura, haren **klaxonkadak** kalesketan, haren balaztadak, haren loka-guneko sakadak, haren latorrizko durundia gauaren erdian. Joxe Austin Arrieta

---

**kleenex** *(orobat* ***klinex*** *g.er.)* *iz* paperezko musuzapia.

Ebe **kleenex** bat topatzen hasi zen artilezko poltsa handian. Sonia Gonzalez

Apaintze-mahaira joan eta **Kleenex** bat eta bekainetarako lapitza hartu ditu idazteko. Xabier Paya

Zure sakeletan bilatzen duzu eta **"klinex"** garbi bat eskaintzen diozu. Ramuntxo Etxeberri

Komunean ezpainak margotu eta margo gehiegi eman zuela iruditu zitzaionez, **kleenex** batekin xukatu zuen soberan zegoela irizten zuena. Semaforo batean, **kleenexak** saltzen ari zen. Harkaitz Cano

**Kleenex** batez hartu zituen Matiasek labezomorroa eta tripak. Unai Elorriaga

Hartu, erabili eta bazterrera... **kleenex** bat bezala. Joan Mari Irigoien

**Kleenex** paketea luzatu diot, ea lehenbailehen isiltzen den. Patxi Iturritegi

· Poltsatik **kleenex** mukizapia atera eta begietako malkoak xukatu nituen. Joxemari Iturralde

---

**klematide** *iz* zuhaitzen adarretan kiribilatzen den landarea, hosto elkartuak eta lore zuriak dituena*(Clematis vitalba).*

**Klematidea** bioleta distiratsua zen; horma berriz zuri nabarmena. Anton Garikano

Baina oraingoan, zentzu guztiak hain zorrotz, so eginez, grinati, hormaren eta atzeko **klematideen** koloreak begietan erre zioten arte, konturatu egin zen norbait zetorrela etxetik, beragana zetorrela. Anton Garikano

---

**klementzia** *iz* errukitasuna, bihozberatasuna.

Alferrik zela ikusita, bi mutikoentzat eskatu zuten gero, eta, Klemente egoskorrak hori ere emango ez zuela garbi zirudienez, Bernardo hamabi urteko mutikoarentzako **klementzia** eta errukia eskatu zioten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gure mundu honetan ez zegoela amorioarendako ez **klementziarako** lekurik. Joan Mari Irigoien

---

**klenbuterol** *iz* gai anabolizatzailea, batez ere abelburuak iruzurrez gizentzeko erabiltzen dena.

Efedrina, anabolizanteak, esteroideak eta **klenbuterola,** dira, besteak beste, aurkitutako substantziak. Berria - Gaiak

Bere amak asmarentzat hartzen dituen **klenbuterolezko** pilulak zirela nonbait. Berria - Kirola

**Klenbuterolarekin** positibo emateagatik Nazioarteko Tenis Federazioak ezarri ohi duen zigorra da. Berria - Kirola

Aitortzen dut nire gorputzean **klenbuterol** arrastoak zeudela, baina nik ez nuen hartu Berria - Kirola

---

**kleptomano** *iz* lapurretarako ezin eutsizko joera duen pertsona.

Berariaz eta aldi berean nahi gabe erreparatu nien besapeko ile bakan horiei, **kleptomanoak** gauza ezdeusak lapurtzen dituen plazer bertsuarekin. Joxean Agirre

**Kleptomano** halakoa! Sonia Gonzalez

---

**klera** **1** *iz* igeltsu edo buztinzurizko barratxoa, arbelean-eta idazteko erabiltzen dena. ik**klarion**.

Argazkian 334 zenbakia **kleraz** idatzi zuten taula bati eusten ageri zen aita. Joxan Elosegi

**Kleraz** gurutzearen ikurra eginez. Askoren artean

Arbel ezabatu berri batean geratu ohi den **klera** -orban formarik gabea. Anjel Lertxundi

Oihal zatien ertzak **klera** mehe batez trazatzen, zati bakoitza mozten. Joxan Elosegi

Arrautza saskiek **klera** zuritasuna zabaltzen zuten. Karlos Zabala

Sasoi hartan paper gaineko **klera** eta pastela teknikak erabili zituen. Berria - Kultura

Bertolt Brechten *Kaukasoar* ***klerazko*** *biribila* eman beharra zuen aurtengo urrian Chimeres antzerki taldeak. Berria - Kultura

**2** buztinzuria.

Etxeari argizari, erretxin eta **klera** usaina zerion zoko guztietatik. Harkaitz Cano

Zubiaren karelean eseri nintzen, aurreko gauean **klera** buztinez arretaz zuritu nituen belakizko oinetakoei onespenez begira. Irene Aldasoro

**3** (erkaketetan)

Hiru solairuko etxe handia zen, harrizkoa, **klera** bezain zuria. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaukasiar klerazko borobila** (3); **kaukasoar klerazko biribila** (4)

---

**kleratsu** *izond* klera asko duena.

Beraz, egin behar dira lur **kleratsu** zuriz edo buztin gorriz, eta baita pikor lodi samarrak dituenaz ere. Santiago Iruretagoiena

---

**klerezia** **1** *iz* kleroa.

**2** ***klerezia poesia*** erdi aroko espainiar poesia eskola, neurtitz landuak ontzen zituzten elizgizonek osatua.

**Klerezi** poesia, nobela pikareskoa eta abar. Isabel Arrigain

---

klerigo ik **kleriko**.

---

**klerikal** **1** *izond/iz* kleroarena, kleroari dagokiona.

Anaiarteak Santuaren bizitzan bertan hartu zuen orientazio **klerikal** eta kultuaren kontrako zeharkako protesta gisa. Askoren artean

Saio bat zen, eta saio horrek ordu arteko euskal gorabeherei buruzko ikuspuntu klasikozaleegia **-klerikalegia-** aldatzea zuen helburu. Anjel Lertxundi

**2** klerikalismoaren aldekoa.

Mozolo nagusia alkatea zen, gizon argal bat, beltzez jantzia, oso **klerikala,** manera leuneko jauntxoa, leunki-leunki udaletik ahal zuen guztia eramaten ari zena. Josu Zabaleta

Berori, adibidez, apaiza da, bai, baina ez apaiz **klerikala** . Koldo Biguri

Alabaina, Tellagorrik Arbeako bikarioa errespetatzen zuen, **klerikalek** liberaltzat eta erotzat salatzen zutena. Koro Navarro

---

**klerikalismo** *iz* kleroaren gehiegizko eragina eta itzala gizarte zibilean.

Kristau Elizaren buruzagiak. [...] badirudi beren bidetik aldendu egin direla, beren Fundatzailea ukatzeko juduen **klerikalismoa** eta fariseismoa berenganatuz. Iñaki Mendiguren

Borboi familiako kideak beren arteko borrokan boterea lortzeko, eta Errepublika, foruzaletasunaren, karlismoaren eta **klerikalismoaren** babesle azaltzen den Gernikako Arbola apurtzen. Berria - Kultura

Gure historian izan diren **klerikalismoa** eta antiklerikalismoa. Askoren artean

---

**klerikalista** *izond* klerikalismoaren aldekoa.

Abertzaleak **klerikalistak** omen zirelako. Joxe Azurmendi

---

**klerikalizatu** *izond* kleroaren eraginpean jarria.

Mugimendu horiek, oso **klerikalizatua** zegoen Eliza ofizialarekiko oposizio-karga handia zuten. Askoren artean

---

**kleriko** **1** *iz* kleroko kidea.

Tontsura edo hile-mozte honek **kleriko** bihurtzen zituen, hau da, agintari zibilen eskumenetik ateratzen zituen eta Elizaren babespean jartzen. Askoren artean

Kristau guztiei: erlijioso, **kleriko** eta laiko, gizon eta emakume. Askoren artean

Horrela bada, anaia guztiek, **kleriko** nahiz laiko, erreza bitzate ofizioa, gorespenak eta beste otoitzak, behar duten eran. Askoren artean

Denera,12 **kleriko** eta 15 laiko izan ziren. Askoren artean

Garai hartan, **klerikoak** zabar eta arduragabe ziren maiz Jainkoaren Hitza iragartzerakoan nahiz Eukaristi sakramentua ospatzerakoan. Askoren artean

Zesareo izeneko **kleriko** bat [...] Ordenan hartua izan zen. Askoren artean

Latinezko testuan *magnum clericum,* **kleriko** handia. Askoren artean

**2** irud/hed

**Kleriko** musulman sunita bat hil dute tiroz Karachin. Berria - Mundua

Riaden milaka pertsona bildu ziren, tartean, buruzagi tribalak, **klerikoak** , alkateak eta hamalau eskualdeetako gobernadoreak. Berria - Harian

**3** (izenondo gisa)

Anai Arnoldo, nobizio **klerikoa** . Askoren artean

Honako anaia **klerikoak** aukera bitez anaiarik santuen, hoberen eta jatorrenen artetik. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agintari eta kleriko** (3); **kleriko eta laiko** (4); **kleriko nahiz laiko** (12)
> **klerikoei laguntzera** (3)

---

**klero** *iz* apaizeria.

**Klero** berri bat dugu, eliz-gizon berriak ditugu. Iñaki Heras

Kristau Eliza, tokikoa eta unibertsala, bi erlijio-klasetan egituratu zenean, "laikotza" eta **"kleroa"** alegia, eta **kleroa** bere aldetik "ordena"-hierarkian mailakatu zenean, beharrezko terminoak greko eta latinez zegoen hiztegi sekularretik hartu ziren. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Kristandadean **kleroa** bakarrik zen eskolatua. Iñaki Mendiguren

Gotzainak bere hiriko **kleroa** bildu zuen. Askoren artean

Orduan **klero** guztiak, erlijiosoak barne, hiritik atera behar izan zuen. Askoren artean

**Klero** sekularrarekin izandako eztabaidetan parte hartu zuen Ordenaren defentsan. Askoren artean

---

**kleron** *iz* turuta.

**Kleron** eta atabalekin klika zena bilakatu da fanfara. Herria

Trebe jotzen hasi zen atabal **klerona** . Kantatu ere egun horri doakion kantua, eta airatu ere **kleronen** soinu berezia. Herria

---

**kliente** *(orobat **klient** eta **kliant** g.er.)* *iz* bezeroa.

Eduardo Robledo 40 urteko taxista Bilbon hil du **kliente** batek lepoa moztuz. Herria

Enpresan egiten dena sobera berezia zela, ez zuala aski **klientik** eta berriz abiatzeko sos hanitx behar zelakoz. Herria

**Klientekin** ere pazientzia laster galtzen nuen. Daniel Landart

Merkatua arakatu ikusteko zoin diren ahalezko **klientak** . Herria

Gure auzoetan gure bezeroek ( **klientek** ) badituzte beren usaiak, ezagutzen gaituzte eta haien leialtasunak erakusten digu gure presentzia beharrezkoa dela. Herria

---

**klientela** *iz* bezeria, bezeroak.

Bezeroak ez du deus balio hor, oraindik aski **klientela** baduelako sagardotegiak, ustez. Edorta Agirre

Huraxe zen denda, jatetxe eta kafetegietako **klientela** nagusia. Koldo Izagirre

Erran dezaket ere ez naizela haren **klientelari** esker bizi, bihi batek ez baidaut zerbait erosten. Herria

---

**klientelismo** *iz* alderdi politiko batekin, babesaren truke elkarlanean aritzean oinarritzen den politika.

Manuel Fragaren gobernuak bultzatutako **«klientelismoa»** eta «manipulazioa» amaitu eta Administrazioaren gardentasuna bultzatu nahi du koalizioak. Berria - Harian

**Klientelismo** fiskal hutsa da, errentaren gaineko zergaren jaitsiera ezkutua zerga handiena ordaintzen dutenentzat. Berria - Ekonomia

Besteek hori oztopo dela uste dute: pertsonalismoa, botere gehiegi eskuratzea, **klientelismoa** sortzea, autoriarismoa eta ustelkeriaren aurkako lanari bete-betean ez ekitea. Pako Aristi

---

**klik**[1] **1** *iz* klaskaren kideko hotsa, hura baino ahulagoa.

Halletik zetozen oin-hots batzuek belarriak zolitu zizkioten; sarraila baten **klika** . Lopez de Arana

Manipulatze laster bat, hezur baten **klika** . Koro Navarro

Komunikazio bulegoko kabinan **klik** ttiki bat besterik ez da sumatzen, norbaitek kaferako koilaratxo bat erortzen utziko balu bezala. Fernando Rey

**Klik** bat entzuten da, eta Llum hizketan hasten da berriro. Antton Olano

**Klik** txiki bat entzun zen eta atea zabaldu zen. Iñaki Mendiguren

Bota ilunen hotsa nasa busti isilean, seguru asko armaren batena izango zen **klik** metalikoa. Joseba Sarrionandia

Iturbide, behintzat, zeharo ikaratuta gelditu zen armaren **"klik"** ozena entzundakoan. Migel Angel Mintegi

Katua sakatu eta **klik** ala danba entzunen ote duen ez dakienaren antzera. Alberto Ladron Arana

• **2** *adlag*

**Klik,** iragarkiak; **klik,** A3ko *reallity show* morbosoa; **klik,** enegarren aldiz programatutako film amerikarra; **klik; klik; klik..** . gero eta azkarrago, atzamar potoloa ondo nekatu arte. Patxi Iturritegi

Damian Arrutik eskegi egin zuen telefonoa, **klik** . Hasier Etxeberria

-Mozoloa zara! -eta, **klik,** eskegi dio telefonoa. Hasier Etxeberria

Eta ezker begiaz **klik** . Alberto Barandiaren

Gero emakumezko batek protesta egiten du argazkilariak beren kasa dabiltzalako, **klik** eta **klik,** begirunerik gabe. Edorta Jimenez

**3** (hitz elkartuetan)

Zer izan da **klik** -hots bitxi hori? -esan zuen Fredek, tximista bezala izkinan beste aldera igarotzean. Iñaki Mendiguren

Bigarren argazkiaren **klik** hotsa aditu orduko, arras aldatu zaio aldartea. Xabier Montoia

**4** irenstearen onomatopeia.

Eskuak eta arpegia freskatu, tragoska bat egin, **klik klik,** Patziku Perurena

**5** ***begi klik*** begi kliska.

Hain erraza egiten zaie Jainkoarekiko intimitatea, non begi-**klik** batean, berek nahi dutenean, bil bailitezke beren barnean, berezko inpresioak baino harantzago joanez. Joan Mari Lekuona

Orduz geroko nire lehen begi-**klika** naturari doakio goiztirian, begirada zientifikoa bezala frantziskotarra ere. Pello Zabala

Erlazio jainkozkoak ehun mila aldiz azkarrago osabetetzen baitira begi-**klika** baino. Joan Mari Lekuona

**6** ***hurrup eta klik***

Saristatze eta " **hurrup eta klik** "-en ondotik, xerri ttipia jastatuz egunaren bururatzea proposatua zauku. Herria

Ondotik **hurrup eta klik** . Herria

12etarik harat: **hurrup eta klik,** Ezpeletako txarangak eta Gaiteroek animaturik. Herria

Etor zaitezte **hurrup eta klik** egiterat! harri batez bi xori... Herria

Urriaren 14 an igandearekin, HAZPARNEn, 11etan ipuinak **hurrup eta klik** Xuriatean. Herria

**7** ***klik** eginsup_1*

Tapak idazmakinen gainean **klik** egiten ari ziren, idazmahaiak ixten. Lopez de Arana

Nola egiten zion **klik** ezkerreko begiarekin. Alberto Barandiaren

Elur-hontzak mokoaz **klik** egin zion eta Harryren besora joan zen hegan. Iñaki Mendiguren

Kameraren begia edonon jarri eta **klik** egin, ez zen besterik egin behar. Edorta Jimenez

Gernikan, argazki lazgarri bat ateratzeko, ez zeneukan zeri **klik** egin pentsatu beharrik; dena zen lazgarria. Edorta Jimenez

Sarrailak **klik** egin eta atea zabaldu zen. Iñaki Mendiguren

Gorriak pistolaren katua sakatu eta katuak **klik** egin zuen. Koldo Biguri

Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* irakurtzeak berehala egin zidan **klik** memorian. Iban Zaldua

· Ozta-ozta egin zion lau bost bider **klik** Robertek. Edorta Jimenez

**8** ***klik** eginsup_2* ik **klikatu 4.**

Ordenagailua piztu eta **klik** egin nuen Kieletik bidalitako izkribu elektronikoan. Hasier Etxeberria

Attachement-etik pantailara ekarri nuen fax hura, arratoiarekin bi aldiz **klik** eginda. Hasier Etxeberria

**9** ***klik-klak** adlag/iz*

Bere Zippoarekin zigarroa **klik** -klak piztu du, garra eskuekin babestu gabe, dotore dotore. Jokin Muñoz

Gabiri gustatzen zaio txiskeroaren **klik** -klak hori. Jokin Muñoz

Atea itxi zuen hurrena, **klik** klak eginez, eta asalduan nahasi zen guztia airean. Joxan Elosegi

**10** ***klik-klik** adlag*

Begi parean orraziak eta artaziak ikusi ditudanean, begiak zarratu eta ile mozkinak **klik klik** erortzen zaizkit lepo eta bular gainera. Joseba Sarrionandia

Lana utzi, eta atseden hartuz, ur xirripa baten alboan esertzea, eskuak eta arpegia freskatu, tragoska bat egin, **klik klik**, eta hostapeko itzalean hozka batzuk zerozeri. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hurrup eta klik** (10); **klik egin** (9); **klik eginda** (3); **klik egiteko** (3); **klik eta klik** (3); **klik hots** (3); **klik hotsa** (3); **klik klak** (7); **klik klik** (4)

---

**klik**² *iz* airea barrurantz bultzatuz egiten den kontsonantea.

Barruranzko une bat gertatzen da **klik** deituriko kontsonanteetan ere. Lourdes Oñederra

Esaterako, ezetz esateko egiten diren hots batzuk **klikak** izaten dira, eta, halaber, zerbaitekiko etsipena edo ezina adierazten duena eta haurrei debekua edo kontuz ibili beharra adierazten diena. Lourdes Oñederra

Muxu zaratatsuak ere **klikak** izaten dira eta, ongi erreparatuz gero, hotsok egitean barruranzko tira egitea nabaritu daiteke. Lourdes Oñederra

**Klikak** egiteko ere hersketa bi egiten dira, baina, kasu honetan, mihiaren bidez egiten dira biak ( **klik** ezpainkariaren kasuan ez beste). Lourdes Oñederra

Badira Afrikako hizkuntza batzuetan **klik** albokariak edo galesez igurzkari albokariak ere. Lourdes Oñederra

---

**klika** *iz ipar* musika taldea, batez ere metal musika tresnez osatua.

Aratsaldeko 6etan, Urruñako **klikak** airostuko ditu bazterrak. Herria

Hunen airosteko hor dira bertsulariak, **klika,** dantzariak, haundi eta ttipi, eta Bestaberri herrian bezala. Herria

Hor ginuen *Airoski* **klika** ere denen laguntzaile. Herria

"Elgarrekin" korala han zen eta ere **klika** xoragarri bat denen alegeratzeko. Herria

21.30etan karriketan barna Hazparneko Joaldunak eta **klikak** . Herria

Kleron eta atabalekin **klika** zena bilakatu da fanfara. Herria

Herriko **klika** edo fanfarrak eginen du gau aldi bat ekainaren 8an aratseko 9 orenetan herriko elizan. Herria

Goizeko 10.30etan, meza nagusia **klikarekin,** eta ondotik zintzur kilikatzea. Herria

Igandean, Makean, Union Basque erakundearen eskutik, **klika** eta soinulari taldeen zoin-gehiagoka eta besta. Herria

Arrangoitzeko **klikako** zuzendari ere zen. Herria

Urruñako **klika** bere jauntzi ederrez apaindua. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**ako klika** (3); **irrintzina klika** (4); urruñ
**klikak airosturik** (3)
**lagunak klikarekin** (13)
**meza nagusia klikarekin** (5)
**hiru herrietako klikek** (3)

---

# klikada 1 *iz* hurrupa. ik **kluka**.

Coca baten bila joan nintzen sukaldera eta **klikada** batez edan nuen. Joxan Elosegi

**2** klik egitea.

Aldez aurretik entseatutako atzapar-mugimenduak atzenekoz berretsi guran, **klikada** batzuen simulakroa egin zuen argazkirik egin barik. Josu Landa

Gurutzatuak hemen baleude, begi-**klikada** batean garraiatuko bailituzkete soldaduak aurrera-fronte izugarri zabalean, mairuak ertzean zehar barreiaraziz, eta, ondorioz, defentsa ahulduz. Jon Alonso

-¿Cómo dice? -galdegin zidan azkenez, eta telefonoaren eskegiteko **klikada** baizik ez nion eskaini, putaseme hari. Hasier Etxeberria

---

# klikarazi, klikaraz, klikarazten du *ad* klikatzera behartu.

-Lanpara zure irismenetik kanpo balego, izango al zenuke **klikarazi** beharra? -galdetu nion. Xabier Olarra

Halako batean, errabiaz, Tzarkok 38.p atera zuen eta gixon segitzaile baten barrabiletan pausatu, pistolaren mihia behin hutsean **klikaraziz**. Itxaro Borda

---

# klikatu, klika, klikatzen 1 du *ad* irentsi.

Jaikitzen nintzen gero eta eroaren pare gasna puska bat **klikatzen** nuen, zainen jabaltzeko. Itxaro Borda

Goseak erraiak kiribilkatu zizkidan eta arraina gordinik **klikatzen** zen jantoki batera gonbidatu nuen Jessica. Itxaro Borda

-Ase ederra egin genezake, azalak ere **klikatzen** ahal bagenitu! Itxaro Borda

Lehen egunean, ahal zituzten guziak **klikatu** zituzten Ali Babaren harpeko urre guziaren aitzinean izan balira bezala. Eneko Bidegain

Zer pinterdi goxoa **klikatu** nuen Laket-Leku ostatuan! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hiruek basoetan zutena **klikatu** zuten, eta ostalerrak beste basotara bana zerbitzatu zien. Elena Touyarou

Zeldako preso kide bat ikusten zuen salda haren **klikatzen**. Eneko Bidegain

Txokok bat-batean emazte baten aluaren **klikatzeko** gutizia ukan zuen. Itxaro Borda

**2** kliskatu.

Begiak **klikatu** nituen, sinetsi ezinik. Jon Alonso

Zer genuen guhauren ninien horrela ahoa beteka **klikatzeko**? Itxaro Borda

**3** klik egin.

Eskuineko hatzak **klikatuz**. Jon Alonso

**4** ordenagailuaren saguari sakatu edo eragin.

Mesedez, **klikatu** pantailan. Berria - Kultura

Osasunaren webgunean sartuta, harridura: euskaran **klikatu,** eta atalen izenak bakarrik agertuko zaizkizue euskaraz. Berria - Kirola

Koldo Izagirre *Parisko txolarrea*-ren estrofa bat errezitatzen entzun ondoren, adibidez, irudietan **klikatuz** 68ko maiatzaren inguruko informazioa, garaiko ikasleek erabiltzen zituzten leloak, Frantziako Iraultzari buruz jakitekoak eta Parisko Komunaren gainekoak irakur daitezke, besteak beste. Berria - Kultura

Haren gainean **klikatu** nuen eta makinak amen batean pantailaratu zidan: "Baphomet-en adoratzaileak", "Maitasun gnostikoaren habia" eta abar. Aingeru Epaltza

Baina, egia osoa esan behar badut, oraindik ez dakit ondo-ondo jolasten, eta zalantzan nagoenean lehengusuak esan ohi dit non **klikatu**. Patxi Iturritegi

Batzuetan, gogor **klikatu** arren, ezin dut erabat kontrolatu. Patxi Iturritegi

---

# klikatzaile *iz* klikatzen duen pertsona.

Osinbeltz Horosakola bankaxefa eta ondoko **klikatzaileak**. Jose Angel Irigaray

---

# klima 1 *iz* lurralde bateko egurats giroaren eta eguraldiaren ezaugarrien multzoa.

Eguraldia eta **klima**. Pello Zabala

Muturreko **klima**. Berria - Gaiak

**Klima** aldatzen ari da? Pello Zabala

Nekez jasaten omen zuen **klima,** nonbait. Joxe Austin Arrieta

**Klima** berotzen hasi zenean basoak Italiako penintsulan barrena iparraldera zabaltzen hasi ziren. Pako Aristi

Zientzialariak, bestalde, etorkizuneko **klima** aurreikusteko eginahalak egiten ari dira. Berria - Gaiak

Esan ohi da **klima** jakin eta inguruabar zehatzen azpian, poligamia ere onargarriagoa izan daitekeela, beste inguruabar eta **klima** batzuetan baino. Andres Urrutia

**Klimaren** bilakaera orokorrari dagokionez **Klimaren** beroketa salatzeko, Baionako Esso gasolindegia plastiko beltzez itxi du Abk. Berria - Euskal Herria

1979: Munduko **Klimaren** Konferentziaren lehen bilera. Berria - Harian

**2** (izenondoekin)

Europako leku askotan, baina **klima** mediterranearra dutenetan batik bat, badira Lycosa generoko armiarma handi, iletsu eta saltari batzuk. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ekuatore maila horretan, Lurraren gerrian, **klima** tropikala dago. Pello Zabala

**klima** azpitropikaleko ur meheko erreka geldoetan. Berria - Gaiak

**Klima** lehorra. Pello Zabala

**Klima** epeletan ere arazo bera dute ile sarria duten animaliek. Irene Aldasoro

**Klima** epeleko leku batean, gutxi gorabehera 250 ml ur eta 350 kcal bero (350 janari-kaloria) galtzen ditu pertsona nagusi batek egunero arnasan botatako airean. Irene Aldasoro

Ipar poloaren gertuen diren lurralde guztiak harrapatzen ditu **klima** hotz honek. Pello Zabala

**Klima** polarra deitzen dioguna, Alaskan, Kanadan, Groenlandian eta Errusiako ipar-iparrean daukagu, eta noski, Antartidan. Pello Zabala

Mediterraneo Itsasoaren ertz eta aldamenean, **klima** gozo leun berezi-berezia osatu da. tenperatura gozoagoa egiten zuela diote, baina **klima** egonkorragoa izaten zela. Pello Zabala

Lur emankorra eta **klima** egokia. Koro Navarro

**Klima** gogorra ia lurrik gabeko ordokian Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **klimatiko**.

Azken **klima** aldaketa naturala. Pello Zabala

Giza-jarduera **klima** aldaketan. Pello Zabala

**Klima** aldaketaren eraginak larriagotuz joango dira, ez garelako kalte horiek saihesteko mailara iritsiko. Berria - Gaiak

Baina datuok zuhur hartu behar dira, epe luzerako **klima** azterketek orain dela 30 urte ziotelako 2000. urterako hainbat leku ur azpian izango zirela berotzearen ondorioz, eta ez da gertatu. Berria - Euskal Herria

Horregatik daude hainbat **klima**-mota, zein eskualdetan kokatzen garen. Pello Zabala

Kerry Emmanuel **klima** gaietan adituak adierazi du [...]. Berria - Harian

Eskualde guztiak desberdinak direla **klima**-klase desberdinen arabera. Santiago Iruretagoiena

**Klima** kontua, beharbada. Ramon Saizarbitoria

Norvegiako **klima** ikerketarako zentroko zuzendaria. Berria - Gaiak

CO2 isurketak arautuko dituen **Klima** Plana «oporren ondotik» aurkeztuko duela. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tropikalak, lehorrak, epelak, elur-**klimak,** polarrak, mendi-**klimak,** estepakoak, basamortukoak, montzoi-**klimak,** hezeak, neguan urtaro lehorrekoak, udan urtaro lehorrekoak, tundrakoak, izotz betikoen klima, itsasaldekoak... Pello Zabala

**5** irud/hed giroa.

Augustoren garaiko **klima** politikoarekin guztiz koherentea den aukera kultural eta estetiko baten ondorioz. Santiago Iruretagoiena

Giro politiko berri bat sortu da, **klima** politiko berria Zer filosofiak edo moral gaiek definitu duen euren hausnarketaren **klima**. Xabier Arregi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

artikoko klima (4); artikoko klima aldaketaren (3); etorkizuneko klima (3); iraganeko klima (3); klima aldaketa (81); klima aldaketa eragiten (4); klima aldaketa gelditu (4); klima aldaketa ulertzeko (3); klima aldaketak (23); klima aldaketan (4); klima aldaketarekin (4); klima aldaketaren (91); klima aldaketaren aurka (9); klima aldaketaren aurkako (3); klima aldaketaren eraginak (3); klima aldaketaren eraginez (4); klima aldaketaren inguruan (3); klima aldaketaren inguruko (13); klima aldaketaren konferentzia (3); klima aldaketaren ondorio (3); klima aldaketari (12); klima aldaketari buruzko (3); klima aldatzen (7); klima aldatzen ari (6) klima gozo (3); klima mota (3); klima tropikala (6); lurreko klima (3); ondoriozko klima (3)

klimaren aldaketa (6); klimaren aldaketaren (3); klimaren aldaketari (3)

---

# klimaterio *iz* pertsonen bizitzako garaia, sexu guruinen jarduera nabarmen apaltzen dena.

**Klimaterioa,** menopausia eta andropenia errudun unibertsal direla aldarrikatuko dugu, kaltetuak eta errudunak lasaiago uzteko. Edorta Agirre

Zer uste duzu, emakume bati, **klimaterioan,** ez zaiola beste ezer interesgarririk gelditzen, ala? Joxe Austin Arrieta

Gizonezkoen **klimaterioan**. Berria - Kultura

---

# klimatiko *izond* klimari dagokiona. ik **klima 3**.

Beste hilabeteotan esan dugu nola, mende horretan, aldaketa **klimatiko** koxkor bat egon zen hotz markatuaren alderakoa. Pello Zabala

Azaroak nolako ezaugarri **klimatikoak** islatzen ditu? errealitate geografikoak, historikoak eta **klimatikoak**. Pello Zabala

Datu **klimatikoak** bildu, txukun gorde eta beroiek behar diren eran zerbitzatu eta erabiltzea dagokio klimatologiari. Pello Zabala

Tenperatura igoerak beste ondorio batzuk eragingo dituela ere ohartarazi du EEAk; muturreko baldintza **klimatikoak** sarriago gertatzea, esaterako. Berria - Gaiak

Nazio Batuen Erakundeko txosten baten arabera, deforestazioa ez da uholdeen eragilea eta ezaugarri **klimatikoek** eragiten dituzte montzoiak. Berria - Mundua

---

# klimatizatu, klimatiza, klimatizatzen **1** du *ad* espazio itxi eta mugatu bateko aireari tenperatura eta hezetasun maila egokiak eman artifizialki.

Heldu diren beroeri aintzinetik uko egiteko, Etxetoaren alde bat **klimatizatua** izan behar daiteke ondoko hilabetetan. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Taxiaren aire **klimatizatua.** **Ramuntxo Etxeberri**

Alde Zaharrerako igerileku **klimatizatu** bat eskatu izan dugu. Berria - Euskal Herria

Pasabide **klimatizatu** luzean. Ramuntxo Etxeberri

---

# klimatizazio **1** *iz* klimatizatzea.

Luxu harrigarria, **klimatizazioa** eta erabateko erosotasuna. Jon Muñoz

**klimatizazioa,** argiteria eta ura. Berria - Kultura

Argi, elektrizitate, iturgintza, **klimatizazio** eta suteen kontrako instalazioak ere berrituko dituzte. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Duela zenbait hilabete Frantziako gobernuak **klimatizazio** sistemak egokitzeko agindua eman zien erretreta etxeei eta erietxeei. Berria - Euskal Herria

Sudurraren **klimatizazio**-sistema, ingeniaritzari dagokionez, oso ondo diseinaturik dagoela gogorarazten digute halako mekanismo artifizial bat sortzerakoan topatzen diren zailtasunek. Irene Aldasoro

Munduko **klimatizazio** zentro bikainena dago sudur-zuloen atzean, eta, harekin konbinaturik, detekzio-sistema bat, sentikortasun harrigarrikoa, kimikari analitikoek oraindik ezin esplikatu izan dutena eta, are gutxiago, imitatu. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

klimatizazio sistema (3)

---

# klimatologia **1** *iz* klimaren azterketa.

Ez da nahastu behar [...] **klimatologiak** egin ohi duen lana eta meteorologiari dagokiona. Pello Zabala

Valentziako Autonomia Erkidegoan, **klimatologiako** datu-bilketaz gainera, meteorologia azterketa eta inbestigazio sano bezain sakona daramate. Pello Zabala

Behatokien eta **klimatologia** hornituko duen azpiegitura sarearen zaintza. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **klimatologiko**.

Arabako ur gehienak Ebro ibai handirantz doazenez, **klimatologia** datuak ere Zaragozako Meteorologia Zentrora joango dira. Pello Zabala

1654an, Toskanako Dukeak [...] **klimatologia** saio handi bat organizatu zuen. Pello Zabala

Euskalerriko **Klimatologia** eta Meteorologia Elkartea. Pello Zabala

Eusko Jaurlaritzako Meteorologia eta **Klimatologia** Zuzendaritza. Pello Zabala

Euskal Herriko **Klimatologia** eta Meteorologia Fundazioaren eta Euskalmeten iragarpenen arabera.

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saileko Metereologia eta **Klimatologia** Zerbitzuak. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euskal herriko klimatologia** (5); **klimatologia datuak** (3); **klimatologia eta meteorologia** (4)

---

# klimatologiko *izond* klimatologiarena, klimatologiari dagokiona. ik **klimatologia 2**.

Aldaketa **klimatologikoak** anitzez bortitzagoak izanen dira. Berria - Euskal Herria

Egoera **klimatologiko** txarrei aurre egiteko prest. Berria - Ekonomia

Efemerideen zakura bota ditugun hainbat datu **klimatologiko**. Pello Zabala

Sasoi hau apartekoa izan zenez, hotzaldi **klimatologiko** nabarmena izan zelako, efemeride zakua askoz beteago azaldu ohi da ehun urte hauetan. Pello Zabala

---

# klimatologo *iz* klimatologian espezialista den pertsona.

Zuhaitzen hazkuntza eraztunak, maskor fosilak eta munduko 14 gunetan harturiko izotz laginak aztertu dituzte **klimatologoek**. **Klimatologoen** betebeharra zen gehienik meteorologia izeneko behatokietan betetzen zena. Pello Zabala

NASAko **klimatologo** nagusi James Hansenek adierazi duenez, [...]. Berria - Gaiak

Erresuma Batuko **klimatologo** talde batek. Berria - Gaiak

---

# klimatolokikoki *adlag* klimatologiaren ikuspegitik.

Jaizkibelgo hegoaldeko zatia **klimatologikoki** oso desegokia da ke eta kutsaduren emisioak eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

---

# klimatxo *iz*

Kultura mailan, **klimatxo** bat igo dugun seinale ere bada hori: eskaileran gora mailatxo bat gora ote goazen... Pello Zabala

---

# klimax 1 *iz* jarduera baten goren unea.

Bere kontakizunaren **klimaxera** iristen ari baitzen. Irene Aldasoro

Oso erritmo egokian argitzen baititu narrazio honetan dauden **klimaxak**. Berria - Kultura

Albisteak zuzeneko ekintza-telefilm bilakatu dira, beren **klimax** eta guzti. Txema Ramirez de la Piscina

Ia beti, pianissimo hasten ginen, bestearen jokabidea aztertuz bezala; hurrena, hizketaren tonua gero eta gorago igotzen zen, errieta bizian amaitzeraino, **klimax** gorenean; azkenik, behera jaisten zen, xuxurlaka amaitu arte, bare-bare. Juan Kruz Igerabide

Halako **klimax** odoltsu baten bila abiatuko balitz bezala... Paddy Rekalde

Behin goraka joan bagara, gero beherakakoa hasten den puntta-mutturra edo kaxkoa litzateke **klimax** hori. Pello Zabala

**Klimaxik** gabeko melodia. Oskar Arana

Telefono deien inflazioa iruditzen zait eragin dugula, eta *crescendo* horrek behar bezalako **klimaxik** ez duenez, hobe batzu-batzuk kentzea. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 (sexu harremanean)

Joatea, hustea, **klimaxera** iristea edo orgasmoa izatea, horrela deitzen zaio bizidunen (ez giza primateena bakarrik) esperientzia bizi eta atseginenetako bati. Luis Elberdin

Ez zen delako *tristitia post coitum* hori, sasijakintsu batzuek, **klimaxaren** ondorengo lehen momentu horietan eraso egiten zuen abaildura sentsazio bitxi hori esplikatu nahian aritzen zirenean aipatzen zutena. Joxemari Iturralde

## 3 (hitz elkartuetan)

Akzioa **klimax** unean datorkigu batik bat. Berria - Kultura

· Ondorengoa ere jakina zen, eta anti-**klimax** hura areagotu besterik ez zuen egin. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# klin 1 *adlag* kristala edo kideko gai bat jotzean sortzen den hotsaren onomatopeia.

-Ez, mostoa -esan nion basoko izotz puskak **klin-klin** mugitzen nituela. Xabier Mendiguren Elizegi

Begiak irekitzean, gosaltzen ikusi nituen denak; koilarek te-katiluetan **klin-klin** egiten zuten. Juan Kruz Igerabide

Labanaz ardo kopan hasi zen jotzen, **klin-klin-klin,** isildu ginen arte. Joxemari Iturralde

## 2 (izen gisa)

Pasilloan barrena, eskuetatik ihesi zoruan erortzean **klin klin klin** amaigabea egin du perlazko idunekoak. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 ***klin-klon*** igelaren oihuaren onopatopeia.

Illunabarrean **klin**-klon zebilen zapoa ere, haren kliklakoa atsedengarri eta urduritasun ororen uxale izateaz gainera, mentura oneko soinua irizten genuen: Zapoa **klin** klon, bihar eguraldi on! Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klin klin** (6)

---

# klinex ik **kleenex**.

---

# klinika 1 *iz* arlo berezi bateko edo batzuetako sendagileak aritzen diren eritegia, batez ere pribatua.

Orain **klinika** bat zabaldu dik. Josu Zabaleta

**Klinikak** zabalik dirau, hormak birrinduta eta medikuen sarbidea galarazita egon arren. Berria - Mundua

Gaur egun erakundeak 23 **klinika** eta zenbait ospitale zuzentzen ditu. Berria - Mundua
**Klinika** bihurtzen da bere etxea, apopilo-etxea baino gehiago. Oskar Arana
**Klinikak** bi funtzio nagusi betetzen ditu: prebentzioa eta arazorik balego konpontzea. Berria - Euskal Herria
Bartzelonako Dexeus **klinikan**. Luis Elberdin
Quiron **Klinikako** Estomatologia eta Odontologiako Zerbitzuburua. Berria - Harian
Erosketa poltsan sartu eta zakurren eta katuen **klinika** batera eraman zuen. Josu Zabaleta
Animalien **klinikako** ateak giltzaz itxita egoten dira. Oskar Arana
Larunbat goizeko bostak inguruan Iruñeko San Miguel **klinikako** larrialdietara jo zuen. Berria - Kirola
**Klinikako** aparkalekuan utzi zuen autoa. Itxaro Borda
Gehienetan Shevirev doktorea oso gizon berekoia zen, mozkorra eta libertinoa, eta inozoak lumatzeko soilik egin zuen **klinika**. Jose Morales
Salbatu ninduen moja bisitatzera **klinikara** joateko. Ramon Saizarbitoria
**Klinika** batean lan egiten zuen erizain ez oso gazte bat. Joseba Urteaga
**Klinikarik** ezean, etxean gelditu eta norbaitek zaintzeko agindu zion medikuak, Don Anizetok. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Klinika** pribatu hura erosi zuen eta handik aurrera huraxe izan zuen denborapasa nagusia. Joxemari Iturralde
Pertsona aberatsen artean dirua bildu eta **klinika** psikiatriko pribatu batera bidali zuten. Jose Morales
Iruñeko **Klinika** Uibertsitarioko adituen arabera. Berria - Gaiak
Zisjordaniako emakumeentzako **klinika** mugikorra. Berria - Gaiak
Urtarrilean, adibidez, 218 gaixo artatu **zituzten** Klinika Unibertsitarioan. Berria - Euskal Herria
Unibertsitateko **klinikako** medikuak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Medikuntza orokorreko **klinika** zen garai hartan. Xabier Mendiguren Elizegi
Bazen Ann Arbor-eko aldirietan intseminazio artifizialeko **klinika** bat. Oskar Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osgai gisa)

17 urte zituen, eta **klinika**-laguntzaile izateko ikasten ari zen. Juan Kruz Igerabide
Barruan lau langile falta ziren: hiru erizain eta **klinika** laguntzaile bat. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nafarroako Unibertsitate **Klinikako** adituek gizentasuna minbiziarekin lotu dute. Berria - Gaiak
Estomatologia **klinika** baimenik gabe lanean ari zela. Berria - Euskal Herria
Herrialde Katalanetako ginekologia **klinika** batek. 2020. urtean gaude, bikote gazte bat etxe ondoko ugaltze-**klinikara** joan da umea izatera. Berria - Gaiak
Esperimentazio **klinika** bat martxan jartzea. Joxemari Iturralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klinika pribatu** (5); **klinika pribatuetan** (5); **klinika psikiatriko** (3); **klinika unibertsitarioan** (3); **lafourcade klinika** (3)
> **quiron klinikako** (6)
> **klinikara joan** (6)

---

# klinikaburu *iz* klinika bateko burua.

Ixtan bat honetan hasiak dira negoziatzen lan konbenio berria **klinikaburuekin** eta bilkura inportante bat beharra zen biharamunean Parisen. Herria

---

# klinikari *iz* medikuntza klinikoan aritzen den medikua.

Andres sinetsita zegoen terapeutika azkar bat **klinikari** on baten eskuetan baizik ezin zitekeela onuragarria izan kasurik gehienetan, eta **klinikari** ona izateko, horretarako dohain bereziez gainera, nahitaezkoa zen oso praktika luzea izatea. Josu Zabaleta
Barneko ikasle berri hura ez zegoen **klinikari** izateko bide onean; gauzen alderdi psikologikoak interesatzen zitzaizkion. Josu Zabaleta

---

# kliniko *izond* eria zuzenean ikertuz zertzen den medikuntzari dagokiona.

Gregen kasuan, lesio zabaldu horrek oso koadro **kliniko** korapilotsua sortua zuen. Xabier Olarra
Sintoma **klinikoen** aurreikuspena. Juan Garzia
Hainbat analisi **kliniko** egin dizkiogu, ehun lagin ditugu, odol azterketaren emaitzak... Berria - Mundua
Senarra urduri dabil jaso beharreko azterketa **kliniko** batzuk direla eta. Josetxo Azkona
Bi helburu nagusi izan ditu saio **kliniko** honek. Berria - Gaiak
Botika probatzeko saio **kliniko** batean parte hartzen ari ziren.
Esperimentu **kliniko** txiki bat egin genuen, Madrilgo Principe de Asturias eta La Paz ospitaleen laguntzarekin. Berria - Gaiak
Ez da ikusi, ordea, emaitza **kliniko** horiek beste inon egiaztatu direnik. Irene Aldasoro
Ezaugarri **kliniko** hauek kezkatzeko modukoak dira. Berria - Euskal Herria
Handik bi egunetara, luze eta sakon mintzatu ziren gurasoak ospitaleko psikologo **klinikoarekin**. Josetxo Azkona
-Hau Roberto doktorea da, Ospitale **Klinikoan** lan egiten du: Joan tratatzen zuen medikua da. Antton Olano
Medikuntza **klinikoaren** antolakuntzan. Xabier Arregi
Historia **kliniko** hori nobela bat da. Joseba Sarrionandia
Korrelazio anatomo-**kliniko** sinpletik prozesu fisiopatologikoen azterketa fineraino. Xabier Arregi
Ikuspuntu **kliniko** batetik begiraturik, borreroak praktikatzen duena eutanasia aktiboa da. Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esperimentu kliniko** (4); **saio kliniko** (6)
> **historia klinikoa** (8); **medikuntza klinikoa** (4); **saio klinikoa** (4)
> **diskurtso klinikoak** (4); **entsegu klinikoak** (3)
> **medikuntza klinikoaren** (8)
> **ospitale klinikoko** (5)

---

# klinikoki *adlag* ikuspuntu klinikotik.

**Klinikoki,** ez du aparteko garrantzirik, baina metodo sinplea da neurona horiek dauden nerbio-sistemaren osasuna probatzeko. Irene Aldasoro

Arafat **klinikoki** hilda dagoela ukatu dute PANeko buruzagiek. Berria - Mundua

**Klinikoki,** ordea, ez da oraindik halakorik frogatu. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klinikoki hilda** (5)

---

# klink 1 *iz* kristal edo metal hotsaren onomatopeia.

**Klink** bakarra entzun zelako. Joseba Sarrionandia

[Mahuketako] bikiekin **klink** hotsa eginaz. Matías Múgica

• **2** *adlag*

**Klink** utzi zuen Mariak telefonoa. Basoek basoei **klink** eta gogotik hasi gara jaten. Unai Elorriaga

Guardiako soldaduari kaskoan jo ziola uste dut, eta **klink** entzuteaz batera harriturik geratu ginen. Joseba Sarrionandia

**3** ***klink egin*** klik egin, hurrupada bat egin.

Josebak **klink** egin zuen, ezpaina ezpainaz lehortu eta goizean gertatu zitzaiona hasi zen kontari. Iñaki Zabaleta

Musua okertu eta, **klink** egiteko sinua egin zuen Mikaelak. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klink egin zuen** (3)

---

# klinka *iz ipar* garaia.

Urte guziz, **klinka** huntan egiten da, ardurenik urriko azken igandean, bainan haatik azkenaren aintzinekoan Omiasaindu bezpera igandea delarik aurten gertatzen den bezala. Herria

---

# klinkada *iz* hurrupada.

Nik ez dut txibatoa bihurtu nahi **-klinkada** bakarrean sikatu zuen kopatxoa-. Josu Landa

---

# klinki ik **klanka**.

**1** ***klinki eta klanka***

Beti arrabots berdinek dutela zeldako ixiltasuna hausten: giltzen kliski eta klaskak, burdinezko ateen **klinki** eta klankak... Herria

**2** ***klinki-klanka*** (onomatopeia)

Goizero joaten zen, eguna burdin-ur usainez itoa eta mailu gotorren **klinki**-klanka herotsez zapaldua bukatzeko. Itxaro Borda

· Ziegatik heldu zen kateen **klinki**-klanka besterik ez zen aditzen. Fernando Rey

Istorio honek **klinki**-klanka motel haren erritmoan dantzatzen baitu. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klinki klanka** (3)

---

# klip[1] 1 *iz* bideo-klipa.

**Klip** bat zara nire memorian. Jasone Osoro

MTV kateko **klip** musikalek halako irrati musika bat osatzen zuten. Ramuntxo Etxeberri

**2** ***bideo-klip***

Bosna kantu eta bideo-**klip** bana jasotzen dituzten bi EP kaleratu dituzte Mikel Aizpuruak eta Ritxar Gomezek. Berria - Kultura

Azkeneko urteetan kaleratutako *Aurtengo Gorakada* bildumek bezalaxe, zortzigarrenak ere bideo-**klip** sorta bat dakar: *Su Ta Gar*ren *Bizitzaren borroka, Lor* taldearen *Sofa erosoak* eta *Tijuana in Blue*ren *Maki Navaja*. Berria - Kultura

Gainera diskak, 12 kantuez bertzalde, bideo-**klip** ikusgarri bat ere dauka bere baitan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bideo klip** (4)
> **bideo klipak** (3)

---

# klip[2] *iz* paper esteka.

**Klip** batez bildurik azaldu ziren halaber nik, amategian bakar-bakarrik, irailaren 5 era arte eginiko egonaldiaren fakturak. Joxan Elosegi

Gaur hogei torloju behar dituen pieza batek bihar birekin nahikoa izatea lortu behar dugu, edo gaur itsatsita datozen piezak bihar **klip** batekin edo erraz askatzeko moduko beste sistema batekin lotzea. Berria - Gaiak

---

# klis

**1** ***klis-klassup_1***

Ataunen ere ezaguna baita Ali Baba eta berrogei lapurrak ipuina, nahiz eta hemen "Sesamo, zabaldu!" esan beharrean, lapurren buruak "Abrite portas, **klis,** klas!" esan. Patxi Zubizarreta

Leizeko sarrera zigilatzen duen harkaitzari "Abrite portas, **klis**-klas" erratea bezain erabatekoa izan zen: ordenagailuaren ziber-ezpainetatik ateratako ohiko txistuak eta ezinbertzeko txarteltxoak adierazi zidaten sistemak ongi etorri egiten zidala. Aingeru Epaltza

**2** ***klis-klassup_2*** *(orobat* ***klisk-klask****)*

Begiak **klis**-klas zabaldu eta itxi aritu zen une batez. Xabier Mendiguren Elizegi

Begiez **klis**-klas egin, eta katar-murmurraren antzeko eztarri-hots bat atera zaio: [...]. Anjel Lertxundi

Nik hori esanda haren begiek .../... hola **klis** -klas egin dute. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zorabiaturik, balantzaka igo zen kaleraino, non etxeen argiak **klisk** -klask ari baitziren. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **klis klas** (11); **klis klas egin** (3)

---

# klisk[1]

**1 *klisk-klask*** ik **klis 2.**

---

klisk[2] ik **kliska[1] 4.**

---

# kliska[1] **1** *iz* (begien eta kidekoen) keinua.

Iparralderantz zuzenduta zegoen suzko sastakaia: begi zelatari eta sarkorraren **kliska** . Agustin Otsoa

Bere begi bustien **klisketan** eta ahoaren dardara ttipietan ziurtasun baten zama dago. Pello Lizarralde

Von Neumannek edozein kalkulagailu elektroniko baino azkarrago kalkula zezakeen, edozer gara zezakeen **kliska** laburrena amaitzerako. Fernando Morillo

Neskaren **kliska,** keinu eta imintzioak lagun, [...]. Juan Garzia

Begirada bete **kliska** zuzendu zion Otxotorenak. Fernando Morillo

**Kliska** batean lohiz mukuru zen xenda baten gora abiatzeko. Itxaro Borda

**2** *hed/irud*

Dantzazuloan oro zen argi- **kliska** . Hatz- **kliska** egin zuen alkateak, ez behin, bi aldiz baizik, eta Justinak begiak itxi. Lutxo Egia

**3 *begi kliska*** *(orobat **klixka** g.er.)* begi itxi-irekia.

Ninak begi **kliska** batez bainugelako dutxaren azpian aterbetzera korrika egin zuen. Ramuntxo Etxeberri

Aldaketak ez dira begi **kliska** batez ardiesten! Herria

Printzesak, ohean etzanda lo zegoen printzesa zuriak, begi-zirkin egin zuela iruditu zitzaion Joanesi: begi- **kliska,** ustez, begi ireki eta ixte ikusezin bat ia. Felipe Juaristi

Deus esan gabe barrez, begi **kliska** isekariak egiten zizkiola. Karlos Zabala

Batzuetan aski da begi **kliska** bat, keinu bat, oreka urriegia denean. Josu Zabaleta

Begi- **kliska** baten zain, ustekabeko loturaren baten aiduru. Juan Garzia

Amesgaizto bat behar zuen izan, inondik ere, behin atzarriz geroz begi- **kliska** batean aienatu behar zuena. Aingeru Epaltza

Niri, berriz, begi **klixkarik** ere ez zidan opatu handik kanporatzean. Aingeru Epaltza

**4 *kliska egin*** *(orobat **klisk egin**)* kliskatu.

Baina ez zuen ulertu, antza, lekukoen aulkira zihoala egin nion **kliska** . Koldo Izagirre

Begiez **kliska** eginez, luzaroan aztertu zuen marraztu berria zuen ikurra. Ilunpe more-anil zabal batean itsasargi batek **kliska** egiten zuen. Jon Muñoz

**Kliska** egin zien zuzendariak dena ongi zihoala adieraziz. Koldo Izagirre

Bazter batean zizekan su-argia indargetzen hasi zen; gero **kliska** egin, eta azkenerako itzali egin zen. Juan Garzia

Baditugu eguzki-orenak, harri gorrizko horma amaiezinezkoan **kliska** egin eta gero ezkutatzen direnak. Felipe Juaristi

Sinkope transzendentala, **kliska** egiten duten formen jokoa. Xabier Arregi

Eztarria garbitu zuen, eta esmeralda-begi haiek **klisk** egin zutela iruditu zitzaion. Iñaki Mendiguren

**5 *kliska eta kliska***

Begiak **kliska** eta **kliska** ari zen etengabe. Ander Irizar

So bakarraz **kliska** eta **kliska** ari ziren. Itxaro Borda

Night-cluben argiak **kliska-kliska** ari dira, autobidearen ertzean. Javi Cillero

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begi kliska** (20); **begi kliska bat** (3); **begi kliska batean** (3); **begi kliska batez** (6); **kliska bat** (3); **kliska egin** (5); **kliska egiten** (5)

---

kliska[2] ik **kixka.**

---

kliska[3] ik **klaska.**

---

# kliskada **1** *iz* kliska.

Negar-jariakinaren emari etengabea (substantzia antiseptikoak dituena) eta **kliskadaren** maiztasuna (hiru segundotik behin, gutxi gorabehera). Irene Aldasoro

Lanpararen olioa txinpartaka ari zen eta garra gero eta ahulagotuz zihoan **kliskada** . Juan Garzia

Ni hau eta hau kontatzen ari natzaizu eta sinets ezazu nahi baduzu, baina badakizu begiaz keinu egiten dizudala kontatzen dudanean, eta zeuk ere irribarre maleziatsua egin behar didazula **kliskadaz** ohartu orduko. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Hegazkinaren gurpilek pista zuria ukitzeari utzi orduko aienatu ziren begien bistatik zoru gaineko argi horiak, haien **kliskada** -arrastorik ez, eta geroxeago Manhattanen arrastorik ere ez, hainbesteko elurra ari zuen. Joxe Austin Arrieta

· Izuikara- **kliskada** bat ikusi diot begietan. Mirentxu Larrañaga

**3 *begi kliskada*** begi kliska.

Gonbidatuak begi- **kliskadak** eginez erreparatzen dio eszenari. Xabier Olarra

Balantza-higidura txiki-txikia zen, ez atzemateko modukoa ia, baina aski zen begi- **kliskada** batean txiki-txiki egiteko trenak goitik parrastaka botatzen zituen haitz-puskak. Juan Garzia

---

**kliskadaka** *adlag* kliskaka.

Jeneralak berriro ingurura begiratzen du, begi- **kliskadaka,** zerbaiten bila balebil bezala. Xabier Olarra

---

**kliskagailu** *iz* kliskatzeko gailua.

Distantzia kalkulatu -20 bat metro- objektiboa hurbilarazi eta zanpaka hasi zitzaion **kliskagailuari** . Aingeru Epaltza

Emaztea mundua den taula handian berari alfilaren patua egokitua zitzaiola pentsatzen ari zela sakatu ote zuen **kliskagailua** ? Imanol Zurutuza

---

**kliskaka** *adlag* kliska eginez.

Emakumeak erraz ito zezakeen: gizona zezelka ari da, hitz zentzugabeak esaka, begiak ixten ditu, negarrez hasten da, ezpainak **kliskaka** . Felipe Juaristi

---

**kliskarazi**, kliskaraz, kliskarazten du *ad* kliskatzera behartu.

Behetik gorantz begiratu zidan, lore artetik makurtuta, eguzki-argiak begiak **kliskarazten** zizkiola, zahar eta lasai. Ander Irizar

Urruneko tximistaren oihartzunak begiak **kliskarazi** zizkion une batez. Josu Landa

Begiak zabal-zabal egin nituen, eta gogotsu **kliskarazi;** eta aire hotza barneratu nuen arnasaldi sakon batean, ernai irautearren. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **begiak kliskarazi zizkion** (3)

---

**kliskatu**, kliska(tu), kliskatzen *(orobat **klaskatu** g.er. eta **klixkatu** g.er.)* **1** du *ad* begiez mintzatuz, laster itxi eta ireki.

Dobbyk begiak **kliskatu** zituen, estu eta larri Harryri begira. Iñaki Mendiguren

Agureak berriro **kliskatu** ditu begiak. Pello Lizarralde

Zuzenean begietara so egin, eta saiatu begiak ez **kliskatzen..** . begiak indarrez **kliskatu** eta, kokotsa gorantz, aurrera egin zuen. Iñaki Mendiguren

Mutil gazte gizen eta baldarra zen, ilun eta isekari antzekoa, eta etengabe **kliskatzen** zituen begiak. Ander Irizar

Ostalerrak begiak bizpahiru aldiz **kliskatu** zituen, eta ohartu zen hark baizik ez zuela hitz egin. Elena Touyarou

Minutu batzuk eman ditu ilunpean, eskuak bolantean, begiak **kliskatu** gabe, aurrera begira. Pello Lizarralde

Um Hamidak bekainak uzkurtu zituen, begia **kliskatu** . Patxi Zubizarreta

Eta semeari ezkutuka **kliskatu** zion begia. Patxi Zubizarreta

Evak buelta eman zuen eta elkarri begiratu zioten, elkarren ninietara so gelditu ziren, betazalak ere mugitu barik, **kliskatu** egiten duenak galtzen duen haurren joko horretan olgetan baleude bezala. Sonia Gonzalez

-Kasu putarik ez mutur-beltz honi **-klixkatu** zidan begia. Aingeru Epaltza

**2** irud/hed

Honakoan bankutik pasatu behar izan dut, eta pasaeran argi gorriak behin **kliskatu** du. Xabier Olarra

Kalean, gasezko farol batek triste eta loguraz **kliskatzen** zuen... Josu Zabaleta

Malko freskoak **kliskatuz** hurbildu zitzaion Denver... Anton Garikano

Hedwigek mokoa **kliskatu** zuen, bere duintasunak hura gaitzesten balu bezala. Iñaki Mendiguren

Argazkilari horien artea [...] une hori arin batean harrapatu, koadratzen jakin eta ziurtasunez **kliskatzean** datza. Josu Zabaleta

• **3** da *ad*

Begiak ziruditen argi ahulak ikusi izana iruditu zitzaion, baina berehala **kliskatu,** itxi eta aienatu egin ziren. Agustin Otsoa

**4** hatzez mintzatuz, klaskatu, kriskitin egin.

Hatzak **kliskatzen** zituen bihotzaren parean. Anjel Lertxundi

Eta hatzak **kliskatzen** zituen, sekulako deskubrimendu zientifikoa egin izan balu bezalako pozez. Anjel Lertxundi

Normalean baino hots handiagoa ateratzen zuen hatzak **kliskatzerakoan** . Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **begia kliskatu** (12); **begia kliskatu zidan** (3); **begiak kliskatu** (49); **begiak kliskatu ditu** (8); **begiak kliskatu gabe** (7); **begiak kliskatu zituen** (20); **begirik kliskatu** (7); **begirik kliskatu gabe** (3); **berriro kliskatu** (3); **kliskatu ditu begiak** (3); **kliskatu zituen begiak** (3)
>
> **begi bat kliskatuz** (3); **begia kliskatuz** (5); **begiak kliskatuz** (17)
>
> **begia kliskatzen** (5); **begiak kliskatzen** (11); **begiak kliskatzen zituen** (3); **begirik kliskatzen** (4); **berez kliskatzen zitzaiola** (3); **hatzak kliskatzen zituen** (3)

---

**kliskatze** **1** *iz* begiez mintzatuz, laster itxi eta irekitzea.

Belarriak tente eta begiak zabal-zabalik, ia **kliskatzerik** gabe. Migel Angel Mintegi

**2** hatzez mintzatuz, klaskatzea, kriskitin egitea.

Hatzak **kliskatze** hutsa aski banu autista izateari uzteko, ez nuke halakorik egingo... Xabier Olarra

---

**kliski-klaska** **1** (onomatopeia)

Ateak **kliski-klaska** zabaltzen. Filipe Bidart

Hezurrak **kliski-klaska,** hortzak banbaka, esku ahurrak heze eta haragiak daldarez zebilzkigun. Itxaro Borda

Isilik egin genuen beheratako bidaia, zeharkatu ahalean pisu bakoitzaren berri **kliski-klaska** argiztatuz ematen ziguten botoiei begira. Aingeru Epaltza

Atsegin zuen haien takoi-hotsa, zola gainean **kliski-klaska,** haien barre-algaratxoak arnasestuka. Mirentxu Larrañaga

Kotxeko leihoak bide guztian **kliski-klaska,** eta mendebal-haizea sartzen zitzaigula Merrion pasatuz gero. Irene Aldasoro

**2** (izen gisa)

Goizetan, zaindariek zeldako atea **kliski klaska** ozen eta bortitz bat eginez irekitzen zuten. Eneko Bidegain

Apezaren ondotik, **kliski-klaska** eztiz, apezpikuak intsentsua barreiatu zuen elizaren barnean. Itxaro Borda

-Geldi! -esan zion purrustaka Harryk, **kliski-klaska** hark buru mindua zigortzen baitzion-. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

kliski klaska (8)

---

**klitori** *(311 agerraldi, 8 liburu eta 6 artikulutan; orobat **klitoris** 31 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan)* *iz* bulba goialdean kokaturiko organo zutikor txikia.

Bi gune gutxienez badira: **klitoria** eta G puntua. Luis Elberdin

Plazerik handiena ez dutela bagina estimulatuz lortzen, baizik eta **klitoria** laztanduz. Luis Elberdin

**Klitoria** odolez betetzen da, zakilaren moduan, eta handitu eta gogortu ere egiten da. Luis Elberdin

**Klitoria** harro dago, tente, gori-gori. Jasone Osoro

Bere **klitoria** eskainiko dit milika diezaiodan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bazekielako musu bakar batez, mingainaren zaporea eta listuaren umeltasuna sentitzeaz bat, **klitoria** ere lanbrotzen zitzaiola, ihintzaz estaltzen. Jasone Osoro

Zein gauza ederra txorrota **klitorian** edukitzea! Luis Elberdin

Sodomizatzen zaituztenean, ez utzi inoiz **klitoria** masturbatu gabe: ez da bi atsegin horiek batera baino plazer handiagorik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Etengabe elkarri konektatuta baititu **klitoria,** bizkarrezur muina, burmuina eta hatzak. Luis Elberdin

Ez dago **klitoriko** orgasmorik, ez baginakorik, ezta utero ingurukorik ere. Luis Elberdin

Normalean, baina, ebakuntza hori egitearekin batera **klitoriaren** zati bat edo **klitori** osoa ere kentzen da. Berria - Gaiak

Alaba ez ezik, beste lau neska ere **klitoria** erauzteko erritualetik salbatzea lortuko du. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**klitoria erauztea** (3); **klitoria estimulatuta** (5); **klitoria estimulatzen** (5); **klitoria igurtzi** (3); **klitoria laztantzen** (5); **klitoria mugitu** (5)

**klitoriaren estimulazioa** (4); **klitoriaren estimulazioak** (6); **klitoriaren eta zakilaren** (5); **klitoriaren glandeak** (3); **klitoriaren mokoa** (3); **klitoriaren zurtoina** (3); **zakilaren eta klitoriaren** (6)

**klitoriko orgasmoa** (5); **klitoriko orgasmoak** (3)

**klitorisa igurtzen** (3)

---

**klitoridektomia** *iz*

Emakumeari klitoria erauztea da **klitoridektomia**. Luis Elberdin

1981. urtean, ginear neska gazteen % 84ri egin zieten **klitoridektomia**. Luis Elberdin

---

**klitoridiano** *iz* klitoriari dagokiona.

Batzuetan emakumea sentitzen da errudun; bere buruari galdetzen hasten da ea gaizki egina ote dagoen, frigidoa ote den, oso **klitoridianoa** ote den, zergatik ez duen inoiz baginako orgasmorik izan, beharbada ez dela behar beste kontzentratzen... hasten gara pentsatzen oso maitale txarrak garela, edo frigidoak garela, edo motelegiak, edo **klitoridianoak,** edo gure zintzilikarioak ez duela behar den neurria. Luis Elberdin

---

**klitoriko** *izond* klitoriari dagokiona; klitorian gertatzen dena.

Nire orgasmoak **klitorikoak** dira. Luis Elberdin

Orgasmo mota bat baino gehiago al dago (baginakoa, **klitorikoa**...)? Luis Elberdin

---

klitoris ik **klitori**.

---

klitxe ik **klixe**.

---

**klix** (onomatopeia)

**1** ***klix-kilixk***

Urrezkoak ziren: "Klixk-**Klixk-Kilixk..."** ixiltzen eta berriz: **"Klixk-Kilixk...",** lehenbiziko izarraren keinuak. Michel Oronoz

Baina guri hurbil dago, keinuka ari zauku beti **"klixk-kilixk**-klixk" giro iluna izana gatik, ez gituela ahanzten, nahi zuen etorkizunari fidel dagola, eta gutartera berriz etorriko dela. Michel Oronoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**klixk kilixk** (6); **klixk kilixk klixk** (4)

---

**klixe** *(orobat **klitxe** g.er.)* **1** *iz* irudi bat irarrita duen edo argazki irudi edo kideko bat duen xafla, kopiak egiteko erabiltzen dena.

Ondoren, **klixeak** kameraren barruan zelan ipini, luze jardun zuen. Josu Landa

Juan Mari horrek berak azaldu zigun multikopistaren sistema ere: **klixeak** ziren garrantzizkoenak, argizari antzeko gai batez estalitako orri batzuk, haien gainean, geruza hura kenduz, makinaz idazteko edo eskuz ere bai, puntzoi batekin; han idatzitakoa negatibo gisa geratuko zen grabatuta, eta hortik nahi adina kopia aterako genuen gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Papera eta **klixeak** hartuta Juan Mariri eman genion dena; hark kopiak egin eta paper inprimatu guztiak guri itzuli zizkigun atzera, orriak elkartu eta grapaz josteko. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** gehiegitan erabiltzen den ideia edo esaldia.

Baina, aldi berean, beren figurak hain daude erabiliak eta gastatuak non dagoeneko **klixe** bihurturik dauden. Xabier Mendiguren Elizegi

Figura "gastatuek", **klixe** bihurtuek, eguneroko hizkuntzan sartzeko joera izaten dute, beren figura-balioa galdurik. Josu Zabaleta

**Klixe** eta estereotipoetatik hurbilago dagoela haien kezka errealetatik baino. Berria - Kultura

Nekazariei buruzko **klixea** irauli nahi zuen. Anjel Lertxundi

**Klixetik** plagiora bide luzea dago. Anjel Lertxundi

Izan ere, hamazazpi aldiz erabili izan dute **klixe** hori irudimen eskaseko idazle pattalek. Javi Cillero

Alde horretatik, nahi nuke horrelako **klixe** mugatuak hausteko balio izatea nire nobelak. berak baino lehenago bere amak ohi zuen bezalatsu, arraroa da hizketan **klixeak** besterik erabiliko ez duen eguna **-klixeak** edo egungo jakituriaren zabortegiak gainez egiteraino betetzen dituzten esaldi akitu eta bigarren eskuko ideia horiek oro. Ana Urkiza

---

# klixedun *izond*

Baina ez gaude sekulako interpretatze lan baten aurrean, arintasuna eta pertsonaia **klixedunak** hobetsi direlako itxurakeria eta kritika satirikoari lehentasuna ematearren. Berria - Kultura

---

# klixka *adlag* ik **klaska**.

Barneko hesia hesten dute, **klixka!,** atea klaska! Filipe Bidart

*Bonsoir!* erranez barneko hesia hesten didate, **klixka!,** atea gero, klaska! klaska! giltzarekin bi itzuli, eta, klanka!, gaineko zerrapoa, klanka!, pekoa. Filipe Bidart

Zaintzaleek beti bortizki zerratzen edo idekitzen dituztenak; klaska!, zeldako ate zerrailuan giltza; klunka!, ibiltokira doan burdinazko atea; **klixka!,** hesietako zerrailuak... Filipe Bidart

Oren erdi guziz, zaintzaleek beren itzulia egiten dute kartierreko zelda guzietan, begi xilokatik begiratuz, **klixka** ! Filipe Bidart

**klixka** ! Filipe Bidart

**klixka** ! Filipe Bidart

---

# klixkatu ik **kliskatu**.

---

# kloaka **1** *iz* karkaba, estolda,

Eta guk geure egitekoa egin, eta morroi-neskameak haien garbitzeaz arduratzen ziren, establietako eta ukuiluetako **kloaketan** eta putzu beltzetan husten zituztela Joan Mari Irigoien

**2** hegaztien, narrastien, urlehortarren eta beste zenbait arrain eta ugaztunen hestearen amaiera zatia, digestio aparatuaren eta sistema urogenitalaren hustubidea dena.

Narrasti emeek hodi bera erabiltzen zuten **(kloaka)** arrautzak, gorozkiak eta pixa kanporatzeko, baina ugaztun emeek, ordea, beste bide bat garatu zuten gorozkiak kanporatzeko. Luis Elberdin

Hodi horri **kloaka** esaten zaio. Luis Elberdin

Emeek klitoria lekurik egokienean eta eraginkorrenean ezarri zuten: **kloakako** sarreran justu. Luis Elberdin

Koitoa egiterakoan, berriz, **kloakak** zakila estimulatzen du, eta zakilak klitoria igurtzi eta estimulatzen du. Luis Elberdin

---

# klofazimina *iz* legenarra tratatzeko erabiltzen den sendagaia.

Azken 15 urteetan 12 milioi legenardun sendatu dira dapsona, rifampizina eta **klofazimina** nahastuz osatutako tratamenduari esker. Berria - Gaiak

---

# klon[1] *(orobat **klona** g.er.)* **1** *iz* jatorrizko zelula batetik berdin-berdin errepikaturiko banakoa.

Dolly ardia atera zuten laborategi batean, beste ardi baten kide, beste ardi baten **klona,** beste ardi baten ispilu bizia. Pello Salaburu

Ondoko urtean R. Yanagimachi agertu zen 31 arratoi klonatu zituela besapean, haietako zortzi bere aldetik **klonen klonak** izaki. Mikroorganismoetan, zera adierazten du **klon** izenak: erdibitzez -hots, ugalketa sexugabez- organismo bakar batetik datozen banakoen multzoa. Pello Salaburu

Funtsean, **klon** bat da, hots, bilduma bat, hainbat motatako zelulena: gihar, nerbio, guruin eta abarretakoak; guztiak ere abiaburuko zelula batek berak -arrautza ernalduak- sortuak. Juan Garzia

2003an hildako katu baten **klona** eskatu zuen Texasko emakume batek eta, horretarako, 50.000 dolar ordaindu zizkion Kaliforniako bioteknologia enpresa bati. Berria - Gaiak

Lehen **klon** komertziala saldu zuen Ameriketako Estatu Batuetako enpresa batek abenduan. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Giza-**klonak** sortzea etikoa al da? Berria - Gaiak

**3** *hed/irud*

Stevie Wonderren **klon** batek *We are the World* ezaguna abestu zuen. Berria - Kultura

Eta, baldin eta kopiak ez baziren perfektuak, Smith-en lanen **klon** peto-petoak, kartzelan amaituko zuen. Oskar Arana

Hemeretzigarren mendeko **klona** ideologikoak. Itxaro Borda

**Klon** pilo bat ere beharko dugu noski: besteak beste, Metxaren eta Mikel Antzaren **klon** mordoxka ederra. Markos Zapiain

Gauza danak ordezkatu leitekezela bere **klon** bat erosita. Unai Iturriaga

Liburu **klonak** sortu aurretik, zera! Jon Muñoz

---

# klon[2] *iz* zapo eta kidekoen oihua. ik **klin 3**.

Horretan, ordea, nire eskuinetara, ondo-ondoan, igel batek **klon** egin zuen. Josu Zabaleta

---

# klonatu, klona(tu), klonatzen **1** du *ad* organismo baten klon bat sortu.

Gizakiak **klonatu** ditzakegu, eta norberaren "kopiak" egin? Pello Salaburu

30 giza enbrioi **klonatu** dituzte, «erabilera terapeutikorako». Berria - Gaiak

Gizakia **klonatzeko** enbrioia emakume bati txertatuko liokete. Berria - Gaiak

ADNa **klonatzeko,** biderkatzeko, haren sekuentzia ateratzeko aukera izateak deuseztatu egin ditu hainbat debeku eta muga, organismoen ugaltze-zikloak zein geure kulturak ezarritakoak. Juan Garzia

Desagertutako espezieak **klonatzeko**. Berria - Gaiak

**2** *hed/irud*

Beldurra diot neure burua behin eta berriro **klonatzeari**. *Metrologia Sarikal* enpresak **klonatu** ahalko lituzke ABB konpainiaren robotak. Berria - Kultura

Metrologia Sarikal enpresak **klonatu** ahalko lituzke ABB konpainiaren robotak. Berria - Ekonomia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zelula **klonatuetatik** ateratako zelula amak ikerketarako erabiltzeko aukera ematen zuen. Berria - Gaiak

Enbrioi **klonatuen** ikerketan. · Ondoko urtean R. Pello Salaburu

Yanagimachi agertu zen 31 arratoi **klonatu** zituela besapean. Pello Salaburu

Beste leiho batzuk ikusten dira eta haien barnealdean gela **klonatuak** daude, ehunka, eta euren leihoetatik nire gelaren leihoa ikusten da neuretik eurena bezala. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **enbrioi klonatu** (4); **giza enbrioiak klonatu** (3)
>
> **klonatutako enbrioietako zelula** (3); **klonatutako enbrioietatik** (6); **klonatutako enbrioietatik lortutako** (5)
>
> **erabilera terapeutikorako klonatzea** (3); **giza enbrioiak klonatzea** (4); **gizakia klonatzea** (6); **klonatzea legezkoa** (3); **klonatzea lortu** (5)
>
> **giza enbrioiak klonatzeko** (10); **gizakia klonatzeko** (9); **gizakiak klonatzeko** (3); **klonatzeko asmorik** (4); **klonatzeko baimena** (9); **klonatzeko baimena eskatu** (4)

---

## klonatze *iz* organismo baten klon bat sortzea.

Irratian ziotenaren arabera, **klonatze** teknika jendeetara hedatuko zuten denbora labur barne. Itxaro Borda

---

## klonazio 1 *iz* klonatzea.

Duela hamar edo hamabost urte, hala, artikulu mordoa plazaratu zen halako **klonazioaren** abantailak edo, sarriago, ondorio latzak deskribatuz. Juan Garzia

Zer da naturala *(physis)* eta zer artifiziala *(téchne)* **klonazio** eta bioteknologien garaian? Askoren artean

**Klonazio** terapeutikoaren aldeko kanpaina abian da. Berria - Gaiak

**Klonazio** mota guztiak debekatu nahi dituzte Ameriketako Estatu Batuek. Berria - Gaiak

Ugalketa bidezko **klonazioa:** organismo berria sortzen da heldu baten zelula soil batetik. Berria - Gaiak

Abortoaren eta **klonazioaren** aurkako taldeek.

**Klonazioa** debekatzeko eskaera aintzat ez hartzeko eskatu dute. Berria - Gaiak

Bernard Siegel Floridako [...] Giza **Klonazioari** buruzko Politikarako Institutuko zuzendaria da. Berria - Gaiak

**2** *hed/irud*

Banda magnetikoaren **klonazioa,** bestalde, asko zabaldu da. Berria - Ekonomia

Saltokietan edo gasolina zerbitzuguneetan txartela beti bistan edukitzen saiatu, **klonazioa** eragozteko. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **giza klonazio** (14); **giza klonazio mota** (4); **giza klonazio terapeutikoa** (4); **klonazio bidez** (3); **klonazio mota** (15); **klonazio terapeutikoa** (17); **klonazio terapeutikoak** (4); **klonazio terapeutikoaren** (12); **klonazio terapeutikoaren alde** (3)
>
> **giza klonazioa** (15); **klonazioa debekatzea** (3); **klonazioa debekatzeko** (4); **ugalketa bidezko klonazioa** (3)
>
> **giza klonazioaren** (8); **klonazioaren aurkako** (3); **klonazioaren gaineko** (4); **klonazioaren gaineko eztabaida** (3); **klonazioaren inguruko** (5); **klonazioaren inguruko eztabaida** (3)

---

## kloniko 1 *izond* klonazioz lortua.

Egun badakigu emaitza guztiak, aurretik sortutako txakur **klonikoa** izan ezik, gezurrezkoak zirela, prestatuak eta faltsutuak. Berria - Gaiak

Kasu hartan, zelula amak eskuratu zituzten enbrioi **klonikoetatik**. Berria - Gaiak

**2** *hed/irud*

Beti saio bera, eta berbera ez bazen biki izpirituala, edo **klonikoa,** gaurko egunean esaten den bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

*The Strokes* taldekoei ezin zaie leporatu bere garaian sortu zuten eraginak talde **kloniko** sorta ekarri izanaren errua. bere azken urteetako jarduera aurreko lanen erreprodukzio **klonikora** mugatzen zen, besterik ez zitzaion-eta bururatzen. Patxi Iturritegi

Horregatik uste dute ez dagoela «arrazoi bakar bat bera ere azalera handiko merkataritza gune gizatasun gabeko eta **kloniko** gehiago ezartzeko». Berria - Ekonomia

---

## klorakne *iz* akne mota, dioxina kloratuek eta dibenzofuranoek eragina.

Hala ere, patogeniak pentsarazi zigun Justxenkoren osasun arazoen eragilea dioxina zela, **klorakneak** gehienbat. Berria - Mundua

Hori izan da gaitzaren zantzu argienetik, **kloraknetik,** ondorioak ez ateratzeko arrazoia. Berria - Mundua

---

## kloral *izond* kloroak alkoholari eragiten dionean lortzen den isurkaria.

Konbentzituta zegoen ardoa bezalako hipnotikorik ez zegoela, eta sulfonala eta **klorala** engainagarri hutsak zirela, harekin alderatuta. Josu Zabaleta

Egunean 180 gramo **kloral** hartu arren, eta morfina eta alkoholaz gainera whisky, brandy eta ardo beltza litroka, 1882 arte iraun zuen. Ramon Saizarbitoria

---

## kloratita 1 *iz* potasio kloruroz, sufrez eta aluminio hautsez eginiko lehergaia.

Erabilitako lehergailu bakoitzak **kloratita** kilo bat edo bi zuela esan du. Berria - Euskal Herria

Lehergailuak 15 kilo **kloratita** zituen. Berria - Euskal Herria

Usurbilgo eta Ormaiztegiko lehergailuek launa kilo **kloratita** zuten. Berria - Euskal Herria

Barruan lehergailua zegoen, zazpi bat kilo **kloratitaz** egindakoa. Berria - Euskal Herria

4-5 kilo **kloratitak** osatu lehergailua. Herria

Ertzaintza lehergailuaren osaketa aztertzen ari bada ere, **kloratita** motako kilo bat inguru lehergai zuela eta titadine motakoaz indarturik zegoela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

-Zertarako behar dituk hik hamazazpi kilo T8 eta bost litro **kloratita**? Hasier Etxeberria

Amonalez eta **kloratitaz** betetako poltsak. Berria - Euskal Herria

**2** *hed/irud*

Objektiboa izan nahi du, baina **kloratita** darama hitzetan. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kilo kloratita** (5)
**kilo kloratitaz** (3)

---

# klorato *iz* azido klorikoaren gatza.

Eskuan zerabilen potasio- **kloratoak** su hartuta kiskali omen zituen. Rafa Egiguren

Gasolinak azido sulfurikoarekin eta potasio **kloratoarekin** bat egindakoan. Rafa Egiguren

Lehergailua sodio **kloratoz** osatua zegoen. Berria - Euskal Herria

---

# kloratu *izond* kloroa daukana.

Fenolaren deribatu **kloratu** baten fabrikazioan lortzen den azpiproduktua da. Berria - Gaiak

Zaborra erretzean eta produktu **kloratuak** erretzean sortzen da, besteak beste. Berria - Gaiak

---

# klordano *iz* pestizida gisa erabili zen konposatu organiko kloratua.

Aldrina, **klordanoa,** DDTa, dieldrina, endrina, heptakloroa eta fosfato organikoak dira horietako batzuk. Berria - Gaiak

**Klordanoa:** Termiten aurkako pestizida. Berria - Gaiak

---

# klorhidriko *izond* azidoez mintzatuz, kloroaren eta hidrogenaren konbinazioeren ondoriozkoa.

Urdail-urinak, urdaileko paretako zelulek sortua, azido **klorhidrikoa** dauka; azido **klorhidrikoak** hil egiten ditu janarian dauden germen guztiak, eta okelaren eta beste janari batzuen zuntz gogorrenak biguntzen. Irene Aldasoro

Azido **klorhidrikoak** metal guztiei erasotzen dienez, ontziok beirazkoak edo zeramikazkoak izan behar zuten. Juan Garzia

Azido **klorhidrikoan** disolbarazten genuen, bada, eztainua. Juan Garzia

Ezkaratza azido **klorhidriko** kontzentratuz beteriko saski-bonbilen biltegia zen. Juan Garzia

Azido **klorhidrikoak** metal guztiei erasotzen dienez, ontziok beirazkoak edo zeramikazkoak izan behar zuten. Juan Garzia

Azido **klorhidrikoak** metal guztiei erasotzen dienez, ontziok beirazkoak edo zeramikazkoak izan behar zuten. Juan Garzia

Azido **klorhidriko** isuria Ororbiako enpresa batean. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**azido klorhidriko** (5)
**azido klorhidrikoa** (8)
**azido klorhidrikoak** (3)

---

# klorinato *iz*

Hala ere, onurak ere baditu, Georgiako Teknologia Institutuko zientzialarien arabera: **«Klorinatoak,** fluorinatoak, kloro-fluoratuak eta beste zenbait substantzia kimiko xurgatzen ditu *Lemna Minor* ur dilistak». Berria - Gaiak

---

# kloro 1 *iz* halogenoen saileko gai bakuna, gas hori berdaxka, itogarria, eztula eragiten duena (Cl; at. z. 17; at. m. 35, 5).

Karga negatiboa duten ioiak **(kloroa,** adibidez). Irene Aldasoro

Dioxina, **kloroa** duten produktu batzuk erreta sortzen da. Berria - Euskal Herria

**Kloroaren** antzeko usain gotor bat. Hasier Etxeberria

Igerilekuetako **kloroak** biriketako gaixotasunak eragiten ditu haur txikietan eta asma ere eragin dezake. Berria - Gaiak

Balmasedan 200 litro **kloro** isuri dituzte Kadagua ibaira. Berria - Euskal Herria

**Kloroa,** soda kaustikoa eta azido klorhidrikoa ekoizten ditu Electroquimica de Hernani enpresak. Berria - Euskal Herria

Aitak eta Peterrek pixa eta gorotz ontziak ur beroz eta **kloroz** garbitu zituzten. Josu Zabaleta

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adituen arabera, 2,5 miligramo **kloro** gas aski dira heriotza eragiteko. Berria - Mundua

Van Daan andrea **kloro** hautsen bila joan zen. Josu Zabaleta

**Kloro** isuri gehiago saihesteko enpresak garatu beharko duen mantentze planaren jarraipen zorrotza egingo du Industria Sailak. Berria - Euskal Herria

Klorinatoak, fluorinatoak, **kloro** -fluoratuak eta beste zenbait substantzia kimiko xurgatzen ditu *Lemna Minor* ur dilistak. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kloro isuri** (3)

---

# klorobentzeno *iz* konposatu aromatiko organikoa, isurkari koloregabea, disolbatzaile gisa eta beste hainbat produktu kimiko ekoizteko erabiltzen dena.

Lehen urrats gisa, berak egiten ez zekiena egin behar nuen: garai hartan ez zen erraza analisirako produktu pururik aurkitzea, eta zenbait aste eman beharko nituen bentzeno, **klorobentzeno,** klorofenol, toluidina eta beste arazten. Juan Garzia

---

# klorofenol *iz* fenolaren konposatu kloratua.

Lehen urrats gisa, berak egiten ez zekiena egin behar nuen: garai hartan ez zen erraza analisirako produktu pururik aurkitzea, eta zenbait aste eman beharko nituen bentzeno, klorobentzeno, **klorofenol,** toluidina eta beste arazten. Juan Garzia

---

# klorofila 1 *iz* gai organikoa, landareen hostoei eta, kolore berdea ematen diena.

Ondoren liken, alga eta belarren **klorofilari** esker -bakterioak kloroplastoan kokatuak izaki, bizitza garatzeko "heziak"- fotosintesia garatuz joan zen, oxigeno geruza sortuz.

Jose Angel Irigaray

Inor ez da hiltzen txokolate tableta batengatik, **klorofilaren** kolorekoa bada ere. Joxan Elosegi

**2** (hitz elkartuetan)

Lucasek **klorofilako** txiklearen kolorea ikusten zuen paretan Unai Elorriaga

---

# klorofiliko *izond* klorofilari dagokiona.

Banuen amets-asmoa karbono-atomo baten saga idazteko, jendeei ulertarazteko fotosintesi **klorofilikoaren** poesia bikain bezain -kimikarientzat izan ezik- gordea. Juan Garzia

---

# klorofluorokarbono *iz* kloroa, fluora eta karbonoa dauzkan konpostau organikoa.

Nafarroako 923 enpresetan Guardia Zibilak egin duen gas kutsakorren kudeaketaren ikerketan, 749k **klorofluorokarbonoak** eta bestelako gasak legez kanpo erabiltzen dituztela aurkitu du. Berria - Euskal Herria

Horren errudun nagusia **klorofluorokarbono** igorpenak zirela atzeman zuten ikertzaileek orain urte batzuk. Berria - Gaiak

---

# klorofluorokarburo *iz* karbono, hidrogeno, kloro eta fluor konposatu gaseosoa.

**-Klorofluorokarburoen** arazoa, ozonoa jan eta jan, urteak hor goiko geruzetan irauten duen gas ozono-suntsitzailea. Pello Zabala

---

# kloroformatu, kloroforma, kloroformatzen du *ad* kloroformoarekin anestesiatu.

Benetako profesionalek bakarrik lor zezaketen horrela egun argiz etxean sartu, Nofutur **kloroformatu,** eta inork haiei erreparatu gabe alde egitea. Jon Muñoz

---

# kloroformo *iz* isurkari koloregabea ($CHCl_3$), usain ezaugarria duena, konortea galarazteko erabiltzen dena.

Usain etereoak: alkohola eta **kloroformoa,** esate baterako. Irene Aldasoro

**Kloroformoaren** hats itogarria. Alberto Ladron Arana

Lagundu egidazu **kloroformoa** jartzen. Joseba Sarrionandia

Morfina, kokaina, **kloroformo** urtua, alkohola eta aromatizantea, dena nahastu eta ondo eragina. Joseba Sarrionandia

**Kloroformoaren** hats itogarria. Alberto Ladron Arana

**Kloroformo** usain loarazlea. Harkaitz Cano

---

# klorokina *iz* malaria eta amebek eragindako infekzio batzuek tratatzeko erabiltzen den gaia.

1950eko hamarkadaz geroztik, **klorokina** erabili izan da gaitzari aurre egiteko. Berria - Gaiak

Lehen **klorokina** banatzen zuten, baina infekzio erresistenteen aurrean ez zen batere eraginkorra, eta arazoak zekartzan. Berria - Gaiak

Indian, gainera, 2004. urtean **klorokina** tratamenduak sustatzea leporatu diote Bankuari. Berria - Gaiak

---

# kloroplasto *iz* klorofila daukan plastoa.

Eraldaketa haietatik lehenbiziko egitura organiko konplexuak loratu ziren; ondoren liken, alga eta belarren klorofilari esker -bakterioak **kloroplastoan** kokatuak izaki, bizitza garatzeko "heziak"- fotosintesia garatuz joan zen, oxigeno geruza sortuz. Jose Angel Irigaray

---

# klorotiko *izond* klorosiak –anemia mota batek– joa.

Aran gardenek birjina baten gozotasun **klorotikoak** agertzen zituzten. Karlos Zabala

---

# kloruratu *iz* sodio kloruroa daukana.

Ur sulfatatuak (sulfatatu **kloruratuak)**. Berria - Euskal Herria

Giharre uzkurdura: ur **kloruratuak**. Berria - Euskal Herria

Erreumatismoa: ur erradioaktiboak, bikarbonatuak (bikarbonatu **kloruratuak),** sulfuratuak, karbogaseosoak eta metal urak. Berria - Euskal Herria

Fiteroko urak **kloruratu** sodiko sulfatatuak, fluoratuak, bromuratuak eta litinikoak dira eta 48,5 graduko tenperaturarekin ateratzen dira lurretik. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sulfatatu kloruratuak** (5)

---

# kloruro *iz* azido klorosoaren gatza.

Eros eztainua eta sal eztainu **kloruroa**. Juan Garzia

Nikel **kloruroa** egiteko. Juan Garzia

Amonio **klorurozko** laino itxi zurixka batek harturik zegoen beti laboratorioa. Juan Garzia

Odolean dauden gatz mineral guztien proportzioa % 0,9 inguru da (sodio **kloruroa** da nagusi). Irene Aldasoro

Aski da, horretarako, potasio **kloruro** soluzioa aplikatzea garun ageriari. Irene Aldasoro

Nutrizio alderditik begiratuta, sodio-**kloruroaren** ordez potasio-**kloruroa** baliatzen hasiak dira goi-sukaldari aitzindari batzuk. Edorta Agirre

Potasio **kloruroa** da Frantziako Poliziak atzemandako substantzia, alegia, kloratita izeneko lehergaia egiteko behar den oinarrizko osagaia . Berria - Euskal Herria

PVCaren produkzioan aska daitezkeen produktuen artean kloroa, etilenoa, hidrogeno **kloruroa** eta monomeroa bera (binil **kloruroa)** ditugu. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amonio kloruroa** (3); **eztainu kloruroa** (3)

**klown** *(4 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan; orobat **klun**)* *iz* pailazoa. ik **clown**.

Familiaren jostagarria izanez hazi zen Wood-tarren etxean, **klown** beti maltzur eta zalapartari bat. Oskar Arana

**Klown** bat bezala uzkurtzen da. Koldo Izagirre

Gaur hasi eta maiatzaren 23a arte kabareta, poesia, **klownak,** umorea eta musika izango da. Berria - Kultura

Bainan **klun** on izaitea zinez gustatuko litzaidake... Menane Oxandabaratz

**klowngintza** *iz* klownaren langintza.

Erakasle izan ondoan, **klowngintzari** lotu zen eta zenbait urtez mundua kurritu du "Cirque du Soleil" ospetsuarekin, 800 bat ikuskizun eskainiz eskuin eta ezker. Herria

kloxar ik **clochard**.

**klub** *(orobat **kluba** g.er. eta **club** g.er.)* **1** *iz* kirol, jolas edo kultura elkarte pribatu askok hartzen duten izena.

Swapper-en artean talde batzuk, edo **klub** batzuk, orduan esaten genuen bezala, astun-astunak ziren, erlijiosoak, begetarianoak, esperantistak, imajinatu dezakezun guztia. Karlos Zabala

Etxe sekretu hari **klub** dei zekiokeen arren, agure gutxi batzuk besterik ez ziren haren kide, antza. Ibon Uribarri

Zu bazkide zaren **klubean**. Migel Angel Mintegi

Herriko **Klub** hura oso gauza ona zen: areto-biltoki bat, antzezpenak egiteko eta mintzaldiak eta holakoak antolatzeko; liburutegi txiki bat, irakurri eta idazteko gela batekin; eta kirol-entrenamendu eta negu-jokoetan aritzeko toki estalia. Koldo Biguri

Aitak esan zion ea nahi zuen berarekin joan bere **klubera** afaltzera. Joxemari Iturralde

Alderdi sionistaren **klub** batera joaten naiz. Josu Zabaleta

Adinekoek banatuen eta dibortziatuen **klubak** eta elkarteak sortzen dituzte. Luis Elberdin

Bikote-trukeko **klubak** sex-shopak baino etorkizun hobea daukala dio tipoak. Urtzi Urrutikoetxea

Athletic bezalako **klub** batek. Berria - Kirola

**Klubaren** egoitza nagusia den Ibaigane jauregira jo nuen. Edorta Jimenez

**2** (izenondoekin)

Utzia zion **klub** pribatura joateari. Patxi Iturritegi

**Klub** profesional bateko lehendakari izatea oso zaila da. Berria - Kirola

Baskonia **klub** berezia delako. Berria - Kirola

**Klub** ertainei, kudeaketan asmatuz gero, jokalari interesgarriak eta lehiakorrak fitxatzeko aukera emango zien. Berria - Harian

Azken denboraldietako **klub** garrantzitsuenak. Berria - Kirola

**Klub** xumea zena punta-puntakoa izan da handik aurrera. Berria - Kirola

Une honetan Euroligako **klub** indartsuenak dira. Berria - Kirola

**3** politika gaiak eztabaitzen diren zirkulua, orobat estatuek osatua.

Robespierreren aginduaren ondorioz jakobinoen **klubetik** egotzi zuten Cloots, eta gero epaitzera eraman. J.M. Olaizola "Txiliku"

Estatuei dagokien zorra Pariseko **Klubaren** baitan birnegozia daiteke, bertan biltzen baitira, kasuz kasu, zordunak estatu hartzekodunekin edo merkataritza-kredituen estatu bermatzaileekin. Koro Navarro

1970 ean, munduko gizartearentzako mehatxu diren faktoreei buruzko azterketa bat egiteko agindu zuen Erromako **Klubak** -jakintsuen guneak-. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

CDU-CSUko koalizio kontserbadorearen hautagaia Turkia **klubean** sartzearen kontra dago. Berria - Harian

**4** gau lokal musikaduna, edariak zerbitzatzen direna eta askotan prostitutak dituztena.

"Copas Night" izeneko **klubean** zerbait edan zuten. Aritz Gorrotxategi

Soho auzoko **club**-etara sartzeko. Joxemari Iturralde

Hiriko beste muturrera joan zen, hantxe baitzeuden luxuzko **klubak,** putetxeak edo zirenak zirelakoak. Migel Angel Mintegi

Eta zenbat puta sartuko dituzue **klub** horretan? Bernardo Atxaga

Zinemak, jolas-aretoak, tebeoak aldatzen zituzten dendak, taberna dotoreak, ate gorriko **klub** badaezpadakoren bat edo beste. Javi Cillero

Epaitegi horren ustez, bi neska errumaniar adingabe prostituta lanean ari ziren **klub** horretan. Berria - Euskal Herria

Nik uste nian hire **klub** horretan zerbitzua eskaintzen zuten neskatila guztiak Hassan erregearen subditoak zirela. Bernardo Atxaga

Munduko ofiziorik zaharreneko lantegietan sudurra sartzea erabaki zuen, ea luxuzko **klub** edo zulo haietan txiripaz arrastoren bat aurkitzen ote zuen, nondik edo norantz jo zezakeen jakiteko. Migel Angel Mintegi

Dena dela, ez dut uste bera bezalakoek **klub** batean aritu beharra daukatenik, ezta gutxiagorik ere. Migel Angel Mintegi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zazpi zuen herriaren etxerako eta hiru herriaren umeentzako **klub**-jostalekurako. Koldo Biguri

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Seietan, lana bukaturik, gimnasio eta igerilekua duen emakume-**klub** batera joan zen Elsarekin. Juan Garzia

Ez zuen arrakastarik lortu, baina berehala bideo-**klubetako** thrash filmen jarraitzaileek kultuzko lan bihurtu zuten. Berria - Harian

Jazz **klub** batean entzuteko oso egokia. Berria - Kultura

Partidu kontserbadoreko kide egin naiz, eta xake-**klub** batekoa. Juan Garzia

Ile eta bekain tindatuak, zetazko lepokoak eta belaontzi-**klubetako** blazerrak. Oskar Arana

*Garden of Earthly Delights* izeneko strip-tease **klub** baten atarian. Oskar Arana

Hirietako suburbio, bus geltoki, gau-**klub,** zinema areto, metro estazio eta aireportuetan barna. Harkaitz Cano

Hiri horretako homosexual **klubetan** bazkide oso ezaguna da eta aintzakotzat hartua. Gotzon Garate

Izena emanda nago fitness **klub** batean. Javi Cillero

Futbol **klub** handienaren urtebetetzea. Berria - Kirola

1921ean sortu zuten, Ingalaterran, Pen **Kluba**, eta mundu osoan tokian tokiko 130 Pen **Klub** daude egun. Berria - Kultura

Azpimarratzekoa da Aznarrek fan **klub** aparta daukala. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**europako klub** (5); **gau klub** (5); **jazz klub** (4); **klub bakarra** (3); **klub barruan** (3); **klub batera joango** (3); **klub handi** (3); **klub handia** (3); **klub mailan** (3); **klub zuri** (3); **pen klub** (15)

**bihotz bakartien kluba** (4); **euskal pen kluba** (13); **idazleen pen kluba** (4); **kluba elkarte** (4); **kluba elkarte anonimo** (3); **kluba erosteko** (5); **kluba hartu** (3); **kluba sortzeko**

(7); kluba utzi (10); kluba utziko (6); kluba utziko zuela (4); kluba zuzentzeko (4); pen kluba (22); pen kluba sortzeko (6)

asmoa du klubak (3); aurkeztu du klubak (3); aurkeztu zuen klubak (3); bihotz bakartien klubak (13); bilboko klubak (6); egin du klubak (5); eko klubak (4); euskal pen klubak (16); gasteizko klubak (13); ingalaterrako klubak (3); iruñ jazz klubak (3); klubak antolatu (3); klubak antolaturiko (4); klubak antolatutako (5); klubak atzo jakinarazi (5); klubak hartutako (4); klubak jakinarazi (6); nazioarteko pen klubak (10); pen klubak (37); tenis klubak (3); zine klubak (3)

gasteizko klubarekin (3)

bihotz bakartien klubaren (3); eko klubaren (3); euskal pen klubaren (14); gasteizko klubaren (4); iruñ klubaren alde (3); klubaren baimena (3); klubaren egoera (18); klubaren egoera ekonomiko (3); klubaren egoera ekonomikoa (6); klubaren egoitza (3); klubaren eguna (7); klubaren eguna izendatu (3); klubaren erabakia (3); klubaren etorkizuna (4); klubaren filosofiak (3); klubaren historiako (8); klubaren historian (4); klubaren inguruan (3); klubaren izena (3); klubaren jarduna (3); klubaren mendeurrena (4); klubaren onarpen ofiziala (3); nazioarteko pen klubaren (9); pen klubaren (32); pen klubaren onarpen (3)

gau klubari (3); klubari laguntzeko (8); klubari laguntzeko eguna (4); klubari su eman (3); pen klubari (3)

donostiako klubean (4); klubean jarraituko (6); klubean jarraitzeko (5); klubean sartu (3); nautika klubean (4); sanxenxoko nautika klubean (3); tenis klubean (4); zine klubean (3)

europako klubek (3); klubek hartuko dute (3)

bihotz bakartien klubeko (5); euskal pen klubeko (12); klubeko agintariek (4); klubeko arduradun (3); klubeko arduradunek (5); klubeko jokalari (3); klubeko kide (6); klubeko kideek (4); klubeko kirol zuzendaria (3); klubeko langile (3); klubeko langileak (3); klubeko lehendakari (3); klubeko lehendakaria (6); klubeko lehendakariak (7); klubeko presidente (5); klubeko presidenteak (3); klubeko sendagileek (3); klubeko zerbitzu (3); klubeko zuzendaritzak (8); oxford klubeko (4); pen klubeko (18); pen klubeko lehendakaria (5); pen klubeko lehendakariak (5)

euskal herriko kluben (10); kluben artean (6); kluben arteko (35); kluben arteko euskadiko (4); kluben arteko munduko (5); kluben arteko txapelketa (5); kluben arteko txapelketako (4); kluben artekoa (4); kluben elkartea (11); kluben elkarteak (6); kluben elkarteko (14); lehen mailako kluben (3); mailako kluben (4); tke traineru kluben (9); traineru kluben (21); traineru kluben elkartea (10); traineru kluben elkarteak (4); traineru kluben elkarteko (6); traineruen kluben (10); traineruen kluben elkarteko (8)

klubera joaten (3)

klubetako ordezkariek (6)

---

## klubeka *adlag* kluben arabera.

Laukizkoek jantzi dituzte bi txapelak eta Munduko Txapelketari ekingo diote ostegunean, **klubeka**. Berria - Kirola

---

## kluk

### 1 ***kluk egin*** porrot egin.

Luis Estherrekin elkar hartuta ei dabil, eta Rubenen denda libre izango zuela agindu zion, baina baliabide guztiak jarrita ere, **kluk** egin du. Berrikitan bizpa hiru elkartek, eta munduan diren haundienetarik, edo berdin haundienak, **kluk** egin dute eta aitortu behar izan dute arras jakinean kondu makurrak ager araziak zituztela. Patxi Zubizarreta

---

## kluka *iz* hurrupa. cf **klik**[1].

"Edan ezak beste **kluka** bat oraino!", eta nik, gogotik edaten nuen. Daniel Landart

Thierry **kluka** bat irents ezak Yvesen oroimenez. Itxaro Borda

Beste **kluka** bat jo diat, botila amaitze aldera. Patxi Zubizarreta

Gero botila koñak batetik **kluka** luze parea edan, eta apar ugari sortu diat. Patxi Zubizarreta

---

klun ik **klown**.

---

## klunitar *izlag* Frantziako Cluny beneditar monasterioari dagokiona edo harekin lotua.

Benediktar bizimodu monastikoaren hamargarren mendeko **klunitar** gaztetzea izan zen Mendebaldean ondoren izandako gizarte-erreforma guztien, erlijioso nahiz sekularren, arketipoa. Iñaki Mendiguren

Bizitza monastikoaren **klunitar** erreformak eliz sistema osoaren hildebrandotar erreforma ekarri zuen aita santuaren gidaritzapean. Iñaki Mendiguren

Jatorri horretakoak ziren, era berean, Nafarroako monasterioak bete zituzten fraide **klunitarrak**. Koldo Zuazo

---

## klunk *iz (onomatopeia)*

Trenaren gurpilak burdinbideko ozken gainetik pasatzean ateratzen zen **klunk** bikoitz gero eta bizkorragoek zer ximikoa egiten zioten bihotzean Zintzurrean korapiloa, begi izkinetan hatza, gorputzean ikara. Eneko Bidegain

---

## klunka *iz (onomatopeia)* ik **klanka**.

Burdinazko atea berritz hesten, **Klunka!,** urrats batzuk barnealdean eta berritz isiltasuna. Filipe Bidart

Ikus dezagun, danba!, kartierrean sartzeko ate handi hura; klanka!, zeldako ate gaineko eta behereko zerrapoak, zaintzaleek beti bortizki zerratzen edo idekitzen dituztenak; klaska!, zeldako ate zerrailuan giltza; **klunka!,** ibiltokira doan burdinazko atea; klixka!, hesietako zerrailuak... Filipe Bidart

---

klunkada ik **kulunkada**.

---

## kluster *(45 agerraldi 12 artikulutan; orobat **cluster** 13 agerraldi 7 artikulutan)* *iz* merkatu edo produktu batek lotzen dituen eta eskualde jakin batean aritzen diren hainbat enpresa, erakunde edo agenteren elkarretaratzea.

Hamaika **kluster** daude: etxetresna elektrikoen, autogintzaren, ingurumenarekin lotutako baliabideen, makina-erremintaren, energiaren, papergintzaren, itsas industrien, aeronautikaren, Bilboko portuaren, ezagueraren eta telekomunikazioen **klusterrak,** alegia. Berria - Ekonomia

Ezagutzaren **Clusterrak** euskal enpresen nazioartekotzeari buruzko txostena aurkeztu zuen atzo Bilbon. Berria - Ekonomia

Sektoreko euskal enpresa nagusiak Aeronautika **Clusterrean** biltzen dira, elkarlanerako. Berria - Harian

**Klusterretako** zuzendariek informazioa trukatuko dute lehen-lehenik. Berria - Ekonomia

Bai **klusterreko** enpresen artean, baita telekomunikazioen alorrean «zer esana» daukaten erakunde publikoen artean ere. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

klusterra sortu (3); soziolinguistika klusterra (5)

soziolinguistika klusterrak (3); telekomunikazioen klusterrak (3)

**soziolinguistika klusterraren** (3)

---

## km (*orobat* **km.**) kilometroaren sinbolo nazioartekoa.

Gizonezkoen kros motza (lau **km)** bihar jokatuko da, 13:30ean, eta emakumezkoen kros luzea (8 **km),** 14:10ean. Berria - Kirola

VI Lizarra - Urantzia (19 **km)** . Piarres Aintziart

Asistik ekialdera hamabost bat **km** -ra dago Foligno. Askoren artean

Abiapuntutik 3 **km** eta 600 m-ra. Xabier Olarra

Automobil asko dabiltza oraindik 8.000 **km** -tik behin ardatza eta malgukiak begiratu behar zaizkienak. Irene Aldasoro

Bost egunean egin zituen 250 **km** -ak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Legoa luzera-neurri zaharra da, gutxi gorabehera 4 **km** -ren baliokidea. Karlos Zabala

37 **km/h** -ko abiaduran, 91,44 metro; 22,5 **km/h** -ko abiaduran, 32 **km** . Irene Aldasoro

125 **km** orduko ibili zen haizea, behin eta berriz. Pello Zabala

Orduko 130 **km.-ko** haize bilaua nagusitu zen. zazpi euskal herriek betetzen dituzten 20.000 **km$^2$etarik** Nafarroak berak hartzen dituela 10.000 **km$^2$,** Hegoaldeko beste hiru eskualdeek 7.000 **km$^2$** eta Iparraldeko azken hirurek hondar 3.000 **km$^2$ak,** hots, 6/7etatik 1, ezbaian. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**km inguru** (5); **km karratu** (3); **km orduko** (3); **km orenean** (3); **km ra dago** (3); **mila km karratu** (3)

---

## knesset *iz* Israelgo legebiltzarra.

Sharonek, akordioari esker, hemeretzi diputatu laboristaren sostengua izango du **Knesset** legebiltzarrean. Berria - Mundua

**Knesset** Israelgo Legebiltzarrerako bozetako garaileak, Ehud Olmertek. Berria - Harian

Ezkerrari esker onartu du **Knessetek** Sharonen gobernua. Berria - Harian

Alderdi Laboristak espero baino ordezkaritza gutxiago lortu du **Knesseten** . Berria - Harian

Sharonen plana **Knesseten** . Berria - Mundua

Kadimak bildu duen jendea hurrengo **Knessetean** aulki seguru bat lortu nahi duten oportunistak dira batzuentzat. Berria - Mundua

1973tik da **Knesseteko** diputatu, iazko udazkena arte Likuden eta ordudanik Kadima alderdian. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**israelgo knesset** (5); **knesset israelgo** (5); **knesset israelgo legebiltzarrean** (3); **knesset legebiltzarrean** (7); **knesset legebiltzarreko** (5); **knesset legebiltzarrerako** (3)

---

## knut 1 *iz* larruzko zerrenda metalezko puntadunez eginiko zigorra.

**Knutak** hainbat uhal dauzka, larruzkoak, eta, haien muturretan loturik, burdin hari bihurritu bana. Karlos Zabala

Eta, **knuta** gora altxaturik, urratu egiten dio aurpegia Ivan Ogareffi alderik alde. Karlos Zabala

Hiri sekula ez zaik joango traidore aurpegi horretatik **knutaren** seinale laidogarria! Karlos Zabala

**Knut** kolpe ederra eman zenion madarikatu hari aurpegi betean. Karlos Zabala

**2** alegiazko dirua, brontzezkoa.

Jakina, aztien munduan bakarrik zeukan dirua; ezin dira galeoiak, sickleak eta **knutak** muggleen dendetan erabili. Iñaki Mendiguren

Harryk, Gringottseko gela blindatuan bere diru-poltsa urrezko galeoiez, zilarrezko sicklez eta brontzezko **knutez** bete ondoren, bere buruaren kontrol handia behar izan zuen dena batera ez gastatzeko. Iñaki Mendiguren

Brontzezko **knut** txiki mordoak. Iñaki Mendiguren

Bost **knut** kostatzen zen koilarakada Iñaki Mendiguren

---

## koadernaketa *iz* (liburu) jostea, azaleztatzea.

Azken berrikustea eta aurkezpena: arreta handiko berrirakurketa eta zuzenketa, ezaugarri formalak, inprimatzea, **koadernaketa:** %10. Askoren artean

---

## koadernatu, koaderna, koadernatzen 1 du *ad* liburuez mintzatuz, josi, azaleztatu.

Spielberg zaharrak liburu asko eraman ditu **koadernatzera** . Felipe Juaristi

Larru gorriarekin **koadernaturiko** liburu mardul bat zegoen. Agustin Otsoa

Ondo **koadernatutako** berrehun bat orrialde ziren. Bernardo Atxaga

Luxuzko beste zenbait argitalpen: *Koenigsmark*, larru urdinez **koadernatua,** Paul Doumerren *Nire haurren liburua*, lore purpurekin apainduriko larru beixean **koadernatua** . Monika Etxebarria

Aldizkariak, liburu bat eta **koadernatu** gabeko eskuizkribuak. Josu Landa

**2** (era burutua izenondo gisa)

Poltsatik liburu **koadernatu** bat atera zuen. Monika Etxebarria

Anatole Franceren obren bilduma **koadernatu** birrindua. Karlos Zabala

---

## koadernatzaile *iz* (liburu) joslea, azaleztatzailea.

**Koadernatzailearekin** ezkonduko zen segur aski", esan nion neure buruari. Koro Navarro

**Koadernatzaileek** eta liburu-konpontzaileek ere. Pello Zabala

---

## koadernatze *iz* (liburu) jostea, azaleztatzea.

Alemanian kontrabandista izana zen, eta **koadernatze** lantegi bat zabaldu eta aberastu egin zen. Koro Navarro

Moldiztegi modernoa, ertaina, zilindroez, Kelley-ez, Miller elikagailuez, prentsa txikiez, linotipo-makinez eta **koadernatze** -tailer oso batez hornitua... Lopez de Arana

---

**koaderno** *(627 agerraldi, 108 liburu eta 41 artikulutan; orobat* ***kuaderno*** *4 agerraldi, 3 liburutan)* **1** *iz* paperezko orri zuri jositakoz osaturiko liburu modukoa. ik **kaier**.

Horrez gain **koadernoa** eta bolaluma, idatzi beharrekoak idazteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Gutunen kaxa arakatu zuen berriro, eta **koaderno** bat atera zuen. Bernardo Atxaga

**Koaderno** bat iritsi zait eskura, non Obaban fusilatutako guztien aipamena egiten den. Bernardo Atxaga

Eta Hori ere, hitzez hitz, Super Conquerant **koadernora** pasatu dut. Anjel Lertxundi

Ukitu leuna du **koadernoak**. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Koaderno** berde ilun bat (France, 210 x 297 mm.) estreinatu dut kontakizun nagusiari erantsitako iruzkin eta azpikontakizunontzat. Anjel Lertxundi

Fitxategiak estaltzen zuen **koaderno** tapa-beltz baten ertza bistaratu zitzaion. Iñaki Iñurrieta

Harriduraz ikusten dut larru beltzezko **koaderno** bat sakelatik ateratzen. Monika Etxebarria

Jakaren poltsiko sakonetako batean gorde zuen belus horiko azalekiko **koadernoa**. Xabier Olarra

"Egunkaria" izenburu dotorea duen azal gogorreko **koaderno** hau. Josu Zabaleta

Zubia argitaletxearen Matematikako **koadernoak**. Berria - Euskal Herria

Lehergailuei buruzko **koadernoa** irakurtzen hasi zen. Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuetan)

Slowackik gerrari buruz hitz egiteari utzi eta kontaduria **koadernoa** ireki zuen. Harkaitz Cano

25 orriko bost eskola-**koaderno**. Bego Montorio

Oraingoz, arkatzez idazten dut ikasle-**koaderno** batzuetan. Eskarne Mujika

Hortaz, karpeta urdina zabaldu, eta emaitza-**koadernotxoa** luzatu nion poz-pozik. Patxi Iturritegi

Julio nire ariketa-**koadernoa** zuzentzen ari zelarik. Juan Kruz Igerabide

P.-R. andrearen abizena zegoen orria berehala erauzi nuen nire helbide-**koadernotik**. Joseba Urteaga

Bere ohar-**koadernoetako** batean irakur daiteke: […]. Iban Zaldua

Bidaia-**koaderno** baten itxura izango du testuak? Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitaren koaderno** (3); **azal gogorreko koaderno** (3); **azalekiko koaderno** (3); **koaderno beltz** (5); **koaderno beltza** (13); **koaderno beltza atera** (4); **koaderno beltza zabaldu** (3); **koaderno beltzean** (4); **koaderno gorria** (8); **koaderno gorrian** (3); **koaderno txiki** (15); **koaderno txiki batean** (5); **koaderno txikian** (3); **koaderno urdina** (10); **koaderno urdinean** (5); **koaderno zahar** (3); **ohar koaderno** (7)

**azal gogorreko koadernoa** (3); **koadernoa atera** (3); **koadernoa eskuan** (3); **koadernoa eta arkatza** (3); **koadernoa ireki** (3); **koadernoa itxi** (6)

**koadernoan idatzi** (3); **koadernoan idazten** (6)

**koadernoaren bila** (3)

**koadernoko zerrenda** (3)

**patrikako uztai koadernotxoan** (3)

---

**koadernodun** *izond* koadernoa duena edo daramana.

Ertzain **koadernodunak** zeharka eta agiraka begiratu zidan, hiltzaileari buruz ezer idatzi ezina nire errua balitz bezala. Anjel Lertxundi

---

**koadernotxo** *iz* koaderno txikia.

**Koadernotxo** hori-gorrixka mehe bat Poltsa zabaldu zuen, paper batzuk eta **koadernotxo** bat utzi zituen mahai gainean. Anton Garikano

**Koadernotxotik** orria kendu eta bloka eta boligrafoa itzuli zizkion gelakideari. Joxemari Iturralde

Paper erreziklatuzko patrikako uztai-**koadernotxoan** lehen hitzak idatzi ditut: [...]. Harkaitz Cano

---

koadrado ik **kuadratu**.

---

**koadrante** *(14 agerraldi, 6 liburu eta artikulu 1ean; orobat* ***kuadrante*** *3 agerraldi, 3 liburutan)* **1** *iz* zirkunferentziaren edo zirkuluaren laurdena bi erradio elkarzuten artekoa.

Esaten da Aristarko Samoskoa izan zela **koadrantea** edo hemisferioa asmatu zuena, eta baita azalera lau baten gainean jarritako diskoa ere. Santiago Iruretagoiena

Abakoaren azpitik hasita, goitik behera, egin erradioa, eta izan dadila **koadrante** bakoitzean begiaren diametro-erdi bat txikiagoa, abakoaren azpian dagoen **koadrantera** iritsi arte. derrigorrezkoa baita triglifoak kolomen tarteko **koadranteen** erdian kokatzea. Santiago Iruretagoiena

**2** arku formako eskala.

1 eta 1000 arteko markak zituen **kuadrante** handi batekin. Koldo Biguri

Termometro eta manometroen **koadranteak** ez zeuden graduaturik: kolorezko zeinu konbentzional batzuk besterik ez zeramaten. Juan Garzia

Altzairu dirdirarazizko orratza, **koadrante** horailaren gainean bare beltz baten gisa aldaro eginez, 95°an geratu zen. Juan Garzia

Nire erresumako **koadranteak,** palankak, heldulekuak, botoiak kontatzen ditut. Josu Zabaleta

**3** (haizeez mintzatuz)

Fuela beti itzultzen da kostaldera, eta zer esanik ez arazoan, hirugarren eta laugarren **koadranteko** haizeekin. Berria - Gaiak

Haizea hirugarren eta laugarren **koadranteetakoa** izanez gero gaitz egiten baita belak maniobratzea. Edorta Jimenez

**4** astronomian, angelu graduak markaturik dituen zirkulu laurdeneko egitura batek osaturiko lanabesa, angeluak neurtzeko erabiltzen dena.

Hau hain da egia garbia, ezen ez baita ez **kuadranterik** eta ez teleskopiorik behar hau aurkitzeko, edozein adimen kaskarren begibistan baitago. Juan Martin Elexpuru

**5** erlojuez mintzatuz, biribilkia.

**Koadrantearen** zuritasunean orratzak ez ziren besterik gabe beltzak, kopetilunak ziren. Matías Múgica

Leihoan gurpilak, gurpiltxoak, erloju orratzak eta erloju **koadranteak** zeuden, beste ezertan ez zen ezagun hura erlojugile baten etxea zela. Matías Múgica

---

**koadrarazi**, koadraraz, koadrarazten du *ad* koadratzera behartu.

-Eman dezagun dirua nola edo hala itzultzeko moldatzen naizela, diru hori eskuratzen dudala alegia, eta gero aurkitzen dudala mugimenduak **koadrarazteko** moduren bat, inor sekula ezer okerrik izan dela ez ohartzeko modukoa. Xabier Olarra

**koadratu**[1], koadra, koadratzen *(orobat* ***kuadrado*** *g.er.,* ***kuadradu*** *g.er. eta* ***kuadratu*** *g.er.)* **1** du *ad* figura geometriko bat, haren azalera kalkulatzeko, azalera bereko lauki batera ekarri.

Horrek guztiak kurbak zuzentzeko, azalerak **koadratzeko,** eta solidoak kurbatzeko balio zuen; luzera bat, azalera bat, bolumen bat kalkulatzeko, alegia. Jon Muñoz

Arkimedesen espirala, parabolak, hiperbolak, zikloidea... bide luzea egina zuen kontu hark Hipokrates Kiosekoak lunulak **koadratu** zituenetik! Jon Muñoz

**2** kontabilitatean eta kidekoetan, zor-hartzekoak egokitu.

Gero berrogeita hamar dolar sartuko zituen, eta diru-ateratze faltsuaren txartelak bere kutxaren balantzea ongi **koadratuko** zuen. Xabier Olarra

Badakik ontzien berri, badakik izkiriatzen, badakik kontuak **koadratzen**. Edorta Jimenez

Eskudiruak **koadratzen** du, balantzeak **koadratzen** du, eta txartelek ere bai. Xabier Olarra

Gure txartelak ere **koadratu** beharra zeukan, noski, eta hala berak ere han ezarriko zuen diru-ateratzea, baina idazpen faltsu bakoitzaren aldamenean lapitzez marratxo bat egiten zuen, ikusi nuen nik, eta horrek adieraziko zion balantze zuzenak zenbat behar zuen, aurrezleak galderaren bat egiten bazuen. Xabier Olarra

Sheila han zegoen nik harena kontatu nuenean, ezer adierazten ez zuen aurpegi soraioarekin, eta xentimoraino **koadratzen** zuen. Xabier Olarra

**3** *irud*

Pasadizoaren balantzea **koadratzeko** orduan horra haserrealdiak, horra adrenalinaren gorakadak eta hara biraoak gora zerurantz. Edorta Jimenez

Berak ikasiak eta bizitakoak, han eta hemen bildutakoak, denak ondo **koadratu** dituenean, horren berri eman behar izaten du. Pello Zabala

Han [baserrian] lana egutegiarekin **koadratu** beharra zegoen; barauak eta bijilia kontuek, harako lan baino areago jotzen zuten baserritarra: okela, txerrikia eta lukainka jeneroa zen erabiltsuena han. Pello Zabala

Kontzilio osteko egutegi berritze [...] horretan, ekialdekoekin **koadratzeko,** [...]. Pello Zabala

Zeinen erraz **koadratzen** dituzten batzuek, kanpotik zein barrutik, honako ekuazio hauek: euskaltzale berdin abertzale, euskara berdin Cosa Nostra. Joxerra Garzia

Pieza gehienek **koadratzen** ditek behingoz: suizidioaren fartsak, Monikaren izenean idazten jarraitzeko asmoak eta bizitoki aldaketak. Joxean Agirre

**4** argazkigintzan eta kidekoetan, laukian sartu.

Argazkilari horien artea [...] une hori arin batean harrapatu, **koadratzen** jakin eta ziurtasunez kliskatzean datza. Josu Zabaleta

**Koadratu** aditza, margolaritzako eta argazkigintzako irudietan, angelu jakin batetik begiratua, eremu mugatuko irudi bat sortzeko prozesu mental eta material hori izendatzeko agertu ziren zinemagintzan. Josu Zabaleta

Bularra, edota burua, **koadratzen** zuten lehen planoek gaitzespena eta arbuioa eragin zuten luzaro. Josu Zabaleta

Ertz hori irudi-objektuari hura **koadratzeko,** inguratzeko balio duen beste gauza baten bidez indartzen da; marko-objektua deituko diogu horri. Josu Zabaleta

Degas, **koadratzean** inor maisu izan bada egiaz maisu denak, [...]. Josu Zabaleta

Lehen-lehenengo filmetan, kameratik filmatzen zen filmagaira bitarteko distantzia ia bera izaten zen beti, eta filmatzen ziren pertsonak **koadratzean** zutik ager zitezen egiten zen horrela. Josu Zabaleta

• **5** da *ad* irmo jarri.

Orduan nik kaserna-hizkerako alerik gogorrenak bota nizkion muturrera, eta **"Koadratu** zaitez!" eta "Ezta pentsatu ere!" izan ziren entzun ziren gauzarik xuabeenak, eskua paparrean jarri zidan arte. Jon Alonso

Orduan gogoratu zitzaidan gizon hura nire aurrean **koadratu** behar zela, txanoa erantzi ere bai, eta haserrez irakiten jarri zitzaidan barrena aitaren zerbitzuko lekaio haren ozarkeriagatik. Matías Múgica

**6** (era burutua izenondo gisa) *(orobat* ***koadrado*** *g.er,* ***kuadrado*** *g.er.,* ***kuadradu*** *g.er. eta* ***kuadratu*** *g.er.)* ik **karratu**[1].

Haren forma **koadratua**. Lurrean kaxa **koadratu** bat zegoen, saltzaile baten erakusgaien maleta zirudiena. Fernando Rey

Panel **koadratuetan,** ez biribiletan. Elizen arteko biblia

Ilea erortzen hasia zitzaion eta orain buru **kuadratu** ia-ia soila zuen, ile kizkur hori harrotuez inguratua. Fernando Rey

Patioko zeru-sabai **koadratuan**. Jokin Urain

· ik kuadro; karratu[1].

Hortarako 71 kilometra **kuadratu** behar ziren eta hango campo gehienak espropriatu zituzten. Herria

Emakumezkoek 45 metro **koadradoko** (10 x 4,5 m.) saila ebakiko dute eta gizonezkoek 100 metro **koadradokoa** (10 x 10 m.).

Etxeberriak sei segundo gehiago behar izan zituen 100 metro **kuadradoko** saila ebakitzeko.

Baditu 800 kilometro **kuadradu**. Menane Oxandabaratz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
metro kuadradoko (3)

---

**koadratu**[2] *(orobat* ***kuadratu*** *g.er.)* *iz* laukia.

Hormako egutegian zirkulu batekin inguratzen nuen aita itsasora joaten zen eguna, eta **koadratu** batekin itzultzen zenekoa. Joseba Sarrionandia

---

**koadratura** **1** *iz* figura geometriko bat area bereko lauki batera ekartzea.

Lunulen **koadratura** ezarri zuen Hipokratesek. Jon Muñoz

Hura izan zen irudi kurbatu baten lehen **koadratura**. Jon Muñoz

**2** ***koadraturan*** 90 graduko angeluan.

Ilgora zegoen ilargia, eguzkiarekin **"koadraturan"**. Jon Muñoz

Ilargia **koadraturan** dagoenean, orduantxe daude Lurreko itsaso eta ozeanoetan mareak beheren. Jon Muñoz

**3** ***zirkuluaren koadratura***

-Emandako zirkulu baten berdina den karratua eratzeari zirkuluaren **koadratura** esaten zaio. Jon Muñoz

Berriz aipatu, geroago, greziar matematikaren hiru arazo nagusiak: zirkuluaren **koadratura,** kuboaren bikoizketa, angeluaren trisekzioa. Zirkuluaren **koadratura** hain da ospetsua, non elezahar bihurtu baita -esan zuen Maxek Nofuturen ondoren. Jon Muñoz

---

**koadratze** **1** *iz* lauki bihurtzea.

Zuzentze batetik **koadratze** bat ateratzen zen! Jon Muñoz

**2** laukian sartzea.

**Koadratzea** eta ikuspuntua. Josu Zabaleta

**Koadratze** bat betiere ikuspuntu zentratu samar baten edo gutxienez zentra daitekeen baten materializazioari lotzea. Josu Zabaleta

**Koadratze** hitza, eta koadratu aditza, margolaritzako eta argazkigintzako irudietan, angelu jakin batetik begiratua, eremu mugatuko irudi bat sortzeko prozesu mental eta material hori izendatzeko agertu ziren zinemagintzan. Josu Zabaleta

**Koadratzea,** beraz, markoaren eginkizuna da, haren mugikortasuna, bere baliokidea duen leihoaren lerratze etengabea. Josu Zabaleta

**"Koadratze"** hitzaren esanahia aldatu egin zen, eta markoak irudikatzen zen eszenari buruz izan zitzakeen kokaera jakin batzuk adierazteko hasi zen erabiltzen. Josu Zabaleta

Koadroari dagokionez, Pascal Bonitzerrek deskoadratzea deitu duena da, **koadratze** desbideratua, alegia, **koadratze** gisa markatua eta **koadratze** hori automatikoki begiradarekin berdintzetik urruntzen ahalegintzen dena. Josu Zabaleta

Hala sortu ditu [zinemak] hainbat esapide, hala nola, "gainbeherako **koadratzea"** (filmagaia gainetik hartzen denean), "azpitiko **koadratzea"** (filmagaia azpitik gora hartzen denean), **"koadratze** laprana", "hurbileko **koadratzea",** "aurretiko **koadratzea",** eta abar. Josu Zabaleta

**Koadratzearen** eta **koadratze**-angeluaren erabilera kodetuetan. Josu Zabaleta

---

**koadriga** *iz* antzinako Erroman, lau zaldik tiraturiko orga, batez ere lasterketetan erabiltzen zena.

Zaldi lasterketak edo **koadrigak** onespen handia zuten. Berria - Kirola

**Koadrigan** nenbilela. Berria - Kultura

Sare telematikoaren bidez halaxe barreiatu da galaxia guztietan, eraso egin baino pixka bat lehenago beren **koadriga** amildegitik jausi eta hirurak hil zirela. Jon Alonso

Eta, behin hil eta gero, **koadrigan** sartu eta amildegitik behera bultzatu, harritzaren aurka hartutako zartakoek sorraraziko ubelduak, matxurak, koskak eta mailatuak poliziaren lana ezkuta zezaten. Jon Alonso

---

**koadrikula** *(17 agerraldi, 8 liburu eta artikulu 1ean (eratorriekin]; orobat* ***kuadrikula*** *[eratorriekin] 5 agerraldi, 4 liburutan) iz bi lerro pararelo sail elkar ebakitzen dutenean sortzen diren laukietako bakoitza; lauki horien multzoa.*

Kaier **koadrikulaz** bete bat eta errotuladore fin beltz bat ekarri dizkidate. Hasier Etxeberria

Profita itzazu erizainek ekarritako orri **koadrikulaz** beteak egiazko egiara iristeko. Hasier Etxeberria

· Betiko kale-**koadrikula** mugatuan, ibilbide berriak asmatzen ahaleginduz. Iñaki Iñurrieta

---

**koadrikuladun** *izond* laukiduna.

Goizean gurasoek gelan bakarrik laga zutenetik, komunera joateko eta koaderno **koadrikuladunean** zerbait idazteko ahalegina baizik ez zuen egin. Hasier Etxeberria

---

**koadrikulatu** **1** *izond* laukiduna; laukietan eratua.

Koadernoko orri **koadrikulatuak** betetzeari lotu nintzaion, hura mintzo bitartean. Aingeru Epaltza

Goioren koadernoa begiratu eta orrialde **koadrikulatuaren** bazterrean irakurri nuen. Joseba Sarrionandia

Paper **koadrikulatu** batean idatzi genizkion. Iban Zaldua

Guk koaderno **koadrikulatuak** erabiltzen genituen. Joseba Sarrionandia

Itzultzean paper bat zekarren, noizbait gorribizi izana; orain, berriz, arrosakolore, mehea, **koadrikulatua**. Juan Garzia

Kale **koadrikulatuen** nahasketa. Jon Alonso

**2** *irud*

Amerikanoak parranda erdian ere izaten dira astunak eta **koadrikulatuak,** askoz ere okerragoak dira alemaniarrak baino. Karlos Zabala

---

koadrila ik **kuadrilla**.

---

**koadrilatero** *(orobat* ***kuadrilatero****)* **1** *iz* laukia.

**Kuadrilatero** eder bat da, kruzeroek hamalaugarren mendeko leihaje aberats eta sendoak marrazten dituzten ojiba handiz inguratua. Koldo Izagirre

**2** boxeo borrokak jokatzen diren laukia.

Soken kontra jaurtiak ginenean soka horiek berek bueltatzen gintuzten **koadrilateroaren** erdira. Harkaitz Cano

**3** *irud*

Ziri-jokoen **koadrilateroan,** puntuetara bazen ere, azkenean Manuel garaitu zuen, nahiz eta tabernariak pentsakor utzi. Unai Iturriaga

"Nola joko nauk ba hemen, David? Ez al duk ikusten **kuadrilaterotik** kanpora gaudela?" Maderas de Obaba jartzen zuen laukia seinalatu zuen. Bernardo Atxaga

---

koadrilla ik **kuadrilla**.

---

**koadro** *(2334 agerraldi, 161 liburu eta 635 artikulutan; orobat* ***kuadro*** *48 agerraldi, 3 liburu eta 29 artikulutan)* **1** *iz* margolana.

Rossetti-ren **koadro** asko zituen liburuak, baina *Beata Beatrix*-en ikuskizunak erakarri ninduen. Ramon Saizarbitoria

Ez nuen jarri nahi San Agustinen **koadroa** aditu batengana alferrik bidaltzeko arriskuan. Ramon Saizarbitoria

El Grecoren **koadro** batetik aterea zirudien. Joan Mari Irigoien

Caravaggioren *San Mateo eta Aingerua* **koadroaren** bi bertsioak. Bernardo Atxaga

Bada Van Goghen **koadro** bat gaueko billar-gela irudikatzen duena. Xabier Paya

**Koadroa** ez zetorren fundazioaren funts estatubatuarretatik. Iban Zaldua

Azken berrogei urteotako Ingresen atzera begirakorik handiena da eta 79 **koadro** eta 101 marrazki ditu. Berria - Kultura

**Koadro** inpresionista bat. Karlos Linazasoro

20ko eta 30eko hamarkadetan **koadro** figuratiboak egin zituen. Berria - Kultura

Formatu handiko **koadro** asko saldu zituen, Erakusketa iraunkorreko geletatik paseatzen ari nintzela, izkina ez oso argitsu batean, atentzioa eman zidan **koadro** bat ikusi nuen. Iban Zaldua

Leihoak **koadro** arraro bat zirudien, goiko aldeko eskuineko angeluan zuen ilargi betearekin. Joseba Sarrionandia

Margolari onenek ere ez dute astero **koadro** on bat egiten. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Ikuspegi bikoitz hori islatu izan da ia beti, bai Passeronen gainbegiratu historikoetan, bai Arnheimek egin zituen **koadro**-azterketetan. Josu Zabaleta

· Gelaren bazter batean, argazki **koadroak** zeuden piano baten gainean. Juan Kruz Igerabide

Eskultura edo pintura-**koadroa**. Iñaki Zabaleta

**3** eszena.

Frantziskoren haurtzaro eta gaztaroari buruz aurkezten duen **koadro** guztiz ilunak. Askoren artean

Metodo groteskoa baliatuz, giza bizitzaren oso **koadro** eskematiko eta pesimistak marrazten zituen. Jose Morales

Uste dut beste bi edo hiru zakil beharko genituela antolatu duzun **koadro** hori osatzeko, madame. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**4** laukia.

Edo eguzkiak biribila izatea egokiago, **koadro** edo triangelu formakoa izatea baino. Xabier Kintana

Xakearen **koadro** zuri-beltzetan barrena galdu nahi nuke neure burua. Joan Mari Irigoien

**Koadro** eskoziarrekiko manta ere prest zeukan, gortinak orobat itxita. Unai Iturriaga

Alkandora **koadro**-txikia txamarra larriaren azpian. Karlos Zabala

Cadinek, aldiz, soineko **koadro** zuri-urdindun bat, ama Chantemessek erabilitako tartan oihal batez egindakoa. Karlos Zabala

· Erabat edo neurri batean analogoak diren enuntziatuak sailkapen-**koadro** batean integratzea. Xabier Arregi

**5** pilotalekuan, marren bidez, banatzen den zatietako bakoitza.

Triciokoa ez dago atzelari jotzaileekin jokatzera ohituta, eta Pascual, bestalde, laugarren **koadroan** punpa egiten duten pilota errazak bederatzigarren **koadroan** uztera ohituta dago. Berria - Kirola

Azkenean, zortzigarren **koadroan** bote egin eta erreboteko paretan jarri zuen pilota. Berria - Kirola

Sake on baten ostean, Peñak aukerako pilota utzi zion bigarren **koadroan** Xalari. Berria - Kirola

Lau **koadro** t'erdiko kaiolan, hain zuzen. Berria - Kirola

Tantoak aurreko **koadroetan** erabakitzen dira, 10. Berria - Kirola

**koadrotik** tantoak egitea oso zaila da. Berria - Kirola

**6** gailuak edo tresnak kokatuak dauden taula modukoa.

**Koadro** horretan Lete ibili duk polimetroarekin eta, hor ez duk indarrik behinik behin. Pablo Sastre

Autoko **koadro** digitalera egin nuen so: 99.08.05 01:32 17ø5ºC. Aingeru Epaltza

Aginte-**koadro** nagusia azaldu nion neskari gutxi gorabehera, xehetasunetan sartu gabe. Joxe Austin Arrieta

Ronek zilarrezko botoitxo bat sakatu zuen aginte-**koadroan**. Iñaki Mendiguren

**7** taulena.

Lorategia handia zen, bai, fruitu-arbolaz betea; Nunuk kendu egin zituen lore-**koadro** erromantikoak, buztin gorriz estalitako bidezidor bihurriak Luzerna edo gari **koadro** handiak eta baso hirukiak. Ander Irizar

Hantxe ageri ziren soropil **koadro** txiki bat, sarbidea, autoen estalpea, eskailera nagusia, leiho handi irtena eta sukaldeko leihoa, ni begira egona nintzena. Koro Navarro

**8** bizikletez mintzatuz, egitura nagusia.

Zaldika geratuz errepide erdian, bizikletaren **koadroaren** gainean, hankak lurrean. Berria - Kultura

Arkadi lurrean eserita, gorputza bizikleta-**koadroaren** aurka, beso bakoitza gurpil banari lotuta, begirada irmoa, mitxeleta bat haren irribarrean. Felipe Juaristi

Eligiori, orduak ziren San Giovanniko bere lagun taldeak alde egin ziola, anaia txikiek gidatzen zuten gurdian: bizikleta **koadroan** eraman beharra zen. Josu Zabaleta

**9** harri koadroa.

Hau da, lau harri erabili beharko ditu: 125 edo 150 kiloko **koadroa,** 125 edo 150 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kuboa eta 100 kiloko bola. Berria - Kirola

**Koadroak** erabaki dezake txapela, hein handi batean. Berria - Kirola

Egungo 225eko **koadroa** ere harri motz hori baino errazago altxatzen da; pentsa! Berria - Kirola

Handik zortzi egunera, berriz, 22 jasoaldi egin zituen kuboarekin, eta gero **koadroarekin** jardun zuen. Berria - Kirola

Irigoienek 18 urte bete aurreko marka ezarri nahi du, esku batez 200eko **koadroa** jasota. Berria - Kirola

**10** enpresa, erakunde edo kideko bateko buruen taldea; horrelako talde bateko kidea.

Iparraldean, Frantziako Estatuko beste alde batzuetan eta Belgikan zebiltzan **koadro** askok, zenbait buruzagi historiko ezagun tartean, alde egin zuten erakundetik. Rafa Egiguren

Beste **koadro** historiko batzuek, erakundearen antolamendu militarraren zuzendaritzakoak izandakoek, [...]. Rafa Egiguren

Unibertsitatean prestatutako **koadro** berriak profesionalki ondo trebatuta irtetea. Anjel Lertxundi

Xavier Etcheverry galkategi horretako **kuadro** ohiak lantegiaren parte erosteko proposamena egin du. Herria

**11** taldea.

*US Open*eko gizonezko **koadroa** aurkeztu dute. Berria - Kirola

Frontisek bere pilotari **koadroa** handitzen jarraitzen du. Berria - Kirola

**Koadro** erremontistan osa daitekeen bikote onena, Ezkurra eta Lizaso Berria - Kirola

• **12** *izond* lauki formakoa.

Gaztelako erregearen bandera zeraman mastaren goian; oihal zuriak eta **koadroak** zituen. Felipe Juaristi

Poliki-poliki beren eskuetan haizea preso hartu zuten oihal **koadroak**. Felipe Juaristi

**13** (azalera neurriekin) ik beherago **16.**

Mila kilometro **koadro** inguruko eremu batean. Koro Navarro

Larruazalaren zentimetro **koadro** bakoitzeko ile kopurua bertsua dela gizakietan eta gainerako primateetan. Irene Aldasoro

Bina kaloria jasoko luke zentimetro **koadro** bakoitzeko. Pello Zabala

**14** ***harri koadro*** apustuetako harria prisma formakoa. ik gorago **9.**

Hamaika kiloko magnetofoiak, 315 kiloko **harri koadroa** baino handiagoko idazmakinak. Joxerra Garzia

Harri handietako Euskadiko txapeldun ohiak eite zaharreko **harri koadroa** erabiliko du; 200 kiloko harri pottokoa, alegia. Berria - Kirola

Eite zaharreko 200 kiloko Paskualsoro **harri koadroa** (53 x 34 x 34 Cm.). Berria - Kirola

Urte bat, bost hilabete eta lau aste igaro dira Iñaxio Perurenak **harri koadroarekin** bi eskuez azken marka ezarri zuenetik. Berria - Kirola

**15** ***koadro kliniko*** ezaugarri klinikoak.

Gregen kasuan, lesio zabaldu horrek oso **koadro** kliniko korapilotsua sortua zuen, batzuetan tolespeturiko sintomak, edo are elkarren kontrakoak, eta sindromeak zituena. Xabier Olarra

Depresio bat bera ere ez izateko zortea izan dut, baina banekien zer-nolakoa izan zitekeen gutxi gorabehera Sararena, hamaika gaixo depresiborekin tratatu behar izan baitut kontsultan, antzeko **koadro** klinikoekin. Joan Mari Irigoien

**16** ***metro koadro*** *(**312** agerraldi, **25** liburu eta **187** artikulutan; orobat **kuadro** **18** agerraldi **13** artikulutan)* lau aldeak metro batekoak dituen laukiaren azalera.

Erradak, zer neurri dik hire aberri horrek, zenbat **metro koadro** dizkik hire Euskadi bedeinkatu horrek? Hasier Etxeberria

Eraikuntzaren luze-zabala izugarria bada ere (10.000 **metro koadro** ditu erabilgarri), lau bat pisuko altuera doiak liburu erraldoi etzan baten itxura ematen dio. Anjel Lertxundi

Tabako Fabrikaren 30.000 **metro koadroak** hiru solairutan banatzen ditu proiektuak. Berria - Kultura

Hogeita bost **metro koadroko** etxebizitza bat, behinola babes ofizialekoa izandakoa. Iban Zaldua

1,2 **metro koadroko** nire idazmahaiaren gainean, paketetxo bat aurkitu nuen. Juan Garzia

Hamabost **metro koadro** inguruko gela bat zen, ohea eta freskatzeko konketa besterik ez zituena. Harkaitz Cano

1935eko erroldak Argentinak 1.100.000 **metro koadro** oihan zituela zioen. Berria - Gaiak

60 litro **metro koadroko** bota zituen ordu betean. Pello Zabala

Azokaren 3.500 **metro koadrotan** 50 herrialdetako 670 enpresa elkartzen dira. Berria - Kultura

"Guk **metro koadroetan** neurtu diagu eta," begi ñika Gastonek. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hamar metro koadro** (4); **kilometro koadro** (32); **kilometro koadro ditu** (4); **koadro handi** (9); **koadro handiak** (4); **koadro zuri** (4); **metro koadro** (140); **metro koadro ditu** (10); **milioi kilometro koadro** (5); **milioi metro koadro** (13); **moneten koadro** (4); **pisuko koadro** (4); **renoirren koadro** (5); **renoirren koadro bat** (4); **zentimetro koadro** (6)

**ederra koadroa** (5); **guernica koadroa** (4); **harri koadroa** (4); **kiloko koadroa** (9); **koadroa ikusteko** (4); **koadroa ikustera** (4); **koadroa osatzeko** (5); **koadroa pintatu** (4); **metro koadroa** (8); **taumanen koadroa** (8)

**erakusketa bateko koadroak** (6); **koadroak erakusten** (5); **metro koadroak** (13)

**koadroari begira** (13)

**atzeko koadroetako** (5)

**atzeko koadroetan** (30); **aurreko koadroetan** (44)

**aurreko koadroetara** (4)

**atzeko koadroetatik** (4)

**kilometro koadroko** (22); **litro metro koadroko** (6); **metro koadroko** (129); **metro koadroko azalera** (10); **metro koadroko eremu** (5); **metro koadroko eremua** (4); **metro koadroko lur** (4); **metro koadroko saila** (5); **zazpi koadroko** (7); **zentimetro koadroko** (5)

**metro koadrotan** (6)

**laugarren koadrotik** (4); **metro koadrotik gora** (4); **seigarren koadrotik** (6)

**metro kuadroko** (9)

---

# koadrodun *izond* koadroak dituena.

Arrats batean metrotik ateratzen ari nintzenean txano **koadroduneko** ziklista harekin egin nuen topo. Fernando Rey

Lepoko zuria eta txano **koadroduna** zeramatzan. Koro Navarro

Urdinez jantzita zegoen eta kasketa **koadrodun** bat zeraman, eta esan zuen nazioarteko lapurra zela. Pello Lizarralde

Astegunetan kotoizko atorra **koadrodunak** janzten zituen lan egiteko. Xabier Montoia

Italiarren erara moztutako jaka **koadrodunarengatik**. Fernando Rey

Soineko zuri-gorri **koadroduna**. Oskar Arana

Beroki **koadrodun** apainez jantziriko dama bat. Jose Morales

Oinetan etxeko zapatilla **koadrodunak**. Unai Iturriaga

Manta **koadrodun** batean bil-bil eginda zegoen. franelazko txaketa **koadroduna** jantzi eta, goiz eguzkitsua egiten baitzuen, lorategira irten naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere anaia, leku hartan bertan, **koadrodun** alkandorarekin ibiltzen zen. Bernardo Atxaga

---

# koadrotxo *iz* koadro txikia.

Eskuinean, goian, leihotxoaren kontrako aldean, **koadrotxo** bat zegoen, zilarrezko bihotz bat zuena barruan. Koldo Biguri

Jarraian, **koadrotxo** batean, epigrafe modura, Hollywoodeko zuzendari baten adierazpenak datoz: [...]. Patxi Iturritegi

Mahai gainean paper handi batzuk zituen, taula handiak, **koadrotxoetan** numeroak. Joseba Sarrionandia

Sei **koadrotxo** aurrera. Harkaitz Cano

Mundua bakarra baina zabala da, errealitateak asko dira, eta literatur testuak osotasunaren zatitxoak dira, sare amaigabe baten **koadrotxoak**. Ana Urkiza

---

# koadrotxodun *izlag* koadrotxoak dituena.

Horren osagaiak, ordea, harritzeko moduko sinpleak dira: zinta **koadrotxodun** bat, koadrotxotan idazteko eta bertan idatzitakoa irakurtzeko mekanismo bana eta egoera ("logiko") multzo mugatu bat. Askoren artean

---

# koadrupedo *izond* animaliez mintzatuz, lan hanka dituena.

Euskaraz, hor duzue oraindik kontsultatu nahi baduzue ere, kazetaritzaren historia lotsagarrirako alea, Eitb24.com-en: "Gizaki **koadrupedoak,** Turkian". Iñigo Aranbarri

---

# koagularazi, koagularaz, koagularazten du *ad* koagulatzera behartu.

Ikertzaileek uste dute antigorputzek hazia **koagularazten** laguntzen duen substantzia natural batekin elkarreragiten duela. Berria - Gaiak

---

# koagulatu, koagula, koagulatzen **1** da/du *ad* odolaz mintzatuz, gatzatu.

Odola **koagulatzea** eragozten duen gaixotasuna. Berria - Mundua

Odola **koagulatzen** hasi eta Azkarate ospitalera eraman dute. Berria - Euskal Herria

Odola ez **koagulatzeko** zaintza berezia eta medikazio zehatza behar ditu Azkaratek. Berria - Euskal Herria

Ebakuntzaren ostean, odola ez zitzaion **koagulatzen,** etengabe odola galtzen ari zen eta osasun egoera etengabe okertzen ari zitzaion, lehengo ostegunean hil zen arte. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenodo gisa)

Hasieran odol lodi, **koagulatua** ez zen ateratzen irekitako zainetik; gero, poliki-poliki hasi zen irteten. Josu Zabaleta

---

# koagulazio *iz* koagulatzea, gatzatzea.

Hemofilia eritasun hereditarioa da; **koagulazioaren** atzerapena eta traumatismorik txikienarekin odoljario luze eta iraunkorrak azaltzen dituena.

Zenbaiten ustez, **koagulazioaren** kontra botika gehiegi eman zizkioten medikuek eta horren ondorio izan zen bigarren odoljarioa. Berria - Mundua

Buruak banatu ondoren, baina, eta **koagulazio** arazoek eraginda, haurra shock egoeran sartu zen. Berria - Gaiak

---

## **koaita** *iz* atsekabea, pena.

Itzultzaile gaixo baten **koaitak** . Pako Aristi

Zuri bere arrangurak, egitekoak, **koaitak,** eta ondikoak konta. Pello Salaburu

Batailoietako bat aukeratu du, zoriz, soldaduekin horrela zuzenki mintzatzekotan eta **koaitak** solastatzekotan. Txillardegi

---

## koalifikazio ik **kualifikazio**.

---

## koalitate ik **kualitate**.

---

## **koalizio** **1** *iz* alderdi politikoen edo estatuen arteko hitzarmen edo elkartea.

Bozetan bi **koalizio** aurkezten ziren. Berria - Mundua

**Koalizio** bat egiteko elkarrizketak. Berria - Euskal Herria

Sharonek Likuden basesa jaso du laboristekin **koalizioa** negoziatzeko. Berria - Mundua

EAJ-EA **koalizioak** 50 ordezkari izango ditu Kutxako biltzarrean. Berria - Ekonomia

Romano Prodik eta zentro-ezkerreko **koalizioak** oso boto gutxirengatik irabazi zituzten Italiako hauteskundeak. Berria - Mundua

Demokristauen eta ezkerreko nazionalisten arteko **koalizioaren** garaipena. Berria - Mundua

Hiruko **koalizioaren** eskemak ez dio balioko Ibarretxeri. *Olibondoa* **koalizio** izan da, bere hitzetan, bozen «irabazle handia». Berria - Harian

**Koalizioaren** zerrendetako kideek uko egin zioten kargua hartzeari. Berria - Euskal Herria

*Fronte Popolare* komunistak eta sozialistak bat eginik aurkezten ziren **koalizioa** zen. Fernando Rey

**2** (izenondoekin)

Azken urteotan, erakunde eta alderdi edo **koalizio** politikoen legez kanporatzeak asko erraztu du preso politikoen ugaltzea. Jokin Urain

NATO Ipar Atlantikoko Trataturen Erakundeko **koalizio** militarrak. Berria - Mundua

Legebiltzarrerako bozetan **koalizio** nazionalista bat nagusitu zen.

**Koalizio** handia erronka handia da beren burua definitzen saiatzen ari diren sozialdemokratentzat. Berria - Mundua

**Koalizio** Handiak Legebiltzarreko diputatuen ia %73ren babesa du. Berria - Mundua

Bushek Irakerako eratu zuen **koalizio** hauskorra desegiten ari dela. Berria - Mundua

Nafarroan **koalizio** indartsua behar dela. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Shas alderdiak, dena den, baldintza batzuk ezarri ditu **koalizio** gobernua eratzeko. Iñigo Aranbarri

**Koalizio** gobernua sendo. Berria - Mundua

2001eko hauteskundeetako **koalizio** akordioko baldintzei eutsiko diete funtsean. Berria - Euskal Herria

EAren lehenengo hautagaiak **koalizio** zerrendako bigarren lekuan joan ziren Gipuzkoan eta Araban, eta laugarren lekuan Bizkaian. Berria - Euskal Herria

Ekintzaile suizida batek gidatzen zuen bonba- autoak eztanda egin zuen **koalizio** indarren agintegunearen esparru babestuaren sarreran.

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gobernu-**koalizioaren** krisia. Anjel Lertxundi

EAJren eta EAren arteko laugarren hauteskunde **koalizioa** izango da. Berria - Euskal Herria

Ez hauteskunde **koalizioa** bakarrik, gobernu **koalizioa** ere bai. Berria - Euskal Herria

Duela hiru urte, Beustek aukera eman zion Schilli aginte **koalizioa** egiteko, baina oraingoan ez dio inongo eginkizunik emango. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**koalizio akordioa** (6); **koalizio berri** (5); **koalizio berri bat** (3); **koalizio gobernu** (11); **koalizio gobernu bat** (3); **koalizio gobernua** (77); **koalizio gobernua eratzea** (3); **koalizio gobernua eratzeko** (8); **koalizio gobernua osatu** (4); **koalizio gobernua osatzea** (5); **koalizio gobernua osatzeko** (20); **koalizio gobernua osatzen** (9); **koalizio gobernuak** (9); **koalizio gobernuan** (11); **koalizio gobernuaren** (5); **koalizio gobernuko** (8); **koalizio gobernutik** (3); **koalizio handi** (7); **koalizio handi bat** (4); **koalizio handia** (12); **koalizio handiak** (4); **koalizio indarrek** (3); **koalizio indarren** (7); **koalizio indarretako** (3); **koalizio militarrak** (11); **koalizio militarraren** (12); **koalizio militarrean** (3); **koalizio militarreko** (19); **koalizio militarreko indarrek** (3); **koalizio nazionaleko** (3); **koalizio nazionalista** (4); **osatutako koalizio** (3)

**alderdien arteko koalizioa** (3); **aralar zutik koalizioa** (5); **biltzen dituen koalizioa** (3); **eaj ea koalizioa** (14); **eajrekin koalizioa egiteko** (3); **eajrekin koalizioa osatzearen** (3); **ezkerreko koalizioa** (3); **galeusca koalizioa** (5); **galeusca koalizioa osatzen** (3); **gobernu koalizioa** (15); **hauteskunde koalizioa** (5); **koalizioa egin** (6); **koalizioa egitea** (4); **koalizioa egitearen** (3); **koalizioa egiteko** (7); **koalizioa eratu** (3); **koalizioa kolokan** (3); **koalizioa nagusitu** (3); **koalizioa osatu** (13); **koalizioa osatu dute** (3); **koalizioa osatuko** (3); **koalizioa osatzea** (15); **koalizioa osatzearen** (4); **koalizioa osatzeko** (25); **koalizioa osatzen** (50); **koalizioa osatzen duten** (43); **koalizioa sortu** (5); **koalizioa utzi** (4); **koalizioa utziko** (3); **nafarroa bai koalizioa** (36); **olibondoa koalizioa** (3); **oposizioko koalizioa** (3); **osaturiko koalizioa** (3); **osatutako koalizioa** (5)

**aebek gidatutako koalizioak** (3); **aralar zutik koalizioak** (21); **eaj ea koalizioak** (19); **europako herriak koalizioak** (3); **ezkerreko koalizioak** (12); **galeusca koalizioak** (5); **gidatutako koalizioak** (4); **herrien europa koalizioak** (9); **irabazten duen koalizioak** (4); **koalizioak egin** (3); **koalizioak egitea** (5); **koalizioak lortutako** (4); **koalizioak osatzeko** (3); **koalizioak sortu duen** (3); **nafarroa bai koalizioak** (24); **osatu duten koalizioak** (3); **osatutako koalizioak** (6); **zentro ezkerreko koalizioak** (10)

**eajrekin batera koalizioan** (3); **eajrekin koalizioan** (10); **earekin koalizioan** (5); **galeusca koalizioan** (3); **gobernu koalizioan** (6); **hauteskundeetan koalizioan aurkezteko** (3); **herrien europa koalizioan** (3); **koalizioan aurkeztea** (4); **koalizioan aurkezteko** (6); **koalizioan aurkeztu** (9); **koalizioan aurkeztu ziren** (3); **koalizioan aurkeztuko** (9); **koalizioan aurkeztuko da** (3); **koalizioan joan** (5); **koalizioan joango** (4); **koalizioan joatea** (6); **koalizioan joatearen** (3); **koalizioan joateko** (7); **koalizioan parte hartzea** (6); **koalizioan parte hartzeko** (6); **koalizioan sartzeko** (7); **koalizioan sartzeko aukera** (3); **nafarroa bai koalizioan** (11); **osatutako koalizioan** (3)

**nafarroa bai koalizioarekin** (3)

**aebek gidatutako koalizioaren** (3); **aralar zutik koalizioaren** (4); **eaj ea koalizioaren** (11); **ezkerreko koalizioaren** (8); **galeusca koalizioaren** (4); **gidatutako koalizioaren** (3); **gobernu koalizioaren** (3); **herrien europa koalizioaren** (9); **koalizioaren ekitaldi** (3); **koalizioaren garaipena** (4); **koalizioaren helburu** (4); **koalizioaren zerrendan** (6); **nafarroa bai koalizioaren** (17); **zentro ezkerreko koalizioaren** (5)

**eaj ea koalizioari** (5); **nafarroa bai koalizioari** (12)

**nafarroa bai koalizioaz** (3)

**aralar zutik koalizioko** (10); **eaj ea koalizioko** (7); **eskuineko koalizioko** (5); **ezkerreko koalizioko** (5); **gobernu koalizioko** (5); **gure ukraina koalizioko** (4); **herrien europa koalizioko** (11); **hiruko koalizioko** (3); **koalizioko alderdi** (4); **koalizioko alderdiek** (6); **koalizioko arduradun** (3); **koalizioko buru** (9); **koalizioko burua** (4); **koalizioko buruak** (5); **koalizioko hautagaia** (3); **koalizioko hautagaiak** (7); **koalizioko indarrek** (7); **koalizioko indarren** (5); **koalizioko kide** (12); **koalizioko kideak** (6); **koalizioko kideek** (5); **koalizioko kideen** (3); **koalizioko kongresurako** (3); **koalizioko lau** (6); **koalizioko ordezkariek** (4); **koalizioko zerrendaburu** (3); **koalizioko zerrendaburuak** (4); **nafarroa bai koalizioko** (12); **zentro eskuineko koalizioko** (5); **zentro ezkerreko koalizioko** (4)

---

## **koalizioburu** *(corpusean **koalizio buru** soilik)* *iz* koalizio baten burua.

Gertaera larri hauek komentzatzean, Errusiako eta Irango Atzerri ministroek **koalizio burua** den Ameriketako Estatu Batuen «neurriz kanpoko erantzun militarra» salatu dute. Berria - Mundua

## **koaliziokide** *(orobat* ***koalizio kide*** *g.er.) iz* koalizio bateko kidea.

Lega Nord alderdi independentista ere **koalizio kide** da. Berria - Mundua

Dolarrak aginte tresna nagusitzat dituen Jainko modernoak, ordea, zenbat denbora beharko du bere tropek eta bere **koalizio kideenek** suntsitutako Irak berreraikitzeko? Berria - Mundua

---

## koanto ik **kuanto**.

---

## **koarta**

### 1 ***koarta-tenpora*** *(orobat* ***kuarta-tenpora*** *g.er.) iz*

769ko urtean, Karlomanok berak gomendatu zien gotzainei **koarta-tenporak** gogorarazteko duten obligazioa. Pello Zabala

IV. mendean, Elizak orduko liturgia-egutegia finkatu zuenean, **koarta-tenpora** egunak 14ko Gurutze Santuaren egunaren ondorengo asteazken, ostiral eta larunbatean seinalatu zituen. Pello Zabala

Eguraldiaren errebueltak eta gora-beherak **koarta-tenporekin** loturarik baldin balute edo baldin badute, hori norbaitek usnatu eta antzeman duelako da. Pello Zabala

Martxoaren abiera inguru horretan bai, hor egokitzen dira gehienbat, **koarta-tenpora** garizumakoak. Pello Zabala

Udazkeneko **koarta-tenporak**. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koarta tenpora** (8); **koarta tenporak** (24); **koarta tenporen** (11); **koarta tenporetako** (7); **koarta tenporetan** (3)

---

## **koartada** 1 *iz* alibia.

Hiltzaileari denbora eman **koartada** bat asmatzeko edo frogak ezkutatzeko. Migel Angel Mintegi

Haren **koartada** ziurtatu beharra zeukan. Migel Angel Mintegi

Ingelesek nire **koartada** prestatzeko emandakoei aitaren bildumako beste dozena bat gehitu nien. Alberto Ladron Arana

**-Koartada** emakumea da, ez dago esan beharrik. Migel Angel Mintegi

Frogagarria ote zen Arrietaren **koartada**? Migel Angel Mintegi

Dena dela, Miren Arteagarena ez dut uste leporatu ahal izango diozunik, **koartada** sendoa dauka eta. Migel Angel Mintegi

Nik badut **koartada**. Joxerra Garzia

### 2 zurigarria.

Hori gizartearen beste **koartada** bat da. Berria - Euskal Herria

Orain, Ximurrarekin nola jokatu genuen hozki aztertuta, ez nago seguru gure **koartada** ideologikoen azpian bekaiztoa baino aise ere gehiago ote zen. Aingeru Epaltza

**Koartada** bat besterik ez da Nafarroa Bairi proposamena egin diotela esateko, ondoren hark ezezkoa erantzun diela azaltzeko. Berria - Euskal Herria

Kultura eta hizkuntza onartu beharreko aitzakiak baino ez ziren, botereak gainetik kendu ezin zituenak, **koartada** bat ematen ziotelako. Berria - Kultura

---

## **koarteko** *(orobat* ***kuarteto****) iz* lau musika-jotzailek osatutako taldea; bereziki bi biolinek biola batek eta biolontxelo batek osatua.

Benny Goodman-en **kuartetoa** entzuteko. Musika pixka bat jarriko diat bide batez, Haydnen **koartetoren** bat, edozein. Anjel Lertxundi

Schummannen **bigarren** kuartetoa. Berria - Kultura

Transilvan **Koartetoa** ariko da, gaur, Gasteizen. Berria - Kultura

Maiakovski hari-**kuartetoarekin** jotzera. Felipe Juaristi

Bilboko Udalak Juan Crisostomo Arriagaren lan osoen azterketa eta edizio kritikoa kaleratuko du, baita *Hari* ***Koartetorako*** *Lan Osoa*-ren partiturak ere. Berria - Kultura

---

## koartel ik **kuartel**.

---

## **koartila** *iz* orri laurdena.

Hara, bihar goizean izango dugunaren esku-orria **-koartila** bat eroan zuen mahai gainetik Mentxuren eskuartera. Josu Landa

---

## koartillo ik **kuartillu**.

---

## **koartza** *iz* hegazti zangaluzea eta buru-txikia, moto luze grisa duena *(Ardea purpurea* etab.)

Zikoina, mota guztietako **koartzak,** martioilarra eta saguzarra. Elizen arteko biblia

**Koartza** bat, ahate bat eta bederatzi beltxarga topatu dituzte bost herritan Ibaian kulixkak entzun ditzakezu, edo **koartzak,** kurlinkak, hegaberak eta ibaiertzetako beste hegazti batzuk antzeman. Koldo Biguri

**koartza** hauskara bat agertu zen hilda Falciu herrian, Moldaviako mugan. Berria - Harian

**Koartza** zuria maitasunaren sinboloa da, Perun. Berria - Gaiak

---

## koaternario ik **kuaternario**.

---

## **koba** 1 *iz* kobazuloa.

Harkaitz artean bizi ziren, **koba** eta haitzuloetan. Elizen arteko biblia

**Koba** barruan otoitz egiten zuen debozioz. Askoren artean

Zigoitiko Debako **koba** batean ere indusketak hasi ditu Aranzadik. Berria - Kultura

Onik atera da Baltzolako **kobetan** zortzi ordu harrapatuta pasatu dituen espeleologo bat. Berria - Euskal Herria

Udala isilik egon da orain arte Mairuelegorretako leizea [...] ustiatzeko egitasmoaren inguruan, baina hori aldatzea nahi dute udalerriko hainbat bizilagunek, eta **koba** babesteko plataforma osatuko dute. Berria - Euskal Herria

**Koba** hartako lehenengo partean, suil handi batzuk zeuden horman erdi sartuta. Josu Zabaleta

Mamuak omen daude **koban**. Josu Zabaleta

Gure Euskal Herri malenkonizatuak ere, antzinatea mila **kobetan** altxor gisa gordea, Ama Lur fetixizatu horren irakurketa psikoanalitikoa merezi du. Joseba Zulaika

· **Koba** guztiak erreta daude eta hau da lekurik seguruena. Harkaitz Cano

· Lagun taldean barre egiten zidaten, uniformez jantzita azaltzen nintzelako jazz-**kobetara**. Javi Cillero

*ik* jazz 18.

**2** *koba-zulo* ik **kobazulo**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**mairuelegorretako koba** (3)

---

**kobalto** *iz* gai bakuna, zilarraren koloreko metala, burdina baino gogorragoa, 1492 °C-tan urtzen dena*(Co;* at. z. 27; at. m. 58,9).

Sestaoko Bizkaiko Altzairutegi Trinkoan **kobalto**-60 gai erradioaktiboaz kutsatutako txatarra atzeman zuten joan den astean, asteazkenean. Berria - Euskal Herria

Leiho zabal batetik kaleko zumarren adaburu beltzak ageri ziren ilunabarreko urdin **kobaltoarekin** jolasean. Ramon Saizarbitoria

Leiho zabal batetik kaleko zumarren adaburu beltzak ageri ziren ilunabarreko urdin **kobaltoarekin** jolasean. Ramon Saizarbitoria

---

**kobarde** *izond* koldarra.

Iraultzaile **kobardeak**. Patziku Perurena

Kontzientziak gizatxarra, miserablea, **kobardea** nintzela esaten zidan. Matías Múgica

Ez gerra garaiko nahasmenduan tartean suertatutako norbait; ez pertsona inozoa, **kobardea,** ezinbestean konplize izandakoa. Bernardo Atxaga

Oraingo funtzionariook diplomazia zuriz eta paperez saiheska egiten baitituzte beren azio **kobardeak**. Patziku Perurena

Eta inoiz ez diot barkatuko neure herriari, ijito ohitura **kobarde** hori. Patziku Perurena

---

**kobatxo** *iz* kobazulo txikia.

**Kobatxo** hark 13 metro zituen luzeran, eta gerra karlistatik geldituta ko bala batzuk gordetzen zituen. Berria - Kultura

---

**kobazulo** *(orobat **koba-zulo**)* **1** *iz* haitzuloa, harpea.

Harrezkero, **kobazulo** hura, begirada orotatik urruti, haien maitasun bileren gordeleku bihurtu zen. Martin Anso

Kez eta jendez gainezka zegoen **kobazulo** baten sartu ginen. Jon Arretxe

Alhama ibairaino jaisten den maldan **kobazulo** bat ageri da, "mairuarena". Martin Anso

Sastraken artean, **kobazulo** baten ahoa ikusi baino igarri egiten zen. Joanes Urkixo

**Kobazuloko** korridoreak bihurgunez beteta zeuden, eta igarogaitzak ziren batzuetan, **Kobazulo** honek bobedako zirrikitu guztietarik tantaz tanta erortzen den ur ugaria. Iban Zaldua

Lakioak jartzen zizkien igarabei Amabiturrietako **kobazuloan**. Koro Navarro

Ekaingo **kobazuloaren** erreplika egiteko egitasmoak. Berria - Kultura

Nire babestokia da eta nire "Ali Babaren **kobazuloa"**. Jesus Mari Mendizabal

**Kobazuloaren** oihartzunak ez zuen han erantzun goibelik sortzen, eta ni ere, bizkortuta bi anaien alaitasunarekin, urmaelera sartu nintzen. Bernardo Atxaga

**Kobazuloetako** arbasoen antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

-Demonioak **kobazuloen** bidez sartzen dira gure mundura. Joanes Urkixo

**Kobazulotik** gosetuta ateratzen dira animaliak. Berria - Harian

Basapiztien itzalak, siluetak, aztarnak, oinatzak **kobazuloetan** marrazten. Patziku Perurena

Hiri horietan guztietan unibertsitate katoliko garrantzitsu bat baitago, eta, ele guztietan, unibertsitatetik gertu, deabruak **kobazulo** bat dauka zabalik. Anjel Lertxundi

**2** *irud*

Baina ipurmasailetatik ongi oratuta nauka, eta ahoa nire **kobazuloetan** barneratu du eta, klitorisean emandako mihi-kolpe txiki bat dela medio, kalanbre bat zeharkatu nau oso-osorik. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kobazuloan sartu** (3)
**ekaingo kobazuloaren** (3); **kobazuloaren erreplika** (3); **kobazuloaren sarrera** (3)

---

koberatu ik **kobratu**.

---

**kobertura** *iz* estaldura.

Ikusita nago euskarazko testu batzuetan "estaldura" esaten zaiola **koberturari**. Joxerra Garzia

-Hemen ez zegon ia **koberturarik** eta ez dinat oso ongi entzuten. Antton Olano

---

**kobla** *iz* bertsoa.

Maiatzaren 18, 19 eta 20 an ospatüren beitira Urdiñarben Müsikaren Egünak, karia hortara bertsü edo **kobla** idatzi txapelketa bat antolatzen dü horko "Bil Xokoa" alkarteak. Herria

Amuriza eta Iturriaga **kobla** egiten ziren hasi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Euripidaren **kobla** horiekin aspertzen nauzu, o, Sokrates! Itxaro Borda

Mugi zaitez; bi astopulo marrakari horiek elkar hilen dute! Saulek ez zuen **kobla** hori pozez entzun Itxaro Borda

## **koblaka** *adlag*

Düala laster hiru urte parte hartü züan «Etxahun Saria 99» **koblaka** primakan, eta haur andana eder baten artean bigerren leküa hartü. Herria

---

## **koblakari** *iz* bertsolaria; neurtizlaria.

Xedea aho-mihizko bertsülarigoaren piztea beita Xiberoan, hoberena da **koblakarien** bertset klasikoen erabiltea, hala nola zortziko edo hamarreko txipian (13 silabako neurtitzetan : 7/6) ala handian (18 silabakoetan : 5/5/4/4)... Herria

Xalbador **koblakari** famatüak. Herria

Hortan emanen ditugu Lapurtar **koblakarien** bertsuak. Herria

Lehengo «troubadour» edo **koblakarien** gisa, oinez doatzi herri batetik bertzerat, beren antzerkiak eskainiz. Herria

Behin batean, dorretxekoen afalostea alaitzera **koblakari** gazte bat iritsi zen, Barasoaingo Gutier. Martin Anso

**Koblakari** kurdu eta turkiarrek gordetako tradizio ahozkoa. Fernando Rey

Beñat Mardo, XVIII. menteko barkoxtar **koblakaria**. Herria

---

## **koblakarigo** *iz* bertsolaritza.

Uste duzu Zuberoan **koblakarigoa** deitzen dugun hori berpiztu daitekeen? Berria - Kultura

---

## **koblazaletasun** *iz* koblen zale denaren nolakotasuna.

Liburuko kantu honetan **koblazaletasunaz** ari da egilea. Berria - Kultura

---

## **kobra** *iz* Asiako hego-ekialdeko suge mota, pozoi guruin handi bat duena(*Naja tripudians* etab.).

**Kobra** harrapatzeko lehendabiziko urratsa **kobraren** zuloa aurkitzea da. Gotzon Garate

Gauez sartu txabola batean **kobra** eta lo dauden gurasoei eta haurrei heldu. Gotzon Garate

**Kobrak** ziztatu eta lau bat ordura, harrapatzailearenak egin du. Gotzon Garate

Kraitak kobrari lepondoan ausiki zion baina **kobrak** ere kraitari buztanean heldu zion. Gotzon Garate

**Kobrak,** burua txut, hortzaka egiten zion kriskitin-sugeari; honek, berriz, ahal zuen bezala begiratzen zuen bere burua eta buztanaz erasotzen zion. Gotzon Garate

Hurrengoan **kobra** akabatzen bazuen, ohore guztiekin lurperatuko zuela agindu zien, behar bazen, musika ere joaz. Gotzon Garate

Behin-betiko jauzia egiteko prestatzen ari den **kobra** batek bezala. Jon Alonso

**Kobrak** ere halaxe kulunkatzen dira, beren tximista jaurtitzen, eta beren kulunkara itzultzen berriro. Josu Zabaleta

Orain **kobren** dantzak ikusteko irrika, ia turistek bakarrik izaten dute. Gotzon Garate

Antiojodun **kobra** 1,80-2,20 metro luze izaten da. Gotzon Garate

---

## **kobradore** *iz* kobrazailea, diru-biltzailea.

Autobuseko **kobradoreari** behin eta berriz galdetzen zion ezagutzen ote zuen trikitixan ikasi nahi zuen inor, bezero gabe zebilen aspaldi... Koldo Izagirre

---

## **kobraezin** *izond* ezin kobratuzkoa.

Mailegu ordainketak berandu itzultzen dituztenen eta **kobraezinen** ratioa oso maila apaletan dago. Berria - Ekonomia

Erabat **kobraezina** den zenbait herrialdeen kanpo-zorra barkatzerakoan. Iñaki Heras

---

## **kobraketa** *(6 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan)* *iz* kobratzea. ik **kobrantza**.

Eskubide horien **kobraketa**. Andres Urrutia

Sarbideak berak autoaren kristalari itsatsitako txartela irakurriz egiten baitu **kobraketa**. Berria - Euskal Herria

Baltasar Garzonen iraultza zergaren **kobraketa** batean parte hartzea leporatu zien.

Mesedez, dei ezazu Euskal Herriko edozein tabernatara **kobraketa** itzulian. Koldo Izagirre

---

## **kobrantza** *(15 agerraldi, 6 liburu eta 5 artikulutan)* *iz* kobratzea. ik **kobraketa**.

Bai etxez etxe banatzen zen ikatzaren horniketaz bai haren **kobrantzaz** ere arduratuko omen nintzen. Anjel Lertxundi

Faltsukeria franko eta isilpeko **kobrantza** ugari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Partzuergoak hiru hilero egiten die neurketa eta kontsumoaren araberako **kobrantza**. Berria - Harian

Langileen mugikortasunak eragindako **kobrantza** arazoak. Berria - Ekonomia

Kontsumitzaileen Federazioak udalei eta aparkalekuetako patronalari eskatu die **kobrantza** sistema hori «erabat baztertzeko». Berria - Ekonomia

**Kobrantza** Berezien Bulegoko funtzionario bat. Aingeru Epaltza

---

## **kobratu**, kobra, kobratzen *(orobat **koberatu** g.er.)* **1** du *ad* norbaitek, zor zitzaiona edo hartzeko duena, eskuratu.

Zubiraino ere marea iristen zela argudiaturik, Puyannek hantxe jarri zituen soldaduak zubi-saria **kobra** zezaten. Martin Anso

Berak **kobratzen** baitu tratu horiei dagokien tasa. Karlos Zabala

-Nire partea **kobratu** gabe geratuko nintzateke. Xabier Aranburu

Pierre Foldesek dioenez, **kobratu** gabe egin ditu ebakuntza horiek. Berria - Gaiak

Gabonetako ordainsaria **kobratu** gabe zegoen oraindik. Josu Zabaleta

-Zelan ehun dolar? Normalean erdia **kobratzen** duzue, ezta? Jon Arretxe

Libretista izan ondoren -hilean sei duro **kobratuz-** [...]. Josu Zabaleta

Ez zion ezer **kobratu** nahi izan. Sonia Gonzalez

Langabeziaren ordaina **kobratuz** iraun nezakeela pentsatu nuen. Juan Kruz Igerabide

Legeztatze-tasaren erdia bakarrik **kobratu** zioten, eta beste erdia, batek daki nola, beste erosle baten zorrari gehitu zioten. Jose Morales

Mailegua ez ukatzeaz gain, ez diot korriturik **kobratuko**. Jose Morales

Igual uste zian errenta **kobratzera** zetorkiola. Anton Garikano

Hilero **kobratu** beharreko kupoiak. Monika Etxebarria

Hemen denok berdin **kobratu** behar diagu. Pako Aristi

Gainera, erretretan gutxiago **kobratuko** dutela ohartu dira. Berria - Ekonomia

Udal garbitzaileek beste **kobratu** guran ekin zioten grebari.

Zer **kobratuko** zenukete guk hemen grabatzeagatik? Iñigo Aranbarri

Eta zenbat **kobratu** nahi duzu bi eguneko lanagatik? Matías Mujika

-Zelan ehun dolar? normalean erdia **kobratzen** duzue, ezta? Jon Arretxe

Aizu -kamareroari-, **kobratuko** didazu? Xabier Mendiguren Elizegi

**-Kobra** ezak hemendik -agindu zion Noraren aitak dendaren kargu zegoen mutil gazteari. Anjel Lertxundi

## 2 *ezin kobratuzko*

Bestela balitz, kredituak "ezin **kobratuzkoak"** zirela aldarrikatu beharko zuten, eta horrek, nahitaez, zegokien bankuen akzioen burtsako balioa erortzea eragingo zuen. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dolar kobratu** (3); **euro kobratu** (6); **gehiago kobratu nahi** (3); **kobratu gabe** (18)

**euro gehiago kobratuko** (3); **ezer kobratuko** (3); **zenbat kobratuko** (6)

**kobratzea erabaki** (3); **soldata kobratzea** (4)

**dirua kobratzeko** (3); **kobratzeko asmoa** (3); **kobratzeko aukera** (4); **kobratzeko bitartekari lanak** (4)

**asko kobratzen** (4); **euro kobratzen** (11); **euro kobratzen dituzte** (4); **gehiago kobratzen** (3); **gutxiago kobratzen** (5); **interesak kobratzen** (3); **pentsioa kobratzen** (3); **sarrera kobratzen** (3); **segundoka kobratzen** (3); **zenbat kobratzen** (4); **zentimo kobratzen** (4)

**kobratzera joan** (3)

---

# kobratzaile *iz* kobratzen duen pertsona, bereziki ogibidez, diru-biltzailea.

Tranbiako **kobratzailea** komunista duk, Klausek. Anjel Lertxundi

**Kobratzaileari** pezeta bat, edo bi, eta geroago ogerlekoa ordaintzen zitzaion. Pako Aristi

Bere aitak jotzen zuen bitartean, bera **kobratzailea** zen korroan zegoen jendearen artean. Pako Aristi

**Kobratzaileak** eta gainontzeko bidaiariek jakinarazi didate: ibilgailuan bidaiari judurik balego, jaitsi egin behar du. Urtzi Urrutikoetxea

Zorren **kobratzailetzat** ikusten dute euren burua, zerga-biltzailetzat. Oskar Arana

Aseguru konpainia bateko diru **kobratzailea** zen. Koro Navarro

---

# kobratzar *iz* tamaina handiko kobra.

Dudleyk eta Piersek **kobratzar** pozoitsuak eta gizakiak estutzen dituzten pitoi sendoak ikusi nahi zituzten. Iñaki Mendiguren

---

# kobratze *iz* norbaitek, zor zitzaiona edo hartzeko duena, eskuratzea.

Garabi enpresen **kobratze** datak. Berria - Ekonomia

Tarifak duinduz gero, malgutasun handiagoz jokatuko dugu **kobratze** daten eta gastu osagarrien auzian. Berria - Ekonomia

---

# kobre 1 *iz* gai bakuna, metal gorria, 1084 °C-tan urtzen dena, oso malgua, elektrizitatearen eroale ona(*Cu;* at. z. 29; at. m. 63, 5).

Hango harriek burdina dute eta mendietatik **kobrea** aterako duzue. Elizen arteko biblia

Burdina lurzorutik ateratzen da eta haitzak urtuz **kobrea** lortzen. Elizen arteko biblia

Argi-argi ez zakiat, baina edozerekin egingo zian horrek dirua: **kobrearekin,** puntillekin, xanpainarekin, Bordeleko ardoekin, ganaduarekin... Hasier Etxeberria

Kromoa, **kobrea** eta beruna, horixe dauka Txertetxa belarrak bere zainetan gora eta behera. Hasier Etxeberria

Transformadoreko **kobrea** lapurtu nahi zutela. Josu Zabaleta

**Kobrea** urturik joareak egiteko. Berria - Kultura

Orain mokoka dituzu **kobrezko** bi txanpon direla eta. Karlos Zabala

Amerikar erako sukaldean, **kobrezko** zartagina. Jon Muñoz

**Kobrezko** lanpara zintzilikariaren distirek. Karlos Zabala

**Kobre** gorrizko samovarra aldamenean zeukala. Jose Morales

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itsasontziaren sotoa berriro betetzen zieten bitartean, postako gauzez gainera, gariz eta **kobre** meaz bete ere, astebeteko atsedenaldia hartu zuten. Felipe Juaristi

Gomaz estaliriko bi **kobre** -hari. Juan Garzia

**Kobre** -xafla bat mailupean bezala uspeltzen zela. Juan Garzia

**kobre** -esmaltezko antoisin bat ziapearentzat. Anton Garikano

Hartzak, bada, erreakzio-gaitegitik **kobre** sulfato soluzioa, tanta bat bota heure azido sulfurikoan, eta horra hor erreakzioa abian. Juan Garzia

Ilea **kobre** kolorez tindatu duzula orain ez asko. Eider Rodriguez

*ik beherago* 4. Askoren artean

Kapela berdea atzerantz erorita eta **kobre** -koloreko ile kiribilak harro-harro eginda. Lopez de Arana

Ellenek ezarri zuen brontzezko azken urkila bere ile kizkur **kobre** -kolorekoan. Lopez de Arana

## 3 kobrezko muska tresna.

**Kobre** eta Gaitak. Herria

**Kobreak** dira nagusi : tronpeta, sakso, tronboia, kontrabaza, perkusio eta horiekin bi gaitero trebeak. *Tribal poursuite* taldea ( **kobre** eta perkusio). Herria

## 4 *kobre-kolore* *izond* ik **kobrekara.**

Hodei **kobre** -kolore bitxi batek estalia ikusi genuen ostertza. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
kobre kolore (3); kobre koloreko (7); kobre koloreko ile (3)
kobrezko hari (3); kobrezko ontzi (4); kobrezko txanpon (4)

---

## kobrekara *izond* kobre-kolorea.

Kontu egiten zuen, eta atsegin hartzen, Raduan Husaini bizar **kobrekaratik** heltzen ziotela, eta labea bete garreraino herrestan eramaten zutela, han errauts doi bat bihurtzeko. Patxi Zubizarreta

Neskaren hazpegi eder **kobrekara** laxatu egin zen. Patxi Zubizarreta

**Kobrekara** aurpegiko larruazala. Patxi Zubizarreta

---

## kobreztatu *izond* kobrezko xafla batez estalia.

Esan areago zerraldoaren zarata zela arrebak urratu duenean, eta bere presondegiaren burdinazko gontzen kirrinka, eta haren ahaleginak sotoko arkupe **kobreztatutik** atera nahian! Koro Navarro

Eguzki beteak dirdiraka zeuzkan banderaren gain-gaineko egurrezko arranoaren moko eta atzapar **kobreztatuak** . Anjel Lertxundi

---

## kobro *iz* kobratzea. ik **kobrantza; kobraketa.**

Garbiketa, argindarraren fakturen **kobroa,** konponketak edo arazo sozialak kudeatzeko. Berria - Euskal Herria

---

## koda *iz* musika lan baten azken zatia; literatura lan baten azken zatia.

Horrela, batzuek jatorrizko bertsioan ageri ez ziren egitura-elementuak erantsi dituzte (zubiak, interludioak, **kodak** ). Berria - Harian

"Arimaren kontuak" du izena, eta hiru ekitaldi eta **koda** bat ditu osagarri. Anjel Lertxundi

Eutsi egin dio, **koda** egoki batek azken orduko arazo asko konpon baititzake muntaketan. Anjel Lertxundi

**Koda** bat jar dezake inguratzen den irakurleak. Berria - Kultura

---

## kodaina *iz* sega.

Eskilara zarratuak eta erripeak ziran eta alboan, trabeseko haga batean, **kodainak** -eta egoten ziran eskegita. Xabier Amuriza

Goiori tresna ikaragarria iruditzen zitzaion **kodaina** . Joseba Sarrionandia

Zer zehatza **kodainaren** mugimendua, zer txukuna belar moztuaren etzankera. Joseba Sarrionandia

---

## kode *(991 agerraldi, 92 liburu eta 255 artikulutan; orobat **koda** g.er.)* **1** *iz* informazio jakin bat irudikatzeko eta igortzeko helburua duen sinbolo sistema; ikurretan eta ikur multzoetan egituraturiko erlazio sistema zehatza. ik **kodigo**.

Munduan argi egiteko bi **kode** daude, hitzarena eta zenbakiarena, eta bi argibide horiek gero eta urrunago daude elkarrengandik. Anjel Lertxundi

Entzuleak ez badu hiztunaren hizkuntza ezagutzen, horren esanak ez ditu inola ere interpretatuko, **kode** ezberdinak erabiltzen dituztelako. Iñaki Arranz

Bertsolariak eta entzuleak **kode** bera darabilte batzuetan (edo ia bera), eta beste batzuetan, berriz, sekulako amildegia ageri da bataren eta besteen **kodeen** artean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hizkuntza, **kode** batek arautua agertzen da; baina **kode** hori bera, bere aldetik, arau idatzi bat da, erabilera zorrotz bati -ortografiari- lotua dagoena. Isabel Arrigain

Non eta Norekin gauden, **kode** bat edo beste erabiltzen dugu. Luis Elberdin

Horrekin, eredu bat, ideologia bat, **kode** bat eta mezu bat transmititzen ari gara, eta ikasleek eta seme-alabek hori guztia bereganatzen dute. Luis Elberdin

**Kodea** tekleatzen hasi zen Perrette. Jon Muñoz

Espainiako Enbaxadaren **kode** zifratuak eskatu zizkion Asensiori. Edorta Jimenez

Logika baten arabera eraiki ahal dira hitzak zifratzeko **kodeak** . Iñaki Arranz

Honek eskatu dizkio [...] ordenagailuetako **kodak** . Herria

Azpian ageri den telefono zenbakiak Gipuzkoako **kodea** du. Iban Zaldua

Neska bankuko web orrian sartu eta Mutilaren jaiotza data saiatuko du **kodean** . Antton Olano

**2** (izenondoekin)

Konfiantzazko hiruzpalau lagunek ezagutzen genuen **kode** sekretu bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Jadanik bai baitzeukan bere **kode** pribatua, bere hizkuntza sekretua. Anton Garikano

Zein une aukeratu eta une horren definizioa ere, tradizioz Andre Mariaren bost gogo-aldarterekin egokitzen ziren bost une bereizten zituen **kode** erretoriko batean oinarrituta erabaki dira. Josu Zabaleta

XVIII. mendearen amaieratik aurrera pastoralen **kode** dramatikoa gailurrera iritsi zela. Berria - Kultura

**Kode** ikonikoak berak ere hitzezkoarekin loturik baizik ez direla existitzen. Josu Zabaleta

**Kode** genetikoa dezifratzea. Juan Garzia

Arimarako atea zabalduko dion **kode** ezkutuaz jabetu nahirik. Juan Kruz Igerabide

Ate aurrean gelditu naiz, itxita zegoen, **kode** digital batez. Joseba Urteaga

**Kode** alfanumeriko bat izan daitekeena irakurtzen. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagi gisa)

**Kode** -sistema bereziak. Josu Zabaleta

**Kode** -arauen idazle nagusia. Jenaro Garate

Giza gorputza hautemateko teknika eta **kode** -multzo oso baten artean. Xabier Arregi

Lehenengoak Thomas **kode** -hitza zuen polizia-operazio bat kontatzen zuen. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntza **kode** guztiak berdinak dira izaeraz, eta mailaka desberdintzen dira. Isabel Arrigain

Kode horietako batzuk ia unibertsalak izango dira (pertzepzioari dagozkionak), beste batzuk nahiko naturalak oraindik, baina gizarteak itxuratuagoak (analogia- **kodeak,** adibidez)."Ikono bidezko izendapen **kode"** kontzeptuarekin. Josu Zabaleta

Nazien kontzentrazio esparruan egin ez dizuten marra- **kode** tatuaia ezabatu nahian bezala. Eider Rodriguez

Elikagaien barra- **kodea** irakurritakoan. Edorta Agirre

Aitak halako gertaerak kontatzen zizkigunean, bere arimaren sarrera-**kode** ezkutuaren zati bat erakusten zigun. Juan Kruz Igerabide

Sexu-**kode** moralak erlatibizatu beharra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Morse **kode** baten antzekoa zen. Harkaitz Cano

Erabiltzaile-**kodea** eta giltza pertsonala lortzea ez da oso gauza zaila. Antton Olano

Filadelfiako eskualde-**kodea** zeukan. Oskar Arana

**5** lege bilduma ordenatu eta metodikoa.

Herrialde batean usadio ugari direnean, errazagoa da denak **kode** batean idaztea. Iñaki Iñurrieta

Lege frantziar guztiak **kode** bakar batean biltzen saiatu zen. Juan Martin Elexpuru

Israeldar legeriaren hurrengo piezak, adituek "Itunaren **Kode** " deitzen dutenak, Hamurabiren **Kodearekiko** duen zorra erakusten du. Iñaki Mendiguren

Frantziako **Kode** Zibilaren lehen proiektua. Andres Urrutia

**Kode** Zibilaren idatzaldiak. Andres Urrutia

Auzipetze bikoitza jasan zuten, **kode** militarra eta zibila aplikatu baitzitzaien. Berria - Mundua

1900ean aldatu zen Espainiako **kode** penala. Pello Salaburu

**Kode** Penaleko 270 eta hurrengo artikuluak. Xabier Mendiguren Elizegi

Hartara, **Kode** Zibila, Zigor Kodea, Merkataritzako **Kodea** eta Prozedura zibil zein kriminaleko **kodeak** Napoleon Bonaparteren armadak hedatu zituen Europan zehar. Andres Urrutia

**6** arautegia.

**Kode** deontologiko guztiak urratu dira. Txema Ramirez de la Piscina

Pro-Tour Ligako taldeek sinatutako **kode** etikoa onartu du Tourrak. Berria - Kirola

Lurralde Kolektibitateen **kodearen** L1112-16 artikuluak hau dio: […]. Berria - Euskal Herria

Enpresa batek jokabide **kode** bat onartzen duela. Iñaki Heras

Lan **Kodea** erabat hausten ari dira. Berria - Harian

Lan-baldintzen **kode** edo estandarrei buruzko proposamenen benetako gabeziak aztertu. Iñaki Heras

Gizarte harremanetarako **kode** estu eta zehatzak zituen gizatalde baten ispilu dira gutunak. Jon Muñoz

Telebista Edukietatik Haurrak Babesteko **Autoerregulazio** Kodea Berria - Harian

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Cambacérès kontsulak, urte batzuk direla, halako **kode** -proiektua argitaratu zuen. Andres Urrutia

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Augustoren lege hori lege-**kodea** zen zehazkiago, gai hartaz egin zitezkeen araudi guztien gorputz sistematikoa. Iñaki Iñurrieta

Lege-**kode** arrazionalizatuek. Iñaki Mendiguren

Zigor **Kode** berria Espainian PPren gobernua agintean zegoenean onetsi zuten. Berria - Euskal Herria

Biziaren bukaerari buruzko medikuen deontologia **kodea** eta osasun **kodea** aldatuko ditugu. Berria - Euskal Herria

Portaera **kode** bat adostu dute denen artean. Berria - Gaiak

«Borondatezko» jarrera **kode** bat ezartzea proposatu du Bruselak. Berria - Mundua

Hango parlamentuak bere gaztigu **koda** edo legediarekin. Herria

Ordu arte Mendebaldeko erresumen legeria barbaroen tribu-**kode** zaharren kristau-eranskin gisako bat izan zen. Iñaki Mendiguren

Biktimekiko Elkartasun **Kode** Etikoaren helburua. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**biktimekiko elkartasun kode** (5); **elkartasun kode** (6); **elkartasun kode etikoa** (4); **espainiako kode zibila** (3); **espainiako kode zibilaren** (7); **frantziako kode zibilaren** (6); **hizkuntza kode** (5); **kode baten bidez** (3); **kode berean** (5); **kode berria** (13); **kode berriak** (5); **kode berrian** (4); **kode berriaren** (3); **kode deontologiko** (3); **kode deontologikoak** (3); **kode etiko** (4); **kode etikoa** (20); **kode etikoa egitea** (3); **kode etikorako** (3); **kode genetikoa** (6); **kode genetikoan** (4); **kode irekiko itzulpen** (3); **kode jakin** (3); **kode penala** (5); **kode penalak** (4); **kode penalean** (9); **kode propioa** (3); **kode sekretu** (4); **kode sekretu bat** (3); **kode zibil** (19); **kode zibil baten** (5); **kode zibil berriak** (3); **kode zibila** (22); **kode zibila aldatuko** (3); **kode zibila aldatzeko** (4); **kode zibilak** (9); **kode zibilaren** (44); **kode zibilaren aldaketa** (4); **kode zibilean** (7); **legeen kode** (3); **zigor kode** (18); **zigor kode berria** (11)

**azalaren kodea** (7); **barra kodea** (6); **iturburu kodea** (5); **justinianoren kodea** (4); **kodea alda** (3); **kodea aldatu** (5); **kodea aldatzea** (3); **kodea aplikatu** (3); **kodea betetzen** (3); **kodea erabiltzen** (4); **kodea onartzea** (3); **kodea sinatu** (3); **lan kodea** (9); **marco polo kodea** (6); **morse kodea** (4); **napoleonen kodea** (7); **polo kodea** (6); **polo kodea aplikatu** (3); **teodosiar kodea** (3); **zigor kodea** (38); **zigor kodea alda** (3); **zigor kodea aldatu** (4)

**espainiako zigor kodeak** (3); **jokabide kodeak** (8); **lan kodeak** (3); **legeen kodeak** (3); **zigor kodeak** (19); **zigor kodeak jasotzen** (3)

**espainiako zigor kodean** (6); **zigor kodean** (20); **zigor kodean egindako** (5)

**zigor kodearekin** (4)

**espainiako zigor kodearen** (7); **kodearen aldaketa** (7); **kodearen arabera** (12); **kodearen arabera epaitutako** (3); **kodearen erreforma** (9); **kodearen erreformaren** (3); **lan kodearen** (3); **zigor kodearen** (42); **zigor kodearen aldaketa** (7); **zigor kodearen arabera** (9); **zigor kodearen erreforma** (7); **zigor kodearen erreformaren** (3)

**barbaroen legeen kodeetan** (4)

**zigor kodeko** (13)

---

## kodeatzaile ik **kodetzaile**.

---

## **kodedun** *izond* kodez hornitua dena.

Zelula bizi miragarri konplexuak eta desberdinak, bakoitza bere gene **kodedun** DNA eta guzti. Jenaro Garate

---

## **kodegin** *iz* kodeak egiten dituena.

Bertan, **kodegin,** lau legelari hauek.. Andres Urrutia

---

## **kodegintza** *iz* kodeak egitea.

Portalisen hitzaldia, XIX. mende hasierako **kodegintza** bidean. Andres Urrutia

Esan beharrik ez badago ere, **kodegintza** berriaren helburuak bide irekitzetik datoz. Andres Urrutia

---

## **kodeina** *iz* opioaren alkaloidea, sorgortzailea, eztula jabaltzeko erabiltzen dena.

Horiek egiteko opioaren landaretik ateratako gaiak morfina, **kodeina** edo hidromofona, kasu erabiltzen dira. Berria - Gaiak

TCH-ren 20 mg-ko dosiak **kodeinaren** 120 mg-koaren eragin berak ditu. Berria - Harian

Behin eta berriro gertatu zen hori, harik eta norbaiti **kodeina** ematea bururatu zitzaion arte. Josu Zabaleta

---

# **kodeketa** *iz* kodetzea.

Ez da kasualitatea bere **kodeketa** -ahalegin hori ohiz kanpoko une historiko horrekin bat etortzea. Santiago Iruretagoiena

Eszena-antolamenduaren **kodeketa** semantikoetan oinarrituta. Josu Zabaleta

Era askotako jakintza espezializatuak izatea eta indar handiko **kodeketa** sinbolikoz baliatzea eskatzen du. Josu Zabaleta

Ikuspenean **kodeketa** gertatzen bada ere, **kodeketa** hori ezin izan daiteke irudiaren konnotazioei dagokien era bereko **kodeketa** . Josu Zabaleta

---

# **kodekologia** *iz*

Datatzeko teknikak, **kodekologia** ezagutzen ditut. Berria - Kultura

---

# **kodetu**, kode(tu), kodetzen *(85 agerraldi, 16 liburu eta 12 artikulutan)* **1** du *ad* kode baten arabera taxutu. ik **kodifikatu.**

Hor lege inperial batua **kodetu** zuten agintari inperialek. Iñaki Mendiguren

Legeria zibila **kodetzeko** premia. Andres Urrutia

Informazio guztiak bezala, **kodetuta** dago hau ere, hitz horri semiologian eman ohi zaion zentzuan zehazki ez bada ere. Josu Zabaleta

Alde askoko oinarri baten gainean **kodetu** ziren nazioarteko diru- eta merkataritza-harremanak. Koro Navarro

Jakintza **kodetzeko** eta era anitzeko praktika teoria aldaezin bihurtzeko. Santiago Iruretagoiena

Ia hiru mende behar izan zirela [...] "théâtre à l'italienne" izenarekin, nagusi izan zen antzerkiko irudikapen modua nahiko finko **kodetzeko,** eta antzerkiko ilusioa **kodetzeko** batez ere. Josu Zabaleta

Irakaskuntza **kodetzeko** . Berria - Mundua

Geneek proteinak **kodetzen** dituzte, eta gene batek proteina desberdinak **kodetu** ditzake. Berria - Gaiak

Proteina baten baitako aminoazido-sekuentzia, jakina denez, proteina hori determinatzen duen genearen baitako nukleotido-sekuentziak **kodetzen** du. Juan Garzia

Kamerak bidaliriko seinalea **kodetuta** zegoen. Berria - Gaiak

Testuak finkatu behar dira, **kodetu** eta sistema informatiko berezia garatu. Berria - Kultura

## **2** (era burutua izenondo gisa)

Hizkera **kodetuan** idatzi ote zituen Grosrouvrek bere demostrazioak? Jon Muñoz

Irudi mentala ez da, beraz, errealitatearen halako barne "argazki" gisako bat, errealitatearen irudikapen **kodetu** bat baizik. Josu Zabaleta

Errealitateari buruzko jakintza forma **kodetuan** bideratzen du. Josu Zabaleta

Irudiak zenbateraino betetzen dituen izatez erabat historikoak ( **"kodetuak"** dio Oudartek) diren konbentzioak. Josu Zabaleta

Irango Inteligentzia eta Segurtasun Ministerioak Bagdaden duen buruari jakinarazi ziola AEBak Irango zerbitzu sekretuen komunikazio **kodetuak** irakurtzen ari zirela. Berria - Mundua

---

# **kodetzaile** **1** *iz izond* kodetzen duena.

Ezagutze-gune hori gene segmentu batek determinatzen du, segmentu **kodetzaile** edo exon deritzonak, eta hari dagokio inertzia hori. Juan Garzia

Ez dagokie genearen segmentu ez- **kodetzaile** edo intronei. Juan Garzia

Baina, kolorea sortzeko, beharrezkoa zen V4ko zelula kolore- **kodetzaileetan** konparatu edo korrelazionatzea. Xabier Olarra

## **2** kodetzen duen pertsona.

Leon Battista Albertik, perspektibaren **kodetzaileetako** bat izan zen Berpizkundeko margolari eta matematikari ospetsuak. Josu Zabaleta

Hala ere, luzera, patua jator portatzen da **kodetzaileekin** . Iñaki Mendiguren

---

# **kodetze** *iz* kode baten arabera taxutzea.

Erromatar Legearen **kodetzerantz** egindako lehen urratsa. Iñaki Mendiguren

Napoleonek frantziar legearen **kodetze** egin berria sartu zuen bere inperioko italiar, flandriar, alemaniar eta poloniar lurraldeetan. Objektuak eta gertakariak handik hilabete edo urtetara ezagutzeko gai izateak askoz ere **kodetze** -sistema landuagoa eskatzen zuen. Iñaki Mendiguren

Demostrazioen **kodetzeari** buruzko beraren hipotesia. Jon Muñoz

---

# **kodex** *(8 agerraldi, 4 artikulutan)* *iz* antzinako eskuizkribu mota, liburu modernoen antzera taxutua.

**Kodexak** : Erdi Aroko garai ilunena gainditzen hasi zenean, erregeak, jauntxo berriak alegia, haien boterearen oinarria eskuratzen ahalegindu ziren, eta testu idatzia baliatu zuten horretarako. Berria - Kultura

Erdi Aroko **kodex** erlijiosoetako ilustrazioak euskal artearen historiako katebegitzat hartu ditu, «zuzenean erromanikoko artearekin lotura egiten du». Berria - Kultura

1481-1505eko *Libro de los Bollones* **kodexa** dago ikusgai: errege aginduak, agiri administratiboak eta probintziaren eskumenei zegokien dokumentua biltzen zituen. Berria - Kultura

Bi multzotan sailkatu ditu partiturak: osorik dauden **kodexetan** daudenak, alde batetik; eta orri solteak, bestetik. Berria - Kultura

---

# **kodifikatu**, kodifika, kodifikatzen *(11 agerraldi, 7 liburu eta 2 artikulutan)* **1** du *ad* kodetu.

Irratiz igorri behar dituzten mezuak aldez aurretik adosturiko liburu jakin bateko orrialdeen arabera **kodifikatzen** dira. Edorta Jimenez

Schleicher izan zen zatizko ikerketen emaitzak **kodifikatzen** ahalegindu zen lehena. Isabel Arrigain

Diseinuak besterik ez ziren, **kodifikatutako** arauak, testu ilunak. Xabier Aranburu

PIK3CA genea entzima jakin batzuk **kodifikatzen** dituzten geneen familiakoa da. Berria - Gaiak

## **2** (era burutua izenondo gisa)

Adierazpen-sistema **kodifikatu** eta normatibo baten bidez. Xabier Arregi

Gerora, bakarka hasitakoan, erakutsi du estilo **kodifikatu** baten barruan arituta ere, nortasuna duela Berria - Kultura

---

**kodifikatzaile** *iz* kodetzailea.

Tradizioz helenikoa zen eta tenplu greziarraren irudi idealean gauzatzen zen arkitektura dintelduaren **kodifikatzaile** handia izan zen Vitruvio. Santiago Iruretagoiena

---

**kodigo** *(15 agerraldi, 8 liburu eta 5 artikulutan)* *iz* kodea.

Inork ere ez digu zalantzan jarriko badela naturaren kausa bat, zientziaren forma bat eta bizitzaren **kodigo** bat. Imanol Unzurrunzaga

Espainiako legediari atxikiz, 2301 izeneko **kodigoaren** pean egiten ditu bere esportazioak Nigeriara eta beste herri batzuetara. Hasier Etxeberria

**Kodigo** horren esanahia argia da: produktu horrek ez du balio gizakiak elikatzeko eta horregatik, ez dauka inolako kontrolik iragan beharrik. Hasier Etxeberria

1835ean argindarrezko telegrafoa asmatu zuen [Morsek], eta handik 3 urte, bere izena gorde duen alfabetoaren **kodigoa** . Pello Zabala

**Kodigo** sekretu baten funtzioa dauka kasu honetan. Ramuntxo Etxeberri

Ez zutela sekula halako bikoterik ikusi, **kodigo** propio eta pribatu baten jabe, mundu estralurtar batean bizi zirela zirudien. Eider Rodriguez

Lan **kodigoaren** L221-5. artikulua. Herria

**Kodigo** penalaren 225.15 artikuluaren arabera. Herria

---

**kodize** *(14 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan)* *iz* kodexa.

Sutan erre ziren palimpsestoak eta **kodizeak,** baina sutearen bihotzean, errauts artean, ia kalterik gabe iraun zuen *Civitas Dei*aren hamabigarren liburuak. Juan Garzia

220a ez dator Asisko **kodizean** . Askoren artean

Grekerazko **kodize** batean gorderik. Juan Garzia

**Kodize** -sail bat aurkitu zuen leku horretako liburutegian, eta **kodize** horien artean hainbat altxor miresgarri, esaterako: Quintilianoren *Institutiones oratoriae* izenekoa edota Zizeronen zortzi diskurtsori egindako iruzkinak. Santiago Iruretagoiena

---

**kodizia** *iz* diruzalekeria.

Handiustea, **kodizia,** haragikeria, hira, jatunkeria, inbidia eta nagikeria izendatu zituen Tomas Akinokoak bekatu nagusi. Berria - Kultura

---

**kodro** *iz* Atenasko errege Kodrok bezala jokatzen duen pertsona.

Argi dago zaila litzatekeela **kodroak** eta kurtzioak kondenatzea; ez dago soberanorik beragatik bere burua hil duen gizon baten familia zigortuko duenik. Juan Martin Elexpuru

---

**koefiziente** **1** *iz* monomio bat biderkatzen duen zenbakia edo parametroa.

P aldagai bat baino gehiagokoko polinomioa da, eta haren **koefizienteak** zenbaki osoak edo arrazionalak dira. Jon Muñoz

Tanta bat, ordea, ez da halako zenbaki-**koefiziente** zehatza jasotzeko moduko unitate zehatz inolakoa. Juan Garzia

A mailako hiru estropada falta direla, Arkotek 22ko **koefizientea** du, perfekzioa. Berria - Kirola

**2** indizea, tasa.

Bihurdura-problemak, igurzketa-**koefizientea,** altzairuaren bibrazioaren eraginezko nekadura eta abar, horiek guztiak nerabiltzan nik orduantxe gogoetan. Joxe Austin Arrieta

Giza giltzadura askoren marruskadura-**koefizientea** 0,005 eta 0,02 bitartekoa da. Irene Aldasoro

Adibide gisa, alde askoko garapen-banku baten gaineko kreditu baten arrisku-**koefizientea** %20 da, higiezinen kreditu batena %50. Koro Navarro

Kupoari dagokion kopurua kendu ondoren, **koefiziente** bertikala ezartzen du Ekarpenen Legeak: diru guztiaren %70,44 Jaurlaritzak eskuratzen du, eta gainerakoa aldundien esku geratzen da. Berria - Ekonomia

Gobernuari eman beharreko dirua, berriz, **koefiziente** horizontalak zehazten du, eta aldakorra da. Berria - Ekonomia

Arabararen ekarpen **koefizientea** %16,74koa da, Bizkaiarena %50,28koa eta Gipuzkoarena %32,98. Berria - Ekonomia

Zenbatekoa kalkulatzen da bi osagai biderkatuta: katastroaren balioa eta tipo edo zerga **koefizientea** . Berria - Euskal Herria

**3** ***adimen koefiziente*** adimen kozientea.

Hizkuntza arloko AKan (adimen-**koefizientea)** 52 besterik ez baitzuen lortu. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adimen koefizientea** (3); **hastapeneko koefizientea** (3)

---

koerlatibo ik **korrelatibo**.

---

**koertzio** *iz* hertsatzea, hertsadura.

Kultur **koertzioak,** oro har, gailendu egin zaizkie geure-geureak ditugun grinoi, neurotikoen kasuan izan ezik. Markos Zapiain

---

**koexistentzia** **1** *iz* aldi berean izatea edo existitzea.

Ez diten **koexistentzia** baketsua aipatu. Jon Muñoz

Osagai heterogeneoen arteko justaposizioa, **koexistentzia** edo elkarreragitea. Xabier Arregi

Matematikoki kalkulatzen zitenan zorira hartutako pertsona batek bizirik irauteko zer probabilitate zuen; eta hainbat lagunen **koexistentziaren** probabilitatea ere berdin. Jon Muñoz

Baldintza batekin: haien existentziak **koexistentzia** izan behar du. Jon Muñoz

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Denboran portuaren eta herriaren artean izaniko **koexistentzia** moduak ikertu behar dira. Berria - Kultura

Enuntziatuen arteko **koexistentzia** -mota guztiak, estrategia diskurtsibo guztiak ez dira modu berean ahalezkoak. Xabier Arregi

Ez dago enuntziaturik bere inguruan ez duenik **koexistentzia** -arlo bat. Xabier Arregi

Enuntziazio-funtzioa gauzatzen den **koexistentzia** -eremua. Xabier Arregi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
enuntziatuen arteko koexistentzia (3)

# **koexistitu**, koexisti, koexistitzen da *ad* aldi berean izan.

Kausa hori egintzazkoa bada, ondorioa ere nahitaez bere egintzazko kausarekin **koexistitzen** da. Xabier Kintana

Hemen ez zaitu kezkatu behar Jainkoak (askatasunean) mundua sortarazi duen edota berau, filosofoek uste dutenez, nahitaez Harekin **koexistitzen** den pentsatzeak. Xabier Kintana

Adin berean hiltzen bagara, geure bizitza osoan **koexistituak** izango gaituk. Jon Muñoz

# **kofadura** *iz* hutsunea, hutsartea.

Denda osoa, goi eta behe, liburuz gainezka zegoen, liburu-metak bazter guztietan: apaletan, lurrean, leihoetako **kofaduretan** (kanpoko argia sartzea galarazteraino), goiko pisura zeramaten eskailera-mailetan, [...]. Anjel Lertxundi

# kofesategi ik **konfesategi**.

# kofesatu ik **konfesatu**.

# kofesatzaile ik **konfesatzaile**.

# kofesio ik **konfesio**.

# kofesor ik **konfesore**.

# **kofia** *iz* kapela.

Emakumeak **kofia** bat zeukan jantzirik, eta haren aurpegia estua eta luzanga zen. Jose Morales

Oso emakume garaia zen; **kofia** bat zeraman buruan, etxeko tindagaiez margoturiko xingolaz apaindua. Jose Morales

Dena beltzez jantzita baina mantala eta **kofia** ezin zuriagoez hornitua. Joxemari Iturralde

Buruan zeraman **kofia** moduko bat. Joxemari Iturralde

Buruan, **kofia** estu aparteko eder bat. Josu Zabaleta

# **kofinantzatu**, kofinantza, kofinantzatzen du *ad* elkarren artean finantzatu.

Guztira, 124 programa aurkeztu zituzten beste hainbeste udalerrik, eta, behin aukeraketa eginda, horietako 68 **kofinantzatuko** ditu EAEko gobernuak, 2004 eta 2009 urteen artean. Berria - Ekonomia

# kofoi ik **kofoin**.

# **kofoin** *(orobat **kofoi**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kofoin** agertzen da)* *iz* erlauntza, erle ontzia.

**Kofoin** gorri batean txilintx bi medaila eder. Itxaro Borda

Gutarik batek erletan gostu izanez badu hitzordua Uruguay-ko jaun batekin 900 erle **kofoin** dituena. Herria

Gure gau hormatu eta ke urrineko bideen aldean, boteredunek beren gelak, erle **kofoin** gerizatuen antzera, aire tepo artifizialez hanpatzen zituzten. Itxaro Borda

"Bertsuzaleen elkartea" zinezko bertsuaren erle **kofoia** bilakatua da: 590 000 euroko buxetarekin, biltzen ditu 1700 bazkide, horietan 143 gazte partikularrak eta 45 elkarte. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
erle kofoin (5)

# **kofradia** **1** *iz* arrantzaleen elkartea.

Bermeoko **kofradiako** presidentearen arabera, orain bi asteazken 400.000 kilo sartu ziren portura. Berria - Ekonomia

Vigoko **Kofradiako** patroi nagusia. Berria - Mundua

**Kofradiako** medikua eta marinel gihartsua ahaideak ziren. Aritz Gorrotxategi

**Kofradien** plateamendu teorikoa, beraz, guztiz demokratikoa zen: arrantzaleen barruko funtzionamendurako ezin hobea. Markos Zapiain

**Kofradiaren** araudia. Markos Zapiain

Hondarribiako mareanteen **kofradiako** artxiboaren zerrendan. Iban Zaldua

Gipuzkoako arrantzaleen **kofradien** konfederazioko Esteban Olaizola lehendakariak.

**2** anaidia.

Kristoren Odolaren **kofradiako** penitent batzuk ari baitziren bizkarra lizifrinaz zehatzen eta zafratzen. Joan Mari Irigoien

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren **Kofradiak** zaindu, mantendu eta artatu du, mendeetan zehar, santutegia. Berria - Kultura

Ezpeletako herriak eta bereziki Biperraren **kofradiak**. Herria

Monasterioetan, unibertsitateetan, gremioetan eta **kofradietan** ikasketa-antolaketak taldea zuen oinarritzat. Askoren artean

René Hargous, 66 urteko Baiones ezagutua, Baionako xingarraren **kofradiaren** presidenta. Herria

· Clavariesa: Valentzian emakumezkoen **kofradia** bateko lehendakaria Sarraski-jaleen **kofradia** ni gabe egoten ahalko duk istant batez. Josu Zabaleta

**3** kofradiaren egoitza.

Ez nintzen tabernetan sartzen, deskarga amaitutakoan baforean gelditzen nintzen makinistarekin **kofradiara** joan gabe gosaritara. Koldo Izagirre

Gero portura joan zen **kofradiako** tabernan bazkari legea egitera. Migel Angel Mintegi

Amorruz kentzen genituen **kofradiako** zutabean ageri ziren txatal haiek, euskal patroiak esku hartu behar zuela justizia sozialean, nazioartekotasunak euskal izatearen hondamena zekarrela, guretasuna erdaldundu nahi zutela jainkogabeek. Koldo Izagirre

**4** (hitz elkartutetan bigarren osagai gisa)

Arrantzale-**kofradiei** eman beharreko kalte-ordain gehienak ordaindu dituztela esan zuen atzo Maria Teresa Fernandez Espainiako Gobernuko presidenteordeak. Berria - Gaiak

Artista-**kofradia** osatzen zuten gainontzeko kide xelebreak. Fernando Morillo

Gero, jauregi zaharraren ondoan, biper-**Kofradiaren** biltzar nagusia. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrain saltsakiaren kofradiak** (3); **biper kofradiak** (3); **itsas gizonen kofradiak** (4); **xingarraren kofradiak** (3)

**bermeoko kofradiako** (4)

**bizkaiko kofradien** (4); **gipuzkoako kofradien** (11); **gipuzkoako kofradien federazioko** (6); **gipuzkoako kofradien presidenteak** (3); **kofradien federazioko** (8); **kofradien ibilaldia** (3); **kofradien presidente** (3)

**gipuzkoako kofradietako** (7); **kofradietako presidente** (3)

---

# kofraje *(corpusean **kofraia** eta **kofraja**)* *iz* kofratzea.

Gibelean, ezkilaren **kofraja** prest izaki balenka batekin zilatzen dute labea eta purrustan ateratzen da nahasketa sutan hiru minuta inguruz betetzen da **kofraia** . Herria

---

# kofratzaile *iz* kofratze lana egiten duen langilea.

Peoi lana aurkitu eta denborarekin esperientzia hartu ostean **kofratzaile** postuetan-edo diharduten pertsonak ere badaude Berria - Ekonomia

---

# kofre *iz ipar* ibilgailuetako matelategia.

Beren kotxearen **kofrean** gakotu ninduten. Ramuntxo Etxeberri

Berebileko **kofrea** ezkaratzeko ateari buruz itzuli zuten, deskarga errexteko. Eneko Bidegain

Barazki eta poalla saltzaileak beren autoak deskargatzen segitu nituen: **kofreak** espaloira husten zituzten, piperrak, tomate hirotuak, arrautza sailak, [...]. Itxaro Borda

· Jarlekuaren azpiko **kofretik** kaskoa atera zuen. Aingeru Epaltza

---

# kofretxo *iz* tamaina txikiko kofrea.

Kaskoa jarlekuaren azpiko **kofretxoan** sartzen ari zen motorraren gidaria. Aingeru Epaltza

---

# kogenerazio *iz* bi energia mota batera sortzea.

Gainerakoa, **kogeneraziora** edo elektrizitatea eta energia termikoa ekoiztera bideratuko ditu. Berria - Ekonomia

---

# kognitibismo *iz* kognizioa zientifikoki azter daitekeela uste duten teoria psikologikoen multzoa.

Filosofia analitiko anglosaxoiak konputagailuen adimen artifizialaren eta gizakiaren adimen naturala ere aztertu ditu: hasieran, Gilbert Ryle eta Wittgensteinek Descartesen gogamen pribatua kritikatu zuten gogor [...] eta ondoren, Noam Chomsky-ren linguistikak eta **kognitibismoak** bultzaturik, konputagailuen eta adimenaren semantika. Baliteke hurbilketa hori zenbaiti eskandaluzkoa iruditzea, **kognitibismoaren** (eta, horrenbestez, antipsikoanalisiaren) leku gorenetako batetik, MIT-etik [...] abiatu baitzen, orain dela hamarren bat urte, irudi mentalen azterketa. Askoren artean

---

# kognitibista **1** *izond* kognitibismoari dagokiona.

Zientziaren Filosofiaren ikusmolde **kognitibistak** (psikologiaren, neurofisiologiaren zein beste natur zientzien metodoak eta emaitzak erabiliz, hainbat filosofok proposatu duten bidetik: P. Churchland, P.M. Churchland, P. Thagard, R. Giere, edo P. Kitcher) [...]. Askoren artean

Arazo horrek psikologia konduktistaren barruan eskola **kognitibistaren** sorrera ekarri zuen. Askoren artean

Teoria **kognitibistak,** [...], konstruktibismoa dute oinarrian: pertzepzio oro, epai oro, ezagutza oro, eraikuntza da, modu orokorrean, hipotesiak eta zentzumen-organoek emandako datuak alderatuta egina. Josu Zabaleta

Psikologia **kognitibistaren** sortzaileetako bat. Josu Zabaleta

Dagoeneko bada [...] irudiari buruzko literatura **"kognitibista"** zabal bat, irudi artistikoari buruzkoa gehienbat, baina "psikologia kognitiboaren" jakintzaren garapen gisara aurkezten da. Josu Zabaleta

Arazo horrek psikologia konduktistaren barruan eskola **kognitibistaren** sorrera ekarri zuen. Askoren artean

Zientziaren Filosofiaren naturalizazioa, baina orain enpirismo logikoan ez bezala, zentzu historiko-sozial eta **kognitibistan** . Askoren artean

• **2** *iz* kognitibismoaren aldeko filosofoa.

Inkontzientearen toparria geratuko da, ordea, bi ikuspegi horiek beti bereiziko dituena, **kognitibistek** ez baitiote inolako usterik eskaintzen, dela guztiz ezagutu ezinezkotzat daukatelako, dela inkontzienterik badenik ere ukatu egiten dutelako. Josu Zabaleta

---

# kognitibo **1** *izond* ezagutzeari dagokiona. ik **kognizio. 2.**

Psikologia **kognitiboa** azken hamarraldian ikusgarri garatu den psikologiaren adar bat da. Josu Zabaleta

Burmuinaren bolumena txikitu eta hondatze **kognitiboa** eragiten duela [alkoholak], besteak beste. Berria - Gaiak

Funtzio **kognitiboak** lantzen ditugu. Berria - Harian

6-10 urte artean abstrakzio **kognitiboa** garatzen hasten dira. Berria - Euskal Herria

Gogoratzearen eta ahaztearen alderdi **kognitibo** eta afektiboak. Berria - Gaiak

Garapen **kognitibo** eta sozio-afektiboaren aldetik. Berria - Euskal Herria

Oso zaila litzateke gizakiaren prozesu **kognitibo** batean errorerik ez agertzea. Askoren artean

Haurraren egitura **kognitiboa** aztertzeko. Askoren artean

Hizkuntza sistema **kognitibotzat** hartzen duen teoriarekin guztiz bat datorren lehen gramatika-liburua. Itziar Laka

Emaitza **kognitibo** zabal hori agente **kognitiboaren** ezagutza da, eta batez ere ezagutza zientifikoa. Askoren artean

Kuhnen lanak, ordea, berebiziko iraultza ekarri zuen ortodoxia akademikora, zientzia ezagutzaren berri emateko irizpide **kognitiboez** gain irizpide sozialen garrantzia azpimarratu eta argudiatu baitzuen. Askoren artean

Zientziaren Filosofian erlatibismoaren arazoa erlatibismo **kognitiboaren** inguruan gauzatzen da, batez ere. Askoren artean

**2** ***sozio-kognitibo***

Eratze-prozesu konplexu hori ulertzeko lehen gai-zerrendaren muga gainditu eta prozesuaren dimentsio sozio**kognitiboan** sartu behar dugu. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**funtzio kognitiboak** (3)

---

## kognizio 1 *iz* ezagutzeari loturiko prozesuen multzoa.

Eta, hala ere, erreserba horiek hor direla jakinik, erakargarri zaizkio Frith eta **kognizioaren** beste teorizatzaile batzuk. Xabier Olarra

Azken finean, irudiaren osagai jakin bakoitzari dagokionez, **kognizioaren** modu oso orokorrek nola jokatzen duten esplikatzean datza psikologia kognitiboa (inferentzia, arazoen ebazpena, eta abar). Josu Zabaleta

Hizkuntzaren ezagutza ulertzeko modu bi zituzten Piagetek eta Chomskyk: konstruktibista zen bata, **kognizioaren** aldekoa bigarrena. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kognitibo**.

**Kognizio**-psikologia disziplina berrian. Xabier Olarra

**Kognizio**-zientziak. Askoren artean

[Naturaren argia] alantzan jarri ezin diren emaitzak sortzen dituen zerbait dela dio Descartesek; emaitza "nabariak" eta "argi eta garbi egiazkoak" ematen dituen **kognizio**-ahalmena dela, alegia. Askoren artean

Lehenago ez nuen sekula hurbiletik ezagutu savanten dohainen **kognizio**-egitura. Xabier Olarra

**Kognizio**-funtziorik ez duten barne-sentimenak ere badirela -morala, handitasuna, edertasuna, etab.-. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hala ere, pertzepzio-**kognizio** prozesuak fisiologikoak badira ere, norberarenak ere badira. Xabier Olarra

---

## kohabitazio 1 *iz* bizikidetasuna.

Hara arbasoen eta jaioberrien arteko **kohabitazioaren** adibide ederra! Jon Muñoz

**2** (politikan)

Ezker ofiziala nagusitu zen eta bost urtez **kohabitazioan** ekiteko beste aukerarik ez zuen izan presidenteak Berria - Mundua

---

## koherente 1 *izond* koherentzia duena.

Agirien corpus **koherenteak** eta homogeneoak osatzea. Xabier Arregi

Irudiaren osotasunaren ikuspen **koherentea** eraikitzeko. Josu Zabaleta

Kontzeptu iraunkor eta **koherenteen** sistema. Xabier Arregi

Maisuaren kontakizuna **koherentetzat** jo du laugarren epaitegiko buruak sententzian. Berria - Euskal Herria

Tik koordinatugabe konbultsiboetatik mugimendu ongi lotu eta **koherentera** pasatzea istant batean gerta liteke tourettedunengan. Xabier Olarra

Baina guk, emakumeok, ezin dugu beti jokatu hain modu zentzuzko eta **koherentean..**. Ander Irizar

Nazio-ekonomien osaera zegoen une hartan jokoan; beste era batera esanda, espazio ekonomiko **koherenteak** eratu nahi ziren, estatuek egituraturiko espazio politikoen gainean osatuak. Koro Navarro

Hiriek, pertsonek bezala, unean uneko jarrerak baitituzte, ez beti berdinak, ez beti **koherenteak,** ez beti positiboak. Anjel Lertxundi

Modu **koherente** eta argian. Berria - Mundua

Ohartu nintzen eztabaidatzen hasten ari nintzela, ez modu oso **koherentean** beharbada, baina egiazko hitzez behintzat, benetako emozioez, eta haiei alferrik saiatzen nintzen eusten. Ander Irizar

**2** (izan adizarekin)

I. jaunaren erantzun guztiak **koherenteak** ziren. Xabier Olarra

Ni tratatzeko duten modua ez da batere **koherentea**. Josu Zabaleta

Begiratu, baita ere, ea argudiatua den, egiturarik ba ote duen, **koherentea** den, etab. Askoren artean

Zoroa izanagatik **koherentea** izateari ez baitio uzten mundu honek. Berria - Kultura

"Oso pertsona **koherentea"** omen naizela. Iñaki Segurola

Horiek dituk **koherenteenak,** funtseraino doazen bakarrak. Iñaki Iñurrieta

**Koherentea** izan nahi duzu predikatzen duzun sozialismoarekin. Rafa Egiguren

Beren jarrerarekin **koherenteagoak** izateko eta gizarte matxistatik beren burua hobeto babesteko. Juan Kruz Igerabide

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diskurtso koherente** (3); **sistema koherente** (3)

**erabat koherentea** (4); **guztiz koherentea** (4); **jarrera koherentea** (4)

**modu koherentean** (3)

---

## koherenteki *adlag* modu koherentean, koherentziaz.

Paralelismo horri helduz, **koherenteki** eta erraz azal ditzake perpausen eduki semantikoa eta haien egia-baldintzak. Askoren artean

Horretarako, sarreragileei aro historikoen ardatz filosofikoak **koherenteki** azaltzeko eskatu diegu. Askoren artean

Vitruvio [...] testuinguru literario-kultural jakin batean txertatzen da **koherenteki,** komunikazio-modu oso zehatzak erabiliz. Santiago Iruretagoiena

---

## koherentetu, koherente(tu), koherentetzen ad/du *ad* koherente bihurtu.

Ontzen, zintzotzen, duintzen, **koherentetzen** eta gajo-gizajotzen. Iñaki Segurola

---

# koherentismo *iz* egiaren koherentziaren teoria.

**Koherentismoak** gainditu nahi dituen arazoak hiru motatakoak dira: aipaturiko erregresua, sentimen-hautematea eta egia. Askoren artean

Oinarri sendo batetik abiatuta eratutako ezagutzaren justifikazioa zertan datzan oso argi ezin esan denez gero, **koherentismoaren** alternatiba proposatu zen epistemologian. Askoren artean

Kartesianismotik at, dena den, eszeptizismoa errefusatzeko asmoz makina bat alternatiba aurki dezakegu: fundazionismoaren aurrean, **koherentismoa;** internismoaren aurrean, esternismoa; baina baita pragmatismoa ere. Askoren artean

---

# koherentista 1 *iz* koherentismoari dagokiona.

Justifikazio **koherentista,** beraz, kanpoko zerbaitekin loturik dagoen (ustez) egiaren noziotik aldentzen da. Askoren artean

• **2** *iz* koherentismoaren aldeko filosofoa.

Kanpoko hori kontuan serio hartuko balu **koherentistak,** orduan fundazionismora hurbilduko litzateke. Askoren artean

---

# koherentzia 1 *iz* gauzen, ideien… arteko lotura logikoa.

**Koherentziaren** esanahia definitzea eta bere esparrua mugatzea oso gauza sinplea zen: **koherentzia** zen zeure bizitzarekin babesten zenuen hitza. Pako Aristi

Ezin uka daiteke hilda egoteak, hildakoak, baduela, bi hanken gaineko gizaki gogogalduak ez bezala, halako zintzotasun bat, duintasun bat, **koherentzia** bat. Iñaki Segurola

Eraiki behar duen testuko **koherentzia** eta edertasuna ditu artistak legedi. Anjel Lertxundi

Narrazioari **koherentzia** egokia ematea lortu dute. Berria - Kultura

Liburuan bazegoen lotura narratibo hori, baina zinemak bestelako hari bat jarraitzen du, irudiei lotutako **koherentzia** narratiboa behar du. Berria - Harian

Hegan egiteko estilo bihurri bat, ideologien kaiolak eta **koherentzia** txintxoaren txorimaloek izutzen ez dutena. Iñaki Segurola

Hizkuntzen **koherentzia** morfologikoaren eta eboluzioaren ideia. Xabier Arregi

Perpaus bat egiazkoa da horrekin harremanetan dagoen uste-sistemari **koherentzia** handiagoa ematen badio. Askoren artean

Lexikoaren **koherentzia** beharrezkoa da filosofian, askotan hiztegiaren aldaketak esanahiaren aldaketa baitakar. **Koherentzia** zuen euskararen barruan: z / tz eta s / ts bezala, x / tx erabiltzea egoki zetorren. Askoren artean

Garrantzitsuena, ikur fonetikoak erabiltzean, **koherentzia** dela. Lourdes Oñederra

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erakundeen ahultasuna, proiektu politikoen **koherentzia** falta. Koro Navarro

Nire adiskidearen maneren **koherentzia** faltak, haien lotura ezak, berehala txunditu ninduen. Koro Navarro

PPk eta PSE-EEk **«koherentzia** eza» eta herritarrak «nahasi» nahi izatea egotzi zioten EB-IUri. Berria - Euskal Herria

**Koherentzia** -lege hau arau heuristikoa da. Xabier Arregi

Egiaztatze eta **koherentzia** -arauak balioestea. Xabier Arregi

Ez dute osatzen **koherentzia** akats huts bat, haatik, alternatiba bat sortzen dute. Xabier Arregi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egin duzuna berrikusten duzunean, harritu egiten zara, harreman hori harrigarria delako, barne **koherentzia** hori irudien artean... Berria - Kultura

**4** ***koherentziaz*** *adlag*

Desegin da, azukrea kafe berotan bezala, mundua eta gizakia **koherentziaz** eta osoro esplikatzen zituen estilo handia. Anjel Lertxundi

Diskurtsoa **koherentziaz** taxutzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Instituzio guziek [...] hizkuntza politikaren erantzukizuna hartu eta **koherentziaz** jokatu. Herria

Garai zailetan erronka politiko eta pertsonalei **«koherentziaz»** aurre egiteko izan zuen gaitasunagatik. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **barne koherentzia** (6); **koherentzia emateko** (5); **koherentzia ematen** (4); **koherentzia eskatu** (5); **koherentzia eza** (3); **koherentzia falta** (14); **koherentzia nabarmendu** (3)
> **koherentziarik eza** (3)
> **koherentziaz jokatu** (3)

---

# koherentziagabe *izond* koherentziarik ez duena.

Are elektroentzefalograma, denbora gehienean hain baxu eta **koherentziagabea,** bare eta erritmiko bihurtzen zitzaion musikarekin. Xabier Olarra

Orain, pobretua ez ezik, arrotz, **koherentziagabe** eta ia amesgaiztoko iruditzen zitzaion bere mundua. Xabier Olarra

---

# kohesio 1 *iz* gorputz gisa hartzen den zerbaiten osagaien edo zatien banatzeari kontra egiten dion indarra.

Ez baitago ezer bere lehen elementuak estuago eta **kohesio** handiagoz trabaturik dauzkanik burdinaren izaera gogorra eta zurruntasun hotza baino. Xabier Amuriza

Inperioak **kohesioa,** batasuna, "ordenamendua" dakartza. Anjel Lertxundi

Elkarrekin bizitzeko eta taldeari **kohesioa** emateko. Luis Elberdin

Kapital handitzeak Realaren identitatea eta **kohesioa** sendotuko ditu; balio horiek iraunkorrak izan behar dute. Berria - Kirola

Berdintasuna, elkartasuna eta **kohesioa** bermatu behar dira. Berria - Harian

Azken 25 urteotan gizartean lortutako **«kohesioa»** urratzen duela salatu zuen Rabanerak. Berria - Euskal Herria

Sinatzaileen arteko harremanak **sendotzeko,** kohesioa lantzeko, ideien elkartrukea ahalbidetzeko eta indarrak norabide berean jartzeko Berria - Harian

**2** (izenondoekin)

Gure helburua **kohesio** soziala erdiestea da. Berria - Euskal Herria

*ik beherago* 5. Askoren artean

Aldaketa egin behar bada, Europaren garapen ekonomikoa eta **kohesio** soziala aintzat hartuz egin behar da. Berria - Euskal Herria

Elkarbizitzaren bideratzaile eta euskal komunitatearen **kohesio** soziokulturalaren eragile. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kohesio** -hastapen bat bilatu beharra dauka, diskurtsoa antolatzeko eta berari itzultzeko ezkutuko batasuna. Xabier Arregi

Ez dago balio **(kohesio** gradu) absoluturen bat gabeko gizarterik eta kulturarik. Joxe Azurmendi

Inguru-testuaren **kohesio** edo trinkotasun mailak sekulako garrantzia du bat-bateko bertsogintzan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Europako Batzordeak **kohesio** politikari buruz aurkeztutako erreforma «abiapuntu ona eta gutxienekoa» dela deritzo. Berria - Ekonomia

Egoera hori aldatzeko Batasunak duen aurrekontua oso txikia da [...] eta ez dago inolako birbanaketa mekanismorik, izan ere **Kohesio** Funtsak oso txikiak izanik, herrialde bakoitzaren sarrera publikoak bertan gastatuko baitira. Iñaki Heras

Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren alde buru-belarri lanean ari den **kohesio** funtsa da Udalbide. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garapen ekonomikoa, ingurumena eta gizarte **kohesioa** harmonizatzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizarte **kohesioa** eta gizarte kapitala indartzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizarte eta lurralde **kohesioa** hautsi ditu. Berria - Euskal Herria

Lurralde **kohesioa** udal hautetsien helburu. Bostek erakusten dute talde **kohesio** handia. Berria - Euskal Herria

Bi ildo dauzkagu: **barne** kohesio, gorpuzte, etorkizunera begira talde sendoa lortzea. Berria - Harian

Normala da halako kasuan botere borroka edo **kohesio** falta izatea. Berria - Mundua

**5 *gizarte kohesio***

Gizarte **kohesio** beharra sumatu du Frantziako Gobernuak. Berria - Ekonomia

Enplegu, Lan eta Gizarte **Kohesio** ministro berriari dagokionez, Jean-Louis Borloo izango da postu hori beteko duena. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gizarte kohesio** (3); **kohesio funtsa** (4); **kohesio funtsak** (3); **kohesio soziala** (11)
> **gizarte kohesioa** (8); **gizartearen kohesioa** (8); **lurralde kohesioa** (6); **lurraldeen arteko kohesioa** (3)
> **gizarte kohesiorako** (9)

---

## kohete 1 *iz* suziria.

Egunotan, berriz, hamaika Al Kassam **kohete** bota dituzte ekintzaile palestinarrek Israelera. Berria - Mundua

Ekintzaile palestinarrek gutxienez 10 **kohete** jaurti zituzten Sderot hiriko inguruneetara. Berria - Mundua

Joan den irailaren 16an Karzai presidentearen helikopteroak lur hartu behar zuen lekutik gertu erori zen **kohete** bat. Berria - Mundua

**Kohete** bat espaziora bidaltzen den bakoitzean. Iñaki Heras

Gaur abiatuko da Arianne 5 **kohetea** espaziorantz. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bazookak eta **kohete**-jaurtigailuak. Iban Zaldua

Pertsonen kontrako minak, **kohete** jaurtigailuetarako munizioak, mortero obusak eta 120 milimetroko kanoiak aurkitu zituzten, besteak beste. Berria - Mundua

Erresistentzia palestinarraren **kohete** jaurtiketei aurre egiteko. Berria - Mundua

Bost judu hil ziren Israelgo Sderot herriaren aurka ekintzaile palestinarrek egindako **kohete** erasoan. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

NATOko soldaduek zaintzen zuten espazio-**kohetea** atzematea eta lapurtzea zen ekialdekoen helburua. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **al kassam kohete** (4); **erresistentzia palestinarraren kohete** (3); **kohete bat jaurti** (3); **kohete bota** (8); **kohete bota zituzten** (6); **kohete erasoak** (3); **kohete jaurti** (4)
> **al kassam koheteak** (5); **al kassem koheteak** (5); **koheteak bota** (3); **koheteak jaurti** (5)

---

## kohorte *iz* erromatarren armadako banakoa, legioiaren hamarrena zena.

Adriano-ren harresian bada idazkun bat, zeinean barduliarren lehendabiziko **kohorteak** tenpluaren eraikuntza jainkosa amei eskaintzen dien. Ramon Saizarbitoria

---

## koilara *(orobat **goilara** g.er., **koilare** g.er., **goilare** g.er. **koillare** g.er. eta **kutxare** g.er.)* 1 *iz* salda hartzeko edo antzekoak ahoratzeko tresna.

**Koilara** kafesnean sartu zuen. Joseba Sarrionandia

**Koilara** eskuan, esneari eragiten ariko zara. **Koilara** katilu hutsean libre utzita, bere arrantzale eskuak katilu eta plateraren alde banatara jarri zituen. Joseba Sarrionandia

Emakume oreztadunak entsalada zerbitzatu die plastikozko **koilara** eta sarde oso handiekin. Eider Rodriguez

Zenbat balio dezake zilarrezko **koilara** mailatu mordoxka batek.. Ander Irizar

Sebastianek botila huts bat zeukan eskuan, **koilara** batekin jotzen zuena. Bernardo Atxaga

Askoz ere erabilgarriagoa da **koilara** giderduna. Gerra -eransten zuen Asensiok, **koilara** zopetan sartuz-, ez da batere gauza ona. Koldo Izagirre

· Kazetari martin-saltsero bat, **koilara** zopatan harrapatua. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baxerategian zeuden ilaran platerak, azpilak eta edontziak, eta labana-, sardexka- eta **koilara**-sortak. Irene Aldasoro

**Koilara**-kirtenaz plateren ertzean erritmoa markaturik. Anjel Lertxundi

Ondoko gelatik plater eta **koilara**-hotsa zetorren. Anton Garikano

Limoia **koilara** kolpez zanpatzen zuen bitartean. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baserri askotan, sarde-**koilarak** urki-zurez egin ohi zituzten: ziurtzat zuten, erraminta horiekin janez gero, hezueria eta beste gaitz asko uxatuko zituztela. Pello Zabala

**4** irud/hed

Iñaki, baina nik ezin diat **koilara** mekaniko bat sartu etxebizitza batean. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **giderrik gabeko koilara** (8); **katilua koilara galletak** (3); **koilara bete** (5); **koilara eskuan** (4); **koilara hartu** (3); **koilara txiki** (6); **koilara zopatan** (3); **zilarrezko koilara** (3); **zurezko koilara** (14)

---

## koilarakada *(orobat **koilarekada** g.er. eta **kutxarakada** g.er.)* 1 *iz* koilara baten edukia.

Lehen **koilarakada** ahoan eman aitzin, mahaikide zaratatsuetarik bat zutitu zen, oihu sustatzaileen eta txaloen erdian. Elena Touyarou

**Koilarakada** bete hartu dut nik. Urtzi Urrutikoetxea

Beste **koilarakada** bat irentsi du umeak. Berria - Euskal Herria
Geroz eta txarragoa zen janaria: bi **koilarakada** zopa, eta okela puska gogor beltz bana; ogia ere neurtuta zegoen. Josu Zabaleta
Gutxitan jaten zuen **koilarakada** bat janari bero. Koro Navarro
Hiru **koilarakada** gurin mardul-mardulak bota zituen Ruche jaunak. Jon Muñoz
Hemen ezagutu dut halaber Zulage kontzeptua, ohiko margarinaz gain saltxitxa edo **koilarakada** marmeladaren itxura har dezakeena. Urtzi Urrutikoetxea
Bost knut kostatzen zen **koilarakada**. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)
Azken salda- **koilarakada** irentsi orduko, leihotik kanpoaldera begira jarri nintzen. Joxe Austin Arrieta
Kafe **koilarakada** batzuez bete, ura gehitu, eta martxan jarri zuen. Iban Zaldua
Izozki- **koilarakada** bat zurrupatu zuen bere aho biribila nabarmenduaraziz. Lopez de Arana

---

## koilarakadaka *adlag* koilara erabiliz.
**Koilarakadaka** edaten zuen, zurrupatuz, zopa balitz bezala. Joseba Urteaga

---

## koilarakadatxo *iz* koilarakada txikia.
Aski duzu **koilarakadatxo** bat kafe, lau bat kikara goxo egiteko. Javi Cillero

---

## koilaratara *iz ipar* koilarakada.
Gatzagia botatzen zitzaion, **koilaratara** bat eskas, eta uzten zen, haurrek eskolako lanak egin bitartean, kailatzera, burburaka eta ketan. Itxaro Borda

---

## koilaratxo *(orobat* ***koilaretxo*** *g.er.)* *iz* koilara txikia.
Cassie te-zurrutada txikiak edaten ari zen **koilaratxoaz**. Lopez de Arana
**Koilaratxoari** eragin bitartean isilik egon zen Maiza. Migel Angel Mintegi
Arretaz begiratu nion **koilaratxoarekin** kafeari eragiten zion bitartean. Bernardo Atxaga
Lepic andreak, **koilaratxoz koilaratxo,** jaten eman dio bere haurrari. Itziar Otegi

---

## koilaratxokada *iz* koilaratxo baten edukia.
Badakizu neurria: **koilaratxokada** bat hamar litro ur bakoitzeko. Oskar Arana

---

koilare ik **koilara**.

---

koilarekada ik **koilarakada**.

---

koilaretxo ik **koilaratxo**.

---

## koilatu, koila, koilatzen da *ad* izoztu.
**Koilatu** eginen da. Iñaki Zabaleta

---

koillare ik **koilare**.

---

## koinata **1** *iz* norbaitentzat, bere ezkonlagunaren arreba edo ahizpa, edo bere anaiaren ezkonlaguna. ik**koinatu**.
Ene **koinata** zen. Daniel Landart
Bakarrik geratu zen Klodia Erroman bere **koinata** Muziarekin. Juan Garzia
Laukizen, Butroiko gaztelutik hur, badago Erreskondo izeneko jatetxe bat, Txetxuren **koinata** Rosalik daroana. Xabier Amuriza
Amaginarreba Alzheimerren gaitzaz gaixotu zitzaienean ere, **koinatak** hartu zuen haren ardura, neska zelako. Berria - Harian
Haren **koinataren** lehengusua baitzen. Joan Mari Irigoien
Anaia eta **koinata** etorri zitzaizkion etxera, goizean goiz, elkarrekin joateko beilatokira. Imanol Zurutuza
Eta ni, gaizo zozoa, amorostu nintzela ene **koinata** alargundu berriaz! Daniel Landart
**Koinatarengana** joan zen lakaria itzultzera eta eskerrak ematera. Patxi Zubizarreta
Horregatik, **koinatarekin** etzaten zen bakoitzean, lurrera isurtzen zuen hazia, bere anaiari ondorengorik ez emateko. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)
Anai-arrebak, koinatu- **koinatak,** ilobak, semea, neska-laguna... Jokin Urain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> anaia eta koinata (3)

---

## koinatu *(orobat* ***koinat*** *g.er.)* **1** *iz* norbaitentzat, bere ezkonlagunaren anaia, edo bere ahizparen ezkonlaguna. ik**koinata**.
Genevan bere ahizpa Gina eta bere **koinatu** Guglielmo Ferrero zituen, urte asko lehenago arrazoi politikoengatik hara alde eginak. Fernando Rey

Hura Zuberoan zen, alabaina, bere **koinatu** Beltzuntzeri buru ematen. Aingeru Epaltza

Nire koinata Dijla-ren **koinatua** zen. Juan Kruz Igerabide

Kirxak ongi etorria egin zien semearen emazteari eta **koinatuari**. Patxi Zubizarreta

**Koinatuak** emaztetzat hartu nahi ez badu, [...]. Elizen arteko biblia

Henrike Nafarroakoak **koinatuaren** alde egin zuen oraingoan ere. Aingeru Epaltza

Bere seme ta alaberi, iloba, **koinat,** eta familiako guzieri, gure doluminak. Herria

Gustatuko litzaidake agur esatea arrebari eta **koinatuari**. Jose Morales

**2** (hitz elkartuetan)

Anai-arrebak, **koinatu**-koinatak, ilobak, semea, neska-laguna... Jokin Urain

Argi zegoen Unairen patua arreba-**koinatu**-ilobenarekin uztartua zegoela abuztuko igande horretan. Aingeru Epaltza

Aurrekoen seme-alabak, esate baterako, edo **koinatu**-errainak. Unai Elorriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **defentsa ministroaren koinatua** (3); **ministroaren koinatua bahitu** (3)

---

## **kointzidentzia** *(orobat **koinzidentzia** g.er. eta **kointzidentzi** g.er.)* **1** *iz* bat etortzea; batera gertatzea.

**Kointzidentziak** esanguratsuagoak iruditu zaizkit, ordea. Iban Zaldua

**Kointzidentziak** ez zuela gauza onik adierazten iruditu zitzaion. Ramon Saizarbitoria

Ez dut **kointzidentzietan** sinesten. Iban Zaldua

**Kointzidentzia** hutsa da, baina deigarria da oso. Berria - Kirola

Ez da lehenengo aldia halako **kointzidentzia** harrigarriren bat gertatzen zaidana. Iban Zaldua

Ugari bezain nekagarri zirela era horretako **kointzidentziak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Arrazoi ezkuturen bat egon behar zuen **kointzidentzien** segida hartan. Iñaki Iñurrieta

**-Kointzidentziak** errealitateari atzematen dizkiogun errimak dituk. Iñaki Iñurrieta

**2** (hitz elkartuetan)

Hori horrela izanik, CCOOk eta UGTk ere ituna sinatuko badute, **kointzidentzia** kontua izango da. Berria - Ekonomia

· Emakumearen izena esaterakoan ahotsa goratu zuen pixka bat, Stendhalek maite izan zuen eta Julien Sorelek maitatutako emakumearen izen-**kointzidentziaz** jabe nendin seguru asko. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kointzidentzia hutsa** (5)

---

## **kointziditu**, kointzidi, kointziditzen **1** du *ad* bat etorri.

Euskal kultura nola sortu, Baroja-k Unamuno-rekin zeharo **kointziditzen** jarraitzen du: […].Baina, horra!, aurrez aurre eserita, ez dute elkar ulertzen; ia ezertan ez dute **kointziditzen,** bi mundu elkartezin dira, bi mundutatik ari dira hitz egiten, bi hizkuntza. Joxe Azurmendi

**-Kointziditu** ere ez diagu hainbeste egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** batera gertatu.

Aitaren hobealdiak nire karreraren hasierako arrakastarekin **kointziditu** baitzuen. Joan Mari Irigoien

Etxebizitza berean **kointziditzea** ez izan kasualitatearen ondorio ustekabekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## koinzidentzia ik **koinzidentzia**.

---

## **koiote** **1** *iz* Ipar Amerikan bizi den ugaztun haragijalea, txakalaren kidekoa *(Cannis latrans)*.

Ezin du katua basamortuan utzi, **koioteak** akabatuko du bestela. Javi Cillero

**Koioteak** artaldeko bildots bat kendu ziola. Pello Salaburu

Denbora tarte laburrean **koioteen** uluak entzuten hasi ziren. Julen Gabiria

Noiztenka **koiote** garrasi bat. Itxaro Borda

Bueno, honezkero harrapatuko zuten **koioteek**. Koro Navarro

**2** Mexiko eta Estatu Batuen arteko mugalaria.

"Abandonatu nauten **koiotekin** ez dut gehiago kurutzatu nahi" zion hondurarrak. Herria

Zauriaren gainean pikoa, jada 1800 dolar emanak ziozkan **koiote** bati, mugan igan-arazle baliatzale bati. Herria

---

## koipatsu ik **koipetsu**.

---

## koipatu ik **koipetu**.

---

## **koipe** **1** *iz* zenbait animaliaren gantzarekin egiten den eta etxean edo industrian erabiltzen den gaia. ik**gantz; olio**.

**Koipe** gutxiko jakiak jan. Berria - Gaiak

Lan-jantzia **koipe** zikinez belzturik. Juan Kruz Igerabide

Zartagineko **koipe** kirrinkarira arrautzak botatzen ari zen bitartean. Lopez de Arana

**Koipe** beroaz igurtzitzen zizkion ziztadak abere gaixoari, Siberiako usadioari jarraituz. Karlos Zabala

Hanburgesa gurditxoak **koipe** errearen usaina hedatzen zuen kalean zehar. Iñaki Zabaleta

Abiadura handiaren arrazoia gurpiletarako erabiltzen zen **koipe** aparta finean zetzala, eta **koipe** fin hori, nola ez, umeen gantzetik bakarrik atera zitekeela. Bernardo Atxaga

**Koipe** ugarirekin igurtzi ehizako oinetakoak, eta argizari oso gutxirekin botinak. Itziar Otegi

Baliteke larruazalean den **koipe** edo hezetasuna lurruntzea eta horrek geruza babesle bat eratzea. Irene Aldasoro

Karbohidratoak **koipe** bihurtzen dira berehalaxe. Irene Aldasoro

Kriseiluarentzako **koipea** da balea. Joseba Sarrionandia

Jantokian jarraituko zuten arrautzak maionesarekin eta muskuilu frijituak jaten, **koipetan** ezpainak. Bernardo Atxaga

Arrautza horretan daude eraikuntza-materialak: proteinak, **koipeak,** azukreak, mitokondrioak, eta gunea, hantxe baitaude irarrita eulia sorrarazteko behar diren aginduak. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Koipe**-lan bikoitza, erabil oparo olioa eta gantza. Oskar Arana

Itunaren arabera, elikagaien **koipe,** azukre eta gatz kopurua mugatu behar dute agintariek. Berria - Gaiak

**koipe** ontzi batzuen barnean ezkutatuta. Berria - Euskal Herria

Berak atera zuen salboina egiteko behar zen **koipe** mondongoa. Edorta Jimenez

Barruan jende asko zagok, jan-edanean, **koipe** usaina baitator, eta liraren soinua. Juan Kruz Igerabide

Behin **koipe**-zarakar zail hori kendurik, azazkalak ez zitzaizkian gehiago apurtzen. Eskarne Mujika

Trajea **koipe**-orbanez betea zeraman, txapela zikina, ilea luzea, gorbata ahaztu egiten zitzaion. Koro Navarro

Bidegainean **koipe** orban bat zegoen eta, handik igarotzerakoan, gurpilak labain egin eta oreka galdu zuen, antza. Joan Mari Irigoien

Aza minduaren usaina zen nagusi **koipe**-zulo hartan. Anjel Lertxundi

· **Koipe** erre usaineko etxe zatarra. Lander Garro

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta bazirela suziri antzeko batzuk ere, landare-**koipe** miresgarri batez ondo bustirik airera jaurtitzekoak. Edorta Jimenez

Belarrak, basarto-irina, kakahuete-**koipea** eta patata gozoak erostera. Juan Garzia

Haurdunaldian arrain **koipe** asko eta haziak jaten dituzten amek. Berria - Gaiak

Balea-**koipeaz** betetako upelak. Anjel Lertxundi

Itsastxakur **koipea** igurtzi. Joseba Sarrionandia

Baina sinatu hemen, osaba, sinatu, ontzia ez baita gure zain egongo eta txerri **koipea** bueltan abia daiteke. Bego Montorio

Gurin **koipe** gehiegi hartzeak dakartzan eritasunen bilakaera paraleloa. Joxan Elosegi

**4** (erkaketetan)

Arkume otzan bat bezalakoa da-eta nire anderea; **koipe**-puska baino beragoa bera. Patxi Ezkiaga

**5** ***koipe-emaile*** *izond adkor* losintxaria.

Horri **koipe**-emaile profesionala deritzo, bere nortasunaren exkaxa literatoen onespenaz berdindu nahian dabilena Markos Zapiain

**6** ***koipe-jario*** *izond/adlag* losintxaria.

Isil zaitez, **koipe**-jario hori. Patxi Iturritegi

· Letrajale lerdetsu horietakoa, klasean aipaturiko goiti-beheitiez galdezka, bibliografia eske, **koipe**-jario. Xabier Mendiguren Elizegi

**Koipe**-jario lotu nintzaion, Ttipirekin sekula huts egin ez zidan jukutria. Aingeru Epaltza

Salto txikiak emanez, eskuak fraide batek bezala igurtziz, jendea **koipe**-jario agurtuz. Anjel Lertxundi

**7** ***koipe-zaku*** *(orobat **koipezaku**)* *izond adkor* ik **koipezto**.

Aurreko egunean KOz galdutako morroi **koipezaku** bat ipini zidatean aurrean. Paddy Rekalde

Piezen erdiekin ere garaituko hinduket, **koipe-zaku** hori! Alberto Ladron Arana

Zoruko zikinkeriaz kexatzen zara, **koipe-zaku** hori, baina nitaz ez zara batere kezkatzen. Jose Morales

**8** ***koipea eman****sup_1*

-Bere buruko zati itxia ireki egin zen, sarrailari **koipea** emanda bezala. Anton Garikano

**9** ***koipea eman****sup_2 adkor* losintxatu.

Arazoa da umore-sen handiegia duela enpresaburuei eta ikusleei **koipea emateko**. Lopez de Arana

Ondo prestatuta hago, horregatik! -esan dizu **koipe** pixka bat emateko bezala-. Rafa Egiguren

Hainbeste **koipe** emanda seguru zer edo zer esan behar didazula. Sonia Gonzalez

Orain **koipe** emoten? Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> koipe jario (5)

---

# koipegin *iz*

Baina **koipegin** hordi batek labanorri zabal bat hondoratua zion lepoan, elkarrekin zeutzala, landa-arras, ehorztegi abandonatu bateko lauzen gainean. Juan Garzia

---

# koipegintza *iz*

-Ez zagok txarto!, gu Tele Puzza eta Putza Hut pintadak egiten eta zuek **koipegintzan**. Urtzi Urrutikoetxea

---

# koipekeria *iz adkor* koipe emate gaitzesgarria.

Oi, sentitzen dut, Baroi Odoltsu agurgarri hori -esan zion **koipekeria** handiz-. Iñaki Mendiguren

Parlamentuan **koipekerietan** urtzen ziren bere jarraitzaile mengeletatik kanpo denak zituen aurka Oliver Cromwelek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Traizioak berak baino gehiago amorrarazi du aurrekariak, traidorearen hitzei **koipekeriatik** haratagoko ezer susmagarririk ez antzeman izanak. Anjel Lertxundi

Alderdikideek **koipekeriaz** jokatzea eta herrialdea zuzentzeko gaitasunik eza leporatu zioten. Berria - Mundua

---

# koipero 1 *izond adkor* koipe-emailea.

Kandela luze bat fluoreszentea guardaren eskuan, Adoracion Nocturna-koa izanen haiz **koipero** hori. Koldo Izagirre

**2** (adizlagun gisa)

Beste morroi bat hurreratu zitzaidan, **koipero**. Koldo Izagirre

---

## **koipetsu** *(orobat* ***koipatsu*** *g.er. eta* ***koipetzu*** *g.er.)* **1** *izond* koipe asko duena, koipea dariona.

Bizarra utzia zuen eta ile luzea zeraman, zikina eta **koipetsua**. Felipe Juaristi
Belarrien atzean eta lepondoan behera zetorkion izerdi **koipetsua** lehortzeko. Juan Kruz Igerabide
Jaka **koipetsuz** jantzitako zamaketariak. Karlos Zabala
Sei saltxitxa **koipetsu** eta kiskali samarrak. Iñaki Mendiguren
Zerra gogor bat patata frijitu **koipetsuekin**. Felipe Juaristi
Paper **koipetsuzko** orri batean. Karlos Zabala
Pneumatikoek txistu egiten zuten macadam **koipetsuan** zehar. Lopez de Arana
Ur **koipetsuak** zeramatzan erreten luzearen ondoan. Karlos Zabala
Sukaldeko ke **koipetsuaren** erdian egun osoa pasatu duen sukaldari gazteak. Berria - Ekonomia
Airea janari-usain **koipetsuz** blai zegoen. Lopez de Arana
Tabernetako iluntasun **koipetsuan**. Felipe Juaristi
**Koipetsu** zegoen zorua, eguraldia lehorra izan arren. Karlos Zabala

**2** koipea duena.

Entzima horiek, berriz, **molekula** koipetsuak aldarazten dituzte. Berria - Gaiak
Gurinaren gai **koipetsuak** ezabatzeko prozedura berri bat. Joxan Elosegi
Kanpoko presioa gutxitzen denean (ur gainera etortzean) odolak nahiz ehun **koipetsuek** nitrogeno-gasa burbuilaka askatzen dutelako. Irene Aldasoro

**3** koipekeria adierazten duena.

Ametsen mundutik benetako mundura etortzeko zubia aurkitu omen du -gaineratu zuen alkateak, doktoreari irribarrerik **koipetsuena** eskaintzen ziolarik-. Felipe Juaristi
-Oso etxe polita daukazu -laudatu diot etxebizitza, tratularien xuxurla **koipetsuan**. Javi Cillero
Alkateak esku keinu zeremoniatsu eta **koipetsuaz** hasteko agintzen dio. Felipe Juaristi
Haiek atea itxi orduko, Borgin jaunak bertan behera utzi zituen bere manera **koipetsuak**. Iñaki Mendiguren
Balaku **koipetsuak**. Oskar Arana
Italiako karreristak omen dira **lausengatzaile,** koipetsuenak. Berria - Kirola

---

## **koipetsudun** *izlag* koipetsuko.

Salmahaira azkar itzuli zen eta soilune **koipetsudun** gizon italiar lodi eta txiki batekin estropezu egin zuen, gerentearekin, alegia. Lopez de Arana

---

## **koipetu**, koipe(tu), koipetzen *(orobat* ***koipatu*** *g.er.)* **1** du *ad* koipeztatu, koipez hornitu.

Txistu mehe bat zabalduz bazterretara, gaizki **koipetutako** ardatzaren antzera. Hasier Etxeberria

**2** *adkor* erosi, busti. ik **koipeztatu 2.**

Joan zen, hala ere, Louvrera, eta, zaindari eta gidariak diruz **koipetu** arren, inork ez zion inolako berririk eman argazkiaren erdian zegoen jakintsu zahar hari buruz; hain gutxi Talesi buruz Jon Muñoz

**3** (era burutua izenondo gisa) koipez betea. ik **koipeztatu 3.**

Sorbaldan konkorra egiten zion soineko azpiko flanela **koipetuak,** bizkarra sendatzeko jarriak. Anton Garikano

---

## koipetzu ik **koipetsu**.

---

## koipezaku ik **koipe 7**.

---

## **koipeztatu,** koipezta, koipeztatzen **1** du *ad* koipez hornitu.

Hurrengo egunetan, ezkutuan, pistola garbitzen eta **koipeztatzen** aritu nintzen. Juan Kruz Igerabide
Mekanismoa **koipeztatzeko**. Jon Muñoz
Balazta gaizki **koipeztatu** bat. Joxe Austin Arrieta
Gaizki **koipeztatutako** bi gurpil horien karranka haserreak. Koldo Izagirre
**Koipeztatu** gabeko gurpilen karranka. Jose Morales
Domingok beratzen eta **koipeztatzen** ematen zuen espartzu latza, aiseago korri zezan urka-bilurrean barrena. Aingeru Epaltza
Afaltzera gonbidatu zuen, eta han joan zen mutila, oso dotore, **koipeztaturik** ilea. Koro Navarro
*Psilopa petrolei* hauek oinak estaltzen dituzten iletxoak **koipeztatzeko** guruinak dituzte eta guruin horien bidez labaintzen dira petrolio gainean. J.M. Olaizola "Txiliku"
Ivanovicek entrenamenduen erritmoa gogortzea erabaki du, eskuartean duen saskibaloi-makina behar bezala **koipeztatzeko**. Berria - Kirola

**2** erosi, busti.

-Polizia **koipeztatu** beharko zenuen, ez da, Jack? -esan zion M'Coy jaunak. Irene Aldasoro

**3** (era burutua izenondo gisa) koipez betea.

Gabardina zahar **koipeztatua** eta zapata maiztuak dituela. Javi Cillero
Mekanikoa ere bazenez, batzuetan goizerdian agertzen zen, bere buzo urdin **koipeztatuaz**. Juan Martin Elexpuru
Orri **koipeztatu** bat atera du patrikatik. Harkaitz Cano
Zatarki-paper **koipeztatu** batez bilduriko pakete bat darama besapean Anjel Lertxundi

---

## **koipezto** *iz adkor* koipetsua.

Potoloa **koipezto** hutsa da. Jon Arretxe
Maria eskaileretatik jausi zenekoa, gazte **koipezto** hori etxean hartu zutenekoa. Unai Elorriaga
Hara agertu den Ernest Hemingway ez da gerra kazetari ohia, Habanan izaten dakien gizon ugerdo eta **koipeztoa** baino. Edorta Jimenez
Arabiar **koipezto** guztiek Palestinatik alde egin beharko luketeela esan zidan. Berria - Kultura
· Boligrafo bat eman zion Matiasi, **koipeztoa** oso **koipeztoa,** eta koaderno bat. Unai Elorriaga

**koipeztu,** koipez, koipezten **1** du *ad* koipeztatu.

Fabrika zaharra: Agnellitarren gurasokeriak eta langileen izerdiak **koipeztutako** makinak. Alkoholak **koipeztu** egiten dio mihia. Anjel Lertxundi

**2** koipez bete.

Eguzkitan beltzarandutako lepoak, sodaz eta hot dog-ez **koipeztutako** ahoak... Lopez de Arana

**3** (era burutua izenondo gisa) ik **koipeztatu 3.**

Irribarre nazkantea bizar **koipeztuaren** gainean, kubata basoa eskuan eta nire bularretara so. Sonia Gonzalez

Baina laprast egin bere esku **koipeztuetatik** eta lurrean puskatu zaio Isidorari olioaren portzelanazko ontzia. Pako Aristi

---

**koipu** *iz* ugaztun karraskaria, berez Hego Amerikakoa kastorraren kidekoa*(Myocastor coypus)*.

**Koipuek** 50-70 zentimetroko luzera eta 5-10 kiloko pisua izaten dute normalean; arrak emeak baino handiagoak izaten dira. Berria - Euskal Herria

190-220 **koipu** inguru daude, lau arroatan banatuta: Bidasoan, Oiartzunen eta Urumean finkatuta daude; Orian antzeman badira ere oraindik ez dira finkatu. Berria - Euskal Herria

Salsamendik adierazi duenez, ordea, «bioaniztasunari kalte handiak» eragin diezazkioke **koipuak** denbora gutxian. Berria - Euskal Herria

---

**koitadu** *(orobat **koittadu** g.er. eta **koittau** g.er.)* **1** *izond* errukarria, gaixoa. (pertsonez) ik **gizagaixo; gajo.**

Ama **koitadua** haren atzetik joan zen malko eta erregu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gaur egun etorkin **koitaduak** soilik ikusten dira karrakan zakua lepoan. Urtzi Urrutikoeetxea

Neska **koitaduari** hobe ezer esan ez. Urtzi Urrutikoeetxea

Mutiko **koitadua**! Julen Gabiria

Egunik egun inuzenteagoa da **koitadua**. Urtzi Urrutikoeetxea

Tuberkulosiak jota, **koitadua**. Alberto Ladron Arana

Arra-arra ari zuen erauntsia, eta niri, **koitadu** honi, korridorean traban paratutako bidai poltsa batek ohartarazi berria zidan aterpe berriren bat bilatzen hasi behar nuela. Aingeru Epaltza

**Koitadua** zeu, trapuan pupua baizik ez duen gaizo hori. Hasier Etxeberria

Nahikoa da erreparatzea etxeak bahituta eta enkantean salduta ikusi dituzten **koitadu** horiei, inoiz bukatzen ez ziren interesak zituzten zorrak zirela medio. Bego Montorio

**Koitadu** urrikalgarria, bai, baina desirak barkamenik ez, eta arimak gaizkian izan jomuga. Patxi Zubizarreta

Ondo **koittadua** ere! -entzun zuen Norak inguruko gizonen baten hizketa ahots-argia. Anjel Lertxundi

**2** (bestelakoez)

Nork askatuko du arima **koitadua** heriozko gorputz honetatik, Jesukristo gure jaunaren bitartez Jaungoikoaren graziak askatzen ez badu? Imanol Unzurrunzaga

Beatrice gaztetxoa, ordea, arkume **koitadua** otsoaren aurrean bezala geratu zen etxean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta nik bota nuen garrasia katu **koitadua** arropa artean itoa topatu nuenean! Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**koitadu urrikalgarria** (3)

**ama koitadua** (3)

---

**koitadutxo** *izond adkor* koitadua.

Han egon direnek diote Pedro Páramoren andrea bizi den gela dela, iluntasunari beldurra dion **koitadutxo** bat bera, burutik eginda dagoena. Juan Garzia

---

**koito** *iz* gizon-emakumeak edo animaliak sexu harremanean batzea.

Berak esana da jaiotza, **koitoa** eta heriotza direla bere gaiak (besterenak ere horiexek ez balira bezala). Koro Navarro

Emakumearen obulazioa ugariena den egunetan, bikoteak sexu harremanak izan beharko ditu **(koito** zuzendua). Berria - Harian

Kontrazepzio metodoak -kondoia, espermizida, pilula, DIUa, basektomia- **koitoa** egin baino lehen edo **koitoa** egin bitartean erabiltzen dira. Luis Elberdin

Uzkiko **koitoa,** baginakoa, musuak, miazkatzeak eta laztan eta fereka klase guztiak egin ditzakegu lagunarekin. Luis Elberdin

Galdera da nola **koitoan** ere klitoria estimulatzen jarraitu, ez nork estimulatu behar duen klitoria. Luis Elberdin

Baginaren estimulazioa **(koitoa)** eta klitoriarena alderatzerakoan, % 13,4k diote errazago lortzen dutela orgasmoa **koitoarekin,** eta beste % 84,4k, berriz, klitoria estimulatuta. Luis Elberdin

**Koitoa** egiten badugu (baginatik nahiz ipurditik), ezinbestekoa da kondoia erabiltzea. Luis Elberdin

Bada uzkiko **koitoa** homosexualitatearekin lotzen eta perbertsiotzat jotzen duenik. Luis Elberdin

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**koito anorgasmia** (3)

**koitoa egin** (20); **koitoa egin aurretik** (4); **koitoa egin bitartean** (4); **koitoa egin ondoren** (3); **koitoa eginda** (6); **koitoa egitea** (6); **koitoa egiteko** (3); **koitoa egiten** (18); **koitoa egiten saiatzen** (3); **koitoa egiterakoan** (19); **koitoa ezin egin** (4); **uzki koitoa** (8); **uzkiko koitoa** (11)

**gizakien arteko koitoan** (3)

**koitoaren bidez** (14); **koitoaren bitartez** (9); **orgasmoa koitoaren bidez** (3)

---

koittadu ik **koitadu.**

---

koittau ik **koitadu.**

---

**koiuntura 1** *iz* egoera, abagunea.

Estatuaren kontuetan oreka idealerantz jo behar da, **koiunturari** begiratu gabe. Iñaki Heras

Finantza publikoen saldoa **koiunturaren** eragin orotatik kanpo balego, zergen mailak, aldiz, ekonomiaren hazkunde-ahalmenari eragingo lioke. Koro Navarro

Hamaiketakoa egiten, negozioak zertzen, **koiuntura** eztabaidatzen, posta bideratzen eta tarteka egunkariak aztertzen, gainbegiratzen edo kotizazioen buletina zikiratzen. Anton Garikano

**Koiuntura** politikoaren arabera. Berria - Euskal Herria

Estatuak sortu ziren garaian indar korrelazioa eta **koiuntura** historikoa kontra izan zituztelako. Berria - Harian

**Koiuntura** hutsezko ikusmoldetik, 1990eko hamarraldian hasitako zikloa ez da aurrekoen oso desberdina. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **koiuntural**.

**Koiuntura**-desberdintasunek sorturiko aukerak baliatu ahal izateko. Koro Navarro

**Koiuntura** mailako neurri boluntarista orori eta gai fiskaletako eta araudietako subiranotasunaren parte handiei uko eginez. Koro Navarro

**3** ***kointurazko*** ik **koiuntural**.

Estatu Batuetako **koiunturazko** aldaketak [...] estatubatuar balantza korrontea ia guztiz orekatu zuen. Koro Navarro

Eremu honetako ekonomia handien artean **koiunturazko** desberdintasunak sortuko balira, [...]. Koro Navarro

Esku-hartze hori lau alor nagusitan gertatzen zen: **koiunturazko** kudeaketan, konkurrentziaren eta prezioen eraketan, errentaren banaketan eta gizarte-babesean. Koro Navarro

Estanflazioak, izan ere, **koiunturazko** politikaren usadiozko egitura desegin zuen. Koro Navarro

---

## koiuntural *izond* koiunturaren mende dagoena, koiunturazkoa. ik **koiuntura 2**.

Krisia ez baita **koiunturala,** estrukturala baizik. Arazo **koiuntural** hauek industrializazioak gizadiari ekarri izan dion nolabaiteko ordain gisa ere ikus daiteke. Iñaki Heras

Japoniar-estatubatuar merkataritzaren desoreka baino ez zen geratzen, 1993tik aurrera berriz areagotu zena, japoniar atzeraldiak eta estatubatuar suspertzeak ekarritako diferentzia **koiunturalaren** ondorioz. Ian karga **koiuntural** hipotetiko bat ez delako bideragarritasun plan bat. Koro Navarro

Mundu guztiak ditu adarrak, ez baldin baditu ere kontu **koiuntural** tekniko xinple batengatik. Karlos Zabala

---

## koiunturalki *adlag* modu koiunturalean.

Zerbait berria ekarriko digula suposatu eta etorkizunaren esperoan eman dugu denbora, asmoekin, usteekin, **koiunturalki,** egoeraren arabera, egunkarien titularrak gosalduz, orain gertatu beharrean dena geroan gauzatuko delakoan. Joseba Sarrionandia

---

## kojidu, koji, kojitzen du *ad* hartu, harrapatu.

-Eper bizia **kojiduteko**. Patziku Perurena

---

## kojin ik **kuxin**.

---

## kojo *izond* herrena.

Haiekin batera ezagutu zituen Txorierrikoak, goizero trenez etortzen zirenak, eta Ernesto bera, Arbolantxako **kojoa,** eskumako zapatarik behar ez zuena. Urtzi Urrutikoeetxea

Sofa hondatu eta aulki **kojo** ipurdibako batzuk. Pablo Sastre

---

## kojoka *adlag* herrenka.

Kazkazuri bezala **kojoka** ibili arren, laster harrapatzen zuen gezurtia. Berria - Kultura

---

## kojonudo *izond adkor* on demonio.

-Puru horiek **kojonudo** zaudek. Jon Alonso

-Nik esan nahi dizut zure liburua deputamadre dagoela, **kojonudo**. Jon Arretxe

---

## kok *iz* erregai solidoa, beltza eta harroa, harrikatza partez destilatuz lortzen dena.

Gatz gema, burdin minerala, **kok** ikatza, zink pirita eta halakoak eskatzen zizkigun, ekartzeko portutik, sekula ez txanpon holandarrik edo Camel edo Chester, Erkizia ergel hark. Koldo Izagirre

---

## koka 1 *iz* kokaina.

Behin batean, **koka** esnifatzen ari ginela, Rodolfok titi bat txupatzen uzteko eskatu zidan. Karlos Zabala

Lerro bat **koka** sudurreratu nuela ematen zuen. Karlos Zabala

**Koka** hartzen ari direnentzat, hartzen ez duten guztiak dira gogaikarriak eta atzeratuak. Karlos Zabala

Mikelek beti edukitzen du oso **koka** ona, saltzen ez duena batez ere. Sonia Gonzalez

Ximurra zuzen zegoen: **kokak** on egiten zion. Aingeru Epaltza

**Kokak,** hala ere, lehenago aipatu dudan akats hori dauka, besteak beste: burua pizten dizu, baina organo sexualak itzaltzen. Karlos Zabala

Galdetzen zion "gaur, **koka** ala txorta?" Kurtena zen Ivanek erre zuen lehenengo kanutoa, eta baita sudurreratu zuen lehenengo **koka**-lerroa ere, urte batzuk geroago, Kasselera egin zion bisitaldi batean. Iban Zaldua

Hasieran, FARCek ez zuen begi onez ikusi drogari loturiko nekazaritza bultzatzea eta kokazaleei **koka** zerga kobratzen zien. Berria - Mundua

**2** ik **coca**.

**3** ***koka hosto*** koka landarearen hostoa, kokainaz aberatsa.

Mea zuloan otordu txikia jateko betarik ez diete uzten eta, gosea atzenarazteko, **koka hosto** mingotsak eta lejia (quinaren zuztarren hautsa, arroza eta anisarekin nahastuta) mastekatzen dituzte. Pablo Sastre

**Koka hostoak** biltzen lan egiten zuten 34 gizonezko hil zituzten tiroz Catatumbo eskualdean. Berria - Mundua

**4** ***koka landare*** Amerika tropikaleko zuhaixka, hostoak kokainaz aberatsak dituena.

Akordioa lortu behar dugu **koka landarea** landatzearen inguruan, droga trafikoan eta bioaniztasunean». Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**koka sailak** (7); **koka sailak suntsitzeko** (3)

---

koka-kola ik **coca-cola**.

---

# **kokaera** *iz* kokatzeko era.

Hiru dimentsio horiek aise uler daitezke intuizioz, oinarritzat gure gorputza eta gorputzak espazioan duen **kokaera** harturik. Josu Zabaleta

Ordena joniarrean ere dentikuluen **kokaerak** bere proportzio propioa du. Santiago Iruretagoiena

Erdigunean, kobrezko hariarekin eta eztainuarekin sortutako Aingeruak daude, hainbat forma eta **kokaera** dituzten miniatura hotzak. Berria - Kultura

Bigarren fonema artikulatzeko beharrezkoa den organoen **kokaera** lortu ahal izateko. Isabel Arrigain

Etsaiaren **kokaerari** buruzko garrantzi handiko informazioak etsaiak berak emango ditu. Josu Zabaleta

**Kokaera** politikoa erabakitzeko neurgarri klasiko horietan moderatu samarra nintzen beraz, baina, aldi berean, banuen beti kontra agertzeko joera bat ere, aurreko urteetako anarkismoaren hondarra agian. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **kokaezin** *izond* ezin kokatuzkoa.

Emakumeak Iban Zaldua neu ote nintzen galdetu zidan, gaztelaniaz -baina **kokaezina** egin zitzaidan azentu arin batez-, eta une labur-labur batez ezetz erantzun behar niola pasatu zitzaidan burutik. Iban Zaldua

---

# **kokagune** 1 *iz* zerbait kokatzen den gunea. ik **kokaleku**.

Laugarren tribuaren **kokagunerantz** jo zuen taldeak. Jon Arretxe

Herrialde bakoitzaren **kokagune** geografikoaren arabera. Iñaki Heras

Eguzkiaren beraren **kokagunea,** edo lurraren angelua, hobe esan. Pello Zabala

Ez dugu Rivo Tortoren **kokagune** zehatza ezagutzen. Askoren artean

Leku honek daukan gauzarik onena **kokagunea** bera da, **kokagunea** eta ikuspegia. Jon Arretxe

Nire eserlekuaren **kokagunea** oso atsegin zitzaidan, batik bat neure burua ezkutatzeko aurkitzen nituen erraztasunengatik. Pedro Alberdi

Hurritzak gurean horixe izan zuen bere **kokagunea:** ur-ixurien araberako pendizen beheko ur-habien seinalea emateko hautatua bera izan baitzen. Pello Zabala

Austriako Michael Glawoggerren filmak Viena eta Txekia ditu **kokagune**. Berria - Kultura

*Frío sol de invierno*-ko **kokaguneak** bilatzean, barnetegi hau ezagutu genuen. Berria - Kultura

Gipuzkoako bigarren erraustte plantaren balizko **kokaguneen** gaineko txostena.

Bestalde, sedentarismoaren eta giza **kokagune** gero eta handiagoen ondorioz, gizarte egitura gero eta konplexuagoa zen. Luis Elberdin

*ik beherago* 3. Askoren artean

**2** irud/hed

Agustinek berak Erromatar Inperio berantiarrean baitu bere **kokagune** historikoa, Erdi Aroa esan zaiona baino zenbait mende lehenago. Askoren artean

Une historiko honetan Euskal Herriak legitimitatea du, demokrazia erradikalaren aniztasunaren aurrebaldintzan oinarriturik, subjektu politiko gisa bere **kokagunea** Espainian eta Europaren baitan zer nolakoa izan behar duen erabakitzeko. Joseba Zulaika

**3** giza kokagunea.

Gazako **kokaguneetan** kolonoak eta hauei sostengua ematera joandako milaka juduak baino ez daude.

Zisjordaniako **kokaguneak** bertan behera uzteko asmoak. Iñigo Aranbarri

Sharonek **kokagunea** hemen ezartzeko esan zigun eta guk kasu egin genion. Berria - Harian

**Kokagunearen** sarreran pilatu dira kolonoak goiz-goizetik. Berria - Harian

Neve Dekalim **kokagunea** erresistentziaren ikur bilakatu da Gazan. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gazako kokagune** (10); **gazako kokagune guztiak** (4); **kokagune judu** (11); **kokagune juduak** (18); **kokagune juduan** (4); **kokagune juduaren** (8); **kokagune juduen** (9); **kokagune juduen aurkako** (3); **kokagune juduetatik** (3); **kokagune juduren** (3); **kokagune judutik** (3); **kokagune nagusiak** (4); **kokagune txiki** (3); **kokagune txikiak** (4); **kokagune txikiak bertan** (4); **netzarim kokagune juduaren** (3)

**aritzetako kokagunea** (3); **behin betiko kokagunea** (3); **errauste plantaren kokagunea** (4); **kokagunea erabakitzeko** (4)

**gazako kokaguneak** (26); **gazako kokaguneak husteko** (3); **gazako kokaguneak uzteko** (4); **kokaguneak bertan behera** (20); **kokaguneak desegiteko** (3); **kokaguneak husteko** (5); **kokaguneak uzteko** (9); **zisjordaniako kokaguneak** (9)

**kokaguneari eraso** (3)

**gazako kokaguneetan** (4); **kokaguneetan bizi** (8); **kokaguneetan bizi diren** (5)

**kokagunetik gertu** (3)

---

# **kokaina** 1 *iz* koka hostoetatik ateratako alkaloidea, sendagintzan sorgarri bezala, eta orobat droga bezala, erabiltzen dena.

Alkohola eta tabakoa kontsumitzen dira gehien; **kokaina** da arriskutsuena. Berria - Euskal Herria

**Kokaina** efektua egiten ari zen nerbio sisteman. Unai Iturriaga

**Kokainak** ematen duen bizitasuna eta alkoholak eragindako logura leuna. Sonia Gonzalez

Larrua jotzea ez da gauza bera **kokainarik** gabe. Sonia Gonzalez

**Kokainak** arteztu dio alkoholak okertutako berbakera. Urtzi Urrutikoetxea

Salatutako baten abokatuak **kokaina** hartu zuen epaiketa bidean. Pello Salaburu

Anfetaminei eta esnifatzen nuen **kokainari** esker eutsi ahal izaten nion. Joan Mari Irigoien

**Kokaina** zainetan sartzen dutenak gero eta gehiago direla. Berria - Euskal Herria

Europa Ekialdeko tenislari ospetsu bat, **kokainaz** lepo eta Versaceren top model hankaluze baten besotik agertu zena. Patxi Iturritegi

**Kokainaz** beteriko 20 kutxa atera zituen poliziaren urpekari talde batek. Aritz Gorrotxategi

Burmuina **kokainaz** edo anfetaminaz gainezka. Karlos Zabala

**2** (neurri banakoekin)

Bizkaiko kostaldera zetorren belaontzi batean 800 kilo **kokaina** atzeman, eta 18 lagun atxilotu ditu Espainiako Poliziak. Iñigo Aranbarri

900 kilo **kokaina** konfiskatu dituzte Bilboko portuan. Berria - Euskal Herria

Operazio berean 7.000 dosi heroina, 4.000 dosi **kokaina** eta 15.000 euro aurkitu dituzte. Berria - Euskal Herria

Lau edo bost lerro lodi **kokaina** sudurretik gora eta sermoia egitera. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kokaina** dosiak igoz joan nintzen. Joan Mari Irigoien

**Kokaina** gaindosi batek eragin zuela dio forenseak. Berria - Kirola

**Kokaina** trafikoak gero eta indar handiagoa duela. Berria - Euskal Herria

**Kokaina** kontsumoak nabarmen egin du gora EAEko gazteen artean. Berria - Euskal Herria

**Kokaina** poltsa gehiago heldu dira Miarritze eta Angeluko hondartzetara. Berria - Euskal Herria

Seme-alaben odolean alkohol eta **kokaina** arrastoak aurkitu dituzte. Berria - Euskal Herria

**Kokaina**-hartzailea, pertsona zaharren gaixotasunik izan gabe ere, arterioesklerosia eta horrelakoak, bat-batean hil daiteke. Antton Olano

**Kokaina** sare banatzaileek zeharo kontrolatzen dute merkatua. Iñaki Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bi kilo kokaina** (3); **kilo kokaina** (26); **kilo kokaina atzeman** (9); **kokaina atzeman** (9); **kokaina dosi** (3); **kokaina gaindosi** (4); **kokaina hartu** (3); **kokaina kontsumitu** (3); **kokaina poltsa** (3); **kokaina poltsak** (3)
>
> **kokainarekin positibo emateagatik** (3)

---

## kokainazale *izond* kokainaren zale dena.

Nabalkada garbi batek marrazturiko tatuaje gorria, ordainketak eguneratu gabeko **kokainazale** berantiarraren bularraldean. Aingeru Epaltza

27 **kokainazaleren** burmuina ikertu du Bostongo sendagile talde batek eta amigdala deituriko atala kontsumitzaile ez direnek baino txikiagoa dutela ikusi dute. Berria - Gaiak

---

## kokainomano *iz* kokainazalea.

Hasiera batean ospakizun anfetaminiko-**kokainomanoa** izango zela erabaki genuen. Sonia Gonzalez

---

kokakola ik **coca-cola**.

---

## kokaleku **1** *iz* kokatzeko lekua.

Zerua ezagutzeko, izarren **kokalekua** jakiteko eta planeten mugimendua atzemateko. Jon Muñoz

Hilaren 19an erabakiko dute errauste plantaren behin betiko **kokalekua**. Berria - Euskal Herria

Espetxeari dagokionez, bederatzi **kokaleku** aztertzen ari direla esan zuen. Berria - Euskal Herria

Auzo berri samar batean ginen, familiabakarrekoen moda etorri arte hiriko klase goi-ertainetako kumeen habiaren ohiko **kokalekua**. Aingeru Epaltza

Erantzungailuari eman nion neure egoeraren eta **kokalekuaren** berri. Aingeru Epaltza

Mahaian jokaera eta **kokaleku** finko eta beti-batekoak hartu behar ziren. Xabier Olarra

Lau kanoi handi, **kokaleku** finkoetan, gazteluko alde bakoitza zaindu zezaten, eta bertze horrenbertze kulebrina, txikiagoak, lekuz aldatu ahal izateko erasoa nondik heldu zen. Aingeru Epaltza

Txorien **kokaleku** den baratzeko elorria bezala dira. Elizen arteko biblia

Baiona Ttipia, herriaren defentsarako eraikitako Gaztelu Berriaren **kokalekua**. Javi Cillero

Azentuaren **kokalekua** bilatu. Lourdes Oñederra

Ibar zabal bat, herri ketsu baten **kokaleku**. Karlos Zabala

Reno dute **kokaleku** liburuan elkarrekin gurutzatzen diren istorio guztiek. Berria - Kultura

Etorkizunean borroka eta liskar ugarien **kokaleku** izango zen bailara zabala. Agustin Otsoa

Antzezlanek eman diote ohorezko **kokalekua** literatura unibertsalean. Berria - Kultura

Herrialde Katalanek eta Euskal Herriak, **kokaleku** geografiko desberdinak dituztenez, eguraldia aztertzeko sistema desberdinak dituzte. Berria - Euskal Herria

Mendiek esparru sinbolikoa osatzen dute, bizitza basati eta marjinatuaren **kokaleku** dira. Bernardo Atxaga

**2** giza kokagunea. ik **kokagune 3**.

Hala ere, Eszilax eta Polibioren lanetan aurkitzen dugunez, kartagotarrek **kokaleku** handiak zituzten kosta haietan. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **izango du kokaleku** (3); **kokaleku zehatza** (5)
>
> **azentuaren kokalekua** (5); **behin betiko kokalekua** (3); **errauste plantaren kokalekua** (6); **izango du kokalekua** (3); **kokalekua erabaki** (3); **kokalekua erabakitzeko** (8); **plantaren kokalekua** (8); **plantaren kokalekua erabakitzeko** (4)

---

## kokalero *izond/iz* koka landarea lantzen duen nekazaria. ik **kokazale**.

Evo Morales buruzagi **kokaleroa** eta Rigoberta Menchu Bake Nobel saridun. Droga trafikoa desagerraraztea da gure helburua, baina beti ere **kokalero** txikiei kalterik egin gabe. Berria - Mundua

Tropikoko **Kokaleroen** Federazioko buruzagi izan zen Berria - Harian

---

## kokamodu *iz* kokaera.

Bertsolaria oholtzaren erdian, ertz batean, aurrean edo atzean jarrita sormenean zer eragin izan dezakeen ikusiko da; hots, inguruarekiko daukan **kokamodu** fisikoak sormenean zein ondorio duen. Berria - Kultura

---

## kokapen **1** *iz* kokatzea; kokalekua.

Xakeko partida batean, peza baten edozein **kokapen** ez dago peza horrek lehen izan dituen **kokapenekin** lotua, ez du axolarik non egon den lehen kokatua, eta ez du axolarik zein bidetatik iritsi den **kokapen** horretaraino. Isabel Arrigain

Ordea, kokoriko dagoen neska gazteak ez ditu kontuan hartu begiluzeek har ditzaketen **kokapen** guztiak. Pello Lizarralde

5.000 Hz baino gehiagoko maiztasunetan, bi belarrietako seinaleen indarren diferentzia da soinuaren **kokapenerako** oinarria. Irene Aldasoro

**Kokapenari** dagokionez, hauxe besterik ez dakigu: garun-azalean daudela, itxuraz, oroimenaren alderdi konplexuak, ikuste- eta entzute-esperientzien oroitzapen eta asoziazioarekin zerikusia dutenak. Irene Aldasoro

Artikulazio guneak, **kokapena** gorabehera, beti irekidura bat azaltzen du, hau da. Isabel Arrigain

Gorabehera bakoitzak bere maila eta bere **kokapen** formala du. Xabier Arregi

Azentuaren lege bat, hizkuntza sistemari dagokion guztia bezala, terminoen **kokapen** jakin bat da. Isabel Arrigain

Peru Abarka doktoratu zen unibertsitatearen **kokapena** deskubritzea gelditzen zaigu orain. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

"Zerbait" horrek, **"kokapen**-informazio" horrek, martxan jarriko ditu guneko geneak, erdiak aitarengandikoak eta erdiak amarengandikoak. ez du ezerk aldez aurretik bermatzen eremu honek -ni orain nagoen **kokapen**-puntu landu gabe honetan- iraunkor eta autonomo iraungo duenik. Juan Garzia

Eskua hala-hola jaso eta, gogoetatsu, kapelaren **kokapen** angelua aldatu zuen. Irene Aldasoro

Esprinterako **kokapen** borroka hasi da. Berria - Kirola

**Kokapen**-gerraren errutina nekagarrira makurtu. Juan Garzia

Baby Suggsen sukaldean kriseilu baten argitan, **Kokapen** Kuotaz mintzatu bitartean. Anton Garikano

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eurreko agerpenei begira a priori determinatutako denbora-**kokapen** bat atxikitzen dion heinean. Ibon Uribarri

Liburu-**kokapen** lantsua amaituta, […], ustekabeko *Fotos* bildumari esker, eta birrinduta egon arren, galdutako urte urrunen atsegin malenkoniatsua goza dezaket. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kokapen egokia** (3); **kokapen ezberdinak** (3); **kokapen jakin bat** (4); **kokapen ona** (14); **kokapen zehatza** (7); **liburuen kokapen aldaketa** (4)
> **kokapena aldatu** (3)

---

## **kokarazi**, kokaraz, kokarazten du *ad* kokatzera behartu.

Makina bat jarreratan **kokarazi** zuen bere irudimenean neskaren bekokiko girlanda hura. Juan Garzia

Berreraiki zuen Zedron hiria eta zaldizko zein oinezko gudariak **kokarazi** zituen bertan. Elizen arteko biblia

Sentimenak, izan ere, ikusmena begininian **kokarazten** du, batez ere zer distiratsuak ikusi ezin ditugunean, argi larregiak gure ikusmenari traba egiten baitio. Xabier Amuriza

---

## **kokatu**, koka(tu), kokatzen **1** da *ad* (norbait) toki batean bizitzen-edo jarri.

Abelek berehala bete du bidelagunaren agindua eta errotako bihurgunean **kokatu** da. Pello Lizarralde

Familia Andaluzian **kokatu** zen, Baeza hiri gotorrean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Laster, hala ere, Lazkaon **kokatu** ziren. Marzel Etxehandi

Erik Gorriak aurkitu zuen [Groenlandia] X. mendean, eta eskandinaviarrak **kokatu** ziren mendebaleko itsasertzean. Bernardo Atxaga

Armada aldiz Donibane Garazin **kokatu** zen lehenik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Kokatu** naiz ahal bezala, zakua aulki pean pausatuz. Piarres Aintziart

Burgundiarren legean esaten da herri horiek Galietan **kokatu** zirenean lurren bi herenak eta jopuen herena hartu zituztela. Iñaki Iñurrieta

Herrian **kokatu** soldaduen kopurua herritarrena baino hamar aldiz handiagoa izateak egoera korapilatzen zuen. Elena Touyarou

**2** (norbait) modu jakin batean ipini.

Bere atzean **kokatu** ninduan. Bernardo Atxaga

**Koka** zaitez nik zure ipurmasailak musukatzeko moduan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (zerbait)

Horrela, ehun eta berrogeita hamar egunen buruan […], Ararat mendi gainean **kokatu** zen ontzia. Jose Antonio Mujika

Horren froga, erlijio arrotzak Japonian zein erraz **kokatu** diren. Iñaki Iñurrieta

Globalizazioa, beraz, dinamika luze batean **kokatzen** da, non espazio fisiko eta sozial oro, apurka-apurka, kapitalaren legearen mende ipintzen baita. Koro Navarro

Maimonen jarrera, fundamentalista ez den ortodoxian **kokatzen** da. Xabier Kintana

• **4** du *ad* (norbaitek beste norbait) toki batean ipini.

Gutako batzuek Frantziara jo genuen, Baionan **kokatu** gintuzten umeen eskoletan. Koldo Izagirre

Bulego nagusia eta informazioaren tresneria (egunkariaren idazkaritza, nolabait esateko, telegrafoa barne), Kale Nagusiko 45ean **kokatu** genituen. Txillardegi

Beste literatura joera zabalago batean **kokatu** behar da Raymond Carver. Koro Navarro

**5** (norbaitek zerbait)

Dibanak **kokatzen** eta berogailua pizten. Patxi Zubizarreta

Gero lanparak erosi zituen, eta zokoetan **kokatu**. Pako Aristi

Goizeko hirurak ziren etxeko giltza atean **kokatu** nuenean. Itxaro Borda

Han **kokatu** zuen oihal-etxola, Betel mendebaldera eta Ai ekialdera zituela. Elizen arteko biblia

Betaurrekoak zuzen **kokatu** zituen eta aurpegira so egin zidan dendariak. Aritz Gorrotxategi

Ezkerrerantz zihoan bide estuan **kokatu** zituen begiak. Aritz Gorrotxategi

Hantxe **kokatu** zuen bere atsedena. Juan Garzia

Iragana pittin bat zuzentzea errebindikazio horren baitan **kokatzen** dut nik. Bernardo Atxaga

Hendaiako kirol-portuan **kokatzen** zuen jarraipenaren amaiera. Migel Angel Mintegi

· Hark emango die aukera enbrioiak eratuko dituen zelulei beren burua **kokatzeko** eta beren nortasuna definitzeko. Juan Garzia

**6** irud/hed

Uda-gau bateko ordu txiki sargorietan **kokatu** beharko nuke Rimbaud ezagutu nuen mentura. Anjel Lertxundi

Morganek eta haren eskolak geneak kromosometan **kokatu** izanak galdera andana berri bat ekarri zion biologiari. Juan Garzia

Testuinguru jakin batean **kokatu** du EAEk manifestaziorako deialdia. Berria - Euskal Herria

**7** ***koka(-)ahala*** *ipar* gainezka.

Eguerdiko, elizako plaza **koka ahala** betea zen. Herria

Gizonkia zuten garraiatzen, bagoietan **koka ahala** jende sartuz, tinke tinkea. Eneko Bidegain

Jendea **koka ahala** sartu da Aldudeko eliza barnera, gaineko galerietako zokoetaraino. Herria

Eguerdiko, elizako plaza **koka ahala** betea zen. Herria

Gela ttiki hartan, **koka-ahala** baino jende gehiago izanez, atera nintzen. Daniel Landart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

koka ahala (14); koka ahala betea (3); koka ahala jende (4)

aldamenean kokatu (3); ardatzean kokatu (3); arloan kokatu (3); atzealdean kokatu (3); atzean kokatu (9); atzean kokatu ziren (3); atzerago kokatu (3); aurrean kokatu (7); aurreko giroan kokatu (4); azpitik kokatu (4); azpitik kokatu zen (3); barnean kokatu (18); barnean kokatu zuen (3); barruan kokatu (48); barruan kokatu zuen (14); bidean kokatu (4); buruan kokatu (4); erdi erdian kokatu (3); erdian kokatu (11); eremuan kokatu (4); eroso kokatu (3); esparruan kokatu (4); etorkizunean kokatu (4); ezkerrean kokatu (4); faboritoen artean kokatu (3); finalean kokatu zuten (3); gainean kokatu (18); gainean kokatu zen (6); gainean kokatu zuen (5); giroan kokatu (5); hegalean kokatu (3); herrian kokatu (9); hobeto kokatu (7); ildo horretan kokatu (9); inguruan kokatu (5); kanpainaren barruan kokatu (4); kanpo kokatu (5); kokatu beharra (8); kokatu beharra dago (3); kokatu beharreko (3); kokatu berria (3); lauko finalean kokatu (3); lekuan kokatu (14); lurraldean kokatu (3); mailan kokatu (3); nola kokatu (8); non kokatu (38); non kokatu erabakitzeko (3); ondo kokatu (11); ondo kokatu zen (4); ondoan kokatu (7); ongi kokatu (7); postuan kokatu (3); testuinguru horretan kokatu (11); testuinguruan kokatu (12); ziburun kokatu (4)

auzoan kokatua (3); ekialdean kokatua (4); ekialdean kokatua den (3); erdian kokatua (6); europan kokatua (3); euskal herrian kokatua (3); gainean kokatua (3); gunean kokatua (4); hazparnen kokatua (3); hegoaldean kokatua den (5); herrian kokatua (7); hurbil kokatua (6); hurbil kokatua den (3); iparraldean kokatua den (3); kilometrora kokatua den (4); kokatua den bikote (3); lurraldean kokatua (3); mendebaldean kokatua (5); mugan kokatua (3); ondoan kokatua (5); ongi kokatua (4)

barruan kokatuko (3); ondoan kokatuko (3)

barruan kokaturik (4)

ardatzean kokaturiko gauza (3); euskal herrian kokaturiko (18); gainean kokaturiko (4)

barruan kokatuta (10); erdian kokatuta (3); estu estu kokatuta (4); gaizki kokatuta (5); kokatuta duen bulego (3); ondo kokatuta (25); ondo kokatuta egoten (3); ongi kokatuta (11); ongi kokatuta jardun (3); sailkapenean ondo kokatuta (3)

auzunean kokatutako (3); ekialdean kokatutako (5); hegoaldean kokatutako (11); hurbil kokatutako (5); iparraldean kokatutako (4); mugaldean kokatutako (3)

barruan kokatuz (3)

gainean kokatzea (3); kokatzea erabaki (5); ondo kokatzea (3)

barnean kokatzeko (3); bere lekuan kokatzeko (3); bere testuinguruan kokatzeko (3); berriro kokatzeko (3); kokatzeko ahalegina (4); kokatzeko asmoa (3); kokatzeko aukera (7); kokatzeko erabakia (3); kokatzeko eskatu (4); kokatzeko joera (4); testuinguruan kokatzeko (4)

; alorrean kokatzen (5); apaletan kokatzen (3); arloan kokatzen (3); aurrean kokatzen (3); auzoan kokatzen (3); barnean kokatzen (14); barruan kokatzen (51); erdian kokatzen (9); erdigunean kokatzen (3); eremuan kokatzen (9); esparruan kokatzen (6); euskal herrian kokatzen (5); ezkerrean kokatzen (4); hegoaldean kokatzen (3); horien artean kokatzen (6); horren baitan kokatzen (4); horren barruan kokatzen (4); hurbil kokatzen (4); lekuan kokatzen (4); mailan kokatzen (3); ondoan kokatzen (6); ongi kokatzen (3); parean kokatzen (3); testuinguru horretan kokatzen (3); testuinguruan kokatzen (7)

---

## kokatze *iz* norbait toki batean bizitzen-edo jartzea; zerbait toki batean jartzea.

**Kokatze** horren helburua merkataritza hedatzea izan baitzen, ez hiri bat edo inperio berri bat sortzea. Iñaki Iñurrieta

Enpresen **kokatze** estrategikoarekin. Iñaki Heras

Ezpainen luzatzea edo barreiatzea, barailaren irekitzea eta mihiaren **kokatzea** baliatuz. Lourdes Oñederra

---

## kokazale *iz* koka landarea lantzen duen nekazaria. ik **kokalero**.

Hasieran, FARCek ez zuen begi onez ikusi drogari loturiko nekazaritza bultzatzea eta **kokazaleei** koka zerga kobratzen zien. Berria - Mundua

Eskualdeko 150 herritar hiltzea egotzi diete paramilitarrei, haien lurrekin geratzeko, gero Kolonbiako beste lekuetatik eramandako **kokazaleekin** populatzeko. Berria - Mundua

---

## koket 1 *izond* pertsonez mintzatuz, beste pertsonak erotikoki limurtzen saiatzen dena, banitateagatik edo denbora-pasa. ik **kriket**[2]**; lakrikun**.

Buruaren atze alderaino jasotzen dute [mantelina] gipuzkoarrek, eta horrek ez die kentzen, neholaz ere, arras **koket** eta grazios izatea. Koldo Izagirre

Beha hor doan herriko neska horri; zoragarri polita da, ezin egokiago orraztua, **koketa** da eta madona bat bezain apaindua. Koldo Izagirre

Lehenik maratza, gero alaia, gero **koketa** eta batzuetan aurpegi pollit bat. Josu Zabaleta

-Bai, emakumea **koket** samarra ez bada, ez zaidak gustatzen. Josu Zabaleta

**2 *koket-koket*** (adizlagun gisa)

Apenazko begirada bat, **koket-koket** joan ziren haiek ere gorantza. Pablo Sastre

---

## koketeria *iz* pertsona koketaren jokaera.

Madrildarrek hain **koketeria** handiz eta graziaz begietaraino daramaten mantelina hori. Koldo Izagirre

Azal erori zaildua ezkutatzera behartzen du **koketeriak,** baina leunek gorputz nekatua deskantsatzen diote Alberto Barandiaren

---

## koketo *izond* gizonezkoez mintzatuz, koketa.

Hala ere, historia postmoderno bat kontatu behar bazen, neskak berera erakarri beharko zuen mutila, **koketo** bihurtu, *look*-a aldarazi; eta hori dena, niri ez gustatzeaz gainera, pigmalion-istorio berri bat izango zen, eta ez sedukzio zera bat. Xabier Mendiguren Elizegi

---

kokil ik **kikil**.

---

kokilarazi ik **kikilarazi**.

---

kokildu ik **kikildu**.

---

kokiltzeke ik **kikiltzeke**.

---

## kokin 1 *izond* bihurria, barrabasa. ik **frikun**; **pikaro**.

Ama baten beharra besterik ez zuen neskatxa **kokina** horrek! Ramuntxo Etxeberri

Baina nora joan ote zen, haur **kokin** hori? Ramuntxo Etxeberri

-Ageriko... -erran zion trufa ezpainetan apez kazetari **kokin** batek. Itxaro Borda

Beti hobendun, emaztea: hamasbosgarren mendean, Hermann Künig von Vach fraile alemanak, Caminoa egin ondoan, ez ote zuen erran Navarreteko Santiago aterpeko ostalertsa **kokina** zela erromesekin? Piarres Aintziart

**2** (gauzkei buruz)

Maialen zunan... -azaltzen zion anaiak, irri **kokina** begietan-. Itxaro Borda

Begitarte erne, **kokin** eta sorgin batekin biltzen du Txominen arreta guzia Graxik. Eneko Bidegain

So **kokinik** ez zuten Alemanian... Eneko Bidegain

Ahalge **kokin** batekin. Michel Oronoz

Eta gonbidapenezkoa nahi zuen keinu erdi lotsati erdi **kokina** gaitzespentzat hartu mutiko herabeak. Xabier Mendiguren Elizegi

Tonuan biziki ongi kausitzen dute, eskolako ikasgaien terminologiak baliatuz eta haratago eramanez malezia **kokin** batekin. Berria - Kultura

Hura zuten mementorik **kokinena,** zakurrak erausiaka hasi gabe behar baitzituzten lekuak hustu eta mugaz bertzaldera iragan, Burkatxen bordako aldera. Eneko Bidegain

**3** (hitz elkartuetan)

Eta Gillen Hiribarren itsasuarra, Patxi Iriart hiriburutarra eta Mizel Mateo gure herritarra arizan dira trebetasun eta omore handiz bertsutan, **kokin** aire batekin ere batzutan. Herria

**Kokin** -aireak harrotu zion burumuin desolatua. Itxaro Borda

---

## **kokinkeria** *iz* bihurrikeria. ik **frikunkeria**.

Argazkietan gero, laurogeita bederatzi urteak konplitu berrian begien hondoan zeraman nortasunaren **kokinkeria** nabaritzen zitzaion. Itxaro Borda

---

## **koklea** 1 *iz* barne belarriaren zatia, barakuilu baten maskoarren itxura duena.

Hodi biribilkatu bat da **koklea,** barraskilo baten maskorraren itxurakoa. Irene Aldasoro

Orekarekin zerikusia duten egiturak ditu barne-belarriak, baina, oraingo gure xedeari dagokiola, **koklea** da (latinez *barraskilo* adierazten duen hitza) haren atal nagusia. Irene Aldasoro

Soinuak, **koklearen** leiho obalera iristen denean, bibrazioa sortzen du haren barruko fluido urtsuan. begian erretina eta belarrian **koklea** daude barneratzen den seinalearen eta garunaren artean. Irene Aldasoro

Nerbio-gorreria duen jende askori lagundu dio **koklea** artifizialak. Irene Aldasoro

**2** Arkimedesek asmaturiko tresna, ura igotzeko balio duena, barruan helize formako xafla bat duen hodi makurtu birakari batek osatua.

Egur horietan burdinaz forratutako zuloak egingo dira, eta zulo horietan ziriak sartuko dira; hala, gizonek hankekin eraginez ibiliko dira **kokleak** biraka. Santiago Iruretagoiena

Badago **koklea** -mota bat ere, ur-kopuru handia ateratzen duena, baina gurpilak bezain gora altxatzen ez duena. Santiago Iruretagoiena

---

## **koklear** *izond* koklearena, kokleari dagokiona.

Audifonoak ez die ezertarako balio eta inplante **koklearra** behar dute ezinbestez. Urtero, batez beste, bost-sei inplante **koklear** jartzen ari gara Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian. Berria - Gaiak

---

## **koko**[1] 1 *iz* kokondoaren fruitua, handia eta oskol-gogorra, barrualdean ur gozo bat eta, oskolari atxikia, mami zuri oliotsua, jateko ona, duena.

Ondo jaten zuten: arroza, lentejak, barazkiak, **koko** xehatua esnetan azukrearekin egosia. Pablo Sastre

Itsasoaz haratagoko lur basatiak emankor bihurtu behar ziren: kakaoa eta kafea, kainabera eta **kokoa..** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Uharteren batean luzaro arrain gordina eta **kokoak** bakarrik jaten Aitor Arana

**2** koko-azala.

Zigarroa itzali dut **koko** landu zati batekin eginiko hautsontzian. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kadur herrixkan elefante batek bi barrika bete **koko** -ur edan zuen. Gotzon Garate

Dantzariak izerdi-patsetan eta **koko** -esnea edaten ari. Joxe Austin Arrieta

Horren ostean, **koko** olioz prestatutako arroza eskaini ziguten. Patxi Zubizarreta

**Koko,** palma eta palmito olioak saturatuak baitira. Edorta Agirre

**Koko** azala bete itsaski edan baietz. Gotzon Garate

Deserta: *congolais* **(koko** pastela). Herria

**'Koko** ogia,' erantzun didate. Joseba Sarrionandia

**Koko** mamia diruditen haginak erakutsiz. Joseba Sarrionandia

Bide ertzean atzemaniko patata erdi ustelen bat, **koko** puxka, azukre kanabera zati bat, sustrai batzuk, karramarro bat... Pablo Sastre

**4** ***koko intxaur*** kokondoaren fruitua.

Nekazaritza (arroza, azukrea, anana, **koko** intxaurra...). Ramuntxo Etxeberri

---

## **koko**[2] 1 *iz* zomorroa.

Dutxa, labezomorro moduko **koko** beltzez josirik topatu zuen Estherrek. Xabier Montoia

Beste landareak ere onartzen ditu: bai inguruan eta bai gainean edo enborrean gora, hasi goroldioetatik, ardagai eta onddo, eta xomorro, **koko** eta beste, txori klase asko... Pello Zabala

Ezin zela joan erantzun zidan, ouricuri **kokoak** biltzera joan behar zuela amarekin. Karlos Zabala

Eskuartean hartu zuen ahurtara bete [arto] ikusteko ea ez zuen **kokoak** jo. Juan Garzia

Edota sugeek, arrabioek, molde anitzeko **kokoek** . Xabier Montoia

**2** irud/hed

Juanito mendian, **"kokoek"** paratu duten kontrolari begira dago. Pablo Sastre

---

## **koko**[3] *iz* mamua.

Hor nonbait behar du... -esan dio bisitariari **koko** -jantzian kriskitinka dabilen batek. Anjel Lertxundi

---

## **koko**[4] *iz* espainolak-edo izendatzeko erabiltzen den gaitzizena.

Kanpoko arrotz jendea, **koko** jendea, jito jendea, jo izan duela "karakol jaletzat" euskaldunak. Patziku Perurena

Eta jakina denez, aspaldi handiko Ziripot zarpail honek, oro har, deabru, sorgin, **koko,** bufoi, juglare, edo momo irrigarri/izugarri/errukarria gorpuzten du. Patziku Perurena

---

## kokodrilo ik **krokodilo**.

---

## **kokolo**[1] **1** *izond* inozoa, ergela.

Nerabe **kokoloenak** ere badaki nola egiten duten neskek. Luis Elberdin

Modesto argi gutxiko **kokolo** bat dela. Anjel Lertxundi

Ni naiz ni **kokoloa** . Edorta Jimenez

Asmazioak, hasieran, ez du **kokoloen** txantxa batek baino funts handiago. **-Kokolo** halakoa! -haserreak gainez egin zidan. Anjel Lertxundi

Poltsa banatan erdia eta erdia, nik, **kokolo** halakoak, halaxe bainituen diruak banaturik. Edorta Jimenez

Gerran errukitsu direnak, ez dira **kokolo** hutsak baino. Berria - Kultura

Isildu egin nintzen noski, behin egiazko irakasle ezkertiar bat egokitu eta ezin hasiko nintzen **kokoloarena** egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (adizlagun gisa)

Txilibrinen inguruan ez egoan **kokolo** ibilterik. Xabier Amuriza

Ikatza uzkitik sartuta baino **kokoloago** utzi duk putakume hori! Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kokolo halakoa** (3)

---

## **kokolo**[2] *iz* txokolatea.

Haur hizkeran: *apapa,* ***kokolo,*** *mamarro, tatan...* Iñaki Arranz

---

## **kokolokeria** *iz* inozokeria, ergelkeria.

Monakoko **kokolokeriak** . Iñaki Arranz

---

## **kokolotu,** kokolo(tu), kokolotzen da/du *ad* kokolo bihurtu, inozotu.

Benetan **kokoloturik** aditu nituen Martinen hurrengo argibideak. Edorta Jimenez

---

## **kokondo** *iz* palmondoen antzeko zuhaitza, zurtoina luzea eta liraina duena, fruitutzat kokoa ematen duena*(Cocos nucifera).*

Hala bada, langileekin batera **kokondo** pila zegoen baso batera joan nintzen. Patxi Zubizarreta

Lumaje distiratsuko txori batzuk txilioka eta txorrotxioka ari ziren **kokondoen** goialdean. hark gezurra esan zuen, gainbegiratu behar zuela **kokondoak** nola garbitzen zituzten, aurretik prestatua genuen dena bakar-bakarrik gelditzeko. Lopez de Arana

Sarekada zabalaz, zioen bere kemenaren sustatzeko bezala, **kokondoa** inarrosiko dut eta eroriko diren intxaurrak, ezpalak barne, arraiki bilduko. Itxaro Borda

*ik* koko[1] 4.

---

## **kokor**

**1** ***kokorreraino*** *adlag* leporaino.

Alta lehen, bat baldin bazen rugby munduan **kokorreraino** sartua, hura zen. Daniel Landart

Eliza guztia jadanik **kokorreraino** betea zen. Daniel Landart

Oren laurden bat lehenago hilez **kokorreraino** betea zen kamioian sartu ziren. Eneko Bidegain

Ez ditut sekula ahaztuko Indiako zinemak, **kokorreraino** jende behartsuz, erdi larrugorri doazen ikusliarrez beteak. Gotzon Garate

Betea bai, **kokorreraino,** Izturitzeko trinketa igande aratsalde osoan gazteño horien finalendako. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kokorreraino betea** (7); **kokorreraino betea zen** (3); **trinketa kokorreraino betea** (3)

---

## **kokorazka** *(orobat* ***kokorozka****)* *adlag* karaka eginez, karakaka.

Paul, berrogei urteko gizon mutur-handi kotzilo bat baina langile porrokatua; Georges, ni baino bi urte gazteagoa, ezdeus batendako irriz **kokorazka** hasten zena eta gure ofiziorako zinez urrezko eskuak zituena; Silveira portugesa, lan zikin eta bortitzenak hari uzten genizkiona... Daniel Landart

Eta bertze gauza bat: jakin nahi nuke nola doan zure esperimentua eta zertan akabatzen duten oiloaren babesean hazi ahattoek, paparaka edo **kokorozka..** . Joan Mari Irigoien

---

## **kokorikatu,** kokorika, kokorikatzen du *ad* kokoriko jarri.

Orduan, Emma ziloaren hegi-hegiraino hurbildurik, **kokorikatu** zen. Daniel Landart

Zegoen lekutik mugitu barik **kokorikatu** zen. Josu Landa

Abel **kokorikatu** egin da botila hartzeko. Pello Lizarralde

Pippin zurbildu eta harresiaren kontra **kokorikatu** zen. Agustin Otsoa

Hurbildu nintzaion, baina ez sobera, izi ez zedin, **kokorikatu** eta alderdi hoberena bilatuz bizpahiru argazki hartu nizkion. Aurelia Arkotxa

Selvaggiak hantxe ematen zuen egun osoa, Uccellok forma unibertsalak marrazten zituen murruaren aurrean **kokorikaturik**. Juan Garzia

---

# kokoriko[1] 1 *adlag* orkatilen gainean eseririk. ik **kukubilko; pikotxean.**

Bide erdian gelditu behar izan du, **kokoriko,** dardara gero eta bortitzagoari eustearren. Pello Lizarralde

Badago igel erraldoi bat muino goi baten tontorrean **kokoriko**. Koldo Izagirre

Atso bat ikusi nuen **kokoriko,** geldirik, berriki zuritutako horma batean bizkarrez emana. Koldo Izagirre

**Kokoriko** makurtu naiz, aurpegia belaunburuen artean ezkutaturik, eskuak kasket gainean, arren nire buruaren gaindik lerra dadin otoika, lubakiaren gaindik jo eta besteren baten bila egin dezan. Mirentxu Larrañaga

Pete **kokoriko** uzkurtu zaigu alboan orain, bekokia bere fusilaren kontra estututa. Mirentxu Larrañaga

Ordea, **kokoriko** dagoen neska gazteak ez ditu kontuan hartu begiluzeek har ditzaketen kokapen guztiak. Pello Lizarralde

Haien aurrean **kokoriko** eserita, gizon arraro bat zegoen. Agustin Otsoa

Askatu eta gero kontatu zigunez, flexioak eginarazi zizkioten etengabe, **kokoriko** ibilarazi. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 *kokoriko jarri*

Swan andrea **kokoriko** jarri zen bat-batean mutikoaren aurrean, bien aurpegiak elkarren parez pare gera zitezen. Mirentxu Larrañaga

Lurrera hurbiltzeko beharra sentitu du, eta **kokoriko** jarri da, bi eskuak belarrean. Pello Lizarralde

[Haurrak] espaloian lerro-lerro **kokoriko** jarri eta kaka egiten ari zirenean. Gotzon Garate

Bere gainean jarri naiz **kokoriko,** eta zaldikatzen hasi natzaio, jaisten naizen bakoitzean, mokor-kolpe indartsu batez aireratzen nau berriro, baina bere zakilak nire baitan jarraitzen du mirakuloski. Juan Martin Elexpuru

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kokoriko jarri** (15); **kokoriko jarri da** (4); **kokoriko jarrita** (3)

---

# kokoriko[2] *(adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kukurruku*** *agertzen da)* oilarraren oihua.

Hala erranen dautzute bai zonbaitek, dena kukuruku eta **kokoriko,** eta hau eta hura... Menane Oxandabaratz

Letra batzuk gaineratuta sortzen diren horrelako totelgramak ziklogramak ere badira, hiru bider errepikatzen dira silabak edo letra multzoak:*kakarazaka,* ***kokoriko,*** *kukurruku, pipirripi, tutulikatu, txitxibiritxi...* Iñaki Arranz

---

# kokorozka ik **kokorazka.**

---

# kokorreraino ik **kokor.**

---

# kokospe 1 *iz* kokotsaren azpialdea, kokotsaren azpiko alde haragitsua.

Komeriak ibili nituen muturretik edatearren berriz betetzeko ez den ontzitik, **kokospea** eta aho ingurua blaitu gabe. Aingeru Epaltza

Hiru-lau eguneko bizarra darama Aitorrek **kokospean,** bisitaldi horretarako propio egina. Jokin Muñoz

Eta erasotzen badit, **kokospeko** bizarretatik helduta jo eta akabatu egiten dut. Jose Antonio Mujika

*ik* kokospeko 2.

Feli lepasendoak, haragi maxkalak **kokospean,** ezpain ertzak oker, begi hezeak eta urduri. Pablo Sastre

*ik* kokospeko 3.

Ama batek bere umea altxatuko lukeen bezala altxatu biolina, ezkerreko besagainera eraman eta han kokatu zuen kokotsaren eta **kokospearen** artean. Felipe Juaristi

Zapi gorri bat zeukan lepo inguruan, **kokospean** bi edo hiru korapiloz lotuta. Josu Zabaleta

Jo gogor **kokospean**! Koldo Biguri

On Camillok **kokospean** asmatu zion eta Peppone lurrera erori zen. Koldo Biguri

Kaskezurra zartarazi zuen ihiziko arma **kokospetik** hustuz. Itxaro Borda

Adinari oso ongi egina zion aurre, hala iruditu zitzaidan, batez ere aurpegiaren aldetik, nahiz eta **kokospeko** azalean ez hainbeste, sugandilarena baitzekarkidan gogora... Joxe Austin Arrieta

*ik* kokospeko.

Hogei duroko baten neurriko orezta zuela **kokospeko** zintzur-korapiloa baino beherago, bena jugularraren parean hain zuzen. Ramon Saizarbitoria

Haren **kokospeko** sugandila-larmintza, haren baldokietako ximurrak. Joxe Austin Arrieta

Alderik alde ebaki orbaindu bat zuen, ahoa gurutzatu eta **kokosperaino** zihoakiona. Fernando Rey

## 2 *pl*

Dudley ahatea bezala ibiliz etorri zen atondora, bere ile horia buru handian liso zanpatuta, lepoko begizta ozta-ozta ikusten zitzaiola **kokospe** ugarien azpian. Iñaki Mendiguren

---

# kokospeko 1 *iz* kokospeko bizarra. ik **kokots 6.**

Ez zeukan bibote sarri eta ia urdindua bakarrik, ezpada [...] **kokospeko** zuri, apain eta txikia ere, gustu onez eta zorrotz moztua. Urtzi Urrutikoetxea

Ile kizkurra eta **kokospekoa** zeukana. Fernando Morillo

José Martí ematen nuen neure **kokospeko** dotorearekin. ia astero desberdin etortzen zaigu, batean **kokospekoa** utzi duela, bestean patillak honela edo horrela ebaki dituela. Urtzi Urrutikoetxea

Beno, **kokospekoa** azken egunetan utzi diat, iraganari egindako opari moduan edo. Fernando Morillo

**Kokospekoa** laztandu zuen. Fernando Morillo

**Kokospekoaz** gainera, bi-hiru eguneko bizarra dauka. Jokin Muñoz

Musu eman, **kokospekoaz** laztandu pintzel batez bezala, eta alde egiteko zutitu da. Itziar Otegi

## 2 kokospeko handitu haragitsua.

Dudleyk udako denborarik gehiena sukaldean sartuta eman zuen, bere txerritxo-begiak pantailari josita eta bost **kokospeak** dardarka zituela, etengabe jan eta jan. Iñaki Mendiguren

Begizta ozta-ozta ikusten zitzaiola **kokospe** ugarien azpian. Iñaki Mendiguren

Bitartean Erdoi astoari **kokospean** ferekak egiten ari zitzaion eta, astoak eskua lamizkatu zion. Pablo Sastre

**3** kokospea estaltzen duen zapi modukoa.

Dibertigarri zitzaidan nolako destaina harro-nabarmenez janzten zuen azterketetan, arauzko alkandora faxistaren ordez, **kokospeko** beltz xelebre bat, arra bat zabal, zeina mugimendu zakar bakoitzean jakaren ertzetatik irteten baitzitzaion. Juan Garzia

**4** kokospea.

**Kokospeko** zorrotza baitzuen. Bego Montorio

Agravain joan zenean, haatik, Artur kezkaturik geratu zen, eskua **kokospean** ipinita. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kokospekoa laztandu zuen** (4)

---

## kokot ik **kokote**.

---

## **kokote** *(orobat **kokot** g.er.)* *iz* lepondoa.

Bi pauso eman, paparretik heldu, eta errebolberra **kokote** azpian jarri zion. Migel Angel Mintegi

-Jarri eskuak **kokote** atzean! -esan zuen beltzaranak. Juan Martin Elexpuru

Haren arnasa sentitzen nuen **kokotean,** eta bizkarreko ile guztiak tente nituen. Juan Martin Elexpuru

Tiro **kokotean** eta lurrera. Pedro Alberdi

Bere ile naroa **kokotean** bildu eta korapilo faltsu bat egin zuen. Joxean Agirre

Gogor eusten zion **kokoteko** ileetatik. Unai Iturriaga

**Kokoteraino** zegoen etxeko lanak zertu beharraz. Mirentxu Larrañaga

- **Kokoteraino** nago zure letra intimistekin, ulertzen? Unai Iturriaga

**Kokoteraino** nago, pikutara dena. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kokotean bildu** (3)
> **kokoteraino nago** (14); **kokoteraino nengoen** (4); **kokoteraino zegoela** (5); **kokoteraino zegoen** (5)

---

## **kokoteko** *iz* kokotean kartu edo emandako kolpea.

Eta halako batean, barraranzko aurrerakoan, **kokoteko** dotore bat eman zion gizonak, eskuaren zabalera egokiaz, abiadura ona eta distantziaren laburra kontuan izanik. Unai Iturriaga

-Zuk ere hobe zenuke salto bat egin eta hemendik hegan ospa egitea, **kokoteko** on bat hartu nahi ez baduzu. Unai Iturriaga

Hamabost egunerako fabrikatik bidali ninduten eta aitaren **kokoteko** pare bat ere jaso nituen. Jon Maia

Dudarik gabe, **kokoteko** gogoangarri bat! Unai Iturriaga

**Kokoteko** mingarri batzuk eta birao ozenak. Jon Arretxe

---

## **kokotero** *iz* kokondoa.

Baina **kokoteroa** inarrostea aski datekea Front Nationalaren uhinaren haustea trabatzeko, partikulazki ezkerra eta alderdi sozialista izugarri ahul dauden une hauetan? Berria - Kultura

Eguzkia badiako gesalarekin, **kokoteroak** euren izar gerizpearekin, egun lasaia liburuetako tropikoaren ezaugarri guztiekin. Joseba Sarrionandia

---

## **kokots** *(orobat **kokotz** g.er. eta **kokotx** g.er.)* **1** *iz* gizakien aurpegiaren aho azpiko zatia, eta bereziki honen irtengunea.

Ellie uzkurtuta zegoen, **kokotsa** belaunen kontra estututa. Lopez de Arana

Kanoia **kokots** azpian ezarri eta hatz lodiaz sakatu zuen katua. Lopez de Arana

Sudurraren eta **kokotsaren** artean ezarri zion eskua Egutxik, eta ahoa itxi zion. Ibon Uribarri

Gizon gaztea zen eta hazpegi zuzenak eta **kokots** haragitsua zuen. Lopez de Arana

Nik higuina zionat jende **kokots** gabeari. Anton Garikano

Haren aurpegi **kokots** gabeak sutan amorratzen jarri nain bat-batean. Anton Garikano

**Kokots** gaina bizarrez osatutako triangelu batek jantzen zion. Joxemari Urteaga

Aurrenik **kokots** azpiko pikorta igurtzi zuen Jonathanek. Jon Muñoz

Dar-dar ari zitzaion **kokotsa** . Joxe Austin Arrieta

**Kokotsa** dardarka zuen, halaxe jartzen zitzaion urduritzen zenean. Anjel Lertxundi

**Kokotsetik** oratu eta aurpegia jasoarazi zidan, begiak ikusteko: [...]. Anjel Lertxundi

Karmen zegoen aldera seinalatu zuen **kokotsaz** . Inazio Mujika Iraola

Mutilak neska gaztearen **kokotsean** behera lerratu zituen hatzak, harik eta aurpegia komeni zitzaion parerainogoratu zion arte. Mirentxu Larrañaga

Hotz, behakoa aitzina, **kokotsa** harro, putzantu koldar haiek mesprezatuz. Koldo Izagirre

Hankak telegrafoaren mahai gainean zituen, besoak antxumaturik, **kokotsa** bularraren kontra, lotan. Fernando Rey

Aurpegiaren isla antzematen nion, **kokotsa** bular gainaren kontra zuelarik, baina ez aurpegiko zirkinik, edo haren barne-mugimenduen berri emango zidan ezer. Anjel Lertxundi

Aizkoraz ebakitako **kokotsak** eta sudurrak, euskal tipo eredugarriak. Koldo Izagirre

Odola zerion **kokotsean** behera. Anjel Lertxundi

Pitzadura bat ote zen Johnnyren **kokotsekoa,** ala xulo bat besterik ez, masailezurra aldatzearekin batera desagertuko zena? Anton Garikano

**2** (aditzaren objektu gisa)

Eta gero **kokotsa** jaso zidan hatz puntaz: adorea, mutil, adorea, eta jan piku horiek, oraintxe daude-eta onenean! Anjel Lertxundi

Berari begira, **kokotsa** altxatu zuen, kontatzen hasteko aginduz. Ramon Saizarbitoria

Smithers andrea ere altxatu egin zen, eskuak aldakan jarrita eta **kokotsa** aterata. Fernando Rey

**3** (izenondoekin)

Ilehoria eta liraina zen, hazpegi fin eta neurri-neurrikoak zituen, **kokots** zorrotza. -Zuek segi ikasten, gogor, ongi ari zarete-eta -ekiten zigun, bere **kokots** punttaduna ferekatzen zuela-. Jose Morales

Irri egiten zion, **kokots** sendo eta irtena eta besagain lodiak inarrosiz. Fernando Rey

Boxeolari sudurra zuen eta **kokots** irtena, bizarrak gorritua. Koro Navarro

Haren aurpegia, haren **kokots** zuloduna. Koro Navarro

Xerloak estutzen zituen, **kokots** bizargabeari tiratzen zion. Koro Navarro

Oso sudur luzea eta oso **kokots** luzea zituen. Irene Aldasoro

Beharbada eskua normalean baino gehixeago ahaztu zitzaion nerabe haren **kokots** leun-leun haren azpian. Karlos Zabala

Bazirudien lehen baino itxura hobea zuela: politagoak masailak, erakargarriagoa **kokotsa**. Jose Morales

· Bere **kokots** bizar gabea ferekatzen zuen. Aingeru Epaltza

Haren **kokots** bizar-moztua zur begitsua bezain zimurra zen. Karlos Zabala

**4** (hitz elkartuetan, elkarketak izenondo balioa duela)

Deabru begi-txiki **kokots**-zorrotzaren antza hartu zion ostera Tomek Hucken aurpegiari. Koldo Izagirre

**5** ***kokots alde*** *(orobat **kokotsalde**) iz*

-Jainkoa lagun! eta ezkutariei ere, zaldunei bezala **kokots-aldeak** garbitzeko usadiorik ez ote da lurralde honetan! Patxi Ezkiaga

Beste mutilek adarra jotzen zidaten haren kontura: nini baten ipurdia bezain soila nuela **kokotsaldea** eta ez nuela bizarra egiteko premiarik, nahiz eta egia ez izan; edota, nire ahots kirrinkaria zela eta ez zela. Mirentxu Larrañaga

Ihia baino meheagoa, sudur luze hezurtsu baten jabe, pikorrak nabari **kokots aldean**. Aingeru Epaltza

**6** ***kokots-bizar*** *iz* ik **kokospeko 2.**

Denbora guztian, indarrez atximurkatzen zuen bere **kokots-bizar** argi nahasia. Jose Morales

**Kokots-bizarra** atximurkatzen zuen bitartean. Jose Morales

**Kokots-bizar** ederra zuen, urdintzen hacia. Matías Múgica

Giselak uste zuen komunista guztiek bibotea zutela, eta anarkistek, berriz, **kokots-bizarra**. Fernando Rey

· Atzeko hormaren kontra zutik, Ryan dago, belarritakodun eta **kokots-bizardun** mutil-laguna. Oskar Arana

**7** ***kokots-handi*** *izond (orobat **kokotsandi**)*

Bera zen, **kokotsandi** hura, zazpigarren garabiko kabinan ez baina gure aldagelan sartua. Koldo Izagirre

Kamioian abiatu eta, aroztegi parean, Jone ikusi zuen: **kokots-handia,** dotore bere moduan, besapean karpeta zeramala, Tapax buru keinu eta irribarre batez saludatu zuen. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kokots azpian** (7); **kokots bizar** (5); **kokots bizarra** (5)

**kokotsa altxatu** (6); **kokotsa altxatu zuen** (4); **kokotsa bularrean** (3); **kokotsa gora** (3); **kokotsa goratu** (4); **kokotsa hartu** (3); **kokotsa jaso** (8); **kokotsa luzea** (3); **kokotsa ukitzen** (3); **sudurra eta kokotsa** (3)

**kokotsaren azpian** (7); **kokotsaren parean** (4); **neskaren kokotsaren** (3)

**kokotsari helduta** (4)

**eskua kokotsean** (4); **kokotsean behera** (7)

---

## kokotsalde ik **kokots 5.**

---

## kokotsandi ik **kokots 7.**

---

## kokotx[1] ik **kokots.**

---

## **kokotx**[2] *iz* legatzaren eta bakailaoaren buruaren behealdean dauden bi handitu haragitsuetako bakoitza.

Gero, **kokotxak** pil-pilean eta angulak. Berria - Kirola

Gure angulak, **kokotxak,** txipiroiak, eskuragarritasunaren aldetik, kabiarraren pareko bilakatzen ari dira, eta plater baten funtsa edo oinarria izan daitezke, baina ez plater osoa. Ramon Saizarbitoria

---

## kokotz ik **kokots.**

---

## koktail ik **koktel.**

---

## **koktel** *(orobat **koktail** g.er. eta **cocktail** g.er.)* **1** *iz* Likoreak eta bestelakoak astinduz nahasirik prestatzen den edaria.

Zer behar duzu, tea ala **koktel** bat? Koro Navarro

-Phil, har dezagun **koktel** bana -esan zuen Baldwinek kartaren atzealdetik-. Lopez de Arana

Hona etorri nahi zuten orain **koktelen** bat edo beste edatera. Mirentxu Larrañaga

**Koktelak** prestatzera joango naiz. Mirentxu Larrañaga

Hiriko **koktelik** onenak zerbitzatzen dituzten pub-ean. Iban Zaldua

Zuri **koktel** lehorrak gustatzen zaizkizu, ezta ba? Mirentxu Larrañaga

**Kokteltxo** zorabiagarria eskaini didazulako. Mirentxu Larrañaga

Tira, gau on pasa, Hobie, eta eskerrik asko zure **koktel** ezinago gozoengatik. Mirentxu Larrañaga

Toldo marradun baten azpian, **koktel** eta freskagarri exotikoz beteriko mahai borobilen inguruan eroso eserita. Patxi Iturritegi

Gogoan dut **koktel** bereziak jarri zirela modan, zein baino zein xelebreagoak: esnea pippermint-arekin, garagardoa patxaranarekin eta horrelako nazkagarrikeriak. Xabier

Mendiguren Elizegi

Festak bata bestearen atzetik datoz: tea, askariak, **cocktailak**... Xabier Paya

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Koktel**-festa bat izan du bere apartamentuan. Mirentxu Larrañaga

Izan ere, campuseko **cocktail** party-an ezagutu zuenetik ezin zuen errubia oxigenatu hura burutik kendu. Patxi Iturritegi

Ingurune zaratatsuetan, gai da belarria, arreta bilduz, soinu batzuk hautatzeko eta gainerakoak ez entzuteko; **koktel**-jaialdietako efektua da hori, jendez betetako gelako berbaroaren erdian entzule saiatuari ahots bakar bat edo elkarrizketa bakar bat entzutea ahalbidetzen diona. Irene Aldasoro

Manina edo Vanina delako anorexiko nazkante hark "Porco Dio" oihuka eman zuen afal aurreko **koktel** garaia, harik eta esku errukitsu batek piszinara bultzatu zuen arte. Patxi Iturritegi

Barra aurrean, zerbitzari bat zutik zegoen, **koktel**-edontziz betetako erretilu bat eskuan. Lopez de Arana

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orduantxe xanpain **koktel** bana ekarri zieten. Migel Angel Mintegi

Nahi al duk *Mouquin´s*-era nirekin joan, absenta-**koktel** bat edatera? Lopez de Arana

**4** irud/hed

"Hiru pilulen **koktela"** deitzen dioten hori. Joxerra Garzia

Alkoholak eta arrangurak **koktel** makurra osatzen zuten. Xabier Montoia

Iluntzea, prostitutak, hiriaren xarma... **koktela** lehergarri izan daiteke. Edorta Jimenez

Herrialde anitzetako agente sekretuak, espioiak eta espioi-ehiztariak, era guztietako isil-mandatariak, ekintzaileak, iheslariak, soldadu ohiak eta soldadu izatea amesten zutenak... guztiak **koktel** lehergarri batean. Alberto Ladron Arana

Laztanak, usainak eta zaporeak: **koktel** bikaina sexu festa baterako. Luis Elberdin

Horri guztiari irudimena eta samurtasuna gehituz gero, lor litekeen **koktela** benetan txundigarria da. Txema Ramirez de la Piscina

Esaterako, benetako egunkari-tituluak eta garaiko kantak egokiro nahasita, "newsreels" izeneko **koktel** informatiboak sortzen ditu. Lopez de Arana

Osagai horiek guztiak dituzunean, kokteleran sartu, astinaldi bat eman, eta **koktel** horretatik atera diren liburu batzuk gainerakoetatik bereizi: hor daukazu kanon literario bat. Jon Alonso

**5** koktel festa

Baina hori beste istorio bat da, **koktel** batean izan zen, Beverly Hills-en, geroago kontatuko dizut. Karlos Zabala

**6** molotov koktela.

Ertzainak zein gaizki armatuta zeuden ikusita, beren bola metalikoak eta **koktelak** jaurtikitzen hasi zaizkion eta ertzainek atzera egin diten. Mikel Hernandez Abaitua

Berehala Ertzaintzaren aurka harriak eta autoen azpialdeetan gordetzen zituzten **koktelak** beldurrik gabe eta punteria bereziz jaurtitzen nituela konturatu ziren bezain pronto, mesfidantza guztiak desagertu ziren. Iban Zaldua

Sutan miretsi zituzten, zikin ontziak lurrean erretzen, **koktel** gisa hanpatu garagardo botilak eta etxetik ekarri arrautza tortak "indar errepresiboen" aurpegietan eta bereziki Kerguelen komisarioaren sudurrean zartatzen. Itxaro Borda

Karrika borroka horietan trebatzen ari zen Txoko, harri, arrautza, tomate hiro eta **koktel** botatzen, besoek eman ahala eta ihes egiten. Itxaro Borda

Lasterketak, harriak, **koktelak,** oihuak... dena irakiten jarri da. Paddy Rekalde

**Koktelak** kalte arinak eragin zituen. Berria - Euskal Herria

**7** ***molotov koktel*** *(orobat* ***molotof koktel*** *g.er.)* etxeko arma sute-eragilea, gasolinaz beteriko botila metxadun batez osatua.

Molotov **koktelez** eraso diete CCOOren egoitza bati eta bi banketxeri. Berria - Euskal Herria

Parte Zaharrean zain zeuden beste gaztetxo batzuk autobusera hurbildu ditun molotov **koktel** bana eskuetan. Mikel Hernandez Abaitua

Automobila birrinduta zegoen, kiskalita, baina ez bazooka baten eraginez, molotov-**koktel** batek jota baizik, segur aski. Karlos Linazasoro

Eskuetan garagardo botiletan egindako molotof **koktelak** zeramatzaten. Berria - Euskal Herria

**8** ***koktel molotov*** *(orobat* ***cocktail molotov*** *g.er.)* molotov koktela.

**"Koktel** molotova, motel". Pako Aristi

Metafisika platoniko pixka bat, gehi Marx pixka bat, **cocktail** Molotov aproposago ezina da sabotaia-gerra ideologiko baterako. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **koktel bat edango** (3); **koktel bat jaurti** (4); **koktel jaurti** (5); **koktel ontzi** (3); **molotov koktel** (18); **molotov koktel jaurti** (4)
>
> **koktelak bota** (6); **koktelak bota zituzten** (5); **koktelak eta harriak** (4); **koktelak jaurti** (12); **koktelak jaurti zituzten** (5); **molotov koktelak** (35); **molotov koktelak bota** (5); **molotov koktelak jaurti** (9)
>
> **molotov koktelen** (3)
>
> **koktelez eraso** (6); **koktelez eraso diote** (3); **molotov koktelez** (9); **molotov koktelez eraso** (4)

---

# koktelera *iz* koktelontzia. • *irud/hed*

Tonua ez ezik, gaiak ere apartekoak: [...] baina batez ere, hori guztia **koktelera** batean sartzean, emaitza ezin da konbentzionala. Berria - Kultura

Osagai horiek guztiak dituzunean, **kokteleran** sartu, astinaldi bat eman, eta koktel horretatik atera diren liburu batzuk gainerakoetatik bereizi: hor daukazu kanon literario bat. Jon Alonso

Ez dakit, dena kontuan hartu, osagarri guztiak **kokteleran** sartu, astindu, eta uste dut ateratzen zen likoreak ez zuela beldurraren ahogozorik, ez zuela zerikusirik porrot sentsazioarekin, ez miseria fisikoarekin; uste dut barneago tinkaturiko zerbait zela, nola esan. Jon Alonso

---

# koktelonzi *(orobat* ***koktel-ontzi****)* **1** *iz* koktelak prestatzen diren ontzia.

**Koktelontzi** bat zeraman esku batean eta edontzi bete bat bestean. Mirentxu Larrañaga

**Koktel-ontzi** bati eragiten ari zen bere esku iletsuen artean. Lopez de Arana

Eutsiz zilarrezko **koktelontziaren** iragazkiari, kopara izotz-zatirik eror ez zedin. Joxe Austin Arrieta

**2** irud/hed

Horren harira dio, txerriak erraz kutsatzen direla, eta sarri **«koktel-ontziaren»** funtzioa betetzen dutela; birus azpimota ezberdinen geneak nahastu eta aldagai berriak sortzen dituzte.

Gure hirietako kultur agendetara hitzen nahaspilaz osatutako postala ekarri digute oraingoan, **koktel-ontzian** sartu eta zalantzan jartzeko moduko irizpideekin kanporatutako kontzeptu nahasiekin. Berria - Kultura

Hartu naziak, Karlomagno, islamistak, apaizak, Antso Handia eta etorkinak **koktel ontzi** batean, astinduz ondo nahastu, eta abertzaletasuna izango da emaitza. Berria - Euskal Herria

---

# kokteltxo *iz adkor* koktela.

Zera... gure artean egin dugu, ea **kokteltxoren** bat onartuko ote zenigukeen. Mirentxu Larrañaga

---

## **kokzix** *iz* uzkornoa.

Orgasmoa pubis **kokzixetako** giharren uzkurdura nahi gabekoa eta espasmodikoa da. Luis Elberdin

Pubis **kokzixetako** giharrak dira, hau da, pubisetik **kokzixeraino** doazenak. Luis Elberdin

---

## **kola**[1] **1** *iz* lekeda.

Gutuna prestatu, mingainean **kolaren** garraztasuna nabaritu eta gorde egin zuen. Joxemari Urteaga

Aminoazido-nahastura bat da kolagenoa, eta hezurrak egosten direnean lortzen den **kola** eratzen du. Erretxina sintetiko bat zen bakelita jatorriz, nahiko erabilgarria **kola** edo isolagarri gisa. Irene Aldasoro

Gurpilak zulatu dizkiote, **kolaz** bete dituzte sarraila-zuloak. Oskar Arana

Galipotaren usaina, koipearena, [...], egurrentzako **kolarena,** tabakoarena eta gainerakoena. Jesus Mari Mendizabal

Hezurrak, esan dugun bezala, hareaz eta **kolaz** eginak dira. Irene Aldasoro

Ertzaintzaren analisien arabera **kola,** disolbente, pintura plastiko eta lokatz-nahasketa bat omen zen eta, okerrena, nekez ken zitekeen kristaletik. Iban Zaldua

**Kola** gris itsaskorraren antzeko zerbaitez estalita zegoen. Iñaki Mendiguren

Egosi, eta **kola** egiteari ekin nion, eta berrogei mila errublo irabazi. Jose Morales

*Derivados Forestales* enpresak Frantziako Gironda departamendua hautatu du **kola** ekoizten duen lantegi berria plantatzeko. Berria - Ekonomia

Elkarrekin **kolaz** pegatutako pospoloekin erregimentuak eta brigadak osatzen zituen. Iban Zaldua

**Kolaz** itsatsi behar izan zituen [...] jainko hauskorraren bi puskak. Imanol Zurutuza

Xafla bakoitza **kolaz** igurtzita dago, eta xagua xaflara igo bezain pronto **kolatan** itsatsita geratuko omen da. Harkaitz Cano

•**2** (droga gisa)

**Kola** industriala plastikozko zakutxoetan "snifatuz". Ramuntxo Etxeberri

Haren lantegitik egun guziz **kola** pixka bat ateratzen zuen eta lagunekin banatzen. Eneko Bidegain

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nik, beti bezala, **kola**-ontzia garraiatzen nuen. Iban Zaldua

Baziren Shasta **kola** poto huts batzuk ere. Koro Navarro

Blancpignon-go sala jendez bete zen joan den ostegunean, *Derivados* egur **kola** lantegi proiektuaren argitasun bilkuraren karietara. Herria

Zedrozko arkatz berrien usaina, edo **kola**-botila batena. Irene Aldasoro

**4** ***kola-intxaur***

Hamar **kola**-intxaur, Malin emazteagatik ordaintzen den kopurua. Berria - Kultura

Emigrazioa **kola**-intxaurra bezalakoa da: behin dastatuz gero, ez da samur bazterrera lagatzea. Pablo Sastre

---

## **kola**[2] *iz* ilara.

Batzuetan haurrak bidali behar ditu **kola** egitera, eta arriskutsu izan daiteke. Pablo Sastre

---

## **kola**[3] *(orobat* ***cola*** *g.er.)* **1** *iz Cola* generoko landareetatik ateratzen den gai suspergarriarekin egiten den edaria.

Menua hanburgerrek, patatek eta **kola** freskagarriek osatzen dute, neurri handi batean. Berria - Kultura

Hanburgesa eta **cola** Unairentzat eta zerbeza niretzat. Aingeru Epaltza

Ez zion muzinik egin **kolari** erantsi nion ron merkeari, eta agur labur batez urrundu zen. Javi Cillero

Suskripzio kanpaina bat abian da hemen gaindi EHKA (euskal herriko **kola** alternatiboa) edariaren inguruan. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Paperezko ezpain-zapia luzatu nion aho ingurutik **cola** arrastoak garbi zitzan Aingeru Epaltza

---

## **kola**[4]

**1** ***kola-kola egin*** txora-txora egin. ik **kolatu**[1].

-Ez didan erantzun, kolatuta nagon hirekin, **kola-kola** eginda, eta hi zer? Pako Aristi

---

## **kolabo** *iz* kolaborazionista.

Non da elkartasuna?, oilo busti alaena, **kolabo,** heurekoi, herria hilduran eta hi potrojorran... Markos Zapiain

Horiek denak Francoren poliziari eskuetan eman zizkioten Vichyko Gobernuko nazi-**kolaboek,** Companys eman zioten moduan. Edorta Jimenez

---

## **kolaboratu,** kolabora, kolaboratzen **1** du *ad* lankide gisa aritu, elkarlanean aritu.

Hainbat aldizkari, egunkari eta irratitan **kolaboratu** izan du. Ana Urkiza

PJ Harveyrekin, Nick Caverekin eta Jon Brionekin **kolaboratu** du *Before the poison* diskoaren grabazioan. Berria - Kultura

Mundu osoko 1.700.000 ekintzailek **kolaboratzen** dute web orri honetan. Txema Ramirez de la Piscina

McCarthy senatorearen sorgin ehizan **kolaboratu** izana justifikatzeko egin zuen filma Kazanek. Berria - Kultura

De Villepinek ere **kolaboratu** beharko du, Ipar Euskal Herriko euskaldunen erabakitzeko eskubidea onartuz. Berria - Euskal Herria

KGBrekin **kolaboratu** izana ukatu zuen, dena den. Berria - Mundua

Tel Avivekin **kolaboratzen** duten palestinarren aurka. Berria - Mundua

Aterpea eta atsedenlekua eman ziela, haiekin **kolaboratu** zuela? Jon Alonso

**2** kolaborazionista lena egin.

Garai hartako indar okupatzaileekin **kolaboratu** zutenak. Eneko Bidegain

Maritxu kartzelan sartu zuten gerra garaian etsaiarekin **kolaboratu** zuelako salaketapean. Mikel Hernandez Abaitua

Gérard-en aitatxik SS-ekin **kolaboratu** zuela eta Joanes bezalakoen sufrimenduen hobendun zela, gisa batez. Eneko Bidegain

Teorian kontra agertzen diren alderdi abertzale batzuek, praktikan, politika horrekin **kolaboratzen** dute. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldizkari askotan kolaboratu** (3)

**kolaboratzea leporatzen** (3)

**kolaboratzeko eskatu** (3); **kolaboratzeko prest dagoela** (3)

---

# kolaboratzaile *iz* lankidea, kolaboratzen duena.

Chavezen lagun eta **kolaboratzaile** handia. Pako Aristi

Bizimodu hobe baten premiak edonor bihur baitzezakeen erregimenaren **kolaboratzaile**. Jon Maia

Hainbat komunikabidetako **kolaboratzailea** da. Ana Urkiza

Carme Canela kantaria ere, diskoko **kolaboratzaile** bakarra, hangoa da. Berria - Kultura

*Before the poison*-en, abestiak egiteko teknika berezia garatu du Faithfullek bere **kolaboratzaileekin**. Berria - Kultura

Tomaso **kolaboratzaile** zutela uste genian, baina hura ere fusilatu egin ditek. Koldo Izagirre

Laguntzaile dituen euskal **kolaboratzaileak**. Markos Zapiain

Kathleen Brennan ohiko **kolaboratzailearekin** idatzi du Waitsek. Berria - Kultura

**Kolaboratzaileekin** lan egiten zutela, [...], eta asko eta asko, gehienak, ez zirela profesionalak. Alberto Barandiaren

**Kolaboratzaile** sare zabala izan du Axular disko jartzaileak. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kolaboratzaile sare** (5)

**ohiko kolaboratzailea** (4)

---

# kolaborazio 1 *iz* lankidetza, elkarlana; laguntza.

Entzule eta laguntzaile mordoska ederraren **kolaborazio** bikaina baliatuz. Pello Zabala

Nancy Sinatrak **kolaborazioz** betetako diskoa kaleratuko du. Berria - Kultura

Garíren «luxuzko **kolaborazioa»** izan dute. Berria - Kultura

1956ko balizko **'kolaborazio'** hori ez ote da Rolando Cubela eta beste ekinkidearen ihesaldiaren pasadizoa, beraren azken bururaino Juan Duñabeitiak eroan zuena? Edorta Jimenez

Christian Polterak berriz, estreinako **kolaborazioa** izango du EOSekin. Berria - Kultura

Xabier Zapirainen **«ezinbesteko** kolaborazioarekin» egina da labetik atera berria duten dokumentala. Berria - Kultura

Beraz, kidetza, **kolaborazioa** eta indukzioa leporatzen dizkigu. Berria - Euskal Herria

Martinez Lizarduikoa espetxeratu du Garzonek, **«kolaborazioa»** egotzita. Berria - Euskal Herria

Palestinar bat exekutatu dute, **kolaborazioagatik**. Berria - Mundua

Pirinioez gaindiko **kolaborazioa** sendotuko litzateke instituzio ezberdinen artean. Berria - Euskal Herria

Hirian maisu agertu zirelarik, Hirohito enperadorearen armadaren buruzagiek bertako dirudunen **kolaborazioa** nahi izan zuten segurtatu. Ramuntxo Etxeberri

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kolaborazio** lanak egin izan ditu La Semaine astekarian. Berria - Kultura

**Kolaborazio** garaiak ziren ordukoak. Pello Zabala

Ez du beste **kolaborazio** pasadizorik aipatzen. Edorta Jimenez

**Kolaborazio** delituarentzat. Harkaitz Cano

Hainbat gaztek polizien **kolaborazio** eskaera eta mehatxuak salatu dituzte. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zutabeak idazten, irrati-**kolaborazioak** egiten. Andoni Egaña

Hiru-lau minutu emango ditu zutabea irakurtzen, irrati-**kolaborazioa** entzuten edo hiru bertsoak jasotzen. Andoni Egaña

## 4 lankide artikulua.

Liburuak jaso dituen bi **kolaborazio**. Berria - Euskal Herria

Testuak biltzeko buzoi bat jartzen zen, **kolaborazioak** batzuk izenpetuak eta beste gehienak anonimoak dira. Jokin Urain

*Gara*n noiz edo noiz **kolaborazioak** idazten dituen play-boy neo-hippy horrek. Jokin Muñoz

**Kolaborazio** bat idazteko. Jokin Muñoz

**Kolaborazioak** egingo zituen ezkerreko aldizkarietan. Koldo Izagirre

Azken batean, zenbateko aldea dago ba, egunkarirako zutabe, irratirako **kolaborazio** eta hiru bertsoko sorta baten artean? Andoni Egaña

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kolaborazio lanak** (4)

**kolaborazioak egiten** (3)

---

# kolaborazionismo *iz* kolaborazio politika; kolaborazio ekintza.

Herriari eginiko traizioa, Etxegoien anarkista ohiaren **kolaborazionismoan** irudikatua, emazteari fideltasunik ezaz eginiko traizioa, gertueneko lagunei, maitaleei eginiko traizioak. Berria - Kultura

---

# kolaborazionista *izond/iz* indar okupatzaileekin kolaboratzen duena.

Hala, 1940ko ekainean kapitulazioa sinatu eta Alemaniarekin hitzarmena adostu zuen Frantziako gobernu **kolaborazionistak**. "Hire familiaren ohorea zikindu duk!", esan zion aitak; bitartean, osabak **kolaborazionista** bat zela esan, eta tiro egin zion. Jokin Urain

Erresistentziak ere jomuga jakinak ditu: okupatzaileak edo **kolaborazionistak**. Berria - Harian

Bertsio ofizialak dio aliatuak zirela zintzoak, naziak eta **kolaborazionistak** gaiztoak. Berria - Kultura

Osaba Jeanen argazkia, amaren oroitzapen eta eromenaren objektua; eta anaia gerran **kolaborazionistek** hila gogoratuz erraten du, zuhurtzia handiz [...]. Berria - Kultura

Maurice Papon **kolaborazionistaren** zigorra berretsi dute. Berria - Mundua

**koladun** *izond* kola (hirugarren adieran) duena.

Gure gehiegizko koipeak xurgatuko dituzten **koladun** freskagarriak, odol-zirkulazioa erraztuko duten karameluak, etc. Edorta Agirre

---

**kolageno** *iz* hezur ehunaren, eta ehun konjuntiboaren eta kartiloginosoaren osagaia den proteina, egosten denean gelatina eta lekeda bihurtzen dena.

Kontserbarako balio ez duen arrain hondakinekin irina, **kolagenoa,** gelatina eta olioa ere egiten dute. Berria - Gaiak

Ia **kolageno** hutsa da hezurra; aminoazido-nahastura bat da **kolagenoa,** eta hezurrak egosten direnean lortzen den kola eratzen du. Irene Aldasoro

Katramilaturik egoten dira batzuetan **kolageno**-zuntzak, baina eredu erregular bat osatzen dute gehienetan. Irene Aldasoro

Batez ere **kolagenoz** osatuta dago dermisa; erabilera asko dituen proteina bat da **kolagenoa,** tendoietan eta hezurretan ere badagoena. Irene Aldasoro

---

**kolagile** *iz* kola egiten duen persona.

Gure aurreko Patrick Morkan zena, gure aitona alegia -azaldu zuen Gabrielek-, azken urteetan, arrunki, *jaun zaharra* izenez ezagutua, **kolagilea** zen. Irene Aldasoro

---

**kolaio** *iz* mielgaren antzeko arraina, jateko ez oso aintzat hartua.

Badakizu kosta txarrak botatako sareak dena harrapatzen duela, arrosela eta **kolaioa**. Koldo Izagirre

---

kolakao ik **cola-cao**.

---

**kolanta** *iz* itsasgarria. ik **pegatina**.

Nire **kolantak** urratu dizkidazu! Non uste duzu zaudela? Berria - Kultura

---

**kolapsatu,** kolapsa, kolapsatzen **1** da *ad* kolapsoa jasan.

Asko jota 100 edo 200 sarrera saltzen zituen webguneak, 10.000 eskaera jaso zituen kolpetik, eta erabat **kolapsatu** zen. Berria - Harian

Baina horrek **kolapsatuta** utzi du pasabidea. Berria - Mundua

Taldeko buruak partidara aurrez joateko erregua egin diete zaleei, Bizkaia Arenako sarrerak ez daitezen **kolapsatu**. Berria - Kirola

Penintsulako judu-diasporaren ongizateak ez zuen iraun botere musulmana **kolapsatzean**. Iñaki Mendiguren

Izar baten bizitza bere azkenetara heltzen zenean izarraren bihotza bere baitara **kolapsatzen** zen grabitatearen poderioz. Harkaitz Cano

Uhina **kolapsatu** egin zen: orain errealitate hutsa zen. Fernando Morillo

**2** du *ad* kolapsoa eragin.

Hiru Erregeen karroza ofizialek Bilbo **kolapsatu** zuten iluntze berberean. Berria - Kultura

• **3** (hitz elkartuetan)

Inperio **kolapsatuaren** probintziarik aberatsenaren jaun eta jabe bat-batean bihurtu zenean. Iñaki Mendiguren

Zibilizazio **kolapsatu** baten historiako desintegrazioaldian. Iñaki Mendiguren

Harik eta gizarte **kolapsatu** baten desintegrazioaren ibilbide erregularra behar bezala osatu arte. Iñaki Mendiguren

Ez, haiek ezin zitezkeen bihotz **kolapsatu** baten fruituak izan Joan Mari Irigoien

---

**kolapso** **1** *iz* jarduera baten erritmoaren paralizazioa.

Ezinezkoa izango da garraioaren **kolapsoa** saihestea, Ondorioz, **kolapso** handia sortu zen Madrildik Valentziara, A Coruñara, Burgosera, Extremadurara eta Andaluziara doazen errepideetan. Berria - Euskal Herria

**2** erakunde edo sistema baten suntsiketa.

Gizarte Helenikoaren **kolapsoa**. Kristautasuna Zibilizazio Helenikoaren **kolapsoaren** ondoriozko neke espiritualetatik sortu zen. Iñaki Mendiguren

Hala ere, latinak iraun zuenez Erromatar zibilizazioaren **kolapsoaren** gainetik [...]. Askoren artean

Aldi bateko **kolapsoaren** ondoren. Iñaki Mendiguren

Gizarte Helenikoaren **kolapsoa**. Iñaki Mendiguren

Bagenekien zibilizazioek **kolapsoak** izan zituztela iraganean. Iñaki Mendiguren

Den-dena, argia barne, zurrupatzen duen **kolapso** erabatekoa. Joxerra Garzia

Baina laguntza behar dut, uste dut **kolapsoak** jotzeko zorian nagoela. Mirentxu Larrañaga

Gure hurrengo zeregina **kolapso** horien kausak aurkitzea da. Iñaki Mendiguren

**Kolapsoaren** izaera hiru puntutan labur daiteke: [...]. Iñaki Mendiguren

**3** odol zirkulazioaren hutsegitea

Heriotzaren eragilea bihotzaren **kolapsoa** izan zen. Edorta Jimenez

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sorrera, hazkunde eta **kolapso**-aldietan. Iñaki Mendiguren

**Kolapso** eta desintegrazio-faseetan aurki litekeen erregulartasuna hemen ez da agertzen. Iñaki Mendiguren

Epaileak, senatariak, diputatuak eta agintariak **kolapso** egoera batean daude. Berria - Harian

Historialariek ezagutzen duten estatu unibertsal baten lehenengo **kolapso**-kasuarekin elkartua zegoen. Iñaki Mendiguren

Hamalau **kolapso**-kasu garbietatik, kasu guztietan anaiarteko gerraren gaitza ez dela bukatu estatu gerra-egile guztiak. Iñaki Mendiguren

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iragan astean bihotz-**kolapsoa** izan ostean, Bolton taldeko jokalariak jokatzen jarraituko du, taupada-markagailua erabili beharko badu ere. Berria - Kirola

Martxoaren 9an, Espainiako errepide sarean buruturiko lau ekintza, kalteak eta errepide **kolapsoa** eraginez. Berria - Euskal Herria

Gizarte-**kolapsoa** gertatu orduko, hazkundealdiaren ezaugarri den aniztasun eta desberdintasunerako joera uniformetasunerako joerak ordezten du. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

kolapso eta desintegrazioen (3)

---

**kolateral** *iz* albokoa, albo-.

Urtainen iloba gasaz itotzea astakeria eramanezina zaion bezainbesteko naturaltasunaz onartzen ditu gurean gertatzen diren "kalte **kolateralak**". Hasier Etxeberria

Liburuak eta diskoak ere bai, kultura eta min **kolateralak**, industriaren ajeak, erromantizismoaren garaia aspaldi da iragan. Berria - Kultura

Gaineratu zuen jakin badakiela tortura elementu **«kolaterala»** dela ezker abertzalearen kontra egiteko. Berria - Euskal Herria

Gaineratu zuen jakin badakiela tortura elementu **«kolaterala»** dela ezker abertzalearen kontra egiteko. Berria - Euskal Herria

---

**kolateralizazio** *iz*

Bankuak joko horretan parte hartzera bultzatzeko, bermaturik zeuden antzinako kredituen truke jasotzen zituzten obligazioak, bai parte nagusia itzultzeari zegokionez **(kolateralizazio** deritzan teknika), bai interesen ordaintzeari zegokionez. Koro Navarro

---

**kolatu**[1], kola(tu), kolatzen da/du **1** *ad* itsatsi, pegatu. ik **kolaztatu**.

Hezurretaraino bustia zegoen gizon hura, bilo luzeak aurpegiari **kolaturik**. Elena Touyarou

Orduan konturatu zen zinten emultsioak itsatsiak, **kolatuak,** geratu zirela eta bideo aparatuek ezin zituztela jiratu... Berria - Kultura

"Abertzaleen Batasuna" alderdiak **kolatu** dituen afixak "gure lurra ez da salgai" erraiten dutenak. Herria

Artikuluak murruetan, ateetan, iskilinbatu edo **kolatu** ditu. orrialdeak elkarri **kolatuak** izan dira... deskolatzen badituzu, barnean, argazki bat aurkituko duzu... Ramuntxo Etxeberri

Ehun bat erranaldi **kolatu** dituzte euskaraz frantsesezkoen azpian edo aldean, Papoko larruak oihalari **kolatua** zirudien. Herria

Pegatina edo idatzizko dei **kolatuak** orotan ezartzeko, euskararen alde. Herria

---

**kolatu**[2], kola(tu), kolatzen da *ad* **1** ilara batean txanda pasa.

Ni, erosketak egiten ari naizela gizon batek **kolatu** nahi badu, ez diot segur aski utziko. Ana Urkiza

· Danimarkarrek sartutako golak ikustearekin ez naiz konformatu, eta finalerdietan **kolatzen** saiatuko naiz. Berria - Kirola

**2** guztz maitemindu. ik **kola**[4].

-Ez didan erantzun, **kolatuta** nagon hirekin, kola-kola eginda, eta hi zer? Pako Aristi

**3** ***burdin kolatu*** burdinurtua.

Futbolin zahar bat ere bazegoen, eta hantxe, alde batera botata, burdina **kolatuzko** labea. Pablo Sastre

---

**kolatzaile** *iz* kolatzen, itsasten duena.

Bakarretan kaputxaz gorde iragarki- **kolatzaileak,** lema hormatu marrazkilariak edo polizia armatu kontrolak harrapatzen nituen eta ziuntan urruntzen nintzen. Itxaro Borda

---

**kolatze** *iz* itsastea.

Margo arkatzak eta eretxekitze edo **kolatzeak** egiteko pastak. Herria

---

**kolazio** *(orobat **kolazione**)* *iz* otordua.

Mutzuenea ostatuan iragarria zen **kolaziora** deituak izan ginen herritarrak oro. Itxaro Borda

**Kolazionea** bada Papunen ostatuan. Itxaro Borda

Ehortzeta amaitzeko **kolazionearen** karietara. Itxaro Borda

---

kolazione ik **kolazio**.

---

**kolaztatu,** kolazta, kolaztatzen du *ad* kolaz itsatsi.

Berniza eman behar diet Rastroan erositako bizpahiru laukiri, eta aulki pare baten mihiak **kolaztatu**. Javi Cillero

Gero, zati hautsiak kendu eta berriak **kolaztatu**. Javi Cillero

---

**koldar** **1** *izond* zernahi eratako arriskuen beldur dena, arriskuari ihes egiten diona. ik**beldurti**.

Gizon **koldar** zuri faltsuaren martingala bat. Iñaki Segurola

Don Laureano bezalako apez **koldar** batekin. Joan Mari Irigoien

Ikusi al duzu gazte andre-gixon **koldar** bat, justiziatik ihesi dabilena? Joan Mari Irigoien

Knutez egin nian ebakia ikusten diat, traidore **koldar** hori! Karlos Zabala

-Hago isilik, oilo **koldar** hori! Joan Mari Irigoien

Gizatxar **koldar** bat. Koro Navarro

Artegintzan ez dago deus arriskutsuagorik, artista **koldar** bat baino Barchini **koldar** horrek esan ez zidan, ba, dena ondo zegoela!... Koldo Biguri

Aita Bartolomeren lagun min bat, nortasun eskasekoa, uzkurra eta **koldarra**. Joan Mari Irigoien

Gazte eta zaharrei, bihoztun eta **koldarrei**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez eskatu aholkurik emakumeari bere lehiakideaz, **koldarrari** gerraz, merkatariari negozioaz. Elizen arteko biblia

**Koldar** eta bihotz gutxikook, zergatik egin duzue ihes? Askoren artean

**-Koldarra** ez bestea. Alberto Ladron Arana

-Koldarra, **koldar** alaena... Karlos Zabala

Ni, heriotza heroikorako adorea besterik ez neukan **koldar** hau. Koldo Izagirre

## 2 (animalia eta gauzei buruz)

Ea, presta zaitezte borrokarako, zakur **koldarrok**. Iñaki Mendiguren

Gorpu utzi dute ehiza-or **koldarrek**. Irene Aldasoro

Latorrizko gizona eta lehoi **koldarraren** roletan. Gobernu **koldar** eta gezurti baten aurrean gaudela. Berria - Kultura

Herr Haspernek Hitlerren aurkako jardun **koldar** eta disimulurik gabearekin segitzen zuen. Anjel Lertxundi

Jokaera **koldar** batek. Pako Aristi

Eraso **koldar** horren biktimen omenez. Berria - Mundua

Sabotaje-ahalegin zital eta **koldarra**. Iñaki Mendiguren

Ekintza **koldar** eta kriminala da, bere ohorea estatubatuarrei saldu dien gobernu traidore batek gauzatua. Berria - Mundua

Traiziozko ekintza **koldar** bat. Joan Mari Irigoien

Gerra hasi bezain laster lerro batean ipinarazi ei zituen bere laborariak, sei aukeratu eta besteen aurrean tiro **koldarra** eman. Lutxo Egia

Geure adimen **koldarra** eta geure hantustea gor abehera, ez ginela izan gauza geuretzat ezer lortzeko. Xabier Olarra

Londresko udako bero larria bero **koldarra** da, etxeetako teilatu beltzek eragindakoa. Lutxo Egia

## 3 (beste izenondo baten ezkerrean)

Gerra batean jendea aldatu egiten da, ausarta dirudiena **koldar** hutsa bilakatzen ahal da... Koldo Izagirre

**Koldar** hutsa naiz, bakardadeak bildostu egiten duen azeri usteko bat. Koldo Izagirre

Aurre egiten zaienean **koldar** nazkagarriak baino ez dira. Koldo Izagirre

Beaumontes zikinak, batzuk; **koldar** ustelak, gehienak. Aingeru Epaltza

"Zein borrero errejimentutakoa da **koldar** heste-ustel hori?" galdetu zuen Mikadoak. Xabier Olarra

Herrian badagoela doilorkume bat, **koldar** beltz bat, mingain pozoitsua daukan Judas Iskariote bat. Koldo Biguri

**Koldar** samarra ote zen, poliziak eraman zuen hartan zirenak eta ez zirenak kantatu ote zituen. Juan Kruz Igerabide

## 4 (izan aditzarekin)

Ez ninduan izan ez **koldar** ez ausart, eta ez nian burua galdu. Xabier Olarra

Eta halakoak gara gizonok: batzuetan heroi, bertzeetan **koldar**. Joan Mari Irigoien

Ni ez naiz **koldar** bakarra, antza, ez dut uste koldarkeriaz hitz egin dudanik, kemen faltaz bai, ordea. Jon Alonso

· **-Koldarra** haiz gero -errepikatu zuen gazteak, ahots iraingarriagoarekin. Karlos Zabala

Bortizkeriazalea eta **koldarra** zen, gustatu egiten zitzaion bere azioak kontatzea, ankerkeria erakusten zuen koldartasuna ezkutatzeko. Koro Navarro

Galtzailea ez da nahitaez **koldarra**. Ramon Saizarbitoria

Anker eta maltzurra zen, baina ez **koldarra**. Martin Anso

Banekian nire esperantzak ergel eta **koldarrak** zirela. Xabier Olarra

**Koldarrak,** alprojak eta lapurrak izatea aurpegiratzen zieten batzuek besteei. Koro Navarro

Ez izan **koldarra** justizia egin behar duzunean. Elizen arteko biblia

**Koldarregia** izan naizelako. Iñaki Mendiguren

## 5 (adizlagun gisa) ik **koldarki.**

Ez diat nahi haiek pentsatzerik **koldar** jokatu nuela. Mirentxu Larrañaga

Pixka bat **koldar** jokatu dute, amore emanez. Berria - Kultura

Besteren begietara **koldar** agertzeko arriskua gorabehera, erabaki sendoa hartua zuen. Imanol Zurutuza

Gauez, berriro ere katez loturik eta ekaitzak ondoko bi lagunen artean jirabiraka zerabilela, **koldar** sentitzen zen, negar egiten zuen, pozik, inork ikusi gabe negar egin zezakeelako... Karlos Zabala

Beldurra eman zidan ez ote nintzen haren aurrean **koldar** geratuko. Josu Zabaleta

Gizona isildu egiten da, **koldar,** neskameak maindireak aldatzen baditu, bere borondatez alda ditzala. Jon Alonso

**Koldarregi** bota zuen pilota, suabeegi. Unai Elorriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koldar alaena** (5); **koldar hutsa** (10); **koldar hutsa naiz** (4); **koldar hutsak** (6); **koldar jokatu** (3)
> **koldarra izan** (5); **koldarra izango** (8)

---

# koldarkeria 1 *iz* adore eta ausardiarik eza; koldarrari dagokion egintza.

Berak **koldarkeria** esaten zionari beste batzuek zentzua esaten zioten. Anton Garikano

Indarkeriaren lilura eta pentsamenduaren **koldarkeria**. Berria - Kultura

Isiltasuna **koldarkeria** da, ez delitua. Berria - Euskal Herria

15.000 lagunen artean ezkutatuta irainka aritzea **koldarkeria** da. Berria - Kirola

Beldurra eta amorrua, adorea eta **koldarkeria,** aldi berean. Rafa Egiguren

Nire zentzu kritikoa **koldarkeriaren** aitzakia hutsa ote den. Xabier Mendiguren Elizegi

**Koldarkeria** ankerkeria izan daitekek batzuetan. Antton Olano

Esan zitekeen aitaren ausardiaren ordez **koldarkeria** hartu zuela semeak berezko, bigarren azala bezala. Felipe Juaristi

Ausardia hausnargabea balio bilakatu zen; zuhurtasun neurtua, **koldarkeria**. Askoren artean

Kontua da papera eta arkatza eskuetan hartu nituenean berriro ere betiko sentimendua nagusitu zitzaidala: **koldarkeria**. Ramon Saizarbitoria

Bere nagikeria eta **koldarkeria** aitortuz. Askoren artean

**Koldarkeria** ari zen haren bihotzaz jabetzen osoki. Karlos Zabala

Baina bere espiritu prestua Jainkoagana jasorik, izan zuen **koldarkeriagatik** salatu eta epaitu zuen bere burua. Askoren artean

**Koldarkeria** eta arduragabekeria egotzi dio Jose Blanco PSOEko Antolakuntza idazkariak PPri. Berria - Euskal Herria

Aitzakiaz mukuru nengoen, bada, neure **koldarkeria** zuritzeko. Juan Kruz Igerabide

**Koldarkeriak** egiten ditu bulartsu. Hasier Etxeberria

**Koldarkeria** gainditu ezinaren harra kontzientziaren bazkan ari zitzaiola. Anjel Lertxundi

**Koldarkeriaz** jokatzea egotzi dio PSOEk PPri. Berria - Euskal Herria

## 2 (izenondoekin)

Erresuma Batuko Gobernuak gertaerari atzo arte emaniko erantzuna **«koldarkeria** moral» gisa deskribatu zuen unionistak. Berria - Mundua

Sozialistei erasoa ikertzeko borondatea ez izatea leporatzea «arduragabekeria» eta **«koldarkeria** hutsa» zela. Berria - Mundua

## 3 (hitz elkartuetan)

Nire ustez ez duk **koldarkeria** istorio bat... Elena Touyarou

**koldarki** *adlag* koldarkeriaz. ik **koldar 4**.

Noiz eta jakin baitzuen ezen guztia galdua zegoela eta gaztelau tropek inguraturik zegoela, bere burua **koldarki** hil baitzuen. Joan Mari Irigoien

Bizirik irteten baldin bahaiz, esaiok noizbait nire alabari ez nintzela **koldarki** portatu. Koldo Izagirre

Ez dira koldarkeriarako garaiak, ezin da **koldarki** jardun, eta bidean oztopoak jarri. Berria - Euskal Herria

---

**koldartasun** *iz* koldarra denaren nolakotasuna.

Jakintsua, hasieran, gehiegizko **koldartasunez** hurbiltzen da ikergaira, astiro, uzkur, oso galdera apalak eginez. Jose Morales

Bortizkeriazalea eta koldarra zen, gustatu egiten zitzaion bere azioak kontatzea, ankerkeria erakusten zuen **koldartasuna** ezkutatzeko. Koro Navarro

---

**koldartu,** koldar(tu), koldartzen da/du *ad* adorea edo ausardia galdu edo kendu, koldar bihurtu.

Orri zuriek **koldartu** egin naute. Eider Rodriguez

Ez da handiusteko emakume ziztrin baten ezezko zitalarekin **koldartzen** den horietakoa. Arantxa Iturbe

Uzkurturik zirudien, adinak oharkabean **koldartuta**. Agustin Otsoa

Bestea atzeratu egin zen **koldarturik,** kolpe baten mehatxupean bezala. Agustin Otsoa

Iruditu zitzaidan ezen bihotza bularretik ateratzerat zihoakidala, hain bainindoan kikildurik eta **koldarturik**. Joan Mari Irigoien

---

**kolega** **1** *iz* lankidea; laguna.

Ez gaitezen politikoekin gaiztoegiak izan, ene **kolega** batek errepikatzen duen eran, ez baitakigu bihar edo etzi nola itzulikatzen ahal garen. Itxaro Borda

Elkarrekin joaten ziren tabernaz taberna, lagunak izan ziren, edo **kolegak** behintzat. Sonia Gonzalez

Nire anaiaren **kolega** batek pasatu zidak eguerdian. Unai Iturriaga

Txapli bere **kolega** birekin zegoen tabernan, auzoko trapitxero bi. Unai Iturriaga

**Kolega** bat, gure salbatzailea kasu honetan. Unai Iturriaga

Ez haiz ba orain hire **kolega** baten etxera joango, eta hura ere hire marroi honetan sartu, ezta? Unai Iturriaga

-Iepa, **kolega** -besarkatu du Dylanek-, hi ere hiri handira etorri haiz, e? Pako Aristi

-Nor da kaskagorri anorexiko hori, **kolega**? -bat-bateko jakingura agertu du Koiotek. Patxi Iturritegi

**Kolega** prezioan, e! Patxi Iturritegi

**2** (izenondo gisa)

Ile-apaindegiko mutil **kolega** batekin ateratzen zela. Itxaro Borda

---

**kolegial** *iz* kolegio eliza.

Sartu da berehala koinatarekin Orreagako **Kolegialean,** egiaztagirian zigilua ezararaztzeko. Piarres Aintziart

Denak elkarrekin, kantuz eta umore onean, Santiagoko bidea hartuz, Orreagako **kolegiala** arte igo dira. Herria

---

**kolegialitate** *iz* maila berekoen artean egiten denaren nolakotasuna.

Ideia berri eta ofizialek parrokiko gazteak berotzen zituen: ekumenismoa, **kolegialitatea,** erlijio -askatasun printzipioaren adopzioa. Piarres Aintziart

---

**kolegiata** *iz* kolegio eliza.

**Kolegiatako** priore Jesus Labianok. Berria - Euskal Herria

Etxe hori Orreagako **kolegiatarena** izan zen 1276etik aitzina. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ostean, gotzaindegia Kalagorrira eraman zuten eta Armentiakoa **kolegiata** bihurtu zen. Berria - Kultura

**Kolegiatako** kapellan-ordea eta giltzaina. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> orreagako kolegiatan (3)

---

**kolegiatu** *(orobat **kolejiatu** g.er.)* **1** *izond* elkargo profesional bateko kide dena.

Ikus dezakezunez detektibe pribatua naiz, detektibe **kolegiatua** -zehaztu zuen, azkenari indarra emanez. Migel Angel Mintegi

**2** maila bereko zenbait kidek osatua.

12 urte zuzendaritza **kolegiatu** batean eta beste 12 urte koordinatzaile, zuzendari nagusi bezala. Berria - Ekonomia

Kargu **kolegiatua** da aukeratutakoa, eta bertan lanak banatu behar dira. Berria - Kultura

---

**kolegio** *(orobat **kolejio** g.er. eta **kolesio** g.er.)* **1** *iz* ikastetxea.

Maisu zebilen **kolegio** batean. Fernando Rey

Gure ama **kolegio** batean egon zen urte askoan. Fernando Rey

Alberto, duda eta ezbai askoren ondoren, **kolegio** batean sartu zuten. Fernando Rey

Zorionez herriko **kolegioan** ez genuen uniformerik erabili behar. Mikel Hernandez Abaitua

Nire **kolegio** hura, Donostiako La Salle, toki ona izan baitzen niretzat. Bernardo Atxaga

Lekarozko kaputxinoen **kolegioa** salgai da. Herria

Aldirietako **kolegio** handi bateko irakaslea zen Honoré. Joxan Elosegi

Katedrala, unibertsitatea, irlandarren **Kolegio** Nagusia... Anjel Lertxundi

**-Kolegio** sakratuan, badakizue, kardinal, artzapezpiku eta apezpikuenean, bi gizon irten ziren kontra, eta beste guztiak alde zeuden. Irene Aldasoro

Albertok **kolegioa** utzi eta Turinera etorri zen lizeoko diploma lortzeko azterketa egitera. Fernando Rey

Bilboko moja **kolegioan** ikasten eta asteburuak Opus-en paperezko loreak egiten. Ana Urkiza

**2** *(Iparraldeko hezkuntza sisteman)*

Iparraldeko **kolegio** eta lizeo desberdinetan, izan publikoan, pribatuan ala ikastoletan. Herria

1900 haur baino gehiago banatzen dira sail huntan, 30 eskola, 8 **kolegio** eta 3 lizeoren artean.

Neli Challet Hazparneko Urtsuia **kolegio** pribatuan eta San Josepe lizeoan ari denak. Herria

Ni latin eta frantses irakaslea nintzen, erdi **kolegioan,** erdi lizeoan. Piarres Aintziart

Ikasleen kopurua emendatzen ari da: lehen mailan orokorki 1407 haur badira, **kolegioan** : 435, eta lizeoan 133 ikasle. Herria

Dena dela, herriko eskolan hain ongi ari zen mutikoak **kolejioan** ez zituen emaitza bikainak erdiesten. Daniel Landart

**Kolegioan** sartu orduko, hamaika urterekin, eta batxilergoa arte, [...]. Piarres Aintziart

Arretxeko eskola **kolegio** bilakaturik. Herria

Gorpuzten ari da Hiriburun eraikiko den **kolegio** publikoaren proiektua : 600 ikasletaraino hartzen ahalko ditu [...]; bi sail elebidun izanen ditu: bata euskara/frantsesa, bestea frantsesa/espainola. Herria

Parekotasuna finkatzen du euskara/frantsesaren artean **kolegio** eta lizeoetako gela elebidunetan. Herria

Metodo hori erabilia da gehiago beste ikastegi batzuetarik heldu diren ikasleak dituzten **kolegio** edo lizeo giristinoetan. Mauleko San Frantses **kolegio** eta lizeoko hirurogei bat gazte. Herria

1.926 ikasle daude irakaskuntza katolikoan, haietarik **434** kolegio eta lizeoetan. Berria - Euskal Herria

Hogeita hemeretzi urtetan hor ezarri ninduten **kolegio** hortan egiteko eskola berri bat. Menane Oxandabaratz

Kolore ederrenekin atzaparka gora igoko **kolegio** aitzineko murruan betiko aihen-basa. Piarres Aintziart

**Kolegio** nagusia laborarien ordezkariena izanen da. Berria - Harian

Fisika (Kanboko **kolegioan)** : denbora osoz. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kolegio** -lizeo horrek, nolako harrera lukeen ministeritzaren baitan. Menane Oxandabaratz

Mauleko Saint François (d'Assise) **kolegio** -lizeo katolikoan. Herria

Horrela, nahi duten ikasleek **kolegio** maila elebitasunean segitzeko parada dute. Herria

Irrati eta telebista sortzaile (Irulegiko Irratia, Lapurdi Irratia, Aldudarrak Bideo), **kolegio** zuzendari (Baigorri-Biletxea eta gaur Kanboko San Mixel). Herria

**4** Errusian, gobernu sail nagusia.

XVIII mendean, **"kolejioa"** esaten zieten gobernu-sail nagusiei, harik eta XIX. mendearen hasieran ministerioak sortu zituzten arte. Jose Morales

Korobotxka lurjabea zen, **kolejio** -idazkaria. Jose Morales

Pavel Ivanovitx Txitxikov, **kolejio** -kontseilaria, lurjabea, neure zereginetarako etorria. Jose Morales

**5** elkargoa.

Arartekoak abokatuen **kolegio** guztietara jo zuen, ea halako egoeraren batean aurkitu ginen galdezka. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Medikuen **Kolegio** Ofizialean. Berria - Harian

Kataluniako Kazetarien **Kolegioaren** egoitzan. Berria - Harian

Mailaz goratu eta **kolegio** -errejistratzaile izendatu zuten bere garaian. Jose Morales

**6** ***kolegio eliza*** katedrala ez izanik, kalongeak-eta dituen eliza. ik **kolegiata.**

Orreagako **kolegio elizako** datuak aintzat hartuta, orain urte batzuetatik hona nabarmen egin du gora erromes kopuruak, 1994an, esaterako, 7.000 erromes inguru pasatu ziren handik; 2003an 23.000 inguru, eta iaz, berriz, 45.000. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskal kolegio** (3); **kolegio eta lizeoan** (3); **kolegio eta lizeoetako** (3); **kolegio eta lizeoetan** (6); **kolegio eta lizeoko** (3); **kolegio lizeoetan** (3); **kolegio nagusia** (3)

**xalbador kolegioa** (4)

**abokatuen kolegioak** (5); **eaeko abokatuen kolegioak** (5); **mixel garikoitz kolegioak** (4)

**donaixtiko kolegioan** (3); **kanboko xalbador kolegioan** (6); **kolegioan sartu** (3); **mixel garikoitz kolegioan** (5); **san mixel kolegioan** (4); **xalbador kolegioan** (7); **ziburuko kolegioan** (6); **ziburuko larzabal kolegioan** (3)

**kazetarien kolegioaren** (3)

**manex erdozaintzi kolegioarentzat** (5)

**abokatuen kolegioko** (4); **erdozaintzi kolegioko** (4); **etxea kolegioko** (4); **kolegioko ikasle** (3); **kolegioko lasterketa** (6); **kolegioko presidente** (3); **mixel garikoitz kolegioko** (9); **san mixel kolegioko** (11)

**kolegiora joan** (3)

**kolejio idazkaria** (4); **kolejio kontseilaria** (3)

**ako kolejioan** (3); **arretxeko kolejioan** (3); iruñ

**kolejioko zuzendari** (3)

**jesuiten kolejiorat** (3)

**erdozaintzi etxart kolesioan** (3)

---

kolejiatu ik **kolegiatu.**

---

kolejio ik **kolegio.**

---

kolektibazio ik **kolektibizazio.**

---

**kolektibismo** *iz* produkzio bitartekoen jabegoa kolektibitatearen, eta ez gizabanakoen, esku dagoen ekonomia sistema.

Razionalismo eta progresismo burgesen etsaia, sozialismo eta anarkismo tankerako demokratismo erradikal eta **kolektibismoen** arerioa orobat. Joxe Azurmendi

---

**kolektibitate** **1** *iz* berez, edo helburu komun baterako, bildu diren gizabanakoen multzoa.

Euskal **kolektibitateko** kideek. Berria - Euskal Herria

**Kolektibitatean** babestu ginen, batetik taldean, eta bestetik, gu esatean, herrian. Berria - Kultura

Idazlea **kolektibitatearen** ahotsa baita. Ana Urkiza

**Kolektibitate** bat ez da inoiz mugiaraziko esanez: baliteke beste forma sozial hobe bat izatea. Josu Zabaleta

Familia batzuek komunak sortu zituzten eta seme-alabak ez ziren bikotearenak **kolektibitatearenak** baizik. Ana Urkiza

Nola dago hizketa ezarria **kolektibitate** honetan? Isabel Arrigain

**Kolektibitatearen** moral bat, Gizona ahazten duena, ikusi dugu sartzen, ohartu gabe. Josu Zabaleta

Animalia gehienek, baita taldean bizi eta elkarren arteko erlazio handiak dituztenek ere, nahiago izaten dute norberaren umeak aurrera ateratzea **kolektibitatearen** onarengatik aritzea baino. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horrek koadro juridikoa ematen die Pirinioz bi aldeetako tokiko **kolektibitateen** arteko harremanei. Berria - Euskal Herria

Proposatzen du ere lantegiaren lur eremua lekuko **kolektibitateek** eros dezaten. Herria

**2** ***lurralde koletibitate***

Hizkuntza politika eta dezentralizazioa: **lurralde kolektibitateen** eskuduntzak eta ahalak lelopean iraganen dira topaketak. Berria - Euskal Herria

**Lurralde Kolektibitateen** kodearen L1112-16 artikuluak hau dio: "**Lurralde kolektibitate** bateko erroldan izena emana duten hautesleen hamarren batek kolektibitate horretako biltzar erabakitzaileari kontsulta bat antola dezan eska diezaioke". Berria - Euskal Herria

Frantzian ez dago eskumen bera bi **lurralde kolektibitateri** emateko eskubiderik. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lurralde kolektibitate** (3)

---

# kolektibizatu, kolektibiza, kolektibizatzen **1** du *ad* produkzio bitartekoak taldearen zerbitzupean jarri.

Industria nazionalizatu zen, nekazaritza **kolektibizatu**. Berria - Mundua

Azkenaldian hainbat lantegi itxi dituzte eta gure sindikatuak enpresa horiek bere gain hartu eta **kolektibizatzea** erabaki du. Berria - Mundua

**2** (era burutua izenondo gisa)

Metodoak, berriz, antzinako herrialde komunistetako planifikazio zentralistetatik hartuak izaten ziren, eta, horrekin batera, sarritan, nekazaritza **kolektibizatu** baten utopia ere izaten zen, haren soberakinak hiri-sektorera aise eramango zirelakoan. Koro Navarro

---

# kolektibizazio *(orobat **kolektibazio** g.er.)* **1** *iz* kolektibizatzea.

Zapaten **kolektibizazioa:** zureekin aspertzen zarenean zintzilika itzazu beste norbaitek har ditzan. Harkaitz Cano

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mendebaldeak, urrutira joan gabe, **kolektibazio** lan itzela egin du. Iñigo Aranbarri

Ez dakit, baina segur aski egongo da espainolena baino **kolektibizazio** nahi handiago bat. Iñigo Aranbarri

1932: Zazpi milioi ukrainar gosez hil ziren Stalinen **kolektibizazio** kanpainaren ondorioz. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Stalinek, politika hori baztertu eta nekazari **kolektibizazioa** ezarri zuen. Berria - Mundua

---

# kolektibo **1** *izond* kolektibo bati, jende multzo bati dagokiona.

Diskriminazioa jarrera **kolektiboa** da. Ana Urkiza

Gizarte oso (gizon eta emazte) baten problematikak dira, **kolektiboak,** gehien batean etxeko eta eskolako hezkuntzari lotuak direnak. Ana Urkiza

Kontzientzia **kolektibo** bati eragingo liokeen agindu bat entzunda bezala desagertzen ziren denak nire ingurutik. Pako Aristi

Garaiak arin doaz eta oroimen **kolektiboan** astiroago gauzatzen dira aldaketak. Ana Urkiza

Hala heltzen zaizkio irakurleari, entzuleari eta ikusleari, eta halaxe fosiltzen dira imajinario **kolektiboan,** munduko gauzarik naturalena balitz bezala. Iñigo Aranbarri

Horrela, anitzek sentitu dute barne kartzela **kolektibo** hori nola den, baita, zentsura edo autozentsura zer den. Ana Urkiza

Gilen ikusi behar dut jendeketa baten barnean, betan indibiduo eta izaki **kolektibo** gisa, atomo baina atomo makodun. Piarres Aintziart

Herri indigenen gizabanakoen eskubideak eta eskubide **kolektiboak**. Berria - Gaiak

Zer oreka atzamaiten ahal da interes **kolektibo** eta pribatüen artean? Herria

Negoziazio **kolektiborako** irizpideak. Berria - Ekonomia

Metalgintzako hitzarmen **kolektiboen** edukiak. Berria - Ekonomia

Gatazkari irtenbidea aurkitzeak prozesu **kolektiboa** izan behar du. Berria - Euskal Herria

Lur **kolektiboak** pribatizatu izanaren arazoaz. Berria - Euskal Herria

Garrantzitsua da memoria historikoa berreskuratzea modu **kolektiboan,** norbanakoena bakarrik izan beharrean. Berria - Euskal Herria

Baina ez berak burutu zuen bezala, [...] era **kolektiboan** eta irauteko bokazioz baizik. Berria - Kultura

**2** kolektibo batek egina, kolektibo batek erabiltzen duena.

Emakumezkoek idatzitako ipuin liburu **kolektibo** bat argitaratzea pentsatu genuen. autodeterminazio nazionala, subiranotasuna eta interbentzionismoa dira aztergai, besteak beste, lan **kolektibo** izugarri honetan. Ana Urkiza

Obra **kolektibo** bat, hirukote ezagun batek aintzina ereman duena. Herria

Bideo kamarak haizuko dira garraio **kolektiboetan**. Herria

Oso gogoan ditut oihu **kolektibo** horiek: behetik hasi, erpinera igo eta berriz ere behera etortzen zen haien ozentasuna, Gauss-en kanpai baten eskemari jarraituz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

*Mea culpa* **kolektibo** hau, tamalez, guri bakarrik, hots, euskaldunoi baino ez dagokigula. Iñigo Aranbarri

Otorduak jantoki **kolektibo** batean egiten genituen. *Dolmus* baten sartu naiz, Turkian ohikoak diren furgoneta **kolektibo** horietariko baten. Rafa Egiguren

Gero hoteleraino lagundu dit taxi **kolektibo** baten. Jon Arretxe

Bideo kamarak haizuko dira garraio **kolektiboetan**. Herria

Hara zergatik baratze **kolektiboak** landuak izanen diren. Herria

• **3** *iz* jarduera edo helburu jakin batek elkartzen dituen pertsonen multzoa.

**Kolektibo** osoaren izenean. Koldo Izagirre

Bazterketaren bat jasan duten **kolektiboetako** kideengan. Ana Urkiza

Alemaniako zenbait **kolektibo** autonomok garatu dituzten taktikak. Txema Ramirez de la Piscina

Talde ekologistetan sarturik zebilen, **kolektibo** feministetan, komite internazionalistetan eta beste bizpahiru mugidatan. Xabier Mendiguren Elizegi

Presentzia eta partaidetasun hori gure irudimenean, bakoitzarenean eta **kolektiboarenean,** naturaltasunez sartzen denean. Ana Urkiza

Emazteen **kolektiboaren** ustez, ele horiek iraingarriak dira, emazteen aurkako eraso zuzena. Berria - Harian

Ipar Euskal Herriko emakumeen **kolektiboek** barkamena eskatzeko exijitu diote Baionako auzapezari. Berria - Harian

UTAko DC 10eko biktimen familietako **kolektiboko** presidenteak. Berria - Mundua

"Humani-Terre" **kolektiboak** antolaturik. Herria

Gauean, rap eta hip hop ikusgarria *As Crew* **kolektiboarekin**. Herria

**Kolektiboko** abokatuen **kolektibo** osoak. Koldo Izagirre

Bai bakarka bai **kolektibo** gisa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskal idazleak, **kolektibo** bezala ulertuta, ba al dauka gorputzik? Ana Urkiza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahalegin kolektibo** (3); **erakusketa kolektibo** (4); **eskubide kolektibo** (4); **hainbat kolektibo** (3); **hitzarmen kolektibo** (11); **hitzarmen kolektibo duin** (4); **kolektibo berri** (5); **kolektibo gisa** (24); **kolektibo gisa jarduteko** (4); **kolektibo jakin** (3); **kolektibo oso** (3); **kolektibo osoaren** (3); **kontzientzia kolektibo** (5); **lan kolektibo** (4); **lan kolektibo bat** (3); **liburu kolektibo** (4); **liburu kolektibo bat** (3); **negoziazio kolektibo** (10); **obra kolektibo bat** (3); **proiektu kolektibo** (3); **subjektu kolektibo** (3); **taxi kolektibo** (3)

**arloko konbenio kolektiboa** (3); **batasun kolektiboa** (3); **erakusketa kolektiboa** (3); **euskal presoen kolektiboa** (8); **gure kolektiboa** (3); **hausnarketa kolektiboa** (3); **hitzarmen kolektiboa** (53); **hitzarmen kolektiboa negoziatzeko** (10); **hitzarmen kolektiboa sinatu** (8); **iheslarien kolektiboa** (3); **itun kolektiboa** (10); **izaera kolektiboa** (3); **katalogo kolektiboa** (3); **kolektiboa osatu** (4); **kolektiboa osatzen** (3); **konbenio kolektiboa** (3); **kontzientzia kolektiboa** (3); **memoria kolektiboa** (4); **negoziazio kolektiboa** (77); **nortasun kolektiboa** (3); **preso politikoen kolektiboa** (12); **presoen kolektiboa** (11); **selektah kolektiboa** (4); **urterako hitzarmen kolektiboa** (4); **zigor kolektiboa** (4)

**artisten kolektiboak** (3); **atxik kolektiboak** (3); **ertz kolektiboak** (4); **eskubide kolektiboak** (18); **euskal presoen kolektiboak** (4); **gure kolektiboak** (3); **herriaren eskubide kolektiboak** (3); **hitzarmen kolektiboak** (4); **iheslari politikoen kolektiboak** (3); **iheslarien kolektiboak** (5); **indibidual eta kolektiboak** (5); **negoziazio kolektiboak** (17); **nortasun kolektiboak** (8); **politikoen kolektiboak** (44); **politikoen kolektiboak eppk** (7); **preso politikoen kolektiboak** (40); **presoen kolektiboak** (13)

**hitzarmen kolektiboan** (6); **memoria kolektiboan** (4); **negoziazio kolektiboan** (39); **oroimen kolektiboan** (5); **preso politikoen kolektiboan** (3)

**kolektiboarekin harremana izan** (3); **negoziazio kolektiboarekin** (3); **preso politikoen kolektiboarekin** (3); **presoen kolektiboarekin** (4)

**aurtengo negoziazio kolektiboaren** (4); **euskal presoen kolektiboaren** (6); **gure kolektiboaren** (7); **hitzarmen kolektiboaren** (25); **hitzarmen kolektiboaren inguruan** (3); **hitzarmen kolektiboaren negoziazioa** (3); **iheslarien kolektiboaren** (6); **itun kolektiboaren** (5); **kolektiboaren arabera** (5); **kolektiboaren iritziz** (3); **kolektiboaren izenean** (9); **kolektiboaren kontrako** (4); **kolektiboaren parte hartzea** (4); **kolektiboaren ustez** (3); **memoria kolektiboaren** (5); **negoziazio kolektiboaren** (57); **negoziazio kolektiboaren bidez** (7); **negoziazio kolektiboaren bitartez** (3); **negoziazio kolektiboaren eredua** (4); **politikoen kolektiboaren** (13); **preso politikoen kolektiboaren** (13); **presoen kolektiboaren** (10)

**negoziazio kolektiboari** (16); **negoziazio kolektiboari buruzko** (6)

**negoziazio kolektiboaz** (6)

**eskubide kolektiboen** (10); **hitzarmen kolektiboen** (5); **indibidual eta kolektiboen** (4); **kolektiboen eskubideak** (3)

**negoziazio kolektiboetan** (5)

**iheslarien kolektiboko** (9); **iheslarien kolektiboko kide** (3); **kolektiboko bozeramaileak** (3); **kolektiboko kide** (10); **kolektiboko kideak** (7); **negoziazio kolektiboko** (9); **politikoen kolektiboko** (8); **preso politikoen kolektiboko** (7); **presoen kolektiboko** (4)

**hitzarmen kolektiborako** (4); **negoziazio kolektiborako** (17)

**eskubide kolektiborik** (3); **hitzarmen kolektiborik** (3)

---

## kolektiboki *adlag* era kolektiboan, elkarrekin.

Bakarrik, **kolektiboki** eta indibidualki bizitzen ditugun momentuetaz oroitzeko. Ana Urkiza

Bai pertsona modura, eta baita **kolektiboki** ere, gizarte modura. Berria - Harian

Eskertzen ditügü ere, bakarka edo **kolektiboki** beren süstengüa ekarri deiküen güzier. Herria

Ekintza horiek **kolektiboki** eta talde baten barruan eginak izan ziren. Berria - Euskal Herria

**Kolektiboki** kudeaturiko autonomia emanez berriz diru-politikari, eta ordainketa- balantzen eragozpen nazionalak ezabatuz. Koro Navarro

---

## kolektibotasun *iz* kolektiboa denaren nolakotasuna.

Bestalde, presoen **kolektibotasuna** azpimarratu dute. Berria - Euskal Herria

Sakabanaketarekin **kolektibotasun** hori apurtzen saiatzen direla nabarmendu da. Egunero erasotzen eta erasaten diguten **kolektibotasuna** egunero berrosatu behar dugu. Jokin Urain

Bestalde, nitasun indibidualari lotu zaio **«kolektibotasuna** saihesteko». Berria - Kultura

---

## kolektore 1 *iz* estolda nagusia.

Hiriko hoditerian barrena joanen dira, **kolektore** zulo beltz nagusian bildu eta handik itsasoraino. Iñaki Iñurrieta

**Kolektore** berria eraikitzeko lanak. Berria - Euskal Herria

**2** bilgailua.

[Genesis] kapsulak silikonaz, urrez, zafiroz eta diamantez egindako **kolektoreak** zituen. Berria - Gaiak

---

## kolekzio *(orobat **kolekzione**)* *iz* bilduma.

Afrikako kolore argiak dituzten jauntzien **kolekzioa** lehen aldikotz hor aurkeztua izanen zauku. Herria

**Kolekzio** handi bat. Koldo Izagirre

Ahal zituen tinbre berri guziak erosten zituen bere **kolekzionearentzat**. Marzel Etxehandi

Nire hosto **kolekzioa** eraman dezaket? ez nuke galdu nahi, eta miaketetan badakizu, nahi gabe noski, gauzak desagertu egiten dira… 2004eko jauntzi **kolekzionearen** aurkezpenarekin. Koldo Izagirre

---

## kolekzionatu, kolekziona, kolekzionatzen du *ad* bildumatu.

Mirailak **kolekzionatu**. Joan Mari Irigoien

Ez nekien horrelako dokumentalak **kolekzionatzeko** bizio ezkutua zenuenik. Josu Landa

---

## kolekzionatzaile *iz* bildumatzailea.

Bake festibal horren lehendakaritza hartuko dute Paul Haïm arte-**kolekzionatzaileak** eta Jeanette Leroy margolariak. Herria

---

kolekzione ik **kolekzio**.

---

## kolekzionismo *iz* bildumatzeko zaletasuna.

Alferrik ari dira, ordea; izan ere, bizirik jarraitu ahal izateko bilatzen duten iraganeko hori are morbidoagoa baita: artista ezezagunen biografiak, **kolekzionismo** *kitch*-a... Berria - Kultura

---

## kolekziozale *izond* bildumazalea.

Ez dakit non den ate hura, ez dakit San Juan su batean erre zuten edo **kolekziozale** yankiren batek erosi zuen edo Quebec-eko museoren batean ote dagoen orain. Koldo Izagirre

---

## koleoptero **1** *iz* ahoa mastekatzailea eta aurreko hegoak gogorrak dituen intsektoa.

Koprofago amorratuak badaude-eta **koleopteroen** artean, bai horixe, inolako presarik gabe gorotzez elikatzeari ekiten diotenak! Iñaki Arranz

Kakalardoak (hau dugu **koleopteroen** familiako intsektu beltz bat) zilatzen du zumarraren enborra, galeria batzu eginez, eta ondotik zilo horietan onddo bat hedatzen da, zumarra ustelaraziz. Herria

*Cocuyo* da, zoologian, *Pyrophorus* generoko **koleoptero** elateridoen hainbat espezieri ematen zaien izena. Jon Alonso

Bortizki iragan da **koleopteroen** gaineko ikasketetatik teoria kuantikoa ikastera. Monika Etxebarria

**2** *irud*

Betikoa zen, irudimenaren **koleopteroa,** iruditeriaren brontosauroa, Kretazeotik iraun duena, sardinak kutxatan sutan jartzen dituen betiko sukaldari maisua. Berria - Kultura

---

## kolera[1] **1** *iz* haserre bizia.

Aitaren **kolera** ekiditearren. Patxi Zubizarreta

Probokaziorik ttikiena ere [...] aski zen haren **kolera** pizteko. Patxi Zubizarreta

Burubide haiekin guztiekin **kolera** eztitzen hasi zitzaion, aldartea hobetzen. Patxi Zubizarreta

Hobe algara eragitea eta ez **kolera**. Koldo Izagirre

**Kolera** gogobetetasunarekin nahasi zitzaion berriro ere, eta bere baitan bortizkeria eta desafiozko desira ilun bat nabaritu zuen. Patxi Zubizarreta

Berehalakoan, merkatariaren **kolera** behera etorri zen. Patxi Zubizarreta

Bistan da kondearen **koleraren** beldur zela. Aingeru Epaltza

Ez utzi etsipenak eta **kolerak** har zaitzaten. Joxerra Garzia

**Kolerari** eusten ahalegindu zen Kirxa kaxaren atzealdean zutitu zen, **kolerak** mututua, kopeta ilundua. Patxi Zubizarreta

Neke zen bereiztea zer nagusitzen zen haren bisaia zurbilean, oinazea ala **kolera**. Aingeru Epaltza

Bihotza **koleraz** beterik zuen, baina zertarako balio zuen **kolera** hark? Patxi Zubizarreta

**Kolera** izan zuen orduan zuhurtzia baino iradokitzaile hobea. Jon Muñoz

Bere **koleran,** sekulako ukabilkada eman zidan bular gainean. Daniel Landart

Adiskidea **koleran** ikusi zuelarik, osaba Kamili bihotza erdiratu egin zitzaion. Patxi Zubizarreta

**2** (izenondoekin)

**Kolera** handi batek hartu ninduen. Daniel Landart

Hitz horiek esan orduko neure buruaren kontrako **kolera** biziak hartu nau. Monika Etxebarria

Jasan beharreko guztiak eragiten zion nahigabea eta **kolera** gaiztoa zirela-eta, barkamena eta gupida eskatzen zizkion Jainkoari. Patxi Zubizarreta

Inoizko **kolerarik** gorriena jabetu zen bere buruaz. Patxi Zubizarreta

Nafar nobleak, alde guzietatik **kolera** gorrian, Gorritira bidean dira. Patziku Perurena

Narratzaileak berak horrelako galdera bat entzunez gero erakutsiko zuen **kolera** hotzaren beldurrez. Berria - Kultura

Aitak, halako **kolera** gorde batekin eta burua inarrosiz galdatu zigun: [...]. Daniel Landart

**3** (hitz elkartuetan)

Baditut **kolera** bulta itsusiak eta zinez orduan arrunt kexatzen naiz. Menane Oxandabaratz

***4 kolera aldi***

Haren **kolera** aldiak aintzat hartu beharrekoak ziren. Patxi Zubizarreta

Atzera berriz sumintzeko zorian egon zen, baina neskaren beste **kolera** aldi baten beldur izan zen. Patxi Zubizarreta

---

## kolera[2] **1** *iz* eritasun larria eta kutsakorra, etorkiz Indiakoa, beherakoak, gorakoak, arranpak eta ahuleria handia eragiten dituena.

Baliteke **kolera** izatea -esan zuen Paul D-k. Anton Garikano

Uste dinat **kolera** daukana botaka aritzen dela etengabe. Anton Garikano

Indian egona zen -han **kolera** harrapatu zuen eta sukar horia ere bai, ustez-. Fernando Rey

Kutsaduraren ondorioz **kolera** agertu da eta dagoeneko bost pertsona hil dira **kolerak** jota, CNN telebista katearen arabera. Berria - Harian

Usaindu duzu bagoi hauek hanpaturik dituen fenol usaina, **kolera** hor nonbait den seinale. Josu Zabaleta

Minbizia eta **kolera** opa nizkiola. Pello Lizarralde

Urruñan berean 149 lagun hil baitziren hiru hilabete barne, **kolera** gaitzarekin. Herria

**Kolera** eta malaria etengabe zabaltzen ari dira. Berria - Mundua

**Kolera** bestelako gauza bat da, Ikusezina da, behinolako, lehenagoko garaietako izurria da, berriro itzuli den Izpiritu gaizto bat. Josu Zabaleta

1855eko **kolera** beltzaren kutsutik libratu nahi zutenak. Patziku Perurena

**Koleraren** aurkako kanpaina abiatu dute Mozambiken. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mugarik Gabeko Medikuak erakundeak Zambian **kolera** izurrite larria zabaltzen ari dela jakinarazi du. Berria - Gaiak

Apaiz batentzat aukera bikaina duk **kolera**-epidemia baten, lurrikara baten edo gerra baten erdian egotea. Koldo Biguri

**Kolera** agerraldi masiboak. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mahastiak zein zeta-harrak, oilo-**kolera** zein errabia hartu aztergai, Pasteur-ek modua bilatzen zuen arazoari buelta emateko, beste termino batzuetara itzultzeko, esperimentu-gai bihurtzeko hura. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kolera izurritea** (3)
**kolerak har** (3); **kolerak hartua** (3); **kolerak jota** (3)

---

## **koleratsu** **1** *izond*

-Izigarri **koleratsua** naiz. Menane Oxandabaratz

Hala bada, ohean agondu da, zorura jauzi egin, eta suge **koleratsu** baten gisara lerratu zaio gizonari. Patxi Zubizarreta

**2** (adizlagun gisa)

Zer egiten duzue ene lurretan? -galdegin zien osabak, **koleratsu,** herritarrenganik borzpasei urratsetarat paratzen zela. Joan Mari Irigoien

Neskak, orduan, **koleratsu:** [...]. Patxi Zubizarreta

---

## **koleratu,** kolera(tu), koleratzen **1** da/du *ad* biziki haserretu.

**-Koleratuko** dun, itsuski **koleratu** ere, eta nitaz sekulakoak eta bat erranen. Aingeru Epaltza

Oroitzen al dun nola **koleratu** hintzen soineko hutsal baten gorabehera zela eta? Patxi Zubizarreta

-Neska honek **koleratu** egiten nau -esan dio Lainezi-. Pello Lizarralde

**Koleratu** egin gintuzten hasieran, hondoratu gero. Koldo Izagirre

Zuberoa Frantziako erregeren jabetza izan arren, auzoa -Nafarroako erregina- **koleratzeko** beldur ziren oraino. Aingeru Epaltza

Santakrutzek, orduan, **koleraturik,** "kuartelik gabe" erasotzeko agindua eman dik. Txillardegi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Itsaso **koleratuan** arrazoinaren untzia galdu zuen gizona bezala. Joan Mari Irigoien

---

## **koleriko** *iz* kolerari dagokiona.

-Iharduki epidermikoa eta **kolerikoa** duzue! Itxaro Borda

---

## kolesio ik **kolegio**.

---

## **kolesterol** **1** *iz* gai koipetsua, animalien odolean eta gorputzeko ehun gehienetan izaten dena.

Garuna aktibatzeko, **kolesterola** ezabatzeko edo zahartasuna uxatzeko gaitasunaren arabera aukeratuko dugu jana. Edorta Agirre

Faktore horien guztien artetik bat nabarmendu dute: **kolesterol** txarraren eta onaren artean desoreka handia izatea.

Bihotzerako ona omen da, esaten dio Leon Martyk, odolean **kolesterol** bilgune handiak osatzea eragozten duela bihotzekoak emateko arriskuak ezerezera murriztuz. Pako Aristi

Simvastatina: **Kolesterol** altua duten pertsonentzat da. Berria - Euskal Herria

**Kolesterola** 160tik 225era igo zitzaidan. Berria - Kultura

**Kolesterolaren** kontrako sendagai batek hiesaren kontra egiteko ere balio dezakeela frogatu berri du zure taldeak. Berria - Gaiak

Estatinek **kolesterola** sintetizatzea eragozten dute. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zabor-jendeak ez bezala, andre-gizon gisakoek halako gider koipetsuei kontzen diete, beren **kolesterol** tasak bihotz-kargarik gabe gainezkatzekotan. Aingeru Epaltza

Bihotzekoa eragiten duten bederatzi faktore nagusi daudela: **kolesterol** maila altua izatea, tabakoa erretzea, [...]. Berria - Gaiak

Kakao zuntza hartzeak odoleko **kolesterol** maila jaisten laguntzen du. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kolesterol altua** (4); **kolesterol maila** (19); **kolesterol maila altua** (3); **odoleko kolesterol maila** (7)

---

## **koleta** *iz* mototsa.

Gaur Leireri ez diote ile-adatsek batere izorratuko, zinta gehi **koleta** jarri baititu. Berria - Kultura

---

## **koletadun** *iz* mototsduna.

Neska baten argazkia, oreztaduna eta **koletaduna..** . bere neska ohia ote? Sonia Gonzalez

Alboan, kontsolatzen saiatzen diren lagunen artean, **koletadun** neskato are gazteago bat negar batean dago Sonia Gonzalez

---

## kolga-kolga egin ik **kolgatu 4.**

---

## **kolgatu** **1** *ad* zopatu. ik **kolokatu**[2] **2.**

Ebe beti dago **kolgatuta** . Sonia Gonzalez

Utzidak asmatzen: erdi **kolgatuta** geratu hintzen, eta hurrengo gauean usoaren arrastorik ez. Iban Zaldua

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hona hemen gure psikologo **kolgatua..** . psikologo jonki galdua daukat! Natxo atzera makurtu eta laguna iratzartzen saiatu da, nahiz eta, egia esan, pasa-pasa eginda ikusi, amnistiaren aldeko pankarta baino **kolgatuago** . Sonia Gonzalez

**3** (era burutua izen gisa)

Batzuetan asteak pasatzen ziren **kolgatu** jakin bat ikusi barik. Jon Alonso

**4** ***kolga-kolga egin***

Eta gu autopista bazterrean, orain eskuinaldean, **kolga-kolga** eginda, poltsa banarekin. Pako Aristi

## koli *(orobat **kolia**)* [fr coli] *iz* bilgoa, paketea.

Parada pollita emana zauku hola **koli** zenbaiten artoski begiratzeko, eskapatzeko laguntza zerbait, iparrorratz, état-major karta, diru edo jantzi, badaukatela dakigularik. Michel Oronoz

Lixta ikusia izan da, nork errezebitu behar zuen Eguberriko **kolia** hori. Herria

## kolibazilo *iz* gizakiaren eta zenbait animaliaren hesteetan bizi den baziloa, eskuarki patogenoa dena.

Eredu hori abiaburu, François Cuzin lagun harturik, **kolibaziloaren** mutanteak bakartu eta aztertzeari ekin genion; erdibitzea edo/eta erreplikazioa matxuraturik zeuzkatenak, alegia. Baina **kolibaziloarentzat** baliagarri ziren teknikak gaizki egokitzen zitzaizkion elefanteari. Juan Garzia

Artean oso gutxi erabilia esperimentu-gaitzat, zera zen haren bertute nagusia: aise eta bizkor ugaltzen zela, **kolibaziloz** ereindako agar-ontzietan. Juan Garzia

## kolibri *iz* Ameriketako txori guztiz txikia, mokoa luzea eta lumak distiratsuak dituena*(Trochilus colubris* etab.).

Eta **kolibriek** hegoak astintzen segitzen zuten. Anton Garikano

**Kolibriak,** esate baterako, hotz-beroa gutxi aldatzen den lekuetan bakarrik bizi daitezke. J.M. Olaizola "Txiliku"

30 milioi urteko bi **kolibrien** fosilak aurkitu dituzte Alemanian. Berria - Gaiak

Arkeologoek diote orain arte aurkitutako **kolibrien** hezurdurak egungoen «oso desberdinak» direla. Berria - Gaiak

Begira esku honi; **kolibri** bat bezain irmo. Mirentxu Larrañaga

Krokodiloa harriz egina dagoen bezala eta **kolibria** airez eta eguzkiz egina dagoen bezala. Koldo Izagirre

Ivy bere **kolibri** -kapelaxka buruan. Joxe Austin Arrieta

Nahiz frakarentzako korapilo zuri sinpleak, nahiz topazio-**kolibria** bezain kolore sutsu aberatsekoak. Anton Garikano

## kolier *iz ipar* koilarea.

Harriturik behatu zioten, zeremoniako soinekoak jantziak zituen, arrano lumazko burukoa, karibu larruzko gaina eta galtzak, [...], lepoan turkesa, hexur, porkepika sista eta larruz egin **kolierra** . Aurelia Arkotxa

## koliko 1 *iz* hesteetako min zorrotza, espasmoak eragiten dituena.

Okela, errea eta oso egina, jateko moduan zegoen; baina egosia, kiratsa zerion eta maiz **kolikoak** eragiten zituen. Karlos Zabala

-Abere hauek […] ezer ez eta **kolikoa** harrapatzen dute... Karlos Zabala

· Lurraren erraiak **koliko** batek jota baleude bezala. Juan Garzia

**2** sabelaldeko errai bateko min zorrotza, barne hodi baten hersketak eragina.

Aldi berean gaixotasun berdinak jotzen ditik biak, gibeleko **koliko** batek edo apendizitis batek. Xabier Olarra

Giltzurrunetako edo besikulako **kolikoa** zeukan. Koro Navarro

Ezkerreko giltzurrunean **kolikoa** zuela baieztatu zuten medikuek. Berria - Kirola

Amalia **koliko** nefritiko batek jota zendu zenean, […]. Josetxo Azkona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koliko nefritiko** (3)

## kolinesterasa *(orobat **kolinesterosa**)iz*

Gerra biologikorako ekoitzi diren nerbio-gas batzuk **kolinesterasaren** inhibitzaile dira, hau da, **kolinesterasari** bere eginkizuna betetzea galarazten diote, eta, hartara, nerbio-bulkadaren transmisioa erabat oztopatzen. Irene Aldasoro

Lotuneetan beti egon ohi den entzima bat da **kolinesterasa** . Azetilkolina desegiten duena **kolinesterosa** da, nerbioetan normalki egoten den substantzia bat. Irene Aldasoro

## kolirio *iz* begi ura, begian ezartzen den sendagai isurkaria.

Kauterizazioa egin zioten buruko hainbat lekutan eta ebakiak zainetan, enplastoak jarri zizkioten eta **kolirioak** begietan. Askoren artean

Erosi **kolirioa** begietan emateko, ikus dezazun. Elizen arteko biblia

Urizarrek forenseari begia handituta zuela esatean, bainuntziaren eragindako infezioa soilik izango zela erantzun eta, **kolirioa** eskaini zion auzitegiko sendagileak, besterik gabe. Berria - Euskal Herria

## koliseo *iz* antzoki handia.

Partenoia, Erromako **Koliseoa,** Reimsko Katedrala. Jon Alonso

Haren ordez, Luna deritzon bat jarri du, eta hor da, eguzki berotan, **koliseoaren** erdian. Berria - Kirola

Cesar Piterman **koliseoan** dago, bere urrezko aulkian eserita, bi astetik behineko borroka hastear dela. Berria - Kirola

## kolisio *iz* elkar jotzea.

Besteak beste, supernobak, galaxien arteko **kolisioak,** eta materia ilunak behatu ditu. Berria - Gaiak

**Kolisioz** jositako bidai luze baten ondorioz, objektu handienek txikienak irensten dituzte, eta egoera iraunkorrean planetak bakarrik geratzen dira eta diskoaren arrasto gutxi. Berria - Gaiak

## kolitis *iz* kolonaren hantura, gehienetan beherakoa eragiten duena.

Bularreko minbiziari, **kolitis** ultzerosoari eta gisako gaitzei aurre egiteko, ikerketa gehiago egin behar dira. Lasaiago nabilenez, hobeto moldatzen naiz jendearekin, eta konponduak ditut estresarekin loturiko osasun-arazoak; **kolitisa,** esate baterako.

Bautista Barandalla etxarriarrari hiru ebakuntza egin behar izan dizkiote azken bi urteetan, ***kolitis*** *ultzeraduna* gaixotasuna dela eta. Berria - Euskal Herria

## **kolka** *iz* loka.

Halako **kolka** txintxoa edukita! Koldo Izagirre

· Urrikaldu egiten zen jarraian, nola oilo-**kolka** bere txitarik ezdeusenarekin... Joan Mari Irigoien

---

## **kolkiar** *izlag*

**Kolkiarren** herrian, Pontoan, baso aberatsak dituztenez, bi zuhaitz oso jartzen dituzte ezker-eskuin lurrean etzanda, [...]. Santiago Iruretagoiena

---

## **kolko** *(orobat* ***golko*** *g.er.; ik* ***golko****)* ***1*** *iz jantziaren eta bularraren arteko hutsartea.*

*Atera zuen Santxok bere* ***kolkotik*** *karta ireki bat eta honela ziola ikusi zuen dukesak: [...].* *Patxi Ezkiaga*

*Pistola bat atera zuen* ***kolkotik,*** *egunkarian bildu zuen eta sasiartean ezkutatu.* *Koldo Izagirre*

*-Orain sar eskua* ***kolkoan*** *.* *Jose Antonio Mujika*

*Sugegorria hotzez ikusita, errukitu eta* ***kolkoan*** *sartu zuen bero-tzeko.* *Anjel Lertxundi*

*Gainerakoa, jaten zuen itxura eginez,* ***kolkoan*** *gordetzen zuen, eskua ahora eramanez egiten zuenaz inor ohar ez zedin.* *Askoren artean*

*Guardia zibilak Markinako karmeldarren komentuan sartu zirenean,* ***kolkoan*** *gorde zituen koadernoak Urionaguenak, eraman ez zitzaten.* *Berria - Kultura*

*Eskuak jertsepera ekarri zituen,* ***kolkora,*** *lehortzeko.* *Koldo Izagirre*

*Luze gabe azaldu zen barriro,* ***kolkoa*** *hutsik eta maleta bizkarrean.* *Koldo Izagirre*

*Hiru, hiru, hiru,* ***kolkoa*** *bete diru!* *Joan Mari Irigoien*

***2*** *(soinean eramaten den jantziaren zati gisa)*

*Jakanarruaren* ***kolkoak*** *jaso eta belarriak estaltzen saiatu zen.* *Unai Iturriaga*

*Haiek ibilerak, gureak, ezpainondo guzia eta ator xuriaren* ***kolkoa*** *gerezi mantxaz moretua genuela!* *Patziku Perurena*

*Legezko bost auziak baino ez -esan zion Ellenek begiak ostrak bezalakoak zituen gizon hezurtsu bati, haren alkandoraren* ***kolkoari*** *hitz eginez.* *Lopez de Arana*

*Eskuan zeramatzan karpetak ohe gainean utzi eta Mikelek pijama gisa erabiltzen zuen nikiaren* ***kolkotik*** *heldu zion.* *Unai Iturriaga*

*Gitarra-jolea* ***kolkotik*** *helduta oholtzara igoarazteko.* *Unai Iturriaga*

*Teknikari gibelaundia* ***kolkotik*** *heldu eta etxeraino ekarri dut.* *Harkaitz Cano*

***3*** *bularra; barnea.*

*Amaren zentzea itxuratzean, gizonaren sabelpetik* ***kolkoan*** *gora ikara eta izerdi hormatua igotzen sentitzen zituen.* *Itxaro Borda*

*Zilar koloreko ertzak zituen mantal urdina* ***kolkoaren*** *kontra bermatu zuen gorputz dardaratia babesteko.* *Aritz Gorrotxategi*

*Esklabu baten gisa tratatu naute, ezin dut hori* ***kolkotik*** *kendu...* *Itxaro Borda*

*Bihotza* ***kolkoan*** *saltoka.* *Iñaki Iñurrieta*

*Ordu arteko ezinegona baretu baitzion bere* ***kolkoa*** *hustu izanak.* *Anjel Lertxundi*

*Bush batek ere zer duen zinez* ***golkoan*** *jakin nahi lukete.* *Herria*

*Nathanielek, duintasuna* ***kolkoan*** *gorderik, liburua beste inork jaso ote zuen galdetu zion.* *Anjel Lertxundi*

*Ederra joan ninduan ba ni Bilbora,* ***kolkoa*** *beteko korapiloarekin.* *Pako Aristi*

***Kolkoan*** *duena atera arte ez da isilduko.* *Xabier Montoia*

*Harrezkero, izen batzuk eta aurpegi batzuk baino ez zaizkigu geratzen, gure gogoan eta* ***kolkoan*** *daramatzagunak: Erriberako merkatua, Begoñako zelaiak, Arenaleko itsasontziak, eta Gorbea mendia.* *Javi Cillero*

*-Gorpuzkera? -egin dio bere* ***kolkoari*** *galde-.* *Rafa Egiguren*

*ik beherago 3.* *Askoren artean*

*Neure* ***kolkorako*** *gorde nuen amorruaren logika.* *Iñigo Aranbarri*

*Entzun,* ***kolkoan*** *gorde eta, horrezkero, Xarrienen proposamena Manuel Irujori helaraztea da Jesus Galindezen zeregina.* *Edorta Jimenez*

*Goldatutako soroan, eguzkia piko badago, % 88 edo 90 jasotzen du bere* ***kolkorako;*** *beraz, 10-12 islatuko da.* *Pello Zabala*

***4*** *(edukiera neurri gisa)*

*Mahastiak hain dira bereziak non gizon azkar batek aski lanekin ereman dezakeen mahats-****kolko*** *bakar bat bizkarrean.* *Aurelia Arkotxa*

***5*** *neure, bere...* ***kolkorako*** *neure, bere... artean.*

*"Bai burugogorra emakume hau!", pentsatu zuen Txitxikovek bere* ***kolkorako*** *.* *Jose Morales*

*"Deabruak eramango ahal hau, txerrenkume malapartatu hori!", murduskatu zuen bere* ***kolkorako,*** *haserre bizian.* *Jose Morales*

*"Horrelako zazpi zeudek!", neure* ***kolkorako*** *.* *Txillardegi*

*"Etxeratzeko tenorea, gainera", neure* ***kolkorako*** *.* *Txillardegi*

*Zer nahi digu atera, zer egin behar du gurekin? -eta gero ahapeka, ia bere* ***kolkorako-:*** *ezer gutxi zait bizitza, hiltzerik ez badaukat.* *Anjel Lertxundi*

*Harako hartan karramarroak izan ziren -esan zuen, bere* ***kolkorako*** *ari balitz bezala.* *Xabier Olarra*

*Barre egin nuen nire* ***kolkorako:*** *"o ene... ez da, baina, beharrezkoa!* *Jesus Mari Mendizabal*

*Hatzak teklatuan dantzari, kantatzen hasten nintzen neure* ***kolkorako*** *.* *Anjel Lertxundi*

*Baina eutsi beharra zegok esaten diozu behin eta berriz zeure* ***kolkoari,*** *eta horrela segitu ahal izan duzu aurrera.* *Rafa Egiguren*

***6 bihotza kolkoan***

*Bihotza* ***kolkoan,*** *bertara sartu zen Nora.* *Anjel Lertxundi*

*Bada, bihotza artean* ***kolkoan,*** *Hotelera joan nintzen.* *Edorta Jimenez*

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***bihotza kolkoan*** *(9);* ***kolkoan gora*** *(3);* ***kolkoan sartu*** *(4)*
>
> ***zeure kolkoari*** *(3)*
>
> ***bere kolkorako*** *(84);* ***bere kolkorako ari*** *(3);* ***ia bere kolkorako*** *(4);* ***kolkorako gorde*** *(6);* ***kolkorako gorde nuen*** *(3);* ***neure kolkorako*** *(42);* ***neure kolkorako gorde*** *(3);* ***nire kolkorako*** *(8);* ***nork bere kolkorako*** *(4);* ***zeure kolkorako*** *(4);* ***zioen bere kolkorako*** *(6)*
>
> ***kolkotik heldu*** *(3);* ***kolkotik helduta*** *(3)*

---

## ***kolkoratu****, kolkora(tu), kolkoratzen* ***1*** *da ad kolkora etorri.*

*Apaldu eta mirazkatu zuen: bezperako motozerraren ametsa* ***kolkoratu*** *zitzaion, odol isuririk ez zitzaion susmatzen arren, nehondik.* *Itxaro Borda*

***2*** *du ad kolkora ekarri.*

*Auzoak arrandiaka hasten dira kopa bat Fundador* ***kolkoratuz*** *gero.* *Javi Cillero*

*Beste edontzi bete limoi ur* ***kolkoratu*** *zuen.* *Javi Cillero*

*Urrezko domina* ***kolkoratu*** *du 560 kilokoan, finalerdietan Gaztedi mendean hartu ondoan.* Berria - Kirola

*Hain justu, talde horrek brontzezko domina lortu zuen, eta Herbehereetako Boysek* ***kolkoratu*** *zuen urrezkoa.* Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **domina kolkoratu** (7); **urrezko domina kolkoratu** (4)

---

# kolofoi iz bururatzea, amaiera.

*Atalak zirenak, liburu bihurtu zaizkio, baina merezi duten lanek azkenean beren* ***kolofoia*** *izaten dutenez, biografoaren lana, hainbat eta hainbat eskuizkribuz osatua, prest dago inprentara eramateko. Ez du, halaber, liburuaren azken partea kaltetu nahi: bertan, gorago ere esan den bezala, Garibairen arimari buruzko gaia tratatzeko asmoa du, auzi horri buruzko atalak behar du izan liburuaren* ***kolofoi*** *distiratsua.* Anjel Lertxundi

---

# koloidal iz koloide egoeran dagoena.

*Horrenbestez, entzima-zorro bat da zelula, eta entzimok -erreakzio kimikoen katalizatzaileak- igeri dabiltza "likido* ***koloidal"*** *tanta batean, entzimen ekintza sustatzen duen gelatina moduko bat baita hura.* Juan Garzia

*Mende-hasieran, esate baterako, nagusiki* ***"koloidala"*** *da "txakur biologikoa".* Juan Garzia

---

# koloka[1] **1** adlag irmo finkatu gabe, kolokan; zalantzan. ik **kordoka**.

*Ahulezia sartu zait hezurretaraino,* ***koloka*** *ditut oinak.* Elizen arteko biblia

*Gizonak garaitu ezin zuela ikusirik, izter-giltza ukitu zion Jakobi eta* ***koloka*** *utzi zion.* Jose Antonio Mujika

*Nire munduaren zimentarriak oro* ***koloka*** *jarri balira bezala.* Txillardegi

*Adore galdurik bihotzak,* ***koloka*** *belaunak, dardaraz gerriak, zurbil aurpegiak.* Elizen arteko biblia

*Sartu egin da, zaputz eta mesfidati, bere hanka luzeen gainean* ***koloka,*** *soinari nekez eusten diotela.* Monika Etxebarria

*Takoi altuen gainean dabil* ***koloka*** *agertokiaren gainean.* Oskar Arana

*Nik neuk behintzat* ***koloka*** *sumatzen dut neure lana.* Txillardegi

*Hagina bere lekuan oso dagoelarik, ez dago* ***koloka,*** *ez du deus esaten, eta, hantxe egonik, ez balego bezalaxe da; orain, hagina zuztarretik atera ezkero, minxor bat gelditzen da luzaroan, "han dagoela esaten du" […], eta han ez egonik ere, hantxe balego bezalaxe da, ezago eta egonago.* Iñaki Segurola

*Teoria* ***koloka*** *geratzen da, ordea, nerbioei eta garunari buruz orain dakigunaren argitan begiratzen bazaio.* Irene Aldasoro

*Israelgo Gobernua* ***koloka****.* Berria - Mundua

*Hauteskundeak zenbat eta hurbilago, orduan eta gehiago kontzentratuko dira bi kanpainak botoa* ***koloka*** *dagoen 10 estatuetan.* Berria - Mundua

## 2 (izenondo gisa)

*Baratzera jalgitzen ahal da, zurezko ate* ***koloka*** *batetik.* Piarres Aintziart

*Denbora pixka batez haren urrats* ***koloka*** *zaratatsuak entzun nituen.* Josu Zabaleta

*Florenti begira gelditu zen Claude jakin-minez; irudi luze argal* ***koloka*** *hura xelebrea iruditzen zitzaion.* Karlos Zabala

*Ohol* ***koloka*** *batzuen gainetik igarotzera.* Koldo Biguri

*Mahukak, luzeak galtzak, baldarra eta* ***koloka*** *ibilera, eta besteen oinak zapaltzen zituen behin eta berriro.* Jose Morales

*· Argimutilaren aldamenean kobrezko elbarri* ***koloka*** *bat jartzen zuten.* Jose Morales

## 3 kolokan adlag irmo finkatu gabe, koloka; zalantzan. ik **kordoka 3**.

*Jantokiko gure mahaiak hanka bat* ***kolokan*** *zeukala.* Anjel Lertxundi

*Beldurrez zegoen-eta zama astun horrek ez ote zuen gabarra* ***kolokan*** *jarriko.* Karlos Zabala

*Berrogei zentimetro luze, hantxe zegoen hura* ***kolokan*** *bere hanka ilunen gainean.* Jon Muñoz

*Beren bidaia* ***kolokan*** *zegoela.* Jon Muñoz

*Inori ez zitzaion burutik pasatzen bere lanpostua* ***kolokan*** *jartzea.* Xabier Mendiguren Elizegi

*Une batez* ***kolokan*** *jarri zuen horrek nire erabakia.* Hasier Etxeberria

*Zaldi batengatik jarri behar ote zuten* ***kolokan*** *beren ohorea?* Fernando Rey

*Hezkuntza modernoari buruzko teoria osoak* ***kolokan*** *dauzka oinarriak.* Antton Olano

*Iragana arbuiatzeak oraina beti jartzen duela dantzan eta nortasuna* ***kolokan****. Emakumeek laguntza handia ematen dietelako beti* ***kolokan*** *bai egingo ez egingo dabiltzan gizonei.* Hasier Etxeberria

## 4 koloka egin

*Zintzoak ez du inoiz* ***koloka egingo,*** *haren oroitzapenak beti bizirik iraungo.* Elizen arteko biblia

*Goi-goikoak bere bizilekua sagaratu du, Jaungoikoa erdian duela, ez du* ***koloka egiten****, eta, gero, Browne jaunak baxerategitik irri zuri bat egiten ziola ikusirik, gela zeharkatu zuen, hankek aski* ***koloka egiten*** *ziotela.* Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koloka dago** (3); **koloka ditut** (4); **koloka egiten** (3); **koloka jarri** (4); **koloka utzi** (4); **oilo koloka** (4)
>
> **agintea kolokan** (3); **askatasuna kolokan** (3); **batasuna kolokan** (3); **bideragarritasuna kolokan** (7); **egoera kolokan** (4); **egoera kolokan dagoela** (3); **egonkortasuna kolokan** (13); **egonkortasuna kolokan jarriko** (3); **egonkortasuna kolokan jartzen** (3); **entrenatzailea kolokan** (3); **eredua kolokan** (8); **esku hartzea kolokan** (4); **eskubideak kolokan** (4); **eskubideak kolokan daudela** (3); **etorkizuna kolokan** (29); **etorkizuna kolokan dago** (7); **etorkizuna kolokan dagoela** (3); **geroa kolokan** (7); **hartzea kolokan** (11); **hartzea kolokan dago** (3); **hartzea kolokan egon** (3); **koalizioa kolokan** (3); **kolokan egon** (29); **kolokan ez jartzeko** (5); **kolokan ezartzen** (8); **kolokan gelditu** (3); **kolokan geratu** (7); **kolokan geratuko** (3); **kolokan ikusirik** (3); **kolokan ikusten** (5); **kolokan izan** (6); **kolokan izango** (3); **kolokan jar** (19); **kolokan jarri** (109); **kolokan jarri du** (24); **kolokan jarriko** (19); **kolokan jarriz** (3); **kolokan jartzea** (15); **kolokan jartzeko** (15); **kolokan jartzen** (66); **kolokan utzi** (11); **kontrataturen etorkizuna kolokan** (3); **lana kolokan** (6); **lana kolokan jartzen** (3); **lanpostu kolokan** (3); **lanpostua kolokan** (3); **lanpostuak kolokan** (5); **nortasuna kolokan** (3); **oreka kolokan** (3); **oso kolokan** (3); **parte hartzea kolokan** (7); **plana kolokan** (3); **segurtasuna kolokan** (8); **sinesgarritasuna kolokan** (4); **sistema kolokan** (4)

---

# koloka[2] **1** adlag loka.

*Karriken artetik haur irriak eta ama aspertuen deiak biderkatzen ziren, oilo* ***koloka*** *karakaka zenbait eta txakur txanpak ere bai.* Itxaro Borda

*Erradak ze bizimodu behar zuen izan nere iduriko oilo* ***koloka*** *batek horrenbertze oilarren artean.* Hasier Etxeberria

*· Edo, euskaraz oso naturala dena, izar-loka edo izar-* ***koloka*** *deitzea ere ez legoke batere gaizki.* Pello Zabala

## 2

*Gizon batek izter-* ***koloka*** *ipini zuen neska bat neure gainean eta, horren ahul nengoen arren, areto guztia korritu behar izan nuen, luzeran, zabaleran nahiz zeharrean, barrez lehertzeko zorian zegoen neska gazte hura lepoan neramala.* Joxan Elosegi

**kolokarazi**, kolokaraz, kolokarazten du ad koloka jararazi. ik **kordokarazi**.

*Erlijioaren oinarriak* ***kolokarazten*** *dituztelako.* Xabier Kintana

*Rifeko menditarrek K.o. 1921ean Annualeko hondamendia eragin zieten espainiarrei, [...] eta Frantziak Ipar-mendebaldeko Afrikan zuen gobernua bere oinarrietan* ***kolokarazi*** *zuen 1925ean.* Iñaki Mendiguren

---

**kolokatu**[1], koloka(tu), kolokatzen **1** du ad koloka jarri. ik **kordokatu**.

*Orduan, sendo sartua zegoen iltzea* ***kolokatu*** *eta erori egingo da, eta bertatik zintzilik zegoena apurtu.* Elizen arteko biblia

**2** (era burutua izenondo gisa)

*Ahoan bizpahiru hortz zahar* ***kolokatu,*** *beste armarik gabe.* Patziku Perurena

---

**kolokatu**[2], koloka(tu), kolokatzen **1** da/du ad jarri, kokatu.

*Euskal politikan, geografian ez ezik, ez da posible Olibesarioko saroian ipini den bezalako monolitorik* ***kolokatzea*** *.* Berria - Euskal Herria

*Baina abstrakzioan* ***kolokatzen*** *bagara, hor sortzen da arazoa.* Berria - Kultura

**2** (dirua)

*Banketxeetako gerenteek dirua eraman egiten zuten, asteburuan apustuak egin, han-hemenka* ***kolokatu,*** *epe laburreko salerosketak egin, eta astelehenean itzultzeko, irabaziak beraientzat gordeta.* Pako Aristi

**3** lanean hasi, lanean jarri, enplegua eman.

*Zu, berriz, auskalo, beharbada aseguru-etxe batean* ***kolokatuko*** *zara egunen batean.* Bernardo Atxaga

*Expaleko buruek Iruña Okako lantegia udan itxiko dutela jakinarazi dute eta langileak Espainiako bi lantegitan* ***kolokatzeko*** *asmoa adierazi.* Berria - Ekonomia

**4** zopatu. ik **kolgatu**.

*Huelepega pegamentoa usainduz* ***kolokatzen*** *diren haur edo gazteei deitzen zaie, eta iaz egindako film bat da.* Pako Aristi

***Kolokatua*** *egoteak ez du esan nahi ezertaz jabetzen ez zarenik.* Sonia Gonzalez

*Ezin diozu erantzun, lar mozkortuta, lar* ***kolokatuta,*** *lar triste zaude.* Sonia Gonzalez

*Tabernari laguna, beraiek eta Txapliren kolega bi ipurtzuloraino* ***kolokatuta..*** *.* Unai Iturriaga

*Estar fachado:* ***kolokatuta,*** *kokarekin batez ere.* Pako Aristi

---

**kolokatxo** izond koloka samarra.

*Bakarrik, absolututasun horrek gizon-emakume jakinen fedea aurresuposatzen du, oinarri* ***kolokatxoa*** *da berau.* Joxe Azurmendi

---

kolokazino ik **kolokazio**.

---

**kolokazio** (orobat **kolokazino** g.er.) **1** iz kokaera, kokalekua.

*Asko zaindu dugu obren* ***kolokazioa,*** *bata bestearekin gaizki doazen obrak ondoan jarriz gero eragin erabat negatiboa egingo dugu.* Berria - Kultura

*Atzamarren* ***kolokazinoari*** *eta holakoai ez eutsen ardura handirik emoten.* Xabier Amuriza

**2** emplegua.

*Milaka lanpostu isilpean suntsitu dira, eta pertsona horiek kalean geratu dira, aldez aurretiko erretirorik gabe, beste* ***kolokaziorik*** *gabe, eta kalte-ordain mamitsurik gabe.* Berria - Ekonomia

***Kolokazio*** *agentzietara bidaliko ditu.* Berria - Ekonomia

---

**kolokial** izond hizkeraz mintzatuz, lagunartekoa.

*Umeok euskara eta gaztelania hain arin eta dotore ikasi badute ere, hizkuntza* ***kolokiala,*** *lagunartekoa ikasi dute, baina beste mundua da hizkuntza akademikoa.* Berria - Harian

*Horrelako hitzak erabiltzeak ez dakar euskara* ***"kolokialagoa"*** *eta "komunikatiboagoa" egitea.* Koldo Zuazo

*Alua da, hain zuzen, Ertamerikako indigenek cocuyo intsektua izendatzeko erabiltzen duten hitz usuagoa, familiarrago, informalago eta* ***kolokialagoa*** *.* Jon Alonso

---

**kolokio** iz solasa, hizketaldia.

*2003-ko primaderarekin batera* ***kolokio*** *bat antolatuko dute Baionan lege horren bilanaren egiteko.* Herria

*"Aljeriako gerla eta Euskal Herria (1954-1962)", Kanbon 2003an egin zen* ***kolokioaren*** *lanen bilduma da.* Herria

*"Pierre Haristoy historialaria", Aiherran 2001ean Manex Goienetxe zenak kudeatu zuen* ***kolokioko*** *ekarpenekin.* Herria

---

**koloma** iz zutabea.

*Tenplu dipteroak zortzina* ***koloma*** *ditu aurrean eta atzean, baina bi* ***koloma*** *-ilara ditu santutegiaren inguru guztian.* Santiago Iruretagoiena

***Kolomen*** *arteko tartea gangatu egingo da.* Santiago Iruretagoiena

*Kapitel eta* ***koloma*** *bolutadunetan.* Santiago Iruretagoiena

***Koloma*** *doriarren edo joniarren proportzioarekin jartzen dira* ***koloma*** *korintoarretan ere.* Santiago Iruretagoiena

*Plintoa kendu eta gainerakoa, hau da,* ***kolomaren*** *diametroaren herena izango dena, zazpi partetan banatuko da.* Santiago Iruretagoiena

*Idulkien gainean* ***kolomak*** *jarriko dira cella-ren inguruan.* Santiago Iruretagoiena

*Goiko* ***kolomak*** *behekoak baino laurden bat txikiagoak izango dira; beheko horiek pisu handiagoa hartuko dutenez, goiko* ***kolomak*** *baino sendoagoak izan beharko dute.* Santiago Iruretagoiena

*Beldur zinen, ez zenekien, ezin zenuen, ikasturte amaierako bidaiaz akordatzen zinen, Amsterdamgo kafe gorrian biok bakarrik, harrizko* ***koloma*** *baten atzean, suabe hizketan, isil.* Eider Rodriguez

***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***

**goiko kolomak** (3); **kolomak jarriko** (3); **kolomak jartzeko** (3)
**kolomaren diametro** (3); **kolomaren diametroa** (4); **kolomaren diametroaren** (3); **kolomaren diametroari** (3)
**kolomen altuera** (3)

---

## kolomadi *iz zutabedia.*

*80 metro baino gehiagoko luzera zuen, eta hainbat eraikin txiki zituen berean: barruko patio ederra eta eraikina inguratzen zuen* ***kolomadia,*** *besteak beste.* Berria - Kirola

---

## kolomarte *iz habeartea.*

*Koloma horiek, gainera, pareten inguru guztian* ***kolomartearen*** *berdina izango den tartea utzi behar dute, alegia tenpluaren cella-ren jira guztian ibiltzeko tokia utzi behar dute.* Santiago Iruretagoiena

***Kolomarte*** *guztietan bina triglifo jarriko dira, tenpluaren aurrealde eta atzealdeko erdikoetan izan ezik, hauetan hiruna jarriko baitira.* Santiago Iruretagoiena

*Diastiloaren konposizioa, berriz, honelakoa izaten da:* ***kolomarte*** *-tartean hiru kolomaren diametroa sartu ahal izatea eskatzen du, adibidez Apolo eta Dianaren tenpluan bezala.* Santiago Iruretagoiena

***Kolomarteak*** *handitzen joaten diren neurrian, fustearen diametroa ere neurri berean handitu beharko da.* Santiago Iruretagoiena

***Kolomarteen*** *itxitasunaren eta estutasunaren eraginez.* Santiago Iruretagoiena

---

## kolomatxo *iz zutabetxoa.*

***Kolomatxo*** *batean orduak markatuko dira zeharka, analemmaren arabera, eta era berean markatuko dira hilabeteei dagozkien lerroak ere* Santiago Iruretagoiena

---

## kolon *iz heste lodia.*

*Ordutik, hainbat ebakuntza egin dizkiote; tartean,* ***kolona*** *kendu eta gorotza kanporatzeko poltsa jarri diote.* Berria - Euskal Herria

*Hasieran kezka hutsala baino ez zena, ordea, larriagotu egin zen denboraren joanarekin, harik eta, tratamendua zela eta kontsultara joan ziren batean [...] Casado doktoreak* ***kolon*** *-ileoa antzeman zion arte.* Imanol Zurutuza

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> **koloneko minbizia** (5); **koloneko minbiziaren** (3)

---

## kolon-aurreko *(orobat **kolonaurreko**) izlag C. Colon Ameriketara heldu aurrekoa.*

***Kolonaurreko*** *hilerri bat aurkitu dute Huandoytik gertu, Perun.* Berria - Gaiak

*1600:* ***Kolonaurreko*** *jatorriko biztanlengo osoa desagertu zen ia Kariben.* Berria - Gaiak

*Kimikagintza* ***kolon*** *-aurreko eta traperokara.* Juan Garzia

---

## kolona ik **kolumna**.

---

## kolonbiar *(orobat **kolunbiar** g.er.)* **1** *izlag Kolonbiakoa, Kolonbiari dagokiona.*

*Enrique Grau* ***kolonbiar*** *margolari eta eskultorea (Panama, 1930), XX. mendeko artistarik handienetakoa aditu batzuen ustez, atzo hil zen, 83 urte zituela, Bogotan.* Berria - Kultura

***Kolonbiar*** *jatorriko bi etorkin.* Berria - Euskal Herria

*Lehen saria, urrezko iguzkia, ardietsia du* ***kolonbiar*** *filma batek.* Herria

*Hildakoetatik 11 ELN Nazio Askapenerako Armada gerrillari taldeko kideak ziren, zortzi FARC* ***Kolonbiar*** *Indar Armatu Iraultzaileak taldeko kideak eta bat AUC Kolonbiako Autodefentsa Batuak talde paramilitarrekoa.*

*Kataluniak bereak zituen kide alemaniar, argentinar,* ***kolonbiar*** *eta egiptoarraren botoak.* Berria - Kirola

*Paolaren lagun* ***kolonbiarrek*** *osatzen duten foru hispanoak.* Harkaitz Cano

*Ingrid Betancourt andere zenaturra, 41 urte, frantses eta* ***kolunbiar*** *paperen jabea, bahitu zuten 2.002 ko maiatzean* ***kolunbiar*** *jazarle batzuek eta geroztik nehork ez daki deus xuxenik hartaz.* Herria

**2** *iz Kolonbiako herritarra.*

*Hori da* ***kolonbiar*** *guztiok terrorismoa bukatzeko prest gaudela adierazteko modurik onena.* Berria - Mundua

*Arnasa, Felix Cardenas* ***kolonbiarrak*** *Baque taldeari emango diona.* Berria - Kirola

*Bizkaian, esaterako, egoera arautzeko eskatu dutenetatik %40 inguru izan dira* ***kolonbiarrak,*** *eta Gipuzkoan %31,13 Ekuadorrekoak.* Berria - Harian

*Japoniar espedizio batek ez ziela jaramonik egin hirugarren kanpamentuan hilzorian zeuden* ***kolonbiar*** *batzuei.* Unai Elorriaga

***Kolonbiar*** *gazteak ikusmin handia sortu zuen Arabiar Emirerri Batuetan jokatu zen 20 urtez azpiko Munduko Txapelketan.*

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> **felix cardenas kolonbiarra** (3); **jokalari kolonbiarra** (3); **kolonbiarra hil** (3); **rivas kolonbiarra** (4); **sortzez kolonbiarra** (3)
> **armatu iraultzaile kolonbiarrak** (19); **cardenas kolonbiarrak** (3); **iraultzaile kolonbiarrak** (20); **paramilitar kolonbiarrak** (3)
> **armatu iraultzaile kolonbiarrek** (4)
> **paramilitar kolonbiarren** (3)

---

## kolonel ik **koronel**.

---

## kolonia[1] **1** *iz atzerritar estatu baten mugetatik urrun dagoen lurraldea, ekonomikoki, administratiboki eta militarki erabat haren mende dagoena.*

*India britainiarren* ***kolonia*** *zen garaian.* Julen Gabiria

*Holandaren* ***kolonia*** *izandako Surinamen jaio zen 1973an.* Berria - Kirola

*Erresuma batua eta haren bi* ***kolonia*** *ohi Australia eta Kanada aurka daudelako.* Berria - Gaiak

*1750. urtean mundu osoko* ***kolonia*** *aberatsena zen Haiti, orduko kolonizatzaileen etekin ekonomikoen arabera.* Berria - Mundua

*Espainiar inperioak, kasu, hainbat* ***koloniatan*** *olibondoak eta mahastiak landatzea debekatu zuen.* Iñaki Heras

*Munduko diamante-meatokirik handienak aurkitu ziren holandarren antzinako* ***kolonia*** *horretan.* Koro Navarro

*Independenteak ziren ordurako amerikar* ***kolonia*** *gehienak.* Koro Navarro

*Gibraltar Britainiar Koroako* ***kolonia*** *izendatu zuten.* Berria - Mundua

*1958. urtean itsasoz bestaldeko* ***kolonia*** *izendatu zutenetik, artxipelagoa Frantziaren menpe dago erabat.* Berria - Mundua

***2*** *hed*

*Gaur egun, Zisjordaniako* ***kolonia*** *handiena den Maale Aduminen 28.120 bizilagun badaude.* Berria - Mundua

*Orain arte 32* ***kolonia*** *zituztelarik israeldarrek Palestinar eta Siriarren lur inguruetan, huna berriz orain beste 9* ***kolonia*** *egitekotan direla.* Herria

***3*** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik* ***kolonial****.*

*1602an sorturiko Ekialdeko Indietako Holandar Konpainiaren ereduaren gainean eratu ziren, Ingalaterran [...], Frantzian, Danimarkan, Suedian [...]* ***kolonia*** *-konpainiak.* Koro Navarro

***Kolonia*** *-inperioen osaerak sistemako unitate politiko nagusien arteko lehia izugarria islatzen du.* Koro Navarro

***Kolonia*** *-herrialde nagusien arteko gatazkak aski mugatuak ziren garai batean.* Koro Navarro

***Kolonia*** *-itunak [...] herrialde kolonizatua beharturik uzten zuen lehengaiak esportatzera eta bertako merkatua metropoliko manufaktura-ekoizpenetara zabaltzera.* Koro Navarro

*Munduko «azken* ***kolonia*** *-gatazka» konpontzeko.* Berria - Harian

***Kolonia*** *-baliabideen ustiaketarako monopolioen kontzesioa izan zen merkataritzaren hedapenaren bigarren eragilea.* Koro Navarro

*XV. mendearen erdian hasi zen Mendebaldeko Europaren merkataritza- eta* ***kolonia*** *-zabalkundea.* Koro Navarro

*Manufaktura-lanaren, merkataritzaren eta* ***kolonia*** *-hedapenaren apologia ziren doktrina honen gai nagusiak.* Koro Navarro

***Kolonia*** *garaiak oso dira antzinako kontuak.* Iñigo Aranbarri

***4*** *eskualde, etnia edo erlijio bereko pertsona taldea, bestelako lurralde batean, jendeztatzeko eta lurra lantzeko kokatzen dena.*

*Erromatar eta arabiar goarnizioak* ***kolonia*** *zibilen gune bihurtu ziren.* Iñaki Mendiguren

*Gertatu zen, ordea, Melasek eta Arevaniasek* ***kolonia*** *bat eraman zutela leku horretara Argos eta Troezenetik, eta* ***kolonia*** *horrek bertatik bidali egin zituztela barbaro kariar eta lelegiarrak.* Santiago Iruretagoiena

*Aurrerago, atenatarrek, [...] hamahiru* ***kolonia*** *bidali zituzten Asiara, denak aldi berean, eta buruzagiak jarri zituzten* ***kolonia*** *horietako bakoitzean.* Santiago Iruretagoiena

***5*** *espezie bereko animalia multzoa, toki jakin batean denbora jakin batez bizi dena.*

*Tardarida* saguzarren **koloniak** izugarriak izaten dira garai honetan, sinestezina badirudi ere, kalkulatu da 100.000.000 saguzar eme ume egiteko elkar daitezkeela Texasko bost leizetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kontua da gure gorputzak beti daudela infektaturik, mikrobio pila izaten baitute barruan; besteak beste, gaixotasun arruntak eragiten dituztenen **koloniak** . Irene Aldasoro

**6** (hitz elkartuetan)

Erle-abaraskak eta inurri- **koloniak** eta hostoen ehun higikorra atomo-mordokatzeen mordokatzea begitandu zitzaizkion. Juan Garzia

Eraikuntza-ahaidetasuna, lehenik, zeren, zelula argiratu denetik, organismo bizi oro "klon"tzat jo baita, zelula- **koloniatzat** . Juan Garzia

**7** pertsona talde jakin bat zeregin edo denbora jakin baterako hartzeko lekua.

Ushuaia **kolonia** penitentziarioa izan zen luzaroan, XXgarren mendearen lehen erdi osoan. Joseba Sarrionandia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erresuma batuaren kolonia** (5); **erromatar kolonia** (5); **frantziaren kolonia** (3); **kolonia berriak** (3); **kolonia izan** (10); **kolonia izandako** (4); **kolonia izendatu** (4); **kolonia izendatu zuten** (3); **kolonia judu** (3); **kolonia ohi** (3); **kolonia ohiak** (3); **kolonia txiki** (3)

**goarnizioak eta koloniak** (3)

**afrikako kolonietan** (3)

---

# kolonia[2] 1 *iz* urez, alkoholez eta lore esentziez eginiko gai likidoa.

Alkandora aldatu eta **kolonia** bota nuen, ugari. Ramon Saizarbitoria

**Kolonia** jarri berriaren usain gozoa aditu du. Pello Lizarralde

Usain gozoko emakume zuria, laranjak ekarri zizkiona eta **kolonia** eta artilezko gona onak. Anton Garikano

Bueno, orain betiko gauza horiek: **kolonia,** xaboia... Pello Lizarralde

**Kolonia** merkearen kiratsa. Patxi Zubizarreta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Belakia busti baino lehen urari **kolonia** -tanta batzuk botatzeko ohitura hartu zuen. Jose Morales

Itziarren zain, ahal izan zuen dotoreen jantzirik, **kolonia** ukitu batekin. Migel Angel Mintegi

Orraztuta eta **kolonia** usaina zeriola itzuli zen. Joseba Sarrionandia

**Kolonia** -kirats hura, untxiei aurrena zirrara eragiten ziena eta gero nahasmena. Anton Garikano

Kostoak **kolonia** zaporea dauka. Sonia Gonzalez

**3** ***kolonia-ur*** kolonia.

Bainu gatzak, talkoa, **kolonia ura** . **Kolonia-uraren** ontzia. Josu Zabaleta

**Kolonia-uraren** flaskoa lurrera erori zen. Jose Morales

Jantzitakoan, gorputza **kolonia-urez** zipriztindu, eta, hotzetik ondo babesturik, kalera irten zen. Jose Morales

Batistazko sudur-zapiari emaniko astindu arinek **kolonia-uraren** lurrina zabaldu zuten etxe osoan. Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kolonia uraren** (6); **kolonia usaina** (3)

---

# kolonial *izond* koloniarena, koloniari dagokiona.

Ipar-Hego inbertsioen fluxua, garai hartan, inperio **kolonialak** edo eragin zabaleko eremuak osatzeko norgehiagokaren isla baino ez zen. Koro Navarro

Gero eta itogarriagoa zen gobernu **kolonialaren** zerga-sistema. Anjel Lertxundi

Espainiar edo portugaldar administrazio **kolonialaren** ordez Estatu Batuen hegemonia hartzearen ordainetan. Iñaki Mendiguren

Britainiar armada **kolonialeko** kapitainen antzeko jantzia zuen soinean. Jon Alonso

Armada **kolonial** batean sartu nahi ez duten gazteak. Berria - Mundua

Haren egimbeharra gerra **koloniala** gerra zibil bihurtzea dela. Berria - Mundua

FANeko gerrillariek Frantzia, potentzia **kolonial** ohia, presionatu nahi zuten. Berria - Mundua

Gatazka **kolonial** bat baino gehiago botere borroka baita India eta Pakistanen artekoa. Berria - Mundua

Espainiako Inperioaren gainbeheraren bizkar hasi ziren Frantziaren nagusitasun politikoa, Ingalaterraren hedapen **koloniala** eta Herbehereen dinamikotasun ekonomikoa. Berria - Kultura

**2** estilo kolonialekoa.

Balkoi **kolonial** zabaletako jendetzak. Harkaitz Cano

Phineas P. Blackhead madarikazioka ari zen kaobazko bere ohe **kolonial** zabalaren erdian eserita. Lopez de Arana

Jauregiaren estiloa **koloniala** da. Edorta Jimenez

**3** ***ez-kolonial*** *adlag*

Ez duela onartuko Gibraltarren eta Erresuma Batuaren arteko harreman «moderno eta ez-**koloniala»** arriskuan jar dezakeen aipamenik Konstituzioan. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **traste kolonialen biltegi** (3)

---

## kolonialismo *iz* koloniak hedatzearen eta haien ondasunez baliatzearen aldeko politika.

Kapitalismoari, **kolonialismoari** eta inperialismoari gailentzeko. Berria - Mundua

**Kolonialismoa** naturari etekina ateratzen eta herria aurrerabidean bultzatzen ahalegintzen zen. Gotzon Garate

Sekulako hustuketa ekonomikoa egin zuen **kolonialismoak**. Iñaki Heras

Parisek **kolonialismo** zaharraren ondorengo **kolonialismo** berria bultzatu nahi du. Berria - Mundua

Lehengai horiek esportatzen dituzten garapen-bideko herrialdeen benetako arazoa ez da prezioen egonkortasun iritsi ezinezko bat lortzeko borrokatzea, **kolonialismoaren** garaitik heredatutako espezializazioaren segadatik ateratzea baizik. Koro Navarro

Bidea errebolta nazionalista zen **kolonialismoaren** aurka. Iñaki Mendiguren

Hego Ameriketan **kolonialismoak** egindako kaltearen kronika. **Kolonialismotik** irtendako herrialdeetan. Iñaki Heras

Italia **kolonialismoaren** epigono gisa jokatzen hasi zen [...] Grezia, Libia, Egipto edo Abisinia konkistatzeko ahalegin eroan. Anjel Lertxundi

Zalantza ere sortu zitzaidan, hirugarren mundua deitzen dugun hori laguntzeko gure plataforma horiek guztiak zenbateraino ez ote diren **kolonialismo** berri baten zurigarri. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan)

Barne **kolonialismoa** zen eta ez zegoen aterabiderik. Itxaro Borda

Elikagaien deslokalizazioa, elikadura-**kolonialismoak** (macdonalizazioa), orduz kanpoko "ezinbesteko" elikatze-azturak, [...]. Edorta Agirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kolonialismoaren aurkako** (4)

---

## kolonialista 1 *iz* kolonialismoarena, kolonianismoari dagokiona.

XIXgarren mendeko mapak oso eurozentrikoak zirela kontatuko dizu, europar gobernu **kolonialisten** interes komertzial, politiko eta zientifikoen arabera moldatuak. Joseba Sarrionandia

Frantses botere inperialista eta **kolonialistari**. Itxaro Borda

Garbi dago jarduera **kolonialista** dela. Berria - Harian

Epailea, hainbat intelektual eta politikari bezala, frantziar ikuspegi **kolonialista** hertsi baten oinarritzen dela. Berria - Euskal Herria

Giro **kolonialista** batean. Itxaro Borda

Izaera **kolonialista** du. Berria - Mundua

**2** kolonialismoaren aldekoa.

Baina noiz izan da oztopo Europako gizarte merkatari eta **kolonialistarentzat** horrelako txikikeria bat? J.M. Olaizola "Txiliku"

Orduko oldarraldiaren bidez **kolonialista** britaniarren porrota hasi zen. Berria - Mundua

Perun espainiar **kolonialisten** menpean bizi ziren giza klaseen arteko borroka. Berria - Harian

**3** kolonoa.

Ariel Sharonek Gazako lur zerrendatik **kolonialisten** erretiratzea ez zuen onartzen, denek dakitena baina, lehenagotik ere, ezin iretsia zuen berak 1999ko bozak galdurik. Herria

---

## koloniar[1] *izlag* Koloniakoa, Koloniari dagokiona; Koloniako herritarra.

Itsasontziekin etorri ziren bi gizon gormutu, ingeles, akitaniar, bretoi, flandestar edo **koloniar** ote ziren jakiterik izan ez den arren. Jon Alonso

Baina totelka mintzatzen ziren, ordea, halako moldez non ez zegoen antzematerik zer hizkuntzatan ari ziren, ingelesen hizkuntzan, akitaniarrienean, bretoienean, flandestarrenean edo **koloniarrenean** ari ote ziren. Jon Alonso

---

## koloniar[2] *iz* kolonoa.

Lagundu zioten Andrew Jacksoni borrokan creeken kontra, prestatu zuten artoa jateko, idatzi zuten konstituzio bat, eskaera egin zioten Espainiako Erregeari, erabili zituen Dartmouthek esperimentuetarako, sortu zituzten asiloak, idatziz jarri zuten beren hizkuntza, gogor egin zieten **koloniarrei,** ehizatu zuten hartza eta itzuli zuten eskritura santua. Anton Garikano

---

## koloniatu *izond* kolonizatua.

Gazako lurraldeko leku **koloniatu** horiek. Herria

---

## koloniatzaile *(orobat **koloniatzale**) iz* kolonizatzailea.

Frantzia ere hor dute, lehengo **koloniatzailea**. Herria

Israelgo lur jabe eta **koloniatzaleen** gosea mugatu behar dela Palestinako lurretan. Herria

---

**kolonizazale** *iz* koloniak edukitzearen alde dagoena. ik **kolonialista**.

Horregatik guztiagatik, «ideologikoki atzerakoi, eskuindar, monarkiazale, **koloniazale,** inperiozale eta abar izanagatik ere», Hiriart-Urruti oso idazle interesgarritzat du Altzibarrek. Berria - Kultura

---

kolonisatu ik **kolonizatu**.

---

kolonisatzaile ik **kolonizatzaile**.

---

**kolonizatu**, koloniza, kolonizatzen *(orobat **kolonisatu** g.er.)* **1** du *ad* kolonia bidez lurralde baten baliabideez jabetu; herrialde bat kolonia bihurtuz menderatu.

Adibidez, ipar-ekialdeko anatoliar barrutiak […] Islamera konbertitutako albaniarrez **kolonizatu** zituzten osmanliarrek. Iñaki Mendiguren

Berrogei bat urtetan, Espainiak mundu berriaren konkista burutu zuen, eta hura **kolonizatzen** ere hasi zen, […] bidean azteken eta inken zibilizazioak deuseztatuz, eta bertako biztanleria suntsituz. Koro Navarro

XIX. mendearen erdia arte, ez zirudien europarrek Afrika beltza **kolonizatuko** zutenik. Koro Navarro

Filipinak, 1565ean Mexikoko espainolek **kolonizatuak**. Koro Navarro

· Kultura sortzea beti **kolonizatzea** da, onerako edo txarrerako: [...] (*cultus* bakoitza kolonoa da, baserritar basatia). Askoren artean

**2** eskualde, etnia edo erlijio bereko pertsona talde bat, bestelako lurralde batean, jendeztatzeko eta lurra lantzeko kokatu.

Gero Frankoek **kolonizatu** omen zuten [Okamendiko Villafranca] desagertzear zegoen herrixka. Piarres Aintziart

Batzorde honen eskutik 3.000 inguru familia euskaldun sartu zen, eta 131.000 hektarea **kolonizatu** zituzten Argentinako lur zabal haietan. Pello Salaburu

**3** espezie bereko animalia multzo bat, toki jakin batean denbora jakin batez bizitzen jarri.

Kursaaleko pareta koral, polipo edo lore familia batek **kolonizatu** du eta forma itsaskorrekin batera, unibertso organikoa eta koloretsua osatzen dute. Berria - Kultura

Zelulek gaia **kolonizatu** ahala, desagertzen da hezur sintetikoa eta hezur naturalak hartzen du haren lekua. Berria - Gaiak

**4** (era burutua izenondo gisa)

Kolonia-itunak […] herrialde **kolonizatua** beharturik uzten zuen lehengaiak esportatzera eta bertako merkatua metropoliko manufaktura-ekoizpenetara zabaltzera. Koro Navarro

Adinean aurrera egiteaz gain, **"kolonizatuaren** sindromeak" bizi nau, antza. Hasier Etxeberria

---

**kolonizatzaile** *(orobat **kolonisatzaile** g.er.)* **1** *izond* kolonizatzen duena.

Frantziako lehen **kolonizatzaileak** 1543an heldu ziren Kebecera, eta *Quebec* izena jarri zioten. Berria - Mundua

Espainiar Monarkiaren egiteko **kolonizatzaile** eta zibilizatzailean buru-belarri murgiltzera. Iban Zaldua

Filipindar jakintsu gazte batzuek ikasketak Europan segituko dituztelarik, etxera itzultzean botere **kolonizatzailearen** kontrako mugimendu zabal baten pindarrak piztu dituzte. Ramuntxo Etxeberri

Enpresa **kolonizatzaileak** pagatzen zidaan dena. Xabier Olarra

• **2** *iz* kolonizatze lanean parte hartzen duen pertsona.

Legazpi **kolonizatzaileari** buruzko dokumentala Ingeles **kolonizatzaileen** frantziar lehiakideek. Berria - Kultura

Batzuk, oso gutti, espainol **kolonizatzaileen** ondorengoak dira. Ramuntxo Etxeberri

**Kolonizatzaile** ingelesaren lehen helburua landan bizitzea zen normalean eta bizibidea lurra landuta ateratzea. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan)

Mundu berri hau Magna Grezia bihurtu zutelarik landan nekazari-**kolonizatzaile** helenikoen ezarpen bizkor eta ugariaren bidez. Iñaki Mendiguren

---

**kolonizatze** *iz* kolonia bidez lurralde baten baliabideez jabetzea; herrialde bat kolonia bihurtuz menderatzea.

Eta beti segitzen dute kalapitek palestinar lurren **kolonizatze** eta holakoez. Hori da Euskal Herriko kulturaren ardatza, eta zanpatzaileen arrakastarik handiena: hizkuntza hori deuseztatzea lortzen badute, euskalduna haiek nahi duten izaki abstraktua izango da, eta espainiera, hau da, inoiz bere hizkuntza izan ez den hori, erabiliko du; baina, zanpatua izaten jarraituko duenez, nahikoa izango da **kolonizatze** horren kontzientzia hartzea euskara berpizteko. Herria

---

**kolonizazio** **1** *iz* kolonizatzea.

Frantziak, aurrenik, 1830ean heldu zion Aljeriaren **kolonizazioari,** eta hala, 1900erako, seiehun mila europar bizi ziren bertan. Koro Navarro

**Kolonizazioak,** menperatze modu bat baizik ez denak, ingurugiro desberdinetara hedaraziko du hizkuntza bat. Isabel Arrigain

Herrialderik gehienetan, **kolonizaziotik** sorturiko oligarkia indartsuaren interesek [...] kontra egin zioten, arrakastaz, tokiko industriak babesteko politika-bide orori. Koro Navarro

**Kolonizazioaren** aroa bururatua da. Ramuntxo Etxeberri

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orain duguna **kolonizazio** era berri bat da. Berria - Harian

Munduko Bankuak eta MME Merkataritzaren Munduko Erakundeak bultzatutako **kolonizazio** aroa amaitu nahi dugu. Berria - Harian

**Kolonizazio** garaitik, indigenek tratu txarrak baino ez dituzte jaso. Berria - Gaiak

**Kolonizazio** urteek eragindako kontraesanak. Alde batetik arazoaldiak aurkitzen ditugu, proletalgo deserrotu eta arranguratsuak ez ezik, **kolonizazio**-enpresak ere eskala handian sortzen dituztenak. Iñaki Mendiguren

Neurri handi batean egia da **kolonizazio**-politika konstruktibo eta gizatiar samarra estatu unibertsalen ezaugarrietako bat dela. Iñaki Mendiguren

Saharar gatazkaren azken gertaerak aztertu ostean, herriak izan duen **«kolonizazio** prozesua» oraindik ere konpondu gabe dagoela berretsi zuten biltzarrean. Berria - Euskal Herria

Britainiarren **kolonizazio** ospakizunek Espainiaren haserrea berpiztu dute. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barne-**kolonizazioaren** mota bat, estatu unibertsal baten historiaren azken fasean nagusitu ohi dena, nekazari barbaroak jartzea izaten da [...] despopulaturiko lurretan.

Iñaki Mendiguren

---

**kolono** *(orobat **kolon** g.er.)* **1** *iz* bereaz bestelako lurralde batean, hura jendeztatzeko eta lurra lantzeko bizi dena.

Lehen garaietatik, greziarrek [...] **kolonoak** bidali zituzten Propontidara eta Ponto Euxinora; kolonia haiek beren legeak eta askatasuna gorde zituzten pertsiarren garaian. Iñaki Iñurrieta

Lur-sailen jabeak atzerritarren **kolonoak** besterik ez dira izango han. Iñaki Iñurrieta

Hasierako **kolonoen** hizketa-modua gogorarazten zuen Noraren aitaren jardun zakarrak. Anjel Lertxundi

Emeki emeki, Frantziatik eta hurbileko Madagascar ugartetik **kolonak** beren esklaboekin hor kokatzen dira. Herria

Elei Sinaiko **kolonoek** beren borondatez joatea erabaki bazuten ere, atzo Armadari aurre egiteko prest agertu ziren batzuk. Berria - Harian

Gazako kokaguneetan **kolonoak** eta hauei sostengua ematera joandako milaka juduak baino ez daude.

"Integrazio" hitzak, hemen, Europak eta europar **kolonoek** bortxaz eta sistematikoki beretu zituztela kontinenteko meategi eta nekazaritza-aberastasunak esan nahi du, eta bertako zibilizazioak suntsitu eta biztanleak akabatu zituztela, Mundu Berria Zaharraren kontsumorako fruitu heldua bihurtu ondoren. Koro Navarro

Gure herrialdean militarrentzat edo **kolono** alemaniarrentzat eraiki ohi diren etxe horietakoa zen. Jose Morales

**2** irud/hed

Kultura sortzea beti kolonizatzea da [...] (*cultus* bakoitza **kolonoa** da, baserritar basatia). Askoren artean

**3** (izenondo gisa)

Belaunaldi berriko laborari **kolonoa**. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gazako kolono** (4); **kolono bizi dira** (3); **kolono israeldarrak** (5); **kolono judu** (7); **kolono juduak** (7); **kolono juduei** (3); **kolono juduen** (8)

**bizi diren kolonoak** (3); **gazako kolonoak** (3)

**kolonoei sostengua ematera** (4)

**soldaduen eta kolonoen** (5); **zisjordaniako kolonoen** (3)

---

**kolonoskopia** *iz* kolona ikertzea, hartako den instrumentu batekin.

Kateterismorik egin barik koronarioak ikusteko aukera eskaintzen dute; gaixoari hodirik sartu gabe **kolonoskopiak** egiteko aukera ere eskaintzen dute, eta baita biriketako minbizia garaiz detektatzeko aukera ere. Berria - Gaiak

---

**koloraje** *iz adkor* kolorea.

Gauza ezaguna da munduan, kasta desberdinetako jendea, beren larrujea edo **kolorajea** nabarmenduz bereizteko usario zabaldua: moroak, beltzak, horiak (ekialdekoak), larrugorriak (indioak), [...]. Patziku Perurena

Beste miraria, lizarrondoek elur zuritan erakusten duten **kolorajea** da neretzako. Patziku Perurena

---

**kolorante** *iz* kolorea ematen duen gaia. ik **koloratzaile 2.**

Hidrokarburoak, **koloranteak,** nitratoak eta pestizidak dira produktu arriskutsuenak. Berria - Euskal Herria

Saltokietako elikagaiek dauzkaten **kolorante,** kontserbadore eta bertze emendakin kimiko mota frangoren zerrenda. Herria

---

**koloratu**, kolora, koloratzen *(orobat **koloretu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **koloratu** agertzen da)* **1** da/du *ad* kolorea hartu edo eman, kolorez hornitu. ik **koloreztatu**.

Pila haiek, ibai hura, perla koloreko itzal delikatuez hornitzen ziren, more bigunez, [...], kolore leun guztiez **koloratzen** ziren. Karlos Zabala

Ardoak **koloretu** egin baitzion portzelanazko azal zuria. Malenkoniak **koloratzen** du liburu guztia. Josu Zabaleta

Udazkena, uzta biltzeko denbora, mendiak eta arbolak **koloratzen** dituen sasoina. Herria

Oihalkiak nasaiki **koloratuak,** kolorezko kristalkiak gasagarrean edo labean landuak, larrukiak, [...]. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Horien arteko harremana ez da kolorea eta gorputz **koloratuaren** artekoa, kolorea gorputzean dagoelako subjektuan ez dauka beragan substantzia berezkorik; gorputz **koloratua** baita substantzia, kolorea, aldiz, substantzian dago. Imanol Unzurrunzaga

Bazuen sekretu bat beira **koloretuentzat**. Juan Garzia

---

**koloratura** *iz*

**Koloraturak,** adierazkortasuna, grazia. Berria - Kultura

Ofelia Salak, Oscar-en paperean ederki ere, **koloratura** pasarteak biribil eskaini zituen. Berria - Kultura

---

**koloratzaile** **1** *izond* kolorea ematen duena.

Xanpu **koloratzaile** bat aholkatzen dit ile-apaintzaileak. Eskarne Mujika

**2** *iz* kolorea ematen duen gaia. ik **kolorante**.

Alferrikakoak liratekeen lodigarri, egonkortzaile, usain-emaile eta **koloratzaile** ugari gehitzen bide zaizkie janariei. Edorta Agirre

Usain-emaile natural eta sintetikoak, **koloratzaileak**. Edorta Agirre

Neutrofiloak immuno sistemako zelulak dira berez, **koloratzaile** neutroz tindatzen diren zelulak. Berria - Gaiak

Kolore zuria daukate baina ez dute ahalmen **koloratzaile** handirik eta honek materialaren kolorea kontrolatzeko aukera eskaintzen du. Berria - Gaiak

---

**koloratze** *iz*

Poemak **koloratze** moduak dira / hauen bidez bere koloreez zalantzak dituzten pertsonek **koloratze** / frogak egiten dituzte egiazko koloreak imitatzeko edo / detekzioari iruzur egiteko. Berria - Kultura

---

**kolore** 1 *iz* gauzakien gainaldearen nolakotasuna, mota jakin bateko argi izpiak sortzean edo islatzean datzana, begiari era jakin batean eragiten diona. ik **margo**.

Aldagaitza da uhin-luzeraren eta **kolorearen** arteko erlazioa. Xabier Olarra

Oinarrizko **koloreak** esaten zaien hiru **koloreez** baliatuz beste edozein **kolore** atera daiteke, hiru **kolore** horiek dosi egokietan nahasturik. Josu Zabaleta

Laurden bakoitza **kolore** batez pintatuta zegoen. Felipe Juaristi

Euriak lurra busti du eta espaloiko **kolorea** biziagotu. Eider Rodriguez

Zahar ala gazte, guztiek ere **kolore** bereko aurpegiak eta **kolore** bereko jantziak zituzten. Lopez de Arana

Multzo horrek guztiak **kolore** anitzeko etxe-mosaiko ikusgarri bat osatzen zuen. Karlos Zabala

*ik beherago* koloreanitz. Askoren artean

**Kolore** anitzeko soinekoak. Felipe Juaristi

Eta orain begiak margotzeko ez dakizu zein **kolore** aukeratu. Sonia Gonzalez

Hirian **kolore** apur bat balego, bizimodu gogor eta zurrun hau bertan behera eroriko lukek... Lopez de Arana

Inuitek hiru **kolore** bakarrik bereizten omen dituzte. Bernardo Atxaga

**Koloreekiko** itsutasun erabatekoa. Xabier Olarra

Neurri eta **kolore** guztietakoak gaudek munduan, neurri eta **kolore** guztiak asetzeko hain zuzen ere. Aitor Arana

Edalontzia ez baita edari, ez gorputza **kolore,** ez airea argitasun edo bero. Imanol Unzurrunzaga

Urak kafearen **kolorea** du. Joseba Sarrionandia

Azazkalak ubel, besoak arre, eskuak zurixka, belakien **kolore..** . Joxe Austin Arrieta

**2** (izenondoekin)

**Kolore** deigarri bakarra bere betaurrekoen euskarriaren arrosa zen. Bernardo Atxaga

Gorri ageri ziren idi eta arkumeak, **kolore** zurbilagoz txahalak. Karlos Zabala

Letra larri gorri edo beltz handi-handiz idatziak zeuden, atzealdeko **kolore** margularen gainean. Karlos Zabala

Eguna astiro zabaltzen zuen, **kolore** gris leun-leunekoa. Karlos Zabala

Bai eta bi urdaiazpiko ere, bata **kolore** arrosa argikoa, eta bestea egosi berria. Karlos Zabala

Azken txanpak **kolore bakarra** izan zuen, gorriena. Berria - Kirola

*ik* kolorebakar.

Kararik kara Areso, porlan **kolore bakarreko** ostarkupean harritua. Patziku Perurena

Egunsentian zerua zetazko oihal aldakor bihurtzen duten **kolore** leun guztiez koloratzen ziren. Karlos Zabala

**Kolore** argiko mantal bat zeukan soinean. Jose Morales

**Kolore** zuriko marrazki bat zuen fruituak azalean. Aritz Gorrotxategi

Sentsazio jakin bat zergatik jasotzen den **kolore** gorrizkotzat. Xabier Olarra

Ni poeta kaxkar bat naiz, eta **kolore** urdinez eskribitzen dut gauez... Juan Kruz Igerabide

**Kolore** zeru-urdina edo sagar-berdea zituen gustuko. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuen lehen osagai gisa)

**Kolore** puntutxo batzuk. Josu Zabaleta

Alcatraz bati tiro, **kolore** eztanda, hori, gorri. iruditxoak kaxetatik atera, garbitu, **kolore**-ukituak eman eta koskak konpondu. Koldo Biguri

Iruditxoak kaxetatik atera, garbitu, **kolore**-ukituak eman eta koskak konpondu. Koldo Biguri

**Kolore**-ikusmenaren bat-bateko eta erabateko eten baten historia. Xabier Olarra

Ulertezinak ziren margolanak, **kolore**-nahaste bat begi normalentzat. Xabier Olarra

**Kolore**-eskala (beltza - gris mailak - zuria). Josu Zabaleta

Garunetik **kolore**-ezagupenak erabat erauzi balizkiote bezala. Xabier Olarra

Hori ezin zitekeen izan, argi eta garbi, uhin-luzerak **kolore** bihurtze hutsa. Xabier Olarra

**Kolore**-sistemaren hondamena konpentsatzeko. Xabier Olarra

Beraren barneko **kolore**-burrunbada aberatsa balitz bezala bizitzen zuen beti musika. Xabier Olarra

Hasieran pentsatzen genuen **kolore**-agnosia edo **kolore**-anomia izango zuela, ausaz: **kolore**-asoziazioaren eta **kolore**-izenen gaineko akatsak, garuneko alde jakin batzuetako lesioen ondoriozkoak izan ohi direnak. Xabier Olarra

Ez ziren gauza izan **kolore**-ñabarduren esanahiaz jabetzeko. Xabier Olarra

Maxwellen kolorearen teoria eta **kolore**-triangelua **kolore**-elkartzearen kontzeptuan oinarriturik zeuden. Xabier Olarra

Baliteke V4 aldea sorburuko **kolore**-sortzailea izatea. baina ezin zituen erabili V4ko mekanismo **kolore**-sortzaileak; goi mailakoak, alegia. Xabier Olarra

Bakoitzari bere **kolore**-ezaugarria txertatzen dio. Santiago Iruretagoiena

**Kolore**-bizitasunik gabeko aho zimelduan. Anjel Lertxundi

*ik beherago* 8. Askoren artean

**4** (hitz elkartuen lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Erretinako zelula **kolore**-sentiberek. Xabier Olarra

Bere ipurmasaila **kolore**-gorriak ikusten nituen. Juan Martin Elexpuru

Hiru irudi **"kolore**-banatuak" lorturik, berak esaten zien bezala, [...]. Xabier Olarra

Kolorea sortzeko, beharrezkoa zen V4ko zelula **kolore**-kodetzaileetan konparatu edo korrelazionatzea. Xabier Olarra

Emaztea Elba zen, aurpegi gozoko emakumea, larrua **kolore**-zuri, beti arropa zuri artean bil-bil eginda bizi zena. Haren masail puztu **kolore**-zuriek errauts beroak ziruditen. Felipe Juaristi

Hatz luze **kolore**-zuri haiek eutsita. Felipe Juaristi

Txori txiki moko-luze **kolore**-urdinak. Felipe Juaristi

**5** *(hitz elkartuen lehen osagai gisa, bigarrena aditz bat dela; ik***koloregaldu**)

Isiltasuna ere oro **kolore**-berdintzen duena izan ohi da halakoetan, bat eta erabatekoa. Anjel Lertxundi

Sartu orduko, baina, erabat gris eta **kolore**-husturik aurkitu zuen estudio osoa. Xabier Olarra

Biratu zen lagunengana, eta **kolore** gorrituz, galdegin zien: [...]. Josu Zabaleta

Sukalde bazter batean **kolore** gorriturik begira zituzten Alba eta beste neskak ere. Josu Zabaleta

Salmahai **kolore** eta pintura gabetu haren atzean. Josu Zabaleta

**6** (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Azal-**kolore** ilun eta lustre gabea. Mirentxu Larrañaga

Eguzkiak han urre **kolorea** hartzen du, eta urak urrea ekartzen, hondar aleen artean nahastuta. Felipe Juaristi

Su likidoaren urre-**kolore** bizkor hura. Xabier Amuriza

Ilargiaren esne-**kolore** indargea. Lopez de Arana

Zilar **kolore** gris leun-leunez margoturik. Karlos Zabala

Ronen gelan ia dena [...] laranja-**kolore** bizikoa zen. Iñaki Mendiguren

Laranja-**kolore** distiratsuko soinekoak. Iñaki Mendiguren

Aza gorriak, goizargiak kolorea aldatu eta beren loratzearen ardo **kolore** aparta erakusten zutenak. Karlos Zabala

Halako kondena bat nabaritzen zuen altzarien haritz **kolore** argian, lanpara garbiegian, espartzuzko alfonbra berriegian. Karlos Zabala

Sorbaldan, soingaineko beltza edo su-**kolore** gorriminekoa. Jose Morales

Ez du bizarrik, begiak almendra **kolore** bizikoak ditu. Felipe Juaristi

· Atenas osoan gaindi nagusitzen ziren marmolezko urre-**koloreko** zutabeak. Lopez de Arana

*ik beherago* 9. Askoren artean

Hainbat koloretako ohe-estalkiak ikus zitezkeen zintzilik bertan: batzuk, zeru-urdinak; beste batzuk, izokin-**kolorekoak;** eta beste batzuk, berriz, hori ilunak. Lopez de Arana

**7** (hitz elkartuen bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Leiho gehienak ere gorrail, berde edo gaztain-**kolore**. Jantzi azafrai-**koloreak** soinean. Daniel Landart

Satinezko etzaulki abrikot-**kolorearen** inguruan. Mirentxu Larrañaga

Begi txiki gaztaina-**koloreak,** begi txiki jostalariak. Felipe Juaristi

Bere bekain iletsu, ikatz-**koloreen** azpitik. Koro Navarro

Kotoizko soineko lasto-**kolore** batek bereganatu zuen bien arreta. Anjel Lertxundi

Hodei kobre-**kolore** bitxi batek estalia. Koro Navarro

Gorbataren ordez zapi txokolate-**kolore** bat zuen lepoaren bueltan. Felipe Juaristi

Gure amarena izan zen xal izokin-**kolore** batez bilduta. Fernando Rey

Begi handiak zituen, esne-**koloreak**. Mirentxu Larrañaga

Biolina eman nahi baitzion itsuari, biolin gorri-**kolore** eta gerezi usainekoa, berandu baino lehen. Felipe Juaristi

Edertasun urre-**kolore** lerro-argi hura kale gorrian. Iñaki Iñurrieta

Hartu izanaren agiriak sinatu behar nituen nik, eta haiek zigilu turkesa-**kolorea** jartzen zieten gainean. Fernando Rey

Feltrozko kapela, laneko alkandora kaki-**kolorea,** oihal bakerozko jaka eta galtzamantala erabiltzen zituen beti. Koro Navarro

Itsaso urdinera jotzen zuen gela apain eta hori-**kolore** batean. Felipe Juaristi

Zuriak, harentzat, distiratsuegiak ziren, baina aldi berean margulak eta hezur-**koloreak**. Xabier Olarra

Beltzarana oso, larrua olio-**kolore**. Felipe Juaristi

**8** ***kolore-bizi*** *(orobat* ***kolorebizi****)* *izond*

Mingain astun samarrean hitzen doitasun **kolore**-bizia azpimarratzen zuen zalantza apur bat zuela. Josu Zabaleta

Urteak joan ahala gero eta xehetasun **kolorebiziago** eta sinesgaitzagoz. Juan Garzia

Hitzen doitasun **kolore-bizia** azpimarratzen zuen zalantza apur bat zuela. Josu Zabaleta

**9** ***urre-kolorekotu*** *ad* urre koloreko bihurtu.

Arrats argi, alaia zen, jendea lasai eta pozik pasatzen zitzaigun ondotik, aurpegia arratseko eguzkiak urre-**kolorekotua** zuela. Matías Múgica

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**arrosa kolore** (19); **gaztaina kolore** (8); **kolore aldaketa** (5); **kolore anitzeko** (20); **kolore apur** (5); **kolore argi** (5); **kolore argiko** (11); **kolore arrosa** (12); **kolore asko** (6); **kolore askotako** (21); **kolore askotariko** (6); **kolore bakarra** (15); **kolore bakarreko** (6); **kolore bateko** (5); **kolore batekoa** (7); **kolore beltz** (8); **kolore beltza** (21); **kolore bera** (6); **kolore berde** (13); **kolore berdea** (10); **kolore berdeko** (5); **kolore bereko** (32); **kolore berekoa** (9); **kolore berekoak** (5); **kolore berezia** (7); **kolore bizi** (15); **kolore biziak** (15); **kolore biziko** (46); **kolore bizikoa** (5); **kolore bizikoak** (10); **kolore biziz** (20); **kolore desberdineko** (6); **kolore desberdinetako** (5); **kolore eta forma** (12); **kolore ezberdineko** (5); **kolore ezberdinetako** (6); **kolore gabeko** (7); **kolore gehiago** (7); **kolore gorri** (25); **kolore gorria** (22); **kolore gorrixka** (6); **kolore gorriz** (7); **kolore gris** (9); **kolore grisa** (6); **kolore griseko** (6); **kolore guztiak** (32); **kolore guztietako** (42); **kolore guztietakoak** (9); **kolore horia** (8); **kolore horiak** (5); **kolore horiko** (8); **kolore ilun** (7); **kolore iluna** (6); **kolore iluneko** (5); **kolore ilunez** (6); **kolore pixka** (5); **kolore urdin** (27); **kolore urdina** (6); **kolore urdineko** (6); **kolore zurbil** (6); **kolore zuri** (13); **kolore zuria** (10); **kolore zuriko** (5); **laranja kolore** (16); **larru kolore** (5); **urre kolore** (23); **zilar kolore** (6)

**arrosa kolorea** (15); **aurpegiko kolorea** (8); **azalaren kolorea** (12); **begien kolorea** (7); **gaztaina kolorea** (5); **gorri kolorea** (5); **ilearen kolorea** (7); **kolorea aldatu** (6); **kolorea emateko** (5); **kolorea ematen** (5); **kolorea galdu** (5); **kolorea hartu** (13); **kolorea hartu zuen** (7); **kolorea hartzen** (12); **kolorea izan** (5); **laranja kolorea** (9); **lurraren kolorea** (6); **urre kolorea** (12); **zeruaren kolorea** (5)

**koloreak gorri** (5); **koloreak gorritzen** (6); **urre koloreak** (8)

**koloreekiko itsutasun** (5)

**arbel koloreko** (5); **ardo koloreko** (5); **arrosa koloreko** (44); **berde koloreko** (12); **berun koloreko** (5); **errauts koloreko** (12); **esmeralda koloreko** (7); **esne koloreko** (5); **gaztaina koloreko** (30); **gaztaina koloreko ile** (8); **gorri koloreko** (7); **hiru koloreko** (5); **hori koloreko** (8); **ilun koloreko** (5); **izokin koloreko** (7); **kaki koloreko** (5); **kobre koloreko** (7); **koloreko aurpegi** (6); **koloreko azal** (5); **koloreko azala** (5); **koloreko begi** (14); **koloreko begiak** (5); **koloreko distira** (5); **koloreko frak** (5); **koloreko ile** (19); **koloreko ilea** (14); **koloreko soineko** (5); **krema koloreko** (16); **laranja koloreko** (30); **larruaren koloreko** (7); **lila koloreko** (5); **lur koloreko** (7); **malba koloreko** (7); **odol koloreko** (6); **oliba koloreko** (14); **pastel koloreko** (6); **perla koloreko** (6); **purpura koloreko** (21); **sepia koloreko** (6); **sugar koloreko** (9); **turkesa koloreko** (8); **txilar koloreko** (5); **txokolate koloreko** (8); **urdin koloreko** (8); **urre koloreko** (103); **zilar koloreko** (49); **zuri koloreko** (8)

**arrosa kolorekoa** (12); **berde kolorekoa** (5); **errauts kolorekoa** (5); **gaztaina kolorekoa** (6); **ilun kolorekoa** (5); **laranja kolorekoa** (9); **larrosa kolorekoa** (5); **marroi kolorekoa** (5); **urre kolorekoa** (10); **zilar kolorekoa** (5)

**arrosa kolorekoak** (11); **laranja kolorekoak** (6); **urre kolorekoak** (9)

**ez dago kolorerik** (5); **ez du kolorerik** (6); **kolorerik gabe** (8); **kolorerik gabea** (5)

**arrosa kolorez** (5); **koloretako argazkiak** (6); **koloretako telebista** (7); **kolorez aldatzen** (6); **kolorez jantzi** (9); **kolorez jantzita** (5); **kolorez jantzitako** (5); **kolorez margotu** (6); **urre kolorez** (12)

---

# koloreanitz *(orobat* ***kolore-anitz****)* *izond* koloreaniztuna.

Gonaren alozak ur-jauzi **koloreanitz** baten gisara barreiatzen ziren haren zango sendoen gainera. Aingeru Epaltza

Txirikorda luzeak zihoazkien ihesi durbante **kolore**-anitzetatik. Karlos Zabala

Eskuak garbitu zituen eskuzatar moduko lits-mordo **koloreanitz** batekin. Joxe Austin Arrieta

---

# koloreaniztun *(orobat* ***kolore-aniztun****)* *izond* kolore askokoa dena.

Halako talde **koloreaniztun** eta aldakorra osatzen zuten, eta *ohi* izatea zen, hain segur, beren ezaugarri komun bakarra. Jon Alonso

Ohe-atorra jantzi zuen, buruko sarexkan bildu ilea eta bizi-bizi orraztu zituen adats lehor **kolore-aniztunak**. Mirentxu Larrañaga

Batari nola besteari espermazko txorro **koloreaniztun** emankor, oparo, naro bana oparitu zien. Jon Alonso

---

# kolorebakar *(orobat* ***kolore-bakar****)* *izond* kolore bakarra duena.

«Inposatzen diguten Espainia **kolorebakarraren** aurrean, autogobernua handitzea» eskatzen da. Berria - Euskal Herria

Soineko **kolore-bakarra**. Jose Morales

Nafarroa **kolore bakarra** eta erdaldun hutsa ekarri nahi digutenei. Berria - Euskal Herria

kolorebako ik **koloregabe 2**.

**koloreberritu**, koloreberri, koloreberritzen da/du *ad* (zerbaiten) kolorea eraberritu.

Gau horietako batean, pintzelaz **koloreberritu** zuen igeltsuzko Haurtxo berberaren aurrean. Koldo Biguri

Jesus Haurra bukatuta zegoen jada eta, **koloreberrituta** eta hain arrosa eta hain argi, bazirudien distira egiten zuela Pepponeren eskutzar ilunaren barruan. Koldo Biguri

kolorebizi ik **kolore 8**.

**koloredun** **1** *izond* kolorea duena; koloreak dituena.

Kandela txinatarren antza zuten kriseilu **koloredun** ugari. Aritz Gorrotxategi

Margolan **koloredun** distiratsuz beteta. Xabier Olarra

Komiki **koloredun** horiek erosteko dirua. Pello Lizarralde

Burutik oinetaraino oihal lodi eta **koloredun** batez estaltzen zen, mairuen gisara. galtzerdi berriak erosi eta **koloredun** hauek zakarretara botatzeko. Felipe Juaristi

Gizakien mundu **koloredun** txikian. Monika Etxebarria

Abaniko ireki eta **koloredun** bat. Berria - Harian

• **2** *izlag* koloreko.

**Koloredun** alkandoraz eta mila motako kapelaz agertu zitzaigun taldea, funk sutsu eta kutsagarria egiteko asmoz. Berria - Kultura

Krema **koloredun** espaloian behera jo zuen. Aritz Gorrotxategi

**koloregabe** **1** *izond* kolorerik ez duena. ik **kolorge; margul**.

Grisa da [zinka], eta bera osagai duten gatzak, berriz, **koloregabeak**. Juan Garzia

Hala sortutako distira eta formak ere **koloregabeak** ziren. Xabier Olarra

Haren metodoak, zurbil eta **koloregabea,** ezin du arrakastarik izan bere tankera bereko gizonekin ez bada, arrazoiak onar ditzaketen intriganteekin, politikariekin. Monika Etxebarria

Eztainu kloruroa prismatxo lirain-bitxi, **koloregabe** eta gardenetan bereizten zen. Juan Garzia

Lehenengo zientzia, Abstraktoaren itsaso **koloregabeetatik** sortua, itsas aparrak putz egindako Afrodita haragikoiaren jantziz estaltzen da. Jon Muñoz

Urragoma papurrak diruditen atomotxo **koloregabeak**. Eider Rodriguez

Oso luzeak, formagabeak eta **koloregabeak** ageri zitzaizkion ezpainak. Irene Aldasoro

Pertsona aspergarri eta **koloregabe** horietako bat. Patxi Iturritegi

**2** ***koloregabeko*** *(orobat **kolore gabeko** eta **kolorebako**)* *izlag* koloregabea.

**Koloregabeko** ideia berdeek haserre lo egiten dute. Itziar Laka

CRSek aldean, aurrean, atzean moldatzen zuten **kolore gabeko** harresi baten zirrikitutik. Itxaro Borda

Berehala nabarmendu zen atsegin izate hori **kolore gabekoa** zela, alienatua. Jon Alonso

**koloregabetu**, koloregabe, koloregabetzen **1** da/du *ad* kolorea galdu; kolorea kendu. ik **kolorgetu; marguldu**.

Janari-dendetako erakusleihoetako galleta lizunduak hantxe zeuden, **koloregabetzen**. Isiltasuna zen bere kartzelatik libratua, inork ahora ekarri nahi ez duen bekatu latz bat bezala, estalitakoa oro **koloregabetzen** duena laino zikina bezala, azalean inora ezin geratzen metal pisua bezala. Irene Aldasoro

Beltzaran zeuden bi-biak eta ile horia zuten, atari zabalean ibiltzearen ondorioz **koloregabetua**. Lopez de Arana

**2** (era burutua izenondo gisa)

Kortaturen garaiko nire kamiseta **koloregabetua,** praka higatuak. Xabier Mendiguren Elizegi

Begi handiak zituzten, urdin argiak, jeans **koloregabetuen** tankerakoak. Jon Muñoz

**koloregaldu** *(orobat **kolore-galdu**)* **1** *izond* kolorea galdu duena.

Argazki **koloregalduek**. Aingeru Epaltza

Hura ezin zen lapurreta izan: inork ezin du apaiz baten sotana zahar **koloregaldu** baten gutizia izan. Koldo Biguri

Ordu arte, kolore bizikoak izan zituen ametsak beti, batez ere paisaia eta margolanekin amets egiten zuenean; orain, ordea, amets **koloregaldu** eta margulduak izaten zituen. Xabier Olarra

Egun batean, ostadarra ikustean, lur jota gelditu zen: zirkulu-erdi **koloregaldu** bat besterik ez zuen ikusten hantxe zeruan. Xabier Olarra

Axuleiu **kolore**-galduak galeriako hormetan. Karlos Zabala

• **2** ***koloregaldurik*** *adlag*

Eskuinekoa, berriz, **koloregaldurik** eta dilataturik ageri zen, txanpon baten zabalerako argikoroa arrosakolore bat bihurturik. Juan Garzia

**koloregaltze** *iz* kolorea galtzea.

Ez dut uste nik euskararen **koloregaltze** hori nahitaez euskara batuarekin lotua dagoen, hain modu zuzenean bederen ez. Pello Salaburu

kolorekotu ik **kolore 9**.

kolorestatu ik **koloreztatu**.

**koloretasun** *iz* kolorea; kolore bizitasuna.

Gero, ohetik jaiki, eta Moneten koadroa, arestian zuri baino zuriago ikusi nuena, bere **koloretasun** eta bizitasun osoan agertu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Lehenkiei inolako **koloretasunik** eman ez bazaie, eta gauza mota guztiak sortzeko eta koloreztatzeko moduko forma ezberdinez horniturik badagoz, […]. Xabier Amuriza

Eguzkiak aurpegian behera isurtzen dien **koloretasunak** . Edorta Jimenez

---

**kolorete** *iz* aurpegirako gorria.

Nik erantzun nion **koloretez** betetako aurpegi harekin eta horrela jantzita ez nuela inora eramango. Pello Lizarralde

**Koloretez** zikindutako masail haiekin. Pello Lizarralde

Emakumeak kartoizko panpina zirudien bere **kolorete** biribil eta margo biziko soinekoaz. Juan Martin Elexpuru

---

**koloretsu** **1** *izond* kolore askokoa, kolore askotakoa.

Lepoan zapi **koloretsuak** daramatzate. Felipe Juaristi

Ardi larruzko kapelu beltzekin gizonak, artilezko kapelu **koloretsuekin** emakumeak. Felipe Juaristi

Txinatar jainkoen itxura **koloretsuek** itsas hegia alaitzen zuten. Ramuntxo Etxeberri

Hango karrika **koloretsu** gordeetan paseatzen. Felipe Juaristi

Gau-klubetako argi **koloretsuak** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Hegazki **koloretsuak,** urgune gozatsuetara maiz jotzen dutenak. Xabier Amuriza

Sufesta **koloretsuetan** . Pako Aristi

Beste hainbat gizatalderen soinu eta kantak ere entzun ahal izan ziren, halaber, festa **koloretsu** hartan. Josetxo Azkona

Zinez ikusgarri **koloretsu** eta bizitasunez betea. Herria

Eskala bizkor eta arpegio **koloretsuen** tirania. argi eta **koloretsua** zen, lorategi bat bezala. Anjel Lertxundi

Eta guk [amodioa] kolorezkoa eta **koloretsua** zela uste, bai baiezkoan eta bai ezezkoan: gizajoak gu! Iñaki Segurola

Ahotsa **koloretsua** baitzen, udaberria bezain **koloretsua,** hiria bezain **koloretsua,** bizitza bezain **koloretsua** . Felipe Juaristi

Nahi den **koloretsuena,** baina anekdota bat. Anjel Lertxundi

**2** (adizlagun gisa)

Orpoz orpo, Dantxarinetikako errepidetik gorantz, soldadu ilara trinko bat ikusi dut, **koloretsu,** zalapartan Zugarramurdirako bidetik igotzen ari. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ikusgarri koloretsu** (4); **koloretsu eta bizitasunez** (3); **marrazki koloretsu** (3); **zapi koloretsu** (3); **zapi koloretsu bat** (3); **zinez ikusgarri koloretsu** (3)
> **manifestazio koloretsua** (5)
> **soineko koloretsuak** (6); **udako jauntzi koloretsuak** (3)

---

koloretu ik **koloratu.**

---

**koloretxo** *iz adkor* kolorea.

Zenbait **koloretxo** eta urrin zituen, asko pentsarazten zidatenak. Fernando Rey

---

**koloreztapen** *iz* koloreztatzea.

Irakurria omen zuen [...] aloxanak, mukosak ukitzean, **koloreztapen** gorri ezinago iraunkorra ematen diela, ez baita gain-ezarketa bat, berniz bat alegia, ezpain-margoa den bezala, baizik eta tindu peto-peto bat. Juan Garzia

---

**koloreztatu**, kolorezta, koloreztatzen *(orobat **kolorestatu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **koloreztatu** agertzen da)* **1** da/du *ad* kolorea eman, kolorez hornitu. ik **koloratu.**

Arrosa-koloreko tindu arin batek **koloreztatzen** zuen masail bat; bestea, berriz, zurbil zegoen. Josu Zabaleta

Eta teilatu gainean zegoen argizko gurutzeak gorriz **koloreztatzen** zuen gauaren sakona. Juan Kruz Igerabide

Eguzkiak hodeizko altzoan sartzen hasi eta dena arrosa biziz **koloreztatu** zuenean. Iñaki Mendiguren

Zundaren bitartez ADNaren molekula jakin batzuk **koloreztatu** daitezke. Berria - Gaiak

Gero, hisiak bultzatuta, kuskuan gordetako tximeleta ahularen egoskortasunarekin, barnean eta ezkutuan zeukan edertasun guztia **koloreztatzen** joan zen hurrengo urteetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Errezelen eta ate-oihalen brokatuak, izur bikain-bikainekoak, gorrindolez **koloreztaturik** zeuden. Karlos Zabala

Zenbait eliza eta haien kupula bizantziarrak, berdez eta urrez **koloreztatuak** . Karlos Zabala

Jakin-gose bainenbilen denboraren zulo hautsi eta itsuan barna, esperientzia zoriontsuekin eta mingarriekin **koloreztatutako** kristal zatiak oroimenera ekarri nahian. Juan Kruz Igerabide

**2** (era burutua izenondo gisa)

Argazki **koloreztatu** batzuk zeuden han-hemenka zintzilik. Alberto Ladron Arana

Ur **koloreztatuz** beterik. Juan Garzia

Austerlitz eta Marengo-ko bi grabatu **koloreztatu** . Koldo Izagirre

Zurezko habe **koloreztatuan** . Herria

Bolbora **koloreztatuaz** kargaturik txinatarren eran. Karlos Zabala

Beirazko anpulutxo **koloreztatua** . Juan Garzia

---

**koloreztatze** *iz* kolorez hornitzea.

Haren espatula-kolpe zakarrak, haren **koloreztatze** trinkoa eta han-hemenka halabeharrez barreiatutako tantak. Oskar Arana

---

**koloreztu** (era burutua soilik eta adizkirik gabe) koloreztatua.

itsasoa mugagabe irakiten, dena eguzkiz beteta, urrutiko itsasertz urdinez **koloreztuetaraino**. Josu Zabaleta

Gero hegotzar handi batzuk jarri zituzten bizkarrean, lumen zentzuaren arabera zuriz, urdinez, purpurinaz **koloreztuak** Josu Zabaleta

---

**kolorge** *(orobat* ***kolorga*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kolorge*** *agertzen da)* **1** *izond* koloregabea. ik **margul**.

Heydrichen begi urdin **kolorgeek** arrain batenak ziruditen. Alberto Ladron Arana

-Emanen didazu zure izena, mesedez? -galdetu zion hariaz bestaldeko emakume ahots **kolorgeak**. Alberto Ladron Arana

Hura baino lehenago bizi izandakoaren oroitzapen guztiak **kolorgeak** begitantzen zitzaizkidan. Hasier Etxeberria

Zeru oskarbi baina **kolorgean** lurrun zurien artean hegan zintzilik. Urtzi Urrutikoetxea

**2** (hitz elkartuetan)

Handik hurbil, gizon begi **kolorge** bat zebilen, koadrodun jaka jantzita. Lopez de Arana

---

**kolorgetu**, kolorge(tu), kolorgetzen **1** da/du *ad* koloregabetu.

Masailak **kolorgetu** egin zitzaizkion, kolore oro bere sudur mela-mela egindakora aldatu izan balitzaio bezala. Mirentxu Larrañaga

Neguan arretu eta **kolorgetu** diren ibai eta belazeak berdekara biziaz makilatzen ditu. Pako Aristi

Markesaren irudia tinta hau bezalakoxea da: nabarmen **kolorgetu** da esku artean darabildanetik. Monika Etxebarria

Kristalek beltza den guztia **kolorgetzen,** urdin bihurtzen dute. Monika Etxebarria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Haien urre-koloreko hizki zartatu eta **kolorgetuek** osaturiko hitzak Harryk ulertzen ez zituen hizkuntzetan zeuden. Iñaki Mendiguren

---

**kolorido** *iz* kolore bizitasuna.

Eta orduan Jainkoa erabiltzen zuen une batez buruan, kristaua, eta bestelako Jainko batzuk ere bai, ezezagunagoak, **kolorido** handikoak beti ere. Unai Elorriaga

Errimaren **koloridoak** itsutzen zaitu. Karlos Linazasoro

---

**kolorista** **1** *izond/iz* kolorezalea.

Dryer-ek, bere lanaren intelektualismo hotza gorabehera, berezko dohain ikaragarriak zeuzkan marrazkilari eta margolari **kolorista** gisa. Oskar Arana

Bere paletako kolore guztiak agortuko zituen **koloristarik** kartsuenak, hura islatu nahian. Karlos Zabala

**2** koloretsua.

Eta oso hizkuntza **kolorista** ere bai. Unai Elorriaga

**3** koloreztatzailea.

Oraingoan bezala, kateko lana egingo dute Pello Gutierrez gidoigileak, Daniel Redondo marrazkigileak eta Igor Astondo **koloristak**. Berria - Kultura

---

**kolosal** *izond* eskerga, itzela.

Baina liburu horretan berariaz utziko nuela albora kimika handia, industriategi **kolosalen** eta fakturazio-ustelkeria zorabiagarrien kimikatzar loriosa, hori lan kolektiboa baita eta, beraz, anonimoa. Juan Garzia

Krone zirkoa etorriko dela laster Alemaniatik, eta **kolosala** izango dela. Joseba Sarrionandia

---

**koloso** *iz* erraldoia.

Bada beste bat, orobat ezagutzen duzuena: Rodasko **kolosoa,** oso-osorik brontzezkoa. Jon Muñoz

Bost urteko haur baten umekeria zeukan **koloso** baten gorputzean. Atseden hartzen ari den **koloso** baten bakea da. Karlos Zabala

**Koloso** xalo baten gozotasuna zuten. Karlos Zabala

Buztinezko oinak dituen **koloso** erraldoia. Iñaki Iñurrieta

---

**kolpadura** *iz* zauritzearen ondorioa.

Filipe ari zen Biscouby-ren orde, hunek zangoan **kolpadura** bat jasanik. Herria

---

**kolpatu**, kolpa, konplatzen **1** da/du *ad* zauritu. ik **kolpekatu**.

Igande huntan Tel Aviv-eko karrika batean dituzte tiroz **kolpatu** hamar bat presuna. Herria

Eta ilun beltzean, Alainek gogorki **kolpatu** zuen hura bere xabalinaz sorbalda bien artean. Juan Garzia

Zangoetako eriak **kolpatu** ditut jauzi egitean. Marzel Etxehandi

Italiar bat hila eta kasetari anderea **kolpatua**. Herria

Hor ere ainitz hil izan dira eta **kolpatu,** Yasser Arafat-en zaintzaleetan bederen zazpik bizia galdu dute. Herria

Fructuoso zegoen lurrean, **kolpatuta** inondik ere; bazirudien burdinazko tramankulu bat zeukala orkatila parean hankari erantsita. Inazio Mujika Iraola

Joan den larunbat goizean, Etxoineko Jerome Minjou 15 urteko gaztea larriki **kolpatu** da. Herria

Igande goizalderat, Bilboko ondoan, Portugalete hirian, ertzaintzako bi lagun handizki **kolpatuak** izan dira. Herria

197 presuna arinki **kolpatuak,** 22 larriki eta lau hilak. Herria

Poliza-gizon bat bada arras larriki **kolpatua**. Herria

Aitzineko partidan finala ezin bururatuz gelditua Ibarrola **kolpaturik,** 17ra zirelarik, [...] noiz-eta pilota bat bisaian hartu baitu biriatuarrak. *ik* lesionatu. Herria

Hau ez da finalean arizan **kolpatua** baita. Herria

Oren guztiek dute gizona **kolpatzen,** azkenekoak du hobira igortzen. Koro Navarro

**2** *(adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kolpekatu*** *agertzen da)* jo, kolpekatu.

Larru onduak jotzen eta **kolpatzen** zituzten, zirti-zarta, uda eta negu. Aingeru Epaltza

Targeta **kolpatzea** da publizitatearen helburua. Joxerra Garzia

Zela behin baizik ez zuen erabili, hain juxtu ere heriotzak **kolpatu** zuen egunean. Aingeru Epaltza

**3** (era burutua izenondo gisa) zauritua.

Zenbat holako uso **kolpatu** eder ote da, jauntxo izandun batek haurdun utzi ondoren, diru edo musu truk beste gizajo pobreren bati disimuloan erantsia? Patziku Perurena

Ez, baina laster jakin zen amerikano airekoak zirela eta Miarritzeko hondartza edo plaiara bonbak aurtiki zituztela, anitz hil eta **kolpatu** eginez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Asteartean zioten 73 lagun hil zirela ixtripu hortan eta **kolpatuak** bazirela lau ehunez goiti. Herria

EITB-ko helikoptero bat erori da Bizkaia-Aulesti herrian, hiru hil eta **kolpatu** larri bat utzi ditu. Herria

Zernahi odol emaile presentatu direla atentadu hortan berean izan diren 113 **kolpatuen** eta beste holakoen sokorritzeko beren ahalen arabera. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bortizki kolpatu** (3); **ehun bat kolpatu** (5); **etengabe kolpatu** (5); **gogor kolpatu** (6); **hil eta kolpatu** (8); **lurra kolpatu** (3); **poliziak kolpatu** (4)
>
> **azkarki kolpatua** (3); **frango handizki kolpatua** (3); **handizki kolpatua** (13); **handizki kolpatua altxatu** (3); **handizki kolpatua ereman** (3); **handizki kolpatua izan** (3); **kolpatua altxatu** (4); **kolpatua altxatu dute** (4); **kolpatua ereman** (4); **kolpatua ereman dute** (4); **kolpatua izan da** (5); **kolpatua izan zen** (3); **kolpatua izana** (3); **larriki kolpatua** (3)
>
> **hilak eta kolpatuak** (10); **kolpatuak izan** (14); **kolpatuak izan dira** (8); **kolpatuak izan ziren** (4)
>
> **kolpaturik gelditu** (3)
>
> **emakumea kolpatzen** (3); **gizona kolpatzen** (3)

---

## kolpatze *iz*

Etxeetan indarrez sartze, ebaste, su emate, ukaldika erabiltze, emakume bortxatze, aihotzez **kolpatze..** . nork bere istorio ikaragarria zekarren Aingeru Epaltza

---

## kolpe *(orobat* ***golpe*** *g.er.)* **1** *iz* zerbaitek zerbait jotzea; jotze horren ondorioa. ik **ukaldi**.

**Kolpe** bat izan da. Bernardo Atxaga

-Zartailuaren **kolpeak,** gazte! Karlos Zabala

Lehen **kolpeak** begiak lausotu zizkidan. Aingeru Epaltza

**Kolpeak** burua ireki zion. Pako Aristi

Nor zen **kolpe** hura eman zion gizona? Karlos Zabala

-Ai ene! -esan zuen Ronek, ikusezintasunaren eragingailuari **kolpe** bat emanez-. Iñaki Mendiguren

Nadia makalagoa izatera, etsi egingo zuen halako bi **kolpe** hartuta. Karlos Zabala

Irristatu eta **kolpe** txar bat hartu du harkaitz puntaren batekin. Bernardo Atxaga

Aizkora hartu, zorroztu, **kolpea** jo, eta lepoa mozten dio jainko-ustekoari. Joxerra Garzia

**Kolpe** pare bat jo zuen kabinan. Inazio Mujika Iraola

**Kolpe** larregi jaso zituen, jasan ahal zituenak baino gehiago, eta haietako batzuek erdi tontotuta utzi zuten. Paddy Rekalde

Chevroletak ondo jaso du **kolpe** izugarria, atzeko partea handia eta gogorra daukalako. Pako Aristi

Avernorako beherabide horretatik abiatzeko joera berezia izaten du **kolpe** gogorren bat jasan ondoren, **kolpea** bere etxekoek eman badiote, batez ere. Iñaki Mendiguren

**Kolpez** josi eta elurrez beteriko zulo sakon batera jaurti zuten. Askoren artean

Lauzpabortz **kolpez** akabatu nuen narrastia. Joan Mari Irigoien

Emakume-garrasi zorrotz bat aditu zen, eta gorputz baten **kolpea** lurraren kontra. Koro Navarro

**Kolpeak** autotik kanpora bota ninduen, antza. Anjel Lertxundi

Ukondoan **kolpe** txiki bat sentitu nuen arte. Anjel Lertxundi

Gaixoei konortea galarazten zaie **kolpe** batez. Xabier Olarra

*ik beherago* 11. Askoren artean

Bi **kolpe** harri batez. Iñaki Iñurrieta

**2** (izenondoekin)

**Kolpe** sor bat entzun nuen handik pixka batera. Hiru **kolpe** on ematea lortu zuen bigarren asaltoan. Rafa Egiguren

Irristatu eta **kolpe** txar bat hartu du harkaitz puntaren batekin. Bernardo Atxaga

Alexandre deitzen zion Claudek, eta **kolpe** txikiak jotzen zizkion besoetan. Karlos Zabala

**Kolpe** galanta hartu zuen jakin zuenean Maria Chica, garbiketetako bere enplegatua, haurdun zegoela. Bego Montorio

Bularrean **kolpe** handi bat hartu balu bezala. Josu Zabaleta

Handik gutxira, elbarritzat jo ninduten belaunean izan nuen **kolpe** txar baten kulpaz. Anjel Lertxundi

**Kolpe** latz hark azken pozak suntsitu zizkion. Karlos Zabala

Hau **kolpe** latza! Joanes Urkixo

**Kolpe** izugarria izan zen hura, bai, eta, halarik ere, are **kolpe** gogorragoak jasan behar izanen zituen berant baino lehen... Joan Mari Irigoien

**Kolpe** bortitz batez atea itxi eta Roberto Goaza komisarioa kalera irten zen. Harkaitz Cano

**Kolpe** hilgarria eman aurretik, sagu haiekin ankerki jolasteko asmoa zuen. Agustin Otsoa

-Hemen zauri larria dugu, **kolpe** benetan handia -esan zuen-. Agustin Otsoa

Hara eta hona hasi ziren lasterka, **kolpe** basatiak joz. Julen Gabiria

Patuaren **kolpe** sendoak. Felipe Juaristi

**3** estatu kolpea.

Beste guztiek pentsatu zuten Chavezen **kolpeak** huts egin zuela, baina Chavezek ez, Chavezek bazekien ez zuela huts egin, ez baitzen **kolpe** bat, altxamentu militarra baizik. Pako Aristi

**Kolpe** baterako gidoia. Pako Aristi

**Kolpe** militar bat egon daitekeela dioten zurrumurruak. Pako Aristi

Ez zen **kolpe** zibiko-militarra izan, [...], ez zioten inori abisatu, ez zen politikoki antolatutako laguntza zibilik egon. Pako Aristi

Otsailaren 4ko **kolpea** izan zenean, denok galdetzen genion elkarri, baina nork eman du **kolpea**? Pako Aristi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero, **kolpe**-hotsak areagotu ziren. Anjel Lertxundi

Adar basatien **kolpe**-hotsik gabe irten baitziren. Iñaki Mendiguren

Ez zidan aurpegiko **kolpe**-arrasto nabarmenez galdegin. Aingeru Epaltza

**Kolpe** imintzio batzuk egin zizkion Joseluren lagunari guardia zelan goratzen zuen frogatzearren. Josu Landa

Gorputzaren barruko egituren eta kanpoko ingurunearen arteko **kolpe**-motelgailua den aldetik, ezaugarri praktiko asko ditu larruazalak. Irene Aldasoro

Hango **kolpe**-jasa! Juan Kruz Igerabide

**Kolpe** zaparrada bateko lehenengo kolpea baizik ez da. Josu Zabaleta

Soka-saltoan jardun zuen Joseluk hamar minutuz, eta ondotik beste hainbeste **kolpe** -bolarekin. Josu Landa

**Kolpe** zakua, horixe bihurtu zuten. Paddy Rekalde

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gurdizainen oihuak eta zartailu **kolpeak** . Karlos Zabala

Lepoarekin egin du azken indar- **kolpea** . Harkaitz Cano

-Hutsetik hasi behar -esaten zuen Charvetek, motz, aizkora **kolpea** jo izan balu bezala-. Karlos Zabala

Sardinzarrez beteriko saski bat lurrera bota baitzuen ukondo **kolpe** batez. Karlos Zabala

*ik beherago* 11. Askoren artean

Ardi buruak borra **kolpe** batez banan-banan nola hausten zituzten begiratuz. Karlos Zabala

Lantza **kolpe** batez zauritu zuten. Karlos Zabala

Bultza egin nion gorputz osoaren **kolpe** batez. Anjel Lertxundi

Ezten- **kolpe** bat bezala sentitu nuen belarrondoko hura. Joan Mari Irigoien

Euriaren atabal **kolpeak** aditzen ziren leihoetan. Itxaro Borda

Odol- **kolpe** batetik hurbil ematen zuen, hain baitzegoen gorri. Aingeru Epaltza

Inoiz ez nuen hain sukar- **kolpe** bortitzik sufritu. Anjel Lertxundi

Aita hilik zela, itsas **kolpe** batek ontziaren zubitik eramanda. Josu Zabaleta

Galdera batek bere haize- **kolpea** jo orduko bertze bat baitatorkit, bertze haize- **kolpe** batekin... Joan Mari Irigoien

Gida- **kolpe** haietako batean ozta-ozta kontrolatu zuen autoa. Anjel Lertxundi

"Klaxon" **kolpe** kexatia. Ramuntxo Etxeberri

Egoera hartan, alferrik zen autoritate- **kolpe** bat hura bere onera ekartzeko. Iñaki Iñurrieta

Jendetza izan zen, bada, lehen begi- **kolpean** zeharo harritu ninduena. Anjel Lertxundi

Zorte- **kolpe** bat! Joxe Austin Arrieta

## 6 *kolpean* *adlag* bat-batean.

**Kolpean** kendu zizkigun lausoak begien aurretik, azalari itsatsitako txaplata kolpetik kentzen dizun erizainak bezala. Juan Kruz Igerabide

Irakasle-gelako atea **kolpean** zabaldu zen berriro. Iñaki Mendiguren

Marck Kaskagorrik aipatu zigun urkatua etorri zitzaidan **kolpean** burura, **Kolpean** burua itzuli zuen Dursleytarren egongela iluneko leihora. Anjel Lertxundi

**Kolpean** gelditu da. Xabier Paya

**Kolpean** eta ahoan erabili gabe irensten dut tomate-xerra. Anjel Lertxundi

Urduriarekin edo, rra! pieza **kolpean** jaitsi dik eta, danba! piezak tornua jo. Pablo Sastre

Leihorantz begiratzen dut, gela osoan ia **kolpean** barreiatu den argitasunaz harrituta. izebak, berriz, kontuak eramateko liburua itxi zuen **kolpean** . Anjel Lertxundi

## 7 *kolpetik* *adlag* bat-batean.

**Kolpetik** esnatu nintzen, eta une batzuk behar izan nituen nire onera etortzeko. **Kolpetik** isildu zen Héraclius. Josu Zabaleta

Trena **kolpetik** geratu zen. Josu Zabaleta

Aurrera jarraitu nuen, eta, **kolpetik,** Adelarekin egin nuen topo aurrez aurre. Juan Kruz Igerabide

Nire ezpainetan "ezkontza" hitza azaldu zenean ulertu nuen, **kolpetik,** mahaiarena. Bernardo Atxaga

Ahotsa mehartu egin zitzaion berriro, **kolpetik** hautsi balitzaio bezala. Joxean Agirre

Zerbaitek gaztetako ahalmen ezkutu bat **kolpetik** piztu izan balio bezala. Juan Kruz Igerabide

Den-dena ondo zihoan, baina **kolpetik** okertu egin zen zerbait. Bernardo Atxaga

Eta gero, bat-batean, hor zen, eguna bezain garbi: existentzia agerian zen **kolpetik** . Monika Etxebarria

Segundo bakoitzeko zenbat bero bidaltzen ote digu? eskerrak urruti gauden: 11.600 milioi tona ikatz **kolpetik** erretzeari legokiokeena. Pello Zabala

Ibaia, iraganezina ordu arte, libre gelditu zen **kolpetik** . Karlos Zabala

Badakizu nork konpondu zigun bizimodua, **kolpetik** ? Josu Zabaleta

*Sahatsaren hila* soilik esanda, auskalo zer pentsatuko duzuen, horrela **kolpetik** . Pello Zabala

## 8 *kolpez* *adlag* bat-batean.

**Kolpez** gelditu zen gure atzetik eskolta lanetan zetorren kamioia, eta berehala jaitsi ziren gudariak. Inazio Mujika Iraola

Magaliren begiak **kolpez** handitu ziren eta berriz negarrez bete. Janbattitt Dirassar

Eta hona non, Uztaritzeko apezen oroitzapena heldu zaidan, **kolpez** gogora. Piarres Aintziart

Horra non beraz pizten hasia zen landare pollit hori **kolpez** moztu zuen herioaren sega maltzur zorrotzak! Janbattitt Dirassar

Halako samur batek **kolpez** hartu banindu bezala. Janbattitt Dirassar

Bozkarioaren bozkarioz, ene lagunen hiru basoak **kolpez** hustu nituen. Daniel Landart

Bere autoaren azpian ezarria zioten lehergailu bat zartaturik, **kolpez** hil da 51 urteko gizon bat. Herria

Aitaren hasarrea, hain haundia non hiltzen den **kolpez** . Herria

## 9 *estatu kolpe* pertsona talde batek, eskuarki militar talde batek, bortxaz eta ilegalki lurralde baten gobernua bereganatzea.

1851ko abenduaren 2an Luis Napoleonek **estatu kolpea** eman zuen. Karlos Zabala

Pinochetek, Estatu Batuetako indarra zuela atzean, **estatu kolpea** eman zuen Txilen, 1973an. Pello Salaburu

Bi izen entzuten ziren irratian etengabe; buruz nekizkien: Ahmad Hassan Al-Bakr eta Saddam Hussein Takriti, **estatu kolpea** eman zuten biak. Juan Kruz Igerabide

Fulgencio Batistak **estatu kolpea** jo zuen, martxoaren 1ean. Edorta Jimenez

Aitaren irratian, **estatu-kolpea** jo zuten biak salatzen zituen Mosku Irratiak, eta Barzani jenerala jotzen zuen herri kurduaren askatzaile.. Juan Kruz Igerabide

Faure Gnasingbe, lehengo Eyadema president zendu berriaren semea, batere bozik gabe, **estatu kolpe** bat eginez president sartua da. Herria

Napoleon Errusian zegoela profitatuz, Malet **jeneralak estatu** -kolpe bat saiatu zuen. Koldo Izagirre

Gasteizen ez zen ia gerrarik izan, militarrak **estatu-kolpearen** alde agertu ziren hasieratik. Mikel Hernandez Abaitua

Primo de Riveraren **estatu-kolpearen** ondoren ez zuten jendea multzoka fusilatu, ezta Sanjurjorena gertatu zenean ere. Mikel Hernandez Abaitua

## 9a *haize kolpe* haize bolada. ik **ufada**.

**Haize kolpe** batek kandela itzaltzen duen bezala. Josu Zabaleta

**Haize-kolpe** batek burutik kapela kendu eta belazeraino eraman zion, hartxintxarrezko bidean barrena. Anton Garikano

Bat-bateko **haize-kolpe** batek azpikoz gora jartzen du aterkia; autorantz doaz elkarrekin lasterka, baldarki. Oskar Arana

**Haize kolpe** batekin airatu da Hendaian *Moby Docks* izeneko muble edo altzari saltegiko teilatua. Herria

Ahotsa, izan ere, haize-putzaldi baten antzekoa da, entzumenaren bitartez atzematen den **haize-kolpea** . Santiago Iruretagoiena

Zenbaitetan, **haize kolpe** ikaragarri baten eraginez, baso osoa etzaten zen alde berera, oinazezko intziri batez. Josu Zabaleta

Estalkia sendo loturik egon ezean, tarantasa lehenengo **haize kolpean** gelditukо zen aterperik gabe.· Nahastuta gogoa nola izaten baitu gela itxi batean luzaroan egon ondoren irten eta haize bortitz eta krudelaren erasoarekin zorabiatzen denak, errealitatearen **haize kolpearekin** alegia. Karlos Zabala

## 10 *kako-kolpe* (boxeoan)

Bere pisu guztia atearen kontra bota zuen irteteko, baina ia berehala jo eta atzera bota zuen, Harryren altzora, beste adar batek emandako **kako** -kolpe maltzur batek. Iñaki

Mendiguren

## 11 ***kolpe batean*** *adlag* kolpe batez.

Luisa **kolpe batean** zutitu zen bere ohetik. Jon Maia

Nik **kolpe batean** gerritik heldu eta airean zintzilik jarri dut, eta garrasika hasi naiz: "Egin korri, salbatu ahal baduzue!". Bernardo Atxaga

**Kolpe batean** jaten dut lehendabiziko ogi txigortua. Anjel Lertxundi

Ehun eta berrogeita hamar puntu galdu **kolpe batean**. Iñaki Mendiguren

Mila errublo gastatzen dititzek **kolpe batean**. Jose Morales

Istant bat gabe hilerriko lau langileek -"bat, bi, hiru!"- horma-hilobiraino goititu zuten **kolpe batean**. Aingeru Epaltza

Farlopa, esan zuen Pikutak, mozkin ederrekoa duk; **kolpe batean,** lau bost kilo ekarri, bizimodu ederra. Pablo Sastre

Ezpain-harro, soin ederrekoa, barratik baso txikiari heldu eta **kolpe batean** hustu zuen. Pablo Sastre

Buruargitasuna, aizu, zergatik ez? esate baterako, Zé Luisen potentziala deskubritu nuen **kolpe batean,** ziplo. Karlos Zabala

Halatan da heriotzaren besoetaratu, gozo-gozo nahiz **kolpe batean,** heriotza naturalez edo eznaturalez. Iñaki Segurola

· Atxikoria-hondarra **kolpe** bakar batean eztarriratu, eta lasterka joan nintzen logelara. Inazio Mujika Iraola

## 12 ***kolpe batez*** *adlag* behingoan.

**Kolpe batez** itzuli, eta ikusi gosez begira ari zitzaion izakari beldurgarri bat sumatu zuen. Josu Zabaleta

Norbait jaitsi eta atea **kolpe batez** ixten du. Koro Navarro

**Kolpe batez** hustu zuen basoerdia. Unai Iturriaga

-Bai -aho barneko guztia **kolpe batez** irentsita-. Aingeru Epaltza

Ura eman diot, eta **kolpe batez** edan du. Javi Cillero

**Kolpe batez** erantzi dut maskara, eta aire ona arnasestuka hartu. Mirentxu Larrañaga

Sailkatzaileek galtzak bete lan zuten; pilen gainetik saltoka, saskiak hartu, **kolpe batez** lastoa kendu, hustu eta bota egiten zituzten bizi. Karlos Zabala

Zernahi gisaz nabari da eliza hau ez dela **kolpe batez** egina, baina mendez mende ekarriak izan zaizkiola haunditze, aldatze eta berritze frango. Michel Oronoz

Ipurdia malgutu egin zaio eta, **kolpe batez,** irentsi du zakil osoa, potroek aluarekin talka egin dutelarik. Juan Martin Elexpuru

· Bertan Franceville **kolpe** bakar batez erabat suntsitzeko arma fabrikatu dute. Karlos Zabala

## 13 ***kolpe-leungailu*** *(orobat* ***kolpeleungailu****)* kolpe motelgailua.

**Kolpe-leungailuak** atzeko argiekin bat, lohi-babesak elkar marruskatuz, motoreak marruka, ihes-tutuak ketan. Lopez de Arana

Errebuelta itxia eginez sartu da zubi erdiraino, **kolpe-leungailu** baxuak eta gurpil zabalek lagunduta. Urtzi Urrutikoetxea

Trabeska gelditu zen Volvoaren aurrean, **kolpeleungailutik** metro erdia baino gutiagora, zoruak zauri gurpiletako kautxoari. Aingeru Epaltza

## 14 ***kolpea/kolpeak huts egin***

Baina, istilu hartako zalapartagatik, **huts egin** zuen **kolpea**. Elizen arteko biblia

**Huts egindako** kolpeak dira horiek, ordea. Josu Zabaleta

· Baina, lehenengoan bezala, bigarrenean ere huts egin du **kolpeak**. Karlos Zabala

## 15 ***kolperik ez jo***

Ez **jo kolperik**, zure enplegatzaileak kontratu on bat duenean. Xabier Olarra

Ez dut **kolperik jo** lanean. Mirentxu Larrañaga

Eskolan ez duzu **kolperik jotzen**, kalera bota zaituzte. Jesus Mari Mendizabal

· Ez nuen **kolpe** zorririk **jotzen** egun osoan. Jesus Mari Mendizabal

**Kolpe** zorririk ez **jotzen** ohituta, ikaragarria iruditu zitzaion detektibeak esandakoa-. Migel Angel Mintegi

Espainia, funtsean, Indietarik eta Ameriketarik **kolperik jo** gabe elikatu den kapareen herria da. Koldo Izagirre

## 16 ***lehen begi kolpean***

**Lehen begi kolpean** ikusi nuen hori -esan zuen etxekoandreak. Juan Kruz Igerabide

Aise uler dezaket emakumeei hain erakargarri gertatzea... **lehen begi-kolpean**. Mirentxu Larrañaga

Jendetza izan zen, bada, **lehen begi-kolpean** zeharo harritu ninduena. Anjel Lertxundi

Iduri luke, **lehen begi kolpean,** erran nahi duela herri bat zubirik gabekoa... egia besterik da. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gainera, bertzeetan ez bezala, sormenak bere lekua du, behaketen ondoan ez baita lana bukatu: menpekoen keinu edo hitz bakoitzean irakurtzen jakin behar da, **lehen begi kolpean** atzeman ez daitekeenaren erranahi sakonaren bila. Aingeru Epaltza

## 17 ***lehen kolpean*** lehen saioan.

Giltza **lehen kolpean** sartu nuen zulottoan. Aingeru Epaltza

Baina liburuko pasarte guztiak ez ziren **lehen kolpean** idatzi. Berria - Kultura

Hazparnen berean, Beñat Inchausperi kintze bat eskastu zaio, **lehen kolpean** partidaren eremaiteko. Herria

Eszena gainean **lehen kolpean** ikusten duguna nahiko txundigarria da. Berria - Kultura

Baina nik **lehen kolpean** hautatu nuen nire mutila. Anjel Lertxundi

Irakurleak aipua **lehen kolpean** identifika dezan, letra etzana erabil dezakezu. Askoren artean

Horrela hasten denean ezin izaten diot **lehen kolpean** igarri benetan ari den edo adar joka. Jokin Urain

**Lehen kolpean,** gure gustu modernoetara ez da hain ongi egokitzen. Askoren artean

Ez da **lehen kolpean** iruditu zitzaion bezain garaia. Jon Alonso

## 18 ***zigor kolpe*** errugbian, gaztigu ostikoa.

Griffithsek **zigor kolpe** jaurtiketa gauzatu zuen.

Bi **zigor kolpe** zelai erditik gauzatu zituen. Berria - Kirola

Entsegu bat, transformaketa bat eta bost **zigor kolpe**. Berria - Kirola

Hamar aitzin pase eta hamalau zigor **kolpe egin** ditugu, eta hori gehiegi da. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**aizkora kolpe** (6); **arrasta kolpe** (6); **ate kolpe** (8); **ate kolpe bat** (6); **begi kolpe** (26); **begi kolpe batez** (13); **beste kolpe** (31); **beste kolpe bat** (18); **bi zigor kolpe** (36); **efektu kolpe** (5); **emandako kolpe** (7); **esku kolpe** (6); **estadu kolpe** (5); **estatu kolpe** (107); **estatu kolpe bat** (29); **estatu kolpe saio** (8); **estatu kolpe saioa** (11); **estatu kolpe saioaren** (8); **ezpata kolpe** (6); **haize kolpe** (17); **haize kolpe batek** (7); **hartutako kolpe** (9); **hatz kolpe** (5); **itsas kolpe** (6); **itsas kolpe batek** (5); **jasotako kolpe** (8); **klaxon kolpe** (6); **kolpe arin** (6); **kolpe bakar** (19); **kolpe bakar batez** (13); **kolpe bakarra** (5); **kolpe bakarrean** (9); **kolpe bat eman** (44); **kolpe bat emanez** (8); **kolpe bat ematen** (6); **kolpe bat entzun** (9); **kolpe bat hartu** (11); **kolpe bat izan** (9); **kolpe bat jaso** (5); **kolpe bat jo** (7); **kolpe batean** (37); **kolpe baten** (33); **kolpe baten ondorioz** (12); **kolpe batetik** (6); **kolpe batez** (146); **kolpe batez itxi** (7); **kolpe bati** (5); **kolpe bizia** (6); **kolpe bortitz** (13); **kolpe bortitza** (12); **kolpe bortitzak** (7); **kolpe bortitzez** (6); **kolpe ederra** (5); **kolpe egin** (6); **kolpe eman** (12); **kolpe erabakigarria** (5); **kolpe freskoa** (6); **kolpe gogor** (14); **kolpe gogor bat** (6); **kolpe gogorra** (78); **kolpe gogorra da** (6); **kolpe gogorra hartu** (9); **kolpe gogorra izan** (32); **kolpe gogorra jaso** (8); **kolpe gogorrak** (8); **kolpe handi** (30); **kolpe handi bat** (10); **kolpe handi samarra** (15); **kolpe handia** (88); **kolpe handia du** (5); **kolpe handia hartu** (16); **kolpe handia izan** (20); **kolpe handia izango** (6); **kolpe handia jaso** (5); **kolpe hotsak** (5); **kolpe itzela** (6); **kolpe izugarri** (9); **kolpe izugarri bat** (8); **kolpe izugarria** (12); **kolpe latz** (7); **kolpe latza** (63); **kolpe latza hartu** (5); **kolpe latza izan** (26); **kolpe latza jaso** (7); **kolpe lehor** (21); **kolpe lehor batez** (5); **kolpe leun** (6); **kolpe militarra** (6); **kolpe oso gogorra** (8); **kolpe saio** (8); **kolpe saioa** (14); **kolpe saioa egin** (6); **kolpe saioak** (6); **kolpe saioaren** (8); **kolpe txar** (7); **kolpe txiki** (18); **kolpe txiki bat** (11); **kolpe txikiak** (10); **kolpe tzar** (5); **kolpe ugari** (14); **kolpe zakar** (6); **kolpe zorrik** (5); **kolpe zorririk** (9); **kolpe zorririk jo** (8); **lantza kolpe** (5); **lau zigor kolpe** (21); **lehen kolpe** (5); **odol kolpe** (7); **pedal kolpe** (28); **zigor kolpe** (305); **zigor kolpe bat** (40); **zigor kolpe jaurtiketa** (164)

**aizkora kolpea** (5); **aurkako estatu kolpea** (5); **azken kolpea eman** (7); **behin betiko kolpea** (9); **estatu kolpea** (104); **estatu kolpea eman** (27); **estatu kolpea izan** (5); **estatu**

kolpea jo (10); hartu zuen kolpea (12); hartutako kolpea (9); kolpea egin (7); kolpea eman (79); kolpea emateko (6); kolpea ematen (18); kolpea hartu (29); kolpea hartu zuen (12); kolpea hartuta (5); kolpea izan (24); kolpea izan da (5); kolpea izan zen (10); kolpea jaso (12); kolpea jaso zuen (11); kolpea jo (35); kolpea jotzeko (6); kolpea jotzen (5); sekulako kolpea (13); zigor kolpea (51); zigor kolpea gauzatuta (6)

buruan kolpeak eman (5); emandako kolpeak (5); estatu kolpeak (8); hartutako kolpeak (5); kolpeak eman (33); kolpeak emanez (7); kolpeak ematen (25); kolpeak entzun (8); kolpeak eragin (5); kolpeak hartu (5); kolpeak jaso (11); kolpeak jotzen (6); zigor kolpeak (9)

atea kolpean zabaldu (8); begi kolpean (19); estatu kolpean (14); kolpean itxi (10); kolpean parte hartu (6); kolpean zabaldu (15); kolpean zabaldu zen (11); lehen begi kolpean (16); lehen kolpean (23)

estatu kolpearen (38); kolpearen eraginez (5); kolpearen ondoren (9); kolpearen ondorioz (61)

emandako kolpeen (5); hartutako kolpeen (5); jasotako kolpeen (12); jasotako kolpeen ondorioz (8); kolpeen eraginez (8); kolpeen ondorioz (31)

kolperik eman (5); kolperik handiena (5); kolperik jo (5)

estatu kolpetzat jo (5); kolpetzat jo (7)

kolpez egin (5); kolpez hil (16); kolpez hil da (8); kolpez kolpe (16)

---

# **kolpeka** 1 *adlag* kolpeak joaz.

Etsaiak **kolpeka** ari ziren, parkeko argi zurbailaz baliatuz are indartsuago ekiteko. Itxaro Borda

Aulkitik lurrera bota, eta ostikoka eta **kolpeka** hasi zitzaigun. Rafa Egiguren

Horrela eduki ninduten puxka batean, kale jantzian zegoen norbait bizkarretik heldu eta **kolpeka** hasi zitzaidan arte. Jokin Urain

Ezker-eskuin **kolpeka** eta ostikoka zebilen. Anton Garikano

Esan gabe doa jende hark Bakbaka piura hartan ikusi zuenean, oihuka eta **kolpeka** hartu zuela, harik eta gizona zorabiatua jausi zen arte. Patxi Zubizarreta

Sakabirekin aritzen zenean bezala, bere ohitura bitxi harekin, erritmoa jarraitzeko zapatarekin mikroaren hankari **kolpeka**. Iñigo Aranbarri

Pobreziaren ateetan **kolpeka**. Itxaro Borda

Ororen gainetik odola kopetan **kolpeka** bezala. Itxaro Borda

**2** (dagokion izen baten eskuinean)

Umeteria hasi da ataga arakatzen, doi-doi jotzen, hasieran zuhur, gero zakar, eskalapoi-**kolpeka** eta. Itziar Otegi

Harrobi batean erail zuten mazo-**kolpeka**. Pello Zabala

Lasterkariak ikusten ziren, matraka **kolpeka** lurrean errendituak, kopetan behera odola zeriotenak. Itxaro Borda

Billy Jonesek uso bat pala **kolpeka** nola hiltzen zuen ikusi nuen. Koro Navarro

Gaztategietako kobrezko galdarak aizkora-**kolpeka** apurtuz. Koldo Biguri

• **3** *iz* kolpe errepikatua.

Une batez, Pierrak, hortzen martzilika, zintzurren irenste hotsa eta euriaren **kolpeka** baino ez zituen entzun. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

buruan kolpeka (3); kolpeka ari (5); kolpeka atera (3); kolpeka bezala (4); kolpeka egiten (3); kolpeka hartu (4); kolpeka hasi (20); kolpeka hasi zen (4); kolpeka hasi ziren (4); kolpeka hasiko (5); kolpeka hil (3); segi kolpeka (5)

elkor eta kolpekatua (8)

---

# **kolpekaldi** *(orobat **kolpeka aldi**) iz* kolpekatzea.

Dakiguna da gauzak gaizki itzulikatu direla eta **kolpekaldi** ederrik izan dela. Herria

Konfiantza ematen baldin badiguzue, salbatuko zaituztegu eta futxo, harri berdinarekin **kolpeka aldi** berean euskara ere salbatuko dizuegu. Itxaro Borda

---

# **kolpekari** 1 *izond* kolpekatzen duena.

Ez zen hain gizon handia ere, baina haren altzairuzko begiek barne-muineraino zulatzen gintuzten, eta haren ahots-marruma **kolpekariak** ikaratu egiten gintuen. Mirentxu Larrañaga

Furgona berri honen motor isila berrehun zaldiko bou zaharrarena bezain **kolpekaria** bilakatu da, dardara batean jarri da karrozeria osoa. Koldo Izagirre

• **2** *iz* su arma batzuetan, balaren zorroa kolpekatzen duen gailua.

Hurrengo egunetan, ezkutuan, pistola garbitzen eta koipeztatzen aritu nintzen; katua eta **kolpekaria** ongi zebiltzan. Juan Kruz Igerabide

Conradek **kolpekaria** atzeraka erakarri zuen eskuin eskuko hatz lodiarekin. Aritz Gorrotxategi

Hartarako armaren **kolpekaria** atzera eraman zuen. Migel Angel Mintegi

**Pistolaren** errekamara eta kolpekaria zuzen zebiltzala egiaztatu zuen. Aritz Gorrotxategi

-Eskuak altxatzeko erran dizuet! -agindu nien, **kolpekaria** altxatuz. Alberto Ladron Arana

---

# **kolpekatu**, kolpeka(tu), kolpekatzen **1** du *ad* kolpeak jo.

Arrain azokan, Méhudin zaharra, berriz bere postuaren jabe, arrainak **kolpekatzen** zituen. Karlos Zabala

Ibaian behera zetozen izotzek **kolpekatzen** zuten, sakatzen zuten oztopoaren kontra eta erabat ibilgetzen, itsasoko uharri batean hondoa jo izan balu bezala. Karlos Zabala

Bere lanbideaz aparte beste ezer ez zitzaion interesatzen; auskultatzea edo **kolpekatzea,** gernua edo kerrua aztertzea ez zen guztia [...] ezertarako ez ziren kontuak ziren harentzat. Josu Zabaleta

**Kolpekatzean** opakotasun apur bat aurkitu zuen eskuineko birikaren erpinean. Josu Zabaleta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Olde oihutsuak karrikan pasatzen zen aleman armadaren urrats **kolpekatuei** gehitu ziren. Itxaro Borda

Ez dut zure hatsartze elkor eta **kolpekatua** gehiago aditzen: nahi ote duzu medikua dei dezadan? Itxaro Borda

---

# kolpeleungailu ik **kolpe 12**.

---

**kolpeño** *iz* kolpetxoa.

Egun, gaineratikoetan sartu gabe, begi **kolpeño** bat emanen dugu zoin diren gisa hortan sartzekoak diren hamar herrialdeak eta zonbat jende duten... Herria

Gertatu dena da azken hogoi bat urte hotan, gisa hortako bozetan jendearen parte hartzea beti beheiti zoala eta hor beheititze horri eman zaiola arrasta **kolpeño** bat... Herria

## kolpeondo *iz*

**Kolpeondoa** . Aingeru Epaltza

---

## kolpetxo 1 *iz* kolpe txikia.

Bi **kolpetxo** entzun ziren atean. Lopez de Arana

Sorbaldan eman zidaten **kolpetxo** batek atera ninduen neure baitatik. Anjel Lertxundi

**Kolpetxo** suspergarri batzuk eman zizkion buruan. Jose Morales

-Aurrera, ba! -oihu egin zion Hagridek, **kolpetxoak** emanez hipogrifoaren atzealdean. Iñaki Mendiguren

Ponyari muturrean **kolpetxo** batzuk jo eta azukrea eman zion-. Koro Navarro

**Kolpetxo** batzuk jo zizkion oheari. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Miretsirik nengoen neure dedukzio-ahalmen ikaragarriarekin, beste ni bat izan ledin nahi nuen, neure buruari soinburuan onespen-**kolpetxoak** emateko. Oskar Arana

Noizean behin, mailu **kolpetxoak** eten eta eskua pasatzen zuen gainazaletik, txirbil arrastoak kentzeko. Iñaki Iñurrieta

Une hori harrapatzea da kontua: nola bere zizel-**kolpetxoez** diharduen, inguratzen duen jendeaz ohartu gabe. Iñaki Iñurrieta

Ikusmenaren kirioen hutsegite bat izan zen, eta kito, odol **kolpetxoren** bat agian. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kolpetxo bat eman** (15); **kolpetxo bat jo** (5); **kolpetxo batez** (3); **kolpetxo batzuk** (21); **kolpetxo batzuk eman** (5); **kolpetxo batzuk jo** (7)
> **kolpetxoak eman** (22); **kolpetxoak eman zizkion** (10); **kolpetxoak emanez** (16); **kolpetxoak ematen** (9); **kolpetxoak jotzen** (9)

---

## kolpetzar *iz adkor* kolpe handia.

Ezpata haranzkoan baztertu ez balitzaio, **kolpetzar** hura aski izango zen borroka zital hura bere hartan amaitzeko. Patxi Ezkiaga

Baina nik ez ditut gogozko **kolpetzar** haiek, nire aitak hain maite dituenak, zaldunen minbera hitzak baizik, urrutitik beren andereei esaten dizkietenak. Patxi Ezkiaga

---

## kolpezale *izond* kolpeen zalea dena.

Gozo iritzi zion, ederra, bere bizimodu bakarti eta **kolpezalea** baino humanoagoa. Paddy Rekalde

Nahiz, egia esango badut, aurreko asteetako gertakarien ilara ikusirik, Espainia bezalako estatu **kolpezale** batean, arestian aipatua dudanez, Tejero koronela horren harrigarri ez izan. Txillardegi

---

## kolpismo *iz* herrialde bateko gobernuera estatu kolpearen bidez aldatzeko joera politikoa.

**Kolpismo** judizialaren ondoan, militarrena txantxa hutsa da. Berria - Mundua

**Kolpismoaren** apologia da eta uko egiten die oinarri demokratikoei. Berria - Mundua

Herri venezuelarraren gaurko garaipen handia indarkeriaren, **kolpismoaren** eta faxismoaren aurkakoa izan da. Berria - Mundua

---

## kolpista *izond/iz* estatu kolpe bat ematen edo sustengatzen duena.

Bitxia izan zen prestigioaren labela duten Espainiako zenbait kazetak Carmona presidente **kolpistari** eman zioten ongietorria. Txema Ramirez de la Piscina

2002ko apirilaren 11ko kolpea saiatu zuten sektore **kolpista** eta terrorista ber-berak.

Friendless delakoaren txostenek usteltzat ez ezik **kolpistatzat** ere jo izan dute Benitez jenerala. Edorta Jimenez

Benetan ari badira, **kolpista** horiek etor daitezela hona! Juan Kruz Igerabide

Dozena bat **kolpista** atxilotuak izan direla. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kolpistei egotzi** (3)

---

## kolpo *iz* hurrupa.

Eleka egon ziren, **kolpo** bat edan zuten eta sarrera nagusirantz abiatu emeki emeki. Itxaro Borda

-Ni ere bai, azpimarratu zuen Danek indarrez, guztiak ostatura adiskidantza **kolpo** baten partekatzera gonbidatuz. Itxaro Borda

---

## kolposkopia *iz* baginaren azterketa.

Begiekin egiten duten azterketan ikusten badute kozkorren bat, kolorea aldatua duen guneren bat edo beste edozer, **kolposkopia** egiten dute. Luis Elberdin

Zitologia eta **kolposkopia** ez direla mingarriak. Luis Elberdin

-Ni ere bai, azpimarratu zuen Danek indarrez, guztiak ostatura adiskidantza **kolpo** baten partekatzera gonbidatuz. Itxaro Borda

---

## koltan *iz* mineral gris ilun metalikoa, kolunbioaren eta tantalioaren meen nahastea dena.

**Koltanaren** borroka. Berria - Mundua

Bayer taldeko enpresa da, besteak beste, bertako **koltan** erosle nagusia. Berria - Mundua

---

## koltxa *iz* ohe estalkia, ohazala.

**Koltxa** berde bat ohe handian. Koldo Izagirre

Gizona neskaren potxotxa jotzen hasi da bere barrabilekin, eta honek hasperen dagi, **koltxari** oratzen dio, eta zin egingo nuke korritu egin dela. Juan Martin Elexpuru

---

## koltxoi *iz* lastaira.

Zementuzko ohearen gaineko **koltxoi** gogorrean etzanda zaude. Rafa Egiguren

Artilezko **koltxoi** bigunen gainean. Rafa Egiguren

Hormazarraren kontra, espumazko **koltxoiak** pilatzen ari ziren bi mutili. Pablo Sastre

Ohe-estalkia kendu zuen **koltxoia** erakusteko. Joseba Urteaga

**Koltxoia** azalik gabe zegoen, eta maindire marradunak chiffonierraren gainean zeuden, bi burkoren ondoan. Koro Navarro

**Koltxoi** bat eta somierra ere utzi dizkit. Harkaitz Cano

Kandela izango duzu, baita oheko **koltxoia** saldu behar badut ere. Koldo Biguri

**Koltxoi** modura manta zahar batzuk jarri zituen azpian. Jon Maia

Aurrez aurre biak, bizkarra paretari emanda, lurrean botatako **koltxoi** banaren gainean. Iñaki Iñurrieta

Pilatzen ari nintzen dirua, ordurako mordoxka, **koltxoi**-zulo batean sartu eta aurrera. Xabier Mendiguren Elizegi

Soseguz narama, musukatzeari utzi gabe, bere ariketa- **koltxoiraino**. Juan Martin Elexpuru

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> koltxoi bat erosteko (3)
> lastozko koltxoia (3)

---

## koltxoneria *iz* lastaira denda.

Hori beste behin Irulegiren **koltxonerian** edredoiak osten harrapatu zitean. Pablo Sastre

---

## koltxonero *iz* lastairagilea.

Gaur egun, batez ere ikus-entzuneko komunikabideak aditu eta Eibarreko jokalariak armeroak dira, Real Madrilekoak merengeak edo zuriak, Athleticekoak lehoiak, Atletico Madrilekoak **koltxoneroak,** Osasunakoak gorritxoak eta horrela etengabe. Berria - Kirola

---

## koltxoneta *iz* lastaira mehea eta estua.

Hainbat denbora geroago lastaira ireki zuen, artilea harrotzeko asmoz, eta han aurkitu zuen etxekoek bidalitako eskutitza ere, eta ohartxo bat azalean idatzia: **"koltxonetaren** barnean doa eskutitza". Jokin Urain

**Koltxonetan** etzanda, eskuak garondoan, goiko leihora begira zaude argia noiz egingo. bekain bat ireki zitzaion Koldori **koltxonetaren** azpiko zementuaren aurkako kolpearekin. Rafa Egiguren

Bi **koltxoneta** elkarren gainean jarrita. Josu Zabaleta

---

## koltza *(orobat **kolza** g.er.)* **1** *iz* olio-arbia.

Landare olioa egiten du, ekilore edo **kolzatik** abiatuz, hori bera botatzen dio bere autoko motorrari. Herria

Hurrengo udaberrian, Gaitzaren espirituaren lurralde guztiak bete-beterik zeuden gari lodiz, ezkila dorreak ziruditen olo gizenez, lihoz, **koltza** ederrez, hirusta gorriz, ilarrez, azaz, orburuz, bihitan edo fruitutan eguzkitara ontzen den guztiaz. Josu Zabaleta

Behar bezain asegarri dira **koltzazko** elikagaiak. Edorta Agirre

Egun gehien landatzen diren landare transgenikoak artoa, soja, **koltza** eta kotoia dira. Berria - Gaiak

Europako Batasunak lehenbailehen onartu nahi dituen transgenikoen artean GT73 **koltza** eta MON 863 artoa daude. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Koltza** olioaren garaia zen hura, hegazti gripearena hau. Berria - Ekonomia

**Koltza** landaketa transgenikoak eta arruntak konparatu dituzte lau urtean. Berria - Harian

Herbizida indartsuagoak jasan ahal izateko dago eraldatua **koltza** mota hori. Berria - Harian

Estatu Batuetako arto, soja eta **koltza** soroetan. Berria - Gaiak

Jatorriz transgenikoak ez diren arto-hazien %50etan ADN transgenikoa aurkitu zuten; berdin soja hazien %50etan eta **koltza**-hazien %100etan. Berria - Gaiak

---

## kolumna *(orobat **kolona** g.er.)* **1** *iz* soldaduek edo gerra orgek osaturiko ilara.

Hantxe topatu genuen *El Campesino*ren **kolumna**. Edorta Jimenez

Faxisten lehen **kolumna**. Edorta Jimenez

Noranzko bidea aukeratu behar du **kolona** blindatuak etsaiaren atzealdeari erasotzeko? ez daki zer erantzun. Josu Zabaleta

Ernest Hemingwayk ez daki *El Campesino* haren **kolumnakoen** artean euskal jatorriko Pako Garai kubatar internazionalista zela. Edorta Jimenez

**2** ***bosgarren kolumna*** gerran dagoen herrialde batean, isilean eta ezkutuan etsaiaren alde aritzen den talde egituratua.

Ikusi ez beharreko zerbait ikusiak ginen, edo jakile ginela usteko zuten, Mola jeneralaren bosgarren **kolumna** ziren, tiroketa eta atakada saioak egitera isilean etorriak. Koldo Izagirre

Ba, enbaxadako ganbara batean irrati-aparailu bat topatu dutela, bosgarren **kolumnakoek** erabiltzen izan duten aparailua; baina irratiko espikerrik ez dutela topatu, hegan egin duelako. Edorta Jimenez

Felipe II.aren bosgarren **kolumna**. Koldo Izagirre

---

## kolumnata *iz*

Pariseko gure Saint Louis karrikako Sakramendu Sainduko Saint-Denis **kolumnata**. Koldo Izagirre

---

## kolumnista

**1** ***bosgarren kolumnista*** *iz* bosgarren kolumnako kide den persona.

Gerran parte hartuko luketen indar armatuak eratzea eskatzen dute, eta horrekin batera bosgarren **kolumnistak** [...] horiek erbestera egoztea edota preso-eremuetan sartzea galdatzen dute. Edorta Jimenez

Eskema nagusia Habanan kontrainteligentzia erakundea atontzea zen, horren bidez Kuban ziri-ziri sartzen ziharduten naziak eta bosgarren **kolumnistak** ehizatzeko.

Edorta Jimenez

---

**kolunbario** *iz* errauts kutxak gordetzeko horma hobiak biltzen dituen eraikuntza.

-Arestian erakutsi diadan hilobia, nire irakasleak erakutsi zidana, ez duk Arkimedesen hilobia, erromatar **kolunbario** gisako bat baizik. Jon Muñoz

---

kolunbiar ik **kolonbiar**.

---

**kolunpiatu,** kolunpia, kolunpiatzen da *ad* kulunkatu.

Koral gorriekiko lepokoa daramala, gurdiaren pertikan jarrita, **kolunpiatu** egiten da. Pablo Sastre

---

**kolunpio** *iz* zabua.

Hantxe nago ni, urte eta erdirekin, **kolunpio** batetik zintzilik. Iban Zaldua

Segituan antzematen zaio amari noiz den umea **kolunpioan** esertzen duen lehendabiziko eguna. Arantxa Iturbe

Gune hesitu bat ere bazuen, zoragarria, gimnastikarako zelai, pista, igerileku, haurrentzako jostaleku eta guzti, eta azken hau, gainera, karrusel, **kolunpio** eta abarrekin. Koldo Biguri

Haurrentzako **kolunpioak**. Jon Alonso

---

kolza ik **koltza**.

---

**koma**[1] **1** *iz* ortografia marka (,), geldialdi laburrak adierazteko erabiltzen dena.

**Komak** eta harridura markak. Iñigo Aranbarri

Egileak bi badira, bi izenen artean **koma** jarri ohi da. Askoren artean

Pentsatu ere, ordena barik pentsatzen zuen, **koma** askorekin, esaldi etenekin, esaldi laburrenekin edo luzeegiekin. Unai Elorriaga

Bere garaian eginiko testigantzaren **«koma** bat bera ere» ez zuela aldatuko erantsi zuen. Berria - Euskal Herria

Ez dute euren proposamenaren **koma** bat ere aldatu nahi. Berria - Harian

**2** zifretako marka, koma ortografikoa bezalakoa, kopuruetan osoen eta dezimalen arteko bereizketa seinalatzeko erabiltzen dena.

Bederatzi mila ehun eta hamahiru, **koma** hogeita sei, kopuru zehatza nahi baduzu. Xabier Olarra

Sukarra neurtu eta hogeita hamazazpi **koma** lau zuen. Fernando Rey

Ez dago txartel bakar bat, **koma** bakar bat, xentimo bat falta denik... eta nik lasai lo egin dezaket, Dave. Xabier Olarra

**3** ***puntu eta koma*** ortografia marka (;), komaren eta puntuaren arteko geldialdi bat adierazteko erabiltzen dena

Nolanahi ere, oso lagungarria da gainerako puntuazio markak ere egoki erabiltzea: puntu eta **koma,** bi puntuak, marra luzeak eta abar. Iñigo Aranbarri

Gauza guztiek behar dute puntu eta **koma** bat ezartzea noizbait. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hamazazpi koma lau** (4); **puntu eta koma** (10)

---

**koma**[2] **1** *iz* osasun egoera larria, gorputzaren funtzio gehienak galtzen direnean sortua.

Xoka du orain, baina **koma** moduren bat ere izan daiteke. Koro Navarro

Birus-aren xitatzeak bizpahiru aste irauten zuen; gero sukar bat gaixtoa, eta **koma** 8/9 egunez. Marzel Etxehandi

1950eko azaroan, Harlemgo kale batean atzeman zuten, **koman**. Pablo Sastre

Itsu bihurtu zen ia; perlesiak zangoak hartu, arnasa ia gelditu, eta **koman** sartu zen hamar egunen buruan. Xabier Olarra

Astebete **koman** pasa ondoren, bertan hil zen gajoa. Josetxo Azkona

**2** (izenondoekin)

**Koma** etilikoaren lausoak jota eraman zuten erietxera, eta han hil zen. Anjel Lertxundi

Haren ondoan egon nintzen, bizia salbatu nahian, arnasa hartzen lagunduko zion **koma** artifizial batean murgilaraziko zuten aurretik. Joxan Elosegi

Jokin Gorostidi **koma** sakonean dago, oso larri, Donostia ospitalean, arnas makina bati lotuta. Berria - Euskal Herria

Gaur goizean **koma** sakonagoan sartu da. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi aste **koma** egoeran egonik doi-doia iratzarri Ttotte isilik zegoen. Itxaro Borda

Dena dela, atzo bertan **koma** egoeratik atera zen. Berria - Euskal Herria

Bera behiala **koma** egoerako zulo zuritik ihes egina zen, baina zulo beltzak beste zerbait ziren. Harkaitz Cano

Auzitegia **«koma** egoeran» dagoela dio Del Pontek. Berria - Mundua

Nire gorputz honek gogoan ditu izandako erorikoak, burezurrean izandako hausturak, **koma** aldi siropa bezain likatsuak, ospitalean emandako gauak. Josu Zabaleta

Diego Ugartek gose greba utzi du, **«koma** arriskuan» zegoelako. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eritasun barkagaitzaren hurrengo erasoaldiraino halako lo-**koma** batean amiltzen zen gero. Itxaro Borda

Oraindik lo **koman**. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koma egoeran** (32); **koma egoeran dago** (7); **koma egoeran sartu** (6); **koma egoeratik** (5); **koma egoeratik atera** (3); **koma sakonean** (5); **koma sakonean dago** (3)
> **koman da** (3); **koman dago** (6); **koman egon** (7); **koman geratu** (3); **koman geratu zen** (3); **koman sartu** (6); **koman sartu zen** (4)
> **komatik atera** (5)

---

**komadre** *iz* mari-berritsua.

Kotxezaleek euren bankuan jarrita zerbeza edaten zuten, gurdien azpian umemoko zarpailtsuak jolasten ziren, **komadre** lodiek elkarren hildakoak belzten zituzten aterik ate. Pablo Sastre

---

# komandante *(orobat* ***komandant*** *g.er.,* ***kommandant*** *g.er. eta* ***komenant*** *g.er.)* **1** *iz* batailoi baten burua.

Ongi, **komandante** jauna. Josu Zabaleta

Karabineroen batailoi bateko **komandante** aritu zen Bizkaian. Berria - Euskal Herria

Guardia Zibileko **komandanteak**. Berria - Harian

Trujillok zin egin zuen Blanco hiltzen zuena kapitain egingo zuela eta kapitaina bazen, **komandante** izendatuko zuela. Gotzon Garate

Afganistango Armadako **komandante** Khan Mohammedek adierazi zuenez, [...]. Berria - Mundua

Irango Guardia Iraultzaileko **komandante** jeneral bat. Berria - Mundua

Bera zen **komandante** guztien burua. Pako Aristi

Ratko Mladic **komandante** ohia epaitu arte. Berria - Mundua

Armadako bi **komandante** matxinoren tropek Bukavu hiria [...] hartu zutenean.

Orain **komandante** torturatzaile baten amorantea zela. Karlos Zabala

Izeta izeneko **komandante** karlista bat. Koro Navarro

Euzko Gudarosteko **komandante** bat. Juan Luis Zabala

**Komandante** ona zen, bazekien epeltasuna ematen heriotzari barre egin ahal izateko. Koldo Izagirre

**Komandantearen** bulegoa landetxe batean baitago jarria. Josu Zabaleta

· Bilboko Epaitegi Militarreko Instrukzioko epaile **komandanteak**. Rafa Egiguren

**2** hegazkin edo gerraontzi eskuadrilla bateko burua.

Polikarpov I-16 Nº 2 Ehiztari Eskuadrillakoa, Anton Kovalevski **komandantearen** gidaritzapean. Koldo Izagirre

Marinelik gabeko kapitain, **komandante** eta komodoroz jositako barkuak. Iñaki Heras

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Santiago anaia, berriz, ikasle izan arren, **Komandante** gradura iritsia zen, omen. Txillardegi

**Komandante** kargua lortu [zuen] erregerengandik Kid kapitainarentzat. Juan Garzia

**Komandante** mailara iritsi arte. Edorta Jimenez

**Komandante**-uniformea eta kordoi urre-koloreak zeramatzan, jeneralen laguntzaileen modukoak. Koro Navarro

Gerra garaiko Lauaxeta zen marrazkikoa, **komandante** jantzian eta betaurrekorik gabe. Juan Luis Zabala

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euzko Gudarosteko intendentzia **komandantea**. Juan Luis Zabala

Gure bloke-**komandanteak** lau urte zeramatzan hemen. Urtzi Urrutikoetxea

Ikerketa zerbitzuetako beste hiru polizia **komandante** bat eta bi agente tiroka hil zituzten Diala probintzian. Berria - Mundua

**5** gudari talde baten burua.

Alemaniarrek eta eslovakiarrek osatutako Alemaniako Armadako unitate bateko **komandante** gisa. Berria - Mundua

Honzík ingeniariaren ondoan konboi hartako **komandantea** zegoen, Austriako basozainen txanoa zeraman kapitain bat. Fernando Rey

Serbiako Poliziako Operazio Berezietarako Unitateen **komandante** zen Milorad Lukovic. Berria - Mundua

Beste **komandante** bat genuen konpainiako buru, Buckland lotinanta. Mirentxu Larrañaga

Destakamenduko burua *pendjabaschi* bat zen, berrogeita hamar soldaduren **komandante** bat, alegia, eta *deh-baschi* bat zuen laguntzaile, hamar soldaduren **komandante** soila. Karlos Zabala

**6** hegazkin edo kideko ontzi baten burua.

Izan ere, ISSren aurretikoa izan zen MIR Errusiako Espazio Estazioko **komandante** izan zen sei hilabetez. Berria - Gaiak

Gerrikoa lotzeko eskatu zien hegazkineko **komandanteak** bidaiariei. Jon Muñoz

**7** ***komandante nagusi***

**Komandante nagusiekin** batzartu zen jenerala hirugarren egunean. Xabier Aranburu

Joakin Elio Ezpeleta (1806-1876) militar nafarra bere probintziako karlisten **komandante nagusia** izan zen lehen karlistaldian. Koldo Izagirre

Errepublikaren historian [...] militarrak noizbait hezur eta arima euren **Komandante Nagusiarekin** baturik egon badira, herriarekin, hori gaur gertatzen da hemen, Venezuelako Errepublika Bolivartarrean. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alias komandantea** (10); **armadako komandante** (4); **gudarosteko komandante** (3); **komandante buru** (4); **komandante jauna** (18)
**oskotz komandantea** (4)
**alejo bilbao komandanteak** (3); **alias komandanteak** (3); **bilbao komandanteak** (3); **oskotz komandanteak** (7)
**alejo bilbao komandantearen** (3)

---

# komandanteburu *(orobat* ***komandante-buru****)* *iz* estatu bateko armada guztien burua.

Adierazi zuen bera ez zela Euzko Gudarosteko **komandanteburua**, hornidura arduradun soila baizik. Berria - Harian

Afrikako militar oilartu batzuk eta Iruñeko **komandante-buru** Mola jeneral faxistak Errepublikaren kontra jo zuten. Edorta Jimenez

Gurutzea ikur militarra da eta Kristo **komandante burua** (imperator). Iñaki Mendiguren

---

# komandanteorde *(orobat* ***komandante-orde*** *eta* ***komenant orde*** *g.er. )* *iz* komandantearen azpikoa.

EZLN Askapen Nazionaleko Armada Zapatistako **komandanteorde** Marcosek. Berria - Mundua

Zapatismoa, eta bereziki Marcos **komandanteordea,** poetika berri horren adierazle garbia da. Txema Ramirez de la Piscina

Euzko Gudaroste Sekretuaren sortzailea eta **komandanteordea** naiz. Koldo Izagirre

Eta **komandante-ordearen** erantzuna etorri da: konprenitzen duela pantomiman eskuartzeko gogorik ez edukitzea, tragedian parte hartzearekin aski dutela eta. Hasier Etxeberria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komandanteorde zapatistak** (4); **marcos komandanteorde** (4); **marcos komandanteorde zapatistak** (3)
**marcos komandanteordea** (6)

marcos komandanteordearen (4)

---

# komandantetza *iz* komandantzia.

Noski, nik guardia zibil baten kontrako salaketa bat jartzen badut epaitegian, eta epaileak **komandantetzari** horren berri ematen ez badio, hark ez du ezer jakingo, eta, beraz, ez du ezer egingo. Berria - Harian

---

# komandantur *(orobat **kommandantur**)* 1 *iz* alemaniarren komandantzia.

Erratekoa zen **komandanturrarekin** ere tratu onak bazituela, bestela ez zuen bere afera neholaz aitzina eramaten ahalko. Itxaro Borda

Janinak lau herritarren biziaz urrikaltzeko otoiztu zuen **komandanturreko** kapitaina. Itxaro Borda

Segituan jakinarazi zidaten **Kommandantur**-eko bilera batean hauxe esan zuela: [...]. Felipe Juaristi

**2** (egoitza)

**Komandanturreko** marmolezko eskaileretan aditzen ziren bere oski aztaldunen oiharrak. Itxaro Borda

Hendaiara ereman zituzten, geltokiaren aitzineko eraikin batean antolatua zuten aleman komisaldegira, **komandantur**-era. Eneko Bidegain

---

# komandantzia 1 *iz* komandantearen kargua.

EZLNko Isilpeko Batzorde Iraultzaile Indigenaren **Komandantzia** Nagusiak. Berria - Harian

**2** komandanteak bulegoa duen eraikina.

**Komandantziako** leihoak argituak zeuden beheko solairuan. Koldo Izagirre

**Komandantziako** lau eskailerak bajatzen hasi orduko. Unai Iturriaga

Kartzelatik atera eta Donostiako **komandantziara** eraman zuten. Rafa Egiguren

Lehenbailehen behar nindutela **komandantzian,** Manterolaren partetik. Koldo Izagirre

**Komandantzia** militarreko patioraino sartzen ziren furgoiak. Jokin Urain

Ez nekien zer nahiko zuten **komandantzian,** ni han zertarako. Koldo Izagirre

Guardia Zibilaren **komandantziatik** irtendakoan. Rafa Egiguren

**3** itsas komandantzia.

Bafore bat omen zetorren arribadan hildako batekin, **komandantziakoei** irratiz jakinarazi zietenez. Koldo Izagirre

Soldadutza lehorrean egin zuen, **komandantzian,** jeneral baten laguntzaile. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan)

**Komandantzia**-bulegoak, jendarmeria eta ikerketetan dihardut en beste agintari batzuk dauden lekuan. Urtzi Urrutikoetxea

**5** ***itsas komandantzia***

Espainiako Armadak Donostian duen Itsas **Komandantziaren** kontrako erasoa, berriz, gaueko 22:15ean izan zen. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

itsas komandantziako (3)

itsas komandantziaren (3)

---

# komandita

**1** ***komanditako*** *izlag* sozietateez mintzatuz, bazkideen zati batek negozioan duen interesa eta erantzukizuna zenbateko batera mugatuak dituena.

**Komanditako** sozietatea, nazioarteko kapitalez osatua askotan, nagusitu zen azkenean urrutiko merkataritzan. Koro Navarro

---

# komanditario *izond* sozietateez mintzatuz, komanditakoa.

Lehen Mundu Gerra bukatzean berriro anarkian desegina ageri zen Errusia, bitartean Japoniak onura neurrigabeak atera zituelarik Mendebaldeko koalizio garailean gutxi-asko bazkide **komanditarioa** zen aldetik. Iñaki Mendiguren

---

# komando *(orobat **kommando** g.er.)* 1 *iz* ekintzaileen talde armatua.

Frantziako Armadako **komando** batek ekologisten ontziko belak urratu zituen labanez. Berria - Gaiak

1999an Öcalan buruzagi kurdua atxilotu zuten turkiar **komandoek** Nairobin. Jon Arretxe

Hara-hona iheslari eta erresistente bila ibiltzen zen **komando** nazi ibiltari bateko buruzagi bat zen Otso. Anjel Lertxundi

Armada irakiarreko **komando** bat zegoen autoaren inguruan, armak guri begira. Juan Kruz Igerabide

Ekintzaile islamikoen **komando** batek. Berria - Mundua

Gau batez **komando** ezberdinen artean banatu zen dinamita, ekintza berriak planifikatuz. Itxaro Borda

ETAko **komandoei** mezuak helarazteko. Berria - Euskal Herria

Tiroketa bat izan zela, halako tokitan, Ertzaintzaren eta ETAko **komando** baten artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehergailuak hiru lagunez osatutako **komando** ibiltari batek jarriak dira. Berria - Euskal Herria

**Komando** berezi mugikorrago, txikiago eta eraginkorragoak. Berria - Harian

Antena errepikagailuetan hainbat bonba jarri zituen **komando** bateko kidea zela. Alberto Barandiaren

*ik* komandokide.

**Komandoa** atxilotu ondoren, polizien itaunketa maleta baten inguruan da. Berria - Kultura

Tankeak, morteroak, lehorreratzeak, aire-bonbardaketak, **komandoen** segadak... Iban Zaldua

Sarekada honetarik ere Ildo **komando** osoa salbatu zen. Itxaro Borda

**2** *ipar* bigarren Mundu Gerrako kontzentrazio esparru batean, egiteko jakin bat zuen taldea.

Dotzena bat egun hartan kanpalekuan egiten nuen lan, lantegietara edo **komandoetara** joan aitzin. Marzel Etxehandi

Presoak **komandoetara** izendatzen dituen bulegoko buruzagia txekiar bat dela. Marzel Etxehandi

Dachau-ra igortzen zituzten deportatu taldeen artean -aliatuek hartua ez zuten leku bakarra baitzen- frantses **komando** ttipi bat jin zen, eta gure ondoan ziren block 24ean.

Marzel Etxehandi

Kanpalekuko guardien **komandoan** zen Luxembourgotar bat. Marzel Etxehandi

Bavariako deputatua tallurren **komandoko** buruzagi-ordea da. Marzel Etxehandi

Michelet jauna garbiketa **komando** batean. Marzel Etxehandi

**Komando** 624erat izendatzen nute, Deutz auzoan. Michel Oronoz

Orduantsu jin zen berriz Büchenwald-era Harignordoquy apeza, bere **komando** lagun batzuekin lan egiten zuen lantegia bonbardatua izan zen eta xehatua. Marzel Etxehandi

Hamabost bat egunez, **komando** andana bat joan zen hara hilen bilatzeko eta ehorzteko. Marzel Etxehandi

**3** (hitz elkartuetan)

Candanchu aldean [...] elurrolde batek suntsitu zuen militarren **komando** unitate bat. Pello Zabala

Komandoa isilekoa zenez, nire **komando**-lagunek bakarrik zekitean ETAn ibilia nintzela, eta haietako inor ez zuan gure auzokoa. Juan Kruz Igerabide

**4 *Komando Nagusi***

AEBetako **Komando** Nagusiko bigarren buruak, Lance Smith jeneralak. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etako komando** (4); **etaren komando** (3); **herri frontea komando** (3); **ildo komando** (7); **ildo komando kideak** (3); **komando autonomo** (13); **komando autonomo antikapitalistek** (4); **komando autonomo antikapitalistetako** (6); **komando autonomoek** (3); **komando kideak** (6); **osatutako komando** (4)

**bizkaia komandoa** (3); **ildo komandoa** (3)

**etaren komandoak daudela** (3)

**bizkaia komandoko** (7); **komandoko kide** (5); **komandoko kidea** (3)

---

## komandoburu *(orobat **komando-buru**)* *iz* komando bateko burua.

Matxinoek pertsona baten izena aipatu zuten etengabe: Guy Philippe **komandoburua**. Hau **komando**-burua duk, edo izan duk. Berria - Mundua

---

## komandokide *iz* komando bateko kidea.

**Komandokideen** nahiz haien laguntzaileen gaineko informaziorik ez zuela. Xabier Mendiguren Elizegi

Odolberoa izaki, mugitzen hasi bezain azkar bereganatu zuten, hasieran laguntzaile gisa, pixkanaka eta gehiegi pentsatu gabe **komandokide** bihurtu arte. Juan Kruz Igerabide

---

## komantxe *iz*

"Nik **komantxe",** "nik txeroki", "nik txeiene". Xabier Mendiguren Elizegi

---

## komarka *iz* bailara, eskualdea.

**Komarkako** behi guztiak. Joan Mari Irigoien

Bolognako **komarka** eta terminoetarat. Joan Mari Irigoien

---

## komarkal **1** *izond* bailarari dagokiona, bailara-.

Periodikoen azpian zegoen errepide **komarkalen** mapa. Harkaitz Cano

Albistearen arabera, 800 ajente izango zituen Polizia autonomikoak, arma laburrak baino ezingo zituzten eraman eta «errepide probintzial eta **komarkalak**» baino ez zituzten zainduko. Berria - Euskal Herria

**2** erietxe komarkala.

Ez dakiela, Damianek, Irungo **Komarkalera** edota Iruñeko Ospitalera. Hasier Etxeberria

---

## komatoso *izond* koma egoeran dagoena.

Garai hartan, puri-purian zegoen Karen Ann Quinlan **komatosoa,** eta, haren izena eta patua aipatzen zuten bakoitzean, deseroso eta isilik geratzen zen. Xabier Olarra

---

## komatxo **1** *iz adkor* koma.

Bere burutazioetan puntu eta aparte bat, puntu eta koma bat edo **komatxo** soil bat eginez bezala. Jokin Urain

**2 *komatxo artean*** aipu marken artean.

Asko hitz egin ohi dute **komatxo** artean bezala; ez zaie jaiotzen, ateratzen edo igotzen beretik. Iñaki Segurola

Anjak igorritako faxean, Hans Lauerrek epaiketa egunean esandakoa zetorren **komatxo** artean azpimarratuta. Hasier Etxeberria

Bigarren testuan zergatik datoz hitz batzuk **komatxo** artean eta beste batzuk ez? Iñigo Aranbarri

· Gehiegitan (eta gaizki) aurkitu ohi ditugu **komatxo** arteko hitzak gure itzulgaietan. Iñigo Aranbarri

**3 *komatxo bikoitz*** *pl* aipu markak.

**Komatxo** frantses edo bikoitzak erabiltzen dira adierazpenetarako. Iñigo Aranbarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komatxo artean** (8)

**komatxoak marraztu ditu** (3)

---

## komedia **1** *iz* helburutzat ikus-entzuleak jostaraztea duen antzerkia.

Gau batez antzokian elkartu ziren, elkarrekin **komedia** bat ikusteko. Fernando Rey

**Komedia** honek ez du ez ekitaldirik ez agerraldirik. Josu Zabaleta

**Komedia** bat egingo dut honetaz, hiru ekitaldikoa eta hitz lauz. Xabier Olarra

**komediak** taularatuko dituzte bihar, etzi eta etzidamu. Berria - Kultura

Emakumezko aktore onenaren saria, berriz, Diane Keatonek jaso du, *Something's gotta Give* **komedian** egindako lanarengatik. Berria - Kultura

Pasarte xelebre bat **komediako** tonuan kontatu. Koro Navarro

Baita antzinako **komedia** grekoak idatzi zituzten poetek ere. Santiago Iruretagoiena

Nork esan du antzerkia, tragedia zein **komedia,** serioa ez denik, bestela ere? Juan Garzia

*Fidel izan beharraz* gertaerak eta pertsonen arteko harremanak katramilatzen eta korapilatzen doazen **komedia** -edo melodrama baten parodia- bat da. Antton Olano

Eta Kalbarioko hura teatroa zela: ez tragedia, **komedia** hutsa baizik. Joan Mari Irigoien

**Komedia** italiar bateko pertsonaia izan banintz, behingoan jausiko nintzen bertan, konortea galdurik. Xabier Montoia

New Yorken arrakasta handia izan zuen **komedia** musikala. Lopez de Arana

Eginkizunen itzulikatzea: **komedia** burgesetako osagaia. Oskar Arana

**Komedia** erromantikoen parodia bat da nire filma. Berria - Kultura

**Komedia** gazi-gozoa da *Eramos pocos*. Berria - Kultura

**Komedia** korala eta *road movie* bat da *El síndrome de Svensson*. Berria - Kultura

Rafael Villasús jaun hura gizagaixo bat zen, bertsozko **komedia** eta drama negargarriak idazten zituen antzerkigilea. Josu Zabaleta

Badirudi **komedia** bat edo halako antzerkiren bat jokatzen ari garela. Jose Morales

**Komedia** bat ari dituk antzezten. Anton Garikano

Pentsa dezatela zineman daudela, **komedia** bat ikusten ari direla. Imanol Zurutuza

**2** (literatura obren izenetan)

Danteren *Jainkotiar* ***Komedia*** errusiar erara, nolabait esatearren. Jose Morales

**Komedia** Jainkozkoaren imajina sinoptikoetan aurki zitekeen Infernuaren irudi eskematikoen antzekoa zen guztiz. Juan Garzia

Balzacen *Giza* ***Komedia***-ko 85 tituluak bost liburuki potoloetan biltzen zituen edizioa. Jon Alonso

**3** irud/hed

Zer da bizitza, drama ala **komedia**? Haren ezkontza **komedia** bat zen, urrats hura bete izanaz damutzen ez zen arren. Elena Touyarou

Amaiera ezaguna zuen **komedia** bat antzeztu dutela salatu du Donostiako alkateak. Berria - Euskal Herria

Fouquier-Tinville epaileak nehori ez zion barkatzen, epaiketak **komedia** hutsak izanik ere, ordukotzat, pobre eta aberatsak, errege eta bilauak berdintzen zituen gillotinara jendeak ehunka bideratuak izan ziren. Elena Touyarou

Sobera **komedia** egiten dik. Piarres Aintziart

Urte eta erdiz **komedia** egiten aritu naiz, egunero-egunero; ez naiz kexatu, ez naiz atera niri zegokidan paperetik, ez, eta orain ez dut gehiago borroka egin nahi. Josu Zabaleta

**Komedia** hutsean aritu naiz, konturatu ere gabe. Josu Zabaleta

Latinoa, ordea, axalkeria da, itxurakeria, faltsukeria eta **komedia**. Joxe Azurmendi

Britainiar salerosgaiak baztertzeko **komedia** egin zuen Berlingo dekretuarekin. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Paretak Hollywoodeko **komedia**-izarren zuri-beltzeko argazkiekin daude beterik Espero genuen **komedia** kutsua ez da nagusitu. Oskar Arana

**Komedia** edo musikal ataleko film onena izendatu zuten. Berria - Kultura

Almagro bisitatu genuen, noski, hango plaza eta **komedia**-antzoki zaharrarekin. Iban Zaldua

Argi dago **komedia** giro nabaria eman nahi izan diotela lehen minututik amaiera arte irauten duen egoera degradagarri horri. Berria - Kultura

Hauetaz gain, kartzela-zainek aurkitu, kendu eta erretzen dioten **komedia** zerrenda luze bat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egia da **komedia** mota bat dela politika. Herria

**Komedia** iduriko hark nihaur ninduen aktore nagusi, eta lagunak ikusle, untzi gaineko eszenarioan. Joan Mari Irigoien

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

*Il matrimonio segreto* maitasunez eta umorez betetako korapilo-**komedia** da. Berria - Kultura

Eta elkar besarkatzeko eta ukitzeko amodio **komedia** hura egiten genuen hitz goxo hauekin: maitea, maite al nauzu? Pello Lizarralde

**6** ik **komeria**.

Eta egunero, ordutsu berean, hau **komedia,** hau! Patxi Zubizarreta

Bainan hauxe da **komedia**! mozkin-zergak guti aski beheiti egin orduko, horra nun beste zerga batzu goiti doatzin! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **buruzko komedia** (3); **hauxe da komedia** (6); **hauxe komedia** (3); **jainkotiar komedia** (3); **komedia bat antzeztu** (3); **komedia beltza** (3); **komedia egiten** (5); **komedia eta drama** (3); **komedia musikal** (3); **komedia musikala** (7)

---

komediant ik **komediant**e.

---

# komediante

*(orobat* ***komediant*** *g.er. eta* ***komeriante*** *g.er.)* **1** *iz* komedia-antzezlea.

**Komediante** alu hark loa galarazi zion ordea, luzaro. Harkaitz Cano

**Komediante** ibiltariak, Shakespeareren dramak jokatzen. Karlos Zabala

Charles Chaplin **komediantea,** Adolf Hitlerrek gidaturik AEBetako konkistari ekitera doan nazien ontzian preso. Berria - Harian

Beste eginkizunetarako grina handirik ez eta eskale eta **komedianteen** bizimodua aukeratzen zutenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zergatik dago hainbeste maritxu **komedianteen** artean? Harkaitz Cano

Plazaz plaza ibiltzen ziren **komedianteen** moduan. Felipe Juaristi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1942ko ekainaren 6ko beste lege hura, niri dagokidana, juduei **komediante** lanbidea debekatzen diena. Josu Zabaleta

Ondo begiraturik, begiaren norabidea koadroaren hondotik aurrealdera eramanik, tropa bat baino, alemanek maite zuten gizon armatuen multzoa baino, antzerki konpainia dirudi gehiago: iluntasun eta itzal artetik argira, bizitzaren azpi-azpian ezkuturik dagoen anabasatik ordena geometriko berrira doan **komediante**-konpainia. Felipe Juaristi

Gogoratuko duk taberna zuloetan sartuta ginenean, **komeriante** koadrila. Berria - Harian

**3** irud/hed

Ez ote da **komediante** hutsa besterik? Monika Etxebarria

**4** (izenondo gisa)

Seme alabak egonen dira aitaren kopeta tzar amultsuari so, eta beren arteko kalapita **komediantak** ahantzirik, aitaz alegia trufatuko dira. Piarres Aintziart

Akordeoia eta gitarra joko da, baten batek baldin badaki, eta solas geroago eta **komedianteagoak** entzungo dira. Joseba Sarrionandia

## **komediantetxo** *iz adkor* komediantea.

Shoreditch-eko Antzezoihal Berdera eraman zuten antzezleek, non dardaraz jarri baitzen Jeronimoren papera ulukatuz bitsa zerion **komediantetxoaren** amorru-aldien aurrean. Juan Garzia

## **komedore** *iz* jangela.

Pasillotik **komedorerako** bidean. Xabier Etxabe

Ordu laurden genuen komunera joan eta jantzteko, gero **komedorera** heldu eta, gosaldu baino lehen, *padre nuestro* errezatzeko. Joseba Sarrionandia

Jexux, **komedoreko** besaulkian eserita. Xabier Etxabe

Etxeko atea erdi irekita, oraindik kanpoan hanka bat dudala, **komedoretik** datorren telebisioaren hotsa entzun dezaket. Xabier Etxabe

**Komedorea** 're oso aundie da, ta dare mai batzuk luze luzek. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskolako **komedorerako** aurten kendu digute laguntza; argindarra ere pagatu behar da. Pablo Sastre

Treneko **komedorean**. Pablo Sastre

## **komekatu**, komeka, komekatzen da *ad* Jauna hartu.

Eraman handiz, **komekatzeko** tenorea ailegatu arte itxoin nuen. Aingeru Epaltza

Komunioak komunio dira, baita paperezko ostiekin **komekatuta** ere. Iñaki Segurola

## komenant ik **komandante**.

## **komendadore** *iz*

Biei zirrara handia eragin zieten Marieren ezbeharrek; **komendadorea** gizon gaiztoa zen oso, eta Pierrotek barre eginarazten zien, oina agertokian jarri orduko. Karlos Zabala

Rosemonde andrea bakarrik egokitu zen mahaian T...ko **komendadore** zaharrarekin batera. Jon Muñoz

Mahoma profetaren ondorengo zuzena baitzen kalifa, era berean zen, lotura horrexen bitartez, Fededunen **Komendadorea** ere; islamanaren titulu gorena zen hori. Jon Muñoz

## **komenentzia** *(35 agerraldi, 18 liburu eta 5 artikulutan; orobat **komenientzia** 40 agerraldi, 20 liburutan, eta **konbenientzia** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **komenentzia** agertzen da)* **1** *iz* onura, interesa, komeni izatea.

Eta orain, **komenentzia** denean, jakiteko presa, ezta? Xabier Etxabe

Haren **komenentzia** nora, haraxe gertu enea. Juan Garzia

Turkiak EBrekin bat egiteari buruzko erreferenduma egiteko **komenentziaz** mintzatu da Angela Merkel. Berria - Mundua

Unean uneko **komenientziaren** araberako jarrera erakusten zuen egokiera guztietan. Anjel Lertxundi

Melostarrek salatzen dutenez, probetxuaren eta **komenientziaren** legearen bidez neurtzen du Athenaik zuzenbidea. Askoren artean

Erabakia beren interes eta **komenientzien** aurka zihoala. Jon Alonso

Erdi Aro izenekoan erruz baliatzen zela jakintsu jendea fantasiaz, edozein gizon santutzat jotakoren argialdiak dogma bilakatzen zituztelarik txit arinki eta **komenentziara**. Iñaki Segurola

Izan ere, bere **komenentziara** hartzen edo bazterrera uzten, kentzen edo eransten, aldatzen eta egokitzen ditu kontakizunak. Askoren artean

Guk tratua hola eginda zaukanagu; elkarren **komenientzietara**. Pablo Sastre

Gutarren tabernak mordoa dira gure herrian, asko konbentzimenduz eta beste zenbait **komenentziaz,** gutarrek indar dexente baitaukagu herri honetan. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan)

Baina ez dira **konbenientzia** arrazoiak bakarrik, zerbait gehiago dago, alemaniarrek geure patua aurkitu ote dugun ustea eta geroa, olatu geldiezin baten gisan, gainera dakorkigulakoa. Ramon Etxezarreta

· Negozio-xedeetarako geografi **komenentziak** Babilonian biltzen zituen inperioko arazoak. Iñaki Mendiguren

Irizpide nagusia administrazio-**komenentzia** bada, komunikabide onak dituen erdiko tokiren bat aukeratuko da ziur aski. Iñaki Mendiguren

**3** ***komenientziazko*** *izlag*

Noiz-nola, **komenentziazko** haizearekin batera dabilenari. Iñaki Segurola

**Komenentziazko** hizkuntza bat. Juan Martin Elexpuru

**Komenentziazko** militante asko omen zebilen, haizea nora karneta hara egiten zuena. Inazio Mujika Iraola

Gure arbasoek mozkortzeko aitzakiatarako sortu zuten jainko **komenentziazko** bat. Xabier Olarra

## **komeni izan** **1** zaio *ad* norbaitentzat edo zerbaitentzat ona edo onuragarria izan.

Indartsuenari **komeni** zaiona besterik ez dela zuzentasuna. Askoren artean

**Komeni** zaik jakitea kabroi bat haizela. Iñaki Segurola

Kontzeptu lauso eta nahasia da, oraindik ere, Garapen Iraunkorrarena, eta bakoitzak nahi duen -edo **komeni** zaion- adieran erabiltzen du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Pastillak hartzen ari da, eta ez zaio alkohola **komeni**. Bernardo Atxaga

Horregatik, **komeni** zaizu, zure ideia ongi azaltzea ez ezik, hura ongi defendatzea. Askoren artean

Propagandak badaki gure berri, badaki zer **komeni** zaigun eta hobe beharrez ari zaigu gainera. Iñaki Segurola

Ez zaigu **komeni** zu bezalako gizon ezjakin eta mespretxagarririk, ez zaitugu errege nahi. Askoren artean

Rousseau zen burgesiari **komeni** zitzaion gizona. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nahi duzuna ez lortzea baino zorigaiztoagoa da **komeni** ez zaizuna lortu nahi izatea. Imanol Unzurrunzaga

**Komeni** zitzaizkienak hartu, eta besteak utzi egin zituzten. isildu egiten dira, ordea, beren laudorioak **komeni** zaienarengana ez direla iristen uste badute. Askoren artean

Biziki **komeni** zaio bere indar guztiez baliatuz mugitzea. Patxi Altuna

Ez zaizu batere **komeni** apala izatea, Anne. Josu Zabaleta

Horixe da gehien **komeni** zaidana. Patxi Iturritegi

**2** (da inpersonala)

Baina galdu-usteak edo, hobeki esanda, galminak bizimindu egiten gaitu, eta biziarazten, urduritzen, [...], asetzerik izan ez dezakeen gose-egarri batekin adiskidetzen..., eta hori ez da **komeni** nonbait, eta horixe da dena. Iñaki Segurola

**Komeni** da hemen prozesu horren bi zedarri aipatu eta azpimarratzea. Santiago Iruretagoiena

Era berean **komeni** da arkitektoak ubideei buruzkoak eta horien gisako beste gauzei buruzkoak ezagutzea. Santiago Iruretagoiena

Erdiestea **komeni** ez den ezaguera. Juan Garzia

Puntuazio egokia zein den jakiteko **komeni** da, behin testua idatzi ondoren, hura arnasa kontrolatuz irakurtzea. Askoren artean

Bada jendea ahots sozialaren azpian gordeta bizi dena, beti **komeni** diren gauzak esaten dituena. Pako Aristi

Hortaz, **komeni** izaten da haiengandik ahalik eta gertuen ibiltzea. Askoren artean

Ez zela **komeni** analisiaren emaitzak puztea. Juan Garzia

Psikiatra baten aurrean jarri naute bizian aurreneko aldiz, halaxe **komeni** omen zela-eta. Iñaki Segurola

**3** (aditz laguntzailerik gabe)

Ile-gorri luzanga, **komeni** baino meharragoa. Aingeru Epaltza

Dianak **komeni** bezain borobil atera arte ez nuen etsi. Aingeru Epaltza

Egiazko datuak oinarri hartuta, **komeni** bezala azalduko dituzu. Rafa Egiguren

-Andoni: ondo ni; halaxe **komeni**! Joxerra Garzia

• **4** du *ad*

Gizakiak beste gizaki batekin harremanetan diharduenean, zuhurra eta zentzuduna behar du izan; eta bere interesaren alde jokatu, **komeni dituen** jakinbideak eskuratu eta onuragarri zaiona ez zokoratu. Andres Urrutia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ahaztea komeni** (6); **aztertzea komeni** (5); **betetzea komeni** (5); **edukitzea komeni** (9); **egitea komeni** (51); **egitea komeni da** (16); **egotea komeni** (18); **ematea komeni** (14); **erabiltzea komeni** (7); **erostea komeni** (4); **esatea komeni** (10); **gehiago komeni** (4); **gehien komeni** (11); **gogoratzea komeni** (6); **hala komeni** (10); **halaxe komeni** (5); **hartzea komeni** (12); **hastea komeni** (4); **ibiltzea komeni** (10); **irabaztea komeni** (4); **izatea komeni** (27); **jakitea komeni** (9); **jarraitzea komeni** (4); **jartzea komeni** (4); **jatea komeni** (4); **jokatzea komeni** (6); **komeni baino gehiago** (4); **komeni bezala** (5); **komeni izaten** (10); **komeni izaten da** (6); **komeni ote zaion** (4); **komeni ote zen** (5); **komeni zitzaien erritmoa** (4); **mintzatzea komeni** (4); **zer komeni den** (4); **zer komeni zaion** (9); **zer komeni zen** (5)

---

komenientzia ik **komenentzia**.

---

## komenigarri *izond* komeni dena, onuragarria.

"Dena zilegi dut", dio zenbaitek; baina ez da dena **komenigarri**. Elizen arteko biblia

Besteen oniritzia izatea **komenigarri** ez ezik beharrezko bihurtu zen amildegian ez erortzeko. Juan Martin Elexpuru

Desberdintasuna ezinbestekoa eta **komenigarria** dela gizartean. Juan Martin Elexpuru

Periodikoek zer esaten duten jakitea beti duk **komenigarria**. Edorta Jimenez

Ikerketa haria aldatzea **komenigarria** izan ote litekeen. Arantxa Iturbe

Desberdintasunak egotea etikoki bidezkoa den ala ez alde batera utzita, ekonomikoki **komenigarria** al da? ez dela batere **komenigarria** jaun agurgarri horrekin traturik txikiena ere egitea. Iñaki Heras

Deus ez zait **komenigarriago** nola neure ahalkea biltzera noan gau iluna. Jon Muñoz

**Komenigarri** ikusi zen hura kargutik kentzea. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egitea komenigarria** (3); **egotea komenigarria** (3); **hartzea komenigarria** (3); **komenigarria iruditu** (3); **komenigarria iruditzen** (3); **komenigarria izan** (8); **komenigarria izango** (9); **komenigarria izango litzateke** (5); **komenigarria izaten** (12); **komenigarria izaten da** (8); **komenigarria litzateke** (17); **oso komenigarria** (9)

**komenigarritzat jo** (3)

---

## komenigarritasun *iz* komenigarria denaren nolakotasuna.

Badira arrazoi batzuk, **komenigarritasuna** eta ekitatea, besteak beste, jabearen familiari uzteko ondasun horiek. Andres Urrutia

Ordezkaria bera izan zen Lehendakariari telegramak igortzeko **komenigarritasuna** adierazi ziona. Edorta Jimenez

Hutsegite eta bidegabekeria iturri oparoa dira legegileek sortzen dituzten **komenigarritasunari** buruzko ideia okerrak. Juan Martin Elexpuru

**Komenigarritasun**-ideia okerrak. Juan Martin Elexpuru

Azkenik, **komenigarritasun**-ideia faltsua da, izena izanaren aurretik jarriz, onura publikoa eta gizabanako bakoitzaren onura ezberdintzen dituena. Juan Martin Elexpuru

Sentimenduak ahuldu egiten dira hedatzen direnean; berezko euskarria behar da, **komenigarritasun** uztardurak egin ahal izateko. Andres Urrutia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komenigarritasun ideia** (5)

---

komenio ik **konbenio**.

---

## komentario 1 *iz* iruzkina.

Nire **komentario** batekin hasi zen haserrealdia. Liburua *Bakearen otoitza*ren **komentarioa** da. Joxe Austin Arrieta

**Komentarioa** Boswell-en *Life of Johnson*-etik hartua da. Xabier Olarra

Han-hemenka irakurri ditudala liburuari buruzko **komentarioak,** aipatu diot, 'neuk ez dut irakurri baina!'. Pako Aristi

Egunkaria irakurtzen ari ginen gustatzen zaigun moduan: biok batera, eta berrien **komentarioak** eginez. Juan Martin Elexpuru

Badakizu zer **komentario** egin zuen lehengo egun batean, bazkarian, sozio sartu naizen klubaren berri ematen ari nintzela? Bernardo Atxaga

Pentsatu nuen azkarregi nenbilela bere konplizitatea bilatu nahian, eta baldarkeria bat izan zela **komentarioa**. Bernardo Atxaga

Beltzei buruzko halako **komentario** bat egin zuten azken aldian eta geroztik ez da etorri. Harkaitz Cano

Bere **komentarioak** haserretu egin ninduen. Bernardo Atxaga

Orduan sartzen dira **komentarioetan**. Herria

**2** (izenondoekin)

**Komentario** labur bezain gordin bat egin zion. Eneko Bidegain

Ahal bezala erantzun nion, **komentario** hutsal batekin. Bernardo Atxaga

**Komentario** argigarri eta kritiko ugariz lagundua. Santiago Iruretagoiena

Hark bere herrialde maitatuari buruz egiten dituen **komentario** isekari eta mesprezuzkoengatik. Josu Zabaleta

Noizean behin jendetasunezko **komentario** txiki bat. Xabier Mendiguren Elizegi

· Helduek inbidia digute, gazteak garelako eta beren **komentario** pozoiz beteek ardura ez digutelako. Josu Zabaleta

**Komentario** interesik gabea. Jon Alonso

**Komentario** itxuraz inozoen bidez. Jon Alonso

**3** (hitz elkartuetan)

Ikusiko dugu zer **komentario** mota entzunen dugun TF1 delako horretan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egindako komentario** (3); **komentario bakarra** (3); **komentario bakarra egin** (3); **komentario hura egin** (3); **komentario labur** (4)

**komentarioa egin** (5)

**komentarioak eginez** (3); **komentarioak egiten** (5)

**komentarioren bat egiten** (3)

**komentariorik egin** (9)

---

# komentarista

**1** *iz* autore edo obra bati buruz iruzkinak egiten dituen idazlea.

Aristotelesen **komentarista** ospetsua, K.o. II. mendaren mendearen bukaeratik III. mendearen hasieran bizi izandakoa, grekoek zein arabiarrek autoritate handitzat hartua. Xabier Kintana

Kapitel joniarraren asmakizuna: Vitruvioren **komentarista** desberdinen artean surik handiena piztu zuen problema konkretuetako bat. Santiago Iruretagoiena

**2** hedabide batean iruzkin edo iritziak agertzen dituen pertsona. ik**komentatzaile**.

Uxue Barkosek irrati kate batek gonbidatuta Osasuna-Reala partidan **komentarista** lanak egin zituen. Berria - Euskal Herria

---

# komentatu

komenta, komentatzen **1** du *ad* iruzkindu.

Geldialdi bat egin genuen, gertatutakoa **komentatu** eta zer egin erabakitzeko. Juan Luis Zabala

Kanpainaren gorabeherak **komentatuz,** auzoa goitik behera zeharkatu genuen. Iban Zaldua

Dena entzuten zuen, dena **komentatzen**. Fernando Rey

Azken hilabeteotako hilekoarena ez diozu **komentatu**. Lourdes Oñederra

Norbaitek **komentatu** zuen -eta denok onartu genuen- Darcyren pertsonaia perfektua iruditzen zitzaiola, perfektuegia aukeran. Iban Zaldua

Busturiakoa zela **komentatu** zien, Axpeko elizan ezkondua. "Hamahiru urte ditu, beti gurekin ibili da..." **komentatu** zuen kapitainak. Lutxo Egia

"Kristorenak ari omen dira ematen" **komentatuko** du baten batek ahopeka. Xabier Mendiguren Elizegi

Talde bikainak **-komentatu** zuen Gregek-, baina *Grateful Dead*ek gehiago betetzen nau. Xabier Olarra

Zurekin **komentatu** nahi nituzke... egingo al dugu dardotan? Iñaki Iñurrieta

Bazaukat bidean kontu pare bat hirekin **komentatzeko**. Josu Landa

Gaurko idazleak ere ezagutzen dituzu beraz! **-komentatu** nion harriduraz. Juan Luis Zabala

Txorik zer edo zer **komentatu** du ongarri kimikoen prezioaz, baina Jorgek ez dio elkarrizketari eutsi. Iban Zaldua

Kutxan zine ziklo bat botatzen ari dituk, pelikulak **komentatuz** eta abar... Pako Aristi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bertso-saioetako grabazioak hedatzen dituzten astean behingo programak dira, bilduma **komentatuak** eskaintzen dituztenak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Petrarcaren *Canzionere* (Kantutegia) erosi dut gizonak aholkatu didan edizio **komentatu** -eta merke- batean. Anjel Lertxundi

---

# komentatzaile

*iz* hedabide batean iruzkin edo iritziak agertzen dituen pertsona. ik**komentarista 2**.

Telebistako **komentatzaileek** ohore anitz egin zieten Baionako jokalariei. Berria - Kirola

---

# komentu

*(orobat **konbentu** g.er.)* **1** *iz* elizgizonak edo mojak elkarrekin bizi diren etxea.

24 urtez frantziskotar **komentu** batera bildu zen Monforten, Valentzia aldean. Pello Zabala

Jeronimoen **komentu** itsugarriro eder eta handiustearen ondora garamatzate. Edorta Jimenez

San Anton **komentuaren** murruak. Piarres Aintziart

San Anton **komentuko** hondakin ederrak. Piarres Aintziart

**Komentuko** kalostrapean putzu baten muntatzeko. Herria

**Komentuko** lurretan ehortzia izan nahi zuela. Herria

Egun guziez **komentuko** kaperan entzuten zuen meza. Herria

Belokeko **komentuan** arrastatu zuen Gestapoak. Herria

Urbinoko anai Servodiok -orduan Anconako **komentu** zaharreko goardiano zenak-, [...]. Askoren artean

Lizarrako eliza eta **komentu** guztietako erloju-kanpaiak entzun nituen ilara azkengabean. Txillardegi

Euskal Herriko beste **komentu** askotan bezala, San Salbadorreko kaputxinoenean ere aterpea eman zitzaiela euskal erresistentzian zebiltzan hainbat gazteri. Xabier Mendiguren Elizegi

**Komentu** horiek dira izpiritualitate mistikoaren benetako zentroak. Joan Mari Lekuona

Etsipenera eta **komentuan** sartzera behartuko baninduzu ere, [...]. Jon Muñoz

**Komentu** erretzen harrapatu duten anarkista. Iñigo Aranbarri

**Komentu** barruko patioan zehar ari ginen paseatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Galdetu zion berriz, nor zen orduan **komentuko** buru. Anjel Lertxundi

**Komentu** ohia zegoen karrikara sartu aitzin, geldialdi bat egin zuten. Elena Touyarou

Gaztelu berria eraikitzera **komentu** lurreratuaren tokian. Aingeru Epaltza

Lehen, **komentuetako** egongela edo pasabide guztietan aholku batzuk letra larriz idazten ziren horma paretetan. Piarres Xarriton

Agerian zituen etxe guztiak **komentu** izan zelako arrastoak. Inazio Mujika Iraola

Sukaldera ematen zuen leihatila bat zeukan, tornu batekin **komentuetan** bezala. Bernardo Atxaga

**2** mojak elkarrekin bizi diren eraikina edo etxea.

Albiko Klaratar seroren **komentuan**. Piarres Xarriton

Alaba **komentu** batean sarrarazi zuela, bortxaz. Elena Touyarou

**Komentua** du alarguntsa batek egiazko aterbe. Jon Muñoz

**Komentu** eta monasterioak debekatu zituzten, aspaldiko egoiliarrak, bereziki serora zaharrak, han geldi zitezen onetsi zuten arren. Elena Touyarou

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jende tirokatze, eliza eta **komentu** erretze eta horrelako abrekeria edo basakeria frango. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi lorategi zeuden; bata nesken ikastetxe batekoa, bestea fraide **komentu** batekoa. Josu Zabaleta

Non da emazte **komentu** hurbilena? -tematu zen gaztea. Elena Touyarou

Bazituen bi arreba serora **komentu** bortitz batean zerratuak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bere sermoi eta hitzaldi gehienak [...] Rhin Garaian zehar zeuden moja-**komentu** ugarietan aletuz doaz. Joan Mari Lekuona

Alcobaçako Erret **Komentuko** artxibategian. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**frantziskotarren komentu** (3); **komentu batean bizi** (3); **moja komentu** (6)

**san frantzisko komentua** (7); **santa teresa komentua** (3)

**asisko komentuan** (3); **belokeko komentuan** (4); **komentuan bizi** (5); **komentuan bizi zen** (4); **komentuan sartu** (5); **komentuan sartuko** (4); **moglianoko komentuan** (3); **seroren komentuan** (4); **ziburuko komentuan** (3)

**komentuko aldarearen** (3); **san frantzisko komentuko** (3)

**komentura eraman** (3); **komentura heldu** (3); **komentura iritsi** (3); **komentura itzuli** (5)

**komentutik atera** (3)

---

## **komentukide** *iz* komentu berekoa.

Zenobita komunitate erlijiosoetako **komentukidea** da; anakoreta, berriz, bakardadean bizi den erlijiosoa. Xabier Olarra

**Komentukideen** begirada deitoragarrien zama nabaritzen zuelarik. Xabier Aranburu

---

## **komentutxo** *iz* komendtu txikia.

Behin batean, anai Junipero anaien **komentutxo** batean zegoela [...] bakarrik gelditu zen etxean. Askoren artean

---

## **komentutzar** *iz adkor* komentu handia.

Atzerago, San Martingo kanposantuko hilarri mordoa ikusten nuen gelatik, San Bartolomeko **komentutzar** berriaren aurrean. Txillardegi

San Frantziskoren **komentutzar** gotor, gaitz, beldurgarria gelditu zen liberalen manupean. Txillardegi

---

## komentzigarri ik **konbentzigarri**.

---

## komentzimentu ik **konbentzimendu**.

---

## komentzio ik **konbentzio**.

---

## komentzitu ik **konbentzitu**.

---

## **komeria** 1 *iz* gertaera bitxi edo nahasia, baina barregarria edo larritasunik gabekoa.

Polita izango zen zuen aitak kanpaia hartuta kanpandorrera igotzeko zein **komeria** ibili zituen ikustea. Arantxa Iturbe

Aitak orduko bilatua zion andregaiari ezetz esan zion, eta orduan izan ziren **komeriak**. Xabier Etxabe

Eta orain datoz **komeriak**. Iñaki Segurola

Hortik aurrera hasi zituan **komeriak**. Xabier Etxabe

Izotzarekin **komeriak** izango ditugu. Berria - Harian

Bai, zuei edaten utzi, eta gero **komeriak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendeak diru handiak mailegatzen ditu, eta gero txikiak emateko **komeriak**. Juan Kruz Igerabide

Astero-astero daukagu **komeria** berbera. Javi Cillero

Hau da **komeria** hau! Mirentxu Larrañaga

Izan ere, hau **komeria** izkiriatzen ez jakitea. Iñaki Zabaleta

Eta ondoren, hamaika **komeria..**. Joxe Austin Arrieta

**Komeria** dezenteren ostean, baina iluntzerako Murtzian ziren guztiak. Berria - Kirola

-Neska bat, kazetaria dela eta Mikel Arreserekin hitz egin nahi duela eta ez dakit zer **komeria** -ahotik urrunduta aurikularra. Xabier Mendiguren Elizegi

**Komeriak komeria,** garrantzitsuena taldearen ibilbide ona da. Berria - Kirola

Bigarren zatian ere **komeria** franko. Berria - Kirola

· Primo de Riveraren diktadura etorri zen gero, bozketarik eta **komeriarik** gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** ik **komedia.**

Ikasgela zabaldu zuten, eta ikasleak **komeria** entretenigarri bat ikustera balihoaz bezala hasi ziren sartzen, presakatuz eta elkarri bultza eginez. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komeria berbera** (4); **komeria franko** (3); **komeriak komeria** (3)

**komeriak izan** (17); **komeriak izan zituen** (7); **komeriak izango** (6); **komeriak izaten** (9); **komeriak komeria** (3); **komeriak kontatzen** (3)

komeriante ik **komediante**.

komertsa ik **komertzio**.

komertsagune ik **komertziogune**.

komertsalari ik **komertziolari**.

komertsaldegi ik **komertzialdegi**.

komertsant ik **komertziante**.

komertsial ik **komertzial**.

komertsialdegi ik **komertzialdegi**.

komertsio ik **komertzio**.

komertsiogune ik **komertziogune**.

**komertzial** *(orobat **komertsial** g.er. eta **komerzial** g.er.)* **1** *izond* merkataritzari dagokiona. ik **merkataritza**.

Agente **komertzial,** enpresetako nagusi eta burtsako bisitari guztiak. Anton Garikano
Balio **komertzial** handiko zereal patagonikoa, klima honetara ederki egokitua. Xabier Olarra
Katalogo **komertzial** batzuk. Bernardo Atxaga
Liburu hau *The Business Side of Hanging* izan zen, hau da, urkatzearen alde **komertziala** edo nola atera etekina urkatze-lanei. J.M. Olaizola "Txiliku"
Disko hark harrera **komertzial** eta kritiko oso ona izan zuen mundu osoan. Berria - Kultura
Albiste baten funtsa operazio **komertzial** bat baino ez denean. Pako Aristi
*Consum* eta *Charter* izen **komertzialei**. Berria - Ekonomia
UCI diruaren usainean ari da, irizpide **komertzial** hutsak agintzen du. Berria - Kirola
Iragarki **komertzialek** behin eta berriro zatikatzen zuten musika programa bat zen. Joxemari Iturralde
Arrazoi **komertzialengatik** elkartzen badira. Esteban Antxustegi
AEBetako defizit **komertzial** itzela handitzen dela? Berria - Ekonomia
Airbusen erronka **komertzial** berria A380 modeloa da. Berria - Ekonomia
Europako Batasunak beste gerra **komertzial** bat irabazi die AEBei. Berria - Ekonomia
Europako Batasuna da Txinaren bazkide **komertzial** nagusia. Berria - Ekonomia
Fatronikeko Zuzendari **Komertzial** Inma Uzkudunek. Berria - Ekonomia

**2** denda eta saltoki asko dagoena.

Buru gainean eutsi zion kapelari, baina hori ez zen nabarmena auzo **komertzialaren** erdiko kafetegi hartan. Anton Garikano
Jendea gune **komertzialetan** bazkaltzen ari denean. Pako Aristi

**3** arte lanez mintzatuz, helburu komertziala duena.

Artegintza **komertziala,** saltzeko arte objektuak egiten dituen hori, galdu xamar dabilela esanen nuke. Hasier Etxeberria
*Three kings* film **komertzial** eta demagogoa. Berria - Kultura
Lepoa jokatzen dinat, film **komertzialak** baizik ez zaizkiola gustatzen. Eneko Bidegain
Heavy **komertzial** eta melodikoak han izan zuen aterpe gero, *sleazy*-arekin *hard-rock*ak beste bide batzuk hartu zituen arren. Berria - Kultura
Emaitza, ordea, ez da modan den munduko musika metaketa **komertzial** horietako bat. Berria - Kultura
Liburu bat **komertziala** ez bada, eta sarerik ez badaukazu, obrak ez dauka baliorik. Ana Urkiza
Ama-alabak eztitan zeuden musika amerikar **komertzialarekin**. Edorta Jimenez
Musika pop **komertziala** baitzen, nazkagarria ni bezalako nerabe purista batentzat. Mikel Hernandez Abaitua
Zerbait normaltxoagoa asmatu beharko zenuke, gaurkoagoa, **komertzialagoa**. Jon Arretxe
· -Hire zabor **komertziala** baino hobea izango duk behintzat. Iban Zaldua

**4** irud/hed

Irrati kate **komertzial** eta pribatu guztiek zerga ordaindu behar dute publizitateagatik. Berria - Harian
Galarragak 20 urte barru areto **komertzial** guztietan filmak euskaraz ikusi nahi ditu. Berria - Euskal Herria
Kaliforniako Mojave desertuan dagoen aireportu **komertzial** batean egingo du ontziak bere lehen hegaldi ofiziala.
Antolatzaileak ez ziren askorik fio taldearen arrakasta **komertzialarekin**. Patxi Iturritegi

• **5** *iz* saltzailea.

Langabezian ibili ondoren, argitaletxe bateko **komertzial** gisa hasi zen beharrean, gora eta behera Euskal Herriko errepideetan zehar. Iban Zaldua

Urola-Kostako *Hitza*-k hamaika langile izango ditu: sei kazetari, bi **komertzial,** kudeatzailea, teknikoa eta zuzendaria. Berria - Euskal Herria

Une honetako bertsolaritzaren gailurra, bi irakaslek, hiru ikaslek, elektrikari batek, kazetari batek, **komertzial** batek, [...] osatzen dute. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zerbaiten ordezkaria da, marka **komertzial** edo nazional batena eskuarki. Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**interes komertzial** (5)

**bultzada komertziala** (12); **defizit komertziala** (4); **komertziala izan** (3); **sare komertziala** (3); **zinema komertziala** (4)

**arrazoi komertzialak** (3); **bidaia komertzialak** (4); **harreman komertzialak** (4); **hegaldi komertzialak** (4); **literatura komertzialak** (3)

**helburu komertzialekin** (3)

**kate komertzialera iritsi** (5)

**areto komertzialetan** (14); **zinema areto komertzialetan** (3)

**interes komertzialik** (3)

---

# komertzialdegi *(orobat **komertsaldegi** eta **komertsialdegi**)* *iz* *ipar* saltokia. ik **komertziogune**.

Alain Lamassoure euro-deputatuak mintzaldi bat eskainiko du Baionako **komertzialdegiko** entzuntegian. Herria

Paraguain [...] sute izigarri batek sekulako makurrak egin ditu **komertzialdegi** haundi batean. Herria

Parmalat elikadura-jangailu **komertzialdegi** haundiaren sortzailea den Calisto Tauzi [...] arrastatu dute Milanen. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baionako komertzialdegian** (4)

**baionako komertsaldegian** (8)

---

# komertzialdegiburu *(corpusean **komertsaldegiburu** eta **komertsialdegi buru** soilik)* *iz* saltoki bateko burua.

Berri lasaiago batzu: Alain Lamassoureaintzina euro-deputatu, Jean-Marie Berckmansaintzina **komertsaldegiburu,** Jean-Louis Davanteta Filipe Oihanburuomenduak Sarako Biltzarrean, omenduak ereMaurice Harriet, Janamari Malharineta Telesforo de Monzon. Herria

Jean Marie Berckmans **komertsialdegi** burua kargu hortan aintzina segitzekotan dabila. Herria

---

# komertzializatu, komertzializa, komertzializatzen **1** du *ad* merkaturatu.

Windows erabil dezaketen sakelakoak **komertzializatzen** dituen lehen operatzailea. Berria - Ekonomia

*Eroski Bidaiak*-ek Alsa garraio konpainiako produktu guztiak **komertzializatuko** ditu.Gerra amaitutakoan, luma berria, garaiko idazlumen antz handia zuen bolaluma sendoa, edozeinentzat izateko asmoarekin **komertzializatzen** hasi ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egun **komertzializatzen** den haragi asko infekzio-iturri denez, haragizko produktuek antibiotiko ugari txertatuak dauzkate. Edorta Agirre

Kulturaren egoera eta bilakaerari buruz segimendua egiteko sistema egituratzea, edo kultura bera ekoitzi, **komertzializatu** eta hedatzea.

Kanpoko uniformismoa imitatu eta geurean ergelkiro **komertzializatu**. Patziku Perurena

**2** (era burutua izenondo gisa)

Aspalditik nolanahiko festamodutan nazkatzeraino ikusiak dauzkagun komediante "populatxeroenak" eta **"komertzializatuenak"** ikusteko aukera izanen dugu orain, UEMAren azken mesedeari esker. Patziku Perurena

---

# komertzializazio *iz* komertzializatzea.

Orain arte transgenikoen **komertzializazioan** zegoen etena «berreraiki» behar da. Berria - Euskal Herria

Balioen anarkiaz, balioen esanahi ilunegiaz, [...], balioen **komertzializazioaz,** etab. Joxe Azurmendi

Gure musika ezagutarazteko bide bat bezala ikusten dut [...] eta ez **komertzializazio** helburuarekin. Berria - Harian

Liburugintzako arduradunen hitzetan, liburu dendek eta **komertzializazio** sareak ere «izugarrizko jipoia» jasoko dute. Berria - Euskal Herria

---

# komertzialki *adlag* merkataritzaren ikuspuntutik; salmenten ikuspuntutik.

Egiaz, motorra 106 gradukoa zen, baina **komertzialki** 111 zenbakia erakargarriagoa zela-eta azken hori aireratu zuten. Berria - Kirola

Horrek **komertzialki** zein produktuaren kalitatean zuzenki eragiten du. Zinemagile estatubatuarra ez da guztien gustukoa, eta **komertzialki** ia beti porrot egin du. Berria - Ekonomia

*Running on empty* (1977) diskoarekin zerua ukitu zuen **komertzialki** Brownek, eta ordutik aurrera, *mainstream*-ean sartzen joan zen. Berria - Kultura

**Komertzialki** baliagarri (eta patentagarri) diren geneak. Askoren artean

---

# komertzialtasun *iz* komertziala denaren nolakotasuna.

Gustuko lanak prestatzen dituzte, **komertzialtasunari** begiratu gabe. Berria - Kultura

**Komertzialtasunari** begiratzea ezinbestekoa da, eta inoiz esan dugu ezetz, nahiz eta liburu interesgarria izan ez diogulako aterabide komertzialik ikusi. Berria - Kultura

**Komertzialtasun** ageriko pop melodiak. Berria - Kultura

Niri **komertzialtasuna** bost. Jon Arretxe

---

# komertziante *(orobat **komertsant** eta **komertsante** g.er.)* *iz* saleroslea; dendaduna.

Emakume sendagileak Bangalorera eraman zuen Geetha, eta han **komertziante** bati saldu. Gotzon Garate

**Komertsanten** batasunak (Union Commerciale) antolatu du uztail honetan lehenbiziko "berina apainduen lehiaketa". Herria

Katedral inguruko **komertsantei** gogoratu zaie Montaut plaza arras egokia zela fruitu gorrien merkatu baten egiteko larunbat honetan. Herria

Kanboko **komertsanteek** bi aste berezi proposatzen dauzkute urte ondar honetan. Herria

Hitzaren **komertziante** eta komediante huts bihurtzen baita atzenerako. Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komertsanteen batasunak** (4)

**angeluko komertsanten** (4); **komertsanten batasunak** (3)

**komertzio** *(orobat* ***komertsa, komerzio*** *g.er. eta* ***komertsio****)* **1** *iz* merkataritza, salerostea.

Botere publikoen, industriaren eta **komertzioaren** betekizuna. **Komertzioaren** globalizazioaren ondorio izan da hori. Edorta Agirre

Herri guztien elkar osagarritasuna, **komertzio** librea, eta askatasun eta anaitasun unibertsala. Joxe Azurmendi

Indiako **komertzioaren** %46 hortik sartu-irteten da. Gotzon Garate

Ez zuen martxanterik eduki inoiz, eta artearen **komertzioa** gaitzetsi zuen beti. Berria - Kultura

Tabakoa, alkohola eta emazteak lortzen zizkien, eta ordainez, **komertzioan** jarraitzeko edozein erraztasun mota erdiesten zuen. Elena Touyarou

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ingeles kolonizatzaileek portu bat behar zuten **Komertzio** hamabostaldia. Ramuntxo Etxeberri

Aisi eta **komertzio** zentrora iristeko zeuden arazoak konpontzeko akordioa lortu dute. Berria - Euskal Herria

Txinaren hegoaldearekin **komertzio** harremanetan aritzeko. Ramuntxo Etxeberri

Paueko **komertzio** aüzitegiak. Herria

Artea gero eta gehiago **komertzio** kontu bat bilakatzen ari da. Berria - Harian

Gizonezko bat bere maletarekin, **komertzio** bidaiari itxura zuena. Joxemari Iturralde

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskara eta frantsesa menperatzea, esperientzia disko salmentan edo **komertzioan**. Kanpo **komertzioa** segurtatzeko.

Extranet - intranet eta e- **komerzioa**. Herria

**4** denda, saltokia; dendak.

Etxez etxeko denda edo inon ere ez omen den denda: handi eta txikiak, espezializatu eta orokorrak, jeneralizatzen hasiak dira horrelako **komertzioak** (banka, aseguru, liburu-banatzaile, bidai agentzia, etc.) zerbitzu sektorean, batik bat. Edorta Agirre

Haien **komertzioan** badira oihalak, tabakoa, bihia, armak... Elena Touyarou

Zazpikaleetako **komertzio** batzuk itxita daude, baina asko zabalik. Berria - Harian

Horretarako, ia 300 etxebizitza, 19 **komertzio,** akademia bat eta industrialde bat bota behar zituen. Berria - Euskal Herria

Aita **komertzio** handi batean arduradun. Piarres Aintziart

**Komertzio** bakarra dago, tabakoa saltzen duen ostatu bat. Berria - Euskal Herria

Horrek krisialdi larrian dagoen **komertzio** txikia suspertuko du auzoan. Berria - Euskal Herria

Eskola, posta, **komertzio** ttipi, osasun etxe eta beste. Herria

**Komertzio** eta ostalaritzan ere eragin dezente izan zuen greban. Berria - Harian

Artegintza eta zahargai **komertsak**. Joan Mari Lekuona

**5** *komertzio gune* ik **komertziogune**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**salmentan edo komertzioan** (4)

**komertziotik kanpo** (3)

**komertsa auzitegiak** (4); **komertsa auzitegiko** (3)

**baionako komertsio** (5); **komertsio auzitegiak** (8); **komertsio zuzen** (7); **komertsio zuzen bat** (4); **komertsio zuzen baten** (3); **komertsio zuzena** (8); **komertsio zuzenaren** (7); **komertsio zuzeneko** (3)

---

**komertziogune** *(corpusean* ***komertzio gune, komertsagune, komertsiogune*** *eta* ***kometsio(-)gune*** *soilik)* *iz ipar* saltokiak dauden gunea. ik **komertzialdegi**.

Eremu hortan eginen da ere hotel bat eta izanen da **komertsio-gune** bat. Herria

Tira bira luzea ari da bi urte honetan Angelun, Baby-Relax lantegi ohiaren lekuan eraikitzen ari den "Erdian" **komertsagunean**. Herria

1587 aldean, Amerindianoek jadanik baliatzen zuten [Kebek] azken bi mila urteetan, ihizirako eta **komertzio gune** gisa. Herria

---

**komertziolari** *(corpusean* ***komertsalari*** *soilik)* *iz ipar* saleroslea.

Hor baita hiritarra ere; edo, ez hiri ez baserri, bien arteko langile, enpleatu eta beste ofizioetakoak, erizain edo tratulari **komertsalari**. Herria

---

komerzial ik **komertzial**.

---

komerzio ik **komertzio**.

---

**kometa** **1** *iz* Eguzkiaren inguruan elipse formako orbita oso luzeetan bira ematen duen argizagia, gune distiratsu batez eta Eguzkira hurbiltzen denean heinean nabarmenduz doan adats batez osatua.

Izarrak, planetak, **kometak,** milioika mugitzen dira espazioan, hasierarik eta bukaerarik gabe, batere planik edo zertarakorik gabe. Koro Navarro

Nire aurrean, iluntasuna zipriztinduz, milaka izpi argitsu zeudela, izarrak eta planetak, asteroideak eta **kometak**. Egun haietan ikus zitekeen **kometa** erakutsi nion, ipar alderantz. Beren parabola mugagabea kurba itxi bihurtzen zaie, eta horregatik kalkula dezakegu **kometa** periodikoaren itzulera. Joxe Austin Arrieta

Ura topatu dute Tempel 1 **kometaren** muinean. Berria - Gaiak

Lehen aldia da izotza aurkitzen **dutela** kometa baten nukleoan. Berria - Gaiak

Izotza **kometen** azalean egoten dela uste izan dute zientzialariek orain arte. Berria - Gaiak

**Kometen** lorratza aztertuta, ur lurrunaren arrastoak hauteman dituzte hainbatetan. Berria - Gaiak

**Kometaren** nukleoaren osaera kimikoa [...] kometaren haloaren edo argi koroaren oso antzekoa da. Berria - Gaiak

**2** haize parpaila, haurren jostailua. ik **parpaila**[2].

**Kometak** hegaldatzen Hondarribiko hondartzan. Eider Rodriguez

Eskutik ihes egin eta, orain, **kometa** airean zebilen hara-hona. Julen Gabiria

**Kometa** baten haria mutiko txiki baten eskuetan. Felipe Juaristi

Gero, **kometa** isatsetik hartu eta tiraka hasi zen. Julen Gabiria

Lata zahar bat lotu diote **kometaren** isatsari... Xabier Paya

**Kometak** hegan jartzeko sistema erakusten ari zitzaion ume talde bati. Bernardo Atxaga

Labar gaineko kaio eta kuliskei jostailuzko **kometa** zuriak bailiren begiratzen nien euren hegaldi askearen inbidiatan. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kometa baten isatseko** (3)
> **kometara iristeko** (4)
> **kometaren buztana** (4); **kometaren irudiak** (7); **kometaren isatsean** (3); **linear kometaren** (4); **linear kometaren irudiak** (3)
> **kometatik hartutako** (3)
> **kometen nukleoak** (4)

---

# kometalari *iz*

Parkean, **kometalari** bat -ez dakit hitz hori existitzen den- kometak hegan jartzeko sistema erakusten ari zitzaion ume talde bati. Bernardo Atxaga

---

# kometitu, kometi, kometitzen du *ad* egin.

**Kometitu** ez zuen delitu baten errudun. Mikel Hernandez Abaitua

Hutsik **kometitu** gabe. Itxaro Borda

Krima bat bezala, **kometi** ezazu olerki bat! Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **komiki jaialdiko** (4); **komiki jardunaldiak** (3); **komiki liburua** (7); **komiki tirak** (3); **komiki zerrenda** (3)
> **komikietako pertsonaia** (3)
> **komikiko pertsonaiaren** (3)

---

# komiki 1 *iz* marrazki, hitz eta ikurrren bidezko adierazpidea; horrez baliatuz ondutako kontakizuna, liburuetan, aldizkari edo kidekoetan argitaratua. ik beherago **4**.

*Akim, roi de la jungle* izeneko **komikiaren** aleak. Ana Urkiza

Uste dut **komikietako** pertsonaia bihurtu naizela. Joseba Sarrionandia

Ondoren, liburu edo **komiki** bat eskuetan, lo hartu arte irakurtzen nuen. Iban Zaldua

*Spider-man*en **komiki** batzuk irakurri ditut. Iban Zaldua

**Komiki** bat, adibidez, irudiz irudi irakurtzen da, alde batetik, baina aldi berean [...] globalki ere irakurtzen da. Josu Zabaleta

**Komiki** asko ikusten dituzu, inondik ere. Juan Kruz Igerabide

**Komikiak** ere egiten ditu. Berria - Kultura

"Lucky Luke" belgiar **komiki** famatuetan agertzen diren txinatar langile zintzoen karikaturak. Ramuntxo Etxeberri

**Komiki** koloredun horiek erosteko dirua anaiak ematen zidan. Pello Lizarralde

Josuren liburutegiko apalak miratu eta **komiki** bat hautatu nuen. Aingeru Epaltza

Hamasei orrialdeko **komikia,** marrazki eta idazki pollitekin. Herria

Irudi mugikor edo iraunkorretan (filmetan, bideoetan) edo irudi anizkoitzetan **(komikian)**. Josu Zabaleta

**Komiki** batetik biñeta bat ateratzeak [...] irudi anizkun bat irudi bakar bihurtzen du. Josu Zabaleta

Aldizkari eta **komiki** lizunak saltzen zituen agure konkordun batengana jo nuen. Anjel Lertxundi

**Komiki** bizidunen antzera. Berria - Kultura

**Komiki** underground-aren eragina umorez jasoz. Berria - Kultura

**Komikia** literatur generotzat har ote daitekeen. Berria - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arazoa da *manga* **komiki** molde jakin batzuekin lotzen dugula hemen. Berria - Kultura

**Komiki** munduan duela 15 urte hasi zen, eta Frantziako komikigintzaren egile berritzailea izan da. **Komiki** irakurleak azalpen ugari eman behar izaten ditu literaturazalearen aurrean. Koro Navarro

"Tintin" **Komiki** pertsonaiaren abenturetan agertzen den bezalaxe. Ramuntxo Etxeberri

Ukabilkadak jotzen zituen jendearen **komiki** bilduma handia egin nuen, batez ere Dick Fulmine izeneko batenak. Pello Lizarralde

HABE-ren **komiki** sortan umorea nahiz drama ageri dira. Berria - Euskal Herria

Antton Olariagaren **komiki** lana. Berria - Kultura

Kalitate handiko **komiki** argitalpena. Berria - Kultura

**Komiki** Jardunaldiak antolatu ditu Ondarroako Luterl taldeak. Berria - Kultura

Getxoko **Komiki** Aretoak Max marrazkilaria omenduko du bihartik igandera bitartean. Berria - Kultura

Zep komikigileak erdietsi du aurtengo Angulemako Nazioarteko **Komiki** Jaialdiko *Grand Prix* saria. Berria - Kultura

## 3 ***komiki liburu*** *(orobat* ***komikiliburu*** *g.er.)*

Euskal liburugintzan zenbakiek gorantz egin badute ere, **komiki-liburuen** argitalpenak gertakari ezohikoak dira. Berria - Kultura

20etan "Gartxot" beren azken **komikiliburua** aurkeztuko dute eta salduko Marko eta Asisko marrazkilariek. Herria

2004an Patxi Gallegok *Pololoak* izenburuko **komiki-liburua** argitaratu zuen, zer esana eman zuena. Berria - Kultura

Azken bi urteetan buru-belarri aritu ondoren argitaratu du bere **komiki liburua**. Berria - Kultura

Zuzenean bertsulariak eta marrazkilariak lehian, **komiki liburu** aurkezpen, musikaldi, sari emaite eta besta giro goxoa. Herria

## 4 ***komiki tira*** *(19 agerraldi, liburu 1 eta 10 artikulutan)* ik beherago **5**

Kirol orrialdeak eta bukaerako **komiki-tira**. Aingeru Epaltza

Lurrean etzanik, Uil eta biok **komiki tirei** begira geunden. Juan Kruz Igerabide

Komikigintzaren eremuan sarri gertatu bezala, (herri-)prentsako **komiki-tiratik** libururanzko jauzia egin du komiki-pertsonaia batek, Otsobeltzek. hainbat **komiki tiraz** osatutako liburua argitaratu du. Berria - Kultura

## 5 ***komiki zerrenda*** *(12 agerraldi, 2 liburutan)* komiki tira.

Bazkaldu bitartean, barre bihurriak eginez, **komiki-zerrenda** bat marraztu zuen; guztiok mahaian agertzen ginen, eta berak haizea ematen zidan haizemaile batez. **Komiki-zerrenda** bitxiak bainugelako hormetan eskegita. Xabier Olarra

Esaldi zorrotz haiek, vaudevilletako agerraldietatik edota **komiki-zerrendetatik** atereak ziruditen. Mirentxu Larrañaga

## **komikigile** *iz* komikiak egiten dituen pertsona.

Andre Cheret **komikigilearen** *Rahan* pertsonaia. Bertsolaria da graffitigilea, **komikigilea,** komiki-tirak egiten dituena, kantautorea, sermoilaria, egunkarietako zutabegilea... poeta hainbat edo gehiago. Berria - Kultura

Munduko **komikigileen** elkargunea, zabalik. Berria - Kultura

---

## **komikigintza** *iz* komikiak egitea.

Finlandiako **komikigintzak** leku berezia izango du aurtengo jaialdian. Berria - Kultura

Frantziako **komikigintzaren** egile berritzailea. Berria - Kultura

Hor legoke euskal **komikigintzaren** bidea. Berria - Kultura

**Komikigintza** eta narratiba konbinatu ditu egileak liburuan. Berria - Kultura

Helduentzako **komikigintzaren** aurkako aurreiritziak. Berria - Kultura

Zinematik, argazkigintzatik eta **komikigintzatik** gertu eta bazterreko pertsonaiez betea dago Mikel Zubeldiaren nobela hau. Berria - Kultura

---

## **komikilari** *iz*

Xabinaitor super-heroiaren abentura harrigarri, hiperboliko, ikusgarri, ikonoklasta eta lotsagabeen bitartez, «Euskal Herriko topiko batzuen inguruan irribarre ironikoa» bilatu du Patxi Gallego **komikilariak**. Sei erakusketa ikusiko dira: Enrique Ventura **komikilariarena,** Jose Luis Macias zientzia-fikzio ilustratzailearena, […]. Berria - Kultura

Iparraldekoak, hegoaldekoak, poetak, narratzaileak (luzean nahiz motzean aritzen direnak) eta **komikilari** bat. Berria - Kultura

**Komikilari** taldea, 1988an Iruñean sortua. Iñaki Arranz

---

komikiliburu ik **komiki 3**.

---

## **komikiratu,** komikira(tu), komikiratzen du *ad* komiki bihurtu.

Ohore handia da niretzat Morauren doinuak tinta eta pintzelaz janztea eta **komikiratzea**. Berria - Kultura

---

## **komikitegi** *iz* komiki liburutegia.

Uil eta biok ia egunero joaten ginen **komikitegirara,** edo jolastokira. Juan Kruz Igerabide

Uil **komikitegira** maiz joaten hasi zen; han, egun osoan ikus zezakeen telebista. Juan Kruz Igerabide

**Komikitegiko** komiki guztiak irakurri genituen. Juan Kruz Igerabide

---

## **komikizale** *iz* komikien zale dena.

Kalitate handiko lana da, eta berri pozgarria honelako produktuen gose izan ohi diren euskal **komikizaleentzat**. Berria - Kultura

Ikus Igor Leturiaren e-gor blogaren e-gor **komikizalea** atala, besteak beste. Berria - Kultura

---

## **komiko** **1** *iz* antzezleez mintzatuz, komediak jokatzen dituena, komedia-antzezlea. ik **komediante; pailazo**.

Bada **komiko** bat hemen, Joselo. Pako Aristi

Hil zen arte herriz herri ibili zen, aintzinako **komikoak** bezala. Berria - Kultura

Sinets iezadazu, jaun estimatu horrek, **komiko** lanbide hau guztiz dela lanbide noblea. Josu Zabaleta

Hamabi urterekin etxetik alde egin eta **komiko** konpainia batean sartu zen. Berria - Kultura

• **2** *izond* komediari dagokiona.

Hiru eratako eszena-motak daude: bata tragikoa deitzen dena, bestea **komikoa,** eta hirugarrena satirikoa deitzen dena. Santiago Iruretagoiena

Grekoek *logeion* (solas-plaza) deitzen diote, aktore tragikoek eta **komikoek** eszenan egiten dituztelako beren hizketaldiak, gainerako antzezlariek beren lana orkestran egiten duten bitartean. Santiago Iruretagoiena

Poeta **komiko** grekoek. Santiago Iruretagoiena

Eszenetako fatxadak egiten hasi ziren kutsu tragiko, **komiko** edo satirikoarekin. Santiago Iruretagoiena

Williams, antzerki-paperen bat jokatu behar nukeela ari da adierazten, noski, **komikoa** bada, hobe. Joxe Austin Arrieta

Bai film **komiko** eta musikaletan bai western dramatikoetan. Berria - Kultura

· *La gazza ladra, La scala di seta, Il turco in Italia* eta batik bat *Il barbiere di Siviglia* dira Rossiniren lan ezagunenak, opera **komikoak** guztiak. Berria - Kultura

**3** barre-eragilea.

Tivoli-n akrobata eta artista **komiko** gisa aritzen zen bat. Irene Aldasoro

Ikuskizun **komiko** bat eskaini nahi zuen soilik, esperpento sozial bat. Xabier Mendiguren Elizegi

*Petra, txardin-saltzallea,* Sarriegi eta Iraolaren pieza **komiko** laburra. Askoren artean

Lau sujet euskaldun azaltzen zaizkigu zinta **komiko** batean, hiru txapelarekin eta laugarrena gotzain jantziekin. Bernardo Atxaga

Eta *zio* esaten zuen aldiro, ia modu **komikoan** markatzen zuen zeta. Anjel Lertxundi

Egoeraren garraztasuna unetxo **komiko** batez eteteko. Josu Zabaleta

Harrotasun ia **komiko** hori. Alberto Barandiaren

Keinu **komiko** bat azaldu zuten neskaren ezpainek. holakoetan, itxura serioa hartzen zuen, jarrita egotea oso gauza **komikoa** iruditzen zitzaion eta. Aritz Gorrotxategi

Pedagogo ohoragarri batengan hain penagarria eta ezohikoa den bokazio **komiko** horrexengatik. Josu Zabaleta

Kartzela garai hartatik, anekdota tragiko-**komiko** batzuk baizik ez zizkidan kontatu. Joxan Elosegi

---

## **komikoki** *adlag* barre eragiteko moduan.

Eskuak dardarka nituen eta argazkiak **komikoki** mugitzen ziren nire behatzen artean. Mikel Hernandez Abaitua

Ulertzen saiatzen dira **komikoki** eta maisua bezala hitz egiten dute. Karlos Zabala

## **komikotasun** *iz* komikoa denaren nolakotasuna; komiko izateko nolakotasua.

Hortxe dago filmaren **komikotasuna**. Xabier Mendiguren Elizegi

Antzezlan hauek **komikotasun** ikaragarria dute, eta jendeak oso ondo pasatuko du. Berria - Kultura

Arrazoi berberagatik erabili du **komikotasuna,** baina filmeak aurrera egin ahala dramatismoak eta azkenean tragediak hartuko diote lekukoa. Berria - Kultura

Batzuetan bazuen, nola esan, halako ukitu jansenista bat, **komikotasunaren** ateetan jartzen zuena. Jon Alonso

Borondatezko **komikotasun** itxuratiaren atzean egiazko barregarrikeria disimulatzeko ahaleginean berriz ere. Ramon Saizarbitoria

---

kominiatu ik **komuniatu**.

---

kominione ik **komunio**.

---

## **komino ik kumino.**

---

## **komisaldegi** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **polizia-etxe** eta **komisaria** agertzen dira)* *iz* polizia-etxea, komisaria.

Atxilotuak Saintesko **komisaldegira** eraman zituzten. Berria - Euskal Herria

Ertzaintzaren **komisaldegi** batera jo zuen. Berria - Euskal Herria

Bi egun zeramatzan gizonkoteak **komisaldegian**. Harkaitz Cano

Ostera **komisaldegian** nintzela iruditu zitzaidan, berriro infernu hartan... Jokin Urain

**Komisaldegiko** ziega zikin eta heze batean. Aingeru Epaltza

Geltokiaren aitzineko eraikin batean antolatua zuten aleman **komisaldegira,** komandantur-era. Eneko Bidegain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **komisaldegira eraman** (8)

---

komisari ik **komisario**.

---

## **komisaria** *(106 agerraldi, 28 liburu eta 23 artikulutan)* *iz* polizia-etxea. ik **polizia 11**.

Horko poliziaren **komisarian** salaketa bat jarri dute. Fernando Morillo

SS-en **komisariara** joateko dei bat iritsi da aitarentzat. Josu Zabaleta

Bilboko **Komisarian** nago atxilotuta. Rafa Egiguren

Hamabi ordu **komisarian,** hamabi ordu besterik ez...nekez idazten dut hala ere. Agurtzane Juanena

Aborigen bat **komisaria** batean torturatuta hil zuen Australiako Poliziak joan den astean. Berria - Mundua

Manifestariek Irakeko Poliziaren zenbait **komisaria** okupatu zituzten. Berria - Mundua

Hondamendi batetik onik atera den pertsona bakarra zirudien **komisariako** itxarongelan. Joxean Agirre

Neure burua ikusten dut berriro **komisariako** korridore hutsetan, laugarren galdeketara noala, gauerdian. Agurtzane Juanena

Ez zait inporta kartzelara joatea, baina ez dut **komisariara** itzuli nahi... Agurtzane Juanena

Begitarteak estalirik, arrastatuak **komisariara** eramaten eta galdezka une osoan berogailuei esku burdinaz loturik atxikitzen zituzten. Itxaro Borda

· Gogo berezirik gabe igo zituen **komisariakoek** bereziki alokatu zioten apartamentu hartako eskailerak. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **komisaria barrura** (3); **poliziaren komisaria** (3)
> **komisariara deitu** (3); **komisariara eraman** (11); **komisariara joan** (6); **komisariara joatea erabaki** (3); **komisariara joateko** (4)
> **espainiako poliziaren komisariaren** (4)
> **komisariatik atera** (3); **komisariatik pasatu** (3)

---

## **komisariatu** *(12 agerraldi 12 artikulutan)* **1** *iz* komisariotza.

UNHCR Nazio Batuen Errefuxiatuentzako **Komisariatu** Nagusiko eledun Ron Redmondek. Berria - Harian

Giza Eskubideetarako NBEko **komisariatu** nagusi Louise Arbourrek. Berria - Harian

Nazio Batuen Erakundearen Errefuxiatuentzako Goi **Komisariatuak** (UNHWR) 90 milioi dolar beharko ditu hurrengo bi urteetan. Berria - Mundua

Giza Eskubideen Goi **Komisariatuak** egoera aztertzeko egitekoa den txostenaren zain dago. Berria - Mundua

### **2** ***goi komisariatu***

Giza Eskubideen **Goi Komisariatuak** egoera aztertzeko egitekoa den txostenaren zain dago erakundea erabaki komun bat hartzeko. Berria - Mundua

Nazio Batuen Erakundearen Errefuxiatuentzako **Goi** Komisariatuak urtero banatzen duen saria da Nansen. Berria - Gaiak

Nazio Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Erakundeko **Goi Komisariatuko** bulegoari egin zioten eraso Kandaharren. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errefuxiatuentzako komisariatu** (6); **errefuxiatuentzako komisariatu nagusiak** (3)
> **goi komisariatuak** (4)

---

## **komisario** *(orobat **komisari** g.er.)* **1** *iz* poliziaburua.

Espainiako Poliziako **komisario** batek. Berria - Mundua

**Komisario** izendatua izan zen garaian. Elena Touyarou

**Komisario** bat inputatuta Irunen, prebarikazioagatik. Berria - Euskal Herria

Azkenaldi horretan polizia guztia zoratzeko zorian zeukan gizonaz hizketan aritu ziren polizia-etxean, eta **komisarioak,** gizon zahar, mozkor, xelebrearen zinismoarekin, heroia deitu zion. Jose Morales

Ticketa seinalatu eta bertan idatzitako izenak ikusarazi zizkion **komisarioak** Cesarri. Harkaitz Cano

-Nor da, ba, Senperena hori? -lehenengo galdera **komisarioak**. Hasier Etxeberria

1944ko agorrilaren 15ean, **komisarioaren** aitzinera herrestan bezala naramate. Michel Oronoz

Ohiduraren segitzeko, poliziak finak balinbadira **komisarioa,** aldiz, zozoa. Herria

Handik zuzenean poliziaren **komisario** zentralarengana joan nintzen. Josu Zabaleta

**Komisarioak** uretan murgilarazi zion berriro ere burua, tarte luzez, harik eta eskuburdinen arteko hatzen dardara amaitu zen arte. Harkaitz Cano

Krimenari buruz **komisarioak** zuen ezaupide guztia liburuetakoa zen. Joxean Agirre

Ezagutzaren gurutze handia eman dio espainiol gobernuak Meliton Manzanas **komisario** torturatzaile zenari. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Julie Lescaut izan da lehen aldikotz telefilmetan emazte batek **komisario** kargua ukan duena, erran nahi baita manatzaile zela eta bere menpean zituela gizonak. Herria

Laurence (Astrid Veillon) izanen dela hemendik goiti **Komisario** tituluarekin polizia taldearen nagusia. Herria

Etorri nauk hiri erratera ene Sarako **komisario** postua uzten dudala. Elena Touyarou

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atzetik bost gizon datoz, herri-**komisaria** eta lau soldadu. Felipe Juaristi

**4** aldi bateko betekizun bereziez kargutzen den pertsona.

Herri honetan eta inguruetan, legeak betetzen direnentz zaintzeko igorria izan den **komisarioa** naiz. Elena Touyarou

-Eskualdeko **komisarioa** naiz. Elena Touyarou

Hona Ithurbide herritarra, Sarako **komisarioa,** Zuzendaritzaren ordezkaria. Elena Touyarou

Bere aitonaz mendekatzeko Sarara itzuliko da, Frantziako Iraultzako **komisario** dela. Berria - Kultura

Gogoan izango dun partiduko **komisarioak** zelan mesfidatzen ziren nitaz... Josu Landa

Euskal elkarteen 8 ordezkari, legezko 8 ordezkari, 4 pertsonalitate kalifikatu eta konduetarako **komisario** bat (Mixel Fagoaga senpertarra). Herria

Obra horiek guziak inkantean salduko dira St Laurent de Gosseko ezkerparetan, Marie France Carayol miarriztar **komisario**-inkantalariaren ardurapean. Herria

Inkisizioneko **komisarioak** igandeko mezan irakurri zuen ediktu hura. Joan Mari Irigoien

**Komisario** salatzaileak lehentasuna zuen zigortutakoaren ondasunak eskuratzeko, Inkisizioak salgai jartzen zituenean. Markos Zapiain

Nola presentatu zuen Errepublikako **komisarioa** (hots, prefeta) erakutsiz Frantziako gobernuak izendatua zela. Herria

Frantziako gobernu **komisarioak,** Yann Aguila magistratu independenteak, Clemenceau hegazkinontziak Indiara bidean daraman bidaia bertan behera lagatzeko eskatu du Berria - Gaiak

**5** Europar Batasuneko gobernuko sailburua. ik beherago **6;** ik **komisionatu 2**.

EB-ko batzorde murriztua: 2014 arte estatu bakoitzak **komisario** bat izango du. Berria - Harian

Baina Buttiglione ez da Barrosoren **komisario** polemiko bakarra. Berria - Mundua

PPko ministro zein Europako **komisario** izandakoa da. Berria - Mundua

Rocco Buttiglione italiarrak Europako Batzordeko **komisario** izateari uko egin zion atzo. Berria - Mundua

Europako Atzerri **komisario** Benita Ferrero-Waldnerrek.

EBren Hedapenerako **komisario** Guenter Verheugenek. Berria - Mundua

Batzorde berriaren ezaugarri eztabaidatsuena, baina, Herbehereetako Neelie Kroes liberala Lehiakortasun **komisario** karguan eustea izan da. Berria - Mundua

Hainbat diputatuk esan dute ez direla fio **komisario** batzuekin. Berria - Mundua

Laszlo Kovacs [...] Energia komisariogai izatetik Zerga **komisario** kargura aldatu du baztordeburuak. Berria - Mundua

**6** arte ekakusketa baten antolatzaile den aditua.

Irizpide artistikoak bermatzeko, urtero **komisario** bat izendatzen du [Arco] azokak, artistak aukera ditzan. Berria - Kultura

Bisitari arruntaz gain, museo zuzendariak, bildumagileak, arte **komisarioak** eta prentsa espazializatua ere Kursaalean izango dira. Berria - Kultura

*Gure Artea* erakusketako **komisario** Peio Agirrek. Berria - Kultura

Nazioarteko aditu, **komisario** eta musoetako arduradunek hautatu dituzte galeriak. Berria - Kultura

Hizlarien artean, besteak beste, hauek izango dira: *Manifesta 5*eko ordezkari Bartomeu Mari, Berlingo Biurtekoko **komisario** Ute Meta Bauer, Jens Hoffmann **komisario** ezaguna eta Antonio Ortega artista. Berria - Kultura

Thomas Krens Guggenheim fundazioko zuzendariak gidatu du *Errusia!* erakusketa antolatu duen **komisario** taldea. Berria - Kultura

Margit Rowell aritu da **komisario** lanean. Berria - Kultura

**7** ***goi komisario****sup_1* ik **komisionatu 2**.

Javier Solana Europako Segurtasun eta Atzerri Politikarako **goi** komisarioak.

EBko Atzerri Politika eta Segurtasun gaietarako goi **komisario** Javier Solanarekin bildu zen Mottaki.

EBko Atzerri Politika eta Segurtasunerako goi **komisario** Javier Solanaren ustez, egoera berri bat sortu da orain. Berria - Harian

EBko Atzerriarekiko Harremanetarako goi **komisario** Benita Ferrero-Waldnerrek. Berria - Mundua

**8** ***goi komisario****sup_2* ik **komisionatu 3**.

Giza Eskubideentzako Nazio Batuen Goi **Komisario** Louise Arbourrek atzo agertu zuenez, kezkatuta dago biktima zibilei buruz jasotzen den informazio eskasa dela eta. Berria - Mundua

Louise Arbour NBEko Giza Eskubideen **goi** komisarioak. Berria - Mundua

Ruud Lubbers Errefuxiatuentzako **goi** komisarioak. Berria - Mundua

**9** *komisario-buru* ik **komisarioburu**.

**10** ***komisario nagusi*** ik **komisarioburu**.

Mingorance [...] polizian sartu zen, eta, denboraren poderioz, **komisario nagusi** izatera iritsi zen. Joxemari Iturralde

Ingelesaren etxean sartzen ari nintzen, **komisario nagusiarekin** eta jendarmeriako kapitainarekin batera. Josu Zabaleta

Fernando Amo Donostiako gaur egungo komisario buruaren eta Poliziako Zuzendaritza Nagusiko **komisario nagusiaren** aurka zigor prozedura zabaltzea proposatu zuen akusazio partikularrak. Berria - Harian

Donostiako polizia etxeko gertaeren garaiko (Informazio) **komisario nagusiari** deklarazioa hartzea. Berria - Harian

Larrañagak, Babeserako Batzarraren **komisario nagusi** komunistak, matxinatuei hartu zizkieten arma bat ere gabe utzi zituela CNTkoak. Inazio Mujika Iraola

· ik komisarioburu 2.

Horiek hola, Françoise Viatte Parisko erakustokiko **komisario nagusiak** Baionan bertan zerbaiten egitea proposatu zuen Berria - Kultura

**11** ***komisario ondoko***

Orain aste batzuk Polizia Nazionalaren **komisario** ondoko bat atxilotu zuten, bahiketa sare bateko buru izatea leporatuta. Berria - Gaiak

**12** ***komisario politiko*** Alderdi Komunistako ordezkaria, armadako agintarien erabakietan esku hartzeko egitekoa zuena.

Etxebarria zen, ez dakit zein batailoiko **komisario politikoa**. Císcar gudontziko **komisario politikoa** ere izan zen, tarte batez. Edorta Jimenez

Banekien gazte hitlerzaleen talde askotan **komisario politiko** bat egoten zela. Anjel Lertxundi

Portboutik sartu ziren Bartzelonara eta han, hiriburuan, Nikolai Kauffmannek bere neurria erakutsi zuen, **komisario politiko** izendatu baitzuten, iritsi eta berehala. Felipe Juaristi

Ekineko kideak **«komisario politikotzat** » jotzeak Ekin «kriminalizatzeko eta klandestinizatzeko» nahiari besterik ez diola erantzuten. Berria - Euskal Herria

"Nolatan gero Hitler eta Stalin sarraskikide?", zioten ortodoxiaren zaintzaile eta jagoleek, egiaren **komisario politikoek** . Felipe Juaristi

**13** ***polizia-komisario*** poliziako komisarioa.

**Polizia-komisarioa** behin baino gehiagotan etorri zen gerra erruki gabe hura gelditzeko agintzera. Josu Zabaleta

Ikuskatzaile bat **polizia komisarioa** da eta bake epailea, biak batera. Karlos Zabala

Havreko, Rouengo, Vernongo **polizi komisarioek** Florent Parisa zetorrela iragartzen zuten. Karlos Zabala

-Oraintxe deitu dit Bilboko **Polizia komisarioak** , eta esan dit Gobernadorearen agindua dagoela Polixene Trabudua de Mandaluniz atxilotu eta Carmengo agintaritzara eramateko... Jokin Urain

**Poliza komisario** erretreta hartu baino bi egun lehenago. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arrantza komisario** (4); **atzerri harremanetarako komisario** (4); **atzerri komisario** (4); **batzordeko komisario** (4); **batzordeko lehiarako komisario** (4); **ekonomia komisario** (3); **erakusketako komisario** (13); **erakusketaren komisario** (3); **europako batzordeko komisario** (4); **europako komisario** (6); **garraio komisario** (3); **goi komisario** (27); **harremanetarako komisario** (8); **hedapenerako komisario** (7); **kanpo harremanetarako komisario** (4); **kerguelen komisario** (3); **komisario benita ferrero** (13); **komisario berriak** (8); **komisario buru** (3); **komisario burua** (5); **komisario buruak** (4); **komisario espainiarrak** (3); **komisario gisa** (3); **komisario guenter verheugenek** (4); **komisario izendatu** (3); **komisario jauna** (6); **komisario javier solanak** (14); **komisario mario montik** (4); **komisario nagusia** (4); **komisario nagusiak** (6); **komisario nagusiari** (3); **komisario politiko** (7); **komisario politikoa** (5); **lehiarako komisario** (9); **mingorance komisario** (6); **nekazaritza komisario** (4); **osasun komisario** (3); **segurtasunerako goi komisario** (19); **segurtasunerako komisario** (3)
>
> **erakusketaren komisarioa** (6); **etxarte komisarioa** (3); **europako komisarioa** (4); **kerguelen komisarioa** (6); **merkataritza komisarioa** (4); **urrutikoetxea komisarioa** (4)
>
> **; almunia ekonomia komisarioak** (6); **batzordeko komisarioak** (5); **batzordeko lehiarako komisarioak** (5); **diru gaietarako komisarioak** (3); **ebko hedapen komisarioak** (4); **ekonomia komisarioak** (8); **erakusketako komisarioak** (18); **erakusketako komisarioak azaldu** (3); **erakusketaren komisarioak** (4); **garraio komisarioak** (4); **ginsburg komisarioak** (4); **goaza komisarioak** (4); **goi komisarioak** (10); **hedapen komisarioak** (7); **kerguelen komisarioak** (11); **komisarioak agindu** (3); **komisarioak azaldu** (11); **komisarioak azaldu zuenez** (6); **komisarioak esan** (7); **lehia komisarioak** (3); **lehiarako komisarioak** (22); **merkataritza komisarioak** (7); **monti lehiarako komisarioak** (4); **nabarmendu zuen komisarioak** (3); **nekazaritza komisarioak** (4); **osasun komisarioak** (3); **roberto goaza komisarioak** (4); **urrutikoetxea komisarioak** (4)
>
> **batzordeko lehia komisarioarekin** (3); **komisarioarekin bilduko** (3)
>
> **erakusketako komisarioaren** (5); **erakusketako komisarioaren esanetan** (4); **etxarte komisarioaren** (3); **goi komisarioaren** (3); **kerguelen komisarioaren** (6); **komisarioaren arabera** (17); **komisarioaren aurrean** (4); **komisarioaren bozeramaileak** (4); **komisarioaren esanetan** (11); **komisarioaren esku** (3); **komisarioaren ustez** (6); **lehiarako komisarioaren** (6); **lehiarako komisarioaren bozeramaileak** (3); **nekazaritza komisarioaren** (3)
>
> **urrutikoetxea komisarioari** (3)

---

# komisarioburu *(orobat **komisario(-)buru**)* **1** *iz* komisario nagusia.

Mingorance **komisario-burua** . Berria - Kultura

Scotland Yardeko **komisarioburu** Ian Blairrek. Berria - Mundua

Garai hartan Donostiako **komisario buru** zena. Berria - Harian

Fernando Amo Donostiako gaur egungo **komisario buruaren** eta Poliziako Zuzendaritza Nagusiko komisario nagusiaren aurka zigor prozedura zabaltzea proposatu zuen akusazio partikularrak. Berria - Harian

**2** (arte erakusketetan)

*Irudi* garaikidearen kritika eta eraikuntza izenburupean berriz, David Travis Chicagoko Art Instituteko **komisario burua,** Rosa Olivares Madrilgo Exit Mediako zuzendaria eta Carles Guerra, Chris Boot, Alberto Martin eta Marta Gili arte kritikariak ariko dira. Berria - Kultura

---

# komisariogai *iz* Europar Batasuneko gobernuan komisario izateko aurkezten duten pertsona.

Laszlo Kovacs [...] Energia **komisariogai** izatetik Zerga komisario kargura aldatu du baztordeburuak. Berria - Mundua

Legebiltzarrak atzera bota zuen Barrosoren proposamena, hainbat **komisariogairen** profesionaltasun eza argudiatuta. Berria - Mundua

Rocco Buttiglione Europako Batzordeko **komisariogaiak** haurrek familia tradizional baten barruan jaio behar dutela esan du. Berria - Mundua

Justizia, Askatasun eta Segurtasunerako **komisariogai** ohiak, bere burua «biktima errugabe» gisa definitu ondoren, [...]. Berria - Mundua

Askatasun **komisariogai** kargua utzi ezean, Batzordearen aurka bozkatuko dute sozialistek. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **esan zuen komisariogaiak** (3)

---

# komisariorde **1** *iz* komisarioaren ondorengoa.

Lancashireko Poliziako **komisariorde** Julia Hodsonen arabera gertaera «susmagarria» da. Berria - Mundua

Londresko **Poliziako** komisariorde Brian Paddickek adierazi zuen inork ez zuela atentatuen aurretik oharkizunik egin. Berria - Harian

**2** ***goi komisariorde***

Hala azaldu du Kamel Morjane [NBEko] goi **komisariordeak;** eskualde horretan izan zen iragan astean. Berria - Mundua

---

# komisariotza *(4 agerraldi 3 artikulutan)* **1** *iz* erakunde nazional edo nazioarteko baten mende dagoen organismoa, erakundearen egiteko jakin batez aritzen dena. ik **komisariatu**.

UNHCR Nazio Batuen Errefuxiatuentzako **Komisariotza** Nagusiko arduradun Antonio Guterresek azaldu zuenez, [...]. Berria - Harian

Asilo eskaerak aztertzeko eskatu dio Madrilgo gobernuari NBEko Errefuxiatuentzako **Komisariotza** Nagusiak. Berria - Harian

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideetarako Goi **Komisariotzak** . Berria - Mundua

Eugenio Irastorza preso ohiak, Bergarako ekimeneko Arantxa Arrutik, [...] eta SAko Joseba Alvarezek gaur 15:00etan aurkeztuko dituzte salaketak Nazio Batuen Erakundeko Goi **Komisariotzan** . Berria - Euskal Herria

**2** ***goi komisariotza***

15:00etan aurkeztuko dituzte salaketak Nazio Batuen Erakundeko **Goi** Komisariotzan. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideetarako **Goi Komisariotzak** atzo argitara eman zuen txosten batek. Berria - Euskal Herria

---

# komisio[1] *(orobat **komisione** g.er.)* **1** *iz* batzordea.

Atzo izendatu du gobernuak **komisio** bat zor laborala zenbatekoa den zehazteko, ez ordaintzeko, baizik eta zenbatekoa den jakiteko. Pako Aristi

Legebiltzarra oraindik aztertzen arituko da zein alderdi sartuko den talde bakoitzean eta bakoitzak zein **komisio** hartuko duen bere gain. Berria - Mundua

Espainiako Kongresuko Justizia **komisioan**. Berria - Euskal Herria
Mediku militarren **komisioaren** aurrean. Pablo Sastre
Konpartsen **komisioaren** eta Udalaren arteko harremana. Unai Iturriaga
Azkoyenek burtsan zuen kotizazioa eten egin zuen ostegunean Balio Merkatuen **Komisio** Nazionalak.
CNE Espainiako energia **komisio** nazionalak. Berria - Ekonomia
Bide Segurtasunerako **Komisio** Teknikoa jarri da abian Eudelekin elkarlanean. Berria - Euskal Herria
**Komisio** bat igo omen duk alkatearekin hitz egitera. Pablo Sastre
Hego Osetia eta Georgiako agintariek osatzen duten Kontrolerako **Komisio** Mistoak. Berria - Mundua
Terrorismoa Finantzatzeko Aktibitateen Zaintza **Komisioak** kontuak blokeatu eta kontu berriak irekitzea debekatu ahal izango du. Berria - Harian
Pentagonoak ez du erabaki akusatuak **komisio** militar baten aurrera ala epaitegira joango diren. Berria - Mundua
**Komisioa** aholku-emailea soilik izango da. Berria - Euskal Herria
Portugesa izanen ote da, helduden aldakuntzan, europear **komisioaren** president berria? Herria
*ik beherago* 3. Askoren artean
Nekazaritzako **Komisioko** buruak. Pello Zabala
*ik* komisioburu.
Txingudin egitekoak diren errauste plantak medikuen **komisioko** kideon artean sortzen duen kezka azaltzeko antolatu dugu sinposioa. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

«Behar zen guztia ez egitea» egozten dio [FBIri] Ikerketa **Komisioak**. Berria - Mundua
· EAJ alderdiaren ordezkaritza honako hauek osatuko dute: Euskadi Buru Batzarreko lehendakari Josu Jon Imazek [...] eta **Kanpo** Komisioko arduradun Gorka Agirrek.

**3 *Europako Komisio***

Europako **Komisioak** ikus-entzunezkoen industriak eta zinematografikoak duen «izaera estrategikoa» nabarmendu berri du iragan astean kaleraturiko agiri batean. Berria - Kultura
Europako **Komisioak** gai kutsagarrien isuria neurtzeko arteztaraua ezartzeko azken deia egin zien atzo Europako 21 herrialderi. Berria - Euskal Herria
Europako **Komisioak** suntsitze esparruekin loturiko artxiboak gordetzen laguntzeko diru laguntzak emango ditu. Berria - Kultura
· Europako Parlamentuak eta **Komisioak** bultzatu egin beharko luketela Ekialdeko eta Mendebaldeko herrietako idazleen arteko elkarrizketa. Edorta Jimenez

**4 *goi-komisio***

25.000 salaketatik gora aurkeztu zituen atzo erakunde horretako Goi **Komisioan**. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **komisio mistoak** (3); **komisio nazionalak** (3); **kontrolerako komisio** (3)
> **euroko komisioak** (3); **europako komisioak** (3)
> **europako komisioko** (4)

---

# komisio² 1 *iz* salerosketa edo merkataritza eragiketa bat zertzen duenak kobratzen duen saria.

**Komisioak** dira bankuetako eta kutxetako bezeroen kexa iturri nagusietakoa. Berria - Ekonomia
Gainerako abalak, %0,6ko **komisioarekin** eskainiko ditu. Berria - Ekonomia
Ez dizkietela **komisioak** kobratzen bezeroen %65i. Berria - Ekonomia
Kontua da ez dakigula zenbateko **komisioa** kobratzen duen. Berria - Harian
Asko saltzeagatik jasotzen zituen **komisio,** hobari eta gainerakoekin. Ramon Saizarbitoria
Salmenta batekin irabaziko nuen **komisio** xumearen truke. Ramon Saizarbitoria
**komisio** txiki baten truke komandanteak dena gurean erosiko dutela segurtatzen digu. Bego Montorio
Salmenten kopurua bere onera sekula ez zela itzuliko pentsatzen zuenez, **komisio** handia eskaini zion gazteari. Xabier Aranburu
**komisio** polita jasotzen zuen mutilak saltzen zuen pieza bakoitzeko. Xabier Aranburu
**Komisio** eta aseguruetatik jasotakoa 2004an baino %16,4 gehiago izan zen. Berria - Ekonomia
Arduradun horrek hamar kilo 'ketchup' saltsa ahantzi zituen bere **komisio** zerrendan. Ramuntxo Etxeberri
Bihar gauerako azken manganeso-koilarakada ere lehorreraturik ez badago, **komisio** erdia baino ez dizut ordainduko... Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Lan **komisioak** agindu zituen ureztatze-sareak ez ziren egin. Jon Maia

**3 *komisio-hartzaile***

Etengabea zen, halaber, **komisio** hartzaileen eta bezeroen emana. Patxi Zubizarreta
Bere idazmahaiaren atzealdean eseririk, **komisio** hartzaile judu baten eitea hartzen zuen, buruargi eta erne. Patxi Zubizarreta

**4 *legez kanpoko komisio***

Fragata militarren salmentarekin lotutako legez kanpoko **komisioen** ordainketei zegokiola.
Bosch Siemens multinazionalak ustez legez kanpoko **komisioetan** 200 milioi pezetako ordainketa egin zuenean. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **komisiorik gabe** (3)

---

# komisio³ *(corpusean **komisione** soilik) iz ipar* betekizuna.

Zentinelak **komisionea** egitea onartzen bazuen. Marzel Etxehandi
Eta egia esan, inoiz baino aiseago egin dugu **komisionea**. Berria - Kultura
Pabera itzuli zen **komisionea** egin gabe. Xipri Arbelbide
Harekin otoitz egiten zuen eta emazte harek egun batez **komisione** bat eman zion. Herria

---

# komisioburu *(corpusean **komisio buru** soilik) iz* batzordeburua.

PAC laguntzen kanbiatzea zen Fischler **komisio** buruaren ideia, karia hortarat izan ere da manifestaldi asko. Herria

---

# komisiolaritza *iz*

**Komisiolaritzako** hiru txori bakan haiek oso antiklerikalak ziren. Josu Zabaleta

---

# komisionatu *(orobat **komisionadu** g.er.)* **1** *iz*

NBEk Afganistanerako zuen **komisionatu** Lakhdar Brahimik. Berria - Mundua

NBEko errefuxiatuen **komisionatua** «oso kezkaturik» agertu zen Italiako Gobernuak hartu dituen neurriengatik. Berria - Mundua

Jose Mari Muñoa Jaurlaritzako kanpo harremanetarako **komisionatua**. Berria - Euskal Herria

**2** Europar Batasuneko gobernuko sailburua. ik **komisario 4.**

Europako Batasuneko Atzerri Aferetarako **komisionatu** Charles Patten. Berria - Mundua

«Benetako iraultza teknologikoa dakar honek», esan zuen atzo EBko Garraio **komisionatu** Jacques Barrotek. Berria - Gaiak

**3** ***goi komisionatu**sup_1* ik **komisario 7.**

Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideetarako **goi komisionatu** Louise Arbour Errusiako presidente Vladimir Putinekin bildu zen atzo Moskun.

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen **Goi Komisionatuko** bozeramailea da Jose Diaz dominikarra.

Nazio Batuen Erakundeko langile batek sexu jazarpena leporatu ondoren, ikerketa bat abiatu dute Ruud Lubbers iheslarien **goi komisionatuaren** aurka. Berria - Mundua

Nazio Batuen Erakundeko Errefuxiatuentzako **Goi Komisionatuak** iragan ostegunean bertan behera utzi zuen errefuxiatuak itzultzen laguntzeko zeukaten misioa.

Luis Carlos Restrepo Bakerako **goi** komisionatuak Gobernuko egoitzan asteazkenean irakurri zuen komunikatuak zioenez. Berria - Mundua

**4** ***goi komisionatu**sup_2* gobernuak aginduriko betekizun jakin bat duen pertsona.

Gregorio Peces-Barba Espainiako biktimen **goi komisionatuaren** ustez. Berria - Euskal Herria

Peces Barbak Biktimen Arretarako **Goi Komisionatu** kargua utziko du. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arretarako goi komisionatu** (3); **eskubideetarako goi komisionatu** (5); **goi komisionatu** (15); **komisionatu louise arbourrek** (4)
> **goi komisionatuak** (8)
> **goi komisionatuaren** (4)
> **goi komisionatuari** (3)

---

## komisione ik **komisio[1]**.

---

## komit ik **gomit**.

---

## komitatu ik **gomitatu**.

---

## komitatzaile ik **gomitatzaile**.

---

# komite *(485 agerraldi, 19 liburu eta 336 artikulutan –gehie-gehienak Herria aldizkarikoak-)* **1** *iz* batzordea.

Zer nahi dute **komite** horretako kazetari, kritiko, profesore eta abarrek? Bernardo Atxaga

Talde ekologistetan sarturik zebilen, kolektibo feministetan, **komite** internazionalistetan eta beste bizpahiru mugidatan. Xabier Mendiguren Elizegi

Horien antolakuntzan, SOS Arrazakeria, **Komite** Internazionalistak eta Zabaldi elkarteak ariko dira elkarlanean. Berria - Euskal Herria

Amerikaren aurkako ekintzen kontrako **Komitea**. Berria - Kultura

Gaur Pekinen hastekoa den Alderdi Komunistaren **Komite** Zentralaren bileratik erreforma politikoen aldeko aurrerapausuren bat espero dituzten baikorrak. Berria - Mundua

Uztaritzeko zinegotzi eta Bidarten aldeko **komitearen** bozeramailea. Berria - Euskal Herria

Ez-eskuartzearen **Komiteko** begirale. Jokin Urain

INAO sormarken **komiteak** arras baldintza zorrotzak ezarririk, [...]. Herria

Bestetako **komitearen** biltzarrea. Herria

Ondotik, **komiteak** eskainitako aperitifa. Herria

Errepresioaren Aurkako Korsikako **Komiteak**. Berria - Mundua

Europako Batzordeko Torturen Prebentzioroko **Komiteak** (CPT) esandakoak. Berria - Euskal Herria

Robespierre, *Montagnards* taldeko Jakobinoak bere burua jarri zuen Salbakuntza Publikoaren **Komitearen** buruzagi. Elena Touyarou

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hainbat emakume elkartu eta hilero izaten zituen aholku-batzarrak, solasaldiak eta **komite**-bilerak bere etxean. Anton Garikano

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Telefonicako Enpresa **Komiteko** ordezkariak. Berria - Euskal Herria

Nazio **Komiteko** kide guztiak EHNA eskuetan zutela agertu ziren hedabideen aurrean. Greba **komiteko** zenbaitek. Berria - Euskal Herria

Karrikako besta **komiteak** antolatu ihauteriak iragan dira joanden larunbatean. Herria

Ez daude ados, gainera, zuzendariek segurtasun **komitearen** eta lana eta familia uztartzeko neurrien harira proposatutakoarekin. Berria - Ekonomia

Etika-**komiteek** azpibatzorde espezializatuak sortuko dituzte. Juan Garzia

Filipe Bidarten sostengu **komiteko** kideak haserre daude. Berria - Euskal Herria

Nazio Batuen deskolonizazio **komiteak** egoera aztertu aurretik. Berria - Mundua

Departamenduko turismo **Komitearen** zuzendaritza. Herria

Zainketa **Komiteko** Hiriart eta Harismendi herritarrak ondoan zituela. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **enpresa komite** (4); **komite internazionalistak** (19); **komite internazionalistetako** (3); **komite teknikoak** (3); **sustengu komite** (7)
> **besta komitea** (22); **enpresa komitea** (6); **kontrako komitea** (3); **pesta komitea** (4); **sostengu komitea** (4); **sustengu komitea** (5)
> **aurkako komiteak** (3); **besta komiteak** (48); **besta komiteak antolatu** (3); **besta komiteak antolaturik** (4); **besta komiteak antolatzen** (6); **bestetako komiteak** (4); **donazaharreko besta komiteak** (3); **enpresa komiteak** (7); **herriko besta komiteak** (3); **herriko komiteak** (3); **karrikako besta komiteak** (7); **komiteak antolatu** (5); **komiteak antolaturik** (10); **komiteak antolatzen** (11); **komiteak antolatzen du** (4); **komiteak eskainirik** (5); **komiteak eskainitako** (3); **pesta komiteak** (14); **sostengu**

komiteak (6); sustengu komiteak (17); ziburuko besta komiteak (3)

pesta komitean (5)

besta komitearen (3); enpresa komitearen (6); filipe aska komitearen (3); komitearen biltzar (4); komitearen biltzar nagusia (3); komitearen izenean (5); komitearen xedeak (3); pesta komitearen (3); sostengu komitearen (3); sustengu komitearen (6)

besta komiteek (4)

sustengu komiteen koordinaketak (3)

besta komiteko (25); besta komiteko gazteek (9); enpresa komiteko (6); karrikako besta komiteko (5); komiteko gazteak (4); komiteko gazteek (15); komiteko gaztek (8); komiteko kidea (3); komiteko kideak (3); pesta komiteko (17); pesta komiteko gazteek (4); sostengu komiteko (4); sustengu komiteko (3)

aiherrako pesta komitekoek (3); besta komitekoek (3); pesta komitekoek (5)

---

**komitekide** *iz* komite jakin bateko kidea.

Sekulan ezin zen jakin nor zen solaskidea, eta bi gizon apaindu haiek, xingola palto hegian, zainketa **komitekideak** izan zitezkeen berdin. Elena Touyarou

---

**komitiba** *iz* laguneria, jarraileria.

Hamabietan, **komitibako** hamar autok babestuta, Espainiako errege-erreginak agertu ziren. Berria - Euskal Herria

---

**komizitate** *iz* komikotasuna.

Pentsamenduetarako terapia deitu dudan hori **komizitateak** eta umoreak sortzen zuten gehienbat. Pello Lizarralde

---

kommandant ik **komandante**.

---

kommandantur ik **komandantur**.

---

kommando ik **komando**.

---

**kommemorazio** *(corpusean **konmemorazio** eta **konmemorazione** soilik)* *iz* ospakizuna.

Estakuru bikaina zen **konmemorazione** hura, beraz, aitaren asmoetarako. Joan Mari Irigoien

**-Konmemorazio** egunaren antolakuntzak zertan dira? Elena Touyarou

---

**kommozio** *(orobat **konmozio**)* *iz* zirrara, inarrosaldia.

Kanporatzen duzun zerbaitek **konmozioa** lortzen badu, komunikatzen ari zara. Berria - Kultura

Aita teilatu baten zurajea konpontzen ari zela erori ostean hitz egin ezinik eta **konmozio** larri batez ekarri zuten egunean. Joseba Urteaga

Buruan kolpe larri bat hartu ondoren, hark eragindako **kommozioak,** gehienetan, oroimena galarazten du aldi baterako. Irene Aldasoro

Garuneko **konmozioa** eta burezurraren haustura izan zituen, eta horren ondorioz hil zen. Josu Zabaleta

Auzoko erietxeko larrialdi-gelan, **kommozio** zerebrala nuela esan zidaten. Xabier Olarra

---

**kommutadore** *(corpusean **konmutadore** soilik)* *iz* kommutagailua. ik **etengailu**.

**Konmutadore** bati eragin zion don Ottaviok. Jon Muñoz

---

**kommutatu**, kommuta, kommutatzen *(corpusean **konmutatu** soilik)* du *ad* zigorrez mintzatuz, ordeztu.

Santoñan atxilotua, heriotza zigorra ezarri zioten, gero hori **konmutatu** eta, azkenean, kartzela pairatu behar izan zuen, 1943an aske utzi zuten arte. Handik hiru egunera heriotza zigorrak **konmutatu** zituen Francok. Edorta Jimenez

---

**kommutazio** *iz* kommutatzea.

Zigorraren **konmutazioa** itxaroten zuen artean. Edorta Jimenez

---

**komoda** *iz* mahai bat baino zerbait garaiagoa den altzaria, gainean taula bat duena eta alderik aldeko hiruzpalau tiradera zabalez hornitua dena.

**Komodako** ispiluan islaturik nekusan irudiari mintzatu nintzaion. Txanponez txanpon dirua bildu eta **komodako** kaxoietan ezkutaturiko ehun latzezko zakutxoetan sartzen duten andre lurjabe txiki horietakoa. Ramon Saizarbitoria

Kotoizko txaleko zuria eta udako galtzak **komodan** gorde zituzten arropa zuriarekin batera. Jose Morales

Kaierak bi urte zeraman **komodan** gorderik. Jose Morales

Ez zituen berekin ekarri, halere, ez lapis lazulizko paparreko orratza, ez olibinozko besokoa, ez eta topazio eta amatistadun eraztunak ere; etxean utzi zituen bere **komodako** tiradera batean. Mirentxu Larrañaga

Louren argazki bat kartoizko lauki batean eskutokirik gabeko **komoda** baten gainean. Koro Navarro

Demba altxatu eta **komoda** gaineko panpinei begira jarri zen. Anton Garikano

**Komoda**-gain hura leku sakratua zen niretzat, txinatarrentzat etxean izaten duten aldarea bezala. Ander Irizar

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

komoda gainean (6)

komodako ispiluan (4)

**komodan gorde** (3)
**komodaren gainean** (4)

---

komodidade ik **komoditate**.

---

## komodin 1 *iz* joko kartetan, jokerra.

Eta kartak aipatu ditudanez, hiztegira jo dut gaztelerazko *comodín* hitza nola erran behar den jakiteko: ***komodina*** Hegoaldean eta *jokerra* Iparraldean. **Komodinik** bai, partida honetan? Hasier Etxeberria

**2** zernahitarako balio duen gauza.

Guztiok dugu gure zorte onaren arrazionamendu txartela, botere kuotarena, maitasunarena, edozertatik libra gaitzaketen **komodin** pare bat edo hiru. Harkaitz Cano

Bere bizitza estiloa erabat definitzen duen hitza, edozertarako balio duen **komodin** horietako bat. Harkaitz Cano

---

## komoditate *(orobat **komodidade**; ik **komoitate**)* *iz* erosotasuna.

Artaldean bizitzeko ohiturik baitzeuden, **komoditateak,** menekotasunak eta imajinazinoaren eskasak hartaraturik. Joan Mari Irigoien

Kanpinak ez dauka etxearen **komodidaderik**. Pedro Alberdi

---

## komodo *(orobat **komodos** g.er.)* *iz* erosoa.

Jarrera **komodo** bat bilatzen saiatu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxeko arropa **komodo** baina dotorez jantzirik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Komodoegia** da, edozergatik ere gogoko ez ditugun testu moduak baztertzea edo baliogabetzea. Koldo Izagirre

Buchenwald-eko kontzentrazio zelaia biziki zabala da, 600 metra gora eta biltegiak badira kondagaitzak, zenbaitek iduri baitute **komodosak,** Thuringe-ko mendi patarretan kokatuak. Michel Oronoz

Muga harriak bezala baitira, neurtzeko **komodoak** direnak. Ana Urkiza

Ez dakit, baina bera nahiko **komodo** dago erlazioan. Pako Aristi

---

## komodo *(orobat **komodos** g.er.)* *iz* erosoa.

Jarrera **komodo** bat bilatzen saiatu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxeko arropa **komodo** baina dotorez jantzirik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Komodoegia** da, edozergatik ere gogoko ez ditugun testu moduak baztertzea edo baliogabetzea. Koldo Izagirre

Buchenwald-eko kontzentrazio zelaia biziki zabala da, 600 metra gora eta biltegiak badira kondagaitzak, zenbaitek iduri baitute **komodosak,** Thuringe-ko mendi patarretan kokatuak. Michel Oronoz

Muga harriak bezala baitira, neurtzeko **komodoak** direnak. Ana Urkiza

Ez dakit, baina bera nahiko **komodo** dago erlazioan. Pako Aristi

---

## komodoro *iz* itsas armadako ofiziala.

Karguak eta karguak baizik ez, amaierarik gabeko organigrama garaietan: marinelik gabeko kapitain, komandante eta **komodoroz** jositako barkuak. Iñaki Heras

Perry **komodoro** amerikarraren 1853-1854ko espedizio famatuen ondoren Japoniaren subiranotasunak pairatzen zuen mehatxua zela-eta, zentralizazio-politika abian jartzea eta nazio barneko ekonomia liberalizatzea izan zen japoniarren erreakzioa. Koro Navarro

---

## komodotasun *(corpusean **komodostasun** soilik)* *iz* erosotasuna.

**Komodostasunak** manatzen du gisa hortako obra larria, zeren gaur egun beste aldetik itzulia eginez heltzen baita jendea zinetegi horretara. Herria

---

## komoitate *iz ipar pl* komuna.

Mahai ttipi bat, murruaren kontra altxatzen zena (nik uste), alki bat, lastozko matalaza, Beloken utzia nuen hura bezain tinkia edo gehiago, burdiko bat, manta erdi bat, nabarra, **komoitateak** murruan sartuak, gainean ur-untziarekin, gela sabaia biziki gora, eta hantxe, gorenian, leiho ttipi bat burdin barraz garnitua. Marzel Etxehandi

Trukeko merkaturik hoberena kanpaleku ttipiko **komoitateak** ziren. Marzel Etxehandi

---

## komoretar *iz* Komoretakoa, Komoreei dagokiena; komoreetako herritarra.

Gero Ekaldetik, xinatar, indiar, **komoretarrak,** eta Afrika hegoaldetik ere. Herria

---

## komulgatu, komulga, komulgatzen du *ad* Jauna hartu.

Gero Ekaldetik, xinatar, indiar, **komoretarrak,** eta Afrika hegoaldetik ere. Herria

Euskara Ostia bat da, biribil-biribila eta gusturik gabea, edo betibateko gustuduna, denok bat izateko eta denok batera **komulgatzeko** egina. Iñaki Segurola

---

## komun[1] 1 *iz* pixa egiteko eta gorputza libratzeko gela.

Ondoan sukalde zabal bat, ur berogailuarekin eta suarekin, eta sukaldearen ondoan **komun** bat. Josu Zabaleta

Apartamentua ederra da: sala handi bat, bi gela eta **komuna**. Harkaitz Cano

**Komun** txiki hartan maniobra zaila zen mugimendu txikiena ere. Unai Iturriaga

**Komun** bakoitzaren zurezko atea ezpalduta zegoen eta urratuta, eta haietako bat erroetatik kanpo zintzilika. Iñaki Mendiguren

**Komunak** patioan zeuden. Joseba Urteaga

Pasilloaren azkenean dago **komuna,** eta, gerturatu ahala, gero eta kirats nazkagarriagoa dario. Rafa Egiguren

-Eskerrak kafearengatik eta **komuna** erabiltzen uzteagatik. Koro Navarro

Gero lanbasa berriro hartu eta **komuna** garbitzera joan zen. Jon Alonso

Inork garbitzen ez zituen **komunak**. Iban Zaldua

**Komun** banatan sartuko gara. Iñaki Mendiguren

**Komun** batean ezkutatu nintzen ni, eta bertan egin nuen, museoa itxi eta gero ere, guztiz ilundu arteko denbora. Anjel Lertxundi

Meditaziorako leku aproposa da **komuna**. Joxan Elosegi

Guk launaka joan behar genuen gizonentzako **komun** publikoetara, eta horietako bi beste biren lepora igo handik begiratzeko. Pello Lizarralde

-Nesken **komuna** da! -esan zuen Harryk arnasestuka. Iñaki Mendiguren

Ez zegoen berrogeita laugarren solairuko emakumezkoen **komuna** baino gela intimoagorik. Joxan Elosegi

Turkiar erako **komun** bat. Joseba Urteaga

**2** komun ontzia.

Patio ttipian urak zuzenean ibaira botatzen zituen **komun** bat. Joseba Urteaga

Eskaileratik eskuinera leihorik gabeko gela bat, konketa batekin eta **komun** itxi batekin. Josu Zabaleta

Ate ondoko izkina batean **komunak,** ondoan txorrota; atearen beste aldean, hormari loturik, betoinezko apal batzuk. Filipe Bidart

**Komunak** jarioa du, eta kanilak haria hondatuta dauka. Josu Zabaleta

Konketa, **komun** zikin bat eta ispilu txiki bat zeuden han. Jon Maia

Begira iezaiok sukalde kedartu honi, begira hire **komunari,** hire bainugelari. Eskarne Mujika

Horrek izorratzen du nire emaztea gehien: **komunaren** estalkia altxatua topatzeak, iratzarri osteko txiza bonba eman gabe uzteak, eta dutxaren paretetan itsasirik geratzen diren ile kizkurrek. Iban Zaldua

**3** (hitz elkartuen lehen osagai gisa)

**Komun** konketan eserita. Iñaki Iñurrieta

**Komun**-esertokian eseririk, sabelekoa hustu zuen aparteko tarratetan. Josetxo Azkona

**Komun** gela etxeari zegokion bezalakoa zen. Iñaki Iñurrieta

Berriro jaitsi nintzen behe-sotora, baita hango **komun**-gelaska baten ate kisketaz itxiaren atzean ezkutatu ere. Joxe Austin Arrieta

Sukaldaritzan, txofertzan, **komun**-garbikuntzan eta beste hainbatetan. Josetxo Azkona

**4** ***komun-garbitzaile*** *izond/iz* komunak garbitzen dituena.

Eta orduantxe eman zidaten nire azkeneko egiteko hau: **komun garbitzailea**. Emakume **komun- garbitzaileak**, bere aldetik, etsipenaren arruntasun itogarria ezagutzen du. Joxan Elosegi

**5** ***komun ontzi*** *(25 agerraldi 11 liburu eta artikulu 1ean; orobat* ***komunontzi*** *6 agerraldi 3 liburutan)*

Bainugela berritu berria genuen, eta distiraz ageri zen han den-dena, berriaren berriz: paretako lauzak, armairuak, botiken tiraderak, konketa, bainu-ontzia eta dutxa, **komun-ontzia..** . den-dena. Oskar Arana

**Komun-ontziaren** parean belauniko paratu eta hatzak eztarriraino sartuta. Joan Mari Irigoien

Puska guztiak ostatuko **komunontzira** bota nituen ezkutuan. Alberto Ladron Arana

Dena zen zuri izandakoa han, **komun ontziaren** tapa beltza izan ezik. Iñaki Iñurrieta

**Komun-ontzi** zikinak garbitzen. Joxan Elosegi

**6** ***komun zulo*** *(26 agerraldi 15 liburutan; orobat* ***komunzulo*** *20 agerraldi 7 liburutan eta* ***komuntzulo*** *4 agerraldi 4 liburutan)*

**Komun-zuloko** taparen gainean kristalezko hiru edalontzi zeuden prest. Iñaki Mendiguren

**Komun zuloak** garbitzeko likidoa da. Xabier Mendiguren Elizegi

Emandako botika guztiak **komun-zulotik** behera bota nituen. Eskarne Mujika

Buruz behera zuzenean **komun-zulora** sartu zen, inguruko guztiak urez zipriztinduz eta bistatik desagertuz. Iñaki Mendiguren

Maskuria **komunzulora** hustu. Aingeru Epaltza

Alferkeria, pentsamendu txar guztien **komun-zuloa,** kosta ahala kosta saihestu behar dela. Askoren artean

**Komunzulokoak** patxadaz egin eta lasai aski garbitu nituen eskuak. Aingeru Epaltza

**7** ***komuneko paper***

Frantziako presondegietan dena erosi behar da: **komuneko papera**, xaboia, janaria, oinetakoak. Berria - Euskal Herria

**Komuneko papera** aldatzea, argiak itzaltzea, katua uxatzea sofa gainetik ken dadin. Gero, aurpegia lehortu zuen **komuneko paperaz**. Oskar Arana

Seguru gixajoak oraindik ere **komuneko paper** latz harekin garbitzen dituela mukiak. Jokin Muñoz

Mezuak uzten zizkieten elkarri egunero-egunero **komuneko paperean**. Koro Navarro

Gutun luze bat idazten ari naiz **komuneko paper** amaiezin batean. Mikel Hernandez Abaitua

· **Komuneko paper**-bilkariak ere berrituko beharko nituen kabina bakoitzean. Joxan Elosegi

Sailean zeuden **komuneko paper**-erroiluak izan ziren, besteak beste, ezagutu zituen lehenbiziko gauzak, bendak kendu zizkioten egunean bertan. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komun ontzi** (7); **komun ontzia** (8); **komun ontziaren** (8); **komun publiko** (5); **komun publikoetara** (3); **komun txiki** (4); **komun zulo** (3); **komun zuloan** (4); **komun zuloaren** (3); **komun zuloko** (3); **komun zulora** (7); **komun zulotik** (4); **komun zulotik behera** (3)

**gizonezkoen komuna** (3); **nesken komuna** (3)

**etxeko komunean** (7); **gizonezkoen komunean** (6); **komunean eserita** (3); **komunean sartu** (26); **komunean sartu da** (5); **komunean sartzen** (3); **taberna bateko komunean** (4)

**komuneko atea** (26); **komuneko atea ireki** (7); **komuneko atean** (5); **komuneko atearen** (9); **komuneko atearen ondoan** (3); **komuneko ispiluaren aurrean** (4); **komuneko leihoa** (3); **komuneko paper** (9); **komuneko papera** (12); **komuneko paperean** (3); **komuneko ur** (4); **komuneko zuloan** (6); **komuneko zulotik** (6)

**gizonezkoen komunera** (5); **komunera abiatu** (8); **komunera altxa** (3); **komunera bidean** (9); **komunera eraman** (7); **komunera jo** (9); **komunera jo nuen** (4); **komunera joan** (77); **komunera joan beharra** (4); **komunera joan gabe** (4); **komunera joatea** (3); **komunera joateko** (35); **komunera joateko altxatu** (5); **komunera joateko baimena** (3); **komunera joaten** (11); **komunera sartu** (20); **komunera sartzeko** (3); **sartu zen komunera** (3)

**komunerako bidea** (3); **komunerako bidean** (5); **komunerako buelta** (3)

**komunetan eta bulegoetan** (3); **komunetan sartu** (4)

**komunetara joan** (7)

**komunetik atera** (13); **komunetik behera** (5); **komunetik bueltan** (7); **komunetik irten** (13); **komunetik itzuli** (3); **komunetik pasa** (4)

---

# komun[2] **1** *izond* guztiek edo gehienek batera dutena, guztiei edo gehienei dagokioena. ik**erkide**.

Oheak elkarren gainka dituen logela **komun** batera. Eskarne Mujika

*Tetraodon nigroviridis* arrainek eta gizakiak gene **komun** batzuk dituzte, eta horrek iradokitzen du asaba berdinak izan zituztela. Berria - Gaiak

Haien historien ezaugarri **komun** bat. Iñaki Mendiguren

Gorputz guztiekiko **komunak** diren propietateak. Piarres Xarriton

Erabaki **komun** bat onartzeko prest egotea. Joseba Zulaika

Kantuzko memoriaren bidez ondare **komun** batean parte hartzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Helburu **komun** batek bateratzen dituen herrialdeen artean. Koro Navarro

Gizartea ez da gizabanako baten harreman-sarearen eta beste batenaren arteko lurralde **komuna** baizik. Iñaki Mendiguren

Nahiz eta dudarik gabe Mendebaldeko Europa osoarentzat historia **komun** eta zibilizazio **komun** bat egon, jendea ez zegoela elkartuta batasun politiko formal batean, eta herrialde guztia ere ez dela inoiz gobernu **komun** baten mende egon. Iñaki Mendiguren

Ideia **komun** banaka batzuk gordetzen dituzte, kopuru algebraiko konplexu askok zatitzaile **komun** berdina onartzen duten bezala. Juan Martin Elexpuru

ZKH ospetsua, Zatitzaile **Komun** Handiena. Jon Muñoz

Eta MKT, bestea bezain ospetsua, Multiplo **Komun** Txikiena. Jon Muñoz

Sailkaketa hau sistematikoki egin da printzipio **komun** batetik abiatuta. Ibon Uribarri

Propietate **komun** hori ez da pertzepzio imajinatiboek soilik eskuratutako zerbait. Piarres Xarriton

EUTGn, ordea, **komunak** ziren lehen hiru ikasturteak. Joxerra Garzia

Eta hor ondo dator "libratzen" horren adiera **komuna** -edo komuneko adiera- ere. Joxerra Garzia

**Komuna** denak naturala izan behar du. Askoren artean

**2** berezia ez dena, arrunta, ohikoa.

Preso **komun** edo sozialak. Iñaki Segurola

Dirua ez dela gauza bat, zerbaitetarako balio duen gauza arrunt eta **komun** bat. Iñaki Segurola

Heriotza arrunt **komun** baten xehetasunak. Irene Aldasoro

Gurean ere esan **komuna** da, gaitzak goiz etorri eta berandu joan ohi direla. Imanol Zurutuza

Bakardadea ez zen beti min, eta bakarturiko jendeak jende ziren oraino, ez uste **komunak** zioen eran eriak edo arazodunak. Itxaro Borda

• **3** (predikatu gisa)

Mendebalde modernoko klase ertainak eta intelligentsia garaikideek **komun** zuten beste esperientzia bat. Iñaki Mendiguren

Izatearen unibertsaltasuna ("izatea gauza guztiei **komun** zaie"). Askoren artean

Baldin maitasun hori elkarrekikoa bada, lilura hori biok **komun** dute. Jon Muñoz

**5** ***Komunen Ganbera*** Britania Handian eta britaniar erkidegoko herrialde batzuetan, herriak hautatzen duen ganbera.

Iazko martxoaren 18an **Komunen Ganberak** «beharrezko baliabide guztiekin» gerra abiatzearen aldeko boza eman zuen. Berria - Mundua

Legebiltzarrak agindutako txostenaren inguruko eztabaida egin zen atzo **Komunen Ganberan**. Berria - Mundua

Lehen ministroa arrunt lasaituta azaldu zen **Komunen Ganberan** eginiko agerraldian. Berria - Mundua

Erresuma Batuko **Komunen Ganberako** buru eta Alderdi Laboristako diputatu Peter Hainek. Beraz, erregea bakar-bakarrik sartu zen **Komunen Ganberan,** hango lehendakariari eskatzeko saldukeriaz akusaturik zeuden bost diputatuak atxilotzeko entrega ziezazkion.

**6** ***zentzu komun*** sen ona.

Betor **zentzu komunaren** politika eta bertsolariaren logika hautsia. Joseba Zulaika

Hau dena oso logika sinplea besterik ez da eta **zentzu komun** oso apala. Joxe Azurmendi

**Zentzu komunaren** aurka badoa ere, sexualitatea espero ez ditugun lekuetan ere azaltzen dela (gogo-nahasteetan, erlijioan, artean, politikan, hezkuntzan eta abar). Berria - Harian

Jakitea eta zientzia azkenetan daudenean, orduan eta ez lehenago, **zentzu komunera** jotzea, azken denbora hauetako asmakeria sotila besterik ez da. Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arazo komun** (3); **erabaki komun** (3); **erakunde komun** (5); **erran komun** (4); **ezaugarri komun** (19); **gai komun** (3); **gobernu komun** (3); **gobernu komun baten** (3); **helburu komun** (6); **hobi komun** (12); **hobi komun batean** (3); **ideia komun** (5); **izendatzaile komun** (4); **leku komun** (3); **nozio komun** (6); **oinarri komun** (5); **politika komun** (3); **proiektu komun** (3); **propietate komun** (4); **puntu komun** (4); **zatitzaile komun** (3); **zentzu komun** (5)

**egitasmo komuna** (3); **erran komuna** (3); **estrategia komuna** (4); **etorkizun komuna** (5); **ezaugarri komuna** (4); **gure etorkizun komuna** (3); **hizkuntza komuna** (3); **lan komuna** (3); **lege komuna** (3); **lurralde komuna** (3); **objektu komuna** (3); **planteamendu komuna** (3); **politika komuna** (5); **sistema komuna** (3)

**arazo komunak** (4); **erran komunak** (4); **ezaugarri komunak** (7); **hilobi komunak** (3); **hobi komunak** (4); **interes komunak** (4); **neurri komunak** (3); **oinarri komunak** (5); **planteamendu komunak** (3); **planteamendu komunak dituztela** (3); **proiektu komunak** (5); **zentzu komunak** (3)

**iritzi komunaren** (3); **politika komunaren** (5); **zentzu komunaren** (3)

**naturaren ordena komunari** (3); **ordena komunari** (4)

**hilobi komunean** (9); **ordena komunean** (4)

**komunen ganberak** (4); **komunen ganberan** (12); **printzipio komunen** (4)

**segurtasun komunerako** (11)

**hobi komunetan** (8)

**adostasun komunez** (3)

**ezaugarri komunik** (5); **gurekin zerbait komunik** (3); **neurri komunik** (3); **zerbait komunik** (6); **zerbait komunik baduelako** (3)

---

# **komuna** *iz* elkarrekin bizi den pertsona taldea, ondasunak partekatuz eta bizikidetasun arau alternatiboen arabera jokatzen duena.

Familia batzuek **komunak** sortu zituzten eta seme-alabak ez ziren bikotearenak kolektibitatearenak baizik. Ez, **komuna** bat ez... komunitate bat. Ana Urkiza

Parisetik zetorren 68ko maiatzaren mugimendu libertarioa, hippismoa, **komunak,** bikote harremanak kolokan jartzea... Ana Urkiza

Mojatarako ibilia, komentutik atera eta **komuna** begetariano batean bizi izan zen bizpahiru urtez. Anjel Lertxundi

Narrazio-liburu pare bat argitaratu zuen, antza, **komuna** hartan bizi izan zen garaian. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**parisko komuna** (7)

**parisko komunaren** (4)

---

# **komunal** *izond* herriko biztanle guztiei dagokiena, herriarena.

Udalerri bakoitzean plataforma **komunal** bat eratzeko asmoa duzue? Berria - Mundua

Bestalde, Italiako erdi eta iparraldean bereziki, gizarte antolakuntza berria ari zen sortzen, mugimendu **komunalaren** indarrez batez ere. Askoren artean

Millet sistema Otomandar Inperioan gizarte-egitura **komunalaren** bertsio antolatua baino ez zen izan. Iñaki Mendiguren

Partikularrek jakin zutenez, Albako etxeak hainbat lur erosi zituen, **komunalak,** herriaren lur izandakoak. Jon Maia

Amikuzeko oihan **komunala** zati-zatika saltzen zuten Donapaleuko notableek, beren hiriaren ureztatzeko. Itxaro Borda

Berak etxe bati "eraikin **komunala"** jarri zioan izena. Lopez de Arana

Austria Behereko urtekaria, Vienako urtekari **komunala,** eta monarkia austro-hungariarraren gorteko eta hiriko liburua ere eskatu zituen. Anton Garikano

# komunazale *iz*

Parisko **komunazale** zaharren kantua zen. Inazio Mujika Iraola

# komunean *adlag* elkarrekin. ik **amankomun**.

Horretarako, "inputatuek **komunean** dituzten zioak modu bateratuan" plazaratuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Asko dute **komunean**, eta hori ikusteko parada eman zuen atzo Gasteizko Arriaga liburu dendan izandako hitzorduak. Berria - Euskal Herria

Lauaxetaren nazionalismoa eta ETArena testuinguru oso desberdinetan garatu baziren ere, biek ere funtsezko faktore bat dute **komunean**: abertzaletasunaren aldarean egin zuten bizitzaren sakrifizioa. Joseba Zulaika

Irletan sortzen diren literaturek **komunean** ba ote duten ezaugarri bereziren bat jakin gabe amaitu zen trenaren ibilbidea. Edorta Jimenez

# komunero *iz* 1520an Karlos I. Gaztelako erregearen aurka altxatu zen alderdikoa.

Gaztelako **komuneroak** -euskaldunek laguntzen zuten Karlos V.aren aurka guduan- ia gaur arte iraun duen askatasun "herritarraren" sinbolo bihurtu dira. Joxe Azurmendi

Nafarroaren birkonkistatzeko osatu genuèn armada, batik bat Esparrosek izan zuen deskalabruaren ondotik, Gaztelako **komuneroen** laguntzan Gaztelan barrena zihoala. Joan Mari Irigoien

# komuniant *iz ipar* jaunartzailea.

Igandean Aiherran lau herrietako 15 **komuniantek** bataioko agintzak erreberritu dituzte. Herria

Meza nagusi bat guziz ederrean **komuniantek** parte hartu dute irakurtzeak eginez bai eta kantikak emanez edo denek betan edo multxokia eta ere bakarka. Herria

Meza hunkigarria izan da, jende guziek dutelakotz parte hartu kartsuki otoitz eta kantuetan... holako eguna bizirik, **komuniantek** atxikiko dute orroitzapen ona. Herria

# komuniatu, komunia, komuniatzen du-da *ad ipar* Jauna hartu.

Belaunikatu niz eta **komuniatu** dut. Marzel Etxehandi

Anitzak guti kofesatzen baziren, ardura **komuniatzen** ziren baina orduan zen bereziki kasu egin behar, profanazioneen beldurrez. Marzel Etxehandi

Amak **komuniatu** du bainan biz-pa-hiru lagunekin bakarrik. Herria

Zenbaitek egun guziz **komuniatzen** zuten. Marzel Etxehandi

Ongi etorri, igande handi eta on, **komuniatuko** diren haur eta familieri diotegu desiratzen. Herria

**Komuniatzera** beti heldu ziren, kantuz, beti heldu, nik eskua akitua kokospean platoaren atxikitzen. Michel Oronoz

Kofesatu nintzen, **komuniatu** ninduen, eta azken oliadura eman. Marzel Etxehandi

# komunikabide *(orobat **komunika bide** g.er.)* **1** *iz* komunikatzeko, berri edo adierazpen bat hedatzeko erabiltzen den bidea. ik **hedabide**.

**Komunikabide** asko eta ezberdinetan ibilia zara: prentsa idatzia, telebista, irratia... Ana Urkiza

**Komunikabide** berri batzuetan (posta elektronikoa, chat delakoa, SMS, eta abar), idatziz gauzatzen diren arren, orain arte ahozkotasunaren berezko ezaugarritzat hartu diren estrategien araberakoak dira diskurtsoak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hedabideen diru laguntzaren aurtengo igoera, ordea, 450.000 eurokoa da [...], eta **komunikabide** guztien artean banatuko da (irratiak, telebistak...). Berria - Euskal Herria

**Komunikabide** batzuk jo eta su hasiko lirateke berria zabaltzen, direnak eta ez direnak nahasten. Migel Angel Mintegi

Hainbat **komunikabide** eta aldizkaritan kolaboratu izan du. Berria - Euskal Herria

Ekonomiaren eta **komunikabideen** globalizazioak Estatuaren funtzio instrumental nagusiak murriztu dituela. Joseba Zulaika

**Komunikabideak** ahaltsuago, eta propaganda erabakigarriago. Joxerra Garzia

EiTB taldeko **komunikabide** guztien egungo egoera. Berria - Euskal Herria

**Komunikabide** eta hedabide guztietako lehen albistea izan zen gertakizun hura. Hasier Etxeberria

**Komunikabide** guztietan agertu ziren, fusio hotza lortu zutela iragarriz. Fernando Morillo

Adierazi zuen edozein **komunikabide** ixtea «guztiz salbuespenezko» neurria dela.

**Komunikabideen** eta teleteknologien garaian. Askoren artean

Eskualdeetako **komunikabideak** sortu eta garatzea. Berria - Harian

Aurka zituen **komunikabideak** isilarazi zituen. Berria - Harian

**Komunikabideak** kontrolatzeko legedia. Berria - Mundua

**Komunikabideak,** gizarteko beste alor asko bezala, gizonezkoen esku daude, oro har. Ana Urkiza

Donostian beste euskarazko **komunikabide** bat abian jartzea «beharrezkoa» dela azaldu zuen. Berria - Harian

**2** (izenondoekin)

**Komunikabide** modernoek beste irakurle mota bat erakartzen dute. Berria - Kultura

Orain, **komunikabide** berriei esker, nahi adina leiho ditugu, munduari begira egoteko. Joxerra Garzia

Hizkuntza dela gizaberearen **komunikabide** propioa eta lehena, beste abere mota guztietarik gizona bereizten duena. Piarres Xarriton

Galdu dugu ahozko gizarte hura, iritsi zaigu **komunikabide** idatziena. Pako Aristi

Estatutuak dio katalanez egin behar dutela «Katalunian dauden» administrazio eta **komunikabide** publikoetan. Berria - Mundua

**Komunikabide** alternatiboek lehen informazio iturri izan nahi dute. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehenik, **komunikabide** tresna bat da Hizkuntza. Piarres Xarriton

Egunkaria «nahi eta ahal zutelako» itxi zutela esan zuen Uriak, euskarazko **komunikabide** sare «sendoa» osatzen ari zelako. Berria - Euskal Herria

Probintzien gain gobernu zentralaren kontrolari eusteko **komunikabide**-sistema inperiala. Iñaki Mendiguren

Euskarazko **Komunikabide** Taldeko (EKT) Administrazio Kontseiluko idazkariak. Berria - Harian

BBC British Broadcasting Corporation kateako **(Komunikabide** Korporazio Britainiarra) presidente Gavyn Daviesek. Berria - Mundua

Euskal Herriak bere leku osoa hartzeko gisan **komunikabide** teknologia berrietan. Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri-**komunikabide** horiek apaltasunez jalgi ziren plazara eta, pixkaka, maila profesional duina erdietsi dute. Txema Ramirez de la Piscina

Durangaldeko Herri **Komunikabideak**. Berria - Harian

**5** *pl* bide eta errepideak.

1920an ziren hasi **komunikabideak** Luzaide, Auritze eta Iruñeren artean, garai hartako autoen medioz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Komunikabideen** aurrerapenei esker, lastertasun beldurgarriaz zabaldu zen izurria kontinente osoan. Koro Navarro

Erromatar **komunikabideek** lagundu zuten merkataritza espiritualean. Iñaki Mendiguren

Ez zen Mendebaldeko kristautasuna Mendebaldeko **komunikabideez** baliatu zen erlijio bizi bakarra izan. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskal komunikabide** (3); **euskarazko komunikabide** (10); **komunikabide alternatiboen** (7); **komunikabide berri** (4); **komunikabide berriak** (4); **komunikabide berriei** (4); **komunikabide berriei esker** (3); **komunikabide berriek** (3); **komunikabide guztietan agertu** (3); **komunikabide handien** (4); **komunikabide publikoak** (3); **komunikabide publikoetan** (5); **komunikabide sistema** (4); **komunikabide taldeak** (3)

**eko komunikabideak** (3); **euskal komunikabideak** (3); **euskarazko komunikabideak** (17); **herri komunikabideak** (5); iruñ

**euskarazko komunikabideei** (4); **komunikabideei bidalitako** (4); **komunikabideei igorri** (5); **komunikabideei igorritako** (6)

**espainiako komunikabideek** (7); **estatu batuetako komunikabideek** (3); **euskarazko komunikabideek** (5); **israelgo komunikabideek** (3); **komunikabideek ematen** (3); **nazioarteko komunikabideek** (3)

**komunikabideekin harreman** (3); **komunikabideekin hitz egin** (3)

**euskal komunikabideen** (8); **euskal komunikabideen egitasmoak** (3); **euskarazko komunikabideen** (8); **komunikabideen aitzinean** (3); **komunikabideen arloan** (3); **komunikabideen arreta** (5); **komunikabideen askatasuna** (3); **komunikabideen aurrean** (93); **komunikabideen aurrean agertu** (6); **komunikabideen aurrean egindako** (10); **komunikabideen aurrean mintzatu** (3); **komunikabideen aurreko** (5); **komunikabideen bidez jakin** (8); **komunikabideen bidez jaso** (3); **komunikabideen bitartez jakin** (3); **komunikabideen egitasmoak** (3); **komunikabideen egitasmoak bideragarriago** (3); **komunikabideen eta** (7); **komunikabideen independentzia** (3); **komunikabideen inguruko** (3); **komunikabideen itxiera** (3); **komunikabideen itxierak** (5); **komunikabideen jarrera** (3)

**euskal komunikabideetako** (3); **komunikabideetako ordezkariak** (3); **komunikabideetako ordezkariekin** (3)

**espainiako komunikabideetan** (3); **komunikabideetan agertu** (3); **komunikabideetan agertzen** (8); **komunikabideetan euskara sustatzeko** (4); **komunikabideetan lan egiten** (4); **nazioarteko komunikabideetan** (3)

**komunikabideetara bidali** (3); **komunikabideetara bidalitako** (4); **komunikabideetara igorritako** (4)

**komunikabidek argitaratu** (3)

---

## komunikabidegintza *iz* komunikabideak egitea.

Euskarazko **komunikabidegintza** garatzen ari garen enpresa eta erakundeen arteko elkarlana sustatzea eta lantzea. Berria - Euskal Herria

---

## komunikaezin *izond* ezin komunikatuzkoa.

Ez irudi determinatuak, margolariek eta fisionomistek buruan omen dituztenen antzeko irudiak, beren produktuen edo juzgaketen zirriborro **komunikaezinak** omen direnak. Ibon Uribarri

---

## komunikagintza *iz*

Bistan dena bete betean sartzen gara gaurko **komunikagintzan,** Interneten "sagardun.com" gunea idekia dugu, euskaraz eta espainolez, ixtante frantsesez ere. Herria

---

## komunikapen **1** *iz* komunikatzea.

Diotenez hodi horiek dira Internet **komunikapen** nasaiaren segurtatzeko muntadurak, Suedia kaskotik haste eta Mediterraneo hegiraino. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hizkuntza eta elez gaindiko beste **komunikapen** formak. Herria

**Komunikapen** tresna berriak. Herria

Xiberoko "Artzainak" enpresa multzoak 126 000 euro ukanen ditu bere baitako **komunikapen** sarearen pikoan emaiteko. Herria

**Komunikapen** Teknologia Berriez (katebez) axolatzen den ANTIC elkarteak. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komunikapen teknologia** (4)

---

## komunikatibo **1** *izond* komunikazioari dagokiona. ik **komunikazio 2**.

Hemengo estratega **komunikatiboek** AEBetan dute beren iparra. Txema Ramirez de la Piscina

Arau **komunikatiboak** izan behar du hizkuntz prozesuaren ardatza. Berria - Euskal Herria

Egoera eta premia **komunikatibo** horietara egokitu behar da hizkuntza eta hiztuna. Koldo Zuazo

Hurrengo topaldietan ez zuen hobetu bere gaitasun **komunikatiboa**. Aingeru Epaltza

Gure helburu **komunikatiboa** lortze aldera, irudiak aparteko garrantzia dauka. Txema Ramirez de la Piscina

Bere eredu **komunikatiboaren** giltza mezu-hartzaileekin duen harreman berezian datza. Txema Ramirez de la Piscina

Alternatibotasunaren etiketapean 70 eta 80ko hamarraldietan mendebaldeko Europako zenbait alderdi komunistak landu zuten eredu **komunikatiboak** porrot egin zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Zinemak eta telebistak mitoak eta kondairak zabaltzeko orduan duten funtzio **komunikatiboa** aztertzea. Berria - Harian

Logi Bergmannek Islandiako sistema **komunikatiboari** buruzko azalpenak emango ditu. Berria - Euskal Herria

Batasunaren datozen hilabeteetako «erreferentzia politiko eta **komunikatiboa»** herri kontsultaren defentsa izango dela. Berria - Euskal Herria

**2** komunikatzea lortzen duena.

Euskara **komunikatiboan** sortutako testuak. Txema Ramirez de la Piscina

Bikozketak oso zainduak dira, eta erabiltzen den euskara oso erraza eta oso **komunikatiboa** da. Berria - Kultura

Hzkuntzak barnean du zulora eramango duen harra, ez da kanpora begiratu beharrik, eta har horrek eragozten dio benetan hizkuntza **komunikatibo** erabilgarria izan dadin. Pello Salaburu

Nik idatzi izan ditudan lanetan adierazi nahi nuena ahalik eta modurik zuzenean, txukunenean eta **komunikatiboenean** adierazteko. Pello Salaburu

Nerudak poesia **«komunikatibo** eta unibertsala» egiteko zuen gaitasuna goratu zuen. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bestelako eredu komunikatibo** (3); **estrategia komunikatibo** (3)

**bestelako eredu komunikatiboa** (3); **eredu komunikatiboa** (4); **euskara komunikatiboa** (4); **gerrilla komunikatiboa** (3)

**arau komunikatiboak** (3)

## **komunikatiboki** *adlag* komunikazioaren ikuspegitik.

Badakit horrela zaila dela euskarazko testu **komunikatiboki** indartsuak sortzea. Joxerra Garzia

Alderdi konstituzionalistak, berriz, Lizarra-Garazi indarrean egon zen bitartean, noraezean ibili ziren, **komunikatiboki** guztiz *out,* defentsibara, gotorlekuetan tinko. Txema Ramirez de la Piscina

---

## **komunikatu**[1], komunika, komunikatzen **1** du *ad* harremanean jarri, elkarri adierazi.

Oso eritasun bitxia zuela **komunikatu** zioten medikuek. Iban Zaldua

Peter nitaz maitemindurik omen dago; gustatuko litzaidake [...] zeren hala berdindurik egongo ginateke, eta askoz errazago **komunikatu** ahal izango genuke elkarrekin. Josu Zabaleta

• **2** da *ad*

Irratiz **komunikatuko** dira laster, auskalo norekin. Joseba Sarrionandia

Tita ohartuko da prestatzen dituen janak sentimendu igorle direla, eta haien bitartez maite duen pertsonarekin **komunikatu** daitekeela. Berria - Kultura

-Ezin da euskaraz **komunikatu**. Koldo Izagirre

**3** (aditz laguntzailerik gabe)

Nola dezake ahantz bestalde Fedearen arduradunak, gizartearekin **komunikatuz** edo hizkuntzaren bitartez dela egituratzen nagusiki gure izpiritua? Piarres Xarriton

Gau osoa eman zuen idazleak komisaldegian, hotelaren izena gogoratu ezinik eta poliziekin **komunikatu** ezinik. Edorta Jimenez

Nahiz eta hiri hori Irkutskekin telegrafoz **komunikaturik** egon segur aski, [...]. Karlos Zabala

Elkarrekin seinale bidez **komunikatuta**. Joanes Urkixo

Pena handia ematen dit eurekin ia keinu hutsez **komunikatu** behar izateak. Jon Arretxe

Ez da kulturala bakarrik emakumeok daukagun **komunikatu** beharra. Ana Urkiza

**4** komunikazioa izan.

Yorken hori gertatzen da: ez da hain garrantzitsua non bizi zaren, baizik eta ondo **komunikatutako** tren zuzenak dituen metro geltoki bat gertu edukitzea. Harkaitz Cano

Imajinatzekoa da zelako zirrara sentituko zuten tunelaren alde bietako langileek, tunelaren bi muturrak elkar hartu eta alde biak **komunikatuta** geratzen zirenean. Harkaitz Cano

Bi zakur atera zituzten bertatik, arrastaka eraman zituztenak pabilioiarekin **komunikatutako** beste egoitzaren batera. Harkaitz Cano

Toki guztiekin ondo **komunikatuta** dagoelako. Berria - Kirola

Plutoneko geologia, tenperatura eta atmosfera aztertzeko propio prestatutako teknologia du, eta Lurrarekin **komunikatuta** egoteko 2,1 metroko antena.

**5** (era burutua izenondo gisa)

Ontzi **komunikatuen** teoria azaldu nion. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **besteekin komunikatzeko** (4); **elkarrekin komunikatzeko** (9); **euskaraz komunikatzeko** (3); **komunikatzeko debekua** (4); **komunikatzeko erabiltzen** (4); **komunikatzeko gaitasuna** (3); **komunikatzeko hizkuntza** (4); **komunikatzeko modu** (4)

---

## **komunikatu**[2] **1** *iz* jendaurrean hedatzeko idazten den testua edo adierazpena.

Dakar Rallyak bere doluminak adierazi zizkion hildakoaren sendiari, **komunikatu** baten bidez. Berria - Kirola

IRAk **komunikatua** atera aurreko orduetan. Berria - Harian

ETAk argitaratutako azken **komunikatura**. Hasier Etxeberria

Gustura bidaliko nieke Ruberten liburua **komunikatu** hori idatzi dutenei. Joxerra Garzia

CCMk eta Gamesak batera kaleratu zuten **komunikatuaren** arabera. Berria - Ekonomia

Nazioarteko langileak askatu eta hurrengo egunean **komunikatu** bat helarazi zuen taldeak: [...]. **Komunikatua** irakurtzeari ekin zion. Berria - Mundua

**Komunikatua** sinatu duten alderdien artean. Berria - Mundua

Aspaldikoa zen egonezina, eta **komunikatu** batean laburbildu dute azkenean. Berria - Kirola

Auzitegiko medikuak bere lana bete arte ez da **komunikatu** ofizialik izango. Migel Angel Mintegi

**Komunikatu** txepeletan begiak erre arren, argirik eskaintzen ez zaigunontzat. Hasier Etxeberria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lore eskaintzak, bertsoak, **komunikatu** irakurketak, besarkadak eta musuak... dena ohi bezala. Iñigo Aranbarri

Batzu-batzuek, **komunikatu** edo manifestu-eitea eman diote hitz egiteko beren gogoari. Joxerra Garzia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alderdiok [...] salaketa **komunikatua** idazten ari dira. Berria - Euskal Herria

Sailak, Sindikatuen Mahaiak eta Dekanotzak gaitzespen-**komunikatu** bana erredaktatu dute. Iban Zaldua

Valentziako Unibertsitateak zabaldutako prentsa **komunikatuak** dioenez. Berria - Gaiak

Prentsa **komunikatuak** esaten duena oinarri hartuz. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etaren komunikatu** (4); **komunikatu bat kaleratu** (4); **komunikatu batean adierazi** (6); **komunikatu baten bidez** (14); **komunikatu bateratu batean** (3)
> **etaren komunikatua** (3); **komunikatua irakurri** (6); **komunikatua kaleratu** (5)
> **etaren komunikatuak** (3); **kaleratutako komunikatuak** (4); **komunikatuak zioenez** (3)
> **komunikatuaren arabera** (9)

---

## **komunikatzaile** **1** *iz* komunikatzen duen pertsona; zerbait komunikatzen duen pertsona.

Antzinateko hizlariek eta egungo **komunikatzaile** gehienek ez bezala, bat-bateko bertsolariak segundo gutxi batzuk baizik ez ditu argudio egokiekin topo egiteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Komunikatzaileak** parean duen entzulearen egia aditzeko gai izan behar du beti. Txema Ramirez de la Piscina

**Komunikatzaile** ona izateko norbere burua maite behar dela lehenbizi. Andoni Egaña

Maryk azalpen ugari eman zigun kantu batzuetan, **komunikatzailea** ezin hobea dela erakutsiz. Berria - Kultura

Bere egitasmoa azaltzen ere ez du asmatu, **komunikatzaile** txarra izan da. Berria - Harian

Geroztik maiz pentsatu zuen nor izan zitekeen **komunikatzaile** anonimo hura. Iñaki Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Gizarte **komunikatzaile** orok iturriak gordetzeko eskubidea du. Berria - Gaiak

- **3** *izond* komunikatzen duena.

Hizkuntzaren garapen soziala bermatu beharrez hizkuntzaren orotariko ahalbide **komunikatzaileez** ahanzteko arriskua duten irizpide horiek. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komunikatzaile ona** (3)

---

## komunikazio *(orobat **komunikazione** g.er.)* **1** *iz* komunikatzea, elkarri adieraztea.

Sexualitatea plazerarekin, jolasarekin, **komunikazioarekin,** samurtasunarekin eta maitasunarekin lotuta dago. Luis Elberdin

Jolas sexualak **komunikaziorako** bidea zabaltzen du. Luis Elberdin

Ahozkoa ez den **komunikazioa,** hau da, keinuen **komunikazioa**. Luis Elberdin

Hizlariaren eta entzulearen arteko **komunikazioa** zapuzten duten egoerak. Iñaki Arranz

CIAren eta FBIren arteko **komunikazioa** eskasa dela-eta informazioa interpretatzeko arazoak dituztela ondorioztatu dute. Berria - Mundua

Gizakien arteko **komunikazioaren** ezintasuna. Josu Zabaleta

Ez bakarrik Internet: **komunikazio** eta informazioaren inguruan gertatzen ari den guztia da aski harrigarria. Pello Salaburu

Arriskutsua zen bai gurasoentzat eta bai niretzat ere elkarrekin harremanetan jartzea, eta baztertua genuen bai telefonozko baita gutunen bidezko **komunikazioa** ere. Anjel Lertxundi

Urte horretan bertan hasi ziren satelite bidezko **komunikazioak**. Pello Salaburu

Interneteko **komunikazio** oro espiatzen duen sare erraldoia. Fernando Morillo

Bi pertsona elkarrekin **komunikazioan** jartzea. Jon Alonso

Erantzun gabe eten nuen **komunikazioa**. Aingeru Epaltza

**Komunikazioak** etenda zeuden. Karlos Zabala

**Komunikazioa** galduta dugu, baina errekuperatzeko asmoarekin idazten dut. Joseba Sarrionandia

**2** (ozenondoekin)

Emakumeen arteko **komunikazio** mutua, naturaren misteriorik handienetakoa, nire aburuz. Xabier Montoia

**Komunikazio** partehartzailea mito bilakatu zen. Txema Ramirez de la Piscina

**Komunikazio** totala utopia bat da. Ana Urkiza

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **komunikatibo**.

Gizarte zibila bera da protagonista nagusia hemen proposatzen ari garen **komunikazio** eredu berrian. Txema Ramirez de la Piscina

Hizkuntza, ezer izatekotan, **komunikazio** tresna da, **Komunikazio**-ekintza antolatzeko gaitasunak. Joxerra Garzia

**Komunikazio** zirkuitu alternatibo gisako bat da bertsolaritza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ikusmenean soilik oinarrituriko **komunikazio** prozesua simulazio hutsa da, **komunikazio**-kodeen prostituzioa, mendeetan atzera egitea, arrazionalismoaren aurreko garaietara bueltatzea. Txema Ramirez de la Piscina

Ze metafora darabilzki bertsolariak, ze argudiaketa-modu, ze **komunikazio** estrategia. Andoni Egaña

**Komunikazio** hizkuntza eraginkorra. Pello Salaburu

Handia da formulen **komunikazio**-garrantzia haren [Amurizaren] bertsoetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sor ditzagun **komunikazio** sareak, eta elkar gaitezen. Txema Ramirez de la Piscina

**Komunikazio** bulegoan etengabean telegrafo eta telefonoen urruma goxoa eta txilinhotsa eta murmurioa aditzen ziren. Fernando Rey

Globalizazioaren eta informazio eta **komunikazio** teknologia berrien (IKTB ) aroan, informazioaren ugaltze izugarria manipulazioen hazkunde esponentzial bilakatu da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Komunikazio**-ezintasun guztiak baino sakonagoa da ontzikide babeldarrek bizi duten elkartasuna. Anjel Lertxundi

Ikus-entzunezko **komunikazio** eta publizitate kontuak irakasten. Joxerra Garzia

Politikarien **komunikazio** arduradunak. Txema Ramirez de la Piscina

**Komunikazio**-marketinaren urrezko araua: txiste bat bera ez dago edozein entzuleriaren aurrean kontatzerik. Joxerra Garzia

Gizarte eta **Komunikazio** Zientzien Fakultateko Dekanoak. Joxerra Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gramofonoa edo irratia bezalako masa-**komunikazio** moduen presentzia. Anjel Lertxundi

Venezuelan egon zen bitartean Latinoamerikako Herri-**Komunikaziorako** Tailerrak sortu zituen. Txema Ramirez de la Piscina

Irratilariak ikus-**komunikazioan** jarri behar ditugu entzuleekin. Iñaki Zabaleta

Ia ziurtzat eman daiteke estatu unibertsal batek buru-**komunikaziorako** baliabide ofizialez hornituko zuela bere burua. Iñaki Mendiguren

**5** bide eta errepideak. ik **komunikabide 5**.

Geroztik, aire, autobus eta trenbide **komunikazioak** ireki dituzte, harreman diplomatikoak indartzeaz gain. Berria - Mundua

Ez genuke nahikoa ontzi jende gehiago sartzeko, [...] eta gizon horien egitekoa izango da itsaso bidezko **komunikazio** guztia etetea. Jon Alonso

Legeak «erregulazio osoa» emango du bidaiariak errepideetatik joatea ahalbidetzen duen alorraren gainean, **«komunikazioena** sektore estrategikoa izanik, garapen ekonomiko eta sozialarekin guztiz loturik». Berria - Euskal Herria

Horrelako azpiegitura bat [Euskal Y-a] gure herrian eginez gero, Astigarragak **komunikazioen** gune estrategiko izaera berreskuratuko du. Berria - Euskal Herria

Urruntzearen hirugarren kausa India eta Ingalaterra arteko **komunikazioen** bizkortzea izan zen, horrela britainiarrek sarri bidaia baitzezaketen hara eta hona eta ingeles lurrean kokaturiko etxe batean helbideratuta egon psikologikoki. Iñaki Mendiguren

**6** txostena.

Aztertua du Templek gai hori, eta **komunikazio** bat idatzi du hartaz, klasiko bilakatu dena. Xabier Olarra

18:15-19:30 **komunikazioak**. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**eako komunikazio arduradunak** (6); **eako komunikazio idazkari** (4); **elako komunikazio arduradunak** (5); **euskarazko komunikazio taldea** (9); **euskarazko komunikazio taldeak** (4); **euskarazko komunikazio taldeko** (10); **garraio eta komunikazio** (10); **gizarte eta komunikazio** (15); **harreman eta komunikazio** (4); **informazio eta komunikazio** (16); **kataluniako komunikazio saria** (5); **komunikazio arazoak** (9); **komunikazio arduradun** (25); **komunikazio arduraduna** (16); **komunikazio arduradunak** (46); **komunikazio arduradunarekin** (4); **komunikazio arduradunaren** (7); **komunikazio bide** (12); **komunikazio bideak** (8); **komunikazio bulegoan** (5); **komunikazio bulegora** (4); **komunikazio ekintza** (6); **komunikazio enpresek** (6); **komunikazio eredu** (4); **komunikazio eskubidea** (5); **komunikazio esparru** (4); **komunikazio esparrua** (8); **komunikazio esparruaren** (6); **komunikazio eta informazio** (5); **komunikazio eza** (4); **komunikazio falta** (17); **komunikazio gaitasuna** (4); **komunikazio greba** (4); **komunikazio hizkuntza** (5); **komunikazio idazkari** (15); **komunikazio idazkariak** (14); **komunikazio idazkariaren** (5); **komunikazio kanpaina** (4); **komunikazio kontseilari** (6); **komunikazio lana** (5); **komunikazio modu** (5); **komunikazio mota** (7); **komunikazio plana** (4); **komunikazio sare** (4); **komunikazio sarea** (5); **komunikazio saria** (5); **komunikazio sistema** (5); **komunikazio talde** (8); **komunikazio taldea** (11); **komunikazio taldeak** (9); **komunikazio taldearen** (4); **komunikazio taldeko** (13); **komunikazio teknologiak** (6); **komunikazio teoriako** (4); **komunikazio tresna** (10); **komunikazio zerbitzuak** (6); **komunikazio zientzien** (17); **komunikazio zientzien fakultatean** (4); **komunikazio zientzien fakultateko** (11); **kultura eta komunikazio** (6)

**bestelako komunikazioa** (18); **komunikazioa errazteko** (5); **komunikazioa eta elkarlana** (4); **komunikazioa eten** (4); **komunikazioa hobetzea** (4); **komunikazioa lantzeko** (4); **komunikazioa lortzeko** (4)

**bestelako komunikazioak** (6)

**bestelako komunikazioaren** (7); **informazioaren eta komunikazioaren** (4); **komunikazioaren teknologia** (4)
**komunikaziorako estatu idazkari** (6); **komunikaziorako gaitasuna** (5); **komunikaziorako tresna** (6)

---

## komunikaziogune *(corpusean **komunikazio gune** soilik)* *iz* komunikatzeko gunea.

Gazte Topaguneak hainbat gune izango ditu: Gaztetxe gunea (musika, zine eta kafe karpa egongo dira bertan), Euskal Herria gunea (eztabaidak, hitzaldiak, erakusketak eta nazioarteko txokoa), **komunikazio gunea** (Internet...) eta karpa erraldoia (sagardotegia, kontzertuak eta ekitaldi politikoa). Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
**komunikazio gunea** (4)

---

## komunikazione ik **komunikazio**.

---

## komunio *(orobat **komunione**)* **1** *iz* jaunartzea.

Liturgia honetan errito nagusia **Komunio** Santua zen. Iñaki Mendiguren

Eta **komunioa** ere eman zigun, gu egitekotan ginen hura jainko bakar eta benetakoaren aldeko gerra zenez, gure bekatuak euron aitormena egin barik barkatu zizkigulako. Edorta Jimenez

-Eri den fededun bati **komunioa** eraman diot -esplikatu zion, haren heinera heldu zelarik-. Elena Touyarou

Urte guztiko bekatuen barkamena Portzinkula Egunean meza entzun, **komunioa** hartu, konfesatu eta pare bat errezo egitearen truke. Xabier Etxabe

Gaur komulgatu egin behar zuen, baina ez du egon behar grazian, ze aita Renteríak ez dio ekarri **komunioa**. Juan Garzia

**2** batasuna, elkartasuna, erkidetasuna.

Itxarongelan, ikusia zuen **komunio** moduko bat sortzen zela gaixoen artean, lubaki berean dauden soldaduen artean bezala. Imanol Zurutuza

Edan ahala gero eta hobeto sentitzen naiz, alaiago, besteekin bat-eginago, [...] zure gorputz eta gogoa hedaturik nabaritzen dituzun arte, urtu egin direla konbentzioak eta beldurrak, egiazko **komunio** batera iristen zarela, **komunio** kosmiko batera. Xabier Mendiguren Elizegi

Lur eta zeruarekiko **komunio** berri bat sentiarazten zidan. Juan Garzia

Isildu egin zen, iraganarekin **komunioan** balego bezala, eta gero, zuhurki, esan zuen: [...]. Irene Aldasoro

Arbasoekiko **komunio** mistikoak alde batera utzirik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Komunio** berri bat, jaunartze berri bat asmatu dugu, elizetako, estadioetako, telebistaren aurreko edo kultur munduko **komunioetan** gehiegi sinesten ez dutenen neurrira egindako **komunio** bat. Iñaki Segurola

Tabernetako komunak dira **komunio** horren tenpluak, eta zulo haietan, Ostia Biribila gurtu beharrean, karnetarekin egindako Lerro Zuzena gurtzen dugu. Iñaki Segurola

**3** ***komunio handi***

Ganden igandean gure herriko 19 nexka eta mutiko gaztetxok egin dute **komunione** handia edo orai erraiten dena Fedearen aitormenaren erreberritzea. Herria

Eskuinetarik, lehen alkietan, **komunione** haundia egina ez zuten mutikoak. Michel Oronoz

**4** ***komunio txiki***

**Komunione** ttipia edo orai erraiten den lehen komunionea maiatzaren 25 eko igandean izan dugu gure parropian. Herria

Iragan igandean ginuen, haur multxo baten **komunione** ttipia. Herria

**5** ***lehen komunio***

Salbatorez 17 haurrek egin dute beren lehen **komunionea**.

Lehen **komunioneko** haurrak esku-zartaka eta agurka. Marzel Etxehandi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**komunione handia** (21); **komunione haundia** (8); **komunione ttipia** (11)
**haurren lehen komunionea** (4); **komunionea egin** (10); **komunionea izanen** (6); **lehen komunionea** (49); **lehen komunionea egin** (6); **lehen komunionea izanen** (5); **lehen komunionea salbatorez** (4)
**lehen komunioneko** (7); **lehen komunioneko urratsa** (5)

---

## komunione ik **komunio**.

---

## komunisgo *(orobat **komunixgo** g.er.)* *iz ipar* komunismoa.

Errusian ere ez dira oraino gauzak haxean, hurbiltzekorik ere, lehengo **komunisgoaren** makurrak ezin xuxenduz eta demokrazia on bat haren lekuan ezarri artean. Herria

Halere Titoren **komunisgoak** ez zuen ondarrekotz Sobietar menpekotasuna onetsi eta 1949 an elgarren arteko haustura egin zuten Stalin eta Titok. Herria

Laster ulertu zuen **Komunisgoa** Jainkoaren kontra zela, eta kidekoeri galdegiten ziotela Jainkoaren baztertzea. Herria

---

## komunismo *iz* jabego pribatuaren ezabatzean datzan ekonomia eta gizarte sistema; alderdi komunisten politika edo dotrina.

Anarkismoak berdin-berdin ukatzen zituela kapitalismoa eta **komunismoa,** estatuaren boterean oinarritzen baitziren biak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Komunismoa** jatorriz, liberalismoa eta faxismoa bezala, Mendebalde modernoan kristautasunaren ordezko gisa sorturiko ideologia sekularretako bat zen. Iñaki Mendiguren

Errusiar tsarismoak porrot egin zuen lekuan errusiar **komunismoak** arrakasta izan zuen. Iñaki Mendiguren

Txina **komunismoaren** mende eta Japonia amerikarren kontrolpean. Iñaki Mendiguren

Indian **komunismoa** ezartzen saiatu zen iraultzaren bidez. Berria - Harian

Titoren heriotzak eta 80ko hamarkadan **komunismoak** izan zuen gainbeherak bultzatu zuen Eslovenia independentzia aldarrikatzera. Berria - Mundua

Ez dago **komunismorik** klase-diferentzia hori ezabatuko duenik. Pedro Alberdi

**Komunismoa** mamu beltz bat izan zen gure hezitzaileen ahotan. Xabier Mendiguren Elizegi

Funtsezko ideia horiek bultzatu zuten faxismoaren eta **komunismo** dogmatikoaren kontra borrokatzera. Berria - Kultura

**Komunismo** historikoak porrot egin du. Berria - Kultura

**Komunismo** libertarioa aldarrikatu eta lurralde-banaketa egin zuten. Unai Elorriaga

Battisti Italiako PAC **Komunismorako** *Langile Armatuak* gerrilla taldekoa izan zen 1970eko hamarkadan. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**nazismoa eta komunismoa** (3)

**komunismoaren aldeko** (7); **komunismoaren aldeko langile** (7); **komunismoaren aurka** (4); **komunismoaren aurkako** (3); **komunismoaren kontra** (3)

---

komunist ik **komunista**.

---

# komunista

**komunista** *(orobat* ***komunist*** *g.er.,* ***komunixt*** *g.er. eta* ***komunizt*** *g.er.)* **1** *izond* komunismoari dagokiona; komunismoaren araberako gizarte iraultza bultzatzen duena.

Gero, iraultza **komunistarekin,** Mosku lehengora etorri zen berriro. Iñaki Mendiguren

Programa **komunistak** bere bidea egiteko. Iñaki Mendiguren

Egia da bazela anbiguotasun bat Sobietar Batasunak eta ideologia **komunistak** Mendebaldeko Zibilizazioarekiko zuten harremanean. Iñaki Mendiguren

Harrigarria egiten da hain elkarren etsai izatea bi alderdi **komunista**. Juan Kruz Igerabide

Maizago eta bixiago har nezala parte alderdi **komunistaren** zelula edo atalen bileretan. Fernando Rey

Italiako Alderdi **Komunistaren** sortzaileetako bat. Fernando Rey

Herrian eta eskualde osoan bizi ginen etorkinok fabrika guztietan langileen gehiengoa osatzen genuen eta partidu **komunistaren** inguruan egituratuta geunden. Jon Maia

Liga **Komunista** Iraultzaleak agertzen du ezkerburuan bere zerrenda. Herria

Badira oraindik ere erregimen **komunista** batzuk, Txinakoa adibidez. Koro Navarro

«Totalitarismo **komunista»** gaitzetsi zuen atzo Europako Alderdi Popularrak, Bruselan eginiko bozketan. Berria - Mundua

Diktadura **komunistak** pairatu ditugun herrialdeok. Berria - Mundua

Estatu **komunistaren** sortzailearen irudiari gorazarre egitea. Berria - Mundua

Beren asmoa monarkia ezabatu eta errepublika **komunista** ezartzea zen. Berria - Mundua

**2** komunistez osatua.

*Larrañaga* batailoi **komunista** antolatu zen han, eta Santoña aldera gero. Jokin Urain

Brigada **komunistak** osatua den Dibisioa, hain zuzen. Edorta Jimenez

Zelula **komunista** batean. Juan Kruz Igerabide

35 urte daramatza borrokan gerrilla talde **komunistak**. Berria - Mundua

• **3** *izond/iz* komunismoaren aldekoa; alderdi komunista bateko kidea.

-Nire armakide **komunistak** zu eta ni bezalako gizakiak ziren. Alberto Ladron Arana

Juan Astigarribia buruzagi **komunista** historikoa. Koldo Izagirre

Preso **komunist** frantsesak ardurenean frantses baino **komunistago** ziren. *El Campesino* jeneral **komunistaren** Brigada. Edorta Jimenez

Schafik Jorge Handal (Usulutan, 1930) buruzagi **komunista** herenegun hil zen. Berria - Mundua

Errusia **komunistak** gerra ideologikoaz indartzen ditu armamentuak. Iñaki Mendiguren

Erdialdeko Europa eta Baltikoko herrialdeak badirudi ondo prestatuak daudela; izan ere, haien industrializazioa, historikoki, eremu **komunistak** indarrez beretu aurrekoa da. Koro Navarro

**-Komunista** naiz, aita bezala -jarraitu zuen Adelak-. Juan Kruz Igerabide

Gure lagunek ez lukete zertan kezkatu Euzkadiko gobernuarekin: gu ez gara ez faxistak ez **komunistak**. Alberto Ladron Arana

Hura aterpetxe egina zuten anarkistek eta **komunistek**. Edorta Jimenez

Oskar, Oskar zuen izena **komunista** alu hark. Alberto Ladron Arana

Tabernan Kortabarria sartu zen, apaiz izandako **komunista** euskalduna. Jon Maia

**Komunist** frantses batzuek beste frantses batzuk heriotzera zeramatzaten komandoetara igorri dituztela [...] edo **komunisten** kontrakoak zirenak, kapitalistak zirelakoan. Marzel Etxehandi

**Komunista,** burdin-bidetako langilea Bordelen, bi haur gazteren aita. Marzel Etxehandi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi komunista** (56); **alderdi komunista berregituratuko** (4); **alderdi komunista marxista** (3); **alderdi komunista ohia** (3); **alkate komunista** (3); **benetako komunista** (3); **bloke komunista** (3); **buruzagi komunista** (8); **erregimen komunista** (3); **errepublika komunista** (3); **espainiako alderdi komunista** (5); **estatu komunista** (9); **filipinetako alderdi komunista** (3); **frantziako alderdi komunista** (3); **herrialde komunista** (3); **komunista bihurtu** (3); **komunista egin** (3); **komunista eta sozialista** (3); **komunista izan** (6); **komunista izaten** (4); **komunista ohia** (5); **komunista ohiak** (4); **liga komunista** (5); **militante komunista** (5); **nepalgo alderdi komunista** (3); **preso komunista** (3)

**alderdi komunistak** (52); **anarkistak eta komunistak** (3); **errusia komunistak** (3); **euskal herriko komunistak** (5); **greziako alderdi komunistak** (3); **marie borda komunistak** (5); **pcf alderdi komunistak** (3); **talde komunistak** (3)

**alderdi komunistako** (62); **alderdi komunistako buru** (5); **alderdi komunistako buruzagi** (3); **alderdi komunistako idazkari** (6); **alderdi komunistako kide** (14); **alderdi komunistako kidea** (3); **talde komunistako** (3)

**alderdi komunistakoa** (3)

**alderdi komunistan** (5); **alderdi komunistan sartu** (3)

**abdula bizargin komunistaren** (3); **alderdi komunistarekin** (6)

**alderdi komunistaren** (27); **erregimen komunistaren** (4); **euskadiko partidu komunistaren** (4); **partidu komunistaren** (6)

**alderdi komunistari** (3)

**alderdi komunistatik** (4)

**berdeek eta komunistek** (3); **komunistek eta anarkistek** (3); **komunistek eta berdeek** (3); **lagun komunistek** (3)

**erregimen komunisten** (3)

---

# komunistazale

**komunistazale** *izond* komunisten zale dena.

Gerra denboran ezagutu nituen argazkilariak etorri zitzaizkidan; **komunistazaleak** omen ziren. Edorta Jimenez

Izan ere, azken finean espirituz leiala izan arren, komunista edo **komunistazalea** izandako garaia barne, burges hutsa izan baitzen beti. Ramon Saizarbitoria

---

# komunitario

**komunitario** 1 *izond* komunitatearena, komunitateari dagokiona. ik **komunitate 2**.

Azken urteotan hedabide alternatibo eta **komunitarioek** garapen handia izan dute Venezuelan. Txema Ramirez de la Piscina

Enpresa gizarte justiziaren eta garapen **komunitarioaren** eragile gisa ikusten zuen, ez inoren patrika indibidualak betetzeko eragile gisa. V. Iñaki Heras

Programa inflexio puntu bat izan zen politika **komunitarioan,** zeren eta Lurraren Goi Bilerari (Rio 1992) emandako erantzun **komunitarioa** zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

1972an [...] hasi ziren lehenbiziko ekintza **komunitarioak,** elkarren segidako lau ekintza programaren ildotik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zientzia-produkzioaren izaera **komunitarioa** azaldu nahi izan zuen Kuhnek. Askoren artean

**2** Europar Komunitatekoa.

Euskadi eta Nafarroaren eskubide historikoak, Zuzenbide **Komunitarioaren** baitan. Berria - Euskal Herria

Elena Rodriguez Osasun **Komunitarioan** katedradunaren hitzak dira. Berria - Euskal Herria

Konstituzioak, Irujoren ustez, EBeko legebiltzarraren protagonismo handiagoa, lege **komunitarioen** garapena eta oinarrizko eskubideen karta indartzea ekarriko luke. Berria - Euskal Herria

«Gure jarrerak berdinak dira eta ez soilik gai **komunitarioetan»,** adierazi zuen Kantzilerrak. Berria - Mundua

Europako Batzordeko ordezkariek konpainien funtzionamenduarekin lotuta dauden direktiba **komunitarioei** buruz hitz egingo dute. Berria - Ekonomia

Europako Batasunean jokalari **komunitarioei** ezin zitzaiela kuporik jarri ebatzi zuen auzitegiak. Berria - Harian

Epai horretan oinarrituta aurrerantzean Europako Batasunean sartzear dauden estatuetako jokalariak ere **komunitario** izaera bera eska dezakete. Berria - Kirola

Nihat **komunitario** izango da. Berria - Kirola

David eta Macijauskas **komunitario** gisa nahi ditu Tauk. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jokalari komunitarioak** (3)

---

# **komunitarismo** *iz* gizabanakoan baino areago komunitateetan eta gizarte zibilean oinarritzen den doktrina.

Tribalismoa, zokokeria morala, **komunitarismo** etnikoa eta, noski, nazionalismoa -bai zapaltzailea eta bai baztertu zalea- harriak dira, ahalegin zibilizatzaile unibertsala oztopatzen dutenak. Esteban Antxustegi

Euskararen ekarpentxoa, gaur egun hain modako dugun indibidualismoaren eta **komunitarismoaren** arteko eztabaidarako. Joxerra Garzia

---

# **komunitarista** *izond/iz* komunitarismoaren aldekoa.

Sekta protestante **komunitarista** baten jarraitzaileak. Xabier Olarra

Hori dela eta, planteamendu hori defendatu duen zenbait autore **komunitaristatzat** hartu da, eta XX. mendeko filosofiaren mugarrietako bat izan zen **komunitaristen** eta liberalen arteko polemikari erreferentzia egiten dio. Askoren artean

«Xenofoboek, mota orotako nazionalistek, **komunitaristek** eta abar Europa leherraraziko lukete», Montebourgen ustez. Berria - Euskal Herria

---

# **komunitate** 1 *iz* elkarrekin bizi diren, interes edo helburu bera duten pertsona taldea. ik**erkidego**.

Ez, komuna bat ez... **komunitate** bat. Oskar Arana

Berebiziko argitasun sentimen batez sentitzen dut **komunitate** hau: "2/33 Taldekook!". Josu Zabaleta

Identifikazio horretantxe biltzen da **komunitatearen** zentzua. Joseba Zulaika

Halakoxea da, beraz, bertsolaritza aterbetzen duen **komunitatea**, euskararen **komunitatea**: **komunitate** koxkorra, biziraupen eta moldaketan esperientzia deigarri bat duena, [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Judu **komunitate** osoarena. Urtzi Urrutikoetxea

Fraideen **komunitatearen** oniritziaz eta abegi onaz. Jon Alonso

Gizonen **komunitatearen** parte eta osagarri naiz. Josu Zabaleta

Ea emakumeak ez ote liratekeen zoriontsuago emakume- **komunitateetan** biziko balira, gizonen bisitak eurek nahi dutenean bakarrik onartuta. Oskar Arana

Izaera nazionala duen **komunitate** bat. Berria - Harian

Nolabait, gure jatorrizko **komunitatea** desagertzen ari zela iruditzen zitzaidan, bazihoala. Agurtzane Juanena

Nazioarteko **komunitateak** aho batez goraipatu du ETAren su-etena. Joseba Zulaika

Europako **Komunitatearen** helburuen artean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**2** (izenondoekin)

Errenazimenduko errepublikazaleek **komunitate** politikoa, alegia politeia, herritartasun gisa hartu zuten. Esteban Antxustegi

Zenobita **komunitate** erlijiosoetako komentukidea da; anakoreta, berriz, bakardadean bizi den erlijiosoa. Xabier Olarra

Osmanliarrek Espainia eta Portugaleko judu sefardita iheslarien **komunitate** zibilak ezarri zituzten. Iñaki Mendiguren

Ohio, Pennsylvania eta Floridan, esaterako, **komunitate** musulmana aski handia da. Berria - Mundua

Hainbat **komunitate** indigena desagertzeko arriskuan daudela. Berria - Mundua

**Komunitate** sunitako talde politiko nagusiek. Berria - Mundua

**Komunitate** akademikoko hainbat aditu izan ziren bertan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Beti pentsatu izan dut noizbait arnasa hartzeko arazoak izan ditugunok, halako **komunitate** ofizioso bat osatzen dugula, ahulen legio bat bere ahuldadearen eta ingurukoen ahuldadearen kontzientzia duena. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan leen osagai gisa) ik **komunitario.**

Zigor arina ezarri zioten, bi hilabete estatuko kartzela batean eta **komunitate**-lanak hamaika asteburutan. Iban Zaldua

Berriro indartu dut nire baitan isilean dastatzeko den **komunitate** sentimen hori. Josu Zabaleta

Puertorrikarren **komunitate** zentzuaz aritu gara Nikholaren etxean. **Komunitate**-homogeneotasunaren ideala. Harkaitz Cano

**4** (hitz elkartuetan igarren osagai gisa)

Konplizitate horretan oinarritzen da giza **komunitatea**. Zail da aurkitzen hizkuntza **komunitate** homogeneorik, Euskal Herriko leku askotan behintzat. Joseba Zulaika

Euskal Herriko Autonomi Elkartea eta Nafarroako Foru **Komunitatea** Estatu Espainiarrean. Juan Luis Zabala

Pragako fraide- **komunitate** oso-oso batek bere buruaz beste egin zuen, ordu arte sinetsi zutenari uko egiteak Inkisizioaren tortura baitzekarkien. Anjel Lertxundi

Nekazari **komunitate** batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Unibertsitate- **komunitatea** aztoraturik dago. Iban Zaldua

Kultur **komunitate** batean funtsezkoak diren hainbat arlo. Berria - Kultura

Hezkuntza **komunitate** osoaren ardura. Berria - Euskal Herria

Hiri- **komunitate** askotan gertatzen den gauza bera. Santiago Iruretagoiena

Toki- **komunitate** lehiakideetako gobernarien artean. Iñaki Mendiguren

Japonia uharte- **komunitate** estu-estua izateak. Iñaki Mendiguren

Ethos- **komunitate** honen froga honetan aurkitzen da: [...]. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskal komunitate** (16); **euskal komunitate zientifikoa** (3); **hezkuntza komunitate** (5); **hizkuntz komunitate** (7); **hizkuntza komunitate** (18); **komunitate bateko partaide** (3); **komunitate beltzaren** (6); **komunitate erlijiosoen** (3); **komunitate greziar** (3); **komunitate indigena** (3); **komunitate indigenak** (3); **komunitate judu** (4); **komunitate judua** (4); **komunitate juduaren** (5); **komunitate musulmanak** (5); **komunitate musulmanaren** (4); **komunitate musulmanari** (3); **komunitate musulmanean** (3); **komunitate nazionala** (5); **komunitate nazionalaren** (3); **komunitate nazionalista** (5); **komunitate osoak** (4); **komunitate osoaren** (7); **komunitate osoari** (3); **komunitate sunita** (3); **komunitate sunitako** (4); **komunitate txiki** (8); **komunitate txiki batek** (3); **komunitate unibertsitarioa** (3); **komunitate zientifikoa** (6); **komunitate zientifikoaren** (5); **nazioarteko komunitate** (7)

**emakumeen komunitatea** (3); **euskal komunitatea** (3); **euskararen komunitatea** (3); **hizkuntza komunitatea** (6); **komunitatea osatzen** (3); **nazioarteko komunitatea** (18); **valentziako komunitatea** (4)

**euskal komunitateak** (4); **hizkuntz komunitateak** (5); **nazioarteko komunitateak** (62)

**euskal komunitatean** (4); **komunitatean bizi** (3); **nazioarteko komunitatean** (4)

**euskal hizkuntza komunitatearen** (3); **euskal komunitatearen** (4); **euskararen komunitatearen** (3); **foru komunitatearen** (6); **hezkuntza komunitatearen** (3); **hizkuntz komunitatearen** (4); **hizkuntza komunitatearen** (6); **komunitatearen babesa** (3); **komunitatearen egoera** (3); **nafarroako foru komunitatearen** (4); **nazioarte komunitatearen** (3); **nazioarteko komunitatearen** (50); **nazioarteko komunitatearen sostengua** (6)

**euskal komunitateari** (5); **nazioarteko komunitateari** (32)

**hizkuntz komunitateek** (3)

**euskal komunitateen** (4)

**komunitateetan bizi** (3)

**estatu independenteen komunitateko** (3); **hezkuntza komunitateko** (3); **madrilgo komunitateko** (5); **nazioarteko komunitateko** (4)

---

**komunitatezale** *izond* komunitateen zale dena.

Filosofiaren esparruan hainbat lan argitaratu ditu, besteak beste, *Karl Marx, Teoria eta Politika, Modernitatearen alde* eta *Euskaldunak, liberalak eta **komunitatezaleak*** izeneko liburuak  Berria - Kultura

---

komunixgo ik **komunisgo**.

---

komunixt ik **komunista**.

---

komunizt ik **komunista**.

---

komunki ik **komunzki**.

---

komunontzi ik **komun[1] 5**.

---

**komuntasun** *iz* komuna edo arrunta denaren nolakotasuna.

Bere antzinatasun, **komuntasun** eta arruntasunaren marka garbia.  Iñaki Segurola

Interesen **komuntasunetik** abiatuta.  Joxe Azurmendi

Tomas Akinokoak, bestalde, Aristotelesek erakutsi zuen legez, botere eta **komuntasun** politikaren azken helburua guztien ongia zela adierazi zuen.  Askoren artean

---

komuntzulo ik **komun[1] 6**.

---

**komunzki** *(orobat* **komunki** *g.er.) adlag* eskuarki, gehienetan.

Serorek **komunzki** ez dute argibiderik ematen, hurbileko ahaideei salbu.  Elena Touyarou

Egunaz **komunzki** irekirik egoten zen atea hetsi zuen.  Elena Touyarou

**Komunzki,** jan ondoan, gose ginen.  Marzel Etxehandi

**Komunzki,** alabaina, delako boterea edozein hiri motari eman ohi zaio. Delako ahalmen sentsitiboa, sentsualitatea deitzen dena **komunzki,** tirria ere badela.  Piarres Xarriton

San Tomasek erraten baitu, **komunzki** onartzen den bezala, bereziki Espainian, Aita Sainduak eta haren Kardinalek ezin dutela hutsik egin heresia kasuetan.  Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komunzki eta eskuarki** (4)

---

**komunztadura** *iz* esaldi berean loturik dauden bi hitzen artean gertatzen den kideko morfemen arteko adostasuna.

Matxinatuaren sugarrez lotu nintzaion neure testu preziatua zuzentzeari: adjektibo desegoki bat hemen, **komunztadura** okerra hor, esaldiaren barne antolamendu traketsa han.  Aingeru Epaltza

Heren bat irakurri du, **komunztadura**-falta batzuk zuzendu, zenbait argibide proposatu ditu, eta are, diskretuki, ortografia-akats batzuk ere zuzendu ditu.  Jon Alonso

Perpausaren aditz elementuak pasiboaren subjektu gramatikal berriaren numero **komunztadura** bera izan dezan.  Itziar Laka

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako ekialdean ez da datiboarekiko **komunztadura** beti eta nahitaez betetzen.  Koldo Zuazo

---

**komunztatu**, komunzta, komunztatzen **1** da/du *ad* komunztadura gertatu edo egin.

Hau da: **komunztatzean** nori bere jarduera gehitzen dion horrekin erlazionatzea eta, botere-erlazioak ez osatzean, nori bere jarduera gutxitzen dion horretatik aldendu edo saihestean.  Piarres Xarriton

**2** (gramatikan)

Latina kanpotik etorria da, zentzu horretan, eta hemen aurkitu zuen dagoeneko perpausak justuki eta aberaski **komunztatzen** zituen beste hizkuntza bat, hitzen oparotasunak josia. Pello Salaburu

Frantses modernozko gramatika tradizionalak, esaterako, esaten du orainaldiko partizipioa, kasu batzuetan, aldakorra dela, eta **komunztatua** doala [...] eta besteetan aldaezina dela. Isabel Arrigain

---

## komunzulo ik **komun[1] 6**.

---

## **koñak 1** *iz* alkohol gradu asko dituen edari bizia, ardo motelen destilatzetik lortua, berez Frantziako Cognac eskualdean egiten dena.

Soda ura balitz bezala edaten du **koñaka**. Koro Navarro

Ez, ez dut digestiborik nahi, horixe da jatetxeen herriak pattarren, uxualen eta **koñaken** leinuari ematen dion izena. Jon Alonso

Igande edo jaiegunetan, 3 izarretako **koñak** frantsesa. Bego Montorio

Haatik **koñakak** suspertu egin ninduen. Edorta Jimenez

Eztia eta **koñaka** erantsi zizkioat esne bero-beroari. Zazpi basokada limoi ur **koñakarekin** nahasturik. Anjel Lertxundi

Edalontzi bat bete limoi ur hartu zuen, **koñak** pixka batekin nahastu zuen, eta lurrean eserita zer gertatuko geratu zen Joanes. Felipe Juaristi

Gero botila **koñak** batetik kluka luze parea edan, eta apar ugari sortu diat. Patxi Zubizarreta

Andresek zerbeza eta beste kopa bat **koñak** eskatu dizkio tabernariari. Paddy Rekalde

Sartu-ateraldi bat egin zuen tabernara, kopa bat **koñak** eskuratzera. Alberto Ladron Arana

Beste bi botila **koñak** edandakoan. Felipe Juaristi

Soldaduen begi bistara azaldu zen, lau botila **koñak** eskuetan, txin-txin hoska. Felipe Juaristi

Botila bat **koñak** frantses harturik, enbaxadorearen opari, balkoiraino lagundu zion lord Brandyri. Felipe Juaristi

Angelok hiruzpalau goizetan ekarri zidan **koñakaz** bustitako esne beroa. Anjel Lertxundi

### **2** kopa bete koñaka.

**Koñak** bat edango dugu *a l´eau de selz*. Lopez de Arana

**Koñaka** eskatu du gizonak. Alberto Barandiaren

Espainiako **koñak** higuingarri bat hartzera behartu gura zuen. Lutxo Egia

### **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Koñak** kopa mahai gainetik hartu eta dzanga hustu nuen. Alberto Ladron Arana

Aitak **koñak**-botila bat ematen zidan senarrarentzat. Joseba Urteaga

Kafe hari bere petakako **koñak** tanta batzuk gehitu ondoren. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ak** (5); **ak bat** (3); **ak botila** (4); botila koñ koñ koñ
> **aka edaten** (3); koñ

---

## konato ik **konatu**.

---

## **konatu** *iz* ahalegina, saioa.

Arin irten zen dutxatik orduan, eta ate ondoan hasi zen gorputza lehortzen, norbaitek komunera sartzeko **konatoa** eginez gero atea berehala ixteko. Unai Elorriaga

Horiek bestelako **konatuak** izango dira. Berria - Kirola

---

## **konbalezentzia** *iz* eriondoa.

Eta Adrian ere, bere **konbalezentzia** dela eta, oso gutxitan etortzen zait. Bernardo Atxaga

---

## **konbalidatu**, konbalida, konbalidatzen du *ad* baliozkotu.

Unibertsitate publikoan segitzeko Historiako lizentziaturarekin, aprobatuta neuzkanak **konbalidatzen** bazizkidaten. Xabier Mendiguren Elizegi

EHUko ikasleek, matrikula merkeago izateaz gainera, aukera askeko kreditu bi **konbalidatzeko** aukera izango dutela azaldu zuten antolatzaileek. Berria - Euskal Herria

---

## konbat ik **konbate**.

---

## **konbate** *(orobat **konbat** g.er.)* **1** *iz* gudua. ik **borroka**.

Atzeguardiako **konbatea** izan zen, ezinbestez galdu beharrekoa. Edorta Jimenez

Disimulurik gabe eta gauzak diren bezalaxe agertuz, **konbate** garbian. Hasier Etxeberria

Nola aterako nintzen, bada, kontzientziaren gudu eta **konbat** haietarik garaile? Joan Mari Irigoien

### **2** boxeoan, borroka.

Young Play diskotekan gau hartan bertan ospatzekoa zen boxeo **konbaterako** sarrera bat topatu zuen. Harkaitz Cano

Hemen Bilbon antolatu zuten **konbate** batera deitu zidatean. Paddy Rekalde

Jokatu berria zen orduantxe, New Yorkeko Madison Square Gardenen, Cassius Clay eta Sonny Listonen arteko boxeo **konbatea**. Bernardo Atxaga

Cassius Clayk, **konbatea** hasi orduko, erdi dantzan paseatu zuen Madison Square Garden ikaragarri hartako ring argitsua. Joseba Sarrionandia

Denak amateurrak, ez **konbate** ofizialak. Paddy Rekalde

-Ez duk **konbatearen** amaieraraino itxaron nahi? Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **boxeo konbateak** (3)

**konbatitu,** konbati, konbatitzen du *ad* gudukatu, borrokatu.

Gero, **konbatitzen** diren erlatibismo edo subjetibismoak eta kulturaren kontzeptu nahasketak berak, salatzen den "postmodernia" hitz batean, frantsesa da. Joxe Azurmendi

Erlatibistak **konbatitzea,** beren beldurrak **konbatitzea** eta segurtasuna segurtatzea besterik ez da. Joxe Azurmendi

**konbekzio** *iz* beroaren hedapena, berotasun desberdineko isurkari geruzen higiduraren ondoriozkoa.

Automobileko urak motorraren beroa hartzen du; beroaren parte bat, bidaiariak berotzeko erabiltzen du, eta gainerakoa, berriz, erradiazioz edo **konbekzioz,** airean galtzen du. Irene Aldasoro

konbeni ik **komeni izan**.

konbenientzia ik **komenentzia**.

**konbenio** *(orobat* ***komenio*** *g.er.)* *iz* hitzarmena.

Eraikuntza greban, **konbenioaren** alde. Berria - Ekonomia

Herrialdeko gutxieneko **konbenioa** lortzeko. Berria - Ekonomia

Datozen lau urteetarako **konbenioa** sinatzea ere eskaini die sindikatuei. Berria - Ekonomia

Euskal ekoizleen elkartearen arabera, ETBk ez du onartu *Ibaia*rekin zuen **konbenioa** berritzea. Berria - Kultura

Sektoreotako langileek berezko **konbenioa** dutela. Berria - Ekonomia

Animazio arloko **Konbenio** Kolektiboa. Herria

Eskerrak gero, **konbenioarekin,** berronartuak izan zineten... Iban Zaldua

Lan- **konbenioak,** eskakizun laboralak, etc. Edorta Agirre

Uztaritzeko Herriko Etxean izenpetu dira Udalbide eta bost elkarteren artean laguntza **konbenioak** 2005erako. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **animazio arloko konbenio** (3); **konbenio bat izenpetu** (3); **konbenio kolektiboa** (3)
> **lan konbenioa** (3)
> **aurtengo konbenioaren gainean** (3); **konbenioaren alde** (4)

konbentu ik **komentu**.

**konbentziarazi,** konbentziaraz, konbentziarazten du *ad* konbentzitzera behartu.

Andresek ahaleginak egiten zituen **konbentziarazteko** komunitateari egindako lapurretaren kaltea pertsona partikular bati egindakoarena baino handiagoa zela; baina Dorotea ez zen konbentzitzen. Josu Zabaleta

konbentzidu ik **konbentzitu**.

**konbentzigarri** *(orobat* ***komentzigarri*** *g.er.)* *izond* konbentzitzen duena, sinesgarria.

Argudio **konbentzigarririk** gabe. Berria - Mundua

Gazteluko gizonen bertze eginbide bat zen erresumako zerga-biltzaileari sostengu ematea, beren arkabuzen aho **konbentzigarrien** bertutez. Aingeru Epaltza

Arnheimek egiten dituen analisiak irudi exzentratuez edo deszentratuez diharduenean dira batez ere **konbentzigarriak**. Josu Zabaleta

Eta, kontu hura hain modu **konbentzigarrian** garbitzen genuela, osabak erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Zinez **konbentzigarri** gertatuko nintzateke telebista pantailan, pena-emangarri arrunt. Aingeru Epaltza

**konbentzigarritasun** *iz* konbentzigarria denaren nolakotasuna, sinesgarritasuna.

*A priori*-zko erantzunen **konbentzigarritasunik** eza. Iñaki Mendiguren

**konbentzimendu** *(71 agerraldi, 32 liburu eta 14 artikulutan; orobat* ***komentzimendu*** *g.er.)* **1** *iz* uste osoa, sineste sendoa. ik **konbikzio**.

Lasaitzeko asmo hutsez errana izanagatik ere, **konbentzimendu** osoz ari nintzaion. Aingeru Epaltza

Estatu nagusiek **konbentzimendu** handiz igortzen dituzte inora iritsiko ez diren aginduak. Josu Zabaleta

Ni ere bilatzen laguntzekotan geratu nintzen, **konbentzimendu** handirik gabe baina. Xabier Mendiguren Elizegi

Amonak, ordea, objekzio guztiak ezeztatzen zituen hartutako erabakian fede osoa duen baten **konbentzimendu** pitzadurarik gabeaz. Anjel Lertxundi

Praktikan denok geure **konbentzimenduen** "ebidentziatik", hots, "barruak" agindu bezala balioesten dugu eta jokatzen dugu. Joxe Azurmendi

Gutarren tabernak mordoa dira gure herrian, asko **konbentzimenduz** eta beste zenbait komenentziaz, gutarrek indar dexente baitaukagu herri honetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Etorkizun hobe baten **konbentzimendua** da gure indarra. Berria - Euskal Herria

Hau lehen bertsioa da, gehiago egongo diren **komentzimendua** dugu. Berria - Euskal Herria

Indarkeriak ondorio onik ez duelako **konbentzimendua**. Joxe Azurmendi

Eta, hartaz zerbait idatzi behar zuelako **konbentzimenduan,** gogoz ekin zion burua estutzeari. Josetxo Azkona

**2** (hitz elkartuetan)

Badiat haren **konbentzimendu** ahalmenaren berri. Aingeru Epaltza

Halako fede falta bat baduzu, **konbentzimendu** falta bat. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konbentzimendu handirik gabe** (3); **konbentzimendu handiz** (7); **konbentzimendu osoz** (5)

---

# konbentzio *(orobat **komentzio** g.er. eta **konbenzione** g.er.)* **1** *iz* egiunea, abenikoa.

Hizkuntza zerbait bada, tresna konpartitua da, euskal hiztunen arteko itun itxurako **konbentzio** bat. Anjel Lertxundi

Irudi horri, modu jakin batean marko batean sarturik dagoenez, **konbentzio** jakin batzuen arabera begiratu behar zaiola. Josu Zabaleta

Aitzitik, sofistek **konbentzioa** ikusten dute, hemen eta han, zuzenbidearen azpitik. Askoren artean

Badira **konbentzio** batzuk beste batzuk baino naturalagoak direnak. Josu Zabaleta

Analogia: **konbentzioa** ala errealitatea? Josu Zabaleta

Gure zibilizazioan horrelako **konbentzio** bat existitu izana ezin esplika daiteke egiaz, baldin eta **konbentzio** horrek egiaz baliagarritzat [...] jotzen diren eginkizunak betetzen ez baditu. Josu Zabaleta

Gizarteak bizitza ulertzeko erabaki dituen arau eta **konbentzioak** apurtu, legeak zalantzan jarri, [...]. Pako Aristi

Norbanakoen arteko harremanak arautzen dituzten **konbentzioen** indarrez. Josu Zabaleta

**Konbentziook** ohitura bihurtu direla, eta beren arbitrarietatearen kontzientzia galdu dela. Joseba Sarrionandia

**2** (izenondoekin)

Denok dakigu zuzenbidea **konbentzio** hutsa dela, hau da, legeak eta arauak garai batean moldatu eta beste batean utzi eta aldatu egiten direla. Askoren artean

Irudien produkzioa eta kontsumoa arautzen dituzten **konbentzio** sozialak. Josu Zabaleta

Idealak ez dira **konbentzio** abstraktuetan gauzatzen, inguratzen gaituen eguneroko bizitzan baizik. Berria - Kultura

Antigona sinboloa da, **konbentzio** injustuaren aurrean altxatu egiten den moral pertsonalaren sinboloa. Berria - Kultura

Irudikapenezko arte kanonikoa, berriz, ezin da existitu **konbentzio** intelektual batzuei esker ez bada, **konbentzio** matematiko batzuei esker, azken finean. Josu Zabaleta

Konbentzioz, oso **konbentzio** finko eta zurrunez gainera, adierazgarriak. Josu Zabaleta

Gizakiak [...] ezin sentitu edo gozatu dezake deus, sinetsiz ez bada, gogoa estutzen eta etsitzen dioten **konbentzio** sakratuak bere gisa urratuz ez bada. Patziku Perurena

Ez da dudarik **konbentzio** errealista hausten duela horrek, baina, ondo pentsatuz gero, ez da sinesgaitzagoa hori errealismo petoaren beste prozedura batzuk baino: narratzaile orojakilea bera dut gogoan adibide nagusi. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adierazpena ez baita inoiz absolutua [...] **konbentzio** multzo bati atxikia baizik. Josu Zabaleta

Horietan egiazko presentzia bat sentitu nahi izatea [...] onginahiezko desira, fantasma edo **konbentzio** kontuak baizik ez dira. Josu Zabaleta

Jakituriak ezinbestekoa duela **konbentzio**-hauste puntu halako bat. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntzan oinarritzen diren gizarte-**konbentzio** batzuen arabera. Josu Zabaleta

Ikusi zer den giza **konbentzio** soiletatik sortutakoa, eta zer behar komuntzat jotzen denetik. Juan Martin Elexpuru

Kultur **konbentzio** eta seinaleen mundu batean bizi garenez. Xabier Olarra

Panofskyk ez du adierazi nahi perspektiba **konbentzio** arbitrario bat denik, historiako aldi bakoitzak "bere" perspektiba izan duela baizik. Josu Zabaleta

Pinturan, eta geroago argazkilaritzan, aplikatzen den perspektiba geometrikoa, partez arbitrarioa den irudikapen-**konbentzio** batetik datorrena eta, horrenbestez, baliabide artifizialez sortu behar izaten dena Josu Zabaleta

**5** hitzarmena, akordioa.

Haurren Eskubideen **Konbentzioan** jasotakoa betetzetik urruti gaude. Berria - Gaiak

Espainiak ez du Giza Eskubideen gaineko Europako **Konbentzioaren** 3. artikulua urratu, torturak eta tratu txar umiliagarriak debekatzeari dagokiona.

Gobernuak Genevako **Konbentzioan** salbuespenak nahi ditu Iraken harrapatutako zenbait presoren tratamendua zorrotzago egiteko. Berria - Mundua

Eta hau grabeagoa da, estatuek hainbat **konbentzio** sinatu baitituzte nazioarte mailan giza eskubideak bermatzeko. Berria - Euskal Herria

Lehenagotik abiatutako kanpaina 1998an ECOWAS Afrika Mendebaldeko Estatuen Ekonomia Komunitateak hitzartutako moratoria **konbentzio** bihurtzeko lanean ari da. Berria - Harian

Deklarazio horiek **konbentzio** bihurtu eta bete beharreko arau bihur al daitezke? Berria - Gaiak

1989an hitzartu zuen **Konbentzio** hori Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak, eta giza eskubideen aldeko idatzi batek inoiz izan duen onespenik handiena jaso zuen. Berria - Gaiak

**6** alderdi politikoen eta kidekoen biltzar orokorra.

Segurtasun neurri handiekin hasi zuten, atzo, New Yorken, AEBetako Alderdi Errepublikanoaren **Konbentzio** Nazionala. Berria - Mundua

Bostonera heldu zen atzo John Kerry, Alderdi Demokrata **konbentzioa** egiten ari den hirira. Berria - Mundua

**Konbentzio** nazionalak Estatu Batuetako Kongresuari 1794an bidalitako lehenengo metro-eredu hura. Jon Muñoz

Leherketen oihartzuna, txaloekin nahastu zen atzo Bagdadeko **Konbentzio** Zentruan, Gobernu Kontseiluko 25 kidek behin-behineko konstituzioaren artikuluak jasotzen dituen agiria banan-bana sinatzen zutenean. Berria - Mundua

Lula presidentearen koalizio gobernutik ateratzea erabaki zuen PMDB Brasilgo Mugimendu Demokratikoaren Alderdiak [...] igandean **eginiko** konbentzio polemikoan. Berria - Mundua

Jesus Maestrok, bestalde, Aznarren alderdia Europako **Konbentzioan** izan duen jarrera gaitzetsi zuen. Berria - Euskal Herria

Europako **Konbentzioa** lanean hasi zen, Europako Batasunerako konstituzio proposamen bat egiteko. Berria - Harian

**7** (historian)

Aitak **Konbentzio** Gerraren garaiko fuerte bat zela aipatu zuen. Iban Zaldua

Uniforme hura **Konbentzio** garaiko armada frantsesarena zela uste du. Iban Zaldua

Oraino legerik ez izan arren, tematuki zioten **Konbentzioa** esklabotasunaren ezeztatzeko xedetan zela. Elena Touyarou

Ni Laborde herritarra naiz, **Konbentzioak** izendatu agente nazionala, eta galdera bat egin dizut. Elena Touyarou

**8** ***konbentzioz*** egiunez, abenikoz.

Koloreak, esaterako, **konbentzioz** dira, hau da, iritziaren edo gizakiaren araberakoak dira, baina ez dira e rrealitatean existitzen; errealitatean atomoak eta hutsa baino ez dira existitzen. Askoren artean

Erretinako irudia eroso erakutsi ahal izateko, ikuspen-ardatzaren perpendikularreko plano batean marraztu ohi da sarri, **konbentzioz,** gauzen gainazalen islen proiekzioa; hori ordea konbentzio eroso bat baizik ez da. Josu Zabaleta

Terminologia horretan, errealitatearen sinbolizatze prozesuaz hitz egiten da beti, gizarte batean "truka" daitezkeen eta **konbentzioz** errealitatea aipatzeko balio duten sorkarien produkzioaz, alegia. Josu Zabaleta

Tetran nengoen berriro ere, **konbentzioz** orainaldia deitzen dugun zera horretan, eta pertsianaren zirrikituetatik egun berriaren argia sartzen zen jada. Iban Zaldua

**9** ***konbentzio zentro*** konbentziogunea.

New Orleansen lau egun pasa ziren **Konbentzio** Zentroan eta Superdomen elikagairik, urik eta osasun artatzerik gabe zeuden 50.000 lagun inguruk inoren laguntza jaso arte. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irudikapen konbentzio** (3); **konbentzio hutsa** (3); **konbentzio multzo** (3)
> **errepublikanoen konbentzioa** (3); **genevako konbentzioa** (4); **konbentzioa onartu** (4); **nazioarteko konbentzioa** (3)
> **europako konbentzioak** (5); **genevako konbentzioak** (4); **konbentzioak landutako** (4); **konbentzioak landutako konstituzio** (3)
> **eskubideen konbentzioan** (3); **genevako konbentzioan** (3)
> **eskubideen europako konbentzioaren** (5); **europako konbentzioaren** (7); **genevako konbentzioaren** (6)
> **giza eskubideen konbentzioko** (3)

---

## konbentziogune *(corpusean* ***konbentzio gune*** *soilik)* *iz* konbekzioak egiteko gunea. ik **konbentzio 9**.

Forum eraikinean eta Bartzelonako Nazioarteko **Konbentzio gunean,** nazioarteko 65.000 kongresistak eta 1.500 hizlarik parte hartuko dute hitzaldi eta debateetan. Berria - Kultura

---

## konbentzional 1 *izond* konbentzioen araberakoa, abenikozkoa.

Hizkuntza, gauza ikasia eta **konbentzionala** da. Isabel Arrigain

Zinema klasikoaren muntaketa "gardenaren" garapena gertaeren denboraren irudikapen sinboliko **konbentzionalean** oinarritzen da, Hurrenkera sistema **konbentzional** baina orokor bat hartuko dugu erreferentzia gisa: alfabetoa. Josu Zabaleta

Horregatik bereizten dira bilakabide naturalak (fisikoki justifika daitezkeenak, oharmenaren aldetik edo ebakerarenetik) eta erregela **konbentzionalak** (hizkuntzaren gramatikarekin edo hiztegiarekin ikasten direnak). Lourdes Oñederra

Lege zibilek arautzen dituzte harreman naturalak eta **konbentzionalak,** aginduzkoak nahiz borondatezkoak, nahitaezkoak zein komenientziazkoak, norbanako guztiak beste norbanako batekin edo batzuekin lotzen dituztenak. Andres Urrutia

Ezaugarri **konbentzionalak** zituztela: Iparraldea goian egotea, hegoaldea behean, zero graduko longitudea Greenwichen finkatzea eta Europa maparen zentroan jartzea. Joseba Sarrionandia

**2** ohikoa, berezitasunik ez duena, arrunta.

Gaur egun tratamendu berak edo bertsuak baliatzen dituela leku guztietan medikuntza **konbentzionalak**. Imanol Zurutuza

Hor, gerra **konbentzionalean,** benetan erabakigarri suertatzen dena soldaduen indarra eta adorea da. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizartea «bere burua zuri, seronegatibo, patriarkal, kapitalista, heterosexista eta **konbentzional»** gisa azaldu nahian dabilela. Berria - Euskal Herria

Renon bizi izan nintzenean, era guztietako jendea ezagutu nuen, baina gehienak **konbentzional** samarrak ziren, eta ni neu ere halakoxea naizela uste dut. Berria - Kultura

Bere poema sukartu bat irakurtzen hasiko zaio Klara izeneko neska eder bezain **konbentzional** bati. Anjel Lertxundi

Grabagailu **konbentzional** bat. Ramon Saizarbitoria

Kontakizun horiek, izan ere, ez ziren **konbentzionalak;** Joyceren narrazio laburrak Irlandan garai hartan zegoen mugimendu literarioaren kontra altxatzen ziren. Irene Aldasoro

Badakigu, hori bai, nolakoa nahi zukeen bere bizitza partekatzeko emakumea: batere arrunta ez, ezta **konbentzionala** ere, ideia propíoak zituena, berarekin harreman konplizea izateko egina. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **medikuntza konbentzionalak** (3)
> **modu konbentzionalean** (4)

---

## konbentzionalismo 1 *iz* gizarte konbentzioz ontzat hartzen den iritzi edo jarrera.

Ikusi duk publiko eder bat daukaala, **konbentzionalismoek** hondatu bakoa. Nik ere telebista daukat -defenditzen zen Armando, **konbentzionalismoaren** aurkako borrokan muga non ipintzen zuen adierazten ariko balitz bezala. Koldo Izagirre

Tok-tok **(konbentzionalismo** bat). Unai Iturriaga

**2** (dokrina filosofiko gisa)

Edo razionalismo argi modernoa nola oskurantismo iluna bihurtzen den, Straussen analisi polita; h. d., indibiduoaren absolutismoa **konbentzionalismoan** eta erabat erlatibismoan zelan jausten den. Joxe Azurmendi

---

## konbentzionalista *izond* konbentzionalismoarena, konbentzionalismoari dagokiona.

Errealismoaren eta instrumentalismo **konbentzionalistaren** (Poincarérena eta Le Roy-rena esaterako) ikusmoldeen artean, Duhemek hirugarren bide bati ekiten dio (horrek zailtzen du Duhem eskema klasikoen arabera kokatzea, ez baita **konbentzionalista,** errealista, instrumentalista, etab.). Askoren artean

---

## konbentzionalitate *iz* konbentzionalismoa.

**Konbentzionalitatea**. Ana Urkiza

---

## konbentzionalizatu *izond* konbentzional bihurtua.

Hain zuzen ere, irudiak, gauza sozializatu, **konbentzionalizatu** eta, hala nahi bada, kodetu bat den aldetik (eta ez gauza ikusgarri soil bat), badu erabiltzeko modu jakin bat, irudiaren kontsumitzaileak, ikusleak alegia, aurrez ezagututzat ematen dena. Josu Zabaleta

---

## konbentzionalki 1 *adlag* konbentzioen arabera.

Edozein dela euren maila formala gai hauek eta teoria hauek, **konbentzionalki,** "estrategiak" deituko dira. Xabier Arregi

**2** ohikoa den eran.

*Le Livre d'Or de la Poésie Française*-ren egileak ez zuen **konbentzionalki** jokatu, ez zuen aurreiritziz ezer baztertu, den-denei eman zien irakurleen aurrean aurkezteko aukera. Bernardo Atxaga

Gaiztakeria zurrunbilotsuak gai kilikagarri eta inspiragarrien altxor bat eskaini ziela Erromako hizlari publikoei, harropuzki ordenaturiko Trajanoren garaian haien epigonoek

**konbentzionalki** izugarrikeriatzat gaitzets zitzaketenak Iñaki Mendiguren

---

# konbentzionaltasun 1 *iz* konbentzionala denaren nolakotasuna.

Paisaiaren irudikapenak, esate baterako, **konbentzionaltasun** -maila bera du, horien iritzian, Txinako pintura tradizionalean izan, faraoien garaiko Egiptoko marrazki batean izan, XVII. mendeko Holandako koadro batean izan ala Ansel Adams-en argazki batean izan. Josu Zabaleta

## 2 *ez-konbentzionaltasun*

Eta haren [Sherlock Holmesen] ez- **konbentzionaltasun** mutur-muturrekoa, poliziek beren adimen konbentzionalez ezin argitu dituzten kasuak berari maiz argitzen laguntzen diona. Xabier Olarra

---

# konbentzitu, konbentzi, konbentzitzen *(orobat **konbenzitu** g.er., **gonbentzitu** g.er., **konbentzidu** g.er. eta **komentzitu** g.er.)* 1 du *ad* norbaitek zerbait pentsatu edo egin dezan lortu arrazoien eta argudioen bidez. ik**bairatu; gogatu.**

Laburtzeko, nirekin abentura batera etor zedin **konbentzitu** nuen. Koro Navarro

Denbora dezente behar izan zuten Hermione komunetatik irten zedin **konbentzitzeko**. Iñaki Mendiguren

Gure ama **konbentzitu** nahi zuen bera ere Casoratiren eskoletara joan zedin. Fernando Rey

Ea bada, gure aingerutxoa, **konbentzitu** al zaitugu? utzi al diozu sodomia krimena dela pentsatzeari? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nire manerek **konbentzitu** zituzten. Koro Navarro

Ni behinik behin ez naute batere **konbentzitzen** ematen dituzten arrazoiek. Karlos Zabala

Ez zen modurik izan hura **konbentzitzeko**. Josu Zabaleta

Anaia ministroak Frantzisko **konbentzitu** nahian zebiltzan, anaiei elkartean bederen zerbait edukitzen utz ziezaien, anaiarte hain handiak zeri heldu eduki zezan. Askoren artean

Agureak ez zuen nahi, ezezko biribila ematekotan izan zen, baina azkenean taldekoek **konbentzitu** egin zuten. Iban Zaldua

Jontxuk bazuen halako ahalmen bat gainerakoak bere usteaz **konbentzitzeko**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer trikimailu baliatuko nuen Ada arriskuaz **konbentzitu,** beharrezko neurriak hartu, eta Herio engainatzeko? Anjel Lertxundi

Ezin dut **konbentzitu,** haserraraztea baizik ez nuke lortuko. Monika Etxebarria

## 2 (konpletibo batekin)

Azkenean, Rossetti niretzat oinetako marka bat zela **konbentzitu** nuenean, funtsezkoena kontatu zidan: [...]. Ramon Saizarbitoria

Gure amak, hitz gozoak erabiliz, **konbentzitu** zuen hura zela bere patua. Pello Lizarralde

Botere publikoak **konbentzitu** behar ditu EEP-ek orain artinoko diru maila bederen segurtatzen segitu behar dutela. Herria

Zinak eta minak ikusi zituen Idisoro zaharrak Napumoceno jauna **konbentzitzeko** ez zela bere asmoa inor iraintzea, hitz egiteko modu bat baino ez zela. Bego Montorio

Beste nonbait bizi zela **konbentzitu** nahi zuen bere burua. Monika Etxebarria

## 3 (-tzeko perpaus batekin)

Azken entrenamendu-saiora joateko **konbentzitu** zuen Harryk. Iñaki Mendiguren

Nola arraio **konbentzituko** ote zuen osaba Vernon edo izeba Petunia baimena izenpetzeko? Iñaki Mendiguren

Horregatik, bera joatea erabaki zuen, ea adiskide giroko elkarrizketan kargua hartzeko **konbentzitzen** zuen. Askoren artean

Humirzahk txanoaren azpian ilea hazten uzteko **konbentzitu** zuen, eta txirikordak egiten zizkion. Koro Navarro

Martin falta zela ikusita, mojak berreskuratu egingo zuen, dudarik gabe, garai batean Katalinaren gainean zuen itzala, eta berarekin komentura itzultzeko **konbentzituko** zuen Koro Navarro

## 4 (bere burua-rekin)

-Gu lasai -errepikatu zuen Imanolek, gehiago bere burua **konbentzitzeko** Alex baiesteko baino-. Fernando Morillo

-Onik aterako da -esan zion Harryk, bere burua **konbentzitu** nahian-. Dena bere gustura ikusten zuen, eta bere burua **konbentzitzen** zuen gertatuak bere fantasiak marrazten zituen bezala zirela. Koro Navarro

Bai baitzekien besteak **konbentzituko** zituela beharbada, baina ez bere burua; erabat ez, behintzat. Ramon Saizarbitoria

## • 5 da *ad*

Historia gauza hutsa dela **konbentzitu** zen. Josu Zabaleta

Gizon hark bere garaikidea izan behar zuela **konbentzitu** zen. Josu Zabaleta

Hori baino gehiago, amodioa bera ipuin bat zela **konbentzitu** nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Behin berriro **konbentzitu** nintzen ezen herri madarikatu honetan zorigaitza zelatan dagoela, noiznahi eraso egiteko pronto. Patxi Zubizarreta

**Konbentzitu** egin da, eta besoa askatu dit. Josu Zabaleta

Harik eta **konbentzitu** nintzen arte atsegin nuela bizio hura. Joan Mari Irigoien

Harik eta Jainkoaren batasunaz eta liburu profetikoen egiazkotasunaz **konbentzitu** arte. Xabier Kintana

## 6 (era burutua izenondo gisa)

Ni orduran ateo aitortua eta **konbentzitua** nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

-Faxista **konbentzitua,** beraz. Edorta Jimenez

Hala ere, erretzaile **konbentzitua** nintzen. Joan Mari Irigoien

Sendagileak **konbentzitu** itxuraz erantzun zion: [...].Amak, buruari eragin ostean, hizketa molde **konbentzitua** erabiliz: [...]. Josu Zabaleta

## 7 *konbentzitua/konbentzituri k/konbentzituta*

**Konbentzitua** naiz denborak beste maila batean kokatzen dituela obrak. Ana Urkiza

Hermionek **konbentzitua** zirudien, baina Ronek ez. Iñaki Mendiguren

Erran behar zuenaz **konbentzitua** zegoelako. Joan Mari Irigoien

Hau ordea ez zen oso **konbentzitua** agertu Estebanek bere premia larriaren berri eman zionean. Pako Aristi

Ezagun zuen **konbentziturik** zegoela esaten ari zenaz. Jon Arretxe

Peru oso **konbentziturik** dago bere paperaz, baina sinesgarritasun handia ikusten diogu bere jarrerari. Anjel Lertxundi

Baina Sabethek **konbentziturik** segitzen zuen adarra jotzen niola. Joxe Austin Arrieta

-Horixe -erantzun diot, **konbentziturik-,** Ekialdearen atea, Asiarako zubia. Jon Arretxe

Andresek, halako katalepsiarik ez zela **konbentzituta** zegoen arren, estetoskopioa atera eta bihotzaren parean auskultatu zuen gorpua. Josu Zabaleta

Kalera bota behar nindutela **konbentzituta** joan nintzen erredakziora. Jasone Osoro

Baina ez dut uste **konbentzituta** geratu denik... Iñaki Mendiguren

Denbora luzez bere barrurako aritu zen xuxurlaka, Smeeri begira, toles bat josten ari baitzen lasai-lasai, ume guztiek beldurra ziotela **konbentzituta**. Julen Gabiria

Ez ninduen oso **konbentzituta** ikusiko, zuloaren aurrean jarri eta ez baitzidan pasatzen utzi. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ama konbentzitu** (3); **bere burua konbentzitu** (5); **jendea konbentzitu** (4); **joateko konbentzitu** (3); **uzteko konbentzitu** (3)

**oso konbentzitua** (4)

**konbentziturik egon** (3); **oso konbentziturik** (3)

**konbentzitzea lortu** (5)

**iritzi publikoa konbentzitzeko** (3)

**bere burua konbentzitzen** (3); **egiteko konbentzitzen** (3); **erabat konbentzitzen** (4); **guztiz konbentzitzen** (3); **konbentzitzen ahaleginduko** (4); **konbentzitzen saiatu** (11); **konbentzitzen saiatuko** (6); **konbentzitzen saiatzen** (3)

---

**konbentzitze** *iz* norbaitek zerbait pentsatu edo egin dezan lortzea arrazoien eta argudioen bidez.

-Zergatik ez? -galdetu zuen Arantxak, **konbentzitze** prozesuan oraindik-. Fernando Morillo

---

konbenzione ik **konbentzio**.

---

konbenzitu ik **konbentzitu**.

---

**konbergente** **1** *izond* bat datorrena, hurbilkorra.

Batzeko prozesuan, urrats **konbergenteak** egiten saiatuko gara, dinamika guztiak uztartuz eta elkarrizketa iraunkorra irekiz gainontzeko udal hautetsiekin. Berria - Euskal Herria

**2** lerroez eta kidekoez mintzatuz, puntu baterantz jotzen dutenak.

Erdi Aroaren azken aldiko iluminazio askotan badira sakontasuna adierazten den eszenak, baina ustez irudiaren planoari buruz perpendilularrak behar zuten marrak **konbergente** eta ihes-puntu baterantz zuzenduta marraztu ordez [...] dibergente marrazten direnak. Josu Zabaleta

Aitzitik sinesten zuen denbora serie infinituetan; denbora dibergente, **konbergente** eta paraleloen halako sare gero eta zabalago, zorabiozko batean. Juan Garzia

**3** leiarrez eta kidekoez mintzatuz, argi izpiak puntu baterantz abiarazten dituena.

Akats hori zuzentzeko asmatu ziren XV. mendean leiar **konbergenteak:** beren gainalde osoan argia jaso eta puntu bakar batean biltzeko bereziki zizelatutako beira zatiak. Josu Zabaleta

---

**konbergentzia** **1** *iz* bat etortzea, bat egitea; puntu baterantz jotzea.

Herrialdeen **arteko** konbergentziaren eta antolaketaren inguruan Eusko Jaurlaritzak duen ikuspegia azaldu zuen Iztuetak. Berria - Euskal Herria

Nola egingo diozu aurre titulazio mapen **konbergentziari** ? Bilakaera nominalen halako **konbergentzia** batek argi eta garbi baldintzatzen zuen diru-batasunaren proiektuaren susperraldia. Koro Navarro

**Konbergentzia** teknologikoa eta gizarte arloko **konbergentzia** lortzea dira legealdirako erronka nagusiak. Berria - Harian

Europako **konbergentzia** lortzeko bidean agertzen da finantzazioaren gaia. Berria - Euskal Herria

Europako Unibertsitate Eremuaren **Konbergentzia** eta Ebaluazioa. Berria - Euskal Herria

**2** (optikan eta kidekoetan) konbergentea denaren nolakotasuna.

Kristalinoa, optikaren ikuspegitik, **konbergentzia** aldagarria duen leiar ganbilbiko bat da; aldagarritasun horri egokitzea deitzen zaio. Josu Zabaleta

Ponzo-ren ilusioan, adibidez, goiko marra "urrutiago" balego bezala ikusten da, zehar-marren **konbergentziak** eragiten duen perspektiba-efektuak eraginik. Josu Zabaleta

Lerroen norabideei erreparatzera mugatzen zen, zimenduetatik hasi eta gailurretaraino; eta elkar-ebakigunera zihoazen lerro zuzenen **konbergentziari** . Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan)

**Konbergentzia**-gradua aski arbitrario geratzen da, eta sistema honek oso gaizki arautzen ditu batez ere koadroaren planoari buruz perpendikular ez diren gainerako zuzenak. Josu Zabaleta

---

**konbergiarazi** *(corpusean **konbergituarazi**)* du *ad* konbergitzera behartu.

Azkenik, behin argiak begi-ninia igaro duenean, kristalinoa ere igaro behar du, eta hark ere gutxi-asko **konbergituarazten** du argia. irudia begiaren atzean zehatz ager dadin, zenbat eta argi-iturria hurbilago, orduan eta gehiago **konbergituarazi** behar dira argi-izpiak. Josu Zabaleta

---

**konbergitu**, konbergi, konbergitzen du *ad* bat egin; puntu baterantz jo.

Batzuk oso motel **konbergitzen** dute, dortokek bezala egiten dute aurrera; askoz azkarrago doaz beste batzuk. Jon Muñoz

Irudiaren planoari buruz perpendikular diren zuzenak irudikatzen dituzten lerroek [...] puntu batean **konbergitzen** dute, ihes-puntu nagusian. Josu Zabaleta

---

konbersazio ik **konbertsazio**.

---

**konbertiarazi**, konbertiaraz, konbertiarazten *(corpusean **gonbertiarazi** soilik)* du *ad* konbertitzera behartu.

Basajende, pagano edo hereje omen zirelakoak bataioko ur santu edo Kristoren mezu bidez San Juanek **gonbertiarazi** baitzituen. Patziku Perurena

---

konbertidu ik **konbertitu**.

---

**konbertitu**, konberti, konbertitzen *(orobat **konbertidu** g.er.)* **1** da *ad* norbaitek erlijio jakin bat -bestelakorik aipatzen ez bada erlijio katolikoa- hartu.

Eritasunak hautsi zion bihotza. eta nahi izan zen **konbertitu** . Xipri Arbelbide

Nola San Antoniok arrainei predikatu zien eta, miraria ikustean, nola heretikoak **konbertitu** ziren. Askoren artean

**Konbertitu** berri den orok eskatzen duena eskatzen du Frantziskok ere: "fede zuzena, itxaropen ziurra eta maitasun betea". Askoren artean

**Konbertitu** berritan hiru liburu idatzi nituen gai honetaz. Imanol Unzurrunzaga

· Jesus gure etxean sar dadin, haren aintzinetik kendu behar ditugu traba guziak; behar dugu **konbertitu,** bihotz-berritu. Herria

**2** (zertara adieraziz)

Baldo, Ebanjelio-bizitzara **konbertitu** aurretik, Lyongo laiko ezkondua zen, merkataria eta aberatsa. Askoren artean

Zibilizazio hau azkenean deuseztatu egin zen islandiarrak kristautasunera **konbertitzearen** ondorioz. Iñaki Mendiguren

Klovis Frankoak, adibidez, [...] katolizismora **konbertitu** ondoren, Konstantinoplan urruti zegoen Anastasio enperadoreagandik prokontsul-titulua eta kontsul-intsigniak eskuratu zituen. Iñaki Mendiguren

· Siriako gudu-zelaietan kaliferriaren agintepeko lurrak inbaditzean Islamera **konbertitu** ziren turkiar barbaroak. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko Bengalan hinduismora **konbertitu** berriak ziren paganoen artean. Iñaki Mendiguren

Mundua komunismora **konbertitzeko** eginkizuna kilikagarriagoa zen munduan irabaziak egiteko edo greba egiteko eskubidea babestea baino. Iñaki Mendiguren

• **3** du *ad* norbaiti erlijio jakin bat -bestelakorik aipatzen ez bada erlijio katolikoa- harrarazi.

Nola San Frantziskok bi ikasle **konbertitu** zituen Bolognan. Askoren artean

Memento batez misionest nahi bainuen ere egin, eta urrunean jendea **konbertitu**. Piarres Aintziart

Apeztu nahi nuela, nabari, baina zertako ez paganoak **konbertitu**? Piarres Aintziart

Zeren eta san Inazioren miresle sutsua baikenuen aita, [...] beaumondarren alde guduztatu zelako, nik uste, eta Frantzisko Xabierkoa **konbertitu** zuelako. Joan Mari Irigoien

**4** (era burutua izenondo gisa) ik **konbertso.**

**Konbertitu** helenikoen politeismo eta idolatriari. Iñaki Mendiguren

Behin errugabetasun aitormena eginda, Gustavo Duranek **konbertitu** berriaren fedea erakutsiko du aspaldiko alderdikideen ehizan. Edorta Jimenez

**Konbertitu** edo "arnegatuok" erresuminkor zulatzen ikusten ditugu besteon kontziente eta inkontziente "zikinen" [...] barruetaraino. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konbertitu berriak** (4); **konbertitu berriak ziren** (3)

---

## **konbertitzaile** *iz* konbertitzen duena.

Hori izan daiteke misiolari eta **konbertitzaileen** txit gustukoa; baina gizarte multikultural bati, bestearen hautu fundamentalen errespetuan bakarrik eutsi dakioke. Joxe Azurmendi

---

## **konbertitze** *iz* norbaitek erlijio jakin bat -bestelakorik aipatzen ez bada erlijio katolikoa- hartzea.

**Konbertitze** bat-bateko hauek ez zaizkit atsegin. Antton Olano

Aita Sainduaren eritasuna, dena ere arras doloretsuki erakutsia eta Elizaren beste kargudunen hitz guti horiek aski ote diren **konbertitze** denbora huntan fededunen bihotzaltxagarri. Herria

---

## **konbertsazio** *(orobat **gonbertsazio** g.er., **konbersazio** g.er. eta **konbertsazione**)* *iz* hizketaldia, solasaldia.

Begiak malkotan esaten zidan Gabrielak gutaz galdera eginez etorri zela hemen izenik gabe azaltzen den gizon hori, eta, gu etxean aurkitu ez-eta, **konbertsazioa** ematea gizalegezkoa iruditu zitzaiola. Arantxa Iturbe

Susmoa daukat **konbertsazioa** baino gehiago emateko moduko neska ez ote den. Arantxa Iturbe

Louvreko eskulturak ezagutzen ez ditudanez, nire roboten aldera lerrarazten du **gonbertsazioa**. Joxe Austin Arrieta

Barrako neska hasi, arropa-modelo jarraitu eta stripper amaitu zuen, eta bitartean, tabernako **konbertsazio**-emaile, edaleen adiskide eta bezeroen ohekide izateaz gain, seme-alaba pare bat bildu zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## konbertsazione ik **konbertsazio.**

---

## **konbertsio** *(orobat **konbertsione**)* **1** *iz* norbaitek erlijio jakin bat -bestelakorik aipatzen ez bada erlijio katolikoa- hartzea.

Sauloren **konbertsioa** eta deia. Elizen arteko biblia

Konstantinoren **konbertsioa** arteko hiru mendeetan, Eliza beti egon zen erromatar politikarekin tupust egiteko arriskupean. Apaizak, erabat txundituta eta haren bat-bateko **konbertsioaz** harri eta zur, ezin zuen sinetsi. Iñaki Mendiguren

Ez dugu ezer aurkitzen Frantziskoren idazkietan haren **konbertsio** aurreko bizialdiaz. Askoren artean

Autore moderno nagusi ugarik erabili du **konbertsio** erlijiosoaren erretorika bere nortasun aldaketa azaltzeko. Joseba Zulaika

Integrista batzuek Aita Santu "liberalaren" **konbertsiorako** errezatzen zuten orduan. Joxe Azurmendi

**2** irud/hed

Zentzu komun hau da gauzarik zailena, jakina, norberaren identitatea eta posizioak ez direla erabat finkoak eta behin betikoak onartzea eskatzen baitu, hau da, **"konbertsio"** moduko aldaketa bat. Joseba Zulaika

**Konbertsioaren** erakargarritasuna hortik dator, identitatearen hondakinen aurrez itxuraldaketa bat gauzatzeko egitura sinbolikoa eskaintzen dizula. Joseba Zulaika

**Konbertsioaren** egitura iniziatikoak, Arestik *Maldan behera*n erakutsi zuen eran, honako hauek ditu pauso obligatuak: infernuetara jaitsi, han heriotza sinbolikoa ezagutu, eta, bidean gora altxatuaz, pizkundea irabazi. Joseba Zulaika

Kristautasunaren jatorrizko esperientzia itzulera da, **konbertsioa,** Joseba Zulaika

**3** bihurtzea.

**"Konbertsioa",** garai batean arima Jainkoagana bihurtzea esan nahi zuena, erabiliagoa da orain ikatza argindar bihurtzea (konbertitzea) edo %5eko interesa %3 bihurtzea (konbertitzea) bezalako testuinguruetan. Iñaki Mendiguren

Energien **konbertsioa,** espazioaren konkista, ozeanoen ustiatzea. Juan Garzia

Koadraturaren posibilitatetik haren ezintasunera igarotzea izan zen lehenengo **konbertsioa;** geometriatik aljebrara igarotzea izan zen bigarrena. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frantziskoren **konbertsio**-prozesuak hainbat urte iraun zuen. Askoren artean

Hasieran bere **konbertsio**-esperientzia kontatzen digu hitz gutxitan: "Jaunak honela eman zidan niri, anai Frantziskori, bihotz-berritzen hastea". Askoren artean

Frantziskoren **konbertsio**-bidean loturik ageri zaizkigu Jainkoaren ekimena eta giza erantzuna. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abbastar erregimenaren kolapsoak borondatezko masa-**konbertsioen** lubizia ekarri zuen arte. Iñaki Mendiguren

Galtzailearen gutxiagotasuna erlijio-**konbertsioz** senda daitekeela onartuko da. Iñaki Mendiguren

Kultur **konbertsioen** azken ondorioen ikerketa honen efektu orokorra. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **frantziskoren konbertsio** (5); **konbertsio bidean** (4); **konbertsio miragarria** (3)
> **konbertsioaren hasieran** (9); **konbertsioaren hasieratik** (8)

---

## konbertsione ik **konbertsio**.

---

## konbertso *iz* konbertitu den pertsona.

Egun batean, **konbertso** askorekin gertatzen den lez, frogen froga garaitu behar zuela bururatu zitzaion: bai, bere sinesmen hura inorena baino handiagoa zela erakutsi behar zion mundu zabalari! Joan Mari Irigoien

**Konbertsoaren** lehen paradoxa hortik dator: sinestarazi nahi digu erabat aldatu dela eta betiko, baina lehengo "ni" izenordain bera erabiltzen du oraindik, eta urte asko gelditzen zaizkio berriro ere aldatzeko eta berriro ere "ni" esaten jarraitzeko. Joseba Zulaika

Bere hasieretako idazlanen bat edo beste edo garai bateko «bere posizioa» ulertu ez bagenuen ere, zalditik (edo astotik) erori ginen eta duela dezentetik gara **konbertso** eta atxagazale, are gehiago bere idatzien kalitatea dastatu, pertsona ezagutu eta bere konbertsazioa entzunaz geroztik. Berria - Kultura

---

## konbexu *izond* ikuslearen ikuspuntutik erdialdea ertzak baino urrutiago dituena. ik **ganbil**. ant **konkabo**.

Muskulu ziliarra uzkurtzen bada, zuntzen tentsioa gutxitu egiten da, eta kristalinoak, erlaxatu, eta forma **konbexuagoa** hartzen du, hau da, erdigunean sabeltzera egiten du nabarmen. Irene Aldasoro

Ikusi nuen mahats-mordorik, elurrik, tabakorik, metal-zerrorik, ur-lurrunik; ikusi nuen ekuatorealdeko basamortu **konbexurik** eta haietako hondar ale bakoitza. Juan Garzia

---

## konbi *iz*

Kirol horrentzat ezarri behar diren **konbi** jantzien kasuan 3 000 jantzi berezi urtean saltzen da gutxi gora behera. Herria

---

## konbibentzia *iz* elkarrekin bizitzea, elkarbizitza.

Legeak dituk gure **konbibentziaren** oinarria, legerik gabe hau pikutara ziak! Pako Aristi

Gainerako grilulagunei bezalaxe atzeratu digute guri biseanbiseko hau, ez gehiago, Maritxu eta biok **konbibentziako** agiri faltsu bat besterik ez edukiagatik. Koldo Izagirre

---

## konbibitu, konbibi, konbibitzen du *ad* elkarrekin bizi, bizikide izan.

Uste dut belaunaldi berria oldarkorragoa dela, eta errespetu gutxiago sumatzen diet gizonen irudiarekiko; mespretxua ere nabari zaie neska batzuei, agian mutilekin guk baino gehiago **konbibitu** izan dutelako gaztetandik. Ana Urkiza

---

## konbidapen ik **gonbidapen**.

---

## konbidatu ik **gonbidatu**.

---

## konbiktu *iz* erruduna; espetxeratua.

Jendeak pentsatzen bide duelako justiziaren ideiari indarraren eta jauntxokeriaren ideia nagusitu zaiola oraingo sistema kriminalean; akusatuak eta **konbiktuak** nahasi botatzen direlako kobazulo berera. Juan Martin Elexpuru

Hiltzaile **konbiktua** da, baina aztien presondegitik ihes egin zuen eta oraindik ere ihesi dabil. Iñaki Mendiguren

**Konbiktuekin** alde egin zuen aldia izan zen luzeena, cherokee-ekin egon zenean. Anton Garikano

---

## konbikzio *(27 agerraldi, 10 liburu eta 13 artikulutan)* **1** *iz* uste osoa, siniste sendoa. ik **konbentzimendu**.

Nire **konbikzioen,** nire lehenagoko egintzen eta nire Luteziaganako amodioaren justifikazioa. Matías Múgica

**Konbikzio** pertsonalaren fruitu dena iritzi kolektiboan txertatu behar du, eraginkorra izango bada. Berria - Euskal Herria

**Konbikzio** sendo eta garaiezina. Harkaitz Cano

Jokoan erantzukizunaren eta **konbikzioaren** etika bateraezinak daude. Berria - Euskal Herria

Bokazioz eta **konbikzioz** izan zen jesuita. Berria - Kultura

Senez idatzia, **konbikzioz** egina. Berria - Kultura

Haiek bai urte onak, kemenez eta **konbikzioz** beteak. Anton Garikano

**Konbikzioa** falta zitzaiola. Bernardo Atxaga

**2** (hitz elkartuetan)

**Konbikzio** delituak daudenean, delitua amaitzeko **konbikzioa** aldatu behar da. Berria - Euskal Herria

---

## konbinadore *iz* konbinatzen duen tresna.

Ez nuen funtsezko lanik egin hartan, amanteroari errieta ematen aritu nintzen goiz osoan, kargak zakar jasotzen, erriadak premiarik gabe bizitzen, zama kolpeka uzten nuela moilan, kargaldi guztiak jarraian, **konbinadorearen** gainean kakolduta. Koldo Izagirre

Horrela, **konbinadorearen** puntu guztiak pasatuko ditiat indarrik animalena egiteko, hor nonbait ongi sartua daukaan zuztar gaiztoa kentzeko. Koldo Izagirre

---

**konbinaera** *iz* konbinatzeko era.

Prosodiaren osagaiok (garaiera, ozentasuna eta luzera) gauzatzen dute *azentu* deritzona, hizkuntzatik hizkuntzara alda daitezkeen **konbinaera** eta neurrietan. Lourdes Oñederra

---

**konbinagai** *iz* beste batzuekin konbinatzeko gai dena.

Hitzak osatzen dituzten hotsak ez dira bereizgarri bakarrik izaten, gainera, ebakigarri, **konbinagai** eta hautemangai (ertikulatuak eta entzunerrazak) izan behar dute. Lourdes Oñederra

---

**konbinagarri** *izond* konbina daitekeena.

Sare erregulatzaileen sortze-ahalmena sareok hierarkizatuak eta **konbinagarriak** izateari zor zaio. Juan Garzia

Etxe barruan, etxea bera erakusten dio, planetarium bat gertatzen dena berau: literatur lana, kosmoa bezala, atomo (hizki) **konbinagarriz** osatzen da, zeintzuen konbinazioz literatur lana sortzen den. Xabier Amuriza

---

**konbinaketa** *(78 agerraldi, 24 liburu eta 12 artikulutan)* **1** *iz* konbinatzea; konbinatzearen ondorioa. ik **konbinazio.**

Hizkuntzalaritzak, beraz, bi ordenatako elementuak konbinatzen diren esparru mugakidean dihardu; **konbinaketa** horrek forma bat sortzen du, ez substantzia bat. Isabel Arrigain

Ia ezinezkoa da sonanteen kontua eztabaidatzea, fonemen **konbinaketak** eraentzen dituen legeak modu zehatzean atzematen ez badira. Isabel Arrigain

Bi postu, lau hautagai Arteta, Alkiza, Alonso eta Aranburu, eta jada **konbinaketa** guztiak agortu ditu. Berria - Kirola

Antolaketak agintzen du osagaien hurrenkera, osagai horien arteko erlazioa ahalbideratzen du, **konbinaketa** batzuk onartzen ditu eta beste batzuk ez ditu onartzen. Iñaki Arranz

Ez zait inoiz **konbinaketa** ona iruditu marmeladaren gozoa eta mariskoaren gazia. Jon Arretxe

Nire aburuz, desagertuak aukera bien arteko **konbinaketaren** emaitza dira. Agurtzane Juanena

**2** (izenondoekin)

Musika matematika da, matematika alai jostalaria, matematika eroa, musika-noten arteko **konbinaketa** infinitua izan baitaiteke, ezin zenbatuzkoa. Felipe Juaristi

Laboratorioan **konbinaketa** kimikoak nola, halaxe ahalegintzen zen dotrina konbinaketak egiten. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ba da inork uste duen baino **konbinaketa** parada gehiago, hain zuzen horietarik anitz ikusiko ditugu Baionan muntatzen ditugun esku dantza topaketetan ekaineko 9 eta 10-etan. Herria

· Prest da diruaren sartzeko garraio **konbinaketa** sistemetan: kamioiak itsasuntzietan ezarririk bidaiatzeko, edo Mugerren bezala trenetan garraiatzeko. Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Noizean behin esnatu, maletatxoa ezkutuan ireki zenbaki-**konbinaketa** jakin batez, eta xarabe-potoa eta pilula mordoa ateratzen du. Jon Arretxe

Zein osagarri **konbinaketaren** bitartez? Bernardo Atxaga

Faktore **konbinaketa** lehergarria gertatzen da han: Txinako ekonomiarik liberalena, krimen maila handienetakoa eta prentsa erasokor eta independenteena. Berria - Gaiak

Jolasak dakartzan literatur **konbinaketen** mugagabetasuna eta idazlearen beraren literatur ahalmen eta ezagutza erakusteaz haratago, beste zerbait da liburuari gaurkotasuna eta irakurgarritasuna ematen diona: umorea, alegia. Berria - Kultura

Kontsonante trabari ahostunek ere eskaintzen dute zarata eta hots **konbinaketa** interesgarria. Lourdes Oñederra

Lerro **konbinaketa** berri bakoitzean asmatu uste izaten zuen sortzeko modua. Juan Garzia

Luze gabe, bozgorailuetatik bidaiariei beste norabide **konbinaketa** bat hautatzeko aholkatu zaie. Patxi Zubizarreta

Laboratorioan konbinaketa kimikoak nola, halaxe ahalegintzen zen dotrina **konbinaketak** egiten. Josu Zabaleta

Tasun-**konbinaketa** batzuk beste batzuk baino hobeak dira. Lourdes Oñederra

(15. min.): eraso **konbinaketa** Miarritzek. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **tasun konbinaketa** (7)

---

**konbinatoria** **1** *iz* konbinatzea, konbinatzeko eren multzoa.

Izadiko konplexutasuna elementu kopuru txiki baten **konbinatoriari** zor zaio. Juan Garzia

Ereduon **konbinatoriak** dakar proteinen aniztasun eta desberdintasun zabala. Juan Garzia

Espezieak **konbinatoria** batek, "Lego" joko edo mekano moduko batek sortu balitu bezala. Juan Garzia

Geneen **konbinatoria** infinitu horrek bilakatzen du gutariko bakoitza munduan bakarra. Juan Garzia

**Konbinatoria** hutsa. Patxi Iturritegi

**Konbinatoria** aski konplexuen bidez gertaera natural guztien azalpenak eman ahal izango zirela. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

-Zu ere, metal-puska horien gainazaleko lerro-**konbinatoria** posible guztiak arakatzean, nik kalerik kale egiten dudan bilaketa berberean ari zara. Iñaki Iñurrieta

**3** matematikaren adarra, multzo bateko elementuen konbinazio posibleen kalkuluaz ari dena.

Aljebra, **konbinatoria** eta trigonometria sortu zituzten arabiar matematikariek. Jon Muñoz

Probabilitateak eta **konbinatoria:** Pascal, Fermat, Jacques Bernoulli. Jon Muñoz

---

**konbinatorio** **1** *izond* konbinatoriarena, konbinatoriari dagokiona.

Fonologia **konbinatorioak,** aldiz, ahalbideak murrizten ditu eta elkarren mendean dauden fonemen erlazio iraunkorrak finkatzen. Isabel Arrigain

Fenomeno fonetikoak berez gertatuak eta **konbinatorioak** izan daitezkeela. Isabel Arrigain

**2** ***analisi konbinatorio*** ik **konbinatoria 3.**

Trigonometria eta analisi **konbinatorioa** (multzo baten elementuak konbinatzeko era guztiak aztertzea). Jon Muñoz

Analisi **konbinatoriozko** adigaiak, eta haien lagungarri, mugarik gabeko errepikapenezko aldakiak adibide. Juan Garzia

---

## konbinatu[1], konbina, konbinatzen **1** du *ad* gauzak eredu jakin baten arabera antolatu eta elkartu.

Jokaldiak **konbinatzea** zaila zen. Juan Garzia

Ondo **konbinatzen** ditu argitasuna eta laburtasuna. Askoren artean

Berez bizidunok 20 aminoazido **konbinatzen** ditugu proteinak sortzeko. Berria - Gaiak

Jakintza praktiko eta teoriko askotarikoenak **konbinatu** behar dituela mailarik gorenenean: marrazketa, geometria, aritmetika, optika, filosofia, literatura, historia, musika, medikuntza, zuzenbidea, astrologia... Santiago Iruretagoiena

Giltzadura bateko bi hezurrak [...] bata bestearen arabera mugitzen da, biraketa eta labainketa **konbinatuz**. Diafragma eta obturadorea **konbinatuz,** ordea, argi-intentsitateen eskalaren esparru zabalagoan lortuko ditu argazkilariak emaitza asebetegarriak. Irene Aldasoro

Adierazgarritasun-elementuen zerrenda ez da luze-luzea, berez, baina aise ikusten da haiek **konbinatuz** era daitezkeen konfigurazioen kopurua ia infinitua dela. Josu Zabaleta

Muskuluko oxigenoaren kopuru txiki bat baino ez da **konbinatzen** hemoglobinarekin. Irene Aldasoro

Hain dira, alabaina, geldo [...] ezen ez baitira tartean sartzen inolako erreakzio kimikotan, ez eta beste ezein elementurekin **konbinatzen**. Juan Garzia

Gaitza gizakien gripearekin **konbinatu** eta mutazio arriskutsua sortuko den beldurra handituz doa. Berria - Gaiak

Diru- eta finantza-merkatuen liberalizazioak, trukeen kontrolen ezabatzeak eta finantza-berrikuntzen garapenak, guztiak elkarrekin **konbinaturik,** finantzaketa zuzenaren igoera areagotu dute. Koro Navarro

Metafora horiek guztiak, eta gehiago ere, aurki daitezke pilatuta, behin eta berriro errepikatuta eta **konbinatuta,** eremu plastikoaren sorkuntzazko ikusmolde gehienetan. Josu Zabaleta

Irudimena erabiltzea buruan gogo-objektuak **konbinatu** eta manipulatzea da, irudi nahiz sinbolo. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

dosi txikiko ahozko antikontzeptibo **konbinatuak** (AOC) oso egokiak dira harreman sexual iraunkorrak dituzten nerabe eta gazteentzat. Luis Elberdin

Orain artemisinan oinarritutako terapia **konbinatua** eskaintzen diete [malaria] eriei. Berria - Gaiak

Baina bi hots **konbinatuen** ahoskatzeari gagozkiola, kontua korapilatsuagoa da. Isabel Arrigain

Araban ziklo **konbinatuko** zentrala jartzeko toki bila dabil Gas Natural. Berria - Euskal Herria

Proba **konbinatuen** Europako Txapelketa. Berria - Kirola

Proba **konbinatuak** bost kirol hartzen ditu: koskoak, txinga eroatea, zaku lasterketa, korrika eta arpana. Berria - Kirola

**3** ***plater konbinatu*** askotariko platera.

Bi bermut hartu, plater **konbinatu** bat jan, eta etxerantz bideratu zen. Migel Angel Mintegi

Plater **konbinatu** bat eskatu zion kamareroari, 4 zenbakia, eta garagardo bat edateko. Joxemari Iturralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**konbinatu nordikoa** (10); **konbinatu nordikoan** (6)

**konbinatuak egiten** (3); **proba konbinatuak** (5)

**proba konbinatuan** (8)

**proba konbinatuetan** (9)

**ziklo konbinatuko** (64); **ziklo konbinatuko planta** (8); **ziklo konbinatuko zentral** (10); **ziklo konbinatuko zentrala** (12); **ziklo konbinatuko zentralak** (6)

---

## konbinatu[2] **1** *iz* koktela.

Bera han geratu zen, Tanger tabernan, beste **konbinatu** bat hartzen. Iban Zaldua

Trago luze bat jo diot **konbinatuari**. Pako Aristi

Norbaitek bultza egin dio eta **konbinatuaren** tanta batzuk Asierren paparrera erori dira. Pako Aristi

Horrelaxe, **konbinatua** erdian dutela, apurtxo bat mugitzen hasi dira, dantza moduko bat eginez. Pako Aristi

"Uztak hor basoa!", **konbinatua** amaitu da eta. Pako Aristi

**2** proba konbinatua.

Eski alpinoa: **konbinatu** nordikoko lehen eslalom jaitsiera. Berria - Kirola

Tranpolin arrunteko **konbinatu** nordikoan. Berria - Kirola

---

## konbinatze *iz* gauzak eredu jakin baten arabera antolatzea eta elkartzea.

Matematikaren arlotik datozkigun kontzeptuak hizkuntzara bihurtuta, honako eragiketa hauek bereizten ditu bere sailkapenean: gehitzea, kentzea, bidertzea, **konbinatzea** eta ordezkatzea. Iñaki Arranz

Morfemen artean egon daitezkeen aldeak hobeto azaltzen dira, dirudienez, emankortasuna, **konbinatze**-askatasuna, eta ordezkatze-taldearen neurria bezalako kontzeptu gramatikalen bitartez, esanahiari dagokion ustezko ezaugarri baten bitartez baino. Itziar Laka

---

## konbinazio *(190 agerraldi, 52 liburu eta 42 artikulutan; orobat* ***konbinazione*** *g.er.)* **1** *iz* konbinatzea; konbinatzearen ondorioa. ik **konbinaketa.**

Lerroen **konbinazio** haiek planoen, hieroglifoen, marrazki abstraktuen kalitatea zuten. Iñaki Iñurrieta

Burdina, magnesio eta silizioaren arteko **konbinazio** bat da olivina. Berria - Gaiak

Hezurraren eta muskuluaren arteko **konbinazioa**. Irene Aldasoro

[Ura] hidrogenoz eta oxigenoz osaturiko **konbinazioa** da. Isabel Arrigain

Begian, berriz, erretinan irudi fokatua eratzeko, korneak [...] eta kristalinoak osatzen duten **konbinazioaren** foku-luzera egokitu eta doitu egiten da. Irene Aldasoro

Beste aukera batzuk, beste **konbinazio** batzuk asmatuz. Joxan Elosegi

*Fordismo* deitu ohi zaio **konbinazio** horri, hots, intentsibo bihurturiko eta barne-merkatuen hazkundean oinarrituriko [...] metaketa-dinamikaren eta gizarte-konpromisoen estatu-erregulazioaren **konbinazioari**. Koro Navarro

Orotarikoak irudikatu zituen [...] perspektibaren ager-molde guztiei jarraiki, **konbinaziozko** mundu oso bat aurkitzen baitzuen *mazocchio*aren tolesturetan. Juan Garzia

**2** (izenondoekin)

Ibilbide berriak asmatzen ahaleginduz, noizbait **konbinazio** magikoa aurkituko duelakoan. Iñaki Iñurrieta

Sinboloen **konbinazio** infinituari esker, geure baitan askotariko munduak asmatzeko aukera ematen digu. Juan Garzia

Ikusi zen nola, HLA geneen **konbinazio** jakin batzuk zeramatzaten banakoak beste batzuk baino errazago jotzen zituen eritasun batek edo besteak. Juan Garzia

Hogeitaka ortografia-ikurren **konbinazio** posible guztiak. Juan Garzia

Hortik aurrera, **konbinazio** matematiko guztiak dira zilegi. Iñaki Arranz

Elementu bateraezinen **konbinazio** adostasun gabea. Iñaki Mendiguren

Gero girlanda, landare eta triangeluen **konbinazio** desberdinak egin zituzten. Santiago Iruretagoiena

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Faraoien garaiko Egiptoko artea, irudi jakin bat eskema tipikoak ahalik eta modu literalenean irudikatzen duten irudi partzialen **konbinazio** multzoa baino ez dena. Josu Zabaleta

Meategiko berrogeita hamar biztanleek [...] beren artean erreakzionatu zuten noizbait, binaka-binaka, eta, **konbinazio**-kalkuluan bezala; alegia, bakoitza beste guztiekin, eta bereziki gizon bakoitza emakume guztiekin. Juan Garzia

Atomo moten finitutasuna, euron **konbinazio** arauen finitutasuna, eta, batez ere, sortutako formen, naturak burututako gauzen finitutasuna. Xabier Amuriza

Espazioko edozein puntutatik bertaratutako zirkulazioa beste edozein puntutara bidera dezakete **konbinazio**-aukera mugagabean. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Historiak eskain ditzakeen krimen, eraispen, heroismo eta bidegabekeria, ontasun eta gaiztakeria-**konbinazio** guztiak. Beira mota desberdinez egindako leiar **konbinazio** bat erabiltzea izaten da konponbiderik ohikoena. faktore **konbinazio** konplexu baten ondorioz. Josu Zabaleta

Nire hainbat hitz **konbinazio** eszitagarri, hainbat metafora sarigarri. Eider Rodriguez

Edozein nota-**konbinazio** behin entzutea nahikoa zuen, hura gogoan hartzeko. Xabier Olarra

Hauen ibilgailuak: haur-kotxe eta buffete **konbinazio** bat, gehi bizikleta-erdia. Joxe Austin Arrieta

Presio eta bero **konbinazio** horrengatik. Berria - Gaiak

Zatiki hauek [...] askatasuna lortzen dute, beste zibilizazio garaikide batzuetatiko osagai atzerritarrekin gizarte eta kultur **konbinazioak** osatzeko. Iñaki Mendiguren

Ez daki bere helmugara iristeko linea **konbinazioa** zein den. Eider Rodriguez

Gidari-auto **konbinazio** onena Raikkonen-McLaren izan zelako. Berria - Kirola

**5** koktela. ik **konbinatu**[2].

**Konbinazio**-erdiaren beste trago bat hartu du, eta leiho aldera hurbildu da. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konbinazio berriak** (3); **konbinazio posible guztiak** (3)

---

## konbinazione ik **konbinazio**.

---

## **konbinzente** *izond* sinesgarria, konbentzigarria.

Taldearen emaitza oso ona izan zen, erabat **konbinzentea**. Berria - Kultura

---

## konbit ik **gonbit**.

---

## **konbo** *iz* musika taldea.

Ostiralean, hilaren 30ean, harizko tresnen ikastaroetako ikasleek kontzertua egingo dute, 20:00etan, Antoniano aretoan, eta ondoren ikasleen **konboak** izango dira. Berria - Kultura

---

## **konboi** **1** *iz* trena, lokomotorraen eta bagoien multzoa.

Alemaniarren **konboiak** deskarrilatzeko sabotajeak egiten zituen erresistentziak. Jokin Urain

Heriotzako esparruetara eraman zituen **konboiaren** zenbakia. Joxan Elosegi

**Konboiaren** muturrean zegoen lokomotora zaharrera. Koldo Izagirre

Abu Muslimen geldituta zegoen **konboiaren** 51 bagoiak lokomotoretik askatu ziren. Berria - Mundua

**2** ibilgailu edo itsasontzien multzoa, eskoltarekin doana.

**Konboia** lau kamioiz, hiru anbulantziaz eta minibus batez osatuta dago. Berria - Mundua

Txalabi Bagdaderat zeraman **konboia** tirokatu zuten. Berria - Mundua

Lehenengo **konboi** hura abian zen itsasontzietarantz eta erbesterantz, eskumuturrak bilurrez lotuta, bi jendarme ilara alboetan, fusilak kargaturik. Karlos Zabala

Agindu zorrotzak emanak zizkieten **konboiko** buruei Tomskera biderik laburrenez joateko. Karlos Zabala

Honzík ingeniariaren ondoan **konboi** hartako komandantea zegoen, Austriako basozainen txanoa zeraman kapitain bat. Fernando Rey

Bagdaden lehergailu batek eztanda egin zuen AEBetako Armadako **konboi** bat igarotzean.

AEBetako tropentzat fuel olioa zeraman **konboi** bati eraso ondoren. Berria - Mundua

Itsasontzi berezia, kutxa gotor handi eta guzti, itsasontzia zaintzeko armadako ontzien **konboia..**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aliatuak euron garraio-ontziak **konboietan** sailkatzen eta abiarazten hasiak baitira. Edorta Jimenez

**2** (izenondoekin)

Frontearen hondamena gelditzeko eginahaletan laguntzera zihoazen hogei **konboi** militar horiek. Fernando Rey

Ekologistek bidea itxi diote **konboi** atomikoari. Berria - Gaiak

**Konboi** amaigabea poliki urrundu zen. Juan Kruz Igerabide

· Gerrillariek **konboi** zorrotz begiratu bat leherrarazi eta airean bota dute. Fernando Rey

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jagole barik utzia zioten **konboi** zatiko zamakoetan. Koldo Izagirre

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Danimarkako erregearen mehatxuei aurre egiteko, itun bat osatu zuten (Hansako Liga), eta hark antolatzen zuen merkatari-**konboien** babes militarra. Koro Navarro

Armadarentzat izendaturiko salgai-**konboi** harez gainera, baziren beste kotxe batzuk ere lepo-hezurreraino gauzez beteak. Koro Navarro

Erresistentziak AEBen horniketa **konboiei** eginiko erasoak direla-eta. Berria - Mundua

Kerbalatik hurbil, berriz, Bulgariako presidentearekin zebilen auto **konboi** bat tirokatu zuten, baina eraso honetan ez zen biktimarik egon. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako armadako konboi** (8); **aebetako armadaren konboi** (3); **aebetako konboi** (5); **aebetako konboi militar** (4); **armadako konboi** (11); **armadako konboi bat** (6); **armadako konboi bati** (3); **armadaren konboi** (6); **armadaren konboi baten** (4); **konboi baten aurka** (3); **konboi baten kontra** (4); **konboi baten kontrako** (3); **konboi bati eraso** (7); **konboi militar** (15); **konboi militar bat** (6); **konboi militar baten** (4); **konboi militar bati** (3)

**konboiaren aurka** (7)

---

# konbokatoria *iz* deia, deialdia.

Izatez, edo **konbokatoria** onartzen duzu, edo kalera zoaz. Pablo Sastre

---

# konbokatu, konboka, konbokatzen du *ad* deitu.

Lau urteren buruan Charles erregeak hiru aldiz **konbokatu** eta beste hainbestetan desegin zuen Parlamentua, ez baitziren hango ordezkariak erregearen esanetara makurtzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez zituztela oposizioak **konbokatzen**. Berria - Euskal Herria

Eraso faxista berri honen aurkako mobilizazioak **konbokatu** dira Euskal Herri osoan. Pako Aristi

Marta, Manu eta Pintxo agertu dira klasearen erdian eta asanblada **konbokatu** dute hamaiketarako. Pako Aristi

Askatasunak **konbokatu** manifestazioa 19:30ean atera da Herriko Etxe aitzinetik. Berria - Euskal Herria

Dekretua euskaratua izan zen, denek hobeki ulertzeko gisan, eta auzapezak karia horretarako **konbokatuak** izan ziren herritar guzien aitzinean leitu zuen, herriko plazan. Elena Touyarou

---

# konbokatzaile *iz* deitzailea.

Orduan, **konbokatzaileek** ziur dute garaipena. Pako Aristi

---

# konbokazio *iz* deia, deialdia.

Hasiak dira auziperatzeko **konbokazioa** ukaiten. Berria - Euskal Herria

---

# konbultsibo *iz* konbultsioari dagokiona; inarrosaldiak dituena.

Bere izaera guztiaren bibrazio **konbultsibo** eta etengabea. Jon Alonso

Tik tankerako laztan **konbultsibo** batez laztandu zien burua. Xabier Olarra

Deus ere ez da finkoa izango, dena ezegonkorra, dena **konbultsiboa,** eta dantza egitea erraza izango da musikaren zaratotsak aginduriko arduragabezia argi horrekin. hasierako barre lasai eta isila, itxialdiagatik beharbada, erabat **konbultsiboa** bihurtu zaizu bat-batean, eta negarrez hasi zara azkenean. Joseba Sarrionandia

Tik **konbultsiboak,** besteren hitz edo egintzak nahi gabe imitatzea edo errepikatzea (ekolalia eta ekopraxia) eta madarikazio nahiz zantarkeriak gogoz bestera eta konpultsiboki botatzea (koprolalia). Xabier Olarra

Tik koordinatugabe **konbultsiboetatik** mugimendu ongi lotu eta koherentera pasatzea istant batean gerta liteke tourettedunengan. Xabier Olarra

Epilepsiaren krisi **konbultsiboak** zehatz non hasten diren jakitea. Berria - Gaiak

Gihar horiek orgasmoa gertatzen denean modu **konbultsiboan** uzkurtzen dira. Luis Elberdin

Hiru silaba oihukatzen hasi zen modu **konbultsiboan**. Joxan Elosegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**krisi konbultsiboak** (3)

---

# konbultsiboki *adlag* modu konbultsiboan.

**Konbultsiboki** behartua ote zegoen iraganeko segmentu izoztuak, garuneko artxiboko "argazkiak" ikustera? Xabier Olarra

Ez daukate esertzerik besteak ukitzea eragotziko dien tartea utzi gabe; bestela, haiek eskuaz ukitzera edo haiei keinadaka nahiz **konbultsiboki** bultzaka ekitera behartuta senti daitezke. Xabier Olarra

Bizi-eskarmentuaren erregistro jarraitu eta osoa osatzen du oroimenak, eta, halako krisialdietan, haren segmentu bat gogora ekarri eta **konbultsiboki** bizitzen da, nahi gabe. Xabier Olarra

---

# konbultsio 1 *iz* gihar baten edo gorputzaren zati baten uzkurtze bortitz eta oharkabekoa.

Berotasuna, kili-kiliak, uzkurdurak, taupadak, **konbultsioak,** dardarak... Asma atakeak, **konbultsio** epileptikoak eta orro ozenak. Luis Elberdin

Intziriak, negar-zotinak eta **konbultsio** histeriformeak. Patxi Iturritegi

Pozak zoratzen, urduri, zementuzko etzalekuan eseri zara, eta **konbultsio** bizi batek harrapatu zaitu. Rafa Egiguren

Buruko zauriak hain azalekoak zirela non ez baitziren indar handiko beso batek eginak, esku ahul eta **konbultsioak** zituen batek eginak baizik. Josu Zabaleta

Gaixotasun akutu horrek **konbultsioak** eragin zizkion. Xabier Olarra

Halako batean **konbultsioz** bihurrika hasten gorputz hori. Juan Garzia

Besarkada **konbultsiozkoa**. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Eskualdea barne **konbultsioa** pairatzen ari delako Sobiet Batasuna hautsi zenetik. Berria - Gaiak

---

# konbultsioka *adlag* konbultsioak izanez.

Zotinka hasi zen, **konbultsioka**. Joxan Elosegi

Margaretek gosaria saskitik ateratzen zuen bitartean, Stephenek, erdi **konbultsioka,** harantz luzatzen zuen burua, eta Margaretek ateratzen zuen guztiari usain egiten zion. Xabier Olarra

---

# konbultsionatu, konbultsiona, konbultsionatzen 1 du *ad* konbultsioak eragin; inarrosaldiak eragin.

Aldi berean aroa hondamendi natural, ausiabartza, lurrikara eta uholdeek **konbultsionaturik** eta izularriturik aurkitzen da, baita heriotza beltzaren espektro lazgarriak ere.

Joan Mari Lekuona

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eztul **konbultsionatuak,** kexuen oihartzun eten legez. Josu Landa

---

# **konbustio** **1** *iz* errekuntza.

**Konbustioa** nahiko prozesu kimiko konplikatua da, eta ez da nahastu behar erretze mota landugabeagoekin. Irene Aldasoro

Erregaiaren **konbustiotik** lortzen du gorputzak energia, batez ere. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Ordutik, baina, transbordadoreen **konbustio** sistemak asko hobetu dituztela esan dute. Berria - Gaiak

---

# **konda** **izan 1** da *ad ipar* axola izan, kontuan hartzeko izan.

Ez bakarrik horrengatik bainan hori ere **konda da** enetako. Menane Oxandabaratz

"Bainan **konda dena** da zer egiten den funski", dio Mixel Berhocoirigoin-ek. Herria

Eta denak **konda dira** holakoetan. Herria

Gure Otabak bazuen nihun kausitzen ez den zerbait berezi eta hori **da konda** . Herria

Kermeza iragan da usaiako omore onean, eta hori **da konda** ! Herria

Makur handiagorik gabe atxemana izan baita, hori **da konda** azkenean... Piarres Xarriton

Lasterraldi hori **konda zen** Egunkaria-k muntatu Euskal-Herriko xapelketarentzat. Herria

**2** ***denak konda*** oro konda.

**Denak konda** besta ederra izan da. Herria

Oro har haatik, eta **denak konda,** jaz bezenbat entzule izan da Musikaldian, gauza guti eskas. Herria

**2** ***oro konda*** dena kontuan izanik.

**Oro konda,** Fischer jauna [...] da egiazko irabazlea. Herria

Horiek hola, bozez, **oro konda,** ezkerrekoak nunbait han heldu dira gehiengo osorat. Herria

Alemanianere langabezia biziki haundia da, denetako haundiena konduak xuxen eginez, hots bost miliun lanik gabe orotara; herri horrek egundaino ukan duen egoera hitsena dute, **oro konda,** Hitler atera zen 1933 urte hartako hain bera. Herria

---

kondaera ik **kontaera**.

---

kondagaitz ik **kontagaitz**.

---

# **kondaira** **1** *iz* historia. ik **kondaira**.

Gizadiaren **kondairan** izadiak sortu izan duen hondamendirik handiena. Gotzon Garate

Austrasiako errege merovingiarrak alfertzar galantak ziren Frantziako **kondaira** ofizialaren arabera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Iparraldeko **kondairan** gizon gutxi dago Oihenarte baino goragokorik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gure herriaren **kondaira** ezagutu beharra sentitzen nuen batez ere. Txillardegi

Diru-txanponetan ere, **kondairan** lehenengo aldiz, Nafarroako armarria ezarri ditek orain sosaren atzealdean. Txillardegi

Baina neure **kondaira** pertsonala azaldu diot, xeheki, luzaz, itzuli-mitzulirik gabe. Txillardegi

**2** iraganaldiko kontakizuna, istorioa.

Beatriceren **kondairak** dioenez, Klemente VIII.aren zigorra betearazi zuten bi borreroek akabera gaiztoa izan zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Borroka honen **kondaira** idatzi zuenak. Patxi Ezkiaga

Nazka ematen didate zalduneria ibiltariaren **kondaira** munduzale guztiek. Patxi Ezkiaga

Tirante Zuri Zaldunaren **Kondaira** . Patxi Ezkiaga

Gonzalo Fernandez Kordobako Kapitain Handiaren **Kondaira** . Patxi Ezkiaga

**Kondaira** heroikoak. Iñaki Mendiguren

Wagnerrek Grialaren **kondaira** oinarri hartu zuen bere opera batzuetarako. Alberto Ladron Arana

**Kondaira** arturikoetan bezala. Iban Zaldua

**Kondaira** zaharretako munstro hiltzaileek haurrengan pizten duten zirrara. Imanol Zurutuza

**Kondaira** txiki bateko heroiaren gisako zerbait. Oskar Arana

Edale santuaren **kondaira** . Anjel Lertxundi

Istorio eta **kondaira** ugari esaten dira arrosari buruz. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kondaira** guztiek ez al dute oinarri bat izaten benetako gertakarietan? Iñaki Mendiguren

Piltdowneko gizonaren inguruan bada **kondaira** edo leienda bat, inork baieztatu ez badu ere inork ezeztatu ez duena. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esan eta egin zituztenak **kondaira** -liburuetan jasorik daude, Irlandaren oroimen suharrean. Juan Garzia

Ongi-etorria ematera joan nintzaionean, "Don Kijote Mantxako kapare bizkorra" deitura dualarik, berorren **kondaira** liburuetan dabilela esan zidan. Patxi Ezkiaga

**Kondaira** -itzultzaileak. Patxi Ezkiaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Xarmatze- **kondaira** bateko pertsonaia aproposa zatekeen neskatoa. Ibon Uribarri

Begoña Bilbaoren herri **kondaira** . Berria - Kultura

**5** ***kondairazko*** historikoa.

Judu-errabino baten hil osteko garaipena [...] Dionisos eta Herakles bezalako **kondairazko** "erdijainko" ahaidetuen lehenagoko garaipenen maila bereko balentria pagano bat zen. Iñaki Mendiguren

Klan guztietako gerlariek bultza egiten zioten elkarri, beldurrez eta mirespenez, ezpata **kondairazkoa** gertu-gertutik ikusi ahal izateko. Joanes Urkixo

Ikuskizunetako kanten eta jazzeko klasikoen hitzak ahoskatu irudi eginez emakume-ahots **kondairazkoak** kantatzen zituzten bezala. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

edale santuaren kondaira (4); kondaira bizi (6); kondaira bizitzen (4); kondaira zahar (3); norberaren kondaira (32); norberaren kondaira bizi (6); norberaren kondaira bizitzen (3)

keuner jaunaren kondairak (3)

kondairak dio (5); kondairak dioenez (10)

kondairaren arabera (11); norberaren kondairaren (9); norberaren kondairaren bila (5)

norberaren kondairarik (3)

norberaren kondairaz (3)

euskal herriko kondairen (3)

---

**kondairagile** historialaria; kondairak idazten dituena. *iz*

Eta nola daiteke -esan zuen Santxok- Zide Amete Berenjena izatea **kondairagile** horren izena. Patxi Ezkiaga

Hara, gurutze santua eginez harriturik gelditu nintzen, nola ikasi ahal izan dituen horiek idatzi dituen **kondairagileak**. Patxi Ezkiaga

---

**kondairatu,** kondaira(tu), kondairatzen du *ad* kondaira bihurtu.

Nire oi-ezinezko historia **kondairatu** beharko duzun horrek, ez al zaizu ahaztuko (arren eta arren desaizut) nire Rozinante zintzoa, nire bide eta lasterketan beti-betiko laguna. Patxi Ezkiaga

---

**kondairatxo** *iz adkor* kondaria.

Itzuli duen testua aldez edo moldez berea ere baduenez, bere egin nahi luke itzultzaileak Brechtek sortutako K. jaunaren **kondairatxo** hau. Joxerra Garzia

---

kondaketa ik **kontaketa**.

---

kondalari ik **kontalari**.

---

kondalaritza ik **kontalaritza**.

---

**kondan**

**1** ***historio kondan*** *ipar* istorioak kontatzen.

Zuk, irakurlea, antzemana diozu solas huni, ez naizela ni ere nunbaiteko **ixtorio kondan** ari baina gure herrikoez. Herria

Ondotik, Ramuntxo Carrere, Naia Robles, Pantxix Bidart, Pantxoa Carrere, Yves Bidart, Mirentxu Aguerre, Frantxoa Cousteau, Txomin Hegi, Maialen Eztekahandi kantuz, Ugutz **ixtorio kondan,** Irkuts Robles eta Gonzalo Etxebarria margo edo marrazki egiten, triki-trilariak eta bertsulariak. Herria

Amerikako familiako gertakariek biziki interesatzen ninduten eta hain ongi zakien **ixtorio kondan**. Herria

---

**kondar** **1** *iz* hondarra, hondoan edo bukarean gelditzen dena. ik **hondakin**.

*Teacher's*aren **kondarrak** basoetara atera eta izotz kozkorrak eta ur zurrusta bat eransten ditut. Koro Navarro

Remy Martinen **kondar** gaiztoren bat zebilen neure baitan zirika. Bernardo Atxaga

Zigarretaren **kondar** horixka leihotik bota eta beste bat biribiltzeari ekin zion. Alberto Ladron Arana

Platereko azken **kondarrekin** ari ziren jostatzen. Anton Garikano

Aberatsen mahaietako **kondarretatik**. Patxi Ezkiaga

Hankapean zakurrak, **kondarrak** non harrapatuko. Xabier Etxabe

Haren liburutegia **kondarrez** ari zen osatzen. Josu Zabaleta

Mandi, Joxemari eta Gaston eskoba-palarekin obrako **kondarrak** zemento zakuan sartzen ari ziren. Pablo Sastre

Nire oroimenaren ur ez oso lasaietan dabiltzan **kondarrak** bildu eta liburu batean gordeta utzi betiko; errauts-kutxa batean bezala. Bernardo Atxaga

Begiak berriro itxi eta, ametsaren azken **kondarrari** esker, urrun ikusi nuen neure burua, nire gela kapsula bat balitz bezala. Bernardo Atxaga

Horrelakoetan, saioaren **kondarrean,** halako desasosegu bat geratzen zaio bertsolariari. Andoni Egaña

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Junturen tarteko materialak izotzaren kalterik izan ez dezan, urtero neguaren aurretik ondo bete olio-**kondarrekin**. Santiago Iruretagoiena

Hori bezain ona izango da ardo-**kondarrekin** egiten dena. Santiago Iruretagoiena

Adelak kafe **kondarrak** ematen dizkiolako. Bernardo Atxaga

Beti izango duzula zopa-**kondarren** bat etxe honetan. Itziar Otegi

Su-**kondarrak** bezala kantatzeko gogoa ahituz joan zaien arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikatz-**kondar** xehatua. Anjel Lertxundi

Eta zain geratu nintzen, enborrari atxi-atxikirik, itsasoan galdua ontzi **kondar** bati bezala. Josu Zabaleta

**3** amaiera.

XIX. mendearen **kondarrean**. Edorta Agirre

**4** bi zati dituzten txarteletan, bereroak gordetzen duen zatia.

Hegazkinera sartzeko prest nengoen bidaia-txartelaren **kondarrari** hatz lodiaren eta erdikoaren artean arinki eusten niolarik. Oskar Arana

---

kondari ik **kontari**.

---

kondatu ik **kontatu**.

kondatzaile ik **kontatzaile**.

kondatze ik **kontatze**.

# konde *(orobat **konte** g.er. eta **kunte** g.er.)* **1** *iz* aitoren semeen hurrenkeran dukearen ondoan datorrena.

Dukeak zenbait **konde** izaten zituela bere mende, nahiz eta baziren gainetik dukerik ez zuten zenbait **konde** ere. Iñaki Iñurrieta
Aurrez duke, **konde,** baroi, apezpiku, abadeen artekoak epaitzen zituen, edota erregearen eta mendekoen artekoak. Iñaki Iñurrieta
Aspaldiko baroiak **konde** bilakatu zituen erregeren esker onak. Aingeru Epaltza
Herri hartako nagusia **konde** bat zen. Pello Lizarralde
Ilehoriaren familiakoak **konde** haren zerbitzura zeuden. Pello Lizarralde
**Kondeak** lapur bat bere aurrera eramateko agindu eta obeditu ez ziolako. Iñaki Iñurrieta
Erregeak hiru basailu-mota bereizten ditu: erregearenak, apezpikuenak, **kondearenak**. Iñaki Iñurrieta
**Kondearen** jurisdikziopean. Iñaki Iñurrieta
**Kondeak** heriotza-zigorra eman zezakeen, askatasunaz eta ondasunak itzultzeaz epai zezakeen, eta zenturioiak ezin zuen halakorik egin. Iñaki Iñurrieta
Konderriak **kondearen** semeei emango zitzaizkiela. Iñaki Iñurrieta
Haren seme Antonio zen orain, erregek **konde** egin berria, leinuko burua. Aingeru Epaltza
Adineko **konde** inperial alargun bat. Eduardo Matauko
Buffon **konde** dontsuak. Anjel Lertxundi
Drakula **kondearen** gaztelua. Alberto Ladron Arana
Halako batean, hautua egin eta **konde** batekin ezkondu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"
Lehenengoen buru Fernando Ruiz zen, Kastroko jaun **kondea**. Martin Anso
Egun haietan aditu nuen lehen aldiz Montgommeryko **konde** Gabriel de Lorgesen izena. Aingeru Epaltza
**Konde** baten etxea omen duk. Txillardegi
Nire Jaun guztiz agurgarria den Gillermo, Devonshireko **Konde** txit gorenari. Esteban Antxustegi

**2** (hitz elkartuetan)

Morrontzan aritu eta gero, **konde**-tituluren bat eman ohi zieten. Patxi Ezkiaga
Atezainak berak jeneral handi baten itxura zuen: makila urrekara, **konde**-aurpegia, ondo gizenduriko dobazakur potoloa ematen zuen. Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**berryko konde** (3)
**jaun kondea** (4); **mirasol kondea** (4); **touraineko kondea** (3)
**gercourteko kondeak** (3); **mantillanako kondeak** (5)
**mantillanako kondearekin** (3)
**dukearen eta kondearen** (3)

# kondekoratu, kondekora, kondekoratzen du *ad* medailatu.

Eta horretaz zekien gizona zen; Aljeriako kanpaina loriatsuan hiru aldiz **kondekoratua**. Patxi Iturritegi
Choderlos de Laclosek (1741-1803), obusa asmatzeaz gainera -horren kariaz Napoleonek **kondekoratu** zuen-, *Harreman arriskutsuak* espantigarria izkiriatu ere zuen. Markos Zapiain
· Bizitzak **kondekoratu** ez dituenak. Patziku Perurena

# kondekorazio *(orobat **kondekorazione** g.er.)iz* ohore domina.

**Kondekorazio** bat aurkitu dugu, Isabel Katolikoaren Gurutzea. Iban Zaldua
Berak ere ez zuen **kondekoraziorik,** ez mailarik. Fernando Rey
Makila eskuan, gau beilako kapa soinean, **kondekorazioa** paparrean. Matías Múgica
**Kondekorazioz** betetako uniformea soinean. Xabier Olarra
**Kondekorazio** gisa bularrean izar bat daraman goi-mailako funtzionario itxura prestuko bat. Jose Morales

kondekorazione ik **kondekorazio**.

# kondena **1** *iz* zigorra, kondenatzea. ik **kondenazio**.

Eta horixe da gure **kondena**. Karlos Linazasoro
Auzia idekitzea agindu duenak berak ematea barkamena edo **kondena**. Piarres Xarriton
Eta jaso din **kondena:** mila koroako isuna. Anton Garikano
Ezarri zaion **kondena** kitaezina baita, betierekoa. Karlos Linazasoro
**Kondena** are gehiago murritz ziezaioten. Oskar Arana
**Kondena** betetzen ari den preso zahar bat baino ez naiz. Oskar Arana
**Kondena** beteta kaleratzen den presoaren sentipena. Jokin Urain
Presondegiko **kondena** bukaturik, Frantziako Poliziak Espainiaratu egin zuen. Berria - Euskal Herria
**Kondenak** luzatzen, baldintzapekoa ukatzen. Berria - Euskal Herria
Beste **kondena** bat zeukan, sei urtekoa. Jokin Urain
2001ean arrastatua izan zen eta preso ezarria, bost urteren **kondena** batekin. Herria
Ez ote den izkribatzaile fede gaiztoren bat izan gure **kondena** makur hau asmatu zuena. Anjel Lertxundi
Hi haiz **kondena** astunena duena, ezta? Koldo Izagirre
Lan egin beharraren **kondena** biblikoa pairatzen duten biztanle hilkor gehienentzat. **Kondena** moralaren trumoiek gor utzi zuten mundu osoa. Aingeru Epaltza
Iheslariak gordetzen eta estaltzen dituenak heriotzako **kondena** duela. Joan Mari Irigoien

Topikoak errepikapena du **kondena,** mila aldiz erabili izanak bihurtzen du lelo bat astun. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Epaia **kondena** -epaia da. Iñaki Mendiguren

Denboraren bide lokaztuak ere hondoratzeko zorian zeuzkan **kondena** -garaiaren arrastoa eta kondenaren zergatia. Anjel Lertxundi

Han zeukatean, den-dena, nire aurrekarien **kondena** -agiritegian. Mirentxu Larrañaga

**Kondena** -mozioa egin behar al da? Pablo Sastre

**Kondena** eskari kolektibo hori erabili zuen argudio gisa Jean-François Blanco abokatuak, «auzi politikoa» izan dela salatzeko. Berria - Euskal Herria

**3** gaitzespena.

Eta etzi, edo bihar bertan, gaitzespenak eta **kondenak** . Iban Zaldua

Terrorismoaren kontrako biltzar nausi bat egin dute Madrilen europear herri gehienen ordezkariek, protesta eta **kondena** haundi bat baino gehiagoko erabakien hartzeko. Herria

"Biolentziaren **kondena"** absolutua. Joxe Azurmendi

**4** ***heriotza-kondena*** heriotza-zigorra.

Hori eginez bere heriotza **kondena** sinatu zuen. Ramon Saizarbitoria

Bere heriotza- **kondena** entzun behar duen presoaren piura penagarria zeukan. Alberto Ladron Arana

Diharce berak esplikatu zion akusapen horrek heriotza **kondena** zekarrela baina gehitu zuen, bihotz altxagarri gertatu zitzaion irri batekin, haren kasuan ez zela kezkatzerik. Elena Touyarou

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**heriotza kondena** (4); **kondena betetzen** (3); **kondena gogorregia** (3); **urteko kondena** (7)

**kondenaren arrazoia** (3)

**kondenen aplikazio** (4)

---

# kondenaezin *(corpusean **kondena ezin** soilik)* *izond* ezin kondenatuzakoa.

Biktimen bortizkeria nolabait zuzena, **kondena** ezina zela eta dela (palestinar komando-suizidena) iritziz, euskaldun dela dioenak ez ditu demagun, atentatuak kondenatzen, arras arraiki txalotzen ez baldin baditu ere. Itxaro Borda

---

# kondenagarri *izond* kondenatzea merezi duena. ik **gaitzesgarri**.

Atentatu **kondenagarriak** . Koldo Izagirre

Krimen **kondenagarriak** . Xabier Montoia

Nahasi gabe euskal kulturaren defentsa baketsua eta erakunde baten borroka armatu **kondenagarria** . Herria

Ideal baten izenean inor hiltzea **kondenagarria** da, baina oso ekintza zuzena da aberriaren izenean aldraka hiltzea. Koldo Izagirre

Libertatearen izenean egiten dituzten joko ilun eta **kondenagarri** horiek. Herria

Plajioa moralki gaizki ikusia eta lege aldetik ere **kondenagarria** izaten hasi zenetik, egonezina hedatu zen literatur gizartean. Bernardo Atxaga

---

# kondenamen *iz* kondenamendua.

Eta eska iezaiozu Jainkoari nire alde, ahal bada, nire **kondenamen** epaia ezezta dezan. Askoren artean

---

# kondenamendu **1** *iz* zigorra, kondena.

Jujeak gogor eta bortitz agertu dira, azpimarratuz prefetaren hiltzea izigarrikeria bat izan zela eta gisa bat edo beste partzuer izan direnek merexi dutela **kondenamendu** zorrotza. Herria

Legegizon batzueri iduritzen auzitegian bildu **kondenamenduaz** bestalde legearen manuz baduela oraino bost urteren «penitentzia» egiteko. Herria

Auzia galdu baitu Barne Minixterioak, hau da hunek ordaindu beharko duen **kondenamendua** : 54.646 euro edo 365.000 libera, zuzenkontrako debeku harentzat. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Urte baten presondegi **kondenamenduarekin** . Herria

---

# kondenarazi, kondenaraz, kondenarazten du *ad* kondenatzera behartu.

Dongek ez zuen behin ere aski elementurik izanen Jack kartzela zigorrera **kondenarazteko** . Ramuntxo Etxeberri

Ez ibili herritarraren izena belzten; ez egin salaketa faltsurik lagun hurkoa heriotzara **kondenarazteko** . Elizen arteko biblia

Espainian Garzon jujeak egin ditu inkestak eta **kondenarazi** bi ministro. Herria

---

# kondenatu, kondena, kondenatzen **1** du *ad* epaitu ondoan (norbaiti) zigor jakin bat pairarazi; epaileak (norbait) errudun dela adierazi.

Epaile ezjakin edo aurreiritziz betetako batzuek errugabea **kondena** dezaten. Juan Martin Elexpuru

Sodoma eta Gomorra hiriak ere **kondenatu** egin zituen eta erraustu. Elizen arteko biblia

Chapeleau, bizilagunaren behiak pozoitzeagatik **kondenatu** zuten. Harkaitz Cano

Geroago benetako erruduna **kondenatu** zuten, eta Dreyfus libre utzi. Fernando Rey

Zenbait aldiz **kondenatu** zuten auzitegi faxistek. Fernando Rey

Sakrilegotzat **kondenatu** zuten. Juan Martin Elexpuru

"Guztiz heretiko susmagarri" gisa **kondenatua** izan zen Carranza eta haren Katixima liburu debekatuen "Index"-ean sartu zuten. Piarres Xarriton

Ez da kulpadunik **kondenatzen** egin duen gaizkia hari erran gabe, akusatzaileak hari izendatu gabe. Jon Muñoz

**2** (-ra sintagmekin eta -tzera perpausekin)

Anaxagoras Klazomenekoa, berriz, espetxera **kondenatu** zuten, baina ez geometria lantzeagatik, astronomian aritzeagatik baizik. Jon Muñoz

Irizpide honi jarraituz **kondenatu** zuten Juan Calas gurpilera. Juan Martin Elexpuru

Urkamendira **kondenatu** zuen merkataria. Patxi Zubizarreta

Haietarik bat gillotinara **kondenatu** omen dute, eta bihar hilen dute Donibanen. Elena Touyarou

Batzarrak sinetsi egin zien, eta Susana heriotzara **kondenatu** zuten. Elizen arteko biblia

Eta hiru dohakabe haiek, aldiz, hiltzera **kondenatu** zituen. Elizen arteko biblia

Laurdenduta hiltzera **kondenatu** zuten. Juan Martin Elexpuru

Senarra heriotza zigorrera **kondenatu** eta gero, [...] gizona beharrean, bera hil zezaten bere burua eskaini zuen emakumearena. Felipe Juaristi

Oso zigor gogorrera **kondenatu** duzula, eta arrazoirik gabe. Askoren artean

Hitzez mintzen duena, infernuko sutara **kondenatua** izango da. Elizen arteko biblia

*ik beherago* 3. Askoren artean

Ezin hilez bizitzera **kondenatu** zutela. Anjel Lertxundi

**3** irud/hed

Narváez da euskaldunok zalgurdira **kondenatu** nahi gaituena, ez digu-eta trenbide-metro bakar bat ere erregalatuko. Anjel Lertxundi

Horietako asko, ordea, etsipenera **kondenatu** ditugu hedabideetan eta eskolan darabilgun euskararen bidez. Joxerra Garzia

**4** gaitzetsi.

Euskaldun dela dioenak ez ditu demagun, atentatuak **kondenatzen,** arras arraiki txalotzen ez baldin baditu ere. Itxaro Borda

Zezen lasterketak **kondenatzen** zituztenek. Piarres Xarriton

Ez bezate inor juzga, ez inor **kondena** ! Askoren artean

Ez **kondenatu** lagun hurkoa. Elizen arteko biblia

• **5** da/du *ad* infernuratu.

Botila horrek, ordea, arrisku handia du: hil aurretik ez bada saltzen [...] jabea **kondenatu** egiten da, eta infernura joan... Bernardo Atxaga

Gizakiaren arima [...] berenaz hain handia, hain gora eta hain ohoragarria dena, arrazoiaren erabiltzeko mailara heldu orduko behar dela bizi honetan salbatu edo **kondenatu,** gizatiarrak, humanoak edo moralak deitzen diren haren erabakien eta ekintzen arabera. Piarres Xarriton

Nola gure Konfesoreen Eskuliburu guzian mintzo garen arimaz eta haren ekintza onez edo gaiztoez, haiek baitute hura salbatu edo **kondenatu** behar sekulakotz. Piarres Xarriton

Jainkoak azaldu dit zeure bekatuengatik Ordenari uko egin eta Ordenatik kanpora hilko zarela; eta Jainkoak agertu dit, gainera, **kondenatua** zaudela. Askoren artean

**6** (era burutua izenondo edo izen gisa)

-Ez haiz joango hemendik, Justina madarikatu eta **kondenatu** hori. Juan Garzia

Antikristoren semea, Peppone **kondenatu** horren kastakoa, Bost **kondenatu** urkamenditik libratu ziren. Karlos Linazasoro

Borreroak, behiala, **kondenatu** bati bezero deitzeko tentazio itsusia izan zuen. Karlos Linazasoro

Soldaduz inguratutako nasa jendegabean **kondenatuak** motel argiztaturiko bagoietarantz abiatu zirenean. Jose Morales

Jainkoaren barkamenari uko egin zion **kondenatu** baten oihu lazgarriak. Anjel Lertxundi

Sonanbulu baten ibileraz, **kondenatu** baten begirada galduaz. Alberto Ladron Arana

· Honetan datza **kondenatuen** oinazerik handiena, inoiz ere izango ez dutelako Jainkoagana joateko erroko joera asetzerik. Joan Mari Lekuona

Kafkak zioen kanturik hunkigarriena infernuko **kondenatuena** dela. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**altxatu eta kondenatu** (4); **betetzera kondenatu** (5); **bizitzera kondenatu** (3); **bultzatzeagatik kondenatu** (3); **espetxe zigorrera kondenatu** (10); **euro ordaintzera kondenatu** (7); **heriotza zigorrera kondenatu** (10); **heriotzara kondenatu** (18); **hiltzera kondenatu** (23); **hiltzerat kondenatu** (4); **kondenatu bat** (5); **kondenatu baten** (3); **ordaintzera kondenatu** (11); **presondegira kondenatu** (4); **salbatu edo kondenatu** (3); **urkamendira kondenatu** (4); **urkaturik hiltzera kondenatu** (5); **zigorrera kondenatu** (22)

**bizitzera kondenatua** (3); **egotera kondenatua** (3); **heriotzara kondenatua** (10); **hiltzera kondenatua** (10); **hiltzerat kondenatua** (7); **izatera kondenatua** (5); **sutara kondenatua** (3); **zigorrera kondenatua** (4)

**heriotzara kondenatuak** (7); **hiltzera kondenatuak** (5)

**h eriotzara kondenatuko** (6)

**bizitzera kondenaturik** (4)

**hiltzera kondenaturiko** (3)

**bizitzera kondenatuta** (4); **desagertzera kondenatuta** (3); **egitera kondenatuta** (4); **hiltzera kondenatuta** (6); **ibiltzera kondenatuta** (5)

**heriotzara kondenatutako** (5); **hiltzera kondenatutako** (4)

**heriotzara kondenatzeko** (4); **kondenatzeko arrazoirik** (3)

**akusatzen eta kondenatzen** (3); **bere burua kondenatzen** (3); **heriotza zigorrera kondenatzen** (6); **heriotzara kondenatzen** (6); **hiltzera kondenatzen** (11); **ordaintzera kondenatzen** (3); **zigorrera kondenatzen** (7)

---

# kondenatuki *adlag*

Oraingo honetan ezin izango zuela inorengan delegatu, eta norbera hiltzea kontu aspergarriki, higuingarriki eta **kondenatuki** pertsonala zela. Jon Alonso

---

# kondenatzaile **1** *izond* kondenatzen duena.

Haren boz akusatzaileak eta **kondenatzaileak** behin eta berriro akusatzen eta kondenatzen ninduela. Joan Mari Irigoien

• **2** *iz* kondenatzen duen pertsona.

Bere gain hartu zuen beraz Doktor Nafarrak artzapezpikuaren defentsa, batere dudarik gabe sinesten baitzuen ez zela hura hobenduna, baina baldintza honekin, hots, sekula frogatzen baldin bazen heretikoa zela, bera izanen zela haren **kondenatzaile** lehena. Zenbait **kondenatzailek** ez du aski berak kondenatzea: besteek ere kondena dezaten setatu egiten da. Piarres Xarriton

---

# kondenatze *iz* epaitu ondoan (norbaiti) zigor jakin bat pairaraztea; epaileak (norbait) errudun dela adieraztea.

Jaafar al Mussaui fiskalaren iritzian, **kondenatze** haiek «itxurazko auzi baten osteko ondorioak izan ziren». Berria - Mundua

**Kondenatze** luzeen laburtzea. Herria

Italiako presidente ohi Francesco Cossigak adierazi zuen Dell'Utriren aurkako zigortze hori «Berlusconiren **kondenatze** moral bat» zela. Berria - Mundua

---

# kondenazio **1** *iz* kondenatzea, zigorra. ik **kondena**.

Ez zuen dokumentuak, horrenbestez, ez buru eta ez aburu, erdia loria eta erdia laido, erdia absoluzio eta erdia **kondenazio**. Juan Garzia

Nabarmentzekoa da epaileak Fiskaltzak eskatutakoa baino **kondenazio** gogorragoa eman duela. Berria - Mundua

«Errugabea naizela frogatzeko xedez, borrokatzeari eutsiko diot», adierazi zuen Dell'Utrik, **kondenazio** honen helegiteko asmoa azaltzean, kazetarien aurrean. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Hala, **kondenazio** agiriak dioenez, «deitoragarria da, legegileek ez-legezkoak ziren alderdien finantzakerei amaiera bat ematea erabakitzen zuten unean bertan, Juppe jaunak ez zitzan bere alderdi propioari aplikarazi, arau hauen bozkazale izan zelarik, aldiz, bera». Berria - Mundua

**Kondenazio**-epaia zeureganatu duzu. Elizen arteko biblia

**3** infernuratzea.

Haren alde eraspen handiz Jainkoari erreguka ari zitzaiola, goi-agerpenez jakin zuen Jainkoak entzun egin ziola otoitza anai Eliasen **kondenazio** epaiari zegokionez, eta azkenean haren arima ez zela kondenatuko, baina ziur Ordenatik atera egingo zela eta Ordenatik kanpora hilko. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**faustoren kondenazioa** (5)

---

# kondentsadore 1 *iz* kondentsatzen duen tresna.

Energia sortzeko erabilitako lurruna berriro trinkotu eta urtzeko, **kondentsadorera** bideratuko dute, zentrala osatzen duen bigarren egitura nagusian. Berria - Euskal Herria

· 1955etik aurrera ekin zion Oteizak argia ikertzeari, eta horren ondorio sortu zituen argi **kondentsadore** izendatu zituen irekigune osatu zein osatugabeak dituzten erliebe eta forma exentuak. Berria - Kultura

**2** karga elektrikoak metatzen dituen gailua.

140 metro koadro behar zuen bere 18.000 balbula elektroniko, bere 70.000 erresistentzia, bere 10.000 **kondentsadore,** bere 5 milioi soldadura puntu eta bere 6.000 giltza sartzeko. Pello Salaburu

---

# kondentsatu[1], kondentsa, kondentsatzen 1 da/du *ad* lurruna likido edo solido bihurtu.

Hemengo urak eguzkiak lurrundu eta ekialdeko haizeak eraman baititu, aire hotzak **kondentsatu** ondoren, euri-forman erortzen direlarik ura hartzen duen arroan. Iñaki Mendiguren

Ur-lurrina **kondentsatu** eta izozten denean. Pello Zabala

Arnasa, estua, *ai* intziri-hots batean kanporatua, **kondentsatu** egiten zitzaion neguko airean. Irene Aldasoro

Hezetasun gehiago **kondentsatu** denean. Santiago Iruretagoiena

Uhinaren presio positiboa iristean, burbuilako lurrina **kondentsatu,** eta prozesu osoan lortutako energia eskualde txiki batean biltzen da. Fernando Morillo

**2** trinkotu.

Gure sistemako munduak, gure familia txiki honetakoak, eguzki nebulosatik banan-banan askatuz joan ziren gasezko eraztun primitiboak globotan **kondentsatzez** sortuak direla. Josu Zabaleta

**Materia** kondentsatua. Berria - Harian *ik* kondentsatu[2]. *ik* kondentsatu[2].

**3** irud/hed

Balioberdintasun hegemonikoak gizartearen guneak zabaltzera daraman bezala, antagonismoaren logika murriztaileak espazio publikoa **kondentsatu** eta mugatu egiten du. Joseba Zulaika

Hondakinetan **kondentsatzen** eta laburbiltzen baita historia, eraikuntza, mugimendu, edo biografia baten esanahia. Joseba Zulaika

Etortzear zegoen hondamendiaren aurreiragarpena ihintzaldi likits baten modura **kondentsatzen** zen etxeetan eta kaleetan barrena, kontu handiko solasetan eta kontzientzia modorrotuetan. Juan Garzia

**4** ***esne kondentsatu***

**Esne kondentsatu** gozoa galleten gainean. Xabier Mendiguren Elizegi

Yogur naturalak **esne kondentsatuan** nahasi. Patxi Zubizarreta

Ume txikiak armairutik debekatutako **esne kondentsatu** potea hartu eta zulo txikia eginez eztarrian behera tanta lodi eta azukratuak zurrupatzen dituen antzera. Jasone Osoro

Ipar amerikarra izaki, gainerako bidaiariak baino askoz hobeki daki produktuak topatzen, edo **esne** gaingabetua **kondentsatutik** bereizten. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**esne kondentsatu** (3)

**esne kondentsatua** (4)

---

# kondentsatu[2] *iz* kondentsatu[2] 2.

Bose-Einstein **kondentsatuak** da materiaren egoera berri horri emaniko izena. Berria - Harian

**Kondentsatuok** dira unibertsoan ezagutzen den materiarik hotzena, izarren arteko espazioa hainbat milioi gradu baino hotzago baitago. Berria - Harian

---

# kondentsazio 1 *iz* kondentsatzea.

Ihintzaren fenomenoa gertatzen denean, **kondentsazio** hori hotzean gertatuz gero, ur-lurrina bertan izozten da. Pello Zabala

Arratsaldez itsasoko brisarak dakarren freskaldi ipar-kutsukoa profitatuz, **kondentsazio** lan xume bat jartzen da abian. Pello Zabala

**2** irud/hed

Inkontzientearen "hizkuntzan" eta haren lekualdaketa eta **kondentsazio**-prozesuetan oinarritzen den adierazpen subjektibo, neurotikoaren eremua. Josu Zabaleta

Ez dira jada dorre konkistaezinak, ez dira ikur distiratsuak gelditzen zaizkigunak, lehenaren zentzua eta zentzugabekeriaren **kondentsazio** birrinduak dira. Joseba Zulaika

---

# kondenu *iz ipar* kondena.

Usaian bigarren graduko dei gortera dei egiten duelarik parte batek, **kondenua** ez da indarrean emana, aldiz kasu honetan, auzitegiak behartu du *Biarritz Culture* **kondenu** guzien betetzera, dei egiteko xedea ukanik ere. Auchan, Promodes eta Continent hiper saltegiek izan dituzte **kondenu** gorenak. Herria

Pleven auzian **kondenu** gogorrak eman ditu Pariseko auzitegiak, Bretainiako Pleven herrian dinamita ebatsi zutenen kontra. Herria

Prokuradoreak baietz ihardetsi du eta **kondenua** galdatu. Herria

Haatik, *Biarritz Culture*k dei egina du lan auzitegiak ezarri dizkion **kondenu** ekonomikoen kontra. Herria

Euskal preso bidartarra presondegitik libratua izan da joan den larunbatean bere **kondenua** osoki bete ondoan. Herria

---

**kondeorde** *(orobat **konde-orde**)* *iz* kondearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Irisarrik ikusia zuen gobernadorea, Castillo de Merida **konde-ordea,** etsaietan etsaiena, galak jantzirik. Felipe Juaristi

**Konde-orde** jaunak ihes egiteko nahia berritu zuen. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konde ordea** (3)

---

**konder** *(orobat **kunder**)* *iz* arrosarioa.

Halatan, kutxaren barnean, Joanes plantan baketurik atzeman genuen, igandez apaindua, ***konderak*** ahurrean bihikatzen. Itxaro Borda

**Kunderrak** eta igandeetako meza liburua gau mahaiaren gainean. Itxaro Borda

---

**konderri** *(orobat **konterri** g.er.)* **1** *iz* kondearen jaurgoaren mendeko lurraldea.

Perugia **konderriko** Colle herrixkan. Askoren artean

Kondeak leude ziren beren **konderrietan;** leudeak, berriz, konde beren jaurerrietan. Iñaki Iñurrieta

Basailu handiek, beren mende zituzten jaunekin ados jarrita, agiri edo establezimendu batzuk eman zituzten beren dukerri edo **konderrietako** auzitegietan, inguruabarren arabera. Iñaki Iñurrieta

Trebiñuko **konderrian** izan dira egunotan hainbat hautagai abertzale. Berria - Euskal Herria

Erabaki zuen bere *Kapitularrak*-en, **konderriak** kondearen semeei emango zitzaizkiela, eta araudi horrek feudoetarako ere balio zezan agindu zuen. Iñaki Iñurrieta

**2** herrialde anglo-saxoietan, administrazio banakoa.

Bedford-en, Ingalaterrako Bedfordshire **konderriko** hiriburuan dago hilarri hori. Mirentxu Larrañaga

Gure **konderriko** kazeta ttikiak datorren astean emango din berria. Antton Olano

Uste nuen gogoan izango zenuela **konderriko** dantzaldian Lord Kelso-rekin dantzan aritu nintzelako idatzi zenidan eskutitz gogor hura. Antton Olano

Eagleko **konderriko** auzitegian (Colorado, AEB). Berria - Kirola

New York hirikoa, New York **konderrikoa,** New York estatukoa... Lopez de Arana

Psikiatria liburu mordoxka ateratzen omen du Los Angelesko **konderriko** liburutegitik. Javi Cillero

Houston biltzen duen Harrisko **konderriak** 26 milioi dolar gastatu zuen 1999an akusatzaile gisa zenbait kasutan, baina 11,6 bakarrik defentsa egokia egiteko abokatuetan. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **armagh konderrian** (3)
> **armagh konderriko** (3)

---

**kondesa** *(orobat **kontesa** g.er.)* *iz* kondearen emaztea; konderri baten jaurgoa duen andrea.

Emakumea, Juvenalia Mickevicius zen, **kondesa** bat bere herrian, Lituania urrutikoan, esan zuenez. Felipe Juaristi

Bazen Eslavonian **kondesa** bat, nobletasunez ospetsu bezain bertutez bikain zena. Askoren artean

Toscanako Simon, Colazzoneko **kondesaren** semea. Askoren artean

-Hortaz, andre **kondesa** edo andre markesa izango haiz hemendik gutxira? Koro Navarro

**Kondesa** andrea, zure alabari sei orduko bizitza geratzen zaio gehienez, agian gutxiago. Anton Garikano

**Kondesari** burumakurtu bat egin zion. Fernando Rey

'Eta orain, errege-erregina agurgarriak, printze-printzesak, duke-dukesak, konde-**kondesak** eta jaun-andre guztiak, froga guztien gaineko froga: euliaren froga! Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kondesa andrea** (4); **kondesa andreak** (5)

---

**kondesatxo** *iz adkor* kondesa.

Kondeak alaba **kondesatxoa** zuen; guk pasatzen ikusten genuen, kapota jaitsia zuen auto bat gidatzen Pello Lizarralde

---

**kondestable** *iz* konestablea, errege armadaren buru gorena erdi aroan.

Beaumont, Luis [...], Leringo III. kondea eta **Nafarroako** kondestablea. Aingeru Epaltza

Noren semea zen jakinik ere, anarteraino inoiz ez zuen grina berezirik agertu **kondestablearena** ala mariskalarena jokatzeko. Aingeru Epaltza

Bartolome Carranza anaia [...] Argako Miranda herrian sortua zen, Nafarroako **kondestable** Beaumontarren buruzagiaren aldeko jauntxoen familia batean. Piarres Xarriton

---

**kondetzar** *iz adkor* kondea.

Polita izango litzateke, **kondetzar** edo handizki horietakoren batekin ezkondu nire alaba, eta hark, gogoak emandakoan, bilaukume eta sokil-jole baten, gorulexar baten alaba gisa goitik behera bedeinkatzea! Patxi Ezkiaga

---

**kondimentatu,** kondimenta, kondimentatzen du *ad* bizigarria bota.

Etxekoak *pimentoneros* deitzen dira eta horixe egiten ari dira Liga honetan, espeziak duen funtzioa; apurtxo bat **kondimentatu** . Berria - Kirola

---

kondizino ik **kondizio**.

---

## kondizio *(orobat **kondizino** g.er. eta **kondizione**)* **1** *iz* baldintza.

Hemen geratzeko **kondizio** bat zuan lanpostua izatea. Pako Aristi

Nik beste dakik hik zinezko **kondizio** larrietan bizitzeaz! Jose Angel Irigaray

Ez bazaizkik atsegin nire **kondizioak,** beste batekin egin beharko duk mugaz harakoa. Pablo Sastre

Lana gogorra zen, eta **kondizioak** ikaratzekoak. Pablo Sastre

Liburua egiteko **kondizioak** ez baitziren hoberenak Berria - Harian

**2** izaera; egoera.

Bertsolariaren **kondizioaz,** izateaz aritu ziren, xume, adiskideari moduan aitortu ziren, irudi hutsa baino gehiago direla azalduz. Berria - Kultura

Alabatzakoa ukatu zion, eta ez zion aitortu beraren giza **kondizioa** ere, txakur bat bailitzan tratatu zuenez. pertsonaien bidezko antzerkia, giza **kondizioaz** aritzen den antzerkia. Joan Mari Lekuona

Frantziako Eliza langile-**kondizioaz** ofizialki arduratzen hasi zela. Piarres Aintziart

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alabatzakoa ukatu zion, eta ez zion aitortu beraren giza **kondizioa** ere, txakur bat bailitzan tratatu zuenez. Joan Mari Lekuona

Giza **kondizioaren** minak hunkitua, gizarte aferetan engaiatzerat pusatua da maiz. Jose Angel Irigaray

Unibertsaltasun **kondizio** generikoenganako jarrera. Joseba Zulaika

Benetan gogo onez egingo dut eskatzen didazuena; baina ordain-**kondizio** bat beharko da, hauxe: [...]. Patxi Ezkiaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kondizio batekin** (3)

**giza kondizioa** (3)

**baldintza edo kondizione** (3)

---

## kondizionadore *iz*

Oraingo pijotxook, ostera, beitu zer erabiltzen duten: alde batetik txanpua, bestetik gela, bestetik **kondizionadorea..**. Jon Arretxe

---

## kondizional *iz* baldintzapekoa.

Bigarren aldikotz askatasun **kondizionala** eskuratzea galde egin du. Herria

---

## kondizionamendu *iz* baldintzatzea; baldintzatzearen ondorioa.

Eta epaimahaietan emakumezkoak egonik ere, ohituraz edo **kondizionamendu** kulturala indarrean delako, sariak ematen dira gizonezkoei. Ana Urkiza

---

## kondizionatu, kondiziona, kondizionatzen **1** du *ad* baldintzatu.

Multzo bitar batek, elkar **kondizionatzen** duten zenbait elementu mekaniko eta akustiko inplikatzen ditu. Isabel Arrigain

Nola, historiak, ingurugiroak, jatorriak eta familiak bere bizi guziko lana **kondizionatu** duten aztertzen ahalegintzen da. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Pentsamendua beti txit historiko eta **kondizionatutzat** daukagunontzat. Joxe Azurmendi

Zentzu hura, amona Sinforosa aurrean zuenean bakarrik berreskuratzen zuen, erreflexu **kondizionatu** bat balitz bezala. Joan Mari Irigoien

**3** ***aire kondizionatu*** aire girotua.

Kotxearen barnean aldiz, aire **kondizionatua** pizturik zegoen. Ramuntxo Etxeberri

Aire **kondizionatuaren** ufakada epel erregularrak baizik ez zituen aditzen. Ramuntxo Etxeberri

---

## kondizione ik **kondizio**.

---

## kondo *iz* kondarra.

Horrela eserita geratu ginen, kandela-**kondoa** erabat bukatu zain. Ander Irizar

Kandela-**kondoa** mesanotxean utzi zuen. Ander Irizar

---

## kondoi **1** *iz* preserbatiboa.

**Kondoi** bat hartu, eta zorrotik atera zuen. Fernando Morillo

Dadira neskak beren amoranteei **kondoia** ahoaz jartzen dietenak. Karlos Zabala

Jantzizak **kondoi** bat, Asier! Pako Aristi

Ezin izan dut **kondoia** sekula jasan. Karlos Zabala

**Kondoiak** edo beste preserbatiborik erabili nahi izanez gero, bezeroek susmo txarra hartzen diete. Gotzon Garate

Hiesaren izurritea saihesteko **kondoiak** erabiltzearen aldeko agertu zen. Berria - Gaiak

Kasu askotan bikotekideak **kondoia** jarri nahi ez duelako kutsatzen dira emakumeak. Berria - Gaiak

**Kondoia** haurdunaldiak eragozteko erabiltzea ez dela etikoa. Berria - Gaiak

Leku horietan «oso garrantzitsua» da **kondoiaren** erabilera bultzatzea. Berria - Gaiak

Gizonok bi metodo on ditugu eskura: **kondoia** eta basektomia. Luis Elberdin

**2** irud/hed

Euskaltzale gaixoei maiz xamar zulatzen zaie beren kontzientzia sutsuaren **kondoia,** eta orduan barrengo hazia ixurtzen zaie komeni ez den tokiraino. Iñaki Segurola

**3** (hitz elkartuetan)

**Kondoi** kaxa berriro gorde eta Itxasoren ondoan etzan da, sabaira begira. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kondoia apurtu** (3); **kondoia erabili** (5); **kondoia erabiltzea** (4); **kondoia jantzi** (3); **kondoia jarri** (3); **kondoia jartzeko** (3)
**kondoiaren erabilera** (3)

---

## **kondotxo** *iz adkor* kondoa.

-Nirea aitor, anaia -Basokoarenak berriz- kardaberak eta baxa-udareak eta belar-**kondotxoak** jatera ohitua ez dago ba nire urdaila Patxi Ezkiaga

---

## **kondrita** *iz* harkaitzezko meteoritoa.

Errusiar hondakinen orbita berean bazebilen beste objektu bat, tamainaz ez nolanahikoa, egia esan, baina dentsitate txikikoa hala ere -2,1 g/cm3-koa bakarrik-, espektrometroaren arabera nukleo metalikorik gabeko **kondrita** karbonatuzko arroka puska bat izan zitekeena. Patxi Iturritegi

---

## **kondropatia** *iz* ehun kartilaginosoko gaitza.

Belaunburuak kartilagoa horrenbestetan kolpatzearen ondorioz sortu da **kondropatia** . Berria - Kirola

**Kondropatia** batengatik ezin dela partida bat bertan behera utzi. Berria - Kirola

---

kondu ik **kontu¹**.

---

## **konduktantzia** *iz* eroale batek korronte elektrikoa pasatzen uzteko duen erraztasuna.

Arian-arian, guztiz ezezagun ziren molekula batzuk ere aurkitzen dira; besteak beste, mintz-arteko **konduktantziaren** erregulatzailea; harexen matxura jakin batzuk dira, antza, mukobiszidosiaren kausa Juan Garzia

---

## **konduktibitate** *iz* eroankortasuna.

Ezaugarri psiko-fisiologikoak (bihotzaren erritmoa ala **azalaren** konduktibitatea kasu) analizatzen dira. Berria - Gaiak

---

## **konduktismo** *iz* behaviorismoa.

**Konduktismoaren** arabera, informazioa berreskuratzeko mekanismoa estimulu-erantzunen arteko asoziazio funtziotik abiatzen da. Berria - Gaiak

**Konduktismo** epistemologikoaren eskutik. Askoren artean

**Konduktismo** analitikoa. Askoren artean

Ia **konduktismo**-mota guztiek **(konduktismo** watsondarra, neokonduktibismoa, **konduktismo** erradikala, etab.) gogo-egoerei erreferentzia egitea gainditu nahi dute. Askoren artean

---

## **konduktista** *izond/iz* behaviorista.

Arazo horrek psikologia **konduktistaren** barruan eskola kognitibistaren sorrera ekarri zuen. Askoren artean

**Konduktisten** esanetan, gordetako informazioa ahaztu egiten da berreskuratze prozesuan interferentziak gertatuz gero.Sedano, analista denez, ez da trikimailu **konduktista** horien zale, Ramon Saizarbitoria

---

## **konduktual** *izond* portaerari dagokiona.

Perpaus baten esanahia perpausak bere testuinguru **konduktual** eta linguistikoan ezartzen duen erlazio-sistema izango da. Askoren artean

Funtzio kogntiboei dagokienez, ia onurarik ez zien ekarri tratamendu esperimetalak, baina bestela bai: «Alde **konduktuala** landu eta oso emaitza onak lortu genituen». Berria - Harian

---

## **kondukzio** *iz* atxilotu bat kartzela batetik beste batera eramatea.

Egunkarietan eta sarri agertzen dira kartzelaz aldatu dituzten presoen zerrendak, baina **kondukzio** bat bizi izan ez duenak zer daki, mila orriko historia irakurrita ere, zer daki **kondukzio** batek suposatzen duenaz? Jokin Urain

Garai haietan **kondukzioa** zegoen bakoitzean jipoitzen zuten euskal presoren bat. Jokin Urain

Badira urte luzeetan isolamendu moduluetan dauden kideak; kartzela bateko isolamendu modulutik beste kartzela bateko isolamendu modulura, betiereko bakardadean, kartzeleroen mehatxu eta bortxapean, **kondukzioetan** jipoiak jasanez... Jokin Urain

**Kondukzio** hauengatik protesta egiteko ateak jo zituzten Herrerako presoek, eta zigorra ezarri zieten. Jokin Urain

---

kondulari ik **kontulari**.

---

## **konduma** *iz*

10ak et'erdietan: pastoraltza urtearen **konduma** -gerorako xedeak-. Herria

---

## **konduzitu**, konduzi, konduzitzen du *ad* gidatu.

Iritsi eta Morganek ia **konduzitzen** ba al nekien. Joxean Sagaztizabal

---

konejo ik **koneju**.

**koneju** *(orobat* ***konejo*** *g.er. eta* ***konexu*** *g.er.)* **1** *iz* untxia.

**Konejuen** atzetik korrika ibiltzen zen ume-moko hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Txikitan **konejuak,** heldutan otsoak, hartzak, bufaloak atzematen zituzten. Pablo Sastre

Patatez eta babarrunez gain **konejuak** eta erbiak ere jaten zituzten. Pablo Sastre

Kazuelan dauden **konexu** haietatik ez jatea hobe, janari iletsua baita hori. Patxi Ezkiaga

Kapelatik **konejua** atera behar duen magoaren antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Geroztik oilo edo **konejuentzako** tegia izan zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ondo eta azkar, **konejuak** txortan. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (hitz elkartuetan)

**Koneju** ehiza egin dezaten. Koldo Izagirre

---

**konejutoki** *iz* untxitokia.

Beno, nik arrautzak ikusi nebazan **konejutokian**. Xabier Amuriza

---

koneksio ik **konexio**.

---

**konektagarritasun** *iz* konektagarria denaren nolakotasuna.

Azken 20 urteotan, okerrera egin dute nekazaritza-sistemetako hegaztiek eta arrain kontinental batzuek, kostaldeko estuarioek eta baso autoktonoen zatikatzeak eta **konektagarritasunak**. Berria - Euskal Herria

---

**konektatu,** konekta, konektatzen **1** da/du *ad* tresna elektriko edo elektronikoez mintzatuz, lotu.

Atzoko egunez, duela hogeita hamabost urte, lehenengo aldiz bi ordenagailu **konektatzea** lortu zuten Stephen Crocker eta Vinton Cerf informatika ikasleek. Berria - Gaiak

Synface programak telefonoa eta ordenagailua **konektatzen** ditu. Berria - Gaiak

**2** elkar ukitzen jarri; harremanean jarri.

Hiru hezur txikiz osaturiko kate baten bidez **konektaturik** daude tinpanoa eta leiho obala. Irene Aldasoro

Itsasontziekin **konektatzeko** erabiltzen zuen irratia. Josu Landa

Telealarma egunaren 24 orduetan larrialdi zentroekin automatikoki **konektatuta** dago. Txakurrak [...] usaimenarekin **konektaturik** erabiltzen du garunaren parterik handiena. Irene Aldasoro

Difusio-bobina bati **konektaturik** dago igorgailua. Irene Aldasoro

Neurona bakoitza beste 10.000ri **konektaturik** egon daiteke. Irene Aldasoro

Etengabe elkarri **konektatuta** baititu klitoria, bizkarrezur muina, burmuina eta hatzak. Luis Elberdin

**3** (-ra sintagma batekin)

Hogei ordu zeramatzan han, salbutamol inhalazioak hartzen, aldizka oxigenoaren hodira **konektatuta**. Bernardo Atxaga

Bi hodiren bidez **konektatzen** zen gaixoa makinara. Irene Aldasoro

Ez nazatela makina batera **konektatu,** artifizialki nire bizitza luzatzeko. Berria - Harian

Garoñako zentrala 1971n **konektatu** zuten sarera. Berria - Euskal Herria

Instalazioa Telelaguntzaren sistemara **konektatuta** dago, eta abisua SOS Deiei pasatzen zaie zuzenean. Sakelako telefonoaren bitartez ordenagailu eramangarria Internetera **konektatu** zuen. Fernando Morillo

Indar-aho zurietara kable grisez **konektatutako** mikoordenagailu beltzez inguratuta zegoen. Jon Muñoz

Kono bakoitza zuntz bakar baten bidez **konektatzen** baita gehienetan ikusmen-nerbiora. Irene Aldasoro

**4** irud/hed

Kontu horiek aintzat hartu behar ditugu, bestela ez baitugu nerabeen munduarekin **konektatuko**.

Straussen musikarekin «oso **konektatua»** sentitu izan da beti Bitxkov, «oso gertukoa» zaio. Berria - Kultura

Dezepzionatua zirudien, nirekin **konektatzeko** esperantza ingenuoa baitzeukan. Mikel Hernandez Abaitua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zentroekin automatikoki konektatuta** (3)
> **konektatzea lortu** (4)

---

**konektatzaile** **1** *iz* hizkuntza banakoak lotzeko betekizuna duen hitza edo hitz multzoa.

Estoikoek proposizioen logikari eman zioten hasiera, hau da, "eta", "edo", "baldin" eta "ez" **konektatzaileen** logikari. Askoren artean

**2** (logika formalean)

**Konektatzaileek** hizkuntza naturaleko lokailuen errepresentazioa izan nahi dute; kasu honetan, ukapena eta baldintzatzailea hartu ditugu. Askoren artean

Gainerako **konektatzaileak** "-" eta "•" bidez definitu ditugunez, haien semantika honela zehaztuta geratzen zaigu: [...]. Askoren artean

**Konektatzaileek** eta kuantifikatzaileek QLren konstante logikoen multzoa osatzen dute. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konektatzaileen multzoa** (3)

---

**konektore** *iz* konektatzen duen edo konektatzeko balio duen gailua.

Kapela erabiltzen zuen beti buruan, baita bere bulegoko mahaira eserita zegoenean ere; hura eranzten zuen une bakanetan, ordea, berrogeita hamar orratzeko bi **konektore** elektriko ageri zituen buru gainean. Irene Aldasoro

---

**konexio** *(orobat* ***koneksio*** *g.er.)* **1** *iz* konektatzea; konektatzearen ondorioa, lotura.

Horrek erakusten du zer puntutaraino dauden bikoiztuak mekanismo eta **konexio** garrantzizkoak, fidagarritasunaren mesedetan. Irene Aldasoro

Lehen aldia da bi atomoren artean **konexio** fisikorik egon gabe, bataren ezaugarriak besteari teleportatzea lortzen dela. Berria - Gaiak

Burura etorri zait bat-batean, **konexio** telepatiko bati esker edo, nire lagunen bat oraintxe pentsatzen ari dena. Bernardo Atxaga

Hautestontziek zentroarekin **konexio** zuzena izango baitute. Berria - Euskal Herria

Erabiltzaileak duen **konexioa** (ADSL, tarifa laua edo dena delakoa) 906 **konexio** baten bidez ordezkatzen da, erabiltzaileak **konexioari** eusten dion denbora guztian. Berria - Euskal Herria

ADSLa baino mila aldiz azkarragoa den Interneterako **konexio** bat diseinatu dute. Berria - Gaiak

**2** irud/hed

Biok elkarrekin prestatzen dugun laugarren diskoa da eta oso **konexio** ona daukagu. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Konexio**-kableak ikusi ditugularik, itzul gaitezen orain makinaren diseinu orokorrera. Irene Aldasoro

**Konexio**-gurutzatzeen ugaritasun hori garrantzitsua da oroimenari, asoziazioari eta pentsamendu abstraktuari dagokienez. Irene Aldasoro

Elkarren kontrako bi **konexio** mota daude neuronen artean. Josu Zabaleta

**4**

Handik beste nerbio **konexio** batzuk abiatzen dira garunaren atzeko alderantz, eta kortex ildaskatura iristen dira. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konexioak egiten** (3)

---

**konexionismo** *izond*

Paradigma orokor horrek hainbat forma hartu ditu (errepresentazionalismoa, **konexionismoa...)** gogoaren arkitektura zein den argi ez dagoelako. Askoren artean

---

**konexu**[1] *izond*

Eta teorema andana bat, zenbaki perfektuei, binomioaren formula orokortzeari, grafo **konexuei** dagozkienak. Jon Muñoz

---

konexu[2] ik **koneju**.

---

**konfabulatu,** konfabula, konfabulatzen du *ad* elkar aditu, elkar hartu.

Bi neskatxak nire maitasun etsituaren aurka konspiratzen edo **konfabulatzen** zutela. Berria - Kultura

---

**konfabulazio** *iz* elkar aditzea, elkar hartzea, konplota.

Eta, pixkana-pixkana, argia egiten hasi da jendearen begietan, eta indartu egin da Konplotaren eta **Konfabulazioaren** teoria. Karlos Linazasoro

**Konfabulazio** unibertsal erraldoia. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**konfardia** *iz ipar* kofradia, anaidia.

Ondotik izan dire hitzaldiak eta gure **konfardian** partalier berrien sartzea. Herria

Amorroin **Konfardiaren** eguna. Herria

**Konfardia** guziek elgarrekin bazkari bat ederra egin dute Berrotaran ostatuan. Herria

---

**konfederakuntza** *iz* konfederazioa.

Confebask Euskal Enpresarien **Konfederakuntzak** «inflazioaren gorakadagatik arduratuta» dagoela aditzera eman zuen. Berria - Ekonomia

Biltzarrean, dena den, Euskadiko **Konfederakuntzatik** bereiziko da Nafarroako CCOO. Berria - Ekonomia

---

**konfederal** **1** *izond* konfederazio izaera duena.

Errepublika **Konfederala**. Berria - Euskal Herria

Eska daiteke Konstituzioa aldatu eta Estatu **konfederala** eratzea. Berria - Euskal Herria

Eredu federal batetik **konfederal** batera pasatzeko erabakia hartzea. Berria - Euskal Herria

**2** konfederazioarena, konfederazioari dagokiona.

Euskal Herriaren konstituzio **konfederala** proposatuko dugu. Berria - Euskal Herria

Europako Ezker Batuko ELAko zuzendaritzak uko egin dio maiatzetik LABekin bilerak egiteari maila **konfederalean**. Berria - Ekonomia

Ikuspegi **konfederala** dugula. Berria - Mundua

Batzar **Konfederala** datorren azaroaren 26an eta 27an egingo da, Bilbon. Berria - Ekonomia

Talde **Konfederaleko** eurodiputatua. Berria - Euskal Herria

Espainia osoko sindikatuko organismoetan eta zuzendaritza **konfederalean** ere. Berria - Euskal Herria

Michel Jalmain CFDTko idazkari **konfederalak**. Berria - Ekonomia

Europako Sindikatuen Konfederazioko **idazkari** konfederala. Berria - Harian

---

**konfederalismo** *iz*

Federalismo-**Konfederalismo**-ko artekoa baino gehiago, kontzepzioen artekoa izan da eztabaida. Berria - Harian

---

**konfederalista** *izond/iz* konfederalismoaren aldekoa.

Besteak beste, ezker abertzale eta independentistako jendea, subiranistak, federalistak, **konfederalistak,** ezker sozial eta alternatiboko jendea, euskaltzaleak, feministak, langile mugimendukoak nahiz arrazakeriaren aurkakoak.

---

**konfederatu** *izond* konfederazioan bildua.

Benegasek estatu **konfederatu** batentzako prozedura bat asmatzea leporatu zion Ibarretxeri, eta gogor kritikatu zituen Jaurlaritzako lehendakariaren asmoak. Berria - Euskal Herria

Beren lana zen zauritu **konfederatuak** bereiztea hildako **konfederatuetatik**. Anton Garikano

Gizakien arteko harreman pribatuak ere ez dira ohargarriak; helburu politiko eta orokorrak dira nagusi, gogokoagoak dira **konfederatuak,** herrikideak baino. Andres Urrutia

---

**konfederazio** *iz* estatuek, taldeek edo gizabanakoek helburu jakin bat lortzeko osatutako batasuna.

Jakin gabe zer izanen den zuzen bihar Europako Batasuna: ala Federazio ala **konfederazio** ala elkargo. Piarres Xarriton

NBErentzat ikusten zen etorkizunik onena foro hutsa izatetik **konfederazio** izatera igarotzea zen; baina leize handia dago estatu burujabeen **konfederazioaren** eta herrien **konfederazioaren** artean. Iñaki Mendiguren

Alemania ez da estatu unitate zentralizatu bat, Frantzia bezala, ezta estatuen **konfederazio** bat ere (kideak subiranoak dituen **konfederazio** batez ari gara). Berria - Mundua

GSEE Greziako Langileen **Konfederazio** Orokorreko presidente Alekos Kalyvisek. Berria - Harian

Israelgo Langileen **Konfederazio** Nagusiak (Histadrut) greba orokor mugagabea hasi zuen atzo Jerusalemen. Berria - Mundua

Angelo Marras Sardiniako **Konfederazio** Sindikaleko ordezkaria. Berria - Ekonomia

Espainiako Negoziazio Kolektiboaren **Konfederazio** arteko Ituna. Berria - Ekonomia

Ebroko **Konfederazio** Hidrografikoak eta Iberdrolak. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ebroko konfederazio (3); langileen konfederazio (4)

ebroko ur konfederazioa (9); euskal konfederazioa (44); ikastolen konfederazioa (6); pilota konfederazioa (4); ur konfederazioa (10)

ebroko ur konfederazioak (51); enpresaburuen konfederazioak (4); europako sindikatuen konfederazioak (3); euskal enpresaburuen konfederazioak (4); euskal konfederazioak (87); euskal konfederazioak proposatu (3); ikastolen konfederazioak (31); indigenen konfederazioak (4); konfederazioak eta kontseiluak (4); konfederazioak proposatu (3); konfederazioak salatu (4); nazionalitate indigenen konfederazioak (3); pilota konfederazioak (4); sindikatuen konfederazioak (6); ur konfederazioak (55)

ebroko ur konfederazioan (3); euskal konfederazioan (4); pilota konfederazioan (3)

euskal konfederazioarekin (18); euskal konfederazioarekin hitzarmena (4)

ebroko ur konfederazioaren (5); euskal konfederazioaren (26); euskal konfederazioaren izenean (3); ikastolen konfederazioaren (6); konfederazioaren iritziz (4); konfederazioaren izenean (3)

ebroko ur konfederazioari (5); euskal konfederazioari (4)

ebroko ur konfederazioko (37); europako sindikatuen konfederazioko (3); euskadiko kooperatiben konfederazioko (3); euskal konfederazioko (30); euskal konfederazioko lehendakaria (7); euskal konfederazioko lehendakariak (3); ikastolen konfederazioko (4); indigenen konfederazioko (7); indigenen konfederazioko presidentea (3); konfederazioko idazkari (3); konfederazioko kideak (4); konfederazioko kideek (3); konfederazioko lehendakari (5); konfederazioko lehendakaria (7); konfederazioko lehendakariak (10); konfederazioko maixan mercapide (4); konfederazioko presidente (13); konfederazioko presidente ohi (3); konfederazioko presidentea (4); konfederazioko teknikoek (3); kooperatiben konfederazioko (3); nazio indigenen konfederazioko (6); sindikatuen konfederazioko (5); sindikatuen konfederazioko idazkari (3); ur konfederazioko kideak (3); ur konfederazioko kideek (3); ur konfederazioko lehendakari (4); ur konfederazioko lehendakariak (3); ur konfederazioko presidente (8); ur konfederazioko teknikoek (3)

---

**konferentzia** 1 *iz* politikariak, eta diplomatikoak bereziki, gai jakin bati buruz aritzen diren biltzarra.

**Konferentziaren** bukaeran 56 estatuetako ordezkariek ISAFen hedapena eta eskualdeetako milizien desarmea agindu zuten. Berria - Mundua

Espainiako autonomia erkidegoetako presidenteen bigarren **konferentzia**. Berria - Euskal Herria

Moktada al Sadr erresistentzia xiitako buruzagiak Irakeko **Konferentzia** Nazionalak eginiko bake proposamena onartu zuen atzo. Berria - Mundua

Gobernu arteko **konferentzia** egiten ari dira Bruselan 25 herrialdeetako Atzerri ministro guztiak. Berria - Mundua

**Konferentzia** Islamikoaren Erakundeak iragan astean onartutako ebazpena. Berria - Mundua

Gero ezarri ziren, Genebako **Konferentzian** (1922), Nazioarteko Diru Sistema berri baten oinarriak. Iñaki Heras

1944an, Bretton Woods-eko **Konferentzian** […], Berreraikuntza eta Sustapeneko Nazioarteko Bankuarekin batera sortu zen. Iñaki Heras

2000ko martxoan, munduko haurren egoera aztertzeko Manilan izan zen nazioarteko **Konferentzian,** jakintsuek hauxe esan zuten: [...]. Gotzon Garate

Lanaren banaketari buruzko nazioarteko **konferentzia**. Iñaki Heras

NBE-k erabaki zuen 1992-an Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen **Konferentzia** egitea, Stockholmeko **Konferentziatik** 20 urtera alegia, nahiz oraingoan ingurumena eta garapena estu-estu loturik izango ziren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nazio Batuen Giza Ingurumenari buruzko **Konferentziak**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Iraken berreraikuntzarako Emaileen **Konferentzia** antolatu zuen Madrilek. Berria - Mundua

**2** *hed*

Greenpeace erakunde ekologistaren urteroko **konferentzian**. Berria - Gaiak

**3** (gotzainen) biltzarra, aldian-aldian biltzen dena.

Baltazar Potras Venezuelako **Gotzainen** Konferentziako buruak. Berria - Mundua

Brendan O'Brien Gotzain Katolikoen **Konferentziako** presidenteak. Berria - Gaiak

**4** (hitz elkartuetan)

Uztailaren bukaerarako deituriko Nazio **Konferentziari** boikot egingo diola esan zuen atzo Muktada al Sadr buruzagi xiitak.

Munduko Gizarte Foroaren bigarren **konferentzia** sorta herenegun abiatu zen Caracasen. Berria - Mundua

· Bake **konferentzia**. Berria - Harian

**5** hitzaldia.

Bilboko "El Sitio" Elkartean 1910ean eman **konferentzia** honela amaitzen da: [...]. Joxe Azurmendi

**Konferentzia** honen aurretik -1886ko apirilaren 9an-, beste **konferentzia** bat, edo hobeto, 87koaren lehen partea, emana zuen "Orígenes de la raza vasca" izenburuarekin. Joxe Azurmendi

Handik hilabete batzuetara, Kenneth White Biarritzera etorri zelarik bertze idazle batzuekin **konferentzia** baten egitera. Ana Urkiza

**6** ***bideo konferentzia***

Zisjordanian dauden diputatuek, berriz, bideo **konferentziaz** bozkatu zuten. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

aldeko nazioarteko konferentzia (4); amaituko da konferentzia (3); bake konferentzia (14); bake konferentzia bat (3); bideo konferentzia (4); egindako konferentzia (3); elkartasun konferentzia (6); elkartasunezko nazioarteko konferentzia (5); emaileen konferentzia (5); erkidegoetako presidenteen konferentzia (7); euroeskualde konferentzia (3); ingurumenari buruzko konferentzia (3); irakeko konferentzia (8); irakeko konferentzia nazionala (3); klima aldaketaren konferentzia (3); konferentzia antolatu (7); konferentzia bat eratzea (3); konferentzia egin (7); konferentzia egingo (7); konferentzia egiteko (4); konferentzia egiten (3); konferentzia episkopalak (3); konferentzia islamikoaren (15); konferentzia islamikoaren erakundea (4); konferentzia islamikoaren erakundeak (4); konferentzia islamikoaren erakundeko (4); konferentzia izan (3); konferentzia nazionala (8); konferentzia nazionalak (8); konferentzia nazionalaren (6); konferentzia nazionalean (6); konferentzia nazionaleko (3); konferentzia prestatzeko (4); konferentzia prestatzeko bilera (3); konferentzia sorta (3); lehendakarien konferentzia (3); nazioarteko elkartasun konferentzia (6); nazioarteko konferentzia (36); nazioarteko konferentzia antolatu (3); nazioarteko konferentzia bat (8); nazioarteko konferentzia egin (3); nazioarteko konferentzia egingo (3); presidenteen konferentzia (10); stockholmeko konferentzia (3)

nazioarteko elkartasunezko konferentziak (3); nazioarteko konferentziak (5)

; ekialdeko konferentziako (8); konferentziako bozeramaileak (3); konferentziako finala (5); konferentziako liderrak (4); konferentziako parte hartzaileek (3); mendebaldeko konferentziako (17); mendebaleko konferentziako (3); pagola konferentziako bozeramaileak (3)

berlingo konferentzian (3); ekialdeko konferentzian (4); konferentzian izan (3); konferentzian jorratuko (3); konferentzian onartutako (3); konferentzian parte (21); konferentzian parte hartu (9); konferentzian parte hartuko (3); konferentzian parte hartzeko (3); konferentzian parte hartzen (3); mendebaldeko konferentzian (3); nazioarteko konferentzian (11); presidenteen konferentzian (6)

nazioarteko konferentziara (3); presidenteen konferentziara (3)

bake konferentziaren (24); erkidegoetako presidenteen konferentziaren (3); konferentziaren amaieran (4); konferentziaren aurka agertu (3); konferentziaren barruan (3); konferentziaren harira (3); konferentziaren hasieran (3); konferentziaren helburu (3); konferentziaren inguruan (3); nazioarteko konferentziaren (10); presidenteen konferentziaren (9)

konferentziari boikot (4); nazioarteko konferentziari (4)

bideo konferentziaz (3)

sektore konferentzietan (3)

---

# **konfesaezin** *izond* aitorrezina.

Botere antsia ttiki eta **konfesaezin** bat. Harkaitz Cano

Galdutako beste zenbait gauza berreskuratzeko itxaropen **konfesaezinarekin**. Harkaitz Cano

---

# **konfesaleku** *iz* aitortegia.

Eskuineko lehen **konfesalekuan**. Koldo Biguri

Eskultura barrokoetako oihalezko jantzien azpian begiratzea, **konfesaleku** barruan sartu eta aitortzetara jolastea [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **konfesari** *iz* konfesorea.

Duffy jaunaren **konfesari** bihurtu zen. Irene Aldasoro

---

# **konfesategi** *iz* aitortegia.

**Konfesategietan** abadeek barkamena eskaintzen diete. Edorta Jimenez

Beste arrazoi batzuk ere aipatzen ditut Eskuliburuan, egokiago direnak **konfesategietan** baino ikastegietan aipatzeko. Piarres Xarriton

---

# **konfesatoki** *iz* aitortegia.

**Konfesatoki** batean itzal beltz iheskorra antzeman du. Alberto Barandiaren

---

# **konfesatu,** konfesa, konfesatzen **1** da/du *ad* bekatuak aitortzan esan.

Guztiz gogotsu **konfesatuko** naiz zurekin, ene adiskide -esan zuen Joana xaloak. Juan Garzia

Aita Bartolomerekin **konfesatzen** zirenak. Joan Mari Irigoien

Hamabost egunean behin **konfesatzen** ziren. Xabier Olarra

Zenbat da ez haizela **konfesatzen**? Jolas artetik hiltzen dena, aitzinetik **konfesatu** eta komuniatu balitz ere, ez baita zilegi hilerri sainduetan ehorztea. Juan Garzia

Batzuetan ez genekien zer bekatu **konfesatu,** eta orduan esaten genuen: "Elurra lapurtu dut!". Fernando Rey

Seguruenik badakiela ordurako egunen batean izango duela **konfesatu** beharreko zerbait. Xabier Olarra

• **2** du *ad* bekatuak aitortzan entzun.

Horra zergatik Maisu Petri Soto haren konfesore fraide kartsu bezain jakintsuak ez zuen gehiago hura **konfesatu** nahi izan. Piarres Xarriton

Zer esango dit berorrek? **konfesatu** egingo nau berriro? zergatik berriro? Juan Garzia

**Konfesatu** egin nahi zuten, bihar lehenengo ostirala izaki. Juan Garzia

Arratsaldean haurrak **konfesatu,** lehen predikua herriari astirian. Marzel Etxehandi

Eskuin aldean, berriz, errenkan jarritako aitorlekuetan, fraideak jendea **konfesatzen**. Anjel Lertxundi

**3** aitortu.

Idazle legez ere, **konfesatu** behar dut 17 urte nituenetik idazten dudala, baina horretan ere ez naiz batere espeziala, pentsa zenbat idazle dagoen Euskal Herrian bertan. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

konfesatzera joan (4)

---

# **konfesatzaile** *iz* konfesorea.

Dena dela sinesten zuen, **konfesatzaile** ona edo gaur erran genezakeen bezala, artzain ona izateko ez dela aski, bi eskuliburuen ikastea tarteka, jolasten ariz, baina behar dela izan teologian, kanonetan eta legeetan ongi moldatua. Piarres Xarriton

---

# **konfesio** *(orobat **konfesione**)* *iz* aitortza.

Hango apaiz jaunarekin **konfesio** jenerala egiten. Juan Garzia

Ez dugu **konfesioa** amaitu. Edorta Jimenez

**-Konfesioa** behar dut, jauna! -esan nion. Edorta Jimenez

**Konfesioak** entzutea eta penitentziako sakramentua ematea. Piarres Xarriton

Aitortzan egindako **konfesioa**. Juan Martin Elexpuru

Aitorleak behartzen zituela emakumeek **konfesioan** beren seduzitzaile edo bortxatzailetzat jotakoen izenak inkisidoreen aurrean azaltzera. Juan Martin Elexpuru

**konfesioz** jakin ahal izan omen zuenaren berri emateko. Koldo Izagirre

---

**konfesional** *izond* erlijio sineste baten araberakoa.

**Konfesionala** ez den estatu laiko batean. Berria - Euskal Herria

Erlijioari buruzko heziketa ez **konfesionala** derrigorrezkoa izatea nahi du. Berria - Euskal Herria

Gu ez gaude erlijioaren irakaskuntza **konfesionalaren** alde. Berria - Euskal Herria

SCIRI Irakeko Iraultza Islamikoaren Kontseilu Nagusia alderdi xiita nagusia da, **konfesionala** eta Iranen sustraitua. Berria - Harian

---

**konfesionaltasun** *iz* konfesioanala denaren nolakotasuna.

Alderdiaren **konfesionaltasuna** defenditzera. Ramon Saizarbitoria

---

**konfesionario** *iz* aitorlekua.

Hatz-koskorrez jo zuen **konfesionarioko** lehiatila, beste emakume haietako bati deitzeko. Juan Garzia

Santuen aurrean pasatzean ikaratu egiten nintzen, edo **konfesionarioetako** errezela granateen aurrean, edo erdi irekitako aho beltza erakusten zuten ateen aurrean. Pako Aristi

---

konfesione ik **konfesio**.

---

konfesor ik **konfesore**.

---

**konfesore** *iz* bekatuak aitortzan entzuten dituen apaiza.

Menturaz **konfesoreak** lortu zuen bere lankidea barruti sakratu moduan tratatzea. Koldo Izagirre

Buru egiten zion Don Karlosen **konfesore** aita Larrañagari. Koldo Izagirre

Savellako kartzelara eraman zituzten, eta, aitormena egiteko **konfesore** ona baino tortura erabiltzea askoz eraginkorragoa izan denez betidanik, han tormentu emateko agindu. administrazio-gaiez eta gaixo bat larri jartzen zenean **konfesoreari** deitzeaz baizik ziren arduratzen ospitalean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ekarri oraintxe **konfesore** bat nire aitortza entzun dezan. Patxi Ezkiaga

***Konfesoreen*** *Eskuliburua,* 70 urtez 81 argitalpen izan zituena. Piarres Xarriton

---

**konfeti** *(orobat **konfetti**)* **1** *iz* forma eta kolore askotako paper zatitxoak, festetan botatzen direnak.

Besarkadak, txaloak, kantuak, pintxoak, **konfetiak,** irribarreak. Morroi horrek dirua **konfetia** bailitzan botatzen du, ulertzen?... Lopez de Arana

**Konfetizko** zipriztin distiratsuak tren jasoaren egituraren zutabeetan zehar zabalduz. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Noizbehinka arkupe azpira ere palastatzen da ura, loreak ere **konfetti** -euri gisa, Joxe Austin Arrieta

---

konfetti ik **konfeti**.

---

konfiantxa ik **konfiantza**.

---

**konfiantza** *(orobat **konfiantxa** g.er., **konfiantzia** g.er., **konfientxia** g.er., **konfientzia** g.er., **konfidantxa** g.er. eta **konfidantza** g.er.)* **1** *iz* uste ona, uste osoa. ik **fidantzia**.

**Konfiantza** elkarrekiko gauza bat da. Josu Zabaleta

**Konfiantza** neurriz hartzeko edaria dukezu. Pako Aristi

Ume baten sineskortasuna zuen, eta heroi baten **konfiantza**. Karlos Zabala

**Konfiantzak** mailak dauzka, gero, ezagutzak eta hurbiltasunak bezala. Joxe Azurmendi

**Konfiantzak** galtzen du gizona. Karlos Zabala

Elkartasuna, gainera, Beldurretik sortu ohi da, maizenik, baina **konfidantzarik** gabe. Piarres Xarriton

Geroxeago **konfiantza** hartu dut berriro, eta itxaropen gehixeago daukat. Josu Zabaleta

Zein gauza polita izango litzatekeen norbaitek bere **konfiantza** niregan jartzea. Josu Zabaleta

Zure **konfiantza** Jaunarengan jar dezazun. Elizen arteko biblia

Niri, Ramonek, nire buruarengan **konfiantza** eman zidan. Ana Urkiza

Mobimendu horren gelditzeak, berriz, esan nahi du hizkuntzarekiko **konfidantza** galdu dela; nork bere buruarekiko **konfidantza,** beraz. Patziku Perurena

Emakumearen **konfiantza** irabaztearren. Felipe Juaristi

Ororen buruan, denek, beren maneran, **konfiantza** egiten zidaten. Daniel Landart

Jendearen **konfiantza** geureganatu behar genuela. Jon Alonso

Medikuaren lana, neurri handi batean, eriarengan **konfiantza** piztea da. Berria - Gaiak

Horretan arrakastaz jarduteko bezeroengan **konfiantza** sorrarazi behar da. Juan Garzia

**Konfiantza** hil duzu. Koro Navarro

Urruntasuna, haserrea, **konfiantzarik** eza, errespetua edo beldurra salatzeko. Iñaki Segurola

**2** (izenondoekin)

**Konfiantza** osoa bazegoen gu bien artean. Daniel Landart

**Konfiantza** osoz eta kasik balentriaz erran nion zer egiten nuen. Daniel Landart

Profesional bikaina eta **konfiantza** osokoa. Migel Angel Mintegi

**Konfiantza** bete-betea erakusten baitu, maitasunez eta duintasunez oratua, Jainko, Nôssgnôr, Adonai Eloénô, Cadòss Barôkhú delakoarekiko. Juan Garzia

**Konfiantza** handiegiko tratuan ez sartzea aholkatzen baitzidan. Juan Garzia

Gizaki batek beste bati eman diezaiokeen gauzarik handiena erregalatzen badio, bere **konfiantza** itsua ematen badio, baldintzarik gabe, bere **konfiantza** gartsua ematen badio, eta konturatzen bada bestea desleiala zaiola, [...]. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zuen sekula gogoko izan Harry, baina beti eman izan zion hari **konfiantza**-tarte bat Alec-engatik. Oskar Arana

Elkarrizketa **konfiantza** giroan garatu izanak ausartagotu egin zuen. Patxi Zubizarreta

Baina **konfiantza** galera etorri zen bat-batean. Iñaki Heras

Bere buruarekiko **konfiantza** falta sentitzen duela. Ana Urkiza

**Konfiantza** krisi bat sortzen bada finantza inguruetan, atzerriko inbertitzaileek bertan dituzten inbertsioak masiboki eraman ditzakete. Iñaki Heras

Berak ez zidan **konfiantza**-biderik ematen, eta niri zapuzgarri eta erronka zitzaidan hori. Juan Garzia

Maitasun eta **konfiantza**-sentipenez inguraturik nengoela. Xabier Olarra

Karlos Setimoren **konfiantza**-gizona. Txillardegi

Ikertzeari emaniko **«konfiantza** boto» gisa. Berria - Gaiak

**4** ***konfiantzako*** (*79 agerraldi, 25 liburu eta 34 artikulutan*) *izlag* ik beherago **6.**

Mediara joateko, berriz, bila ezazu **konfiantzako** lagun bat. Jose Antonio Mujika

Haren laguna, ordea, **konfiantzako** gizona da, guretarra. Jose Antonio Mujika

Enbaxadorearen **konfiantzako** gizona. Edorta Jimenez

Administratzailearen bulegoko zerbitzari **konfiantzako** batek. Xabier Olarra

-Lasai, Iñaki, ni ere euskalduna nauk, **konfiantzakoa..**. Koldo Izagirre

Hiri osoan ez lagunik ez **konfiantzakorik** ez neukala. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni ikustera etortzeko eskatu nion, eta nire **konfiantzako** bihurtu nuen. Edorta Jimenez

**5** ***konfiantzan*** *adlag*

**Konfiantzan** hitz egiteko era bat asmatzen ari garela geure artean. Iñaki Segurola

**Konfiantzan,** ezaupidean eta adiskidantzan pertsonen arteko tratua erraztu egiten da, samurtu. Iñaki Segurola

Aurrez eginak zituen, **konfiantzan** esan zidanez, nik han sarbide izateko egin beharrekoak. Juan Garzia

-Bainan mintza daitekeia **konfiantxan,** salatariirik gabe? Marzel Etxehandi

-Hara, Galileo, nik hiri, hemen **konfiantzan,** nahitasun handia diat. Juan Garzia

**6** ***konfiantzazko*** (*155 agerraldi, 52 liburu eta 49 artikulutan*) *izlag* ik gorago **4.**

**Konfiantzazko** bezeroak baino ez ditut hartzen etxean... Ibon Uribarri

Bidelaguna **konfiantzazko** gizona du, gure herritarra. Elizen arteko biblia

Janizari egin zen, agintari turkoen **konfiantzazko** soldadu alegia. Felipe Juaristi

**Konfiantzazko** sendagile batengana joan. Josu Zabaleta

Nire **konfiantzazko** laguna izatea gustatuko litzaioke. Josu Zabaleta

Inoiz ez dugu **konfiantzazko** traturik izan. Anjel Lertxundi

Hiruzpalau lagun **konfiantzazko** geratu arte itxaroten zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bidali, bada, zeure **konfiantzazko** norbait. Elizen arteko biblia

Lonstein zen, Zuzendaritza Batzordekoen artean, nire erabateko **konfiantzazko** bakarra. Jon Alonso

**7** ***konfiantza izan*** du *ad*

**Izan konfiantza** niregan eta ni saiatuko naiz auzi hau konpontzen. Patxi Zubizarreta

Baina nik, Jauna, zuregan **dut konfiantza**. Elizen arteko biblia

Bai, Jaunarengan du erregeak **konfiantza**. Elizen arteko biblia

Itxura irribarretsua eta apala izanagatik ere, berebiziko **konfiantza zuen** bere buruan. Josu Zabaleta

**Konfiantza diedalako** hi bezalako zaldi zaurituei. Hasier Etxeberria

Nahiko **konfiantza bagenuen** elkarren artean. Bernardo Atxaga

Berak **konfiantza zion** gizon bakarra Armin izeneko agure bat izan omen zen. Joxe Austin Arrieta

· Auzi-egunerako guk **konfiantza** osoa **dugula**. Elizen arteko biblia

Hori izan zen Margari kontatu nion istorioa, erabat sinesgarria zugan gutxieneko **konfiantza duen** norbaitentzat. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako kontsumitzaileen konfiantza** (6); **alemaniako enpresaburuen konfiantza** (7); **aurkako konfiantza** (4); **behar duen konfiantza** (4); **bere buruarekiko konfiantza** (7); **elkarrekiko konfiantza** (5); **elkarren arteko konfiantza** (4); **elkarrenganako konfiantza** (4); **enpresaburuen konfiantza** (10); **entrenatzailearen konfiantza** (13); **erabateko konfiantza** (14); **galdutako konfiantza** (4); **gehiegizko konfiantza** (23); **gehiegizko konfiantza izan** (5); **gizartearen konfiantza** (4); **herritarren konfiantza** (9); **izan konfiantza** (11); **izan konfiantza jaunarengan** (4); **jendearen konfiantza** (6); **konfiantza agertu** (9); **konfiantza aldetik** (4); **konfiantza apur bat** (8); **konfiantza behar** (11); **konfiantza bereganatu** (4); **konfiantza berreskuratu** (15); **konfiantza berreskuratzea** (10); **konfiantza berreskuratzeko** (22); **konfiantza berreskuratzen** (8); **konfiantza berretsi** (6); **konfiantza daukat** (7); **konfiantza dut** (23); **konfiantza eduki** (9); **konfiantza edukitzeko** (4); **konfiantza egin** (5); **konfiantza egiten** (6); **konfiantza eman** (43); **konfiantza eman zidan** (4); **konfiantza emango** (11); **konfiantza ematen** (43); **konfiantza eskasa** (5); **konfiantza eta lasaitasuna** (4); **konfiantza eta ziurtasuna** (11); **konfiantza eza** (11); **konfiantza falta** (32); **konfiantza galdea** (6); **konfiantza galdu** (33); **konfiantza galduta** (4); **konfiantza galtzea** (4); **konfiantza galtzen** (8); **konfiantza gehiago** (17); **konfiantza gehiagorekin** (10); **konfiantza gehiegi** (13); **konfiantza giroa** (13); **konfiantza giroan** (6); **konfiantza gutxi** (12); **konfiantza gutxirekin** (4); **konfiantza handia** (86); **konfiantza handia eman** (7); **konfiantza handia ematen** (8); **konfiantza handia hartu** (7); **konfiantza handiagoa** (27); **konfiantza handiagoarekin** (4); **konfiantza handiagoz** (5); **konfiantza handiarekin** (15); **konfiantza handirik** (21); **konfiantza handirik ez** (4); **konfiantza handiz** (15); **konfiantza hartu** (30); **konfiantza hartzea** (4); **konfiantza hartzeko** (24); **konfiantza hartzen** (17); **konfiantza indizea** (4); **konfiantza indizeak** (6); **konfiantza indizearen** (4); **konfiantza irabazi** (6); **konfiantza irabaztea** (4); **konfiantza irabazteko** (6); **konfiantza itsua** (9); **konfiantza itzuli** (4); **konfiantza izan** (34); **konfiantza izango** (7); **konfiantza izatea** (16); **konfiantza izateko** (14); **konfiantza izateko eskatu** (4); **konfiantza izaten** (10); **konfiantza jaunagan** (6); **konfiantza jaunarengan** (8); **konfiantza kendu** (8); **konfiantza kontua** (8); **konfiantza kontua da** (5); **konfiantza lortu** (8); **konfiantza lortzeko** (4); **konfiantza mozioa** (6); **konfiantza neurtzen** (4); **konfiantza osoa** (130); **konfiantza osoa eman** (5); **konfiantza osoa ematen** (4); **konfiantza osoa izan** (5); **konfiantza osoko** (7); **konfiantza osokoa** (6); **konfiantza osoz** (29); **konfiantza sortzen** (4); **kontsumitzaileen konfiantza** (14); **lasaitasuna eta konfiantza** (6); **zuregan dut konfiantza** (6)

**konfiantzako abokatuak** (4); **konfiantzako gizona** (5)

**konfiantzaren zati bat** (4)

**kontsumitzaileen konfiantzari** (4)

**gehiegizko konfiantzarik** (4); **inolako konfiantzarik** (9); **konfiantzarik ematen** (4); **konfiantzarik eza** (9)

**konfiantzaz beterik** (7); **konfiantzaz gainezka** (9); **konfiantzaz lepo** (4)

**konfiantzazko abokatuak** (4); **konfiantzazko abokatuarekin** (6); **konfiantzazko abokatuari** (4); **konfiantzazko bezeroak** (5); **konfiantzazko gizona** (6); **konfiantzazko lagun** (4); **konfiantzazko laguna** (5); **konfiantzazko mediku** (4); **konfiantzazko pertsona** (7)

**konfidantza handia** (4)

**konfiantzatsu** *izond* konfiantzaz betea.

Plastikoki itxura guztiz egituratu, ia geometriko batean mamitzen den baieztapen **konfiantzatsu** eta abenturazale batean du sustraia. Josu Zabaleta

---

konfiantzia ik **konfiantza**.

---

**konfiatu**, konfia, konfiatzen *(orobat* **konfidatu** *g.er.)* **1** da *ad* fidatu, uste osoa izan.

Ezin zarete **konfiatu** ezta? Berria - Kirola

Eurak oso **konfidatuta** daude eta ez dut uste arazorik izango dugunik irabazteko.

Nire ustez **konfiatuegi** aritu ginen. Berria - Kirola

• **2** du *ad* gomendio utzi.

Ez baita, alabaina, bere ar ofizioa hastetik buru ederki bete ez dezakeenari emazterik **konfiatzen**. Daniel Landart

---

konfidantxa ik **konfiantza**.

---

konfidantza ik **konfiantza**.

---

konfidatu ik **konfiatu**.

---

konfident ik **konfidente**.

---

**konfidente** *(orobat* **konfident** *g.er.)* **1** *iz* konfiantzazko laguna.

Bataren edo bestearen ilusio edo kezken **konfident** nintzen baina orokortasun batzuk eskaintzen nien mintzatzen zitzaizkidanei. Piarres Aintziart

Asistenta narras, zakar eta axolagabe bat maritxuaren **konfidente** izatea. Xabier Mendiguren Elizegi

1816an ahalguztiduna izatera ailegatu zen, Angulemako dukesaren **konfidente** bakarra alegia. Monika Etxebarria

**2** isilmandataria.

Intxaurrondon torturatuta hil zutela adierazi zuten hainbat lekukok, hala nola Angel Lopez Carrillo poliziak, Vicente Soria guardia zibilak eta Pedro Luis Migueliz Txofo **konfidenteak**. Berria - Euskal Herria

Lehergailuen hornitzaileen kontua, adibidez, Rafa Zouhier **konfiudenteak** azaldu zion Del Burgori, honek espetxera bidali zion galdetegi polemikoari erantzutean: […]. Berria - Harian

Ez zaizue burutik pasa haiek satorra zulotik ateratzen ikusi eta bere arrastoa jarraitu ondoren **konfidentea** zela deskubritu, Alargun Beltzari amua irentsarazi eta informazio okerra pasarazi ondoren desagerrarazi dutenik? Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan)

Ez al zen guretzat **konfidente** lanean ari? Harkaitz Cano

---

**konfidentzia** **1** *iz* isilmandatua.

Ardoaren berotan **konfidentzia** batzuk egin eta gero. Patxi Zubizarreta

Inori eginiko lehenengo aitortza horrek, gure lagunartea indartuko zuelakoan esan diot hori guztia, **konfidentziak** hurbilagotuko gintuelakoan, baina ez dit jaramonik egin. Hasier Etxeberria

Lagunen **konfidentziak** entzuteko irrikaz egoten nintzen. Ana Urkiza

Santuaren **konfidentzia** jaso zuen laguna. Askoren artean

Pozaren arrazoia agertzeko, idazle batek sekula egin behar ez omen lukeen **konfidentzia** xume horietako bat egin nion orduan Patxiri eta egingo diot orain irakurleari: [...]. Anjel Lertxundi

**Konfidentzia** asko egin zioten elkarri. Iban Zaldua

Beren existentziaren **konfidentzia** doilorra egiten zioten elkarri. Monika Etxebarria

Egin dizkiodan **konfidentziez** damu dut gaur. Piarres Aintziart

**2** (hitz elkartuetan)

Pentsatu nuen hitz haiek ez zirela hasiera besterik, eta hobe nuela zuhur jokatzea**konfidentzia**-giroa hondatu gabe. Anjel Lertxundi

Ez da **konfidentzia** olde bat izan, edonola ere. Josu Zabaleta

· Maitasun **konfidentziak**. Joxemari Iturralde

---

**konfidentzial** *izond* isilpekoa, isilmandatuzkoa.

Atxiki ezak gogoan informatzaile **konfidentziala** naizela, aditu? Aingeru Epaltza

Bere txostenak **konfidentzialak** dira. Berria - Harian

Nik informazio **konfidentziala** lantzen diat, badakik. Aingeru Epaltza

Iturri **konfidentzialen** arabera. Edorta Jimenez

Itxuraz arrantzan baina misio **konfidentzialean** ziharduela. Edorta Jimenez

Berak tonu lasaia hartu zuen, **konfidentziala:** "Gauza bat esan behar didak aurrena, David". Bernardo Atxaga

Medikuaren eta bezeroaren artekoak **konfidentziala** izan behar du. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
informazio konfidentziala (7)

**konfidentzialki** *adlag* era konfidentzialean.

Eta pertsona zuhurra nintzela agerian zegoelako, **konfidentzialki** esan zidan bazirudiela emanazioek kalte egiten zietela langileei. Ramon Saizarbitoria

[...] -dio Ferminek **konfidentzialki** niregana etorrita-. Pako Aristi

**konfidetzialtasun** *izond* konfidentziala denaren nolakotasuna.

**Konfidentzialtasuna** beharrezkotzat jotzen du atxilotuak bisitatzen eta haiekin elkarrizketatzen jarraitu ahal izateko. Berria - Mundua

EAEn bizi-testamentua ez da zuzenean gaixoaren txosten medikoan sartzen, **konfidentzialtasuna** babesteko, Saralegik azaldu zuenez. Berria - Euskal Herria

Psikologook **konfidentzialtasuna** gorde beharra daukagu. Berria - Euskal Herria

**Konfidentzialtasuna** bermatu nahi delako Berria - Harian

konfientxia ik **konfiantza**.

konfientzia ik **konfiantza**.

**konfiguratu**, konfigura, konfiguratzen **1** du *ad* itxuratu, taxutu.

Euskal unibertsitate sarea **konfiguratzeko** pausoak eman beharko lituzke errektore berriak, Berria - Euskal Herria

**2** informatikan, sistemako elementu bat edo batzuek, espero den bezala funtzionatzeko eran konektatu.

Beste ohiko kexa bat sakelako telefonoarekin gertatzen da, ez baitago modurik telefono horiek euskaraz **konfiguratzeko**. Eta **konfiguratu** egin nuen, programa txiki bat aldi bakoitzean. Karlos Zabala

**konfiguratzaile** *iz* konfiguratzen duena, itxuratzailea, taxutzailea.

Munduaren **konfiguratzaile** nagusia den jarduera zientifiko-teknologikoak konfigurazioaren zentzua praktikoki, de facto, inposatzen du, konfigurazio hori halabeharrezko ondorio gisa aurkeztuz. Berria - Gaiak

**konfigurazio** **1** *iz* itxuraketa, taxuketa.

Estatuaren **konfigurazio** berri baterantz. Berria - Kultura

Elementu horiek [airea, sua, lurra eta ura] elkarrekin koherentzian osatuz, berezko **konfigurazioaren** arabera, ezaugarri guztiak ematen dituztela espezieen arteko bereizketen arabera osatuz. Santiago Iruretagoiena

Liburuak espazioaren sailak dira, bolumen oinarrikoak edo materiaren **konfigurazio** posiblea eragiten duten moduluak. Anjel Lertxundi

Barne oroimenik gabeko gizabanakoak, hau da, **konfigurazio** psikologiko egonkorrik gabeko gizabanakoak, prestatzeko arriskua. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Planeten **konfigurazioa** iraunkorra ez bada (eta orbitak gurutzatzen badute) horrelako egoera ezhoikoak izango direla. Berria - Gaiak

Nire zerebroa aztertu ahal izango duzue horrela, nire lobuloen **konfigurazioa,** zelako asasinoa naizen ikusteko. Koldo Izagirre

Adierazgarritasun-elementuen zerrenda ez da luze-luzea, berez, baina aise ikusten da haiek konbinatuz era daitezkeen **konfigurazioen** kopurua ia infinitua dela. Josu Zabaleta

Batzuek testu baten barruko **konfigurazioa** definitzen dute, beste batzuek testu ezberdinen arteko harreman eta interferentzia moduak. Xabier Arregi

**2** (filosofian)

1930eko hamarkadan antropologo konfigurazionistek (Edward Sapir, Ruth Benedict eta Margaret Mead-ek) idealismoaren *Volksgeist* kontzeptuari ***konfigurazioa*** deitu zioten. Askoren artean

**3** (informatikan) informatika sistema bat osatzen duten unitate elkarri kontektatuen multzoa.

Beste kasu batzuetan, ordenagailuaren **konfigurazioak** aldarazten dituzte eta, hortaz, sarera konektatzerakoan kostu altuko lotura baten bidez egiten du. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan)

Atzo goizean **konfigurazio** aldeketekin asmatu eta Juan Pablo Montoyak konfiantza hartu zuen autoarekin. Berria - Kirola

· Interpositibotasun **konfigurazio** bat ez da auzokoak diren diziplinen multzoa. Xabier Arregi

**konfigurazionismo** *iz*

Teoria partikularistetan **(konfigurazionismoan** bezala), kultura bakoitzaren ezaugarri bereziak ikertzen dira, baita ezaugarrien irudikapenak ere. Askoren artean

**konfigurazionista** *izond*

1930eko hamarkadan antropologo **konfigurazionistek** (Edward Sapir, Ruth Benedict eta Margaret Mead-ek) idealismoaren *Volksgeist* kontzeptuari *konfigurazioa* deitu zioten. Askoren artean

**konfinamendu** **1** *iz* konfinatzea.

Atxiloketak, epaiketak, **konfinamendu** eta deportazioak, inoiz eten ez baziren ere, indarberritu egingo dira 1983an GAL agertu ondoren. Jokin Urain

1930ean kondenatu zuten, hogei urteko kartzela-zigorra, baina bederatzi kendu eta **konfinamendura** bidali zuten. Fernando Rey

Kartzelatua, eta gero Lipariko **konfinamendura** bidalia Turatiren ihesean parte hartzeagatik. Fernando Rey

Leone eta biok **konfinamenduan** bizi ginenean, Abruzzon, gure amak oso gustukoa zuen gu ikustera etortzea. Fernando Rey

Alberto iparralderagoko beste **konfinamendu** batera eraman zuten. Fernando Rey

Egun batzuetarako baimenarekin etorri ginen **konfinamendutik**. Fernando Rey

**Konfinamenduan** jar zezaketen edozeren aitzakian. Fernando Rey

Auzibide bat ireki dute haren aurka, 1993an ezarri zioten **konfinamendua** hausteagatik. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

1962an deportazio eta **konfinamendu** politikari ekin zioten agintari frantziarrek Jokin Urain

---

**konfinatu,** konfina, konfinatzen du **1** *ad* norbait leku edo eremu jakin batean egotera behartu.

Perpinyá inguruko hondartzetan **konfinatu** gintuzten hasiera batean. Jokin Urain

Alberto Ferrandina izeneko herrian **konfinatu** zuten, Lucanian. Fernando Rey

Atzemandako iheslariak kartzelatu, **konfinatu** edo deportatu egiten zituzten eskuarki. Jokin Urain

Sei iheslari Yeu uhartean **konfinatu** zituzten. Jokin Urain

**Konfinaturik** nagoen uharte honetako nire deportatu izaerari dagokiona zuengana helarazteko. Jokin Urain

Zortzi urte egin nituen kartzelan, eta urte eta erdi **konfinaturik** . Berria - Kultura

Atzerrira atera zutelako Siberian **konfinatutakoen** eta soldaduskan zeuden atzerritar guztien dirua. Iñaki Iñurrieta

**2** (era burutua izen gisa)

Herrian **konfinatuei** eta herritarrei eman ohi zitzaizkien goitizenak ikasi zituen. Fernando Rey

Gainerako **konfinatuak** preso hartu zituzten eta, eskuburdinak jarrita eta kamioi batera sartuta, errepideko hautsen artean desagertu ziren. Fernando Rey

**Konfinatu** guztiok horrela ibiltzen ginen -kalean gora eta behera-. Fernando Rey

---

**konfinatze** *iz* norbait leku edo eremu jakin batean egotera behartzea.

Horrez gain, sistema honek lurrin leherketa handiak ekar ditzake, **konfinatze** gela zartatzeko modukoak. Berria - Gaiak

---

**konfirmante** *iz* sendotza hartu duen pertsona.

Larunbatean, Martxoaren 19an, **Konfirmanten** elgarretaratzea, hau ere Kanbon goizeko 9etarik 12ak arte. Herria

---

**konfirmatu,** konfirma, konfirmatzen **1** du *ad* berretsi, baieztatu.

"Bai, iturri bat", **konfirmatu** nion nik. Iban Zaldua

Autopsiak **konfirmatu** zuenez. Iban Zaldua

Positiboa **konfirmatuko** balitz, segituan jakinaraziko genuke. Berria - Kirola

Kasu honetan torturak izan direla **konfirmatzen** bada. Jokin Urain

Segituan deituko dizut **konfirmatzeko** . Bernardo Atxaga

Hirugarren testigantzak, berriz, salaketak **konfirmatu** zituen. Berria - Euskal Herria

Etxeberi zutabearen ardura kentzeko erabakia hartua zutela **konfirmatu** zidaten. Iban Zaldua

Egiaren bila abiatu baino, bere egia estetikoa **konfirmatuko** dioten iritzien eta adibideen bila ari da. Anjel Lertxundi

• **2** du/da *ad* sendotza eman; sendotza hartu.

Eliza bete-betean, Dominixe Errekarte, apezpikuaren ordainak, gutarteko 50 haurño **konfirmatu** ditu. Herria

Jean Elissagaray Donapaleuko erretorak ditu haur horiek **konfirmatu,** zazpi apez zauzkala inguruan. Herria

39 gazte **konfirmatuak** izan dira. Herria

Bertzalde elgarretaratze bat ere izanen da 2003 eta 2004ean **konfirmatu** diren gazteentzat, apirilaren 17an igandearekin Betharramen. Herria

**3** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Talde **konfirmatuentzat** zein hasiberrientzat. Berria - Kultura

Hendaiako *Haize Egoa* taldeko pintore amateur **konfirmatuenek** . Berria - Kultura

Jendartean zabaldu baitzen, nabarmen, emakume bakarti hark, puta **konfirmatua** izan gabe, haragi-tratuak izan zituela graduaziorik gabeko soldaduekin. Jon Alonso

Haur guziak gomit dira **konfirmatuak** barne. Herria

---

**konfirmatze** *iz* sendotza hartzea. ik **konfirmazio 2.**

Mendekoste-kari aldiz, eliza-langile eta bereziki katixima erakasleen eguna, bai eta hogoita-hamar lagun gazte eta helduen **konfirmatzea** . Herria

**Konfirmatze** egunean, apezpikuaren zuzendaritzapean, urteko gurutzetxo guztiak hilerrian dagoen marmolezko hobi txikian sartzen ziren. Itxaro Borda

---

**konfirmatzeke** *adlag* konfirmatu gabe.

Hirugarrena ustezko kasutzat jo zuen atzo, **konfirmatzeke** . Berria - Gaiak

---

**konfirmazio 1** *iz* berrespena, baieztapena.

Nire ibilera haiek egiten nituen tokitik oso hurbil egon behar zuen ongarritegi hark, eta horrelaxe egin nuen nik **konfirmazioa,** elizara joan gabe. Pello Lizarralde

Kurt?, galdetu nuen gau hartan bigarren aldiz, behar--beharrezkoa bainuen bistakoa zenaren **konfirmazioa** . Anjel Lertxundi

Pierra eta Melinda galdu nituelako berriaren **konfirmazioa** hortz artean hartu nuen brauki. Itxaro Borda

**2** *(orobat **konfirmazione**)* sendotza.

Niri, 7-8 urte nituela eman zidaten **konfirmazio** hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Apezpikuaren **konfirmazio** eguneko bisita. Itxaro Borda

Hori esan zidan behintzat aspalditxo **konfirmazioak** emanez hemendik pasatu zen obispoak. Juan Garzia

Iragan igandean Irisarrin eman izan da **konfirmazioneko** sakramendua 43 gazteri. Herria

**Konfirmazionea** laister izanen dugu Iholdiko elizan. Herria

**Konfirmazionearen** prestatzen ari diren gaztetxoak ere hor ziren.

Komunione ttipi eta **konfirmazione** . Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

konfirmazionea eginen (3)

konfirmazioneko sakramendua (7)

konfirmazione ik **konfirmazio**.

## **konfiskapen** *iz* konfiskatzea.

Prokuradoreak eskatu ditu: bi hilabete presondegi sursiarekin, 250 Euroko isuna eta *Nic La police* idatzia zeraman jantziaren **konfiskapena**. Herria

## **konfiskatu**, konfiska, konfiskatzen **1** du *ad* agintariek norbaiti zerbait legez kendu.

Hildakoaren ondasunak **konfiskatu** egiten dira, zuzenbidez jabeak diren bizidunen eskuetatik kentzen dira, alegia. Juan Martin Elexpuru

Ingelesen Gutun Nagusiak debekatu egiten du gerra izanez gero atzerriko merkatarien salerosgaiak bahitzea edo **konfiskatzea,** errepresaliengatik ez bada. Iñaki Iñurrieta

Den-dena lapurtua zegoen edo **konfiskatua,** bai herrietan, bai posta etxeetan. Karlos Zabala

Gure lurretan eraikitzen ari dira, gure lurrak **konfiskatuz,** herritarrak banatuz... Berria - Mundua

Frankistak lapur handiak ziren, etxebizitza bat **konfiskatu** zieten izebei anaia EAJkoa zelako. Mikel Hernandez Abaitua

Kristautzen ziren judutar guztien ondasunak **konfiskatzea**. Iñaki Iñurrieta

900 kilo kokaina **konfiskatu** dituzte Bilboko portuan. Berria - Euskal Herria

Atxiloketez gain, 318 CD pirata **konfiskatu** ditu Guardia Zibilak. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Umeek, era berean, beren hipermerkatu **konfiskatuetatik** bizikletak atera zituzten kalera, ehunka bizikleta. Karlos Linazasoro

Seguru lurrok, kristauei eta koroari bizkar ematen zien bardoren baten lur **konfiskatuak** zirela. Patziku Perurena

## **konfiskatze** *iz* agintariek norbaiti zerbait legez kentzea.

Hitzaldian […] «alproja handitzat» jo zuen Chavezek George Bush, eta publikoki inperioaren gerra, blokeo eta **konfiskatze** egoerak eztabaidatu zituen. Berria - Mundua

## **konfiskazio** **1** *iz* konfiskatzea. ik **dekomisio**.

Andres Soliz Erregai ministroak nazionalizazioa ez dela **konfiskazioa** nabarmendu zuen atzo: **«Konfiskazioa** gurea ez den zerbait eskuratzea da, baina guk ez dugu ezer konfiskatu; izan ere, ez dugu ezer lapurtu». Berria - Mundua

Hala ere, ez zuen enpresa hauen desjabetzea eta **konfiskazioa** eskatu. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Garraio-gastuak eta **konfiskazio**-arriskuak direla eta. Iñaki Iñurrieta

Ez da funtsezko aldaketarik izango **konfiskazio,** hilketa, askatasun lapurreta eta Zisjordanian apartheid hesia eraikitzeko politika sionistan. Berria - Mundua

## **konfitatu** *izond* azukrezatatua, melatua.

Lizun usain pixka bat zegoen etxe osoan, geletan, eskaileran, eta baita usain gozoegi bat ere, fruta **konfitatuarena**. Xabier Olarra

## **konfite** *(orobat* ***konpitte*** *g.er. eta* ***konpit*** *g.er.)* **1** *iz* goxoki txikia.

Hau bai, hau ez; arrosak bai, geranioak ez; **konfiteak** bai, astoak ez. Bernardo Atxaga

**Konpitte** edo beste goxoki klase asko, Erdi Arorako ba omen zen gurean, batez ere errege eta jauntxo aberatsen otorduetan. Patziku Perurena

**2** *irud*

"Euskaraz idaztea munduan eta literaturan egoteko nire modua da" eta horrelako **konfiteak** eskainiz. Bernardo Atxaga

## **konfiteria** *(orobat* ***konfiteri****)* *iz* goxoki denda.

Egundaino ezagutzen den **konfiteriko** liburu rik zaharrena. Patziku Perurena

## **konfiteritza** *iz* goxokiak egitea.

Fernando Serranok XVII. mendeko **konfiteritzaz** hala dio: […]. Patziku Perurena

## **konfitero** *(orobat* ***konfiteru****)* *iz* gozogilea.

Herrian bertan ofiziokorik ez bazen, kanpotik etorriko zen **konfiteroa**. Patziku Perurena

Urte batean gozogilearekin egokitu eta joan den mendeko **konfiteroen** langintza azaldu zidan. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> argizarigileak eta konfiteroak (3)

konfiteru ik **konfiteru**.

## **konfitura** *iz* fruitu konfitatua. ik **marmelada.**

Etxekoandrea gelatik irten zen, platertxo gehiago **konfituraz** betetzera. Jose Morales

**Konfituren** eta luzoker ozpinduen ontzien erdi-erdian. Josu Zabaleta

Hain ziren samurrak, non haragi gordinek **konfituraren** tonu arrosa hartzen baitzuten. Karlos Zabala

**2** *irud*

-Badakit, bai, haxixa, opioa, **konfitura** berdea, paradisu artifizialak. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Intelektualak gorderik edukitzen dira, **konfitura** poteak bezala, Propagandaren apaletan, gerra ondoren jateko... Josu Zabaleta

Ogi errea ahabi **konfiturarekin**. Eider Rodriguez

Itsaskien salda apartsua, tomate **konfiturazko** ohantze baten gainean. Edorta Agirre

Katiluaren ondoan, hiruzpalau ogi-xerra txigortu berri, gerezi-**konfituraz**. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gasna irensten zuten apezek, behatz gotorrak gerezi **konfitura** ontzian deblauki sartuz. Itxaro Borda

---

## konfliktibo 1 *izond* gatazkatsua.

Mutil **konfliktiboak** dira, oso ondo zaindu behar dira, eta horrelako egoera batek askoz gehiago eragiten die. Berria - Ekonomia

Borondate **konfliktiboa** izanik ere. Jon Alonso

**2** korapilatsua.

Baziren nolabait **konfliktiboak** izan zitezkeen puntu batzuk. Berria - Harian

---

## konflikto *(23 agerraldi, 4 liburu eta 5 artikulutan; orobat* ***konfliktu*** *3 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan; cf* ***gatazka*** *5297 agerraldi, 125 liburu eta 2146 artikultan)* **1** *iz* gatazka.

Zeren gurean **konflikto** biolentoa akzidente historiko bat da eta **konflikto** politikoa, ordea, beste akzidente historiko bat izanda ere, gatazka politikoaren konstantea da. Berria - Euskal Herria

Gurean ez omen da **"konflikto** politikorik". Hasier Etxeberria

Ez nuen nahi haur denborako oroitzapen leunak gero piztuko ziren **konfliktuek** desarranjatu zitzaten. Piarres Aintziart

Balio eta arrazoien arteko **konfliktoan** erabakitzeko. Joxe Azurmendi

Hots, zein da obraren **konflikto** dramatikoa? Berria - Kultura

Oraindik puri-purian eta enpaztu gabe daukagun **konfliktoaren** zauria garbitzen-edo saiatu dela. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

**Konflikto** kasuetan, biolentzia gabeko soluzioa izango da etikoena. Joxe Azurmendi

FDSEA-ko **konflikto** batzorde burua. Herria

---

konfliktu ik **konflikto**.

---

## konfluentzia 1 *iz* elkargunea.

Hiria ez liteke kriketago paratzen ahal, muino berdeen erdian, Aturri eta Errobi ibaien **konfluentzian**. Koldo Izagirre

**2** bat egitea.

**Konfluentziak** bilatzen genituen, Joseba Sarrionandia

---

## konformabera *izond* konformaerraza.

Normalean **konformabera** zen gizon baten eskaera premiazko eta erabat absurduek. Jon Alonso

---

## konformaerraz *izond* erraz konformatzen dena.

**Konformaerraza** naiz ni neurez, eta ez nion sekula trabarik ipintzen hark erabakitakoari. Pedro Alberdi

Izaeraz alai eta **konformaerraza** izanik, ez zuen batere zailtasunik lagunak egiteko. Felipe Juaristi

Izaki **konformaerrazak** direla sugeak, elkarbizitzarako arazorik gabekoak. Unai Elorriaga

---

## konformagaitz *izond* erraz konformatzen ez dena, konformatzen zaila.

Ez du ezer uzten platerean, ez da **konformagaitza**. Josu Zabaleta

Eta unibertsitario **konformagaitzak,** bihar, burges ondratuak bihurtuko zirela. Koldo Izagirre

Bide berriak ireki zituen artista **gazte** konformagaitzen artean. Berria - Kultura

-Bai, ametsa! eta joan nahi dut!- **konformagaitzaren** apetaz dio ozenki neskatilak. Jose Angel Irigaray

**Konformagaitza** da Saiz, erronkazalea, hobetzeko helburuari mugarik jartzen ez diona. Berria - Kirola

---

## konformarazi, konformaraz, konformarazten du *ad* konformatzera behartu. ik **konformatu 2**.

Frantzia osoa gobernatzeko Petain marexalaren grina zapuztu eta Frantzia alemaniarrena dela hari ulertarazi ondoren, ohorezko aginpide hutsarekin **konformaraztea**? Harkaitz Cano

---

## konformatu, konforma, konformatzen 1 da *ad* askitzat hartzen ez denarekin edo nahi dena betetzen ez duenarekin etsi edo amore eman.

Ni, aldiz, zira bustia eranztearekin **konformatu** nintzen. Juan Luis Zabala

Eustearekin **konformatu** zen, eta eutsi eta eutsi, kolpe latza jaso zuen 92. minutuan. Berria - Kirola

Gutxi nahiz asko, **konformatu** daukazunarekin. Elizen arteko biblia

Mirenek gora begiratzen zuen, ez zen lanpostu duin batekin **konformatzen,** ez horixe, bere balioaz jabetzen baitzen. Migel Angel Mintegi

Dussel datorrenean, nire gelan lo egin beharko du, Margoten ohean, eta hark kamainarekin **konformatu** beharko du. Josu Zabaleta

Beste 3.000 milioi pertsonak bi eurorekin **konformatu** behar dute. Txema Ramirez de la Piscina

Bizkitartean kafearekin **konformatu** beharko. Migel Angel Mintegi

Gutxirekin **konformatzeko** erraztasuna. Patxi Zubizarreta

Han-hemen eskean biltzen zituzten arbiekin **konformatu** behar izaten zuten gosea arintzeko. Askoren artean

**Konformatu** egiten dira, eta sufritu egiten dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Elkarrekin **konformatu** beharra zaukaagu biok ere. Juan Luis Zabala

"Ume honi amonarenak bezalako begi tristeak atera zaizkio" esanez **konformatu** zinelako. Eider Rodriguez

Ez-egiteko hori egitean bere burua jainkotzen zuela, xomorro izanez **konformatu** ezinik. Iñaki Segurola

Puta normalekin **konformatu** ezin. Hasier Etxeberria

• **2** du *ad* konformarazi.

Horrek **konformatu** egin zituen. Koldo Izagirre

Azkenerako, behintzat, Romanekin, Sabigainen gelditzeko **konformatu** nuen. Inazio Mujika Iraola

---

## konformatze *iz* askitzat hartzen ez denarekin edo nahi dena betetzen ez duenarekin etsitzea edo amore ematea. ik **konformazio.**

Hi oso **konformatze** errazekoa haiz, Dodov. Karlos Linazasoro

---

## konformazio *iz* konformatzea.

Hala ere, **konformazio** errazekoa dena ez da noski goseak hiltzen, zeren eta iparraldeko itsasertza urtean bost hilabetez fokaz pil-pil jartzen da, eta hegoaldeko bi uhartetxoak kaio-habiaz beterik daude: txalupatxo bat hartu besterik ez dago, eta nahi adina arrautza aurkitzen du han batek. Juan Garzia

---

## konforme *(orobat **konprome** g.er.)* **1** *adlag* norbaitek, konformatzen dela adierazteko erabiltzen duen hitza.

**-Konforme** -esan zion azkenean zakar-. Iñaki Mendiguren

Jaunak esan zion: **-konforme**! heure esku duk, baina errespeta iezaiok bizia. Elizen arteko biblia

**-Konforme** -erantzun zion Harryk, deseroso samar. Iñaki Mendiguren

**-Konforme,** orduan... -esan zion Lupinek-. Iñaki Mendiguren

**Konforme:** heu izango haiz nagusi. Inazio Mujika Iraola

**-Konforme,** polit hori, txarrean nahi badun, txarrean. Patxi Iturritegi

-Llum, Joana astoa baino astoagoa dun, **konforme,** baina arrazoi din. Antton Olano

Bale, bale, **konforme,** nahikoa da. Xabier Mendiguren Elizegi

-Berrogei, **konforme** -esan zuen gizonak. Koro Navarro

Aitak esan zion, **konforme,** hurrengo egunean joango zela, egin beharra zegoen-eta. Koro Navarro

Tira, ba... **konforme**. Iñaki Mendiguren

Heuk ere hitz egingo duk: **konforme** horretan ere. Inazio Mujika Iraola

**Konforme**? Fernando Rey

Bueno, berak niri esplikatzen didan bezala esplikatuko dizut, **konforme**? Antton Olano

Nahi dudan moduan jantziko naiz, bai kalean bai oholtzan, **konforme**? Unai Iturriaga

Ez dago beste modurik, bihar eguerdian, ongi iruditzen bazaizu, **konforme,** bihar arte. Jon Alonso

**2** *adlag/pred* konformaturik, ados.

Eta **konforme** ez bazaude, badakizu, kexatu sindikatuari. Patxi Iturritegi

Ez zegoen batere **konforme**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni ez nago, inola ere, **konforme,** eratu dugun hezkuntza-sistemarekin. Joxerra Garzia

Aldizka zerbait adieraziz erabat **konforme** ez zegoela agertzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero eta **konformeago** nengoen neure buruarekin. Anjel Lertxundi

Inor ez da **konforme** egokitu zaion zortearekin. eta, bukatzeko, kafearekin, urdaila **konforme** geldituko da. Jon Alonso

Maria Sara, Itxuraz, **konforme** gelditu zen erantzunarekin. Jon Alonso

Eta, izan ere, tristea da gero, **konforme** nator harekin, emakumeen ondra hankartean eramatea. Karlos Zabala

Jornalean ere **konforme** etorri ziren. Matías Mujika

Ni ez nenbilen oso-oso **konforme** nire ugazabarekin, ez zidan agindutako soldata eman nahi eta. Josu Zabaleta

Eta **konforme** horretan. Arantxa Iturbe

Baina hutsik uzten omen zieten errenta lehengusuei, eta horrenbestez **konforme**. Xabier Mendiguren Elizegi

Nola Jainkoak predestinatu gaituen bere semearen imajinaren **konforme** izateko. Aingeru Epaltza

**3** ***ez-konforme*** *izond*

Eta drogen ondotik hiesa etorri zen, sarraskia ekarri zuen madarikazioa; banan-banan garbitu zituen gazte deserrotuak eta ez-**konformeak,** politikaz etsia hartutakoak, utopia iraultzaileez nazkatuak. Juan Kruz Igerabide

---

## konformetasun *iz* konformitatea.

Baina Mariek, **konformetasun** itxura aditzera eman zuen arren, zurezko maleta zaharra soineko hoberenez eta gurasoen ezteietako erretratu nabar batez bete zuen gau batez, eta goizaldera, etxekoak oraindik lotan zirela, Baionara abiatu zen Iñaki Zabaleta

---

## konformidade *(**30** agerraldi, **13** liburu eta **2** artikulutan; orobat **konformitate** **6** agerraldi, **5** liburu eta artikulu **1**ean)* *iz* etsipena, etsi ona.

Nire **konformidade** horrek, ordea, bere onetik ateratzen zuen Ada. Anjel Lertxundi

Eta zoritxarretik aldenduko dituen ez-itauntze horri ez diote koldarkeria deitzen, **konformitatea** baizik. Pako Aristi

Hara zenbateko **konformidadeak** zapaltzen zuen gure laboraria. Pello Zabala

Zaharragoei, aukeratzeko aukerarik izan ez zutelako, eta hori dela eta guk ez bezalako **konformitatez** bizi izan direlako. Joxerra Garzia

Haiek beren gabeziak **konformidade** handiagoz eraman zitzaten. Lopez de Arana

Halako **konformitate** batean bizitzen. Pako Aristi

Aski dela zeure buruarekin **konformitate** bat lortzea, bizitzari ez gehiegi eskatzea, daukazuna maitatzea, mugak ezagutzea eta abar. Pako Aristi

Gurutzatuen ordezkariak badoaz, **konformidadean,** erregeari esatera baietz ba, Lisboa hartzen lagunduko diotela. Jon Alonso

---

## konformismo *iz*

**Konformismoa** lagun txarra da. **Konformismoa** da nagusi. Berria - Kirola

Burgesen **konformismo** ergelaren kontra. Karlos Zabala

Gure gizartean hain erroturik ditugun **konformismo** eta autoritarismoari aurre egiteko gomita. Txema Ramirez de la Piscina

**Konformismoa,** akademizismoa, espiritu burgesa eta autokritika eskasa. Berria - Kultura

Gizarteak bideratzen dituen moldeei aurre egiteko, **konformismo,** kontsumismo eta inkomunikazioaren atzaparretan ez erortzeko. Berria - Euskal Herria

Euskal **konformismo** ustelaz. Patziku Perurena

---

## konformista 1 *iz*

Pentsalari **konformistak** urduri jartzen dira... Askoren artean

Aktoreen lana are aipagarriagoa da eremu eszenikoaren estetika zeharo **konformista** ikusita. Berria - Kultura

Euskal literaturan idazle gehienak progresistak, aurrerakoiak eta iraultzaileak dira, baina gero literatura egiteko moduan oso **konformistak** eta kontserbadoreak dira. Berria - Kultura

Burgesegiak eta **konformistegiak** iruditzen zitzaizkion, ezkongaiak ziren eta ez ziren elkarrekin oheratzen. Joseba Urteaga

**2** ***ez-konformista*** *izond*

Bere ikuskera ez-**konformista**. Unai Elorriaga

---

## konfort *iz* ongizate eta erosotasun materiala.

Amerikak eskaintzeko daukana: **konforta,** munduko saneamendu-instalaziorik onena, *ready for use,* mundua Ezerez amerikar erara. Joxe Austin Arrieta

Organizazio hartako sozio guztiak [...], Mariah bezain posizio onekoak ziren, baina haietako inork ez bide zuen sumatzen inolako erlaziorik beren **konfortaren** eta inguratzen zituen munduaren dekadentziaren artean. Pablo Sastre

Kontent gainera hortxe gaudelako, aisian eta **konfortean**. Joxe Azurmendi

---

## konfortagarri *iz* bihotz-altxagarria; indarberritzailea.

Whiskyaren zapore **konfortagarria** suma zezakeen eztarrian, eta horrek baikortasunez bete zuen. Harkaitz Cano

---

## konfortatu, konforta, konfortatzen du *ad* bihotz eman, bihotza altxatu; sendotu, indarberritu.

Indarberriturik nonbait, orain Berlusgoñi liburu-saltzailea izan zen Txomin **konfortatzeko** arduratu zena: zer inporta du zergatik, non, norekin, nortzuk, nondik, nora, norantz, norentzat, norako, noiz eta nola hasi ginen... Jon Alonso

---

## konfrontatu, konfronta, konfrontatzen da/du *ad* aurrez aurre jarri.

Zientziaren Filosofiaren ikusmolde analitikoa beste gai eta ikuspegiekin **konfrontatzeko** beharra ikusten hasi denean. Askoren artean

Abarogabetza gorri horrek egia da problema askorekin **konfrontatzen** gaituela; eta problema horien birpasan datza funtsean Straussen kritika Max Weber-i. Joxe Azurmendi

Abertzaleek berriz lortzen balute batzea, bide bat irekiko luke abertzaletasunaren kontrakoekin adostasun bati buruz joateko? ala bi indar bat bestearen kontra **konfrontatuko** dira? Berria - Euskal Herria

---

## konfrontazio 1 *iz* aurrez aurrekoa.

Globalizazioak nortasuna indartzeko beharra sortu du jendearengan eta horrek **konfrontazioak** eragingo ditu. Berria - Gaiak

Ez da irtenbidea bilatzen ari, **konfrontazioa** baizik. Berria - Euskal Herria

Lau urteren buruan, akusatuen eta alde zibilaren artean **konfrontazio** zuzena izan zen. Berria - Mundua

Irango agintariek «mezua entzun eta **konfrontazioaren** bidea hartu ordez elkarlanarena» hartuko dutela. Berria - Mundua

Iraganean, **konfrontazioan** eta hausturan oinarritutako Ibarretxeren Plana. Berria - Euskal Herria

Herenegun zazpi gerrillari eta zortzi soldadu hil ziren **konfrontazioetan**.

Indarrezko harremanek, ez eskariaren eta eskaintzaren **konfrontazio** hipotetikoak, finkatzen dituzte zentroaren eta periferiaren arteko trukearen baldintzak. Koro Navarro

Osagai politikoak **konfrontazio** armatuaren gainetik daude orain. Berria - Harian

Hauteskundeetan proiektu **guztiek** konfrontaziorako aukera izan dezatela. Berria - Harian

Ideien **konfrontaziorako** espazioa osatu behar da. Berria - Ekonomia

Pario ausarta bi artistak nahastea, Barrek berak dioen bezala: **«Konfrontazio** hori desafio alimalea» da. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**konfrontazio** keinuak distentsio keinu bihurtzeko. Berria - Euskal Herria

Egoera horrek Aznarren garairik ilunenera eramango gintuzke, liskar eta **konfrontazio** garaira. Berria - Euskal Herria

IUrekin **konfrontazio** eta ukazio jarrera izan du PSOEk. Berria - Euskal Herria

Sanzen esanetan, aldiz, berak ez du «inolako **konfrontazio** girorik» sortu. Berria - Euskal Herria

Beste sindikatuek **«konfrontazio** eta borroka maila handiagoa» erakutsi izan balute. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Klase **konfrontazio** horretan autoritate eta interlokuzio maila berriak lortu behar ditugu. Bere horretan dirauela Ekialde-Mendebalde **konfrontazioaren** testuinguru berezian eraturiko Estatu Batuen gidaritza militar eta politikoak. Koro Navarro

---

## konfundigaitz *izond* nekez nahas daitekeena, nahasgaitza.

Kolpearen hotsak ur gainean korritzen du, hots **konfundigaitza** da. Jon Alonso

## **konfunditu**, konfundi, konfunditzen **1** da/du *ad* nahasi.

Asko, **konfundituta,** Don Ebaristoren kontsultara joaten zituan Ebaristoren galdezka. Xabier Etxabe

Badakit aberria ez dela urruntasunarekin **konfunditu** behar. Joseba Sarrionandia

Ez **konfunditu** izateko bokazio arduratsua bizitzeko ofizio funtzionarioarekin. Berria - Kultura

Ailantoa eta zumakea oso antzeko zuhaixkak direla, **konfunditzera** hel daitezkeenak. Iban Zaldua

• **2** nahasarazi.

Ea **konfundintzen** dugun. Iñigo Aranbarri

---

## konfus ik **konfuso**.

---

## **konfusio** *iz* nahastea.

Ez dakit, **konfusio** bat izan da, barkatu. Eider Rodriguez

Sentitzen dut **konfusioa,** motel. Eider Rodriguez

Gure arteko **konfusio,** gaizkiulertu eta ezinikusi askoren funtsa horretantxe datza: maldan gora bilatzen dugu irtenbidea, maldan gora itxaroten diogu hitzordura agertu ez den lagunari, maldan gora nahi dugu ogia, baina bilatzen dugun okindegia, bueltako bidean bakarrik dago. Harkaitz Cano

---

## **konfuso** *(orobat* **konfus***)* *izond* nahasia, nahaspilatsua.

Tamalez baiespen hauek **konfusoegiak** diren arren analisi eta konklusio zehatzik erdietsi ahal izateko, literalki aintzat hartuko ditugu. Joxe Azurmendi

Komun eta **konfus:** hori da gauza egoki esatea; horixe da herriaren bihotza ukitzea! Iñaki Segurola

---

## **konfuzianismo** *(orobat* **konfucionismo***)* **1** *iz* Konfuzioren erlijio sistema.

Max Weber-en obra aipatuaz gain, egin dira ikerketak, adibidez, **konfuzionismoak** Japonen edukitako eragina aztertzeko. Iñaki Heras

Hala ere, Ekialde Urruneko lurrean mahayanaren eta **konfuzianismoaren** arteko topaketa maila politikotik espiritualera aldatu orduko, haien gerra ia odolgabearen zoria dramatikoki alderantzikatu zen. Iñaki Mendiguren

**2** ***neo-konfuzianismo***

Neo- **konfuzianismoa** espiritualki mahayanaren mende erori zen. Iñaki Mendiguren

---

## **konfuziar** *izlag* konfuzianismoarena; Konfuziori dagokiona.

**Konfuziar** eskolako filosofoek. Iñaki Mendiguren

**Konfuziar** pentsaerako funtzionarioek. Iñaki Mendiguren

K.a. bigarren mendeko **konfuziar** eskolak. Iñaki Mendiguren

[Herri-administrazioko] hautagaiei eskaturiko meritua **konfuziar** kanoneko literatura klasikoaren estiloa berregiteko gaitasuna izango zela, eta **konfuziar** filosofia interpretatzeko gaitasuna, garaiko **konfuziar** letratuen gogara. Iñaki Mendiguren

Filosofia **konfuziar** sinikoaren berpizkundetik Mendebaldeko kristau-historian Aristotelesen filosofia helenikoak izandako berpizkundera igarotzen garenean. Iñaki Mendiguren

**Konfuziarren** ospea hondatua baitzegoen beraiek bat eginda zeuden estatu unibertsalaren kolapsoagatik. Iñaki Mendiguren

---

## **Konfuzio**

**1** ***Konfuzio-osteko***

Alexandro-osteko historia helenikoan eta **Konfuzio** -osteko historia sinikoan gerra- eta bake-zikloak aztertuz gero [...]. Iñaki Mendiguren

---

## konfuzionismo ik **konfuzianismo**.

---

## kongelatu ik **konjelatu**.

---

## **kongestio** *iz* odolaren edo beste isurkari baten gehiegizko metatzea gorputzaren alderdi batean.

Pneumonia lobularra zuen, birika baten **kongestio** larri bat zehazki. Xabier Olarra

Biriketako **kongestioa,** eta batez ere, burmuineko edema dira bihotzekoa eragin dutenak. Berria - Kirola

Halako ahalegina egin zuen, ordea, non garun- **kongestio** batek jo baitzuen Euler. Jon Muñoz

---

## **kongestionatu**, kongestiona, kongestionatzen **1** da/du *ad* gorputzaren alderdi batean odol gehiegi metatu.

Egun horietan genitaletako odol hodiak **kongestionatuta** egoten direnez, grina handiagoa da. Luis Elberdin

**2** (era burutua izenondo gisa)

Beste ugaztun batzuek ere -esaterako, txakurrek eta lehoiek-, behin eta berriz miazkatzen dituzte araldian dagoen emearen genital **kongestionatuak** . Luis Elberdin

---

## **kongio** *iz* isurkarientzako neurri zaharra, hiruren bat litroren baliokidea.

Oraindik hori baino goragoko lekuetara igo beharko balitz ura, gurpil horren ardatzean burdinazko kate bikoitza jarriko da inguruan bilduta eta beheraino iristen dela, eta zintzilik brontzezko txanbilak dituela bakoitza **kongio** bateko neurrikoak. Santiago Iruretagoiena

**konglobazio** *iz* zerbait frogatzeko argudioen multzoa.

Ez, hala ere, jatorri-leinua Idatzi Donean duen prozedura bat berriztu gabe: enumerazio, metaketa edo **konglobazioa,** alegia Juan Garzia

---

**konglomeratu** **1** *iz* gai baten edo batzuen zatikiek edo hautsak osaturiko masa trinkoa.

Sostengu zabal hau azal dezaketen faktoreen artean zentro-ezkerreko aliantzako hainbat buruzagi ezagunek izan duten zuzeneko parte-hartzea aipagarria da eta baita hautagaiak **konglomeratu** hori osatzen duten alderdi politikoekin izan duen integrazio handia ere. Berria - Harian

Kometak izotz **konglomeratuak** zirela esan zuen Whipplek orduan, eta denborak arrazoia eman dio. Berria - Gaiak

Eguzkira gerturatzean izotz **konglomeratura** lurrundu egiten zela esan zuen, eta lurrundutako partikulek isats luze eta ikusgarria sortzen zutela. Berria - Gaiak

**2** (izenondo gisa)

Ezin ginen bikoiztu eta geure buru gainetik hegaldatu non geunden jakiteko, eta halaxe jarraitu genuen, ideia eta sentimendu **konglomeratu** hari uztartuta. Bernardo Atxaga

---

**kongoar** *(orobat **kongotar** g.er.)* **1** *iz/izond* Kongokoa, Kongori dagokiona.

Mabe jeneral **kongoarraren** soldaduek. Berria - Mundua

Adituek ez dute baztertzen hiru hutu taldeak batu izana: Mai-Mai **kongoarrak,** Interahamwe ruandarrak eta FNL burundiarrak. Berria - Mundua

**2** *iz* Kongoko herritarra.

Lokua Kanza **kongoarra,** talendu handiko kantaria. Herria

Senegaldarrak, ghanatarrak, maliarrak, gambiarrak, nigeriarrak, ginearrak, sierraleonarrak, bolikostarrak, kamerundarrak, **kongoarrak,** marokoarrak eta aljeriarrak bizi dira bertan. Berria - Harian

Erabakia ez zuela onartzen jakinarazi zien poliziei **kongoarrak,** eta Baionako Auzitegira eraman zuten. Berria - Euskal Herria

1989ko irailaren 19ko atentatuak 17 herrialdetako 170 biktima eragin zituen, hauen artean 54 frantziar eta 40 **kongoar**. Berria - Mundua

---

**kongoja** *iz* atsekabe larria.

**Kongojarik** gabe. Unai Elorriaga

---

kongotar ik **kongoar**.

---

**kongregazio** *(orobat **kongregazione** g.er.)* **1** *iz* apaiz sekularrek osaturiko erlijio komunitatea.

Zer dela-eta irten zinen domingotarren **kongregaziotik**? Berria - Euskal Herria

*Kristoren Odolaren Misiolariak* **kongregazioko** misiolaria da Andoni Ledesma hernaniarra. Berria - Gaiak

Apezak, gehienak bikarioak ziren, erakasleak ere, ordena handietako fraideak edo **kongregazione** berriagoetakoak. Marzel Etxehandi

Buruzagi, buruzagi-orde, sekretario, erizain, ordena edo **kongregazioneetako** superiorak, omonier eta kalonjeak block-aren parte hortan aterbetuak ziren. Marzel Etxehandi

Gomitak izan ziren herritarren artean, **kongregazione** berekoen, diosesa berekoen artean. Marzel Etxehandi

Medikua apeza zen, **kongregazio** batean anai. Piarres Aintziart

**2** sekularren elkarte elizkoia.

Gure **kongregazioak** hirurogei kide baino ez ditu. Oskar Arana

Araua omen zen **kongregazioko** kide zirenen familiek elkarrekin joan behar zutela mezara igandero-igandero. Oskar Arana

Ez dira **kongregazioan** sartzen hamalau urtera arte. Oskar Arana

Gustatu edo ez, bere **kongregazio** puta horren kide nintzen, eta jarraitzen niolako itxurak egin behar nituen esaten ari nintzena benetan esango banu bezala. Oskar Arana

-Bai, eta lehen Luistarren **kongregaziokoa**. Inazio Mujika Iraola

Hori ez zegoen ulertzerik, ez zegoen jaterik inolako moduz, beren **kongregazioko** idiolektoaren berri ikasi gabeko batentzat bederen. Iñaki Segurola

**3** kardinaleen eta prelatuen bilkura, eliz egitekoren baten ardura duena.

Hala erabaki zuen atzo Kardinalen **Kongregazioak**. Berria - Harian

Fedearen Doktrinarako **Kongregazioko** prefektua da Joseph Ratzinger. Berria - Harian

Fedearen Doktrinarako **Kongregazioko** kontseilaria izan zen hainbat urtez. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan)

Gutxitan ikusi da fededun-**kongregazio** bat aitorlekuan sartzeko gu bezain penatua. Koro Navarro

---

kongregazione ik **kongregazio**.

---

**kongresista** **1** *iz* parlametukidea.

Azken hauteskundeen ondoren 12 **kongresista** ehoak izan dira. Gotzon Garate

Astero 700 eraso inguru daudela esan zuen berriki John Murtha **kongresista** demokratak. Berria - Harian

AEBetako **kongresista** Joe Pitts errepublikanoa eta Donald Payne demokrata urrunago joan dira. Berria - Harian

**2** biltzarkidea.

40.000 **kongresistatik** gora etortzen dira urtero Donostiara; bisitari horiek ere euskal jaialdiak eskatzen dituzte, eta antolatzaileekin bat jaialdiak bultzatu ditzakegu Berria - Kirola

---

kongreso ik **kongresu**.

---

## kongresu *(orobat* ***kongreso*** *g.er.)* **1** *iz* biltzarra.

Ohituta zegoen nire joan-etorrietara, **kongresu,** mintegi eta hitzaldietara. Hasier Etxeberria
APko Gipuzkoako **kongresu** batean. Iban Zaldua
PSOEren **Kongresu** Federalean aztertutako gaien berri emateko. Berria - Euskal Herria
**Kongresu** arteko organo gorenak. Berria - Euskal Herria
Kasu horretan alderdiak **ezohiko** kongresu bat egin beharko luke. Berria - Mundua
Teknologia berriak eta teknologien berrikuntza, horiek ziren **kongresu** edo dena delako haren gai nagusiak. Joxerra Garzia
GENE Gipuzkoako Eritasun Neuromuskularren Elkarteak antolatutako **kongresu** batean. Berria - Gaiak
Columbia hiriburuko unibertsitatean egin zen **kongresu** zientifiko batean parte hartzera. Iñaki Zabaleta
Oslon egindako **kongresu** batean elkar ezagutu genuenean. Hasier Etxeberria
Nazioarteko **Kongresu** hura berebiziko aukera zen berarentzat. Joxemari Iturralde

**2** (erakunde baten izan gisa)

Erakunde horrek antolatu du mintegia Europako **Kongresu** Juduaren eta Europako Rabinoen **Kongresua** taldeekin batera. Berria - Mundua
Cobi Benatoff Europako **Kongresu** Juduaren presidenteak. Berria - Mundua
Hegoafrikako ANC Afrikako **Kongresu** Nazionalekoek ere. Berria - Mundua
Irakeko **Kongresu** Nazionala alderdiko buru Ahmad Txalabiren bidez. Berria - Mundua
Juan Mari Otaegi MCCko **Kongresu** Kooperatiboko presidenteak. Berria - Harian

**3** parlamentua.

**Kongresu** eta Gorte Goren zaharrak desegin ondoren. Pako Aristi
Elkarrizketaren aldeko deia egin ostean, BNGk, CiUk eta EAJk Espainiako **Kongresu** eta Senatuari begira. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iruñeko Baluarte **Kongresu** jauregian. Berria - Ekonomia
Egunkaria irakurri ondoko paseoak Lingotto izeneko **kongresu**-zentrora eraman nau. Anjel Lertxundi
Lau egun eman genituen **kongresu**-aretoan ia egun osoz sarturik. Iñaki Zabaleta
Torinon sartzerakoan errepide ondoan dagoen kanposantu izugarriaz, orain urte dezente **kongresu**-leku bihurtu zuten Fiat fabrika zaharraz, gogora etorritako guztiari buruz galdetu diot. Anjel Lertxundi

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baionan izan zen Jubilau-**Kongresu** miresgarria aipatu dauku. Herria

---

## kongresukide *iz* parlamentukidea.

**Kongresukideen** ia erdiaren ezetzarekin onartu dute testua. Berria - Mundua
Bushek Floridako Porter Goss **kongresukide** errepublikanoa proposatu zuen zuzendari bezala. Berria - Mundua
Martxoan, zenbait **kongresukidek** Byrd Zuzenketa bertan behera uzteko lege proiekturako proposamena aurkeztu zuten. Berria - Ekonomia
Mundu osoko erakunde eta gobernuetara ez ezik, AEBetako senatari eta **kongresukide** guztiei helduko zaie zure lana. Berria - Harian
Estatu Batuetako **kongresukide** talde baten bisita izan du Gaddafik Tripolin. Berria - Mundua

---

## kongresutxo *iz adkor* kongresua.

Artegintza Garaikidearen Historiak ez du, baiki, N. jaun artistaren aurkikunde hori jasoko, baina nork ukatu pluf! egiten duen urez betetako globotxo bat gerta daitekeela arte kriptikoen **kongresutxo** batean? Berria - Kultura

---

## kongruenteki *adlag* era kongruentean.

Lehenengoen bitartez **kongruenteki** eman ezin denez [...]. Ibon Uribarri

---

## kongruentzia *iz* zenbait gauzen arteko erlazio koherentea.

Bere helburuekiko **kongruentzia** osoraino iritsiz. Ibon Uribarri
Erudizioa barra-barra erabiltzea, inongo lotsarik gabe, testuinguruan erabat **kongruentziarik** gabekoak diren termino tekniko mordoa hedatuz. Berria - Harian
Web orri hori gobernuaren ideologiaren **kongruentziarik** ezaren erakusle dela esan dute. Berria - Gaiak

---

## konifera *iz* pinuaren eta izeiaren klaseko landarea, hosto iraunkorrak eta pinaburu formako fruitua dituena.

Ameriketako Estatu Batuetan badira **koniferoen** familiako hainbat zuhaitz, altuera eta zuhaitz-enbor harrigarriak dituztenak. J.M. Olaizola "Txiliku"
Arriskuan daude ikerturiko espezieen herenak, hiru anfibiotik bat, **koniferen** laurdenak eta lau ugaztunetik bat. Berria - Gaiak
Oso landare mota ezberdinak daude multzoan: garoa eta **koniferak,** esaterako. Berria - Gaiak
Mendi-belaunetatik gora, pinu eta **koniferoak** egongo dira, eta hauek azken zuhaitza dagoen orporaino iritsiko dira. Pello Zabala

---

## koniko **1** *izond/iz* konoarena, konoari dagokiona.

Ebakera **konikoak**. Jon Muñoz
Sekzio **konikoen** II. Liburuan. Xabier Kintana
Horregatik deitzen dira zuen begien aurrean eratutako lau irudi horiek Sekzio **koniko;** edo **Koniko,** laburrago esanda. Jon Muñoz
Menekmok, berriz, bi **koniko** erabili zituen: hiperbola eta parabola. Jon Muñoz
Gogoan al dituk harako izarren mugimenduan agertu zitzaizkigun Apolonioren **koniko** haiek? Jon Muñoz

**2** kono formakoa.

Beste batek esfera bat ere ez dela; beste batek ez duela forma **konikorik**. Xabier Kintana
Mokoarekin zulo **konikoa** egiten du barneko pastel goxora iristeko. J.M. Olaizola "Txiliku"
Irudi geometriko biribil **(koniko,** zilindriko, erdiesferiko) orori zegokiona. Patziku Perurena
Feltrozko txano **koniko** bat zeraman. Fernando Rey

Haren estalki **konikoak** barreiatutako argi-azaoak zirkulu perfektu bat marrazten zuen harriaren gainean. Jon Muñoz

Juduak, beren txano **konikoengatik** ezagunak. Karlos Zabala

Txano gorri **konikoak** edo kanpai formakoak. Karlos Zabala

Buru **konikoa** zuen gizon ingeles ilehori garai bat. Lopez de Arana

---

# konjeladore *iz* izozkailua.

Halako batean, ez dakit zein estrenaren ondotik **konjeladorean** atxiki xungo xerra mehe haien eguerdiko berotzea erabaki nuen. Itxaro Borda

**Konjeladorea** zizez beteta zaukaat Pablo Sastre

---

# konjelatu, konjela, konjelatzen *(orobat **kongelatu** g.er.)* **1** da/du *ad* izoztu.

**Konjelatzen** ahal duxu, biziki ontsa egonen zautxu. Beti izaten dira bazkariak, afariak, konpromisoak, eta **kongelatu** egiten ditugu horregatik. Itxaro Borda

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hazkurri freskoak eta **konjelatuak** garraiatzen ditu. Herria

---

# konjetural *iz* aieruzkoa.

"Epistemologia **konjeturalaz"** mintzo zen eta "kalean aurkitutako ile bakoitzaren enigma argitu edo ahots anonimo bat entzute hutsarekin jabearen nortasuna azkar aurkituko duten profesionalak formatu" behar zirela zioen, beste gauza askoren artean. Joxean Agirre

---

# konjugatu, konjuga, konjugatzen da *ad* aditzez mintzatuz, jokatu.

Berba hori ez dela **konjugatzen** lehen edo hirugarren erro ahulekoen a[n]tzera. Xabier Kintana

---

# konjugazio *iz* konjugatzea.

1769an egin zen sanskritoaren eta latinaren **konjugazioen** arteko lehen alderaketa berriro eguneratzea. Bestalde, okerbidera eraman dezakeen gai bat ezabatu behar denean, ez dago bera **konjugazio**-erregela baten bidez baliogabetzerik. Xabier Arregi

Frantsesezko bost aditz irregularren **konjugazioak** ikasi ditut Josu Zabaleta

---

# konjuntatu, konjunta, konjuntatzen da/du *ad* multzo harmonikoa lortzeko batu edo bildu.

*Don Pasquale* operako *Pronta lo son* duoan ederki **konjuntatu** ziren bi abeslariak. Berria - Kultura

---

# konjuntibitis *iz* ehun konjuntiboen hantura.

[Lentillak] kristolako **konjuntibitisa** eragin zidaten. Iban Zaldua

Teresaren eta Martinen aitak gaitzen bat zeukan begietan, **konjuntibitis** kronikoa-edo, eta gorrituta edukitzen zituen beti. Bernardo Atxaga

Ez zuen entrenatzerik izan iragan astean, **konjuntibitisa** baitzuen begi batean. Berria - Kirola

Igerilekuetan **konjuntibitisa** hartzeko arriskua handiagoa da. Berria - Harian

Gaixotutako oilaskoekin ibilitako teknikari askok **konjuntibitisa** izan zuten. Berria - Harian

Trakoma edo **"konjuntibitis** granulosoa. Askoren artean

---

# konjuntibo *izond* juntagailuei dagokiena, juntagailuen betekizuna duena.

Lokailuak mota askotakoak daude: esapide **konjuntiboak,** izenlagunak, juntagailuak, loturako esaldiak, etab. Askoren artean

---

# konjunto *(orobat **konjuntu** g.er.)* **1** *iz* multzoa.

Eraman genian... handik hiru hilabetera: ezin zela, hausten zuela... **konjunto** arkitektonikoa, ez dakit zer esan zuten. Pablo Sastre

Postari jubilatu bat ematen zuen **konjuntoak**. Unai Elorriaga

**2** osagai bi edo gehiagoko janzkia.

Dendan aurkitu nuen **konjuntorik** pikanteena erosi nuen. Jasone Osoro

Emaztekiak gaitzetsitako **konjunto** bat berriz ere tolesten ari zen Kristina. Aingeru Epaltza

**3**

Tetrakordioak bost dira: lehenengoa baxuena da, grekoek *hypaton* deitzen dutena; bigarrena tartekoa da, eta *meson* esaten zaio; hirugarrena **konjuntua** da, eta *synhemmenon* deitzen zaio; laugarrena disjuntua da, eta *diezeugmmenon* deitzen da; bosgarrena denetan altuena da, eta grezieraz *hyperbolaeon* esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

---

konjuntu ik **konjunto**.

---

# konjuntzio **1** *iz* juntagailua.

Adibide bat jartzearren, "•" sinboloaren interpretazioa logika elementalean (eta beste logiketan ere) **konjuntzioa** izango da, alegia, hizkuntza naturaleko “eta” **konjuntzioaren** esanahia islatzen saiatuko da. Askoren artean

**2** bateratzea.

Ahotsen **konjuntzioa** handia da eta emaitza kalitate handikoa. Berria - Kultura

Ez baitira zure haragian hondoratu goizeko zure hats epela dastatu ostean, ez eta ere natazko izterren artean atseden hartu baso usaina itsasoarenarekin nahasten den une horretantxe, une horretantxe, sexuaz ere ez dakien **konjuntzio** miragarri ia mistiko horretantxe. Eider Rodriguez

Nolakotasun-multzo baten kontsonantzia edo adostasunaren emaitzaz lortutako arte konplexua da arkitektura [...], nolakotasun horien **konjuntzioak** ematen baitio azken-azkeneko obrari Vitruvioren formulaziorik ospetsu eta errepikatuenean laburtzen diren hiru ezaugarri horiez hornituta egoteko aukera: *firmitas, utilitas, venustas*. Santiago Iruretagoiena

---

## konjuragarri *izond (-en atzikiaren eskuinean)* konjuratzen duena.

Zer ere preziatuagorik bailekioke hiztun abilago bati otu zuen **konjuragarri**. Juan Garzia

---

## konjuratu[1], konjura(tu), konjuratzen **1** du *ad* larderiaz agindu.

**Konjuratzen** zaituztegu [...] Kristoren izenean, jarraitzeko moduko adibideak izan ditzazuen; **konjuratzen** zaituztegu zuek gurekin hark berak jokatuko lukeen bezala jokatzera, oraindik Lurrean balitz. Iñaki Iñurrieta

Nor da hain auhen bortitzez kexu dena, bere tristura-pleinuz izar alderraiak **konjuratu** eta haiek geldiarazirik, entzule harridurak joen gisa? Juan Garzia

**2** aldendu, uxatu.

Egurats nahastu hartako airean zebilen mamua **konjuratu** eta uxatu nahiko balu bezala. Harkaitz Cano

Gaitz bat **konjuratu** edo sekretu bat argitzeko erabili ohi den ahots leun eta apalarekin. Joxean Agirre

Bere bihotzminak **konjuratzeko** entretenitzen zen halako gogojolas malenkonikoetan. Juan Garzia

Errezelo hori **konjuratzeko** modurik disimulatuena, errezelo horren onarpenean bilatu du. Patziku Perurena

Hitz eginaz ez dudala nire heriotza **konjuratzen**. Xabier Arregi

---

## konjuratu[2] *iz* konspiratzailea.

**Konjuratu** gehienentzat, dio Tcherkoffek, aski izanen zen tsarra kargutik kendu eta giltzapetzea. Monika Etxebarria

Rollebon jaunaren zeregina **konjuratuak** banan-banan hilketara bultzatzea izan bide zen. Monika Etxebarria

---

## konjurazio *iz* konspirazioa, azpilanerako elkar hartzea.

Warnakario izan zen Brunekildaren kontrako **konjurazioaren** arima. Iñaki Iñurrieta

Boulainvilliersko kondeak eta Dubos abadeak, zeinek bere sistema egin zuten; bata hirugarren estatuaren kontrako **konjurazioa** dela dirudi, eta bestea nobleen kontrako **konjurazioa**. Iñaki Iñurrieta

Jolas batean bezala, familiakoek Francesco Cenci hiltzeko irudimenezko **konjurazioak** egiten zituztela. J.M. Olaizola "Txiliku"

· **Konjuraziokoak,** zortzi guztira, hiru autotan sartu ziren. Edorta Jimenez

---

konjuro ik **konjuru**.

---

## konjuru *(orobat **konjuro** g.er.)* *iz* araoa.

**-Konjurua** honela da... Iñaki Mendiguren

[...] *expecto patronum!* **Konjuruak,** ekaitza eta harria egin ez zezan. Pello Zabala

Negarrarekin batean isilkako intziri bat ateratzen zitzaion, damua, beldurra, lotsa edo desanparoa uxatzeko **konjuru** baten moduan, ahopeka. Joxean Agirre

Inauteriak zomorroen kontrako ekintzak dira, intsektuak desagerrarazteko **konjuruak**. Berria - Kultura

Elkarri musu emango diote -geroaren nostalgia uxatzeko **konjurorik** zaharrena-. Joxerra Garzia

Orduan emaginak sugandila buztanezko infusioa emateko agindu zuen, sorginkerien kontrako **konjuru** eraginkorra baitzen. Bego Montorio

Deabruaren kontra **konjuru** ugari botaz. Askoren artean

Iritsia da, herri ezjakinen lehenengo izualdietako beldurgarria, apaiz kezkatuek **konjuruak** botatzen zizkiotena, sorginek eta belagileek gau ilunetan deitzen zioten eta oraindik azaltzen ez zitzaiena. Josu Zabaleta

---

## konjurugile *iz* araogilea.

Edozein iritzi heresia eta edozein txikikeria kartzelara edo borreroaren oholtzara igotzeko aitzakia zen garai hartan, susmagarria zen oso igarle, **konjurugile** edo astrologo izatea. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## konjuruka *adlag* konjuruan boteaz.

Hain ume zuri eta lodi hura, zakutik irribarrez atera eta begiak zabalik jaio zena ikusi zutenean senitarteko eta auzoko guztiak **konjuruka** hasi ziren, arao egiten, etxe gainera gatza botatzen, dena zerutik eroritako aingerua ematen zuen haurra babesteko asmoz. Bego Montorio

---

## konka[1] *iz* aurkintza.

Beti aitzina joanez Leizar atekako **konka** horretara, Bentarteko mendi lepo ederrari ohartuko gatzaizkio. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## konka[2] *iz* antzoki bateko agertokian, gogorarazlea ezkutatzen den gunea.

Agertokian, Gogorarazlearen **konka,** zuloaren ondoan, bere lekutik alderatuta. Josu Zabaleta

Argi eta garbi entzungo da **konkatik** Gogorarazlearen ahotsa. Josu Zabaleta

---

## konkabo *izond* begiratzen dionarentzat erdialdea ertzak baino barrenago duena. ik **ahur**. ant **konbexu**.

Betaurreko lodi **konkaboak**. Juan Garzia

Demagun kandela bat ispilu **konkabo** baten aurrean. Joxerra Garzia

Arau klasikoak ispilu **konkaboaren** matematikarekin eraldatu nahi dituen poeta handiak laster esango digu betiko: gabon! Pablo Sastre

Zinbalo **konkaboak** entzuten. Xabier Amuriza

---

## konkatu *izond* sabeldua.

Zoladura heze eta **konkatuak** ere, putzu urtsuz zipriztindurik, are atseginago sentiarazi zuen, gaineko distira xumearen isla izaki. Mirentxu Larrañaga

---

## konketa 1 *iz* ontzi handia eta aho-zabala, garbitzeko erabiltzen dena.

Goizeroko garbiketak egiten ari zen gelazainak eramandako zilarrezko **konketa** batean. Jose Morales

Gizonak ura ekarri zion eztainuzko **konketa** batean. Juan Garzia

Bitarte horretan guztian, atean zutik egoten zen Mikhailo izeneko zerbitzari bat, **konketa** eta eskuoihala eskuan. Jose Morales

**Konketa** bat zeraman eta belaki batez kolpetxoak jotzen zizkion bekokian, baina alferrik. Lopez de Arana

Ondoren, ura **konketara** bota eta ikasleei oinak garbitzen hasi zen. Elizen arteko biblia

Arreba Ernestinak ekarri ditu **konketa,** orrazi estu bat eta ozpina platertxo batean; eta hasi da ehiza. Itziar Otegi

Baziren nire gelan **konketa** bat eta ur txarro bat. Koro Navarro

**2** bainugeletan-eta, garbiketak egiteko iturriz horniturik izaten den ontzi modukoa.

Gelaxka ziztrin batera ematen zuen zuzenean: **konketa** bat, ispilu bat gainean eta ate bat eskuinean, komunekoa. Joseba Urteaga

**Konketan** aurpegia garbitzen hasi zen. Lopez de Arana

**Konketako** iturria irekita, ispiluaren aurrean jarri. Iñaki Iñurrieta

Burua **konketaren** txorrotaren azpian sartu eta dena garbi gelditudo da. Sonia Gonzalez

Zazpi **konketa** zeuden ilaran, bakoitza bere kanilarekin, bakoitza bere ispilu obalatuarekin. Joseba Sarrionandia

**Konketaren** gaineko ispiluan neure buruari begiratu nionean. **Konketaren** gaineko armairutik hortz eskuila hartzerakoan, Valium potoa ikusi nuen, erdi hutsik. Joseba Urteaga

Ispilu handi, pitzatu eta zikin baten azpian harrizko **konketa** zartatuen ilara bat zegoen. Iñaki Mendiguren

-Hor nonbait -erantzun zion Myrtlek, bere komun aurreko **konketara** zehazgabe keinu eginez. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan)

Neska puska ederra... sinetsi nahi al didak **konketa**-musu hori, zera, zakilduna dela? Juan Kruz Igerabide

Portuko ur arre **konketa**-usainekoak baporea gozo-gozo astintzen ari ziren. Lopez de Arana

**4** ***konketa-zulo*** *(corpusean **konketazulo** soilik)*

Aurpegia freskatu zure aurretik beste norbaitek erabili zuen **konketazulo** hezean. Harkaitz Cano

---

## konketazulo ik **konketa 4**.

---

## konkiloker *iz* alproja (?).

Gorka, arreba zaharrenaren semea, **konkiloker** ederra da, inoiz pikorik jo ez duena, mendian eskasa. Aingeru Epaltza

Erredaktore diziplinatuak nahi ditiat, ez non diren sekula santan ez dakidan **konkilokerrak,** aditu? Aingeru Epaltza

**Konkiloker** bat omen ni, haren kume distiratsuarekin ibiltzeko inola ere duin ez zena. Aingeru Epaltza

---

## konkista 1 *iz* armez baliatuz lurralderen bat edo kidekoren bat beretzea.

Armen bidezko greziar **konkistari** aurre egiteko. Iñaki Mendiguren

Jerikoren **konkista,** tronpeta hotsez eta herriaren bat-bateko irrintzi beldurgarriari esker lortutakoa. Jose Antonio Mujika

Berrogei bat urtetan, Espainiak mundu berriaren **konkista** burutu zuen, eta hura kolonizatzen ere hasi zen. Koro Navarro

Haren aginduz egin zen Nafarroako **konkista**. Aingeru Epaltza

Nafarroaren **konkistak** [...] juduen eta musulmanen aurkako Gaztelako legeak ekarri zituen Euskal Herriko hegoaldera. Askoren artean

Ilargiaren **konkista** Hollywoodeko estudio batean filmatu zela frogatzen zuten lekuko faltsuak aurkitu nituen. Berria - Kultura

Energien konbertsioa, espazioaren **konkista,** ozeanoen ustiatzea. Juan Garzia

Agaramontarren burua **konkistaren** garaian. Aingeru Epaltza

Gaur egun iraultza irudikatzeko era bakarra agintearen disoluzioa da, ez agintearen **konkista**. Txema Ramirez de la Piscina

Iraultza oro **konkista** da. Andres Urrutia

**2** irud/hed

Gizonok infidel fama daukagu **konkistak** bakarrik kontatzen ditugulako, engainatu gaituztela esatea gustatzen ez zaigulako, ezkutatu egiten dugu, eta emakumeek kontrakoa egiten dute, **konkistak** ezkutatu eta senarraren adulterioa aireratu. Mikel Hernandez Abaitua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zuzenbide politiko partikularrak, gizarte bakoitzari dagokionak; **konkista**-zuzenbideak, herri batek beste bati egin nahi, ahal edo behar izan dion indarkerian oinarrituak. Iñaki Iñurrieta

35 urteko **konkista** gerra utziko zuela. Berria - Mundua

Ez zirudien setioa edo **konkista**-saiakera bat. Jon Alonso

Liberalen Armada, [...] eta gainerakoak, ez dira "beltzen" armada, Euskal Herrira Espainiatik **konkista**-helburuan bidalitako armada arrotza baizik. Txillardegi

Akeoen **konkista**-uhinak lehertu eta geratu egin zirela Troia irentsi ondoren. Iñaki Mendiguren

Herriak aspaldi ahaztua zuen **konkista**-aro hura. Xabier Aranburu

Bere **konkista**-sail nagusiaren osatzea. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nafarroan dauden alderdiek gobernatzen dute garai hartan lortu zituzten pribilegioei esker, eta haien zilegitasuna gerra **konkistari** dagokio. Berria - Euskal Herria

Ea Mendebaldeko Kristandadeak Andeetako munduan eta beste edonon ustez egindako kultur **konkistak** ez ote ziren, lehentxeago edo geroxeago, azaleko eta aldi baterakoak bakarrik gertatuko. Iñaki Mendiguren

Erromaren helenizazioa izan zen, noski, greziarrek beren historiako edozein etapatan inoiz lortu zuten kultur **konkistarik** garrantzitsuena. Iñaki Mendiguren

Espainian geratzen zen azken lurralde musulmanaren kristau-**konkista**. Iñaki Mendiguren

## **konkistadore** *iz* konkistatzailea.

**Konkistadoreek,** europarrak harat heldu aitzin "Giristinoki" eginak ez ziren gauzak debrukeriatzat hartuz, suntsitu zituzten. Ramuntxo Etxeberri

---

## **konkistaezin** *(orobat **konkista ezin**) iz* ezin konkistatuzkoa.

Ez dira jada dorre **konkistaezinak,** ez dira ikur distiratsuak gelditzen zaizkigunak, lehenaren zentzua eta zentzugabekeriaren kondentsazio birrinduak dira. Joseba Zulaika

Paristarrek, ordea, entzungor egiten zieten alarma-deiei: pentsatzen zuten zurrumurru interesatuak zirela [...] eta beren hiriburua, aldiz, **konkista ezina**. Anjel Lertxundi

Amaierarik ez duen paisaia hori, mehatxuz betea, **konkistaezina** dena, esaldi luzeen bidez baino jasotzerik ez dagoela Berria - Kultura

---

## **konkistagai** *(orobat **konkista-gai**) izond* konkistatua izateko gai dena.

Espainiarrek **konkista** -gai gisa hartu zituzten aurkitutako lurraldeak. Iñaki Iñurrieta

Emakumeengandik, gorputza, esploragaia, **konkistagaia**. Lourdes Oñederra

---

## **konkistagaitz** *izond* ia konkistaezina.

Ordurako bazekielako emakume bat erakartzeko era bakarra zela huraxe, eta handixetik beharko zuela etorri gero eta **konkistagaitzago** iruditzen zitzaion ordainak. Karlos Linazasoro

---

## **konkistaldi** *iz* konkista.

**Konkistaldiko** lapurretetan. Iñaki Iñurrieta

---

## **konkistari** *izond/iz* konkistatzailea.

Ipar Afrika okupatu izan duten herri **konkistariek**. Joxe Azurmendi

**Konkistari** eta santuen Espainia Joxe Azurmendi

---

## **konkistatu,** konkista(tu), konkistatzen **1** du *ad* armez baliatuz lurralderen bat beretu.

Haien hiri guztiak **konkistatu** genituen. Elizen arteko biblia

Paraje hura konkistatu zuen bezalaxe mundu osoa ere **konkista** zezakeela sentitu zuen gazteak. Xabier Aranburu

Inperio erromatarra **konkistatu** zuten herriak Germaniatik atera ziren. Iñaki Iñurrieta

Bi Sizilien Erresuma *Italia Una*-ko misiolari martzialak **konkistatu** zuen, **konkistatua** izan nahi zuelako. Iñaki Mendiguren

Kanbisesek Egipto **konkistatzeak** grekoei kolpe bikoitza eman zien. Iñaki Mendiguren

Egia da Alexandrok Indiak **konkistatu** zituela, baina herrialde bat **konkistatu** beharra al dago bertan salerosketan aritzeko? Iñaki Iñurrieta

Hartu egin ote daiteke **konkistatu** gabe? Joxan Elosegi

**2** irud/hed

Tetrapodoek ez zuten lehorra **konkistatu,** uretatik ihes egin zuten. Berria - Gaiak

Ezkerrak Herriko Etxea **konkistatu** nahi badu, norekin eginen du? Berria - Euskal Herria

Borrokatuz **konkistatzen** den bizitza, bultzaka hazten den arto landarea bezala. Berria - Kultura

Geroago ohartu nintzenez, pertxero hura lurralde **konkistatu** berrian jarritako masta bat zen: masta hartan jarritako jaka zen bere bandera. Harkaitz Cano

1985eko abenduan, Saudi Arabiak HPEEk merkatua berriz **konkistatzeko** estrategiari heltzea lortu zuen. Koro Navarro

Kezkatuegi ikusten dut nik jende bat, euskararentzat alor eta eremu berriak **konkistatu** eta erasoei aurre egiten. Joxerra Garzia

Hark neska **konkistatu** nahi baitu. Koro Navarro

Rastignacek bere xarmaz emakume aberatsak **konkistatu** eta goi mailako gizartean sartzea du xede. Markos Zapiain

Txiru, eskolako mutilik guapoena **konkistatu** zuen gure Trinik. Jasone Osoro

**3** (era burutua izenondo gisa)

Gure uhartera herri **konkistatu** batera bezala etorri eta kakatzat tratatzen gintuen. Jon Muñoz

Estatu **konkistatuetako** gobernari-klaseak. Iñaki Mendiguren

Beste aldean, biztanleria **konkistatua** egoten da. Iñaki Mendiguren

Lur **konkistatu** batera sartzen direla uste dute, eta gaia beraien ikuspuntura hurbiltzeko ahaleginetan dabiltza, ez kontrakoa. Berria - Euskal Herria

Inperiogileak, kasu honetan mongolak, beren mendeko **konkistatuak** baino askoz kaskarragoak zirenez, Iñaki Mendiguren

---

## **konkistatzaile** **1** *izond* konkistatzen duena.

Arraza **konkistatzaileak** daude, gudariak, eta herri konkistatuak, azpiratuak. Joxe Azurmendi

Beste nazio **konkistatzaileetako** buruzagiak. Iñaki Iñurrieta

Herri **konkistatzaileek** legeak bateratzeko batere asmorik ez izateaz gainera, ez zuten izaten ezta herri garaituaren legegile bihurtzeko gogorik ere. Iñaki Iñurrieta

Herri zahar **konkistatzaile** baten lege-arrasto batzuek, duela hamabi mende Konstantinoplan agintzen zuen printze batek bildu zituenak. Juan Martin Elexpuru

**2** (izen gisa)

Antzeko arrazoiek bultzatu zituzten Inken Inperioaren espainiar **konkistatzaileak** lingua franca gisa ketxua erabiltzen uztera beren amerikar mendekoen artean fede katolikoa zabaltzeko. Iñaki Mendiguren

Portugaldarrek **konkistatzaile** gisa trafikatu zuten Indietan. Iñaki Iñurrieta

Zoritxarra da giza izaerarentzat erlijioa **konkistatzaile** batek ematea. Iñaki Iñurrieta

Garai bateko **konkistatzaile** erromantikoen gisara. Joxean Agirre

Txinaren **konkistatzaile** mongolek. Iñaki Mendiguren

Alexandro-osteko **konkistatzaile** helenikoek. Iñaki Mendiguren

Zeren eta Andaluziako Omeiatar Kaliferriaren Erdi Aroko kristau katoliko **konkistatzaile** barbaroak kristau-erkidego homogeneo baten idealera emanak baitzeuden. Iñaki Mendiguren

**Konkistatzaile** judizial bat balitz bezala joan zen, Mexikoko legediari inolako begirunerik eduki gabe. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Martin kalera atera zen eta, aurpegia erdi estalita eta **konkistatzaile** -airearekin. Koro Navarro

---

# konkistazale *izond* konkisten zale dena.

Ez ziren Suitza, Alemania eta Holandakoak gaur egun direna baino **konkistazaleago** . Iñaki Iñurrieta

---

# konklabe *iz* kardinalek, aita santua hautatzeko, egiten duten bilkura.

Atzo abiatu zen **konklabea,** Eliza katolikoko buru berria hautatzeko giltzapeko bilera. Berria - Harian

Kardinalen **Konklabea** Sixtoren Kaperan egon ohi dela bilduta, harik eta buruzagi berria aukeratzen duten arte. Berria - Harian

**Konklabean** bildu aurretik *pro eligendo Pontifice* (aita santua aukeratzearen alde) eginiko mezan. Berria - Harian

**Konklabeko** kardinalen artean gazteenetakoa da. Berria - Harian

---

# konkluditu, konkludi, konkluditzen du *ad* ondorioztatu.

Sentimendu finenak eta sotilenak adierazteko biolina bezalakorik ez dagoela **konkluditu** nuen iluntze hartan. Patxi Zubizarreta

Nire belarriek haren arnasketa lizun epela entzun dute: Luisa, inondik ere Luisa da, **konkluditu** dut. Patxi Zubizarreta

Hortik nola **konkludi** genezake Harengan badirela esentziazko nozio ezberdinak, eta halako baten bidez Hark "jakin", beste baten bitartez "nahi" eta beste baten bidez "ahal" izaten duela? Xabier Kintana

---

# konklusio 1 *iz* ondorioa.

Premisak eta **konklusioa** . Iñaki Arranz

Elkarrizketa luzeen ondorioz, **konklusio** bakar batera heldu ziren: [...]. Jon Arretxe

Ageriko zen dena, ezkutuko bihurtu zen; galdeketak, argiketak, frogaketak, aurrez aurrekoak, alderdi publikoaren **konklusioak;** eta horixe da egungo jardunbidea. Iñaki Iñurrieta

Adierazi zieten bide guziak funtsez miatu zituztela, ez zutela nehongo hatzik atzeman **konklusio** finko baten emaiteko gisan. Michel Oronoz

Beraz, hoberik ez dugun artean, behin-behineko **konklusio** honek lagun diezaguke. Joxe Azurmendi

Eta hasi zait Nafarroaz erran eta erran, behin betiko **konklusioa** botatzen didala: "Nafarroa es un Estado". Piarres Aintziart

Kontrako **konklusioak** aterako dituzte. Berria - Kultura

Arrazoizko kateamendu logiko baten bidez ezin onartuzko **konklusio** batera iristen denean. Iñaki Arranz

Ateratzen dugun **konklusioak** . Piarres Xarriton

Espainian torturak noizbehinka baino gehiagotan gertatzen diren **konklusioa** atera zen zure txostenetik. Berria - Euskal Herria

Zeren asko ikas baitezake filosofiak garai hartan nagusi ziren premisa zientifikoetatik atera zituen **konklusio** teologikoak ulertzeko modutik. Xabier Kintana

**2** amaiera zatia.

**Konklusioa** eta azken agiria. Elizen arteko biblia

Parabolei buruz **konklusioa** . Elizen arteko biblia

Nik gaur soilik ikusi dut hostoak aurten bizi izan duen iraupenaren **konklusio** eztia. Piarres Aintziart

Eremitorioetarako Erregela-k ez du sarrerarik, ez **konklusiorik** . Askoren artean

---

# konkoide *iz*

Nikomedesek, berriz, handik mende batera, maskor itxurako kurba bat asmatu zuen, **konkoidea,** harrigarriro ebazten zituena, aldi berean, hala kuboaren bikoizketa nola angeluaren trisekzioa. Jon Muñoz

**Konkoidea;** horrek esan nahi dik kasu partikular batean Descartesen obaloa dela, eta beste kasu batean... trisektriza! Jon Muñoz

Bere izena zuen kurba bat asmatu ere zian: Pascal aitaren barakuilua; **konkoide** bat duk. Jon Muñoz

---

# konkomitante *izond* beste bati lagun egiten, beste batekin batera agertzen eta aritzen dena.

Baina berak halaber, saihetseko hurbilketa baten bidez-edo [...] jokoan jar ditzake zenbait positibotasun ezberdin, eta hauen egoera **konkomitanteak** alderatuko ditu garai jakin batean. Xabier Arregi

---

# konkomitantzia 1 *iz* konkomitantea izatea; erlazioa edo lotura.

Artikulazio bakoitzaren barruan, fonema motak **konkomitantzien** arabera -hau da, laringe hotsaren eta sudur erresonantziaren arabera- bereizten dira, eta **konkomitantzia** horiek bertan ez azaltzea ere elementu bereizlea izango da, bertan azaltzea ere bereizgarria den hein berean. Isabel Arrigain

**2** (hitz elkartuetan)

Presentzia-eremu honetaz bereizita, bestalde **konkomitantzia** -eremu bat ere deskriba daiteke. Xabier Arregi

Historia naturalaren **konkomitantzia** -eremua Linnaeusen eta Buffonen garaian definituko zen zenbait harremanen bidez kosmologiarekiko, lurraren historiarekiko, filosofiarekiko, teologiarekiko, idazketa eta exegesi biblikoarekiko, matematikekiko [...]. Xabier Arregi

---

# konkor 1 *iz* sorbaldako irtengune nabaria, bizkarrezurra desitxuratzearen ondorio dena.

Horregatik diat **konkor** hau bizkarrean! Harkaitz Cano

Lepo falta horregatik, **konkorra** duela dirudi, eta beste pianista batzuek ere baduten itxura hori du. Ramon Saizarbitoria

Gizon txiki bat omen zen, **konkorra** zuena. Koro Navarro

Judu herratuak [...] bekaturik larriena zeraman zakuto itxurako **konkorrean:** jainkoa hil izana. Anjel Lertxundi

Irudipena zeukan bizkarreko **konkorra** ere egunetik egunera handitzen ari zitzaiola. Harkaitz Cano

Izan ere, gamelu baktrinoak bi **konkor** dituzten gameluak dira. hor daramazkiote beren aberastasun bikainak, astoen bizkarretan eta gameluen **konkorretan** . Elizen arteko biblia

Milaka gamelu txiki zeuden, [...]; **konkor** bakarreko *nar* izenekoak ageri ziren, ilajea gorria kiribiletan kizkurtua zutenak, sugarren pare. Karlos Zabala

Pertsonaiaren **konkor** hori errepikakorra da nire liburuetan, agian autobiografikoa izan daiteke, zuzen ibiltzeko esaten baitzidaten beti. Berria - Kultura

-Noizko duk zintzur bustitzea? -galdegin zion bizkarrez **konkor** bezain zardai zenak, zigarroa ezpainetan dilindan. Itxaro Borda

Fardel bat besapean edo beroki azpian, bat-batean hazitako **konkor** bat iduri. Alberto Ladron Arana

**2** irtengune biribila; koskorra.

Hemen horma-moduko malkar horixkak osatuz, sakongune eta haitzartez josirik, hor biribil-formako **konkor** berdexkak eratuz. Jose Morales

Eguzkitako higatuak, gorriak, urdinak, moreak, zutoinetan loturik, merkatua **konkorrez** eta biribiltasun adoretsuz betetzen zutela. Karlos Zabala

Gauza guztietara ohitzen baitzen: jipoietara, vodkara, hilobien antzeko **konkor** biribilez jositako zelai elurtuen goibeltasunera. Jose Morales

Mundu guztiak ikusten dio pistolaren **konkorra** gerrian. Hasier Etxeberria

Besoak tolestuta eduki beharra zeukan **konkor** hura ezkutatzeko. Iñaki Mendiguren

Hermione berriro ziegara sartzen ikusi zuen Harryk, aurrealdean arropa azpian **konkor** bat zuela. Iñaki Mendiguren

Gainera, han goian, **konkor** eta inguru malkartsuen artean, bidezidor edo bide bat ikusi berri zuen. aldakan oinaze handia zuelako eta nerbio ziatikoan presioa eragiten zion **konkorra** irten zitzaiolako. Agustin Otsoa

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Igurtzi egin zituen gero hatz-**konkorrez** . Anjel Lertxundi

Munstroaren ipur-**konkorrari** edo isats-aldeari zegokion tokian. Joan Mari Irigoien

Harri **konkor** batean zizelkatua. Ramuntxo Etxeberri

• **4** *izond* pertsonez mintzatuz, konkorduna.

Haren gelara onik sartzen ziren bezeroak itsu irteten ziren, edo herren, **konkor** edo okitu, eskumotz edo hankabakar. Patxi Zubizarreta

Ikastaro-buru irakasle laguntzaile gazte bat zen, argala, luzea, **konkor** samarra, atsegina eta ikaragarri herabetia. Juan Garzia

**Konkorra** zen, ginebra eskaintzen zigun, dohainik, dohainik, hotza kentzeko. Koldo Izagirre

**Konkorrak** poltsikotik eraztuna atera du. Pablo Sastre

**5** (adizlagun gisa)

Ondotik herioaren aurrean mutu eta **konkor** zebilen jendetza zetorren, beltzean beltz. Itxaro Borda

**6** *hed*

Gatibu-piltzar zikinak lepo **konkorretik** dilindan. Urtzi Urrutikoetxea

Zuzendariak sudur **konkorra** zuen De Gasperiren antzera. Pello Lizarralde

Etxe multzo bat ere bada zubi **konkorraren** inguruan. Michel Oronoz

Isiltasuna hedatzen zen gero zubi gain **konkorrean** . Itxaro Borda

Papelera Españolako tximinia handiek jaurtitzen zuten hodei **konkorrei** beha. Koldo Izagirre

Kanpoan zerua goibel, hodei **konkorrekin** . Gotzon Garate

**7** ***konkorreraino bete*** goraino bete.

Hazparneko eliza **konkorreano** bete da Mixeli azken agur bat emaiteko. Herria

---

**konkordante** *iz* bat datorrena.

Estatu eredua ezin da aldatu Konstituzioak aurreikusitako tresna eta prozeduretatik kanpo, eta autonomia erakundeen eta [Espainiako] Gorte Nagusien borondate **konkordanterik** gabe. Berria - Euskal Herria

---

**konkordantzia** **1** *iz* bat etortzea, egokitzea; (gauza bi edo gehiago) bat etortzen diren alderdia.

Astrologoek eta musikariek ere izaten dituzte gauza berdinak izarren sinpatiari buruz eta sinfoniari buruz, eta berdin karratu eta triangeluen nahiz lauko eta bostekoen arteko **konkordantziaren** inguruan ere. Santiago Iruretagoiena

Besteak, aipuak, oihartzunak dira, islak, aldian behin **konkordantzia** osoa aurkituko baduzu ere. Iñaki Iñurrieta

Beraz, **konkordantzia** handia dago bikien artean gaixotasun honi dagokiola. Berria - Gaiak

**2** gramatikan, komunztadura.

Gramatika eta **konkordantziaz** jabetu (pluralak, ergatiboak, etab.). *Consecutio temporum* edo denboraren **konkordantziaren** arabera antolatu behar ziren esaldi subordinatuetan zehar. Joseba Sarrionandia

Izenorde erlatiboak bere antezedentearekin generoan eta numeroan izan behar zuen **konkordantzian** . Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuetan)

**Konkordantzia**-taulak Askoren artean

---

konkordato ik **konkordatu**.

---

**konkordatu** *(orobat **konkordato**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **konkordatu** agertzen da)* *iz* Eliza katolikoaren eta estatu baten arteko hitzarmena.

Oroit gaitezen [...] Pio VII.ak, Pio XI.ak edo Pio XII.ak, Napoleonekin, Mussolinirekin, Hitlerrekin, Pétainekin, Duplessisekin, Salazarrekin eta Francorekin egin **konkordatuetako** hautsi-mautsi gazi-gozoez! Piarres Xarriton

Onartu aitzin, **Konkordatua** zegoen indarrean. Berria - Harian

OHZ ez ordaintzea 1979. urteko **konkordatoan** hitzartu zuten Espainiak eta Vatikanoak. Berria - Harian

**Konkordatua** sinatu zuen eta Napoleon I.aren enperadore koroa erdietsi Pio VII.arenganik. Piarres Xarriton

Txekian, deputatuaren ganberak ezeztatu du lehengo **konkordatua** Eliza katolikoarekin. Herria

XVI. mendean berriz, Frantzisko I.a Frantziako erregeak edeki zion, **konkordatu** bidez, Leon X.ari, beretzat eta bere ondoko guztientzat, erreinuko apezpiku guztien hautatzeko eskua Piarres Xarriton

---

**konkordia** *iz* harmonia; adostasuna.

Fito Rodriguez idazle eta EHUko irakasleak ***Konkordia*** *bila* izeneko *fikzio-net*-a jarri du irakurgai sarean. Berria - Kultura

---

**konkordun 1** *izond* pertsonez mintzatuz, konkorra duena. ik **konkor 4**.

Errege zapuztuak, mendekuz, zaldizain **konkordun** bat ekarrarazi din eta gau honetan bertan ditun ezkontzekoak. Patxi Zubizarreta

Samurki maite zuten elkar nexka txikiak eta ipotx **konkordunak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Senargai **konkorduna** alde batera utzi, eta gaztearengana hurbildu zen. Patxi Zubizarreta

Olivier **konkordunak** ere ezin izaten zuen laster askorik egin. Harkaitz Cano

Ez da ez hanka-motza, ez **konkorduna**. Jon Arretxe

Bada, tipoak larrua joko dio, neska Notre-Dameko **konkorduna** ez bada, behinik behin. Karlos Zabala

**Konkorduna** laster irtengo da komunera joateko. Patxi Zubizarreta

Dena idatzia eta kontatua dago, estiloa da aldatzen dena, nire estiloa **konkordunarena** da. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Harago, etxeen ilara **konkorduna** gau beltzean barneratzen zen. Karlos Zabala

---

**konkorkara** *izond* konkorduna.

**Konkorkara,** buru soila, bibote beltzak aho ertzetara luzatuak, traje ilunarekin inpekable jantzita zegoen. Pablo Sastre

---

**konkorrarazi,** konkorraraz, konkorrarazten du *ad* konkortzera behartu.

Gogoan dut haren aire hauskorra, oso garaiak diren zenbait pertsonengan ohi denez, alegia altuerak eragiten dien bertigoak **konkorraraziko** balitu bezala. Juan Garzia

---

**konkortsu** *izond* konkor asko duena.

Bera eta osaba Vernon ondoko gelako ohe **konkortsura** joan ziren. Iñaki Mendiguren

Fardel handi eta **konkortsu** batek punpa egin zuen Nevilleren buruan. Iñaki Mendiguren

---

**konkortu,** konkor(tu), konkortzen **1** da/du *ad* konkor baten itxura hartu edo eman; makurtu.

Sorbaldak **konkortzen** ari zitzaizkion. Iñaki Mendiguren

Emaztea ikaraturik **konkortu** zela ohartu zen. Elena Touyarou

Joanes Kapatxun **konkortu** zen lurreraino. Itxaro Borda

Abelek eskuak sakeletan sartu ditu, bizkarra apur bat **konkorturik**. Pello Lizarralde

Komunerako baimena eskatu nion erizainari, eta obramendurako posturan eseri nintzen, gorputza guztiz **konkorturik**. Anjel Lertxundi

Denethor atzetik zihoan, makila baten gainean **konkorturik**. Agustin Otsoa

Presiopean **konkortzen** eta mututzen zen herria zen gurea, zioen Graxik. Itxaro Borda

Presiopean **konkortzen** eta mututzen zen herria zen gurea, zioen Graxik. Itxaro Borda

Sofi, urteek **konkortua,** hurbildu eta zaldiaren ondo-ondoan gelditu zen. Fernando Rey

Bakardadean afaldu naiz, beti bezala, egunaren eta biziaren pisuak **konkorturik**. Piarres Aintziart

Lurretik apenas **konkortzen** zen hondakin pila penagarri hura. Alberto Ladron Arana

Sabaia **konkortzen** ari zela. Iñaki Mendiguren

Bere oinarritik itsasorantz **konkortzen** den harkaitz-labarraren gailur ikaragarrira. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Soingaineko zahar batek estaltzen zion bizkar **konkortua**. Emakume txiki, azal-ilun, horzgabe, **konkortu** bat, ahots kantari pitzatua zuena. Karlos Zabala

Agure xahar **konkortua** eta kasik elbarria. Jauregiko ipotx **konkortu** itsusiak. Koldo Izagirre

Bere hiriko emakume itxuragabe **konkortu** bat ekarri zion gogora. Askoren artean

Erregearen irudi **konkortua** berehala tentetu zen. Agustin Otsoa

Zaharkituak, **konkortuak,** hagin gabeak ziren. Itxaro Borda

Itsuak argitu, **konkortuak** zutitu, deabruak jaurti eta gorrei entzunarazten badie ere. Askoren artean

Bide tzar **konkortu** haietan. Eneko Bidegain

Haren atzetik atera ginen patiora, bihitegi beltz **konkortuak** atzean utzirik etxe aldera. Koro Navarro

Braillea ez ezik, ingelesa ere erabilia baitzuen eskolan, letra **konkortu** edo sakondu batzuk baliatuz ikas-tresnatzat. Xabier Olarra

**3** ***konkortuxe*** konkortu xamar.

Mutil ile-horia zen, beti **konkortuxea,** itxuraz xaloa eta geldoa Fernando Rey

---

**konkortxo** *iz* konkor txikia.

Behera begiratu nuen, eta gerrikoaren gainetik hazten hasia zitzaidan **konkortxo** desatsegina ikusi nuen. Iban Zaldua

Bere gorputz berdearen hanka arteko **konkortxo** bat seinalatzen zuen. Jon Alonso

Hala, beste zelula mordo batekin bat eginez, **konkortxo** bat eratu dugu bularraren barruan, bertan tumore bat osatzeraino. Josetxo Azkona

---

**konkretatu,** konkreta, konkretatzen du *ad* zehaztu.

Nire asmoa ez zen gai horri heltzea, baizik eta eranskin honen mezu nagusia azpimarratzea: alegoria guztiek ematen dutela irrealak harik eta **konkretatzen** eta itzultzen diren arte. Bernardo Atxaga

Izenak gorputzu egiten du zoritxarra, *ontzi bat hondoratu da!* esatetik *Pequod hondoratu da!* esatera dagoen alde horrek **konkretatzen** omen du-eta oinazea. Anjel Lertxundi

Ikuspegi horren frogatzeko, aski da Parisko bulegari baten hizkuntza nekazari bretoi batenarekin konparatzea: baten abstrazioak besteak **konkretatuko** baititu; nekazariarentzat paper kontuak besterik ez dira, bulegariarentzat izen eta zeregin zehatz asko direnak; eta alderantziz; bulegariarentzat berdailu edo naturaleza besterik ez dena, nekazariarentzat aleunka belar eta landare klase konkretu dira. Patziku Perurena

Ipuin Orokorra, alegoria den partez, **konkretatu** egiten dela aldiro, premiaz premia, arlorik arlo. Bernardo Atxaga

---

**konkretizatze** *iz* zehaztea, konkretu edo konkretuago bihurtzea.

Lasserreren xedea horrelako departamenduarekin muga egiten duten «hiru herrialdeekilako harremanen **konkretizatzea** aldeaskotariko elkarlanaren oinarria» da. Berria - Euskal Herria

---

**konkretizazio** *iz* konkretizatzea.

Pentsatzekoa da ondoko hilabeteetan harreman horiek **konkretizazio** zerbait izaten ahal luketela estrukturalki. Berria - Euskal Herria

---

konkretotasun ik **konkretutasun**.

---

**konkretu** **1** *izond* zentzumenen bidez atzemana edo irudikatua izan daitekeena, zehatza, mugatua. ik**jakin**[2]. ant **abstraktu**.

Gizon-emakume **konkretuen** gizadi erreala eta horien historia erreala. Joxe Azurmendi

Nahiz eta alderdi sinboliko, abstraktuan huts egin, jenio moduko bat dela irudiztapen **konkretu** edo mimetikoetarako. Xabier Olarra

Objektu **konkretuak** irudikatu egiten dira, (objektuen) balio abstraktuak adierazi egiten dira. Josu Zabaleta

Eisensteinek modu abstraktuan pentsatzen dik zinea bezalako gauza **konkretu** bat. Anjel Lertxundi

Nahi izan dugu erakutsi, etsenplu **konkretu** batzuen inguruan zer egiten ahal den [...] gai zabal horren inguruan. Herria

Haren begirada irmoa, haren tristura **konkretua**. Juan Garzia

Ez edozein moral, moral oso **konkretu** bat baizik. Joxe Azurmendi

Zein da linguistikaren helburu osoa eta aldi berean **konkretua**? Isabel Arrigain

**2** (izan aditzarekin)

Arte "abstraktua" askoz ere **konkretuagoa** da, izatez, gai zuzenagoak, ukigarriagoak baliatzen baititu. Josu Zabaleta

**Konkretua** ia beti abstraktoa baino hobea da zuzeneko komunikazioan. Andoni Egaña

Irudikapenaren eta adierazpenaren arteko bereizkuntzari dagokionez, erreferentearen izaeraren desberdintasunaren arabera definitzen du, erreferente **konkretua** baita lehenengoan, eta abstraktua bigarrenean. Josu Zabaleta

**3** (beste izenondo batzuekin)

Une jakin eta **konkretu** batean. Pello Zabala

Ikus dezagun nolatsu dagoen momentu eta tokigune jakin **konkretu** batean. Pello Zabala

Rulforen paradigman kezka existentziala […] fatalismoz janzten da, eta zeharo loturik ageri da lurrarekin -lur **konkretu,** zehatz, historiko batekin-, harekin bat eginik. Juan Garzia

Ez dago inolako arrazoi logikorik, arazo **konkretu** mugatu bat modu absolutuan eztabaidatu nahi izateko. Joxe Azurmendi

**4** ***ez-konkretu*** *izond*

Eta ez da ez ideia txarra, izan diren hainbat eta hainbat proiektu ez-**konkretu** eta ez-bideragarri kontuan izanik. Iñaki Heras

---

**konkretuki** *adlag* zehazki.

Gizakia **-konkretuki,** emakumea-. Koldo Izagirre

Pentsaera nazistan, **konkretuki** Hitler-en testuetan beretan. Joxe Azurmendi

Zauden lekutik dena ikusten da, baina **konkretuki** ezer ez. Unai Iturriaga

**Konkretuki,** 1998tik 2001era bitartean aterpetu zutela dio Poliziak. Berria - Euskal Herria

Zuk zer pentsatzen duzu horretaz, **konkretuki** aitzina doan proiektu bat da ala teorian gelditzen da? Herria

---

**konkretutasun** *iz* konkretua, zehatza denaren nolakotasuna.

**Konkretutasunak,** minuskula indartsu batek, orokortasunak baino indar handiago du. Iñigo Aranbarri

Horrelako hilak berpizten saiatu behar dugu, **konkretutasuna** itzuli behar diegu. Bernardo Atxaga

Metonimiaren bidez **konkretutasunetik** unibertsalerainoko bidaia egingo du. Berria - Harian

Munduarekiko erlazio abstraktu bat erlazio konkretu baten kontrakoa da, hain zuzen, eta **konkretutasunik** ez izate horrexek zuzeneko erreferentzia bat galtzea esan nahi du. Josu Zabaleta

Errealismo eta **konkretutasun** autista. Xabier Olarra

---

**konkrezio** **1** *iz* konkretatzea, zehaztea.

Neurrien **konkrezio** aritmetikoa. Santiago Iruretagoiena

Gaur iduri zait gauza sinple bat gertatu zela edo bederen era askotako gauzak **konkrezio** bakar batean bildu zirela. Piarres Aintziart

**2** konkretutasuna.

Corsok bere testuetan kaleko hizkera gordina Emily Dickinsonen estetikarekin eta Japoniako poesiaren **konkrezioarekin** uztartzen zuen. Berria - Kultura

Errealitate ezagunei buruz hitz egiten badu ere, **konkrezio** berariazkoa ematen dio testuari. Ana Urkiza

---

**konkubina** *iz* ohelagunea, ohaidea.

Karlos Mailu -hori baita Charles Martelen esanahia- Heristaleko Pepin gorteko morroi nagusiaren (maiordomoaren) "maitasun-semea" zen, hau da, Pepinek **konkubina** batekin izandako semea. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**konkupiszentzia** *iz* irritsa, sexu grina.

**Konkupiszentzia** menderatzeko. Imanol Unzurrunzaga

Arrazoimenak arimaren **konkupiszentzia** hauek guztiak mendean dituenean, orduan esaten da gizakia perfektuki ordenatuta dagoela. Imanol Unzurrunzaga

Gure aldetik eta Jaungoikoaren laguntzaz kontrolpean behar dugu eduki **konkupiszentzia,** haren mende jausi barik. **Konkupiszentzia** baino aurkakoagorik ba al du

borondate onak? Imanol Unzurrunzaga

---

## konkur 1 *iz ipar* [fr] lehiaketa.

Bertzalde ganden ilabetean "Morlaas" Biarnes herrian iragan diren Departamenduko kabalen **konkurretan** Amotz Kamietako familiak gaitzeko ohoreak bildu ditu. Herria

Uda huntan Bidarten izan diren **konkurretan** gure taldeak lehen prima bildu eta ohorezko kopa ukan du. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Hamazazpi urtetan oihantzain **konkurra** pasatu nuen, eta bi urte eta erdi pasatu nituen oihantzain eskoletan, Loiret departamenduan. Herria

---

## konkurrente *iz* lehiakidea.

Atzerriko merkatuan orain arte existitzen ez ziren **konkurrente** berri batzuei aurre egin behar diete Frantziako ekoizleek: Australia, AEB, Hego Afrika, Txile, Argentina eta beste. Berria - Harian

Eta segitu baldin badugu handitzen, da gure **konkurrenteak** txarrak zirelako. Herria

---

## konkurrentzia 1 *iz* merkataritza lehia.

Munduko edozein bazterretatik heltzen dira era guztietako produktuak merke-merke, eta zaila da **konkurrentzia** horri aurre egitea. Juan Luis Zabala

**Konkurrentziak** prezioei buruzko lehiaketa mesedegarria sortzen du, eta zerbitzuen kalitatea hobetzen. Iñaki Heras

Garapen-maila desberdineko nazioen arteko **konkurrentziaren** ondorio negatiboak. Koro Navarro

Merkatu hori ez da ttipitzen baina **konkurrentzia** gero eta gehiago badugu. Herria

Kredituen gaineko gehiegizko **konkurrentzia** baten ondorioak. Koro Navarro

Ardatzak hiri estatuetatik nazio-estatuetara aldatu zirelarik, areagotu egin zen **konkurrentzia**. Koro Navarro

**Konkurrentzia** oztopatuko ez duelakoan. Berria - Ekonomia

**Konkurrentziaren** printzipioaren arabera. Koro Navarro

Diru- eta finantza-eragozpen guztiz larrien aurrean, ekonomia-politikak nazioarteko **konkurrentziaren** eskakizunen mende geratu dira apurka-apurka. Koro Navarro

**Konkurrentziaren** mekanismoa, oro har, emaitza zero izaten duen joko bat izan ohi da. Koro Navarro

Espainiako Energiaren Batzorde Nazionalaren (EBN) eta **Konkurrentzia** Babesteko Zerbitzuaren oniritzia jaso ostean. Berria - Ekonomia

**2** (izenondoekin)

Asiako herrialdeek egiten duten **konkurrentzia** desleiala. Berria - Ekonomia

Nazioarteko **konkurrentzia** gogor baten testuinguruan. Koro Navarro

**Konkurrentzia** ikaragarria sortu zen bankuen artean. Koro Navarro

Merkatuez eta baliabideez [...] jabetzeko **konkurrentzia** orokorra dago gaur. Koro Navarro

Zerbitzu publikoen defentsa egiten dute, eta **«konkurrentzia** askearen» proiektua arbuiatzen. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko zuzeneko inbertsioen eragile nagusia, orduan, lurreko eta lurpeko baliabideak eskuratzeko nazioen lehia zen, mundu osoko eskalako enpresen arteko **konkurrentzia** globala baino areago. Koro Navarro

Elkarren lehian dabiltzan pentsamendu-joeren **konkurrentzia** osasuntsu batek eraginda. Koro Navarro

**Konkurrentzia** ez perfektuzko eta goranzko etekinen testuinguru batean. Koro Navarro

**3** konkurrenteen multzoa.

Ezen, kontu guztiak aterarik, urtearen amaieran produktu hori merkeago irteten zaiola noski **Konkurrentziarena** baino. Juan Garzia

**4** lehia.

Margolariek dagerrotipoaren aurkikuntzaren aurrean izan zituzten erreakzioek [...] argi erakusten dute segituan ikusi zutela aurkikuntza hartatik **konkurrentzia** arriskutsua zetorkiela ordu arte beren alorra izan zuten imitazioaren eremuan. Josu Zabaleta

Esan dugu lehen ere pintura, zehaztasun optikoaren eremuan argazkiaren **konkurrentzia** azaltzean, nola aldatu zen berehala lekuz, beste eremu batean sartzeko. Josu Zabaleta

Erregimen komunistaren garaian Errumaniako literatur kritikaririk irakurriena izan zen Duvrescu... agian [...] **konkurrentzia** egin ziezaioketen gehienak -guztiak ez esateagatik- kartzelan zeudelako, edo erbestera abiatu behar izan zutelako. Iban Zaldua

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero eta **konkurrentzia**-ahalmen gutxiago duten merkatu-egituren aldeko bilakaeraren hipotesia. Koro Navarro

Enpresa handien **konkurrentzia**-estrategiek. Koro Navarro

Prozesu hau [...] finantza-erakundeen arteko **konkurrentzia-** liberalizazioan datza. Koro Navarro

Gizartea zabalkuntza lasterregi batetik edo **konkurrentzia**-mekanismoaren aplikazio sistematikoegi batetik babesteko. Koro Navarro

Inbertsioak **konkurrentzia**-abantaila argia duten ekoizpenetan kontzentratzea. Koro Navarro

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nazioarteko merkataritzaren ezaugarriak ordea, errealitatean, ekoizpen-faktoreen mugikortasun gero eta handiagoa [...] monopolio-**konkurrentzia** eta goranzko etekinak dira. Koro Navarro

Nazioartekotzea, beraz, internalizazioarekin lotua ageri da hemen, merkatuaren hutsuneei emandako erantzun gisa, oligopolio-**konkurrentziazko** egoera batean. Koro Navarro

Era horretan, estatuek galarazi egiten zituzten elkarrekin estu loturiko ekonomien arteko diru-**konkurrenziaren** balizko ondorio izugarri txarrak. Koro Navarro

**7** ***konkurrentziazko***

Merkatu autoarautuaren **konkurrentziazko** sistema. Koro Navarro

Barne-merkatu bateratuek osatzen duten **konkurrentziazko** espazioan. Koro Navarro

**Konkurrentziazko** harremanak gaineratu zaizkie Iparralde garatuaren eta azpigaratua edo garapen-bidean dagoen Hegoaldearen arteko mendekotasunezko harreman usadiozkoei. Koro Navarro

Mendebaldeko 1930eko hamarraldiko krisiak adierazten du argiena **konkurrentziazko** mekanismoak duen ahalmen suntsitzailea, guztiz bere kasa uzten zaionean. Koro Navarro

---

## konkurtsal

**1** ***lege kokurtsal*** *izond* konkurtso legea.

Erabakiak dioenez, likidazio proiektua orduko aurkeztu ezean, lege **konkurtsala** jarriko du indarrean Del Olmok. Berria - Euskal Herria

---

**konkurtso** 1 *iz* lehiaketa.

Lehiaketa beste gauza bat da, kirolarekin du zerikusia, telebistako **konkurtsoekin**. Iñigo Aranbarri

2 *ipar* administrazio publikoko langune bat lortzeko lehiaketa. ik **oposizio**.

Polizia Akademiaren **konkurtsoa** lortu eta polizian sartu zen. Ramuntxo Etxeberri

Pascale Mouesca jadanik idazkari da eta iragan du **konkurtsoa** administrazioneko laguntzaile izaiteko eta beraz lan kargu hori izanen du. Herria

Lehenik behar da **konkurtso** bat iragan: Cafep deitzen dena bigarren mailan edo CAER, jadanik ordezketak egiten dituztenek pasa dezaketena. erakaskuntza katolikoak emaiten ote du formakuntza **konkurtso** horren ardiesteko? Herria

Batetik, **konkurtso** batean aurkeztea eta bestetik, enpresa pribatuetara joatea. Berria - Kultura

3 ***hartzekodunen konkurtso*** zordun baten ondasunak hartzekodunen artean artean banatzeko prozedura judiziala.

Enpresak borondatezko hartzekodunen **konkurtsoan** deklaratu du gizarte segurantzarekin duen zorra negoziatzen jarraitzeko. Berria - Kirola

· **Konkurtso** honekin enpresak bere hartzekodunak zeintzuk diren azaldu behar dio auzitegiari, kasu honetan Bilboko Merkataritza Auzitegiari Berria - Kirola

---

**konkurtsozale** *iz* konkurtsoen zale dena, lehiaketazalea.

Badago telebistatik aparte bizitzerik? gainera, badakizu ez naizela batere **konkurtsozalea** Patxi Iturritegi

---

konmemorazio ik **kommemorazio**.

---

konmozio ik **kommozio**.

---

konmutadore ik **kommutadore**.

---

konmutatu ik **kommutatu**.

---

konmutazio ik **kommutazio**.

---

**konnibentzia** *iz* elkar aditzea.

Zapaterorekin **konnibentzia** ikusi nuen joan den asteleheneko agerraldian. Berria - Euskal Herria

---

**konnotatibo** *izond* (zerbait) konnotazio gisa daramana. ik **konnotazio 3**.

Russellen ustez, izen propio puru batek denotatu egingo du soilik, eta ez du inolako arrasto **konnotatiborik** izango. Askoren artean

Britainia Handiko egunkari txepelen irudira, izenburu laburrak, indartsuak, **konnotatiboak**. Iñigo Aranbarri

Zentzua (edota bestelako elementu **konnotatiboren** bat) baztertzen badugu. Askoren artean

---

**konnotazio** *(orobat* ***konotazio*** *g.er.)* 1 *iz* hitz baten esanahiari hiztunak egoeraren edo testuinguruaren arabera, berezkoaz gain, eransten dion esanahia.

Irudi partehartze publikoaren ideia orokorrarekin geratzeko eskatuko genieke irakurleei, bestelako **konnotazioak** ahaztuta. Askoren artean

Horregatik du egun ere erretorikak halako "hitz-jario hutsalaren" **konnotazioa,** 'erretolikaren' usaina alegia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esandakoari esanahi berriak bilatzeko, esaldirik sinpleenean **konnotazioak** asmatzeko. Berria - Kultura

Irudi orok **konnotazio** asko bideratzen du, kode batzuen jokoaren arabera. Josu Zabaleta

Niretzat zalantzarik ez dago cocuyo delakoa, euren hizkera arruntean, **konnotazio** eta iradokizun sexualez mukuru zamatutako hitz markatua izango dela. Jon Alonso

"Itzala" hitzak leku gehienetan dituen **konotazio** txarrak. Bernardo Atxaga

Eskutitzak **konotazio** politikoz beteta daude. Berria - Kultura

Koitoak, beraz, harrezkeroztik, autoafirmazio, nagusikeria eta botere **konnotazioak** hartu zituen. Luis Elberdin

Izan ere, *bouc* akerra da, bai, Anboton-eta aurki daitezkeen ahuntz potrodrun horietarikoa... gazteleraz duen **konnotaziorik** gabea baina. Iñigo Aranbarri

Aldi berean ikuspenaren aldetik zentratua eta **konnotazioaren** aldetik kalifikatzailea den ikuspuntua. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Gaur egun irri edo trufa **konnotazioak** izaten ditu gehienbat prozedura honek. Josu Zabaleta

3 ***konnotaziozko*** *izlag*

Zeinu plastikoek [...] beren adierazpen-planoa eta beren eduki-planoa izan behar dute, eta denotaziozko eta **konnotaziozko** adieraziak bideratu behar dituzte. Josu Zabaleta

Hitzaren beste bi zentzuak koadratzeak dituen beste balio batzuei, **konnotaziozko** balioei, ere badagozkiela. Josu Zabaleta

---

**kono** 1 *iz* buru bat tinko duen eta besteak zirkulu bat edo elipse bat ibiltzen duen zuzenki batek eratzen duen gorputz geometrikoa.

Espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesek: solidoak: piramidea, prisma, **konoa,** zilindroa, eta esfera, jakina; eta horiez gainera, poliedro erregularrak ere bai. Jon Muñoz

Plano baten eta **kono** baten elkartzea. Jon Muñoz

**Konoaren** bolumena zilindroarenaren herena dela Jon Muñoz

2 oinarria biribila duen eta puntan bukatzen den gauzakia.

Bi **kono** egiten dira, bat trinkoa, bestea hutsa, tornuan ondo bukatuta. Santiago Iruretagoiena

Mendiaren **kono** ketsua. Agustin Otsoa

[Kontrahormen] gainean, erdian, **kono** zentrala altxatzen zen, oinarriaren altueraren erdia besterik ez zuena, krater koskadunak koroaturiko labe edo tximinia erraldoiaren itxurarekin. Agustin Otsoa

Errautsezko **kono** batek betetzen zuen tximinia. Koro Navarro

Baina euriak berean segitu zuen, **konoak** inbutuarena egin zuen, tapoiaren gainean hogei mila metro kubiko urezko aintzira bat formatu zen. Juan Garzia

Bodega modernoa, bi urteko ardoak jasotzeko adinakoa, bere zurezko upel eta **konoekin**. Josu Zabaleta

**3** erretina osatzen duten zelula batzuetako luzakin konikoa.

**Konoak** fobearen inguruan dira batez ere ugari. Josu Zabaleta

Melanina-geruzak, hala, **kono** eta makiletan zehar pasatzean behar bezala xurgatu ez den argi guztia desagerrarazten du. Irene Aldasoro

Mugimendu hori dela eta, erretinaren hainbat lekutan eratuko da hari fin luze baten irudia, **kono** askori arinki eragiten diela. Irene Aldasoro

Arrazoizkoa litzateke pentsatzea **kono** bat hartzen duen irudiak adierazten duela begiaren erresoluzio-ahalmenaren muga absolutua. Irene Aldasoro

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kono** itxurako txanoa jantzita agertu da. Urtzi Urrutikoetxea

Hondoratzeak 3 metroko zabalerako eta 12 metroko sakonerako zuloa eragin zuen gainazalean, **kono** itxurakoa. Berria - Euskal Herria

Fez: **kono**-enbor baten forma duen txanoa, gehienetan gorria eta batzuetan borla batez hornitua. Iñaki Mendiguren

Begiaren behaketa-eremu onenean dagoen **kono**-ikusmenak xehetasun handia ematen du. Irene Aldasoro

Koloreen pertzepzioa erretinako hiru **kono** mota desberdinen jarduerak erabakitzen du; **kono** mota horietako bakoitza uhin-luzera desberdin baterako da sentibera. Josu Zabaleta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Farol bakarra, goitik beherako argi-**kono** bat zabaltzen zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Faroleko euri-**kono** argitsuari. Xabier Mendiguren Elizegi

Behin eta berriro errauts-**konoaren** leizearen hondoko labeak gori-gori jartzen ziren. Agustin Otsoa

---

**kono** **1** *iz* buru bat tinko duen eta besteak zirkulu bat edo elipse bat ibiltzen duen zuzenki batek eratzen duen gorputz geometrikoa.

Espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesek: solidoak: piramidea, prisma, **konoa,** zilindroa, eta esfera, jakina; eta horiez gainera, poliedro erregularrak ere bai. Jon Muñoz

Plano baten eta **kono** baten elkartzea. Jon Muñoz

**Konoaren** bolumena zilindroarenaren herena dela Jon Muñoz

**2** oinarria biribila duen eta puntan bukatzen den gauzakia.

Bi **kono** egiten dira, bat trinkoa, bestea hutsa, tornuan ondo bukatuta. Santiago Iruretagoiena

Mendiaren **kono** ketsua. Agustin Otsoa

[Kontrahormen] gainean, erdian, **kono** zentrala altxatzen zen, oinarriaren altueraren erdia besterik ez zuena, krater koskadunak koroaturiko labe edo tximinia erraldoiaren itxurarekin. Agustin Otsoa

Errautsezko **kono** batek betetzen zuen tximinia. Koro Navarro

Baina euriak berean segitu zuen, **konoak** inbutuarena egin zuen, tapoiaren gainean hogei mila metro kubiko urezko aintzira bat formatu zen. Juan Garzia

Bodega modernoa, bi urteko ardoak jasotzeko adinakoa, bere zurezko upel eta **konoekin**. Josu Zabaleta

**3** erretina osatzen duten zelula batzuetako luzakin konikoa.

**Konoak** fobearen inguruan dira batez ere ugari. Josu Zabaleta

Melanina-geruzak, hala, **kono** eta makiletan zehar pasatzean behar bezala xurgatu ez den argi guztia desagerrarazten du. Irene Aldasoro

Mugimendu hori dela eta, erretinaren hainbat lekutan eratuko da hari fin luze baten irudia, **kono** askori arinki eragiten diela. Irene Aldasoro

Arrazoizkoa litzateke pentsatzea **kono** bat hartzen duen irudiak adierazten duela begiaren erresoluzio-ahalmenaren muga absolutua. Irene Aldasoro

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kono** itxurako txanoa jantzita agertu da. Urtzi Urrutikoetxea

Hondoratzeak 3 metroko zabalerako eta 12 metroko sakonerako zuloa eragin zuen gainazalean, **kono** itxurakoa. Berria - Euskal Herria

Fez: **kono**-enbor baten forma duen txanoa, gehienetan gorria eta batzuetan borla batez hornitua. Iñaki Mendiguren

Begiaren behaketa-eremu onenean dagoen **kono**-ikusmenak xehetasun handia ematen du. Irene Aldasoro

Koloreen pertzepzioa erretinako hiru **kono** mota desberdinen jarduerak erabakitzen du; **kono** mota horietako bakoitza uhin-luzera desberdin baterako da sentibera. Josu Zabaleta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Farol bakarra, goitik beherako argi-**kono** bat zabaltzen zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Faroleko euri-**kono** argitsuari. Xabier Mendiguren Elizegi

Behin eta berriro errauts-**konoaren** leizearen hondoko labeak gori-gori jartzen ziren. Agustin Otsoa

---

**konoerdi** *iz* konoaren erdiaren forma duen gorputz geometrikoa.

Jende gehienak konotzat hartzen duen hori **konoerdia** baino ez da. Jon Muñoz

---

**konoide** *iz* kurba batean eta zuzen batean bermatuz higitzen den eta plano bati paralelo mantentzen den zuzen batek sortzen duen azalera.

**Konoideei** eta esferoideei buruz. Jon Muñoz

---

**konorte** **1** *iz* zentzumenez baliatzeko gaitasuna. ik **korde**.

**Konortea** galtzeko moduko tristezia etorri zitzaidan. Fernando Rey

Ondoz ondoko emozio haiek guztiek ahiturik zeukaten, eta **konortea** galdu zuen. Josu Zabaleta

Ikusi zuenak berriro **konortea** galarazi zion ia. Iñaki Mendiguren

Geroztik ez zaio **konortea** etorri. Gotzon Garate

**Konortea** itzuli zaidanean. Joseba Sarrionandia

Astiro-astiro, atzera berriz **konortera** itzultzen ari zela. Joxe Austin Arrieta

Ni iristerako, bera lurrean zetzan **konorterik** gabe. Joxe Austin Arrieta

**Konorterik** gabe geratu zen. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

Ukaldi itsu bat besterik ez zen izan lurrera-behar hura niretzat, ahozpezko tupust egite bat **konorte**-galerarantz. Joxe Austin Arrieta

**3** ***konorte gabe*** *adlag* konorterik gabe. ik **konortegabe**.

Oraindik **konorte** gabe dago. Iñaki Mendiguren

Errol, **konorte** gabe, mahai gainera erori zen. Iñaki Mendiguren

Ukabila itxi eta Marjolin **konorte** gabe utzi zuen. Karlos Zabala

**Konorte** apur batekin behatz suminduak bekokira altxatzen baditu […]. Anton Garikano

· Autoan sartu eta **konorte gabeko** zakurra entrenamendu-tokira eramango dute Gotzon Garate

---

## konortegabe *izond* konorterik gabe dagoena.

Hark, bitartean, Ximurra **konortegabea** biluzteari ekin zion. Aingeru Epaltza

---

## konortegabetu, konortegabe(tu), konortegabetzen **1** da/du *ad* konortea galdu edo galarazi.

Hondarretan zetzan, erorikoaren ondorioz **konortegabetua,** suposatu nuen. Joxe Austin Arrieta

Bere inguruko barazkien usain freskoak, azenarioen urrin sarkorrak asaldatu egiten zuten **konortegabetzeraino**. Karlos Zabala

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ni arnasarik gabe hantxe, zutik, neskatxa **konortegabetua** besoetan. Joxe Austin Arrieta

---

## konorteratu, konortera, konorteratzen da *ad* konortera itzuli.

Lurrera erori zen, eta haizea ematen jarri ginen, baina ez zen **konorteratzen,** Doktoreak esan zidanez, berriro **konorteratu** gabe hil zen. Oskar Arana

Doktoreak esan zidanez, berriro **konorteratu** gabe hil zen. Oskar Arana

---

## konotazio ik **konnotazio**.

---

## konpa *iz adkor* laguna. ik **konpañero**.

Nola lanak eskuetatik kendu zizkioten, nola handik beste batera deitu zioten... eta pintxe, eta **konpa** eta puto pila bat. Unai Iturriaga

---

## konpai **1** *iz adkor* laguna. ik **konpañero**.

Gustura barre egin dut, eta gustura barre egiten sentitu dut nire ondoan Stevenson, injineru farogilearen semea, ahulen komunitateko **konpai** Robert Louis. Harkaitz Cano

**2** (deiki gisa)

Eskerrik asko, **konpai,** badakit oso bizimodu latza duzuela blokeoarekin... Javi Cillero

Hitza, **konpai,** hitza da, eta auzi honetan nik bete eta zuek jan egin duzue. Migel Angel Mintegi

-Esan diat, **konpai,** nik ez diat lankiderik behar, eta ez ezaala okerretik hartu, ez duk fidagarria ez haizelako, nik bazakiat hi ere... Koldo Izagirre

Ez duk erraza, **konpai,** pentsatuko du. Lander Garro

---

## konpainia *(orobat **konpania** g.er. eta **konpañia** g.er.)* **1** *iz* lagunartea.

Urruti utzi nahi ditu jendearen **konpainia** eta **konpainia** horretan beti, baita egoerarik onenetan ere, sortzen diren ika-mika eta urratuak. Bernardo Atxaga

-Pozten nau hemen **konpainia** aurkitzeak. Anton Garikano

Kafe laburra, **konpainia** hain baitzen atsegina. Edorta Jimenez

Hementxe izan genuen lehengo gau batean, **konpainia** eta guzti, sukaldean. Mirentxu Larrañaga

Mamuaren **konpainia** ere ukatu egin ziotela. Anton Garikano

Beatrizek beti laket izan zuela Alvaroren **konpainia**. Juan Garzia

Zure asmo garbia eta xalotasuna ezagutuko ez banitu, oraindanik bertatik gorrotatuko nuke zure **konpainia**. Askoren artean

Naturaren **konpainia** isilean nago eta nabil. Piarres Aintziart

**2** (izenlagunekin)

Lubis **konpainia** ona da, horretan ez dago zalantzarik. Bernardo Atxaga

Edozein leku nik gogoko, **konpainia** onean izanez gero. Edorta Jimenez

Ez zen adimentsua izan beharrik **konpainia** onean iragan zituzkeela asmatzeko. Elena Touyarou

**Konpainia** oneko bidelagunak dira. Pello Salaburu

Iluntzero etxean, zintzo-zintzo, arratseko seiak eta erdietarako, eta hain da **konpainia** ona, hain alaia eta argia, alajaina. Mirentxu Larrañaga

Eta **konpainia** bitxia zela hiru miliziano obispo batentzat. Inazio Mujika Iraola

**Konpainia** bikainean negok, pozak zoratzen, barrez eta alai. Aitor Arana

Ez da **konpainia** ederra [izotza], batez ere, zahartzaroan aurrera joan denarentzat. Pello Zabala

**3** oinezko gudari taldea, ehunen bat lagunek osatua, kapitain baten agindupean dagoena.

Garaile-uste eta geometriaren arabera ordenaturik ageri ziren **konpainia,** batailoi, erregimentu, brigada eta dibisioak. Felipe Juaristi

Gudarien batailoi bakoitzean lau kaperau izaten zirela, hau da, **konpainia** bakoitzeko bat. Edorta Jimenez

Zangoza errendiarazi berri zuen aragoiar **konpainia** batekin. Aingeru Epaltza

Guk, aldiz, **konpainia** bakar bat bera ere ezin dugu galdu. Agustin Otsoa

Zenbait **konpainia** karlista portura atera ziren erasoari ekiteko prest. Koro Navarro

· Barruan sartu zen polizia armatuaren **konpainia** oso bat Koldo Izagirre

**4** antzerkiaz mintzatuz, taldea.

Halako batean, **konpainia** italiar txiki bat etorri zen Vilniusera, eta Monteverdiren *Lamento d´Arianna* eskaini zuten. Felipe Juaristi

Bere **konpainiaren** eta beste **konpainia** askoren antzezpenetan jasotako esperientzia. Josu Zabaleta

**5** merkataritza sozietatea. ik **enpresa**.

*Seven Seas Spray* ontzia Cardiff-eko **konpainia** batek erosi zuen. Koldo Izagirre

Yumimoto **konpainiako** langileek. Joxan Elosegi

Ekialdeko Indietako Britainiar **Konpainiako** merkataritza-agente harraparietatik. Iñaki Mendiguren

**Konpainiako** detektibeak inguru hauek miatzen ari dira. Lopez de Arana

1999. urtean merkaturatu zuen MSD **konpainiak** Vioxx sendagaia. Berria - Gaiak

Egungo produktu tipikoak, aitzitik, halako enpresan bat-batean sortu, lehiakideek formula elkarri kopiatu eta berehala merkaturatzen dituzte **konpainia** handiek **Konpainia** handiak handiago egiten dira beste **konpainia** handi batekin elkartzen direnean. Edorta Agirre

Unibertsoko **konpainia** handienetako bat zen Yumimoto. Joxan Elosegi

Greg Coates **konpainia** ingeles handi bateko exekutiboa zen. Joxemari Iturralde

**Konpainia** multinazionalei eta nazioarteko finantza erakundeei. Berria - Gaiak

Baldin eta estatu batean akzio ugari lituzkeen **konpainia** bat sortuko balitz, eta hilabete batzuetan akzio horiek lehen erosketatik hogei edo hogeita bost bider balio handiagoa lortuko balute [...]. Iñaki Iñurrieta

Unibertsitate publiko (Berkeley, adibidez) edo pribatuetan (Stanford, esaterako) eta **konpainia** pribatuetan egin duten lanean konputagailu eta programa konplexuak erabiliz 25.498 gene aurkitu dituzte landare honetan. Pello Salaburu

Nekez aurki zitekeen, pentsatu zuen, hura baino **Konpainia** lehiatsuagorik. Mirentxu Larrañaga

**Konpainia** telefonikoaren erantzungailu estandarrak. Aingeru Epaltza

Filipinetako Tabakoen **Konpainia** Nagusia. Koldo Izagirre

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zeren, handik gutxira, soldadu **konpainia** erdi bat agertu baitzen Vianako aldetik. Koro Navarro

Berrogeita hamarren bat emazte infanteria **konpainia** iduri ilara bakarrean lerrotuak. Koldo Izagirre

Antzezle **konpainia** bat zen bidez aldatzen. Josu Zabaleta

Gizon armatuen multzoa baino, antzerki **konpainia** dirudi gehiago: iluntasun eta itzal artetik argira, bizitzaren azpi-azpian ezkuturik dagoen anabasatik ordena geometriko berrira doan komediante-**konpainia**. iazko udan biran ibili zen errepertorio-**konpainia** hari... Felipe Juaristi

Antzerki **Konpainia** bateko antzezle gaixoen ustekabea. Josu Zabaleta

Publizitate **konpainia** batean egiten zuen lan. Iñaki Zabaleta

Aseguru **konpainia** bateko diru kobratzailea zen. Koro Navarro

Beren agintarien bermearekin jarduten zuten: hala elektrizitate **konpainia** nazionalak Frantzian 1970eko hamarraldian, eta garapen- bidean zeuden herrialdeetako enpresa asko. Koro Navarro

Taxi **konpainia** horiek lehentasuna zeukaten. Ramuntxo Etxeberri

*New York Central* tren-**konpainiako** langileen zabarkeriaren erruz. Lopez de Arana

Antoine de Saint-Exupéry idazlea zegoela, orduan Latécoère aire **konpainia** frantseserako lanean. Patxi Zubizarreta

Aire hegazkin **konpainia** ofiziala. Pello Salaburu

Guarda nazional **konpainia** baten geriza sendoarekin. Elena Touyarou

**7** *-en* ***konpainian*** -en lagun duela.

Kontrabandista famatu baten **konpainian**. Elena Touyarou

Taberna batean egon nintzela hitzordura bitarteko denbora guztian, agure baten **konpainian**. Anjel Lertxundi

Ogi, ardo eta txorixoaren **konpainian** kontu zaharrak aletzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Getariako kaian, Zarauzko plaiatik ez hain urruti, Mikel Lasaren **konpainian**. Anjel Lertxundi

Ikusgarri hunek eremanen gaitu munduan gaindi, pertsonai harrigarri batzuen **konpainian**. Herria

**8** ***Jesusen Konpainia*** Jesusen Lagundia.

Eta espainolaren ondotik, **Jesusen Konpainia**. Aingeru Epaltza

Baina **Jesusen Konpainia** uztea erabaki zuen, han zelarik, 1935ean. Berria - Harian

**Jesusen Konpainiak** buru ezin burutsuagoak dituela. Joan Mari Irigoien

Nola ez aipa, bestalde, XVIII. mendeko aita Larramendi gipuzkoarraren idazkiak eta asmoak, Bohemiako txekiarren hizkuntza eta kultura berpiztu zituzten **Jesusen konpainiako** haren lagunen lanekin konpara genitzakeenak? Piarres Xarriton

**9** ***konpainia egin*** lagun egin.

Begoña arratsaldero joaten zitzaion **konpainia egitera,** hiruretatik bostak arte. Patxi Iturritegi

Arropak pertxa batean bere sudurraren gainean dilindan ikusteak **konpainia egiten** zion, norbait zegoela berarekin irudikarazten zion komedianteari. Harkaitz Cano

Zergatik galarazten diete aitek alabekin ezkonduko direnei, hain kontu handiz, haiei **konpainia egitea** eta haiekin tratu arrunta izatea? haren ondoan idia, astoari **konpainia egiteko**. Iñaki Iñurrieta

· Eta **konpainia** polita **egiten** ziok Denverri. Anton Garikano

Bakarrik daudenengana joaten naiz, eta **konpainia** pixka bat **egiten** diet. Arantxa Iturbe

Bere orduko bizimodua kontatu zidan: aulki hartantxe eserita, irratiak **egiten** ziola **konpainia** handia, periodikoa nola irakurtzen zuen, eta hola. Xabier Mendiguren Elizegi

**10** ***konpainiako animalia*** lagun egiteko animalia.

Onartzen dinagu olagarroa **konpainiako animalia** bezala. Harkaitz Cano

**Konpainiako animaliarik** ezin zuelako eduki ziegan. Jokin Urain

Han geratu zen pianoa ere, animalia barroko hura, Osaba Tomen etxolako sagua kontatuz gero itzaletan abandonatzen genuen bigarren **konpainiako animalia**. Harkaitz Cano

---

## konpainiaburu *(orobat **konpainia-buru**) iz* antzerki konpainia bateko burua.

**Konpainia**-burua eta pertsonaia nagusia, ordea, atzeratu egingo dira, historia nola jokatu erabakitzeko. Josu Zabaleta

Agertokian bertan geratuko dira, **Konpainia**-burua noiz etorriko. Josu Zabaleta

Agertoki-aurrera inguratuko da, **Konpainia**-buruari Sei Pertsonaiak iritsi direla jakinarazteko. Josu Zabaleta

---

## konpainiadun *izlag*

Mendema eta mahaska egiteko, aro lehor egonkor siku eta eguzkiaren **konpainiaduna** hobe. Pello Zabala

---

## konpainiatu, konpainia(tu), konpaniatzen **1** du *ad* lagun egin.

Nik ere **konpainiatu** nahi izan nituen, baina jaun Marcelek erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

**2** elkartu.

Horiek hola, munduko gizon goxoena zen denekin eta dena bihotza, ahal zituen lagunekin **konpainiatzerat** ekarria gainerat. Herria

---

konpakt ik **konpaktu**.

---

konpakto ik **konpaktu**.

---

**konpaktu** *(52 agerraldi, 10 liburu eta 20 artikulutan; orobat **konpakto** 44 agerraldi, 14 liburu eta 17 artikulutan, eta **konpakt** g.er; Euskaltzaindiaren Hiztegian **konpaktu** agertzen da)* **1** *izond* trinkoa.

Bere baitara bildutako laranja **konpaktu** horietako bat zen, laranja-atalak elkarri oso lotuta dauden horietakoa. Harkaitz Cano

Euskal kultura "masa **konpaktua** eta oso uniformizatua" da bere ustez. Ana Urkiza

Hala ere, dena ez dago denean, izaera **konpaktuan** trinkotua, gauzen barruan hutsunea baitago. Xabier Amuriza

Unibertsoa, harentzat, begitazio **konpakto** bat zen. Pablo Sastre

Badirudi oso hizkuntza **konpaktoa** daukatela intsektuek. Unai Elorriaga

• **2** *iz* disko konpaktua.

Erosi berri dudan **konpaktua** sartzen dut musika aparatuan. Mikel Hernandez Abaitua

Esku bakar batekin irekitzen dut diskoaren plastikozko kaxa eta aparatuaren zirrikitutik sartzen dut **konpaktua,** Richard Sinclairren ahotsa entzuten dut jadanik. Mikel Hernandez Abaitua

Entzuten ahal ziren urte honetan grabatu duten **konpakto** berriko kantuak. Herria

**Konpaktu** -irakurgailuan. Itxaro Borda

**Konpaktuko** kantu pare bat han grabatu zituen. Berria - Kultura

**3** konpatu-irakurgailua.

Bere **konpaktoa** ganberan altxatzen zuen, eta hura baizik ez zuen erabiltzen etxean egoten zenetan. Aingeru Epaltza

Musika jotzen ari delarik, berdin dio **konpaktoan,** irratian edo dena delakoan. Pako Aristi

Imajina ezazue musikarik gabeko mundu bat: ez dago **konpaktorik,** ez dago telebistarik, irratia soilik etxe batzuetan. Pako Aristi

**4** ***disko konpaktu***

Esku bakar batekin irekitzen dut diskoaren plastikozko kaxa eta aparatuaren zirrikitutik sartzen dut **konpaktua,** Richard Sinclairren ahotsa entzuten dut jadanik. Mikel Hernandez Abaitua

Ez ditut disko **konpaktuen** azalak ia ikusten. Mikel Hernandez Abaitua

33 disko gogor, kanpoko bost memoria, 437 disko **konpaktu** eta DVD. Berria - Euskal Herria

---

**konpañera** *iz adkor* laguna. (deiki gisa)

-Durrutik ate asko zabaltzen ditin, **konpañera** -sartu zen Fructuoso. Inazio Mujika Iraola

-Lagun apaiz bat, **konpañera** ! -esan zuen don Romanek. Inazio Mujika Iraola

-Ken hadi paretik, **konpañera** ! -Fructuosok begi bat itxita zeukan apuntatzeko bezala-. Inazio Mujika Iraola

---

**konpañero** *iz adkor* **1** laguna. ik **konpai**.

Dena den ulertzen diat, Goio, hain zuzen lehengoan hitz egin nian horretaz beste hainbat **konpañerorekin,** konfiantzazkoekin. Jon Alonso

Jabi, bere **konpañeroa** . Pablo Sastre

Nik, adibidez, fotokopiak egiten zizkieat **konpañeroei** . Iban Zaldua

**2** (deiki gisa)

-Osasuna, **konpañero** ! -eta ukabila jaso zuen Karmenek, logelara sartu eta atea itxi aurretik. Inazio Mujika Iraola

-Biba Bakunin, **konpañero** ! -erantzun zion Karmenek, hura ere ohean agonduta. Inazio Mujika Iraola

Ez kezkatu, **konpañero,** egun batekoagatik... ez da inolako arazorik izango. Unai Iturriaga

-Tira, **konpañero,** pasatu duk minutua! Inazio Mujika Iraola

---

konpania ik **konpainia**.

---

konpania ik **konpainia**.

---

**konparaburu** *iz* konparatzeko erreferentzia edo eredua.

Amodio izeneko hori ere ez da, honako, **konparaburu** txarra: eza, gabea eta gogoa, gura eta galea, ukanarekin eta edukitzearekin, "daukagunaren gogoa" izatera pasatzen da, […]. Iñaki Segurola

---

**konparaezin** *izond* ezin konparatuzkoa.

Minbiziari aurre egitea ere esperientzia **konparaezina** eta aberasgarria da bizitzan, baina ez nau batere tentatzen. Arantxa Iturbe

Derradan behin berriz: "Lisboak" ez ninduen bere parrokiano egin bertako giro **konparaezinak** tira eginda. Aingeru Epaltza

Inguru paregabea, marko **konparaezina,** munduan berdinik ez zuen parajea... hainbat aukera agertuz joan ziren. Iñaki Iñurrieta

Eguzki eder hau, brisa leun hauek, urdin **konparaezinezko** zeru hau hagitz maite dituztela. Jon Alonso

---

**konparagaitz** *izond* konparatzen zaila, ia konparaezina. z

Bestalde, transakzio kostuak murrizten dira, prezioetan transparentzia areagotzen baita, prezioak diru berean adieraziko baitira (hau ikusiko dugu zenbaterainokoa den, izan ere merkataritza departamentuak, saiatu, saiatzen dira prezioak **konparagaitzagoak** egiten). Iñaki Heras

---

## konparagarri *izond* konpara daitekeena, konparatzeko modukoa.

Honetan ere **konparagarri** da Jainkoarekin, Beronengan, Dabidek dioenez, dena bete baita: orain egin duena eta egin nahi izan duena. Joan Mari Lekuona

Zure literatura beste arte batekin **konparagarria** balitz, zerekin parekatuko zenuke? Ana Urkiza

Beste hamar [...] izan dira nire kaleko emakumearenaren ondoren, baina, bakoitzak bere teknika eta istorioa eta akaso xarma izan badu ere, ez dira inondik inora lehenengoarekin **konparagarriak** izan. Iban Zaldua

Helburu, molde berak dituztea antzezlan guziek? **konparagarri** ote dira beren artean? Herria

---

## konparagarritasun *iz* konparagarria denaren nolakotasuna.

Gizarteen **konparagarritasuna**. Zibilizazioen **konparagarritasunaren** alde. Iñaki Mendiguren

---

## konparaketa 1 *iz* konparatzea, erkaketa.

**Konparaketa** horiei esker jabetzen da hain zuzen herri bat bere hizkuntzaz. Isabel Arrigain

**konparaketa** horrek ez zuela ez hankarik eta ez bururik. Koldo Biguri

**Konparaketa** ez da guztiz egokia. Irene Aldasoro

Osagaien **konparaketaz**. Edorta Agirre

**Konparaketak** egiten direlarik ez doaz frantsesen alde. Herria

Hire jauregian ere badituk urdezainak, **konparaketarik** egin duka sekulan hire eta haien lanaz? Michel Oronoz

Indoeuroparren eta euskaldunen arteko **konparaketa** bat egiten du egileak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ongi eginak direnean, **konparaketak** ez dira bakarrik hiztegi mailan egiten, baita mintzairaren estrukturan, esaldien egituran, gramatikan eta hotsetan. Herria

Goma barne-betea da hezurrarekin **konparaketa** egiteko erabil daitekeen beste gai konposatu bat. Irene Aldasoro

Interesgarri da segur duela hiru urtekoarekin **konparaketa** bat egitea bainan hein batetaraino bakarrik. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Adibidean barrendu naizenez, saia dezadan halako **konparaketa** ahalegintxo bat. Juan Garzia

---

konparantxa ik **konparantza**.

---

## konparantza *(orobat* ***konparantxa****)* *iz* konparaketa.

**Konparantzarik** barregarriena nork asmatuko ibili zarete. Koldo Izagirre

Ene iduriko, eternitateak luze irauten duela aditzera ematen duten **konparantzek** haren ideiatik urruntzen gaituzte. Patziku Perurena

---

## konparatibista *izond*

Hori dela eta, kulturaren antropologian hiru kategoria ditugu: unibertsalista, **konparatibista** eta partikularista. Askoren artean

Teoria **konparatibistetan** (eboluzionismo sozialean bezala), herrien arteko ezberdintasuna aztertzen da erlazio-printzipio orokor bat dela medio. Askoren artean

Teoria **konparatibisten** artean eboluzionismoa eta primitibismoa ikusiko ditugu. Askoren artean

---

## konparatibo 1 *izond* erkatzen duena, erkatzeko balio duena; konparazioan datzana.

Abiaduren taula **konparatiboak**. Xabier Olarra

II. taulan datu **konparatibo** batzuk ageri dira. Koro Navarro

Bere uharte-gotorlekuak ematen zion immunitate **konparatiboaz** baliatuz. Iñaki Mendiguren

Kontsumoa, baita oinarrizkoena ere, beti da **konparatiboa,** beti dago sozialki matizatua. Iñaki Heras

Truke librea hobea dela beti autarkia baino […] baldin herrialde bakoitza abantaila **konparatibo** handiagoa duen ekoizpenean espezializatzen bada. Koro Navarro

Ekialdeko eta Mendebaldeko antzerki tradizioen azterketa **konparatiboa**. Berria - Kultura

Beste animalia eredu bat daukagu genetika **konparatiborako** Berria - Gaiak

**2** konparazioari dagokiona.

Max Müller, G. Curtius eta Aug. Schleicher aipatu beharra dago bereziki, hirurek, nork bere aldera, lan handia egin baitzuten estudio **konparatiboen** alde. Isabel Arrigain

**3** izenondo edo adizlagunez mintzatuz, konparazioa adierazten duena. ik **konparatzaile**.

Izatez *minor* **konparatiboa** da, 'txikiena' alegia. Askoren artean

Nik hauxe diot, zeinahi hizkuntzatan delarik ere, **konparatibo** orok hiru termino eskatzen dituela nahitaez: handiena, txikiagoa, eta txikiena. Iñaki Iñurrieta

**"-is-"** ez osaturiko konparatiboak zaharkituak gelditu ziren. Isabel Arrigain

**4** ***gramatika konparatibo*** ik **konparatu 3**.

Hori izan zen gramatika **konparatibo** edo "gramatika konparatua"ren hastapena. Isabel Arrigain

---

## konparatiboki *adlag* era konparatiboan.

Gerra orokor baten agoniak zirrara sakonagoa eragiten duela psikean **konparatiboki** eztiagoa den gerra osagarrien sail batek baino. Iñaki Mendiguren

Karlomagno bezain gerra-jaun sofistikatu eta **konparatiboki** zibilizatuaren inperioaren patuak ezintasun horren adibide dramatikoa ematen digu. Iñaki Mendiguren

Abelen seme-alaba **konparatiboki** errugabe hauek. Iñaki Mendiguren

---

**konparatista** **1** *izond* gramatika konparatiboaz baliatzen dena.

Liburu horrek islatzen du hobekien indoeroperaren lehen aroa osatzen duen eskola **konparatista** honen fisonomia. Isabel Arrigain

**Konparatista** soila den metodo honek [...]. Isabel Arrigain

**2** *iz* gramatika konparatuaz baliatzen den hizkuntzalaria.

**Konparatistek** hatsapen hori onartu behar dute eta haren bidetik lan egin, engainuzko irudipenetan erori nahi ez badute. Isabel Arrigain

---

**konparatu**, konpara(tu), konparatzen **1** du *ad* erkatu, alderatu.

Norekin **konparatuko** nauzue, norekin berdinduko? Elizen arteko biblia

Atxagak Chicagoko beltzekin **konparatu** gaitu euskaldunok. Pello Salaburu

Kriseilu argia eguzki-argiarekin **konparatzea** bezala izango litzateke. Joan Mari Lekuona

Prezioa merkantziak beren artean **konparatuta** ateratzen da. Iñaki Iñurrieta

Mota bereko edo genero bereko banakoak elkarren artean **konparatuz** osatzen ditugun adigaiak. Piarres Xarriton

Irudiak eta hizkuntzak informazioa bideratzeko duten modua, eta informazio hori batean eta bestean ulertzen den modua **konparatzea** da, beraz, arazoa. Josu Zabaleta

Ikur bakartu bakar batetik abiaturik, ezin berregin daiteke jatorrizko forma; desberdinak izanik ere jatorri bera duten bi ikurrekin, aldiz, bai soma dezakegu, haiek **konparatzean,** ikur horiek prototipo batekin lotzen dituen batasun diakronikoa. Isabel Arrigain

Aspaldi ez dela, zentral telefoniko batekin **konparatzen** zen garuna. Irene Aldasoro

Begia miniaturazko argazki-makina batekin **konparatu** izan da askotan. Josu Zabaleta

Hegazkin baten pilotu automatikoarekin **konparatu** izan da organo hori. Irene Aldasoro

Gorputzaren beste ehun guztiekin **konparatuta,** bi ezaugarri ditu odolak, haiek ez dituztenak. Irene Aldasoro

Aldien tarteak sentitzen ditugu eta elkarrekin **konparatzen,** eta batzuk besteak baino luze-laburragoak direla esaten dugu. Imanol Unzurrunzaga

Eta, alderantziz, tristatuko da, irudikatzen badu bere ekintzak, besteenekin **konparatuz,** apurragoak direla. Piarres Xarriton

Hark bezala justu-justu idazten eta irakurtzen zekien jendearekin **konparatuz** gero, jakituna ere bazen. Ramon Saizarbitoria

Aurtengo menua berezia izanen da eta berria aitzineko urteetakoeri **konparatuz** . Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Geografia **konparatuaren** metodologian. Askoren artean

Kuhn, hizkuntzalaritzaz eta mitologia **konparatuaz** batera arduratu zena. Isabel Arrigain

Hemen, antropologia **konparatuari** dagokion arazo bat dago: aldatzen al da, bada, ahoskatze aparatoa arrazarik arraza? Isabel Arrigain

**3** ***gramatika konparatu*** aldaera sailak konparatuz aritzen den gramatika. ik **konparatibo 4** eta **konparatzaile 2**.

**Gramatika konparatuaren** hasierako denbora horietan, filologiak fidakaiztasunez begiratzen zien zientzia berri horren aurrerakuntzei. Isabel Arrigain

Indoeuropeoaren **gramatika konparatua,** aurreko hizkuntza bat hipotekikoki berreraiki nahi duenean, eskumenean dituen datuez baliatzen da; erkaketa, **gramatika konparatuarentzat,** iragana berregiteko bitarte bat baizik ez da. Isabel Arrigain

---

**konparatzaile** **1** *iz* izenondo edo adizlagunez mintzatuz, konparazioa adierazten duena. ik **konparatibo 3**.

Are, haietako batek baino gehiagok esango dizu, «inportante», «on», edo horrelako kalifikatibo **konparatzaile** eta beti erlatiborik gabe, bera izan zela «nire guru», «nire bizitza aldarazi zuen gizona». Berria - Kultura

**2** ***gramatika konparatzaile*** ik **konparatu 3**.

**Gramatika konparatzailearen** sortzaileen aurrekoak. Xabier Arregi

**Gramatika konparatzailearen** historia egitea zen hizkuntzen seme-alabatasunari eta ahaidegoari buruzko aldez aurretiko -Boppen eta Rasken aurretiko- arrastoa berraurkitzea. Xabier Arregi

---

**konparatze** *iz* erkatzea, alderatzea.

Harekin kartzelan bizi guztirako zeuden beste bi zigortu hartu zituen **konparatze** kontuetarako, "kontraste" gisa. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

konparazino ik **konparazio**.

---

**konparazio** *(orobat **konparazione** g.er. **konparazino** g.er. eta **gonbarazio** g.er.)* **1** *iz*

Zeroa da **-konparazio** aritmetiko bat erabiliz- heriotzaren horizontea. Joan Mari Irigoien

Heriotzaren **konparazio** ezin hobea da. Jon Alonso

Pertzepzio-iraunkortasuna guk egiten dugun **konparazio** etengabea da, ikusten dugunaren eta ikusi dugunaren arteko **konparazio** etengabea. Josu Zabaleta

Gogoeta fin bat batean, **konparazio** ederra bestean, pasadizo barregarria hurrengoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Bete-betean dagokio orri hauen abiaburu izan den gas geldoekiko **konparazio** hori. Juan Garzia

**Konparazio** edo metafora batek iradokitzen duen bideari segitzeko gauza da. Jon Alonso

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nolabaiteko anbibalentziaren aurrean aurkitzen gara hautaturiko **konparazio**-terminoetako batean, eta agian, bietan. Iñaki Mendiguren

Igorlearen **konparazio** gaitasuna. Andoni Egaña

**Konparazio** punttu esanguratsu batekin. Pello Zabala

Gaurko kultur aniztasunaren **konparazio**-antropologiaren ahaleginek *ius gentium*arekin antz handia dute. Askoren artean

Aurreko esaldietan erabilitako **konparazio** atzizkiak ozentasunaren erlatibotasunari dagozkio. Lourdes Oñederra

• **3** ***konparazione*** *(orobat **konparazio** g.er.)* *adlag* adibidez.

**Konparazione,** Chirac presidentak aski errepikatzen du zergak behar direla arindu. Herria

**Konparazione,** nahiz frangotan iduritzen zaukun biziki eder dagola, Mediterraneo itsasoa, kasik arrunt zerratua ere dena, arras eri da. Herria

Hirugarren estaian **konparazione,** bi barne badira muntatzekoak. Herria

Nork daki **konparazione** zer gertatzen ahal den jitez aldatu landare horiekin? Herria

Erasoak, **konparazione,** zakurraren beldurrarengatik gerta litezke, bai eta zakurraren harrokeriagatik ere. Gotzon Garate

Pentsa, **konparazio,** itsasoaren abantaila guztiak gertu izateaz gainera, Gipuzkoan bertan ia dozena bat ur-putzu eta zingira urtegitakoak kokatu ditugula. Pello Zabala

Handik aurrera harekin topo egingo dugu, **konparazio,** Marszalkowska kaleko kafetegi batean. Pablo Sastre

Joanden astean guti aski aipatu dugun amnistiarena **konparazione** . Herria

**4** ***konparazio batera*** *(104 agerraldi, 19 liburu eta 9 artikulutan)* adibidez.

**Konparazio batera,** berdinak exotismora kondenatzen, klixe folkloriko-sinpatikora. Iñigo Aranbarri

Interesgarriak dira, **konparazio batera,** tratuak ixteko egiten diren hizketa luze eta 'diplomatikoak' -horrela, esate baterako, Abrahanek Sararen hilobia egiteko lur zati bat erosi nahi duenean. Jose Antonio Mujika

Nik, **konparazio batera,** nik hil egin dut gizon bat eta halere erabateko gizon prestua naizela uste dut. Matías Múgica

Hor ditugu, **konparazio batera,** geroa nolakoa izango den iragartzen diguten albiste horiek guztiak. Iñigo Aranbarri

Har ditzagun, **konparazio batera,** beste sei izen. Iñaki Segurola

Eta berebat gertatzen da, **konparazio batera,** beste jende-modu batzuekin, berebat baina alde erantzira. Iñaki Segurola

Badituk elementu batzuk pertsona batzuen bizitzan itzulkor eta galgarriak; musika, **konparazio batera**. Xabier Olarra

**5** ***konparazio baterako*** *(18 agerraldi, 8 liburu eta 3 artikulutan)* konparazio batera, adibidez.

**Konparazio baterako,** lurrun-makina baten eraginkortasuna ez da % 20 baino askoz handiagoa. Irene Aldasoro

Niri, **konparazio baterako,** gezurra esan zidan maite ninduela esanez, ni beste inor ez zuela maite. Ander Irizar

**Konparazio baterako:** errege hilkor batek, urrezko txanponak milioika baleuzka eta horiek zilarrezkoak balira bezala goraipatuko balitzaizkio, ez al luke hori iraintzat hartuko? Xabier Kintana

---

konparazione ik **konparazio 3**.

---

## konparezentzia *iz* agertzea, aurkeztea.

Eta koadro txiki batean, eskuinean, beheko angeluan, kronika bat, Dashiell Hammett-en **konparezentziari** buruzkoa, Ekintza Antiamerikarren Batzordearen aurrean. Iban Zaldua

---

konparsa ik **konpartsa**.

---

## konpartiezin *izond* partekaezina, ezin partekatuzkoa.

Baina, Soniaren desio eta asmo onak eskertzekoak baziren ere, Sarak garbi ikusten zuen bere bakardade hura bakarrik ibili beharrekoa zela, oinaze eta hutsune batzuk banaezinak eta **konpartiezinak** zirelako, besterik gabe. Joan Mari Irigoien

---

konpartimendu ik **konpartimentu**.

---

## konpartimentatu, konpartimenta, konpartimentatzen **1** du *ad* konpartimentutan banatu.

Idazle gisa beharbada oso **konpartimentatua** daukat burmuina alde horretara pasatzeko. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Unibertsoari buruzko ikuspegi [...] estatiko, ordenatu, **konpartimentatu** eta jatorriz laukitze sailkatzaileari irekia. Jada ez zuen armairurik behar, Olivierri kendutako gabardinaren barne-larrua nahikoa sendo josi eta sakela **konpartimentatuak** eginez gero, patrikak apal bihurtuko zitzaizkion, latak eta bestelako gauzak gordetzeko lain. Xabier Arregi

---

## konpartimentu *(orobat **konpartimendu**)* **1** *iz* gune bat banatua dagoen zati bakoitza.

**Konpartimendu** eta gela ezkutu ilunez beteta daude lokal hauek guztiak. Itxoiteko gela bi **konpartimentutan** banandua zegoen. Harkaitz Cano

Manparena baino burdin-sarearen antz handiagoa zuten sarezko manpara batzuek **konpartimendu** bitxiak marrazten zituzten sala honetan. Koldo Izagirre

Bi **konpartimentu** zeuzkan, ezker-eskuin, erdialdean pasilutxo batek bereizita eta sarreran atari moduko bat, non germaniarrek mahaitxo bat eta bi aulki zeuzkaten jarrita lehendik. Joxemari Iturralde

Kajoiko **konpartimentu** ezkutuko batetik hainbat gauza atera zituen: pistola belgiar bat, begizta urdin batez loturiko gutun sorta bat, [...]. Xabier Olarra

Laneko maletatxoa zabaldu, eta izokin koloreko egunkari zimurtu bat atera du larruzko **konpartimentuaren** barrutik. Patxi Iturritegi

**2** tren batean, bagoia banatua dagoen zati bakoitza.

Baionako geltokian ere jende asko igo zen trenera, baina inor ez zen gure **konpartimentura** sartu. Anjel Lertxundi

Kopeta kristalean nengoela, polizia bikote bat sartu zen gure **konpartimenduan**. Anjel Lertxundi

Harry, Ron eta Hermione korridorean aurrera joan ziren, **konpartimentu** huts baten bila, baina denak beteta zeuden, trenaren azken-azkenekoa izan ezik. Iñaki Mendiguren

Harry eta Weasley jauna trenaren atzealdera abiatu ziren, jendez beteriko **konpartimentuen** ondotik igaro eta nahiko hutsik zegoen bagoi bateraino. Iñaki Mendiguren

Bagoi osoan zehar, buruak **konpartimentuetatik** irtenda zeuden jakin-minez. Iñaki Mendiguren

Oskarren maleta bere **konpartimentuko** sarean zegoen. Alberto Ladron Arana

Jendea atzera eta aurrera pasatzen zen haien **konpartimentuko** ate ondotik. Iñaki Mendiguren

Treneko **konpartimentu** pribatuan sartu ziren. Lopez de Arana

Hirugarren kategoriako **konpartimentu** bat aurkitu zuten. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

Janzkeraz jendarmea zirudien interbentore batek azaldu zion bere litera-**konpartimenduaren** kokapena. Unai Iturriaga

---

## konpartitu, konparti, konpartitzen **1** du *ad* partekatu, erdibanatu.

Ez bainengoen garai hartan Montse inorekin **konpartitzeko** prest. Joan Mari Irigoien

Handik ikus zitekeen Alma bere emaztearekin **konpartitzen** zuen logelaren leihoa. Iban Zaldua

Bertsolariek oholtza **konpartitzen** dute, bertsotan elkarrekin gaiak eta temak partekatzen dituzte, inprobisazioa elkarrekin txirikordatzen dute. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Harekin bizitokia **konpartitzea** ez zitzaidan ideia ona iruditu. Jon Arretxe

Horrelako mutil batekin gustatuko litzaidakek **konpartitzea** nire bizitza. Pako Aristi

**Konpartitutako** plazerra bezain goxoa da nork bere buruari eman diezaiokeena. Jon Arretxe

Zalantzak **konpartitzeko** norbait edo norbaitzuk izatea. Ana Urkiza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hizkuntza zerbait bada, tresna **konpartitua** da, euskal hiztunen arteko itun itxurako konbentzio bat. Ez nuen pisu **konpartitu** batera itzuli nahi, ikasle garaian bezala. Anjel Lertxundi

Solilokio **konpartituan** mintzatu nahi zenuen, psikoanalistarenean bazeunde bezala. Komun eta sukalde **konpartituaren** inguruan dituzte hauek guztiek beren espazioak. Eider Rodriguez

Metodologia **konpartitu** baten bateratze-lana. Berria - Euskal Herria

Subiranotasun **konpartitua**. Berria - Harian

Balio **konpartituek** *krak!* egin dute. Andoni Egaña

---

# konpartsa *(orobat **konparsa** g.er.)* **1** *iz* festa batean elkarrekin eta mozorroturik desfilatzen duten pertsonen taldea.

Kaldereroen **konpartsa,** adibidez, elkarte horrek atera zuen lehen aldiz, 1882an. Askoren artean

Inauterietako **konpartsen** jaitsiera bertan behera utzi du Bilboko Kultura zinegotziak. Berria - Euskal Herria

Erraldoi eta Buruhandien **Konpartsa** *La Euterpe* bandak ere parte hartu zuen **konpartsan**. Askoren artean

Kaskagorri **konpartsako** kide batzuek ertzainez mozorrotuta atera nahi izan zuten. Berria - Euskal Herria

Haizeak Kaskagorri **konpartsaren** txosnaren goialdeko ohol batzuk askatu zituen. Berria - Euskal Herria

**Konpartsen** komisioaren eta Udalaren arteko harremana. Unai Iturriaga

**Konpartsen** Koordinakundeak ez zuen Udalaren kontra gogor egin nahi izan. Berria - Euskal Herria

Iñaki Uriarte Bilboko **Konpartsen** Federazioko kidea. Berria - Euskal Herria

Adimenak tarteka errepikatzen den eta somatzen dugun edozein hotsi baietza ematera eta segitzera bulkatzen gaitu, hari koro edo **konpartsa** egitera. Patziku Perurena

**2** (hitz elkartuetan)

Danborrada **konpartsa** horiek besterik gabe sortutako taldeak ziren askotan. Askoren artean

---

# konpartsakide *iz* konpartsa bateko kidea.

**Konpartsakide** batzuek «ez zuten bete nahi izan» jaitsiera baino hogeita lau ordu lehenago lortutako akordioa. Berria - Euskal Herria

Akordioaren interpretazio horrek ezinegona sortu zuen **konpartsakideen** artean. Berria - Euskal Herria

Iñaki Uriarteri **konpartsakide** bik dantzatu nahi izan zioten ohorezko aurreskua. Berria - Euskal Herria

---

# konpartsazale *iz* konpartsen zaela dena.

Donostiako biztanleak koruzaleak, musikazaleak eta **konpartsazaleak** dira, nahiz eta uneotan horiek bertan behera utzita egon, oraingo egoera beldurgarria dela eta. Askoren artean

---

# konpartsero *iz* konpartsakidea.

Ez da harritzekoa, kontuan hartzen bada garai bateko **konpartsero** gazteak guraso direla gaur, eta seme-alabekin agertu zirela atzo. Berria - Euskal Herria

**Konpartseroen** Eguna. Berria - Euskal Herria

---

# konpas **1** *iz* musikan, denboraren neurri banakoa.

Ez zen bi **konpas** kantatzeko gai izan. Anjel Lertxundi

Berez, 3/4 konpasa dana, baltse erritmokoa, Rufinok ez eban zan moduan joten, **konpas** batzuk janaz eta erritmoa bere erara egokituaz baino. Xabier Amuriza

Dembak bals **konpas** batzuk entzun zituen. Anton Garikano

Begiak itxi, eta hasierako **konpas** pianissimoei ekiten diet. Anjel Lertxundi

Beti **konpas** berean, beti dantza bera. Xabier Etxabe

**2** irud/hed

Ene pultsuak, zurearen pare, bere **konpas** doiari eusten dio, eta araberako soinu osasuntsua dagi. Juan Garzia

Nire bihotzaren taupadak **konpas** ezti eta lasai baten arabera zihoazela sentitzen nuen. Bernardo Atxaga

Harmoniaren arauetarik haratago joaiten ziren, edo hala zirudien bederen, nahiz eta soinu-tresnen notak eta oihuak, guztiak ere biltzen ziren, finean, biziaren **konpaserat** eta atabalaren **konpas** bizi hartarat. Joan Mari Irigoien

Urtaroen **konpas** geldoa. Pako Aristi

**3** arkuak edo zirkunferentziak marrazteko eta neurriak hartzeko erabiltzen den tresna.

Adarretako bat hautsita zeukan **konpas** bat. Juan Garzia

Tipiak ziren eta biribil-biribilak, **konpas** batekin pentsatuak bezala. Joan Mari Irigoien

Besoa **konpas** moduan, arku bat marraztu du. Itziar Otegi

**4** ipar orratza

Mapamundi bat, erregelak eta angelu-neurtzaile bat; **konpas** bat, lenteak, balantza eta pisu-neurriak. Joan Mari Irigoien

**Konpas** guztiak erakartzen dituen hegoaren puntu imajinarioan bandera landatu nahi zuten Robert Falcon Scott eta Roald Amundsen esploradoreen elezaharra. Joseba Sarrionandia

---

# konpasatu *izond* konpasaren neurrian egina edo jarria.

Laztan **konpasatu** erritmikoetan. Joxerra Garzia

Aurpegia burukoaren kontra jarri eta negarrez hasten zen zotin luze **konpasatuz,** haren gorputza negarren astinaldian inarrosten besterik ez zuen ikusten. Bego Montorio

---

# konpasio *(orobat **konpasione**)* *iz* errukia.

Aljerian ikasi nuen naski urrikalmendua, **konpasioa** eta berdin ohargabean pentsatu sentimentu hori dela sufrimenduaren justifikazio bakarra. Piarres Aintziart

Minutu gordinak pasatzen zitutzen isilik elkarri begira eta solasa harilkatzen zenean, barkamenaz, salbamenduaz, **konpasioneaz** eta urrikiaz mintzo ziren. Itxaro Borda

konpasione ik **konpasio**.

**konpatibilitate** *iz* bateragarritasuna.

**Konpatibilitate** handiko zelulak lortu behar izaten dira bizkarrezur muineko transplanteak egiteko, eta beti ez da erraza izaten Berria - Gaiak

**konpatible** *izond* bateragarria.

Dantzari trebeak ere baziren, eta gizakiarekin erabat **konpatibleak**. Unai Elorriaga

Baina momentuz ez, ze Guinnesa edatea eta manifestuak idaztea ez dira ekintza **konpatibleak**. Berria - Kultura

**konpendio** *iz* laburpena, bilduma.

Askotarikoak **konpendio** honetan bildutako lanak, baina denetan geratzen da agerian San Agustinen pentsamenduaren sakontasuna eta zorroztasuna. Berria - Kultura

**konpenetratu**, konpenetra, konpenetratzen da *ad* elkar ulertu, bat egin.

Ondo **konpenetratzen** direla dirudi! Pako Aristi

Nola lortu duzue hain ongi **konpenetratzea**? Berria - Kultura

**konpenetrazio** **1** *iz* elkar ulertzea, ideia eta gustoetan bat etortzea.

Elkarrekin bizi, ordu berean jaiki, barberian eguna eman eta postura beretsuan oheratzen ziren anaien arteko **konpenetrazioa,** trenbideko burdin barra bikoitzena bezain zehatz eta apurtezina zirudiena, hautsi egin zen. Pako Aristi

Idazlearen ametsa irakurlearekiko **konpenetrazioa** da. Pako Aristi

Hitzak indarra galtzen du benazko **konpenetrazioaren** aurrean. Pako Aristi

**2** (hitz elkartuetan)

Hauxe da **konpenetrazio** maila lortu duguna! Pako Aristi

konpensatu ik **konpentsatu**.

**konpentsagarri** *izond* konpentsatzen duena ik **konpentsatzaile**.

Akats hori erraz zuzentzen da kurbatura **konpentsagarria** duten betaurrekoen bidez. Irene Aldasoro

**konpentsatu**, konpentsa, konpentsatzen **1** du *ad* gauza baten eragina, gehienetan kaltegarria, kontrako beste batekin indargabetu edo orekatu.

Defizitak **konpentsatu** egin behar zirela, atzerakada garaiko defizitak oparoaldiko aurrekontu superabitekin **konpentsatu** behar zirela. Iñaki Heras

Alde hori **konpentsatuko** zaie langileei: 450 euroko ordainketa bat eta %0,6ko igoera soldatan. Berria - Ekonomia

Benita Ferrero-Waldnerrek, laguntza zuzenaren ukazioa **«konpentsatzeko»** giza laguntzaren kontzeptuaren irakurketa «zabalagoa» egitea proposatu du. Berria - Mundua

Ukipen-lente ispiludun bat erabiliz, ez da zaila begiaren mugimendu naturala **konpentsatzea**. Irene Aldasoro

Kolomaren diametroari kentzen zaiona ildaxka-kopuruari gehitzen zaion horrekin **konpentsatuko** da proportzioan. Santiago Iruretagoiena

**Konpentsatzen** ote duen gau horretako plazer istant labur eta zikoitzak, soilik*a posteriori* idealizaturiko istant horrek. Harkaitz Cano

Baina ni ondo sentitzen naiz, oso ondo, Askalen aurkitu dudan jendearen izaerak soberan **konpentsatu** baitu gainerako guztia. Jon Arretxe

Arima gabezia larriak **konpentsatu** eta mozorrotzearren. Markos Zapiain

**2** kalte-ordaina eman.

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak hartu dituzte neurri batzuk, Francoren garaiko biktimak **konpentsatzeko**. Berria - Mundua

**3** (era burutua izenondo gisa)

Bihotzeko gaixotasun kronikoak eta **konpentsatuak**. Berria - Euskal Herria

**konpentsatzaile** *iz* konpentsatzen duena. ik **konpentsagarri**.

Astialdiak beste funtzio **konpentsatzaile** bat ere betetzen du. Berria - Gaiak

Bestelako balio **konpentsatzaile** bategatik. Joxe Azurmendi

Zeharkako efektu **konpentsatzaileak**. Iñaki Heras

**konpentsazio** **1** *iz* konpentsatzea; konpetsatzearen ondorioa.

Diru-sari bat agindu baitzien **konpentsazio** gisa. Iban Zaldua

Beste ehunka meatzari kalte-ordaina jasotzear diren arren, orain arte emaniko **konpentsazio** handiena izan da. **Konpentsaziorik** ez balitz, bihurriturik, deformaturik baizik ez genituzke ikusiko irudiak. Josu Zabaleta

Greban egondako langileei berrehun mila pezetako **konpentsazioak** eman zizkien. Jon Maia

Palestinarrei eman beharreko **«konpentsazioaz»** mintzo da ebazpena. Berria - Mundua

Omenaldiak eta **konpentsazio** moralak nahikoak ez direla dio Amnesty Internationalek Zorrak **konpentsazioz** iraungitzeko sistema bat. Koro Navarro

Ez da harrigarria garunaren garapenean halako diferentziazioa gertatzea, zentzumen bat hain goiz galdu eta beste zentzumen batzuen **konpentsaziozko** hobetzearen ondorez. Xabier Olarra

Milaka emakume geratu ziren alargun haren ondorioz, eta gobernuak nolabaiteko **konpentsazioa** asmatu zuen, andrazko haiek ere aukera izan zezaten sexuaz gozatzeko. Jon Arretxe

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta gauza normala zen, **konpentsazio**-fenomeno bat barren-barrenean. Josu Zabaleta

**Konpentsazio**-mugimenduak (bestibuluarenak eta begiarenak), burua edo gorputza mugitzen denean begirada finko edukitzeko egiten direnak. Josu Zabaleta

**Konpentsazio** mekanismo desberdinei ematen dioten garrantziari buruz. Iñaki Heras

Legea onartutakoan desagertu egingo da lurjabeen eta udalen arteko **konpentsazio** sistema. Berria - Euskal Herria

**Konpentsazio** urrats bat. Berria - Kultura

Horrek izena ere badu: **Konpentsazio** efektua. Berria - Gaiak

Aseguruen **Konpentsazio** Partzuergoak 7,5 milioi euro emango ditu Nafarroan eta Errioxan. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zenbait herrialdetan, gainera, kaleratze **konpentsazioak** desagertzen ari dira. Berria - Ekonomia

Diru **konpentsazioen** truke eraikinak hartzeko prest dauden erakundeekin harremanetan jartzea espero dugu. Berria - Mundua

---

## **konpetente** *izond* bere egitekoan gai dena, gaitasuna duena.

Profesional **konpetenteek** ez lukete dudarik egingo elebitasunaren (edo eleaniztasunaren) alde ekiteko, euskaltzaleak izan edo ez. Berria - Kultura

Irakurle **konpetentea** izatea suertatu ez litzaiokeen idazle **konpetente** bakoitzaren aberastasunak franko handituko lituzke. Xabier Olarra

Gizon txaparroa zen, lodikotea, baxua, ez zidan inpresio ona egin, ez zitzaidan **konpetentea** iruditu. Mikel Hernandez Abaitua

---

## **konpetentzia** 1 *iz* lehia.

Bestalde, emakumezkoen arteko **konpetentzia** ere handia da. Ana Urkiza

**Konpetentzia** egingo zieagu panfleto politikoak botatzen dituztenei! Bernardo Atxaga

Baina badira **konpetentzia,** biolentzia, erasoa bultzatzen duten kultura batzuk; eta badira laguntza, lankidetza eta bizikidetza bultzatzen duten beste kultura batzuk. Berria - Euskal Herria

Prestigio hori, **konpetentziak** agintzen duen mundu honetan, lotuago egongo da hurrengo urteetan unibertsitate jakin batekin, eta ikasketa mota batzuekin. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**2** eskumena, eskuduntza.

Gobernuak, Erkidegoko gobernuak, **konpetentzia** handiak ditu bere esku. Pello Salaburu

Hogeita hamar **konpetentzia** baino gehiago baitzegoen oraingoz Madrilgo gobernuaren esku. Pello Salaburu

Autonomian onarturik dauden **konpetentzia** asko oraingoz gauzatu gabe zeuden mendearen azken egunean. Pello Salaburu

Jaurlaritzak Estatuaren esku dauden **konpetentziak** ordaindu behar dizkio EstatuariDefentsa eta Atzerria, besteak beste. Berria - Ekonomia

«Legeari muzin egitea da», Azkarragaren esanetan, 25 urteren ondoren Gernikako Estatutuak jasotzen duen **konpetentzia** gauzatu nahi ez izatea. Berria - Harian

Udalek ez daukate **konpetentziarik** gai honetan. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Autonomia erkidegoen **konpetentzia** gaietan. Berria - Euskal Herria

**4** gaitasuna.

Alderdi Demokratiko Unionistak maiz aldarrikatzen du beraiek unionista konpetente berriak direla; ikus dezagun beren **konpetentzia**. Berria - Harian

Derrigorrezko irakaskuntza bukatzeko zorian dagoen ikasleen 15 urteko ikasleak dira ezagupen eta **konpetentziak** neurtzen ditu. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan)

Hizkuntz **konpetentzia** falta izan daiteke gaizki ulertuaren arrazoia: entzuleak hitzen bat ezagutzen ez duelako, esate baterako. Iñaki Arranz

**6** (ekonomian) konkurrentzia.

Enpresen arteko **konpetentzia** basatia da. Iban Zaldua

Herrialde pobreetako nekazari-produktuei Europan sartzen utziko bagenie, nekazari frantsesei egingo lieketen **konpetentzia**. Iñaki Heras

Erabateko lehiaren edo **konpetentzia** perfektuaren baldintzak. Iñaki Heras

Lehia ez perfektua edo **konpetentzia** monopolistikoa. Iñaki Heras

**Konpetentzia** desleialtzat hartzen da horrenbestez lehia hori. Iñaki Heras

**7** lehiakideak.

Gurea zen, eta ez **konpetentziakoa** lehengo egunean bezala. Aingeru Epaltza

**Konpetentziakoek,** bereziki Isabel Sanjose urdesa hantuste horrek, izanen zuten berriz zertaz errabia. Aingeru Epaltza

Lehiakideei aurre egiteko, produktuak **konpetentziak** baino zerbitzu gehiagorekin eskainiz erantzuten zien Airbusek erabiltzaileen eskariei. Berria - Ekonomia

Sektorearen barruko **konpetentzia** murriztu egingo du, eta **konpetentzia** beti da ona. Berria - Harian

Parte-hartzaileen kopuruaz hitz egitean **konpetentzia** ere kontuan izan behar dela gaineratu zuen ikastaroen zuzendariak, «milaka ikastaro antolatzen baitira inguruetan».

---

## **konpetibitate** *iz* lehiakortasuna.

Mugaz bi aldeetako harremanei dagokienez, Lamassourek Frantziako Gobernuak abiatuko duen ekimen baten berri eman zuen; enplegu eta **konpetibitate** mailan emango diren laguntzena. Berria - Euskal Herria

---

## **konpetitibo** 1 *iz* lehiakorra, lehiatzeko gai dena.

Emakume batzuk zalantzan jartzen hasi dira lanean **konpetitiboa**, etxean ezinbestekoa..., eta ama, gainera, dena batera izatea posible ote den. Arantxa Iturbe

Estatutua aldatu gabe EDF-GDF ez litzatekeela **konpetitiboa** uste du Gobernuak. Berria - Ekonomia

Gaur egun gizarte **konpetitiboak** 'hoberena' izateko antsia ematen dio jendeari. Berria - Kirola

Debaluazioak aldi baterako ekarri zuen abantaila **konpetitiboa**. Iñaki Heras

**2** konkurrentziari dagokiona.

Debaluazio **konpetitiboen** posibilitatea baztertzen da eta ekaitz finantzarioak ere erabat uxatzen dira Iñaki Heras

---

## **konpetitu**, konpeti, konpetitzen du *ad* lehiatu.

Azalera handiko salmenta espazioek eskaintzen duten gaien aniztasunarekin -eta prezioekin- nekez **konpetitu** dezakete denda normalek. Iban Zaldua

---

**konpetizio** **1** *iz* lehia.

Gure xedea ez da inola ere **konpetizioan** edo lehian sartzea horretarako, ikustea aski baita zein guti diren sindikatetan barne langileak hemen eta frantses estatuan ere. Herria

**2** lehiaketa, norgehiagoka.

Kuban parkeetan eta estadioetan ere izaten dira horrelako **konpetizioak**. Berria - Kirola

Kirolari bilakatzen da artetan erromesa: egun batez, ikusi ditut, oihanbide batean, bi senar-emazte, izigarriko abiaduran joaki, abantxu lasterka, **konpetizioa** eginez bezala. Piarres Aintziart

25 urteko triatloilariak urte gutxian egin du zaletasunetik **konpetiziorako** jauzia. Berria - Kirola

---

**konpilatzaile** *iz* biltzailea.

Printzearen, bere Estatuaren eta bere herrikideen aurrean baliagarri izan nahi duen eta, horregatik, justizia osoz ospearen saria eta ondorengoen txaloa irabazi nahiko lituzkeen **konpilatzaile** bezala azaltzen da. Santiago Iruretagoiena

VII. liburuaren Sarreran garatu egiten da ideia hori, eta garbi-garbi bereizten ditu **konpilatzailearen** eta plagiogilearen lana. Santiago Iruretagoiena

---

**konpilazio** **1** *iz* bilduma.

Perugiako Anonimoa ez da **konpilazioa,** obra originala baizik. Askoren artean

XIV. mendean, **konpilazio** edo bildumak sortzen dira (horietakoak dira *Perugiako Legenda* eta *Perfekzio Ispilua*), "Espiritualen" taldearen eraginez batik bat. Askoren artean

Diska hau **konpilazio** bat da, jende guzia xarmaturik utziko duten 15 kantu ederrez osatua. Herria

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko **Konpilazioa**. Andres Urrutia

**2** (hitz elkartuetan)

Errezeta-liburu hutsa baino zerbait gehiago izan nahi zuen tratatu bat egiteak esan nahi zuen **konpilazio**-prozesuan, aldi berean, beste maila bateko "arte" izaera harrarazten zion destilazio-prozesu bat ere jasaten zuen jakintza sakabanatu bati estatutu teorikoa eman nahi zitzaiola. Santiago Iruretagoiena

---

konpit ik **konfite**.

---

konpitt ik **konfite**.

---

konplaxent ik **konplaziente**.

---

**konplazentzia** *iz* atsegina, gozamena.

**Konplazentzia** eta zinikotasun hantustez. Harkaitz Cano

Osabari behatu zion orduan ere, ez ordea, arestian bezala, **konplazentziaz,** baina bertze behako harekin. Joan Mari Irigoien

---

**konplaziente** *(orobat **konplaxent** g.er.)* *izond* adeitsua; atsegin-emailea.

Laztan edo zimiko **konplaziente** bat egiten diot, nahi gabe balitz bezala. Harkaitz Cano

Eta Pantxikeren iruzkin **konplazientearen** azpian ere. Joan Mari Irigoien

Erdarazko liburutto batzu idatzi dituela, bereziki ihiziaz, kontrabandaz eta holako gai herrikoiez, arras alaiak eta irakur errexak, bera zen gizon **konplaxentaren** hainekoak. Herria

· *A esmorga*-k barregarri uzten ditu egun tatuaiez beteta agertzen diren idazleen liburu *terrible*-ak eta Galiziako idazle ezagun eta gazte batzuen jarduera **konplazienteak**. Berria - Kultura

---

konplejo ik **konplexu**.

---

konpleju ik **konplexu**.

---

**konplementaketa** *iz* koplementatzea.

Bi polizi **horien** konplementaketa. Berria - Euskal Herria

---

**konplementario** *izond* osagarria.

Euskal Herrian zinema egiteko dugun eredua eredu **konplementarioa** da, ez da subiranoa. Berria - Harian

---

**konplemetaritate** *iz* osagarria denaren nolakotasuna.

Hau da, berriz ere aberastasuna eta taldeen arteko **konplementaritatea**. Berria - Kultura

**Konplementaritateak** lantü behar dira. Herria

---

**konpleta** *iz pl* orduen liturgian, zazpigarren otoitz ordua, eguneko azkena, iluntzean, bezperen ondoan esaten dena.

Eguneroko **konpletak** esan bitzate beti eguzkia sartu orduko. Askoren artean

Liturgi ordu guztietan esaten da, **kompletetan** eta goizeko otoitzean (priman) izan ezik. Askoren artean

Bart, **konpletak** esaten ari nintzela, argi sumatu nuen deabrua zetorrela gelara. Askoren artean

Leireko monastegian, adibidez, monjeek **konpletak** eta salbea abesten zituztenean. Herria

Iluntzean, **Konpletak** errezatu ondoren lotara joan zen **Konpletak** noiz iritsiko zain. Askoren artean

---

**konpleto** **1** *izond* osoa, behar duen guztia duena.

Atezain **konpletoa** dela erakusten ari da. Berria - Kirola

Irujok zerbait baldin badu, **konpletoa** dela. Berria - Kirola

Kostako da beste partida bat hain **konpletoa** ateratzea. Berria - Kirola

Gero, ospitalean, pentsio **konpletoarekin** egon zuan astebetez. Pablo Sastre

Kasto **konpletoa** duk andereñoa. Harkaitz Cano

Horrela ere ez dira kontuak kitto-kitto, erabat kitatuta, oreka **konpleto** eta naturalean suertatzen. Pello Zabala

Egun ona izan dugu gaur, egun bitxia, **konpletoa**. Pako Aristi

**2** ***kafe konpleto*** zigarro purua eta kopa ere badituen kafea.

Portuetakoa inoiz ez duk izaten kafe **konpletoa**. Koldo Izagirre

---

**konplexatu** *izond*

-Hik dunan sexu harreman bakarra gasnarekin delako arras **konplexatua** haiz. Itxaro Borda

---

konplexotasun ik **konplexutasun**.

---

**konplexu** *(orobat **konpleju** g.er., **konplexo** g.er. eta **konplejo** g.er.)* **1** *izond* askotariko elementuz osatua dagoena.

Erlojua eta antzeko mekanismo **konplexuak**. Xabier Olarra

Organismo **konplexuei** -sexu bidezko ugalketaz baliatzen direnei- dagokienez, [...]. Juan Garzia

Molekula **konplexuak** matxuratu direnean. Irene Aldasoro

Afrikatuak hots **konplexuak** izan arren unitate bakunak direla euskal fonologian. Lourdes Oñederra

Eraikuntza-joko **konplexu** baten antza du gorputzak; giltzadura lokaz elkarturiko makila zurrun askoz osaturik dago. Irene Aldasoro

Mutur batean, kontrol-kaxa **konplexu** bat zegoen, hodi sendo batzuen bidez armairu bati lotua. Xabier Olarra

Aldagai bat bakartzeak, aldagai **konplexua** izanda ere, ez baitu inolako zentzurik. Josu Zabaleta

Gainera, aldagai **konplexu** gehiegi zegoen beti horrelako ekuazio batean. Fernando Morillo

Margolan gutxik ageri dute, analisi sakon bat eginez gero, egitura geometriko **konplexu** eta erregularrik. Josu Zabaleta

Gramatikaren deskribapenerako behar ditugun ezaugarriak dauzkaten formaldatzeen algebra arras **konplexu** baina guztiz naturala gara dezakegu. Itziar Laka

Zuntz eta karbohidrato **konplexu** gutxiegi eta animalia proteina, lipido saturatu eta azukre soil gehiegi. Edorta Agirre

**2** korapilatsua; alderdi asko eta kontrajarriez osatua.

Gizon **konplexu** bat, arazoz eta angustiaz zamatua. Xabier Mendiguren Elizegi

Emakumeak benetan izaki **konplexuak** gara. Ana Urkiza

Oso gizarte **konplexuan** bizi gara eta asko dira etengabe iristen zaizkigun berriak, datuak, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Sarri ahazten dugu gatazkak **konplexuak** direla; arazoen atzetik gizakiak daudela. Berria - Kultura

Beraz, **konplexua** da auzia. Iñaki Heras

Saia gaitezen auzi **konplexu** honetan zertxobait sakontzen. Iñaki Heras

Balioen unibertso **konplexuan** ordena edo sistema bat lortzeko saioak asko eta oso diferenteak egin dira. Joxe Azurmendi

Ez gara gauza interrelazio **konplexu** hauek azaltzeko eredurik, ezta sinplifikaturik ere, emateko. Josu Zabaleta

Bere etorkizuna baldintzatzen duen egoera **konplexu** baten aitzinean dago. Berria - Kultura

Kalkulu benetan luze, **konplexu** eta, egia esatera, gertagaitz baten truke. Josu Zabaleta

Formulazio ekonomiko **konplexu** eta garatuenetan. Iñaki Heras

Alkimia-eskuliburuen hizkera **konplexu** hark iragartzen zuenetik ezertxo ere ez zen gertatzen ari. Xabier Aranburu

Bizitza bera bezain sinplea eta **konplexua**. Berria - Kultura

Eragin-truke **konplexuzko** sistema bat da beti. Juan Garzia

Itxuraz urri eta trakets diren hizkuntzek lehengaia eskaintzen dute kultura landu eta **konplexu** baterako. Bernardo Atxaga

Nobela luze eta **konplexu** hau (nik baino gehiago dakitenek esan digute "irakurketa bat baino gehiago" daukala) 1939-1947 aldiaz ari da. Pablo Sastre

• **3** *iz* sentimen multzoa, gehienetan guztiz inkontzientea, gizabanakoaren nortasunean eragina dutena.

Ikasle txarra nintzen eta **konplexu** handiak nituen matematiketan inbalierra nintzelako. Ana Urkiza

**Konplexu** anitz ditugu nafarrek, eta ez dugu zertan eduki. Berria - Kultura

Nire izaera **konplexuz** betea zela medio, uste dut gehiegi lehiatu nintzela neronek ordaintzeko, gonbita berea izan zen arren. Ramon Saizarbitoria

Urteetan zehar euskaldunon baitan sorturiko **konplexua** desagertzea nahi dugu. Herria

**Konplexu** gainditu gaberen baten arrastotzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Sotana janztea zuela don Estebek bere hankaluze-**konplexua** gainditzeko sendagairik onena. Joan Mari Irigoien

Gutxiago zaren **konplexua** duzu. Fernando Rey

Ausart, bat batean gutxiagotasun-**konplexu** hura gainditu balu bezala. Karlos Linazasoro

'Gehiagotasun-**konplexua'** eratzen ari zen. Iñaki Mendiguren

Edipo **konplexua..**. Jose Angel Irigaray

Espainolen **konplexu** eta amorru antifrantsesa Joxe Azurmendi

**4** osagai askoz osaturiko gauza.

Orain berreskuratu dugu *Cristo Rey* **konplexu** ederra, arkitektura aldetik oso polita den lekua. **Konplexu** proteikoak eratzeak -batzuetan, oso bolumen handikoak- areagotu egiten du aukera hori. Pako Aristi

**5** ***errudun/erruduntasun konplexu*** errudun ustea.

Ez diot sekula galdetu Sedanori zertan datzan errudun **konplexua,** baina ziur naiz nire neurosi obsesiboari egotziko liokeela. Ramon Saizarbitoria

Erruduntasun **konplexu** judeokristauak hor zirauen. Harkaitz Cano

Eta halaxe egon zen, egun batzuetan, erruduntasun **konplexu** baten menera. Joan Mari Irigoien

**6** ***gehiagotasun konplexu*** gehiagotasun ustea. ik **gutxiagotasun 3**.

**'Gehiagotasun**-konplexua' eratzen ari zen, India ikusten zuelarik ez bakarrik erakunde txar eta usteldutako jendea zuen herrialde bezala, baita berez hobetzeko gai ez zen herrialde bezala ere... Iñaki Mendiguren

**7** ***gutxiagotasun-konplexu*** gutxiagotasun ustea. ik **uste 15a**.

Euskaldunek topagune erreferentzial bat izatea, **gutxiagotasun** konplexua gainditzea. Berria - Kultura

Eta bere **gutxiagotasun** konplexuak okerrera egin zuela XVII. eta XVIII. mendeko Frantzia handi haren aurrean. Bernardo Atxaga

**gutxiagotasun** konplexua pairatutakoek behialako garaipen egiazko eta alegiazkoetara jo zutela, edo beren kulturaren dohain inbidiagarriak aldarrikatzera. Bernardo Atxaga

**8** ***zenbaki konplexu*** unitate errealez eta unitate irudizkoz osatua.

Atera zitekeen zenbaki negatibo baten erro karratua, zenbaki **konplexuen** eremuan. Jon Muñoz

Zenbaki **konplexu** bat egiteko, bi zenbaki erreal behar ziren. Jon Muñoz

(2, 0) bikotearekin, berriz, 2 + 0i zenbaki **konplexua** eratzen zen; alegia, 2, besterik gabe! Jon Muñoz

Beraz, zenbaki **konplexu** bereziak ziren zenbaki errealak. Jon Muñoz

---

## **konplexuagotu**, konplexuago(tu), konplexuagotzen da/du *ad* konplexuago bihurtu.

Mundua handitu da, zabaldu, **konplexuagotu**. Berria - Kultura

Garrantzi handiagoa du honenbestez testuak, **konplexuagotu** ere egiten da arian-arian, eta bertso luzeagoen beharra sentitzen du bertsolariak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## **konplexutasun** *(orobat **konplexotasun**)* **1** *iz* konplexua denaren nolakotasuna.

Izadiko **konplexutasuna** elementu kopuru txiki baten konbinatoriari zor zaio. Juan Garzia

Gene kopuruak ez duela izaki bizidun baten **konplexutasuna** islatzen. Berria - Gaiak

**Konplexutasun** ikaragarrizko mekanismoa. Juan Garzia

Bere arrazoibidearen **konplexutasuna**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aurreko lanaren aldean, labirintoen **konplexutasuna** zuten. Xabier Olarra

Adierazpenaren sinpletasunaren eta ebazpenaren **konplexutasunaren** arteko aldea. Jon Muñoz

Auzien **konplexutasunagatik**. Berria - Euskal Herria

Egoeraren **konplexutasuna** ikusirik. Berria - Euskal Herria

Prozesuaren **konplexutasuna** aintzat hartuz. Berria - Mundua

Gizartearen **konplexutasun** handiagatik. Berria - Euskal Herria

Erantzuna bilatzen hasi, eta **konplexutasun** juridikoa agerian geratzen da. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eboluzioak berekin dakarren **konplexutasun**-gehikuntza, berriz, genomei aldiro ADN puskak gehitzearen ondorio zen. Juan Garzia

Aurkikuntza hark erakutsi zuen gene kopuruak eta genomaren tamainak ez dutela lotura esturik **konplexutasun** mailarekin. Berria - Gaiak

Kanalak bilatu behar dira, herritarrek aukera izan dezaten **konplexutasun**-maila desberdinetan elkarrekintzan jardun eta aldaketak eragiteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gorputzean gertaturiko guztia hautematen badu arimak, gorputzarekiko kontzientzia gorputz-**konplexutasunarekiko** proportzioan dago. Piarres Xarriton

---

## **konpliarazi**, konpliaraz, konpliarazten *(orobat **kunpliarazi**)* du *ad* konplitzera behartu. ik **betearazi**.

Migel Mailuk **konpliarazi** behar, orduan, gogo onez konplitu nahi ez zena. Aingeru Epaltza

PPko eta PSEko ikuskatzaileek ere zorrotz **kunpliarazi** zuten agindua. Berria - Harian

---

## **kompliezin** *izond* ezin konplituzkoa.

Borrokaldian galdutako ohorea eskuratzeko asmo **konpliezina** bete nahian. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **konplikagarri** **1** *izond* konplikatzen duena.

Ez al dator koadrila hau, jakinduriaren moda eta modista **"konplikagarri"** guziak saihestu nahiz, soiltasun xalo baten indar bila? Patziku Perurena

**2** (-en atzizkiaren eskuinean)

Arrazoi handia zuen, Jean Robin koplariak: modak eta modistak "sortzeak eskas eman guzien **konplikagarri"** ditugu Patziku Perurena

---

## **konplikatu**, konplika, konplikatzen **1** da/du *ad* korapilatu, katramilatu, zaildu, nahasi.

Erran niolarik hotel bat hartu behar genuela, orduan gauzak **konplikatzen** hasi ziren. Daniel Landart

Baina gero, kontakizuna idazteko orduan, dena **konplikatzen** da. Bernardo Atxaga

Alegia, sinpleak behar luketen gauzak zergatik **konplikatzen** ditugun... Pako Aristi

Gizakiok gauzak **konplikatzeko** azaltzen dugun joera benetan harrigarria da. Berria - Kirola

Bigarren esplikazio honek gauzak gehiago **konplikatzen** zituela erraztu baino. Egitura etengabe berritu behar izateak, hala ere, ikaragarri **konplikatzen** du kontua. Joxemari Iturralde

"Nondik gatoz?" galdera zaharraren aurrean, pentsamendu zientifikoak aldi berean sotildu eta **konplikatu** egin du erantzuna. Juan Garzia

Ariketak **konplikatuz** joan ziren. Andoni Egaña

**2** (era burutua izenondo gisa)

Izpiritua paralisiatua neukan: gauza xinpleenak ere **konplikatuak** aurkitzen nituen. Daniel Landart

Ez dira gutxi pentsatzen dutenak nazioa makina **konplikatua** dela. Juan Martin Elexpuru

Gizakiak gai dira mugimendu sotil eta **konplikatu** ugari egiteko, goi mailako diseinu teknikoari esker. Irene Aldasoro

Konbustioa nahiko prozesu kimiko **konplikatua** da. Irene Aldasoro

Garunak erregistraturiko soinu-sentipen **konplikatua** da azken produktua. Irene Aldasoro

**Konplikatua** da mekanismoa. Irene Aldasoro

**Konplikatuxeagoa** da hezetasunaren arazoa. Irene Aldasoro

Hogeita hamaika nerbio pare irteten dira bizkar-muinetik [...]; handik, nahiko modu **konplikatuan** , enborrera eta gorputz-adarretara banatzen dira batez ere. Irene Aldasoro

---

**konplikazio** *(orobat **konplikazione** g.er.)* **1** *iz* katramila, arazoa.

Nahiago nuke operazio guztiak hain errazak eta **konplikaziorik** gabekoak balira. Joxemari Iturralde

Xehe-xehe aztertua zuten, bada, zer **konplikazio** gerta zitezkeen operazioan eta operazioaren ondoren. Xabier Olarra

**Konplikazioren** bat sortuz gero. Arantxa Iturbe

Arazoen bila ibiltzen naizela, **konplikazioak** gustatzen zaizkidala. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Konplikazio** nahiaren beste urrats bat, lau oinak eman eta bertsoa osatzearena izan zen. Andoni Egaña

Ez dago dudarik, **konplikazio** -maila handiagokoak direla. Andoni Egaña

**Konplikazio** kate luzea du. Koro Navarro

---

konplikazione ik **konplikazio**.

---

**konplimendu** *(orobat **kunplimendu** g.er. eta **kunplimentu** g.er.)* **1** *iz* adietasun edo begirune bereziko esaldia edo egitea, ele ona.

**Konplimendurik** gabe, betikoa eskatu nion Antonio Musu-tristeri. Aingeru Epaltza

Nire andrea [...] ez zen **konplimenduetan** korapilatu. Aingeru Epaltza

Ez zen **konplimendu** bat naski. Itxaro Borda

John Smith kapitaina, ostera Virginiara abiatzekotan, ontzira aurretik hari **konplimendu** egitera etorri zen. Juan Garzia

Garbi ikusten zen **konplimendu** bat egin nahi zidala, baina laudorio handirik egiteko gauza ez zenez, begiradaz egin dit **konplimendua** . Josu Zabaleta

Andreak labur erran zituen **konplimenduak,** harira joateko presatua zen. Aingeru Epaltza

Bazegoen zerbait hika egiteko, **konplimenduak** esateko eta itxurakeriatan jarraitzeko gogoa kentzen ziona. Jose Morales

Horiek aho betean baina derrigorrean bota beharreko **kunplimendu** ezdeusak dira. Iñaki Segurola

Claude-k onhar dezaztela gure **konplimendurik** beroenak eta izan dezatela ainitz zorion beren bizitzan. Herria

Gorteko **konplimenduetarik** bazter. Piarres Xarriton

Gehiegizko **kunplimenduak** baztertuta. Juan Luis Zabala

Hobe zuten erraitea nola jokatu diren biltzarrean, dena **konplimendu,** Sarkozy-k Alain maitea aipatuz, Juppé-k Nicolas maitea erantzunez. Herria

Aznar-en solasak dena **konplimendu** frantses eskuindarren batasuna egin dutenentzat, bainan ere dena larderia bestalde. Herria

Gure aldetik **konplimenduak** eta familia berri horiek izan dezatela luzaz osagarri eta zorion. Herria

**Konplimendu** beroenak 3 gazte haueri! Herria

**2** (hitz elkartuetan)

**Konplimendu** -hitzak esan zizkidan. Fernando Rey

**3** konplitzea, betetzea.

Luzatzerat utzi behar izan zuen bere ametsaren **konplimendua..** . Joan Mari Irigoien

**4** ***konplimenduak egin***

Izeba Juliari **konplimenduak eginez** . Irene Aldasoro

Sarjentu zahar bat, andaluza bera, urrumaka hasi zitzaion ama nagusiari, eta **konplimenduak egiten** zizkion, klasikoetakoak; begiak bi izar "diztirazu" bezalakoak zituela esan zion. Koro Navarro

Nire arimak ere berdin egin dezala, bere sudurra itsats dezan kristalen kontra: **konplimenduak eginen** dizkiote elkarri. Monika Etxebarria

· Lehen **konplimenduak** egin orduko, arrebak, pollikiño-pollikiño bere semea besoetan hartu zuen eta erakutsi zidan. Daniel Landart

Noiz egiten da sasoin huntan bezenbat **konplimendu** ? denak goxoki mintzo, denek ele ona aise emaiten...! Herria

**4** ***konplimenduzko*** *izlag*

**Konplimenduzko** hitz haien ondotik. Joan Mari Irigoien

Askotan hitz egin duten bi lagun zaharrek bukatzen duten bezala, soil eta erraz, **konplimenduzko** esaldirik gabe. Pako Aristi

Baina irri behartua zen hura, **konplimenduzkoa..** . Joan Mari Irigoien

---

**konplimenduka** *adlag* konplimenduak eginez.

Elgarri **konplimenduka** ere arizan dira eta nola! alta, askoren gostuko, ez dute elgar hain maite... Herria

Hautetsiak ere deneri **konplimenduka** . Herria

---

**konplimentatu,** konplimenta, konplimentatzen da *ad* konplimenduak egin.

Eta eskuak eskuetan, hunkimenaren mugetan, elkar **konplimentatuz,** besarkatuko ziren, oihuka: [...]. Itxaro Borda

---

**konplitu,** konpli, konplitzen *(orobat **kunplidu** g.er. eta **kunplitu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **konplitu** agertzen da)* **1** du *ad* bete.

Antonio Borboikoarekin, berriz, ez zuen gizonez gizon mintzatzeko bere nahia **konplitu** . Aingeru Epaltza

Ez zuen zerbitzualdi osoa **konplitu** . Aingeru Epaltza

Berrogei urte **konplituz** gero, inork ez du begirada bera. Karlos Zabala

-Eta erditzearekin lana **konplitua** balitz, hainbatean lukek. Aingeru Epaltza

Gainerakoan, bere espezialitateko estereotipoari dagozkion guztiak bete-betean **konplitzen** zituen: kalakari isilezina, bidaiari ipurtarina, gautxori nekaezina, edale zoroa eta emakumezale gogorra. Aingeru Epaltza

Hemen behar zuela haren puska batek bere patua **konplitu,** erromes galdu baten gorputz eta izpirituaren sustatzaile! Piarres Aintziart
Baina ez nuen asmorik promesa **kunplitzeko**. Juan Garzia
Gauza guztien gainetik **konplitzeko** daukadan betebeharra. Karlos Zabala
Horrela hiruek aspalditik duzuen gutizia **kunplituko** da. Aurelia Arkotxa
Han zirenei gogorazteko elizako eginbideen **konplitzeko** obligazioa zutela. Elena Touyarou
Nola ulertaraz legeak egiten direla **konplituak** izateko eta haiek aipatzen zituzten garaiak iraganekoak zirela? Elena Touyarou
Desira **konplitu** gabeen mingotsari. Aingeru Epaltza
**Konplitu** gabeko amets erotikoak. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Erantzun **konplitua** eman nion, gure ustezko erasotzaileen kopuruari zegozkionak hanpatuta. Aingeru Epaltza
Baldin egin balitz euskaraz hainbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, haiek bezain aberats eta **konplitu** izanen zen Euskara ere. Joan Mari Irigoien
Kopiatzaileak omen dituk gaur egungo artistarik **konplituenak**! Xabier Montoia

---

# konplituki *adlag* osoki, betetasunez.

Egiteko guztiak **konplituki** betetzen nituen eta arau guztiak hautsi gabe begiratzen. Aingeru Epaltza
Ordea, xede horren **konplituki** konplitzea eta betetzea ez da erraza. esperientziaren muga oroz goiti saiatutako erabileraren hedapena eta mugak **konplituki** eta seguru determinatzea. Joan Mari Irigoien

---

# konplitze *iz* betetzea.

Etxean sartzean, neskaren ganberatik ateratzen zen musika isila iragarpentzat hartu nuen, neure itxaropenik goxoenak **konplitze** bidean egon zitezkeela. Aingeru Epaltza

---

# konplize 1 *iz* gaizkidea, erru-laguna.

Bi **konplizeak** berehala atxilotu zituzten. Pello Lizarralde
Gauza bera gertatzen da delitu batean **konplize** bat baino gehiago denean. Juan Martin Elexpuru
Delitu baten **konplize** salatariari inpunitatea aginduko balio. Juan Martin Elexpuru
Bernard Weinstein bere **konplize** izandakoa hil izana leporatu zioten. Berria - Gaiak
Deabruaren **konplize** horrek. Joxean Sagaztizabal
Transgresore ospetsu hark hala amaitu zuen santutasunaren [...] eta hiltzaileen **konplize** izatearen arteko leizean, teoria eta moral guztietik haratagoko muga beroetan. Joseba Zulaika
Zure isiltasunak **konplize** egiten zaitu. Berria - Euskal Herria
Beste guztia baino makurragoa da, erantzule eta **konplize** sentitzen naizelako. Monika Etxebarria
Arerioak lagun eta etsaiak **konplize** nahi ditu Batasunak. Berria - Euskal Herria
Klitoria nire hatzaren **konplize**. Jasone Osoro

**2** *irud/hed adkor*

Antton Luku eta Mattin Irigoien dira **konplizeak** horren idazteko mementuan. Herria

**3** (izenondo gisa) ik **konplizitate 2**.

Elkarri irribarre eta keinu **konplizeak** eginez... Jokin Urain
Barreak, begirada **konplizeak**. Doktoreak barre egiten du, begirada **konplize** batekin ni nahastu nahian. Monika Etxebarria
Ama-amonek begiratu **konplize** bat egin zioten elkarri. Joan Mari Irigoien
Nolabaiteko keinu eta jarreren dantza **konplizeari** esker. Jon Alonso
Bere isiltasun **konplizearekin** beste aldera begiratzen duten politiko profesionalen babes lotsagarriarekin. Berria - Harian
Giro lasai eta **konplizean** Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan)

Etsaiaren **konplize** izaera. Itxaro Borda
Hilketa baten beharrezko laguntzaile izatearen delitua leporatzetik, **konplize** delitua leporatzera pasatu da Gorena. Berria - Euskal Herria

---

# konplizidade ik **konplizitate**.

---

# konplizitate 1 *iz*

-Kanta pare bat bakarrik -esan du **konplizitate** bila. Patxi Iturritegi
Neurrien gogorra elizari bazegokion ere, lotsa gabe bilatu zen agintari zibilen **konplizitatea**. Iñigo Aranbarri
Marujari so egoten saiatzen da, emakumearen **konplizitatea** bilatu nahian. Iñaki Iñurrieta
Kontsumo gizartearen zutabeak dardararazten dituen kritika, ironia, umorea, gogoeta, irudiak eta abar, irakurlearen **konplizitatea** eskatu eta lortzen dutenak. Herria
Jainkoaren nahiak eta jendearen sofrikarioak halako **konplizitate** bat moldatzen baitzuten. Piarres Aintziart
Halako **konplizitate** bat sumatzen zuen Klararen eta txalupariaren artean, eta **konplizitate** hartatik kanpo sentitu zen bera. Iñaki Iñurrieta
Maitasunaren esperantza **konplizitatean** hasten den jakitun, ez zidan **konplizitaterik** oparitu nahi. Harkaitz Cano
**Konplizitate** platoniko horrek zenbait hilabete iraun zuen. Ramuntxo Etxeberri
Sadetarren etxean antolatzen ziren orgia hauek bere emaztearen **konplizitatearekin** egiten ziren, eta apaiz baten partaidetzarekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Gustatzen ez zaizun irribarre berria Luisengan, **konplizitate** ustezkoaren irribarre ziurregia. Lourdes Oñederra
Igorle eta hartzailearen artean ehuntzen den ezkutuko **konplizitate** hori ikaragarri indartsua da. Txema Ramirez de la Piscina
Vichy-ko gobernuak naziekin izan zuen **konplizitatea** zela eta. Joseba Zulaika
Ezagun zen bien arteko **konplizitatea,** barrako bi aldeetako lubeltzean urte luzez ondua. Aingeru Epaltza
-Ederra sartu zenion gaixoari -gaitzespenez baino areago, **konplizitatez**. Aingeru Epaltza
Hotzagoa bata, **konplizitatez** babestua bestea. Iñigo Aranbarri

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **konplize 2**.

**Konplizitate** keinu batez erantzun nahi izan zion Olatzek Martaren konfesioari. Harkaitz Cano
Elkartasun eta **konplizitate** keinuak jaso ditugu Espainiako leku askotatik. Berria - Mundua
Natxok **konplizitate** keinua egin dio. Patxi Iturritegi
Hamabost urterekin izaten den **konplizitate** puntu hori lortu genuela esango nuke. Ana Urkiza
Gogoratu nuen igande batean, orain hiru aste, ez gehiago, nolabaiteko **konplizitate** itxura antzeman nuela gauzetan. Monika Etxebarria
**Konplizitate** giro horretan hainbat pasadizo izan zituzten hizpide bi politikariek. Berria - Euskal Herria
**Konplizitate** harreman berezia sortzen da antzezlearen eta ikusleen artean.Solidaritate edo **konplizitate** sentimendu bat besterik ez da. Arantxa Iturbe
Inoiz ez nien ez aparteko hizketarik, ez **konplizitate** arrastorik sumatu. Xabier Mendiguren Elizegi
Ez da irakurleari zentzu bikoitz bat adierazteko eta konplizitatearen plazerra eskaintzeko, nik arbuiatu egiten baitut edozein **konplizitate** era, nostalgia dela, patetismoa dela, iraina dela. Joseba Urteaga
Horrek guztiak **konplizitate** elementuak sortu ditu Estatuan. Berria - Mundua

**3** ***konplizitatezko*** *izlag*

**Konplizitatezko** barre mota bat zen, hala iruditzen zitzaidan. Oskar Arana
"Nicht wahr, Herr Offizier" itzuli zen helduen **konplizitatezko** irribarre xumearekin. Urtzi Urrutikoetxea
Zapata garbitzailearen eta zure artean ez da begirada samurrik edo **konplizitatezkorik** izango, ez diozu irribarrerik eskainiko. Sonia Gonzalez

---

# konplot *iz* pertsona batzuen arteko hitzarmena beste pertsona baten edo batzuen aurka jokatzeko.

Biren arteko solasa konspirazioa edo **konplota** izan zitekeen. Joseba Sarrionandia
Tsarrak deserriratu egin zituen **konplotean** parte hartutako guztiak. J.M. Olaizola "Txiliku"
**Konplot** izugarri baten biktima zela pentsatzera iritzi zuan. Anjel Lertxundi
PANek salatu du Gazako plana «Israelen **konplota»** dela. Berria - Mundua
Arafaten aurkako **«konplot** bat» prestatzen ari zela. Berria - Mundua
Chavezen kontrako ustezko **konplota** . Berria - Mundua
Nazioarteko **konplot** baten biktima dela salatu du. Berria - Harian

---

# konplubio *iz* erromatar etxeetako burraldean, euri ura biltzeko uzten zen irekidura karratua edo lauzizuzena.

**Konplubioaren** argiaren zabalera ez da izango atrioaren zabaleraren laurden bat baino txikiagoa; eta luzera, atrioaren proportzioan egingo da. Santiago Iruretagoiena
Estilo korintoarrean habeak eta **konplubioa** modu berean jarriko dira. Santiago Iruretagoiena

---

# konponarazi, konponaraz, konponarazten du *ad* konpontzera behartu.

Kendu zuten prezintoa noizbait, eta orduan aitak sarraila **konponarazi** zuen. Koldo Izagirre
Joaxek tenplua **konponarazi** . Elizen arteko biblia
Aurrerantzean hiriko agintaria, nornahi izanik ere, behartua gelditzen zela etxe hura **konponaraztera** . Askoren artean

---

# konponbide **1** *iz* arazo edo auzi bat konpontzeko bidea. ik **konponketa**.

Egoera petral berean geratu ziren beste asko ere, eta **konponbide** bila hasi ziren batzuk, klase-borrokaren aztarna handirik ez zeukan herrian. Xabier Mendiguren Elizegi
Askotan, neurri gogorrak hartu behar izaten dira **konponbidea** jartzeko. Irene Aldasoro
De Valerak ez zuen berak britainiarrekin **konponbidea** sinatu nahi. Joseba Zulaika
Galderak egiten badira **konponbideak** aurki daitezke. Pello Salaburu
Arazoak gaiztotu eta **konponbideak** oztopatu. Joxerra Garzia
Su-etenetik astebetera, apirilaren batean, manifestazio erraldoia egin zen Bilbon gatazkaren **konponbidearen** alde. Joseba Zulaika
Epe luzeko **konponbideak** behar dituzten oso gai sakonak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Bakezko **konponbide** bat eskatu zioten erregeari. Elizen arteko biblia
Abu Graibeko zaindari Lynndie Englanden auzia atzeratu dute, «tarteko **konponbide»** baten bila. Berria - Mundua
Arazoak konpondu edota **konponbidean** jarri. Joxemari Iturralde
**Konponbidea,** norbera nor izatea da, hots, egiazko nortasuna izatea. Xabier Mendiguren Elizegi
Politikoek bidegabeen **konponbiderako** neurriak har ditzaten eragozteko. Juan Garzia
Gatazkaren **Konponbiderako** Proposamena. Berria - Kultura
Arazo berberari **konponbide** berbera? Berria - Kirola

**2** (izenondoekin)

Hainbat gabezia eta arazori **konponbide** egokia aurkitzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Pozoitze-kasuek **konponbide** ona dute askotan, dialisiaren bitartez substantzia toxikoak kanporatu eta odola garbitzen baita. Irene Aldasoro
Eragozpen txiki bati **konponbide** erraz bat eman ostean. Mirentxu Larrañaga
Ez zaio arazoari **konponbide** errazik ikusten. Joseba Zulaika
Metilfenidatoa ez da **konponbide** eraginkorra eguneroko bizian. Berria - Gaiak
Hala ere, sinetsita nago elkarrizketa dela **konponbide** bakarra. Joxerra Garzia
Hona **konponbide** sinple bat: [...]. Irene Aldasoro
Matxinadari **konponbide** baketsua bilatzeko itzuli zen Al Sistani. Berria - Mundua
Joan den urrian **konponbide** iragankorra hitzartu zuen kontseiluak, baina luzerako irtenbidea bilatu nahi zaio ataka horri. Berria - Ekonomia
Nire iritzia da **konponbide** egonkorrena irakiarren beraien eskutik etorriko dela. Berria - Mundua
**Konponbide** globalei buruzko azterketa bat egiteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Gure unibertsitate sistemaren **konponbide** bateratu bat aurkitu beharko genuke, nire ustetan: **konponbide** orokor eta bateratua, baina aldi berean unibertsitateen arteko lehiari eutsiko liokeena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Gatazkaren **konponbide** demokratikoari. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Abiatutako **konponbide** prozesua zintzotasunez lagunduko dugu. Berria - Euskal Herria
**Konponbide** Mahaia osatzeko unea iristear dagoela uste du Hitzarmenerako Mahaiak. Berria - Euskal Herria
Kafeak ematen dio **konponbide** zantzu bat bere egoerari, 'kafearekin zertxobait zuzentzen dut, kafeina intrabenosoa hartuko nuke'. Pako Aristi

**Konponbide** garaia baliatzea denon ardura dela nabarmendu du. Berria - Euskal Herria

NBE Nazio Batuen Erakundearen **Konponbide** Plana onartu zuten Marokok eta Fronte Polisarioak Berria - Mundua

---

**konpondu**, konpon, konpontzen **1** du *ad* hautsia, hondatua, erabili ezin zela zegoen gauza, erabiltzeko eran jarri edo antolatu. ik **atondu; akomeatu; adelatu.**

Teilatua **konpontzea** zen lehenengoko lana. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxea Endreri esker **konpondu** genuen, oso mailegu moduzkoa lortu baitzigun. Ander Irizar

Elizako dorrea **konpondu** eta ibai gaineko zubia birreraikitzeko. Koldo Biguri

Sarrerak eta gelak **konpondu** eta ateak ipini zizkieten. bertako bentaren batean logelak hartu eta autoa **konpondu** artean oporretan geundelako itxurak egitea. Elizen arteko biblia

Baliteke garajeko ate automatikoa **konpondu** behar duen teknikoa izatea. Patxi Iturritegi

-Itoginak izango dira teilatuan, **konpondu** egin beharko ditugu. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ezin dut traste madarikatu hori **konpondu..**. Lopez de Arana

**2** (gauza abstraktuak)

**Konpondu** etxeko arazoak, hil egingo zara eta. Elizen arteko biblia

Wittgensteini iruditu zitzaion **konpondu** zituela jada filosofiaren arazo guztiak. Oskar Arana

-O, Simsbury eta biok auzitegira jo gabe **konpondu** dugu kontua. Lopez de Arana

Baina bagenuen beste kontu bat **konpondu** beharra. Inazio Mujika Iraola

Lanekoa **konpondu** behar nuen, astelehen goiz hura ere libratzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Huts hori ezin da **konpondu** odola lasterrago zirkularaziz. Irene Aldasoro

Gatazka hau **konpondu** ahal izateko nola sortu zen ulertu behar zen. Iñaki Mendiguren

Kaltea **konpondu** nahian ari naiz, Edith. Oskar Arana

Badakizu nork **konpondu** zigun bizimodua, kolpetik? Josu Zabaleta

Badakizu Ubanbe nolakoa den, borrokarekin **konpondu** nahi izaten du dena. Bernardo Atxaga

Beti izaten da **konpondu** beharrekoren bat. Arantxa Iturbe

Arimak horrelako altxorra galtzen utziko balu, **konpondu** ezinezko kaltea izango litzateke. Joan Mari Lekuona

**3** (inpertsonala)

Eta horrela **konpondu** zen kontua. Agustin Otsoa

**-Konpondu** al dira zure arazoak? Monika Etxebarria

Gauzak ez ziren **konpondu;** aitzitik, txarretik okerrera joan ziren. Xabier Mendiguren Elizegi

Eure artekoak gizon moduan hantxe **konpon** genitzan. Edorta Jimenez

Dilema hori oso modu burutsuan **konpondu** da gizakietan eta beste animalia askotan. Irene Aldasoro

Erregulazio-mekanismoak huts egiten duenean, bada, taupada-markagailu bat jarrita **konpon** daiteke arazoa, baina hori baino arazo larriagoak ditu jende askok, eta horiek ezin dira **konpondu** bihotza bera aldatuta ez bada. Irene Aldasoro

-Uste dut auzi hau onez onean **konpon** daitekeela. Jose Morales

Hartara, dena berez **konponduko** zela. Joxe Austin Arrieta

• **4** da *ad.* eguneroko kontuetan edo zernahi eratako harremanetan, ados etorri edo elkarri egokitu; aritzeko edo zerbait egiteko, aipatzen diren bideei askietsirik jardun.

Eta ohean ere ez ginen **konpontzen**. Luis Elberdin

Gaizki **konpondu** ziren beti. Xabier Montoia

Ez daukazu harekin ondo **konpondu** beharrik. Oskar Arana

Nire iritziz, ez zaigu interesatzen Amerikarekin gaizki **konpontzea**. Koldo Biguri

Biok bikain **konpondu** gara elkarrekin, Kristo Jauna inolako kontrakotasunik gabe zerbitzatzeko. Askoren artean

Baina aurrerantzean zoragarri **konponduko** gara. Mirentxu Larrañaga

Petrushka laster asko **konpondu** zen Grigorirekin. Jose Morales

**Konpon** zaitez berarekin, bada, eta utz nazazu bakean. Migel Angel Mintegi

Ez dakigu nola **konpondu** zen hango eta harantzagoko herritarrekin hitz egin eta elkar ulertzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baserritarra, berriz, lurrarekin **konpondu** behar, bizimodua aterako bazuen. Pello Zabala

- **Konpondu** zaitezte zuen artean... Itxaro Borda

Hor **konpon** dadila Gercourt jaun hori, ez naiz ni joan haren xerka. Jon Muñoz

*ik beherago* 5. Askoren artean

Ez dakit nola **konponduko** naizen, idazten denean ez baitu erraza izan behar egunerokotasuna eta norberaren iritzia atez kanpo uztea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ondo **konponduko** zara ni gabe. Joanes Urkixo

**5** ***hor konpon*** "hor konpon hadi (zaitez, dadila...)"-ren laburpena, norbaiten jokaera edo arazoekin, edo zerbaiten ondorioekin zer ikusirik izan nahi ez dela adierazteko erabiltzen dena.

**Hor konpon,** ez naiz orain denbora alferrik galtzen hasiko. Jon Muñoz

**Hor konpon** eliza eta **hor konpon** gurutzea; esbastikak salbatuko du mundua. Anjel Lertxundi

**-Hor konpon** polizia! hori besterik ez balitz! Anton Garikano

Hortaz, **hor konpon** portugaldarrak, molda daitezela beren indar nazional urriekin. Jon Alonso

Tragotxoren bat edan eta **hor konpon** dena! Mirentxu Larrañaga

Fabrikak eta bulegoak itxi, eta **hor konpon**. Koldo Biguri

Bi errublo eta erdi bakoitzeko; nahi ez baduzu, **hor konpon**! Jose Morales

Horratik, hemen gelditu nahi baduzu, **hor konpon**. Juan Garzia

Baldin bazekien, ongi, ez zion inori ere kalterik egingo, baina ez bazekien, **hor konpon** marianton. Pello Salaburu

· Baliteke, orobat, irakasleon egitekoa gure jakinduria gelan deskargatu eta horrenbestez **hor konpon** egitea. Joxerra Garzia

---

konponduezin ik **konponezin.**

---

**konponezin** *(orobat* ***konponduezin*** *g.er.)* **1** *izond* ezin konponduzkoa.

Kalte **konponezinen** bat zuela ematen zuen. Iñaki Mendiguren

«Erru **konponezina»** izan zela aitortu zuen ETAk martxoaren 30eko agirian. Berria - Harian

**Konponezina** dena konpontzen dela sinetsaraz dezakeen zerbait. Lourdes Oñederra

Londresko parlamentuaren eta errege eta nobleziaren arteko egoera gero eta bihurriagoa zen, **konponezina**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Antinomia **konponezinetan** korapilaturik. Askoren artean

Komunikazio-inkomunikazio dikotomiak sortzen dituen arazo nire ustez **konponezinekin** akordatu nintzela orduan. Karlos Linazasoro

Iruñeko lau gazteei egindako kaltea **«konponezina»** dela. Berria - Euskal Herria

**Konponezinak** ez, baina konpontzen zailak bai. Berria - Kirola

Askotan horixe gertatzen da, **konponezinak** diruditen korapiloak bide errazenetatik askatzen direla. Hasier Etxeberria

Hurakan bat bezain saihestezin eta **konponezina**. Harkaitz Cano

• **2** *iz* ezin konponduzko gauza.

Nago ez ote diren pasatu **konponezin** txiki batzuk izatetik ezin konponduzko kontuak izatera. Joxerra Garzia

Bekatariak sesioa sortzen du lagunartean, **konponezina** bakean bizi direnen artean. Elizen arteko biblia

Hura ez zen pozten amaren eta aitaordekoaren arteko **konponezinekin**. Juan Kruz Igerabide

Bi aldeen arteko **konponezina** areagotu egin zen Donostiako batzordeak [...] Harkaitz Millan zinegotziaren dimisioa eskatu zuenean. Berria - Euskal Herria

Halako **konponezinak** nerbio-sisteman bertan dira errotzen. Xabier Olarra

**3** ***konponezineko*** *izlag* konponezina.

Paiva Portuges jaunarentzat ez zegoen **konponezineko** arazorik. Bego Montorio

**4** ***konponezinezko*** *izlag* konponezina.

Antagonismo **konponezinezkoetan**. Joseba Zulaika

---

## konponezitasun *iz* konponezina.

Gero, ordea, ikustearen baina ez ikustearen arazoak eta **konponezintasunak** agertu ziren, ikusmenezko mundua ulertu ezina eta, aldi berean, bere mundua utzi beharra. Xabier Olarra

---

## konpongabe *izond*

Arrazoimen hutsari emandako objektuarekin zerikusia duen galdekizunik ez dagoela giza arrazoimen berarentzat **konpongabea** denik. Ibon Uribarri

---

## konpongarri *iz* konpon daitekeena, konpontzeko modukoa.

Desberdintasun hauek liberalentzat **konpongarriak** ziren eta kontserbadoreentzat ezinbestekoak. beraz, galdekizuna ideiatik abiatuta soilik izan behar da **konpongarria;** Iñaki Mendiguren

---

## konponketa 1 *iz* konpontzea. ik **konponbide**.

egunero-egunero jakinaraziko didala autoaren **konponketa** nola doan. Oskar Arana

Elizaren **konponketa** burutu ondoren. Askoren artean

Bideko tailer txiki baten dohainik egin didate **konponketa**. Jon Arretxe

**Konponketa** zenbat kostatuko zaidan galdetzeko lanik ez dut hartu. Oskar Arana

Tenpluaren **konponketako** gastu guztiak. Elizen arteko biblia

**2** (gauza abstraktuez)

Isilik egon ginen arazoaren **konponketa** esku-lan haren ondorioaren mende balego bezala. Valdespinako markesa bera egona zela Lesakan egun haietan, **konponketa** baten bila. Ramon Saizarbitoria

Euskal Herriko gatazkak «nazioarteko neurria» izango duen **konponketa** behar duela gehitu du. Berria - Euskal Herria

Alde batetik izanen dituelarik bere palestinar "gogorrak" eta bestetik Israelekilako **konponketa** baitezpadakoak. Herria

Erran dizudan bezala, askoz ere **konponketa** gozoago bat eginen dugu. Alberto Ladron Arana

**Konponketa** bat proposatzen diote bere bizimodu libertinoaz damutzearen truke. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** musika lanez mintzatuz, moldaketa, egokitzea.

Morriconek orkestrarako **konponketa** konplexu «eta luzeegia» idatzi zuen. Berria - Kultura

*En una calle de Paris* kantuan, Fran Iturberen gitarraren **konponketa** ederraz. Berria - Kultura

**4** *pl* konpontze lana.

Gasca Kiroldegian ere **konponketak** egingo dira. Berria - Kirola

Marinel zaharrak ordubetez gelditzea erabaki zuen, ezinbesteko **konponketa** batzuk egiteko. Karlos Zabala

Ikuskapenak edo **konponketak** egiteko, erreaktoreak geldiarazteko agintzen du araudiak. Berria - Gaiak

Eztabaida bat eskaileran egin beharreko **konponketa** batzuk direla eta. Iban Zaldua

Sorospen taldeek premiazko **konponketak** egitea lortu zuten. Berria - Mundua

Ni loretegiaz arduratzen nintzen, belarra mozten nuen eta sasiak txukuntzen nituen, igerilekua garbitzen nuen, **konponketa** txikiak egiten nituen. Koro Navarro

Dendako mutila **konponketa** txiki batzuk egiten utzia zuen. Bego Montorio

Politikan adabakiak daude, **konponketa** behin-behinekoak... Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Konponketa-** eta garbitze-lanetan. Agustin Otsoa

Ezaugarri arkitektonikoak, higaduraren kalteak, egin beharreko **konponketa**-lanak.... Xabier Mendiguren Elizegi

Integraturik duen **konponketa**-zerbitzuagatik. Irene Aldasoro

Gizakiak egindako makinek ez bezala, badu hezurrak **konponketa**-sistema moldakor bat beti prest hogeita lau orduko zerbitzua eskaintzeko. Irene Aldasoro

Negutegiko sabaia aipatzeko, haren **konponketa** gastua, berrogeita hamar libra agian. Anton Garikano

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Badakit ordu hauetan mundu-**konponketa** alfer asko egin ohi dela, bihar bertan gogoratuko ez ditugunak... Pako Aristi

Kreditu-txartelen eta etxe-**konponketetarako** maileguen publizitate-gutunak. Oskar Arana

Sare-**konponketan** ari ziren beren untzian. Elizen arteko biblia

---

**konponleku** *iz* zerbait konpontzeko lekua.

Auto **konponleku** batzuetan egon ohi diren neska gazteenak gogorarazten dizkidate. Pako Aristi

---

## konpontxo

**1** ***konponxo egin*** *adkor* aurretik hitz hartua egon.

Behin aitari entzun nion **konpontxo** egingo zuela faxistekin [Kurtek], bestela ez zela ulertzen aske gelditu izana hain aise. Anjel Lertxundi

Baserri giroetako lur eta baserri jabeen jauntxokeria, eta jauntxokeria horrek boterean dagoenarekin **konpontxo** egiteko daukan abildadea. Anjel Lertxundi

Esku artatsu batzuek txanponak biltzen zituzten, etxearekin **konpontxo** egindako poliziak gelan sartzen ziren bitartean. Josu Zabaleta

Portu-burua **konpontxo** eginda dago Casablancako agintariekin. Anjel Lertxundi

Biak **konpontxo** eginda baleude niri adarra jotzeko? Anjel Lertxundi

---

**konpontzaile** **1** *iz* aipatzen dena konpontzen duen pertsona.

Altzari zaharren saltzailea, bigarren eskuko liburuen saltzailea, eta antzinako oinetakoen **konpontzailea,** zapataria, alegia, libre zituen uneetan. Josu Zabaleta

· Bidegurutzean zegoen **konpontzaile** baten etxera eraman genuen. Juan Kruz Igerabide

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ahmedabaden bada bizikleta-**konpontzaile** bat motorrez ibiltzen dena. Gotzon Garate

-Zer beste eltze-**konpontzaile**? -esan zuen Hynes jaunak. Irene Aldasoro

Basoan predikatzen zuen zapata-**konpontzaile** harengana. Anton Garikano

Aterki saltzaile eta guardasol **konpontzaile** txorroskillero haiek. Pello Zabala

Koadernatzaileek eta liburu-**konpontzaileek** ere. Pello Zabala

Paola Diamantiniz maitemindu zen Paulo Zubia, San Marco katedraleko organo **konpontzailearen** alaba zaharrenaz. Felipe Juaristi

Baina beste kontu bat da tsarraren jauregian arazo-**konpontzaile** hasten denean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Auzi **konpontzaile** ez izateaz gainera, auziak konponbidean sartzeko zirikatzaile [...] izateko erantzukizuna ere ez zuen bere ardurapean hartu. Koldo Zuazo

-Ba ni nintzela Miguelitorentzako nesken tratu-**konpontzailea**. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eltze konpontzaile** (3)

---

**konpontze** **1** *iz* hautsia edo hondatua zegoen gauza, erabiltzeko eran jartzea.

Hau guztia **konpontze** bidean jartzeko diru asko beharko litzateke. Pello Salaburu

Europako Batasuneko erakundeen defizit demokratikoa **konpontze** bidean jartzeko aukerarik ikusten duzu? Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Badute besta hauek zerikusi zerbait gure herrietan ospatzen ziren [...] bizkar besta haiekin, norbaitek bere etxean-edo **konpontze** lan batzuk egin ondoren han ibilitakoei eskaintzen zien bestekin. Pello Salaburu

San Damian elizaren **konpontze** lana amaitu ondoren. Askoren artean

**Konpontze**-prozesuaren lehen urratsa odolbildu bat sortzea da. Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Otsailean etxe barruko lanak gehiago, ganbara eta arropa **konpontze** eta beste... Pello Zabala

Gerrak eta faxismoak bere azken arnasaldietan piztutako gorroto eta etsaitasunek bizirik irauten, mendekuzko hilketak eta kontu-**konpontze** politikoak eguneroko gauza ziren. Koldo Biguri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konpontze bidean** (12); **konpontze bidean jartzea** (3)

---

**konponzale** *izond* konponketaren zalea dena.

Baina ez ahaztu natura **konponzalea** eta eskuzabala dela, ama onen modukoa. Aitor Arana

---

**konporta** *iz* uhatea, albatea.

Baforearen bodegako **konportak** baino zabalago zabaldu zuen atea ingelesez edo halako mordoiloan kantari urketariak. Koldo Izagirre

---

**konportaera** *iz* portaera, jokaera.

Abereen territorio **konportaera** honek ezin esan araziko digu, jabegoa besterik gabe naturala denik. Patziku Perurena

---

**konportamendu** *(orobat* ***konportamentu****)* *iz* portaera, jokaera.

Mooter australiarrak, kasu, erabiltzaileen **konportamendua** ulertu nahi du bilaketa hobetzeko. Berria - Ekonomia

Ihes egin, edo **"konportamentu** txarra" izan, edo aski lanik egiten ez zuenarentzat, zigorra izaten zen. Pablo Sastre

---

konportamentu ik **konportamendu**.

---

**konposagile** *iz* konpositorea, musikagilea.

Maisuaren iritziz, Prokofiev ulertu eta guztiz ezagutu gabeko **konposagilea** da. Berria - Kultura

Maiatzaren azken asteetan, bi kontzertu eskainiko dira Erriberriko **konposagilearen** omenez. Berria - Kultura

## **konposaketa** **1** *iz* konposizioa, antolaketa.

Neurria bezain deigarria du **konposaketa** ere: argazkiaren ezkerraldean nago ni, lehen planoan, burua pixka bat jiraturik kamera aldera. Anjel Lertxundi

Margolaneko puntu jakin-jakin batean, **konposaketaren** gune nagusian, pausatzen duzu zuk begirada. Anjel Lertxundi

Humek ez du onartzen aprioriko arrazoinamendua ezagutzaren iturria izan daitekeenik; gustuaren kasuan, ezin du onartu **"konposaketa**-erregelen" (gustuaren arauaren) iturria denik, hain zuzen ere. Askoren artean

**2** musika lana.

Musikari askok buruz zekizkiten haren **konposaketak**. Berria - Kultura

*Anaia Eguzkiaren Kantika*-ren **konposaketa**. Askoren artean

Disko honetako **konposaketek** arretaz entzutea merezi dute. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Musikagilea, eta **konposaketa** eta instrumentazio katedraduna. Berria - Kultura

· Kantuari lotu teknikak ikasteko (bertsularitza, antzerkia ezenatokian ibiltzea, koru zuzendaritza, kantuen idaztea, musika **konposaketa)**. Herria

**4** osaera.

Honekin guztiarekin uste dut azaldu ditudala eta beren lehen kausetarik argitu, Desira, Poztasuna eta Tristura diren hiru lehen afektuen **konposaketatik** sorturiko afektu eta Izpirituaren gorabehera nagusiak. Piarres Xarriton

Itsasoen **konposaketa**. Berria - Gaiak

NASAren arabera, atomo horiek eguzkia sortu aurreko nebulosaren **konposaketa** gordetzen dute. Berria - Gaiak

**Konposaketa** aski homogeneoa dutenen artean Txekiar Errepublika, Hungaria, Polonia, Eslovenia eta Malta. Berria - Mundua

---

## **konposatu**[1], konposa, konposatzen **1** du *ad* osatu.

Mila irudi **konposatu** zituen bere buruan. Iñaki Zabaleta

Eta lerroon buru-buruan, puntu bikoiti eta bakoitiak bildumatu zituen, lehenbiziko figura **konposatzeko**. Juan Garzia

Gorputz sinpleenez **konposatua** den Izakia. Piarres Xarriton

Cassinik bidalitako azken irudietan ez dago argi ozeanoak zerez dauden **konposatuak**. Berria - Gaiak

Aurretik ezarritako eredu bati jarraiki **konposaturiko** sekuentziek osatzen dute musika kadentzia bat. Iñaki Arranz

**2** literatura eta musika lanez mintzatuz, ondu.

Antifona eta prosa eder eta deboziozkoak **konposatu** zituzten. Askoren artean

Ez zuen nahi beste *Kixote* bat **konposatu** -aski gauza erraza-, "Kixotea" baizik. Juan Garzia

Goethek aski lasai har zezakeen *vox populi* zen kontaera bere *Fausto* handia idazteko, eta are eta lasaiago Quevedok mende batzuk lehenago *vanitas*-en gaia bere soneto ederrak **konposatzeko**. Bernardo Atxaga

Musikagile jaioa zenez, *Saforen azkentzea* izeneko opera dramatikoa **konposatu** zuen. Felipe Juaristi

Ez zuen hitz egiten, eta, setati, egunak eta gauak pasatzen zituen "Miserere" berri bat **konposatu** nahian. Martin Anso

Orkestra-lan sinfoniko konplexuak **konposatzen** ohitua zegoela. Patxi Iturritegi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Hitz **konposatu** hori ez dut maite, klixe bat da. Ana Urkiza

*ik* elkartu.

Gorputz askok osatzen duten gorputz **konposatu** batetik. Piarres Xarriton

**4** bakuna ez dena.

Grifoia bera ere izaki **konposatua** zen, erdi lehoi, erdi arrano. Xabier Olarra

Gogamenaren teoria multifaktorial edo **konposatuaren** mugak dituzte ikerleok hizpide. Xabier Olarra

Beira-zuntza da beste gai **konposatu** ezagun bat, 1945 inguruan asmatua. Irene Aldasoro

Material **konposatu** sofistikatuagoak dira, besteak beste, lastoz egindako adreiluak, animalien ilez sendotutako igeltsua eta papier maché delakoa. Irene Aldasoro

Bostehun eta hogei dolarren korritu **konposatua** kalkulatu behar dut, ehuneko lauan ezarriz gero. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konposatu kimiko** (5); **konposatu organikoak** (4)

---

## **konposatu**[2] *iz* gai konposatua.

Muskuluetan beti dagoen beste **konposatu** bat da fosfokreatina. Irene Aldasoro

Oso **konposatu** pozoitsu bihurtzen dira gibeleko entzimen eraginez. Irene Aldasoro

**Konposatu** inorganiko bat da hezur-minerala, kaltzioz, fosforoz, oxigenoz eta hidrogenoz osatua. Irene Aldasoro

Ur azaleko **konposatu** organikoak biltzen ditu ur gaineko landare horrek. Berria - Gaiak

Mikroorganismoek deusezta ditzaketen **konposatu** organikoei esaten zaie biodegradagarriak. Berria - Gaiak

**Konposatu** disolbagarri bat. Irene Aldasoro

**Konposatu** sintetiko min bat da fenilo ziape-olioa. Irene Aldasoro

**Konposatu** zianuriko baten aztarnak ere aurkitu dizkiot biriketan. Fernando Morillo

**Konposatu** klorokarbonofluorodunak, CFC. Berria - Gaiak

Fosforodun **konposatuak**. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **musika konposatzeko** (3)

---

## **konposatzaile** *iz* konpositorea, musikagilea.

Beste **konposatzaile** batzuek baziren garaian: Pepe Yantzi, Silvestre Almandoz, baina Martinek edo Lajak jotzen zituzten pieza berriak, hamarretatik bederatzi Gelatxorenak izaten ziren. Pako Aristi

Han zeuden **konposatzaileek,** aurpegi margotuari azkenean malkoak jartzen dizkion umeak bailiran, partituretan banatu zituzten hitzak: 'larghetto' lasaia, 'andantino' biziagoa, 'appassionato' kitzikaria, 'morendo' hilgarria, 'dolcissimo' ezin samurragoa, 'disperato' etsipendua, 'mezzo forte' indartsua... eta beste asko. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**konposatzaileen obrak** (3)

---

**konposatze** *iz* osatzea; ontzea.

G. Théryk uste du hori izan zela liburuaren **konposatze**-urtea eta zioa. Joan Mari Lekuona

---

**konposite** *iz* material oso zaila eta iraunekoa, karbono, beira, boro edo zeramina zuntzez osatua.

Material hauek ***konposite*** deitzen dira. Berria - Gaiak

Nanosilize hauek likatasun oso baxua dute, beste nanopartikulekin egindako **konpositeekin** konparatuz gero. Berria - Gaiak

---

**konpositibo** *izond* konposizioari dagokiona.

Atal horretan, Charpentierren «elementu **konpositibo** guztiak oso nabarmenak dira», zuzendariaren arabera. beste galdera bat egin nion Sabethi, eta erantzunik jaso ez, ea nondik ikasiak zituen bere hitz ezin-taxuzkoago haiek guztiak, esate baterako: arkaiko, lineal, helenistiko, [...], **konpositibo** eta abar, *highbrow* hiztegi hura, alegia. Joxe Austin Arrieta

---

**konpositore** *iz* musika lanak ontzen dituena, musikagilea.

Musikari hauta zen eta gehiago dena musikagile edo **konpositorea**. Herria

Ravel, hura bai benazko **konpositorea,** gure garaietara egokitua. Harkaitz Cano

Bandan zuzendari ez ezik **konpositore** ere bazen Jose Mari Altuna, Puccini, izan zuen irakasle eta kritiko zorrotzena urteetan. Iñigo Aranbarri

Ezkerrean apalategia du, **konpositore** handien biografiez betea. Alberto Barandiaren

Bach eta beste **konpositore** batzuen lanak nola jo behar diren. Berria - Kultura

Horrelaxe jakin nuen beraz "Camille Saint-Saëns" hemeretzigarren mendean sortu frantses **konpositore** eta organista bat zela. Daniel Landart

Toru Takemitsu **konpositorearen** *Quotation of dream* ere joko dute lehen emanaldian, estreinaldia Euskal Herrian. Berria - Kultura

Musika, berriz, Richard Wagner **konpositore** nabarmen harena da, dirudienez. Xabier Olarra

John Adams **konpositore** amerikar garaikidearen obra da. Berria - Kultura

Aita Madina euskal **konpositorearen** 11 obra. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**konpositore handien** (3)

**konpositorea hil da** (3); **konpositorea jaio** (3); **konpositorea omenduko** (3)

**euskal konpositorearen** (4); **konpositorearen obra** (4)

**euskal konpositoreen** (11); **konpositoreen lanak** (5); **konpositoreen musika** (4); **konpositoreen obrak** (8)

**euskal konpositoreren** (3)

---

konposizino ik **konposizio**.

---

**konposizio** *(orobat **konposizione** g.er.)* **1** *iz* osatzea, altolaketa.

**Konposizioa** proportzioen arte bat da. Josu Zabaleta

Ezin dezake tenplu batek **konposizio** egokia izan proportziorik eta erlaziorik gordetzen ez badu. Santiago Iruretagoiena

Pintura imitaziotik urrunduz joan ahala hasi da **konposizioa** elementu plastikoen, balioen, koloreen, lerroen eta azaleren antolamendua bere barruan hartzen. Josu Zabaleta

Hiru figura ikusi genituen, beste garai batekoak ematen zutenak, antzinako margolan baten **konposizio** landutik irten izan balira bezala. Inazio Mujika Iraola

Donatienen "partidak" -orgiak- **konposizio** eta antzezpen teatralak dira ia-ia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ikusten dut irudi horrek **konposizio** ederra duela eta benetan zait atsegina. Santiago Iruretagoiena

Egitura geometrikoek, aktiboek nahiz pasiboek, Jorge Oteizaren **konposizio** espazialean eta dinamikoan izandako eragina. Berria - Kultura

Irudiaren **konposizio** deitu izan den antolamendu plastiko baten mende. Josu Zabaleta

Irudi eta **konposizioekin** jolasteko joera zuen Picassok. Berria - Kultura

Fabriken **konposizio** geometrikoa horizontean. Eider Rodriguez

**2** osaera, osagaiak.

Sendagai generikoek izen komertziala duten sendagaien **konposizio** berbera dute, baina askoz merkeagoak dira. Berria - Euskal Herria

Biziki gustuko dut talde hau, besteak beste, bere **konposizio** bitxi eta ausartagatik: gitarra jolerik ezean, bi sokadun baxua jotzen du Mark Sandman liderrak eta saxojole nahiz bateria batez osatzen da taldea. Harkaitz Cano

Zelularen parte urtsuak eta inguruko jariakinek ez dute **konposizio** bera. Irene Aldasoro

Garrantzitsua da odolaren **konposizio** kimikoa zorrotz mantentzea. Irene Aldasoro

**Konposizio** kimiko egonkorra dute inguruari dagokionez. Askoren artean

Multinazionalak uko egin zion hasieran gas pozoitsuaren **konposizio** zehatza zabaltzeari. Berria - Gaiak

**Konposizioan** karbonoa, hidrogenoa eta oxigenoa besterik ez dutenez, [...]. Irene Aldasoro

**3** literatura edo musika lana.

Literatur **konposizio** mota zaharkitua. Xabier Olarra

Hitz neurtuzko **konposizioetan**. Iñaki Arranz

*Hardcore* melodikoa urrun ez duen **konposizio** mota. Berria - Kultura

Itsuarentzat erabat berriak ziren bi **konposizio** jo zizkioten. Xabier Olarra

Hiru neskak osatzen dute *Sugan,* eta disko berriko **konposizio** guztiak haiek egindakoak dira. Berria - Kultura

Ez al zen hura Duke zaharraren **konposizio** klasiko bat? Harkaitz Cano

Ikus-entzunezkoari aplikatutako **konposizio** elektroakustikoa. Berria - Kultura

Musikeneko ikasleen **zazpi** konposizio estreinatuko dituzte. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ohartu San Bonabenturak erabiltzen duen **konposizio**-baliabideaz, "inklusioa" alegia: […]. Askoren artean

Den bezala onartzen du irudi deskoadratua, eta haren **konposizio** moduaz gozatzen ikasten du. Josu Zabaleta

Heltayk zuzendaritza eta **konposizio** ikasketak egin zituen Budapesteko Franz Liszt akademian. Berria - Kultura

Espainiako orkestra sinfonikoen elkarteak antolaturiko **konposizio** lehiaketan. Berria - Kultura

Horrek eragin al du **konposizio** lanean? Berria - Kultura

Abesbatzentzako **konposizio** lana. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi gauza hartu behar dira kontuan musika **konposizio** horretan. Askoren artean

Bazirudien, orotara, txakur arrunten argazki-**konposizio** antzeko bat zela. Mirentxu Larrañaga

**6** pertsona bi edo gehiagoren arteko abenikoa.

Ordain haiek bi alderdien arteko abeniko baten bitartez egiten ziren; horregatik, herri barbaroen kodeetan, ordain horiei **konposizio** deritze. Iñaki Iñurrieta

Gizon baten biziagatik ezarritako **konposizioaren** tamaina, hortaz, haren pribilegio handienetako bat zen. Iñaki Iñurrieta

**Konposizio** nagusia hiltzaileak hildakoaren ahaideei ordaindu behar ziena zen. Iñaki Iñurrieta

Barbaroen legeetan aurkitzen diren **konposizio** guztiak gorputz-zigorrei erantsitako interes zibilak baizik ez zirela. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konposizio kimikoa** (7); **konposizio mota** (3)
> **koadroaren konposizioa** (3); **konposizioa eta interpretazioa** (3); **konposizioa ordaintzen** (3); **soseko konposizioa ordaintzen** (3)
> **konposizioak interpretatuko** (4)

---

## konposiziogile *iz* inprenta konposizioa egiten duen pertsona.

[Proba-zuzentzailea] gaizkile bat, zuk idatzitakoa ez-hanka-ez-buru duen zerbait bihurtu izanaren damua **konposiziogileari** testua ulertezin bihurtzen utziaz purgatzen duena. Xabier Olarra

---

## konposizionalitate *iz*

Era berean, **konposizionalitate**-printzipioan oinarrituta, perpaus batean osagai bat erreferentzia bereko beste osagairen batekin ordezkatzen badugu, ez da horrenbestez perpausaren egia-balioa aldatuko: "Atxaga asteasuarra da" eta "Joxe Irazu asteasuarra da" perpausek egia-balio bera dute. Askoren artean

---

konposizione ik **konposizio**.

---

## konpost *(orobat **konposta** g.er. eta **compost** g.er.)* **1** *iz* hondakin organikoen eta gai mineralen nahaste hartzituaz eginiko ongarria. ik **lurrustel**.

Gai organikoaren tratamenduaren bidez **konposta** lortzen da, nekazaritzarako erabiltzen den ongarria. Donostialdean sortzen den hondakin organikoa **konpost** bihurtzea etxe eta eskoletako lorategi eta baratzetan. Berria - Euskal Herria

*Eguzki* talde ekologistak hondakin organikoekin **konposta** sortzeko proposamena egin die zenbait erakunderi. Berria - Euskal Herria

**Konposta** egiteko, fruta eta barazkien hondakinak, arrautza oskolak, kafe eta te hondarrak, […], lorategiko hondakinak eta ohiki zaborretara botatzen dugun beste hainbat gai organiko erabil daiteke. Berria - Euskal Herria

Guztia nahastu eta lau hilabeteren buruan **konpost** umela lortuko dugu, eta sei hilabeteren buruan **konpost** heldua. Berria - Euskal Herria

Donostialdean **konposta** egingo duten bostehun boluntario lortzea. Berria - Euskal Herria

**Konpostaz** osatu ongailuentzat. Herria

**Konpostaren** aukera bideragarria dela uste dugu. Berria - Euskal Herria

Gure onkailu bakarra **"compost"** deitzen da: ongarri usteldua eta xehatua da, bizpahiru hilabetez usteltzera utzi ondoan. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Prefetak azaro ondarrean emana du Bardozeko **konpost** lantegiaren zabaltzeko baimena. Herria

**konposta** ongailuak lur barnean jarriak direlarik, zanahori, lur sagar eta azalilien lur azpiko parteen axaletan elementu metalikoak eta "HAP" deituak agertzen direla. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konposta egiteko** (5); **konposta egiten** (4)

---

## konpostaje *iz* konpostatzea.

**Konpostajea** da zaborretako osagai organikoak oxigenoaren bidez deskonposatzeko prozesua. Berria - Euskal Herria

Gaikako bilketa, birziklatzea, berrerabilpena eta **konpostajea** bultzatuko balira errauste planta ez dela beharrezkoa. Berria - Euskal Herria

«Eredu iraunkorragoen» alde egiten duela; metanizazioaren eta **konpostajearen** alde, kasu. Berria - Euskal Herria

**Konpostajea** nekazaritza lurretan edo jende gutxi bizi den herrietan abian jar daiteke, edo loretegia edo baratzea duten familia bakarreko etxebizitzetan.

**Konpostajearen** inguruko tailerra. Berria - Harian

Biometanizazio eta **konpostaje** plantak eraiki ahal izateko. Berria - Euskal Herria

---

## konpostatu, konposta, konposatzen du *ad* konpost bihurtu.

Sortutako zaborraren heren bi birziklatu edo **konpostatu** egingo dituzte. Berria - Harian

Gainera, **konpostatu** eta biometanizatu eta gero, hainbeste zabor botako litzateke? Berria - Euskal Herria

**Konpostatu** eta birziklatu ezin daitekeen %60 horrentzako, bi tratamendu mota daude: errausketa eta tratamendu mekaniko biologikoa. Berria - Euskal Herria

Urtean 32.463 eta 36.277 tona bitartean tratatzeko gaitasuna izango dute **konpostatzeko** instalazioek. Berria - Harian

Hondakinak egonkortzeko edo **konpostatzeko** eremu bat egonen da eta, horrez gain, azken hondakinak lurperatzeko eremua. Berria - Euskal Herria

---

## konpostatze *iz* konpost bihurtzea.

Erraustea birziklatzearen eta **konpostatzearen** osagarri da. Berria - Euskal Herria

3 milioi euro birziklatzea sustatzeko, 6 milioi **konpostatze** lantegia eraikitzeko. Berria - Harian

Zubietako Herri Batzarrak herrian bertan **konpostatze** planta bat jartzeko eskaera egin du. Berria - Harian

---

## konpostdun *(corpusean **konpostadun** soilik)* *izond* konposta duena.

Beldur dira kontsumitzaileak erostetik geldituko direla, jakiten baldin badute **konpostadun** landetarik jiten direla kontserbuko barazkiak. Herria

---

## konpostegi *iz* konpostatze planta.

Erraustegia handitzeaz batera **konpostegia** eta aurretratamendu mekaniko-biologikorako lantegia ipiniko ditugu hor sistema osatzeko Berria - Harian

---

## konpostgailu *(corpusean **konpostagailu** soilik)* *iz* konposta egiteko gailua.

Bostehun **konpostagailu** Donostialdean. Berria - Euskal Herria

---

## konpostgile *(corpusean **konposta egile** soilik)* *izond* konposta egiten duena.

Hor izanen dira "Solagro" energiak berziklatzen dituen enpresa eta Itsasuko "Loreki" koperatiba **konposta** egilea. Herria

---

## konpostgintza *iz* konposta egitea.

Ez dute hondakin organiko ugari sortzen dituztenen zabor bilketa selektiboa egiten, ez dute beharrezkoa den **konpostgintza** planta eraiki, ez dute zaborra jasotzeko inolako aterik ateko zerbitzurik jarri... Berria - Euskal Herria

---

## konpostgune *(corpusean **konpost gune** soilik)* *iz* konposta egiteko gunea.

**Konpost** gune zentralizatua edo hiru sarean. Berria - Euskal Herria

---

## konpostura *iz* erabidea, neurritasuna.

Auskalo zer egiten zuen **konpostura** ez galtzeko! Pedro Alberdi

Nola jasaten dituen hainbeste deskalifikazio, irain eta eraso **konpostura** galdu gabe Berria - Harian

---

## konpota 1 *iz* fruitu zatiak ur eta azukretan egosiz egiten den janaria.

Gerezi sasoian, amak **konpota** egiten du azokan aurkitzen dituen anpolai gizenenekin eta, gero, potetan sartzen. Anjel Lertxundi

-Adelak, afalondoan **konpota** zerbitzatu, eta, denen aurrean, ahots handian esan didanean: [...]. Patxi Zubizarreta

-Emango al zenidake ogi-mami pixka bat, mesedez, nire **konpota** amai dezadan? Itziar Otegi

Marrubi ustelezko **konpotarekin** jan. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Annettek, esku banatan, bi erretilu zekartzan, labean erretako patataz betea bata eta sagar-**konpotaz** bestea. Anjel Lertxundi

Gainean, makilgoxoak, sagar eta azukre karameluak, erroskilak, almendra lehorrak, gerezi-**konpota** eta bi pitxer edariz beteak zeuden agerian. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gerezi konpota (3)

---

## konprendiarazi ik **konpreniarazi**.

---

## konprenditu ik **konprenitu**.

---

## konpreniarazi, konpreniaraz, konpreniarazten *(orobat **konprendiarazi** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **konpreniarazi** agertzen da)* dio *ad* ulertarazi.

Colettek buruarekin halako keinu batzuk egin zizkidan **konpreniarazteko** amarekin ez zegoela ados. Daniel Landart

Emeki-emeki eta maltzurki mintzatuz, **konpreniarazi** nion hobe genuela ez segitzea. -Jaun horri **konpreniarazi** diot hemen ez dela nehor burges bat bezala hiltzen, baizik edozoin jende xoil bezala. Orro zenbaitek **konpreniarazten** digute ez dela irririk han, ez da mintzatu behar ez eta bururik itzuli. Daniel Landart

---

## konpreniezin *izond* ezin konprenituzkoa, ulertezina.

Gero, jakina, (haur) euskalduna gizon bihur liteke, zu gizondu zinen bezala, edo geldi liteke, nere kasuan bezala, gaur naizen gauza **konpreniezin** honetan iltzatua. Iñaki Segurola

Eskuak beldurrez eraman ditu euli-kaken antzeko zeinu **konpreniezin** horietaraino. Aingeru Epaltza

Gizona niri begira zegoen eta bere begi grisek mezu **konpreniezin** bat bidaltzen zidaten zimur-zurrunbilo izugarri batean zehar. Alberto Ladron Arana

Modu **konpreniezin** batez. Alberto Ladron Arana

Arroka gordin zati handiak daude gailurrik gorenetarik behera, denak haritz kasik **konpreniezinez** beteak. Koldo Izagirre

Saia gaitezen **konpreniezina** dirudiena ulertzen. Koldo Izagirre

---

## **konprenigaitz** *izond* ulergaitza.

Hitzez baino zeinu **konprenigaitzez** erantzun zion Josu R-ri, honek iritzia eskatu zionean. Pedro Alberdi

Zeruari beha gelditzen gara erantzun gabe, haizea gidatuko lukeen orbelen baten zain, askatasunaren mezu **konprenigaitz..** . Koldo Izagirre

**Konprenigaitza,** aldiz, nehork kamioiak ez aipatzea. Xabier Montoia

---

## **konprenigarri** *izond* ulergarria.

Hasperen handi egin eta nire ezpainek hainbat orenetako lehen soinu **konprenigarria** ahoskatu zuten: [...]. Aingeru Epaltza

**Konprenigarria,** bertzalde, zer opari uzten nion kontuan hartuta. Aingeru Epaltza

Harold-ek, berriz, bere anaia barkatzeko prest bai, baina ez lege berean Norvegiako errege arrotzaren erasoa, guztiz modu **konprenigarrian** jokatzen du. Juan Garzia

---

## **konprenitu**, konpreni, konprenitzen *(orobat* ***konprenditu*** *g.er. eta* ***kunprenitu*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***konprenitu*** *agertzen da)* du *ad* ulertu.

Ez dute ulertzen, ez bereizten; begiak itsu dituzte eta ezin ikusi, burua ere ilun eta ezin **konprenitu** . Elizen arteko biblia

Ixtorio huntan ere nork behar du zerbait **konprenitu** ? Herria

-Ederki **konprenitzen** zaitut. Aingeru Epaltza

Kontatzera natorkin, hik **konprenitzen** naun eta. Juan Garzia

-Ez dut batere **konprenitzen** zer diozun... Janbattitt Dirassar

Ez dut deusik **konprenitzen** . Marzel Etxehandi

Ume hark ez zuen deus ulertu; ezin **konprenitu** noski, nolatan arin zezakeen ilunak trenaren lasterra. Iñaki Segurola

Bankoek nola utzi duten ere holako saltsaren muntatzerat, hori ere ezin **konprenitua** da. Herria

Horra beste gauza bat ezin **konprenitua** eta ezin onetsia. Herria

Chirac presidentak etzuen **konprenitu** mezua, aski argia zena bizkitartean! ez **konprenitu** edo hor ere ez konprenituarena egin. Herria

Hitzak neurtuz mintzatu zen eta, polliki-polliki, haren xedeak **konprenitu** nituen. Daniel Landart

Erran zituen guztietarik, hitz bat baizik ez nion **konprenitu** . Aingeru Epaltza

Orain **konprenitzen** ditiat herritarren begirada zeharrak hitaz urguiluz ari nintzelarik. Itxaro Borda

Baina gero **konprenitu** nuen esaldi hartan bazegoela mezu pribatu bat. Koldo Izagirre

Berehala **konprenitu** nuen etxe berrira joan behar genuela. Daniel Landart

Makur **konprenitu** ez banion, magia istorio zirtzilen bat. Aingeru Epaltza

Eta bat-batean hobeki **konprenitu** nuen, zergatik, haurtzaroan bezala, inkontzienteki, ezpel-ondo txuriaren saihetsera joan nintzen. Daniel Landart

Bainan hori aise **konprenitzen** ahal den gauza da. Herria

**Konprenitzekoa** da haien harridura. Aingeru Epaltza

65 urtez goitikoetan elebidunak dira % 35, euskara hein bat **konprenitzen** dutenak % 6, erdaldun hutsak % 59. Herria

Nehork **konprenitzen** ez duen frantses hertsi batetan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **dena konprenitu** (3); **denek konprenitu** (4); **gaizki konprenitu** (3); **hobeki konprenitu** (3); **laster konprenitu** (5); **ongi konprenitu** (7); **ontsa konprenitu** (6); **orduan konprenitu** (5); **orduantxe konprenitu** (3); **untsa konprenitu** (3)
>
> **ezin konprenitua** (10); **ezin konprenitua da** (4)
>
> **hobeki konprenituko** (3); **sekula konprenituko** (3)
>
> **denek konprenitzeko** (3); **hobeki konprenitzeko** (5); **konprenitzeko gisan** (5)
>
> **aise konprenitzen** (6); **deus ere konprenitzen** (4); **deus konprenitzen** (6); **deusik konprenitzen** (3); **ederki konprenitzen** (3); **euskara konprenitzen** (8); **euskara konprenitzen dutenak** (3); **fitsik konprenitzen** (4); **frantsesa konprenitzen** (3); **hobeki konprenitzen** (6); **ongi konprenitzen** (6)

---

## **konprentsio** *(orobat* ***konprentsione****)* *iz* ulertzea, aditzea.

Nik eroapen handiz jasan omen nuen besarkada, gizasemeok emakumeen beroaldi edo flakezia horiek jasaten ditugun eran, **konprentsioa** erakutsiz edo, aski dela adierazteko bizkarrean edo sorbaldan kolpe laburrak joaz. Joxean Agirre

Ehun urte egon zara itxaroten, ea sozialistak Unamunok eskatzen zuen euskal identitatearen **konprentsio** pixka bat izatera noizbait heltzen ote ziren. Joxe Azurmendi

---

## konprentsione ik **konprentsio**.

---

## **konpresa** **1** *iz* kotoi, gaza edo ehun zatia, doblatuta gorputzaren guneren batean jartzen dena zauriak estaltzeko, odol jarioak geldiarazteko eta kidekoetarako.

Buruko minez zegoela esan duenean, pilula edo **konpresaren** bat gura duen galdetu diote: baina ez zuen gura ez bata ez bestea. Urtzi Urrutikoetxea

**2** zapi higienikoa.

Hilekoak irauten duen bitartean, emakumeek **konpresak** edo tanpoiak erabiltzen dituzte. Luis Elberdin

Beste emakumeren baten odol arrastoak ontzira botatako **konpresan** . Ziegan nagoela, etxeko gauzak dakarzkidate: arropa, **konpresak,** ogitartekoak, fruta, termo bat kafesne... Lourdes Oñederra

Guztiz biluzik zeundenean oinazpiak erakutsi behar zenizkion, ahoa ireki, mihia goratu, [...]... tanpaxa atera edo **konpresa** jaso. Jokin Urain

---

## **konpresio** **1** *iz* konprimitzea, hertsatzea.

Hezur batek [...] jasan ohi dituen indarrak bi motatakoak dira batez ere: **konpresioa** eta tentsioa. Irene Aldasoro

Koska batetik behera jauzi egitean, **konpresioa** izango dute zangoetako hezurrek. Irene Aldasoro

Marmola, beste harri askoren antzera, nahiko gogorra da **konpresiorako,** baina ahula tentsiorako. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Diseinu naturala bat dator berriz ere ingeniaritzaren printzipio antzetsuekin, handiagoak baitira tentsio- eta **konpresio** -indarrak habe baten erdialdean muturretan baino. Irene Aldasoro

Tentsio- eta **konpresio** -lerroak izterrezurraren buruan. Irene Aldasoro

konpresor ik **konpresore**.

**konpresore** *(orobat **konpresor**)* **1** *iz* presioa handituz gas baten bolumena murrizten duen makina edo tresna.

Automobilaren motorrari errendimendua atera nahi zaionean, **konpresore** bat ezartzen zaio; **konpresoreak** zilindroetara bideratzen du aire soberakina, eta lasterrago erretzen da hala erregaia. Irene Aldasoro

Hegazkinen motorraren antzekoa da turbina horren funtzionamendua: **konpresore** batek airea xurgatzen du, goi presioan trinkotu eta erregaiarekin nahastu egiten du. Berria - Euskal Herria

Temple belaunikatu egin zen; gero, ahuspez eta luze-luze eginik "V"-an sartu, **konpresorra** konektatu (minutu bat behar izan zuen zilindro nagusia betetzeko) eta kontrolei eragin zien. Xabier Olarra

**Konpresore** erraldoia piztua zuen baten batek Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

Mina, min itsusia, mailu-**konpresore** bat ta-ta-ta hezurren artean, garondo inguruak oinaze batean zapartatzen zizkidana. Aingeru Epaltza

konprimatu ik **konprimitu**.

**konprimitu**, konprimi, konprimitzen *(orobat **konprimatu**)* **1** du *ad* zerbait sakatu, hartzen duen bolumena murrizteko.

Balbulek zuloak ixten dituztenean, barruan dagoen airea eta ura **konprimatu** egiten dira. Santiago Iruretagoiena

Baldin eta zurezko habe bat [...] erdigunean kargatzen bada, haren azpiko gainazala tenkatu egingo da eta, beraz, tentsioan egongo; goikoa, berriz, **konprimitu** egingo da. Irene Aldasoro

Hartara, **konprimitu** egiten dira zainak (muskuluen borondatezko ekintzaz **konprimituko** liratekeen bezalaxe), eta horrek beste bultzada bat ematen dio odolari bihotzera igotzeko. Irene Aldasoro

Kolageno-zuntzak, hormigoi aurretenkatuan altzairuzko hagaxkak nola, hasieran tenkatzen dira, eta inguruko gai minerala, berriz, **konprimitu** . Irene Aldasoro

**2** irud/hed

Truke sareetan 6.000 liburu dituen **konprimituriko** fitxategi bat dago orain. Berria - Gaiak

Lehenbizi musika egokia lortu, eta ondoren **konprimitu,** inplosio baten bitartez. Fernando Morillo

**3** (era burutua izenondo gisa)

Diamante kosmiko hori, izar zahar baten bihotz **konprimitu** baten modukoa, kristaldutako ikatz zati bat da. Berria - Gaiak

Aire **konprimatua** eta metanol/etanol nahastean oinarritutako sistemak, esaterako, erabiltzen dira etxeko elektrogailu txikietan eta erregai-pila txikietan. Berria - Gaiak

Gaur egun Pexgol-ez eginiko hodiak jariakin asko garraiatzeko erabiltzen dira, aire **konprimatuko** sistemetan, berotze kolektiboko sistemetan, birfindegietan eta erregaiak garraiatzeko, ... Berria - Gaiak

**konprimitze** *iz* hartzen duen bolumena murrizteko, zerbait sakatzea.

1800. urtera itxaron behar dugu, John Daltonek gasen hozte eta **konprimitze** prozesuen berri topatu zuen arte. Pello Zabala

**konprobatu**, konproba, konprobatzen du *ad* egiaztatu; baieztatu.

Norbaitek begiratzen ote zien **konprobatu** nahi izan zuen, lotsagatik-edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Kurtek utzitako giltza sarrerakoa zela **konprobatu** eta kalera irten nintzen. Anjel Lertxundi

Gaixorik nagoen ala ez **konprobatzeko**. Bernardo Atxaga

Gelditu, eta ekintza misteriotsu horren subjektua Eskilo zela **konprobatu** nuen. Juan Garzia

Begi bat itxi eta bestearekin paretaren zuzentasuna **konprobatzen** ari zen. mutila hustu zenean, espermaren zaporea berak uste baino gozoagoa zela **konprobatu** zuen. Pablo Sastre

Fakturak **konprobatzen** jarraitu du. Eider Rodriguez

Efektu lasaigarria dauka, soziologikoki **konprobatuta** dago. Jon Alonso

**konprobazio** *iz* konprobatzea.

Bazekien, gainera, zer gertatu zitzaion, **konprobaziotan** ibili beharrik gabe. Karlos Linazasoro

Baina norena zen jakinda aurrena **konprobazioak** egin nahi izan dituztela. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Konprobazioak** eginik, Bennettek trapezioko artisten antzera, hegazkinera jauzi egin, ni igotzen ari nintzen bitartean azeleratu, eta han aireratzen da. Xabier Olarra

konprome ik **konforme**.

konpromesu ik **konpromiso**.

konprometatu ik **konprometitu**.

**konprometigarri** *izond* kinka larrian jar dezakeena.

Eta hori gutxi bailitzan, zu txosten **konprometigarri** baten kontuarekin zatoz, ustez Andoni kinka estuan jartzen duen txosten baten kontuarekin. bilatzen ari zena aurkitu zuen, ohar guztiz **konprometigarriak,** paper grisezko zorro soil batek baizik babesten ez zituenak. Migel Angel Mintegi

Giltzailua, Runeberg-en departamentuko giltza **konprometigarri** bezain alferrekoekin. Juan Garzia

Iruditu zitzaidan zehaztasun hori garrantzitsua zela, ez zezan pentsa eskaera **konprometigarriak** egiteko gai nintzenik. Ramon Saizarbitoria

**konprometitu**, konprometi, konprometitzen **1** da/du *ad* lotu; behartu; kinka larrian jarri.

Faxismoarekin ez zen **konprometitu,** eta ongi erreakzionatu zuen arraza-legeen erreaktibora. Juan Garzia

Estatu Batuak beren historiagatik **konprometituta** zeudela printzipio federala onartzera. Iñaki Mendiguren

Kausarekin **konprometituta** sentitzen ez ziren asko beren jarrera aldatzen hasi ziren komisaldegian jipoituak izan ondoren. Bernardo Atxaga

Gizarteari erakutsi behar diogu gu ere euskararekin **konprometituta** gaudela. Berria - Euskal Herria

Erabaki horiek hartzerakoan, ordea, bere hautu moral indibiduala gauzatzen duen ber, gizaki ororentzat on den moralarekin **konprometitzen** da. Askoren artean

Erregimen horretan, izan ere, banku zentrala diru-jaulkipen oro bermatzera **konprometitzen** da, dauzkan truke-erreserben gainean eta truke-tasa finko baten arabera. Koro Navarro

Nazioarteko kredituak herrialde zordunetako estatuak **konprometitzen** ditu. Koro Navarro

Oihukatu zidan neska polit guztiak **konprometituta** edo ezkonduta zeudela, eta problema polit guztiak ebatzita! Fernando Morillo

Teoria honek defendatzen du judizio moralek printzipio unibertsalekin **konprometitzen** gaituztela. Askoren artean

Akordio honek batzuk **konprometitzen** ditu, baina ez guztiak. Berria - Gaiak

**Konprometituko** ez ninduen zerbait esan behar eta, ez zitzaidala askorik gustatzen, ez nion besterik esan. Anjel Lertxundi

Ezkerrez eskribitu baitit, bere burua ez **konprometitzeko**. Patziku Perurena

Aurrera egin baitzuen bidean, beso zibilaren inolako laguntza etsigarrirekin **konprometitu** gabe. Iñaki Mendiguren

"Psssh" erantzun nion, ez nuelako nire iritzia **konprometitu** nahi. Jon Alonso

Herriaren alde **konprometituak**. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Beste zinemagile garaikide eta **konprometituen** lanaz, eta batez ere, engaiamendua esplizituki erakusten duten zinemagileez galdetzen zaionean [...]. Idazle **konprometitutzat** daukazu zure burua? Ana Urkiza

Intelektual **konprometitu** eta gogotsu haren bizitzako beste konstanteetako bat. Monika Etxebarria

Egin liteke literatura **konprometitua** gizakiarekin, eta egin liteke literatura **konprometitua** gatazka politikoarekin. Ana Urkiza

Partidu gaztea, jende gaztez osatua, **konprometitua,** eta modernoa gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **idazle konprometitua** (4); **konprometitua eta profesionala** (3); **literatura konprometitua** (3)
> **estatua konprometitzeko** (5); **konprometitzeko moduko pausorik** (3)

---

konpromezu ik **konpromiso**.

---

**konpromisario** **1** *iz* ordezkari hauteslea; ordezkaria.

Arratsaldearen hondarrean jakingo da 860 **konpromisarioek** zeini eman dioten botoa. Berria - Ekonomia

71 **konpromisariok** parte hartuko dutenez bozketan, gutxienez 36ren babesa lortu behar dute hautagaiek. Berria - Euskal Herria

Iñaki Galdos gaur egungo lehendakariak **konpromisarioen** gehiengoaren babesa izango duela ematen du. Berria - Euskal Herria

Kutxako bezeroen artetik, 860 **konpromisario** aukeratu zituzten, zozketa bidez, joan den urtarrilean. Berria - Ekonomia

GAko ordezkariek atzo egindako agerraldian jakinarazi zutenez, 120 **konpromisario** inguruk parte hartuko dute Nazio Biltzarrean.

**2** (izenondo gisa)

Zuzendari, jokalari, bazkide **konpromisario,** bazkide arrunt eta zale orok du berea filosofia hori. Berria - Kirola

---

**konpromiso** *(orobat **konpromesu** g.er., **konpromezu** g.er., **konpromisu** g.er. eta **konpromosio** g.er.)* **1** *iz* konprometitzen denak edo konprometitua gertatzen denak hartzen duen eginbidea.

Erakundeen eta gizarte eragileen arteko **konpromiso** eta lankidetza aktiboa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arlo guztietan, **konpromiso** handiko militante kualifikatu ugari ditugu Euskal Herrian. Txema Ramirez de la Piscina

**Konpromiso** kristauaren betebeharrak. Joseba Zulaika

**Konpromiso** erradikala nazioa eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

Eta urrats hori egiteko **konpromisoa** hartzeko prest direla. Edurne Elizondo

Identitatearen teoriak **konpromiso** bat gehiago hartzen du: aipatutako disposizioak azalduko lituzketen egoera edo propietate fisikoak identifikatu behar dira. Askoren artean

Udalbiltzak lau **konpromiso** hartu ditu: *Bai eskolak euskalduntzeari* kanpainarekiko atxikimendua adieraztea, kanpaina aurrera eramaten laguntzea eta sustatzea, [...]. Berria - Euskal Herria

1982ko abuztuan, Mexikok bere **konpromisoak** ez zituela beteko adierazi zuen, eta horrelaxe abiatu zen zorraren krisia. Koro Navarro

Baduk ordua **konpromisoak** hausteko. Anton Garikano

1982ko abuztuan, Mexikok ezin ziela bere **konpromisoei** aurre egin ofizialki adierazi zuenean […]. Koro Navarro

Ez nuen zure ezpainen gogo berezirik, eman behar nizun musuak askoz garrantzi handiagoa zuen, halere, **konpromiso** bat zen, itun bat. Monika Etxebarria

Absurdua, argi zegoelako tarteka paseatzera ateratzea onartzen bazuen, **konpromiso** hutsagatik zela; behartuta, Aranjuezen auskalo zergatik [...] Madril erakusteko eskaini zitzaidalako. Ramon Saizarbitoria

Bere **konpromiso** ugariek uzten dizkioten ordu libre guztiak. Anjel Lertxundi

"Agian bai" esatea iruditu zitzaidan **konpromiso** gutxieneko erantzuna. Ramon Saizarbitoria

Ortzegunean **konpromiso** bat zenuela erran zenidanean, ederki isildu zenuen ez zinela gauaz itzuliko. Aingeru Epaltza

Bautistari deitzea gizona **konpromiso** batean sartzea duk. Koro Navarro

**2** hautsi-mautsia.

Batzorde honetako kideon ustean, **konpromiso** baten bila ari gara, zuk lanpostuan jarraitzeko aukera emango ligukeen **konpromiso** baten bila, hain zuzen. Oskar Arana

Italiako komunismoaren eta demokristauen arteko **"konpromiso** historikoa" deitu izan zenaren aurre-asmatzailea izan zela. Koldo Biguri

**Konpromisozko** aterabidea izan da», azaldu zuen Justxenkok eta oposizioak Gobernuaren egoitzen eta Legebiltzarraren kontrako blokeoa, milaka pertsonak egina, altxatuko duela zehaztu zuen. Berria - Euskal Herria

**Konpromisozko** irtenbidea litzateke eskaileretatik jaistea Porta de Ferroraino. Jon Alonso

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ekonomia kapitalista modernoen baitan, botere-harremanak aspalditik daude gizarte- **konpromiso** instituzionalizatuen gisara kodetuak. Koro Navarro

Lehenago ere, normalizazioaren historia labur honetan, **konpromiso**-hartzeek ekarri gaituzte honetara. Berria - Euskal Herria

Zer **konpromiso** -modu esan nahi duzu? Oskar Arana

Baina badaukate **konpromiso** maila bat hartzea. Berria - Euskal Herria

Euskararekiko **Konpromiso** Eguna ospatu dute Barakaldon. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

EDSk ezarririko truke- **konpromisoen** ondorioz. Koro Navarro

Tokiko eragileek ezin zieten debaluazioak garestitutako finantza- **konpromisoei** aurre egin. Koro Navarro

Kohl kantzilerraren hauteskunde- **konpromisoak** zirela medio. Koro Navarro

Hark maitasunez eta era berean bizi- **konpromisoz** onartu eta mantendu zuen Ordena. Askoren artean

Hadass ezkon **konpromiso** bat izana zen dagoeneko. Koro Navarro

**5** ***kompromisozko*** *izlag*

Andreasek **konpromisozko** irribarre bat itxuratu zuen. Anjel Lertxundi

**Konpromisozko** esaldi bat, pentsa zitekeen, "lagunak izaten jarraituko dugula espero dut" formula ezaguna bezain huts eta higatua. Iban Zaldua

Ez hark ez nik ez genuen begiradari eusteko adorerik izan eta, **konpromisozko** bi hitz esan eta gero, Elsbethek burdinazko langa tzarra zabaldu zuen. Anjel Lertxundi

Eta batzuetan, kasu asko eta askotan, jasotzen dituzten txaloak **konpromisozkoak** izaten dira. Ana Urkiza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldeko konpromiso** (17); **aldeko konpromiso argia** (4); **egiteko konpromiso** (5); **eskubideen aldeko konpromiso** (7); **hartutako konpromiso** (14); **konpromiso aktiboa** (5); **konpromiso argia** (11); **konpromiso batzuk hartu** (4); **konpromiso berriak** (6); **konpromiso erradikala** (6); **konpromiso eske** (6); **konpromiso falta** (7); **konpromiso handia** (6); **konpromiso handiagoa** (17); **konpromiso handiko** (4); **konpromiso hartu** (12); **konpromiso hori hartu** (7); **konpromiso horiek betetzeko** (4); **konpromiso irmoa** (10); **konpromiso maila** (5); **konpromiso osoa** (7); **konpromiso pertsonala** (4); **konpromiso politikoa** (16); **konpromiso politikoak** (9); **konpromiso publikoa** (4); **konpromiso sendo** (5); **konpromiso sendoa** (17); **konpromiso sendoak** (6); **konpromiso zehatz** (7); **konpromiso zehatzak** (22); **konpromiso zehatzak hartzeko** (5)

**abiatzeko konpromisoa** (5); **agertzeko konpromisoa** (4); **akordioa lortzeko konpromisoa** (4); **aldatzeko konpromisoa** (4); **aldeko konpromisoa** (43); **aldeko konpromisoa berretsi** (4); **aldeko konpromisoa hartu** (6); **aritzeko konpromisoa** (12); **aritzeko konpromisoa hartu** (6); **ateratzeko konpromisoa** (5); **aztertzeko konpromisoa** (6); **aztertzeko konpromisoa hartu** (4); **babesteko konpromisoa** (6); **bake prozesuarekiko konpromisoa** (6); **bat egiteko konpromisoa** (6); **benetako konpromisoa** (4); **bermatzeko konpromisoa** (9); **berrantolatzeko konpromisoa** (4); **berri emateko konpromisoa** (4); **betetzeko konpromisoa** (13); **betetzeko konpromisoa hartu** (7); **bideratzeko konpromisoa** (4); **biltzeko konpromisoa** (6); **biltzeko konpromisoa hartu** (5); **bukatzeko konpromisoa** (5); **bultzatzeko konpromisoa** (15); **bultzatzeko konpromisoa hartu** (12); **egiteko konpromisoa** (79); **egiteko konpromisoa berretsi** (6); **egiteko konpromisoa hartu** (34); **egiteko konpromisoa hartzen** (5); **egiten jarraitzeko konpromisoa** (5); **elkarlanean aritzeko konpromisoa** (5); **emateko konpromisoa** (28); **emateko konpromisoa hartu** (13); **erabateko konpromisoa** (4); **erabiltzeko konpromisoa** (9); **erabiltzeko konpromisoa hartu** (4); **eraikitzeko konpromisoa** (6); **eraikitzeko konpromisoa hartu** (4); **erakundeen konpromisoa** (4); **eramateko konpromisoa** (4); **eratzeko konpromisoa** (5); **erosteko konpromisoa** (4); **errespetatzeko konpromisoa** (14); **errespetatzeko konpromisoa hartu** (8); **eskubideen aldeko konpromisoa** (4); **euskararekiko konpromisoa** (9); **euskararen aldeko konpromisoa** (6); **eusteko konpromisoa** (8); **ez egiteko konpromisoa** (6); **gainditzeko konpromisoa** (5); **garatzeko konpromisoa** (7); **garatzeko konpromisoa hartu** (5); **gauzatzeko konpromisoa** (6); **hartutako konpromisoa** (38); **hartutako konpromisoa bete** (9); **hartzeko konpromisoa** (21); **hartzeko konpromisoa hartu** (8); **herritarren konpromisoa** (11); **hobetzeko konpromisoa** (5); **hobetzeko konpromisoa hartu** (5); **inplikazioa eta konpromisoa** (4); **ixteko konpromisoa** (4); **izateko konpromisoa** (7); **izateko konpromisoa hartu** (4); **jarduteko konpromisoa** (4); **jarraitzeko konpromisoa** (31); **jarraitzeko konpromisoa berresten** (6); **jarraitzeko konpromisoa berretsi** (7); **jarraitzeko konpromisoa hartu** (7); **jartzeko konpromisoa** (18); **jartzeko konpromisoa hartu** (10); **jokatzeko konpromisoa** (6); **konponbidearen aldeko konpromisoa** (4); **konpontzeko konpromisoa** (7); **konpontzeko konpromisoa hartu** (4)

**konpromisoa adierazi** (11); **konpromisoa adierazten** (6); **konpromisoa agertu** (39); **konpromisoa azaldu** (6); **konpromisoa behar** (7); **konpromisoa beharrezkoa** (7); **konpromisoa beharrezkoa dela** (4); **konpromisoa berresten** (14); **konpromisoa berresten du** (7); **konpromisoa berretsi** (53); **konpromisoa berretsi zuen** (14); **konpromisoa bete** (14); **konpromisoa beteko** (6); **konpromisoa betetzeko** (6); **konpromisoa erakutsi** (7); **konpromisoa eskatu** (37); **konpromisoa eskatu zien** (6); **konpromisoa eskatzen** (11); **konpromisoa har** (8); **konpromisoa hartu** (376); **konpromisoa hartu behar** (16); **konpromisoa hartua** (9); **konpromisoa hartuko** (7); **konpromisoa hartuz** (6); **konpromisoa hartzea** (24); **konpromisoa hartzeko** (20); **konpromisoa hartzen** (54); **konpromisoa hartzera** (4); **konpromisoa hautsi** (4); **konpromisoa izan** (12); **konpromisoa jaso** (4); **konpromisoa lortu** (7); **konpromisoa lortzeko** (4); **konpromisoa sinatu** (4)

**laguntzeko konpromisoa** (8); **laguntzeko konpromisoa hartu** (4); **lan egiteko konpromisoa** (12); **lanean jarraitzeko konpromisoa** (10); **lortzeko konpromisoa** (19); **lortzeko konpromisoa hartu** (7); **mantentzeko konpromisoa** (7); **mantentzeko konpromisoa hartu** (4); **murrizteko konpromisoa** (5); **murrizteko konpromisoa hartu** (4); **onartzeko konpromisoa** (6); **osatzeko konpromisoa** (4); **osatzeko konpromisoa hartu** (4); **parte hartzeko konpromisoa** (8); **prozesuarekiko konpromisoa** (6); **saiatzeko konpromisoa** (4); **sendotzeko konpromisoa** (6); **sortzeko konpromisoa** (11); **sortzeko konpromisoa hartu** (8); **sustatzeko konpromisoa** (9); **uzteko konpromisoa** (12); **uzteko konpromisoa hartu** (7); **zabaltzeko konpromisoa** (5); **zabaltzeko konpromisoa hartu** (5); **zaintzeko konpromisoa** (4)

**aldeko konpromisoak** (16); **aldeko konpromisoak hartzeko** (7); **beharreko konpromisoak** (4); **benetako konpromisoak** (7); **beren konpromisoak betetzeko** (4); **euskararen aldeko konpromisoak** (6); **hartu beharreko konpromisoak** (4); **hartu zituen konpromisoak** (4); **hartutako konpromisoak** (48); **hartutako konpromisoak bete** (11); **hartutako konpromisoak betetzeko** (4); **hitzartutako konpromisoak** (8); **konpromisoak behar** (4); **konpromisoak bete** (14); **konpromisoak beteko** (9); **konpromisoak betetzea** (8); **konpromisoak betetzeko** (27); **konpromisoak betetzeko eskatu** (4); **konpromisoak betetzen** (17); **konpromisoak betetzen ari** (8); **konpromisoak ez betetzea** (4); **konpromisoak hartu** (31); **konpromisoak hartu behar** (14); **konpromisoak hartzea** (4); **konpromisoak hartzeko** (47); **konpromisoak hartzeko eskatu** (7); **konpromisoak hartzeko unea** (5); **konpromisoak hartzen** (12); **konpromisoak lortu** (4)

**konpromisoaren beharra** (5)

**egiteko konpromisoari** (4); **hartutako konpromisoari** (11); **konpromisoari eusten** (7)

**hartutako konpromisoei** (10)

**hartutako konpromisoei** (10)

**konpromisorik hartu** (10)

**konpromezua hartu** (4)

---

# konpromisodun *izond*

Emakume «argia eta **konpromisoduna»** zen Stein; emakumezkoen eskubideen aldeko borrokan, esaterako. Berria - Kultura

---

# konpromisu ik **konpromiso.**

---

# konpromosio ik **konpromiso.**

---

# konpultsatu **1** *iz* (jatorrizkoaz) erkatu; kopia egiaztatua egin.

Zenbat agiri **konpultsatzen** den araberakoa da, noski. Jon Alonso

**2** (era burutua izenondo gisa)

Txusporen ziurtagiri bat eta nire bisaren nahiz pasaportearen fotokopia **konpultsatuak** eskatu dizkidate Harkaitz Cano

---

# konpultsibo **1** *izond* konpultsioak eragina.

Jokalari **konpultsiboa** zen, eta horretan ez zegoen adierazteko beste modurik. Jon Alonso

Edale amorratua, edale **konpultsiboa,** edale solidarioa, edale errukiorra, edale zintzoa. Anjel Lertxundi

Kontsumo alienatu eta **konpultsiboa** eritasun baten sintoma da.Gutxi bezalako berritsu **konpultsiboa** izandakoa. Iñaki Heras

Irakurketa **konpultsiboak,** hausnartzaileak, zerbitzuzkoak, plazer hutsekoak, buru eragozgarriak, autoestimuaren gizengarriak, modaren agindura burutuak, urari goiti landuak, loguraren kontra eginak... Anjel Lertxundi

Gure aurrean den helizeari eraso **konpultsiboak** egiten. Xabier Olarra

Modu **konpultsiboan** aritu ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

Era **konpultsiboan,** erritmikoan, harmonikoan. Luis Elberdin

**2** ***obsesibo-konpultsibo***

Dislexiari, arreta-faltaren nahasmenduari, nahasmendu obsesibo- **konpultsiboei,** edo Touretteren sindromeari. Xabier Olarra

Joera horiek obsesibo **konpultsiboak** dira, eta neurotikoa barne gatazkatik babestea omen dute helburua. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **modu konpultsiboan** (3)

---

# konpultsiboki *adlag* era konpultsiboan, konpultsioz.

Tik konbultsiboak, besteren hitz edo egintzak nahi gabe imitatzea edo errepikatzea (ekolalia eta ekopraxia) eta madarikazio nahiz zantarkeriak gogoz bestera eta **konpultsiboki** botatzea (koprolalia). Xabier Olarra

---

# konpultsio **1** *iz* zerbait egiteko bulkada edo desira hertsagarria.

Tik bihurri eta **konpultsio** bitxiak nahiz portaera irri-eragingarriak dituen pertsona batek. Xabier Olarra

Freudek ere plazera bilatzearen gainetik ipini zuen errepikatzeko **konpultsio** obsesiboa. Bi txakur ekartzea ez ote zegoen, hein batez, loturik egongo simetrikotasunerako **konpultsioarekin**? Markos Zapiain

**2** (hitz elkartuetan)

Baina pedalei erritmikoki eragiteari utzi orduko, tik eta **konpultsio** sail batek hartu zuen mendean. · Freuden "errepikapen-**konpultsioa"**. Xabier Olarra

**3** ***konpultsioz*** *adlag*

Haizetakoa **konpultsioz** ukitzen zuen bat-batean bi hatz erakusleez. Xabier Olarra

---

# konputagailu *(139 agerraldi, 10 liburu eta 15 artikulutan; cf **ordenagailu** 932 agerraldi, 75 liburu eta 280 artikulutan)* **1** *iz* ordenagailua.

Lehenbiziko **konputagailu** pertsonala jarri zen salgai, "Altair 8800" izenekoa. Pello Salaburu

Kalkulu asko eta asko ezin daitezke egin **konputagailu** konplexurik gabe. Pello Salaburu

**Konputagailu** aurreratu baten ezaugarri asko ditu garunak. Irene Aldasoro

Aritmetika bitarra erabiltzen du **konputagailuak,** hau da, biko eskala bat. Irene Aldasoro

Bai, egin liteke **konputagailu** bat etengailuak besterik erabili gabe. Irene Aldasoro

Urte horretan asmatu zituzten **konputagailuetan** erabiltzen hasi ziren disko malguak. Pello Salaburu

[Garuna] pentsatzeko, hitz egiteko eta sormen artistikorako gaitasuna duen **konputagailua** da. Irene Aldasoro

Atomoaren, genearen eta **konputagailuaren** inguruan gertatu diren aurrerapenak. Pello Salaburu

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Konputagailu** programek kontrol-prozedura integratuak izaten dituzte makinaren funtzionamendu okerrak eragindako hutsak detektatzeko. Irene Aldasoro

Ez dago esan beharrik hegazkin eta misilek **konputagailu**-baliabide aurreratuak izaten dituztela. Irene Aldasoro

**Konputagailu**-diseinatzaileak ezin imita dezakeen trikimailua. Irene Aldasoro

Microsoftek mehatxu egin ote zion **konputagailu** egile bati Linux sistema operatiboa bultzatzeagatik. Berria - Ekonomia

Arnasketaren edo gorputzeko beste sistema batzuen **konputagailu**-ereduak. Irene Aldasoro

Alternatiba gisa, koadernoak, folioak, **konputagailu**-dokumentuak, etab. erabil ditzakezu. Askoren artean

**Konputagailu**-joko gehienak izugarri bortitzak direlako. **Konputagailu** multzo bat lanean ari zela datu horiek guztiak lerroan eta hurrenkeran jartzeko. Pello Salaburu

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kristalinotik zehar igarotako argiaren seinaleak erabiltzen ditu begiaren esposimetroak, garuneko ikusmen-**konputagailuak** eta erretinak kontrolaturik, baina ispilu eta prisma beharrik gabe. Irene Aldasoro

---

# konputatu, konputa, konputatzen du *ad* zenbatu, kalkulatu.

**Konputatu** nuen ordubete baino lehenago ez zela iritsiko nire jazarlea, Richard Madden. Juan Garzia

Hori gabe, besteren asmoak eta gogo-egoerak **"konputatu"** egin behar ditu, haiek algoritmiko eta esplizitu bihurtzen saiatu, zeren gainontzekook nortasunari atxikia baitugu ezagumen inplizitu hori. Xabier Olarra

---

# konputazio **1** *iz* konputatzea.

Land ohartzen zen **konputazio** edo korrelazio horrek arau finko eta formalak jarraitzen zituela. Xabier Olarra

Haren ustez, ordea, bazen tartean "gogo-jarduera edo **konputazio** subliminal"en bat. Xabier Olarra

**Konputazioaren** etika eta ardura sozialari buruzkoa. Askoren artean

Autista *savant* askok dohain mota bat baino gehiago izaten zutela: musika arlokoak, mnemoteknikoak, ikusmenezko edo grafikoak, **konputaziokoak,** etab. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pentsa daiteke giza gogamena bikain doitutako konputagailu sail bat dela [...] eta elkarrengandik bereizten gaituena zera dela: nola ditugun "abiatzeko" prestatuak **konputazio**-tresna horiek. Xabier Olarra

**Konputazio**-ahalmen izugarria. Xabier Olarra

**Konputazio** Zientzien munduak ez dio ihes egiten guztiz bortizkeriaren fenomeno honi. Berria - Gaiak

Bartzelonako Zientzia Parkeko Thera Hizkuntz eta **Konputazio** Zentroa. Berria - Harian

---

# konputazional *izond* konputazioarena, konputazioan oinarritua.

Esan bezala, funtzionalismoa eta gogoaren eredu **konputazionala** eskutik helduta dabiltza. Askoren artean

Soziologia **konputazionala** eta kartografia sinaptikoa izango dute mintzagai Biltzarrera batzen diren adituek. Berria - Kultura

---

**konputerizatu** *izond* zerbait konputagailuaren tratamendu edo kontrolpean jarri.

Hatz-kolpe batez isilarazi nuen Ximurraren erantzungailu automatikoko emakume ahots **konputerizatua**. Gabonetan etorri zen izeba eta robot **konputerizatu** bat ekarri zion Dudleyri. Aingeru Epaltza

---

**konputologo** *iz*

Horratx aristoteliko, eskolastiko, erretoriko, edo nahinolako **"konputologo** modernillo" batek sekula konprenituko ez dizun gauza. Patziku Perurena

---

konsagratu ik **kontsakratu**.

---

konsagrazio ik **kontsakrazio**.

---

konsakratu ik **kontsakratu**.

---

konseilu ik **kontseilu**.

---

konsekrazio ik **kontsakrazio**.

---

konsekuente ik **kontsekuente**.

---

konsentido ik **kontsentitu**.

---

konsentitze ik **kontsentitze**.

---

konserbadore ik **kontserbadore**.

---

konserbatorio ik **kontserbatorio**.

---

konserbatu ik **kontserbatu**.

---

konserbatzaile ik **kontserbatzaile**.

---

konsigna ik **kontsigna**.

---

konsignatzaile ik **kontsignatzaile**.

---

konsistente ik **kontsistente**.

---

konsortzio ik **kontsortzio**.

---

**konspiradore** *(2 agerraldi, liburu 1ean)* *iz* konspiratzailea.

Yusupovtarren Moikako jauregiaren sotoan zeuden Felix eta Grigori, eta goiko gelan gainerako **konspiradoreak:** Dimitri Paulovitx tsar izan nahi zuen Errusiako Duke Handia, Lazavert doktorea, Vladimir Purishkievitx eskuin muturreko politiko antisemita eta Sukhotin tenientea. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Konspiradoreek** larru hura jaso zuten, odolez zikindu ez zedin, eta ilunpean utzi zuten Grigori -hilik zegoelakoan-, gorpuarekin zer egin eztabaidatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**konspiratu,** konspira, konspiratzen du *ad* norbaiten, eta bereziki aginteearen kontra aritzeko isilpean batu.

Nor da **konspiratzen** duena? Berria - Kultura

Erregeak eta nobleek ez zuten onartu nahi girondinoek proposatzen zuten monarkia konstituzionala, are gutxiago jakobinoek aldarrikatzen zuten errepublika, eta **konspiratzen** hasi ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Enperadoreek mundu itxietan, sektetan, erlijiozkoetan zein bestelakoetan, antolatzen diren taldeak jazarri egiten dituzte, euren aurka **konspiratuko** ote duten beldurrez. Xabier Amuriza

Irlanda iparraldeko Polizia gorputzak loialistekin **konspiratu** izan du iraganean. Berria - Harian

Besteek bere kontra **konspira** dezaketela. Juan Martin Elexpuru

-Don Carlosen alde borroka egitea ez duk **"konspiratzea"**. Txillardegi

Mendebaldeko klase ertainaren aurkako gorroto ezkutua sortzeko **konspiratzen** zuen Unibertso osoa hasten da **konspiratzen** zure desira bete dadin. Iñaki Mendiguren

---

# konspiratzaile

*(31 agerraldi, 14 liburu eta 2 artikulutan)* **1** *iz* konspiratzen duen pertsona.

Hitler hil eta buruzagitza nazionalsozialista agintetik kendu nahi zuten **konspiratzaileek**. Berria - Mundua

Salatzailea **konspiratzailea** bezain erruduna dela pentsatzen dutelako. Juan Martin Elexpuru

Errepikatzeko eskatu nion, baina, argitasunak eman beharrean, **konspiratzaile** baten moduan mintzatu zitzaidan: [...]. Anjel Lertxundi

Hobe zen aita eta ama elkarrekin zeudenean esatea bakoitzari bereizita esatea baino, **konspiratzaile** baten moduan. Jon Muñoz

**Konspiratzaile** bat iruditzen zitzaidan orduan, **konspiratzaile** barregarri bat. Anjel Lertxundi

1824ko abuztuaren 2an **konspiratzaileen** bilera izan zen. Juan Garzia

**2** (izenondo gisa)

Ilunpe **konspiratzaile** halako bat sortu da. Anjel Lertxundi

---

# konspiratzaileburu

*(corpusean **konspiratzaile-buru** soilik)* *iz* konspiratzaileen burua.

Kilpatrick konspiratzailea izan zen, isilpeko **konspiratzaile**-buru loriosa. Juan Garzia

---

# konspirazio

**1** *iz* konspiratzea.

**Konspirazioa** Luis XI.aren aurka baino gehiago, Richelieu kardinalaren aurka zegoen zuzendua. Juan Martin Elexpuru

Erregearen anaiak, **konspirazioaren** bultzatzaile nagusiak, ez zuen erresuma saltzeko asmo izpirik. Kontua da betidanik liluratu nautela **konspirazioen** inguruko teoriek. Juan Martin Elexpuru

Frantzian, ostera, **konspirazio** baten berri jakin eta salatzen ez duenak heriotza-zigorra du. Juan Martin Elexpuru

Kaio Kalpurnio Pisonek antolatutako **konspirazioan** esku hartu izanaz akusaturik. Imanol Zurutuza

Itxurarik gabeko **konspirazio** asko piztu izan ditu beti alkoholak. Rafa Egiguren

**Konspirazioa** garatzen hasi zenez geroztik, ez zen inora joaten bere pistola sakelan eraman gabe. Karlos Zabala

**"Konspirazio** judu-masoniko" famatua. Joxe Azurmendi

Ermuko Foroak Ibarretxe lehendakariaren kontrako kereila jarriko du, «errebolta **egiteko** konspirazioa» egitea egotzita. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehen **konspirazio** bilkura hartako hizpidea. **Konspirazio**-sareko kide galduren baten bila zebilen. Anjel Lertxundi

Bitxikeriazale eta **konspirazio**-teorien maitaleentzat. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Grande-Marlaskak ETAko kide izatea eta hilketa **konspirazioa** leporatuko dizkio. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> egiteko konspirazioa (3)
>
> konspirazioaren teoriarako argudio (3)

---

# konspirazioburu

*iz* konspirazioaren burua.

Nik uste baino motibo gehiago zituen barkamena eskatzeko: nitaz gaizki pentsatu zuelako, liburuetako oharrak konplot baterako deitzat hartu zituelako eta **konspirazioburua** egiten ninduelako. Anjel Lertxundi

---

# konspiraziogune

*(corpusean **konspirazio gune** soilik)* *iz* konspiratzen den gunea.

Gaubeila, gazteak nahi ez badu ere, mugimendu peronistaren **konspirazio**-gune bihurtuko da: presidentearen gorpua bahitu eta gaztearen aitaren hilotzaren ordez aldatuko dute militar erreakzionarioen aurrean diskurtso peronista ezarriko dutelakoan. Berria - Kultura

---

# konspiraziokide

*iz* konspirazio bateko kidea.

Harrezkero egunak eta asteak pasatu dira, eta ez ditut Jeanne Undurein eta Michel de Reyau **konspiraziokideei** edo Dartaieten eta nire arteko hausturaren arrazoiei buruzko galderak beste deus entzun. Anjel Lertxundi

---

# konspirazionismo

*iz* historiaren bilakaeran konspirazioek izen duten garrantzia azpimarratzen duten teoria.

Ezkutatzen zaizkigun piezak bilatuko ditu **konspirazionismoak**, edo akastunak aurkituko. **Konspirazionismoa** erosoago sentitzen da, jakina, esamesa gisa zabaltzen denean. Iban Zaldua

---

# konspirazionista

**1** *iz* konspirazionismoaren aldeko pertsona.

Gainera, egilea bera izan daiteke konplotaren partaide (eta baita argitaletxea ere, nola ez: **konspirazionistentzat** susmagarritasun iturri agortezin dira aldizkariak, egunkariak, telebistak, irratiak eta komunikabideak oro). Iban Zaldua

**2** *izond* konspirazioarena, konspirazioari dagokiona.

New Yorkeko Dorre Bikietako atentatu latzak oihartzun **konspirazionista** saihestezinak sorrarazi ditu. Iban Zaldua

---

# konspiraziozale

*(orobat **konspirazio zale**)* *iz* konspirazioen zale den pertsona.

**Konspiraziozaleak,** hala ere, beti topatuko du lasai (hots, artega) utziko duen irtenbideren bat. Inizial batzuen babesean -zuhurtzia ez da inoiz nahikoa **konspiraziozalearentzat-** honako hau idatzi zuen norbaitek *Hika* aldizkariko 123/124 zenbakian, "Eskutitzak" sailean hain zuzen: [...]. Iban Zaldua

Alde horretatik, **konspirazio** zaleek [...] bazka ederragoa aurkituko dute Coppolaren *Godfather* handiaren hirugarren atal bikainean. Berria - Kultura

---

## **konstante** 1 *izond* jarraitua.

Heriotzaren presentzia **konstante** bat. Imanol Zurutuza

-Bizitzea hanka sartze **konstante** bat duk, motel! Pako Aristi

Pertzepzioen desberdintasunak gorabehera, **konstanteak** atzematen ditugu guk. Josu Zabaleta

«Zaintza **konstantean»** segitzen dute. Berria - Gaiak

Sostengurik **konstanteena**. Jokin Urain

Kontzeptualki artistak euskal estiloa azaldu nahi zuen, bi arima edo erritmo dituena: bata irregularra eta jarraikortasunik gabekoa; erregularra eta **konstantea** bestea. Berria - Kultura

Egunero pixka bat eskaintzea, behin ere ez; ez naiz **batere** konstantea. Berria - Kultura

Nahiz eta izatez pertsona **konstantea** eta koherentea izan [...]. Ana Urkiza

**2** beti-batekoa, aldaketarik gabea.

Berritze-prozesu horren erritmoa, harrigarria badirudi ere, ez da **konstantea**. Irene Aldasoro

Gorputzaren barne-organoak tenperatura **konstantean** mantentzearekin. Irene Aldasoro

Landareen azterketa sistematikoen kasuan hautemate eta hizkuntza kode zorrotza erabiltzen da eskala **konstante** baten arabera. etekinak **konstanteak** edo beheranzkoak zirelako hipotesian. Xabier Arregi

Baina hazkunde horren hazkundea, ulertzen didak, **konstantea** duk gainera: berdin 2 duk. Petrolio gordinaren kontsumoak BPGarekin duen erlazioa, prezio **konstanteetan**. Koro Navarro

**3** (adizlagun gisa)

**Konstante** dirautenak ez dira objektuak izango, ezta eurek taxutzen duten eremua ere, **konstante** dirautenak ez dira, ezta ere, euren azaleratze puntuak edo ezaugarritzeko moduak izango; **konstante** dirauena, haatik, ahalegin bat izango da azalerak harremanean jartzeko. Xabier Arregi

**4** (testuinguru teknikoagoetan)

Predikatuen logikan bagaude, terminoak **konstanteak** edo aldagaiak izango dira bakarrik. Askoren artean

• **5** *iz* denboran zehar era iraunkorrean errepikatzen den gauza.

Haren aldeko oroitzapena **konstante** bat izan zen ibilbide osoan zehar.

Identitatearen problema **konstante** bat da Agota Kristofen nobeletan. Eskarne Mujika

Badira gizonaren eta irudiaren arteko harremanetan, oro har, zenbait **konstante,** historian zehar eta are kulturen artean ere iraunkor direnak. Josu Zabaleta

Nire obran **konstante** argi batzuk daudela uste dut. Ana Urkiza

Nire literaturan bi **konstante** nagusi daude. Ana Urkiza

Sharonen **konstante** bitalek odol presioa izan ezik egonkor irauten dutela jakinarazi zuen mediku buruak. Berria - Mundua

**6** (testuinguru teknikoagoetan)

Konektatzaileek eta kuantifikatzaileek QLren **konstante** logikoen multzoa osatzen dute. Askoren artean

**Konstante** logikoen esanahia behin betiko finkatuta dago logika bakoitzarentzat. Askoren artean

Tipoa zehazten diguten sinboloak hizkuntzaren **konstante** ez-logikoak dira. t **konstante** bat bada, hau da, t = ai bada, s*(t) = J(ai) = ai, alegia **konstantearen** balioa haren denotazioa edo erreferentzia da. Askoren artean

**7** (hitz elkartuetan)

QLren azpihizkuntza logiko desberdinak kontsidera ditzakegu horretarako alfabetoan azaltzen diren **konstante**-sinbolo, funtzio-sinbolo eta predikatu-sinboloen azpimultzoak zehaztuz. Askoren artean

**Konstante**-sinboloak terminoak dira. Askoren artean

· Denbora tarte horretan, haurrak bizi-**konstanteak** «egonkor» mantendu zituela jakinarazi zien Riverak kazetariei. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konstante ez logikoen** (3)
> **idazle jainkotuen konstanteak** (3)

---

## **konstantzia** 1 *iz* beti-batekotasuna, aldaketarik eza.

Kolorearen **konstantzia,** berarentzat, pertzepzioaren **konstantzia** lortzeko dugun moduaren kasu berezi bat zen. Xabier Olarra

Bai kontzientzia formen berberatasuna, bai mentalitateen **konstantzia** edo egitasmo baten errepikapena. Xabier Arregi

**2** jarraikitasuna.

Hor ere **konstantzia** behar da, ordutegia askea da, baina esfortzua eta jarraipena egin behar da. Berria - Euskal Herria

---

## **konstatatibo** *izond* konstatatzen duena.

Austinen hasiera bateko esaldi **konstatatibo** eta performatiboen arteko bereizketa esaldien indar eta edukiaren arteko bereizketa bihurtu zen. Askoren artean

---

## **konstatatu**, konstata, kontatatzen 1 du *ad* egiaztatu.

Historikoki **konstataturiko** ebidentzia. Piarres Xarriton

"Esentziazko atributu bat" **konstatatu** gabe. Xabier Kintana

**2** oharrarazi.

Eta, bestalde, zer sintoma **konstatatuko** zenituzke zuk, jauna? Anton Garikano

Ez bedi ulertu kinka hau negatibotzat daukadanik: horrelaxe dela **konstatatu** bakarrik, egin nahi dut. Joxe Azurmendi

---

## **konstatazio** *iz* konstatatzea.

**Konstatazio** hutsa da eta ez zen ezer apartekoa: langile-semeak ziren nire lagun eta ikaskide gehienak ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Aita ez zen kondenaren **konstatazio** soil horretatik ateratzen. Anjel Lertxundi

**Konstatazio** batetik hasten da, eta **konstatazio** soila ja esplikazio bat omen da. Joxe Azurmendi

**Konstatazio** bakarra nuen, bakarra baina aratza eta garbia: maitemindua nengoen. Joan Mari Irigoien

Momentu haietan gertatutakoaren **konstatazioa** besterik ez zen izan. Berria - Euskal Herria

Horren **konstatazioa** haurdun nengoela izan nuen. Ana Urkiza

---

## konstelazio 1 *iz* itxuraz irudi jakin bat osatzen duen izar multzoa.

Zeruko izar eta **konstelazioek** ez dute gehiago argirik emango. Elizen arteko biblia

Berak sortzen ditu **konstelazio** eta zeruko izar-multzo guztiak. Elizen arteko biblia

Izarrei beha zaude, Hartz Handia eta gainerako **konstelazioak** osatzen dituztenei. Xabier Montoia

Zodiakoko **konstelazioei** so. Joan Mari Irigoien

CoKu Tau4 izarraren orbitan dago planeta hori, Taurus **konstelazioan;** Lur planetatik 420 argi-urtera. Berria - Gaiak

**Konstelazioen** harmonia musikalen arabera. Santiago Iruretagoiena

Hegoaldeko **konstelazioen** kokaera. Santiago Iruretagoiena

**2** irud/hed

Gaitzeko borta, zeruraino doan borta, zeruko atea, zura itzez izarreztatua, 585 itze kasko beltz, mugimendu gabeko **konstelazioa,** zur gorrian landatua. Michel Oronoz

Garai hartako Grezia ez zen inperio bat, hiri-**konstelazio** bat baizik, estatu-hiri independentez osatua, alegia. Jon Muñoz

Hau dela eta, ikertu behar da diskurtso horri dagokion **konstelazio** diskurtsiboaren ekonomia. Xabier Arregi

Nola hartutako erabakiak zerikusia duen diskurtso ekonomikoa agertzen den **konstelazio** orokorrarekin. Xabier Arregi

Gau jendetsuen **konstelazioko** tabernetan komuna da hitz toki lasai bakarra. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> taurus konstelazioan (3)

---

## konsternazio *iz* atsekabe sakona.

**Konsternazioa** eta samin sakon bat sentitzen ditut gertaera tragiko honengatik Jokin Urain

---

## konstituiente *izond* eratzailea.

Oraingo ideia da prozesuari aurre egiten utzi nahi ez dizkioten gizarte-taldeak dinamika **konstituiente** batean sartzea. Jon Alonso

---

## konstitutibo *izond* osatzailea, osagarria.

Bere lana behar bezala bete ez duen langile inkonpetenteari esleitzea istripuaren ardura, eta ez sistemaren (giza osagaiak barne) konplexutasun **konstitutiboari**. Berria - Gaiak

Searle-k bitan banatzen ditu hizketa-ekintzen erregelak: erregela **konstitutiboak** hizketa-ekintza hori egiteko beharrezkoak dira, erregela horiek betetzen ez badira ez da hizketa-ekintza hori egiten, alegia. Askoren artean

---

## konstituzio *(orobat **konztituzio** g.er.)* 1 *iz* eraketa.

Inor ezin da baztertu bere **konstituzio** genetikoa dela eta. Berria - Gaiak

Konstruktibismoa sozialak teknologiaren **konstituzio** sozialaz dihardu, eta hori prozesu plurala dela erakustea da horren helburuetariko bat. Askoren artean

Teknologien **konstituzio** soziokulturala aztertzea da haien helburua. Askoren artean

Horrek guztiak eragin handia izan du Europako erregulazio publikoaren **konstituzioan**. Askoren artean

**2** estatu bateko lege nagusia. ik **lege 15.**

Horra beraz, **Konstituzio** berria deputatuek apailatua. Herria

Europa batuaren **konstituzio** edo lege-nagusia behar dea onartu ala ez? Herria

Urtearen amaieran, abenduaren 15ean, jadanik idatzita zegoen **Konstituzio** berria onartzeko erreferenduma izan zen. Pako Aristi

Euskal Herria independentea izango balitz eta bere **konstituzioa** izango balu, konstituziozalea naizela esango nuke. Berria - Euskal Herria

Espainiako **Konstituzioaren** 45. artikuluak dioenez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Guk ez dugu estatutu berri bat nahi, desio duguna Kataluniako **konstituzio** bat da. Berria - Harian

**Konstituzio** modernoek babesten duten adierazpen askatasuna. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Karlomagnoren **konstituzioa** lonbardiarren legean txertatua dago. Iñaki Iñurrieta

Oton II.aren **konstituzioaren** sarreran. Iñaki Iñurrieta

Oraindik orain, Alemanian **Konstituzioa** aldatu dute, animalien eskubideak onartuak izan daitezen. Gotzon Garate

Espainiako **Konstituzioaren** bozketa-emaitzak. Pello Salaburu

**Konstituzio** demokratikoa zuen Tarentok, eta zazpi aldiz hautatu zuten Arkitas estratega. Jon Muñoz

Nola erlijioaren legeek **konstituzio** politikoaren eragozpenak zuzentzen dituzten. Iñaki Iñurrieta

Auzitegi Konstituzionalak Ukrainako **Konstituzioaren** aurkakotzat jo du etxean botoa emateko aukerak mugatzen zituen zuzenketa. Berria - Mundua

Sexu bereko bikotekideak ezkontzea **Konstituzioaren** kontrakoa den ala ez erabaki bitartean. Berria - Gaiak

Sexu bereko bikoteen arteko ezkontzak galarazteko, **Konstituzioari** zuzenketa bat egitea onartu zuen herenegun Massachusettseko Legebiltzarrak. Berria - Harian

Euskal selekzioen inguruan **Konstituzioz** kanpoko afera konpondu gabe dagoela gogoratu zuten. Berria - Kirola

**3** Aita santuak Eliza osoarentzat emaniko legea; erlijiozko erakunde bat gobernatzeko araudia edo estatutua.

"Patriaren eguna" ospatzeko bezperan, elizgizonen **Konstituzio** Zibila onetsia izan zen, Aita sainduak Frantziako elizaren gainean zuen buruzagitza kenduz. Elena Touyarou

Hortik atera baitzuten Apezen **Konstituzio** Zibila, edo *Constitution Civile du Clergé* delako araudia. Piarres Xarriton

Hugolino kardinalak **konstituzioak** (Hugolinoren Erregela) ematen dizkie San Damiango klaratarrei. Askoren artean

**Konstituziopeko** erregetza nahi zuen legelari honek. Andres Urrutia

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **konstituzional.**

**Konstituzio** Epaitegiaren erabakia jakitean. Berria - Mundua

**Konstituzio** Auzitegiak bertan behera utzi zuen Berlusconi babesten zuen Immunitate Legea. Berria - Mundua

Frantziako **Konstituzio** Kontseiluak zaintza eta atxilotze neurriak gogortzen dituen legea onartu du Europako Batasuneko **Konstituzio** proiektuaz gaur Frantzian egingo den erreferendumaren emaitzen zain. Berria - Euskal Herria

Hitzartu duten **konstituzio** zirriborroak klausula bat du autodeterminazio eskubidearen inguruan. Berria - Mundua

**Konstituzio** proposamena hitzartu dute bi aldeek. Berria - Mundua

Batzordeak **konstituzio** erreforma sorta bat iradokitzeko asmoa du. Berria - Mundua

Lan talde bakoitzak **Konstituzio** testuaren 160 artikuluak aztertu eta proposamenak gehitu behar zituzten. Berria - Mundua

**Konstituzio** krisia gainditu, eta Legebiltzarrak erabaki zuen presidentea herritarrek zuzenean aukeratzea. Berria - Mundua

Hamid Karzai Afganistango behin-behineko presidenteak **Konstituzio** Batzordea eratu zuen. Berria - Mundua

1789-ko agorrilaren 26an, iraultza handiaren denboran, **Konstituzio** Elkarteak finkatu ditu ofizialki bere lana gidatuko dituen legeak. Herria

Europako **Konstituzio** Itunaren galdeketaren aurrean. Iñigo Aranbarri

Abenduaren 14tik ari ziren eskualde guztietako 502 ordezkariak **Konstituzio** iruzkina onartu nahian. Berria - Mundua

XIX. mendea, bere **konstituzio**-aldaketa etengabeekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Kristau Eliza Katolikoak Erromatar Inperiotik hartu zuen hiritartasun bikoitzaren ideia nagusia, **konstituzio**-tresna honek konpondua zuelarik arazo hau: nola baliatu erkidego ekumenikoaren kide izatearen abantailez, leialtasun mugatuagoak zapuztu edo tokiko sustraiak moztu beharrik gabe. Iñaki Mendiguren

Baina gero harremanmota guztiak ugaldu egiten dira **konstituzio**-mota anitz eratu bitartean. Askoren artean

David Lammy **Konstituzio** Gaietarako estatu idazkariak. Berria - Gaiak

*ik* konstituziogai.

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizarte-**konstituzio** ezagun guztiak bi mutur teoriko horien artean kokatzen dira nonbait. Iñaki Mendiguren

**6** ***konstituzio-kontrakotasun*** *(orobat* ***konstitutziokontrakotasun****)* konstituzioaren kontrakoa izateko tasuna.

Era berean, PSE-EEk **Konstituzio**-kontrakotasuneko helegitea bertan behera uztea «borondate oneko urratsa» izango litzatekeela gogoratu zuen. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**espainiako konstituzio** (4); **europako batasuneko konstituzio** (6); **europako konstituzio** (58); **europako konstituzio itunak** (5); **europako konstituzio itunaren** (7); **europako konstituzio itunari** (18); **europaren konstituzio** (5); **frantziako konstituzio** (4); **konstituzio auzitegiak** (13); **konstituzio berri** (15); **konstituzio berri bat** (9); **konstituzio berria** (28); **konstituzio berria onartu** (7); **konstituzio berriak** (12); **konstituzio berrian** (9); **konstituzio berriaren** (6); **konstituzio erreforma** (4); **konstituzio ituna** (7); **konstituzio itunak** (14); **konstituzio itunaren** (12); **konstituzio itunari** (31); **konstituzio itunari buruzko** (11); **konstituzio itunari ezezkoa** (5); **konstituzio kontseiluak** (4); **konstituzio plazako** (4); **konstituzio plazan** (22); **konstituzio plazara** (4); **konstituzio proiektua** (11); **konstituzio proposamenak** (4); **konstituzio zirriborroa** (4); **konstituzio zirriborroak** (4); **konstituzio zirriborroaren** (6)

**behin behineko konstituzioa** (6); **behin betiko konstituzioa** (4); **benetako konstituzioa** (5); **espainiako konstituzioa** (98); **europako batasuneko konstituzioa** (4); **europako konstituzioa** (155); **europako konstituzioa onartzea** (5); **frantziako konstituzioa** (6); **konstituzioa aldatu** (32); **konstituzioa aldatuko** (5); **konstituzioa aldatzea** (13); **konstituzioa aldatzeko** (24); **konstituzioa berresteko** (4); **konstituzioa berretsi** (6); **konstituzioa errespetatuz** (8); **konstituzioa errespetatzen** (5); **konstituzioa eta estatutua** (16); **konstituzioa hitzartzeko** (11); **konstituzioa izan** (4); **konstituzioa izango** (7); **konstituzioa onartu** (17); **konstituzioa onartua** (4); **konstituzioa onartzea** (10); **konstituzioa onartzeko** (8); **konstituzioa onartzen** (4); **konstituzioa osatzeko** (4); **konstituzioa sinatu** (7); **konstituzioa urratzen** (15); **mexikoko konstituzioa** (6)

**aebetako konstituzioak** (4); **behin behineko konstituzioak** (4); **espainiako konstituzioak** (59); **espainiako konstituzioak jasotzen** (4); **europako konstituzioak** (34); **konstituzioak dio** (5); **konstituzioak ezarritako** (4); **konstituzioak ezartzen** (4); **konstituzioak jasotzen** (7); **konstituzioak jasotzen dituen** (4); **konstituzioak onartzen** (6)

**espainiako konstituzioan** (31); **europako konstituzioan** (26); **konstituzioan jaso** (4)

**espainiako konstituzioarekin** (10); **europako konstituzioarekin** (6)

**ebko konstituzioaren** (4); **espainiako konstituzioaren** (146); **espainiako konstituzioaren aurka** (4); **espainiako konstituzioaren aurkakoa** (7); **espainiako konstituzioaren erreforma** (5); **espainiako konstituzioaren erreformak** (4); **espainiako konstituzioaren eta** (8); **espainiako konstituzioaren kontrakoa** (10); **espainiako konstituzioaren mugak** (6); **espainiar konstituzioaren** (4); **europako batasuneko konstituzioaren** (4); **europako konstituzioaren** (136); **europako konstituzioaren alde** (10); **europako konstituzioaren aldeko** (8); **europako konstituzioaren aurka** (12); **europako konstituzioaren aurkako** (7); **europako konstituzioaren kontra** (5); **europako konstituzioaren kontrako** (5); **europako konstituzioaren proiektua** (4); **frantziako konstituzioaren** (10)

**konstituzioaren aldaketa** (7); **konstituzioaren alde** (26); **konstituzioaren aldeko** (21); **konstituzioaren aldeko kanpaina** (6); **konstituzioaren arabera** (23); **konstituzioaren atal** (4); **konstituzioaren aurka** (30); **konstituzioaren aurkako** (21); **konstituzioaren aurkako jarrera** (4); **konstituzioaren aurkakoa** (31); **konstituzioaren aurkakoak** (5); **konstituzioaren aurkakotzat jo** (7); **konstituzioaren barruan** (6); **konstituzioaren defentsa** (5); **konstituzioaren edukia** (4); **konstituzioaren eguna** (4); **konstituzioaren egunean** (5); **konstituzioaren erreferendumean** (6); **konstituzioaren erreforma** (23); **konstituzioaren erreformak** (7); **konstituzioaren erreformaren** (5); **konstituzioaren erreformaz** (4); **konstituzioaren esparruaren** (4); **konstituzioaren esparruaren barruan** (4); **konstituzioaren eta estatutuaren** (7); **konstituzioaren eta estatutuen** (7); **konstituzioaren ezkutuko erreforma** (4); **konstituzioaren gaineko akordioa** (4); **konstituzioaren irakurketa** (4); **konstituzioaren kontra** (13); **konstituzioaren kontrako** (14); **konstituzioaren kontrakoa** (25); **konstituzioaren kontrakoak** (8); **konstituzioaren laugarren xedapen** (10); **konstituzioaren mugak** (10); **konstituzioaren mugak gainditzen** (4); **konstituzioaren mugen** (5); **konstituzioaren mugen barruan** (5); **konstituzioaren proiektua** (4); **konstituzioaren testua** (12); **konstituzioaren testuan** (4); **konstituzioaren zaindarien** (30); **konstituzioaren zaindarien kontseiluak** (17); **konstituzioaren zaindarien kontseiluari** (6); **konstituzioaren zina** (4); **mexikoko konstituzioaren** (6)

**ebko konstituzioari** (4); **espainiako konstituzioari** (14); **europako konstituzioari** (94); **konstituzioari baiezkoa emateko** (4); **konstituzioari buruzko erreferenduma** (8); **konstituzioari buruzko erreferendumean** (10); **konstituzioari buruzko eztabaida** (4); **konstituzioari ezetz esateko** (8); **konstituzioari ezetza eman** (4)

**espainiako konstituzioaz** (4); **europako konstituzioaz** (18)

**espainiako konstituzioko** (8); **konstituzioko zaindarien kontseiluak** (4)

---

# konstituziogai *(orobat* ***konstituzio(-)gai****)* *iz* konstituzio proiektua.

Kontua da, Irakeko Kurdistan autonomoa hiru probintziaz osatuta dagoela eta, beraz, kurduek ahala baluketetela euren autonomia murriztuko lukeen **Konstituziogai** bat galarazteko. Berria - Mundua

Bainan EZA eskatu du finki erreferenduman ezartzen den lehen **konstituzio**-gai honi. Herria

Eta populuak, **Konstituzio** gaiaren berri errotik baitzakien, goraki eza eman zion. Herria

---

# konstituziogile *izond* konstituzio bat idazten edo erreformatzen duena.

Espainiako Kongresuko Batzorde **Konstituziogilearen** lehen bileran. Berria - Euskal Herria

Ez delako Konstituzioa, estatuen arteko beste tratatu bat gehiago baizik; ez dagoelako erakunde **konstituziogilerik**. Ez da asanblea **konstituziogile** bat aukeratu; herriaren kontzeptua borradoretik desagertu da.

Espainiako Konstituzioa landu eta onartu zuten Gorte **Konstituziogileetako** kide izan zen. Berria - Euskal Herria

Itun **konstituziogilea** aldarazten duen bide soberanista. Berria - Euskal Herria

Eraikuntza europarraren egungo eredua ez da prozesu **konstituziogile** bat. Biltzar Legegilearen aitzindaria izan zen **Konstituziogilea**. Koldo Izagirre

Zer da *pólis*aren konstituzioa eta zer botere **konstituziogile/eratzailea**? zein da *demos* eta zein *demokratía*? zein dira demokraziaren legeak? Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prozesu konstituziogile** (6); **prozesu konstituziogile berri** (3)

**asanblea konstituziogilea** (7); **prozesu konstituziogilea** (3)

**batzorde konstituziogilearen** (3)

**asanblea konstituziogilerako** (3)

---

# konstituziokontrakotasun *ik* **konstituzio 6**.

---

**konstituzional** 1 *izond* konstituzioari dagokiona; konstituzioaren araberakoa; konstituzioz hornitua. ik **konstituzio 4.**

Auzitegi **Konstituzionalak** Ukrainako Konstituzioaren aurkakotzat jo du etxean botoa emateko aukerak mugatzen zituen zuzenketa. Berria - Mundua

Espainiako Auzitegi **Konstituzionalak** ontzat ematen du Nafarroako Gobernuak Naturguneen inguruan egindako lege berria. Edurne Elizondo

Salbuespenik gabe, Berdintasunerako legea osorik onartu du Frantziako Kontseilu **Konstituzionalak**. Berria - Ekonomia

Aurrera egin ahal izateko, zuzenketa **konstituzionalak** aldeko 60 boto behar zituen. Berria - Gaiak

Kutxmak moldatutako erreforma **konstituzionalak** onartu behar izan zituzten. Berria - Mundua

Europako Batasunaren 1992ko Itunean jasotako zuhurtzia eta kautela printzipioak ere ez zaizkio testu **konstituzionalari** erantsi. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eredu **konstituzionalaren** arabera. Iñaki Mendiguren

Konstituzio bat, hizkuntza bat, patriotismo **konstituzional** bat. Joxe Azurmendi

CPE artikulua dakarren legea **konstituzionala** dela erabaki dute. Berria - Ekonomia

Zapaterok bi baldintza jarri zituen Estatutua onartzeko: **konstituzionala** izatea eta hitzartua izatea. Berria - Harian

Erregeak eta nobleek ez zuten onartu nahi girondinoek proposatzen zuten monarkia **konstituzionala,** are gutxiago jakobinoek aldarrikatzen zuten errepublika. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erretorika, grekeraz, jendaurreko hizketa adierazteko erabiltzen zen; alegia, deliberazio biltzarretan, auzitegietan eta Greziako hiri **konstituzionaletan** [...] horretarako propio arautUtako beste egokiera batzuetan erabiltzen zen artea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** konstituzioaren aldekoa.

Arratsalde erditsutan, bertsuak aditu zituen; ikusliarren txaloak biltzen zituzten, alta ez zituzten Lizuniagako bentan bezala egoera politikoa, apez **konstituzionalak,** espainolak ez eta frantsesak ere aipatzen. Elena Touyarou

Erregerekin edo Errege gabe, federalak izan zein **konstituzionalak,** hemen Espainia legebakar isabelinoa zetorkiguk. Txillardegi

• **3** *iz* (K larriz) Auzitegi konstituzionala.

**Konstituzionalaren** arabera, ez dago «frogatuta» itun horrek Espainiaren «interes orokorrak» kaltetzen dituela. Berria - Ekonomia

Funtzionarioen soldata igoera, **Konstituzionalean**. Berria - Ekonomia

Nafarroako merkataritza legearen zati bat indargabetu du **Konstituzionalak**. Berria - Ekonomia

Mauritaniaren eta EAEren arrantza akordioa bertan behera utzi du **Konstituzionalak**.

**4** ***ez-konstituzional*** *izond*

Handik gutxira ez-**konstituzionala** zela adierazi zen arren, lege horrek ekarri zuen azkenik aurrekontu-zorroztasuna Estatu Batuetan sartua zelako edo sartzekotan zelako sentipena. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erreforma konstituzional** (4); **itun konstituzional** (4)

**auzitegi konstituzionala** (17); **erreforma konstituzionala** (5); **estatu konstituzionala** (3); **itun konstituzionala** (9); **konstituzionala izan** (3); **ordena konstituzionala** (7)

**auzitegi konstituzionalak** (176); **auzitegi konstituzionalak erabaki** (4); **auzitegi konstituzionalak onartu** (3); **batzorde konstituzionalak** (3); **espainiako auzitegi konstituzionalak** (68); **itun konstituzionalak** (7); **kongresuko batzorde konstituzionalak** (3); **konstituzionalak atzera bota** (6); **konstituzionalak erabaki** (5); **konstituzionalak hartutako** (7); **konstituzionalak onartu** (6); **kontseilu konstituzionalak** (10)

**auzitegi konstituzionalaren** (67); **auzitegi konstituzionalaren ebazpena** (6); **auzitegi konstituzionalaren ebazpenak** (3); **auzitegi konstituzionalaren erabakia** (12); **auzitegi konstituzionalaren erabakiak** (3); **auzitegi konstituzionalaren erabakiaren** (3); **espainia konstituzionalaren** (6); **espainiako auzitegi konstituzionalaren** (13); **europako itun konstituzionalaren** (6); **itun konstituzionalaren** (12); **konstituzionalaren ebazpena** (8); **konstituzionalaren ebazpenak** (7); **konstituzionalaren epaia** (3); **konstituzionalaren epaiak** (4); **konstituzionalaren erabakia** (21); **konstituzionalaren erabakiak** (5); **kontseilu konstituzionalaren** (4)

**auzitegi konstituzionalari** (15); **espainiako auzitegi konstituzionalari** (8); **europako itun konstituzionalari** (3); **itun konstituzionalari** (8)

**auzitegi konstituzionalean** (75); **batzorde konstituzionalean** (5); **epaitegi konstituzionalean** (4); **espainiako auzitegi konstituzionalean** (23); **europako itun konstituzionalean** (3); **itun konstituzionalean** (4); **konstituzionalean errekurritu** (3)

**auzitegi konstituzionaleko** (37); **auzitegi konstituzionaleko epaileak** (3); **auzitegi konstituzionaleko presidente** (6); **espainiako auzitegi konstituzionaleko** (9); **konstituzionaleko presidente** (7); **konstituzionaleko presidenteak** (3); **zuzenbide konstituzionaleko** (7)

**auzitegi konstituzionalera** (15); **auzitegi konstituzionalera jo** (4); **auzitegi konstituzionalera joko** (3); **espainiako auzitegi konstituzionalera** (5); **gobernuak auzitegi konstituzionalera** (3); **konstituzionalera jo** (5); **kontseilu konstituzionalera** (3)

---

**konstituzionalismo** *iz* konstituzioaren nagusitasuna aldarrikatzen duen higikunde politikoa; sistema konstituzionalaren aldeko joera.

**Konstituzionalismo** baliagarriaren alde egiteko eskatu du Ibarretxek. Berria - Euskal Herria

Espainiako **konstituzionalismoan** oinarritutako erreforma ala autodeterminazio eskubidean oinarritutako haustura demokratikoa. Berria - Euskal Herria

PPk ez du **konstituzionalismoan** sinesten, haren erabilera egiten baitu. Berria - Euskal Herria

Berrehun urtez Estatu-nazioaren "mitoak" monopolizatu du **konstituzionalismoaren** ulermena. Joseba Zulaika

---

**konstituzionalista** *izond/iz* konstituzioaren aldekoa. ik **konstituziozale.**

Burgesiaren ordezkari **konstituzionalistak,** gehiengo handia, monarkia parlamentarioaren alde ziren, eta aristokratek, taldetxo bat, erregearen beto eskubidea aldarrikatzen zuten. Koldo Izagirre

Alderdi **konstituzionalistak,** berriz, Lizarra-Garazi indarrean egon zen bitartean, noraezean ibili ziren, komunikatiboki guztiz out, defentsibara, gotorlekuetan tinko. Txema Ramirez de la Piscina

98tarra gero, laster faxista, demokrata **konstituzionalista** hurrengo. Joxe Azurmendi

**Konstituzionalistek** beste lau urtez izango dute Vitaleko kontrola.

Abertzalea, **konstituzionalista** espainiarra, katolikoa, musulmana edota agnostikoa, gizon eta emakume, gazte eta zahar, guztion bizimodu eta ohiturak uztartzeak emango digu benetako euskal gizartearen argazkia. Berria - Harian

Kontua da Hitzaurrean aditzera ematen zaigula, **konstituzionalistek** zabaldu gezurra errepikatuz, soilik irlandar abertzaleek geroratu zutela *Dublindarrak*-en argitalpena. Markos Zapiain

---

**konstituzionalki** *adlag* konstituzioaren arabera.

Erakunde honek konstituzioa egingo du, 2005eko abenduaren 31rako **konstituzionalki** aukeratutako gobernu bat sor dadin. Berria - Mundua

---

**konstituzionaltasun** *iz* konstituzionala denaren nolakotasuna.

Bertan, Kaliforniako ezkontza legearen **konstituzionaltasuna** zalantzan jarri zuten. Berria - Gaiak

Kataluniako estatutu berriaren **konstituzionaltasuna** bermatua dagoela. Berria - Mundua

Testuak emakumearen aldeko bazterketa positiboa jorratu nahi du, eta, hain zuzen, horrexegatik lortu beharko dugu testuaren **konstituzionaltasun** erabatekoa. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**konstituzionaltasunik eza** (3)

---

konstituzione ik **konstituzio**.

---

# konstituziozale *izond/iz* konstituzioaren aldekoa. ik **konstituzionalista**.

Indar **konstituziozaleek** joan den otsailean ziurtatu zuten gehiengoa, bezeroei dagozkien 43 batzarkideak aukeratzeko bozketan. Berria - Ekonomia

Berriz ere, alderdi **konstituziozaleen** eta abertzaleen arteko lehiaren isla bihurtuko da Vital Kutxako bozketa. Berria - Ekonomia

Euskal Herria independentea izango balitz eta bere konstituzioa izango balu, **konstituziozalea** naizela esango nuke. Berria - Euskal Herria

Espainiako bandera hegazkinen gasekin ikusteak urtikaria sortzen die abertzaleei], baina **konstituziozaleak** oso pozik gaude Indar Armatuen erakustaldiaz. Berria - Euskal Herria

Jokaldi juridiko-politiko abil bat zen, liberal **konstituziozaleei** bezain egoki kontserbatzaileei zetorkiena. Joxe Azurmendi

Hain oinarrizkoa den kontu batean ezin didate Espainiako Konstituzioaren kontra egiteko eskatu euren burua **konstituziozaletzat** dutenek. Berria - Euskal Herria

---

# konstrikzio *iz* hertsatze, hertsakeeta.

Literaturaren historian erabili izan diren **konstrikzioez** gain, **konstrikzio** berriak asmatzea izan da Ouliporen eginkizunetako bat. Iñaki Arranz

Semantikari dagozkion **konstrikzioak**. Iñaki Arranz

---

# konstruktibismo 1 *iz* abangoardiako arte higikundea forma dinamikoak lortzen saiatzen dena.

Eta erakusketan, niretzat, ederrenetakoak diren argazki esperimentalak ikus ditzakegu; **konstruktibismoaren** eta surrealismoaren inguruan egindako lanak, adibidez. Berria - Kultura

**2** teoria psikologikoa, ikaste prozesua lehenago ikasitakotik abiatuta azaltzen dituena.

Teoria kognitibistak, eta teoria honek gaur egun dituen adar guztiek ia, **konstruktibismoa** dute oinarrian: pertzepzio oro, epai oro, ezagutza oro, eraikuntza da, modu orokorrean, hipotesiak eta zentzumen-organoek emandako datuak alderatuta egina. Josu Zabaleta

Puntu honetan, bada, kontrako jarrerak daude teoria innatista baten, *Gestalt*-en, eta ikasketaren teoria baten, **konstruktibismoaren,** aldetik. Josu Zabaleta

**Konstruktibismo** sozialak teknologiaren konstituzio sozialaz dihardu, eta hori prozesu plurala dela erakustea da horren helburuetariko bat. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**konstruktibismo sozialaren** (3)

---

# konstruktibista *izond/iz* konstruktibismoarena, konstruktibismoari dagokiona; konstruktibismoaren aldekoa.

Hizkuntzaren ezagutza ulertzeko modu bi zituzten Piagetek eta Chomskyk: **konstruktibista** zen bata, kognizioaren aldekoa bigarrena. Berria - Euskal Herria

Irudiaren irakurketari begiratzen bazaio, teoria analitikoak, **konstruktibistak,** ikuslearen gogoeta-lana azpimarratzen dutenak, egiteko joera izango da. Josu Zabaleta

Begirada tolesgaberik ez dago: Gombrichek, bere liburuan [...] posizio **konstruktibista** hartzen du ikusmenezko pertzepzioaren aurrean. Josu Zabaleta

**Konstruktibista** sozialen ikerketek izaera deskribatzailea dute, eta arrazoiketa arau-emaileari ez diote lekurik egiten. Askoren artean

---

# konstruktibo 1 *izond* eraikuntzari dagokiona.

Arkitekturaren alderdi materialak eta **konstruktiboak**. Santiago Iruretagoiena

Kursaaleko Kuboan erakutsiko diren obra gehienak **konstruktiboak** dira, arkitekturaren inguruan eginikoak. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Kolonizazio-politika **konstruktibo** eta gizatiar samarra estatu unibertsalen ezaugarrietako bat dela. Iñaki Mendiguren

Kritika **konstruktiboak** egiten saiatu naiz. Berria - Kultura

Inork ez zuen kritika **konstruktiborik** egin; kritika zentzugabeak ziren. Berria - Gaiak

Oposizio **konstruktiboa** egingo dugu. Berria - Mundua

Eztabaida **konstruktiboak** izateko aukera behar dugu. Berria - Kultura

Eusko Jaurlaritzarekin harreman «arinak, iraunkorrak eta **konstruktiboak»** izan nahi dituela adierazi zuen Luesmak. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kritika konstruktiboak** (3)

---

# konstrukto *iz* eraikuntza.

Hau da, nobela **konstrukto** bat da, arkitektura hutsa. Ana Urkiza

Denbora **konstrukto** bat da. Ana Urkiza

**Konstrukto** teoriko horrek -ahozkotasun primarioa, kultura idatzi inprimatua, ahozkotasun sekundarioa- badu bere egituran kutsu ia bibliko halako bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kultura nuer bat **konstrukto** hutsa da, nuer zaharrak eta adoleszenteak, gizonezko eta andrazkoak daudelako eta denak diferenteak! Joxe Azurmendi

---

# konstrukzio 1 *iz* gauza abstraktuen eraikuntza, eraikitze lana.

Filosoforen batzuen **konstrukzioetatik** aparte, noiz izan dira edo zein gizon-emakume suerterentzat dira (naturako) gertakari hutsak, inolako balio inplikaziorik gabe, mundua, itsasoa, eguzkia, edo gerra, familia, heriotza? Joxe Azurmendi

Edonola ere, gertakarietatik atera ohi ditu gizadiak -txit razionalki- arauak eta balioak [...]. Baina Stephenek (Casson zuzen badabil) eta Josék eta Nadiak eta beste savant batzuek ez dute, apika, halako "dekonstrukzioak" egiteko premiarik, ez daukate, apika, **"konstrukzio"** horiek alde batera utzi beharrik, zeren (maila askotan; nerbio-sistemarenean, kulturarenean) sekula ez baitiete lehentasunik eman, edo ez hainbestekoa. Joxe Azurmendi

*Zatiak*-ek **konstrukzio** -dekonstrukzio harremanak aztertzen ditu marrazkien eta eskultura baten bidez. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Eraikuntzan emakumeak eta neskatilak ikus litezke, harri konkorrak eta beste **konstrukzio** gaiak buru gainean garraiatzen, askok besoetan tatuajeak dituztela. Gotzon Garate

---

konsul ik **kontsul**.

---

konsuletxe ik **kontsuletxe**.

---

konsulta ik **kontsulta**.

---

**konsultin** *iz* kontsulta etxea.

Analisia **konsultin** enpresa batek hasi eta beste batek bukatu zuen. Berria - Kultura

---

konsumo ik **kontsumo**.

---

**konsziente** **1** *izond* pertsonez mintzatuz, zertan ari den dakiela aritzen dena.

-Horrek berak erakusten dizu **konszienteak** zaretela zuen borrokak fin gaizto egiten duela beti. Koldo Izagirre

Jendeak, orain baino **konszienteagoa** balitz ere, ezingo luke hizkuntza zalantzan jarri. Isabel Arrigain

**2** jakinaren gainean egiten dena. ik **kontziente**.

Hartzen zituen ibilbideek behin eta berriro estaziora hurbiltzen zutela sumatzen zuen, halakorik ez gertatzeko saio **konszienteak** egiten zituen arren. Iban Zaldua

---

**konszienteki** *adlag* ohartuki, ezagueraren; jakinaren gainean. ik **kontzienteki**.

Film batean ikusi zuen Eduardok keinu hori, gaztetan, artean erretzen ez zuela: izugarri dotorea iruditu zitzaion, eta **konszienteki** kopiatzen saiatu zen. Iban Zaldua

**Konszienteki** eman dute botoa. Berria - Harian

Iruzur kolektibo batean parte hartzea **konszienteki**. Berria - Ekonomia

---

konszientzia ik **kontzientzia**.

---

**kontabide** *iz* kontaera, kontaeraren bidea.

Protagonista Iñaki Abaitua duk, idazlea eta hiztegigilea, eta eleberriaren bukaeran, **kontabide** labirintiko baten ondoren, gero eta linealagoa bihurtzen den kontaketa baten bidez. Mikel Hernandez Abaitua

Belaunaldi baten eleberria, beraz, baina badu **kontabidezko** indar nahikorik 1900ean gazte zirenen belaunaldiaren mugak hausteko, eta ondorioz, ez da kamutsena edozein garaitako gazte kontentagaitz eta haserreengana iristeko. Josu Zabaleta

---

**kontabilitate** **1** *iz* ekonomia jarduera bateko kontuak egitea, eta hartarako liburuetan edukitzea.

Bere **kontabilitatea** zorrak/hartzekoak hutsera mugatzen zelako. Bego Montorio

Italian agertu zen orobat, XIII. mendean, partida biko **kontabilitatea**. Koro Navarro

Bankariak **kontabilitate** bikoitza egiten, upelgileak bolumenen geometriaz baliatzen, eta abar; horrek guztiak XV. mendeko Toscanako gizarteak eredu matematikoetarako zuen miresmena eta zaletasuna erakusten du. Josu Zabaleta

**Kontabilitate** bikoitza erabili zuela, Kallsbergen berarenak ziren itsasontzietara dirua zuzentzeko. Berria - Mundua

Haien ordainketaz Urtxipia bera arduratzen zuan, eta ez dituk bulegariaren **kontabilitatean** ageri. Aingeru Epaltza

Haren kontuetarako zintzotasunaz hitz egin zuen, **kontabilitate** zorrotzari hark ematen zion garrantziaz. Bego Montorio

Une hartan, atea ireki eta **kontabilitateko** arduradun lodikotea sartu zen. Aritz Gorrotxategi

Hiruzpalau egun herioa agitu aurretik karnetak, kaierak, **kontabilitateko** liburuxkak *dad is dying* oharraz iluntzen zituen. Itxaro Borda

Ez delako **kontabilitatea** ondo eraman, ez delako egitasmorik zehaztu, finantzaketan arazoak izan ditugulako. Berria - Kultura

Alessandro Bassi Parmalateko **kontabilitatean** aritutakoak bere buruaz beste egin zuen atzo, Parma inguruko zubi batetik salto eginda. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Logikoa litzateke beste ezer baino lehen **kontabilitate** liburuak aztertzea. Xabier Olarra

Ibarrak eta haren taldeak 13 urtez dantzan izan zituzten 225 milioi euro, sekua **kontabilitate** liburuetan islatu gabe. Berria - Ekonomia

**Kontabilitate** liburu gisako batean apuntatu dute nire sarrera, eta sinatu egin behar izan dut. Agurtzane Juanena

2002. urtera arteko aurrekontu eta **kontabilitate** gai guztietan kudeaketa «oso txarra» izan zen. Berria - Kultura

**Kontabilitate** departamentutik pasatu behar zutela fakturek, faktura errepikatu behar zela ondo egina ez zegoelako... Iñaki Iñurrieta

Aurrezki kutxaren bulego nagusian egiten du lan, **kontabilitate** sailean. Iban Zaldua

Gerard Ducam, Baionako KPMG **kontabilitate** bulego-burua. Herria

**Kontabilitate** esperientzia. Herria

Andrew Fastow, Enroneko finantza zuzendaria eta **kontabilitate** apainketaren arkitektoa. Berria - Ekonomia

**Kontabilitate** akatsak 50 milioikoak «soilik» direla esan dute zenbait egunkarik. Berria - Ekonomia

70 milioi euroko **kontabilitate** iruzurra. Berria - Ekonomia

**Kontabilitate** kalkulu guztiak itxi ondotik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ekonomia %2,4 hazi zen 2003an, Eustaten datuen arabera. Berria - Ekonomia

Nazioarteko **kontabilitate** neurri berriak betetzeko. Berria - Ekonomia

2005ean indarrean sartuko direla **Nazioarteko** Kontabilitate Arauak. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
kontabilitate liburuak (3)

---

## kontabilitateburu *iz* enpresa bateko kontabilitatearen buru dena.

Sheila **kontabilitateburu** gisa ari zen Brenten ordez. Xabier Olarra

Sei langile aritzen dira bertan, kutxazaina, **kontabilitateburua**, beste bi enplegatu, kontabilitateko neska bat eta zaintzaile bat. Xabier Olarra

---

## kontabilizatu, kontabiliza, kontabilizatu **1** du *ad* ekonomia operazioak kontu liburu batean erregistratu.

**Kontabilizatu** duten auto kopurua egunean egiten zituzten zerbitzuen batez bestekoarekin atera dute eta «horrek ez du hutsik egiten». Berria - Ekonomia

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko hainbat zuzendaritzaren gastu guztiak **kontabilizatu** dituzte. Berria - Euskal Herria

Diru laguntzak edo diru publikoa sartzen denean, nahiz eta artistek ez bilatu, **«kontabilizatzeko** beharra» sortzen da, batez ere erakundeen aldetik. Berria - Kultura

Garai batez industria sektorean sartzen ziren postu batzuk, zerbitzuetan **kontabilizatzen** dira orain. BPGan diru truke lor daitezkeen ondasunak eta zerbitzuak **kontabilizatzen** dira, ez besterik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**2** kontatu, zenbateko zehaztu.

**Kontabilizatu** egin behar dituztelako, zenduak, bestela honezkero bota nuen eskailera-zulotik behera. Karlos Linazasoro

Haatik, Frantziako bozka sistemak zuriak ez dauka baliorik eta ez dira **kontabilizatuak**. Berria - Harian

---

## kontabilizatzeke *adlag* kontabilizatu gabe.

Gure espeziea zein besteak suntsi ditzakeen kudeaketa baten ondoriozko gizarte zein ekologi kostuak **kontabilizatzeke** eta bere gain hartzeke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

## kontable **1** *izond* kontabilitatearena, kontabilitaterari dagokiona.

Banku-dirua, alegia, bere aurrezki libretan edo beste finantza-produktu batean agertzen den anotazio **kontablea**: gordailua. Iñaki Heras

Sekulako tramankulu estatistiko eta **kontableak** aplikatu zituzten. Iñaki Heras

**2** *iz* kontu eramailea den pertsona.

Alberto afaltzera geratuko zela esan zigun amak, sotoko kontuak egin behar zituztela, **kontable** iaio bihurtua baitzebilen ama azken aldian. Juan Kruz Igerabide

Muga-zergak eta arbitrioak kobratzen zituztenek aurrena, diru-trukatzaileek gero, eta kontulari eta **kontableek** hurrena Pello Zabala

---

## kontadore **1** *iz* kontagailua.

Motorreko giltza birarazi, taximetroko **kontadorea** abian jarri, posizioko argiak piztu eta arrapaladan jo zenuen hiriaren hego alderantz. Josetxo Azkona

Halatsu ponpatzen du **kontadoreak** ura etxeko hodietan barrena. Josetxo Azkona

**Kontadoreko** erlojuari begiratu bat eman. Matías Múgica

· **Kontadorea** zeroan jartzekoak oraingoz itxaron egin beharko du. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sukaldeko harraska azpian egoten den armairua -bai, ur **kontadorea**-eta gordetzen duen txoko hori- toki miragarria da. Josetxo Azkona

**3** kontularia.

Gure armadorearen **kontadorea** iruditu zitzaidan han bertan, hogei pauso ez. Koldo Izagirre

**Kontadorea** nire konpartimenduan agertu zen behin eta nire gaizki bideratutako langintzaz errukituta, beste idazketa mota bat proposatu zidan. Harkaitz Cano

---

## kontadu ik **kontatu**.

---

## kontaduria **1** *iz* kontabilitatea.

Itxuraz dirua xahutzen zebilen, baina, merkataria izaki, bere gastuen **kontaduria** zehatza egiten zuen. Patxi Zubizarreta

Bere irudikeriak bertan behera utzi, eta **kontaduriaz** eta erregistroaren egiaztapenez jardun behar izan zuen. Patxi Zubizarreta

Ba ote dut bizitzan **kontaduria** gainbegiratzea beste zereginik? Patxi Zubizarreta

Seguru nago bere ilusiorik handiena udaletxeko funtzionarioa izatea dela, **kontadurian** edo interbentzioan. -Ez zara sailez aldatuko, hementxe bertan lan egingo duzulako, **kontadurian**. Josu Landa

**Kontaduria** orokorreko sailaren ardura baitzuen Saito jaunak. Joxan Elosegi

**Kontaduriako** sailera itzuli, oinetakoak askatu eta pikutara bota nituen. Joxan Elosegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Unaji jaunak faktura erakutsi zion alde batetik eta **kontaduria** liburua bestetik. Joxan Elosegi

**Kontaduria** koadernoa ireki zuen, zenbaki zerrendak hatz erakusleaz errepasatzen hasiz. Harkaitz Cano

**Kontaduria** saileko berrogei lankideen aurrean. Joxan Elosegi

**3** irud/hed

Orduan, kalte, mesede eta barkakizunen -zor-hartzekoen- etengabeko **kontaduria** penatzera erortzen gara. Iñaki Segurola

Ez zekien berak kanpoan pasatutako ordu guztien **kontaduria** eramateko ohitura hartua zuela amak, ordu bakoitza orri batean markatuz. Joan Mari Irigoien

Bere bizitzaren **kontaduria** osatu gabea zegoela oraino. Iñaki Segurola

Han egoten omen ziren nor bere aldetik olatuen **kontaduria** egiten. Joxean Agirre

Edo kanpora aterako dira bestela, izarren **kontaduria** egin eta gaueko freskura dastatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Leihoaren argitan eseri eta bere egunerokoan, **kontaduria** sentimentala eramateko duen liburuan, zure nota idatziko duela: [...]. Joxean Agirre

Bere adiskidearen fobia, fijazio eta obsesioen **kontaduriak** ez omen zuen emakumearen lilura itzali. Joxean Agirre

Presoen erresistentzia eta borroka txiki eta handien **kontaduria**. Jokin Urain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
kontaduria egiten (5); olatuen kontaduria egiten (3)

## kontaduriaburu *iz* kontabilitateburua.

Zuk langileriaren aldeko apustua egin duzu, eta haien neke eta arazoek kezkatzen zaituzte, eta niri ondo iruditzen zait noski, baina ez ahaztu **kontaduria** buru zarela eta, neurri batean behintzat, euren etsai. Pedro Alberdi

## kontaera *(orobat **kondaera** g.er.)* **1** *iz* kontzatzea, kontakizuna.

Bagenekien zer kontatu nahi zigun [...] baina ez genion **kontaera** zapuztu nahi. Bernardo Atxaga

Horrela hasten da Emilio Laurenten **kontaera**. Gregoryk **kontaerari** ekitean dioenez, berak hamabi urte ditu 1943an. Edorta Jimenez

**Kontaera,** bat-batean, hortxe etenda geratu zen. Xabier Olarra

Hemen amaitzen da **kontaera**. Elizen arteko biblia

Baskoien eta erromatarren arteko batailen **kontaeretan**. Bernardo Atxaga

Ipuin eta **kontaera** laburrak. Josu Zabaleta

Ipuinik garratzena "Manexak" dateke, Zuberoa etorkizunean galduaren **kontaera** ikaragarria. Markos Zapiain

**Kontaeraren** antolaketa biia atsegingarri da irakurlearen belarrietarako. Elizen arteko biblia

Norbaiten esperientzia ahozko **kontaera** bihurtu zen unera jiratu behar dugu burua. Bernardo Atxaga

### 2 kontatzeko era.

Hala istorioaren jatorriagatik nola **kontaeragatik,** ahoz transmititutako istorio baten papereratzearen traza hartzen zaio *Riomundo*-ri. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> sorreraren kontaera (3)

## kontaezin 1 *izond* ezin kontatuzkoa.

**Kontaezinak** dira oihartzunak, infinituak ia. Anjel Lertxundi

Bazarreko nagusia, dirutza **kontaezin** azkengabe baten jabea. Patxi Zubizarreta

Ugaldu egingo ditut zure ondorengoak, **kontaezinak** izateraino. Jose Antonio Mujika

Herri guztietatik etorritako jendetza **kontaezina**. Askoren artean

Gudaroste **kontaezinak** dira zurekin. Elizen arteko biblia

**Kontaezinak** dira, izan ere, larrapoteak baino ugariago. Elizen arteko biblia

Hasieran, istripu bat zela iruditu zitzaidan, lizuna eta **kontaezina**. Karlos Linazasoro

### 2 *kontaezineko izlag* kontaezina.

Errege Jaunak beharko du auziaz arduratu, baina ezingo du, noizean behinka baizik, bere **kontaezinezko** eginbide guztiengatik. Piarres Xarriton

**Kontaezineko** herrien burrunba, itsaso burrunbatsuarena bezalako burrunba. Elizen arteko biblia

### 3 *kontaezinezko izlag* kontaezina.

Jainkoa deitzen dut, absolutuki mugagabea den izakia: hau da **kontaezinezko** atributuek osatzen duten substantzia, atributu bakoitzak mugagabeko eta betiereko esentzia adierazten duelarik. Piarres Xarriton

Beraz, **kontaezinezko** zenbaki bat **kontaezinezko** beste bat baino hamabi aldiz handiago izanen da. Piarres Xarriton

Errege Jaunak beharko du auziaz arduratu, baina ezingo du, noizean behinka baizik, bere **kontaezinezko** eginbide guztiengatik. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kopurua kontaezina (3)
> kontaezinezko gauza (3); kontaezinezko gauzak (14); kontaezinezko modutan (11); kontaezinezko modutan kontaezinezko (7)

## kontaezinki *adlag* ezin kontatuzko eran.

Orain aireaz mintzatuko naiz, gorputz osoa orduz ordu **kontaezinki** aldatzen duen horretaz. Xabier Amuriza

## kontagai 1 *iz* kontakizunaren gaia; kontakizuna.

Eta **kontagaiarekin** batera doa kontamodua ere, tarteka atzera-aurrera baitabil istorioa. Unai Elorriaga

Horko **kontagai** batzuk beste kultura batzuetan ere ageri direnak dira. Jose Antonio Mujika

Irudimenaren bitartez osa ditzakegula **kontagaiaren** hutsuneak. Xabier Mendiguren Elizegi

Prosaren intentsitateaz eta **kontagaiaren** erritmo biziaz. Berria - Kultura

*Men at War* gerrako **kontagaien** antologia. Edorta Jimenez

Eta marko mitiko batean kokatzen gaitu gu, kontalariak **kontagai** bihurtuok. Iñaki Iñurrieta

### • 2 *izond* konta daitekeena.

Prosodiaren zakuan sartu ohi dira unitate **kontagaiekin** (i.e. bokal eta kontsonanteekin) bat ez datozen ahozkoaren ezaugarri guztiak. Lourdes Oñederra

### 3 *kontagai izansup_1* da *ad*

Zesar eta Mamurraren gaineko eskandaluak ziren **kontagai**. Juan Garzia

Urratsak, eskailerak, pasatzen diren autoak, atariak, jendea... edozein gauza da **kontagai**. Sonia Gonzalez

Gehienetan narratzaileak **kontagai** den egoeraren erretratua egitea du helburu, egoeraren deskribapen zehatza. Berria - Kultura

### 4 *kontagai izansup_2* du *ad*

Narratzaileak ez du deus lortzen **kontagai** duen oro beti talaia bakar batetik begiratuta. Anjel Lertxundi

Altzan -nire herrian- izandako hondamena dut **kontagai**. Joan Mari Irigoien

Bi lagunen bidaia du **kontagai** Gatlifen lanak ere. Berria - Kultura

Palentzian uda pasatzen duen familia baten gorabeherak ditu **kontagai** filmak. Berria - Kultura

Aaronen eta Faraoiren sazerdoteen arteko auzia **kontagai** duen Bibliako pasartea. Joan Mari Irigoien

Markesaren alabari benetan gertatu omen zitzaiona kontatzen hasi zitzaidan emakumea, **kontagai** zituenak une hartantxe bere begien aurrean gertatzen ari balira bezain bizi eta sinesgarri. Anjel Lertxundi

## kontagailu 1 *iz* kontatuz neurtzen duen gailua.

Taxiaren **kontagailua**. Taxilariak **kontagailuaren** palankari eragin zion eta zenbaki gorriak geratu ziren. Iñaki Zabaleta

Kontsumo-kuotak kontrolatzeko **kontagailuena**. Jose Angel Irigaray

· Askatasunen murrizketetan **«kontagailua** zeron jartzeko» eskatu diozue PSOEri. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Saltzailea izan nauk, bulego batean egin diat lan, ur- **kontagailuak** begiratzen pasatu nitian hamar bat urte. Anjel Lertxundi

Uraren **kontagailuak** urrutitik irakurtzeko sistema bat. Berria - Gaiak

Hauspo falta nabarmentzen zuen zelai-tokira laster iritsiko zen kilometro- **kontagailuari** begiratu gabe. Jon Alonso

Lasterketako pilotua zenez, ez zegoen arriskurik, teorian behintzat, eta hala ere bira- **kontagailuari** begiratzen nion aldiro, izertzan hasten nintzen. Edorta Jimenez

Akusazioak sumario guztia ezagutzeko aukera izaten du eta defentsari frogak eta txostenak **tanta** kontagailu bidez ematen zaizkio. Berria - Euskal Herria

---

## kontagaitz *(orobat **kondagaitz** g.er.)* *izond* kontatzen zaila, ia ezin kontatuzkoa.

Mila urte badu hasi dela jendea hemen iragaiten, trumilka edo multzoka: jendetza **kontagaitz** eta kasik betidanikako horren atomo bat baizik ez naiz. Piarres Aintziart

---

## kontagarri *izond* kontatzeko modukoa.

Bidaia horietako pasarte **kontagarriren** bat ere izango duzu. Berria - Kirola

Bere bizitzaren zati nagusi bat bere bizitza **kontagarri** egiten pasatu du. Joxean Agirre

Gure zaharrenek bakarrik akordatzen dira gariaren jirako kontu haiekin: **kontagarriak** izatera iritsi dira haienak ere. Pello Zabala

---

## kontagarritasun *iz* kontagarria denaren nolakotasuna.

Orain irudiak irudikatzen duena aztertu nahi denez, **kontagarritasunarekin,** oro har hartuta, duen lotura aztertu beharko da lehendabizi, normala den bezala. Josu Zabaleta

---

## kontagintza *iz* kontatzeko jarduera. ik **narratiba.**

Ibon Egañak Karlos Linazasororen **kontagintzari** buruz idatzitako artikulu bat. Iñaki Arranz

Daniel Landarten **kontagintzan** hirugarren urratsa dugu hau. Daniel Landart

Gramatika eta **kontagintza** ez dira sekula desesperazioa azaltzeko lain izan. Harkaitz Cano

---

## kontainer *(orobat **kontener** g.er.)* 1 *iz* edukiontzia.

Grua txikian Altuna, pulpoarekin txatarra puxkak meta batetik hartu, **kontainerrean** sartzen ari zen. Pablo Sastre

Neronek eramango nituzke **kontainerrera** zakuak. Pablo Sastre

Hogei minutu geroxeago **kontainer** eta garabi erraldoien artean zeuden. Paddy Rekalde

Tiro bi, aurreko **kontainer** batean hozka egin zutenak. Paddy Rekalde

*Sea-Land Corporation* enpresa eratu zuen horretarako, propio **kontainer** bidezko garraiorako. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Estatu Batuetako Espazio Agentziaren Deep Impact espazio zundak **kontainer**-ontzi baten tamainako kobrezko jaurtigai bat botako du Temple 1 kometaren kontra, 2005eko uztailaren 4an. Berria - Gaiak

· Obretan zegoen ezkerreko etxea: zakar **kontainerra** aurrean, zur plantxak atarian, kristalik ez leiho zuloetan. Pablo Sastre

Metal **kontainer** txikiak eta handiak. Pablo Sastre

---

## kontaka *adlg* kontatzen.

Ilusionatuta etorri zitzaion laguna, **kontaka** eta **kontaka,** aurpegiko eitea ere ez zuen aldatu. Sonia Gonzalez

---

## kontakatilu 1 *iz adkor* salataria.

Arratsaldean, Quenuri dena esan beharra zuela uste izan zuen, **kontakatiluren** batek kolpea zakarregi emango zion beldurrez. Karlos Zabala

Karmelo **kontakatilu** hutsa dela eta dena kontatu diola. Patxi Zubizarreta

Kontalari trebea baina ez **kontakatilu** berritsua. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahotik gaiztakeria zerien **kontakatilu** itsusiak. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondo gisa)

Inguruko kaleetako andre **kontakatiluek** ziotenez, Gradelle zaharra dirutza handiaren jabe zen. Karlos Zabala

Ematxar **kontakatilu** batekin topo eginen duen. Aingeru Epaltza

**3** (adizlagun gisa)

**Kontakatilu** ibiltzen zen, norbaitek aginduz gero. Juan Kruz Igerabide

-Niri, ahizpa txikiena bidaltzen zidan **kontakatilu**. Arantxa Iturbe

---

## kontaketa *(orobat **kondaketa** g.er.)* 1 *iz* kontatzea, kontakizuna.

Orain biharamuneko egunkari batetik moztuta dakart krimenaren **kontaketa,** poliziak jaso ahal izan zituen xehetasun guztiekin. Josu Zabaleta

Historia politikoa garaien deskribapenez eta gertakarien **kontaketez** osatua dagoenez, [...]. Isabel Arrigain

Dario Handiaren ekintzen **kontaketa** Behistango harkaitzean [...] hiru eratan transkribatu zuten. Iñaki Mendiguren

Bost eguneko inkomunikazio aldian pairatutako torturen **kontaketa** egiten du. Berria - Euskal Herria

Bere kabuz berreskuratu zuen, nonbait, **kontaketaren** haria. Ramon Saizarbitoria

Epaileari kexak bidaltzen hasi ginen, **kontaketa** bakoitzeko kexa bat. Jokin Urain

Berlusgoñik eten zuen bere **kontaketa,** berriz ere. Jon Alonso
Aladinek bere **kontaketa** amaitu bezain laster. Patxi Zubizarreta
-A zer otsoa! -esan zuen Luluk **kontaketa** entzun zuenean. Josu Zabaleta
Sethe **kontaketan** ari zen bitartean. Anton Garikano
Baina basamortua ezagutzen duen edonork ongitxo daki **kontaketa** horiek ezin direla egiazkoak izan. Patxi Zubizarreta
Jaso berria zuen laugarren **kontaketa**. Joxemari Urteaga
Halaxe da, gertaera bat eta **kontaketa** bi albiste bakarrean. Iñigo Aranbarri
Badago, jakina, kontaketaren iraupen bat, baina gertaera-segidaren ordenaren arabera ere definitzen da **kontaketa**. Josu Zabaleta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gertatutakoaren **kontaketa** kontrajarriak egin dituzte ertzainek eta Atanesen lagun eta senideek. **Kontaketa** arinak, didaktikoak, baikorrak. Berria - Euskal Herria
**Kontaketa** linealik ez. Berria - Kultura
Hasieran, ahozko **kontaketak** izan ziren: norbaitek kontatuak, tradizio baten baitan. Patxi Altuna
Bestelako trataeren gainetik gertaeren **kontaketa** morbosoak lehenesten direnean. Iñigo Aranbarri
**Kontaketa** mistoa, zati bat hitzezkoa eta beste bat mimetikoa dituena. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hogei urte baino gehiago daramatza **kontaketa** saioak eskaintzen.
Bestalde, **kontaketa** modu erraz bat erabiltzen saiatu naiz. Ana Urkiza
Edukiaren eta **kontaketa** erritmoaren arteko oreka gertatu zenean. Ana Urkiza
1894an bere lehenengo **kontaketa** bilduma argitaratu zuen: *Amori senza amore.* Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abenturaz beteriko bidai **kontaketa** horiek nolabaiteko xarmari eusten diote oraindik ere. Berria - Harian
Ez ezazue, haatik, maitasun **kontaketa** loraturik espero. Javi Cillero
Atzo izan zen aurkezpena eta aldi berean ipuin **kontaketa,** umez betetako areto batean. Berria - Kultura
Haste **kontaketa**. Piarres Aintziart
Kontu-**kontaketekin** eta serieko irudiekin egindako esperimentuek. Xabier Olarra

**5** kontatzea, zenbatzea.

**Kontaketak** formazioan egin behar izaten zituzten, kornetak deituta. Jokin Urain
Auzitegi Gorenera jo zuten, botoen **kontaketa** gelditzeko. Berria - Mundua
Behin-behineko **kontaketa,** atzerriko botoen zenbaketa eta gerora egon daitezkeen egokitzapena. Berria - Euskal Herria
*Coalition casualty count* erakundearen Koalizioko biktimen **kontaketa** orrialde elektronikoan gatazkan hildako atzerritarren datuak aurki daitezke. *Groggy* egon arren, epaileak **kontaketa** bukatu aurretik altxatzeko ahalegina egiten duten boxeolari patetiko horiek bezala. Ramon Saizarbitoria
2003ko uztailaren bukaeran egin genuen azken **kontaketa** eta zazpi hilabetez 73 dira bere buruaz bertze egin duten presoak Frantzian. Berria - Euskal Herria
Uholdeak izandako lekuetan kalteen **kontaketa** egiten hasi dira. Berria - Euskal Herria
PPren mesederako geratu den boto **kontaketa** ez dela «erreala» izan. Berria - Euskal Herria
Diru-**kontaketarekin** hasi aurretik. Karlos Linazasoro
Atzera **kontaketa**. Berria - Mundua

**6** ***atzerako kontaketa***

**Atzerako kontaketa** ez da eten: kontsulta epean daude orain, eta behin 15 egun igarota, enpresak hilabete dauka lekualdaketaren berri langileei emateko. Berria - Ekonomia
**Atzerako kontaketa** hasi zuen atzo Nazio Batuen Erakundeak: 89 egun barru legez lotuko ditu Kyotoko Protokoloan kide dituen 128 estatuak. Berria - Gaiak
Jukosen amaieraren **atzerako kontaketa** hasi da. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**bozen kondaketa** (3); **ipuin kondaketa** (10); **ipuin kondaketa bat** (4); **jende kondaketa** (11)
**jende kondaketak** (3)
**azken jende kondaketan** (3); **jende kondaketan** (4)

---

**kontakizun** **1** *iz* gertari baten edo batzuen adierazpena, batez ere idatzia, eta bereziki literatura balioa duena. ik **kontaketa, kontaera**.

Duela astebete eman nion hasiera **kontakizun** honi, jarraituko nuen ala ez seguru jakin gabe. Joseba Urteaga
Hamarkada horretan barrena jaio ziren gure **kontakizun** honetako pertsonaia gehienak. Xabier Mendiguren Elizegi
Kontatzen dena ez ezik, **kontakizunaren** izaera ere berria da. Jose Antonio Mujika
Nire bizitzaren **kontakizun** hau, nire amaren bizitzaren **kontakizuna** izan da, nirearena izan den neurri berean. Eider Rodriguez
Kronikaren **kontakizunari** bizitasun apur bat ematearren. Berria - Kirola
Nobela historiko honetako **kontakizuna** 1199an dago girotua. Berria - Kultura
Aitorpenaren **kontakizun** gutzi-guztietan. Leialtasuna da **kontakizun** honen giltza. Jose Antonio Mujika
**Kontakizun** hartan [...] 1950eko hamarkadan girotutako detektibe eta pozoiketa istorio bat harilkatu nuen. Iban Zaldua
**Kontakizuna** ahalik eta argien taxutuz. Markos Zapiain
Super-errealismoak arduraz saihesten du **kontakizuna** eszena antolatuetan zatikatzeko konbentzio. Koro Navarro
Hik ere edozein **kontakizun** asmatuko duk, tunika bat eta estalki bat irabaztearren. Juan Kruz Igerabide
Tartean, XIX. atalburuan, artzain maiteminduaren **kontakizuna** dator. Patxi Ezkiaga
Goazen **kontakizunaren** harira. Elizen arteko biblia
Behin **kontakizunaren** doinua aurkitu ondoren, dena errazagoa da. Ana Urkiza
Maitasuna izan da patuaren itsu-mutil **kontakizun** honetan, beste hainbat tragedia gogoangarritan bezalatsu. J.M. Olaizola "Txiliku"
Geuri ere sinesgaitz egingo zaigun ipuin bat asmatuz, gure identitatea, azken finean, **kontakizun** bat delako, **kontakizunik** sinesgaitzena. Joxean Agirre

**2** (izenondoekin)

**Kontakizun** luzea bilbatu zuen erreginaren edertasunari buruz. Askoren artean
Horra hor **kontakizun** laburren xarma ezin ukatuzkoa. Javi Cillero
Zientziaren egiek **kontakizun** ederren beharra dute, gizakiak zientziari atxikiko bazaizkio. Jon Muñoz
Areago: zentzuzkoxeago dirudite **kontakizun** mitikoek, biokimikari eta biologo molekularren solasek baino. Juan Garzia
**Kontakizun** nagusiari erantsitako iruzkin eta azpikontakizunontzat. Anjel Lertxundi
Egileak **kontakizun** bakarrean kapitulu ezberdinetako oroitzapenak [...] biltzen ditu. Askoren artean

Zentzurik gabeko **kontakizun** aspergarrietan galtzen naiz. Ramon Saizarbitoria

Emakumeak berak ere interesaturik zeuden **kontakizun** odolgirozko eta sarritan sinestezinezko horietan. Josu Zabaleta

Egundoko **kontakizun** gatz-ozpinduak iragarriz ehun ogerlekoko argitalpen merkeetan. Javi Cillero

Epaile bati zuzendu behar nion **kontakizun** erru-aringarria hasteko modu bat. Anjel Lertxundi

Lady Godivaren edertasunen **kontakizun** lerdejarioa. Anjel Lertxundi

Nork asmatu du ahoz aho dabilen **kontakizun** gaizto hori, [...]? Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lau ipuin luze edo nobela laburrez osaturiko **kontakizun**-liburua. Berria - Kultura

Talde horrek argitaratu zion lehen **kontakizun**-bilduma. Jose Morales

**Kontakizun**-mataza txiki bezain bizia ehundua zuen, tentuz eta berariaz aukeraturiko esaldiak baliatuz deskribapenetarako. Mirentxu Larrañaga

Banekien autobiografiaren bat idaztekotan hor zituela **kontakizun** iturririk onenak. Joxean Agirre

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri-**kontakizunetan**. Bernardo Atxaga

Biolonek maite ditu haren ume-**kontakizunak,** eta esna mantentzen du sekretutxoak eta istorio samurrak kontatuz. Itziar Otegi

Zeharka Isaiasen bokazio-**kontakizuna** aipatzen da. Askoren artean

**5** ***kontakizun izan***

Demagun **kontakizun** zenituzkeen gertakariak sineskaitzak direla. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kontakizun labur** (9); **kontakizun laburra** (3); **kontakizun laburrak** (4); **kontakizun nagusia** (3); **kontakizun zehatza** (3); **sei kontakizun** (3); **zortzi kontakizun** (6)

**jexuxen kontakizuna** (3); **kontakizuna amaitu** (4); **kontakizuna bukatu** (4); **kontakizuna entzun** (3)

**kontakizunak aurrera egin** (3)

**kontakizunarekin jarraitu** (4)

**kontakizunaren ardatza** (4)

---

**kontaktatu,** kontakta, kontaktatzen du *ad* harremanetan jarri.

Zorionez, Andonirekin **kontaktatu** ahal izan dut telefonoz. Joseba Sarrionandia

Hori baino lehen, Danirekin **kontaktatu** zuten bera aritzen den txataren bitartez. Antton Olano

1961eko martxoan Konpainiak AM/LASH kriptonimoaren atzean ezkutatuko zuten gizona **kontaktatu** zuten; Rolando Cubela Secades zen. Edorta Jimenez

**Kontaktatzeko** moduren bat (e-maila, telefonoa edo helbidea). Askoren artean

---

**kontaktatze** *iz* harremanetan jartzea.

**Kontaktatze** lan bat. Berria - Euskal Herria

---

kontakto ik **kontaktu**.

---

**kontaktu** *(orobat **kontakto** g.er.)* **1** *iz* ukitzea, ukipena.

Larruazalaren **kontaktua** behar dugu, haren berotasuna, ezpainen berotasuna, eskuen samurtasuna. Luis Elberdin

Eta haiekin batera titimutur harrotuen **kontaktua** larruazal bustian. Paddy Rekalde

Koitoa egiterakoan, ez dago inolako **kontakturik** zakilaren eta klitoriaren artean. Luis Elberdin

Irratia itzali zuen urduri, eta lepoa biratu zuenean, metal hotzaren **kontaktua** sumatu zuen kolkoan. Harkaitz Cano

Hotza sumatu zuen eskularru beltzaren **kontaktua**. Joxemari Urteaga

Boxeoa **kontaktuko** kirola da, eta kolpe txar asko jasotzen dira. Berria - Kirola

Gaixotasuna **kontaktuaren** bidez soilik kutsatzen da. Berria - Harian

**Kontakturik** gabeko txartela erabili ahal izango da Metroan. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Anfibioek garatu zituzten lehenengo **kontaktu** estrategiak. Luis Elberdin

Zutikako jarrera, berez, ezegonkorra da ingeniaritzari dagokionez, grabitate-zentroa oso goian geratzen baita eta lurrarekiko **kontaktu**-eremua [...] oso txikia baita. Irene Aldasoro

**Kontaktu** moduak desberdinak direnez, gure larruazalak ere hainbat sentimen bukaera ditu. Luis Elberdin

**Kontaktu** falta hori -haren ustez- pertsonekiko harremanean baizik ez zen gertatzen. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sexu **kontaktu** bat dagoen bakoitzean, horrek hots ozen eta berezia sorraraziko du, **kontaktu** bakoitzak bere hots zehatz eta partikularra. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zuen begi-**kontakturik** izaten, eta, begira ere, beste norabait begira egon zitekeen. Xabier Olarra

Ez zuen begirada-**kontakturik** egiten, ez gurasoekin, ez beste inorekin. Xabier Olarra

**4** kontaktatzea; kontaktatzen den pertsona.

Gizakien arteko benetako **kontaktua** presentzia isilaren bitartez baizik ez dela lortzen dio Cioranek. Imanol Zurutuza

Aszetismoa, lana eta naturarekin **kontaktu** zuzenean bizitzea. Iñaki Heras

**Kontaktua** Madrilen izan zuten. Edorta Jimenez

Jose Angel Cuerda Gasteizko alkate ohiarekin **kontaktuak** izan zituzten, baina ez zuten akordiorik lortu. Berria - Ekonomia

Aireratu, zeruan abiada hartu, lurrarekiko **kontaktua** galdu eta bere kasa doa ikuspen bila. Fernando Rey

**Kontaktuak** ditik, komentatzen genuen lagunok ahapeka eta mirespenez. Anjel Lertxundi

Gestaporen torturapean, **kontaktuaren** izena eman zuen azkenean gazteak. Joxan Elosegi

Dianne Short zela Laing kontseilariaren **kontaktuetako** bat. Fernando Morillo

Alpujarretako herri hartan **kontaktu** bat baitzuen, belarrez eta heroinaz hornitzen zuena. Joan Mari Irigoien

Txabik baditu **kontaktu** batzuk zerean... Unai Iturriaga

**Kontaktua**: Jean Claude Enrique 0613821486. Herria

Venezuelako **kontaktua** izatea leporatzen diote. Berria - Euskal Herria

**Kontaktu** ona, gizon guztiz baliagarria izan da baina, hara, hanka egin nahi izan du. Edorta Jimenez

Errefuxiatuek errepresaliak espero dituztela dio nire **kontaktuak**. Joseba Sarrionandia

**5** autoaren motorraren pizgailua.

**Kontaktuarekin** puska batean ri-ra aritu ondoren lortu du azkenik Txetxuk arrankatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Giltza **kontaktuan** biratu orduko aire egokitua automatikoki pizten da. Mikel Hernandez Abaitua

Autoan eseri, atea itxi, giltzatxoa **kontaktuan** sartu, irratia sintonizatu. Joxe Austin Arrieta

Autoaren **kontaktu**-giltzari eragin zion. Iban Zaldua

**Kontaktua** piztu, eta garajearen ate automatikoa zabaldu dun. Iban Zaldua

Hain zuen isila motorra, non **kontaktua** etenda zeukala uste izan baitzuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

**6** ***kontaktua egin***

Gure lehenengo zeregina itsasontziotako marinel abertzaleekin **kontaktua egitea** izan da. Edorta Jimenez

Gure Gizonarekin **kontaktua** azkenekoz **egin** zutenean. · Axoiak, hala ere, ez du benetako **kontakturik egiten** dendritarekin. Edorta Jimenez

Orain bi urte, Tourrean **egin** zuten lehen **kontaktua**. Berria - Kirola

**7** ***kontaktuan egon***

Bainugela bustian utzitako oinatzek ongi erakusten dute zentimetro karratu gutxi batzuk baino ez dituela zoruarekin **kontaktuan dagoen** eremuak. Irene Aldasoro

Airearekin **kontaktuan dagoen** ura lurrundu egiten da. Irene Aldasoro

Hegazti kutsatuekin **kontaktuan egon** zela. Berria - Gaiak

Andoniren bidez, Quitoko unibertsitatearekin **kontaktuan egon** da ia denbora guztian. Joseba Sarrionandia

· Kapilarrak oso **kontaktu** estuan **baitaude** tubuluekin leku askotan. Irene Aldasoro

**8** ***kontaktuan jarri***

Odola kanpoko airearekin **kontaktuan jartzen** denean sortzen da fibrina. Irene Aldasoro

Animalia askok oraindik ere usaimena baliatzen dute nagusiki gainerako munduarekin **kontaktuan jartzeko**. Itzultzen ginenean, norbait jarriko zen gurekin **kontaktuan**. Irene Aldasoro

Haiekin **kontaktuan jartzea,** hori duk kontua. Iñaki Iñurrieta

Saiatu omen dira zuekin **kontaktuan jartzen** baina, inork ez omen zuen telefonoa hartzen. Pablo Sastre

*Mars Express* zundaren bitartez *Beagle 2* robotarekin **kontaktuan jartzeko** lehen saioak huts egin duela. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kontaktu bakarra** (3); **kontaktu fisikoa** (3); **kontaktu ona** (3); **kontaktu zuzenean** (3)

**kontaktua egin** (5); **kontaktua galdu** (3); **kontaktua izan** (3); **kontaktua izateko** (4); **kontaktua izateko aukera** (3); **lehen kontaktua** (6); **publikoarekiko kontaktua** (3)

**kontaktuak izan** (3)

**airearekin kontaktuan** (5); **kontaktuan dagoen** (4); **kontaktuan egon** (6); **kontaktuan jarri** (4); **kontaktuan jartzeko** (5); **kontaktuan jartzen** (4); **kontaktuan sartu** (4)

**kontaktuaren bidez** (5)

**kontakturik egiten** (3); **kontakturik gabeko** (6)

---

# kontaktutxo *iz adkor* kontaktua.

Eta azpian, katilu gisako burdin hodi baten barruan, zortzi ikatz-mutur, haize-orratza jiratu ahala, zein ikatz ukituko, **kontaktutxoa** egin orduko, beheko bulegoan bonbillatxo bana pizten zela. Pello Zabala

---

# kontalari *(orobat **kondalari** g.er.)* **1** *iz* kontakizunak edo gertariak kontatzen dituen pertsona. ik **kontari, kontatzaile**.

1944an, Henry George Martin kontulari ingelesak -kontularia, kontuak egiten dituena, ez **kontalaria,** kontuak kontatzen aritzen dena-, [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kontalariak,** asmatu beharrik gabe, tradiziora jotzen zuen. Bernardo Atxaga

Aita **kontalari** ona zen. Ana Urkiza

**Kontalari** ona ez dabil herriz herri istorioak kontari, **kontalari** ona ipuinez ipuin dabil egiak sortuz. Koldo Izagirre

**Kontalari** trebea baina ez kontakatilu berritsua. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizon ameslaria, ixtoriorik zoragarrienen **kontalari** bikaina. Pablo Sastre

Eta marko mitiko batean kokatzen gaitu gu, **kontalariak** kontagai bihurtuok. Iñaki Iñurrieta

· Horietan guztietan **kontalari** jardundakoa ageri da egile bakar, aita Zavalaren aipamenik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurrena, hitz-aspertu luzeak, idazlegaiaren **kontalari**-sena eta kontatu beharrekoaren interesa neurtzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kontalari**-sena *Kronika*n ere argi nabari zaio. Askoren artean

Hala **-kontalari**-doinuz ekin zion berriz ere Ruche jaunak-, kurben asmatzaileek ez zuten ebazpen irrikatua ekarri. Jon Muñoz

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizakia beti da kontu **kontalaria,** bere istorioez eta besteen istorioez inguraturik bizi da, gertatzen zaion guztia horien bitartez ikusten du. Monika Etxebarria

Ipuin **kontalariak** egunsentira arte itxaron balu, ohartuko zen Troiako zaldia ez zela zaldi. Harkaitz Cano

Beste leku askotan bezala, Japonian ezaguna zen ipuin **kontalarien** langintza. J.M. Olaizola "Txiliku"

*Mila gau eta bat gehiago* jatorri hindu, pertsiar eta arabiarreko pertsonek asmatu zuten, eta mendez mende sortu eta osatu zen, ahotik belarrira, ipuin **kontalarien** bidez. Patxi Zubizarreta

Istorio **kontalari** sudur-harro bat bere istorioetan galdua. Koro Navarro

Paperak, azken finean, historia-**kontalari** dira, eta paperetan azeri-begiz arakatu ondoren, aitak matxino bizitza hartzeko arrazoiak zein izan ziren ikasi zuen. Felipe Juaristi

Medikukideek ezagutzen ninduten, eta bazekiten txiste-**kontalari** trebea izan nintekeela, hainbatetan. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erakundeko kontalari berezi** (4); **ipuin kontalari** (13); **istorio kontalari** (3); **kontalari berezi** (13); **kontalari berezi ohiak** (4); **kontalari bereziak** (3); **kontalari bikaina** (4); **kontalari ona** (7); **kontalari onak** (4); **kontalari trebea** (3); **nbeko kontalari** (6); **torturaren aurkako kontalari** (3); **torturaren kontrako kontalari** (4); **torturari buruzko kontalari** (4); **torturen kontrako kontalari** (3)

**ipuin kontalaria** (8); **kontu kontalaria** (3)

**ipuin kontalariak** (16); **nbeko kontalariak** (4)

**kontalariaren gomendioak** (3); **nbeko kontalariaren** (3)

**ipuin kontalarien** (5)

**ixtorio kondalari** (7); **ixtorio kondalari gisa** (3); **koldo amestoy kondalari** (4); **kondalari gisa** (4)

**ipuin kondalaria** (4); **ixtorio kondalaria** (4); **koldo amestoy kondalaria** (6)

**kontalaritza** *(orobat* ***kondalaritza*** *g.er.)* *iz* kontalariaren jarduera.

Gauza asko nahasten dira hor aldi berean: herri-**kontalaritzaren** aipamena, Döblinen idazkeran ahozkotasunak zuen garrantzia, obrak egituratzeko Döblinen bide parataktiko episodikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beste jardun batzuk ere badira, jakina, ipuin **kontalaritza,** txiste **kontalaritza,** maitasun gutunen lehiaketak, behar beste landu ez diren antzerkigintza eta txotxongiloak... Koldo Zuazo

---

**kontaminatu**, kontamina, kontaminatzen du *ad* kutsatu.

Zerga **kontaminatzen** duen autoari. Berria - Ekonomia

Kantuak ez dira jaiotzen kristalezko kaiola batean **kontaminatu** gabe egoteko. Berria - Harian

Utziok, etzak gehiago **kontaminatu**! Pako Aristi

---

**kontaminatzaile** *iz* kontaminatzen duen gaia.

Ongarriak dira **kontaminatzaileetako** batzuk nitratoak, fosfatoak, nitritoak.... Berria - Gaiak

---

**kontamodu** *iz* kontatzeko modua. ik **kontamolde**.

Eta kontagaiarekin batera doa **kontamodua** ere, tarteka atzera-aurrera baitabil istorioa, denboraren markak galduta eta logikaren arauak apurtuta, nahiz oro har eta sigi-sagaka kontakizunak aurrera egin. Unai Elorriaga

---

**kontamolde** *iz* kontatzeko moldea. ik **kontamodu**.

Honako hau antologia izaki, haren ipuin batzuk besterik ez ditugu hautatu; bertsioa izaki, ezin bada haren **kontamoldea** zehatz-mehatz azaldu. Patxi Zubizarreta

---

**kontapoesia** *iz* kontatzeko poesia.

Deskripzioei garrantzi handia ematen dien **kontapoesia** ederra. Berria - Harian

---

**kontarazi**, kontaraz, kontarazten du *ad* kontatzera behartu.

Balentria hamalau aldiz **kontarazi** genion. Aingeru Epaltza

Ronek eta Hermionek behin eta berriro **kontarazten** zioten ikusitakoa. Iñaki Mendiguren

Mary Phillips -jarraitu zuen Evans jaunak-, ...eta, berriz ere inteligentsiak isilarazten banau, bere ebakuntza guztiak **kontaraziko** dizkiot, barkaziorik gabe, Roberts jaunari. Koro Navarro

· Txanponak **kontarazi** zituen buruzagiak. Jon Muñoz

---

**kontari** *(orobat* ***kondari*** *g.er.)* **1** *iz* kontalaria.

Panpi Laduche kantxaren moldatzaile, Mixel Dunate **kondari**. Herria

Alaitzeko hor izanen da Cazenave ixtorio **kondaria**. Herria

• **2** *adlag* kontatzen.

Iruditzen zaio ura ari zaiola **kontari**. Bernardo Atxaga

Ilunabarrean puntu egiten eta elkarri esamesak **kontari** egoten ziren emakumeek. Koro Navarro

Kontu horiek **kontari,** etxerainoko bidea egin genuen. Xabier Olarra

Tabernara neka-neka egina iristen zen, eta bere burua gela beiraduneko bankuan erortzen uzten zuen, aldi oro istorio desberdinak **kontari**. Karlos Zabala

Kontalari ona ez dabil herriz herri istorioak **kontari,** kontalari ona ipuinez ipuin dabil egiak sortuz. Koldo Izagirre

Kontalariak istorio berriak asmatu behar ditu, [...] galdutakoak oraitu ezinda beti berriro asmatzen hasi behar du **kontari** hasten den bikoitzean. Koldo Izagirre

· Eta bidean txantxa-**kontari** eta barreari emanez zihoazen. Juan Garzia

Tira, tira, gizona, gezur-**kontari** hasi haiz berriro. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kantu kontari** (18); **kontari aritu** (7); **kontari aritzen** (7); **kontari hasi** (8); **kontari hasten** (5); **kontu kontari** (107); **kontu kontari ari** (7); **kontu kontari aritu** (6); **kontu kontari aritzen** (5); **kontu kontari hasi** (6); **kontu kontari hasten** (4); **txiste kontari** (3)

---

**kontatu**, konta, kontatzen *(orobat* ***kontadu*** *g.er.,* ***kondatu*** *g.er. eta* ***kundatu*** *g.er.)* **1** du *ad* besteri, ahoz nahiz izkribuz, gertatu den zerbait, edo norberak edo bestek asmatu duen zerbait, esan edo aditzera eman.

Zer **konta** dezaket besterik? txikia zinenean gertatu zen gauza bat **konta** diezazuket. Koro Navarro

Dakidana besterik ezin **konta** dezaket. Joxe Austin Arrieta

Dena **kontatu** zidan. Koro Navarro

Gainera, telefonoz ezin nion ezer **kontatu**. Jon Muñoz

Lasaitasuna behar zen zerbait **kontatzeko**. Ramon Saizarbitoria

Telemakok bidaiaren gorabehera guztiak **kontatu** zizkion. Juan Kruz Igerabide

Goetheplatzekoa **kontatzen** hasi nintzaion. Anjel Lertxundi

Liburuaren hari nagusia **kontatzeko** eskatu diot. Joxerra Garzia

**Kontatua** dut historia. Piarres Aintziart

Sekretu bat **kontatzera** doanaren jarreraz. Anjel Lertxundi

Berak ez zuela kontu haiek **kontatzeko** abilidaderik. Koro Navarro

Labur **kontatuko** dizuet. Pako Aristi

Eta istorioa halako gozamenez **kontatu** duzunez, infernuko zulotik zure hitzak entzuten aritu naiz. Koro Navarro

Ceciliak zekien apurra **kontatu** zion totelka. Josu Zabaleta

Hitz egin behar nuen, gertatutakoa **kontatu,** barrena hustu. Anjel Lertxundi

Guk hitzarmen bakarra genuen: etxetik kanpoko abenturak elkarri **kontatu** behar genizkion. Karlos Zabala

Aedo batek bezala **kontatu** diguk gertatutako guztia. Juan Kruz Igerabide

Lisak lehengusuaren istorioa **kontatu** zion entzun nahi izan zuen orori. Karlos Zabala

**Kontatu** zuen arteko historia. Antton Olano

Harrigarria zen zeinen aske sentitu ziren, eta zeinen gezur gutxi **kontatu** behar izan zuten. Mirentxu Larrañaga

-Ez ezak etxean **kontatu** autobusa hartu dugunik -esan nion-. Koro Navarro

Florentek **kontatu** zion Pirouette kalera joana zela. Karlos Zabala

**Kontatu** zion nola lagun batek afaria ordaindu zion Baratterenean egun zoragarri batez. Karlos Zabala

Nor ikusi dudan **kontatu** diot Mikeli, 22.000 euro balio dituen furgona batean. Pako Aristi

**Kontatu** zidan ezen, gerra piztu zenean, aitak ez zituela hamasei urte besterik. Juan Kruz Igerabide

Estherrek **kontatu** zidanaz pentsatzen aritu nintzen, nola ikusi zuen Hitler kafetegian. Koro Navarro

Ene!, mundu guztiari **kontatzeko** irrikaz nago. Mirentxu Larrañaga

Berak **kontatu** nahi ez badizu, ni ez naiz nor. Anjel Lertxundi

Baina komeria horiek ez dira hemen **kontatzekoak**. Joxerra Garzia

Bazuten segur zer **konda** elgarri, eskolako orroitzapen, gazte denborako eta beste. Herria

Baluke ziur zer **konta**. Piarres Xarriton

**2** multzo bateko osagaien kopurua mugatu, zenbaki arrunten segidaren arabera adieraziz joanez. ik**zenbatu.**

Hamabost fraide **kontatu** ditut. Anjel Lertxundi

-Hirurehun versta **kontatu** ditiat Permetik Jekaterinburgera. Karlos Zabala

Ordura arte idatzitako sarrerak **kontatzeko** lanik ez nuen hartu artean, baina ehunetik gertu izan behar zuten. Oskar Arana

Gero bagoiak bata bestearen ondotik, bagoi baxuak, estali gabeak, eta haietan, kaxatan, bolbora, lastogeruzaz banandutako kaxak, hiru, lau, bost bagoi, **kontatu** nituen. Fernando Rey

Lehenbiziko asteetan ezin nituen neure hatzak **kontatu** ere egin: ohartzen nintzen han zeudela guztiak, baina, zera, ezin nituen **kontatu** batetik bestera pasatzean. Xabier Olarra

Jarri ditudan kopuruak gutxi gorabeherakoak dira nahitaez; baina dena **kontatu** dut, nik uste, eta batere labur ibili gabe... Karlos Zabala

Bel-en apaizak hirurogeita hamar ziren, emazteak eta seme-alabak **kontatu** gabe. Jose Antonio Mujika

*Cella* horrek, paretak eta inguruko galeria **kontatu** gabe, kolomen altuera izango du diametroan. Santiago Iruretagoiena

### 3 *ezin konta ahala*

Ulermena gainditzen duten mirariak egiten ditu, gauza harrigarriak, **ezin konta ahala**. Elizen arteko biblia

Ez dagoela lekurik **ezin konta ahala** iheslarirentzat. Joxe Austin Arrieta

Gotorleku hau **ezin konta ahala** inurrik eta zenbait soldaduk defendatua dago. Koldo Izagirre

Frantzia **ezin konta ahala** jaurerri txikitan banatuta zegoenez. Iñaki Iñurrieta

**Ezin konta ahala** opari zuen: Charvet musuzapiak, art moderne eiteko hautsontziak, [...]. Mirentxu Larrañaga

Hura ikusi, eta **ezin konta ahala** ahots hasi zitzaizkidan barrutik irten beharrean. Juan Kruz Igerabide

Beste gisa bereko **ezin konta ahala** herritatik. Iñaki Segurola

**Ezin konta ahala** ziren horrelako aldaerak. Koldo Zuazo

**Ezin konta ahala** izango direla historiako zuloak, etengabea anakronismoaren arriskua. Xabier Mendiguren Elizegi

### 4 *ezin konta ahalako izlag*

Jerusalemgo altxortegia **ezin konta ahalako** aberastasunez betea zegoela. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abenturak kontatu** (7); **aitak kontatu** (5); **aitari kontatu** (8); **amak kontatu** (13); **amari kontatu** (7); **ametsa kontatu** (10); **anaiei kontatu** (6); **bere bizitza kontatu** (5); **bere historia kontatu** (9); **bizitza kontatu** (14); **bizitza osoa kontatu** (6); **egia kontatu** (14); **elkarri kontatu** (5); **esperientzia kontatu** (7); **gauza asko kontatu** (7); **gauza bat kontatu** (6); **gauza kontatu** (7); **gauzak kontatu** (8); **gertaerak kontatu** (5); **gertatua kontatu** (11); **gertaturiko guztia kontatu** (5); **gertaturikoa kontatu** (5); **gertatutako guztia kontatu** (6); **gertatutakoa kontatu** (28); **gorabeherak kontatu** (11); **guztia kontatu** (55); **hamar arte kontatu** (7); **historia kontatu** (49); **historiak kontatu** (6); **hori guztia kontatu** (6); **istorio bat kontatu** (11); **istorio osoa kontatu** (6); **istorioa kontatu** (44); **istorioak kontatu** (14); **kasua kontatu** (5); **lagunek kontatu** (5); **norbaiti kontatu** (5); **ondo kontatu** (5); **pasadizoa kontatu** (6); **titularra kontatu** (6); **xehetasun guztiekin kontatu** (5); **zehatz mehatz kontatu** (23) zera kontatu (5); **zerbait kontatu** (23)

**historia kontatuko** (7); **ipuin zoragarriagoa kontatuko** (18); **istorio bat kontatuko** (7); **istorioa kontatuko** (8); **kontatuko zuela hitzeman** (18); **tesiarena kontatuko** (7)

**zer kontaturik ez** (5)

**gauzak kontatzea** (5); **istorioak kontatzea** (11); **kontatzea erabaki** (9); **kontatzea merezi** (7)

**elkarri kontatzeko** (7); **esperientzia kontatzeko** (5); **gauzak kontatzeko** (9); **gertatutakoa kontatzeko** (7); **guztia kontatzeko** (7); **historia kontatzeko** (8); **istorio bat kontatzeko** (6); **istorioa kontatzeko** (14); **istorioak kontatzeko** (11); **kontatzeko aukera** (6); **kontatzeko beharra** (5); **kontatzeko eskatu** (14); **kontatzeko eskatzen** (6); **kontatzeko gogoa** (8); **kontatzeko irrikaz** (5); **kontatzeko modu** (7); **kontatzeko modua** (10); **kontatzeko moduak** (5); **kontatzeko moduan** (8); **kontatzeko moduko** (8); **kontatzeko modukoa** (5)

**abentura kontatzen** (6); **abenturak kontatzen** (8); **amak kontatzen** (6); **bere bizitza kontatzen** (5); **bidaia kontatzen** (10); **bizipenak kontatzen** (9); **bizitza kontatzen** (25); **buruz kontatzen** (14); **dirua kontatzen** (5); **egunak kontatzen** (8); **elkarri kontatzen** (5); **gauza asko kontatzen** (5); **gauzak kontatzen** (13); **gertaerak kontatzen** (8); **gertatutakoa kontatzen** (6); **gorabeherak kontatzen** (23); **guztia kontatzen** (14); **historia bat kontatzen** (5); **historia kontatzen** (36); **historiak kontatzen** (8); **ipuin bat kontatzen** (8); **ipuina kontatzen** (7); **ipuinak kontatzen** (18); **istorio bat kontatzen** (11); **istorio bera kontatzen** (7); **istorio hau kontatzen** (5); **istorioa kontatzen** (84); **istorioak kontatzen** (49) kontatzen den istorioa (5); **kontatzen diren istorioak** (5); **kontatzen duen liburu** (5); **maitasun istorioa kontatzen** (5); **pasadizoak kontatzen** (10); **txisteak kontatzen** (7)

**bizia kondatuz** (5)

**bizia kondatzen** (5); **historia kondatzen** (8)

---

## kontatzaile *(orobat **kondatzaile** g.er.) iz* kontatzen duena.

**Kontatzaile** on baten trebezia erakusten du. Berria - Kultura

Hiztun ona eta **kontatzaile** egokia izan behar zuen, beraz, Vitréko merkatariak, erregearen ganberetan bezala geografoaren etxean arreta pizten baitzuen bere kontakizunekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Istorio **kontatzaile** petoa. Berria - Kultura

Bertze inork ez eginen-eta abuztu horretako gertakizunen **kontatzaile** lana bizkarreratzean, urrun izan dut duin agertu nahia. Aingeru Epaltza

---

## kontatze *(orobat **kondatze** g.er.) iz* besteri, ahoz nahiz izkribuz, gertatu den zerbait, edo norberak edo bestek asmatu duen zerbait, esan edo aditzera ematea.

Ez gara geldituko mirariak **kontatze** hutsean, mirariek ez baitute santutasuna eratzen. Herria

Orain, berriz, asko dira, haiek egin zituztenak **kontatze** hutsarekin, ohorea eta gizakien gorespena jaso nahi dutenak. Askoren artean

**Kontatze**-modu horrek, gainera, halako durundi mitiko bat ematen dio kontaketari. Iñaki Iñurrieta

konte ik **konde**.

# **kontenedore** *iz* edukiontzia.

Botila bakoitzak itzelezko burrunbada ateratzen zuen **kontenedore** barruko milaka kristal pusken kontra jotzean. Sonia Gonzalez

30 metra kubikoko **kontenedore** bat igorri dute Argentinara, 11 tona puskeriarekin: janaria, tresnak, arropak, altzariak, garbikariak, liburuak, erremedioak... Herria

Zabor **kontenedorean** calle de la Providencia 37 idatzirik dago. Eider Rodriguez

kontener ik **kontainer**.

# **kontenitu** *izond* eutsia.

Mikelek goiko ezpaina ezkerrerantz eta gorantz mugitu zuen pixka bat, halako oinaze **kontenitu** baten metafora tontoa irudikatuz. Unai Iturriaga

# **kontenplari** *iz* kontenplaziora ematen dena.

Nabarmentzekoa da Frantziskok bi **kontenplariri** egiten diela kontsulta bere ekintza-bizitzaz. Askoren artean

Eta bere baitara itzuliz, beste mundutik baletor bezala, zerutar **kontenplariak** galdetu zion bere lagunari: "Noiz iritsiko gara Borgora?". Askoren artean

# **kontenplatibo** *izond* kontenplazioari dagokiona.

Dela bizitza **kontenplatiboan,** dela ekintzazkoan. Joan Mari Lekuona

Arantxa Jaka, Arritxabaletan 31 urteko aguxtindar serora **kontenplatibaren** lekukotasun aberatsa. Herria

Poliziak galdeketa gogorra egingo dio filosofo **kontenplatiboari,** Inperioaren mugaldeko bazter latzak bilatu zituen, lintzura dorpeak eta basamortu **kontenplatiboak,** bakardadeak lagun ziezaion bere patua ulertzen. Juan Garzia

# **kontenplatu,** kontenpla, kontenplatzen du *ad* begietsi, so egon.

Jainko-maiestatearen bikaintasuna **kontenplatuz** eta miretsiz. "Ispilu" moduko bat eskaini nahi die egileak, non Frantziskoren santutasuna **kontenplatu** ahal izango duten eta berentzat bizi-eredua aurkitu. Askoren artean

Bere bizitza **kontenplatzeaz** batera. Izpirituak berriz **kontenplatuko** duela kanpoko gorputza, hor balitz bezala. Piarres Xarriton

Giza Izpirituak gorputz hori aitzinean balu bezala **kontenplatuko** du. Piarres Xarriton

Betikotasunean Jainkoa **kontenplatzeko** beronen argi jainkozkoan. Joan Mari Lekuona

Nork bere barrena aztertzeko, hausnartzeko, **kontenplatzeko** eta hitzez nahiz gogoz otoitz egiteko edozein modu. Patxi Altuna

Gauzen **kontenplatzeko** bi modu horiek deituko ditut hemendik hara lehen moduko ezagutza, iritzia edo irudipena. Piarres Xarriton

Baina eguzkia hartzeko edo itsasoa **kontenplatzeko** aukera izango zenuten, ez? Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere burua kontenplatzean** (3)
> **bere burua kontenplatzen** (3)

# **kontenplatzaile** 1 *izond*

Jarrera diskurtsiboa, ez miresle edo **kontenplatzaile** soila, prozedura lexiko eta fonetikoekin indartzen du. Xabier Amuriza

Maitasun hau ez da kanpoko eta zentzuekiko ardura singlea, baizik eta asmo **kontenplatzailea** da, norbere borondatearen sakonenean errotua. Joan Mari Lekuona

**2** (izen gisa)

Azkenik, Borgo aspalditxo atzean utzia zutenean, legendunen etxera iristean, zeruko gauzen **kontenplatzaileak,** beste mundutik baletor bezala, Borgora heltzeko zenbat falta zen galdetu zuen arduraz. Askoren artean

# **kontenplatze** *iz* begiestea, so egotea.

**Kontenplatze** edo hausnartze guztiak baino lehen. Patxi Altuna

Poztasunezko nahiz Tristurazko afektu batek hunkitu duen edozein gauzaren **kontenplatze** soilagatik gauza hura maita edo gorrota dezakegu. Piarres Xarriton

Zeren etsaia biziki saiatzen baita laburtzen **kontenplatze,** hausnartze edo otoitze hartako ordu hura. Patxi Altuna

# **kontenplazio** 1 *iz* kontenplatzea.

Taberna bateko terrazan jesarrita zegoen Santos, Santurtziko portutik hurre, eta bere begiak ez zeuden itsasadarra errainu kaleidoskopikoez janzten zuen arrastiriaren **kontenplazioan**. Josu Landa

Sentitu bai, baina kategorien arabera pentsatzen ez dugunaz (pintura baten **kontenplazioan,** adibidez). Askoren artean

Bilkuretan sobera luzaz neska gazteari so egon ez nahiz, nere barnearen barnean nuen ikusten, pertzepzio ihesak **kontenplazio** iraunkor bilakatuz. Piarres Aintziart

Soroan lan egin nahi nuen, **kontenplaziozko** bizitza nahi nuelako. Berria - Kultura

**2** (erlijiozko bizitzan)

Erran nizun lehengoan ezen meditazionea mendi bat dela, eta **kontenplazionea** haren gailurra. Joan Mari Irigoien

**Kontenplazioaren** bidez gizakiak erabat Jainkoagan murgildu behar du bere ahalmen guztiekin, horrela bere ezereztasuna osorik onartua izan dadin eta eraberritua. Joan Mari Lekuona

Eremitorioetan [...] **kontenplaziora** emanak bizi nahi zuten anaien araubide izan zedin. Askoren artean

Adimenez barea, gogoz gozoa, espirituz neurritsua, **kontenplazioan** jasoa, otoitzari etengabe emana eta gauza guztietan sutsua. Askoren artean

Euskal literaturak aszeta asko eman ditu [...] baina mistikorik ez, beharbada mistikak bere-berea duen **kontenplazioa** ez datorrelako bat gure izaerarekin. Anjel Lertxundi

Zu, ordea, Timoteo bihotz-bihotzekoa, jardun zaitez **kontenplazio** jainkozkoan. Joan Mari Lekuona

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kontenplatibo**.

Predikatzen ala **kontenplazio** -bizitzan jardun behar zuen jakiteko. Askoren artean

Era honetan astero lanean jardundakoak **kontenplazio** -bizitza egitera pasatzen dira, eta kontenplazioko atsedenean egonak zereginetara itzultzen. Askoren artean

Santa Teresa Avilakoaren **kontenplazio** isuria. Pello Zabala

"Nor zara zu, ene Jainko txit eztia?" esatean, **kontenplazio** -argi batean murgiltzen nintzen. Askoren artean

Estetika kontrajarria dute: batetik **kontenplazio** poesia dago: naturaren eta pertsonaren arteko harreman sinple eta naturala duena ardatz, naturaren erritmoak goraipatzen dituena. Berria - Kultura

**Kontenplazio** ordenetarako dohainak nituen, banekien orduan. Joxan Elosegi

Baina jatera ere ez zen ezarritako orduetan joaten, **kontenplazio** gosea indartsuagoa baitzen, eta oso maiz guztiz menpean hartzen zuen. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Merituak irabazteko eman zitzaion denbora zuhurki erabiltzen ikasia zuen: zati bat lagun hurkoen aldeko lan probetxugarrietan ematen zuen, eta beste zatia estasi- **kontenplazio** lasaietan. Askoren artean

**5** ***goi kontenplazio***

Oihuka hots egiten zuten zeruko ateetan eta otoitzari ekinez bertan sartzea lortzen zuten, goi- **kontenplezioan** murgiltzen ziren. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontenplazioaren bidez** (5); **kontenplazioaren gozotasuna** (3)
> **kontenplaziora emateko** (3)

---

## kontenplazione ik **kontenplazio**.

---

## **kontent** *(orobat* ***kontentu*** *g.er. eta* ***kuntent*** *g.er.)* **1** *adlag* pozik, alai.

**Kontent** joan ginen holako anaitasunak bihozberoturik. Marzel Etxehandi

Ahotsari jaramon egitera, ez zirudien gu ikusteaz **kontent** . Mirentxu Larrañaga

Bere izatearekin eta inguruarekin pozik eta **kontent** bizi denak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ziur naiz Jack oso **kontentu** ibiliko dela hemen. Koro Navarro

Unaik **kontent** ematen zuen ni ikusteagatik, eta hori ez zen astoaren goizeko arrantza. Aingeru Epaltza

**Kontent** ematen zuen, eta ez nago ohituta semea nirekin egoteko menturan **kontent** ikustera. Aingeru Epaltza

Eta kontatu zidan **kontent** eta lasaitua gelditu zela, baina, usadiozko *post coitum* zigarreta erretzen ari zenean, neskak begiratu eta zera bota ziola: "Eta ipurdia, zer?". Karlos Zabala

· Beti alai eta **kontent** . Mirentxu Larrañaga

Honena edo harena jokatzeko eskatzen zidaten eta nik, **kontent,** haien nahia asetzen. Aingeru Epaltza

Wilmarth andereñoak, haiek ezagutu izanaz **kontent,** urte askotarako esan zien bozkarioz. Mirentxu Larrañaga

· Sekula ez ditu oso gustuko izan beti- **kontentu** horiek. Jokin Muñoz

Eta tonto- **kontentu** gelditu zen galdera zorrotz ustea egin eta gero. Anjel Lertxundi

**2** ***kontent egon***

Behingoagatik, **kontent** zegoen nirekin. Joxan Elosegi

**Kontent** nengoen neure buruarekin. Aingeru Epaltza

Charlie ere nahiko **kontent** zegoen bere buruaz. Mirentxu Larrañaga

Nornahi eta nonahi zela ere, **kontent** egoten ahal zen bere arrakastaz. Aingeru Epaltza

Jendeak isil-isila eta **kontent** zeuden. Aurelia Arkotxa

Jende askori on egin diot, jende asko-askori, eta **kontent** nago horregatik. Karlos Zabala

**Kontentu** zegoen, pixka bat argalduta baina. Pablo Sastre

Askietsi-edo egiten duzu bildua duzun munduari buruzko ezaguera delako hori, **kontent** zaude, eta, orduan, noizbehinka, zerbait gertatzen da eta erauzi egiten zaitu handigurazko oskol harro horretatik. Oskar Arana

**3** ***kontent izan*** da *ad*

Denak **kontent** ziren. Marzel Etxehandi

-Bada, hura ez omen duk batere **kontent** . Aingeru Epaltza

Pentsa beraz **kontent** naizenez. Piarres Aintziart

Jatekoaz **kontent** ez zirenak murruaren gainetik pasatu-eta inguruko laborariei behar zutenaren kentzera joaiten ziren. Marzel Etxehandi

**Kontent** nintzen Emmarekin egonik. Daniel Landart

**4** ***kontent-kontent***

**Kontent-kontent** bizi da azpi-programa hori asmatu duen programatzailea. Karlos Zabala

Eta bakoitzaren karma konplitu zen, gu Andyrekin jo eta jo, eta Tracy **kontent-kontent** buztana lehiaz eta hortzez norbaitek jaten ziolako. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arras kontent** (18); **arras kontent dira** (4); **aski kontent** (5); **biziki kontent** (17); **kontent agertu** (14); **kontent azaldu** (4); **kontent bizi** (4); **kontent da** (16); **kontent dago** (8); **kontent egon** (3); **kontent egongo** (3); **kontent egoteko** (6); **kontent ematen** (4); **kontent gelditu** (11); **kontent geratu** (3); **kontent izan** (3); **kontent izanen** (5); **kontent izango** (4); **kontent izateko** (4); **kontent joan** (4); **kontent kontent** (3); **kontent mintzatu** (3); **kontent nago** (31); **kontent naiz** (18); **kontent utzi** (6); **lanarekin kontent** (4); **ontsa kontent** (3); **oso kontent** (32); **oso kontent nago** (7); **oso kontent zegoen** (3)

---

## **kontentaerraz** *izond* erraz kontentatzen dena.

Soil-soilki zure bihotza neurriz gain ari da zure adimenaz baliatzen, eta arrazoi txarrak erranarazten dizkio: ni ordea, arras axolatua bainaiz nire burua ez tronpatzera, ez naiz hain **kontentaerraza** . Jon Muñoz

---

## **kontentagaitz** *izond* erraz kontentzatzen ez dena.

Eta, jostatzeko, munduko jenderik **kontentagaitzena** ekartzen dit etxera, gertaera nahasietan sartu eta haietatik nola atera ez dakiten gizonak. Josu Zabaleta

Baroja atsekabetuta zegoen, **kontentagaitza** zen, eta, azken finean, mikaztuta bizi zen. Jarrera borrokalari eta **kontentagaitz** honek bere onetik ateratzen ditu kartzela-zainak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**kontentagaiztasun** *iz* kontentagaitza denaren nolakotasuna.

Bere iritzi propioa zuen anaiaren gaixotasunari buruz, oso zentzuzkoa, aldez zientzian funtsatua, eta aldez Sasharen gaitza norberaren bizimoduarekiko **kontentagaiztasun** orokorrak eragin zuelako uste sendoan oinarritua. Jose Morales

---

**kontentamendu** *iz* kontentua.

otoitz hartan hartzen nuen bertzela nekez hartzen nuèn sosegu eta **kontentamendu** apurra. Joan Mari Irigoien

Isiltasun eta **kontentamendu** horietan luze ari dira solasten. Jose Angel Irigaray

---

**kontentatu**, kontenta, kontentatzen **1** da *ad* aski izan, etsi.

Azkenean bere asmoari utzi eta eskuak soilik uretan sartzearekin **kontentatu** zen. Matías Mujika

Nolaz baso txar bat arno beltzez **kontentatu**? Piarres Aintziart

Gu, ordea, nesken titietara begira eta haien izterrak ukitzen **kontentatu** ginen, mozkortuegi geundelako eta, urduritasuna disimulatzeko, edan eta edan segitzen genuelako. Anjel Lertxundi

**Kontentatzen** zaila izateaz harro den pertsona. Xabier Olarra

**2** du *ad* gogoa bete, askietsi.

Uste duten guztia baino askoz ere gehiago ahalegintzen naiz ingurukoak **kontentatzen**. Josu Zabaleta

"Gaur egun zaila duk emakumeak **kontentatzea,"** esan zuen Kakok. Pablo Sastre

---

**kontentu**[1] **1** *iz* poza, atsegina.

Gauzen eskasak emaiten zidan nekeziak halako **kontentu** batez betetzen ninduen. Piarres Aintziart

Udako egarrien ondotik beren **kontentua** denei erakutsiz. Piarres Aintziart

Norberarekiko **Kontentua** Umiltasunari kontrajartzen zaio. Piarres Xarriton

**2** (hitz elkartuetan)

Duda franko ibili ondoren deliberatu naiz hemen berriro ateratzera, nahiz horko zenbait esan-moduk ez nauten orain batere atsegin-**kontentuz** betetzen. Iñaki Segurola

Biak elkarrekin gustura badaude bat-egitea erdiesten da, hots, salgaia erostea, partaide bien gozamen-**kontentu** begien bistakoz. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> norberarekiko kontentua (7)

---

kontentu[2] ik **kontent**.

---

**kontentzioso** *(orobat **kontzentzioso** g.er.)*

**1** ***kontentzioso-administratibo***

Espainiako Entzutegi Nazionalaren atal **kontentzioso**-administratiboan helegitea jartzeaz gain, Espainiako Ingurumen Ministerioko sei karguren aurkako kereila kriminala ere aurkeztu zuen. Berria - Euskal Herria

Aurki beste helegite **kontentzioso**-administratibo bat aurkeztuko du EAEko Justizia Auzitegi Nagusian. Berria - Euskal Herria

---

konterri ik **konderri**.

---

kontesa ik **kondesa**.

---

**kontesta** *iz* erantzuna.

Baita **kontesta** jaso ere laster. Patziku Perurena

Mika bezain solasturia, aise ematen zien **kontesta** nire txantxei, ez dakit zerk hartaratuta. Aingeru Epaltza

Ez zuten nahi gorteko inork ikus zezan beren **kontesta** irmoan errege bidezkoenganako etsaigorik. Aingeru Epaltza

Etzaidak gogorarazi, seme, esan zidan, ahots apalean, poliki, baina **kontestarik** ametitzen ez zuen moduan. Jon Alonso

-Zorioneko gaudek sorgorkarien edukitza gehitu ez diotelarik kargu horri **-kontesta** Kixok azkenik. Aingeru Epaltza

---

**kontestadore** *iz* erantzungailua.

Marmarka ireki dut atea, laugarren deia joz gero **kontestadore** automatikoa sartzen baita. Xabier Etxabe

---

**kontestatu**, kontesta, kontestatzen **1** du *ad* erabaki bat ezeztatzea eskatu. ik **inpugnatu**.

Bere emaztea berriz Jordanian du, iheslari, eta hogei bat abokat baditu berekin, senarrari egina zaion auzia **kontestatzen** dutenak. Herria

**2** erantzun.

**Kontestatzen** badiazu etxera idatzi, aurki emengoa bukau ta an izango naiz eta. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**kontestatzaile** *iz* kontestatzen duena. ik **inpugnatzaile**.

Huna hain zuzen Radjavi hunen emaztea, Maryam Radjavi, (hau ere **kontestatzaile** beroa) preso hartu dutela Parisen, Fleury-Merogis delakoan. Herria

kontestazino ik **kontestazio**.

---

**kontestazio** *(orobat* ***kontestazino****)* **1** *iz* erantzuna.

-Ezta pentsa bere, ze ez dakizu atzetik zer **kontestazino** etorriko jatzun. Xabier Amuriza

**2** kontrako jarrera.

**Kontestazioari,** alternatibak gehitzeko moduan. Herria

---

**kontestu**[1] *iz* testuingurua.

**Kontestu** honetan agertzen da liburu hau 1764an. Juan Martin Elexpuru

Gakoa garbi dago: interes tasa baxuen **kontestuak** zenbat iraungo duen asmatzea. Berria - Ekonomia

Oztopotxo bat du, ordea, nahiz eta **kontestuak** erraz argituko duen, ustez: polisemikoa dela. Iñigo Aranbarri

Arte garaikideko museoak eta beren **kontestu** soziala.

Esperantza baino kezka handiagoa dakarten testua eta **kontestua** . Berria - Harian

---

**kontestu**[2], kontes, kontesten du *ad* kontestatu, erantzun.

Baina niri zer izan nahi nuen galdetu izan balit inork mutikotan,"mandazain" **kontestuko** niokeen itsu-itsuan. Patziku Perurena

"Baita zea re! puzker bateri puntan bi korapillu?" **kontesten** nion, duro irabazi ustekoa bat-batean galdua neukala konturatzean. Patziku Perurena

---

**kontestual** *izond* kontestuarena, kontestuari dagokiona.

Zientziaren dimentsio **kontestuala** . Askoren artean

Kuhnen teoriak zientziaren irudi **kontestuala** bultzatu zuen. Askoren artean

Zein da, azkenean, alde **kontestual** integralaz horrituriko zientziaren irudirako ikusmolde egokia? Askoren artean

Eta izenondo horiek sinonimo **kontestualtzat** jo daitezkeelarik, alferrikako pilatze bat da. Iñaki Segurola

Guretzat balio bereko dira Iturriagaren "ateraldi" testuala eta Maiaren "ateraldi" **kontestuala** . J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

**kontestualismo** *iz*

Epistemologia feminista, **kontestualismoa** edo epistemologia naturalizatuaren forma anitz eta desberdinak, Quinez harago doazenak. Askoren artean

---

**kontestualizatu,** kontestualiza, kontestualizatzen du *ad* zerbait testuinguan jarri.

Iñigok **kontestualizatu** ondoren ulertu zuen keinua, eta atzealdera bueltatu zen. Unai Iturriaga

Niri interesgarria iruditzen zait apokrifoak **kontestualizatzea** . Berria - Kultura

---

**kontestualizazio** *iz* zerbait tesuinguruan jartzea.

Raxoik egindako **kontestualizazioa** papagai baten moduan errepikatu du Sanzek. Zientziaren filosofiak ez du zientzia logikoki aztertu behar, Kuhnen arabera; zientziaren **kontestualizazio** sozial eta kulturala aztertu behar direla defendatzen du, beste giza jarduera bat balitz bezala. Berria - Euskal Herria

Niri aldiz, intertestualitatea eta **kontestualizazioa** interesatzen zaizkit. Berria - Kultura

---

kontinent ik **kontinente**.

---

**kontinental** *izond* kontinenteari dagokiona. ik **kontinente 3**.

Haize **kontinentala,** gurean *frantzi-iparra* deitzen dioguna. Pello Zabala

Ikuspegi global honetan, Errusia botere **kontinental** gisa agertzen zen, eta Estatu Batuak uharte-botere gisa... Iñaki Mendiguren

Europa **kontinentalean** zehar. Iñaki Mendiguren

Europar Grezia **kontinentalaren** zati batzuetan. Iñaki Mendiguren

Kublai Khan mongolak [...] Ekialde Urruneko Gizartearen eremu **kontinental** osoaren konkista lortu zuenean. Iñaki Mendiguren

Kafetegira sartu eta gosari **kontinentala** eskatu du. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontinental mailako** (14); **kontinental mailako talde** (3); **kontinental profesional** (10); **kontinental profesional mailako** (5)
> **filosofia kontinentalaren** (3)

---

**kontinente** *(orobat* ***kontinent*** *g.er.)* **1** *iz*

Uharte bat al da, ala **kontinente** baten muturra? Juan Kruz Igerabide

**Kontinente** berriko bekatuak ia beti egotzi izan zaizkio hasiera batean **kontinente** zaharrari. Harkaitz Cano

Gaurkoa bezalako egunetan, **kontinente** urrunetatik datozen puta horietako bat izan nahi nuke. Pako Aristi

Diotenez, iragan 50 urteetan **kontinente** zurian, batez beste, 2,5 gradu epeldu da klima, eta izotza urtzen ari da. Berria - Gaiak

Gaur egun Estatu Batuak ia subiranoak dira **kontinente** honetan. Iñaki Mendiguren

Lastertasun beldurgarriaz zabaldu zen izurria **kontinente** osoan. Koro Navarro

Kanpo zorra **kontinente** osoari kentzeko eskatu du Afrikak. Berria - Harian

Amérique, Amerika, munduaren parteetako bat da, 42 milioi kilometro karratuko **kontinentea** . Bernardo Atxaga

Ikerkuntzan gehien hazi den **kontinentea** Asia da. Berria - Gaiak
Asiako eta Amerikako **kontinenteetako** itsasertzetan. Juan Garzia
Egia duk berrogeita bat urte egin ditudala Europako **kontinentean** oina jarri gabe. Xabier Olarra
Zazpi itsasoetako eta bost **kontinenteetako** bidaiariekin. Fernando Rey
Bost **kontinenteetatik** bakartutako uharte bat banintz bezala. Joan Mari Irigoien
Zazpi **kontinente,** zazpi horma egitasmoaren barruan dute Fitzroy. Berria - Kirola
**Kontinente** berean, Rwandan eta Etiopian amaitu gabeko goseteen mendea izan da. Pello Salaburu
Oro har hitz eginda, esan zitekeen orain **kontinente** bakarra zegoela, Eurafrasia, bi uharte handiz inguratua, Ipar eta Hego Amerikaz. Iñaki Mendiguren
**Kontinenteen** arteko hari telegrafikoa batetik, eta baporezko itsasontziak bestetik. Iñaki Heras
*ik beherago* 5. Askoren artean

**2** irud/hed
Emakumea **kontinente** ezezaguna dela aitortu zuen Sigmund Freud-ek... Ana Urkiza
Ama-alabak, **kontinente** ezezagunak. Ana Urkiza

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kontinental**.
Txinatar kapitalismoa prest dago gaur Txinako **kontinente-** eremua bere mendean hartzeko. Koro Navarro
Amiens **Kontinente** Kopa ari da jokatzen. Berria - Kirola
21 talde ariko dira, Pro Tour Ligako hamalau, eta **kontinente** mailako zazpi. Berria - Kirola

**4** *azpi-kontinente* ik **azpikontinente**.

**5** ***kontinente arteko*** (orobat ***kontinentearteko*** *g.er.)*
Tarcila Rivera Liman egin diren Emakume Indigenen **Kontinente** arteko Topaketetako antolatzaila da. Berria - Gaiak
Europako edo Ipar Afrikako aireportuak helburu dutenak, berriz, hiru euro garestituko dira, eta 12 euro **kontinente** artekoak. Berria - Ekonomia
**Kontinente** arteko ibilbide luzeetarako. **Kontinente** Arteko Kopa jokatuko dute bihar Once Caldas eta Portok. Berria - Kirola
Hiru Liga eta **Kontinentearteko** Kopa bat. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kontinente arteko** (12); **kontinente arteko kopa** (4); **kontinente artekoa** (3); **kontinente kopa** (5); **kontinente osoan** (7); **kontinente osoko** (3); **kontinente zaharra** (4); **kontinente zaharrean** (5); **kontinente zaharreko** (6)
**garai modernoaren kontinentean** (4); **kontinentean lehorreratzeko** (4)
**kontinenteen arteko** (7)
**kontinenteko talde** (3)

## kontinenteka *adlag* kontinentez kontinente.
Txostena **kontinenteka** . Berria - Gaiak

## kontinentzia **1** *iz* (grinen) neurribidea.
**Kontinentzia** bertute ezinezkoa da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Newton-en buru-jardun gehiegia haren izaeraren **kontinentzia** absolutuari egotzi behar zaiola. Juan Garzia
Beste zein eskubideren izenean behartu nahi duzue emakumea bere fisikoarentzat ezinezkoa eta bere ohorearentzat guztiz alferrikakoa den **kontinentzia** gordetzera? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Nire ustez, **kontinentzia** jarri behar da oinarri bezala ariman, eta beste bertute guztiak haren gainean eraiki. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, **kontinentzi** forman soilik)
Emakumeei gizonezkoei eskatzen ez zaien eratasun- eta **kontinentzi** maila eskatu diete, lotsaren hausketak bertute guztiak ukatzea esan nahi duelako emakumeengan. Iñaki Iñurrieta

## kontingente[1] *izond* gerta daitekeena edo gerta ez daitekeena.
Filosofian sarritan bereizi izan dira egia beharrezkoak eta **kontingenteak** . Askoren artean
Jazo diren aldaketen artean, zenbat eta zein dira beharrezkoak eta zein **kontingenteak** ? Askoren artean
Legeak **kontingenteak** eta inperfektuak dira. Askoren artean
Alde batetik perpaus analitikoak genituzke, *a priori* egiazkotzat jo ditzakegunak, beharrezkoak; eta, bestetik, sintetikoak, *a posteriori* egiaztatu beharrekoak, **kontingenteak** . Ez da deus **kontingenterik** aurkitzen gauzen izaeran. Askoren artean
Jainkoa, bada, ez dugu **kontingentea** deitzen ahal, zeren nahitaez existitzen baita eta ez kongtingenteki. Piarres Xarriton
Ez al dira konturatzen legea aldatuta Jainkoa bera aldatzen dutela eta Hura **kontingente** egiten? Joan Mari Irigoien
Gure mundua taxutzen duten indarren alderdi hori erabat **kontingentea** da. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**gauza kontingente** (4)

## kontingente[2] *iz* pertsona multzoa.
Amerikar hiritarren artean, berriz, judu-**kontingenteak** bere kopuruarekin proportziorik gabeko botere politikoa zertu izan du. Iñaki Mendiguren
Barbaroak Mendebaldeko Gizartean hogeigarren mendeko barne-proletalgoa osatzen zuten **kontingente** txikienetako bat ziren benetan. Iñaki Mendiguren
Hirugarren **kontingente** bat, hiruretako zoritxarrekoena eta, beraz, aktiboki disidenteena, hainbat jatorritako *déraciné*-ena zen. Iñaki Mendiguren

## kontingenteki *adlag* era kontingentean.
Baieztapen bat **kontingenteki** egiazkoa da oraingo munduan egiazkoa bada, eta faltsua beste mundu posibleren batean. Askoren artean
Jainko izaeraren moduak ere berdin izaera beretik nahitaez datoz eta ez **kontingenteki** . Piarres Xarriton
Jainkoa, bada, ez dugu kontingentea deitzen ahal, zeren nahitaez existitzen baita eta ez **kontingenteki** . Piarres Xarriton

**kontingentzia** 1 *iz* kontingentea denaren nolakotasuna.

Azken batean, Estatua ere errealitate historikoa baita, erakunde politiko guztiak bezala historiaren **kontingentzia** eta aldaketa hegemonikoetara makurtua. Joseba Zulaika

Hegemoniak beti osotasunaren absentzia seinalatzen duela, aurre egin behar zaion **kontingentzia,** bete behar den zuloa, sendatu behar den etena, gainditu behar den negatiboa. Joseba Zulaika

Hizkuntza eta pentsamendua, esperientzia enpirikoa eta kategoriak, bizi izandakoa eta behar idealak, gertaeren **kontingentzia** eta eginbehar formalen jokoa. Xabier Arregi

Baina izaki beharrezko bakar batek ere ezin dezake azaldu existentzia: **kontingentzia** ez da gezurrezko itxura bat, desagerrarazi daitekeen irudi bat; absolutua da, beraz funsgabetasun perfektua. Monika Etxebarria

**2** gerta daitekeen gorabehera negatiboa.

Horrelako (ustezko) beharrak askotan **kontingentziaren** mende daude. Askoren artean

[Ekonomiak] dimentsio teorikoa duenez, errealitateak dituen **kontingentzietatik** aldentzen da. Iñaki Heras

**3** (hitz elkartuetan)

Bi gertaera-segida horiek aztertzeak ezingo du haien gurutzatzea argitu, ez gertaeraren **kontingentzia**-dosia uxatu, ez agortu ere. Jon Muñoz

---

**kontinuismo** *iz* egoera batek, bereziki sistema edo gobernu batek, bere hartan irauteko joera.

**Kontinuismoa** zen: batasun espainiarrari buruzko artikulu ospetsuak, batasunaren bermatzaile izan behar zuen armadari buruzkoak... Berria - Euskal Herria

**Kontinuismo** kritikoa. Berria - Euskal Herria

---

**kontinuista** 1 *izond* kontinuismo implikatzen duena.

Transmisioaren inguruko azterketek oso ikuspuntu **kontinuista** izan dute beti. Berria - Euskal Herria

ELAk eta LABek «akordio **kontinuista»** kritikatu dute. Berria - Ekonomia

**2** kontinuismoaren aldekoa.

Ondo egindako gauzekin jarraitzea, **kontinuista** izatea bada, ni **kontinuista** naiz. Berria - Kirola

---

**kontinuitate** *iz* jarraitutasuna.

Homogeneotasun, espezifikazio eta formen **kontinuitatearen** printzipioak. Ibon Uribarri

---

**kontinuo** 1 *izond* jarraitua.

Bitxiena da, hilabetero, kopuruen uhina gora-behera **kontinuo** batean doala, eta beti iparra eta hegoa zainduz ibiliko balitz bezala. Pello Zabala

•**2** (adizalgun gisa) jarraituki.

Urteroko martxa ohikoa, **kontinuo** dariona. Pello Zabala

**3** ***baxu kontinuo***

D´ell Agnellok biolontxelo barrokoan eta Palombak tiorban eta baxu **kontinuoan** egin zuten lan. Berria - Kultura

---

kontorsio ik **kontortsio**.

---

**kontortsio** *(orobat **kontortsione** g.er. eta **kontorsio** g.er.)* *iz* bihurrikatzea, bihurkada.

Trikitixa zen garaiko rockanrola; emakume horiek dantzan ikusita, konturatuko ginateke Elvis Presleyren gerri-mugimenduak txorakeria hutsa zirela, eta *heavy metal*kideen **kontorsioak** mugimendu basatiak, ez arte eta ez grazi. Pako Aristi

**Kontortsiotan** hasi naiz berriro, nire azken paper puskaren bila. Koldo Izagirre

Materialistak erranen du materia baizik ez garela eta **kontortsione** mistiko horiek ez direla sanotasun baten seinale. Piarres Aintziart

---

**kontortsionismo** *iz* kontortsio ariketa.

Ama soinekoa aurpegiko pinturarekin zikindu gabe kentzeko **kontortsionismoak** egiten ari da. Eider Rodriguez

---

**kontortsionista** 1 *izond* bihurrikatzailea.

Auto baten barrualde estuan, abilezia **kontortsionistak** probatzen. Iñaki Iñurrieta

• **2** *iz* bihurrikak egiten dituen pertsona, bihurrikatzailea.

Sos batzuk irabaz ditzakezu horrelako akrobaziak eginez..., neurri horretako **kontortsionistak,** Houdini berriak, ez dira-eta eguneroko gauza. Iñigo Aranbarri

---

**kontra** *(orobat **kontre** g.er. eta **kuntre** g.er.)*

**1** *iz* kontrako indarra.

Hori urak haizeak bultzatutako ontziari egiten dion **kontrari** zor zaio, Iñaki Iñurrieta

**2** ***gogoz kontra*** *adlag*

Eta beti itzultzen naiz haietara, **gogoz kontra** bada ere. Josu Zabaleta

Aski asperturik nengoen **gogoz kontra** onartutako lanaz. Aingeru Epaltza

Umeek **gogoz kontra** joateko itxurak egin zituzten. Julen Gabiria

Aurpegieran ezagun zuen **gogoz kontra** ari zela. Inazio Mujika Iraola

Faroletako argiak gaua indarrez eta **gogoz kontra** etorrarazi balu bezala. Matías Múgica

Zeren hemen gogorik gabe edo **gogoz kontra** gauza asko egin daitezke, baina bizi inolaz ere ez. Iñaki Segurola

-Berorrek erraza du -erantzun zion emakumeak-, bai neure gogoz bai **gogoz kontra** lor dezake hori. Patxi Zubizarreta

**Gogoz kontra** egiten nuena, aldiz, egin baino gehiago jasan egiten nuela ikusten nuen. Imanol Unzurrunzaga

Baina, jauna, zure **gogoz kontra** bada ere, norbaitentzat idazten duzu. Monika Etxebarria

Bi bider hartu ninduen, hala ere, loak, nire **gogoz kontra**, segundo batzuetan. Josu Zabaleta

Hortik aurrerakoak Brown jaunaren guztiz **gogoz kontrara** gertatu ziren. Karlos Linazasoro

## 3 *gogoz kontrako izlag*

Ihesi nenbilela ohartu naiz, **gogoz kontrako** bidea egiten. Jon Arretxe

**Gogoz kontrako** ibilera nekatua zekarren. Anjel Lertxundi

**Gogoz kontrako** aginduren bat. Alberto Ladron Arana

Bonenfant doktorea isildu zen, eta **gogoz kontrako** ahotsez jarraitu zuen gero: [...]. Josu Zabaleta

Ez da bortxaketa, ez zehazki, baina **gogoz kontrakoa** edozelan ere, barren-barreneraino **gogoz kontrakoa**. Oskar Arana

Borondatezko bezeroak urritzen hasiak omen zituan eta **gogoz kontrakoak** bilatzeari lotu omen zitzaioan. Aingeru Epaltza

Sentimendu **gogoz kontrako** eta ezezagun batek. Jon Muñoz

Ez bada amore eman edertasunak sortu eta bertuteak justifikatzen duen sentimendu **gogoz kontrako** bati. Jon Muñoz

Eguneko uneetatik **gogoz kontrakoena** izan zen. Josu Landa

## 4 *kontra egin*

Ez zuen **kontra egin;** alderantziz, ikaragarri gustatu zitzaion. Joxe Austin Arrieta

Ministroek muturra belztu zuten, baina ez ziren ausartu **kontra egitera**. Hiriak batere **kontra egin** gabe eman zuen bere burua. -Zaldiek **kontra egiten** ditek, ordea! Aingeru Epaltza

Mikel Strogoff ez da saiatu **kontra egiten**. Karlos Zabala

-Edonola ere -hasi zen Fudge **kontra egiten-,** askoz okerragoa den zerbaitetik zuek babesteko daude hemen... Iñaki Mendiguren

-A, bakea! -esan zuen Martinek, **kontra eginez-;** hobea duk gerra. Koro Navarro

Eta usoak, **kontra egiten** ahalegintzen ziren, itoan, kutxen hondoetara itzultzen zituen bitartean, begiak zuri, bortxaz irentsitako elikagai hark mozkorturik. Karlos Zabala

## 5 *–en kontra egin*

Errusiako tsarraren **kontra egiten** zuen borrokan. Karlos Zabala

Apezpikuek juduen **kontra egindako** legeak. Iñaki Iñurrieta

Arazoa Afrikan konponbidean jartzeko 3.000 milioi dolar beharko lirateke, Estatu Batuetako biztanle lodikorrek beren gizentasun itsusiaren **kontra egiteko** urtero gastatzen dutenaren % 6. Pello Salaburu

Eritasun kutsakorrak aztertzeko eta haien **kontra egiteko**. Juan Garzia

Hitz haien **kontra egitea** zen nire obligazioa, baina ez nekien zer esan. Anjel Lertxundi

Barkatu zeure herriari zure **kontra egin** duen bekatua. Elizen arteko biblia

## 6 *–i kontra egin*

Alexandro erregea, gudaroste handia bildurik, Demetriori **kontra egiteko** prestatu zen. Elizen arteko biblia

Eguraldiari **kontra egiten** lagunduko zidatela. Anjel Lertxundi

Ez nion **kontra egin**. Aingeru Epaltza

Ez nekien **kontra egin** behar ote nion edo arrazoia eman. Xabier Mendiguren Elizegi

Oso petral jokatzen zuela **kontra egiten** ziotenekin. Anjel Lertxundi

Bere agintepean herrialdea bakean zegoela eta inork ere **kontra egiten** ez ziola ikusirik, [...]. Elizen arteko biblia

Ez zuen izan **kontra egingo** zionik. Elizen arteko biblia

Berekoiak bereari jarraitzen dio, besteen aholkuei **kontra egiten**. Elizen arteko biblia

Ezin asezko natura horri zerekin **egin kontra,** egundoko lasterrean irensten baitu den-dena, eta fisikoa den ezerk ezin baitio aurre egin? Jon Muñoz

## 7 *kontra egite*

Bigarrenez erdiesten saiatu nahi izan nuenean, halako **kontra egite** bat jasan nuen hasieran. Jon Muñoz

Lixardikume marikonduei **kontra egite** hutsagatik. Iñaki Segurola

## 8 *kontra eman*

[Aulki] haietako batean jarri nintzen burua paretaren **kontra emanda,** eta lo hartu nuen, leher eginda. Koldo Izagirre

Bultzatu zuen, aurpegia harrizko paretari **kontra emanez** eta, gona altxaturik, hitzik gabe, musurik gabe, ferekarik gabe, estali egin zuen. Elena Touyarou

Hitlerrek juduen **kontra emandako** legeek. Josu Zabaleta

Haizeak gazteluko hormen **kontra ematen** zituen zartadei. Iñaki Mendiguren

Abertzaleak boza **kontra eman** du, ezkerreko hautetsiek boza xuri, auzapezaren zerrendakoak denak alde agertu dira. Herria

## 9 *kontrako eztarri* ik **kontrako**.

## 10 *kontran*

Mikel beste egunkari bat gainbegiratzen ari zen barra **kontran** jesarrita. Unai Iturriaga

Manifestalariak lerro estuetan babestu ziren aurreko etxeetako teilatu hegalen pean, pareta **kontran,** ateetako zokoetan. Josu Zabaleta

Masaila berearen **kontran** jarri nuen, eta ahorako bidearen bila lardaskan hasi nintzen. Xabier Olarra

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**abertzaleen kontra** (10); **aginduaren kontra** (11); **agintarien kontra** (9); **aitaren kontra** (10); **aldaketaren kontra** (9); **alde edo kontra** (50); **alde eta kontra** (21); **alemanen kontra** (11); **amaren kontra** (10); **amerikanoen kontra** (10); **amondarren kontra** (9); **anaien kontra** (10); **armadaren kontra** (13); **arroken kontra** (9); **arrunt kontra** (10); **atearen kontra** (46); **aurpegiaren kontra** (9); **auto baten kontra** (16); **autoaren kontra** (18); **baigorriarren kontra** (9); **barandaren kontra** (11); **barraren kontra** (18); **bata bestearen kontra** (23); **batasunaren kontra** (14); **bere buruaren kontra** (19); **bere gogoz kontra** (13); **bikotearen kontra** (9); **bizkarra paretaren kontra** (10); **bizkarraren kontra** (15); **borondatearen kontra** (25); **bortizkeriaren kontra** (15); **bularraren kontra** (66); **bularraren kontra estutu** (9); **bularren kontra** (9); **burua paretaren kontra** (9); **buruaren kontra** (42); **demokraziaren kontra** (9); **denen kontra** (13); **egiaren kontra** (9); **egitasmoaren kontra** (11); **egitearen kontra** (18); **egoitzaren kontra** (14); **ekiparen kontra** (11); **elgarren kontra** (47); **elkarren kontra** (311); **elkarren kontra aritu** (12); **elkarren kontra arituko** (16); **elkarren kontra jo** (13); **elkarren kontra jokatu** (19); **elkarren kontra jokatuko** (15); **emakumeen kontra** (11); **erabaki horren kontra** (16); **erabakiaren kontra** (53); **erregearen kontra** (18); **ertzaren kontra** (15); **eskubideen kontra** (11); **etsaiaren kontra** (9); **etsaien kontra** (25); **etxe baten kontra** (14); **etxearen kontra** (18); **euskaldunen kontra** (10); **euskararen kontra** (15); **ezker abertzalearen kontra** (10); **filistearren kontra** (9); **frankismoaren kontra** (12); **gaitzaren kontra** (12); **gerlaren kontra** (21); **gerraren kontra** (21); **gizonen kontra** (9); **gobernuaren kontra** (55); **gogoaren kontra** (28); **gogoz kontra** (231); **gorputzaren kontra** (24); **gure kontra** (93); **guzien kontra** (11); **guztiaren kontra** (18); **guztien kontra** (77); **guztiz kontra** (13); **haize kontra** (18); **haizearen kontra** (23); **harkaitzen kontra** (14); **harresiaren kontra** (10); **harriaren kontra** (18); **harrien kontra** (9); **herriaren kontra** (27); **herritarren kontra** (18); **hesiaren kontra** (27); **hiesaren kontra** (15); **hire kontra** (11); **hiriaren kontra** (22); **hiruren kontra** (19); **horma baten kontra** (18); **horma kontra** (13); **hormaren kontra** (157); **hormaren kontra jarri** (9); **hormen kontra** (18); **hotzaren kontra** (11); **indarkeriaren kontra** (19); **indarren kontra** (12); **ingalaterraren kontra** (16); **ingelesen kontra** (14); **inoren kontra** (15); **interesen kontra** (9); **iritziaren kontra** (17); **irlandaren kontra** (13); **israeldarren kontra** (13); **izatearen kontra** (11); **jainkoaren kontra** (26); **jaunaren kontra** (18); **jendearen kontra** (12); **juduen kontra** (21); **kamioi baten kontra** (9); **konstituzioaren kontra** (13)

**kontra abiatu** (17); **kontra agertu** (161); **kontra agertzen** (19); **kontra altxatu** (41); **kontra altxatuko** (9); **kontra altxatzen** (13); **kontra ari** (100); **kontra ariko** (70); **kontra aritu** (74); **kontra arituko** (49); **kontra aritzea** (12); **kontra aritzeko** (14); **kontra atera** (12); **kontra ateratzen** (9); **kontra aurkeztutako** (10); **kontra azaldu** (24); **kontra bada ere** (14); **kontra bermatu** (17); **kontra bermaturik** (23); **kontra bermatuta** (10); **kontra borrokan** (48); **kontra borrokatu** (54); **kontra borrokatuko** (12); **kontra borrokatzeko** (48); **kontra borrokatzen** (33); **kontra borrokatzera** (16); **kontra bota** (22); **kontra bozkatu** (93); **kontra bozkatuko** (17); **kontra bultzatu** (10); **kontra egin** (324); **kontra egindako** (65); **kontra eginez** (25); **kontra egingo** (53); **kontra eginiko** (32); **kontra egitea** (64); **kontra egiteko** (196); **kontra egiten** (206); **kontra egitera** (15); **kontra egon** (34); **kontra egotea** (13); **kontra ekingo** (13); **kontra eman** (9); **kontra erabiltzeko** (10); **kontra erabiltzen** (15); **kontra erakutsitako** (9); **kontra eraso** (12); **kontra errebelatu** (9); **kontra esan** (14); **kontra estu estu** (14); **kontra estutu** (61); **kontra estuturik** (13); **kontra estututa** (9); **kontra estutuz** (17); **kontra estutzen** (32); **kontra galdu** (81); **kontra geratu** (9); **kontra gertatu** (11); **kontra hartu** (12); **kontra hartutako** (10); **kontra haserre** (11); **kontra hasi** (13); **kontra hitz egin** (10); **kontra igurtzi** (15); **kontra igurtziz** (10); **kontra igurzten** (10); **kontra ipini** (15); **kontra irabazi** (45); **kontra itzuli** (9); **kontra izan** (46); **kontra izandako** (14); **kontra jaiki**

(18); kontra jarri (128); kontra jarriko (12); kontra jarririk (18); kontra jarrita (54); kontra jarritako (36); kontra jarriz (9); kontra jartzen (24); kontra jaurti (11); kontra jo (164); kontra joan (28); kontra joatea (12); kontra joateko (11); kontra joka (15); kontra jokatu (207); kontra jokatuko (148); kontra jokatutako (32); kontra jokatzea (32); kontra jokatzeko (41); kontra jokatzen (37); kontra joko (13); kontra jota (9); kontra jotzean (25); kontra jotzeko (17); kontra jotzen (54); kontra kontra (12); kontra lehertzen (9); kontra lortutako (9); kontra mintzatu (9); kontra neurtuko (19); kontra oldartu (20); kontra protesta egiteko (9); kontra talka (21); kontra tiro egin (16); kontra tiroka (13); kontra utzi (11); kontra zanpatu (9)

; korrontearen kontra (10); kristalaren kontra (27); lasaren kontra (9); lege horren kontra (9); legearen kontra (52); legeen kontra (12); legez kontra (24); leihoaren kontra (24); leihoen kontra (12); lepoaren kontra (9); liderraren kontra (16); lukurreriaren kontra (12); lurraren kontra (69); mahaiaren kontra (19); manifestarien kontra (12); murruaren kontra (9); nagusiaren kontra (12); nahiaren kontra (29); neure buruaren kontra (11); nire kontra (143); nire kontra estutu (9); okupazioaren kontra (13); otsoen kontra (14); parearen kontra (20); paretaren kontra (151); paretaren kontra jarri (16); pareten kontra (18); paristarren kontra (10); patuaren kontra (9); planaren kontra (14); politikaren kontra (9); politikoaren kontra (9); politikoen kontra (11); presidentearen kontra (11); proiektuaren kontra (29); proposamenaren kontra (20); sabelaren kontra (11); sailkatuaren kontra (9); santuaren kontra (10); soken kontra (9); sorbaldaren kontra (11); talde baten kontra (14); taldearen kontra (103); taldeen kontra (20); terrorismoaren kontra (45); torturaren kontra (14); txapeldunaren kontra (12); udalaren kontra (12); urtegiaren kontra (16); zeruaren kontra (11); zoruaren kontra (11); zure kontra (80); zutabe baten kontra (13)

abertzalearen kontrako (13); aeben kontrako (9); aldeko eta kontrako (27); arrazakeriaren kontrako (10); askatasunaren kontrako (15); banaketa hesiaren kontrako (15); batasunaren kontrako (13); birusaren kontrako (15); buruaren kontrako (9); demokraziaren kontrako (17); depresioaren kontrako (10); dopinaren kontrako (19); egunkaria ren kontrako (24); elkarren kontrako (46); emakumearen kontrako (9); emakumeen kontrako (176); emakumeen kontrako indarkeria (82); emakumeen kontrako indarkeriaren (35); emakumeen kontrako indarkeriari (16); enpresaren kontrako (9); erabakiaren kontrako (13); errepresioaren kontrako (15); eskubideen kontrako (18); espekulazioaren kontrako (9); estatuaren kontrako (11); euskararen kontrako (30); ezker abertzalearen kontrako (13); faxismoaren kontrako (13); gaitzaren kontrako (22); gazteen kontrako (11); genero indarkeriaren kontrako (14); gerraren kontrako (30); gizateriaren kontrako (16); globalizazioaren kontrako (35); gobernuaren kontrako (31); gogoz kontrako (23); gosearen kontrako (9); gripearen kontrako (18); gure kontrako (18); guztien kontrako (20); guztiz kontrako (11); herriaren kontrako (9); herritarren kontrako (14); hesiaren kontrako (20); hiesaren kontrako (39); hiriaren kontrako (10); indarkeriaren kontrako (56); indarren kontrako (13); irakiarren kontrako (10); itoizko urtegiaren kontrako (18); itunaren kontrako (10); juduen kontrako (21); karikaturen kontrako (9); kideen kontrako (14); kideren kontrako (11); konstituzioaren kontrako (14)

kontrako adierazpenak (11); kontrako akusazioak (15); kontrako aldean (10); kontrako aldera (11); kontrako aldetik (10); kontrako argudioak (12); kontrako atentatu (12); kontrako atentatua (16); kontrako atentatuak (12); kontrako auzia (27); kontrako batzordeak (14); kontrako bidea (31); kontrako bidean (23); kontrako bidetik (13); kontrako bonba (9); kontrako borroka (109); kontrako borrokak (12); kontrako borrokan (95); kontrako borrokaren (30); kontrako borrokari (15); kontrako botika (13); kontrako botikak (20); kontrako botoa (29); kontrako botoa eman (9); kontrako boza (15); kontrako eguna (21); kontrako ekintza (31); kontrako ekintzak (12); kontrako epaia (14); kontrako epaiketa (81); kontrako epaiketak (11); kontrako erabakia (15); kontrako eragina (13); kontrako eraso (74); kontrako erasoa (95); kontrako erasoa egin (12); kontrako erasoa izan (10); kontrako erasoak (99); kontrako erasoan (16); kontrako erasoei (9); kontrako erasoen (10); kontrako erasotzat (10); kontrako erreferenduma (10); kontrako erresistentzia (11); kontrako estradizio (15); kontrako euroagindua (14); kontrako ezer (10); kontrako eztarrira (13); kontrako eztarritik (14); kontrako froga (11); kontrako gerla (17); kontrako gerra (45); kontrako gerran (17); kontrako gerraren (12); kontrako helegitea (38); kontrako helegitea aurkeztu (9); kontrako indarkeria (98); kontrako indarkeriaren (39); kontrako indarkeriari (18); kontrako iritzia (29); kontrako iritziak (14); kontrako ituna (9); kontrako jarrera (82); kontrako jarrerak (19); kontrako jazarpena (16); kontrako kanpaina (54); kontrako kanpainak (10); kontrako kanporaketa (9); kontrako karguak (16); kontrako kereila (13); kontrako krimenak (11); kontrako kritika (9); kontrako kritikak (13); kontrako lege (20); kontrako legea (20); kontrako legeak (18); kontrako lehen (18); kontrako lehia (11); kontrako lehian (11); kontrako manifestazioa (13); kontrako manifestazioak (11); kontrako manifestazioan (11); kontrako mendeku (9); kontrako mendekurik (9); kontrako mezua (11); kontrako mezuak (9); kontrako mugimendua (17); kontrako nazioarteko (19); kontrako neurri (16); kontrako neurriak (52); kontrako norabidean (85); kontrako norgehiagokan (12); kontrako oihuak (25); kontrako operazio (16); kontrako operazioa (18); kontrako operazioan (23); kontrako partida (105); kontrako partidak (14); kontrako partidan (85); kontrako partidaren (26); kontrako politika (19); kontrako polizia (21); kontrako protesta (22); kontrako protestak (30); kontrako protestetan (12); kontrako prozedura (9); kontrako salaketa (76); kontrako salaketa jarri (25); kontrako salaketak (28); kontrako taldeak (18); kontrako taldeek (12); kontrako tratamendua (13); kontrako tratu (13); kontrako tratu txarrak (9); kontrako txertoa (20); kontrako zentsura (11); kontrako zentzuan (12); kontrako zigor (15); kontrako zigorrak (10)

lagunen kontrako (13); legearen kontrako (35); legez kontrako (35); malariaren kontrako (17); minbiziaren kontrako (24); nazien kontrako (10); nire kontrako (23); nuklearraren kontrako (10); okupazioaren kontrako (20); palestinarren kontrako (13); pertsonen kontrako (10); pobreziaren kontrako (14); politikaren kontrako (10); poliziaren kontrako (10); presidentearen kontrako (19); presoen kontrako (13); proiektuaren kontrako (12); proposamenaren kontrako (9); tabakoaren kontrako (20); taldearen kontrako (18); terrorismoaren kontrako (157); terrorismoaren kontrako borroka (19); terrorismoaren kontrako borrokan (17); terrorismoaren kontrako gerra (11); torturaren kontrako (49); torturen kontrako (9); trenaren kontrako (12); udalbiltzaren kontrako (17); urtegiaren kontrako (48); urtegiaren kontrako borrokan (11); ustelkeriaren kontrako (14); zibilen kontrako (15); zuen kontrako (14); zure kontrako (9)

demokraziaren kontrakoa (12); erabat kontrakoa (13); espainiako konstituzioaren kontrakoa (10); guztiz kontrakoa (69); justu kontrakoa (30); konstituzioaren kontrakoa (25); kontrakoa egin (14); kontrakoa egiten (10); kontrakoa esan (25); kontrakoa esaten (16); kontrakoa gertatu (18); kontrakoa gertatzen (29); kontrakoa izan (32); kontrakoa pentsatzen (9); kontrakoa uste (17); legearen kontrakoa (23); legez kontrakoa (22); naturaren kontrakoa (13)

aldekoak eta kontrakoak (21); elkarren kontrakoak (26); kontrakoak izan (17)

aldekoen eta kontrakoen (9)

kontrakotzat jo (19)

---

## kontraagindu *(corpusean **kontragindu** soilik) iz*

**Kontraginduren** bat hartu zuten nonbait, eta Cella-ra ostera, Teruel ingurura. Koldo Izagirre

---

kontraanalisi ik **kontranalisi**.

---

kontraand ik **kontrabando**.

---

kontraandixt ik **kontrabandista**.

---

kontrabajo ik **kontrabaxu**.

---

kontrabanda ik **kontrabando**.

---

## kontrabandista *(orobat **kontraandixt** g.er. eta **kontrabandixt** g.er.)* **1** *iz* kontrabandoan aritzen den pertsona.

Arkale gizon lodi bizi-bizi bat zen, uzta-biltzaile ohia, zaldi-tratulari ohia eta **kontrabandista**. Sorgin eta **kontrabandista** eskualde bat duk; espainolekin tratuak egiten ditiate eta, gainera, beren artean ezkondu eta, aferak egiten ditiate. Koro Navarro

Indiar **kontrabandista** batzuek helburua erdiesteko beren buruak ongi mozorrotzen dituzte. Gotzon Garate

Irailaren 6an abiaturik Donapaleutik, **kontrabandisten** bideak nahi dituzte jarraiki, pausoz pauso. Herria

· Roy, zergatik ez zara zu ere **kontrabandista** hasten? Lopez de Arana

**2** (izen baten eskuinean)

Saran bazen beste emazte **kontrabandistarik** eta edozein izan zitekeen. Elena Touyarou

Hirurak abiatu dira: aizkolari-**kontrabandista,** dinbili dantzan; Xangarin, zalu-zalu; zuberotarra, muga-pasa kontatzen ari zaiguna. Pablo Sastre

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garai hartan, zuhurtasun eta azkartasun ikaragarriz jokatzen zuen **kontrabandista**-sail ahaltsu bat sortu zen. Jose Morales

**Kontrabandista** talde bat Parisen erdi-erdian. Karlos Zabala

Gurean ere, **kontrabandista** fama sekulakoa duen herri honetan, bada zer kontaturik eta inoiz idatziko da kolore guztietako zentsurak bilduko dituen historia. Anjel Lertxundi

Merke-lehian ari zen hirian iragaitzaz zegoen **kontrabandista**-merkatari jatorriz judu eta ahoskeraz alemaniar batekin. Jose Morales

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hitz hau erabiltzen zen alkohol-**kontrabandistei** lapurreta egiten zietenak izendatzeko. Lopez de Arana

Tabako-**kontrabandistaren** espetxeratzea ezin da izan sikarioarena edo lapurrarena bezalakoa. Juan Martin Elexpuru

Txistea gauza klandestinoa bihurtuko litzateke, txiste-**kontrabandistak** agertuko lirateke. Karlos Zabala

---

# kontrabando *(orobat **kontrabanda** g.er.)* **1** *iz* herrialde batean, debekaturik dauden edo dagokien muga zerga ordaindu ez duten salgaiak sartzea. ik **gau 20**.

**Kontrabandoko** ekaiak pasatzera lehiatzeagatik. Elena Touyarou

-Hemendik goiti, **kontrabandorik** ez gehiago -manatu zion Joanttok, azkorrian, neska lehena izan baitzen Sarara itzultzera abian-. Elena Touyarou

Ezpain batetik zintzilik Winston bat dauka, **kontrabandokoa** . Jokin Muñoz

Blanco urte askoan **kontrabando** egitetik bizi omen zen, Haiti eta Santo Domingoko mugan. Gotzon Garate

Orain ontzi batzuk erreberrituz, orain ezkur zakukada bat ostuz, orain Portugalgo mugan **kontrabando** pixka bat eginez. Pablo Sastre

**2** kontrabandoko salgaia. ik **kontrabandogai.**

**Kontrabandoa** harrapatu nahi ote zuten? Joseba Sarrionandia

Herritarren erdiak salatu zituen, honelako iruzurgilea zela esanez eta halakok Galitziatik **kontrabandoa** ekartzen zuela. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Badiola ondarrutar ausarditsua baino lehenago inor ez baitzen menturatu, iskiluz lepo beterik zetorren **kontrabando** -ontzi "huts" eta fantasma hartara sartzen. Txillardegi

Azter ezazue edozein **kontrabando** bide edo, nahiago baduzue, edozein erromatar galtzada. Bernardo Atxaga

Egun hartan gure bilaketak **kontrabando** kontuekin nahastu ziren. Edorta Jimenez

Hemendik hiru astera, **kontrabando** operazio bat deskubrituko dute poliziek. Josu Landa

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gerraondoan penizilina **kontrabandoa** egiten zenean. Koldo Izagirre

Ez da behar bezala aztertu gerra ondoko estraperloa, gutxiago liburu **kontrabandoa** . Anjel Lertxundi

Tabako **kontrabandoa** zuzentzen zuena eta neu agindupeko neukana Mentxu huen. Josu Landa

Buenos Airestik Bilbora zein Bartzelonara egiten den platino-**kontrabandoa** . Edorta Jimenez

**5** ***kontrabandoan*** *adlag*

Poliziak ba omen zekien *baca* delako bat **kontrabandoan** aritzen zela. Gotzon Garate

Aduanan jardun zuen denboran **kontrabandoan** aritu zela. Jose Morales

Soldatak jaso ezin direnez, **kontrabandoan** jardutera behartuta dago jendea. Josu Zabaleta

Ibiliko ziren elkarrekin **kontrabandoan,** gauezko lanean, mendian gora eta behera. Hasier Etxeberria

Animaliak Akizen erosi eta **kontrabandoan** pasatzen zituen, Aldudetik edo Orreagatik. Koro Navarro

Egiptotik Palestinara armak **kontrabandoan** pasatzeko erabiltzen diren tunelak. Berria - Mundua

Portugaldik **kontrabandoan** sartzen zuten kafe xigortua. Urtzi Urrutikoeetxea

**Kontrabandoan** ekarritako [...] 22ko Colt pistola. Edorta Jimenez

Marat zenak sinaturiko pasa-agiriak zeramatzaten, faltsuak seguru asko, **kontrabandoan** erosiak. Felipe Juaristi

Esaten zuen bazekiela edari eta bitxien **kontrabandoan** aberastu izana leporatzen ziotela. Bego Montorio

Haren adiskideak, **kontrabandoan** irakatsi zion hark. Elena Touyarou

-Beste behin **kontrabandoan** ? -galdegin zion, idor-idorra, paketa erakutsiz. Elena Touyarou

-Arma-**kontrabandoan** . Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kontrabandoa eragotzi (3)
> kontrabandoan aritzea (3); kontrabandoan aritzen (3)

---

# kontrabandogai *iz*

Zerga handitu ahala, handitu egiten baita onura, eta kontrabandoan aritzeko tentazioa, eta aritzeko erraztasuna areagotu egiten da zaindu beharreko zirkunferentzia handitzen eta **kontrabandogaia** gutxitzen den neurrian. Juan Martin Elexpuru

---

# kontrabasista *iz* kontrabaxu-jotzailea.

Stephane Garin perkusionista, Beñat Achiary kantaria, Nicolas Caumont **kontrabasista** . Herria

---

# kontrabaxu **1** *iz* biolinen familiako musika tresnen artean handiena eta soinu apalekoena.

**Kontrabaxua** jotzen du, eta oso ona da. Pako Aristi

**Kontrabaxuaren** soka-kolpe limurtzailea. Harkaitz Cano

**Kontrabaxuaren** soinua doitzea. Eskarne Mujika

Oso tonu sakona baitzerabilen, **kontrabaxuak** kontzertuaren unerik bizienean bezala. Jose Morales

Jostun bati **kontrabaxuarentzat** zorroa egiteko eskatu zion. Pako Aristi

**2** ***kontrabaxu-jotzaile***

Lebita zuriz eta galtza argiz jantzitako lau beltz, horietako hiru biolin-jotzaile eta bakarra **kontrabaxu** jotzaile, boleroak eta rumbak joka ari ziren. Felipe Juaristi

Reggie Johnson **kontrabaxu** -jotzailea, Alvin Queen bateria-jotzailea, Jesse Davis saxofonista altua, Grant Stewart saxofonista tenorra eta Terell Stafford tronpeta-jotzailea. Berria - Kultura

Niels-Henning Orsted Pedersen Nhop jazz **kontrabaxu** jotzaile danimarkarrak eta Phil Woods saxofoi jotzaile estatubatuarrak kontzertua emango dute gaur. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kontrabaxu jotzaile (8); kontrabaxu jotzailea (9); kontrabaxu jotzaileak (12); kontrabaxu jotzailearekin (4)
> kontrabaxua jotzen (5)
> kontrabaxuaren barruan (3)

## **kontrabide** *iz* kontrako norabidea.

Auto-uholdeak datoz Veneziarantz, batere trafikorik ez dago **kontrabidean**. Bidea oso estua zen, eta **kontrabidean** zetozen auto urriek, gurea baino apalagoak eta mantsoagoak izaki, bazter-bazterreraino arrimatzen ziren. Anjel Lertxundi

Berak bakarrik egiten zuen barre **kontrabideko** autoen estutasunekin. abiada bizian doan tren baten pasilloan **kontrabidean** joango banintz bezala. Anjel Lertxundi

· **Kontrabiderik** gabeko erantzuna jaso zuen amonarengandik: [...]. Anjel Lertxundi

## **kontrabotere** *iz* kontrako boterea.

Gizarte honetan botereak eta **kontrabotereak** daude. Berria - Euskal Herria

**Kontraboterea** zer den ulertzeko, nire ustez, Nafarroa adibide ona da. Berria - Ekonomia

Bestetik, mugimendu sozialek gobernuei egiten dizkieten kritikak; **kontrabotere** bat bihurtu dira. Berria - Mundua

LABeko idazkari nagusiak **kontraboterek**o estrategia funtsezkoa dela azpimarratu du CSCren III. Kongresuan. Berria - Ekonomia

Haren buru Enrique Lopez arrisku bihurtu da, Kontseilu Nagusia Espainiako Gobernuari aurre egiteko **kontrabotere** bihurtu duelako. Berria - Euskal Herria

Garzonen arabera **«kontrabotererako** organo» izateko helburuarekin sortu zen Udalbiltza. Berria - Euskal Herria

**Kontrabotere** sindikaturanzko bilakaera. Berria - Ekonomia

## **kontradantza** *iz* aurrez aurre jartzen diren eta irudiak egiten dituzten hainbat dantzari bikotek eginiko dantza.

Uztailaren 9an, asteazkenez, Zaintegian, **kontradantza** eta mazurka dantzen ikastegia, arastiriko 7etan, Marylin Simon-ek kudeaturik. Hona orain nola joaiten diren bi lerrotan: aitzinean, bi zaldizko, bi zapur eta bi banderari ; ondotik, bi zigante-peko, gero bolantak, haundiak eta ttipiak ; horien artean **kontradantzak** emaiten dituzten nexkatoak, eta denen gibeletik, Atsoa eta Tupina. Herria

· Haren emakumetzearen beharia izana nintzen, sentimenduen **kontradantzan**. Aingeru Epaltza

## **kontradiktorio** *izond* kontraesana dakarrena.

Jarrera **kontradiktorioak** zituen; zerbaiti baietz esan zekiokeen egun batean, eta ezetz hurrengoan. Berria - Kultura

Bere izaera **kontradiktorioaren** parte da hori ere. Berria - Kultura

## **kontradikzio** *(orobat* ***kontradikzione****)* *iz* kontraesana.

Batasunak Anoetan egin deklarazio eta erakunde armatuaren joka moldearen arteko **kontradikzioa** azpimarratu du Imazek. Herria

Garai hartan ez nituen **kontradikzio** hauek ongi ulertzen. Joxan Elosegi

Ez daukat dudarik, baina hala ere, **kontradikzioz** josita nago. Berria - Kultura

Eta, nola sorburuan bat diren, ez dago **kontradikzionerik**. Joan Mari Irigoien

**Kontradikzioan** erori gabe. Askoren artean

## kontradizkione ik **kontradikzio**.

## **kontraebanjelio** *iz* kontrako ebanjelioa.

Horren guztiaren kontra proposatzen dena supergizona da, Nietzschek Zaratustraren **kontraebanjelioan** predikatua, materialki nahiz formalki apropos ebanjelioen errepika bezala baitago izkribu hori hasi eta buka kontzebitua. Joxe Azurmendi

## **kontraeragin** *iz* eragin jakin baten aurkako eragina.

Eraginean eta **kontraeraginean**. Ibon Uribarri

Aurkakotasun erreala […] gertatzen den leku guztietan aurkitzen da, h[au] d[a], errealitate bat bestearekin subjektu batean lotua dagoenean batak bestearen eragina ezeztatuz, eta hau izadiko oztopoek eta **kontraeraginek** jartzen dute etengabe begi-bistan. Ibon Uribarri

## **kontraeraginkor** *izond* eragin jakin baten aurkako kontrako eragina duena.

Bere ustez, su-etena hautsiz geroztikako «estrategia **kontraeraginkorra** izan da». Berria - Euskal Herria

## **kontraeraso**[1] **1** *iz* aurkariaren edo etsaiaren erasoaren aurkako erasoa.

Eraso eta **kontraerasoen** katea. Iñaki Mendiguren

Kartagok hartu zuen feniziar **kontraerasoaren** gidaritza. Iñaki Mendiguren

Errepublikazaleek defentsa eta **kontraerasoa** prestatu dute. Edorta Jimenez

Amorru bizian, **kontraerasoa** antolatuko du hegoaldeko erregeak iparraldekoaren kontra. Elizen arteko biblia

Bere defentsa arrakastatsua bada, **kontraerasoari** ekiten dio. Iñaki Mendiguren

Washingtonen Kubaren aurkako politika berriak **kontraerasoa** izan du. Berria - Mundua

Herrialde kontsumitzaileen presioen harira, atzo LPEE Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundearen **kontraerasoa** etorri zen. Berria - Ekonomia

**2** ***kontraerasoa egin***

Guk, aldiz, **kontraerasoa egin** genien hiri-sarreraraino. Elizen arteko biblia

Egungo egoerak «Estatuei **kontraerasoa egitea** eskatzen du», Diezen irudiko. Berria - Euskal Herria

Airbusek A350arekin **egingo** dio **kontraerasoa** Boeingen 7E7ari. Berria - Ekonomia

· Galesko Gobernuan den Alderdi Laboristak **kontraeraso** gogorra **egin** zion PCri, bertako zenbait kidek espekulazioa salatu zutenean. Berria - Mundua

**3** ***kontraerasoa jo***

Espainolek eta nafar arnegatuek hurrengo urteko udaberriaren bukaeran **jo** zuten **kontraerasoa**. Israelek **kontraerasoa jo** zuen: bi palestinar, tartean lau urteko ume bat, zauritu zituen tanke erasoz. Aingeru Epaltza

**Kontraerasoa jo** nuenean ere, ez zen zipitzik apaldu. Aingeru Epaltza

**4** ***kontraerasoan*** *adlag*

Guk hiri-sarreraraino bultzatu genituen **kontraerasoan,** eta, orduan, arkulariek geziak jaurti zizkiguten harresi gainetik. Jose Antonio Mujika

-Anis kopatxo bat nahi al duzue? -amak, **kontraerasoan**. Jon Maia

**Kontraerasoan** ateratzea, ordea, ez da batere erraza defentsak laguntzen ez badu. Berria - Kirola

Urzaizek ez du balio **kontraerasoan** jokatzeko. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **egin zuen kontraeraso** (3); **kontraeraso biziak** (3); **kontraeraso zital** (3)
>
> **errebotea eta kontraerasoa** (3); **kontraerasoa prestatzen** (3); **kontraerasoa zaindu** (3)
>
> **kontraerasoak bilatu zituen** (4)
>
> **kontraerasoan aritzeko** (3); **kontraerasoan aritzen** (3); **kontraerasoan ateratzeko** (5); **kontraerasoan ateratzen** (4); **kontraerasoan jokatu** (4); **kontraerasoan jokatuko** (4); **kontraerasoan jokatzeko** (8); **kontraerasoan jokatzen** (8); **kontraerasoan jokatzen saiatuko** (4)
>
> **kontraerasoen bidez** (4)
>
> **kontraerasorako aukerarik** (4); **kontraerasorako izaera** (3)

---

## kontraeraso[2], kontraerasotzen du *ad* kontraerasoa jo.

Gainera [Mendebaldeko Kristandadea] turkiarrek Danubion gora eta Mediterraneoan zehar **kontraerasotzeko** arriskupean zegoen. Iñaki Mendiguren

---

## kontraerasotzaile *izond* kontraerasoa jotzen duena.

Oso ohikoa zuen Adak bere burua babesteko modu **kontraerasotzaile** hura. Anjel Lertxundi

---

## kontraerran *iz* kontraesana.

Saia gaitezen itxurazko **kontraerran** hori adosten. Jon Muñoz

---

## kontraerrankor *izond* kontraesankorra.

Existentzialismoak ideia **kontraerrankorretaz** hazten dira, Serge filosofoak ziostanez. Piarres Aintziart

---

kontraerreforma ik **kontrarreforma**.

---

## kontraerremate *iz*

Bukatu ondoan bertsoari **kontraerrematea** emateko joera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

kontraerritmo ik **kontrarritmo**.

---

## kontraesale 1 *izond* kontrakoa esaten duena, kontraesanekoa.

Egia **kontraesalea** ere ez dago ahazterik: "elurra, zuria delarik, beltza da", "urteak erraz joaten dituk, baina eguna bete egin behar dik", eta beste holako ezin konta ahala, hitzaren jabe denari noiznahi jaio dakizkiokeenak; egia **kontraesale** hau da, nik esan behar banu, herri-jendeari (ez gizabanako ilustratu motzari) bihotz-belarriak ederkienik gozatzen dizkiona. Iñaki Segurola

Kontrakotasuna hemen ez da azken muturrekoa: ez dira bi proposizio **kontraesale** objektu berari buruz, ez dira kontzeptu beraren bi erabilera bateraezinak, gehiago dira enuntziatuak eratzeko bi modu. Xabier Arregi

**2** *iz* kontrakoa esaten duen pertsona.

Besteei hitzez proposatzen ziena lehenengo bere bizitzan betetzen zuenez, ausardia osoz predikatzen zuen egia, inolako **kontraesaleren** beldurrik gabe. Askoren artean

Zer esaten didazue, zuekin ari bainintzen nire **kontraesaleok,** sinesten baituzue, halere, Moises Jaungoikoaren zerbitzari zintzo izan zela eta haren liburuak Espiritu Santuaren orakulu? Imanol Unzurrunzaga

---

## kontraesan[1] 1 *iz* zerbait baiezten eta aldi berean ukatzen duten bi gauza edo esaldiren artean dagoen erlazioa; elkarren aurkako direnak biltzen dituenaren nolakotasuna.

Ez dela **kontraesanik** lehen baiespen bien artean. Xabier Kintana

-Non dago **kontraesana**? Jon Muñoz

Lauki borobila ez existitzeko arrazoia haren izaerak berak ematen du, **kontraesan** bat bere baitan baitauka. Piarres Xarriton

**Kontraesana** eta hitzontzikeria gustatzen zaizkiona ez da ezer seriorik ikasteko gauza. Josu Zabaleta

**Kontraesanak** dira munduaren motorra. Karlos Linazasoro

Herri Eskubide eta Giza Eskubideen arteko harreman korapilatsuak eta **kontraesanak**. Herria

Azken bi ondorioen arteko **kontraesan** edo aurkaritza argitzera. Xabier Kintana

Zein **kontraesan** ikaragarria erresuma bereko legeen artean! Juan Martin Elexpuru

**Kontraesan** nabarmena dago lege zibilen [...] eta ohorea deiturikoari buruzko legeen artean. Juan Martin Elexpuru

Kapitalismo egonkortua **kontraesana** da terminoetan. Iñaki Mendiguren

Polonia modernoan, industrializazioaren hastapenetan, aurreramenduak juduei bereziki sortu zizkien **kontraesanak**. Koro Navarro

Orduko hizkeran, "klase menperatzailearen **kontraesanak** agerian utzi zituen" ekintza horietako bat. Jon Alonso

Bere nagusia **kontraesanez** eta ezustekoz betetako gizona zela. Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kontraesan**-ezaren asmo hutsak jartzen dira bateragarritasun eta bateraezintasun kontzeptual sare oso nahasi batean. Xabier Arregi

**Kontraesan** -mota ezberdinen azterketa. Xabier Arregi

**Kontraesan** sorta bat naizela. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nola idatz zezakeen autista batek autobiografiarik? termino-**kontraesana** zirudien. Xabier Olarra

Kapitalismoa barne **kontraesanek** desagerraraziko zutela aldarrikatu zuen. Markos Zapiain

Lan honen amaieran hondar-**kontraesanak** geratzen dira -akzidenteak, akatsak, hutsegiteak-. Xabier Arregi

**4** ***ez-kontraesan*** *iz*

Zientzia, hortaz, ez da orokortasunetatik abiatzen eta, huts hori estaltzeko nolabait, printzipio komunen beharra dauka, batik bat ez-**kontraesanaren** printzipioarena. Askoren artean

Proposizioen egia eta batzen dituzten harremanak aztertuta ez-**kontraesan** logikoen arlo bat defini daiteke. Xabier Arregi

**5** ***kontraesanean*** *adlag*

Badirudi hau **kontraesanean** dagoela lehen nik esandakoarekin. Juan Martin Elexpuru

Elkarrekin **kontraesanean** dauden ezaugarriak. Josu Zabaleta

Ez duzu aurretik esandakoa ahaztu edo **kontraesanean** erori nahi. Rafa Egiguren

Beti bere buruarekin **kontraesanean**. Juan Martin Elexpuru

**6** ***kontraesaneko***

Gaitz itzela litzateke gizakiak gobernatzen dituzten goiburuak **kontraesanekoak** suertatzea. Andres Urrutia

Ez dago, ordea, zertan bi ikuspuntu horien artean bat aukeraturik, ez baitira bata bestearen ukatzaile edo **kontraesaneko** ere. Josu Zabaleta

Liburu edo izkribu batean aurki daitezkeen **kontraesaneko** edo aurkaritzako kausak zazpi dira: [...]. Xabier Kintana

**"Kontraesaneko** espiritua" omen daukat barreneraino sartua. Iñaki Segurola

**7** ***kontraesanezko***

**Kontraesanezko** argudioak aipatu zituen ugari. Karlos Zabala

Kanpoko aurrezkiaren eta barneko aurrezkiaren arteko ordezkatze-efektuek luzarorako uzten dute ordainketa-balantza ahuldurik, eta itxura bereziki **kontraesanezkoa** ematen diote koiunturazko zikloari. Koro Navarro

Hartueman hau inoiz ez da ez identitatezkoa, ezta **kontraesanezkoa** ere, eta bertan ezin da ez judizioaren egia, ezta errakuntza ere ikusi. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kontraesan handi** (3); **kontraesan handia** (12); **kontraesan handiak** (4); **kontraesan izugarria** (5); **kontraesan nabaria** (4); **kontraesan nabarmena** (6); **kontraesan nabarmenak** (3); **kontraesan sorta bat** (3)

**kontraesana badirudi ere** (3); **kontraesana da** (19); **kontraesana dago** (5); **kontraesana dirudi** (6); **kontraesana dirudien arren** (6); **kontraesana hor dago** (3); **kontraesana izan** (3); **kontraesana sortzen** (4); **kontraesana sortzen da** (3)

**barne kontraesanak** (3); **kontraesanak daudela** (5)

**kontraesanaren esakunea** (3); **kontraesanaren oinarri** (4)

**elkarrekin kontraesanean** (3); **elkarren kontraesanean** (3); **kontraesanean egon** (4); **kontraesanean erori** (3); **kontraesanean erortzen** (7)

**kontraesanez betea** (9); **kontraesanez beteriko** (6)

**ez dago kontraesanik** (5); **ezein kontraesanik** (4); **inolako kontraesanik** (8); **kontraesanik barnebiltzen** (3); **kontraesanik gabekoa** (4); **kontraesanik sortu** (5); **kontraesanik sortzen** (3)

---

# kontraesan², kontraesaten du *ad* kontrakoa esan, gezurtatu.

Izan ere, hainbestez, arrazoimenak bere determinazioaren aurka jokatuko luke, bere xedetzat izadiaren antolaketa beteki **kontraesango** lukeen ideia bat ezarriko balu. Ibon Uribarri

Arrazoimenak ez du arrazoimena **kontraesaten,** edo Jainkoak ez du Jainkoa **kontraesaten**. Joxe Azurmendi

Adigaia beti ahalgarria da, baldin eta bere burua **kontraesaten** ez badu. Ibon Uribarri

"Ezein gauzari ere ez dagokio bera **kontraesaten** duen predikatua" esakuneak *kontraesanaren esakunea* izena du, eta egia ororen irizpide orokor baina negatiboa besterik ez da. Ibon Uribarri

---

# kontraesanezin *izond* ezin gezurtatuzkoa.

Hemendik segitzen da modu **kontraesanezinean** adimenaren adigai hutsek inoiz erabilera transzendentalik ezin dezaketela izan. Ibon Uribarri

---

# kontraesangarri *izond* kontraesana dakarrena.

Nazioarteko trukea bi printzipio **kontraesangarriren** jokoaren mende dago: espezializazioaren printzipioa da bat, osagarritasunen eragile dena, eta konkurrentziaren printzipioa bestea. Filosofia modernoan, orobat, bidaiari eta misiolarien berri **kontraesangarriek,** arrazoi kontrarioak bermatuko dituzte: izatez "gizakia gizakiarentzat otso" da, Hobbes-en iritzian (XVII); on eta errukitsua, Rousseauren ustean (XVIII). Koro Navarro

---

# kontraesanka *adlag* kontrakoa esaka.

'Ababorrera!' **kontraesanka** ari balitz bezala. Joseba Sarrionandia

---

# kontraesankor *izond* kontraesana daukana, kontraesana dakarrena.

Jainko guztien izaera **kontraesankorra**. Askoren artean

Ohartaraztekoa da *Tractatus*a liburu ironikoa edo **kontraesankorra** (berariaz **kontraesankorra)** dela, liburuak berak hizkuntzaren mugak hausten baititu, ezin daitekeenaz hitz egiten baitu. Askoren artean

Nola izan ditzaketen aurkako iritziak, nola egin ditzaketen hautaketa **kontraesankorrak**. "Hazkunde iraunkor" esapidea errefusatu egin behar da, **kontraesankorra** baita. Xabier Arregi

Gainera, askotan, datu horietako batzuk **kontraesankorrak** dira. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jarrera kontraesankorra** (4)

---

**kontraesankorki** *adlag* kontraesana daukalarik, kontraesana dakarrelarik.

Denboran besterik ezin daitezke egon **kontraesankorki** kontrajarritako determinazio biak gauza batean, hots, bata bestearen ondoren. Ibon Uribarri

Aldaketa, gauza berberan izateari dagokionez, elkarren aurka **kontraesankorki** ezarrita dauden determinazioen lotura da. Ibon Uribarri

---

**kontraesantsu** *izond* kontraesanez betea.

**Kontraesantsuak** dira nire pentsamenduak eta nire sentipenak, aldeko eta kontrako. Joxerra Garzia

Zeren ahaztu nahi hori ere, sentimentuak ohi direnez, **kontraesantsua** baita errotik. Juan Garzia

Euskal herri gogo **kontraesantsu** bat, beraz. Joxe Azurmendi

---

**kontraeskaintza** *iz* beste eskaintza bati erantzuten egiten den eskaintza.

Hain zuzen, Revillarena konpondu zenean, eskaintzen eta **kontraeskaintzen** dinamika zabaldu zen. Berria - Harian

---

**kontraespioitza** 1 *iz* espioitza saihesteko jerduera.

**Kontraespioitzaren** buru ohiak FBIren antzeko erakundea zuzenduko du. **Kontraespioitzarako** eusko taldeko kideek. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Stephen Lander, MI5 **kontraespioitza** agentziaren zuzendari ohia. Berria - Mundua

Errepublikaren **kontraespioitza** zerbitzuarentzat diharduen kazetari amerikarra. Edorta Jimenez

Estatu Batuen kanpo-inteligentzia eta **kontraespioitza** zerbitzuetako bat da hori. Edorta Jimenez

Friendless **kontraespioitza** sarearekin. Edorta Jimenez

**Kontraespioitza** talde honen zeregin nagusia. Edorta Jimenez

Munduko hiririk bizigarrienean zegoen, **kontraespioitza**-lan arriskutsu batean. Alberto Ladron Arana

---

**kontraezponda** *iz* bigarren ezponda.

Erreten bat zulatu zuten hesiaren ezpondaren eta **kontraezpondaren** artean, eta Angararen urez bete zuten. Karlos Zabala

Nolako muino zatarra ezpondari **kontraezponda** egiten diona! Koldo Izagirre

---

**kontrafaktiko** 1 *izond*

Zientziaren egitateak teoriak ez bezala eratuta daude, idealizazioen eta hitzarmen **kontrafaktikoen** bidez. Askoren artean

"*K* gertaldiak *e* gertaldia kausatzen du" perpausa **kontrafaktikoen** bitarteko hurbilketan honela ulertuko genuke: *k* eta *e* gertatzen dira, eta *k* gertatu izan ez balitz, *e* ez zatekeen gertatuko. Askoren artean

**2** (izen gisa)

Badirudi "Mikel jaio izan ez balitz, ez zatekeen hilko" baldintzazko **kontrafaktikoa** egiazkoa dela. Askoren artean

Ikuspegi hori interesgarria da baldintzazko **kontrafaktikoei** buruzko zenbait teoria jada finkatuta daudelako eta kausalitatearen arazoa **kontrafaktikoen** arazora eramatean teoria horietaz balia gaitezkeelako Askoren artean

---

**kontrafigura** *iz* beste baten antza handia duen eta harekin nahas daitekeen pertsona.

Beren burua demokratatzat daukaten askok hain demokratikoak ez diren sentimenduak ere badituztela adierazten du, eta agian ez daudela horren gogotsu bakearekin; nahiago dutela, berek ere -alde nazionalistako hainbatek bezala-, **kontrafigura** bat osatu eta indartu. Bernardo Atxaga

Noski, joera horren oinarrian -hau ere adierazia daukat- **kontrafigura** baten premia zegoen: erregeak bufoia bezala, haiek herritar estereotipatu edo *cashero*ak behar zituzten esnegain -*la crème*- sentitzeko; goi mailako, dotore, fin eta polit sentitzeko. Bernardo Atxaga

---

**kontraforu** *iz* forua haustea.

Baina koroa lortu eta berehala Karlos kanpora joan zen, eta gobernadoreak berriro **kontraforuari** ekin zion. Martin Anso

---

**kontragaitz** *iz*

Gaitza eta **kontragaitza**. Joxerra Garzia

---

**kontragiltza** *iz* bigarren giltza.

Oraingoan, alferrik gabiltza ezkutaketan, sherifaren ordezkariek **kontragiltzaz** ireki baitute, eta arratsaldean etorri den emakume betaurrekodunari bidea zabalik utzi diote. Javi Cillero

---

kontragindu ik **kontraagindu**.

---

**kontrahipotesi** *iz* beste baten kontrako hipotesia.

Ortega-k, egunero hipotesi eta **kontrahipotesi** berri bat agertzen ari den arrazaren kontu, ez daki nola erabaki Joxe Azurmendi

---

**kontrahorma** *iz* eraikuntza baten hormen kanpoaldean, eraikuntzari eusteko jartzen den horma.

Tunel hura, lehenengoa kenduta Hiriaren gainerako zirkulu guztiak bitan banatzen zituen **kontrahorma** erraldoia. Agustin Otsoa

Ubideei mugak eta hesiak ipini izan bainizkien, hormak eta **kontrahormak,** uren abiada geldiarazi zutenak. Joan Mari Irigoien

**kontrailustratu**, kontrailustra, kontrailustratzen du *ad* kkontrako azpanea eman.

Diderot ilustratuarekin pentsa genezake, naturak aski irakasten diola gizon-emakumeari bere moral zuzena; naturak edozein perbertsitate berdin irakasten duela, Sade ilustratuak **kontrailustratu** du. Joxe Azurmendi

---

**kontraindikatu**, kontraindika, kontraindikatzen du *ad* sendabideez eta kidekoez mintzatuz, egoera jakin batean kaltegarria edo desegokitzat jo.

Gure senitartekoek dituzten gaixotasun larriak oso berandu diagnostikatzen dituzte, eta askotan **kontraindikatutako** tratamendua jasotzen dute. Berria - Euskal Herria

---

**kontraindikazio** *iz* sendabieez eta kidekoez mintzatuz, hura kaltegarri edo desegokia den kasua.

**Kontraindikazioak** dituzte eta errezeta behar izaten dute. Berria - Euskal Herria

Tabakoaren **kontraindikazioak,** eraginak eta osagaiak zehaztea. Berria - Euskal Herria

Gainera, truke-tasa finkoek, badituzte, ikusiko denez, hainbat eta hainbat **kontraindikazio,** bereziki finantza merkatu globalizatuaren garai hauetan. Iñaki Heras

---

**kontrainformazio** *iz* aldez aurreko informazio bat gezurtatzeko helburua duen argibidea.

Azpildar gehienek jaso dute, komunikabideen bidez, informazio hori, baita azpitiko eta isilpeko **kontrainformazioa** ere, baina gutxik dakite nola hartu duen albiste hori Nekanek, Txominen amak. Joan Mari Irigoien

---

**kontrainteligentzia** *iz* kontraespioitza.

Eskema nagusia Habanan **kontrainteligentzia** erakundea atontzea zen, horren bidez Kuban ziri-ziri sartzen ziharduten naziak eta bosgarren kolumnistak ehizatzeko. Edorta Jimenez

---

**kontrairauli**, kontrairaultzen du *ad*

Ez Napoleonek iraultza **kontrairauli** egin zuelako bakarrik, hedatu ere nolabait egin baitzuen. Joxe Azurmendi

---

**kontrairaultza** *iz* iraultza jakin baten eraginari aurka egiteko higikundea.

Iraultza espainola **kontrairaultza** bat izan da. Joxe Azurmendi

Ez da iraultzarik gauzatu; **kontrairaultza** ikusten ari gara. Berria - Mundua

**Kontrairaultzaren** egunaren zain bizi da. Edorta Jimenez

---

**kontrairaultzaile** **1** *izond* kontrairaultzarena, kontrairaultzari dagokiona.

Gerra **kontrairaultzaileak** eta oposizioak Fronte Sandinistari eragindako higatze ekonomiko, sozial eta politikoak. Berria - Mundua

**2** (izen gisa) kontrairaultzaren aldeko pertsona

-Nik, Robespierrek, iraultza-buru naizen honek, Eneko Ortega kondenatzen dut, **kontrairaultzaile** guztiek ez baitute besterik merezi. Paradigma edo pentsamendu eskema hori, XIX eta XX. mende bietan **kontrairaultzaileek,** marxistek, faxistek, eskuinetik nahiz ezkerretik aprobetxatua bezain atergabe kritikatua, birrinduta geratu da. Joan Mari Irigoien

---

**kontrairudi** *iz* kontrako irudia.

Maitasun harreman korapilatsu eta sarri zoritxarrekoak ageri ziren nire kontakizun haietan, ez dakit nire bizitza sentimental ordurako nahiko egonkorraren **kontrairudi** moduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala, Lezo, eta berdin "beste Pasaia", Pasaia positiboaren **kontrairudia** bezala dago pertzibituta. Koldo Izagirre

Badu Aranok, Ibai-Ertz beti baikorraren **kontrairudi** modura, Itsasondoren kronika iluna egiteko nahikari bat. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**kontraispilu** *iz*

Ez, ez dira arras gauza bera, baina bai elkarren **kontraispilu** moduko bat. Iñaki Segurola

Eta ikusi dugu **kontraispiluaren** astalogika zuri-beltztaile horrek zer eginarazten zigun: eskizofrenia lotsagarri bat saldu eta neurosi errukarri bat erosi. Iñaki Segurola

---

**kontraizan** *iz*

Holakoxe **kontraizanez** eta kontrako ertzen bat-egitez egina dago gure desmundu hau; "elurra, zuria delarik, beltza da" esan ohi zen euskaraz ere. Iñaki Segurola

---

**kontrajardun** *iz* kontrako jarduna.

Eta hasten da nere **kontrajarduna:** dakitenek hiritar ona nahi dute ikusi, konformidadezko hiritar bertangoxo eta bakezkoa, galdu-usterik eta deusen gose-egarririk gabea, eta bere artean dioena: "ez dut deus galdu; dena izan da irabazia; asko daukat, dena daukat; zer falta zait?". Iñaki Segurola

---

**kontrajarpen** *iz* kontrajartzea.

Errealismo sozialaren eta telurismoaren arteko **kontrajarpen** horretan, Arestik badio besterik ere: [...]. Anjel Lertxundi

Frantzia/Alemaniaren **kontrajarpena,** geografikoa eta nazionala izateaz gain, eta guztiz gain, kulturala da politikoa baino gehiago. Joxe Azurmendi

Horrela **kontrajarpena** borobiltzen dakigu: kristaua berdin latinoa versus euskalduna berdin jentila. Irmotasun gehiago beharko da barneko zailtasun eta kanpoko **kontrajarpenen** aurrean. Joxe Azurmendi

Bi atalen **arteko** kontrajarpenetik abiatu naiz: esna egoteko poemak dira lehen atalekoak, eta Lotarako kanta-kontuak bigarrenekoak. Berria - Harian

**kontrajarrera** *iz* beste jarrera baten kontrako jarrera.

Beharbada, europar gizaeraren historia erljiozkoa bi **kontrajarrera** horien arteko burruka minera biltzen da... Patziku Perurena

Funtsezko une/edozein une bikotean jokatzen dena, ikus daitekeena gelditzeko posibilitate teknikoa baino gehiago da irudi finkoan denbora irudikatzeko moduaren bi estetikaren, bi ideologiaren **kontrajarrera** . Josu Zabaleta

Kaskagogorra, **kontrajarrerak** maite zituen. Berria - Kultura

---

**kontrajarri,** kontrajar, kontrajartzen **1** du *ad* zerbait beste zerbaiten aurrez aurre jarri, haren eragina ezeztatzeko edo biak erkatzeko.

Kierkegaardek bizipen indibidualaren eta kontzientzia pertsonalaren absolututasuna **kontrajarriko** dio arrazoimen unibertsal abstraktuari. Askoren artean

Beren berezko behera nahiari gora beharra **kontrajartzen** zitzaiola. Iñaki Iñurrieta

Keynesek azaldutako gastu publikoaren ondorio biderkatzaileari, eskari pribatuaren kanporatze efektua [...] **kontrajarri** zioten klasiko berriek. Koro Navarro

Kontzientziaren ausikia, azkenik, Bozkarioari **kontrajartzen** zaion Tristura da. Piarres Xarriton

Baina iritzi honi eragozpen larri hau **kontrajar** dakioke: [...].Bi alde baino hamaika alde eta aurpegi baititu ekonomiaren errealitateak, eta poliedro batean gertatzen den legez, baita elkarri **kontrajarriak** ere. Isabel Arrigain

Gaizkiari **kontrajarria** ongia dago, heriotzari **kontrajarria** bizitza. Elizen arteko biblia

Harreman hauek guztiek Historia naturala **kontrajartzen dute** hala XVI. mendeko naturalisten diskurtsoarekin nola XIX. mendeko biologistenarekin. Xabier Arregi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Nortasun **kontrajarrien** arteko oreka. Joxean Agirre

Guztiarekin ere, ahots **kontrajarriak** entzuten nituen neure barruan. Pedro Alberdi

Epistemologian eta ontologian bi korronte **kontrajarri** ezarri ziren, azalpenarena eta ulertzearena. Askoren artean

Gizakietan, nabarmen laburragoa da besaurrea besondoa baino; lastertasun- eta indar-betekizun **kontrajarrien** arteko hautsi-mautsi bat adierazten du diseinu horrek. Irene Aldasoro

Azken batean, efektu **kontrajarriak** daude: enpleguaren kontra eta alde egiten dute, aldiberean, teknologia berriek. Iñaki Heras

Erritmo eta estilo **kontrajarriak** . Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**sentimendu kontrajarri** (4); **sentimendu kontrajarri horiek** (3)

**bertsio kontrajarriak** (4); **datu kontrajarriak** (4); **erabat kontrajarriak** (4); **guztiz kontrajarriak** (3); **ikuspegi kontrajarriak** (6); **informazio kontrajarriak** (6); **interes kontrajarriak** (4); **iritzi kontrajarriak** (55); **iritzi kontrajarriak daude** (10); **iritzi kontrajarriak eragin** (5); **iritzi kontrajarriak sortu** (3); **iritziak kontrajarriak** (3); **jarrera kontrajarriak** (13); **mezu kontrajarriak** (3); **sentimendu kontrajarriak** (14); **sentimendu kontrajarriak sortu** (3); **sentipen kontrajarriak** (5); **sentsazio kontrajarriak** (3)

**interes kontrajarrien** (3)

**kontrajarritako predikatu** (3)

---

**kontrajartze** *iz* zerbait beste zerbaiten aurrez aurre jartzea, haren eragina ezeztatzeko edo biak erkatzeko.

Buruz buru dauden osagaiez osaturiko multzo bi horiek egoera fonologiko berean gertatzen dira, eta eskuarki **kontrajartze** grafiko berberaren bidez adierazten dira. Isabel Arrigain

Beste **kontrajartze** guztien eredua. Xabier Arregi

**Kontrajartze** honek azterketaren *terminus a quo* delakoa osatzen du. Xabier Arregi

---

**kontrajatorri** *iz*

Badirudi han, baserri haren bakardadean, mendi haien handitasunean, ilundu baino lehen basotik atera eta etxeko argia aurkitzeko eskutik lihoazkeen umetxo parearen elkartasunak eta bestearekiko beharrak batu dituela berez hain pertsona ezberdin eta **kontrajatorrikoak** direnak. Pako Aristi

---

**kontrajoko** *iz*

**Kontrajoko** horren erranahi ezkutuaz galdegin dio bere buruari. Aingeru Epaltza

---

**kontraka** *adlag* kontrako norabidean.

Terrala zebilen, eta olatuak **kontraka** harrotzen. Txillardegi

---

kontrakanto ik **kontrakantu**.

---

**kontrakantu** *(corpusean **kontrakanto** soilik)* *iz* musikan, kontrapunto.

Hasierako sarreran kontrabaxua eta fagota, esate baterako, itzel aritu ziren, baita oboea ere bere **kontrakanto** ironiaz betetako horretan. Berria - Kultura

Oboearen soloa eta fagotaren **kontrakantoa** . Berria - Kultura

---

**kontrakantxa** *iz* kantxaren kontrako aldea.

Dejadak txapara joan zitzaizkion, eta gantxoak, **kontrakantxako** marrara. Berria - Kirola

Kantxako jarleku gehienak bete ziren pilotazalez, eta **kontrakantxa** kazetari eta kamerez. Berria - Kirola

Epaileak **kontrakantxatik** aldageletarako bidea hartzen du, oraingoz ez da inolako protestarik sumatzen. Berria - Kirola

---

**kontrakar** **1** *iz* kontra egitea.

**-...kontrakarrik** ez bortxarik gabe, erreginaren nahigabea eta kolera piztu nahi ezik. Aingeru Epaltza

**2** ***kontrakarrean*** *adlag*

Hastapenean furfuriaz matxinatu bazen ere, ez zen izan maitalearen asmoei **kontrakarrean** jartzeko, ezpada bere berezko izaera oldarkorra eta urguilutsuaren kausaz. Patxi Zubizarreta

Eta, nola hura gizon ezin seriosagoa baitzen, ahakartu zitzaidan eta **kontrakarrean** jarri, arrazoin osoz, baina alferrik. Joan Mari Irigoien

Harrotasunak eramaten zaitu niri **kontrakarrean** egitera, setatia zarelako eta ni haserraraztea gogoko duzulako. Patxi Zubizarreta

Ezkerrak nagusi eta eskuinak laguntzaile behar dutenetan sortzen zaizkit arazoak, eskuina baldartu egiten baitzait eta **kontrakarrean** segitzen baitio ezkerrari. Anjel Lertxundi

### 3 ***kontrakarreko*** *izlag*

Geroenean ere, krimen baten epaiketan, lekukoen bitarteko froga da biztua **kontrakarreko** esanetatik, salatuaren argudioetatik eta oro har, salatu hori babesteko forma guztietatik. Andres Urrutia

Eta, nola hura gizon ezin seriosagoa baitzen, ahakartu zitzaidan eta **kontrakarrean** jarri, arrazoin osoz, baina alferrik. Joan Mari Irigoien

---

## kontrakarga *(corpusean **kontra-karga** soilik) iz*

Poliziak auto-lapur bat hiltzen badu, kazetariek poliziaren kontrako gutun faltsuak argitaratu behar dituzte, kontra **karga** egiteko jendeak "poz izugarria" adieraziz igorritako gutun mordoari. Anjel Lertxundi

---

## kontrakatu, kontraka(tu), kontrakatzen du *ad ipar* kontra egin.

Auzapezak Mosoeletako auzotarren bilkuran atera dituen zifrak buruan buru **kontrakatzen** ditu kontseilari sozialistak. Itzulia Herriko Etxeko plazatik abiatu dute departamenduaren egoitza aitzinean bururatzeko, hor kokatua den "Euskararen Erakunde Publikoak" ez duela estatuaren jarrera hetsia euskarari buruz **kontrakatuko** iduritzen zaielako. Herria

Hobeki gogoetatuz, Graxi eta Mathieu apezaren mugaraino laguntzeko erabaki hura bakarrik Monduteguyren jokamoldearen **kontrakatzeko** molde bat zen, menturaz. Elena Touyarou

---

## kontrako ik **kontra**.

### 1 ***kontrako eztarri*** zintzurra.

Ura antzo zurrupatu dut airea, **kontrako eztarrira** joan zait, eztulka hasi naiz. Mirentxu Larrañaga

Opiltxo bat joan zitzaion **kontrako eztarrira** te-garaian, eta amak eginahalak eta bi egin zituen arren hura salbatzearren, arnasa hartzeari utzi zion. Gaizki (edo ongiegi?) egindako jendea gara, okerreko bidera edo **kontrako eztarrira** eroritakoa; jende aldrebesa gara, eta aldrebesa bezain egokia. Mirentxu Larrañaga

-Mihia **kontrako eztarritik** joan al zain? Harkaitz Cano

**Kontrako eztarritik** joango zitzaien gehienei errukia, zer erosi zuten konturatu zirenean. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kontrako eztarritik** joango ahal zaizkiok denak. Mirentxu Larrañaga

Joseluk trago luzeegia jo zuen antza, eta burbuiletako airea **kontrako eztarrian** trabeskatu zitzaion. Josu Landa

· Gaztea atera daiteke alaia, normala, txintxoa eta pakeoxoa, hau da, paranoikoa; **kontrako eztarriko** psikiatrek idoro ziguten hipernormaltasuna paranoiaren era bat dela. Iñaki Segurola

---

## kontrakontrol *iz* kontrol bateko emaitzak egiaztatzeko egiten den kontrola.

Horren ondoren, kontrol eta **kontrakontrol** landu batzuk egiten dira, gutxienez hamahiru gatzatze-faktore alderatuz, horien artean kaltzioa (odolean beti dago kaltzioa) eta fibrinogenoa. Irene Aldasoro

---

## kontrakorronte *iz* kontrako korrontea.

Lanbroaren beheko geruzetatik marru gor iskanbilatsua ateratzen zen korronteek eta **kontrakorronteek** elkar jotzean sortua. Karlos Zabala

**Kontrakorronteak** trukatzeko sistemai. Irene Aldasoro

**Kontrakorrontean** ibiltzea Jokin Muñoz

---

## kontrakotasun 1 *iz* kontrakoa denaren nolakotasuna.

Ez ote den hemen **kontrakotasunik,** alde batetik unibertsitatearen egituraketa bereziki irakaskuntzan oinarritzen dela diogunean, eta bestetik irakasleen promozioa eta soldataren pizgarriak batez ere ikerkuntzan oinarritzen direla baieztatzen dugunean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

XVIII. mendeko naturalistengan aurkitzen den sistema-metodo **kontrakotasunak** zenbait saialdi bultzatzen ditu bi mutur horiek deskribapen forma bakar batean berridazteko. Xabier Arregi

Barrukotasunaren eta kanpokotasunaren **kontrakotasunak** esandako gauzen deskribapen historikoa zeharkatzen du oso-osorik. Xabier Arregi

**Kontrakotasuna** hemen ez da azken muturrekoa: ez dira bi proposizio kontraesale objektu berari buruz, ez dira kontzeptu beraren bi erabilera bateraezinak, gehiago dira enuntziatuak eratzeko bi modu. Xabier Arregi

### 2 (hitz elkartuetan)

**Kontrakotasun** era hauek guztiek ez dute paper bera jokatzen jardute diskurtsiboan. Xabier Arregi

· Era berean, PSE-EEk Konstituzio-**kontrakotasuneko** helegitea bertan behera uztea «borondate oneko urratsa» izango litzatekeela gogoratu zuen. Berria - Kirola

### 3 kontra dagonearen egoera.

Nire praketan amaitu zuen kafe guztiak eta izterrean nabaritu nuen erreak areagotu baino ez zidan egin parean neukan ipotx lotsagarri harenganako **kontrakotasuna**. Hasier Etxeberria

Erreforma ekonomikoek **kontrakotasun** handia eragin dute, eta Gobernua dimisioa ematera bultzatu. Berria - Mundua

Hala ere, Hamasen nagusitasunak Israelen ez du aurreikusten zen **kontrakotasuna** eragin. Berria - Mundua

---

## kontraktatu ik **kontratatu**.

---

## kontraktual *izond* kontratuari dagokiona.

Iragarkian antzematen den zikoizkeria, psikologikoa edo pertsona jakin baten nortasunarekin lotua izan beharrean, arlo komertzialarekin dago lotua; nolabait esateko, **kontraktuala** da, edozein salerosketaren edo alokairuren negoziazioan azaltzen denaren modukoa Bernardo Atxaga

# kontraktualismo *iz*

Rawlsen **kontraktualismo** berriaren inguruan aldizkako beste proposamen batzuk agertu ziren (esaterako, Habermas eta Appel-en politikaren adostasunezko teoria). Askoren artean

# kontraktualista *izond* gizarte kontratuaren printzipioan oinarritzen dena.

Horregatik, Antxustegi ez dago ados Ernest Renan «liberal **kontraktualista** bat» zela esaten dutenekin. Berria - Kultura

# kontraktura *iz* uzkurdura, bereziki giharren batena.

Berrizkoak **kontraktura** bat du bizkarreko ezker giharrean. Berria - Kirola

Istripuaren ondorioz, Aiensaren arrebak zerbikaletako zaintiratua eta sorbaldako **kontraktura** izan ditu. Berria - Euskal Herria

Buruan kolpe handi bat du, lepoan **kontraktura** gogor bat eta mina bizkarrean. Berria - Euskal Herria

Riazorreko partidan eskuin zangoko aduktoreetan **kontraktura** bat egin zuen Cesar Krutxagak. Berria - Kirola

Asegarceko medikuak **kontraktura** bat zela adierazi bazuen ere, atzoko probaren emaitzek zehaztu behar zuten lesioaren larritasuna zenbatekoa den. Berria - Kirola

# kontrakultura *iz* kultura ofizialaren aurkako kultura alternatiboa.

Alemanian, Ingalaterran, AEBetan eta beste herrialde batzuetan, praktika kontzeptualak lehenago garatu ziren, askatasun handiagoz, baina Espainian Frantziako 68ko Maiatzaren nahiz AEBetako **kontrakulturaren** oihartzunekin eta frankismoaren amaierarekin egin zuen bat praktika horien hedapenak. Berria - Kultura

60ko urteetako Ameriketako **kontrakulturako** kideen artean, zahartzen hasiak ziren aktibistak mobilizatzeko. Berria - Gaiak

Sarritan eskola gizartearen isla da, baina beste batzuetan **kontrakultura** egiten ahalegintzen da. Berria - Euskal Herria

Rocka **kontrakultura** gisa hilik dago: estatuak eta propagandak mantenduriko puta bat da. Berria - Kultura

# kontrakultural *izond* kontrakulturarena, kon trakulturari dagokiona.

Eta berdin drogak -68ko maiatzaren eta mugimendu **kontrakulturalaren** eragin berandukoa, ordura arte oso kasu berezietan baino ez baitzen ageri halakorik gure artean-; drogak bihurtu ziren askatasun-seinale, eta, aldi berean, gatibu tristeen ikur. Juan Kruz Igerabide

# kontrakuntza *iz*

-Barne- **kontrakuntzak** sortu zizkieagu! -esan zuen norbaitek Mateoren hoztasuna ezin eroanik. Koldo Izagirre

# kontrakzio *(orobat **kontrazio** g.er.)* 1 *iz* uzkurtzea, uzkurdura.

Denboraren eta espazioaren **kontrakzioak**. Berria - Kultura

Momentu arraroak izan ziren, denboraren **kontrakzio** bat bezala, akorduan dut enarak zebiltzala uda hasierako aire gardenean gezien moduan. Joseba Sarrionandia

"Bedlam" hitzak[...] garai batean *eroetxe* esan nahi zuen, Hospital of Saint Mary of Bethlehem, Londresko eroentzako osasun etxe batek zuen izenaren **kontrakzioa**. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan)

Gero uzkurtzen joaten dira, ordea, eta ezin izaten dute zarpeatuak duen zurruntasun-maila mantendu, eta **kontrakzio**-mugimenduaren eraginez ez dira igeltsuarekin itsasten, eta askatu egiten da igeltsuaren eta adreiluaren arteko lotura. Santiago Iruretagoiena

# kontraleiho *iz* zurezko atea, leihoari kanpoko aldean jartzen zaiona argia sartzea eragozteko.

Leihoaren eskutokiari eragin zion, hura doi bat zabalduz, eta bi **kontraleihoen** atzealdean kokatu zen, festa hobeki ikustearren edo. Patxi Zubizarreta

Leihoaren alboan kokatu zen gero, **kontraleihoen** arteketatik kalera begiratzeko. nire gelara joan ginen, **kontraleihoaren** zirrikituetatik begiratzera. Patxi Zubizarreta

Zeren **kontraleihoak** ondo itxita baitzeuden, lapurren beldurrez. Koro Navarro

Hamida begira geratu zitzaion **kontraleiho** itxien arteketatik iragazten zen kafe etxeko klartasunari. Patxi Zubizarreta

Ziur nengoen Julioren begiak zelatan zegozkigula **kontraleiho** itxi haien atzetik, nola azeriak zelatatzen baitu oilategia. Juan Kruz Igerabide

Miarritze teilatu gorri eta **kontraleiho** berdeko herri txuria da. Koldo Izagirre

# kontralmirante *iz* itsas armadako ofiziala, almiranteordea baino maila bat beheragokoa.

Schley **kontralmirantea**. Xabier Olarra

Leherketa hartatik **kontralmiranteen** kapela eta hainbat sagu zuri atera ziren bizirik. Iñaki Mendiguren

# kontralto *iz* emakumezkoen ahotsik apalena; ahots hori duen emakumezko kantaria.

Konpainiako lehen **kontraltoa**. Irene Aldasoro

Franklin andreak, Ernieren burua altzoan hartuta, Artzainaren neska abesten zuen **kontralto** ahots gozo, trebatuaz. Koro Navarro

Tesitura zabalekoa dela esan ohi da sopranotik **kontraltora** irago daitekeen kantari batez. Joxan Elosegi

Angel Pazos tenor irundarra eta Francisca Beaumont **kontralto** iruindarra. Berria - Kultura

«Kubako urrezko boza» erraiten diote Eva Grinan, andere kantari **Kontraltoari**. Herria

# kontramadarikazio *iz*

Eta lehenago ere lortuko nuen, Snape **kontramadarikazio** bat marmarka esaten aritu ez balitz, zu salbatzeko ahaleginetan. Iñaki Mendiguren

## kontramaisu *(orobat **kontramaixu** g.er.)* **1** *iz* marinelen ardura duen ofiziala.

Kapitaina hilik, **kontramaisuak** hartu zuen La Relampagoren ardura. Martin Anso

Smee **kontramaisu** irlandarra, ohi ez bezalako gizon jeniala, [...], Kako-oker kapitainaren eskifaiako disidente bakarra. Julen Gabiria

Une hartan, Ed Teynte, **kontramaisua,** txopako gaztelutik irten eta itsasontziaren bizkarretik etorri zitzaien. Julen Gabiria

Horixe zen **kontramaisuaren** zereginetako bat: obeditzen ez zuten edo alferkerian ari ziren marinelak soka batekin jipoitzea. Julen Gabiria

**2** langile talde baten ardura duena.

Beste batean tailerreko lan-taldean egotea egokitu zitzaidan: han **kontramaisuek** etxetik ekarritako janari-zorroa zabaltzen zuten. Urtzi Urrutikoetxea

Baina ez edozein langile, pentsatzen du Margak hura gogoratzean: **kontramaisua** izatera heldu zen Jose Javierren aita. Iban Zaldua

Langile bat zerraldo erortzen zenean, nekeak eta bero itogarriak jota, kaleko hotzaren besoetara botatzen zuten **kontramaisuek,** inolako gupidarik gabe. Iban Zaldua

---

## kontramaixu ik **kontramaisu**.

---

## kontramanifestari *iz* kontramanifestazio batean esku hartzen duena.

Wunsiedelen ehunka **kontramanifestari** ere bildu ziren, baina ez zen bi manifestari taldeen arteko borrokarik izan, Poliziak adierazi zuenez. Berria - Mundua

---

## kontramanifestazio *iz* manifestazio baten aurkako manifestazioa.

Haatik, igande goizean hiriburuan **kontramanifestazioa** egin zuten 10.000 ezkertiarrek, eta Berlingo hainbat herritarrek plaza blokeatu zuten Berria - Harian

---

## kontramarko *iz* bigarren markoa, lehengoaren gainean iltzatzen dena eta beira-leihoak jartzeko erabiltzen dena.

Areto nagusiak bi ditu, eta bien artean **kontramarko** polit bat dauka, beiraztatua, karratu samarra. Koldo Izagirre

---

## kontrametra *iz*

Egunez, Larruaren Errege Konpainian **kontrametra** (enkargatua) da. Pablo Sastre

---

## kontramito *iz* mito baten aurkako mitoa.

Leienda gaizto bat **-kontramito** bat- asmatu zuela aurreko garaiaz. Bernardo Atxaga

Pentsatzen dut, oroitzapen horren ildotik, askok eta askok "argitsu" agertu nahi izan zutela Franco diktadorea hil ondoren, eta, **kontramito** baten bila abiatuta -leku "ilun" baten bila, alegia-, Euskal Herrira jo zutela; gu geu, euskaldunak, hartu gintuztela **kontramito** horren pertsonaia nagusitzat. Bernardo Atxaga

Mitxelenak, mitoaren eta **kontramitoaren** erdibideak, zera diosku: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## kontranalisi *(orobat **kontraanalisi** g.er.)* *iz* analisi bateko emaitzak egiaztatzeko egiten den analisia.

**Kontranalisiak** positiboa baieztatuko balu, homotransfusio bitartez atzematen den lehen positiboa litzateke. Berria - Kirola

Horregatik jarri dute **kontranalisiaren** fidagarritasuna zalantzan. Berria - Kirola

Lottok **kontraanalisiak** egin beharko ditu positiboa berresteko. Berria - Kirola

Hamiltonen positiboaren **kontranalisirik** ezingo dela egin jakinarazi zuen atzo, «giza akats batengatik». Berria - Kirola

**Kontraanalisiak** esaten duenaren arabera hartuko dute behin betiko erabakia.

---

## kontraorganiko *izond*

Laboratorioko aire kutsatuan azukre errearen usain etxetiar eta haurtzarokoa zabaldu zen, baina bat-batean, garra zurbildu, eta oso bestelako usain bat aditu zen, metalikoa, aliazeoa, ez-organikoa, ia-ia **kontraorganikoa:** ai kimikari batek sudurrik ez balu. Juan Garzia

---

## kontraparte *iz* kontrapartida.

**Kontrapartean,** britainiar indarren presentzia gutxitu da? Berria - Harian

---

## kontrapartida *iz* zerbaiten eragin okerra kitatzeko balio duen gauza. ik**kontraparte**.

Imazek esan dio Zapaterori «leialtasun osoa eta **kontrapartidarik** gabe» eskaintzen diola. Berria - Euskal Herria

Promiskuitatearen zentzua eta batasunaren zentzua "estilo-zentzuaren" ordezkoak dira, estilo-zentzu hau hazkundearekin batera zertzen den diferentziazio-prozesu objektiboaren **kontrapartida** subjektiboa delarik. Iñaki Mendiguren

---

## kontrapas *iz* antzinako dantza eta soinua.

Jon eta Alain Maia dantzariek Ohorezko **kontrapasa** dantzatuko dute. Emakumeak guti ziren eta gizonak anitz, ez zen denendako bikoterik **kontrapaserako**. Aingeru Epaltza

---

## kontrapasa *iz* hegaztiak hegoaldetik iparraldera itzultzeko pasa.

Kurrillo eta usoen pasa eta **kontrapasa,** nork ez ditu usaindu eta zaindu gure paraje hauetan ere? Pello Zabala

**Kontrapasan** harrapatutako usoak inondik ere. Pello Zabala

**Kontrapasako** uso ihizia martxoaren 14a arte idekia da Nafarroan. Herria

Eguraldi kontuak, ehiztarien **kontrapasakoak** bezalaxe, gezurretan gelditzen omen dira sarri. Pello Zabala

EAEko Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi du oraingoz pagausoaren **kontrapasa** ehiza Bizkaian.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
kontrapasa ehiza (3); ohorezko kontrapasa (3)

---

# kontrapisu 1 *iz* zerbaiten pisua orekatzeko pisua.

Zer luzera behar duen palankak, zer masa bidali behar den, zer **kontrapisu** ezarri behar den: balantzen antzeari dagokion guzti-guztia menderatzen zuen Arkimedesek. Jon Muñoz

Hala, urak kortxoa zenbat igotzen duen, **kontrapisuak,** behera tiratuz, beste hainbat biraraziko du ardatza, eta ardatzak danborra. Santiago Iruretagoiena

**2** irud/hed

Mendebaldeko deitura hotsandiko hura zuen, berriz, euritako babesgarri morala, bere diru-arazo delikatuaren **kontrapisu** erabiltzen zuena. Irene Aldasoro

Multinazionalen kasuan uste dut EBk Estatu Batuen **kontrapisua** izan beharko lukeela. Berria - Euskal Herria

Esperientziak erakusten baitu jendeak ez dituela portaera-arau egonkorrak hartzen [...] bere zentzuak zuzenean astinduko dituzten eragileen bitartez ez baldin bada, adimena etengabe bisitatuko duten eragileak, onura unibertsalaren aurkako grina bortitzei **kontrapisua** jarriko diotenak. Juan Martin Elexpuru

Dudan zaldi aurpegia konpentsatzeko erabiltzen ditut askotan eskuak, **kontrapisu** bezala: hara, esaten diot munduari, zaldi aurpegia daukat baina begira ze esku politak. Harkaitz Cano

Beste **kontrapisurik** ez duenean legeak ez bortxatzeko. zu beti izan zarelako nire balantza orekatzen duen **kontrapisua**. Juan Martin Elexpuru

---

# kontraplaka *iz*

Goi mailako **kontraplakak** eginen ditu, 108 enplegu izanen omen dira. Herria

---

# kontraplano *iz* zineman eta telebistan, azken planoaren kontrako norabidean harturiko planoa.

**Kontraplanoan,** telebista-kamera bat ari da festa grabatzen. Anjel Lertxundi

Plano-**kontraplanoen** logika. Berria - Kultura

---

# kontrapozoi *(orobat **kontrapozoin**)* 1 *iz* pozoi baten eraginari kontra egiteko sendagia.

Gizon zuhurrak ez bezala, zeinak eskuinean prest baitu pozoina duen kopa eta ezkerrean **kontrapozoina,** bi eskuz edan nahi nuen nik atsegintasunaren kopa pozoindua... Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Alemaniar Mistika xiv. mendean sortu zen Haraindia eta Honaindiaren arteko harmoniarik eza tenkatuaren aurkako **kontrapozoi** gisara. Joan Mari Lekuona

---

kontrapozoin ik **kontrapozoi**.

---

# kontraprestazio *iz* hartu den edo hartuko denaren truke ematen den zerbitzua edo ordainketa.

Kataluniako eta Euskal Herriko alderdiek **kontraprestazioak** jaso dituzte, beren babesa agertzeagatik. Berria - Euskal Herria

---

# kontraproposamen *iz* promosamen bat aldatzeko edo ordezkatzeko egiten den proposamena.

Akordioa lortzeko asmoz, Dublinek **kontraproposamena** egin zuen: estatu kideen gehiengoa gehi bat eskatzea. Berria - Mundua

Noiztik-eta [...] Madrilgo Euzkadi'ko Ordezkaritza alde bateko eta besteko presoen trukeetan, bahituak bilatzeko zereginetan eta badaezpadako halako beste proposamen eta **kontraproposamen** batzuetan sartzen hasi zenez geroztik, hain zuzen. Edorta Jimenez

Hain zuzen, Estatuaren bortxatze plan horrexen aurka [...] egiten du berak bere **kontraproposapena,** Euskal Herriaren beraren integrazio borondatezkoarena. Joxe Azurmendi

---

# kontraproposatu, kontraproposa, kontraproposatzen du *ad* kontraproposamena egin.

1922an, bidaia baten kariaz trenez Madrildik Parisera, Ortega berriro itzuli da herrien psikologiaren kritikara, sistematikoago oraingoan, eta modako teoria psikologistei bere moldabidea **kontraproposatuz**. Joxe Azurmendi

---

# kontrapuntistiko *izond* kontrapuntuarena, kontrapuntuari dagokiona.

Harmonikoa **kontrapuntistikoa** baino. Berria - Kultura

---

kontrapunto ik **kontrapuntu**.

---

# kontrapuntu *(orobat **kontrapunto** g.er.)* 1 *iz* musika egiteko teknika, doinu bat eta harekin zerikusia duten bete doinu batzuk konbinatzean datzana.

Martinek bazuela adimen musikal bat, Bachen musikaren egitura-arauez jabetzeko modukoa, eta konplexutasun guztiez ohartzen zela, **kontrapuntuaren** eta fugen katramilen lege guztiez; musikagile profesional baten adimena zuela, alegia, musikaren arloan. Xabier Olarra

Zelula-masatxo horrexen barruan daude algebra eta musika, sintaxia eta semantika, geometria eta **kontrapuntua**. Juan Garzia

**2** irud/hed

Vivaldiren eskala alaiek **kontrapuntu** latza egiten zioten emakumetxoaren asaldura larriari. Alberto Ladron Arana

Herri txikiaren **kontrapuntu** gisa, Londres agertzen da. Berria - Kultura

Kako-oker kapitaina Peter Panen **kontrapuntua** da, baina ez dira lar pertsonaia desberdinak. Julen Gabiria

Errepika tragiko hau du gai nagusi *Bekatuaren itzala*-k; baina, jenio handiz, bestelako errepika batez jarri dio **kontrapuntua** Mendigurenek. Markos Zapiain

Euren eredu ez demokratikoa apurtzen duen **kontrapuntu** politiko eta soziala. Berria - Euskal Herria

---

# kontrara 1 *adlag* kontrako aldetik; alderantziz.

Bela laburtu zuen, baina, orduan, **kontrara** zetorren haizeak atzerantz eramaten zuen, ez arrisku gutxirekin. Julen Gabiria

Gure sintaxia **kontrara** dagoelako antolatua, "sintaxi informatibo-logiko-diskurtsiboak" eskatuko lukeenaren beste aldera. Pello Salaburu

[Piramidearen] oina lur-zolan pausaturik eta punta goian; eta **kontrara** eraikitzea erokeria zela. Joan Mari Irigoien

**2** aitzitik.

Inortxok ere ez zion ezer leporatu; **kontrara,** ekintza ona iritzi zioten, zeren [...]. Patxi Zubizarreta

Sanker, **kontrara,** pozarren zegoen haren eskupekoekin, inoizko handienak baitziren. Patxi Zubizarreta

**3** (-en atzizkiaren eskuinean)

Hala bada, jendetasunak agintzen duenaren **kontrara,** ez zion senarraren osasunaz galdegin. Patxi Zubizarreta

Erran dute ere bere gogoaren **kontrara** sartua zela politikan. Herria

Hemen ere parioen **kontrara** joan da partida 8 bote ere sartu ditu Duhauk eta 4 bakarrik biriatuarrak. Herria

**4** (-z atzizkiaren eskuinean)

Hegaztien moduan goaz gu, oroimenaren zentzuaz **kontrara,** besterririk besterri. Patziku Perurena

**5** ***kontrarako*** *izlag* kontrako alderakoa.

**Kontrarako** hautaketa haren ondorioz, ezgauzen zirenak gertatzen ziren, hain zuzen, han egokien. Josu Zabaleta

**6** ***kontrarakoan***

**Kontrarakoan**, hiru egunekoa izan zen niretako bide hori bera. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gogoz kontrara (3); guztiz kontrara (5); oso kontrara (3)

---

# kontrargi *iz* argiaren kontrako norabidean begiratzen zaion gauzaki batek hartzen duen itxura.

**Kontrargitan,** leku hura kezko kiribilez beterik ageri zen. Lopez de Arana

DC-7 arrunt bat, oso goian distiratsu, **kontrargitan** elurra bezain xuri zihoana Mexico-Cityrantz. Joxe Austin Arrieta

Goizeko lehen argia hiriaren atzeko aldetik ireki zen, poliki, hiria beltz gelditu zen **kontrargian**. Jon Alonso

Kamisoi erdi garden batez jantzirik, soin-ertzak nabarmentzen zitzaizkion **kontrargira**. Iñaki Zabaleta

---

# kontrargiztatu *izond* kontrargitan dagoena.

Argia esku arteko argazkiei zuzenduta, erabat bihurri eta adierazpen gabeak ageri ziren bion aurpegi **kontrargiztatuak**. Josu Landa

---

# kontrario 1 *iz* aurkaria.

Ez ziren jada bidelagunak, **kontrarioak** baizik, edo, are gehiago, etsaiak, gerraren jokalekuan zeudenez gero. Karlos Zabala

Zelaian inoren aurrean ez zen isiltzen, laguna edo **kontrarioa** izan, baina erabakiak diziplinaz onartzen zituen. Jon Alonso

Hor bost pilota joko mota dira praktikatu behar, bata bestearen ondotik **kontrario** berarekin buruan buru. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Kontrarioa** ezezaguna zuen, Santutxukoa, aurkezpenean bozgorailuetatik entzun zuenez. Josu Landa

Opin ez duk, gero, **kontrario** samurra. Bernardo Atxaga

**2** (-en atzizkiaren eskuinean)

Alkatea karlista, kontserbadorea eta abertzaletasunaren **kontrario** amorratua zen. Rafa Egiguren

Tartean sartu eta airean bidali zituen anaiaren **kontrario** guztiak. Gotzon Garate

Zakur pisuagoak errazago har lezake mendean bere **kontrarioa**. Gotzon Garate

Baina hartu behar zion mendeku bere **kontrarioari**. Anton Garikano

• **3** *izond* aurkakoa.

Bi mutur **kontrario** horien artean jaki lagungarriz beteriko plater-ilara paraleloak ageri ziren. Irene Aldasoro

Filosofia modernoan, orobat, bidaiari eta misiolarien berri kontraesangarriek, arrazoi **kontrarioak** bermatuko dituzte: izatez "gizakia gizakiarentzat otso" da, Hobbes-en iritzian (XVII); on eta errukitsua, Rousseauren ustean (XVIII). Askoren artean

Etengabeko nahasmena gobernu-unitate **kontrarioen** artean (elkarren lehian) lurraldea eta nagusitasuna lortzeko. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> bere kontrario (3); bi kontrario (5)
> gure kontrario (3); izango du kontrario (20); kontrario arriskutsua (5); kontrario erosoa (4); kontrario ezerosoa (3); kontrario finalerdietan (3); kontrario gogorragoak (3); kontrario gogorrena (4); kontrario guztiak (4); kontrario izan (4); kontrario izango (9); kontrario zuzena (7)
> bere kontrarioa (6); beste kontrarioa (3); du kontrarioa (3); lehen kontrarioa (3)
> hasi ziren kontrarioak (3)
> kontrarioei dagokienez (3)
> kontrarioen (6); kontrarioen aldean (3); kontrarioen artean (3); kontrarioen aurka (5); kontrarioen pilotak (3); kontrarioen pilotekin (3)

---

# kontrariotasun *iz* aurkakotasuna.

Modernitatea bere osoan razionalismoaren aroa izan da ikuspuntu filosofikotik -horren ukoa azpimarratu duten autore bakanen kasuak barne: razionalismoaren **kontrariotasunak** ezagutarazten ditu-: arrazoimena zer den, zer ahal duen, zer muga duen, izango dira auzi nagusiak. Askoren artean

---

# kontrarreforma *(orobat **kontraerreforma**)* 1 *iz* erreforma baten aurkako higikundea.

Bestetik, bere garaian lege erreforma «zapaltzaile eta atzerakoiak» sustatu zituztenen aurka, **kontrarreforma** bat egiteko dei egin zion Garaikoetxeak Zapaterori, «hori izango da benetako froga». Berria - Euskal Herria

**2** protestanteen erreformari aurka egiteko eliza katolikoak abiarazi zuen erreforma.

Erreforma protestantea eta **Kontrarreforma** katolikoa. Koldo Zuazo

Erromako Eliza Katolikoaren Trentoko **Kontrarreforma** . Iñaki Mendiguren

Baina segituan **kontrarreforma** bultzatu zuen Eliza katolikoak, eta euskal literatura aszetika eta pragmatika erlijioso katolikoko liburuak egitera bideratu zen. Berria - Harian

---

## kontrarreformazale *izond* kontrarreformaren zalea dena.

Gure klasikoengandik jaso dugun tradizio erreformazale/**kontrarreformazaletik,** egungo literatura egin nahi dugu; euskara arkaiko hura egungo literatur euskara mamitzeko baliatu. Iñaki Iñurrieta

---

## kontrarresi *iz* bigarren harresia.

Angelu bera daukan amildegi batek osatzen du **kontrarresia** Koldo Izagirre

---

## kontrarritmo *iz*

Ni liluraturik geratu nintzen erritmoen eta **kontrarritmoen** kateatze harekin; hitz egiten zuen zurak, eta gorputz osoan sartzen zitzaidan haren mintzoa; eta hori bi makila eta ohol batzuk besterik gabe. Juan Kruz Igerabide

---

## kontraseina *iz* pasatzeko hitza.

Txalupa iritsi zen, eta linterna batekin jakineko **kontraseina** egin nien. Berria - Harian

---

## kontrasinatu, kontrasina, kontrasinatzen du *ad* berriro sinatu.

Hortik aparte, fakultate ospetsuren bateko kide guztiek sinatu eta **kontrasinatutako** inolako diplomarik ez bazuen ere, horrek ez zion kentzen, horrenbestez, oso gizon duina eta jakintsua izatea. Josu Zabaleta

---

## kontrasorginkeria *iz* sorginkeriaren kontrako erremedioa.

Sarritan ikusi ditut horren ondorioak; zoritxarrez, ez nengoen bertan egin diotenean, bai baitakit salbatuko zukeen **kontrasorginkeria..** . Iñaki Mendiguren

---

## kontrastagarri *izond* kontrasta daitekeena.

Ohar zaitez baieztatzen dena (datuak, baieztapenak) **kontrastagarria** den, edo kontrastatzeko bideak ematen ote dituen, batez ere erreferentziak, bibliografia orokorra eta beste iturri batzuk. Askoren artean

Positibista Logikoek psikologia egiteko modu "introspektiboa" gogor kritikatu zuten, haien ustez publikoki (intersubjektiboki) **kontrastagarriak** ez diren terminoek ez baitute inolako esanahirik. Askoren artean

Perpaus orok errealitatearekin erlazio zuzenean dauden perpaus sinpleagoetara murrizgarri izan behar du esanahiduna izateko, eta perpaus sinpleago horiek errealitatearekin **kontrastagarriak** dira. Askoren artean

---

## kontrastante *iz* kontrastatzen duena.

Christophersen irakurketa erabatekoa izan zen; azentuazio aldetik ezberdina eta **kontrastantea,** eta *tenpi* azkarrak markatuz Berria - Kultura

---

## kontrastapen *iz* kontrastatzea.

Europa eta Asiaren **kontrastapena** daukagu hor ere. Joxe Azurmendi

---

## kontrastasun *iz* kontrakotasuna.

Tolesik gabeko xalotasunaren eta mintzaira lotsagabearen arteko **kontrastasun** hori ez da hain zuzen ondoriorik gabea. Jon Muñoz

---

## kontrastatu, kontrasta, kontrastatzen **1** du *ad* zerbaiten zehaztasun edo balioa egiaztatu; teoria edo hipoteis bat esperientziarekin erkatu.

Iritzi kontrajarriak **kontrastatu,** eta iritzien arteko talka horretatik egia ateratzen ahalegintzea omen da eztabaida. Joxerra Garzia

Ohar zaitez baieztatzen dena (datuak, baieztapenak) kontrastagarria den, edo **kontrastatzeko** bideak ematen ote dituen, batez ere erreferentziak, bibliografia orokorra eta beste iturri batzuk. Askoren artean

Eztabaidagai [...] baten inguruan aldeko eta kontrako autoreen iritziak jaso eta, **kontrastatu** ondoren, norberaren ahaleginez argitasun gehiago lortzen saiatzea. Askoren artean

Hizkuntza asmatzeko askatasunak, ordea, talaia urrutiratzea eskatzen du -irakurri, begiratu, hausnartu...-, errealitatea eta utopia **kontrastatuko** badira. Anjel Lertxundi

**Kontrastatu** gabeko informazioaz. Iñigo Aranbarri

**2** zerbaitek edo norbaitek beste zerbait edo norbaitekiko desberdintasun nabarmenak agertu, batez ere elkarren ondoan jartzean.

Haren ustez jakintza-sistema osoa da errealitatearekin **kontrastatzen** dena. Askoren artean

---

## kontrastatzaile *izond* kontrastatzen duena.

Beraz, balio fonemikoa du zalantzarik gabe, nahiz eta ez duen, oro har, egiteko linguistiko **kontrastatzailerik** betetzen hizkuntzaren sisteman. Lourdes Oñederra

---

**kontrastazio** *iz* kontrastatzea.

Arazo horretan **kontrastazioaren** gaia aztertzen da, eta zehazkiago, indukzioaren arazoa eta haren justifikazioa. jaso duzun informazioa, hari buruzko analisia **(kontrastazioa,** eztabaida, erkaketa...), konbentzitzeko teknikak, ikuspegi berriak. Askoren artean

---

**kontraste** **1** *iz* gauza batek beste baten aldean agertzen duen desberdintasun nabarmena.

Gauaren eta goizaren arteko **kontrastea** . Gure gogoa, hizketa, **kontrastez** sortua baita, eta **kontrasteak** bizi du. Berria - Kultura

Biak Errusian izanak dira, eta hiri handien eta herri txikien arteko **kontrasteak** nabarmendu dituzte. Berria - Mundua

Bat-batean, adagio xalo bat jarraitu zitzaion *staccato*ari, efektu-kolpe **kontrastezko** batez. Anjel Lertxundi

**Kontraste** horretan du indarra tituluak. Iñigo Aranbarri

Freskoaren beheko partean **kontrastea** eginez, infernura kondenatutakoen mugimendu desordenatuen orgia. Anjel Lertxundi

**Kontrasteak** eragindako sentipen gaizto bat zen hura? Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

Begirada lasaia [...], Tonyren begiratu urduriekin **kontraste** handia egiten zuena. Julen Gabiria

Atzokoa **kontraste** handiko eguna izan zen: goizeko ibilbidea bihurgunez beterik zegoen [...]; arratsaldean, ordea, bidea zuzen baino zuzenagoa bilakatu zen. Patxi Zubizarreta

Portaeraren ez-normaltasunak eta berbaldiaren normaltasunak **kontraste** harrigarria egiten zuten. Xabier Olarra

Ba al da **kontraste** ankerragorik epaituaren larritasunak eta epailearen patxadak egiten dutena baino? Juan Martin Elexpuru

**Kontraste** mingarriz beteriko mundu honetan. Lopez de Arana

Juduek [...] K.a. 166tik K.o. 135era bitarteko hirurehun urteetan egindako hainbat matxinadarekin **kontraste** bizian, kristauak sekula ez ziren armaz matxinatu erromatar jazarleen aurka, gutxi gorabehera luzera bertsuko denboraldi batean. Iñaki Mendiguren

**3** (koloreetan eta)

**Kontrastea:** argitasunaren eta ertzen arteko elkarreragina. Josu Zabaleta

Oraindik argi ageri den zeruaren eta dagoeneko beltztu diren 4endien arteko **kontrasteak** lagundurik. Pako Aristi

Rembrandt-en edo Caravaggioren koadroetan irudikatzen diren itzalen eta argien arteko **kontrastea,** esate baterako, askoz biziagoa da egiazko eszena batean izango litzatekeena baino. Josu Zabaleta

Batzuetan, **kontraste** neurrigabe eta bortitzez nabarmentzen ziren gauzak, silueten tankera hartuz. Xabier Olarra

Zinemari dagokionez, Eisenstein agortezinak elkarren segidako planoen arteko harremanak determinatzen dituzten parametroen artean sartu nahi izan zituen **kontraste** grafikoak. Josu Zabaleta

Marrazki fotoerrealista, **kontraste** handirik gabea. Berria - Kultura

Geranio gorri-gorriak balkoiko egur landuzko barandan, leihoetako markoen eta barandaren beraren berde biziarekin **kontrastean** . Anjel Lertxundi

**4** (fonetikan)

[t] / [d] **kontrastea** erabiltzeko. Lourdes Oñederra

Bestela esan, **kontrastez** ohartzen gara azentuaz, doinuaz, segmentuen luze-laburraz eta baita silabaz ere: beste batzuk edo bestelakoak daudelako aldamenean, beste horiekin kontrastatuz. Lourdes Oñederra

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

I. jaunaren akromatopsia [...] erabatekoa zen, eta hondamen iraunkorrak zituen **kontraste** -ikusmenean. Xabier Olarra

Kolore-gama, eta gama horren **kontraste** -erlazioak. Josu Zabaleta

Erabaki genuen euskalgintzan hainbat erakundetan lanean ari diren pertsonekin **kontraste** talde bat sortzea. Berria - Harian

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zinea asmatu baino lehenagotik ere, argiaren arabera eta argi- **kontrasteen** bidetik pentsatzen zituen Stendhalek eszena gogoangarrienak. Anjel Lertxundi

Liluratu egin naute azken eguzki-printzek meskiten teilatuekin sortzen zituzten kolore- **kontrasteek** . Jon Arretxe

Tenperatura **kontraste** handiak saihestu, eta ura maiz edan. Berria - Harian

Gainera, ñabardura xumeak mailakatu ezinarekin batera, ñabardura- **kontraste** gehiegizkoa sumatzen zuen I. jaunak. Xabier Olarra

Halako **kontraste** -efektu zakarra sumatzen zuen. Xabier Olarra

Silaba egituratzearen beste hatsarre garrantzitsu bat nabarmentasun- **kontrasterik** handienarena da. Lourdes Oñederra

Hiztunek ahoskera **kontrasteak** egitea. Lourdes Oñederra

Kazetariak Portugalgo *Publico*, AEBetako *Washington Post*, Erresuma Batuko *The Guardian* eta Frantziako *Le Monde* egunkariak aztertu ditu, haien arteko «tratamendu **kontrastea»** ikusteko. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontraste bitxia** (3); **kontraste ederra** (3); **kontraste handia** (11); **kontraste handia egiten** (5); **kontraste handiko** (3); **kontraste polita** (3)
> **kontrastea egiten** (3)
> **eta kontrastez beteriko** (3); **kontrastez beteriko** (6); **kontrastez josiriko** (3)

---

**kontrastetsu** *izond* kontraste handikoa.

Eskala bizkor eta arpegio koloretsuen tirania **kontrastetsuak** . Anjel Lertxundi

---

**kontrasu** *iz* basoan eta kidekoetan, sutea badago suak aurrera ez egiteko, landarerik gabe uzten zen lur zerrenda zabala.

Erdian simetria erabakitzen duen goi elurtua dago, mendi elurtua, **kontrasu** batek zeharkaturik, azken arboletako adar horixka bustietaraino. Lutxo Egia

---

**kontrasuposizio** *(corpusean **kontra-suposizio** soilik) iz*

Idazleak **kontra-suposizio** hau onartu zuen, eta Azterlan honen lehenengo sei zatietan fede hori justifikatuta geratzen zela iruditu zitzaion. Iñaki Mendiguren

---

**kontrata** **1** *iz* zerbitzu bat emateko edo lan egiteko kontratua.

Enpresa batek **kontrata** edo azpikontrata baten zerbitzua kontratatzen duenean, lege ordezkariari jakinarazi beharko dizkio xehetasun guztiak: iraupena, lekua, langile kopurua... Berria - Ekonomia

*Parque San Vicente* sustatzaileak *Teisa* **kontratari** eman zion lana, eta horrek *Bernabe y Jorge* enpresari azpikontratatu zion. Berria - Ekonomia

Ezinbestekoa da jakitea zer-nola ibili diren, adibidez, aspaldiko **kontrata** batean erreaktorean lanean aritutakoak. Berria - Euskal Herria

Haren eraikuntza enpresaren izena barra-barra agertzen da Foru Gobernuaren eta hiriburuko Udalaren **kontratetan** . Aingeru Epaltza

Pakonio izeneko bati eman zitzaion **kontrata** . Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan)

**Kontrata** -deia zabaldu zen harrobi haietatik beste oinarri berria ateratzeko Santiago Iruretagoiena

---

## kontratatu, kontrata, kontratatzen *(orobat* ***kontraktatu*** *g.er.)* **1** du *ad* zerbitzu bat emateko edo lan egiteko pertsona bat kontratu baten bidez hartu.

Hiriko abokatu onenetako bat **kontratatu** zuen hura defendatzeko. -Emakumea aurkitzeko **kontratatu** naute. Oskar Arana

Administrazioak **kontratatzen** dituen langile guztiek euskaldunak izan behar dute. Berria - Harian

Gizon hura zaintzeko **kontratatu** ninduten beraz. Xabier Mendiguren Elizegi

Agentziak **kontratatu** nau eta ez dakit jabeak zeintzuk diren. Jasone Osoro

Prentsako iragarki baten bitartez norbaiten zerbitzuak **kontratatu** zituela. Karlos Zabala

Horretarako, Txinako *Mobile Corp* enpresa **kontratatu** du. Berria - Gaiak

**2** merkataritza akordio bat lortu, diru edo kideko baten truke zerbitzu bat hartzeko.

37 milioi estatubatuarrek ezin dute mediku pribaturik ordaindu, ez eta asegururik **kontratatu** ere. Berria - Gaiak

**3** (era burutua izenondo gisa)

Irakasle **kontratatu** gisa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitateko irakasleen %49 **kontratatuak** izatea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrek esan nahi du egonkortasunik gabeko eta zatikako lanaldia izanen dutela **kontratatuek** . Berria - Harian

Baserritarrei laguntza emateko **kontratatuen** artean. Pello Salaburu

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abokatu kontratatu** (3); **enpresa kontratatu** (4); **irakasle kontratatu** (10); **lagun kontratatu** (3); **langileak kontratatu** (5)
**irakasle kontratatuak** (4)
**irakasle kontratatuek** (3)
**irakasle kontratatuen** (16); **irakasle kontratatuen egoera** (4)
**irakasle kontratatuk** (4)
**langile kontratatuko** (3); **langileak kontratatuko** (3)
**irakasle kontratatuen etorkizuna** (3)
**kontratatutako irakasleak** (6)
**irakasleak kontratatzeko** (8); **kontratatzeko aukera** (7); **langileak kontratatzeko** (7)
**langileak kontratatzen** (7)

---

## kontratatzaile 1 *izond* kontratatzen duena.

Enpresa **kontratatzaileak** azpikontraten erantzule subsidiario izango dira Gipuzkoako Ogasunaren aurrean. Berria - Ekonomia

**2** (izen gisa)

Garbitzaile grebalarien **kontratatzailea** FCC enpresa zelako. Berria - Ekonomia

26 urtetik beherako gazteei zuzenduta zegoen, eta **kntratatzaileak** , nahitaez, 20 langiletik gorako konpainia izan behar zuen. Berria - Harian

Era berean, gure ikasleak gizartearentzat ahalik eta baliagarrienak izatea nahi badugu, **kontratatzaileen** babesa ere behar dugu. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**enpresa kontratatzaileak** (3)

---

## kontratatze *iz* zerbitzu bat emateko edo lan egiteko pertsona bat kontratu baten bidez hartzea.

Enpresa kopuruak eta **kontratatze** kopuruak gora egin duela azpimarratu du Jean-Marie Berckmansek. Berria - Ekonomia

Proiektua aurkeztu ondoren, **Kontratatze** Mahaiak erabakia hartuko du. Berria - Harian

---

## kontratazio 1 *iz* kontratatzea.

Araudia jarduera profesionalaren alderdi guztiei zegokien, **kontrataziotik** hasi eta produktuen kalitatezko arauetan buka. Koro Navarro

**Kontratazio** mugagabea eta kaleratze merkeagoa lotu zituen. Berria - Ekonomia

Aldi baterako **kontratazioak** egin beharko zenituzkete, laneko ordezkapenak betetzeko... Aingeru Epaltza

Behin-behineko **kontratazioa** erruz ari da zabaltzen (%33 inguru, Espainian). Iñaki Heras

**Jatorrizko** kontratazioa sustatuko du Jaurlaritzak. Berria - Ekonomia

**Kontratazioa** bultzatzeko pizgarri sistema konplexua egokitzea. Berria - Harian

Legez kanpoko **kontratazioari** aurre egitea. Berria - Ekonomia

**Kontratazioan** iruzur egiteagatik. Berria - Ekonomia

Zerbitzuen **kontratazioari** eta ondasunen salerosketei eragin behar diete araudiek. Berria - Ekonomia

Irakeko Armada berriaren **kontrataziorako** zentru baten aurrean. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

EAEn erabiltzen diren **kontratazio** ereduei buruzko txostena. Berria - Ekonomia

Bidezko **kontratazio** ereduen alde egiteko. Berria - Ekonomia

Asteko lehen egunetan %7 handitu dela **kontratazio** bolumena. Lanpostuak galdu dira eta **kontratazio** politika enpresaburuen etekinen hazkunde iturria da. Berria - Ekonomia

Behin-behinekotasunean oinarritutako **kontratazio** sistema. Berria - Ekonomia

Ez **kontratazio** proposamen birtualik. Berria - Ekonomia

Joxean Muñozek EAEko administrazio publikoaren **kontratazio** parametroen araberako kontratua izango du. Berria - Kultura

Lizentzien banaketa erabaki behar zuen **kontratazio** mahaiko buru zen Sanz Barea. Berria - Euskal Herria

Barnean, **kontratazio** sala erraldoi bat, pantaila elektroniko handi baten argitan. Hasier Etxeberria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kontratazio berri guztietan** (3); **kontratazio mahaia** (7); **kontratazio mahaiak** (15); **kontratazio mahaiaren** (4); **kontratazio mahaiko** (8); **kontratazio mahaiko buru** (4); **kontratazio mugagabea** (3); **kontratazio politika** (3)

**aldi baterako kontratazioa** (5); **irakasleen kontratazioa** (3); **mugagabeko kontratazioa** (3)

**behin behineko kontratazioak** (3)

**aldi baterako kontratazioari** (3)

---

# kontratenor *(orobat* **kontratenore***)* *iz* gizonezko ahotsa, emakumezko kontraltoaren kide dena.

Mena **kontratenorraren** kontzertuarekin ganbera zikloa bukatuko da gaur. Berria - Kultura

Andra Mari Elizako XII. mendeko ataurrean aritu ziren Jose Hernandez Pastor **kontratenorra** eta Ariel Abramovitx bihuela jotzailea. Berria - Kultura

**Kontratenoreen** munduan ohikoena beste errepertorio bat entzutea izaten da (altuagoa eta koloratura gehiagokoa, Haendel edo Vivaldi, kasu) baina mota honetako errepertorioan emakumeak izaten dira gehienetan abeslari. Berria - Kultura

---

kontratenore ik **kontratenor**.

---

# kontratenpora *iz*

**Kontratenporei** jarraiki, Bizkai-Zubero bi erpinak kontuan hartuz, zortzi egunen uztaia itxiz, hobeto koadratzen dira geroko 90 egunak. Pello Zabala

---

# kontratista *iz* obra-kudeatzailea.

Eraikuntza-arloko **kontratista** zen hura. Oskar Arana

Furgoneta bat heldu zen David eta haren aita lan egiten ari ziren lekura, eta handik jaitsi zen **kontratistak,** igeltseroak behar zituela esan, eta ordua obra hartan baino hiru mila pezeta gehiago ordaintzeko prest zegoela esan zien. Iban Zaldua

Armak egiteko plantako **kontratista** Gobernua zela esan dute, eta harena dela erantzukizuna. Berria - Gaiak

**Kontratisten** eta Eraikitzaileen Elkarteak lan-itxiera erabakiko du astelehenetik aurrera. Lopez de Arana

---

kontrato ik **kontratu**.

---

# kontratu *(orobat* **kontrato** *g.er.)* **1** *iz* alderdi bi edo gehiago baldintza jakin batzuk betetzera lotzen dituen hitzarmena, gehienetan idatzia.

Alabak zortzi gineako **kontratu** bat sinatu zuela eta ordaindu egin behar zitzaiola. Irene Aldasoro

Kanadan banengo ez nuke **kontratu** honetan izenik jarriko -esan zien don Pedrok-. Bernardo Atxaga

Alstomekin osatu duen partzuergoak 75 tren egiteko bi **kontratu** erdietsi ditu. Berria - Ekonomia

Jakina, enpresa horiek **kontratu** goxoak lortzen dituzte agintari nazien eskutik. Alberto Ladron Arana

Uztailean Hego Euskal Herrian guztira 573.372 **kontratu** egin dira. Berria - Ekonomia

**Kontratuak** dio hotelak hiri-hirian egongo direla. Patxi Zubizarreta

Langabezia handi horri estu lotua dago **kontratu** asko eta asko aldi baterako izatea. Iñaki Heras

Bost urteko **kontratua** eskaini didate. Javi Cillero

Hiru urterako **kontratuarekin**. Joxe Austin Arrieta

Bronxville-eko etxea saltzeko **kontratua** sinaturik zegoen jada. Oskar Arana

Hori Dombrowskirekin sinatu zuen **kontratuaren** urratze argi eta garbia zela. Oskar Arana

**Kontratupean** saltzen du bere lan-indarra, idatzi gabeko **kontratuaren** pean. Oskar Arana

Erromatarren **kontratu** bidezko maileguaz eta lukurreriaz. Iñaki Iñurrieta

Nazio kontzeptuak Estatuaren eta pertsona fisikoaren arteko nolabaiteko **kontratuzko** harremana adierazten duela herritartasuna esan nahi duenean, eta errealitate kulturala [...], berriz, erkidego etniko-kulturala esan nahi duenean. Berria - Harian

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Espainian behin-behineko **kontratuak** egiteko malgutasuna Ameriketako Estatu Batuetakoa baino handiagoa da. Iñaki Heras

Lanaldi partzialeko **kontratu** gutxi egiten dira. Berria - Ekonomia

Justizia **kontratu** sozial baten bitartez soilik lor daitekeela. Askoren artean

**Kontratu** mugagabeei dagokien kaleratze ordaina murriztea hitzartu dute. Berria - Ekonomia

**Kontratu** finkoa segurua omen duk orain. Aingeru Epaltza

Lau eta sei hilabete arteko **kontratu** mugatuak. Herria

Bere bizitzako lehen **kontratu** profesionala. Aritz Gorrotxategi

Ezkontza betiereko **kontratua** dela, helburuz eta xedez. Andres Urrutia

Ezkontza antzaldatzen zuten, egintza misto moduan hartuz, alegia, aldi bereko **kontratu** zibil eta eliz kontratu moduan, bi izate horiek bertara bilduta. Andres Urrutia

Lanean sei hilabeteko **kontratu** mixerableekin. Bernardo Atxaga

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nik ez nuen **kontratu**-paperik sinatu, eta berak ez zidan titulu-paperik eskatu. Joxerra Garzia

Zenbat eta lan eta **kontratu** baldintzak eskasagoak, orduan eta garestiago ateratzen zaio langileari askatasuna. Joxerra Garzia

90eko hamarkadako erreformek sustatutako **kontratu** ereduetan egiten dira egun iruzur gehienak. Berria - Ekonomia

Gamesako **kontratu** luzapenak «legez kontrakoak» dira. Berria - Ekonomia

**Kontratu** proiektua irakurketa bakar batean eztabaidatuko dute diputatuek. Berria - Harian

Langune berean langileen arteko **kontratu**-lotura oso desberdinak izatea. adosten duen **kontratu**-mota. Iñaki Heras

Kontratatzen duen horri hobekien deritzan **kontratu** mota egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Kontratu** bidez proiekturen bat egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Salerosketa-**kontratua** emango balie bezala. Anton Garikano

Francisco Francoren beraren eskutik etxearen errenta-**kontratua** eta giltza hartzeko. Koldo Izagirre

Lan **kontratu** egonkorren alde egiteko. Berria - Ekonomia

Jende guti ezagutu dut lan-**kontratu** txar bat sinatzeak hain on handia egin diona. Aingeru Epaltza

50.000 praktika **kontratu** egingo dira arazoetan diren lanbideetan. Berria - Harian

Rouen-Club-ekin futbol **kontratu** oso on bat sinatu zuelako. Jokin Urain

Zabor-**kontratuak** dira esparru askotan nagusi. Iñaki Heras

Esklusibitate **kontratu** antzeko bat zuen Sakabirekin. Iñigo Aranbarri

Reb Alter Vishkowerrek ezkontza **kontratu** bat ari zela prestatzen eman zuen aditzera. Koro Navarro

Beste ezkon **kontratu** batean sartu nahi naute orain, baina neskak ez nau batere erakartzen. Koro Navarro

Gainera, ikas-**kontratoen** bidez, zazpi urtez gutxienez egonarazten zituzten fabriketan. Iñaki Heras

· Eginkizun-**kontratu** proposamena salatu du LABek. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aldi baterako kontratu** (5); **bi urteko kontratu** (5); **egindako kontratu** (3); **erreka kontratu** (4); **etorkizuneko kontratu** (3); **gazteentzako kontratu** (5); **kontratu bat sinatu** (6); **kontratu berezi** (3); **kontratu berri** (25); **kontratu berri bat** (4); **kontratu berria** (29); **kontratu berria sinatu** (3); **kontratu berriak** (18); **kontratu berrian** (4); **kontratu berriarekin** (6); **kontratu berriaren** (8); **kontratu berrien** (5); **kontratu berririk** (5); **kontratu berritzea** (6); **kontratu berritzeak** (3); **kontratu bidez** (4); **kontratu egin** (7); **kontratu egingo** (3); **kontratu finkoa** (8); **kontratu finkoak** (4); **kontratu finkorik** (3); **kontratu izenpetu** (3); **kontratu luzapena** (5); **kontratu luzea** (4); **kontratu mota** (18); **kontratu mugagabe** (10); **kontratu mugagabe bat** (4); **kontratu mugagabea** (20); **kontratu mugagabea egin** (3); **kontratu mugagabeak** (15); **kontratu mugagabeak sustatzeko** (3); **kontratu mugagabeen** (3); **kontratu mugagabekoa** (5); **kontratu mugatua** (5); **kontratu on** (4); **kontratu on bat** (3); **kontratu planean** (4); **kontratu prekarioak** (3); **kontratu profesionala** (6); **kontratu sozial** (3); **lan kontratu** (37); **lan kontratu bat** (3); **lan kontratu berria** (4); **lan kontratu mota** (3); **lehen kontratu** (3); **lehen lan kontratu** (5); **milioi bat kontratu** (3); **sinatutako kontratu** (3); **urteko kontratu** (6)

**aldi baterako kontratua** (7); **amaitzen zaio kontratua** (20); **asperekin zuen kontratua** (4); **behin behineko kontratua** (10); **berritu du kontratua** (9); **beste urtebeteko kontratua** (6); **beste urtebeterako kontratua** (6); **bi urteko kontratua** (11); **bi urterako kontratua** (16); **bigarren kontratua** (3); **bost urteko kontratua** (4); **bukatzen zitzaion kontratua** (5); **cpe kontratua** (8); **cpe lan kontratua** (4); **denboraldi baterako kontratua** (7); **denboraldirako kontratua** (10); **denboraldirako kontratua sinatu** (8); **egiteko kontratua** (14); **egiteko kontratua lortu** (4); **enplegu berrietarako kontratua** (3); **enplegu berrirako kontratua** (3); **enplegua sustatzeko kontratua** (3); **enplegurako kontratua** (3); **eraikitzeko kontratua** (13); **eraikitzeko kontratua lotu** (3); **euroko kontratua** (9); **euroko kontratua lortu** (4); **hilabeteko kontratua** (3); **hiru denboraldirako kontratua** (4); **hiru urteko kontratua** (11); **hiru urterako kontratua** (7); **hornitzeko kontratua** (3); **hornitzeko kontratua lortu** (3)

**; kontratua amaitu** (6); **kontratua amaitzen** (16); **kontratua atzera bota** (3); **kontratua berritu** (46); **kontratua berritu du** (8); **kontratua berrituko** (8); **kontratua berritzea** (9); **kontratua berritzeko** (28); **kontratua berritzeko eskaintza** (4); **kontratua berritzen** (4); **kontratua bete** (8); **kontratua bete dute** (3); **kontratua betetzeko** (6); **kontratua betetzeko asmoa** (3); **kontratua bukatu** (4); **kontratua egin** (16); **kontratua egin dio** (4); **kontratua egingo** (3); **kontratua egitea** (3); **kontratua egiteko** (3); **kontratua erdietsi** (3); **kontratua eskaini** (14); **kontratua eskuan** (3); **kontratua eskuratu** (4); **kontratua eten** (22); **kontratua etetea** (9); **kontratua etetea erabaki** (5); **kontratua eteteagatik** (3); **kontratua eteteko** (9); **kontratua ez berritzea** (4); **kontratua hausteagatik** (4); **kontratua hautsi** (7); **kontratua indarrean** (6); **kontratua itxi** (3); **kontratua izan** (3); **kontratua izango** (4); **kontratua izenpetu** (13); **kontratua lortu** (18); **kontratua lotu** (5); **kontratua luzatu** (27); **kontratua luzatu diote** (3); **kontratua luzatuko** (6); **kontratua luzatzea** (9); **kontratua luzatzeko** (22); **kontratua luzatzeko aukera** (3); **kontratua luzatzeko eskaintzarik** (3); **kontratua moztuz** (3); **kontratua mugagabea** (3); **kontratua sinatu** (64); **kontratua sinatu du** (27) kontratua sinatuko (9); **kontratua sinatuta** (3); **kontratua sinatzea** (6); **kontratua sinatzeko** (9); **kontratua sinatzeko garaian** (3); **kontratua sortuko** (3)

**lan kontratua** (83); **lau denboraldirako kontratua** (3); **lau urteko kontratua** (5); **lau urterako kontratua** (3); **lehen enplegurako kontratua** (3); **lehen kontratua** (3); **lehen lan kontratua** (55); **milioi euroko kontratua** (9); **milioiko kontratua** (4); **mugagabeko kontratua** (3); **osasunarekin duen kontratua** (3); **osasunarekin zuen kontratua** (3); **realarekin duen kontratua** (4); **realarekin zuen kontratua** (6); **sinatu du kontratua** (4); **sinatu zuen kontratua** (7); **sinatuko du kontratua** (5); **sustatzeko kontratua** (3); **taldearekin duen kontratua** (3); **taldearekin zuen kontratua** (4); **tren egiteko kontratua** (4); **urte baterako kontratua** (4); **urtebeteko kontratua** (15); **urtebeterako kontratua** (11); **urtebeterako kontratua sinatu** (3); **urteko kontratua** (34); **urteko kontratua eskaini** (6); **urteko kontratua sinatu** (7); **urteko kontratua sinatuko** (4); **urterako kontratua** (31); **urterako kontratua egin** (3); **urterako kontratua eskaini** (4); **urterako kontratua sinatu** (10)

**aldi baterako kontratuak** (20); **behin behineko kontratuak** (21); **eraikitzeko kontratuak** (4); **kontratuak egiten** (8); **kontratuak eta oinordetzak** (4); **kontratuak lortu** (4); **kontratuak sinatu** (5); **lan kontratuak** (26); **lehen lan kontratuak** (7); **obra kontratuak** (6); **zabor kontratuak** (9)

**lan kontratuarekin** (5)

**behin behineko kontratuekin** (5); **kontratuaren amaiera** (4); **kontratuaren amaieratik hurbil** (4); **kontratuaren arabera** (9); **kontratuaren aurkako** (17); **kontratuaren aurkako protestak** (4); **kontratuaren barnean** (4); **kontratuaren iraupena** (7); **lan kontratuaren** (64); **lan kontratuaren aurkako** (16); **lehen lan kontratuaren** (58)

**urte kontratuaren amaiera** (4)

**aldi baterako kontratuen** (7); **kontratuen bidez** (5); **kontratuen ikuskatze** (5); **lan kontratuen** (11); **sinatutako kontratuen** (5)

**kontraturik lortu** (4); **kontraturik sinatu** (6); **lan kontraturik** (10)

---

## **kontratudun** **1** *izlag* kontratua duena.

Behin-behineko **kontratudun** langile kopurua gutxitzeko helburuarekin. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

Hogeita bi gizon-emakume, maila ezberdinetako funtzionario eta lan-**kontratudunak**. Aingeru Epaltza

---

## kontratuegile ik **kontratugile**.

---

## **kontratugile** *(orobat **kontratuegile** g.er.)* *iz* kontratu bat egiten duen pertsona.

Ba al dago munduan kontraturik, **kontratugile** bakar batek bere gogo eta nahierara suntsi dezakeena, beste alderdiaren adostasunik gabe? Andres Urrutia

Ez direla **kontratugilearen** kontura joango, jabearen kontura baizik. Santiago Iruretagoiena

Idatzitako legeen indarrez, errenta-hartzailearen eta **kontratugilearen** aurrean ondo babestua gera dadin. Santiago Iruretagoiena

---

## **kontratxapatu** *izond* oholez mintzatuz, zuntzak gurutzatuak dituzten eta kolaz itsatsiak dauden zur geruzez osatua.

Zur **kontratxapatua** zegoen hainbat kristal hautsiren ordez. Fernando Rey

Xabi Idoateren akriliko **kontratxapatuak,** Dora Salazarren modelo isilen ondoan. Berria - Kultura

---

## **kontrazaingo** *iz* zaingoa egiten duten pertsonak zaintzeko jarduera.

Lau bizkartzain hogeita lau ordutan, beste hainbeste **kontrazaingoa** egiten, eta auskalo zenbat era guztietako zainketetan Fernando Morillo

---

## **kontrazal** *iz* liburu edo aldizkari baten atzeko azala.

Bildumako liburu guztiek **kontrazalean** egilearen argazki bat zeramatenez, adiskide batena sartu behar izan nuen. Joxean Agirre

Askotan irakurri duzu promesa hori liburuen **kontrazalean**. Javi Cillero

*Life of Pi*-ren edizio brasildarraren **kontrazalean**. Iban Zaldua

Biografia sinesgarri bat asmatu nion existitzen ez zuen gizon horri **kontrazalean**. Joxean Agirre

**Kontrazalean** dio Libano iparraldean jaio zela 1883an. Pako Aristi

Azaleko argazkia xehatua dago, eta **kontrazaleko** hizkiak erdi ezabatuak ageri dira hazmamien igurtzi ugarietara. Pako Aristi

**kontrazeinu** *iz* pasahitza, hitz ezkutua.

Memento hura aprobetxatu zuen **kontrazeinua** esateko: "bost dolar jokatuz milioi bat irabaziko dut", eta karta--emaileari begiratu zion zuzenki. Iñaki Zabaleta

Oraingoan ez zuen **kontrazeinurik** eman behar izan. Iñaki Zabaleta

Itsu hark nik baino hobeto ikusten zuela, eta lelo hura **kontrazeinu** garrantzitsu bat zela ezbairik gabe. Karlos Linazasoro

---

**kontrazeptibo** *iz* antisorgailua.

**Kontrazeptibo** lez cocacola erabiltzen genuen. Joseba Sarrionandia

---

**kontrazepzio** *(orobat **kontrazepzione** g.er.)* **1** *iz* haurdun gelditzea eragozteko metodoen multzoa.

Pilulak XX. mendean iraultza ekarri zuen **kontrazepzioan**. Luis Elberdin

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kontrazepzio** sistemak gero eta eskuragarriagoak izango direla. Berria - Gaiak

Segurtasuna da **kontrazepzio** metodo bati eskatu behar zaion lehengo gauza. Luis Elberdin

**Kontrazepzio** metodoen segurtasun neurria. Luis Elberdin

Espainiako **Kontrazepzio** Elkartearen topaketa Bilbon egingo dute. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **espainiako kontrazepzio elkartearen** (3); **kontrazepzio metodo** (13); **kontrazepzio metodoak** (10); **kontrazepzio metodoei** (4); **kontrazepzio metodoen** (4)

---

kontrazio ik **kontrakzio**.

---

kontre ik **kontra**.

---

**kontrestan** *adlag* kontrastean.

Murruen kolore arrosa eta presunerren atorren zuritasuna biak ezkontzen ziren, zeramatzaten galtza ilunekin **kontrestan**. Itxaro Borda

Louiserekin **kontrestan,** Agata zen jendetasunaren aberrazioa bakarrik bizitzeko egokiago zen: on dagiola behintzat! Itxaro Borda

---

**kontributibo** **1** *izond* kontribuzioarena, kontribuzioari dagokiona.

Madrilgo gobernuak datorren urtean gutxieneko pentsio **kontributiboak** aurreikusitako KPI baino %3 gehiago igotzea aurreikusten du. Berria - Ekonomia

**2** ***ez-kontributibo*** *izond*

Nafarroako Gobernuak 14 milioi euro bideratu ditu pentsio **ez kontributiboetara**. Berria - Ekonomia

---

**kontribuzio** *(orobat **kontribuzione** g.er.)* **1** *iz* zerga; ordainketa.

Casaresen ustean, emakume orok **kontribuzio** bat, zerga bat zor zion, emakume izateagatik besterik gabe. Josu Zabaleta

Gogoratu **kontribuzioa** ordaintzeko epea hilabetearekin amaitzen dela. Arantxa Iturbe

Iparraldeko herrialde emaileek jaso baino diru gehiago jartzen dutenak mugatu egin nahi dute Batasunari egiten dioten **kontribuzioa**. Berria - Ekonomia

Erretretan egonagatik zergak ordaintzen dituzten pertsonei 0,3 emendatuko diete CSG izeneko Gizarte **Kontribuzio** Orokorra. Berria - Euskal Herria

Pentsio osagarrirako egiten den **kontribuzioa**. Berria - Ekonomia

**2** ekarpena.

Hogeita bost urte besterik ez zituenean **kontribuzio** sendoa egin zuen filosofia arloan liburu txiki batekin. Anton Garikano

Baina urbiaindarrok filosofiaren historiari egun hartan eginikako **kontribuzionea** eta ekarpena handia izanik, are handiagoa izan zen Dionisos edo Bakoren omenez ondoren egina. Joan Mari Irigoien

---

kontribuzione ik **kontribuzio**.

---

**kontribuziotxo** *iz adkor* kontribuzioa.

Eta aurrerapenen zerga edo **kontribuziotxoa** ere bai. Pello Zabala

---

**kontrizio** *(orobat **kontrizione**)* *iz* damun osoa, onezko damua.

Zeren urrun baino urrunago bainengoen ni orduan atrizionezko edo **kontrizionezko** damutik, jaun André...! Joan Mari Irigoien

Erran ezazu **kontriziozko** akta bat. Itxaro Borda

---

kontrizione ik **kontrizio**.

---

**kontrobertsia** *iz* luzatzen den eztabaida.

**Kontrobertsia** honetan, Colin Pillinger da aurrera begiratzen duen zientzialari baikorrena. Berria - Gaiak

---

**kontrol** *(orobat **kontrola** g.er.)* **1** *iz* zerbait zaintzeko edo egiaztatzeko azterketa.

Arazoaren konponbidean **kontrol** demografikoa ere ezinbestekoa da. Iñaki Heras

**Kontrol** publikoarekin eta kapital pribatuaren parte-hartzearekin. Berria - Ekonomia

Nola liteke [marrazkiak] egunkariko barne **kontrol** guztiak pasatu eta dagoen-dagoenean kaleratzea? Iñigo Aranbarri

Istiluak hasi zirenez gero **kontrol** handia dago. Bernardo Atxaga

Presondegian sartzeko pasatu beharreko **kontrol** umiliagarriak. Hasier Etxeberria

**Kontrol** zorrotzak ezarriko dizkiote hildako hegazti orori. Berria - Gaiak

Kondoiak onura asko ditu: segurua da, sinplea da eta ez da **kontrol** medikorik behar. Luis Elberdin

Fabriketako **kontrolei** eta araudiei esker, Europan ezin berdindu zen maila lortu zuen frantses ekoizpenaren kalitateak. Koro Navarro

Bien bitartean, bizkar-muinera iristen diren seinaleen **kontrola** egiten ari dira garunera konektaturiko zirkuitu batzuk. Irene Aldasoro

**2** (zerbait) parametro jakin batzuen barnean atxikitzea.

Azkenean, bere buruaren **kontrola** lortu zuenean, bera, Harry eta Ron gaztelura itzuli ziren. Iñaki Mendiguren

Ia autoaren **kontrola** galdu zuen. Juan Kruz Igerabide

Adin handian, esate baterako, maskuriko irteera zaintzen duten muskuluek **kontrola** galtzen dute. Irene Aldasoro

Higienea eta infekzioen **kontrola** etorri ziren hemeretzigarren mendean. Irene Aldasoro

Diruaren **kontrolari** eta finantza publikoen kudeaketari. Iñaki Heras

Beste muskulu asko, ordea, gogoaren **kontroletik** kanpo daude. Irene Aldasoro

Gobernuen **kontrola** hartzeko eta beren doktrina eta praktikak jazarpen errukigabearen metodoez ezartzeko. Iñaki Mendiguren

Diru politika, bi hitzetan esanda, diru eskaintzaren eta interes tasen **kontrolean** datza. Iñaki Heras

Bizi zen deflazio garaian inflazioaren **kontrola** nagusitu zen. Iñaki Heras

Putinek bere kontrako kritikak aspaldi desagerrarazi zituen, komunikabideak itxi edo bere **kontrolpean** jarriz. Berria - Mundua

**3** kontrolgunea.

Badaki autobidean egon daitekeen **kontrol** bakarra Guardia Zibilarena dela. Urtzi Urrutikoetxea

Hamar bat **kontrol** igaro genituen gure ikasle-agiriekin. Juan Kruz Igerabide

Hiru **kontrol** aurkitu genituen ordu arteko bidean. Inazio Mujika Iraola

Eta orain **kontrol** bat topatzen badugu, zer gertatuko da? Sonia Gonzalez

Foruzaingoak N-240-A errepidean jarritako trafiko **kontrol** arrunt batean. Edurne Elizondo

Irratiko **kontroletik** deitzen zidan grabaziotarako beti pronto zegoen nire lagunak. Pello Zabala

**Kontroleko** lankideak adierazten didanez, antenan dugu lehen deia. Jon Arretxe

**4** kontrolatzeko gailua.

**Kontrol** automatiko baten eraginpean dihardute muskulu horiek etengabe. Irene Aldasoro

Egun haietan ez zegoen **kontrol** elektronikorik horrelako lekuetan. Mikel Hernandez Abaitua

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hegazkinaren **kontrol**-tresnen azpian. Xabier Olarra

Bihotz-muskuluak ere **kontrol**-sistema integratu bat du. Irene Aldasoro

Gizarte batek beti antolatzen du bere buruaren defentsarako **kontrol**-sare ezkutua. Anjel Lertxundi

Konputagailu programek **kontrol**-prozedura integratuak izaten dituzte. Irene Aldasoro

Taldearen **kontrol** mekanismoak ahulduz. Markos Zapiain

**Kontrol** neurri zorrotzak eta eraginkorrak. Berria - Gaiak

Makina bat galdera egin dizkidate **kontrol**-postu guztietan. Jon Arretxe

Goardia zibilaren **kontrol** leihatilatik pasatu zen. Joxemari Iturralde

**Kontrol** kabina presurizatuan. Patxi Iturritegi

Jesus Galindezen gogora Madril eta Valentzia lotzen dituen errepidea dator, **kontrol** hesiz josia. Edorta Jimenez

Gezurra zirudien minutu batzuk lehenagoko **kontrol** galtze hura. Eider Rodriguez

Ikaragarri gustatuko zitzaigun karrika haietara joatea eta leku haietan sartzea **kontrol** behaketa egitera. Pello Lizarralde

Enpresako **kontrol** teknikariek eta suhiltzaileek. Berria - Gaiak

Hiru astronautak «osasuntsu» daudela esan zuen Errusiako Espazio Hegaldietarako **Kontrol** Zentroak. Berria - Gaiak

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lema-**kontrola** berriz, trabatuta dago erabat. Josu Zabaleta

Irrati-hargailuetan erabiltzen den bolumen-**kontrol** automatikoarekin konpara daitekeen baliabidea. Irene Aldasoro

Gizarte-**kontrola** eta zentsuraren hazkundea. Txema Ramirez de la Piscina

Beste hiru polizia **kontrol** geratzen zaizkigu Triesteraino. Anjel Lertxundi

· Sarbide-**kontrol** sistemak. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bide kontrol** (4); **dopin kontrol** (15); **errepide kontrol** (7); **errepideko kontrol** (6); **guardia zibilaren kontrol** (5); **hiru kontrol** (4); **ko ntrol politikoa** (5); **kontrol batzordeak** (7); **kontrol falta** (5); **kontrol handia** (6); **kontrol handiagoa** (7); **kontrol judizial** (4); **kontrol lana** (16); **kontrol lana egitea** (4); **kontrol lanak** (5); **kontrol lerroa** (6); **kontrol mekanismoak** (6); **kontrol militar** (4); **kontrol neurri** (20); **kontrol neurri zorrotzak** (6); **kontrol neurriak** (53); **kontrol neurriak zorrozteko** (6); **kontrol neurriak zorroztu** (8); **kontrol neurririk** (4); **kontrol osoa** (11); **kontrol postu** (7); **kontrol publikoa** (7); **kontrol saioan** (6); **kontrol sistema** (15); **kontrol sistemak** (7); **kontrol soziala** (6); **kontrol zorrotz** (4); **kontrol zorrotza** (7); **kontrol zorrotzak** (10); **polizia kontrol** (4); **trafiko kontrol** (4)

**autoaren kontrola** (23); **autoaren kontrola galdu** (20); **bere buruaren kontrola** (6); **dopin kontrola** (16); **dopin kontrola egin** (5); **dopinaren aurkako kontrola** (6); **egoeraren kontrola** (6); **erabateko kontrola** (6); **hiriaren kontrola** (10); **inflazioaren kontrola** (4); **kontrola areagotzeko** (4); **kontrola bereganatu** (5); **kontrola berreskuratzeko** (4); **kontrola egin** (17); **kontrola egitea** (4); **kontrola galdu** (63); **kontrola galtzen** (10); **kontrola har** (5); **kontrola hartu** (15); **kontrola hartzeko** (9); **kontrola izango** (6); **kontrola izateko** (4); **kontrola pasatu** (11); **kontrola pasatzeko** (5); **kutxako kontrola** (5); **legebiltzarraren kontrola** (6); **lema kontrola** (5); **partidaren kontrola** (4); **poliziaren kontrola** (6)

**aginte kontrolak** (6); **aurkako kontrolak** (4); **dopin kontrolak** (6); **errepide kontrolak** (6); **kontrolak areagotu** (5); **kontrolak egin** (4); **kontrolak egiten** (7); **kontrolak ezarri** (4); **kontrolak jarri** (8); **polizia kontrolak** (6)

**gaitzen kontrolerako** (9); **gaitzen kontrolerako zentroak** (4); **infekzio gaitzen kontrolerako** (8); **kontrolerako zentroak** (8)

**dopin kontroletan** (5)

**kontroletik at** (6); **kontroletik kanpo** (14)

**kontrolik eza** (5)

**kontrolpean dago** (18); **kontrolpean dagoela** (10); **kontrolpean dagoen** (8); **kontrolpean daude** (11); **kontrolpean dauden** (8); **kontrolpean du** (5); **kontrolpean duela** (4); **kontrolpean dute** (4); **kontrolpean dutela** (5); **kontrolpean eduki** (13); **kontrolpean edukitzea** (12); **kontrolpean egon** (6); **kontrolpean egongo** (4); **kontrolpean hartu** (17); **kontrolpean hartzeko** (8); **kontrolpean izan** (17); **kontrolpean izango** (5); **kontrolpean izatea** (8); **kontrolpean izateko** (11); **kontrolpean zegoen** (10); **kontrolpean zutela** (4); **kontrolpean zuten** (6)

**kontrolpeko merkataritza** (4)

**kontrolpetik at** (5); **kontrolpetik ihes** (4)

## **kontrolaezin** *izond* ezin kontrolatuzkoa.

Prozesu **kontrolaezin** baten bidez. Xabier Olarra

Sekula ez nau erabat itsutu norbaitenganako maite-grina **kontrolaezin** batek. Karlos Zabala

Sorbaldak kizkurtu eta lepo-keinu berezia egiteko joera zuen, keinu erreflexu eta **kontrolaezin** bat. Harkaitz Cano

Edo, besterik gabe, sinpatia **kontrolaezina** ote zen harena? Xabier Olarra

Faktore kontrolagarri eta **kontrolaezinen** artean bereizketa egiten. Iñaki Mendiguren

Egungo egoera **kontrolaezina** geldiarazteko. Berria - Mundua

Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren hazkuntzak «inflazioaren hazkuntza **kontrolaezina»** eragin dezakeela.. Berria - Ekonomia

## **kontrolagailu** *iz*

Llumek urrutiko **kontrolagailua** hartu eta telebista pizten du. Antton Olano

Berriro konpresorra konektatu, eta zilindro nagusia betearazi zuen, eta kontu handiz aritu nintzen **kontrolagailuarekin** probak egiten. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **urrutiko kontrolagailua hartu** (3)

## **kontrolagaitz** *izond* kontrolatzen zaila, ia ezin kontrolatuzkoa.

Etxebizitzaren prezioen hazkunde **kontrolagaitza**. Adiskideari ilea moztua zion eta, hitz erditxorik ere esan gabe, orraztu eta orraztu hasi zitzaion, asaldura **kontrolagaitz** batek hartua. Patxi Zubizarreta

Auskalo zein bulkada **kontrolagaitzek** eraginda, agurtu, eta Anaz galdetu dio, berarekin gogoratuko den ez badaki ere. Iban Zaldua

Hala izan ezean, egoera **«kontrolagaitza»** bihur daitekeela esan zuen Shingur Omik, eta horrek ekarriko lukeen ondorioa «hondamendia» litzatekeela aurreikusi zuen. Berria - Gaiak

Tomen adimenaren hoztasunaren eta aldi berean bortizkeriarako joera **kontrolagaitzaren** zantzuak. Markos Zapiain

## **kontrolagarri** *izond* kontrola daitekeena.

Halabeharrezkoak ala **kontrolagarriak** dira historian zertzen diren naturaren legeak? Iñaki Mendiguren

Faktore **kontrolagarri** eta kontrolaezinen artean bereizketa egiten. Iñaki Mendiguren

Fusioa aprobetxatu ahal izateko **kontrolagarria** behar luke izan, eta hori ez da lortu. Fernando Morillo

Hauteskunde Kontseiluak [...] 1.100.000 herritarri eskatu die modu **kontrolagarri** batez euren sinadura baieztatzeko. Berria - Mundua

**Kontrolagarriagoak** baitira tristeak alaiak baino. Markos Zapiain

## kontrolagune ik **kontrolgune**.

## **kontrolaketa** *iz* kontrolatzea, kontrola.

Presondegi kanpoko erakunde baten **kontrolaketa**. Herria

## **kontrolari** *iz* kontrolatzen duen pertsona. ik **kontrolatzaile 2**.

iDuela lau urteko beste esperientzia batzu ere ezagutu ditu gobernuko batek **kontrolari** batzuen aitzinean. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Billete-**kontrolaria** edo polizia etortzen bazitzaizkion, honelaxe esan ohi zien: "Jauna, oinetakoak garbituko dizkizut". Gotzon Garate

## **kontrolatu**, kontrola, kontrolatzen **1** du *ad* kontrolpean atxiki.

-Ba al dakizu zenbat tresna **kontrolatu** behar dituen gaur egungo hegazkin pilotu batek? Josu Zabaleta

Pilulari esker, emakumeak berak **kontrolatu** ahal izan du bere ugalkortasuna. Luis Elberdin

Berak **kontrolatzen** zuen egoera. Sonia Gonzalez

Eta **kontrolatzen** ere etxerat nor etortzen den. Menane Oxandabaratz

Saiatzen nintzen, hala ere, gorrotoaren bulko haiek **kontrolatzen,** barru guztia har ez ziezadaten. Juan Kruz Igerabide

Beroa **kontrolatzeko** mekanismoa oso ondo diseinaturik dago gizakietan. Irene Aldasoro

Ezin nituen bihotzaren taupadak **kontrolatu**. Anjel Lertxundi

Marrok inguruko etxeen hormei egin zien tiro, nora botatzen zuen **kontrolatu** gabe. Juan Kruz Igerabide

*ik* kontrolatugabe.

Urduritasuna **kontrolatu** ezinik. Elena Touyarou

Baina baziren Harryk **kontrolatu** ezin zituen beste faktore batzuk. Oskar Arana

Denek nahi gaituztela politikoki **kontrolatu**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zazpi egunen buruan, herpesa **kontrolatua** zegoela esan zien doktoreak. Imanol Zurutuza

Espetxean dena **kontrolatu** beharra dago, nork zer egiten duen, noiz eta zergatik. Lander Garro

Baina ez zen guztia **kontrolatzen** ahal. Itxaro Borda

Egun osoan lasaitzen, neure burua **kontrolatzen** saiatu ninduan. Xabier Olarra

Bere burua ezin **kontrolatuz,** oihuka hasi zen. Eneko Bidegain

Ezin **kontrolatuzko** indarrak bultzaturik, musukatzen hasi nintzaion. Daniel Landart

**2** (era burutua izenondo gisa)

Adak telebista itzali zuen amorrazio **kontrolatu** batez. Anjel Lertxundi

Kaos **kontrolatu** baten sentipena izan zen aurreneko hura. Jon Muñoz

Natur zientzietan, zientzialariak laborategietan behaketa **kontrolatuak** egin ditzake eta bere hipotesiak egiaztatu: gizarte-zientzietan, ordea, nekez. Iñaki Heras

Lurrinketa **kontrolatuaren** bidez, gorputzaren barne-tenperatura egonkortzen laguntzen du. Irene Aldasoro

Mugimendua modu **kontrolatuan** egiteko. Irene Aldasoro

---

# kontrolatugabe *(orobat* ***kontrolatu gabe****)* *izond* kontrolik gabekoa.

Horiekin jostatzeko, horien beroaldi **kontrolatugabea** dastatzeko. Iñaki Zabaleta

Legez kanpoko jardueren hazkunde **kontrolatu** gabean. Koro Navarro

Irudimenaren eta sentimenaren joko **kontrolatu gabeek**. Iñaki Mendiguren

Halere, zenbaitño badira **kontrolatu gabeak** -gehitu zuen, irriz, entzuleen aurpegian etsipena ikusirik-, baina neketsuagoak dira noski, mendian ibiltzeko ohidurarik ez dutenentzat. Elena Touyarou

---

# kontrolatzaile 1 *izond* kontrolatzen duena.

Seinale elektriko bat sortzen dute zelula **kontrolatzaileek,** hipofisira bidaltzen dena. Irene Aldasoro

Tribu handi eta ahaltsu bat, giza aferetan beti eragin menderatzaile eta **kontrolatzailea** izan duena. Xabier Olarra

Instituzio **kontrolatzaileetako** adituen eremua. Berria - Gaiak

• **2** *iz* kontrolatzen duen pertsona. ik **kontrolari**.

Lan Ministerioko **kontrolatzaileak** Zerga Administrazioarekin harremanetan jartzen ahalko dira, langabeen egoera fiskala aztertzeko. Berria - Harian

Aire garraioaren **kontrolatzaile** zibilen eta agintari militarren arteko informazio trukaketa oso geldoa eta nahasia izan zelako. Berria - Mundua

Genetistak eta kazetariak izango dira XXI. mendeko **kontrolatzaileak**. Txema Ramirez de la Piscina

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Trapagarango klub batean emakumeen **kontrolatzaile** lanean aritzen omen zen Bivol. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zenbait bide **kontrolatzaile** saihestuz. Pablo Sastre

Hegaldi-**kontrolatzaileak** berehala ezagutu eta alai egiten dio kasu. Xabier Olarra

Hegazkina Errusiako aire **kontrolatzaileen** pantailetatik desagertu zen. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **egoera kontrolatu** (6); **ezagutu eta kontrolatu** (3); **gobernuak kontrolatu** (3); **kontrolatu ezinezko** (4); **kontrolatu gabeko** (6); **mugak kontrolatu** (3); **neure burua kontrolatu** (3); **trafikoa kontrolatu** (3)
>
> **kontrolatutako jaitsierarik luzeena** (3)
>
> **gaitza kontrolatzea** (4); **gaitza kontrolatzea lortu** (3); **kontrolatzea erabaki** (4); **kontrolatzea lortu** (7); **maila kontrolatzea** (3); **tasa kontrolatzea** (3)
>
> **kontrolatzeaz arduratzen** (4)
>
> **egoera kontrolatzeko** (5); **gaitza kontrolatzeko** (7); **gaixotasuna kontrolatzeko** (4); **immigrazioa kontrolatzeko** (7); **inflazioa kontrolatzeko** (4); **irrati espektroa kontrolatzeko** (3); **kontrolatzeko ahalmena** (3); **kontrolatzeko aukera** (11); **kontrolatzeko baimena** (3); **kontrolatzeko eskatu** (6); **kontrolatzeko neurri** (7); **kontrolatzeko neurriak** (19); **kontrolatzeko neurriak hartu** (5); **kontrolatzeko politika** (3); **kontrolatzeko sistema** (4); **mugak kontrolatzeko** (3); **mugimenduak kontrolatzeko** (3); **transgenikoak kontrolatzeko** (4); **ugalketa kontrolatzeko** (4)
>
> **bere burua kontrolatzen** (6); **bultzatu eta kontrolatzen** (3); **gertutik kontrolatzen** (3); **hobeto kontrolatzen** (5); **kontrolatzen ikasi** (3); **kontrolatzen saiatu** (5); **kontrolatzen saiatuko** (3); **merkatua kontrolatzen** (3); **mugimenduak kontrolatzen** (3); **zorrotz kontrolatzen** (3)

---

# kontrolatze *iz* kontrolpean atxikitzea.

Zernahi ikertze, miratze eta **kontrolatze** egiten dute. Herria

Mugetan eta errebideetan eginen bide du **kontrolatze** zorrotzago hori. Herria

Nortasun **kontrolatze** hauetatik batean atxilotuak izan ziren bi gizonezko aske utzi zituen atzo poliziak. Berria - Mundua

---

# kontroldun *izlag* kontroleko.

Dudleyk apurtuta zuen zine-kamera berria, txikituta urrutiko **kontroldun** hegazkina. Iñaki Mendiguren

---

# kontrolgabe *(orobat* ***kontrol gabe****)* *izond* kontrolik ez duena.

Dolarraren erortze **kontrolgabeak** arazoak ekarriko zizkiela europar eta japoniar ekoizleei. Koro Navarro

Inoren lanaren etekinetatik bizi denaren aberaste **kontrolgabea**. Juan Garzia

Hazkunde ekonomiko **kontrol gabearentzako** muga fisikoak badirela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zaunka eta ekinaldi **kontrolgabeak,** aurpegi-imintzio eta keinu bitxiak egiten zituzten pertsonen kasuak [...] ia duela bi mila urte gogoratzen zituen Areteo Kapadoziakoak. Xabier Olarra

---

# kontrolgune *(orobat* ***kontrolagune*** *g.er. eta* ***kontrol gune****)* **1** *iz* kontrola egiten den gunea.

**Kontrolgune** batetik emandako aginduen arabera. Irene Aldasoro

Poliziaren **kontrolgune** baten aurka eginiko erasoan. Berria - Mundua

Gazako Eretz **kontrolgunean**. Berria - Mundua

Errepideko **kontrol gune** batean zegoen polizia talde bati. Berria - Mundua

Israelen menpeko **kontrolguneak** igaro beharko dituzte. Berria - Mundua

Soldadu estatubatuarren **kontrolgune** batekin egin zuten topo. Berria - Mundua

*Smart-1* misioaren lurreko **kontrolgunean**. Berria - Gaiak

Ameriketako Estatu Batuetako espaziorako agentzia NASAk Floridan duen **kontrol gunetik**.

Energia hornikuntza ez zen eten eta **kontrolguneko** pantailetan ez zen matxurarik zenik ageri. Berria - Euskal Herria

Garuna, makinaren **kontrolgunea** jatorriz, pentsamendu abstraktua, sormen artistikoa eta, oro har, jarduera mental sofistikatu erregular edo jarraitua ahalbidetzeraino garatu da. Irene Aldasoro

**2** (izenondoekin)

Zisjordanian bakarrik 164 **kontrolgune** militar daude, herritarrak batetik bestera natural mugitzeko aukerak izugarri mugatzen dituztenak. Berria - Mundua

**Kontrolgune** txiki batean gelditu ginen. Juan Kruz Igerabide

**Kontrolgune** finkoez gain mugikorrak ere ezartzen dituzte han-hemenka. Berria - Mundua

---

## kontrolista *iz* kontrolaria.

Orain, irrati edo telebistara noalarik, ez dut ezagutzen hango jergarik, ez **kontrolistek** darabiltzaten tresnarik. Joxerra Garzia

---

## kontroltzar *iz adkor* kontrola. kontrolgunea.

Guardia Zibilak **kontroltzarra** jarri zuen A8 autobidean, Bilbotik Donostiarako norabidean, manifestazioa bukatu eta gutxira. Berria - Harian

---

kontsagratu ik **kontsakratu**.

---

## kontsakrapen *(corpusean **kontsekrapen** soilik)* *iz* kontsakratzea.

Aurten plaza horrek **kontsekrapena** eskuratzen du ostiral honetatik aitzina. Herria

---

## kontsakratu *(orobat **konsagratu** g.er., **kontsagratu** eta **konsakratu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kontsakratu** agertzen da eta **sagaratu** hobesten)* **1** du *ad* sagaratu.

Apaiza Jesusen gorputza **kontsagratzen** ari zen, ostia gora jasota, enara buruan bueltaka hasi zitzaionean. Pako Aristi

Erregeak erlijioa sostengatzen ikusiko dituzue beti, eta erlijioa erregeak **kontsakratzen** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

"Jaunari **kontsakraturiko** apaizen" ahotik. Xabier Kintana

Erregeak **kontsakratzerakoan,** lehen artikuluetariko batek erlijio nagusiari eutsi behar zitzaiola esaten zuen beti, tronua sostengatzeko oinarri politikorik onena zelako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** du *ad* jarduera jakin batean, norbaiti edo zerbaiti halako prestigio edo lehentasun iraunkorra eman.

Bi hauek, pentsatu zuen Lilyk, bazirudien zeregin zorrotzen baterako **kontsakratu** zituela patuak. Anton Garikano

Emakumeek axaleko trikimailu gehiago dituzte, usadioak eta denborak gaurgero **kontsakratuak,** eta gizasemeek ez. Karlos Zabala

Gure herri txiki honetan [...] jendea liburu bakar batekin jada **kontsakratu** egiten baita. Ana Urkiza

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zer eta apez bat, ostia **kontsagratua** landatzen emakume baten iztape beltzean. Aingeru Epaltza

Gainera, itzulpena, Euskal Herrian bederen, idazle **kontsakratuari** zor zaion sari inplizitu bat da. Ana Urkiza

Idazle puntakoa, **kontsakratua** eta nazioartean maila duena. Berria - Kultura

Putzuko hitz **kontsakratu** horiek ez dira filologoaren belarri-barruan sartu ere egiten. Iñaki Segurola

---

## kontsakratzaile *izond* kontsakratzen duena.

Pentsalari edo pentsamenduaren sortzailea pentsamendu biziaren apaiz **kontsakratzailea** besterik ez da. Iñaki Segurola

---

## kontsakrazio *(orobat **konsagrazio** g.er., **kontsagrazio** g.er., **konsekrazio** g.er., **kontsekrazio** g.er. eta **kontsekrazione** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kontsakrazio** agertzen da eta **sagara** hobesten)* **1** *iz* sagara.

Bertsio batek esaten digunez, Axular meza ematen ari dela **kontsakrazioaren** puntu-puntuan, Sarako beretterrak tiro batez hil du. Anjel Lertxundi

Apaizak **kontsagrazioan** epiklesi otoitzaren bidez egiten duen bezala. Irene Aldasoro

**2** jarduera jakin batean, norbaiti edo zerbaiti halako prestigio edo lehentasun iraunkorra ematea.

Autore baten kanonizazio prozeduran unibertsitateak ematen duen goi mailako erramu boneta oso garrantzitsua da, zinezko **kontsakrazioa** ikonoen beharretan den liburuaren merkatuan. Ana Urkiza

---

## kontsegitu, kontsegi, kontsegitzen du *ad* lortu.

Lakatos lagunak **kontsegitu** zidan neska ijito hura. Matías Múgica

---

## kontseilari *iz* **1** aholkularia.

Roboamek, ordea, ez zuen aintzat hartu **kontseilarien** aholkua. Elizen arteko biblia

Herritar fidagarriak aukeratuko ditut **kontseilari** . Elizen arteko biblia

Zednicek **kontseilaria** sartu zen, agirien karpeta eskuan. Fernando Rey

**Kontseilariek** kargutik kendu zintuzten, baina hala ere Hogwartsera itzultzea komeni zela iruditu zaizu. Iñaki Mendiguren

Nafarroako Kantzileriako errekerimendu-maisu eta **kontseilari** izendatu bainaute. Aingeru Epaltza

Erregeren **kontseilari** jaun Bernard d'Arche. Joan Mari Irigoien

Demetrio erregeak Lastenes bere **kontseilariari,** agur! Elizen arteko biblia

Enpresako **kontseilari** delegatuarekin. Aingeru Epaltza

Iñaki Uria *Egunkaria*ko **kontseilari** ordezkariari. Berria - Kultura

Patxi Baztarrika Donostiako EAJ-EAko zinegotzi eta Anoetako Kiroldegiko **kontseilariak** . Berria - Kirola

Peter Laing, zientzia alorreko Segurtasun Nazionaleko **Kontseilaria** . Fernando Morillo

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren **kontseilariak** izendatzeko prozesuetan.

Irakeko Segurtasun Nazionaleko **kontseilari** Kassem Daudek akordioa beste hiri batzuetara zabaltzea espero zuela esan zuen herenegun.

**2** (izenondoekin)

Bera zen une guztietan nire laguntzaile leial, lankide bizkor eta **kontseilari** zuhur. Askoren artean

Non dira zure **kontseilari** jakintsuak, faraoi? Elizen arteko biblia

Idatzi diot Seminarioko **kontseilari** espiritualari, erranez zertan nintzen. Piarres Aintziart

Adalbert Füchsel **Kontseilari** Inperialaren etxean. Anton Garikano

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak **kontseilari** juridiko bat hartuko du. Herria

**3** irud/hed

Dudarik gabe gaua **kontseilari** paregabea zela. Bego Montorio

**4** Espainiako autonomia erkidegoetan, gobernu sail bateko burua.

Galiziako Xuntak, iragarri zuenez, Osasun **Kontseilaritzako** psikologo talde bat jarri zuen biktimen senideen eskura. Berria - Mundua

Nafarroako Gobernuko Herri Lan **kontseilariarekin**. Edurne Elizondo

Eusko Jaurlaritzako Barne **kontseilari** Javier Balzarekin. *ik* sailburu. Berria - Mundua

**5** *(Frantziako administrazioan)* ik beherago **8** eta **9.**

Herriko kontseiluan zazpi **kontseilari** baizik ez zaizkigu gelditzen. Herria

Jean Claude Buztingorriren ordez, laugarren axuant karguan hautatua izan da Pierre Pommiez **kontseilaria**. Herria

Jean Bernard Jorajuria kartiereko **kontseilariak** sustaturik. Herria

Kontseilu orokorreko Jean Michel GALANT, eskualdeko **kontseilari** François MAITIA mintzatu dira. Herria

Christian Martin Baiona Iparraldeko **kontseilari** sozialista. Berria - Euskal Herria

2X2 proiektua gaitzetsi Garazi/Baigorriko **kontseilariek**. Herria

Jean Pierre Destrade Hiriburuko kantonamenduko **kontseilariari**. Herria

Lehen aldikotz, Abertzaleen Batasunak badu beraz **kontseilari** bat Pauen. Herria

Auzi horren ondorioz, Hiriburuko **kontseilaria** alderditik kanporatu zuten. Berria - Euskal Herria

Jean Lissar aihertarra eta Akitaniako **kontseilari** "berdeak" segitzen du Euskal Herriko "Berdeen" buruzagitzan Abenduaren hamazazpian Bretainiako kontseiluko 83 **kontseilariek** onartu dute deklarapen batean aho batez, bretoinera eta Gallo hizkuntzak ofizial izanen direla Bretainiako bost departamenduetan. Herria

Gaur egun Departamendu osoko 52 **kontseilarietan,** 21 UDF badira, 15 ezkerreko [...]. Herria

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Max Brisson hautetsi Miarriztarrak Akitaniako **kontseilari** kargua uzten du. Herria

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Juan Idiakez Estatu-**Kontseilaria** izan da Garibairen jagolea erregearen aurrean. Anjel Lertxundi

51 auzapez, 38 axuant eta 331 herri-**kontseilarik**. Herria

Sahetsean zituztela ere Max Brisson kontseilari orokorra, Frantxua Maitia [...] lurralde-**kontseilaria,** Jean François Sibers D.R.A. Zientzia-**kontseilariak** sorbaldak jaso zituen. Herria

Juduen asmoak desegiteko, errege-**kontseilariak** erosi egin zituzten. Elizen arteko biblia

Pavel Ivanovitx Txitxikov, kolejio-**kontseilaria,** lurjabea, neure zereginetarako etorria. Jose Morales

Ez naiz oroit nola eta noiz S.O.S.a igorri nuen, kontzientzia **kontseilaria** ikustera joanik. Piarres Aintziart

Enpresa **kontseilari** berezitu zonbaiten ganik. Herria

**8** ***kontseilari jeneral*** *(**15** agerraldi, liburu **1** eta **14** artikulutan)* kontseilari nagusia.

Lehen, Kontseilu Jeneral bat-edo izaten ahal zen **Kontseilari Jeneral** bat batere ez zena bere kantonamenduaz okupatzen! Menane Oxandabaratz

Bernard Gimenez Angeluko **kontseilari jenerala** den medikua, Jacques Coumet Hazparneko auzapeza eta **kontseilari jenerala**. Herria

Euskal Herriko 21 **kontseilari jeneraletarik** 12 urrats horren alde agertu direla. Herria

Michel Inchauspe mendialdeko **kontseilari jeneral** eta deputatu jaunari. Herria

**9** ***kontseilari nagusi***[1] *(**142** agerraldi, liburu **1** eta **77** artikulutan, adiera honetakoak eta 10.ekoak barne)* kantonamenduko hautetsia.

Gaur hautatuko dira Ipar Euskal Herriko **kontseilari nagusiak**.

Pirinio Atlantikoetako **kontseilari nagusi** bihurtu zen, Hiriburuko kantonamenduko hauteskundeak irabazirik. Berria - Euskal Herria

Pirinio Atlantikoetako **kontseilari nagusiek** etzi bozkatuko dute Pauen 2005eko oinarrizko aurrekontua. Berria - Euskal Herria

Auzapeza **kontseilari nagusi** izatea Angelurentzat on dela. Berria - Euskal Herria

Daniel Poulou diputatu eta **kontseilari nagusiak** ez du bildu nahi izan Anai Artekoekin. Berria - Euskal Herria

277 biztanle dituen herriarentzat zorpetze handia izanen dela aitortu du Paueko **Kontseilari Nagusi** eta Azkarateko auzapeza den Jean Mixel Galantek. Berria - Euskal Herria

Biztanle kopuruaren arabera, Baionari hiru **kontseilari nagusi** zor zaizkio eta horregatik daude hiru kantonamendu. Berria - Euskal Herria

Maurice Garcia **kontseilari nagusi** komunistak lehen itzulitik gal lezake kargua. Berria - Euskal Herria

Sei **kontseilari nagusik** bat egin dute Batera-ren eskaerekin.

Orain arteko **kontseilari nagusia** da, eta Ahurtiko auzapeza.

Ipar Euskal Herriko 14 **kontseilari nagusik** izenpetu dute presoen hurbiltzearen aldeko mozioa. Berria - Euskal Herria

**10** ***kontseilari nagusi****sup_2* (bestelakoak)

ERCko presidente Josep Lluis Carod-Rovira, Kataluniako Legebiltzarreko presidente Ernest Benach eta Kataluniako **kontseilari nagusi** [=conseller en cap] Josep Bargallo. *ik* kontseilariburu.

Europako Banku Zentraleko **kontseilari nagusietako** batek, Ernst Weltekek. Berria - Ekonomia

Iralak aurrezki kutxako 100 **kontseilari nagusi** berrien izendapena baliatu zuen «estrategia aldaketaz» ohartarazteko. Berria - Ekonomia

**11** ***kontseilari orokor*** *(**98** agerraldi, **4** liburu eta **85** artikulutan)* kontseilari nagusia.

Jean Mixel Galant Baigorriko kantonamenduko **kontseilari orokor** eta Azkarateko auzapeza. Herria

**Kontseilari** jeneral edo **orokor** kantonamendu horren kondu izan baitzen dotzena bat urtez. Herria

Leopold Darritchon Bastidako auzapeza, duela 6 urte **kontseilari orokor** kargua galdu zuena.. Herria

Hartan Jean Grenet Baionako auzapez eta diputatuak utzi du bere kargua eta haren ordez Vincent Bru, Kanboko auzapez eta **kontseilari orokorra** izendatua izan da. Herria

Jean-Pierre Destradedeputatu ohia, Hiriburuko kantonamenduaren kondu **kontseilari orokor** dena... Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**akitaniako kontseilari** (4); **angeluko kontseilari** (5); **auzapez eta kontseilari** (9); **baigorriko kontseilari** (6); **barne kontseilari** (4); **barne saileko kontseilari** (4); **bbvako kontseilari** (3); **beceko kontseilari** (4); **beceko kontseilari ordezkariak** (3); **egunkaria ko kontseilari** (32); **egunkaria sako kontseilari** (13); **egunkariako kontseilari** (3); **eskualde kontseilari** (7); **gamesako kontseilari** (3); **generalitateko kontseilari** (10); **generalitateko kontseilari buru** (5); **generalitateko kontseilari burua** (4); **gizarte ongizaterako kontseilari** (4); **gobernuko hezkuntza kontseilari** (8); **gobernuko ingurumen kontseilari** (4); **herri lan kontseilari** (23); **herrilan kontseilari** (7); **herrilan kontseilari ohiari** (3); **hezkuntza kontseilari** (13); **inalcoko kontseilari** (5); **inalcoko kontseilari ohiak** (3); **inchauspe kontseilari** (8); **inchauspe kontseilari nagusiak** (4); **inchauspe kontseilari orokorra** (3); **ingurumen kontseilari** (12); **kantonamenduko kontseilari** (4); **kataluniako kontseilari** (3); **komunikazio kontseilari** (6)

**kontseilari buru** (9); **kontseilari burua** (4); **kontseilari buruak** (3); **kontseilari izan** (4); **kontseilari izendatu** (6); **kontseilari jeneral** (7); **kontseilari jenerala** (5); **kontseilari jeneraletarik** (3); **kontseilari kargua** (4); **kontseilari nagusi** (45); **kontseilari nagusi bihurtu** (3); **kontseilari nagusi izan** (3); **kontseilari nagusi kargua** (3); **kontseilari nagusia** (24); **kontseilari nagusiak** (36); **kontseilari nagusiaren** (11); **kontseilari nagusiaren aulkia** (3); **kontseilari nagusiari** (3); **kontseilari nagusiei** (7); **kontseilari nagusiek** (6); **kontseilari ohi** (4); **kontseilari ohia** (8); **kontseilari ohiak** (10); **kontseilari ohiari** (3); **kontseilari ohiari leporatzen** (3); **kontseilari ordezkari** (21); **kontseilari ordezkaria** (26); **kontseilari ordezkariak** (41); **kontseilari ordezkariaren** (11); **kontseilari ordezkariari** (8); **kontseilari orokor** (34); **kontseilari orokorra** (32); **kontseilari orokorrak** (25); **kontseilari orokorraren** (4); **kontseilari sozialista** (4)

kultura kontseilari (3); lan kontseilari (23); nafarroako ingurumen kontseilari (6); nekazaritza kontseilari (3); ongizaterako kontseilari (4); osasun kontseilari (8); saileko kontseilari (6); segurtasun nazionaleko kontseilari (6); segurtasun nazionalerako kontseilari (3)

akitaniako kontseilaria (5); eskualde kontseilaria (3); estatu kontseilaria (8); hezkuntza kontseilaria (5); kolejio kontseilaria (3); kontseilaria izan (7); lurralde kontseilaria (3)

akitaniako kontseilariak (4); arrantza kontseilariak (3); barne kontseilariak (5); ekonomia kontseilariak (4); estatu kontseilariak (7); etxebizitza kontseilariak (4); ezkerreko kontseilariak (3); galiziako arrantza kontseilariak (3); herri lan kontseilariak (5); herriko kontseilariak (6); hezkuntza kontseilariak (4); industria kontseilariak (3); ingurumen kontseilariak (3); kirol kontseilariak (3); kontseilariak argitu (3); kontseilariak azaldu (3); kontseilariak eman (3); kontseilariak esan (3); kontseilariak nabarmendu (3); kultura kontseilariak (15); lan kontseilariak (6); ogasun kontseilariak (5); saileko kontseilariak (3); segurtasun kontseilariak (3); turismo kontseilariak (3); zientzia kontseilariak (3)

kontseilariaren agerraldia (4); kontseilariaren arabera (8); kontseilariaren esanetan (3); kultura kontseilariaren (7)

hezkuntza kontseilariari (4)

generalitateko kontseilariburu (3)

ezkerreko kontseilariek (3); herriko kontseilariek (4)

---

**kontseilariburu** *(orobat **kontseilari buru**)* *iz* Kataluniako gobernuan, presidenteordearen kideko kargua.

Generalitateko **kontseilariburu** Josep Bargallok eta ERCko lehendakari Josep Lluis Carod-Rovirak.

Josep-Lluis Carod Rovira **Generalitateko kontseilari** buru eta ERCko idazkari nagusia ETAko zuzendaritzarekin bildu zela jakin eta hiru astera iragarri zuen su-etena ETAk. Berria - Harian

Carod-Rovira, ERCko idazkari nagusia izateaz gain, Generalitateko **kontseilari burua** zen. Berria - Mundua

---

**kontseilariorde** *iz* administrazioan, kontseilariaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

AEBetako Estatu idazkariorde David Welch eta Segurtasun Nazionalerako **kontseilariorde** Elliott Abrams Israelgo jarduneko Atzerri ministro Tzipi Livnirekin elkarrizketatu ziren, Jerusalemen. Berria - Mundua

Luis Miguel Macias Eusko Jaurlaritzako Arrantza **kontseilariordeak**.

Esther Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko **kontseilariordea**. Berria - Euskal Herria

---

**kontseilaritza** **1** *iz* Espainiako autonomia erkidegoetan, gobernau banatzen den sailetako bakoitza.

Nafarroako Gobernuko Lan **Kontseilaritzak** nabarmendu zuen emaitzak «oso onak» izan direla Foru Erkidegoan, eta enplegua sortzen eta langabezia murrizten jarraitzen dutela. Berria - Ekonomia

Generalitateko Justizia **Kontseilaritzak** ustezko torturak argitzeko ikerketa bat abiatzea erabaki zuen. Berria - Mundua

Galiziako Xuntak, iragarri zuenez, Osasun **Kontseilaritzako** psikologo talde bat jarri zuen biktimen senideen eskura. Berria - Mundua

Ebazpenak baliorik gabe utzi du Valentziako Kultur **Kontseilaritzaren** agindu bat, katalaneko eta valentzierako tituluen baliozkotzea ukatzen zuena. Berria - Mundua

BNGk lau diputatu galdu zituen azken bozetan, lau **kontseilaritza** irabazi bazituen ere. Berria - Harian

**2** ***kontseilaritza nagusi*** ik **kontseilari 9.**

Aurten, **kontseilaritza** nagusiko aulkia ere gal dezake, Robert Villenave Angeluko auzapezak ken baitiezaioke. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

justizia kontseilaritzak (3)

---

**kontseilatu**, kontseila, kontseilatzen du *ad* aholkatu.

Neure anaiei Jesu Kristo Jaunarengan **kontseilatzen,** ohartarazten eta aholkatzen diet, munduan zehar doazenean, ez dezatela sesiorik eta hizka-mizkarik izan. Askoren artean

Uztaritzeko apez erakasle batek **kontseilatu** zidan opor denboretan, etxen, idazle baten liburua hartzeko eta ene kaierean orriak eta orriak betetzeko, kopiatuz. Piarres Aintziart

Ainitz medikuk [...] **kontseilatzen** dute baso bat jatorduetan edatea. Herria

Segur nintzen Mathiasek errezebituko ninduela eta artoski **kontseilatuko** zidala zer egin. Daniel Landart

Osabak **kontseilatutako** jatetxean. Bernardo Atxaga

---

**kontseilu** *(orobat **konseilu** g.er. eta **kontseju** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kontseilu** agertzen da)* **1** *iz* aholkua.

Zuhaur ere Jaun Handia, aburu bereko zinen eta hori aitortu zenidan, **kontseilu** eskatu nizunean. Piarres Xarriton

Ene lanak epea uzten dit **kontseilu** horri segitzeko. Marzel Etxehandi

Hamar aldiz bederen **kontseilu** galdatua nion anaiari. Daniel Landart

Ebanjelioko **kontseilua** irakatsi baino lehen praktikan jarriz. Askoren artean

Ebanjelio santuaren **kontseilua** bete zuen. Askoren artean

Jainkoaren graziaz eta haren **kontseiluari** jarraituz egin gara behartsu. Askoren artean

Faraoiari ematen dizkioten **kontseiluak** kirtenkeriak dira. *ik beherago* 7. Elizen arteko biblia

Haren **kontseilua** gau hartan bertan behar nuen, nahiz eta banekien **kontseilu** deabruzkoa izango zela. Matías Múgica

Zorilariengana, hildakoen espiritu eta aztiengana joko dute **kontseilu** eske. Elizen arteko biblia

**2** arazo pribatuez eta, bereziki, herri arazoez eztabaidatzen eta aholku ematen duten pertsonen multzoa; pertsona horien bilkura.

Frantziako Gobernua, Akitaniako **Kontseilua**, Kontseiku Nagusia, Euskal Kulturaren Aldeko Herriarteko Sindikatua eta Hautetsien **Kontseilua** dira kideak.

Egun horietan baitzuen Baigorriko **kontseiluak** erabaki fraileek hor zeukaten eskola hestea. Xipri Arbelbide

**Kontseilu** honek finkatzen ditu, azken batean, eskoletako edukien programak.Felipe erregeak [...] bere **kontseilu** osoa bidali omen zuen Corbieko abadearen epaitegian auzi bat epai zezan. Iñaki Iñurrieta

1995eko abenduan Europako **Kontseiluak** Madrilen egin zuen bileran. Iñaki Heras

Lan Harremanetarako **Kontseiluak** (LHK). Berria - Ekonomia

**3** (izenondoekin)

Irakeko **Kontseilu** nazionalaren 100 kideak izendatzeko. Berria - Mundua

Estatuaren **kontseilu** gorenera deituak izan zirenean. Esteban Antxustegi

Letoniako **Kontseilu** Gorenak (Legebiltzarra) 'de jure' independentzia aldarrikatu zuen. Berria - Mundua

Aljeriako **Kontseilu** Konstituzionalak. Berria - Mundua

NATOko **Kontseilu** Atlantikoak. Berria - Mundua

**Kontseilu** Ekonomiko eta Sozialak (KES) arazoak dituzte sorreran eman zitzaizkien funtzioak betetzeko. Berria - Ekonomia

**Kontseilu** legegileko hautagaien zerrenda aukeratzeko ez zen bozketarik egin. Berria - Mundua

RPSen **kontseilu** federalak eztabaida horien ondotik finkatuko du behin betiko jarrera. Berria - Euskal Herria

Normalizaziorako **Kontseilu** Politikoak lehen bilera egingo du gaur. Berria - Euskal Herria

Aginte Judizialaren **Kontseilu** Gorenak proposatuta. Berria - Euskal Herria

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kontseilu** emaile eta juje bezala ikusten zen halere berantean, bonet haundi bat buruan, espanturik gabe. Ezkerreko oposizioak onartu du herriko lur baten saltzea BAM elkargoari **kontseilu** bilkuran. Michel Oronoz

Herriaren finantza-egoera hondamendizkoa eztabaidatzeko bildu den **Kontseilu**-batzar batean. Juan Garzia

Baina Wafdean kidetuko bazina, **Kontseilu** Presidente Sidki Paxari bezalako batek porrota eragiten ahal dizu. Patxi Zubizarreta

**Kontseilu**-aretotik bere aitaren ahots lodi eta lakarra ailegatu zen. Fernando Rey

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Loire-Atlantiqueko Kontseilu Nagusiak eta Bretainiako Eskualde **Kontseiluak** bost departamentuak batzearen aldeko jarrera hartu zuten 2001. urtean. Berria - Mundua

Ez ziren nobleak, burgesak baizik, herri- **kontseiluan** agintzen zutenak. Askoren artean

Gizarte **Kontseiluaren** bitartez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hizkuntza **Kontseilu** berriaren lehen zeregin urgentea. Itxaro Borda

Institutuko Eskola **Kontseiluan** ikasleen ordezkari izendatu zutenean. Jokin Muñoz

Faxistek Gerra **Kontseilu** Egonkorra ezarri zuten Bilbon. Edorta Jimenez

Gerra **kontseilu** sumarisimoan epaitzen ninduten kriminal zaildua nintzen. Koldo Izagirre

Gure nahia Gazte **Kontseilu** parte-hartzaile bat sortzea da. Berria - Euskal Herria

Azken uneko Ministro **Kontseilu** batek sententziatu ei zuen. Jokin Urain

Hautesle **Kontseilu** Nazionaleko zuzendari Jorge Rodriguezek. Berria - Mundua

Hauteskunde **Kontseilu** Nazionaleko zuzendaria da Carabobo estatuan. Berria - Mundua

Arrantza **Kontseilu** Kontsultiboan. Berria - Ekonomia

Espainiako Kirol **Kontseilu** Gorenaren jarrerak ez du inolako lege babesik. Berria - Kirola

Probintzia honetan zer irakur, zer jantz, zer pentsa, nola liberti eta gure sosei zertan su eman erabakitzen duten hamabi-hamalau familien zuhaitz genealogikoa egin nahi nuke, administrazio **kontseiluz** administrazio **kontseilu**. Aingeru Epaltza

## 6 *goi kontseilu*

Printze horrek, tronoan eseri bezain laster, dekretu baten bidez, Inperioko **Goi Kontseilua** sortu omen zuen. Xabier Olarra

CSIC Zientzia Ikerketarako Espainiako **Goi Kontseiluaaren** menpeko Katalisi Institutuak.

**Goi Kontseiluko** zenbait kideri. Xabier Olarra

## 7 *kontseilu eman* aholkatu.

Portaeran gozoa, izaeraz lasaia, hitzetan atsegina, aholku ematen burutsua, hitzemana betetzen leiala, **kontseilu ematen** zuhurra, zereginetan eraginkorra, gauza guztietan onginahiz betea. Askoren artean

Idoloei begiratu diet: ez zen inor, inortxo ere ez **kontseilu emateko,** nire galderei erantzuteko. Elizen arteko biblia

Ordizian, Gipuzkoan hau ere, jubilatuen elkartean, egin dituzte, urtarrilaren 31an eta otsailaren 1ean, Alzheimer eritasunaren jardunaldiak, ainitz argitasun eta **kontseilu emanez** adin bateko jendeari eta beste batzueri ere. Herria

Nork **eman** dio **kontseilu** eta argibide, nork irakatsi jokabide zuzena? Elizen arteko biblia

Han etortzen zitzaidan **kontseju** ematera. Arantxa Iturbe

## 8 *kontseilu jeneral* (*125 agerraldi, 3 liburu eta 91 artikulutan*) kontseilu nagusia.

Massard izeneko bat da, nik uste -Seine-ko **kontseilu jeneraleko** president-ordea, Kanadako eta Estatu Batuetako kazeta katolikoetan idazten zuena. Marzel Etxehandi

Euskal gobernuak baditu harremanak hunaindiko **kontseilu jeneral** edo orokarrarekin, bai eta Akitania lurraldearekin. Herria

Horrengatik da Pauen Nafarroako Parlamentua deitzen den palazio bat, departamenduko **Kontseilu Jeneralaren** biltzar lekua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pauen, **kontseilu jenerala** bildu da bere presidentaren hautatzeko. Herria

Kargu guziak ezin atxik eta hautu bat egin behar beraz, erabaki du Izpurako auzapezgoaren uztea, **Kontseilu jeneralean** eta lurralde-batzarrean segituz aintzina. Herria

Zergak ez dituztela berriz emendatzen **kontseilu jeneralaren** berritzeko bozak hurbilduak direlakotz! Herria

Horiek hola, **kontseilu jeneraleko** bozak izan dira. Herria

**Kontseilu jeneralak** aldiz hiru urtetarik berritzen dira bainan aldian erdia bakarrik. Herria

## 9 *kontseilu nagusi* (*457 agerraldi, 4 liburu eta 267 artikulutan, adiera honetakoak eta 10.ekoak barne*) departamendumenduko gobernua.

Frantziako Gobernua, Akitaniako Kontseilua, **Kontseilu Nagusia** Euskal Kulturaren Aldeko Herriarteko Sindikatua eta Hautetsien Kontseilua dira kideak.

Departamenduaz arduratzen dela **Kontseilu Nagusia**, Biarnoa eta Ipar Euskal Herriaren artean banatuak dira laguntzak eta hedapenak. Berria - Kultura

Jean Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoetako **kontseilu nagusiko** lehendakaria Akitania eskualdeko hauteskundeetan aurkeztuko da UDF alderdiko ordezkari gisa.

Lasserre **kontseilu nagusiko** buruak bazuen zer erran. Herria

**Kontseilu nagusiko** alkirat heltzen bada, Hazparne lurraldeko idazkaritza utziko du. Herria

Max Brissonek [...] **Kontseilu Nagusiaren** Baionako egoitzan hartu gaitu. Berria - Euskal Herria

**Kontseilu Nagusiak** urari eta hondakinei buruz eztabaidatuko du bihar. Berria - Euskal Herria

Hezkuntza, kultura, gazteria eta kirolaz arduratzen den batzordeko burua da **Kontseilu Nagusian**. Berria - Euskal Herria

## 10 *kontseilu nagusisup_2* (bestelakoak)

Eusko Jaurlaritzaren aurrekari izan zen egitura autonomikoan, Eusko **Kontseilu Nagusian,** Garraio eta Komunikazio kontseilari izan zen. Berria - Euskal Herria

Erregeren hurbileko Eraso jaunak eskatu ziola galda ziezadan, ea ahal eta nahi ote nuen Errege Jauna zerbitzatu, Gaztelako **Kontseilu Nagusian**. Piarres Xarriton

Amultsuki hartu ninduela eta ahalak oro egin zituela, bera buru zen Inkisizioko **Kontseilu Nagusian** sar nendin. Piarres Xarriton

Botere Judizialaren **Kontseilu Nagusia** dezentralizatzearen alde agertu izan dira, EAEko eta Kataluniako justizia organo propioen garapena aldarrikatuz. Berria - Euskal Herria

Izendapena Botere Judizialeko **Kontseilu Nagusiak** egin du. Berria - Euskal Herria

Irakeko Iraultza Islamikoaren **Kontseilu Nagusiaren** eta Moktada al Sadr buruzagi xiitaren menpeko miliziak.

Erresuma Batuko Medikuen **Kontseilu Nagusiak** ez duelako horrelakorik egiteko baimenik ematen. Berria - Gaiak

Azaro amaierako Kongresuaren atarian, **Kontseilu Nagusia** bildu zuen atzo ELAk Donostian. Berria - Ekonomia

## 11 *kontseilu orokor* (*128 agerraldi, 5 liburu eta 111 artikulutan*) kontseilu nagusia.

Estatuak, Akitania Eskualdeak, **Kontseilu Orokorrak,** Herriarteko sindikatak eta Hautetsien kontseiluak. Herria

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta Pirinio Atlantiarren **Kontseilu Orokorreko** presidentea bilduko dira gaur, Ajuria Enean. Berria - Euskal Herria

Ekintza frango burutu dituzte *demo*-ek, hala nola Paueko **Kontseilu Orokorretik** 21 jarlekuren Euskal-Herriratzea. Herria

1981ean, departamenduko **kontseilu orokorrak** zuen Ospitalea erosi. Herria

Ministerio eta **kontseilu orokorretako** arduradunek. Itxaro Borda

Herriko **kontseilu** orokorrak jakinarazten du, [...]. Michel Oronoz

Apezak zuloa erramuz benedikatu zuen amultsuki, **kontseilu orokorraren** lehendakariak palatara bat lur bota zion hobian emeki sartzen ari zen kutxari. Itxaro Borda

·*(bestelakoak)* Espainiako **Abokatuen Kontseilu** Orokorrak. Berria - Euskal Herria

**Kontseilu Orokorra** egin zuen patronalak Bilbon. Berria - Ekonomia

MCCko **Kontseilu Orokorreko** presidente Jesus Cataniak. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

abokatuen kontseilu (8); administrazio kontseilu (22); administrazio kontseilu berria (5); aholku edo kontseilu (5); baionako kontseilu (6); botere judizialaren kontseilu (35); botere judizialeko kontseilu (22); eaeko kontseilu ekonomiko (5); espainiako abokatuen kontseilu (6); espainiako kirol kontseilu (21); euskal kontseilu (8); eusko jaurlaritzaren kontseilu (6); eusko kontseilu (10); frantziako kontseilu (7); gerra kontseilu (7); hauteskunde kontseilu (17); hauteskunde kontseilu nazionalak (6); herriko kontseilu (17); irakeko kontseilu (7); iraultza islamikoaren kontseilu (18); iraultza islamikorako kontseilu (7); jaurlaritzako kontseilu (5); jaurlaritzaren kontseilu (6); kirol kontseilu (29); kirol kontseilu gorenak (13); kirol kontseilu gorenaren (8)

kontseilu berria (12); kontseilu berriak (6); kontseilu berriaren (5); kontseilu bilkura (9); kontseilu bilkurak (5); kontseilu bilkuran (37); kontseilu ekonomiko (16); kontseilu eske (5); kontseilu gorena (10); kontseilu gorenak (25); kontseilu gorenaren (11); kontseilu goreneko (7); kontseilu jeneral (25); kontseilu jenerala (18); kontseilu jeneralak (19); kontseilu jeneralaren (19); kontseilu jeneralean (27); kontseilu jeneraleko (13); kontseilu jeneraletik (5); kontseilu konstituzionalak (10); kontseilu nagusi (8); kontseilu nagusia (45); kontseilu nagusiak (132); kontseilu nagusian (36); kontseilu nagusiarekin (9); kontseilu nagusiaren (68); kontseilu nagusiari (16); kontseilu nagusiko (126); kontseilu nagusiko lehendakari (8); kontseilu nagusiko lehendakaria (7); kontseilu nagusiko lehendakariak (19); kontseilu nagusiko presidenteak (10); kontseilu nagusira (6); kontseilu nagusitik (6); kontseilu nazional (5); kontseilu nazionala (10); kontseilu nazionalak (14); kontseilu nazionalaren (8); kontseilu nazionaleko (26); kontseilu onak (5); kontseilu orokor (14); kontseilu orokorra (20); kontseilu orokorrak (30); kontseilu orokorraren (23); kontseilu orokorrari (6); kontseilu orokorrean (5); kontseilu orokorreko (22); kontseilu orokorretik (5); kontseilu osoa (7); kontseilu politiko (8); kontseilu politikoa (42); kontseilu politikoak (40); kontseilu politikoan (7); kontseilu politikoaren (35); kontseilu politikoari (9); kontseilu politikoko (9)

loire atlantiqueko kontseilu (6); magistraturako kontseilu (5); paueko kontseilu (18); paueko kontseilu nagusiak (5); paueko kontseilu nagusian (5); pirinio atlantikoetako kontseilu (40); segurtasun kontseilu (8)

administrazio kontseilua (48); akitaniako kontseilua (8); alderdien kontseilua (6); bildu da kontseilua (5); enpleguaren euskal kontseilua (13); enpleguaren kontseilua (7); eskualde kontseilua (5); europako kontseilua (7); euskal kontseilua (27); garapen kontseilua (35); gazte kontseilua (22); gazteriaren kontseilua (8); gerra kontseilua (8); gobernu kontseilua (18); hautetsien kontseilua (24); herriko gazte kontseilua (14); herriko gazteriaren kontseilua (5); herriko hautetsien kontseilua (5); herriko kontseilua (67); hizkuntza kontseilua (8); kontseilua bildu (50); kontseilua bildu da (28); kontseilua bilduko (5); kontseilua eratu (5); kontseilua osatzen (7); kontseilua osatzen duten (5); kontseilua sortu (11); kontseilua sortzea (12); kontseilua sortzeko (9); ministroen kontseilua (13); nazio kontseilua (5); nbeko segurtasun kontseilua (5); segurtasun kontseilua (30)

administrazio kontseiluak (102); akitaniako kontseiluak (12); angeluko kontseiluak (6); auzapezak eta kontseiluak (5); bretainiako eskualde kontseiluak (7); diputatuen kontseiluak (9); eaeko gobernu kontseiluak (6); erakundeko segurtasun kontseiluak (25); eskola kontseiluak (11); eskualde kontseiluak (18); espainiako ministro kontseiluak (7); espainiako ministroen kontseiluak (36); estatu kontseiluak (42); europako kontseiluak (53); euskal kontseiluak (11); frantziako estatu kontseiluak (11); frantziako ministroen kontseiluak (6); garapen kontseiluak (51); gazte kontseiluak (5); gazteriaren kontseiluak (7); geriza kontseiluak (6); gizarte erakundeen kontseiluak (32); gizarte kontseiluak (8); gobernu kontseiluak (97); gobernu kontseiluak onartu (6); gobernuko ministroen kontseiluak (6); goi kontseiluak (5); harremanen kontseiluak (6); harremanetarako kontseiluak (6); hautetsien kontseiluak (44); herriko hautetsien kontseiluak (5); herriko kontseiluak (41); hizkuntza kontseiluak (14); ikus entzunezko kontseiluak (5); irakeko gobernu kontseiluak (19); jaurlaritzako gobernu kontseiluak (14); konstituzioaren zaindarien kontseiluak (17); kontseiluak deliberatu (6); kontseiluak egin (11); kontseiluak egindako (6); kontseiluak eman (5); kontseiluak erabaki (16); kontseiluak eskainirik (5); kontseiluak hartutako (7); kontseiluak onartu (31); kontseiluak onartutako (13); kontseiluak proposatutako (5); kultura kontseiluak (7); lan harremanen kontseiluak (6); lan harremanetarako kontseiluak (6); ministro kontseiluak (12); ministroen kontseiluak (89); ministroen kontseiluak onartu (5); nafarroako kultura kontseiluak (7); nbeko segurtasun kontseiluak (34); nberen segurtasun kontseiluak (15); realeko administrazio kontseiluak (5); segurtasun kontseiluak (157); segurtasun kontseiluak onartutako (5); segurtasun nuklearrerako kontseiluak (5); udal kontseiluak (6); uste du kontseiluak (5)

administrazio kontseiluan (33); erakundeko segurtasun kontseiluan (11); eskola kontseiluan (6); estatu kontseiluan (7); europako kontseiluan (16); euskal kontseiluan (5); garapen kontseiluan (21); geriza kontseiluan (6); gobernu kontseiluan (29); hautetsien kontseiluan (9); herriko kontseiluan (64); kontseiluan beto eskubidea (6); ministro kontseiluan (6); ministroen kontseiluan (34); nbeko segurtasun kontseiluan (18); nberen segurtasun kontseiluan (6); segurtasun kontseiluan (61)

auzapezak bere kontseiluarekin (6); gobernu kontseiluarekin (5); kontseiluarekin bildu (5)

administrazio kontseiluaren (43); akitaniako kontseiluaren (8); erakundeko segurtasun kontseiluaren (11); estatu kontseiluaren (7); europako kontseiluaren (27); euskal kontseiluaren (5); garapen kontseiluaren (41); gazte kontseiluaren (5); gizarte kontseiluaren (7); gobernu kontseiluaren (33); hauteskunde kontseiluaren (5); hautetsien kontseiluaren (23); hautetsien kontseiluaren biltzar (5); herriko kontseiluaren (13); hizkuntza kontseiluaren (11); irakeko gobernu kontseiluaren (9); kontseiluaren arabera (13); kontseiluaren bileran (6); kontseiluaren bilkura (7); kontseiluaren biltzar (8); kontseiluaren ebazpen (5); kontseiluaren ebazpena (9); kontseiluaren erabakia (8); kontseiluaren esku (17); kontseiluaren eskuetan (5); kontseiluaren izenean (13); kontseiluaren lana (6); kontseiluaren ondoren (6); kontseiluaren oniritzia (6); kontseiluaren osaketa (5); kontseiluaren sorrera (9); kontseiluaren ustez (11); ministroen kontseiluaren (8); nazio kontseiluaren (5); nbeko segurtasun kontseiluaren (9); nberen segurtasun kontseiluaren (6); segurtasun kontseiluaren (71); segurtasun kontseiluaren ebazpen (5); segurtasun kontseiluaren ebazpena (6); segurtasun kontseiluaren esku (14); udal kontseiluaren (5); zaindarien kontseiluaren (5)

administrazio kontseiluari (10); erakundeko segurtasun kontseiluari (18); europako kontseiluari (13); garapen kontseiluari (5); gobernu kontseiluari (8); konstituzioaren zaindarien kontseiluari (6); ministroen kontseiluari (6); nbeko segurtasun kontseiluari (9); segurtasun kontseiluari (62); zaindarien kontseiluari (6)

administrazio kontseiluetan (9); ministro kontseiluetan (8)

abokatuen kontseiluko (6); administrazio kontseiluko (117); administrazio kontseiluko idazkari (11); administrazio kontseiluko idazkaria (8); administrazio kontseiluko idazkariak (8); administrazio kontseiluko kide (15); administrazio kontseiluko lehendakari (11); administrazio kontseiluko lehendakaria (7); akitaniako kontseiluko (8); artzapezpikuen kontseiluko (5); barruti kontseiluko (7); eaeko abokatuen kontseiluko (5); ektko administrazio kontseiluko (16); erakundeko segurtasun kontseiluko (9); erromako artzapezpikuen kontseiluko (5); eskola kontseiluko (7); eskualde kontseiluko (12); eskubideen kontseiluko (5); estatu kontseiluko (7); europako kontseiluko (71); europako kontseiluko adituek (8); europako kontseiluko adituen (7); euskararen kontseiluko (6); garapen kontseiluko (42); gazteriaren kontseiluko (6); giza eskubideen kontseiluko (5); gizarte kontseiluko (6); gobernu kontseiluko (103); gobernu kontseiluko kide (28); gobernu kontseiluko kideak (8); gobernu kontseiluko presidente (5); hautetsien kontseiluko (43); hautetsien kontseiluko lehendakari (6); hautetsien kontseiluko lehendakariak (8); herriko kontseiluko (7); hizkuntza kontseiluko (10); irakeko gobernu kontseiluko (40)

kontseiluko adituek (8); kontseiluko adituen (7); kontseiluko asanblea (5); kontseiluko bilkura (5); kontseiluko bilkuran (7); kontseiluko biltzar (7); kontseiluko biltzarraren (22); kontseiluko biltzarraren laburpena (21); kontseiluko buru (18); kontseiluko burua (6); kontseiluko buruak (15); kontseiluko idazkari (104); kontseiluko idazkari nagusi (29); kontseiluko idazkari nagusia (17); kontseiluko idazkari nagusiak (32); kontseiluko idazkari nagusiaren (6); kontseiluko idazkaria (13); kontseiluko idazkariak (11); kontseiluko ildo politiko (11); kontseiluko kide (116); kontseiluko kidea (14); kontseiluko kideak (36); kontseiluko kideek (25); kontseiluko kideen (11); kontseiluko lehendakari (29); kontseiluko lehendakaria (17); kontseiluko lehendakariak (19); kontseiluko ordezkari (10); kontseiluko ordezkaria (5); kontseiluko ordezkariak (7); kontseiluko presidente (29); kontseiluko presidentea (23); kontseiluko presidenteak (26); kontseiluko txandakako presidente (5); kontseiluko zuzendaria (6); kontseiluko zuzendariak (7); kontseiluko zuzendaritzako (5)

nbeko segurtasun kontseiluko (19); segurtasun kontseiluko (99); segurtasun kontseiluko kide (41); segurtasun kontseiluko kideak (5); segurtasun kontseiluko kideek (7)

erakundeko segurtasun kontseilura (11); nbeko segurtasun kontseilura (14); nberen segurtasun kontseilura (7); segurtasun kontseilura (81); segurtasun kontseilura eraman (7); segurtasun kontseilura eramango (5); segurtasun kontseilura eramatea (17); segurtasun kontseilura eramateak (5); segurtasun kontseilura eramateko (7); segurtasun kontseilura iristea (5); segurtasun kontseilura joko (7)

kontseilutik kanpo (5)

---

## kontseiluburu *(orobat **kontseilu buru**)* *iz* kontseiluaren burua.

Lasserre departamenduko **kontseiluburuaren** baitan. Herria

Jan Peter Balkenende EBko **kontseilu buruak**. Berria - Mundua

Erramun Bachoc-ek [Hizkuntza Konrtseiluko] lehendakaritza apirilaren 2an utziz geroztik, bazkideetan nehor ez da aurkeztu **kontseiluburu** izaiteko. Herria

Barruti bakoitzak bere Kontseilua dauka, eta hor auzo elkarteak, kultur elkarteak eta bestelakoak daude, baina Barrutiko **Kontseilu burua** zinegotzi bat izaten da. Berria - Euskal Herria

Haren ondotik, beste kardinale bat, Giulio Mazzarini, aita sainduaren nuntzio bezala etorria Parisera, Frantziako erregearen **kontseiluburu** bilakatu zen 1642tik aitzina. Piarres Xarriton

· Beñat Darretxe Garapen **Kontseilu buruaren** ustez. Herria

---

## kontseilukide 1 *iz* kontseiluko kidea.

Hautesleek Eskolako **Kontseilukideak** aukeratu behar zituzten, eta kontseilu honek finkatzen ditu, azken batean, eskoletako edukien programak. Pello Salaburu

Kulturako **kontseilukideak** Nafarroako Gobernuak berak izendatzen dituelako. Berria - Kultura

Kalliopi Koufa NBEko giza eskubideen batzordeko kidea eta Alexandre Cherkasov Memorial giza eskubideen zentroko **kontseilukideak**. Berria - Euskal Herria

Europako Banku Zentralean Domingo Solans **kontseilukideak** utzi berri duen aulkia beste espainiar batek hartuko duela. Berria - Ekonomia

Euskal Herrian 15:00ak zirenean hasi zuten atzo bilera Washingtonen Erreserba Federaleko (Fed) hamabi **kontseilukideek**. Berria - Ekonomia

Protesta gisa, **kontseilukide** xiita batek bertan behera utzi zuen bere partehartzea. Berria - Mundua

**2** (izenondo gisa)

Herenegun, beste ulema **kontseilukide** bat modu berean hil zuten Mosulen. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

Ni aulki barrubigun batean eserita eta erretzen ari, beste zereginik ezean, eta administrazio-**kontseilukideen** besaulki hutsak hantxe, nire aldamenean: Joxe Austin Arrieta

---

**kontseiluño** *iz adkor* kontseilua, aholkua.

**Kontseiluño** bat: Donapaleun sei bide kurutzatzen baitira, horietarik xuxen behar duzue hartu Peyrehoraderakoa. Herria

Eta halakoei **kontseiluño** bat eman behar zaie eskuzabalki […]: zuen galdera ez dadila izan sekula *noiz arte?* antzu otxan hori. Iñaki Segurola

---

## kontseilutxo *iz adkor* kontseilua, aholkua.

Eta bere **kontseilutxoa,** jakina: [...]. Joan Mari Irigoien

---

kontseju[1] ik **kontseilu**.

---

kontseju[2] ik **kontzeju**.

---

kontsekrapen ik **kontsakrapen**.

---

kontsekratu ik **kontsakratu**.

---

kontsekrazio ik **kontsakrazio**.

---

kontsekrazione ik **kontsakrazio**.

---

## kontsekuente *(orobat* ***konsekuente*** *g.er.)* 1 *izond*

Gizon prestua zela, **kontsekuentea,** politika arloan ongi erakutsi zuen bezala. Ramon Saizarbitoria

Arlote tronpeta-jolea, sikeran, **kontsekuentea** zen bere ideiekin. Jon Arretxe

Erraza da demagogia egitea, eta zaila, **kontsekuentea** izatea. Ana Urkiza

Horiek babokeriak dituk, Goio, patronalaren amarru zaharrak, borrokan **kontsekuenteenak** direnak desprestigiatzeko. Jon Alonso

Oso era **kontsekuentean** jokatu zuen adigai horiekin eta hauek iradokitzen dituzten oinarri-esakuneekin, hauekin esperientziaren mugez goiti joatea ezinezkotzat adieraztean. Ibon Uribarri

**2** (adizlagun gisa)

Ez Aloña ez ni ez ginen sinestunak, eta geure uste eta iritziekin zintzo eta **konsekuente** jokatzen saiatzen ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

Pazifismo absolutuaren etika, [...] maila pertsonalean ongi dago, "guztian eta denean" **kontsekuente** jokatzen duen santu batentzat. Joxe Azurmendi

---

## kontsekuenteki *iz* era kontsekuentean.

Orduan **kontsekuenteki** jokatu dut idealismo enpirikoari garrantzi handia ematean. Ibon Uribarri

Epikurok bederen bere sistema sentsualaren arabera Aristotelesek eta Lockek baino **kontsekuentekiago** jokatu zuen (bere inferentziek ez baitzuten inoiz esperientziaren muga gainditu). Ibon Uribarri

---

## kontsekuentzia **1** *iz* ondorioa.

Euskal preso politikoak izatea subiranotasun nazionalaren aldeko eta Euskal Herriko liberazio sozialaren aldeko borrokaren **kontsekuentzia** da, eta beraz aministia negoziatzeak biak negoziatzea esan nahi du, eta ordainetan libertate zatiak saltzea. Berria - Euskal Herria

**2** (filosofian)

Hiru hartueman dinamikoak, beraz, inherentzia, **kontsekuentzia** eta elkarketarenak dira, eta beraietatik abiatuta sortzen dira gainerako guztiak. Ibon Uribarri

Inferentzia bakoitzean oinarrian datzan esakune bat dago, eta honetatik segitzen den beste bat, hots, ondorioztapena, eta azkenik, inferentziaren ondorioa **(kontsekuentzia)**, zeinaren arabera azkenaren egia aurrenengoaren egiarekin ezinbestean elkarlotua baitago. Ibon Uribarri

---

## kontsekuentzialismo *iz* ekintza baten helburuak ekintza horri buruzko zernahi balioespen moralen oinarria direla aldarrikatzen duten teorien multzoa.

Ongi da erantzukizunaren etika edo **kontsekuentzialismoa**. Joxe Azurmendi

---

**kontsekutibo** *izond* ondoz ondokoa, ondoriozkoa.

Beraz: lexiko arrunta, ahal den eta kausal-esplikatiborik gutxien, **kontsekutiborik** ez... esanahirik zabalenean hartuta, ideologiak berak markaturiko adierazpidea da prentsarena ere. Iñigo Aranbarri

---

kontsensu ik **kontsentsu**.

---

**kontsentimendu** *iz* baimena, borondatea.

Jauregiko bertze morroien eta neskameen **kontsentimenduarekin**. Joan Mari Irigoien

Borondate onez ari ote zen, bada, osaba, eta amorosturik zegoelako agertu ote zigun bere ezkontzeko asmoa, pentsaturik ezen aitari edo amari bihotza beratuko zitzaiola eta haien **kontsentimenduarekin** eraman zezakeela aitzina bere asmo hura? Joan Mari Irigoien

---

**kontsentitu** *izond* haurrez-eta mintzatuz, lainezaz betea.

Haur **kontsentitu** bat haztea. Joan Mari Irigoien

**Kontsentitu** bat haiz, eta bide horretatik galdu egingo haiz. Joan Mari Irigoien

---

**kontsentitze** *(corpusean **konsentitze** soilik)* *iz* onartzea, leku ematea, onestea.

Zeren, Axularrek berak zioen bezala, bekatuaren egiteko aski da puntu bat, gogoaren egozte bat, borondatearen deliberatze bat eta **konsentitze** bat. Joan Mari Irigoien

---

**kontsentsu** *(orobat **kontsensu** g.er. eta **kontzentzu** g.er.)* **1** *iz* adostasuna, bat etortzea.

Autogobernua sakontzeko eta **kontsentsua** zabaltzeko. Berria - Euskal Herria

Olmertek Jerusalemen inguruan dagoen **kontsentsua** hautsi zuela. Berria - Mundua

Konstituzioaren eduki nagusiaz **kontsentsua** lortu badute ere, hainbat atal eztabaidatzen segituko dute bi aldeek. Berria - Mundua

**Kontsentsu** politiko eta sozial handiarekin eginiko bidea izan da. Berria - Euskal Herria

Estatutu erreformak zilegi dira, Konstituzioaren araberakoak badira eta **kontsentsu** zabalez egiten badira. **Kontsentsuz** aukeratutako kudeaketa-organo batek programa zehatz bat. Ana Urkiza

Lurralde antolaketa eskemarekin eta Garapen Kontseiluarekin ireki zen ustezko **kontsentsuzko** bide bat. Berria - Euskal Herria

Zinismoa bihurtu dela egungo gure gizartean jarrera unibertsal guztiz zabaldu eta **kontsentsuzkoa**. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barne **kontsentsu** maila handia lortu, eta hori Gorteetara eraman, han berresteko. Berria - Euskal Herria

Elkarrizketa eta **kontsentsu** giroa. Berria - Euskal Herria

· Hautetsien Kontseiluak sortzen duen **«kontsentsu** politiko» giroa nabarmendu zuen lehendakariak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontsentsu zabalez** (3)
> **kontsentsua lortu** (6)
> **kontsentsuaren bidetik** (5)
> **kontsentsuz egin** (3); **kontsentsuz lortua** (3)

---

**kontsentsuatu**, kontsentsua, kontsentsuatzen **1** du *ad* adostu, kontsentsuz onartu.

Anjeles Iztuetak **kontsentsuatutako** legea egin zezakeen, gure erkidegoak dituen eskuduntzak eta unibertsitatearen autonomia errespetatuko zuen legea. Berria - Euskal Herria

Autodeterminazioaren aldekoen artean bazterketarik gabe **kontsentsuatutako** zerrendak.

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hautagai zerrenda bateratuak, **kontsentsuatuak**. Berria - Euskal Herria

---

**kontserba** *(orobat **kontserbu** g.er.)* **1** *iz* luzaroan irauteko prestaturiko janaria; bereziki, tankan itxiriko ontzi batean gordetzen dena.

Leihoaren aldean kaxetan sartuta zeuden **kontserba** batzuk identifikatu nahian. Bernardo Atxaga

Gu eraman ondoren **kontserba** guztiak harrapakatu zituztela. Josu Zabaleta

Haragi, barazki eta arrain ultra-izoztuak, zukuak, **kontserba** appertizatuak. **kontserbak** egiteko ontzietako bat. Edorta Agirre

4.000 lata **kontserba**. Joseba Sarrionandia

Ez, ez dute **kontserbako** haragirik... Iñaki Mendiguren

**Kontserbako** atuna oso goxoa gelditzen zen tipula pixka batekin. Bernardo Atxaga

Gaurko bazkaria patata eta **kontserbako** aza zimurrez egindako eltze bat izango da. Josu Zabaleta

**Kontserbako** produktuak. Berria - Euskal Herria

Ez handiak ez txikiak, **kontserbarako** eta freskorako egokiak. Berria - Ekonomia

**Kontserbarako** balio ez duten arrain hondakinekin. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kontserba**-ontziak gorderik zeuden armairua ere hutsik dago. Oskar Arana

Bazter batean **kontserba**-poto hutsak pilatuta. Oskar Arana

Gas-sukaldetxoa, tea egiteko edo **kontserba**-poteetako janaria berotzeko. Oskar Arana

Garbitzen eta irakiten zituztenean aurreko udako **kontserba**-txarroak, lokatzaz tapatzen zituztenean oilategiko pitzadurak. Anton Garikano

Mendi ibilaldietan denetatik atzematen dugu, plastiko puskak, Coca-Cola botilak, zigarrokinak, **kontserba** hondakinak... Berria - Euskal Herria

*El Grumete* **kontserba** fabriketako neskek. Koldo Izagirre

Barazki **kontserbu** enpresa larri batek (Bonduelle) debekatzen diete. Herria

Barazkien **kontserba** sektorea. Berria - Gaiak

Bizkaiko **kontserba** eta gazitze industrian protestak hasiko dituzte bihar berriro.

Jatetxeak, hegaztiz eta ehizaz josiriko erakusleiho bikainak, **kontserba** denda handiak. Karlos Zabala

Gainera, datorren urtean salduko den **kontserba** antxoa aurtengoa baino «garestiagoa» izango da. Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Udaletxean preso egon bitartean ikusitako atun **kontserbak** ere etorri zitzaizkion burura. Bernardo Atxaga

Atun eta sardina latak ageri ziren, bai eta saltsak, boilur **kontserbak,** barazki beratuez egindako ongailuak ere. Karlos Zabala

· Bizkaiko 20 arrain- **kontserba** lantegietan. Berria - Ekonomia

Bizkaiko arrain **kontserba** fabriketako langileek. Berria - Ekonomia

**4** ***kontserba-lata*** *(orobat* ***kontserbalata****)* kontserba-potoa.

Ogiarekin eta **kontserba** -latarekin gelan sartu zenean. Urtzi Urrutikoetxea

Soldadu batzuek irekita zituzten kiloko **kontserbalata** batzuk. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrain kontserba** (3); **kontserba enpresa** (3); **kontserba enpresak** (8); **kontserba enpresek** (4); **kontserba eta gazitze** (7); **kontserba lata** (6); **kontserba latak** (5); **kontserba ontziak** (5)

**kontserbak egiteko** (3)

---

# kontserbadore *(orobat* ***konserbadore*** *g.er. eta* ***kontserbatore*** *g.er.)* **1** *izond* tradizioak, gizarte eta ekonomia egiturak bere horretan uzteko joera duena.

Ideologia **kontserbadoreko** eta erlijiosoko hainbat talde. Luis Elberdin

Ortodoxia **kontserbadore** zaharberritua. Iñaki Heras

Alderdi kristau **kontserbadoreko** prentsa ordezkaria da gizona. Edorta Jimenez

Alderdi **kontserbadorea** hiru hiri ospetsu horiek zaharberritzearen aurka egon zen setati. Iñaki Mendiguren

Partidu **kontserbadoreko** kide egin naiz. Juan Garzia

Gobernuko **kontserbadore** zein sozialistek ez zuten deus egiten kaos hura konpontzeko. Alberto Ladron Arana

Tatcher politikari **kontserbadorea** . Pello Salaburu

Parisko diputatu **kontserbadore** Claude GoasguenekEragin kultural **kontserbadoreak** burua berotu ez badizu. Luis Elberdin

Alkatea karlista, **kontserbadorea** eta abertzaletasunaren kontrario amorratua zen. Rafa Egiguren

Don Pedrok esaten zuen pertsona zintzoa zena **kontserbadorea** baizik ezin izan zitekeela. Josu Zabaleta

1926an jaio nintzen, familia **kontserbadore** eta erlijioso batean. Arantxa Iturbe

Arropa apal eta **kontserbadoreko** emakumeak gustatzen zitzaizkion, tentu handiz jositako arropak jantzen zituztenak. Mirentxu Larrañaga

**2** (adizlagun gisa)

Taldeek oso **kontserbadore** jokatu baitute. Berria - Kirola

• **3** *iz* joera kontserbadoreak dituen pertsona; alderdi kontserbadore bateko kide den pertsona.

Klase ertain ingeleseko **kontserbadoreak** . Iñaki Mendiguren

Dibertsio arina, "moralduna", **kontserbadoreek** aldarrikatutako Amerikar familia balioen neurri estandarretan sartzen zena. Iñaki Zabaleta

Cánovas eta Sagasta errestauratzaileek, Silvela, Maura eta Dato **kontserbadoreek,** Canalejas, Moret eta Romanones liberalek. Hasier Etxeberria

Europako Legebiltzarreko **kontserbadore,** liberal eta sozialistek. Berria - Mundua

**"Kontserbadore** errukitsuen" gaineko kalaka inozo hori guztia. Oskar Arana

Dena liberal txintxo eta **kontserbadore** -karlista gaiztoen ipuin ezagunaren zelofanean bilduta. Xabier Mendiguren Elizegi

· Bush administrazioko atzerri politika zuzentzen duten neo- **kontserbadore** fanatikoek. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan)

gzion bat arras zuzena omen, bainan **kontserbadore** fama zuena eta Amerikanoen adixkidea. Herria

· Gero azaldu zion gizonari arte- **kontserbadorea** zela Malco, eta koadroa konpontzera ekarri zutela Idusera. Unai Elorriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi kontserbadorea** (13); **jarrera kontserbadorea** (3); **politika kontserbadorea** (3)

**alderdi kontserbadoreak** (19); **gobernu kontserbadoreak** (4); **hautagai kontserbadoreak** (4); **jarrera kontserbadoreak** (3); **oposizio kontserbadoreak** (6)

**alderdi kontserbadorean** (3)

**alderdi kontserbadorearen** (7); **gobernu kontserbadorearen** (3); **liberal kontserbadorearen** (3)

**alderdi kontserbadoreari** (3)

**alderdi kontserbadoreek** (7)

**alderdi kontserbadoreen** (3); **indar kontserbadoreen** (3); **kontserbadoreen esku** (5); **kontserbadoreen eskuetan** (5); **kontserbadoreen eta erreformazaleen** (3)

**alderdi kontserbadoreko** (17); **alderdi kontserbadoreko buru** (4)

---

kontserbadorismo ik **kontserbadurismo**.

---

# kontserbadurismo *(orobat* ***kontserbadorismo****)* *iz* joera kontserbadorea. ik **kontserbatismo**.

New Age mugimendua Ronald Reaganek presidentetza hartu zuen garaian sortu zen, 60ko urteetako Ameriketako kontrakulturako kideen artean, zahartzen hasiak ziren aktibistak mobilizatzeko eta nagusitzen hasia zen **kontserbadurismo** politikorako joerari aurre egiteko. Berria - Gaiak

Europako eskumaren **kontserbadorismo** zaharkitutik urrun. Arco arte azoka erraldoiaren aurtengo edizioa iazkoa ere bai, seguru asko **kontserbadurismoak** jota dago. Berria - Euskal Herria

---

# kontserbagai *iz* kontserbatzeko gaia.

Aran ustelen, **kontserbagai** garratzaren eta arrautza ustelen nahaste baten usaina du gelak. Josu Zabaleta

---

# kontserbagile *(orobat* ***kontserba egile****)* *iz* kontserbak egiten dituen pertsona edo enpresa.

**Kontserbagileak** kalera irtengo dira. Berria - Ekonomia

Batzu ari dira **kontserba egileentzat,** *Bipia* edo *Accoceberry*-rentzat: laborari horiek biperra biltzen dute eta kesa batzuetan ezarririk kontserba etxeetara eramaiten. Herria

---

**kontserbagintza** *iz* kontserbak egitea.

ELAk emandako datuen arabera, guztira 20 enpresa ari dira arrain **kontserbagintzan,** eta 1.300 langile inguru dituzte Berria - Ekonomia

---

**kontserbakoi** *izond/iz* kontserbadorea.

Herriaren arima **kontserbakoiak** ez dizu anbiguitaterik, absolutuki erreakzionario garbia da. Joxe Azurmendi

Gizarte **kontserbakoi** itxiarekin. Joxe Azurmendi

Historiografia **kontserbakoiaren** mitologia nazionalaz. Joxe Azurmendi

Iraultzaren eredu progresista deritzona eta **kontserbakoia** . Joxe Azurmendi

Kontzientzia nazional espainolaren kapitulu ezinbestekoa **kontserbakoi** nahiz liberalentzat. Joxe Azurmendi

**Kontserbakoiek** etorkizuna ere halakoxea gura lukete, hots, iragana berrituzkoa. Joxe Azurmendi

---

**kontserbakor** *izond* kontserbadorea.

Supermoderno eta postmoderno eta progre bezala saltzen zaigun azken-garrasi merkaduria asko eta asko, tradizio **kontserbakor** hobereneko zapi zaharrak baino ez direla. Joxe Azurmendi

---

**kontserbalari** *iz* kontserbagilea.

Urdeki lantegi baten nagusi ondorengoz emanez Pierre Gueraçague **kontserbalari** ezagutua. Herria

---

kontserbalata ik **kontserba 4**.

---

**kontserbarazi,** kontserbaraz, kontserbarazten du *ad* kontsebatzera behartu.

Bide beretik, gizakia jaio eta denbora zati batez **kontserbarazten** duten ahalmenak, beraren hondamena eta galtzea dakartenak berak diren bezala, horrela, sortze eta iraungitzearen mundu osoan, jaiotzearen kausak eta suntsitzearenak berberak dira. Xabier Kintana

---

**kontserbategi** *(orobat **kontserbutegi**)* **1** *iz* kontserba fabrika.

**Kontserbategietako** langileak antxoaren zain daude oraino. Berria - Harian

Atxetako **Kontserbategiaren** ondotik pasatzean aditzen zen kirats okaztagarria. Txillardegi

Haste hartan [...] **kontserbutegiek** zuten muntatzen, atunkiaren arrakasta emendatuz joan zadin. Herria

Katuak **kontserbategiko** atepean usnaka ibiltzen diren gisan, zinez. Koldo Izagirre

Erosleak **kontserbategiak** izan ziren. Berria - Harian

**2** ***arrain kontserbategi.***

Ziburun, auzogune berri bat sortzekoa da lehengo arrain-**kontserbutegiak** eta bereziki Saupiquet lantegia ziren tokian. Herria

Hori, lehengo arrain **kontserbutegien** eremuan. Herria

Gaitzeko erakusketa muntatu zuten [...] arrantzaleak gogoan, bai eta arrain-**kontserbutegietako** langileak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrantzaz eta kontserbutegiez** (3)

---

**kontserbatismo** *iz* joera kontserbadorea. ik **kontserbadurismo.**

Batzuek ez dute jokatzen Euskal Herriaren interesen defendatzaile papera eta **kontserbatismoari** lotzen zaizkio tematurik. Berria - Euskal Herria

**Kontserbatismoa,** periferiako eskualde "atzerakoietan" bereziki sendotua egoten zena, razionalismo modernoaren etsaia da, haren ume liberalismoarena orobat, iraultza liberalarena hortakoz Joxe Azurmendi

---

kontserbatore ik **kontserbadore.**

---

**kontserbatorio** *(orobat **konserbatorio**)* **1** *iz* musika irakasten den ikastetxe ofiziala.

Baionako **Kontserbatorio** Nazionalak. Berria - Kultura

Pragatik Vienara joan zen, hango **Kontserbatorio** ospetsuan ikastera. Badakizu **kontserbatorioan** bakarrik egin daitekeela piano-karrera. Anjel Lertxundi

-Erabaki al duzue institutuan jarraituko dudan ala **kontserbatorioan** matrikulatuko naizen? -galdetzen diet. Anjel Lertxundi

Ezin emango dizut **kontserbatoriora** aurkezteko pasea. Anjel Lertxundi

Badakizue nik **kontserbatoriora** joan nahi dudala. Anjel Lertxundi

**Kontserbatorioko** ikaslea zen. Felipe Juaristi

Pariseko **Kontserbatorioan** sartu zuen, eta handik ateratakoan biolin-jotzaile petoa zen. Felipe Juaristi

**Kontserbatorioaren** auditorioan. Berria - Kultura

Bilboko Koru Elkarteko **Kontserbatorioko** Abesbatzak. Berria - Kultura

Bilboko **kontserbatorioan** egin zituen musika ikasketak. Herria

Bestela, nola hartuko zuten, bada, Bagdad-eko Goi mailako **Kontserbatorioa** bezalako eskola hain berezi batean? Juan Kruz Igerabide

Goi mailako Euskal Herriko **kontserbatorioa** . Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baionako Musika **Kontserbatorioan** ere sartzekotan da gaita. Herria

Gasteizko Musika **Kontserbatorioko** zuzendari ohia. Berria - Kultura

Frantziako eskualdeko musika eta dantza **kontserbatorioak**, gaurko egunean Baiona eta Donibane Lohizuneren artean barreiatzen denak, adar berri bat ukanen du Miarritzen 2005eko ikasturtearen sartzetik aitzina. Berria - Kultura

Leioako Udal **Kontserbatorioko** irakaslea. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**amsterdamgo kontserbatorioan** (4); **baionako musika kontserbatorioan** (3); **donostiako kontserbatorioko** (3); **jesus guridi kontserbatorioan** (4); **jesus guridi kontserbatorioko** (3); **kontserbatorioko irakaslea** (4); **kontserbatorioko zuzendari** (3); **musika kontserbatorioan** (13) baionako kontserbatorioko (13); **musika kontserbatorioko** (4)

---

**kontserbatu**, kontserba, kontserbatzen *(orobat* ***konserbatu*** *g.er.)* **1** du *ad* iraunarazi, atxiki.

Nafarroako Gobernuak Orbaizko elizako fatxada **kontserbatu** du. Edurne Elizondo

Iraunkortasuna «konpromiso emozional hutsal» bat baino gehiago izan dadin, ezinbestekoa da zer **kontserbatu** edo mantendu nahi den zehaztea. Berria - Gaiak

Gizakiak eta beste animalia askok ura **kontserbatzeko** garatu dituzten mekanismo konplikatu eta eraginkorrek agerian uzten dute lehorrean bizitzeko egindako egokitzapena. Irene Aldasoro

Gure itzala **kontserbatu** nahi izatea erabaki ideologiko bat da, jakina, baina ez dio unibertsaltasunari bizkarra erakusten. Anjel Lertxundi

· Han erakusten baitute Rasputinena omen zen zakila formoletan **kontserbatua**. J.M. Olaizola "Txiliku"

XI. mendekoak izan litaizkeen hilobiak aurkitu dituzte, harrigarriki **kontserbatuak**. Herria

**2** (janariez mintzatuz)

Janari batzuk seguru **kontserbatzeko**. Edorta Agirre

Arraina hobeki aprobetxatu eta **kontserbatu** beharko dugu, gizaki primitiboaren ereduari jarraiki. Edorta Agirre

Ehizakia ondo **kontserbatzen** da bertan astebetez. Itziar Otegi

Labea (elikagaien berogailua), izozkailua (luze **kontserbatzeko)** eta hozkailua (egun batzuetan mantentzekoa) aparatu bakar eta bera izango da. Edorta Agirre

**3** gorde, atxiki.

Dena **kontserbatu** nahi izan zuten nire gurasoek. Joxan Elosegi

Idazki hura **kontserbatu** egin zen, eta gerora mirariak egin ditu. Askoren artean

• **4** da *ad* sasoian egon.

Urteak gorabehera ondo **kontserbatuta** zegoen. Lutxo Egia

**5** (era burutua izenondo gisa)

Rowley Apezpiku zintzoaren sermoi **kontserbatu** bakarretik hartutako pasarte honetan. Xabier Olarra

---

**kontserbatzaile** *(orobat* ***konserbatzaile****)* **1** *izond* kontserbatzen duena.

Modu berean, Natura ere **kontserbatzailea** baita, koxis delakoan, ipurtezurrean, buztan desagertu baten aztarna daramagu. Juan Garzia

Grina **kontserbatzaile** honek nire asmoa indartzen du eta segurtasuna ematen dit egin nahi izan dudanari buruz. Xabier Arregi

Funtzio **kontserbatzaile** bera egongo da ekinean kultur totalitateen gaian [...], jatorriari buruzko ikerkuntzaren gaian [...], eta historia bizi, jarrai eta ireki baten gaian. Xabier Arregi

**2** *iz* arte-kontserbatzailea. ik beherago **4.**

Alabaina, **kontserbatzaileak** artearen adierazpide berri horiek bere egiten hasi beharko dira apurka-apurka, etorkizuneko artea hori da-eta. Berria - Kultura

Betiko artelanak zaharberritzeaz gainera, etorkizuneko obrak konpondu ahal izateko teknikak ikertzea da orain, **kontserbatzaileen** egiteko nagusia. Berria - Kultura

**Kontserbatzaileek** maiz erabiltzen dute X izpien teknika, koadroen konposizioak aztertzeko. Berria - Kultura

**3** *izond/iz* kontserbadorea.

Alderdi **kontserbatzaile** katolikoa zenean, diputatu bakarra izan zuen 15 urtez. Berria - Mundua

Matxinada-garai haietan, izpiritu **kontserbatzaile** eta hego-laburra erakutsi zuen. Juan Garzia

Bai SPD sozialdemokrataren aldetik, bai haren ondorengo CDU **kontserbatzailearen** aldetik. Koro Navarro

Hitzetatik haratago, politika praktikoa egin behar dutenean, Europako neoliberalistarik **kontserbatzaileenen** gisakoak dira. Berria - Euskal Herria

Beatriz oso neska konbentzionala zen [...] **kontserbatzailea,** eskuinekoa, espainiazalea. Iban Zaldua

Dagoeneko asturiarrak lortu duen aldearekin, iaz denboraldi osoan erabili zuen jarrera **kontserbatzailea** martxan jar dezake. Berria - Kirola

Jokaldi juridiko-politiko abil bat zen, liberal konstituziozaleei bezain egoki **kontserbatzaileei** zetorkiena. Joxe Azurmendi

**Kontserbatzaileentzat** hirria berez erlijioso, erregezale, etc., etc. da, ur bare gardena, haren izpiritua "besteak" turbusten du. Joxe Azurmendi

Alonso] asturiarrak lortu duen aldearekin, iaz denboraldi osoan erabili zuen jarrera **kontserbatzailea** martxan jar dezake. Berria - Kirola

**4** ***arte-kontserbatzaile*** *iz* museo bateko artelanak zaintzen dituen pertsona.

William Shank arte **kontserbatzaileak**. Berria - Kultura

Guggenheim museoko arte **kontserbatzaile** Margit Rowell aritu da komisario lanean. Berria - Kultura

Bilboko museoko arte **kontserbatzaileek** eginiko ikerketa lanari esker jakin zuten, urte batzuen ondoren, Sarnellik egina zela. Berria - Kultura

---

**kontserbazale** **1** *izond* iraunarazlea.

Moralaren eremura eraman nahi duzun bereizkuntza horren kontra ez luke aita santu batek protestatuko, gizartearen instintu **kontserbazaleak** baizik. Josu Zabaleta

**2** kontserbadorea.

Haatik ez deiogü galtatzen ahal hamar manüetarik bat edo beste ken dezan, ez eta Credoa (Sinesten düt) motxorra dezan : hor **kontserbazale** izan behar dü Aita Saintüak. Herria

Pentsamendu espainol nazional eta original baten patriotak ez bide dira Menéndez Pelayo edo Unamuno bezalako **kontserbazale** angustiatuak bakarrik. Joxe Azurmendi

Oso liberala eta oso **kontserbazalea,** maitale horiek bizitzen laguntzen badiote. Josu Zabaleta

---

**kontserbazio** **1** *iz* kontserbatzea.

Garapenerako baliabideen **kontserbazio** eta kudeaketa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizabanakoaren gorputzean badira, alde batetik, xede berezia duten atal batzuk: batzuek elikatze-organoen antzera, banakoaren **kontserbazioa** dute helburu. Xabier Kintana

Energiaren **kontserbazioaren** legeak. Fernando Morillo

Artearen **kontserbazioari** buruzko biltzarra. Berria - Kultura

Ondare Historiko eta Artistikoaren **Kontserbaziorako** Nazioarteko Institutuak antolatuta.

Tradizioak berezko ditu sormena eta **kontserbazioa** uztartzea. Berria - Kultura

Garapen iraunkorra eta ingurumenaren **kontserbazioa** sustatzen ditugu. Berria - Mundua

Bizia eta bizi-kalitatea bera ere ingurumenaren **kontserbazio** egokiari eta oreka ekologikoari lotuta daudela. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kontserbazionista**.

Gizarte-gorputzaren **kontserbazio**-instintuak nahiko indar du digeritu ezin duen guztia arbuiatzeko. Arrazaren **kontserbazio** senean. Josu Zabaleta

Egun galtzeko zorian dauden espezieak dira **kontserbazio** egitasmoen eta telebistako dokumentalen izarrak. Berria - Gaiak

**Kontserbazio** programen arrakastaren eredutzat dute. Berria - Gaiak

Europako gobernuak eta **kontserbazio** erakundeak. Berria - Gaiak

Pradoko museoko **kontserbazio** lehendakariorde eta erakusketako komisarioak. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erresuma Batuko Mundu **Kontserbazioaren** Behaketarako Zentroak (WCMC). Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ondarearen kontserbazioa (3)
> naturaren kontserbaziorako (3)

---

# kontserbazioburu *(corpusean **kontserbazio buru** soilik) iz*

Bartomeu Mari Bartzelonako MACBAko **kontserbazio** burua Berria - Kultura

---

# kontserbazionista *izond/iz* ik **kontserbazio 2**.

Sumatrako elefanteen egoera larria dela salatu zuen atzo Naturarentzako Munduko Funtsa erakunde **kontserbazionistak** (WWF). **Kontserbazionisten** arabera, espezieak babesteko munduan dagoen itunik eraginkorrena da CITES.

Richard Thomas *BirdLife International* talde **kontserbazionistaren** eledunak. Berria - Gaiak

---

# kontserbera *iz* kontserba fabrika.

Hondakin-sortzaile handienak direlako elikagaien industria **(kontserberak,** prekozinatuak), kateringa (enpresa eta antzeko kolektibitate handientzakoak) eta zentro banatzaileak, besteak beste. Edorta Agirre

---

# kontserberia *iz* kontserba fabriken multzoa.

Oihaleria, **kontserberia** edo industria ta komertzioak prezio ezin hurbilduzkoekin salduz beldurra sartzen ari dutela mundu komunista hortako arranoek. Herria

---

kontserbu ik **kontserba**.

---

# kontserbuki *iz ipar* kontserba jakia.

Gure eskualde hotako **kontserbuki,** sagarno, garragarno, xingar eta gaineratikoak deneri ezagutarazi nahiz arizan direnak... Herria

Sagarno eta beste edari, ahate gizen, **kontserbuki,** biper, erreximenta, ezti, pastiza, fruitu, arrain, gasna, esneki, oilo, xokolet eta goxoki, bada hor denetarik! Herria

---

kontserbutegi ik **kontserbategi**.

---

# kontserje *iz* atezaina.

Aluminiozko mahai baten atzean zegoen **kontserjea,** irratia entzuten. Koldo Izagirre

---

kontsezio ik **kontzesio**.

---

# kontsideratu, kontsidera, kontsideratzen **1** du *ad* pentsatu, uste izan.

Irabazita zuenaz ahazturik, falta zitzaionean bakarrik jartzen zituen begiak, falta zitzaiona zuena baino gehiago zela **kontsideratuz**. Askoren artean

Teknologiari berezkoa zaion barne-logika bat esleitzen zaio, eta hura (bere diseinua, ezaugarri teknikoak eta abar) azaltzeko inolako kanpo-faktoreen beharrik ez dagoela **kontsideratzen** da. Askoren artean

**2** -tzat eduki, -tzat hartu.

Fisiologia imanenteak, aitzitik, izadia sentsuen objektu ororen multzo gisa **kontsideratzen** du. Ibon Uribarri

Formari dagokionez, gure adigaiek begiespenean *a priori* determina ditzakegu, espazioan eta denboran objektu berak sintesi erregularraren bitartez sortzen ditugun heinean eta hauek *quanta* gisa soilik **kontsideratzen** ditugun heinean. Ibon Uribarri

Kasu ideal eta, ondorioz, abstraktutzat **kontsideratu** da. Piarres Xarriton

Testu bat buruz ikasten bada, bere errezitazio bakoitza enuntziatu bat al da ala enuntziatu beraren errepikapena dela **kontsideratu** behar da? Xabier Arregi

Jakina, inguru-testuaren nolakotasuna *continuum* moduan **kontsideratu** behar da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hala **kontsideraturik,** gure egintza guztiak bidezkoak dira, baina orobat axolarik gabeak. Juan Garzia

Beti ikusi eta **kontsideratu** da mahatsondoa pozaren, alaitasunaren, alegeraren eta kontentuaren zuhaitza. Pello Zabala

**3** gogoan erabili.

Bi inperatibo horiek batera **kontsideratuz** gero, emaitzak ez dira oso adoregarriak izango lortu nahi den helbururako. Piarres Xarriton

Orain arte gorputzak beren unibertsaltasunean **kontsideratu** badira, orain nozio komunen atalasea murriztu beharra dago. Piarres Xarriton

Orain arte gizakia bi ikuspegitatik **kontsideratu** izan da. Piarres Xarriton

Ondoren **kontsideratzen** da Jainkoaren bakardadea bere isolamendu baketsuan. Joan Mari Lekuona

**4** aintzakotzat hartu.

Literatura minorizatu bat gara, oraindik ez gaituzte **kontsideratzen,** eta askotan egileak berak eman behar du atzerrirako pausoa... Ana Urkiza

---

kontsiderazino ik **kontsiderazio**.

---

# kontsiderazio

*(orobat **kontsiderazino** g.er. eta **kontsiderazione** g.er.)* **1** *iz* gogoeta, pentsakizuna. ik **kontsidero**.

**Kontsiderazio** hauek oso xeheak dira eta ongi ulertu behar dituzu. Xabier Kintana

Aski sakona den **kontsiderazio** honek, ordea, bi alde ditu. Ibon Uribarri

Kategorien taula honetaz **kontsiderazio** zuzenak egin daitezke, agian arrazoimen-ezagutza ororen forma zientifikoari begira ondorio garrantzitsuak izango lituzketen **kontsiderazioak**. Ibon Uribarri

Ene gorputzak, bere gobernatzaile izan behar zuenak baino hagitzez zoliago, **kontsiderazio** metafisikoak baztertu eta berez hautatu zuen aitzina jauzi egitea. Aingeru Epaltza

**2** beriramena, begirunea.

Aitzitik, arimak eta gorputzak **kontsiderazio** berbera merezi dute. Piarres Xarriton

Sortzaileekiko **kontsiderazioa,** berriz, ez da haien dohain literarioen miresmenak eragina, dohain horiek merkatuaren zerbitzura jartzeko abileziak irabazia baino. Anjel Lertxundi

**3** -tzat hartzea, -tzat edukitzea.

Hori, mendi parajeon Victor Hugoren **kontsiderazio** "erromantikoan" bezalaxe [...], berak karlistak funtsean egiazko liberalak bihurtu izatean nabaritzen da. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontsiderazio hutsetik** (3)

---

kontsiderazione ik **kontsiderazio**.

---

# kontsidero

*iz* kontsiderazioa, gogoeta.

Erromatarren handitasunaren kausei buruzko **kontsideroak**. Josu Zabaleta

Intendentzia arazoez hitz egiten hasi [...] eta **kontsidero** jasoagoetara iritsi ziren batean. Iñaki Iñurrieta

Beste **kontsidero** batzuen lehenespenagatik. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kausei buruzko kontsideroak** (4)

---

# kontsigna

*(orobat **konsigna**)* **1** *iz* jokabide-agindua.

Eusko komunistei eta komunista errepublikano espainolei espiatzeko **kontsigna**. Edorta Jimenez

Inork ez du egun horrelako lanik nahi, lanaren eta pazientziaren sinonimoa delako, egungo **kontsignak,** egungo ordena-hitzak, unean uneko plazerak, ihardukirik onartzen ez duelako. Joxan Elosegi

Batailoietan emandako **kontsignaren** ondorioak berehala nabaritu ziren Lizarrako kalean. Txillardegi

**2** eslogana.

*Independentzia eta Sozialismoa!* eta *Euskal Herria Askatu!* eta beste bost **kontsigna..** . baina putaidearik ez iraganaz, ez urrunekoaz ez hurbilekoaz. Unai Iturriaga

**Kontsignez** beteriko iragarkiak. Iban Zaldua

Gaurko euskaltzaleek bere buruarentzat maiteena duten **kontsigna,** bat aukeratu behar eta, "euskaraz bizi" delako hori dela esango nuke, duda gutxirekin. Iñaki Segurola

Lehen errealitatearen araberako **kontsigna** garbiak genituen, esaterako *produkzio bitartekoen jabetza langileriaren eskuetara pasatu behar da*, orain ezinezkoa da horrelako **kontsignarik**. Jon Alonso

Idazleak artikulu horretan terrorismo musulmanari buruz ateratzen zituen ondorioek ipar ideologikoa markatuko zutela puska batean, kasik **kontsignaren** mailan markatu ere. Jon Alonso

**Kontsignei** itsu-itsuan jarraitzen dieten burugabeenak. Iñaki Iñurrieta

**Kontsignak** aldarrikatu, halako edo horrelakorentzat agurrak bota... Jokin Urain

Haien **kontsignak** errepikatzen zituen, papagaiak iduri. Elena Touyarou

**3** zaindegia.

Maleta galduko zen, agian, **kontsignan** geldituko zen... Monika Etxebarria

Abuztuaren 29ko eguerdian hiru bonba lehertu ziren Madrilen, ordu laurdenaren barruan, Barajas aireportuko, eta Chamartin eta Atocha tren geltokietako **kontsignetan**. Berria - Euskal Herria

---

# kontsignatario

*iz* gordailuzaina.

Hi ez haiz konturatu hemen ez lukeela ezerk funtzionatuko gu gabetarik, horregatik etortzen zaizkiguk astero **kontsignatarioak** zorro txipi batekin, "Ongi portatu haiz, har ezak zerri horrek". Koldo Izagirre

---

# kontsignatzaile

*(orobat **konsignatzaile**)* *izond* merkantzia-jasotzailea.

Aitak emandako *Gascue y Cruz* etxe **kontsignatzailearen** agendatxo batean. Koldo Izagirre

---

**kontsignazio** *iz* izendatzea, esleipena,

-Bai, badakit -esan nuen nik-, **kontsignazio** orriaren eske etorri zara; aziendaz arduratzen zara. Fernando Rey

---

**kontsistente** *(orobat **konsistente**)* **1** *izond* logikan, kontsistentzia duena.

Eta ados egoteko, usteek logikoki **kontsistenteak** izan behar dute [...]: elkarrekiko **kontsistenteak** ez direnak -hots, inongo mundu posiblean aldi berean egiazkoak ezin direnak izan- ez daude elkarrekin ados. Askoren artean

Egon badaude munduak logikoki **kontsistenteak** diren usteek sortuak, baina justifikazio-kasuak ez direnak. Askoren artean

---

**kontsistentzia** **1** *iz* trinkotasuna, sendotasuna.

Horregatik esaten zuen bereizten eta banantzen direnean ere, ez direla ez hondatzen eta ez desegiten, eta ez direla puskatan zatitzen, baizik eta beren baitan betiko gordetzen dutela **kontsistentzia** sendoa. Santiago Iruretagoiena

**2** (logikan) kontraesanik edo enuntziatu faltsurik gabeko kalkuluaren nolakotasuna.

**Kontsistentzia** logikoa ez da baldintza nahikoa behar dugun koherentziaren gutxieneko maila lortzeko. Askoren artean

Hori ez da indukziozko argudioetan gertatzen, horietan premisak onar baititzakegu eta ondorioa ukatu, **kontsistentzia** ahaztu gabe. Askoren artean

---

**kontsistorio** *iz* udalbatza.

Lehentxeago abisatua izan zen komisarioaren gizon batengandik mezua ukanik, Sara eta Amotz auzotegiaren erditsutan kokatuak ziren guardek **Kontsistorioko** kideak azken puntan abertitu zituzten. Elena Touyarou

Hau guztia **kontsistorioan** onartu zuen gero. Askoren artean

Baionan dagoen Israeleko **Kontsistorioak** eskolan erlijio bereizgarririk ez erabiltzeko eskatu zuen. Berria - Euskal Herria

---

**kontsola** **1** *iz* mahai modukoa, luzea, paretari atxikia, apaingarriak jartzeko erabiltzen dena.

Likoreak eskumenean zituen, kristal landuzko flaskoetan, **kontsola** baten zuloetan erdi sartuak. Karlos Zabala

Tximiniari erreberentzia egiterakoan, liburutegiaren ondoko **kontsolarekin** estropozo egin, eta irudi txiki bat bota zuen lurrera. Lopez de Arana

**2** taula edo mahai modukoa, kontrolerako gailuak dauzkana.

**Kontsolako** aginteen aurrean eseri zen don Ottavio. Jon Muñoz

Punta-puntako grabazio-estudioa; sekulako **kontsola,** palanka eta argitxo pila batekin. Jon Muñoz

Kirurgialariak **kontsola** baten bidez gidatzen du robota. Berria - Gaiak

Kirurgialariak **kontsola** baten bidez gidatzen du robota. Berria - Gaiak

**3** bidejokoetarako ordenagailu moduko txikia.

**Kontsolarekin** jolasean mundutik bakartuta dagoen gazte aberatsa bere lozorrotik esnatzeko asmotan. Berria - Gaiak

---

**kontsolabide** *iz* kontsolatzeko bidea.

**Kontsolabide** bakarra geratzen zait horrelakoetan. Joxerra Garzia

Bada beste **kontsolabide** bat ere: San Paulok dioenez, "maite duena baitu Jaunak zentzarazten eta semetzat hartzen duena du zigortzen". Joan Mari Lekuona

Nor gara?; nondik gatoz; nora goaz? erantzun erabatekorik ezean, umorean bilatu izan du **kontsolabidea:** «Ez dut geroko bizitzarik sinesten, baina badaezpada ere barruko arropa aldatu dut», dio Allenen ipuin bateko pertsonaiak. Berria - Kultura

---

**kontsolaezin** *izond* ezin kontsolatuzkoa.

Negar **kontsolaezina** etenez. Bego Montorio

Eszeptikoa, mikatza, gupidagabea, misoginoa, misantropoa, krudela, nostalgikoa eta **kontsolaezina**. Berria - Kultura

---

**kontsolagailu** **1** *iz* zakil itxurako gailua, batez ere emakumezkoen marturbazioan erabiltzen dena. ik**dildo**.

Bezeroa nirea izana zen, bezero oso dotore eta oso zahar horietako bat, arras gustu biziotsuak zituena, eta ukendu, **kontsolagailu** eta luxuzko tresna horiek guztiak garesti ordaintzen zituena. Lehendabizi dama biok, Saint-Ange Andereak eta zuk, Eugeni, **kontsolagailuak** jantzi itzazue mesedez, eta andere errespetagarri honi txandaka sartzen hasi, batean ipurditik, bestean alutik, kolperik ikaragarrienak emanez. Joxan Elosegi

Orain inor hasiko balitz Alabamako kaleetan rifleak eta **kontsolagailuak** saltzen, atxilotu egingo lukete... Berria - Mundua

**kontsolagailuak** saltzeagatik. Berria - Mundua

**2** irud/hed

Ez ote da telebista **kontsolagailu** erraldoi halako bat gure gizartean? Joxerra Garzia

---

**kontsolagaitz** *izond* kontsolatzen zaila dena, ia ezin kontsolatuzkoa.

Eta, batez ere, osaba Vaniaren frustrazio **kontsolagaitzaz**. Ahal zuena eginez Rufus guztiz **kontsolagaitza** kontsolatzeko. Oskar Arana

---

**kontsolagarri** **1** *izond* kontsolatzen duena.

Beraren heriotzagatik sentitzen zuten pena hitz **kontsolagarriz** arindu nahian. Askoren artean

Geuk asmaturiko gezur **kontsolagarria**. Koldo Izagirre

Erantzun lasaigarri eta **kontsolagarri** bat jaso zuten. Xabier Olarra

Baziren gauza batzuk Burtek esan nahi zituenak, gauza mingarriak, gauza **kontsolagarriak,** horrelako gauzak. Koro Navarro

Bart gaueko berriak igortzen dizkizut, berriki hartu baititut, eta, ikusiko duzunez, ez dira batere **kontsolagarriak**. Jon Muñoz

**Kontsolagarrizko** berri faltsuak. Juan Garzia

**2** (hitz soila -en atzizkiaren eskuinean)

Desiratuz Jainkoak bete dezala bere aintza eta goralmena bere esku utzitako jendeen ongarri eta **kontsolagarri** . Joan Mari Lekuona

Neskatoen larruazal eta usain gaztea barkamenaren **kontsolagarri** izan zitekeen agure errukarrientzat. Ibon Uribarri

Gauetako bakardadearen **kontsolagarri** . Oskar Arana

Besteren atsekabe eta nahigabeak norberarenen **kontsolagarri** edo gozagarri izan ohi direla ez da kontu berria. Imanol Zurutuza

Tristurak kaburik ez duela dirudien zoko ilun horretan beti, samin guzien **kontsolagarri** iduri. Patziku Perurena

- **3** *iz* kontsolatzen duen gauza.

"Eskerrik asko" esan zidan, "baina elizgizonok doan ematen ditugu **kontsolagarriak** ". Koldo Izagirre

Ez al da hori izan daitekeen **kontsolagarririk** pozgarriena? Ibon Uribarri

Bazuen **kontsolagarri** bat, hala ere, Antoinek: euliak, hain zuzen. Juan Garzia

**Kontsolagarri** beharrean geunden, baina. Aingeru Epaltza

Halaxekoak Bellarmino, ziren nere **kontsolagarriak** . Patziku Perurena

Hildako batek ez du ezertxo ere nahi, ez du maitasunik eta errukirik eta **kontsolagarririk** nahi. Eduardo Matauko

**4** ***kontsolagarri izan*** da/du *ad*

Ibaiko urak **kontsolagarri** dira exiliatuentzat. Harkaitz Cano

Ziur egon, tentaldi hau oso probetxuzko eta **kontsolagarri** izango zaizula. Askoren artean

Askoren zoritxarra beste askoz gehiagoren **kontsolagarri** ez al da? Harkaitz Cano

Oso **kontsolagarri** izango zaizkizun arrazoi jakintsu batzuk azalduko dizkizut. Xabier Amuriza

Xapelgoen bururat heldu ez direnentzat badira kopak, **kontsolagarri** . Herria

Zahartzaroan ni ninduen **kontsolagarri** . Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontsolagarri izan** (7)
> **kontsolagarria gertatzen** (3)
> **hitz kontsolagarriz arindu** (3)

---

# kontsolamendu **1** *iz* kontsolatzen duen gauza. ik **kontsolagarri**.

Ez nekien malenkonia gaindituko ote zuen **kontsolamenduak** . Galtzaleen **kontsolamendua** zen hau ere, astelehen huntako lehen partidan. Joxan Elosegi

Nora jo zezakeen **kontsolamendua** bilatzen zuen ezinduak, Kristorengana besterik? Bernardo Atxaga

Zuk eman ez diozun **kontsolamendua** . Lourdes Oñederra

Bihotza kezkaz betea izan arren, zeure **kontsolamenduaz** gozatzen nauzu. Elizen arteko biblia

Jeronimotarren komentuko fraide batzuk ere etorriak ziren, itxuraz **kontsolamendu** eskaintzera. Felipe Juaristi

Jainko Onak eman dezakola betiereko zoriona eta **kontsolamendu** utzi dituen etxekoeri. Herria

Horixe dut **kontsolamendu** atsekabean, zure promesak bainau biziberritzen. Elizen arteko biblia

**2** (izenondoekin)

Gurutziltzatuaren irudi aurrean ahuspezturik, otoitzaldian gozotasun eta **kontsolamendu** handiz betea gertatu zen. Askoren artean

**Kontsolamendu** txikia litzateke, baina kontsolamendua, halere. Mirentxu Larrañaga

Harengandik baizik ez nezake **kontsolamendu** doi bat har. Jon Muñoz

Hurbilduko ote naiz haren zorigaitzera **kontsolamendu** errazetan erori gabe, aukeraz baliatu gabe neure ideiak eta interesak haren inguruan harilkatzeko? Bernardo Atxaga

Meza bitartean, berriz, federik ez zitzaidan itzuli baina, halako **kontsolamendu** -igurtzi moduko bat sentitu nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kontsolamendu** jainkozkoaren liburua. Joan Mari Lekuona

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lubakian dagoen soldaduak, agian, engaina lezake bere burua, ez da alferrik isuriko gure odola eta abar, eta **kontsolamendu** izpi bat aurkitu horretan, baina gaixoaren lubakitik ikusten den etsaia garaiezina da. Imanol Zurutuza

**Kontsolamendu** hitz egokiak aurkitu ezinik, eskua hartu dio gizonak bereen artean. Imanol Zurutuza

Ez zen haren ezpainetarik atera ez gaizkirik, ez **kontsolamendu** elerik. Elena Touyarou

**4** ***kontsolamenduzko***

Amona Erikak egin zituen **kontsolamenduzko** ahalegin ugarien artean, aitari buruz ere aritu zitzaidan. Anjel Lertxundi

Vladislav aberkideak beso batez lepoa inguratzen dio, **kontsolamenduzko** hitzak esaten dizkio, nik uste, eta beste serbiar biak ere negar mutu malko gabeko batean direla dirudi. Edorta Jimenez

Nik lagundu egin nahi nion, **kontsolamenduzko** zerbait esan. Anjel Lertxundi

Jendea erlijio-gosez dagoenean, orduan jasan behar duten estutasun espiritual etsigarriak sutu egin ditzake, erlijio- **kontsolamenduzko** zainak etorkizunik gutxieneko meatik ateratzeko. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontsolamendu bakarra** (15); **kontsolamendu bila** (6); **kontsolamendu eskasa** (3); **kontsolamendu handia** (9); **kontsolamendu ororen iturri** (3)
> **egiazko kontsolamendua** (3); **kontsolamendua aurkitu** (3); **kontsolamendua aurkitzen** (3); **kontsolamendua ekarri** (3); **kontsolamendua eman** (4)
> **benetako kontsolamendurik** (4)

---

# kontsolatu, kontsola, kontsolatzen **1** du *ad* norbaiten nahigabea edo sufrikario morala arindu.

Gozatzeko zoria baldin badugu, oroimen politek **kontsolatu** eta olgatuko gaituzte zahartzaroan ere. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez duzu nire hutsunea nabarituko, horrek **kontsolatzen** nau. Eduardo Matauko

Ahal zuena eginez Rufus guztiz kontsolagaitza **kontsolatzeko** . Oskar Arana

Gero, Dabidek bere emazte Betsabe **kontsolatu** zuen; joan, eta berarekin etzan zen. Jose Antonio Mujika

Eta, **kontsolatu** nahi ninduelako-edo, gaineratu zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

Hasierako denboretan, jauregiak **kontsolatu** zuen emakumea. Xabier Olarra

"Ene, ene", esaten dio ahapeka, hura **kontsolatu** nahirik. Oskar Arana

Bakar baten eskerron eta poz-malkoak nahikoa izango lirateke ni gizonen mespreziotik **kontsolatzeko** . Juan Martin Elexpuru

Nork **kontsolatuko** du nor, berak alaba ala alabak bera? Imanol Zurutuza

Nolabait elkar **kontsolatzeko** modua aurkitu badute oraingoz, zer kalte du ba horrek? Oskar Arana

Haiek bazekiten elkar nola **kontsolatu** . Pello Zabala

-Bihar emango dute behin betiko epaia, eta elkarrekin giltzapetuko gaituzte **-kontsolatu** zituen Kovaltxukek-. Jose Morales

Neure burua **kontsolatzen** saiatu nintzen Lucy Pamelarekin eta haren umeekin. Oskar Arana

• **2** da *ad*

Gizaki horrek oraindik geratzen zaizkion hirurogei markoei begiratuko balie eta, galdu dituen berrogeiak ahaztuz, geratzen zaizkionekin bakarrik baliatuko balitz, **kontsolatuko** litzateke ezbairik gabe. Joan Mari Lekuona

Lilaren galtzeaz horrela **kontsolatzen** zen. Itxaro Borda

Laster asko **kontsolatu** zen andrea marabut beltz harekin, gizaseme batekin alegia. Joxan Elosegi

Oraindik ez naiz aitaren heriotzatik **kontsolatu,** eta ama galdu nuenean, aldiz, pozez zoratzen jarri nintzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** ***ezin kontsolatuzko***

Mina hor da beti, min handia agian, ezin **kontsolatuzkoa** . Joxan Elosegi

Ene pena bakarra, baina ezin **kontsolatuzkoa,** "ene" zaldiak gehiago ez nituela ikusiko baitzen. Ana Urkiza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontsolatuak geratu ziren** (4)
> **kontsolaturik geratu zen** (4)

---

## **kontsolatzaile** *izond* kontsolatzen duena.

Baina hitz gozoek galdua zuten beren indar **kontsolatzaile** eta liluratzailea. Anton Garikano

Gurutzean iltzatutako Semearen heriotza narrazio **kontsolatzaile** horren orrialde nagusia bihurtu zen. Bernardo Atxaga

Santu desloratzailea da eta **kontsolatzailea** andre bakartientzat. Non aurkituko zaitugu, gure arimen **kontsolatzaile** zaren hori? Karlos Zabala

San Antonio, ezkongaien laguntzaile; San Jose, ezkondutakoen **kontsolatzaile** . Pello Zabala

Denik ere ama nuen **kontsolatzaile** . Janbattitt Dirassar

---

## **kontsolatze** *iz* norbaiten nahigabea edo sufrikario morala arintzea.

Sophie eta Gérard-en kalapitaren ondotik segidan heldu den **kontsolatze** zinematografiko eta alegiazko baketzeak akiarazia du jadanik. Eneko Bidegain

Inork ez luke ulertuko orain goxoki txiki pare baten truke, **kontsolatze** sari txiki batzuen truke, testuari baietz esatea. Berria - Mundua

---

## **kontsolazio** **1** *iz* kontsolatzea, kontsolamendua.

Horrela zure espiritua Jaunagan poztuko da, eta **kontsolazio** handia hartuko duzu. Askoren artean

Hau negar- eta samin-unea izango da anaientzat eta beste askorentzat, baina zuretzat **kontsolazio** eta alaitasun mugagabea. Joan Mari Irigoien

Atsekabetuak kontsolatzen dituen Beste inork ez bezalako **kontsolazio** berezia izan zuen santuaren agerraldiarekin. Askoren artean

Frantziskoren espiritua **kontsolazio** eta gozamenez blai zegoen. Askoren artean

Jaunak ez nau sekula **kontsolaziorik** gabe utzi. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garbi gelditu zen **kontsolazio** -sariek estima handirik ez dutela pilotarien artean. Berria - Kirola

Lan honek ematen duen **kontsolazio** sentimendua beharrezkoa da mundu osoan; horregatik, oso obra garrantzitsua da. Berria - Kultura

Horrela iritsiko zaizue Jaunaren **kontsolazio** -garaia, eta hark berriro bidaliko dizue Jesus, zuentzat izendatua zeukan Mesias. Elizen arteko biblia

Jakizu laster **kontsolazio** -bide izango duzula senarra. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrela, ontzat eduki zuen bere onginahian anai Joani jainko-maitasunaren distira eta sugar hori kentzea, eta inolako espiritu- **kontsolaziorik** gabe utzi zuen. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontsolaturik geratu zen** (4)

---

## **kontsolidatu,** kontsolida, konsolidatzen **1** du *ad* sendotu, gotortu.

Baita kultur sarea **kontsolidatu** ere. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Esparru **kontsolidatuetan** . Berria - Euskal Herria

---

## kontsomatzaile ik **kontsumitzaile**.

---

## kontsomazione ik **kontsumizio**.

---

## **kontsome** *iz* haragi salda, bereziki arrautza gorringoa gehitzen zaiona.

Nire urdail delikatuak gauez entsalada edo **kontsomea** eta barazki-purea besterik ezin du burutu, baina jan egin behar zer edo zer, senak ziostan energia handia beharko nuela. Joxean Sagaztizabal

---

## **kontsonante** **1** *izond* beste gauza batekin egokitasun erlazioa duena.

Izaten baitira leku batzuk ahotsari berez bidea mozten diotenak: adibidez leku disonanteak, grekoek *catechountes* deitzen dituztenak; zirkuntsonanteak, haiek *periechountes* deitzen dituztenak; baita erresonanteak ere, haiek *antechountes* deitzen dituztenak; eta **kontsonanteak,** haiek *synechountes* deitutakoak. Santiago Iruretagoiena

Leku **kontsonanteetan,** azkenik, ahotsa behetik hasi eta indartzen joaten denez, gero eta ozenago joaten da gora altxatzen eta azkenean garbi-garbi iristen dira hitzak belarrira. Santiago Iruretagoiena

**2** *iz* ahoko gune batean edo gehiagotan eragozpena aurkitzen duen ahotsa.

Bestela oso gutxitan kontuan hartzen diren aldaerak zaindu behar dira: hitzen arteko loturak, **kontsonante** -bokalen oreka, barne-etenak... Berria - Kultura

Eskualde horretako haur hizkeran, *p, t, k, tx* eta *m* dira **kontsonanterik** ugarienak. Koldo Zuazo

Hiru **kontsonanteko** multzoak ere onartu ziren: *institutu, konstituzio.* Hizki haien makilen eta **kontsonante** haien kirtenen trazuak, bokal haien bihurguneak lazoan harrapatuak zituzten gurasoen presentziak, absentzia hura halako bizitasunaz hornituz. Koldo Zuazo

**3** (testuinguru teknikoagoetan)

**Kontsonante** ahoskabearen ekoizpenean, ahoskordak elkarrengandik urrun egoten dira. Lourdes Oñederra

**Kontsonante** trabari ahostunek ere eskaintzen dute zarata eta hots konbinaketa interesgarria. Lourdes Oñederra

Labur eta erraz, gogora dezagun **kontsonante** ozenak herskari direla neurri batean. Lourdes Oñederra

**Kontsonante** hasperendunen fonemikotasunak. Lourdes Oñederra

**Kontsonante** horzkari edo hobikariaren ahoskunea. Lourdes Oñederra

Horrela ahoskatutako **kontsonanteak kontsonante** inplosiboak dira. Lourdes Oñederra

**Kontsonantearen** palataltasuna ez dela adierazgarria, inguruneak eragina baizik. Lourdes Oñederra

Euskalki horietan, beste hizkuntza edo hizkera askotan bezala, **kontsonante** sabaikarien artean ez dago herskaririk, baina bai afrikatua. Lourdes Oñederra

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kontsonantiko.**

Errazagoa da, ebakeraren aldetik, **kontsonante** bilkura osoan ahoskunea berdintzea. Lourdes Oñederra

*Muta cum liquida* **kontsonante** taldeak. Ez dago **kontsonante** pilatze handirik, ezta nolakotasun iluneko bokalik ere. Lourdes Oñederra

Horrek esan nahi du delako hizkuntzak trabari ahoskabeak bakarrik izango dituela bere paradigman, bere **kontsonante** bilduman. Lourdes Oñederra

Posible da inguruko hizkuntzetatik sartua izatea [f]; garbi dago, halaber, ongi txertatu dela **kontsonante** sailean eta hizkuntzaren dinamika fonologikoan. Lourdes Oñederra

· **Kontsonante** -bokal hurrenkera silabaren ozentasun egiturari egokitzen zaio. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bokal eta kontsonante** (4); **kontsonante aurreko** (5); **kontsonante bikoitzik** (4); **kontsonante bilkura** (4); **kontsonante eta bokal** (5); **kontsonante eta bokalen** (3); **kontsonante hasperendunak** (3); **kontsonante multzo** (4); **kontsonante multzoak** (6); **kontsonante ozen** (3); **kontsonante ozenak** (7); **kontsonante ozenen** (10); **kontsonante ozenen aurreko** (4); **kontsonante sabaikarien** (5); **kontsonante sudurkariak** (4)
>
> **bokalak eta kontsonanteak** (3)

---

## kontsonanterdi *izond/iz* bokalez mintzatuz, diptongo baten hasieran doana.

Bokalerdi esaten zaio diptongoan bokalaren ondoren ahoskatzen den nolakotasun bokalikoari [...]; **kontsonanterdi,** berriz, diptongoan bokalaren aurretik ahoskatzen den nolakotasun bokalikoari. Lourdes Oñederra

Izenek badute izanarekin zerikusirik, **kontsonanterdiak** ebakera itxiagoak izan ohi baitira bokalerdiak baino. Lourdes Oñederra

**Kontsonanterdiek** osatzen dituzten goranzko diptongoak eta bokalerdiek osatzen dituzten beheranzkoak ere erritmikoki ezberdin dira. Lourdes Oñederra

---

## kontsonantiko *izond* kontsonantearena, kontsonanteari dagokiona. ik **kontsonante 4.**

Germanikoz gertaturiko aldaketa **kontsonantikoak**. Isabel Arrigain

Horregatik, aurkakotasun **kontsonantiko** eta bokaliko gutxiago egiteko gauza gara. Lourdes Oñederra

Mutazio **kontsonantikoaren** lege [...] barruan. Isabel Arrigain

---

## kontsonantismo *iz* hizkuntzez mintzatuz, kontsonante sistema.

Indoeuropar hizkuntzan, orobat, erroen **kontsonantismoa** lege zehatzen mendean dago. Isabel Arrigain

Euskarak bokalismorako duen erraztasun hori aienatu egiten da **kontsonantismoaren** kasuan. Iñaki Arranz

---

## kontsonantzia 1 *iz* hoskidetasuna, harmonia, adostasuna.

Nolakotasun-multzo baten **kontsonantzia** edo adostasunaren emaitzaz lortutako arte konplexua da arkitektura. Santiago Iruretagoiena

Erdian ez da ezer jarriko, zeren eta sistema kromatikoaren barruan ez baitago **kontsonantzia** izateko beste soinurik. Santiago Iruretagoiena

Tresna baten hariak jotzen direnean edo ahotsaren kantua erabiltzen denean, ezin da **kontsonantzia** edo akorderik egin bi bitarte erabiliz, eta ezta hiru, sei edo zazpi bitarte erabiliz ere. Santiago Iruretagoiena

Bere doinuetan, *tempo* brasildarretatik hurbil diren **kontsonantziak** entzun daitezke. Berria - Kultura

Erdian ez da ezer jarriko, zeren eta sistema kromatikoaren barruan ez baitago **kontsonantzia** izateko beste soinurik. Santiago Iruretagoiena

**2** erriman, bokaleen eta kontsonanteen hoskidetasuna.

Errima, arestian aipatu dugun bezala, beti da sail berekoa eta errima-hitzen arteko **kontsonantziari** balio handia ematen zaio. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## kontsorte *izond* eskontzaz dena.

Baina ez dago munduan, antza, horren herrialde eroriko errege **kontsorte** izan nahi duenik. Iban Zaldua

Francisco de Asís, Isabel II, Espainiako erregina bilakatu beharra zenaren senar eta printze **kontsortea**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## kontsortzio *(orobat* **konsortzio***)* *iz* enpresen edo entitateen arteko elkartea, izaera ekonomikoa duena.

CAFek, Siemensek eta Bombardierrek osatutako **kontsortzioak** lortu duen 90 treneko eta neurri zabaleko 14 bagoiko kontratuaz gain, [...]. Berria - Ekonomia

Nazioarteko sei bankuk osatutako **kontsortzio** bati. Berria - Ekonomia

Airbuseko kideak, akziodunak izateaz gain, industria bazkideak dira, eta hegazkinen produkzioaz eta diseinuaz arduratzen dira, eta **kontsorzioa,** berriz, koordinazioaz eta kudeaketaz arduratzen da. Berria - Ekonomia

Ikerketa horretan laguntza preziagarria ekartzen digu Dominik Lagadec, Azkainen berriki kokatua den "Txopinondo" eta "Sagardun" **kontsorzioko** kideak. Herria

Nazioarteko lana, eta ingurugiro arauak eta legeak gobernuek ezarri behar dituzte, ez enpresa transnazionalen **kontsortzioek**. Iñaki Heras

Hendaiarentzat **kontsortzioak** du lehentasuna, baina herri elkargoari aterik ez diogu ixten. Berria - Euskal Herria

Guk **kontsortzioa** osatuko dugu, eta Donostia ez badator, kanpoan geratuko da. Berria - Euskal Herria

EADS aeronautika **kontsortzioak** eta Thales arma konpainia frantziarrak bat egiteko aukerari ez dio abegi onik egin Alemaniako Gobernuak. Berria - Ekonomia

Aseguruen **Konsortzioak** ETAk eragindako kalteengatik ordaindutako diru kopuruen txostena. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Suhiltzaileen **Kontsortzioak**. Berria - Ekonomia

**kontsortziokide** *izond* kontsortzio berekoa.

Beasaingo konpainiak ekoiztuko ditu bagoiak, eta **kontsortziokide** dituen Bombardierrek eta Siemensek trakzio sistemak. Berria - Ekonomia

---

kontsorzio ik **kontsortzio**.

---

**kontsuelo** *iz* kontsolazioa, kontsolamendua.

Kontsolatuko nuke **kontsueloa** balego. Jon Alonso

Bere **kontsuelo** bakarra, bere burua konbentzitzen saiatzea izan baitzen, gertatu zenak ez zeukala garrantzirik, eta ez zuela ondoriorik izango. Pablo Sastre

---

**kontsul** *(orobat **konsul** g.er.)* **1** *iz* Erromako Errepublikan, aginpide gorena zuten bi kargudunetako bakoitza.

Hori K. Marzio Rutilio eta K. Servilio **kontsul** zirelarik gertatu zen, Erromako 413. urtean. Iñaki Iñurrieta

Apio Klaudio Pulker **kontsularen** alaba zen. Juan Garzia

**2** estatu baten interesez atzerriko hiri batean arduratzen den ordezkaria.

Portuges hau **kontsul** izendatua izan zen 1938an, Bordelen. Herria

Frantses gobernuak Bilbon duen **kontsul** nagusia. Herria

Liberalen ordezkariak gutun bat igorri zion Baionako español **kontsulari** erranez nola ez zituzten bildu ahal izan gazte horiek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Espainiako **kontsul** bat Kolonbiako FARCekoekin negoziatzen ari da. Joxerra Garzia

Hiriburuko **kontsul** amerikarra itsasora ematen zuen etxe batean bizi zen. Xabier Olarra

Kontuz ibiltzeko esan zien **kontsul** ingelesak, gerraontzi frantsesak zebiltzala-eta bazterretan. Felipe Juaristi

Aitarekin batera joana zen Leonardo, aita [...] Bejaiako **kontsul** izendatu zutenean; Kabiliako kostaldean dago Bejaia, Aljerian. Jon Muñoz

**Kontsul** ohiaren memoria ohoratua da 1988az geroz, "presuna zuzen" gisa. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Konstantinoplan urruti zegoen Anastasio enperadoreagandik prokontsul-titulua eta **kontsul**-intsigniak eskuratu zituen. Iñaki Mendiguren

Pertsiarren erara janzten zen; Klodoveo **kontsul**-jantzian bezala, alegia. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kontsul izendatu (3); kontsul nagusia (4); venezuelako kontsul nagusia (3)

---

kontsulado ik **kontsulatu**.

---

**kontsular** *izond* kontsulari dagokiona; kuntsulatuari dagokiona.

Gure jurisdikzio **kontsularraren** premia sentitzen zuen hark ere. Iñaki Iñurrieta

Ritter von Truxa irakaslea -Zientzien Akademiako partaide (adar filosofiko-historikoan), eta Akademia **Kontsularreko** dozente-, ez da hain ezaguna. Anton Garikano

---

**kontsulatu** *(orobat **kontsuladu**)* **1** *iz* estatu baten interesez atzerriko hiri batean arduratzen den ordezkaritza. ik **kontsuletxe**.

Espainiako **kontsulatuko** bi ordezkari ditu zain aireportuan. Berria - Harian

**Kontsulatutik** Suprefeturara, eta handik Herriko Etxera. Txillardegi

Orduko Atzerri ministro Ana Palaciosek 17:28ean Espainiako enbaxada eta **kontsulatuetara** igorritako telegramak hauxe zioen: [...]. Berria - Mundua

Egunotan etorkinaren herrialdeko enbaxada eta **kontsulatuek** gainezka egin dute. Berria - Harian

Bihar Irango **kontsulatuan** esaten didatenaren arabera. Jon Arretxe

Goizeko lehenengo orduan joango naiz **kontsulatura**. Jon Arretxe

Ekuadorko **kontsulatua** Hurtado Ametzaga kalean dago. Berria - Harian

Venezian hain zuzen, Nafarroako **Kontsulatuan,** nafar batekin egin zuen topo. Felipe Juaristi

Perpinyan, Errepublikaren **Kontsulatuko** ateetan. Edorta Jimenez

Espainiako Gobernuaren Baionako **kontsulatura** joan eta han izena eman behar da. Berria - Harian

Brasilek Bartzelonan duen **kontsulatura** jo behar izan zuen. Berria - Harian

Hor aurrean negozioetarako amerikar **kontsulatua** dago -esan zidan. Jon Muñoz

Han egokitu baitzitzaion fusil-tiroka italiar **Kontsulatua** jende-aldra basakiro asaldatu baten aurka defendatu beharra. Juan Garzia

**Kontsulatuko** autoan eraman dute aireportura. Berria - Harian

**Kontsulatua** ireki dutenerako atean nengoen. Jon Arretxe

**Kontsulatuko** egongelan. Jon Arretxe

**2** kontsularen kargua.

Gobernuek beren egintzak erregistratzeko erabilitako metodo bat urtebeteko magistraturaren batean -adibidez, erromatar **kontsulatuan-** zeudenen izenez baliatzea zen. Iñaki Mendiguren

Oldarrean ekin zion Miloni, Zizeronen lagun bati, zeina **kontsulatua** eskuratzeko bidean abiatua baitzen. Juan Garzia

Azkenik, **kontsulatua** eman zitzaionean [...] monarkian nagusi zen ordurako, eta haren eskubide guztiak ezarrita zeuden. Iñaki Iñurrieta

Gregorio Tourskoak, **kontsulatuaz** ari delarik, ez dio ezer prokontsulatuaz. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> espainiako kontsulatuaren (3); kontsulatuaren aitzinean (3)
> kontsulatura joan (3)

---

**kontsuletxe** *(orobat **konsuletxe** g.er., **kontsul(-)etxe** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kontsuletxe** agertzen da)* *iz*

kontsulatua dagoen eraikina.

Gure artzainak burrustaka joaten ziren Ameriketara, eta joan aurretik, Estatu Batuetako Bilboko **Kontsuletxean** azterketa bat egin behar izaten zuten, test baten antzekoa. Pello Salaburu

Carlos Iñigo aske uzteko eskatu dute Bilboko Frantziako **kontsuletxearen** aurrean. Berria - Euskal Herria

Bilbon, Frantziako **Kontsuletxearen** aurrean. Berria - Euskal Herria

*Etxerat*-ek protesta egin zuen Mexikok Bilbon duen **kontsuletxean**. Berria - Euskal Herria

AEBek Saudi Arabiako Jida hirian duten **kontsuletxearen** kontrako atentatuan 12 pertsona hil ziren.

Bilbon dagoen Frantziako **kontsuletxeko** arduradunarekin bilera egiteko. Berria - Euskal Herria

Azken hiru urteotan, bera eta bere senarra Zeelanda Berriko **kontsul**-etxearen zerrenda batean izan dira, emigratzeko zain. Oskar Arana

Espainiako **kontsul** etxearen aurrean, 14:30ean. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontsul etxearen** (3)
> **bilbon duen kontsuletxearen** (3); **frantziako kontsuletxearen aurrean** (3); **kontsuletxearen aurkako** (3); **kontsuletxearen aurrean** (7)

---

# kontsulorde *iz* kontsularen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordezkoa.

Galion Akaiako **kontsulorde** zela, judu guztiak batean Pauloren kontra altxatu ziren. Elizen arteko biblia

Joan Frigia Pennates-ek, [...] gero erromatarren **kontsulorde** eta Jauregi Sakratuko konde izan zenak. Askoren artean

---

# kontsulordetza *iz* konsulordearen bulegoa.

Eta Demetriok eta bere artisauek inoren kontra ezer badute, hor dituzte herriko auzitegiak eta **kontsulordetzak**. Elizen arteko biblia

---

# kontsulta *(orobat* ***konsulta*** *g.er.)* **1** *iz* kontsultatzea, argibide eskaera, aholku eskea.

Eta azkenean etorri zen bezero amestua, gugandik **kontsulta** bat nahi zuena. Juan Garzia

Lan ideala da **kontsulta;** eskuak zikindu gabe [...] ospea eta sosak ematen dizkizuna: amantala erantzi, gorbata jantzi, eta isiltasun arretatsuz auzigaia aditu, besterik ez duzu egin behar, eta Delfoseko orakulua bezala sentitzen zara. Juan Garzia

1.208 **kontsulta** eta eskaera jaso ditu [Euskadiko Filmategiak] Interneten bidez. Berria - Kultura

**Kontsulta** Etikoetarako Batzorde Nazionalak atzera bota du hildako baten aurpegia transplantatzeko eskaera. Berria - Gaiak

**Kontsultak** egiteko bideak erraztu eta arintzen direnean. Pello Salaburu

*ik beherago* 9. Askoren artean

Ministro jeneralak **kontsultak** egin zituen nor bidali. Askoren artean

**2** galdeketa.

Oraino ez daiteke erran ea, departamendu guztian horrelako **kontsulta** bat antola baledi, euskal departamenduaren aldeko jarrera nagusituko litzatekeen. Berria - Harian

Ezinbestekoa izango da demokratikoki lortutako akordio politiko hori euskal herritar guztiei egindako **kontsulta** baten bidez berrestea. Berria - Euskal Herria

**Kontsulta** gakotzat daukazue, autodeterminazioari buruzko **kontsulta**. Berria - Euskal Herria

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak borondate politikoa baldin badu, **kontsulta** antolatzeko ez dagoela arazorik. Berria - Euskal Herria

**3** medikuak bere kabinetean eriak hartu eta eta aztertzea.

Ander Olaso medikuarekin goizetik izandako **kontsulta**. Joan Mari Irigoien

Zortzi eta erdietarako joan nintzen anbulatoriora, **kontsulta** pasatzera. Joan Mari Irigoien

Hurrengo **kontsulta** ginekologikoan. Luis Elberdin

2002. urtean 12,4 milioi **kontsulta** egin ziren Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian dauden ospitalez kanpoko 439 osasun zerbitzu publikoetan. Berria - Euskal Herria

Iparraldean Gizarte Segurantzak bere gain hartzen ditu **kontsulta** pribatuak, bertze lau herrialdeetan ez bezala. Berria - Euskal Herria

Ospitale publikoez kanpoko **kontsulta** espezializatuei dagokienez, [...]. Berria - Euskal Herria

Egun batean, emakume bat ezagutu zuela esan zidan; hurrengo **kontsultan,** berriz, Jesukristo ezagutu zuela, emakumearen bidez. Joan Mari Irigoien

**4** medikuaren azterketa hori egiten den tokia. ik **kontsultategi 2**.

Arratsaldeko laurak dira, eta Elena sartu da **kontsultan**. Luis Elberdin

Erregeren dentistak Unión kalean zuen **kontsulta,** Orienteko Jauregitik hurbil. Iban Zaldua

Agure eta atsoz betetzen baitzait noiznahi **kontsulta**. Joan Mari Irigoien

Aurkitu nuela herrian bertan toki egoki bat **kontsulta** jartzeko. Arantxa Iturbe

Andresek urdaileko gaixotasunen **kontsulta** batean aurkitu zuen lana. Josu Zabaleta

Azeri edo basahuntz ehiza ageri zuten margo gogoikarriak, plastikozko lore zantar-erdokatsuak, moketa lodi eta marrazki zorabiagarriz betea, erizain edadetu bat..., horrela imajinatu izan zituen beti psikologoen **kontsultak**. Pako Aristi

**5** kontsultategia.

Sexologiako **kontsulta** batean lan egiten dugunok oso ondo dakigu horren berri. Luis Elberdin

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kontsultibo**.

Gai gehienetan, ordea, **kontsulta** eginkizuna baino ez du ganberak. Berria - Mundua

Orduenteko parke eolikoari dagokionez, **kontsulta** fasean dagoela eta une honetan Ingurumen Saileko teknikarien lana dela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Auzapezen bozketarekin hasi eta herrietako kontseiluen mozioekin jarraitu zuen **«kontsulta** zikloa». Berria - Euskal Herria

**Kontsulta** epean daude orain, eta behin 15 egun igarota, enpresak hilabete dauka lekualdaketaren berri langileei emateko. Berria - Ekonomia

Kontseilua soilik **kontsulta**-organoa denez bertan aztertzen dena jorratu nahi dute, «nahi ala ez egun enplegu eskuduntzak Madrilek baititu». Berria - Ekonomia

**Kontsulta** orduetan, bestalde, gaixoak edozein unetan hitz egin ahal izango du mediku edo erizainekin. Berria - Gaiak

Galdutako denbora irabazi nahian-edo, medikua zuzenean sartu zen bere **kontsulta**-gelan. Joan Mari Irigoien

Filosofiako ikasleei zuzendua, **kontsulta**-liburu aparta. Askoren artean

Biltzarra ezin omen zen pasatu **kontsulta**-obrazko liburutegi bat gabe. Juan Garzia

San Frantziskoren idazkiak dira zalantzarik gabe hura ezagutzeko **kontsulta**-iturri hoberena. Askoren artean

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dusselek bere dentista **kontsulta** zabaldu du. Josu Zabaleta

Horixe izaten da sexologia **kontsulta** bateko gai nagusietako bat. Luis Elberdin

Aldi berean entzutegi, sinagoga, ikasketa gela eta psikoanalista **kontsulta**. Koro Navarro

Barne **kontsulta** antolatuko duzue? Berria - Euskal Herria

Zeinen gogoko izan zituen beti kirurgiako bere kanpo-**kontsultak**! Xabier Olarra

**8** ***herri kontsulta*** *(106 agerraldi, liburu 1 eta 69 artikulutan)* ik **galdeketa 6.**

**Herri-kontsulta** bat eginen da, Espainiako ministroen kontseiluak baimendurik, leitzarrek jakinaraz dezaten harrobia egitearekin ados direnez. Herria

**Herri kontsulta** egin beharko da Iparraldean ere. Berria - Euskal Herria

Otegik aipatu hiru puntuak (Euskal Herriaren aitortza, autodeterminazio eskubidea eta **herri kontsulta)** «jadanik proposatu» dituztela gaineratu zuen.

**Herri kontsulta** onartuko al duen galdetu dio zuzenean Madrazok Zapaterori. Berria - Euskal Herria

**Herri kontsulta** debekatzen duen sistema bat ezin da demokratikotzat hartu. Berria - Euskal Herria

**Herri kontsulta** egiteko proposamena ontzat eman du IU-Ebk. Berria - Euskal Herria

**Herri kontsulta** ez dutela oztopatuko, baina galderak adostua izan behar duela dio Otegik. Berria - Euskal Herria

Legebiltzarrari **herri kontsulta** egiteko baimena eskatuko diola. Berria - Harian

Katalunian Konstituzioa bera erreformatu nahi dute eta **herri kontsultak** egin. Berria - Euskal Herria

Leitzak harrobi egitasmoari *ez* erran dio igandeko **herri-kontsultan**. Herria

2002an egin zen **herri-kontsultan,** 5545 herritarrek (%43) beren ikusmoldea eman zuten eta horietarik 5352 zentralaren kontra agertu ziren. Herria

Horregatik, *baimen eskaera* baino egokiagoa iruditzen zaizkit ***herri kontsulta*** eta *galdeketa* terminoak. Berria - Gaiak

**9** ***kontsulta egin*** ik **kontsultatu.**

**-Kontsulta egin** behar dut. Felipe Juaristi

Arduratzen hasi nintzen eta medikuari **kontsulta egitea** erabaki nuen. Jasone Osoro

Herriari **kontsulta egin** beharko zaiolakoan gaude. Edorta Agirre

San Antoniok Frantziskori **kontsulta egin** zion, iritzia eskatuz. Askoren artean

Geroago, berriro ikusi nuen, Lazareto baten aurrean aztoraturik petrikilo bati **kontsulta egiten** bularraldeak itsusten zizkion zaldar bati buruz. euskal herritar guztiei etorkizuneko gaien inguruko **kontsulta eginez** eta horietan parte hartzeko aukera emanez. · Hurbildurik, **kontsulta** bat **egin** nahi niola esan nion: [...]. Xabier Olarra

Italiako Ingurumenaren Epidemiologia Saileko buruari **kontsulta** batzuk **egin** eta, hark emandako erantzunak ezkutatu izana egotzi dio plataformak. Berria - Euskal Herria

Arrazoia inoiz ez dago leku batean bakarrik, eta **kontsulta** asko **egin** nituen, baita interesatuak zirenei ere. Berria - Kultura

Hausnarketa sakonak eta **kontsulta** ugari egin zituen puntu honi buruz. Imanol Unzurrunzaga

Eremu zabaletan laborantza transgenikoa egiteko baimena **kontsulta** publikoa **egin** ondoren emanen da. Berria - Euskal Herria

Foruaren Hobekuntza delako hura atera zuten zuzenean patrikatik, hiritarrei inolako erreferendumik edo **kontsultarik** egin gabe. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **barne kontsulta** (3); **egin zion kontsulta** (5); **herri kontsulta** (93); **herri kontsulta egin** (8); **herri kontsulta egitea** (4); **herri kontsulta egiteko** (9); **jaunari kontsulta egin** (4); **jaunari kontsulta egiteko** (3); **kontsulta antolatu** (3); **kontsulta antolatzeko** (3); **kontsulta bat egin** (6); **kontsulta bat egiteko** (3); **kontsulta baten antolatzea** (3); **kontsulta baten bidez** (5); **kontsulta bidez** (7); **kontsulta demokratiko** (5); **kontsulta egin** (50); **kontsulta egin zion** (11); **kontsulta egingo** (4); **kontsulta egitea** (15); **kontsulta egiteko** (23); **kontsulta egiteko eskatu** (3); **kontsulta egiten** (8); **kontsulta egitera** (11); **kontsulta jaso** (5); **kontsulta liburu** (3); **kontsulta liburuak** (3); **kontsulta orduetan** (3); **kontsulta prozesua** (3)
>
> **herri kontsultak** (10); **herri kontsultak deitzeko** (4); **kontsultak deitzeko eskumena** (3); **kontsultak egin** (4)
>
> **asegarceko medikuaren kontsultan** (3); **herri kontsultan** (4); **kontsultan izan zen** (4); **medikuaren kontsultan** (6)
>
> **kontsultara etorri** (4); **kontsultara joan** (8); **kontsultara joaten** (6); **medikuaren kontsultara** (3)
>
> **herri kontsultaren** (23); **herri kontsultaren aldeko** (3); **kontsultaren aldeko** (7); **kontsultaren bidea** (3); **kontsultaren bidez** (3); **kontsultaren emaitzak** (3); **kontsultaren gaia** (3); **kontsultaren inguruan** (8)
>
> **herri kontsultari** (10); **kontsultari buruzko** (7)
>
> **kontsultarik egin** (3)
>
> **herri kontsulten** (3)
>
> **kanpo kontsultetako** (4)

---

# kontsultagai *pred* kontsultatzeko moduan.

*Orotarikoa*-ren edizio digitala, *Orotarikoa* Interneten **kontsultagai,** hori bai nabigazioneko liburu bete-betea. Berria - Harian

Bestalde, webgunean, 15.000 berri inguru, 3.000 ekitaldi eta 200 liburu daude **kontsultagai**. Berria - Gaiak

Bien bitartean, Eguzkitzaren lanak behin-behineko lokal batean jarriko dituzte **kontsultagai**. Berria - Kultura

Euskal gizarteak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidea **kontsultagai** izango litzateke, Madrazoren arabera . Berria - Harian

---

# kontsultategi 1 *iz* osasun zentroa, kontsultak egiteko prestatua dagoena.

Medikuen beharra dutenean, hamarretik zazpitan osasun etxeetara, **kontsultategietara** eta zentro periferiko edo mediku-etxeetara jotzen dute herritarrek. Berria - Euskal Herria

Horretarako 25 osasun-zentro eta landa zonaldeetan lau **kontsultategi** eraikitzeko asmoa du Osasun Sailak. Berria - Euskal Herria

Hasieran pittin bat kostatu zitzaion berregokitzea, hiriko **kontsultategiko** beraren lanpostua hartuta baitzegoen, eta Osakidetzak bailara-buru bateko modulua eratzeko ardura eman baitzion. Iban Zaldua

**2** kontsulta (4. adieran).

Hirurogeiko hamarkadako **kontsultategi** mediko gehienek bezala, boulevard de l'Ysereko medikuntza orokorreko sendagilearenak [...] saloi burges bat zirudien. Joseba Urteaga

Bere **kontsultategira** berehala joateko esan zidan. Joseba Urteaga

Ruth Prynne medikuaren **kontsultategitik** irten zen, larruzko bekokia lepoaren inguruan estutzen zitzaiola. Lopez de Arana

---

# kontsultatu, kontsulta(tu), kontsulatzen du *ad* norbaiti aholku eskatu; tokiren batean argibide bila begiratu. ik**kontsulta 9.**

Berria jakinarazi aitzin **kontsultatu** zuen Pacheco kardinalea, Espainiako interesen ordezkaria. Piarres Xarriton

Ez jo hilaztiengana, ez ibili igarleak **kontsultatzen**. Elizen arteko biblia

Honi **kontsultatu** eta hari galdetu ibilia da aita, espresioak nondik atereak diren jakiteko. Anjel Lertxundi

Mediku horrek gutxienez beste sendagile bati **kontsultatu** behar dio kasua. Berria - Gaiak

Oraindik orain Estatu Batuetako lehendakari izandako batek ez omen zuen erabakirik hartzen aurrez bere emaztearekin **kontsultatu** gabe. Juan Garzia

Pablo Ardisan nire lagunarekin **kontsultatu** nuen arazoa. Bernardo Atxaga

Zenbat liburu **kontsultatu** eta begiratu dut lerrook idazteko? Anjel Lertxundi

Lourdesera, **kontsultatu** dudan Philipe Aziz-en liburuak dioenaren arabera, hiru milioi fededun etortzen dira urtero. Bernardo Atxaga

Azalaren higadura handiak garbi erakusten zuen maiz **kontsultatua** zuela Grosrouvrek. Jon Muñoz

Raimundo Silvak paperak **kontsultatzen** ditu, buruz jarraitzen dio ibilbideari, Talesi eta greziar matematikaren hastapenei buruzko idazlanak **kontsultatu** nahi nituzke. Jon Alonso

Artxiboa **kontsultatu** behar dut. Koldo Izagirre

Txoferrak erlojua **kontsultatu** du. Pello Lizarralde

Luis Angelek ez zekien, baina **kontsultatuko** zuen. Iñaki Iñurrieta

Gaur egun, errepertorioak ere Interneten bidez **kontsulta** daitezke. Askoren artean

*On line* **kontsultatu** ahal izateko. Markos Zapiain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erlojua kontsultatu** (6)
> **europako batasunean kontsultatuko** (3)
> **kontsultatzeko aukera** (7)

---

## kontsultatze *iz* medikuak bere kabinetean eriak hartu eta eta aztertzea.

Arropak besaulki batean utzita neuzkan, eta egurrezko aulki zurrun batean eserita nengoen, sendagilearen **kontsultatze** gelan bezala. Javi Cillero

---

## kontsultazio *iz* kontsulta, kontsultategia.

Euskara menditik hirira eraman genuen, gu ere gazte sentimentalak baikinen: baserritarren behitegietatik medikuen **kontsultazioetara,** zikin mantxarik gabeko arto landetatik unibertsitateko arlo landuetara. Pello Salaburu

---

## kontsultibo *izond* kontsultarena, kontsultari dagokiona. ik **kontsulta 6**.

Kontseilu **Kontsultiboa** ez dela hori erabakitzeko gunea. Berria - Ekonomia

Bi aldeek forum **kontsultibo** independente bat sortuko dute, gizarte zibila ordezkatzeko. Berria - Mundua

Ebazpena ez da loteslea, soilik **kontsultiboa;** beraz, edukia ez da agindua. Berria - Mundua

---

## kontsultora *iz* kontsulta teknikoei eta kidekoei erantzuteko jarduera duen enpresa.

Zuzendaritzak Bearing Point **kontsultorak** egindako aurreproiektua izango du abiapuntu Tabako Fabrikaren edukiak zehazteko. Berria - Kultura

Hark eginikoa nahikoa ez zela eta, informe berri bat eskatu zioten Bearing Point **kontsultorari**. Berria - Kultura

---

## kontsultorio *iz* egunkari edo irratiko saila, jendearen kontsultak erantzuten direna.

- **Kontsultorio** sentimentalean: jendearen galderak asmatu eta zerorrek erantzuten. Xabier Mendiguren Elizegi

Maitasuna gorroto bihurtzen denean bezala, **kontsultorio** sentimentalen estiloan esateko. Bernardo Atxaga

Jefeak barrenak husten uzten dio, eta bukatzen duenean **kontsultorioko** sailarekin mehatxatzen du. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## kontsultu

### 1 *senatu-kontsultu iz*

Senatu-**kontsultuak,** plebiszitoak, enperadoreen konstituzio nagusiak eta gauzen izaeran, emakumeen hauskortasunean, adinez txikien ahulezian eta baliagarritasun publikoan oinarritutako lege guztiak. Iñaki Iñurrieta

Senatuak, botere betearazlea baitzuen, erromatar hiritarrengandik mailegutan hartzeko baimena ematen zuen, batzuetan behar hutsez, besteetan fabore gisa, eta senatu-**kontsultuak** egiten zituen horretarako. Iñaki Iñurrieta

Senatu-**kontsultu** orokor bat izan zen interesa hileko ehuneko batean finkatzeko. Iñaki Iñurrieta

Argi dago senatu-**kontsultu** hori Lege Papiarraren luzapen bat besterik ez zela; honek, kasu berean, arrotzek ematen zizkieten jarauntsiak eman zizkien emakumeei.Brutok, izen faltsuez baliatuz, hileko ehuneko lauan mailegatu zien, eta hartara bi senatu-**kontsultu** lortu zituen. Iñaki Iñurrieta

---

## kontsumagailu *iz ipar* kontsumigaia.

ONU delako nazioneen batasunak [...] bazuen akordio mota bat asmatua Irakiarekin, petrolio eta janariaren tratua deitua zutena: alde batetik Irakiak bere petrolio beltza eman, eta bestetik nazione batuek janari eta **kontsumagailuak** ekar. Herria

---

## kontsumatu, kontsuma, kontsumatzen du *ad* egiñbidea bete.

Justinianok agindu zuen emazteak senarra zaputz zezakeela horregatik dotea galdu gabe, baldin eta bi urtez ezkontza **kontsumatu** ezin izan bazuen Iñaki Iñurrieta

---

## kontsumerismo *iz*

Herritartasun alderditik, zergak ordaintzen ditugunez, kontsumitzaileoi eskubide batzuk zor zaizkigu: horiek errespetatzeaz eta saihesteaz **kontsumerismoa** arduratzen da: iruzurrak, etiketak, legea betetzea, "kontsumo kritikoa", informazioa eskuratzea, euskararen presentzia, etc. Edorta Agirre

Telebistan ikusten dugunak antropologiak, ekonomiak, gastronomiak, erlijioak, **kontsumerismoak,** politikak, psikologiak eta nutrizioak ezarritako oztopo guztiak gaindituko ditu orain edo hurrengoan, firma horren aurrekontuek ahalbidetzen badute. Edorta Agirre

---

## kontsumigai *pred* kontsumitzeko gaia.

Fikzioen eta miseria errealen artean, besteen poz eta minak bizikide bainoago morbo eta **kontsumigai** bihurtuz. Jose Angel Irigaray

Pintzel, zizel ala argazki lanek ez deusetik ateratzen diren obren iraunkortasuna erakusten baldin ba dute, beste anitz artistek mugimendua dakarte, **kontsumigai** diren elementuekin batera Herria

**kontsumismo** *iz* gehiegizko eta beharrik gabeko kontsumorako joera.

**Kontsumismoak,** eman ezin dituen zoriona eta askatasuna agintzen dizkigun jainko koloretsu horrek, beretzat irabazi gaitu. Anjel Lertxundi

**Kontsumismoa** bizitzeko estilo bat bilakatu da, bizitzeko filosofia dohakabe bat. Pako Aristi

**Kontsumismoaren** aurreko garaietan gauzak irauteko egiten ziren, iraunpozez erosten ziren. Pako Aristi

Giza ahuldade izugarri bat aprobetxatu du **kontsumismoak:** besteak baino gutxiago izan nahi eza. Pako Aristi

Askotan, gure hizkuntzaren egoerak funtzionaltasunaren ikuspegitik juzkarazten ditu idazlanak, eta zuhurrak izan behar genuke **kontsumismo** linguistikoaren iruzurrean ez jausteko. Ana Urkiza

**Kontsumismo** garai honetako, zer erakaspen ederra! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**kontsumista** *iz* kontsumismoarena, kontsumismoari dagokiona.

Gizakume **kontsumistaren** aspirazio nagusia kontsumo merkatuko produktuez jabetzea da. Patziku Perurena

Gu ere herrialde aberats omen diren horien dinamika **kontsumista** berean murgilduta gaudela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Inposatzen zaigun kultur eredu **kontsumista** globalizatuaren gainetik.

Instituzioetatik bideratzen den aisialdia **kontsumista** da erabat. Berria - Harian

Bizilagunek leporaino irensten dituzte europar orgia **kontsumistaren** isla diren imajina engainagarri eta anestesiagarri horiek. Patxi Zubizarreta

Amets **kontsumisten** desira ez da itxuraren fetixea erosi beharra besterik. Joseba Zulaika

---

**kontsumitu,** kontsumi, kontsumitzen **1** du *ad* norbaitek bere beharrak betetzeko ekonomia ondasunak erabili.

Ekoizten den jangaia **kontsumitu** beharko, nahitaez, deus alferrik galdu gabe. landare-zuntzik ez dugu **kontsumituko,** gure kalterako. Edorta Agirre

Haragi gorriaren ordez zuria **kontsumituko** dugu. Edorta Agirre

Denetara, 22 metro kubiko ur **kontsumitu** dute etxe honetakoek azken hiru hilabeteotan. Josetxo Azkona

Ahaltsuak bere estatus soziala produktu garesti eta exotikoak janez **(kontsumituz)** erakusten du oraino ere. Edorta Agirre

Bihotzak zenbat energia behar duen jakiteko, zenbat oxigeno **kontsumitzen** duen neurtzen da. Irene Aldasoro

20-30 urte barru, esaterako, **kontsumitutako** energiaren %70 inportatutakoa izango da. Berria - Ekonomia

Hutsak zeuden EPO sustantziko dosi batzuk antzeman zituen Poliziak, eta txirrindulariak horiek **kontsumitu** zituela aitortu zuen. Berria - Kirola

Baina, gaur egun, bidaiak beste edozein produktu bezala **kontsumitzen** dira. Ana Urkiza

Lehengai asko **kontsumitzen** duten industria astunen pisua murriztea. Koro Navarro

Ez **kontsumitu** prentsarik! Iñigo Aranbarri

Amaginarrebak oparitutako salako besaulki berrian pizza jatera jesarri, telezaborra **kontsumitzera**. Iban Zaldua

Futbola **kontsumitu** garagardoa ordainduz. Berria - Kirola

**2** ahitu.

Zigarro osoa erraustak **kontsumitua** duen arren, zigarrokinari estekatua jarraitzen du errauts lerroak. Harkaitz Cano

Orain baino lehen ere pertsona batzuk **kontsumitu** egin dira, erabat ahitu, hor ikusi dutenagatik sorginduta, edota erotu egin dira, Batzuetan sua eman behar zaie diarioei eta eskutitzei eta bainuontziko urari ere ihes egiten utzi, zurrunbiloak irents dezan gure barruan bizi zaigun gaixotasuna, osterantzean **kontsumituko** gaituena. Iñaki Mendiguren

Jainkoaren arnasak hondatzen ditu, haren haserre-hatsak **kontsumitzen**. Elizen arteko biblia

Bizimodua pozoituko zion maite-su eroak **kontsumitu** zuen pixkanaka Napumoceno jauna. Bego Montorio

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> kokaina kontsumitu (3)
>
> milioi upel kontsumituko (4)
>
> kontsumitutako energiaren (3)
>
> droga kontsumitzen (4); drogak kontsumitzen (8); haur pornografia kontsumitzen (6); kalamua kontsumitzen (4); kontsumitzen den argindarraren (5); kontsumitzen den energiaren (8); kontsumitzen den gasaren (3); litro kontsumitzen (4)

---

**kontsumitzaile** *(orobat **kontsumitzale** g.er.)* **1** *izond/iz* kontsumitzen duena.

Golkoko gerratik ez zegoela petrolio upela hain garesti eta herrialde **kontsumitzaileak** oso kezkatuta daude mundu zabalean. Berria - Ekonomia

*Worldwatch Institute* erakundearen urteroko txostenaren arabera, gaur egun, «klase **kontsumitzailea»** 1.700 milioi lagunek osatzen dute. Berria - Gaiak

430.000 bazkide **kontsumitzaile**. Berria - Ekonomia

Euskaldunak modernitatearen **kontsumitzaile** eta ohituren zaindari. Herria

Golkoko herrialdeen elkarteak 40 **milioi** kontsumitzaile ditu eta, merkatu hori hornitzeko, janari eta edarien %90 inportatu egin behar ditu, hango produkzioa nahikoa ez delako. Berria - Mundua

Herritarrak izatetik **kontsumitzaileak** izatera igaro gara. Berria - Euskal Herria

Industriek gas eta argindarraren bi heren erabiltzen dute, eta heren bat **kontsumitzaile** pribatuek. **Kontsumitzaile** zorrotzak "jatorrizko" zaporearen bila, "sustrai bila" segituko du gaur bezala. Edorta Agirre

**Kontsumitzaileak** erosotasunaren aldeko joera du gaur egun. Berria - Euskal Herria

Euskadiko **Kontsumitzaileen** Federazioak. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kontsumitzaile** elkarteek eta bestelako gizarte taldeek. Iñaki Heras

Neure **kontsumitzaile** eskubideaz ere desjabetua izan nintzelako. Itxaro Borda

Estatu Batuetan, mediku askok euren zerbitzuak saltzen dizkiete **kontsumitzaile** rola betetzen duten gaixoei. Berria - Gaiak

**Kontsumitzaile** Batasunen Europako Bulegoak. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

AEBak heroina eta kokaina **kontsumitzaile** handiak dira. Berria - Kultura

Biharko kultura **kontsumitzaile** izanen diren haur eta gazteei. Ana Urkiza

Droga **kontsumitzailea** harrapatu ostean, Udalak hartzen du espedientea ireki eta gurasoei berri emateko ardura. Berria - Euskal Herria

Paper **kontsumitzaile** itzelak dira liburuak, baso irensle azkarrak. Pello Zabala

Munduko bigarren petrolio **kontsumitzaile** nagusia. Berria - Ekonomia

· Haur pornografia **kontsumitzailearen** profila egiterik jada ez dagoela azpimarratu du. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

kontsumitzaile batasunen (3); kontsumitzaile handiena (3); kontsumitzaile huts (3)

aebetako kontsumitzaileen (10); aebetako kontsumitzaileen konfiantza (6); espainiako kontsumitzaileen (5); euskadiko kontsumitzaileen (3); euskal herriko kontsumitzaileen (24); frantziako kontsumitzaileen (3); kontsumitzaileen antolaketak (6); kontsumitzaileen antolaketako (5); kontsumitzaileen babeserako (4); kontsumitzaileen batasunak (4); kontsumitzaileen batasuneko (3); kontsumitzaileen elkartea (3); kontsumitzaileen elkarteak (11); kontsumitzaileen elkartearen (3); kontsumitzaileen elkarteek (20); kontsumitzaileen elkarteekin (3); kontsumitzaileen elkarteko (7); kontsumitzaileen eskubideak (4); kontsumitzaileen eta erabiltzaileen (3); kontsumitzaileen federazioak (3); kontsumitzaileen konfiantza (14); kontsumitzaileen konfiantzak (3); kontsumitzaileen konfiantzari (4)

---

kontsumitzale ik **kontsumitzaile.**

---

# kontsumitze *iz* norbaitek bere beharrak betetzeko ekonomia ondasunak erabili.

Beharrak asetzen dituzten desio guzti-guztiak betetzearen nolabaiteko adikzio berria: **kontsumitze** hutsagatik kontsumitzea edo eroste hutsagatik erostea. Iñaki Heras

---

# kontsumizio *iz* kontsumitzen dena; hartzen den janaria edo edaria.

Altxatu eta barrarantz joan zen, **kontsumizioa** ordaintzeko. Joan Mari Irigoien

Guk **kontsumizio** ugari egin ohi dugu tabernetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hasiera batean pentsatu zuen Red Mountaineko **kontsumizioen** diru kontua zela baina berehalaxe ohartu zen ezetz. Joxemari Iturralde

---

# kontsumo *(orobat **konsumo** g.er.)* **1** *iz* konsumitzea; konsumitzen dena.

Jendeak dirua badu, **kontsumoa** areagotu egingo da, eta, bide beretik, **kontsumoak** eramango du hazkundera ekonomia. Iñaki Heras

Tabakoaren **kontsumoa** mugatzeko. Herria

15 urteko epean **kontsumoa** %20 murrizteko helburua. Berria - Mundua

Etxeko argindarraren **kontsumoaren** %10 alferrik galtzen da horrela. Berria - Gaiak

Prentsaren eta telebistaren **kontsumoa** egonkortu edo jaitsi egin da toki askotan. Txema Ramirez de la Piscina

Irudien produkzioa eta **kontsumoa** arautzen dituzten konbentzio sozialak. Josu Zabaleta

Langabeziaren mamuak **kontsumo** pribatua galgatu du. Produkzio eta **kontsumo** biologiko eta ekologikoaren hedapena. Iñaki Heras

**Kontsumo** alienatu eta konpultsiboa eritasun baten sintoma da. Iñaki Heras

**Kontsumo** arrunteko ondasunen trukeak. Koro Navarro

Alkoholaren neurriz kanpoko **kontsumoak,** eta gibeleko zeluletan gantz larregi pilatzeak. Berria - Gaiak

Gizarteak gehiegizko **kontsumoa** bizi kalitate hobearekin lotzen du. Berria - Gaiak

1950eko hamarralditik aurrera industria astuna eta **kontsumoko** ondasun iraunkorrak hasi zen ekoizten. Koro Navarro

## **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Globalizatzen gaituen **kontsumo** gizartearen aurka. Itxaro Borda

Liburua gaika dago antolatuta: ekonomilarien helburuak eta tresnak, ekonomilarien ideologia, merkatu pentsamoldea, **kontsumo** -gizartea, lehiakortasuna, [...]. Iñaki Heras

**Kontsumo** ondasunak erosteko duten ahalmena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Kontsumo** merkatu neoliberalak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizakiak bere utilitatea maximotuz hartzen dituela **kontsumo** erabakiak. Iñaki Heras

Baliabideak erabiltzeko modua eta **kontsumo** -ohiturak aldatzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Kontsumo** egituran ere aldaketak eginez. Iñaki Heras

Diru sarrerek, edo hobeto esanda, **kontsumo** mailak ezartzen du gizabanakoaren estatusa gizartean. Iñaki Heras

Mundu garatuko **kontsumo** beharren hazkundeak ekoizpenaren hazkunde mugagabea eskatzen du. Iñaki Heras

Gazteek uler dezaten egungo **kontsumo** erritmoari eusteko modurik ez dagoela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kontsumitzaileek etorkizunean bere **kontsumo** ahalmenari eusteko konfiantzarik eza. Iñaki Heras

Garraio kostuak handiak direnean, **kontsumo** lekuetatik gertu ekoizteko joera izan dezakete ETNek. Iñaki Heras

Hirugarren Munduko herrialdeek Lehen Mundukoaren **kontsumo** estiloak imitatzen dituzte. Iñaki Heras

KPI **Kontsumo** Prezioen Indizeak %0,5 behera egin zuen urte hasieratik. Berria - Ekonomia

Errentaren gaineko zergei ala **konsumo** -tasei lehentasuna eman. Iñaki Heras

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Industria-ekoizpenaren eta mundu-**kontsumoaren** lehengai-edukiaren beheraldi lasterraren ondorio da. Koro Navarro

Baliabide-**kontsumoaren** eta hondakin-isurketaren arabera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bi jaunak haxix **kontsumoaren** sorrerari buruzko solasean zeuden murgilduta. Anton Garikano

Erregai-**kontsumoari** loturik dago beti energia-ekoizpena. Irene Aldasoro

Energia **kontsumoa** murrizteko politikak. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

barne kontsumo (3); droga kontsumo (4); egungo kontsumo (6); kontsumo eredu (5); kontsumo eta produkzio (4); kontsumo gizarte (5); kontsumo gizartea (4); kontsumo gizarteak (3); kontsumo gizartearen (13); kontsumo handia (5); kontsumo handiagoa (3); kontsumo ohiturak (9); kontsumo ondasunak (3); kontsumo prezio (3); kontsumo prezioak (4); kontsumo prezioen (33); kontsumo prezioen indizea (17); kontsumo prezioen indizeak (6); kontsumo prezioen indizearen (5); kontsumo pribatua (8); kontsumo pribatuak (4); kontsumo pribatuaren (5); kontsumo sailak (3); osasun eta kontsumo (6); produkzio eta kontsumo (7); zainpeko kontsumo (3)

adingabeen kontsumoa (3); alkohol kontsumoa (4); alkoholaren kontsumoa (5); barne kontsumoa (4); droga kontsumoa (4); drogen kontsumoa (5); du kontsumoa (5); energia kontsumoa (14); energiaren kontsumoa (3); erregai kontsumoa (3); eta adingabeen kontsumoa (3); eta kontsumoa (23); familien kontsumoa (4); gehiegizko kontsumoa (7); gorako kontsumoa (3); haragiaren kontsumoa (3); kontsumoa arautzen (3); kontsumoa areagotu (5); kontsumoa areagotzea (3); kontsumoa bultzatzeko (4); kontsumoa debekatu (3); kontsumoa gutxitzeko (7); kontsumoa handitu (5); kontsumoa izan (4); kontsumoa jaitsi (6); kontsumoa murrizteko (7); kontsumoa murriztu (7); kontsumoa saihesteko (3); kontsumoa sustatzeko (5); materialen kontsumoa (4); oilasko kontsumoa (3); produkzioa eta kontsumoa (3); salmenta eta kontsumoa (3); tabako kontsumoa (5); tabakoaren kontsumoa (10); ur kontsumoa (8); uraren kontsumoa (6); zentzuzko kontsumoa (3)

barne kontsumoak (5); droga kontsumoak (3); energiaren kontsumoak (3); kontsumoak behera egin (3); kontsumoak gora egin (6)

droga kontsumoan (3); drogen kontsumoan (3)

droga kontsumoaren (4); energia kontsumoaren (5); kontsumoaren eraginez (3); kontsumoaren hazkuntza (3); kontsumoaren kontrako (4); petrolio kontsumoaren (3)

kontsumora bultzatzen (3)

barne kontsumorako (5); kontsumorako prezioen (3); norbere kontsumorako (3)

---

## kontsumogai *(orobat **kontsumo-gai**) iz* kontsumoko gaiak.

**Kontsumogaiak** itxuragabe ugaltzearekin batera, neurri berean ari dira agertzen ezinaren ezinez zapuzturiko pertsonak. Iñaki Heras

Autoen eta haien osagarrien, eta **kontsumo gaien** inportazioak marka historikoak hautsi zituen. Berria - Ekonomia

Euskaldunok heriotza ere **kontsumo** -gai bilakatu dugu: Santu Guztien eguna egunik jendetsuena da herri txiki askotan. Pako Aristi

Gizajendea geroago eta hutsago dabil, **kontsumogaiez** beterik, antzinako panpina lastoz beteak bezala. Patziku Perurena

---

## kontsumogune *(corpusean **kontsumo-gune** soilik)* kontsumorako gunea.

Galdeketa bat bideratu nuen **kontsumo** -gune nipondarretan eta beste osasun-instituzio batzuetan Joxan Elosegi

---

## kontsumozale *izond* kontsumoaren zale dena.

Fribolitate pixka batekin esan genezake ETAri gaina hartu dion zakurra Puppy zakur neutroa izan dela, turista eta **kontsumozaleen** postaletako zakurtxoa. Joseba Zulaika

---

## kontu[1] *(orobat **kondu** g.er. eta **kuenta** g.er.)* **1** *iz* kopuru baten zenbatze edo mugatzea.

10 eguneko datuen totalak atera, **kontuak** eta portzentajeak ondo eramateko. Pello Zabala

Maxima-minima, euri-kontuak eta beste, denen kopuru totalak eta batezbestekoak ere, **kontu** denak paper mutturretan aterako zituen. Pello Zabala

Ekialdean abiaturik beti sortalderantz joz gero [...] bidean egunbete aurreratzen dela konturatu zen Pigaffeta, beste inor baino lehen, berak baitzeraman egunen **kontua** . Edorta Jimenez

Kostu honen **kontua** argiago gertatzen da, beharbada, hezkuntza kontuetan. Pello Salaburu

Bi milioi urteren **kontua** omen da hori. Joxerra Garzia

Euskal Herri osoko elizbarruti eta kongregazioek misio tokietan zerabiltzaten baliabideen **kontu** zehatza. Piarres Xarriton

Giséle Lougarot hautetsi abertzaleak **eskatu** ditu **kontu** zehatzak: zenbat sartze zezen lasterretan, zenbat gastu, zenbat langile hor lanean. Herria

Oroimen laburrekoa denez, bezero bakoitzari kontatu dizkionen **kontu** zehatza darama, zeren pertsona berari kontu bera birritan errepikatzea huts larria bailitzateke. Juan Garzia

**2** irabazien edo xahutzeen nolakoa eta zenbatekoa dakarren agiria.

Ea, goazen -esan zuen **kontua** ekar ziezaioten besoa altxatuz. Ramon Saizarbitoria

Dokumentaletan ikusten ditugun Afrikako herrialde haietan, animaliez, pobre mozorrotuez eta dirua Suitzako **kontu** sekretuetan gordetzen duten jeneralez betetako haietan. Karlos Zabala

**Kontu** -liburuak eskatu zituen, hutsak eta okerrak atzeman zituen nonahi, dirutza handiak falta zirela ohartu zen. Jose Morales

**Kontu** epaitegiek garbi utzi dute kontua zein den. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bolada hartako **kontu** -balantzen gainbehera jarraituak behartu zuen Milango Administrazioa esku-hartze drastiko eta purifikatzaile batera. Juan Garzia

**3** aurrezki kutxa edo banku batean, pertsona baten zor-hartzekoen agiria.

**Kontu** -jaberen batek libreta ez baldin bazeukan eta saldoa eskatzen bazuen, zenbat zen esateko gauza izan beharra zeukan. Xabier Olarra

Zergatik saiatu zara zure zor- **kontu** izugarri hori osaba Jack gizajoari leporatzen? Antton Olano

**Kontuak** garbi dauzkat. Iñaki Segurola

**4** arreta, ardura, arta.

**Kontu** handia izan behar da *liberal* terminoarekin, oso bestela ulertzen baita hitz hori jakintza esparru desberdinetan ez ezik, baita herrialde desberdinetan ere. Iñaki Heras

Zenbait gehiegikeriaren ondorioz, jainkoek **kontu** handiagoa dutela eta erabaki dutela ez uztea inori ordezkotzan beren iragartze-ahalmena. Juan Garzia

**Kontu** pixka batekin. Juan Garzia

Bere amak hain **kontu** handiz prestatutako ospakizuna hondatu izanaren erantzulea bera zela jakinik. Oskar Arana

Hasieran, tentuz ibili ziren, lurra **kontu** handiz zapalduz. Jose Morales

Izan **kontu:** herri horiek suntsitu ondoren, ez erori idoloen tranpan, haien jokabideari jarraituz. Elizen arteko biblia

Hire gizonen **kontu da** hire oihanetako lau arboletarik baten abarrak ebaki eta kanpamendu militarreraino eramatea -agindu zion aitatxiri, etxaldetik alde egitekotan izan zirenean. Elena Touyarou

**5** arazoa, gorabehera, egitekoa.

- **Kontu** txiki bati buruz hitz egin nahi nuke zurekin. Jose Morales

-Nire aholkua da utz dezazula **kontu** hori erabat. Oskar Arana

Gordonek zenbait **kontu** esan dizkit zutaz, Harry. Oskar Arana

Angeloren **kontu** batzuk aipatzen nituen bertan. Anjel Lertxundi

Ez dizut utziko nire **kontuetan** muturra sartzen. Juan Kruz Igerabide

Gure arteko **kontu** guztiak garbitu eta berak barkamena eman arte. Oskar Arana

Iruzurraren eta Harryren atxilotzearen **kontu** hura. Oskar Arana

Hori beste **kontu** bat zen, berari ez zegokiona. Migel Angel Mintegi

Beste **kontu** bat da lantegi barruko harremana. Koldo Zuazo

**-Kontu** pila edukiko duk, noski, **kontu** bitxi samarrak kontatzeko. Migel Angel Mintegi

Garibairi arima erosi ziola badio ere, ez da **kontu** frogatua. **Kontu** pertsonal batengatik. Anjel Lertxundi

-Ba nik ez dinat uste hain **kontu** garbia denik. Anjel Lertxundi

Badakizue ia **kontu** segurua dela atzokoa hanka-sartze bat izan zela? Anjel Lertxundi

**Kontua** da Margak gai hartan ez zuela inongo arrazoibiderik onartzen. Ramon Saizarbitoria

Hurbiltzea da **kontua** . Pello Zabala

Eta hori da **kontua,** azken batean. Unai Elorriaga

Ederra **kontua** ! Patxi Iturritegi

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Denbora- **kontua** baizik ez zen lan hura amaitzea. Oskar Arana

Saltzaileak aise igarri zuen oihal- **kontuetan** aditua zen erosle baten aurrean zegoela. Jose Morales

Lege **kontuetan** dihardutenen artean. Andres Urrutia

Desgrazia eta mixeria **kontu** ugari ageri da hor. Ez nituen inoiz ere oso aintzat hartu gona- **kontu** horiek. Patziku Perurena

Ezkutatu egin zion Betteri amodio- **kontu** hura. Oskar Arana

Maite-**kontu** bat daukate. Oskar Arana

Ez dugu alderdi baten alde edo erlijio baten alde jotzen jakintza-**kontu** hutsengatik. Juan Kruz Igerabide

Bistan da sendatze-**kontu** hori kazetariak asmatu zuela. Karlos Zabala

Dolu, eztei edo bataio, ez dakit zer famili **kontu**. Aingeru Epaltza

· Mintzaldi **kontu** beti, Kabana Handiak tokian tokiko erran-merran, pasadizo eta gertakariak aipatuz irtenaldietako herri bakoitzean egingo dituenak, jakina, arreta bereziz segituak izango dira. Berria - Kultura

## 7 ipuina. ik beherago **23.**

**Kontu**-kontaketekin eta serieko irudiekin egindako esperimentuek. Xabier Olarra

Ez da abiapuntu txarra **kontu**-jaten aritzeko. Arantxa Iturbe

## • 8 *interj*

**Kontu**! ez igaro toki hartatik, hara jaitsi baitira aramearrak. Elizen arteko biblia

Baina **kontu**! erabat suntsitu behar da guztia. Elizen arteko biblia

## 9 ***kontuz*** *interj* ik beherago **33.**

**Kontuz**! Berria - Kirola

**-Kontuz**! -oihu egin zuen Samek-. Agustin Otsoa

**-Kontuz, kontuz**! -esan zuen Bizarbolak-. Agustin Otsoa

**-Kontuz** zapatekin! -esan zuen Anniek. **Kontuz** zakurrekin jaten ari direnean. Gotzon Garate

**Kontuz,** ez egin horrelakorik. Lopez de Arana

**Kontuz** su hartu gabe. Koro Navarro

**-Kontuz** gero! ez esan inori ezer. Elizen arteko biblia

**-Kontuz** ibili, badaezpada ere. Koro Navarro

-Emakume ederra, ezta? ba, **kontuz** ibili -esan zidan. Edorta Jimenez

Zabiltza, beraz, **kontuz**! Gotzon Garate

**Kontuz** zer esaten duan. Koldo Izagirre

Kafe aleak **kontuz** txigortu behar dira, su motelean, erre barik. Javi Cillero

Ez larritu, **kontuz** eta diskrezio handiz jokatuko dut eta. Patxi Zubizarreta

**Kontuz,** ordea, ongia eraikitzeko gaizkia baliatzen dutenekin: heroikotasunaren itxura ematen bazaio, gezurra errazago irensten da egia baino. Anjel Lertxundi

**Kontuz** hartu, berokietan bildu eta hirira eraman genuen. Felipe Juaristi

Aurrera **kontuz** eginez, kanpora atera zen. Agustin Otsoa

**"Kontuz,** arriskutsua" zeukaten atzean idatzita. Koro Navarro

Hala ematen du, baina, **kontuz**. Patziku Perurena

Gero, pasabidean barneratu zen, **kontuz** baino kontuzago orain ere. Karlos Zabala

## 10 ***kontuzko*** *izlag* arretazkoa, artatsua.

Horren **kontuzko** gaia izanda ere. Josu Zabaleta

Ni nengoen aldera **kontuzko** begiradaren bat botaz. Juan Garzia

Txit argigarria iruditu zait jaun horren jarduna, zenbait gauza **kontuzko** aise ulertzen laguntzen baitu. Iñaki Segurola

Hau nola egin behar zen erabakitzeak oso **kontuzko** zenbait arazo sortzen zuen. Iñaki Mendiguren

Badago beste arazo bat, guztiz **kontuzkoa** dena: identitate diakronikoa-rena. Isabel Arrigain

Harro nengoen etxean hain jende **kontuzkoa** eta kontuan hartzekoa geneukalako. Joan Mari Irigoien

## 11 ***kontu bera*** *mug* gauza bera.

Eta **kontu bera** musika-formei dagokienez. Juan Garzia

Ez baita **kontu bera** gizon lodi konkortu baten neurriak hartzea edo erratz-kirten bat bezain tente batenak. Anjel Lertxundi

Hasieran pentsatu zuen betiko **kontu bera** izango zela. Julen Gabiria

Zazpi aldiz kontatuko nion honezkero **kontu bera,** eta hala ere berriz esan arteko onik ez. Xabier Etxabe

**Kontu berarekin** zabiltza beti. Antton Olano

Asteak zeramatzan **kontu berari** bueltaka: zergatik ez zuen modu bertsuan ikusten Jabi? Urtzi Urrutikoetxea

· Eta herritar guztien artetik euskaradunen kopuruari behatuz, **kontu bertsuak** ateratzen zaizkigu. Piarres Xarriton

## 12 ***kontu egin***

Zure etorkizunari **kontu egin** beharko zenioke. Patxi Zubizarreta

-Ez **kontu egin** kale honetako jendeari. Patxi Zubizarreta

Lubisek oso ondo **kontu egiten** ziek zaldiei. Bernardo Atxaga

-Nork bereari **kontu egin** biezaio, eta ahal duena lapur beza -esaten zuen. Koro Navarro

Emakumeak, arriskuaz **kontu egin** gabe, jarraitu egin zion. Patxi Zubizarreta

Egin **kontu** zenbat tipo bizkor dabilen inguruetan auto-istripuen eta zauri pertsonalen iruzurrak asmatzen. Oskar Arana

Beraz, zutik dagoela uste duenak egin beza **kontu** eror ez dadin. Elizen arteko biblia

Orain arte arimaren izatasun adierazkorra ardazten deneko poloetako bakarrari **kontu egin** zaio: *in actu* existitzen den gorputzaren ideiarenari. Piarres Xarriton

**Kontu egion** horrako zer horri. Juan Garzia

-Jainkoak **kontu egin** diezaiela. Juan Garzia

**Kontu egiten** ez baduk, hire lagun Bunburyk estutasun larrian jarriko hau egunen batean. Antton Olano

· Espero dut **kontu** gehiago egingo diozula senarrari zeure gomendio utzi zen haur hari baino. Antton Olano

· Egin dezagun **kontu,** bada, hemen astintzen ari garen amodiozko pena izeneko gaitzak ondoeztua hagoela hi ere. **Kontu dagigun,** bada, besamotzari segituz, iritsi garela Babelgo Liburutegira. Iñaki Segurola

## 13 ***kontu eman***

Hitz horien guztien **kontu eman** beharko baitute auzi-egunean. Askoren artean

Bai, neure urratsen **kontu emango** diot, printze bat bezala joango berarengana. Elizen arteko biblia

Badakit pertsona autonomoa naizela, eta ez dut uste egiten dudanaren **kontu eman** behar dizuedanik. Josu Zabaleta

Adibidez, hogei gizaki aurkitzen badira Izadian [...], ez da nahikoa (20 gizaki horien existentziaren **kontu emateko)** giza izaeraren kausa orokorki erakustea. Piarres Xarriton

Zer da zutaz entzun dudan hori? **emadazu** etxezaintzaren **kontu,** kargutik bota egiten zaitut eta. Elizen arteko biblia

· Forma bat ematea, alegia, handik zentzuzko historia bat atera ahal izateko; huraxe izango da, horrenbestez, ikerketaren **kontu-emate** ofiziala Juan Garzia

## 14 ***kontu eskatu*** kargu hartu.

Baina zuri eskatuko dizut haren heriotzaren **kontu**. Askoren artean

Baina nik jagoleari eskatuko diot heriotza horren **kontu**. Elizen arteko biblia

Horregatik, zuen odolaren, hau da, zuen biziaren, **kontu eskatuko** diet abereei, eta bere lagun hurkoaren biziaren kontu gizakiari. Elizen arteko biblia
Aitak ez baitzion inoiz egiten zuenaren **kontu eskatzen-**. Jose Antonio Mujika
· Ibiliz gero, **kontu** estua **eskatuko** dizue Jaunak zeuen Jainkoak, eta errudun bihurtuko zarete. Elizen arteko biblia
Ez dio inork ere egiten duenaz **kontu eskatuko**. Pello Salaburu
· Protesta hori baino **kontu** eskatze are mingarriagoak baliatu nituen. Anjel Lertxundi

## 15 *kontu eske*

Aitak **kontu** eske hasiko zitzaidala ematen zuen. Anjel Lertxundi
Ni ez bainaiz nor inori **kontu eske** hasteko, ez suhiari eta ez besteri. Imanol Zurutuza
Zer egingo dut Jainkoa epaile altxatzean? zer erantzungo bera **kontu eske** hastean? Elizen arteko biblia
**Kontu eske** begiratzen dit: "ez al didan lagundu behar lurretik altxatzen?". Anjel Lertxundi
Ikazkina **kontu eske,** ez zitzaidan beste aukerarik bururatzen. Anjel Lertxundi
· Lepoa egingo nuke **kontu eskean** joan zitzaiola Senpe Joaquini, izokinen gaiarekin Baten batek kalea zaindu beharko dik ba!, erantzun zion Hermannek, baina ez ozpin, Klausen **kontu** -eskeari garrantzi handirik eman gabe baizik. Hasier Etxeberria

## 16 *kontu hartu* kargu hartu.

Hurrengo egunean, gosaritan, **kontu hartu** nion, ea zer dela eta ihes egin zuen bezperan hain goiz. Joxerra Garzia
Romanek **kontu hartu** zion obispoari, ez zitzaiola haren bihotzari batere komeni. Inazio Mujika Iraola
Beldur batean bizi izan gara, poliziak noiz **kontu hartuko** zure judutasunaren berri ez emateagatik. Anjel Lertxundi
Ez nuen uste barrua izango zuenik niri **kontu hartzeko**. Anjel Lertxundi
**Kontu hartu** behar da, baina, ukendu horiek kortikoiderik gabeak izatea. Berria - Gaiak
Nehork, ezen, ez ditu nik erran nahi ditudanak zuzen ulertuko, ez baldin badu biziki **kontu hartzen** Erregeen ahalmenarekin eta eskuarekin Jainkoaren ahalmena ez nahasteko. Piarres Xarriton
Aitari emaztearen eta seme-alaben **kontu hartzeko** eskatzera etorri da semea. Pablo Sastre
Biharko egunean nire irabazien **kontu hartzera** etortzen zarenean. Elizen arteko biblia

## 17 *kontu-hartzaile* (*orobat* ***kontuhartzaile*** *g.er.*) kontuak begiratzen dituena.

Auditoriumean diru gehiago ez gastatzeko exijitu zion kontratazio mahaiko **kontu-hartzaileak** udal gobernuari 2004ko maiatzean. Berria - Kultura
Udaleko **kontu-hartzaileak** Musikaren eta Arte Eszenikoen Jauregiarekin zerikusia duten kontratazio oro eteteko eskatu dio. Berria - Kultura
Nafarroan, 1990etik, ez dute oposiziorik egin udaletako idazkari eta **kontu-hartzaile** lanpostuak betetzeko. Berria - Euskal Herria
**Kontu** -hartzaile izan zen Springfield-en, Massachusets-en. Oskar Arana
Beraz, duela lau urte, Stanleyk **kontu** -hartzaile lana utzi zuen. Oskar Arana
· Egunerokotasunaren aipamen **kontu-hartzaileak** ("ez zuen bere burua zaintzen"), emaztea izan zitekeela adierazten bazidan ere, ezusteari konponbide berehalako bat eman nahi hotzak maitalea izan zitekeela esaten zidan. Josu Zabaleta

## 18 *kontu-hartzailetza* (*corpusean* ***kontuhartzaile*** *soilik*)

Nik ere, Potzolok bezala, badakit laburbiltzen eta neure uztaren **kontuhartzailetza** eramaten. Aingeru Epaltza

## 19 *kontu-hartze* kargu hartzea.

Ez nintzen ausartzen **kontu-hartze** bakar bat egitera, ez nuen-eta lainorik txikiena ere ekarri nahi gure arteko harremanera. Anjel Lertxundi
Keinu hartan ez zegoen inolako destainarik ez **kontu-hartzerik**. Anjel Lertxundi
*Esaten nian nik!* bezalako **kontu** -hartzeren bat. Anjel Lertxundi

## 20 *kontu izan* du *ad*

Baina hemen, leku estu honetan, **kontu izan** behar duzu. Josu Zabaleta
Plastikoa urtu behar zuen, baina **kontu izan** behar zuen aurretik ez ikazten. Berria - Gaiak
Mutilak **kontu izango** du bere zama ez arintzen, horrela hazia hobeki administra dezagun. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Aukera zuenean, harrapaturiko arrainak bizirik itzultzen zituen uretara, berriro harrapa ez zitzaten **kontu izateko** aginduz. Askoren artean
Neskato honek ez du **kontu izaten** ezerekin. Joseba Urteaga
**Kontu izan** zeuen buruarekin! auzitegi eta sinagogetara eramango zaituztete eta zigortu egingo. Elizen arteko biblia
· **Kontu izan** zuzenbide eta indar hitzak ez direla elkarren aurkakoak, Juan Martin Elexpuru

## 21 *kontu-kontari* *adlag*

Errepide nagusitik gora zihoan bidexka batetik aita eta biok **kontu-kontari** gindoazen Elkarren ondoan eseri gara mahaian, [...] eta **kontu-kontari** aritu gara. Jon Maia
Beste zenbaitzuk gau osoan aritzen ziren euren zorigaiztoko buruhausteak eta gaixotasunak hizpide hartu eta **kontu-kontari**. Mirentxu Larrañaga
Gurasoak eta aiton-amonak bertso kantari eta **kontu kontari** aritzen baitziren. Pablo Sastre
-Aizu, Gerald -esan zuen Minot jaunak, eta han hasi zen, **kontu-kontari,** orain hurrena izandako golf-saioa zuloz zulo azaltzen. Mirentxu Larrañaga
Elkarri **kontu-kontari** hasi ziren. Irene Aldasoro
Claude bizkorrago ibiltzen hasi zen, **kontu-kontari** beti ere. Karlos Zabala
Eta, **kontu-kontari,** kontatu zigun ezen, mendeku gisa, guztiei trenkatu ziela burua. Joan Mari Irigoien
Bizpahiru ordu eman genituen **kontu-kontari** ilundu zuen arte. Aitor Arana
Udan, etxe ondoko aulki batean eserita egoten ziren, berritsukerian eta **kontu-kontari**. Koro Navarro

## 22 *kontu korronte* pertsona baten eta banku baten arteko zorren eta hartzekoen berrri ematen duen agiria.

Postara jo zuten **kontu korronte** bat irekitzeko. Itxaro Borda
Elkarrekin zabaldu berri duten **kontu korrontea** balitz bezala. Joxean Agirre
**Kontu korronte** jori bat zen Inesen bizigarria. Migel Angel Mintegi
Eskale haiek guztiek **kontu-korronte** oparoak zituzten bankuetan. Mirentxu Larrañaga
Batzorde honek Washingtongo Riggs bankuan aurkitu zituen Pinocheten ustezko **kontu-korronte** ezkutuak. Berria - Mundua
Ostegun gauean enpresaren **kontu korronteak** bahitzeko agindu zuten epaileek. Berria - Ekonomia
Khanek eta bere laguntzaileak, Mohammed Farooqek, **kontu korronteak** izozturik dituzte. Berria - Mundua
2003ko otsailaren 19an, Martin **Ugalderen kontu** korronteak blokeatzeko agindua eman zuen. bere **kontu korrontea** gizentzeko. Berria - Euskal Herria
**Kontu korronteko** diruari kiratsa dariola... ba tira!, sudurra aise ohitzen omen da; izen ona eta itxura, berriz, gorde egin behar dira. Migel Angel Mintegi
Arazoaren gakoa ez zegoen balizko adarretan, senarraren desleialtasunak emakumearen **kontu korrontean** izan zezakeen eraginean baizik. Migel Angel Mintegi
Zure identifikazio datuak lapurtu eta **kontu korrontea** husteko. Berria - Gaiak
**Kontu korronte** zenbaki batekin. Berria - Kirola
· AEBek **kontu korronteko** defizita handitu arren, dolarra gora. Berria - Ekonomia
541.800 milioi dolarrekoa da **kontu korronte** bidezko defizita. Berria - Ekonomia
Desiragarria da truke tasan malgutasun handiagoa izatea **kontu korronte** superabit handia duten herrialdeek, batez ere Txinak. Berria - Ekonomia
Finantzaketaren liberalizazio lasterregiak areago galaraz dezake egonkortasuna; izan ere, **kontu korronteko** balantzari dakarkion beherakada dela-eta, truke-tasen beheranzko espekulazioa bultzatzen du, eta, horren ondorioz, kapitalak ihes egitera bultzatzen ditu. Koro Navarro

## 23 *kontu zahar* *(orobat* ***kontuzahar*** *g.er.)*

Euskal usarioan izen sorgina da Txomin; ipuin eta **kontu zahar** askotako protagonista. Patziku Perurena

Antzinako **kontu zahar** bat iruditzen zitzaidan niri hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiztunak eta **kontu-zaharren** zale aspergarriak parrastaka aurkitzen ditugu. Xabier Olarra

Ilunabar ilun luzeetan, sukaldeko lanak egiten ziren bitartean, errosarioa bukatu ostean, zenbat **kontuzahar** eta esaldi eta beste! Pello Zabala

Gerrako **kontu zaharrak** zirela-eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Guztiarekin ere, **kontu zahar** samarra duk, hilketa gertatu baino dezente lehenagoko **kontua**. Migel Angel Mintegi

Zertan habil ordea, **kontu zaharrak** astintzen? Xabier Mendiguren Elizegi

Guk hizketan segitu genuen hainbat **kontu zahar** berritzen. Anjel Lertxundi

## 24 *kontuak atera*

Aurrez **kontuak ateratzea** beti ere hobe omen da. Pello Zabala

Beren **kontuak aterata** ibiltzen dira horiek beti, eta buruz dakizkite irabazpide guztiak. Patziku Perurena

**Kontuak atera** nola egongo nintzen. Joxan Elosegi

Kartzelara eramango dituzte, eta **kontuak aterako** dituzte: kartzelan dauden gaizkile gehienak etorkinak dira. Joxerra Garzia

Zenbat aurreratu dugun, hortik **kontuak atera**. Joxerra Garzia

Itsasontzia ez zen mugitu ere egiten, hortik **atera kontuak**. Hortik **atera kontuak** sinpatiaren bideskak zein bihurriak diren. Bernardo Atxaga

Auzo deitzen diogu, baina 500.000 biztanle dauzka, **atera kontuak**. Pako Aristi

## 25 *kontuak egin*

-Zatoz datorren astean eta **kontuak egingo** ditugu. Migel Angel Mintegi

Gero, **kontuak egiten** hasita, Lajosek berrogeita hamar urtetik gora beharko zuela pentsatu nuen. Ander Irizar

Bazkariak eta afariak ekarriko zituzten gastuei buruzko **kontuak egiten** ari zen. Ander Irizar

Lumak, tintontziak eta ezko-oihal koadrodunezko azalekiko koaderno batzuk zeuden han, eskola-umeek **kontuak egiteko** erabiltzen dituztenak bezalakoak, denak ordena milimetrikoz gordeak. Xabier Olarra

Horrela, seinale horiek laguntzen zioten gizakiari bere **kontuak egiteko** garaian. Pello Salaburu

-Hurrena, ezpainak hitzik ebaki gabe mugitu zitzaizkion, **kontuak egiten** ari bailitzan. Xabier Olarra

## 26 *kontuak eskatu*

-Orduan, ez nauk maite -esan zuen jostetan, **kontuak eskatzen** baino. Anjel Lertxundi

Harritzekoa dena da -eta inori **kontuak eskatzekoa** ere bai- gure seme-alabei ere gauza bera gertatzea bizitza akademiko osoa euskaraz egin eta gero. Anjel Lertxundi

Hemendik joatean zerbait gertatzen bazait, erregeak **kontuak eskatuko** dizkizue. Juan Kruz Igerabide

Ez nintzen, nonbait, **kontuak eskatzen** hasteko nor. Anjel Lertxundi

Ez du inork baimenik izango juduei **kontuak eskatzeko,** ez eta inolako arazorengatik eragozpenik jartzeko ere. Elizen arteko biblia

**Kontuak eskatuko** dizkiogun beldurrez. Berria - Harian

Baina gerenteari **kontuak eskatuz** bidali genion gutunak ez du erantzunik izan. Anjel Lertxundi

## 27 *kontuak garbitu*

**Kontuak garbitzen** hasi orduko, milioi asko zor zizkion zerbitzari bat eraman zioten. Elizen arteko biblia

**Kontuak garbitu** arteko onik ez zeukaan hark. Pako Aristi

Orduan lehenbizi izen parrasta bat esan nion, gero **kontuak garbituko** genituen. Fernando Rey

## 28 *kontuak hartu*

Handik denbora askora, etorri zen nagusia eta morroiei **kontuak hartzen** hasi zitzaien. Elizen arteko biblia

Ama **kontuak hartzen** hasten zitzaidan zakartasunez. Anjel Lertxundi

-Bihar -egin zuen oihu, makur, Jacuk- **hartuko** dizkiegu **kontuak** jauntxoei! Josu Zabaleta

Zorionekoa kutsagabe den emakume agorra, legez kontrako harremanik izan ez duena; izango du fruiturik **kontuak hartzeko** egunean. Elizen arteko biblia

Egia zen inor ez zegoela niri **kontuak hartzeko,** baina neu nintzen ospitaleko ginekologia zerbitzuko eta, batez ere, laborategiko buru. Hasier Etxeberria

## 29 *kontuak kontu*

Ergelak, onura bailitzateke berentzat: ur gutxiagorekin eztainu gehiago dago eta, beraz, etekin hobea; baina, **kontuak kontu,** bezeroak arrazoi du beti, bereziki kimikaz ezer gutxi dakienean. Horregatik egiten zaidak hain gogorra hemen barruan egotea; **kontuak kontu,** gainera, egun galduak dituk lanerako. Juan Garzia

Merryk ez zuen oso gustukoa izan gizaki basatiei eta gezi pozoituei buruzko kontu hura, baina **kontuak kontu,** beldurraren pisuak larritzen zuen. Agustin Otsoa

Tximua, **kontuak kontu,** zerbaiten petxero bihurtzean egin baitzen gizon. **Kontuak kontu,** baietz esan nion. Patziku Perurena

**Kontuak kontu,** dirua behar dugu, txilekiko artopil bat bederik inguratuko badugu. Juan Garzia

Baina ondo pasatzen genuen, **kontuak kontu**. Karlos Zabala

## 30 *kontuan eduki* *(58 agerraldi, 28 liburu eta 10 artikulu)* A

ukera guztiak **kontuan eduki** behar ditugu. Hortaz, **kontuan eduki** beharko da zientziaren eta teknologiaren aurrerakuntzen atzean interes ekonomiko itzelak daudela. Harkaitz Cano

Hortaz, interesen eraginaz gainera, ekonomian oso **kontuan edukitzekoa** da ideia eta teoria "praktikoek" duten eragina. Iñaki Heras

**Kontuan eduki** beharreko alderdi garrantzitsuenak ordenan jarri ondoren. Rafa Egiguren

**-Kontuan eduki** zure aita pertsona ezaguna izan zela -esaten zion andre Leonardak enfasia jarriz. Josu Zabaleta

## 31 *kontuan hartu*

Harryrengana joan eta esan zion **kontuan hartuko** zuela egin zion eskaintza. Oskar Arana

Komunikazioko aldagaiak **kontuan hartu** eta lantzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Xehetasunik txikiena ere **kontuan hartuz**. Oskar Arana

Zuzen ibiltzeari ekin zioten, **kontuan hartu** gabe non zegoen lokatz gehiago eta non gutxiago. Jose Morales

Dena batera ezin **kontuan hartu** nik. Joxe Austin Arrieta

Gauza bat esango niola gainera, ongi **kontuan hartzeko:** [...]. Inazio Mujika Iraola

-Irakurri dudana kontatu diat, baina **kontuan har** ezak egunkari hori alderdikoia dela, noski. Jon Muñoz

Ez zen **kontuan hartzekoa**. Aingeru Epaltza

**Kontuan hartu** beharra dago, ordea, beste gorabehera bat: [...]. Anjel Lertxundi

Egoera **kontuan hartuta,** aukera bakarra zegoen. Oskar Arana

Ematen dituen xehetasunak **kontuan hartuta,** ez dut uste gezurretan dabilenik. Ekoizpen-faktore bakar bat baino ez baitzuen hark **kontuan hartzen,** lana alegia, produktibitate aldakorra zuena. Migel Angel Mintegi

Hori guztia, **kontuan hartu,** uda bat lehenago gertatu zen. Pello Lizarralde

## 32 *kontuan izan* *(705 agerraldi, 298 liburu eta 280 artikulu)* du ad

**Kontuan izan** koaderno honek hogeita bost urte inguru dituela. Bernardo Atxaga

Hau dena **kontuan izan** behar da. Pello Salaburu

**Kontuan izan** beharreko beste kontu bat BPGaren edukia da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**-Kontuan izango** diat iradokizuna. Migel Angel Mintegi

Herri ez den nazio gehiegi, edo identitatea **kontuan izan** ordez beste gorabehera batzuk aintzakotzat hartu zituzten estatuak. Anjel Lertxundi

Gorpuak hiru zirela **kontuan izanik,** hura ez zen hain erraza izango. Migel Angel Mintegi

-Eta, miseria gorrian nagoela **kontuan izanik,** jauna, ez zenizkidake emango berrogei kopek bakoitzeko? Jose Morales

Demografia-eztanda hori ezin ulertu da garapen-maila desberdineko gizarteak harremanetan jartzeak sortzen dituen usadiozko demografiaren hausturak **kontuan izan** gabe. Koro Navarro

Norbaitek hori pentsatzea irain larria izango litzateke, orain arteko nire bizitza nolakoa izan den **kontuan izanda** . Karlos Zabala

Idolatria nagusi den hiri batean edo beste edozein lekutan sartzen bazara, ezpataren ahotik pasa itzazu guztiak, adina, sexua edo giza maila **kontuan izan** gabe. Juan Martin Elexpuru

· Oso **kontuan zuen** argi gehiegiak itsutu egiten duela. Anjel Lertxundi

Zurea, batez ere, oso zekena iruditu zait, **kontuan badugu** nondik atera zaitudan. Migel Angel Mintegi

Erruak **kontuan badituzu,** Jauna, oi Jauna, nork iraun bizirik? Elizen arteko biblia

## 33 ***kontuz-kontuz*** ik gorago **9.**

Bederatziak-edo izango ziren eskailerak **kontuz-kontuz** jaisten hasi zenean. Koro Navarro

Eta, atea **kontuz-kontuz** bultzatuz, itxi egin zuen. Koro Navarro

**Kontuz-kontuz** lagundu zioten autoraino, eta aurreko eserlekuan eseri zuten. Juan Kruz Igerabide

**Kontuz-kontuz,** ezpainak hurbildu nituen katilu-ertzera. Anjel Lertxundi

**Kontuz-kontuz** hasi ginen, bada, zereginean. Karlos Linazasoro

## 34 ***nire*** *(zure, bere...)* ***kontu*** *adlag*

**Nire kontu** zaldun horiek bilatzea. Juan Kruz Igerabide

-Orduan **nire kontu,** berak hori egitea -egin zuen hasperen Sethek. Anton Garikano

-Ez, lasai, gaurkoa **nire kontu** . Xabier Etxabe

Cardhu botila, **nire kontu** . Iban Zaldua

-Utzi hori **nire kontu** . Rubenek esan zion aitari: -utzi Benjamin **nire kontu,** eta neuk itzuliko dizut. Elizen arteko biblia

Gainontzekoa **neure kontu** . Unai Iturriaga

Eta baduk beste zerbait ere **hire kontu** utzi nahi dudana. Mirentxu Larrañaga

Besterik nahi baduk, **heure kontu** . Txillardegi

Ez berotu, mesedez; amorrazioak, den-denak **zure kontu..** . Pello Zabala

Zeren erraten baitzuten **haren kontu** emanak ziren hainbeste heresietarik batzuetan erori zela. Piarres Xarriton

Romanek, ordea, lasai egoteko eta **bere kontu** uzteko. Inazio Mujika Iraola

Eroan dezala ama autoan eta **bere kontu** bilobak. Urtzi Urrutikoetxea

Jan-edanak **gure kontu** . Xabier Mendiguren Elizegi

Ondasun publikoak guztiz bidezkoa luke izen oneko eliztar emakume helduok **geure kontu** hartuko bagenitu Hester Prynne bezalako gaizkileak. Anjel Lertxundi

Horrela, **zuen kontu** ezarriko da lurrean isuri izan den errugabe guztien odolaren errua. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**amodio kontu** (8); **bere kontu** (19); **bertze kontu bat** (9); **beste hainbat kontu** (13); **beste kontu bat** (221); **beste kontu batzuk** (21); **egik kontu** (13); **egin dezagun kontu** (15); **egin kontu** (64); **egizu kontu** (69); **egizu kontu ezen** (8); **egizue kontu** (11); **gure kontu** (9); **kontu auzitegiak** (15); **kontu bakarra** (21); **kontu bera** (44); **kontu berarekin** (8); **kontu berria** (18); **kontu bitxia** (9); **kontu egin** (67); **kontu eginez** (8); **kontu egiteko** (8); **kontu egiten** (24); **kontu egizu** (12); **kontu eman** (25); **kontu ematen** (8); **kontu erraza** (13); **kontu eske** (44); **kontu handia** (46); **kontu handia izan** (23); **kontu handiagoz** (19); **kontu handiarekin** (20); **kontu handiz** (527); **kontu handiz aztertu** (9); **kontu handiz egin** (11); **kontu handiz eta** (12); **kontu handiz hartu** (11); **kontu handiz ibili** (34); **kontu handiz ibiltzeko** (10); **kontu handiz zaindu** (8); **kontu hartu** (12); **kontu honi dagokionez** (9); **kontu horri buruz** (8); **kontu hutsa** (19); **kontu ilun** (10); **kontu ilunak** (8); **kontu izan** (18); **kontu jakina** (23); **kontu kontari** (107); **kontu korronte** (35); **kontu korronte bat** (8); **kontu korrontea** (13); **kontu korronteak** (23); **kontu korronteko** (16); **kontu publikoak** (21); **kontu publikoen** (15); **kontu segurua** (9); **kontu txiki** (8); **kontu ugari** (12); **kontu zahar** (25); **kontu zaharra** (13); **kontu zaharrak** (22); **kontuak kontu** (201); **mila kontu** (10); **neure kontu** (9); **nire kontu** (64); **zure kontu** (8)

**aspaldiko kontua** (31); **atzo goizeko kontua** (8); **bestelako kontua** (18); **betiko kontua** (28); **denbora kontua** (45); **denbora kontua da** (12); **diru kontua** (19); **ederra kontua** (25); **eguneroko kontua** (25); **geroagoko kontua** (8); **goizeko kontua** (11); **hori da kontua** (33); **hori kontua** (24); **horixe da kontua** (9); **iraganeko kontua** (17); **konfiantza kontua** (8); **kontua aipatu** (13); **kontua atera** (13); **kontua besterik ez** (19); **kontua da** (1476); **kontua da ea** (8); **kontua da ezen** (16); **kontua eskatu** (15); **kontua ordaindu** (14); **kontua zera da** (21); **metodo kontua** (8); **oraingo kontua** (15); **oso bestelako kontua** (10); **politika kontua** (8); **txantxetako kontua** (9); **zorte kontua** (11)

**amodio kontuak** (8); **antzeko kontuak** (11); **aspaldiko kontuak** (24); **atera kontuak** (94); **bestelako kontuak** (15); **diru kontuak** (52); **eguneroko kontuak** (9); **eguraldi kontuak** (8); **etxeko kontuak** (14); **gerrako kontuak** (15); **hortik atera kontuak** (30); **inguruko kontuak** (17); **iraganeko kontuak** (19); **kontuak aipatu** (15); **kontuak aipatzen** (11); **kontuak atera** (36); **kontuak aterata** (12); **kontuak ateratzen** (25); **kontuak dira horiek** (16); **kontuak egin** (23); **kontuak egiteko** (13); **kontuak egiten** (41); **kontuak eman** (8); **kontuak esaten** (14); **kontuak eskatu** (19); **kontuak eskatuko** (19); **kontuak eskatzeko** (14); **kontuak eskatzen** (12); **kontuak hartzeko** (15); **kontuak kontatzen** (11); **kontuak kontu** (201); **lan kontuak** (12); **nire kontuak** (9); **politika kontuak** (9); **urteko kontuak** (11)

**egoera kontuan hartuta** (20); **emaitzak kontuan hartuta** (11); **guztia kontuan hartuta** (18); **guztiak kontuan hartuta** (25); **iritzia kontuan hartu** (16); **kontuan eduki** (38); **kontuan edukiz** (11); **kontuan har** (57); **kontuan hartu** (1072); **kontuan hartuko** (172); **kontuan harturik** (192); **kontuan hartuta** (864); **kontuan hartuz** (244); **kontuan hartuz gero** (63); **kontuan hartzea** (103); **kontuan hartzeko** (178); **kontuan hartzeko eskatu** (20); **kontuan hartzeko moduko** (11); **kontuan hartzeko modukoa** (10); **kontuan hartzekoa** (81); **kontuan hartzekoa da** (46); **kontuan hartzekoak** (38); **kontuan hartzekoak dira** (18); **kontuan hartzen** (463); **kontuan hartzen badugu** (46); **kontuan hartzera** (8); **kontuan izaki** (8); **kontuan izan** (399); **kontuan izanda** (201); **kontuan izanez** (9); **kontuan izango** (30); **kontuan izanik** (199); **kontuan izatea** (16); **kontuan izateko** (9); **kontuan izaten** (20); **kopurua kontuan hartuta** (8); **oso kontuan hartu** (27); **oso kontuan hartzeko** (19); **oso kontuan hartzekoa** (10); **oso kontuan hartzen** (8); **oso kontuan izan** (23)

**diru kontuen** (21); **kontuen arabera** (9); **kontuen berri** (9); **kontuen gainean** (9)

**diru kontuetan** (19); **euskara kontuetan** (9); **hizkuntza kontuetan** (21); **maitasun kontuetan** (9); **politika kontuetan** (11); **sexu kontuetan** (16)

**kontura aberastu** (8); **kontura barre egiten** (8); **kontura bizi** (19)

**konturik eskatu** (9)

**kontutan hartu** (63); **kontutan hartuko** (10); **kontutan harturik** (13); **kontutan hartuta** (48); **kontutan hartuz** (33); **kontutan hartzen** (45); **kontutan izan** (11)

**ibili kontuz** (12); **kontuz gero** (36); **kontuz ibil** (14); **kontuz ibili** (229); **kontuz ibiliko** (12); **kontuz ibiltzeko** (81); **kontuz ibiltzeko esan** (8); **kontuz ibiltzen** (16); **kontuz kontuz** (33); **oso kontuz** (28); **oso kontuz ibili** (11)

**batasunaren kondu** (8); **festibalaren kondu** (12); **frantziako koparen kondu** (8); **frantziako xapelketaren kondu** (8); **herriko xapelketaren kondu** (9); **kanpainaren kondu** (8); **kantu xapelketaren kondu** (9); **kondu ekarria** (10); **koparen kondu** (23); **kulturaldiaren kondu** (9); **nagusiaren kondu** (17); **sail horren kondu** (23); **sailaren kondu** (30); **xapelgo nagusiaren kondu** (9); **xapelgoaren kondu** (11); **xapelketaren kondu** (37)

**urteko konduak** (24)

**gobernuaren konduko** (8); **konduko dantza** (8); **maitaldiaren konduko** (8); **nagusiaren konduko** (8); **sailaren konduko** (12)

**kondutan hartu** (30); **kondutan hartuak** (8); **kondutan hartuko** (11); **kondutan hartuz** (32); **kondutan hartzen** (13)

---

# **kontu**$^2$, kontzen dio *ad* eutsi.

Besotik **kontu** zidan. Aingeru Epaltza

Bizkitartean zerbait egin behar-eta, telefonoari **kontu** nion. Aingeru Epaltza

Anaiak aulkiari **kontu** behar zion, eta nik, gainean, pareta makinaz zulatu. Aingeru Epaltza

Gorputzari pultsuan **kontzen** izterrak eta besoak nekatuxeak izaki, ordea, eta hasi naiz jeisten, bi esku bilduak sokan behera irristan ditudala. Patziku Perurena

Estarta bazterretako ezpondapeak ere oso gogoko izaten ditu, bere habiari **kontzeko** xokanahi gorderik edo erromutur bihurririk inon bilatzen badu, benpe. Patziku Perurena

Erromak ordea, jainkozko irudipen eta berokeria mistiko haiei guziei **kontzeko** harresiak ipini zituen; Erroma tinkotasuna, autoritatea eta dogma zen. Patziku Perurena

---

**kontuar** [fr] *iz ipar* erakusmahaia, salmahaia.

Gizona **kontuar** gibelean, zut-zuta zegoen. Itxaro Borda

Alki bat eskuinetarik, sahetsean, sartzean berean, zurezko **kontuar** bat itzuli osoa egiten zuena, gainean, dena bunbuna untzi, balantza, xirio, burdinezko eta kartoinezko kutxa, mota guzietako puskak dotzenaka, iduriz nola nahika utziak. Michel Oronoz

---

kontuhartzaile ik **kontu[1] 17**.

---

kontuhartzailetza ik **kontu[1] 18**.

---

**kontulari** **1** *iz* ogibidez kontuak egiten dituen pertsona.

**Kontulari** batek ere sinatzeko moduko kontua zen hura -zehatza, orekatua eta hutsik gabea-. Joan Mari Irigoien

Kanpoan genuen egur-biltegiko **kontulari** eta administratzailea baitzen. Urtzi Urrutikoetxea

James Packer **kontulari** erretiratua zen, baina oraindik ere egiten zizkien errenta aitorpenak lehengo zenbait bezerori. Koro Navarro

-**Kontularia** naiz, eta zinpeko **kontularia** izatea espero dut. Lopez de Arana

Neskak, mutil bulegariak, aurpegi griseko **kontulariak..** . Lopez de Arana

Maila bat jaitsi behar izan nuen, **kontulari** hasteko. Joxan Elosegi

Sarjentu **kontularia,** birao gordinak txekieraz botatzen zituena. Anton Garikano

Eskribauek, administratzaileek eta **kontulariek** unibertsitateko ikasketak izan behar zituztela gutxienez. Jose Morales

Zereginetan, berriz, ni ontziburu eta bera eskribau eta **kontulari,** hots, sekretario. Edorta Jimenez

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Senarra zena gizon atsegina eta gozoa zen, **kontulari** lanetan aritzen zena. Bi aste pasa bazuen **kontulari** lanak utzi nituela dramak eztanda egin zuenean. Felipe Juaristi

Ez zion **kontulari**-ikuspegiz begiratu nahi lagunaren liburutegiari. Jon Muñoz

**3** kontalaria, kontu-kontalaria.

Guri ez euskun berba askorik egiten, gu umeak izanik, adinak asko banantzen ginduzan eta, baina ingurukoakaz **kontulari** handia zan. Xabier Amuriza

Leioako Txopera auzoan jaio zan gizon hau **kontulari** ugaria eta kontalari gogotsua da. Xabier Amuriza

Osaba Pepi: armada austrohungariarrean ibilia, zapatari pobretua, edanzale handia, **kontulari** paregabea. Pablo Sastre

---

**kontularitza** *iz* kontuak egiteaz arduratzen den zerbitzua. ik **kontabilitate**.

Ez nuen oraindik neure lehen soldata jaso, aurrerapen txiki bat baino ez zidaten eman, **kontularitzan** ordenadoreak hondatu zirelako. Joxan Elosegi

Zenbait ofiziotan, gainera, kristauek parte hartzea ia debekaturik zutenez (medikuntza, legedia, **kontularitza,** banka, etab.), gaur egun intelektualtzat hartuko genituzkeen haiek orduko kolektiboen arabera juzgatu behar dira. Askoren artean

---

**kontundente** *izond* biribila, ezini estabaidatuzkoa.

Edo arrazoi **"kontundente"** propagandistiko bihurtzea. Joxe Azurmendi

---

**kontundentzia** *iz* kontundentea denaren nolakotasuna.

Arestian esan bezala, irakurketa sendoa eskaini du, musikaren handitasunean eta tenpoen **kontundentzian** arreta berezia ipiniz. Berria - Kultura

---

**kontuño** *iz* kontutxoa.

Aspaldi gertatu eta egundo garrantzitsuak iruditu ez zaizkizun **kontuño** batzuk. Xabier Montoia

---

**kontur** *iz ipar* kontagailua.

Diru eskasez elektrika moztua izan zaien familiei berriz **konturrak** zabaltzen dizkiete. Herria

---

**konturarazi,** konturaraz, konturarazten du *ad* konturatzera behartu, ohartarazi.

Iruditu zitzaion norbait ipuin fantastiko bat idatzi guran zebilela berarekin, baina orain erne ibiliko zen: horretaz konturatu zela ez zuen **konturarazi** behar dena delako hori. Pako Aristi

Gizakiak beren txikitasunaz **konturarazteko** helburuarekin baino ez zuen jaso Keops faraoiak piramide hori. Jon Muñoz

· dio *ad* Ibaiaren ondik norakoak **konturarazi** zion zein zen utzi berria zuen lekua. Karlos Zabala

Gorka Arresek **konturarazi** zidan "poemak garbitu" egin behar zirela, sasia kendu. Ana Urkiza

---

**konturatu,** kontura(tu), konturatzen **1** da *ad* ohartu.

Ia **konturatu** gabe egin nuen, eta, gainera, zazpi edo zortzi bat urte besterik ez nituen artean. Jon Muñoz

-Ba, ez haiz **konturatzen** baina lanean ari naun. Joxemari Iturralde

Ez al zara **konturatzen**? Xabier Mendiguren Elizegi

**Konturatu** al haiz, Extul? Koro Navarro

-Potroetatik zauzkate harrapatuta, Harry, eta **konturatu** ere ez zara egiten. Oskar Arana

Itsu behar nikek ez **konturatzeko**. Anjel Lertxundi

Txikia berriz erdizka **konturatzen** da. Bernardo Atxaga

Baina, bost orduko itxaronaldiaren ostean, derrepente **konturatu** ginen: ez zen asteartea, astelehena zen. Joxe Austin Arrieta

Osaba minbiziak jota eta hilzorian zegoela jakin nuen arte ez nintzen **konturatu** zein bidegabea den bizitza. Jon Muñoz

Osaba minbiziak jota eta hilzorian zegoela jakin nuen arte ez nintzen **konturatu** zein bidegabea den bizitza. Jon Muñoz

Ez nintzen **konturatu** zertaz ari zen, eta aurpegian galdera ikurra irakurri zidan, antza. Ramon Saizarbitoria

Bai, berehala **konturatu** haiz nolakoa den. Anjel Lertxundi

Ez zela **konturatu** aurreko gauean etxean izandako zalapartaz. Bernardo Atxaga

Ederki **konturatu** zinen horretaz erdi-loan. Hasier Etxeberria

Nekazari sorabiarrak beren hizkuntzan entzun nituenean **konturatu** nintzen horretaz: sorabiarrak, juduen moduan, ez ziren alemanak. Anjel Lertxundi

**Konturatu** ote ziren gertatzen ari zenaz. Bernardo Atxaga

-Eta ni batere **konturatu** ez -esan zuen Martinek-. Koro Navarro

**Konturatu** gabe nengoen nola egin izan nion mira nire aspaldiko Erpurutxo doktoreari. Oskar Arana

**Konturatu** baino lehen, ezkongaiak ginen. Koro Navarro

**Konturatu** gabe, okerreko bidea hartu, eta itxuraz irteerarik gabeko kale batean sartu nintzen. Inazio Mujika Iraola

Gero, **konturatu** gabe, haren pentsamenduek beste bide batzuk hartu zituzten. Jose Morales

Nola ez nintzen atzo **konturatu**? Txillardegi

**2** (perpaus konpletibo batez)

Txundituta **konturatu** nintzen ni ez nintzela ez mundu batekoa ez bestekoa. Koro Navarro

Ikusmena aztertzen zidaten bitartean, **konturatu** nintzen ez nintzela gauza letrak edo koloreak bereizteko. aurpegia aztertu eta begien eta ahoaren inguruan egiten ari zitzaizkion zimurrak ikusi nituenean, **konturatu** nintzen hasieran uste nuena baino zaharxeagoa zela. Xabier Olarra

Hogeita hamahiru urterekin, emazte abandonatua zela **konturatu** zen Taibele. Koro Navarro

Orduan **konturatu** ginen amak koronela limurtu bide zuela etxaldeko bizilagun guztiei miaketan parte harrarazteko. Mirentxu Larrañaga

Harriak jaten hasi zen goseak hilko ez bazuen, gaur haitz handi bat bihar txikitxo bi, harriak jan ahala uhartearen ingurumaria murriztzen ari zitzaiola **konturatu** gabe. Pako Aristi

· Jakizu ez naizela **konturatu** irain bat zenik norbaiti "mila esker" esatea. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**bat batean konturatu** (18); **berehala konturatu** (117); **berehala konturatu nintzen** (45); **berehalaxe konturatu** (6); **garaiz konturatu** (6); **geroago konturatu** (6); **jendea konturatu** (9); **konturatu orduko** (56); **laster konturatu** (45); **lehenago konturatu** (14); **orain konturatu** (14); **orduan konturatu** (88); **orduantxe konturatu** (31); **segituan konturatu** (17); **une hartan konturatu** (7)

**edonor konturatuko** (5); **laster konturatuko** (6); **orduan konturatuko** (6)

**konturatuta nago** (5); **konturatuta zegoen** (6)

**jendea konturatzen** (5); **orain konturatzen** (23); **orduan konturatzen** (6)

---

# kontusio *iz* makatua.

Horietako bik erredurak zituzten eta beste sei kideek **kontusioak** eta kolpeak. Berria - Euskal Herria

Medikuak ezker saihetsetako **kontusioa** diagnostikatu zion. Berria - Kirola

---

# kontutasun *iz*

Horrek prestu eta kementsu sentiarazten ninduen, Herkules Hidraren aurrean bezala, eta berebat tentatua, zeren jabetzen bainintzen eskaeraren emakume-**kontutasun** nabarmenaz. Juan Garzia

---

# kontutxo *iz adkor* kontua.

Kontatuko al dizkit norbaitek ongi bukatzen diren **kontutxo** tristeak, irribarre batekin eror nadin loaren besoetan. Lourdes Oñederra

-Ez da ezer, ez da ezer -erantzun nion-, geure arteko **kontutxo** txoroak. Juan Luis Zabala

Elkarri bakarka esateko **kontutxo** asko dute, nonbait. Aitor Arana

-Deribatuen eta jatorrizkoen **kontutxo** guztiak ondotxo dakizkizu, beraz! Jon Muñoz

Eguneroko **kontutxo** iduriz azalekoak dira inportanteenak. Xabier Montoia

Lan-**kontutxo** bat besterik ez zen -esan zuen Aita Keonek-. Irene Aldasoro

---

kontuzahar ik **kontu[1] 22.**

---

# kontxo 1 *interj koño*-ren leungarria.

**"Kontxo!"** esaten duten guztiak inozo hutsak dira, nire irudiko. Karlos Zabala

Mundu guztiak daki pertsonari "arraioa!" edo "koño!" ateratzen zaiola eta, horren partez, hizkuntzaren beste figura bat bilatu beharrean, jatorri iluneko **"kontxo!"** onartezin hori erabiltzen da. Karlos Zabala

**-Kontxo,** Sierra, zer? koinatuari tragoa lapurtzen? Jon Maia

**-Kontxo,** Txomin eta Mirenen iloba al zara, orduan? Joxemari Urteaga

**-Kontxo**! -atera zitzaion bat-batean Mariri- Hori da nire toaila izorratu didan zakurra! Joxemari Iturralde

Bai, **kontxo,** zure emaztea, edo zure andregaia... tira, zurekin bizi zen neska txiki hura... Iban Zaldua

Eta ez zipriztindu, **kontxo**! Jon Arretxe

**2** ***kontxo, kontxo***

**Kontxo, kontxo,** esan nion. Irene Aldasoro

**-Kontxo, kontxo,** denda saldu zutela uste nuen. Joxemari Urteaga

**Kontxo kontxo**... ikusi, sustoa hartu, estropezu egin eta berna-hezurrean zartateko ederra hartzeko moduko kartela Berria - Harian

## **kontzebitu**, kontzebi, kontzebitzen **1** du *ad* bururatu.

Ez abstraktuki **kontzebituriko** errepresentazio unibertsala determinazio enpirikoetatik, baizik eta kontzeptualizaturikoaren sorrera eta mostrazioa. Piarres Xarriton

Herriaren arima edo izpiritua suprapertsona edo organismo norbanakoen hurrupatzaile gisa **kontzebitua,** nazionalismoa, xenofobia, etab., *Volksgeist* espainolaren espezifikoak ematen dute. Joxe Azurmendi

**2** sortu.

Berdin lege berezi berarengatik bere **kontzebitzeko** lehen unetik Andre dena Maria, Jainkoaren Ama, izana da guztiz garbia eta dohatsua. Piarres Xarriton

Ehun bat mila haur **kontzebitu** berriak hiltzen ditugula sortu aintzin. Herria

**Kontzebitzen** dute eta engendratzen dute eta kumeak egiten dituzte urtero. Aurelia Arkotxa

**3** (era burutua izenondo gisa)

Bertzeak behar ditugu gain gainetik errespetatu, izan diten beltzak ala horiak ala gorriak, esku ala buru langileak, haur **kontzebituak** xahar ezinduak bezala edozoin arrazakoak eta edozoin adinetakoak, gizon batek munduko urre guziak baino gehiago balio baitu. Herria

---

## **kontzebitze** *iz* sortzea.

**Kontzebitzetik** ta hiltzeraino nunahi daike ofentsa. Herria

---

## **kontzejal** *iz* zinegotzia.

Hala hil zituzten inguruko herrietako hainbat **kontzejal,** sindikalista, alkate... Jokin Urain

Eta **kontzejal** izatea maite nuen, gero! Iban Zaldua

**Kontzejal** bat edo Ertzain bat hiltzeko. Hasier Etxeberria

---

## **kontzeju** *(orobat* ***kontseju*** *g.er.)* **1** *iz* udaletxea; udala.

Joanesek poliki-poliki jaitsi zituen **kontzejuko** eskailera luzeak. Felipe Juaristi

Plazan, **kontzeju** aurrean, ateetan udal zigilua [...] zeraman zalgurdia zegoen, lau zaldi beltzi loturik. Felipe Juaristi

Etxe hau Asisko **kontzejuarena** da eta gu hemen **kontzejuaren** ordezkari gara. Askoren artean

**Kontzejuko** elezioak izan dira eta gorriek irabazi dutela. Koldo Biguri

· Urte berean, abuztuaren 5ean, Iratiko ibarreko 33 udalek eta **kontzejuk** Itoizko urtegiaren aurkako jarrera berretsi zuten Agoitzen egindako ekitaldian, eta Nafarroako Erdialdeko eta Erriberako udalei elkarrizketa eskaini zieten. Edurne Elizondo

**2** ***kontzeju etxe*** udaketxea.

Aurrez aurre zuten **kontzeju** etxe zaharkitua. Imanol Zurutuza

---

## **kontzejupe** *iz* kontzejuko arkupea.

Leitzatik barrena karlistak zetozela eta, lagun kuadrilla bat, **kontzejupean** eskopetak hartu eta, Amasa aldera abiatu zituan... Pablo Sastre

---

## **kontzelebratu**, kontzelebra, kontzelebratzen du *ad* (meza) elkarrekin eman.

Ez ditugu aise ahantziko 9 apezek **kontzelebratu** meza huntan entzun langile lagun, ala adixkideen lekukotasunak. Herria

---

## **kontzelebrazio** *(corpusean* ***konzelebrazio*** *soilik)* *iz* (meza) elkarrekin ematea.

Frantziskoren garaian ez zen **"konzelebraziorik"**. Askoren artean

---

## **kontzentratu**, kontzentra, kontzentratzen *(orobat* ***konzentratu*** *g.er.)* **1** da/du *ad* bildu.

Ile kiribilduan **kontzentratu** nuen estreina eskuargiaren fokoa. Anjel Lertxundi

Orduan nigan **kontzentratu** zen morroien interes eta grina gaizto guztia. Anjel Lertxundi

Egoitza sozialak sobera **kontzentratuak** dira Baionan Zup aldean, aldiz Angelun eta Miarritzen eskas direlarik. bestela Nafarroako populazioa bost guneetan soilik **kontzentratuko** bailitzateke. Herria

Euskaldun asko **kontzentratzen** den lekuetan beti ez dela euskara erabiltzen adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Alkoholaren kontsumoa asteburuetan **kontzentratu** da. Berria - Euskal Herria

Kasu honetan, Iñakirengan **kontzentratu** dute basakeria. Berria - Euskal Herria

Kapital horien heren bat baino gehiago bi herrialdetan **kontzentratu** zen: Txinan (%23) eta Mexikon (%12). Koro Navarro

Enpresa multinazionalen jardueren parterik handiena sorburuko lurraldean **kontzentratua** egoten da. Koro Navarro

Bigarren Mundu Gerra arte, nazioarteko zuzeneko inbertsioen parterik handiena nekazaritza eta meatzaritzaren sektoreetan zegoen **kontzentratua**. Koro Navarro

**2** (kimikan)

Substantzia batzuk oso ondo **kontzentratzen** dira gernuan. Irene Aldasoro

Odolean disolbatu ordez, globulu gorrietan **kontzentratu** da hemoglobina. Irene Aldasoro

Gero pisu espezifiko jakin bateraino **kontzentratu** behar zen soluzioa. Juan Garzia

• **3** da *ad* elkarretaratu.

Herenegun hartu zuen erabakia eta atzo **kontzentratu** ziren langileak eta sindikatuetako ordezkariak Bilboko Eusko Jaurlaritzako ordezkaritzaren aurrean. Berria - Ekonomia

Gaurko, **kontzentratzeko** deia egin dute Euskal Herriko herri guztietan. Berria - Euskal Herria

Hitzaldia eman zien Deban **kontzentraturik** dauden Asegarceko pilotariei. Berria - Kirola

**4** arreta bildu.

Bi ama txutxumutxuka ari dira urrutian eta ezin naiz **kontzentratu**. Eider Rodriguez

Ezin naiz inolaz ere **kontzentratu**. Xabier Mendiguren Elizegi

Libururik irakurtzeko ezin **kontzentratu,** telebisioa gogaikarri zitzaion, zeramika egiten hastea rollo bat zen eta puntua berriz, Jesus, puntua! Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zuen **kontzentratzerik** lortzen, burua joan egiten zitzaion. Luis Elberdin

Fionnek so egin zion eta ondoren, pentsakor, sugarretan **kontzentratu** zen berriro. Joanes Urkixo

Errepidean **kontzentratzen** ahalegintzen da. -Zer nahi duk esatea, nik nahiago diat nire azazkalean **kontzentratu**. Iñaki Iñurrieta

Lanean **kontzentratu** behar du. Irene Aldasoro

Bi hatz erakusleez, erritmo beti berdinean, teklak bizkor ez baina seguru sakatuz, mingaina hortz artean, ahalegin betean, zeharo **kontzentratuta** ari da. Iñaki Iñurrieta

Umore aldaketak, oroimen galera, **kontzentratzeko** arazoak. Berria - Mundua

**5** (era burutua izenondo gisa)

Kamerak, irakurtzen ari den emakumearen eta itxura **kontzentratu** eta interesatuaz entzuten duen gizonaren aurpegiak eskainiko ditu aldizka. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezeri ekin baino lehen kafe **kontzentratu** baten beharra zuen. Migel Angel Mintegi

Ur asko ez izateak mahats garau txikiagoak eta **kontzentratuak** ekarri ditu. Berria - Harian

Farmaziako laborategietan egiten duten antzera, komunikazio arduradunek ere pilula **kontzentratuak** fabrikatzen dituzte. Azido **kontzentratuak** eta tenperatura altuak. Txema Ramirez de la Piscina

Soluzio diluitu bat eta soluzio **kontzentratu** bat bereizten dituen mintz batetik. Irene Aldasoro

Hala transferituriko sodio kloruroak **kontzentratuago** bihurtzen du odola. Irene Aldasoro

Une horretan jakinminezko eta ustekabezko espresioak arreta **kontzentratua** ordezkatu zuen. Jon Alonso

**6** (era burutua izen gisa)

Ikerketa psikikoen **kontzentratu** bat inolaz ere. Joxan Elosegi

---

## **kontzentrazari**, kontzentraraz, kontzentrarazten du *ad* kontzentratzera behartu.

Hesi garaiek galarazi egiten diote aziendari ezer asaldagarririk ikustea, eta, hala, beren ibileran **kontzentrarazten** dute. Xabier Olarra

---

kontzentrazino ik **kontzentrazio**.

---

## **kontzentrazio** *(orobat **konzentrazio** g.er., **konzentrazione** g.er., **kontzentrazino** g.er. eta **kontzentrazione** g.er.)* **1** *iz* biltzea; biltzearen ondorioa.

Kale haietan arropa denden **kontzentrazioa** izugarria zen. Iñaki Iñurrieta

Erlijio nagusien sorlekuen **kontzentrazio** geografiko hau. Iñaki Mendiguren

Errenten **kontzentrazio** sistematikoaren aldeko politiken bitartez. Koro Navarro

Finantzen **kontzentrazioa** ikusgarria izan zen. Koro Navarro

Diru-sarreren eta mozkinen gehiegizko **kontzentrazioak** eragindako barneko merkatuen murriztasunak kanpoko merkatuen bilaketa guztiz lehiatsua ekarri zuen. Koro Navarro

**2** (kimikan) disoluzio batean, gai disolbatuaren kopuruaren eta disolbatzaile konpuruaren arteko erlazioa.

Uzkurdura abiarazteko behar den kaltzio ioien **kontzentrazioa** ezin da handitu difusioaren bidez ez bada. Irene Aldasoro

Prozesu sinple bat da difusioa, kanpoko eta barruko **kontzentrazioen** arteko aldearen mende dagoena. Odola diluitzeko eta hura berriro **kontzentrazio** normalera bihurtzeko. Irene Aldasoro

Etil merkaptanoa (mofetak duen substantzia kirastsu bat) oso **kontzentrazio** txikian detektatzen da. Irene Aldasoro

Kontrolatu, odolean dauden hogeita hamar substantzia kimikoren **kontzentrazioak** kontrolatzen dituzte gutxienez. Irene Aldasoro

**3** elkarretaratzea.

Jokalariok igande hartako eguerdiko 12etan genuen **kontzentrazioa**. Joan Mari Irigoien

Ea presoen eskubideen aldeko **kontzentraziora** lagunduko nion. Iban Zaldua

Hamar minutu falta dira **kontzentrazioaren** amaiera arte. Iban Zaldua

**Kontzentrazioa** isila izan zen, bederen. Iban Zaldua

**4** arreta biltzea.

Sorkuntzarako **kontzentrazio** handia behar izaten dut. Xabier Mendiguren Elizegi

Gatwickeko aireportuan hegaldirako zain geundela, zirrara egin zidan mutilaren **kontzentrazio** sakonak. Xabier Olarra

Nahikoa luke korroskada txiki bat hain beharrezkoa duen **kontzentrazio** guztia galtzeko. Karlos Linazasoro

Etxea gainbehera etorriko balitz ere, ez luke **kontzentrazioa** galduko. Xabier Olarra

Ez nuen, ordea, **kontzentraziorik** biltzen, nire arreta emakume sartu berriarekikoetan gehiago, Diderotek transmititu nahi zizkidan kezketan baino Anjel Lertxundi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Giltzurrunak, bada, ez dira iragazki edo **kontzentrazio**-mekanismo huts bat. Irene Aldasoro

**Kontzentrazio** maila egokituz. Irene Aldasoro

Enpresen jabetzan izan diren **kontzentrazio** prozesuarekin batera (fusioak, absortzioak, partaidetzak...), kudeaketa aldetik azpikontratazioa erruz erabiltzea izan da joera. Iñaki Heras

Hazkunde laster hori ia etengabea izan zen 1973 arte, eta industria-talde handien sorrera bultzatu zuen ekonomia aurreratuenetan, hurrenez hurreneko **kontzentrazio**-uhinetan. Koro Navarro

Ume autista askok bezala, **kontzentrazio** ahalmen eskerga garatu zuen laster. Xabier Olarra

Beste bion **kontzentrazio** gaitasuna oztopatzeko. Jon Arretxe

Orduantxe azaldutako zimur ederrak dauzkat begi-ondoan eta kopetan; **kontzentrazio**-zimurrak, hain zuzen ere. Joxean Sagaztizabal

**Kontzentrazio** arazoak omen dauzkat. Jesus Mari Mendizabal

**Kontzentrazio** faltaren erruz. Karlos Linazasoro

Liburu bat eta bi baino gehiago beharko lirateke kartzelek, **kontzentrazio** barrutiek eta gisako esparruek eman dituzten irudi guztiak, historia guztiak jaso eta idazteko. Jokin Urain

*ik beherago* 7, 8, 9. Askoren artean

Zenbait **kontzentrazio** kanpamendutan, zorriak ukaiteagatik hiltzen zituzten presoak. Eneko Bidegain

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eguna argitzen hasia duk eta, laster batean etsaia indar-**kontzentrazio** hau ikusteko gai izango duk. Edorta Jimenez

Handia agintea da, botere-**kontzentrazioa**. Joxe Azurmendi

Herri txikiak eta eskola **kontzentrazioa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Industria-**kontzentrazioa** areagotu zelako. Koro Navarro

Neurriz gaineko bitamina-**kontzentrazioa**. Edorta Agirre

Bostehun aldiz amoniako-**kontzentrazio** handiagoa dago gernuan. Irene Aldasoro

Gai iraziak eta odolak oso antzekoa dutenez sodio- **kontzentrazioa,** ez da garbi ikusten zergatik itzuli behar duen sodioak atzera odolera. Irene Aldasoro

Garrantzizkoa da glukosa- **kontzentrazioa** nahiko egonkor mantentzea odolean. Irene Aldasoro

Batzuek, hala ere, metal **kontzentrazio** ezinezkoa dute haragian. Hasier Etxeberria

Gizakiak substantzia bat detektatzeko behar duen baino substantzia- **kontzentrazio** txikiagoa behar du beti txakurrak. Irene Aldasoro

**7 *kontzentrazio eremu*** *(43 agerraldi, 10 liburu eta 13 artikulutan)* gerrako presoak edo atxilotu mota jakin batzuk edukitzen diren eremu hesitua.

Italiarrentzako **kontzentrazio eremu** batean bizi zen, inguru guzti-guztian alanbre arantzaduna zuten kasernatzarrak ziren, hiritik oso urruti. Fernando Rey

Donostiako zezen plaza ere **kontzentrazio eremu** gisa erabiltzeko prestatu zuten gerra amaitzear zela. Jokin Urain

Pentsatzen ahal dut Gourseko **kontzentrazio eremuko** hondartzetan edo Auschwitzen edo Dachaun edo Ocañan eta denak hau baino askoz gogorragoak zirela oroitu besterik ez daukat, hormok urtzeko. Koldo Izagirre

Zenbait urte lehenago japoniar guztiak **kontzentrazio eremuetan** sarrarazteko agindua eman zuen gobernuak. Javi Cillero

**8 *kontzentrazio esparru*** *(89 agerraldi, 7 liburu eta 43 artikulutan)* kontzentrazio eremua.

Abereentzako bagoietan kargatzen dituzte eta Westerbork-era bidaltzen dituzte, Drenteko probintzian juduentzat dagoen **kontzentrazio esparru** handira. Josu Zabaleta

Naziek Italian eraikitako **kontzentrazio-esparru** bakarra. Anjel Lertxundi

Fritz Pfeffer (Albert Dussel) 1944ko abenduaren 20an hil zen Neuengamme-ko **kontzentrazio esparruan** , Buchenwaldeko edo Sachsenhausen-eko **kontzentrazio esparruetatik** igaro ondoren. Josu Zabaleta

Oto Frank izan zen, ezkutatuta egondakoetatik, **kontzentrazio esparruetatik** bizirik atera zen bakarra. Josu Zabaleta

**9 *kontzentrazio zelai*** *(44 agerraldi, 6 liburu eta 2 artikulutan)* kontzentrazio eremua.

Tamalez fabrikan eta **kontzentrazio-zelaian** ez zegoen belar askorik. Urtzi Urrutikoetxea

**Kontzentrazio zelaia** Rhin ibarraren gainean dago, hegoari buruz itzulia, Godesberg-etik ez hain urrun. Michel Oronoz

Egia erran, **kontzentrazio zelaian** hiru zelaigune badira eta horietan bizia arras desberdina da. Michel Oronoz

Hantxe zeuden Fergosi eta Piesch koronelak ere; **kontzentrazio zelaien** arduraduna zen azken hori. Jokin Urain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kontzentrazio barrutietan** (3); **kontzentrazio eremu** (11); **kontzentrazio eremuak** (3); **kontzentrazio eremuan** (4); **kontzentrazio eremuetako** (6); **kontzentrazio eremuetan** (14); **kontzentrazio eremutik** (3); **kontzentrazio esparru** (31); **kontzentrazio esparrua** (6); **kontzentrazio esparruak** (20); **kontzentrazio esparruan** (25); **kontzentrazio esparruari** (4); **kontzentrazio esparruei** (4); **kontzentrazio esparruen** (7); **kontzentrazio esparruetako** (7); **kontzentrazio esparruetan** (18); **kontzentrazio esparruetara** (9); **kontzentrazio esparruetatik** (4); **kontzentrazio esparruko** (4); **kontzentrazio esparrura** (11); **kontzentrazio esparrutik** (5); **kontzentrazio falta** (5); **kontzentrazio handia** (8); **kontzentrazio handiz** (3); **kontzentrazio kanpamenduetan** (5); **kontzentrazio kanpamenduko** (4); **kontzentrazio maila** (6); **kontzentrazio zelai** (10); **kontzentrazio zelaia** (6); **kontzentrazio zelaian** (18); **kontzentrazio zelaien** (3); **kontzentrazio zelaietan** (3)

**aldeko kontzentrazioa** (3); **kontzentrazioa deitu** (11); **kontzentrazioa egin** (27); **kontzentrazioa egingo** (16); **kontzentrazioa egiteko** (3); **kontzentrazioa egiten** (3); **kontzentrazioa eskatu** (3); **kontzentrazioa galdu** (3)

**kontzentrazioak egin** (4); **kontzentrazioak egingo** (7)

**egindako kontzentrazioan** (10); **plazan egindako kontzentrazioan** (3)

**kontzentraziora deitu** (5)

---

kontzentrazione ik **kontzentrazio**.

---

# kontzentriko *iz* zentrukidea.

Pantailako zirkulu **kontzentrikoei** begira. Joseba Sarrionandia

Diana bat, bere zirkulu **kontzentrikoekin** . Iñaki Iñurrieta

Gizon bakar baten egintzak (zioen) bederatzi zeru **kontzentrikoek** baino munta handiagoa du. Juan Garzia

Puntuaren eta puntu hori agertzen den planoaren arteko erlazioaren azterketak aukera ematen dio Kandinskyri puntu orok dituen "funtsezko oihartzunak", haren tentsio **kontzentrikoa,** haren egonkortasuna [...] eta "gainazalean txertatuta geratzeko" joera, definitzeko. Josu Zabaleta

---

kontzentziazio ik **kontzientziazio**.

---

kontzentzioso ik **kontentzioso**.

---

kontzentzu ik **kontsentsu**.

---

kontzepto ik **kontzeptu**.

---

# kontzeptu *(orobat **konzeptu** g.er. eta **kontzepto** g.er.)* **1** *iz* adimenak sortzen duen gogo objektua. ik **adigai**.

Predikatu baten erreferentzia propietatea da eta haren zentzua **kontzeptua** . Askoren artean

**Kontzeptuak,** ezagutzaren adreiluak edo oinarrizko osagaiak adimenarenak dira, [...]; Ideiak, berriz, arrazoimenarenak dira. Askoren artean

Zientziaren Filosofiaren esparruari dagozkion helburuak, **kontzeptuak** eta metodologia aztertzen dira. Askoren artean

Hortaz, **kontzeptuek** zentzuek dituzten ezaugarri berak dituzte. Askoren artean

Modernia eta modernitatea bi adierako **kontzeptuak** dira. Askoren artean

Fregek, besteak beste, "funtzio" **kontzeptua** logikan nola erabiltzen den aztertu zuen. Askoren artean

*Normaltasuna* **kontzeptua** *sexu osasuna* **kontzeptuarekin** ordezkatu behar dugu. Luis Elberdin

Irudikapen **kontzeptua:** ilusioa irudikapenean. Josu Zabaleta

Garapen Iraunkorra **kontzeptua** bere konplexutasun osoan azaltzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Garapen Iraunkorraren **kontzeptuak** dituen esanahi eta ondorioak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Egiaren **kontzeptua** zuzenean definitu beharrean, asegarritasunaren **kontzeptuaz** baliatu zen aurretik, aldagai askeak dituzten formulak ere kontuan hartzeko. Askoren artean

Maxwellen kolorearen teoria eta kolore-triangelua, kolore-elkartzearen **kontzeptuan** oinarriturik zeuden. Xabier Olarra

Liberalen inbentua da Estatu-Nazioaren **kontzeptua** . Joxe Azurmendi

Autismoa barren-barreneraino ezagutzeko, baliteke gaur egun oraindik amesten ere ez ditugun aurrerapenak behar izatea, bai teknikoak eta bai **kontzeptuzkoak**. Xabier Olarra

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Karitatea elkartasunaren **kontzeptu** orokorraren zati bat da. Berria - Gaiak

Zenbait **kontzeptu** filosofiko euskaraz emateko arazoak izan ditugu. Askoren artean

**Kontzeptu** abstraktuak atzemateko ahalmena. Xabier Kintana

**Kontzeptu** iluna da "esanahia". Askoren artean

Judizioan parte duten oinarrizko elementuak honako hauek dira: (1) sentsazioak eta **kontzeptuak**, (2) **kontzeptu** enpirikoak eta **kontzeptu** hutsak (edo apriorikoak), [...]. Askoren artean

Beste **kontzeptu** oinarrizko bat. Berria - Kirola

Semantikako **kontzeptu** nagusiak definitzen. Askoren artean

Ipar eta Hegoa, **kontzeptu** geografikoak baino gehiago, **kontzeptu** sozio-ekonomikoak dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Funtsezko **kontzeptuak** finkatzeko unean. Isabel Arrigain

Funtsezko unearen **kontzeptu** hori **kontzeptu** estetiko soil bat baizik ez da. Josu Zabaleta

Zuk diozu **kontzeptu** antropomorfiko bat dela borrokaren **kontzeptu** hori. Josu Zabaleta

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kontzeptual**.

**Kontzeptu**-sistema baten jarraipena. ingurumenaren gaineko kezka ez da soilik maila administratibora igaro esparru politikoan; oso bestela, **kontzeptu** mailara ere iritsi da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Kontzeptu**-joko bakar honetatik abiaturik. Xabier Arregi

Fonemaren inguruko **kontzeptu** eraikuntzan. Lourdes Oñederra

Norantz jotzen ari garen jakin ahal izateko **kontzeptu**-esparru garbiak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Kontzeptu**-arlo bera. Xabier Arregi

Berriz **kontzeptu**-nahasketetan ez erortzeko. Jon Alonso

**Kontzeptu**-mota bakoitzaren karakterizazio estrukturala zein funtzionala. Askoren artean

· Harreman-sorta honek osatuko du **kontzeptu** eraketa-sistema bat. Xabier Arregi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hots **kontzeptu** edo hots ideiek bakarrik osa ditzakete pentsaturiko hitzak. Lourdes Oñederra

Oinarriko hizkuntz **kontzeptu** batzuen garapena. Itziar Laka

Filosofian esan ohi da sorta-**kontzeptua** dela, biziaren propietatea bera ezaugarri askoren bitartez azaltzen baita, bizidun bakoitzak denak bete behar ez baditu ere. Askoren artean

Horretako, giltza-**kontzeptuak** eta giltza-ideiak berriro aztertu. Askoren artean

Kausa-, espazio- eta denbora-**kontzeptu** horiek adimenetik ezin bereizizkoak dira. Josu Zabaleta

Hitz bat eta nazio **kontzeptu** bi. Iñigo Aranbarri

Zer esan nahi du, azkenean, teorian kontzeptu teorikoak ken ditzakegula esanahigarritasun enpirikorik galdu gabe, hori behaketa-**kontzeptuetan** gauzatzen baita? Askoren artean

## 5 finantza-azalpena.

Jaurlaritzak uste du **kontzeptu** horretan 32 milioi euro jaso behar dituela. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**energiaren kontzeptu** (4); **hitz eta kontzeptu** (5); **ideia eta kontzeptu** (4); **kontzeptu berri** (10); **kontzeptu berri bat** (8); **kontzeptu berria** (10); **kontzeptu berriak** (8); **kontzeptu filosofiko** (9); **kontzeptu filosofikoak** (5); **kontzeptu irekia** (6); **kontzeptu nagusiak** (4); **oinarrizko kontzeptu** (5)

**energiaren kontzeptu** (4); **eta kontzeptu** (38); **ez da kontzeptu** (4); **ez kontzeptu** (4); **hainbat kontzeptu** (8); **hitz eta kontzeptu** (5); **ideia eta kontzeptu** (4); **kontzeptu bat** (29); **kontzeptu bat da** (6); **kontzeptu baten** (10); **kontzeptu batzuen** (4); **kontzeptu batzuk** (4); **kontzeptu bera** (4); **kontzeptu berri** (10); **kontzeptu berri bat** (8); **kontzeptu berria** (10); **kontzeptu berriak** (8); **kontzeptu edo** (7); **kontzeptu eta** (17); **kontzeptu filosofiko** (9); **kontzeptu filosofikoak** (5); **kontzeptu guztiak** (4); **kontzeptu guztien** (4); **kontzeptu hau** (18); **kontzeptu hauek** (7); **kontzeptu honek** (5); **kontzeptu honen** (7); **kontzeptu hori** (59); **kontzeptu hori ez** (8); **kontzeptu horiek** (32); **kontzeptu horien** (6); **kontzeptu horrek** (10); **kontzeptu horren** (19); **kontzeptu horretan** (5); **kontzeptu horri** (7); **kontzeptu irekia** (6); **kontzeptu nagusiak** (4); **kontzeptu oso** (4); **oinarrizko kontzeptu** (5)

**adierazgarritasunaren kontzeptua** (4); **garapen iraunkor kontzeptua** (8); **izatearen kontzeptua** (5); **kontzeptua erabili** (9); **kontzeptua ulertzen** (4); **maila kontzeptua** (4); **nazio kontzeptua** (6); **nazioaren kontzeptua** (5)

**giltza kontzeptuak** (5); **kontzeptuak eratzeko** (5)

**kontzeptuaren arabera** (4); **kontzeptuaren barruan** (4); **kontzeptuaren inguruan** (5)

**nazio kontzeptuari** (5)

**kontzeptuen eraketa** (4); **kontzeptuen inguruan** (4)

---

# kontzeptual *izond* kontzeptuena, kontzeptuei dagokiena. ik **kontzeptu 3**.

Erdi Aroan bereganatu zuen sistema **kontzeptuala** Aristotelesena izan zen. Askoren artean

Euskal nazioa […] maila **kontzeptualean** bertan onartzeak. Joxe Azurmendi

Teoria ekonomikoan eta bere **joko kontzeptualaren** arauetan. Xabier Arregi

Fisikaren eraikuntza **kontzeptualak** berak eramango zaitu, ziurrenera, horretara. Berria - Gaiak

Analisi **kontzeptuala** sotiltasun handiz landuz. Askoren artean

Gizon, euskaldun: errepresentazio **kontzeptualak,** "artekoak", subjektu ezagutzaile eta ezagutzako objektuaren artean. Askoren artean

Gure diziplinan, "razional" adierazteko "arrazional" hitza erabiltzeak muga **kontzeptual** bat suposatzen duela uste dugu, "razional", "irrazional" eta "arrazional" hitzek kontzeptu filosofiko desberdinak adierazten baitituzte. ZTG ikasketen aitzindari **kontzeptualak**. Askoren artean

Fundazionistaren ustez, esperientzia horren edukia ez da **kontzeptuala:** ez da kategorizazio edo sailkapen baten barruan sartzen. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arte kontzeptuala** (3)

**arte kontzeptualaren** (4)

---

# kontzeptualismo *iz* doktrina filosofikoa, kontzeptu unibertsalak adimenean soilik, ideia abstraktu gisa, bizi direla aldarrikatzen duena.

Minimalismoari, postminimalismoari eta **kontzeptualismoari** buruzko erakusketa zabaldu dute New Yorkeko Guggenheim museoan. Berria - Kultura

70eko eta 80ko hamarkadetan gailenduriko espresionismotik eta **kontzeptualismotik** haratago zihoan pintura egin zuen: bizia eta burubakoa. Berria - Kultura

---

**kontzeptualizatu,** kontzeptualiza, kontzeptualizatzen **1** du *ad* kontzeptu bihurtu.

Hortaz, ekidin nahi diren ondorio potentzial ezkorrak arrisku terminoetan **kontzeptualizatzen** dira. Berria - Gaiak

Bera ahalegintzen da erakusten krisi horietan diskurtsoaren objektutzat jo daitekeena, nola aurki daitezkeen **kontzeptualizatuta** krisi horiek, nola prozesu horietan zehar kontrajartzen ziren interesek euren estrategiak erabil zitzaketen bertan. Xabier Arregi

Ez ote ziren izendatuko, enuntziatuko, **kontzeptualizatuko** jardute diskurtsibo batean. Xabier Arregi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Teologia **kontzeptualizatu** batetik edo Jainkoaren kontzepzio topiko batetik. Joan Mari Lekuona

---

**kontzeptualizazio** *iz* kontzeptualizatzea.

Zientzia-jardueraren **kontzeptualizazioa** Ezin ahaztu, ostera, tradizio analitikotik at, Cassirer-ek neokantismoan [...] edo Bachelard-ek egindako azterketa sakonak **kontzeptualizazioaz** . Askoren artean

Artifiziozko **kontzeptualizazio** hori guztia Ezerezean disolbatzen baita. Joan Mari Lekuona

Eta horrek **kontzeptualizazioa** eskatzen du, filosofia, alegia. Askoren artean

---

**kontzeptualki** **1** *adlag* alderdi kontzeptualean.

Dena den, obra **kontzeptualki** eta bisualki oso konplexua da. Berria - Kultura

**Kontzeptualki** artistak euskal estiloa azaldu nahi zuen, bi arima edo erritmo dituena: bata irregularra eta jarraikortasunik gabekoa; erregularra eta konstantea bestea. Berria - Kultura

Honako itzulpen honen helburua, azken finean, testu tekniko **kontzeptualki** soila azaltzea izan da batetik [...]; bestetik, latinezko idatzi jatorrizkoari leialtasun zorrotza gordetzea izan da asmoa. Santiago Iruretagoiena

**2** era kontzeptualean.

Pragmatismoaren arabera, posible da indukziozko metodoa aldarrikatzea **kontzeptualki**. Askoren artean

---

**kontzeptualtasun** *iz* kontzeptuala denaren nolakotasuna.

Baina badira, **kontzeptualtasunetik** at, beste osasun- eta gogamen-forma batzuk ere, nahiz eta neurologoek eta psikologoek gutxitan aintzat hartu. Xabier Olarra

Ezin dela eremu eszeniko kontzeptualik paratu batere **kontzeptualtasunik** ez duen antzezlan baterako. Berria - Kultura

Iruditeria eta **kontzeptualtasunaren** arteko oreka estilistikoa zen berak bilatzen zuen poetika Berria - Kultura

---

**kontzeptuaurreko** *izlag* kontzeptua baino aurreragokoa.

Antzeko azterketa nola edo hala **kontzeptuaurreko** maila bati dagokio, kontzeptuak batera existi daitezkeen eremuari eta eremua hau mendean duten arauei. Xabier Arregi

**Kontzeptuaurreko** eremuak agerrarazten ditu diskurtsoaren erregulartasunak eta betebeharrak. Xabier Arregi

**"Kontzeptuaurrekoak",** horrela deskribatua, ez du ostertz bat diseinatzen [...], haatik mailarik "azalekoenean" (diskurtsoaren mailan) benetan erabiliak diren arauen multzoa izango da. Xabier Arregi

---

**kontzeptugile** *izond*

Gizon aktibo, **kontzeptugile,** ekonomilari, profesionalaren emazte panpina, afariak apaintzen dituztenak, kremez eta masajeez eguneroko bizitza betetzen dutenak. Lourdes Oñederra

---

kontzeptzio ik **kontzepzio**.

---

**kontzepzio** (*orobat* ***kontzeptzio*** *g.er. eta* ***kontzepzione*** *g.er.*) *iz* ikusmoldea.

Ekonomiaren **kontzepzio** klasikoak -edo laburtuz, ekonomia klasikoak- Adam Smith-en obran ditu erroak. Iñaki Heras

Hor dugu ere ohiko legearen **kontzepzio** inperatiboa. Piarres Xarriton

Garapenaren **kontzepzio** zabal eta integral bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Autoreak filosofiaren **kontzepzio** jakin bat defendatzen du. Askoren artean

Artearen bi **kontzepzioen** arteko gatazkaren erdian gaude. Anjel Lertxundi

Gure **kontzepzio** etikoa guztiz dago moral kristauaz blai eginda. Askoren artean

**Kontzepzio** tradizionalaren arabera, jarrera proposizionalak moduan eta edukian bereizten dira elkarren artean. Askoren artean

Egiaren **kontzepzio** semantikoaren alde egin zuen. Askoren artean

---

kontzepzione ik **kontzepzio**.

---

**kontzertaldi** *iz* kontzertua.

Gero *Toccata*-n txinparta dizdiratsuak jaurti zituen **kontzertaldi** osoan jo zuen zati birtuoso bakarrean. Berria - Kultura

---

**kontzertante** *izond* orkestra musikaz mintzatuz, bakarlari bat baino gehiago duena.

Brahmsen azkenengo obra **kontzertantea**. Berria - Kultura

Sinfonia **kontzertante** txikia. Berria - Kultura

2. ekitaldiko *lo son la misera* **kontzertantearen** bukaeran. Berria - Kultura

---

**kontzertatu**, kontzerta, kontzertatzen **1** du *ad* adostu, bat etorrarazi.

Alexeiev zuzendariak ez zuen arazorik izan, orkestra eta pianoa **kontzertatzeko** goranzko eskalen osteko sarreretan izan ezik. Berria - Kultura

Asko gustatu zitzaigun Ubieta, Mansilla eta Davidova hirukote xarmangarri eta ondo **kontzertatua**. Berria - Kultura

**2** itun baten arabera antolatu.

Lapurretei aurre egiteko sistema oso egokia da, baldin eta zerbitzua sistema zentralizatu batera **kontzertatzen** bada. Berria - Harian

Haietako 14 **kontzertatutako** zentruak dira. Berria - Euskal Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Ikerketa **kontzertatu** bat, xede zehatzak dituena eta sozialki oso antolaturiko jarduera bat eskatzen duena. Juan Garzia

Zerbitzu pribatu **kontzertatuek**. Berria - Euskal Herria

Zerbitzuen unibertsaltasuna eta izaera publikoa (ez pribatua, ez **kontzertatua**) ezinbestekoa da. Berria - Harian

Euskaltegien sare **kontzertatuarekin**. Berria - Euskal Herria

Eskola publiko, pribatu eta **kontzertatuen** arteko desberdintasunak. Berria - Gaiak

Ikastetxe pribatu **kontzertatuek** irakasleak behin-behinean kontratatzeko. Berria - Euskal Herria

Izan ere erakunde publikoek legez ezin dute irakaskuntza **kontzertatuko** zentro baten eraikuntza lagundu. Berria - Euskal Herria

Zerbitzuen unibertsaltasuna eta izaera publikoa (ez pribatua, ez **kontzertatua**) ezinbestekoa da. Berria - Harian

---

**kontzertatzaile** *izond* kontzertatzen duena.

Abel maisu **kontzertatzaileak** Szeged-eko orkestrari eman zion indarra eta malgutasuna aipatu behar ditugu. Berria - Kultura

---

**kontzertazio** *(orobat* ***kontzertazione*** *g.er.,* ***konzertazio*** *g.er. eta* ***konzertazione*** *g.er.)* **1** *iz* kontzertatzea. bat etorraraztea.

Juanjo Menaren **kontzertazio** egokia. Berria - Kultura

**2** itun baten arabera antolatzea.

Laster sortuko den "Euskararen Bulego Publikoaren" baitan, Erretoreak berak departamenduarekin izenpetua duen hitzarmenaren barnean, hor da iraganen **kontzertazio** antolatua. Herria

Hezkunde Nazionala engaiatuko duen **kontzertazio** horretatik aterako da urte zenbaitetarako programaketa bat. Herria

*Bil ta Garbi*k **konzertazioan** oinarritu prozedura ezarri du plantan eta horren ondorioz errausketa xedea baztertzea deliberatu du *Partaide* sareko ikastolek **kontzertazioen** mapa berriro negoziatzeko eskatuko diote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sei edo zazpi **kontzertazio** lerro gehiago beharko lituzkete, bukatu berri den matrikulazio kanpainan jaso dituzten eskaerei erantzuteko. Berria - Euskal Herria

Gobernuak **kontzertazio** bidea erabili nahi du Herri Ogasun eta jabeen arteko konponbidea antolatuz. Berria - Euskal Herria

Erabakia hartu baino lehen, Prefeturak **konzertazio** talde bat osatu zuen, bertan ingurumenaren aldeko taldeak present zirelarik. Berria - Euskal Herria

Erakunde ezberdinen eskumenak uztarturik daude eta horrek **kontzertazio** lan bat eskatuko du ardura xedea indarrean ezarri baino lehen. Berria - Euskal Herria

---

kontzertazione ik **kontzertazio**.

---

**kontzertino** *iz* orkestrako lehen biolinista, bakarkako zatiak jotzen dituena.

Sinfoniaren bigarren denboran, **kontzertinoaren** solo eztitsuaren bitartez. Berria - Kultura

---

**kontzertista** *iz* bakarlari gisa kontzertuak ematen dituen pertsona.

Alvaro Iborra klarinete jotzaileak **kontzertista** izateko promesa dela erakutsi zigun lanak dituen bi zatietan. Berria - Kultura

Orain ez du besterik egin nahi, musika jo, musika ikasi eta ahalaz hortaz bizi, berantxago **kontzertista** izaitea baita bere amentsa. Herria

---

**kontzertu** *(orobat* ***konzertu*** *g.er.)* **1** *iz* musika emanaldia, batez ere talde batek egina.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren **kontzertu** bat. Juan Luis Zabala

Gaiarren eman zuten lehen **kontzertu** hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Korsikar talde batek, Argusgi, **kontzertu** bat emanen du. Herria

**Kontzertu** bat bazen Ezpeletako merkatuan: "Itoiz" taldea zuzenean! Ramuntxo Etxeberri

Jende gehien bildu zuen ekitaldia, hala ere, Fermin Muguruzaren **kontzertua** izan zen. Edurne Elizondo

**Kontzertu** alternatiboetan arrakastarik itzelena lortu duen rockeroa. Pako Aristi

Perkusioa eta musika korala, EOSen **kontzertu** didaktikoetan. Berria - Kultura

Garai bateko **kontzertu** erraldoiak krisian daudenean. Berria - Harian

**Kontzertua** hasia da. Eneko Bidegain

**Kontzertua** amaitu ondoren, ezinbesteko kopa parea hartu, eta apartamentura joatea proposatu diot. Patxi Iturritegi

Poliki atera zitzaidan **kontzertua** eta pozik nengoen. Anjel Lertxundi

· Txorien **kontzertu** beti frexko naturalez gozatuz. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elkarteak **Kontzertu** Areto Zaharretan eman behar zituen lau kontzertu nagusietan. Irene Aldasoro

Duela aste pare bat, Bowery Ballroom **kontzertu** aretoan izan nintzen *Morphine* rock taldea ikusten. Harkaitz Cano

**Kontzertu** esparrutik irten eta aparkaleku aldera abiatu dira hirurak. Holohan jauna, *Eire Abu* elkarteko idazkariordea, ia hilabetean ibili zen Dublinen batera eta bestera [...] **kontzertu**-emanaldiak antolatzen. Patxi Iturritegi

Hasiera-hasieratik izan naiz Euskadiko Orkestraren **kontzertu**-zikloetako bazkide. erietxean elkarrengandik banatzean, artean ere, **kontzertu**-giro nabarmenean murgildurik zegoen. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hemen Vilniusen jazz **kontzertuak** eskainiko dizkigute datozen hiru egunetan. Edorta Jimenez

Euskal rock **kontzertu** anitz ba ote zen garai hartan? Ramuntxo Etxeberri

Kafe- **kontzertu** batean zaudetela uste duzue, ala? Josu Zabaleta

· Atzean klaxon **kontzertu** galanta utzirik aldendu zen Arrieta. Migel Angel Mintegi

**4** berez sonata forma duen musika lana, orkestra eta musika tresna bakarlari batentzat idatzia.

Azken finaren hurbila sumatuta edo goi arnasaren hatsak berriro epelduta, biolontxelo eta orkestrarako **kontzertu** bat osatu zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Maurice Ravelek idatzitako piano- **kontzertu** harekin akordatu nintzen.Txaikovskiren biolin- **kontzertu** zoragarria jotzera. Harkaitz Cano

Glazunoven Biolin **Kontzertuari** ekin zion, bere hil bezpera balitz bezala. Felipe Juaristi

· Brandeburgoko bigarren **kontzertua,** hain zuzen. Alberto Ladron Arana

**5** irud/hed

Hizkuntzen **kontzertuan** hots gutxi ateratzen duten hizkuntzetako idazleok pagotxa halako bat dugu dena esanda dago topikoari ihes egiteko Anjel Lertxundi

**6** kontzertu ekonomikoa.

Duela bost urte **Kontzertuak** izan zuen lehentasun osoa, eta Kupoa ia aurrekoa bezala geratu zen, aldaketa handirik egin gabe. Berria - Ekonomia

Legebiltzarrean lege proposamen bat aurkeztu dugu **Kontzertua** ikuspuntu juridikotik bermatzeko. Berria - Ekonomia

**Kontzertua** bi aldeko ituna baldin bada, eurek ere konpromisoak hartu behar dituzte. Berria - Ekonomia

Katalanek ere euskal **kontzertuarekin** parekatze nahia azaldu dute, eta ez zaio arazoari konponbide errazik ikusten. Joseba Zulaika

**7** ***kontzertu ekonomiko*** ekonomiari buruzko ituna.

**Kontzertu** Ekonomikoa euskal herritarren «eskubide historikoa» dela. Berria - Ekonomia

EAEko **Kontzertu** Ekonomikoaren barruan, Ekarpenen Legeak arautzen du zergen bidez bildutako dirua hiru lurraldeetako erakundeen artean nola banatu. Berria - Euskal Herria

Duela bost urte **Kontzertu** Ekonomikoa eta Kupoa berritu ziren. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Estatuaren betiko dilema ezaguna da: zenbat eta abantaila gehiago eman, **Kontzertu** Ekonomikoa barne, orduan eta gehiago nahi. Joseba Zulaika

**Kontzertu** ekonomikoa blindatu behar dugu. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**hiru kontzertu emango** (8); **kontzertu areto** (7); **kontzertu bat emanen** (5); **kontzertu bat eskaini** (6); **kontzertu bat eskainiko** (13); **kontzertu bat izanen** (11); **kontzertu berezi** (10); **kontzertu berezia** (6); **kontzertu bikoitza** (6); **kontzertu didaktikoa** (5); **kontzertu eder** (13); **kontzertu eder bat** (10); **kontzertu ederra** (8); **kontzertu ekonomikoa** (18); **kontzertu ekonomikoak** (5); **kontzertu ekonomikoaren** (9); **kontzertu eman** (8); **kontzertu emango** (30); **kontzertu emango ditu** (21); **kontzertu emango dituzte** (8); **kontzertu eskaini** (6); **kontzertu eskainiko** (20); **kontzertu eskainiko ditu** (14); **kontzertu eta dantzaldi** (6); **kontzertu handi** (16); **kontzertu handi bat** (9); **kontzertu handia** (5); **kontzertu nagusia** (7); **kontzertu osoa** (8); **musika kontzertu** (15); **rock kontzertu** (14); **rock kontzertu bat** (5)

**aurkezpen kontzertua** (12); **eguberriko kontzertua** (12); **eman zuen kontzertua** (7); **emango du kontzertua** (8); **eskainiko du kontzertua** (5); **eskainiko dute kontzertua** (5); **eskainitako kontzertua** (5); **fermin muguruzaren kontzertua** (5); **kontzertua antolatu** (8); **kontzertua egin** (7); **kontzertua egingo** (12); **kontzertua eman** (15); **kontzertua emango** (52); **kontzertua emango du** (40); **kontzertua eskaini** (11); **kontzertua eskainiko** (49); **kontzertua eta dantzaldia** (5); **kontzertua hasi** (11); **kontzertua izan** (16); **kontzertua izango** (27); **kontzertua izango da** (18); **muguruzaren kontzertua** (8); **musika kontzertua** (5); **omenezko kontzertua** (9); **organo kontzertua** (23); **orkestrarako kontzertua** (6); **piano kontzertua** (6); **rock kontzertua** (7); **taldearen kontzertua** (25); **taldeen kontzertua** (6)

**aurkezpen kontzertuak** (6); **kontzertuak egingo** (8); **kontzertuak egiteko** (5); **kontzertuak egiten** (6); **kontzertuak eman** (6); **kontzertuak emango** (5); **kontzertuak emateko** (6); **kontzertuak ematen** (15); **kontzertuak eskainiko** (5); **kontzertuak izan** (6); **kontzertuak izango** (17); **kontzertuak izango dira** (14); **musika kontzertuak** (5)

**emandako kontzertuaren** (5)

**gospel kontzertuen** (6)

**kontzertura joan** (7)

**eskainiko duen kontzerturako** (7); **kontzerturako sarrera guztiak** (6); **kontzerturako sarrerak** (19); **kontzerturako sarrerak agortu** (6)

---

# kontzesio *(orobat **konzesio** g.er., **kontsezio** g.er. eta **kontzezio** g.er.)* **1** *iz* amore ematea.

Euskaraz bizi gura duen euskalduna egun osoa atergabeko teinka, porrot, **kontzesio,** enpeinu, stressean bizitzera behartua dago. Joxe Azurmendi

Zuritasunari egindako **kontzesio** bakarra diskoaren egilea eta izenburua ziren. Aingeru Epaltza

Bere santutasun bakartian munduari eta errealismoari **kontzesio** gabe bizi denarentzat. Joxe Azurmendi

Berlusconik **kontzesio** gehiago egingo die koaliziokideei, gobernu krisia buka dadin. Berria - Mundua

Maniobra berri bat da Washingtondik **kontzesio** gehiago lortzeko. Berria - Mundua

Ez, **kontsezio** horiek ez dira Jerusalem zatitzea edo iheslari palestinarrak itzultzea onartzea izango, Gazako kokagune judu batzuk kendu eta Zisjordanian jartzea baino. Berria - Mundua

Haiek egin ditzatela nahitaezko **kontzesioak,** eta gu "saldukeria" salatzeko libre gaude orduan. Joseba Zulaika

**2** administrazioak, bere ondasun edo zerbitzu bat kudeatzeko baimena, enpresa edo pertsona bati ematea.

Lur baten **kontzesioa** eskatu zuen arte. Berria - Kultura

75 urteko **kontzesioa** dute. Berria - Gaiak

Kasinoen eta Interneten bidezko jokuaren **kontzesioak** ustiatzen dituzte. Berria - Gaiak

Illunbe kudeatzeko **kontzesioa**. Berria - Euskal Herria

**kontzesioa** legez kanpokoa zela epaitu baitzuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. Berria - Euskal Herria

**Kontzesioa** bertan behera uzteko eskatu zion Ordiziako Udalari Iñigo Lamarcak. Berria - Euskal Herria

Ez dakit zeren arabera eta ez dakit zeren truke, hari edo honi egiten zion mea erauzteko **kontzesioa,** mearen gaineko lurraren jabeari eskuarki. Xabier Mendiguren Elizegi

Kolonia-baliabideen ustiaketarako monopolioen **kontzesioa** izan zen merkataritzaren hedapenaren bigarren eragilea. Koro Navarro

2,8 milioi jaso zituen **kontsezio** urbanistiko bat lortzeko informazioaren truke. Berria - Kirola

Bankuek orain konkurrentzia bikoitza pairatu behar dute, beren jardueren bi alderdiekin lotua: ekonomia-kredituen **kontzesioa** eta funtsak erakartzea. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan)

**Kontsezio** kontratuaren arabera, «ordezkatzeko eskubidea» aldarrikatu eta bankuek kontrola har dezakete. Berria - Ekonomia

· Irrati eta telebistei dagokienez, emisio- **kontzesioa** eduki behar dute enpresek edo eskatzaileek. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kontzesio gehiegi egiten** (3)

**kontzesioak egiteko** (3)

**kontzesiorik egin** (3)

---

# kontzesionario **1** *iz* kontzesioa bat duen pertsona edo enpresa.

Hamarka ofizina eta denda dituzte inguruotan: hortxe aurrean bertan BBVren sukurtsal bat, Trabajo Temporal SA-ren bulego nagusia, eta baita auto frantsesen **kontzesionario** bat ere. Iban Zaldua

**2** (hitz elkartuetan)

Auto **kontzesionario** bateko zuzendaria. Iñigo Aranbarri

kontzezio ik **kontzesio**.

---

**kontziente** 1 *izond* jakinaren gainean egiten dena; ohartua, ezaguerazkoa. ik **konsziente 2**.

Ez duzu, beraz, zeuk erabaki **kontzientea** egin... Ana Urkiza

Ez zen erabaki oso **kontzientea** izan. Ana Urkiza

Era **kontzienteago** batean. Ana Urkiza

Nortasun **kontzienteak** psikearen azpimundu subkontzienteari borondatearen eta arrazoiaren kontrolpean eutsi behar diola. Iñaki Mendiguren

Horien oroitzapen esplizitu edo **kontzienterik** ez dago hortik aurrera. Xabier Olarra

Eragin **kontzienteez** gain, irakurketek, irudiek eta hotsek idazlearen ganbaran pilatu dituzten arrasto inkontziente bezain errotuak ditu sorkuntza-lan batek iturri nagusi . Anjel Lertxundi

Margareten esateko modu hori bereganatua baitzuen Stephenek, eta ez nuen garbi ikusten ea automatikoa zen ala **kontzienteagoa,** umorezko parodia. Xabier Olarra

Emakumeak ez duelako modu **kontzientean** sentitzen, eta, horregatik, ez du inoiz aipatzen. Luis Elberdin

• **2** *iz* kontzientzia.

Erromara egindako bidaia haiei esker Freudek **kontzientea** eta azpikontzientearen teoria osatu zuen. Edorta Jimenez

Literaturak inkontzientean ditugun irudiak **kontzientera** ateratzeko balio du, Ana Urkiza

**3** ***kontziente izan*** jakitun izan.

**Kontziente** izan al zara emakumetasun horretatik idazten duzula? Ana Urkiza

Zeren gizakia bere gurariaz **kontziente** izan ala ez izan, bera da beti guraria. Piarres Xarriton

Beraz, ongiaren eta gaizkiaren ezagutza hori ez da afektua bera baizik, horren **kontziente** garen bezainbatean. Piarres Xarriton

Ez nintzen **kontziente** biluztasuna publiko bihur zitekeenik. Ana Urkiza

**4** ***kontziente egon*** konortea izan, ezagueran egon

Gaixoa erabat **kontziente** egonik eta minik sentitzeke. Irene Aldasoro

**Kontziente** nago; lehenik kontaera eta liburua gero bilatzea posible balitz moduan erantzun nion. Edorta Jimenez

· -Etxean dago baina ez oso **kontziente**. Josu Landa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontziente bihurtzea** (4); **kontziente izan** (19); **kontziente izango** (3); **kontziente izatea** (4); **kontziente izaten** (4)
> **modu kontzientean** (3)
> **ahalegin kontzienterik** (3)

---

**kontzienteki** *(orobat **konzienteki** g.er.)* *adlag* ohartuki, ezaguerarekin; jakinaren gainean. ik **konszienteki**.

**Kontzienteki** askotan, ohartu gabe beste batzuetan. Iñaki Arranz

Mugimendu horren parte nahi dut izan, aktiboki eta **kontzienteki**. Ana Urkiza

Benetako adierazpenak **kontzienteki** kontrolatutakoak dira. Ordutik aurrera **kontzienteki** idatzi duzu emakume izanik? Askoren artean

Literatura feminizatu egin da, irakurlea ere, neurri esanguratsu batean, emakumezkoa da eta idazle asko euren literatura feminizatzen saiatu da: **kontzienteki** edo ez **kontzienteki**. Ana Urkiza

---

**kontzientzia** *(orobat **konzientzi** g.er., eta **konzientzia** g.er.)* **1** *iz* *(orobat **konszientzia** g.er.)* zenbaiten ezaguera bat-batekoa eta berezkoa.

Horren guztiaren **kontzientzia** dago eta, tamalez!, **kontzientziaren kontzientzia**. Monika Etxebarria

Oso gustura zegoela; hain gustura, non gustura egotearen **kontzientzia** zuen. Ramon Saizarbitoria

Kezkatzen ninduena zen, batik bat, Alemanian gertatzen ari zenaz inork **kontzientziarik** ez izatea Estatu Batuetan. Ramon Etxezarreta

Zuk fede diozun hori gure indarraren **kontzientzia** baizik ez da. Josu Zabaleta

Eta hor da bere existentziaren zentzua: sobran dagoelako **kontzientzia** da. Monika Etxebarria

Hegoaldean ikusten da, zein barna finkatua den aspaldian euskaldunek nazio bat osatzen dutelako **kontzientzia**. Piarres Xarriton

Hiztunen **konszientzian**, nominatiboa ez da, inolaz ere, deklinabidearen lehen kasua. Isabel Arrigain

**Konszientzia** linguistikoak. Isabel Arrigain

Ekintzarik gabeko **kontzientzia** ala kontzientziarik gabeko ekintza, horra auzia. Juan Garzia

**2** gizakiak bere izateaz eta aritzeaz duen ezaguera.

Norberaren buruaren **kontzientzia** (apertzepzioa) *ni*aren errepresentazio bakuna da. Ibon Uribarri

Biak gara, izan ere: garenaren **kontzientzia,** batetik, eta **kontzientzia** horri babesa ematen dion inkontzientea, bestetik. Pako Aristi

Hala gaitu **kontzientziak** koldar bilakatzen guztiok. Juan Garzia

Hormak eta etxe-barneko gauzak handik eta hemendik ukitu, eta espazioaren, trinkotasunaren eta perspektibaren **kontzientzia** izateko. Xabier Olarra

Gu ez gaituk soldataren esklabu, gu gaituk gizartearen **kontzientzia**! Pako Aristi

Ez dut bada uste aurkituko den legelaririk, zientzia bezainbat **kontzientzia** baduenik. Piarres Xarriton

**3** (aditz baten objektu gisa)

Gizarteak mugatzen du **kontzientzia** ala kontzientziak mugatzen du gizarte mota? Iñaki Heras

Kordea galdu nuen, baina ez dut halere esango **kontzientzia** osorik galdu nuenik. Koro Navarro

Bekatuaren **kontzientzia** ahultzen zihoan heinean. Itxaro Borda

Beren irudimena arautu eta **kontzientzia** sorgortzeko erabiltzen duten edari mistikoa. Xabier Olarra

Behin-betiko euskal **kontzientzia** astindu zuen eztanda. Joseba Zulaika

**Kontzientzia** kezkatzen zion zerbait burura etortzen bazitzaion, berehala aitortzen zen. Askoren artean

Konbentziook ohitura bihurtu direla, eta beren arbitrarietatearen **kontzientzia** galdu dela. Joseba Sarrionandia

Ez dakigu burmuineko prozesu neurobiologikoek **kontzientzia** zelan sortzen duten zehazki. Joseba Sarrionandia

Horretara errenditzen ote zen **kontzientzia** galarazi zion amodioa? Patxi Zubizarreta

**4** (izenondoekin)

**Kontzientzia** osoz hartu nuen, bada, erabakia. Anjel Lertxundi

Elkarrekiko mendekotasunaren **kontzientzia** argiago horrek. Koro Navarro

Ikusleen **kontzientzia** lozorrotuaren auziarekin hasi, eta begira non bukatu dugun. Karlos Linazasoro

Neure baitatik atera eta besteenganako **kontzientzia** berri bat sortzen sentitu dut. Pako Aristi

**Kontzientzia** kolektibo bati eragingo liokeen agindu bat entzunda bezala desagertzen ziren denak nire ingurutik. Pako Aristi

Bizipen indibidualaren eta **kontzientzia** pertsonalaren absolututasuna. Askoren artean

Herriaren **kontzientzia** kritikoa. Andoni Egaña

**Kontzientzia** enpiriko ezberdin oro autokontzientzia bakarrean lotu behar da. Ibon Uribarri

**Kontzientzia** bizi-bizia eduki behar da, edo gutxienez **kontzientzia** larri horri zegoela ulertu egin behar da, Mirande eta Mirande bezalakoak ulertzeko. Joxe Azurmendi

Heriotzaren, denboraren eta iheskortasunaren **kontzientzia** bizia duzu... Ana Urkiza

**Kontzientzia** espainolaren "sustrai telurikoak". Joxe Azurmendi

## **5** norberaren egintzen zintzotasun edo gaiztotasunaz epaitzea edo epaitzeko ahalmena.

**Kontzientzia** baita barrendik bizi ditugun, edo, hobeki, barrendik bizi gaituzten aingeruen eta deabruen arteko gudutokia. Joan Mari Irigoien

Hire **kontzientziak** esaten badik ondo egin huela, kitto. Koldo Biguri

Gure **kontzientziak** penitentzia bat jarria zigun, eta guk bete egin genuen zigorra. Juan Garzia

**Kontzientzia** omen damuaren gunea. Xabier Olarra

Bakean dut **kontzientzia**. Josu Zabaleta

Beharbada, Achille jaunak ez dauka **kontzientzia** oso lasai. Monika Etxebarria

Beti itzultzen da **kontzientzia** krimenaren lekura. Harkaitz Cano

Zama bat nuen **kontzientzian**. Juan Luis Zabala

**Kontzientziaren** ausikia, azkenik, Bozkarioari kontrajartzen zaion Tristura da. Piarres Xarriton

**Kontzientzia** lasaitu nahian. Pello Salaburu

**Kontzientzia** arintzeko lain izan zen. Fernando Morillo

Barnean gaiztotzen ari zitzaion errua garbitu nahi zuen, bere **kontzientzia** araztu eta berriz hasi. Oskar Arana

**Kontzientzia** ez zitzaion erabat baretu. Jose Morales

## **6** (izenondoekin)

Bihotz garbitik, **kontzientzia** onetik eta itxurakeriarik gabeko sinesmenetik datorren maitasuna indartzea. Elizen arteko biblia

**Kontzientzia** oneko gizona nintzela. Joan Mari Irigoien

Horrenbesterainokoa baita **kontzientzia** gaiztoaren eragina. Ramon Saizarbitoria

Hari umorea hobetzeko, eta niri **kontzientzia** gaiztoaren zama arintzeko. Ramon Saizarbitoria

Nabarmen ari bainaiz marmarka, inolako **kontzientzia** txarrik gabe, ordea. Josu Zabaleta

Egizue apaltasunez eta errespetuz, **kontzientzia** garbiz jokatuz Elizen arteko biblia

## **7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurrera egiten duen eta gogoratzen duen **kontzientzia** eredu orokor batera. Inolako **kontzientzi** kargurik zertan izan beharrik gabe. Xabier Arregi

**Kontzientzia** karga zamatsuenetako bat. Patziku Perurena

**Kontzientzi** arazoa da haientzat erlijio guztiak onartzea. Iñaki Iñurrieta

Nagusiak ez dio **kontzientzia**-aitzakiarik onartu. Pako Aristi

**-Kontzientzia**-kasu bat daukat. Josu Zabaleta

**Kontzientzia** askatasuna, adierazpen askatasuna. Iñaki Heras

**Kontzientzi** azterketa luze eta larria egin zuen aitortzailearengana joan aurretik. Josu Zabaleta

Gerrek sortzen duten gizarte krisia eta bere baitan sortzen zaion **kontzientzia** krisia. Josu Zabaleta

**Kontzientzia**-egoerak bizitza estutasunetan jar zezakeela. Josu Zabaleta

**Kontzientzia** jarioaren eredua, non orainak etengabe ihes egiten dion bere buruari etorkizunaren irekiduran eta iraganaren atxikipenean. Xabier Arregi

Halako krisietan gertatu ohi den **"kontzientzia**-bikoizketa" aipatzen du Hughlins Jacksonek. Xabier Olarra

## **8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mendebaldeko Kristandadearen gizarte-**kontzientzia** berriaren sorrera. Iñaki Mendiguren

Hegoaldean alderantziz, Humboldtek aipu zuen herri-**kontzientziari** esker beharbada, herritarren kemenak irekitzen zituela lantegi berriak, sortzen kooperatibak eta eraikitzen ikastegiak. Piarres Xarriton

Talde-**kontzientzia** dugu, beste hainbat gizatalde indigenak bezala. Edorta Agirre

Preso "arriskutsu" horiek izan ohi dira, hain zuzen, nolabaiteko klase **kontzientzia** daukatenak. Jokin Urain

Mirande krisi-**kontzientzia** honetan dugu idazten hasia. Joxe Azurmendi

Barrua bekatu-**kontzientzia** guztitik garbiturik eta gorputza ur garbiz txukundurik. Elizen arteko biblia

Kristautasunak judaismoarekiko zuen erlazioa ezeztaezina zen juduen begietara eta gogaikarriro anbiguoa zen kristau-**kontzientzientzat**. Iñaki Mendiguren

Eta bizitza honetan, berriz, nola arinduko dut hiltzaile-**kontzientziaren** zama, kontzientzia, definizioz, luma baino eta airea baino eta pentsamendua bera ere baino arinagoa baita? Anjel Lertxundi

## **9** ***auto-kontzientzia***

Aspergerren sindromean, berriz, badago auto-**kontzientzia,** eta introspekziorako eta kontaketarako ahalmen nolabaiteko bat ere bai, behintzat. Xabier Olarra

Baina ezin izan zuen hain laster desagertarazi gobernari izandakoen auto-**kontzientzia** politikoa. Iñaki Mendiguren

## **10** ***kontzientzia-eragozle*** *iz*

Hiru urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra ezarri dio Greziako epaitegi batek Giorgos Monastiriotis 24 urteko **kontzientzia-eragozleari,** Irakera joan nahi ez izateagatik. Berria - Mundua

Aleman anitz, Holandesak, **kontzientzia eragozleak** edo Jehovah-ren lekukoak egun oroko Bibliaren irakurtzeari jarraikiak ziren. Marzel Etxehandi

Mota askotako **kontzientzia eragozleak** daude, baina mugimenduak denak onartzen ditu. Berria - Mundua

Nafarroako ginekologoak **kontzientzia eragozleak** direla dio kontseilariak. Berria - Euskal Herria

## **11** ***kontzientzia eragozpen***

Soldadutza egitearen aurkako **kontzientzi** eragozpenean. Iñaki Mendiguren

Ertzainetako beste batek [...] ez du ulertzen zergatik joan behar duten sei gazte bakean bizi diren etxe bat gehiago hustera, baina nagusiak ez dio **kontzientzia-eragozpenik** onartu. Pako Aristi

**Kontzientzia Eragozpen** Mugimenduak eta *Ekologistak Martxan* taldeak. Berria - Euskal Herria

**Kontzientzia eragozpena** argudiatuz, antisorgailu horri buruzko informaziorik ere ez duela banatzen salatu du EAk. Berria - Euskal Herria

## **12** ***kontzientzia hartu*** ik **kontzientziatu.**

Zaila zen **kontzientzia hartzea**. Bernardo Atxaga

**Kontzientzia hartzen** dudalarik, horrek izutzen nau. Daniel Landart

Jendeak suteak kaltegarriak direlako **kontzientzia har** dezan. Ramon Saizarbitoria

Jendeak **kontzientzia har** dezan lurra xahutzen ari dugula, gizadiaren geroa gakatuz. Herria

Hitz egitea, edo idaztea, **kontzientzia hartzeko** modurik trebeena baino ez da. Pako Aristi

Gauza bat baita emakume izatea, eta beste bat, poemak iradokiko lukeena, emakume izate horren **kontzientzia hartzea**. Joxerra Garzia

Bere buruaren **kontzientzia hartzeak** lotsa gorritan utzi zuen Gabriel bat-batean. Irene Aldasoro

Euskalduntasunaren **kontzientzia hartze** horretan, gerla karlistarik landa Hegoaldetik jin errefuxiatuek zerbait eragin eduki zutela. Itxaro Borda

**13** ***kontzientzia-objektore*** *(orobat* ***objetore****)* *iz* kontzientzia-eragozlea.

Hirukia gorria zen preso politikoen kasuan, berdea preso arruntenean, bioleta **kontzientzia-objektoreentzat,** beltza "asozialentzat", arrosa homosexualentzat. Urtzi Urrutikoetxea

Porturi, baina, **kontzientzia-objetore** aurpegia jarri zitzaion. Patxi Iturritegi

**14** ***kontzientzia-objekzio*** kontzientzia-eragozpena.

Alde batetik auzapez batzu altxatu dira horren kontra, bereziki Partidu Popularreko eskuinekoak, Auzapezek kontzientzia **objekzioaren** izenean ezkontra mota horren errefusatzea galdatua izanen zaielarik. Herria

Epaiketan semeari ez diote bere buruaren defentsa egiten utzi eta **kontzientzia objekziorako** eskaera ez dute kontuan izan. Berria - Mundua

**15** ***kontzientziako har*** *(orobat* ***kontzientziaren har*** *g.er.)*

Baina azken galdera bat neukan hozkaka, **kontzientziako harra** bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Anshelenganako maitasun handi batek hartu zuen Avigdor, lotsarekin, **kontzientziako harrarekin,** larritasunarekin batera. Koro Navarro

Zure **kontzientziako harra** isilarazi nahian hark lapurtutako dirua bere lekuan jartzera zoaz. Xabier Olarra

**Kontzientziaren harra** ausikika hasten zitzaidanean. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere buruaren kontzientzia** (3); **burges guztien kontzientzia** (3); **euskal kontzientzia** (8); **giza kontzientzia** (9); **gizarte kontzientzia** (4); **izatearen kontzientzia** (17); **jendearen kontzientzia** (4); **klase kontzientzia** (3); **kontzientzia alatzen** (3); **kontzientzia aldaketa** (3); **kontzientzia arazorik** (5); **kontzientzia argia** (4); **kontzientzia askatasuna** (4); **kontzientzia berri** (7); **kontzientzia berri bat** (5); **kontzientzia berria** (3); **kontzientzia bizi** (3); **kontzientzia bizia** (5); **kontzientzia enpiriko** (10); **kontzientzia enpirikoa** (7); **kontzientzia enpirikoaren** (3); **kontzientzia eragozleak** (6); **kontzientzia eragozpen** (5); **kontzientzia eragozpen mugimenduak** (3); **kontzientzia eragozpena** (5); **kontzientzia esnatzeko** (4); **kontzientzia falta** (3); **kontzientzia faltsua** (3); **kontzientzia faltsua ahanzteko** (3); **kontzientzia gaiztoa** (6); **kontzientzia gaiztoaren** (3); **kontzientzia galdu** (3); **kontzientzia garbi** (10); **kontzientzia garbia** (4); **kontzientzia handiagoa** (4); **kontzientzia har** (4); **kontzientzia har dezan** (3); **kontzientzia hartu** (12); **kontzientzia hartze** (7); **kontzientzia hartzea** (16); **kontzientzia hartzearen** (3); **kontzientzia hartzeko** (5); **kontzientzia hartzen** (3); **kontzientzia kolektibo** (5); **kontzientzia kolektiboa** (3); **kontzientzia larri** (3); **kontzientzia lasai** (15); **kontzientzia lasaitzeko** (5); **kontzientzia lasaiz** (3); **kontzientzia morala** (3); **kontzientzia nazionala** (7); **kontzientzia oso** (5); **kontzientzia osoa** (6); **kontzientzia osoz** (5); **kontzientzia piztu** (7); **kontzientzia politiko** (3); **kontzientzia politikoa** (8); **kontzientzia txar** (4); **kontzientzia txarra** (18); **kontzientzia txarrak** (5); **kontzientzia txarrarekin** (3); **kontzientzia txarraren** (5); **kontzientzia txarrik** (5); **kontzientzia zuzena** (4); **krisiaren kontzientzia** (4); **kristau kontzientzia** (3); **nazio kontzientzia** (11); **norbere buruaren kontzientzia** (3); **norbere kontzientzia** (4); **talde kontzientzia** (4)

**jendearen kontzientziak** (3); **kontzientziak agintzen** (4); **kontzientziak aztertzen** (3); **kontzientziak esaten** (3)

**kontzientziako harra** (3)

**herritarren kontzientzian** (3)

**euskal kontzientziaren** (4); **kontzientziaren ahotsa** (6); **kontzientziaren ahotsa izan** (3); **kontzientziaren arabera** (6); **kontzientziaren aurka** (4); **kontzientziaren ausikia** (7); **kontzientziaren ausikiak** (3); **kontzientziaren ausikien** (5); **kontzientziaren batasun** (8); **kontzientziaren batasuna** (8); **kontzientziaren esanera** (4); **kontzientziaren harra** (8); **kontzientziaren iratzartzea** (3); **kontzientziaren kontra** (3)

---

## kontzientziadun *izond* kontzientzia duena.

Bere menpean errepresentazio **kontzientziaduna** dago (*perceptio*). pertsona garbien eta **kontzientziadunen** lagungiroa bilatu nuen. Ibon Uribarri

Gizakiari eta animaliari bizitza ona eta heriotza ona ematea izango da euskarri nagusietako bat, kalitatea zaintzen duen negozio hau bezero dirudun eta **kontzientziadunentzat** negozio masiboa baino errentagarriago izango baita. Edorta Agirre

---

## kontzientziagabe *izond* kontzientziarik gabea.

Historia ekintza da; ekintza ezin da natura **kontzientziagabetik** partitu (hori zirkunstantzia edo baldintza soil izango da). Joxe Azurmendi

Kultura- eta **kontzientziagabeenak** -zer dakiten ez dakitenak- egiten dituelako denetan jantzienak eta landuenak. Iñaki Segurola

---

## kontzientzialdi *iz* zerbaiten kontzientzia izaten den aldia.

Zure mespretxu, zure hoztasun, zure ezaxola mota guztiak burutik paseak zitzaizkidan ikuskizun beldurgarrietan... baina hau, ez nire gogaldirik ilunenetan, ezta nire kaskarkeriaren **kontzientzialdi** larrienetan ere, aintzat hartzen ausartu ez nintzen hauxe, lazgarriena: nire existentzia ere hautemana ez zenuela, inondik ere. Eduardo Matauko

---

## kontzientziatsu *izond* kontzientziaz betea.

Izan ere, kontzientziako kontuetan ezin **kontzientziatsuagoa** nintzen, hertsia, neure eginik ezdeusenen ere etsaminatzerat eta hautemaiterat emana. Joan Mari Irigoien

---

## kontzientziatu, kontzientzia(tu), kontzentziatzen **1** da/du *ad* kontzientzia hartu.

Gizartea **kontzientziatu** delako. Berria - Euskal Herria

Aurrerantzean ostiraletan irtetearekin konformatu beharko genuela **kontzientziatu** ginen. Jon Arretxe

Guztiak nahiko teknika psikokorporalak dira, naturako lau elementu horiekin **kontzientziatu,** kontzientziarekin bizi, naturaren kontaktua bizi eta gure pentsamenduak, emozioak eta fisikoa orekatzen saiatzen gara. Berria - Harian

Galiziako gizartean eztabaida prozesua ireki dute, populazioa **kontzientziatzen** saiatzeko. Berria - Mundua

Gizartea **kontzientziatzeko** ekintzak antolatzea ikastetxeetan eta elkarteetan. Berria - Euskal Herria

Jendea **kontzientziatzen**. Koldo Izagirre

Gobernuak **kontzientziaturik** daude dagoeneko; orain etxe, herri eta enpresen txanda da. Berria - Gaiak

Orain, klima aldaketari buruzko hainbeste berri irakurri eta gero, ia enpresa guztiak **kontzientziatuta** daude. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gazte abertzale eta **kontzientziatuak**. Itxaro Borda

Abertzaleen esku zeuden, oro har, euskal dantza taldeak, euskaltegiak, eta Elizaren inguruko hainbat eta hainbat jende, apaiz **"kontzientziatuen"** gidaritzapean. Juan Kruz Igerabide

Une historiko arriskutsuan, euskara eta euskal nortasuna betiko galtzera zihoazela susma zitekeenean, talde **kontzientziatuak** herri garaituaren egoera larria aztertu eta subjektibatu egiten du. Joseba Zulaika

---

## kontzientziatxo *iz adkor* kontzientzia.

Erreformak [...] bakoitza bere **kontzientziatxo** indibidualarekin Jainkoaren aurrez aurre zuzenean jarriz, Elizaren bitartekaritzarik gabe, gizon-emakumea bere baitara itzularazi du, Askoren artean

---

## kontzientziatze 1 *iz* kontzientzia hartzea. ik **kontzientziazio**.

**Kontzientziatze** hori, [...] bilkuren bidez obratzen zen eta bilkurak ez baldin baziren aski, dinamita ezpalak aireratuz. Itxaro Borda

**Kontzientziatzea** eta trebakuntza funtsezkoak dira urrats hau egiteko. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Ikastolak **kontzientziatze** lan hori ez baldin badu egiten, etxean berean obra daiteke. Itxaro Borda

**Kontzientziatze** kanpaina bat egingo dutela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

## kontzientziazio 1 *iz* kontzientziatzea, kontzientzia hartzea.

Miresmena **kontzientziazio** bilakatu zen. Berria - Harian

Herritarren **kontzientziazioaren** alde egin behar da, noski, baina zaharkitutako instalazioak eta berritzeko ere planak jarri behar dira martxan, energia asko alferrik horrelakoen erruz galtzen delako. Berria - Gaiak

Hizkuntza eskubideen inguruko **kontzientziazioan**. Berria - Euskal Herria

Geure **kontzientziazioan,** errepresioa izan da zutabe nagusienetakoa. Hasier Etxeberria

LABek «sentsibilizaziotik **kontzientziaziorako»** urratsa eman duela. Berria - Ekonomia

Gizarteak gero eta **kontzientziazio** handiagoa du. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oraindik **kontzientziazio** lan handia dago egiteko. Berria - Harian

Arrazakeria eta zapalkuntzaren aurkako borrokari eta Ingalaterrako komunitate beltzaren **kontzientziazio** lanari eman dio Johnsonek bizitza, ez musikaren bidez soilik. Berria - Kultura

«Azken bi urteotan herri venezuelarrean piztu den **kontzientziazio** prozesuaren ondorioa» izan zen halako esku-hartzea. Berria - Mundua

«Estatuen **kontzientziazio** faltak» areagotzen dituela Afrikan osasun arazo nagusiak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontzientziazio lana** (4)

---

## kontziliar *izond* kontzientziarena, kontzilioari dagokiona.

Ez dut gogorik paradigma hebraiko edo **kontziliarren** preso direnei esplikazioak emateko. Karlos Zabala

---

## kontziliatu, kontzilia, kontziliatzen du *ad* adostu, bat etorrarazi.

Beste hainbat arlotan ere kale egitea egotzi diote enpresari: segurtasun eta osasun batzordearekin edo etxeko eta laneko bizimodua **kontziliatzeko** proposamenekin, besteak beste. Berria - Ekonomia

---

## kontzilio *(orobat **konzilio** g.er.)* *iz* Eliza katolikoko gotzainen biltzarra, dogmaz eta kidekoz jarduteko Aita santuak deitzen duena.

Gure Eliza ama santaren **kontzilioez,** kanonez eta konztituzioez ere baliatzen dira. Patxi Altuna

Latrango **kontzilioak** 8. sesioko 1. kapituluaren hastapenean. Piarres Xarriton

Francisco Delgado, Burgosko artzapezpikua eta Trentoko **kontzilioko** teologoa. Trentoko **kontzilioaren** erabakiak. Piarres Aintziart

Vatikanoko II. **kontzilioaren** irakaspenak. Piarres Xarriton

Onarpena Lateranoko IV. **Kontzilioak** erabakitakoaren aurkakoa zen. Askoren artean

Kaltzedonian (K.o. 451) egin zen Laugarren **Kontzilio** Ekumenikotik igarotako hamabost mendeetan. Iñaki Mendiguren

Joan XII.a aita santuak **Kontzilioa** bilduta zeukalarik, [...]. Iñaki Iñurrieta

Efesoko herria, ikasi zuenean **kontzilioko** gurasoek erabaki zutela Ama Birjinari Jainkoaren Ama dei zekiokeela, bozkariotan jarri zen. Iñaki Iñurrieta

Parisen bildu zen Frantziako Elizaren **Kontzilioa** kondenatu zuen aita sainduak, haren baimenik gabe egin zelako. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **trentoko kontzilioak** (5); **trentoko kontzilioan** (7); **trentoko kontzilioaren** (14); **trentoko kontzilioko** (4)

---

## kontziliosteko *izlag* Vatikano II.a kontzilioaz gerokoa.

Oso **Kontziliostekoa**. Iban Zaldua

---

## konurbazio *iz* hiri handi baten inguruko hirigune independenteen multzoa, hasiz joatean batasun funtzionala osatu duena.

**Konurbazio** honetan auzo edo hiri desberdinak badaude: besteak beste, adibidez, Makati, Quezon City, Binondo, Malate... Ramuntxo Etxeberri

---

## konzelebrazio ik **kontzelebrazio**.

---

## konzentratu ik **kontzentratu**

---

## konzentrazio ik **kontzentrazio**

konzentrazione ik **kontzentrazio**.

konzeptu ik **kontzeptu**.

konzertazio ik **kontzertazio**.

konzertu ik **kontzertu**.

konzesio ik **kontzesio**.

konzienteki ik **kontzienteki**.

konzientzia ik **kontzientzia**.

konzilio ik **kontzilio**

konztituzio ik **konstituzio**.

**koofizial** *izond* hizkuntzez mintzatuz, beste batekin edo batzuekin ofiziala dena.

Espainiako Senatuak hizkuntza **koofizialak** bultzatuko ditu. Berria - Euskal Herria

Gaztelania eta hizkuntza **koofizialak** erabiltzeko eskubidea. Berria - Euskal Herria

Hizkuntza **koofiziala** jakin beharrik ez dagoela. Berria - Euskal Herria

Beste kontu bat da euskara **koofiziala** ez den lekuetan izaera **koofiziala** eman nahi izatea. Berria - Euskal Herria

Europako Batasuneko herrialdeetan **koofizialak** diren hizkuntzetan mintzo diren herritarrek Bruselako erakundeetan hizkuntza hori erabiltzeko aukera izatea . Berria - Mundua

Esloveniarrak italiarrak bezain bertakoak direla Triesten; eslovenierak italieraren eskubide berak dituela, **koofiziala** dela. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

euskara koofiziala (3); hizkuntza koofiziala (4)

hizkuntza koofizialak (5)

hizkuntza koofizialen (3)

**koofizialdu**, koofizial(du), koofizialtzen du *ad* hizkuntzez mintzatuz, koofizial bihurtu.

Hizkuntza bat **koofizializatzeko** Konstituzioa aldatu behar da. Berria - Euskal Herria

**koofizialtasun** *iz* hizkuntzez mintzatuz. koofiziala denaren nolakotasuna. ik **ofizialkidetza**.

Katalanar en, galegoaren eta euskararen **koofizialtasuna** indartzeko. Berria - Euskal Herria

Gutxieneko kontsentsua lortu nahi dugu, **koofizialtasunaren** kontzeptua garatzeko. Berria - Euskal Herria

Euskarak **koofizialtasuna** behar du hemen gaindi frantsesarekin. Herria

**Koofizialtasunak** legez esan nahi du gaztelaniaz hitz egin behar duzula eta hizkuntza koofiziala hitz egin ahal duzula. Berria - Euskal Herria

Euskararen eta gaztelaniaren arteko **koofizialtasunaren** urratze sistematikoa. Berria - Euskal Herria

**Koofizialtasun** printzipioa hautsi egiten dute. Berria - Euskal Herria

[Administrazioak] hizkuntz **koofizialtasunaren** eragingarritasuna bermatu behar du. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

euskararen koofizialtasuna (6)

**kooperaldi** *iz* kooperante gisa eginiko aldia.

Violaine Lopez-Dubeuf eta Thierry-ren lekukotasunak, Burkina Faso-ko **kooperaldiaz** . Herria

kooperant ik **kooperante**.

**kooperante** *(orobat **kooperant** g.er. eta **kooperanta** g.er.) iz* nazioarteko hitzarmenen bidez, laguntza profesionala behar duen herrialde batera bidalia den pertsona.

Era bateko eta besteko presioak hasi ginen jasotzen **kooperante** atzerritar guztiak. Xabier Mendiguren Elizegi

Brigadista eta **kooperante** berriak ere iristen ziren. Xabier Mendiguren Elizegi

Iñigo Egiluz **kooperante** bilbotarra. Berria - Euskal Herria

Bahisaria ordaindu ostean askatu zituzten bi **kooperanteak**. Berria - Mundua

Herrialde horretan egon da bi urtez **kooperante** gisa. Berria - Kultura

---

# kooperatiba *(orobat* ***koperatiba*** *g.er.,* ***kooperatifa*** *g.er. eta* ***koperatifa*** *g.er.)* **1** *iz* bazkide guztien eskubideak berdinak diren eta irabaziak haien artean banatzen diren enpresa.

Agente ekonomiko eta sozialen arteko lankidetza eta ekoizpen-bideen gaineko langileen jabetza sustatzen duen doktrinan oinarrituriko enpresak dira **kooperatibak**. Iñaki Heras

Vladimirren heriotzaren ondoren, enpresaz jabetu, **kooperatiba** bat osatu eta fabrika osoki eraldatu zuten langileek. Iban Zaldua

Horrela hasi **ziren** kooperatibak muntatzen eta ikastolak eraikitzen, sistema ofizialetik kanpo. Berria - Euskal Herria

Herritarren kemenak irekitzen zituela lantegi berriak, sortzen **kooperatibak** eta eraikitzen ikastegiak. Piarres Xarriton

Gure **kooperatibak** mundu osoan dira ezagunak. Iñaki Heras

Ulgor **kooperatiba** hura abian jarri zenetik. Iñaki Heras

Lurgintza **Kooperatibak** plan estrategikoa aurkeztuko du. Berria - Ekonomia

**Kooperatibako** zuzendaritzak ez du laborari guztiekin bildu nahi. Berria - Ekonomia

Laborariak dira **kooperatibako** Administrazio Kontseiluko kide. Berria - Ekonomia

Hango **kooperatibako** okina duk. Edorta Jimenez

**Kooperatiba** federatuen fakturazioa %4,8 hazi da. Berria - Ekonomia

**Kooperatiba** bat dute, beraiek eraikia, eta hor bi dolar ematen diete suge bakoitzarengatik. Gotzon Garate

Consum **kooperatibak** Eroski taldea uztea erabaki du. Berria - Ekonomia

ELBko 30 bat laborari Makeako Berria **kooperatibaren** egoitzetan sartu dira. Berria - Ekonomia

Nonahi kalabazez betetako gurdiak, **kooperatibetakoek** ekarrita kalabaza mendiak han eta hemen. Pablo Sastre

**2** kooperatiba baten egoitza.

Herritik ateratzean, Viñas del Bierzo **kooperatiba** handia. Piarres Aintziart

Gero, plaza muturrean geratu zen **kooperatiba** nola erretzen zen begira. Koldo Biguri

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kooperatibo**.

Mundu mailako merkatu globalizatuetako lehian bete-betean murgildurik daude egun **kooperatiba**-enpresak. Iñaki Heras

Multimedia-softwarean aipamen berezia Ihardun Multimedia **kooperatiba** elkartearen Teknologia eta Gizartea CD-ROMak. Berria - Euskal Herria

Esperientzia handia bildua du, nola ere izan baita, **kooperatiba** lantegien sortzaile, ikastolen sortzaile, [...]. Herria

Catania gaur egungo MCC **kooperatiba** taldeko lehendakariaren aburuz. Iñaki Heras

Arrasateko **kooperatiba** mugimenduaren mito ofizialaren alde desberdinak aztertzen ditu. Iñaki Heras

Urte hauetan zehar denetik izan da **kooperatiba** saiakuntzaren gainean: mirespena, mistifikazioa, etsipena eta baita kritika latza ere. Iñaki Heras

Langileak oso kritikoak direla **kooperatiba** ekimenarekin. Iñaki Heras

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jauntxoen mende zeuden adivasiak bildu eta esne eta fruitu **kooperatibak** sortu ditu. Gotzon Garate

Sasoi hartan sortu ziren langile **kooperatibak** ere Arrasate inguruan. Koldo Zuazo

Kirkukeko nekazaritza **kooperatiba** baten egoitzaren kontra tiro egin zuten atzo.

Di-da diseinu **kooperatibak** eskua emateko jarrera daukan marrazkia sortu du, bi ikastolak bostekoa emateko gertu daudela adierazteko. Berria - Euskal Herria

Jean Jacques Lasserre Lur Berri nekazal **kooperatibako** Presidenteak. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gurdi kooperatiba** (4); **kooperatiba bat sortzea** (3); **kooperatiba bihurtzeko** (3); **kooperatiba mugimenduaren** (3); **kooperatiba sortu** (4)
> **kooperatibak eta merkataritza** (3)
> **arrasateko kooperatibako** (3); **lurgintza kooperatibako** (3)
> **arrasateko kooperatiben** (3); **elkarlaneko kooperatiben** (4); **euskadiko kooperatiben** (3); **euskadiko kooperatiben konfederazioko** (3); **kooperatiben taldeak** (4)

---

# kooperatibismo *iz* kooperatiben bidezko elkartearen aldeko higikundea.

Elkartasunean ardazturiko **kooperatibismoa** ez da sozialismorako bidea bakarrik, baita sozialismoan behar den jokabidea ere. Iñaki Heras

Jose Maria Arizmendiarreta Arrasateko **kooperatibismoaren** bultzatzailea. Berria - Harian

Euskal **kooperatibismoaren** tradizioa zaharra da oso. Iñaki Heras

Izan ere, industria arloan, munduan dirauen eta agian izan den esperientzia handiena baita euskal **kooperatibismoarena**. Iñaki Heras

---

# kooperatibista **1** *izond* kooperatibismoari dagokiona.

Mugimendu **kooperatibista** ezin da gune itxia izan, asmo handiko balioen bozgorailu baizik.

Euskal Herriko mugimendu **kooperatibistaren** goraldian. Berria - Kultura

Salatu dutenez, bazkide **kooperatibistek** «behar baino lan ordu gehiago egiten dituzte jarraian eta anbulantzietan behar baino pertsona gehiago eramaten dituzte, eta hori arriskutsua da segurtasun aldetik». Berria - Ekonomia

**2** *iz* kooperatiba bateko bazkidea.

**Kooperatibista** ohiak langile arruntak dira orain. Eroskiren arabera, 10.868 **kooperatibistek** 54 milioi euroko irabaziak izan dituzte. Berria - Ekonomia

Elkarteak, nolanahi den, ezin du eraikin berria egin, ezin du ikastola sortu, **kooperatibistak** direlako gurasoak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **mugimendu kooperatibistaren** (4)

---

# kooperatibo *(orobat* ***koperatibo*** *g.er.)* *izond* kooperatibena, kooperatibei dagokiena. ik **kooperatiba 3**.

Enpresa **kooperatiboen** dilema. Iñaki Heras

«Eskandalagarria» iritzi zion diru publikoa «xantai moduan» erabiltzeari eta Lorra elkarte **kooperatiboa** «baserritarrak estutzeko tresnatzat» hartu izanari. Berria - Ekonomia

Mondragon Korporazio **Kooperatiboko** arduradunen aburuz. Berria - Ekonomia

Industria Kontseiluaren sorrera ere onartu du Kongresu **Kooperatiboak**. Berria - Harian

Globalizazioaren testuinguruan federalismo **kooperatiboaren** aldeko apustu garbia. globalizazioaren testuinguruan federalismo **kooperatiboaren** aldeko apustu garbia. Berria - Euskal Herria

Katalogazio lana modu **kooperatiboan** planteatzen da. Berria - Kultura

Eta *homo faber* den animalia sozialak **kooperatiboa** izan behar du, ez badu bere burua suntsitu nahi. Iñaki Mendiguren

Esperientzia **kooperatiboak** dinamikoa izan behar du. Iñaki Heras

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **mondragon korporazio kooperatiboak** (5)
> **mccko kongresu kooperatiboko** (4)

---

kooperatifa ik **kooperatiba**.

---

**kooperatu**, koopera, kooperatzen du *ad* beste batekin edo batzuekin batean helburu berarekin aritu, lankidetzan jardun.

Zabaldu zuten nola burasoak mutu egoiten ziren, ez zutela **kooperatu** nahi, gisa horretan haien faltaz egia ez zela sekulan jakinen. Michel Oronoz

Jugoslavia Ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalen buru Carla del Pontek misioa ez zela **kooperatzen** ari salatu zuen atzo.

---

**kooperatzaile** *izond* kooperatzen duena, laguntzailea, lankidea.

**Kooperatzailea** izan nintzen. Jon Arretxe

---

**kooperazio** *(orobat* ***kooperazione*** *g.er.)* **1** *iz* kooperatzea, lankidetza.

Besteak beste, **kooperazioa,** segurtasuna eta garapena izango dituzte mintzagai agintariek. Berria - Mundua

Herriaren erabakitzeko eskubidearen alde dauden indarren arteko elkarlana eta **kooperazioa** bermatzea. Berria - Euskal Herria

Askatasun sozial edo nazionalaren alde borrokan diharduten munduko beste herriekiko elkartasuna eta **kooperazioa**. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko **kooperazio** eraginkorra eraikitzen. Berria - Gaiak

Argi dago PSOEk ez duela inolako arazorik **kooperazio** polizialean EAJrekin hitzartzeko. Berria - Euskal Herria

Da **kooperazione** normala bezala, bainan zu han lanean ari zirelarik ez duzu hainbeste hunkitzen. Menane Oxandabaratz

Errusiako diplomazia buru Sergei Lavrovek estatuen arteko segurtasun zerbitzuen **kooperazioa** sendotu behar dela aldarrikatu zuen. Berria - Mundua

Baliogarriago izango litzateke **kooperazioan** aritzea konfrontazioan baino. Berria - Ekonomia

**Kooperazio** Solidarioaren aldeko Nazioarteko Erakundea. Berria - Gaiak

Europako Segurtasun eta **Kooperaziorako** Erakundeak Kosovon duen aholkularia. Berria - Gaiak

Espainiako Nazioarteko **Kooperaziorako** Agentziak. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kooperazio** jarrera, bertso-dialektikaren sakonean dagoena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Enpresen arteko **kooperazio** proiektuak sustatzea. Berria - Ekonomia

Europa eta Iranen arteko **kooperazio** egitasmoak. Berria - Mundua

Afrikara **kooperazio** lan bat egitera joan zen Christophe Luberriaga. Berria - Kultura

Erkidegoetako gobernuen eta justizia organoen artean **kooperazio** eta interlokuzio mekanismoak egotea onuragarria da. Berria - Euskal Herria

Estatuaren egituratzeak **kooperazio** tresnak ezartzea eskatzen duela dio Zapaterok. Berria - Euskal Herria

**Kooperazio** sareen bidez lan egiten da. Berria - Euskal Herria

Jaurlaritzak 2000ko **Kooperazio** Saria eman zion Iñigo Egiluz zenari. Berria - Euskal Herria

Irigoien hautagaia Eusko Jaurlaritzako **Kooperazio** zuzendaria da. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Defentsan, enplegu eta gizarte gaietan eta nazioarteko garapen **kooperazioan**. Berria - Euskal Herria

Unibertsitateek eskatzen badute, Hezkuntza Ministerioa prest da unibertsitate **kooperaziorako** egitura publiko mota berri baten sortzeko. Berria - Euskal Herria

Finantza arloak, udal **kooperazioa,** udal politikaren arteko harremanak eta bestelako auziak... Berria - Mundua

Nafarroako Gobernuari egokitu zaio Erregio **Kooperazio** Onenaren saria. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kooperaziorako erakundeak** (19); **kooperaziorako erakundearen** (7); **kooperaziorako erakundeko** (6); **segurtasun eta kooperaziorako** (33)

---

kooperazione ik **kooperazio**.

---

**kooptatu**, koopta, koopatzen **1** du *ad* (kide berria) kideen artean hautatu.

Abertzaleez eta abertzaleek **kooptatu** euskaldunez osatuko ote da biharko Herria? Itxaro Borda

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bena maleruski, sosa egarten düen bürüzagi ezezagün eta **kooptatü** zonbaiten esküetan dago egiazko poterea. Herria

---

koordenada ik **koordenatu**.

---

**koordenatu** *(**39** agerraldi, **9** liburu eta **3** artikulutan; orobat* ***koordenada*** ***41*** *agerraldi,* ***14*** *liburu eta* ***16*** *artikulutan, eta* ***koordinatu*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***koordenatu*** *agertzen da)* **1** *iz* puntu batek planoan edo espazioan duen kokagunea finkatzen duen zenbaki sistema.

Baldin eta zeru-gangako izar bakoitza haren bi **koordenatuen** bidez atzematen bada [...]. Jon Muñoz

Apuntatuko al zituzten alienigena txoro bi haiek gure planetaren **koordenatuak** ? Patxi Iturritegi

Ez zieten herriaren izena ere esan, bonbak zein **koordenadatan** bota behar ziren besterik ez. Mikel Hernandez Abaitua

**Koordenatu** negatiboei oso begi gaiztoz begiratzen zitzaien, bereziki Descartesek. Jon Muñoz

Itsasontziak itsasoan bezala, beren **koordenatuen** bitartez aurkitu behar dira planoko lauki-multzoan hartutako puntuak. Jon Muñoz

Espazio-denborazko **koordenaden** arabera. Askoren artean

Kartesiarra zen erreferentzia-sistema, kartesiarrak **koordenatuak** . Jon Muñoz

**Koordenatuen** geometria esan zitzaion Fermatek eta Descartesek [...] eginiko aurkikuntza horri. Jon Muñoz

Denbora eta espazioaren beste **koordenada** batzuetan harrapatuta, galdutako mundu batean gelditu izan balitz bezala betiko. Rafa Egiguren

**2** irud/hed

Idazleak **koordenada** espazio-tenporal konkretu batzuetan idazten du. Berria - Kultura

Agrafiaren akusazioak alde on bat du: akusatzailearen **koordenatu** ideologikoak nabarmentzen dituela. Bernardo Atxaga

Horrela, ZTGri buruzko aztergaiak/irakurketak **koordenatu** filosofiko jakin batzuetan koka ditzan. Askoren artean

Enuntziatuaren **koordenadak** eta estatus materiala bere berezko ezaugarrien artekoak dira. Xabier Arregi

Absurdoaren antzerkiaren **koordenatuekin,** AEBetako gizartearen eta gobernuaren kritika zorrotza egiten du antzezlanak. Berria - Kultura

Baina egun zazpi **koordenatu** ditu idazlearen munduak, hiriak; «Zazpi baitira munduaren inguruan nabigatzeko zeharkatu beharreko itsasoak». Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nonahi jar zitezkeen **koordenatu** -ardatzak, eta ardatzetan edozein luzera hartu unitate gisa. Ardatz bertikala marraztu zuen gero, ahapeka esanez: "y'y, **koordenatu** -ardatza"; elkargunean, J lodi bat idatzi zuen: **"koordenatu** -jatorria". Jon Muñoz

Haien bitartez, **koordinatu** -sistema bat ezartzen da, eta hark emango die aukera enbrioiak eratuko dituen zelulei beren burua kokatzeko eta beren nortasuna definitzeko. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere liburuen izenburuak irakurri besterik ez dago bere bizi-**koordenadak** bakardadearen eta nihilismoaren begietan iltzatuta zituen pentsalari honen nondik norakoak jakiteko. Harkaitz Cano

**5** ***koordenatu polar*** ik **polar 4.**

---

# koordinadora

*(172 agerraldi, liburu 1ean eta 99 artikulutan)* **1** *iz* koordinakundea.

Gipuzkoan eraiki nahi dituzten erraustе planten aurka hainbat herritan sortu diren plataformak **koordinadora** batean bildu dira.

Bizkaiko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen **koordinadorak** deituriko manifestazioan. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako Emakume Feministen **Koordinadorak** deituta.

Hala uste du, esaterako, Nekazari eta Abeltzainen **Koordinadorak** . Berria - Gaiak

Etorkinen laguntzarako elkarteen **koordinadorak** agerraldia egin zuen atzo Bilbon. Berria - Harian

AHTren aurkako **koordinadorak** mugimendu guztiak batu eta antolatzeko garaia dela uste du. Berria - Euskal Herria

Eusko Alkartasunaren «arinkeria» salatu du Itoizko **Koordinadorak** . Berria - Euskal Herria

*Harresiak Apurtuz* **koordinadorak** legeak agindutakoa berehala betetzeko exijitu die Espainiako agintariei. Berria - Euskal Herria

**Koordinadora** Demokratikoak iruzur frogak biltzeari ekin dio. Berria - Mundua

Txileko Preso Politiko Ohien **Koordinadorak** *Guk, bizirik atera garenok, salatu egiten dugu* txostena helarazi zuen iragan igandean. Berria - Mundua

Konpartsen **Koordinadorakoek,** euren aldetik, inauteriak beti kritika egiteko aitzakia izan direla gogorarazi zieten udal agintariei. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

*Duinak* gazte **koordinadorak** «etxebizitzaren arazoa konpontzen ez duen legea» dela, eta «botere ekonomikoen menpe» dagoela esan zuen. Berria - Euskal Herria

Auzoko kultur **koordinadorakoek** giroa ondo prestatua dute. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**cd koordinadora demokratikoak** (3); **gazte koordinadora** (4); **koordinadora batean bildu** (3); **koordinadora demokratikoa** (15); **koordinadora demokratikoak** (14); **koordinadora demokratikoko** (7); **uztarria kultur koordinadora** (3)

**emakume feministen koordinadorak** (3); **gazte koordinadorak** (9); **harresiak apurtuz koordinadorak** (5); **herri plataformen koordinadorak** (3); **itoizko koordinadorak** (3); **koordinadorak deituta** (3); **plataformen koordinadorak** (4); **politiko ohien koordinadorak** (3)

**gazte koordinadoraren** (6)

---

# koordinadore

*iz* koordinatzailea.

Kongresuan eztabaidatuko den txosten politikoaren **koordinadorea** da eta atzo testuaren edukiak laburbildu zituen. Berria - Euskal Herria

Martxoaren 11n Madrilen izandako erasoaren ustezko **koordinadorea** izan zelakoan. Berria - Mundua

Demokraziarako Herri Aliantzako **koordinadoreak** horrela esan zuen: «Ez dakigu egunak, asteak edo hilabeteak egongo garen hemen». Berria - Mundua

---

# koordinaketa

**1** *iz* koordinatzea.

Zerbitzuen arteko **koordinaketa** landuko da. Berria - Euskal Herria

Basorako Hirialde Kontseiluaren **koordinaketa** lanean jarduten zuen goi funtzionario irakiar bat tiroka hil zuten atzo. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Euren mugak zehaztu beharrean, **koordinaketa** eta koexistentzia-eremu batean kokatzen ditu. Xabier Arregi

· Philippe Nicolasek egiten du administrazio **koordinaketa** . Berria - Euskal Herria

**3** koordinakundea.

Baina baseak ekarri behar du erantzuna, eta ez idazkaritzak edo **koordinaketak** bakarrik. Berria - Euskal Herria

Pentsatzen du ere talde horiek **koordinaketa** batean bildu behar luketela. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zerbitzuen arteko koordinaketa** (3)

**sustengu komiteen koordinaketak** (3)

---

# koordinakunde

*(534 agerraldi, 3 liburu eta 149 artikulutan)* **1** *iz* koordinatzen duen erakundea.

Erakundetik bota izan arren, Frantzian errefuxiatu gisa bizi zen nortasuna faltsutuz, [...] **koordinakundearen** batzarretan parte hartzen zuen. Itxaro Borda

Gipuzkoan eraiki nahi dituzten errauste planten aurkako herri plataformen **koordinakundeak**.

**Koordinakundearen** ustez, errauste plantak interes ekonomikoengatik eraiki nahi dituzte, «herritar gehienen iritziaren aurka». Berria - Euskal Herria

Patxi Gorraiz **koordinakundeko** eledunak. Berria - Euskal Herria

**Koordinakundeak** Garoña inguruko taldeak koordinatzen ditu, bai Euskal Herrikoak bai eta Espainiakoak ere. Berria - Euskal Herria

**Koordinakundeak** bi ekitaldi antolatu ditu. Berria - Euskal Herria

Urtegia «kontrolik gabe» betetzen ari direla dio **Koordinakundeak**. Berria - Ekonomia

**2** (erakunde izenetan)

Garoñarik Gabeko **Koordinakundeak** kontzentrazioa eta manifestazioa antolatu ditu bihar eta etziko. Berria - Euskal Herria

Itoizko **Koordinakundearen** eta solidarioen inguruan mamitu da urtegiaren kontrako oposizioa. Edurne Elizondo

Itoizko **Koordinakundeak** eta Iratiko ibarreko erakunde guztiek akordio hori bertan behera uzteko eskatu zuten. Edurne Elizondo

Gipuzkoako Emakume Feministen **Koordinakundeak,** eta Ipar Euskal Herriko talde femenistek deiturik. Berria - Euskal Herria

Inauterietako desfilea Kale Nagusian egitea nahi zuen Konpartsen **Koordinakundeak**. Berria - Euskal Herria

Iker Uriguen Konpartsen **Koordinakundeko** kideak. Berria - Euskal Herria

Bestelako iritziak azaldu zituzten Alfabetatze-Euskalduntze **Koordinakundeko** (AEK) kide Ane Agirregomezkortak. Berria - Euskal Herria

*Duina* Gazte **Koordinakundeak** prekarietateari aurre egiteko neurri zehatzak bildu ditu taula programatiko berritu batean. Berria - Euskal Herria

Europako Emakumeen **Koordinakundeak** egin duen bigarren bilera izan zen ostiralekoa. Berria - Euskal Herria

Karmele Egileor Bizkaiko Ezindu Fisikoen **Koordinakundeko** Informatika irakasleak. Berria - Euskal Herria

Tortutaren Prebentzioko **Koordinakundeak** antolatu ditu Bartzelonan atzo eta gaur egiten ari diren jardunaldiak. Berria - Euskal Herria

Jose Mejias oposizioko **Koordinakunde** Demokratikoa koalizioko buruak. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

Iaz manifestazioa egiteko baimena eskatu zuten Arrotxapea, Txantrea, Arrosadia, Donibane eta Sanduzelai auzoetako kultur **koordinakundeek**. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bakearen aldeko koordinakundea** (3); **itoizko koordinakundea** (21)

**aren aurkako koordinakundeak** (3); **bakearen aldeko koordinakundeak** (24); **europako emakumeen koordinakundeak** (3); **euskalduntze koordinakundeak** (3); **garoñ itoizko koordinakundeak** (138); **itoizko koordinakundeak berretsi** (3); **itoizko koordinakundeak ezagutarazi** (7); **itoizko koordinakundeak jakinarazi** (5); **itoizko koordinakundeak salatu** (4); **itoizko koordinakundeak salatzen** (3); **konpartsen koordinakundeak** (7); **koordinakundeak antolatu** (4); **koordinakundeak antolatuta** (3); **koordinakundeak deituta** (3); **koordinakundeak egin** (4); **plataformen koordinakundeak** (3); **prebentzioko koordinakundeak** (4); **torturaren prebentzioko koordinakundeak** (3)

**itoizko koordinakundean** (3)

**itoizko koordinakundearekin** (4)

**itoizko koordinakundearen** (32); **itoizko koordinakundearen eskutik** (3); **koordinakundearen helegitea** (3); **koordinakundearen ustez** (3)

**itoizko koordinakundeari** (5)

**aldeko koordinakundeko** (5); **aurkako koordinakundeko** (5); **bakearen aldeko koordinakundeko** (5); **itoizko koordinakundeko** (47); **itoizko koordinakundeko abokatu** (11); **itoizko koordinakundeko abokatuak** (5); **itoizko koordinakundeko kide** (4); **itoizko koordinakundeko kideak** (7); **itoizko koordinakundeko kideek** (7); **itoizko koordinakundeko kideekin** (3); **itoizko koordinakundeko kideen** (3); **konpartsen koordinakundeko** (3); **koordinakundeko abokatu** (18); **koordinakundeko abokatuak** (10); **koordinakundeko abokatuek** (4); **koordinakundeko kide** (7); **koordinakundeko kideak** (13); **koordinakundeko kidearen** (4); **koordinakundeko kidearen esanetan** (3); **koordinakundeko kideek** (16); **koordinakundeko kideekin** (3); **koordinakundeko kideekin egindako** (3); **koordinakundeko kideen** (5); **koordinakundeko ordezkariek** (3)

---

## koordinatu[1], koordina, koordinatzen **1** da/du *ad* zenbait gauza, lortu nahi den emaitzari buruz elkarren eragozgarri gerta ez daitezen eran antolatu.

Polizia operazioa Madrilgo 49 zenbakiko Instrukzio Epaitegiko titularrak **koordinatu** du, Donostiako hiru zenbakiko instrukzio epailearen laguntzarekin. Berria - Euskal Herria

Nork bere menpekoen mugimendu zehatzak **koordinatu** ahal izateko. Edorta Jimenez

Eusko Jaurlaritzako larrialdi zerbitzuetako teknikariek **koordinatuta**. Teknologia berriei esker piztu eta **koordinatutako** protesta-ekintza jendetsuak. Txema Ramirez de la Piscina

EHUko Pedro Ibarra eta Koldo Unceta irakasleek **koordinaturiko** *Ensayos sobre el desarrollo humano* liburua ere gomendagarria da. Lehen plantea egin genuen gau hartan horrelaxe **koordinatu** ginen lau moduluon artean. Iñaki Heras

Bizkaiko gaztetxeetako erabiltzaileak **koordinatu** egin dira aurrerantzean jazo daitezkeen erasoei erantzun bateratua emateko. Berria - Euskal Herria

Ez nintzen esaten nuena **koordinatzeko** gai. Anjel Lertxundi

Espainiako Gobernuak ez duela uste atentatuak **«koordinatu** gabeko taldeek» egin dituztenik. *ik* koordinatugabe. Berria - Euskal Herria

Gainera, ondo **koordinatuta** lan egin dugu. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Sistema oso bat da, elementu **koordinatuz** osatua. Juan Garzia

Erabaki arrazionalen eta **koordinatuen** arabera. Koro Navarro

Garapenaren plangintzari buruzko ikuspegi integratu eta **koordinatua**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mekanismo bat eratzea energia larrialdietan EBk erantzun **koordinatua** izateko. Berria - Mundua

Estatutua Madrilen modu **koordinatuan** negoziatzea zehazteko. Berria - Mundua

Modu eraginkor eta **koordinatu** batean. Berria - Mundua

· Esaldi **koordinatuak** antzinako frantsesean. Joseba Urteaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**berreziketak koordinatu** (3); **modu koordinatuan** (4)

---

koordinatu[2] ik **koordenatu.**

---

## koordinatugabe *izond* koordinaturik ez dagoena.

Tik **koordinatugabe** konbultsiboetatik mugimendu ongi lotu eta koherentera pasatzea istant batean gerta liteke tourettedunengan, musika edo egintza erritmikoen eraginpean edo haietan murgildurik egonez gero. Xabier Olarra

---

## koordinatzaile *(orobat **kordinatzaile** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **koordinatzaile** agertzen da)* **1** *iz* koordinatzen duen pertsona.

Plan horri esker, gaixo dauden medikuek telefono zenbaki batera deitu eta **koordinatzaile** baten laguntza izango dute beren kasua ebaluatzeko. Berria - Euskal Herria

Aldizkari bakoitzak bere erredakzioa zuen, bi **koordinatzailerekin** . Jokin Urain

PSE-EEren zuzendaritzako **koordinatzaile** Rodolfo Aresek. Berria - Euskal Herria

Ezker Batuko **koordinatzaile** Javier Madrazoren ustez. Berria - Euskal Herria

NBEko larrialdietarako **koordinatzaile** Jan Egelandek. Berria - Mundua

Arantza Ibabek, Orbankosta **programako** koordinatzaile teknikoak. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tertuliaren **koordinatzaile** -lanetan aritzen den Anaren iruzkinak laburrak izan ziren: laburrak eta zorrotzak. Iban Zaldua

Luis Fraduak utzi egingo du Athleticen duen **koordinatzaile** kargua. Berria - Kirola

**Koordinatzaile** postuan jarraitzeko prest agertu da Patxi Zabaleta. Berria - Euskal Herria

Barrosok ukatu zituen **«koordinatzaile** rol horrekin superkomisario bat sortu» duela zioten iruzkinak. Berria - Mundua

## 3 *koordinatzaile nagusi*

Andaluziako medikuntza institututetako **koordinatzaile nagusia** . Berria - Harian

Adostasuna lortzea ezinezkoa dela adierazi du Javier Madrazo **koordinatzaile nagusiak** .

IU Federaleko **koordinatzaile nagusi** Gaspar Llamazaresen hitzaldiarekin. Berria - Euskal Herria

Antxon Karrera hautatu dute berriro Gipuzkoako **koordinatzaile nagusi** . Berria - Euskal Herria

Adostasuna ia osoa izan zen ardatz nagusietan, baita Patxi Zabaleta berriro **koordinatzaile nagusi** aukeratzerakoan ere. Berria - Euskal Herria

Elkarri-ko **koordinatzaile nagusiak** deialdiaren garrantzia azpimarratu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**alderdi horretako koordinatzaile** (3); **alderdiaren koordinatzaile** (3); **alderdiko koordinatzaile** (26); **alderdiko koordinatzaile nagusi** (14); **alderdiko koordinatzaile nagusiak** (5); **aralarreko koordinatzaile** (53); **aralarreko koordinatzaile nagusi** (20); **aralarreko koordinatzaile nagusia** (7); **aralarreko koordinatzaile nagusiak** (10); **berdeak alderdiko koordinatzaile** (11); **berdeen koordinatzaile** (7); **berdeen koordinatzaile nagusiak** (3); **berdeetako koordinatzaile** (21); **berdeetako koordinatzaile nagusi** (12); **berdeetako koordinatzaile nagusiak** (4); **eb berdeen koordinatzaile** (7); **eb berdeetako koordinatzaile** (19); **eb iuko koordinatzaile** (19); **ebko koordinatzaile** (4); **ebko koordinatzaile nagusiak** (3); **eeko zuzendaritzako koordinatzaile** (3); **elkarri ko koordinatzaile** (10); **elkarteko koordinatzaile** (5); **ezker batuko koordinatzaile** (17); **gipuzkoako koordinatzaile** (5); **gipuzkoako koordinatzaile nagusi** (4); **ikasbatuazeko koordinatzaile** (3); **iuko koordinatzaile** (51); **iuko koordinatzaile nagusi** (21); **iuko koordinatzaile nagusia** (4); **iuko koordinatzaile nagusiak** (16); **iuko koordinatzaile nagusiaren** (3); **iun nebko koordinatzaile** (4); **izquierda unidako koordinatzaile** (3); **koordinatzaile lanetan** (4); **koordinatzaile nagusi** (103); **koordinatzaile nagusia** (36); **koordinatzaile nagusiak** (75); **koordinatzaile nagusiaren** (14); **koordinatzaile nagusiaren ustez** (3); **koordinatzaile nagusirako** (3); **koordinatzaile orokor** (4); **nebko koordinatzaile** (5) sortzen ikasbatuazeko koordinatzaile (3); **taldeko koordinatzaile** (7); **zuzendaritzako koordinatzaile** (4)

**aralarreko koordinatzailea** (8); **batzordeko koordinatzailea** (3); **elkarri ko koordinatzailea** (6); **gipuzkoako koordinatzailea** (3); **koordinatzailea izan** (5); **nafarroako koordinatzailea** (3)

**alderdiko koordinatzaileak** (7); **aralarreko koordinatzaileak** (41); **bizkaiko koordinatzaileak** (3); **eb berdeetako koordinatzaileak** (4); **eb iuko koordinatzaileak** (8); **elkarri ko koordinatzaileak** (14); **esaiteko koordinatzaileak** (4); **ezker batuko koordinatzaileak** (7); **gipuzkoako koordinatzaileak** (5); **giza laguntzarako koordinatzaileak** (3); **iuko koordinatzaileak** (12); **koordinatzaileak adierazi zuenez** (3); **koordinatzaileak azaldu** (6); **laguntzarako koordinatzaileak** (3); **nebko koordinatzaileak** (5); **taldeko koordinatzaileak** (4)

**aralarreko koordinatzailearen** (10); **aralarreko koordinatzailearen esanetan** (3); **aralarreko koordinatzailearen ustez** (3); **elkarri ko koordinatzailearen** (3); **iuko koordinatzailearen** (4); **koordinatzailearen arabera** (7); **koordinatzailearen esanetan** (12); **koordinatzailearen irudiko** (4); **koordinatzailearen ustez** (6)

---

# koordinatzaileorde *(orobat **koordinatzaile orde** g.er.)* *iz* koordinatzailearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordezkoa.

Aralarreko **koordinatzaileorde** Mikel Basaberen ustez. Berria - Euskal Herria

Mikel Basabe Aralarreko **koordinatzaile** ordeak. Berria - Euskal Herria

Iñaki Irazabalbeitia alderdiko **koordinatzaileorde** nagusi eta hautagaiak. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aralarreko koordinatzaileorde** (3)

**aralarreko koordinatzaileordea** (3); **koordinatzaileordea izan** (3)

---

# koordinatze *iz* zenbait gauza, lortu nahi den emaitzari buruz elkarren eragozgarri gerta ez daitezen eran antolatzea.

Hasieran eszenografia eta **koordinatze** -lan soil bat besterik ez zena geroztik hartuz joan den geroz eta garrantzi handiagoa ezin esplika daiteke espazioaren eszena ereduagatik ez bada. Josu Zabaleta

Eta beraz sail horietan, Seaskako sailean, ez da beti errex izan **koordinatze** lan hori. Menane Oxandabaratz

---

# koordinazio 1 *iz* koordinatzea.

Enpresa amak segurtatzen du, IG jarduerak zentralizatuz, ekoizpenaren mundu mailako **koordinazioa** . Koro Navarro

Eskola arautuaz kanpoko bertso-eskolen **koordinazioak** ahalegin berezia eskatzen du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Euskal Herriko liburutegien arteko sarearen eraketa eta **koordinazioa** egitea. Berria - Kultura

Hondamendi hori saihesten saiatu ziren estatubatuar agintariak 1985etik aurrera, politika makroekonomikoen **koordinazio** guztiz egoki baten bidez. Koro Navarro

Taldeen arteko **koordinazio** hobea lortu nahi du administrazioak. Berria - Euskal Herria

Lidergo eta **koordinazio** sendoagoa ezinbestekoak direla ondorioztatu dute. Berria - Gaiak

Arlo politikoen, instituzionalen eta sozialen arteko **koordinazio** eraginkorra bultzatuko dute. Berria - Euskal Herria

Titin III.a eta Goñi III.aren arteko sinkronizazio eta **koordinazio** perfektuak. Berria - Kirola

1,93ko garaierarekin **koordinazio** eta dinamika bikaina erakusten du. Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Koordinazio** arduradunari ez zaiok batere gustatu bidaia ero hau. Alberto Ladron Arana

Rodolfo Ares PSE-EEko **Koordinazio** idazkariak.

Galeusca koalizioaren **koordinazio** taldeko kideak Bilbon, Sabin Etxean, bildu ziren atzo. Berria - Euskal Herria

*Euskal Herriak Bere Eskola*k hirugarren **koordinazio** batzarra egin zuen atzo, Gasteizen.

**Koordinazio** Batzordeko gainerako hamar kideak. Berria - Euskal Herria

Kartzela barrutik eraman omen zituzten antolaketa eta **koordinazio** -lan guztiak. Rafa Egiguren

**Koordinazio,** animazio eta harreman lanetarako gaitasuna. Aurrekontu-politika nazionalen **koordinazio** -arazoak. Herria

Organo judizialen eta Administrazioaren arteko **koordinazio** sistema ere finkatzen du. Berria - Harian

Harrera eta **koordinazio** ahalmenen funtzionamenduari esker. Isabel Arrigain

**Koordinazio** ordena bi hauetako bakoitzak oharpen berezi batzuk eskatzen ditu. Isabel Arrigain

Lan horretan **koordinazio** premia dagoela dio. Berria - Euskal Herria

Proiektu horrek egungo arlo penalaren eta zibilaren arteko **«koordinazio** eza» konponduko duela. Berria - Euskal Herria

Europako Imamen **Koordinazio** Kontseiluko kidea da. Berria - Mundua

PSOEko Antolakuntza eta **Koordinazio** idazkari Jose Blancok kritikatu du Aznarrek «lotsarik ez duela» hori esateko. Berria - Euskal Herria

· «Kalapitek, kontraesanek eta **koordinazio** huts andanek Gobernuaren ospe onari kalte egin» diotela zehaztu zuen Sampaio presidenteak. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ordubeteko kalejira erritmo, koloretasun eta sorpresa ugarirekin apaindu zuten, talde **koordinazio** itzela erakutsiz. Berria - Kultura

Atomizatutako konpainien antzerki produkzio eta birek hainbat arazo izaten dituzte zirkuitu **koordinazio,** banaketa eta formatuetan. Berria - Kultura

**4** (gramatikan) perpaus koordinatuen arteko erlazioa.

Izagirrek menderagailuak kendu eta alborakuntzaren eta **koordinazioaren** alde egiten du. Markos Zapiain

Garbi dago azkeneko koordinazio horiek desberdinak direla lehen aipatu **koordinazioetatik** (sintagman gertatutakoetatik, alegia). Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**koordinazio batzarra** (3); **koordinazio batzordeko** (3); **koordinazio bilera** (3); **koordinazio eza** (3); **koordinazio falta** (8); **koordinazio handiagoa** (3); **koordinazio lan** (3); **koordinazio lana** (4); **koordinazio lanak** (3)

**guztien arteko koordinazioa** (4); **guztien koordinazioa** (3)

**unibertsitateen koordinaziorako** (3)

---

# kopa **1** *iz* edateko ontzi oinduna.

Ni botila hotz bat xanpain eta sakeletan kristalezko **kopa** bi nituela azalduko nintzen. Ramon Saizarbitoria

**Kopa** jasotzen du, argitan hobeto ikusteko. Anjel Lertxundi

Ondotik pasatzerakoan, irratilariak **kopa** nire aldera goititu zuen, alegia topaka. Aingeru Epaltza

**Kopa** bat beteko dizut. Jose Morales

Aupa! -oihukatu genuen beste hirurok, **kopa** jasoak ezpainetaraturik. Joan Mari Irigoien

**Kopak** hustu, eta eseri ziren. Xabier Olarra

Gainezka dut **kopa**. **Kopak** ur-busti ditut, eta orain platerño ilara bat jartzen ari naiz. Pako Aristi

Ogi honetatik jaten eta **kopa** honetatik edaten duzuen bakoitzean. Elizen arteko biblia

Erdian, **kopa** biribila duzu: eduki dezala beti ardo goxoa! Elizen arteko biblia

Mahaietan urrezko plater eta **kopa** distiratsuak zeuden. Iñaki Mendiguren

Eskutik kenduko dizut zorabiozko **kopa**. Elizen arteko biblia

**2** koparen edukia. ik **kopakada**.

Ostiral gauetan **kopa** batzuk hartzeko ohitura zuen. Migel Angel Mintegi

Idazten ematen nituen orduak, pentsatzen, irakurtzen, **kopa** bat edaten. Pako Aristi

**Kopa** bat xanpaina? Lopez de Arana

Gutxienez beste hiru **kopa** edan zituen barran. Ramon Saizarbitoria

-Atera **kopa** bat ardo, arren, eta mahaian utzi egunkariarekin batera. Patxi Zubizarreta

Tragoa jo nion **kopari**. Anjel Lertxundi

Kafesne bero bana hartu zuten haiek; Karmenek eta nik, ardoa; Ibarbiak, **kopa** bete pattar. Inazio Mujika Iraola

Bisitariak eta etxeko jaunak **kopa** bana vodka edan zuten. Mohamed Chukrik **kopa** hurrupa batean hustu zuen. Jose Morales

Armagnac **kopa** ere derrotean hustu eta mahaian utzi zuen kolpe bat emanda. Ramon Saizarbitoria

Tira, ekarri **kopa** bat likore. Jose Morales

**3** *hed/irud*

Urre koloreko galleta paketeak eta pastel txikiz beteriko **kopak**. Tristeziaren eta etsipenaren **kopa** oinazetsua hurrupatua zuen. Karlos Zabala

**Kopa** altuko eta hegal zabaleko kapelak. Berria - Kultura

Egin urre garbizko argimutila, mailuz landua: haren oin, gerri, **kopa,** kukulu eta lore-hostoek gorputz bat bera egingo dute. Elizen arteko biblia

Gerriak ere almendra-lore gisako lau **kopa** izango ditu, beren kukulu, lore-hosto eta guzti. Elizen arteko biblia

· Postrean Dudleyk kasketaldia izan zuen bere etxeko **kopa** ez zelako behar hainbat handia. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gora ekartzen lagundu zuen gizonezkoetariko batek **kopa**-kapela zikindu bat zuen eskuan. Irene Aldasoro

Halaxe lagundu genion [...] saski ttiki edo **kopa**-saskika lurra goi-goiko porlan-zoko hartaraino igotzen. Pello Zabala

Eta ez diat ezertxo ere entzun nahi orduari edo **kopa**-kopuruari buruz. Iban Zaldua

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jaiki, txanpain **kopak** bete eta bat luzatu zidan. Juan Martin Elexpuru

Ardo **koparen** gainetik begiratzen zidaten bere begi txinpartatsuek. Ramon Saizarbitoria

Hari bere zigor-**kopa,** bere sumin-ardoz betea, edanarazteko. Elizen arteko biblia

Izu- eta hondamen-**kopa** da zure ahizpa Samariaren kopa. Elizen arteko biblia

**6** txapelketa batean eta bereziki kirol lehiaketa batean garaile gertatzen denari ematen zaion kopa modukoa; garaileari kopa bat ematen zaion txapelketa.

**Kopa** irabazi dugu! Iñaki Mendiguren

Freirek ere badu, Munduko **Kopa** irabazteko aukera txikia. Berria - Kirola

-Gure azken aukera... nire azken aukera da... quidditcheko **kopa** irabazteko. Iñaki Mendiguren

Futbola utziko du Alemaniako Munduko **Kopa** jokatu ostean. Berria - Kirola

Espainiako **Kopako** kanporaketak. Berria - Kirola

Hiru egunez jokatu da Davis **kopa** Parisen. Herria

Heineken **Kopako** final-laurdenak.

Jokatzear zegoen Askatzaileen **Kopako** finalaren atarian. Aritz Gorrotxategi

Asobal **Kopa** ez da Txapeldunen Liga, hori argi dago. Berria - Kirola

Bixente Oyhenart eta Cedric Nobliak 30 eta 14 Alfaro ta Parachuren kontra galdu badute ere, lehen maileko **kopan** segitzen dute. Herria

Euskadiko Federazio **Kopa** finalerdietan da. Berria - Kirola

Emakumeen artean, Anja Personek jaso du munduko **kopa** sailkapen konbinatuan. Berria - Kirola

Garaipenak: Italiako bi liga (1997 eta 1998) eta Superkopa bat (1997), Espainiako liga bat (2003) eta bi Superkopa (2001 eta 2003), Europako **Kopa** bat (2002) eta bi Superkopa (1996 eta 2002), Kontinente arteko bi **kopa** (1996 eta 2002), Munduko **Kopa** bat (1998) eta Eurokopa bat (2000). Berria - Kirola

Liga bat, 3 **Kopa,** 2 Ligako **Kopa,** 2 Errekopa, Europako Superkopa bat. Berria - Kirola

Donibane Garazin,ihiztarien **kopa**. Herria

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arauak jende arruntagoarentzat ziren, ez quidditcheko **kopa**-irabazleentzat. **Kopa**-taldeak, bai, izan ere, hemen dena da **Kopa** kutsukoa, dena da Koparen inguruko saltsa. Iñaki Mendiguren

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Athletic Errege **kopan** eta UEFAn ondo ari delako. Berria - Kultura

Nor eta ni, azken Euro-**kopa** arte partida bat bera osorik ikusi ez duen honek. Hasier Etxeberria

**9** joko kartetan, kopak margoturik dauden kartetako bakoitza.

Hartu zituen karta-joko bateko lau batekoak; esleitu zion bateko bakoitzari hiriburu bat: bateko urreari Bilbo, **kopakoari** Donostia, ezpatakoari Gasteiz eta bastoikoari Iruñea; nahastu zituen lau batekoak behin eta berriro, kartei begiratu ere gabe; atera zuen haietako bat... eta bateko **kopak** Donostiara joan behar zuela agindu zion. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**abf kopa** (4); **afrika kopa** (39); **afrikako kopa** (22); **alemaniako munduko kopa** (11); **amerika kopa** (6); **ardo kopa** (6); **asobal kopa** (15); **calcuta kopa** (7); **davis kopa** (6); **donostiako urrezko kopa** (7); **ehf kopa** (8); **espainiako kopa** (133); **espainiako kopa bat** (6); **espainiako kopa final** (6); **espainiako kopa irabazi** (15); **espainiako kopa jokatu** (7); **espainiako kopa jokatzeko** (4); **etxeen kopa** (11); **europako heineken kopa** (9); **europako kopa** (103); **europako kopa bat** (7); **europako kopa irabazi** (12); **europako kopa irabaztea** (4); **europako kopa jokatzeko** (4); **euskadiko federazio kopa** (4); **federazio kopa** (8); **frantziako kopa** (24); **heineken kopa** (55); **ihiztarien kopa** (28); **ingalaterrako kopa** (4); **italiako kopa** (4); **kiloko zilindro kopa** (4); **kontinente arteko kopa** (4); **kontinente kopa** (5)

**kopa ahaztu** (6); **kopa altxatu** (10); **kopa altxatzeko** (4); **kopa amaitu** (4); **kopa bat ardo** (6); **kopa bat hartu** (5); **kopa bat hartzera** (8); **kopa bat irabazi** (6); **kopa bete** (4); **kopa edan** (5); **kopa eder bat** (4); **kopa eman** (5); **kopa eskuan** (10); **kopa eskuratu** (7); **kopa eta liga** (5); **kopa eta uefa** (6); **kopa final** (14); **kopa final laurdenak** (5); **kopa final zortzirenak** (4); **kopa gehien jokatutako** (4); **kopa hartu** (6); **kopa hasi** (6); **kopa hasiko** (4); **kopa hasteko** (6); **kopa hustu** (10); **kopa irabazi** (109); **kopa irabazita** (7); **kopa irabaztea** (19); **kopa irabazteko** (35); **kopa irabazten** (7); **kopa izan** (5); **kopa izango** (8); **kopa jaso** (6); **kopa jasotzeko** (4); **kopa joka dezake** (4); **kopa jokatu** (34); **kopa jokatuko** (32); **kopa jokatzea** (10); **kopa jokatzeko** (28); **kopa jokatzeko aukera** (4); **kopa jokatzeko txartela** (5); **kopa jokatzen** (16); **kopa jokatzen ari** (6); **kopa jokatzera** (5); **kopa kanporaketa** (5); **kopa kapela** (6); **kopa nagusian** (7); **kopa prestatzeko** (10); **kopa prestatzen** (6); **kopa txapelketa** (6)

**kristalezko kopa** (4); **libertadores kopa** (5); **liga eta kopa** (21); **ligako kopa** (8); **magnus kopa** (10); **mundu kopa** (4); **munduko kopa** (209); **munduko kopa bat** (4); **munduko kopa irabazi** (25); **munduko kopa irabaztea** (4); **munduko kopa irabazteko** (8); **munduko kopa jokatu** (11); **munduko kopa jokatuko** (6); **munduko kopa jokatzeko** (4); **munduko kopa prestatzeko** (5); **oporto kopa** (5); **quidditcheko kopa** (13); **quidditcheko kopa irabazi** (4); **uefa kopa** (32); **uefako kopa** (7); **uleb kopa** (4); **urrezko kopa** (21); **whisky kopa** (4); **xanpain kopa** (9); **zilarrezko kopa** (4); **zilindro kopa** (5)

**espainiako kopak** (6); **heineken kopak** (6); **kopak bete** (6); **munduko kopak** (13); **uefa kopak** (4)

**afrika kopako** (21); **afrikako kopako** (5); **amerika kopako** (5); **asobal kopako** (7); **davis kopako** (22); **davis kopako final** (5); **ehf kopako** (52); **errege kopako** (8); **espainiako kopako** (185); **espainiako kopako finala** (24); **espainiako kopako partida** (6); **europako heineken kopako** (23); **europako kopako** (53); **europako kopako finala** (13); **europako kopako finalerdia** (6); **federazio kopako** (9); **frantziako kopako** (51); **frantziako kopako finala** (5); **frantziako kopako finalean** (5); **heineken kopako** (154); **heineken kopako finalerdia** (11); **heineken kopako kanporaketa** (4); **heineken kopako partida** (6); **heineken kopako sailkapen** (8); **ihiztarien kopako** (7)

**kopako bigarren kanporaketako** (5); **kopako bigarren partida** (4); **kopako final** (185); **kopako final bat** (4); **kopako final hamaseirenetako** (5); **kopako final hamaseirenetan** (11); **kopako final laurdenak** (28); **kopako final laurdenetako** (31); **kopako final laurdenetan** (27); **kopako final laurdenetara** (6); **kopako final laurdenetarako** (6); **kopako final zortzirenak** (7); **kopako final zortzirenetako** (21); **kopako final zortzirenetan** (7); **kopako finala** (103); **kopako finala galdu** (5); **kopako finala irabazi** (6); **kopako finala jokatu** (16); **kopako finala jokatuko** (19); **kopako finalak** (4); **kopako finalaren** (4); **kopako finalean** (49); **kopako finalera** (7); **kopako finalerako** (11); **kopako finalerako sailkatu** (4); **kopako finalerdia** (24); **kopako finalerdiak** (21); **kopako finalerdiak jokatuko** (7); **kopako finalerdian** (10); **kopako finalerdietako** (23); **kopako finalerdietako kanporaketa** (4); **kopako finalerdietan** (20); **kopako finalerdietara** (11); **kopako finalerdietarako** (13); **kopako itzuliko** (5); **kopako jokalari** (4); **kopako kanporaketa** (15); **kopako kanporaketak** (5); **kopako kanporaketan** (5); **kopako lehen fasea** (5); **kopako lehen finalerdia** (5); **kopako lehen kanporaketa** (5); **kopako lehen kanporaketan** (7); **kopako lehen partida** (7); **kopako lehen proba** (5); **kopako lehia** (4); **kopako lider** (7); **kopako partida** (48); **kopako partida bat** (9); **kopako partidak** (6); **kopako partidan** (9); **kopako proba** (13); **kopako proban** (5); **kopako probetan** (5); **kopako sailkapen** (22); **kopako sailkapen fasea** (10); **kopako sailkapenean** (5); **kopako txapeldun** (4); **kopako txapelduna** (10); **kopako zozketa** (4)

**libertadores kopako** (4); **magnus kopako** (49); **munduko kopako** (157); **munduko kopako finala** (5); **munduko kopako lider** (7); **munduko kopako proba** (11); **munduko kopako proban** (4); **munduko kopako probetan** (5); **munduko kopako sailkapen** (6); **munduko kopako sailkapenean** (5); **uefa kopako** (56); **uefako kopako** (6)

**espainiako kopakoa** (5)

**afrika kopan** (11); **afrikako kopan** (8); **akitaniako kopan** (7); **amerika kopan** (4); **asobal kopan** (6); **baina kopan** (5); **ehf kopan** (27); **espainiako kopan** (91); **europako heineken kopan** (5); **europako kopan** (47); **federazio kopan** (4); **frantziako kopan** (18); **heineken kopan** (75); **iazko munduko kopan** (4); **kopan ari** (6); **kopan ariko** (15); **kopan aritu** (14); **kopan aritzeko** (10); **kopan aritzeko txartela** (4); **kopan aurrera egin** (4); **kopan aurrera egiteko** (6); **kopan eta uefan** (7); **kopan galdu** (7); **kopan jokatu** (9); **kopan sartu** (4); **ligan eta kopan** (4); **magnus kopan** (11); **munduko kopan** (122); **munduko kopan aritu** (5); **shield kopan** (5); **uefa kopan** (29); **urrezko kopan** (5)

**munduko kopara** (7)

**ehf koparako** (4); **espainiako koparako** (5); **europako koparako** (4); **koparako sailkapen** (5); **koparako sailkatu** (4); **koparako sailkatzea** (5); **koparako sailkatzeko** (4); **koparako txartela** (10); **munduko koparako** (25); **uefa koparako** (9); **zilindro koparekin** (4)

**zilindro koparekin** (4)

**akitaniako koparen** (10); **espainiako koparen** (6); **europako koparen** (6); **frantziako koparen** (18); **frantziako koparen finala** (4); **koparen final** (4); **koparen finala** (16); **koparen finalean** (4); **koparen finalerat** (4); **koparen kondu** (23); **koparen kontu** (6); **lemoine koparen** (4); **munduko koparen** (24); **uefa koparen** (5)

**ehf kopari** (4); **espainiako kopari** (4); **europako kopari** (13); **frantziako kopari** (4); **heineken kopari** (10); **heineken kopari ekingo** (4); **kopari begira** (5); **kopari dagokionez** (5); **kopari ekingo dio** (6); **munduko kopari** (8)

**afrika kopatik** (4); **ehf kopatik** (6); **espainiako kopatik** (22); **espainiako kopatik kanpo** (13); **heineken kopatik** (5); **kopatik at** (21); **kopatik at geratu** (7); **kopatik at utzi** (5); **kopatik edan** (4); **kopatik kanpo** (39); **kopatik kanpo geratu** (16); **kopatik kanpo utzi** (4); **kopatik kanporatu** (7); **munduko kopatik** (9); **munduko kopatik kanpo** (5)

---

## kopadun *izond* kopa duena.

Ukalondo bat piano gainean bermatuta, masailak puzten zizkion irribarre maltzurra ahoan eta, beste askotan bezala, kapelu **kopaduna** buruan. Ramon Saizarbitoria

---

## kopakada *iz* koparen edukia. ik **kopa 2.**

Beste **kopakada** bat edan zuen. Koro Navarro

-Beti hartzen zuen **kopakada** bat -gehitu zuen jeneralak-. Xabier Olarra

Edabea hartzea ahaztu zaizu gaur; beraz, **kopakada** bat eraman dizut. Iñaki Mendiguren

Beti izaten zen parrokianoren bat, lanera bidean sartu eta pattar **kopakadaz** gosaltzen zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## kopal *iz* zenbait zuhaitzetatik ateratzen den erretxina, batez ere bernizak egiteko erabiltzen dena.

Ingelesek inportatzen zituzten **kopalak,** herririk urrunen eta basatienetatik, eta haien izena zeramaten; horixe baliatzen zen, hain zuzen, bata bestetik bereizteko aldaerak: Madagaskar **kopala,** Sierra Leona **kopala,** Kauri **kopala** (zeinaren ustialekuak, bidenabar esanik, 1967 aldera ahitu baitziren), Kongo **kopal** guztiz sonatu eta noblea. Juan Garzia

Kongo **kopala** ordezkatzen zuen erretxina fenoliko bati **kopalari** berari bezalakoxe tratamendua ematen segitu zuten. Juan Garzia

---

## kopalet *iz* kapela luzea.

**Kopalet** gris perla buruan, loretxoz basitutako gorbata lepoan eta betiko makila kanaberazkoa eskuan astinka. Matías Múgica

Orduan sartu nintzen, **kopaleta** buruan, makila eskuan, gau beilako kapa soinean, kondekorazioa paparrean. Matías Múgica

---

**kopari** *iz* bere jaunari kopa ekartzeko eta edaten emateko egitekoa zuen zerbitzaria.

Eta [erregearen] alboan ohaidetako bat ehorzten dute ito ondoren, baita **koparia,** sukaldaria, zaldizaina, laguntzailea, mezularia, zaldiak eta urrezko ontziak ere. Patziku Perurena

---

**kopatto** *iz* kopatxoa.

Tripetatik ezongi samar gabiltzala eta, zenbat aldiz ez dugu hartu tonikerdi bat jinebra ttanta batekin, edo **kopatto** bete jinebra huts, zorioneko edari hori, gure bihotzeko epuru alez egina dela pentsatu ere egin gabe? Patziku Perurena

---

**kopatxo** *(orobat* ***kopatxu*** *g.er.) iz adkor* kopa.

Mostradorean hartuko dut **kopatxoa,** Ferminekin erdi bana, berak kafeak ateratzen dituen bitartean. Pako Aristi

Edan **kopatxo** bat eta egin lo. Jose Morales

Amak **kopatxo** bat ardo ateratzen zion eta irratia pizten zuen. Anjel Lertxundi

Ahoan zigarreta eta marmolezko mahaian **kopatxo** bat likore zuela. Anton Garikano

---

kopatxu ik **kopatxo**.

---

**kopatzar** *iz adkor* kopa handia.

Eta barraren barrutik **kopatzar** bete garagardo atera du zintzurra freskatzeko. Berria - Harian

---

**kopaxka** *iz* kopatxoa.

Berandu afaldu aitzineko azken errondan, batzuk; goizik afaldu ondoko lehen **kopaxkan,** bertzeak. Aingeru Epaltza

Mentxu **kopaxka** bat hartzeko joranez zegoen baina kafesnea eskatu zuen, eta Joseluk gaseosa basokada bat. Josu Landa

---

**kopek** *iz* Errusiako dirua, errubloaren ehunena balio duena.

**Kopek** bat ere ez zeukaat poltsikoan. Jose Morales

Aizkora gerrikoan eta botak sorbaldatik zintzilik, **kopek** baten ogia eta bi **kopeken** arrain gazitua janari. Jose Morales

Bost **kopekeko** ogi oso bat jan zuen. Jose Morales

Bederatzi **kopek** verstako, eta eskupekoa gainera. Karlos Zabala

**Kopek** bat bera ere ez zuen gastatu aitak emaniko dirutik. Jose Morales

Gorrimina zen haren aurpegia, sukolorea, kobrezko **kopeken** antzekoa. Jose Morales

**Kopek** bat gehiago ere ez dizut eskainiko. Jose Morales

Jende behartsua larrutzen dute, azken **kopeka** kentzen diote ezertxo ere ez daukanari! Jose Morales

Edonor hilko du, edonor garbituko du **kopek** batengatik! Jose Morales

Berrogeita hamar **kopekeko** txanponak. Jose Morales

---

**kopel** *iz*

Eta Pertsiako klasiriak, ehun sarri, arinezkoak, beren hondo gorriminaren gainean **kopela** moldean tankeraturiko urre-pikorrez goitik beheraino josiak. Juan Garzia

---

**kopenhagetar** *izlag/iz* Kopenhagekoa, Kopenhageri dagokiona; Kopenhageko herritarra.

**Kopenhagetar** batzuek, etxetik lantokira alde egitean, lanpara pizturik uzteko usadioa dutela, hartara, kale ilun eta izoztuetan itzultzen direnean, etxeko leihoan argi epela ikusi, eta norbait haien zain dagoela imajina baitezakete. Patxi Zubizarreta

---

koperatiba ik **kooperatiba**.

---

koperatibo ik **kooperatibo**

---

koperatifa ik **koperatiba**.

---

**kopernikar** **1** *izond* N. Kopernikorena, N. Kopernikori dagokiona.

Munduaren sistema **kopernikarraren** arabera, edo baita Newtonen grabitazioaren legeen arabera argitua. Ibon Uribarri

Iraultza **kopernikarra** dugu, esaterako, paradigma-aldaketaren adibiderik esanguratsuena. Patxi Altuna

**2** erabateko aldaketa dakarrena.

Hau da Kanten **kopernikar** biraketa deitzen zaionaren funtsezko unea. Ibon Uribarri

Galdu ez dena, bereziki, mundu-ikuskeraren **kopernikar** iraultzak osatzen duen funtsezko erdigunea da. Ibon Uribarri

Filosofiaren iraultza **kopernikarra** . Ibon Uribarri

Orduko pentsamendu ilustratuaren arabera, estatua gizakiak sortutako tresna baitzen denok zoriontsuago izateko, eta, honengatik, itzuli **kopernikar** bat jarriko da abian, dotrinan lehenik eta zigor-legeetan gero. Juan Martin Elexpuru

---

**kopeta** 1 *iz* aurpegiaren goialdea, bekainetatik ilearen hasieraraino. ik**bekoki**.

-Argitu **kopeta** hori. Aingeru Epaltza

**Kopeta** belzturik, su txikiaren gainera makurtzen zuen buru luzea. Fernando Rey

**Kopeta** zimurturik eta burumakur ibiltzen zenez. Fernando Rey

Hildako bat bezain zurbil, **kopeta** izerdi-patsetan. Koldo Biguri

Nire **kopeta** zimurrez bete zen. Aingeru Epaltza

Nathanielek **kopeta** zimurtu zuen, argi piztu berriak min ematen ziola nabarmendurik. Anjel Lertxundi

"Ezinbestean gira hortaratu" errepikatzen dute aldiz, **kopeta** zimurtuz, ezkerraldekoek. Herria

Hitzok idatzi hutsarekin **kopeta** argitzen zait. Jesus Mari Mendizabal

**Kopeta** blaitzen hasi zitzaidan, ez dakit lasterketak ala albisteak eraginda. Aingeru Epaltza

**Kopeta** oihal busti batez freskatu ondoan.Txapela kendu eta **kopetako** izerdia xukatu du. Elena Touyarou

Bere **kopetako** begi bakarraz ikusi gintuenean. Juan Kruz Igerabide

Frantxuak **kopeta** apaldu zuen. jaurti duten bala isilak **kopeta** zulatu dio, garbi, espanturik gabe, ia dotoreziaz esango nuke. Karlos Linazasoro

Altxatu eta musu eman zidan **kopetan**. Fernando Rey

Haien artean baziren **kopeta** estuko eslabiarrak.Izerdia ttantta gotorretan isurtzen zitzaion **kopetan** behera. Xabier Olarra

**Kopetari kopeta** jarri ginen. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin eta predikatuekin)

Zer du, ba, halako **kopeta** iluna izateko? Fernando Rey

-Hobe niken hala segitu izan banu! -erantzun zuen Mikel Strogoffek, **kopeta** ilun. Karlos Zabala

*ik* kopetilun.

Ilea **kopeta** izerdituan behera erortzen eta bizkarrean arrasto bero bat zabaltzen zitzaionean. Koro Navarro

**Kopeta** zabala zuen, buruaren goi alde karratua. Karlos Zabala

**Kopeta** eta lokiak ile-moztuak, adatsa zintzilik mototsean bildua. Karlos Zabala

Max berehala lokartu zen, masailak eta **kopeta** gorri. Jon Muñoz

-Ez erabat -erantzun **zuen kopeta** belztuta-. Ander Irizar

Eztarria lehor-lehorra zeukan, **kopeta** sutan. Koro Navarro

Ondoko asteazkena jin zenean, goizetik **kopeta** zimur nengoen. Janbattitt Dirassar

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kopeta**-ertzetako zainak nabarmendu zaizkio. Anjel Lertxundi

Eta **kopeta**-alboetan atzamar bana luzatuta zezen beldurgarriaren imintzioa egingo du gero Juan Luisek. Xabier Mendiguren Elizegi

Haren **kopeta**-ileak kilimak egiten zizkion sudurrean Egutxiri. Ibon Uribarri

Aireportuan ondotik, gure soak, gure irriak, gure **kopeta** keinuak bizpahirutan nahasi ziren. Itxaro Borda

**4** ***kopeta eduki*** kopeta izan.

**-Kopeta daukazu** esateko ez duzula ezer egin, hor kanpoan, sistemaren kontra? Koldo Izagirre

-On Camillo, niri begiratzeko **kopeta** daukazu, hori egin eta gero? Koldo Biguri

**5** ***kopeta-goi*** *(corpusean* ***kopetagoi*** *soilik) adlag* kopeta-gora.

Hurbildu nintzaion, eta besteak, harro, **kopetagoi,** fier, bularra aurreratu zuenean, berebiziko koskada eman nion titiburuaren erdian. Jon Alonso

**6** ***kopeta-gora*** *adlag*

Baina kanpora begira **kopeta gora** ibili behar zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta herriak baita ipurdia ere erakuts dezakeela **kopeta-gora**. Koldo Biguri

**7** ***kopeta-hezur***

Aski izango zuten **kopeta-hezurra** altxatzea. Imanol Zurutuza

Ongi ikusten dira **kopeta-hezurra** atzera berriz lotzeko erabilitako titaniozko grapak ere. Imanol Zurutuza

Nota batzuk kanta-murmuriatzen zituen, **kopeta-hezurreko** sinuan zer efektu egiten zuen ikusteko. Irene Aldasoro

**8** ***kopeta ilundu***

Osaba Kamilek **kopeta** ilundu zuen. Patxi Zubizarreta

-Schnaps? **-kopeta ilundu** nuen-. Alberto Ladron Arana

Husain apaltasun aire batekin sartu zen, **kopeta** are gehiago ilunduz. Patxi Zubizarreta

Agurtu zuena nor zen ikusita **kopeta ilundu** zitzaion, soa gaiztotu, baina ez zuen txintik esan. Migel Angel Mintegi

Eta, **kopeta ilunduz,** "nola arraio nahi dik nik halakorik jakitea?", pentsatu zuen. Alberto Ladron Arana

Edota beharbada irribarretsu agertzen zitzaien **kopeta iluntzen** ziotenei eta **kopeta iluntzen** zien irribarretsu agertzen zitzaizkionei. Patxi Zubizarreta

**9** ***kopeta izan*** du *ad*

Zer **kopeta duzun**! Itxaro Borda

Pentsa ezazu nolako **kopeta duten**. Ramon Saizarbitoria

-Bat gutxiago, erraten ditek -zioen trufaz Philippek-, hala nola iragan udako zakur-beroagatik hil zaharrentzat, sei hilabete barne eta estatistiken arabera arras zenduko zirela azaltzeko **kopeta** ukan zitean telebistako komentatzaile batzuek. Itxaro Borda

Ez dute ukatzeko **kopeta izan**. Koldo Izagirre

Batzuk aski **kopeta** ukan zuten erraiteko hodei hori gelditu zela Frantziako mugan! Herria

· **"Kopeta** behar da gero! -pentsatu zuen Ruche jaunak-. Jon Muñoz

**10** ***kopetaraino egon*** nazka-nazka eginda egon

**Kopetaraino zegoen**. Lutxo Egia

Kazetaritzaz **kopetaraino dago**. Lopez de Arana

Ni **kopetaraino nengoen** josteko makinarekin lan egiteaz. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

kopeta apaldu (3); kopeta beltzu (3); kopeta belztuta (3); kopeta gora (6); kopeta igurtzi (3); kopeta ilun (11); kopeta iluna (11); kopeta ilundu (28); kopeta ilundu zuen (11); kopeta ilundurik (8); kopeta iluntzen (3); kopeta izerdi (6); kopeta sutan (3); kopeta ukitu (3); kopeta zabala (3); kopeta zimur (6); kopeta zimurtu (34); kopeta zimurtu zuen (16); kopeta zimurturik (7); kopeta zimurtuta (3); kopeta zimurtuz (4); nolako kopeta (3)

kopetako ile (5); kopetako ilea (7); kopetako izerdia (17); kopetako izerdia lehortu (4); kopetako izerdia xukatu (3); kopetako izerdia xukatzen (3); kopetako zainak (3)

eman zion kopetan (4); eskua kopetan (6); izerdia kopetan (3); kopetan beheiti (4); kopetan behera (21); kopetan behera erortzen (3); kopetan eman (3); kopetan idatzita (4); kopetan jarri (10); kopetan jo (3); kopetan musu eman (4); kopetan tinkatuta (3); odola kopetan (4)

kopetara eraman (5)

kopetatik behera (6); kopetatik pasatu (3)

kopetagoi ik **kopeta 5**.

## kopetako 1 *iz* larruzko zatia, abereei kopetan zaiena.

Antxusak eta Luxiak **zaldien kopetakoari** heldu zioten eta kotxea gelditu egin zen. Koro Navarro

**2** kopetan eman edo harturiko kolpea.

Muturrez aurrera joan, eta berogailu-erradiadorearen kontra egundoko **kopetakoa** hartu zuen. Josetxo Azkona

Bat-batean ispiluko hori nireganantz etorri eta, kanka, **kopetako** ederra eman zidak alu horrek. Iñaki Iñurrieta

**Kopetakoa** Ximurrak berak eman zidala iduritu zitzaidan. Aingeru Epaltza

## kopetalde *iz* kopeta dagoen aldea.

Orain, tentsio halako bat ezagun zuen aho aldean eta egonezin urduri batek hartua zion **kopetalde** osoa, eta begitarte nekatu eta kezkatia ageri zuen. Mirentxu Larrañaga

**Kopetaldea** ohi baino irtenagoa izateak, aise ahanzten ez den aurpegiera osatzen zuten. Koro Navarro

Tumore gaizto bat aurkitu zidaten, **kopetaldean,** eta tratamendu bakarra kirurgikoa omen zen. Imanol Zurutuza

## kopetandi *(orobat **kopetaundi**)* *izond* kopeta handia duena.

Platon **kopetandiak,** filosofiaren aitapontekoak, mito-ipuin baten bidez kontatzen du alfabetoaren asmakuntza,*Fedro* izeneko dialogoan. Joxerra Garzia

## kopetaratu, kopetara(tu), kopetaraten du *ad* kopetara eraman.

Besoa **kopetaratzen** duzu. Itxaro Borda

## kopetatsu *izond* ozarra, errespetu gutxikoa.

Eta hartan ari zela, zapatari **kopetatsu** baten berri ematen hasi zitzaigun, eta haren dendaren helbidea ere esan zigun. Anjel Lertxundi

kopetaundi ik **kopetandi**.

## kopetazuri *iz* ur-hegazti moko-zuzen eta hego-laburra, zingiretan eta itsas aintziretan bizi dena, ahateak bezala igeri egiten duena *(Fulica atra)*.

Kanabera artean ezkutaturik, martin-arrantzale ñabarra, lezka-txoria, uroiloa eta **kopetazuri** maltzurra egon ohi dira Koldo Biguri

## kopetilun *(orobat **kopeta-ilun**)* 1 *iz* kopeta iluna duena.

Eta eliz ataria jende isil eta **kopetilunez** beterik zegoen. Koldo Biguri

Hemen aurpegi **kopetilun** eta zaputzak baizik ez dira ikusten. Josu Zabaleta

Filosofia irakasle **kopetiluna**. Markos Zapiain

Soldadu-lerrokada bat igaro zaigu beste aldetik; gizaseme begi-goibelak denak, **kopetilunak** eta tristeak, inondik ere. Mirentxu Larrañaga

Meharra eta **kopetiluna** zen, beraz, senar sendo, osasuntsu, ziur eta irribarretsuaren kontrara. Patxi Zubizarreta

Mendi **kopeta**-ilunek ixten zuten zerumuga.´ Koro Navarro

**2** (adizlagun gisa)

Monak **kopetilun** begiratu zidan. Fernando Rey

Okerturik eta makur nabil, egun osoan **kopetilun**. -Nireak egin du -aitortu zidan alargunak, **kopetilun**-. Elizen arteko biblia

Arrieta **kopetilun** azaldu zen atarian, eta bizkor joan zen automobilerantz. Migel Angel Mintegi

Ostolazak, **kopetilun**, barra aldera makurtu zuen burua. Migel Angel Mintegi

Gizona kezkaturik utzi zuen, **kopetilun**, bere baitan murgilduta. Migel Angel Mintegi

**Kopetilun** samar itzuli zen. Koldo Biguri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **goibel eta kopetilun** (4); **kopetilun ageri** (3); **kopetilun ageri zen** (3); **kopetilun begiratu** (4); **kopetilun begiratzen** (3); **kopetilun ikusi** (5); **kopetilun ikusten** (3); **kopetilun jarri** (4); **kopetilun samar** (3)

## kopetilundu, kopetilun(du), kopetiluntzen da/du *ad* kopetilun bihurtu.

Eta arrats-erdi aldera [...] hor zetorren zapa-zapa, azpi-azpitik sartuta, hodeitza mardul trinko ilun belztuta, itxi-itxia, arratsa azpitik **kopetilunduz**. Pello Zabala

## kopia 1 *iz* idazki, irudi edo kideko batetik, hura bezalakoxea egiten den alea.

Haren gutuna ere igorriko dizut, edo **kopia** bat bertzela, eta zuhaurk jujatuko duzu. Jon Muñoz

*The Spanish Earth* filmaren **kopia** bat. Edorta Jimenez

Oskarren etxeko giltzen **kopia**. Eider Rodriguez

Konturatu zen guztiz ezinezkoa zela kontratuaren **kopia** bost eta erdiak baino lehen amaitzea. Irene Aldasoro

**Kopietan** itzuririko errakuntzak. Xabier Kintana

Gorde eta sarri gogora ekar daitezela bere idazkiak, eta **kopiak** atera eta bana daitezela. Askoren artean

Autopsiaren **kopia** hura lortu ahal izateko. Hasier Etxeberria

Lagun kazetari bati eskatutako fax baten **kopia** igortzen zidan. Hasier Etxeberria

-Pasatuko dizuet **kopia** bana. Xabier Mendiguren Elizegi

Egun, film arrakastatsuen katalanerazko 12 eta 14 **kopia** inguru erakusten dira Herrialde Katalanetako zinema aretoetan. Berria - Mundua

Rally bideojokoetan arrakasta gehien izan duena da, eta zazpi milioi **kopia** baino gehiago saldu dira. Berria - Kirola

Mapa horren 60.000 **kopia** inprimatu dituzte. Berria - Kultura

Trilioika ditugun zelula guztiek badute [...] gune bat, eta gune horretan bada gizaki genomaren **kopia** bat. Pello Salaburu

Guk nahi genuen txostenaren **kopia,** mutil horren disko gogorrean zegoen, ez? Fernando Morillo

-Txosten originalaren **kopia** emango dut. Fernando Morillo

Arropen **kopien** kontrako kanpainan. Iñigo Aranbarri

Gero, Internet bitartez, fisika fakultate, laborategi eta aurkitu zituzten talde guztiei bidali zieten **kopia** bana. Fernando Morillo

Gizaki bizidun baten argizarizko **kopia** da. Ibon Uribarri

**2** (izenondoekin)

Legeak disko baten **kopia** pribatuak grabatzeko eskubidea aitortzen dio erabiltzaileari. **Kopia** originala. Berria - Harian

**Kopia** perfektua zen, maisu baten lana ziur asko. Ander Irizar

Inork ez du argitu, oraindik, zein diren **kopia** faltsuak, non dauden, zeinek erosi dituen. Berria - Kultura

Boninoren idazmahaiaren gainean bazen Pisako Dorrearen **kopia** negargarri bat, metal-ore arinez egina. Juan Garzia

**Kopia** akasdunak (*ectypa*) diren aldetik. Ibon Uribarri

**Kopia** pirata da. Iban Zaldua

*Silabaren teoria*-ri buruz emandako hiru hitzaldiren **kopia** takigrafikoak. Isabel Arrigain

Irakurle sutsuek **kopia** mimografiatuak egin zituzten adiskideentzat. Ramon Etxezarreta

Honetarako behiaren berezko gene bat erabili zuten, kaseina, eta gene honen **kopia** gehigarriak genoman sartu zizkioten. Berria - Gaiak

EA eta Aralar «Ezker Abertzalearen diskurtsoaren **kopia** deskafeinatu» batekin ari direla.

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Patenteek eta **kopia** eskubideek ere jabea izan ohi dute. **Kopia** -paper mordoekin. presaka irekitako **kopia** -liburu bateko orrietan. Anton Garikano

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gobernu presidentetzako disko gogor guztiak eta segurtasun **kopiak** ezabatu zituen enpresaren faktura. Berria - Mundua

Besapean zekarren karpetatik argazki **kopia** bat atera eta eskaini zion Justok. Joxemari Urteaga

Euskal Filmategiak bideo- **kopiak** zabaldu zituen. Berria - Harian

Espainiako ikertzaileek sortutako sagu hauek, baina, hiru gene- **kopia** dituzte, zelulen zatiketak kontrolatzeko. Berria - Gaiak

Haserre nago gutun horren **kopia** bat egiteko astia izan ez dudalako. Jon Muñoz

**5** ***kopia-denda*** kopiak egiten diren denda.

Suhiak ipini zidan **kopia** -dendan egin nuen lehenengo laneguna. Iban Zaldua

**6** ***kopia egin***

Galarazita dago liburu honen **kopia egitea,** osoa nahiz zatikakoa. Bernardo Atxaga

Saia zaitez, beraz, erabaki hauen **kopia egin** eta Jonatani ematen. Pantomimaren **kopia egiten** pasatu zituen hurrengo eskolaren lehen minutuak. Elizen arteko biblia

Ezagutzen dugunaren **kopia egiterik** balego bezala. Eskarne Mujika

· Oteizaren artelanen **kopia** asko egin dira kontrolik gabe, beti. Berria - Kultura

Horrek arabera ADNk "bere buruaren" nahi adina **kopia** egin ditzake, aldi bakoitzean dagokion hurrenkera jarriz. Pello Salaburu

Altamirako kobazuloen **kopia** egin berri dute Tebis programarekin. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ateratako kopia** (3); **autoaren kopia** (3); **bideoaren kopia** (3); **egindako kopia** (3); **eskuizkribuaren kopia** (4); **etxeko giltzen kopia** (3); **ezohiko bi kopia** (3); **filmaren kopia** (3); **filmaren kopia bat** (3); **giltzen kopia** (3); **gutunaren kopia** (6); **kopia atera** (5); **kopia bakarra** (4); **kopia bat egin** (3); **kopia bat ekarri** (3); **kopia bat eman** (3); **kopia egin** (10); **kopia egitea** (6); **kopia egiten** (5); **kopia hutsa** (5); **kopia piratak** (5); **kopia txarra** (3); **kopia zehatza** (6); **lanaren kopia** (3); **liburu berriaren kopia** (3); **txostenaren kopia** (6)
>
> **diplomen kopiak** (6); **gutun honen kopiak** (3); **kopiak egin** (11); **kopiak egiteko** (4)

---

## kopiagailu *iz* kopiak egiteko gailua. ik **kopiagile**.

Annak eskola liburu berria behar du, eta irakasleen gelara sartu da liburua **kopiagailuan** kopiatzeko. Berria - Kultura

Idazteko makinak, zenbait **kopiagailu** (hilabete batzuk lehenago armak eskuan lapurtutako Gestener elektriko bat, besteak beste), paper-metak, liburuak... Rafa Egiguren

Pasanteak bere txokoan segitu zuen, **kopiagailuaren** ondoan. Anton Garikano

---

## kopiagile *iz* kopia egiten duen pertsona.

New Yorkeko estatuan Auzitegi Gorenerako Arduradun izendatu berri zuten eta, hartara lana ugaldu zitzaionez, iragarki bat paratu zuen prentsan, lehen zeudenez gain beste enplegatu, beste **kopiagile** bat behar zuela eta. Pablo Sastre

Begira, bestela, zer erantzun zien [...] Potocki eta beste batzuen **kopiagiletzat** salatzen zutenei Bernardo Atxaga

---

## kopiaketa *iz* kopiatzea.

Ondorioz, **kopiaketa** pribatua debekatua izateko zorian dago. Luma berri eta bereziak eman zizkieten, **kopiaketaren** kontra sorginduta zeudenak. Iñaki Mendiguren

---

## kopiarazi, kopiaraz, kopiarazten du *ad* kopiatzera behartu.

Honelako esaldiak **kopiarazten** zizkion umeari: "Justiziaren eguna etorriko da...". Karlos Zabala

Nazkatuta zegoen bizitza horretaz, loreontzi berbera behin eta berriro **kopiarazteaz,** beti akats berberak zuzentzeaz. Iban Zaldua

Errege-agintea hartzean, lege hau **kopiaraziko** du beretzat, apaiz lebitarren zainpean egongo den liburutik. Elizen arteko biblia

---

## kopiatu, kopia(tu), kopiatzen 1 du *ad* kopia egin.

'Nik arbelean idatziko dut eta zuek paperean **kopiatu**. Joseba Sarrionandia

Kaligrafia txukunez **kopiatuko** zituen. Iñaki Iñurrieta

Biderketa-taulak bost bider **kopiatzeko** agindu nion, eta ikas zitzala buruz. Juan Kruz Igerabide

Ehun bider **kopiatu**. Joseba Sarrionandia

Hitzez hitz **kopiatu**. Josu Zabaleta

Aurreneko hamar lerroak **kopiatu** eta gero. Bernardo Atxaga

Rossetti-ren obra guztiak **kopiatuko** zizkion margolaria aurkitzeko. Ramon Saizarbitoria

Maitasunezko gutunen liburu batetik **kopiatzen** zituen esaldiak. Koro Navarro

Pinturaren teknika ezberdinen ikasteko, modeloak **kopiatzen** nituen. Ana Urkiza

Europak, izan ere, berrikuntza garrantzitsu franko **kopiatu** zion Txinari (adibide ezagunenetatik hasi -inprimeria, kanoi-bolbora eta iparrorratz magnetikoa -, eta erloju mekaniko, galdaketa, bela askoko itsasontziak, kartografia kuantitatiboa eta abarrekin buka). Koro Navarro

Gurasoengandik inkontzienteki **kopiatzen** ditugun gauzak. Mikel Hernandez Abaitua

Hortik **kopiatu** duzu! Antton Olano

-Argazki hauexek eroan nahi nituzke -diotsot emakumeari, niretzako cd batera **kopia** ditzan. Edorta Jimenez

PRANA artxiboaren muina **kopiatu** zuen, word artxibo batean, eta zabalik zeukan Josebarentzako mezuari erantsi. Fernando Morillo

Beste aholkü bat iparraldeko lagüner : hegoaldekoen hütsak ez otoi **kopia,** gihaurenekin aski eta sobera beitügü. Herria

Udako Unibertsitateak: **kopiatzen** gaituzte politikariek. Herria

**2** (beste aditz batekin elkartuta)

Badakit internautak ez direla nirekin ados egongo baina **"kopiatu**-itsatsi" pentsakera gailentzen ari zaigu, eta ez zait ondo iruditzen. Ana Urkiza

Orain, Interneten sartu eta, **kopiatu**-erantsi, zernahi gairi buruz nahi beste idatz daitekeenean, [...]. Joxerra Garzia

Maikak **kopiatu**-kolatu zituen eta "word" formatuan pasarazi-eta, bere disketan grabatu. Ramuntxo Etxeberri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hartu eta kopiatu** (3); **hitzez hitz kopiatu** (3)

---

## kopiatzaile 1 *izond/iz* kopiatzen duena.

Ez zegoen halako alderik Erdi Aroko fraide **kopiatzailearen** lanbidearen eta nirearen artean. Uste dute frantziskotar **kopiatzaileren** batek kendu zuela delako eskuizkributik. Joxan Elosegi

Bi hilabete kaligrafia ikasten aritu ondoren, lana aurkitu zuen azkenean Estatuaren bulego batean, **kopiatzaile** gisa. Jose Morales

**2** (hitz elkartuetan)

Administratzaile ezjakin baten esku utzi diat hori guztia, eta paper-**kopiatzailea** izatea hobetsi, edozein soldaduren seme eskolagabeak askoz hobeto egingo lukeen lan bat aukeratu! Jose Morales

---

## kopiatze *iz* kopia egitea.

Imitaziozko artea ere izan daiteke adierazkor, itxura **kopiatze** hutsetik ihes egin eta "berez adierazgarriak diren formak atxikitzen" ahaleginduz gero. Josu Zabaleta

**Kopiatze** hutsean ezinezkoa da hainbeste oker egitea. Rafa Egiguren

---

## kopiatzeke *adlag* kopiatu gabe.

Mendebaldeko paradigma nagusia, XVII. mendetik Europako historiak eman diguna, berreraiki behar dugu, baina paradigma zaharraren dikotomia horiek **kopiatzeke**. Askoren artean

---

kopiloto ik **kopilotu**.

---

## kopilotu *(orobat **kolpiloto** g.er.)* *iz* pilotoaren laguntzailea.

Lehenengoa autoaren gidaria zen, bestea, berriz, **kopilotua**. Martak **kopilotuaren** aulkian jarri zuen zapata kaxa. Harkaitz Cano

Autoan sarrarazi duzu, **kopilotuaren** atetik. Sonia Gonzalez

Horrez gain, **kopilotuak** musikaz eta aire egokituaz ere arduratu behar izaten du. Gidariak **kopilotuari** eskuratzen dion lehenengo gauza "Road Atlas" bat izaten da. Patxi Zubizarreta

Berak egin du **kopilotu** lana. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kopilotuaren aulkian** (3)

---

## kopista *iz* besteren testuak kopiatzea landibe duen pertsona.

Antzinako eskuizkribuen **kopistak**. Iñaki Mendiguren

Pragako **kopistek** deabruaren asmaziotzat jo zuten inprenta eta matxinatu ere egin ziren lehendabiziko inprenta hirira heldu zenean. Anjel Lertxundi

---

## kopisteria *iz* kopia-denda.

Bigarrenean **kopisteria** batean sartu zen eta 60 euro hartuta irten zuen korrika. Pako Aristi

---

## kopla 1 *iz* bertsoa mota berezia (ik beherago **5**); bertsoa.

**Koplak,** nagusiki eskerako eta errondarako erabiltzen dira eta aspaldikoa da euren jatorria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Koplatan,** hau da, bi puntuko bertsotan, ari behar dute saioan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bat-bateko bertsoak 20 segundotik **(kopla)** minutu baterako iraupena du (bederatziko nagusia) hor nonbait. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

10/8 silaba da **kopla** hauen neurria; **kopla** nagusiak dira, beraz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Santa Agedaren ohorezko **koplak** kantatuz ibili ondoan. Herria

**Koplak,** handiaren kasuan Zortziko Handiaren erdia, eta txikiaren kasuan Zortziko Txikiaren erdia dira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gero, berriz, bere garaian errebelde samarra izango zen beste **kopla** hau kantatu zigun: *Mendi altuan elurre / herri erberan izotza / zugandik aparte na(g)o-ta / alegre daukat bihotza.* Bertso eta **kopla** neurtu eta errimatuak. Bernardo Atxaga

**Kopla** ez da iada lehen zatiaren eta bigarrenaren arteko lotura magikoak zituen testu-mota desberdin hura. Andoni Egaña

Aditu nire **kopla:** *Zauritu ninduelako, gizona hil dut; jipoitu ninduelako, mutikoa* Elizen arteko biblia

Kantu bat hautatu eta orroitu bezainbat **kopla** emaiten nuen. Filipe Bidart

Hainbeste aurreskulari, zamaltzain eta koreografo, hainbeste **kopla,** bertso, bertsopaper eta txapelketa, hainbeste sariketa, antologia, izendapen, omenaldi, hileta eta urteurren... Juan Luis Zabala

**kopla** laburren bilduma. Berria - Kultura

Gainera, bestelako doinuei dien beldur eskasa azaleratu zuen Leturiak, eta *rap*-a ere **kopla** izan daitekeela erakutsi. Berria - Kultura

**Koplak** aterako dizkizuete eta iseka egingo. Elizen arteko biblia

Gizon itsu bat hurbildu eta **kopletan** hasi zitzaion kantari. Felipe Juaristi

**2** kanta edo kantu baten ahapaldi bakoitza.

Baina Andoni Eganaren bertsuak ziren Korrikaren lekukoaren barnean gorderik, Baionan kantatu ditu berak hauxe erranez bere hirugarren **koplan** : [...]. Herria

Edo oraino, 18. **koplaren** azken bi lerro hauek. Piarres Xarriton

Arras erritmo xelebreko abesti haren **kopletan** dantzari bat zetorkion ondora eta hantxe geratzen zen geldi-geldirik. Karlos Zabala

Halamoduzko jendaje askok, uzta garaia bukatu ondoan, erromes bidea hartzen zuen Espainia aldera, bere familia osoarekin, eta beren **kopla** negartiak kantatuz. Patziku Perurena

Ustez ahantzia zuten Internazionalaren bigarren **kopla** orroatzen. Itxaro Borda

**Kopla** bukatu eta leloa berriz errepikatzean, dantzan hasten zen berriro. Karlos Zabala

Carlos Cano gogoratzen du agertokian, **kopla** kantari. Imanol Zurutuza

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aitona Patxi, ahots apur bat desafinatuarekin, **kopla** -sail luze bat hasi zen kantatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Liburutxo honetan daukazuen diskako lehen kantua trikitixa bat da, zortzi zati instrumental eta zortzi **kopla** -doinu dituena. Koldo Izagirre

**Kopla** sen aparteko hori nondik jatorkon. Xabier Amuriza

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abesti horren hitzak herri **koplak** dira. Berria - Kultura

Jon Aranok bildu zituen Itsasondoko gabon- **koplak** . Xabier Mendiguren Elizegi

Auskalo nork asmatutako neska txarrei buruzko irri- **kopla** lizuna kantatzen hasi zirenean. Anjel Lertxundi

Toribio Etxebarria sozialista eibartarra ere antzeko iritzikoa genuen trikitixa **koplei** buruz. Koldo Izagirre

Orduan ez ziran finalerako sailkatu, beharbada, antolakuntzeaganako protesta **koplak** kantau zituelako. Xabier Amuriza

**5** esatekoa.

**Kopla** gehiegirekin akaso, hainbeste psikologia, gurasotasun arduratsu eta puñeta merke. Patxi Iturritegi

Bestea, izterrartean belaunikaturik, sexua ukitzen hasi zaio inongo **koplarik** gabe. Juan Martin Elexpuru

- **Kopla** gutxiago eta jan -burruntzalikada bete bota zion platerera. Unai Iturriaga

**-Kopla** gutxi eta haiek onak! -esaten zion Normandiar ederrak, doinu ironikoz-. Karlos Zabala

-Tira, Jimmy, **kopla** gutxiago. Lopez de Arana

**Kopla** gutxi nirekin, zera; barrabilak zanpatuko dizkiat bestela! Rafa Egiguren

Ezagutzen nituenak agurtu nituen **kopla** oneko giroan. Anjel Lertxundi

**Koplarekin** joan duk. Pablo Sastre

Bai, ordea, hiru formulen oinarrian dagoen klixea: ez gaude **kopletarako** . Anjel Lertxundi

Uste diat erasoaldi gogorren bat espero dutela, eta norbait behar zutela **kopla** -buru, Tommo. Mirentxu Larrañaga

**6** ***kopla zahar***

Erromantzeak, **kopla** zaharrak, bertsoak. Berria - Kultura

**Kopla** zaharren ezaugarriak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zazpi arkuko zubia iragoteak erakusten digu, eta euskal balada eta **kopla** zaharretan ere maiz ageri da. Patziku Perurena

Urtezahar gaueko eskean kantatzen ziren **kopla** zaharren artean. Patziku Perurena

**Kopla** zahar batzuk topatu ditugu; ez denak Urolakoak, eta horrela lau kantu osatu ditugu, *Urak haundi, Juliana, Pagausoa eta Heldu arratsian.* Zortziko handian, txikian eta **kopla** zaharretan. Berria - Kultura

Hala hasten da *Eperra* izeneko **koplari** zahar zelebre baten bertsoa. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bizkaiko kopla** (4); **kopla gutxiago** (3); **kopla zahar** (7); **kopla zaharrak** (8); **kopla zaharren** (5)
> **koplak aterako** (5); **koplak ateratzen dizkidate** (3)
> **koplarik gabe** (4)

---

# koplagintza *iz* koplak ontzea.

Festagiroko ikuskizun guzietan (dantza, musika, **koplagintza,** fartsa, ihauteri...). Herri musika eta **koplagintza** erromerietan. Herria

---

# koplaka *adlag*

Egin izan dut puntuka edo **koplaka** , baina besterik ez. Beti nahi izan nuen **koplaka** ikasi. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koplaka ikasi** (5)

---

# koplari *izond/iz* koplak ontzen dituena; bertsolaria.

Itsu **koplariaren** mitoa argiaren mundu zaharretik sortua da. Patziku Perurena

Grezian edo herrialde germaniko eta zeltikoetan barrena gureganaino iritsiko zen gero **koplari** itsuaren mitoa. Patziku Perurena

Kalez kale ibiltzen ziren itsuak **koplari,** eskean eta beste. **Koplaririk** onenaren saria emon eusten. Patziku Perurena

Maurizia **koplari** bildurgarria zan. Xabier Amuriza

Gu Jaunaren **koplari** gara, eta sari hau nahi dugu zuengandik egin dugunagatik: iraun dezazuela benetako penitentzian. Askoren artean

P. Lafittek hala dio Piarres Ibarrart **koplariaren** bizi hunkigarriaz ari delarik: [...]. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> koplaka ikasi (5)

---

**koplaritza** *iz* koplariaren jarduera.

Soinu txikiak bazterrean utzi zituen alboka eta dultzaina, eta **koplaritzak** berak ere behera egin zuen, beste neurri bateko eta beste espiritu bateko formei lekua utziz: bertsoari Berria - Kultura

---

**koplatu,** kopla(tu), koplatzen du *ad* (norbaiti) koplak kantatu.

Euskal usarioan, oles egiteak, holako zerbait esan nahi du: santu edo pertsonaia mitiko baten izen (edo biografia) errukarria inbokatuz **(koplatuz)** jende izandun guziagan errukia sorrarazi. Patziku Perurena

Beren senar edo hildako senideen gorantzan heriolantu tristeak **koplatzen** zituzten elizan. Patziku Perurena

Zenbat euskaltzain oso, bertso baten erdia graziaz **koplatzeko** gai ez direnak? Berria - Kultura

---

**kopoi** *iz* ostia-ontzia, ostiak gordetzen diren ontzia.

Kutxa ustez bortxatuaren barruan hiru eki-saindu, lau kaliz eta **kopoi** bi gordetzen omen zituen. Edorta Jimenez

Amanciok orduan berak idiarena joko zuela eta **kopoirik** dibinoena beteko zuela erreberoz, ostia likidoak apaizen hortzak zurituko zituela eta. Inazio Mujika Iraola

---

**koproduktora** *iz* koprodukzioak egiten dituen enpresa. ik **koproduktore**.

Espainiako Media Pro **koproduktorak**. Berria - Kultura

---

**koproduktore** *iz* koprodukzioak egiten dituen enpresa edo pertsona.

Horietan ETBk **koproduktore** edo produktore-bazkide moduan hartuko du parte, eta proiektu bakoitzean, gutxienez 150.000 euro jarriko ditu. Berria - Kultura

---

**koprodukzio** *(orobat **koproduzio** g.er.)* **1** *iz* koproduzitzea; pertsona edo enpresa bi edo gehiagoren artean eginiko produkzioa.

Marseillako azoka, saltokia izateaz gain, topagunea eta **koprodukzioak** hitzartzeko lekua izan ohi da. Berria - Kultura

Gu **koprodukzioari** esker bizi gara. Berria - Kultura

Herrialde horietako batean film luze bat egiteko, **koprodukzioan**. Berria - Kultura

Europako Kontseiluko **koprodukzioetarako** Eurimages funtsak Obaba filmari 400.000 euroko laguntza ematea erabaki du. Berria - Kultura

**Koprodukzio** italiar-sovietarra. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

En tierra de nadie ikuskizunaren **koprodukzio** lanetan hartu du parte. Berria - Kultura

---

**koproduzitu,** koproduzi, koproduzitzen du *ad* pertsona edo enpresa bi edo gehiagoren artean zerbait ekoitzi.

Tentazioak eta Peinetak **koproduzitu** dute eta Eneko Olasagastik zuzendu. Berria - Kultura

---

**koprofago** *izond/iz* gorotza jaten duena.

**Koprofago** amorratuak badaude-eta koleopteroen artean. Iñaki Arranz

---

**koprofilia** *iz* gorotza jateko joera patologikoa.

Nekrofilia, **koprofilia,** eta beste *filia* asko, ez, inondik ere ez. Karlos Zabala

---

**koprolalia** *iz*

Sindromearen ezaugarriak honako hauek ziren batik bat: tik konbultsiboak, besteren hitz edo egintzak nahi gabe imitatzea edo errepikatzea (ekolalia eta ekopraxia) eta madarikazio nahiz zantarkeriak gogoz bestera eta konpultsiboki botatzea **(koprolalia)**. Xabier Olarra

---

**kopto** **1** *iz* Egipto edo Etiopiako kristaua.

Ekialdean, **koptoen** artean, martxoaren 4an ospatzen da; Bizanziotarrek, berriz, abuztuaren 9an. Pello Zabala

Horrela deitzen diete errusiarrek ijitoei, **koptoen** antzinako ondorengoei. Karlos Zabala

• **2** *izond* koptoena, koptoei dagokiena.

Ilunabarra inguratzean, monasterio **kopto** batera heldu ziren. Xabier Aranburu

Bigarren/hirugarren mendeko eskuizkribu **kopto** galduaren aurkikuntza dela-eta. Joseba Zulaika

---

**koptoera** *iz* koptoen hizkuntza.

Harrigarria zen, gero, zenbat hizkuntzatatik itzuli beharra zeukaten; hainbesteraino, non Babel jakintsu bihurtua baitzen Jakintzaren Etxea: greziera, sogdiera, sanskritoa, latina, hebreera, arameera, siriera, **koptoera**. **Koptoeraz** mintzatu ziren zer edo zertaz, eta, ondoren, barrura sartzeko eskatu zion Alkimistak mutilari. Jon Muñoz

**kopula** 1 *iz* kopulatzea.

Hauek abereak bezala agerian egiten dute **kopula,** beren larrukolore bereko hazi beltza isuriz, etiopiarrek bezala. Patziku Perurena

Eme horrek arra inguratzen duenean kopulatu egiten dutela [...] eta, **kopula** horrek irauten duen bitartean, emeak jan egiten duela arra. Berria - Kultura

Behaztopa egin zuen **kopulan** loturik zegoen suge bikote batekin. Juan Garzia

**2** (gramatikan, logikan) bi hitz edo perpaus lotzen dituen hitza.

Aditzaren kontzeptua **kopula** logikoaren kontzeptuaren baliokide bezala erabilia. Xabier Arregi

Erabilera logikoan judizio baten **kopula** besterik ez da; "Jainkoa ahalguztiduna da" esakuneak beren objektua duten bi adigai barnebiltzen ditu: Jainkoa eta ahalguztiduntasuna; "da" hitz laburra ez da beste predikatu bat, baizik predikatua subjektuarekin harremanean jartzen duen zerbait besterik ez. Ibon Uribarri

**3** (hitz elkartuetan)

Esaldi-atribuzio eta aditz- **kopula** teoria zaharra berrartzean, Port-Royaleko gramatikariek enuntziazio-erregulartasun bat ireki dute Xabier Arregi

---

**kopulatibo** *izond* hitzak edo perpausak lotzen dituena.

-Oso sarri erabiltzen du juntagailu **kopulatiboa** (*et=eta*). Askoren artean

Hala ere, *et* juntagailua ez da beti **kopulatibo** hutsa, bestelako balioak ere baditu: esateko, balio adbersatiboa, esaldiak batzen dituenean. Askoren artean

---

**kopulatu,** kopula(tu), kopulatzen du *ad* arraren eta emearen sexuak batu.

Eme horrek arra inguratzen duenean **kopulatu** egiten dutela (hitz horixe erabili du Txemik, doinu zientifikoari eutsi nahian: **«kopulatu»),** eta, kopula horrek irauten duen bitartean, emeak jan egiten duela arra. Berria - Kultura

Ez gaitezen engaina, ispiluari begira **kopulatzen** dugu gaur egun. Patxi Iturritegi

Jakingo balute **kopulatzen** dugun bakoitzeko zenbat denbora pasatzen dugun horretan pentsatzen! J.M. Olaizola "Txiliku"

Desio sexuala -ez da nahastu behar **kopulatzeko** desioarekin- jaiotzen garenetik daukagula. Luis Elberdin

Hienak gorroto zituela zakurrak, eta, aldiz, otsoekin oso gustura **kopulatzen** zuela. Karlos Linazasoro

Ilerik gabeko tximuki bat da, beti **kopulatzen** dabilena eta bikoteetan bizitzeko ohitura arraroa duena. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**kopulazio** *iz* kopulatzea.

Sorayaren eta beraren arteko ekinaldiek sugeen **kopulazioaren** antzekoak behar dute izan. Oskar Arana

Traba izan behar zuen **kopulazio** denboratik aparte ere hodia gogor egotea. Luis Elberdin

---

**kopuru** 1 *iz* zenbaki jakin batek ezaugarritzen duen multzoa; multzo bat zehazten duen neurria. ik**zenbateko**.

Beldurra zien **kopuru** handiei, kopurua bera ere botere-faktore bat delako. Askoren artean

-Esan **kopuru** bat -proposatu zuen. Koro Navarro

**Kopuruen** aldetik, eskola girixtinoan, 14etarik 15etara pasatu dira. Herria

Orain, berriz, joera aldatu da eta ikasleen **kopurua** beherantz doa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Baina, dena dela, faktore hori hor dago eta horrek, konparazioak egitean, 15'1ko **kopuru** hori gorago jarriko luke segur aski ere gure unibertsitateetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hizkuntza posibleetatik *n* **kopuru** batek hiztegi bera darabil. Juan Garzia

**2** (izenondoekin)

Ideia horrek, jatorrizko adigai gisa, predikatuen **kopuru** handi bat baztertzen duela. Ibon Uribarri

Ez jarri zeure uste ona haien bizitza luzean, ez eta oinarritu ere haien **kopuru** handian. Elizen arteko biblia

Urak bero espezifiko altua duenez, **kopuru** txiki batek nahikoa bero gordetzen du. Irene Aldasoro

**Kopuru** puztuak ageri dira. Pello Zabala

Arketipo platonikoen **kopuru** zehatza finkatzea. Maxima-minima, euri-kontuak eta beste, denen **kopuru** totalak eta batezbestekoak ere. Juan Garzia

Urteak joan, urteak etorri, poliziak halako ontzien **kopuru** ederra bildua zuen. Matías Múgica

Ezin baita **kopuru** negatibo baten erro karratua atera. Jon Muñoz

Bi ezaugarri horietatik-ordena zehaztugabetik eta **kopuru** mugagabetik-. Isabel Arrigain

Elementu ezin txikiagoen **"kopuru** infinitu" bat. Jon Muñoz

· Laukizuzen infinituki txikien **kopuru** infinituki handiaren batura. Jon Muñoz

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia kontagarria delarik)

Herri bat, edo nazio bat existitzen da, gizarteko jende [=pertsona] **kopuru** seinalatu bat jokatzen delarik nazio bat balitz bezala. Piarres Xarriton

Ikasle **kopurua** izugarri igo zen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Biktima **kopuru** handiko atentatu terrorista. Berria - Mundua

Faksimile **kopuru** handi bat. Jon Muñoz

Isoglosa **kopuru** nabarmena. Isabel Arrigain

Letra **kopuru** mugatu batez osatua dagoen sistema definitu batean. Isabel Arrigain

Enuntziatu **kopuru** jakin baten baitan. Xabier Arregi

Ea non bildu den litro **kopuru** altuena. Pello Zabala

Mahasti- **kopuru** handia da biztanle-ugaritasunaren kausa lehenetako bat. Iñaki Iñurrieta

Bertso bakoitzak oin **kopuru** jakina du, eta oin hauek berriz, silaba **kopuru** jakina. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egun- **kopuru** mugatua du gizakiaren bizitzak. Elizen arteko biblia

Lerroa puntu **kopuru** infinitu batez osatua da; planoa lerro **kopuru** infinitu batez; bolumena plano **kopuru** infinitu batez; hiperbolumena bolumen **kopuru** infinitu batez... Juan Garzia

"Lerro" **kopuru** ia infinitu baten "batuketa". Juan Garzia

Zientzia-teoria guztiak behaketa- **kopuru** mugatu batean oinarritzen dira. Itziar Laka

Gene segmentu **kopuru** mugatu baten konbinazioz. Juan Garzia

Mundu bizia elementu **kopuru** finitu baten konbinazio modukoa da. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia ez-kontagarria delarik)ik **kantitate 5.**

Erregai **kopuru** minimoaren zenbatekoa. Fernando Morillo

Diru **kopuru** polita zen saria. Jon Muñoz

Denbora **kopuru** batean gertatzen diren presio aldaketen neurria. Lourdes Oñederra

Ur **kopuru** batek zuen pisua. Ibon Uribarri

Aire **kopuru** nahikoa. Lourdes Oñederra

Kamera ilunean sartzen den argi **kopurua** handitu beharra. Josu Zabaleta

Edozein motatako makinetan energia **kopuru** bat behar da lana sortzeko. Fernando Morillo

Hortik egunero-egunero hormona **kopuru** txiki bat askatzen du. Luis Elberdin

Tropa **kopuru** handi bat. Karlos Zabala

Zeren kode baten aginduetan, erlijio baten erritoetan, itsas seinaleetan eta abarretan beti jende **kopuru** txiki batek hartzen baitu parte. Isabel Arrigain

Honek prestatua zeukan marmol-**kopuru** handia tenplu bat egiteko estilo doriarrean. Santiago Iruretagoiena

Portugalek, balio-gastu berarekin, oihal **kopuru** handiagoa eskuratuko du. Koro Navarro

Otordu ondoan, droga **kopuru** handiak harrarazten zizkien Hassanek bere gizonei. Jon Muñoz

Beti merkantzi **kopuru** berbera erosteko. Iñaki Iñurrieta

Gaur egun mendebaldeko hiritarrak hedabide masiboetatik berebiziko informazio **kopurua** irensten du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esportazio **kopuruen** hazkundean. Koro Navarro

Har ditzagun Donostiako prezipitazio **kopuruak** eta aldera ditzagun Arantzazun bildutakoekin. Pello Zabala

Aginte ekonomikoek herrialde jakin batean dagoen diru eskaintza **kopuru** osoa kontrolatu nahi izaten dute, diru eskaintza **kopuru** osoak erlazioa baitu ekonomia jakin batean ekoizten den ondasun eta zerbitzu **kopuru** osoarekin eta, azken batean, errenta osoarekin. Iñaki Heras

Euri **kopuru** eta litroen emanera bagoaz, berriro gure Donostialdea da urtsuena. Pello Zabala

Kontua duk unibertsoa materia **kopuru** jakin batez osatua dagoela, hasiera bat izan zuela big-bangean eta amaiera bat izanen duela noizbait. Harkaitz Cano

Dirutza horretatik **kopuru** txiki bat gastatuz gero, dena konpondua. Jon Muñoz

· Diru eskaintza **kopuru** osoak erlazioa baitu ekonomia jakin batean ekoizten den ondasun eta zerbitzu **kopuru** osoarekin. Iñaki Heras

Nire barruan dagoen faxismo ehuneko **kopuru** hori. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**biktimen kopuru** (6); **biztanle kopuru** (8); **boto kopuru** (13); **diru kopuru** (158); **diru kopuru handia** (12); **egun kopuru** (6); **ikasle kopuru** (8); **ikusle kopuru** (8); **jende kopuru** (19); **kopuru amaigabea** (7); **kopuru bera** (78); **kopuru berarekin** (14); **kopuru berbera** (11); **kopuru berdina** (10); **kopuru egokia** (6); **kopuru handi** (40); **kopuru handi bat** (17); **kopuru handia** (83); **kopuru handiagoa** (19); **kopuru handiagoan** (8); **kopuru handiak** (27); **kopuru handian** (10); **kopuru handiena** (53); **kopuru handitan** (9); **kopuru ikaragarria** (6); **kopuru infinitu** (12); **kopuru infinitua** (7); **kopuru izugarria** (10); **kopuru jakin** (47); **kopuru jakin bat** (26); **kopuru mugatu** (13); **kopuru mugatua** (12); **kopuru osoa** (13); **kopuru osoaren** (10); **kopuru polita** (11); **kopuru txiki** (24); **kopuru txiki bat** (11); **kopuru txikia** (13); **kopuru txikiagoa** (8); **kopuru txikiena** (6); **kopuru zehatza** (22); **kopuru zehatzik** (11); **ordu kopuru** (7); **pertsona kopuru** (7); **puntu kopuru** (32); **puntu kopuru bera** (8); **ur kopuru** (10)

**akzio kopurua** (8); **anaien kopurua** (14); **auto kopurua** (6); **bazkide kopurua** (9); **bermearen kopurua** (8); **bidaiari kopurua** (17); **bidaiarien kopurua** (8); **biktima kopurua** (8); **biktimen kopurua** (12); **bisitari kopurua** (13); **bisitarien kopurua** (6); **biztanle kopurua** (18); **boto kopurua** (18); **diru kopurua** (105); **emakume kopurua** (6); **emakumeen kopurua** (12); **enpresen kopurua** (8); **erabiltzaile kopurua** (7); **espezie kopurua** (6); **estatubatuarren kopurua** (6); **etorkinen kopurua** (11); **etxe kopurua** (6); **euroko kopurua** (8); **euskaldunen kopurua** (16); **gaixoen kopurua** (7); **gas kopurua** (6); **gol kopurua** (8); **gutxieneko kopurua** (7); **haur kopurua** (16); **haurren kopurua** (14); **herrialdeen kopurua** (6); **herritarren kopurua** (10); **hildako kopurua** (20); **hildakoen kopurua** (39); **hondakin kopurua** (10); **ikasle kopurua** (20); **ikasleen kopurua** (30); **ikusle kopurua** (27); **irakasleen kopurua** (8); **istripu kopurua** (9); **istripuen kopurua** (6); **jende kopurua** (74); **jendearen kopurua** (6); **jokalari kopurua** (6); **kide kopurua** (11); **kideen kopurua** (9)

**kopurua apaldu** (6); **kopurua bikoiztu** (20); **kopurua emendatu** (10); **kopurua emendatzen** (10); **kopurua gainditu** (13); **kopurua gainditzen** (6); **kopurua gehitu** (10); **kopurua gutxitu** (13); **kopurua gutxitzea** (7); **kopurua gutxitzeko** (11); **kopurua handia** (19); **kopurua handiagoa** (12); **kopurua handitu** (46); **kopurua handituz** (6); **kopurua handitzea** (22); **kopurua handitzeko** (16); **kopurua handitzen** (14); **kopurua hazi** (14); **kopurua igo** (12); **kopurua jaitsi** (18); **kopurua kontuan hartuta** (8); **kopurua lortu** (7); **kopurua lortzeko** (7); **kopurua mugatu** (6); **kopurua mugatua** (9); **kopurua murriztea** (15); **kopurua murrizteko** (13); **kopurua murrizten** (7); **kopurua murriztu** (29); **kopurua nabarmen igo** (7); **kopurua zehaztu** (15)

**lagunen kopurua** (8); **langabe kopurua** (11); **langabeen kopurua** (19); **langile kopurua** (33); **langileen kopurua** (15); **lanpostuen kopurua** (7); **minutu kopurua** (6); **negozio kopurua** (9); **orri kopurua** (13); **orrialde kopurua** (21); **partida kopurua** (9); **pertsonen kopurua** (25); **preso kopurua** (10); **presoen kopurua** (13); **puntu kopurua** (17); **soldadu kopurua** (14); **soldaduen kopurua** (10); **ur kopurua** (9); **urte kopurua** (7)

**diru kopuruak** (19); **hildakoen kopuruak** (17); **ikasle kopuruak** (10); **ikasleen kopuruak** (8); **kopuruak behera egin** (28); **kopuruak gora egin** (49); **langabe kopuruak** (8); **langabeen kopuruak** (6)

**boto kopuruan** (7); **diru kopuruan** (7)

**biztanle kopuruaren** (6); **diru kopuruaren** (7); **ikasle kopuruaren** (12); **kopuruaren araberako** (7); **kopuruaren araberakoa** (11); **kopuruaren hazkundea** (8)

**diru kopuruari** (8); **kopuruari eutsi** (7)

**diru kopururik** (8); **kopururik handiena** (35)

---

## **kopurutsu** 1 *iz* jendetsua.

Manifestazio hura oso **kopurutsua** izan ez bazen ere, [...]. Iban Zaldua

Elkarretaratze **kopurutsuena** Nabulusen egin zen, 2.000 lagunetik gora bildu baitzen bertan. Berria - Mundua

Txinako Armada, ordea, munduko **kopurutsuena** da: orotara 2,3 milioi soldaduz osatuta dago. Berria - Harian

Maale Aduminen handitzea Zisjordaniako kolonia **kopurutsuenen** sendotze plan batean sartzean da. Berria - Mundua

Frantziako besta **kopurutsuenak** direla. frantziskotarrak Eliza katolikoaren multzorik **kopurutsuena** dira egun. Berria - Kultura

**2** ugaria.

Zilarra eta urrea harriak bezain ugari bildu zituen Jerusalemerako, eta zedroak ere bai, Xefela itsas hegian hazten diren basapikuak bezain **kopurutsu** . Elizen arteko biblia

---

## **koraje** *iz* adorea, bihotza, kemena. ik **kuraia**.

Miragarria zait besteen salbatzeko bizia eman düenen **korajea,** bereziki hor hil beitira zonbait ehün sühiltzale baita poliziako. Herria

**Korajea** eskatzen duten gauzak egin behar direnean errazago porrot egiten dute. Santiago Iruretagoiena

---

## **koral**[1] **1** *iz* talde handietan bizi den polipoa, polipoei berei darien kare egitura batean bizi dena(*Corallimorpha* ord., *Madreporaria* ord. etab.).

**Koralaren** oinarrizko unitatea polipoa da, tutu itxurako gorputz bat, garroz inguratutako aho bat eta bere beheko muturrean substratuari atxikitzeko disko basal bat dituena. Berria - Gaiak

**2** kare egitura hori, harkaitzak osa ditzakeena; koralei darien gaia, gorria edo zuria kolorez, bitxigintzan erabiltzen dena.

Nakar arrosak, **koral** odolkarak, perla esne kolorekoak. Felipe Juaristi

Nork aurkituko etxekoandre jatorra? **koralek** baino askoz gehiago balio du. Elizen arteko biblia

Esmeraldak, purpurazko oihalak, bordatuak eta lihozko ehunak, **koralak** eta errubiak. Elizen arteko biblia

Esmeralda, **korala** eta mamut bolia, txiki-txiki eginda, hauts bihurtua, amodio gogo hila piztu eta berpiztu egiten duena. Felipe Juaristi

**Koralezko** lepokoa ekarri nahi zion Caroline lehengusinari. Karlos Zabala

Borrokak dituzue piratekin, eta **koralezko** irletan jaurtitzen duzue aingura. Julen Gabiria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Koral** arrezifeak babesteko asmoarekin. Berria - Gaiak

Bere sakelatik **koral** -korda, urrez kordatua, aterata, lepoan ipini zion. Patxi Ezkiaga

Luteziak, isilik zegoenean, ahoa neurriz gain txikia zuen, **koral** -ale obaloa iduri. Matías Múgica

Lepo beltzaranean diz-diz **koral** harriak. Karlos Zabala

**Koral** -bitxiak, nire andere dukesak berorri bidaltzen dizkionak. Patxi Ezkiaga

Urre-hariz kordaturiko **koral** bitxi korda bat. Patxi Ezkiaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koral arrezifeak** (3)
> **koralezko arrezifeak** (6)

---

# koral² *(orobat **korala** g.er.)* **1** *iz* abesbatza. ik **koru**.

Gorka Sierrak zuzentzen duen **koralak**. Berria - Kultura

Faltzezko *Virgen de Las Nieves* **koralarekin**. Berria - Kultura

Donazaharreko **korala** mezan. Herria

**Koralak** meza ederra kantatu du. Herria

Parropiako **koralak** xaramelatu ditu Pazkoko kantika airos ederrak. Herria

Elizan kantatzen duten Euskal Herriko **koralen** biltzarra eginen da Baigorrin. Herria

Elizgizonak, **koral** -zuzendariak, artzapezpikuak, apezpikuak. Xabier Olarra

Bateko **korala,** besteko euskal dantzak edo txalaparta emanaldia. Berria - Kirola

• **2** *izond* abesbatzarena, abesbatzari dagokiona.

Bilboko Elkarte **Korala** eta Iruñeko Santa Cecilia abesbatza. Berria - Kultura

Kantu **Koralaren** Akademiak XX. mendeko musika polifonikoa jorratuko du aurten. Berria - Kultura

Lan honek Bachen musika **korala** du oinarri. Berria - Kultura

XX. mendean musika **koral** onena egin duen konpositorea da Bello Portu. Berria - Kultura

Musika **koraleko** mintegia egingo dute Lekarozen. Berria - Kultura

Cazalis-en poema batean oinarrituriko preludio **korala**. Anjel Lertxundi

Arabako Aste **Koralak** 50 emanaldi eskainiko ditu, gaurtik hasita. Berria - Kultura

Haren obra sinfoniko-**korala** interpretatzen. Berria - Kultura

**3** irud/hed protagonistatzat pertsonaia asko dituena.

Pelikula **«korala»** egin duzula esan dute zinema adituek. Berria - Kultura

Komedia **korala** eta *road movie* bat da *El síndrome de Svensson.* Berria - Kultura

Egia horrek egia **korala** izan behar luke beti, lagunartean eta umore eder batean esatekoa aukeran. Iñaki Segurola

• **4** *iz* lau ahotsentzat onduriko musika lana.

Bach-en **koral** ezagun bat ere entzuten da obran zehar. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bilboko koral** (4)
> **kantika korala** (3); **parropiako korala** (7)
> **bilboko koralak** (3); **herriko koralak** (3); **koralak parte hartuz** (3); **lekuko koralak** (3); **parropiako koralak** (6)
> **kantu koralaren** (6); **kantu koralaren akademia** (3); **koralaren gidaria** (3)
> **koralen biltzarra** (3)

---

# koran *(117 agerraldi, 27 liburu eta 33 artikulutan; orobat **Coran** 4 agerraldi 3 artikulutan)* *iz* musulmanen liburu sakratua, Jainkoak Mahometi errebelaturikoa biltzen duena.

Esku batean su-arma bat, bestean **koran** liburu santua. Berria - Mundua

Bokarako mezkitan sartzean, **Korana** jaso eta bere zaldien oinpera jaurti zuen. Iñaki Iñurrieta

**Koranak** agindutakoa zintzo-zintzo beteaz. Bernardo Atxaga

Emirrak hatza **Koranen** orrialde batean ipinia zuen. Karlos Zabala

**Koranen** edota Sunna-n aurreikusten ez ziren kasuak erabakitzeko. Xabier Kintana

Adierazi nahi diet munduko musulman guztiei ez dugula **koranaren** aurkako profanaziorik onartuko. Iñigo Aranbarri

Buruari eragin ziolarik, **Koranaren** bertset bat deklamatzen hasi zen. Patxi Zubizarreta

Geografia, historia, hizkuntza ikasiko dituzte, ez **Koraneko** surak. Xabier Montoia

Bibliako edo **Koraneko** hainbat pasartetako lurrin gozo eta hitz are gozoagoak. Joan Mari Irigoien

Irakurri du ere **Koraneko** otoitz bat eta euskaraz itzuli. Herria

**Koranagatik,** ez egin ezer nire etxeari! Juan Kruz Igerabide

**Koranean** oinarrituko den estatua sortu nahi dugu. Berria - Harian

Izan ere Jaungoikoaren hitzak hitzez hitz idatziak daude **Coranean** eta hori nehork ez du zalantzan ezartzen, ortodozia bultzatuz. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koran liburu** (4); **koran liburua** (3)
> **koranaren bertsoak** (3); **koranaren lehen bertseta** (4); **koranaren loreak** (4)

---

# koraniko *izond* Korani dagokiona.

Adulteriogile zikina ez bestea! berari ezarriko nioke nik lege **koranikoa** gustura. Patxi Iturritegi

Amadou eskola **koranikora,** eta frantsesera, bietara doa. Pablo Sastre

Afghanistanen bonba zartatze bat izan da eskola **koraniko** batean. Herria

---

**korapiladura** *(corpusean **koropiladura** soilik) iz* korapiloa.

Eta orozgainetik gure mintzaira miresgarriaren segeretu eta **koropiladurak,** zinez, baginen Lafitten argitasun hanbatez xarmatuak egoiten ginenak. Herria

---

**korapilaketa** *iz* korapilatzea.

Neurologoaren bizitza ez da zientzialariarena bezain sistematikoa, baina ustekabeko egoera berriak ematen dizkio, naturaren izate korapilotsura irekitako leiho edo zelata-zulo bihur daitezkeenak: batek ezingo luke aurrez ikusi bizitzaren ibili normalean **korapilaketa** sasitsu hori. Xabier Olarra

---

**korapilatsu** *(orobat **korapilotsu** g.er., **koropilatsu** g.er., **koropilotsu** g.er., **korropilotsu** g.er. eta **korropilatsu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **korapilatsu** agertzen da)* **1** *izond* korapiloz betea.

Mataza **korapilatsuko** istorioak harilkatzen jarduten zuten. Mirentxu Larrañaga

Bere arrazoibide **korapilatsua** harilduz. Koldo Biguri

Alemaniarren gogamen zorrotzak hitz **korapilatsuak** sortzen ditu. Maitasun ixtorio **korapilatsu** eta bitxi bat. Jose Morales

-Ondo istorio **korapilatsua** dugu gure hau. Jon Muñoz

Auzi **korapilatsuak** diru-iturri polita dira jende askorentzat. Jose Morales

Auzi **korapilatsuan** sartu zarete, eta giharrean ukitu duzue. Berria - Ekonomia

Misterio **korapilatsu** bat argitzen ari balitz bezala. Irene Aldasoro

Pertsonen arteko harreman **korapilatsuak** lantzen dituzten nobelak. Xabier Olarra

Berrogeita hamar urte baino gehiago emana itsasontzi eta makinen maketa izugarri **korapilatsuak** egiten. Xabier Olarra

Ioien mugimenduaren bidez transmititzen da seinalea, modu **korapilatsu** baina eraginkorrean. Irene Aldasoro

Don Kixoteri hainbeste gustatzen zitzaizkion Feliciano de Silvaren pertsonaien modu **korapilatsuan** mintzatzen baitzen. Josu Zabaleta

**2** (izan aditzarekin)

**Korapilatsua** da matematika, eta are **korapilatsuagoa** da hura aplikatzea. Jon Muñoz

Oso testu **korapilatsua** da. Jon Muñoz

Oso gai **korapilatsua** zela. egun **korapilatsua** izango zuela aurreikusi zuen. Patxi Zubizarreta

Oso **korapilatsuak** diren gaietan sartu izan naizelako. Ana Urkiza

Baina bi hots konbinatuen ahoskatzeari gagozkiola, kontua **korapilatsuagoa** da. Isabel Arrigain

Lan **korapilatsua** izango zen, zalantzarik gabe, ordura arte izandako **korapilatsuena** . Migel Angel Mintegi

Trinkoa baita bere edukia, apur bat **korapilatsua** bere argudiobidea. Xabier Mendiguren Elizegi

Lan gaitza da azaltzea zeinen **korapilatsua** eta zaila izan zen gure gazte-denbora hura. Karlos Zabala

Ulertzen zailak izaten dira gaiak, eta esplikatzen **korapilatsuak** . Berria - Gaiak

Bi urte luze eta **korapilatsu** izan ziren. Berria - Harian

• **3** (beste aditz batzuekin)

Gero eta **korapilatsuago** agertzen zitzaizkion gauzak Ruche jaunari. Jon Muñoz

Behe Nafarroan, ostera, forugintza **korapilatsuago** gertatu zen. Andres Urrutia

Gogoan erraza zirudien guztia **korapilatsu** bihurtzen zen berehala praktikan. Anton Garikano

Inoiz baino **korapilatsuagoa** dator aurten EAEko udal eta foru administrazioetako langileen lan baldintzak ezartzeko negoziazioak. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auzi korapilatsu** (3); **luze eta korapilatsu** (3)

**auzi korapilatsua** (3); **gai korapilatsua** (6); **gaia korapilatsua** (5); **luzea eta korapilatsua** (3); **prozesu korapilatsua** (4)

**gero eta korapilatsuago** (5)

**gai korapilatsuak** (3); **gauza korapilatsuak** (3); **harreman korapilatsuak** (3); **luzeak eta korapilatsuak** (4)

**gai korapilatsuren** (4)

---

**korapilatu**, korapila, korapilatzen *(orobat **korapilotu** g.er. **koropilatu** g.er., **korropilatu** g.er. eta **korapildu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **korapilatu** agertzen da)* **1** du *ad* bi hari, lokarri edo kideko, edo hari baten bi muturrak, korapilo batez lotu; korapiloak egin.

Oinetakoak oso txukun lotu eta estu samar **korapilatu** zituzten txibistak. Anton Garikano

Pisu batean ehundegi sail bat zegoen, eta haietan neska batzuek, kotoi puskak ilean, trebetasun handiz **korapilatzen** zituzten hariak. Koro Navarro

Kiribiltzea amaitu zuenean, zorutik kapela erdi bukatu bat harturik, arto-hostoa **korapilatu** zion kapelaren mutur solte bakarrari. Anjel Lertxundi

Larruzko xala sorbalda gainean **korapilatuta** zuen. Mirentxu Larrañaga

Ile luzeak konketaren hondoan **korapilatuta** . Harkaitz Cano

Haria, mehea izaki, **korapilatu** egiten zen eta korapiloak askatu behar izan zituen. Mirentxu Larrañaga

Behia, berriz, ume egiteko zorian jarri zen, baina umea egin ordez, lau ertzak **korapilaturik** zituen maindire bihurtu zen, eta, maindirea, sagarrez bete... Anjel Lertxundi

Gertakarien haria **korapilatzen** eta trabatzen denean. Joxean Agirre

Askatzeko ahalegin bakoitzak gero eta gehiago **korapilatzen** duen artile-mataza bezala. Jon Muñoz

**2** irud/hed

Eta norbaiten eskuak zure gerria **korapilatzen** eta titi-buruak laztantzen sentitu nahiko dituzu. Jasone Osoro

• **3** *da-du* ad nahasi, korapiloz bete.

Marrok elkar gurutzatzen dira, **korapilatu** egiten dira ezustean bestelako eremu eta koloreetako marrekin, ezinegon hauskor batek joak dira, norabide estrainioak dituzte. Markos Zapiain

Badira, alabaina, gauza batzuk, non justizia bera **korapilatzen** baita bestelako kontuekin. Andres Urrutia

Atseginez ari ziren biak, beren egiteko hartan laketurik eta mihiak **korapilaturik,** hasperenka. Joan Mari Irigoien

Une hartan mutilaren begirakunea eta nirea **korapilatu** egin ziren; korapiloa lehenbailehen askatu, eta atzera irakurtzen hastekotan nengoela, galdera hau egin zidan: [...]. Patxi Zubizarreta

Uste ez bezala **korapilatu** zitzaizkidan ametsa eta gertakizunok buruan. Anjel Lertxundi

Hitzak **korapilatu** egin zitzaizkion eztarrian. Alberto Ladron Arana

Negar isil, antzinako bat **korapilatu** zaio eztarrian. Pello Lizarralde

-Nik? -galdetu nuen ahotsik gabe ia, harri eta zur, nahasmendua zintzurrean **korapilatuta** . Ander Irizar

Dena **korapilatzen** ari zitzaidan buruan. Jon Muñoz

Gorputz garbitu berriaren urrina tabako usainari **korapilatu** zitzaion salan. Aingeru Epaltza
Barreneko egonezinak **korapilatu** egiten dizkio tripak, eta jateko gogoa kendu dio. Paddy Rekalde
Testak berez errazagoak dira eta pixkatxo bat, behintzat, **korapilatu** behar dira. Jon Arretxe
Aberriaren hobe beharra bezalako argibide luzeetan **korapilatu** nintzaion sutsu bezain antzu. Anjel Lertxundi

**4** (era burutua izenondo gisa)

Ile **korapilatuen** jiran orein-damazko koroa bat zuela. Juan Garzia
Botiken kristalezko ontzi koxkorrak eta goma **korapilatu** batez itxitako kutxatxo metalikoak. Josu Landa
Zamo bizkar-belzkarak, oihal mugikorrak diruditenak, aingura **korapilatuak,** lotu eta aska, lotu eta aska, etengabe. Musu **korapilatuak**. Karlos Zabala
Bi emakumeen gorputz biluzi **korapilatuak** agerian geratu ziren. Aritz Gorrotxategi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eztarrian korapilatu (4)

---

**korapilatze** *iz* nahastea, korapiloz betetzea.

Egoeraren **korapilatze** horrek parada ematen dio zuzendariari errealitatetik kanpo dagoen planoan jarduteko eta eremu berri eta ezezagun batean sartzeko bai antzezleak bai ikusleok. Berria - Kultura

---

korapildu ik **korapilatu**.

---

**korapilo** *(orobat **koropilo** g.er., **korropilo** g.er., **korapillu** g.er. eta **morapilo** g.er.)* **1** *iz* hari edo lokarri biren, edo baten bi zatiren lotura, berez egiten dena edo norbaitek egiten duena, eta muturretatik tiratzen denean irmoagoa gertatzen dena.

Soka puska bat harturik, **korapilo** bat egin zuen bertan. Anjel Lertxundi
Norak **korapiloa** estutu zuen. Anjel Lertxundi
Nola hamabost libera baino ez zituen aurkitu muki zapiaren **korapiloan**. Karlos Zabala
Bularretako urdinarekin eskuak lotu nizkion, estu-estu, **korapilo** askaezina lortu arte. Jasone Osoro
Gorbataren **korapiloa** lotzen ari zela. Jose Morales
Ilea orraztu eta gorbataren **korapiloa** estutu eta gero. Pello Lizarralde
Korbataren **korapiloa** egiten ari zen bitartean. Juan Martin Elexpuru
**Korapilo** bat eta beste bat, izugarrizko abiadan zerabiltzan trikota egiteko orratzak, bere kasa lanean ziharduten inurrien antzo. Hasier Etxeberria
Kordoi puska bat aurkitu zitzaion lepoan, [...] ezkerrezko belarriaren azpian geratzen zen **korapilo** batez lotua. Koro Navarro
Poltsa **korapilo** batez lotu, eta pasatu dit. Iban Zaldua
Algara egin zuen atxamartaren estatxan goititzen hasten zelarik korapiloz **korapilo**. Koldo Izagirre
Baina hari batek lotzen du **korapilo** bat eta bestea. Lander Garro
**Korapiloekiko** sokatik igotzea tokatzen zitzaigun ordu hartan Jesus Mari Mendizabal

**2** (izenondoekin)

-Hasi hadi **korapilo** dobleak egiten metroko tartean. Koldo Izagirre
Joan eta hartu besterik ez daukatela, **korapilo** aska-erraz batez lotzen duela ondoko ontziarekin. Iñaki Iñurrieta
Zerrenda hura lepoaren inguruan lotuta aurkitu zuten, ez estu, baina bai **korapilo** sendo batez segurtatua. Koro Navarro
Urrezko katea mantalaren gainean hoska, kapelarik gabe, adatsa modan orraztua, **korapilo** apaingarri bat zintzurrean, **korapilo** farfailazkoa, merkatu nagusiko erregina pinpirinetako bat bilakatzen zuena. Karlos Zabala

**3** irud/hed

Lakioz atrapatu txoria, **korapilo** hartarik ihes egin nahi eta ezinean zebilena. Joan Mari Irigoien
Horrezkero mafiaren sareetako funtsezko **korapilo** bilakatu zen Habana. Edorta Jimenez
Nire bizitzan **korapilo** ugari askatu ditut, baina lokarriak esku artean geratu zaizkit, eta orain zama handia dute. Juan Kruz Igerabide
Bat-batean handitsu bat sortu eta hazi balitzait bezala, **korapilo** baten herstura sentitu nuen erraietan. Joan Mari Irigoien
Keinuaren azpian egon litezkeen ñabardurak eta bertze **korapilo** guztiak ere bat-batean deskorapilatu balira bezala. Joan Mari Irigoien
Ikusten duzu, jaun André, gertaki batek zenbat **korapilo** dituen, eta hala nabilkizu handik eta hemendik horien laxatzen... Joan Mari Irigoien
Mila besarkadatako **korapilo** laxaezinean. Joan Mari Irigoien
Hala ere, ez zen ia ezer bazkaltzeko gauza izan, **korapilo** bat zuen eztarrian, ezaguna den sentsazioa da. Jon Alonso
**Korapilo** bat sentitu zuen zintzurrean eta tarrapatan atera zen etxetik. Elena Touyarou
Zintzurreko **korapiloa** askatu beharrez. Eneko Bidegain

**4** arazo baten eragozpen larria; koska.

Hor zegoen koska, **korapilo** itsua, inkognita edo ezezagun erraldoi eta beldurgarri bat zuen ekuazioa planteatzea zen. Jon Alonso
Bi zertzeladak eman zidaten **korapiloaren** askabide zuzena. Juan Garzia
Herrian, denak kezkatuak ziren **korapilo** hura nola askatuko ote zen. Elena Touyarou
Ryan-ek, zer guztiak ikertu […] eta enigmaren **korapiloa** askatzea lortzen du. Juan Garzia
Aldez aurretik, ordea, **korapilo** asko dauzkazu askatzeko zain, hala nola, Sestaoko giltzak (poliziaren esku daudenak), libreta, elastikoan agertutako olio-mantxak eta Elkanon aurkitutako pistola. Rafa Egiguren
Aurki egin beharko diozu aurre galdeketaren **korapilo** itsusienetako bati. Rafa Egiguren

**5** kezka edo kontu nahasia.

Kezka handiak bazterrean lagata, **korapilo** txikiak askatzen ahalegindu nahi zuen. Hasier Etxeberria
Ezin asmatu nuen nola laxa nezakeen nik buruko **korapilo** hura. Joan Mari Irigoien
Anai Jaxintorekiko harremanen berri eman nionean, **korapilo** hura ere askatu egin behar nuela esan zidan Zabaleta jaunak. Joan Mari Irigoien
"Egia bat eta bakarra da", neure baitan mila zalantza eta bertze hainbat **korapilo** sortarazi zizkidana, ez nekielako jada zer aldetarat jo eta zeren alde! Joan Mari Irigoien
Lehendik ere nahiko **korapilo** neukala banekien eta kaka-nahaste berririk ez zitzaidala komeni erabakitzen nuen batzuetan. Hasier Etxeberria

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Marinel **korapilo** baten antzera tolesten zitzaizkidan hatzak. Harkaitz Cano
Aingira txikiak denak batera erortzen ziren saskietatik konpartimentuen hondora, suge **korapilo** moduko hura desegin gabe. Karlos Zabala
Gogortutako gihar **korapiloa** askatu genuen. Lander Garro
Emazteki baten bularretarik bat beso-zangoen haragi-**korapilo** haietarik batean harrapaturik geratu baitzen. Joan Mari Irigoien

Azkenean iritsi zen sagasti batera, non loreak orduantxe ari ziren bihurtzen fruitu-**korapilo** txiki. Anton Garikano

Idazle batek egunsentiko giro lasaia behar du hitz-**korapiloak** askatzeko. Joxemari Urteaga

Sumatzen zenuen hori guztia zozokeria ere izan zitekeela pentsatu zenuen ondoren, buru-**korapilo** antzu bat baino ez. Hasier Etxeberria

Haren hitz urrietan -halako esan ezin batek eteten zion jarduna- sumatu nuen emozio **korapilo** askagaitzarekin. Iñaki Iñurrieta

Edozein xake-**korapilo** ere aska nezake nik buruz, Ivy zera esaka ari zaidan bitartean: *I'm happy, o Dear, so happy, o Dear, o Dear!* Gizona harreman **korapilo** bat baizik ez da, eta nire harremanek ezer askotarako ez dute balio oraintxe. Joxe Austin Arrieta

Herrixka bat, gerra denean, ez da tradizio **korapilo** bat. Josu Zabaleta

Aho **korapiloak**. Iñaki Arranz

**7** kontakizun edo drama batean, gertarien haria biltzen den gune gorena.

Dramaren **korapiloa** hasi besterik ez zen egin. Karlos Zabala

Ez dago **korapilo** edo argumentu jarraiturik: pasadizo pilaketaz egiten du aurrera. Itziar Otegi

Baina bitartean, trenean hildako bat agertzen deneko kontaera-**korapilo** higa tuaz mintzatu ginen. Edorta Jimenez

Eta neureek [ipuinek], aitortu diedan guztiei harrigarria iruditu bazaie ere, hasiera-**korapiloa**-bukaera estruktura klasikoa errespetatzen dute. Anjel Lertxundi

**8** ***korapilo egin***

Andreasi hartutako ehun liberakoa mukizapian bildu kontu handiz eta **korapilo egin** zion. Matías Mujika

Abere horiek hamarnaka zeuden jarriak, bi soka paralelotan loturik; isatsa **korapilo eginda** zuten, eta bizkar atzea zeta beltzezko saretxo batekin babestuta. Karlos Zabala

Arnasa eztarrian **korapilo eginda,** zer edo zer esan gura izan nion faluaren branka aldean jesarri berria zen agureari, · *(zenbakiekin)* Gero **korapilo** bat **egin** eta korapiloaren zuloan sartu zuen bere burua. Edorta Jimenez

Aitittek painelua lau **korapilo eginda** zuen buruan txapelaren ordez. Joseba Sarrionandia

Zauriaren ertzak josi, eta, nylonezko puntada bakoitzean, bost **korapilo egin** zituen. Xabier Olarra

Zerbait harrigarria gertatzen zait lokarri hauekin: bi **korapilo** tinko **eginagatik**, askatu egiten dira bakarrik, tarte bat oinez egiterako. Harkaitz Cano

**9** ***korapiloa egin***

Peppone hamar minutuz gelditu zen lurrean, gero zutitu, kokospea ferekatu, txukundu, jaka berriro jantzi, **korapiloa egin** zion zapi gorriari eta umea hartu zuen besoetan. Koldo Biguri

Kontu handiz, hezur eta luma moltsoa plastikozko poltsa batean sartu eta **korapiloa eginda** ixten du. Oskar Arana

**Korapiloa egindako** eskuzapi batean. Anton Garikano

Prakak zabalegi nituenez eta gerrikorik edo tiranterik ez zegoenez, **korapiloa egin** behar izan diet. Urtzi Urrutikoetxea

**Korapiloa egin** zaizu eztarrian, pentsatu duzunean zein ondo moldatzen zinen amonarekin eta zein harro zegoen amona zutaz. Lourdes Oñederra

Eztarrian **korapiloa egin** zitzaien zubia zeharkatu eta muinorantz begiratu zutenean. Agustin Otsoa

Hitz haiek **korapiloa egin** zidaten eztarrian. Bernardo Atxaga

Larritu egingo zara, eta sabelean **korapiloa egingo** zaizu. Lander Garro

Burua ahulen zutenei **korapiloa egin** zitzaien burmuinean. Berria - Harian

Saia zaitez mingainarekin **korapiloa egiten**. Jasone Osoro

**10** ***korapilo gordiar/gordiano***

Erantzun baten zain zeunden, **korapilo gordiarraren** beste muturra nik emateko zain. Eider Rodriguez

Uste dut, gure arazoaren **korapilo gordianoa** hementxe daukagula. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eztarrian korapilo bat** (3); **korapilo askatzen** (3); **korapilo bat egin** (7); **korapilo eginda** (3); **korapilo estu** (3); **korapilo gaitza** (3); **korapilo handiak** (3); **korapilo moduko** (4); **korapilo nagusia** (4)

**barruko korapiloa** (5); **behareko korapiloa** (3); **eztarrian korapiloa** (5); **eztarriko korapiloa** (3); **gorbataren korapiloa** (13); **korapiloa askatu** (18); **korapiloa askatuko** (4); **korapiloa askatzea** (4); **korapiloa askatzeko** (15); **korapiloa askatzen** (7); **korapiloa egin** (13); **korapiloa egiten** (4); **korapiloa estutu** (3); **korapiloa eztarrian** (3); **korapiloa laxatu** (3)

**korapiloak askatu** (6); **korapiloak askatzea** (4); **korapiloak askatzen** (6)

**puntan bi korapillu** (3)

---

# korapilodun *izond* korapiloa duena; korapiloak dituena.

Ohe azalaren ertz **korapilodunak** ziren uhalak. Koro Navarro

Gizonaren besoek, **korapilodun** sokak bailiran, bizkarra estutu zioten emakumeari. Lopez de Arana

Bere gogoa enfokatu zuen, ez arbolaren azalera, zilarrezko kozkorduna, edo arrain itxurako hostoetara, baizik eta sukaldeko mahai fantasma batera, egurrezko mahai fregatu horietako batera, piporta eta **korapiloduna**. Anton Garikano

---

korapilotsu ik **korapilatsu.**

---

korapilotu ik **korapilatu.**

---

# koratilo *iz*

**Koratiloaren** poltsikotxotik ateratako zilarrezko erlojuan bostak ikusi zituen Mariek zer ordu ote zen galdetu zionean. Joxemari Urteaga

-Marie, irten aurretik gaurko bilera prestatu nahi nuke -esanaz **koratiloaren** ezker poltsikotik ateratako blok txikitxoa erakutsi zion-. Joxemari Urteaga

---

# koraza 1 *iz* bularra eta bizkarra estaltzen dituen babes arma.

Hartu ezkutua eta **koraza,** eta zatozkit laguntzera. Elizen arteko biblia

Beste hainbatetan bezala, apoarmatuaren **koraza** jantzi eta erraietatik mintzatu zen Marta. Harkaitz Cano

Bere hegalpean emango dizu gerizpe, haren lumapea izango duzu babesleku, haren besoak babeski eta **koraza**. Elizen arteko biblia

**2** irud/hed

Intimitatean, ordea, **koraza** horiek galtzen zituenean, edariren bat eskura zuenean gehienbat edo inoiz emakumeren bat begiko zitzaionean, arras bestelakoa izaten ere ba omen zekien, zorrotza, okurrentea eta umore onekoa. Joxean Agirre

Nire baitan zoriona, eta nire azalkeriazko eta alaitasunezko **koraza** ere ezagutu ditut. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

Armadura baten gisako **koraza** xaflaz estalita. Josu Zabaleta

· Beretzat ez zen isekarik, bere soraiotasun-**korazan** irristatzen ziren guztiak. Josu Zabaleta

---

**korazari** *iz* koraza zerabilen gudaria.

Berunezko soldadutxoen bilduma txikia zeukan -husarrak, granadariak, **korazariak...-**. Iban Zaldua

Italiako **korazari** talde batek desfilatzen zuen. Josu Zabaleta

---

**korazatu**[1], koraza(tu), korazatzen **1** du *ad* korazaz edo babeskiz hornitu.

Begira; guk sei ontzi zahar, txar eta geldi ditugu Kubako Santiagon; haiek hogeita bat dituzte, ia denak berriak, ongi **korazatuak,** eta gureak baino bizkorragoak. Josu Zabaleta

**2** gogor babestu.

Altzairu zerrendazko kortse arrosa koloreko batez **korazaturik**. Josu Zabaleta

Ezin baita azalpen matematikoetan bezain **korazaturik** azaldu. Ibon Uribarri

**3** (era burutua izenondo gisa) ***kamera korazatu*** gela gotorra.

Eta hala kamera **korazatua** itxi, eta gainerako guztiak handik bidali nituen ahal nuen azkarrena. Xabier Olarra

--Konbentziturik nago kamera **korazatuan** gizon bat ezkutatuta dagoela. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kamera korazatua** (6); **kamera korazatuan** (7); **kamera korazatutik** (3)

---

**korazatu**[2] *iz* gerra itsasontzi handia, gogor blindatua eta artilleria astunez hornitua.

Errepublikaren Gobernuaren agindupeko **korazatua,** 1914an eraikia. Edorta Jimenez

Gure bou txikiak egundalako suan ari direla *Cervera* kanoiariarekin eta *España* **korazatuarekin**. Koldo Izagirre

Arratsalde hartan *Potemkin* ***korazatua*** ematen zuten La Falucheko zine-klubean. Joseba Urteaga

Ondorio itzelak eduki zituena ondasun materialei dagokienez, **korazatuak,** hegazkinuntziak, destruktoreak, eta gainerakoa, [...] Jon Alonso

---

**korazero** *iz* korazaria.

Bertan ikuskizun nazkagarria neukan zain: izterra mozten ari zitzaizkion **korazero** gazte, lerden eta eder bati. Jon Alonso

---

**korazonista** *iz* Bihotz Sakratuen erlijio ordenako lekaidea edo lekaimea.

Batxilerreko bosgarren edo seigarren urtea egiten ari nintzen Donostiako **korazonistetan**. Joan Mari Irigoien

Mundaizko **korazonisten** ikastetxean. Joan Mari Irigoien

**Korazonistetan** nenbilen garaiko emanaldiaz gogoraturik. Joan Mari Irigoien

---

**korban** *iz* oparia.

Zuri eman behar nizukeena **"Korban"** da (hau da, Jainkoarentzat opari). Elizen arteko biblia

---

korbata ik **gorbata**.

---

korbatadun ik **gorbatadun**.

---

**korbe** *iz* aska, ganbela.

Itzultzen naiz ni ere ene abiapuntura: egiazko zaldunak bezala, zaldiak **korbeetara** eroaten ditut. Itxaro Borda

Sektako arduradunek behitegiko otalakoetan, **korbeen** maldan, ohantze moldeko bat antolatu zioten. Itxaro Borda

---

**korbeta** *iz* gerra itsasontzi beladuna, hiru mastakoa, fragata baino txikiagoa; gerra itsasonzi arina, kalibre txikiko kanoiez hornitua, eskolta lanetan eta itsaspekoen aurka erabiltzen dena.

Egun hartan **korbeta** bat iritsi zen Kontxara, Habanatik bueltan. Martin Anso

Aita bera, Damian, Mantxako kanalean, *Mary-Rose* **korbetako** kapitaina zela urak eraman zuen... Pablo Sastre

---

**korda** *(**143** agerraldi, **46** liburu eta **43** artikulutan; orobat* ***kuerda*** *g.er.)* **1** *iz* soka. ik **soka**.

Pettan zen besteak baino aitzinago joana, zaldi bat **kordatik** estekan, miatzaile edo espiun gisa. zirgari nagusia etsita dago; gaztea, aldiz, prest dago lotuta duen **korda** hausteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Elurrez estalia edo izotzak hormatua zen lurrean, xutik ezartzen genuen bahea erorarazten genuen, leiho gibeletik tiratuz **korda** eta xoriek denbora berean jatekoa eta presondegia segurtatuak zituzten. Piarres Aintziart

Ehizako arman, zurezko arkuak bi muturretan egiten dion presioak jartzen du zuzen **korda;** arkua, berriz, **korda** tinkatuak ezartzen dizkion mugen eraginez kurbatzen da. Jon Muñoz

Seigarren roundean jada **korden** aurka baztertu zuen pare bat aldiz Koliriok bere aurkaria. Harkaitz Cano

**2** irud/hed

Euskal abizenekin aise osatzen dira horrelako **korda** luzeak. Iñaki Arranz

Ikaragarriko **korda** luzea Santespietako aldetik Herriko Etxearen aintzinerat, Baiona-Ttipian gaindi itzulia luzatuz. **Korda** luzea da, biziki luzea, "Prestige" untzi zaharkituaren hondatzeak ekarri duen hori! Herria

Besta horrek gainerat gero eta **korda** luzeagoa dauka. Herria

**3** (geometrian) arku bateko bi puntu loten dituen zuzenkia.

**Korda** erdia, horra sinua zer zen. Jon Muñoz

Trigonometrian ere kurbaren eta zuzenaren arteko erlazioan zegoela koska; zirkuluetako arkuen eta haiei eusten dieten **korden** arteko erlazioan, alegia: **kordaren** luzera kalkulatzea, zirkuluaren erradioaren arabera. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Han bildutako jendea dantza- **korda** bat osatzen hasi zen pixkana-pixkana. Anjel Lertxundi

Biper **korda** luze bat. Herria

Hatz batez seinalatu zuen paretatik zintzilik zegoen tipula- **korda** . Jon Muñoz

Perla- **kordaren** batzuk. Patxi Ezkiaga

Eta, bere sakelatik koral- **korda,** urrez kordatua, aterata, lepoan ipini zion. Patxi Ezkiaga

Urre-hariz kordaturiko koral bitxi **korda** bat. Patxi Ezkiaga

Segoviako oroititzak dituzten galtza- **kordak,** Bilboko ur bedeinkatu ontzi beirazkoak. Koldo Izagirre

Berdin, bide batzuen egiteko, nolako harresi **korda** luzeak eta goratasun haundikoak erabiltzen zituzten, hainbeste urteren buruan oraino zutik daudenak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**5** musika-tresnetan, haria. ik **soka 8.**

Arrabitak bi **korda** ditu, biolinak hiru... Herria

Musika tresnen **korda** edo harien erara dar-dar egiten baitute. Lourdes Oñederra

Perkusio, **korda** eta haizezko instrumentuen bitartez musika tradizionalaren bide berriak erakutsiko dituzte. Berria - Kultura

Meccano piezekin eraikitako mekanismoekin **korda** eta arku instrumentu batzuk, perkusio txikiak eta teklatu bat entzuten ditugulako. Berria - Kultura

**Korda** laukote bat, tronpeta jole bat, eta abar. Berria - Kultura

**Kordarako** koartetoentzako partitxelak plazaratu ditu, zortzi koadernotan. Berria - Harian

Hatz bizkorrak zitararen **kordetan** korrituz itzartzen duten musen kantua bezala. Xabier Amuriza

**6** ***aho korda*** ahots korda.

Etxera itzuli zenean, izebak esan zion, aho- **kordei** ia eragin gabe, hil egin zituztela herriko bost gazte. Eider Rodriguez

Neskatoak ondo zituela **aho-kordak** eta ez zirudiela burutik gaizki zegoenik ere. Felipe Juaristi

-Esan eeeee -agindu zion Aldabak tutua **aho** - **korden** artean kokatu zionean. Hasier Etxeberria

**7** ***ahots korda*** (orobat ***ahoskorda***)

Izan ere **ahoskorda** deitzen diren horiek laringean dauzkagun ezpain itxurako tolesdura haragitsuak dira. Lourdes Oñederra

Minbizi kasu jakin batzuetan **ahots-kordetako** minbizia, kasu, egunean bertan ematen zaio alta gaixoari. Berria - Gaiak

Garbi-garbi atera diotela eztarriko zulotik eta, gainera, **ahots-korda** moztu gabe. Hasier Etxeberria

Bada adindu bat **ahots-kordak** urratuta dituena. Berria - Euskal Herria

Kamera txiki hura sudur zuloan behera **ahots-kordetaraino** sartzea. Hasier Etxeberria

**Ahots kordetako** noduluak lanak eragindako gaixotasun bezala hartu behar direla. Berria - Euskal Herria

**Ahots-korda** kiskalietako gizonak. Aingeru Epaltza

Ingelesez *voice* hitza erabiltzen da **ahoskorden** dardararen emaitza adierazteko eta, horregatik, voiced ('ahostun') dira **ahoskorden** dardaraz egiten diren hotsak eta voiceless ('ahoskabe') **ahoskorden** dardararik ez dutenak. Lourdes Oñederra

Esaldien doinuaren funts fisikoa **ahoskordek** sortutako uhinaren oinarrizko maiztasuna da. Lourdes Oñederra

**8** ***korda eman*** (mekanismo bati; orobat **kuerda eman**) ik **giltza 15.**

Esnagailu bat atera du estutxetik, eta eskumuturreko erlojua kontsultatu ondoren orratzak mugitu eta **korda eman** dio. Pello Lizarralde

**Korda emandako** mekanismo batek eraginda bezala. Xabier Olarra

Jauregia, **korda emandako** mekanismo bat bailitzan, berpizten hasia zen azken orduetan. Xabier Olarra

Erlojua, ahal bada, **kuerda** eman behar zaien horietakoa. Xabier Etxabe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahots korda** (5); **biper korda** (3); **dantza korda** (4); **korda luze** (6); **korda luzea** (6); **korda luzeak** (4)
> **ahots kordak** (4)

---

# kordagin *iz* kordak egiten dituen eskulanilea.

Gogoratzen ditut (ustez) haren esku zorrotzak, larru- **kordagin** bati dagozkion modukoak. Juan Garzia

---

# kordatu, korda(tu), kordatzen **1** du *ad* kordaz lotu.

Biper horren parte bat bildu-eta **kordatzen** dugu eta saltzeko ezartzen, bertze batekin xukatu eta errautsa egiten. Herria

Urre-hariz **kordaturiko** koral bitxi korda bat. Patxi Ezkiaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eta, bere sakelatik koral-korda, urrez **kordatua,** aterata, lepoan ipini zion. Patxi Ezkiaga

Aihen zuria, buru gainean koroa gisa **kordatua** . Itziar Otegi

---

# kordatxo *iz* sokatxoa.

Beste era batera ere neurtu ohi da hori: higrografoak, ile txima- **kordatxo** ttiki batzuen bidez neurtzen du airearen hezetasun erlatiboa. Pello Zabala

---

# korde **1** *iz* konortea.

Han nintzela jakinarazi ziotelarik Tourvel andreari, irudi zuen **kordea** etorri zitzaiola. Jon Muñoz

**Kordera** etorria zen alabaina, ez ordea oroimenera. Jon Muñoz

Erdietsi nuen hala ere neskatila hura ohera berriz eramatea, bai eta **kordera** ekartzea ere. Jon Muñoz

Iduri du hala ere bart gauean eriak **kordea** doi bat berreskuratu duela. Jon Muñoz

Zer? -galdetu zuen, bere **kordera** itzuliz. Jose Morales

Galarza III.a bere **kordean** dago, baina lesioek hitz egitea eragozten diote. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

**Korde** gabeziatik bizitzara itzultzean bi aldi izaten dira: lehenbizi, adimenaren edo espirituaren zentzuarena; bigarren, existentzia fisikoarena. Koro Navarro

**3 *korde gabe*** *(2 agerraldi, 2 liburutan; orobat **kordegabe** 8 agerraldi, 5 liburutan)* *adlag* korderik gabe. ik **kordegabe**.

Nahastua zegoen Dorotea, txunditua Luszinda, eta **korde gabe** Klara anderea. Patxi Ezkiaga

Hori ikusi eta entzutean, haurra lurrera erori zen **korde gabe**. Askoren artean

Zeren hala egon baitzen Mattin bi egunetan, **kordegabe**. Joan Mari Irigoien

Eguzkiak bete-betean jo zuen Jonas buruan, eta ia **kordegabe** utzi zuen. Jose Antonio Mujika

**4 *korde-galtze*** *iz*

Bular-mindunen zorabioa eta Norak ondo ulertu ez zituen bere **korde**-galtzeari buruzko beste hainbat argibide aipatu zituen gero Mathildek. Anjel Lertxundi

Eta orduan epaiketaren oroitzapen osoa, hormetako oihal beltzena, epaiarena, zorabioarena, **korde galtzearena**. Koro Navarro

**5 *kordea galdu***

"Hiltzen ari naiz" oihu egin, eta **kordea** galdu zuen Euler-ek. Jon Muñoz

Doi-doia izan nuen besaulki batera heltzeko parada, eta alditxartu nintzen **kordea** galtzeraino. Jon Muñoz

**Kordea** galdu nuen, baina ez dut halere esango kontzientzia osorik galdu nuenik. **Kordea** galtzeko zorian zegoen. Koro Navarro

Burua odoletan zuen, eta **kordea** galdurik. Josu Zabaleta

Maiz, kontenplazioaren gozotan murgildua, **kordea** galdurik, giza zentzumenen gainetiko esperientziak izaten zituen. Askoren artean

**Kordea** galdu behar zuela sentitu zuen. Aritz Gorrotxategi

· Galduxea nuen **kordea** kolpeen ondorioz. Aingeru Epaltza

Norak **kordea** erdi galdu zuen. Anjel Lertxundi

**6 *korderik gabe*** *(16 agerraldi, 9 liburu eta artikulu 1ean)* ik gorago **3.**

Hango kanaberen artean erori zen **korderik** gabe. Mutu eta ia **korderik** gabe. Karlos Zabala

Kolpeak berak hil ote zuen, ala uretan **korderik** gabe murgilduta egoteak. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kordea etorri (3); kordea galdu (22); kordea galdu zuen (6); kordea galduko (3); kordea galdurik (11); kordea galduta (7); kordea galtzeko zorian (9); kordea galtzen (4) ia korderik gabe (4); korderik gabe (16); korderik galdu (3)

---

## kordegabe *izond* korderik gabe dagoena. ik **korde 3.**

Eliz atarian Peppone bakarrik geratu zen, hanka-zabalik irmo, ate itxiaren aldera begira, Mehar **kordegabeari** paparretik heltzen jarraitzen zuela. Koldo Biguri

---

## kordegabetu, kordegabe, kordegabetzen **1** da/du *ad* kordea galdu.

Petronio ez zen delikatuki **kordegabetu** marmolezko bainuontzi batean, bertsoño lizunak murmurikatuz. Juan Garzia

Rosiek uste izan zuen **kordegabetu** egingo zela. Lopez de Arana

Neska bat lo-belarraz **kordegabetu** eta ontziratu zuen marinelaren elezaharraz gogoratu zen Nora. Anjel Lertxundi

Burutik pasatu berri zitzaizkion haurrari buruzko desgrazia guztiek ez bezala **kordegabetu** zuen haurra beltza zela ikusteak. Anjel Lertxundi

Arima **kordegabetzen** zihoakion, eta elurra entzuten zuen unibertsoan barrena ilaunki erortzen. Irene Aldasoro

Belaunak ahul eta hats bahiturik, **kordegabetzen** ari zitzaion gorputza. Anjel Lertxundi

Soldaduak, dozenaka, oldartu egin zitzaizkion eta burutik beherako ederrak eman zizkioten, harik eta **kordegabeturik** jausi zen arte. Patxi Zubizarreta

Ikaraz eta txunditurik, **kordegabeturik** bezala gelditu zen entzun zuenagatik. Askoren artean

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hantxe jaso zuten haren gorputz **kordegabetua,** hamarka hilen artean. Jon Muñoz

Mael eta Oisinengana itzuli zen, Bran **kordegabetuaren** ondora. Joanes Urkixo

---

## kordel **1** *iz* soka mehea. ik **listari**.

Herritik hurbil zegoen errekan **kordelarekin** eskuratu berria nuen amuarraina. Rafa Egiguren

Zapaten **kordelak,** gerrikoak eta patrikak, debekatuta presoentzat. Harkaitz Cano

Ondoren **kordelak** askatu eta botak kendu. Tresak, **kordelak,** bahe zabalak eta arrantzarako hainbat trepeta, kresalak jandako horman zintzilik... Unai Iturriaga

Arropak zintzilikatzeko **kordelen** gainetik. Harkaitz Cano

Patakiren lepoa inguratzen zuen **kordela** asfixiaraino estutzeko. Harkaitz Cano

Visireei Sortaldean ematen zaien sedazko **kordela**. Juan Garzia

**Kordel** zakarrez estututako egunkari fardeletako izenburuak. Harkaitz Cano

Tximiniaren aurrean, Wendyk **kordelak** zabaltzen zituen, zuntzezko **kordelak,** eta horietan esekitzen zuen arropa garbitu berria. feltrozko kapela bat zeukan buruan, **kordel** moduko bat zuena inguruan xingola ordez. Julen Gabiria

Kareorearen lerrokadurak markatuko dira, luzetarakoak erregela eta **kordelarekin,** altuerak berunarekin. Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan)

Batetik bestera dauden trapezio **kordelak** ikusteko. Harkaitz Cano

Jendetzak guardia zibilen giza katearen aurka egiten zuen, nahiz eta haiek behin eta berriz giza **kordela** tenkatzeko ahaleginak egiten zituzten. Jon Maia

---

## kordeldun *izond* kordela duena; kordelak dituena.

Gizon barregarri samar bat zegoen bertan: lepo anil-kolorea, kapela **kordelduna**. Xabier Olarra

---

## kordelero *iz* kordelak egiten dituen eskulangilea, sokagilea.

Laborari gutxi eta merkatari asko; batez ere pelaireak, harginak, arotzak, zurginak, basteroak, **kordeleroak..** . eta ofizioburuak beren aprendiz eta morroiekin. Patziku Perurena

## kordelier *iz* frantziskotarra.

**Kordelieren** karrikak lau elkarte bilgune bederen eskaintzen. Herria

Baionako TRIKI ostatuan, **Kordelieren** karrikan, 19.30etan. Herria

## kordeltxo *iz* sokatxoa.

Ekialderantz egin zuen gizonak, eta eskuan zeukan **kordeltxoaz** bostehun metro neurtu zituen. Elizen arteko biblia

## kordialitate *iz* amultsutasuna, begikotasuna.

'Zuzendari jauna', esan nuen gaitziturik, 'arren eskatu behar dizut ni horrelako **kordialitatez** ez erabiltzea'. Pablo Sastre

## kordinatzaile ik **koordinatzaile**.

## kordinatzaileorde ik **koordinatzaileorde**.

## kordita *iz* batez ere kotoi bolboraz eta nitroglizerinaz osaturiko lehergaia.

Jitoan dagoen kea metatu zaigu gainean, eta gure ezkutalekuan hondoratu da, eta sudurzuloak **kordita** kirasdunez bete dizkigu. Mirentxu Larrañaga

## kordoi *(orobat **kordon** g.er.)* **1** *iz* soka bihurritua, hariekin egina.

**Kordoi** bati tiratu zion eta, bat-batean, zinema-oihal bat agertu zen sabaitik nire pareko liburu-apalategian behera. Anjel Lertxundi

Tipo bat, hogeita sei urte ingurukoa, feltrozko kapela buruan, **kordoi** bat duena xingola ordez. Xabier Olarra

Komandante-uniformea eta **kordoi** urre-koloreak zeramatzan, jeneralen laguntzaileen modukoak. Erdibiluzia esan dut; izan ere gerrian **kordoizko** faja gorria zeraman, puntilla beltzekoa. Koro Navarro

**2** (frantziskotarrek-eta eramaten dutena)

San Frantziskoren ondoan jarri zen lotarako, eta bere **kordoia** San Frantziskoren **kordoiari** lotu zion, hura jaikitzen zenean bera ere konturatzeko. Askoren artean

**Kordoia** askatua eta Frantzisko jaikia zela ikustean, jaiki bera ere eta San Frantziskoren bila joan zen. Askoren artean

Fraide gazte bat frantziskotar jantzian **kordoi** eta guzti, bizikleta baten pedalei bizi-bizi eraginez. Anjel Lertxundi

Komentuan bizi garenok badakigu horren berri, ez daukagu alferrik habitua lotzen digun **kordoi** txurian korapiloetako bat obedientzia gogoratzeko. Pello Zabala

Tunika latza jantzi bezala eta **kordoia** gerrian lotzeko. Askoren artean

**3** zilbor-hestea.

O. ez zegoen prestatuta hiru hilabeteko fetu baten **kordoia** mozteko. Joseba Urteaga

Borborka ateratzen zen moztutako **kordoitik**. Joseba Urteaga

**4** (hitz elkartuetan)

Nazionalek osatzen zuten hurrengo **kordoi** lerroa. Unai Iturriaga

**Kordoi** puska bat aurkitu zitzaion lepoan, [...] ezkerrezko belarriaren azpian geratzen zen korapilo batez lotua. Koro Navarro

· Kanpoan polizia **kordoi** bat dago. Pablo Sastre

## kordoka 1 *adlag* koloka. ik beherago **3.**

"Zerri hori!" egiten dio oihu, eta berriro jotzen du, eta **kordoka** jarrarazten. Oskar Arana

Alde batetik bestera **kordoka,** ertzetik oso gertu, amilduko zela zirudien. Agustin Otsoa

Bixi bixia erran dakote Sinn Fein-ekoeri Blair gobernu buruak, bakea **kordoka** ezartzen badute, Ipar Irlandako gobernutik kanporatuko dituela. Herria

Udazkeneko umegaltzea etsigarria izan zen berarentzat, basaki, eta **kordoka** bizi zen harrezkero. Oskar Arana

• **2** *iz*

-Bai...- ihardetsi nion zintzurrean **kordoka** nabarituz. Itxaro Borda

**Kordoka** askatzen zitzaion gauez poliziak arrastatzen zuela amesten zuenean. Itxaro Borda

Antzematen zuen aita pentsamendu hari segika zebilela, itzal emanka, dardar eta **kordoka** eginaraziz. Anton Garikano

**3** ***kordokan*** *adlag* koloka.

Estrada Filipinetako presidenta **kordokan** zagon azken denbora hautan, noiz artio ote atxiki ahalko zuen bere kargua... Herria

Osoki **kordokan** baitzuen bere ekonomia Brasiliak. Herria

Mundu guzia asaldatu dute eta **kordokan** ezarri New-York-eko gertakari izigarriek. Herria

Iruditzen zitzaion Balbo familia noblekoa izateak eta katolikoa izateak **kordokan** jarrarazten zituela, elkar ikusten zutenean, Balbok adierazten zizkion arrazoiak. Fernando Rey

Arrakasta izan zuen eginkizun horretan: bulegoburuak, bere laztasun guztia **kordokan,** tea hartzera gonbidatu zuen! Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arras kordokan** (3)

## kordokaezin *izond* ezin kordokatuzkoa.

Erabateko konfiantza, **kordokaezina,** hautsezina, hil baino askoz lehenago aitortu izana, horra nahi izango nuena. Joxan Elosegi

## kordokagaitz *izond* nekez kordokatzen dena, ia kordokaezina.

-Ezin da oskolik bildu marea gora denean -aldarrikatu zuen, **kordokagaitz-**. Elena Touyarou

**kordokagarri** *izond* kordokarazten duena.

Orduantxe nabaritu nuen lehen aldiz halako zirrara **kordokagarria** ere, hots, anartean umetzat edukia nuen neskatxa hura nitaz maitemindua zegoela. Joxe Austin Arrieta

**kordokaldi** *iz* astinaldia.

Bokalera buruz jarriak ziren, handiagotu egin ziren **kordokaldiak**. Koldo Izagirre

**kordokarazi,** kordokaraz, kordokarazten du *ad* kordokatzera behartu.

Atea ireki egiten da, eta jo egiten du bera, **kordokaraziz**. Oskar Arana

Alferrik bilatuko dugu ekintza horretan jainkoen kontrako inolako matxinadarik, [...] arauak eta balioak **kordokarazteko** inolako ahaleginik. Juan Garzia

Ezaguera berriek ez dituzte irudikapen tradizionalak soilik **kordokarazi**. Juan Garzia

Zenbat gara tupusteko sentimenduen bortxaz **kordokarazten** eta ahultzen gaituen dolu bikoitz horretaz inorekin hitz egin gabe bizitzea onartzen dugunok? Joxan Elosegi

**kordokatsu** *izond* orekarik gabea.

Orduak bihikatzea salbu, ez nuen ezer konpontzen edo egoera **kordokatsurik** askatzen. Itxaro Borda

**kordokatu,** kordoka(tu), kordokatzen da/du *ad* kordoka edo koloka jarri.

Bat-batean, sukar batek inarrosten du zaldun gaztea, bien gorputzak **kordokatzen** dira eta biak erortzen dira. Michel Oronoz

Zaflakoak bizkarra **kordokatu** zidan. Aingeru Epaltza

Kolpe zakar batez gelditu ziren bagoiak, zutik zeudenak **kordokatuz**. Iñaki Zabaleta

Zubi hori 1983ko uholdeak osoki **kordokatu** zuen. Herria

Albisteak gure bihotz gazteak **kordokatu** zituen. Aingeru Epaltza

Galdera-sorta hark barrenak **kordokatu** zizkion, azkenak bereziki: zernolako gizona zen? Karlos Linazasoro

[...] -xuxurlatu zuen neskak, dudaren uholdeak **kordokaturik**. Begiak belztu zitzaizkion, eta orduan jauntxoaren ausartzia **kordokatu** zen. Elena Touyarou

Amsterdamen, Uriel da Rua bihurtu zen Moisesen fedearen jarraitzaile, baina aldaketak zerbait utzi haren buruan **kordokaturik,** sekula ez baitzen izan benetako kristau eta sekula ere ez zen benetako judu izango. Felipe Juaristi

**kordokatze** *izond* kordoka jartzea.

Krisiaro honen lekukotza inpresionagarri askoa, Diltheyk ematen digu halaber, XIX. mendearen hondarrean, are obserbazio interesante bat eginez, Iraultza Frantsesaz geroztiko gizartearen **kordokatze** gaitzekin lotuz alegia giza zientzia modernoen sorrera eta garapena bera, krisiaren esijentzia bezala.. Joxe Azurmendi

kordon ik **kordoi**.

**koreano** *izlag pei* Extremadurako etorkina.

Peñavistakoa duk, **koreanoen** auzokoa. Iban Zaldua

**korear** **1** *izlag/iz* Koreakoa, Koreari dagokiona; Koreako herritarra.

Ekialde Urruneko Zibilizazioaren gorputz nagusia eta haren **korear** eta japoniar kimua. Iñaki Mendiguren

**Korear** enpresa batek hartua du Dubaiko obra hori 780 miliun eurotan. Herria

Lee Chun Soo **korear** futbolariak hiru urteren kontratua izenpetu du Donostiako xuri-urdinekin aritzeko.

Lehen orduan **korear** hizkuntza eman dugu, bigarrenean natur zientziak. Juan Kruz Igerabide

Ipar- **Korear** Pyongyangeko gobernu komunistak aitortua du bide hortarat heldua dela. Herria

Iruzurra egin zuen zientzialari **korearrak** barkamena eskatu du. Berria - Gaiak

Etxe **korear** tradizionaletan. Juan Kruz Igerabide

Mahaiaren inguruan, amerikar bat, neozelandar komunista bat, hego- **korear** bat, irlandar bat eta bi euskaldun. Harkaitz Cano

Hego- **korearrak** ez du asko hitz egiten, esaldi bakoitzaren amaieran barre egiten du. Harkaitz Cano

Beste hiru **korear** aske daude, baina bermepean. Berria - Ekonomia

**2** koreera.

Espainiera eta **korearra** entzuten zituen, errusiera eta txinatarra, arabiera eta greziera. Oskar Arana

Baina hizkuntza gehiagotarako eskariak ere jaso ditu, eta **korearra** da horietako bat. Berria - Kultura

**Korearrez,** lituanieraz edo estonieraz irakur zitekeena oraino euskaratua ez izatea «bitxi» zitzaion. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**hego korear** (4); **korear hizkuntza** (3)
**moja korearra** (3)
**hego korearrak** (3)

**koreera** *iz* Korean mintzatzen den hizkuntza.

Beti harritzen nau nire liburu batzuk **koreeraz,** arabieraz edo grezieraz begiratzeak, askotan neure izena ere ez baitut ulertzen. Ana Urkiza

koregrafia ik **koreografia**.

koregrafiko ik **koreografiko**.

koregrafo ik **koreografo**.

**korellar** *izlag/iz* Korellakoa, Korellari dagokiona; Korellako herritarra.

Eta Alontso **korellarrak** esan bezala, [...]. Patziku Perurena

**koreografia** **1** *iz* ballet baten pauso, mugimendu eta irudien multzoa.

Iruñera *Un son eterno* izeneko **koreografia** ekarriko du. Berria - Kultura
Zuzendaritza artistikoa, **koreografia** eta eszenografia: Josu Mujika. Berria - Kultura
Hiru **koreografia** obra bakar batean. Berria - Kultura
**Koreografia** guztiak egun bakarrean ikusi ahal izateko ekitaldi bat antolatzen da. Berria - Kultura
Bakardadea edo heriotza gai dituen **koreografia** bat da. Berria - Kultura
Elene Solovievak eta Anton Udalovek egin dute **koreografia**. Berria - Kultura
Afrikako dantzetan oinarritutako **koreografiak** ere lantzen ditu. Berria - Kultura
Orain beste **koreografia** batean ari zara lanean. Berria - Kultura
Toni Mirak zuzendu du lana eta bera arduratu da **koreografiaz** ere. Berria - Kultura
Ikus-entzunezkoek **koreografietan** duten eraginaz jardungo dute datorren ostiralean Bilboko Mesedeetako kaian. Berria - Kultura
Bat-batean hasi zinen boxealarien jestuen **koreografiari** jarraitzen. Ramuntxo Etxeberri
Han hipokrisia korapiloz betetako **koreografia** bihurriz bildua dago. Karlos Zabala

**2** (izenondoekin)

**Koreografia** on batekin emaitza sekulakoa da, eta uztarketa horrek mesede egiten dio bai lirikari bai dantzari. Berria - Kultura
**Koreografia** ikusgarrien bidez. Berria - Kultura
Lindsay Kempen **koreografia** koloretsu eta minimalistarekin. Berria - Kultura
Mikelek autoen **koreografia** zaratatsu hori miresten zuen. Ramuntxo Etxeberri

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **koreografi** g.er.) ik **koreografiko**.

*Création* izeneko Malandain-en **koreografia** lan sendoa, orekatua eta ederra iruditu zaigu. Berria - Kultura
Dantzarako eta **koreografia** sorkuntzarako. Berria - Kultura
Benois dantza sari garrantzitsuenerako izendatu dute **koreografia** sailean. EAEko Kultura Sailak antolatzen duen hamaragarren **Koreografi** Erakusketa. Berria - Kultura
**Koreografia** Erakustaldira aurkeztutako 11 lanen artean lau onenak estreinatuko dituzte gaur. Berria - Kultura
Zure sormen lanaz hitz egiterakoan **koreografia** ikertzailea zarela esan ohi da. Berria - Kultura
Gure **koreografi** ondarea geure mugaz haraindi ezagutarazteagatik. Berria - Euskal Herria
**Koreografia** zati labur askoz egina. Berria - Kultura
Ez bat eta ez bi, jantzi isotermikoak arrapataka erantzi, eta, panpandojak bistan, saiotxo lesbiko ikusgarri bati ekin zioten, **koreografia** modu eztiagatik erleen dantza zirudiena. Patxi Iturritegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Talde **koreografia,** ariketaren zailtasuna, koreografiaren sormena eta baliabide eszenikoen erabilera epaitzeko lanetan. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koreografia erakusketa** (5); **koreografia honetan** (3)

**koreografiko** *iz* koreografiarena, koreografiari dagokiona. ik **koreografia 3**.

Gasteizen egon ondoren, Barakaldo antzokian izan dugu Gelabert-Azzopardi dantza konpainia *8421* eta *Viene regando flores desde La Habana a Moron* lan **koreografikoekin**.
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sorkuntza **koreografikorako** diru laguntzen lehen deialdia. Berria - Kultura
Lorraineko Zentro **Koreografikoak** hiru koreografo garaikideren lanak ekarri ditu Maitaldira. Berria - Kultura
Postura **koreografiko** horretan itxoin zidan, entzuteko prest. Joxean Agirre
Bere gorputza eskultura **koreografikoa** bihurtuko du. Berria - Kultura
Dantzarien mugimendu **koreografiko** biziek eta jantzi zein argien koloreek jarri zioten bizitasuna. Berria - Kultura
Drama **koreografikoa** dela esan liteke. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zentro koreografiko bat** (3)

**koreografo** **1** *iz* koreografiak ontzen dituen pertsona.

Bideoa eta dantza uztartu ditu Blanca Arrieta **koreografo** eta dantzariak '3600' obran. Berria - Kultura
Ohad Naharin **koreografoak** dantzarien eta publikoaren arteko balizko muga guztiak apurtuko ditu koreografia horrekin. Berria - Kultura
Jerome Robbins **koreografoarekin** elkarlanean zuzendua. Berria - Harian
Bestalde, **koreografoak** berak konposatu du partitura. Berria - Kultura
Euskal **Koreografoen** Erakustaldia. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Niri **koreografo** lanak eta beste koreografo batzuentzat dantzari lanak bateratzea gustatzen zait. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koreografo eta dantzari** (4); **koreografo eta dantzariak** (6); **koreografo gazteen** (3); **zuzendari eta koreografo** (4)
> **zuzendari eta koreografoa** (4)

dantzari eta koreografoak (5)
euskal koreografoen (3)

---

**koretar** *izlag/iz* Koreren senitartea; Koreren senitarteko kidea.

Koreren semeak: Asir, Elkana eta Abiasaf; hauek dira **koretar** jatorriko familiak. Elizen arteko biblia

Koreren seme, Ebiasafen biloba eta Koreren hereniloba zen Xalumek, bere senitarteko ahaideekin, **koretarrekin** batera, oihal-etxolako sarrera zaintzeko eginkizun sakratua zuen. Elizen arteko biblia

Matatias lebitarra, Xalum **koretarraren** lehen-semea, zen beti opil errea egiteko arduraduna. Elizen arteko biblia

Hauek ziren Lebirengandiko senitarteak: libnitarrak, hebrondarrak, mahlitarrak, muxitarrak eta **koretarrak**. Elizen arteko biblia

---

**koretroi** *iz*

**Koretroia** landare mikroskopikoa da, ur geldietako belarren ahaidea, baina urbelarrak hil egiten dira hotzarekin, eta **koretroiak** beirazko oskola du bizirauteko. Joseba Sarrionandia

**Koretroia** izango da akaso etorkizuneko izakia, milioika urte barru, bizitza karbonoan oinarritu beharrean izakiak silizezkoak izango direnean. Joseba Sarrionandia

---

**koribante** *iz* antzinako Grezian, Cibeles jainkosaren apaiza, dantza ikusgarriak egiten zituena.

**Koribanteak** ziruditen, dibinitateak haien gorputzez jabetuak. Juan Garzia

Sangarrek ere daire horietako bati dar-dar eragiten zion eskuen artean, egiazko **koribante** talde hura suspertu gurarik. Karlos Zabala

---

korintiar ik **korintoar**.

---

**korintoar** *(orobat **korintiar**)* **1** *izlag* Korintokoa, Korintori dagokiona.

Horiek guztiak **korintiar** estilokoak. Josetxo Azkona

Tenplu doriar, joniar eta **korintoarren** eraikuntzan bete beharrekoak diren proportzioak. Santiago Irruretagoiena

Hirugarren ordena **korintoarra** deitzen da, eta neskatxa dontzellen grazia imitatzen du. Santiago Irruretagoiena

Hantxe zegoen harro, Leialtasunaren Enparantzan bertan [...] eskailera bikain baten gainean sei zutabe **korintiar** galant zituela. Hasier Etxeberria

Ateaz bestaldean jeneralaren etxearen aurrealdea ikusten zen, harrian zizelaturiko edergarri bihurri ugarirekin eta kapitel **korintoarrekiko** zortzi zutarritan bermaturik. Jose Morales

**2** *iz* Korintoko herritarra.

Paulori entzuten zioten beste **korintoar** askok ere sinetsi eta bataioa hartu zuten. Elizen arteko biblia

**Korintoarren** alderdikeriak. Elizen arteko biblia

Klemente Erromakoak, K.o. 95. urte inguruan, **korintoarrei** eginiko lehen gutunean. Iñaki Mendiguren

Jondoni Paulok **Korintoarrei** idatzi I. gutuneko 9. kapituluan. Piarres Xarriton

Ea, bada, eta ez zaitezte tronpa ezpata-jokoko ukaldietan, ene troiar bikainok, ene **korintiar** bihoztunok! Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
lehen gutuna korintoarrei (3)

---

**korista** **1** *iz* musika teatroan abesbatzaren kide gisa kantatzen duena.

Zaila zen, abesti hura entzutean, zenbait **korista** ez ekartzea gogora, gerriari limurkeriaz eraginez. Koro Navarro

Ikusia naiz taberna honetan *Empire*ko hogei **korista** baino gehiago marinelak bezain mozkor. Koro Navarro

-Ez al nintzen **korista** izan bi urtez, Oglethorperekin ezkondu aurretik? Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

**Korista**-aurpegiek, Ziegfeld-ek loriatuek, irribarre egiten zioten, leihoetatik keinuka. Lopez de Arana

· *Pet Shop Boys*ek Euskal Herrian emandako azken kontzertuan, Tennant (ahotsa) eta Lowe (sintetizadoreak) bateria jotzaile batek eta bost dantzari-**koristak** lagunduta aritu ziren. Berria - Kultura

---

**korkoil** *izond* kankailua.

Pierre-Philippe aprendiza sartu zen, eta haren ondotik Paul bere betiko itxura **korkoilarekin**. Daniel Landart

· Emekiño abantzatuz, "bare **korkoilaren** urratsean" berek erran dutenaz, denen buru zaluxago halere, orenean hogoi bat kilometra segurik egiteko gisan, joan dira Baionatik Biriatuko mugaraino. Herria

---

**korkox** *izond* bizkarrean konkorra duena, konkorduna.

Mutil gazte **korkox** bat datorkio atzetik, aulkitxo bat eskuan. Koldo Izagirre

Aurpegia jasorik edukitzeko ahalegina egiten du, **korkoxa** izan behar du. Koldo Izagirre

**Korkoxak** legez, ezin dit begietara begiratu. Koldo Izagirre

---

**kornadu** *iz* kobrezko diru zaharra, balio gutxikoa. ik **sos; ardit**.

Zeren **kornadurik** ere ez bainuen neure patrika zuloz betean. Joan Mari Irigoien

---

**kornalina** **1** *iz* kaltzedoniaren aldaera, gorri-kolorea.

Hainbeste lepoko, **kornalinez,** agatez, esmeraldez, opaloez, zafiroez bete-beteak. Karlos Zabala

Harribitxiz estaliko duzu, harribitxiok lau errenkadatan lerroturik: lehen errenkadan, **kornalina,** topazioa eta esmeralda; [...]. Elizen arteko biblia

Kopa kapelu eroria eta hegal estukoa, joskuretan higaturiko lebita, botoi biko bat lotua, erloju kate lodia **kornalinako** giltzarekin, nola-halako tratuetarako izena ematen duen sosik gabeko judu aurpegikoa. Koldo Izagirre

Erlojutik zintzilik zeraman apaingarri **kornalinazkoa** erakutsiz. Jose Morales

**2** (hitz elkartuetan)

Tronuan eseriak jaspe eta **kornalina** harrien itxura zuen, eta tronuaren inguruan esmeralda antzeko ortzadarra zegoen. Elizen arteko biblia

---

**kornamusa** *iz* gaita boltsaduna, galiziar gaitaren antzekoa.

Haren putzak ere ezin izan zitezkeen **kornamusa** edo xirula baten txistu zerutiarrak baizen, edo hala imajinatu nituen nik orduan bederen... Joan Mari Irigoien

---

**kornea** **1** *iz* begi globoaren aurrealdeko parte gardena.

Begi-ninia beltza zuen, **kornea** gorrixka. Monika Etxebarria

Begian, berriz, erretinan irudi fokatua eratzeko, **korneak** [...] eta kristalinoak osatzen duten konbinazioaren foku-luzera egokitu eta doitu egiten da. Irene Aldasoro

Zati garden horrek, **korneak,** eragiten du argi-izpien konbergentziaren parte gehiena. Josu Zabaleta

Erabat itsutu, gainera, handik hogeita bi urtera **kornearen** transplantea egin zioten arte. Xabier Olarra

Masaileko ehuna erabili dute mindutako **korneak** osatzeko. Berria - Gaiak

Negarrari eman zion [Mikel Strogoff-ek], eta malko haiek, **kornearen** gainean lurrundurik, ikusmena salbatu zioten. Karlos Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Berrogeita hamar urte beteak zituela egin zioten **kornea**-transplantea. Xabier Olarra

---

**korner** **1** *iz* baloia ateko lerroa gurutzaturik irtetea, ate hori dagokion taldeko jokalari batek azken ukitzen duela; korner baten ondoren egiten den sakea.

Sundowns taldeak **kornerra** ateratzen du. Oskar Arana

Atezaina fin ibili zen, eta **kornerrera** bidali zuen baloia. Berria - Kirola

**Kornerra** Worns-ek errematatu zuen. Berria - Kirola

Pintok larri-larri bidali zuen errematea **kornerrera**. Berria - Kirola

Atzoko lan saioan **korner** ugari landu zituzten nafarrek. Berria - Kirola

Faltak, **kornerrak** eta geldikako jokaldi guztiak. Berria - Kirola

Realak **korner** bati esker sartu zuen aurreneko gola. Berria - Kirola

90. minutuan Guerrerok olinpiar gola sartu zuen, baloia **kornerretik** zuzenean ate barrura sartuz. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

**Korner** jaurtiketa baten ondoren izan zuen Urzaizek bere taldea aurreratzeko aukera Berria - Kirola

**3** (ring-ean)

Ume haietako batek libre utzitako aulki ñimiñoan eserita zegoen AEBetako presidentea, nola egoten den atsedenaldian boxeolaria **kornerrean** managerrak eskainitako inbutuan odol-listu eta lerde-aparrak tu egiten. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **korner eta falta** (3); **korner jaurtiketa** (5)
> **kornerrera bidali** (3)

---

**korneta** **1** *iz* turuta.

Ate nagusian egingo zen hori, **kornetaren** hotsera. Jokin Urain

**Korneta** entzun genuen egun oro bezala. Koldo Izagirre

Kontaketak formazioan egin behar izaten zituzten, **kornetak** deituta. Jokin Urain

**2** korneta-jotzailea.

Soldadutzan **korneta** izan zelako irabazi ei zuen. Koldo Izagirre

Mahai berean bildu ziren Jabonero, Luxia, Beltxa, Lasalako **korneta** eta gizon lodi bat, Antxusa esaten ziotena. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan)

**Korneta**-hotsek esnatu nindutenean, ez nekien nik zer ordu zen. Txillardegi

Afaritarako **korneta** deia entzun nuen. Koldo Izagirre

Gazteetako batzuk lo zeuden jada **korneta** doinuak etzalekuetatik aterarazi eta firme jarrarazi zituenean. Harkaitz Cano

---

**kornukopia** **1** *iz* adar itxurako ontzia, ugaritasunaren sinbolotzat erabiltzen zena.

Ea **kornukopiaren** emankortasuna uste bezain agortezina ote zen. Iñaki Mendiguren

**2** ertz urre-kolorea duen ispilu txikia, argimutilak bezalako beso bat edo gehiago dituena.

Zutik, Ellenek bere buruari behatu zion aldagelako **kornukopian**. Lopez de Arana

---

koro ik **koru**.

---

**koroa** *(orobat **koroe** g.er., **koroi** g.er. eta **korona** g.er.)* **1** *iz* eraztun formako apaingarria, abarrezkoa, lorezkoa edo metalezkoa, buruan ezartzen dena eta bereziki agintaritzaren ezaugarri dena.

Atletek diziplina gogorra ezartzen diote beren buruari, eta hori, zimeltzen den **koroa** irabazteko. Elizen arteko biblia

Gutunarekin batera, purpurazko soingainekoa eta urrezko **koroa** igorri zizkion. Elizen arteko biblia

Urrezko **koroa** harribitxiduna. Elizen arteko biblia

Soldaduek, arantzazko **koroa** eginik, buruan ezarri zioten. Elizen arteko biblia

Mundua mundu denetik kantatu izan zaizkio maitasunari odak; oparitu izan zaizkio erramuzko **koroa** eta arrosak. Anton Garikano

Dagoeneko zain daukat garaipenaren **koroa**. Elizen arteko biblia

Martiritzaren **koroa** lortu ahal izango zuelakoan. Askoren artean

Inoiz zimelduko ez den aintzazko **koroa** jasoko duzue. Elizen arteko biblia

Ingalaterrak *Grand Slam*-a eta **Koroe** Hirukoitza irabazteko aukera guztiak galdu ditu.

**2** irud/hed

Bihotza **koroa** batek bezala inguratzen dutelako deitzen dira koroa-arteria. Zu nire bizitzan sartu baino lehenago ere, bazegoen zure inguruan aureola bat, **koroa** bat, aberastasun, bereizgarritasun eta misterioz egina... Irene Aldasoro

Euritakoak ur **koroa** bat ari ziren uzten lurrean. Iñaki Zabaleta

**3** erregetza.

Emakumeak ez ziren oinordeko ez Frantziako **koroan** ez Inperioan. Iñaki Iñurrieta

Nola Frantziako **koroa** Hugo Kapeten etxera pasatu zen. Karlomagnoz mintzatu naiz **koroa** karolingioengana aldatu zen garai ospetsuaz mintzatu baino lehen. Iñaki Iñurrieta

**Koroaren** zerbitzari fidel baten iloba haiz. Aingeru Epaltza

Zer egin zuen orduan **Koroak** Armada Garaiezinerako marinelak lortzeko? Markos Zapiain

Eta feudo bakoitza, **koroa** bezala, hautabidezko eta oinordetzazko izan zen. Iñaki Iñurrieta

**Koroak** feudoak galdu bazituen, beste batzuez ordezkatu zituen. Iñaki Iñurrieta

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Koroa**-arantzen gisako orratz zorrotzak gaixoaren besoa behin eta berriro zulatzen. Imanol Zurutuza

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta alaba emaztetzat hartzen zuenak, hark beste inork ez, jantziko zuela buruan errege **koroa**. Felipe Juaristi

Berari ezarri zion buruan erregina-**koroa**. Elizen arteko biblia

Izan zaitezte leial heriotzaraino eta garaipen-**koroa,** betiko bizia, emango dizuet. Elizen arteko biblia

Esteban II.ak errege karolingiarrei eskainitako aginte-**koroa**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bizia etsaiaren ezpatapean galdu ez zuen arren, martiri **koroa** ez zuen galdu! Askoren artean

Espainiara igaro ziren anaietatik bostek martiritza-**koroa** lortu zuten. Askoren artean

Ile adatsean krabelin-**koroa** zuen, gorrian gorri , ganberako argi hura usainez gozatzen ari. Felipe Juaristi

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, zerezkoa aipatuz)

Izerdiaren ordaina, nekearen saria, ongi eginaren erramu-**koroa**. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurrera egin behar ote zuen ereinotz-**koroa** jasotzeko edo atzean gelditu behar ote zen iheslari koldarrei errieta egin eta zigorra paratzeko ikusteko zain. Jon Alonso

Hango eraikin garaiek argi-**koroa** bana zuten euren inguruan, kaleen eta iragarki elektrikoen distira gorrixkak sortarazia. Lopez de Arana

Urrezko argi-**koroa** buruaren inguruan. Jose Morales

Egurrezko uztai-**koroa** batzuk prestatzen zituzten, haiei su eman, eta, zarbazko katapulta indartsuak medio, botatzen zituzten maldan behera. Pello Zabala

Hiria inguratzen zuen su-**koroa** bat bezala. Jon Alonso

**7** zenbait diruren izena.

Aldi berean frantses liberak, daniar **koroak** eta irlandar librak [...] eraso gehiago pairatu behar izan zuten. Koro Navarro

Pasaporte faltsua; **korona** bat, bi txelin eta penike batzuk. Juan Garzia

Zuri agur esaterakoan, dirua eskatu zizun, ehun **koroa** edo berrehun. Ander Irizar

Mila **koroako** isuna. Anton Garikano

Kartazal honetan zortziehun **koroa** daude. Anton Garikano

Hamar **koroako** billete zimurra erakutsi zion. Anton Garikano

Hirurogeita hamar **koroa** hilean eta otordua. Anton Garikano

**Koroa** erdia? hemezortzi penike? Anton Garikano

Bi **koroa**-erdiko eta kobrezko txanpon batzuk zeuzkan diru-zorroan. Irene Aldasoro

**8** ***koroa-arteria*** bihotz inguratzen duena. ik **koronario 3**.

Bi **koroa**-arteriek eramaten dute oxigenoa bihotzaren muskulura (bihotza koroa batek bezala inguratzen dutelako deitzen dira **koroa**-arteria). Irene Aldasoro

Badirudi, gainera, **koroa**-arteriak txikiegiak direla beren lana behar bezala egiteko. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alaitasunezko koroa** (3); **arantzazko koroa** (5); **argi koroa** (6); **buruan koroa** (4); **egindako koroa** (5); **errege koroa** (7); **erregearen koroa** (4); **espainiako koroa** (4); **frantziako koroa** (5); **garaipen koroa** (3); **garaipenaren koroa** (3); **hamabi izarreko koroa** (3); **koroa arteriak** (3); **koroa buru gainean** (3); **koroa buruan** (7); **koroa eta guzti** (5); **koroa ezarri** (6); **koroa gisa** (3); **koroa hartu** (3); **koroa irabazi** (3); **koroa jantzi** (8); **koroa jarri** (5); **koroa kendu** (3); **koroa lortu** (4); **koroa suediar** (4); **lore koroa** (4); **portugalgo koroa** (3); **urrezko koroa** (11)

**koroak buruan** (5); **lore koroak** (5)

**espainiako koroaren** (5); **frantziako koroaren** (3)

**koroaren kontzertua** (7)

**koroe hirukoitza** (6)

---

## koroadun *(orobat **korodun** g.er.)* *izond/iz* koroa duena, koroaz hornitua.

Erregeak ispiluan berriro begiratu zuenean, ez zuen bere irudia ikusi lehen bezala, asto **koroadun** batena baizik. Xabier Olarra

Hiritar **koroadunak,** beren agintea handitzeak hiritarren zoriona ekartzen du. Juan Martin Elexpuru

Haren etxean aurkeztu nintzen esklabo herabeti eta damutuaren gisara, garaile **koroadun** gisara jalgitzeko handik. Jon Muñoz

**Korodunena** edo nobleena. Berria - Kultura

---

## koroagabe *izond* koroarik ez duena.

Hil da Gure Erregе **Koroagabea** / auhen egizu, Erin, nahigabe eta penaz. Irene Aldasoro

---

## koroatu, koroa(tu), koroatzen **1** da/du *ad* koroa ezarri; koroa ezarriz, norbait errege, printze... izendatu.

Antzinako Olinpiar Jokoetan parte hartzen zuten eta olibondo adarrez **koroatzen** zituzten. Judit eta berarekin zeuden emakumeak olibo-adarrez **koroatu** ziren. Elizen

arteko biblia

Berak borroka garrantzitsuren bat irabaztean, bere burua **koroatzen** zuen lertxunaren zein orrikararen zarba eta hostoekin. Pello Zabala

Haren biloba Pepin errege **koroatu** zutenean. Iñaki Iñurrieta

Munduko ospeak hainbeste goraltxatu zuen gizona, non Enperadoreak berak oso handikiro **koroatu** baitzuen. Askoren artean

**Koroatu** zuten egunean aitari emandako hitza. Iñaki Iñurrieta

Zu haietakoren batean erregetzat **koroatzeko**. Patxi Ezkiaga

Eta poz horrekin, haren arima santua, aintzaz **koroatua,** bizitza honetatik aingeruen bizitza zoriontsura igaro zen. Askoren artean

**2** bururatu.

Herriaren aurrez aurre, urrutian, Everest mendia ikus zitekeen, ia beti lainoz **koroatua**. Goiko zirkuluaren mailan amaitzen zen almenek **koroaturik**. Agustin Otsoa

Gaua nagusitu zen eta mendebaldean izarrek **koroatu** zituzten mendi-gailur ia ikusezinak. Agustin Otsoa

Kilpatrick antzoki batean akabatu zuten, […] eta heriotza horrek **koroatu** zuen dramak egun asko eta gau asko hartu zituen. Juan Garzia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Arkupean landutako errege baten buru dotore eta **koroatua**. Agustin Otsoa

*Ilargi* ***koroatua,*** *euri-ekarle,* bildu zuen *Auspoa* bilduman Antonio Zavalak. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errege koroatu** (9); **errege koroatu zutenean** (6); **kapet errege koroatu** (3); **pepin errege koroatu** (3)

---

## koroatxo *iz* koroa txikia.

Erregeari buruz xake jokoko pieza nagusia zela erran zidan, horregatik jartzen zela lehen lerroaren erdi-erdian eta horrexegatik zeramala zurezko **koroatxo** hura buru gainean. Alberto Ladron Arana

Berbena-belarrez eta zizare-belarrez egindako **koroatxoak** jantzen omen dituzte buruan, gaitzetatik libre sentitzeko.Hiru izar izan beharrean bat bakarra izanen duzu, baina ikuskatzailearen **koroatxoaren** gainean bordatua. Pello Zabala

---

## koroatze *iz* koroa ezartzea; koroa ezarriz, norbait errege, printze... izendatzea.

Louis XIV.aren **koroatzearen** unea irudikatzen duen margoak murrua estaltzen du. Berria - Mundua

Nagusiaren **koroatzearen** milurtekoa. Berria - Euskal Herria

Erne eta benetan adi egon zen atal bakarra, Aragornen **koroatze** eta ezkontzaren kontakizunarena izan zen. Agustin Otsoa

Pozarren zegoen, hala nola pozarren egoten baita erregea **koroatze**-egun hots handikoan-. Jose Morales

Mozarten **"Koroatze** meza"ren zatiak. Aritz Gorrotxategi

Eliz **koroatzea** Itun Zaharreko errito baten berpizkundea. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **koroatzearen milurtekoa** (3)

---

## koroazio *(orobat* ***koronazio*** *g.er.)* *iz* koroatzea.

George II.a erregearen **koroazioan** emandako musika guztia. Berria - Kultura

**Koroazioko** eszenez apaindutako platerak. Koro Navarro

---

## korobate *iz*

**Korobatea** erregela luze bat da, hogei oin ingurukoa. Santiago Iruretagoiena

Nibelatzeko, dioptrea edo ur-sestrak edo **korobatea** erabiltzen dira, baina seguruagoa da **korobatea**. Santiago Iruretagoiena

Eta **korobatea** era horretan nibelatuta dagoenean jakingo da zenbateko aldapa dagoen. Santiago Iruretagoiena

---

## korodun ik **koroadun**.

---

## koroe ik **koroa**.

---

## koroi ik **koroa**.

---

## korola **1** *iz* lorearen hostoen multzoa, askotan haren zati koloretsuena gertatzen dena.

Apirileko eta maiatzeko hilabeteetan, loratzen zirenean, zuhaixka haiek beren zurtoin lurrintsuak, beren **korola** zuriak eta beren mordo txiki urdinak nahasten zituzten. Koro Navarro

Arrosa orbandua jaso zuela, ur-hari baten pean garbitu zuela bere petalo hauskorrei kalterik ez eragiteko, eta […] lorontzitxoan paratu zuela berriz, **korola** eroriari bata bestearen gainean jarririko liburu-meta batek eusten ziola. Jon Alonso

Kukuluaren ertza kizkurtua dute, eztarria baino zurbilago, eta han ezkutatzen da **korola,** aho misteriozko, erakargarri, gozoa mihiaren azpian, jainkozko izaki xume usain oneko eta inoiz hitz egiten ez duten hauen organo sotil, miragarri eta sakratuak erakusten eta ezkutatzen. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Kanpai irauli bat zen, edo, nahi bada, kukufraka-**korola** bat, lau metro zabal eta altzairu trinkoan egina. Juan Garzia

---

## korolario *iz* ondorioa.

**Korolarioa:** obrak ez dira linealki irakurri behar, "polifonikoki" baizik, lerro melodiko bat baino gehiago batera, banaka nahiz guztiak batera, entzuten uzten duen "belarri horizontalaren" modura. Josu Zabaleta

Horiek horrela, 17. Proposizioaren **Korolariotik** eta 18. Proposiziotik argi dator giza Izpirituak bere Gorputzean, aldi berean, sortzen ahal duen irudi bezainbat gorputz irudikatzen ahalko duela, aldi berean, modu zehatz batez. Piarres Xarriton

Ikus horretaz 1. Zatiko 24. Proposizioaren **Korolarioa**. Piarres Xarriton

32. Proposizioaren **Korolarioen** bitartez. Piarres Xarriton

53. Proposizioaren **Korolarioa** frogatu den modu berean demonstratzen da hau ere. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> proposizioaren korolarioa (4)
> proposizioaren korolarioan (3)
> proposizioaren korolarioan (3)

---

korona ik **koroa**.

---

**koronario** **1** *izond* bihotzaren koroarena, bihotzaren koroari dagokiona. ik **koroa 8**.

Hodi **koronarioak** izan ohi dira lehenengoak guztiz oztopaturik geratzen. Irene Aldasoro

Arrazoi horiengatik guztiengatik, oso arrunta da, zoritxarrez, baliaezintasuna edo heriotza gertatzea zirkulazio **koronarioak** huts egitean. Irene Aldasoro

Angel Alcalde presoa erietxean dago, gaitz **koronario** larri batek jota. Berria - Euskal Herria

Odol-zirkulazioan odolbildu bat eratzeak oker handia eragin dezake, hala nola tronbosi **koronarioaren** kasuan. Irene Aldasoro

Aurreko igandean, hilaren 8an, sinkope **koronario** bat izan zuen. Berria - Euskal Herria

Bihotzekoak eman zion eta zubi **koronario** hirukoitza egin behar izan zioten. Berria - Mundua

**2** arteria koronarioa.

Kateterismorik egin barik **koronarioak** ikusteko aukera eskaintzen dute. Berria - Gaiak

**3** ***arteria koronario*** koroa-arteria.

Jauzi izugarria egin zidan bihotzak, adrenalinak aortaren eta arteria **koronarioen** artean zirkuitu-labur bat eragin izan balit bezala, halakorik esan badaiteke behintzat. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gaitz koronario (6); gaitz koronario larria (3)

---

koronatu ik **koroatu**.

---

koronazio ik **koroazio**.

---

**koronel** *(orobat **kolonel** g.er.)* **1** *iz* errejimentu edo kideko baten burua.

Schumacher **koronelak** isilik aztertu ninduen. Fernando Rey

Alaba ez dut **koronel** arrunt batekin ezkonduko. Jose Morales

Betidaniko **koronel** zaildu horietakoa ematen dik. Txillardegi

Aberatsa da, goimailako gizona da, ...ko errejimentuko **koronela** da. Jon Muñoz

-Bada, guardiako husarren **koronela** zen ordurako! Karlos Zabala

Ivano Baschieri, Italiako Itsas Armadako **koronelak** zehaztu zuenez, [...]. Berria - Mundua

Aire Armadako **koronel** batek. Berria - Mundua

Poliziako **koronel** bat eta beste bi pertsona hil ziren bertan. Berria - Mundua

Guardia Zibileko **koronel** Luis Iglesias. Berria - Euskal Herria

Espainiako Armadako **koronel** medikua. Berria - Harian

Rolf Wenderoth **koronel** ohia. Berria - Mundua

Sergei Golovin, **koronel erretiratu** baten semea eta ofizial ohia bera ere. Jose Morales

Karuna **koronel** matxinoaren hiru jarraitzaile hil zituzten atzo Sri Lankako ekialdean. Berria - Mundua

Eskolako ume talde bat pasatu zen, abiazioko **koronel** batek gidatua. Fernando Rey

Estatu-nagusiko **koronelek**. Felipe Juaristi

1967ko apirilaren 21ean, **Koronelek** kolpea jo zuten, eta boterea eskuratu. Edorta Jimenez

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ginbaileko izarretan ikusi nuenez, **Koronel** gradua emana zioten. Txillardegi

**Koronel** mailara edo antzekoren batera iristeko aukera izan nuen, baina ez ziren kuartelak nire xedea. Koro Navarro

**Koronel**-itxura hartu zion Mariak. Irene Aldasoro

Horrelako handikiek, berez bakarrik, erregimenturik gabeko **koronel**-gorputz bat osatuko zuketen. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jendarme-**koronelak** esan zuen gizon jakintsua zella. Jose Morales

Bazter guztiak piparen keaz betetzen zizkion husar-teniente erretiratu bat, edo brulot-**koronel** bat, edozein gaiz mintzatzea gogoko zuen hizlari iaioa bera. Jose Morales

Hara, zergatik kaleratu zuen ostikoka "Mari-**koronela"** zenduak, duela urte mordoa. Mirentxu Larrañaga

**4** ***koronel lotinant*** lotinant koronela.

Azken urteetan koronel **lotinant** mailara, hots, Espainia Errepublikanoan karrera barik militarrak iritsi zitezkeen eta gradurik gorenera iritsi zen. Edorta Jimenez

**5** ***lotinant koronel*** armadako ofiziala, koronelaren azpian hurrengoa.

Ez dago nire esku, **lotinant koronelen** batekin egin beharko zenuke berba. Koldo Izagirre

AEBetako Armadako bozeramaile William Macdonald **lotinant-koronelak** zehaztu zuen erasoa gertatu eta berehala miaketa operazioa abiatu zutela. Berria - Mundua

**6** ***teniente koronel*** armadako ofiziala, koronelaren azpian hurrengoa.

Teniente 1840. urtean, kapitain, **teniente koronel,** koronel, jeneral 1869an. Antton Olano

Diputatu horrek bazuen, alabaina, **teniente-koronel** bat adiskidea eta honek zuen afera ongi eraman bururaino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Goi Estatuko **teniente koronel** Wolfram Von Richthofenek. Edorta Jimenez

Hamasei urte eman zituen bertan espioitza lanetan eta **teniente koronela** zela. Berria - Mundua

"Sikiera **teniente koronel** bat izan balitz..." eta antzekoak entzun behar izaten ditu-eta. Jokin Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **brulot koronel** (3); **koronel ohia** (3); **poliziako koronel** (5); **teniente koronel** (10)
> **degrela koronela** (6); **koshkariov koronela** (3); **manriquez teniente koronela** (3); **ogareff koronela** (3); **schumacher koronela** (3); **teniente koronela** (11)
> **auberville koronelak** (6); **bryan hilferty koronelak** (3); **degrela koronelak** (7); **groves koronelak** (3); **hilferty koronelak** (3); **karuna koronelak** (6); **schumacher koronelak** (3); **teniente koronelak** (6)
> **degrela koronelaren** (5); **karuna koronelaren** (4); **koronelaren emaztea** (5); **koronelaren esanetan** (3); **teniente koronelaren** (7)
> **koronelik gazteena** (4)

---

**koronelorde** *(corpusean **koronel-orde** soilik)* *iz* koronelaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordezkoa.

Sanz **koronel**-ordea, bere agindupeko 3 kapitainak, 7 ofizialeak eta 475 soldaduak, preso altxa genituen. Txillardegi

Iratxen jakin dugunez bi **koronel**-orde erori ziren gure eskuetan. Txillardegi

---

koropiladura ik **korapiladura**.

---

koropilatsu ik **korapilatsu**.

---

koropilatu ik **korapilatu**.

---

koropilo ik **korapilo**.

---

koropilotsu ik **korapilatsu**.

---

korpitz ik **gorputz**.

---

**korporal** **1** *izond* gorputzarena, gorputzekoa, gorputzari dagokiona. ik **gorputz 3**.

Sorkarien artean izaki **korporalak** eta espiritualak daude. Imanol Unzurrunzaga

Gai kosmikoetan ezkutaturik daude ageriko bizitza **korporalera** jaiotzen diren gauza guztien hazi gisakoak. Imanol Unzurrunzaga

Beren existentzia **korporalaren** bideak. Imanol Unzurrunzaga

Argi dago bost sentimen hauek ezin sentitu dituela ezein sentimenek, hauek objektu **korporal** guztiak sentitzeko gai izan arren. Imanol Unzurrunzaga

Arima **korporalaren** eta izpirituaren arteko zubia eta iraganbidea. Joxe Azurmendi

Zuganako grina lehengo bera banuen ere, neure gorputzarekin, neure zentzumenekin batera, gero eta esnago, gartsuago, **korporalago** eta emeago bilakatu zen. Eduardo Matauko

Hain da ahalguztiduna ezen ezerezetik, hots, izaterik ez duenetik, sor baititzake gauza handiak eta txikiak, zerukoak eta lurrekoak, espiritualak eta **korporalak**. Imanol Unzurrunzaga

**2** *iz* aldarearen gainean, ostia eta kaliza jartzeko, zabaltzen diren oihaletako bakoitza.

Eta kaliza, **korporal,** aldare-oihal eta meza-oparitarako erabiltzen den oro ederra izan dadila. Askoren artean

---

**korporalki** *adlag* gorputzaren bidez.

Ahotsa entzuten dion norbait ikusten du; ahotsa bera ere, arestian azaldu denez, **korporalki** ikusten diren gauzen artean sailkatu dugu. Imanol Unzurrunzaga

Pizkundearen nolabaiteko irudia ere ikusten du eta bere ariman eratzen du irudi hau, ezin baitu berau gabe ulertu **korporalki** gertatu zela diotena, sinetsi nahiz sinetsi ez. Imanol Unzurrunzaga

---

**korporatibismo** **1** *iz* lanbide talde baten joera, bere talde interesak kostarik kosta defendatzera bultzatzen duena.

Anarkikoki eta idazleen **korporatibismo** eta zirimoletatik urrun. Jose Angel Irigaray

GAL auziaren ikerketan sozialisten artean sumatzen zen **«korporatibismoari»** ustelkeria deitu zion, beste hainbat epailerekin batera sinatutako agirian. Berria - Euskal Herria

**2** lanbide bereko lagunak korporazioetan biltzea aldarrikatzen duen doktrina.

Beñat Oteiza Ipar Buru Batzarreko kideak atzo azaldu zuenez, euskararen ofizialtasuna, laborantza garapen propioa, **korporatibismoa** zein mugaz gaindiko harremanak bultzatzea izango dira aldarri nagusiak. Berria - Euskal Herria

---

**korporatibista** *iz* korporatibismoarena, korporatibismoari dagokiona.

Halaber, hiru Sailek [...] «jarrera **korporatibista»** dutela kritikatu zuen ELAkoak. Berria - Ekonomia

Mateosek azaldu du eurak eta ELA ez direla erakunde **«korporatibistak»** eta, beraz, «langile guztien ongizatea» daukatela xede. Berria - Ekonomia

Nazioarteko Pen Klubak bost batzorde ditu, eta bostak gai sozialekin daude lotuta, ez dute zerikusirik eremu **korporatibistekin»**. Berria - Kultura

---

**korporatibizazio** *iz* korporatibo bihurtzea.

Prekarietatearen areagotze geldiezina eta horrek ekintza sindikalean dakarren **korporatibizazioa**. Berria - Ekonomia

---

**korporatibo** *izond* korporazioari dagokiona. ik **korporazio 2**.

Alderdi Popularrak Espainiako Postaren irudi **korporatiboa** aldarazi zuen iazko urtarrilaren 1ean. Berria - Euskal Herria

Eliza batek bere notasun **korporatiboa** idolatratzea. Iñaki Mendiguren

REPSOL-YPF: urrezko akzioa (mugimendu **korporatiboak** eragozteko ahalmen berezia) iraungi zaio Espainiako Gobernuari. Berria - Ekonomia

Museoaren Lagunen Programak nahiz Kide **Korporatiboen** egitasmoak agerian utzi dute museoaren jardueraren sendotasuna. Berria - Kultura

Nazioarteko sindikalismoa identitate krisi sakon batean dago, eta gero eta funtzio **korporatiboagoa** barneratu du. Berria - Euskal Herria

Washingtongo estatuan, ikasle gehiago dago unibertsitate **korporatibo** hauetan ohiko unibertsitateetan baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitarioen interes **korporatiboak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Editore handienek modu **korporatiboan** erantzun dute oraingoz. Berria - Gaiak

Gipuzkoa Donostia Kutxak Gizarte Erantzukizun **Korporatiboaren** lehenengo txostena aurkeztu zuen atzo. Berria - Ekonomia

---

**korporatista** *iz* korporatibista.

Ez da borroka **korporatista** bat. Berria - Ekonomia

---

**korporazio** **1** *iz* zuzenbidearen araberako pertsona edo taldea, estatuko administraziotik bereizia eta helburu publikoak dituena.

Gobernukoak ez diren **korporazio** handien zerbitzura. Iñaki Mendiguren

Japoniar **korporazio** bateko exekutibo bati edo argentinar eraikuntza-enpresari bati saltzea. Oskar Arana

63.000 inguru **korporazio** transnazionalek (etxe nagusik) munduko estatu gehienetan eta jarduera ekonomiko garrantzitsuenetan kokaturik dauden 690.000 filial zuzenki kontrolatzen dituzte. Iñaki Heras

MCC Mondragon **Korporazio** Kooperatiboak. Berria - Ekonomia

Eurotchen sartu da Tecnalia euskal **korporazio** teknologikoa. Berria - Ekonomia

285.000 metro koadroko industrialdea eraikiko du Txinan MCC **korporazioak**. Iñigo Aranbarri

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **korporatibo**.

Espainolaren akademiak **korporazio** meza bat antolatzen omen du urtero. Ramon Saizarbitoria

Erromatar eredu sekular horretan oinarrituz, hazten eta zabaltzen ari zen eliz elkarteak aldi berean tokikoa eta ekumenikoa zen antolaketa eta **korporazio**-sentipena eraiki zituen. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

*BBC British Broadcasting Corporation* kateako (Komunikabide **Korporazio** Britainiarra) presidente Gavyn Daviesek. Berria - Mundua

Udal **korporazioak** Condor Legioari egindako omenaldia. Berria - Euskal Herria

AEBetako eta Kanadako konstituzioek pertsona baten lege izaera ematen diete negozio **korporazioei,** edozein norbanakok izan ditzakeen eskubide eta betebeharrekin. Berria - Kultura

Funtsezkoa da horretan antzinako hiriekiko [...] aldea, azken horiek erakunde militar gisa antolatzen baitziren, edota, Weberren hitzak erabiliz, gerrari-**korporazio** gisa. Koro Navarro

Administrazio-**korporazio** sekularrek, hala ere, antolaketa-eredu bat emate hutsa baino zerbitzu sakonagoak ere eman zizkieten elizei. Iñaki Mendiguren

Nazioarteko finantza **Korporazioa** eta Inbertsioen Bermerako Agentzia Multilaterala. Iñaki Heras

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **mondragon korporazio kooperatiboak** (5)

---

**korporeitate** *iz* gorpuztasuna.

Iritzi berekoak dira arimari **korporeitatea** ukatuz gorputzaren eraketa organikoa edo oreka dela diotenak. Imanol Unzurrunzaga

---

**korporista** *iz* korporatibista.

Hunen helburu lehena da jokolarien intresen zaintzea, ez baitezpada diru-intresak (ez dira **korporistak,** errana izan den bezala), bainan kirol-intresak, Herria

---

korpus ik **corpus**.

---

**korpuskular** *izond* korpuskuluarena, korpuskuluari dagokiona.

Unibertsoaren egituraren hiru teoria zientifikoak hauek dira: molekularra, **korpuskularra** eta atomikoa. Xabier Olarra

---

**korpuskulu** *iz* gorpuzkia, zatikia.

Gure odolaren **korpuskuluek** beren osagai diren izaki ñimiñoak ikusten dituztenean, agian zirrara berdinak asaldatzen ditu, baten unibertsoa bestearenetik zein urrun dagoen ohartzean. Xabier Olarra

**Korpuskulu** horiek neuronetan sortzen dira eta ugaritu egiten dira gaitza garatu ahala. Plazer sexualaren oinarri biologikoa, neurri handi batean, ukipen **korpuskulu** bikain horietan dago. Luis Elberdin

Beroaren **korpuskuluak** ere banan barik elkarri lotuta eta multzoka dabiltza. Xabier Amuriza

Kontuan hartu behar dugu ukipen **korpuskuluek** funtzionatzeko oso modu bitxia dutela Luis Elberdin

---

**korraize** *iz* urka-bilurra, soka-lasterra.

Ahozpez etzan zen, nik eskumutur bat hartu nion, soka baten muturreko **korraizea** pasatu handik, eta ohearen aurreko hankan lotu nuen, gero gauza bera egin nuen

bestearekin. Juan Martin Elexpuru

---

**korrale** **1** *iz* eskorta.

Herriko Etxeak ezartzen ditu **korrale** batzu zaldidunen zerbitzuko. Herria

Zaldizkoek ibiltzen dituzte kabalak **korraletan,** batetik besterat, beren mugikorrak beharrian. Herria

Han behean, **korrale** zabalaren bestaldean, oilategiak ate irekiaren laukitxo beltza erakusten du, gauaren ilunean. Itziar Otegi

Lepic andreak **korraleko** atea trangatuta utzi du. Itziar Otegi

**2** ataria.

Meza ondoan, aroa gisakoa balinbada, eliza aintzineko **korralean** bazkalaurreko edariak urririk eskainiak izanen dira. Herria

---

**korrazpi** *iz* teilatu hegalaren azpia.

Estarta bazterretako ezpondapeak ere oso gogoko izaten ditu, bere habiari kontzeko xokanahi gorderik edo erromutur bihurririk inon bilatzen badu, benpe; baita borda zaharretako hegazpeak edo **korrazpiak** ere, jendea bakan samar ibiltzen denekoak badira. Patziku Perurena

---

**korrea** *iz* uhala, hedea.

Tapax **korreak** tinkatzen hasi zen. Pablo Sastre

Baditu bi **korrea,** haiei esker Andreasek bizkar zaku gisa eraman dezake. Pablo Sastre

---

**korredore** **1** *iz* lasterkaria.

Guk pasatzen ikusten genuen, kapota jaitsia zuen auto bat gidatzen, painelu luze bat lepoan eta **korredore** betaurrekoak jantzita. Pello Lizarralde

**2** artekaria.

Beste batek 20.000 esan du, euskal frontoietako **korredoreen** antzera. Pako Aristi

---

**korreitu**, korrei, korreitzen du *ad ipar* gainditu, garaitu.

Aitaren eskolatik edo ez, arras bipilki **korreitu** du makearrak beste arerio hau, baina ez da hau ere nahikeria faltan geldituko. Herria

Hori ez du **korreitu** eta pausatu da 85 urtetan. Herria

---

**korrejidore** *iz* foruen garaian, Gaztelako eta Espainiako erregeen ordezkaria Bizkaian eta Gipuzkoan.

Beheraxeago, aldarera begira, eta lehendabiziko ilaretan, espainiar **Korrejidorea** eseri da, eta agintari militarrak, eta apezpikuak eta kalonjeak, eta abade gorenak, eta deputatuak oro. Txillardegi

Beheraxeago, aldarera begira, eta lehendabiziko ilaretan, espainiar **Korrejidorea** eseri da, eta agintari militarrak, eta apezpikuak eta kalonjeak, eta abade gorenak, eta deputatuak oro. Txillardegi

Festa giroko doinu eta dantza alaien artean, **korrejidore** bat errotari gazte batekin maitemintzen da. Berria - Kultura

**Korrejidorearen** soldaduek Mattin Mottela harrapatu zuten baso batetik besterako soilgune baten erdian. Anjel Lertxundi

Soldaduek zakua kentzea lortu zuten eta **korrejidoreari** eraman zioten. Anjel Lertxundi

---

**korrejimendu** *iz* korrejidorearen bulegoa.

**Korrejimenduko** artxiboak ere erakutsi ditu Ana Otegik, artxiboko teknikariak, «auzi zibilak eta kriminalak dira, hemen, ia 40.000 juizio dauzkagu. Berria - Kultura

---

**korrejitu**, korreji, korrejitzen du *ad* zuzendu.

Gure hutsen zuzentzeko eta gure falten **korrejitzeko** eta erremediatzeko... eta bidean abantzatzeko eta aitzina egiteko, azken finean. Joan Mari Irigoien

---

**korrekto** **1** *izond* zuzena.

Aste baten buruan frantses ia **korrektoan** aritzen nintzen. Matías Múgica

Eta badaki, halere, hori ez zaiola gustatuko Sophie-ri eta politikoki **korrekto** agertu behar duela. Eneko Bidegain

**2** egokia, korrekzioz aritzen dena.

Arront mutiko **korrekto,** ortodoxo eta dekoratiboa. Patziku Perurena

Tabernako zoko guztiak Hitzetik Hortzera-ko bertsolari **korrektoek** hartuak zituzten. Berria - Kultura

Guztia esanda dago bestela ere, eta berezko barne-indar hori ez badu, poema **korrektoa** izango da, baina hilda dago. Berria - Kultura

---

**korrekzio** *(orobat* ***korrekzione*** *g.er.)* **1** *iz* jendetasuna, egokitasuna.

Antolakuntza eskasa eta **korrekziorik** eza. Patziku Perurena

**2** (hitz elkartuetan) zentzatze-. ik **korrekzional.**

Parisko **Korrekzio** Auzitegiak sei urteko espetxe zigorra ezarri zion atzo Joseba Imanol Kortazar Pipaon euskal presoari.

Indar soziala mugatua da politikak ez badu ekonomiarekin **korrekzio** lanik betetzen, baina saiatu beharko da politikari, modu dialektiko batean, aldatzen laguntzeko. Berria - Euskal Herria

· Gurean, **korrekzio** etxearen mehatxua helduen ahotik aurreneko okasioan ateratzen zen korroka baitzen. Pablo Sastre

*ik* korrekzional 2.

---

**korrekzional** 1 *izond* zentzatze-. ik **korrekzio 2.**

Parisko Auzitegi **Korrekzionalak** atzo epaitu zituen Asier Arzalluz eta Aitor Agirrebarrena. Berria - Euskal Herria

Orain arte auzitegi **korrekzionalak** epaitzen zituen. Berria - Euskal Herria

**2** *iz* zentzatze etxea.

**Korrekzionalera** bidaliko dutela, esan nahiko duzu. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **parisko auzitegi korrekzionalak** (3)

---

**korrelatibo** *(orobat **koerlatibo** g.er.) izond*

Ez zen egun batetik bestera gertatu aldaketa hori, baina batean sakondu ahala bestea gutxiago interesatzen zitzaidan, eta, oharkabean izan bazen ere, nik uste prozesu **korrelatiboa** izan zela. Xabier Mendiguren Elizegi

Diru-masaren kontrolak eta langabeziaren igoera **korrelatiboak** soldaten, sindikatuen eta oro har indexazio-mekanismoen kontrako eraso gogorra ekarri zuten. Koro Navarro

Ongia eta gaizkia **korrelatiboak** baitira. Inor ez da ausartzen **"korrelatibo** objektiboa" zer ote den galdetzen. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **korrelatibo objektiboa** (5)

---

korrelato ik **korrelatu.**

---

**korrelatu** *(orobat **korrelatu** g.er.) iz*

Azalera makurtuek estimuluan duten **korrelatu** bezala aurkezten dira (beste era batera esanda, erretinako irudian ehundura-gradiente bat izatea distantziaren aldakuntza jarraitu bat pertzibitzeko estimulua da). Josu Zabaleta

Determinazio ontologikoa erabaki etikoaren **korrelatua** da eta bien artean errealitate beraren aurpegi bikoitza eratzen dute. Piarres Xarriton

Honelako edo halako gizakiren ideia kontsideratuz haren egintza guztiak eta bakoitza ("propietateak") deduzi litezke, zeren horiek baitira ideia egokien **korrelatuak**. Piarres Xarriton

Historia jarraitua, bera da subjektuaren funtzio fundatzailearen ezinbesteko **korrelatua,** ihes egin dion guztia berriro bereganatuko duen bermea. XVII. edo XVIII. mendeetako medikuntzaren enuntziatuen **korrelatu** modura jartzen den objektua ez da epai juridikoetan edo poliziak hartutako neurrietan izendatzen den berbera. Xabier Arregi

Lehenengo klaseak ez du ezein **korrelatorik,** nabaria denez; hauek bigarren klasean baino ez dira aurkitzen. Ibon Uribarri

---

**korrelazio** 1 *iz* estatistikan, bi aldagaien arteko erlazioa gauzatzen duen funtzioa, 0 eta 1-en arteko balioak har ditzakeena.

Ez zegoen modurik inolako **korrelazioa** ezartzeko banda horien eta geneei egotziriko funtzioen artean. Juan Garzia

Kultura askotan ikus daiteke independentzia ekonomikoaren eta dibortzioaren arteko **korrelazioa**. Luis Elberdin

**2** bi gauzen arteko erlazioa.

**Korrelazio** handia aurkitzen dut animaliei eta elbarriei ematen zaien tratuan... Xabier Olarra

Koloreak ez daudela "kanpoko" munduan, eta ez direla [...] uhin-luzeraren **korrelazio** automatikoak, baizik eta garunak taxutzen dituela gehienbat. Xabier Olarra

Ez dago **korrelaziorik** garunaren pisuaren eta adimenaren artean. Irene Aldasoro

Hainbat ikerketetan jaso izan da *per capita* errenta eta umeen lanaren arteko **korrelazio** negatiboa: herrialdea aberastu ahala behera egiten du lan mota horrek. Iñaki Heras

Konposatu bakoitzaren propietate kimikoak ere aztertu ziren, usainarekin **korrelazioren** bat aurkituko zelakoan. Irene Aldasoro

Aldi berean begiratu eta ukituz, aukera ederra zuen **korrelazio** erabakigarriak taxutzeko: jostailuzko mundu haren bidez ikasirik, benetako mundua ikusteko presta zezakeen bere burua. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan)

Proposizio batek erreferenterik duen ala ez esan ahal izateko, jakin beharra dago zeri dagokion enuntziatua, zein den bere **korrelazio**-eremua. Xabier Arregi

**4** ***indar korrelazio***

Enplegua sortzeko edozein politikak gure garaian dirauen indar **korrelazioa** izan behar du kontuan. Iñaki Heras

Orain zailena dator; hots, indar **korrelazioa** aldatzea, soilik horrela aldaraziko ditugulako politika neoliberalak. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **indar korrelazio** (6)
> **indar korrelazioa** (15); **indarren korrelazioa** (3)
> **indar korrelazioak** (4)

---

**korrelazionatu,** korrelaziona, korrelazionatzen du *ad* bi aldagaien arteko koerlazioa ezarri.

Kolorea sortzeko, beharrezkoa zen V4ko zelula kolore-kodetzaileetan konparatu edo **korrelazionatzea**. Xabier Olarra

Gertaera horiek **"korrelazionatu",** eta, azkenean, ondorio hau atera zuen: ekipamendua sabotatzen ari zen John hori. Xabier Olarra

---

**korrelazionatzaile** *izond/iz* koerlazionatzen duena.

Bazirudien, beraz, zelula horietako bakoitzak Landen **korrelazionatzaile** edo Helmholtzen "irizpen-emaile" gisa ziharduela. Xabier Olarra

---

korrente ik **korronte.**

---

**korreo** 1 *iz* posta.

Gerora hasiko ziren Galiziatik, Coruñatik ekartzen, **korreoz** eskatuta. Iñigo Aranbarri

Gaur goizean **korreo** bidez bidali diodan sobrea bihar edo etzi jasoko du lantokian. Xabier Etxabe

Zelebrea da **korreoz** ia inoiz fundamentuzko ezer jaso ez eta hala ere beti gutunen peskizan egotea. Anton Garikano

**2** *(ik beherago* **4**)

Errepublikaren **korreoa** egiten zuen ontzi hark, Bilbon ikusia nuen, handik Baionarakoa lotzen zuen. Koldo Izagirre

**3** irud/hed

**Korreo** elektronikoa baleuka idatziko liokeela, esan dio neskak azkenik. Pako Aristi

Bertan 2004. urteko maiatzaren 19ko data duen **korreo** elektroniko bat jasotzen da: agintariak sinatutako aginduaren berri ematen du **korreoak**. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan)

**Korreo**-mutil bat sartu zen salan; Don Kijoteren karta zekarren gobernadore jaunarentzat. Patxi Ezkiaga

**5** posta eramaten duen ibilgailu, tren edo itsasontzia.

'Tolosako **korreoa'** Azkoititik Tolosara doan autobusari deitzen zaio. Pako Aristi

Han, goizeko zortzietan Azkoititik ateratzen zen **korreoa** hartu, eta Elgoibarrera. Iñigo Aranbarri

-Oi Burdeos -oraindino gogoan du Bitorianok hangoa-, *Habana* **korreoa** han, eta han zubian kapitaina, mundakarra. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **korreo bidez** (3)

---

**korreoketa** *iz* postaren saria.

Nire andere Teresa Panzak idazten badit, paga beza berorrek **korreoketa** eta karta bidali, arren; nire etxeko eta nire seme-alaben berriak jakiteko ixiraz nago eta. Patxi Ezkiaga

---

**korrespondente** *(orobat **korrespondiente**)* *izond* elkarri dagokiena.

Bi erretinetako bi puntu **korrespondenteek** noranzko balio berbera balute bezala gertatzen dira, laburtzeko, gauza guztiak. Josu Zabaleta

Espazioko puntu batek bi erretinetan **korrespondente** ez diren bi puntu kitzikatzen dituenean [...] diferentzia bat gertatuko da erretinetako bi irudien artean; diferentzia horri erretinetako irudien desberdintasun deitzen zaio. Josu Zabaleta

---

**korrespondentzia** 1 *iz* harremana, lotura.

Propietate sintaktiko eta semantikoen artean **korrespondentziarik** edo loturarik ote dagoen. Askoren artean

Bien artean, elkarreragina ez bada ere, behinik behin **korrespondentzia** eta harmonia eratzeko.Izpiritu hori ez da gorputz (natura) horren produktu edo efektu mekanikoa [...], bai ordea horren elkarrekikoa, **korrespondentzia** osokoa. Ibon Uribarri

Zortzi parte berdin egiten dira, eta parte horien arteko banaketa-lerroak, hain zuzen ere, egurra horizontalean jarrita dagoenean beste buruko lerroekin erabateko **korrespondentzian** egoteko moduan jartzen dira. Santiago Iruretagoiena

**2** (bi multzoren arteko) egokitasuna.

Puntuz puntuko **korrespondentzia** zehatza zegoen bien artean. Xabier Olarra

Logika gehienetako hizkuntza formala **korrespondentzian** jar daiteke hizkuntza natural (edo matematiko) baten parte batekin. Askoren artean

**3** postazko harremana; posta, gutunak.

Eta honela hasi zen gure **korrespondentzia**. Piarres Aintziart

Bion arteko **korrespondentziak** eskatzen duen intimitatea ederki gordeta egongo da, inork ez baitu jakin ahal izango zu nor zaren. Hasier Etxeberria

Bistakoa da, ordea, zure eta nire arteko jolas askea izateari utzi egin diola orain **korrespondentzia** honek. Hasier Etxeberria

Izugarri gustatzen zitzaion **korrespondentzia** jasotzea. Joxemari Iturralde

Delacour-en **korrespondentzia** hartu eta bulegotik irten zen. Irene Aldasoro

**Korrespondentzia** mahai gainean utzi eta burua makurtu zuen gizonak errespetuz. Irene Aldasoro

**4** (hitz elkartuetan)

Indiako britainiar gobernuak ingelesa bihurtu zuen diplomazi **korrespondentziarako** bitarteko, eta 1835ean baita goi-mailako hezkuntzarako ere. Iñaki Mendiguren

---

korrespondiente ik **korrespondente**.

---

**korrespontsal** 1 *iz* berriemailea.

Egunak pasa ditu Goizeder Odriozolak, *Ardi Beltza* aldizkariaren Venezuelako **korrespontsalak,** prostituten elkarte batera deika. Pako Aristi

A.P.-ko **korrespontsala** izango naiz. Lopez de Arana

Laster estatu mailako musika errebista bateko **korrespontsal** egingo naute. Unai Iturriaga

Atzerriko prentsako **korrespontsalek,** berriz, Gobernuko funtzionario baten deiak jaso zituzten; atentatuaren egilea ETA zela ziurtatu zien. Berria - Harian

Baina hara zer zioen auzoko **korrespontsalak** biharamuneko egunkarian. Joan Mari Irigoien

Irrati eta Telebistako **Korrespontsalen** Elkartearekin urtero egiten den afarian. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Aldean daramat badaezpada ere kontratua, Egunkariak eman didan **korrespontsal** karneta. Harkaitz Cano

· *Marichu,* Madrilgo eusko jatetxea, gerra-**korrespontsalak** sarrien izaten direnetako leku bat da. Edorta Jimenez

---

**korri**

**1** ***korri egin*** lasterka egin.

Inork ez zekien zein norabidetan **korri** egin. Jon Maia

Ikasi genuen muinoan gora **korri** egiten zakuto astun haiek bizkarrean hartuta. Mirentxu Larrañaga

Bere inguruko gorpu guztien artean, tiro eta bonba ziztuen artean egin zuen **korri**. Jon Maia

-Begira nola egiten duen **korri** Ttakunek! -egin zuen oihu Marrok. Juan Kruz Igerabide

Agatak, eskutrapua besoan duela, prestu egiten du **korri** sukaldeko sutik armairura, armairutik mahaira, ez baitaki patxadaz ibiltzen. Itziar Otegi

Neu ahalegindu izan banintz neure burua salbatzen, **korri** egin izan banu, orain ez litzateke hilda egongo, bere hilkutxan zerraldo. Mirentxu Larrañaga

Jendeak zingiratik atera nahi zuen, baina ez zegoen **korri** egiterik. Jon Maia

Egizu **korri**, aitatxo, izerditu zaitez. Itziar Otegi

Esaten zidaten: **korri** Giovanni zure karga ederrarekin! Fernando Rey

**2** (zer osagaiarekin)

Martak hamabost kilometro **korri** egiten zituen goizero, Pasaiako portuan, garabien artean. Harkaitz Cano

**3** (egin ezabaturik)

**Korri** isilik. Pako Aristi

Ea, **korri**, **korri**! - oihu egin zion Harryk Hermioneri. Iñaki Mendiguren

**Korri** zuek, nik ezin dut eta! hil nazatela hemen! Bernardo Atxaga

**Korri** Abu! Pablo Sastre

**korri**! Pablo Sastre

**korri**! Pablo Sastre

**Korri**, laputa, **korri**! Harkaitz Cano

Aitak abandonatu gintuenetik ito beharrean ibiltzen da beti, **korri** hona eta **korri** hara. Patxi Iturritegi

· Jaso zuen eskua emakumeak, eta mutikoa **korri** ihesi joan. Pablo Sastre

**Korri** etorten zan, eta salto. Edorta Jimenez

Batzutan heldu bestetan solte / hurrengo salto ta **korri**. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azkarrago korri** (3); **egin zuen korri** (3); **korri egin** (8); **korri egiteko** (4); **korri egiten** (7); **taldearekin korri** (3)

---

## korriarazi, korriaraz, korriarazten **1** du *ad* korritzera behartu. ik **higiarazi**.

Esekitokiko sokak **korriarazi**. Aingeru Epaltza

**2** dio *ad*

Nire erlojuari buruz mintzatu nintzaion, kamioi-gidariari nola oinordetzan utzi behar izana nion, eta denborari berari buruz ere bai, oro har; nahiago nukeela erlojuak denborari atzera **korriarazteko** gai balira. Joxe Austin Arrieta

---

## korrida *iz* zezenketa.

Mounaren erakustaldia Madrilgo Las Ventas zezen-plazako **korridan**. Joxerra Garzia

Aratseko 6etan, zezen plazan, **korrida,** Marie Sara, Pablo Hermozo de Mendoza eta Alvaro Montes-ekin. Herria

**Korridako** azken zezenarekin. Joan Mari Irigoien

Kontua da 1933koan Ernest Hemingway afixan iragartzen diren **korridetara** etorri dela. Edorta Jimenez

Zezen **korridak** jende zibilizatu asko dibertitzen du oraindik. Joxe Azurmendi

---

## korrido *izond* jarraitua, etenik ez duena.

Irun erdian zuen tabernaren pareta aldeko banku **korrido** luzean inon baino ordu gehiago eman genituen institutu garaian. Alberto Barandiaren

-Noiz kendu zenuten banku **korridoa**? Alberto Barandiaren

---

## korridore *(894 agerraldi, 117 liburu eta 68 artikulutan)* **1** *iz* etxe barruan gelen edo aretoen arteko igarobide mehar eta luzea. ik **pasillo**.

Zaindarien urratsak **korridorean,** orduen kanpai-hotsa. Jose Morales

Erabakiak **korridoreetan** hartzen dira. Berria - Euskal Herria

Unibertsitateko **korridore** luzeetan. Aingeru Epaltza

Zur eta lur daude **korridore** ilunean pilatutako anabasari eta trepetei begira. Harkaitz Cano

Harrizko **korridore** estu batean zeuden, zuziz argituta. Iñaki Mendiguren

Eskuinetara egin zuten; **korridore** itsu batera iritsi ziren, zulo itzaltsu batera. Karlos Zabala

**Korridore** argitsuetan barrena, altzari ingeles eta frantsesak nabaritzen ziren nonahi. Hasier Etxeberria

Begiak itxita, Ellen **korridore** ketsutik korrika atera eta aldagelaren aire garbira iritsi zen. Lopez de Arana

Narrastiak ikasteko, arrastaka zeharkatzen genuen eskolako **korridore** zabal luzea. Joxerra Garzia

**Korridore** ilun estu batetik, balkoi beiraduna zuen egongela argitsu batera eraman ninduen. Anjel Lertxundi

Treneko **korridore** estuetan emakume gizenekin gurutzatzean. Harkaitz Cano

**Korridorean** aurrera egin zuen, baina orain poliki-poliki. Agustin Otsoa

Atarian zehar eraman zituen, marmolezko eskaileretan gora eta **korridore** batean aurrera. Iñaki Mendiguren

**2** *hed*

Kobazuloko **korridoreak** bihurgunez beteta zeuden, eta igarogaitzak ziren batzuetan. Iban Zaldua

**3** *irud*

Loaren zetazko **korridore** purpuretan berriro pulunpatu zen. Lopez de Arana

**4** (hitz elkartuetan)

Siesta garaiko lasaitasunak baretuta zeuden ostatuko **korridore**-eskailerak. Josu Landa

· Hutsik zegoen albo-**korridore** batera sartu eta presaka nesken komunetarantz joan ziren. Iñaki Mendiguren

**5** errepide eta trenbideez mintzatuz, igarobidea.

Zabalgana eta Betoño arteko lurpeko **korridorea** da alternatiba egokiena. Berria - Harian

Lezo-Gaintxurizketa-Hendaia **korridorea** ere Jardueren Plan Orokorraren barruan sartuko da. Berria - Euskal Herria

AHTren Nafarroako **korridoreak,** halaber, Iruñea, Castejon eta Zaragoza (Aragoi, Espainia) arteko bidea egiten du, Ebroko ardatzerantz. Berria - Euskal Herria

Alonsotegitik Balmasedaraino egin nahi duten Kadaguako **Korridorea**.

**Korridore** hori Israelen esku dago egun. Berria - Mundua

**6** ***heriotzaren korridore*** heriotzako itxarongela.

Kaliforniako San Quentin kartzelako heriotzaren **korridorean** zegoen preso zaharrena zen. Berria - Mundua

Iragan astean barkamena eman zien heriotzaren **korridorean** dauden 1.220 presoei. Berria - Mundua

"Gu ez gara mundu honetakoak", adierazten zuen Jacksonvilleko **Heriotzaren Korridorean** kondenaturiko gizon batek. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adreiluzko korridore** (3); **hirugarren solairuko korridore** (3); **korridore batean aurrera** (6); **korridore estu** (12); **korridore estu batean** (5); **korridore ilun** (7); **korridore ilunean** (12); **korridore ilunean aurrera** (3); **korridore iluneten** (3); **korridore labirinto** (3); **korridore luze** (19); **korridore luze bat** (4); **korridore luzea** (4); **korridore luzean** (4); **korridore zabal** (4)

**korridorea zeharkatu** (4)

**etxeko korridorean** (5); **heriotzaren korridorean** (9); **kanpoko korridorean** (3); **korridorean aurrera** (35); **korridorean aurrera egin** (5); **korridorean aurrera joan** (9); **korridorean barna** (8); **korridorean barrena** (22); **korridorean behera** (5); **korridorean berean** (3); **korridorean gora** (3); **korridorean zehar** (14); **solairuko korridorean** (3)

**korridorearen amaieran** (8); **korridorearen beste aldean** (4); **korridorearen beste aldeko** (4); **korridorearen bukaeran** (8); **korridorearen erdian** (7)

**korridoreetan aurrera** (6); **korridoreetan barrena** (6); **korridoreetan gora** (3); **korridoreetan zehar** (7); **legebiltzarreko korridoreetan** (3)

**korridorera atera** (12); **korridorera atera zen** (4); **korridorera iritsi** (7); **korridorera iritsi zirenean** (3); **korridorera irten** (6)

**korridoreko argia** (5)

**korridoretik zetorren** (3)

---

# korridoretxo *iz* korridore txikia.

Sarrerako atearen aurrez aurre eskailera piko bat; ezkerrean **korridoretxo** bat eta gelatxo bat. Josu Zabaleta

Esku batean txirikorda oraindik askatua, eta bestean orrazia zituela azaldu zen **korridoretxora**. Josu Zabaleta

---

# korridu ik **korritu**[1].

---

# korriente ik **korronte**.

---

# korrika **1** *adlag* lasterka, laster eginez.

Ez gaituk, beraz, zuek bezala ibiltzen, **korrika** eta lasterka. Joan Mari Irigoien

Erreka zulora joan ginen Jack eta biok, **korrika,** oihuka, gure makila mehekin sasiak ebakiz, dantzan, zakurrak xaxatuz. Koro Navarro

Aizkoran edo **korrika,** estropadetan nahiz karga-jasotzen, berdin zitzaion. Xabier Etxabe

Herriko kale nagusitik abiatu zen, eta ni haren aldamenean, **korrika**. Koro Navarro

**Korrika** hasi nintzen, gero eta azkarrago. Jon Maia

**Korrika** etorri eta sua itzali zuten. Askoren artean

Sebastian **korrika** etorri zitzaigun atzetik. Bernardo Atxaga

**Korrika** joan komuneraino eta gonbitoka hasi nintzen neu ere. Joxemari Iturralde

Eskaileretan gora **korrika** nindoala. Eduardo Matauko

Kale kantoiko etxe baten atarian zegoen atso bat **korrika** sartu zen etxe barrura, oilo esetsi bat bailitzan. Koro Navarro

**Korrika** ihes egin nahi nuen, baina ezin nuen. Koro Navarro

Espaloiaren gogorra **korrika** ihesi zoazenean. Harkaitz Cano

Alde hemendik **korrika,** ni garrasika hasi baino lehen. Xabier Paya

Julienen gorputzetik emaztearen gorputz ondora **korrika** zakurra, batetik bestera. Ramon Saizarbitoria

Oinez datoz orain, **korrika**. Agustin Otsoa

• **2** *iz* lasterka, lasterra, laster egitea.

Gure begien aurretik, auskalo nondik aterata, gazte lerden, segail eta eder bat **korrika** lasaian igaro zenean. Pintzela arin utzi eta leihora joan zen **korrika** estuan. Aitor Arana

Agente alemana **korrika** astun batean etorri zen haiekin biltzera. Alberto Ladron Arana

Enetzat, zorionak haurtasunean [...] Erriberako bide gorrietan, Inma, Asun, Mertxe eta Anarekin egiten genituen **korrika** libreen itxura du. Ana Urkiza

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egun batean entrenamenduko **korrika**-saioa egitera haiekin joateko eskatu zidaten. Fernando Rey

Bere bizitzan **korrika** saio gehiegi ez egin izanaren itxura zuen. Harkaitz Cano

-Ago geldi, kankallu ori, **korrika**-apostua diagu-ta. Iñigo Aranbarri

**4** ***korrika batean*** *adlag* lasterka batean.

Osaba Juanek azukre-koxkor bana eman zien, eta bikiak **korrika batean** abiatu ziren etxera. Mutikoa **korrika batean** urrundu zen. Bernardo Atxaga

Ikusten dira etxeak eta auzoak aurreraxeago, baina **korrika batean** heltzeko urruti samar. Pako Aristi

Ixtant berean, bi gazte indartsu iaioenek, heldu gurpilari ardatz-kirtenetatik eta **korrika batean** lasterka, [...] Mosela ibairaino eraman behar zuten, dena erre baino lehen. Pello Zabala

**5** ***korrika bizian*** *adlag*

**Korrika bizian** abiatu zen. Agustin Otsoa

Eskailerak ere **korrika bizian** igo zituen, azentsorea bazegoela konturatu gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizon bakan batzuk zetozen **korrika bizian,** etsaiek sartaldeko mugei eraso zietela. Agustin Otsoa

Jauzi batean zutitu eta **korrika bizian** hasi zen. Berria - Kultura

Inoiz edo behin inguruan gizakumerik sumatuz gero, **korrika bizian** ezkutatzen zen bere leize zuloan. Xabier Mendiguren Elizegi

**6** ***korrika egin****sup_1* lasterka egin.

Arin baina **korrika egin** gabe urrundu nintzen. Alberto Ladron Arana

**Korrika egin** nahi nuen, ihes egin handik, betiko desagertu, baina galdua nuen buruaren eta gorputz-atalen arteko sinkronizazioa. Anjel Lertxundi

Hotzaren aurkako erremediorik onena **korrika egitea** dela. Joan Mari Irigoien

Denbora luzez egin zuen igeri eta **korrika** saguak, neke zantzurik erakutsi gabe. Berria - Gaiak

Ez nintzelako gai beste batzuk bezala poliziaren aurrean **korrika egiteko**. Ramon Saizarbitoria

Arrainek ezin dutela lurrean **korrika egin**. Xabier Etxabe

Kale-kantoiraino **egin** zuen **korrika** eta abian zen tranbia batera igo zen. Lopez de Arana

Gordeleku antiaereoetara **egin** zutela **korrika** oihuka negarrez. Lutxo Egia

· Zer gertatzen zaie zakurrei azkar samar ibili, salto batzuk edo **korrika** pixka bat **egiten** dutenerako mingaina kanpoan dutela jartzeko? J.M. Olaizola "Txiliku"

**Korrika,** salto edo beste edozein ariketa fisiko **egitean**. J.M. Olaizola "Txiliku"

### 7 ***korrika egin****sup_2 (zer osagaiarekin)* ik **korritu**[1] **2.**

Hondartza oso-osorik egin diat **korrika**! Koro Navarro

Safiko atxilotze zentrotik aireportura dauden hiru kilometroak **korrika egin** zituzten etorkinek soldaduak atzetik zituztela. Berria - Mundua

**Korrika egin** nituen hiru eskailera tarteak. Koro Navarro

### 8 ***korrika eginarazi***

Maitasunak, ailegatzen denean, **korrika eginarazten** dizu, nire uste apala hori da. Fernando Rey

Hiru hilabetetik gora eduki zituzten han, egunsentian ordu erdiz patiora atera eta akitu arte **korrika eginaraziz**. Jokin Urain

### 9 ***korrika (eta) korrika*** *adlag*

Han daude izeba Sole eta abuelo, segi **korrika-korrika** -esan zion Laureanok. Jon Maia

Bizkarra eman eta korrika hasi nintzen, **korrika, korrika..** . itzulerarik gabeko bidean. Jon Arretxe

**Korrika** eta **korrika egin** arren, zuri-zuri egina aurkitu genuen Iñaki, galtzak kakaztuta... Joan Mari Irigoien

### 10 ***korrika eta presaka*** *adlag*

**Korrika eta presaka** bizi gara; nora ez dakigu, baina azkar iritsi nahi dugu. Joxerra Garzia

Lanpetuta zebilen, eta **korrika eta presaka,** eta jendea zuen inguruan, baina "laztana" deitu zidan bi alditan. Mirentxu Larrañaga

Bizitza arrastan eman dute, sorgorturik eta erdi lokarturik, **korrika eta presaka** ezkondu dira, pazientzia faltaren eraginez, umeak egin dituzte, kasualitatez. Monika Etxebarria

Iluntzen ari zuen eraikuntzatik atera ginenean, eta merkatariak saltokiak ixten ari ziren **korrika eta presaka**. Bernardo Atxaga

### 11 ***korrika txikian*** *adlag*

Ubanbe **korrika** txikian hasi zen, alkandora zuria astinduz orduan ere. Bernardo Atxaga

Amak, **korrika txikian** hurbildurik, besarkatu egin ninduen. Anjel Lertxundi

Neskak atzera jiratu eta **korrika txikian** aldendu ziren. Koro Navarro

Imajina ezazue burdinazko bola bat, mundua bezain handia, eta bola hartan inurritxo bat **korrika txikian** jira eta bira etengabean. Joxerra Garzia

### 12 ***presaka eta korrika*** *adlg*

Gero, **presaka eta korrika** agur esanda, hanka egin zuen handik. Fernando Rey

Dena egiten du **presaka eta korrika** eta azken minutuan. Joxemari Iturralde

Bere bizitza tristean zehar noizbehinka bizitako atsegin banaka batzuek bakarrik, **presaka eta korrika** irentsiak gehienak, kontsolatzen dituzte bizitza bizi izanaz. Juan Martin Elexpuru

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **batetik bestera korrika** (13); **beti korrika** (4); **erdi korrika** (6); **etorri zen korrika** (4); **haren atzetik korrika** (4); **ia korrika** (6); **jendea korrika** (13); **joan zen korrika** (18)
>
> **korrika abiatu** (27); **korrika abiatu zen** (9); **korrika alde egin** (19); **korrika ari** (17); **korrika atera** (26); **korrika batean** (36); **korrika bizian** (27); **korrika egin** (42); **korrika egin zuen** (7); **korrika eginez** (6); **korrika egingo** (4); **korrika egitea** (14); **korrika egiteari** (8); **korrika egiteko** (28); **korrika egiten** (33); **korrika egitera** (7); **korrika eta lasterka** (4); **korrika eta presaka** (62); **korrika etorri** (8); **korrika hasi** (42); **korrika hasten** (4); **korrika heldu** (4); **korrika hurbildu** (6); **korrika ibili** (8); **korrika ibiltzen** (5); **korrika igo** (9); **korrika ikusi** (5); **korrika irten** (5); **korrika itzuli** (4); **korrika jarraitu** (4); **korrika joan** (61); **korrika joan zen** (25); **korrika joaten** (9); **korrika korrika** (5); **korrika kulturala** (13); **korrika kulturalaren** (16); **korrika kulturalaren barruan** (5); **korrika martxoaren** (4); **korrika pasatuko** (4); **korrika saio** (9); **korrika saioa** (5); **korrika saioak** (6); **korrika sartu** (4); **korrika ttiki** (7); **korrika ttipi** (13); **korrika txikian** (19); **korrika zebilen** (4); **korrika zihoan** (7); **korrika zihoazen** (5)
>
> **presaka eta korrika** (10)

---

## korrikalari *(orobat* ***korrikari*** *g.er.)* **1** *izond/iz* lasterkaria.

Historiak, gazte **korrikalari** poliziak tiroz hilarenak, ezer gutxi du postaletik, simulakrotik... Haur **korrikalari** haiek, xeru-xeru, barre algaratan hurbiltzen zitzaizkiola. Iñaki Iñurrieta

Itsasoaren eta Erregearen arteko bitartekari lanak egiteko, berriz, **korrikalariak**. Xabier Etxabe

Esprinter bat 1.000 watt edo gehiagoan ibil daiteke pixka batean, eta distantzia luzeko **korrikalari** txapeldun batek, berriz, 300 eta 350 bitarteko watt-en indar-gastu etengabea izan dezake ordu batzuetan. Irene Aldasoro

**Korrikalaria** baino bizkorrago doaz nire egunak: zoriona ikusi gabe doaz ihesi. Elizen arteko biblia

Ramuntxo Lamothe, saratar **korrikaria,** izan da irabazdun haundia, bi lasterkaldiak berak ereman baititu. Herria

· Halaxe, bada, hasi zen Hauster **korrikalari**. Iñaki Iñurrieta

### 2 (hitz elkartuetan)

Lasterketa guztietan **korrikalari** mordoa aritu zen. Berria - Kirola

Maratoi-**korrikalariak** bezain abailduta. Xabier Montoia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **sona handiko korrikalariak** (4)

---

## korrikaldi *iz* lasterraldia.

**Korrikaldi** batean joan zen automobileraino. Migel Angel Mintegi

Tonitak ihes egin zuen, Peyrelonguery baloia pasa, eta horrek 30 metroko **korrikaldia** egin zuen azken pasea Brusqueri egiteko. Berria - Kirola

Bi pisu gorago amaitu zuen **korrikaldia**. **Korrikaldi** biziak egin zituen nafarrak, eta Ezquerrori pase bikainak eman, hark gola sar zezan. Migel Angel Mintegi

Olaizolak **korrikaldi** hutsalak pilatu baino ez zuen egin.

Baina **korrikaldian** balantza egin eta lurrera erori ziren. Agustin Otsoa

«Ertzainei eta udaltzainei» ihesi **korrikaldi** saio ederrak ere egin zituzten. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **korrikaldi luzea** (3); **korrikaldi luzea egin** (3)
>
> **korrikaldia egin** (4)
>
> **korrikaldiak egiten** (3)

---

**korrikalditxo** *iz* korrikaldi laburra.

Masajeak hartu eta **korrikalditxo** egin ondoren plazaratu zen Errezilgoa. Berria - Kirola

---

korrikari ik **korrikalari**.

---

**korrikatzaile** *iz* korrika egiten duen pertsona.

Orduan, behar bada, bideak beharko dira largatu denak **korrikatzaile** izanen baigira! Herria

---

**korritu**[1], korri, korritzen *(orobat* ***korridu*** *g.er.)* **1** du *ad* higitu.

Atetxoa **korritu** nuen, eta harri eta zur geratu nintzen. Juan Martin Elexpuru

Gortina lizundu bat **korritu** nuen dutxatzeko. Anjel Lertxundi

Gortinak **korritu** zituen Nathanielek, argirik urrienak ere min ematen baitzion begietan. Anjel Lertxundi

Eta, orain, gorputz zikin eta odoleztatu hauek osatzen duten lerro hau **korri** dezagun, besoa besoaren ondoan daude etzanik, noiz txaluparatuko zain. Jon Alonso

**2** aipatzen den tartea buru batetik bestera igaro. ik**kurritu; ibili 8; korrika 7**.

Baratzeko bideak **korritu** ditu. Itziar Otegi

Zaldia hartu eta distantzia luzeak **korritzera** ohitu nintzen. Juan Garzia

Euren orbita luzeak **korritzeko** urte handiak darabiltzaten ilargi etaizarrei. Xabier Amuriza

Saxonia guztia **korritu** dut. Juan Garzia

Auzo zaharreko kaleak **korritu** zituzten bi gizonek. Koro Navarro

Kotxeak Kale Nagusia **korritu** zuen, *Azucarero* zubia eta San Nikolas kalea gurutzatu, eta Logroñoko errepidean sartu zen. Koro Navarro

Viktoria erreginaren banderapeko itsasontzietan zazpi ozeanoak **korritu** ostean. Xabier Mendiguren Elizegi

Dahlmann-ek, bagoiak **korritu** eta ia hutsik zegoen bat topatu zuen. Juan Garzia

Saldu bere partea eta gure nazioa alderik alde **korritu** zuen. Felipe Juaristi

Oroit naiz tinta ubel apainez **korritu** nituela kaieraren lerroak. Piarres Aintziart

**Korrituak** zituen hiriko altzari-denda guztiak, aukeratuak oihalak, alfonbrak eta tapizak. Patxi Iturritegi

Eta geroago etsipen-bala batek **korritu** du ene gorputza. Txillardegi

Hotzikara batek **korritu** zuen Paul D.; espasmo izoztu batek belaunak heltzera behartu zuen. Anton Garikano

Hatsanka eta arnasestuka aritzen zen etengabe, ehun metroak **korritu** berriak balitu bezalaxe. Patxi Zubizarreta

· Sasoi hasieran proba hori **korri** zezakeela esan zioten taldeko arduradunek. Berria - Kirola

**3** (zer osagairik gabe)

Argitzen ari zuen; haizeak bultzatuta **korritzen** zuten berunezko hodeitzarrek, eta herri bat sumatzen zen gain batean Frantzian **korritu** zenuen aurrena. Koro Navarro

Bi hilabete **korritu** gabe eman zituen Matxinek, lesio bategatik Berria - Kirola

**4** ibili.

Edith sukaldera joan zen, eta ura **korritzen** jarri zuen. Koro Navarro

Diruak **korritu** egin bear dik, **korritu**! Iñaki Segurola

• **5** da *ad* orgasmora iritsi. ik **isuri**[1] **6**.

Nire beroaldia hain zen handia, non jarleku bigun hartan bertan **korritu** bainintzen. Juan Martin Elexpuru

Hiru edo lau aldiz **korritu** nintzen; izan ere, isuria nintzela igartzen zutenean, abiada bizkortzen zuten, eta berriz ere lehenera. Juan Martin Elexpuru

Segituan **korritu** ginen biak, ni haren ipurdian eta hura nire hatzekin. Karlos Zabala

Goizeko irudi guztiak etorri zitzaizkidan burura, eta modu basatian **korritu** nintzen. Juan Martin Elexpuru

Ai! nire bizitza osoan ez naiz hain lizunki **korritu**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Horrelaxe, maitia, horrelaxe, **korritu** zaitez, zoratu egiten naiz zure atsegina nire esku artetik ihesi joaten ikustean. Juan Martin Elexpuru

" **Korri** zaitez ahoan" bota nion eta ahal nuen guztia irentsi nion eta ez nintzen gelditu nire zintzurrean gozatzen ari zela sentitu nuen arte. Karlos Zabala

Zure premian nago Fernando, estal nazazu, babes nazazu, bete nazazu, sar iezadazu hondo-hondoraino, **korri** zaitez nire barrenean, blai-blai utz nazazu zure isuriez, mesedez, mesedez. Karlos Zabala

**6** (era burutua izenondo gisa)

Publikoa elkarren kontra estutuko zen banku **korritu** eramangarri eta deseroso haietan. Harkaitz Cano

Ivan Revinskyk hartu zuen bigarren erabakia, zirkuaren inguru osoa banku **korritu** ilaraz betetzea izan zen, anfiteatro eramangarriak sortuz. Harkaitz Cano

Egurrezko balkoi **korrituak**. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bi etapa korritu** (4); **giroa korritu** (6); **itzulia korritu** (7); **klasikoa korritu** (5); **lasterketa korritu** (6); **proba korritu** (8); **taldearekin korritu** (4); **tourra korritu** (10); **txapelketa korritu** (3); **vuelta korritu** (3)
>
> **azken etapa korrituko** (3); **erlojupekoa korrituko** (8); **giroa korrituko** (16); **giroa korrituko du** (4); **hirugarren etapa korrituko** (3); **italiako giroa korrituko** (4); **itzulia korrituko** (17); **itzulia korrituko du** (8); **klasiko handia korrituko** (5); **klasikoa korrituko** (3); **klasikoak korrituko** (4); **lasterketa korrituko** (6); **lasterketak korrituko** (3); **proba korrituko** (11); **probak korrituko** (4); **saioa korrituko** (3); **sari nagusia korrituko** (5); **taldeak giroa korrituko** (3); **taldearekin korrituko** (9); **taldearekin korrituko du** (8); **tourra korrituko** (27); **tourra korrituko du** (5); **vuelta korrituko** (4)
>
> **astarloak giroa korritzea** (3); **bakarrik korritzea** (3); **ez korritzea** (8); **ez korritzea erabaki** (4); **giroa korritzea** (6); **giroa korritzea** (6); **korritzea erabaki** (4); **korritzea ez** (3) astarloak giroa korritzea (3); **tourra korritzea** (3); **vuelta korritzea** (4)
>
> **etxean korritzeko** (4); **giroa korritzeko** (5); **itzulia korritzeko** (8); **korritzeko asmoa** (6); **korritzeko aukera** (11); **korritzeko erabakia** (4); **korritzeko gonbidapena** (5); **korritzeko interesa** (3); **korritzeko lekua** (4); **korritzeko modua** (5); **lasterketak korritzeko** (3); **liga korritzeko** (3); **munduko txapelketa korritzeko** (3); **tour liga korritzeko** (3); **tourra korritzeko** (12); **txapelketa korritzeko** (4); **vuelta korritzeko** (7)
>
> **espainian korritzen** (3); **etxean korritzen** (11); **euskal herrian korritzen** (6); **itzulia korritzen** (3); **korritzen ari** (19); **lasterketak korritzen** (4); **proba korritzen dira** (3); **vuelta korritzen** (3)

---

**korritu**[2] **1** *iz* diru kapital mailegatuak epe jakin batean ematen duen etekina edo irabazia.

Ehuneko zortziko **korritua**. Fernando Rey

Urte bukaeran, juduak 800 dukat jasotzen ditu; kapitala eta **korrituak**. Jon Muñoz

**Korrituen** hainbatekoa diruzalekeriaren atzaparretan eta mailegu emaileen lizentziapean uztea. Andres Urrutia

Dirua jartzen du **korrituan**. Nolatan ez huen, bada, nire dirua bankuan ipini? horrela, itzultzean, **korrituekin** jasoko nian. Elizen arteko biblia

Neskek ere handitu baitzituzten nire zorren gainean ordaindu beharreko **korrituak**. Fernando Rey

**Korritu** batzuk ordaintzen ez zizkiolako. Josu Zabaleta

Lukurreriarik itzelenak gertatu dira, **korritua** debekatu denean. Andres Urrutia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Bada merkataritzan **korritu** arrunta, lege finko eta zehatz baten objektua ere ezin izan daitekeena. Andres Urrutia

Bostehun eta hogei dolarren **korritu** konposatua kalkulatu behar dut, ehuneko lauan ezarriz gero. Lopez de Arana

Felipe III.ak ezarri zien 1330ean muga, mailegu bidez nahi adina diru berenganatzen ari zirenei, ez zezatela % 20 baino **korritu** handiagorik kendu. Patziku Perurena

Langileei diru-kopuru txikiak lukurreriazko **korrituan** mailegatzen ziela. Irene Aldasoro

Eskandaluzko **korrituak** eskatuz. Karlos Zabala

Diruaren **korritu** zentzuzkoak enpresa jarduera guztiak bultzatzen ditu. Andres Urrutia

**3** (hitz elkartuetan)

Lege **korritua** aintzat har daiteke merkataritzako diru tasarekin batera dabilen ginoan. Andres Urrutia

---

# korro *(orobat* **korru***)* **1** *iz* biribilkia.

Neskek eta mutilek **korro** handi bat osatzen dute, eta dantzarik zintzoena eta atsegingarriena egiten duten. Berria - Kultura

**Korroa** dantzan ari zen jende multzoari esaten zitzaion. Pako Aristi

Elgoibarren, esaterako, Pedrok lau **korro** ezagutu ditu, alegia, lau musiko ezberdin, bakoitza bere publikoarekin. Pako Aristi

Dultzainak eta panderoak, txistuak eta danbolinak dantza **korroetatik** baztertzen ari zen deabruaren tresna. Iñigo Aranbarri

Poeta jadanik ez da jainkoekin edo musekin edo haietatik mintzo den hautatu hori, hizketan diharduen giza **korru** bateko partea baizik. Xabier Amuriza

**2** ***korroan***

Bere aitak jotzen zuen bitartean, bera kobratzailea zen **korroan** zegoen jendearen artean. Pako Aristi

Handik hurrena, gure semearen gelako neskak ikusi nituen, Antiguako frontoi inguruan, **korruan** eserita. Joxerra Garzia

Panderoa ematekotan, gizalegez jokatzera, **korroan** ateratako dirua banatu beharra baitzegoen. Iñigo Aranbarri

Eguzkia sartzen ari delarik, gizonezkoak udaletxeko plazako alde batean biltzen dira, **korruan,** eta emakumezkoak bestean, **korruan** haiek ere. Felipe Juaristi

---

# korrok **1** *adlag* korroskada.

Egin genituenak goratu eta puztu eta gero, Klaus, **korrokari korrok**, juduen kontrako hainbat gordinkeria kontatzen hasi zen. Anjel Lertxundi

**2** ***korrok egin***

**Korrok egin** zuen indartsu, eta tweed-ezko jantziaren gainetik kolpetxoak eman zizkion bere tripa handiari. Lurrean eseri nintzen, **korrok egin** eta gero. Iñaki Mendiguren

Urdaila kexu zuen zirriz-zarraz eta **korrok egiten** hasi zitzaion. Lutxo Egia

**3** ***korrok eta korrok*** *adlag*

Nire tripak **korrok** eta **korrok** hasi ziren, hartuak nituen jaki horiengatik guztiengatik. Joxan Elosegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> korrok egin (7)
> igelen korroka (3)

---

# korroka *iz (onomatopeia)*

Zaldiek **korroka egiten** dute, belaunetaraino sartzen dira, eta muino harrigarri horien bestaldeko maldan behera amiltzen dira irristan. Josu Zabaleta

---

# korrokada *iz* korroskada.

Gora begira etzan zen, eta lepoa alde batera jiratu zuen; **korrokada egiten** zuen bakoitzean, ardo turrustak eta giza haragi zatiak irteten zitzaizkion eztarritik. Juan Kruz Igerabide

Mihi loditua ezpainetan igurzten zuten eta **korrokada egitean** soin osoak dar-dar egiten zien. Iñaki Zabaleta

-Tuileriek **korrokada egin** ditek janari horien gainean. Karlos Zabala

---

# korrokadun *izond* korroka duena.

Bere buruaz goxa dadin bezala ari zait gaineko gizon **korrokaduna:** ezti eztia darama deabruzko "leitmotiv"-a. Piarres Aintziart

---

# korrokari *izond* korrok egiten duena.

Aditu egin ditzakegu, garrasi hotz eta motz ebakiak, metrailadoreen hil-arnasestu **korrokariak,** fusilen tiro-hots labur bereiziak Mirentxu Larrañaga

---

# korrokoi *iz Mugilidae* familiako arraina, janaria ibai ahoetako lohian bilatzen duena *(Mugil cephalus* etab.). ik **lazun**.

Urak kolore gorrizta hartu zuen, eta 300 arrain hil ziren, gehienak **korrokoiak**. Berria - Euskal Herria

**Korrokoien** jauziek burbuilak sortzen zituzten paperolako kimikak gandututako uretan. Koldo Izagirre

Izokina, zilar landua iduri, ezkatak metal leunduan gubilez joka eginda dauzkana; **korrokoia,** ezkata handiagokoa, eta zakarrago zizelatua. Karlos Zabala

---

# korrokoil *izond* loturik behar zuten zatiak askatuak edo lokatuak dituena.

Harry, Ron eta Hermione elkarrekin eseri ziren mahai **korrokoil** berean. Iñaki Mendiguren

Auzorik urrunenak ziren, eremu basati eta arriskutsuak, gure arreba zaharrari ebatsitako zazpigarren eskuko "850" **korrokoilean,** kaka-kaka eginak inguratzen genituenak. Aingeru Epaltza

---

**korrokoildu**, korrokoil(du), korrokoiltzen **1** da/du *ad* loturik behar zuten zatiak askatu edo lokatu.

Areto karratua zen, **korrokoildu** samartua. Patxi Zubizarreta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Egunak pasa ahala, ordea, gero eta gusturago sentitzen nintzen pareta **korrokoildu** haien artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Horren ostean, Xaramanek semea atxilotzeko eta gazteluko dorre zahar eta **korrokoildu** baten gorenean giltzapetzeko agindu zuen, ziega kirastu batean. Patxi Zubizarreta

---

**korromio** *iz* herra, gorrotoa.

Emazteari zenaz bezainbatean, harrapakin erraza izaki, senarraren **korromioaren** jopuntua bilakatu zen eta gaixotasunaren erruduntzat jotzen zuen. Patxi Zubizarreta

Mundua, bistan zagok, ene kontra zagok, eta kolera eta **korromioa** eragiten zizkidak. Patxi Zubizarreta

Ezin abilagoa izan zen erantzukigileak paretik kentzen, iaioena **korromiozko** mila eltxo algara itzel bakar batez uxatzen. Markos Zapiain

**Korromioak** janda dagoen gizaixoaren fama hartuko du. Pako Aristi

Hirugarren aroa, "esklaboen bihurrialdikoa", oraingo gurea alegia (kristaua, demokratikoa), herra beltzaren moralarena da, mendekuarena, **korromioaren** moralarena. Joxe Azurmendi

---

**korronpitu**, korronpi, korronpitzen du *ad* usteldu, galdu.

Ai, nola sentitu nintzen egun haietan bekatuak usteldurik eta **korronpiturik**. Joan Mari Irigoien

---

**korronte** *(orobat **korrente** g.er. eta **korriente** g.er.)* **1** *iz* isurkariez mintzatuz, higidura. ik **laster 5**.

Kibitka, berriz ere **korronte** biziak bultzaturik, ibaian behera doa arin bai arin. Karlos Zabala

Itsas uhin erraldoiak, ibaien **korronte** zabalak. Imanol Unzurrunzaga

Aski baitzen txinpart edo ilaun bat ibaian erortzea naftazko **korronte** hura guztia suak har zezan. Karlos Zabala

**Korronte** beroa nabaritu dut aurpegian. Lander Garro

Eurekin batera eter **korronte** bizkorrak barruan doazelako. Xabier Amuriza

**Korronte** geldo baina etengabea, marea gora ustezko dike seguruaren zirrikituetatik agertzen den bezala. Agustin Otsoa

**2** elektrizitateaz mintzatuz, elektroien higidura eroale batean zehar.

Zaila litzateke, ordea, ohiko **korronte** mota bidaltzea (elektroi fluxu bat) nerbio-zuntzean zehar. Irene Aldasoro

Telefonoaren ahoan esandako hitzen soinuak **korronte** elektriko bihurturik. Irene Aldasoro

Presio mekanikoaren ondorioz **korronte** elektrikoa sortzeko gaitasuna. Irene Aldasoro

Hartara, sortzen diren **korronte** piezoelektrikoek halako ponpaketa bat eginarazten diete zelulen mintzei. Irene Aldasoro

Nerbio bati estimulu jarraitu bat aplikatzen zaionean, erantzuna ez da jarraitua izaten, bulkada laburren segida bat baizik; antz handiagoa du Morse seinale batekin **korronte** beti-berdin batekin baino. Irene Aldasoro

· *hed* **Korronte** magnetiko batek eraginda. Joan Mari Irigoien

**3** joera, higikundea.

Oro har, bi **korronte** nagusi ditugu epistemologia modernoan. Askoren artean

Gure XXI. mende honetan diren **korronte** literarioetakoa. Ana Urkiza

Zein da gehien betetzen zaituen **korronte** poetikoa? Ana Urkiza

Aguste Comte izan zen **korronte** filosofiko honen sortzailea. Xabier Olarra

Badirudi etorkizunean **korronte** eta kultura horiek guztiak geroz eta berdintsuagoak izango direla. Edorta Agirre

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lerro zuzenetan iheska zihoazen **korronte**-uhin gorriak eta zuriak. Fernando Rey

**Korronte** kopurua aldatu egiten baita urteak igaro ahala. Berria - Gaiak

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hodian, kanpotik beroturik, hidrogeno-**korronte** bat iraganarazi genuen. Juan Garzia

Merkurio-**korronte** baten aurka borrokan ariko bailiran. Jon Alonso

Lur azpiko magma-**korronte** bat. Jon Alonso

Konposizioaren erdian indar-**korronte** bat eratzen zen. Iñaki Iñurrieta

[Duns Scotok] pentsaera-**korronte** arrakastatsu baten ildoa utzi zuen irekita ondorengoentzat. Askoren artean

Hiritar burutsu, eraginkor, serio, arrazional eta ponderatu batzuek osatutako iritzi-**korronte** bateko lider. Jon Alonso

Pentsamendu **korronte** berrien arabera Joseba Zulaika

**6** ***aire korronte*** aire-lasterra.

Guyanan, eguraldia ez da txarra berez, baina, atmosferan **aire korronte** bortitzak dabiltza. Berria - Gaiak

Eta haizea ez da haizea, makina batek sortzen duen **aire-korrontea** baizik. Jon Alonso

Guyanan, eguraldia ez da txarra berez, baina, atmosferan **aire korronte** bortitzak dabiltza. Berria - Gaiak

**Aire-korronte** indartsuak. Santiago Iruretagoiena

**7** ***haize korronte*** haize-lasterra.

**Haize-korronte** kaltegarriak nola saihets daitezkeen ikusteko. **Haize-korronteak** gora altxatzen direnean ilunpetan. Santiago Iruretagoiena

**Haize korrontea** sartzen zen ate handi zabaldutik eta freskura pixka bat zekarkion ardo usainezko giro bero hertsi hari. Karlos Zabala

Toki aproposa da hau migrazioaren fenomenoa aztertzeko; pasabide egokia da hegaztientzat; **haize korronteak** aprobetxatzen dituzte hegan egiteko Berria - Euskal Herria

**8** ***itsas korronte*** itsas lasterra.

Labradorretik Islandiara eta gero Eskozia aldera jausten den **itsas korrontea** da. Berria - Euskal Herria

Duela bi aste pasatxo atera ziren Nua dibutik, baina **itsas korronteak** beren ontzia desbideratu zuen. Berria - Harian

**Itsas korronte** bero horren ondorioz epeldu egiten dira ozeanoak. Berria - Gaiak

Peruko arrantzaleek *El Niño* deitu zioten, urtero Eguberri aldean azaltzen den **itsas korronte** beroari. Berria - Gaiak

Azken urteetan **itsas-korronteak** ikertzen aritu da. Berria - Gaiak

**9** ***kontu korronte*** pertsona baten eta banku baten arteko zorren eta hartzekoen berri ematen duen agiria.

Postara jo zuten **kontu korronte** bat irekitzeko. Itxaro Borda

Elkarrekin zabaldu berri duten **kontu korrontea** balitz bezala. Joxean Agirre

**Kontu korronte** jori bat zen Inesen bizigarria. Migel Angel Mintegi

Eskale haiek guztiek **kontu-korronte** oparoak zituzten bankuetan. Mirentxu Larrañaga

Batzorde honek Washingtongo Riggs bankuan aurkitu zituen Pinocheten ustezko **kontu-korronte** ezkutuak. Berria - Mundua

Ostegun gauean enpresaren **kontu korronteak** bahitzeko agindu zuten epaileek. Berria - Ekonomia

Khanek eta bere laguntzaileak, Mohammed Farooqek, **kontu korronteak** izozturik dituzte. Berria - Mundua

2003ko otsailaren 19an, Martin **Ugalderen kontu** korronteak blokeatzeko agindua eman zuen. bere **kontu korrontea** gizentzeko. Berria - Euskal Herria

**Kontu korronteko** diruari kiratsa dariola... ba tira!, sudurra aise ohitzen omen da; izen ona eta itxura, berriz, gorde egin behar dira. Migel Angel Mintegi

Arazoaren gakoa ez zegoen balizko adarretan, senarraren desleialtasunak emakumearen **kontu korrontean** izan zezakeen eraginean baizik. Migel Angel Mintegi

Zure identifikazio datuak lapurtu eta **kontu korrontea** husteko. Berria - Gaiak

**Kontu korronte** zenbaki batekin. Berria - Kirola

· AEBek **kontu korronteko** defizita handitu arren, dolarra gora. Berria - Ekonomia

541.800 milioi dolarrekoa da **kontu korronte** bidezko defizita. Berria - Ekonomia

Desiragarria da truke tasan malgutasun handiagoa izatea **kontu korronte** superabit handia duten herrialdeek, batez ere Txinak. Berria - Ekonomia

Finantzaketaren liberalizazio lasterregiak areago galaraz dezake egonkortasuna; izan ere, **kontu korronteko** balantzari dakarkion beherakada dela-eta, truke-tasen beheranzko espekulazioa bultzatzen du, eta, horren ondorioz, kapitalak ihes egitera bultzatzen ditu. Koro Navarro

**10 *korronte alterno*** elektrizitate korronte aldizkatzailea.

Argindarraren bi handikien arteko borroka zegoen honen atzean: Thomas A. Edison korronte zuzenaren defendatzailearen eta George Westinghouse **korronte alternoaren** asmatzailearen artekoa. **Korronte alternoaren** eragin txikitzaile demasak frogatzeko, dozenaka animalia -katuak eta zakurrak bereziki, baina baita elefante bat ere, tartean- elektrokutatu zituen sistema honen bidez. Harkaitz Cano

Abiadura handiko burdinbideetan **korronte alternoko** 25 kilovolteko tentsioa duten katenarietan ibili ahal izango dira, baita korronte zuzeneko hiru kilovolteko ohiko lineetan ere. Berria - Ekonomia

**11 *korronte zuzen*** elektrizitate korronte jarraitua.

Edisonek bere aurkariaren argindar sistema hobesten zuen exekuzioetarako, korronte alternoa heriotzarekin lotuz gero, etxe erabilerarako arriskutsuegitzat jo eta bere **korronte zuzena** hobetsi eta orokortuko zelakoan. **korronte zuzeneko** hiru kilovolteko ohiko lineetan. Harkaitz Cano

**12 *ur korronte***sup_1 ur-lasterra.

Baikal aintzirak badu **ur korronte** bat goiko hegia inguratu eta Angarako ahoraino doana. Karlos Zabala

Ez nazala **ur-korronteak** eraman, ez nazala zurrunbiloak irentsi. Elizen arteko biblia

**Ur korronte** beroa Labrador itsasora ailegatzen denean, ur beroa lurrundu egiten da. Berria - Gaiak

Itsasoko **ur korronte** beroek lurreko tenperatura epeltzen dute. Berria - Gaiak

Ur azalaz haratago begiratuz gero **ur korronte** sendo eta interesgarriak antzemanten dira, hain zuzen gatazka gainditzeko norabidean. Berria - Euskal Herria

**13 *ur korronte***sup_2 dabilen ura, iturriko ura.

Ez zeukaten **ur korronterik** etxebizitzan, eta atarira irteten zen ur bila, gero sukaldean ezkutatu eta bere burua garbitzeko. Juan Kruz Igerabide

Aurreko bizialdiak **ur-korronteak** baitira edonorentzat, bizitzako itsas azpitik tiraka ari direnak. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako kontu korronte** (4); **aire korronte** (5); **haize korronte** (3); **itsas korronte** (3); **kontu korronte** (35); **kontu korronte bat** (8); **kontu korronte bidezko** (3); **kontu korronte defizita** (3); **korronte artistiko** (5); **korronte beroa** (3); **korronte beroak** (3); **korronte bidezko** (3); **korronte defizita** (3); **korronte elektriko** (9); **korronte elektrikoa** (7); **korronte handi** (3); **ur korronte** (9)

**kontu korrontea** (13); **ur korrontea** (5)

**defizit korronteak** (4); **haize korronteak** (3); **kontu korronteak** (23); **kontu korronteak desblokeatu** (3); **ur korronteak** (8)

**kontu korrontean** (7)

**balantza korrontearen** (4); **defizit korrontearen** (3); **kontu korrontearen** (3); **korrontearen aurka** (7); **korrontearen kontra** (10)

**kontu korronteen** (4); **truke korronteen** (5)

**aebetako kontu korronteko** (6); **golkoko korronteko** (3); **kontu korronteko** (16); **kontu korronteko defizit** (4); **kontu korronteko defizita** (6); **korronteko defizita** (6)

**kontu korrontetik** (3)

---

korropilatsu ik **korapilatsu**.

---

korropilatu ik **korapilatu**.

---

korropilo ik **korapilo**.

---

korropilotsu ik **korapilatsu**.

---

# korrosibo

**korrosibo 1** *izond* azidoez eta kideko gaiez mintzatuz, ukitzen duena jaten edo desegiten duena, edo jateko edo desgiteko gaitasuna duena.

Azido likido bat da, **korrosiboa,** eta ez da lurrintzen. Berria - Gaiak

Azido **korrosiboa** zeraman kamioi batek isuria izan du. Berria - Euskal Herria

Zenbait tokitan, esate baterako, substantzia **korrosiboak** botatzen dira baginara, estutzeko. Berria - Gaiak

Egia da **korrosiboa** dela urdail-urina. Irene Aldasoro

**2** irud/hed garratza, zorrotza.

Jendearen begietara ere bere estiloak zerbait aztoragarria du, perbertsoa, **korrosiboa**. Patxi Iturritegi

Aise erabiltzen nuen umorearen ezten maiz **korrosiboa**. Joan Mari Irigoien

Bixente Ameztoi, Egullor, Rafael Castellano, Jose Maria Agirre Alcalde... urte horietako esperientziarik satiriko eta **korrosiboena** bideratu zuten. Berria - Kultura

---

# korrosio

**korrosio** *iz* gai korrosibo batek jatea edo desegitea.

Ohiko zilar oxidozko piletan gertatzen den zinkaren **korrosioa** eragoztea lortu dute, merkurioa erabili behar izanik gabe. Berria - Gaiak

Polietileno arrunta [...] malgua da eta **korrosioaren** aurrean portaera sendoa dauka. Berria - Gaiak

**korroskada** *iz* urdailean sortzen diren haizeak ahotik zarataz jaurtitzea. ik**korrok**.

Bihar goizean zapatari horrek bere neurriko orkoia aurkituko dik hemen, bota zuen, eta baita **korroskada** bat ere. Anjel Lertxundi

Eta nahikoa edan eta aski berdindurik sentitu zirelarik, barre algara eta **korroskada** artean, onena zerbait jatea izango zela erabaki zuten. Patxi Zubizarreta

Oroitzapenak onak zirela adierazten zuen **korroskada** samurra egin zuen. Jon Alonso

Zurrutada luzea, ia arnasarik hartu gabe eta botila berdea mahai gainean kolpe siku eta gogorrez uztearekin batera **korroskada** ozen bat. Sonia Gonzalez

---

**korroskadaka** *adlag* korrok egiten.

Une hartan Aluan haietako batekin eztabaidan zebilen, te kontratu batek eskaintzen bide zituen irabazi ugariak zirela eta ez zirela, eta bibote sarria lardaskatzen eta **korroskadaka** hasi zen. Patxi Zubizarreta

---

korru ik **korro**.

---

**korrupto** *izond* ustelkeriak joa, ustela.

**Korruptorik** handienak aberatsak izan dira, eta politikoak; lapurra, aldiz, pobreari deitu izan zaio. Pako Aristi

Argi dago **korruptoak** lanean kontrakoa egiten duela, ahal duena baino askoz gehiago egiten du, lana egin duen itxuraz aparte lapurreta ere burutzeko. Pako Aristi

Ustelkeriak, horregatik, ez du balio; "ustela" euskaldunarentzat "faltsua"-ren parekoa da, eta badaude **korrupto** autentikoak direnak. Pako Aristi

---

**korrupzio** *(46 agerraldi, 3 liburu eta 10 artikulutan; orobat* ***korrupzione*** *g.er.)* **1** *iz* gaiez mintzatuz, usteltzea.

**Korrupzioak** ukitzen duen substantzia hau ez da gaitza; **korrupzioak** hondatutakoari bere osotasuna eta zintzotasuna kentzen dio. Imanol Unzurrunzaga

**2** irud/hed

Gainera, **korrupzioak** hondatzen duena perbertitu ere egiten da; perbertsioa ordenarik eza da, eta ordena ona da; beraz, **korrupzioak** hondatu duena ez dago ongirik gabe, eta ongirik gabe ez izate horrengatik, hain zuzen, **korrupzioak** hustu egin dezake. Imanol Unzurrunzaga

**Korrupzioak** zauritzen duena suntsituta geratzen da, irautea eta izatea bera ere galtzen du, izatea eta irautea elkarrekin doazelako. **Korrupzioak** non finkatu ez ezik nondik eratorri ere ez baitzuen aurkituko, zer usteldurik ez balego; eta ongia ez balitz ezin ustelduko litzateke, **korrupzioa** ongiaren hondamena besterik ez baita. Imanol Unzurrunzaga

**3** ustelkeria.

**Korrupzio,** errepresio eta krimena elkartzen ziren berrogei urteko diktadura odoltsua. Berria - Kultura

Alde horretatik ezin da torturarik onartu, ezin da **korrupziorik** onartu, ezin da politikarien edo Ertzaintzaren edo nornahiren aurkako atentaturik onartu; eta autobus publikoen erreketarik ere ezin da onartu. Bernardo Atxaga

**Korrupzioa** egon da gure artean, baina euskaldunak ez dio hitz garbi bat ezarri jokamolde horri. Pako Aristi

Lehen **korrupzioa** boterean zegoen, boteretsuak legeak bere mesederako erabiltzen zituen. Pako Aristi

**Korrupzioa** ez da lapurreta hutsa, esaten dena ere kontuan hartu behar da. Pako Aristi

**Korrupzioaren** Aurkako Fiskaltzara jotzeko aukera ez zuen baztertu. Berria - Ekonomia

Bizkaiko Lurralde Auzitegiko **Korrupzioaren** Kontrako Fiskaltzak egindako akusazioa dela-eta. Berria - Euskal Herria

---

korrupzione ik **korrupzio**.

---

korsario ik **kortsario**.

---

korset ik **kortse**.

---

**korsikar** *(orobat* ***kortsikar*** *g.er.)* **1** *izlag* Korsikakoa, Korsikari dagokiona.

Batti **korsikarrak** arkatz trebeaz erakusten du nor diren harentzat euskaldunak. Herria

Erignac prefeta hiltzeaz akusatutako preso **korsikarrak** zazpi hilabete daramatza bakartuta.

Bere burua abertzale **korsikartzat** jotzen jarraitzen duelako. Berria - Mundua

Jean-Guy Talamoni buruzagi nazionalista **korsikarrak**.

Musuoker izan zen hurrena, pirata **kortsikarren** buruzagia. Felipe Juaristi

Nicolas Sarkozy, Barne Ministroa, hitz emaiten preso **Korsikarrak** hurbilduko dituela. Herria

Colette Leroudillois **korsikarrak** «gizon zintzo bati sostengua ematera» joan zela helarazi zuen. Berria - Mundua

• **2** *iz* Korsikako herritarra.

Interneten egindako inkesta baten arabera, **korsikarren** %35 independentziaren alde daude. Berria - Mundua

**Korsikarraren** oinetakoek karraska hotsak ateratzen zituzten zoruan. Monika Etxebarria

Korsikako Langileen Sindikatuak enplegua banatzean herritar **korsikarrak** lehenestea hitzartu zuen joan den igandean Frantziako SNCM itsas garraio konpainia publikoarekin. Berria - Mundua

Baia bozkatuz, **Korsikarrek** erakutsiko dutela errotik Frantziari atxikiak direla eta frantses nahi dutela egon. Herria

Ondorioz komandoak, **korsikarrek** italiar *cosa nostra*ren fondotik erdietsi arma material puntakoena erosten ahal zuen, *cash* pagatuz. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arcusgi korsikar taldearen** (3); **korsikar abertzale** (4); **korsikar abertzaleak** (6); **korsikar presoak** (3); **korsikar taldearen kontzertua** (3)
>
> **langile korsikarrak** (3); **preso korsikarrak** (4)
>
> **abertzale korsikarren** (3)

---

**korsikartu**, korsikar(tu), korsikartzen da/du *ad* korsikar bihurtu; Korsikan bizi direnei lapostu bat izateko lehentasuna eman.

Sindikatu eta politikari horiek gauzak nahasten ari dira «lanpostuen **korsikartzea»** salatuz. Berria - Mundua

---

**korsikazale** *izond* kortsikar herrizalea edo abertzalea.

Beren uhartearekiko maitasunean bat datoz **korsikazaleak,** amodio horren adierazpen politikoak banantzen ditu, ordea. Berria - Mundua

---

**korsikera** *iz* Korsikako hizkuntza.

Euskaraz, katalanez ala **korsikeraz** hitz egiten dugunon eskubideak murrizten edo diskriminatzen dituen hizkuntza politika. Berria - Euskal Herria

**Korsikeraz** ikasteko eskubidea eta ofizialtasuna.Testu bera agertzen baita euskaraz, biarnesez, bretoinez, katalanez eta **korsikeraz**. Herria

Institutuetarako **korsikerazko** eskola material gehiago eskatu zuten. Berria - Mundua

---

**korsista** *iz* korsikar autonomiazalea.

Tony Graziani **«korsista»** da: «Korsikarra naiz, korsikeraz hitz egiten dut, korsikeraz idazten dut, korsikeraz kantatzen dut... baina bereiztearen kontrakoa naiz. Berria - Mundua

Abertzaleak eta **korsistak**. Berria - Mundua

Giaccobiren zerrendako lau hautagaik, eskuineko **korsistak** laurak, uko egin zioten Zuccarelli presidente aukeratzeari. Berria - Mundua

---

**korsu** *(orobat* ***kortsu*** *g.er.)* **1** *iz* itsas lapurreta.

Kofradia bakoitzari, edo portu bakoitzari, hara bidal zitzan agindutako gizonetatik zenbat ziren faltan, edo ments, edo huts eginak, portu edo kofradia horretako beste horrenbeste ontziri kenduko zieten **korsuan** jarduteko patentea, Erregeren beraren aginduz. Edorta Jimenez

Trukean, agindua betetzen ez zuen herriari, zenbat marinel falta, hainbat **kortsu** baimen kentzen zizkion, hainbat agiri eta errege mesede. Markos Zapiain

**2** ***korsu patente*** errepresalia gutuna, korsu baimena.

Ez batak eta ez besteak ez zekiten zer zen **korsu** patentea, baina 1936tik 1940ra arteko denboran norbaitek argitu izan balie esanahia, biek batera erantzun izango zuketen: "Guk daukaguna, orduan!". **Korsu** patentea galdu diagu. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **korsu patentea** (6)

---

**korta** *(orobat* ***gorta*** *g.er.)* **1** *iz* ukuilua.

Leku babesean, zerrizainak berak eraikia zuen **korta**. Juan Kruz Igerabide

Mandoak **kortan** sartzeko agindu zuen. Patxi Zubizarreta

Ali Baba hirira itzuli zelarik, altxorra garraiatutako astoak **kortan** gorde, eta segidan koinatarenera jo zuen. Patxi Zubizarreta

**Kortako** sardeak hartu zituzten. Joseba Sarrionandia

**Kortarako** sarrera moduko bat genuen aurrean, eta ate ireki bat ezkerrean: hantxe behar zuen sukaldeak, eta haraxe sartu ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** irud/hed

Denek gogoratzen zuten editorea bere **kortakoak** mimoz artatzen, bizkarraren gaineko esku-zarta amultsuak banatzen. Jon Alonso

Beste batzuk lehen aldikoak, **korta** hartako emeak zelakoak ziren ikusi nahian. Paddy Rekalde

Ez hadi sartu beste **korta** bateko kontuetan! Paddy Rekalde

**3** (hitz elkartuetan lehen osagaia)

Esaiok **korta**-mutilari olorik ez emateko honen zaldiei. Jose Morales

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez nago inork ikusteko moduan eta nire logelak txerri-**korta** bat dirudi... Lopez de Arana

Txerri-**korta** higuingarri batzuk besterik ez dira, gizartera egunero gizaki saldo itsaskorrak botatzen dituztenak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ontzia puskatan egin, eta egurra ardi **kortak** egin eta larreak hesitzeko bidali ei zuen Eskoziara. Harkaitz Cano

Alabengatik geratu nintzen zuloan, gerra garaian zaldi **korta** batean ez amaitzeko ahaleginak eginez. Javi Cillero

---

**kortazain** *iz* korta zaintzen duen pertsona.

Erreparatu topaketari: mutilak maite ez badu eta burutik eginik ez badago hori dela eta, ez nadila izan gehiago gorteko arduradun, baizik landetxe bateko **kortazain**. Juan Garzia

---

**korte**[1] **1** *iz* ebakialdia.

Halaxe deitzen baitzaio, maiatz-belar lehenbiziko **korte** edo epai gizen urtsu heze horri. Pello Zabala

**2** ahots tartea.

Anglosaxoniarrek labela, etiketa jarri diote euren pilulari: *sound-bite* (albistegietan zabaltzen diren politikariaren ahots-tarteak edo **"korteak",** alegia). Txema Ramirez de la Piscina

Albistegietako lagunek, **korte** haietatik ezin puxkak josiz ikusi nituenean, lasai ibiltzeko, esan nien. Pello Zabala

Bai liburua bai irratiko **korteak** erabili dituzte antzerki obrako testua idazteko Berria - Kultura

**3** ***kortea eman*** zakar erantzun.

Zelako **kortea** eman zidan! Jon Arretxe

---

korte[2] ik **gorte**.

**kortejante** *iz adkor* gorte-egilea. ik **kortejatzaile**.

Horiek deitzen ditut nik elkarrizketari **kortejanteak,** haizea aldeko dutenean leunkerietan ibiltzen direnak. Pello Salaburu

Alabaina, erraz belaxkatzen dira hauetako zenbait, noiz eta aitzinean duten elkarrizketari **kortejanteak** euskararen alde deusik egin gabe izanik ere, doktrina ofiziala (ofizialeek egiten duten doktrina esan nahi dut) ogirik eta edaririk gabe zuzenean irensteko prest ageri direnean. Pello Salaburu

---

**kortejatu,** korteja, kortejatzen du *ad* gorteiatu, gortea egin.

**Kortejatu** egin nau. Matías Múgica

Neskatxa **kortejatzera** datorren mutila, ez dela alegia haren dina. Patziku Perurena

Bazuen Pernandok andregai bat, oso neska ederra; baina Ixtaber Sudur-motzak neska ikusi eta **kortejatzen** hasi zen, berarekin ezkondu nahi al zuen galdezka, eta, gizon aberatsa izaki, baietz esan omen zion neskak. Koro Navarro

Amodio-aitormenak egiteko esaldiak, **kortejatzean** esan beharreko hitzak, irria eragiteko esaten diren hitz likits antxak. Fernando Rey

Emakumeak **kortejatu** egin behar ziren eta ez komunetan zelatatu. Pello Lizarralde

---

**kortejatzaile** *iz* gorteiatzailea, gorte-egilea.

Horrela, bi neskek bi **kortejatzaile** topatu zituzten, eta, horrenbestez, igandeetan ez ginen jada zinemara joaten, dantza egitera joaten ziren **kortejatzaileekin,** baina ni gabe. Pello Lizarralde

Ez zen inorekin maitemintzen eta inork ez zion burua jirarazten, **kortejatzaileak** ez baitzitzaizkion inoiz gustatu. Pello Lizarralde

---

**kortejatze** *iz* gorteiatzea, gortea egitea.

Haiekin biltzen zen Iñaki egunero, eta gu ere bai noski, **kortejatze** haren ikusle lotsagabeko bihurturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure ama gaixorik egon zen bitartean gure aitak **kortejatze** errukigabea egiten zion, eta ilehoriak, lasaitzeko, ardo basokadak ematen zizkion. Pello Lizarralde

---

**korteju** *iz* kortejatzea, gortea egitea.

Irudi-antza ulertzeko eredua animaliek erabiltzen dituzten amarruetatik har daiteke (hegaztien eta **arrainen** korteju edo guda paradetan, adibidez: gauza jakina da arrain "gudari" batzuengan, beren irudia ispilu batean ikustea aski dela beste har bat ikusteak, adibidez, eragiten dien jarrera oldarkor berbera eragiteko). Josu Zabaleta

---

**korteliant** *iz* gorte gizona, kortesanoa.

Ez Madrileko edo Veneziako **korteliant** aspertuak. Txillardegi

---

**kortesano** *iz* gorte gizona, gortekoa.

Erregearen begiko luzaro izandako **kortesano** batek. Xabier Olarra

**Kortesanoa** egun baterako errege egitea erabaki zuen Dionisiok. Jon Muñoz

Hantxe jarri zuten mahaiburu **kortesanoa,** errege-diadema buruan jarria. Jon Muñoz

---

**kortesia** *(orobat **gortesia** g.er.)* **1** *iz* adeitasuna, jendetasuna.

Atsegin agertzeko desira orokor horrek dakar **kortesia**. Öchlerrek, **kortesia** handiz, barkatzeko; ez zuela molestatu nahi izan. Iñaki Iñurrieta

**Kortesia** handiko gizona dirudi. Anjel Lertxundi

**Kortesia** adeitsuaz agurtu zuten elkar. Anjel Lertxundi

Ez dakit **kortesia** hutsez ala benetan ari den. Josu Zabaleta

Burua makurtu zuen, gizalegeko **kortesia** erakutsiz. Anjel Lertxundi

**Kortesiaren** distantzia galdu gabe baina adeitasun natural batez. Anjel Lertxundi

Zenbat eta **kortesia** handiagoa erakutsi, orduan eta maltzurragoa izaten zen. Julen Gabiria

**Gortesia** bilakatu baita, hitzaldiko agurra eta lehen hitzak euskaraz egitea eta beste guztia -gaia- erdaraz. Joxe Azurmendi

Beatrizek ezin die noski uko egin **kortesiaren** betebeharrei. Iban Zaldua

Ondoan eseri zait baimenik eskatu gabe; **kortesiaren** arrastorik ez. Anjel Lertxundi

**Kortesiak** agintzen duen bezala. Jon Alonso

**Kortesiak** hori eskatzen duelako. Jon Alonso

Aitari iruditu zitzaion **kortesiaz** esan zuela. Joseba Urteaga

**2** (hitz elkartuetan)

Gure zalduneri eleberriek areagotu egin zuten atsegin agertzeko gogo hori, eta **kortesia**-espiritu hori eman zioten Europako alde bati. Iñaki Iñurrieta

**3** kortesiako esana edo egina.

Zerbait esan nahi dio, baina ez edozein **kortesia** arrunt. Pako Aristi

Berak ez du neskaren telefonorik, bestela **kortesia** polita litzateke haren deitzeko promesari aurrea hartu eta idazleak berak deitzea. Pako Aristi

Mutilak mantalaren bi sakelak lurrez bete zizkion, azken **kortesia** gisa. Karlos Zabala

**4** ***kortesiaz*** *adlag*

**Kortesiaz** eskaintzen zien bisitariei bere aurpegiaren araztasun zimurrik gabea; irribarre baten itzala ere bazebilen haren ezpainetan. Monika Etxebarria

**Kortesiaz** jotzen zuen piano-jotzaileak, **kortesiaz** entzuten zuen publikoak, eta lagun arteko gaubeila asko hondatzen zen modu hartan. Anjel Lertxundi

Eta inguratu, eta esan nien, irmo baina bide batez **kortesiaz,** [...]. Ramon Saizarbitoria

**Kortesiaz,** beste egunen batean itzuliko naizela esan diot. Iban Zaldua

-Bai -erantzun zion besteak **kortesiaz-**. Josu Zabaleta

**5** ***kortesiazko*** *izlag*

**Kortesiazko** hitzak eta gisako konplimendu adeitsuak esaten dizkiote elkarri. Anjel Lertxundi

**Kortesiazko** diosalen ondoren, liburutegi nagusira eraman ninduen. Anjel Lertxundi

Desenkusaren bat, **kortesiazko** zerbait. Anjel Lertxundi

Haien arteko harremana profesionala da, **kortesiazkoa** bai, baina hotza, intimitaterik gabekoa. Patxi Iturritegi

Bazekien nire bisita ez zela **kortesiazkoa** . Jon Muñoz

Aurreko keinu **kortesiazko** bera errepikatu zuen sendagileak. Anjel Lertxundi

Jendearen erran-merran **kortesiazkoak,** Bazirudien lege naturalari zegokiola begirunezko tratu-modu **kortesiazko** hura. Anjel Lertxundi

**6** ***kortesia/kortesiazko orri*** liburu baten hasieran, testu aurreko orri zuria.

Bi liburuek **kortesia** orrietan, letra handi eta argiaz, eskaintza hitz batzuk zituztela idatzita egiaztatu ondoren, atzeratu egin nuen haien irakurketa. Ramon Saizarbitoria

Liburuaren **kortesia** -orrian datozen datuen arabera, poloniarraren Egunerokoak ia hamar urte daramatza herriko liburutegian. Anjel Lertxundi

Nire ezagun baten sinadura ikusi nuen liburu baten **kortesiazko** orri zurian. Anjel Lertxundi

· Tituluari eskainitako orriaren eta hitzaurrearen artean **kortesiazko** orrialderik ez egoteak harritu ninduen. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kortesi arauei** (3)
> **kortesia handiz** (7); **kortesia hutsez** (3)
> **kortesiak agintzen** (3)

---

# kortesiatsu **1** *izond* kortesia handikoa.

Aurkezpenen ondoren, hizketalditxo **kortesiatsu** bati ekin zioten bi-biek. Anjel Lertxundi

Keinu **kortesiatsu** batez, alboko gela batera bidali zuen indianoa. Anjel Lertxundi

**2** (adizlagun gisa)

Geriatrak gure gustura atondutako testuak aztertu egiten ditu, zorrotz baina **kortesiatsu** . Anjel Lertxundi

---

# kortesiazale *izond* kortesiaren zalea dena.

Kaixo, lagun, zer moduz Dontsu Etxe horretan, eta abar (zer dira ba **kortesiazaleak** dontsu italiar hauek!). Anjel Lertxundi

---

# kortex **1** *iz* garunaren azaleko geruza.

Garun-azala edo **kortexa** da azaleko geruza hori. Irene Aldasoro

**Kortexa** da, batez ere, ikasteaz, oroimenaz, emozioez eta pentsamendu abstraktuaz arduratzen den garun atala. Irene Aldasoro

Era horretako zelulak, hartzaile-eremu aski zabala dutenak, katuaren **kortexean** aurkitu ziren 1962an. Josu Zabaleta

Gaur egun badakigu etengabeko kodetze bat gertatzen dela erretinatik hasi eta **kortexeraino** . Josu Zabaleta

Hipokanpoa eta haren alboko **kortexa** bereziki, oroitzapen berriak sortzeko ahalmenerako ezinbestekoak baitira. Xabier Olarra

Hala ikusi zuten ezker alboetako **kortex** prefontala aktibatzen zela. Handik beste nerbio konexio batzuk abiatzen dira garunaren atzeko alderantz, eta **kortex** ildaskatura iristen dira. Josu Zabaleta

Zelulagune txiki bat mugatu zuen garunaren alde bakoitzean tximinoen **kortex** prestriatuan (V4 deritzen aldeetan), koloreari erantzuteko espezializatua ematen zuena. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Badira, esate baterako, eremu bat bi azpieremutan, bata metaketazkoa eta bestea inhibitzailea, banatuta duten **kortex** -zelulak. Josu Zabaleta

**Kortex** -azpiko epilepsia baten antzekoa da Touretteren sindromea; gailentzen denean, kontrol xerrenda bat, **kortex** xerrenda bat dago zure eta beraren artean, zure eta **kortex** -azpiaren indar itsua den amorru trumoitsu horren artean. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ematen zuen asoziazio- **kortexaren** erdialdean zeudela lesio erabakigarriak, tximuarengan V4 deritzon eremuaren homologoetan. Xabier Olarra

Gorreria goiztiarrak eta keinu-hizkera erabiltzeak, berriz, berrantolaketa erabatekoak ekar ditzakeela garunean, ikusmena lantzera birmoldatzen baitira entzumen- **kortexeko** alde handiak. Xabier Olarra

Ikusi zen ikusmen- **kortexaren** eremu txiki batean zuela lesioa. Xabier Olarra

Iradoki zuen existitu behar zirela ikusmen-gune bereizi batzuk, ikusmen- **kortex** primarioan, "argi-inpresio", "kolore-inpresio" eta "forma-inpresio"entzat. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ikusmen kortex** (3)
> **ikusmen kortexaren** (3)

---

# kortijo *iz* andaluziar landetxea. • *irud/hed*

Gaur egun, UPN eta CDN alderdien **kortijo** pribatua da kutxa. Berria - Ekonomia

---

# kortikoide **1** *iz* azal suprarrenaleko hormona esteroideen multzoa.

Botikak hartu beharra dauka gaixoak, **kortikoideak** eta beste, hantura galarazteko, eta alergia eragin diote. Imanol Zurutuza

Kontu hartu behar da, baina, ukendu horiek **kortikoiderik** gabeak izatea. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Santos tunisiarrak positibo eman zuen **kortikoide** mailari dagokionean. Berria - Kirola

---

## kortina ik **gortina**.

---

## kortinatxo ik **gortinatxo**

---

# kortisona *iz* guruin suprarrenaleko hormona esteroidea, proteinak karbono hidrato bihurtzen parte hartzen duena, hezueri eta artritisa artatzeko erabiltzen dena.

Batez ere hormona sistemak sufritzen du galera, adrenalina, **kortisona** eta testosteronaren jarioa urritzen hasten da-eta. *La Boulangere* taldeko medikuak ez zien sendagai hori hartzeko baimenik eman, **kortisona** daukalako. Berria - Kirola

Gizakiaz gaindiko ahaleginen tiraniak menderatuta zuenean, **kortisonak,** analgesikoek eta txaloek enpatxatuta zutenean. Berria - Kirola

**Kortisona** baino 100 aldiz eraginkorragoa dela [erleen pozoia] esan dute, eta 500dik gora gaitz tratatzeko balio dezakeela. Berria - Gaiak

---

**kortozirkuitu** **1** *iz* zirkuitulaburra.

Zoritxarrez, **kortozirkuitu** batek belarria erre zidan. Jon Alonso

**Kortozirkuitu** batek eragin du. Jon Alonso

**2** irud/hed

Sentimendu haiek ez zetozen burmuinetatik, beste nonbaitetik baizik, ez zuten arrazoimen normalarekin zerikusirik, eromenarekin zuten zerikusia, neuronen **kortozirkuituak,** ulertu egin nuen primarioa den jendeak zergatik hiltzen duen maitasun kontuetan. Mikel Hernandez Abaitua

---

**kortsario** *(orobat **korsario** g.er.)* **1** *iz* bere gobernuaren baimenarekin, beste nazio batzuetako ontziak eraso eta bipiltzeko antolaturiko ontzia; ontzi horietako marinela.

Piratek, **kortsarioek,** filibusteroek eta gainerako itsas lapurrek. Joan Mari Irigoien

Estatu baten nominan zeuden lapur "ofizialak" ziren, eta ***kortsario*** izen ohoretsua zeramaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste batzuk, ordea, langile "autonomo" gisa aritzen ziren, bere kasa alegia, eta ***kortsario*** izen estimatu hura izan beharrean *pirata* edo *itsaslapur* deitura mespretxuzkoa eraman behar izaten zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Espainiar kapitaina edo holandar filibusteroa batzuetan, *Royale Navy*-ko almirantea edo bretainiar **kortsarioa** bestetan, munduko itsaso guztietan borrokatzen zen Ruche jauna. Jon Muñoz

Lau **kortsario** euskaldun, Donibanekoak laurak, Frantziako erregearen zerbitzupeko laurak, urkamendian hiltzeko agindua eman zuela. Felipe Juaristi

Gabriel Irisarri **kortsario** baionarrak bazekien heriotza zer zen. Felipe Juaristi

Jan Janssen **kortsario** holandar ospetsua zen, Ameriketatik Espainiarako bidea egiten zuten itsasontzi franko lapurtzen aritutakoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kortsario** ohiak irribarre egin zuen. Felipe Juaristi

**2** (hitz elkartuetan)

**Kortsario** ontzi bihurtzea pentsatu zen; 101,6ko mm-ko bi pieza ezarri zitzaizkion berriro eta baita 47mm-ko beste bi ere. Edorta Jimenez

Kontrabandoa, itsas lapurreta, **kortsario** lanak, beltz esklaboen garraioa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haarlemen jaio zen, eta XVII. mendea hasi bezain azkar ekin zion **kortsario** lanari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere **kortsario** garaiko lagun baten laguntzaz. Felipe Juaristi

---

**kortsarioburu** *(corpusean **kortsario buru** soilik)* *iz* kortsarioen burua.

Nork erranen zuen ezen **kortsario** buruak bere lagun eta konfiantzazko zerbitzari eginen ninduela. Joan Mari Irigoien

Poltsaren erdia kendu zigun **kortsario** buruak bakoitzari. Joan Mari Irigoien

---

**kortsariotza** *iz* kortsario lana, korsu baimenaren bidezko itsaslapurreta.

Lau emakume daude Gabriel Irisarri itsasgizon izanak, Frantziako Koroaren alde, Frantziako errege-baimenaz **kortsariotzan** aritu izanak, ez aspaldi eraikitako jauregiko sala handian musika jotzen. Felipe Juaristi

---

**kortse** *(orobat **kortset** g.er.)* **1** *iz* emakumezkoen azpiko jantzia, gorputza hertsatzeko balio duena. ik **gerruntze 2.**

Haren sorbaldak biribilak ziren, eta haren gerruntze oparo betea guztiz tenkaturik agertzen zen **kortsearen** kariaz. Karlos Zabala

**Kortsea** ito arte tinkatzen zuela. Karlos Zabala

Blusa hutsetan, **kortserik** gabe. Karlos Zabala

Ilea orraztua zuen orduko, soina **kortsearen** barruan estu. Karlos Zabala

Berak, etxe barruan, **kortserik** jantzen ez zuela erakusteko. Bere blusaren azpian bere pailazo trasteria guztia, **korseta** eta puska guztiak zituela ez zen, bada, eskolara etorri eta bere eskola eman! Karlos Zabala

Altzairu zerrendazko **kortse** arrosa koloreko batez korazaturik. Josu Zabaleta

Ama indarrez besarkatu zuen, **kortsearen** zintei bere besoen kontra antzemanez. Lopez de Arana

**Kortse** ortopedikoa apur bat askatu eta, gorputza bere onera etorri zaionean. Patxi Iturritegi

**2** irud/hed

Artikulugintzan **kortse** horretara, 1.1000 karakteretara mugatu beharrak, lagundu dit luma zorrozten. Berria - Kultura

Heroismoaren miraria delako horrenbeste **kortse** fisiko eta mental, horrenbeste bortxa, zapalkuntza, zentzugabeko debeku, dogma, itomen, atsekabe, sadismo, konspirazio isil eta umilaziori eutsi dien edertasuna Joxan Elosegi

---

kortsikar ik **korsikar**.

---

kortsu ik **korsu**.

---

**kortxea** *iz* musikan, krakoa.

Zoriak bere gutizien arabera mahaian barreiaturiko gerezi ustel eskukada baten pareko ziren **kortxea** tristeak eta karrankariak baino ez nituen sakatzen. Harkaitz Cano

Halaber, garrantzia duena ez da hainbat **kortxeatan** edo semikortxeatan irauten duela […] inpresioaren kualitatea baizik. Isabel Arrigain

---

kortxela ik **kortxila**.

## kortxete 1 *iz* parentesi zuzena.

**Kortxete** arteko pasarte hau ez dator eskuizkribu batean eta horregatik Golubovich eta Lemmensek interpolaziotzat jo zuten; Böhmer eta Huygensek, ordea, jatortzat daukate. Askoren artean

**2** soinekoez-eta mintzatuz, krisketa.

Setheren soinekoaren **kortxetetara** hatzak igota jakin zuen -ikusi gabe eta hasperenik entzun gabe- malkoak zerizkiola Anton Garikano

---

## kortxila *(orobat **kortxela** eta **kortxilo**)* 1 *iz ipar* eskorta, esparrua.

Artzain xakur xapelketa eta ardi moxte, hor ere berrikuntza bat, xakurrak ardiak **kortxilan** sar araz eta artzainaren lagunek ardi horiek behar dituzte moxtu zoinek hobeki. Herria

Ez zituzten bertzen ofizioak haizu, soinua jotzea ba baina ez dantzan artzea... eta gehiago dena elizan sartu eta, Aitaren etxean, hor ere berdin, beren **kortxila** bazuten. Michel Oronoz

Oren beretsutan airearen hartzera ateratzen gintuzten, oren laurden bat egunean, **kortxilo** ttipi batzuetara, 3 edo 4 metroko murruz inguratuak. Marzel Etxehandi

Baionako egun hortan, irarkola-lantegian bazen **kortxela** xume bat, han ari ginen Lafitte eta biak, hango andere segetariaren bestaldean, Labarthe jaun andere arduradunak eta hiruzpalau langile haratxago. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Preso **kortxelak** ttipiegi, jatekoa ez hanbatekoa, kontrola sobera eta bisitak bakanegi, holakoak dituzte beren arrazoinak.. Herria

---

## kortxilatu *izond* eskorta bihurtua.

Beren leialtasunean, arbasoeri buruzko beren leialtasun miresgarrian, kanpaleku ttipiko oihal-etxolen pean edo **kortxilatuak** ziren kanpaleku handiko bi block-etan, judu anitzak, egun guziz, beren otoitzeri jarraikiak ziren, deus berririk gertatu ez balitz bezala. Marzel Etxehandi

---

kortxilo ik **kortxila**.

---

## kortxo 1 *iz* artelatzaren azala, harroa eta oso arina. ik**artelazki**.

Ur bare, beltzez pikortatuaren gainean **kortxo** bat zebilen igerian. Monika Etxebarria

Falta diren baldosen tartean **kortxoa** itsatsi dut. Harkaitz Cano

**Kortxoz** forratutako gela batetik. Xabier Olarra

**Kortxozko** tapoi bat. Pablo Sastre

Orain askotan egoten naiz argazki horri beha, fotokopiatu eta **kortxozko** arbelean baitauka itsatsia. Koldo Izagirre

**Kortxozko** panel handi bat zuen bulegoko horma batean eta haraino inguratu zen. Joxemari Iturralde

Nire kanaberaren **kortxozko** heldulekutik abata askatzeko ere justujustu nintzen gauza. Koro Navarro

Oslora zihoala esan zidan, olioa eta **kortxoa** garraio. Felipe Juaristi

**2** kortxozko tapoia.

**Kortxoa** atera dio sotoan zeukan ardorik onduenari. Anjel Lertxundi

**Kortxoa** jarri zion botila ardoari eta hozkailuan sartu zuen gazta. Unai Iturriaga

Berehalaxe sumatu bainion ardoari **kortxoaren** kerua. Joxe Austin Arrieta

**Kortxoak** kendu zizkien flaskoei, urez bete zuen edontzi bat eta ispiluaren aurrean zutik geratu zen, pastilla bat eri artean. Mirentxu Larrañaga

Euli-kaiola bat, **kortxo** batetik ebakitako bi xaflatxo orratzezko hesi gisako batez elkarri josirik egina. Juan Garzia

**3** kanaberazko arrantzan erabiltzen den kortxozko zatia, uraren gainean igeri gelditzen dena.

Ez ezazu pita jaso **kortxoa** hiru aldiz hondoratu artean. Itziar Otegi

**4** kortxozko arbel modukoa.

Moduluko **kortxoan,** iragarki, agindu eta abar ezartzeko baliatzen duten panelean. Jokin Urain

Mahaiaren atzealdean **kortxo** bat, sindikatuen azken zirkularrekin eta argazkiekin betea. Harkaitz Cano

**Kortxoaren** ezkerraldean aztarna digital baten irudia marrazturik zuen zuri-beltzezko poster bat. Harkaitz Cano

*Kabroi alaena* esan, eta eskela kendu nuen **kortxotik**. Karlos Linazasoro

**5** eraikuntzan, danborra.

Zulo horretatik ura erregulartasunez pasaraziz, iraulita jarritako katilu bat igoarazten da, artisauek **kortxoa** edo danborra deitzen dutena. Santiago Iruretagoiena

Hala, urak **kortxoa** zenbat igotzen duen, kontrapisuak, behera tiratuz, beste hainbat biraraziko du ardatza, eta ardatzak danborra. Santiago Iruretagoiena

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurrean aurkitutako **kortxo**-puska bat jarri nuen hanka herrenaren azpian. Anjel Lertxundi

Ardo merketan bustitako **kortxo** zati apurtu baten gisakoa. Harkaitz Cano

Hondoratutako ontziak, **kortxo**-soka atalak, egur puskak, dena. Txillardegi

Bi **kortxo** txatal, batetik, eta dozena bat iskilinba bestetik. Txillardegi

Konposta egiteko, fruta eta barazkien hondakinak, arrautza oskolak, kafe eta te hondarrak, ogia, errautsa eta zerrautza, **kortxo** tapoiak, [...] eta ohiki zaborretara botatzen dugun beste hainbat gai organiko erabil daiteke. Berria - Euskal Herria

**7** ***kortxo-kentzeko*** *iz* kortxozko tapoia botilatik ateratzeko gailua.

Desiree eder hura sartzen da botila ardoarekin eta **kortxo**-kentzekoarekin. Oskar Arana

**Kortxo**-kentzekoa galdu egin zaigula dirudi. Oskar Arana

Gurearen sorburu den alfabetoan garai hartako **kortxo**-kentzeko zakarraren forma zeukan. Xabier Olarra

Jeani labana bat egokitu zaio, xafla askotakoa, bere **kortxo**-kentzeko, lata-irekitzeko eta guzti. Eskarne Mujika

**8** ***kortxo-ateratzeko*** *iz* kortxo-kentzekoa.

Tiraderan, lata-, poto-, ontzi-irekitzekoak, tapoi-kentzekoa, **kortxo**-ateratzekoa eta antzeko beste zerbait, dena tresna bakarrean, agian. · -Nola ireki behar ditut -esan zuen gizon zaharrak-, **kortxoa** ateratzekorik gabe? Edorta Agirre

Emazteari galdetu behar izan zion ea non zegoen **kortxoak** ateratzekoa. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kortxo puska bat** (4)

**kortxoa kendu** (3)

**kortxoak ateratzekoa** (4)

---

**kortxogabetu** *izond* kortxozko tapoia kendu zaiona.

Patxaran edo whisky botila **kortxogabetu** berriekin egiten den bezala. Harkaitz Cano

---

**koru** *(orobat* **koro***)* **1** *iz* abesbatza.

Nire artekootan ari nintzela, **koru** bat La Marseillaise kantatzen hasi zen irratian. Anjel Lertxundi

Nahi baduk, ekarri Winter Garden **koru** osoa. Lopez de Arana

Orkestra, **koroa** eta dantza-taldea prest omen daude. Anjel Lertxundi

Ederki egiten du berorrek **koruarena,** jauna. Juan Garzia

Semenario handian kantu gregorianoak gidatzen nituela, **koruaren** erdian nengoela xutik. Piarres Aintziart

**Koru** eta bakarlarientzako kantata bat . Berria - Kultura

**Koru** batean abesten ariko balitz bezala. Karlos Zabala

**Koruan** kantatuko zuten neska-mutilei. Felipe Juaristi

Greziako tragedietan **koruak** egia esaten du, bizitzaren egia sakona ateratzen du argitara, gogorra bezain kontsolagarria. Bernardo Atxaga

Kaleko oihuen nahaste-borrasteak **koru** baten abestia dirudi. Xabier Paya

Maite dut zurien eta marroien eta beltzen arteko hango nahaspila aldakor hori, atzerriko azentuen **koru** geruza askotako hori. Oskar Arana

· Bidaiariek antsia eta auhenezko **koru** bat osatzen zuten. Koro Navarro

**2** (izenondoekin)

Dantzari talde bat osatu zen, berebat **koru** txiki bat. Juan Kruz Igerabide

EOS, Daxa ganbera taldea eta Lausardi **koru** sinfonikoa ariko dira. Berria - Kultura

Gorka Aierberen zuzendaritzapean ariko da *Eskifaia* **koru** mistoa. Berria - Kultura

Izan ere, **koru** greziar bat osatzen dute aktore guztiek. Berria - Kultura

**3** koro batek abesteko musika lana.

Va pensiero **koruaren** amaieran altxatu egin zen. Joxemari Urteaga

Piraten **koru** gorrotagarri hura abestuz, prozesio bitxiak basoa zeharkatu zuen. Julen Gabiria

Edonola ere, ez du ahaztu Edipo-ren azken **koruaren** leloa: ez esan inor zoriontsua dela hiltzen den arte. Oskar Arana

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kapitaina **koru** -zuzendari eta irakasle izandakoa da, Salisburyn. Mirentxu Larrañaga

Oporton, jaioterrian, eliz karguren bat izan zuen, **koru** -zuzendaria hain zuzen, eta jakitun ospea lortu. Felipe Juaristi

Nire aita, José Sánchez, esan dizut, jauna, **koru** maisua zen Tuterako katedralean. Felipe Juaristi

Barojako zalditegiak **koru** kantuarentzat. Herria

**Koru** abeslariek Heltayk berak aukeratutako programa zabala landuko dute sei egunean Hondarribiko Juan Sebastian Elkano aterpetxean.

Kantuari lotu teknikak ikasteko (bertsularitza, antzerkia ezenatokian ibiltzea, **koru** zuzendaritza, kantuen idaztea, musika konposaketa). Herria

Bereziki garrantzitsua da bere **koru** musika. Berria - Kultura

Antiguako **Koru** Lehiaketako lehen saria. Berria - Kultura

· **Koru** eta orkestra zuzendaritza ikasketak eskaintzen ditu ikastegiak. Berria - Harian

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hamar laguneko gospel **koru** batekin. Berria - Kultura

Ahots- **koru** batek erregutu zion has zedila afaltzen, eta Lily ondoratu zitzaion hiru patatarekin, harentzat gorderik baitzeuzkan. Irene Aldasoro

"Gora zu, Asto santua!" aingeru **koruen** kanta. Xabier Olarra

Ustekabean, oso goitik, tronpeta- **koru** handia goratu zen. Agustin Otsoa

Bilboko **Koru** Elkarteko Kontserbatorioko Abesbatzak. Berria - Kultura

Bera izan da Arabako Nazioarteko **Koru** Astearen eta Folklore Jaialdiaren gatza eta piperra. Berria - Kultura

**6** elizaren gunea non elizgizonak eliz otoitza abestera biltzen baitira. ik**korualde**.

Hau otoitzean ari zen aldare aurrean, **koruaren** barne-aldetik. Askoren artean

Ohi denez, aldarearen parean eta goian **korua** zegoen. Aitor Arana

Talde bat ere bazen **koruan** . Felipe Juaristi

Lehenbizikoan, zolan, gizon doludunak, bigarrenean, **koroan,** harmoniuma lodiaren ondoan, komunione haundia egina zuten mutikoak. Michel Oronoz

Harrizko irudi bat ikusi zuen, hautsak hartuta, **koru** azpiko zoko hondakinez bete batean. nesken ahotsak iristen zitzaizkien, Mariaren loreak **koruan** kantari. Anjel Lertxundi

Katedralean lanpostua aurkitu zuen, **koru** liburuen zaindari, eta ongi bete zituen bere lanak. Felipe Juaristi

**7** ***korua egin***

Itsas olatuek eta haizeak **korua** egiten dutela. Felipe Juaristi

Agustinek, Dolmancék eta zaldunak **korua** egiten diote. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sarritan herriko jendeak, txiki eta handi, etxeetatik atera eta herrixka aurreko bidean zutik, **korua** egiten zien fraideei, ozenki oihu eginez: "Goretsia Jainko Jauna". Askoren artean

· Algarak baretu ahala txaloak eta **koruak** eginez lagundu diote denek. Xabier Mendiguren Elizegi

Infernutik eginen dizkidak **koruak** . Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**koru astea** (3)

**korua egiten** (3)

**koruko andre** (4)

**korutik kanpora** (3)

**gizon koroa** (8); **haur koroa** (3)

**gizon koroak** (3)

**kantari koroen festibala** (7)

---

**korualde** *iz* eliza batean korua dagoen aldea.

Elizaren atzealdetik, eskailera zurezko batzuk igorik, **korualdera** iristen zen. Da Ruak ikusiak zituen eliz kaperetako **korualdeak** goraino bete musikariz. Felipe Juaristi

---

**koruka** *adlag* koroa eginez.

Guztiak txaloka, builaka eta **koruka,** azkenerako euren lekuetatik jaikita. Hasier Etxeberria

---

**korukide** *iz* koru berekoa.

Bere joaldia bigarren mailan geratu zen **korukide** andanaren eta harizko taldearen artean. Berria - Kultura

Azken 18 hilabete hauetan abesbatz-buru edo **korukideeri,** kantu-sail arduradun eta liturgia animatzaileeri eta hizlarieri. Herria

---

**koruzale** *izond* koruen zale dena.

Donostiako biztanleak **koruzaleak,** musikazaleak eta konpartsazaleak dira, nahiz eta uneotan horiek bertan behera utzita egon, oraingo egoera beldurgarria dela eta. Askoren artean

---

**korzikano** *iz ipar* korsikarra.

Ordezkaritza frango elgarretaratu dira: Bretoinak, Okzitandarrak, **Korzikanoak**, Katalanak, Alzazianoak, La Réunion eta Martinika ugartekoak. Herria

---

**kosako** **1** *iz* Errusiako hegoaldeko estepetako biztanlea.

Don aldeko **kosakoak**. Karlos Zabala

Tobolsk probintziako **kosakoak** Tomsk aldera zihoazen inon atsedenik hartu gabe. Karlos Zabala

Hego Osetiako indarren artean Abkhaziako lurralde independentistatik joandako boluntario ugari daudela, **kosako** eta ipar kaukasiarrez gain. Berria - Mundua

Nahiago zituela otsoak **kosakoak** baino. Felipe Juaristi

**Kosakoek** osorik txikitu zituzten komunitate juduak. Koro Navarro

**2** tropa arineko errusiar soldadua.

Berrehun **kosako** eta hogeita bost bashkir zaldi gainean, berrehun soldadu oinez. Karlos Zabala

Irkutskeko goarnizioan une hartan **kosakoen** errejimentu bat zegoen, bi mila soldadu oinezko guztira. Karlos Zabala

Kolonia militarren lerroa, Omsketik Semipalatinskeraino tartetik tartera ezarrita zeuden **kosakoen** postuek osatzen zutena alegia. Karlos Zabala

Segizioan bere ofizialak eta **kosako** talde bat baizik ez zeramala. Karlos Zabala

---

**kosetxa** **1** *iz* uzta.

Zemendikada, zemendian jaso ohi den **kosetxa** baino areago, neguaren aurrean, ezkaratzeko kutxa hura, gazikutxa hura, txerrikiak gordetzekoa Pello Zabala

**2** *irud/hed adkor*

Lehengoan, Portolo izan zitekeenaz azaldu nizkizun neure **kosetxako** burutazio batzuk. Patziku Perurena

---

**kosinu** *iz* angelu batez mintzatuz, angelu hori hartzen duen triangelu angeluzuzenaren alboko katetoaren eta hipotenusaren luzeren arteko zatidura.

Hantxe aurkitu zituen Ruche jaunak trigonometriaren lau mosketariak: sinua, **kosinua,** tangentea eta cotangentea. Jon Muñoz

Angelu baten sinua eta **kosinua** zenbakiak dira. Jon Muñoz

Haiei esker, adibidez, *a* angeluaren eta *b* angeluaren sinua eta **kosinua** ezagutuz gero, kalkula daiteke *(a + b)* angeluaren edo *(a - b)* angeluaren sinua eta **kosinua**. Jon Muñoz

---

**kosk** **1** hozkaren edo haginkadaren onomatopeia.

Nireganantz makurtu eta **kosk!,** ausiki batez hartzen zizkidaten nire papo gainetik. Joxan Elosegi

Lopez Mendizabaldarrei geratzen zaien diru urriak ez du hainbesterako ematen, eta Euskal Herrian lortu zituzten helbideetara jo behar izan dute, atea batean **kosk** eta beste batean kask, hainbat itzal-eragin kultural eta diplomatiko bildu eta baliatzeko. Anjel Lertxundi

**Kosk** eta kask! Herria

*ik beherago* 4. Askoren artean

**2** ***kosk egin*** hozka egin. ik **koska**[1] **10**.

Hermionek ezpainari **kosk** egin zion, oso kezkatuta. Iñaki Mendiguren

Zakurrak **kosk** egin zidan oinean. Koro Navarro

Gogor oratzen zioten hatzei **kosk** egiten saiatzen zen. Jose Morales

Ogi puska bati **kosk** egin eta gelan ibiliz batera txikitzen zuen. Koro Navarro

Ronek gozoki berde bat hartu zuen, kontuz begiratu eta ertz batean **kosk** egin zion. Iñaki Mendiguren

Sugeak bezala egiten du **kosk,** sugegorriak bezala zizta. Elizen arteko biblia

Odolki zati bero-bero bat jaten ari zen, hozkada txikiz **kosk** eginda. Karlos Zabala

Zorri ikaragarriek **kosk** egiten zioten, izerdi beldurgarriek indarrik gabe uzten zuten. Karlos Zabala

**Kosk** egingo ote nion beldurrez edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Ia hilabete, eta gaiari **kosk** non egin oraindik ez nekiela. Alberto Barandiaren

· Zama kentzen zion bitartean, Harryri **kosk** maitagarri bat egin zion mokoaz. Iñaki Mendiguren

Puruari **kosk** txikia egiten zion ipurdian, tabako malgu eta freskoaren zirkulu bat erauziz. Jon Alonso

Eta, oin-punten gainean paratzen nintzela, lepoan **kosk** txikia egin nion. Joan Mari Irigoien

**3** ***amuari kosk egin****sup_1*

Arrainak **amuari kosk egina** zion, eta orain haria luzatu behar zen, urruntzen utzi, amua erabat irentsi zezan. Juan Kruz Igerabide

4 *amuari kosk egin*[2] engainatu. Harryk bazekien ez ziola Dudleyren **amuari kosk egin** behar. Iñaki Mendiguren

Irakurle askok **amuari kosk egin** zioten; beste askok ez. Txema Ramirez de la Piscina

Hain itsuturik gelditu zen halako mauka bere muturren aitzinean ikusita, non **amuari kosk** besterik ezin izan baitzuen **egin**. Alberto Ladron Arana

## 5 *kosk eta kosk*

Sustu jasan berriaren harra **kosk** eta **kosk** ari balitzaio bezala oraindik. Karlos Linazasoro

Eta hantxe segituko zuen begiz begi mezulariaren itzalari **kosk** eta **kosk** [...]. Felipe Juaristi

Esan beharrik ere ez dut ezinezkoa egin zitzaidala lorik egitea, hain nindukan jelosiaren harrak bere menera, bihotzean **kosk** eta **kosk**. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amuari kosk** (4); **ezpainari kosk** (6); **ezpainari kosk egin** (4); **ezpainei kosk** (3); **kosk egin** (57); **kosk egingo** (3); **kosk egiteko** (7); **kosk egiten** (30); **kosk egiten zion** (4); **kosk eta kosk** (3); **zakurrak kosk** (3)

---

# koska[1] 1 *iz* gainalde edo ertz bateko hutsune edo irtenune txikia. ik **koxka[1]; ozka**.

Zurezko atean labanarekin bere altuera koskaz **koska** nola handitzen zen markatzearen antzeko zerbait. Harkaitz Cano

Hasperen eme bat, beste **koska** bat ikusten dionean bere erretilu on bakarrari. Anton Garikano

Habeen erdi-aldera, **koska** batzuk egiten dira, eta **koska** horietan katapulten burukoak enkaxatzen dira. Santiago Iruretagoiena

Leihoaren **koskan** ez zegoen txoririk. Bernardo Atxaga

Hantxe isiotu du beste zigarro bat, leihoaren barruko **koskan** zerbeza utzita. Paddy Rekalde

Leihotik irten, hanka bat hormaren **koska** batean ipini, gero bestea. Juan Kruz Igerabide

Karta sorta ongi lerroturik dago, sortaren ertza berdinduta dago, ez dago **koskarik**. Harkaitz Cano

Bihurgune batean **koska** txiki bat harrapatu nuen, eta eskia kateatu zitzaidan. Berria - Kirola

Pabilioietako horma eroriak, falta diren hormak, eta horma batetik besterako **koska** irregularrak. Harkaitz Cano

Jarrera komodo bat bilatzen saiatu nintzen, baina lauegia zen zorua, edo **koska** gehiegi nire hezurrek. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire zakil harrotuaren **koska** senti zezan baino lehen apartatu nintzen bere gorputzetik. Harkaitz Cano

## 2 irud/hed

Gertatzen dena da bide horrek **koska** nabariak dituela. Fernando Morillo

Lege onez jarduteko oztopo gutxi ez, eta bidean **koska** gehiago jarri ezkero, lan zaila. Berria - Kirola

Nor nintzen, ordea, ni?, hori zen ispiluak berdinduko ez zidan **koska**. Anjel Lertxundi

Hark beti aurkitzen zion **koskaren** bat, inor aurrean baldin bazen batez ere. Irene Aldasoro

Hans bai, zuzena zen, erabatekoa, **koskarik** gabekoa, borrokarik gogorrenerako jaiotakoa. Hasier Etxeberria

Haize lasterren norabide eta jokoek eta tenperaturaren aldeak edo aire-poltsa eta masa horien **koskak**. Pello Zabala

## 3 maila.

**Koska** txikia izan arren, jauzi egiten lagundu zion Mentxuri. Josu Landa

Izarteko labar zutaren erditsuko **koska** hartan. Txillardegi

**Koska** honetan eseri eta zigarreta bana erreko dugu.Gona txiki estua zango polit meharretan gora bildu zitzaion neskari, eskailera-**koska** gainditzerakoan. Xabier Paya

Podiumeko **koska** gorenean. Berria - Kirola

Bihar tenperaturek **koska** bat behera egingo dute, gainera, eta 500 metrotik gora elurra egingo du. Berria - Euskal Herria

## 4 irud/hed

Lizardiren euskara, izan ere, ene jakituriatik **koska** bat gorago geratzen zen. Joan Mari Irigoien

**Koska** bat falta izan zitzaion Juventusen eta Milanen mailara iristeko. Berria - Kirola

Armstrong, Ullrich, Beloki eta Heras **koska** bat gorago daude, baina badut hobetzeko tartea. Berria - Kirola

Azurmendik onartzen du **koska** bat beherago dagoela. Berria - Kirola

Jakina baita mota horretako pilulek [...] menpekotasuna sortzen dutela, eta zaila izaten dela, honelatan, gaitzari eta pilula-dosiei **koska** bat jatea. Joan Mari Irigoien

## 5 aldea

Garaia zen benetan: buru oso baten **koska** ateratzen zion aitari. Harkaitz Cano

Baina **koska** dago, **koska** handi xamarra gainera, Don Bucle eta nere artean: hark kontzientzia euskaldunari zion uko egin, bai, baina fede española bete-betean besarkatzen zuelarik; nerea, ustez behintzat, uko garbia da, Ferlosiorena bezalaxe. Iñaki Segurola

**Koska,** agerikoa da. Iñigo Aranbarri

Lau urte igaro dira CSKAk eta Tauk elkarren aurka lehenengoz jokatu zutenetik, eta tarte horretan bi taldeen arteko **koska** txikituz joan da. Berria - Kirola

## 6 kopuru bati zenbateko biribila kendu eta gelditzen dena.

Bat eta **koska** zor dizut. Harkaitz Cano

Berrogei eta **koska** zituen emakumea, ezkongabe edo alargun bakartia. Harkaitz Cano

Kontuan hartzen badugu zein hurbil gauden, denboraz, Islam-aren lehen iturburutik, lau mende eta **koska** baizik ez, lau mende eta apur bat gehiago bere sehaskatik, nolabait esateko. Jon Alonso

## 7 arazoa, kontua, gorabehera.

Horra hor **koska**! Lourdes Oñederra

-Hor dago **koska,** arazoari ez diogula ez bururik ez hankarik ikusten. Migel Angel Mintegi

Eta hortxe dago **koska:** neurrian. Patxi Iturritegi

Hortxe dago **koska** osoa. Jon Muñoz

Printzeren bat katigatu ala ez, hortxe **koska**. Felipe Juaristi

**Koska** ez zen Paris hartuko ote zuten ala ez, baizik noiz. Anjel Lertxundi

Euskaraz zegoen, baina benetako **koska** ez zegoen hizkuntzan. Fernando Morillo

Dena den, sistemaren **koska** da autonomia erkidegoek kostuaren erdia ordainduko luketela. Berria - Harian

Harro nengoen, bai, Umberto Saba edo Joseph Roth edo Müller jauna bezalako jendea ezagutu nuelako, baina ez nengoen harro juduak zirelako, beste bat zen **koska**. Anjel Lertxundi

Hogei urte lehenago, Elkartea bero-bero ari zenean esklabotzaren aurka, bazirudien bere kolorea izan zela eztabaidaren **koska**. Anton Garikano

Bere garaian argitzerik izan ez nuen enigmatxoaren **koska** bikoitza. Anjel Lertxundi

Errazago izan zen Perok nire mandatua onartzea, horrek ere bere **koska** ukan zuen arren. Edorta Jimenez

Frau Gerda ez zen **koska** hartan gehiago saiatu, eta beste kontu batzuei buruz hasi ginen. Anjel Lertxundi

## 8 *koska bat estuago egin*

Baina, gure zorionerako, literaturan beti dago **koska** bat estuago egiteko aukera, idazleak ez baitu sekula galdu behar bere antzokiko oihala talaia berriei zabaltzeko itxaropena. Anjel Lertxundi

**9** ***koska bat estutu***

Axularrek, Senekaren esaldi bat bere uretara ekarririk (*otium sine litteris, vivi hominis sepultura*), **koska** bat estutzen du aisiaren aurpegi ona seinalatze aldera: [...]. Anjel Lertxundi

Herio denbora duk, banakotasunaren eta bereizketaren denbora, amaieraren ardatzari **koska** estutzen ari den denbora abstraktua. Anjel Lertxundi

Ez du esaten, ordea, beste **koska** bat -eta nolakoa!- estutu diela bertsooi. Anjel Lertxundi

Jatorrizko testua **hizkuntza** koska bat gehiago estutzeko ahalegina ere bada. Berria - Kultura

· **-Koskak** estutzen hasi behar al hatzait orain, Damasio? Juan Garzia

**10** ***koska egin*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kosk egin*** *agertzen da)* kosk egin.

Nik **koska** egin nion beheko ezpainari, eskuak ukabildu nituen azkazalek mina eragiteraino. Anjel Lertxundi

Manueltxo izeneko mutiko bat hemen itxita eduki ziaten zakur amorratu batek **koska** egin eta zakur bihurtu zelako. Bernardo Atxaga

Eta dantzan hastean berak ez bestek zekien bezala egiten zion **koska** lepoan, belarri ondoan. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **atariko koska** (3); **azken koska** (5); **hor dago koska** (13); **hor zagok koska** (3); **hor zegoen koska** (3); **hortxe dago koska** (13); **hortxe zegoen koska** (3); **ilargi koska** (5); **koska bakarra** (3); **koska bat** (90); **koska bat beherago** (11); **koska bat estuago** (6); **koska bat falta** (5); **koska bat gehiago** (5); **koska bat gorago** (9); **koska bat igo** (8); **koska egin** (13); **koska egiteko** (4); **koska egiten** (3); **koska handi** (3); **koska txiki** (3); **koskaz koska** (7); **lehen koska** (3); **podiumeko koska** (4)
>
> **leihoaren koskan** (4)

---

# koska[2] *adlag* hozkaka, haginkadaka.

Izugarrizko etxekoikeriak mendean hartuta zeukan emaztea eta gai zen **koska** eta atzamarka ere babesteko huraxe. Mirentxu Larrañaga

---

# koska[3] *izond ipar* jendekina ez dena, mukerra, zaputza. ik**koxka**[2].

Frantsesez, norbaitentzat *hartza* dela erraiten da **koska** delarik, mutur handia, arrunt bere gisakoa, ez batere jendekina. Herria

Ongi etorri hotza egin zidan arrunt **koska** izan behar zen gizon mehar batek. Janbattitt Dirassar

---

# koskabilo *(orobat* ***koskobilo*** *g.er.) iz* barrabila.

**Koskabiloak** ere txiki samarrak zeuzkan, egia esateko. Aitor Arana

Min gehien hartzen den lekuan eman zioat, **koskabiloetan**. Mirentxu Larrañaga

Nahikoa zuen lehengusuari begiratu eta haren **koskabiloak** laztantzea, hatz artean ile leuna sentitzea. Aitor Arana

**Koskabiloak** moztu eta ahoan ezarri dizkiote zenbaiti. Xabier Montoia

Ez zen zerbait berria, **koskabiloetaraino** zeuden denak poliziaren paliza eta gehiegikeriekin. Harkaitz Cano

---

# koskada *iz* hozkada.

Hirurogeita hamar urteko gizon batek mingainari koska egin omen zion epilepsia-atake batean, eta, hala ere, osatu egin omen zitzaion berriro, eta **koskadaren** arrastorik ez antzemateko moduan osatu ere. Irene Aldasoro

Txakur gaixoa zaintzapean jarri omen zuten; ez ahal zuten **koskada** harengatik akabatuko... Xabier Mendiguren Elizegi

---

# koskadun *izond* koska duena; koskak dituena.

Ahoa harri **koskadunez** betea balu bezala bota du esaldia Agustinek, zakar eta erremerreka. Anjel Lertxundi

Lur azal menditsu eta **koskaduna** baita ekaitzak gehien estimatzen duena. haien gainean, erdian, kono zentrala altxatzen zen, oinarriaren altueraren erdia besterik ez zuena, krater **koskadunak** koroaturiko labe edo tximinia erraldoiaren itxurarekin. Pello Zabala

Trakzio-kateek gurpil **koskadunak** hartu eta karranka egiten zuten. Lopez de Arana

Burkotzat erabili beharko du petate hori eta ez du barruan deus gogorrik, deus **koskadunik** sartu nahi. Harkaitz Cano

---

# koskadura *iz*

Ez dut hor ere sobera erakusterat ematen bainan barnean **koskadurak** ukaiten ditut, bai. Menane Oxandabaratz

---

# koskagabe *izond* koskarik ez duena.

-Haga bat kendu, luzea eta **koskagabea,** zutik finkatu hagatxoa, eta gauez haren puntan ziztatzen nuen ogia, baina apurren batzuk lurrean uzten nituen arratoiarentzat. Juan Garzia

---

# koskaka **1** *adlag* hozkaka.

Ilea burutik kenduko zion, begiak zulatuko zizkion, eta **koskaka** jango zion zilborra. Koro Navarro

Orduko John Hathorne epailea hitzak hitzari **koskaka** esaten ari zen errukizko ohiko formula. Anjel Lertxundi

**2** irud/hed

**Koskaka,** kolpeka azaltzea gustatzen zaiolako martxo gajoari. Pello Zabala

---

# koskan *izlag ipar* haserre.

-Hire senargaia **koskan** dun ala beti hola dun. Eneko Bidegain

**Koskan** zen eta ikasle seriosek ordaindu dute agertu ez direnen ezaxolakeria. Eneko Bidegain

Pentsaketa ari naizenean, **koskan** edo arrangura bereziki, burua apal nabil edo bestenaz, gostuan naizelarik, soa zuhaitzen puntan daukat, ez baldin badut hedoietan galdua. Piarres Aintziart

**koskatsu** *izond* koska asko duena.

Esku babatsu gogorrak zituen, handitzarrak, profil hezurtsu **koskatsua**. Eta jentil-harriaren gaineko harlauza **koskatsu** lakarra besarkatzen saiatu naiz. Txillardegi

Basoan barrena joan ziren, udaberriaren eraginez heze eta bigun zegoen bide **koskatsu** batetik. Jose Morales

---

**koskatu**[1], koska(tu), koskatzen **1** da *ad* koskak gertatu edo egin

Eta ondoren Ramsay andrea amorrazi egin ohi zen norbait berandu etortzeagatik, gurina freskoa ez egoteagatik, edo te-ontzia **koskatua** zegoelako. Anton Garikano

Harantzago, hozkailuaren atea **koskatua** eta mailatua, meteorito edo jaurtikinek jo balute bezala. Xabier Olarra

• **2** du *ad* kosk egin.

Estherrek beheko ezpaina **koskatu** zuen. Koro Navarro

· *irud/hed* Zalantza batek **koskatzen** zion barrena -Josuk alde egin ez ote zion-. Xabier Montoia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Izenburu-orriaren eta hitzaurrearen artean sartu nuen grabatua, eta liburuko orrien mugekin guztiz berdindu nuenean, puntu **koskatuak** liburu-jostearen hari-guneekin guztiz bat zetozela ikusi nuen. Anjel Lertxundi

Elizgizon ortodoxo baten hegaldia irudikatzen zuen argazkiak, eliza **koskatu** batean. Berria - Kultura

---

**koskatu**[2], koska(tu), koskatzen *(orobat **kuskatu**)* **1** du *ad ipar* talka egin, jo.

Bidean ibilki zelarik bere "skoter"-arekin, auto batek **koskatu** du eta kendu bizia. Herria

Uste nian parean ziztu bizian zetozen kamioi edo cadillac gorrietarik bat **kuskatuko** ginuela eta hor akabatuko zela ene bidaia. Itxaro Borda

Aldiz, beste [lur-azal] puska batzu elgarretararik beti ta hurbilago, elgar **koskatzen** artetan eta orduan gaitzeko eremuak harat edo hunat amor eman behar! Herria

**Kuskatzen** badüzüe, gogor da harria. Herria

Karrika zeharkatzean, **kuskatuko** eta zitzikatuko zuen autoarekiko errekontrua desiratzen zuen. Itxaro Borda

• **2** da/du *ad ipar* haserretu. ik **koxkatu**.

Gaxuxa, beti lehena deitzi izan nahi duena, **koskatzen** zaio soroa ez delakotz gizen. Michel Oronoz

Gérard bakarrik gelditzen da, barnea alhan ari zaiola, ez ote den gehiegi **koskatu** kezkaturik. Eneko Bidegain

---

**koskatxo** **1** *iz* koska txikia.

Seigarrenaren eskuak naturaz haragoko gogoa nabaritzen du bateko edo biko diamanteari ertz batean **koskatxo** bat egiteko. Jose Morales

**2** *adkor* koska. ik **koxka**[1].

Ez dago Armstrongen parera, baina bai beste denak baino **koskatxo** bat gorago. Berria - Kirola

Haratago joanez, berriz, Londresko Secret Intelligence Service delakoak Espainiako Enbaxadaren kode zifratuak eskatu zizkion Asensiori, premia larriz gainera, eta horra **koskatxoa;** horretara ezin zen iritsi Asensio, horretara ja ez, gizona. Edorta Jimenez

Baina, berak ematen dizu, amorraziorik gabe, liluratzen zaituelako, beste **koskatxo** bat gehiago atera nahia. Pello Zabala

---

**koskera** *izond* saltsa berdean prestatua. ik **koxkera**.

Janariak: kir, salda, legatza **koskera,** ahatekume fartzitu sahetsa jusarekin, kuiattoa esne opil gisa, lursagar xigortuekin, ardi gasna, gerezi erreximetarekin, melekeria, Irulegiko arno xuri eta gorria, kafe ondokoarekin. Herria

---

**koskero** *iz adkor* donostiarra, bereziki alde zaharrekoa. ik **koxkero**.

Ni ere **koskeroa** nauk... Txillardegi

---

**kosko** **1** *iz* koskorra.

Aita Pébroc, Mende-ko Jesuiten ekonomari, aita Riquet-ek eman ogi **kosko** bat eraman zioten. Marzel Etxehandi

Piku lanari ekin zion berak; pikukada bi, eskuekin harri **kosko** batzuk bota zituen errekara. Pablo Sastre

Matrail-**kosko** hezurtsuak. Fernando Rey

Argizari **koskoa** su biziaren gainean likidotzen eta urtzen den bezala. Xabier Amuriza

**2** ***hatz kosko*** *pl* hatzetako giltzadurak. ik **koskor 10**.

Hatz **koskoez** atea jo ondoren. Ronen hatz-**koskoak** zuri zeuden bolantean. Iñaki Zabaleta

· Besoak urazalera igotzearekin batera, eskuaren gainaldeko **koskoak** nabarmendu zaizkit, esku bakoitzak apo bat irudi. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hatz koskoak** (6)
> **hatz koskoekin** (3)
> **hatz koskoez** (3)

---

koskobilo ik **koskabilo**.

---

**koskoil**[1] *iz* barrabila, koskabiloa.

Buztana milikatzen zidaan bururatzeko eta ene **koskoil** pare ximurtua musuka ausikitzen. Itxaro Borda

-Hire anaiak errateko **koskoilik** ez badu ere, nik ez diat halako problemarik. Aingeru Epaltza

-Ulertu izan balu bere "mendeko borroka" nahi izan genuela trabatu... **koskoiletatik** zintzilikatuko gintuen! Ramuntxo Etxeberri

---

## **koskoil**[2] *izond* landugabea, trauskila.

-Ulertu izan balu bere "mendeko borroka" nahi izan genuela trabatu... **koskoiletatik** zintzilikatuko gintuen! Ramuntxo Etxeberri

---

## **koskoilo** *iz* kuku-sagarra.

Oraindik denbora gutxi ez dela ere gauza nahiko arrunta zen, euliak **koskoiloetatik** jaiotzen zirela sinestea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Izan ere, **koskoilo** edo kuku-sagarretan zulotxo bat ikus daiteke eta, hala egokituz gero, baita handik jaioberria den eulitxo bat irteten ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Liztor txiki batek jarritako arrautzetatik sortzen dira **koskoilo** horiek. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **koskoilodun** *izond* koskabiloak dituena.

Auzoko emakumeren batek haur izandu berritan, halatsu esanen zizun: "urruza egin al du edo **koskoiloduna?"** halako umore kutsu batean, abere hizkera jende artera ekarriz. Patziku Perurena

---

## **koskol** **1** *iz* lokotxa.

Txikiak zakukarrera eta **koskol** jokoan ari zirela. Xabier Mendiguren Elizegi

Bakizu, arto **koskolak** saskin sartzea ta. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** morkotsa.

Gabiria aldean gaztainari estimazio handia izaki, beste txoko askotan bezalaxe, eta hala abestuko zuten suaren aldamenetik: San Juan berde, San Juan berde, **koskolik** batere gabe, hiru ale, hiru ale. Pello Zabala

---

## **koskondu,** koskon, koskontzen da *ad* hazi.

Ez zidaten esan "guk beste nazio bat daukagu"; "hori ez da gurea" esan zidaten eta, beraz, naziorik gabe bizi izan naiz **koskondu** arte. Ana Urkiza

---

## **koskor** **1** *izond* tamaina txikikoa. ik **koxkor; kozkor.**

Ikusi herri **koskor** hura; [...] arren, uztazu herri txiki horretaraino joaten, eta bizirik aterako naiz. Elizen arteko biblia

Gotzaiak egin ziren eliza handien jabe, baina eliza **koskor** asko jauntxo laikoen esku zeuden. Patziku Perurena

Pobreak, berriz, erositako bildots **koskor** bat baizik ez zuen. Jose Antonio Mujika

Bazeukan San Antonioren irudi **koskor** bat gelako mahai txikian. Pako Aristi

Intxaurrondo **koskor** batzuk, aitak Artikutzatik ekarri eta aldatuak. Patziku Perurena

Goizean Urrestillan nengoen, amari erosketa batzuk egiten hango kaleska **koskorretan** barrena. Pako Aristi

Kauda izeneko uharte **koskor** baten babesean igarotzean. Elizen arteko biblia

Urte oroz egin ohi zion amak tunika **koskor** bat eta bertara eramaten. Elizen arteko biblia

Rietiko Jakobo anaiak ibaia zeharkatu zuen beste anaia batzuekin txalupa **koskor** batean. Askoren artean

Eta esfera **koskor** haiek, elkar joaz, metal hots fin bat uzten zuten airean. Patxi Iturritegi

-Zin-zinez, jaialdi **koskor** hau xarmangarria da! Karlos Zabala

**2** *adkor*

Badudala fortuna **koskor** bat eta bere eskuetan jartzen dudala komeni denerako. Bernardo Atxaga

Artalde **koskorra** daukat eta gazta egiten dut. Berria - Euskal Herria

Baionako portuaren inguruan ere industria **koskorra** sortu zen 1950az gero, eta Ipar Euskal Herriko barrualdeko jende andanak jo zuen bertara. Koldo Zuazo

**3** umeez mintzatuz, txikia. ik beherago **16.**

Ni oso **koskorra** nintzen argindarra ekarri zutenean. Pako Aristi

Ilunpe hartan nahikoa izaten zen katu baten marrua, ontz baten uhuria entzutea, **koskorrok** halako zer beldurgarriren bat bazebilela pentsatzeko. Pako Aristi

Jose Maria izaten zen [...] espedizio haien buru, Kosme eta Joakin **koskorrak** baziren ere bideak eta zokoak benetan ezagutzen zituztenak. Iban Zaldua

**4** *iz* azalean edo gainalde batean gertatzen den handitu edo irtenunea.

Koskak, **koskorrak** eta irtenuneak berdintzea eta biribiltzea. Iñaki Segurola

Baina aita orduan ohartu zen palak **koskor** bat zuela albo batean eta hura berdintzeari ekin zion lehia handiz. Koldo Biguri

Jende guztiak daki gerri aldean nabarmentzen zaion **koskorra** pistola dela. Hasier Etxeberria

Lepoan **koskor** bat atera zitzaidan. Berria - Harian

Harryri golfeko pilotaren tamainako **koskorra** ari zitzaion irteten buruan, aurreko kristala jo zuen tokian. Iñaki Mendiguren

Irabazleetako bati erabat birrindu zioten sudurra, halako moldez, ezen **koskor** txiki bat besterik ez baitzitzaion geratu aurpegian. Jose Morales

Etxeko hormen oholetako eta zutabeetako begi, **koskor** eta tarteetako hainbat argi-itzaletan. Anjel Lertxundi

Garrasi eginez autoak bide zaharreko **koskor** eta zuloetan ematen zituen jauziekin. Bernardo Atxaga

Emazteak patata gozo bat adinako **koskorra** zeukan lepoan eta ez zen gauza inorekin mintzatzeko. Anton Garikano

· Egarriz itotzen zegoen eta mina zeukan eskuetan, batez ere **koskorretan** eta hatzetan. Anton Garikano

*ik beherago* 9. Askoren artean

**5** puska, zatia. (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hezur-makilatik hezur zati pitzatuen gainera zabaltzen den **koskor** itxurako hezur berriak erakusten du hausturaren gunea. Irene Aldasoro

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa) ik beherago **8** eta **15.**

Begietan ageri zuen: bi ikatz **koskor** ziren. Koro Navarro

Hezur **koskor** (edo kailu) hori, sobera duen materiala joan ahala, berdinduz doa denborarekin. Irene Aldasoro

Zergatik ez dira kristalak tubuluetako paretetara itsasten, eta zergatik ez dituzte, elkarri itsatsi, eta kristal-**koskor** handiagoak eratzen? Seinale haiek biribilak ziren esku barruan eta luzeak gainaldean; haragi **koskorrak** ikusten ziren, iltzeen punta bihurrituak eta errematxatuak balira bezala. Irene Aldasoro

Patin bakarraren puntarekin izotz **koskor** bat jo zuen. Anton Garikano

**7** *pl adkor* barrabilak, koskabiloak.

Hanka-arteko **koskorretatik** darion maitasuna zeinek jasoa falta eta bakarlanean, eskulangintzan edo autonomo gisa aspertua dagoen gizasemea. Iñaki Segurola

Hantxe bixi dira, jeneralean, emaztearekin beheko **koskorretaraino** egina dagoen gizon bat, gizonarekin goiko koskorretaraino egina dagoen emakume bat. Iñaki Segurola

Hizkuntza, ideien mundutik hagitzez beherago dabiltzan "barrengo **koskorretatik"** ateratzen da erraz eta gozo (ez zait formulazio hoberik etortzen burura), edo bestela, ez da ateratzen. Iñaki Segurola

## 8 *azukre-koskor*

Joe Costellok beste **azukre koskor** bati papera kendu, eta airean eutsi zion hatz lodiaren eta erakuslearen artean. Ramon Saizarbitoria

Bost **azukre koskor** edontzira bota eta latorrizko koilara kanporantz jiraraziz eragin zien. Koro Navarro

Andereak apaizari galdetu zionean zenbat **azukre koskor** nahi zituen kafearekin. Xabier Paya

**Azukre koskorretako** bat pattarretan busti. Ramon Saizarbitoria

Ardoak urduritasunaren hesiak urtzen zizkiola, urak **azukre-koskorra** bezala. Joan Mari Irigoien

## 9 *belaun-koskor* belauneko giltzaduraren aurreko aldea.

Aurpegi argala zuen, **belaun-koskor** hezurtsuak, ile beltza eta begi berde argiak. Iñaki Mendiguren

Soineko berriarekin etorri duk gaur, **belaun-koskorrak** ere agerian zituela. Bernardo Atxaga

**Belaun koskorrak** minberaturik jaiki behar izan dudan arte. Txillardegi

## 10 *esku-koskor* hatz-koskorra.

Ostera entzun zituen hiru kolpe lehor, norbaitek **esku-koskorrez** joko bailuen paretan. Juan Garzia

Hobe entzungo bagintu, baina gu ez gaude irlan, eta bera bidean aurrera doa, **esku-koskorretan** haginka eginez. Julen Gabiria

## 11 *hatz-koskor pl* hatzetako giltzadurak.

**Hatz-koskorrak** prestatu ditu atean jotzeko. Hasier Etxeberria

**Hatz-koskorrek** min ematen zioten. Anton Garikano

Eskua eman zidan, potoloa; **hatz-koskorrak** mamian sartuta zituen, eta azala oso zuen zuria. Ramon Saizarbitoria

Masaila **hatz-koskorren** gainean jarri eta adi-adi begiratzen zion Denverri. Anton Garikano

Ezkerreko ukabileko **hatz-koskorrez** ezkerreko begia igurtzika eta igurtzika. **Hatz-koskorrak** ezpainen aurka estutzen ari da urduritasunez. Xabier Paya

· Behatz-**koskorrekin** jo duzu poliki. Rafa Egiguren

Lotuta neuzkan eskuak, […] atzamar-**koskorretan** jarritako kateekin, esku bat besteari lotuta... Anton Garikano

Eri-**koskorraz** jo zuen kolpe pare bat atean. Josu Landa

## 12 *mutil koskor*

Orain dela urte asko, **mutil koskorra** nintzela. Anton Garikano

**Mutil koskorra** haiz hi; hori, berriz, gaztetandik duk soldadu. Jose Antonio Mujika

**Mutil koskorra** zenetik ezagutzen diat. Anton Garikano

Halaxe asaskatzen dira umeak, hamabi urte eskaseko **mutil koskorrak**. Karlos Linazasoro

Zortzi urteko **mutil koskorra** pozik dago bere lehenengo plaza egiten, Musika Plazan. **Mutil koskorretan** irentsi egiten nituen halako aldizkariak. Xabier Etxabe

Familia ez nazionalista batetik nator, eta nire **mutil koskorretako** giroan ere ez zegoen Joxe Mari, Joxe Antonio edo Joxe Miel besterik. Anjel Lertxundi

· Quenu mutiko **koskor** potoloa bihurtzen ari zen, pixka bat hezigabea. Karlos Zabala

## 13 *neska koskor*

Bangladeshetik etorritako **neska koskorrak** saltzen dizkiete. Gotzon Garate

Aspaldi, artean **neska koskorra** zela. Anton Garikano

Orain dela hogei urte ni **neska koskorra** nintzenean haurrek denbora luzeagoan segitzen zitean haur izaten. Anton Garikano

**Neska koskorretan** kantatzen zioten txantxa baten airea nagusitu zaio: "...dantzan hobeto daki, artajorran baino". Anjel Lertxundi

**Neska koskorretatik** ohitu zen mutil batekin ez bazen beste batekin egoten. Anjel Lertxundi

## 14 *neska-mutil koskor*

**Neska-mutil koskor** haiek beren baliabideak zituzten sotoetan ezkutatu eta bizitzeko, burdin sareak itxitakoan. Karlos Zabala

Renoko Unibertsitateko Basque Studies Program-ean aritu zen **neska-mutil koskorrei** uda eskolak ematen. Berria - Kultura

Berak paseatzera ateratako **neska-mutil koskorrak** jolasean zebiltzan bitartean. Anton Garikano

## 15 *ogi koskor*

Kikara eta **ogi-koskorra** esku banatan. Inazio Mujika Iraola

Kosk egin dio berriz ere ogitartekoari, eta mortadela ia dena janda **ogi-koskor** hutsa geratzen zaiola ohartu da. Xabier Mendiguren Elizegi

Hor, **ogi-koskorrez** osaturiko otorduan erakusten da egiaz zer den pobretasuna. Askoren artean

Paristik Havrera bitartean, presoei ez zieten ez **ogi koskorrik,** ez edontzi urik eman. Karlos Zabala

Lehenengo auzoko etxeetan **ogi-koskorrak** eskatzen zituen eta, gero, miseria harekin aberats, mahaian jartzera etortzen zen. Askoren artean

Janari urriak bukaturik, **ogi koskorrik** ere ahoratu ezin. Karlos Zabala

· Ogiari **koskorra** kendu eta ahora eraman zuen. Harkaitz Cano

## 16 *ume koskor*

Hamabi bat urteko **ume-koskorra** nintzen. Joan Mari Irigoien

36 urte izan arren, berezkoa duen **ume koskor** lotsatiaren aurpegiarekin erantzungo du berak. Berria - Kirola

**Ume-koskor** betizu baten gisa hasi zen Nora negarrez. Anjel Lertxundi

SOS Arrazakeriako buruaren ondoan, Gasteizera heldu berria zen familiaren sumindura, **ume koskorra** besoetan hartuta. Berria - Euskal Herria

Halako irribarre pikaroaz jarduna izango dela iruditzen zait, pikardia egiten ari den **ume koskor** baten antzera. Patxi Altuna

Basoan galdu den **ume koskor** izutu batena bezalako begirada zuen. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

azukre koskor (13); azukre koskor bat (5); harri koskor (26); harri koskor bat (10); herri koskor (3); ikatz koskor (4); mutil koskor (19); mutil koskor bat (5); neska koskor (11); ogi koskor (6); ume koskor (6)

azukre koskorra (5); harri koskorra (5); mutil koskorra (13); neska koskorra (10); ume koskorra (6)

belaun koskorrak (4); harri koskorrak (12); hatz koskorrak (10); mutil koskorrak (10); neska koskorrak (4)

mutil koskorrei (3)

behatz koskorrekin (5)

harri koskorren (4)

hatz koskorretan (3); mutil koskorretan (4); neska koskorretan (4)

harri koskorrez (6); hatz koskorrez (4)

---

# koskorreko *iz* buruan hartzen edo ematen den kolpea.

Anai-arrebon arteko jolas eta borrokak, aita zenaren **koskorrekoak,** ama zenaren erregaliak... Pedro Alberdi

Deporreko Joxemiri ere, ikusten baduk, emaiok **koskorreko** bat... Pablo Sastre

Atzean zuen maskaratu batek **koskorrekoa** jo zion. Pablo Sastre

---

# koskortsu *iz* koskor asko duena.

**Belaun koskortsuak** zeuzkan gizontxo zahar bat. Iñaki Mendiguren

Etxeko horma **koskortsuek** dir-dir egin zuten bat-batean. Iñaki Mendiguren

---

# koskortu, koskor(tu), koskortzen **1** da *ad* zerbait hazi. ik **koxkortu**.

Harik eta haurrak **koskortu** ziren arte. Xabier Etxabe

Txiki geratu zitzaion berehala, eta **koskortu** zenerako handiago bat erosi zuen. Xabier Etxabe

Ni **koskortu** nintzenerako baziren auto batzuk herrian. Pako Aristi

Normandiar ederraren semea aske **koskortzen** zen arrain postuen erdian. Karlos Zabala

Umea dagoeneko ez da hain umea, nahiko **koskortuta** dago. Paddy Rekalde

Ernamuina **koskorturik**. Berria - Harian

**2** (era burutua izenondo gisa)

Orduan mutil **koskortua** baino ez hintzen, baina gorputz gihartsua igartzen zitzaian. Paddy Rekalde

Inork ez zuen sukaldeko mahaian behar deabru **koskortu** bat, herraz betea. Anton Garikano

---

# koskortxo *iz*

Anemikoa ene **koskortxoa** da, argalez bizi ezin badu ere; eztulka ia hilean dagoena makaltxoa. Xabier Amuriza

---

# kosmetika **1** *iz* jakintzaren alorra, kosmetikoen ikerketaz eta industriaz aritzen dena.

Emakume amerikar **kosmetikaren** kreatura haiengan gorpuzturik. Benetako etikaz baino gehiago ari gara, apika, **kosmetikaz** ala marketikaz. Joxe Austin Arrieta

Estetika ez da **kosmetika,** eta gauzarik arruntenetan ikusten da gure izatea. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Merkealdiaren **kosmetika** garbitu bezain pronto inflazioak gora egin du, nabarmen gainera. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kosmetiko**.

Bainugela, duela aste gutxira arte **kosmetika**-laborategia ere bazena. Jon Alonso

Gasteizko **kosmetika** denda batean enplegatu soil zebilen 19 urteko neskatxa. Patxi Iturritegi

Ezohiko **kosmetika** enpresa sortu zuten Roddick senar-emazteek. Berria - Ekonomia

Denetariko **kosmetika**-tresnak. Anton Garikano

Ehorzleek eginak zituzten beren **kosmetika** lanak. Koro Navarro

---

# kosmetiko **1** *izond* kosmetikari dagokiona. ik **kosmetika 2**.

Haiexen usaina eta kerua hartu bainuen botoi gaizki jarri bati zerion lurrun **kosmetiko,** modako eta dotoretasunezkoan. Xabier Olarra

**2** irud/hed

Sindikatuaren ustez, itundutakoa «greba bertan behera uztea helburu bakarra duen operazio **kosmetikoa»** baino ez da. Berria - Euskal Herria

**3** *iz* gorputz-azalari, edertzeko, zaintzeko edo usain gozoa izateko, ematen zaion gaia.

**Kosmetikoek** eta ogi xigortuek sortarazitako usaina. Lopez de Arana

Desodoranteek eta bestelako **kosmetikoek** bularreko minbizia eragin dezakete. Bekainak ez zeuden **kosmetikoek** hondatuta. Ibon Uribarri

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kosmetiko**-fabrika baten jabea zen, eta arazoak omen zituen ezpain-margo mota batekin. Juan Garzia

Igaro zenean, **kosmetiko** usain sarkorra usaindu nion. Juan Kruz Igerabide

Normalean jantzi ilunak erabiltzen zituen, eta **kosmetiko** arrastorik ez nion inoiz antzeman. Koro Navarro

---

# kosmetizatu, kosmetiza, kosmetizatzen du *ad* kosmetikoekin (irudizko adieran) tratatu.

The american way of life: bizitza **kosmetizatzeko** saio bat omen, baina bizitzak uzten ez, nonbait, bere burua **kosmetizatzen..**. Joxe Austin Arrieta

---

# kosmiko **1** *izond* kosmosekoa, kosmosari dagokiona. ik **kosmos 3**.

Espazio **kosmikoa**. Juan Garzia

Hauts **kosmikoa** ale xehetan bilduko zen, aleak legarretan, eta aurki harritxo bilakatu, gero harri gero eta koxkorrago, planeta txiki. Juan Garzia

Materia **kosmikoa** erakartzen eta bereganatzen duen zuloa. Berria - Gaiak

Izpi **kosmikoen** jatorria aurkitu omen dute astronomoek. Berria - Gaiak

Izar hurbilak, quark hondogabeak, zulo **kosmiko** erraldoiak. Itxaro Borda

Bigarrena maila **kosmikoa** da, astroak kokaturik dauden esferena. Xabier Kintana

**2** irud/hed

Amodioaren indar **kosmiko** guztia. Iñaki Segurola

Tomas Akinokoak silogismo jainkotarrez ukatu nahi zuen hondogabetasun **kosmikoraino**. Juan Garzia

Adimenok eragin erabakigarria dute gure munduan, eragin **kosmikoa** (inondik ere ez astrologikoa!). Xabier Kintana

Orgasmo **kosmiko** baten antzekoa. Luis Elberdin

Nire damua guztizkoa da, **kosmikoa**. Karlos Linazasoro

**3** (hitz elkartuetan)

Hinduismoaren ikuspegi **kosmiko**-erlijiosoa. Fernando Morillo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ikuspegi kosmiko (3)

---

**kosmikoki** *adlag* ikuspuntu kosmikotik.

Pertsona bakoitzak, ez Jainkoak edo jainkoek, erabakitzen du **kosmikoki** berarentzat zer den onena. Berria - Gaiak

---

kosmo ik **kosmos**.

---

**kosmobisio** *iz* kosmosaren ikuskera.

Identitatea, ideologia edo **kosmobisioa** izan daitekeela ukatu gabe, zuretzat euskara, batez ere, estetika da. Berria - Euskal Herria

Garai bakoitzak egiten dituen aukeren katalogo batek garai horren beraren **kosmobisioaren** deskripzio bikaina eskainiko luke. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Behialako **kosmobisioaren** arrautza handia erdibitu egin da: alde batean mundua (mekanikoa orain!), objektua; bestean subjektua, pentsamendu razionala. Joxe Azurmendi

---

**kosmodromo** *iz* espazio ontziak aireratzeko jaurtitze plataforma, bereziki sobietarra.

Kazajistango Baikonur **kosmodromotik** abiatu zen [...] eta Errusiako Espazio Agentziako astronauten esanetan, arazorik gabe sartu zen orbitan, aireratu eta bederatzi minutu geroago. Berria - Gaiak

Soyuz TMA-8 espaziontzia Nazioarteko Espazio Estaziora (ISS) bidali zuten atzo Baikonurgo (Kazajistan) **kosmodromotik**. Berria - Gaiak

---

**kosmoforo** *iz*

Izaki **kosmoforoak** gara, bai gu bai nire landare maiteak ere. Karlos Linazasoro

---

**kosmogonia** *iz* munduaren sortzeari buruzko teoria, mitologia nahiz jakintza bidezkoa.

Nik bilatu nahi dudan filosofiak **kosmogonia** bat izan behar du lehendabizi, munduaren osaketaren hipotesi arrazional bat. Josu Zabaleta

**Kosmogonia** modernoak ere, unibertso mudagaitz baten, denbora itzulgarri baten ideiaren lekuan, etengabe berrantolatzen den eta historiaren esku dagoen unibertso batena ipini du. Juan Garzia

Euskal literaturak euskaldunon idiosinkrasia, euskaldunon **kosmogonia,** euskaldunek munduarekiko duten harremana eta mundu ikuskera islatzen duen adiera izan beharko luke. Ana Urkiza

Maitagarri-ipuin bat, mitoaren zentzu harrigarriz egina: magia, animismo eta **kosmogoniaz** beteriko mundu bat. Xabier Olarra

Abismoan zabuka ari gara, **kosmogonia** infinitu honen altzoan. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
euskal kosmogonia (6)

---

**kosmogoniko** *izond* kosmogoniari dagokiona.

Zu akaso ez zara izaki **kosmogoniko** sentituko, baina ni, lorategi infinituak zaintzen ditudanean, arrosak eta gladioloak, pentsamenduak eta liliak, halako sentitzen naiz. Karlos Linazasoro

---

**kosmogonista** *iz* kosmogonian aditua den ikerlaria.

Behin kalkulu-bide horretatik abiatu ondoren, astronomo hasiberriak kontuan hartzen hasi ziren ez eguzkia eta ilargiaren mugimendu ziklikoak bakarrik, baita planeta eta izar "finkoenak" ere, eta haien horizonte kronologikoa adierazterraza ez den eta imajinatzen are zailagoa den distantziaraino iritsi zen, nahiz eta **kosmogonista** moderno bati oso estua iruditu, horren begietara gure eguzki-sistema partikularra ez baita Esne Bidean izar-hautsezko orbantxo bat baizik, eta Esne Bidea bera ez da *ci-devant* nebulosa bat baino gehiago, sugarrezko jaiotzatik azken errauspenerako bidean doazen milioika nebulosen artean. Iñaki Mendiguren

---

**kosmografia** *iz* munduaren deskribapena, astronomiaren ikuspuntutik egina.

Komeni da gogoratzea, aldiz, lehenengo zazpi liburu "arkitektonikoen" ondoan, beste hiru azkenekoetan ere Errepublikaren amaiera garaiko ingeniari erromatar baten jardueraren alderdi guztiz definituak jasotzen direla modu erabat koherentean (hidraulika, **kosmografia** eta astrologia eta *machinatio* deitua [...]), eta anakronismo larria izango litzatekeela liburu horiek beste aurrekoen eskrezentzia huts eta apenas justifikatu bezala hartzea Santiago Iruretagoiena

---

**kosmolari** *iz* astronauta.

Ipar-Amerikanoek urtarrilaren 16-an igorria zuten espazio-untzia, zazpi **kosmolari** edo astronauta barnean, bat-batean zartatu da eta dena xehatu lurrerat berriz heltzeko keinkan, joanden larunbatean... Herria

---

**kosmologia** **1** *iz* astronomiaren adarra, unibertsoaren lege orokorrak, etorkia eta bilakaera aztertzen duena.

Zientziaren teoriarekin batera, Aristotelesen Fisikak, ordu arte onartutako **kosmologia** bibliko fantastikoa zerbait hoberekin ordezteko aukera eskaintzen zuen. Askoren artean

**Kosmologia** berriarekin, unibertsoa, galaxiak, izarrak, elementuak, partikulak, zein bere historiaren jabe egin dira. Juan Garzia

**Kosmologian** gamma izpiak beti izan dira azaltzeko gaitzak. Berria - Gaiak

Unibertsoaren jatorria eta bilakaera: **kosmologiaren** erronka. Berria - Harian

**2** mundu fisikoa gobernatzen duten lege orokorrei buruzko filosofia.

Gaia filosofikoagoa da zientifikoa baino, gertuago dago **kosmologiatik** biologiatik baino **Kosmologia** eta biologia osatuko dituen sintesi bat nahi duzu zuk; Unibertso fisikoaren eta moralaren azalpen bat. Xabier Arregi

## **kosmologiko** *iz* kosmologiari dagokiona.

Gure sentsuak eta gure burmuina, ordea, ez daude hautetsiak elektroiaren tasunak edo galaxien arteko distantziak edo denbora **kosmologikoak** hautemateko. Juan Garzia

Berilioa erloju **kosmologiko** moduan erabiltzeko teoriak indar handia hartu du azkeneko hamarkadetan. Berria - Gaiak

Maimon [...] Jainkoaren beste ikuskera batekin aurkezten zaigu, Jainkoaren ikuskera **kosmologikoarekin** ez, baina ontologikoarekin. Ideia **kosmologikoen** sistema. Xabier Kintana

Idealismo transzendentala Dialektika **kosmologikoaren** konponketarako gako gisa. Ibon Uribarri

Jainkoaren izatearen froga **kosmologikoaren** ezintasunaz. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ideia kosmologiko** (5)

**ideia kosmologikoak** (5)

**froga kosmologikoaren** (3); **ideia kosmologikoaren konponketa** (4); **totalitatearen ideia kosmologikoaren** (4)

**ideia kosmologikoen** (4)

---

## **kosmologo** *iz* kosmologian aditua.

**Kosmologoak** deabruaren eskolan ikasten dutenen defentsa sutsua egiten segitzen du. Anjel Lertxundi

Garaia zen norbaitek argi esateko gaur egungo **kosmologoen** teoria guztiak esperimentuen eremutik haratago irteten direla eta horrek metodo sendorik gabe uzten gaituela. Berria - Gaiak

---

## **kosmonauta** *iz* astronauta.

Ilargiko hautsa zapaldu zuen lehenengo **kosmonautak** Vladimir Vronski zuen izena. Iban Zaldua

---

## **kosmonautika** *iz* astronautika.

**Kosmonautikaren** Eguna ospatu zuten atzo Errusian, ohorez. Berria - Gaiak

---

## **kosmopolis** *iz* biztanleria handiko hiria, herrialde askotako biztanle kopuru handia biltzen duena.

Zein dira *pólis*aren mugak? lurraldea, Lurra? **kosmopolisean** ala telepolisean bizi gara? Askoren artean

Herriaren arazoak edo, grekoek zioten bezala, arazo "politikoak" argitzen baldin baditugu gure Ziutatean, ikasiko dugula, bide batez, Munduaren edo **"Kosmopolis"aren** arazoei buru egiten? Piarres Xarriton

Frantzian zelarik, haren nafar itxurak galdu zuena irabazi zuen haren goxotasun erakargarriak; bereziegia eta berekoiegia zuena ordezkatuz orokorragoa eta gizatiarragoa zenarekin, gure Doktor miresgarria bilakatu baitzen nolazpai horrela **Kosmopoliseko** hiriritar zintzoa Piarres Xarriton

---

## **kosmopolita** *(orobat* ***kosmopolito*** *g.er.)* *izond* zeinahi herriko ohituretara erraz egokitzen dena.

Gu beti izan gara **kosmopolita** samarrak. Jokin Urain

Beti izan da hau hiri **kosmopolita,** jatorri askotako jendearen biltoki. Xabier Mendiguren Elizegi

Orduantxe ikasi baitzuen Donostiak hiri modernoa, irekia eta **kosmopolita** izaten. Askoren artean

Brooklyn unibertso **kosmopolita** da. Harkaitz Cano

Hemezortzigarren mendeko eraikin apal ederrak, europar zibilizazio **kosmopolitaren** distiraz iparraldeko gau zurian. Xabier Olarra

Inkesta horrekin, gero-eta **kosmopolitoagoa** den euskal gizarte hunen argazki sozial-kulturala nahi da neurtu. Herria

Florentziako handitasun **kosmopolitan**. Xabier Olarra

Amona sentitu nuen hizketan, arin eta neurritasun **kosmopolitarekin,** polizietako bati eskatuz lagun ziezaiola leihoa ondo ixten. Anjel Lertxundi

Gogoratu zitzaidan **kosmopolita** eta *bon vivant* agertzeak on eginen ziola gure gau hasierari. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hiri kosmopolita** (5)

---

## **kosmopolitismo** *iz* izaera edo joera kosmopolita.

Errealismo sozialistarako atxikimendu gutxiegi, **kosmopolitismo** gehiegi eta kultura burgeserako arreta sobera sumatzen zioten Pasolini idazkariari. Josu Zabaleta

Gabilondo ez zen **kosmopolitismo** sutsuak bereganatuko zuen pertsona klasea. Askoren artean

---

## kosmopolito ik **kosmopolita**.

---

## **kosmopolitta** *iz adkor* kosmopolita.

Asuntoa da muga bat jartzea, muga bakar bat mundu zabalean, eta bi estatu sortzea, bi estatu bakarrik mundu zabalean, bata **kosmopolittentzat** eta bestea euskalpolittentzat. Iñaki Segurola

---

## **kosmos** *(orobat* ***kosmo*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kosmos*** *agertzen da)* **1** *iz* unibertsoa, sistema egituratutzat hartua; Lurraz kanpoko espazioa.

**Kosmosa,** bere konplexutasun guztiarekin ere, batasun integrala da. Xabier Kintana

Antzinatean uste zenez, lau ziren **kosmosa** osatzen zuten elementuak: airea, lurra, ura eta sua. Xabier Kintana

Erdi Aroan ohikoa zen ikusmoldearen arabera, **kosmosak** hiru parte edo maila ditu. Xabier Kintana

**Kosmosean** ordena bat dago, harmonia bat, dena baitator harreman matematikoek lotua. Askoren artean

Atomoaren mundu mikroskopikoan grabitatea neurtezina da; **kosmosean**, ordea, unibertsoaren egitura grabitateak sortu du, galaxiena ere bai, eta **kosmosaren** eboluzioa orokorrean. Berria - Gaiak

Gizakiaren lekua **kosmosean**. Askoren artean

Ez al zen kaosa edo ilunpeetako leize neurrigabe hura, **kosmosa** edo mundu antolatua baino lehenagoko zerbait? Iñaki Segurola

Noizean behin, Phobos Marteren ilargi handiena hurbiltzen zaio **Kosmosaren** ilun sakonetik, ilunpeko printzearen modura, eta 200 kilometroko distantziara pasatzen da. Berria - Gaiak

**Kosmosaren** eta kaosaren arteko borroka gisa kontatu zen harrezkeroztik munduaren historia. Jon Muñoz

Kristina **kosmosarekin** bat egin beharraz kalakatzen zitzaidan. Aingeru Epaltza

Lukrezioren **kosmoa** ere suntsigarria da: gai honetan ez du gezurrezko kontsolapenera leramakeen engainurik nahi. Xabier Amuriza

**2** (izenondoekin)

Ikuspegi historikoak **kosmos** fisikoaren mugimendu zentrifugoa erakusten digu espazio-denboraren lau dimentsioko markoan. Iñaki Mendiguren

Edonola ere, maizago, **kosmos** ilun eta sakonetik iristen zaizkigu gamma izpietako flash laburrak eta ez dago argi nondik datozen. Berria - Gaiak

**3** irud/hed

Era berean, izaki oro berez **kosmos** bat ere bada. Askoren artean

Eta azken helburua, **kosmos** psikikoaren harkaitz-hondoraino iristen saiatzean, Jainkoaren -sakon-sakonean bizi denaren- ikuspen osoagoa lortzea litzateke. Iñaki Mendiguren

Gorputzaren usaina, izerdi-usaina, galarazia dago, kirats bat da, kaos ttiki bat, kosmetikaren **kosmosak,** ordenak eta antolamenduak menderatu beharrekoa. Iñaki Segurola

Azaltzen diren espazioetatik esanguratsuena dugu Izeko Rosaren jostundegia, bertan istorioak josten dira eta emakumeak dira istorio horien **kosmosa** sortzen dutenak. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kosmiko.**

Dudarik ez dago senti daitekeen horizonteko **kosmos**-parteak gure garunean duen ispilatzearen ondorioa dela ezagutzen dugun mundua. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kosmos osoaren** (5)
> **kosmosarekin bat** (3)
> **kosmoseko haurra** (3)

---

# kosmostxo *iz* kosmos txikia.

Zientziak bezala, gizakiok osotasunaren esparru bat zedarritu eta bertan **kosmostxo** bat sortzen ahalegintzen gara; baina zeinen hauskorra den oreka gune hori, zelako danbatekoak datozkion anitzez gogorragoak diren indar kaotiko ilunetarik... Markos Zapiain

---

# kosmoteologia *iz*

Teologia transzendentala edo jatorrizko zerizanaren izatea oro har esperientzia batetik eratortzea pentsatzen duena da [...], eta ***Kosmoteologia*** izena du, edo bere izatea adigai soilen bitartez esperientziaren laguntzarik gabe ezagutzen duela sinesten du, eta *Ontoteologia* deitzen zaio. Ibon Uribarri

---

kosovar ik **kosovoar.**

---

# kosovoar *(orobat **kosovar** g.er.)* **1** *izlag/iz* Kosovokoa, Kosovori dagokiona.

**Kosovoar** anderea aske utzi dugu. Berria - Mundua

Annetta Flanigan irlandarra, Angelito Nayan filipindarra eta Shqipe Hebibi **kosovoarra** «osasun onean» zeudela zehaztu zuen Afganistanen zabaldutako nazioarteko indarren eledun batek. Berria - Mundua

**2** Kosovoko herritarra.

**Kosovoarrak,** kurduak, timortarrak inongo errukirik gabe akabatzen badituzte, Nazio Batuetan eserleku bat izateak ematen duen babesa falta zaielako da. Markos Zapiain

Bonbetatik traktoreetan eskapo zihoazen 70etik gora **kosovoar** iheslari hil zituzten NATOko hegazkinek Jakova-n, zibilak guztiak. Iñigo Aranbarri

Serbiarrak diren **kosovoarrak** aukera hori onartuko dutela uste al duzu? Berria - Mundua

**3** ***albaniar****(orobat* ***albano****)****-kosovoar***

Annetta Flannigan irlandarra, Shkipe Habibi **albaniar-kosovoarra** eta Angelito Nayan filipinarra. Berria - Mundua

Joan den larunbatean biriketako minbiziak jota hil zen Ibrahim Rugova Kosovoko presidentea eta independentista **albaniar-kosovarren** burua. Berria - Mundua

Europa ekialdeko **albano-kosovar** taldeak edo Espainiako gaiztagin arruntak izan daitezke egileak. Berria - Euskal Herria

**4** ***kosovoar-albaniar***

1999ko martxoan, Kosovoko gerraren garaian, 48 **kosovoar-albaniar** tiroz hil izana leporatu diete Serbiako segurtasun indarretako zortzi kide ohiri. Berria - Mundua

**Kosovoar-albaniarrek** nabarmentzen dute tokiko boterea dezentralizatzean zatiketa etnikoak eta enklabeen sorrera saihestu nahi dituztela. Berria - Mundua

---

# kosta[1] **1** *iz* itsasaldea, itsasbazterra. ik **kostalde.**

Mediterraneo **kosta** hozten zuen haizea. Pello Zabala

Ederrena, ordea, [...] Djidjelli-rainoko **kosta** zen: hainbat kilometroko labarralde amiltsua. Jon Muñoz

Kartagotarrek kokaleku handiak zituzten **kosta** haietan. Iñaki Iñurrieta

Zingira horiek itsasertzeko **kosta** baino garaiago baldin badaude. Santiago Iruretagoiena

Andeetako **kosta** eta goi-ordokia. Iñaki Mendiguren

Mauritaniak bi mila kilometro **kosta** ditu. Berria - Mundua

Autopistako hotel batean lo egingo dut, **Kosta** Urdinetik gertu dagoen bat daukat gogoan. Mikel Hernandez Abaitua

Kolonbiako **kosta** atlantikoan. Joseba Sarrionandia

Hiru hilabete behar izan zituzten Frantziako **kosta** garbitzeko. Berria - Gaiak

42 milioi litro erregai isuri zituen ontziak eta 2.080 kilometroko **kosta** kutsatu zuen. Berria - Gaiak

Frantses bidea izenekoa bata, [...] eta Kostaldeko edo Iparraldeko bidea bestea, Lapurdiko, Gipuzkoako eta Bizkaiko **kosta** zeharkatzen duena. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Miarritze, eder aldetik, berak maiteen zituen eta paristarrentzat ezagunagoak ziren Normandiako **kosta** herriekin alderatzen du. Koldo Izagirre

**Kosta** -herrikoa naiz, baina ez dut harremanik izan itsasoarekin. Andoni Egaña

Apenas mintzatu ziren hizkuntza eta kulturaz, baina **Kosta** Legea aipatu zuten. Berria - Mundua

Getari aldeko **kosta** bazterretik. Pello Zabala

Mediterraneo itsasoaren mendebal bazterreko **kosta** inguruak. Pello Zabala

Bideak **kosta** inguruko gainetatik egiten zuen, mendia ebakiz. Ramon Saizarbitoria

Lapurdi **kosta** hegiko gazteen etxe bizitzak. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Afrika Kopako lehian ere, Boli **Kosta** nagusi. Berria - Kirola

**4** ***kostaz kosta***

Arriskutsua ordea, **kostaz kosta** Hondarribiraino joateko ideia on hura. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kostako bidea** (5); **kostako herri** (8)
>
> **bretainiako kostan** (4); **ekialdeko kostan** (4); **kostan bizi** (5); **mendebaldeko kostan** (8)

---

## kosta[2] **1** *iz ipar* saiheskia.

Arroltze moleta makallauarekin, idi **kosta,** entselada, ardi gasna, etxe bixkotxa, kafea eta patxarana. Herria

**2** saihetsa.

-Sarako etxeko jaun bat -erantzun zion, Monduteguyren ukondoa bere **kostetan** joka sentitu zuenean. **Kosta** hezurretan bizpahiru ostiko eman zizkidan eta dolorez oihuka hasi nintzen. Elena Touyarou

---

kosta[3] ik **kostatu**.

---

## kostadu *iz* itsasontziez mintzatua, alboa.

Galdara presiorik gabe dago, makinako pistoiak geldirik daude, urrunera beha zaude blankura atzemateko ahaleginean eta halakorik batean ohartzen zara ez dituzula bagen plastakoak entzuten **kostaduan,** kaioen txilio urruna sumatzen duzu bakarrik soinuezaren handiaz jabetzeko: itsasoa oliotu egiten denean bezalako isiltasun hori plazan, galerna zetorren. Koldo Izagirre

---

## kostalde *(1353 agerraldi, 95 liburu eta 714 artikulutan; orobat **kosta alde** 33 agerraldi, 6 liburu eta 6 artikulutan)* **1** *iz* kostako aldea, kosta.

**Kostalde** guzian, itsasoaren bazterrez-bazter badira biziki toki pollitak. Herria

Badu bost ehun urte euskaldun arrantzale batzu abiatu zirela Ipar-Ameriketako **kostalde** batzuetarat, bereziki Ternuarat. Herria

Frantziako **kostaldeko** herritxo bat. Josu Zabaleta

Bizkaiko **kosta** aldeko zenbait herri eta parajetan. Pello Zabala

Lofodengo **kostaldea** begien bistan nuela. Koro Navarro

Amerikako Atlantikoko **kostaldean**. Julen Gabiria

**Kostaldeko** informazioak jakin-mina sortzen du udaldean, baina baita barnealdekoak ere. Pello Zabala

**Kostaldetik** joan naiz. Txillardegi

Udaldia **kostaldeko** herriren batean igarotzeko ohitura. Pedro Alberdi

Gero, **kostaldeko** lurraldeetara joko du eta haietako asko hartuko ditu menpean. Elizen arteko biblia

Frantziak atlantikoko uharteak eta **kostaldea** gotortu behar izan zituen ingelesen balizko erasoari aurre egin ahal izateko. Jon Muñoz

**Kostaldean** bi graduren jiran, eta barrualdean hiru, hortxe-hortxe, jaisten da hotz-beroa. Pello Zabala

**Kostaldez kostalde** ibiltzera ohituak, **kostaldeko** gorabeherei egokituak. Felipe Juaristi

Pentsatzen dut **kostaldekoek** gauza bera esan nahiko dutela maskor barruan itsasoa adi daitekeela esaten dutenean. Alberto Barandiaren

**2** irud/hed

Gure arrazoimenaren bidaia etengabe luzatzen diren esperientziaren **kostalderaino** soilik jarraitzeko. Ibon Uribarri

**3** (izenondoekin)

Ederra izan behar zuen **Kostalde** Urdinak turismoz bete baino lehen. Mikel Hernandez Abaitua

Beste modurik ez dago **kostalde** magiko horiek topatzeko. Julen Gabiria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiritik sei kilometrora dagoen Yera herrixkan gora egin ostean, han aurkitzen zen **kostalde** -turismo gune isil eta bakartia. Aritz Gorrotxategi

Orduko, Amerikako azken **kostalde** -muturra ere, Long Island, aienatua zen. Joxe Austin Arrieta

Legezko ikerketak egin ondoan, prefetak finkatu ditu **Kostalde** hegoaldeko herri-erkidegoak ukanen dituen mugak. Herria

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Michelle Cressent, zenbait urte hautan euskal **kostalde** huntan bizi dena. Herria

Uhartearen hego- **kostaldeko** urbanizazioek larregi argitutako hiri insomne baten atalak ziruditen. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ekialdeko kostaldea** (4); **euskal herriko kostaldea** (4); **kostaldea zaintzeko** (4)
>
> **bizkaiko kostaldean** (4); **euskal kostaldean** (8); **galiziako kostaldean** (10); **kostaldean bizi** (10); **kostaldean dagoen** (7); **lapurdi kostaldean** (6); **mendebaldeko kostaldean** (7)
>
> **kostaldearen egoera** (6); **kostaldearen eta barnealdearen** (4)
>
> **euskal kostaldeko** (16); **kostaldeko autobide** (10); **kostaldeko bidea** (8); **kostaldeko herri** (15); **kostaldeko hiri** (9); **kostaldeko kantari** (5); **kostaldeko kantu festibala** (6); **kostaldeko musikaldi** (15); **kostaldeko musikaldi nagusiaren** (7); **kostaldeko musikaldiaren** (5); **lapurdi kostaldeko** (5)
>
> **bizkaiko kostaldera** (4); **kostaldera iritsi** (5)
>
> **kostaldetik gertu** (4); **kostaldetik urrun** (5); **kostaldetik urruntzeko** (5); **ontzia kostaldetik urruntzeko** (5)

---

kostalet ik **kostelet**.

---

**kostape** *iz* kosta azpia.

Alde egiteko handik, berdin zen txalupa kateatua egotea edo **kostapean** lehorreratua, helize berriaren zain zegoen Ondarrurenera ere ez zieten uzten. Koldo Izagirre

**Kostapean** karnatarako zizare bila. Murgilean arakatu ohi zituen **kostapeko** arrokak bezain lauso hartzen zituen hitzak. Koldo Izagirre

---

kostar ik **boli****kostar**.

---

**kostarik** **1** *adlag* kostaturik. ik **kostata.** (izenlagun baten eskuinean)

Eta azterketa zerbait egin baledi haren aurka, egin den bezain luzaz eta hainbeste **kostarik** eta hainbeste artarekin, erromatar haiek berek erranen dute, gutiago **kostarik** eta arta gutiagorekin eta lasterrago eta hobeki ikus daitekeela Carranza beti katoliko zintzo izan dela. Piarres Xarriton

Oroitzen naiz zenbat **kostarik** atera genuen unibertsitatean erakundearen urrezko dominak ematea Laboa, Lertxundi eta Artze anaiei. Pello Salaburu

Ederki **kostarik** ulertu nuen "no se retrató" ulertzen zuela berak "no se retractó" ulertu beharrean. Pello Salaburu

**2** *kostarik kosta* ik **kostatu.**

---

**kostata** **1** *adlag* kostatuta. ik **kostarik.**

**Kostata,** bidean behin baino gehiagotan galdu baitziren, aurkitu zuten Jacquesen hilobia. Felipe Juaristi

**Kostata** atera zuen apaletik, oso astuna baitzen. Iñaki Mendiguren

**Kostata** zutitu nintzen. Xabier Montoia

Giltza sarrailan sartu du, **kostata**. Sonia Gonzalez

-Ez dio inporta -atera zitzaidan niri, **kostata**. Xabier Mendiguren Elizegi

Jacques, **kostata** baina, ohartu zen egoera hartan abokatuek ez zutela zer eginik. Felipe Juaristi

Armiarma da arkitektorik jeloskorrena, euli batek bere eraikin **kostata** egindakoa zapaldu orduko, armiarmak euliarengana jotzen baitu, eta hil ondoren jan. Felipe Juaristi

**2** (adizlagun baten eskuinean)

Hainbeste **kostata** irabazitako dirua ez ziola kalean barra-barra botatzeko emango. Irene Aldasoro

Belaunaldi hartako amek badakite zenbat **kostata** hazi zituzten umeak. Arantxa Iturbe

Hiletaren batera joango zan, noiz edo noiz, ez gitxi **kostata**. Xabier Amuriza

Asko **kostata** lortutako eskubidea. Arantxa Iturbe

Asko **kostata** bada ere, kanpora atera zuen Scabbers isatsetik helduta. Iñaki Mendiguren

Mahai luze batera igo nintzen (oso **kostata)**. Txillardegi

Ondo **kostata** egin nuen lehen urratsa. Joxerra Garzia

Ozta-ozta asmatu zuen esaten Amyren tamainatsukoa zela (eta, hori ere, ederki **kostata**). Xabier Olarra

Galanki **kostata** baina nola-hala bidali dute. Iñaki Segurola

Patxi Zaharra ni lanean hasi eta berehala hil zen, majo **kostata** izan bazen ere. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asko kostata** (18); **ederki kostata** (17); **kostata egin** (11); **kostata hartu** (9); **kostata irabazi** (26); **kostata irabazitako** (4); **kostata izan** (6); **kostata lortu** (12); **kostata lortu zuen** (7); **ondo kostata** (11); **oso kostata** (6)

---

**kostatar** **1** *iz* kostaldeko biztanlea.

Nik, **kostatar** huts honek, kresal giroa ezagutzen nuen, eta amairik gabeko langar isila. Txillardegi

Getaria-ko elizan meza osoki euskaraz larunbat arrats guziez 6-etan, urtarriletik goiti, nahi duten **Kostatar** guzientzat. Herria

**2** boli-kostatar ik **bolikostar.**

---

**kostatu**, kosta, kostatzen *(orobat **kosta**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kostatu** agertzen da)* **1** zaio *ad* neketsua edo zaila gertatu.

**Kostatu** zitzaion erantzutea. Berria - Kultura

Soinuaren bidez mintzo izan den gizonari **kostatzen** zaio orain musikarik gabe hitz egitea. Pako Aristi

Perretteri **kostatu** egiten zitzaion barreari eustea. Jon Muñoz

Egongelako sofan eseri ginen, eta **kostatu** egin zitzaigun elkarrizketa bideratzea. Juan Kruz Igerabide

**Kosta** zitzaien hangoei herriak atzera itsuroso ipintzen. Pello Zabala

Gaurko mundua ikusita, **kostatu** egiten da sinesten, baina, hala badiote, hala izango da noski. Joxerra Garzia

Eta zenduari **kosta** egiten zitzaion zeruan hobeto egon zitekeenik pentsatzea. Bernardo Atxaga

**Kostatu** zait, baina tira. Xabier Mendiguren Elizegi

Zergatik **kostatzen** zaigu hainbeste norbaiti beraz maiteminduta gaudela esatea? Pako Aristi

Gorputza oso harturik dagoenean, loa uxatzea **kostatzen** zaio. Imanol Unzurrunzaga

**Kostatzen** da irazekitzen, baina gero bero handia ematen du eta luzaroan irauten. Juan Garzia

**2** (adizlagun baten eskuinean)

Asko **kostatu** zait, izerdi eta negar asko **kostatu** zait honen aske izatera iristea. Josu Zabaleta

Idoiak berehala hartu zuen lo, baina niri asko **kostatu** zitzaidan. Beharbada, asko **kostatzen** zaio kontzentratzea ere. Juan Kruz Igerabide

Asko **kosta** omen zen ospakizun hauek denean ezartzen eta itsasten. Pello Zabala

Berez, ez zitzaidan askorik **kostatu** familia agurtzea. Anjel Lertxundi

Muga pasatzea ikaragarri **kostatu** zitzaigun. Bernardo Atxaga

Begoña alboan zirika eta marmarka nuelarik, majo **kostatu** zitzaidan ideiak ordenatzea. Patxi Iturritegi

Hizkuntza batetik bestera pasatzea ez zait batere **kostatzen**. Ana Urkiza

Ez dakit nola **kostatu** zitzaigun hainbeste horretaz ohartzea. Joxerra Garzia

Hainbeste **kostatzen** zitzaizun pieza al zen hori? Anjel Lertxundi

Zenbat **kosta** zaizun erabakitzea! Antton Olano

Zaintzaileei galdetu zien ea batzordekorik bazen aretoan, eta, asko **kosta** eta gero, zaintzaile batek Beirne andereño izeneko emakume txiki bat ekarri zuen. Irene Aldasoro

**3** lortzeko halako diru kopurua ordaintzea beharrezko izan.

Libra erdi te 350 florin ordaintzen da; [...] gurina libra 35 florinetan dago, eta arrautza bat 1,45 **kostatzen** da. Josu Zabaleta

Bost knut **kostatzen** zen koilarakada. Iñaki Mendiguren

Ea zertarako balio zuen, zenbat **kostatzen** zen. Juan Garzia

Nik muntaiak zuzentzen ditut, milioiak eta milioiak **kostatzen** direnak. Joxe Austin Arrieta

Hogei duro; horixe **kostatzen** zaio Isidorari lapur txikiari barkatzea. Pako Aristi

Gutako bakoitzaren bidaia berrehun mila pezeta inguru **kostatu** omen zaio zergadun espainolari. Bernardo Atxaga

Ekartze hutsa, mila duro **kosta** zaio. Patziku Perurena

Enpresari 1,7 milioi euro **kosta** zitzaion. Berria - Ekonomia

Dirutza **kostatu** zitzaioan; hartan gastatzen zian Elgar-ek irabazten zuen guztia. Jon Muñoz

Oraingoan taxia lau dolar besterik ez zitzaigun **kostatu**. Jon Muñoz

**4** (adizlagun baten eskuinean)

Poliki **kostatu** zen; baina gastu pixka bat egiteak izaten du bere arrazoia, batzuetan. Irene Aldasoro

Nik erosten nuen janaria, eta dena gutxi **kostatzen** zela iruditzen zitzaidan. Fernando Rey

**5** (beste kopuru batzuekin)

Hamar bat segundo **kosta** zitzaien broma ulertzea. Bernardo Atxaga

Zenbait hilabete **kostatu** zitzaidan agindu moralak erreprimitzea eta beharrezko teknikak ikastea. Juan Garzia

Denbora asko **kostatu** zitzaidan konturatzea arrazoi zuela. Mikel Hernandez Abaitua

**6** (era burutua **kosta izan** forman)

Gidatzen hastea asko **kosta izan** zait. Berria - Harian

Eta ez zaie gutxi **kosta izan**. Edorta Jimenez

Auskalo zenbat izerdi eta neke **kosta izan** zaion Ibixa anaietan zaharrari orain zeukan sasoi puntura iristea. Berria - Kirola

Hortik landa datozen kapitulu guztiek erakusten dute zer **kosta izan** zitzaion Martin Azpilkuetari [...] Inkizisioaren eta Estatu boterearen aurka, Erromako elizaren eskubideak zaintzea. Piarres Xarriton

**7** ***kosta ahala kosta*** *adlag*

**Kosta ahala kosta,** kultura hizkuntza bilakatu behar zen euskara. Badira **kosta ahala kosta** betiereko gaztetasunaren bila abiatzen direnak. Koldo Zuazo

Gutun hori **kosta ahala kosta** eskuratu behar dinat! Karlos Zabala

Ulertzen hasia zen alkateak **kosta ahala kosta** nahi zuela printzesa. Felipe Juaristi

Bezperako kapitaina aurkitu zuenean, zakuen jabea lehenbailehen eta **kosta ahala kosta** ekartzeko agindu zion. Patxi Zubizarreta

Zuhaitzek hatzak zerura altxatuak zituzten, zurezko hariak bizitzari eutsi nahi ziotenak **kosta ahala kosta**. Felipe Juaristi

Aurkitu behar diat **kosta ahala kosta**! Karlos Zabala

**Kosta ahala kosta,** gora Aosta Anjel Lertxundi

**8** ***kosta lain kosta*** *adlag* kosta ahala kosta, kostarik kosta.

**Kosta lain kosta** behar dugu Lakda atzeman. Xabier Montoia

Aise ahanzten baitzaie zer den **kosta lain kosta** saihestu behar dena. Markos Zapiain

Ez dakite zer den sortzaile izatea, baina, hori bai, sortzaile izan nahi dute **kosta lain kosta**. Baietz erabaki genuen, stadiumaren eraztun obalatuaren barnean zeuden guztiak kontatu behar genituela, mainaz eta **kosta lain kosta**. Bernardo Atxaga

**9** ***kostarik kosta*** *adlag* kosta ahala kosta.

Atxik, **kostarik kosta,** eta salbatua haiz. Piarres Aintziart

Hobe nuen beraz baleki-bale eta **kostarik kosta** ene sailera itzultzea, Orduz geroz, badakigu zein zaila den beren subiranotasuna **kostarik kosta** zaindu nahi duten estatu handi ala tipien eragozpenak gainditzea. Daniel Landart

Sarkozyk finkatu duen helburua **kostarik kosta** bete nahi du Poliziak, eta, horretarako, kopurua da garrantzitsua, jendearen egoera kontuan hartu gabe. Berria - Euskal Herria

Ez zekien nola, ez noiz, baina arazo haren argitzera helduko zen, **kostarik kosta**. Elena Touyarou

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**asko kosta** (28); **asko kosta zitzaion** (6); **dezente kosta** (6); **egitea kosta egiten** (5); **gehiago kosta** (22); **gehiago kosta zitzaion** (9); **hartzea kosta** (5); **kosta ahala kosta** (213); **kosta ala kosta** (8); **kosta egin** (110); **kosta egin zitzaidan** (15); **kosta egin zitzaion** (37); **kosta egingo** (20); **kosta egiten** (212); **kosta egiten da** (33); **kosta egiten zaio** (24); **kosta izan** (11); **kosta lain kosta** (11); **kosta zaio** (22); **kosta zait** (9); **kosta zitzaidan** (11); **kosta zitzaien** (20); **kosta zitzaigun** (4); **kosta zitzaion** (31); **kostarik kosta** (15); **onartzea kosta egiten** (4); **sartzea kosta** (4); **ulertzea kosta** (4)

**asko kostako** (19); **asko kostako zaie** (6); **gehiago kostako** (4); **kostako balitzaio bezala** (5); **kostako da** (14); **kostako dela** (7); **kostako zaie** (16); **kostako zaigu** (7); **kostako zaio** (15); **kostako zait** (4); **kostako zitzaion** (4); **milioi euro kostako** (7)

**asko kostatu** (63); **asko kostatu zaio** (8); **dezente kostatu** (4); **ederki kostatu** (6); **gehiago kostatu** (13); **gehiegi kostatu** (4); **izugarri kostatu** (4)

**asko kostatuko** (7); **milioi dolar kostatuko** (4); **zenbat kostatuko** (5)

**asko kostatzen** (58); **ikaragarri kostatzen** (5); **izugarri kostatzen** (7); **kostatzen ari** (31); **kostatzen ari zaio** (13); **kostatzen ari zait** (4); **kostatzen da** (23); **kostatzen dela** (7); **kostatzen den** (16); **kostatzen dira** (4); **kostatzen zaidan** (4); **kostatzen zaie** (13); **kostatzen zaigu** (8); **kostatzen zaigun** (4); **kostatzen zaio** (31); **kostatzen zait** (17); **kostatzen zen** (9); **kostatzen zitzaidan** (6); **kostatzen zitzaion** (18); **zaigu kostatzen** (5); **zaio kostatzen** (4); **zenbat kostatzen** (25); **zenbat kostatzen den** (12)

---

# kostazain **1** *iz* kosta zaintzen duen pertsona.

Apaltasun handiz, azkenik, **kostazainengana** joango zela galdetzera esan zion, hala nahi bazuen. Anton Garikano

Olatuen eraginez, **kostazainen** ontziak talka egin zuen etorkinen txaluparekin. Berria - Mundua

AEBetako **kostazainek,** bestetik, Haititik ihes egin nahi zuten 500 lagun geldiarazi zituzten. Berria - Mundua

Erresuma Batuko **Kostazainen** Agentzia izan da kaltetutako azken erakundea, oraingoz. Berria - Gaiak

**Kostazainek** hil egin zuten bahitzailea. Berria - Mundua

**2** kosta zaintzen duen itsasontzia.

Komandantziako V-18 **kostazaina**. Koldo Izagirre

Komandanteak agindu zorrotzak eman zituen, hamar milia barneratuko ziren itsasoan, ez gehiago, eta beti **kostazainaren** popan, "abaniko formazioan", eta "ur espainiarretarik irten barik". Koldo Izagirre

-Nik hainbat frontetan eman izan dut lehen pausoa, hainbat Heinkel lurreratua naiz, hainbat **kostazain** hondoratua. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan)

Arteztarauak Europako **Kostazain** Zerbitzua sortzea proposatzen du. Berria - Gaiak

## **kostazaintza** *iz* kosta zaintzea.

Bahraingo **Kostazaintzako** buru Jussef al Gatimek jakinarazi zuen festara 150 pertsona zeudela gonbidatuta, baina 15-20 batek ontzia abiatu aurretik lehorreratu zirela. Berria - Mundua

---

## **koste** *iz* kostua.

Planaren neurri guztiek ondorioen analisia, eta **koste** guztien ebaluazioa izan behar dute. Berria - Ekonomia

**Koste** ekonomiko -isunetan- eta humano handiak eragiten ditu. Txema Ramirez de la Piscina

· Ez dauka **koste** politikorik; Espainian, normalean, botoak irabazten ditu gobernuko alderdiak. Berria - Euskal Herria

---

## **kostelet** *(orobat **kostalet**)* *iz ipar* saihetsa, saihets-haragia.

Arraultze baten prejitzeko-edo... **kostalet** baten erretzeko... Menane Oxandabaratz

Badago ere bizkar hezurraren itxurako bat, **kosteletak** balitu bezala; harek ere zubi egiten du harri mendi batetik bestera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Legatza moletan, behiki **kosteleta,** entselada, gasna, izozkia, kafe ta patxarana. Herria

Afarirako ardi **kostaletak** erreegiak zirela eta hara... karrika gorrian naun. Itxaro Borda

---

## **kostera** *iz* arrantzaldia.

Gure flota **kosteran** zebilen, ez zen matxuratutako ontzi bat bera ere kaian, arriskatu beharra zegoen. Koldo Izagirre

Hegaluzearen **kosterak** azken urteetan baino hasiera hobea izan du aurten. Berria - Ekonomia

Arrantzaleek 7.000 tona antxoa harrapatu dituzte aurtengo **kosteran**. Berria - Ekonomia

---

## **kostero** *izond*

Sanandertik erretiradan gatozela [...] hara han batela, eta han **kosteroa** hondeatuta, harago. Edorta Jimenez

---

## **kostilla** *iz* saiheskia. ik **kosta**$^2$.

Baldok marisko txiki batzuk atera zizkigun, eta gero entsalada eta **kostilla** jan genuen; ederra **kostilla**. Pablo Sastre

---

## **kosto**$^1$ *iz adkor* haxixa.

Gero beste garagardo batzuk, izerdia, **kostoa,** speeda, komentarioak, txiste txarrak eta abar luzea. Unai Iturriaga

Ez zait **kostoa** gustatzen, marihuana erretzen dut. Sonia Gonzalez

Lagunartean **kostoa** erre. Pako Aristi

Ezagutzen dut taberna bat oso **kosto** ona pasatzen dutena! Unai Iturriaga

Izugarri gustatzen zait **kostoaren** usaina. Iban Zaldua

Badakizue sarituak hogeita bost gramoko **kosto** bola irabaziko duela... Unai Iturriaga

Egarritzen ari naiz, Fermin, **kostoa** izango da. Pako Aristi

---

kosto$^2$ ik **kostu**.

---

## **kostoso** *izond* kostatakoa.

Azkenean, 200 metroko zabaleroa eta 15 metro hondora dituen izugarrizko kanaltzarra osatu eta luzatu dute, 2.500 kilometro nekoso eta **kostosoak** amaitu ostean Pello Zabala

---

## **kostozale** *izond* kostoaren zalea dena.

Zuk **kostozale** itxura izugarria duzu. Iban Zaldua

---

## **kostra** *iz* tortika.

Sukaldeko suek egundoko **kostra** dute. Harkaitz Cano

Laino **kostra** elkarri lotutako horiek kentzen asmatu ezinik. Pello Zabala

---

## **kostu** *(orobat **kosto** g.er.)* **1** *iz* (gauza bat) kostatzen den diru kopurua. ik **prezio; balio**.

Txinan, Indian eta Indonesian, dolar batekoa zen **kostu** hori, Mendebaldeko Alemanian hogeita zazpi dolar zirenean. **Kostu** eta irabazien arteko ratioa. Koro Navarro

Herrilan diputatuak ez daki AP-1ek zer **kostu** izango duen. Berria - Euskal Herria

Soldaten **kostuan** (eta lanaren legedian) herrialdeen artean gertatzen diren aldeak. Koro Navarro

**Kostuen** hazkundea produktuen edo zerbitzuen prezioetara eraman beharko litzateke. Iñaki Heras

Nik neuk ordaindu nuen **kostu** osoa. Soldata igoerek **kostuak** handitzen dituztela. Oskar Arana

Berrikuntza teknologikoek **kostuak** murrizten dituztenez, produktibitatea handitzen dute. Iñaki Heras

**Kostu** hori amortizatu ahal izateko. Koro Navarro

Japoniako NSK lantokiak 220 euroko **kostoa** ziurtatu dio. Berria - Ekonomia

**2** (izenondoekin)

Lan-eskuaren **kostu** apalak baliatzeko estrategia. Koro Navarro

Kalitate handiko eta **kostu** apaleko kableak egiteko gai den ingeniari bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Kostu** txikiko osagaiak eskulan merkeko lekuetan ekoizteko. Berria - Ekonomia

Gainera, ingurumenaren defentsak oso **kostu** handiak eskatzen dituenez, herrialde garatuek baino ez omen diezaiekete egin aurre kostu horiei. Iñaki Heras

Enplegurik ez izatearen **kostu** ekonomikoa izugarria da; eta **kostu** soziala, apika, askoz ere handiagoa. Iñaki Heras

Prozesu ekonomikoei loturiko **kostu** errealak, hala ekologikoak nola sozialak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zein da luzatze horren **kostu** pertsonala? Pello Salaburu

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskaltegi estandar baten **kostu** azterketa. Berria - Harian

Egun dauden erakundeen **kostu** eragingarritasuna. Berria - Mundua

Ekoizpen funtzioaren inputen **kostu** egitura. Iñaki Heras

Horregatik azaldu da IG Metall sindikatua **kostu** murrizketez hitz egiteko prest. Berria - Ekonomia

Horrenbestez, eskari-inflazioa eta **kostu**-inflazioa bereizten dira. Iñaki Heras

Prezio horren osagaien kostuek gora egiten dutenean sortzen da **kostu**-inflazioa. Iñaki Heras

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garraio-**kostuen** beherakada etengabeak eta muga-sariak ezabatzeko joerak. Koro Navarro

Soldata-**kostu** batez bestekoa. Koro Navarro

Merkatuko ekonomiara aldatzeak duen gizarte-**kostu** handiak. Koro Navarro

"Doikuntzaren gizarte-**kostua"** (hau da, pobretasuna larriagotzea) deitu zaion horretan. Koro Navarro

Aurrekontu-**kostu** nabarmena duten neurriak. Koro Navarro

Baliteke, bada, energia-**kostu** gehiagoren beharrik gabe segurtatu izana gizakiak zutikako jarreraren abantailak. Irene Aldasoro

Lasterrago handitu baitziren salgaien prezioak fabrikazio-**kostuak** (soldatak eta lehengaiak) baino. Koro Navarro

Kapitalismo industrialaren garaian, izan ere, mozkin-iturri nagusia ez ziren urritasun-aldeak, ekoizpen-**kostuetan** gertatzen ziren aldeak baizik. Koro Navarro

Bestalde, transakzio **kostuak** murrizten dira, prezioetan transparentzia areagotzen baita. Iñaki Heras

**5** ***lan kostu*** *(orobat* ***lankostu*** *g.er.)*

INEren arabera, **lan kostuak** soldatak baino gutxiago hazi ziren 2002 urtean. Berria - Ekonomia

Arrazoitu daiteke **lan kostuek** gorantz egiterakoan [...] salmentek beherantz egin dezaketela. Iñaki Heras

Alemaniak **lan kostu** garaienak ditu eta langabezia maila oso apalak ditu. Iñaki Heras

CIE Automotivek **lan kostuak** %32 gutxitu nahi ditu 2010era arte. Berria - Ekonomia

**Lan kostuen** murrizketa ezinbestekoa zen guretzat. Berria - Ekonomia

**Lan kostu** handiek eragin dute enpresen lehiakortasunik eza. Berria - Ekonomia

**Lan kostu** apaleko lehiakortasunaren bila aritu den eredu ekonomiko baten emaitza. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ekoizpen kostu** (6); **kostu ekonomiko** (7); **kostu ekonomikoak** (6); **kostu handia** (7); **kostu handiak** (8); **kostu politikoa** (4); **kostu txikiagoak** (4); **kostu txikiko** (19); **kostu txikiko aire** (4); **lan kostu** (14)

**garapenak kostua izan** (6); **kostua eragin** (4); **lan kostua** (4); **milioi dolarreko kostua** (4); **milioi euroko kostua** (30)

**ekoizpen kostuak** (5); **eraikuntzaren kostuak** (5); **ezarpen kostuak** (9); **garraio kostuak** (4); **ingurumen kostuak** (4); **kostuak gutxitu** (11); **kostuak gutxitzeko** (5); **kostuak murrizteko** (17); **kostuak murrizten** (4); **lan kostuak** (32); **lehengaien kostuak** (5); **produkzio kostuak** (5)

**ekoizpen kostuen** (4); **kostuen murrizketa** (6); **lan kostuen** (8)

**lan kostuetan** (5)

---

## kostuma[1] *iz ipar* ohitura.

Zeren eta anitz aldiz egin den zerbaiten ondotik gelditzen den usaia eta **kostuma** baita ohitura. Piarres Xarriton

Aiten **kostumak** segi ditzagun, galdu ez dezagun Ama! Piarres Xarriton

---

## kostuma[2] *iz ipar* janzkia.

Hiru piezatako **kostuma** karioa zeraman soinean eta oinetan aratxe larruzko behialako oskiak. Itxaro Borda

---

## kostunbrismo *iz* literaturan, leku jakin bateko ohituren azalpenari arreta berezia opa izatea, ohitura literatura.

**Kostunbrismoak,** errealitatea islatu baino, eder ustez mozorrotu du. Anjel Lertxundi

Euskal **kostunbrismoaren** bidetik. Anjel Lertxundi

Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan* edo Edorta Jimenezen *Atoiuntzia* ederretan egiten den euskalkien erabilera [...] ez da inondik ere **kostunbrismoan** erortzen. Iñigo Aranbarri

**Kostunbrismoaren** mugetan dabilen istorio fantastikoa. Berria - Kultura

---

## kostunbrista *izond* leku jakin bateko ohituren azalpenari arreta berezia opa diona.

Baditu [...] kontakizun **kostunbrista** batzuk ere, gehien-gehienak datu sotiletatik abiaturiko pasadizo erdi historikoak erdi asmatuak. Anjel Lertxundi

Euskaldunok komedia **kostunbristak** ikustera joaten omen gara batez ere antzerkira. Berria - Harian

Karikatura soziologikorik edo literatura **kostunbristarik** egiteko asmorik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Ralf Konig alemaniarra azken urte hauetako nobelagile **kostunbristarik** onenetarikoa da. Berria - Kultura

Poema batzuk ere idatzi zituen, **kostunbristak,** balio sentimental handiagoa dutenak literarioa baino. Joan Mari Irigoien

Domingo Agirreren *Garoa* eta Flores Kaperotxipiren *Aitona zoriontsua* [...] literatura eta pintura **kostunbristaren** adierazpiderik behinenak. Anjel Lertxundi

---

## kota[1] 1 *iz* oilategian eta, lurretik altxaturik, hegaztiak lo egiteko prestatzen diren makila horizontalen multzoa.

Pauso-hotsek ikaratuta, oiloak aztoratu eta kakaraka hasi dira oilategiko **kotan**. Itziar Otegi

Goizabarra da artean, ez dute **kotarako** ordu, eta hiru txitak eta ama oiloa oilategitik aparte samar dauden sasi eta ihi artean babestera deliberatu dira. Anjel Lertxundi

Bi oilar **kota** bakarrean. Berria - Kirola

Nahi zuena egiteko esan nion, baina lo egiteko, behintzat; oiloak **kotan** bezala nahi b. azuen, baina lo; biharamuna luzea izango zela eta. Inazio Mujika Iraola

Hemen jendea, nola oiloak **kotan** egoten diren, bada horrelaxe bizi zuan, katanduta. Pako Aristi

**2 *kota-uztai***

**Kota-uztaian** zut, bekokia urdin eta luma-muturrak gorri. Jon Muñoz

Ezti-ogiz asebeterik, **kota-uztaian** lozorroan zegoen Nofutur. Jon Muñoz

· *irud/hed* Mikroaren aurrean, **kota-uztai** bat, hiru izarreko ganbela batez hornitua. Jon Muñoz

---

**kota**[2] **1** *iz* guduetan erabiltzen den jantzi babesgarria, larruz eta burdin sarez egina.

Zer gertatuko zen zaldunekin, arropa gutxi eramango zuten **kota** eta lorigen azpitik, [...]. Jon Alonso

Zeren ekaineko gauez oroitzen baitzen Mutur, noiz eta bera hantxe eserita baitzegoen, **kota** berdez jantzia, lorio santuetako aulkietan. Juan Garzia

Haren larruzko **kota** gogorra gorritua zegoen saihets aldera. Aingeru Epaltza

Fortún Sanchez Oriakoa [...], altzairu mailazko **kota** eta idi larruzko erredola duena. Patziku Perurena

Kapa grisaren azpian burdinazko saredun **kota** zuen jantzita. Agustin Otsoa

Burdinazko **kota** hori jantzi izan banu sikiera. Agustin Otsoa

**2** (hitz elkartuetan)

Labana triparen erdian sartu ziela, malla-**kotako** hegala nekez iristen den tokitik. Jon Alonso

**3 *sare kota***

Baziren kirgizak, begitartea laua zutenak, kalmukak bezala, **sare-kotaz** estalirik. Karlos Zabala

Urrezko eta zilarrezko **sare-kota** soinean. Karlos Zabala

Altzairuzko kasko motosduna zeraman buru gainean, eta **sare kota** distiratsua soinean. Aingeru Epaltza

Zurdazko maskara janzten ohi dute ahaztu gabe, eta burdin-hari fin-finez egindako **sare-kota** bat lotzen diote, sorbaldetaraino estaltzeko. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **burdinazko kota** (6); **burdinazko saredun kota** (7); **kota uztai** (3); **kota uztaia** (4); **kota uztaian** (11); **kota uztaiari** (3); **sare kota** (4); **saredun kota** (14)

---

**kota**[3] *iz* garaiera.

Gaur eguraldiak okerrera egingo du nabarmen, iparraldeko haizeak elur-**kota** jaitsi egingo du eta 200-300 metroan ezarriko du. Berria - Euskal Herria

Planoak eta eskalak eta **kotak**. Jesus Mari Mendizabal

Dogmak modan jarri zuen irudi etxekoi eta urratua baliatuz, errealismo **kota** bikainak lortzen ditu filmak. Berria - Kultura

---

**kota**[4] ik **kuota**.

---

**kotangente** *iz* angelu edo arku baten osagaiaren tangentea.

Zenbaki Euleriarrak (Euler-en zenbakien bestelakoak), konbinatorian; eta garapen Euleriarrak, zenbaki konplexuen sinuentzat eta **kotangenteentzat**! Jon Muñoz

---

**kotera** *iz ipar* teilatuko ura biltzen duen zinkezko hodia.

Etxe bizkarraren arrainatzea, kanpoko tinduak eta **koteren** arraberritzea. Herria

Laborariak ondorioz, besoak mukuru mozkin gera zitezkeen Donapauleko edo Mauleko azoka estalien hegietarik isurtzen zitzaizkien **koteren** pean. Itxaro Borda

---

**koteratu**, kotera, koteratzen da *ad ipar* koterara bildu (?).

Kanpoan hormak zuri zeuden goizetan, egiazko haurrak jaikitzen zirenean, sutara hurbiltzen ziren, gauean **koteratu** gazura zipoetan plisti-plasta jauzika. Itxaro Borda

---

**kotilioi** **1** *iz* egun jakinetan, bereziki urte zahar gauean, egiten den festa, afaria eta dantzaldia duena.

-Nolanahi ere, gizon ederra da! -esan zuen etxeko guztiak **kotilioira** gonbidatu zituen ofizial gaztetxoak. Jose Morales

**2**

**Kotilioia** dantzatuko dute. Jose Morales

---

**kotilun** *iz ipar* gainjantzia.

Haurrak berriz, **Kotilun**-gorriz jauntziak, matahamiak eskeintzen zituzten ikusleeri besteak dantzan ari ziren artean. Herria

---

kotisatu ik **kotizatu**.

---

**kotizatu**, kotiza, kotizatzen *(orobat **kotisatu** g.er.)* **1** du *ad* kuota ordaindu.

**Kotizatzen** duten bost lagunetik bat autonomoa da, gutxi gorabehera. Berria - Ekonomia

Francoren garaian ikastoletan lan egin eta Gizarte Segurantzan **kotizatu** ez zuten andereñoak dira. Berria - Euskal Herria

Ez badut Gizarte **Segurantzara** kotizatzen segitzen gutxieneko lansariarekin geldituko naiz. Berria - Ekonomia

Asteburuetan langabeziara bidaltzen dituzte, eta ez dute **kotizatzen**. Berria - Ekonomia

Zazpi urte hauetan [...] **kotizatu** dutenek, ordaindutakoa baino 5.000 euro gehiago jaso dute pentsioei esker. Berria - Ekonomia

Estatuek zeinek bere diru-sarreren arabera **kotizatzen** dute, eta, premia izanez gero, Funtseko baliabideetara jo dezakete, aldez aurretik finkaturiko arauen arabera. Koro Navarro

**2** burtsan balio jakin bat iritsi.

Ontza urrea Londresen 682 dolarrean (aurretik 681,70 dolarrean) eta Zurichen 682,55 dolarrean (aurretik 679,95 dolarrean) **kotizatzera** iritsi zen. Berria - Ekonomia

71,60 dolarrean **kotizatzen** ibili ostean, Texas upelak 71,35 dolarrean itxi zuen atzoko jarduna New Yorkeko merkatuan. Berria - Harian

Dibisa merkatuetan 1,28 dolarreko maila erraz gainditu zuen goizean zehar, nahiz eta arratsaldean 1,27ren inguruan **kotizatu** zen. Berria - Ekonomia

New Yorkeko Nymex merkatuan upela 68,40 dolarrean **kotizatuz** itxi zuen osteguna. Berria - Ekonomia

· *irud/hed* Txiskero-harritxo bat ogi-parte bat **kotizatzen** zen, hots, bizi-egun bat. Juan Garzia

Literaturaren expressoaren burtsan alaitasunak eta pozak goitik **kotizatzen** dute, nekeak eskas bihurtarazi dituen baloreak baitira horiek. Edorta Jimenez

Baditut batzu-batzuk benetan kuriosoak eta bereziak, bildumazale handien artean oso ongi **kotizatzen** direnak. Karlos Linazasoro

**3** da-du *ad* burtsa merkatuan parte hartu.

Brent upelaren etorkizuneko kontratuak Londresen **kotizatzen** dira 1988 urteaz geroztik. Berria - Ekonomia

Googleren akzioek nabarmen egin zuten gora New Yorkeko Nasdaq merkatuan **kotizatu** ziren lehen egunean. Berria - Ekonomia

CAFek Madrilgo burtsan **kotizatzen** du, eta atzo 59,6 eurotan amaitu zuen. Berria - Ekonomia

BCSHk Londresko burtsan **kotizatuko** du 2005.urterako eta libera esterlinetan banatuko dizkie dibidenduak Abbey Nationaleko akziodunei. Berria - Ekonomia

Espainiako burtsetan **kotizatzen** diren enpresen dibidenduak 3.146 milioikoak izan dira martxoa bitartean. Berria - Ekonomia

Azken enpresa hori […] 1999ko azaroan hasi zen burtsan **kotizatzen**. Iñaki Heras

Londresko burtsan 1987an hasi zen **kotizatzen,** eta bi urtetan laukoiztu egin zuen bere balioa. Berria - Ekonomia

Petrolioa dolarretan **kotizatzen** da, eta lehengai hori garestitzeak inflazioaren handitzea dakar berarekin. Berria - Ekonomia

**4** (era burutua izenondo gisa)

Deustaz pentsatzeko betarik hartu baduzu, faszista fatxa erantzun, eta kito, egina dauka iraultza; eta euskal labelik **kotizatuena** duzu. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gizarte segurantzan kotizatu** (5)
> **burtsan kotizatzen** (7)

---

## kotizazio 1 *iz* kotizatzea, kuota-ordainketa.

Murriztea erabakitzen duten enpresen **kotizazio** sozialaren beherakada. pentsioak kalkulatzeko langileen azken hamabost urteko **kotizazioak** hartzen dira kontuan. Iñaki Heras

Superabit hau handiagoa izan zitekeen, **kotizazioei** egotzi ez balitzaie pentsio minimoen osagarriei dagokien gastua. Berria - Ekonomia

Langabezia finantzatzeko **kotizazioek** urtean 400 milioi eurotan gainditzen baitituzte prestazioak. Berria - Ekonomia

Espainiako Gobernuak aldi baterako kontratazioaren **kotizazioak** garestitzea eta kontratu mugagabeenak merkatzea planteatu du, besterik gabe. Berria - Harian

**2** norbait edo zerbait kotizatzen den balioa edo prezioa.

Burtsako **kotizazioen** batbateko goraldiak eta mailegu federalek eskaintzen zituzten errenta handiek erakarririk. Koro Navarro

Brent upelak 70,20 dolarreko **kotizazioa** lortu du, orain arteko markak hautsiz. Berria - Ekonomia

**Kotizazioa** 5,6 eurotan gelditu zen atzo. Berria - Ekonomia

**Kotizazioa** 26,09 eurotan itxi zuen. Berria - Ekonomia

Azkoyenek burtsan zuen **kotizazioa** eten egin zuen ostegunean Balio Merkatuen Komisio Nazionalak.

Petrolio gordinaren **kotizazioaren** beherakadak. Koro Navarro

Enpresa jakin baten akzioak saltzeko eskaintza handia bada, enpresaren **kotizazioek** beherantz egiten dute. Iñaki Heras

Enpresen akzioen **kotizazioak** neurtzen ditu Nasdaq indizeak. Iñaki Heras

Horrelakoak esan ostean beren seriotasunaren **kotizazioak** oso behera egin badu ere. Iñaki Heras

Gizon hau, hain aditua zena **kotizazio** eta akzioetan, ez zen gai gorbata bat menpean hartzeko. Julen Gabiria

Kotoia zuzenean Lagerreko eritegian saltzeari dagokionez, behin egin nuen aproba, baina oztopagarriegia zen eta **kotizazio** eskasa zuen. Juan Garzia

**3** irud/hed

Artisten **kotizazioa** goraka desitxura ez dadin, erakundeak ez ditu ordaindutako prezioak ezagutarazten. Berria - Kultura

Euskal Herriko balizko bake prozesuan, esperantzaren **kotizazioa** beherantz doa. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan)

1994an, soldata-kostu batez bestekoa, orduan indarrean zeuden truke-tasetan, garapen-bideko herrialdeetako manufaktura- industrietan, orduko sei dolarrera iristen zen, gizarte-**kotizazioak** barne. Koro Navarro

Horien betekizun behinena akziodunen aurrean eta horiek burtsa-**kotizazioetan** dituzten interesei dagokienez erantzutea da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kotizazio sozialen** (3)
> **finkoen kotizazioa** (3); **gizarte segurantzaren kotizazioa** (3); **ipotxaren kotizazioa** (3); **kotizazioa eten** (3); **kotizazioa etenda egon** (3); **kotizazioa lortu** (4)
> **gizarte kotizazioak** (4); **gizarte segurantzako kotizazioak** (3)

---

## kotoi *(orobat **kotoin** g.er.)* 1 *iz Malvaceae* familiako zuhaixka, lore hori gorriunedunak eta haziak izpi zurietan bilduak dituena *(Gossypium herbaceum* etab.).

**Kotoiaren** hazi, zurtoin eta zuztarretik ateratzen den gossypol substantzia. Luis Elberdin

Txinan, **kotoi** transgenikoa ekoizten duten nekarazarien erdiak pobreak dira. Berria - Gaiak

**2** kotoi landarearen haziak inguratzen dituzten izpi zuriak, eta horiekin egiten den ehun gaia.

Barruan, ez bihotzik, ez birikarik, ez urdailik, ez hesterik; **kotoi** ilundua besterik ez. Juan Kruz Igerabide

Zamarrak, oihal indianoz eginak eta **kotoi** gordinez estaliak, gerrian estutzen zituzten. Karlos Zabala

Setheren ondoan eseri eta **kotoi** grisarekin galtzeta egiten hasi zen. Anton Garikano

**3** gai horrekin egiten ehuna.

Hein handi batean, **kotoiaren** esportazioak finantzatzen zuen inbertsio-ahalegina. Koro Navarro

**Kotoi** zurizko gortinak. Juan Kruz Igerabide

**kotoiaren** froga, aizak! Patxi Iturritegi

**4** ehun horren zatia.

**Kotoi** esterilizatu batez garbitu ondoren. Juan Kruz Igerabide

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Burua **kotoi** malutaz betea banu bezala sentitzen nintzen. Alberto Ladron Arana

Liho-, **kotoi-** eta artile-haria atzerritik inportatzen hasi behar izan zuten. Iban Zaldua

India, **kotoi**-ehunen esportatzaile izatetik, inportatzaile izatera igaro zen 1830ean. Koro Navarro

Beste batzuk *aladja* leunaz eginak ziren, marra txikiko **kotoi** ehun horretaz. Karlos Zabala

Makinaz egindako **kotoi**-gaiak. Iñaki Mendiguren

Jaka handia eta larru koloreko **kotoi**-belusezko galtza zabalak. Koldo Izagirre

Ohartu baitziren **kotoi** sailetan lan egiten zuten gizon asko eta asko ez zirela ugalkorrak. Luis Elberdin

Çukurovako ordokiak eta Ziliziako **kotoi**-zelaiek. Fernando Rey

Alabamako **kotoi**-soroak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kotoi** fabrika bat, eta fabrikako langileen etxeak. Joseba Sarrionandia

Ehunka **kotoi**-bala zeuden pilaturik bertan. Anjel Lertxundi

Oso kalitate handikoa zela sotoko **kotoi**-kargamentua. Anjel Lertxundi

Alkoholetan bustitako **kotoi** puskak. Juan Kruz Igerabide

Likido urdinean bustiriko **kotoi** puska batekin. Eider Rodriguez

**Kotoi**-uztak laukoizteko ongarri-sistema. Anjel Lertxundi

· Haize hotza sartu da berriro, eta **kotoi** hodei mardulak marrazten hasi dira goian. Alberto Barandiaren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kotoi balak** (4); **kotoi balen** (3); **kotoi puskak** (3); **kotoi zurizko** (3)
> **kotoiaren froga** (3); **kotoiaren samuari** (3)
> **kotoizko atorra** (3); **kotoizko galtza** (3); **kotoizko hodei** (3); **kotoizko izara** (3); **kotoizko makila** (3); **kotoizko oihal** (3); **kotoizko soineko** (4)

---

**kotoigintza** *iz* kotoi izpiekin ehuteko gaia egitea.

1819an sartu zen Egipton **kotoigintza,** eta herrialdeko dibisa-iturri nagusia bihurtuko zen hamarraldi batzuetan. Koro Navarro

**Kotoigintzak** gailurra jo zuenean, Egipto atzerriaren mendeko zen eguneroko elikagaiei zegokienez. Koro Navarro

---

kotoin ik **kotoi**.

---

**kotoitsu** *izond* kotoiaren itxura duena.

Mentalki eleka segitu zuen, tristura sakonaren oihalaren argi zuloetarik maitasuna birla **kotoitsu** jazartzen zitzaiola: [...]. Itxaro Borda

---

kotsadura ik **kutsadura**.

---

kotsatu ik **kotsatu**.

---

kotsatzaile **ik kutsatzaile**.

---

kotsu ik **kutsu**.

---

kotsukor ik **kutsakor**.

---

**kotxe** **1** *iz* zalgurdia.

Zaldiak uztartzen ari dira argiontzirik gabeko **kotxe** beltzean. Jose Morales

Bi zaldi beltzek tiratutako **kotxe** beltz distiratsu bat aurre-aurrean paratu zitzaion. Lopez de Arana

**Kotxea** trostan abiatu zen Zestoako bidean gora. Koro Navarro

Lau gurpileko orgak, bi gurpileko **kotxeak**. Santiago Iruretagoiena

Harri batean estropezu egin zuen **kotxeak,** gurpil bat askatu, kutxa makurtu eta lurrera joan zen. Koro Navarro

Zaldiak **kotxeari** loturik zeuden ordurako. Jose Morales

Zigortu zuen zaldia eta **kotxea** kirrinka abiatu zen ibaiertzean aurrera. Irene Aldasoro

Zetaz eta satenez apainduta doa bere ezkontzara, **kotxe** zuri batean. Lopez de Arana

Zalgurdi bat zetorrela ikusi baitzuen, hura gerarazi, eta eramateko eskatu zuen; gero, ordea, gidariarekin solasean, apurka-apurka konturatuz joan zen **kotxe** funebre bat zela. Juan Garzia

**Kotxea** lando zarpaildu zahar bat zen, eta soka batekin lotuak zeuzkan beira bat eta argiontzietako bat. Koro Navarro

**2** bagoia.

**3** *(adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian **auto, automobil** eta **beribil** agertzen dira)* automobila.

Neurri guzietako autoak zebiltzan: [...] japoniar 4x4 lodiak, korear **kotxe** txikiak, baita ere Jeep luze itxura zeukaten taxi kolektiboak. Ramuntxo Etxeberri

Taxistak fardelak paratuak zituen maletegian eta **kotxe** gainean. Joxemari Urteaga

Letiziaren **kotxe** barruan geldirik eta leihoak itxita. Xabier Mendiguren Elizegi

Bigarren lerroan aparkatutako **kotxe** dotore batean. Paddy Rekalde

Hogei bat metrora Ertzaintzaren **kotxe** bat gelditu da. Paddy Rekalde

Bigarren eskuko **kotxe** bat. Paddy Rekalde

**Kotxe** askok atzeko aldean ohar bat ipinia dute: "Please, horn", "Mesedez, jo ezazu tutua". Gotzon Garate

**4** haur kotxea.

Zenbat haur! haurrak **kotxeetan,** besoetan, eskutik helduta edo oinez, binaka, hirunaka, gurasoen aurretik, serio itxuran. Monika Etxebarria

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hantxe metatzen ziren, anabasa batean, xabanak, kabrioletak, puntukoak, gondolak, kalesak, kupeak, omnibusak, mota guztietako **kotxe** andana bat. Koldo Izagirre

Yamaha hartu, eta **kotxe** ilarak saihestuz, autobiderantz joan zen. Migel Angel Mintegi

Bizpahiru **kotxe** -geltoki eta, azkenik, hesi luze bat. Jose Morales

Neskatoak gurekin etorri nahiko du **kotxe** ibilaldi hori aprobetxatuz. Joxemari Iturralde

Matilde, aita eta ama **kotxe** istripuan hil dira Hendaian. Eider Rodriguez

Ez dut **kotxe** zaratarik entzun, bestela arinago jaitsiko nintzen. Joxemari Urteaga

Hiru gazteek **kotxe** -patrullaren gainaldetik paperak berreskuratu eta ziztu bizian alde egin zuten. Unai Iturriaga

Bi **kotxe** -karabana antolatu dituzte Mendizorrotzako aparkalekutik hiri osoa zeharkatzeko asmoarekin. Berria - Ekonomia

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero, Txitxikov eta biak, zaldi-**kotxe** dotore batean joango ziren goi-gizarteko bilera batera. Jose Morales

Bi gurpileko zaldi-**kotxe** arina, baleztaduna eta estali gabea. Jose Morales

Trena, posta **kotxeak,** lurrun ontziak, zaldiak, denen eskura zeuden. Karlos Zabala

Badago posta **kotxe** zerbitzu bat Ural mendien lerroa arin samar zeharkatzen duena. Karlos Zabala

Stutz turismo-**kotxe** gorri bat. Lopez de Arana

**7** ***haur kotxe*** *(6 esaldi 5 liburutan)* haurrak eramateko kotxe modukoa. ik beherago **10.**

**Haur-kotxe** bat tolesten ari zen emakume gazte xamar bat autoaren atzealdeko kutxan sartu ahal izateko. Joxan Elosegi

K-ko karriketan barrena, **haur-kotxe** batekin. Pablo Sastre

**8** ***kotxe-gidari****sup_1* zalgurdi-gidaria. ik **kotxezain**.

Gidatzen ikasi zuenean, mandataritik behin-behineko **kotxe-gidari** izatera igo zuten. Koro Navarro

Handik, berriz, zalditegi usaintsuetara, non ere **kotxe-gidari** bat aritzen baitzen zaldia orrazten eta leuntzen.Prokuradorearen **kotxe** -gidaria, bidean antzeman zionez, eskarmentu handiko mutila zen: esku batekin bakarrik gidatzen zuen, eta bestearekin nagusiari heltzen zion, besoa atzerantz luzaturik. Irene Aldasoro

Mandatari bezala erabili zuen Frantziako kotxean, eta gidatzen ikasi zuenean, mandataritik behin-**behineko** kotxe-gidari izatera igo zuten, eta urtebeteren buruan, gidari finko egin zuten. Koro Navarro

Kotxea hotelaren aurrean gelditu zenean, Gabrielek kotxetik jauzi egin eta, Bartell D'Arcy jaunak protesta egin bazion ere, **kotxe-gidariari** ordaindu zion. Irene Aldasoro

**9** ***kotxe-gidari****sup_2* auto-gidaria.

Ezkontza-prozesio luzeak eratzen **zituzten** kotxe-gidari zoro eta zaratatsuen arriskua nola edo hala saihestuz iritsi naiz Erzurumera, mendikate zuritu biren artean doan errepide zabal eta zelaitik. Jon Arretxe

**10** ***ume kotxe*** *(14 esaldi 4 liburutan; orobat **umekotxe** g.er.)* haur kotxea.

Atari batetik emakume bat ateratzen sumatu du, **ume-kotxe** bati bultzaka. Iban Zaldua

**Ume-kotxea** hartuta paseatzera atera ginen batean. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ume-kotxea** igogailutik atera eta bere etxeko sarrerara gerturatu da. Iban Zaldua

Atezaina **ume-kotxeaz** arduratzen da. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **haur kotxe** (3); **kotxe bat hartu** (4); **kotxe gidari** (5); **kotxe gidaria** (3); **kotxe gidariak** (3); **kotxe gidariari** (3); **ume kotxe** (3); **zaldi kotxe** (10)
>
> **kotxean iritsi** (3); **kotxean sartu** (7)
>
> **ume kotxearekin** (3)
>
> **anaiaren kotxeko argiak** (4); **kotxeko zaldiak** (3)
>
> **kotxera eraman** (3); **kotxera igo** (8)
>
> **kotxetik jaisten** (3); **kotxetik jaitsi** (4)
>
> **kotxez eraman** (3)

---

## kotxero *iz* zalgurdi-gidaria.

-Jauna, Castex jaunaren **kotxeroa** naiz, igo zaitez kupera, hirurogeita hamabost sos aulkia. Koldo Izagirre

Kapelu biribil ziraztatua, gure puntuko **kotxeroek** bezala, idazki honekin: *Cazadores de Guipuzcoa.* Victor Hugori interesatu zaion jendea, artzainak dira, unai edo behizainak, **kotxeroak,** ostalariak, arrantzaleak, batelerak, soldaduak, guardiak, iheslari politikoak, herrietako apaizak, bizarginak..., zein ez? Koldo Izagirre

---

## kotxetegi *iz* kotxeak gordetzen diren esparrua.

-Salgaiak zainduko dizkidazu, atsegin baduzu, gurdia **kotxetegira** daramadan bitartean? Karlos Zabala

Gurdiaren bila joan ziren hirurak Montorgueil kalera, Compas d'or **kotxetegira** . Karlos Zabala

Etxeraino iristen ziren zigor-ukaldien hotsa eta zaldi izutuaren apatxek **kotxetegiko** oholezko zoruaren kontra ateratzen zuten zarata etena, minez betea. Jose Morales

---

## kotxetxo 1 *iz adkor* kotxea.

Dirua izatea izango lukek kontua, hori bezalako **kotxetxo** bat izatea -eta kotxe bat erakusten zuen-, eta hura bezalako emakumea. Josu Zabaleta

**2** haur-kotxea.

Espaloian, neskatoek, udako soinekorik hoberenak eta koloretako xingolak jantzita, anai-arreba gazteagoen **kotxetxoak** bultzatzen zituzten. Koro Navarro

Izan ere, txakurrak hantxe pasatzen zuen bere asti librea, umeen **kotxetxoetan** muturra sartuz. Julen Gabiria

Badakizu: neskak argiegiak dira **kotxetxoetatik** jausteko. Julen Gabiria

**3** ***haur kotxetxo*** *(5 esaldi 2 liburutan)* haur kotxea.

Aldameneko bankuan, emakume bat, **haur-kotxetxo** bati eragiten. Anjel Lertxundi

**4** ***ume kotxetxo*** *(esaldi 1 liburu 1ean)* haur kotxea.

hain dago **ume-kotxetxoz** beteta, punta batetik bestera joan zaitezke umetxoak zapalduz, baina umezainek ez dizute utziko Julen Gabiria

---

## kotxetzar *iz* auto handia.

Iñake, Xabi eta Ritxi estadioko aparkalekuaren aurrean, furgonetan sarturik, banan-banan atera eta izugarrizko **kotxetzarretan** alde egiten duten futbolariei begira. Xabier Mendiguren Elizegi

## **kotxezain** *iz* kotxe-gidaria.

Zaldien gainetik, gida-aulkian eseririk, **kotxezaina** zetorren, eta haren aldamenean lekaioa, zapi batez loturiko jaka lasai batez jantzirik. Jose Morales

**Kotxezainak** hankaz jotzen zuen kanpaia, zalapartatsu, eta kotxea, zaldi bakar batek garraiatua, Gurija kalerantz abiatzen zen. Patxi Zubizarreta

Ukuiluak gonbidatuen zaldiz, kotxez eta **kotxezainez** betetzen zirenean. Xabier Olarra

Selifan **kotxezainak** goizean goiz zaldiak kotxeari lotzeko agindua zeukan. Jose Morales

Selifan **kotxezainak** eta Petrushka lekaioak igo zioten maleta. Jose Morales

---

## **kotxezale** 1 *iz* kotxe-gidaria, zalgurdi-gidaria.

Gero, **kotxezaleak** zaldiak adoreturik, [..] kale bihurri sigi-sagatsu baterantz jo zuen berlinak. Anjel Lertxundi

**2** auto-gidaria.

Inguruko herrietan baino beranduago hasi omen ziren Itsasondoko gazteak kotxea edukitzen; ez **kotxezaleak** ez zirelako -Kaskagorrik Dodge Dart-a erostean esango zukeen bezala-, modurik ez zeukatelako baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **kotxezito** *iz* haur-kotxea.

Idoia ere bai, **kotxezitoarekin;** Guridi hari zer edo zer esateko gelditu zen, Patxik Txonari zerbait galdetu zion. Pablo Sastre

---

## **kotxina** *izond*

Inbidia **kotxina** apurtxo bat sentitu nuen, akelarreren bat edo beste imajinatuz. Joxean Sagaztizabal

---

## **kotxino** *interj ipar* nahigabea-edo adierazten duen hitza.

**Kotxino** ! hau dea ibiltokia? Filipe Bidart

Han urrun zerbait, norbait, ura tiratzen edo zurrumurru batzuk hor nonbait... **kotxino!,** zelda hauk ongi isolatuak dituk ba, ez duk deus entzuten... Filipe Bidart

Baina, **kotxino,** gripe tzar bat ukan banu bezala, hezurren juntura gehienetan min nuen. Daniel Landart

---

## **kotxorro** *iz* gurgurioa, zomorroa.

Izan duen amesgaiztoan zomorroz josita ikusi du lorategia: larbak, beldarrak, **kotxorroak,** ehunzangoak, ipurtsardeak, armiarmak, kilkerrak, tximitxak, katu-bizarrak... denetarik! Patxi Iturritegi

---

## **kotxu** 1 *iz* kaikua, zurezko ontzia.

Ama halaz, **kotxua** besapean arditegira bazihoan. Itxaro Borda

Ametsak, ardiz, esne hagunez bete **kotxuz,** kakailaz, [...] eta hondarrean gasna bildu berriz nahaspilatu zitzaizkidan. Itxaro Borda

Esnearen xirripak **kotxuaren** bazter metalikoa jotzen zuelarik sortzen zen musika zinez eder kausitzen genuen. Itxaro Borda

**2** *ipar* (sega) potoa.

Beste zernahi tresna: sega, segu **kotxu** edo opotxa, zerra, arpana, haizkora, mailu, trukes eta gaineratiko! Herria

---

## **kotzo** *iz* arra.

Haatik emazte horik ez dira türk arrak, otsak eta **kotzoak** . Herria

---

## **koxka**[1] 1 *iz adkor* koska.

Ramsay jaunak hankaz jo zuen harrizko **koxka** . Anton Garikano

2003an berriro asfaltatu zuten, baina errepideak **koxkak** ditu hala ere. Berria - Kirola

Barne-galtzen beheko botoia **koxka** bat beherago jarri behar zuela. Xabier Olarra

Hor dago **koxka** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Hor dago **koxka** osoa. Jon Muñoz

-Erotika fonikoan, hortxe zegok **koxka** . Iñaki Iñurrieta

Bi zenbaki horiek ematen ditugun bakoitzean gauza hori aurkitzean datza **koxka** . Jon Muñoz

Non zegoen formula haren **koxka** ? Jon Muñoz

Arbizu bezalako herri txiki batean tokatzen zaizunarekin moldatu beharra duzu, onerako nahiz txarrerako; **koxkak** hartu egiten dizkiozu, baina hori hala izaten da. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Luzaideko esakune berexi otoitz- **koxka** duen honekin akordatu naiz hortaz:[...]. Bihotzak legezko abiadura- **koxka** guztiak gainditu zituen, baina bere zainetako autobideetan ez zegoen isuna jartzeko ertzainik. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hor dago koxka** (16); **hor zegoen koxka** (4); **hortxe dago koxka** (11); **non dago koxka** (6)

---

## **koxka**[2] *izond ipar* jendekina ez dena. ik **koska**[3].

-Ez zira gaitzikorra, bainan gehiago **koxka,** erran nezake? Menane Oxandabaratz

-Ba, **koxka** edo... ba, batzutan koxkatzen naiz, ba! Menane Oxandabaratz

---

**koxkadun** *izond* koxka duena; koxkak dituena.

Hosto **koxkaduna** duten zuhaitzak, ilbeheran inausi behar dira; bestelakoak, ilberrian. Pello Zabala

---

**koxkatu**, koxka(tu), koxkatzen da *ad ipar* haserretu. ik **koskatu**[2] **2**.

-Ba, koxka edo... ba, batzutan **koxkatzen** naiz, ba! Menane Oxandabaratz

---

**koxkatxodun** *izond* koxkatxoa duena; koxkatxoak dituena.

Batista finezko farfail **koxkatxodunak** zeramatzan sorbaldetan, soinekoaren goiko ertzaren azpitik irtenda. Jose Morales

---

**koxkera** *iz* koskera.

Bazkari on baten mentura ere izanen dukegu: Legatza **koxkera,** Idi errekia Perigord-eko moldean Lur-sagar gorrituekin, Aiherrako Ardi gasna-Bixkotxa-Kafe-Patxaran. Herria

Legatza **koxkera** eran buztinezko kazolan. Ramon Saizarbitoria

---

**koxkero** *iz* koskeroa.

Baina, bestetik, nola poztuko ni, donostiar **koxkero** belaxka hau, Donostiaren setiaketaz; eta beharbada... birrintzeaz? Txillardegi

Donostia klasikoaren giro **koxkero** eta sentimendu herrikoia. Askoren artean

Sarriegiren musika ulertzeko, ezinbestekoa da Parte Zaharraren ibilbide historiko eta sentimentala ezagutzea, han gauzatu baitzen espiritu **koxkeroa** . Askoren artean

Jai haien oroitzapena ez da oraindik Donostia **koxkeroaren** kroniketatik desagertu. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> legatza koxkera (3)

---

**koxkor** **1** *izond adkor* koskorra, txikia.

Seme **koxkorra** besoetan duela. Xabier Mendiguren Elizegi

Spenser "gizon **koxkorra** zen; ilea labur zeraman, idun-xingola **koxkor** bat, eta mauka-farfail **koxkorrak"** . Juan Garzia

Andoainen hartu nuen pisu **koxkor** bat errentan, lantokitik gertu. Juan Luis Zabala

Beta izan nuen burkoaren azpian neukan errebolber **koxkorra** [...] estufaren errautsetan ezkutatzeko. Juan Garzia

Poltsa marroi **koxkor** bat eskutik galtzarbera pasatu du. Hasier Etxeberria

Aldamio **koxkor** bat eraiki zen, txirrika bat atondu, gida-sokak paratu. Juan Garzia

Mantxa aldeko herri **koxkor** batean. Anjel Lertxundi

Hiri **koxkor** bat, harresi zaharrez inguratua, ibaixka baten hegian. Janbattitt Dirassar

Meategia errepublika autonomo **koxkor** bat zen alderdi guztietatik. Juan Garzia

Dahlmann-ek abentura **koxkor** bat bailitzan ekin zion bideari. Juan Garzia

Hantxe nengoen ni, liburuetan gastatzeko dirutza **koxkor** bat eskura eta nondik hasi ez nekiela. Xabier Mendiguren Elizegi

Sute **koxkor** baina indartsu batek kixkalita bezala. Alberto Ladron Arana

• **2** *iz* koskorra, handitua edo irtenunea.

Elenaren titi lehen mardulak beheratu egin dira, **koxkor** ikarati bihurtzeraino. Eider Rodriguez

**3** puska, zatia.

Baziren bestalde *bluiak* deitzen ziren halako **koxkor** edo mokor batzu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Logelako gau mahaian aurkitu zuen harritxo bat, arazo etikoak planteatzen dizkizun **koxkor** horietako bat. Unai Iturriaga

**4** azukre-koxkorra.

Kafesne handi bat, esnetsua, ez oso beroa, basoan, hiru **koxkorrekin** . Pablo Sastre

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa) ik **koskor 6**.

Osabak azukre-**koxkor** bat sartu zion ahoan. Bernardo Atxaga

Ogi-**koxkor** baten truke. Juan Garzia

Harri-**koxkor** batzuk, banakakoak, bota zituen. Pello Zabala

Gainera, ikatz-**koxkorra,** egur pusketa bat eta bi txanpon. Bernardo Atxaga

Bihotz formako izotz **koxkorrak** egiten zituen plastikozko kubitera hautatu zuen. Harkaitz Cano

· Hatz-**koxkorrez** jo zuen Nevadaren atean. Lopez de Arana

Belaun-**koxkorretan,** ustekabeko ahuleziak jo banindu bezala. Txillardegi

**6** ***haur/mutiko/mutil/neska/ume-koxkor***

Ikastoletako haur **koxkor** batzuk. Herria

Gu mutiko **koxkorrak** ginenean. Pablo Sastre

Hurrengo irailean hasiko baitziren han milaka ikasle, lau urtetik hamazortzira bitarteko mutil-**koxkor,** mutiko, mutil eta gazte. Xabier Mendiguren Elizegi

Neska **koxkor** garaian. Joxe Austin Arrieta

Neure ume-**koxkorretan** etxean Ondarroatik ekarritako zakurtxo bat izan genuen. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> azukre koxkor (14); baratze koxkor (3); harri koxkor (17); herri koxkor (12); herri koxkor batean (4); hiri koxkor (5); mutil koxkor (17); mutil koxkor bat (7); neska koxkor (3); nexka koxkor (3); ume koxkor (6)
>
> azukre koxkorrak (4); harri koxkorrak (5); mutiko koxkorrak (3); neska koxkorrak (5)
>
> neska koxkorretan (3)

---

**koxkorreria** *iz ipar* (herri) koxkor multzoa.

Eta, lehenik, ez dezazula ahantz norat zoatzin : Balkanetarat, edo bi Europak (ekaldekoa eta sartaldekoa) elgarri lotzen dituzten herri **koxkorreria** haitarat. Herria

## **koxkortu**, koxkor(tu), koxkortzen **1** da/du *ad adkor* koskortu, zerbait hazi.

Jaio, hazi, **koxkortu** eta umetan eta gaztetan bizi izan zen etxe hartan bertan igaro zituen osaba Benjaminek bere azken zazpi hilabeteak. Jon Muñoz

Ia **koxkortzen** ari zaizkio haurrak. Patziku Perurena

Haur **koxkortzen** hasia eta nini sortu berria haiekin doaz. Berria - Euskal Herria

Haur horiek berak neskatilak badira, **koxkortzen** direnean, prostituzioan bukatuko dute. Gotzon Garate

Klara, behin **koxkortutakoan,** gurasoekin batera joan zen bera ere. Felipe Juaristi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hamasei urteko gazte **koxkortua** zela Donostiara bidali zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Hortxe dago, haur txikiaren eta haur **koxkortuaren** erdian. Jende **koxkortuak,** berriz, [...] maiz aurpegia gorriz pintatzen du. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **koxkortze** *iz adkor* zerbait haztea.

Mahats-ale **koxkortze** bidean zenak ere, bentajarik batere ez: gozagarri eztiaren ordez, ur txepela besterik ez baitzion emango sasoi honetako euriak. Pello Zabala

---

## **koxta** *iz adkor* kosta.

Eta **koxtako** marko paregabea, marko juridiko-politiko paregabea bihurtu zen. Iñaki Segurola

---

## **koziente** **1** *iz* zatidura.

PNUD programa honek kalkulatzen du aberatsen eta pobreen arteko diferentzia biztanleen % 20 aberatsenak hartuz eta hauen sarrera eta kontsumoa % 20 pobreenen sarrera eta kontsumoaren artean zatituz; Espainiak zortzigarren tokia du hor, Greziarekin batera, 5,4ko **kozientearekin**. Pello Salaburu

**2** ***adimen koziente***

Hamaika bete zituztenean, berriz, askoren **adimen kozientea** bederatzi urteko haurren parekoa zen. Berria - Gaiak

Luis García Gutiérrez Defentsa ministerioko Psikologia Zerbitzuetako buruari, adibidez, ez dio enbarazurik sortu Espainian soldadu profesionala izateko **adimen-kozientea** 90etik 70era jaitsi izanak. Txema Ramirez de la Piscina

Paranoiatik monomaniaraino hel gaitezke, **adimen-kozientetik** ergeltasunaren lehen adigairaino, paralisi orokorretik entzefalopatia kronikoraino, izaeraren neurositik deliriorik gabeko zorotasuneraino. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> adimen kozientea (3)

---

## **kozina** *(orobat **kuzina** g.er.)* **1** *iz* sukaldaritza.

Kalitate handiko **kozina** dute eta nasaitasuna ere. Herria

Ez dira lekuko **kozina** proposatzen duen jatetxera joaiten. Eneko Bidegain

Horra zoin diren emaitzak: Bac laborantxakoa -Sebastien Etcheverry, Asketa; Bac jenerala -Emmanuelle Luro, Joanesenea; Bac pro **kozinakoa** -Celine Oteiza, Arretxea. Herria

**2** ***kozinan*** *adlag* janariak prestazen.

Eta ondotik ginuen gure parrokiaren herri arteko afaria, gizonak **kozinan** behingoan, arrain ttipi eta zikiroki arraro batzuen erretzen. Herria

Trikuk oso ondo egiten dik **kuzinan**. Bernardo Atxaga

---

## **kozinari** *iz* sukaldaria.

Meza nausiari bazkaria zor baitzaio Euskal-Herrian egundainotik, hori ere izan dugu, ororen arabera ez baitzuten elgarri zorrik hor ez kantu paregabeek ez-eta **kozinariaren** saltsa-errakiek, arno ona gainera. Herria

Zeren Maddalenek, **kozinari** aparta zen neurrian, baitzekien jan-edanei nahastu beharreko belarren eta espezien berri. Joan Mari Irigoien

---

## **kozinatu**, kozina(tu), kozinatzen *(orobat **kuzinatu**)* **1** du *ad* janariak beroaren bidez prestatu. ik **sukaldatu**.

Sukaldean, Christophe Leborgne-k **kozinatuko** du xerri zango eta tripotarekin eginikako jaki bat.Sukaldera joan zen, non eltze bat babarrun **kozinatzen** ari baitzen ama... Herria

Koinatak **kozinatu** salda beroa hurrupatuko zuen. Itxaro Borda

Sukaldeko gure anai apezek arras ontsa bazekiten **kozinatzen**. Marzel Etxehandi

Eurentzat bakarrik nahi zaituzte, etxean sartuta, **kozinatzen** eta seme-alabak hazten. Jasone Osoro

Etxebizitzan geroz eta konplikazio gutxiago onartuko du Mendebaldeko gizakiak, jakiak nola prozesatzen **(kuzinatzen)** diren ez baitu jakingo. Edorta Agirre

**2** (era bururuta izenondo gisa)

Elikagai erabat **kuzinatuak,** aurre **kuzinatuak,** ia-ia **kuzinatuak,** lekale beratuak, labore hozituak, usain-emaile natural eta sintetikoak. Edorta Agirre

---

## **kozinatze** *iz* sukaldatzea, janariak prestatzea.

Emazte langile, fede handikoa, badu zenbait **kozinatze** eginik etxetan, beti prest zerbitzu egiteko. Herria

---

## **koziner** *(orobat **kozinero** g.er.)* *iz ipar* sukaldaria.

**Koziner,** zerbitzari, laguntzaile, eta parte hartzaile guziek eskertuak izan behar dute. Herria

Bazkariarekin segituz Paxkal **kozinerak** prestatu amuarrain ttipi eta haragi gorri ahotik ezin utziarekin. Herria

Lurden ainitz urtez **koziner** egona, pilotari trebea izana, eritasuna nagusitu zaio bere osagarri azkarrari. Herria

---

## kozinero ik **koziner**.

**kozinertsa** *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea) iz ipar* emakumezko sukaldaria.

250 bat bazkaltiarrek bete dute Denen Etxeko gela, eta ainitz preziatu herritar **kozinertsek** edo sukaldariek prestatu apairua. Herria

Goresmen beroenak kartiereko bi **kozinertseri,** hauiek prestatu arraina eta axoa zinez ahotik ezin utziak baitziren. Herria

---

**kozkor** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian adkor markaz agertzen da)* **1** *izond* koskorra; handi xamarra.

Mutil beltz bat, sirenei kasurik egin gabe, Lexington Avenue-n behera zetorren maleta **kozkor** baten tamainako musika tresna bizkarrean zekarrela . Iñaki Zabaleta

Ezagutzen ez nuen mota bateko zuhaixka **kozkor** batean azpian. Josu Zabaleta

Hor bazen kantonamendu bat aski **kozkorra,** Bidartetik Hendaiarat zoana, bi herri horiek barne. Herria

Esan liteke, mende honen erdira arte, herri **kozkor** gehienetan bazela argizarigile eta konfitero edo txokolateroren bat. Patziku Perurena

20 milioi euro inbeztizamendu eskatzen dituen proiektu **kozkor** hori, BAM, unibertsitatea, Akitania eta Estatuaren artean adostua da aspalditik. Herria

Brasilen dirua sartzen dute orai enpresa multinazional **kozkor** batzuek, ekoizpenak handiaraziz, enpleguak galaraziz eta nekazariak buluziz. Herria

• **2** *iz* koskorra.

**Kozkorrak** eta zuloak besterik ez zeuzkan zalastrajo txatxua, umeek deitzen zioten bezala. Anton Garikano

**Kozkorrez** beteriko bekokia zimurtuz. Lopez de Arana

Ileen azpian, **kozkor** bat zeukan, erdian zauri ireki batekin. Juan Kruz Igerabide

**Kozkor** handi bat dauka kolkoan, txoratu egin du zer edo zer bazterren batean bere begietan auspeztua ageri zaidan ternó honek. Koldo Izagirre

Nere anaiak, **kozkor** lodi bat, handitzen ari zaiona , badu buruan... Herria

**Kozkor** bat antzematen zitzaion poltsiko hartan, pistola. Juan Kruz Igerabide

Nodulu linfatikoak ehunezko **kozkor** batzuk dira, gorputzaren leku askotan daudenak. Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa) ik **koskor 6**.

-Hiru azukre **kozkor** -esan zuen-. Koro Navarro

Emango zuen hori guztia Santxok ogi **kozkor** bat eta mahats-mordo baten truke. Patxi Ezkiaga

Okela gisatu ilun bat ekarri zigun tabernariak, patata **kozkor** handiekin inguruan. Koldo Izagirre

Izotz **kozkor** bat eta lima zati bat erantsi zituen. Koro Navarro

-Esan ezak, Ttakun: uzten al dik titi **kozkorrak** ukitzen, e? Juan Kruz Igerabide

· Hatz-**kozkorrez** kristala jotzeko. Aitor Arana

Haren ezker eskua eskuineko eri-**kozkorrak** igurtzen ari zen. Aingeru Epaltza

**4** ***harri-kozkor***

Ukabila adinako **harri kozkorrak**. Patxi Ezkiaga

Ilargiko **harri kozkor** batzuk eta han lurrean bildu dugun errautsa. Pello Salaburu

Harik eta lurretik **harri** - **kozkor** batzuk hartu, eta hormatzarraren kontra ekin zion arte. Joan Mari Irigoien

Baina 3 minutu eta 46 segundo beteta uxatu zituen kezkak, ederki berdindu baitzuen 270eko **harri kozkorra**. Berria - Kirola

**5** ***mutiko/mutil/neska/ume-kozkor***

Herriko mutiko **kozkor** batengatik hoinbeste jende mugitu behar zela! Michel Oronoz

Batel bat, ordea, irauli egin zen; patroi zihoan mutil **kozkorra,** ez ni baino askoz handiagoa, ibaiaren erdialdera erori zen. Juan Kruz Igerabide

Behin mutil **kozkorretan** urrezko erlojua aurkitu zuen. Anton Garikano

12 urteko neska **kozkor** bati. Berria - Gaiak

Yankee itxurako ume-**kozkor** batzuk ageri dira bizikleta gainean. Jokin Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azukre kozkor** (4); **harri kozkor** (17); **herri kozkor** (3); **mutil kozkor** (11); **ogi kozkor** (8); **ume kozkor** (4)

**harri kozkorra** (6)

**harri kozkorrak** (7); **mutiko kozkorrak** (3); **mutil kozkorrak** (5)

**harri kozkorretan** (3); **mutiko kozkorretan** (3); **mutil kozkorretan** (3)

**kozkorrez betea** (3)

---

**kozkordun** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **koskordun** agertzen da) izond* koszkorduna.

Horixe izango da trumoi-hodei **kozkordun** horien ordu aproposa! Pello Zabala

---

**kozkorreko** *iz* koskorrekoa.

**Kozkorreko** gehiago edo gutxiagorekin, baina, ikasi, ikasten du. Arantxa Iturbe

Haren eta gure artean beira sendo erraldoi bat zegoen, garden-gardena, errealitatea eta fikzioa bereizten zituena, bi mundu, eta sekulako **kozkorreko** bana hartu genuen hiru pertsonaia sutuok, K.L. nagusiaren gozamenerako. Karlos Linazasoro

---

**kozkortsu** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **koskortsu** agertzen da) izond*

Ibarrak arrastiriko zehar-argitan, itzal-mazelak, itzal-trokarteak, lats zuriak han behean, larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri, eta artalde bat oihan-ertzeko sakonune harri-**kozkortsu** batean: zizare zuriak iduri! Joxe Austin Arrieta

---

**kozkortu** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **koskortu** agertzen da) da ad* koskortu, zerbait hazi.

Noiz eta nola sortu, **kozkortu,** gizendu eta mantendu ziren jakiteko. Pello Zabala

Urte horietan neska **kozkortu** egin da, eta gu zahar bidean jarri gara. Aitor Arana

Ramon Bagliettok besoetan zuen ume hura **kozkortu** zen eta gazte egin, urteen joan-etorriarekin. Pello Salaburu

Badakite, umeak hazi bitartean, urte batzuk etxean egin beharko dituztela, eta, umeak **kozkortutakoan,** bakoitzak bere lanean jarraituko duela. Arantxa Iturbe

Seguru zegoen amak ere umea **kozkortuta** ikusi zuela galtzontziloak kendu eta jarri bitarte hartan. Jokin Muñoz

**2** (era burutua izenondo gisa)

Etxeko txikiena, orduko mutil **kozkortua,** zigorra eskuan zuela. Josu Zabaleta

Ehunka haur denak batera lasterka erregelak eta karterak airean astintzen trafikoaz arduratu gabe, eta mutil **kozkortuago** batzuk oihuka. Pello Lizarralde

Mutiko **kozkortu** bat ikusi zuen ordura arteko umetxoaren tokian. Jokin Muñoz

Behialako nagusiaren iloba **kozkortuarekin**. Aingeru Epaltza

---

## kozkortxo *iz* koskortxoa.

Klitoria, zer hori, **kozkortxo,** aletxo hori... Luis Elberdin

---

## kraak (onomatopeia) ik **krak**[1].

Justu orduan, **kraak** karrankari bat entzun zuten, eta gero **kraak, kraak** Lorategien buelta osoan. Julen Gabiria

---

## krabata *iz* gorbata.

Aita, atorra zuritan, **krabata** eta jantzi ilunetan; ama, zituen soineko ederrenekin. Aurelia Arkotxa

Ez ninduten **krabata** batetik urkatuko, alferrik ari ziren. Koldo Izagirre

**Krabatarena** bezalako korapiloa eztarrian. Iñigo Aranbarri

---

## krabelin 1 *iz Caryophyllaceae* familiako landarea, orri luze eta meheak dituena, hosto askotako lore oso usaintsuak, kolorez zuri, gorri, arrosa, horiak, ematen dituena *(Dianthus caryophyllus);* landare horren lorea.

**Krabelin** bat loratu zen azen artean. Anton Garikano

Arrosak eta **krabelinak** ziren, maitaleen mezulari ezkutuak. Felipe Juaristi

**Krabelinak** zimeltzen utzi zituzten. Berria - Mundua

Azaoka bilduriko usain-belarrak eta **krabelinak** ikonoen alboan. Jose Morales

**Krabelin** gorriz egindako koroa. Berria - Euskal Herria

**Krabelin** zuria bota zion Kopenhageko printzeari, baina loreak zalgurdiko kristala jo, eta lurrean geratu zen maspildurik. Felipe Juaristi

Patio gotikoko lorategi **krabelin** xuriz betean. Karlos Linazasoro

Belusezko berokia, belaunetarainoko galtzak, **krabelin** berdea botoi-zuloan... Antton Olano

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ile adatsean **krabelin**-koroa zuen, gorrian gorri. Felipe Juaristi

**Krabelin**-sorta bat jarri nuen urna zuriaren ondoan. Eskarne Mujika

Lur zorua arrosa eta **krabelin** hostoz jantzirik. Felipe Juaristi

Printzesaren ile-adatsa usaindu zuen eta **krabelin** urrina etorri zitzaion sudur mintzetara. Felipe Juaristi

· **Krabelin** gorri sorta bat mahaiaren erdian jarrita. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Han daude haitz-**krabelinak,** orri moreak tarteka, orri txuriak besteka, nahasian. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrosa eta krabelin** (3); **krabelin gorriak** (6); **krabelin gorriz** (3)
> **krabelinen iraultza** (5); **krabelinen iraultzaren** (4)

---

## kraion *iz* klera, klariona.

Miaketa luzea, xehea, seriosa, baina ororen buru gauza guti mokanesa, arrosarioak, otoitz-liburua, kentzen didana, eta ere **kraion** mutur bat. Marzel Etxehandi

Eskolatik ostutako **kraion** berde urdin gorriz. Koldo Izagirre

---

## krak[1] 1 haustearen onomatopeia.

Istant horretan, **krak,** zerbait pitzatzen hasi da zeure barnean, nola putzuetako izotza oinetakoen azpian. Hasier Etxeberria

Maitagarri hura arratoi bihurtu zen, eta jira-biraka hasi zen bere isatsa harrapatu nahian; gero, **krak!..** . eta kriskitin-suge bihurtu zen... sigi-saga bihurritu zena; ondoren, **krak!..** . eta begi-bola odoltsu bilakatu zen. Iñaki Mendiguren

Sustoarekin atzera erori duk eta, **krak**! orkatila hautsi zaiok. Pablo Sastre

**2** (izen gisa) ik **krakateko; krakada**[2].

Halako hozkia eman zidan non betiko iltzaturik geratu baitzitzaidan petrikilo hitza garezurrean, ileak tente ipini zizkidan **krak** lazgarri harekin uztarturik. Juan Kruz Igerabide

Ez zuen **krak** bakarra atera, hiruzpalau baizik, azkarrak, lehorrak..., hiruzpalau astindu. Juan Kruz Igerabide

Pixka bat goratu egin zion besoa, berea galtzarbe azpitik sartu, beste eskuarekin Joxe Mariren besoari heldu, eta mugimendu lehor batez **krak** hotsa atera zion. Juan Kruz Igerabide

**Krak** hots txikiak atera zituen sarrailak. Fernando Morillo

**3** (adizlagun gisa)

Liburua **krak** itxi zitzaion eskuan, eta gero azalak astinduz igaro zitzaion ondotik, artean ere ihesi. Iñaki Mendiguren

**4** ***krak egin***

Gorputzak **krak** egiten zion buelta ematen zuen bakoitzean. Unai Elorriaga

Andreiren hanka-giltzadurek **krak** egiten dute. Pablo Sastre

Legarrak **krak** egin zuen haien oinen azpian. Lopez de Arana

Lantoki berria erabaki ezinda dabil eta ezer esaten ez badu ere, barruan zerbaitek egingo zion **krak,** ezbairik gabe. Hasier Etxeberria

Baina gorputzak **«krak»** egiten duenean zerbait ondo ez dagoen seinale izaten da. Berria - Kirola

Gure unibertsoak **krak** egiten du, Wayne Kramerren abestiak dioen moduan. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **krak egin** (13); **krak egin zuen** (6); **krak egiten** (8); **krak harekin** (3); **unibertsoak krak egiten** (3)

## **krak**² *iz* kiroletan-eta, izarra.

Normala zen entziklopedia-saltzaileak Gaudí aukeratzea eta Gómez de la Serna aukeratzea; azken batean **krak** bi ziren Gaudí eta Gómez de la Serna. Unai Elorriaga

## **kraka** *(orobat **graka**)* *iz* gauzei atxikitzen zaien zikintasuna. ik **zolda**.

Ez zara ondo garbitu, **kraka** daukazu orkatiletan. Itziar Otegi

Kotoi zikinezko bolez, **kraka** ilunez eta zurda beltz luzeez zeuden beteak sofaren arrakalak. Koro Navarro

Jendearekin hitz egin aurretik, ken ezak hire gorputzeko **kraka** guztia. paretei karea eman-edo, Erretaulari **kraka** kendu-edo... egongo da nik egiteko moduko lanen bat. Patxi Zubizarreta

Laboratorioko kaxoi batean bazen **krakak** harturiko txartel--sorta bat. Juan Garzia

Hormako paperak, inoiz argia eta alaia izan bazen, antzina behar zuen, ze urtetan pilaturiko hautsak eta **krakak** sano amataturik zeukaten sasoi bateko kolore bizien garra. Xabier Montoia

**"Graka"** eta "kaka" errimatuz ostera, egin daiteke itsasoari buruzko poesia. Andoni Egaña

## **kraka-kraka** *onom*

Eskopeta bat Joxe Mariri bota zion; hark airean harrapatu zuen; gero zakurrak askatu, eta lasterka abiatu ginen, eskopetak **kraka-kraka** kargatuz. Juan Kruz Igerabide

## **krakada**¹ *iz ipar* arratsaldeko askaria.

Larunbat aratsean, angeluarren **krakada** eta dantzaldia "Chambre d'Amour" auzoguneko biltokian. Herria

Omore onean, **krakada** eder batek bukatu zuen aratsalde eder hori. Herria

**Krakada** Herriko-Etxeak eskainirik. Herria

Ondotik, **krakada** dohainik. Herria

Horietarik 13 izan dire saristatuak eta denek **krakada** goxo bat jastatu dute lorietan. Herria

Bere aitak txanpaina botoila erosi zuen, eta alabaren lagunak gomitatu etxera **krakadaren** egitera. Ramuntxo Etxeberri

Ogiak azukredun opilei egin die tokia eta **krakadetan** nagusiak dira bizkotxa industrialak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskaini krakada** (3); **krakada bat eskainia** (4); **krakada goxo** (3); **krakada on** (4)

## **krakada**² *(orobat **krakara**)* *iz* haustearen zarata. ik **krakateko; krak¹**.

Berehala, **krakada** bat entzun zen eta harri txiki biribil bat atera zitzaion eztarritik. Askoren artean

Giza atalen kea, eta erretzen dauden hezurren **krakada**. Juan Martin Elexpuru

Eskegiaz batera ogi-zerra xigortu bati **krakara** aterarazi zion ahoan, amorruz. Joxemari Urteaga

Egurrezko eskailera zartatuen **krakarak,** oraindik eskolara hasi gabeko haurren baten negar-hotsak laguntzen zituen goikorako bidean. Joxemari Urteaga

## **krakadaño** *iz adkor* krakada, arratsaldeko askaria.

Han, ibilaldian parte hartuko duten guzieri **krakadaño** bat eskainia izanen da. Herria

Azkenik, **krakadaño** bat eta bi dantza piko, mutxiko eta fandango. Herria

## krakara ik **krakada²**.

## **krakateko** *iz* haustearen zarata. ik **krakada²; krak¹**.

Ruthen lepohezurrak haustean egindako **krakatekoa** entzun zen beste soinurik onar ezin zezakeen isiltasunean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Autotik jaistean, **krakateko** txiki bat sumatu zuen belaunean. Berria - Kirola

Fusil sarrailaren **krakatekoa**. Koldo Izagirre

Hizketan jarraitu nuen nik, hortzen **krakatekoak** Herioren barre-karkarak eragina zelakoan. Anjel Lertxundi

Garezurra zeharkatu zidan **krakateko** hark, eta oraindik ere bizi-bizirik daukat oroimenean, une honetan berean entzuten ariko banintz bezalaxe. Juan Kruz Igerabide

Bozgorailuetan, Saint-Saëns-en Dantza Makabroaren albiste eman zuen ahots lodi-bildu batek, eta gramola bateko orratzaren **krakatekoak** entzun ziren segidan. Anjel Lertxundi

## **krakatsu** *izond* krakaz betea.

Txabusina **krakatsu** batez jantzitako agure ihar bat. Alberto Ladron Arana

Txano biseradun grisa, **krakatsua,** karratu handiduna. Jon Muñoz

Herri zaharrak, errepidetik ikusita, teilatu makur eta **krakatsuko** lerro hautsi bat marrazten du, gaztelutik ibairaino beheraka doana. Koro Navarro

## **krakatu,** kraka(tu), krakatzen du *ad* zarataz hautsi.

-Ez jauna ez -Santxok erantzun-; ez dadila niregatik halako hura esan: "saria aurreratu, besoak **krakatu** ". Patxi Ezkiaga

## **krakeladura** *iz* azal batean pitzadura sare fin bat sortzea.

Oihalaren aldean, bestalde, **krakeladura** finak eta neurriz eginak ageri dira. Javi Cillero

**krakelatu** *izond* azalean pitzadura sare fin bat duena.

Iragatean, ontzi **krakelatuak,** platerak eta idulki baten gaineko satiro urdin eta hori bat ikustatu ditut bi bao handiren bestaldean Monika Etxebarria

---

**krako** **1** *iz* pilotari gotik behera ematea. ik **kako 6**.

Irujo atrebitu eta indartsu, besoairea berez trinketeko moldean eskuinetik ezker segan, azken **krakoa** bortitz, 12taraino berdintsuan egonik, 17-13ko abantaila hartu ere du Paxkalen huts batzu ere baliatuz. Herria

**2** (musikan) musika nota, beltzaren erdia balio duena. ik **kortxea.**

Pentagrama artean hazi dira; **krako,** konpas eta abarrekin borrokan eta jostatzen, eta hemendik aurrera, afizio ez ezik, ofizio ere izan nahi dute musika. Berria - Harian

• **3** *izond ipar* kakotua.

Gizon mehatsa zen; sudurra aski **krakoa** zuen eta kokotsa luzea. Elena Touyarou

---

**kraneo** *iz* garezurra.

Bazekien Miskak zer zegoen lotinantaren burua estaltzen zuen goata bola handiaren azpian; ikusia zuen haren **kraneo** hautsia, ikusiak ere haren xehaturiko burumuinak Pablo Sastre

---

**kranpoi** *iz* boten azpialdeari lotzen zaion zola metaliko puntaduna, izotz gainean ibiltzeko edo eskalatzeko erabiltzen dena.

Boten azpiko **kranpoien** hogeita lau iltze zorrotzak. Josetxo Azkona

Bost orduz egin zuen gora, bere **kranpoien** bidez harkaitzetan gora igoz, izotzetan mailak eginez. Josu Zabaleta

**Kranpoiak,** pioleta, soka... Berria - Euskal Herria

Eskularruak libratu eta **kranpoiak** ere askatu nituen segidan. Josetxo Azkona

---

**kraska** **1** *adlag* karraskatzearen onomatopeia.

Kristal puska batzuk ere ahoratu nituen tartean, haginetan **kraska** eta **kraska** sumatu bainituen. Joxan Elosegi

Plazan, sekula ez nuen astirik izaten lasai jateko, ongi mastekatzeko, ahoa zuku betean, hortz-haginen artean **kraska** eta **kraska** . Joxan Elosegi

• **2** *iz* hausten den zerbaiten hotsa. ik **karraska**[1].

Zartailuarena bezalako **kraska** batez. Iñaki Mendiguren

Aldiro-aldiro zuhaitzen **kraska** entzuten zen, beren zurezko besoak azalaren azpian zartatu izan balitzaizkie bezala. Josu Zabaleta

**Kraskaren** osteko isiluneaz baliatu zen mutikoa: [...]. Josu Landa

**3** ***kraska egin***

Nahiago nuke pikatxoi-burdinari hozka egin, hortzetan **kraska** egiten duen babarrun ale bat jan baino. Itziar Otegi

Hortz-haginetan **kraska** egin eta listuan desegiten ziren zuntzak. Joxan Elosegi

Adaxkek **kraska** egiten dute oinen azpian. Lander Garro

Pitzatzen ari den oholaren modura, ahotsak **kraska** egin zion: "Ez al duzue ikusten ezin dudala?... Lopez de Arana

**4** ***kraska hots***

Eskailera pribatuak **kraska hots** apal bat egin zuen. Monika Etxebarria

Horra bada, gau batean nire atzean zurezko zoruak **kraska hots** bat egiten zuela entzun nuen. Josu Zabaleta

Adar siku baten **kraska- hotsa** entzun zen unetik jakin zuten piratak irlan zeudela. Julen Gabiria

Orbel eskasaren **kraska hotsa** entzun zen. Fernando Morillo

**5** ***kriski-kraska** adlag (onomatopeia)*

Amak ahots goraz irakurri zigun denoi gutuna; eta gero, **kriski** -kraska, zimur-zimur biribildu eta surtara bota zuen -dagokion tokira, esan zuen. Mirentxu Larrañaga

Charlierekin eskolara bidean, udazkeneko orbel-pilatan **kriski** -kraska, eta istil-putzuetako izotzetan zinpi-zanpa. Mirentxu Larrañaga

Sua aditzen zen, **kriski** -kraska, urrunetikako plazer erraldoi, ahalik idorren mantentzen ziren xirmenduak klikatzen. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kraska egin** (5); **kraska egiten** (4); **kraska hots** (6); **kraska hotsa** (4); **kraska hotsa entzun** (3)

---

**kraskada** *iz* kraska.

Adar idor erori berri baten **kraskada** heldu zaio. Pello Lizarralde

Kasu haundia emanez zapaldu arren, zuraren **kraskadek** bisitariaren iluneko ibilera izutia agertu dute. Pello Lizarralde

**Kraskada** urtsua imajinatu zuen. Joxemari Urteaga

Aurrera zegien zetaren **kraskaden** doinupean arrastiriko argi-burbuila gorrixka, more eta berdeen artetik. Lopez de Arana

---

**kraskadura** *iz* kraskatzea, haustura.

Noraren oinetakoek arrautza-azalen **kraskadura** bezalako soinua ateratzen zuten elurra zapaltzerakoan. Anjel Lertxundi

Eginahalak eginez zutitu egin nintzen, eta **kraskadura** bat nabaritu nuen hezur mamietan. Xabier Mendiguren Elizegi

Bigerren gerlaren ondotik, **kraskadüra** handiago bat agitü zen Maulez peko ibarrean eta Sohütako karrikan. Herria

---

**kraskagailu** *(orobat **kraskailu** g.er.)* **1** *iz* kraskatzeko erabiltzen den gailua.

-Ongi erran beharko! -erantzun zuen txangurroa azpiletik hartu, hankarik potoloena erauzi eta, **kraskagailua** erabiliz, oskol gogor hura hausten zuelarik. Josetxo Azkona

Pure egiteko makina nuklear bat izterrean, **kraskagailu** supersoniko bat eskuan. Josu Zabaleta

**2** ***intxaur kraskagailu***

**Intxaur** -kraskagailua da beste palanka mota bat: mutur batean du euste-puntua, harengandik hurbil karga eta harago indarra. Irene Aldasoro

· Halaber, Tchaikovskyren **Intxaur** kraskagailua, Brahmsen Dantza hungariarra eta Manciniren Tribute to Mancini obrak ere interpretatuko dituzte. Berria - Kultura

*Casse-Noisette* **(Intxaur** kraskagailua) balet ezagunaren bertsio eraberritua aurkeztuko du Biarritz Balletak gaur eta bihar. Berria - Kultura

Clavelek **Intxaur** kraskailua-n oinarritutako beste koreografia batekin jarraituko du emankizunak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **intxaur kraskagailua** (3)

---

## **kraskagile** *izond* kraska egiten duena.

Eskailera **kraskagile** bernizatu berrien hiru pisu igo zituzten. Lopez de Arana

Dutchek behatz-puntetan jarraitu zion korridore **kraskagilean** zehar. Lopez de Arana

---

## kraskailu ik **kraskagailu**.

---

## **kraskaka** *adlag* kraska eginez.

-Baietz, baietz, ene adinera helduko zireztelarik ikusiko duzue, begiek ez dutelarik gehiago buzoka eta mirua bereixten ahalko, belaunak urrats guziez **kraskaka** ariko direlarik... Michel Oronoz

---

## **kraskako** *iz ipar* kraska hotsa.

Eskaleren **kraskakoak** urrikalgarriak ziren; eskubanda kulunkatzen zen eta noiznahi hautsiko zela zirudien. Elena Touyarou

Abar idorraren **kraskakoak**. Itxaro Borda

Erregetza gorenean zegoela, baina eraikinaren lehen **kraskakoak** bere belarri finaren medioz aditurik, apezpikuak dogma teologiko-politikoa finkatu zuen: [...]. Piarres Aintziart

---

## **kraskalari** *izond* kraska egiten duena. ik **kraskari**.

Peko borta zabalik zen eta zurezko eskailera borobil **kraskalarietan** gora jo zuen, bosgarren estaian kokatzen zen semearen apartamenturaino. Itxaro Borda

---

## **kraskarazi**, kraskaraz, kraskarazten **1** du *ad* kraskatzera behartu.

Uharte honetan, mende asko duela, animaleko suak pizten ziren harkaitzetan ontzien **kraskarazteko** eta gero hauen ebasteko. Itxaro Borda

Beste leherdura batzu ere jasan dezazke oraino itsasoan hoin barna den untzi zahar horrek, uraren pisuak berak **kraskarazten** ahal baitu. Herria

Hormaren indarrak arbolak **kraskarazten** eta hausten ditu zuritasun geldian. Aurelia Arkotxa

**2** kraska hotsa aterarazi.

Behatzak juntetan ozen **kraskarazi**. Itxaro Borda

---

## **kraskari** *izond* kraska egiten duena. ik **kraskalari**.

Garoz eta orbelaz estalirik zegoen zorua, eta soinu **kraskaria** sortzen zuten Noraren pausoek. Anjel Lertxundi

---

## kraskatako ik **kraskateko**.

---

## **kraskateko** *(orobat **kraskatako** g.er.)* *iz* kraskakoa, kraska hotsa.

Baina ez da hots nabarmenik behar; nahikoa da zotz baten **kraskatekoarekin**. Bernardo Atxaga

Tarteka, hotzak printzatzen dituen adaxken **kraskatekoak** entzuten dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tximiniako erlojuetako batek **kraskateko** txiki bat egin eta ordua jo zuen. Koro Navarro

Korrika abiatu nintzen, oinen pean **kraskatako** desatsegin bat sentituz, ahoan barraskilo oskolak murtxikatu eta haginak barraskilo oskol papurtuekin nahasten zaizkionaren zarata hozkirri eragile bat, ahoan ez baizik eta oinen pean sentitzen nuen basoaren zarata. Harkaitz Cano

Eskaileratan gorako **kraskatekoa** entzun zen berriro. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kraskatekoa entzun** (3)

---

## **kraskatsu** *izond* kraska hotsa egiten duena.

Ogi **kraskatsu** egin berri digerigaitzak. Edorta Agirre

Gau **kraskatsu** batean, malguki gainean zebilela zirudien. Lopez de Arana

Ehun pintxo **kraskatsu**. Edorta Agirre

---

## **kraskatu**, kraska(tu), kraskatzen **1** da/du *ad* kraska eginez hautsi; hautsi, pitzatu.

Sudurraren hezurra zelan **kraskatu** zion entzun zuen. Paddy Rekalde

Ekaitzak bi zati egin zuen masta, lemazaina buruan jo, eta buruko hezur guztiak **kraskatu** zizkion. Juan Kruz Igerabide

**Kraska** zitekeen edozein txotx ttipiena ere ez zuten zapaldu behar. Eneko Bidegain

Denen aurrean kanabera **kraskatu** eta zabaltzeko agindu zuen. Patxi Ezkiaga

Intxaur jaten ari ginela, alea **kraskatu** ondoren barrengo mamia beltzu edo urdinskatua agertzen bazen. Patziku Perurena

Nola **kraskatu** behar ziren etxean intxaur eta hurrak, sagarrak eta laranjak nola zuritu eta ogia xerra mehetan nola moztu. Fernando Rey
Jostaketan, [arrautza] bat hartu, eta neure buruan joz **kraskatu** nuen. Xabier Olarra
Ganbelan zeuzkan kalamu-haziak **kraskatzeari** ekin zion Nofuturek. Jon Muñoz
Ez zen gai samur jokatzeko: bati besoa **kraskatu** edo beste bati sudurra hautsi, besterik ez zekien egiten. Jose Morales
Gizotsoak nire hanka hortz artean sartu, eta bi, hiru eta mila zatitan **kraskatuko** balit bezala. Juan Kruz Igerabide
1643an, Zaragozako harrizko zubi handia **kraskatu** eta triskatu zuen uholde izugarri batek. Pello Zabala
Erditik **kraskatzen** ari den egundoko izotz puska bat zirudien aireak. Anjel Lertxundi
-Amona, errota ez dabil, **kraskatua** du harra. Juan Garzia
Baina kanpaiek han segitzen zuten jo eta jo, **kraskatuta** jada batzuk, soinu barru-huts, pegarrarenaren gisako batez. Juan Garzia

**2** *hed/irud*

Apur bat **kraskatua,** baina oso gutxi, sentimenduak (batzuk behintzat) adierazteko behar den adina **kraskatua,** ez gehiago. Pako Aristi
Eztarria **kraskatzeraino** oihu egin nuen nire babesleku zirtziletik. Aingeru Epaltza
**Kraskatu** egin zitzaion ahotsa, eta negarrez hasiko zela iruditu zitzaidan. Xabier Mendiguren Elizegi
Nola berdindu sineste eta pentsamendu oro **kraskatu** diotenaren mina? Hasier Etxeberria
Bainan bet betan diabeta bortitz bat jinik osagarria **kraskatu** zaio. Herria

• **3** du *ad* kraska hotsa aterarazi.

Ez ditzagun, beraz, hauei ausikika hortzak debaldetan **kraska**! Juan Luis Zabala
Atea itxi eta kalerantz abiatu zen, egurrezko eraikuntza zaharkitu hartako lehen eskailerak **kraskatuz**. Harkaitz Cano
Bostak eta hogeirako falta ziren hogei segundoak [...] atzamarretako hezurrak **kraskatuz** pasatu zituen. Josu Landa

**4** (era burutua izenondo gisa)

Bidea bezain luze, bide bazterretan, gorputz miserableak, kaskohezur **kraskatuak**. Adar **kraskatu** baten oihartzun urruna entzun zuen gero. Michel Oronoz
Laranja zurituak eta intxaur **kraskatuak**. Fernando Rey
Kirrinka egin zuen oholak, intxaur **kraskatuaren** zarataz. Jon Muñoz
Milaka auto **kraskatu** eta guztiz hondatuak biltzen zituen txatartegia. Javi Cillero
Kabiliako kantari itsuen ahots **kraskatuak**. Itxaro Borda
Idazleak arratsalde batean telefonoan ahots **kraskatu** bat ezagutuko duela. Pako Aristi

**5** ***intxaurrak kraskatzekoa*** *iz mug* intxaur kraskagailua.

Inork ez zuen intxaurrak **kraskatzekoa** aurkitzen. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahots kraskatu** (5); **ahotsa kraskatu** (5); **osagarria kraskatu** (4)
> **ahots kraskatuak** (3)

---

# kraskatze *iz* kraska eginez haustea.

Egundoko **kraskatze** soinua zagok sukaldean, etxea bertan behera erortzen ari balitz bezala. Harkaitz Cano
Txaradiko hosto-hotsa entzun nuen, gero adar- **kraskatzearena,** eta ondoren esku-zartada moduko bat. Joxe Austin Arrieta

---

# kraskitin 1 *adlag* (ik beherago **2**)

Neskaren begiak kriskitinetik **kraskitinera** zebiltzala ikusirik, erantsi zuen-: zoriona omen dakar. Anjel Lertxundi
· Honelakoa beharko luke hitz guztien jirabira bihotzetikan eztarriraino, eztarritikan argira eta krisketak **kraskitin,** esposak krabelin orduan izango dira. Berria - Harian

**2** ***kriskitin-kraskitin***

Ezin da erresuma bat itxuraldatu, iragana ezabatu, bidegabekeriak ezeztatu kriskitin-**kraskitin** bat eginez. Fusilen eta metrailadoreen tiro-hotsak kriskitin-**kraskitin** ari zaizkigu buruen gainetik, eta sugarrek han-hemenka argitzen dute ilunpea aldizka. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kriskitin eta kraskitin** (4); **kriskitin kraskitin** (3)

---

# krater 1 *iz* sumendi baten erpinean dagoen inbutu itxurako sakongunea.

Sumendiaren **kraterrak** sugar azao bat iraizten zuen goitika. Juan Garzia
Barren-barrenean, gure gainean, domoak, **krater** itzaliak, beren gailur ebakiak mendi sail luzeaz gainetik jasotzen. Josu Zabaleta
Beste itsasarte hau, uhartearen hegosartaldean, lakuaren modukoa izanen da, beste sumendi **krater** baten ondorioa. Joseba Sarrionandia
Itsasertz honetatik mendiaren haitzuloak **krater** garaiaren azpiraino luzatzen dira. Xabier Amuriza
**Kraterraren** hego ertzetik. Juan Garzia
Meatzeetako lurralde basatian gaindi, **kraterraren** hegiraino. Juan Garzia
**Krater** koskadunak koroaturiko labe edo tximinia erraldoiaren itxurarekin. Agustin Otsoa

**2** irud/hed

NASAk Marteko lurrazaleko **krater** batera bidaliko du ontzia. Berria - Gaiak
Kometaren gainazala **kraterrez** josita dagoela. Berria - Gaiak
Lurrean **krater** baten itxurako bi zulo utzi zituzten misilek. Berria - Mundua

---

# krausismo *iz* K. C. F. Krause alemaniar filosofoaren doktrina panteista eta arrazionalista, Espainian, XIX. mendearen bigarren erdialdean, eragin handia izan zuena.

Sanz del Río, **krausismo** espainolaren aitagoiak. Joxe Azurmendi
**Krausismo** espainolaren handia ez datza haren ahal teorikoetan hain zuzen ere, ahalegin hezitzaileetan baizik. Joxe Azurmendi
**Krausismoak** ere azaleko eta barneko historia bereizten du. Joxe Azurmendi

---

# krausista *izond/iz* krausismoarena, krausismoari dagokiona.

Pentsamendu **krausistaren** laburbildumatxo gisa. Joxe Azurmendi

Heredentzia **krausistan** arrunta izan den positibismo eta idealismo uztarketak erraztu bide du Espainiaren asmaketa hori. **Krausistek** errotu bide dute Volksgeist espainolaren filosofia. Joxe Azurmendi

G. de Azcárate **krausistak**. Joxe Azurmendi

---

**krausopositibismo** *iz* positibismo krausista.

Herriaren arimaren kontzeptuak, hortaz, zentzu positibista hori hartuko dizu [...], Herrien Psikologiak nahi zuen bezala: hain zuzen psikologia horren sartzailea Espainian **krausopositibismoa** izan ei da. Joxe Azurmendi

Konferentzia honetan Unamuno, Madrilen **krausopositibismoa** ezagutu berria duena, oso kritikoa da bere aurreko edo garaiko zenbait euskal "filologo" eta historialari edo legendazalerekin. Joxe Azurmendi

---

**krausopositibista** *izond* krausopositibismoarena, krausopositibismoari dagokiona.

Ondorioz testua, **krausopositibista** eta razionala, kritikoa da laino orientaletatik jalgita ikusten diren idealismo klasikoarekin [...] nahiz modernoarekin. Joxe Azurmendi

Unamuno Bilboko publikoaren aurrean, estudiante gazteak Unibertsitatean harrapatu zuen sukar intelektual **krausopositibista** ari da garatzen. Joxe Azurmendi

---

**krazka** *iz* belearen oihua.

Mendiarteetan sartzen zen, non zuhaitzak, txorien habiek zamaturik, hostoz jantzen hasi berriak baitziren, non gorgarriro entzuten baitziren beleen **krazkak,** belatxingen marrakak eta ipar-beleen karrankak. Jose Morales

---

**krazkaka** *adlag* krazka egiten.

Kanpoan **krazkaka** ari zen etxeko ahate bakarra. Koro Navarro

Ahateak atariko eskailera zaharren azpiko erretenera joaten ziren, eta hantxe geratzen ziren igeri eta **krazkaka**. Koro Navarro

---

**krea** *iz* klera.

Kaukasiar ***kreazko*** *borobila* izango da jardunaldien areto nagusian eskainiko ez den antzezlan bakarra; haren muntaketak dituen ezaugarri bereziengatik. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaukasiar kreazko borobila** (22)

---

kreasota ik **kreosota**.

---

**kreatibitate** **1** *iz* sormena.

Sentimenen bidez jasotako informazioa adigarriki elaboratzeko gaitasun aktiboa, hots, pentsatzekoa, errepresentazioak sortzeko berezkotasuna **(kreatibitatea)**. Askoren artean

Bere **kreatibitatea** oroimenarekin osatu eta aberasten duen edozein artista motaren aurrean, dela zinegilea, dela idazlea, dela margolaria, niri zalantza bat eta beti berdina sortzen zait, [...]. Pako Aristi

**Kreatibitatearen** berritzeko gaitasun bat. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Arteak espainolak eurak lozorrotik atzarrarazi eta **kreatibitate** bidean jar ditzakeela ematen du pentsatu duela noizbait Ortega-k. Joxe Azurmendi

---

**kreatibo** **1** *izond* sortzailea.

Herri txikia gara, **kreatiboagoak** izan behar dugu. Gudua **kreatiboa** da, biolentzia ernalkorra. Berria - Euskal Herria

G. Vacher de Lapouge-rentzat [...] eliteko arraza, dominatzaile eta **kreatiboa** ("homo europaeus") nordikoa da. Joxe Azurmendi

**2** sortzearena, zortzeari dagokiona. ik **sortze**.

Gutxi sinesten dugu herri honen potentzialitate **kreatiboan**. *The Beach Boys* taldea gailur **kreatiboan** zegoen une hartan. Berria - Euskal Herria

• **3** *iz* iragarki kanpaina bat sortzeko arduraduna.

Ez zuen inoiz garbi erakusten zein zen bere jarreraren kausa, gaztetasuna ala beste departamenduetako **kreatiboei** erakusten genien destainarekiko desadostasuna. Anjel Lertxundi

**Kreatibo** bat iragarkiak egiten dituena da. Iñaki Segurola

Ehunka gidoilari eta **kreatibo** biltzen duen erakunde beldurgarri batek. Iban Zaldua

---

**kreatina** *iz* organismoko konposatu nitrogenoduna, ornodunen gihar-ehunean aurkitzen dena.

Dauden hogei aminoazido horiek konbinatuz sortzen dira proteinak, ileko **kreatina** edo odoleko hemoglobina. Pello Salaburu

**Kreatina** ez dago Nazioarteko Olinpiar Batzordearen debekatutako substantzien zerrendan. Berria - Kirola

1970eko hamarkadan Bulgariako eta Sobiet Batasuneko atletak hasi ziren **kreatina** kirolean erabiltzen. Berria - Kirola

Zenbait medikuk ez du **kreatina** erabiltzea ondo ikusten, efektu hori dieta normal batekin lor daitekeelako. Berria - Kirola

---

**kreatu**, krea, kreatzen **1** du *ad* sortu.

Arima arrazoiduna sustantzia bat da, berez sostengatzen dena, gorpuzgabea, hilezkorra, Jainkoak ezerezetik **kreatua**. Piarres Xarriton

Jainkoak munduaren hastapenean **kreatu** dituela gizakien arima arrazoidun guztiak zeruetan. Piarres Xarriton

Bakotxak nahi dik bere errealitatea **kreatu** eta gisa hortan bere egia bilakatzen duk egia bakarra. Michel Oronoz

Conques-eko **kreatu** dituen mitrail zuri transluzidoengatik. Berria - Kultura

Gizaki guztiak berdinak izan zirela **kreatuak**. Joxe Azurmendi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Mundu honetako gauza **kreatu** guztien buru egingo banindute ere, [...]. Patxi Altuna

Adimena -gizabere **kreatuaren** zolitasun hori-. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gauza guztiak kreatu** (3); **jainkoak kreatu** (3)

---

# kreatura *(orobat **kriatura** g.er.)* *iz* izakia, sorkaria.

Ez zuten aurkitu inongo **kreaturaren** arrastorik ere: ez txoririk, ez hartzik, ez azeririk, ez gepardorik. Fernando Rey

**Kreatura** basatia zen, legerik eta araudirik gabeko askatasunean bizitzeko sortua. Elena Touyarou

Erabat jende artean eta jendearentzako bizi denak, ezin lezake gehiagorik eman, munduko **kreaturarik** argiena izanik ere. Patziku Perurena

Kreatzaileak Bere **kreaturen** bizitzaz arduratzean erakusten duen eskuzabaltasunaren seinale adierazgarritzat daukat. Xabier Olarra

Bere burua hiltzen duenak Jaungoikoaren **kriatura** bat hiltzen duelako eta bere burua kondenatzen duelako. Koldo Biguri

Bereizi behar dela Kreatzailearen zoriona eta **kreaturaren** zoriona. Piarres Xarriton

Jainkoak egin zuen arrazoidun **kreatura,** goihen ongia ezagut zezan eta ezaguturik maita zezan eta maitaturik beregana zezan eta bereganaturik goza zezan. Piarres Xarriton

Zorionaren umezurtz ziren usu bere zeluloidezko **kreaturak**. Berria - Kultura

---

# kreatzaile 1 *izond/iz* sortzailea.

Jainkoaren inpotentzia jendearen sufrimenduari buruz, egite **kreatzailearen** ondorio bat da. Piarres Aintziart

Bi hizkuntza horiek maite nituen halako plazer matematiko eta betan **kreatzaile** batekin. Piarres Aintziart

Eta giza adimena **kreatzaile** bada, ez ote are gehiago gauza guztien egilea? Elizen arteko biblia

Bertze soinulari **kreatzaile** batzuen laguntzarekin. Herria

Jainkoa dela ageri diren eta ageri ez diren gauza guztien **kreatzailea**. Piarres Xarriton

Zinez **kreatzailea** herria da. Koldo Izagirre

Nire harridura handirako, jostuna zen, **kreatzaile** jeniala. Matías Múgica

**2** munduaren sortzailea.

Eta harrezkero **Kreatzailea** gorestera eta maitatzera gonbidatzen zituen hegazti, animalia, narrasti eta izaki bizigabeak berak ere. Askoren artean

**Kreatzaileari** gorazarrea. bereizi behar dela **Kreatzailearen** zoriona eta kreaturaren zoriona: **Kreatzailearen** zoriona, Jainkoa bera da. Piarres Xarriton

Kanta, ene arreba txitxarra, eta goretsi pozkarioz zeure Jaun **kreatzailea**! Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kreatzailea gorestera** (3)

---

# kreazio *(orobat **kreazione** g.er.)* **1** *iz* sortzea; sortze lana.

Zeru-lurren **kreazioa**. Elizen arteko biblia

Edozein kasutan, **kreazioa** lanari esker gauzatzen da. Ana Urkiza

Hau da zeru-lurren **kreazioaren** historia. Elizen arteko biblia

Ikusi nuen nesken **kreazioa** ez zuela sozietateak seriotzat hartzen. Ana Urkiza

Bere **"kreazioak"** aurkezten ziren gauean, ikusi nuen jostuna teatroan agertzen. Matías Múgica

Markeliñe euskal taldeak ere bere azken **kreazio** «gozo eta samurra» erakutsiko du Bilbon. Berria - Kultura

Teknologiaren eremuko azken nobedadeekin eginiko **kreazioak**. Berria - Kultura

Historia nazionalaren -bereziki **kreazio** kulturalen- iturburu bakarra arrazaren izpiritu berekia da. Joxe Azurmendi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atseden **kreazio**-lanetik. Elizen arteko biblia

Euskal kantarietan, euskal musikariak onak dira, **kreazio** lan ona egiten dute. Menane Oxandabaratz

Eta unibertsoa *ex nihilo* sortzen duena, eta etengabeko **kreazio**-egintza batez iraunarazten diona. Iñaki Mendiguren

Orain gizakia **kreazio**-izaeran dago. Joan Mari Lekuona

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

9etan "Dantza **Kreazioa**". Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kreazio osoaren** (3); **kreazio saria** (3)
> **gizakiaren kreazioa** (3); **taldearen kreazioa** (3)

---

# kreazione ik **kreazio**.

---

# kreazionismo *iz*

Zenbait erlijio mugimenduk **kreazionismoa** bultzatu baitute, eboluzioa gertatu izana zalantzan jarriz eta, era berean, unibertsoa eta izaki guztiak Jainkoak sortu zituela defendatuz. Askoren artean

Kasu batzuetan **kreazionismoari** Diseinu Inteligentearen Teoria esaten zaio, eta horren zaleek kreazioari buruzko ezagutza zientzia gisa garatu nahi dute. Askoren artean

---

# kreazionista *izond* kreazionismoaren aldekoa.

Epaitegi Gorenak garbi utzia zuen teoria **kreazionistak** ez zirela konstituzionalak. Pello Salaburu

## **kreaziozale** *izond* kreazioaren zalea dena.

Bilakaera apetaz betetako prozesua da, eskuzabalki bizirik utzi baititu **kreaziozaleak,** astrologoak eta metereologoak ere Pello Salaburu

## **kredentzial** *iz* sinestamendua.

1989an erabaki zuten **kredentzialak** jaso eta hurrengo egunean Kongresuan egiten den lehenengo ekitaldira joatea. Berria - Euskal Herria

Spruille Braden enbaxadore berriak bere **kredentzialak** Kubako Gobernuari maiatzaren 19an erakutsi zizkiola. Edorta Jimenez

Bizpahiru aldiz etorri zaizkit zaindariak **kredentzialen** eske. Pako Aristi

Guretik hurbil zegoen erakunde partisano batera bildua zen, **kredentzial** onez; alemanen sekretu militar garrantzizko batzuen jabe zelako itxura eginik, haien berri eman zuen, eta gerora argitu ahal izan zen apain-bihurri bezain sasikoak zirela, eta Gestapoak asmatuak. Juan Garzia

## **kredibilitate** *iz* sinesgarritasuna.

Elektoralki ere **kredibilitatea** irabazi dugu. Berria - Euskal Herria

## kredit ik **kreditu**.

## **kreditatu**, kredita, kreditatzen da *ad* **1** egiaztatu.

Eta azken batean, zerbait zientifikoki **kreditatzen** da negoziatze eta gizarte-elkarrekintza prozesu baten emaitza gisa. Askoren artean

**2** sinestamendua hartu.

Biltzarrean parte har zezaketen 214 delegatuetatik 213 **kreditatu** ziren, Faltzesko ordezkari bat ez baitzen agertu. Berria - Euskal Herria

Donostian eta Bilbon **kreditatuta** dauden mundu osoko kontsulak. Berria - Euskal Herria

Urtea hastearekin batera, aita santuak Vatikanoan **kreditaturik** zegoen gorputz diplomatikoa bildu eta hitzaldia eskaintzen die. Berria - Euskal Herria

Aurtengo Espainiako Kopan 500 kazetari inguru zeuden **kreditatuta**. Berria - Kirola

## **kreditazio** *iz* sinestamendua ematea; sinestamendua.

Estadioaren inguruetan autoei sartzen ez diete utziko, eta autobusek **kreditazioa** beharko dute. Berria - Kirola

**Kreditazioa** paparrean zintzilik eramateagatik Parte Zaharreko tabernetan pintxoak doan jango dituztela uste duten kazetari-turista harroxkoez. Berria - Kultura

HABEk **kreditazio** sistema berria jarriko du euskara maila egiaztatzeko. Berria - Euskal Herria

**Kreditazio** txartelak ere ez dira gutxi. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kreditaziorako agentzia** (4)

## kredito ik **kreditu**.

## **kreditu** *(orobat* ***kredito*** *g. er., eta* ***kredit*** *g.er.)* **1** *iz* norbaitek, beste norbaiten esku, diru kopuru bat jartzea; delako dirua bera.

Interes tasak altuagoak izanik kreditua garestiagoa denez, kontsumitzaileek **kreditu** gutxiago eskatzen dute. Iñaki Heras

Orduan **kreditu** bat ematen zaio, interes baxuan. Pako Aristi

7.321 milioi euroko **kredituak** eman zizkion finantza erakundeak sektore pribatuari. Berria - Ekonomia

Herrialde zordunei **kredituak** ordaintzeko. Koro Navarro

Irabazi urriak **kredituak** kitatzeko erabiltzen zituztela. Berria - Harian

Etxebizitza hipotekatua daukat, eta heldu den hilean amaituko da epea **kreditua** itzultzeko. Josetxo Azkona

**Kredituak** "ezin kobratuzkoak" zirela aldarrikatu beharko zuten. Koro Navarro

Horren guztiaren ondorioz, **kreditua** izozturik geratu zen. Koro Navarro

Aurrezki kutxan elkarrekin **kreditu** bat duten gizon eta emakumeen artekoak. Luis Elberdin

Ferietako merkataritzaren parterik handiena, beraz, **kreditu** bidez egiten zen. Koro Navarro

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Bankuek aukera zuten herrialde zordunari **kreditu** berriak emateko edota zorra zuzenean berriz erosteko. Koro Navarro

Zeren bankuan **kreditu** pertsonala lortzea oso erraza da. Jon Arretxe

Ez zen nehor herabe **kreditu** ttipi baten galdegiteko saltegi batean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Epe ertain eta luzeko **kreditu** bihurtu zituzten gordailu likido horiek. Koro Navarro

Alde askoko garapen-banku baten gaineko **kreditu** baten arrisku-koefizientea %20 da, higiezinen **kreditu** batena %50. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urtez urte errepikatzen ari den atzerapenak **kreditu** etxeekin operazio bereziak egitera behartzen gaitu. Berria - Harian

Nazioarteko **kreditu** erakundeak. Berria - Ekonomia

Abuztuaren 31ean 3.827 milioi euroko **kreditu** saldoa zuen kutxak. Berria - Ekonomia

Familiari emandako azken **kreditu** aukerez baliatuta. Ander Irizar

Partikularrek eta enpresek egindako **kreditu** eskaerak nabarmen ugaritu ziren. Berria - Ekonomia

NDFren **kreditu** -ahalmena 15.000 milioi dolarrera murriztua zen. Koro Navarro

NDFren **kreditu** -erraztasunak noiz zabaldu zain. Koro Navarro

**Kreditu** inbertsioen balioa 7.885 eurokoa da. Berria - Ekonomia

Bankuek eman dezaketen **kreditu** kopuru osoa mugatuz. Iñaki Heras

Haiei [truke-letrei] esker saihestu ziren funtsen transferentzia fisikoak, saltzaileari **kreditu** -titulu bat ematen baitzitzaion, beste lekuetan eta bestelako diruz ordain zitekeena. Koro Navarro

Hasieran ordainketarako tresna ziren truke-letrak, **kreditu** -tresna bihurtu ziren berehala. Koro Navarro

Merkatu espekulatiboen erorikoa, kapitalen ihesa eta kanpoko **kreditu** -lineak izoztea. Koro Navarro

Nazioarteko **kreditu** -sistemaren dinamismoarekin. Koro Navarro

*Fitch Ratings* agentziak Gipuzkoaren kaudimena eta **kreditu** gaitasuna aztertu eta AAA mailara igo du herrialdeko kalifikazioa. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Banku- **kreditu** zaharrak titulu negoziagai bihurtu ziren. Koro Navarro

Zuzeneko inbertsioak eta merkataritza- **kredituak** . Koro Navarro

Hala, bankuek orain konkurrentzia bikoitza pairatu behar dute, beren jardueren bi alderdiekin lotua: ekonomia- **kredituen** kontzesioa eta funtsak erakartzea. Koro Navarro

Eskatutako hipoteka **kredituen** %34 Arabatik kanpo eman zituen kutxak. Berria - Ekonomia

Milaka milioi dolarreko negozioa da karbono **kredituena** . Berria - Gaiak

Ez, behintzat, ikerkuntza- **kredituak** banatzeko kargua zuten batzorde eta erakundeek. Juan Garzia

**5** ospea.

Argitasuna ez ezik, zuhurtzia sano eta beldurgabea erakusten du gure bertsolari gazteak, irabaz lezakeen **kreditu** intelektualari -eta, bidenabar, txapelak eta gainerako bedeinkazioak bereganatzeari- zeharo eta osotoro baitio uko egiten. Iñaki Segurola

Klasiko bat berrirakurtzen dela, eta berrirakurri ez, eta irakurtzen ari dela aitortzen duenari **kreditu** guztia erretiratzen zaiola. Jon Alonso

**6** ikasgai baten balioespen unitatea.

Erreformarekin batera, **kreditua** iritsi zen unibertsitateetara, ikaste ahalegina neurtzeko unitatea, alegia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ikasturte bakoitza 60 kreditukoa izango da, eta **kreditu** batek hamar eskola orduren balioa izango du. Berria - Euskal Herria

Gradudunez beherako zenbait **kreditu** eskuratu zituen Chicagoko De Paul unibertsitatean. Oskar Arana

Joaten diren ikasleei aukera askeko bi **kreditu** emango zaizkie. Berria - Kultura

**Kredituen** sistemarekin, ikasleak honenbeste **kreditu** egin behar ditu ikasketak bukatu arte, eta **kreditu** horiek nola egin behar dituen berak antolatuko du, bai urteetako banatzeari dagokionez, bai gaiei dagokienez, hor aukera handia izango baitu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bolognako Adierazpenaren sinatzaileek unibertsitate guztietan **kreditu** sistema berria egitea eskatu dute. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskarazko **kredituen** eskaintzaren ehunekoak bat egin beharko du euskaraz ikasi nahi duten ikasleen ehunekoarekin. Berria - Euskal Herria

**7** *pl* film bateko arduradun eta kideen zerrenda zehatza.

Brandok ere ez zuen batere gustuko izan filma, eta bere izena **kredituetatik** kentzeko eskatu zuen, filmak Columbus pertsonaia historikoak indiarrekin izandako jokabide zital eta hiltzailea ez zuela behar bezala salatzen iritzita. Berria - Kultura

**Kredituetan** arakatuta, Hank Williams (You cheatin' heart), Webb Pierce (There stands the glass), Conway Twitty (What am I living for), Big Joe Turner (Don't you make me high) azaltzen dira kantuen egileen artean. Berria - Kultura

**Kredituetan** ekoizle modura azaltzen ez den arren. Berria - Kultura

Dokumentalaren **amaierako** kredituetan «Euskal Herriko kultur elkarte txiki eta ameslariei besarkada bat» bidaltzen zaie Berria - Kultura

**8** ***kreditu karta*** kreditu txartela.

Sartu zure **kreditu-karta** horretarako asmatua den irekiduran. Itxaro Borda

Arrantzaleak *Le Manouche* itsasontziko gasolina hartzeko **kreditu karta** ebatsi eta gasolina itsasora isuri zuen. Berria - Euskal Herria

**9** ***kreditu letra*** (*orobat* ***tilutu***) *pl* kredituak, film bateko arduradun eta kideen zerrenda zehatza.

Telebista-serietan ikasi genuen, istorioa bukatu eta **kreditu-letrak** pasa ondoren. Andoni Egaña

Nire izena ikusi omen zuen ez dakit zein programatako **kreditu-tituluetan** . Anjel Lertxundi

**10** ***kreditu txartel***

Norbaitek *Diners* **kreditu txartela** asmatu zuen, gaur egun ia-ia erabiltzen ez dena. Pello Salaburu

Birusak **kreditu txartelaren** zenbakia eta gako-hitza aurkitu eta datuak bere sortzaileari bidaltzen dizkio. Berria - Gaiak

Azken bolada honetan milaka **kreditu txartel** bikoiztu dituzte Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako kutxazainetan. Berria - Harian

**Kreditu-txartelaz** ordaindu. Karlos Zabala

Merkeena aukeratu nuen, Fagor etxeko eskaintza bat, eta halere **kreditu-txartela** hezur eta azal utzi nuen. Bai gaur egungo diru papera, plastikozko dirua **(kreditu** eta debitu **txartelak** ) bai diru elektronikoa. Iban Zaldua

Ximurrak, **kreditu-txartelaz** baliaturik, hiru lerro itxuratu zituen karpeta gainean. Aingeru Epaltza

**11** ***kreditua izan*** epetan ordaintzeko aukera izan.

**Kreditua** genuen izkinako janari-dendan, arroz-saltzailearenean eta supermerkatuan. Juan Kruz Igerabide

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kreditu sistema** (15); **kreditu sistemak** (4); **kreditu txartel** (5); **kreditu txartela** (13); **kreditu txartela erakusten** (4); **kreditu txartelak** (6); **kreditu txartelarekin** (7); **kreditu txartelarekin ordaindu** (3); **kreditu txartelaren** (4); **kreditu txartelen** (10)

**gure kreditua merezi** (3); **kreditua eman** (3); **kreditua eskatu** (6); **kreditua merezi dute** (3); **milioi euroko kreditua** (3)

**aireratzeko kredituak lor** (3); **kredituak lor ditzakete** (3)

---

## kredo **1** *iz* "Sinesten dut" hitzez hasten den otoitzaren izena.

Laikoek esan bitzate **Kredoa** eta hogeita lau Gure Aita, Aintza Aitari batekin maitinen ordez. Askoren artean

Espainian tradizioa da koitaduak **Kredoa** errezatzea hil aurretik, jesarrita eta lotua dagoenean. Koldo Izagirre

· Igandeetan dotore jantzen ziren, **kredoa** abesten zuten lur-jabeekin batera, dirua botatzen zuten platertxora. Joseba Urteaga

**2** sinestea.

Erlijio primitiboaren muina ez da sinesmena, ekintza baizik, eta adostasunaren proba ez da **kredo** bat onartzea, errito-ekitaldietan parte hartzea baizik. Iñaki Mendiguren

Gerra-talde barbaroetako baten **kredo** sektario bereizgarri gisa. Iñaki Mendiguren

Euren **kredo** politikoan artikulu behinena espainolismoa dutenak ere. Joxe Azurmendi

---

## krema **1** *iz* esne eta arrautzekin prestatzen den janaria.

Tartaren **krema** baino gozoagoak diruditen ezpain horiek probatzen utziko bazenit. Alberto Barandiaren

Bada han oso itxura gozoko **krema** -tarta bat, dastatu nahi dudana. Iñaki Mendiguren

Akabo hain maite ginituen bixkotx, **krema,** xokolate, janari-izoztu eta bertze! Herria

Tarta zoragarri bat, izpilikuaren kolorekoa, molde apaingarridunean egina eta gainean nire izena **kremarekin** idatzia. Fernando Rey

Gozotegira joan ginen hirurok, nire gozokirik gogokoena erostera: **kremazko** bonba. Juan Kruz Igerabide

Chantillyzko pastelak, **kremazkoak,** ron eta patsezkoak, txokolatez betetekoak. Karlos Zabala

**2** esnearen gaina. ik **gain**.

-Deabruak eraman nazala hori esnezalea ez bada eta pinta bat **krema** ez badakar gure kaferako. Lopez de Arana

Kasik herri guztiarentzako adina indioilar edukitzea, eta ilar berriak irailean, **krema** freskoa baina behirik ez. Anton Garikano

Azukrea eta **krema** eman zion kafeari, eragin zion eta zigarro bat piztu zuen. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Botila hutsak jaso, eskailera izoztuetan gora egin zuen, **krema-** eta gazur-pintak utzi zituen, A eta B kalitatekoak. Lopez de Arana

Esne botila bat, bi **krema** botila eta igandeko *Times* egunkariaren ale bat ondoan zeuzkala. Lopez de Arana

Gero te-mahairantz joan zen, eta lekuz aldatu zituen **krema**-pitxerra eta azukre-ontzia. Mirentxu Larrañaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Errefauekin eta esne-**krema** garratzarekin? Itxaro Borda

Eguzkiak esne-**krema** koloreko Sacre Coeur basilikaren kupula distirarazten zuen. Itxaro Borda

Haxixez zipriztindutako jogurt **krema** goxoa. Jon Arretxe

Maria Teresaren liburua eta hiru gazta xerra beren **krema** guztiarekin. Josu Zabaleta

**5** larruazala zaintzeko ukendua.

**Krema** apur bat gehiago bizkarrean, *darling*. Apaintze-mahaiko ispilu aurrean eserita, Ellen zapi txiki batez **krema** kentzen ari zen aurpegitik, mugimendu azkarrez. Hasier Etxeberria

Aurpegian **krema** doi bat eman eta gero. Patxi Zubizarreta

8 faktoreko **krema** emanda, 2 ordu eta 40 minutu. Berria - Harian

Aurpegia garbitu, **krema** hidratantea ipini eta pijama jantzi ondoren etzan da. Eider Rodriguez

Baselina edo edozein **krema** hidratatzaile. Luis Elberdin

**Krema** sendagarri bat jarri zidan. Aitor Arana

Tarteka eguzkitan, tarteka igerian eta etengabe elkarri eguzkitako **krema** ipintzen. Aitor Arana

Makillajea kentzeko **krema,** eguzkitarako olioa. Josu Zabaleta

Ilea sendotzeko **krema** gehienek urea izan ohi dute osagairik printzipalena. Patziku Perurena

Marmoken ziztada saihesteko **krema** bat sortu dute Israelen. Berria - Gaiak

Lardaskan ibili naiz gelakideen **krema** harrigarri ugarien artean (argi dago estetizistak direla). Patxi Zubizarreta

· Bizarra egiteko labana eta **krema,** talko hautsak, desodorantea eta hortzetako eskuila. Koro Navarro

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Puzzle bat, **krema pote** bat, 2,50 florineko billete bat eta bale bat bi liburu erosteko. Josu Zabaleta

**Krema** potetxoa itxi eta ispilu atzeko armairutxoan gorde du. Jokin Muñoz

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Neska zoriontsuak eta eguzkiak erreak, beren eguzki **kremekin**. Koro Navarro

Korridore hura loak eta edertasun-**kremek** isuritako usainaz gainezka zegoen. Lopez de Arana

Zangoetan, baita bizkarrean ere, hasi zitzaizkidan bilo luze, mehe, garden eta sendo batzuk hazten: depilazio **krema** guztiei egiten zieten aurre. hura zen haren arbendol **krema,** ukendu horri esker eusten zien azal zuriari. Joxan Elosegi

**8** zapatak garbitzeko gaia. ik **betun**[1] **2; lustre 2; ziraia**.

Zapatentzako **krema** horizontalki hedatuz zapataren gainean, hura trapuarekin zabaltzen hasi aurretik. Harkaitz Cano

Zapata-**krema** saltzen duen baten gezurrak entzuteko Koldo Biguri

• **9** *izond* krema-kolorea.

Teresak trajetxo **krema** bat zeraman, eta zinta urdin argiz apaindutako lastozko sonbreirua. Bernardo Atxaga

**10** ***krema-kolore*** *izond*

Perla zuriz jositako lepoko ikusgarria, soineko **krema kolore** baten gainean. Berria - Kultura

Hormak marroiak utzi ditu... [...] eta tafetazko errezela **krema-kolore** horietakoak ezarri. Mirentxu Larrañaga

Atiko arrunt bateko gela **krema kolore** arrunta zen, estua eta hezea. Aritz Gorrotxategi

**11** ***krema koloreko*** *izlag*

Itsasmutilak ile horia zeukan eta arrosa eta **krema-koloreko** aurpegi obalatua. Lopez de Arana

**Krema koloreko** maindireen artean. Aritz Gorrotxategi

Eguzkiaren **krema-koloreko** argiak bizkarretan eta estalki beltzeko tximinia hori handian distira egiten zuen. Lopez de Arana

Nik dantzaldian erabiltzen nuen **krema koloreko** J.B. Hotson sonbreirua jantzita zeukan. Bernardo Atxaga

Emakumearen soinekoa **krema-kolorekoa** baita. Felipe Juaristi

Jimmyren adin beretsuko mutil musu **krema-kolorekoak** Lopez de Arana

**12** ***txokolate krema***

Izozkiaren gainean txokolate-**krema** beroa zegoen. Lopez de Arana

Arrautza azukreztatuak platerean, txokolate **krema** bat, madariak eta melokotoiak. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esne krema** (3); **krema kolore** (3); **krema koloreko** (16); **krema kolorekoa** (4); **krema kolorekoak** (3)

---

# kremadun *izlag* krema duena.

Eguraldiak uzten bazigun, belarretan esertzen ginen **kremadun** opilak jatera, eta freskagarriak hartzen genituen. Anjel Lertxundi

---

# kremailera *(orobat **kremallera** g.er.)* **1** *iz* soinekoetan-eta erabiltzen den itxitura mota, bi hortz lerro elkarri lotzen dituen euskarri berezi batez baliatzen dena. ik **lerra 2**.

Gure arropetan gora eta behera erabiltzen dugun lerra itxigailua edo **kremailera**. Txuparen **kremailera** goraino jaso dut, kaskoa ukondoraino sartu. Pello Salaburu

Txamarraren **kremailera** goraino lotu eta aurrera. Berria - Kirola

Larruzko jakaren **kremailera** goraino igo eta eskuak poltsikoetan gorde ditu. Sonia Gonzalez

Onena zen bera ere zirrika zebilela nire bragetan, eta **kremailera** jaisten ari zitzaidala kontu handiz. Juan Martin Elexpuru

Gero eta probokatiboago ordea, titialdeko **kremallera** aldiro maila bat jaitsiz. Karlos Linazasoro

Halako batean, **kremaileratik** tiratu eta latex irisatuzko top ñimiñoa zorura bidean joan zaio. Patxi Iturritegi

-Denak lurrera! -oihu egin du Natxok ahots hautsiaz, nylonezko poltsaren **kremailera** ireki eta kanoi motzeko eskopeta bat atera orduko. Patxi Iturritegi

Besapean zekarren karpeta Nagusiaren mahai gainean utzi, **kremailera** askatu eta hiruzpalau orri atera zituen. Joxemari Urteaga

Nik neure **kremailerazko** karpeta horia atxiki nuen bakarrik. Joxe Austin Arrieta

**2** trenbideetan, beste bien erdian ezartzen den errail horzduna, non engranatzen baita lokomotorraren gurpil horzduna.

Halaber, **kremailera** trena jarri nahi dutelako zurrumurrua ere zabaldu da udalerrian. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kremailera ireki** (3); **kremailera jaisten** (3); **kremailera jaitsi** (4); **praketako kremailera** (3)

---

## kremaileradun *izond* kremailera duena; kremailerak dituena.

Jakatarako larruzko atorra moduko bat darama jantzirik, **kremaileraduna**. Monika Etxebarria

Azkenean topatu egin zuen, guztiz zimurtuta, ahaztutako **kremaileradun** poltsiko batean, paketeko azken mohikanoa. Sonia Gonzalez

---

kremallera ik **kremailera**.

---

## krematista *izond/iz*

Miarritzeko Herriko Etxeak segida eman die Euskal Herriko Elkarte **Krematistaren** eskariei eta, dagoeneko, zutik da errausteko labea, Miarritzeko Parme auzoko aireportutik hurbil. Berria - Euskal Herria

Andre Weiss Euskal Herriko **krematisten** Elkarteko lehendakariak Berria - Euskal Herria

---

## krematistika *iz* ekonomia politikoa.

Ekonomia deitzen duguna *chrematistiké* **-krematistika-** zen grekoentzat: diruaren finantza-espekulazioa, mugarik gabe aberastasuna lortzea; ekintza hori arbuiagarria zen oso. Askoren artean

---

## krematorio *(orobat **crematorium** g.er. eta **krematorium**)* *iz* hilotzak errausten diren labea; labe hori dagoen eraikina.

Uniformezko ertzain xehe moduan lan egiten zuenean **krematorio** bat edo beste bisitatzea tokatu izan zitzaion. Harkaitz Cano

Berehala gelditu eta bilatu zuten elkarren laguntza tanatorioa, **crematoriuma** taxi-gidariak esan zuen bezala, non ote zitekeen elkarri keinu ia nabariezinez itaunka. Egia esan -gutxika-gutxika argituz joan da, zelan izan den ez dakidan arren-, hango tximinia ez zen larru-fabrika, ezpada **"krematorioa",** errausketa-labe baten tximinia alegia, berba horren esanguraz azaldu didatenez. Urtzi Urrutikoetxea

Miarritzen joan den maiatzean idekia dute **krematorium** edo gorputz erraustegia. Herria

Mediku naziek ere bata zuria janzten zuten, hala egoten ziren **Krematorium**-eko gaseztatzeko dutxen aretoko leihatilatik beha nire lagunak itokarrean zoratzen hasten zirenean. Koldo Izagirre

Izterrean zenbaki bat idazten zioten, arkatz batekin eta segidan **krematoriora** eramaiten. Eneko Bidegain

**Krematorium**-a, naziek jendeak erretzen zituzten lekua, beti ke eta ke ikusten zuen, gain batean. Eneko Bidegain

Urrunera ikusi nuen **krematoriumeko** enplegatu mehe bat Emmari hurbiltzen. Daniel Landart

Frangotan hotzik handienean buluzgorririk, ainitz hil dira "chambre à gaz" heietan pozoindaturik edo **"crematorium"** deitu labe trixte hetan errerik. Herria

---

krematorium ik **krematorio**.

---

## krematsu **1** *izond* krema daukana.

Turroi-puska **krematsuak**. Iñaki Mendiguren

Xerra bana jarri plater bakoitzean, eta risottoa zerbitzatu zuen, ondo **krematsua**. Jon Muñoz

**2** irud/hed

Andreak, berehala, espresio oro ezabatu du bere begitarte **krematsutik** eta zenbait urrats egin ditu itsuen gisa. Monika Etxebarria

---

## kremazio *iz* hilotzak krematorioan errauts bihurtzea.

**Kremazioa,** izaten da ba... Pablo Sastre

**Kremazioa,** bai; orain asko ibiltzen dena da. Pablo Sastre

---

## kremlin *iz* errusiar hiri zaharretako zitadela edo gotorlekua.

Goiko hiria eta haren **kremlina** bertan behera utziak zeuden garai hartan. Karlos Zabala

**Kremlina** biribila zen, bi verstako luzerakoa, eta Moskukoaren antzekoa. Karlos Zabala

---

## kreol *(orobat **kreole** eta **kreollo** g.er.)* **1** *izond/iz* Europan ez beste edozein tokitan europar gurasoengandik jaio den pertsona; haren ondorengoa.

Charlotte Bronteren Jean Eyre nobelan ageri den emakume **kreola** (Bertha Mason) da ikuspegi oker horren adibide argia. Berria - Kultura

Pidgin hizkuntzetatik etorri diren hizkuntza **kreoleak**. Koldo Zuazo

Josefina, sortzez **kreol** eta sineskeriazalea, Enperadorearen lagun zetorren Baionara. Koldo Izagirre

Europar, eurasiar eta asiarren estatus uniformeak Indian Britainiar Inperioaren pean, eta europar, **kreol** eta "indiarrenak". Iñaki Mendiguren

**Kreolei** buruzko uste okerrak salatu nahiak bultzatu zuen Jean Rhys nobela hau idaztera. Berria - Kultura

Herritarren %77 **kreoleak** diren arren, euren hizkuntza debekatua egon da urteetan eta ondorioz galtzekotan egon da. Berria - Mundua

•**2** *iz* kreolera.

Badute beren hizkuntza hango jendeek... **kreollo** bat, erdi-portugesa, erdi-afrikar akzentuarekin, bantu hizkuntzetatik hartua. Menane Oxandabaratz

---

kreole ik **kreol**.

---

**kreolera** *iz* Antilletan, europar hizkuntzen eta bertakoen arteko eragin-truketik sorturiko hizkera edo hizkuntza.

Gaur egun, Martinikan, biztanleen %95ak **kreolera** erabiltzen dute karrikan, saltegietan, familietan. Herria

Gehiengoaren mintzaira izanik ere, **kreolerak** ez du ofizialtasunik, Frantziak ez baitu bere jakobinismoa bidean galtzen. Herria

**Kreoleraz** aritzen den unibertsitatea eta **kreoleraz** idazten duen egunkaria daude egun. Berria - Mundua

Urtean bizparihu besta nagusietan **kreolerazko** kantika bat edo beste onartuak baitira orai. Herria

---

kreollo ik **kreol**.

---

**kreosota** *(orobat **kreasota** g.er.)* *iz* harrikatzaren galipotetik destilaturiko gaien nahastura, antiseptiko gisa eta zura babesteko, besteak beste, erabiltzen dena.

Han bazuten biziro elikatzea, eguzki bainuak ematea, aire zabalean biziaraztea, eta etxean, **kreosota** jarritako giro batean, indartu eta haurtzarotik irten ahal izateko baldintzarik hoberenez inguratzea. Josu Zabaleta

Kartoizko kutxak, **kreosotaz** margotutako hagak, burdina galvanizatuzko xaflak. Oskar Arana

Luisitok higiene handiko bizimodua zeraman, leihoa zabalik lo egiten zuen, Andresek gauero **kreasotaz** bustitzen zuen gela batean. Josu Zabaleta

---

krepa ik **krepe[1]**.

---

**krepe**[1] *(orobat **krepa**)* **1** *iz* esnearekin, irinarekin eta arrautzekin egiten den talo modukoa, frijitua edo errea, askotan betegarri bat biltzen duena.

Idoiari bere ama paristarrak **krepeak** frantses erara egiten erakutsia zion, askotariko jakiak ipiniz barruan. **-Krepeak** egingo ditugu, Maria? Juan Kruz Igerabide

Barrara hurbildu, **krepe** arruntak kabiar prezioan ordaindu, eta kalera irten zen. Migel Angel Mintegi

**Krepe** batzuk jan, hiruzpalau garagardo edan eta dozena erdi purutxo erre zituen. Migel Angel Mintegi

Baina oroitzen naiz entzunik Donibane Garazitik etortzen zirela emazte batzuk, kausera, **krepa,** etxeko baratzeki eta fruitu saltzera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bazen zintzur bustitzeko edari hauta, talo, **krepa,** etxe pastiza, eta bertze gauza frango, denak joan dira han zirenen artean. Herria

---

**krepe**[2] *(orobat **krepa**)* **1** *iz* ehun arin eta fina, zeta, artile edo kotoizkoa, izurtze prozesu bat izan duena.

Abagunerako gizabidetsu jantzita zegoen, **krepe** beltz txinatarrez. Mirentxu Larrañaga

Urduri samar, baina eseri nintzen Txinako **krepezko** aulki apal hartan. Josu Zabaleta

Beste inori entzuten ez zitzaizkion hitz miragarriak esaten zituen: gipura, izurdurak, Txinako **krepa,** larrugaina, ozkar puntua, izur zeharra, gona-taulak, bolantak... Joxan Elosegi

Gela luze bat; erdian, mahai luzeak, zetazko eta **krepezko** oihalak: batzuk grisak, besteak izokin ala esmeralda kolorekoak. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

**Krepe**-paperezko otzarak, menda-zaporeko gozoki trinkoz mukuru beteak, te-mahaiaren izkinatan zeuden bizigarri modura. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **krepe paperezko** (3)

---

**kresal** **1** *iz* gesala.

Azala ondo beltztuta, ilea eguzkiak eta **kresalak** tarteka argitua. Iñaki Iñurrieta

-Nik **kresalaren** usaina besterik ez diat aditzen. Koldo Izagirre

Hormetako karea jaten zuen **kresalaren** usainarengatik. Anjel Lertxundi

Pipa hustu zuen **kresalak** erretako paretaren kontra kolpetxo batzuk emanez. Anjel Lertxundi

Gizonaren **kresal** mikatza azalean itsatsirik. Sonia Gonzalez

Argazkiari so zegoen, ametsaren **kresalak** bustita Eider Rodriguez

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haizeak gogor jotzen zuela hondartzan, **kresal** ura eta harea altxatuz. Joseba Sarrionandia

Nik, kostatar huts honek, **kresal** giroa ezagutzen nuen, eta amairik gabeko langar isila. Txillardegi

Eta arnasa sakon hartzeari ekin diot, indarka ia-ia, **kresal** lurrunean igeri, antsiak jota dauden eriek airea hartzen duten bezalatsu. Txillardegi

Aparra eta **kresal** gandua, gero eta hurbilago. Txillardegi

Eguratsa hezetasunez eta **kresal**-usainez betetzen. Txillardegi

Hormetako kareak **kresal** usaina zuen.Itsasoan igeri egin eta gero azalean geratu ohi den **kresal** eta giza usainen oraldi gazi-mina. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azkenean, dena urtzen hasiko da, eta elur-**kresala** gelditukо da, elurra mehetu eta gesaltzen denean, eta plisti-plasta ibiltzeko tamainako elur-salda bihurtuko da. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kresal usain** (3); **kresal usaina** (7)
> **kresalaren usaina** (4)

**kresaldu**, kresal(du), kresaltzen du *ad* kresal bihurtu.

Ondarruko euskeraz sentsualitate naturalista **kresalduz** . Iñaki Iñurrieta

**kresaltasun** *iz* kresal izateko nolakotasuna.

Gogoa hutsik geldituko zara, tutuen hots tristeak lehenik eta tutuen isiltasun tristeagoak ondotik murgilduko zaituzten fuel, minio, ustel edo **kresaltasun** sakonean zorabiatua, inor bizi ez den uharte bilakaturik. Koldo Izagirre

**kresaltsu** *izond* kresal asko duena.

Raimundo Silvak leiho ilunak arretaz behatzen ditu, fatxada **kresaltsu** eta zikinduak. Jon Alonso

Oihuka hitz egin dit, marinelek "arria!" esateko erabiltzen duten tonu latz **kresaltsu** horretan: [...]. Anjel Lertxundi

Jende artean zebilenetan, alkoholak, kantuak eta sasien gibeletan jotzen zuen zulo bakarreko xirula **kresaltsuak** bakez betetzen zutela onartzen zuen. Itxaro Borda

**kresaltza** *iz adkor* itsasoa.

Hogeita hamar aldiz die Febok bere organ itzulia egin Neptunoren **kresaltza** zabalari eta Telus-en bolari berdin. Juan Garzia

**krespoi** *iz* dolu xingola.

Balkoietan bandera gorri-horiak **krespoi** beltzekin eskegitzen ziren. Joseba Sarrionandia

Leo Esteban Nietoren heriotza salatzeko ikurrinak **krespoiarekin** jarri zituzten ziegako leihoetan eta txartelak itsatsi moduluetan. Berria - Euskal Herria

Bi emazte behartsu eta mutil telegrama-partitzailea zeuden **krespoian** itsatsiriko txartela irakurtzen. Irene Aldasoro

**kresta** *iz* gandorra.

Hainbeste jende ezezagun, denak berbetan, edaten, erretzen, barrezka; hainbeste larru beltz, hainbeste bota izugarri, hainbeste **kresta,** hainbeste tatxet eta pintxo... Sonia Gonzalez

**krestomatia** *iz* irakaskuntzarako egokituriko testuen bilduma.

**Krestomatiak,** antologiak, edizio kritikoak, eskuliburuak, separatak, kantutegiak, poesia klasikoaren edizio elebidunak, villanellen eta cicilianen eta stornelloen eta gisa horretako herri poesiaren bildumak... Anjel Lertxundi

**krestoniar** *izlag/iz*

**Krestoniarrak** baino iparrerago, gizon bakoitzak emazte bana baino gehiago duenez, senarra hiltzean lehi bizia sortzen dute alargunen artean, senar zenak maiteena nor zuen bereizteko, eta ohore hori lortu duenari, seniderik hurbilenak lepoa mozten dio hilobiaren gainean, eta senarrarekin batera ehortzi Patziku Perurena

**kreta** *iz* klera, buztinzuria.

Hareatzez haraxeago, ortzemuga urruna urratzen zuten **kretazko** mendien tontorrek, zuritasun itsugarriz dirdirka noiznahi, baita egun euritsuetan ere, eguzkiak beti argituko balitu bezala. Jose Morales

Sabai gangatuak prestatuta eta ehunduta daudenean, azpiko aurpegiari lehenengo zarpeatua emango zaio plaunkaiarekin, gero harearekin berdinduko da, eta ondoren **kreta** edo marmol-hautsarekin luzituko da. Santiago Iruretagoiena

**Kreta** otxarraren sustraiekin eta eskarlatarekin nahastuz ere egiten dira purpurazko koloreak. Santiago Iruretagoiena

kretar ik **kretatar**.

**kretatar** *(orobat **kretar**)* *iz* Kretakoa, Kretari dagokiona; Kretako hiritarra.

**Kretar** gezi batek zaurtu ninduen. Juan Garzia

Denok, judu eta juduberri, **kretar** eta arabiar, Jainkoaren egintza miragarriak geure hizkuntzetan aipatzen entzuten diegu. Elizen arteko biblia

Epimenides Kretakoa izan zen paradoxa honen sortzailea, deklaratu zuenean: **"Kretatar** guztiak gezurtiak dira". Xabier Olarra

Lapurretari buruzko legeak **kretarrengandik** lazedemoniarrengana pasatu zirenean. Iñaki Iñurrieta

**kretazeo** *iz* geologian, bigarren aroaren amaierako aldia, klera sortu zen garaiari dagokiona.

Inor ez zen bizirik atera, **kretazeoko** kreatura txiki ezdeus batzuk baizik: ugaztunak. Javi Cillero

Eskuaren dardarak salatu zuen, betikoa zen, irudimenaren koleopteroa, iruditeriaren brontosauroa, **Kretazeotik** iraun duena, sardinak kutxatan sutan jartzen dituen betiko sukaldari maisua. Berria - Kultura

**kretaziko** *iz* kretazeoa

Baziren Jurasiko eta **Kretaziko** garaietan bizi izan ziren txipiroien antzeko bizidun batzuk. J.M. Olaizola "Txiliku"

**kretinismo** *iz* garapen fisiko eta mentalaren murrizketa eta malformazioak ezaugarri dituen eritasuna, tiroidearen hutsegite batek sortua.

Tiroidearen jarduera eskasak eragindako adimen urritasun sakonari deitzen zaio **kretinismoa,** eta endekapen fisikoarekin batera agertzen da gehienetan. Berria - Gaiak

Iodo faltaren ondorio «larriena» **kretinismoa** da. Bozio eta **kretinismoa,** endemikoa. Jose Angel Irigaray

---

# **kretino** 1 *izond* kretinismoak joa.

Tom Itsua baino mende bat lehenago, izan omen zen Gottfried Mind izeneko **"kretino** inuzente" bat, 1768an Bernan jaioa, marrazteko dohain harrigarria erakutsi zuena umetatik. Xabier Olarra

**2** ergela.

Giza kondizioaren minak hunkitua, gizarte aferetan engaiatzerat pusatua da maiz, nahiz jendartea **kretino** samarra zaion, gehienetan jasangaitza, zenbaitetan jasanezina. Jose Angel Irigaray

---

# **kretona** 1 *iz* kotoizko ehuna edo oihala, lore imprimatuak dituena.

Hirugarren kategoriako bagoi zahar batera igotzen ikusi zuten [...] eta bere **kretona** grisezko jantziarekin konpartimendu batean ezkutatzen. Burua leihoko errezelaren kontra jarririk, **kretona** hautseztatuaren usaina arnasten. Josu Zabaleta

**Kretonazko** ehun satinatu gehiegi aukeran. Mirentxu Larrañaga

Ellenek **kretonazko** gortina bat eseki berria zuen leihoan. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Burutazio gozo bat etortzen zitzaion halakoetan, jantzi-ilara mordoa zain zeukalakoa, artean ere berri-berria, zein bere **kretona**-azal loretsuz estalita. Mirentxu Larrañaga

**Kretona** oihalez tapizaturiko besaulkiz eta kuxin txiki lodi batzuez inguratuak. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kretonazko ehun** (3)

---

# **krexa** 1 *iz ipar* Jesus haurra jaiozen ganbela; jaiotza (5. adieran).

**Krexako** haurrak bere besoak zabal zabal luzatzen ditu harenganat heldu direneri ongi etorri egiteko. Herria

Hor miresten ahalko dira Donostiako Belenisten elkarteak eraikitako 15 **krexa** ederJuan Carlos Duque-ren **krexa** animatuak du arrakasta handiena bildu. Herria

Heraitzeko Santa Katalina kaperan eginen da Eguberriko **krexa** erakusketa bat, abendoaren 7tik 14era. Herria

**2** haurtzaindegia.

Hau da **krexa** edo haurzaindegi bat Uztaritzen dena eta hor badabila jadanik Itsasuko haur bat. Herria

Urruñan, bada **krexa** eta haurzaindegi bat *Ohantzea* deitzen dena eta ainitzek estimatzen dutena, bainan gero eta galde gehiago badelakotz tokia du xuhur. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eguberriko krexa** (3); **gaitzeko krexa** (4); **krexa biziduna** (3); **krexa erakusketa** (5)
> **eguberriko krexak** (4)
> **krexaren seinalea** (4)

---

# **krexu** *iz* iturri-belarra, berroa.

Nola esaten diozue belar honi espainieraz? -galdetu dut **krexua** ene makilaren puntaz erakutsita. Koldo Izagirre

---

# kriatura ik **kreatura**.

---

# **krida** *iz* deia.

Duela zenbeit urte bakarrik, ***krida*** deitzen ginuen igande goizetako abisuak Euskaraz ziren, Herriko Etxeko mikroetarik entzuten gintinuen, gaur Eliza aintzineko pano elektroniko hortan ez da ahamenik ere ikusten Euskaraz idatzirik Herria

---

# **kridagune** *iz ipar* deiak egiteko gunea.

Donibane Lohizune/Ziburuko portuan, **kridagunearen** gibel aldean ikusten da hupa haga bat. Herria

Hendaiako **kridagune** ohian idekiko da heldu den urteko urrian. Herria

---

# **kriket**[1] *(orobat **ckricket** g.er.)* **1** *iz* britainiar jokoa, zurezko bateekin eta pilota batez, hamaikana laguneko bi taldek zelai batean jokatzen dutena.

**Kriketean** jokatzeko pala batek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zelai horren alboan izen bereko **kriket** zelaia dago, eta hantxe egin zituzten beroketak bi taldeek, zale askoren begi bistan. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

-Nik erosiko nikek etxe bat Cotmore-Richard andrearena bezalakoa, hura baino bi bider handiagoa, eta **ckricket** zelai bat eta futbol zelai bat, eta egiazko garaje bat, bere mekanikari eta igogailu eta guzti. Koro Navarro

---

# **kriket**[2] **1** *izond* koketa, apaina.

Solange eta ni bakarrik geundela goxoki itzalean, alegia deus ez, musu eman nion nexka **kriket** eztiari. Daniel Landart

Saihetsean den hondartzan, pintatu berriak diren batteliku **kriketak,** egur batzuen gainean garbiki eta ordenatuki ezarriak, kroskoa gainera. Aurelia Arkotxa

Hango nexkatxek zuten ongi merexitu pollit **kriket** fama. Herria

**2** (adizlagun gisa)

Hiria ez liteke **kriketago** paratzen ahal, muino berdeen erdian, Aturri eta Errobi ibaien konfluentzian. Koldo Izagirre

---

krima ik **krimen**.

---

**krimen** *(orobat **krima** g.er.)* **1** *iz* lege hauste oso larria, zigor handiena merezi duena.

Heresia ordea **krimen** bat da. Piarres Xarriton

Gurean **krimena** dena, bertutea da maiz ehun legoa beherago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste **krimen** bat ere izan zen, **krimen** askoz ere larriago bat. Oskar Arana

Erreboluzioaren eta beste **krimen** askoren errudunak izan direlako maisuak. Joseba Sarrionandia

**Krimen** hau, higuingarria bada ere, arrunta da. Koro Navarro

Gizon bati **krimen** bat egozten bazaio. Juan Martin Elexpuru

Barkamena eskatzeak aurrenik **krimenaren** aitortza dakar. Joseba Zulaika

**Krimen** guztiak onartzeko prest daude. Felipe Juaristi

Presidentea 17 gerra krimen eta gizateriaren aurkako **krimenez** akusatu zuen Sierra Leonako Auzitegiak.

Hori da *Maiestate Gorenaren aurkako* ***krimen*** deritzana. Esteban Antxustegi

Inork ez dezala argudiatu nire moralaren biguntasunak gaizkileek **krimenerako** duten joera hauspotzen duela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina zein zen askotan lesa maiestateko **krimen** hori? Juan Martin Elexpuru

Ez dago **krimen** guztietan esku-eskura den baliabiderik, gezurra eta itxurakeria ezabatzeko. Andres Urrutia

Estalinismoaren **krimenak**. Josu Zabaleta

**Krimenaren** gertalekua. Iñaki Mendiguren

Esan liteke Raimundo Silva **krimenaren** lekura itzultzen den gaizkilea bezala doala argitaletxera. Jon Alonso

**2** (izenondoekin)

Fedegabekeria gure artean, haien artean baino **krimen** handiagoa da. Juan Martin Elexpuru

**Krimen** larriak, zehatzago hilketak leporatzea.Suzko armak eramatea **krimen** larri gisa zigortzen. Iñaki Iñurrieta

Belarjalea bera, animaliak jatea **krimen** larritzat daukana. Joxerra Garzia

Ihes egin behar du desertzioaren **krimen** barkaezinetik. Iñaki Mendiguren

Baztertu behar da **krimen** politikoa izan zela edo lapurtzeko asmoz egina. Koldo Biguri

- **Krimen** pasionala ez diagu inola ere baztertzen ahal. Aingeru Epaltza

Gobernuak **krimen** antolatuarekin lotu zuen Djindjicen hilketa. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kriminal**.

Osmanliarrek kontrol zorrotza zertu zuten administrazio- eta **krimen** -zuzenbideaz. Iñaki Mendiguren

-Horrek **krimen** tasari eragiten zion, beraz. Paddy Rekalde

Anitz kasu badira non norbaitek gauza bat egin baitezake baina ez bestea eta, apezpikuaren **krimen** kasua horrelakoa da. Piarres Xarriton

Ekintza publikorik gabeko Jainkoaren aurkako saioetan ez dago **krimen** -gairik: Jainkoaren eta gizonaren arteko auzia da. Juan Martin Elexpuru

Txinako ekonomiarik liberalena, **krimen** maila handienetakoa eta prentsa erasokor eta independenteena. Berria - Gaiak

**Krimen** munduan drogen eta armen salmentaren ondoren emakumeen negozioa da dirurik gehiena ematen duena. Gotzon Garate

Liburu santuak [...] sugearen pozoiaren antzekoak dira: moralaren eta kaosaren sorburu dira, karitate eta **krimen** iturri. Aingeru Epaltza

**Krimen** -bolada honetan uste dut eraikin osoa hobeto argiztaturik eduki behar zenuketela. Lopez de Arana

1947ko urtarrilean Mafiaren ugazaba nagusi Lucky Lucianok Habanara jo zuen, bertako **krimen** -buruekin biltzeko. Edorta Jimenez

Izan ere, astronomian, **krimen** eleberrietan bezala, gehienetan gauza txikienetan dago istorioaren giltza. Berria - Gaiak

Hainbesterainoko literatura, **krimen,** abentura eta misterio-dosiak. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pakistango presidenteak ohore **krimenak** salatu zituen bilkuran eta erantzuleak «ahalik eta gogorren» zigortu behar direla nabarmendu zuen. Berria - Gaiak

Goi-mailako traizio- **krimena** esaten zaio aberriaren edo honen ordezkari den soberanoaren aurka egiten denari. Juan Martin Elexpuru

Krimen arruntetan, Ingalaterrako legea akusatuaren aldekoa da; baina goi-mailako traizio **krimenetan**, ostera, aurkakoa. Juan Martin Elexpuru

Sierra Leonarako Epaitegi Bereziak 17 gerra **krimen** eta gizateriaren aurkako **krimen** leporatzen dizkio Taylorri.

Iraken egunero genozidio **krimenak** egiten ari direla. Berria - Mundua

Ideia guztiak nahasten ditu, estatu- **krimen** bihurtzen baitu gizabide-haustura besterik ez dena. Iñaki Iñurrieta

Errebeldian epaituko dute "pozoitze ahaleginagatik" eta "sodomia **krimenagatik"**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**5** (egin aditzarekin)

Zitalkeria ezabaezinezko bi **krimen** egiteagatik. Iñaki Mendiguren

Ea lesa maiestateko **krimena** egin duen eta heriotza merezi duen. Juan Martin Elexpuru

Zein **krimen** egin ote zuen Fubukik halako zigorra merezi ahal izateko? Joxan Elosegi

Saddam Husseinek egin zituen **krimen** guztiak AEBen oniritziarekin egin zituen. Berria - Mundua

**Krimen** ergel, anker eta premiagabe hori egiten bazuen ere, ziur aski, dena hondatuko zela. Jose Morales

Izan ere, animaliak berak ere nola konturatzen diren noiz egin duten **krimen** bat, ezta? Juan Garzia

· Ordaintzen ez zuten zordun, esklabo iheslari, hiltzaile eta beste **krimen** nagusi batzuen egileentzat. Iñaki Mendiguren

**6** ***gizateriaren aurkako/kontrako krimen***

Antisemitismoa **gizateriaren** aurkako krimena da. Berria - Mundua

Zibilen kontrako eraso masibo eta sistematikoak **gizateriaren aurkako** krimenak dira. Berria - Mundua

Genozidioagatik, gerra krimenengatik eta **gizateriaren kontrako** krimenengatik ari ziren epaitzen buruzagia izandakoa Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegian. Berria - Mundua

Sierra Leonarako Epaitegi Bereziak 17 gerra krimen eta **gizateriaren aurkako** krimen leporatzen dizkio Taylorri.

Hagako Auzitegiak gerra krimenez eta **gizateriaren kontrako** krimenez akusatu zuen lehenago Jugoslaviako presidente ohia. Berria - Mundua

**Gizateriaren kontrako** krimenak eragozteko neurriak hartzeko. Berria - Mundua

· Milosevici gerra krimenak zein **gizateriaren** aurkakoak leporatzen dizkiote. Berria - Mundua

**7** ***krimen auzi***

Argi dago kargutik kentzea merezi duten apezpikuen **krimen auziak** ez dituela Aulki Sainduak baizik epaitu behar. Piarres Xarriton

Gure Eliza Ama Sainduak halako inportantzia handitan baitauka kargutik kentzea merezi duen edozein apezpikuren **krimen auzia**. Piarres Xarriton

Heresia gaiak eta apezpikuen **krimen auzi** epaiak, haste hastetik, Erromako Aulkiari berari izan dira atxikiak. Piarres Xarriton

**8** ***krimen auzitegi***

Loialistak zigorra ez betetzea **«krimen auzitegien** kontroletik erabat at» dagoela esan zuen atzo epaileak. Berria - Mundua

Parisko **Krimen Auzitegiak** ARB Bretainiako Armada Iraultzaileak inoiz bere gain hartu ez zuen hilketa batengatik auzipetu zituen erakunde horretakotzat jotzen zituen 11

militante independentista.

Yann Choucq abokatuak 1970ean indarrean zegoen Estatuko Segurtasun Gortearekin alderatu zuen **Krimen Auzitegi** Berezia eta Giza Eskubideen Europako Konbentzioak legez kanpokotzat duela gogorarazi zuen. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkako krimen** (12); **estatu krimen** (4); **frantziako krimen auzitegi** (7); **gerra krimen** (12); **gerra krimen iritzi** (3); **gizateriaren aurkako krimen** (7); **krimen antolatuan** (3); **krimen auzitegi** (9); **krimen auzitegi berezian** (5); **krimen bat egin** (6); **krimen bat izan** (4); **krimen itzel** (5); **krimen izugarri** (5); **krimen izugarria** (5); **krimen leporatzen dizkio** (3); **krimen perfektua** (3); **krimen ugari** (3)

**aurkako krimena** (12); **estatu krimena** (4); **gerra krimena** (7); **gerra krimena izan** (4); **gizateriaren aurkako krimena** (4); **kontrako krimena** (3); **krimena egin** (4); **krimena egiten** (3); **krimena egitera** (3); **krimena izan** (12); **krimena izan zen** (3)

**aurkako krimenak** (17); **egindako krimenak** (3); **gerra krimenak** (56); **gerra krimenak egin** (9); **gerra krimenak epaitzeko** (3); **gizateriaren aurkako krimenak** (8); **gizateriaren kontrako krimenak** (6); **kontrako krimenak** (11); **krimenak burutu** (3); **krimenak dira** (4); **krimenak egin** (17); **krimenak egitea** (9); **krimenak egitea leporatzen** (5); **krimenak egiteaz** (5); **krimenak egiteko** (4); **krimenak egiten** (6); **krimenak egiten ari** (3); **krimenak epaitzeko** (3); **krimenak eta genozidioa** (3); **krimenak gertatzen** (3); **krimenak ikertzeko** (5); **krimenak salatu** (3); **nazien krimenak** (3)

**krimenaren aurkako** (5); **krimenaren lekura** (3)

**gerra krimenen** (9); **krimenen erantzule** (4); **krimenen erantzuleak** (8)

**diktadurako krimenengatik** (3); **gerra krimenengatik** (6)

**gerra krimenez** (11); **gerra krimenez akusatutako** (4); **krimenez akusatu** (3)

**krimenik egin** (4); **krimenik handienak** (3)

**gerra krimentzat** (8); **gerra krimentzat jo** (5); **krimentzat hartu** (4); **krimentzat hartzen** (5); **krimentzat jo** (8); **krimentzat jotzen** (4)

---

# krimentsu *izond*

Baina esan biezat zergatik ez zituen berorrek auzibideratu gaizkintzok, hain izanik **krimentsu** eta heriotzaz zigorgarri, berorren segurtasunak, zuhurtziak, eta abarrek, larriki premiatzen zutelarik berori hartara. Juan Garzia

---

# kriminal *(orobat **kriminel** g.er.)* 1 *izond* krimenarena, krimenari dagokiona. ik **krimen 3**.

Herrialdeko auzitegi **kriminal** eta zibilen mende. Iñaki Iñurrieta

Fiskaltzak Auzitegi **Kriminalaren** ebazpenei helegitea jartzeko duen aukera. Berria - Mundua

Frantzian auzi **kriminalak** publikoak zirela. Iñaki Iñurrieta

Baina ez ote da auzibide **kriminalaren** gogortasun ikaragarria muzin honen eragilea? Juan Martin Elexpuru

Gai **kriminalak,** ekintza batzuen inguruan bakarrik mamitzen direnak, zehaztuta daude; gai zibilak, ordea, ez. Andres Urrutia

Poliziak bazekien zelula **kriminal** bat ari zela osatzen Molinaoko basatzan. Koldo Izagirre

Ikertzaileen arabera, susmagarria talde **kriminal** bateko kidea da. Berria - Mundua

Ardura zibilaz haratago, ikerketa **kriminala** ere ireki du AEBetako Justiziak. Berria - Ekonomia

Akusazio **kriminal** guztiak egozten zizkion bere buruari presondegira eraman zezaten oinak kateaz lotuta. Pello Lizarralde

Aurrekari **kriminalak** zituzten pertsonak edo legez kanpo zeuden immigranteak ziren. Berria - Mundua

Ekintza zibil eta **kriminal** guztiak egintza dira azken buruan. Iñaki Iñurrieta

Helburu **kriminal** batekin. Bernardo Atxaga

Jende errugabeen kontrako eraso **kriminal** hau. Berria - Mundua

Beren egiteko **kriminala** edertzeko. Anjel Lertxundi

Artikuluek "abortu **kriminalaren"** ondorioez besterik ez zuten hitz egiten. Joseba Urteaga

Arduragabekeria **kriminalaz** akusatua izan eta lanpostua galdu zuen. Bernardo Atxaga

AEBek **erakunde** kriminal bat, CIA, mantentzen dutela. Berria - Mundua

Espetxe politika **«kriminalak»** hil dituela. Berria - Euskal Herria

Arazoa argitzen ez bazen, erantzulearen aurkako kereila **kriminal** bat jarriko nuela ere esan nuen. Berria - Harian

Janingoa izugarria izan zen, baina Rafan Israelgo Armada are modu **kriminalagoan** ari da jokatzen. Berria - Mundua

• **2** *iz/izond* krimen bat egin duena edo egiten saiatu dena; gaizkilea.

**Kriminalaren** arreba gure etxean izateagatik jarri nahi ziguten salaketa. Pello Lizarralde

**Kriminalak** marka ezabatzea lortzen duenean biktima ahanzturan erortzen da. Berria - Kultura

Kafe pozoitsua hartzeko zigorra zeukan **kriminalak** bizirik jarraitu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kriminalak** bezala jendaurrean zigortzen. Elizen arteko biblia

Bazuen **kriminal** haiek eragiten zituzten torturen berri. Bernardo Atxaga

500 **kriminal** inguru atxilotuak izan dira. Berria - Mundua

Gurasoei lapurtu eta "ez da bekatu" dioena **kriminalen** pareko bihurtzen da. Elizen arteko biblia

Jose Maria Aznar auzitara eramatea du helburu, gerlako **kriminel** gisa. Herria

Ez baitu ere konprenitzen nolaz eta zertako bertzea sartu den harremanetan **kriminalarekin**. Herria

Espetxean ez zuten **kriminal** handitzat hartu. Jose Morales

**Kriminal** arriskutsua naiz. Koldo Izagirre

Egun batean urkamendian bukatuko zutela, zerri alproja **kriminalak.** **Pello Lizarralde**

-Emakume hori alarguna duk zeuen kulpagatik, **kriminal** halakoa. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan)

Lombroso italiarraren teorien arabera, bazen **kriminal** tipo zehatz bat, jaiotzetik estigmatizatua, fisikoki ezaugarri jakinak zituena eta herentzia genetikoa zela eta kriminal bihurtuko zena. Harkaitz Cano

· Lan antropologiko-**kriminal** fantasiaz beteak. Harkaitz Cano

**4** ***gerra-kriminal*** *iz*

**Gerra kriminalak** justiziatik ihes egitea ahalbidetu duen giroa. Berria - Mundua

**Gerra kriminalak** atxilotzeko eta epaitzeko egingo ditugun ahaleginei lotuta dago Serbia Europako Batasunean sartzea. Berria - Harian

Hura **gerra kriminal** gisa epaitzeko irakiarri entregatzeko eskaria ere egin zuten. Berria - Mundua

Lehen aldiz, ustezko gerra **kriminal** bat Nazioarteko Zigor Auzitegian. Berria - Mundua

Hura eta beste bost ustezko gerra **kriminal** atxilotu eta estraditatzeko eskatu dio Nazioarteko Zigor Auzitegiak Belgradi. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egintza kriminal** (3); **ekintza kriminal** (7); **erakunde kriminal** (4); **gerra kriminal** (5); **kriminal arriskutsu** (4); **kriminal guztiak** (6); **kriminal hutsa** (3); **politika kriminal** (3); **talde kriminal** (3); **ustezko gerra kriminal** (4)

**aurkako kereila kriminala** (4); **ekintza kriminala** (3); **espetxe politika kriminala** (4); **kereila kriminala** (17); **kereila kriminala aurkeztu** (7); **kereila kriminala jarri** (3); **kriminala izan** (4); **kriminala jarri** (3); **politika kriminala** (6)

**ekintza kriminalak** (14); **gai kriminalak** (3); **gerra kriminalak** (3); **kriminalak dira** (6)
**politika kriminalaren** (5)
**auzitegi kriminalean** (4)
**auzipetze kriminaleko** (5); **auzipetze kriminaleko legea** (3); **judiziamendu kriminaleko legearen** (3); **prozedura kriminaleko legea** (4)
**egintza kriminalen** (5)
**egintza kriminalen** (5)
**kriminaltzat hartzen** (5); **kriminaltzat jo** (6)

---

# kriminalista 1 *izond* krimen auziei dagokiena; krimen auzietan aritzen dena.

Ikerketa **Kriminalistaren** Arloko foruzainek atxilotu zuten iaz jende gehien, 287 lagun denera, hain zuzen ere. Berria - Euskal Herria

Ramon Rumaya, Urduñako abokatu **kriminalista,** makilakadaka hil zuten Larrinagako kartzelan. Jokin Urain

Abokatu **kriminalisten** elkargoaren buruak. Berria - Mundua

• **2** *iz* krimen auzietan aritzen den legelaria.

Itaunketek, **kriminalisten** arabera, espiralean garatu behar dute gertakizuna, nolabait esateko, baina sekula ez zuzen-zuzenean Juan Martin Elexpuru

---

# kriminalistiko *izond* delituak edo krimenak aurkitze, azaltze eta frogatzeari dagokiona.

Defizit demokratiko hori, esate batera, bortxaren arazoa egundo ez planteatu nahi izatean, ikusten da, diferentzia kultural bezala, balio (erlatiboki) kontrarioen topetakoa bezala alegia gizarte multikultural batean, dogmatikoki beti termino **kriminalistiko** soiletan baizik, horrek eztabaida guztia arras sinplifikatzen baitie, oso eroso. Joxe Azurmendi

---

# kriminalitate *(15 agerraldi, 4 liburu eta 6 artikulutan)* 1 *iz* ekintza baten izaera kriminala. ik **kriminaltasun.**

**Kriminalitatea** bera -"monomania gizahiltzaile" ospetsuen ondotik- desbideraketa modu bat bihurtzen da, nola edo hala zoramenarekin lotua. Xabier Arregi

IRAk abian duen terrore eta **kriminalitatea** Sinn Fein/IRAren buruzagitzaren baimenik gabe diharduten norbanakoen ekintzak direla. Berria - Mundua

**2** leku jakin batean denbora jakin batean egin den krimen kopurua edo indizea.

Ezein ikerketak ez du erakutsi heriotza zigorrak beste zigor batzuek baino modu eragingarriagoan **kriminalitatea** eragozten duenik. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

Zenbatean jaitsarazi omen dituen **kriminalitate**-indizeak mundu osoan. Iban Zaldua

Martin Ugalde ere ez duela auzipetuko dio epaileak autoan, bere kontra **«kriminalitate** zantzu aski» ez dagoenez. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kriminalitate zantzu** (3)

---

# kriminalizatu, kriminaliza, kriminalizatzen du *ad* kriminaltzat jo edo hartu.

Lege horrek ideiak **kriminalizatzen** ditu. Berria - Euskal Herria

Ezin dira aukera ideologikoak **kriminalizatu**. Euskararekin, ordea, gu guztiok **kriminalizatu** gaituzte. Haien helburua euskal gazteria **kriminalizatzea** delako. Jokin Urain

Nafarroako Gobernuaren estrategia beti izan da urtegiaren kontrako mugimendua **kriminalizatzea,** bortizkeriarekin lotzea. Edurne Elizondo

Basauriko lan gatazka **«kriminalizatu»** izana egotzi diote garbitzaileek alkateari. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**gazte kriminalizatuak** (3)
**kriminalizatzeko saioa** (5); **politikoak kriminalizatzeko** (3)

---

# kriminalizatzaile *izond* kriminalizatzen duena.

Hedabideak dira egun euskal gazteriaren aurkako lobby **kriminalizatzaile** lanetan aritzen diren erantzule garrantzitsuenetakoak. Berria - Euskal Herria

Gaurkoan hedabide intoxikatzaile-**kriminalizatzaile** horien rola agerian utzi eta aurre egin nahi izan die Segik. Berria - Euskal Herria

---

# kriminalizatze *iz* kriminaltzat jotzea edo hartzea.

Zergatik hala ere? **kriminalizatze** asmoa dago. Berria - Harian

---

# kriminalizazio 1 *iz* kriminalizatzea.

Pentsamendu bakarraren eta ideien **kriminalizazioaren** kontra. Berria - Euskal Herria

Tortura salaketaren **kriminalizazioaz** arituko da. Berria - Euskal Herria

Hainbat gaztek jasaten duten **«kriminalizazio** eta indefentsioa» salatzeko. Berria - Euskal Herria

Ildo beretik, **kriminalizazioaren** arazoa itzela da: lan egiteko adina duten gizonezkoen %2a kartzelan omen da. Iñaki Heras

**Kriminalizazio** hiltzailerik ez! Monika Etxebarria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskal gazteria pairatzen ari den **«kriminalizazio»** egoeraren aurrean. Berria - Euskal Herria

Gertaera hauek ezin dira egun bizi ditugun sumindura eta **kriminalizazio** girotik bereizi. Berria - Euskal Herria

Euskal gazteen aurkako **kriminalizazio** dinamikaren barruan. Berria - Euskal Herria

Gertatutakoa euskal gizartearen zati baten kontrako **kriminalizazio** politikaren ondorio da. Berria - Euskal Herria

PPk abiatutako **«kriminalizazio** kanpaina» salatu zuen. Berria - Euskal Herria

SA legebiltzar taldearen kontrako **«kriminalizazio** saioa» salatu dute. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**aurkako kriminalizazio** (4); **kontrako kriminalizazio** (3); **kriminalizazio hiltzailerik ez** (3); **kriminalizazio saio** (3); **kriminalizazio saioa** (3)
**aurkako kriminalizazioa** (3); **ideien kriminalizazioa** (3); **kriminalizazioa salatu** (4)

**kriminalki** *adlag* alderdi kriminalean.

Ez nago objtektibotasunez egoera deskribatzeko moduan, kasuan **kriminalki** interesaturiko alde batean bainago. Berria - Kultura

**kriminaltasun** *(11 agerraldi, 2 liburu eta 7 artikulutan)* **1** *iz* ekintza baten izaera kriminala. ik **kriminalitate**.

Nola bihurtu ahal izan den **kriminaltasuna** mediku-azterlanen objektua. Xabier Arregi

**2** krimenak egotea.

Indarkeria eta **kriminaltasunaren** amaiera lortzeko. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gertatu zen, baina, independentziaren aurreko garaian, ordura arte inoiz ikusi gabeko **kriminaltasun** uhinak harrapatu zuela hiria. akusatuen kontra **«arrazoizko** kriminaltasun zantzuak» daudela ikusten duelako. Bego Montorio

Irlanda iparraldean politika parte-hartzailea ahalbidetu ahal izateko **kriminaltasun** mota guztiak bukatu behar direla. Berria - Mundua

kriminel ik **kriminal**.

**kriminologia** **1** *iz* zuzenbidearen adarra, delitua alderdi guztietatik aztertzen duena.

Dotzena bat jakintsunei emana izan zitzaien Bavariako **kriminologia** aztertzea 1850etik orain arte. Marzel Etxehandi

Heriotzekin eta horrelakoekin omen zuen zerikusia **kriminologiak**. Joxemari Urteaga

**Kriminologiako** kasu ilunak argitzeko tresna berriak. Pello Salaburu

**2** (hitz elkartuetan)

Gauza gehiago ere argi utzi ditu **kriminologia** zerbitzuko txostenak, besteak beste, gizon hau arnasketa eskasagatik hil zela, bularrezurraren hausteak eraginda. Berria - Harian

**krinolina** *(corpusean **kriolina** soilik, agian hutsegitea)* *iz* gona harrotzeko erabiltzen zen armazoia.

Oso antigoaleko eszena zen hura, ia-ia **kriolinak** eta galtza gerri-zabalak ere eskatzen zituena. Anton Garikano

**kriogenizatu**, kriogeniza, kriogenizatzen du *ad* izaki bizi bat oso tenperatura apaletan izoztu eta egoera horretan atxiki, etorkizuneko suspertze baten zain.

Artikulu honen egilea **kriogenizaturik** dago Rushmore mendiaren barruan kokaturiko base ultrasekretu batean. Iban Zaldua

Egia al da bunker sekretu batean **kriogenizatuta** daukatela, Jim Morrison, Bruce Lee eta Walt Disneyrekin batera? Iban Zaldua

kriol ik **kriollo**.

kriolina ik **krinolina**.

kriolismo ik **kriollismo**.

**kriollismo** *(corpusean **kriolismo** soilik)* *iz* kriolloen bizitza eta kultura goraipatzen zuen literatura joera errealista, XIX. mendearen amaieran Hispanoamerikan sortu zena.

Formulazio absurdoak estaltzen duen pentsamendu oso sinplea, Unamuno-ren **"kriolismo"aren** argitan argitzen da. Joxe Azurmendi

**kriollo** *(orobat **kriol** g.er. eta **kriolo** g.er.)* **1** *izond* kreola.

Amerika **krioloa** bere ideia panhispanistan biltzeko, garrantzi guztia hizkuntzari eta hizkuntzari bakarrik eman beharra zeukala. Joxe Azurmendi

Harro egoteko motiborik ez zitzaion bere ustetan falta: sortaldetarra izatea, **kriolloa** izatea, emakume guztiak erakartzea [...]. Juan Garzia

**2** *iz* kreola.

**Kriolloa** [...] indigenista agertzen da europarron aurrean, indioen ondorengo eta aldezle, baina guztiz europar jokatzen du gero indio horiexen aurrean, indio-odolik balu ere hura ukatuz eta ezkutatuz. Hizkuntz eta kultura guttituen elkarteak, bere baitan altzazianoak, euskaldunak, bretoinak, katalanak, **kriolak** eta okzitanoak biltzen dituenak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Kriolloak** eta espainolak. Pako Aristi

kriolo ik **kriollo**.

**krioterapia** *iz* oso hotz handia erabiltzean datzan sendabidea.

Tratamenduan jarri dute: atsedena, hanturaren kontrakoak eta **krioterapia**. Berria - Kirola

**kripta** 1 *iz* eliza bateko lurpeko solairua, elizkizunak egiten direna.

Sabai gangaduna zuen eta, oro har, **kripta** ahoz behera jarritako kikara baten tankerakoa zen. Alberto Ladron Arana

Orain Hanburgon gordetzen da, Santa Katalina elizako **kriptan** . Alberto Ladron Arana

Katedraleko **kriptan** gorde nintzen denbora hartan guztian. Joxan Elosegi

Ostiralean ehortziko dute Karol Wojtyla San Petri basilikako **kriptan** . Berria - Harian

SSetako buruzagiak Esbastikaren **Kriptan** giltzapeturik egonen ziren, atexka gotorra joz eta garrasika. Alberto Ladron Arana

Maiatzaren 8a arte izanen da erakusketa Miarritzeko Eugenia **kriptan** . Berria - Kultura

**2** ehorzketak egiten ziren lurpeko tokia.

Figura beltz batzuek eskuetan zituzten kriseiluen argipean, Highgate-ko kanposantuko hilarriak nekuskien sastrakak estaliak, **kripten** burdinazko ate herdoilduak eta armiarma sare grisak. Ramon Saizarbitoria

---

**kriptiko** 1 *izond* guztiz iluna eta ulergaitza; oso gutxik ulertu ahal izateko egina dena.

Uste dut badutela gure historia etnologiko ilunean beren leku **kriptikoa:** juduak, moroak, jitoak... Patziku Perurena

Oro har jito kastakoak zirela, edo hobeki esan, orotariko jendaje **kriptikoa** . Patziku Perurena

Bere ustez, kritikariak ilunak ziren, **kriptikoak;** artista onak, berriz, gardenak, ulerterrazak. Ramon Saizarbitoria

Mezu **kriptikoren** bat bidaliko ote zidan. Joan Mari Irigoien

Ekonomilariaren ohiko hizkera **kriptikoan** . Iñaki Heras

Maimonek, modu **kriptikoan,** Samael izenak hebreeraz 'ezkerra' esan nahi duen *-smol* hitza inplikatzen duela aipatzen du. Xabier Kintana

**2** (hitz elkartuean)

Musikariak beren zereginetara itzuli dira, mahaiko teknikariarekin eztabaidan, gitarraren hotsa zoliegi edo apalegi entzuten ote den, beren hizkera tekniko **kriptiko** horretan Xabier Mendiguren Elizegi

---

**kriptofonia** *iz* ahotsa, dagokienak soilik uler dezaten, kodetzeko eta deskodetzeko antzea.

Maria andreak **kriptofoniari** buruzko oinarrizko ezagutza batzuk balitu, hemendik alde egitean sekretu guztiaren jabe izango litzateke, eta irri egingo lieke berari irri egin liezaioketela uste zutenei. Jon Alonso

---

**kriptografia** *iz* kode sekretuan idazteko antzea.

Voynichen eskuizkribuak buruhauste handiagoak sortu ditu liburu misteriotsuen munduan beste ezein liburuk baino, jende batek baitio sekretu handiak daudela han, nahiz eta **kriptografiaren** zientziak ez izan behar adinako abileziarik han idatzitakoak askatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Perpaus horiek, lehen begiratu batera hanka-bururik gabeak, aise justifika litezke **kriptografiaz** nahiz alegoriaz baliaturik. Juan Garzia

---

**kriptografiatu,** kriptografia(tu), kriptografiatzen du *ad* kode sekretu batean idatzi.

Beraz, enbarkatu guran izan zitezkeen eskuindarren izenak Gure Gizonak batuko zituen eta **kriptografiaturik** helaraziko zizkigun. Edorta Jimenez

---

**kriptograma** *iz* kode eztuku batean idatziriko dokumentua.

Globoak, kanibalak, mapak, haitzuloak, **kriptogramak,** ekaitzak, uharteak, hotza, sumendiak, piratak, itsasontziak. Karlos Zabala

---

**kriptoikertzaile** *(corpusean **kripto-ikertzaile** soilik)* *iz*

Mendebalde moderno berant sekularizatuaren zientzia berria, ordurako, holandarren bidez, ezkutuan aztertzen ari ziren **kripto** -ikertzaileak animatzen zituen mugimendua. Iñaki Mendiguren

---

**kriptojudu** *(corpusean **kripto-judu** soilik)* *iz* isileko judua, bataiatua egonik ezkutuan judu erlijioa praktikatzen duena.

Toskanako gobernuak Espainiatik eta Portugaletik ihesi joandako **kripto** -juduei Livornon ezartzen utzi zien K.o. 1593an eta gero. Iñaki Mendiguren

---

**kriptokomunitate** *(corpusean **kripto-komunitate** soilik)* *iz* isileko komunitatea.

Bi alderdiek jarraitu zuten jokabide bikoitza izaten -goragoko araua beren **kripto** -komunitateko kideekin tratatzeko, eta arau apalagoa, ustez jada existitzen ez zen gizarte-mugaren bestaldean, izenez herrikide zirenekin tratatzeko-. Iñaki Mendiguren

---

**kriptokoziko** *izond* meningitisaz mintzatuz, *Kryptococcus neoformans-ek* eraginikoa.

Meningitis **kriptokozikoa** milioi bat pertsonako bostek izan ohi dute. Berria - Euskal Herria

---

**kriptokristau** *(corpusean **kripto-kristau** soilik)* *iz* isileko kristaua.

Historiaren filosofia **kripto** -kristauari ustezko kristau ohi arrazionalistek eusten baitzioten. Iñaki Mendiguren

Herodetar gutxiengo txiki batek iraun egin zuen beren atzerriko fede debekatuari berrehun urte baino gehiagoz isilpean leial atxiki zitzaizkion **kripto** -kristauengan. Iñaki Mendiguren

---

**kriptolengoaia** *iz* hizkuntza ezkutua.

Zail da esaten 23/1 horrek Ernest Hemingwayren eta bere ingurukoen arteko **kriptolengoaian** zehatz-mehatz zukeen esangura. Edorta Jimenez

---

## kriptologia *iz* sistema kodetuen azterketa.

Garai batetik hona, zenbaki lehenek garrantzi txit handia dute **kriptologian** . Esanak esan, "Txomin Domingon Baratza", usario luzeko baratza iluna dugu beraz, eta mereziko luke etnogenealogia historiko ttiki bat osatzea, gure Dominga, Domingone, Domintxene, Domintxin, Txomin, eta ahaidekoen **kriptologia** argituz. Jon Muñoz

---

## kriptomera *iz* zuhaitz pinaburuduna, lorategietan ohikoa dena.

Haurtzaroko baso japoniarrak etorri zitzaizkidan gogora, astigarrak, **kriptomerak** eta gingkoak, ipurdiz gora moztuak ni bezalako izaki ezdeusa zigortzeagatik Joxan Elosegi

---

## kriptonimo *iz* pertsona baten isileko izena.

1961eko martxoan Konpainiak AM/LASH **kriptonimoaren** atzean ezkutatuko zuten gizona kontaktatu zuten; Rolando Cubela Secades zen. Edorta Jimenez

---

## kris *iz*

Kanada-ko **Kris** jendetzearen solas baten bidez, nahi dugu bururatu: "Azken arbola moztua izanen delarik, azken ibaia pozoinatua izanen delarik, azken arraina arrapatua izanen delarik orduan bai, gizona ohartuko da dirua ez dela jaten!" . Herria

---

## kris-kras

Beste olatu bat gorputzen **kris** -kras artean. Pako Aristi

---

## krisalida **1** *iz* beldar egoeraren eta egoera helduaren arteko fasean dagoen intsektua, bereziki lepidopteroa; fase horretan intsektua biltzen duen kuskua.

Honela eliza bat zibilizazioen ugaltze-sistemaren zati litzateke, tximeleta eta tximeleta artean arrautza, larba eta **krisalidaren** papera eginez. Iñaki Mendiguren

Tximeleta nakaratuak **krisalidetatik** jaio eta hil arte aritzen ziren leihoko kristala jotzen. Anton Garikano

**2** irud/hed

Judu-fedea, beste fede batzuk bezalaxe, bere xedea bete zuen **krisalida** bat zela. Iñaki Mendiguren

Ekialde urruneko kristau zibilizazioa nestoriotar kristautasunaren **krisalida** barruan sortu zen Oxus-Jaxartes arroan. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dagoeneko osatu dugu elizen ikerketa beren **krisalida** -paperean. Iñaki Mendiguren

Zibilizazio bat aurreko batekin ahaidetzeko prozesua, ondorengo adibideen azterketan hiru alditan analiza daitekeela aurkituko dugu, **krisalida** -elizaren ikuspegitik, "sorraldia", "ernaldia" eta "erditzea" dei genitzakeenak. Iñaki Mendiguren

Mendebaldea, bere fase modernoan, bere **krisalida** -erlijiotik, kristautasunetik, emantzipatzen ari zen bitartean, Zibilizazio Helenikoak, horrelako krisalida erlijiosorik ez zuenez, gero eta erlijio-gose handiagoa zuen. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argi- **krisalida** haiek puzten eta hanpatzen segitu zuten tarte batez. Patxi Iturritegi

Erlijio- **krisalida** tradizional batetik irten eta bere balioak termino sekularretara aldatu dituen gizarte batean. Iñaki Mendiguren

---

## krisantemo *iz* urre-lilia.

Alanbrearen barnealdean sasoiko loreak beren ontziekin ezarriak zituzten: **krisantemo** txuriak, moreak, horiak eta gorrastak. Daniel Landart

Atzealdean lorategi txiki bat zuen, klase askotako arrosaz josia, baita tulipan eta **krisantemo** gorri-gorriz ere. Felipe Juaristi

Niri lorategiak hil zaizkit ahosabaian, gerrako arrosak eta hilerrietako **krisantemo** urrezkoak. Karlos Linazasoro

Herensuge eta **krisantemo** irudiez apaindutako sedazko kimono hori batez jantzita. Javi Cillero

---

## kriseilu **1** *iz* oliozko argiontzi metxaduna, zintzilikatzeko kako bat duena; kandela sartzen den ontzi gardena, zintzilikatzen dena edo zintzilik eramaten dena.

**Kriseilua** ere ez da pizten ontzipean ipintzeko, argimutilaren gainean baizik. Elizen arteko biblia

Eta izeki zituzten argimutileko **kriseiluak** . Elizen arteko biblia

Pizturik utzten zituen argiontziak, **kriseiluak** eta kandelak. Askoren artean

**Kriseiluekin** batera olioa ere hartu zuten ontzietan. Elizen arteko biblia

Andreasek, **kriseilu** bat eskuan harturik, belaontziko konpartimendu eta gelak erakutsi zizkien. Anjel Lertxundi

**Kriseilua** pixka bat zabaltzea erabaki nuen, pixka-pixka bat besterik ez. Koro Navarro

Toki ilunean argi egiten duen **kriseilua** bezala. Elizen arteko biblia

Sabai baxutik zintzilika zegoen oliozko **kriseilu** bakar batek argitua. Iñaki Mendiguren

Eskuko **kriseiluez** sarjentuari eta Justinari argi eginez. Felipe Juaristi

**Kriseilu** eskegiak eta ke ugariko argi zalanzkorrez dizdiz egiten duten zuzi erretxinatsuak. Xabier Amuriza

Argi egiten zuen **kriseilu** piztuaren antzera. Elizen arteko biblia

**Kriseilu** motel batek argituriko ganbara batean. Ezkerraldeko **kriseilu** karratu txikiaren argi ahulak. Irene Aldasoro

Urbanok **kriseilu** moduko bat piztu eta botila bat ipini zuen egurrezko mahai gainean, baso batzuekin batera. Paddy Rekalde

Orga handiak ziren, horiak, lau zaldiz tiratuak, koloretako **kriseiluz** hornituak. Karlos Zabala

Bidali zuen txaneltxo bat, popako **kriseilua** isioturik zeramala. Edorta Jimenez

Itzali egingo zaio biziaren **kriseilua** . Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da aurrerantzean gaurik izango; ez dute **kriseilu** -argirik, ez eguzki-argirik beharko, Jainko Jaunak egingo baitie argi. Elizen arteko biblia

A zer azti- **kriseilu** aparta! Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jendarme pare batek gas- **kriseiluekin** argitu omen zuten denda barrena, elektrizitatearekin arazoak izan zituztelako. Ramon Saizarbitoria

Petrolio- **kriseilua** hartu, eta lurrezko teilatura igo zen. Juan Kruz Igerabide

Tximiniaren bueltan, hormatik zintzilik, aitak egindako letoizko olio **kriseiluak**. Jon Maia

Guztiz atsegin, ongietorrizko irribarre batekin, tarteka kuia-**kriseiluaren** antzeko hortzeria hura erakutsiz, jendetasunaren eta molde onen eredu berbera. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kriseilu bat eskuan** (3); **kriseilu piztuaren antzera** (3)

**kriseilua piztu** (4)

**kriseiluak piztu** (6)

**kriseiluaren argia** (3)

---

# kriseilutxo *iz* kriseilu txikia.

Bilboko ur bedeinkatu ontzi beirazkoak, Cauterets-eko latorrizko **kriseilutxoak**. Koldo Izagirre

---

# krisi 1 *iz* zerbaiten bilakaeran gertatzen den une edo epe larria.

Nazioarteko banku-sistema errotik inarrosi zuen 1980ko hamarraldiko zorraren **krisiari,** zuzeneko finantzaren berrindartzea jarraitu zitzaion 1990eko hamarraldian. Koro Navarro

Petrolioaren prezioa laukoizteak eragindako **krisiaren** ondorioz. Koro Navarro

**Krisiaren** sorrera-eragileetan, zabalkundearen mekanismoetan, eta konponbidearen baldintzetan, guztietan agertzen da dimentsio hori. Koro Navarro

Errealitate bat da, tradizioaren **krisia**. Joxe Azurmendi

Bihotzeko **krisi** bat seriosa ukan zuen. Marzel Etxehandi

*Delirium tremens*eko **krisi** batek jota hil zen. Koro Navarro

Aitaren **krisi** hartatik aste pare batera-edo. Joan Mari Irigoien

Artista batek ez du sekula **krisi** bat konpontzen: gehienera ere, **krisiaren** islak zehazten ditu eta aztertzen. Anjel Lertxundi

## 2 (izenondoekin)

Argentina aspaldian astintzen duen **krisi** ekonomikoak hainbat gogoeta egiteko aukera ematen du. Txema Ramirez de la Piscina

Irango **krisi** nuklearra. Berria - Mundua

Habana eta Mexikoren arteko **krisi** diplomatikoa konpontzeko. Berria - Mundua

Kapitalismoak [...] **krisi** handiak bizi izan ditu. Iñaki Heras

Balioen **krisi** larri bat bizi dugu. Joxe Azurmendi

**Krisi** larrian igaro zituen Loramendi enpresak 2002. eta 2003. urteak. Berria - Ekonomia

Eldarnio, sukar eta **krisi** epileptikoen denbora hartan. Xabier Olarra

Gerra zibilak, gatazka zabalak, goseteak eta pandemiak dira **krisi** erabateko baten azken agerraldia. Koro Navarro

· **Krisi** garaitu berriak adore emango dio Garibairi ia hogei urtez iraungo dion egitasmoa aurrera ateratzeko. Anjel Lertxundi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehen **krisi** hotsak isilarazteko. Berria - Kirola

Merkatu bikainak eskaini zizkien **krisi**-garai hartan herrialde industrializatuei. Koro Navarro

Besteak beste, Sabino Aranak bultzatutako euskal nazionalismoa indartu zen, Espainiak bizi zuen **krisi** egoera hartan. Pello Salaburu

Haien hitzetan, **krisi mahaiak** ez zuen eman manifestazioaren aurka ekiteko agindurik. Berria - Euskal Herria

Joan den asteartean Barne ministerioko **krisi** taldea bildu zen. Berria - Euskal Herria

Indiako populazio-arazoa politikariek ere saihestu ezinezko **krisi**-punturaino iristen bazen. Iñaki Mendiguren

Mendebaleko kulturaren **krisi** kontzientzia larri bat dagoela. Joxe Azurmendi

**Krisi**-kabinete bat eratzea erabaki baitzuten hiriko agintariek. Josetxo Azkona

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euromerkatuen banku-**krisiak,** izan ere, banku bitartekaritzaren galera ekarri zuen. Koro Navarro

Ahaleginak egin ditu finantza-**krisi** agerikoen [...] hedatzea galarazteko eta protekzionismo orokor bat berpizteari aurrea hartzeko. industria-**krisiaren** mamuak. Koro Navarro

Konfiantza **krisi** bat sortzen bada finantza inguruetan. Iñaki Heras

Gaur ez bada bihar, "motibazio **krisi"** bat izaten duela ikusmena berreskuratutako helduak. Xabier Olarra

Identitate **krisi** larria du. Luis Elberdin

Zinismo **krisi** hauek kontrolatu beharra dago. Patxi Iturritegi

Zorpetze-**krisi** gogor baten bukaeran gertatu da. Koro Navarro

Sormen-**krisi** latz batean hondoratu zen berriro. Jose Morales

Nerbio-**krisi** larri baten atarian zegoen. Joxan Elosegi

Asma-**krisi** larri batek jo zuen Margaret. Xabier Olarra

Eragile asko izan zituen arnasa-**krisi** haren jarraipenak: loditurik eta fibrosiak jota zeuden Virgilen birikak. Xabier Olarra

## 5 ***krisi aro*** *(orobat* ***krisiaro*** *g.er.)*

Hain zuzen ere **krisi**-aro horretan sortzen da berriro indarberriturik [...] zuzeneko esperientzia eta hunkitze erlijiosoaren premia. Joan Mari Lekuona

**Krisiaro** honen lekukotza inpresionagarri askoa, Diltheyk ematen digu. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ekonomia krisi** (4); **inoizko krisi** (3); **iranekiko krisi** (4); **krisi batek jo** (3); **krisi batek jota** (3); **krisi egoera** (15); **krisi egoeran** (6); **krisi egoeretan** (5); **krisi ekonomiko** (15); **krisi ekonomiko larria** (4); **krisi ekonomikoa** (15); **krisi ekonomikoak** (11); **krisi ekonomikoaren** (3); **krisi ekonomikotik** (3); **krisi garai** (3); **krisi garaian** (9); **krisi garaietan** (6); **krisi garaiko** (3); **krisi gogor** (5); **krisi gogorra** (4); **krisi handi** (3); **krisi handia** (7); **krisi handiren** (3); **krisi hotsak** (3); **krisi humanitario** (7); **krisi humanitarioa** (7); **krisi kabinete** (3); **krisi kabinete bat** (3); **krisi kabinetea** (3); **krisi konbultsiboak** (3); **krisi larri** (7); **krisi larria** (13); **krisi larrian** (15); **krisi larririk** (4); **krisi latza** (4); **krisi mahaiak** (4); **krisi nuklearra** (5); **krisi nuklearraren** (3); **krisi pertsonal** (3); **krisi politiko** (13); **krisi politikoa** (22); **krisi politikoa eragin** (3); **krisi politikoa gainditzeko** (3); **krisi politikoa konpontzeko** (3); **krisi politikoaren** (4); **krisi politikoari** (5); **krisi sakon batean** (4); **krisi sakonean** (16); **krisi une** (3)

**balioen krisia** (6); **barne krisia** (4); **bizi duen krisia** (4); **darfurko krisia** (4); **egiturazko krisia** (3); **egungo krisia** (4); **eragindako krisia** (5); **finantza krisia** (5); **gobernu krisia** (7); **gobernuaren krisia** (3); **identitate krisia** (7); **indartzen hasien krisia** (3); **krisia areagotu** (10); **krisia areagotzen** (3); **krisia bukatu** (3); **krisia eragin** (22); **krisia eragin zuen** (7); **krisia eragingo** (3); **krisia gainditu** (6); **krisia gainditzeko** (6); **krisia gainditzen** (5); **krisia gertatu** (4); **krisia izan** (14); **krisia izan zuen** (4); **krisia konpondu** (4); **krisia konpontzeko** (8); **krisia larriagotu** (4); **krisia piztu** (7); **krisia piztu zenetik** (3); **lehen krisia** (4); **petrolio krisia** (3); **petrolioaren krisia** (3); **sektorearen krisia** (4); **sistemaren krisia** (3); **sortutako krisia** (10); **urteetako krisia** (3); **zorraren krisia** (7)

**petrolioaren bigarren krisiak** (3); **petrolioaren krisiak** (8); **zorraren krisiak** (11)

**eredua krisian dagoela** (3); **euskal herria krisian** (7); **industria krisian** (3); **krisian murgildu** (3); **krisian sartu** (9); **krisian sartuko** (4); **krisian sartuta** (3); **krisian sartzen** (3); **lurralde eredua krisian** (3)

**darfurreko krisiarekin** (3); **krisiarekin bukatzeko** (5)

**krisiaren arrazoi** (3); **krisiaren eraginez** (3); **krisiaren kontzientzia** (4); **krisiaren ondoren** (7); **krisiaren ondorioz** (5); **petrolioaren krisiaren** (3); **zorraren krisiaren** (3)

**gobernu krisiari** (3); **krisiari amaiera emateko** (4); **krisiari aurre egiteko** (15)

**petrolioaren krisiek** (3)
**finantza krisien** (3)
**krisirik larriena** (8)
**krisitik ateratzeko** (6); **krisitik irteteko** (4)

---

# krisialdi *(orobat **krisi aldi** g.er.)* **1** *iz* krisiko une edo garaia, krisia.

Egoera hori bizpahiru aldiz errepikatu zen baina azken urteetan **krisialdiak** bakandu ziren. Elena Touyarou

**Krisialdiko** egoera soziopolitiko aldakorretan. Askoren artean

Psikiatrek argi uzten dute **krisialdietan** garunak asko sufritzen duela, eta krisialdiak ugaritu ahala, garuneko kaltea ere handitu egiten dela. Berria - Harian

**Krisialdien** ondoren, gero eta zailago zaie gaixoei normaltasunera itzultzea. Berria - Gaiak

Ricardo, gaztetan **krisialdi** bat izan eta sanatorio psikiatrikotik pasatu zena. Bernardo Atxaga

Ingrid Bergmanekin hautsi osteko **krisialdia** gainditua, beste aro bati ekin zion. Berria - Kultura

**Krisialdia** kudeatzeko helburuarekin. Berria - Euskal Herria

Makina-erremintaren **krisialdia** bukatu eta sektorea «argia ikusten» hasi dela. Berria - Ekonomia

Balioen **krisialdiak** ernarazi eta indarturiko giza eta gizarte zientzia horiek. Joxe Azurmendi

Handik gutxira etorri zen petrolioaren bigarren **krisialdia,** eta hutsean geratu ziren ahalegin horiek. Koro Navarro

**2** (izenondoekin)

Gure arteko lehen **krisialdi** gogorra izan zen hura. Aingeru Epaltza

John Deeren **krisialdi** mistiko hau 1580 aldera hasi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Maitasunak, borroka politikoak, **krisialdi** latz batek, galdera ugari baina ziurtasun gutxi eskaintzen dituzten momentu horiek. Pako Aristi

Bururatu zitzaidan **krisialdi** psikiko moduko zerbaitek ez ote zuen jotzen. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jaiotetxeko irudiak etortzen zitzaizkion gogora ororen gainetik, lehenbiziko **krisialdi**-gau haietan. Xabier Olarra

Haren isuriaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak **krisialdi** mahai bat osatu zuen. lortutako diruak nekez aterako du Reala **krisialdi** egoeratik. Berria - Euskal Herria

OBEk egoeraren berri emanen dio Osasun ministroari eta honek Prefetari eskatuko dio **Krisialdi** Batzordeak osa ditzala. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kapitalismoaren historian bi ekonomia **krisialdi** nagusi nabarmentzen dira. Iñaki Heras

Garapen bidean den herrialde bateko finantza **krisialdi** batek urduritasuna sor dezake nazioarteko finantza merkatuetan. Iñaki Heras

Pierre Lalannek, ordea, Europaren eraikuntza **krisialdien** ondorioz maiz ahuldu dela dio. Berria - Euskal Herria

Mutil horrek nerbio-**krisialdi** bat eragingo zizukeen berdin-berdin. Mirentxu Larrañaga

Erabaki-, itxaropen- eta beldur-**krisialdi** bat izan zen. Xabier Olarra

Esperientzia-**krisialdi** haien bidez lortzen zuen behar zuen hornidura. Xabier Olarra

Krisi edo estimulazio bakoitzean oroitzapena beti bat bera zenez gaixo bakoitzarentzat, Penfieldek "esperientzia-**krisialdiak"** deitu zien. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**navalen krisialdia** (3).

---

# krisialditxo *iz* krisialdi txikia.

Kazetariekin sortu den **krisialditxoa** apurtu dute Madrildik etorritako bi kazetarik. Berria - Kultura

---

krisiaro ik **krisi 5**.

---

# krisidun *izond* krisia duena; krisiak dituena.

Artistak, krisia eta arazoa zehazten ahalegintzeaz gainera, gizakiok **krisidun** eta arazodun garela oroitarazten digu. Anjel Lertxundi

---

# krisieragile *izond* krisia eragiten duena.

Bai gizaki modernoaren kontzientziaren auzikatzaile eta **krisieragile** bezala, baita erantzun berrietarako lagungarri gisa ere. Askoren artean

---

# krisiune *(orobat **krisi une**)* *iz* krisiko unea.

**Krisi une** bat pasatu nuen ekainean. Berria - Kirola

Filosofia **krisiune** guztietan antropologizatu egin dela ohartarazten digu Cassirerek: sofistekin, Berpizkundean, Ilustrazioan, Lehen Mundu Gerraren ondoan. Askoren artean

**krisi une** ez ongi definitu batean. Koldo Izagirre

---

# krisket[1] *iz* soineko baten bi zati elkarri atxikitzeko lotura, bi atal, bata kakoduna (arra) eta bestea zuloduna (emea), dituena.

Bekoki aurrean dingilizka zuen ile-xerlo bat bildu eta **krisketa** irekitzeko botoia sakatu zuen. Lopez de Arana

Zetaren karraska eta askatzean **krisketek** egindako zarata entzun ziren. arropa erantzi, ostera jantzi **krisketik** gabeko bere alkandora, bere jaka maiztua, bere kapelu euriak marguldua, eta han itzuli zen Beltzentzat lan egiten zuten Anaia jainko-kartsuen laguntzaren xerka. Jose Morales

· Honelakoa beharko luke hitz guztien jirabira bihotzetikan eztarriraino, eztarritikan argira eta **krisketak** kraskitin, esposak krabelin orduan izango dira. Berria - Harian

*ik* kriskitin 6.

---

krisket[2] ik **kisketa**.

# krisketadun *izond* krisketa duena.

Lanera gezurrezko diamantez egindako belarritako **krisketadunak** eta lumazko lepoko arrosa bat erakutsiz joan ohi zena. Oskar Arana

---

# krisketari *iz*

Nork ez zuen ezagutzen, herriko **krisketari** kartsua. Herria

---

# kriski

## 1 *kriski-kraska* *adlag (onomatopeia)*

Amak ahots goraz irakurri zigun denoi gutuna; eta gero, **kriski**-kraska, zimur-zimur biribildu eta surtara bota zuen -dagokion tokira, esan zuen. Mirentxu Larrañaga

Charlierekin eskolara bidean, udazkeneko orbel-pilatan **kriski**-kraska, eta istil-putzuetako izotzetan zinpi-zanpa. Mirentxu Larrañaga

Sua aditzen zen, **kriski**-kraska, urrunetikako plazer erraldoi, ahalik idorren mantentzen ziren xirmenduak klikatzen. Itxaro Borda

---

# kriskitin *(orobat* ***krixkitin*** *g.er.)* **1** *iz* sokatxo batez lotzen diren zurezko bi atal zulodunez osaturiko tresna, bi atalok ahurrean elkarren kontra joaraziz hotsa ateratzeko erabiltzen dena.

Tarota irakurtzeko abildadea ei zuen eta intzentsua jartzeko gakoan, **kriskitin** pare bat zeukan zintzilik ziri lurrintsuaren ordez. Harkaitz Cano

Guardiako soldadua gitarra eta **kriskitinak** jotzen. Koldo Izagirre

Gitarra soinu eta **kriskitinak** entzuten dira. Koldo Izagirre

Eskuetako zinbalekin **kriskitinak** joz eta pandero moduko batzuk, *daire* izenekoak, hatz puntaz astinduz. Karlos Zabala

Dantzan hasten zen berriro, *daire*a mutilaren ondo-ondoan astinduz eta zinbalen **kriskitinekin** gortzen zuela. Karlos Zabala

## 2 irud/hed

Noraren aitak, eskua patrikan sarturik, bost sosen **kriskitina** entzunarazten zion asmatzaileari. Anjel Lertxundi

Ehundegi-zuren **kriskitina**. Elena Touyarou

Itxaropenaren **kriskitinak** entzuten egon nintzen astearte arratsaldean. Anjel Lertxundi

Legeak, ordea, aspaldi emana zien emakumeen kantuzko **kriskitinei** krisketa: [...]. Berria - Kultura

Mespreza ditzagun iruzurgileek otoizten duten jainko hutsala, eta haren onarpen zentzugabeak dakartzan xehetasun erlijioso guztiak; gizon libreak ezin dira dagoeneko **kriskitin** horrekin jostatu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hango **krixkitinak,** eta irrintziak, eta txaloak, eta burlak!", kontatu du lekukotzat hartzen ari garen Mikaela Elizegik bere aitari buruz. Bernardo Atxaga

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire burua plazeraren atakaraino neronek itsutuarazi behar nuelarik, hazi likitsa hatzekin bildu eta sudurrera eramaten nuen berak behin egin zuenez, **kriskitin**-keinu hark Almaren gomuta piztuko zidalakoan. Harkaitz Cano

Eta bi hitz haiek, 'bihotzeko Mireia', elkarren ondoan, **kriskitin** soinua egin zuten bere bihotzaren kristal finean. Pako Aristi

Gela zabal-zabalak arin gurutzarazten dituzten **kriskitin**-hots horietakoa. Koro Navarro

Bat-batean soinu txikia jotzen hasten dira, panderoaren **kriskitin**-trostaren gainean. Pako Aristi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Behatz-**kriskitinak** egin zituen ni ere altxarazteko, agindu bat zen. Fernando Rey

## 5 *kriskitin egin*

Hatzak airean **kriskitin eginez**, bentariari deitu zion. Felipe Juaristi

**Kriskitin egingo** zuela, eta hori izango zela seinalea. Anton Garikano

-Ez, benetan, bururatu egin zait! **-kriskitin egin** zuen-. Koro Navarro

Irribarre egin zuen, hatzak hazi likitsagatik ez balitz **kriskitin egingo** luketen eran igurtziz. Harkaitz Cano

-Zorionaren bila etorri omen gara, eta ez digute zoriontsu izaten uzten! -kexatu da dantzan ari zen emakumea, **kriskitin egiteari** utzi eta gero. Anjel Lertxundi

· Mutilak keinu bat **egin** zuen, hatzen **kriskitin** txiki bat. Koro Navarro

"Horixe dela guapoa!", alabak **kriskitin**. Aingeru Epaltza

## 6 *kriskitin eragin*

Gauean belarraren gainean egiten dute dantza atzamarrei **kriskitin eraginez** eskuaren katiluan; kastaineten itzala baino ez da. Koldo Izagirre

## 7 *kriskitin-kraskitin*

Ezin da erresuma bat itxuraldatu, iragana ezabatu, bidegabekeriak ezeztatu **kriskitin-kraskitin** bat eginez. Fusilen eta metrailadoreen tiro-hotsak **kriskitin-kraskitin** ari zaizkigu buruen gainetik, eta sugarrek han-hemenka argitzen dute ilunpea aldizka. Elena Touyarou

· Sartu ditun mandakoak **kriskitin**-kraskatan. Patxi Iturritegi

Neskaren begiak **kriskitinetik kraskitinera** zebiltzala ikusirik, erantsi zuen-: Zoriona omen dakar. Anjel Lertxundi

## 8 *kriskitin suge* suge pozoitsua, isatsaren muturrean adarkizko eraztunak, dardaratzean hots egiten dutenak, dauzkana.

Kobraren eta **kriskitin-sugearen** artean izigarrizko borroka zelako. Gotzon Garate

Gero, krak!... eta **kriskitin-suge** bihurtu zen... sigi-saga bihurritu zena. Iñaki Mendiguren

Gauza beltz hori lehertuko den erloju-bonba bat da, eraso egiteko prest dagoen **kriskitin-suge** dardartia. Jon Alonso

**Kriskitin-sugearen** antzeko hotsa egin du poxpolo-kaxak Mikelek eragindakoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Kilkerrak ere nekez mugitzen ditu hegoak, eta **kriskitin sugeak** imajinatzen ditugu untxi nagiak harrapatzen etxearen zimenduetan. Javi Cillero

## 9 *kriskitina jo* kriskitin egin.

Bikoteko agureak, bi hatzez **kriskitina** jo, Romani deitu, eta, aulkitik zutituta, esan zion: [...]. Inazio Mujika Iraola

"Kitto" xuxurlatuta **kriskitin** jo zuen. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> kriskitin egin (3); kriskitin egingo (3); kriskitin eta kraskitin (4); kriskitin kraskitin (3); kriskitin suge (4)
>
> kriskitinak joz (3)

---

# kriskitinka 1 *adlag* kriskitin eginez.

Hatzez **kriskitinka** eta erlojutik zintzilik zeraman apaingarri kornalinazkoa erakutsiz, bere besoetara erakarri zuen haurra. Jose Morales

· Lanari utzi eta, artega, idazmahaian atzamarrak **kriskitinka** erabili zituen. Patxi Zubizarreta

Emakumeak, hatz-puntak mahaiaren gainean **kriskitinka,** garrantzia kendu zion harrerazainaren kezkari: [...]. Anjel Lertxundi

· Hortzak **kriskitinka** neuzkan. Eskarne Mujika

**2** irud/hed

-Hantxe izango nauzu hamabietan! -erantzun zion Norak, begiak **kriskitinka** zituela. Anjel Lertxundi

**Kriskitinka** zegoen zeru urdin-urdina. Anjel Lertxundi

**3** oso pozik.

**Kriskitinka** itzuli nintzen, bada, hotelera, bizpahiru hilabete barru berriro itzultzeko aukerak gogo-pizturik. Anjel Lertxundi

Pozez **kriskitinka** jartzen nauen delibero bat hartu dut. Anjel Lertxundi

Kritikariek **kriskitinka** ospatzen, txalotzen, goratzen, laudatzen eta hauspotzen zuten N. jaun artistaren lana. Berria - Kultura

---

**krisma** 1 *iz* kaskezurra.

**Krisma** hautsi ez huenean! Pako Aristi

• **2** ik **kristo 4.**

-Fernando, zer **krisma** inporta zaizu zerri-patak eskatzen baditut bigarrenez? Aingeru Epaltza

---

**krisolito** *(orobat* **kristolito**, *agian hutsegitea)* **1** *iz* alumina silikatua, kolore hori berdekarakoa, bitxigintzan erabilia.

Paradisuan bizi zinen, Jainkoaren baratzean, mota guztietako harribitxiz apaindua, kornalina, topazio eta beriloz, **krisolito,** onize eta jaspez, zafiro, errubi eta esmeraldaz apaindua. Elizen arteko biblia

**2** amianto mota zuria.

Egitura eta funtzio ezberdinetako amianto mota ugari dago: antofilita, amosita, krozidolita, aktinolita eta tremolita, adibidez; baina munduan zehar gehien hedaturiko amianto mota **kristolitoa** da. Berria - Ekonomia

Guztien artean **kristolitoa** erabiltzen da gehien: %95 Berria - Ekonomia

---

**krisomelido** *iz Chrysimelidae* superfamiliako kolepoteroa.

Kakalardoen artean, **krisomelidoen** familia ugarienetarikoa da, 37.000 espezie baititu. Berria - Gaiak

---

**krisopido** *iz Neuroptera* ordenako eta *Chrysopidae* familiako intsektua, gorputza berde argia duena.

**Krisopidoak,** izainak, sorgin-baratxuria *(Allium sorginium)* eta odolurra -esan zuen hortzartean, osagaien zerrendan behera hatza eramanez-. Iñaki Mendiguren

Sorgin-baratxuria ilbetea dagoenean bildu behar da, eta **krisopidoak** hogeita bat egunez egosi behar dira... Iñaki Mendiguren

Ia ordubete daramat jaikita, edabeari **krisopido** gehiago botatzen. Iñaki Mendiguren

---

**krispatu** *izond* amorratua, uzkurtua.

Eta nondik, orduan, juzkuak eta iritziak eta gardiak, beso hura, esku **krispatua,** zain more izugarriak, gora-nahian bazebiltzan, zeruaren esku salbagarria estutu nahian bezala. Karlos Linazasoro

---

**krispazio** 1 *iz* uzkurtzea; (nor) bere onetik ateratzea.

Emakumeak bere irribarrearekin segitzen zuen, baina, agian horrenbeste denbora zeramanez irribarrearekin, aurpegian nolabaiteko **krispazioa** ageri zen. Jon Alonso

Gizartearen gehiengo horrek indarkeria, **krispazio** antzua eta iraina arbuiatzen ditu, eta elkarrizketa eskatzen du. Berria - Euskal Herria

Gizartean **«krispazio** handia zegoelako». Berria - Euskal Herria

Halako ekintzek **gizartean** «krispazioa eta etsipena» besterik ez dutela sortzen. Berria - Euskal Herria

Grebak «asteburuko tentsioaren ostean, **krispazio** gehiago eragin eta tentsioa areagotzeko balioko luke». Berria - Euskal Herria

Gizarteko beste arlo batzuetan ez bezala, unibertsitatean **krispazio** gabeko hauteskundeak izan direlako. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Iraganeko aurkakotasun eta **krispazio** egoera gainditu da, erakundeen arteko elkarrizketaren, lasaitasunaren eta normalizazio handiagoaren mesedetan. Berria - Euskal Herria

Proposamen berritzaileak aurkeztea izan baita Alderdi Sozialistaren estrategia, baina finean PPk nahi zuen betiko **krispazio** giroa nabarmendu da iritzi publikoaren aurrean. Berria - Euskal Herria

---

**krispeta** 1 *iz* artale xigortua, maluta zutixka baten itxura hartzen duena.

Zinema batean sartu eta, ordu eta erdian entzun daitezkeen paum!, paum! guztiak entzunagatik ere, **krispetak** jan eta Coca-cola edan patxada ederrean. Zine-aretoa erdi hutsik zegoen, eta soinu-bandak baino asots gehiago ateratzen zuten nire haurraren nahiz bertzeenen **krispeten** plastikozko estalkiek. Anjel Lertxundi

Itxura gabeko haragi-puxka ximel hura puztu egin zen artoa **krispetetan** bezala. Karlos Zabala

Saddam Husseinek irismen handiko sistemak garatzen zituen eta ez **krispetak** jaurtitzeko sistemak. Berria - Mundua

Nahiago izan zuen **krispetak** saltzeko orgatxo bat erosi. Xabier Aranburu

**2** (hitz elkartuetan)

**Krispeta**-saltzaileaganaino joan eta **krispeta**-zorro bat erosi zuen. Xabier Aranburu

· Agintariak «arto-**krispetak»** gosaldu zituela. Berria - Mundua

---

**kristal** 1 *iz* beira mota, ohikoa baino gardenagoa eta astunagoa.

Mahaitik **kristal** veneziarreko kopa bat hartu eta liluratuta begiratu zion. Ander Irizar

Likoreak eskumenean zituen, **kristal** landuzko flaskoetan, kontsola baten zuloetan erdi sartuak. Karlos Zabala

Ardoa **kristal** landuzko pitxer batetik zerbitzatzean. Lopez de Arana

**Kristala** pitzatu egin zen. Anjel Lertxundi

Kutxa oso bat xanpain-edontzi, **kristala** tailatua. Joxan Elosegi

· Nire betaurrekoen **kristal** zikinetatik. Aingeru Epaltza

**Kristal** finezko baso bat atera zuen sukaldeko horma nagusian zegoen pegartegi-zulotik. Anjel Lertxundi

Putzu hark ere **kristalak** hautsitako largabista baten antza zuen. Juan Kruz Igerabide

**Kristalezko** ontzi fin bat lurrean jarrita. Bernardo Atxaga

**2** beira; beirazko atala.

Kalea gurutzatu ondoren **kristalezko** dorre batean sartu zen. Iñaki Zabaleta

Hamar minutu horietan honela geldituko naiz, hari begira, kopeta **kristalari** itsatsirik. Monika Etxebarria

Autoaren **kristalari** itsatsitako txartela. Berria - Euskal Herria

**Kristalik** gabeko leihatilan barrena datorren hotza. Rafa Egiguren

**Kristalak** garbitzen ari zen. Juan Kruz Igerabide

**Kristalezko** bola handi baten barruan. Iñaki Mendiguren

Kate-erloju bat ere bai, **kristalik** eta orratzik gabea. Juan Kruz Igerabide

**Kristala** zalaparta handiarekin hautsi zen. Xabier Olarra

Gure leiho bakarreko **kristala** txiki-txiki egin zen. Urteetan ikusi bako lagunen bat segurtasunezko **kristal** ostetik agurtu ahal izateko izan ezik. Juan Kruz Igerabide

**3** (izenondoekin)

Leihoko **kristal** handi horrek. Monika Etxebarria

Nazka ematen zion **kristal** lodiko edalontzi bat ukitze hutsak. Bernardo Atxaga

Akuario baten **kristal** lodi batetik bezala. Lopez de Arana

Argitasun zuri bizia sartzen da sabaileihoko **kristal** zeharrargitik. Iñaki Iñurrieta

Heineken botilen **kristal** berdeak. Javi Cillero

Lanpararen **kristal** gorriak. Monika Etxebarria

**Kristal** esmerileztatuzko ate batean jo zuen. Lopez de Arana

**Kristal** beruneztatuekiko leiho bat. Lopez de Arana

Langileak **kristal** txikituak kentzen ari ziren Lou Frazier iritsi zenean. Xabier Olarra

Zur kontratxapatua zegoen hainbat **kristal** hautsiren ordez. Fernando Rey

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kristal** ontzi horiek airean dilindan zeudela zirudien. Karlos Zabala

**-Kristal**-bolari begira egon naiz. Iñaki Mendiguren

**Kristal**-zatiak alde guztietara banatu ziren. Iñaki Mendiguren

Uraren **kristal** soinu fin hori. Patziku Perurena

Azal azpian antzematen ditu **kristal** puskak, harri kozkorrak. Alberto Barandiaren

Pianoak *staccato* bati ekin dio; **kristal**-hotsa. Anjel Lertxundi

Antzigarrak ibaiko ur gainean hartzen zuen **kristal**-hautsaren antzeko distira eta kolore. Anjel Lertxundi

Ur sorginduak **kristal**-distira izoztuak islatzen ditu. Itziar Otegi

Hamaika **kristal**-iruditan apurturiko izarrak ikusten ziren uraren gainazalean. Fernando Morillo

Neu nintzen garbitzailea, lorezaina, etxekoandrearen txofer pribatua, iturgina eta **kristal** garbitzailea. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duelarik)

Ibilgailu ofizial **kristal**-iluna. Aingeru Epaltza

Betaurreko **kristal**-urdin haiek. Ander Irizar

Zilarbizia tantatxotan sublimatzea, sodioa kloruro bihurtu eta osatzen dituen taulatxo **kristal**-saretuetan ezagutzea mikroskopiora. Juan Garzia

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta zetarekin batera lapislazulia, harri-**kristal** gorria, barruan sua duela dirudiena. Felipe Juaristi

Milioika harri-**kristal** dago munduan; baina hauek Urim eta Tumim dira, ongi dakite hori adituek. Xabier Aranburu

**7** geometria forma jakina duen mea zatia; geometria forma jakin baten arabera kristaltzen den gai baten zatia.

Harri bat daukak eskuan, baina ez dakik **kristala** den edo diamantea. Jon Muñoz

Azido urikoaren **kristal** mikroskopikoei. Irene Aldasoro

**8** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurkituriko partikulak handiak dira, ordea, eta **kristal** egitura dute. Berria - Gaiak

Kaltzio karbonato edo klarionaren **kristal**-formak. Irene Aldasoro

Estalkia jaso zuenean, diamantearen forma bereko **kristal** puskak besterik ez omen zeuden kutxa barruan. Anjel Lertxundi

**9** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izotz **kristal** txikiak. Joseba Sarrionandia

Hezurrean, kolagenoak egiten du erretxinarena, eta mineral-**kristalek** beirazko zuntzena. Irene Aldasoro

Gelatinak baditu kaltzita- edo aragonita-**kristalak**. Irene Aldasoro

Kolageno-zuntzez eta zuntzoi irmo itsatsirik dauden hidroxiapatito-**kristalez** egina dago hezurra. Irene Aldasoro

**10** ***kristal likido***

"Eskuko" telebista, **kristal likidozkoa,** ez da askorik zabaldu oraingoz. Josu Zabaleta

Neurketa fisiologikoak, sentsoreak, komunikaziorako tresnak eta **kristal likidoko** pantailak egiteko erabiltzen den materiala. Berria - Gaiak

**Kristal likidozko** pantaila zaharren funtzionamendua egiaztatzeko metodologia garatu nahi dute, birziklatu ahal izateko. Berria - Gaiak

**Kristal likidoko** ikurraren barruko marratxoak. Iban Zaldua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**betaurrekoen kristal** (3); **kristal apurtuak** (3); **kristal hautsi** (3); **kristal hautsiak** (4); **kristal hautsiaren** (3); **kristal hautsien** (7); **kristal hotsa** (4); **kristal landuzko** (6); **kristal lodi** (5); **kristal lodiko** (3); **kristal puska** (4); **kristal puskak** (4); **kristal pusken** (3); **kristal zati** (4); **leihoko kristal** (6)

**ateko kristala** (4); **aurreko kristala** (3); **dendako kristala** (3); **kristala apurtu** (4); **kristala hautsi** (9); **kristala jo** (8); **kristala lausotzen** (4); **kristala txiki txiki** (3); **leihoko kristala** (3)

**kristalak dardarka** (4); **kristalak hautsi** (12); **kristalak hautsita** (6); **kristalak lausotu** (3); **kristalak txikitu** (3); **leihoetako kristalak** (15); **leihoko kristalak** (7)

**aurpegia kristalaren** (3); **aurpegia kristalaren kontra** (3); **kristalaren atzean** (3); **kristalaren barrualdean** (3); **kristalaren bestaldean** (10); **kristalaren beste aldean** (7); **kristalaren kontra** (27); **leihoko kristalaren** (3); **sudurra kristalaren kontra** (3)

**kristalaz bestaldean** (4); **kristalaz bestaldetik** (3)

**aurreko kristalean** (6); **leihoko kristalean** (6)

**kristalen atzean** (5); **kristalen kontra** (6)

**leihoko kristaletan** (5)

**kristaletik begira** (3)

**kristalezko ate** (5); **kristalezko atea** (5); **kristalezko bola** (10); **kristalezko bolak** (3); **kristalezko bolan** (4); **kristalezko bolaren** (4); **kristalezko bolari** (3); **kristalezko bolarik** (3); **kristalezko botila** (4); **kristalezko edalontzi** (5); **kristalezko edalontzi bat** (4); **kristalezko kaiola** (6); **kristalezko kanpai** (3); **kristalezko kaxa** (3); **kristalezko kopa** (4); **kristalezko kopak** (3); **kristalezko kutxa** (5); **kristalezko kutxa batean** (3); **kristalezko leihate** (4); **kristalezko lorontzi** (3); **kristalezko mahai** (4); **kristalezko ontzi** (11)

**kristalik gabe** (4); **kristalik gabeko** (5)

---

# kristalari *iz* lanbidez kristalak, bereziki leiho, ate eta erakusleihoetan jartzen dituen pertsona.

Baita beiragile eta **kristalariek** ere. Pello Zabala

---

# kristaldegi *iz* kristal denda.

Errainak jaten ematen zien pintoreei egunean hiru aldiz, eta aitaginarrebak erakusketak egiten zizkien **kristaldegian,** eta hartara koadroren bat saldu ahal zuten noizean behin behintzat. Unai Elorriaga

Jakin zuen pintoreak, hala ere, aitaginarrebak eta errainak ez zituztela koadroak saltzen, eurentzat gordetzen zituztela, eta lehen bezain diru gutxi zeukatela, jatetxean eta **kristaldegian**. Unai Elorriaga

---

# kristaldu, kristal(du), kristaltzen 1 da/du *ad* kristal bihurtu.

Azido klorhidrikoan disolbarazten genuen, bada, eztainua: gero pisu espezifiko jakin bateraino kontzentratu behar zen soluzioa, eta hoztuz **kristaltzen** utzi. Juan Garzia

Bolidoak igarotzean eragiten duen inarrosiak **kristaldu** egiten du atmosferako ur lurruna. Josu Zabaleta

Diamante kosmiko hori, izar zahar baten bihotz konprimitu baten modukoa, **kristaldutako** ikatz zati bat da. Berria - Gaiak

Mende eta ausentzia zatiak **kristalduz** pilatuko ziren eta, denborak bere beiragintzan kristal lodi bat jarri du gure artean. Joseba Sarrionandia

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Akonitina **kristalduzko** flasko bat. Josu Zabaleta

Denak ere harribitxigintzan jakitunak eta harri **kristaldu** hura nondik moztu asmatzeko eginahalako azterketa zientifiko guztiak egin zituztenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aire **kristalduak** dena isilarazi nahi zuela ematen zuen. Karlos Zabala

Beso **kristalduak** zabaltzen zituzten amaigabeko gau moduko baten errauts argitan. Josu Zabaleta

---

# kristaldun *izond* kristala duena; kristalak dituena.

Leiho **kristaldunak,** irekitzen ez diren horietakoak dira, ordea, guztiak. Joxerra Garzia

Ate **kristaldun** horretara begira, ez nintzen konturatu atzean ate arrunt bat neukala, zurezkoa. Matías Múgica

Ate **kristaldunean** barrena tabakoa erostera zetozen bezeroak sartzen eta ateratzen ikusten nituen. Matías Múgica

---

# kristaleria 1 *iz* kristalezko ontziteria.

Orain badut nire zamau zuria, eta **kristaleria,** eta zilarreria, baina izokinak eta orkatz solomo-zerrak beranduegi iritsi dira. Eskarne Mujika

Gainera lau baxera sorta erosi ditut portzelanarik hoberenekoak eta **kristaleria** ugari. Ramon Etxezarreta

Buru barruan **kristaleria** bat harrika hautsi balidate bezala sentitu nintzen, begiak espantuari zabalik. Ramon Saizarbitoria

## 2 kristaldegia.

**Kristalerian** ere sartu omen dituk, eta dena txikituta utzi. Pablo Sastre

---

# kristalgabe *izond* kristalik ez duena.

Beheko oheetako batean, beti grisa zen zerurantz ematen zuen leiho **kristalgabe,** altu eta estu baten aurrean. Urtzi Urrutikoetxea

---

# kristalino 1 *izond* kristalkara.

Zer daukak eskaintzeko? izotz **kristalinoa** ? Anton Garikano

Badu boz nasai, ozen, **kristalino** bat. Herria

## 2 *iz* begiko organo gardena, dilista formakoa, irisaren atzean dagoena.

Begiak badauka **kristalino** izeneko lente bat, irudia eratzen duena. Irene Aldasoro

**Kristalinoa,** optikaren ikuspegitik, konbergentzia aldagarria duen leiar ganbilbiko bat da. Josu Zabaleta

Muskulu txiki batzuek fokatzen dute begiko **kristalinoa**. Irene Aldasoro

Hori baino gehiago egiten du begiak, haren **kristalinoa** automatikoki doitzen baita objektuaren distantziara. Irene Aldasoro

**Kristalinoa** ez da sabeltzen erdialdean, gertuko objektuak fokatzeko. Irene Aldasoro

---

# kristalizatu, kristaliza, kristalizatzen 1 da/du *ad* kristaldu; kristal egitura hartu.

Zink ale-xehekatuari aurrez uretan disolbaturiko azido sulfurikoz erasotzea; kontzentratu, **kristalizatu,** ponpaz xukatu, garbitu eta birkristalizatzea. Juan Garzia

Indiako septentrioko zatian hotzak ura **kristalizatzen** du. Aurelia Arkotxa

Unibertsoko ur gehiena **kristalizatua** dago, baina molekulak nahasturik agertzen dira, likidoetan bezala. Berria - Gaiak

Berrehun entzima inguru atera dira laborategian materia bizitik, eta araztu eta **kristalizatu**. Egipton, zingira-urak aurkitzen dira, hain gaziak non gainean gatza izaten baitute **kristalizatua**. Irene Aldasoro

Hura **kristalizatzea,** zertzea falta zitzaion, beharbada. Fernando Morillo

Gurpilaren edozein jira-biraren distira edo itzala pausatutako unea **kristalizatu** eta izozteko. Anton Garikano

## 2 (era burutua izenondo gisa)

*Glikoproteina* izeneko proteina zati baten egitura **kristalizatua** zehaztu dute ikertzaileek. Berria - Gaiak

---

# kristalizazio *iz* kristalizatzea.

Egia esan, aro heroikoa, *limes* baten **kristalizazioaren** ondorio sozial eta psikologikoa da. Iñaki Mendiguren

Zein da gizarte **kristalizazio** honen jatorria? Isabel Arrigain

---

**kristalkara** *izond* gardentasunagatik, kristalaren antzekoa dena. ik **kristalino**.

Hezur-minerala, berriz, gai **kristalkara** hauskor bat da. Irene Aldasoro

---

**kristalki** *iz* beirakia.

Oihalkiak nasaiki koloratuak, kolorezko **kristalkiak** gasagarrean edo labean landuak, larrukiak, xirio apaingarriak, haurrentzat zurezko apainki eta puzzleak, larru eta txapinak, joiak, eltzeak... Herria

---

**kristalografia** *iz* kristalen deskribapen eta azterketa.

Kimikatik **kristalografiara** pasatzera, esate baterako, eta mundu biziaren alderdirik aztertu gabeenetan barrentzera gero. Juan Garzia

Hau dena aurkitzen da uniformeki eta modu berean geometrian, mekanika arrazionalean, humoreen eta germenen fisiologian, historia sakratuaren kritikan eta jaiotzen ari den **kristalografian**. Xabier Arregi

---

**kristaltasun** *iz* kristala izateko nolakotasuna.

Oraingoan ere poliuretano gardenak dira jaun eta jabe eta material egokia lortzeko prozesuan **kristaltasuna** ongi kontrolatu behar da (materialaren gardentasuna eta **kristaltasuna** aurkakoak dira). Berria - Gaiak

---

**kristaltsu** *izond* kristalkara. ik **kristalino**.

Leihotik sartzen hasita zegoen argi urdin **kristaltsuaz** oharturik, egunargia gainean nuela ohartu nintzen. Anjel Lertxundi

*Puis-je?,* errepikatu zuen eztarri oneko ahots **kristaltsu** batez. Anjel Lertxundi

---

**kristaltxo** *iz* kristal txikia.

**Kristaltxoez** osatutako sabaiko bola handiak. Iban Zaldua

Urrutian zelaietan dizdiz egiten zuen urtzen ari zen elurrak eta etengabe aditzen zen koloreetako **kristaltxoen** tikitaka. Fernando Rey

Gurasoak eta amona eraikin barrura sartu ziren, **kristaltxo** ilunak zituen ate batetik. Anjel Lertxundi

---

**kristaltzar** *iz* beirazko zati handia.

-Hara ba! orain ulertzen dut zergatik dagoen **kristaltzar** hori gidari-langilearen eta bidaiariaren artean. Anjel Lertxundi

---

**kristaltze** *iz* kristal bihurtzea.

**Kristaltze**-prozesua astitsua zenez, ontzi asko behar ziren. Juan Garzia

Berotzen saiatuz gero [...] **kristaltze**-ura galtzen du, opako bihurtzen da, eta bezero ergelek ez dute atsegin. Juan Garzia

Proust [...] espresuki aztertzen ari dela, David Werman psikoanalistak "oroiminaren **kristaltze** estetikoa" aipatzen du: artearen eta mitoaren mailara altxatutako oroimina. Xabier Olarra

---

**kristandade** 1 *iz* kristau herria.

Gauza jakina da bildotsak **kristandadean** duen sinbologia. Patziku Perurena

Nolabait esan, Ehiztari Beltza, **kristandadetik** bazter gelditzen dena genuke, edo sotana beltzaren azpian gordetako hereje, moro, jito, judio edo dena delako jendaje iluna. Patziku Perurena

Konfuziar filosofia sinikoa Ekialde Urruneko Gizartean Txinan suspertzea eta Aristotelesen filosofia helenikoa Erdi Aroko Mendebaldeko **Kristandadean** suspertzea gertaera paraleloak izan ziren hainbat aldetatik. Iñaki Mendiguren

**Kristandade** Greko Ortodoxoa. Iñaki Mendiguren

Islamaren eragina **Kristandadeetan**. Iñaki Mendiguren

**Kristandade** menderatzaileak bataiatu gabeko fedegabetzat estigmatizatuko du; Islam menderatzaileak, erdaindu gabeko sinesgabetzat. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

**Kristandade** aurreko euskal artzainen usario zaharretan. Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ekialdeko kristandade ortodoxoan** (3); **kristandade ortodoxoa** (3); **kristandade ortodoxoak** (3); **kristandade ortodoxoan** (14); **kristandade ortodoxoaren** (18); **kristandade ortodoxoaren gorputz** (10); **otomandar kristandade ortodoxoan** (3)

**mendebaldeko kristandadea** (17)

**mendebaldeko kristandadeak** (11)

**mendebaldeko kristandadean** (25)

**mendebaldeko kristandadearekin** (6)

**mendebaldeko kristandadearen** (16)

**bi kristandadeen** (3)

**mendebaldeko kristandadeko** (3)

---

**kristau** 1 *iz* Kristok erakutsi zuen erlijioaren jarraitzailea.

Musulman, **kristau** eta juduek. Berria - Gaiak

Izan ere, gutunaren goiburuan dio: **kristau** guztiei: erlijioso, kleriko eta laiko... Askoren artean

Emaiok lur **kristauari** dagokion moduan. Josu Zabaleta
Nagusia eta esklaboa biak **kristau** ziren kasuetan. Iñaki Mendiguren
Zorionekoak zuek, **kristau** izateagatik iraintzen bazaituztete. Elizen arteko biblia
Beatriz benetako **kristaua** da. Bernardo Atxaga
Alexandriako **kristauek** gorpua Santa Marta elizan hobiratu eta urtetan gurtu egin zuten. Martin Anso
Eta bataia daitezen eta **kristau** egin. Askoren artean
Ferragut ez zen **kristau** bihurtu, eta profetaren izena ahoan zuela hil zen. Martin Anso
Azkenean **kristau** orok behar du jakin gaitz guztien jasaten, ezen ez eta gaizkiaren onartzen. Piarres Xarriton

**2** (izenondoekin)

Gu zoroak omen gara Kristorengatik; zuek, berriz, **kristau** zentzudunak. Elizen arteko biblia
Filipon bizi zareten **kristau** fededun guztioi. Elizen arteko biblia
**Kristau** ortodoxoek Mendebaldearekiko zuten jarreran. Iñaki Mendiguren
**Kristau** katoliko batzuk ere ez dute aldaketarik nahi. Piarres Aintziart
Erdi Aroko **kristau** katoliko konkistatzaile barbaroak. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste **Kristau** printzeak eta lurralde haietako jaunak. Piarres Xarriton
Kristauak, bere atxikimendua Elizari ematean, hiri jakin bateko **kristau**-elkarteari ematen zion. Iñaki Mendiguren
Etapa honetan, pentsa zitekeen judu-arazoak bere konponbidea judu eta **kristau**-komunitateek elkarrekin bat-egitean aurkituko zuela. Iñaki Mendiguren
Hamaseigarren mendeko Mendebaldeko **Kristau** Gizartean. Iñaki Mendiguren
Iragan maiatzaren 2an, ehunka musulman hil zituen **kristau** milizia batek. Berria - Mundua
Mendebaldeko **kristau**-herrialdeetako kostetan zehar eta ibaietan gora. Iñaki Mendiguren
Aitoren alaba bat izan ez balitz, **kristau**-lurretik kanpo ehortziko zitean. Juan Garzia
Mendebaldeko **Kristau** Zibilizazioak Helenikoarekiko duen zorra. Iñaki Mendiguren
Ideia hau **kristau**-pentsaeraren topiko bihurtu zen. Iñaki Mendiguren
Sistema aristotelikoaren egia **kristau**-doktrinaren kontra nagusitzen uzteak **kristau**-kultura mehatxatzen zuela. Askoren artean
**Kristau** legearen arabera jokatzea gustatzen zait niri. Bernardo Atxaga
Bada hor egiazko **kristau** gerrazaletasun bat, gerra santuaren izpiritu gaizto bat, dioena: "Gerra, borondate txarreko gizonei!". Piarres Xarriton
Gauza guztiak **kristau**-ethosaren neurri bakarraren arabera neurtzen zituztenak. Iñaki Mendiguren
"Artzain ona" **kristau**-ideal gorenaren ikurra da. Iñaki Mendiguren
Oinarrizko **kristau**-heziketa. Askoren artean
Erromako katakunbetako **kristau**-artistek eta Alexandriako jainkotasun-eskolako **kristau**-filosofoek. Iñaki Mendiguren
Aurrera, **kristau**-soldaduak. Xabier Kintana
Ordu arte Mendebaldeko erresumen legeria barbaroen tribu-kode zaharren **kristau**-eranskin gisako bat izan zen. Iñaki Mendiguren

**4** (izenondo gisa)

Tradizio bikoitza dagoela teologo **kristauen** artean. Ekialdeko Gizarte **Kristau** Ortodoxoa. Joan Mari Lekuona
Errusiako Zibilizazio **Kristau** Ortodoxoaren estatu unibertsalean hiriburuen arteko lehia azter genezake. Iñaki Mendiguren
Nazio-estatu **kristau** ortodoxoek. Iñaki Mendiguren
Gabriel Marcel-en existentzialismo **kristauan**. Askoren artean
Teoria moral **kristauan,** Hamar Aginduetan hezurmamitzen dira kristauen eginbeharrak. Askoren artean
Teologia **kristau** katolikoaren lehenengo aurkezpen sistematikoa. Iñaki Mendiguren
Erlijio **kristaua** urrun dago despotismo hutsetik. Iñaki Iñurrieta
Inor ez dago libre bere heziketa **kristauak** ekar dakizkiokeen ondorioetatik. Unai Iturriaga
Eskola **kristauen** eta laikoen bereizketagatik. Iñigo Aranbarri
Ikusirik hain **kristaua** zen errege bat Jainkoaren hitza ikasi gabea zela [...]. Jon Alonso
Frantzia erregetza absolutu txit **kristauaren** menpe eta Espainia erregetza absolutu txit katolikoaren menpe ziren bitartean. Koldo Izagirre

**5** (izenondo gisa hitz elkartuetan)

Tradizio judu-**kristauan** izen aldatze horrek berebiziko garrantzia dauka, bizimodu berri baten hasiera adierazi nahi baitu. Patxi Ezkiaga
Jeinu espainola -mestizoa- munduko hiru jeinuen sintesi eta harmonia da: orientala (arabiar eta juduek egin dutenagatik), mendebaldarra (bisigodoei eskerrak), eta erromatar-**kristaua**. Joxe Azurmendi
Kultura post-**kristau** batean bizi garenontzat. Joseba Zulaika

**6** pertsona.

-Gaur-gaurkoz, zaldi-tranbia duk (**kristauak** eraman behar direnean); eta mando-tranbia, jeneroa besterik eraman behar ez denean. Txillardegi
Hiztegi Entziklopedikoan azaltzen denez, biologikoki -barne organoei dagokienez, behintzat-, zerria da **kristauengandik** gertuen dagoen aberea, eta, begiak batez ere, erabat ditu gizakienak. Ramon Saizarbitoria
**Kristau** fededun nahiz fedegabe batentzat, norbere senak ez dauka zergatik izan kanibalenak baino naturalago edo fidagarriagoa. Joxe Azurmendi

**7** ***ez-kristau*** *izond*

Tradizio erlijioso eta filosofiko **ez-kristauak** ulertzeko. Joan Mari Lekuona
Berak konbertitu nahi zituen gizarte **ez-kristauen** bidetik behaztopa-harri bat kentzean, beste bat jartzen ari zela bere erlijiokideen aurrean. Iñaki Mendiguren

**7b** ***demokrata-kristau*** *(18 esaldi, 2 liburu eta 12 artikulutan; orobat* ***demokratakristau*** *g.er.) izond/iz* ik beherago **11.**

1950eko hamarkadan eman zituen lehen pausoak politikagintzan, Alderdi **Demokrata-Kristauaren** eskutik. Berria - Harian
Batasun **Demokrata Kristauak** eta haren Bavariako alderdi kide Batasun Sozial Kristauak (CSU) irabazi zuten, baina ez zuten uste zuten bezainbesteko arrakasta izan. Berria - Mundua
UDC **Demokrata Kristauen** Batasuneko buru Pierferdinando Casinik Barne ministroa zoriondu zuen, «mafiari emandako kolpe erabakigarriagatik». Berria - Mundua
Bigarren Mundu Gerraren ondoren, De Gasperi **demokrata kristauak** ministro izendatu zuen Palmiro Togliatti, PCIko idazkari nagusia. Anjel Lertxundi
Muturreko ezkerretik abiatu eta zentroraino doan sorta askotarikoa da: komunistak, berdeak, **demokrata-kristauak** daude tartean. Berria - Mundua
Gerra ostetik zirauen **demokrata kristauen** eta komunisten arteko etsaigo hitzartuak. Anjel Lertxundi

**8** ***kristau aro***

**Kristau-aroaren** hasiera. Iñaki Mendiguren
Ez zegoen batere frogarik Jesus **kristau-aroko** lehen urtean jaio zela esateko. Iñaki Mendiguren
**Kristau- aroko** bigarren mendearen bukaera aldera. Iñaki Mendiguren
**kristau-aroko** hogeigarren mendeko erlijio nagusiak. Iñaki Mendiguren
Mendebaldeko Gizartearen Erdi Aroko hasiera, **kristau-aroko** hamaikagarren mendean. Iñaki Mendiguren

**9** ***kristau berri*** *(orobat* ***kristauberri****)* ik beherago **18.**

Istorio hartan bazegoen erromatar antzinakoak eta **kristau berriak** zituen hiri bat, denak Afrikako oihanean zeuden ezkutaturik, egia da egileen irudimenak ez duela mugarik ezagutzen. Jon Alonso

Hiri **kristau berriaren** bataio santua munduari iragartzen zion gurutzearen ondoan. Jon Alonso

Ez bedi **kristauberri** izan, harropuztu eta deabrua bezala gaitzetsia izan ez dadin. Elizen arteko biblia

## 10 ***kristau bide*** *(orobat* ***kristau bide*** *g.er.)*

Damaskoko sinagogetarako gutunak eskatu zizkion, aurkitzen zituen **kristau-bidearen** jarraitzaileak, gizaseme nahiz emakume, Jerusalemera preso eraman ahal izateko. Elizen arteko biblia

San Frantses Jatsukoa gure arbasoa daukagu [...] **kristau bidetan** izaiten ahal baita gure gidatzailea. Herria

Oroitu nahi ez dudan Goierriko herri batean, jendea **kristaubidetik** aparte zebilelako hotsa zabaldu omen zen. Joxerra Garzia

Felixek, oso ongi baitzekien **kristau-bidearen** berri, geroRako utzi zuen auzia, esanez: "Lisias gudalburua datorrenean erabakiko dut zuen arazoa". Elizen arteko biblia

## 11 ***kristau-demokrata*** *(44 esaldi, 2 liburu eta 30 artikulutan; orobat* ***kristaudemokrata*** *g.er.)* *izond* ik gorago **7b.**

CDU Batasun **Kristau Demokratako** lehendakari Angela Merkelek. Berria - Mundua

Flandesko Alderdi **Kristau-Demokratako** (CD&V) presidente Yves Leterme. Berria - Mundua

SDKU Alderdi **Kristaudemokrataren** kandidatua. Berria - Mundua

Urteak pasa ahala, mugimendu **kristau-demokrata** hori sozialdemokraziara bilakatu zen. Berria - Mundua

Bi joera agertu ziren aurrez aurre: bat sozialdemokrata edo **kristau-demokrata,** eta bestea sozialismo internazionalista. Joseba Zulaika

**Kristau-demokrata** banintz bezala tratatzen ninduen! Fernando Rey

**Kristau demokratek,** bozen %47,2 eskuratuta, bakarrik zuzen dezakete, historian lehen aldiz, hiri-estatua. Berria - Mundua

**Kristau-demokratekin** egin behar izan dute ituna independentistek. Berria - Mundua

## 12 ***kristau fede***

Bazirudien gure **kristau fede** zaharrari eratxiki zitzaiola erlijio berri bat. Piarres Xarriton

**Kristau fedeari** uko egiteko agindu zion, eta Larraondok ezetz erantzun zuenez, hilarazi egin zuen. Martin Anso

Espainietako aldeetan **kristau fedeak** gehienik distiratzen zuen denboretan, Harik eta Egia hori **kristau fedean** aurkitu zuen arte. Piarres Xarriton

Astronomiaren teoria geozentrikoa **kristau- fedearen** artikulu izan balitz bezala. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroak, Platonen eta azkenaldian Aristotelesen eta bere zientziaren teoriaren eraginpean egonik, **kristau-fedearen** edukien balio razionala lantzeko joera hori indartuta ikusi zuen. Askoren artean

Hala ere, ezin da esan ahalegin horrek **kristau-fedea** erabat razionalizatzea ekarri zuenik. Askoren artean

## 13 ***kristau eliza***

**Kristau Elizaren** buruzagiak. **Kristau Eliza** Erromatar Inperioaren probintzi antolaketaz bere probetxurako nola baliatu zen. Iñaki Mendiguren

**Kristau Elizak** ekarpen garrantzitsua egin zion Mendebaldearen aurrerapen intelektualari unibertsitateak sortu eta babestuz. Iñaki Mendiguren

**Kristau Elizaren** iruditeria militarraren bilakaeran "Jainkoaren soldadua" lehenengo misiolaria zen. Iñaki Mendiguren

**Kristau Eliza** Katolikoak liluratuta baitzeuzkan bertako nekazari menderatuak. Iñaki Mendiguren

## 14 ***kristau erlijio***

**Kristau erlijioaren** muina. Esteban Antxustegi

Horrenbeste zuztartua zegoen zelten kulturako ospakizuna, **kristau erlijioak** zain beretik bereganatu zuen. Pello Zabala

**Kristau erlijioko** Gabonen zikloari jarraituz. Berria - Kultura

**Kristau-erlijioak** bere teologi exegesirako filosofia helenikoaren aparatua erabiltzen du. Iñaki Mendiguren

Haien bitartez lekuen garrantzia jakin ahal dugu, zer balio ematen zitzaien, noraino ziren Erdi Aroan nagusi **kristau erlijioaren** ikuspuntuak. Bernardo Atxaga

**Kristau erlijioak** trepanaturiko panteismo light bat. Pako Aristi

## 15 ***kristau herri***

Kristauek ere agudo bereganatu zuten aingeruaren debozioa: IV. mendean, nahikoa hedatua genuen oneraspen hau orduko **kristau herri** guztian. Pello Zabala

Erdi Aroko **Kristau Herrian**. Imanol Unzurrunzaga

Zeren urte horretan hiru aita santu izan baitzituen **kristau herriak**. Karolinjiar enperadoreek, Itun Zaharreko errege eta epaileen espirituan, Jainkoaren herriari Jainkoaren legea aldarrikatuz eman zioten legea **kristau-herri** osoari. Pello Salaburu

· Nazioarteko merkataritzaren hedapenak, nolanahi ere, Erdi Aroko latin- **kristau herriaren** mugen barnean bakarrik indartu zituen merkatariak. Koro Navarro

## 16 ***kristau ikasbide*** kristauak jakin behar dituen egien irakaskuntza; egia horiek ikasten diren liburutxoa. ik **dotrina.**

Herrietako hizkuntzetan egin ziren, era berean, dotrinak edo **kristau ikasbideak**. Koldo Zuazo

Bizkaiko **kristau ikasbide** batetik hartutako pasartea. Koldo Zuazo

Hitz bitxia iruditu izan zitzaidan beti, Geometriako *gnomon* hitza eta **Kristau Ikasbideko** *simonia* hitza bezala. Irene Aldasoro

North Richmond Street, itsua izaki, oso kale lasaia zen, **Kristau-ikasbideko** Anaien Eskolak mutikoei jaregiten zien orduetatik kanpo. Irene Aldasoro

## 17 ***kristau mundu***

**Kristau** -mundurik kanpora ere. Askoren artean

**Kristau** mundu osoan bi jende mota baizik ez dela: bata Kristoren alde gudukatzen dena, bestea Satanen alde. Piarres Xarriton

## 18 ***kristau zahar*** ik gorago **9.**

Antonio zuen izena eta Andaluziako Malaga hirian jaioa zen, itsas ondoan, denak belaunaldiz belaunaldi **kristau zaharrak** izan ziren etxe batean. Felipe Juaristi

Zaldunak leinuei buruz hitz egingo du; ezkutariak **kristau zaharra** izatearen garrantziaz. Patxi Ezkiaga

Hark berak ere, euskaldun guztiak bezala **kristau zaharra** izaki, Inkisizioak erabiltzen zituen tranpa eta segaden jakile, berehala itxi zituen [hits haiek] bere barne muinetan, ondo itxi ere, badaezpada. Felipe Juaristi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**alderdi kristau** (7); **batasun kristau** (16); **batasun kristau demokrata** (3); **batasun kristau demokratak** (3); **batasun kristau demokratako** (5); **benetako kristau** (3); **cdu batasun kristau** (10); **egiazko kristau** (4); **ekialde urruneko kristau** (3); **ekialdeko kristau** (5); **emakume kristau** (4); **erdi aroko kristau** (4); **estatu unibertsal kristau** (3); **gizarte kristau** (8); **gizarte kristau ortodoxoa** (3); **gizarte kristau ortodoxoaren** (3); **herri kristau** (3); **judu eta kristau** (3)

**kristau aroa** (3); **kristau aroaren** (4); **kristau aroko** (94); **kristau askatasuna** (3); **kristau askok** (5); **kristau bidearen** (3); **kristau bihurtu** (7); **kristau bilakatu** (4); **kristau bizitza** (4); **kristau bizitzan** (5); **kristau demokrata** (12); **kristau demokratak** (8); **kristau demokratako** (7); **kristau demokratek** (6); **kristau demokratekin** (4); **kristau demokrazia** (3); **kristau demokraziak** (4); **kristau dogmak** (3); **kristau doktrina** (3); **kristau egin** (3); **kristau eliza** (19); **kristau elizak** (14); **kristau elizaren** (19); **kristau elkarte** (5); **kristau elkarteko** (3); **kristau erlijioa** (3); **kristau erlijioak** (5); **kristau erlijioaren** (6); **kristau esperientzia** (3); **kristau fede** (3); **kristau fedea** (16); **kristau fedearen** (12); **kristau fedeari** (6); **kristau fedeari uko** (4); **kristau fededun** (4); **kristau gazte** (3); **kristau gizarte** (5); **kristau heresia** (4); **kristau herri** (10); **kristau herri osoari** (3); **kristau herriak** (3); **kristau herrian** (3); **kristau herriaren** (4); **kristau hobeak izaterik** (3); **kristau ikasbide** (3); **kristau ikasbideak** (3); **kristau ikuspegitik** (3); **kristau izan** (3); **kristau izatea** (4); **kristau jator** (4); **kristau katoliko** (6); **kristau kontzientzia** (3); **kristau kultura** (4); **kristau kulturaren** (4); **kristau misioek** (3); **kristau misiolari** (3); **kristau moralaren** (3); **kristau mundu** (7); **kristau mundua** (3); **kristau on** (3); **kristau onak** (3); **kristau onen** (3); **kristau ortodoxo** (9); **kristau ortodoxoa** (14); **kristau ortodoxoak** (6); **kristau ortodoxoaren** (11); **kristau ortodoxoek** (7); **kristau ortodoxoen** (8); **kristau ortodoxotik** (3); **kristau sinesmena** (3); **kristau talde** (6); **kristau tradizioa** (3); **kristau tradizioan** (6); **kristau tradizioko** (3); **kristau zaharren** (4); **kristau zibilizazioak** (3); **kristau zintzo** (6); **kristau zintzoa** (7); **kultura kristau** (4); **mendebaldeko kristau** (44); **otomandar kristau** (3); **talde kristau** (4); **unibertsal kristau** (3); **urruneko kristau** (5)

**benetako kristaua** (4); **demokrata kristaua** (3); **erlijio kristaua** (9); **etika kristaua** (3); **fanatismo kristaua** (3); **kristaua izan** (3); **ni kristaua naiz** (4); **oso kristaua** (3)

**anaia kristauak** (7); **batasun demokrata kristauak** (3); **batasun sozial kristauak** (3); **demokrata kristauak** (6); **erlijio kristauak** (7); **kristauak deitzen zien** (3); **kristauak izan** (3); **mairuak eta kristauak** (3)

**demokrazia kristauaren** (3); **erlijio kristauaren** (6); **hezkuntza kristauaren** (3)

**erlijio kristauari** (6)

**mendebaldeko kristauek** (4)

**demokrata kristauen** (5); **ikastetxe kristauen elkartea** (4); **kristauen eta musulmanen** (5); **kristauen gurutze handiak** (3); **kristauen jainkoa** (3); **kristauen kanpamentura** (3); **musulman eta kristauen** (3); **musulmanen eta kristauen** (6)

---

kristauberri ik **kristau 9**.

---

kristaubide ik **kristau 10**.

---

kristaudemokrata ik **kristau 11**.

---

**kristaudi** *iz* kristau herria.

Irizpide hau oso zabalduta dago **kristaudian**. Esteban Antxustegi

Maiatzaren 8an izan zen borroka gogor hori: eta luzaroan ospatu zuen **kristaudiak** maiatzeko data jakin hori. Pello Zabala

---

**kristaugirotu,** kristaugiro(tu), kristaugirotzen du *ad* kristautasunean girotu.

Honen ondorioz, betidanik bere ardura izan ziren gai filosofikoak osokiago **kristaugirotu** ahal izan zituen [San Agustinek]. Imanol Unzurrunzaga

---

**kristaukeria** *iz* kristautasuna, gaitzesgarritzat hartua.

Garai hartan, ez nengoen haren esanei kasu egiteko, ezta erotuta ere, **kristaukeria** melengaren argazki ezin doiagoa baitzen apaiz gazte hura nire iduriko, nire barruko herra eta ezinegona bide gogorrago batetik atera beharra sentitzen nuen eta. Juan Kruz Igerabide

Eta indar horren eskasiak, horren ahulaldiak sortu ditu, hain zuzen, munduko monoteismo egituratu guziak: hinduismoa, judaismoa, **kristaukeria**. Patziku Perurena

---

**kristauki** **1** *adlag* kristauen eran.

Kanposantuan eta **kristauki** lurperatu beharko zirela. Jon Alonso

Izan ere, beste arrazoi asko erantsi zizkien lehen aipatu ditugunei, eta hain egoki eta **kristauki** eta zuzen esanak denak, hortik hara duda guztiak utzirik, erabat zentzatu zela sinetsi zuten. Patxi Ezkiaga

**2** ***ez-kristauki*** *adlag*

Neure burua gizatiartzat hartzeak erraz kondenatzen ditu ez-gizatiar soilera ez-ni edo ez-gutarrak (kristau/ez-kristau), aitzakia ona betiere haiek ez-gizatiar eta ez**kristauki** zanpatzeko. Askoren artean

---

**kristaukide** *iz* kristautasunean kidea.

Hori duk hitza: eta penagarriena, handiek esku gehiago izatea mundu honetan beren burua ito edo zintzilikatzeko, beren **kristaukideek** baino. Juan Garzia

---

**kristaukote** *iz adkor* kristaua.

Bai, zerbait izan behar zuen margolan hark Unamuno bezalako **kristaukote** bat hala hunkitzea lortzen zuenerako, baina ezinezkoa zitzaidan bat etortzea. Bernardo Atxaga

---

**kristaukume** *iz adkor* kristaua.

Edozein pijok, fatxak edo **kristaukumek** jantzi dezake Txe Gebararen kamiseta, argazkia polita delako, ez haren mezua gustatzen zaiolako. Pako Aristi

---

**kristautasun** **1** *iz* Jesu Kristoren pertsona, bizitza eta irakaspenen gainean eraturako erlijioa, kristau erlijioa.

Jatorri judaikoa duten erlijioetan **-kristautasunean** eta Islamean-. Iñaki Mendiguren

Greziako erlijio nagusia **kristautasun** ortodoxoa da. Berria - Gaiak

Esploratzaile espiritual ausart horiek hindu eta Ekialde Urruneko munduak erakarri nahi zituzten **kristautasunera**. Iñaki Mendiguren

**Kristautasunaren** aurkako beroaldi handienean jakobinoen lehendakari aukeratu zuten Cloots. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez dugu **kristautasunaren** eraginkortasun tenporalean aski sinesten. Piarres Xarriton

Zeltek **kristautasuna** moldeatu zuten beren gizarte-ondare barbarora egokitzeko. Iñaki Mendiguren

Juduek **kristautasuna** besarkatzen zutenean. Iñaki Iñurrieta

**Kristautasuna** sortuz gero, gizadiaren bizitzak ez du egin degeneratu besterik **Kristautasunaren** hedapena errazteko. Joxe Azurmendi

**Kristautasunean** heziak izan ginen gu. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenlagunekin)

Origenesen eta Agustinen **kristautasunak** ez balitu erantzi izan bere ibilaldi historikoan geraleku siriako, heleniko eta Mendebaldekoa izandakoetan jantzi zituen apaingarriak, ez zen gai izango idazten ari naizen garaian erlijio nagusi bizi ororentzat mundu-mailan irekitako aukeraz baliatzeko. Iñaki Mendiguren

Gotoen ariotar **kristautasun** heretikoa. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko **kristautasun** katolikoa, adibidez, ia erabat erauzi zuten Japonian hamazazpigarren mendean eta Txinan hemezortzigarrenean. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere lehen misio-bidaian **kristautasun**-haziak erein zituen Pisidiako Antiokia eta Listrako erromatar kolonietan. Iñaki Mendiguren

Donibane Garazin, "Apezpikuen presondegian" Alfred Yaghobzadeh-ren argazkiek erakutsiko dituzte **kristautasun** erritoak munduan barna. Herria

Gaiak desberdinak dira: natura [...] erredolak edo herrietako armak, lantegietako logoak, **kristautasun**-gaiak (gurutze, birjina...). Herria

Mendebaldeko **kristautasun** -osteko gizartea **kristautasun** -aurreko helenikoaren ordena berekoa zela. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Post- **kristautasunaren** garaietan. Joseba Zulaika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kristautasun erromatar** (4)
> **kristautasunera aldatu** (3)

---

# kristautu, kristau(tu), kristautzen **1** da/du *ad* kristau bihurtu.

Lur jo zuen Erromak; Bizantziok hartu zion txanda; eta Alexandria, paganoa, **kristautu** egin zen. Jon Muñoz

Ehunka judu **kristautu** dira Varsovian, eta Poloniako prentsak etengabe erasotzen die. erre egiten zituzten **kristautu** nahi ez bazuten. Koro Navarro

Zer moduz Venezuela alde horretan? indio asko **kristautu** al dituzu, ala indiak gehiago interesatzen zaizkizu? Xabier Mendiguren Elizegi

Mairuak hiri honetatik kanpo egoztea eta hiria **kristautzea** Jainkoaren aldeko zerbitzua zela. Jon Alonso

Gero **kristautu** dugu [...] eguzkiaren gurtze hori. Pello Salaburu

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bai greko **kristautuen** artean eta bai musulmanen artean ere. Xabier Kintana

Grezia zaharra begi **kristautu** modernoekin maitatzen denean. Joxe Azurmendi

Semeak benetako prusiarrak ditu, asimilazio zaleak, erdi **kristautuak** . Koro Navarro

---

# kristautze *iz* kristau bihurtzea.

Eta zer ekarriko digu bada **kristautzeak** ? Koro Navarro

III. mendetik VIII. mendera bitartean kokatzen du Euskal Herriaren **kristautzea** Jimeno Arangurenek. Berria - Kultura

**Kristautzea** iritsi aurretik. Horietan oinarritzen ditu Zosimok Konstantinoren **kristautzearen** motiboak gaiztotzeko hain egokia den kontakizuna, eta Julianok **kristautze** horretaz Zesarrak obran egiten duen trufa mikatza. Iñaki Iñurrieta

**Kristautze** ahaleginak hain gogor egin ziren garaian. Iñaki Iñurrieta

---

# kristiko *izond* Kristorena, Kristori dagokiona.

Xabat txirrindularia, izen judua badu ere, zeharo **kristikoa** da: farisauei -edo, azkoitiar gorenak oraindik orain gogoangarriki zioenez, "lukurreroei"- jaramonik egiteke, bere karrera sendotuz maldan goiti abiatu beharrean beheiti jotzen du, lurreko hilduratuekin bat egitearren. Markos Zapiain

---

# kristino *izond/iz* karlistaldietan, Kristina erreginaren aldekoa.

Karlista ala **kristinoa** izan beharra zegoen. Koldo Izagirre

Donostia utzi behar nuelarik, azken behako bat egin nion penintsulari, [...] Urgull mendiari, eta hiriaren bortetan erre zituzten hiru komentuei, bat **kristinoek** eta bi karlistek. Koldo Izagirre

---

# kristo *(orobat **krixto** g.er.)* **1** *iz adkor*

Hortzeriarena konpondu artean ez zegoela ez programarik eta ez **krixtorik,** eta basilisko hark merezi zuela zigor eredugarri bat, inoiz inork ez ahazteko modukoa. Karlos Linazasoro

**2** ***kristo (bat) eginda*** *adkor* porru eginda egon.

Ez zen gelditu "kaka eginda" edo **"krixto** eginda", baizik-eta -o, metaforaren zoragarria!- "entziklopedia bat eginda". Iñaki Segurola

Erdoizta, hura ere gauean Olakuan gurekin zegoan eta, hari, ondoko gelan **krixto** bat eginda zegoan eta, bera ere astoarekin edo ez zakiat nola harrapatu duten, esaten baitzioten Pablo Sastre

**3** ***kristoren*** *izlag* ikaragarria.

**Kristoren** barreak egin nitinan atzo etxean, gogoratzean. -Egia esan, nik **kristoren** pena hartuko diat -esan zuen Imanolek. Fernando Morillo

Orain **kristoren** lotsa emango zidak Alazne ikusteak. Fernando Morillo

**Kristoren** animalia puska zen, arra, eta nahiko lasaia, zorionez. Jon Arretxe

**-Kristorena,** mundiala! -esan zuen Hagridek burrunbatsu. Iñaki Mendiguren

**"Kristorenak** ari omen dira ematen" komentatuko du baten batek ahopeka. Xabier Mendiguren Elizegi

Neure gosea asetzeko, berriz, **kristorenak** eta bi egin behar izan nituen. Jon Arretxe

Handik pixka batera, ordubete ere ez, halakoak esnatu naik eta, hi, **krixton** buruko mina, baina, **krixtona** e! Pablo Sastre

**4** ***zer/ze kristo*** *adlag* ik **kristolarru**.

**Ze kristo** da hori, izan ere? Iñaki Segurola

**Ze krixto** den Kulturune bat? Iñaki Segurola

Zer zara, feminista, ala **zer kristo** ? Lander Garro

**Zer Kristo,** neroni joango naiz ea nolakoak diren ikustera. Irene Aldasoro

**Zer kristo** gertatu zitzaion baina? Juan Kruz Igerabide

**Zer kristo** ekarri duk kartoizko kaxa horretan? Hasier Etxeberria

Bizitzaren nondik norakoa bainoago biziarautea izan da arrangura; **zer kristo** ari ginen bainoago zer deabru egin beharra genuen. Jose Angel Irigaray

Eta **zer kristotarako** ematen dizkizut nik hainbeste orri eta ohar gero ez badituzu irakurtzen? Jokin Urain

-Ze analisi eta **ze Kristo,** Martin, gaur festa egin behar diagu! Xabier Etxabe

Neure buruari erran nion: **ze kristo** ! Unai Iturriaga

---

# kristoka *adlag* “kristo” esanez.

Txemiñe **kristoka** hasi zen eta astoa oraindik ere gehiago ikaratu eta bera ere jauzika hasi zen. Pablo Sastre

Kalean ahots sendo eta zalaparta batzuk aditu ziren, palaren soinu zakarra lurrean, baten bat **kristoka,** mutilen barreak. Pablo Sastre

---

**kristolako** *(orobat **kristolando** g.er.)* *izlag* egundokoa, kristorena.

Ez dela oraindik arraindegira joan, eta **kristolako** itxaronaldia egin beharko duela. Iban Zaldua

Nik, mahaiaren txoko batean, **kristolako** patxaran-atxurra harrapatu nuen. Iban Zaldua

Jairen bat ospatzen zen, eta **kristolako** iskanbila zegoen, estudiante guztiak kalean. Iban Zaldua

**Kristolango** mesedea egiten zabiltza Patxi Zubizarreta

---

**kristolarru** *iz* ik **kristo 4**.

To bihurritu egin da ohean: -ze **kristolarru** gertatzen zain orain... Anjel Lertxundi

---

kristolito ik **krisolito**.

---

kristoren ik **kristo 2**.

---

**kristozentriko** *izond* ardatz Kristo duena.

Horiek beren idatzietan sentimendu handiko mistika **kristozentriko** bat adierazten zuten. Joan Mari Lekuona

---

**kriterio** *(**24** agerraldi, **5** liburu eta **6** artikulutan)* **1** *iz* irizpidea.

Sentimendua da **kriterio** bat, berak ere ondo gidatzen gaituen ala ez gaituen jakiteko, beste **kriterio** bat eskatzen duena: ondorioen azterketa, esaterako. Joxe Azurmendi

Iparralde honetan Jaurlaritzak zein **kriterio** erabiltzen ditu laguntzak ekartzerakoan? Herria

Sentimenduek ez digutela balio **kriterio** aski ziur bezala, esan dugu; baina guztiz **kriterio** gabeak ez dira berak: hain zuzen, hilketen artean bereizten jakinez, kultura bat azaltzen dute -kultura "objektiboa", gertakariak balioesten dakiena, bereizketarako **kriterioak** dituena-. Joxe Azurmendi

Izan ere, balio eta **kriterio** absolutuak hain setati galdatzen badira, hil egin direlako da. Joxe Azurmendi

**2** zentzua, irizmena.

Orain ohartzen naiz, eta eman beharra daukat, **kriterio** ona eduki duela beti arrebak. Koldo Izagirre

---

**kriteriodun** *izond* irizpideduna.

Neu ere kritikoa naiz nire poema txarrekin, eta beste bat nire poema horiekin oso kritikoa denean, ikusten dut pertsona **kriterioduna** dela, eta gustuko dut. Berria - Kultura

---

**kriterium** *(orobat **criterium** g.er.)* *iz* txirrindularitzan eta beste kirol batzuetan, ofiziala ez den norgehiagoka, goi mailako kirolarien artekoa.

Jean-Patrick nagusi Nazioarteko **Kriteriumeko** lehen saioan; iaz, Damien anaia gailendu zen. Berria - Kirola

Alejandro Valverdek irabazi zuen Iruñeko **kriteriuma,** herenegun. Berria - Kirola

Floyd Landis estatubatuarra da gaur eta bihar Frantzian jokatuko den Nazioarteko **Kriteriuma** irabazteko faborito nagusia.Garaipenak 2005ean: Paris-Niza eta Nazioarteko **Criteriuma** (etapa bat ere bai). Berria - Kirola

**Kriteriumeko** hiru etapetan aritu da ikusgarri Basso. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kriteriuma irabazteko** (3); **nazioarteko kriteriuma** (21)
> **nazioarteko kriteriumean** (12)
> **kriteriumeko lehen etapa** (3); **nazioarteko kriteriumeko** (4)

---

**kritika** **1** *iz* gogolan bati buruzko epaiketa; zerbaiten balioaren azterketa.

Batzuetan **kritika** baino purrustada izaten da nagusi. Iñaki Heras

Razionalismoari eginiko **kritiketan** galdera eta zalantza ugari sortu izan dira. Askoren artean

Ikerketa konstruktibistok, hala eta guztiz ere, zenbait **kritika** jasan behar izan dituzte horien tesi nagusiarekin [..] funtsean bat egiten duten zenbait egileren aldetik. Askoren artean

Berehala hasi ziren Udalaren kontrako **kritikak** gutun sailetan-eta. Iñaki Iñurrieta

Sendagileek prentsa ohar bat kaleratu zuten **kritikei** erantzuteko. Berria - Gaiak

Beren **kritiketan** "burgesiaren alde" ari ginela aurpegiratzen ziguten. Bernardo Atxaga

Lévi-Strauss-en **kritika** Ilustrazioari, Herder-en ber-berbera da. Joxe Azurmendi

Esplotazio horri egiten zaion **kritika** erabat bidezkoa eta egin beharrekoa da. Iñaki Heras

Azalpen hori, ordea, modu **kritikoan** egin nahi izan dugu, informazio hutsean geratu gabe. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Kritikak kritika,** eredu kantiarrak defendatzaile sutsuak izan ditu. Askoren artean

Arrazoimen hutsaren **kritika**. Xabier Olarra

Psikologia transzendentalaren bigarren paralogismoaren **kritika**. Ibon Uribarri

**2** (izenondoekin)

Sarritan ekonomilariek erabiltzen dituzten ereduek **kritika** handiak jasotzen dituzte. Iñaki Heras

XVIII. mendearen bukaeran lege naturalaren ideiak **kritika** gogorrak jaso zituen. Askoren artean

**Kritika** zintzoa iruditzen al zaizu hori? Xabier Olarra

Divertimento arin bat kanpotik, gizartearen **kritika** zorrotz sakona barrutik. Antton Olano

Politika keynestarren **kritika** monetarista ez zen diru-politika abian jartzera mugatu. Koro Navarro

Hau, jakina, mundu modernoan kristautasunari egindako **kritika** marxistaren muina da. Iñaki Mendiguren

Gizarte hipokritaren **kritika** erruki gabea. Josu Zabaleta

**3** literatura eta arte lanak epaitzeko jarduera; jarduera hori gauzatzen den azterketa.

Gurean, **kritika,** literatur sistemaren hankarik ahulena da. Ana Urkiza

**Kritika** literarioa eta txutxu-mutxuzaleen berritsukeria gurutzatzen diren puntua izan liteke idazleen biografia. Xabier Mendiguren Elizegi

Liburu maitalea pazientziaduna da, librea, bere iritzia berak egiten dakiena, medioek eta **kritika** akademikoek luzaroko influentziatuko ez dutena. Ana Urkiza

Oro har, euskal literaturan ez dago **kritika** sistematikorik. Ana Urkiza

Egiten den **kritika** kanonizatzailea dela esango zenuke? Ana Urkiza

Idazlearentzako saririk handiena zer da: denboran irautea ala **kritika** onak jasotzea? Ana Urkiza

Zenbait emakumek oso **kritika** txarrak jasan izan ditugu, lagun gutxi dugun seinale. Ana Urkiza

Utz iezaiozu **kritikari** nahi duena esaten. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **kritiko.**

Baina, oro har, euskal panoraman, agertu izan diren **kritika**-portaera batzuek, ongi erakusten dute autore kanonizatuak gizonak direla... Ana Urkiza

Idazlearendako Unibertsitatea bi alderdietarik interesantea gerta daiteke: batetik [...]; eta bestetik, ikasleen **kritika** lanak autorearen lanaren korolario naturalak direlako. Ana Urkiza

Haurrentzako ipuinak eta kazetetarako **kritika**-saiakerak idazten hasi zen. Antton Olano

Bertsogintzari buruzko jakintza kritikoa bultzatuz, iruzkin eta **kritika**-produkzioaren bidez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eta beste zenbait laguntzek, aldiz -hainbat enpresei emandako laguntzek, kasu-, ez dute **kritika** aztarrenik ere jasotzen. Iñaki Heras

**Kritika** zantzurik ez titulu nagusietan. Iñigo Aranbarri

**Kritika** ildo honi jarraiki, Ongizate Estatuaren paternalismoa kritikatzera ere iristen dira hainbat. Iñaki Heras

Teoria honen kontrako **kritika**-iturri izan daitezkeen argudioei. Askoren artean

**Kritika** taldeek badituzte interesak argitaletxeekin. Ana Urkiza

Dena den, Zalduaren ereduak, hau da, adiskideen arteko **kritika** trukatze egiatiak, baditu bere arriskuak. Markos Zapiain

**Kritika**-aldizkaria, hilabetekaria, Cesare De Lollisek sortua eta zuzendua. Fernando Rey

Trebetasun berezi bat eskatzen du **kritika** mota horrek, irakurtzeko era analitiko bat. Markos Zapiain

Zapiainen **kritika**-bidea […] ez da, ia guztiok hobetoxeago edo okerxeago egiten dugun legez, liburu jakin baten merituen aipamena edo akatsen abisua. Markos Zapiain

Horretarako kausa-ondorioa, arazoa-ebazpena, **kritika**-erantzuna eta horrelako irizpideak erabil ditzakezu. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Handik urte batzuetara hasiko zen idazleekiko mirespen pribatu hori jendaurrean azaltzen, liburu-**kritiken** bitartez. Markos Zapiain

Eremu honetan, filologia **kritika** puntu batean hankamotz geratzen da, gehiegi atxikitzen baitzaio hizkuntza idatziari, hizkuntza bizia ahaztuz. Isabel Arrigain

Uhuria oraindik orain literatura **kritika** ezak eragiten zuen. Markos Zapiain

Kanpoko testigantzak eta barne-**kritika** ados daude esatean, testua 1210etik 1221a arteko kapituluetan zehar osatuz joan zela, Askoren artean

**6** ***kritika egin***

Unibertsitateetan kritika irakatsi behar da, baina **kritika egiteko** modu horrek badu betiere muga bat gurutzatu ezin dena: arbitrarietatea. Gero nekatu eta **kritika egiten** hasi zitzaizkien kaletik pasatzen zirenei. Pello Salaburu

Hainbat alderdi politikok, taldek eta erakundek elkarri **kritika egin** zioten atzo biharko Hondarribiko Alardea dela eta. Berria - Harian

EHEk **kritika egin** dio Jaurlaritzari. Berria - Euskal Herria

Euskaldunen joera fundamentalistari **kritika egiterakoan,** esentziarik ez dagoela baieztatu dut. Bernardo Atxaga

Baina ez du euskal etniaren aldarrikapenik egiten; eta egiten badu, horren **kritika egiten** du. Ana Urkiza

Unibertsitateko giroaren **kritika eginez**. Iñaki Zabaleta

Datorren astean estu eta larri ibiliko nauk eta nahiago diat egun hauek aprobetxatu hire lanaren **kritika egiteko**. Xabier Etxabe

· Langdon Winner-ek [...] lau **kritika** zehatz egiten dizkio konstruktibismo sozialari. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**arrazoimen hutsaren kritika** (31); **arrazoimen praktikoaren kritika** (4); **arrazoimenaren kritika** (5); **aurkako kritika** (11); **egindako kritika** (23); **eginiko kritika** (9); **egiten zaion kritika** (5); **gizarte kritika** (4); **kontrako kritika** (9); **kritika asko jaso** (8); **kritika bat egin** (6); **kritika den aldetik** (4); **kritika egin** (53); **kritika eginez** (5); **kritika egitea** (6); **kritika egiteko** (20); **kritika egiten** (22); **kritika entzun** (6); **kritika eragin** (5); **kritika eraikitzailea** (5); **kritika feminista** (4); **kritika gogorra** (16); **kritika gogorra egin** (9); **kritika gogorrak** (52); **kritika gogorrak egin** (16); **kritika gogorrak entzun** (5); **kritika gogorrak jaso** (17); **kritika handiak** (7); **kritika handiak jaso** (4); **kritika jaso** (7); **kritika latza** (4); **kritika latzak** (4); **kritika mota** (4); **kritika nagusia** (8); **kritika nagusiak** (5); **kritika onak** (17); **kritika onak jaso** (9); **kritika politiko** (7); **kritika politikoa** (6); **kritika sakona** (4); **kritika saria** (5); **kritika sozial** (5); **kritika soziala** (7); **kritika txarrak** (10); **kritika ugari** (63); **kritika ugari egin** (4); **kritika ugari eragin** (16); **kritika ugari jaso** (28); **kritika zaparrada** (6); **kritika zorrotz** (5); **kritika zorrotza** (30); **kritika zorrotza egin** (13); **kritika zorrotza egiten** (11); **kritika zorrotzak** (33); **kritika zorrotzak egin** (12); **kritika zorrotzak jaso** (4); **kritikak kritika** (14); **literatur kritika** (12); **oso kritika onak** (7); **paralogismoaren kritika** (4)

**antzeko kritikak** (4); **aurkako kritikak** (22); **egin zaizkion kritikak** (5); **egindako kritikak** (29); **eginiko kritikak** (12); **egiten zaizkion kritikak** (5); **jasotako kritikak** (6); **kontrako kritikak** (13); **kritikak alboratu** (4); **kritikak arbuiatu** (7); **kritikak areagotu** (4); **kritikak berretsi** (7); **kritikak egin** (18); **kritikak egiteko** (5); **kritikak egiten** (7); **kritikak entzun** (15); **kritikak eragin** (24); **kritikak eragin ditu** (14); **kritikak gaitzetsi** (8); **kritikak izan** (7); **kritikak jaso** (18); **kritikak jasotzen** (6); **kritikak kritika** (14); **literatur kritikak** (4); **sekulako kritikak** (4); **sindikatuen kritikak** (5)

**arrazoimen hutsaren kritikaren** (10); **espainiako kritikaren saria** (5); **kritikaren saria jaso** (6)

**egindako kritikei** (18); **egindako kritikei erantzun** (5); **eginiko kritikei** (6); **jasotako kritikei** (4); **kritikei aurre egiten** (4); **kritikei erantzun** (15); **kritikei erantzunez** (9); **kritikei erantzuteko** (5)

**egindako kritikek** (5)

**egindako kritiken** (6); **jasotako kritiken** (4); **kritiken aurrean** (9); **kritiken jomuga** (12)

---

# kritikaezin *(corpusean **kritika ezin** soilik) izond* ezin kritikatuzkoa.

Gure kasuan lau lelozko edo hiru puzzle zatiko euskal fede **kritika ezina** gailentzen denean, onartzen dugun biktimak bihurtzen gara, geure nortasun zaurituaren konplize lehenak. Itxaro Borda

Borroka armatuan ari zirenen hautuak **kritika ezinak** bihurtu zitzaizkigun. Itxaro Borda

---

# kritikagai *(orobat **kritika gai**) iz* kritikarako gaia.

Puntu honetantxe hasten da zirriborratzen gero zinemari buruz berehalaxe zabalduko den **kritika-gai** bat. Josu Zabaleta

Hipokrisia morala salatzen zuen, AEBak zituen **kritikagai** nagusia. Berria - Mundua

· HZren legez kanporatzea **kritikagai**. Berria - Euskal Herria

---

# kritikagarri *izond* kritikatzea merezi duena.

Guraso askoren jarrera **kritikagarriak**. Berria - Kultura

Printzipio horrek […] baditu, zenbaiten aburuz, hainbat alde **kritikagarri,** etikoa besteak beste. Iñaki Heras

Beharren eta desioen sorkuntzaren arteko bereizketa **kritikagarria**. Iñaki Heras

Ikuspegi **kritikagarria,** eta baita arbuiagarria ere. Erabat **kritikagarria** da, beraz, ekonomiaren inguruan nagusi den determinismoa. Iñaki Heras

Urteek zorroztu didaten ikusmena bera ere, nire-nirea izanik, eztabaidagarria eta **kritikagarria** dela, segur bainaiz bakoitzaren esperientzia pertsonala, nornahi ere den hau, ezin dela besterengana hedatu. Pello Salaburu

Inor ez da **kritikagarri,** ezta aberatsak edo heretikoak ere. Askoren artean

Kristauentzat fedea ez dela **kritikagarri,** goresgarri baizik. Imanol Unzurrunzaga

Egun ere, **kritikagarritzat** dituzte askok, eta barregarritzat ere bai. Berria - Harian

Kasetarietan badira bi mota : badira dena gaizki ikusten dutenak, dena **kritikagarri,** badira ere dena eder daukatenak, dena lausengu. Herria

---

## **kritikagintza** *iz* kritika egitea.

Liburuen **kritikagintza** eta balorazioarena ez da zailtasunik gabeko arloa. Berria - Kultura

Liburutegiak ordenatzea **kritikagintzari** modu isil eta apalez ekitea da. Iñaki Iñurrieta

Bi urte t'erdi horietan zehar Errumaniako literatur **kritikagintzak** gailurra jo zuen, Bukaresteko egunkari nagusiaren larunbateko gehigarrian. Iban Zaldua

---

## kritikalari ik **kritikari**.

---

## **kritikari** *(orobat **kritikalari** g.er.)* **1** *iz* literatura edo arte lanen kritika egiten duen pertsona. ik **kritiko 5**.

Georges Duthuit **kritikaria**. Josu Zabaleta

Scalako **kritikari** musikala. Koldo Biguri

Artearen historialariek eta **kritikariek**. Josu Zabaleta

Lau editorek, bi **kritikarik,** kapila baten inguruan bildutako idazle jakin batzuek Ana Urkiza

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erregimen komunistaren garaian Errumaniako literatur **kritikaririk** irakurriena izan zen Duvrescu... Iruñen kokatu zen, asko sailetan lan eginez, hala nola marrazkilari eta arte- **kritikalari** bezala egunkarietan. Iban Zaldua

Fotogenia izan da, zinema-**kritikari,** zuzendari eta zaleen beldaunaldi oso batentzat gako-hitza, Diderotek margolaritza definitzeko esaten zuen "ez dakit zer" haren pareko. Josu Zabaleta

Antzerki-**kritikari** gisa ez zen batere zorrotza. Fernando Rey

Euskal Telebistan lankide izana nuen nik tele-**kritikari** hori. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arte kritikari** (7); **kritikari askok** (7); **kritikari askoren** (4); **literatur kritikari** (19); **zinema kritikari** (3)
>
> **antzerki kritikaria** (3); **arte kritikaria** (10); **ispizua arte kritikaria** (3); **literatur kritikaria** (9); **musika kritikaria** (5)
>
> **antzerki kritikariak** (4); **arte kritikariak** (14); **literatur kritikariak** (8); **zinema kritikariak** (3)
>
> **literatur kritikariaren** (5)
>
> **arte kritikariek** (3)
>
> **kritikarien onespena** (3); **kritikarien oniritzia** (3); **zinema kritikarien** (4)
>
> **literatur kritikaririk** (3)

---

## **kritikaritza** *iz* kritikariaren jarduera.

Egia esatera, gogait eginda dago **kritikaritzaz,** nekatuta dago metrotan neurtzen den hitz lauaz. Oskar Arana

---

## **kritikatu,** kritika(tu), kritikatzen du *ad* **1** kritika egin.

Halaber, moral laiko berria **kritikatuko** du. Askoren artean

**Kritikatu** ez ezik, iraindu egiten omen dut ezker abertzalea, eta "esku beltzaren" begiradapean jartzen. Hasier Etxeberria

Ekintza berbera batzuek goraipatu egiten dutela eta beste batzuek, berriz, **kritikatu**. Esteban Antxustegi

-Laztana, ez dizut ezer **kritikatzen** -esan zuen Terrik. Koro Navarro

FAO «transgenikoen alde» ari dela **kritikatu** dute. Berria - Gaiak

Bere garaiko errealitatearekin zerikusirik ez zuelako **kritikatzen** zuen marxismoa. Iñaki Heras

Inork pentsa ez zezan saioa **kritikatuta** saioko ideiak **kritikatzen** genituela, hobe isilik. Anjel Lertxundi

Guk ez ditugu zertan **kritikatu** babesten gaituztenak. Josu Zabaleta

Gilbert Ryle eta Wittgensteinek Descartesen gogamen pribatua **kritikatu** zuten gogor. Askoren artean

Askotan **kritikatu** izan da Panofskyren ikusmoldearen esentzialismo hori. Josu Zabaleta

Abertzalekeria **kritikatzen** zaio: eskuinik atzerakoienaren diskurtsoa bazkatu izana. Anjel Lertxundi

Atzera begiratu behar hori oso **kritikatua** izan da. Askoren artean

**2** (adizlagun baten eskuinean)

Britainiarren defentsa sistemen desegokitasuna zorrotz **kritikatu** zuen. Edorta Jimenez

Itoizko Koordinakundeak gogor **kritikatu** zuen solidarioen ekintza hura. Edurne Elizondo

Komunistek, eta errepublikaren aldeko beste batzuek ere bai, gogor **kritikatu** dute Ernest Hemingwayren horko oreka-gura zuri hori. Edorta Jimenez

Garai batean biziki **kritikatu** ohi nuen, lagunartean behintzat, jarrera mota hori. Bernardo Atxaga

Hirutasun Santuaren dogma errotik **kritikatu** eta Kristoren betikotasuna errefusatu zuen. Askoren artean

Etengabe **kritikatzen** zuen jendea, baina adeitsua zen izaeraz. Pello Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adierazpenak kritikatu** (13); **akordioa kritikatu** (5); **aldaketak kritikatu** (4); **arduradunak kritikatu** (4); **argudioak kritikatu** (4); **asko kritikatu** (7); **asmoa kritikatu** (4); **bereziki kritikatu** (7); **eaj kritikatu** (4); **egindako adierazpenak kritikatu** (5); **egitasmoa kritikatu** (5); **elak kritikatu** (5); **ematea kritikatu** (5); **erabakia gogor kritikatu** (4); **erabakia kritikatu** (15); **erreforma kritikatu** (4); **esandakoak kritikatu** (6); **esku hartzea kritikatu** (4); **gobernua kritikatu** (9); **gobernuaren jarrera kritikatu** (5); **gobernuaren jokabidea kritikatu** (4); **gogor kritikatu** (314); **gogorki kritikatu** (5); **hartzea kritikatu** (7); **hitzak kritikatu** (7); **ituna kritikatu** (4); **izatea kritikatu** (6); **jarrera ere kritikatu** (7); **jarrera gogor kritikatu** (9); **jarrera kritikatu** (79); **jarrerak kritikatu** (4); **jokabidea ere kritikatu** (4); **jokabidea kritikatu** (20); **jokaera kritikatu** (7); **jokatzen duela kritikatu** (4); **kritikatu du batasunak** (8); **kritikatu dute sindikatuek** (4); **kritikatu ondoren** (4); **kritikatu zuen aralarrek** (4); **lana kritikatu** (8); **legea kritikatu** (7); **oso gogor kritikatu** (10); **pp kritikatu** (4); **presidenteak kritikatu** (4); **proiektua kritikatu** (7); **proposamena kritikatu** (10); **psoe kritikatu** (5); **txostena kritikatu** (4); **zorrotz kritikatu** (19)

**kritikatxo** *iz adkor* kritika.

Luismari Bengoa antolatzaileak aizkolariei egin die **kritikatxoa:** «Aizkolari batzuk ez dituzte betebeharrak bete». Berria - Kirola

**kritiko** **1** *izond* gogo lanen alde onak eta hutsegiteak aztertzen dituena; kritikari dagokiona. ik**kritika** **4**.

Zientzia-ezagutzaren eta garapen teknologikoaren eredu klasikoen irakurketa **kritikoa**. Askoren artean

Garapen terminoari buruz aipagarria da Gustavo Esteva-ren gogoeta **kritikoa**. Iñaki Heras

Tradizioaren eta modernitatearen gogoeta **kritiko** bat. Koldo Izagirre

Azalpen **kritiko** batzuk ere egin nizkion. Joxean Agirre

Eta printzipio **kritiko** hori onartu beharra dago. Askoren artean

Filosofia Politikoa, edozein zientziatan gertatu zen antzera, diskurtso **kritiko** bihurtu zen. Askoren artean

Interneten erabilera **kritiko** eta demokratikoa gauzatzea. Txema Ramirez de la Piscina

Azalpen hori, ordea, modu **kritikoan** egin nahi izan dugu, informazio hutsean geratu gabe. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Proletalgoaren soziologia **kritiko** modernoa. Joxe Azurmendi

Ez zuen oso gogokoa Mario, espiritu **kritiko** handiegia omen zuen. Fernando Rey

Neure lanarekiko erabat **kritiko** izateagatik. Ramon Saizarbitoria

Duchet-en testua **kritikoa** da Ilustrazioarekin. Askoren artean

Idazten ari ziren gidoia oso **kritikoa** omen zen garaiko giro politikoarekin. Anjel Lertxundi

Sistemarekin **kritikoak** diren ikuspegi eta oinarrietatik. Iñaki Heras

Sen **kritikoa,** hori da tresnarik baliagarriena. Txema Ramirez de la Piscina

Horregatik, erreforma egin, eta berehala sortu ziren ahots **kritikoak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bere ezagutza ahalgarriaren mugak printzipioen arabera determinatu ez dituen dogmatiko ez- **kritikoaren** aurkako eraso eszeptiko hauek. Ibon Uribarri

Unibertsitateko sektore **kritikoak,** · Jendeak telebistaz zuen iritzia bereziki **kritikoa** zen. Txema Ramirez de la Piscina

**2** testu kritika filologikoaren arabera egina.

Edizio **kritiko** baten hitzaurrea irakurria zuen, aspaldi. Jon Alonso

San Frantziskoren idazkiak aztertzen bizitza osoa eman ondoren, Kajetan Esser-ek argitalpen **kritiko** berria atera zuen 1976an. Askoren artean

Perrault-en Vitruvio aparailu **kritiko** ikusgarri batekin lagunduta azaldu zen. Santiago Iruretagoiena

· Ikerketa historiko- **kritikoak** ahalegin handia egin du testuen arteko harremanak aztertzen Askoren artean

**3** larria, gorabehera handikoa.

Baina, egun **kritiko** horietako batean, goseari gehiago ezin eutsi, eta kilo eta erdi sagar jan irentsi nuen, harrapazka, erretzaile konpultsibo batek abstinentziari utzi, eta zigarroei ekingo liekeen modu bertsuan. Patxi Zubizarreta

Nire momentu **kritiko** hau ere estuki dago telefono bati lotua. Patxi Zubizarreta

Guadalajarako sua amatatu zenean -1937ko martxoaren 20a aldera- gerra espainolaren nondik norakoa gune **kritiko** batera iritsia zela esan liteke. Edorta Jimenez

Beste organo **kritiko** batzuetan, hala nola garunean, minutu batzuetan jartzen da martxan erreserbako zirkulazioa. Irene Aldasoro

Gauza segurua zirudien, medikuei aditzera, lehenago edo geroago iritsi beharreko fase **kritiko** saihestezina ere itxura berarekin etorriko zela. Imanol Zurutuza

Baina, Eugeni, ondo portatuko al zara une **kritikoan**? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**4** magnitudeez edo puntuez mintzatuz, handik harat gauza baten nolakotasunean edo gertakari baten bilakaeran oinarrizko aldaketa gertatzen dena. ik beherago **7**.

Animalia guztien garun-sistemak deblauki itxiz erantzun liezaioke gehiegizko puntu **kritiko** batez haraindiko estimulazioari. Xabier Olarra

Intentsitate ertainetan 10 Hz ingurukoa izaten da maiztasun **kritiko** hori, baina intentsitate handietarako 1.000 Hz-etaraino ere irits daiteke. Josu Zabaleta

• **5** *iz* kritikaria.

Kultura txiki batean, idazleak errazagoa du zintzo izatea, merkatuaren eta **kritikoen** tiraniatik libre sortzea. Markos Zapiain

Medioek, **kritiko** akademikoek, unibertsitateak, irakaskuntzak, egitura politiko-kulturalek, kultur munduko teknokraziek... Ana Urkiza

Ñabardura horri ez diote jaramonik egin ez merkatu erlijioaren aldeko direnek, ezta Smithen **kritiko** sutsuenek ere. Iñaki Heras

Zinema mutuaren garaiko **kritiko** gehienek aipatu eta nabarmendu dute zinemaren fotogenia-ahalmena. Josu Zabaleta

Estatu Batuetako poetarik handiena eta orijinalena da **kritiko** askoren iritziz. Xabier Olarra

Etikaren beste **kritiko** kementsu bat Karl Marx da. Askoren artean

Bai globalizazioaren jarraitzaile sutsuenen aldetik, eta baita ustezko **kritiko** grinatsuenen aldetik ere. Iñaki Heras

**6** (hitz elkartuen lehen osagai gisa)

-Kontuz honekin, literatur **kritiko** zorrotza da eta-. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dut esango ni neu arte **kritiko** zorrotza naizenik. Edorta Jimenez

Zine- **kritikoa,** kazetaria eta nobelagilea. Edorta Jimenez

**7** ***masa kritiko*** kate erreakzio nuklear bat eragiteko behar den gutxieneko erregai kopurua.

Horretarako, Uranio 235aren **masa kritikoa** ezagutu behar zen. Fernando Morillo

· *irud/hed* Euskararen kultur unibertsoak, izan ere, bere bizi-baldintza bereziak ditu; [...] bere merkatu-parametro eta **masa kritiko** bereziak ditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Euskal Herrian bada **masa kritiko** nahikoa Bestelako Komunikazioa garatzeko, alternatiba kritikoak praktikan ipintzeko, komunikazioaren eredu ofizialari astindu eder bat emateko. Txema Ramirez de la Piscina

EHUn **«masa kritikoa»** handitu gura duela dio, ikertzaileen bokazioak sustatu. Berria - Euskal Herria

Ez da **masa kritiko** nahikorik aurre egiteko zanpatzen gaituen estatuari. Berria - Euskal Herria

LABeko Rafa Diezek zehaztu zuen «aldaketa politiko eta sozial baterako **masa kritiko** indartsu bat» osatzen ari dela. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ahots kritiko (6); arte kritiko (3); azterketa kritiko (4); edizio kritiko (5); hausnarketa kritiko (5); ikuspegi kritiko (8); jarrera kritiko (6); kritiko ageri (5); kritiko ageri da (5); kritiko agertu (42); kritiko agertu zen (16); kritiko agertzen (6); kritiko askok (3); kritiko askoren (4); kritiko azaldu (10); kritiko azaldu zen (6); kritiko hitz egin (3); kritiko izan (10); kritiko mintzatu (5); kritiko samar (6); kritiko samar agertu (3); kritiko zorrotza (4); masa kritiko (12); masa kritiko bat (3); oso kritiko (39); oso kritiko ageri (3); oso kritiko agertu (17); oso kritiko azaldu (5); une kritiko (5)

ahots kritikoa (4); analisi kritikoa (3); arte kritikoa (3); azterketa kritikoa (4); babes kritikoa (3); edizio kritikoa (21); egoera kritikoa (11); errealismo kritikoa (6); espiritu kritikoa (3); gaitasun kritikoa (3); gogoeta kritikoa (5); ikuspegi kritikoa (24); ildo kritikoa (3); irakurketa kritikoa (10); irakurketa kritikoa egin (5); iritzi kritikoa (7); jarrera kritikoa (23); masa kritikoa (12); oso kritikoa (29); oso kritikoa izan (7); pentsamendu kritikoa sektore kritikoa (5); sen kritikoa (3); une kritikoa (6); zentzu kritikoa (4)

ahots kritikoak (8); diskurtso kritikoak (3); edizio kritikoak (8); iritzi kritikoak (4); jarrera kritikoak (3); oso kritikoak (10); oso kritikoak dira (3); sektore kritikoak (7)

egoera kritikoan (11); egoera kritikoan dago (3); modu kritikoan (12); modu kritikoan ikusten (3); oso egoera kritikoan (4); une kritikoan (10)

ikuspegi kritikoaren (3); pentsamendu kritikoaren (5)

sektore kritikoek (3)

**kritikoen arabera** (3); **kritikoen ustez** (5)
**sektore kritikoko** (5)
**ikuspegi kritikotik** (4)

---

# kritikodun *izond*

Diskurtso oportunista eta erreakzionarioaren lekuko ederra da erantzun mota hori ikuspegi **kritikodunentzat** Iñaki Heras

---

# kritikoki 1 *adlag* era kritikoan.

Gizarteak horrela **kritikoki** ebaluatzen du transformazio sozionaturala [...] gauzatzen duen baliabide zientifiko-teknologikoen multzoa. Berria - Gaiak

Nire ezagutza ahalgarriaren mugak **kritikoki** ikertzera. Ibon Uribarri

Gure galdekizuna bera **kritikoki** aztertzeko. Ibon Uribarri

Sute eta erailketei **kritikoki** begiratzeko joera zerbait unibertsala da. Harkaitz Cano

**2** testu kritika filologikoaren bidez.

Frantziskotartasunaren benetako historia ez da **kritikoki** egiazta daitekeena bakarrik. Askoren artean

---

# kritikotasun *iz* kritikoa izateko nolakotasuna.

Liburuei esker hasi nintzen ikasten kritikoa izan beharra dagoela **kritikotasuna** hurkoaren kontra soilik baliatzen duen inguru batean. Anjel Lertxundi

Gaztetxeetatik bestelako balioak sustatzen dira: **kritikotasuna,** elkartasuna, bizikidetza... Berria - Harian

Nola uztartzen dituen umorea eta **kritikotasuna**. Berria - Kultura

**Kritikotasuna** suspertzeko eta pentsamenduan trebatzeko, liburu honetan aukera onak eskaintzen direla iruditzen zaigu. Askoren artean

---

# kritizismo *iz* sistema filosofikoa, epistemologia diziplina beregain eta oinarrizkotzat hartzen duena.

XVIII. mendeko **kritizismoak** eta arkeologia ilustratu berriaren pizkundeak […] lagundu egin zuten, azkenean, bestelako giro intelektuala sortzen. Santiago Iruretagoiena

Metafisika tradizionalaren eta teologia dogmatikoaren akabera ekarri zuen **kritizismoak**. Berria - Kultura

---

krixkitin ik **kriskitin**.

---

krixto ik **kristo**.

---

# kroak 1 *adlag* igelaren korrokaren onomatopeia.

Eta zaunka urrunak entzun zituen, igelak **kroak kroak** entzun zituen. Joseba Sarrionandia

Igelek ibar guztira zabaltzen zuten euren kantuaren oihartzun berdotza, **kroak kroak kroak,** hala aldarrikatzen zuten euren bizialdia. Joseba Sarrionandia

**2 *kroak egin***

Igelak, musu ematean, / **kroak** egin zuen eta. Jasone Osoro

---

# kroaka *adlag* kroak eginez.

Bele zaharra **kroaka** ibiliko denez, hari erantsiko zaio abisuaren errua. Pello Zabala

---

kroasan ik **kruasan**.

---

# kroata

**1 *serbo-kroata****sup_1 iz* serbo-kroaziera.

Italiera, serbo-**kroata,** alemana, gaztelera, friulera, eslobeniera, inglesa, frantsesa eta orain gogoan ez dudan bederatzigarren bat. Berria - Kultura

**2 *serbo-kroata****sup_2 iz pl* serbiarrak eta kroaziarrak.

Gerlatoki izanak Osijek inguru horiek, serbo-**kroaten** bonbardamendu eta hilketek 1.100 zibil ere hil zituztelarik 1991an auzo-hiri Vukovar delakoan. Herria

---

# kroaziar 1 *izlag* Kroaziakoa, Kroaziari dagokiona.

**Kroaziar** idazle batek esan zidanez, [...]. Edorta Jimenez

Rapaic **kroaziar** ezkertia, Leonard atzelaria eta Curbelo, zelai erdiko birika. Berria - Kirola

Zine-zuzendari **kroaziar** batek maisulana zer den susmatu zuen berrogeita zazpi urte zituenean, etxeko komunean. Unai Elorriaga

Bosniako Islama eredutzat hartu beharrean, musulmanak zapaltzen utzi zien Europak taliban kristau **kroaziar** zein serbiarrei. Berria - Mundua

Eslovenian bizi diren gutxiengo **kroaziar** eta serbiarrak. Berria - Mundua

Bosnia bi entitate federatuk osatuko zutela, alde batetik izango zela **Kroaziar**-Musulman Federazioa eta, bestetik, Serbiar Errepublika (Srpska). Berria - Harian

Juriça **kroaziarrak** izan zuen denok genekiena esateko ausardia. Edorta Jimenez

**2** *iz* Kroaziako herritarra.

**Kroaziarra** zuen ama, errusiarra aita. Viena familia handi bat zen, Inperioa ere bai, bere hungariar, aleman, moraviar, txekiar, serbiar, **kroaziar** eta italiarrekin. Xabier Olarra

Eskualde horretako ehunka **kroaziar** eta musulmanen aurkako «garbiketa etniko» batean erantzukizunik izan zuela. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**janica kostelic kroaziarra** (5); **kroaziarra izan** (3)
**atezain kroaziarrak** (3); **janica kostelic kroaziarrak** (8)

---

## kroaziera 1 *iz* serbo-kroazierari Kroazian ematen zaion izena.

Alegia, serbiera eta **kroaziera** bi hizkuntza direla orain. Edorta Jimenez

**Kroazieraz** hasi zen idazten han, Esloveniera ahaztuta. Berria - Kultura

Erakusleihoko liburu guztiak **kroazieraz** daude, eta ez dut ezer ulertuko. Anjel Lertxundi

Txiletarren lanak **kroazierara** itzuli zituzten. Berria - Kultura

**2** ***serbo kroaziera*** Serbian eta Kroazian mintzatzen den eslaviar hizkuntza.

Kristau-aroko hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetan padisharen esklabo-etxeko lingua franca serbo-**kroaziera** zen eta otomandar itsas armadaren lingua franca italiera. Iñaki Mendiguren

Ingelesaz, alemanieraz, eta serbo-**kroazieraz** hitz egiten omen daki Nikonek. Berria - Kirola

---

## krokatu, kroka, krokatzen da *ad* lotu, katigatu.

Badago baita, eraztunez eta gakoz bezala, zenbait gauza bata-bestearekin **krokaturik** edukitzea; imanean eta burdinan ere horixe gertatzen da, nonbait. Xabier Amuriza

Kontua da txalupa Serpentinan **krokatuta** geratu zitzaiola, ur gaineko izotz-zelaien artean. Julen Gabiria

---

## kroket *iz* bi edo lau lagunentzako jokoa, lurrean iltzatuak dauden uztai batzuetan zehar zurmailu batez jotzen den zurezko bola bat pasaraztean datzana.

Luxembourgeko erretiratuekin **kroketean** aritzera joanen ote naiz? hogeita hamar urterekin! erruki diot neure buruari. Monika Etxebarria

---

## kroketa *iz* haragi, arrain edo kidekoen zati xehez, eta irinez eta esnez egindako orea, arrautza eta ogi arrailan bustia eta estalia, eta oliotan frijitua.

Hasieran **kroketak** eta piper berdeak. Xabier Etxabe

Jan bai, ederki jaten ditu amaren **kroketak**. Kalean ez dagonean sukaldean sartuta egoten da, **kroketak** prestatu eta prestatu. Jokin Muñoz

Argizarizko lan hori, **kroketa** bat balitz bezala, molde bat egiteko ore batekin igurtzitzen dute **Kroketen** errezeta hobetzeko. etxeko sukaldean garatzen ziren lan gehientsuenak egun fabrikan egiten dira: **kroketak,** zopak, potaje edo eltzekariak, [...]. Edorta Agirre

Aurrez prestaturiko **kroketak,** labean berotu besterik behar ez zuen lasagna eta azpiltxo bat camembert gazta kaxatxo batekin, nahikoa izan zitekeen hura gau hartarako. Joxemari Iturralde

---

## krokis *iz* zerbaiten marrazki eskematikoa eta gutxi gorabeherakoa.

Eraikuntzaren **krokisa**. Rafa Egiguren

*Elektroson*-en oso ondo esplikatu zidaten nola jarri, **krokis** eta guzti; baina erraza zirudien arren, ez nuen asmatu. Ramon Saizarbitoria

Eta gogoratuko ez banintz ere, **krokisa** daukagu. Iban Zaldua

Zelaira jaitsi aurretik, ordea, komeni zela **krokis** bat egitea. Karlos Linazasoro

1994an Parisko errektoretzaren aurkako atentatu bat prestatzeko erabili zuen **krokisa**. Berria - Mundua

---

## krokodilo *(orobat **kokodrilo** eta **krokodil**)* 1 *iz* muskerraren tankerako narrasti handia, kolorez berdaxka, baraila indartsuak eta lau hanka motz dituena, gorputza oso ezkata gogorrez estalia duena, eskualde beroetako ibaetan bizi dena *(Crocodylus niloticus, Crocodylus intermedius* etab.).

Tigreak, elefanteak, **krokodiloak,** kobrak eta ziminoak gizakiekin adiskidetasunean bizi diren lurraldea. Gotzon Garate

Herodotok dio Indoa dela **krokodiloak** sortzen dituen ibai bakarra. Xabier Olarra

**Krokodiloa** dela mastekatzerakoan goiko matelezurrari eragiten dion bakarra. Imanol Unzurrunzaga

**Krokodiloak** besoa jan zion Kako-okerri, eta tripan darama beso hartako erlojua ere, tik-tak etengabean. Julen Gabiria

Orain 8 milioi urteko **krokodilo** baten burezurra topatu dute Australian. Berria - Gaiak

Buru zapala du, **krokodiloak** bezala, eta mutur luzea, lehorrean animaliak ehizatzeko aproposa. Berria - Gaiak

**Krokodiloaren** ezkatak. Xabier Montoia

**2** krokodilo larrua.

Sonjak bere **krokodilozko** poltsa zabaldu eta koadernotxo hori-gorrixka mehe bat bota zion Weinerri aurpegira. Anton Garikano

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Giltza bere **krokodilo**-larruzko diru-zorroan gorde zuen. Lopez de Arana

Bi **krokodilo**-hozka desberdinek sortutakoak ematen dutela Pantxok eta Lubisek. Bernardo Atxaga

**Krokodilo** okela jateko. Xabier Montoia

Errezeta nazkagarriak aurkitu zituen, Egipto zaharreko bat, esaterako, **krokodilo**-kaka erabiltzen zuena. Karlos Zabala

**4** ***krokodilo malko*** *pl* tipula negarra.

**Krokodilo** malkoekin aurkeztu zen Ameriketako Estatu Batuetako presidente George Bush astearte gauean Washingtongo prentsaren aurreko agerrraldirik nagusian.

---

## krokodilokume *iz* krokodiloaren umea.

Luze gabe ezkonduko ziren beraien artean eta laster egongo ziren **krokodilokumeak** hazteko prest. Unai Elorriaga

---

## krokodilotxo *iz* krokodilo txikia.

Hurrengo egunetan lagunekin hizpiderik izango zuten gure **krokodilotxook,** seguru asko. Gotzon Garate

**krokodrilotzar** *iz* krokodilo handia.

Zure aurka nator, faraoi, Egiptoko errege, Niloren erdian zauden **krokodilotzarra,** "Neurea dut Nilo ibaia, neuk egina da eta", diozuna. Elizen arteko biblia

**kroma** *iz*

Alde batetik, txotxongiloekin film labur bat egiten ari dira: «Gidoia bukatuta dago, baina orain dena ondo antolatu beharra dago, **kromekin** probak egin, mugimenduak landu...». Berria - Kultura

**kromagnon** *iz* Paleolitikoaren amaieran bizi izan zen gizaki mota.

**'Kromagnon'** aroko doinu hunkigarri horren melodiak ez ote zaitu xarmatu? Ramuntxo Etxeberri

**kromatika** *izond* kromatikoa.

Bachen *Fantasia* ***Kromatika*** *eta Fuga*-rekin eman zion hasiera emanaldiari Berria - Kultura

**kromatiko** **1** *izond* koloreena, koloreei dagokiena.

Argien joko **kromatikoak** irrealtasunez tindatu du neskaren gorputz biluzia. Patxi Iturritegi

Sentsazio **kromatikoen** gunea. Begiak badu hirugarren metodo bat aberrazio **kromatikoari** aurre egiteko. Irene Aldasoro

Konoak, baina, aurrerago ikusiko dugun bezala, koloreen pertzepzioa eragiten dutenak dira, eta, hala, ikuspen fotopikoa **kromatikoa** da. Josu Zabaleta

[Zinka] ez da toxikoa, ez du erreakzio **kromatiko** ikusgarririk ematen. Juan Garzia

Wattsen erretratuetan kalitate lirikoa nabarmendu dute haren zaleek, eta baita lanen musikaltasuna, pintzelkadaren sotiltasuna eta aberastasun **kromatikoa** ere. Berria - Kultura

**2** musikan, hamabi tonu erdietan oinarritua, oktabako hamabi tonu erdiak erabiltzen dituena.

Honenbestez, bi oktabako eskala **kromatikoa** osatu zuen. Koldo Izagirre

Funtsezko osagarri **kromatikorik** gabeko musika zen hura. Xabier Olarra

Tetrakordio **kromatikoak** bi tonuerdi ditu elkarren jarraian. Santiago Iruretagoiena

Tonuerdiko tartea du modulazio **kromatikora** aldatzen denean. Santiago Iruretagoiena

Antonio Serrano harmonika **kromatikoan** eta teklatuetan. Berria - Kultura

**3** musika tresnez minzatuz eskala kromatikoko hotsak gauzatzen dituena.

Huraxe izan omen zen lehen esku-soinu modernoa, diatonikoa, geroko **kromatiko** eta bandoneoi guztien aitzindaria. Koldo Izagirre

Soinu **kromatikoa** jotzen zuen, baina txikiarekin hasia zen, diatonikoarekin, etxean, aitari ikasita. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> aberrazio kromatikoa (4)

**kromatikoki** **1** *adlag* era kromatikoan.

Aurpegiak eta gorpuak **kromatikoki** ustelduak, asko eta asko komunikabideek egunero igortzen dituzten mezuetatik ateratakoak. Berria - Kultura

**2** era kromatikoan, tonu erdiz tonu erdi.

*Poetengandik ikasi nuen maitatzen,* kantatzen ditu Byronek do naturalean hamahiru silaba horiek, bere ahots urratu eta monotonoaz; baina bizitza, hala ikasi dut (eskalan faraino jaitsiz **kromatikoki),** besterik da. Oskar Arana

**kromatikotasun** *iz* kromatikoa denaren nolakotasuna.

Lehendabiziko bokalaren nolakotasunaren **kromatikotasuna** areagotu da, eta itxiago eta palatalago egin da; hala, ondorengo bokaletik gehiago bereizten da, bokal bien beregaintasun eta oharmen ona bermatuz. Lourdes Oñederra

**kromatismo** *iz* kromatikoa denaren nolakotasua.

**Kromatismoari** buruz inoiz idatzi den lehen lan teorikoa izan zen Aristotelesena, adituen arabera. Berria - Kultura

Eduardo Naranjoren margolan konplexu eta gordinak, Isabel Quintanillaren zehaztasun fotografikoa edota Carmen Laffonen **kromatismoa**. Berria - Kultura

Bilboko txokoetako kedarren **kromatismo** eskasak ilundu ditu gizonaren begiak gaur ere. Berria - Kultura

Fusio-sukaldaritza: lehengaiez (beren aho-ukitu, usain, zapore, kolore eta gutzi), egospenez (tenperatura, denbora, aurre-prestatze, etab.), aurkezpenez (geroz eta "ekialdetarragoak", dirudienez: plater handietan gauza gutxi, espazio oteizarra, tarte zabalak, **kromatismo** zaindua). Edorta Agirre

**kromato** *iz* azido kromikoaren gatza.

Esku artera heldu zitzaion herdoil-aurkako baten formula, **kromatoetan** oinarritua, osagai absurdu bat zeukana: zer eta amonio kloruroa. Juan Garzia

Berniz hura, esan zidan, gerra bitartean eta ostetxoan ekoiztua zen; **kromato** basiko bat eta erretxina alkidiko bat zeuzkan. Juan Garzia

**kromatofen** *iz*

Izan ere, V4 aldearen estimulazio magnetikoaren bidez sor daiteke esperimentalki kolorea, eta eraztun eta halo koloretakoak **-kromatofen** deritzetenak- "ikusaraz" daitezke hala. Xabier Olarra

**kromatografia** *iz* anilisi metodoa, nahastura batetik gasak edo likidoak bereiztea ahalbidetzen duena gaikako adsortzioaren bidez.

Hori guztia gai kimikoak aztertzeko erabiltzen diren likido- **kromatografia** tresneria aurreratuarekin egiten da. Berria - Gaiak

**kromatografo** *iz* kromatografiak egiteko tresna.

Ez dakite zer den **kromatografo** bat ere. Javi Cillero

---

**kromatopsia** *iz* ikusmenaren nahasmendua, gehien-gehienek zuri ikusten dutena koloretan ikustean datzana.

Garuneko **kromatopsia** bakarturik izan zitekeenik ukatzen jarraitu zuen. Xabier Olarra

---

**kromatu** *izond* kromo geruza batez estalia.

Errebolber **kromatu** bat atera zuen ingelesak jakatik. Xabier Aranburu

Eraikin garai bat, **kromatua**. Joxe Austin Arrieta

Taberna bateko gela **kromatuan** eserita egotea libra bat eta sei penikeko koñak bat edanez edo zigarro turkiar bat erreaz. Koro Navarro

Kako **kromatuengatik** izan ezik, itxura arrunteko gizona zen, berrogeita hamar urte ingurukoa. Koro Navarro

-Nikelatu edo **kromatu** bat bidal dezatela: itxura hobea emango dik. Koldo Biguri

---

kromletx ik **cromlech**.

---

**kromo** **1** *iz* gai bakuna, metal grisaxka, distiratsua eta gogorra, 1.900 °C-tan urtzen dena*(Cr;* at. z. 24).

*Aceria de Alava SA* enpresak 3.850 kilo **kromo** isurtzen ditu urtean; Europako Batasunak 100 kiloko muga jarria du. Berria - Euskal Herria

Nondik, bestela, hainbeste kobre, **kromo** eta berun bazterretan? Hasier Etxeberria

**2** (hitz elkartuetan)

EE 480/0 Erosketa Ebazpidearen arabera, gutxienez ehuneko 28 **kromo** oxido eduki behar zuen guztira. Juan Garzia

Riachueloko urak aztertuz gero, bertako merkurio, zink, berun, artseniko eta **kromo** kopurua «baimendutakoa baino 50 aldiz handiagoa» dela ikus daiteke. Berria - Gaiak

**3** koroletako irudia; bereziki, tamaina txikikoa, haurrek bildumatzen edo jolasetan erabiltzen dutena.

Munduan ziren klase guztietako hegazkinen marrazki, argazki eta **kromoekin**. Anjel Lertxundi

Antzinako **kromoak**. Berria - Kultura

Espainiako futbol selekzioaren **kromoak** puskatzera. Bernardo Atxaga

Ez zaizkit **kromo** repeak gustatzen. Harkaitz Cano

Patioko garaian beti **kromoak** trukatzen ibiltzen zen txaparro kaskagorri maritxu ospeko bat. Koldo Izagirre

Gure ondoan nire adineko mutiko bi zeuden, **kromo**-trukean. Unai Elorriaga

Esplorazioa, esparru semantiko baten traizioa, ez dagokion umore baten sorrera: txikitako **kromo** bilduma, tigrea, Marco Polo, itsasoa, Moby Dick. Harkaitz Cano

**4** irud/hed

Era berean, langileekin inolako **«kromo** trukerik» ez dagoela gogoratu zuen. Berria - Euskal Herria

Ibarretxek eta Zapaterok telefonoz hitzartutako akordioak **«kromo** banaketa» ematen duela dio. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kromo bilduma** (3)

---

**kromodinamika** *iz kromodinamika kauntikoa:* eremuen teoria kuantikoa, oinarrizko indarretako bat, elkarrekintza bortitza, deskribatzen duena.

**Kromodinamika** kuantikoaren sorburuaren protagonista izan ziren fisikariok 1973. urteko aurkikuntzekin. Berria - Gaiak

Segurtasun-txostenek ziotenez, gizon lodikote hura jenio hutsa zen supersokei eta **kromodinamika** kuantikoari zegokienez. Fernando Morillo

· Grossek, Politzerrek eta Wilczekek koloreen bidez azaldu zuten beren teoria (hortik dator **kromodinamika** izena): karga elektrikoa positibo eta negatibo gisa deskribatzen den bezala, quarkak gorriak, berdeak edo urdinak izan daitezkeela esan zuten. Berria - Gaiak

---

**kromosoma** **1** *iz* zelularen guneko osagai oinarrizkoetako bakoitza, forma jakinekoak eta izaki mota bakoitzean kopuruz berdinak direnak.

**Kromosomen** osagai nagusia da ADNa: zelulen zatiketan, osagai hau biderkatu egiten da, eta zatiki berdin-berdinak sortzen dira. Pello Salaburu

**Kromosoma** bakoitza ADNko molekula bildu luze bat da eta milaka gene ditu. Pello Salaburu

**kromosoma**, esaterako, Down sindromearekin erlazionatua, 62 zientzialarik argitu zuten 2000ko maiatzean. Pello Salaburu

**kromosoma** hau da txikiena, eta sekuentziatu ahal izan den bigarrena. Pello Salaburu

Bazegoen, mikroskopiaren laguntzarekin, **kromosomak** begiztatzerik -batez ere euliaren listu-gurinetako **kromosoma** erraldoiak- eta tamainaz aldeak zituzten zenbait banda atzematerik haietan. Juan Garzia

Morganek agerian jarri zuen **kromosoma** homologoen arteko zati-trukeen bidez birkonbinatzen direla geneak. Juan Garzia

Karaktere horiek gobernatzen zituzten geneak, beraz, X **kromosoman** kokaturik zeuden. Juan Garzia

Era horretan, aurkitu zituzten Y **kromosoma** identifikatzeko gai ziren zunda genetikoak. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kromosoma**-mapak eta giza genomaren ADN-sekuentziak. Juan Garzia

Amak eratu duen eta ernalkuntzaren ondoren enbrioia osatuko duen arrautzan, ba ote da, enbrioiaren **kromosoma**-jokoaz gainera, amarengandiko elementu zitoplasmatikorik, enbrioia eraikitzeko beharrezkoa den informazio genetikoren bat daramanik? elementuok elkarturik irauten dute eboluzioan zehar **kromosoma** segmentu berean, eta bata bestearen segidan abiarazten da haien jarduna, hala eulian nola saguan, ordena zehatz baten arabera. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kromosoma pare** (3)

---

**kromosomatiko** *iz* kromosomikoa.

Genetika klasikoaren eta mekanika **kromosomatikoaren** legeak. Juan Garzia

## **kromosomiko** *iz* kromosomena, kromosomei dagokiena.

Horrenbesterekin, genetika sortu zuen, hots, ondoretasun mendeliarra teoria **kromosomikoaren** arabera interpretatzen duen zientzia. Juan Garzia

Zelula hori teknika **kromosomikoen** fluoreszentziarekin egindako *in situ* hibridazioa, kasu edo teknika molekularren bidez aztertzen dute gero zientzialariek. Berria - Gaiak

Haziaren aldaketa genetiko horren ondorioz, anomalia **kromosomikoak** dituzten enbrioiak sortzen dira. Berria - Gaiak

## **kromoztatu** *izond* kromatua.

Sentsazio anitz biltzen dira horretan, hala ikusizkoak nola ukimenezkoak, nahiz usaimenezkoak nahiz dastamenezkoak, hasteko xigortzaile **kromoztatuaren** dirdira, gero zerrendak ebakitzen dituen labana, ogi xigortuaren usaina, [...]. Jon Alonso

## **kronika** 1 *iz* gertatze hurrenkeran kontatzen diren historia egitateen bilduma. ik **kondaira**.

Espainiako erresuma guztien **kronika** idatzi nahi luke, Adanengandik hasita. Akaziasen gainerako jardunak eta egin zuen guztia "Israelgo Erregeen **Kronika"** liburuan daude idatziak. Anjel Lertxundi

36ko gerraren **kronika** hurbil eta gordina egin zuen. Jokin Urain

**2** gertatze hurrenkeran azaltzen diren gertaeren kontakizuna.

Munduaren ikuskera aldarazi zuen bidaiaren **kronika** egin zuen Pigaffetak. Edorta Jimenez

Zaletasun baten **kronika,** sendiartearen historiari jarraitu dionaren **kronika**. Pako Aristi

Hilketaren **kronika** baino, hiltzaileen erretratu psikologiko miragarria. Iñigo Aranbarri

**3** egunkarietan, albiste bati edo albiste den zerbaiti buruzko artikulua.

Janbattitt Dirassarrek 1995ean argitaratu zuen *Hegiko Bordatik,* haurtzaroko **kronika**. Janbattitt Dirassar

**Kronikak** argazkia behar zuen, eta urkatua ehortzita zegoen. Iñigo Aranbarri

Egunkari honetan urriaren 21ean argitaratutako albistea da, Bilboko *Privee* dantzalekuan gertatukoaren **kronika**. Iñigo Aranbarri

Atalka argitaratutako **kronika** haiek, osatuta eta orraztuta, liburu euskarrian eskaintzen dizkizugu orain. Anjel Lertxundi

Begi horietan erraz irakur liteke bere minaren **kronika**. Pako Aristi

Susmo baten **kronika**. Anjel Lertxundi

"Intsumisoen" alde azaldu zen egunkariko bere asteko **kronikan**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Herrietako **kronikak:** Lapurdi. Herria

Idatzita daukat eguneko **kronika**. Edorta Jimenez

**Kronika** hau telefonoz ematen dudan bitartean. Edorta Jimenez

**4** (izenondoekin)

Berriako "Maratila" sailean, 2004tik geroztik, ostiralero **kronika** poetiko bat argitaratzen du. Ana Urkiza

2.098 karaktereko **kronika** sasi-literarioa, hilotzaren erreskatearen inguruko hileta-giro udatiarraz. Aingeru Epaltza

New Yorkeko **kronika** beltza. Gotzon Garate

Ea bihar zenbat gezur argitaratzen dituzun zure **kronika** merkean! Koldo Izagirre

Mende beteko **kronika** nobelatua: mende hasiera, gerra kontuak eta gerra osteko isiltasun urteak. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kronika** sail berri bat abiatzen dugu aste huntan. Herria

Baina hau **kronika** liburu bat da, ezin du horrela bukatu. Harkaitz Cano

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

XVI. mendeko autoreak idatzi zuen genealogia **kronika** ikertzen ari da Borja Aginagalde. Berria - Kultura

Lissagarayk idatzitakoa, berez, kazetari **kronika** bada ere, nobela hitza erabili zuen behin baino gehiagotan Ortzik, oharkabean, liburua aipatzeko. Berria - Kultura

Idazleak soldadu bihurtu ziren, eta gerla **kronikak** usu argitaratzen hasi ziren Jean Hiriart-Urrutik zuzentzen zuen Eskualduna astekarian. Iñigo Aranbarri

Neure bizitzan ez baitut kirol-**kronika** bat bakarra osorik irakurri, ez harena ez bertze inorena. Aingeru Epaltza

*Hierro* egunkarian boxeo **kronikak** idazten zituen laguna. Berria - Kultura

13:30: Bertso **kronika** trikitilariekin. Berria - Euskal Herria

Astekari batean telebista **kronikak** idaztea. Jose Angel Irigaray

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asteko kronika** (58); **bidaia baten kronika** (3); **erregeen kronika liburuan** (36); **erresumako kronika** (3); **garaiko kronika** (3); **gianoko jordanen kronika** (7); **hernaniko kronika** (3); **israelgo erregeen kronika** (19); **judako erregeen kronika** (15); **kronika beltza** (6); **kronika biltzen** (3); **kronika egin** (10); **kronika egiten** (5); **kronika idatzi** (5); **kronika idazteko** (3); **kronika liburua** (3); **kronika liburuan** (41); **new yorkeko kronika** (4)

**egindako kronikak** (3); **gerrako kronikak** (3); **herrietako kronikak** (3605); **kronikak bidaltzen** (3); **kronikak egiten** (3); **kronikak idatzi** (4); **kronikak idazten** (3)

**kronikan aipatu** (4); **kronikan idatzi** (3)

**kronikek diotenez** (4)

## **kronikagile** 1 *iz* kronikak idazten dituen pertsona. ik **kronikalari**.

Esteban Garibai arrasatear historialari eta **kronikagilea** Joan Perez Lazarragakoaren senide zen. Berria - Harian

Honako hau idatzi zuen Karmelo de Etxegarai, sasoi hartan euskal probintzietako **kronikagile** ofiziala zenak, bat-bateko bertsolaritzari buruz: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** egunkarietan-eta kronikak argitaratzen dituen berriemailea.

Gaztetan egunkari bateko **kronikagilea** nintzen eta egun osoa batetik bestera ibiltzen nintzen bizikletan, zer kontatua aurkitzeko. Koldo Biguri

*Euzkadi* egunkariko **kronikagile** bikaina. Pablo Sastre

Gurekin izanen dugu Xabier Barandiaran, soziologoa, EHUko irakaslea, baita BERRIAko eta Euskadi Irratiko **kronikagilea**. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Urteak dira pilota **kronikagile** batek esan zuela «pilotazaleek monumentu bat merezi dute». Berria - Kirola

## **kronikalari** *(orobat* ***kronikari)*** 1 *iz* kronikak idazten dituen pertsona. ik **kronista**.

Aleson **kronikariak** dioenez, Ana Belaskokoak aurre egin zien gaztelua eraistera zihoazen soldaduei. Martin Anso

**2** berriemailea.

Ameriketako euskaldunen bizimoduaren **kronikalaria** izan zen. Berria - Kultura

Egunsentiaren aurreko iluntasunaren **kronikalari** zintzo hau. Iñaki Mendiguren

Eta hala hasi da **kronikariarena** egiten. Jose Angel Irigaray

**3** (hitz elkartuetan)

Gizarte-albisteeen **kronikari** -lanpostu bat lortuko dit... Lopez de Arana

Egunkari- **kronikalari** batek istorio bat kokatzen du eta handik aurrera inork ere ez daki zein den egiazkoagoa: notarioaren deskribapena ala kronikalariak asmatutako pasadizoa. Koldo Biguri

**4** (izenondo gisa)

Goresmenak gure adiskide **kronikalariari** eta kuraia on Angelun daraman kargu berriarentzat Herria

---

**kronikaldi** *iz* kronika.

Huntan bururatzen da Euskal Argentina elkarteak antolatutako pidaiaren **kronikaldia** . Herria

---

kronikari ik **kronikalari**.

---

**kronikatu**, kronika(tu), kronikatzen du *ad* zerbait kronika gisa idatzi.

Telebistaren inguruko giroan ibilki -nahiz kitzikatzen, **kronikatzen** edota lotan izan-. Jose Angel Irigaray

---

**kronikatxo** *iz adkor* kronika.

Berriz hasiko dut ene **kronikatxo** hau bahituak aipatuz. Herria

Bururatzen dut **kronikatxo** hau frantses kasetariak askatuak direlakotz. Herria

---

**kroniko** **1** *izond* eritasunez mintzatuz, aspalditik dirauena.

Milioika lagunek dute giharretako edo hezurretako min **kronikoren** bat. Berria - Gaiak

Psoriasia dermatosi **kronikoa** da. Berria - Gaiak

Horietako batzuk larridura eta depresioak joak ziren, beste batzuk eskizofreniko **kronikoak** . Xabier Olarra

Teresaren eta Martinen aitak gaitzen bat zeukan begietan, konjuntibitis **kronikoa** -edo, eta gorrituta edukitzen zituen beti. Bernardo Atxaga

Izatez, nahiko birus berezia da, eragiten duen infekzioa **kronikoa** eta iraunkorra bilakatzen delako, arintzen ez dena. Berria - Euskal Herria

-Gibeleko gaixotasun bat du, **kronikoa,** larria [...]; hidropesia gernu-debekuarekin okertu da orain. Josu Zabaleta

Minbizia gaixotasun **kroniko** bihurtzea da gure helburua. Berria - Gaiak

**2** eritasun kronikoari dagokiona.

Kontuan izan behar dugu gaixotasun kronikoak direla hauek, eta beraz, tratamendu **kronikoa** eskatzen dutela. Berria - Gaiak

Hainbat gaixoren egoera **kroniko** bihurtzeko arriskua ere badago. Berria - Euskal Herria

**3** eritasun kroniko bat duena.

Agertzekotan, bihotzeko eri **kronikoetan** agertzen dira arazoak, itxura denez. Berria - Gaiak

Williamsbridgen hartu zuten, gaixo **kronikoentzako** erietxe batean. Xabier Olarra

Adinekoei, elbarriei, gaixo **kronikoei..** . Berria - Euskal Herria

Diabetiko **kronikoa** da, eta azken urteotan mediku kontrol urriak salatzen ari da epailearen aitzinean. Berria - Mundua

**4** aspalditik dirauena.

Ebakuntzetan eta transfusioetan erabiltzeko odolaren falta arazo **kroniko** larria delako mundu osoko erietxeetan. Berria - Gaiak

Sumina eta haserrea **kronikoak** bihurtuak ziren Andresengan. Josu Zabaleta

Azken urteotan zehar gose **kronikoan** bizi den pertsona kopuruak gorantz egin baitu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gatibu **kronikoaren** bakarrizketa. Berria - Kultura

Euskaldunok geure gorabeherez izan dugun utzikeria **kronikoaz** . Anjel Lertxundi

Kapitalen mugimenduen nazioarteko erregulaziorik gabe, diru-egongaiztasun **kronikoa** sortzen da finantza-globalizazioak munduko hazkundeari ekarri dion dinamismoaren ordainetan. Koro Navarro

Industri gerra **kronikoak** . Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arazo kroniko** (4); **gaitz kroniko** (3); **gaixotasun kroniko** (13)
>
> **arazo kronikoa** (5); **bihotzerre kronikoa** (3); **bizkarreko min kronikoa** (4); **diabetes kronikoa** (3); **diabetiko kronikoa** (3); **diabetiko kronikoa da** (3); **gaitz kronikoa** (3); **gaixotasun kronikoa** (7); **gaixotasun kronikoa da** (3); **min kronikoa** (8)
>
> **gaitz kronikoak** (3); **gaixotasun kronikoak** (7)
>
> **gaixo kronikoen** (3)
>
> **gaixo kronikoentzako** (5)

---

**kronikoki** *adlag* aspaldidanik.

Kontuan izanda musulman eta kristauak ofizialki "sinesgabeak" zirela batzuk besteentzat, eta fanatikoki esklusibistak ziren bi erlijio judaiko horien aldekoak **kronikoki** gerran zeudela, miragarria gerta dakiguke borrokalari haiek elkarrenganako sentitu zuten begirune-maila. Iñaki Mendiguren

---

**kronista** **1** *iz* kronikalaria.

Felipe IIak bibliotekari eta **kronista** izendatu du arrasatearra. Anjel Lertxundi

Hiriaren **kronista** ofiziala izan zenak, Jose Maria Donostyk, hau idatzi zuen: [...]. Askoren artean

Biografo eta **kronisten** lekukotasunez dakigu [...] Frantzisko Asisko San Jorge Elizako kalonjeen eskolan ibili zela. Askoren artean

Bertsolaria da gertaera horien **kronista** eta gizartearen ahotsa. Pako Aristi

**2** egunkarietan, albiste diren kontuei buruz artikuluak argitaratzen dituen idazlea.

*Correo*ko **kronistari** besterik ez diotela deitzen zerbaiten berri emateko... Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kronista ofiziala** (3)

---

## krono **1** *iz* kronometroa.

Oinutsik aritu zen, bi anaia izan zituelarik laguntzen: Joxerramon **kronoarekin** eta Imanol harria jartzen. Berria - Kirola

**2** *krono igoera* ik **kronoigoera**.

---

## kronograma *iz* denbora ardatz duen diagrama.

Berak **kronograma** deitzen dion azterketa egin du. Berria - Euskal Herria

Ardatz estrategikoak finkatu eta bakoitzari dagozkion neurriak zehaztu behar direla dio Konfederazioak, horiek guztiak **kronograma** baten barnean kokatuta. Berria - Euskal Herria

**Kronograma** erabakitzearekin batera, atzoko bilerak KGNZren zuzendaritzan izango den aldaketa azaldu zuen. Berria - Kultura

---

## kronohistorialari *iz*

Ordu ezkero denbora-zuloak sortzeko gaitasuna izan duten gizon-emakume gehiago identifikatu dituzte bai Kronopoliziak, bai **kronohistorialariek** . Iban Zaldua

---

## kronoigoera *(orobat **krono igoera** g.er.)* *iz* txirrindulari proba batean, erlojupeko igoera.

Ibilbidea erakargarria da, mendate ezezagun eta gogorrekin; Sierra Nevadako **kronoigoera** da berrikuntza. Berria - Kirola

Txirrindulariek 29,6 kilometroko **kronoigoerari** egin beharko diote aurre, Sierra Nevadako aldapetan. Berria - Kirola

1.57 kendu zion Mont-Ventouxeko **kronoigoeran,** eta hango errekorra minutu batean ondu. Berria - Kirola

Asteartean, Alpe d'Huezeko **krono** igoeraren bezperan, hain zuzen, txirrindulariek Valreas eta Villard de Lans uztartuko dituen etapa bete beharko dute. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **d huezeko kronoigoera** (4); **kilometroko kronoigoera** (3); **sierra nevadako kronoigoera** (5); **ventouxeko kronoigoera** (3).

---

## kronoikertzaile *iz*

Izan ere, jauzi bakarra ziurtatu dute **kronoikertzaileek,** Joseba B.ren etorkizuneko etxera egin zuen hura, eta zalantzak daude XXII. mendeko Erromara egin bide zuen beste bati buruz Iban Zaldua

---

## kronologia *(orobat **kronolojia** g.er.)* **1** *iz* gertaeren hurrenkera, denboraren araberakoa.

Ordenari dagokionez, **kronologia** hartu da irizpidetzat. Koro Navarro

Bere arrazoibideetan, **kronologia** bortxatzen ari zen Ruche jauna. Jon Muñoz

Barne-kritikaren bitartez, zehaztasun handi samarrez finka daiteke zenbait zati eta atalbururen **kronologia** . Askoren artean

Japoniako filmen **kronologia** osoa. Berria - Kultura

Gatazkaren testuingurua eta **kronologia** idatzi dituzte lehenengoan. Berria - Euskal Herria

Ez litzateke ezinezkoa izango gauzak nola gertatu ziren zehatz-mehatz adieraztea, **kronologia** deitzen den hori eskrupulosoki errespetatuz. Karlos Linazasoro

Euren **kronologia,** izan ere, ez da ez erregularra, ez homogeneoa. Xabier Arregi

Mielanjel Haranak emandako agiriei esker egin genezake Jazinto Rivasen lehen urteen **kronologia** bat. Koldo Izagirre

Etengabeko orainaldi batean bezala irristatzen ari garen **kronologia** bat. Josu Zabaleta

**Kronologiaren** arabera sailkatu. Joxan Elosegi

**Kronolojiarik** gabeko existentzian, beraz, dena espazioa dukezu. Jose Angel Irigaray

**2** historia gertaeren datak zehaztea helburutzat duen jakintza.

Historiografia **Kronologia** bihurtzea. Askoren artean

Zer esango litzateke honetaz, **kronologiak** munduaren garaiak lehen mendeetan eta ondorengo mendeetan banatuz soilik ezaugarritu balitu? Ibon Uribarri

**3** aldiak kontatzeko era.

Astronomia, kosmogonia, **kronologia,** biologia, fisika, psikologia... txandaka guztiak hartu eta berregin ziren erlijio-irakaspen ezarriarekin bateraezinak ziren bideetatik, eta galera horiei bukaerarik ez zitzaien ikusten. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **kronologi**) ik **kronologiko**.

**Kronologi** magnitudeen azterketa mentalean azken etapatik hurbil, eguzkiaren eta "izar finkoetako" bakar baten itxurazko mugimenduen arteko kointzidentzia errepikatuen neurri komun txikienak 1.460 urteko "ziklo sotiko" egipziakoa sortu zuen, eta eguzkiaren, ilargiaren eta bost planeten ziklo komun errepikatuak 432.000 urteko *Magnus Annus* babilonikoa. Iñaki Mendiguren

*The modern fiction* saiakeran ohiko narratibak dakarren egitura eta **kronologia** loturetatik askatzeko oinarriak finkatu zituen. Berria - Kultura

---

## kronologiko **1** *izond* kronologiarena, kronologiari dagokiona.

Informazioari dagokionez, plan sistematikoa jarraitzen du, ordena **kronologikoari** lotuz. Askoren artean

Foto bat, eta beste bat, eta beste bat; hurrenkera **kronologikoan,** itxura denez. Txillardegi

Literatura denboraren nahaste bat da, denbora **kronologikoaren** pertsonalizazio bat. Pako Aristi

Gertakizun literarioko etapen antolamendu **kronologikoa** . Anjel Lertxundi

Alderdi formalari dagokionez, «fragmentazioa» bilatu eta landu du bereziki Rozasek, hala denboraren hari **kronologikoaren** nola esaldien hari logikoen fragmentazioa. Berria - Kultura

Astronomo hasiberriak kontuan hartzen hasi ziren ez eguzkia eta ilargiaren mugimendu ziklikoak bakarrik, baita planeta eta izar "finkoenak" ere, eta haien horizonte

**kronologikoa** adierazterraza ez den eta imajinatzen are zailagoa den distantziaraino iritsi zen. Iñaki Mendiguren

**2**

"Barruan" prestatutako bidaia anti-**kronologikoan,** hauxe zen lehenengo urratsa. Txillardegi

Eta orain, hain zuzen, gartzelaldiak iradokitako bidaia kontra-**kronologiko** bitxi honetan ibiltari, hara nahi nuen bihurtu. bi planoren arteko bitartea izan daiteke, haren iritzian, erabat a-**kronologikoa**. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hurrenkera kronologikoan** (3); **ordena kronologikoan** (4)
> **ordena kronologikoari** (4)

---

## kronologikoki *adlag* hurrenkera kronologikoan.

Orain, irudiak **kronologikoki** ordenatu behar dira. Joseba Sarrionandia

Nobela **kronologikoki** kontaturik dago. Berria - Kultura

Zazpi ipuin ziren osotara, kontakizunaren ikuspegitik begiratuta **kronologikoki** antolatuak. Aingeru Epaltza

Marilynen azken arrats apaleko gertakariak, **kronologikoki** eta mentalki zerrendatzen nituen: [...]. Itxaro Borda

Eta horrela, azkena izan behar zuena lehenengo atera zen **kronologikoki**. Gainera, **kronologikoki** hiru aldi horiek zibilizazio zaharraren desintegrazio-aldiarekin, interregnoarekin eta zibilizazio berriaren sorraldiarekin pareka daitezke gutxi gorabehera. Esteban Antxustegi

---

## kronologista *iz* kronologiaz aritzen den pertsona.

Are gutxiago mundua K.a. 3761. urteko urriaren 7an egina izan zela esateko (juduek zioten bezala) [...], edo K.a. 4004ko urriaren 23ko bezperan, arratsaldeko 6etan (hamazazpigarren mendeko **kronologista** anglo-irlandarra izan zen Ussher artzapezpikuak zioen bezala). Iñaki Mendiguren

---

## kronolojia ik **kronologia**.

---

## kronometratu, kronometra, kronometratzen **1** du *ad* denbora kronometroaz neurtu.

Hori norberaren lokartze unea zehazki **kronometratu** nahi izatea litzateke. Markos Zapiain

Orain, irakurle, **kronometratu** ezazu gertatutakoa erlojuarekin. Julen Gabiria

**2** (era burutua izenondo gisa)

22 eremu **kronometratu** jokatu dituzte: gaur bat, zortzi bihar, zazpi etzi eta sei igandean. Berria - Kirola

---

## kronometratzaile *iz* kronometratzen duen pertsona.

Batzuek lepotik zintzilik eta eskuan helduta, ordulari moduko bat zeramaten, **kronometratzaileak** ziren. Jon Maia

---

## kronometratze *iz* denbora kronometroaz neurtzea.

Ekin zion sermoiari, amonak bere hatz erakusleaz erlojuaren orratzak seinalatzen zituen bitartean eta niri zeharka so egiten, nire lekukotasuna bere **kronometratze**-lanaren bermetzat baleuka bezala. Joan Mari Irigoien

---

## kronometriko *izond* kronometroarena, kronometroari dagokiona.

Normala denez, ezagun guztien galdea egin nuen eta, azkenik, "Funes **kronometriko"** harena. Juan Garzia

Nobela hau, bada, bere laburtxotasun fisiko-**kronometrikoari** esker, denborapasagarritasunezko funtzio gaizto horretatik libre gelditzen da. Iñaki Segurola

---

## kronometrista *iz* kirol lehiaketa batzuetan, denborak kronometratzen dituen pertsona.

Lehenengo **kronometristek** laster aurkitu zuten ziklo horien arteko ratioak ez direla zatiki hutsak, irrazionalak baizik. Iñaki Mendiguren

---

## kronometro *iz* zehaztasun handiko erlojua.

Andereñoak **kronometroa** gelditzen du eta begien aurrean jartzen dit. Anjel Lertxundi

Lan erdiak bukatuta, 13:20ko denbora markatzen zien **kronometroak**. Berria - Kirola

Hogeita bat segundo eta hogeita hamabi ehunen, bere kirol-erlojuko **kronometroan**. Aingeru Epaltza

Orotara 350 kilometro, **kronometroak** neurtu zituenak. Berria - Kirola

**Kronometroaren** zehaztasunarekin, hamabietan, hiruretan eta seietan esnatzen zen, besoei hegoak balira bezala eragiten zien eta oilarraren kantua jotzen zuen, lo zeudenak esnatuz. Jose Morales

---

## kronopio *iz* J. Cortázar-ek asmaturiko izakia.

**Kronopioa,** Julio Cortazarren iruditerian, jaiaren eta artearen izakia zen. Berria - Kultura

Kanpoan geratuetako batzuek, ekitaldia bukatzean, txartel inprobisatu handiak erakutsi zituzten: **«Kronopioak** kanpoan gaude, barruko guztiak famak dira». Berria - Kultura

Irudiez eta **kronopioez**. Berria - Kultura

---

## kronopolizia *iz*

Kasua famatua da Europako **Kronopoliziaren** analetan, gainera, aspaldiko hipotesia konfirmatu zuen aurrenekoa izan zelako: denbora-zuloak eratzeko makineria asmatu aurretik gizaki batzuek denbora-jauziak egiteko ahalmen ezkutua garatu zutela. Iban Zaldua

Ordu ezkero denbora-zuloak sortzeko gaitasuna izan duten gizon-emakume gehiago identifikatu dituzte bai **Kronopoliziak,** bai kronohistorialariek; horietako batzuk pertsonaia famatuak izatera heldu ziren (Arkimedes, Leonardo da Vinci, Elvis Presley...), baina gehienak gaizkile arruntak edo, kasurik hoberenean, kronoturista soilak izan ziren. Iban Zaldua

Gure hiriko **kronopolizia** izan zen, hain zuzen ere, kasuaren ebazpena lortu zuena; agente berrien lehenengo ekintzetako bat izan zen. Iban Zaldua

---

**kronoturista** *iz* denboran zehar bidaiatzen den pertsona.

Ordu ezkero denbora-zuloak sortzeko gaitasuna izan duten gizon-emakume gehiago identifikatu dituzte bai Kronopoliziak, bai kronohistorialariek; horietako batzuk pertsonaia famatuak izatera heldu ziren (Arkimedes, Leonardo da Vinci, Elvis Presley...), baina gehienak gaizkile arruntak edo, kasurik hoberenean, **kronoturista** soilak izan ziren. Iban Zaldua

---

**kronoune** *iz* denbora unea.

Argi dago, ordea, Joseba B. hil egin zuela, "Bosgarren postaria" ipuinaren bertsioetako bat -edo bat baino gehiago- eraman zuela haren etxetik, eta gero iraganera itzuli zela, bere ipuin liburua argitaratu baino lehenagoko **kronouneren** batera. Iban Zaldua

Garai hartako poliziak, jakina, susmoak izan zituen Sobrinoz, baina Joseba B.ren etxeko arrastoak ez ziren eztabaidaezinak, eta hilketaren **kronouneko** Sobrino zaharrak koartada ezin hobea zuen. Iban Zaldua

---

**kros** *(orobat* ***kross*** *g.er.)* **1** *iz* landan zeharko oinezko lasterketa.

Gizonezkoen **kros** motza (lau km) bihar jokatuko da, 13:30ean, eta emakumezkoen **kros** luzea (8 km), 14:10ean. Berria - Kirola

Azken urteetan ohi denez, Joseba Jakaren oroimenezko **kros** herrikoia egin zen Durangon atzo. Berria - Kirola

Hamaika **kros** irabazi ditu azken urteetan. Berria - Kirola

Lebid ez da Donostiako **Krosean** ariko. Berria - Kirola

Antiguako **Kroseko** antolatzaileek. Berria - Kirola

Maratoia prestatzen hasi aurretiko azken **krosa** zuen Zianik. Berria - Kirola

Pistan ez ezik, **krosean** ere bikain moldatzen da. Berria - Kirola

Igandean, Errege Eguneko **Krosa** jokatu eta bi egunera, Zornotzako Nazioarteko **Krosa** jokatzen da. Berria - Kirola

• **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskal Herriko **kros** denboraldiko laugarren hitzordu nagusia da Donostiakoa. **Kros** laburreko Euskadiko **Kros** txapelketa ere jokatuko da gaur.

Bruselako Munduko **Kros** Txapelketetan. Berria - Kirola

Lebid 2000. urtean izan zen Zornotzan txapeldun; eta aurten, laugarrengoz, Europako **Kross** txapelduna izatea lortu du. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nazioarteko ziklo-krosak [...] eta herri-**krosak** ukan dute arrakasta gaitza, lehen asteburuan. Herria

**4** ***ziklo-kros***

Ziklo-**kros** proba jokatuko da igandean. Berria - Kirola

Errepideko lasterketak eta ziklo-**kros** lasterketak korritu zituen. Berria - Kirola

Asteasuko Nazioarteko Ziklo-**krossa** irabazteko faborito nagusia. Berria - Kirola

Azaroaren 7an hasiko da Euskal Herriko ziklo-**kros** denboraldia, eta 19 proba jokatuko dituzte.

Espainiako ziklo-**kros** selekzioko Francisco Pla hautatzaileak David Seco eta Eder Barrenetxea deitu ditu Munduko Ziklo-**kros** txapelketa korritzeko. Berria - Kirola

Hegoaldean, gaitzeko lehiaketak muntatzen dira ziklo-**kros** kirol berezian. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**emakumezkoen kros** (5); **emakumezkoen kros luzea** (3); **espainiako kros** (9); **espainiako kros txapelketa** (3); **espainiako ziklo kros** (5); **europako kros** (10); **europako kros txapelketa** (3); **europako kros txapelketan** (3); **euskadiko kros** (10); **euskadiko kros txapelketan** (4); **euskal herriko kros** (4); **gizonezkoen kros** (5); **kros denboraldiko** (5); **kros laburreko** (3); **kros luzea** (5); **kros luzeko** (4); **kros motza** (6); **kros txapelduna** (6); **kros txapelketa** (14); **kros txapelketak** (6); **kros txapelketako** (5); **kros txapelketan** (22); **munduko kros txapelketan** (10); **ziklo kros** (23); **ziklo kros txapelketa** (4); **ziklo kros txapelketan** (3)

**donostiako krosa** (4); **errege eguneko krosa** (7); **krosa ikusteko** (3); **krosa irabazi** (3); **krosa jokatuko da** (4); **laudioko nazioarteko krosa** (3); **nazioarteko krosa** (17); **ziklo krosa** (31); **zornotzako nazioarteko krosa** (4)

**ziklo krosak** (3)

**ziklo krosaren** (5)

**donostiako krosean** (4); **elgoibarko krosean** (3); **errege eguneko krosean** (5); **italicako krosean** (3); **krosean ariko** (3); **nazioarteko krosean** (6); **ziklo krosean** (5)

**donostiako kroseko** (4); **kroseko antolatzaileek** (6); **nazioarteko kroseko** (3); **ziklo kroseko** (7)

---

**kroska**[1] *iz* puntua, egoera, heina.

Zeren mundua egin eta desegin eta mila aldiz alda baitzitekeen, baina ama beti egoiten zen bere lekuan eta bere **kroskan,** kantitu ere gabe. Joan Mari Irigoien

---

**kroska**[2] *izond*

Marchepiede, arriskurik ez dut hau orain esanda, abortuaren eguneko **ero kroska** erresumindu hura zen, eroetxetik atera nuen tipoa hain zuzen ere. Joxan Elosegi

**Ero kroska** haiekin behin eta berriro egonda, Jainkoaren zigorraren aurrean ez ote nengoen galdetu nion neure buruari. Joxan Elosegi

---

kroska[3] ik **krosko.**

---

**kroskarin** *izond* kaskarina.

kalesa beltzeko gizon **kroskarin** hari dirurik ateratzeko esperantzaz-. Anjel Lertxundi

---

**krosko** *(orobat* ***kroska*** *g.er.)* **1** *iz* ontziaren gorputza, aparailua eta makineria dauzkana.

Bideko portuetan aingura boteaz, atseden hartzeko, ontzi-bizkarra garbitzeko, ustel usaina kentzeko, **kroskoa** pintatzeko. Felipe Juaristi

Izan ere, **kroskoa** Txinan soldatu zuten lehenago, eta «metalezko xaflak ondo batu gabe» zituelako susmoa du Alcedok. Berria - Euskal Herria

**Krosko** bakarreko ontzien ordezkapenak, gasontzien eskari indartsuak eta itsasoko autobideek sektorea suspertuko dutela aurreratu zuen. *ik* kroskobakar. Berria - Ekonomia

Branka alboetako **kroskoa** zeharo herdoilduta zegoen. Joseba Sarrionandia

Kafe eta goroldio koloreko urak ontziaren **kroskoa** plisti plasta jo eta emeki kulunkatzen gaitu portu barruan. Joseba Sarrionandia

Sei egunez ekaitzaren erdian, zulo handi bat **kroskan,** motorrik gabe eta atoian. Berria - Euskal Herria

Ondorioz, **kroskoa** zartatu eta 40.000 tona fuel-olio isuri zituen itsasora. Berria - Gaiak

**2** irud/hed

Landetxearen **kroskoa** handia zen eta apur bat utzia; kapatazak -Gutre zuen izena- aldamenean zuen bizilekua. Juan Garzia

Bai horixe, mamu gaixoa: oroimenak lekurik dueno buru-**krosko** nahasi honetan. Juan Garzia

**3** ***krosko bikoitz*** bi geruzak osatzen duten kroskoa.

Irakaslearen ustez, **krosko bikoitza** eraman beharko lukete petrolioa garraiatu behar duten itsasontziek. Berria - Euskal Herria

Nolanahi ere, **krosko** bikoitza du ontziak, eta nahiko berria da. Berria - Gaiak

**4** ***ontzi-krosko***

Helize-enborra ontzi-**kroskotik** ateratzen den gunean. Joxe Austin Arrieta

Ontzi **kroskoaren** barandak hausten hasi ziren, eta berehala zorua urez gainezka geneukan. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **krosko bikoitza** (3).

---

**kroskobakar** *izond* ontziez mintzatuz, krosko bikoitza ez duena.

2010a baino lehen 2.200 ontzi **kroskobakar** desegiteko agindu du Nazioarteko Itsas Erakundeak. Berria - Gaiak

---

**kroslari** **1** *iz* kros-lasterkaria.

Sona handiko izenak bai, baina, bertako emakumezko **kroslari** onentsuena, onena ez bada, ez da Zornotzan izango. Berria - Kirola

**2** ***ziklo-kroslari*** *iz* ziklo-kroseko lasterkaria.

Joserramon Izagirre ziklo-**kroslari** ohiaren seme zaharrena da. Berria - Kirola

Hogeita zazpi euskal ziklo-**kroslari** ariko dira gaur eta bihar Espainiako Txapelketan.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ziklo kroslari** (4)

---

kross ik **kros**.

---

**krotxet** *iz* boxeoan, kakoa.

-Hauxe duzue nik erabiltzen nuen *uppercut* sendoa -entzun dio Joxanek oraindik ate aldetik begira-, eta beste hau orain urte asko erraz ikusten zen **krotxeta** . Paddy Rekalde

Txandaka irudikatzen zituen balizko arerioaren gorputz atalak zaku zigortuan, hara hor eskumako masailean **krotxeta,** to oraingoan ezker gantxoa birikaren azpiko saihetsean, eta bat-biko azkarra gibelean, batez ere sabelean, ezker-eskuma andana. Josu Landa

---

**kruasan** *(**45** agerraldi, **19** liburu eta **3** artikulutan; orobat **kroasan** g.er.)* **1** *iz* hilgoraren itxurako esne opila. ik **croissant**.

Kafesne bana eta hiru **kruasan** bion artean. Juan Luis Zabala

Haiek hoteleko tabernan, kafea eta **kruasanak** edo pastak edo ensaimadak hartzen. Iban Zaldua

-Ondo jatea komeni zaizu, Fermintxo, donuts bana eta **kruasan** bat erdibana eskatuko ditut kafesnearekin, bale? Pako Aristi

Mirentxu panpoxa-panpoxa azaldu zen, **kruasan** egin berriekin. Joxean Sagaztizabal

Artistek arestian utzitako mahaian zegoen **kruasanen** plateraren bila joan zen. Monika Etxebarria

Isildu zen, berriro **kruasana** busti eta, ore beratua txupatuz, esan zuen-: [...]. Matías Múgica

**2** (hitz elkartuetan lehen osgai gisa)

**Kruasan** zatiak kafesnetan bustiz. Joxean Agirre

-Tira, amaitu ezak **kruasan** mutur hori! Pako Aristi

-Vienako okin batek asmatu zituen **kruasan** opiltxoak, austriarrek turkoen kontra irabazitako bataila bat ospatzeko. Anjel Lertxundi

---

**krubitxet** *(orobat **krubitxeta**)* *iz* hil mihisea.

Hala, Europa hegoaldean hainbat mamu izaretan bilduta azaltzearen arrazoia, hildakoak **krubitxetan** bildurik lurperatzeko ohituran kokatu behar da dudarik gabe. Bernardo Atxaga

Eta ohea, hau da, ke koloreko jergoi baten eta koltxa gorrixka baten milaka pleguek zimur egiten zuten **krubitxet** gisako bat. Koldo Izagirre

---

**krudel** *(**388** agerraldi, **92** liburu eta **94** artikulutan; orobat **kruel** g.er.; cf. **anker** **607** agerraldi, **131** liburu eta **94** artikulutan)* **1** *izond* ankerra.

Itun Zaharreko Jainko **krudel** hura fetixe idolatra odolzale bat besterik ez zen. Joseba Zulaika

Beste garai batzuk ziren haiek, Isaaken pare Aita **krudel** eroaren labanaren pean dena eman zitekeenean, sakrifizioaren egia purua goza zitekeenean. Joseba Zulaika

Errege **krudel** eta odol-gose baten eraso gogorretatik babestearren. Felipe Juaristi

Etsai **krudel** baten aurka borrokatzen dugu. Berria - Mundua

**2** (gauzez mintzatuz)

Irailaren 11ko atentatu **krudel** horiek. Iñaki Heras

Hamabi urte dira gerra ikaragarri zikin, **krudel** eta zentzugabe bat hasi zela. Fernando Rey

Ez al zen errazago beste norbaitek eginbehar **krudel** hura betetzea? Aritz Gorrotxategi

Baina arauak ankerrak dira, zitalak, **krudelak**. Luis Elberdin

Inoiz lekurik izan badut hire bihotzean, uko egiok oraingoz zorionari, eta mundu **krudel** honetan hadi oinazean bizi, ene historia kontatzeko. Juan Garzia

Patuaren atzapar **krudeletan** erori aurretik. Imanol Zurutuza

Hitz **krudelak** esaten zituen bere mingain gaizki heziarekin. Karlos Zabala

Argentinako krisia muturreko ekonomia politika neoliberalek, eta bereziki, diru politika **krudelek** sortzen dutenaren ondorio izan da. Iñaki Heras

"Hola ez!" idor **krudel** hark eraman ninduen zentzatu beharrera. Txillardegi

**3** (adizlagun gisa)

Abereek ez dutela inoiz horren **krudel** jokatzen pentsatu omen zuen senarrak oharra irakurri zuenean. Joxean Agirre

Neska txarrekin ibiltzeagatik hain **krudel** jokatzen zuen jendeak zer ez ote zuen egingo Jeronimoren benetako sekretua ezagutu izan balu! Anjel Lertxundi

Beldurrak oinazetua, susmo bidegabeen eta egiarik krudelenaren artean **krudel** hertsatua, ezein pentsamendutan ezin bara ninteke. Jon Muñoz

• **4** (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa) krudeltasuna.

Gertatzen dena da hilda agertzen den presoak espetxearen **krudela** salatzen duen bezala salatzen duela lintxatuak justizia jauregia ez ezik beroaren logika bera ere. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ankerra eta krudela** (3); **krudela izan** (12); **oso krudela** (6); **politika krudela** (3); **tratu krudela** (4); **zigor krudela** (3)
> **tratu krudelak** (5)

---

## krudelarazi, krudelaraz, krudelarazten du *ad* krudel bihurrarazi.

Bakoitzak bere baitan bazeramala larritasun bat, bere gogoaz bestera, bizitza etengabe alatzen eta auhen mingotsetan **krudelarazten** ziona. Xabier Amuriza

---

## krudelitate *iz* krudeltasuna.

Nago lagun zenbaiten fedea ez den ororen buru tema soil bat, ingurumen sinesgaitz izigarriak harkaitz bihurtua, orduan sinesmena **krudelitate** bilakatzen baita. Piarres Aintziart

---

## krudelkeria *iz* krudeltasun gaitzesgarria, ankerkeria.

Torturak ez ahazteko, etsaiaren **krudelkeriaz** gogoeta egiteko... Hasier Etxeberria

Orain dela oso gutxi arte ez da izan lurrean **krudelkeriarik** gabeko jairik. Markos Zapiain

Gerran **krudelkeriak** ez baitu mugarik. Berria - Harian

Ivan Ogareffek **krudelkeria** handia egin berri zuen zergatiko gabe. Karlos Zabala

Kosakoek **krudelkeria** izugarriaz eraso zieten juduei. Koro Navarro

Chmielnitzki eta Gontaren soldaduen **krudelkeriak** ere ikusi zituen. Koro Navarro

Izan adeitsu nirekin, ez nazazu **krudelkeriaz** har... Patxi Zubizarreta

Erabateko zintzotasunak **krudelkeria** puntu bat izan dezakeen arren. Xabier Mendiguren Elizegi

Txapelketaren **krudelkeriak** ez ditu txapeldun ohiak ere errespetatzen, eta atzo Barriolak beste porrot garratz bat izan zuen. Berria - Kirola

---

## krudelki *adlag* ankerkeriaz, ankerki.

Duela hiru urte, andrearen heriotzak **krudelki** jo zuen. Herria

Ireki nuen bada gutunazala, eta nire susmo txar guztiak hantxe zeuden, **krudelki** egiaztaturik, gordinki haragiztaturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Jende errugabea eramaten du ziegetara han galdeketa bortitzak egitearren, **krudelki** tratatzen du **krudelki** trata daitekeen guztia. Bernardo Atxaga

Bizitzak **krudelki** erabili dituenez, berak ere krudelak izango dira beren buruarekin, beren alde bizi eta naturalarekin. Markos Zapiain

Rieti probintzian, izurrite oso larria zabaldu zen, behi- eta ardi-azienda guztiak **krudelki** garbitzen ari zena, eta ez zen erremediorik ikusten. Askoren artean

Argi eta garbi azaldu duzu oraintxe nire pentsamendua **krudelki** torturatzen duen zalantza. Imanol Unzurrunzaga

---

## krudelkiro *adlag* ankerki.

Gizarte modernoa, izatez, gizakia bera **krudelkiro** aberetzeko asmatu den makineria gero eta itsuagoa besterik ez baita. Patziku Perurena

---

## krudeltasun *iz* krudela denaren nolakotasuna, ankertasuna.

Baina Gorrotoa nagusitzen bada, bera maite duenari kalte egitera lehiatuko da; afektu hori **Krudeltasuna** deitzen da. Piarres Xarriton

**Krudeltasunari** Bihozberatasuna kontrajartzen zaio, eta hau ez da pasio bat, Izpirituaren ahalmen bat baizik, gizakiaren Hira eta Mendekua jabaltzen dituena. Piarres Xarriton

Asmo beteko **krudeltasunak** ez du barkamenik. Xabier Paya

Uste du eginbidearengatik **krudeltasuna** eskatzen zaion jendeari [...] oskola hazten zaiola arimaren gainean. Oskar Arana

Baina hala ere bazegoen egitate hartan **krudeltasun** harro bat, tronpatuaren mindurak desenkusatzen ez zuen ardoaz barnagoko zabarkeria anker bat. Koldo Izagirre

Hauek Jainkoaren zerbitzarien gainera oldartu ziren arrapaladan, otsoak ardien gainera bezala, ankerki harrapatu eta **krudeltasunez** eta mespretxuz erabili zituzten. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **krudeltasun mota** (4)

---

## kruel ik **krudel**.

---

**kruspeta** *iz ipar* gari irin, arrautza, esne eta azukre izpi batez egindako orea koipetan frijituz egiten den opil modukoa. ik **kausera**.

Goizetik: Seaskak agertuko ditu **kruspetak** ahotik ezin utziak. Herria

---

**krustazeo** *iz* animalia artropodo errulea, gorputza bina luzakin dituzten segmentuez osatua duena, buru gainean bi antena dituena, zakatz bidez arnasa hartzen duena eta oskola duena. ik **oskoldun**.

'Otarrain iletsua' aurkitu dute biologoek [...] **krustazeo** espezie berria topatu dute Ozeano Barean. Berria - Gaiak

*Kiwa hirsuta* jarri diote izena [...], eta familia bat asmatu behar izan dute espeziea sailkatzeko, halako beste **krustazeorik** ez dagoelako [Izkira] **krustazeo** txikia, otarrainaren oso antzekoa, baina digeritzeko ez hain zaila. Xabier Olarra

---

**kruzado** *iz* Gaztelako txanpona, araztasun apaleko zilarrezkoa, marabedi baten balioa zuena.

Galdu bainituen, jakina, eta galtzen oraino urtekal, bost ehun dukat edo zilarrezko **kruzado** . Piarres Xarriton

---

kruzatu ik **gurutzatu**[1].

---

**kruze** *iz* bidegurutzea.

**Kruzera** ailegatzean, semaforo gorria: hargatik ikusi zuen pasteleria irekita zegoela. Pablo Sastre

---

**kruzeiro** *iz* Brasilgo diru unitatea.

Janzteko eragatik portugaldarra behar zuen gidari malenkoniatsu batek ez zuen hitzik egiten: patrikan zeramatzan **kruzeiroek** zenbat florin egingo zuten ariko zen. Anjel Lertxundi

---

**kruzero** **1** *iz* itsas bidaia.

Mario, bere **kruzero** haietako batean, Iparreko Itsasoan bainatu zen ontziko sukaldariarekin, eta gainerako bidaiariek, zubitik begira, txalo egin zieten. Fernando Rey

Eta hor jarraituko dute Ezdakitnongo dendetan saltzen dituzten alfonbra dotoreei buruz, oporretan egindako **kruzeroari** buruz. Joseba Sarrionandia

Eguberriko ospakizunei izkin egitea erabakitzen du, dirua **kruzero** batean berekoiki xahutzeko asmoz. Berria - Kultura

**2** gurutzeontzia.

XIX. mende akaberan, Cadiz aldeko ekaitzaldi izugarrian, *Reina Regente* **kruzeroa** tripulazio osoarekin desagertua. Pello Zabala

**3** elizetan, gurutzedura. ik **gurutzeria**.

Kuadrilatero eder bat da, **kruzeroek** hamalaugarren mendeko leihaje aberats eta sendoak marrazten dituzten ojiba handiz inguratua. Koldo Izagirre

---

**kruzial** *iz* erabakigarria.

Zapi batekin telefonoa garbitu dei **kruzial** hori jaso ondoren. Harkaitz Cano

Gero, liburua itxi egin zuen, kontu handiz, liburu arrunta baino areago bisagra **kruzial** bat bailitzan. Harkaitz Cano

Zapatak dira munduarekin dugun lotura nagusia, lur hurkoarekin elkartzen gaituen mintz **kruziala** . Harkaitz Cano

---

**kua** *iz*

Mahai inguruan esertzeko orduan ere oso kontuan hartzekoa omen zen **Kua** zenbakia, eta halaxe jarri ginen, txintxo-txintxo, nor bere Ilargi-urtearen arabera. Patxi Iturritegi

---

**kua-kua** **1** *adlag* ahatearen oihuaren onomatopeia.

Eta, eskuak gerrira eramanik, imitatzen hasi zitzaidan, batera eta bestera balantzaka, **kua-kua** eta **kua-kua..** . Joan Mari Irigoien

Zertarako nahi ditut nik hire ahate filosofikoak, hitzaren hitzez deus ere erraiten ez dutenak, **kua-kua** eta **kua-kua** ez bada...? -eta egun osoan ibiliko zitzaidan **kua-kua** eta **kua-kua,** neure onetik ateratzen ninduen arte. Joan Mari Irigoien

**2** ***kua-kua egin***

**Kua-kua** egiten zuten, ur zikinean barreiaturiko hondakinak harrotuz. Juan Kruz Igerabide

Sinesgabetasun beraz erreakzionatu nahi izan nuen Alos-Torreako gertakariak amestu eta hurrengo goizean bele batek **kua-kua** eginez esnatu ninduenean Anjel Lertxundi

---

**kua-kuaka** *adlag* kua-kua eginez.

Ahateak kua-kua, .../... Ahatekumeek kua-kua, .../... Ahatea eta ahatekumeak **kua-kuaka** . Iñaki Arranz

---

kuaderno ik **koaderno**.

---

kuadrado ik **koadratu**[1].

---

kuadradu ik **koadratu**[1].

kuadrante ik **koadrante**

kuadratu ik **koadratu**[1].

kuadrila ik **kuadrilla**.

kuadrilatero ik **koadrilatero**.

**kuadrilla** *(19 agerraldi, 6 liburutan eta 2 artikulutan; orobat **kuadrila** 15 agerraldi, 9 liburu eta 5 artikulutan; **koadrila** 500 agerraldi, 90 liburu eta 79 artikulutan; **koadrilla** 32 agerraldi, 72 liburu eta 2 artikulutan)* **1** *iz* lagun taldea,

Bost laguneko **"koadrilla"** hertsi bat antolatu genuen. Txillardegi

Goizeko seiak ziren eta hura artean kantari ari zen beste **kuadrila** batekin. Pako Aristi

Hilabete batzuen buruan, aitaren **koadrila** osoa gonbidatu zuten, ez dakit zein aitzakiaz, alboko herri batera afaltzera. Anjel Lertxundi

Noizko bikoteei eta **koadrillei,** deskontuak? nor bere garagardo-latarekin hantxe, basamortu gorrian, zutik geundela, **koadrila** polita bularretakoz eta galtzontziloz. Joxe Austin Arrieta

**«Kuadrilakoak** ez dira / beti izaten lagunak», bota zuen Erikak lehengoan. Eneko Bidegain

Nik uste gure **kuadrillan** ere gertatzen dala holako zerbait. Xabier Mendiguren Elizegi

Bai; ikusi izan ditut elkarrekin **kuadrillan**. Pablo Sastre

Lagunartean, **kuadrilan,** errima-almazen txukun samarra daukana nagusituko da. Andoni Egaña

Ostiral 12a, **kuadrillen** eguna. Herria

-Zure anaia gaztearen **koadrilako** Iñigo? Joxemari Urteaga

Kanpoko **kuadrilla** baten ondoan daukagu denda [kanpinean]. Arantxa Iturbe

Trauko eta bera ziren **koadrilako** buru. Pedro Alberdi

Marro eta beraren **koadrilakoak** ikusi genituen frontoiko atakan, ikurrinekin eta bandera gorriekin, goraka. Juan Kruz Igerabide

Manu eta Fermin ez ziren **koadrila-koadrilakoak,** baina bai gure ingurukoak eta konfiantzazkoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** irud/hed

Orain bufalo **koadrila** bat ere bat pasatuko litzateke zure paretik, edo elefante andana bat, zuk haietan arretarik jarri ezinean. Hasier Etxeberria

Eta, egia esan, armiarma **koadrila** bat badut, sarri erreparatzen dudana. Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beltz **kuadrilak** ageri dira, matrailaren alde batean Venezuelako bandera eta bestean ikurriña margotuta. Pako Aristi

Leitzatik barrena karlistak zetozela eta, lagun **kuadrilla** bat, kontzejupean eskopetak hartu eta, Amasa aldera abiatu zituan... Pablo Sastre

Adiskide-**koadrilarekin** egotetik zetorren, eta afaltzeko gogo bizia zeukala esan zidan. Josetxo Azkona

Atzo ere, Joxemirenean, gazte **kuadrilla** bat, nahi gabean aditzen egon ninduan eta, Estatu Batuak gora, Estatu Batuak behera... Pablo Sastre

Zer iraultza-klase egingo genuen noski estudiante-**koadrila** belaxka bat eskutik hartuta. Inazio Mujika Iraola

A ze oilo **koadrilla**! kalte baino ez diote egiten. Jokin Muñoz

-Ero **kuadrila**! Koldo Biguri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alfer koadrila** (3); **gazte koadrila** (10); **gizon koadrila** (3); **koadrila osatzen** (4); **koadrila osoa** (5); **lagun koadrila** (15); **lagun koadrila bat** (5); **mutil koadrila** (3); **zahar koadrila** (3)

**lagun koadrilak** (3)

**koadrilako lagun** (4)

**lagun koadrilakoak** (8)

**lagun koadrilakoek** (5)

**gazte koadrilla** (3)

**kuadrillaburu** *(corpusean **kuadrilaburu** soilik)* *iz* kuadrillako burua.

Oihu zakarra egin du gizon argalak, Angelita Kastoriadis ontzia pikatzen ari den **kuadrilaburuak** "Nork utzi du hori horrela!", lasterka abiatu da lurrean piztuta utzia zegoen sopleteraino. Koldo Izagirre

**kuadrillakide** *(corpusean **koadrilakide** soilik)* *iz* kuadrilla bereko pertsona.

Artean **koadrilakide** eta gerora koinatu izango nuen Joxean Kortadi laguna atxilotu zuten 1982an. Egin nahi dute, parranda tokatzen denean, **koadrilakideek** eta inguruko koadrilakoek baino hobeto. Jokin Urain

**Koadrilakideek** soilik? Karlos Linazasoro

**kuadrillatxo** *iz adkor* kuadrilla.

-Ez dakit, nik **koadrilatxoa** daukat, hortik irteteko, hitz egiteko, ondo pasatzeko... Sonia Gonzalez

**kuadrizeps** *iz* iztarreko aurrealdeko giharra, muturretako bat lau zainetan bereizten dena.

Tiratu berriz eta batere ez; berriz, ezer ez; berriz bizepsak, trizepsak eta **kuadrizepsak** erabiliz. Joxean Sagastizabal

Hanka haiek bereak baino askoz ere indartsuagoak zirela, gihartsuagoak, horiek **kuadrizepsak** eta izterrak, hura nekerik gabeko abaila, riii-raau, eta besoak ere berdin. Karlos Linazasoro

Tiago Splitter pibot brasildarrak min hartu zuen eskuin hankako **kuadrizepsean**.

Lagun Aro Bilbo Basketeko jokalari serbiarrak zortzi zentimetroko zuntz haustura du ezker hankako **kuadrizepsean**. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
hankako kuadrizepsean (4)

---

kuadro ik **koadro**.

---

**kuadrumano** *iz* animaliez mintzatuz, lau hanketan hatz lodia beste lau hatzen aurrez aurre duena.

Cornelius Lipa senadorea jelosiak hartu zuen bere emazteak giza aurpegidun **kuadrumano** hari zion txeragatik, eta hil egin omen zuen. Josu Zabaleta

Kolpe bakar batez hautsi zion buru hezurra **kuadrumano** malapartatu hari. Josu Zabaleta

---

**kuakero** **1** *iz* ageriko elizkizunik eta hierarkiarik gabeko sekta protestante bateko kidea.

Interesak lotu ditzala Estatuko hiritar guztien interesak: **kuakeroak** eta turkiarrak ikus dezala zuen legepean bizitzeak zer nolako onurak dakartzan. Juan Martin Elexpuru

Virginako txalupa bat idoro zuten, otzan askoa, zeinaren kapitaina **kuakero** fede-kartsu bat baitzen, Knot izenekoa. Juan Garzia

**2** (izenondo gisa)

Hau da Unamuno-k euskararen heriotza iragarriari bere argumentazioan ipini dion marku filosofikoa, hots, eskatologia **kuakero** spencertarraren markua Joxe Azurmendi

---

**kualifikatu**, kualifika, kualifikatzen **1** du *ad* hartakotu, gaitu.

Birbanaketa neurrien bidez sarrera sorta estutuz, **kualifikatu** gabeko enplegu-maila aski handi bat mantendu ahal izango litzateke. Koro Navarro

Bestetik, multinazionalak jendea **kualifikatuta** ez dagoela argudiatuz langile asko kaleratzen ari direla salatu dute Berria - Mundua

**2** nolakotasuna mugatu.

Izan ere, **kualifikatu** nahi ez duzun espazio aske baten arlo osoa hartzen duzu zeuretzat. Xabier Arregi

**3** (era burutua izenondo gisa: pertsonak)

Jaurlaritzak ate berriak ireki dizkie titulurik gabeko langile **kualifikatuei**. Berria - Euskal Herria

Arlo guztietan, konpromiso handiko militante **kualifikatu** ugari ditugu Euskal Herrian. Azti **kualifikatu** eta zaildu askok ere arazoak izaten dituzte honekin. Txema Ramirez de la Piscina

Frantziako oraingo gobernuak etorkin **kualifikatuak** nahi ditu bere garapen ekonomikorako. Berria - Harian

Adostasun horrek oinarri sozial zabal baten onespena islatu beharko du, gehiengo politiko zabal batena, gehiengo **kualifikatu** batena. Berria - Harian

Elite **kualifikatu** batek. Txema Ramirez de la Piscina

**4** (era burutua izenondo gisa: gauzak)

Inteligentziaren ekonomia, ingurumena, ikerkuntza, berritasunak, prestakuntzak, lan **kualifikatuak** eta abar bultzatu behar ditugu. Berria - Euskal Herria

Herrialde gehienek mugak babestu nahi dituzte; beste batzuek, berriz, atzerriko eskulan **kualifikatua** behar dute. Berria - Euskal Herria

Haatik, sektore horietan sortu diren lanpostuak **kualifikatuak** direla eta ez direla galdu diren enpleguen araberakoak aitortu zuen MIGeko buruak. Berria - Ekonomia

Maila **kualifikatuko** edozein lanetan. Berria - Euskal Herria

Oso iritzi **kualifikatua**. Berria - Kultura

**5** ***ez-kualifikatu*** *izond*

1969tik 1973a arteko garai oparoan langile **ez-kualifikatu** eta merkeen beharrean egon ondoren, petrolioaren krisiak ekonomia joa zuen. Berria - Harian

Desberdintasunak areagotu egin omen dira lan merkatuan lan kualifikatuaren eta **ez kualifikatuaren** artean. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
pertsona kualifikatu (3)
gehiengo kualifikatua (7)
langile kualifikatuak (3)
gehiengo kualifikatuz (6)

---

**kualifikazio** **1** *iz* prestakuntza.

**Kualifikazio** apaleko lanetan. Iñaki Heras

**Kualifikazio txikiko** langileen kotizazioetan. Berria - Ekonomia

**Kualifikazio** urriko enpleguari diruz laguntzea. Koro Navarro

Globalizazio-prozesuak alboratu duena da hori, hau da, lanaren nazioarteko mugikortasuna, **kualifikazio** gutxikoa edo batere **kualifikaziorik** gabea denean. Koro Navarro

**Kualifikazio** handiko langileentzat. Berria - Mundua

Ezagutza eta giza kapital gehiago behar dira, **kualifikazio** garaiagokoak gainera. Iñaki Heras

Erdi mailako eta behe mailako **kualifikazioak** dituzten langile kopuru handiak. Iñaki Heras

Herrialde garatuetako langile **kualifikazio** gabeen eskaria. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Konpentsazioek, bestalde, ez diete berdin eragiten herrialde guztiei, jarduera sektore guztiei eta **kualifikazio** maila guztiei. Iñaki Heras

· Emakumezkoentzako diskriminatzailea den lanbide **kualifikazio** eta ordaintze sistema zuzentzea. Berria - Ekonomia

Lanbide **Kualifikazioen** Behategia. Berria - Euskal Herria

---

**kualitate** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **nolakotasun** agertzen da)* **1** *iz* nolakotasuna.

Lañotasuna eta argitasuna ez baitira munduko agintari guztiak, gureak alde batera utzi gabe, apaindu ohi dituzten **kualitateak**. Jon Alonso

Ni ez naiz oldarkorra inorekin, ez daukat **kualitate** moderno hori. Jon Alonso

Gaur egun neska gutxik dituzte benetako **kualitate** sendoak, irauten duten eta denboraren poderioz hobetzen diren horietakoak. Antton Olano

Sinetsidazu, Miss Prism maitea, **kualitate** azalekoak dira irauten duten bakarrak. Antton Olano

Bihotz oneko errepublikanoentzat Bush **kualitate** moral eta balore etiko handiko familia-gizon leiala da, tradizionalista eta jainkozalea. Berria - Mundua

**Kualitate** horiek diziplina zorrotz baten ondorio dira ordea, eta ingeles poesian guztiz bereziak diren hitz harmoniak sortzen dituzte. Koro Navarro

**2** (filosofian)

Kolore beltza **kualitate** bat da, eta, kasu horretan, Greta nolakoa den esaten digu. Askoren artean

Orain arte dena bitan banandu dugu: subjektua/objektua, arima/gorputza, espiritua/materia, **kualitatea/** kantitatea, helburua/kausalitatea […]. Askoren artean

Kantek, Lockek ez bezala, **kualitate** lehenak ere -ez soilik bigarrenak- giza gaitasunen mende jartzen ditu. Askoren artean

Zerkien zerizana bera ez datza haien berezko izaera akzidentez beteriko batean -arrosa bat ez da dagoeneko arrosa bat: horiek **(kualitateak)** baztertu egingo dira-, baizik eta razionalki behar izan batean. Askoren artean

Ez du ezertarako balio kolorea gisako **kualitateak** objektu materialei esleitzeak, nik koloreaz dudan esperientzia azal dezadan. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hori gabe unibertsitatean irakatsiko litzatekeena ez litzateke oso desberdina izango akademia batean irakats daitekeenetik, kantitate kontua izango bailitzateke gehienez ere, ez **kualitate** kontua, zerbait izatekotan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Donostiako Ikertaldeak egin du inkesta kuantitatiboa eta Bilboko **Kualitate** lantaldeak kualitatiboa. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **kualitate** guztien artetik, Camek zuzentasuna miresten zuen gehien. Anton Garikano

Espazio- **kualitateen** esperientzia zuzena objektuen espazio- **kualitateek** kausatzen dute. Askoren artean

Lehentasuna gauzen presentziari, azalera- **kualitateari** eta horrelakoei ematen baitzaie. Josu Zabaleta

**5** bertutea.

Gainera, dedikazio osoa zuen Ritxarrek, baita komunikatzeko ahalmen izugarria ere, eta irakaslearen **kualitate** haiek are gehiago lagundu zidaten, alor hartan ahalegin nendin. Joan Mari Irigoien

Europako Batasuneko estatu kideek proposatutako pertsonen **«kualitate** handiek aisago» egin dute hautaketa. Berria - Mundua

Egoera guztietan, alderdikide, ahaldun nagusi edo pertsona gisa izan du bere kargua betetzeko ezinbesteko **kualitatea,** zintzotasuna. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kualitate lehenak** (4); **kualitate moral** (4)

---

# kualitatibo *izond* kualitatearena, kualitateari dagokiona.

Bizi-kalitatearen haztapena ez da eginkizun samurra, hainbat parametro **kualitatibo** -subjektiboak dira gainera zenbaitetan- eta kuantitatibo bildu behar dira eta. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Aldaketa **kualitatiboa** egin beharra dago. Berria - Euskal Herria

Denbora-epe luzeetan zehar izan daiteke sistemen garapen **kualitatiboa,** hazkunderik gabe. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zerbait gara-tzen denean hobea egiten da maila **kualitatiboan,** ez du ordea zertan handiagoa izan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekonomian, ekoizpenerako behar den ordu kopuru osoa izaten dute kontuan, […] eta ez, aitzitik, alderdi **kualitatiboa,** ekoizpen kopuru horren egitura eta ezaugarriak, besteak beste. Iñaki Heras

Hortik liburuek euren kasa mugitzeko ahalmena dutela adieraztera jauzi **kualitatibo** izugarria dago. Karlos Linazasoro

Ika-mikak alde batera utziz, jauzi **politiko** kualitatiboak egiteko garaia heldu da. Berria - Euskal Herria

Hemen urrats **kualitatibo** bat eman da, antzerkiaren bidetik bilatuz dantzaren funtzioa eta estetika. Herria

Horrenbestez II. ikasturteko Analisi **Kualitatiboko** laboratoriorako onarturik geunden. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldaketa kualitatibo** (3); **jauzi kualitatibo** (13); **urrats kualitatibo** (4)
> **aldaketa kualitatiboa** (5); **jauzi kualitatiboa** (31); **jauzi kualitatiboa eman** (10); **urrats kualitatiboa** (5)
> **jauzi kualitatiboak** (4)

---

# kualitatiboki *adlag* kualitatearen aldetik.

Argi dago, baina, ez garela garai hartako nazioarteko ekonomiara bueltatu, ez kuantitatiboki, ezta **kualitatiboki** ere. AEBetako datuak askoz hobeak dira enplegu sorkuntzari buruz, baina, sakonean aztertzen badira, **kualitatiboki** askoz txarragoak direla ikusiko da. Iñaki Heras

Neskaren marrazkiak, haien ustez, **kualitatiboki** desberdinak ziren umeek egiten zituztenen aldean. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuantitatiboki eta kualitatiboki** (3)

---

# kuantifikagarri *izond* kuantifika daitekeena.

Horrela maiztasunen arlo **kuantifikagarri** bat osatu ahal izango dela. Xabier Arregi

---

# kuantifikatu, kuantifika, kuantifikatzen 1 du *ad* zenbatekoa edo kopurua zehaztu.

Bermeak, abokatuak, lokalak, soldatetan izan diren arazoak... **kuantifikatu** nahi dituzte. Berria - Harian

Urteko lehen hiruhilekoan laguntza ildo guztiak dekretu baten bidez identifikaturik eta **kuantifikaturik** izan nahi dituzte. Ekonomia industrializatu nagusien arteko harremanak bideratzen zituzten loturak **kuantifikatu** ahal izateko. Koro Navarro

Prest nengoke hogeita hamasei letra dituen eta ez dituen ahapaldi horien poematasuna aldezteko, **kuantifika** ez daitezkeen kontuez hitz egiteko inor balego oraindik bestaldean. Joxerra Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

xi aldagaiak azalpen lotua izango du formula batean, •xi edo •xi adierazpen **kuantifikatuaren** eraginpean baldin badago. Askoren artean

---

# kuantifikatzaile *iz* logikan eta hizkuntzalaritzan, zenbatzailea.

QL logika elementalari **kuantifikatzaileen** logika ere esan ohi zaio, eta baita logika klasikoa ere. Askoren artean

Russellen deskribapen zehaztuen interpretazioan existentzia ez da predikatua, **kuantifikatzailea** baizik. Askoren artean

Konektatzaileek eta **kuantifikatzaileek** QLren konstante logikoen multzoa osatzen dute. Askoren artean

Aldagaiaren balioa **kuantifikatzaileak** finkatzen du, aldagaia lotua denean Askoren artean

---

**kuantifikazio** *iz* kuantifikatzea, zenbatekoa edo kopurua zehaztea.

Fregek, Boole bezala matematikaria izan arren, aritmetika sakondu zuen eta, horren ondorioz, **kuantifikazio** -teoria bat sortu zuen lehenengo aldiz. Askoren artean

---

**kuantika** *izond* kuantikoa.

Mekanika **kuantikaren** mundua da. Berria - Harian

---

**kuantiko** **1** *izond* kuantuena, kuantuei dagokiena.

Erlatibitatearen teoriaren eta mekanika **kuantikoaren** formulazioak. Askoren artean

Uste dut benetan baiezta dezakedala Mekanika **Kuantikoa** ez duela inork ulertzen. Fernando Morillo

Bohr eta abarrena "interpretazio ortodoxoa" da teoria **kuantikoan** . Iñaki Segurola

Begiaren sentikortasuna oso hurbil dago, izan ere, erradiazioaren teoria **kuantikoak** ezarritako azken muga teorikotik. Irene Aldasoro

Amodio izenekoaren aurpegi emea zuri-beltza baita, zuria edo beltza, jauzi **kuantikoa** edo heriotza bera bezain bihozgabea, ulergaitza eta beldurgarria. Iñaki Segurola

**2** fisika kuantikoan aritzen dena.

*Natura* izenekoa (fisiko **kuantikoen** natura adibidez, eta berek aitortzen dutenez) lausoa eta zehazgabea da bere baitan. Iñaki Segurola

Egunen batean, fisikari **kuantiko** batek [...] saioa egingo du, gaurgero egin ez badu, maitasun erromantikoaren kontzeptua partikulen fisikari gehitzeko. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eremu kuantikoa** (3); **fisika kuantikoa** (3); **mekanika kuantikoa** (18)
> **mekanika kuantikoak** (3); **teoria kuantikoak** (4)
> **mekanika kuantikoan** (4)
> **mekanika kuantikoaren** (6); **teoria kuantikoaren** (3)

---

**kuantitatibo** *izond* zenbatekoari edo kopuruari dagokiona.

Lehenbizi, analisi **kuantitatiboa** egin genuen, ondoren kualitatiboa, eta, azkenik, genero indarkeriaren gaian sakondu genuen. Berria - Euskal Herria

Hau ikuspegi kualitatibotik hala bada, zer esanik ez **kuantitatibotik,** elkarteko 1.400 bazkidetatik apenas baitira 200 bertsolariak, eta hauetatik hogeikoren bat une honetan elitean dabiltzanak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Donostiako Ikertaldeak egin du inkesta **kuantitatiboa** eta Bilboko Kualitate lantaldeak kualitatiboa. Berria - Harian

Gogoratu berri ditugun arrazoi **kuantitatibo** eta kualitatibo horiengatik, zinemako distantzia da inoiz irudiak sorrarazi dituen distantziarik laburrenetakoa. Elkartrukeen jarioaren azterketa **kuantitatiboa** . Josu Zabaleta

Telebista kate publikoa arrakasta **kuantitatiboa** eta kualitatiboa lortzen ahaleginduko da. Zerbait hazten denean handiago egiten da maila **kuantitatiboan,** ez du ordea zertan hobea izan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Baten batek esan lezake, denboraren kontuan halako jauzi **kuantitatiboa** egonda ere, idazten dudanak egin nauela ni ezagun, ez irakurritakoak; subjektu eta egile naizela batean, kontsumitzaile huts bestean. Xabier Mendiguren Elizegi

Erantzuna era **kuantitatiboan** eman daiteke. Berria - Euskal Herria

---

**kuantitatiboki** *adlag* zenbatekoaren edo kopuruaren aldetik.

Zorionez, sukaldari gazteak garrantzizko lana egiten ari dira sukaldaritza landuagoa sortzeko: **kuantitatiboki** lehengai urrien ez hain mendeko, tradiziozkoan errotua eta munduari zabaldua. Ramon Saizarbitoria

**«Kuantitatiboki** zein kualitatiboki» urrats garrantzitsua egin dela uste dute sustatzaileek. *Herrien Psikologia* delakoan ere, **kuantitatiboki** erreferentzia gehienak seguru asko kritikoak ditu, baina bereizi egiten du: ez dago herriak, klaseak, Estatu-nazioak, "arrazak" nahaski tratatzerik. Joxe Azurmendi

Argi dago, baina, ez garela garai hartako nazioarteko ekonomiara bueltatu, ez **kuantitatiboki,** ezta kualitatiboki ere. Iñaki Heras

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuantitatiboki eta kualitatiboki** (3)

---

**kuanto** *interj* noski, jakina.

Itxura egiteko, **kuanto,** argi eta garbi. Joxerra Garzia

Gerba zuri luzexka artile idurikoa, **kuanto,** gero gaztainarik helduko bazen. Pello Zabala

Bi huts, **kuanto** ! Zafraldia, eta galanta **kuanto** ! Pello Zabala

Ez al du haiku itxurarik? bai, **kuanto** ! Joxerra Garzia

Asmatzea kontua, asmatzea **kuanto** ! Pello Zabala

---

**kuantu** *(orobat* ***kuanta*** *g.er.,* ***quanto*** *g.er. eta* ***quantum*** *g.er.)* *iz* materiak xurgatu, igorri edo propagatu dezakeen energia kopuru diskretu txikiena.

Izan daitekeen erradiazio kantitate txikiena da **kuantua** . Irene Aldasoro

Bohrrek, hein batean, **kuantuen** munduko egian sinesten zuen, itxurazko kontraesanak kontraesan. Fernando Morillo

**Kuantu** bat argiren energia xurgatzen denean, erretineno molekula, eraldatu, eta bere sargunetik irteten da. Irene Aldasoro

Erretinako makila bakar batean **kuantu** bakar bat xurgatzen denean hasten denez ikuste-prozesua, pentsa daiteke **kuantu** bakar bati dagokiola ikusmenaren atalasea, baina ez da hala. Irene Aldasoro

Begia sentikorren den lekuan, gutxi gorabehera 50 eta 150 arteko **kuantuko** ikusmen-seinale batek ikuste-sentipen bat sortuko luke, gehienetan, begiaren kanpoaldea (kornea, alegia) ukitzean. Irene Aldasoro

Nahikoa argi dago **kuantu** bat xurgatzeak eragin kimiko bat sortzen duela eta, ziur asko, bulkada elektriko bat ikusmen-nerbioaren zuntz batean. Irene Aldasoro

Einstein eta argi **kuantuak** . Berria - Harian

· Egutegia hamar egun atzeratuta zihoala eta, hamar egun horiek kendu ondoren, ikusi zen posible zela bere desegokitasuna **kuantu** infinitesimaleraino murriztea bisusturteei buruzko araua aldatuz. Iñaki Mendiguren

---

**kuar** (onamatopeia) *iz*

Bele saldo bat pasatu zen zeru hutsa zeharkatuz, **kuar, kuar, kuar** eginez. Juan Garzia

---

**kuarentena** *iz* berrogeialdia.

X bat klarionaz tuberkulosiak jota zetozen etorkin haiei Ellis Islandeko **kuarentena** -pabilioi erraldoian... Harkaitz Cano

---

**kuarta**[1] *iz* liburuez mintzatuz, inprimatze orriaren laurdenaren tamaina.

**Kuarta** gotikoko liburu bereziki bitxi eta jakingarri baten irakurraldi arretatsuan aurkitzen zuen ordea nire lagunak gozamenik handiena. Koro Navarro

---

kuarta[2] ik **koarta**.

---

**kuartana** *iz* helgaitz laurdena.

Ikustaldi beldurgarri honek erabat erauzi zuen Santxo Panzaren kemena, eta han hasi zen hortza-hortzari kaz-kaz **"kuartana** "ren lautik laurakoaren hotz-berotan dagoena bezala. Patxi Ezkiaga

---

**kuartel** *(376 agerraldi, 70 liburu eta 92 artikulutan; orobat **koartel** 18 agerraldi, 11 liburu eta 5 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kuartel** agertzen da)* **1** *iz* gudari edo polizia taldeen egonleku edo bizileku den etxe edo eraikuntza. ik**kaserna**.

Antiguako **kuartelera** eraman zuten lehenengo. Jokin Urain

500 metrora zeukaten behin-behineko **kuartelera** eroan ninduten. Berria - Euskal Herria

Jendeak karabineroen **kuartelari** su emanez amaitu nahi izaten dituela ospakizunak. Koldo Biguri

Armadako **kuartelen** eta polizia etxeen aurkako erasoek porrot egin ondoren. Berria - Mundua

Lau pertsona hil dira bi **kuartel** militarren kontrako erasoetan. Berria - Mundua

Moncadako **Kuartela** hartzera joan eta huts eginda atxilotu zutenean. Pako Aristi

Al Mashahidan, Irakeko Guardia Nazionalaren **kuartelari** eraso zioten hainbat ezezagunek sei morterorekin. bi lagunak armatuak zeuden eta **koartel** bati erasotzeko asmoa zuten . Berria - Mundua

Duela bost urte Guardia Zibilaren Galdakaoko **kuartelari** molotov koktelez eraso egin izana leporatzen diete. Berria - Euskal Herria

Uztaila bukaeran, Loiolako **kuartelak** matxinatu zirelarik, Maria Cristina hotelean izan ziren matxinatuen kontrako gudu gogorrenak. Inazio Mujika Iraola

NATOk [...] Alemaniko lurretan zeuzkan **kuartelen** aurka eginiko dozena bat atentatu. Hasier Etxeberria

Guardia Zibilaren **kuartel** zaharra eraitsi eta bertan familia horientzako 137 etxebizitza egingo dituzte. Berria - Euskal Herria

Argi bat baizik ez da ikusten Guardia Zibilaren **kuarteleko** etxebizitzetan. Mikel Hernandez Abaitua

Dakiena da mutil baten gorputza ikusi duela **kuarteleko** patioan zintzilik eta buruz behera. Anjel Lertxundi

**Kuarteleko** patioan itxirik ginduzkaten ordurako, Orbassano Hiribidean. Juan Garzia

**Kuarteleko** sotoetan ezarri gintuen, gela bakoitzean bat. Juan Garzia

Prest zegoen **kuarteleko** guardiak egiteko. Iñaki Iñurrieta

Poliziak **kuarteletan** dozenaka lagun hiltzen ditu, emakumeak bortxatzen eta askok eta askok jipoi handiak hartzen dituzte. Gotzon Garate

**Kuartel** batetik kamioian ekarritakoa jaten dute, egunean hiru aldiz. Pako Aristi

Astebete generaman behin-behineko **kuartel** txiki hartako atzeko partea zelatatzen. Rafa Egiguren

**2** irud/hed

Kurdistan **kuartel** militar erraldoi bat izan da. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

Lunako Guardia Zibilaren **kuartel** -etxean lehergailu bat zartarazi dute. Berria - Euskal Herria

Milanera jaitsi eta gauzak argitu beharrean, hantxe geratzen zen, mugaldeko auskalo nongo **kuartel** -zuloan gorderik aberria defendatzen. Juan Garzia

· Laureletik hurbil dagoen soldadu-**kuartelean** . Xabier Paya

Hamabi hilabete egon nauk Jacako mendi **kuartel** batean eta Pirinioetako gailur guztiak zapaldu ditiat. Bernardo Atxaga

**4** ***kuartel jeneral*** *(4 agerraldi, 3 liburutan)* kuartel nagusia.

Herri txiki bat zen Bile, ehun bat etxekoa, Rezan-etik ez oso urrun, non baitzegoen Mustafa Barzani gure herriaren buruzagiaren **kuartel jenerala** . Juan Kruz Igerabide

Hantxe zeukaten **kuartel jenerala** . Patxi Iturritegi

**5** ***kuartel nagusi***[1] *(21 agerraldi, 8 liburu eta 5 artikulutan)* armadaren edo kideko baten buruaren estatu nagusiaren egoitza.

Guardia Nazionalaren **kuartel nagusiaren** kanpoaldean. Berria - Mundua

Nawperdan aldera jo genuen, gure buruzagi Mustafa Barzani-ren **kuartel nagusira** . Juan Kruz Igerabide

Ez zion argitu hantxe zegoela eguerdiaz gero Degrela kapitainaren **kuartel nagusia** . Bernardo Atxaga

Azkenean, Nawperdan-era iritsi ginen, kurduen erresistentziaren **kuartel nagusira** . Juan Kruz Igerabide

**Kuartel nagusia** Tomskera aldatzeko agindu baitzuten. Karlos Zabala

**6** ***kuartel nagusi****sup_2* armadaren edo kideko baten buruaren estatu nagusia.

Tiratzailea berehala harrapatu zuten, eta **kuartel nagusiak** berehala hiltzeko agindua eman zuen. Juan Kruz Igerabide

**Kuartel nagusia** iparralderago joan zen, eta etxea utzi behar izan genuen. Juan Kruz Igerabide

· *irud* Garrantzi politikoa galdu duten hiriburu batzuek gogoangarri izaten jarraitzen dute erlijio nagusien **kuartel nagusi** gisa. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**guardia zibilaren kuartel** (8); **kuartel berria** (3); **kuartel handiaren** (3); **kuartel jenerala** (3); **kuartel militar** (4); **kuartel militarra** (3); **kuartel nagusia** (8); **kuartel nagusian** (3); **kuartel nagusira** (4)

**guardia zibilaren kuartela** (5)

**kuartelaren eraikuntza** (3)

**guardia zibilaren kuartelean** (9)

**guardia zibilaren kuartelera** (5); **kuartelera eraman** (16); **kuartelera itzuli** (3); **kuartelera joan** (5); **kuartelera sartu** (3)

---

**kuartelburu** *iz* kuartel baten burua.

Adrianowsky jenerala utzi nuen **kuartelburu,** konfiantzazko gizona baita. Felipe Juaristi

---

**kuarteleratu**, kuartelera(tu), kuarteleratzen da/du *ad* kuartelera joan; koartelera eraman.

Komunitate zapatistetan gizarte lanak egiten ari ziren EZLNko kide guztiak deitu ditugu soldadutzara, eta tropak ere **kuarteleratu** ditugu. Berria - Harian

---

**kuartelero** *iz* koartelekoa, koartelari dagokiona.

Algara ozena zen, ofentsiboa, barre **kuarteleroa**. Harkaitz Cano

---

**kuartelillo** *iz* koartel txikia.

Ihesi zebiltzan abertzaleak galtzeko asmotan **kuartelillora** joateko prest zegoen fraide erretxina. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zioten argibiderik eman, **kuartelillora** edo Bilbora ote zeroaten. Josu Landa

---

**kuarteltzar** *iz adkor* kuartel handia.

Barakaldoko Guardia Zibilaren egoitza berriaren tamaina aintzat hartuta, **kuarteltzar** deitzea ez da gehiegizkoa. Berria - Euskal Herria

Harro agertu zen Rodriguez alkatea, Barakaldon halako **kuarteltzarra** izateagatik. Berria - Euskal Herria

---

**kuarteroi**[1] *iz* Ameriketan jaiotako pertsona, gurasoak bata espainola eta bestea mestizoa dituena.

Erdian: mestizoak, mulatoak, **kuarteroiak** eta kinteroiak. Pako Aristi

---

**kuarteroi**[2] *iz* tabako xehatuzko paketea, libra laurdena pisatzen zuena.

Bi gauza hauek zituen gogoan zehatz: tabakoari buruz hitz egiten zutela -norbaitek beste bat salatzen zuen **kuarteroi** bat lapurtu omen ziolako, beste batzuek bakeak egin nahi zituzten bitartean- eta bere aurrean lurrean utzita zuen bernaren azala ikusi zuela alkandoraren tolesen artetik Ramon Saizarbitoria

---

**kuarteta** *iz* gaztelaniazko ahapaldi mota, lau lerrokoa.

Bazen Mendi Garaiko Pinu izeneko poeta, 'antzara-**kuarteta'ren** asmatzailea, lehen bertsoa, gezi baten punta zorrotza balitz bezala, aurrena esaten baitzuen, antzara-aldran buru doana irudi, eta gainerako hirurak atzetik luzeago. Felipe Juaristi

---

**kuarteto** **1** *iz* lau instrumentu edo ahotsetarako musika lana.

Schummannen **bigarren** kuartetoa. Berria - Kultura

Ez dira gauza bera **kuarteto** bat eta opera bat, eta ezin dira konparatu. Berria - Harian

**2** lau musikarik osaturiko taldea. ik **laukote**.

Nik ere jartzen diat BBC, txo, Benny Goodman-en **kuartetoa** entzuteko. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan)

Alemanak Errusian sartu zirenean Erevan hirian zen, armeniarren hiriburuan, Maiakovski hari-**kuartetoarekin** jotzera eta Sobiet Batasuneko melodia berriak, Prokófievenak batez ere, Asiako biztanleei erakustera joana haraxe. Felipe Juaristi

---

**kuartillu** *iz* likidoen edukiera neurria, pitxerraren laurdena dena, litro erdiaren baliokidea.

-Ba **kuartillu** bat alkohol besterik ez, premian nago eta. Juan Garzia

*Txilin, txilin, San Agustin,* ***kuartillu*** *bete txakolin,* dio Ajangiz aldean bildutako esaerak. Pello Zabala

---

**kuarto** *iz* logela.

Gurasoak Bilbora joanak izango zituela ordurako, eta ahizparen ezikusiarena konpondua zeukanez, bere **kuartoan** egon gintezkeela lasai. Pako Aristi

**Kuarto** handia, bi ohe biki bikientzat, eta, erdian, nire lastaira txukun-txukun jarria, izara urdinak eta tapaki gorrixka. Joxean Sagaztizabal

---

**kuartzo** *iz* silizearen forma kristaldua, gardena denean "harri lorea" esaten zaiona, eta hainbat harkaitzen eta harea gehienen osagaia dena.

Tximisten argia bakarrik, **kuartzozko** lanpara batenaren antzekoa, urdinska. Joxe Austin Arrieta

Haren **kuartzozko** eraztun beltza daramat nik, duela hogei urtetik hain zuzen ere. Joxan Elosegi

**Kuartzozko** hodi batean. Juan Garzia

Pin pongeko piloten tamainako **kuartzozko** esfera «ia-ia perfektuak». Berria - Gaiak

Telebista gaineko ordulari **kuartzozkoak**. Josetxo Azkona

---

**kuaternario** *iz* geologian, laugarren aroa.

Valdeorras inguruko mahasti okertuek harrizkoak dirudite, **kuaternarioko** piztitzarren saihetsak bailiran. Pako Aristi

**Kuaternarioko** hormaldietatik haste oraiko urte hurbilak arte, hori izanen da hizlariak lantuko daukun gaia. Herria

---

## kuatrero *iz* abere-lapurra.

Orduantxe sartu zen Morgan **kuatreroaren** banda Saloonean, ateari ostikoa emanda. Joxean Sagaztizabal

---

## kuba 1 *iz* kubalibrea. ik **kubata**.

Eta zenbat yinkas, yintonik, zenbat **kuba** edo kuberdi *gordons, bakardí* edo dena delako jinebraz garraxtuak? Patziku Perurena

**2 *kuba-erdi*** *(corpusean **kuberdi** soilik)*

Eta zenbat yinkas, yintonik, zenbat kuba edo **kuberdi** gordons, bakardí edo dena delako jinebraz garraxtuak? Patziku Perurena

---

## kubalibre *(orobat **kuba-libre** g.er.)* *iz* gin edo ronaren eta edari koladun baten konbinatua. ik **kubata**.

Bina **kubalibre** hartu eta gero ere Marujaren arrastorik ez, eta hirugarrena eskatu behar. Iñaki Iñurrieta

**Kuba-libre** bat eskatu. Migel Angel Mintegi

Botaiozu txorrotada bat **kubalibrean,** triste dabil gaur morroi hau. Iñaki Iñurrieta

Hauek kafea hartzera eta haiek kalimotxo edo **kubalibre** batzuk, orduen eta egunen arabera. Joan Mari Irigoien

**Kubalibreei** izotz puskak botatzen dizkienean. Iñaki Iñurrieta

---

## kubanismo

**1 *afro-kubanismo*** *iz*

Afro- **kubanismoaren** eremuan, olerkariak eta musikariak ere ibili ziren, margolariez gainera. Berria - Kultura

Politikotzat jotako pinturak «behealdia» izan zuen, nekazaritzako gaiek bidea eman zieten «bestelako dimentsioei», eta afro- **kubanismoa** oinarri zuen pintura bertan behera geratu zen, Wifredo Lam eta Roberto Diago Habanako Eskolaren eremura agertzearekin. Berria - Kultura

---

## kubano *iz* kubatarra.

Ama **kubanoa** eritasunez zendua zaio. Herria

Pertsona baldin bahaiz, lotsatu egin behar duk espainolak **kubanoa** zelan tratatzen duen ikusita... Koldo Izagirre

9 bote urruñarrak, 7 **kubanoak** . Herria

Hi, jipi, atera egik bourbon **kubata** pare bat! Paddy Rekalde

---

## kubar ik **kubatar**.

---

## kubata *iz adkor* kubalibrea.

Harritzekoa hi **"kubatak"** edaten. Migel Angel Mintegi

Kafearekin batera patxaran, gin-tonic eta **kubatak** eskatu genituen. Joxemari Iturralde

*Cacique* **kubata** bana, zigarro bana eta anfeta erdi bana. Sonia Gonzalez

Ron oneneko **kubatak,** ginebra garestienaz egindako ginkasak. Jon Arretxe

Ebe beregana zuzendu zen, **kubata** eskuan. Sonia Gonzalez

Taberna bateko barran, **kubatak** ematen duen konfiantzarekin. Berria - Euskal Herria

---

## kubatar *(orobat **kubar** g.er.)* 1 *izlag* Kubakoa, Kubari dagokiona.

Har nezala **kubatar** andregai bat, baina benetako andregaia, ez jinetera bat. Jon Muñoz

**Kubatar** jatorrikoak ez diren estatubatuarrek debekatuta daukate Kubara bidaiatzea. Berria - Mundua

Moncada kuartelaren erasoan **kubatar** iraultzaileen erdia hil ziren. Jon Muñoz

Sierra Maestra, Fidel Castroren **kubatar** iraultzaren abiapuntua. Jon Muñoz

Arrantzan diharduen ontzi **kubatar** bat da. Edorta Jimenez

• **2** *iz* Kubako herritarra.

Gidaria azal iluneko **kubatar** bat zen. Jon Muñoz

Azkenean, ordea, **kubatar** batekin ezkondu zen. Gotzon Garate

Garestia zen **kubatar** batentzat, niretzat, berriz, ez oso garestia, ikasle soil bat nintzen arren. Jon Muñoz

Roberto Alonso **kubatar** antikastristaren etxaldean aurkitu zituen Poliziak ustezko paramilitarrak.

Ama **kubatarra** dut, aspaldi ez dudala ikusten. Jon Muñoz

Amparo, berriz, **kubatar** -kanadiarra da, baina jatorri siriarra du. Berria - Kultura

**3** zakila titien artean masturbatuz lortzen den orgasmoa.

**Kubatar** sinestezin bat egin zidan orduan: bere bi titiek ito nahirik bezala estutu zuten nire txilibitua, honek, tarteka, bere burutxo gorria erakusten zuelarik erretenean Juan Martin Elexpuru

**4 *afro-kubatar*** *(corpusean **afro-kubar** soilik)* *izond*

Bere ibilbideko hemeretzigarren diskoan, funketik, Jamaikako rock-steadytik, bluesetik, musika afro- **kubarretik** eta hip-hopetik edaten duten hamabost abesti bildu ditu Waitsek. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kubatar doinu** (3); **peso kubatar** (3)
> **alboko kubatarra** (3); **jokalari kubatarra** (3); **waltari kubatarra** (4)
> **abeslari kubatarrak** (4); **pianista kubatarrak** (4)
> **atezain kubatarraren** (3)

---

**kubatartu**, kubatar(tu), kubatartzen da *ad* kubatar bihurtu.

Zeharo **kubatartua** egongo zarela. Jon Muñoz

---

kuberdi ik **kuba 2**.

---

kuberta ik **kubierta**.

---

**kubierta** *(10 agerraldi, 6 liburu –5 autore- eta artikulu 1ean; orobat* ***kuberta*** *39 agerraldi, 8 liburutan –5 autoretan-)* **1** *iz* itsasontziez mintzatuz, gainaldea, bizkarra. ik **ontzigain; ontzi 30**.

Lehendabiziko kaian zegoen, udan belaontziak eta neguan kargakoak egoten ziren tokian, kalerako jantzitako mutil gazteez gainezka **kubierta**. Ramon Saizarbitoria

Harik eta zangoez edo besoez metalezko kasko gogorra jo eta berriro **kubiertaren** gainera igotzen zen arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Jaitsi eta bi bidaia eginen dituzu hiru maletok eta gurpilaulki tolestua nasatik **kubertara** altxatzeko. Joseba Sarrionandia

Matiuxenko marinela, bere burkideekin Potemkin korazatuaren **kubertan**. Koldo Izagirre

Polizoia **kubiertan** agertzen denean, gauza bakarra erregutzen du: lehenbaitlehen lanean jar dezatela, hori baita barkamenaren seinalea eta prezioa. Harkaitz Cano

Txopako sare meten artean kukutu nintzen, Piñeiro eta makinista **kubertapean** gorde ziren nonbait. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

Ez zen kapitaina, marinela zen, **kuberta**-garbitzaile, lanbas-dantzalari bat. Koldo Izagirre

Goiko ontzigain edo kubertari, ingelesez urakan-**kuberta** esaten zaio. Xabier Olarra

---

**kubierto** *iz pl* mahai tresnak.

Horrela jokatuta haizeak gogorrago jotzen zuen eta dena desegiten zuen, **kubiertoak** eta ontziteria. Pello Lizarralde

Babarrunak berotzen jarri, ura, platera, **kubiertoak,** ogia. Joxean Sagaztizabal

---

**kubiko** **1** *izond* kubo forma duena.

Itsasoaren erasoei aurre egiteko pilaturik zeuden harritzar **kubiko** horitako baten kontra. Joxean Agirre

Gela batzuk adreiluzkoak, **kubikoak** eta zirkularrak; ziurrenik ere kanoiaren balak goritzeko labea. Koldo Izagirre

Emakume **kubiko** batek haurra garbitzen zuen, kemenez. Jon Alonso

Alegia, erregea biluzik dagoela, eta bere potro **kubiko** itsusiak agerian dituela. Iñaki Segurola

**2** (bolumen neurriekin) neurri horretako kuboaren bolumena duena. ik beherago **6**; **kubo 5**.

Milimetro **kubiko** bat odolek 7.000 globulu zuri inguru ditu. Irene Aldasoro

Urdailak 1.500 zentimetro **kubikoko** edukiera du. San Alberto eta Sabalo eremuetan eguneko ehun milioi oin **kubiko** gas ekoizten dira. Berria - Mundua

418 hektometro **kubiko** ur hartuko ditu urtegiak, eta 1.100 hektarea utziko ditu ur azpian. Edurne Elizondo

20 hektometro **kubikoko** bolumena dute hor pilatutako materialek, 50 milioitik gora tona. Berria - Euskal Herria

Haren arabera, azken zazpi urteotan, urteko, 42 kilometro **kubiko** izotz galtzen dute glaziarrok. Berria - Gaiak

• **3** *iz* harri kubikoa. ik beherago **5**; ik **kubo 2**.

Nemesiorentzat inor baino gehiago diren hiru harri han daude: berrehuneko zilindroa, ehun eta laurogeiko **kubikoa,** eta errekarri trinko-zaztar bat, batez beste hamabi arroa inguru dituena. Pako Aristi

**4** ***erro kubiko*** erro kuboa.

**Erro kubikoa** ateratzea ez da inoiz gauza erraza izaten, baina Holmboe matematika-irakasle zenez, ondo baino hobeto zekien logaritmoez baliatzen. Jon Muñoz

Ekuazioen ebazpenak kalkulatzea, lau eragiketak eta **erro** karratuak, **kubikoak,** etab. soilik erabilita; beste inolako eragiketarik erabili gabe, alegia. Jon Muñoz

8 092 772 751ren **erro kubikoari** dagokion urtean izango delako Jon Muñoz

**5** ***harri kubiko*** harri-jasotzaileek erabiltzen duten harrietako bat.

Bi harri erabiliko dituzte: 137 **harri kubikoa** eta 125 kiloko bola. Berria - Kirola

Nolanahi ere, Izeta II.ak du teknikarik onena **harri kubikoekin**. Berria - Kirola

Aiakoak **harri kubikoaren** pisua zertxobait jaistea eskatu zuen, eta pentsatzekoa da neurrian aritzeko moduan izango dela. Berria - Kirola

Aurrerantz makurtutako buruak, hanketako bat atzean altxatuz, lasterkako ibilera irudikatzen zuen, eskuak aurrean **harri kubiko** itzel baten azpian tinkatzen ziren artean. Urtzi Urrutikoetxea

**6** ***metro kubiko*** *(58 agerraldi, 7 liburu eta 30 artikulutan)* metro kuboa.

**Metro kubiko** batean espazioa beti berbera da, nahi dudan lekuan eta nahi dudan bezainbat aldiz pentsatu arren. Ibon Uribarri

40.000 eta 50.000 **metro kubiko** arteko bolumena nahikoa izanen litzateke presaz honatago dauden eremuak uraren pean gelditzeko. Edurne Elizondo

Bolumena neurtzen badugu, 100 **metro kubiko** zaborretik 9 **metro kubiko** zepa aterako litzateke eta **metro kubiko** bat errauts. Berria - Euskal Herria

5,5 mila milioi **metro kubiko** gas erosiko ditu guztira. Berria - Ekonomia

Urteko 27.200 milioi **metro kubiko** ur espero da eramango dituela hegoalderuntz. Pello Zabala

Konoak inbutuarena egin zuen, tapoiaren gainean hogei mila **metro kubiko** urezko aintzira bat formatu zen. Juan Garzia

Eusko Jaurlaritzaren Uraren Lege egitasmoak zerga ekologikoa dakar; ur **metro kubikoko** 0,06 euro kobratzea, alegia. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **hektometro kubiko** (12); **hektometro kubiko ur** (8); **kilometro kubiko** (5); **kilometro kubiko ur** (3); **metro kubiko** (50); **metro kubiko ur** (12); **milioi metro kubiko** (9); **oin kubiko** (3); **oin kubiko gas** (3); **zentimetro kubiko** (4)
>
> **erro kubikoa** (4)
>
> **hektometro kubikoko** (5); **metro kubikoko** (4); **zentimetro kubikoko** (4)
>
> **hektometro kubikokoa** (4); **metro kubikokoa** (3)

---

**kubismo** *iz* 1910 inguruan eratu zen aste eskola edo estiloa, gauzakiak kuboen eta antzeko irudi bakunen bidez eta askotariko ikusgunetik irudikatzeko helburua zuena.

Azkenik XX. mendearen hasierako margolaritzako mugimenduak azalduko ziren, espresionismoa edo **kubismoa**. Josu Zabaleta

XX. mende hasierako abangoardia bik, futurismoak eta **kubismoak** lagatako ondarearen inguruan eginiko gogoetaren emaitza da Metapolis Proyect 972 ikuskizuna. Berria - Kultura

XX. mendearen hasieran Pablo Picassok eta Georges Braquek landu zuten **kubismoak** espazioaren pertzepzio erabat berritzailea proposatu zuen. Berria - Kultura

Pablo Picassok eta Georges Braquek landu zuten **kubismoak** espazioaren pertzepzio erabat berritzailea proposatu zuen. Berria - Kultura

---

# kubista 1 *izond* kubismoarena, kubismoari dagokiona.

Hark aurkeztu zizkion, halaber, Picasso eta Braque artista **kubistak,** Loïs Schneider alargunak gogoan duenez. Berria - Kultura

42 pintore inpresionistaren 42 inpresio, 17 pintore **kubistaren** 212 marra zuzen eta surrealista baten erloju urtu batzuk. Unai Elorriaga

Zer dira: margolan abstraktuak, surrealistak, **kubistak** ? Berria - Kultura

Film **kubista** bateko dekoratutik ateratako kupula baten azpian dabil batetik bestera. Jon Muñoz

• **2** *iz* kubismoari jarraitzen dion margolari edo eskultorea.

Cezanneren zentzuzko pintzelkada miresten zuen, baina **kubisten** aurkikuntzek liluratu zuten. Berria - Kultura

**Kubistek** egin zituzten lehenengo deskonposaketak ere beren modeloen "objektutasuna" hobeto adierazten zutelakoan egin zituzten horrela. Josu Zabaleta

---

# kubitera *iz* izotzontzia.

Bihotz formako izotz koxkorrak egiten zituen plastikozko **kubitera** hautatu zuen, gehiegi pentsatu gabe. Harkaitz Cano

---

# kubitu *iz* ornodunen besaurrea osatzen duten bi hezurretako luzeena eta lodiena.

Niri **kubitua** hautsi zidaten. Berria - Euskal Herria

Besondoaren atzealdean dagoen beste muskulu luze bat, **kubitu** delako hezurrari (besaurrean erradioaren ondoan dagoen hezurrari) ukondoaren azpian lotzen zaiona. Irene Aldasoro

---

# kubo 1 *iz* sei lauki berdinez osaturiko poliedroa.

Lodzeko *Ehun eta Larru Sintetikoak SL* etxea osatzen duten hormigoizko **kubo** mardulak ikusi ditu. 2 ber hiru, aldea 2 duen **kuboaren** bolumena. Iban Zaldua

Honelako perspektiba-sistema batean, **kubo** baten irudikapenean ez dira ikusten haren aurpegien barnealdeak, aurpegi horien kanpoko aldeak baizik. Josu Zabaleta

Lerro-orientazioa, ikusmenezko formaren osatzea, **kubo**-elkarketa eta abar neurtzeko testetan. Xabier Olarra

**Kubo** itxura zuen eta 2000. urtean merkaturatu zuten. Berria - Gaiak

**Kubo** bat ezin da izan bi **kuboren** batura. Jon Muñoz

**2** harri kubikoa.

Harriak lurretik bizkarrera jasotzen jardun zuten behin eta berriro: zilindro-kopa, koadroa, **kuboa** eta bola, geometria klaseko jostailuak balira bezala. Berria - Kirola

Bi harri erabiliko dituzte: 100 kiloko zilindro zaharra eta **kuboa**. Berria - Kirola

Harri biribilarekin Euskal Herriko Txapelketako erritmoan ari naiz, baina **kuboarekin** ikusten dut nire burua justu samar. Berria - Kirola

**Kuboarekin** ez nuen erronka handirik eta bolarekin dena eman nuen. Berria - Kirola

52 kiloko **kuboarekin** 16 jasoaldi hiru minutuan, Iazko urriaren 12an, Elosuan, 152 kiloko **kuboarekin** 21 jasoaldi bost minutuan, iazko azaroaren 2an, Azpeitian. Berria - Kirola

Ezin izan zuen 245eko **kuboa** leporatu Berria - Kirola

**3** ontzi handia, kono moztu baten itxurakoa, alde zabalenean heldulekua duena.

Ura ateratzeko burdinazko **kubo** distiratsuek. Koldo Izagirre

Sukaldera bueltan, pixoihal zikina zaborraren **kuboan** sartu zuen. Jon Alonso

Eskuila eta urez betetako **kuboarekin** ordu erdiz lurra garbitu ondoren. Harkaitz Cano

Gizona altxatu, hondartzako poltsa handia ireki, eta umearen **kuboa** eta pala atera ditu bertatik. Pedro Alberdi

Eguzkiaren kilimak bizkarrean senti ditzaket ia, uhinak nire oin txikietan hausten, esku sendo eta gihartsua nire eskua atxikiz, eta beste eskuan, zuk erositako **kubo** gorria dilindan. Eider Rodriguez

**4** gurpilez mintzatuz, abatza.

Gurpilaren **kuboan,** barruko aldetik, danbor bat jarriko da ondo finkatuta eta hortz bat duela bere kanpoko zirkunferentziatik kanpora ateratzen dela. Santiago Iruretagoiena

• **5** *izond (bolumen neurriekin)* aipatzen den neurriko kuboaren bolumena duena. ik beherago **7**; ik **kubiko 2**.

B motako gidabaimena dutenek 3.500 kilo arteko autoak 125 **zentimetro kuboko** motoak gidatzeko aukera izango dute. Berria - Euskal Herria

Urtegiaren edukiera hirukoiztu egingo litzateke, 1.525 **hektometro kubo** ur hartuko bailituzke; gaur egun, 490 **hektometro kubo** hartzen ditu. Berria - Euskal Herria

Antartika urtean 150 **kilometro kubo** izotz galtzen ari da. Berria - Gaiak

Adituen ustez, 50.000 **kilometro kubo** ur ditu ( **kilometro kubo** bakoitza bilioi bat litro ur da). Berria - Mundua

**6** ***erro kubo***

Jiuzhang Suanshuren txinatar tratatu handia -Matematikaren arteari buruzko bederatzi kapituluak-, gure aroa baino mende bete lehenago idatzia eta **erro kuboen** kalkulua azaltzen zuena. Jon Muñoz

Orduan, bi zenbaki horien **erro kuboen** arteko aldea da ebazpena. Jon Muñoz

**7** ***metro kubo*** *(58 agerraldi, 2 liburu eta 31 artikulutan)* alde guztiak metro batekoak dituen kuboaren bolumena.

Cementos Rezolak 1.220.000 tona zementu saldu zituen, eta 1.807.000 tona agregatu eta 327.000 **metro kubo** betoi Hormigones y Minasek. Berria - Ekonomia

Zerri horiek orok emanen dute urtean 3500 **metro kubo** ongarri. Herria

Egunean 650 **metro kubo** ur higatu ba doa hortik zuzenean Aturri ibaira. Herria

Orohar Angeluarrek ura pagatzen dute hiru eurotan **metro kuboa** . Herria

Orain arte, Ukrainak 50 dolar ordaintzen zuen 1.000 **metro kuboko** , errepublika sobietar ohia zelako. Berria - Mundua

Etxe bateko airea osasuntsutzat jotzeko, halako gaien kontzentrazioak ez du 200 mikrogramo **metro kuboko** (ug/m3) muga gainditu behar. Berria - Gaiak

Biltegi haien edukiera milioika **metro kubokoa** zen. Karlos Zabala

**Metro kuboetan** neurtu behar baita, betelana egiteko. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hektometro kubo** (5); **hektometro kubo ur** (3); **kilometro kubo** (9); **kilometro kubo ur** (3); **metro kubo** (33); **metro kubo gas** (7); **metro kubo ur** (5); **milioi metro kubo** (14)
**herenaren kuboa** (3); **kiloko kuboa** (6); **kuboa erabili** (5); **kuboa erabiliko** (3)
**kiloko kuboarekin** (19)

kuboaren bikoizketa (5)
metro kuboko (12)
metro kubokoa (4)
metro kubotik (3)

---

## kubofuturismo *iz*

Hortik sortu ziren, halaber, muturreko hainbat mugimendu: **kubofuturismoa,** suprematismoa, konstruktibismoa eta beste. Berria - Kultura

---

## kuboide *iz*

**Kuboideak** eta hormari buruz eginiko ikerketak paratu dituzte jarraian: klarionen laborategian eginiko lanak, prismak, beirazko kutxak eta erliebeak. Berria - Kultura

---

## kubotxo *iz* kubo txikia.

Beste langile batek apar sintetikozko **kubotxoez** beteko du hartza. Iban Zaldua

Eltze bete uretan oilo-saldazko bi **kubotxo** botaz hasi zen dena. Jon Muñoz

Berehalaxe azaldu zen neskatila txinatar bat erratza eta **kubotxo** bat hartuta beira pusketak lurretik jasotzera. Joxemari Iturralde

---

## kubotzar *iz adkor* kubo handia.

Italiano batek esplikatu zidan behin han *architettura fascista* deritzana ekartzen diotela gogora **kubotzarrek,** eta faxista futurista, hain zuzen, ez faxista klasikoa, bi adar horiek omen baitzituen delako arkitektura faxista horrek. Iñaki Segurola

---

## kubritu, kubri, kubritzen 1 du *ad* -en berri eman.

Moda desfileak ere **kubritu** baitzituen siziliarrak. Berria - Kultura

Batasunaren prentsaurrekoak **kubritzeko** joerarik ez duten hedabideetakoak ere agertu ziren, besteak beste Frantziako prentsa agentzia bateko kazetari bat. Berria - Harian

**2** babestu.

Goñi III.a: Garantia bat da, ez dauka beste batzuen potentzia edo kolpe hori, baina beste era batera konpentsatzen du: kantxan ibiliz, aurrelaria **kubrituz..** . Berria - Kirola

Berarekin jokatzea gustatzen zaiola esan zuen Patxik: «pilota asko hartzen ditu, eta gainera, kantxa asko **kubritzen** du. Berria - Kirola

---

## kudeagailu *iz* kudeagarria. *ipar*

Hor haatik etzituzten frantses soldadoek aintzina egiterat uzten Yamoussoukro hiriari buruz, hor baitira alabainan kausitzen zuzeneko gobernuaren **kudeagailuak** . Herria

---

## kudeaketa 1 *iz* kudeatzea.

Hiri hondakinen **kudeaketa** . Elizen arteko biblia

Zerga-sistemaren **kudeaketaren** ardura hartu zuten. Koro Navarro

Konfiantzarik ez badago, **kudeaketa** zaildu eta burokratizatu egiten da. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko finantza-harremanen **kudeaketan** betetzen zituzten eginkizunak berriz definitzeko. Koro Navarro

Gizarte Segurantzaren **kudeaketa** Jaurlaritzaren esku uztea. Berria - Euskal Herria

Intermon-Oxfameko Giza Baliabide eta Barne **Kudeaketako** zuzendaria izan da parte-hartzaileetako bat. Berria - Gaiak

**2** (izenondoekin)

Errauste planta inposatu nahi dute, zaborraren **kudeaketa** egokiari muzin eginez. Berria - Euskal Herria

**Kudeaketa** eraginkorra egiteko, beharrezkoa da deszentralizazioa. Berria - Euskal Herria

Urte asko zeramatzan administrazio publikoan, eta kudeatzaile ona omen zen, baina urteetan **kudeaketa** zuzena izandakoak okerrera egin bide zuen azken urteetan. Migel Angel Mintegi

Egitasmoak **kudeaketa** integralaren aitzakiapean zentralizazioaren alde egiten du nabarmen. Berria - Euskal Herria

Uraren **kudeaketa** pribatua. Berria - Kultura

Kritika ugari entzun ziren **kudeaketa** ekonomikoaz eta artistikoaz. Berria - Kultura

Banku Zentralak uko egiten diola diru-eskaintzaren **kudeaketa** hautazko orori. Koro Navarro

Nazioarteko finantza-harremanen **kudeaketa** gatazkatsuak izan ditzakeen arriskuak. Koro Navarro

Uraren Erabilera eta **Kudeaketa** Iraunkorrerako Planaren aurkezpenean. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

2006ko **kudeaketa** plana eta aurrekontua onartu zituzten. Idazkari nagusiaren **kudeaketa** txostena goizean onartu zuten. Berria - Euskal Herria

**Kudeaketa** egiturak arrazoirik gabe biderkatzea leporatu die hautetsiei. Berria - Euskal Herria

Kontsentsuz aukeratutako **kudeaketa**-organo batek programa zehatz bat pentsatu eta aurrera bota behar luke. Ana Urkiza

Ez dagoela tratamendu edo **kudeaketa** prozedurarik berez hondakinen arazoak konpon ditzakeenik. Berria - Euskal Herria

**Kudeaketa** gaitasun guztiak ematen zizkion ahalordea. Bego Montorio

Ertzaintzaren **kudeaketa** eskumena. Jokin Urain

Lan ordutegia eta lanpostuen **kudeaketa** testua ezartzeko. Berria - Ekonomia

Ingeniaritza Eskolako **kudeaketa** eredua EHU osora zabalduko dugu. Berria - Euskal Herria

**Kudeaketa** hutsune batzuekin hartu genuen erakundea, baina unibertsitateari bultzada handi bat ematea lortu genuen. Berria - Harian

**Kudeaketa** modu alternatiboak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Rodrigo Rato Nazioarteko Diru Funtseko **kudeaketa** zuzendariak.

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bizirauteko gobernu-**kudeaketa** . Berria - Euskal Herria

*Polis* berean arauak eta legeak sasoiz sasoi -botere-**kudeaketa** batetik bestera- oso aldakorrak izaten direla. Askoren artean

Etxezainaren administrazio edo ondasun-**kudeaketa** . Askoren artean

Enpresen ingurumen-**kudeaketan**. Berria - Euskal Herria

Barne **kudeaketaren** hobekuntzarekin lotuta dago etekinen gorakada. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aireportuen kudeaketa** (5); **antolaketa eta kudeaketa** (3); **artxiboaren kudeaketa** (3); **aurkeztutako kudeaketa txostena** (3); **baliabideen kudeaketa** (6); **denboraren kudeaketa** (3); **diruaren kudeaketa** (3); **egindako kudeaketa** (9); **ehuko kudeaketa** (3); **ehuren kudeaketa** (3); **enpresaren kudeaketa** (3); **enpresen kudeaketa** (5); **erabilera eta kudeaketa** (3); **gizarte segurantzaren kudeaketa** (5); **gobernuaren kudeaketa** (5); **harremanen kudeaketa** (3); **hiri hondakinen kudeaketa** (21); **hondakinen kudeaketa** (57); **informazioaren kudeaketa** (4)

**kudeaketa arduretan** (3); **kudeaketa bikaina** (3); **kudeaketa egiten** (3); **kudeaketa egokia** (8); **kudeaketa enpresa** (5); **kudeaketa eraginkorra** (7); **kudeaketa eredu** (4); **kudeaketa eredua** (4); **kudeaketa eta antolaketa** (4); **kudeaketa hobetzea** (3); **kudeaketa hobetzeko** (3); **kudeaketa iraunkorra** (3); **kudeaketa lanak** (4); **kudeaketa ona** (4); **kudeaketa plana** (14); **kudeaketa plana aurkeztu** (3); **kudeaketa plana onartu** (3); **kudeaketa planak** (3); **kudeaketa planaren** (3); **kudeaketa pribatua** (3); **kudeaketa publikoa** (9); **kudeaketa sistema** (4); **kudeaketa txar** (3); **kudeaketa txarra** (20); **kudeaketa txarra egin** (4); **kudeaketa txarra izan** (3); **kudeaketa txarrak** (3); **kudeaketa txarraren** (3); **kudeaketa txarrari** (4); **kudeaketa txostena** (10); **kudeaketa zuzena** (4)

**lurraren kudeaketa** (7); **navalen kudeaketa** (4); **segurantzaren kudeaketa** (5); **uraren kudeaketa** (12); **zaborraren kudeaketa** (5); **zaborren kudeaketa** (3); **zuzendariaren kudeaketa** (3); **zuzendaritzaren kudeaketa** (4)

**enpresen kudeaketan** (3); **hondakinen kudeaketan** (8); **kudeaketan parte hartzeko** (3); **unibertsitatearen kudeaketan** (3); **uraren kudeaketan** (3)

**hauteskundeen kudeaketarako** (3); **hauteskundeen kudeaketarako batzorde** (3); **hiri hondakinen kudeaketarako** (15); **hondakinen kudeaketarako** (21); **hondakinen kudeaketarako plan** (11); **kudeaketarako batzorde bateratuak** (3); **kudeaketarako gaitasuna** (4); **kudeaketarako plan** (13); **kudeaketarako plan integralaren** (6); **lurraren kudeaketarako** (3)

**enpresaren kudeaketaren** (4); **hiri hondakinen kudeaketaren** (3); **kudeaketaren ardura** (4); **kudeaketaren balantzea egin** (3); **uraren kudeaketaren** (7)

**edukiei eta kudeaketari** (3); **hondakinen kudeaketari** (3); **uraren kudeaketari** (5)

**kudeaketaz arduratzen** (4); **kudeaketaz hitz egingo** (3)

---

## kudeakuntza *iz* kudeaketa.

Euskaltzaindiak kudeatu ditu luzaz bertsulari xapelgoak eta euskaltzainetan ez da sekulan izan bertsuzale faltarik, xapelgoan **kudeakuntzaz** kanpo ere. Herria

1981etik 1990a arte eta 1993tik orain arte agintean egon den Greziako alderdi sozialistaren **kudeakuntzaz** aspertu egin dira herritar asko, batez ere gizarte alorretan hobekuntzarik ez dutelakotz sumatu.

**Kudeakuntza** esparru guztietan. Berria - Ekonomia

---

## kudeamolde *iz* kudeatzeko moldea.

Ez ote da hor handi handia agertzen "herri elkargoek" edo "hiri aglomerazioek" berdin, beren **kudeamoldean** duten "defizit" demokratikoa. Herria

---

## kudeantza **1** *iz ipar* kudeatzea. ik **kudeaketa.**

Errege deitzen baitugu, alabaina, gizarte gaietan **kudeantza** nagusia bere esku duena. Piarres Xarriton

Akitaniako kontu auzitegiak egiten dituen oharpenak Baionako hiriaren **kudeantzari** buruz. Herria

Abere hildegiaren **kudeantza** sektore pribatuaren esku ezarri nahi du atsulutuki BAM-eko presidenteak. Herria

*Europistas* enpresaren gain zen autopistaren **kudeantza**. Herria

Beraz lan guztien **kudeantza** ene gain zen. Daniel Landart

Honen bidez --, ikasleak trebatuko dira informatika dokumentoen **kudeantza** elektronikoan, internet guneen ikerketan eta abar. Herria

Badira 25 trebetzaile eta 40 arduradun **kudeantzan**. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzarmenaren **kudeantza** batzordeak "argi berdea" eman du 47 milioi euro diru laguntza publiko hartuko duten proiektuentzat. Herria

**Kudeantza** buxetaren ehuneko bat emaiten diola euskarari. Herria

**K udeantza** gastuak tinkatuz eta herri zergak ehuneko hiruez emendatuz. Herria

Beren **kudeantza** sistema alda dezaten. Herria

Hiri elkargoen **kudeantza** aldaketa. Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskola **kudeantzako** lehendakari Michel Jorajuriak. Herria

Alain Iriartek bere esku atxikitzen ditu elkargoaren diru **kudeantza** eta araudien bilakaera. Herria

· Administraritza eta enpresa **kudeantza** sailean 231 ikasle ditugu. Herria

Baiona/Euskal Herriko Merkatal Ganbaran kokatua den Komertsio **Kudeantza** Eskolan besta izan da joanden ostegun arratsaldean. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kudeantza batzordean** (3)

**laborantxa kudeantzari buruz** (5)

---

## kudeatu, kudea, kudeatzen **1** du *ad* egiteko baten antolaketa arazoen, diru gorabeheren eta kidekoen arta izan. ik **administratu.**

Izan ere, nola kulturan hala hizkuntzaren alorrean, betidanik Frantziako Barne ministroak **kudeatu** ditu Euskal Herriari dagozkion gaiak. Berria - Euskal Herria

Ia 33.000 milioi euro **kudeatu** zituen aurrezki kutxak joan den urtean. Bretton Woodseko sistemak hondoa jo zuenez geroztik, banku zentralek **kudeatu** dute gehienetan diruen flotazioa. Koro Navarro

Dolarraren jaitsiera nola **kudeatu** banku zentral guztien artean hitzartuz gero. Koro Navarro

Arasurren bokazioa ez da orubeak saltzea, baizik eta pabilioiak eraiki, **kudeatu** eta alokatzea. Berria - Ekonomia

Ebroko Ur Konfederazioak Nafarroako Gobernuaren esku utzi du Itoizko urtegiko ura **kudeatzeko** eskumena. Edurne Elizondo

Eurotunnel **kudeatu** duen administrazio kontseiluaren azken orduak ziren. Berria - Ekonomia

Luzaz, serora batzuk **kudeatu** dute etxe hori. Herria

Etxeko eginbeharrak nola **kudeatu**. Gotzon Garate

Giltzurruna, berriz, ingeniaritza kimikoko sistema bat da, ingeniari batek ezin berdinduzko maisutasunez diseinatua eta **kudeatua**. Irene Aldasoro

Horrek erran nahi du hizkuntzaren gaia ez dela politikoki **kudeatua**. Berria - Euskal Herria

Bestetik, alderdiek euren denbora **politikoa** kudeatu beharko dute. Berria - Harian

Baimenak Eusko Jaurlaritzak **kudeatu** ditu, Gernikako Udalarekin batera. Berria - Kultura

Gobernuak […] hiritarren arteko harremanak **kudeatzeko** giza legeak garatu behar dituela. Askoren artean

Luzien Etxezaharretak ederki **kudeatu** du mintzaldi hori. Herria

Guk badakigulako nola tratatu jendilaje hori, nola erabili, nola **kudeatu** gure indarra. Jon Alonso

Euskaldunek berek **kudeatu** behar dute beren oraina eta geroa. Berria - Euskal Herria

Eta ororen buruan, diruak **kudeatzen** duen gizarte honetan, nola egin bestela? Daniel Landart

**2** (era burutua izenondo gisa)

Zer da gaur *physis*? izadi sakratua ala ingurumen **kudeatua** ? Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **gaiak kudeatu** (3); **gaizki kudeatu** (3); **milioi euro kudeatu** (3); **ondo kudeatu** (7)
>
> **elkarteak kudeaturik** (4)
>
> **eak kudeatutako** (7); **eako hautetsiek kudeatutako** (3); **ezker abertzaleak kudeatutako** (12); **hautetsiek kudeatutako** (7); **hautetsiek kudeatutako udalbiltzak** (3); **kudeatutako baliabide** (3); **kudeatutako baliabideak** (5); **udalek kudeatutako** (3)
>
> **gaizki kudeatzea** (3); **ondo kudeatzea** (4)
>
> **baliabideak kudeatzeko** (3); **bizikidetza kudeatzeko** (3); **gatazkak kudeatzeko** (4); **hiri hondakinak kudeatzeko** (42); **hobeki kudeatzeko** (3); **hobeto kudeatzeko** (4); **hondakinak kudeatzeko** (52); **hondakinak kudeatzeko plan** (23); **hondakinak kudeatzeko plana** (4); **hondakinak kudeatzeko planak** (4); **hondakinak kudeatzeko planaren** (4); **hondakinak kudeatzeko sistema** (3); **ingurumena kudeatzeko** (3); **kudeatzeko ardura** (8); **kudeatzeko aukera** (4); **kudeatzeko baimena** (3); **kudeatzeko eredu** (3); **kudeatzeko eskatu** (4); **kudeatzeko eskumena** (4); **kudeatzeko gaitasuna** (5); **kudeatzeko modu** (3); **kudeatzeko modua** (7); **kudeatzeko plan** (24); **kudeatzeko plan integralaren** (8); **kudeatzeko plana** (4); **kudeatzeko planak** (4); **kudeatzeko planaren** (6); **kudeatzeko sistema** (8); **ura kudeatzeko** (7); **zaborra kudeatzeko** (3); **zaborrak kudeatzeko** (4)
>
> **aireportua kudeatzen** (3); **alderdia kudeatzen** (6); **alderdia kudeatzen dutenak** (4); **antzokia kudeatzen** (3); **autobidea kudeatzen duen** (4); **biltzarra kudeatzen** (3); **bulegoa kudeatzen duen** (3); **eako hautetsiek kudeatzen** (3); **elkartea kudeatzen** (5); **elkartea kudeatzen dutenek** (3); **elkarteak kudeatzen** (5); **elkarteak kudeatzen duen** (3); **enpresak kudeatzen** (7); **enpresak kudeatzen zuen** (3); **erakunde horrek kudeatzen** (4); **erakundeak kudeatzen** (3); **etxea kudeatzen** (3); **europa batua kudeatzen** (4); **ezker abertzaleak kudeatzen** (3); **gobernuak kudeatzen** (5); **gobernuak kudeatzen ditu** (3); **hautetsiek kudeatzen duten** (14); **hondakinak kudeatzen dituen** (6); **interesak kudeatzen** (3); **kudeatzen duen elkarteak** (3); **kudeatzen duen elkarteko** (3); **kudeatzen duen enpresak** (6); **kudeatzen duen erakundea** (4); **ongi kudeatzen** (3); **saila kudeatzen** (4); **taldeak kudeatzen** (3); **turismo bulegoa kudeatzen** (3); **udal hautetsiek kudeatzen** (3); **udalak kudeatzen** (3); **zentroa kudeatzen duen** (3); **zuberoako hondakinak kudeatzen** (3); **zuzenean kudeatzen** (4)

---

# kudeatzaile 1 *iz* kudeatzen duen pertsona.

Negozioaren **kudeatzaile** izendatua izango zelako. Irene Aldasoro

Donibane Lohizuneko lan publikoen **kudeatzaile** nagusiaren ustez. Berria - Euskal Herria

Gasbide honen **kudeatzaile** den Fluxys elkarteko segurtasun zerbitzuak. Berria - Mundua

Sidenorreko **kudeatzaile** Sabino Arrietak garbi utzi zuen enpresak ez zuela alde egiteko gogorik. Berria - Ekonomia

Urte asko zeramatzan administrazio publikoan, eta **kudeatzaile** ona omen zen, baina urteetan kudeaketa zuzena izandakoak okerrera egin bide zuen azken urteetan. Migel Angel Mintegi

Arabak eta Gasteizek **kudeatzaile** hobeak behar dituztela uste du Batasunak. Berria - Euskal Herria

**Kudeatzaile** txarren eta hartzekodunen eskuetan gaude. Ministro bat, esaterako, **kudeatzaile** hauen zerbitzuko funtzionario bat baizik ez da, azken finean. Jon Alonso

Euren buruak kulturaren **kudeatzaile** ahalguztiduntzat dituzten horien aurka. Berria - Kultura

Ezinaren **kudeatzaile** primerako bihurtu gaitu lanbideak. Andoni Egaña

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gainera, onartu beharrean nago Himmler, bere sineskeriak alde batera utzita, balio handiko gizona dela **kudeatzaile** lanetan. Alberto Ladron Arana

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hautetsi eta elkarte **kudeatzaile,** jende asko bildu da lehenik bi oren pasaturik iraun duen bilkura batean. Herria

Ikasmaterialgintzako proiektu **kudeatzaile** bat bilatzen du [IKASek]. Herria

Saltzaile itxura zuen, nahiz izan zitekeen berdin barberu, matematika irakasle edo etxalde **kudeatzaile** . Elena Touyarou

Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari-**kudeatzaile** Teresa Aranaz. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **azpiegituren kudeatzailea** (3); **sidenorreko kudeatzailea** (4)
>
> **elkarteko kudeatzaileak** (3); **zuzendari kudeatzaileak** (3)
>
> **enpresako kudeatzailearen** (4)

---

# kudeatze *iz* egiteko baten antolaketa arazoen, diru gorabeheren eta kidekoen arta izatea.

Herrialde baten aberastasunaren **kudeatze** arrazionala. Berria - Mundua

Politika ez da **kudeatze** hutsa. Berria - Euskal Herria

Funtsean numero elektronikoen harat-honata **kudeatze** hutsa den lanak betetzen du bizitzen ahaztutako gizonen denbora. Iñaki Segurola

Epe luzeko oroimenak, aldiz, eragin handiago du ideia eta egituren **kudeatze** eta antolatze jardunetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Uste dute [...] azaroaren 24a arte ministro britainiarrek **kudeatze** lanetan segitzeak Ostiral Santuko Akordioa ahultzen duela. hiru mila Irakiatar, herri **kudeatze** gora beheretan Amerikanoek eskolatuak. Herria

---

## kuenta ik **kontu**[1].

---

## kuerda ik **korda 8**.

---

# kuestazio *iz* diru biltzea.

Herri **kuestazioa** . Berria - Euskal Herria

---

# kuestio *iz* kontua, gorabehera; galdera.

**Kuestioa** duk azkenean Hendaian azaldu zela. Jokin Urain

**Kuestioa** da, Cervantes-en bi heroiengan islatua ikusi gura den bikoiztasun hori Espainiaren arimarena ote den. Joxe Azurmendi

Erabilitako joko-sistemak ez du garrantzirik, ondo jokatzea da **kuestioa** . Berria - Kirola

Betiere herri gogoaren terminotan jarraitzen da **kuestioak** planteatzen. Joxe Azurmendi

---

**kuestionatu**, kuestiona, kuestionatzen du *ad* zalantzan jarri; auzitan jarri.

Gure aurreiritziak ere **kuestionatzeko** gai izan behar dugu. Txema Ramirez de la Piscina

Batasuna **kuestionatzen** hasiak diren katalan eta euskaldunen aurka. Joxe Azurmendi

Gure metodoak **kuestionatuko** dituzte; inolaz ere gure zioak. Txema Ramirez de la Piscina

Azkenean, "naturalaren" eta "razionalaren" kontzeptuak berak **kuestionatu** beharra egon da. Joxe Azurmendi

**Kuestionatu,** edo berretsi, edo berritu, edo desegin... Ana Urkiza

---

**kui** *iz* untxia, ugaztun marraskaria *(Lepus cuniculus).*

**Kui** zuribeltzak maite nituen, arratoi hezien begi tristeak zituztelako. Javi Cillero

**Kui** ildaskatu sabelandiak eta beste batzuk biribilak eta leunak ikusten ziren pilatan. Josu Zabaleta

---

**kuia** **1** *iz* landare etzana, hosto-handi eta lore-horia, haziz beteriko fruitu biribilak eta oso handiak, hori-laranja kolorekoak, ematen dituena *(Cucurbita pepo).*

**Kuia** erraldoi bat hazi zuen, eta erizainari oparitu zion. Jose Morales

61 kiloko **kuia** jinarazi du bere baratzean Elixabet Hirigarrayek. Herria

**Kuiaren** beraren pipitekin egindako olio beltzez gozatzen dute. Bernardo Atxaga

**Kuia** hustuekin egiten diren kriseiluen antzera. Oskar Arana

Tomatea kamiunka, jateko **kuia** berdin. Herria

Gizonaren aurpegia, aldiz, biribila eta zabala zen, Rusen bi hariko balalaika arinak egiteko erabiltzen diren Moldaviako **kuia** horien antzekoa. Jose Morales

Zakutxo bat datil eta **kuia** bete ur eman baitzioten. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

**Kuia** zopari makarroi tartaleta jarraitu zitzaion, eta hari kafea. Bernardo Atxaga

**Kuia** zukua zirudien zopa hura. Josu Zabaleta

Eta, oro har, onartu beharra daukat, iritzi ona egin nuen nire bihurri **kuia**-buru hartaz. Oskar Arana

Bi **kuia** ilarak barrikada bat eratu eta Rambuteau kalearen sarbidea trabatzen zuten, beren sabel handiak barreiatuz. Karlos Zabala

Guztiz atsegin, ongietorrizko irribarre batekin, tarteka **kuia**-kriseiluaren antzeko hortzeria hura erakutsiz, jendetasunaren eta molde onen eredu berbera. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuia zopa** (3)

---

**kuiakeria** *iz*

**Kuiakeriak** ez hain merke eta, berdin, kuia-lili. Herria

---

kuiatto ik **kuiatxo**.

---

**kuiatxo** *(corpusean **kuiatto** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kuiatxo** agertzen da)* *iz* kuia mota txikia, pepinoaren antzekoa *(Cucurbita pepo oblonga)*.

Janariak: […], ahatekume fartzitu sahetsa jusarekin, **kuiattoa** esne opil gisa lursagar xigortuekin, ardi gasna gerezi ereximetarekin, melekeria, Irulegiko arno xuri eta gorria kafe ondokoarekin. Herria

---

**kuidadito** *iz*

Zeinen garbi, ikas ezazue, hor duzue, poliki, **kuidadito** pintura harrotu kablea kentzean, ederki. Koldo Izagirre

Ongi, **kuidadito** mazaduraren bat egin paretatik sobera hurbil kokatu nahi izateagatik. Koldo Izagirre

---

**kuidado** *(orobat **kuidadu** g.er. eta **kuidau** g.er.)* *iz* **1** (ezezko esaldietan egon edo izan aditzarekin) kezka, beldurra.

-Ez izan **kuidadorik,** etxean zauden artean ez zaizu ezer faltako eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dago **kuidadorik:** zinpeko zaindaria ordu hauetan goiko pisuetan dabil. Iban Zaldua

-Zuen aitak gerra egin izan balu, airean irabaziko genuen, ez dago **kuidadorik..** . baina ez zegoen semearen etxean azalduko zen **kuidadorik** . Joan Mari Irigoien

· **2** *interj* kontuz.

Baina, **kuidau,** diziplina sakraturen bati saiheska, deabruagana luzatu eta nahasten diren kalpar bizarrekin, halakoak beti gaizto, endekatu, hereje, gorri. Patziku Perurena

**3** ***kuidadoz*** *adlag* kontuz, arretaz.

Kontuz eta **kuidadoz** moztu azazkalak. Pello Zabala

Eta ardoak, itsasontzi alemaniarretatik hainbesteko **kuidadoz** lehorreratuak. Ramon Etxezarreta

Agustin; honekin **kuidado** gutxi... Pablo Sastre

---

kuidadu ik **kuidado**.

---

**kuidatu**, kuida, kuidatzen *(corpusean **kuidau** soilik)* du *ad* zaindu.

Lenoko bizimodu tristia, soruak eta basuak **kuidau**. Alberto Barandiaren

---

kuidau ik **kuidado**.

---

**kuita** *iz* atsekabea, pena.

Metrailatzailea bere buruari **kuitak** kontatzen ari da: "Ongi, ongi, motel... Ongi, motel... zibiletan ere bazagok lehiatzea honelako bat ikusteko!...". Josu Zabaleta

---

kuixidade ik **kuxidade**.

---

**kukaina** *iz* donibane zuhaitza.

Txistua eta dultzaina entzungo zen han eta hemen, eta dantzak antolatuko, eta enbor-**kukainak** erakutsiko, eta buru-handien eta erraldoien ibilketak karrikaz karrika egingo. Txillardegi

---

**kukaratxa** *iz* labezomorroa.

Eguerdi aldera, hainbat eta hainbat langabetu irtenen ziren kalera, espaloi bazterrera, egunezko **kukaratxak,** azalez ere labezomorro belztuak balira bezala, urtetako lanezak ganoragabekeria mozkortzen ziela. Iñaki Zabaleta

---

**kuku** **1** *iz* txori igokaria, uso baten tamainakoa, lumak hauskarak eta buztana beltza dituena*(Cuculus canorus).*

Euskal Herrian beti esan ohi izan da **kukuak** zorte ona ekartzen duela, urte ona ekartzen duela... Udaberrian lehen aldiz **kukua** entzutean poltsikoan dirua eramateak urte guztirako dirua bermatzen omen du, **kukuari** diru-poltsa erakutsi eta *badiat, badiat* esaten badio. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kukuaren** portaera harrigarria da hegaztien artean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Habiako benetako jabeak, gainerako arrautzen erruleak, amarruaz ohartu ez eta **kukuak** errundako arrautza huraxe maitatzen du besteak baino gehiago, besteak baino indartsuagoa izango delakoan edo. **Kukuaren** kumea beste txitak baino lehenago jaiotzen da, eta jaio eta berehalako lana, gainerako ume guztiak, anaiordekoak, etxeko semeak, habiatik botatzea izaten du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Papogorria da, kanpotik etorritako **kuku** gaizkile harro alferrari ostatu ematen dion hegazti bakarretakoa. Patziku Perurena

Hark ateratzen baitio, indarka eta ahaleginean, **kuku** alperrari bere ume bakar lepo-zabala. Patziku Perurena

Urtean behin edo idazten zidak, **kukuak** bezala. Jokin Urain

Herriak **kuku** magiko eta azkarraren lana ikusi du horretan eta hortik, agi danean, kuku-sagar izen hori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bi **kuku** / erdibana / kantuan. Karlos Linazasoro

Kalean, umeen oporrak entzuten zituen eta **kukuen** kantuak. Unai Elorriaga

Prestatu beharko zen, bada, **kukua** bezala, habia bortxatzera. Migel Angel Mintegi

**2** kukuaren kantuaren onomatopeia.

Kukuak maiatzean **kuku**. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** (hitz elkartuetan)

Gaur goizeko **kuku** kanta sorta ez zen nolanahikoa! Pello Zabala

· Sarritan, barrez lehertzen ziren, jendea hantxe bertan gelditzen zenean, otarreen artean norbait zegoela susmatu gabe; **kuku** leihoak zabaltzen zituzten, kanpora begiratzen ausartzen ziren. Karlos Zabala

**4** ***beste kuku batek jo*** gauzak beste modu batean atera.

**Beste kuku** batek joko liguke orain, hauteskundeetan Carrillok irabazi izan balu... Joan Mari Irigoien

**Beste kuku** batek joko ziokeen, noski, gorputzaren grinak asetzeak ilehoriaren arrastoan jartzeko aukera ematen bazion. Migel Angel Mintegi

-Jakina -jarraitu zuen Manilovek-, **beste kuku** batek joko liguke auzolagunak gisakoak balira. Jose Morales

Bai, adiskidea, nire egoeran bazeunde, **beste kuku** batek joko lizuke. Jose Morales

Seigarren mailan gertatu zitzaidan komeria jakin zuenean, **beste kuku** batek jo zuen. Jesus Mari Mendizabal

**5** ***kuku bat egin*** ikustaldi bat egin.

Alabaina, une batez Borges sartu da gure sukaldean **kuku** bat egitera. Patxi Zubizarreta

Argizaria ez amatatzea eta etorri berriari **kuku** bat egitea erabaki nuen. Edorta Jimenez

Liburuari **kuku** batzuk egin nizkiola. Edorta Jimenez

**6** ***kuku erloju***

Lekua erabat hautsak estalia zegoen eta liburuen artean, hormetan zintzilikatu ohi diren **kuku-erloju** horietako dozena erdi bat zegoen barreiaturik. Harkaitz Cano

Hormen iluntasunean ezkutaturik bide zeuden dozenaka **kuku-erloju** arratsaldeko zortziak ematen hasi baitziren. Harkaitz Cano

**Kuku-erlojua** eraitsi nuen hormatik. Harkaitz Cano

· Erlojuko **kukuak** fuerte kantatuz gero, euria zekarren -horixe esaten zuen Lucasek-. Unai Elorriaga

Aita hil zenean gelditu zen **kukua**. Unai Elorriaga

**7** ***kuku gelditu*** ez gora ez behera gelditu.

Baina oraingoan harria **kuku** gelditu zaio gerrian Nemesio Irusta Loidiri. Pako Aristi

**8** ***kuku-lore*** urrebotoiaren familiako landarea, lilitegietan hazten dena *(Aquilegia vulgaris).*

Bada **kuku**-lorerik hemen ondoan: zinezko hilotz-hatzak. Juan Garzia

**9** ***kuku-praka*** *(orobat* ***kukufraka****)* *iz* belarbeltzaren familiako landarea, korola ditare itxurakoa duten loreak mordoetan dituena, eta hostoetatik bihotzekoen aurkako sendagai bat ateratzen zaiona *(Digitalis purpurea).*

udaberrian, txikoria-belarraren eta apo-belarraren lore horixkek, gladiolo gorrimin ederrek eta **kuku-praka** purpura-koloreek distiratzen dute pareten ondoan. Koro Navarro

Big Joe hemengo **kuku-prakei** eta hango atxaparkei tiraka doa, amari eskuak lorez betetzeraino. Mirentxu Larrañaga

**Kuku prakez** oroitzen da; izen hori duten loreez, alegia. Berria - Kultura

Nik dakidan txoko batean **kukufrak** gorria erruz hazten da, zeinek, bide batez, indargarri on bat prestatzeko ere balio duen. Joanes Urkixo

Big Joek beste **kuku-praka** lore bat eskaini dio. Mirentxu Larrañaga

Kanpai irauli bat zen, edo, nahi bada, **kukufraka**-korola bat, lau metro zabal eta altzairu trinkoan egina. Juan Garzia

**10** ***kuku-sagar*** *(orobat* ***kukusagar****)* haritzetan eta bere familiako zuhaitz batzuetan intsektuen eraginez hazten den koskor biribila. ik **koskoilo**.

**Kuku-sagar** edo koskoiloak mota askotakoak izan daitezke, baina ezagunenak haritzarenak dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Izan ere, koskoilo edo **kuku-sagarretan** zulotxo bat ikus daiteke eta, hala egokituz gero, baita handik jaioberria den eulitxo bat irteten ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire andereari begi bitxiak, tortotxaren **kukusagar** bihurturik utzi dizkiozue. Patxi Ezkiaga

Labana batekin arreta handiz erdibitzen baditugu, barnealdean arrautza bat dutela ikusiko dugu, edo agian gehiago, **kuku-sagar** motaren arabera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Afalondoko hondamenduaren ondotik, **kukusagar** -ura, dukearen medikuaren kontsentimenduarekin Maddalenek prestatua. Joan Mari Irigoien

### 10a *kukuak makur jo*

Halatan, **kukuak makur joz** gero, nire alde erabili ahalko nuen eskuindarrak babestu izana. Parisen, baina, **makur jo** zien **kukuak** askatasun amets laino haiei. Berria - Kultura

Whistean aritu zen, baina **kukuak makur jo** zion horretan ere: kolorez okertu zen bi aldiz, eta, jokoaren arauak ahazturik, hainbat jokaldi ustel egin zituen. Jose Morales

Susmoa diat **makur jo** behar diala **kukuak**, Pedro Páramo. Juan Garzia

Baina, nonbait, **kukuak makur jo** zukeen. Daniel Landart

### 11 *kukuak oker jo*

**Kukuak** oker jo zigun berriz. Aingeru Epaltza

Eta, jakina, hain dago itsututa konplitu nahi horrekin, non azkenean **kukuak** oker jotzen dion beti. Luis Elberdin

### 12 *kukuak ederki/ongi jo*

**Kukuak** ederki jo digu. Juan Kruz Igerabide

Hala izan ez bazen, bederen, ezin uka **kukuak** ongi jo ziola ama berriari. Aingeru Epaltza

**Kukuak,** behingoz, ongi jo zuen niretako. Aingeru Epaltza

**Kukuak** ongi jo dizu gaur... -Abaurrek, aho azpiz, papera luzatzen ziola. Aingeru Epaltza

· Gauzak dauden bezala ez gaude **kukuak** nondik **jotzen** duen zain egoteko moduan. Migel Angel Mintegi

### 13 *kukuak kantatu* (norbaiti)

**Kukuak** *kantatu dio horri* esaerak zortea izan duela esan nahi du. J.M. Olaizola "Txiliku"

### 14 *lo kuku* lo lukuska.

Azken bagoi honetan egin izan dira treneko bilerak, berton egin izan ditu Thomasek **lo-kukuak**. Edorta Jimenez

Koadernoa altzoan hartu, eta **lo kuku** bat egiten saiatu aurretik, Rubenek oparitutako argazkiak ikusiko ditut. Patxi Zubizarreta

Orain ere, bazkalosteko bero kiskalgarri honekin, nor bere dendan utzi ditut, seguruenik **lo kuku** bat egiten. Patxi Zubizarreta

**Lo kukua** egin dut, aldi batez. Javi Cillero

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuku egin** (5); **kuku erloju** (8); **kuku erlojua** (4); **kuku gordeka** (12); **kuku sagar** (3); **lo kuku** (3); **lo kuku bat** (3)
> **kukuak makur jo** (3); **kukuak oker jo** (3)

---

## **kuku**² **1** *adlag* ezkutaturik. ik **kukuka¹**; ik beherago **6.**

Horra, ba: antirrelatibistaren barruan **kuku,** tomista bat dago mozorrotuta! Joxe Azurmendi

· Sastraken artean haur batzuk, **kuku** hemen eta **kuku** han, oihu garrasiak eginez elur konbate batean lotuta zeuden. Pablo Sastre

### • **2** (interj gisa)

Orain banago: **kuku** !: orain ez nago. Iñaki Segurola

### 3 *kuku eginsup_1* ezkutatu.

Eguerdian hain garden ageri zirenek beren muturje uherrenetik egiten zidaten **kuku** arratsaldean. Aingeru Epaltza

### 4 *kuku eginsup_2* begiratu. ik **kukuka¹ 3.** • (**egin** ezabaturik)

-Zergatik edaten dudan hainbertze eta zergatik beti ginebra galdetzen didatenean, nik Waterloo pelikula horretakoa kontatzen diet -Tomasek **kuku** gonadunari- ikusi duzu? Aingeru Epaltza

### 5 *kuku egon*

Eguraldia: Euskal Herria goibel, **kuku** dago eguna, pazin beltzak mendi tontorretan. Pello Salaburu

### 6 *kuku-gordeka adlag* ezkutuka.

Hastapenean haren balentriak kondatzen zizkidan, mendian gaindi nola ibiltzen zen alemanekin "kuku-**gordeka"**. Eguzkia kuku-**gordeka** ari zen hodeien artetik, eta aire mehe batek belar hezearen usaina ekartzen zien. Eneko Bidegain

Rakelen dendara kuku-**gordeka** hurbildu, eta han inguruka ibili zen, deitu, ez deitu, sartu, ez sartu, zalantza balu bezala. Patxi Zubizarreta

Gauak eta egunak ordez, herioaren kuku-**gordeka** eta mehatxupean higatu nituen. Itxaro Borda

### 7 *kuku-muku iz*

Subazterrean bildu ilobek Joanesen eleak edaten zituzten; zioenez, bizpahiru aste eraman zituen jendarmeekin herriratzeko **kuku** -muku latzean, eta gero, Urepelen gauez gau muga pasatuz, Oihartzunen errefuxiatzeko. Itxaro Borda

### 8 *kuku-toki iz* ezkutatokia.

Dena nahar eta asun, beleen **kuku** toki ahantzi bat baino ez. Itxaro Borda

---

## **kuku**³ *interj* norbait edo zerbait gaitzesteko oihua.

-Biba Andre Dena Maria! **Kuku** heretikoak! Aingeru Epaltza

Hots, horietaz denetaz ainitz protesta badabiltza, manifestaldiz eta izkirioz hauk bezalakoak : "Utz libro Palestina !" edo : **"Kuku** Bush !" eta holako. Herria

· Udaltzainak ezkutatu egin dira, ez dute emazte biluzi bat atxilotu nahi, halakorik, **kuku** eginen lieke oihu ikusleriak. Koldo Izagirre

---

## **kukubil** *adlag* kiribil.

Big Joe, izkina batean **kukubil** eginda. Pablo Sastre

---

## **kukubildu,** kukubil(du), kukubiltzen da/du *ad* kiribildu.

Elkarrengana **kukubilduta,** babes zulo lirdingatsuetan egiten dugu lo. Pablo Sastre

---

## kukubilka ik **kukubilko.**

## **kukubilkatu**, kukubilka, kukubilkatzen **1** da/du *ad* kukubilko jarri, kokoriko jarri.

Berriro **kukubilkatu** ginen, Herbert eta biok, isats lemaren azpiko itzalean: hari ere, hegoei bezalaxe, argitasun itsugarria zerion. Joxe Austin Arrieta

Ia komun publiko guztiak ziren horrelakoak: zementuan egindako zulo bat, koska bana zuena bi aldeetan oinak jartzeko eta **kukubilkatzeko** . Joseba Urteaga

Bazter batean **kukubilkaturik** hil dute egun osoan hazitako gosea. Aingeru Epaltza

Lurrean **kukubilkatua** egoten zen, janzten nahiz pipatzen, edota okin bikotea zelatatzen. Patxi Zubizarreta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Irudi **kukubilkatua** , izaki bizidun baten itzal zurbila, izaki birrindu eta garaitua, ikaragarrizko gutiziak eta amorruak bereganatua; eta haren aurrean, orain batere errukirik gabe, zuriz jantzitako irudia, bularrean suzko gurpila dirdiraka zeramana. Agustin Otsoa

---

## **kukubilko** *(orobat **kukubilka** g.er.)* *adlag* kokoriko. ik **kukulumuxu**.

Mutikoa eta biok, inguruan euri-uholdea, bera **kukubilko** eta nire zapatak distirarazten bere zapiarekin, zirt-zart… Kontrabaxuak, aldiz, bere kokots bizartsua gorbatan sarturik daukala, **kukubilko** eta ia lurra ukitzeraino makurturik, bere nota jaulkitzen du handik. Joxe Austin Arrieta

Behin eta berriro aupatzen zuen gorputza oin-puntetan buruen gainetik ikusteko non ote zen bere ilehori xarmagarria; **kukubilko** ere jarri zen, sorbalda eta bizkar artetik arakatzeko. Jose Morales

Neskek, esaterako, biluztu eta bizkarra zuzen zutela **kukubilka** jarriarazi zituztela. Berria - Euskal Herria

Maribel, hosto erori berrien gainean **kukubilko,** txotxabarra motxinean gora eta behera, gora eta behera sartzen harrapatu zutenekoa. Alberto Barandiaren

---

## kukufraka ik **kuku 9**.

---

## **kukuilu** *iz* urazez mintzatuz, bihotza.

Janari portugaldar herrikoa, txitxarro frijitua eta arroza tomatearekin, entsaladarekin, zorte ona izan zuen, letxuaren **kukuiluko** hosto ezin samurragoak egokitu zitzaizkion. Jon Alonso

---

## **kukuka**[1] **1** *adlag* ezkutuka. ik **kuku**.

Burua goratzean eguzkia **kukuka** dabilela ikusi du. Pello Lizarralde

Atertu du, otzandu da eguraldia eta, laino artetik **kukuka** hasi eta gero, eguzkia nagusitzen ari da. Anjel Lertxundi

Haren mihiak **kukuka** egin zidan ezpainen artetik, eta ezpain horiek niretzat margotuak zirela gogoratu zitzaidan... Aingeru Epaltza

Joera, hor ageri da beti, ordea, **kukuka** . Iñigo Aranbarri

**2** ***kukuka aritu/ibili/jostatu*** ezkutaketan jolastu.

-Jakin bahu, hire lagunekin hor ibiliko hintzen, elgar kurutzatzen diren lurpeko pasabide ilun horiek josta leku hautak direla eta, **kukuka** aritzeko, ez? Michel Oronoz

**Kukuka** ibiltzen ginen North Beacheko aldapetan Ez omen zen gauza ume txiki batekin **kukuka** jostatzeko ere, ez baitzekien zenbat denbora eman behar zuen aurpegia ezkutatuta. Javi Cillero

· **Kukuka,** hain ondo ezkutatzen da, ezen ahaztu egiten baitute. Itziar Otegi

**3** begira.

Ixabel txikiaren betzuloek so egiten zidaten, emakumearen gibeletik **kukuka** . Aingeru Epaltza

Aitak sarritan uxatu ohi zituen orubetik bere elorri-makilarekin; baina gehienetan Keogh txikia **kukuka** egoten zen eta, aita zetorrela ikustean, abisu ematen zuen. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kukuka egin** (3)

---

## **kukuka**[2] *adlag* kukubilko.

Hari oratzeko, txanelaren brankan **kukuka** jarri nintzen, eta hala egitean gora begiratu nuen; goragalea egin zitzaidan. Edorta Jimenez

---

## **kukuka**[3] *adlag* kuku, ezkutaturik.

Katua eta katakumeak miauka. .../... Kukuak kuku; **kukua** kukuka. Iñaki Arranz

---

## **kukuketan** *adlag* ezkutaketan.

Zenbait hilabete lehenago aurkituko nuen zer erranik gerri-izterrak hain ongi markatzen zizkioten galtza fin udatiarrez edo txaleko gorriztaren gibelean **kukuketan** ari zen top distiratsuaz. Aingeru Epaltza

Orduan, Maite etortzen da eta nirekin gelditzen da gauaz, baina niri ez zait inporta, Maiterekin **kukuketan** aritzen ahal naizelako eta amak ez duelako inoiz horretarako gogorik izaten. Aingeru Epaltza

**Kukuketan** ibili zen nirekin hurrengo asteetan. Aingeru Epaltza

---

## **kukukume** *(orobat **kuku-kume**)* *iz* kukuaren kumea.

Bera bai ederki, txantxangorria eta larratxoria **kukukume** arrotza lepo-potxolo hazitzen ari zaizkion bitartean. Pello Zabala

Botatako kume mokohandi larrugorriak berehala hiltzen dira habiatik kanpo eta **kuku-kumea** jaun eta jabe geratzen da habian. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **kukula** *iz* goialdea, punta.

Haizea altxatu zen **kukula** gainetan, eta ezkur-gosea asetako uso saldo batek hegoak astindu zituen, nagiak atera ondoren lehengo adarretara bueltatzeko. Joxemari Urteaga

Haize kolpeek etxe inguruko zuhaitzen **kukulak** inarrosten zituzten. Itxaro Borda

Baina mendietan maiz gertatzen da -esango duzu- zuhaitz garaien **kukula** hurbilek elkar jotzen dutela. Xabier Amuriza

Loraldian dauden landare emeen erretxinan dago gehienbat, lorez betetako adar punta edo **kukulan** . Berria - Harian

Udan arto **kukulak** idoki eta bi aste pasatu zituen Artzandako barnetegian. Itxaro Borda

---

**kukulauka** **1** *adlag* ezkutaketan.

Haurtzaroan oporrak hartzen zituela lehengusu batzuekin, **kukulauka** jostatuz hango haurrekin herriaren labirintoan, eta gero, gaztaroan, beste neskekin kalakan pasatzen zuela denbora, mutilen soari so. Piarres Aintziart

**2** (izen gisa)

Gogoratu zait egun batez, ez dakit zein liburutan irakurtua dudana: hemen berean, hostope honen barnean, 36-ko gerla zibilean, **kukulauka** hilgarri batean, gizonek gizonak tirokatu zituztela. Piarres Aintziart

---

**kukuldu**, kukul, kukultzen da *ad* uzkurtu.

Hark irratia piztu zuenez, amona, hotzantxa eta, bere berokian **kukulduta** gelditu zen. Pablo Sastre

---

**kukulu** *iz* pipila.

Argimutilaren gerritik ateratzen diren sei besoetariko bakoitzak almendra-lore gisako hiru kopa izango ditu, beren **kukulu,** lore-hosto eta guzti. Elizen arteko biblia

**Kukuluaren** ertza kizkurtua dute, eztarria baino zurbilago, eta han ezkutatzen da korola, aho misteriozko, erakargarri, gozoa mihiaren azpian. Josu Zabaleta

Horregatik da hain zaila kamelia landarea lore ederrez su gorritan kiskali beharrean ikustea, edozein izotzek alferrik galtzen baititu oraindik erabat zabaldu gabeko **kukuluak** . J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**kukulumuxu** *adlag* kokoriko, makurturik. ik **kukubilko**.

-Mila esker! -esan zuen mutilak, neskaren ohe-bazterrean **kukulumuxu** . hura etzaulkian, eta ni bere aldamenean **kukulumuxu,** izter-zabal... Joxe Austin Arrieta

Bitartean lauzpabost indio haiek hantxe, zirkinik egin gabe, pantaila ximurtuaren aurrean **kukulumuxu,** nork bere lastozko kapelutzarra buruan. Joxe Austin Arrieta

Neskatoa, ohetik jauzi egin eta, bazter batean jarri zen **kukulumuxu,** esku-besoez bere burua babesturik. Felipe Juaristi

Igo zen sagarrondoaren adaburura eta han, **kukulumuxu,** adar artean ondo estalita, zain geratu zen, miru baten habiaren ondoan, miru gorbataduna irudi. Felipe Juaristi

---

**kukulusta** *iz* gandorra.

**Kukulusta** doi bat harrorik ta perlak oi miresgarriak. Herria

---

**kukumarru** *iz* barnean gazta zatia duen arto opila.

Inork ez zuen inoiz ikusi bera baino gazteagorik edo ahulagorik zanpatzen, bera ezin eta gu hankapean hartu nahi izaten gintuzten **kukumarru** haiekikoak ziren beti Oteizaren lanak, horrexegatik laketzen zen guri mehatxu egiten putzura bultzatzen erlak kentzen eskopetaz begi ematen, beldurraren jabe zelako baino lagun nahi gintuelako bere adinekoek ezarria zioten destainaren aurka. Koldo Izagirre

---

**kukumiku** *adlag* kokoriko.

"Kauen!" Mikel **kukumiku** ezarri zen eta hasi zen dena altxatzen. Ramuntxo Etxeberri

---

**kukumikuka** *adlag* ezkutuka.

-Aizak, bertzeekin ibiltzen ahal haiz **kukumikuka,** baina ez nirekin. Aingeru Epaltza

---

**kukumixa** *iz* akuria.

Kateztatuko ditut **kukumixa** ikaratiak bailiran. Itxaro Borda

Nola mila deabru bizitzen ahal ziren jendeak, familia osoak alaina, zahar, zoko eta mutxi baporea zekarten **kukumixa** kaiola hauetan? Itxaro Borda

---

**kukumixategi** *iz* akuri-kaiola. *irud*

Goizaldera, La Motte-Piquet etorbidearen 26 zenbakiko egoitzaren seigarren estaian zeukan **kukumixategitik** iragan zen, begitartea garbitzeko, kafe azkar baten edateko eta *Bar des Amis* zelakora bideratzeko. Itxaro Borda

---

kukupraka ik **kuku 9**.

---

**kukurru** *adlag ipar* mukuru.

To! duela mende erditsu bat, hola hola zuan, leku hau **kukurru** betea, egun bezala “Congrès Eucharistique” aren karietarat, Eskual-Herri guzitik mundu bat bildua. Herria

---

kukurruka ik **kukurrukuka**.

---

**kukurrukatu**, kukurruka(tu), kukurrukatzen du *ad* kukurruku jo, kukurruku egin.

Ez duzuea ene urrezko deia entzuten goizalderat? harek du iguzkia deitzen! eta baserri batetik bestera oilar guziek dute errepika bera **kukurrukatzen** . Michel Oronoz

Desgaraian edo ohitura baino usu gehiago edo tarte ttikiago utziz, edo... baserri bakoitzean dakite zerk ekarri dion normaletik kanpora **kukurrukukatzea**. Pello Zabala

---

# kukurruku *(orobat **kukuruku** g.er. eta **kurrukuku** g.er.)* **1** *iz* oilarraren oihua. ik **kikiriki**.

Oilarraren **kukurrukuarekin** altxatu ziren. Iñaki Mendiguren

Hirugarrenez izan arren gezurra, oilarraren **kukurrukurik** ez zenuen entzun bazterretan. Hasier Etxeberria

Txoriak txorrotxioka aritzen dira iskanbila zalapartatsuan eta airera igortzen dute oilarrek, erronka bailitzan, beren **kukurruku** ausarta. Koro Navarro

Oilar baten **kukurruku** lotsagabeak. Xabier Olarra

Oilar **kukurruku** asko den lekuan egunsentia berandu. Berria - Kirola

Leihoaz bestaldean gau beltz iluna gertu zegoen egunsenti hurbileko argiarekin urdintzen hasteko; oilarraren lehen **kurrukukuak** aditzen ziren urrun. Jose Morales

**2** *irud/hed adkor*

Peterren **kukurrukua** entzun zuten. Julen Gabiria

Azpilgo askatasunaren **kukurrukua** izanen da. Joan Mari Irigoien

**Kukurrukurik** gabe baina bai sanoki. Herria

Hori bai balentria! [...] gauza berbera egin zuen Jalabert-ek duela orai sei urte, 1995-ean hain zuzen -kaseta guziek eman dute berea, zein gehiagoka **kukuruku** hortan. Herria

Baina haiek ere han geratu ziren oilar lumatuen antzo, hitzik gabe eta mutu, ez kikiriki, ez **kukurruku**. Joan Mari Irigoien

Hala erranen dautzute bai zonbaitek, dena **kukuruku** eta kokoriko, eta hau eta hura... Menane Oxandabaratz

**3** ***kukurruku egin*** ik beherago **5**.

Oilarraren legean hazia denari **kukurruku** ez egiteko eskatzea eta haizeari txistu ez egiteko eskatzea, berdin. Edorta Jimenez

Oilarrak, beraz, ez zuen **kukurruku** egin, nire hirugarren ukoa adituta. Aingeru Epaltza

· Eta zer zen oilar mutuak egindako **kukurrukua,** deabruaren beste deabrukeria bat baino? Joan Mari Irigoien

Gauza beraren inguruko hitz gehiegizkoa esportatu ahal balitz, beste oilar batek eginen liguke **kukurruku**. Hasier Etxeberria

**4** ***kukurruku eztul*** eritasun kutsakorra, arnasbideen inguruko muki mintzen infekzioa ezaugarri duena.

[Eritasun mota] **Kukurruku** eztula: [hildakoak] 0,3 milioi. Pello Salaburu

Horrez gainera, orobat nire esku ditut, eta poztuko zaitu entzuteak, Miss Cardewren jaiotza-agiria, bataio-agiria, **kukurruku** eztularen agiria, erroldarena, txertoarena, sendotzarena eta elgorriarena; bi elgorri motena, bai Alemaniakoa bai Ingalaterrakoa. Antton Olano

Botika berriak, tetanosa, faringe-difteria, **kukurruku**-eztula eta polioari aurre egiteko balio du. Berria - Gaiak

**5** ***kukurruku jo*** ik gorago **3.**

Oilarrak **kukurruku** jotzen du. Juan Garzia

Oilarrak, berriz, horrenbeste **kukurruku** jotzen duenez, ez ote du eguraldi aldaketari tankera hartzeko eskarmentu beharbeste? Pello Zabala

· Oilar mutuak **kukurrukua** jotzen zuen bigarren aldia zen hura! Joan Mari Irigoien

Ez nuen **kukurruku** jotzeko denbora handirik izan. Aingeru Epaltza

Beste oilar batek jotzen zuen nigan **kukurruku**. Jesus Mari Mendizabal

Eta, hala, begi-bistan nuena azpimarratu nahian-edo, burlazko eta mespretxuzko **kukurrukua** egin nion: [...]. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kukurruku egin** (6); **kukurruku egiten** (3); **kukurruku jotzen** (3)

---

# kukurrukuka *(orobat **kukurruka** g.er. **kukuruka** g.er. eta **kukurukuka** g.er.)* **1** *adlag* kukurruku joaz.

Oilarra aspaldi hasia zen **kukurrukuka**. Biharamun goizean, oilarra **kukurruka** hasten den orduan. Eneko Bidegain

Airea: Oilarra **kukuruka**. Herria

Oilar gazte bat **kukurrukuka** ari da, goizari deika, Oilarra **kukurrukuka** jardutea, gauez nahiz goiz nabarrez, hori guztiz normala da. Mirentxu Larrañaga

Eguerdi ondoan, edo arratsaldeko bostak baino lehen oilarra **kukurrukuka** eroxka bazebilen, Lapurdiko Ezpeletatik botatzen zuten abisu hogei ta lau orenen barnean euria segur genuela. Pello Zabala

Nahasmen handiagoa sortzen da oiloren bat **kukurrukuka** hasten denean: orduan, malo! Pello Zabala

**2** *adkor*

Dena den, ikusiz frantses telebixta, **Kukurrukuka** hasiak dira kasetariak. Herria

Berehala **kukurukuka** hasi dira telebixtak, irratiak eta komunika-bide frantsesak. Herria

---

# kukurrukulari *izond* kukurruku jotzen duena.

Baserri gehienetan, berehala akabatzen zuten halako oilo **kukurrukularia**. Pello Zabala

---

kukurrusta ik **kukurusta**.

---

kukuruka ik **kukurrukuka**.

---

kukuruku ik **kukurruku**.

---

kukurukuka ik **kukurrukuka**.

---

# kukurusta *(orobat **kukurrusta** g.er.)* **1** *iz* gandorra.

Sahetsetik gehiegi pusatuak baziren, sahetsetik pikatzen zuen, nahiz eta, oilarraren gisa, **kukurrusta** hastapen bat utzi buru gainean. Eneko Bidegain

Mediku, ingeniari eta holako ofizio "nobleetako" jendeei **kukurusta** ez zitzaien apaldua oraino. Eneko Bidegain

**2** irud/hed

Pentoken **kukurustetan**. Itxaro Borda

**3** *adkor* klitoria.

Gero behatza hazi-bitsez emokatu alura bideratzen zian ile artean bermatzen zitzaion **kukurusta** arrosaren bortitz ferekatzeko, berak ere intzirika gozatzeko gisan. Itxaro Borda

Aluaren gainaldeko **kukurusta** gogortua torratzen zuen, Wernerren pitilia berme eta nahikeriaz gorri asmatuz. Itxaro Borda

Beltzaranaren titiak kilikatzen zituen, **kukurusta** gorria zimikatzen zion eta belarria ausikitzen. Itxaro Borda

---

**kukurutxa** *iz* ukitzean bola forma hartzen duen zomorroa.

Lurreko estalki plastikoa altxatuz gero, era guztietako zomorroak mugitzen ziren azpian: inurriak, **kukurutxak,** ehunzangoak Juan Kruz Igerabide

---

**kukurutxo** *(orobat* **kukurutxu** *g.er.)* **1** *iz* paperezko konoa.

Adlerrek paper puska bat hartu zuen nire mahaitik, eta **kukurutxo** bat egin, eta gero luma batez zomorroa paperera bultzatu zuen. Xabier Olarra

Kilo erdi pasatxo azukre zeukan **kukurutxo** bat. Haren lore sortetan aldarte gaiztoek zein hunkigarritasun aldiek islatzen jarraitzen zuten; batzuk harroak ziren, beldurgarriak, haserreari eusten ziotenak beren **kukurutxo** zimurtuetan. Juan Garzia

Dendaren barrualdea estaltzen zuten hiru apaletan, hegazti hil gehiago ageri ziren, batzuk pilaturik, beste batzuk paperezko **kukurutxoetan** sartuak, lore sortak iduri. Karlos Zabala

**2** kukurutxoaren edukia.

Amaren esana egin banu ez nian **kukurutxo** bat gaztaina erdi bana janen hirekin Amaren esana egin banu ez nian **kukurutxo** bat gaztaina erdi bana janen hirekin. Koldo Izagirre

Fardel batean paperezko **kukurutxuak** bete azukre eta kafe bildu, eta besazpian ardo-botila bat sartzen zuen. Fernando Rey

**3** (hitz elkartuetan)

Federicok oliba **kukurutxo** bat erostera bidali ninduen afarirako. Pello Lizarralde

Saltxitxa bat, izkira-**kukurutxo** bat. Joseba Urteaga

**4** ***kukurutxo-txano***

**Kukurutxo**-txanoak jantzita tutuak joka oraindik ere Urteberri eguna ospatzen zebilen talde handi batekin. Ramon Saizarbitoria

---

kukurutxu ik **kukurutxo**.

---

kukusagar ik **kuku 15**.

---

**kukuso** *(orobat* **kukuxu** *g.er.)* **1** *iz* arkakusoa. ik **kukuxo**.

Denbora labur barne, zorri eta **kukuso** leinu osoak buruan kabitu zitzaizkiola iruditzen zitzaion. Itxaro Borda

**Kukusoaren** Jolasean ari zela zirudien armiarma-lanpara bat ere bazegoen. Julen Gabiria

June-**kukuso** txikia, hala deitzen genion arrebari, nik hiru urte nituela jaio zen. Oskar Arana

**2** (esaeretan eta kidekoetan)

Zakur ahulari, **kukuso** guztiak. Gotzon Garate

Hots, xakur mehea dena **kukuso!**. Herria

Bistan da alargunoi **kukuso** mota berak ematen digula azkure. Koldo Izagirre

Berez ausarta eta kementsua izanik ere, urdaila dena **kukuso** sendi zuen. Elena Touyarou

-Zoaz **kukusoak** orraztera! -zakartu zitzaion Noraren aita. Anjel Lertxundi

Den mendrena, **kukusoa** bilatzen dute trabak ezartzeko. Berria - Euskal Herria

**3** ***kukuso-belar*** usain bortitzeko landarea, hazi txiki asko ematen dituena, kukusoak urruntzeko erabiltzen zena*(Plantago psillium)*.

Geroxago goiti bota zenuela ez dizut oroitaraziko, berantegi ohartu baitzinen **kukuxu** belarra jasanezina zenuela! Ramuntxo Etxeberri

**4** ***kukuso merkatu*** bigarren eskuko gauzak, eskuarki arropak, saltzen diren kale merkatua.

Kantari kaliforniarraren kamisetak hamar urte baino gehiago ditu, Guadalajarako **kukuso**-merkatuan erositik. Aingeru Epaltza

Usaia den bezala ilabeteko 3. igandean egiten da Ahetzen **kukuso** merkatua. Herria

Larunbatean, Angelun, **kukuso**-merkatua Quintaou plazan.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kukuso feria (11); kukuso merkatua (33)

---

**kukusotegi** **1** *iz* kukusuak bilten diren tokia.

Oilategi zaharkitua, batez ere euri egunetan, zorri eta **kukusotegi** ikaragarria bilakatzen zen. Itxaro Borda

Baina etxea etxe zen edozein **kukusotegi** izanik ere: koinatak kozinatu salda beroa hurrupatuko zuen, Goikotxeko mahastiak oparitu ardo mikatzetik edanen eta ilobekin eskolako lanak, batez ere frantsesezko ariketak, landuko zituen. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Besteek metroa hartu zuten eta norbera bere **kukusotegietara** bideratu zen, lanerako azkar eta prest izateko. Itxaro Borda

---

**kukuts** *iz*

Ezen badakizu, oi Damon laztana, tronua ostu ziotela Jupiterri, eta errege duguna guztiz dela, guztiz... **kukuts**. Juan Garzia

---

## **kukutu**, kuku(tu), kukutzen **1** da/du *ad* ezkutatu.

Erretorea bere etxean **kukutu** zen, ate-leihoak hertsirik. Aingeru Epaltza

Berriro ere etxezuloan **kukutu,** eta Abasen etorreraren zain egon beharko ote zuen? Patxi Zubizarreta

Han, ikuskizun lotsagarria balitz bezala besaulki baten gibelean **kukutua,** Josuren disko-jogailu zaharra. Aingeru Epaltza

Leiho atzean **kukuturik**. Koldo Biguri

Bere baitarako gorde nahi izan du beti, baina samina, amarena bezain bizia izanik, nekez **kuku** daiteke. Xabier Montoia

Konspiratzaileak ez ziren **kukutzen**. Aingeru Epaltza

Zibilizatua naiz, baina ez nuen irriño gaiztoa **kukutu** ahal izan. Aingeru Epaltza

Iratzeek eta pagoek **kukutu** dute haren figura. Aingeru Epaltza

Esku ezkerra galtzetan **kukutu** zuen, segurtasun bila. Itxaro Borda

Zulo ttiki haietan **kukutu,** ezkutatu. Daniel Landart

Dinamita harpe seguruan **kukutu** eta Laxaroren borda zaharraren maldan hitzordua eman zioten elkarri. Itxaro Borda

• **2** du *ad* estali.

Ile bakan blaituek erdizka **kukutua** eta heriotzak jadanik zorroztua, ezin antzik eman begitarte iharrari. Aingeru Epaltza

Esku eskuinarekin **kukutu** nituen begiak eta orduan deblauki aitortu nion: [...]. Daniel Landart

Goiz honetan elurrak berriz **kukutu** du leiho parean dudan zimenduzko teilatu grisa. Aurelia Arkotxa

**3** (era burutua izenondo gisa)

Gero kea jariatzen zuen, airean barrena, kontraleihoen atzealdeko neska **kukutuari** musu bat bidali nahi izango balio bezala. Patxi Zubizarreta

---

## **kukutxeztul** *iz* kukurruku eztula.

Ez ezkontza hura antzua zelako; Taibelek seme bat eta bi alaba eman zizkion senarrari, baina txikitan hil ziren hirurak: **kukutxeztulaz** bat, elgorriaz bestea, eta difteriaz hirugarrena. Koro Navarro

**Kukutxeztularen** aurkako txertoaren osagaietako bat. Berria - Gaiak

---

## **kukuxkatu**, kukuxka(tu), kukuxkatzen *(orobat **kukuzkatu**)* du *ad ipar* zelatatu.

Bederatzi udaberri zituela sortzen **kukuxkatu** zuen mutikoa Jessica bere lehengusu txikienarekin esposatzen zen Theo hura balitz? Itxaro Borda

Etxetik hangarraren maldara joan zen Graxi ere, Pierra zaregintzan nola ari zen **kukuxkatzeko**. Itxaro Borda

Tresna horien bidez, munduan edonon izanik, nornahik gure urratsak segi eta solasak **kukuzka** zitzakeen. Itxaro Borda

-Duela bi egun dirua biltzen ari ginela, ustel honek **kukuzkatu** gaitu QG ostatuaren aitzinean. Itxaro Borda

Gertakarien **kukuxkatzeko** lekü haütüak ziren Larrabileko hegiak. Herria

---

## **kukuxo** *iz adkor* kukusoa.

Eskukada bat lur eraman behar zenuen etxera, lur hura etxean zabalduz, bertako hartxo, **kukuxo** eta zorriak akabatzeko. Pello Zabala

---

## kukuxu ik **kukuso**.

---

## kukuzkatu ik **kukuxkatu**.

---

## **kulata** 1 *iz* fusilez, pistolez eta kidekoez mintzatuz, ipurdia.

Pedromarik beti-beti zabaltzen zuen nire saskia, baina ikusi ez gazta barruan zegon errebolberraren **kulata,** ikusi ez bizkotxoan zegoen errebolberraren danborra, edo ogi barruko kainoia... Patxi Zubizarreta

Beiruteko gerrillari batek ama birjinaren argazkia du fusilaren **kulatan**. Berria - Kultura

Beste ertzain bat pilota jaurtigailuaren **kulatarekin** jotzeko imintzioak eginez hurreratzen zitzaiola sumatu zuen. Berria - Euskal Herria

Bi itzal ikusi ditu buru gainetik pasatzen eta, **kulata** sabelaren kontra jarrita, tiro egin du, aliritzira, airera. Itziar Otegi

Hurbilen nuenarengana jo eta zanpatu egin nion aurpegia pistolaren **kulataz**. Alberto Ladron Arana

Bultzaka eta armen **kulatez** saihetsak joz, txaletera ninderamaten. Anjel Lertxundi

Eibarren intxaurra gehiago estimatzen zen **kulata** eta beste egiteko. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

**Kulata** kolpe gogorra sentitu dut saihetsetan. Joseba Sarrionandia

Zenbait zartako, zenbait bota-astinaldi, zenbait **kulata**-kolpe, zenbait auhen mutu, eta gure zutabea osatua zen, abian zen soka batek tiratuko balu bezala. Urtzi Urrutikoetxea

· Fusil **kulataz** egin zizkiguten laztanak, eta ostikoak ipurdian bizixeago igotzen laguntzeko. Josu Zabaleta

Eibar-era saldu omen zuten eskopeta **kulatak** egiteko, ta amairu metro ta seireun ta irurogei zentimetro kubiko eman zituen bere zurak. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> pistolaren kulata (3)

---

## **kulatazo** *iz* kulata kolpea.

Gero berriro entzun zituen **kulatazoak** atea astintzen. Juan Garzia

Harmailetan behera nindoala, egundoko **kulatazo** bi eman zizkidan txakur batek sorbaldan. Jokin Urain

---

## **kulatazoka** *iz* kulata kolpeka.

Gero ostera entzun zituen beste kolpe batzuk; baina ate nagusiaren kontra, zakar, **kulatazoka** astinduko balute bezala. Juan Garzia

Eskuzabaltasun horren ordainez, bezpera arte alderdikide izandako sozialdemokraten aginduz poliziak burua **kulatazoka** txikitu zion Markos Zapiain

---

# **kulatz** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***puntu*** *agertzen da)* *iz* puntua.

Gogor biribillak: bulduа, oñaldetzat bi obo dauzkan gogor biribil bat da; txunturbilla, bere oñaldea lerrabilladun gogor biribil mutur zorrotza da; eta boronbilla, ganbillaren **kulatz** guztiak barru-erditik urrutiberdinean dauzkan gogor biribilla da. Joxerra Garzia

---

# **kulebrina** 1 *iz* antzinako kanoi modukoa, luzea eta kalibre txikikoa.

Almenetatik **kulebrinen** eta kanoien ahoak ageri ziren, erraldoi baten begi beltz ugariak iduri. Aingeru Epaltza

**Kulebrinak** armategitik atera eta almenetara eraman. Aingeru Epaltza

Ehun bat istapera gelditua zen, gure **kulebrinen** tiramenetik at. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Moskete eta **kulebrina** tiroren bat edo bertze kenduta, ez zen buruz burukorik izan. Aingeru Epaltza

---

# **kulebro** *iz*

"Sugaar", "sugoi" eta **"kulebroren"** kontuak gure gurasoen aho-mihietan sarri entzun zitezkeen. Gotzon Garate

---

# **kulebroi** *iz* telesail amaiezina.

Alexandrak **kulebroiak** egiten zituen Venezuelan, eta orain abeslaria da bere mutilagunaren taldean. Harkaitz Cano

Ez zen bere kontsolatik apartatzen, edo telebistako **kulebroi** txoroetatik; eta hitz egiten zidan aldiro, irailean zein kurtsotara ote nindoan galdetzeko zen. Jesus Mari Mendizabal

---

# **kulero** 1 *iz pl* emakumezkoen azpiko galtzak.

Kendu zuen azkenik soinekoa, eta bularretako, **kulero** eta pantietan geratu zen. Juan Martin Elexpuru

Karmen agertu zen, **kulerotan** eta bularrak agerian, sukaldean. Inazio Mujika Iraola

**Kulerorik** gabe nengoela jakiteak gero eta beroago jartzen ninduen. Juan Martin Elexpuru

Bularretako eta **kulero** beltzak ere erantzi zituzten, beti musikaren erritmoari jarraituz. Jon Arretxe

Biluzik, **kulero** ñimiñoak jantzita. Sonia Gonzalez

Bata labur haren azpian **kulero** txiki gorri batzuk imajinatu zituen. Gona jaso nuen nire **kulero** zuriak azaldu ziren arte. Unai Iturriaga

Tanga bat neraman jantzita; **kuleroak** soineko azpian nabarmendu ez daitezen erabiltzen dut. Juan Martin Elexpuru

**2** ***kulero motz***

Hasieran, gehien bat oinarrizko gauzei lotu gintzaizkion (galtzerdiak, barruko arropak, kulero zangodunak, **kulero motzak**, pijamak, izerditzeko elastiko txanoduna, nylonezko zamarra, azazkal-moztekoa, hortz-eskuila, orrazteko eskuila eta abar eta abar), Oskar Arana

**3** ***kulero zangodun*** ik **leotardo**.

Hasieran, gehien bat oinarrizko gauzei lotu gintzaizkion (galtzerdiak, barruko arropak, **kulero zangodunak**, kulero motzak, pijamak, izerditzeko elastiko txanoduna, nylonezko zamarra, azazkal-moztekoa, hortz-eskuila, orrazteko eskuila eta abar eta abar). Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuleroak erantzi** (3); **kuleroak jaitsi** (6)

---

# **kulerotxo** *iz* kulero txikia.

Ordurako, agertoki gainean zegoen dantzari beltzak, pare bat titi handi dilindan erakutsiz, artean jantzirik zeraman **kulerotxo** ñimiñoa eranzteari ekin zion. Joxemari Iturralde

---

# **kuleto** 1 *iz* laranja koloreko txapel zabala duen perretxikoa, jateko ona eta sukaldaritzan oso aintzat hartua*(Amanita caesarea)*. ik **gorringo**.

**Kuleto** hau, Traziatik iparraldera, urkiaren azpian sortzen omen da; Greziatik hegoaldera, berriz, izeipean. Pello Zabala

**2** ***kuleto faltsu*** txapela gorri zuriguneduna duena, pozoitsua *(Amanita muscaria)*.

Gnomo bat patriarka-bizar zurikoa **-kuleto** faltsu bat aterkitzat zuela-. Anton Garikano

Bakanaletako apaiz emakumeak, ordea, **kuleto** faltsoa, amanita muskaria zerabilten behar zuten giharre eta indarra handik sortzeko. Pello Zabala

---

# **kulinario** *iz* sukaldaritzarena, sukaldaritzari dagokiona.

Interes **kulinarioak** mugitzen du bera. Unai Elorriaga

Letren sukaldari xume honek osagai **kulinario** eta literarioz beteriko errezeta bat eskaini nahi lizuke. Patxi Zubizarreta

---

# **kulis** *iz* aitzakia, estakurua.

Badakigu nola hustu zen, parte bederen, Biarnoko bortua, hango artzainek ihes eginez beste lan batzuetara, beti aldatuz eta bihotz-hustuz doatzin batzuen **kulisean** . Herria

---

# **kuliska** *(orobat* ***kulixka****; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kuliska*** *agertzen da)* *iz* oilagorraren familiako hegaztia, mokoa eta zangoak luzeak dituena, zingiretan eta bizi dena *(Limosa limosa)*.

Kaio eta **kulisken** zaratak dira han gertatzen diren ederrenak. Labar gaineko kaio eta **kuliskei** jostailuzko kometa zuriak bailiren begiratzen nien euren hegaldi askearen inbidiatan. Hasier Etxeberria

Ibaian **kulixkak** entzun ditzakezu, edo koartzak, kurlinkak, hegaberak eta ibaiertzetako beste hegazti batzuk antzeman. Koldo Biguri

---

kulixka ik **kuliska**.

---

# kulo *iz*

Mikelek **kulo** utzi zuen botila orduerdigarrenean. Unai Iturriaga

---

# kulot *iz* kulero luzea.

Beste behin bularrekoa eta **kulota** soinean. Berria - Kultura

---

# kulote *iz* txirrindularien eta arraunlarien kirol galtza motzak.

Bi sektoreko etapan, egun osoan **kulotea** erantzi gabe ibiltzea ez da oso atsegina izaten. Berria - Kirola

Afizionatuetan inoiz ez nituen jantzi izterrekoak, beti **kulote** motzak, eta profesionaletan, nola hasiko naiz ba izterrekoekin korritzen? Berria - Kirola

**Kuloteak,** kaskoa, eskularruak eta kapela zuri beltzak dira. Berria - Kirola

30 bat arraunlari daude, **kulote** luzeak eta motzak, eta jantzi termikoren bat edo beste soinean dutela. Berria - Kirola

Behin arraun egiteko **kulote** horietako bat oparitu zidan. Lander Garro

---

# kulpa 1 *iz* errua.

Gauza astunegia da **kulpa,** beti bihotzean eramateko. Anjel Lertxundi

Araua betetzen ez duena gogor zigortuko dutela esaten du, eta horrek **kulpa** eta beldurra sortzen du. nuen ahoa ferratuta, asmoak gordean,**kulpa** edo errukia baztertuta. Luis Elberdin

Politikariei **kulpa** botatzea errazegia da. Joseba Zulaika

Elkarri **kulpa** bota geniezaioke. Berria - Euskal Herria

Hortik datorkio "graziaren eskubidea" ere, zenbait baldintza betetzen badira, **kulpa** bat barkatzeko ahalmena. Joseba Zulaika

**Kulpa** besten gain ematen dute. Berria - Kultura

**"Kulparik** gabea naiz orduan", esan nion. Bernardo Atxaga

*ik* kulpagabe.

Hartarainoko mina eragiten zidan **kulpak** . Pedro Alberdi

Azkenean **kulpa** gutxien daukanari ematen diozu min. Berria - Kultura

Baina oharkabetasunak ez gaitu bertzeei min egitetik libratzen, **kulpatik** libra bagaitzake ere. Joan Mari Irigoien

Zine-aldizkariek dituzte **kulpak** . Fernando Rey

Zuen **kulpaz** galdu genuen gerra, zuen **kulpaz** galdu du Alemaniak bere itzal handia. Anjel Lertxundi

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Kulpa** sentipen horrek zer egin ez dakitela uzten ditu emakume asko. Luis Elberdin

Bikote askok eta askok sexualitatea frustrazio, beldur konplexu eta **kulpa** sentimenduekin bizi dute. Luis Elberdin

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila Talaia institutuko irakasleak **«kulpa** -hartzailetzat erabiltzen ari da». Berria - Euskal Herria

## 3 *kulpa izan*sup_1 du *ad*

Nik dut **kulpa:** ez diot galdetu 40a amerikanoa edo europarra ote zen. Jon Alonso

**Kulpa** guztia neskak dutela esan neike, edo edanak bestela, baiño ez: guk daukagu errua. Xabier Mendiguren Elizegi

Sorgina eta sorgina, zuk duzu **kulpa** osoa...! Joan Mari Irigoien

**Kulpa** armario gaizoak balu bezala. Patziku Perurena

Setheren aurpegi beltzak **kulpa** balu bezala. Anton Garikano

Beraz, nik ere badut **kulpa** apur bat erabakian. Berria - Kultura

Nik ez dut **kulparik** orduotan mozkorrak jareginda badabiltza. Juan Garzia

## 4 *kulpa izan*sup_2 du *ad (-en atzizkiarekin)*

Nik dut horren **kulpa** -esan zuen amak. Matías Múgica

Pilpiran sentitzen nuen bularra, kontratua sinatua izatetik horren hurbil egoteak zuen horren **kulpa** handia. Joxan Elosegi

Baina gaitza, juxtu alderantzizkoa da: publikoak ez baitu deusen **kulparik**. Patziku Perurena

· Ez da ez zure **kulpa** ez nirea zuk ikusmena galtzen baduzu. Itziar Otegi

Lehen bai, lehen ederki bizi ginen, dena Espainiaren **kulpa** zen. Joseba Zulaika

Ez da nire **kulpa** Hegoaldean jaio izana -esan nuen. Fernando Rey

**-Kulpa** ez da koadroarena, mutilarena da. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kulpa eta hobena** (3); **kulpa sentimenduak** (5)

---

# kulpabilitate *iz* kulpa sentimena, erruduntasuna.

**Kulpabilitatez,** itolarriz, gogorazen zara Luisez, norbaiti zerbait zor bazenio bezala. Lourdes Oñederra

---

# kulpabilizatu, kulpabiliza, kulpabilizatzen du *ad* errudun bihurtu.

Pobreziak klase ertaina **kulpabilizatzen** du eta aberastasun erakutsiak ezinkeriaren mugak trinkotzen dizkio. Berria - Kultura

Kontua da ea zer ideologia suntsitzaile eta ankerraren izenean goratu den maitasuna eta gaitzetsi den sexua, eta ea ideologia horrek zoriontsuago egin gaituen edo jazarri, frustratu, **kulpabilizatu** eta mindu egin gaituen. Luis Elberdin

· Masturbazioa eta homosexualitatea dira gehien gaitzetsi, **kulpabilizatu** eta jazarri diren jokabide sexualak. Luis Elberdin

**kulpable** *izond* erruduna.

Ez gara etengabeko biktimak, ez gara **kulpableak**. Itxaro Borda

Horiek ikusten dituzularik zure burua **kulpable** senditzen duzu? Menane Oxandabaratz

---

**kulpadun** *izond* erruduna.

Hark ni baino betebehar gutxiago traditu ditu, ez da ni bezain **kulpadun**. Jon Muñoz

Barkatua izaitekotz funtsean behar zen **kulpadun** izan. Piarres Aintziart

«Langileak **kulpadun** egiten dituen kanpaina da», Philippe Mediavilla CGTko ordezkariaren aburuz. Berria - Harian

---

**kulpagabe** *izond* errugabea, kulparik ez duena.

Ez zuten Krapotkin gaztea zigortu, bestea zigortu zuten, Komrover judu erabat **kulpagabea**. Matías Múgica

Gauza zen, adibidez, begi itxi-ireki batean frogatzeko ustezko kulpantea haur jaioberria bezain **kulpagabea** zela, bai eta **kulpagabea** tsarraren kontrako atentatua prestatzen aritua zela ere. Matías Múgica

---

**kulpaka** *adlag*

Horrek ez du hutsik! aurrez kontuak ateratzea beti ere hobe omen da, gero inori **kulpaka** jardutea baino. Pello Zabala

---

kulpant ik **kulpante**.

---

**kulpante** *(orobat **kulpant** g.er.)* *izond adkor* erruduna.

Orain banekien, ustez behintzat, nor zen nire laido haren **kulpante** bakarra. Matías Múgica

**Kulpante** garenok, ordea, ez daukagu gure erru handi delako hori, meakulpaka aitortzeko gogorik. Pello Zabala

Ekaitzaren nondik norakoa seinalatzeko orduan, **kulpante** nagusia, barkazio eskatu behar lukeena, beroa izan ohi da. Pello Zabala

Zerk daragio aire-masa hortxe ongi tolestatuta atxikitzeari: barnealdetik datorren hego punttu edo hego-farfaila hori da **kulpantea**. Pello Zabala

---

**kulpatu**, kulpa(tu), kulpatzen du *ad* kulpa bota, errua egotzi.

Espainiako Auzitegi Nazionalak haren helburuak lortzeko «behar» duen baliabidea da inkomunikazioa, horri esker lortzen baitute atxilotuek euren burua zein beste batzuena **kulpatzea**. Berria - Euskal Herria

---

**kultibatu**, kultiba, kultibatzen **1** du *ad* landu.

Desenkantuaren jardina **kultibatzen** duten "alesandrino depresiboak". Joxe Azurmendi

Literatura erromantiko frantsesak irudi hori **kultibatzen** [...] jarraituko du. Joxe Azurmendi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Saiatu naiz, baita, euskal kultura bidean, kultura hedatu jaso eta **kultibatuaren** alorrean lantzen. Pello Zabala

---

**kultibatzaile** *iz* lantzen duena.

Alkuino Yorkekoak [...] Karlomagnoren gortera eraman zuen hazia, eta Eskandinaviatik etorritako barbarotasun-bolada batek mugimendua garaiz lehen desagertarazi baino lehen, haren **kultibatzaileek,** literatur kultura helenikoa bere latindar soinekoaz berpizten hasteaz gain, grekozko hastapenak ere lortuak zituzten. Iñaki Mendiguren

---

**kultibo** **1** *iz* lantzea.

**Kultibo** konbentzionalak transnazionalek hertsaturiko monopolioen oreka galarazten laguntzen du baina nekazariaren, ingurugiroaren eta beste hainbaten hondamendi ekonomikoa dakar, erraldoi horien aldean. Edorta Agirre

**2** (biologian)

Gero, giza zelula **kultiboetan** ikertuko dugu. Berria - Gaiak

---

**kultismo** *iz* hitz landua.

Latinaren iturburutik edanda, gaurko gaztelaniak bikote ezaguna ageri du: aldaera bata (madera) latin arruntaren bilakaeraz sortua eta bestea (materia), aldiz, filosofia liburuetako **kultismo** aldatugabe modura heldua. Xabier Kintana

---

**kultista** *izond* hitz landuen eta ikasien aldekoa.

Argumentu korapilatsu baina erakargarria, gertakari harrigarriz zipriztindua, idazkera soil baina dotorea, keinu **kultista** batzuk tarteka, ukitu magiko antzekoren bat, eta irakurlearen arreta bereganatzeko gaitasuna duen estilo berezi hori, prosaren intentsitateaz eta kontagaiaren erritmo biziaz oratua. Berria - Kultura

---

**kulto**[1] *(orobat **kultu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ikasi** eta **landu** agertzen dira)* *iz* ikasia, landua.

Jende **kultu** eta letratua izategatik. Felipe Juaristi

Emakume **kultu,** ongi hezi eta azkar batek izugarri aberastu lezake gizon baten bizitza! Xabier Paya

Gerratea baino zertxobait lehenago, adiskide alemaniar batzuek **-kultoak,** intelektualak, bihotz onekoak- Alemaniara itzuli ziren Estatu Batuetan bizi ondoren. Ramon Etxezarreta

Musiko **kultoa** bihurtu zen Gelatxo, bidean mendiko erromerien erritmo basatiagoak ahaztu gabe. Pako Aristi

Bilbainismo **kulto,** urrun, harrigarri, exotiko eta eskisito hori. Hasier Etxeberria

Horrelako irainak, gordinenak bezala **kultu**-usteenak ere, ezgaitasun baten adierazle baizik ez direlako. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **musika kultuaren** (6)

---

kulto² ik **kultu¹**.

---

## **kultto** *iz adkor* kultoa.

Zozoenak, halare, gure pentsabidea bertsoaren erritmoan bizkortu nahi duten **kultto** berri horiek. Patziku Perurena

---

## **kultu**¹ *(orobat **kulto** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kultu** agertzen da)* **1** *iz* gurtza; elizkizunen multzoa.

Davidek eta kultuaren arduradun nagusiek **kultu** horretarako Asafen, Hemanen eta Jedutunen ondorengoak bereizi zituzten. Elizen arteko biblia

**Kulto** bakoitzak bere ordezkaria ukanen zuen ortodotsa, protestanta, katolikoa. Marzel Etxehandi

Jaunaren itun-kutxa eta Jainkoaren **kulturako** tresnak. Elizen arteko biblia

Kulturalki, lehenago dragoiaren eta sugearen **kultoa** ezagutu zuten herrietan nagusitu da. Joxe Azurmendi

Jaietan Jainkoari **kultu** ematera joan zirenen artean baziren greziar batzuk. Elizen arteko biblia

Zer egingo genuke legeekin, erlijiorik gabe? **kultu** bat behar dugu, errepublikarraren nortasunaren neurrira egindako **kultu** bat, Erromarena berriz hartzeko tentaldia betiko uxatuko duena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Frenologiaren **kultu** bihurtu ziren haren ideiak; frenologiaren arabera, buruaren kanpoaldeko kozkorrak ukituz jakin daiteke zer ezaugarri dituen pertsonak. Irene Aldasoro

Tenpluko **kulturako** behar ziren gauzen zerrendak ere eman zizkion. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egungo egunean **kultu** askatasuna da oinarrizko legea eta erlijio doktrina gehienek baimentzen dute dibortzioa. Andres Urrutia

Gorroto eta higuin ditut zuen jaiak, ez ditut atsegin zuen **kultu**-batzarrak. Elizen arteko biblia

Jainkoaren kultuan nolabait parte hartzeko eta **kultu**-ministroen pobretasuna erremediatzeko. Askoren artean

**Kultu**-erakundeen antolakuntza. Elizen arteko biblia

Behin, barau-egunez, Jaunaren **kultu**-ospakizun batean zeudela, [...]. Elizen arteko biblia

Egoitzaren **kultu**-hornigai guztiak, bertako hesolak eta atarikoak, brontzezkoak izango dira. Elizen arteko biblia

**Kultu**-zerbitzua santutegian betetzeko elkarketa-etxolara sartzean. Jerusalemen aurrez aurre dagoen mendian **kultu**-leku bana eraiki zien Kemox-i. Elizen arteko biblia

Betelen zegoen **kultu**-lekuko aldarea ere desegin zuen Josiasek. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bizileku eta kultu** (8); **kultu askatasuna** (3); **kultu eman** (4); **kultu emateko** (6); **kultu leku** (19); **kultu lekuak** (31); **kultu lekuetako** (10); **kultu lekuetako apaizak** (4); **kultu lekuetako otorduetan** (4); **kultu lekuetan** (11); **kultu lekutzat aukeratuko** (7); **kultu zerbitzua** (6); **muinoetako kultu leku** (3); **muinoetako kultu lekuak** (11); **muinoetako kultu lekuetan** (5); **sasi kultu** (11); **sasi kultu lekuak** (5); **sasi kultu lekuetako** (4)
> **kultua emanez** (5)

---

kultu² ik **kulto¹**.

---

## **kultugai** *iz* kultuaren, gurtzaren gaia.

Natura **kultugai**. Israel, erreka ondoko harri leunak, zeure **kultugai** izan dituzunak, horiexek izango dituzu zorigaitz. Elizen arteko biblia

---

## **kultugin** *iz* kultuaz, elizkizunez arduratzen den pertsona.

Arbelaiz **kultugin** edo sazerdote paganoa da: [...]. Joxe Azurmendi

---

## **kultugintza** *iz* kultuginaren jarduera.

Haren aurrean jardun izan dut egoitza santuan **kultugintzan** eta horrela finkatu naiz Sion mendian. Elizen arteko biblia

---

## **kultura** **1** *iz* gogo ahalmenen lantzea; gogo ahalmenen garapena dakarten ezagutza formal eskuratuen multzoa.

Ez dago gizarterik, ez arkaikorik ez modernorik, **kulturarik** gabe, baina **kultura** oro singularra da, berdingabea, berezia, propioa. Askoren artean

Beti dago **Kultura** (singularrean eta letra larrian) **kultureta** (pluralean eta letra xehean), baina ez dago **Kulturarik kulturetan** zehar baino. Askoren artean

Neurri unibertsalean, espiritua edota geure baitakoa hezteko gustu estetikoaren, adimenaren eta nortasunaren hobekuntza da **kultura**. Askoren artean

Jakintzek, jokabideek, arauek eta erregelek betetzen dituzten informazio-ondarea eta kapitala da **kultura**. Askoren artean

Zentzu zabalean, giza bizimodu baten ezaugarri eta alderdi guztiak dira **kultura,** eta, zentzu estuan, bizimodu horretan irarritako balio-sistema. Askoren artean

Arrazoi historiko asko direla medio, erlijioa eta **kultura** elkarren artean haserre eta etenda baileuden bizi ditugu. Askoren artean

Hezkuntzaren eginkizuna, **kulturarena** bezala, balio ezberdinekin bizitzeko razionalitate eredu sozial berriak garatzea izango da gaurgero. Joxe Azurmendi

**Kulturaren** gizarte-irradiazioa argiaren irradiazio fisikoarekin alderatu dugu. Iñaki Mendiguren

**Kulturaren** antropologian hiru kategoria ditugu: unibertsalista, konparatibista eta partikularista. Askoren artean

Ez naiz **kulturako** jendearen jaietara joateko zalea. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemen denak dira **kulturaz** jantziak. Edorta Jimenez

**Kulturako** orrialdeak errepasatzen hasi naiz, eta hara. Harkaitz Cano

**Kulturako** erredaktore nintzen *Euskaldunon Egunkaria*-n. Juan Luis Zabala

**2** (izenondoekin)

Edozeinentzat garbi zegoen zer den **kultura** landua eta zer **kultura** primitiboa. Maiz, **kultura** modernoa zigor gisa ikusten da eta "primitibo prestu"aren irudia asmatzen da, batez ere Mendebaldeko zibilizazioaren ustelkeria salatzearren. Joxe Azurmendi

Zientzia edota, hobeto esan, **kultura** zientifikoa, eta gure gizarteetan horrek duen estatusa. Askoren artean

Haietako asko **kultura** handiko gizonak ziren. Jose Morales

Indarraren *(hybris)* legearen gainetik zuzenbidearen gorentasuna jartzeko ahalegina oso hedatuta egon da beti helendar **kultura** politikoan. Askoren artean

**3** herri edo zibilizazio jakin baten burulanaren emaitzen multzoa; ikasten diren jokamoldeen multzoa.

Teknikak **kultura** batetik bestera doaz, gurpil, uztarri, iparrorratz edo inprentaren kasuetan bezala. Askoren artean

Ez zegoen **kultura** bat, **kultura** anitz baizik. Askoren artean

Nietzschek Mendebaldeko **kultura** eta metafisikari egindako kritika. Askoren artean

Mendebaldeko **kultura** askotan hatzekin jateko ohitura zabaltzen ari da, antzinako tradizioari jarraiki. Edorta Agirre

Euskal Herrian, berriz,[...] herri-espiritua, herriaren jakintza, nekazari jendearen **kulturarekin** lotu zen ia erabat. Bernardo Atxaga

Atzerriko **kultura** batetik osagaiak hartzerakoan. Iñaki Mendiguren

**Kultura** batean -hitzarenean- zein bestean -zenbakiarenean- . Anjel Lertxundi

**4** (izenondoekin)

**Kultura** egipziako hau oraindik bizirik eta Zibilizazio Helenikoa hilzorian zegoenean. Iñaki Mendiguren

Peruko **Kultura** Indigenen Zentroko burua. Berria - Gaiak

Kultur kezka zein idazteko grina, sakonagoak izaten ohi dira **kultura** txikietan. Markos Zapiain

Hizkuntza eta **Kultura** Guttituen aldeko Elkartea. Herria

Gure gizartearen **kultura** moralean. Askoren artean

Plazera eta jolasa alde batera utzi eta ugalketan oinarritu den **kultura** sexualaren ondorioak. Luis Elberdin

**5** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa; orobat **kultur**) ik **kultural**.

Herri baten izpiritua, bere **kultura** maila, beraren gizarte-egitura. Iñaki Heras

Europako Batasuneko **kultura**-politikaren gainean sinposio bat egingo da Bartzelonan. Berria - Kultura

«Hezkuntza-industria» berrien sorrera sustatzeko, indarrean diren **kultura**-industrien antzekoak. Berria - Euskal Herria

**Kultur** kezka zein idazteko grina, sakonagoak izaten ohi dira kultura txikietan. Markos Zapiain

Ondorengo ia milurtekoan, gizarte- eta **kultur** iraultzen aniztasun txundigarria gertatu zen. Iñaki Mendiguren

Gizakia kontziente bihurtzen da eta, era berean, **kultura** eboluzioaren eragile kausal bilakatzen da. mendebaldartzearen **kultur** prozesuak Mendebaldeko teknika militarra eskuratzearen oinarrizko lorpena baino askoz urrutirago iritsi beharko zuen. Askoren artean

Europako Batasuneko kideek ez dute nortasun edo **kultura** batasunik. Iñaki Heras

Euskararen **kultur** unibertsoak, izan ere, bere bizi-baldintza bereziak ditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gizartearen ekonomia eta **kultura** garapena sustatzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Era guztietako kirol, jolas eta **kultura** ekintzak. Koldo Zuazo

Estatu unibertsalen hiriburuak estazio egokiak izan ziren, noski, mota guztietako **kultur** eraginak zabaltzeko. Iñaki Mendiguren

Euskal gizartearen **kultura** nortasuna indartzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nazio nortasuna izango da **kultura** berdinkeria erraldoitik salbu mantendu ahal izango gaituen ezaugarria. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Euskara gizarte hiritarrean txertatzeko, **kultura** esparruetan hedatzeko [...] borondatea zegoen. Koldo Zuazo

Euskara **kultura** hizkuntza bilakatzeaz. Koldo Zuazo

Gizakiak bere osotasunean burutu duen **kultura**–lanik gaitzena da zientziaren garapena. Pello Salaburu

**Kultura** egitasmo xumeenei ere ez zieten eman babesa. Koldo Zuazo

**Kultura** gaiez euskara hutsez jardutea. Koldo Zuazo

Gisa horretako **kultura** ekoizpenak. Itxaro Borda

Bizitza luzeagoa bizitzeko aukera izatea, enplegua izatekoa eta aukeratzekoa, gaixotasunak saihestekoa, **kultura** ondasunak kontsumitzekoa. Iñaki Heras

Eta gauza bera antzerki eta bestelako **kultur**-adierazpenetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Euskara **kultura** tresna izango bazen, aukeratutako hizkera ereduak ere halakoa behar zuen. Koldo Zuazo

Espazio handiagoetatik datozen **kultura** sinboloek inbaditzen baitituzte tokian tokiko espazioak. Iñaki Heras

**Kultura** edo politika hegemonia guztien azpitik ere eza dago. Joseba Zulaika

Goiz, Parisko **kultura**-megadendak artean ateak zabaldu gabe zirela. Edorta Jimenez

Denetariko nahasketa, nolabaiteko **kultura** ezaren adibidea. Edorta Jimenez

**6** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa; pertsonei eta erakundeei buruz; ik beherago **11, 13** eta **14**)

Politikariak, **kultura** arduradunak eta estatuaren ordezkariak. Itxaro Borda

Frantziako enbaxadako **kultura** aholkulariak. Edorta Jimenez

Moskuko **kultura** agintari ofizialek eskatu zutela. Edorta Jimenez

**Kultura** munduko jendea elkartu dela. Pello Salaburu

Sortu berria zen **kultura** erakunde batean. Alberto Ladron Arana

Departamenduko **kultura** zerbitzuek denek batera. Itxaro Borda

Eusko Jaurlaritzako **Kultura** Sailaren baimen espresurik gabe. Pello Salaburu

Frantziako **Kultura** Ministro Cateherine Tasca andreak. Edorta Jimenez

**7** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Munstro **kultura**-suntsitzaile hutsak. Alberto Ladron Arana

**8** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Kristau-**kultura** tradizionalean. Askoren artean

Hohenstaufendarrek berenganaturiko zalduneria-**kultura,** lehenago bikaina izan bazen ere ordurako behegunera iritsia da eta burgoetako hiri-**kulturak** hartuta zeukan ordurako haren lekua. Joan Mari Lekuona

Horren beste puntako (eta aurkako) manifestazioa da, justu, herri-**kultura**. Berria - Kultura

Ez du, Krutwigek bezala, euskal **kultura** nekazaritza-**kulturarekin** inola ere parekatu nahi izan. Askoren artean

Mendebaldeko kapitalismo-**kulturako** hoteletan. Edorta Jimenez

Bertsolaritzak baditu hainbat ezaugarri gaur egungo masa-**kulturaren** norabide nagusiekin guztiz bat ez datozenak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gizarte-politika gaiak, Literatura-**kultura** gaiak eta Ipuinak. Berria - Kultura

Filosofia politiko deshidratatu hori ere inspirazio eraginkorragoa zen bizimodu profesional kolektibo batentzat Dioklezianoren aroan mundu helenikoan zegoen literatur **kultura** arkaiko hutsa baino. Iñaki Mendiguren

Bere imaginarioan dago hiri hori, hemengo kultura zerbait bada, gainera, koadrila-**kultura** da. Ana Urkiza

**9** ***kultura-aniztasun*** *(**19** agerraldi, **2** liburu eta **15** artikulutan; orobat **kultur aniztasun** **84** agerraldi, **4** liburu eta **51** artikulutan, eta **kulturaniztasun** **4** agerraldi, **4** artikulutan)*

**Kultura-aniztasuna** [...] arrisku larrian dagoela gaur egun, industria-zibilizazioak ezarritako ereduaren mehatxupean. Juan Garzia

Kontuan harturik **kultura** -aniztasuna. Juan Garzia

Txema Uriarte **kultura-aniztasun** teknikariari. Iñigo Aranbarri

Itunak estaturik gabeko nazioak desagertzera eta hiltzera kondenatzen ditu, hizkuntza eta **kultura aniztasuna** ukatzen du. Berria - Euskal Herria

**Kultura aniztasuna,** garapen iraunkorra eta bakea izango dira Foroaren hiru ardatz nagusiak. Berria - Kultura

**Kultur aniztasun** handiko gizarteari ondo egokitzen zaion lurraldetasun mota **Kultur aniztasuna** eta bizi garen munduko gizarte "biodibertsitatea" errespetatu egin behar dira. Bernardo Atxaga

Bakea eta **kulturaniztasuna** hizpide Berria - Gaiak

## 10 ***kultura-bide*** *(3 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan; orobat **kultur bide** 3 agerraldi, liburu 1 eta artikulu 1ean, eta **kulturbide** agerraldi 1 liburu 1ean)*

**Kultura bide** bikaina da fanatismoen eta ezjakintasunaren aurka borrokatzeko. Berria - Kultura

Etsipenik ez, borondate-kolpe bortitzez euskara **kultur bideetan** barna ibilarazi, errazkerian goxo ez, euskalgintzan latz, erbestetik bada erbestetik, amore eman gabe, tinko eta irmo. Berria - Harian

Ahozko inprobisazioa ezagutzea, gizakiaren hainbat gaitasun garatzen dituen **kulturbide** unibertsal gisa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 11 ***kultura-elkarte*** *(18 agerraldi, 3 liburu eta 15 artikulutan; orobat **kultur elkarte** 171 agerraldi, 7 liburu eta 34 artikulutan, eta **kulturelkarte** 11 agerraldi, 11 artikulutan)*

Sestaoko A Esmorga galiziar **kultura elkarteko** kide batek aholkaturik. Edorta Jimenez

Gure auzoko **kultur elkarteak** antolatu zuen lehiaketatxo anonimoan. Jon Arretxe

Bretaniako 40 bat laguneko **kultura elkarte** bat. Herria

Hor ziren hautetsiak, hor ere herrietako kargudunak, hor Iparraldeko **kultura elkarteak** . Herria

## 12 ***kultura-etxe*** *(9 agerraldi, 2 liburu eta 5 artikulutan; orobat **kultur etxe** 383 agerraldi, 9 liburu eta 287 artikulutan, eta **kulturetxe** 41 agerraldi, liburu 1 eta 33 artikulutan)*

Lizarrako Fray Diego **kultura etxean** . Berria - Kultura

Honekin batera, agorrilaren 20a arte Euskal Herritik zehar jin 17 artistak *Amalurra* gaiaz egin kanpoko arte lanak erakuskgai izanen dira *Haize Berri* **kultura etxeak** antolaturik. Berria - Kultura

Ikastaro trinkoak antolatzen hasi nintzen auzoko **kultur etxean** . Josetxo Azkona

Zinemara doala, edo amarekin tortitak askaltzera kafetegi batera, edo **kultur etxeko** astearteroko hitzaldira. Iban Zaldua

## 13 ***kultura-gizon*** *(3 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan; orobat **kultur gizon** 5 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan, eta **kulturgizon** agerraldi 1 artikulu 1ean)*

Frantzisko ez zen intelektuala, ezta **kultura-gizona** ere. Askoren artean

Elizako Jaun ospetsu, **kultura gizon** argi, tango eta guarani kantuen maitale. Herria

**Kultur gizon** eta andre oro bakoitza bere kaletik ibili beharrean, maiz igarotzen ziren euskal zeharkaletik. Berria - Kultura

## 14 *kultura gune ik* **kulturagune.**

## 15 ***kultura-parke*** *(agerraldi 1 artikulu 1ean; orobat **kultur parke** 84 agerraldi, liburu 1 eta 56 artikulutan)*

Azokaren inguruan **kultur parkea** eraikitzeko asmoa azaldu du Udalak Erabaki hori Andoainen bete da abendoaren 17 ko aratsean, Martin Ugalde **Kultura Parkean** . Berria - Kultura

Jardunaldiei bukaera emanen zaio urriaren 26an, Andoaingo Martin Ugalde **Kultur Parkean** . Herria

Martin Ugalde Foroan hitzaldia eskaini aurretik, **Kultur Parkea** bisitatu zuen atzo Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxek. Berria - Harian

Parkearen atarian zain zituzten Berria-ko zuzendari Martxelo Otamendi, **Kultur Parkeko** administratzaile Jose Mari Sors, EKTko lehendakari Joxean Lizarribar eta Joanmari Larrarte EKT SAko administrazio kontseiluko idazkaria. Berria - Harian

## 16 ***kultura-sailburu*** *(134 agerraldi, 3 liburu eta 113 artikulutan; orobat **kultur sailburu** 5 agerraldi 4 artikulutan, eta **kultursailburu** agerraldi 1 artikulu 1ean)*

Thomasek Alun Pugh **Kultura sailburuari** leporatu zion Huws laborista zelako hobetsi zuela. Berria - Mundua

Ramon Labayen zen orduko **Kultura sailburua** . Pello Salaburu

Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako **Kultura sailburu** ohia. Berria - Kultura

Lauzpabost aste barru autonomia erkidegoetako **Kultura sailburuekin** bilduko da Calvo. Berria - Kultura

· Gurutz Larrañaga **Kultura sailburuordeak** eman zuen --, atzo --, 2003an burututako azterketaren datuen berri --. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**euskal kultur erakundea** (77); **euskal kultur erakundeak** (170); **euskara kultur elkargoak** (24)

**kultur adierazpen** (5); **kultur aniztasuna** (52); **kultur aniztasunaren** (20); **kultur aniztasunean** (5); **kultur aretoak** (5); **kultur aretoan** (13); **kultur arloan** (16); **kultur arloko** (20); **kultur arteko hezkuntza** (6); **kultur aste** (6); **kultur astea** (10); **kultur astean** (5); **kultur astearen** (5); **kultur azpiegitura** (5); **kultur ekimenak** (5); **kultur ekitaldi** (23); **kultur ekitaldiak** (11); **kultur elementu** (6); **kultur elkargoa** (5); **kultur elkargoak** (35); **kultur elkargoko** (20); **kultur elkarte** (11); **kultur elkartea** (34); **kultur elkarteak** (72); **kultur elkartean** (6); **kultur elkartearen** (19); **kultur elkarteari** (5); **kultur elkarteen** (5); **kultur elkarteko** (13); **kultur eragile** (15); **kultur eragileek** (6); **kultur erakundea** (78); **kultur erakundeak** (175); **kultur erakundeak antolaturik** (9); **kultur erakundean** (5); **kultur erakundearekin** (13); **kultur erakundearen** (65); **kultur erakundeari** (14); **kultur erakundeko** (42); **kultur erakundeko zuzendariak** (5); **kultur erakundera** (7); **kultur erakundetik** (5); **kultur errota** (9); **kultur eskaintza** (10); **kultur eta gizarte** (7); **kultur eta kirol** (8); **kultur eta turismo** (8); **kultur etxe** (24); **kultur etxea** (55); **kultur etxeak** (43); **kultur etxeak antolatzen** (9); **kultur etxean** (194); **kultur etxearekin** (5); **kultur etxearen** (9); **kultur etxeetan** (10); **kultur etxeko** (24); **kultur etxera** (7); **kultur etxerat** (5); **kultur gela** (5); **kultur gelan** (7); **kultur gune** (8); **kultur gunean** (18); **kultur hizkuntza** (5); **kultur industriaren** (6); **kultur jarduerak** (7); **kultur maila** (12); **kultur mailako** (6); **kultur mailan** (6); **kultur mugimenduan** (5); **kultur munduko** (14); **kultur nortasun** (5); **kultur ondare** (5); **kultur ondarea** (16); **kultur ondarearen** (16); **kultur parkea** (9); **kultur parkean** (46); **kultur parkearen** (15); **kultur parkera** (5); **kultur politika** (17); **kultur proiektu** (7); **kultur proiektua** (6); **kultur sailean** (9); **kultur talde** (8); **kultur taldeak** (16); **kultur zentro** (11); **kultur zentroa** (5); **kultur zentroak** (6); **kultur zentroan** (8)

**lugaritz kultur etxean** (8); **orioko kultur etxean** (5)

**ahozko kultura** (6); **artea eta kultura** (6); **espainiako kultura ministerioak** (7); **espainiako kultura ministroak** (8); **euskal herriko kultura** (9); **euskal kultura** (267); **euskal kultura erakundeak** (6); **euskal kultura erakundearen** (6); **fedea eta kultura** (5); **frantziako kultura ministroak** (7); **herri kultura** (8); **herriko kultura** (11); **ijitoen kultura** (6); **indus kultura** (6); **jaurlaritzako kultura sailak** (45); **jaurlaritzako kultura sailburu** (15); **jaurlaritzako kultura sailburua** (14); **jaurlaritzako kultura sailburuak** (25)

**kultura aldetik** (9); **kultura aniztasuna** (10); **kultura arduradunak** (8); **kultura aretoan** (5); **kultura arloan** (8); **kultura arloko** (12); **kultura arteko** (7); **kultura asko** (6); **kultura askoren** (5); **kultura askotan** (6); **kultura bakoitzak** (6); **kultura bat** (45); **kultura batean** (13); **kultura batek** (5); **kultura bateko** (5); **kultura baten** (25); **kultura batzordean** (8); **kultura batzuetako** (5); **kultura batzuetan** (8); **kultura batzuk** (5); **kultura behar** (5); **kultura bere** (5); **kultura berri** (10); **kultura berria** (17); **kultura berriaren** (8); **kultura bizi** (7); **kultura departamentuak** (7); **kultura desberdinak** (6); **kultura desberdinetako** (5); **kultura elkarteak** (6); **kultura erakundeak** (6); **kultura erakundearen** (6); **kultura eskubideak** (5); **kultura etxea** (7); **kultura ezberdinak** (6); **kultura ezberdinen** (9); **kultura garaikidearen** (31); **kultura garaikidearen nazioarteko** (21); **kultura garaikideko** (16); **kultura garatzeko** (5); **kultura guztietan** (10); **kultura handiko** (9); **kultura handikoa** (7); **kultura helenikoa** (6); **kultura helenikoaren** (5); **kultura hizkuntza** (8); **kultura honek** (8); **kultura hori** (11); **kultura horiek** (5); **kultura horrek** (5); **kultura horren** (7); **kultura horretan** (5); **kultura indigenen** (6); **kultura izan** (5); **kultura jakin** (8); **kultura kontseilariak** (15); **kultura kontseilariaren** (7); **kultura kontseiluak** (7); **kultura maila** (12); **kultura mailan** (11); **kultura maite** (5); **kultura ministerioak** (12); **kultura ministerioaren** (8); **kultura ministro** (16); **kultura ministroa** (7); **kultura ministroak** (20); **kultura ministroaren** (6); **kultura mota** (6); **kultura oro** (7); **kultura oso** (14); **kultura politiko** (17); **kultura politiko bat** (5); **kultura politikoa** (8); **kultura saila** (8); **kultura sailak** (105); **kultura sailaren** (27); **kultura sailari** (14); **kultura sailburu** (31); **kultura sailburua** (33); **kultura sailburuak** (61); **kultura sailburuarekin** (7); **kultura sailburuaren** (8); **kultura sailburuordeak** (5); **kultura sailean** (12); **kultura saileko** (31); **kultura sortu** (14); **kultura sustatzeko** (8); **kultura zabaltzeko** (5); **kultura zinegotzi** (8); **kultura zinegotzia** (5); **kultura zinegotziak** (35); **kultura zuzendariak** (11)

**mendebaldeko kultura** (11); **musika kultura** (5); **nafarroako kultura kontseiluak** (7); **udaleko kultura sailak** (7); **udaleko kultura zinegotziak** (7); **uraren kultura** (21); **uraren kultura berria** (12); **uraren kultura berriaren** (7)

**euskal kulturak** (51); **mendebaldeko kulturak** (5)

**euskal kulturako** (24)

**euskal kulturan** (36); **mendebaldeko kulturan** (7)

**euskal kulturarekiko** (8)

**euskal kulturarekin** (10)

**euskal kulturaren** (305); **euskal kulturaren alde** (49); **euskal kulturaren aldeko** (24); **euskal kulturaren aurkako** (7); **euskal kulturaren inguruan** (9); **euskal kulturaren inguruko** (6); **euskal kulturaren munduan** (5); **euskal kulturaren munduko** (5); **herri kulturaren** (21); **kulturaren adar** (5); **kulturaren alde** (60); **kulturaren alde egin** (7); **kulturaren alde egindako** (5); **kulturaren aldeko** (40); **kulturaren aldeko herriarteko** (5); **kulturaren aldetik** (6); **kulturaren arloan** (9); **kulturaren aurka** (6); **kulturaren aurkako** (9); **kulturaren bidez** (5); **kulturaren bitartez** (5); **kulturaren egoera** (6); **kulturaren euskal plana** (12); **kulturaren euskal planak** (7); **kulturaren euskal planaren** (7); **kulturaren ikuspegi** (5); **kulturaren inguruan** (15); **kulturaren inguruko** (12); **kulturaren militante** (6); **kulturaren munduan** (11); **kulturaren munduko** (12); **kulturaren parte** (10); **kulturaren plana** (5); **kulturaren sailean** (5); **kulturaren zati** (5); **masa kulturaren** (5); **mendebaldeko kulturaren** (12); **nafarroako kulturaren** (5)

**euskal kulturarentzat** (16)

**euskal kulturatik** (5)

**euskal kulturaz** (17); **herriko kulturaz** (5); **kulturaz arduratzen** (13)

---

## kulturadun *(orobat **kulturdun** g.er.) izond* kultura duena.

Buhler, Freisler, Kritzinger, jende ikasia, jende ongi hezia, jende sentikorra, jende **kulturaduna**. Orduko, ministroen taldea indartuz zihoan **(kulturadunak** eta klerikoak gero eta gehiago ziren). Askoren artean

Atzenean, benetako pertsona hezia, **kulturaduna,** gizaki ona da. Jenaro Garate

Maila sozial bertsukoak izateaz gain, argiak, **kulturadunak** eta literatura estimatzen zutenak biak. Ramon Saizarbitoria

· Euskara dakiten espainol edo frantses **kulturadun** herritarrak. Patziku Perurena

---

## kulturagabe *(orobat **kultura gabe** eta **kulturgabe**)* **1** *izond* kulturarik ez duena.

Haien ikuspuntutik, euskaldunak, nekazari hutsak direnez, atzerakoiak eta abadezuloak dira, kasu; edota **kulturagabeak** eta probintzianoak. Bernardo Atxaga

Gure euskal herri **kulturagabeotan** zinezko kulturaren kalitatea eta aberastasuna jasotzeko. Patziku Perurena

"Europako eta agian munduko lehen hizkuntza" zela esanez, "baldarra eta **kulturagabea"** zela ziotenei erantzun nahi zieten. Bernardo Atxaga

Kontuan har bedi mendi-giroko eta itsas-giroko jende ez-informatu eta **kulturagabeena** dela jakintsuena, hau da, bere inguruko leku-izen gehiena dakizkiena. Iñaki Segurola

Ikasiena, "helendarren" komunitatea; **kulturagabeena,** barbaroena. Askoren artean

Pagano errea baina ez **kultura gabea**. Itxaro Borda

**2** ***kulturagabeko*** *izlag* kulturagabea.

Euskararen gainbeheraren adibide eta **kultura gabeko** jendearen mintzamolde. Koldo Zuazo

**Kulturgabeko** aldeanoak eta fanatikoak. Joxe Azurmendi

Eta ez bakarrik jende **kultura gabeko,** samindu eta ergelek. Felipe Juaristi

Arrantzalea jende arrunta da, **kulturgabekoa,** pixka bat basa... Menane Oxandabaratz

---

## kulturagune *(**kultura gune** 2 agerraldi 2 artikulutan; orobat **kulturgune** 53 agerraldi, 5 liburu eta 39 artikulutan, **kulturune** 140 agerraldi, 5 liburu eta 91 artikulutan eta **kultur gune** 35 agerraldi, liburu 1 eta 31 artikulutan)* **1** *iz* kultura-etxe handia edo garrantzizkoa.

Bastero **kulturguneko** auditoriumean musika eta literatura ikusgarria izango da, 19:00etan. Berria - Kultura

Duela gutxi, Donostiako KM **kulturgunean** abangoardiako artisten erakusketa batean Txuspo Poyoren collage bat ikusi nuen. Harkaitz Cano

KM **kulturuneko** erakusketa martxoaren 13ra arte egongo da ikusgai. Berria - Kultura

Giltza hori zer izan daitekeen ez dut inoiz jakin, batzuetan Udalean eta Sagarminaga **Kulturunean** saiatu izan banaiz ere. Txillardegi

Hiru belaunalditako idazleak eta musikariak bilduko dituzte Bidebarrieta **kulturgunean** arratsaldez burutuko diren hitzaldi, mahai inguru, emanaldi eta bestelako ekitaldiek. Berria - Kultura

Urrian zabaldu zen **kulturgune** handiak 1.552 lagunentzat du tokia. Berria - Kultura

Deustu aldeko *Kabia* **kulturguneko** Aritzek egin digun bezala, zuen proiektu alternatiboen berri emateko badira, are hobeto! Paddy Rekalde

**2** kulturaren gunea.

Artea eginez eta erakutsiz, eta artistentzat Eibar erreferentzia gune bilakatuz, *Alfa Arte*k Eibar **kulturgune** bihurtu nahi du. Berria - Kultura

Euskal Herriko **kulturgune** nagusi bilakatuko da bost egunez Durango. Herria

Nihonbashi edo Japoniako zubiaren inguruan sortu zen **kulturgunean** agertu ziren lehenengoz kabuki antzerkia, bunraku txotxongilo-antzerkia, eta sumo borroka. Javi Cillero

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**andoaingo bastero kulturgunean** (3); **errenteria hiria kulturgunean** (3); **errenteria kulturgunean** (4); **kalderapeko kulturgunean** (3); **montehermoso kulturgunean** (4); **san agustin kulturgunean** (5)

**koldo mitxelena kulturunea** (9)

**koldo mitxelena kulturuneak** (7)

**donostiako km kulturunean** (3); **gasteizko montehermoso kulturunean** (4); **km kulturunean** (11); **koldo mitxelena kulturunean** (43); **montehermoso kulturunean** (8)

**km kulturuneko** (4); **koldo mitxelena kulturuneko** (18); **kulturuneko ganbara** (6); **kulturuneko ganbara aretoan** (4); **kulturuneko ganbaran** (3)

---

## kulturagunetxo *(corpusean **kulturunetxo** soilik) iz adkor* kulturagunea.

Orain gure **kulturunetxua** erakutsiko deutsut. Txillardegi

---

## kulturakeria *iz*

**Kulturakerian** amildutako herrigintza daukagu: hizkuntzaren aberriak oinarri metafisikoak dauzka halako proiektuetan. Berria - Euskal Herria

---

## kultural **1** *izond* kulturari dagokiona. ik **kultura 5.**

Iduritzen zaio ordea gure adiskideari funtsezko faktore bat ahanzten dela, faktore **kulturala**. Piarres Xarriton

Industria **kulturalak,** turistikoak edo folkloriko-politikoak, beren produktuak errazago saltzeko. Iñaki Segurola

Alemaniako herriaren ondare **kultural** zein genetikoa ikertu, babestu eta sustatzeko helburuekin. Alberto Ladron Arana

Antropologia **kulturalak** gizakiaren definizio unibertsalaren aldeko preferentzia errotik eztabaidatu izan du. Joseba Zulaika

Inperialismo **kulturala** edo mestizajea, hiztunaren arabera. Iñigo Aranbarri

Euskal produkzio **kulturalaren** ikonografia. Anjel Lertxundi
Ospe handiko euskarazko ekitaldi **kultural** batera. Juan Luis Zabala
Erlatibismo **kulturalaren** doktrina antropologian. Askoren artean
Aldaketa politiko, **kultural** eta sozial handiak bizi izan dituzu... Ana Urkiza
Baina desberdintasunetako asko eta asko ez dira genetikoak, baizik eta **kulturalak**. Luis Elberdin
Ia erakunde politiko, sindikal, **kultural,** eliztar guztiek euren protesta eta solidaritatea erakutsi dute. Joxe Azurmendi
Euskal talde **kultural** batean ibiltzen ninduan. Rafa Egiguren
Baldintza historiko eta **kultural** berrien eraginpean. eredu ideologiko, erlijioso edo **kulturalen** eraginak itsututa. Askoren artean
Balioen krisia deitu ohi dena egiaz krisi sozial, **kultural,** politiko, etiko konplexu bat da. Joxe Azurmendi
Balio **kultural** eta politiko batzuen defentsan. Joseba Zulaika
Arazo geografikoa da, baina baita kontzientziarena ere, **kulturala**. Pako Aristi

**2** (beste izenondo bati elkartua, lehen edo bigarren osagai gisa)

Haiena arrazaren kontzeptu **kultural**-morala dela hortaz. Joxe Azurmendi
· Testuinguru literario-**kultural** jakin batean txertatzen da. Santiago Iruretagoiena
Bidaia esoteriko **kultural** bat, Veneziako ibilbide fantastiko ezkutuenetan barrena. Anjel Lertxundi
· Egoera sozio-politiko-**kulturala**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baldintza kultural** (3); **balio kultural** (3); **ekintza kultural** (4); **ekitaldi kultural** (3); **elkarte kultural** (3); **eragin kultural** (3); **errealitate kultural** (5); **erreferente kultural** (3); **erreferentzia kultural** (3); **ikuspegi kultural** (4); **kultural egintza batzuen** (4); **kultural eta politiko** (7); **kultural eta politikoa** (4); **kultural eta sozial** (6); **kultural eta sozialak** (3); **ondare kultural** (7); **proiektu kultural** (3); **sozial eta kultural** (6); **sozio kultural** (5); **talde kultural** (4)

**aniztasun kulturala** (4); **ekintza kulturala** (3); **iraultza kulturala** (3); **korrika kulturala** (13); **mugimendu kulturala** (3); **ondare kulturala** (7); **politika kulturala** (4); **sasoi kulturala** (3); **sozial eta kulturala** (7); **soziala eta kulturala** (5); **sozio kulturala** (3); **turismo kulturala** (4)

**ekimen kulturalak** (3); **ekonomikoak eta kulturalak** (5); **eredu kulturalak** (4); **politiko eta kulturalak** (4); **praktika kulturalak** (7); **sozial eta kulturalak** (6); **talde kulturalak** (3)

**korrika kulturalaren** (16); **korrika kulturalaren barruan** (5); **ondare kulturalaren** (6)

**nazio kulturaleko kide** (4); **norbere nazio kulturaleko** (4)

**ekonomiko eta kulturalen** (4); **sozial eta kulturalen** (5)

**politika kulturalik** (3)

---

**kulturaldi** *iz* kultura jaialdia.

Igande arte segitzen du Urruñako **Kulturaldiak**. Herria
Martxoaren 23an hasi eta 25ean bukatuko da Bi Harriz Lau Xori **kulturaldia,** Miarritzen. Berria - Kultura
*Hazia* elkarteak muntatu **kulturaldia** arras polliki bururatu da iragan asteburu hortan. Herria
**Kulturaldiaren** bigarren hitzordu nagusia apirilaren 29koa izan daiteke, Nafarroaren Egunaren bezperakoa, hain justu. Berria - Kultura
Gaurko egunera heldu aitzin beroketa luzea egin du Nafarroaren Egunak, **kulturaldiaren** bidez. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ako kulturaldia** (14); **aurtengo kulturaldia** (3); **baigorriko kulturaldia** (5); **iparra hegoa kulturaldia** (3); urruñ

**ako kulturaldian** (5); urruñ

**ako kulturaldiaren** (7); **ako kulturaldiaren kondu** (6); **aurtengo kulturaldiaren** (3); **baigorriko kulturaldiaren** (3); **kulturaldiaren karietara** (3); **kulturaldiaren karietarat** (3); **kulturaldiaren kondu** (9); urruñ urruñ

---

**kulturalista** *izond* kulturari arreta berezia jartzen diona.

Nozio **kulturalistei** loturik garatzen zen, beraz, estetikaren bide berria eta, batez ere, artearen teoria berria. Askoren artean
Gailegismo **kulturalistaren** eskolako kidetzat jotzen dute Xocas. Berria - Kultura
Politikarekiko interesik gabeko **kulturalista** da Zweig, artea bilatzen eta miresten duena. Berria - Kultura
Ortega ez da eta ez da bihurtu behar izpiritualista **kulturalista** hutsa. Joxe Azurmendi

---

**kulturalki** *adlag* kulturaren aldetik.

Espainiak beti bezain monolitikoa eta intolerantea izaten jarraitzen du **kulturalki**. Hozkiltasun horretatik ezin ezer handirik sor daiteke, ez **kulturalki,** ez sozialki. Joxe Azurmendi
Alderdi Sozialistarentzat **kulturalki** Euskal Herria ez da existitzen. Joxe Azurmendi
Historiko eta **kulturalki** eraikia dagoen arrazoizkotasun arrunt onartu batek. Joxe Azurmendi
Amerikar bihurtzeko baldintzetako bat **kulturalki** beltz bihurtzea dela aldarrikatzen du liburuan. Berria - Harian
Orain arte ez dela lortu gure zinema euskal kultur sistemaren funtsezko osagai gisa eratzea, hau da, **kulturalki** instituzionalizatzea. Berria - Kultura
Ekonomikoki, sozialki, politikoki eta **kulturalki** baztertuak bizi dira. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kulturalki eta politikoki** (3); **politikoki eta kulturalki** (4)

---

kulturaniztasun ik **kultura 9**.

---

**kulturarteko** *izlag* kulturen artekoa.

Kontuak kontu, Veracruzen, Las Palmasen, edo gerora geuk inprobisazioari buruzko **kulturarteko** jardunaldiak antolatu ditugularik, bertsolariok adi egon izan gara besteek egiten dutenari. Andoni Egaña
Aniztasunaren trataeran eta **kulturarteko** hezkuntzan sakontzeko. Berria - Euskal Herria

---

**kulturartekotasun** *iz* kulturen artekoa denaren nolakotasuna.

Etorkinak jasotzen dituzten herrietan ere, **kulturartekotasun** kontzeptua barneratu nahi die bertako haurrei. Berria - Ekonomia

**kulturazale** *(orobat* ***kulturzale****)* *iz* kulturaren zalea dena.

1881ean jaio zen Stefan Zweig, Vienako familia judu aberats eta **kulturazale** batean. Berria - Kultura

Hala pentsatu du turista **kulturazaleak,** piramideetara egin berri duen bisitaldi gidatuan entzundako argibideak gogoan. Joxerra Garzia

Joanden ostiralean estreinatua izan da, Bilboko erakunde arduradun eta **kulturazale** andana baten aurrean. Herria

Emanaldi bakoitzean bost zinemagileotatik batek parte hartuko du, sortzaile eta **kulturzaleen** arteko solasaldiak egingo baitira emanaldien ondoren. Berria - Kultura

kulturbide ik **kultura 10**.

kulturdun ik **kulturadun**.

kulturelkarte ik **kultura 11**.

kulturetxe ik **kultura 12**.

kulturgabe ik **kulturagabe**.

**kulturgile** *iz* kultura ekoizten duen pertsona.

Politikoak eta betiko **kulturgile** harroputzak atera beharrean, jende xehea baina aldi berean ezaguna sartzeko zazpi ahalak egiten ari gaituk. Aingeru Epaltza

Zaharra eta gaztea, behartsua eta aberatsa, saltzailea eta tratulanta, benetako **kulturgilea** eta erakunde-zorria. Markos Zapiain

Agiria sinatu dugun **kulturgileok** ez dugu hori ametituko. Berria - Kultura

Orain, herritarren babesa ez ezik, idazle, musikari eta **kulturgileena** ere jaso du. Berria - Euskal Herria

Familiaren gizarte maila altuak garaiko **kulturgile** handienekin harremanak izatea ahalbidetu zion, Gertrude Stein, Rene Crevel, Max Jacob, Salvador Dali, Jean Cocteau edota Max Ernst ezagutu zituen. Berria - Kultura

**kulturgintza** *iz* kultura ekoiztea.

Paradoxikoa da [...] enpresaren jokabide hori: bere izaera eraginkorrak eman dizkion etekinak kulturan inbertitu nahi, eta **kulturgintzaren** alde geldoenetan jartzen ditu lilura eta dirua. Anjel Lertxundi

Garai hartako Arantzazu euskal **kulturgintzaren** abangoardia moduko bat bezala saldu digute. Pako Aristi

Euskal **kulturgintzako** korronte eta pertsona ia guztiak bildu dituzten bi manifestu. Hasier Etxeberria

Lehiaketa honek on handia dagie **kulturgintzan** eta herrigintzan dabiltzanei. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euskal kulturgintza** (5); **windsor kulturgintza** (4)
> **euskal kulturgintzak** (3)
> **euskal kulturgintzan** (5); **kulturgintzan ari** (3)
> **euskal kulturgintzaren** (9); **euskal kulturgintzaren alde** (3)

kulturgizon ik **kultura 13**.

kulturgune ik **kulturagune**.

**kulturismo** *iz* gimnastika ariketen praktika jarraikia, helburutzat giharrak nabarmen garatzea duena.

Kaliforniako homosexualen artean berpiztu zen moda zahar hau, badakizue, **kulturismoa** eta gorputzaren gurtza, eta harrezkero itsu-itsuan segitu diogu denok. Patxi Iturritegi

Delako *body-building*a edo **kulturismoa** egiten duen zizarea ematen dut. Jesus Mari Mendizabal

Halterofilia eta **kulturismo** ikastaroak egin nituen negu batez eta asteburuetan joaten nintzen. Berria - Kirola

**kulturista** *izond* kulturismoan aritzen dena.

**Kulturista** zen, eta Kalaportuko gimnasioko zuzendaria. Joseba Sarrionandia

**Kulturisten** jarreran itzelezko muskuluak erakusten. Joseba Sarrionandia

Harik eta irakasleak, aurpegia gorri, ia ubel, bere beso **kulturista** hura altzatu eta mahai ukabilkada bat jo, pumb, eta zirko domadore begiradaz oihu egin zuen arte: [...]. Joseba Sarrionandia

**kulturizante** *izond* kulturizatzen duena.

Kartzela guztietako elementu **kulturizantea**! Jokin Urain

**kulturizatu,** kulturiza, kulturizatzen du *ad* kultura batean integratu.

Agurtzen ikasi du, zerbitzen diotenean 'eskerrik asko' edo 'gracias' esaten; 'on egin' ere esaten du hanburgesari hagina sartu aurretik, bere apetitoak kontrolatzen ari den

seinale, bere grinak **'kulturizatzen'**. Pako Aristi

---

## kultursailburu ik **kultura 15**.

---

## kulturune ik **kulturagune**.

---

## kulturunetxo ik **kulturagunetxo**.

---

## kulturzale ik **kulturazale**.

---

# kuluar *iz* [fr] korridorea, trantsitoa.

Enpresa multinazionaleko **kuluarretan** orduak eman zituen aharrausika eta kafe onik ez zenez eskatzen. Itxaro Borda

**Kuluarreko** lur hasean hedatua zidan ohe mehean etzan nintzen, lo egin asmoz. Itxaro Borda

---

# kulun

**1 *kulun-kulun***

Saioa joanda, isilaldi bat, Anek kikara hustu zuen eta, **kulun-kulun** eginez aldameneko gelara eraman zuen haurra. Pablo Sastre

---

# kulunka 1 *adlag* kulunkatuz.

Uretan itsasontzi zuri bat zegoen **kulunka**. Agustin Otsoa

Han erdian kanpaia **kulunka** baina mutu zegoen jadanik. Joseba Sarrionandia

**Kulunka** zihoan etorbide zabal batean gora, hauts zurrunbilo baten erdian. Lopez de Arana

Zopilote bakarti bat zebilean zeruan **kulunka**. Juan Garzia

Oso takoi luzeko oinetakoak zituen, eta modu erabat arriskutsuan zebilen haien gainean **kulunka**. Jon Muñoz

Kaio frantses bat zebilkidan, **kulunka,** buruaren gaindik. Mirentxu Larrañaga

Gondola itxurako zolen gainean ibili behar genuen, atzera-aurrera **kulunka,** panpina tente horien antzera. Urtzi Urrutikoetxea

Zer ikustera irten zineten basamortura? haizeak **kulunka** darabilen kanabera? Anjel Lertxundi

Nellie **kulunka** ari zen idazmahaiko aulki birakariaren gainean. Lopez de Arana

Bandera gorria zeruan **kulunka** zuten bi goleta ingelesen ondoren. Josu Zabaleta

**Kulunka** zeukan burua bularraldearen gainean. Jon Muñoz

Atean dardarka geratu zen une batez, atzera eta aurrera **kulunka**. Koro Navarro

Ariete erraldoi bat aurrerantz zihoan, kate boteretsuetatik **kulunka,** ehun oin luzeko zuhaitz baten gisara. Agustin Otsoa

Eta itsas zurrumurru errepikakor leunean **kulunka** oheratu naiz. Txillardegi

Ni **kulunka,** eta *scotch* bat edaten ari, bat bakarra, gehiagorik ezin, **kulunka** eta kantari dihardut. Joxe Austin Arrieta

Gora begiratu nuen, eta zuhaitz tantai hura ikusi, nire gainean **kulunka**. Mirentxu Larrañaga

Ni **kulunka** eta begira, bai ongi. Joxe Austin Arrieta

• **2** *iz* oreka puntu edo ardatzari buruz alde batera eta besterako higidura.

Horixe ikusten gelditu ginen, putz lehor hura eta ontzi beltz haren **kulunka** gozoa. Koldo Izagirre

Ontziaren **kulunkak** lagunduriko loaldi labur urrietan. Anjel Lertxundi

Han urrunean, garabiak, behe-lainoa kaiaren gaina milikatzen, ontziak **kulunka** etengabean. Lander Garro

Ontziaren **kulunkak** lagunduriko loaldi labur urrietan. Anjel Lertxundi

Harkaitzen kontra jota ostera itsasorantz zetozen bagek **kulunka** handiak eragiten zizkiguten. Koldo Izagirre

Ezetz erantzun zion gorputz guztiaren **kulunka** batez, alaitasuna biziagotzen zitzaiola. Karlos Zabala

Esanen banio neska bati bere txoparen **kulunka** ikusita bururatzen zaidana... Koldo Izagirre

**Kulunka** hauek gurdibide batean baino ezin dira egin. Koldo Izagirre

Besaulkiaren besoei estu helduz **kulunkaren** abiada biziagotzen zuelarik. Oskar Arana

Planetek ***kulunka*** *teknika* izenekoa erabiltzen dute. Berria - Gaiak

Tiroen zalapartaren ondoren, itsas-lapurrek beren burua galdua ikusirik, ontziak arnasari eutsi, eta geldi-geldi etsita geratu zen, itsas-**kulunkaren** mende. Inazio Mujika Iraola

**3** zabua.

Han zeuden, alabaina, aitak montatu **kulunkak**. Daniel Landart

Pentsatua nuen lehenago **kulunkak** zeuden tokiaren erdian eginen genuela ziloa eta esplikatu nion Ximuni zer-nolako momentu goxoak pasatzen genituen han, haurrak ginelarikø Daniel Landart

**4 *kulunkan*** *adlag* kulunka, kulunkatuz.

Eta **kulunkan** zebilen ontzi baten txanberga ikusi zuen kable-bete batera. Juan Garzia

**Kulunkan** zebilen Ruche jauna inork trabatzen ez zekien makina amorratu hartan. Jon Muñoz

Berriz ere begi bat itxi zuen mutilak, txalupa baten gisan baitzebilkion ohea **kulunkan**. Koro Navarro

Eserita egon arren, gerritik gora doinuaren **kulunkan** mugituz. Xabier Mendiguren Elizegi

Musikak **kulunkan** ninderaman, egonezinez, irrika gero eta sutsuago zen. Eduardo Matauko

Goiko eskailera-mailan, Alice une batez **kulunkan** geratu zen, noiz hanka batean, noiz bestean. Lopez de Arana

Muinoetan buruxkak **kulunkan**, uhartearen gaineko izotzezko geruza zuri-urdina, itsasertzeko labar beltzezko fiordoak, itsaso urdinean izozmendiak **kulunkan..**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Begitartea minaren, nahasmenduaren eta arinduraren artean **kulunkan**. Aingeru Epaltza

**5** *kulunka-aulki* ik **kulunkaulki**.

**6 *kulunka egin***

Pospolo bat pizten zenean, haien bueuk **kulunka egiten** zuten eta paretan zabaltzen ziren. Koro Navarro

Gero, balkoiaren sabaian -balkoi orok baitauka goiko balkoia edo teilatuaren hegala den sabairen bat- sabai honetan, diot, **kulunka egiten** dute arropek, sareek, soka bilduek. Koldo Izagirre

Irribarre egin zuen, [...] eta **kulunka eginez** etorri zen niregana, agertokian balego bezala. Koro Navarro

Eskaileretan behera, baranda itsaskor, dardartiei helduta, **kulunka eginez** zoruko lauza zabukarietan. Koro Navarro

Tartean, zainzuri itsasoak plastiko ilunez estaliak, haizearen mugimenduan uhinen **kulunka zegitenak**. Berria - Kirola

· Eskailera osoak **egiten** du **kulunka** goitik behera. Koldo Izagirre

Beste garai batean [...] manera adeitsuko gizona izan bide zen, **kulunka** txikiak **egingo** zituen kanabera bati helduta. Koro Navarro

### 7 ***kulunka eginarazi*** kulunka eragin.

Zamariaren zareak mukuru beteta daude, eta zareen gaineko beste hainbesteko fardelak **kulunka eginarazten** diote. Pello Lizarralde

### 8 ***kulunka eragin***

Berriro zorabiatuko garela inork **kulunka eragiten** ez dion kuberta horretan... Koldo Izagirre

Baina bat geratu egin da, okertzean **kulunka eragiten** dion adar baten muturrean. Itziar Otegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **burua kulunka** (4); **haizeak kulunka darabilen** (3); **kulunka ari** (4); **kulunka egiten** (4); **ni kulunka** (5)
> **kulunkan ari** (3); **kulunkan zebilen** (5)

---

## kulunkada *(orobat **klunkada**) iz* kulunkatzea.

Eta Selvaggiaren jarreren formak formen arragora iraitziak izan ziren, animalien mugimendu guztiekin, eta landareen eta harrien lerroekin, eta argiaren izpiekin, eta lurreko lurrunen eta itsasoko olatuen **kulunkadekin** batera. Juan Garzia

Milizianoak **klunkada** bat eman zuen lokuluxkan, eta belaun artean zeukan metrailadorea lurrera erori zen zarata handiz. Juan Garzia

---

## kulunkagailu *iz* zabua, kulunka.

Zigarroa piztu nuen, eta suak irudi zaharren doinua ekarri zidan gogora, paisaia horretan agure zahar bat faltako balitz bezala,**kulunkagailuan**. Lander Garro

---

## kulunkarazi, kulunkaraz, kulunkarazten du *ad* kulunka eragin.

Idunekoa hartu eta nire begien aurrean **kulunkarazten** zuelarik. Oskar Arana

Haizeak **kulunkarazten** duen harkaitz puska baten gainean jarri behar diagu denda. Koro Navarro

Mael zutik jarri zen jauzi batean, txalupa modu arriskutsuan **kulunkaraziz**. Joanes Urkixo

Errege Henrikeren izenean gure zutoihal gorria Nafarroa Behereko hiriburuko murruetan berriz ere **kulunkarazi** zutenetarik izan zen Migel Mailu. Aingeru Epaltza

Badago bakardade bat **kulunkaraz** daitekeena. Anton Garikano

---

## kulunkari 1 *izond* kulunkatzen dena.

Alde batera okertutako kapela zeramaten mutil indartsuak, mandatari izerditsuak, begirada gurutzatuak, aldaka **kulunkariak**. Lopez de Arana

Rooneyren sorbalda **kulunkariei** jarraiki kalera irten zen. Lopez de Arana

Hala ere, Erregina Zuria bere ibilera **kulunkariaz** hurbilduko zitzaidan, mahaien artean sigi-saga. Alberto Ladron Arana

Emazteak kapela eta kapa erantziak zituen eta ispilu **kulunkari** handi baten aurrean zegoen, gerruntzea askatzen. Irene Aldasoro

Mendebaldeko itxura petoko jatetxe batera joan ginen, ate **kulunkariak** sarreran, eta pistolak eta azienda-adarrak hormetan zituen batera. Xabier Olarra

Beste leku batzuetan, ezin alde batera utzi ur geldia, eta bidea gainetik igarotzen zen, baina ez zubien bitartez, oholtza **kulunkariez** baizik. Karlos Zabala

Halako batean, laster-orga **kulunkari** bati tiraka zetorren zalditzar bat belauniko jausi zitzaion, brasta, aurrez aurre. Mirentxu Larrañaga

· Atze-sakelako bere orrazi berdearekin, bere ile-motots kaxkagorri bizkarraldera **kulunkariarekin**. Joxe Austin Arrieta

### 2 (adizlagun gisa)

Poliziak aurrera eta atzera zebiltzan, porrak **kulunkari,** euren gorila-aurpegiak eta txinpantze-sorbaldak erakutsiz. Lopez de Arana

Arku elektrikoek mahats zimelak ziruditen, haizearen altzoan **kulunkari**. Lopez de Arana

Otzan-otzan agertu ziren bere bularrak nire begien aurrean, biribil, handi, tinko, **kulunkari,** desiragarri, beren koroa ilunekin. Juan Martin Elexpuru

### 3 ***aulki kulunkari*** kulunkatzeko aulkia. ik **kulunkaulki**.

Emaztea, berriz, zumezko aulki **kulunkari** batean dago, harizko besana beltza sorbaldan duela. Anjel Lertxundi

Aulki **kulunkarian,** larruzko burko bat zegoen pausatuta. Mirentxu Larrañaga

Afalondo batean sutondoko aulki **kulunkarian** eseri zen Paul D, neka-neka eginda. aurkitu zuen modua eta arrazoia, gauaren parterik handiena aulki **kulunkarian** igarotzeko. Anton Garikano

Ezin zuen, ez zuen lo egin nahi goian edo aulki **kulunkarian**. Anton Garikano

### 4 ***besaulki kulunkari*** kulunkatzeko besaulkia.

Erabaki zuen bere logelako besaulki **kulunkarian** eserita ematea eguna. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aulki kulunkari** (5)
> **aulki kulunkarian** (6); **aulki kulunkarian eseri** (3)

---

## kulunkaridun *izond*

Bat, ile-motots kaskagorri **kulunkariduna,** nire aurrean. Joxe Austin Arrieta

---

## kulunkatu, kulunka(tu), kolunkatzen 1 da *ad* oreka puntu edo ardatzari buruz alde batera eta bestera higitu.

Harrokeria handiz **kulunkatu** zen bi hanken gainean, noiz oin-puntetan noiz orpoetan bermatuz. Jose Morales

Nardaz begiratu zion astiro **kulunkatzen** zen oin biluziari. Jose Morales

Gorputzaren mugimenduak ere esna zegoela adierazten zuen, alderik alde **kulunkatzen** baitzen zabu arin baina etengabe eta beti-berdin batez. Koro Navarro

Besaulkian atzera eta aurrera **kulunkatzen** zelarik. Oskar Arana

Kobrak ere halaxe **kulunkatzen** dira, beren tximista jaurtitzen, eta beren kulunkara itzultzen berriro. Josu Zabaleta

Haren itzalean, jatorri ezin asmatuzko beste bizpahiru gizaki **kulunkatu** ziren. Itxaro Borda

Bi perlatxo **kulunkatu** ziren lapitzak nabarmenduriko begi ertzetan. Migel Angel Mintegi

Enbarkazioa buruka eta alboka ere **kulunkatzen** ariko da, olatuengatik..Ametsa hormen gainetik eguzki argiune baten antzera **kulunkatu** eta desagertu zen. Joseba Sarrionandia

• **2** du *ad* oreka puntu edo ardatzari buruz alde batera eta bestera higiarazi.

Amonak besoetan atxiki zuen biloba, isil-isilik eta bizi-bizi **kulunkatuz**. Mirentxu Larrañaga

Begiak itxi eta burua **kulunkatu** zuen. Irene Aldasoro

Tente-tente, aldakak **kulunkatzen,** atzean zeukan aterantz joan zen. Migel Angel Mintegi

Rodney Streeten egon behar zuen, umeak belaunen gainean **kulunkatzen** etxeko sukaldean. Koro Navarro

Aingeruek Maria oheratzerakoan **kulunkatzen** dituzten intsentsu ontzi handiak. Karlos Zabala

Mikel Strogoffek batzuetan itxaropen horiek bere burua **kulunka** zezaten uzten zuen, baina segituan konturatzen zen ameskeriak baino ez zirela. Karlos Zabala

Musikaren konpasean **kulunkatu** zuen bere gorputz hauskorra. Patxi Zubizarreta

Lehendabiziko gauean lasai egin nuen lo, itsas soinuak **kulunkaturik**. Felipe Juaristi

Frantzia bera zuten gogoratzen, [...] gure Ipar Euskal Herri xumea bere altzoan goxatzen eta **kulunkatzen** zuen Nazio puxant eta Aberri Handi egiazkoa. Piarres Xarriton

**3** ***kulunka-leku*** lukunkatzeko lekua.

Nire **kulunka-** eta begira-lekua, edota entzun-lekua. Joxe Austin Arrieta

---

## kulunkatze *iz* oreka puntu edo ardatzari buruz alde batera eta bestera higitzea.

Barku batean doa eta barkua era bitxi batean mugitzen da, olatuak laburrak dira, kadentzia gozoa dute, sehaska kantu bat, **kulunkatze** berezi bat. Harkaitz Cano

Adarren **kulunkatzeari** begiratuz esan nuen nirekiko: mugimenduak ez dira sekula existitzen erabat, iraganbideak dira, bi existentziaren arteko bitartekoak eta hutsarteak. Monika Etxebarria

---

## kulunkaulki *(orobat **kulunka-aulki**)* *iz* kulunkatzeko aulkia. ik **kulunkari 3**.

Bertan egiten zuen lo Olivierrek, zumezko **kulunkaulki** batean, manta bat hartuta. Harkaitz Cano

Antonio supazter txokoan dago, bera bezain zaharra den zurezko **kulunkaulki** batean eserita. Josetxo Azkona

Bizkitartean, gorputza, soin mehe hori, aurreraka eta atzeraka darama suaren aldera, **kulunkaulkiarekin** bat eginda. Josetxo Azkona

Halako batean azaldu ziren, horratik, ni **kulunkaulkian** lokartu berria nintzela. Joxe Austin Arrieta

Barrualdera bultzatu ninduten, **kulunkaulki** batean eseri ninduten, haiek denak inguruan nituela. Jon Muñoz

Eta hau, eta hau, eta hau, ari zen pentsatzen, eskaileretan gora, eskailerarteko sofagatik (amarena) farrez, baina goxotasunez, eta baita **kulunka** -aulkiagatik ere (aitarena). Anton Garikano

Azkenean bukatu zuen, erdi aulkia, erdi besaulkia, erdi **kulunka** -aulkia, esan zuen hura gizon-aulkia zela eta aulki hartan bera bakarrik eseriko zela. Pablo Sastre

---

kuluska ik **kuluxka**.

---

## kuluxka *(orobat **kuluska** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kuluxka** agertzen da)* **1** *iz* loaldi arina, edozein tokian egiten dena.

Oso lo gutxi egin nuen gau horretan -hamar edo hamabost minutuko **kuluxka** pare bat baino ez-. Oskar Arana

Hor berean mahai aitzinean jarririk, burua besoen gainean pausaturik, **kuluxka** batean sartzen naiz. Filipe Bidart

Joanesek oren pare bateko **kuluxka** bota zuen, etxeko lanei lotu aitzin. Eneko Bidegain

**2** (hitz elkartuetan)

Zahartua zen, zurbila, hanpatua eta arnasbehartua; hortxe lo zegoen, emakume zahartuen goiz-**kuluxka** egiten. Matías Mujika

**3** ***lo kuluska*** *(orobat **lokuluska** g.er.)* lo kukuxka.

Senar-emazte zoriontsuak dendara erretiratu ziren **lo kuluska** bat egitera. Patxi Zubizarreta

**4** ***lo kuluxka*** *(orobat **lokuluxka** g.er.)*

**Lo-kuluxka** bat egin zuen. Julen Gabiria

Eguna argitu aurretik **lo kuluxka** egiteko erran ziguten. Berria - Euskal Herria

Tarte batean **lo kuluxka** bat egin dugu, goizaren eta arratsaldearen artean. Koro Navarro

Tarteka **lo kuluxkak** egiten zituen, tarteka esnatu egiten zen. Koro Navarro

Bazkalondoan **lo-kuluxka** labur bat egin ondoren, indarrez gainezka esnatu zen Ruche jauna. Jon Muñoz

Bazkalosteko **lo-kuluxka** egin ondoren, ura eskatu zuen. Jose Morales

Zeruan ez zegoen hodei arrastorik, eta haizea eta zuhaitz hostoak bazkalondoko **lo-kuluxka** egiten ari zirela zirudien, neke handi batek jota. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bazkalondoko lo kuluxka** (4); **lo kuluxka** (62); **lo kuluxka bat** (21); **lo kuluxka baten** (3); **lo kuluxka egin** (5); **lo kuluxka egiteko** (5); **lo kuluxka egiten** (10)
> **lo kuluxkak** (6); **lo kuluxkak egiten** (3)
> **lo kuluxkan** (4)
> **lo kuluxkaren** (4)
> **lo kuluska bat** (3)
> **lo kuluxkarik egin** (3)

---

## kuluxkaka *adlag* burua logaleagatik kulunkatuz.

**Kuluxkaka** ari nintzen logalearen logalez. Fernando Rey

Logalearen logalez **kuluxkaka,** baina makinak idatzi eta idatzi segitzen du burua ez delako gelditzeko gai. Fernando Rey

· Pott egina nengoen, aulkian eserita, burua **kuluxkaka**. Fernando Rey

---

**kuluxkatxo** *iz adkor* kuluxka.

Etxera **kuluxkatxo** bat egitera joateko gogoa sortu zitzaion. Jon Muñoz

Esan zidaten etxera etorri eta lo-**kuluxkatxo** bat egiteko. Xabier Paya

---

**kuma**[1] **1** *iz* loeria.

Ez zen ohartu jadanik gaua zela, burdinaz kateaturik eroan zutela eta **kumatik** iratzarri zenean, ziega hits batean kausitu zen. Itxaro Borda

**2** ***lo-kuma*** logaleak eragiten duen astuntasuna. ik **lohasma**.

Aldartea gero eta atseginagoa nuen, **lo-kuma** eragiten zidana. Anjel Lertxundi

---

**kuma**[2] ik **kume**.

---

**kuma**[3] ik **kima**[1].

---

**kumaldi** *iz* sabelaldia.

Ea nola zitekeen ni bezalako agurea -bera bezain agurea, bestalde, **kumaldi** berekoak baikara biok- halako neska gaztearekin ezkontzea Xabier Montoia

---

**kumatxo**

**1** ***lo-kumatxo*** *(orobat* ***lokumatxo****)* *adkor* lo-kuma.

**Lo-kumatxo** bat egiten du. Oskar Arana

---

**kume** *(orobat* ***kuma*** *g.er.)* **1** *iz* animalia jaioberria. ik **ume 10**.

Lehoiak harrapatzen eta zatitzen zuen ehiza lehoi-eme eta **kumeentzat,** harrapakinez betetzen zuen bere haitzuloa. Elizen arteko biblia

Kukuaren **kumea** beste txitak baino lehenago jaiotzen da. sugegorriak ez du erruten gainerako sugeek bezala eta **kumeak** bizirik jaiotzen dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Utzi joaten amari eta hartu **kumeak** . Elizen arteko biblia

Hamar hilabeteko **kumearekin** zegoen animalia hil zutenean, eta **kumeak** ihes egin zuen. Berria - Euskal Herria

Ankerra da **kumeekin,** bereak ez balitu bezala. **-Kumak** egiteko zagok, arraioa! -esan zuen Mateok. Elizen arteko biblia

Izan ere, lehenengo ugaztun emeek -ornitorrinkoek eta ekidnek- artean ez zuten **kumeak** kanporatzeko hodi bereizirik. Luis Elberdin

Enara listo dago habiak lokatzez egin eta **kumak** ateratzeko: gero eta eltxo gehiago baitabil airean. Pello Zabala

Txakur emea lauzpabost **kumez** batera erdi ohi da -amonak gogotik egiten du barre-. Pablo Sastre

**Kumeak** arrantzatzen ari zirela aspaldi zekien Jaurlaritzak. Berria - Ekonomia

**Kumea** besoetan daraman hartz bat bezala. Harkaitz Cano

**Kumerik** gabe utzi duten hartz emearekin topo egin nahiago, zentzugabekerietan dabilen ergelarekin baino. Elizen arteko biblia

Botatako **kume** mokohandi larrugorriak berehala hiltzen dira habiatik kanpo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aspaldian dakigu, tximuaren **kumea** dela gizakia. Joxe Azurmendi

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehen abere-**kumeak** Jaunarentzat. Elizen arteko biblia

Atera du gerritik basurde-**kumeak** hiltzeko erabiltzen duen aizto zorrotza. Anjel Lertxundi

Txakal-**kume** bat. Oskar Arana

Pitbull **kume** batek bi belarriak moztuak zituen eta ia gangrenatuak. Gotzon Garate

Kuku-**kumea** jaun eta jabe geratzen da habian. J.M. Olaizola "Txiliku"

Galduta nengoan; marea beherakoan haitzetako lirdingetan trabatutako aingira-**kume** bat baino galduago. Anjel Lertxundi

Ontzijabeek «dirutza handia» ateratzen dutela legatz **kumeen** salerosketatik. Berria - Ekonomia

Sabaian, euli-**kume** bat armiarma-sare batean trabatu da, astindu eta borrokan dabil. Itziar Otegi

**3** *hed*

Izar-**kumeak** deituko die baten batek. Pello Zabala

1989an, hilaren 26an, tornado **kume** moduko batek jo zuen Murtzia. Pello Zabala

Kutsaduraren **kumea** dela esan liteke: kutsadura handien dabilen tokian jausten baita euri azido dontsu hori. Pello Zabala

**4** *adkor* semea edo alaba.

Trebantziaz mintzatzera entseatu nintzaion, lagun baten **kumeari** zor zaionez, baina saioa erdi ustel atera zitzaidan. Aingeru Epaltza

Auzo berri samar batean ginen, familiabakarrekoen moda etorri arte hiriko klase goi-ertainetako **kumeen** habiaren ohiko kokalekua. Aingeru Epaltza

**5** *adkor* (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, pertsonez mintzatuz)

Errebal **kume** peto-petoak, sudurretatik mukia dariela. Josu Zabaleta

Kartzela-**kumeek** eta gezurtiek agintzen dute munduan. Oskar Arana

Bularra zati bi egingo diat, hik aitari gurutzea nola jarri hion, halaxe, aingeru deabru beltzen batek hire arima infernura eraman dezan, arrantzale **kume** ugerdo hori! Edorta Jimenez

Basati **kumeak** ! Juan Kruz Igerabide

Gazteluko higanot-**kumea** ! -oihu egin zuen norbaitek. Aingeru Epaltza

Hor dira beti nazi-**kumeak,** beti prest juduen edo musulmanen kontra jokatzeko, iduri baitu 1930-ko hamarkadan bizi garela. Herria

Paris ez duk bertan galtzeko toki txarra hi bezalako artista-**kume** batentzat. Anjel Lertxundi

Filologo **kume** gazteek berehala ekin diote bista-bistakoa den kontraesanari. Iñaki Iñurrieta

Budapesteko aberats eta aberats-**kumeen** gizarte txinpartatsu hartan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Herriko mutiletan adimen iluneko basajaun-**kumeak** baizik ez nituen ikusten. Aingeru Epaltza

Urrutirako kontrolean botoi bat sakatzea aski du New Yorken edozein lau urteko gamelu-**kumek,** kanal pornoan kultura orokorra ikas dezan. Harkaitz Cano

**6** ***ahardi kume*** (irain hitza)

-Akabatu egingo haut, **ahardi kume** halakoa -pistola haztatu zuen-. Edorta Jimenez

-Zer diok, **ahardi kume** horrek? Edorta Jimenez

**7** *puta-kume* ik **putakume**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lehen abere kume** (3)
> **ahardi kumea** (3); **cannelle ren kumea** (5); **cannelleren kumea** (4); **kumea arra dela** (3)
> **arrain kumeak** (4); **cannelle ren kumeak** (4); **lehen abere kumeak** (6)
> **legatz kumeen** (5)

---

**kumetu,** kume(tu), kumetzen da/du *ad* kume bihurtu.

**Kumetzeko,** arrautzak besteen habiatan jartzen ditu eta bere arrautza jarri aurretik habian zegoenetako bat lurrera botatzen du, habia egin duten hegaztiak ez daudenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**kumetxo** *iz* kume txikia.

**Kumetxoa** urduria, ezinegona eta ederra izango da. Joseba Sarrionandia

Oraindino **kumetxo** bat da. Iñaki Mendiguren

---

**kumino** *(corpusean **komino** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kumino** agertzen da)* *iz* landare ginbailduna, hazi txiki urrintsuak dituena *(Cuminum cyminum)*.

Gero, Desiree eta haren ama itzultzen dira platerekin: oilaskoa borborka ari den tomatean, jengibre eta **komino** usaina dariola, arroza, entsalada eta ozpinetako sorta bat. Oskar Arana

---

kumit ik **gomit**.

---

kumitatu ik **gomitatu**.

---

kumuloninbo ik **kumulu 3**.

---

**kumulu** **1** *iz* hodei biribilkaren eta zurien multzoa, oinarri zabal eta laua duena.

**Kumulu** batek elurrezko bere zuritasun sinesgaitza zabaldu zuen zeru arbeltsuan gaindi. Lopez de Arana

Ninbo, **kumulu** eta zirruak ikusi zituen, harietan desegiten zirenak irudi apetatsuak osatu eta gero. Jon Alonso

Goizaldera ortzian zintzilaldi graziosean dilindan agertu zirru-**kumulu** multzoak mirets zitzakeen. Itxaro Borda

**2** izarrez mintzatuz, mulkoa.

Astronomoek adierazi dutenez [...] berilioa aurkitu izan dute NGC 6397 **kumuluan** dauden bi izarretan. Berria - Gaiak

**Kumulu** hori, gutxi gorabehera, orain dela 13.400 milioi urtekoa da. Berria - Gaiak

Historia osoko pentsalaririk bikainenetakoak zeuden han bilduta, izar **kumulu** miresgarri baten eran. Fernando Morillo

**3** ***kumulu-ninbo*** *(orobat **kumuloninbo**)* *iz* kolore gris iluneko hodei masa trinkoa, ekaitz gogorak sortzen dituena.

Begiak herts eta aldizka **kumulu**-ninboak zein estratu-**kumuluak** zitzaizkion argitzen. Itxaro Borda

Ortzaizean multzoturiko **kumulu**-ninbo astunak airez, sabelak haurrez bezala, husten eta hertzen ziren. Txingorra, berriz, bestelako prozesuetan eratzen eta ekoizten da: goranzko haize bertikal bortitzak dabiltzan **kumuloninboen** barruan. Itxaro Borda

---

**kunda** *iz* martxa (?)

Zortzi bidaia jasangaitz, **kunda** itogarrian makurturik. Txillardegi

**Kundak** eta **kundak,** amaitzen ez diren ibili madarikatuak. Jokin Urain

Goizean goiz, **kundan** zihoazela eta euren gauzak prestatzeko agindu zietenean, uko egin zioten hamabi euskal presoek. Jokin Urain

---

kundatu ik **kontatu**.

---

kunder ik **konder**.

---

**kuneiforme** *izond* ziri itxura duena.

Karaktere **kuneiformeen** kopurua. Iñaki Mendiguren

Hiru eratan transkribatu zuten idazkera **kuneiformearen** hiru moldapen desberdinetan. Iñaki Mendiguren

Idazkera **kuneiformez,** sumeriar taulak dira, dudarik gabe, ezagutzen diren testurik zaharrenak. Patziku Perurena

Arameraren garaipenik ohargarriena zera izan zen, bere idazkerak arrakasta izan zuela **kuneiformea** ordezten pertsieraren adierazpide gisa akemenestar-aldiaren ondoren. Iñaki Mendiguren

---

**kunetero** *iz adkor* bide bazterrean ehortziriko pertsona.

Akordatu ahala memoriaren kantoiak gogor erasaten dituzte **kuneteroen** kontuek ere, 1936an hasitako gerra hark eragin eta gureganaino heltzen zaizkigun atzaparkaden artean. Jokin Urain

---

kunpliarazi ik **konpliarazi**.

---

kunplidu ik **konplitu**.

---

kunplimendu ik **konplimendu**.

---

kunplimentu ik **konplimendu**.

---

kunplitu ik **konplitu**.

---

**kunplizio** *iz* konplimendua, ele ona.

**Kunplizio** handitan luzatu gabe esan diet beretako batek Maggie ukitzen bazuen infernuan bukatuko zuela. Juan Garzia

Uztazue gisa honetan egiten zuekiko **kunplizioa** . Juan Garzia

---

kunprenitu ik **konprenitu**.

---

kunte ik **konde**.

---

kuntent ik **kontent**.

---

kuntre ik **kontra**.

---

**kuota** *(orobat **kota** g.er.)* **1** *iz* ordaindu edo hartu behar den diru kopuru batetik, bakoitzari dagokion zatia.

Aseguru-sarien **kuotek** izandako murrizketan. Iñaki Mendiguren

Legatzaren **kuotak** %9 igo ditu Bruselak Kantauri Itsasoan. Berria - Ekonomia

Beren merkatuko eta munduko irabazien **kuotak** handitzeko lehia gogorra. Koro Navarro

Euskaltelek %40ko **kuota** iritsi du EAEko banda zabalean. Berria - Ekonomia

Bruselak jarritako **kuotak** errespetatzeko eskatu diete Lapurdiko, Bretainiako eta Frantzia iparraldeko ontziei. Berria - Ekonomia

Ez dago argi Guardia Zibilaren eta Espaniako Poliziaren **kuota** %15 baino altuagoa edota baxuagoa izango den. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakumeek instituzioetan izan behar duten gutxieneko lekua zehazten du **Kuota** Legeak. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Geldirik zegoen mundumerkatu baten gainean, hazkundea ezin etorri zen merkatu-**kuotak** irabaztetik baino. Koro Navarro

Gamesaren Txinako merkatu **kuota** %38koa da. Berria - Ekonomia

HPEEk aurrenekoz ekoizpen-**kuota** nazionalak finkatu behar izan zituenean. Koro Navarro

Datorren urterako arrantza **kuotak** erabakitzeko. Berria - Ekonomia

Golkoko antxoaren harrapaketa **kuotak** %85 murriztu nahi dituela. Berria - Ekonomia

Espainiak Frantziari emandako antxoa **kuotaren** truke. Berria - Ekonomia

Antxoa **kuota** funtsi apaltzen badio Europak Espainiari, honek eskaintza murritzagoa eginen dio Frantziari eta, legatz eta zapo **kuota** gutiago eskuratuko du. Herria

Europako Batzordeak Bizkaiko Behi esne **kota** horien partimen egokiagoa eskatuz. Herria

Kontsumo-**kuotak** kontrolatzeko. Jose Angel Irigaray

Nik botere **kuotak** aldarrikatzen ditut, baina bestela jokatzeko, ez berdin aritzeko. Berria - Kultura

**4** ordainsaria.

Bazkideen **kuotak** oso altuak dira. Josu Zabaleta

Gizarte segurantzari ordaintzen dioten **kuotatik** diru hori kentzea. Berria - Ekonomia

Urteroko **kuota** ordaintzen ez dutenek ezingo dute aldizkaria etxean jaso. Berria - Euskal Herria

Hileroko **kuota** bankuaren bidez pagatzen duten 101.459 kideen zerrenda. Berria - Ekonomia

Funtsaren bitartekoak apurka-apurka gehitu dira **-kuotak** jaso, Jaulkipen Bereziko Eskubideak atera, maileguen akordio orokorrak egin dira-. Koro Navarro

20 urterako 120.000 euroko hipoteka dutenei **kuota** bost euro merkatu zaie hilean. Berria - Ekonomia

**Kuoten** diruaren parte bat Euskal Herrira itzultzea. Berria - Ekonomia

ELAk diru sarreren %81 **kuotetatik** biltzen du. Berria - Ekonomia

**Kuota** ezarri die nazioarteko erakundeak gaizkatatik eratorritako produktuen esportazioari. Berria - Gaiak

Aspen, pilotariek, langilearen **kuotaz** gain, enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko **kuotaren** zati bat ordaintzen dute Berria - Kirola

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Era berean, datozen urte bietan bazkideek ez dutela **kuota** igoerarik izango ere aurreratu du. Berria - Kirola

Bazkideen **kuota** ordainketa maiatzera aurreratuta egingo da. Berria - Kirola

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bazkide **kuotaren** baldintzen azterketa. Berria - Kultura

Ez al zintuen konbentzitu sindikatu-**kuota** ez ordaintzeko? Lopez de Arana

Telefonicak, berriz, abonu **kuota** %4,35 igotzeko asmoa du. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **elkartasun kuota** (4); **hileroko kuota** (8); **kuota galtzen ari** (3); **kuota ofiziala** (4); **kuota ordaindu** (7); **kuota ordaintzeko** (3); **kuota ordaintzen** (4); **merkatu kuota** (24); **merkatu kuota galtzen** (3); **produkzio kuota** (3)
>
> **arrantza kuotak** (3); **bazkideen kuotak** (3); **kuotak erosi** (3); **kuotak ezarri** (6); **kuotak ezartzeko** (4); **kuotak igo** (3); **merkatu kuotak** (4); **ordaindu beharreko kuotak** (3)
>
> **kuotaren zati** (3); **merkatu kuotaren** (4)
>
> **kuoten sistema** (3); **merkatu kuoten** (3)

---

## kupe

**1** *iz* lau gurpileko zalgurdi itxia, bi eserlekukoa.

Hantxe metatzen ziren, anabasa batean, xabanak, kabrioletak, puntukoak, gondolak, kalesak, **kupeak,** omnibusak, mota guztietako kotxe andana bat. Koldo Izagirre

Zalgurdiak ugari hara-hona, eta tarantas eta telegak ez ezik, baita **kupeak** eta kalesak ere. Karlos Zabala

Ondoren, aurkarien durduzamendua profitatuz, zabaldu zuen arin batean bere **kupearen** bortañoa, bultzatu ninduen barnerantz deus konprenitu ahal izan nezan baino lehen, itxi zuen **kupea,** jarri zen bere aulkian eta trostan partitu zen. Koldo Izagirre

-Jauna, Ruspit nauzu, nik ere badut **kupe** bat, hirurogei sos aulkia. Koldo Izagirre

**2**

*Coronilla de Aragon*-eko diligentziaren **kupean** jarrita jalgi naiz Tolosatik. Koldo Izagirre

---

## kupel

*(orobat **kupela** g.er. eta **gupel** g.er.)* **1** *iz* upela.

Bosten bat metro harantzago, kare hautsez osatutako errektangelu baten erdian, saihets-hezur zerrenda bat azaltzen zen; lehen begiratuan, uztaiak agerian zituen **kupel** baten tankera hartzen zitzaion. Bernardo Atxaga

Eta ahoz ari zenak sagardotegiko **kupelaren** jiran totelduko zuen bere kanta-saioa. Andoni Egaña

Edateko berriz ura, putzu azal batetik, idiekin, **kupel** batean ekartzen ziguten. Pablo Sastre

Datorren udatzenean [...] epuru pinportak bilduko dituk zakuka, eta jinebraz beteko hiru **kupel,** eta akabo orduan nere tripako min guziak. Patziku Perurena

Learza eta Matxalako zenbait etxetan **kupelak** irauliz, jantziak ohostuz, jendea inolako gupidarik gabe bertan garbituz, eta azkonak, arranbelak, labanak eta zernahi gauza lapurtuz. Patziku Perurena

Mahats biltzea saskitaraka, orgetako **gupelen** betetzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gerrako frontetik ihes egin eta baserriko **kupel** batean gordeko du bere burua. Joxean Agirre

Taxi-gidari filosofiko bat, itsas armadako jantziak jantzen zituena eta gerriaren inguruan itzelezko **kupela** zeukana. Oskar Arana

Gure **kupel** literarioa ahitu egin zaigu. Berria - Kultura

**2** (danbor gisa erabilia)

Aurtengo San Sebastian eguneko bandera jaitsieran, gainera, Union Artesanako danborradan 12 emakumezko aterako dira **kupela** joz. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Garbi-garbia zegoela kupela, esan zuen **kupel** jabeak. Patxi Ezkiaga

· Fahd erregea hil eta hurrengo egunean petrolio **kupelak** marka historikoa gainditu zuen: 55 dolar. Berria - Harian

---

## kupeldegi

*iz* kupelak dauden sotoa edo bilegia.

Jeneralak **kupeldegian** edo basoan ematen zituen goizak. Xabier Olarra

Antzokietako emanaldiak hasi baino ordubete lehenago, ardo balienteen zaleak Esterhazy printzearen jauregiko **kupeldegietan** biltzen ziren isilpean. Xabier Olarra

Nire aitak **kupeldegiko** hegaletako bat goraino bete zian horrelako ardoz, egun haren oroitzapena bizirik edukitzeko. Xabier Olarra

---

## kupeldun

*(corpusean **kupeladun** soilik)* *izond* kupela duena; kupelak dituena.

Han ziren, eguerditan, astoek garraiatu orga **kupeladunak,** eta bertsulariak, eta Landare Abesbatza, dultzaineroak, sagardo jastatzea eta gaitzeko giroa oroz gainetik. Herria

---

## kupeleratu,

kupelera(tu), kupeleratzen du *ad* kupelean sartu.

1500 kilo sagar erosi dituzte Donaixtiko Eztigar kooperatibari, sagar hori jo, pasta dolarean tinkatu eta sagar-zukua edo jusa **kupeleratu,** ondotik haren jastatzeko aukera emanez han zagon jendeari. Herria

---

## kupelkadaka

*adlag* kupela neurri gisa erabiliz; kopuru handietan.

Bitartean, halatan ere, berak ere edaten zuen, garagardoa **kupelkadaka**. Fernando Rey

---

kupida ik **gupida**.

---

kupidabako ik **gupidabako**.

---

kupidagabe ik **gupidagabe**.

---

kupidarazi ik **gupidarazi**.

kupidatsu ik **gupidatsu**.

**kupido** (orobat K larriz) **1** *iz* maitasunaren jainkoa, gezia jaurtikitzen dionari maitemina eragiten diona.

Izaskun eta Luis-Koldo **Kupidok** geziz josirik mahairatu zitzaizkigun. Joxean Sagaztizabal

Ordea, **Kupidok** bere buirakako gezi batekin zauritu baninduen, zergatik ez zuen Sararen bihotza zaurituko, beste gezi batekin? Joan Mari Irigoien

**Kupidoren** geziak badu halako indarrik? Anjel Lertxundi

**2** *pl*

Eta gero **Kupidoei** errieta egin zien, eta agindu zien pailazo-txanoak eramateko. Julen Gabiria

**Kupidoek** gorroto baitute inork eurei barre egitea. Julen Gabiria

-Ene **kupido** postal-eramaile adiskidetsuak! -Lockhartek, irribarrez-. Iñaki Mendiguren

**3** Kupidoren irudia.

Masail guriko **kupido** txiki batzuk ageri ziren jolasean, animali buruak, txerri saiheskiak, saltxitxoi girlandak inguruan zituztela. Karlos Zabala

**kupitu**, kupi, kupitzen **1** da *ad* gupidatu.

Ez zen **kupitu,** eta ez zuen piztu. Josu Zabaleta

**-Kupitzen** naiz zutaz, Tom. Oskar Arana

Italia bizitzen ari den giro nazionalista sutsua ez duk egokiena atzerritar batekin **kupitzeko,** ezta atzerritar hori alemana izanda ere. Anjel Lertxundi

-Bada ez zaitezela **kupitu**. Oskar Arana

-Ondo da -esan nion **kupituta-**. Inazio Mujika Iraola

Honetan nengoela, neure buruaz **kupitzen,** ateko telefonotxoak jo zuen. Juan Martin Elexpuru

-Arreba maitea -erantzun zion anaiak, **kupiturik-:** hobe dun beste norabait abiatzea, horra ez haiz iritsiko eta. Juan Kruz Igerabide

**2** (era burutua izenondo gisa)

Begirale **kupitua** zalantzan geratu da, neskaren ondoan gelditu beharko ote lukeen, Xabier Mendiguren Elizegi

kupla ik **kuple**.

**kuple** *(orobat* ***kupla*** *g.er.) iz ipar* bikotea.

Zorionak **kuple** berri huni! Herria

Goresmenak, eta zorionak **kuple** gazte huni. Herria

Ezkontzaz elgarretaratu diren bi **kuple** hauier zorionak desiratzen diotegu eta goresmenak burasoeri. Herria

Denboran zernahi ugatz balin bazen Europako mendi mazeletan, gaur egun 130 **kuple** baizik ez dira kondatzen, horietan 110 Pirineotako bi alderdietan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuple gazte** (14); **kuple gazte huni** (8); **kuple gaztea** (3); **kuple gazteari** (8)

**kupleka** *adlag ipar* bikoteka.

**Kupleka,** 1° Laure Apecetche - Xiril Alvarez. Herria

**kupo** **1** *iz* multzo batetik izendatzen den zatia.

Espainiako Gobernuak mundu zabaleko hainbat agintaririkin immigranteen **kupoak** negoziatzeko egin dituen ahaleginak. Berria - Euskal Herria

Ridaok argitu duenez, legearen aldaketarekin *mosso*etara gehi daitezkeen Espainiako polizien eta guardia zibilen **kupoa** %10era jaitsiko da. Berria - Mundua

San Jose XIII.ak ez zuen hutsik egin, eta argi azaldu zuen baldintza normaletan, **kupo** eta mugarik gabe, Kantauriko eta Atlantikoko kostetako traineru boteretsuena dela. Berria - Kirola

Eta beste **kupo** bat, neska gehiago eskatzen dituzte jarraian. Berria - Euskal Herria

Norentzat da mezu hori? [..] nik esango dizuet zertara datorren: ez, noski, mezua behar den bezala komunikatzera, baizik eta euskararekiko **kupoa** kitatzera, besterik gabe. Joxerra Garzia

**2** (euskal kontzertu ekonomikoan)

**Kupoaren** Legea oso konplexua da. Berria - Ekonomia

Iaz **kupoaren** bidez Espainiako Gobernuari 1.200 milioi euro ordaindu zizkion Jaurlaritzak. Berria - Ekonomia

32,2 milioien kontuan ados ez jartzeaz gain, iazko **Kupoa** kalkulatzeko irizpide ezberdinak dituztela dio. Berria - Ekonomia

2001. urteko **kupoaren** likidazioa izan zen gatazkaren abiapuntua. Berria - Ekonomia

Halaber salatu zuen Nafarroak datorren urtean diru gehiago jarri beharko duela «inposaturiko **kupo** bat baino ez den Kontzertu ekonomikoan». Berria - Euskal Herria

**Kupoaren** negoziazioa, Ekarpen Lege berria, edo Sozietate Zergaren erreforma. Jaurlaritzak dirutza hori aurreratuko du, eta gero kopuru hori Espainiari ordaintzen dion **Kupotik** kenduko du. Berria - Ekonomia

Zerbitzu horiek **kupotik** deskontatu beharko lirateke. Berria - Euskal Herria

Espainiari ordaindu beharreko **kupoa:** heldu den urtean Nafarroak oraindik eskuratu ez dituen eskumenak eta errege etxea edo armada finantzatzeko 487.722.613 euro ordaindu beharko dizkio Espainiako Gobernuari Itun Ekonomikoaren bidez. Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Realak beteta daukalako atzerritar **kupoa**. Berria - Kirola

Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien etxebizitza **kupoan**. Berria - Euskal Herria

Izan ere, ez al du Altzak bere zementu-tasa, zementu- **kupoa,** edo dena delakoa, ongi eta sobera bete? Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kupoa gainditzeagatik ordaindu** (3); **kupoa kalkulatzeko** (3); **ordaindu beharreko kupoa** (3)
> **kupoaren auzia** (3); **kupoaren bidez** (4); **kupoaren ordainketatik** (3); **kupoaren sistema** (3); **urteko kupoaren** (3)
> **kupotik kenduko du** (3); **ordaindu beharreko kupotik** (4)

**kupoi** 1 *iz* zerbait kobratzeko edo jasotzeko balio duen txartela edo txartel zatia.

Hilero kobratu beharreko **kupoiak**. Farmaziatik itzultzen zenean mahaira esertzen zen eta **kupoiak** itsasten zituen pozez gainezka. Joseba Urteaga

Gure azukre errazionamenduko **kupoi** guztiak. Josu Zabaleta

Gauza ziurra da behea jo zuela ondarez, Herri Ogasuneko diru-txartelen **"kupoia** ebakitzen ez zuelako", eta landetxeen administrazioa "mamsér" (sasikume) baten esku utzi zuelako. Juan Garzia

Bakoitzari hamar dolarren balioko **kupoi** bat eman zion, kasino barruan aldatu eta jokatzeko. Iñaki Zabaleta

**2** *hed*

Bidebarrieta kalean ONCEko **kupoiak** saltzen ari den Lucrecia Mateosek. Berria - Harian

Bertaratu eta hiru **kupoi** erosi zituen. Joxemari Iturralde

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Husseinen agintearen alde emandako «laguntzaren» truke, pertsona edo egitura horiek Irakeko agintari goren ohiak sinatutako **kupoi** andana eskuratu ei zuten eta hauek petrolio enpresei berriz saltzeko aukera bazuten. Berria - Mundua

Gure **kupoi** ekarleak alemaniarrek eraman dituztenez, ez daukagu ez kupoirik ez koiperik; gure errazionamenduko bost liburuxkak besterik ez zaigu geratzen. Josu Zabaleta

Gure **kupoi** hornitzaileak espetxetik libre utzi dituzte, eskerrak! Josu Zabaleta

Kasualitatez, ezaguna zuen **kupoi**-saltzailea, eta itsua izango zen, baina indartsua ere bai. Patxi Iturritegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gazta, haragia eta ogia erosteko errazionamendu **kupoi** batez gainera, marmelada flasko bat besterik ez diogu oparitu. Josu Zabaleta

Setio egoera jarri dute, eta gurin **kupoi** bat gutxiago eman behar diete denei. Josu Zabaleta

Alokairua ez kobratzeaz gainera, keroseno eta oihal **kupoiak** eskaini zizkion. Patxi Zubizarreta

---

**kupula** 1 *iz* esfera erdiaren forma duen ganga.

Ezin konta ahal eliza eta monasterio daude gure Rus santu eta jainkozale honetako luze-zabal osoan barreiaturik, beren **kupula,** gopoil eta gurutzeekin. Jose Morales

Han goian, tontorrean, **kupula** bat dago, zortzi zutabek eutsia. Jon Muñoz

Tronuaren goiko aldean, **kupularen** esfera ia osoaren biribila margotuz, zeruaren irudia zegoen marrazkiz irudikaturik. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Kupula** erregular bat, biribila, goitik beheraino zinkezko xaflaz estalia. Jose Morales

Eliza zahar batek bere bost **kupula** distiratsuak agertzen zituen zuhaitz eta teilatu haien guztien gainetik. Jose Morales

Eliz dorreko **kupula** sabel-handiak. Karlos Zabala

**Kupula** bizantziarrak, berdez eta urrez koloreztatuak, nabari ziren zeruaren atzealde grisean. Karlos Zabala

**Kupula** hemisferiko bat da femur edo izterrezurraren burua. Irene Aldasoro

Kristalezko **kupulapean** geunden eserita, eta zerbait jakinarazi zidan eraikinari buruz. Ramon Saizarbitoria

**2** (hitz elkartuetan)

Harry zeramana malda pikoan behera joan zen, sakonunearen erdian zegoen **kupula**-formako amaraun lainotsura. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kupula formako** (4)

---

**kupuladun** *izond* kupula duena; kupulak dituena.

Atzealdean eliza ortodoxo batenak iruditu zitzaizkidan bi dorre **kupuladunen** silueta-edo ikusten zen, laino artean. Iban Zaldua

Eraikinaren gorenean, hogeita lau leihoekiko areto **kupuladun** bat egin nahi nuke, materialik onenak erabiliz, arte eta simetria gorenekin. Patxi Zubizarreta

Askoz bero handiagoa egiten zuen **kupuladun** eremu zabal eta biribil hartan. Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **urregorrizko kupuladun elizak** (3)

---

**kur**

**1** ***kur-kur-kur*** *(orobat* ***kurkurkur****) adlag (onomatopeia)*

Arrezkero legortea danean euri-eske **kur-kur-kur** ari izaten da okila. Pello Zabala

Etxolaren atetik, ostera, Miseria **kur-kur-kur** irriz ari zen eta gero, diru doi baten truke, joaten utzi zien. Patxi Zubizarreta

Beti badabila beraz **kur kur kur,** edo berdin kar kar kar, nik dakita eta nork daki azkenean? Herria

Eta Emma, **kurkurkur** nitaz trufatuko zela. Daniel Landart

---

**kura** *iz* sendatzea.

Ba, gainean zituen arropa zikin guziak kendu behar izandu zizkion medikuak, garbitu eta **kura** egiteko, eta nik lagundu nion. Patziku Perurena

---

**kuraia** *(orobat* ***kuraie*** *g.er.)* **1** *iz* adorea, bihotza, kemena.

Nik erraten nion kontuz ibiltzeko, ez ginela ohituak, toki arriskutsua zela... denbora berean, halere, haren **kuraia** miresten nuelarik. Daniel Landart

**Kuraia** hartuz, erantzun nion: [...]. Daniel Landart

Azpimarratu du ere behar zitzaiola **kuraia** eman haurrari eta ez beti gaitzitu ez duelarik erreusitzen. Herria

Ezin erabakirik zebilen Andreasek nondik ateratzen zituen **kuraia** eta indarra. Anjel Lertxundi

Behar zen **kuraia** izan kasetarien partez holako baten egiteko, kasu horietan ez baitira hain goxoak Errusiar poliziak, behar zen ere **kuraia** izan Txetxeniarren aldetik erran dutenen erraiteko kameraren aitzinean aurpegia gorderik gabe. Herria

**Kuraia** izan du lanean, **kuraia** ere familiako nahigabeen jasaiteko. Herria

Xantza on zuri Beñat Auroy eta **kuraia**! Herria

Beharrik ene inguruan gazteak baditut, zinez ohargarriak direnak eta **kuraia** haundikoak. Michel Oronoz

Atxik **kuraia** oraino zenbait oren, heldu gira. Marzel Etxehandi

Izan **kuraie** zure lan handiari buruz, eta ez adiorik! Piarres Xarriton

Sekulako **kuraiarekin** gure soldadoek, baioneta hutsak eskuetan, bertze alderdirat botatu zituzten. Michel Oronoz

Nor edo bederen zer nintzen errateko **kuraiarik** ez. Piarres Aintziart

**Kuraiarekin** burura dezatela beren sasoina. Herria

**Kuraiaz** beterik ene soldadoek, sei, zazpi metra barna inguruan den arroila pasatzen dute. Michel Oronoz

Ni, beti bezala, makilarik gabe, eta **kuraia** xuhur; "gibelerako bidea" edo *Repli stratégique* delakoa gogoratzen zait eta beste karrika bat hartzea erabakitzen dut. Piarres Aintziart

## 2 *kuraia on*

**-Kuraia** on, Paxkal. Daniel Landart

Ez izi eta **kuraia on**. Herria

Denen izenean **kuraia on** eta xantza on zuen lanetan. Herria

**Kuraia** on beraz gure auzapezeri. Herria

Atxik eta iraun, **kuraia on** guzieri. Herria

**Kuraia on** guzieri, atxik eta iraun. Herria

Deneri **kuraia on** urtea berriz hasteko lanean. Herria

Geroztik ainitzek laneko bidea hartua dute, haurrek eskolaratekoa, orori goraintzi eta **kuraia on**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desiratzen diotegu kuraia** (3); **har kuraia** (4); **kuraia emaiten** (3); **kuraia ematen** (3); **kuraia falta** (7); **kuraia handi** (3); **kuraia har** (3); **kuraia hartu** (3); **kuraia izan** (6); **kuraia on** (41); **kuraia on guzieri** (4); **segitzeko kuraia** (3)

**kuraiaz beterik** (5)

**kuraie on** (4)

---

# kuraiadun *(corpusean **kuraidun** soilik)* *iz* kuraia duena, bihoztuna.

Beste beilari **kuraidun** batzuk bidea segitu dute Otxagabiarat buruz, Muskildako Andredena Mariaren beila iragaiten baitzen biharamunean. Herria

---

# kuraiastatu, kuraiasta, kuraiastaten du *ad ipar* kuraiatu, adoretu.

Goizetik izanen da beraz mogimendu, 400 bat haur hurbil etorri beharrak baitira, Iparraldeko xoko guzietarik beren ikastolako bertsulari lagunen entzutera, **kuraiastatzera** edo berdin txalotzera. Herria

---

# kuraiatsu *iz* kuraia handikoa, adoretsua.

Presuna **kuraiatsu** eta bertute handikoa izan da bururaino. Herria

Soldadu ibilia da gerran, eta gudari **kuraiatsuaren** eta abertzale berdin ezinaren domina erantsi berri dio ordurako ondo irabazia zuen poeta sonari. Anjel Lertxundi

---

# kuraiatu, kuraia(tu), kuraiatzen du *ad* kuraia eman, adoretu.

Gure herritarrek eman etsenpluak fruituak ekarri zituen: polonesak eta alemanak ere lanari lotu ziren, baitzen segur egitekorik: ustelurrindu eta beheitikoak hustu typhusdunak artatu eta **kuraiatu**. Marzel Etxehandi

Beste bat salatua izan zen bere lagun zenbaiten **kuraiatzen** arizan zelakotz. Marzel Etxehandi

Gure herritarrek eman etsenpluak fruituak ekarri zituen: polonesak eta alemanak ere lanari lotu ziren, baitzen segur egitekorik: ustelurrindu eta beheitikoak hustu typhusdunak artatu eta **kuraiatu**. Marzel Etxehandi

---

# kuraie ik **kuraia**.

---

# kuraios *iz* kuraiatsua, adoretsua.

Ingurukoen laguntzarekin, beti aitzina doan ama **kuraiosa**. Herria

Halaz aldi berean **kuraiosak** eta lazoak ginen, ausartak eta herabeak, elekariak eta mutuak. Itxaro Borda

**Kuraiosarena** egitera entseatu nintzen eta fermuki erran nion: [...]. Daniel Landart

Gizon zardaiaren so **kuraios,** fermu eta umila. Itxaro Borda

---

# kuranderitza *iz* petrikilotza.

Ongi sumatua dizut, kontu biltzen nabilela: herri musikan, bertsokantaritzan, kontukontaritzan, **kuranderitzan,** sorginkeritan, sineskeritan eta oro har herri literatura guzian, kasta horietako jendajea nabarmentzen dela. Patziku Perurena

---

# kurandero *iz* petrikiloa.

**Kuranderoa** zuan eta Oriorako bidean zian etxea. Xabier Etxabe

Oraindik ere, osasunez nola gabiltzan ikusteko, maiz egiten dugu pizaren eta odolaren analisia, eta iruditzen zaigu munduko gauzarik zientifikoena dela, eta ez duela deus ikustekorik garai bateko **kurandero** eta azti zaharrekin Patziku Perurena

---

# kurare *iz* izen bereko zuhaitzetik ateratzen duten pozoi hilgarria, hegoamerikar zenbait indiarrek, geziak pozoitzeko erabiltzen dutena, eta medikuntzan ere erabiltzen dena.

**Kurarea** (gezietan erabiltzeko pozoi hilgarri bat, lehenik hamaseigarren mendean Perun aurkitua) eta nerbio-gasa [...], kolinesterosaren inhibitzaile dira, hau da, gelditu egiten dute kolinesterosaren eragina. Irene Aldasoro

**Kurarearen** kideko substantzia sintetikoak erabiltzen dira kirurgian (dosi txikitan) muskuluak erlaxatzeko, eta, hartara, anestesiaren efektuak indartzeko. Irene Aldasoro

---

**kurba** **1** *iz* zati zuzenik ez duen lerroa, norabidea aldatuz doan lerroa.

Eta globo bitxi hori, **kurba** handi bat eginik, itsasoan urruti erori zen. Josu Zabaleta

Gero beso batek ahora eraman izan balu bezalakoxe **kurba** egin zuen loreak. Josu Zabaleta

Pilareen ertz finek, egituren **kurba** dotoreek. Karlos Zabala

Ile beltz distiratsua zuen, erdian artesiaz erdibitua eta **kurba** luze batean belarrien atzera orraztua. Irene Aldasoro

Titiburu gorrituak gogor-gogorrak ageri ziren, **kurba** delikatuek dar-dar egiten zuten leun, eta Zé Luisek burua hondoratu zuen bien artean. Karlos Zabala

Lepoaren **kurba** zuria. Irene Aldasoro

Bere gerriaren **kurba** aldakorra. Harkaitz Cano

Nire eskua fereka eta fereka ibili zen jainkosa haren **kurbetan** zehar. Karlos Zabala

**2** (matematikan)

Maskor itxurako **kurba** bat asmatu zuen, konkoidea. maskor itxurako **kurba** bat asmatu zuen, konkoidea. Jon Muñoz

Maximoak eta minimoak: **kurba** gorenean edo beherenean dagoen lekua; inflexio-puntuak: **kurbak** kurbadura aldatzen duen lekua, gorantz irekia izatetik beherantz irekia izatera. Jon Muñoz

Trigonometrian ere **kurbaren** eta zuzenaren arteko erlazioan zegoela koska. Jon Muñoz

**Kurba** bati jarraitzen dion puntu baten mugimenduaren norabidea **kurbaren** ukitzailea da, puntuaren kokaleku bakoitzean. Jon Muñoz

**Kurbak** erakusten du haur batek adin batekin izan beharko lukeen garaiera eta pisu ideala. Berria - Gaiak

**Kurba** zikloide bat marraztu zuen planoaren gainean. Patxi Iturritegi

Ekuazio diferentzialak, **kurben** azterketa, zenbaki konplexuak. Jon Muñoz

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Produkzio-**kurben** panel handiak. Iban Zaldua

Biztanleria-**kurba** batek goraka egiten duen puntua. Xabier Arregi

Grafiko bat, hazkunde-**kurba** bat, adin-piramide bat, banaketa-hodei bat enuntziatuak dira. Xabier Arregi

Horretarako, oxigeno **kurbak** erabiltzen dira, eta **kurba** hori lortzeko ibaiaren oxigeno maila neurtu behar da, denbora jakin batez jarraian. Berria - Gaiak

Teilaren pisuak angeluetatik beheraka bultzatzen zituelarik, muturretan boluta-**kurbak** egiten hasi omen ziren horretara behartuta. Santiago Iruretagoiena

Potentzia **kurba** ez da lehen bezain horizontala. Berria - Kirola

**4** errepideetan, bihurgunea.

Agiña Txikiak errebueltan ikusi zuen aurre hartzeko aukera, eta barrutik hartu zuen **kurba**. Xabier Etxabe

"Kontuz **kurba** honekin, hementxe hil nintzen ni eta" esan zuenean. Iban Zaldua

Gizon handi batek nahi gabeko bulkada eman zion trenak **kurba** bat hartzean. Iñaki Zabaleta

Bagoiak **kurba** batean abiadura mantsotu zuenean. Anton Garikano

---

**kurbadun** *izond* kurbatua.

Turbina bertikalak eta pala **kurbadunak** erabili nahi dituzte. Berria - Gaiak

**Kurbadun** akabera izango dute gela horiek. Berria - Kultura

---

kurbadura ik **kurbatura**.

---

**kurbarazi**, kurbaraz, kurbarazten du *ad* kurbatzera behartu.

Zeren eta lenteak marra berez xuxenak **kurbarazten** baitzituen eta kurbak **kurbaraztenago,** aise begizta genezakeen eta hauteman, halarik ere, objektiboa. Joan Mari Irigoien

---

**kurbatu**, kurba(tu), kurbatzen **1** da/du *ad* kurba baten itxura hartu edo eman.

Arkua, berriz, korda tinkatuak ezartzen dizkion mugen eraginez **kurbatzen** da. Jon Muñoz

Metal malgua **kurbatuz**. Iñaki Iñurrieta

Materiak eta energiak sare hori **kurbatu** egiten dute. Berria - Harian

Mattini aurpegiko giharrak gogortu zitzaizkion, bekokia zimurtu, eta bizkarrezurra okertu, bihurritu eta **kurbatu**. Joan Mari Irigoien

Sateliteak lau giroskopio dauzka, errotazio higiduran Lurrak espazio-denbora **kurbatzen** duela egiaztatzeko. Berria - Gaiak

Lerroa ezin zuzenago luzatzen zen tarte batez; gero, eskumuturraren higitze doi atzemanarekin batera, **kurbatzen** hasten zen, perfekzio geometriko osoa ageri zuen trazadura zalantzagabean. Iñaki Iñurrieta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Lerro biotako bata zuzena da eta bestea **kurbatua**. Xabier Kintana

Kanpoaldeko geruza **kurbatu** gogor bat. Irene Aldasoro

Azal **kurbatua**. Berria - Kultura

Beira puska **kurbatu** soil batek ezin duela irudi perfekturik eman. Irene Aldasoro

Hura izan zen irudi **kurbatu** baten lehen koadratura. Jon Muñoz

Telefono postez posterako kable apur bat **kurbatuen** sabelak imajinatu zituen. Harkaitz Cano

Are ustekabe handiagoa eragin zuen bigarren teoria horrekin, espazioa eta denbora **kurbatuak** zirela esanda. Berria - Gaiak

· Aingira batek arroka artean geldirik dagoenean egiten duen dardara **kurbatu** bera. Harkaitz Cano

---

**kurbatura** *(orobat **kurbadura**)* *iz* norabide jakin batekiko desbideratze jarraitua. ik **okerdura 2**.

Kornea [...] ez da guztiz esferikoa, baizik eta **kurbatura** handiagoa du erdialdean ertzetan baino. Irene Aldasoro

Akats hori erraz zuzentzen da **kurbatura** konpentsagarria duten betaurrekoen bidez. Irene Aldasoro

Aldaera hauetan garrantzizkoenetako bat argiztapen-gradientea da, gainazal batek bere **kurbaturaren** eraginez izaten duen argiztapen-aldaera progresiboa. Josu Zabaleta

Inflexio-puntuak: kurbak **kurbadura** aldatzen duen lekua, gorantz irekia izatetik beherantz irekia izatera Newtonen grabitatea, **kurbadura** horren ondorioa da. Jon Muñoz

---

**kurbo** *izond* makotua, kurbatua.

-Ziur nauk itsasoari hemendik beha egon ondoren, gu bezala, esan zuela Arkimedesek **kurboa** zela isurkari guztien gainazala; **kurboa,** Lurra bezala: bai ur gazia itsasoan, bai kafe espresoa nire kikaran. Jon Muñoz

Irudi hori planoa ala **kurboa** den batere garrantziarik ez duen gauza da. Ez zegoen golde **kurboaren** eroale indartsurik, ez inork sororik burdinaz harrotzen zekien, ez sastrakarik lurperatzen, ez zuhaitz garaien adarrik aihotzez inausten. Josu Zabaleta

---

**kurdiar** *izlag/iz* kurdua.

Irak iparraldean, **Kurdiar** lurraldeko hiri nagusian, Mozul-en, bahitua izan da astelehenean Basile Georges Casmoussa, apezpiku katolikoa. Herria

**Kurdiarrak** espultsioaren kontra gogor egin zuen giza elkarteen laguntzarekin. Herria

---

**kurdistandar** *izlag* Kurdistango herritarra. ik **kurdu 2**.

EBk behartu zuen Ankara **kurdistandarrak** berriz epaitzera, aurreneko auzia zuzena izan ez zelakoan. Berria - Mundua

Damaskoko gobernuak herritar arabiarrak **kurdistandarren** aurka xaxatu eta armatu dituela salatu zuten atzo. Berria - Mundua

---

kurdo ik **kurdu**.

---

**kurdu** *(orobat **kurdo** g.er.)* **1** *izond* Asiako eskualde den Kurdistangoa, Kurdistani dagokiona.

1946an, Iraneko Errepublika **Kurdua** erori zenean. Familia **kurdu** batean jaio zen 1923an. Juan Kruz Igerabide

Han tribu asko zeuden, **kurdu** nomaden kanpamentuak beren oihal-etxola handiekin. Fernando Rey

Herri **kurdua** bizirik dago, eta ezerk ez du eraitsiko haren bandera. Juan Kruz Igerabide

Milaka eta milaka herritar **kurdu** bildu ziren atzo iluntzean Ulucanlarreko espetxearen aurrean. Berria - Mundua

Argiketari **kurdu** baten laguntzaile hasi nintzen lanean. Juan Kruz Igerabide

Koblakari **kurdu** eta turkiarrek gordetako tradizio ahozkoa. Beti jantzi **kurdu** txukun-txukun batekin etortzen zitzaigun, gerrian gider zuriko pistola batekin. Fernando Rey

Ama supermerkatu baten arduradun, anaia jeneral eginik, eta ni, berriz, film **kurdu** bat egiten. Juan Kruz Igerabide

Ez neukan hotelean Ismet **kurduaren** mezurik zain. Jon Arretxe

Aretoan bi bey **kurdu** zeuden, Ismail Aga -jabetzen administratzailea- eta bi guardia, baita lur urrunetatik iritsitako derbitxe batzuk ere. Fernando Rey

Ez dago argi ekintzailea turkiarra edo **kurdua** den. Berria - Mundua

Lur hura **kurdua** zen, ordea. Juan Kruz Igerabide

Garai batean hamar izatera ailegatu ziren, **kurduak** gehienak. Xabier Montoia

• **2** *iz* Kurdistango herritarra.

Atatürk jenerala izan zen arrakastaren giltza, berak gidatu baitzuen greko, **kurdu** eta armeniarren aurkako borroka. Jon Arretxe

Turkiarrak joan zirenean, **kurdu** bihurtu zen atzera, Xeikh Mahmud **kurduen** erregearen erregetza garaian. Juan Kruz Igerabide

Igandean Belgikako Poliziak 55 **kurdu** atxilotu zituen. Berria - Mundua

Gasa erabiliz milaka **kurdu** hil zituen Ali Hassan al Majidek 1987. urtean. Berria - Mundua

Orotara hamar mila **kurdu** bildu ziren ekitaldian. Berria - Mundua

**Kurdu** abertzaleen erreakzioak. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi kurdu** (3); **bey kurdu** (6); **bost gerrillari kurdu** (5); **diputatu kurdu** (3); **gerrillari kurdu** (7); **jantzi kurdu** (3)

**arazo kurdua** (10); **herri kurdua** (3); **jalal talabani kurdua** (4)

**alderdi kurduak** (3); **bey kurduak** (5); **herri kurduak** (4); **hoshiar zebari kurduak** (3); **presidente kurduak** (3); **sunita eta kurduak** (3); **talde kurduak** (3); **xiitak eta kurduak** (4)

**arazo kurduaren** (5); **herri kurduaren** (9)

**bey kurduek** (6); **buruzagi kurduek** (5); **xiitek eta kurduek** (5)

**arabiarren eta kurduen** (4); **diputatu kurduen** (3); **gerrillari kurduen** (5); **kurduen aldarrikapenak** (3); **kurduen arazoa** (4); **kurduen arteko borrokak** (3); **kurduen auzia** (3); **kurduen eskubideak** (6); **manifestari kurduen** (3)

---

**kurduar** *izlag/iz* kurdua.

Urteotan emakume **kurduarraren** osasun egoerak txarrera egin du eta Ankarako gobernuak, kartzelan hil daitekeen beldur, ateratzeko aukera eskaini berari soilik barkamena emanez. Berria - Mundua

Bertan turkiar jatorriko herritarrak bizi dira nagusiki eta tartean **kurduarrak** ere. Berria - Mundua

---

**kurduera** *iz* kurduen hizkuntza.

Kurduak ziren nire bidaide guztiak, **kurdueraz** mintzatzen ziren. Jon Arretxe

**Kurdueraz** hitz eginaraziko niola. Juan Kruz Igerabide

Ni, berriz, eskolara hasi nintzen berriro; **kurdueraz** erakusten ziguten. Juan Kruz Igerabide

Eskolan **kurdueraz** ikasteko eta telebista publikoan **kurduerazko** saioak emateko neurriak hartu ditu Ankarak. Berria - Mundua

Oso **kurduera** ederrean idatzita zeuden. Juan Kruz Igerabide

"Ezin dut aurrera jarraitu; atxilotu egin naute", esan nion **kurdueraz**. Juan Kruz Igerabide

Aita Bagdad Irratia entzuten ari zen, Herriaren Ahotsa, eta, aldi berean, **kurduerara** itzultzen zigun dena. Juan Kruz Igerabide

Arabieraz, **kurdueraz** eta turkmenieraz idatzitako aleak banatu dituzte. Berria - Harian

Egunero, erregu bera egiten nuen neurekiko: has zitezela **kurduerazko** klaseak. Juan Kruz Igerabide

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kurduerazko saioak** (5)

---

**kurdutasun** *iz* kurdua izateko nolakotasuna.

**Kurdutasunaren** alde edozer gauza egiteko prest nengoen. Juan Kruz Igerabide

---

## kureta *iz*

Hemen talde armatu batek, grekoek **Kuretak** deitzen dietenek, frigiar andanen artean, odoleztaturik, dantzan eta jauzian erritmoz dihardutenean, gangor beldurgarriak buruetan astinduz, Dikteako **Kuretak** gogoratzen dituzte, zeintzuek behinola Jupiterren haur-negarrak Kretan ezkutatu omen zituzten, ume armatuek, jainko-haurraren inguruan bizkor dantzatuz, brontzeak brontzeen kontra erritmoan jotzen zituztenean, Saturnok ez zezan hura atzeman eta haginetan xeha eta amaren bihotzari betiko zauria egin. Xabier Amuriza

---

## kuria *(orobat **Kuria**)* **1** *iz* Eliza katolikoaren gobernuan Aita Santuaren lankide diren erakundeen multzoa.

Aita Santuak agintzen du berak zuzenean izendatutako **kuria** batekin. Pello Salaburu

**Kuriako** kideen artean Hugolino kardinala zegoen. Askoren artean

Eduardo Martinez Somalo kamarlengoa buru zutela **kuriako** kardinalek ere hartu zuten parte prozesioan. Berria - Harian

Ordurako, ministroen taldea indartuz zihoan [...], eta haien eta Erromako **kuriaren** interesak bat etorriko ziren Ordenaren norabidea markatzeko orduan. Askoren artean

Hara heltzean, harrera beroa eta ohorez betea egin zion garai hartan hirian zegoen Erromako **Kuria** osoak. Askoren artean

**2** (egoitzatzat hartua)

Nola joan zen Frantzisko dohatsua bere hamaika lagunekin Aita santuaren **Kuriara,** bere asmoen berri ematera eta idatzi zuen Erregelaren onarpena lortzera. Askoren artean

Joan zen, bada, kardinala **Kuriara** eta Aita santu Inozentzio III.ari esan zion: [...]. Askoren artean

Erromako **Kuriara** iritsi eta Aita santuaren aurrera eraman zutenean, Frantziskok bere asmoa azaldu zion. Askoren artean

**3** *hed*

Gauza nabaria da Estatu guztietan badela gizon, asanblada edo **kuria** bereziren bat, herritarren gain, eskubidez, nork bere buruaren gain daukan boterea adinakoa daukana, hots, osoa eta absolutua. Esteban Antxustegi

**4** Erromatar Inperioan, herri biltzarraren bilgunea.

Altxortegia, presondegia eta **kuria** edo senatu-etxea foroari itsatsita egin behar dira, baina kontuan hartuz proportzioaren neurriak foroaren proportzioarekin egokituta egon behar duela. Santiago Iruretagoiena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
> **erromako kuria** (4)
> **erromako kuriak** (3)
> **erromako kurian** (7)
> **erromako kuriaren** (4)

---

## kuriatar *iz* kuriakoa, kuriari dagokiona.

Ihes egiten badute, lapurtzat salatzen dituzte, eta **kuriatar** jendaila horrek guztiak kondenatu egiten ditu. Josu Zabaleta

---

## kurios 1 *izond* jakin-nahia, ikusnahia. ik **kurioso**.

Geltokiek erakartzen naute, bereziki gauaren magiak ematen diolarik jendeari epopeia aire bat, baten aurpegi ximurtua zizelkatzen duelarik neon bortitzak edo gizon **kurios** eta begiluzea beha dagoelarik amorosen beraurkitzeari. Betidanik **kurios** eta gose errabiatua izan da gizona mundu honetatik joan direnekin lotura baten sortzeko eta atxikitzeko. Piarres Aintziart

Gela guzietan koka ahala jende bazabilan, burraso, laguntzaile, adiskide, haur eta **kurios,** denak xoraturik. Herria

**Kurios** zen jendea biriatuar gaztearen ikusteaz garaztar trebatuaren aitzinean. Herria

**Kuriosa** nintzen bizkitartean eta igurikatzea erabaki nuen. Itxaro Borda

**Kuriosegia** agertuz, arriskatzen nuen fitsik ez jakitea. Daniel Landart

**2** (adizlagun gisa)

Québekiarrak aldiz Euskal herriaz **kurios** agertzen dira, gutiz gehienek badakitelarik duela lau mende euskaldunak balea ihizira etortzen zirela Saint Laurent ibaian barna. Herria

Jantziz eta gogoz arin dabiltza gure xokoetan gaindi bazterren ikuska, begiak **kurios** eta bihotza alegera. Herria

• **3** *izond* bitxia.

Azkenik ikusi ditugu Amazonian bizi diren Indioak, beren hizkuntza bereziarekin eta ohidura **kuriosak**. Herria

Dena den, Parisen gertatu da gauza bat frango **kuriosa**. Herria

Erretaula, arras **kuriosa** omen, nahiko nuen ikusi, bereziki Jesus Haurra Paduako Anttonekin kartetan ari baita erretaulako zati batean; ezohiko irudia, segur, baina ihauteri giro batean jarri behar dena. Piarres Aintziart

Jokatzeko moldea ere oso **kuriosa** da. Xipri Arbelbide

**4** ***kurios pinta erdi*** *(orobat **pinterdi**)* *adlag ipar* ikusmiratzailea, kuxkuxeroa.

Holako famak entzunik, ibili gira gu aldiz *Vauban* antzokiko ate artekatik **kurios** pinterdi, eta ederrik ikusi ere: [...]. Herria

Kattalin, **kurios** pinterdi, galdera eta galdera hasi arte, ez zuen ahorik ireki Buchenwald-eko egonaldiaz. Eneko Bidegain

Lekutu behar zuen, baina **kurios** -pinterdia zenez, sasiaren atzealdean eta lokatzean iltzatu zen, geldo. Itxaro Borda

Ostalertsa, emazte nahasi, mihi-zikin, **kurios** pinterdi bat zen. Daniel Landart

**Kurios** pinta erdi, ondotik jarraiki zitzaion. Elena Touyarou

---

kuriosidade ik **kuriositate**.

---

## kuriositate *(orobat **kuriositate** g.er.)* **1** *iz* jakin-mina.

**Kuriositateak** eraginda hurreratu zen. Iñaki Zabaleta

Tabernako bezeroek, denak beltzak, hasierako **kuriositatea** ase ondoren [...] berenean jarraitu zuten. Iñaki Zabaleta

Ene ustetan emakumeak gehiago irakurtzen du **kuriositate** handiagoa duelako. Ana Urkiza

Begirada garden eta atsegina zuen, harridura eta **kuriositatea** biak batean erakusten zituena. Joxean Agirre

Garai hartan, bazegoen nire ustez, euskaraz egiten ari zen literaturarekiko **kuriositatea** . Ana Urkiza

Ezagutza baino areagoko behar ezkutu hori, **kuriositate** asetugabea. Lourdes Oñederra

Agudo zabaltzen zaizkigu begiak harriduraz eta **kuriositatez,** aspalditiko ipuinon aurrean. Pello Zabala

**Kuriositatez** beterik, berehala irakurri zuen. Ramuntxo Etxeberri

**2** bitxitasuna.

Ekar dezadan hona, **kuriositate** gisa, haren bizitzari buruzko gertaera bat. Pello Salaburu

Mendeak eta urteak neurtzeko egunero erabiltzen ditugun sistemak nolakoak diren, **kuriositate** gisa baizik ez bada ere, oroitarazteko. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuriositate hutsez** (3)
> **kuriositatez beterik** (3)

---

## **kurioski** *adlg* bitxiki.

**Kurioski,** gerla honetan, ministerio gehienak suntsituak izan direlarik edo lapurtuak, gelditu da osorik, deus demasiarik gabe, urre beltzarena. Herria

**Kurioski** fatalismo horrek indartzen zituen ene gurasoak. Piarres Aintziart

**Kurioski** gehienik bildu da jendea Madrilen, Erroman eta Londresen, hain zuzen Bush-en alde diren estaduetan. Herria

Biharamuneko klaseak nituen gogoan berdin eta kezka haiek, **kurioski,** zaintzen ninduten, ikastetxea instituzio aldaezin bat baitzitzaidan eta funtsean erdi apez eta osoki erakasle bainintzen. Piarres Aintziart

Derragun berehala partida ederra izan dela eta, azken mementoan, Frantsesek irabazten ahal zutela François Gelez-ek bi entsegu-ostiko hutsegin ez balitu, lehena, **kurioski,** baloina erori baita jotzera zoalarik. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kurioski ari** (4); **kurioski arizan** (3)

---

## **kurioso** *(orobat **kurioxo** g.er.)* **1** *izond* jakin-nahia, ikusnahia. ik **kurios**.

Baina tartean baziren hainbat **kurioso** ere, eta azken horiei eragin zien zirrara handiena emanaldiak. Berria - Kultura

Horixe zen, ene irakurle **kuriosoa,** fenomenoa interpretatzeko nire manera makurra. Patziku Perurena

**2** bitxia.

Lehengo egun batean gauza **kuriosoa** irakurri nuen egunkari batean. Berria - Gaiak

Txoko batean, […] elementu **kurioso** bi agertu zitzaizkion, bata bestearen gainean: azpian enbor zati bat eta eskafandra bat gainean. Unai Elorriaga

Etxe **kurioso** bat ikusi zuen, arkitekto desorekaturen batena. Unai Elorriaga

Arrazoibide **kurioso** hauen **kuriosoena** da, borrokatzen den inbasorea jada zinez ez dela oraingoa, baina XVI. Mendekoa. Joxe Azurmendi

Bai, Joxe Mari Lertxundik badaki zerbait Terueleko frenteaz; **kuriosoa** da beste inongo frenteren izenik aipatu ere ez egitea. Xabier Etxabe

**Kuriosoak** dira buruaren jolasak. Arantxa Iturbe

• **3** *adlag* txukun.

Maxima-minima, euri-kontuak eta beste, denen kopuru totalak eta batezbestekoak ere, kontu denak paper mutturretan aterako zituen **kurioxo** asko. Pello Zabala

**4** ***kurioso-kurioso*** *adlag* txukun-txukun.

Horregatik ekarri diot gaur nire hitzak erdaraz **kurioso-kurioso** jarriko dizkion lagun aproposa. Anjel Lertxundi

Bertsioetako bat Eibarko damaskinatzaileek egin zioten eskari baterako prestatua zuen Gandiagak, eskuz **kurioso-kurioso,** kaligrafia ederrez idatzita. Berria - Kultura

Saihetsezurrok, **kurioxo-kurioxo** miaztu eta gero, ganbaran zintzilik gordeko zituzten, haziaroan soloan zut prantatzeko. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gauza kuriosoa** (4); **izen kuriosoa** (3)

---

## **kuriosoki** *adlag* bitxiki.

Emaitza, beraz: inportantea indibiduoa omen da (ez zein herritakoa, etab.); baina gero indibiduook, kaosean atomizatuak ez daitezen ibili, lotu beharra dago ordena batean, eta, **kuriosoki,** hori absolutua izatea nahi da; arau objektiboak eta absolutuak egotea da hortaz definitiboki inportantea Joxe Azurmendi

---

## **kuriostasun** *iz ipar* jakin-nahia, ikusnahia.

Ustez ulertu ditudan gauzak **kuriostasun** minberari zor dizkiot. Piarres Aintziart

**Kuriostasunez** edo, probatu nuen atea irekitzen ahal zenetz. Daniel Landart

**Kuriostasun** haundiz igurikatua da gisa guziz itsasoz haindiko famatu hura. Herria

---

## **kuriostate** *iz ipar* jakin-nahia, ikusnahia.

Ezkaratzean, eskaileretan, ganbaran emaztekiak bilduak, metatuak ziren, adiskidetasunez eta **kuriostatez** jinak. Michel Oronoz

Ezinago hobeki iragan dira bi igandeak, jende ainitz ibili da, batzu **kuriostatez** beste batzu fedez eta beste batzu biak nahasteka. Herria

---

## kurioxo ik **kurioso**.

---

## **kurka** *iz* hurrupa.

Bertze **kurka** bat eginik eta neure beldur hari buru eginik, galdetu nion Catherineri ea zergatik ez ninduen Mignonenganat eramaiten. Joan Mari Irigoien

Kopa berriro altxatu, eta bertze **kurka** batean hustu zuen. Joan Mari Irigoien

Eta, isilune labur baten ondoren, basoan zituen arno hondarrei azken **kurka** emaiten ziela, akabatu zuen-: […]. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
kurka luze (3)

---

**kurkubita** *iz* kuiatxoa; kuiatxoaren azala, idortuz gero, edaria eramateko erabiltzen dena.

Kapistunek Armagnac pattarrez betetako **kurkubita** bat zeukan, eta, ur beroarekin nahastuta, hirurek edan zuten. Koro Navarro

---

**kurkuilatu** *izond* ik **kuskuilatu**.

Gazteenak gainean zeuden, helduak erdikoetan eta zolakoetan adindu **kurkuilatuak,** bata bestearen kontra trinko. Itxaro Borda

Irudi luke Niziasek agurea ontsa ezagutzen duela; funtsean, segur naiz gizon adindu eta **kurkuilatu** hori nonbait gurutzaturik! Itxaro Borda

---

**kurkuilu** **1** *iz* barakuilua.

Gure herrian ditugun odolkiak, zango usaina duten gasna mutzituak, **kurkuiluak,** ostrak edo lapinak hemen bitxikeriak lirateke! Ramuntxo Etxeberri

Gabinek **kurkuilua** hartu zuen mahai gainetik, eta belarrira eraman. Iñaki Iñurrieta

Esku artean zerabilen itsas **kurkuilua,** tarteka belarrira eramanez. Iñaki Iñurrieta

**2** ***bare kurkuilu*** *(orobat* ***barekurkuilu****)* barakuilua.

Horien ondoan izanen dira ere kanpotiar ekoizle batzu, Charente Maritime-tarik jinik: Ré ugarteko gatza, eztia, Charenteko bixkotxa, [...], bare **kurkuiluak..** . Herria

**Barekurkuilu** handi eta zapal batzuen antzeko irudiak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
itsas kurkuilua (3)

---

**kurkulux** **1** *iz* tortolosa.

Halaxe pasatzen baitzituzten arratsalde asko eta asko gure eskolako neskek, **kurkuluxak** -tabak- airean gora botaka, batazaka-biazaka eta antzeko formulak errepi-katzen zituztela. Bernardo Atxaga

**2** ***kurkuluxetan*** tortolosetan jolasean .

Izan ere, neskatoak **kurkuluxetan** ari ziren bertan. Bernardo Atxaga

**Kurkuluxetan** ibiltzen ziren neskatoen batazaka-biazakak. Bernardo Atxaga

Museo horretako koadro batean neska koskor batzuk ikusten dira **kurkuluxetan** jostatzen. Bernardo Atxaga

---

**kurkumixa** *iz* akuria.

-Gose nintzen eta armairuetan ezer ez zegoen jateko, salbu zure gasna "sakratua" -erantzun zidan, begitartea kuetaren pean gordez, ehiztariari ihes doakion **kurkumixa** umilaren antzera. Itxaro Borda

---

kurkurkur ik **kur**.

---

**kurlandiar** *izlag/iz* Letoniako eskualde den Kurlandiakoa, Kurlandiari dagokiona; Kurlandiako herritarra.

Arraza eslabiarra da nagusi inondik ere, baina, errusiarrekin batera, poloniarrak daude, eta lituaniarrak, eta **kurlandiarrak** . Karlos Zabala

---

**kurlinka** *iz* kuliskaren antzeko hegaztia, hura baino nabarmen handiagoa *(Numenius sp.)*

Ibaian kulixkak entzun ditzakezu, edo koartzak, **kurlinkak,** hegaberak eta ibaiertzetako beste hegazti batzuk antzeman. Koldo Biguri

Eta hor behean, paduretan, udako iluntzeetan **kurlinken** hotsek ernarazten dute etorrian astiro datorren gauaren sabela. Edorta Jimenez

---

**kurlo** *iz* kurriloa.

Begiak herts eta aldizka kumulu-ninboak zein estratu-kumuluak zitzaizkion argitzen, euriaren bidez batasunera edo zeru zohardia lardaskatzen zuten **kurloen** gidaritzapean bidaia dei. Itxaro Borda

---

**kurloi** *iz* txolarrea.

**Kurloiak** izan ziren ihes egiten lehenak, usapalak bigarrenak, mirua azkena. Felipe Juaristi

Bazter batean eseri zen, ate aldeko sarrera zaintzearren, besteetan bezala, arin eta zalu, **kurloi** baten modura, Justina etorriko zitzaiolakoan. Felipe Juaristi

Teilatuen artetik hegalaldi geldigaitzean zebiltzan kalatxori, **kurloi** eta enarei. Joseba Sarrionandia

---

kurpil ik **gurpil**.

---

**kurrela** *iz* langilea.

Kutsatzaile politikoa: hauteskunde karabanetako kazetariek erabilitako terminoa, etengabe alderdiaren aldeko mezuak helarazten dituen agindupekoa definitzeko (ikus prentsa zerbitzuko **kurrela)** . Berria - Euskal Herria

---

## kurri 1 *adlag ipar* lasterka. ik **korri**.

Estaturik minberenean aurkitu ninduen beraz Mathiasek, eta **kurri** abiatu orduko, golkoan nituenak oro kontatu nizkion. Daniel Landart

Goazen aitzina **kurri**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beste batez errana ziguten goizeko hiruetan beharko genuela jeiki **kurri** joateko ez genakien nora. Piarres Aintziart

Bizpahiru itzulipurdi eginik, azkenean ikasi zuen **kurri** ibiltzen. Daniel Landart

Zaldiz lekoak eta lekoak **kurri** ibili ondoan. Aurelia Arkotxa

Euri edo denbora on, beti **kurri** gabiltza, nehon ez gintezke geldi, beti joan behar dugu aitzina. Anjel Lertxundi

Badu zenbeit ilabete berria **kurri** zoala, nola saltegi haundi bat eraiki beharra zela. Herria

Duela urte bat izana zuen kolpe bat osagarrian, bainan bere bizi nahiarekin berriz ikusten ginuen **kurri** senarraren besotik edo jarririk mahain hegian bere agurñoaren egiteko. Herria

Bazen herri batean gizon bat beti **kurri** zena. Herria

**2** (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Etxe **kurri** egun guzian eta adinetakoen aratsaldeko askaria. Herria

*ik* kurrida 2.

17.30 etan, karrika **kurri** Ezpela txarangarekin. Herria

**3** ***kurri izan*** da *ad* ibili. ik **kurritu 2**.

Zurrumurrua **kurri** da gutarik bakoitza kutsatua izan daitekeela, gaitza hamabost egunez xitan egoiten baita. Marzel Etxehandi

Zurrumurrua **kurri** zen laster joan behar genuela. Marzel Etxehandi

Bazen herri batean gizon bat beti **kurri** zena. Herria

**4** ***kurri egin*** korri egin

Ikastolako haurrek etxe **kurri** egin dute, beren gisarat mozorroturik, leheneko ohitura ez ahaztera uzteko, ohartu gira Ikastolak bere uzta emaiten diela. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitzina kurri** (3); **beti kurri** (6); **etxe kurri** (3); **jo ta kurri** (6); **kurri ibiltzen** (3); **zurrumurrua kurri zen** (3)

---

## kurrialdi *(orobat **kurrikaldi**) iz* ibilaldia.

Eta jakina, Arzacq-etik Euskal Herria hurbil-hurbila da, hiruzpalau egunen **kurrialdiarekin** betea. Herria

Uztailaren 18 an, Kanbotik Sararat **kurrikaldi** berri bat antolatua da. Herria

---

## kurriarazi, kurriaraz, kurriarazten *(orobat **kurri arazi**)* **1** du *ad* ibilarazi.

Latsaldia bururatua delarik, hobendunek gimnastika egin behar dute, kadera bat beso bakoitzaren puntan, odolaren **kurriarazteko**. Marzel Etxehandi

Urte guziz bezala Plaza Errotako Luixa Daguerren familiak berriz **kurriaraziko** du bere errota. Herria

Lurra bat-batean ikaran astintzeko eta itsas-lehorretan haizete indartsua **kurriarazteko**. Xabier Amuriza

Beste teknika bat, herri hartan lehenik erabilia, nola aski goratik hasi deskargatzen, beheiti errexkiago **kurriarazteko** karga. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** (gauza abstraktuez mintzatuz)

Fama **kurriarazi** zuen baizik eta ez zuela begi onez ikusiko jendeak irina Istilarteko eiheran eros zezan. Elena Touyarou

Inportantea da langileen artean harremanak eta informazioaren ongi **kurriaraztea,** hortik lekora berek baitituzte hautuak egiten. LEIAk petizione hori nahi du **kurriarazi,** ahal bezain bat izenpedurek erakuts dezaten argi eta garbi jendeak ez duela 2X2 errepiderik nahi. Herria

---

## kurrida 1 *iz* ibilaldia.

Etxe hau ere beilarien laguntzeko egina, doi bat bederen pausatzeko, **kurrida** luzeak baitzituzten jadanik eginak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hortik hasita, zer ikusmin eta bidegoseak ez ditu gure jendeak, ala pidaia, beila edo **kurrida**. Herria

22etan, elizatik haste, **kurrida** argitua Arrola eta gaiteroekin Herria

**2** ***etxe kurrida*** ik **kurri 2**.

Ihauterian egiten dira "maskak" izeneko etxe **kurrida** batzuk gazteekin eta haien artean badira biga, bata emaztea, zarezaina, eta bestea, azeria. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Astelehen 28a: etxe **kurrida** egun guzian Herria

**3** ***karrika kurrida***

16.00 meza, eta ondotik **karrika kurrida**. Herria

Aratsaldeko 5etan, **karrika kurrida** Ipar eta Hegoaldeko gaiteroekin; 5.30etan, gaiteroen alardea, Uztaritzeko Txarangarekin Herriko Etxeko plazan. Herria

Hor **karrika kurrida** bat egin dute, gaitaren doinua entzunaraziz. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etxe kurrida** (3); **karrika kurrida** (4)

---

## kurrika *(orobat **orrika** g.er.)* **1** *iz pl* metalezko tresna, erdialdean giltzatzen diren, eta alde bat gidertzat erabiltzen den eta besteak baraila moduko bat egiten duen bi atalez osatua. ik **trukes**[1].

Kopetan zeukan argiak ez zidan ikusten utzi, eta tinko eutsi behar izan nion aulkiari **kurrikak** sudurzuloan sartu zizkidanean. Javi Cillero

**Kurrikak,** eta katuentzako guraizeak. Koro Navarro

Trokolaren beheko aldean burdinazko **kurrikak** lotzen dira, harrietan egindako zuloetara egokitzen diren hortzak dituztenak. Santiago Iruretagoiena

Arrantzaleekin doazen biologoek **kurrikekin** moztu dute amua, eta dortoka *caretta caretta* espezieko kide gisa sailkatu ondoren, uretara itzuli dute. Berria - Gaiak

Etxera joateko baimena eskatzen hasi zen azkenean, baina hain ahots ahul eta nagiz, non, Errusiako esakune zahar batek dioenez, bai baitzirudien **kurrikez** jarri nahi ziola lepokoa zaldiari. Jose Morales

**2** *sing*

Egoskia bere doi gradura iritsi zela erabaki zuenean, ontzia erretiratu zuen sutatik, eta, **kurrika** baten laguntzaz, ore trinkotua atera bertatik. Anjel Lertxundi

---

kurrikaldi ik **kurrialdi**.

---

kurrikular ik **curricular**.

---

kurrikulu ik **curriculum**.

---

kurrikulum ik **curriculum**.

---

kurrillo ik **kurrilo**.

---

**kurrilo** *iz* paseko hegazti zangaluzea, mokoa zuzena, lepoa luzea, hegoak handiak, isatsa motza eta lumak hauskarak dituena *(Grus grus)*. ik **kurlo, lertsun**.

Zikoinak ere antzematen dio zeruari, lekuz noiz aldatu jakiteko; usapalak, enarak eta **kurriloak** badakite noiz itzuli. Elizen arteko biblia

Basoa zuen inguruan, eta laku handi bat ere bai, udaberri aldean **kurriloen** pausaleku. Felipe Juaristi

Ekaitza baretu zuen egun bereko azken argiarekin ontzi handi baten oihala antzeman genuen, **kurriloak** saldoan hegan zelan, halaxe haren zapi zuriak airean. herri afrikar askotako sineskeran, hitzaren sorrera gorputzen baitu **kurriloak**. Edorta Jimenez

Eta **kurriloak** bezala ibiltzen duk, harro-harro eta puztu-puztu eginik. Jose Morales

Paperezko mila **kurrilo** tolestea lortzen duenak bizitza luzea eta zoriontasuna eskuratuko ditu. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kurriloen erregina** (6)

---

**kurrin** **1** (onomatopeia) *iz*

Beraz, **kurrin kurrin,** gora. Berria - Ekonomia

**2** ***kurrin egin*** kurrinka egin.

Txerritxoak **kurrin** egin dezake edo San Martin garaia bizi. Berria - Ekonomia

**Kurrin egiteko** ere ez dik betarik izandu txerrikumeak. Pablo Sastre

**Kurrin egiteko** agindu nion neskari. Jasone Osoro

---

**kurrinka** **1** *iz* txerriak, basurdeak eta kidekoek egiten duten hotsa.

Baita txerri-hiltzean ere, nahiz eta ez den batere erraza aiztoa sartuta txerria hiltzea, agoniako **kurrinka** haiek, gorputza bihurka, odol-zipriztinak bazter guztietan. Karlos Zabala

Bat-batean, ordea, zurda luzeko pinttoa aztoratu eta **kurrinka** bizian hasi zen. Joxemari Urteaga

**2** (bestelakoek)

Entzuten nitian zakurren **kurrinka,** karruska eta plazerrezko intziri eta uhuriak. Daniel Landart

Ahoa ireki eta **kurrinka** moduko bat baizik ez nuen egitea lortu. Joxan Elosegi

Zakila ezin ederragoa zuen, delikatua baina erabakigarria […], istapeak usain zoragarrikoak, planeta honetako ilerik leunena, **kurrinka** txiki batzuk egiten zituen ezin imitatuzkoak. Karlos Zabala

Arrantzaleak **kurrinka** bat bota zuen, baina bere lanari ekin zion aitzina. Elena Touyarou

Idekirik dagoen atea pusatzen bada, **kurrinka** nardagarri bat eginez nornahi sartzera uzten du. Michel Oronoz

Klixka!, zaintzaleen urratsak pasabidean, izkinako burdinazko atearen **kurrinka** eta, klunka!, hesten, urrats batzuk urruntzen kartierrean barna... Filipe Bidart

Orga emeki emeki higitzen zuen, aldi guziz alimaleko **kurrinka** ateraraziz. Eneko Bidegain

Ohearen erresorten **kurrinkak**. Piarres Aintziart

Zergatik nota batzuek elkarrekin soinu gozoak osatzen zituzten, eta zergatik beste batzuek ez zuten **kurrinka** eta ulu-hotsa besterik sortzen. Pako Aristi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txerri-ontziz josita zegoen Ohio ibaia, eta **kurrinka** hotsen gainetik kapitainak elkarri deiadarka entzutea oso ohikoa zen. Anton Garikano

Laster ziren beste guztiak ere **kurrinka** hots lehorrean. Joxemari Urteaga

**Kurrinka**-hots beldurgarri bat entzun zen. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zakur **kurrinkaren** antzekoa izan zen. Matías Múgica

• **5** *adlag* kurrinka egiten, kurrin egiten.

Arrantzaka noizean behin astoren bat, eta **kurrinka** txerriak, eta miauka katuak. Patxi Ezkiaga

Beti gose eta **kurrinka** zeuden bargo eta ahardi zaharrei. Itxaro Borda

Nik kasurik eta mimorik egiten ez banion egun osoa **kurrinka** eta negarrez ematen zuen zerria. Jasone Osoro

Gelditu egin zen, **kurrinka,** letaginak erakutsiz. Agustin Otsoa

Lehenago kalean txerri bat **kurrinka** aditzea iruditu zait. Pablo Sastre

Arrantzaka hasten ziren batzuk, **kurrinka** beste batzuk, urdeen gisan. Joxan Elosegi

Baina Maryk ikaragaitz entzun zituen berriak, **kurrinka** ekin zion purrustaka, txintik ere esan barik. Mirentxu Larrañaga

Urrats gehiago, boz batzuk, kanpoko giltzak, burdinazko atea **kurrinka,** isiltasuna... urrats bat, urrats bi. Filipe Bidart

• **6** *iz* txerria,

Ai, zer ez nuke egingo **kurrinka** buruloka horrekin! izorra nazatela motxin-bero horietako bat ez bada. Patxi Iturritegi

**7** ***kurrinkan*** *adlag* kurrinka, kurrin egiten.

Zakurra eroso etzan eta berriz **kurrinkan** hasi zen. Matías Múgica

Entzun ditut hala ere, artetan, hau edo hura dela, **kurrinkan,** gizon eta emazte burges gaixo delikatu zenbait. Piarres Aintziart

Errepideak berriz goiti, eta tripa **kurrinkan** hasia. Piarres Aintziart

**8 *kurrinkaz* *adlag*** kurrinka, kurrin egiten.

Aziendak bordatik marrakaz entzuten ziren, saihetsean urdeak **kurrinkaz** eta haizea marrumaz mendi muinoetan behera lerratzen. Itxaro Borda

Zerrama, bestaldera jiratuz, makilari hurbildu zitzaion, eta titietatik zintzilik zeuzkan zerrikumeak, bat-bateko ilunpe hartan galduta eta **kurrinkaz,** borrokan hasi ziren amaren toles eta poltsen azpian. Koro Navarro

Ondoratu zitzaidan, ostiko bat eman zion zakurrari, zeina **kurrinkaz** apartatu zen. Matías Múgica

Han inguruko abeltzainei galde egin, eta keinuz eta **kurrinkaz** ulertarazi didate ezen [...]. Juan Garzia

**9 *kurrinka egin*** ik **kurrinkatu; kurrin 2**.

Hartza **kurrinka** eginez zutitu egin zen abiadura izugarrian, lauhazkan doan zaldi baten modura. Berria - Euskal Herria

Lau zerri, lau buztan biluzi arrosa-kolore, oinazez eta pozez kizkurtzen zirenak, txerriek esnea irentsi eta zerramak **kurrinka egiten** zuenean. Koro Navarro

Beraz, gizona, **kurrinka egiten** dakien zerria da. Patziku Perurena

Ez zegoen kaiorik; 'moko-itsusi' esaten dieten txoriok baino ez, zurrungan ari balira bezala **kurrinka egiten** duten eta eguzkia irten ondoren desagertzen diren horietakoak. Juan Garzia

Han ere ez baita inoiz jakiten zerk dagien txistu, marmar edo **kurrinka,** [...]: izan zitekeen tximua, edo txoria, edo agian basakaturen bat, auskalo zer, arreske edo herio-suhar orroka, ezin ba jakin... Joxe Austin Arrieta

· Gwilymek **kurrinka** txiki bat egin zuen. Koro Navarro

Baina Telecincok (+%5) egin zuen atzo **kurrinka** ozenena. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kurrinka egiten** (4); **kurrinka hots** (3)

---

# kurrinkada *iz* kurrinka.

**Kurrinkada** bat entzun zen, gero kolpe bat, eta oihu bat. Agustin Otsoa

---

# kurrinkaka *aldag* kurrinka, kurrin eginez.

Halere, ongi mintzatzen badakitenak aurki daitezke, horiek oinetan bortz eri dituzte, **kurrinkaka** ari direnek hiru dituztelarik bakarrik Aurelia Arkotxa

---

# kurrinkari *izond* kurrinka egiten duena.

Akuilu bat hartuta, zerri **kurrinkaria** zirikatu nuen, ilea atzeraka igurtziz-. Koro Navarro

Zakur **kurrinkaren** antzekoa izan zen. Matías Múgica

Hean zer karietarat eginen daukuten Herrian ere, begiz asearen tripa **kurrinkari** baita. Herria

Etxe ilun hartako isiltasuna bere lehengusu handikote Dudleyren urrutiko zurrunga **kurrinkariek** bakarrik urratzen zuten. Iñaki Mendiguren

---

# kurrinkatu, kurrinka(tu), kurrinkatzen du *ad* kurrinka egin.

Jimmyk zerbait ulergaitza **kurrinkatu** zuen. Lopez de Arana

---

# kurrinketa *iz*

Arcelor (+%7,23) eta Enagasen (+%49) **kurrinketara** iritsi gabe, baina *blue chip*-ek ere indarrez egin zuten gora. Berria - Ekonomia

---

# kurritu, kurri, kurritzen **1** du *ad* aipatzen den tartea buru batetik bestera igaro. ik **korritu**[1] **2**; **ibili 8**.

Erregai isurkariak bultzaturik 2,5 segundo besterik ez zen egon airean eta 56 metro **kurritu** zituen. Pello Salaburu

Haserre goxo batek akulaturik, ez dituzket egundaino hoin fite **kurritu** bost kilometro. Piarres Aintziart

Urratsa zalu zalua, ibiliaren bortxaz, harek ere bazituen 1200 kilometro **kurriturik**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Irakatsia baitut lehenkien kopurua amaigabea eta espazioaren sakonera infinitua dela eta azaldua dut gorputzak zenbateko abiaduran hegatzen ziren eta nolako distantzia pentsagaitzak amen batean **kurritzen** zituzten. Xabier Amuriza

Hernani kalea **kurritu** ondoren, Santa Maria eliza aldera abiatu da segizioa Kale Nagusitik. Txillardegi

Haren begi urdin, bizi eta irribarretsuak gela **kurritu** zuten. Xabier Olarra

Herri guzia **kurritu** zuen garrote edo makila lodi bat airean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azken egunetan **kurritu** duen lurraldeari begira jarri da. Pello Lizarralde

Eta nik mutur batetik bestera **kurritu** nahi nituen biak. Txillardegi

Eguzkiak errea, egunak eta egunak **kurritu** nahi nuke han gaindi. Daniel Landart

Hatz erakuslearekin **kurritu** nuen pianoaren tekla bakoitza, lagun zaharren enkontrura aspaldiko partez datorrenak bezala. Harkaitz Cano

Kilometroen ordez idazlerroak **kurrituko** ditut, perpausak ezin moldatuz, ideiak iheska doazkidala, non ez zaizkidan burutik behera burrustan heldu. Piarres Aintziart

Aitzakia horretaz, aita sainduaren hitzaldiak oro -eta ez ziren guti- **kurritzeko** astia hartu nuen. Piarres Xarriton

Gehiegi **kurritu** dugu. Pello Salaburu

· Zegama-Aizkorri mendi maratoia **kurrituko** da maiatzaren 29 huntan. Herria

**• 2** da *ad* ibili. ik **kurri 3**.

Goxo da **kurritzea,** hezur gogortuen higitzea; kanpalekua bizpahiru kilometrotan omen da. Marzel Etxehandi

Diesel motorrak berez ez dira gasolioarekin **kurritzeko** asmatuak, baizik eta olio erregaiekin. Herria

Hamar egunez **kurritu** ginen, etsituak, zinez bidaia latza, etsaiek gu atxeman artio Charmes-en inguruan, ekainaren 19an. Michel Oronoz

"Abarratia" kaxko eta inguruetan gaindi **kurrituko** gira bizpahiru orenez nunbeit han, abiatu tokian bururatzeko. 23an ibili naiz herri horretan zer topografia mota duen jakin nahiz eta horretako **kurritu** naiz ezker eta eskuin, proiektu bat egiteko asmoarekin, bidea izan dadin orobat errexa, merkea eta azkarra. Herria

Argia, eskolatua eta anitz **kurritua** zen, dudarik gabe, gizona. Piarres Xarriton

Dakikan bezala ez nuk biziki eskolatua, ez nuk hi bezainbat **kurritua**. Michel Oronoz

Bidea laburra zen eta zurrumurrua **kurritu** zen meza ukanen genuela igandetan, lanetik landa. Marzel Etxehandi

*ik* kurri 3.

Berria **kurritu** da ere gertakari batzu deitoragarriak izan direla. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ainitz kurritu** (3); **gehiegi kurritu** (3); **gehiegi kurritu dugu** (3); **karrikak kurritu** (3); **mundu guzia kurritu** (3)
> **herri osoa kurrituz** (3)

---

# kurritzale *iz* ibiltaria.

Haundien multxoan zen Lafitte: bera **kurritzale** haundia, eremaiten ginituen gogotik Larresoroz haindiko Ezkandarat edo "Deubruaren Zubia" deitua ginuen larre batetarat edo erakasle freretako eskolako plazarat pilotan artzerat. Herria

---

# kurritze *iz* ibiltzea.

Opor edo bakantza denboran, gorputza bera heziz arimarekin batean, egiten zituzten balentria ederrak, xintxuketa, **kurritze,** kanpo-lan eta nekatze... hainbestetaraino nun bilakatzen baitziren gazte horiek zailtasun eta trebezia haundiko putiko gogor, berdin aintzinean guriki haziak izanak ziren hiritarki batzu ere. Herria

Ütürzehetako lepoaren (1573 m) eta Otsogorrigaineren (1923 m) arteko hara-honaka dügü eginen, hots hegiz-hegi **kurritze** bat, nekezia handirik gabe eta lanjerik batere gabe. Herria

---

# kurrixka 1 *iz* kaioaren eta beste zenbait hegaztiren oihu zolia.

Kaioen **kurrixka** etengabeak entzuten ziren. Anjel Lertxundi

Begiak itxita eta geldi-geldi segitzen nuen nik, kaioen **kurrixkak** bezalako hots desatsegin haien erauntsia noiz bukatuko. Anjel Lertxundi

Kaio-saldo goseti baten **kurrixkak:** halakoxea zen hotsen anabasa hura. Anjel Lertxundi

Zenbaitetan, gehiegi hurbilduz gero, eraso egiten zioten belatzek [...], binaka edo hirunaka, txilio garratz eta **kurrixka** sarkorren artean, ingurutik uxatu arte. Imanol Zurutuza

Indioilarra aterpearen aurreko esparruan, eta haren **kurrixkak,** tximistak atsegin ez dituelako. Joxe Austin Arrieta

**2** (bestelakoenak)

Zerriei gero eta **kurrixka** urratuagoak eraginaraziz. Anjel Lertxundi

*ik* kurrinka.

Entzun, berriz, hauxe besterik ez: haizea, hondarretako xaguen **kurrixkak** [..], eta sugandilaren bat edo besteren firrindarak. Joxe Austin Arrieta

Bizikletak nonahi; autoak ere asko; hango umeen negarra eta **kurrixka;** neska begiargi askoak, mototsak ederki bilduta, eta gu kiriketan haiekin. Pako Aristi

Jendearen **kurrixkak** eta oihu lazgarriak segidan. Anjel Lertxundi

Biek ala biek uretarantz jo zuten, **kurrixka** bizian lasterka eta ipurdi-bistan. Mirentxu Larrañaga

**3** (gurpilena)

Hiltzailearen autoa gurpilen **kurrixkaz** airea erre beharrean sentitu nuenean ere, ni ez nintzen jiratu. Anjel Lertxundi

Gurpilen **kurrixkek** motor zahar haren zaratak ezkutatu zituzten une batez, eta pixkanaka itoz joan ziren, kalea utzi zutenean. Joxemari Urteaga

**4** (hitz elkartuetan)

Itsas pasealekuko balkoi horietako batean nengoen, geriatrikotik irteten utzi baitidate, eta, kaio- **kurrixkak** entzunik, begiak jaso ditut. Anjel Lertxundi

**5 *kurrixka egin*** ik **kurrixkatu.**

Akuilu luze batzuk baliaturik gidatzen zituzten ur-ertzeraino, harik eta zerriak, ura sentitu orduko, **kurrixka egin** eta ihes zoroan hasten ziren arte. Anjel Lertxundi

Durundi egiten du kanpaitxoaren hots zoragarriak; aireak, txiki-txiki eginik, **kurrixka egiten** du eta haize bihurtzen da. Jose Morales

Zerriek ez zuten **kurrixkarik egiten**. Anjel Lertxundi

· **Kurrixka** txikiak **eginez** hitz egiten zuen, eta lerdea oretzen zitzaion aho ertzetan. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kurrixka bat atera** (3)

---

# kurrixkatu, kurrixka(tu), kurrixkatzen du *ad* kurrixka egin.

Gurpilak **kurrixkatuz** frenatu behar izan zuen, bat-batean, espaloi eta bidearen ertzean eroritako zerraldoa ez harrapatzeko Joxemari Urteaga

---

# kurruk (onomatopeia) *iz*

Goseak amikatuak txitxipapetan batetik bestiala **kurruk,** uzker eta zurrut, arraileria, potroiska eta horderia nasai. Jose Angel Irigaray

---

# kurrukaka *adlag* urrumaka.

**Kurrukaka** hasi ziren usoak. Joxan Elosegi

---

# kurrukuku ik **kukurruku.**

---

# kurrun txerramaren oihuaren onomatopeia.

**Kurrun** -txerramak elurretan muturra sartu, usin egin eta, inora begira, pentsakor gelditu zen. Pablo Sastre

**Kurrun..** . Pablo Sastre

**kurrun:** txerrama zalu-zalu heldu, amonak bizkarra ferekatzen ziolarik saihetsak haren hankaren kontra igurtzi zituen; kontentu zegoen, pixka bat argalduta baina. Pablo Sastre

---

# kurruska *iz*

Hargatik, etxean muin- **kurruska** eta senarra Etxarritik itzultzen zela beha egoteari bide aspergarri hura nahiago zuen. Itxaro Borda

**kurruskarazi**, kurruskaraz, kurruskarazten du *ad* kurruskatzera behartu.

Aurpegi alegera zuen notarioak, mahaitik zutitzera zihoala, aulkiak **kurruskaraziz**. Itxaro Borda

**kurruskatsu** *izond* kurruskatzen dena.

Ogia eta gurin-budina, mahaspasaduna, eta gainean ogi-koskor **kurruskatsuak** eta guzti zituena. Mirentxu Larrañaga

Gero, pastelak, galletak, gerezi tartak, arbendol opil **kurruskatsuak,** arto bizkotxoak, lodiak eta horiak, izan zituen saltzeko. Karlos Zabala

Eta, haren aurrean, odolki **kurruskatsu** hau dastatzen ari naizen bezala, dastatzen ditut elkarrekin enbor berean bat egiten gaituzten lanbidearen obligazioak ere. Josu Zabaleta

Hiru ginen: Israel, Gavoille eta hirurok, azal beltz eder **kurruskatsu** hura gozatzen. Josu Zabaleta

Bi nesketariko batek, gizona iritsi zenean kantari ari zenak, egunkari bat erakutsi zion, eta barre txikiak eginez, ahoskera **kurruskatsuz,** honela esan zion: "Paris! Jon Muñoz

**kurruskatu**, kurruska(tu), kurruskatzen da *ad* gauza hauskorrek kirrinka egin.

Gero etxe osoa zeharkatu zuen, bere oin biluzien pean **kurruskatzen** zen zurezko zoruaren zaratak eta lurrak kontatzen zizkioten sekretuak bereganatu nahian. Harkaitz Cano

**kurruxka** *iz* kurrixka, oihua.

Adi zeru goian kurrilloen **kurruxkari:** goldea sartzeko garaia duzu, euria laster dator-eta. Pello Zabala

**kurruxkari**[1] *izond* kurrinkaria.

Txerri **kurruxkariengandik** ehun metrora zeuden bi gizonak Western Rowko aterpe baten atzean. Anton Garikano

**kurruxkari**[2] *izond* kurruskatzen dena.

Irakiten jarri zen idisko hura, txerri-hankak (bezperatik ardotan beratuak), zapal-zapal eginik, oilaskoaren erre-punttu **kurruxkaria** hartzen ari baitzitzaizkion. Xabier Olarra

kursi ik **kurtsi**.

kursikeria ik **kurtsikeria**.

kursilada ik **kurtsilada**.

kursileria ik **kurtsileria**.

kurso ik **kurtso**.

**kurtsa** **1** *iz ipar* laskerketa.

Frantziako xapelketarentzat bali da Hazparneko **kurtsa** hau eta urtetik urterat omen haundia biltzen ari du. Herria

Danilo Di Luca 29 urteko txirrindularia *Waloniar fletxa* deitzen den **kurtsa** irabazi duena. Herria

Astelehen aratsetan: behi **kurtsak** edo lasterrak. Herria

Zaldi **kurtsa** edo lasterketak ere debekatuak. Herria

Igandean 22an, egun guzian, ezker pareta inguruan, auto **kurtsa,** bihurgunetako zoingehiagoka. Herria

**2** ***zezen kurtsa*** zezenketa.

Zezen **kurtsarik** izanen ote da aurten! Anton Garikano

**kurtsi** *(31 agerraldi, 16 liburu eta 2 artikulutan -eratorriak barne-; orobat* ***kursi*** *14 agerraldi, 11 liburutan –eratorriak barne-) izond* pinpirin-ustea, dotore-ustea.

"Begiak eder-ederrak ditu"... mesedez, Joseba! hau oso **kurtsia** duk! Bernardo Atxaga

Barregarria eta **kursia** da! Antton Olano

-Bai tradizionala eta **kursia** haizela, Joan! Antton Olano

Duintasuna, hitz **kurtsiegia** da? Iñigo Aranbarri

**Kurtsi** hutsak dira, morbosoak, makabroak. Ramon Saizarbitoria

Orduan behintzat **kursiak** iruditu zitzaizkidan erabat, erromantizismo melenga, belaska eta ñaño batez eginak. Xabier Mendiguren Elizegi

Nitaz burlatzen zen ahal zuenean, Beatlesen musika **kurtsia** entzuten nuenean batez ere. Mikel Hernandez Abaitua

Izan ere, emakume hark hain nindukan liluraturik, non esaldirik **kurtsienak** ateratzen baitzitzaizkidan, euskal kantutegi zaharretik ateratakoa bat edo beste, neure maitasun neurririk gabekoa adierazteko. Joan Mari Irigoien

Amoranteen hizkera partikularrak agintzen duen bezala, izen berezi bezain **kurtsia** eman zioten gainari: "Alpujarretako Errege-Erreginen Gaztelua". Joan Mari Irigoien

Hizkuntza bat bestearekin erkatzean konturatzen zara berbek ez dutela berdin funtzionatzen, batean iradokitzaile dena bestean **kurtsia** dela, edo batean biribila den esamolde bat bestean ahula dela. Ana Urkiza

## **kurtsiba** *iz* letra etzana.

**Kurtsibak** nireak dira. Anjel Lertxundi

Hogei bat orrialde ziren, hainbat ataletan banatuak, bakoitza bere sail eta azpisailekin, denak letra beltxez, **kurtsibaz,** azpimarrez, tarte xuriez eta ordenagailuak gisako lanei ekartzen dizkien gainerako miragarriez hornituak. Aingeru Epaltza

## **kurtsibo** *iz* letra etzana.

Kontrakorik esan ezean, Bibliako hitzak (zuzeneko aipamenak eta zeharkako erreferentziak) **kurtsiboz** eman dira testuan, dagokien aipamena oharrean jarriz. Askoren artean

Testu honetan Bibliako aipamenak letra normalez ematen dira, eta San Frantziskok egindako aldaketak **kurtsiboz**. Askoren artean

## **kurtsikeria** *(orobat **kursikeria**)* *iz* kurtsileria.

Beraz, pozgarria da muntaia hau beste behin plazaratu izana, oso gutxitan sortzen direlako frankismoaren absurdoa, zapalkuntza pertsonala eta **kurtsikeria** neurrigabea zorrotz jasotzen dituzten antzezlanak. Berria - Kultura

Ez dut **kursikeriarik** botako hasiberriaren kemenaz eta entregaz. Unai Elorriaga

## **kurtsilada** *(orobat **kursilada**)* *iz* gauza kurtsia.

Ez da beti oso erraza samurtasunaren eta **kurtsiladaren** arteko muga hori ondo bereiztea. J.M. Olaizola "Txiliku"

*Hitz-gozo* esatea beste zerbait da, *hitz-goxo* deitzea **kurtsilada** hutsa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina **kurtsiladak** esateko lotsa ez da leku guztietan neurri berarekin neurtzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

## **kurtsileria** *(orobat **kursileria**)* *iz* kurtsia denaren nolakotasuna; gauza kurtsia.

Eta deskribapenak **kursileria** txepel bat dela iduri lezakeen arren, ederra da maitemina. Unai Iturriaga

Irakurketaren hori izugarrizko aurkikuntza izan zen mutiko harentzat, mundura salto egiteko leiho zabaldua, **kurtsileriaz** esan ohi den bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

## **kurtsilo** *(orobat **kurtsillo**)* *iz* ikastaroa.

Gizajoa ni, autoestimako **kurtsilo** batera gonbidatu nau neskalagun batek. Patziku Perurena

## **kurtso** *(orobat **kurtsu** g.er. eta **kurso** g.er; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kurtso** agertzen da)* **1** *iz* ikasturtea.

Hamabost urte zituen Anak, baina bi **kurtso** galduta jadanik, eta hirugarrena galtzeko bidean zen. Iban Zaldua

Leireren ikastolan ikasten zuen, **kurtso** bat aurrerago. Joan Mari Irigoien

1963, 1964 eta 1965eko **kurtsoetan** batez ere (azkeneko hiruretan, beraz), bost laguneko "koadrilla" hertsi bat antolatu genuen. Txillardegi

Bigarren **kurtso** hartan bertan, banan-banan hasi ziren euskal presoak askatzen. Joxerra Garzia

Gaztaroko nahas-mahasean, medikuntzako bi **kurtso** egin zituen, baina haietatik ez zeukan oroitzapen ttikiena ere. Fernando Rey

Baloi gutxiago eta liburu gehiago erabili beharko zuela **kurtso** hau pasatu nahi bazuen. Joseba Sarrionandia

DBHko **kurtso** bakoitza (lau guztira) behin bakarrik errepikatu ahal izango da.

Ikas toki bat topatu behar dizugu, **kurtso** erdian jasoko zaituena. Jesus Mari Mendizabal

**2** ikastaroa.

**Kurtsoak** urtean zehar ere ordain daitezke (aski da RIB bat ekartzea izen ematean hilabetero ordaintzeko). Herria

Berak irabaziko luke etxeko dirua eta emazteak eguna idazten pasatzen luke, eta behar baldin balu joango litzateke **kurtso** bat edo konferentzia baten ematerat. Ana Urkiza

11:00etan Sokoburuko merkatuan *Cook It* izeneko sukaldaritza **kurtso** berezi bat segitzeko aukera emanen dute. Berria - Kultura

**Kurtso** guziak Elgar Zentroan emanak izanen dira. Herria

Euskarazko **kurtsoak** segitu nahi dituztenentzat ez da oraino berantegi. Herria

Koxe Perez erakasleak 1992an sortu zuen Euskal Herriko Arte Martzialen elkartea, **kurtso** elebidunak (euskara/frantsesa) eskainiz. Herria

**Kurtso** horiek deneri idekiak dira eta hiru mailetan antolatuak. Herria

**Kurtsoaren** antolatzaileetako bat. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zein luzeak **kurtso** orduak! Ramuntxo Etxeberri

Hilabetean 3 **kurtso**-egun badira (328 ordu urtean). Herria

Unibertsitateko erakasle, kontsultatzale eta hezitzaileak dira **kurtso** emaileak eta banakako ikasle segitzan arduratzaileak. Herria

Nire ikaskideek **kurtso**-amaierako bidaia zeukaten prestatua. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskerrak **kurtso** bukaera zen, eta fakultatera ohi baino gutxiago agertzen nintzen. Iban Zaldua

**4** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa*

Nik bistaz ezagutzen nuen, biok filologia **kurtso** bera egin genuelako. Joseba Urteaga

Erran behar da ere musikarien taldea osatzeko, gitarra **kurtso** berezi bat sortua dela horko kantuen akordioak ikasteko. Herria

Bestalde, gazteriari dagokion guztia Udalaren esku dagoela dio: eskiatzera joateko ateraldiak, antzerki **kurtsoak** eta abar. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

kurtso berezi (3); kurtso sail bat (3)

dantza kurtsoak (3); euskarazko kurtsoak (7); ikasteko kurtsoak (3); kantu kurtsoak (4); kurtsoak antolatzen (4); kurtsoak ematen (5); kurtsoak hartu (3); kurtsoak hartzen (5); kurtsoak proposatzen (3); musika kurtsoak (3); txalaparta kurtsoak (4)

kurtsoen hasiera (3)

azken kurtsoko (4)

**kurtsoaldi** *(orobat* ***kurtso aldi*** *g.er.)* *iz* kurtsoa.

Udazkena sartu berritan justu, **kurtsoaldi** berrirako eraldaketak etorri ohi ziren. Arantzazuko fraideok erabaki genuen, hiruzpalau taldetan, bi hilabeteko **kurtsoaldia** egin behar genuela Liebanako gure komentuan, Potes aldean, menditzar handien itzalean. Pello Zabala

---

**kurtsore** *iz* ordenagailuaren pantailan, seinale mugikaria, erabiltzailea zein kokalekutan ari den lanean adierazten duena.

Egoteko keinua egin eta, xagua maneiatuz, **kurtsorea** pantailaren goialdeko laugarren leihatilaraino gidatu nuen. Aingeru Epaltza

**Kurtsorea** keinuka ari da ordenagailuko pantailan. Antton Olano

**Kurtsoreari** beheiti eginarazi nion pantaila berde minean. Aingeru Epaltza

Pantailan, **kurtsoreak,** nire hatzaren agindura, beheko paragrafora egin zuen jauzi. Aingeru Epaltza

Aurreko guztia **kurtsoreaz** bildu, eta ezabatzekotan egon naiz. Anjel Lertxundi

**Kurtsorearen** ondoan hau irakur zitekeen: [...]. Aingeru Epaltza

---

kurtsu ik **kurtso**.

---

**kurtze** *iz* gurutzea.

Butroiko gaztelutik kilometro bat ingurura, eta Butroiko **kurtzea** deritxonetik Laukizerantz. Xabier Amuriza

---

**kurubilka** *adlag* kiribilka.

Bularraren gainean, behiala **kurubilka** uzkurtzen nintzen gunean. Joxan Elosegi

Kolorezko suak dantzarien gainean **kurubilka**. Karlos Zabala

---

**kurubilkatu,** kurubilka(tu), kurubilkatzen da *ad ipar* kiribilkatu.

Plastikozko sokatik dilindan ziren ohe estalkiak hartu zituen mutikoak eta estalkietan **kurubilkatu** zen gurasoek beren ondoan egin zioten zokoan. Aurelia Arkotxa

Euriaren hezetasuna eta hotza hezurretaraino sarturik, luzaz egon ziren aterbean, ahal bezainbat **kurubilkaturik** edo tzukuturik eta, halaxe, ilundu gabe lokartu ziren. Eneko Bidegain

Espainiara itzuli ondoan ikusiko du nola Frantzia urratzen duten erlisioneko gerlek, urrun hedatzen delarik heresiaren beldurra, eta Espainietako erreinua **kurubilkatzen** bere baitan, arnasarik ezin hartuz, Toledoko Artzapezpikua bera preso sartzeraino. Piarres Xarriton

---

**kurukuruka** **1** *adlag* kikiriki edo kukurruku eginez.

Oilategiko atea klaskarazi zuen, oilo kolokak eta oilar nagiak **kurukuruka** beren habietarik ihes izutuan abiatzen miretsiz, belar flokak eta luma arinak altxarazten zituztela. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Emazteak egunaz han [errekan] biltzen ziren, **kurukuruka** eta plista-plasta boketan. Berria - Kultura

---

**kurutx** *(orobat* ***kutx****)* **1** *iz*

Hezurra **kutx** bada "suerte"da, pil bada "culo" eta xutik gelditzen bada irabaziak bi edo hiru aldiz handiago dira. Herria

**2** ***kurutx ala pil*** *adlag* txanpon edo kideko bat airean bota eta zein aldetik eroriko den lurrera asmatzean datzan jokoan.

**Kurutx** ala pil. Patxi Iturritegi

**Kutx** ala pil! Ramuntxo Etxeberri

Film bat ikusi behar eta, **kutx** ala pil, "Le silence des agneaux" hautatu nuen. Daniel Landart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kutx ala pil (5)

---

kurutz ik **gurutze**.

---

kurutzada ik **gurutzada**.

---

kurutzamen ik **gurutzamen**.

---

kurutzamendu ik **gurutzamendu**.

---

kurutzarazi ik **gurutzarazi**.

---

kurutzatu ik **gurutzatu**[1].

---

kurutzatze ik **gurutzatze**.

---

kurutze ik **gurutze**.

---

kurutzebide ik **gurutzebide**.

---

kurutzedun ik **gurutzedun**.

---

kurutzefika ik **gurutzefika**.

---

kurutzefikatu ik **gurutzefikatu**.

---

kurutzetxo ik **gurutzetxo**.

---

kuruzatu ik **gurutzatu**[1].

---

**kusi** *(orobat **kusu** g.er.)* **1** *iz ipar* lehengusua, gizonezkoa nahiz emakumezkoa. ik **kusu**.

Joan behar genuke New Yorkeko **kusiengana**. Itxaro Borda

Hamasei urte zituela Pierra Puttu bere **kusiak** bortxatu zuen. Itxaro Borda

Haiekin ene **kusi** Kontxita. Janbattitt Dirassar

Senpereko hire **kusi** Beñatenak. Janbattitt Dirassar

Zu eta ni **kusiak** bezala gara, nire amaren ahizpa bat zure osaba Martin Ithurbiderekin ezkondua baita. Elena Touyarou

Hiru emazteek -alarguntsa, alaba eta **kusia** - ahantziko dituzte Frantzian zituzten burjes ohidurak eta bakoitzak bere bizia eramanen du: alarguntsak artista minkor batekin, **kusi** mutxurdinak Araba gazte baten besoetan, [...]. Herria

Orain, ordea, ene **kusu** Hamlet, ene seme... Juan Garzia

Bapo al da gure **kusu** Hamlet? Juan Garzia

**2** ***lehen kusi*** *(orobat **lehenkusi** g.er.)* lehengusu propioa.

Constante ene **lehen kusiaz**, egun 86 urte dauzkanaz. Herria

Duela 64 urte sortua zen Jakes, Behorlegi Etxeparean; auzapez zenaren **lehen kusia**. Herria

Espainiako erlojupekoan, Iñigo Chaurreau pasaitarra da nagusitu, hunen **lehenkusi** Mikel Astarlozak hirugarren egin duelarik. Herria

50 urtekoetan hain xuxen gure bi herritar baginituen, bi **lehen kusi**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lehen kusia (4)
> carricart kusiak (4); lehen kusiak (3)

---

**kusin** *iz* emakumezko lehengusua.

Eta Maritxu egona zen etxetik kanpo, **kusina** baten etxean omen. Herria

Nere izaba zena Mattinen **kusina**. Herria

---

**kuskaka** *adlag* kolpeka.

Errain-ukaldika goiti eta beheiti mugitzen hasi zen, uhinka, neskaren uzkia eta bere garbots pare hantua elkarren kontra **kuskaka** sentitzen zituela. Itxaro Borda

---

**kuskaldi** *iz* kolpea.

Zuk salbatzailearena egiten duzu! -erran nion mutikoari eta Xaxi are fermukiago laztandu zuen, musuaren denboran hortzen **kuskaldiak** eta mihien plisti-plastak hauteman nitzakeelarik. Itxaro Borda

---

**kuskandel** *(orobat **kuskandela**)* **1** *iz*

Eskola garaietan, eguerdi aldera, harri zorrotz ukaldika erdizkatzen genituen **kuskandelen** zauri mutuak. Itxaro Borda

Ez naiz X3C izarbeletik etorri eta idazlez itxuraldatu den V **kuskandela** ikaragarria. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

V izeneko eta **kuskandel** itxurako estralurtarrak. Itxaro Borda

-Mintzatzen ahal xira xu -ihardetsi zidan bortitz-, eta frondan bildu harri zorrotzekin **kuskandel** buztan ebakitzera abiatzen zineztelarik, ikasle ona xinen? Itxaro Borda

Amerikar film askori esker egia erran, galaxiatik kanpoko izaki horien seinalakuntza zehatza baneukan: **kuskandel** larrua, suge mihi eztena, dinosauro beso eta zangoak, ezpata laserdunak eskuan zebiltzan eta bip-bip zaratatsuak kasko gainean. Itxaro Borda

---

kuskatu ik **koskatu**[2].

**kusku** *(orobat* ***kuxku*** *g.er.)* **1** *iz* maskor bikoitzen aldeetako bakoitza; maskorra.

Etxearen aitzinaldea maskor beltz baten **kusku** bakarra zen, eta ate arkupeduna belarri entzule bat. Koro Navarro

Hemen ere, harrimuga eder bat, Santiago **kuskua,** itsas hegiko harroketan oskolak bezal-bezala aztaparrez lotua, hamar eriko eskua iduri duela. Piarres Aintziart

Orduan Jakobe Apostolua agertu zitzaion, iturria gidatu zuen eta edatera eman **kuskura** . Piarres Aintziart

Urrezko **kusku** edo maskorra Txileko filma batek ardietsi du, "Taxi para tres" deitzen denak. Herria

**2** (barakuiluarena)

Adarrak kilikatzen badizkiozu, barakurkuilua bere **kuskuan** sartzen da. Janbattitt Dirassar

**3** ontziez mintzatuz, kroskoa.

Sailkapen nagusian, hamekagarren atera dira **kusku** bakarreko untzien artean. Herria

Besteak baino aise zalhuagoak dira bainan aro txarrarekin ez dute denek **kusku** bakarrekoak bezen aise ihardokitzen. Herria

Zurezko **kusku** hauskor batean ihes zihoazen bi gizon ziren, baina zergatik jakin gabe, bere baitan zerbaitek erraten zion beren helmugara sendo iritsiko zirela. Elena Touyarou

Motorra gelditu zaio bat-batean eta haize ukaldien gatik kokaturik gelditu da portuko digaren kontra pare bat orenez eta bere **kuskua** hiru lekutan zilatua izan du. Herria

**4** zenbait fruitu, hazi edo kidekoren oskola.

Espezia anitz bada han: kanela, gingenbra, hitze, eltzaurra muskada, han "mazia" daritzaten eltzaurraren **kuskua,** eta zedoarra. Aurelia Arkotxa

**5** irud/hed

Gerla baten ondotik, bakea izenpetzean, galtzen duenak zer edo zer irabazi nahi du eta hor dira gatazka-hoziak beren **kuskuetan** gogortzen. Itxaro Borda

Bizitza bera da heriotza horren **kusku** babesle, umetoki egoki eta hazkuntza-zukua. arima biki bi, nor bere oinazearen **kuskuan** bilduta Jon Alonso

**6** zeta harrek, darien hariarekin egiten duten estalgarria

Gero **kuskuan** bildu, eta udaberrian tximeleta gris itsusi baten itxurapean irten da. Juan Garzia

Gero, hisiak bultzatuta, **kuskuan** gordetako tximeleta ahularen egoskortasunarekin, barnean eta ezkutuan zeukan edertasun guztia koloreztatzen joan zen hurrengo urteetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sabaiaren erdian argi-armiarma bat zegoen, artile zarpailezko zorro batean bildurik, zeinari seda-harraren **kuskuaren** antza ematen baitzion hauts ugariak. Jose Morales

**7** irud/hed

Ez da beraz egia euskal jendea bere **kuxkuan** egoiten ohitua dela, bainan izaitekotz dakiela munduan nun nahi bizitzen. Herria

**8** loreez mintzatuz, pipila.

Alabaren bularrak azkenekoz ikusi zituen aldian sei urteko neskato baten arrosa-**kusku** herabeak baino ez ziren. Oskar Arana

---

**kuskuilatu** *izond* ik **kurkuilatu**.

Nondik jalgi datazue apo zahar **kuskuilatu** hau? Itxaro Borda

---

**kuskuilu** *iz*

Barau egiten zuen beti; gero, igandeetan, **kuskuiluak,** zainak eta xomorroak jaten zituen. Bernardo Atxaga

---

**kuskula** *iz* ezkertearen familiako landare bizkarroia, zurtoina hari itxurakoa duena*(Cuscuta epithymum).*

Han begien bistatik galtzen dituzte; hemen argigune batean amaitzen dira, non **kuskula** suntsitzailea, bizkarroi maltzurra, alpapa zintzoen izurritea, hari gorrizko bizarra zabaltzen ari baita. Itziar Otegi

---

kuskurtu ik **kuzkurtu**.

---

**kuskus** *(orobat* ***kus-kus*** *eta* ***couscous*** *g.er.)* *iz* arabiarren janaria, gariaren semolarekin edo arrozarekin, hegazti edo arkume haragiarekin eta hainbat barazkirekin prestatzen dena.

**Kus-kusa,** tabulea, tofua, moussaka, risotto eta arroz minak, taloen antzeko takoak, haragi gazi-gozoak, kebaba, fruta eta barazki exotikoen erabilera... eguneroko otorduetan eskaintzen dizkizute jatetxe askotan. Edorta Agirre

**Kuskuserako** behar zuen ardikiaren erosten. Itxaro Borda

Bere sukaldean **kuskusa** jaten ari ginela. Itxaro Borda

Eskukadaka jaten dute **kuskusa** zurezko ontzitik harturik. Xabier Montoia

Tea eta **kus-kusa** egiteko gunea. Erranen duzu irakurle, **kuskusa** ez dela aise ezkontzen ardi gasnarekin! Itxaro Borda

Hango **kuskus** usainak gosea piztu dio, hango doinuen oihartzunak alaitu. batak besteari gaileta datilekin, **kuskus** platerkadak eskaintzen zizkioten. Patxi Zubizarreta

Edmeak ardi-gasna zatiak oparitzen zizkion Fadilari, honek bideko eskaintzen **zion** couscous puskaren trukean. Itxaro Borda

---

kuskusean ik **kuxkuxean**.

---

kuskusero ik **kuxkuxero**.

---

**kuso** *iz* arkakusoa.

Ez **kusorik,** ez zorririk, ez halakorik. Edorta Jimenez

---

**kustodia** **1** *iz* zaintza, zaingoa.

Anai Jordanek, Würzburgera iritsirik, bere **kustodiako** anaiei mandatua bidali zien, baldin eta berarekin mintzatzeko premia bazuten, Eisenachera joan zitezela esanez, handik igaro behar zuela eta. Askoren artean

Anai Jordan, Turingiako **kustodia** Saxoniako kustodioaren esku utziz eta Rhineko ministro Otonen obedientzia-gutuna hartuz, Ministro jeneralagana abiatu zen lagun batekin, beste ministro bat eta irakasle bat eskatzera. Askoren artean

Bertan anai Nikolas Saxoniako **kustodiatik** aske utzi eta bikario izendatu zuten, eta anai Leonardo lombardiarra jarri zuten haren ordez. Askoren artean

· Faleroneko anai Jakobo, santutasun handiko gizona, oso gaixo zegoen Fermoko **Kustodian** Moglianoko komentuan. Askoren artean

**2** ostia sagaratua jenduarrean erakusteko tresna, eskuarki urrezkoa.

Eguzki Santuak, **kustodietan** ageri den apaingarri horrek, erakusten du segurki beste deusek ez bezala, lehenagoko praktika zaharra eta erlijioaren eraginez sortutako berria nola nahasi diren elkarren artean, bide bat eta bakarrera bilduz biak. Pello Salaburu

---

# kustodio *iz*

Frantziskotar historian zehar, **kustodio** hitzak zabalera ezberdina izan du, baina **Kustodioei** gutuna Anaia txikien Ordenako nagusi guztiei orokorrean idazten die Frantziskok. Askoren artean

**Kustodioa** (*custos*=zaintzaile) deitura ez da besteak bezain zehatza. Askoren artean

Hainbat kasutan ministro eta **kustodio** bikotean [...] ez dira bata bestearengandik bereizten. Askoren artean

Zenbait kasutan, **kustodio** eta goardiano ere parekaturik ematen dira. Askoren artean

Anai Jakobo, Alsaziako **kustodioa,** ezarri zuten Saxoniako bigarren **kustodio** bezala. Askoren artean

Anai Martzio Frankoniako **kustodio** izendatu zuten. Askoren artean

Pian del Carpineko anai Joan, beraren **kustodio**-kargutik aske, Koloniara aldatu zuten. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ministro eta kustodio** (3); **saxoniako kustodio** (3)

---

# kusu ik **kusi**.

---

# kuter *(orobat **cuter**)* *iz* kartoia eta kidekoak gainalde lau batean mozteko tresna, euskarri batek eta bertatik atera daitekeen xafla aho-zorrotz batek osatua.

Presoak esan zuen Langraizko funtzionarioek **kuter** bat sartu ziotela, «onena lepoa moztea» zuelako. Berria - Euskal Herria

Gazteek labana bat, **cuter** bat eta hautsitako botila lepo bat zuten. Berria - Euskal Herria

---

# kutixi ik **gutizia**.

---

# kutixia ik **gutizia**.

---

# kutixiatu ik **gutiziatu**.

---

# kutizia ik **gutizia**.

---

# kutizioso ik **gutizios**.

---

# kutre **1** *izond* arlotea, itxura txarrekoa.

Cher eta Madonnaren hamaika imitazio **kutre** eder ikusi ditugu. Harkaitz Cano

Orain hurrengoan, zapeatzen ari nintzela, orain arteko gauzarik **kutreena** ikusi nuen telesbistan... Iñigo Aranbarri

-Hau duk mobida **kutrea,** tio! -dio batek. Pako Aristi

Almodovarren film zaharren estilo **kutre** hori hartuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Ukitu **kutre** eta surrealista samarra. Berria - Kultura

Pentsamendu moderno frantses nazkagarriaren eta folklorismo espainolik **kutreenaren** ezaugarriak biltzen jozak pertsona bakarrean. Unai Iturriaga

Mundua jango duela uste duen edozein taldek izan dezakeen bezalako lokala zen hura, hots, **kutrea**. Unai Iturriaga

**Kutrea** da, topikoa da, gayen kontu hori bereziki merkea atera zait. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** *iz* pertsona kutrea.

Metroko pasadizoak horrelako hiri batek soilik erdi ditzakeen freaky eta **kutreez** ereinda daude. Eider Rodriguez

---

# kutrexka *izond adkor* kutrea.

Benidormen antz handiegia hartu du kale honek, baina inguruetan bada oraindik zulo **kutrexka** eta interesgarririk. Harkaitz Cano

---

# kutsadura *(orobat **kotsadura** g.er.)* **1** *iz* norbaitengana edo zerbaitera, kalte egiten dion edo berezkoa ez duen zerbait helaraztea; helarazte horren ondorioa.

Gorputzaren **kutsadura** orotik arima zainduz, grina txarren sugarretatik urruti. Imanol Unzurrunzaga

Arimen **kutsadura,** sexu-perbertsioak, ezkon-desordenak, adulterioa eta lizunkeriak.Ur garbiz zipriztinduko zaituztet eta garbi geldituko zarete; zuen **kutsadura** eta idolatria guztietatik garbituko zaituztet. Elizen arteko biblia

Ixtorio bat kontatu eta errepikatzeko eskatu nionean, gero eta modu nahasiagoan kontatu zuen, gero eta **"kutsadura"** eta lotura oker gehiago gehituz. Xabier Olarra

Arraza izpiritual hori, kanpoko **kutsaduretatik** baino lehen eta gehiago, barruko lohietatik behar da garbi-garbi mantendu. Joxe Azurmendi

Hizkuntza gertaera horiek **kutsaduraz** zabaldu ziren, eta baliteke uhin guztiei dagokienez ere hala gertatzea; uhinak, puntu batetik atera, eta hedatu ohi dira. Isabel

Arrigain

Santuak ez bezala, ez dauka damutu beharrik; damuak iraganaren **kutsadura** dakar. Joseba Zulaika

Ezagutzaren eraikina altxatu nahian, sustraiak garbi-garbi gura zituen, inolako kutsu aristoteliko edo sen onaren **kutsadurarik** gabe Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Asian aspaldi izan zituzten hegaztietatik katuetarako **kutsadura** kasuak. Berria - Gaiak

Txinan aurki daitezke, agian, HIESaren **kutsadura** mailarik garaienak, zenbait tokitan bederen. Pello Salaburu

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berdin, zerbait kutsatua ukitu ondoren -giza **kutsadura** dela, abere- **kutsadura** edo beste edozein **kutsadura** higuingarri dela- Jaunari eskainiriko elkartasun-opariko haragia jaten duena, herritik bota egingo dute. Elizen arteko biblia

Gizonezkoaren sexu- **kutsadura** . Elizen arteko biblia

Agindu israeldarrei edonolako lege- **kutsadura** dutenak -legena edo sexu-jarioa dutela edo gorpu bat ukitu dutela- kanpalekutik urruti botatzeko. Elizen arteko biblia

Zeinen ahulak diren goranzko ekonomiak munduko finantzen gorabeheren eta horien ondoriozko **kutsadura** efektuen aurrean. Koro Navarro

**4** ur, egurats, janari edo kidekoetara, izaki bizidunen osasunari kalte egiten dien elementuak helaraztea; helarazte horren ondorioa.

Hazkundeak **kutsadura** eta baliabide fisikoen kontsumoa bideratzen du. Iñaki Heras

**Kutsadurak** hartz zuriaren immunitate sistema ahuldu du, eta aldaketa hormonalak eragin dizkio. Berria - Gaiak

Munduan, urtero 24.000 ume hiltzen dira hirietako **kutsadurak** eragindako gaixotasunen eraginez. Berria - Gaiak

Larruazalak, hala ere, aurre egiten die oraingo eraso kimiko gehienei, bai atmosferako **kutsadurak** eraginei, eta bai xaboi, garbigarri, desodorante, hauts eta bestelako gaiek eraginei. Irene Aldasoro

Ozono-geruzaren arazoa, uraren eta lur geruzaren **kutsadura** . Iñaki Heras

Lurren **kutsadurari** buruzko lege proiektua. Berria - Euskal Herria

Petrolioaren **kutsadura,** isurketak eta iragazketak, baina, delta suntsitzen ari dira. Berria - Mundua

Mokanes zikin bat zuen atxikitzen bere ahoaren aitzinean, bere burua trafiko animalearen **kutsaduratik** babesteko. Ramuntxo Etxeberri

**Kutsadurak** koral guztiak desagerrarazi dituen lekuetan. Berria - Gaiak

Abere industriaren **kutsaduragatik** . Joseba Sarrionandia

Gizartearen esku dago **kutsadura** murriztea. Berria - Gaiak

Errusian bezala, **kutsadura** galarazteko neurri gutti hartzen da Indian. Gotzon Garate

Euri edo **kutsadurazko** laino gris-ubelean. Ramuntxo Etxeberri

Kutsatzen duenak, hasiera batean, **kutsaduraren** gastuei berak aurre egin behar diela esaten duen printzipioa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Kutsaduraren** ondorioak pairatzen ari zen jendea zen. Berria - Kultura

· Boroako zentralak «milioika tona **kutsadura** sortuko ditu, eta gas hori guztia aldaketa klimatikoaren eragile izango litzateke. Berria - Euskal Herria

**5** (izenondoekin)

**Kutsadura** atmosferikoa, hau genuke azken urteotako lorpen tristeetako bat. Pello Zabala

**Kutsadura** akustikoak ere norabide zentzua kentzen die [baleei]. Joseba Sarrionandia

**Kutsadura** kimikoak eragiten ditu minbizi kasu gehienak. Berria - Euskal Herria

Isurketa kronikoek **kutsadura** kronikoa eragiten dutela. Berria - Gaiak

Aral itsasoko **kutsadura** hilgarria dela frogatu dute. Berria - Gaiak

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Plutonio garraioa, lehen EPR (Europako Presio Erreaktorea) eraikitzeko erabakia eta, azkenik, urriaren 12tik 20ra gertaturiko **kutsadura** kasuak. Berria - Gaiak

Nolanahi ere, ontziko erregaia, olioak eta beste hainbat substantzia **kutsadura** iturri arriskutsuak izan daitezkeela gogorarazi dute. Berria - Gaiak

**Kutsadura** -maila arriskutsuak uretan, airean, lurrean eta izaki bizidunengan berengan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Airearen **kutsadura** arriskurik ez dago. Berria - Mundua

Bilbo babesten duen **kutsadura** burbuilak izar akitu bi baino ez du ikusten uzten. Sonia Gonzalez

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Uranio **kutsadurak** bereziki haurrei eragiten die eta 4.500 urte irauten du. Berria - Gaiak

Lohiek onkailu kimikoek baino metalki **kutsadura** gutiago ekartzen badute, [...]. Herria

Aire- **kutsaduraz** gainera, desertizazioa ere ez da urruti izango. Pello Zabala

Argi **kutsadurak** animalia askoren ugalketa funtzioei eta migrazio-jokaerei eragiten diela. Berria - Gaiak

Hirurogeiko urteetan, herrialde industrializatuetan ingurumen **kutsadura** gora eta gora zihoala. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**airearen kutsadura** (5); **argi kutsadura** (5); **eragindako kutsadura** (5); **kutsadura akustikoa** (3); **kutsadura eragin** (3); **kutsadura eragiten** (4); **kutsadura gutxitzeko** (3); **kutsadura handia** (4); **kutsadura iturri** (5); **kutsadura kasuak** (5); **kutsadura maila** (11); **kutsadura maila gainditu** (3); **kutsadura mota** (6); **kutsadura murrizten duten** (3); **kutsadura saihesteko** (7); **uraren kutsadura** (3)

**argi kutsadurak** (4); **kutsadurak eragindako** (4)

**itsasoko kutsaduraren** (3); **kutsaduraren aurkako** (4); **kutsaduraren eragina** (4); **kutsaduraren kontra egiteko** (3); **kutsaduraren ondorioz** (9)

**kutsadurari aurre egiteko** (3)

---

## kutsaezin *izond* ezin kutsatuzkoa.

Barre atakeetarako joera da gizakia animaliengandik bereizten duen ezaugarrietako bat... haiek ez baitira soilik etsenpluaz **kutsaezinak,** baizik eta gaitza hedatzen duten mikrobioek mendean duten esparrua ere irazkaitza dute. Xabier Olarra

Izan ere, gizonak egiten duen oro gizonak kutsatua duk, Jainkoaren izenean bada ere, gizona berez eta izaitez kutsaturik dagoenez gero; ordea, Jainkoak xuxenean egina **kutsaezina** duk, Hura **kutsaezina** delako. Joan Mari Irigoien

---

## kutsagabe *(orobat **kutsatugabe** g.er.) izond* kutsatu gabea.

Eliza santu eta **kutsagabea** . Zorionekoa **kutsagabe** den emakume agorra, legez kontrako harremanik izan ez duena. Elizen arteko biblia

Jakinduria espiritu adimentsu eta santua da, bakarra, jarduera anitzekoa, fina, mugikorra, sarkorra, **kutsagabea,** aldaezina, onzalea, zolia. Elizen arteko biblia

Abere **kutsatugabe** eta kutsatu, hegazti eta lurrean narrasta dabiltzan guztietatik. Elizen arteko biblia

---

## kutsagailu *iz* kutsatzen duen gauza.

Bordeleko kirol-unibertsitateko 35 ikasle arizan dira egun osoan **kutsagailu** horien biltzen, tokiko rafting elkarteen laguntzarekin. Herria

**kutsagarri** 1 *izond* kutsatzen duena.

Gaitz **kutsagarria** da, eta, aldizkakoa bada ere, sendaezina. Xabier Olarra

Gure garaiko gaitza da, hiesa baino askoz **kutsagarriagoa** gainera. Patxi Iturritegi

Ergelkeria **kutsagarria** da. Anjel Lertxundi

Oso algara **kutsagarria** du. Xabier Olarra

Haiek santutegiaren garbikuntza egin zuten eta harri **kutsagarriak** toki lohi batera eraman. Elizen arteko biblia

Nahiz hazia kanpora isuri nahiz barruan geratu, sexu-jarioa beti da **kutsagarria,** eta gizona kutsatu bihurtzen du. Elizen arteko biblia

2 kutsadura eragiten duena.

Errauste planta guztiek, modernoak izanagatik, «gai toxikoak eta **kutsagarriak»** jaurtitzen dituzte. Berria - Euskal Herria

Substantzia kimiko **kutsagarrien** neurriz kanpoko isuriak. Berria - Euskal Herria

Interneten jarri du Jaurlaritzako Ingurumen Sailak isuri **kutsagarrien** erregistroa. Berria - Euskal Herria

Ura arazteko sistemak hobetu direlako eta industria **kutsagarriak** gutxituz doazelako. Berria - Euskal Herria

Galeria eta ziegak kez bete ziren, ke beltz **kutsagarri** horrekin. Jokin Urain

Petroliontzi kaxkarrok batetik bestera gai **kutsagarriz** beteta ibilarazteak. Joxerra Garzia

Erre eta gero, bihurtzen da zaborra **kutsagarri** . Berria - Euskal Herria

**Kutsagarri** Organiko Iraunkorrak (POP), horra itunak gaioi ematen dien izen teknikoa. Berria - Gaiak

Ziklo konbinatuko gasezko instalazio lehiakorrago eta ez hain **kutsagarrietan** . Berria - Euskal Herria

3 itsaskorra.

13 kantuetatik gehienak ez dira hiru minutura ailegatzen, ia denak dira zuzenak eta indartsuak, premiazkoak eta **kutsagarriak** . Berria - Kultura

4 ***ez-kutsagarri***

Txartel "inteligentziadunak", giza genomaren mapa, supereroaletasuna, auto ez **kutsagarriak,** mikroingeniaritza, animalia eta landareen genetika, eta abar. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kutsagarri organiko** (4); **substantzia kutsagarri** (4)
> **gas kutsagarrien** (5); **gas kutsagarrien isuria** (3); **isuri kutsagarrien** (4)

---

**kutsagarritasun** *iz* kutsagarria denaren nolakotasuna.

Barrearen **kutsagarritasuna** esputa direlakoen fermentazio berehalakoaren ondorio dela, listu izpiak xirripaz hedatzen baitira. Xabier Olarra

---

**kutsaketa** *iz* kutsatzea. ik **kutsadura.**

Izan ere, beren buruaz beste egin dutenen berri ematerakoan, **«kutsaketa** emozionala» gertatzen da halako «joerak» dituztenengan, batez ere hildakoa ospetsua bazen. Berria - Euskal Herria

**Kutsaketa** eragin duenak garbiketa eta kutsadura kentzeko lanak ordaindu beharko ditu. Berria - Euskal Herria

Lege proiektuan 1.200.000 euro arteko isunak onartzen dira **kutsaketa** larriak eragiten dituztenentzat, «Itsasoa ez da zabortegia» eta agintarien ardura **«kutsaketak** saihestea da, ez isurketaren zain egotea, gero damu izateko». Berria - Euskal Herria

---

**kutsakor** 1 *izond* erraz kutsatzen dena.

Liebkind Bendelen larritasuna **kutsakorra** zen. Koro Navarro

Hooliganen entusiasmoa **kutsakorra** suertatzen zen orain. Bernardo Atxaga

Eritasun **kutsakorrak,** azken batean, germen espezifiko batzuen erasotik zetozela. Juan Garzia

Amorrua ematen dio gaixo horiek, **kutsakorrek,** hain gutxi kolaboratzeak. Bernardo Atxaga

Ospitaleren baterat igorriko nindutela, gaitza **kutsakorra** zelako. Joan Mari Irigoien

Zergatik ez da gaitza bezain **kutsakorra** osasuna? Patziku Perurena

2 kutsagarria, kutsadura eragiten duena.

Hondakin **kutsakorren** emisio erritmoak ez du ekosistema naturalen asimilazio gaitasuna baino handiagoa izan behar. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gas **kutsakorren** isuriak %4 egin du gora Australian. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gai kutsakor** (5); **gas kutsakor** (10)
> **gaitz kutsakorra** (4)
> **gai kutsakorrak** (6); **gas kutsakorrak** (4)
> **gas kutsakorren** (9); **gas kutsakorren isuriak** (3)

---

**kutsamen** *iz* kutsatzea, kutsaketa.

Gurasoek beren haur izurriztatuak bazterrean hiltzen uzten zituzten eta alde egiten zuten nora edo nora, **kutsamenaren** beldurrez. Gotzon Garate

Lehen ere esana zitzaigun, oso modu ugari bezain iradokigarrietan, gure izaera garbia gorde behar genuela hilzorian zegoen hizkuntzaren hatsa gehiago labur ez zedin; **kutsamenetatik** libratu behar genuela Anjel Lertxundi

---

**kutsamendu** *iz* kutsatzea.

Ia harrespila bezain monumentu aurre-historiakoa da euskara Oteizarentzat, eta haiek bezala irautea nahi luke: hizkuntzak bere-berea duen izaera dinamikorik gabe, bere lehengo hatsean, garbi eta **kutsamendurik** gabe. Anjel Lertxundi

---

**kutsapen** *iz* kutsatzea.

Izan ere, gaitz asegaitzaren **kutsapenak** ez zion batetik bestera saltatzeari uzten, azienda artiledun eta idi saldoetan bezala. Xabier Amuriza

**kutsarazi**, kutsaraz, kutsarazten du *ad* kutsatzera behartu.

**Kutsaraz** zitekeen zenbait bakterio nahiz birus patogenorekin, baina akuria zen bakteriologoen aztergai behinena. Juan Garzia

---

**kutsatu**, kutsa, kutsatzen *(orobat **kotsatu** g.er. eta **kutsutu** g.er.)* **1** da/du *ad* norbaitengana edo zerbaitera, kalte egiten dion edo berezkoa ez duen zerbait helarazi.

Eta Lisboan izan diren gizonak **kutsatu** ez direla-eta, ez hadi egon hain ziur sukar ustela erabat joan dela. Edorta Jimenez

Horietako asko eta asko hiesaz **kutsatu** eta hiltzera Nepalera itzultzen dira. Gotzon Garate

Urtean 500 milioi lagun **kutsatzen** ditu [malariak], eta, 1,5 milioi hil egiten dira.Zortzi pertsona hil ditu H5N1ak Txinan, eta 14 **kutsatu,** datu ofizialen arabera. Berria - Gaiak

Oharkabean genetikoki eraldatutako materialaz **kutsatu** den hazi edo landare bat. Berria - Gaiak

Alemaniako Poliziaren arabera, 18 milioi ordenagailu **kutsatu** dituen birusaren egilea dela esan du gazteak. Berria - Gaiak

Ez dute gorpurik ukituko, **kutsa** ez daitezen, Zenbait piztia ukitzeak **kutsatu** egiten du pertsona. Elizen arteko biblia

Hauek garbi gorde zituzten bihotzak, ez baitziren idolatriaz **kutsatu**. Elizen arteko biblia

Israeldarrek **kutsatu** egin zuten lurraldea beren jokabide eta egintza txarrez. Elizen arteko biblia

Ahotsean lehenago igarria nion aztoramenari herrimina **kutsatu** zitzaiola esango nukeen, inork orduan hartaz itaundu izan balit. Edorta Jimenez

Harik eta bere kezkaz **kutsatu** ninduen arte. Joan Mari Irigoien

Gainera, aitortu ez dion egonezin horixe **kutsatu** bide dio, nori eta kontsolamendua eskaini nahi izan dion gizonari. Imanol Zurutuza

Bere kexuekin gogotik barre eragin dugu, eta gauzak ez ziren horren larriak, nonbait, berari ere barregura **kutsatu** diogu eta. Josu Zabaleta

Ikusgarria da nola generoa hautatzeak erabat **kutsatzen** dizun istorioa, nola sartzen zaizkizun topiko eta klixeak ia-ia konturatu gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehenak herskariaren ahostuntzea (t -> d) dakar aurreko sudurkariaren ahotsa **kutsatu** zaiolarik asimilazioz. Lourdes Oñederra

Christouk gogor jo zuen erakunde ekologisten aurka, eta haien argudioek komunikabideak **«kutsatu»** dituztela salatu zuen Berria - Gaiak

**2** ur, egurats, janari edo kidekoetara, izaki bizidunen osasunari kalte egiten dien elementuak helarazi.

Europako Batasunak ez die debekatu industriei muga batetik gora **kutsatzea,** eta horren ordez, **kutsatzeko** baimenak banatu ditu, doan. Berria - Gaiak

Horren bidez, dagokiena baino gehiago **kutsatzen** dutenek **kutsatzeko** eskubideak eros diezaiekete baimendutakoa baino gutxiago **kutsatzen** dutenei. Berria - Gaiak

Hondakinek airea **kutsatzen** dute, eta, ondorioz, abortuen, malformazioen eta gaixotasunen ehunekoa altua da. Berria - Mundua

Atmosfera **kutsatzen** duten gasen inguruan akordio berri bat eskatu du Blairrek. Berria - Gaiak

Lurzorua **kutsatu** dezaketen jarduerak. Berria - Euskal Herria

Lehorretik iristen diren hondakinek **kutsatzen** dute gehien itsasoa. Berria - Gaiak

Usain txarrak gero-eta gehiago zabaltzen ari dira eta, euriteetan, ixurketek Sadar ibaia **kutsatzen** dute. Herria

Exxon Valdez ontziak isuritako fuel-olioak 2.080 kilometro inguru **kutsatu** zituen. Berria - Gaiak

Gutxienez 211 hektarea **kutsatu** ziren Pirinio Atlantikoetan, 4.800 Akitanian. Berria - Harian

Itsaso zabalean litro bat **kutsatzen** bada, haren inguruan badaude beste milaka eta milaka litro ur kalterik izan ez dutenak. Berria - Gaiak

Zianuroak ibaietako ura eta lur azpiko akuiferoak **kutsatu** dituela salatu dute. Berria - Gaiak

Frantzian badago argiak **kutsatu** ez duen eskualde bat. Berria - Gaiak

Denverren bi enpresa zigortu dituzte plutonioarekin **kutsatzeagatik**. Berria - Gaiak

**3** (era burutua izenondo gisa)

Apaizek Jaunaren etxe barruaren garbikuntza egitera sartu eta kanpora atera zituzten, tenpluko atarira, barruan aurkitutako gauza **kutsatu** guztiak. Elizen arteko biblia

Frantziara iritsi da gaitza; ahate **kutsatu** bat agertu da. Berria - Gaiak

Deabruen bizileku bihurtu da, espiritu gaizto guztien zulo, piztia **kutsatu** eta nazkagarri guztien zulo. Elizen arteko biblia

Gizonezkoa, sexu-jarioa duenean, **kutsatu** bihurtzen da. Elizen arteko biblia

Janari **kutsatu** haiek jatera ez behartzeko eskatu zion. Jose Antonio Mujika

Minuturo, 10 **kutsatu** gehiago. Berria - Gaiak

San Cristóbal eta Santa Lucía mendixken gainetik agertu zauku hiri zabala, lanoxka **kutsatu** baten artetik. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**birusaz kutsatu** (4); **ehunka ordenagailu kutsatu** (3); **gauza kutsatu guztiak** (3); **hiesaz kutsatu** (5); **hiesaz kutsatu izana** (3); **kutsatu guztiak** (5); **laborategian kutsatu** (4); **laborategian kutsatu ziren** (3); **lagun kutsatu dira** (6); **lagun kutsatu ditu** (3); **langile kutsatu dira** (3); **milaka ordenagailu kutsatu** (3); **milioi pertsona kutsatu** (3); **nire santutegia kutsatu** (3); **pertsona kutsatu dira** (5); **pneumonia atipikoaz kutsatu** (4)

**aire kutsatua** (4); **eserlekua kutsatua gelditzen** (3); **ur kutsatua** (3)

**hegazti kutsatuak** (23); **hegazti kutsatuak agertu** (10); **ur kutsatuak** (8)

**kutsaturik gelditu** (3); **kutsaturik gelditzen** (44); **kutsaturik jarraitzen** (3)

**birusaz kutsaturiko** (3); **gibak kutsaturiko** (3); **kutsaturiko pertsonen** (4)

**birusak kutsaturikoak** (3)

**birusak kutsatuta** (9); **birusarekin kutsatuta** (6); **gaitzak kutsatuta** (3); **gib birusak kutsatuta** (4); **giroak kutsatuta** (3); **kutsatuta egon** (13); **kutsatuta egotea** (4); **odola kutsatuta zegoen** (3); **ustez kutsatuta** (3)

**birusak kutsatutako** (14); **birusarekin kutsatutako** (4); **birusaz kutsatutako** (4); **dioxinaz kutsatutako** (3); **gaitzak kutsatutako** (6); **gaitzaz kutsatutako** (3); **gib birusak kutsatutako** (3); **gib birusaz kutsatutako** (3); **hiesak kutsatutako** (3); **kutsatutako animalia** (3); **kutsatutako animaliak** (3); **kutsatutako hegazti** (5); **kutsatutako hegaztiak** (17); **kutsatutako hegaztien** (7); **kutsatutako lurrak** (3); **kutsatutako odola** (10); **kutsatutako pertsona** (3); **kutsatutako pertsonen** (3); **kutsatutako ura** (9); **kutsatutako ura edanda** (3); **kutsatutako ura edateagatik** (3); **kutsatutako urak** (4); **ustez kutsatutako** (5)

**kutsatutzat aitortuko** (9); **kutsatutzat aitortuko du** (8); **kutsatutzat edukiko** (10)

**gizakia kutsatzea** (3)

**gaitzaz kutsatzeko** (3); **hiesaz kutsatzeko** (4); **kutsatzeko ahalmena** (3); **kutsatzeko arrisku** (10); **kutsatzeko arrisku handia** (3); **kutsatzeko arriskua** (23); **kutsatzeko arriskuan** (5); **kutsatzeko arriskurik** (6); **kutsatzeko baimenak** (7); **kutsatzeko baimenak lortzeko** (3); **kutsatzeko eskubideak** (3); **kutsatzeko eskubideen** (5)

**airea kutsatzen** (5); **atmosfera kutsatzen duten** (3); **gizakia kutsatzen** (4); **gizakien artean kutsatzen** (6); **harremanen bidez kutsatzen** (3); **ingurumena kutsatzen** (3); **itsasoa kutsatzen** (3); **kutsatzen du gizakia** (4); **lagun kutsatzen dira** (4); **pertsona bat kutsatzen** (4)

---

kutsatugabe ik **kutsagabe**.

---

**kutsatzaile** *(orobat **kotsatzaile** g.er.)* **1** *izond* kutsatzen duena; kutsadura eragiten duena. ik **kutsagarri**.

AEB ek ez zuten Kiotoko Protokoloa berretsi -itun hori 1997 an izenpetu zen Kioton, eta helburua gas toxikoen emisioa murriztea zen, planetaren berotze efektua saihesteko-, bera izan arren gas **kutsatzaileen** emisore behinenetako batTeknologia oso zaharkituak erabiltzen ditu, ordea, oso **kutsatzaileak** eta baliabide fisiko ugari agortzen dituenak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eskuinaldean zabortegi itzela eta ezkerraldean zementu-lantegi zikin eta **kutsatzailea**. Jon Arretxe

**2** ur, egurats, janari edo kidekoetara, izaki bizidunen osasunari kalte egiten dien elementuak helarazten duena.

Itsasoko arrainek gai **kutsatzaileak** barneratzen dituzte, eta gero horiek giza gorputzera iragan daitezke. Berria - Euskal Herria

Rivera fisikaria eta hondakin **kutsatzaileen** analisietan aditua da. Berria - Euskal Herria

Kartzela zigorrik ez EBn ontzi **kutsatzaileentzat**. Berria - Euskal Herria

Interneten jarri du Jaurlaritzako Ingurumen Sailak isuri kutsagarrien erregistroa: www.eper-euskadi.net eta www.ingurumena.net helbideetan kontsulta daiteke 119 enpresa **kutsatzaileen** zerrenda. Berria - Euskal Herria

Horrek poliziklo hidrokarburo aromatikoak (PH) sortzen ditu, eta horiek «oso agente **kutsatzaile** arriskutsuak dira». Berria - Euskal Herria

**Kutsatzailea** da gure ingurua kutsatzen duen jarduera oro. Berria - Euskal Herria

**3** (izen gisa)

Airean dauden hainbat **kutsatzaileren** inguruko informazioa jasotzen eta zabaltzen du webguneak: nitrogeno eta sufre dioixodoei, nitrogeno oxidoei, partikulei eta berunari buruzko informazioa, alegia. Berria - Euskal Herria

Zigorrik ez **kutsatzaileentzat**. Berria - Gaiak

Asko **kutsatzaile** organiko iraunkorrak dira, «oso arriskutsuak». Berria - Gaiak

**Kutsatzaile** arriskutsua da ozono troposferikoa. Berria - Euskal Herria

**4** irud/hed

**Kutsatzaile** politikoa: hauteskunde karabanetako kazetariek erabilitako terminoa, etengabe alderdiaren aldeko mezuak helarazten dituen agindupekoa definitzeko. Berria - Euskal Herria

---

## kutsatze *iz* norbaitengana edo zerbaitera, kalte egiten dion edo berezkoa ez duen zerbait helaraztea.

Tamifluk ez du **kutsatzea** saihesten, baina gripearen sintomak arintzen ditu eta birusaren zabaltzea motel dezake. Berria - Harian

Kurdistanen gertatu diren **kutsatzeak** pertsonen artean gertatu diren argitu nahi dute. Berria - Gaiak

Azkeneko **kutsatze** naturala 1977an gertatu zen, Somalian. Berria - Gaiak

Ez da pertsonen arteko **kutsatzerik** baieztatu. Berria - Gaiak

**Kutsatze** gehienak (%73) sexu bidezko harremanetan jazo ziren. Berria - Harian

Azken **kutsatze** kasuek argi utzi dute, ordea, oraindik ere arazo handiak dituztela gaitzaren gaineko informazioa gizarteratzeko.Gaixotasunen maiztasunari buruz, **kutsatze**-fokuei buruz. Berria - Gaiak

"Iruditsu" hitzak, eta "figura" hitzak ere, argi erakusten dute tradizioz figura, edo figuraren printzipioa, hobeto esanda, hitzezko dena ikonikotasunak **kutsatze** batek eragintzat hartzen dela. Josu Zabaleta

---

## kutsatzeke *adlag* kutsatu gabe.

Testu horretan, dagoeneko kutsatuta dauden lurrak berreskuratzeko eta **kutsatzeke** daudenak babesteko urratsak aletzen ditu. Berria - Euskal Herria

---

## kutsu *(orobat **kotsu** g.er., eta **kutxu** g.er.)* **1** *iz* kutsatzearen ondorioa edo aztarna; aztarna, arrastoa, ukitua, bereziki materiala ez dena eta gauza ez-materialek uzten dutena

Goizuetan, xaharrengandik aditua dakit, Urumea errekan goiti, Zubi Haundiko arkupetik iragotzen omen zirela 1855eko kolera beltzaren **kutsutik** libratu nahi zutenak. Patziku Perurena

Zertarako, ordea? -erantzuten omen zion hark-, dagoeneko mingainean sumatzen dut eta, heriotzaren **kutsua**. Imanol Zurutuza

Fede berriaren **kutsua** Amanciok sartu zidan; Frantziatik etorri berria zen hura, eta okindegiko nagusi urdemutur harentzat ari nintzen ni lanean. Inazio Mujika Iraola

Emakumearen hatsean hortz-ore fluoreztatuaren **kutsua** ezagun zen oraino. Baina ez zen erabat Basurtokoa,bazen-eta Joanesen agure itxuraren **kutsu** bat haren gorputzean, baita Mateoren kutsua ere. Aingeru Epaltza

Lanari amaiera eman eta adinaren **kutsua** eransteko, tenperatura altuan tindatu zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Anabaptisten heresien **kutsua** hartzen diet zure hitzoi. Antton Olano

Susmo txarren **kutsu** hori ezin daitekeela guztiz aratz, xahu eta purifikatua laga. Xabier Mendiguren Elizegi

-Etxekoa -den-dena azaldu behar zaion ergel batekin ari denaren **kutsua** ahotsean-. Alberto Ladron Arana

Orduan konturatu nintzen haren ahotsak atzerriko **kutsua** zuela. Migel Angel Mintegi

Arrastiria heldu, eta auzo osoa udazkeneko **kutsuan** murgilduta jadanik. Txillardegi

**2** (izenondoekin)

Hasperen egin nuen, burgesia apalaren **kutsu** nahasezina zerion harreragela haren apainketari erreparatuta. Alberto Ladron Arana

Irriñoa bortxatuz eztitu nuen adierazpenak izaten ahal zuen **kutsu** gordina. Aingeru Epaltza

Jangelaren garbitasunak **kutsu** zorrotz hauskor bat zeukan. Karlos Zabala

Puig Antichen exekuzioari **kutsu** politikoa kentzea zuen helburu nagusi Welzelen exekuzioak. Berria - Kultura

Ezagutzaren eraikina altxatu nahian, sustraiak garbi-garbi gura zituen, inolako **kutsu** aristoteliko edo sen onaren kutsadurarik gabe. ipuinari halako **kutsu** italiarra sumatzen zion, batzuetan. Askoren artean

· -Zure alemanak **kutsu** bitxia du -erran zidan emakumeak-. Alberto Ladron Arana

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Artean eguzkiak berotu egiten zuen, airean halako gainbehera-**kutsu** bat nabari bazen ere. Lopez de Arana

Eztanda nuklear baten osteko desolazio-**kutsu** bat du haren pinturak. Xabier Olarra

Bekainak kakotu nituen, bat-bateko misterio **kutsu** hark harrituta. Alberto Ladron Arana

Arrotz **kutsu** itzela hartzen nion nik hizkera horri. Txillardegi

-Bai, Serena -esan zuen halako bizitasun-**kutsu** bat erakusten zuen ahotsaz-, hauxe da nire karreraren bukaera... Lopez de Arana

Kuartelean gizatasun **kutsu** bat antzemateak harritu egin zuen. Pedro Alberdi

Aturri zabalak nik nahi baino maizago hartzen zuen malenkoni **kutsu** kutsakorra. Txillardegi

Etsipen **kutsu** penagarria zerien folklore jaialdien eta meza ikusgarrien gaineko albiste haiei. Alberto Ladron Arana

Bizkaitarraren ahotsak haserre **kutsu** arin bat hartu zuen, gehiegi hitz egin zuela ohartu izan balitz bezala. Alberto Ladron Arana

Zahar **kutsu** egokia du, eta haurrek erraz identifikatu dezakete aspaldiko istorio batekin. Berria - Kultura

Eskola-testu **kutsua** ere izango dute hasierako orriek, apika. Iñaki Heras

Eta sentipen handi-handi guztiek bezala, lotsa-punttu eta erru-sentipen **kutsu** bat ere bazuen. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abentura kutsu** (4); **etsipen kutsu** (5); **etsipen kutsu bat** (3); **germaniar kutsu** (3); **ironia kutsu** (4); **kamamila kutsu** (3); **kutsu arin** (3); **kutsu arin bat** (3); **kutsu berezi** (4); **kutsu handia** (5); **kutsu handiagoa** (6); **kutsu herrikoia** (3); **kutsu mistikoa** (3); **kutsu nabaria** (3); **kutsu nabarmena** (12); **kutsu nabarmena dauka** (3); **kutsu pixka bat** (4); **kutsu politiko** (12); **kutsu politiko nabarmena** (3); **kutsu politikoa** (18); **kutsu politikoa duela** (3); **kutsu sinbolikoa** (5); **kutsu soziala** (3); **misterio kutsu** (10); **misterio kutsu bat** (4); **nostalgia kutsu** (3); **umore kutsu** (3)

**antzerki kutsua** (3); **erdi aroko kutsua** (3); **euskal kutsua** (7); **euskal kutsua duen** (3); **final kutsua** (4); **herri kutsua** (3); **jai kutsua** (3); **kutsua eman** (12); **kutsua emateko** (3); **kutsua ematen** (7); **kutsua hartu** (9); **kutsua hartzen** (16); **kutsua izan** (10); **kutsua izango** (5); **kutsua ukanen** (3); **mehatxu kutsua** (4); **misterio kutsua** (4); **zahar kutsua** (3)

**erlijio kutsuko** (3); **errebantxa kutsuko** (3); **euskal kutsuko** (3); **italiar kutsuko** (3)

---

**kutsudun** *izond* kutsua duena.

Intzaren gaineko hegoia, euria egiteko pregoia du abisu, udaparte zabaleko esaera basura **kutsudun** horrek. Pello Zabala

Gaitz hau sendaezina eta **kutsuduna** omen da-eta. Patxi Ezkiaga

---

**kutsugabe** *izond* kutsurik ez duena.

Nire begiek bildutako irudi arrailagarriei molde idatzi **kutsugabea** ematera lehiatuta ere, emaitzak parekotasun urruna zuen nik ikusiarekin: [...]. Aingeru Epaltza

Apaltasun sakona eta obedientzia azkarra, pobretasun bikaina eta kastitate **kutsugabea**. Askoren artean

---

kutsutu ik **kutsatu**.

---

**kuttun**1 *(**404** agerraldi, **126** liburu eta **61** artikulutan –izenondo nahiz izen gisa-; cf.* ***kutun***1 ***364** agerraldi, **84** liburu eta **98** artikulutan –izenondo nahiz izen gisa-; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kutun** agertzen da)* **1** *izond* kutuna, guztiz maitea edo begikoa. (pertsonei buruz)

Bere izeba **kuttun** (baina handi) batek besarkatzen zuenean. Xabier Olarra

Huxai arkitarra erregearen adiskide **kuttuna** zen. Elizen arteko biblia

Amaren osaba **kuttuna** eta apaidiña duk. Txillardegi

Zure Hamida **kuttunaz** ari naiz. Patxi Zubizarreta

Ez da hain arraroa zure bihotzeko aingeru **kuttuna,** nolabait esateko, hiltzen denean mundu hau utzi nahi izatea bere ondora joateko. Pako Aristi

Bederatziurrena egingo ziola, eta, horrekin bere laguntxo **kuttun** hura agertzen ez bazen, epelak hartzeko zegoela. Pako Aristi

Maitek bazekien osabaren **kuttuna** zena, eta ordaina ematen zion. Gotzon Garate

Manuel Irujo ministroaren **kutunak** bidean doazelarik. Edorta Jimenez

Noizean behin, maisuak aleren bat ematen zion ikasleren bati sari gisa, bere **kuttuna** zuelako edo eskola lanen bat ondo egiteagatik. Iñaki Iñurrieta

Amak hura zuen kuttun- **kuttuna** eta harengan jarriak zituen bere itxaropen guztiak. Karlos Zabala

Arreba horrek seme hazia omen zeukan eta Blancok **kuttun** -kuttuna omen zuen. Gotzon Garate

Betiko lagun jator eta osaba **kuttun** nuen. Aitor Arana

*ik beherago* 4. Askoren artean

Biktimarik **kuttunenak** emakumeak zituen. Juan Garzia

Osabaren adiskide **kuttun** izandako emakumerik ez zen han bat bera ere azaldu. Jon Muñoz

Inor ez zen Irujoz gogoratu, Sebastien gau batez Labriteko **kuttun** bihurtu zen. Berria - Kirola

Gauez, ohean, neure bihotzeko **kuttunaren** bila nenbilen. Elizen arteko biblia

Nire begiko **kuttuna** zein zen igarri ezinik nenbilen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ene Saul, ene Jonatan, **kuttun** eta maiteak, bizitzan eta heriotzan beti elkartuak. Elizen arteko biblia

**2** (pertsonei buruz deikietan)

Jakina, **kuttun** hori, nire tokia uzten dizut. Anjel Lertxundi

-Ez ezazu negarrik egin, polit horrek, nire neskato **kuttun** horrek... Xabier Mendiguren Elizegi

Ene maite laztan ezti **kuttun** ttiki hori. Antton Olano

Ene **kuttuna** -hasi zen- bizitzak modu bitxi eta harrigarrian jokatzen du gurekin. Ander Irizar

Esadazu, ene bihotzeko **kuttuna,** non duzun larratzen artaldea. Elizen arteko biblia

Nahi duzu neurekin etorri, **kuttun**? Itxaro Borda

**3** (pertsonez bestelakoetan)

Musukatu ginen, eta haren beso **kuttunak** sentitu nituen ni biltzen. Juan Martin Elexpuru

Bere zimino **kuttuna** babesteagatik kartzelara joateko prest agertu zen heroiaren istorioa. Harkaitz Cano

Nire pelutxezko txakur **kuttunari**. Jesus Mari Mendizabal

Walt Disney jaunak egin dizkigu horrelako animaliak maitagarri eta **kuttun**. Joxerra Garzia

Handitzea ere gauza bera baita, gauza **kuttun** batzuk betiko galdu izanaren mina. Antton Olano

Yolo taberna fregatzen ari da maitekiro, [...] aireplano baldar eta **kuttun** batek bertan lurreratu behar bailuen, maitekiro. Pako Aristi

Berak landatu eta hainbesteko arretaz zainduriko zuhaitz **kuttun** haiei. Pello Zabala

Nire landare **kuttunetako** bat. Xabier Olarra

Gaztearen begiek mutur batetik bestera ikusmiratu zuten bere kalezulo **kuttuna**. Patxi Zubizarreta

Aldean dauzkat orain, etxekoek idatzitako azken-azkeneko gutun **kutunak**. Mirentxu Larrañaga

Euskaldunen bi kolore **kuttunak**. Koldo Izagirre

Zure lehenengo liburu **kuttuna** gogoratzen? Ana Urkiza

Nire istorio **kuttuna** beste bat dun. Harkaitz Cano

Ez da nire edari **kuttuna,** baina ongi etorri egin nion. Aingeru Epaltza

Zereginik **kuttunena** landareak zaintzea zuen. Eider Rodriguez

Arantzazuko Ama Birjina eta Jesu Kristoren pasioa izan zituen gai **kuttunak,** aberriaren agoniarekin loturik betiere. Xabier Mendiguren Elizegi

Narzisistaren hitz **kuttun** honek bere baitan du antidotoa, atzekoz aurrera INOREN irakurtzen baita. Joxerra Garzia

Gaur arratsean, elkar ikuste **kuttun** horretan. Jon Muñoz

Apalean txanpain botila eta izokizko pasteltxoak, nire **kuttunak**! Juan Martin Elexpuru

**4** ***kuttun izan*** du *ad*

Ernest izan zuen **kuttun,** baina Harry ere maite zuen. Irene Aldasoro

Berriz, neure gazte-denborako kirol-autoak nituen **kuttun:** Bristol, Frazer, Nash markakoak, Jag zaharrak, Aston Martinak. Xabier Olarra

Etxetik hiruzpalau ordura zegoen mendi bat zuen **kuttun,** hirurehun bat metroko amildegi harkaiztsu batek inguratzen zuena. Joan Mari Irigoien

Maite **kuttun** nituèn bi neska-mutil haiekin hegan. Joan Mari Irigoien

Amak hura zuen **kuttun**-kuttuna eta harengan jarriak zituen bere itxaropen guztiak. Karlos Zabala

· Gizonari **kuttun** zaion ordenaren aurka matxinatuko balitz bezala. Juan Garzia

**5** ***seme kuttun*** seme kutuna.

Gure herriko udalak 1940ko akta hura -Franco herriko seme **kuttun** izendatzen zuenekoa- baliorik gabe utzi zuen egunean. Anjel Lertxundi

Gianfranco Zolak zuzentzen zuen orkestra hura, hiriko seme **kuttun** Giuseppe Verdiren ildoari jarraiki. Berria - Kirola

Borreroak amets intimo bat dauka: udalak, noizbait, seme **kuttun** izendatuko duela. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adiskide kuttun** (3); **maite kuttun** (3); **seme kuttun** (6)

**aitaren alaba kuttuna** (3); **aitaren kuttuna** (5); **amaren kuttuna** (4); **bere kuttuna** (5); **bihotzeko kuttuna** (5); **ene kuttuna** (7); **istorio kuttuna** (3); **nire istorio kuttuna** (3); **nire kuttuna** (4); **seme kuttuna** (7); **zaleen kuttuna** (3)

**jainko kuttunak** (5); **lagun kuttunak** (4)

---

# kuttun² *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kutun*** *agertzen da)* *iz* kutuna.

-Zergatik ez zioten **kuttun** batekin arao egin? Koro Navarro

Hildak harri bihurtutako suge horiek **kuttun** eta sendagai bezala saltzen ziren oso onak omen baitziren sugeen helduen kontra eta beste hainbat bertute ere bai omen zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Saltokietan, kandelak, zapiak, liburu eta estanpak, eskapulario eta **kutunak,** dominak, ur bedeinkatuaz betetako botilatxoak, guzti-guztiak Paduako San Antonioren irudiarekin. Anjel Lertxundi

Sarritan, **kuttun** edo talisman bezala erabiltzen diren harribitxietan (Abraxas-harriak) zizelkatzen da izen hori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gaur egun, ordea, **kuttun** edo fetitxe halako bihurtu dugu liburua, eta hedabideek erru handia dute horretan. Joxerra Garzia

Bularrean hamabost **kuttun** neuzkan, zilarrezko kate bi, idatzi-tableta bat, itsasoetatik heldutako zeinuak. Pablo Sastre

Rakelek etxeko jainko-**kuttunak** ostu zizkion aitari. Jose Antonio Mujika

Aztiak tximistaren pare emakume sainduarengana jo eta, erruki handirik gabe, haren jantziak soineratu, haren errosario-**kuttunak** ipini, eta ez bat eta ez bi, lepoa bihurritu zion. Patxi Zubizarreta

---

# kuttunki *adlag*

Markako Anai Rizeriok, jaiotzaz noblea eta santutasunez nobleagoa zenak eta Frantziskok **kuttunki** maite zuenak, egun batez bisita egin zion Frantzisko dohatsuari Asisko gotzainaren jauregian. Askoren artean

Ene estekatik askatu zuen Xaxi eta bere besoetan **kuttunki** gatibatu. Itxaro Borda

**Kuttunki** irakurtzen ditut Amaia Ezpeldoiren liburuak eta baita olerkiak ere: publikatuak zein publikatu gabeak. Ana Urkiza

---

# kuttuntasun *iz* kutuntasuna.

Zaila da zehazten zergatik gustatzen zaigun idazle bat, zergatik diogun **kuttuntasun** berezia, pertsonari berari, idazten duenetik haratago. Harkaitz Cano

Guzmud bufoia zen maiteen zuena, kapritxo guztiak betetzen zizkiona, maina gehien egiten ziona, jolasean ari zela **kuttuntasun** eta are mirespenez begiratzen ziona. Xabier Mendiguren Elizegi

Politasun eta **kuttuntasun** sinboloa hartzen du hor, galeperraren irudira, haur pospolin horrek. Patziku Perurena

---

# kuttuntxo *izond*

Eta, zilegi bekit esatea, zu ere gogotik ari zara saiatzen dena are zailagoa gerta dadin, ene **kuttuntxoa**. -Mutilak koktel gehiago atera zituen-. Mirentxu Larrañaga

---

# kutun¹ *(364 agerraldi, 84 liburu eta 98 artikulutan –izenondo nahiz izen gisa-; cf.* ***kuttun¹*** *404 agerraldi, 126 liburu eta 61 artikulutan –izenondo nahiz izen gisa-; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***kutun*** *agertzen da)* **1** guztiz maitea edo begikoa. ik **kuttun¹**.

Oraingoan solaskide Adeodato bere seme **kutuna** du. Imanol Unzurrunzaga

Galdutako adiskide **kutun** hura. Imanol Unzurrunzaga

Jainkoak bere zaldun eta zerbitzari **kutun** aukeratu baitzaitu. Askoren artean

Oi, Jauna, Zerorren Seme **kutun** bakarraren, eta Jesukristo gure Jainkoaren izenean, dei diezadala telefonoz orain. Mirentxu Larrañaga

Maiatza arte izan zen han, tarteka bihotzeko bere **kutun** Adriana Ivancich haren bisitaldiak izaten zituela ukendu eta laztan. Edorta Jimenez

Ene Jainko maite **kutuna**. Mirentxu Larrañaga

Gure kapitain leial eta **kutun** William Kid. Juan Garzia

Irakasle guztiek dituzte beren **kutunak,** Hermione Granger... Iñaki Mendiguren

-Nire **kutunenak**! -oihukatu zuen-. Mirentxu Larrañaga

**2** (pertsonei buruz deikietan)

Zer moduz zaude, **kutuna**? Gustatzen al zaizu, **kutuna**? Mirentxu Larrañaga

-Tira, badakizu, bihotzeko ene **kutuna** -esan zuen gizonak-, gu biok ez gaude benetan ezkonduta oraindik. Mirentxu Larrañaga

-Baina, **kutuna,** zer egiten duzu hemen? Anjel Lertxundi

-Begira, **kutuna,** zer iruditzen koktel bat? Mirentxu Larrañaga

Mesedez, **kutuna,** mesedez. Mirentxu Larrañaga

Larrua jo behar da egoera guztietan, ene **kutuna,** larrua jotzeko jaioak gara eta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta horretan jardun zenuen, ene **kutuna**? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (pertsonez bestelakoetan)

Arrosondo haren azpian zeuden, sakon-sakonean hondoratuta, lur busti eta harrez jositako hartan hilobiratuta, haren gauza **kutun** guztiak ere. Mirentxu Larrañaga

Edozer zuen jaki **kutun** [...] amak gertaturiko edozer. Mirentxu Larrañaga

Harik eta etxebizitza berria norbere etxe **kutun** bilakatu arte. Mirentxu Larrañaga

Gerora oroitzapen **kutun** samurra gordetzen da adiskidetasunaren lehen ordu horiez. Josu Zabaleta

Heriotza zuen gai **kutun,** eta huraxe aipatzen zuen behin eta berriz. Joxerra Garzia

Bere kantu **kutunenetako** baten izenburua. Xabier Olarra

Haurtzaroko garairik **kutunenak**. Hasier Etxeberria

Oi betiko egia, egiazko maitasuna eta betikotasun **kutuna**! Imanol Unzurrunzaga

Zazpi urte zituen, eta arratsaldeko bi ordu haiek **kutunak** zituen. Anton Garikano

*ik beherago* 4. Askoren artean

Idazlea 1953an bere Madril **kutunera** itzultzen hasi zenez geroztik Edorta Jimenez

### 4 *kutun izan* du *ad*

Zakurrak **kutun** ditut eta liburu hau zakurrei eta zakurzaleoi (zeuri, beraz) eskaintzen dizuet. Gotzon Garate

Loreen loreko Robin dut **kutun**. Jauna, **kutun** ninduen berorrek behiala. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **herriko seme kutun** (4); **seme kutun** (12); **seme kutun izendatu** (3); **seme kutun izendatuko** (4)
>
> **bere kutuna** (4); **bihotzeko ene kutuna** (3); **bihotzeko kutuna** (5); **ene bihotzeko kutuna** (3); **ene kutuna** (12); **lagun kutuna** (4); **nire kutuna** (3); **seme kutuna** (3); **talde kutuna** (5)
>
> **generorik kutunena ipuina** (3)

---

## kutun[2] 1 *iz* ik **kutun**[2].

Aideko duk sukar ustela ekarri duena! -esan zuen Mateok, paparretik **kutun** bat atera eta hura musukatuz-. Edorta Jimenez

Halakoak kristau askok paparrean eskegita izaten duen **kutunaren** parekoak dira, zinez. Edorta Jimenez

Ez dezaket hargatik sinets amodiozko **kutun** horrek bere ahal guztia galdu dukeenik, eta saiatzen naiz oraino **kutun** horrez baliatzen. Jon Muñoz

Kutxatxo baten itxura zuen, maitaleen irudiak eta ile-matazak gordetzeko balio duten **kutun** horietako batena. Anjel Lertxundi

Gai izan nintzen hangoei hainbat **kutun** emateko eta berehala konpondu zuten arazoa... Iñaki Mendiguren

Osabaren burukoan, **kutun** bat zegoen, hiru hankako txori batekin. Juan Kruz Igerabide

Giltza berriz, **kutun** gisara gordetzea erabaki zuen, deus irekitzeko balioko ez zion jakinaren gainean. Harkaitz Cano

Eta sinetsita nago, egiaz, emakume sorgindu bat zela, sorbalden artean sorgin **kutun** misteriozkoren bat zuela. Josu Zabaleta

Geroago, ingeniaritza genetikoak gaitu gintuenean edozein organismoren material genetikora iristeko, drosofila bilakatu zen berriro ikertzaileen **kutun**. Juan Garzia

**-Kutunetan** sinesten duzu, ala? Edorta Jimenez

### 2 *seme kutun*

Obabako seme **kutun** izendatuko dute. Bernardo Atxaga

Andoaingo Udalak, bere seme **kutun** Rikardo Arregitarraren omenetan ematen dituen sarien oroimenezko agiria. Pello Zabala

---

## kutunkeria *iz* norbaitek bere kutunen alde duen jokabide gaitzesgarria.

Barne Ikuskapen Zerbitzuen Bulegoko arduradun nagusi Dileep Nairren ustezko **kutunkeria** kasuaren ikerketa itxi izanak eragin zuen sindikatuaren mozioa. Berria - Mundua

---

## kutuntasun *iz* kutunarenganako txera.

Gure hurbiltze traketsak oztopatzen ahalegintzen zen, eta trufa egiten zien elkarrenganako **kutuntasun** jaio berriaren agerpen uzkurrei. Ander Irizar

**Kutuntasun** hori ez da batere harritzekoa: gauza bera pentsatzen dut nik neuk ere; oraindik ez naiz aitaren heriotzatik kontsolatu, eta ama galdu nuenean, aldiz, pozez zoratzen jarri nintzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## kutx ik **kurutx**.

---

## kutxa 1 *iz* zurezko, metalezko, kartoizko... ontzi moduko estalkiduna, gauzak gordetzeko edo garraiatzeko erabiltzen dena. ik **kaxa**[1].

Hona, beraz, **kutxaren** barruko antolamendua: erdi-erdian, xaboi-ontzia; xaboi-ontziaren atzean, sei edo zazpi oholtxo, batetik besterako hutsarte meharretan bizar-labanak sartzeko jarriak; harago, tokitxo karratu batzuk hondar-ontzia eta tintontzia gordetzeko, eta, haien artean, txalupa-formako hutsune bat idazlumarako, lakrerako eta, oro har, gauza luzangetarako; atzerago, kutxatila ugari -estalkidunak zein estalkigabeak-, [...]. Jose Morales

**Kutxaren** goiko atal hori oso-osorik ateratzen zen. Jose Morales

Xake-piezak **kutxa** batean sartu zituen. Lopez de Arana

Beheititu zuen **kutxa** gurditik, ireki eta zabaldu zuen hura osaba Joanikoten eta bion aitzinean. Joan Mari Irigoien

**Kutxari** estalkia kentzeko. Edorta Jimenez

Bigarren **kutxa** zabaltzera nindoan une berean, pausoak entzun nituen. Juan Kruz Igerabide

**Kutxa** itxi aurretik, Kixote zaharra hartu nuen eskuetan. Juan Kruz Igerabide

Beste liburua, berriz, tresnen artean utzi nuen, **kutxa** zabaltzean ageri-agerian ikus zedin. Edorta Jimenez

Diruen **kutxa** besartean sendo atxiki zuen. Edorta Jimenez

Diskoen **kutxa** zaharrean miatu zuen. Jon Maia

Liburua itsasoko nabigazioko tresnen **kutxaren** gainean utzi nuen. Edorta Jimenez

Oraingo ikuspegitik, Idoia ezustekoen **kutxa** iruditzen zait. Juan Kruz Igerabide

Nire buruari galdetu nion ea aitaren **kutxa** hark ipurdipean beste txokoren bat ez ote zeukan. Edorta Jimenez

Zapatak garbitzeko **kutxa** bat. Sonia Gonzalez

Zurezko **kutxa** ttiki bat zen, alde orotarik zizelkatua, ozketatua. Daniel Landart

Hautsita zaudek nik ondo kostata egindako kartoizko **kutxa** ederrak. Jon Muñoz

Latorrizko **kutxa** txiki batetik azken tableta atera zuen. Lopez de Arana

Kristalezko **kutxa** batean. Fernando Morillo

Nakarrezko **kutxa** txikietan. Felipe Juaristi

Isolamendu termikoa zuen **kutxa** berezi batean sartuta. Berria - Kultura

**Kutxa** blindatu bateko itxitura automatikoaren gailuarekin. Aingeru Epaltza

Joey, hartu puru bat **kutxa** horretatik. Lopez de Arana

Autoan aire-freskagarriak jartzen hasi zen, mota guztietakoak: [...] itsasten diren **kutxa** beltz zirrikitudun horietakoak... Iban Zaldua

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zumezko saskitxo bat zegoen **kutxa** -metaren ondoan, ozen purrustaka. Iñaki Mendiguren

**Kutxa** metatik Prozac zioen bat jausi zen, mahaitik aulkira, aulkitik lurrera. Sonia Gonzalez

Bankuek kalkulaturik dute **kutxa** -neurri teknikoa, alegia, bezeroen ohituren arabera, batez besteko bat, likideziarik gabe ez gelditzeko behar dutena. Iñaki Heras

**Kutxa** -tarte guztietan geratzen diren hormen egitura guztia ondo bete arte. Santiago Iruretagoiena

**Kutxa** -zuloak bezalaxe jan eta edan zuen deabruak. Josu Zabaleta

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bonboi- **kutxa** halleko mahaiaren gainean zegoen. Lopez de Arana

Itzultzerakoan bixkotxa **kutxa** bat atzeman zioten eta lanera ateratzeko eskubidea kendu. Berria - Euskal Herria

Argazki eta paper zaharrak ateratzen zituen zigarro **kutxa** batetik. Ramon Saizarbitoria

Zapata- **kutxa** itxurako gela hura gaizki aireztatuta zegoen. Lopez de Arana

Aurten hasiko dira txerto bat probatzen eta 660.000 botika **kutxa** pilatu dituzte. Berria - Gaiak

Legatz **kutxa** gehiegi, legatz **kutxa** gehiegi motel. Harkaitz Cano

-Ireki gau-mahaiaren tiradera, eta atera bitxi- **kutxa** . Juan Kruz Igerabide

Motxila puztuekin, fusil mailatuekin, munizio **kutxekin** . Joseba Sarrionandia

Bazen erreminta- **kutxa** bat logela ondoko ohe-jantzien armairuan. Oskar Arana

Beste eskuan, berriz, gaileta bat zeukan, iparrorratz- **kutxaren** ondoko apal batean kokatutako kafe kikaran busti berria. Lopez de Arana

Bettek parte hartu nahi badu, beharbada diru- **kutxa** ireki eta lagundu nahiko digu. Oskar Arana

Annak aurpegirako hauts- **kutxa** bat atera zuen eta sudurra hautseztatzen hasi zen. Lopez de Arana

Apaizek bere tokian ezarri zuten Jaunaren itun- **kutxa,** tenpluko santutegian. Elizen arteko biblia

Biolin- **kutxa** zegoen mahairaino hurbildu zen jakin-minez. Felipe Juaristi

Musika- **kutxa** bat kaobazkoa. Felipe Juaristi

83 marrazki, 2 instalazio, 18 argi- **kutxa** eta beste hiru kutxaren maketak. Berria - Kultura

Armairu urdin batetik bidaia- **kutxa** bat atera eta, bi eskuez lagundurik, ohe gainera bota zuen. Felipe Juaristi

Osaba Gradelleren altxorra aurkitu zuen gazi **kutxa** baten hondoan. Karlos Zabala

Posta- **kutxa** baten zenbakia eman nizun. Eduardo Matauko

Gurasoek ene hamabost urte betetze egunean egin zidaten oparirik ederrena, olio pintura **kutxa** izan zen. Ana Urkiza

Torrellik penizilina **kutxak** lapurtu eta Schenker sendagile ustelarekin hasiko zen harremanetan, merkatu beltzean saltzeko asmoz.· Poxpolo-kutxa biltzaile bat. Alberto Ladron Arana

## **4** irud/hed

Kale-kantoian, gizon bat sute-alarmaren **kutxa** aztertzen ari zen. Lopez de Arana

Rigaudek **kutxa** erregistratzailea itxi eta kristalezko atetik denda-ostean sartu zen. Lopez de Arana

**-Kutxa** torazikoan dauzkat oinazeak... Koldo Izagirre

Gertatu ezean, Pandoraren **kutxa** irekiko da, eta auskalo zer gertatuko den! Berria - Mundua

Hainbat ordu igaro zituen Washington Roeblingek urpean, aire kamara bat osatzen zuen **kutxa** neumatiko batean harrapatuta. Harkaitz Cano

Andres Nagelek Oteizaren **"Kutxa** Metafisikoak" ederki parodiatu zituen. Joseba Zulaika

## **5** kutxaren edukia.

Eta ohi baino bi **kutxa** melokotoi gehiago enkargatzen zuten Tuteran. Alberto Barandiaren

Bi kohete-jaurtigailu, Uzi motako pistola metrailadorea, lau **kutxa** kartutxo, bai eta lehergailuak egiteko bederatzi detonagailu eta tenporizadoreak ere. Berria - Euskal Herria

## **6** arropak eta kidekoak gordetzeko erabiltzen den zurezko altzari sarrailaduna, estalkia jasoaz irekitzen dena.

Garai batean gure baserrietako **kutxak** gisa hartan apaintzen bazituzten, ez zen politagoak izan zitezen, baizik eta edertasuna beharrezkoa delako; janaria gorputzarentzat nola, halakoxea da edertasuna izpirituarentzat. Patxi Zubizarreta

Salan [..] Ohandoren puskak zeuden, **kutxa bat** eta maleta bat. Koro Navarro

Gaur gauean aukera egokia sortzen baldin bada, **kutxaren** sarraila hautsiko diat. Koro Navarro

## **7** hilkutxa.

Lau herritar gazteek Frantxisen **kutxa** sorbaldan hartu zuten, eta eliza atarrira heltzean ikusi zituzten hamar gizon kaputxadun pistolak gora, airera tiroka. Itxaro Borda

## **8** aurrezki kutxa.

Hilabetero Bereziortuak neskatoaren **kutxako** kontu korrontean diru kopuru bat sartzen ziok. Joxemari Iturralde

Aipatu ohi da Araba, Bizkai eta Gipuzkoako **kutxen** bat-egitea galarazten duela konstituzionalisten garaipenak. Berria - Ekonomia

M.H.D.k ez du egunkaririk irakurtzen, eta ez daki Nafarroako Nekazal **Kutxaren** irabaziak 29,8 milioitakoak izan direnik. Pako Aristi

Gasteizko Vital **Kutxa** fundazioaren aretoan.

BBK eta Euskadiko **Kutxa** . Berria - Harian

## **9** diru edo finantza kutxa.

Familia batean nola berdin lantegi batean, xahutzen balinbaduzu moltsan edo **kutxan** duzun baino diru gehiago, zorrak egiten dituzu eta zor horiek behar dira gero pagatu. Herria

Harrezkeroztik, ehunka mila dolarreko emariak sartu dira Kerryren kanpainerako **kutxan** . Berria - Mundua

Hilero **kutxako** dirua kontatzen zen eguna iritsi zen. Xabier Olarra

Ez ditu euskaldunen pentsioak bermatzen eta Estatuko **kutxa** bakarra hausten du. Berria - Euskal Herria

Politika pasiboen arloan, aitzitik, Espainiako Gobernuaren ezekoa biribila izan da orain arte, Gizarte Segurantzako **kutxa** hautsiko dela argudiatuta. Berria - Ekonomia

Erkidegoetako kotizatio **kutxa** bakarrera joango dira eta haien kudeaketa enplegu zerbitzu publikoen (Inem) eta erkidegoen esku izango da. Berria - Ekonomia

Haren arabera, «ukiezina» da prestakuntza kuoten **kutxa** bakarra. Berria - Ekonomia

Greba luzeari eusteko ELAk duen erresistentzia **kutxa** funtsezkoa izan da. Berria - Harian

Ekintza sindikalerako tresnen artean borroka **kutxa** sortzea aipatzen da. Berria - Ekonomia

Bezeroek egindako **kutxa** operazioen %47 Internet bidez egindakoak izan ziren. Berria - Ekonomia

Baina hori ez da dena, segurtasun **kutxak** ere garbitu ditu. Xabier Olarra

## **10** ***aurrezki kutxa***

**Aurrezki kutxan** sartzen nuen ohiko gastuak egin ondoren geratzen zitzaidana. Koro Navarro

**Aurrezki-kutxan** astean hamar dolar sartuko zituela ere aipatuko zion. Lopez de Arana

Postetxera joateko, **aurrezki-kutxatik** dirua ateratzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Hamabi banketxek eta **aurrezki kutxek** hitzarmena sinatu dute Vias de Alava enpresari 90,5 milioi euroko mailegu bat emateko. Berria - Euskal Herria

Egunkarian irakurri zuen Gipuzkoako **Aurrezki Kutxak** egindako berrehun lanpostutarako deialdia. Joan Mari Irigoien

Haietatik hiru **aurrezki kutxaren** sortzaileen ordezkariak izango dira. Berria - Ekonomia

**Aurrezki kutxako** presidente Xabier Iralak atzo iragarri zuenez. **Aurrezki-kutxako** langilearen txanda zen orain.

Kataluniako **aurrezki kutxak** hiru milioi euro inbertitu zituen gizarte lanetan; 180.000 bezero ditu. Berria - Ekonomia

Nafarroako **Aurrezki Kutxa** eta Iruñeko Udal **Aurrezki Kutxa** fusionatu zirenean. Berria - Ekonomia

Frantziako **aurrezki kutxen** eredua gure bulegora egokitu eta zer gertatzen den ikusi nahi dugu Berria - Ekonomia

**11 *eskularruen kutxa*** autoaren taulako konpartimentua, gauza txikiak gordetzeko erabiltzen dena.

Gidariak **eskularruen kutxa** ireki zuen, kasete bat atera, eta irrati-kasetean ipini zuen. Juan Kruz Igerabide

**12** *hil-kutxa* ik **hilkutxa**.

**13 *kutxa automatiko*** *(20 agerraldi, liburu 1 eta 14 artikulutan)* banku edo aurrezki kutxa batekin konektaturiko makina, bezeroari, txartel kodedun baten bidez, hainbat banku eragiketa egitea ahalbidetzen diona.

**Kutxa automatikoen** sarea. Berria - Euskal Herria

Bere emazteak **kutxa automatiko** batetik dirua atera eta lapurtzen saiatu ziren. Berria - Kirola

Txartela **kutxa automatikoaren** barruan trabatuta gelditu. Berria - Ekonomia

Kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko BBKren **kutxa automatikoetan**. Berria - Kultura

Lau **kutxa automatiko** eta telefono kabina bati su eman diete Arrasaten eta Gasteizen. Berria - Euskal Herria

**Kutxa automatiko** bat erre edo etxe baten aurka molotov koktelak jaurtitzeagatik. Berria - Euskal Herria

· Diru- **kutxa automatikoa,** segurtasunezko kutxa. Jon Alonso

**14 *kutxa beltz****sup_1*

Mahai biribil baten gainean, aldizkariak kartoizko **kutxa beltzetan** zeuden pilaturik. Monika Etxebarria

Hildakoak lurperatzeko erabiltzen dena bezalako **kutxa beltz** batean. Juan Garzia

PSE-EEko zinegotziaren auto azpian ere **kutxa beltz** bat topatu zuten bere bizkartzainek, ibilgailuari itsatsita. Berria - Euskal Herria

**15 *kutxa beltz****sup_2* hegazkinetan, hegaldiaren gorabeherei buruzko informazioa biltzeko gailu elektronikoa duen kaxa blindatua.

Frantziako urpekari talde batek Itsaso Gorrian larunbatean erori zen hegazkinaren bi **kutxa beltzetako** bat topatu du. Berria - Mundua

Hondakinen artean aurkitutako **kutxa beltzek** ez dute asteartean ia aldi berean lurra jo zuten bi hegazkinen istripuaren inguruko informaziorik, Errusiako agintariek atzo adierazi zutenez.

**Kutxa beltzak** ez daude ondo irakurtzeko moduan. Berria - Mundua

Egunerokoa, hegazkinek eraman ohi duten **kutxa beltz** horietako baten antzekoa egin zait. Patxi Zubizarreta

**16 *kutxa beltz****sup_3* diru beltzaren kaxa.

Egiaztatu ahal izan da, gezurrezko balantzeek kapitala baino handiagoa den zorra ezkutatzen dutela, agintariak **kutxa beltzekin** aritzen direla, Suitzan elkarte fantasmak eta kontu sekretuak dituztela, ez dutela ez zergarik ez segurtasun sozialik ordaintzen Berria - Kirola

**17 *kutxa gotor***

Powers tenienteak idazkaritzako armairu batean ezkutaturiko **kutxa gotorra** zabaltzen zuen bitartean. Zutitu eta koadro baten atzean zegoen **kutxa gotor** batetik gutunazal bat hartu zuen. Alberto Ladron Arana

Harry Potter jaunaren **kutxa gotorretik** diru apur bat eroatera etorri gara. Iñaki Mendiguren

Aurreko denboraldian Denoueixen hamaikakoak **kutxa gotor** baten konbinazioa baino zurrunagoak ziren. Berria - Kirola

Gizona **kutxa gotor** baten antzera zegoen babestuta. Koldo Biguri

**18 *Noeren kutxa***

Errusiako aditu talde bat **Noeren kutxaren** bila abiatu da Ararat iparraldera. Berria - Gaiak

Herri zikin honetan gizon zintzo apurren etxeak ur gainean igerian ibili ahal izango balira **Noeren kutxa** bezala, [...]. Koldo Biguri

Euri-erauntsia ari duenean, gu txabola barruan eserita, **Noeren Kutxa** batean bezalatsu. Joxe Austin Arrieta

Lehen begiratuan, **Noeren Kutxatik** irtendako animaliek areago dirudite Artistaren batek zein bere aldetik irudikatuak, biziaren aniztasun zabalaren ñabardura infinituetan laketzen zuelarik egile horrek bere fantasia. Juan Garzia

**19 *posta-kutxa****sup_1*

**Posta-kutxa** baten zenbakia eman nizun. Eduardo Matauko

Torturaren Kontrako Taldea (Agirika) **Posta Kutxa** 113. Berria - Euskal Herria

Helbidea: Hizkuntza Kontseilua, **Posta Kutxa** 16, 64480 UZTARITZE-USTARITZ. Herria

Idatzi Balançoneko H.G. **posta kutxara**. Josu Zabaleta

**Posta-kutxako** giltza ere berak gordetzen zuen. Ander Irizar

**20 *posta-kutxa****sup_2* postontzia.

Hamar minutuero **posta kutxara** jaisten nintzen, postariak zerbait utzi ote zidan ikusteko. Ramon Saizarbitoria

**Posta-kutxan** propaganda baizik ez du aurkitu. Iban Zaldua

Juan Mari **posta-kutxa** baten bila irten da etxetik. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**armadaren kutxa** (4); **asurantza kutxa** (6); **aurrezki kutxa** (36); **axurantza kutxa** (4); **baionako kutxa** (5); **beirazko kutxa** (4); **beteriko kutxa** (7); **betetako kutxa** (5); **bidaia kutxa** (4); **bilbao bizkaia kutxa** (7); **biolin kutxa** (8); **diru kutxa** (27); **diruen kutxa** (4); **donosti aurrezki kutxa** (5); **donostia hiriko kutxa** (4); **egindako kutxa** (4); **egurrezko kutxa** (6); **elkartasun kutxa** (7); **erein euskadiko kutxa** (6); **erien asurantza kutxa** (6); **erien axurantza kutxa** (4); **erresistentzia kutxa** (4); **euroko kutxa** (4); **euskadiko kutxa** (10); **gasteizko vital kutxa** (4); **gipuzkoa donostia kutxa** (7); **hauts kutxa** (4); **hil kutxa** (4); **hiriko kutxa** (4); **hitzen kutxa** (9); **israelen jainkoaren kutxa** (5); **itun kutxa** (62); **itun kutxa estaltzen** (4); **itun kutxa zeramaten** (10); **jainkoaren kutxa** (39); **jaunaren itun kutxa** (27); **jaunaren kutxa** (31) kartoizko kutxa (24); **kristalezko kutxa** (5)

**kutxa automatiko** (9); **kutxa bakarra** (14); **kutxa bat atera** (5); **kutxa batean sartu** (5); **kutxa batean sartzen** (4); **kutxa batetik atera** (4); **kutxa beltz** (6); **kutxa beltza** (5); **kutxa berezi** (5); **kutxa berria** (4); **kutxa eraman** (8); **kutxa erregistratzailean** (6); **kutxa eskuan** (4); **kutxa estaltzen** (4); **kutxa gotor** (6); **kutxa gotorra** (5); **kutxa handi** (19); **kutxa handi bat** (6); **kutxa handia** (5); **kutxa hartu** (11); **kutxa hutsak** (5); **kutxa ireki** (25); **kutxa ireki zuen** (8); **kutxa irekitzeko** (4); **kutxa itxi** (8); **kutxa ttiki** (4); **kutxa txiki** (17); **kutxa txiki bat** (6); **kutxa zabaldu** (15); **kutxa zabaldu zuen** (7); **kutxa zahar** (7); **kutxa zahar batean** (4); **kutxa zeramaten apaizak** (5)

**musika kutxa** (6); **nafarroako kutxa** (7); **noeren kutxa** (6); **pandoraren kutxa** (7); **posta kutxa** (9); **vital kutxa** (23); **zapata kutxa** (4); **zigarro kutxa** (6); **zurezko kutxa** (15)

**asurantza kutxak** (11); **aurrezki kutxak** (57); **axurantza kutxak** (6); **baionako kutxak** (7); **bilbao bizkaia kutxak** (12); **bilbo bizkaia kutxak** (4); **diru kutxak** (7); **erien asurantza kutxak** (7); **erien axurantza kutxak** (6); **euskadiko kutxak** (51); **gipuzkoa donostia kutxak** (20); **kataluniako aurrezki kutxak** (5); **kutxak hutsik** (4); **nafarroako kutxak** (29); **vital kutxak** (50)

**aurrezki kutxako** (16); **axurantza kutxako** (5); **erien axurantza kutxako** (5); **euskadiko kutxako** (21); **euskadiko kutxako txartel** (4); **gipuzkoa donostia kutxako** (9); **kutxako giltza** (4); **kutxako gizarte ekintzak** (4); **kutxako kontrola** (5); **kutxako presidente** (8); **kutxako presidentea** (4); **kutxako presidenteak** (11); **kutxako txartel** (4); **kutxako zuzendariak** (4); **nafarroako kutxako** (10); **vital kutxako** (35)

**aurrezki kutxan** (11); **axurantza kutxan** (4); **diru kutxan** (8); **erien axurantza kutxan** (4); **euskadiko kutxan** (5); **kutxan gorde** (9); **kutxan sartu** (20); **kutxan sartu zuen** (5); **kutxan sartzen** (4)

**kutxara bota** (4); **kutxara itzuli** (5)

**vital kutxarekin** (5)

**aurrezki kutxaren** (15); **axurantza kutxaren** (7); **bilbao bizkaia kutxaren** (4); **dendako diru kutxaren** (4); **diru kutxaren** (8); **erien axurantza kutxaren** (7); **euskadiko kutxaren** (21); **gipuzkoa donostia kutxaren** (5); **itun kutxaren** (10); **jaunaren kutxaren** (4); **kutxaren barnean** (5); **kutxaren barruan** (8); **kutxaren estatutu berriak** (7); **kutxaren giltza** (4); **kutxaren gizarte** (8); **kutxaren mozkin** (4); **kutxaren ustez** (5); **nafarroako kutxaren** (34); **vital kutxaren** (16)

**diru kutxatik** (4); **kutxatik atera** (11)

**kutxaño** *iz* kutxatxoa.

**Kutxaño** batean preso den euliaren gisan ari zara, den eta zirrikiturik tipiena kausitu ezinik ilunpean. Xabier Montoia

---

kutxarada ik **koilarakada**.

---

kutxare ik **koilara**.

---

# kutxatila 1 *iz*

**Kutxatila** itxi bat zeraman berekin aita-amen oroigarri bakarra. Javi Cillero

**Kutxatilan,** amak arropa zuria gordetzen zuen armairuan. Ander Irizar

Amak bazuen **kutxatila** bat, eta hantxe gordetzen zuen gure altxor guztia: eraztun batzuk, idunekoak eta urrezko besokoak, eta xaboi bat, azkenekoa, Akren gure hirian erosia. Juan Kruz Igerabide

Dirua gordetzeko **kutxatila** ezkutu bat ere bazegoen, kanpotik antzik ematerik ez bazegoen ere kutxaren albo batetik irekitzen zena. Jose Morales

Atzerago, **kutxatila** ugari -estalkidunak zein estalkigabeak-, gauza laburretarako, bisita-txartelez, hil-mezuz, antzerki-sarrerez eta Txitxikovek oroigarri gisa gordetzen zituen bestelako paperez beterik. Jose Morales

Urrezko berrogei mila libera zeuden, zilarrezko hiru mila libera, eta, latorrizko **kutxatila** batean, berrogeita bi mila libera banku billetetan. Karlos Zabala

Filakteriak larruzko bi **kutxatila** dira, larruzko zintak atxikiak dituztenak, eta Pentateukoko pasarteak dituzte barruan, hebreeraz idatziak. Koro Navarro

Zilarrezko **kutxatila** bat, giltzarik gabea. Javi Cillero

Idazluma zoragarri hura larru gorrizko **kutxatila** batean zetorren. Josu Zabaleta

Arrosondo-zurezko **kutxatilan** aurkitu omen ditu. Ander Irizar

Hasieran pentsatu dut virginiar bat hartu dizula zigarroen **kutxatilatik**. Anton Garikano

Nik manikurako **kutxatilarik** ez nuela erabili erantzun nion. Josu Zabaleta

Erresistentziako borrokalari boluntarioaren gurutzea, Erresistentzian borrokatzeagatik deportaturikoen domina eta Borrokalariaren gurutzea, gordetzen zituzten hiru **kutxatila** xapalak. Joxan Elosegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure poltsan, liburuak, koadernoak eta arkatz-**kutxatila** bat zeuden. Juan Kruz Igerabide

Zorionez, laster jakin nuen bera ere xakezalea zela eta, nola nik beti ere xake-**kutxatila** aldean eramaten dudan, horratx gure salbazioa. Joxe Austin Arrieta

Eta funtzionarioak adeitsuki ireki zuen marrazki dekadentista batez apaindutako zilarrezko tabako-**kutxatila**. Jose Morales

Zur finezko zigarreta-**kutxatilak**. Mirentxu Larrañaga

Aitak dozena erdi bat zigarro-**kutxatila** izaten zituela prest, marka desberdinetakoak, zetorrena zetorrela ere, gustukoren bat aurki zezan. Arantxa Iturbe

Lau horma zabalak zurezko fitxa-**kutxatilaz** estalirik zeuden abezedarioaren arabera, "G" hizkiarena hartu eta izenak pasatzen joan zen fitxa aurkitu arte. Iñaki Zabaleta

Posta **kutxatilak** badaude Harkaizpeko elizpean. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zurezko kutxatilan (3)

---

# kutxatilategi *iz*

Mahai bat, **kutxatilategi** bat, besaulki bat, bi aulki eta berogailu bat ziren hango altzariak. Karlos Zabala

Bilkari etiketadunak **kutxatilategitan** sailkatuta zeuden, horma-armairuen barruan, jakintza-adarka sailkatuta: literatura, filosofia, zientzia eta teknika. Jon Muñoz

---

# kutxatilatxo *iz*

**Kutxatilatxo** bat zilarrezkoa eta bestea zurezkoa. Pello Zabala

---

# kutxatxo 1 *iz* kutxa txikia.

Diametroz zortzi zentimetro inguru dauzkan eskuz landutako zurezko eta metalezko **kutxatxoa**. **Kutxatxo** baten itxura zuen, maitaleen irudiak eta ile-matazak gordetzeko balio duten kutun horietako batena. Sonia Gonzalez

Ebek zerbait eduki behar du erreserban bere **kutxatxoan,** lurretik metro batzuetara igoko nauen zerbait. Sonia Gonzalez

Billete berriak marfilezko **kutxatxo** batean gordetzen zituen, armairuaren sakonenean. Patxi Zubizarreta

Indiako bolizko **kutxatxo** batzuetan gordetzen ziren gonbidatuentzako urrin sutsuak. Juan Garzia

Biwa bost sokako laute txiki bat da, Europan Berpizkunde garaian erabiltzen zenaren nolabaiteko antza duen musika-tresna: **kutxatxo** sabelduna, kalabaza luze baten erdia bezala, pertika edo ezpata labur eta mehea, eta zurezko bost ziri sokak tenkatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Paketea CDak gordetzeko tankerako **kutxatxo** beltz bat zen eta autoari itsatsita zegoen iman batekin. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Poxpolo **kutxatxo** bat zen, Moulin Rougeren irudia azalean. Koldo Izagirre

Harri bitxi bat erosiko niola erabaki nuen, bitxi polit bat, zinez, erosi eta bere bitxi **kutxatxoan** jarri nuen, tximinia erlaitzean. Josu Zabaleta

Sorpresa **kutxatxoa** naiz. Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kutxatxoa atera (3)

---

# kutxatzar *iz*

Soldadu bat zaldi gainean -herrestan eramanez "Artilleriako hainbatgarren bateria" idatzirik daukan **kutxatzar** berde bat, berunezko balaz betea-. Jose Morales

Barre-zantzo lazgarriak entzun ziren aretoko ataurrean, eta Herio atera zen aretoaren hondo-hondoan zegoen **kutxatzar** batetik. Anjel Lertxundi

---

**kutxazain** 1 *iz* dendetan eta kidekoetan, ordaintzeko kutxaz arduratzen den pertsona.

Kutxan ordaindu eta, bueltako penike xehea hartzea ahazturik, **kutxazainak** atzetik hots egin zionean. Irene Aldasoro

**Kutxazaina** ez zen han, zerbitzaria ere ez, ezta Fasquelle jauna ere. Monika Etxebarria

Nola emakume bat eztabaidan aritu zen janari-dendako **kutxazainarekin**. Mirentxu Larrañaga

Leihatila aldera makurtu nintzen, gaua zen, **kutxazaina** ilegorria, eta esan nion: "Txartel bat!". Fernando Rey

**2** banku eta kidekoetan, diru kutxaz arduratzen den pertsona.

Sei langile aritzen dira bertan, **kutxazaina,** kontabilitateburua, beste bi enplegatu, kontabilitateko neska bat eta zaintzaile bat. Xabier Olarra

Bulegoaren pareko atari batean gelditu zen, **kutxazaina** bakarrik irteten ote zen zaintzen. Irene Aldasoro

Eska ote ziezaiokeen, pertsonalki, diru aurrerapen bat **kutxazainari**? Irene Aldasoro

Agian emango zion Alleyne jaunak zor-agiri bat **kutxazainari** aurkezteko. Irene Aldasoro

Urte asko zeramatzan **kutxazain** Baggot Streeteko banketxe pribatu batean. Irene Aldasoro

-**Kutxazainen** burua izan da. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan)

Anita hiribideko bulegoan **kutxazain** lanetan ari nintzen, Glendalen ditugun hiruretako txikienean, eta dugun bulegorik txikienean, bestalde. Xabier Olarra

**4** kutxa automatikoa.

Josebak billete sorta bat atera zuen: 500 euro **kutxazainetik** atera berriak. Fernando Morillo

Bankuko **kutxazain** batetik dirua ateratzen ari zarela, makina batek segurtatuko du zure kontuan baduzula diru nahiko nahi duzun hori eskuratzeko. Pello Salaburu

Norbaitek **kutxazain** bat erretzen baldin badu. Pello Salaburu

**5** ***kutxazain automatiko*** *(14 agerraldi, 6 liburu eta 6 artikulutan)* kutxa automatikoa. ik **kutxa 13**.

Kaleetan dauden **kutxazain automatiko** horietan egiten bada eragiketa oraindik apalagoa da kostua: 27 ehuneko bakarrik. Pello Salaburu

**Kutxazain automatikora** joan nintzen, propio ere ez, ohituraz bezala, edo denborapasan; klabea markatu, eta saldoa eskatu nuen. Karlos Linazasoro

**Kutxazain automatikoetan** erositako sarreren dirua kutxazainen bidez itzuliko dute. Berria - Kultura

Astelehena zen; ziur nago, bezperan etxepeko **kutxazain automatikoa** hirugarren aldiz erre zutelako, eta igande gauetan gertatu ohi zirelako horrelakoak. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kutxazain automatikoen** (3); **kutxazain automatikora** (3)

---

**kutxila** *(orobat **kutxilla**)* **1** *iz* bizarra egiteko makinez mintzatuz, xafla.

Aitari bizarra mozteko makina hartu nion eta belarri ondoko bizarra mozteko atalaz aurpegi osoa pasatu nuen, aitak berak esan baitzidan **kutxilak** zuzenean nire ile luzesketan jarriz gero tiraka min egingo zidala. Aitor Arana

**2** marraza; ahoa.

Heldu nauk ba hara eta, ni bazterretara begira, han kanpoan **kutxillari** sakatzeko palankaren bat ote zegoen; lehen izaten zuan ba. Pablo Sastre

Alanbreen **kutxilan** geratu da iltzatuta, haizea dariola. Jokin Urain

---

**kutxiladun** *izond* ahoduna.

Baloietako bat hartu eta alanbre **kutxiladunari** jaurti dio, txoriaren albora, astinaldiarekin txoria jaregingo delakoan. Jokin Urain

---

kutxilla ik **kutxila**.

---

kutxillo ik **kutxilo**.

---

**kutxilo** *(orobat **kutxillo**)* *iz* ganibeta, aiztoa.

Behin, ahapeka, **kutxiloa** erabiltzen erakutsiko ziela agindu zien. Berria - Kultura

**Kutxilloa** sartu dioten norbaiten garrasia iruditu zitzaidan niri. **'Kutxilo** zikin hori bota egin behar dugu', esan du emazteak, baina ez du bota. **Kutxilloa** eta eskua, besterik ez da niretzat zinemaren historian. Bernardo Atxaga

---

kutxina ik **kuxin**.

---

kutxu ik **kutsu**.

---

**kutxu-kutxu** *adlag* astiro-astiro.

Han atzeman nuen Pierre-Philippe aprendiza, **kutxu-kutxu** zerbaixka ari zela. Daniel Landart

---

**kutzu-kutzu** *adlag* astiro-astiro.

Nundik zer jakinen duten alde bat **kutzu-kutzu** dabiltzan berriketari batzuek pollitak ikasi dituzte Pariseko "Canard Enchainé" astekariarentzat ! Herria

---

**kutzukatu,** kutzuka, kutzukatzen du *ad*

Lau andere biluzik **kutzukatzen** ari direla badirudi. Berria - Kultura

---

**kutzukeria** *iz* txutxu-mutxua

Jendeketa haren ikusteak saratarren baitan jitezkoa den **kutzukeria** areagotu zuen. Elena Touyarou

Arras ongi uler lezake aspaldian ikusi ez duen adiskide gazte batek, gerlako solasak baino nahiago dituela oraingo istorioak aipatu eta, berdin, **kutzukeriak** . Eneko Bidegain

Azkenean bere liburu hau irakurtzera bultzatu nauena kantari bat izan da, azken aldion Frantzian nahiko famatua bihurtu den Vincent Delerm (Philippe Delerm idazlearen semea, portzierto, prentsa larrosaren **kutzukeriak** maite dituztenenei ere berea emateko). Berria - Kultura

**-Kutzukeria** lanetan -zuzendu zuen Marik, beti irriz. Elena Touyarou

---

**kutzumutzu** *iz* txutxu-mutxua.

Jendeen artean zegoen Janinak irrati bidezko **kutzumutzu** horiek behatzen zituen, bistan dena, Pannecau karrikako Chadefaud-en ostatuko gela handian. Itxaro Borda

---

**kuwaitar** *(orobat **kuwaitiar** g.er.)* *izlag/iz* Kuwaitkoa, Kuwaiti dagokiona; Kuwaiteko herritarra.

Margak nola topatuko zuen, ez dakit; ondo pentsatuta, ez zen horren zaila izango, portuan ez ziren egongo eta **kuwaitar** banderapeko itsasontzi asko. Iban Zaldua

Fauzi al Oda **kuwaitarra** da gose greba egiten ari den presoetako bat. Berria - Mundua

**Kuwaitar** gazte bat. Iñigo Aranbarri

Izena Yassin zuela esan zigun, eta **kuwaitarra** zela. Iban Zaldua

Urrundik agurtu gintuen **kuwaitarrak,** pozik antza, eta guregana hurbildu zen. Iban Zaldua

---

kuwaitiar ik **kuwaitar**.

---

**kuxelu** *iz* sekretua.

Gau apaletan **kuxeluz** bezala etortzen zitzaidanean modazko eta bihotzeko aldizkariak oparitzen zizkidan. Itxaro Borda

Goiz hartan **kuxeluan** miretsiak ez zidan [...] zalantza anitzik sortzen. Itxaro Borda

Dinamita abarrak hartu zituen, eta **kuxeluz kuxelu** bazterrak azterturik, zuloaren tapakia hertsi zuen. Itxaro Borda

---

**kuxet** *iz ipar*

Langile akituari billetea erakutsi zion, eta honek arkatzaz **kuxetaren** zenbakia gurutze grisez markatu zuen. Itxaro Borda

Hameka ginen, bat bestearen gainean, hiru lerrotako **kuxetetan,** treinian bezala, toki guttirekin... Menane Oxandabaratz

---

**kuxidade** *(orobat **kuixidade** g.er.)* **1** *iz* txunkuntasuna.

Oso gizon txukuna zela, **kuxidadearen** maniatikoa ere bai, esaten dute berarekin bizi edo ibili behar izan zutenek. Koldo Izagirre

Lana espultsatu egin da kaletik, **kuixidadearen** izenean, estetikaren izenean. Berria - Kultura

Ortega-k aski **kuxidadez** jokatzen du testualki, Schelling-i ez mintzarazteko "arrazaren mitoaz". Joxe Azurmendi

**2** txukuntasunik eza edo.

-Hau **kuxidadea** ! -esan zion Patriciak, haurrarengana hurbildu eta eskuetatik helduz-, blai eginda zaude! Koro Navarro

Nire txukuntasunerako obsesioak ez luke sekula halako **kuxidaderik** onartuko. Karlos Linazasoro

Eta barkatzeko **kuxidade** hura, atariko lokaztia eta bertako lahar eta asun ugariak, baina lan handiegia zela etxea irentsi gabe basoari eustea, bakarrik eta zaharturik, zabarturik, bizi den gizon zaharrarentzat. Hasier Etxeberria

Preso gosari-ekarlea behartu ez dezaten zuk utzitako **kuxidadea** garbitzera. Koldo Izagirre

-Zer da, gero, **kuxidade** hau? Joxerra Garzia

**Kuxidade** ederra utzi behar duzue sukaldean... Xabier Mendiguren Elizegi

**3 *kuxidadea ez izan***

Anttoni zena hil zitzaionez geroztik buruan jotako sugea bezala omen zebilen gizajoa, ezertarako gauza ez zela, eta ez omen zen **kuxidadea** etxe hartakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hura ez zela **kuxidadea** esan ohi zidan Florak, sardina latakoak jaten ikusten ninduenean. Ramon Saizarbitoria

Nik orduko eskuan neukan otarrain arraio hura, erraustokira botatzeko prest, ez baitzen **kuxidadea** abakando batengatik neure burua hala bortxatzen uztea... Joxe Austin Arrieta

Jakina, larru jotze garbiraino ez beste zera guziak jo litezke zirritzat, baina, ez da hori **kuixidadea,** errealitate zakarra baizik; euskaldunak maiz bortxatu baititu, esaera eder honen mugak. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuxidade ederra** (3)

---

**kuximuxi** *iz*

Lagunartean ez ezik, herriko jende ezagun samarrarekin ere dena zen umearentzako **kuximuxi** eta txutxuputxua, gurasoak ere pozez hartu behar duen tximinokeria hori guztia. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**kuxin** *(orobat **kojin** g.er. eta **kutxina**)* *iz*

Hori bai, **kuxin** bat jarri behar izaten dut gainean esertzeko, ipurtezurra gehiegi ez hondatzeko. Josu Zabaleta

Sofa txukundu eta **kuxinei** buelta eman nien. Koro Navarro

Guztiak besaulkietan baldar eseri edo **kuxinetan** hondoratu ziren. Iñaki Mendiguren

Bazterretan **kuxin** ttikiak zeuzkan eta tapiz pertsiar bat zoruan. Patxi Zubizarreta

Lurrean **kuxin** batean eseri nintzen, nire belaun jasoak beso artean hartuta. Josu Zabaleta

Une hartan zigarreta hatzen artetik irristatu eta **kuxinen** artera erori zitzaion. Koro Navarro

Duelua **kuxinak** ezkutu gisa erabiliz egiten genuen, ohe gainean saltoka. Pello Lizarralde

**Kuxinak** botatzen dizkiote elkarri eta barrez ari dira **Kuxin** zaharra piltzarretan desegin zen, kirurgia estetikoak birrindutako azal zahar bat balitz bezala. Jon Muñoz

Mixelek izan duen kuraiaren lekuko, ohorezko sari batzu **kutxina** baten gainean hor ziren ere. Herria

Koroa bat belusezko **kuxin** baten gainean eramaten ari balitz bezala zihoan. Oskar Arana

Lepo-toles guztiak batu egin zaizkio eta girgilo bakar bat osatu, larruzko **kuxin** borobil lodi bat. Itziar Otegi

· Zutabe txikienaren gainean akerra dago, **kuxina** ere deitzen dena; luzean bi zulo eta erdi ditu, beste hainbeste altueran eta zulo baten hiru laurden zabalean. Santiago Iruretagoiena

---

**kuxindun** *izond* kuxinak dituena.

Haragi errearen usaina zegoen jatetxe baten zoko batean, banku **kuxindunetan** eseri ziren. Lopez de Arana

---

**kuxintxo** *iz*

Horrela iragan zen Katherineren lehen gaztaroa, atsoak farfailgintzarako **kuxintxo** baten aurrean esertzen eta pazientziaz txirrika guztietako hariak xuxen gurutzatzen irakatsi aurretik. Juan Garzia

---

kuxku ik **kusku**.

---

**kuxkula** *iz*

Dantzaritaz bestalde zonbat haur ttipi ikusten da dantzariz bezti, mutiko ttipiak, beren bezti xuriekin **kuxkula** eta xingolez untsa apaindurik eta nexkatuak, kontra dantzetako beztiekin. Herria

---

**kuxkulatu** *izond*

Neska panpina bat, ile **kuxkulatu** batzuekin, aurpegi guzia gaitzeko irri zabalak dena argitzen... Janbattitt Dirassar

Gaztea zen, haren bilo luze, horail, **kuxkulatua,** lepo behereraino erortzen zen. Michel Oronoz

---

**kuxkuldu,** kuskul, kuxkultzen da/du *ad* kuzkurtu.

Adibidez, barruak libratzeko makurtu, kuxkurtu, **kuxkuldu** edo eseri egiten da. Iñaki Segurola

Inork ez baitzuen lortzen Barbarak bere baitan **kuxkuldurik** zeukan animaliatxo izu hura suspertzerik. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**kuxkur** 1 *adlag* kuxkurturik.

Katedraleko sarrera atzeman zuen eta hango ilunpean, ama-ontzi bero eta harkor batean nola, umekia bezain **kuxkur** belaunikatu zen. Itxaro Borda

**Kuxkur** itsasoari begira egon nintzen unearen zabalaz ez nintzen jada oroitzen. Itxaro Borda

2 ***kuxkur-kuxkur*** erabat kuxkurturik.

Ni estufa ondoan **kuxkur-kuxkur** nengoen. Matías Múgica

Holakoetan, eguna bada, lo egiten duen zuloan gordeko da, **kuxkur-kuxkur** eginda. Gotzon Garate

---

**kuxkurbildu** *izond*

Filologoa erotu egiten da jardun merkearekin, [...], hau da, esanari esanahia gailentzen ikustearekin: kasik begiz ikusi beharreko esanahi **kuxkurbildu** bat, ideia argi bat, esan baino lehen esana eta jakina dagoena. Iñaki Segurola

---

**kuxkurtu,** kuxkur, kuxkurtzen da/du *ad adkar* kuzkurtu.

Barruak libratzeko makurtu, **kuxkurtu,** kuxkuldu edo eseri egiten da [gizabanakoa]. Iñaki Segurola

Azkenean, gizona, harresiko leiho txiki batera hurreratu, **kuxkurtu,** salto egin eta hara sartu da. Pedro Alberdi

Emazte zaharra orduan bere jargian **kuxkurtzen** zen, harremanak erre zitzakeen haserreak etxebizitzen mugak gaindituko bide zituelakoan. Itxaro Borda

Erantzuna igurikatu gabe, gizonaren besotan **kuxkurtu** zen, papondoa pott arinez estaltzen ziola, loaren aztaparrek astiro, linboetara eraman artean. Itxaro Borda

Bere osabaren letra [...] oso txikia zen, eta Teresak **kuxkurtuta** eduki zituen begiak irakurketak iraun bitarte guztian. Bernardo Atxaga

Nire alboan **kuxkurtuta** zegoen, ohearen tapakiak buru gainetik zituela. Bernardo Atxaga

Haserretu egin da -pentsatu zuen, bihotza **kuxkurtuta,** amak. Pablo Sastre

Orduan hizkuntza, bere azken arnasetaraino **kuxkurturik,** sinbolo huts bihurtua geneukake. Iñaki Segurola

---

kuxkusean ik **kuxkuxean**.

---

kuxkusero ik **kuxkuxero**.

---

**kuxkuxean** *(orobat **kuxkusean** g.er. eta **kuskusean** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kuxkuxean** agertzen da) iz*

Egun eguzkitsu luze haiek dendetan **kuxkuxean** ematen zituen Harryk. Iñaki Mendiguren

Beste korridore batean **kuxkusean** inork aurkitzerik nahi ez, eta zuzenean irakasle-gelara joan ziren; hutsik zegoen. Iñaki Mendiguren

Hala egin baitaiteke betaurreko ilunak daramatzazunean: gelditu, zigarreta erre, eta **kuxkuxean** bazterrak miatu, patxada ederrean. Joxe Austin Arrieta

Egunkariek diotenez, gisa horretara ibiltzen dituk, inguruan **kuskusean,** sua ikusteko. Lopez de Arana

Harryk ondo ikusten ez zuen animaliaren bat **kuxkuxean** zebilen zilar-koloreko belardian. Iñaki Mendiguren

Tarteka-marteka erakusleihoren baten aurrean geratzen zen, **kuxkuxean** aritzeko, erakusgai zituzten janzki udazken goiztiarrekoei begira. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuxkuxean ibiltzea** (4)

---

# kuxkuxeatu, kuxkuxea, kuxkuxeatzen du *ad*

Egongelan, Leire leihora hurbilduta zegoen, bere ama eta izeba egiten ausartzen ez zirena egiteko; **kuxkuxeatzeko,** alegia. Aitor Arana

-Bueno, kontua da **kuxkuxeatzeko** denbora franko izan genuela aitona Patxi eta amona Mariren etxean: ziurta diezazuket ez zutela gela berean lo egiten. Iban Zaldua

Ez zen asko luzatu leihatilatik **kuxkuxeatzen** eta laster erretiratu zen handik. Joxemari Iturralde

---

# kuxkuxera *iz*

**Kuxkuxera** mari-sorgin galanta da nik uste. Xabier Olarra

---

# kuxkuxero *(orobat **kuxkusero** g.er. eta **kuskusero** g.er.)* *izond*

Besteen berbaldiak entzuteko horman belarria jartzen duten atso **kuxkuxero** horietako baten modura. Joxemari Iturralde

Orduko, bele **kuxkuxeroak** zerurantz joanak ziren, kakaraka, behin beren gaiztakeria odolzalea burututa. Mirentxu Larrañaga

Beheko su bizi-biziaren aurrean eseri ziren hirurak, piztia **kuxkuxero** eta susmagarrien kasu ospetsuei buruzko liburukote hautseztatuen orrialdeak astiro pasatuz. Iñaki Mendiguren

Nolanahi ere, irakurketa **kuxkuxero** hau oso mugatua da. Markos Zapiain

Goazen zure etxera, erosoago eta lasaiago egongo gara, **kuxkuxeroengandik** libre gainera. Migel Angel Mintegi

**Kuxkuxero** eta sudurluze guztiengandik urrun. Aitor Arana

Beste batzuek, ostera, jakinmina izaten dute, jakinluzeak izaten dira, **kuskuseroak,** eta erantzun nahi izaten dute. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuxkuxeroaren mapa** (9)

---

# kuzina ik **kozina**.

---

# kuzinatu ik **kuzinatu**.

---

# kuzkatu, kuzka, kuzkatzen du *ad ipar*

Burutazio antzuak birindika baztertu nituen eta jendeak **kuzkatuz,** Pierrarekiko mintzaldi lehor baten lehiaz bidea urratu nuen. Itxaro Borda

Aitzina ari nintzen, korrika, hatsak eman ahala, jendeak banaka **kuzkatuz** eta taldeka urratuz. Itxaro Borda

---

# kuzkur 1 *adlag* kuzkurturik.

Ez nekien zenbat denboraz egon nintzen horrela **kuzkur** eta funtsean gaztelu antzeko etxe honetan ene arima galdua jabeari itzultzeko deliberoa harturik. Itxaro Borda

Ikusi ere egin gintuen ate atzean nola geunden **kuzkur** demonio, baina, ezikusia eginda aldegin zuela uste dut, gure kakalarriaz errukiturik. Patziku Perurena

## 2 *kuzkur-kuzkur*

Kamiseta eta galtzontziloak erantzi gabe oheratu zen, plazentan dagoen haurraren antzo, **kuzkur-kuzkur**. Irribarre egin du aita gogoratu duenean aulkitxo horietako batean jarria, belaunak bular parean **kuzkur-kuzkur** eginik. Unai Iturriaga

**Kuzkur-kuzkur** eginda geratu zen, harik eta hauts-izpien neurriko izan arte, bere iparraren xerka, harkaitz eta harritzen artean, bide-ertzeko errekasto orrolariaren, lasto luzeen eta arekako motore-olioz osatutako aintziren artean. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kuzkur eginda** (3); **kuzkur eginik** (3); **kuzkur kuzkur** (8); **kuzkur kuzkur eginda** (3); **kuzkur kuzkur eginik** (3)

---

# kuzkurtu, kuzkur(tu), kuzkurtzen 1 da *ad* zerbait, bereziki gorputza, tolestu edo bildu.

Zuhaitz biluzi baten atzean **kuzkurtuta** eta hotzak nengoela, zakur bat inguratu eta usainka aritu zitzaidan. Koro Navarro

Sarri askotan bere burua lurrera bota eta [...] iraulka ibiltzen zen, lerdea zeriola; gorputz-atalak orain **kuzkurtu,** orain zabaldu, orain bildu eta okertu, orain zurrun jartzen zituen eta gogor. Askoren artean

Gorputza berez **kuzkurtzen** denean bezala. Jon Alonso

Txikiagotu egin da Niccolo; amaren besoetan **kuzkurtu** da. Jon Muñoz

Eta hantxe **kuzkurtuta,** pilota baten gisan kiribildurik, herioan ixten ditut begiak. Josu Zabaleta

Ezpain bueltako giharrak erabat **kuzkurtuta** zeuzkan, ez zen negarrez hasiko baina ezta barrez ere. Unai Iturriaga

Katua kaiolako txoko batean **kuzkurtu** da, koiotearen beldur bailitzan. Javi Cillero

· Etxartea lasterregi ilundu zen, hormak elkarri hurbildu zitzaizkion, eta sabaiak **kuzkurtu** egin ziren. Koro Navarro

• **2** (du aditz gisa)

Eskertu beharrekoa da Amabirjina ez zela kakapirria izan, ez behintzat Afonso haurtxoaren hankak berriz **kuzkurtzeko** beste. Jon Alonso

Hotzak **kuzkurturik** zihoan Kernan jauna. Irene Aldasoro

Emakumeek sorbaldak erorixe zituzten, hotzagatik bainoago beldurragatik, giza gorputzak **kuzkurtzen,** txikitzen eta ahultzen dituen sentimendu horregatik. Felipe Juaristi

Emazteak gehiago **kuzkurtu** ditu hankak edredoiaren azpian. Jokin Muñoz

Patrizioek sorbaldak **kuzkurtu** zituzten eta hatz erakusleaz zerua erakutsi zuen, bere patua haizearen esku zegoela adierazi nahian. Felipe Juaristi

• **3** ad *ad* makurtu.

**Kuzkurtu** eta hartu zion pultsua. Gotzon Garate

Adineko bi andre ikusi genituen gailurreko gurutze baten ondoan **kuzkurtuta** kandela bat pizten. Bernardo Atxaga

Beste urrats batzuk egin ditu semearengana **kuzkurturik,** begiak begietan, aitatxo bat besterik ez. Monika Etxebarria

Hermione lurreraino **kuzkurtu** zen izututa. Iñaki Mendiguren

Musulmanek **kuzkurturik** egiten dute pixa. Monika Etxebarria

Bere aitaginarreba eta senarra hilak zirela aditu zuenean, **kuzkurtu** eta haurra izan zuen, erdiminak etorri baitzitzaizkion. Elizen arteko biblia

**4** (era burutua izenondo gisa)

Habiatik jausitako txori bat esku artean hartzen denean bezala, haren gorputz **kuzkurtuan** bihotzaren taupada lasterra eta begietako izua sentitzen nuelako, emakume hura beso artean gordetzeko desiraren aurka borrokatu behar izan nuen. Ramon Saizarbitoria

Paisaia agor eta herrixka **kuzkurtuetan,** arrazaren jeinua ezkutatzen da orobat. Joxe Azurmendi

## kW *(orobat **kw**)* *iz* kilowattaren sinboloa.

Bizkaiko Badiako zentralak, berriz, 204 milioi **KW** ekoitzi zituen. Berria - Ekonomia

Euskal Herri osoan Boroako hau izango da 400 **kw**-ko garraio-aspieztazio trinko bakarra. Berria - Euskal Herria

## kyrie *iz*

Aitzinetik ere debozione osoz adituak nituen **Kyrie**-a eta Gloria, Credo-a hasi zenean. Joan Mari Irigoien

## kyrieleison *iz*

Elizaren jiran, **kyrieleisonak** eta litaniak abestuz. Pello Zabala

Misterioa, eta hurrena, **kyrieleisonak**! Pello Zabala

## kyrieleisondun *iz*

Pentekoste inguruko prozesio letaniadun eta **kyrieleisondun** haiek. Pello Zabala

## kyrieleisonka *adlag kyrieleison* esanez.

Errogatibak eginez, **kyrieleisonka**. 1426an, Madril aldean larri zen hiriburu osoa: San Isidro andetan hartuta, kaleotan zehar ibili ziren **kyrieleisonka**. Pello Zabala